

Egungo Euskararen Hiztegia

—S—

[bertsioa: 2024-01-09]

eskorpio ik scorpio.

sabai (orobat *sapai* g.er.) 1 iz gela baten, eraikuntza baten edo barne baten gainaldea, eta batez ere goialdearen barrualdea.

18.000 lagun inguru hartzeko tokia, lau jateke, zazpi taberna, bi kafetegi, janari lasterreko hogei saltoki, 66 gela pribatu; eta dena **sabai** bakar baten azpian. **Berria - Kirola**

Olinpiar igerilekuak ez du **sabairik**. **Berria - Kirola**

Harry tuneleko **sabaiari** begiratu zion. **Iñaki Mendiguren**

Tenplua eraikitzen bukatu zutenean, **sabaia** zedrozko habez eta oholez jantzi zuen. **Elizen arteko biblia**

Slytheringo egongela lur azpiko gela luze eta apal bat zen, hormak eta **sabaia** harri landugabeak zituen, eta **sabaitik** kateetan zintzilika lanpara berdexka biribilak zeuden. **Iñaki Mendiguren**

Lurretik hamar bat metrora, **sabaiak** bobedaren forma zeukan, argiari bidea egiten zion linterna eta guzti. **Bernardo Atxaga**

Rafaga batzuk bota zituzten, **sabai** aldera. **Jon Alonso**

Sabaian lanpara gorria zegoen zintzilik. **Agustin Otsoa**

Sabaian bi argizulo zeuden, eta bonbillen argia japoniar paperean zehar hedatzen zen. **Ibon Uribarri**

ik *beherago* 16. **Askoren artean**

Lizuna bezala sortzen da sotoen **sabaian**. **Koro Navarro**

Sabaiko haizagailuak egundoko zarata ateratzen du. **Harkaitz Cano**

Begiak **sabairantz** jasorik. **Anjel Lertxundi**

Aurrean distiratsu argituriko gela bat ikusi zuten, goian **sabaia** arku-itxuran zuena. **Iñaki Mendiguren**

Han gelditu ziren ene begiak, **sabai** azpiko armiarma sareetan. **Patziku Perurena**

Bat-batean **sabai** osoa erori zen hormen barrura, eta zeruraino altxatu zen gar mendi bat. **Josu Zabaleta**

Beldurra, adibidez, negutegiko **sabaia** aipatzeko, haren konponketa gastua. **Anton Garikano**

Haitzuloaren **sabai** eta hormetan. **Agustin Otsoa**

Nagiaren **sabaia** erraz eroriko, zabarraren etxean itaizur franko. **Elizen arteko biblia**

2 (izenondoekin)

Sabai zurian zurezko habe beltzak ageri; eta burdinazko hiru pantaila, lanparak uztai borobiletik zintzilik. **Txillardegi**

Sabai garaiko gela zen, arotzeria zahar, ilun eta astunekoa. **Mirentxu Larrañaga**

Ate nagusia atzean utzirik, **sabai** garaiko hall zabal baten sartu naiz. **Jon Arretxe**

Zabala zen, **sabai** altukoa, argia; eta modernoa erabat! **Jon Muñoz**

Gela iluna eta leihoirik gabea zen, **sabai** baxutik zintzilika zegoen oliozko kriseilu bakar batek argitua. **Iñaki Mendiguren**

Hirugarren mailako **sabai** lauraino igo zen, Dorrearen mailarik garaienera. **Agustin Otsoa**

Argia piztu zuten eta **sabai** zikin beltzetik zintzilik zegoen bonbilla txiki hautsez beteak zirkun egin zuen. **Felipe Juaristi**

Milioi bat euroko inbertsioa egingo du udalak Anoetako Belodromoan, eta erabat aldatuko du orain duen **sabai** zaharkitu, zulatu eta itoginez bete. **Berria - Kirola**

Harry barrura sartu zen, **sabai** okertua buruarekin ia ukituz. **Iñaki Mendiguren**

Sabai gangaduna zuen eta, oro har, kriptua ahoz behera jarritako kikara baten tankerakoa zen. **Alberto Ladron Arana**

Bainu beroen gaineko **sabai** gangatuak bikoitzak egiten badira, askoz ere egokiagoak izango dira. **Santiago Iruretagoiena**

Sabai intsonorizatuari so gelditu nintzen. **Aingeru Epaltza**

Handik gora begiratuta bospasei estaiak ikusten baitziren **sabai** burdinsareturaino. **Joxe Austin Arrieta**

Iluntzen ari zuten, argi izpiak geltokiko **sabai** kristalezko berde koloretik barrena irristatzen ziren behera, mila berdetan apurtuz eta zabalduz. **Felipe Juaristi**

Haien gela **sabai** apalekoa da, itogarria. **Josu Zabaleta**

3 (izenlagunekin)

Goi-goian, hodeietan ia-ia, lastozko **sabai** handiaren azpi-azpian, uzurtua zegoen Nofutur. **Jon Muñoz**

Ebanozko **sabaiaren** ertz beltzek distira zegiten. **Juan Garzia**

Horretatik, hain zuzen, irlandar eta beste hainbat herrialdeetako usadioa ere, zeinetan etxebizitza osatu eta burutu zenaren seinale, kanaberazko **sabaia** ematen zitzaion.

Pello Zabala

Harry gora begiratu eta belusezko **sabai** beltza ikusi zuen, izarreztatua. **Iñaki Mendiguren**

Iluntzen ari zuten, argi izpiak geltokiko **sabai** kristalezko berde koloretik barrena irristatzen ziren behera, mila berdetan apurtuz eta zabalduz. **Felipe Juaristi**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Euriaren musika maite zuen, tantaz tanta **sabai** gainetan desegitean. **Felipe Juaristi**

Frantziako marketeria; Ingalaterrako burdina forjatuko eskulanak; Italiako **sabai** -lanparak. **Jon Muñoz**

Armiarma sarerik gabeko **sabai** -izkinak. **Iban Zaldúa**

Sabai ertzetako estukoek oso irudi politik dituzte, arrosa potolo batzuk. **Lourdes Oñederra**

Kaperako sukaldako **sabai** -kantoiko habe zabalaren gainean. **Joan Mari Irigoien**

sabai zati bat lurrera erori zen eta bazkaltzen ari ziren familia ugari azpian geratu ziren harrapatuta. **Berria - Mundua**

Izakien buru gainean, **sabai** -modukoa hedatzen zen, kristal distiratsuen dirdira zuena. **Elizen arteko biblia**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Areto **sabai** -apaletan zehar lasterka, zutabeen inguruka. **Josu Zabaleta**

Gustura ekarri ohi zituen gogora bertako gela fresko eta **sabai** -garaiak. **Mirentxu Larrañaga**

Eraikin baxua, zenbait zutabekin, **sabai** okerra... **Fernando Morillo**

- Etxordea **sabai** -hutsik zegoen; Gurutzea egiteko erauziak zituzten habeak. **Juan Garzia**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gela **sabaia** biziki gora, eta hantxe, gorenian, leiho ttipi bat burdin barraz garnitua. [Marzel Etxehandi](#)

Otorduak sukalde- **sabaiko** soketan tantaka zeuden alkandora hezeen pean egin beharra. [Harkaitz Cano](#)

7 irud/hed

Oihanaren **sabai** hostotsuak erabat ixten dio bidea argiari. [Pello Lizarralde](#)

Txoriak buruaz kaiolaren **sabaia** jo zuelarik, haurrak burutik heldu zion berehala. [Juan Kruz Igerabide](#)

Geuk ezartzen diogu geure buruari kristalezko **sabaia**. [Ana Urkiza](#)

Izan bedi **sabai** bat uren artean, goiko urak eta beheko urak bereiziko dituen. [Jose Antonio Mujika](#)

Jainkoak **sabaia** egin zuen eta **sabai** azpiko urak **sabai** gainekoetatik bereizi zituen. [Elizen arteko biblia](#)

Indio-txabola baten barruan zegoen, euritatik hosto- **sabai** soil batez babestua. [Joxe Austin Arrieta](#)

Askoz ilunago zegoen hodei- **sabaiaren** azpian. [Iñaki Mendiguren](#)

Haren mingaina ahoaren **sabaian** trostaka. [Koro Navarro](#)

ik beherago 12 eta 13. [Askoren artean](#)

Halako gabetasun bular zolan halako zimiko tripa **sabaian**. [Patziku Perurena](#)

Antzerki pribatuaren ereduak **sabaia** jo du. [Berria - Kultura](#)

Demokraziak, niretzat, ez du **sabairik**. [Berria - Euskal Herria](#)

8 ibilgailu eta bagoietan, gainaldearen barrualdea edo kanpoaldea.

Besoak altxatu nuen eta trenmakinararen **sabaitik** zintzilik zegoen eskuleku moduko bati heldu nion. [Fernando Rey](#)

Beste batzuk bagoiko **sabaitik** zintzilik zen barra bati heldu beharrean zeuden. [Fernando Rey](#)

Tren baten **sabaira** erori zen gaztea, burdinbideko hari elektrikoa jota deskarga hartu zuen, eta gero lurrera jausi zen. [Berria - Euskal Herria](#)

Autobusaren **sabaia** erori egin da orduan. [Berria - Harian](#)

Seat 1430 bat zuan, zuria, **sabai** eta apaingarri beltzekin. Kontrabidean datozen autoen-eta argi-printzek distira urdin-gorri azkarrak eragiten dituzte autobuseko kristaletan eta **sabaian**. [Juan Kruz Igerabide](#)

Antzeko beste kolpe batek autoaren **sabaia** jo zuen bortitz. [Iñaki Mendiguren](#)

Dena larruzkoa zen autoa, **sabaia** irekitzen zaion horietakoa. [Jon Muñoz](#)

Smithers andreak utzitako kotxe **sabai** gabean sartu eta bere etxera abiatu nintzen. [Fernando Rey](#)

Gero lau zaldikoa etorriko zen, esku bat autoaren **sabai** gainean jarrita. [Joseba Urteaga](#)

Jendea, eskuak zalgurdiaren **sabaian** jarririk, kalesari batera eta bestera eragiten hasita zegoen. [Anjel Lertxundi](#)

Goiko litera eta **sabaiaren** arteko distantzia ez zen metro batera heltzen. [Unai Iturriaga](#)

9 ukuiluko goialdeko edo gainaldeko lastategi edo belartegia; belartegia.

Nazionalak heldu zirenean baserriko **sabaian** ezkutatu zen, handik egunetara elbarri aurkitu zuten hantxe belar artean bertan. [Joseba Sarrionandia](#)

Sabaian, sardeak belarretan sartzen hasi ziren, hirulau izango ziren, erdaraz egiten zuten eta urduri zeuden, armen segurtagailuen soinua entzuten baitzuen gure aitak belarpetik. tabxi zenak erraiten zuen, behi hunen amatxiren amatxik negu bortitzak jasan zituela; zeren urte heietan neguak irauten baitzuen eta ere **sabaia** arrunt hustu zela.

[Joseba Sarrionandia](#)

10 ganbara, teilatupeko solairua; teilatu lauaren gaina.

Sabaian teilak hausten direnean edo haizeak altxatzen dituenean. [Santiago Iruretagoiena](#)

Orduak eta orduak ematen nituen Etchartea baserriko **sabai** hartan sartuta, musika etengabe entzuten eta oroitzen lazgarriak buruan bueltaka. [Alberto Ladron Arana](#)

New York hiri handiko **sabaian** eta azpian egin nuen lo. [Berria - Kultura](#)

Hobe **sabaian** bizi, bazterto batean, emakume liskartiarekin etxe berean baino. [Joxemari Iturralde](#)

Beste [zakur] batzuek **sabaian** edo ganbaran egiten dituzte umeak, lasto tartean. [Gotzon Garate](#)

Ez dago sotorik, ez dago gelagoi, botika-atze, ganbara edo **sabai** ezkuturik. [Anjel Lertxundi](#)

Urriaren 23an, Donibane Garazin, Merkatu estalian, Garaziko eskola publikoko burasoen elkarteak **sabai** hustea antolatzen du. [Herria](#)

Kalaportuko beste karlista handiak ere berdin, auskalo nongo soto edo **sabai** zulotan ezkutatu ziren, edo txalupa hartu eta ihesean joango ziren itsasoz batek daki nora.

[Joseba Sarrionandia](#)

ik beherago 16. [Askoren artean](#)

11 irud/hed

Haizea dabilkik **sabaian**! [Aingeru Epaltza](#)

Sekulakoak atera dauzkigu, hogoi urte huntan bere buru **sabaia** trostan baiterabila antzerki testuen, formen, emanaldi lekuen, aipatu gaien, eta beste gauza anitzen inguruan ausnarrian. [Herria](#)

12 aho sabaia.

Pasta sukratuaren erruz, hortzak **sabaiari** itsatsi zitzaizkion. [Itxaro Borda](#)

Kontsonante sudurkarietan, eten bat gertatzen da ahoko ahots-bidean, ezpainetako, ezpain-hortzetako, hortz-hobietako, **sabaiko** edo sabai biguneko hersketak irauten duen bitartean. [Lourdes Oñederra](#)

Bigarreanean, mihiaren punta **sabaiaren** aurrealdean jartzen da. [Isabel Arrigain](#)

Sabaia hortz-hobietarantz jaisten den pare horretan ebakitzen direnak. [Lourdes Oñederra](#)

Dena dela, tafrikatuaren ahoskunea ez dagoela zehazki ahosabaian, **sabaiaren** aurrealdea eta hortz hobien atzealdeko eremuan baizik. [Lourdes Oñederra](#)

13 aho sabai (ETCn 268 agerraldi; orobat ahosabai ETCn 694 agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian ahosabai agertzen da) iz aho barrunbearen goiko alde, ezterrairaino zabaltzen dena. ik ahosabai.

Bere indar guztiekin hondo-hondoraino, heldulekuraino, sartu zuen ezpata sugearen **aho-sabaian**. [Iñaki Mendiguren](#)

Txokolatetxo bigundua likatu zitzaidan **aho-sabaian**. [Anjel Lertxundi](#)

Aho sabaian errautsaren gustua egiazki gozo zitzaidan. [Itxaro Borda](#)

Lehor-lehorrak nituen eztarria eta **aho-sabaia**. [Koro Navarro](#)

Ur bihurturik zeukan **aho-sabaia**. [Jose Morales](#)

Dastamena deritzogunak, mihiak eta **aho-sabaiak**, arrazoitze handitxoagoa behar dute, ahalegin handiagoa. [Xabier Amuriza](#)

Aho sabaiarekin zer ikusia duten hotsetan, belarriak, eskuarki, aurreko artikulazio bat (sabaiariak) eta atzeko bat (belareak) bereizten ditu. [Isabel Arrigain](#)

Aitorri egindako bisitak, betiko legez, zapore arraroa utzi dio **aho-sabaian** itsatsirik. [Sonia Gonzalez](#)

Erbestearen garratza uzten du **aho sabaian**, negua baitu laranjak aberri eta amets. [Joxerra Garzia](#)

14 sabai bigun

Klikak egiteko behar den bigarren hersketa **sabai bigun** edo *velum*-ean egiten delako, esaten da aire-etorri mekanismo belarraz sortzen direla. [Lourdes Oñederra](#)

Horrelakoetan, aho gingila, **sabai bigunaren** azkena denez, gora eta atzera biltzen da, **sabai bigunaren** mugimenduari jarraiki. [Lourdes Oñederra](#)

15 sabai leiho (orobat sabaileiho) sabaian dagoen leihoa.

Argitasun zuri bizia sartzen da **sabaileihoko** kristal zeharrargitik, Gabini une batez min egiteraino. [Iñaki Iñurrieta](#)

Ikusi nuen nekazari etxe batean norbaitek jakinminez **sabaileiho** ireki zuela eta zinkeko teilatura atera eta gero besoak goratzen zituela errenditu balitz bezala. [Fernando Rey](#)

Emakume baten oihu bat, zeren gaitzen, eta bi **sabai leiho** zabaldu ziren! Josu Zabaleta

Haur jaio berriak ukabila erakutsi ziola **sabai-leiho** batetik, izarrak haurraren gainera astintzen zituelarik suzko bere kiribil itxuragabeak. Juan Garzia

Igande hartan, siesta egin ondoren, aita ganbarako **sabaileiho** aurretik igarotzen da. Joseba Urteaga

Sabaileiho bat egingo diozu gailurretik metro erdira. Jose Antonio Mujika

16 *sabai zulo* sabai leihoa.

Bukatu orduko, orria gorde, argia itzali, ohe gaineko **sabai-zuloa** ireki, hango elur-geruza kendu, zeru beltzari erreparatu, eta berriz itxi zuen Jonathanek leihoa. Jon Muñoz

Goizean goiz jaiki nintzen hurrengo egunean, eta **sabai-zulotik** eguna noiz zabaldu zain egon nintzen eserita lasai, belauak bularraren kontra kizkurtuta. Inazio Mujika

Ondo-ondoan, ohean etzanda, **sabai-zuloaren** azpian, dueloa berriz bizitzen ari zen Jonathan. Jon Muñoz

Sabai-zulo panoramiko pare batek zulatzen zuen arbelezko sabaia, eta haiek uzten zioten sartzten egunez argiari eta gaeuz hiri handietako ilunpe gutxi gorabeherakoari. Jon Muñoz

17 *zeru sabai*

Zeru-sabaira begiratzeko esan zenidan eta gau izartsuak babesten gintuela ikusi nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Zeruak ezarri zituenean, han nengoen ni, ur-leizearen gainetik **zeru-sabaia** jarri zuenean. Elizen arteko biblia

Izan bitez argizagiak **zeru-sabaian**, eguna eta gaua bereizteko, eta jaiak, egunak eta urteak ezagutarazteko. Elizen arteko biblia

Zeru-sabai garbi horretara begiak luzatu orduko, gau argia denean, noski, izar multzoak ikusten ditugu. Pello Zabala

Jan urria, ia larrugorri, lo lur gorriaren gainean autobus geltokian **zeru sabaia** babesgarri, batzuetan euripean, besteetan hotzez hormatua. Gotzon Garate

Ohiko kontuez berriketan, hurrengo egunean bisitara nor ote zetorkion bata besteari galdezka, patioko **zeru-sabai** koadratuan zebilen enara pila ezohikoari begiratzu tarteka. Jokin Urain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aho sabai (4); **sabai aldera** (6); **sabai azpiko** (3); **sabai bakar** (3); **sabai bigunaren** (5); **sabai gangatuak** (6); **zeru sabai** (7)

aho sabaia (13); **gelako sabaia** (3); **sabaia erori** (4); **sabaia jo** (6); **zeru sabaia** (9)

aho sabaiak (4)

aho sabaian (21); **autoaren sabaian** (4); **gelako sabaian** (3); **sabaian bizi** (4); **sabaian zintzilik** (3); **zeru sabaian** (11)

aho sabaiaren (3); **sabaia**ren azpian (5); **sabaia**ren erdian (4); **sabaia**ren gainean (4); **sabaia**ren kontra (7); **zeru sabaia**ren (3)

sabaiari begira (18); **sabaia**ri begira nagoela (3); **sabaia**ri so (7)

aho sabaiko (4); **sabaiko argi** (4); **sabaiko argia** (5); **sabaiko lanpara** (3); **sabaiko orban** (3); **sabaiko zulo** (3)

sabaira begira (37); **sabaira begira jarri** (3); **sabaira begiratu** (7); **sabaira begiratu zuen** (3); **sabaira begiratzen** (3); **sabaira jaso** (3); **sabaira zuzenduz** (3)

sabairaino iristen (6); **sabairaino iristen ziren** (3)

sabairantz begiratu (4); **sabairantz jaso** (3)

sabairik gabe (3)

sabaitik behera (3); **sabaitik dilindan** (3); **sabaitik hurbil** (3); **sabaitik zetorren** (5); **sabaitik zintzilik** (29); **sabaitik zintzilik zegoen** (8); **sabaitik zintzillika** (6); **sabaitik zintzilikatutako** (3)

sabaialde *iz* sabaiko aldea.

Atenas aldean eta Erroman berean, maiatzean egiten dira tenpluetako garbiketa urterokoak: hala zorua eta hormak, nola **sabaialdeak**, eta baita imajineria eta estatuak denak. Pello Zabala

sabaiaurreko *izond/iz* ahotsez mintzatuz, sabaia aurrealdean gauzatzen dena.

Sabaiaurreko dira *xoxo* eta *txatxu* hitzetako kontsonanteak, eta *t* hurrenez hurren. Lourdes Oñederra

Horrela, behar izanez gero, bereizi genitzake *s*, *ts*, *z*, *tz* (*S*, *tS*, *s*, *ts*) zitzukari hobikariak eta *x*, *tx* (*,* *ñ*) txistukari **sabaiaurrekoak** edo txetxekariak. Lourdes Oñederra

Beste hizkuntza batzuetan eta, oro har, deskripzio zehaztuagoetan **sabaiaurrekoen** artean bereizkuntza zehatzagoak egin daitezke. Lourdes Oñederra

sabaidun *izlag* sabaia duena.

Bakarren batzuek zingiretako ihiekin egiten dituzte etxola **sabaidunak**. Santiago Iruretagoiena

Hantxe, aurreraxeago, biraderazko ur-putzua, olibondo aldamenean, soro harritsuak, uralitazko **sabaidun** txabola txuriak. Joxe Austin Arrieta

Sabaidun ohean zegoen etzana Holofernes; ohe-sabaia purpura eta urrez egina zen, esmeraldaz eta harribitziz apaindua. Elizen arteko biblia

Lau isuritako teilatua zuen, arbelezkoa guztiz; lau dorre zituen, horma bakoitzean bana, biribilak laurak, kanpai itxurako **sabaidunak**, arbelezkoak guztiz. Felipe Juaristi

sabaigabe *izond* sabairik ez duena.

Toki guztietara eramaten ninduen bere auto **sabaigabea**. Fernando Rey

Nik neure burua ezin barrengarriago ikusi dut autobusaren bigarren pisu **sabaigabea**, eguzki galdatan gindoazela. Patxi Zubizarreta

sabaigain *iz* sabaia gaildean.

Emakumeak etxeko **sabaigainera** eramanak zituen, eta han metaturiko liho-sorta batzuen artean ezkutuak zituen. Jose Antonio Mujika

Rahab **sabaigainera** igo zen, israeldarrak artean lotarako etzan gabe zeudela, eta honela mintzatu zitzaien: [...]. Jose Antonio Mujika

sabaikari *izond/iz* ahotsez mintzatuz, sabaia gauzatzen dena.

Kontsonante **sabaikari** sailean. Lourdes Oñederra

Bokal **sabaikari** batek bere ahoskunea bokal-harmoniaz hedatzen badu [...]. Lourdes Oñederra

Badakigu antzinako indoeuropar *k* **sabaikari** baten jarraipena dela. Isabel Arrigain

Horzkari eta hobikariak mihiaren aurreko zati lirain mugikorraz baliatuta ebakitzen dira; **sabaikariak**, berriz, ahosabaia azpian dagoen mihiaren enbor baldarragoaz ebakitzen dira. Lourdes Oñederra

Sabaikari sailean, beraz, afrikatua da ez-markatu edo oinarritzkoena. Lourdes Oñederra

Antzinako frantsesak era bereziz jokatu zuen latinezko a azentudunarekin a hori **sabaikari** baten ondoan agertzen zenean. Isabel Arrigain

Gure artean, esaterako, gero eta gutxiago dira **sabaikari** albokaria ahoskatzen dutenak. Lourdes Oñederra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sabaikari edo palatal (3)

kontsonante sabaikarien (5)

sabaikaritasun *iz* sabailaria denaren nolakotasuna.

Fonetika eta fonologiako lanetarako erabilgarri izan daiteke bereiztea palataltasuna (**sabaikaritasuna**), ezaugarria, tasuna adierazten duena eta palatalizazioa, ordezkatzea bera adierazteko. **Lourdes Oñederra**

sabaileiho ik **sabai** 15.

sabaipe 1 *iz* sabaiaren azpiaidea.

Sabaipe honetan, zenbat gutun idatzi ote dizkizudan, zenbat malko isuri ote ditudan; orain esan dezaket, bakardade honetan. **Felipe Juaristi**

Gu desiotan geunden jakiteko zer gertatzen zen ganbara hartako **sabaipean**. **Pello Lizarralde**

Sabaipe zahar hura garai bateko norbaiten bizitokitatz hartu zuen, eta denboran atzera egiten saiatu zen, une batez. **Joxemari Urteaga**

2 irud/hed

Zazpiehun eta berrogeita hamar kilometrora noa hegan, hodei astunen **sabaipean**. **Josu Zabaleta**

sabaitu, sabai(tu), sabaitzen du *ad* sabai batez hornitu.

Extola eta txabolak altxatzeko eta **sabaitzeko**, hala nola hormatxoak eraikitzeko. **Pello Zabala**

sabana 1 *iz* lautada zabala zuhaitzik gabekoa.

Sabana, tundra, hosto erorkorreko baso epela, euri oihan tropikala, basamortu beroa eta taiga bezalako biomak aurkitzen dira mundu zabalean. **Berria - Gaiak**

Oihanak eta **sabanak**, **sabanak** eta oihanak zeharkatu ondoren. **Joan Mari Irigoien**

Zuhaitzetatik **sabanara** jaitsi ginen, eta beste animalia prestatuago, azkarrago eta indartsuagoei aurre egin behar izan genien. Nola Afrikako **sabanetako** tribuetako nerabeek, beren gizontasuna frogatzeko, lehoi ehizan bildutako ebatondoak erakutsi behar dituzten, [...]. **Luis Elberdin**

Merkatuan parte hartzen duten enpresa pribatuak etengabe ari dira lehian, nor baino nor, gazelak Afrikako **sabanen** lehoien ihesi bezalatsu. **Iñaki Heras**

Haren gau hartako musika dei ilun eta lizun bat zela, tigre eriaeren orroa, **sabana** handian abisua zabalduz. **Pako Aristi**

2 (neurriekin)

Soja laborantzak 22 milioi hektarea baso eta **sabana** suntsituko ditu Hego Amerikan. **Berria - Gaiak**

sabant 1 *iz* jakintsua.

Horiek hola, mila karkula derabiltzate arduradunek, Elite eta holako izen **sabantekin**. **Herria**

2 (izenondo gisa)

Tesien bitartez, eta tesien argitaratzeen bitartez, autorearen lana irakurlearengana hurbil daiteke, modu **sabantean**, eta literatur irakasle diren hartzailleendako modu preziatua da hori autore horren testuen hobekiago ezagutzeko. **Ana Urkiza**

sabatar *iz* argizagiak gurtzen dituen kristau sekta bateko kidea.

Koranean ere, judu eta kristauekin batera, **sabatarrak** fededun talde gisa aipatzen dira, haiez liburu errebelatuak zituztela eta heriotzaz geroko bizitzan sinesten zutela esanez. **Xabier Kintana**

Badakizu garai hartan noraino hedaturik zeuden **sabatarren** iritziak, eta orduko gizaki guztiak, gutxi batzuk salbuetsirik, idolatriara emanak zirela, eta, hortaz, izpiritu eta araoetan sinesten zutela, bai eta kutunak egiten zituztela ere. **Xabier Kintana**

"Gutziz Gorena haren gainean bizi da" eta ez "hartan", zeren "hartan" esan balute, Jainkoari leku bat egokiaraziko ziotetzen edota Bera esfera horretan ahalmen bat dela adieraziko, **Sabatarren** sektetik uste ukan zuten bezala, hots, Jainkoa zeruko esferaren izpiritua dela. **Xabier Kintana**

sabatiko

1 *urte sabatiko* unibertsitate batzuek beren irakasleei ematen dieten urtebeteko atsedenaldi ordaindua.

1977an urte **sabatikoa** hartu zuen bere kontura ikertzeko. **Berria - Gaiak**

Amerikar bat, David Schubert, bi urte **sabatiko** pasatzera etorri zen, eta berekin ekarri sagu-neuroblastoma zelula batzuk. **Juan Garzia**

2 irud/hed

Urte **sabatikoa** administrazioaren eta langilearen arteko hitzarmen baten bidez gauzatuko da. **Berria - Euskal Herria**

Lurrarentzat atsedeen-urtea (Urte **sabatikoa**). **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urte sabatiko (3)

urte sabatikoa (6)

sabatismo *iz* kristauen artean, Jaunaren Eguna larunbata, eta ez igandea, aldarrikatzen duen higikundea.

Mugimendu protestanteak hamaseigarren mendetik aurrera izan zuen **sabatismoa** eta bibliolatria, Mendebaldeko kristau-altzoan judaismoak izandako berpizkunde indartsu eta herrikoiairen adibide garbia dira. **Iñaki Mendiguren**

sabel 1 *iz* giza enborraren aurrealdearen beheko zatia, bularretik beheakoa; zati horrek bularretik behera eratzen duen irtegunea. ik **sabelalde**.

Lurrian **sabel** gainean luze etzanda, argi-ilun haur, gure gorputz zatikatu egiten ziren, apurtu, pixkana desegin. [Juan Kruz Igerabide](#)
Soldaduak hildakoei fusila zuzentzen agertzen dira argazkiotan, hankak gorpuen **sabel** gainean dituztela. [Berria - Mundua](#)
Musuka jardun genuen [...] batak bestearen bular eta **sabelak** igurtzi genituen. [Juan Martin Elexpuru](#)
Jimmyren **sabela** uzkurto egin zen, igogailua brau jaisteaz batera. [Lopez de Arana](#)
Sabela haizez puztuta zuten haurrak. [Berria - Kultura](#)
Presoa lurrera erori eta ez zuen inporta, sahetsetan, **sabelean**, bizkarrean, alde guzitean ostikoka xehatzen zuten, gizagaizoa. [Eneko Bidegain](#)
Eskuineko izterrean zekarren ezpata hartu eta **sabelean** sartu zion erregeari. [Elizen arteko biblia](#)
Gizakiaren **sabeleko** erririk haundiena eta ilunena baita gibela. [Patziku Perurena](#)
Emakumearen **sabelean** sehaska bat dago beti. [Joseba Sarrionandia](#)
Pneumoniak eta **sabeleko** gaitzek eragiten dute, eritasunen artean, heriotzen % 11. [Pello Salaburu](#)
Ziztu bizian zebilen, sotana **sabeleraino** altxatuta. [Koldo Biguri](#)
Haren aurpegia nire **sabelera** heldu zen, zila laztandu eta milikatu zidan, denbora eman zuten bere mihiatz nire pubiseko ilearekin jolasean, okotzarekin zabaldu zuten nire potxotxa... [Juan Martin Elexpuru](#)
Ontziak **sabel-sabelean** jo zuelarik, gizonak orro antzeko garrasia egin zuten. [Patxi Zubizarreta](#)

2 (izenondoekin)

Ikusi zelako titi ederrak dituen, zelako **sabel** laua, zelako ipurdi gozoak. [Juan Martin Elexpuru](#)
Quenu bere **sabel** zuria erakusten ari zen urdaitegiaren alartzean. [Karlos Zabala](#)
Motza, zabala eta lodia zen ordea, **sabel** handia zuten eta buru izugarria. [Koro Navarro](#)
ik beherago 13. [Askoren artean](#)
Haren **sabel** gurintsua, haren izter borobilak. [Itxaro Borda](#)
Eta nola babestu ninduen umetan haren **sabel** zabal joriak, noiz eta izuak mehatxatzen baininduen handik edo hemendik. [Joan Mari Irigoien](#)
Andresak gaixoa aztertu zuen; haren **sabel** handituak igel batena ematen zuten. [Josu Zabaleta](#)
Han utzi zuten gerizetan hondoraturik, biluz-biluzik, izerditan oraindik, paparra eta **sabel** puztua agerian, maskuria husten. [Karlos Zabala](#)
Orduan, **sabel** izugarriak, bular oparoak borrokan hasi ziren berriz ere argal haren aurka. [Karlos Zabala](#)

3 (janarien digestio lekuzat hartua)

Janaria **sabelarentzat** da eta **sabela** janariarentzat. [Elizen arteko biblia](#)
Nola azaldu behar zaio gose den ume bati **sabela** asetzeko ikastea ezinbestekoa duela? [Berria - Kultura](#)
Sabel aseezina zuten, eta gelditu gabe jan eta edan nahi izaten zuten. [Juan Kruz Igerabide](#)
Sabel asearentzat mesprezagarri ezti-abaraska, **sabel** gosearentzat mingotsa ere gozo. [Elizen arteko biblia](#)
Asetzeraino jan zuten, **sabela** puzteraino. [Elizen arteko biblia](#)
Entsalada batekin entretenitu dut **sabela**. [Anjel Lertxundi](#)
Sabela betetzeagatik egiten ziren esaneko, asetzearen truke jasaten zuten mendekotasuna. [Askoren artean](#)
Sabela berdinduta eta pentsakor jalgi zen Manueletetik. [Unai Iturriaga](#)
Gure **sabelean** habia egin zuten berriz ere goseak. [Aingeru Epaltza](#)
Nahiago nuke, gosea ere **sabela** igurtziz aseko banu. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)
Sabeleko harra mantsotu nahian, gosaldu gabe zegoen, garagardo bat eta olibak eskatu zituen. [Migel Angel Mintegi](#)
Zerri haragi ketua, gure **sabel** hutsen gozagarri. [Aingeru Epaltza](#)
Aterako ziola bitartean gazta apur bat eta pernila, eta edatekoa ere bai, nahi bazuen eta **sabel** gaiztokoa ez bazen. [Unai Elorriaga](#)
Emmaren apartamendutik atera orduko, **sabelean** neukan guztia bota nuen, oka eta oka. [Daniel Landart](#)
Komun-esertokian eseriirik, **sabelekoa** hustu zuten aparteko tarratetan. [Josetxo Azkona](#)
ik beherago 18. [Askoren artean](#)
· Bud **sabel** hutsik eta erdi zorabiatuak zegoen, baina zoriontsu sentitzen zen. [Lopez de Arana](#)
Botalarria, bezperan ardoz potzo-potzo egin izan banu baino **sabel**-astunago. [Anjel Lertxundi](#)

4 (haurrak edo umeak egiteko tokitzat hartua)

Ekzer aldean, zure aita dago; eskuin aldean, berriz, zure ama; eta bere **sabel** lodian, zu, jaiο gabea oraindik. [Aritz Gorrotxategi](#)
Ni, denok bezala, nire amaren **sabelean** hasi nintzen izaten. [Jenaro Garate](#)
Filipinetan jaiοa banaiz ere, Bizkaiko **sabelak** ekarri ninduen mundura, eta alde bietatik euskal odoletik ernatua izan nintzen. [Berria - Kultura](#)
Agorra zara eta ez duzu haurrik izan; hala ere, **sabelean** sortu eta semea izanenu duzu. [Elizen arteko biblia](#)
Emakume haurdunaren gelaren paretik pasatzean, hau ohetik altxata, zutik aurkitu du leihotik begira; irribarre egiten du **sabel** betea laztanduz. [Harkaitz Cano](#)
Sabela ez zitzairen batera handitzen haurdunaldiaren bederatzit hilabeteetan. [Karlos Zabala](#)
Stanley belauniko jarri eta aurpegia emaztearen **sabel** haziaren aurka estutu du. [Xabier Paya](#)
Sabel haurdunak uzten zion guztia hurbildu zen sutondora. [Anton Garikano](#)
Sabela irekiko diezu hango emakume haurdunei. [Elizen arteko biblia](#)
Ohore bai zuri, gaurko ama gaztea, zure **sabeleko** haur maitea sortu eta laster, hura utzirik, zure menaiuko edo bulegoko lanetara joan behar duzularik. [Herria](#)
Eta ororen buruan, ene **sabeleko** fruitua da ez, Abel? [Daniel Landart](#)

5 (sentimenen egoitza gisa) ik **sabelalde** 2.

Sentimenduak **sabelari** dagozkio, ez gogoari. [Antton Olano](#)
Xelebrekeriaren bat egiteko gogoia dantzan doakio **sabeletik** eztarrira, eztarririk garunera. [Pako Aristi](#)
Nik, ezetz, jakina, ez nuela inolako arazorik, baina kezka areagotzen sentitu nuen **sabel** inguruan. [Iban Zaldua](#)
Larritu egingo zara, eta **sabelean** korapiloea egingo zaizu. [Lander Garro](#)
Ez litzaioke goxo geltokia hustu ondoan bera bakar bakarrik gelditzea [...] eta horri pentsatuz **sabela** korapilotzen hasten zaio. [Eneko Bidegain](#)
Kilima larria sentituko duzu **sabelean**. [Joseba Sarrionandia](#)
Larria zetorkion **sabelean** gora. [Unai Iturriaga](#)
Herrira itzultzeko eguna heldu zenean, ordea, tristura ilun bat sentitzen zuela **sabelean** aitortu zion. [Joxemari Urteaga](#)
Emazteagan pentsatzean, **sabeleko** dardara berezia hasi zitzaion berriro ere. Harekin berba egiteko behar kasik jasanezineko baten harra egin zitzaidan **sabelean**. [Aritz Gorrotxategi](#)

6 abereetan, giza sabelaren kideko zatia.

Sabel gainean arrastaka ibiliko haiz, eta hautsa jango duk.
Hiru egunez balearen **sabelean**, Hendrike? -ustekabea esan zuten Kristobalek. [Edorta Jimenez](#)
Lurpean usteltzea baino nahiago nuke neure gorputz zatiak beharra dutenei ematea edo, ezertako balio ez badute, saien **sabelean** bukatzea. [Gotzon Garate](#)
Katua lozorroan zegoen, **sabelez** gora, hanka bat sudurraren gainean. [Karlos Zabala](#)
-Txakur eme horrek txakurkume txikiak dauzka **sabelean**. [Juan Kruz Igerabide](#)
Haren zilborrak ez zuten aitzakiarik, zilbor inguruko ileak ardiaren **sabelekoak** baino leunagoak ziren. [Karlos Zabala](#)

Hegaztiak azpilotara erortzen zirenekin, **sabeletatik** burruntzia ateraten zitzaizkien; ketsu; **sabelak** husten eta zukua atzealako eta ezterrako zuloetatik isurtzen uzten zuten.

Karlos Zabala

Aurrerantzean umeak ez ziren emearengatik kanpo arrautza oskoldun batean garatuko (narrastiak), baizik eta **sabel** barruan. **Luis Elberdin**

Antzara lodien eta indioilo handien **sabel** txigortuak. **Karlos Zabala**

7 irud/hed

Kontrabaxu guztiek ote daukate emakume bat euren zurezko **sabelean**? **Pako Aristi**

Argentinan hegazkinetako **sabela** ireki eta handik botatzen zituzten, bizirik, militarren kontra ahotsa goratzen zutenak. **Pello Salaburu**

Hegaldi batetik itzuleran bere lurreratzeko trenari jaisteko agindua ematea ahazturik, **sabel** gainean hartu zuen lurra hegazkinak. **Josu Zabaleta**

Itsasontzi baten **sabelean** etorri nintzen ni hona. harakinak behorrenean bezain leun ibili zuen eskua txaluparen **sabelean** harat-honat nire lagunei kasurik egiteke.

Harkaitz Cano

Autobusaren **sabel** puztuan pilatu dira motxila eta fardelak, eta merendarako ogi-txokolate edo txorixoarekin igo dira haurrak barrura. **Xabier Mendiguren Elizegi**

"Hau eta hori egingo dut" diot neure artean, hainbeste gauzen irudiz gainezka daukadan arimako **sabel** handi honetan. **Imanol Unzurrunzaga**

Osaba Gradelleren denda hura [...] halako **sabel** beltz bat zen, auzo zaharretako badaezpadako urdaitegi horietako bat zen. **Karlos Zabala**

Administrazio baten **sabel** itsuan bizi gara. **Josu Zabaleta**

Lurrak bere **sabelean** hartzen du elurte eta eurite guztietako ura. **Jon Maia**

Lurra **sabel** zulatuetatik meatzari esklabizatuak lanaren izerdiak erazutitako ikatzarena zirudien belztasuna. **Xabier Mendiguren Elizegi**

8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gizonezkoak emakumezkoekin dantza alaian hasten ziren, mihi eta esku dantza lizunean segidan, **sabel** dantzan gero. **Felipe Juaristi**

Kokots-kokotsean haztatu ninduen lehenik, **sabel** -ahoa gero eta berriz ere kokotsean hondarrik. arnasak ez zuen oraino bere bidea erabat aurkitu **sabel** -ahoa. **Aingeru**

Epaltza

Ederki betea zaukan **sabel** zorroa zerri madarikatuak! **Karlos Zabala**

Tea edan, eta **sabel** zorroa hotz -esan zuen, burlaizezko irri labur batekin. **Jose Morales**

Baina, alferkerian ohitu haiz, eta nahiago duk eskean ibili **sabel** -zorro aseegin hori betetzeko. **Juan Kruz Igerabide**

Laster entzunen genuela **sabel** -erriak inarosten eta suntsitzen dituen kantu-deiadarra: zatozkiote. **Daniel Landart**

Bettanen ardi-trapatu **sabel** -oihua entzun zen: [...]. **Itxaro Borda**

Berriro hasi nintzen gehiago jaiki ezinik eta **sabel** -orroak eginik. **Joxan Elozegi**

Nekez jasan baitzezaketan, bihotzik gabekoak izan ezik, emakumeen heriotza urkamendian, lehertu egiten baitzitzaizkien lehen erorikoan **sabel** barrenak. **Felipe Juaristi**

Sabel -arrabia neukan eta sekula ez bezalako mina ematen zidan. **Jesus Mari Mendizabal**

Tira, motel, txorakeria batengatik horrela deskontrolatzea ere, esan nion neure buruari, **sabel** -arnasaldi batzuk saiatzen nituelarik. **Karlos Linazasoro**

9 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Kazetari burua zen Farr jauna, takigrafo trebea, [...] aurpegi-biribila eta **sabel** -biribila. **Koro Navarro**

Izozki saltzailearen inguruan dantzan egiten zuten mutil **sabel** -biluziak. **Koro Navarro**

Florent, aurpegia burdin sareen kontra ipinita, esekitako gorputz **sabel** -irekien lerro haiei begira zegoen. **Karlos Zabala**

Zakur **sabel** -zuri horrek gutiarik ez zidan azpijoko egin. **Aingeru Epaltza**

Otso gose **sabel** -uzkur bat bainintzen, golos eta lamiti. **Joan Mari Irigoien**

Ilargiaren dirdirak aspaldi galdua baitzuen bere zilarra, hodei **sabel** -astun baten atzean ezkutatu zenetik. **Anjel Lertxundi**

10 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Antinook ahuntz- **sabel** handi bat ekarri zion, bete-betea. **Juan Kruz Igerabide**

Sutan ahuntz- **sabel** batzuk daude, koipez eta odolez beterik afaritarako utziak. **Juan Kruz Igerabide**

Itsasoa bare dagoen arren, ontzi- **sabelean** mugimendu handia dabil dagoeneko. **Harkaitz Cano**

11 irud/hed

Zarataka botatzen dituzte ilarrak eta artatxikia **sabel** sakoneko gabarretara. **Jose Morales**

Gelako bazter batean intxaurren zurezko idazmahai **sabel** -handi bat zegoen, itxura bitxiko lau hankaren gainean bermatua **Jose Morales**

12 *sabel anai*

Hitzek diskurtsoa osatzen dutelako hartu zuen urte hasieran Bilboko jaun mera Azkunak Frantziako Barne ministro Sarkozyren **sabel-anaiaren** antza. **Iñigo Aranbarri**

13 *sabel-handi* ik *sabelandi*.

14 *sabel-hiztun* ik *sabeliztun*.

15 *sabel zorri adkor* gosea.

Sabel zorria asetzeko gogo izugarriari kontra eginez. **Karlos Zabala**

Hilei ere **sabel-zorriak** egiteko modukoa. **Jose Morales**

16 *sabel zorrosup_1 (orobat *sabelzorro g.er.*) adkor* tripa, gilborra.

Etzaulkian zegoen, eskuak **sabelzorro** gainean gurutzatuta, ez irakurtzen edo lotan, baizik eguzkia hartzen bizitzaz okitutako izaki baten antzera. **Anton Garikano**

Ederki betea zaukan **sabel zorroa** zerri madarikatuak. **Karlos Zabala**

Alferkerian ohitu haiz, eta nahiago duk eskean ibili **sabel-zorro** aseegin hori betetzeko. **Juan Kruz Igerabide**

Tea edan, eta **sabel zorroa** hotz -esan zuen, burlaizezko irri labur batekin. **Jose Morales**

17 *sabel zorrosup_2* sabelean eramaten den zorroa.

Noiz sortu ote zen turisten gustu txarreko ohitura hori, bizkar-zorroak bizkarrean eraman beharrean **sabel-zorro** bihurtzekoa? **Harkaitz Cano**

18 *sabela hustu* kaka egin.

Leize-zulo batean sartu zen Saul **sabela hustutera**. **Elizen arteko biblia**

Etzeko azientategitik hel-du nintzen, **sabela hustetik**. **Aingeru Epaltza**

Aparkatzea galaraztearren Udalak paratutako jardineratariko batera **hustu** nuen **sabela**. **Aingeru Epaltza**

- Aljeriat etorri berriak aldiz trenputxartzen ziren, izutzen eta **sabel** husten. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eskuak **sabel** gainean (4); **sabel** barruan (5); **sabel** gainean (26); **sabel** gainean arrastaka (4); **sabel** gainera (3); **sabel** handi (7); **sabel** handi bat (3); **sabel** handia (6); **sabel** handiak (3); **sabel** hutsa (3); **sabel** inguruan (3); **sabel** izugarri (3); **sabel** puztua (5)

sabela berdindu (5); **sabela** bete (18); **sabela** bete betean (3); **sabela** hutsik (7); **sabela** igurtziz (3); **sabela** ireki (9); **sabela** karruskaka (3); **sabela** ondo bete (3); **sabela** txikitze (3); **sabela** zabaldu (3)

sabelaren barnetik oldartu (3); **sabelaren** barruan (4); **sabelaren** gainean (25); **sabelaren** kontra (11); **sabelaren** parean (3)

sabelari eusten (3)

amaren sabelean (40); **amaren** sabelean bezala (3); **amaren** sabelean eratu (3); **amaren** sabelean sortu (3); **arrainaren** sabelean (4); **balearen** sabelean (5); **bularrean** eta **sabelean** (3); **haurra** sabelean (3); **sabelean** eraman (4); **sabelean** eratu (3); **sabelean** gora (4); **sabelean** izan (3); **sabelean** jo (11); **sabelean** jo zuen (3); **sabelean** sartu (3); **sabelean** sortu (9); **sabelean** tiro (3); **sabelean** zeraman (3); **sabelean** zeukan (3)

amaren sabeleko (4); **sabeleko** arazoak (3); **sabeleko** fruitua (11); **sabeleko** gaitza (4); **sabeleko** mina (14); **sabeleko** minak (3); **sabeleko** minez (4)

amaren sabeletik (38); **sabeletik** atera (3); **sabeletik** ezterrira (3); **sabeletik** irteten (5)

sabelalde 1 *iz* sabelaren alde, sabela.

Haren bular txiki politak, titburu tenteekikoak, haren **sabelalde** zapal eta leuna. ubelduak aurkitu zituzten Jokin Zeberioaren bularrean, **sabelaldean**, besoetan eta hanketan.

Oskar Arana

Frankotiratzaile batek bi tiro egin zizkion, bat bularrean eta bestea **sabelaldean**. **Berria - Mundua**

Ilea urdintzen eta **sabelalde** loditzen hasiak dituen arren, sasoiko dagoela ikusten da. **Joxean Agirre**

Kartzelan daramatzadan urteetan triparik ez irteko hutsezinezko sistema aurkitu dut -pixka bat altxatu, eta **sabelalde** erakutsi zidan: lau-laua zeukan. **Iban Zaldúa**

Skinnerren **sabelaldearen** erradiografian, 17 zentimetro luzeko artaziak ageri dira. **Berria - Gaiak**

Kanibeta zorrotz batekin urratu dio **sabelalde**, eta esku biak odoletan blai dituela, han ari zaió, meatzaria lurpean bezala, bularpeko sekretu guziak aztertzen. **Patziku Perurena**

Buruari emaztearen **sabelaldera** erortzen utzi zion, begiak emakumearen soineko luze urdin banoan pausatu zituen. **Felipe Juaristi**

Isatsa inarrosi du, burua astindu, **sabelalde** eskaini. **Itziar Otegi**

Harkaitzetako zuloak atzapar iletsuko itsas armiarraz, malba-koloreko itsas izar likaz eta **sabelalde** gorriko karramarroz betetzen ziren. **Xabier Olarra**

2 (sentimeneren egoitza gisa) ik **sabel 5**.

Sabelaldean halako goragale moduko bat sentitzen hasi nintzen. **Xabier Olarra**

Traizioaren zimikoa sentitu nuen **sabelaldean**. **Eider Rodríguez**

Burua zurrumbiloin hasi zitzaizkan eta **sabelaldean** bihurritu bat sentitu nuen. **Xabier Olarra**

Dardaragailua titburuetan pasiatu ondoren, **sabelaldean** behera eraman nuen izterrarteraino. **Juan Martin Elexpuru**

sabelaldi *iz* umealdia, erditze bateko umeen kopurua.

Zurea bezalako **sabelaldia** izateko, inondik ere basapiztia izan behar. **Patxi Zubizarreta**

sabelandi (*orobat **sabel handi***) *izond* sabela handia duena. ik **sabel 13**.

Mutilak emakumea ezabatu eta gizon **sabel-handi** bat marraztu zuen. **Koro Navarro**

Badago idolo **sabelandi** bat, idi muturra du eta lepokoa, eta beso lodi motz pare bi. **Koldo Izagirre**

Prudencio jauna gizon harro, lodi bat zen, **sabel handia**. **Josu Zabaleta**

Ez baitzuen, ordea, halakorik egundo ikusi, aho-begiak zabalik dauzkan gamelu **sabelandi** bat irudikatu zuen. **Juan Garzia**

Gaindegi haietako batzuetan kui ildaskatu **sabelandiak** eta beste batzuk biribilak eta leunak ikusten ziren pilatan. **Josu Zabaleta**

Dozenerdi Junker 52, **sabelandi**, bonbadun, gure bila. **Koldo Izagirre**

"Isla de Luzon" deletreatu zuen dokor zaharrak espainiera txukunean zure aldamenean, largabista bafore **sabelandi** bati noratua. **Koldo Izagirre**

Bistara azaltzen zen lurralde eremu hartan etxe dotoreak eta eliz dorreko kupula **sabel-handiak** nabarmetzen ziren aurrena. **Karlos Zabala**

Gelako bazter batean intxaurrondo-zurezko idazmahai **sabel-handi** bat zegoen, itxura bitxiko lau hankaren gainean bermatua. **Jose Morales**

sabelanditu, sabelandi(tu), sabelanditzen da *ad* sabela handitu.

Udaberriari hasiera eman nahi bailiokeen, gaurko haize epelak landare eta arbola asko **sabelanditu** eta lore torto bidean jarriko ditu. **Pako Aristi**

sabelbete *iz* asealdia, betekada.

Denek uste dute bihamunean bizimodu berri bati ekingo diotela [...] bihamunetik aurrera dieta egingo dutela, baina ez da horrelakorik gertatzen: arrats horretan bertan hain **sabelbete** itzela egiten dute, ezen mutu eta adia galdurik geratzen baitira, mihia ezin mugiturik, hontza baten antzera jendeari begira... **Jose Morales**

Mingain gorriak luzatu egiten ziren sugarren sabelkoikeriarekin, eta odolki beltzek, saltxitxen ertz argietan paraturik, ilunpeak ezartzen zituzten berebiziko **sabelbete** hartan.

Karlos Zabala

sabeldarraiotasun *iz* sabelkeria.

Sendatu ezinezko **sabeldarraiotasunak** jota zegoen. **Jon Alonso**

Ogi xigortua, arauak eta printzipioak dituen gizon honentzat, ia bizioa da, benetan **sabeldarraiotasun** eutsiezin baten adierazpena ia. **Jon Alonso**

sabeldu, sabel(du) sabeltzen 1 da *ad* sabelaren biribiltasuna hartu.

Gainean arkitrabea eta erlaitza izango dituzte, zurgin-lan finez nahiz iztukuz eginda, eta erlaitzaren gainean kasetoi kurbatuak, biribilean **sabelduak**. **Santiago Iruretagoiena**

Lente lau batek foku-luzera luzea du, eta, erdialdean **sabelduxeago** den leiar batek, berriz, foku-luzera laburra. **Irene Aldasoro**

Apopilo-etxeko leiho guztiak zabalik zeuden eta farfailazko errezelak kale aldera **sabeltzen** ziren, emeki, leiho-atetxo goratuaz azpitik. **Irene Aldasoro**

Muskulu ziliarra uzkuratzen bada, zuntzen tentsioa gutxiu egiten da, eta kristalinoak, erlaxatu, eta forma konbexuagoa hartzen du, hau da, erdigunean **sabeltzera** egiten du nabarmen. **Irene Aldasoro**

Kristalinoa ez da **sabeltzen** erdialdean, gertuko objektuak fokatzeko. **Irene Aldasoro**

Egokitzea, argi-iturriaren distantziaren arabera kristalinoa gehiago edo gutxiago **sabelduz** haren konbergentzia aldatzea da. **Josu Zabaleta**

2 (era burutua izenondo gisa)

Holograma baten itxurako argiune bizi eta mugikor hartan horma **sabeldu** erdi erori bat ageri zen. **Patxi Iturritegi**

Eraikuntza hori **sabeldua** izango da, grekoek *coelían* deitzen duten erakoa. **Santiago Iruretagoiena**

Ruche jaunaren mahaira eseri zen; pattar gogorren baso **sabelduari** erreparatu zion. **Jon Muñoz**

Imajina ezazu lau kiribil lodi, pitxar **sabeldu** eta astundu moduko bati eusten, honen buruan pegar klasiko delako bat duela, urna esaten zaien horietarik. **Koldo Izagirre**

Ene begiek izu gisako batean ikusten zituzten kutxa handi landuak, hanka bihurriko mahaiaik, ohe errezeldunak, baxera akastu eta **sabeldua**, beira beruneztatuak, aitzinean ageri zitzaizkan mundu zahar eta berri hori guztia. **Koldo Izagirre**

sabeldun *izond* sabela duena.

sabelpe 1 *iz* sabelaren behealdea.

Sabelpea inarrosen zuen dolorez. Itxaro Borda

Sabelpea garbitu behar izaten zion. Xabier Montoia

Sabelpean eta barrabiletan ostikoak. Itxaro Borda

Bere liztuaren zaporeak blaitu zidan ahosabaia, nire **sabelpea** asaldaraziz. Juan Martin Elexpuru

Neskaren **sabelpea** ukitu zuen Goiok, mutikoen solasetan hainbeste bider imajinatu edo asmaturiko lekuen esplorazioa egiteko, baina neskek eskua apartatu zion. Joseba Sarrionandia

Goioen **sabelpean** eseri zen, Goioeren zakila beste gordeleku heze, bigun, epel horretan sartuta. Joseba Sarrionandia

Goiti eta beheiti ari zen gizonaren **sabelpeko** makila gorria amaren zangarteko zuloan sartzen eta ateratzen segitzen zuen. Itxaro Borda

Baten batek ilean sartuko du lorea, eta ausartagoren batek **sabelpeko** ilajea. Xabier Mendiguren Elizegi

2 sabelaren azpialdea.

Porfirik **sabelpetik** hartu eta kotxera eraman zuen berriro zakurkumea. Jose Morales

Hiltegi barneko arrapalaren gainaldera iritsita, beraz, ia oharkabean zeramaten ganadua, garraio-uhalek **sabelpetik** pasatzen zaien lekura. Xabier Olarra

3 irud/hed

Aireko indarrak hurbildu ezinean, tankeen **sabelpean** dinamita, berrogeita hamabost egun eta berrogeita hamabost gau iraun zuen borroka. Rafa Egiguren

sabeltsu *izond* sabelandia.

Gizonezko gazte, lodi, **sabeltsu** bat zegoen gutun bat idazten, bitartean zigarro puru bat errez. Josu Zabaleta

Haien artean, Tosoboko suil **sabeltsu** gizenek nanoak ematen zuten; eta Colmenarren egindako suil garai lirainek, erraldoiak Josu Zabaleta

sabeltxuri *iz ipar* 1636ko gerra zibilean sabelgorrien aurka borrokatu zen pertsona.

Iduri luke eskuineko belaunaldien ondotik etorri belaunaldi berriek ezkerreko muturretik ekarri diguten sorgin berrien katiximak eraman gaituela iragan mendeetako

sabeltxuri -sabelgorrien borroka itsuetara. Piarres Xarriton

sabeltzar *iz adkor* sabel handia.

Bere ondoan, **sabeltzarraz**, txapinekin, buru handi eta gorriaz, haur-orrakaz eta zigarrokin itzali batekin, Steiner zaharra ageri zen, eta biak ere aduana-etxeke egunaren aurreko gauean utzi nituen bezala zeuden. Urtzi Urrutikoetxea

sabelustu *izond* sabela hustua duena.

Urruntzen entzuten genuen hesterik gabeko agure galdua, **sabelustua**, basoko laino artean negarrez, bera bakarrik ilargiari uluka. Jon Maia

sabelzorro ik **sabel** 16.

sabindar¹ *izlag* Sabino Aranari dagokiona; Sabino Aranaren jarraitzailea.

Badakigu euskal nazionalismoaren hazia erein zuen gizona, Sabin Arana Goiri, gazterik hil zela, 1903an eta, geroztik, anitz gorabehera jasan duela **sabindar** alderdiki.

Piarres Xarriton

Nafarroako eta Arabako hautesleak, egia erran, urrun ziren oraino **sabindarren** iritzietarik. Piarres Xarriton

Miretsiko zuen Lauaxetaren sakrifizioa bere bi fedeen aldrean, baina "ni Euzkadirentzat eta Euzkadi Jainkoarentzat" formula **sabindarra** ez zen jada bere fedea eragiteko oinarritzkoa. Joseba Zulaika

Aitzolek, [...] Engrazio Aranzadik (Kizkitza) ulertzen zuen moduko ikuspegi **sabindarraren** euskal kultura eta pentsamendua zabaltzen jardun zuen Hernanin frankistek fusilatuta zuten arte. Askoren artean

Euskal Herriko tradizio onomastikoak aztertu zituen: katolikoa, erromantikoa, **sabindarra**, iraultzailea... Anjel Lertxundi

Bata, bizkaitarra nabarmenki hizkerari zegokionez (bere euskarak zalantzarik gabe salatzen baizuen), "bizkaitarra" ere bazen (**sabindarra** politikaz, alegia). Txillardegi

2 *post-sabindar* sabindar ideologiaren ondokoa.

ETA beste zerbait erradikalki diferentea zen, zerbait post-**sabindarra**, post-komunista, post-kristaua. Joseba Zulaika

Gaurko hizkuntzan, lehen ETA hura post-**sabindarra** zen eta zentzu zabalean ia post-nazionalista ere bai. Joseba Zulaika

sabindar² *izlag* antzina, Erromatik gertu, Tiber ibaiaren eta Apeninoen artean bizi zen herri bati dagokiona.

Bibliotekako arte-liburu batean bazegoen margolan bat **Sabindar** emakumeen bortxaketa izenekoa: gizonak zaldien gainean, erromatar armadura arinez jantzita; emakumeak gasazko errezelez estalita, besoak aireerantz luzaturik aieneka. Oskar Arana

sabiniano *izlag* ideologia sabindarraren motetako bat.

1978an Ajuriagerra hil zenetik, Anton Ormazza zen BBBko buruzagi, orduan **sabinianoak** esaten zitzaion taldekoa. Berria - Euskal Herria

sabinzale *izond/iz* sabindarra.

Herri xehearen euskararen alternatiba bakarra **sabinzaleen** euskara zegoen, baina euskara hori ez zen herriarengana iristen, herriak ez baitzuen ulertu ere egiten. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

sable¹ (*orobat **sabre** g.er.*) **1 iz arma zuria, ezpataria, ezpataren antzekoa, ezpata makotua eta gehienetan aho-bakarra.**

Zaldi gainean sartu herrietan, txapela begietan, gerrian **sablea**, kanpaiak elizan jo eta jo ari diren artean. Koro Navarro

Mezatiak irteerakoan, soldaduen modura lerrotaturik, soldaduen modura jantzirik, uniforme dotore eta garbitu berriein, **sablea** eta dominak agerian, martxa militarrek jotzen zituen orkestra baten atzetik ibiltzen ziren karririk karrira, oin pausu neurtua eramanez. Felipe Juaristi

Oldar horretan eskua **sablearen** kirtenean nuela jiratu nintzen. Josu Zabaleta

Husar musikazale batek **sableaz** moztu omen zion besoa, Gandolfok La Marseillaise jotzean, desafinatu egin zuelako. Felipe Juaristi

Halako batean hire aitona Varelaren **sablea** hartu zian paretatik eta bere indar guztiaz eztarririk sartu zioan piztia hari. Jon Muñoz

Aitoren seme eta handizki gaizkileei nobleziaren ikur zen **sableaz** jota lepo egiten zieten. Felipe Juaristi

XV. mendetik XIX. mendera arteko ezpatak, **sableak** eta ezpata txikiak eramango dituzte ondare zentrorra. Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Baina, aldi honetan, Alcide Jolivetek ez zuen ikusi **sable** biluzia borroaren eskuan. Karlos Zabala

Eskularru zuriak zituen, **sable** distiratsua eta larruzko pistola-zorro lustratua, oinazturen pareko begi urdin biziak, izotzez eta harrokeriaz beteak. Matías Múgica

Bota altuak, Errusiako larruak eginak, eta **sable** laburra eta ganibeta gerrikoan, uhal batetik zintzilik. Karlos Zabala

Xafla zabaleko **sable** kako bat eskuan, arma zuri damaskinatu horietako bat. Karlos Zabala

Elurra eta hotza, etsaien **sable** okerra baino zaurigarriagoa zen haizea eta hotza. Felipe Juaristi

Elmiraren zaindari bereziak zebiltzan batetik bestera, **sable** bikoitz gakotua aldean, labana gerrikoan, hamar oineko lantza eskuan. Karlos Zabala

Zalditeriako **sable** bat zeraman gerrian zintzilik, eta gider laburreko zartailu bat eskuan. Karlos Zabala

Urrezko eta zilarrezko sare-kota soinean; **sable** kakotua, jataganaren antzekoa, harri biziz jositako galtzarbe-uhalek liluragarri batetik zintzilik. Karlos Zabala

Mamarro bibotedun bat zeukan aurrean, izugarri, tente, zaldi-buztan bat buruan, hede bat sorbalda batean, beste hede bat bestean eta **sable** ikaragarri bat gerriaren alde batean zintzilik. Jose Morales

3 (hitz elkartuetan)

Ezertarako ez zion balio izan barbaro haien aurrean, lantza edo **sable** ukaldiz baino ez baitzekiten erantzuten. Karlos Zabala

Gaur **sable**-ukaldi latzak emango dira; gehiagi zuretzat, bizarguri hori! -esan zidan norbaitek. Jon Alonso

Sable-kolpe batez burua gorputzetik bereiz daiteke. Imanol Unzuñunaga

Sable diziplinako lehen torneoa jokatu da bihar Donostian. Berria - Kirola

20 urtez azpiko Lehen **Sable** torneoa jokatu da bihar, Donostiako Antigua auzoko Pio Baroja kiroldegian. Berria - Kirola

Sable hotsa, eztarri urratuen burundara airez kordokatuak eta urduritasuna ziren nagusi. Harkaitz Cano

Botere faktikoak zeuden, **sable** hotsak aipatzen ziren. Berria - Euskal Herria

Sable-horztun tigre eme alaena! Mirentxu Larrañaga

sable² ik **salbe**³.

sablekada iz sable ukaldia.

- **Sablekada** ederra emango diat! -esan zion garrasika bibote izugarri luzeko mezulari militar batek, zaldiaren eginahal guztian hurbildurik-. Jose Morales

saboiar 1 izlag Saboiakoa, Saboiari dagokiona.

Alsaziar, Bretoin, Ipar Euskal Herriar eta Kataluniar, Kortsikar, Okzitaniar eta **Saboiar** alderdi autonomista eta europar federalistek. Herria

1938-1944 tarte horretan finkatu zituen ikasketako **saboiar** apezpikuak, frantsesen, suitzarren, italiarren, alemanen eta haien ororen etsaien eta adiskideen erdian biziz. Herria

1911an erabaki zuen **saboiar** gazteak Annecyko seminario handian sartzea. Herria

Orduz geroz, gainera, Parisen nengoelarik, 1965/75eko hamarkadan, aita de Lubac-en ikasle ohi jesuita **saboiar** gazte bat aski hurbiletik ezagutu nuen. Piarres Xarriton

• 2 iz Saboiako herritarra.

Munduko lau bazterretako jendeek ematen diet ostatu: frantsesei, italiarrei, flandestarrei, **saboiarrei**, bretoiei, alemaniarrei... Aingeru Epaltza

Saboiarraren lumaren aisiek eskaini diguten huskeria hilezkorrarena... Juan Garzia

Saboiarra zen bera eta jesuita, Michel de Certeau zena. Piarres Xarriton

sabotaia ik sabotaje.

sabotaigile ik sabotajegile.

sabotaje (85 agerraldi, 16 liburu eta 45 artikulutan; orobat **sabotaia** 18 agerraldi, 3 liburu eta 10 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **sabotaje** agertzen da) iz 1 gizarte- edo politika-liskarretan, helburu bat lortzeko presio bide gisa eragiten den kaltea.

Herritar errugabe ezagunak atxilotzen dituzte, eta inork **sabotajerik** egiten badu hil egingo dituztela jakinarazten dute. Josu Zabaleta

Alemaniarren konboiak deskarriatzeko **sabotajeak** egiten zituen erresistentziak. Jokin Urain

Argia joan izana ez zen komunisten edo juduen **sabotaje** bat izan, ezta matxura bat ere, Klausen amarru bat baizik jendea berotzeko. Anjel Lertxundi

Kerbala inguruan gertatutako **sabotaje** baten ondorioz, sutan zen atzo eskualdeko oliobide nagusia. Berria - Mundua

Ez dio axola zer erantzukizun duzuen **sabotajea**, oker ari zarete Herr Oberst-en jokoan sartzen bazarete. Josu Zabaleta

EuskoTrenen aurkako **sabotajeak** salatu ditu konpainiak. Berria - Ekonomia

35.500 euroko kostua duten **sabotajeak** ere salatu ditu. Berria - Ekonomia

2 irud/hed

COBeko buruzagi Jaime Solaresek «**sabotajea**» egotzi dio Gobernuari. Berria - Mundua

Haren ustez [...] Espainiako Estatuak, PSOE buru, «etengabeko xantxia eta **sabotajea** egiten ari da itxaropen horiek zapuzteko». Berria - Euskal Herria

Bonbak jarriz, «borroka egunari **sabotajea**» egin zion ETAk, Jaurilaritzaren ustez. Berria - Harian

LABeko buruak prozesuaren aurkako «**sabotaje** gehiago» ere iragarri zituen, eta aurrerapauso bat ematen den bakoitzeko etor daitekeela erantzuna, «**sabotaje**», presio edo baldintzatze moduan». Berria - Euskal Herria

Sabotaje jarrera gehiago etorriko diren arren, gertaerak perspektibaz aztertu behar direla adierazi du Rafa Diezek: «Bide onetik goaz». Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan)

Bestalde, ez zuten inolaz ere **sabotaje** ekintza hura onartuko. [Joxan Elozegi](#)
Lekukotasun ekintzetatik **sabotaje** ekintzetera pasa daitezke. [Berria - Euskal Herria](#)
Griffindorrek bilatzailearen kontrako **sabotaje** -ahalegin zital eta koldarra izan da hau! [Iñaki Mendiguren](#)
Eztabaida faltsu horien atzean PPKo kideak eta beste sektore batzuetakoak daude, balizko prozesua oztopatu eta **sabotaje** lana egiteko. [Berria - Euskal Herria](#)

sabotajegile *(orobat sabotaje egile eta sabotailagile) iz* sabotajea egiten duen pertsona.

Igandeko lau kirolari, beren jendarmeriak aukeratuak, ustez errugabeak eta **sabotajegile** terroristen koldarkeriagatik fusilatua, gure lehengusu fritzei ondo gauza ankerra, eta beraz ondo jostagarria, iruditzen zitzaiean hori. [Josu Zabaleta](#)
Intxortako gudaria, Dolomitetak partisoa, Mauthausengo **sabotaigilea**, Aldudeko mugalaria, Aralarko makia, Herrera de la Manchako satorra salatuen aulkian jesarriko zen. [Koldo Izagirre](#)
Horixe da **sabotaje egileak** zigortzeko jarri duten azkeneko metodoa [Josu Zabaleta](#)

sabotatu ik **saboteatu**.

saboteadore iz saboteatzailea.

Bere lagun Max alemaniarrekin Bosgarren Kolumnako hirurehun bat **saboteadore** harrapatzen laguntzen dituenekoak. [Edorta Jimenez](#)
Saboteadore alemanak Kuban sartzen ari ziren! [Edorta Jimenez](#)

saboteatu, sabotea, saboteatzen *(22 agerraldi, 7 liburu eta 13 artikulutan; orobat sabotatu 5 agerraldi, 2 liburu eta 2 artikulutan)* 1 du ad sabotajea egin.

-Hasieran, Yumimoto konpainia **saboteatu** nahi zenuela uste nuen. [Joxan Elozegi](#)
-Orain arte, entzun nahi ez baduzu ere, saiakera guztiak **saboteatzea** lortu dugu, eta horretan jarraitzen dugu. [Fernando Morillo](#)
Ilia Shabaldin jeneralak gerrillari txetxeniarrek «bozak **saboteatzeko**» erasoak egiteko asmoa dutela adierazi zuen. [Berria - Mundua](#)

2 irud/hed

Onorioa argia da: era honetako su-eten batekin, prozesua kanpotik **saboteatzen** saiatur gero, garesti ordain dezakeela badaki. AEBek ez dute inoiz Europa baturik nahi izan, **saboteatu** egin nahi izan dute aukera hori. [Berria - Euskal Herria](#)
Harry ez zeukan ahaztuta Ravenclawen aurkako partidaren bera **saboteatzeko** Malfoy egindako ahalegina. [Iñaki Mendiguren](#)
Isil zaitez, presidentea **saboteatzen** ari zara-eta. [Pako Aristi](#)

3 (era burutua izenondo gisa)

Azkenean, nire sedan berde **saboteatuaren** gainean hasten gara berriro hizketan, eta esaten dit motorra eta erregai-hodiak garbitzen hastekotan dela. [Oskar Arana](#)

saboteatzaile 1 iz sabotajea egiten duen ekintzailea.

Okupazio indarren alde lanean dabilen Irakeko Poliziari «terrorista eta **saboteatzaileen**» aurka segurtasuna gordetzen laguntzeko prest agertu zen Al-Sadr. Eta **saboteatzaile** gisa salatzerantz joan zuen Kommandantur-era! [Berria - Mundua](#)
Entzuna neukala ez zarela fidagarria, **saboteatzailea** zarela gatzigatua nintzen, baina ez nuen uste egia zenik, ez nuen sinetsi nahi, horregatik hartu nuela neure gain inork hartu nahi ez duen zure sumarioa. [Koldo Izagirre](#)
Izan ere, bakeak **saboteatzaile** ugari du beti gatazka guztietan. [Berria - Euskal Herria](#)

2 (izenondo gisa)

Ez dago iraketik ateratzerik matxinada **saboteatzailea** menpean hartu arte. [Berria - Mundua](#)

saboteatze iz sabotajea egitea.

Ez da zaila PPren lekuan jartzea: hurrengo hauteskundeetara bake giroan ailegatuz gero, PPK orain arteko **saboteatze** jokoari eutsiko balio, zer alternatiba eskainiko lieke espainiarrei, bi urteko su-etenaren ondoren? [Berria - Euskal Herria](#)

sabre ik **sable**¹.

sadiko 1 izond sadismoa erakusten duena; sufriarazten eta besteak pairatzen ikusiz atsegin hartzen duena.

"Enkontra"n, eskolara piper eginiko umeak pederasta **sadiko** bat aurkitzen du. [Markos Zapiain](#)
Ez da lekuko zentzuduna, auzi **sadiko** eta erdi eroa baizik: denari erantzen dio ukitu deabruzkoa. [Monika Etxebarria](#)
Francesco tirano **sadiko** eta erasokorra birhurtu zen. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)
Neska geldi geratu da, erruki eske, han dago, larri, babesgabe, bere borroaren asmo **sadikoen** menpe. [Juan Martin Elexpuru](#)
Arerioaren irratiek irato egin gintuzten ia-ia, Gernikako sarraski **sadikoari** buruzko berrien berriez. [Edorta Jimenez](#)
Arratoiaren irri **sadikoa** erakutsi behar nion munduari. [Koldo Izagirre](#)
Itsasoa ikusten dudanero oroitzen dut gela hartako hormapaperean margoturik zeuden arraintxoaren irribarre **sadikoa**. [Harkaitz Cano](#)
Iazko urria eta abendua bitartean Abu Ghraib presondegian arrazoirik gabeko tratua **sadiko** eta bortitz ugari egin ziren. [Berria - Mundua](#)

2 (izan aditzarekin)

Baina Sade **"sadikoa"** izan al zen benetan? [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)
Alderdi **sadiko** bat dudala iruditzen zait, ez sadismo fisikoa, oso light ez bada behinik behin, norbait arnasa estutu nahi eta haren aurpegiaren gainean esertzen naizenean bezala, horrelako gauzak. [Karlos Zabala](#)
- **Sadiko** hutsa haiz -esaten zidan arrebak. [Joan Mari Irigoien](#)
Sadikoa baino are gutxiago naiz masokista. [Karlos Zabala](#)
Nik uste, natura, jakintsua baino gehiago, **sadikoa** dela. [Arantxa Iturbe](#)

3 (adizlagun gisa)

Oh! baino **sadikoago** ote zegoen? **Joxan Elozegi**

• 4 iz pertsona sadikoa.

- **Sadiko** edo maniako batek ez zekinat, putakume batek seguru. **Migel Angel Mintegi**

Ugari baitira geurean, soilik emaztea traste pasibo gisa erabiliz bizirik sentitzen diren **sadikoak**. **Markos Zapiain**

Une horretan sartzen da jefea, **sadikoen** laruzko arropaz jantzita, zakila gorri eta zut agerian geratzen zaiola, zigorra eskuan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ez zen ordua enetako **sadiko** edo serial-killer baten aztaparretara erortzeko! **Itxaro Borda**

sadikoki *adlag* era sadikoan.

Beharbada, baita Sadek orduan egin zuen ekarpena baloratzeko ere, noiz, eta burgesia giza sexualitatea gupidagabe, krudelki -**"sadikoki"**? -zapaltzen saiatzen zen garai batean, horrela energia guztiak jainko berriari, lanari, zuzendu eta eskaini ahal izateko. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

sadismo 1 iz oinazea eta mina egitean atsegina, eta bereziki sexu-atsegina hartzea.

Sadismoa sadismoa da, eta masokismoa masokismoa: ba al dute ba beste izenik zentzugabekeria horiek guztiak? **Koro Navarro**

Idazlea hila bezain pronto sortu zen elezaharra, sortu ziren elezaharrak, Poeren bizitzak bezala obrak ere eskaintzen dituen gaietatik abiatuta: **sadismoa**, nekrofilia, intzestoa, droga. **Koro Navarro**

Goiz argira ulertzen dut tortura gelaren ondoan nizela: ene torturazaleen **sadismoak** ene gizonen martirioan parte hartu behar dutala erabaki zuen. adierazi zuen Abu Graibeng gertatutakoa ez zela goi karguek agindutako zerbait, «gaueko txandaren **sadismoa**» baizik. **Michel Oronoz**

Aingerukeria eta **sadismoa** pozik daude indarkeriaren gaiztoaz kalakari, zauria benetan sendatzen ahalegindu barik. **Markos Zapiain**

Hasieran, **"sadismo"** hitzaren lehen adiera, besteen minaren bidez lortzen den atsegina eta kitzikapen sexuala zen, baina gero hitzaren esanahia zabalduz joan zen, eta orain **sadismoa** besteen oinazea eragin eta horretan poz hartzea ere bada. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

2 irud/hed

Aporian zetzan sistemaren **sadismo** haren mukuria: errespetu eza zekarren errespetuak. **Joxan Elozegi**

3 (izenondoekin)

Alderdi sadiko bat dudala iruditzen zait, ez **sadismo** fisikoa, oso light ez bada behinik behin, norbaiti amasa estutu nahi eta haren aurpegiaren gainean esertzen naizenean bezala, horrelako gauzak. **Karlos Zabala**

Daniel Dergik Espainiako Gobernuaren «**sadismo** politikoa» salatu du Askoz ere interesgarriagoa iruditzen zait, ordea, nire **sadismo** psikologikoa, eta batez ere harrapakinak hautatzeko dudan begi zorrotza, kasu ederra naiz aztertzaileentzat. **Berria - Euskal Herria**

Saldu gintuen salataria zen Gagni hori: [...] salataria kalte egitearren, **sadismo** kirolezko, ehizara doanak piztia askea eraisten duen bezala. Osaba horrek abantaila bakarra zuen: bidea ematen zidan nire **sadismo** espezializatuan trebatzeko. **Juan Garzia**

Kasu batzuetan **sadismo** soilarengatik. **Berria - Mundua**

4 (hitz elkartuetan)

Evak ez zuen sagarra jateko inolako asmorik, baina horretara behartu zuen suge gizen batek, bat-bateko bezain azalpenik gabeko **sadismo**-krisi batek jo ondoan. **Joxan Elozegi**

Boa sentitzen nintzen, iaioa naiz ni **sadismo**-kontuetan. **Karlos Zabala**

sadomaso iz sadomasokismoa.

Komuneko papera atzera bere lekuan ipini eta azken begiratua eman diot, aldizkariak, bideoak eta DVDak nahas-mahas handiegian ez uzteko: titi handidunak batean, gaztetzako bestean, luxuzkoa erdi inguruan, bondagea, **sadomasoa**, euriak eta bestelako perbertsioak bazterrean. **Urtzi Urrutikoeetxea**

sadomasokismo iz sadismo eta masokismoa pertsona berean bilduak.

Nik, etxean umetan ikusitako eszenak inspirazio gisa erabiliz, emakumezko sufrituentzako bortxakeriaren arloa hartuko nuen nire gain; **sadomasokismoa**, gehienbat. **Jon Arretxe**

Voyeurismoaz, aho sexuaz, masturbazioaz, **sadomasokismoaz**, lesbianismoaz eta orgiez idatzi du, poetikoki baina hotz. **Berria - Kultura**

sadomasokista izond 1 batera sadikoa eta masokista dena.

Niri inoiz ez litzaidake gogoratuko saio **sadomasokista** bat fiantza-aktiboei buruzko araudi berri baten mozorropean aurkeztea. **Aingeru Epaltza**

Dominatrix-bota luze pareta baino ez zaito falta eszena **sadomasokista** borobiltzeko. **Patxi Iturritegi**

2 (izen gisa)

Ni primeran identifikatzen nintzen **sadomasokistaren** rolaekin. **Jon Arretxe**

saduzear iz arimaren hilezkortasuna eta gorputzaren piztuera ukatzen zuen judu talde bateko kidea.

Izan ere, **saduzearrek** ez dute onartzen ez piztuerarik, ez aingerurik, ez espiriturik; fariseuek, aldiz, bai. **Elizen arteko biblia**

Israelen ondorengoek beren ondare espirituala fariseuen formalismo, **saduzearren** materialismo, herodetarren oportunismo eta zeloteen fanatismoarekin nahastua zutelarik.

Iñaki Mendiguren

Fariseu eta **saduzearrek** Jesusengana etorri eta Jainkoarengandiko seinale bat erakusteko eskatu zioten azpikeriaz, bera nola harrapatuko. **Elizen arteko biblia**

Fariseu eta **saduzearrak** mirarizko seinale eske. **Elizen arteko biblia**

saeta iz gai erlijiozko abesti flamenkoa, ahots hutsezkoa, batez ere Aste Santuan abesten dena.

Ekain, kobazuloaren izen horrekin sortu zuen azken pieza, flamenkoko **saeta** eta cante jondoak izaerarekin duen konpromisoa adierazteko. Akaso horrexegatik egin zaigu gogorra lehen **saeta** entzutea, konpositore alemaniarren musika hilezina eta sopranoaren ahotsa entzun ostean, batez ere lehen koadroko dantza flamenkoa Orffen estiloari ederki moldatzen zela ikusi eta gero. **Berria - Kultura**

safari iz 1 Afrika beltzean, basapiztia nagusiak ehizatzeo egiten den espedizioa.

Urtarrilaren 23an, Afrikan barna **safarian** izan ostean [...] Hemingway senar-emazteek istripua izan zuten. **Edorta Jimenez**

Kenyako **Safari** Rallya desagertu zenetik, Akropolisekoa da txapelketako proba nagusia, nagusia eta gogorra. **Berria - Kirola**

2 irud/hed

Neskatxak, beren **safarian**, txukunagoak izaten ziran. **Xabier Mendiguren Elizegi**

safiko *izond* lesbianoa.

Maitasun **safikoa**: loditzeko aitzakia ona. **Oskar Arana**

saga 1 *iz* erdi aroko eskandinaviar literaturako kontakizuna.

Aingerua urtu zenean, antropologoak islandiar edo finlandiar **saga** frankotan agertzen zen "zaldikatzeko eroaren" kontzeptuari buruzko xehetasunak eskatu zizkion. Poetak bere Errepublikatik kanpo uzteko Platonen ardurak esanahi bizia lortzen du **sagen** egileen eta Hirugarren Reich-aren sortzaileen artean kausa eta efektuaren lerroari jarraitzen diogunean. **Itxaro Borda**

2 kontakizun luze eta zehatza.

Lankidetzaren esteko jardun hori, han ari baitziren egunero Morgan eta haren ikasleak gogoberotasun bizizko giro batean buru-belarri [...] biologiaren historiako **saga** luze bakanetarikoa da. **Juan Garzia**

Aldaera askotan, aspaldidaniko **saga** bat jaso nuen, Pistamiglio jauna bera baino ere askoz lehenagoko aro batetik abiatzen zena. **Juan Garzia**

Nire untxiekin bakarrak geratua nintzen; alargun eta emazurtz sentitzen nintzen, eta banuen amets-asmoa karbono-atomo baten **saga** idazteko. **Juan Garzia**

Beraz ulertzekoa da mikrouhinen behaketak unibertsoaren hasiera ulertzeko giltza direla, eta beren inguruko artikuluen **sagak** *ad nauseam* jarraituko duela aurreikustea ez da zaila. **Berria - Gaiak**

3 familia-dinastia.

Arotz **saga** erraldoiak badira, haiek euren gurasoengandik ikasi eta seme-alabei erakusten diete ogibidea belaunaldiz belaunaldi. **Harkaitz Cano**

Saihestezinezko ordaliarantz zihoazen halabeharrez; eta egoera hartan edozein bidaiarik izan zitzakeen alternatibak zein ziren jakin arren, ezin zuten asmatu alternatiba haietatik zein izango zen beren **sagaren** bukaera. **Iñaki Mendiguren**

sagaburu *iz* familia-saga baten burua.

Solferinoko gudu berean dabil Joseph Trotta ere, Joseph Rothen nobela askotako Trottarren **sagaburua**. **Anjel Lertxundi**

sagailo *iz* itsasoa gorabehera handiz inarrotzen duen higidura. ik **itsaski**³.

Sagailoa eta guzti, istriborrean egonen zarete solasean. **Joseba Sarrionandia**

Mendebaldeko Kapitainak hondoratzen hasiak ziren **sagailo** hazkorraren azpian. **Agustin Otsoa**

Hala ere, izotz zatiak dantza zoroan ezarriko ditu itsas **sagailoak**, behelainotan igarriko denez. **Joseba Sarrionandia**

sagar 1 *iz* sagarrondoaren fruitua, biribila, mamia sendoa eta saporetsua duena.

Gasna pixka bat eta **sagar** bat jan ditut. **Piarres Aintziart**

Sagar bat ez hartu izanaz damutu nintzen, baraurik bainengoen. **Anjel Lertxundi**

Turinen "carpandue" esaten zitzaizkien **sagar** batzuk erosten zituen beti. **Fernando Rey**

Sagarra zuritu nuen. **Joxe Austin Arrieta**

Udaltzainak ehun pausora usaindu eta txanoak gona azpian desagertzen ziren, xalo-xalo **sagar** bat hozkatzen zuen bitartean. **Karlos Zabala**

Sugeak emandako **sagarrari** Evak kosk egin zionean. **Felipe Juaristi**

"Bai motelak **sagar** hauek!", esaten zuen gure aitak. **Fernando Rey**

Astigarragako **sagar** heldu berrien azal kolorea dauka. **Berria - Kultura**

Sagarrak eta udareak metatzen ziren, arkitektura erregularrez, piramideak eratuz. **Karlos Zabala**

Zerura begiratu zuen, kezkatu, urte sasoi hartako euri berantiarrek **sagarrei** kalte handiak eragin zituelakoan. **Felipe Juaristi**

Saskia hartu eta **sagar** tiraka hasi zitzaion orduan. **Harkaitz Cano**

Denok atxilotu eta urkatuko gaituzte, George Hooping izan ezik, hura ez baitzen **sagar**-jaten ari. **Koro Navarro**

Fruitu debekatua ez da beti **sagarra** izaten, ezta beti emakumearen eskutik etortzen ere. **Aingeru Epaltza**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Eguzkia ezkututzen ari zen sagastietan, eta Joanesi sagar bat iruditu zitzaion eguzkia, **sagar** handi, gorri eta umoa. **Felipe Juaristi**

Sagar gorri leun batekin bururatzen du bere bazkaria. **Eneko Bidegain**

Sagasti bat zegoen, beheko aldean **sagar** berdeak eta goiko aldean **sagar** gorriak ematen zituen. **Pedro Alberdi**

Dena zen izur eta toles, **sagar** gorri zimeldu baten antzera. **Irene Aldasoro**

Umorea ere halakoxea zeukan, **sagar** gaziaren ezpalekoa. **Hasier Etxeberria**

Sagar gazi-gozo eta minez moldaturiko sagardoa. **Edorta Agirre**

Sagar erreximeta gasnarekin. **Elena Touyrou**

Labaka baserriaren ondoko **sagar** esnabolak hartzera joaten ginen sarri. **Txillardeggi**

Zedrozko arkatz berrien usaina, edo kola-botila batena, edo noizbait han utzi eta ahazturiko **sagar** umotuegiren batena. **Irene Aldasoro**

Sagar errearen usaina barreiatu zen. **Anjel Lertxundi**

Sagar galdua sagarrondo ustelean. **Berria - Mundua**

Hala gertatuko zela Da Rua, **sagar** ustela bezala, juduen ontzitik kanpora botatzen ez bazuten. **Felipe Juaristi**

Pasarte horretatik, badirudi **sagar** basakaren fruituari deitzen zitzaioela "poma". **Patziku Perurena**

-Aita, zein politak diren urrezko **sagar** horiek -tematu zen neskatila laranjaondoa ikusirik-. **Patxi Zubizarreta**

Agian hori izan da zigorra, **sagar** debekatua jateagatik emandako kondena. **Lourdes Oñederra**

Elkarteak 20bat tokiko **sagar** mota aurkeztuko ditu, bakoitzaren berezitasunak aipatuz. **Herria**

Bularretakoa pixka bat jaitsi, eta bular bat irten zitzaion, paradisuako **sagar** jaioberriaren pare. **Juan Kruz Igerabide**

Euskal sagardoa ere, batzuetan, kanpoko **sagarrarekin** egiten da. **Ana Urkiza**

3 (neurriekin)

Kilo eta erdi **sagar** jan irentsi nuen, harrapazka. **Patxi Zubizarreta**

75 tona **sagarrarekin** atera dituzte 35000 pinta sagarno idor, 5000 pinta goxo eta 5000 sagarno-jus. **Herria**

Hamar karga **sagar** dituen baserriaren batek auzokoari -zati bat eskatuko dion beldurrez edo- zazpi baizik ez dituela esaten baldin badio, [...]. **Martin Anso**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gero **sagar** ale eder bat atariko sagarrondotik hartu, eskuin eskuaz igaliari hautsa kendu eta ahora eraman zuen. **Felipe Juaristi**

Harri koskorak, hostoak, **sagar** zuztarrak, trapu puskekin egindako panpinak. **Karlos Zabala**

Bizkotxo apurrik opil zaitxoak **sagar** mutxikinak, arroz aleak, [...] elurrak gose grebara kondenuatu dituen hegaztiei. **Koldo Izagirre**

Ez sagardo hutsari, baizik eta ura nahastutako **sagar** patsari. **Patziku Perurena**

Azkeneko honek, bistan da, "**sagar** mustio" hutsa adierazi nahi duela, egun "sagardo" deitzen duguna. **Patziku Perurena**

Vainean **sagar**-xerra batzuk zeramatzen ore azukredun bat laboratu zuen azpil batean. **Anjel Lertxundi**

Sagar pilen eta laranja xaxen atzean. **Karlos Zabala**

Aitak okela-zati bat busti zuen **sagar**-konpotan eta ahoan sartu zuen. **Anjel Lertxundi**

Sagar-salsarik gabeko antzara erre soila aski ona iruditu zitzaioala beti. **Irene Aldasoro**

Labeko atea zabaldu eta **sagar**-tarta atera zuen. **Anjel Lertxundi**

Izertidan dagoenez paperezko saskitxoari itsatsitako **sagar**-azukrearen pare, itxaron egin du beste pixka bat. **Itziar Otegi**

Han, lorez egindako muino baten gain-ganean iturri bat zegoen, **sagar** ura zeriona. **Felipe Juaristi**

Sagar eta ahabi zukua daukat. **Koro Navarro**

Iparraldean Eztigar kooperatibak 58 000 pinta sagarno atera ditu, eta 12 000 pinta **sagar** jus. **Herria**

Plater bakoitzaren ondoren zurrut bat egiten zitzaion **sagar**-pattar zahar gozoari. **Josu Zabaleta**

Iragan ostegunean **sagar** ekoizleak eta sagardogileak batzartu ziren Hondarribian, ordaindu beharreko prezioa zehazteko. **Berria - Ekonomia**

Sagar erre puska eder baten aitzinean. **Joan Mari Irigoien**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa izen abstraktuekin)

Begiratu **sagar** multzo bati eta esaten zuten, **sagar** mota bakoitza bereiziz: "hau, espuru", "hau, domentxa", "hau, gezeta". **Bernardo Atxaga**

Hango tximinian, sagarrondo egurra errez piztu zuen sua, bisitariak bero zitezen, eta berehala hartu zuen salak **sagar** usaina. **Felipe Juaristi**

Mahats-lukuen gozoa dute niretzat zure bularrek, **sagar**-usain ezitia zure arnasak. **Elizen arteko biblia**

Goitizena ez gezurtatzearen, bere buruak **sagar** itxura hartu zuen azkenik. **Felipe Juaristi**

Aurrekoan aipatu zenidan behin **sagar** betekada bat izan zenuela eta harrezkero ezin dituzula ikusi ere egin. **Patxi Zubizarreta**

Laborarien ihaurkinketa lanak, babarrunparda, intxaur, gaztaina eta **sagar** bilketak. **Pako Aristi**

Sagar jotzea egin da, "Jo ala Jo" elkarteak antolatutik. **Herria**

Motxean erantzun beharra izaten da horrelakoetan, eta ezin ba hasi esplikatzeko **sagar**-lur batekoa naizela. **Iñaki Segurola**

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Sagarrondo loreen mira zuten erleek abaraska egin omen zuten Adrianaren ahoan eta ezti gozoa atera, ezti musikaduna, ezti **sagar**-zaporea. **Felipe Juaristi**

Atso ile-zuri **sagar**-musu batek buruari eragin zion. **Anjel Lertxundi**

Likenak bere lore **sagar**-berdea itsatsi zuen metalean. **Anton Garikano**

Kolore zeru-urdina edo **sagar**-berdea zituen gustuko, eta xingola arrosekin jantziko zuela amets egiten zuen. **Karlos Zabala**

7 (hitz elkartuetan bigarre osagai gisa)

Gaztain **sagar** aurpegi-gorriak, errege **sagar** horiak, oreztez beteak. **Karlos Zabala**

Udazkenaren usaina zen nagusi, bere urrin guztien indarrarekin baso-**sagar** helduegia gogorarazten zuena. **Fernando Rey**

Maitasun-**sagarrei** usain ezitia darie, milaka fruitu gozo dago gure atean zain, fruitu zahar eta berri. **Elizen arteko biblia**

Gari-uzta-arroan, Ruben sorora joan zen amodio-**sagar** bila, eta bere ama Leari eraman zizkion. **Elizen arteko biblia**

8 sagarrondoa.

Udaran sagastian egiten zuan siesta, ta bere barrengo txistu ura adituta, errezeloa jarri zitzayon, an **sagar**-pean lotan zegoala, sugeren bat edo suangillaren bat barrena sartua izango ote zuan. **Bernardo Atxaga**

9 ate *sagar* ik *ate*.

10 *ezpata-sagar* ik *ezpata*.

11 *kuku sagar* ik *kuku 10*.

12 *lur-sagar* ik *lursagar*.

13 *sagar arbola* sagarrondoa.

Baratze koxkor bat eta **sagar arbola** batzuk zituzten etxe inguruan. **Joxerra Garzia**

Hara non bost urteko neska-koskorak erantzuten dion, biak **sagar-arbola** baten azpiyen zeudela. **Iñaki Segurola**

Etxe ondoko **sagar** arbolei mihura kentzen. **Patziku Perurena**

Sagar-arboletako batean, uda hasieraz geroztik, **sagar**-aleak aurkitzen genituen. **Eskarne Mujika**

14 *zango sagar* ik *zango*.

15 *zintzur sagar* ik *zintzur*.

hitz multzoen maistasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amodio sagar (4); **sagar ale** (3); **sagar arbola** (3); **sagar arno** (9); **sagar arno on** (3); **sagar bat eman** (4); **sagar bat jan** (4); **sagar berde** (3); **sagar eder** (3); **sagar erre** (3); **sagar erreak** (4); **sagar eta azukre** (3); **sagar gorri** (8); **sagar gorrituekin** (3); **sagar handi** (3); **sagar jusa** (4); **sagar mota** (7); **sagar tarta** (8); **sagar ustela** (3); **sagar zukua** (4); **tokiko sagar** (4); **urrezko sagar** (3)

eman dio sagarra (6); **sagarra eman** (7); **sagarra jan** (4)

sagarrak eman (3); **sagarrak eta laranjak** (3); **semearen amodio sagarrak** (3); **urrezko sagarrak** (3)

sagara 1 *iz* mezaren erdialdea, apaizak ogia eta ardoa Jesukristoren gorputz eta odol bihurtzen dituen eta altxatzen dituen unea.

Arabiarrek ere, galerazirik zutela **sagarako** orduan ehizan egitea. **Patziku Perurena**

Sagarako denboran, apaizak ostia santua jaso zuenean, elizako atea zalapartan zabaldu zen. **Koldo Biguri**

Sagarak eta komunioneak baitute meza egiten. **Herria**

Apaizak alegia **sagara**-aurreko kantuan erregeri abisu eman zionean, hantxe zegoela lapurra, ehun doblako eta mando hankarina kendu zizkiona. **Patxi Ezkiaga**

2 sagaratzea.

Eta druida, haritz eta mihura, biekin lotura duena, bien apaiz **sagara**-lanetara emana. **Pello Zabala**

Izan ditakea arnoarentzat **sagara** handiagorik, ezagupen ederragorik? **Herria**

Zezen eta idi, beltzak denak, 100 sakrifikatzen zizkieten *hecatombe* deitu **sagara**-aldian, eta zezen-idiok adar artean hagin-arbaz ehotako koroak jantzita zeramatzen. **Pello Zabala**

sagaraketa iz sagaratzea. ik sagarapen.

Goizeko hamarretan meza hasi da, eta **Sagaraketa** geroxeago mamitu. **Txillardegia**

sagarapen 1 iz sagaratzea.

Hau izango duzue **sagarapenatarako** gantzuketa-olioa belaez belau. **Elizen arteko biblia**

David erregearen **sagarapena** Samuel profetak egina eta Salomon erregearen **sagarapena**, Tzadok apaizak eta Natan profetak egina, dira Mendebaldeko Kristandadean egindako errege-erreginen koroatze guztien aurrekariak. **Iñaki Mendiguren**

Kristoren gorputzaren **sagarapeneko** hitzak, hots, *Hoc est Corpus meum*. **Askoren artean**

Apaizen **sagarapena**.

Tenpluaren **sagarapena**. **Elizen arteko biblia**

Hartu gero **sagarapeneko** aharia eta egosi haren okela toki sakratuan. **Elizen arteko biblia**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Israeldarrek, apaizek, lebitarrek eta erbestetik etorritako beste guztiek pozik ospatu zuten Jainkoaren etxearen **sagarapen**-jaia. **Elizen arteko biblia**

Berak eraikitako urrezko irudiaren **sagarapen**-festarako deitzen zuten. **Elizen arteko biblia**

Zazpi egunez egingo dituzu garbikuntza- eta **sagarapen**-ohikuneak. **Elizen arteko biblia**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez duzue elkarrekin-etxolaren sarreratik alde egingo zazpi egunez, apaiz-**sagarapena** burutu arte. **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sagarapenatarako gantzuketa (3); **sagarapenatarako gantzuketa olioa** (3)

sagararazi, sagararaz, sagararazten du ad sagaratzera behartu.

Ania txikien eliza eraiki zuen Magdeburgeko hiri berrian, eta hiriko artzapezpiku Alberto jaunari **sagararazi** zion Gurutze santuaren Gorapen egunean. **Askoren artean**

Haren gorpua hiri berriko anaien elizara eraman zuten, anai Jakobok berak eraiki eta **sagararazi** zuten elizara, eta bertan hobiratu zuten ohore handiz. **Askoren artean**

sagarardo ik sagardo.

sagararno ik sagardo.

sagaratu, sagara(tu), sagaratzen 1 du ad sakratu egin edo sakratu dela adierazi. iksantutu. (zerbait)

Santutegia eta tenplu barrua konpondu eta atariak **sagaratu** zituzten. **Elizen arteko biblia**

Horrela **sagaratu** zioten Jaunari tenplua erregeak eta israeldar guztiek. **Elizen arteko biblia**

Jaunak esan zion: "[...] **Sagaratu** dut eraiki didazun tenplua, betierean nire bizileku izan dadin". **Elizen arteko biblia**

Horrela garbitu eta **sagaratuko** duzu aldarea. **Elizen arteko biblia**

Bere idolo higuingarriak jarri ditu niri **sagaraturiko** etxean, berau profanatu. **Elizen arteko biblia**

Ondoren, San Frantziskori **sagaratutako** eliza batera eraman zuten. **Askoren artean**

Norbaitek bere ondareko lur-sail bat **sagaratzen** badio Jaunari, bertan erein daitekeenaren arabera erabakiko da ordaindu beharrekoa. **Elizen arteko biblia**

Zer da handiago: oparia ala oparia **sagaratzen** duen aldarea? **Elizen arteko biblia**

Bedeinkatu egin zuen Jainkoak zazpigarren eguna eta **sagaratu** egin zuen, egun hartan hartu baitzuen atsedean kreaio-lanetik. **Jose Antonio Mujika**

Sagaratu niri larunbata: nire eta zuen arteko elkartasun-seinale da, jakin dezazuen neu naizela Jauna, zuen Jainkoa. **Elizen arteko biblia**

Gaurko eguna Jaunari, gure Jainkoari, **sagaratua** dugu. **Elizen arteko biblia**

Haren onuren oroitzapena **sagaratzen** dugu eta gogoangarri bihurtzen egun berezietako ospakizunetan. **Imanol Unzurrunzaga**

Joan ziren tabernara eta han **sagaratu** zuten adiskidantza. **Josu Zabaleta**

Demokrazia **sagaratzeak**, paralisia dakar. **Markos Zapiain**

2 (norbait)

Jesu Kristok **sagaratu** zaituzte eta Jainkoak bere herri santu izateko deitu. **Elizen arteko biblia**

Sabeletik irten aurretik **sagaratu** zintudan eta profeta izendatu, nire mezua herriei iragartzeko. **Elizen arteko biblia**

Zure etsaiak irainka ari dira, Jauna, zuk errege **sagaratuari** nonahi irainka. **Elizen arteko biblia**

Esan nien "Jaunari **sagaratuak** zarete; bai eta ontzi hauek ere". **Elizen arteko biblia**

Apaizak Jainkoari **sagaratuak** baitaude. **Elizen arteko biblia**

Gainera, 'nazir' da Sanson, Jainkoari **sagaratutako** soldadua. **Jose Antonio Mujika**

Neu naiz Jauna, apaizak neuretzat **sagaratzen** ditudana. **Elizen arteko biblia**

Jaunarentzat zeuen Jainkoarentzat **sagaraturiko** herri zarete. **Elizen arteko biblia**

Nola diozue, bada, nik, Aitak **sagaratu** eta mundura bidali nauen honek, birao egiten dudala, "Jainkoaren seme naiz" esateagatik? **Elizen arteko biblia**

Mundu osoaren Jabea zerbitzatzeko olio **sagaratuak** izan diren bi gizonak dituzu horiek. **Elizen arteko biblia**

Baina inork ez dio bere burua Jaunari **sagaratzen** bere etxeok aberasteko, baizik eta, errukiaren ordainarekin bere bekatuetatik askatzu, on egiten irautez betiko bizia lortzeko. **Askoren artean**

Tenplu bat eraiki zion Venusi, eta mila emagalduta **sagaratu** zituzten bertan. **Iñaki Iñurrieta**

-Gaur Jaunari **sagaratuak** izan zarete, zein semearen zein anaiaren kontura, eta haren bedekazioa irabazi duzue. **Jose Antonio Mujika**

3 (da aditz gisa, norbait)

Ikus daitekeen moduan ikusi ahal izateko eta berari atxikitzeko, bekatuen hobenetatik eta desio txar guztietatik purifikatzen gara eta haren izenean **sagaratzen** gara.

Imanol Unzurrunzaga

4 (era burutua izenondo gisa)

Eremu hau apaiz **sagaratuentzat**, Tzadoken ondorengentzat, izango da. Izan ere, zein Eleazarren ondorengoen artean, zein Itamarrenen artean baziren "funtzionario **sagaratu**" eta "Jainkoaren funtzionario" zeritzen haietakoak. **Elizen arteko biblia**

Andre pobreen eta birjina **sagaratuen** Ordena ospetsua. **Askoren artean**

Hark badu ahalmena eliz elkarrekin eraikitzeko eta **sagaratu** guztiei bere ondarea emateko. **Elizen arteko biblia**

Berak egin zen tonsura guraize **sagaratuez**, eta zazpi Salmoak eta Dominus pars delaco ahapaldia murmurikarazi. **Juan Garzia**

Handik, gauzez, Artemision-eko lanpara **sagaratuak** zelatatzen zituen. **Juan Garzia**

Baina kritikarik gabeko ondorengotza miresle honek ere ikusten du kode **sagaratuak** ezin direla aplikatu eraldatu arte. **Iñaki Mendiguren**

5 apaizak mezatan ogia eta ardoa Jesukristoren gorputz eta odol bihurtzen dituzten hitzak esan.

Ogia eta arnoa **sagaratzeko** mementuan. **Joan Mari Irigoien**

Esan zidan, Jesu Kristoren gorputz-odolak **sagaratzean**, eta aurretik ere bai, argizaria sutan bezala urturik zeukala bihotza. **Askoren artean**

Aldarean ogi-ardoen itxuran Jaunaren hitzari esker apaizaren eskuz **sagaratzen** den sakramentua. **Askoren artean**

Apaizak aldarean **sagaratzen** duenean eta beste norabait daramanean, jende guztiak, belaunikaturik, gorespenean, aintza eta ohore eman diezaiola Jainko Jaun bizi eta egiazkoari. **Askoren artean**

Klerikoei apalki erregu iezaiezue, beste ezer baino gehiago benera ditzatela Jesu Kristo gure Jaunaren gorputz eta odol txit santuak eta idatzirik haren izen eta hitz santuak, berauek **sagaratzen** baitute Jaunaren gorputza. **Askoren artean**

5 (era burutua izenondo gisa)

Meza laguntzen ari zen, eta apaizak ostia **sagaratua** altxatzean, ostia hori bizirik zegoen haur txit polit bihurtu eta aldatua ikusi zuen. **Askoren artean**

Hostia **Sagaratua** hartuta, Zamaria goseak amorratzen zegoen tokira atera zen. **Jon Alonso**

Egunero baita hura eskainia bizien eta hilen alde, mendez mende gurtzea merezi duen ostia txit **sagaratu** hartan. **Askoren artean**

Eta apostolu santuei egiazko gorputzez agertu zitzaizen bezalaxe, ogi **sagaratuan** agertzen zaigu orain guri. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldarea sagaratu (3); **jaunari sagaratu** (5); **sagaratu beharrekoa** (3)

jaunarentzat sagaratu (5); **jaunari sagaratu** (13); **niri sagaratu dagoen** (3)

jainkoari sagaratuak (4); **jaunari sagaratuak** (7); **sagaratuak dira** (3); **sagaratuak izan** (4); **sagaratuak izango** (4); **sagaratuak ziren** (3)

jaunari sagaratu (3)

jaunari sagaraturik (3)

jainkoarentzat sagaraturiko (3); **jainkoari sagaraturiko** (7); **jaunari sagaraturiko** (16); **jaunari sagaraturiko atsedean** (7); **sagaraturiko atsedean eguna** (6); **sagaraturiko herri** (7); **sagaraturiko herri zarete** (3); **zeuen jainkoarentzat sagaraturiko** (3)

jainkoari sagaratu (3)

jaunari sagaratzeko (4)

berauek sagaraten baitute (3); **neuretzat sagaraten ditudana** (3); **sagaraten badio jaunari** (3)

sagaratugabe *(corpusean sagaratu gabe soilik) izond* sagaratu izan ez dena.

Badaezpadakoa izan du heriotza; eta, ez balitzaio agindu gorena nagusitu arauari, lur **sagaratu** gabean ezarria zegokeen azken turuta arte. **Juan Garzia**

sagaratze 1 iz norbait edo zerbait sakratu egin edo sakratu dela adierazi.

Jaunaren etxearen **sagaratzea**. **Elizen arteko biblia**

Azterketa gainditzeko jo behar duten obrarena: Igor Stravinskyren *Udaberriaren sagaratzea*. **Berria - Kultura**

Oroimenaren bidez oroitzapenaren **sagaratzea** hartzeko agertzen da, hain zuzen, esperientzia... **Xabier Olarra**

2 (hitz elkartuetan)

Apaiza zirudien **sagaratze** unean, estasiak hartutako mistikoa. **Alberto Ladron Arana**

Sagarapena iritsi zenean, ostiaren gain **sagaratze** hitzen erdiak, hots, Hoc est enim esanda, ezin zuen inola ere aurrera jarraitu, eta Hoc est enim bakarrik errepikatzen zuen.

Askoren artean

· Eliz **sagaratzearen** Mendebaldeko errito hori -jada ohikoa bisigodoen Espainian- israeldar erakunde baten berpiztea zen, Samuel eta Erregeak liburuetan agertzen dena.

Iñaki Mendiguren

sagarazio iz sagaratzea. ik sagarapen.

Ohitura aspaldiko eta **sagarazio** kutsu batekin egiten zena. **Pello Zabala**

sagardegi iz

Hain zuzen, publiko hori gogoan aurtengo helburuetan dugu **"sagardegi"** didaktiko" baten idekitzea, Astigarragan bistan dena. **Herria**

sagardi *(orobat sagardoi g.er.) iz ipar* sagastia.

Kostaalde eta Lapurdi barnekaldeko **sagardietan**, sagarra badago frango polliki. Arratsalde batez, baratze miresgarriko **sagardian** lo kuluxka baten egiten ari zela amets bat egin zuen. **Herria**

Gizona, hila aspaldian, txokoz txoko ibiltzen zen, auzoen baratze eta **sagardietako** uzta ebatsiak besapean. **Itxaro Borda**

Mahasti eta **sagardoien** erditik heltzen gira Santiagoratu. **Herria**

Kaxa orgaren zolaren zolan pausatuta, baratze eta **sagardietako** emaitza koloretsuen azpian plantan gorderik. **Itxaro Borda**

sagardo *(orobat sagardo g.er. eta sagararno g.er.) 1 iz* sagarren zukua hartituz egiten den edari alkohoduna.

Batzuetan, **sagardo** gehiegi edaten genuen, Sebastianek berak ere bai. **Bernardo Atxaga**

Tabernetan ardoa edaten zuten **sagardoaren** ordez. **Joseba Urteaga**

Hain du gogokoa **sagardoa**! -erantsi zuen. **Mirentxu Larrañaga**

Zituen basorik onenetan ekarri zuen **sagardoa** Bain andreak eta berak egindako intxaur-galletak zerbitzatu zituen. **Mirentxu Larrañaga**

Atera **sagardoa** iturri-askatik, banatu ogia eta gazta, eta otordua egiten genuen. **Bernardo Atxaga**

Barrikote bati ziria kendu, eta Martintxok nahi beste **sagardo** edan ahal izan zuen. **Martin Anso**

Denverrek **sagardo** pixka bat berotzea sujeritzen dio, burua estutzen duen bitartean zerbait egiteko edo esateko. **Anton Garikano**

XIV. mende hasieran, Lapurditik ateratako ardo eta **sagardo** gaineko zergak kobratzen saiatu zen Baiona. **Martin Anso**

Sagardoaren lurraldean **sagardoaren** kultura sustatzeko sortu zen *Sagarrondo* elkarte. **Berria - Kultura**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sagardo ona emateko gai diren sagarrak, barneko harrik gabeak gainera. Pello Salaburu

Sagardo berriak gorputz gehiago eta fruitu helduen aroma duela esan zuen atzo Sagardun Partzuergoko idazkari Joxe Angel Goñik. Berria - Euskal Herria

-Ogi lizundua, **sagardo** mindua, olio zaharra eta ahuntz zahagiko ardoa. Koldo Izagirre

Kobazulo barruan **sagardo** zoragarria zena kanpoan ozpin bihurtua baitzen. Martin Anso

Hantxe, izeba-osaben etxean, ikasi nuen nik, kategoriko **sagardoa** eta halamoduko pitarra ez zirela gauza bera. Patziku Perurena

3 (neurriekin)

Alexek botila bat **sagardo** hartu zuen. Fernando Morillo

Makina bat botila **sagardo** hustu genian han garai batean. Xabier Mendiguren Elizegi

Bere burua salbu ikusita, ostutako barrikote hartatik tragoxka bat **sagardo** edan nahi izan zuen. Martin Anso

Kokotsa bastoi lodi baten bolizko eskutokian bermaturik, pitxer bete **sagardo** aurrean zuela. Karlos Zabala

Ahotik halako hats higuin garria isurtzen hasi nintzen, upel bat **sagardo** edan izan banu bezalaxe. Patxi Zubizarreta

Baso bat **sagardo** jaso zuen, eta ezpainetara hurbildu. Fernando Morillo

Nafarroako **Sagardo** Egileen Elkarteak 100.000 litro **sagardo** banatuko ditu aurtengo denboraldian. Berria - Euskal Herria

Ostatariak afaria eta botila-ardo eta - **sagardo** mordo bat ekarri zituen. Koro Navarro

Basoa bete **sagardo** irensten ari zen senarrari. Pedro Alberdi

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Herri askotan egin ohi den ardo, txakolin edo **sagardo** festa horietako bat. Anjel Lertxundi

Gaurko saio osagarrietan, **sagardo** dastaketa izanen da 18:00etan, Larraona ikastetxean. Berria - Euskal Herria

Han bertan, **sagardo** dastatzea eta otorduak egin ahal izango dituzte. Berria - Kultura

Sagardo usaina ere ez zen falta izaten gure inguruetan, tarteka nabarmen, etxazpi ilunetatik itzuria. Txillardegi

Pete Bovey, lanbidez teiltatu-lastoztatzailea, eta **sagardo** edale fina. Mirentxu Larrañaga

Atseginez irribarre egiten zion eskuetan zuen **sagardo**-basoari. Mirentxu Larrañaga

Ohizko ogia eta gazta ez ezik **sagardo** botilak ere eramaten zituen berak. Bernardo Atxaga

Ur eta **sagardo** botilak zeuden, eta zenbait edalontzi. Fernando Morillo

Sagardo mustioa egin bear danean, etzaio urik botatzen. Patziku Perurena

Sagardo Egunean, adibidez, ehun pertsona inguru bildu ginen. Berria - Harian

Sagardo huts tanta bat, apartua eta gozoa, Josu Zabaleta

5 baso bat sagardo.

-Julian, ba al zatoz **sagardo** bat edatera? -nire aitak berehala. Jon Maia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sagardo berria (3); **sagardo berriaren** (3); **sagardo botila** (10); **sagardo dastaketa** (4); **sagardo dastatzea** (3); **sagardo edan** (3); **sagardo eguna** (4); **sagardo festa** (4)

aurtengo sagardoa (3)

sagardoaren kultura (3)

sagardoaldi *iz* sagardoaren denboraldia.

Asteazkenean, **sagardoaldiaren** hasiera ekitaldira gonbidatu zuten Gure Irratiak, Ikastolak eta AEKak. Berria - Kirola

sagardogile *iz* sagardoa egiten duen pertsona.

Iragan ostegunean sagar ekoi zeak eta **sagardogileak** batzartu ziren Hondarribian, ordaindu beharreko prezioa zehazteko. Berria - Ekonomia

Gipuzkoako **sagardogileen** elkarteak tona bakoitzeko 223 euro ordaintzea proposatu zuen, baina ekoi zeen haserrea piztu zuen. Berria - Ekonomia

Bost **sagardogile** biltzen ditu elkarte horrek. Berria - Euskal Herria

Euskal tradizioan, Mari jainkosa **sagardogile** aparta da. Martin Anso

sagardoi ik sagardi.

sagardotegi 1 *iz* sagardoa egiten, edaten eta saltzen den etxea edo denda.

Hogei bertsolari agertu zirela oholztan, eta horietako askok estreinakoz zapaltzen zutelara antzoki baten oholta, plaza eta **sagardotegia** baitziren ordu arteko bertso leku ohikoak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Igandetan, mezaren ondoren, baserriarrak, jaiegunetako jantziekin, jaka lepoan, **sagardotegian** eta pilotalekuan elkartzen ziren. Koro Navarro

Aratsean aldiz, Zubietako Araeta **sagardotegi** mukuru bete batean (400 jende inguru), bertze bertsulari batzuk dute kantatu, sagar noak berotutako giro alaietan. Herria

Ahoz ari zenak **sagardotegiko** kupelaren jiran totelduko zuen bere kanta-saioa. Andoni Egaña

Bost sagardogile biltzen ditu elkarte horrek, Begiristain bera, eta Lekarozko Larraidea, Berueteko Txasenekoborda eta Behetxonea eta Lekunberriko Toki-Alai

sagardotegietako nagusiak. Berria - Euskal Herria

Sagardotegiko menua ere badute, baina guk karta eskatu dugu. Xabier Etxabe

Nik belarri gainean matxetea ikusten nion, **sagardotegirako** txuletoiak mozteko erabiltzen diren ikaragarri horietako bat. Joxean Sagatzizabal

Konporta-aldeko **sagardotegi** zahar ilun batean gertatu nintzen, Donostiako Antiguano, igande arratsalde batez. Txillardegi

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ondotik **sagardotegi** afaria Ttote ostatuan. Herria

Sagardotegi sasoia Nafarroan. Berria - Euskal Herria

Sagardotegi itxura eman nahi izan diote tabernari, erdi-erdian upel artifizial bat jarrita eta bertsolari ezagunen bertsoak paretetan idatzita. Xabier Etxabe

Sagardotegi garaia pil-pilean dago. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sagardotegi afaria (3)

egi luze sagardotegian (3); **petritegi sagardotegian** (3); **rezola sagardotegian** (3); **zubietako araeta sagardotegian** (4)

sagardoale iz sagardoaren zalea den pertsona.

Emeterio, umore handiko gizona omen zen, batere ez elizkoia, gaztetan behintzat, eta **sagardoale** amorratua. Heria - Kultura

Sagardoale profesionalak, aldiz, hamaiketarako ohean behar. Edorta Agirre

Epaile, **sagardoale** famatu Manuel Mari izan omen zen. Xabier Etxabe

Hegoaldearentzat ez dugu xehetasunik: badakigu hor, denbora batez, **sagardoaleek** bereziki gustukoa zutela birla edo txirloa, han dioten bezala. Heria

sagarno 1 iz ipar sagardoa.

Sagarno ere edaten dut, ezin baitut ohitu ahuntz zahagiko ardoari. Koldo Izagirre

Horrela **sagarno** hauta egiten zen etxeetan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aurtengo **sagarno** freskagarria, ona eta atsegina dela, denen ahotan ez da bertzerik entzuten. Heria

Iparraldeko **sagarno** berriaren sasoina urtarrilaren 20an, ortzegun arats huntako 7etan, idekiko dute Christian Sarramagna futbol trebatzaileak eta Daniel Larretchea errugbilariak, Baionako Jean Dauger kirol zelaian. Heria

Sagar zukua eta **sagarno** ekoizten dituzte. Beria - Ekonomia

1990-an, jende multxo batek Sagartzea elkarte sortu zuen, **sagarno** egiteko sagarrondo mota batzu salbatu nahian. Heria

Sagarno egitetik bizitzeko behar dira hamar hektara eremu landatu, baina diru sartzek hedatu nahi dituen laborariak hektara bat edo beste landa dezake. Heria

320 presunek ateratzen dute bizitzekoa **sagarnotik** zuzenean. Heria

2 (neurriekin)

15 miliun pinta **sagarno** ekoiztu dira aurtengoa Euskal Herrian, horietarik kasik erdia Astigarraga eskualdean. Heria

Iparraldean Eztigar kooperatibak 58 000 pinta **sagarno** atera ditu, eta 12 000 pinta sagar jus. Heria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sagarno afarirako azken txartelak aurki daitezke bi lekutan [...]. Heria

Ortzirale aratsean, **sagarno**-gaua Urruñan. Heria

-**Sagarno** xorta bat hartuko duzu? -galdegin zion osabak. Elena Touyarou

Sagarno basoa taula gainean utzi zion, eta bera aukeri batean jarri zen. Elena Touyarou

Joantok sorbaldak goratu zituen eta **sagarno** hurrupa luzea hartu. Elena Touyarou

Maiatzaren 22an iraganen da, seigarren aldikotz, **Sagarno** Eguna Baionan, Hiruki elkarteak (Baionako Ikastola, Gau Eskola, Gure Irratia) antolatuturik. Heria

Larunbatean, **Sagarno**-Besta Ziburun. Heria

4 sagarno egile ipar sagardogilea.

Aurtengo Sagarno eguna bosgarrena izanik ohargarri da urte oroz etortzen direla **sagarno egileak** edari horren eskaintzera urririk. Heria

Baionako Aviron taldeak eta Hiruki elkarteak gomita luzatzen daukute, eskualde huntako **sagarno egileen** uzta jastatzera joaiteko. Heria

Baziren hor 50 **sagarno egile** beren edariaren eskaintzen, bakoitzak 200 botelaika ekarririk. Heria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arno edo sagarno (3); **arno sagarno** (3); **aurtengo sagarno** (3); **pinta sagarno** (7); **sagarno afaria** (4); **sagarno berriaren** (7); **sagarno besta** (8); **sagarno besta ziburun** (4); **sagarno edaten du** (3); **sagarno eguna** (21); **sagarno eguna baionan** (6); **sagarno egunak** (6); **sagarno egunaren** (4); **sagarno gaua** (10); **sagarno hoberenetik edaten** (3); **sagarno pinta** (3); **sagarno xorta bat** (3)

aurtengo sagarno (5)

sagarnotegi 1 iz ipar sagardotegia.

Sagarno Txopinondo Urruñako **sagarnotegikoa**, txotxetik eskainia izan den delarik nahi den bezenbat dohainik. Heria

Hain zuzen **sagarnotegiko** afaria zerbitzatua izan da Urrunako Txopinondoren edariarekin. Heria

Orduan hasten da **sagarnotegien** sasoi berria. Heria

Sagarnotegien giro herrikoia. Ramuntxo Etxeberri

2 (hitz elkartuetan)

Iparraldean, 9garren **sagarnotegi** bazkaria, Hazparneko Ikastolak antolatuturik. Heria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sagarnotegi bazkaria (14)

sagarnotegietako moldean (3)

bertzaldeko sagarnotegietara joaiteko (3)

sagarnozale iz ipar sagardoalea.

Joan den astean, Angelun bildu dira **sagarnozaleak**, Imanol Hariñordoqui-ren inguruan, aurtengo uztaren ospatzeko. Heria

sagarroi 1 iz trikua.

Sagarroia ipularrera hupatzen lagundu nuen eskuz, disgustua gaudituz. Zezen hilari so egin nion, eta zalantzan egon nintzen **sagarroi** jigant bat ez ote zen. Itxaro Borda

Sagarroia bezain trinko eta zitzadun zegoela argi zen, lanjerra berriz nondik jaukiko zitzaion goaitan. Itxaro Borda

-Hoa **sagarroiak** lekatzera. Aingeru Epaltza

2 (hitz elkartuetan)

Edo zaurtuko ninduketanak, hobeki, nola gertatuko bailitzaidake baldin neure burua **sagarroi** larruki batez estali nahiko banu. Joan Mari Irigoien

- Ni ohe ertzean eseri nintzen, eta osabak eskurat eman zidan fosila: itsas **sagarroi** batena zen, ederra zinez. Joan Mari Irigoien

sagarrondo 1 iz arrosaren familiako zuhaitza, ez oso handia, lore zuri-arrosak dituena eta fruitutzak sagarrak ematen dituena (*Malus domestica*). ik **sagar 13**.

Gero, lehen ura zegoen tokietan fruitu arbolak sartu zituzten, lehortutako ubide bakoitzean klase bana, **sagarrondoak**, madariondoak, mertxikondoak, abrikotondoak, gereziondoak, limoiondoak eta laranjondoak. Felipe Juaristi

Urte berriarekin batera, artean **sagarrondoak** historik gabe direlarik, mihurak bere aran modukoak ematen ditik. Edorta Jimenez

Harrak jotako sagar eroriak **sagarrondo** baten pean, sasitza ugaria eta altzairuzko xafraz, oholez eta pneumatiko zaharrez hesitutako eremu bat. Oskar Arana

Gaszte eta libre nintzenean **sagarrondoaren** adar azpian, etxe kantaritik hurbil... Bernardo Atxaga

Igo zen **sagarrondoaren** adaburura eta han, kukulumuxu, adar artean ondo estalita, zain geratu zen. Felipe Juaristi

Kontzeju aurrean, ateetan udal zigilua -otso bat **sagarrondo** batetik ale eder bat hartu nahian- zeraman zalgurdia zegoen. Felipe Juaristi

Jauregiaren kanpoko harresian zehar ibili zen inguruka, **sagarrondo** adiskidea, **sagarrondo** babeslea zegoen tokiraino iritsi nahian. Felipe Juaristi

Sagarrondo ugari zituen lur puska baten ondotik. Xabier Olarra

Sagarrondoak loratzen diren goi ordokia. Felipe Juaristi

Sagarrondoetako sagarrak eguzki txikiak ziruditen. Felipe Juaristi

Amak munduratu ninduelarik, aitaxi Migel 53 aldiz gozatua zen **sagarrondo** loratu berriaren itzala. Aingeru Epaltza

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gizonak orduan, **sagarrondo** landareak Samarcandatik ekarririk, emakumea bizi zen dorretxearen inguruan sartu zituen. Felipe Juaristi

Sagarrondo baso ttipi baten ondoan. Koldo Izagirre

Sagarrondo loreen mira zuten erleek abaraska egin omen zuten Adrianaren ahoan. Felipe Juaristi

Sagarrondo adar batetik zintzilik segitzen zuen mutilak, eskuak gorri-gorri eta hankak airoso asko. Felipe Juaristi

Hango tximinian, **sagarrondo** egurra errez piztu zuen sua. Felipe Juaristi

sagartsu *izond* sagarretik asko duena.

Ezpain **sagartsu** horien artean haren mihiak kuku egin zidan. Aingeru Epaltza

sagartxar *iz adkor* sagar txarra.

Sotoko eskaiburuan edukitzen genuen pulpa edo errejiltoa, eta hartatik botatzen puska bat, pazian egositako arbi, erramolatxa, patatazal, azaosto, **sagartxar** edo zena zelakoari, zerritegira pasaeran. Patziku Perurena

sagartxo *iz* sagar txikia.

Uda ere bukatu gabe zegoen, mahats bilketa bete-betea, baratzeko **sagartxo** gorriak bildu eta berriak zituzten beren zume sareetan jarri... Josu Zabaleta

Lurrean alfonbra saretuen gainean heda-heda Sassiko lur eremuko **sagartxo** gorriak. Fernando Rey

Haritzaren fruitua ezkurra da, noski, baina behin baino gehiagotan ikus genezake ezkurrak ez ezik **sagartxo** txiki baten tamainako beste fruitu batzuk ere izan ohi dituztela haritzek. J.M. Olaizola "Txiliku"

Honek ez du elorri-sagarrrik ematen, elorri-**sagartxoak** baitira baxokaran edo baxakan, gero patxaranetarako erabiliak. Pello Zabala

sagartze *iz ipar* sagarrondoa.

Sagartzeetat bestalde, lekuko fruituetaz ere interesatuak baitira. Herria

Zer nolako **sagartzeak** biharko? Herria

sagarzale *izond* sagarren zalea dena.

Esaldi horretan laburbiltzen zen Frantzisko Montoiaren teoria, eta **sagarzalea** zela frogatzen zuten hor-hemen bere diruz argitaratutako poemek. Felipe Juaristi

Tamalez zioen, destainaz ere bai, Frantzisko Montoia **sagarzale** baitzen amorratua, eta ez printzezale. Felipe Juaristi

sagasti 1 *iz* sagarrondoaz landaturiko saila.

Eta artasoroak, baratzek, **sagastiak**, basoak, urruneko mendiak, haiek ere berdeak. Bernardo Atxaga

Etxe gibelesko **sagastian**, bazagok txabola moduko bat. Hasier Etxeberria

Sagasti zaindu gabe bat, erlauntza multzo bat bertan behera utzia, etxola bat basoan astigar-ziropa distilatzeko. Oskar Arana

Sagasti eder bat oroitzen dut, aspaldiko partez berriro ikusi nahiko nukeena. Juan Luis Zabala

Eguzkia ezkutatzen ari zen **sagastietan**, eta Joanese sagar bat iruditu zitzaion eguzkia, sagar handi, gorri eta umoa. Felipe Juaristi

2 (hitz elkartuetan)

Aziendak, **sagasti** pare bat, mizpira-**sagasti** txiki bat, fruta-arbola dezente, udare nahiz piku, barruti ugari, belaze ordeka paper-fabrikak kendua, soro sorta bat, baratza, borda eta dolarea, upel batzuk eta aitaJauna errementari izan zeneko seinaleak ezkaratzean... Pello Zabala

sagastitxo *iz* sagasti txikia.

Reginaren hotsa alferrik galtzen zen trastez betetako patioan, ongarri askaren atzean, **sagastitxoan**, mahasti ia hutsezko errenkaden artean, masustondoan artean, urruti, urruti, eguerdiko soroen bakean. Josu Zabaleta

sagitario (*ETCn 50 agerraldi; orobat sagittarius ETCn 117 agerraldi*) *iz* Zodiakoko konstelazioa; zodiakoaren bederatzigarren zeinua; latinez 'sagitariora' esan nahi du. ik **sagittarius**.

Eskorpiotik aurreratuz **Sagitarior** sartzen denean izterretara iritsiz, oraindik ere bide motzagoa egiten du egun bakoitzean. Santiago Iruretagoiena

Hauen jarraian eta **Sagitarior**, Eskorpio eta Libraren gainetik, Sugea dator, bere buru-gainarekin Koroa ukituz. Santiago Iruretagoiena

sagittarius (*ETCn 117 agerraldi; orobat sagitario ETCn 50 agerraldi*) *iz* Zodiakoko konstelazioa; zodiakoaren bederatzigarren zeinua; latinez 'sagitariora' esan nahi du. ik **sagitario**.

-Sagittariusen dabil: izter eta zainak dute ilargiaren eragina oraingoan. Pello Zabala

sagrario

Aldareko ontziak ere bai, eta baita zur urreztatuzko **sagrario** zahar bat ere. [Josu Zabaleta](#)
Eta **sagrarioa** itxi zuen. [Juan Garzia](#)
Berebiziko jaiera izan zion Jesus **Sagrariokoari**. [Pello Zabala](#)

sagu 1 iz ugaztun marraskaria, arratoiaren antzekoa baino hura baino txikiagoa, etxeetan kalte handiak eragiten dituena (*Mus musculus*).

Kafesnea berotzen ari nintzela, **sagu** batek zaborrontzitik jauzi egin eta sukaldearen eta hormaren arteko zirrikitutik ihes egin du. [Harkaitz Cano](#)
Gaur goizean **sagua** harrapatu dut. [Joan Mari Irigoien](#)
Gaur goizean, sagutegian **sagu** bat harrapatuta zegoela ikusirik, katuari deitu, eta hari ematera nindoan zomorro hura. [Josu Zabaleta](#)
Amama Otsok **saguak** harrapatzeko tranpak jarri zituen, baina Charliek eta biok garaiz aurkitu genituen, eta haietatik ihes egiten lagundu genien. [Mirentxu Larrañaga](#)
Txori txikietarako zepoak, **saguak** harrapatzeoak, sua astintzeko burdinak. [Jon Maia](#)
Txoriak, **saguak** eta horrelakoak begiradaz zorabiatu eta menpean hartzen ditu... [Paddy Rekalde](#)
Ezin konta ahala **sagu** ikusten nuen etxean barrena ihesi eta haien atzetik katutzar batzuk. [Pello Lizarralde](#)
Arratoiak eta **saguak** izugarri ugaldtu ziren. [Gotzon Garate](#)
Korridorean gure aita ikusten zuenean **sagu** baten gisara ateratzen zen ihesi, aitak ezin zuelako sufritu. hiria indarrez hartu eta katuak **sagua** bezala astintzen baitu...
[Fernando Rey](#)
Saguak akabatzeke pozoia bota zuen jaki-gordailuko harraskaren azpian. [Mirentxu Larrañaga](#)
Bi hilabetez, jo eta ke aritu zen bere gelan, atsedetik hartu gabe, zurezko kaiola txiki batean sarturik zeukan **sagu** bat hezten. [Jose Morales](#)
Aski, katuarena eta **saguarena** egiteaz. [Oskar Arana](#)
Erdi lotarik iduritu zitzaidan **sagu** bat ari zela zerbeiten karruxkatzen eta pentsatu nuen etxeko gatuak sobera bazkatzen genituela. [Herria](#)
Egun osoa ematen zuen pisu zaharreko gela abandonatuetan preso, labirintoan galdu den **saguaren** antzera. [Patxi Iturritegi](#)
Zuk, **sagua** izaki, jale onaren fama daukazu eta ez zenuke pastel bakar bat ere arbiuatu behar. [Patxi Ezkiaga](#)
Intsulina ekoizten duen ehuna sortu dute, **sagu** baten zelula pankreatikotik abiatuta. [Berria - Gaiak](#)

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Baziren era berean arratoi batzuk, estolda-ahoen ondoan jateko zerbaiten bila, **sagu** hori txiki batzuk, eta katu bat, zelatan. [Joxan Elozegi](#)
Mendiak erditzen dira, eta **sagu** barregarri bat dakarte mundura. [Hasier Etxeberria](#)
Ikertzaile lanetan bera; Sebastian Gonzalez, **sagu** zuria (cobaya). [Berria - Kirola](#)
Kontua da **sagu** zuria lapurtzen zituela ez-dakit-zein laborategitik lagun batekin. [Karlos Zabala](#)
Sagu bikietan egin diren azterketetan. [Berria - Gaiak](#)
Baina topo egingo dute estoldetako **sagu** maitzurarekin. [Berria - Kultura](#)
Nire gelan ostatu hartu duen adiskide **sagu** bibote-tenteak badu izena. [Anjel Lertxundi](#)
Sagu tripa-hutsak iduri, soin gaineko arropen larru higatua marruskatzera abiatzeko puntuan ginen. [Aingeru Epaltza](#)
Erreserbako gudaritxo zahar bat, **sagu** bat bezala izutua. [Juan Garzia](#)
Mendiko **sagu** txiki bati heltzen zion isatsetik. [Bernardo Atxaga](#)

3 (irain hitz gisa)

-Berriz hemen harrapatzen bahaut, **sagu** zikina, pottoak moztuko dizkiat azazkal hauexekin! [Juan Kruz Igerabide](#)
Orduan gauza pare bat ikasiko duzue, **sagu** miserableok. [Agustin Otsa](#)

4 irud/hed

Osaba, erdi jostetan bezala, eta apeza, berriz, bere atzaparrak zorrotzurik, **sagua** noiz larrutuko, osabak dogmaren eta ortodoxiaren marra iragan bezain fite... [Joan Mari Irigoien](#)

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eguzki sartzea igarri-igarrian zegoen eta Midak kalezuloa itzalek lausotua ageri zen, hura hesitzen zuten hiru hormek are gehiago ilundua, **sagu** habia irudi. [Patxi Zubizarreta](#)
Hau **sagu** -trampa bat duk suak hartzen badi... [Harkaitz Cano](#)
Katalogo luze bat utzi zigun, zein liburu, zer-nolako orri ziren goxoan esanez, gure **sagu** -umeak gosez hil ez zitezen. [Patxi Ezkiaga](#)
ik sagukume.
Bob James, herrixkako **sagu** -liluratzaille sudur-okerra, ekarrarazi zuen saguak xirmi-xarma desagerraraz zitzan. [Mirentxu Larrañaga](#)
Teratokartzinoma delakoa, zenbait **sagu** -leinu odolkideren barrabletan aurkitzen dena. [Juan Garzia](#)
Guztiak ere ados ziren jauzi egin eta **sagu** -enbriaia ikertzeko. [Juan Garzia](#)
Iruditu zitzaidan bazegoela hartarako urrats bat aurreratzea eta ugaztun-zelulen ezaguera egitea **sagu** -zelulak haziz. [Juan Garzia](#)
Hilabete batzuetan, bagenituen haziak hainbat motatako zelulak, **sagu** -linfozitoenak bereziki. [Juan Garzia](#)
Ene leihoaren parean, sabel **sagu** koloreak, papoen ortzadarren berde-more distirantak. [Aurelia Arkotxa](#)

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Larre- **saguak** korrika bizian nire odotxotik. [Joxean Sagartzizabal](#)
Uzta- **sagu** bat zen, inoiz ikusi dudana sagutxorik politena; itzelezko belarriak zituen, eta begi basatiak. [Mirentxu Larrañaga](#)
Ekipoko kideek makinaren super-arkuen pean jaso zutena hamaikagarren laborategi **saguaren** gorpu kiskalia izan zen. [Iban Zaldua](#)

7 ordenagailuari atxikiriko gailua, esku batekin erabiltzen dena eta pantaila gobernatzea ahalbidetzen duena.

Sagu biribila: iMac ordenagailuaren diseinu originalarekin bat etortzeko, **sagua** eta teklatu bereziak diseinatzea erabaki zuen Apple. [Berria - Gaiak](#)
Sagua mugitu, sakatu, posta zabaldu eta oihu egiten du: [...]. [Antton Olano](#)
Nabigatzen egon gabe ere **sagua** sakatu nahi izateko keinua egitea zen azterketa batzuek aipatutako zantzetako bat. [Berria - Harian](#)
Azkazalak hozkatzen ditu **saguarekin** jolasean dabilen bitartean. ukitu, pentsatu, ordenagailuaren **saguarekin** berriro ere klik egin... [Antton Olano](#)
Urduri begiratu zidan, eta botoiak sakatzen hasi zen, **saguaren** gainean. [Lander Garro](#)

8 sagu-arte iz sagutegia.

Klaska! entzun zen, eta eskua **sagu** -arte batean harrapatuta geratu zen. [Iñaki Mendiguren](#)

9 sagu zulo iz

Filch korridoreetan gora eta behera hasi zen bat-batean, dena oholez estaltzen: paretetako zirrikitu txikienetatik **sagu** -zuloetaraino. [Iñaki Mendiguren](#)
Ukui lu aldera eraman zuen estatua hutsaren mamua, klop, klop, **sagu zuloa**. [Koro Navarro](#)
Europa **sagu-zuloa** bilakatu doa. [Edorta Jimenez](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

sagu zikina (4)

sagukume *(orobat sagu kume)* iz saguaren kumea.

Isil-isilik egoten gara, **sagukumeak** bagina bezala. Josu Zabaleta

Sagukume erraldoi batzuez erditu zen Amama Otso; denak ere, isats-luzeak eta bibote dardaratidunak. Mirentxu Larrañaga

Tokioko Nekazaritza Unibersitateko zientzialari talde batek **sagu kume** bat sortu du, bi sagu emeren geneak baliatuta. Berria - Gaiak

sagutegi 1 iz saguak harrapatzeko tresna.

Saguak hornidurak jaten ari zitzaizkidala ohartua nintzenez, **sagutegi** bat ipini nien arasan. Josu Zabaleta

Sagutegian sagu bat harrapatuta zegoela ikusirik, [...]. Josu Zabaleta

Sagutegia prest zegoen. Karlos Zabala

2 irud/hed

Auzitegian berdin, ene eskoltarekin sartzen nintzelarik, ez nuen presorik ikusten nehon auzitegian, ez eta presoak beha egoiten diren tokian ere, *souricière* edo **sagutegi** deitzen den horretan. Filipe Bidart

Epaileari erran ez dudala deus erraitekoric, eta berriz gibelerat ene eskoltarekin, **sagutegirat**. Filipe Bidart

sagutxo *(orobat sagutxu g.er.)* 1 iz sagu txikia.

Uzta-sagu bat zen, inoiz ikusi dudana **sagutxorik** politena. Mirentxu Larrañaga

Orain ez da oso handia baina orduan **sagutxo** bat ematen zuen... Harkaitz Cano

Metroko **sagutxoak**. Lutxo Egia

Arratoiak akabatzeko hautsak bota behar ditut **sagutxo**en txokoan. Javi Cillero

Inor ez zela ausartuko galdetzera zergatik hostoa arbolatik jausi zen edota **sagutxo** ibiltariak nolatan asaldatu zuen ohean etzanda zegoen gizona. Imanol Unzurrunzaga

Galder konturatu zen hiritarrak ez zirela **sagutxoekin** ikaritzen. Lutxo Egia

Ni Norma Lúciaren boa nintzen eta hura **sagutxo**a, haren inguruan kiribildu, eta irentsi egingo nuen presarik gabe. Karlos Zabala

2 irud/hed

Sagutxo beltz lodi bat zeukan, ordea, hankartean, eta aurkeztu nahi izan zidan gona altxatuz. Pello Lizarralde

Sagutxo beltzean eman behar izan nion musua, bihotza taupa bizian nik. Pello Lizarralde

sagutxodun *izond* sagutxoa duena.

Delitu bat berria baldin bazegoen, hartaz hitz egiten ahal bazuten, festa zen hura bi neskatxa **sagutxodun** haientzat. Fernando Rey

sagutxu ik sagutxo.

sagutzar *iz adkor* sagu handia.

Harrezkero txibatoen irudia estolderietako **sagutzarrekin** alderatzen du. Paddy Rekalde

saguxar ik saguzar.

saguzahar ik saguzar.

saguzar *(orobat saguxar g.er. eta saguzahar g.er.)* 1 iz *Chiroptera* ordenako ugaztun hegalaria gautarra, mintzeko hegoak dituena.

Saguzarrak leku epel samarrak bilatzen ditu negua pasatzeko; buruz behera esekita jartzen da, ahalik eta kuxkurtuen eta hegaletan bil-bil eginda. J.M. Olaizola "Txiliku"

Saguzarrak oinak gorantz dituela egiten du lo, zerua gainera eror balekio eusteko ahalegin guztiak egiteko asmoz... J.M. Olaizola "Txiliku"

Ohean zegoen izaki txikiak **saguzarrak** bezalako belarri handiak zituen. **Saguzarren** aldrak agertu ziren, dozenaka, ehunka agian, ilunabarreko argitan hegaldi nahaspilatsuan. Iñaki Mendiguren

Tardarida **saguzarren** koloniki izugarriak izaten dira garai honetan, sinestezina badirudi ere, kalkulatu da 100.000.000 **saguzar** eme ume egiteko elkar daitezkeela Texasko bost leizetan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Saguzarrek txui, txui, txui egiten zuten. Pablo Sastre

Nork ez du metan zigarro piztu bat sartu **saguzar** baten ahoan? Anjel Lertxundi

2 (erkaketetan)

Georgek behin betaurrekoak hautsi zituen neskekin hizketan ari zela; alde egin behar izan zuen, **saguzar** bat bezain itsu. Koro Navarro

Beste gizaldi batetik iritsitako ahots batek hitz egiten zuela zirudien gotzain ospetsu hura bera, **saguzarra** baino zaharragoa. Koldo Biguri

Esaten zuen bere lanera joaten zela, baina gelan sartuta egoten zen, **saguzar** bat bezala, inork jakin gabe. Juan Kruz Igerabide

Oso mesedegarria izan da hura inguruan hegaldaka ibiltzea **saguzar** handi bat bezala. Iñaki Mendiguren

Batzuk buruz behera zeuden itsatsita eta bertan ageri ziren boxeolariak pertxa batetik zintzilik jarritako **saguzar** erraldioen antza zuten. Harkaitz Cano

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Emeak gauz ehizara joaten dira, **saguzar** saldo izugarrietan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Dobbyk eskuez estali zituen bere **saguzar**-belarriak, kexu mintzatuz: [...]. Iñaki Mendiguren

Erakusleihu batzuetan **saguzar**-barez eta aingira-begiz beteriko upelak zeuden. Iñaki Mendiguren

Gorrito diat **saguzar** konplexua, ezta after-hour-etako bezero finenak izango bagina ere! Urtzi Urrutikoeetxea

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hormetarikoa batean erreproduzio kaskar bat zegoen, emakume gazte baten marrazkia ageri zuena, hegal eta guzti, banpiro **saguzar** bat antzo. Mirentxu Larrañaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

saguzar handi (3)

saharar 1 *izlag* Saharako, Saharari dagokiona; bereziki, Saharako Errepublika Demokratikoari dagokiona. **iksaharai**.

Elgoibarko udalak udan **saharar** lurraldeko haurrak etxean hartzeko kanpaina bultzatuko du aurten ere. Herria

Saharar herriaren autodeterminazioaren aldeko konpromisoa hartzea. Berria - Euskal Herria

Saharar errefuxiatuak jasaten ari diren elikagai gabezia. Berria - Euskal Herria

SEAD **Saharar** Errepublika Demokratikoaren Lagunen Elkarte. Berria - Harian

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren lagunek beste bi ordezkari bidali dituzte Malira. Berria - Mundua

Uda huntan, **saharar** haurrak jin beharrak dira Leitza, Elizondo, Etxalar, Lesaka, Zubieta, Ituren, Lekaroz eta Ziga-rat. Herria

Neskato **saharar** batek sentitzen duen bazterkeria narratuko du ipuinean. Berria - Kultura

Marokok hogeita hamar ekintzaile **saharar** askatu ditu aste honetan. Berria - Mundua

Grabazioan Gasteizen bizi diren errefuxiatu **sahararrek** hartu dute parte. Berria - Kultura

Hamahiru preso politiko **saharar** geratzen dira oraindik Marokoren kartzeletan. Berria - Mundua

Saharar gerrako ipuinak. Berria - Kultura

Egun hortan entzun da **saharar** musika. Herria

• 2 *iz* Saharako biztanlea; bereziki, Saharako Errepublika Demokratikoko herritarra.

Haima horretan, **sahararren** eguneroko tresnak eta ontziak bilduko dituzte. Berria - Euskal Herria

Marokora itzuli zen, gerraren batera, **sahararren** aurka seguruenik. Agurtzane Juanena

Sahararrek Intifada abiatu dute. Berria - Harian

Mauritaniak **sahararren** esku utzitako lurra, baina, bere gain hartu zituen Marokok. Berria - Mundua

Geroztik, erbestean bizi dira **saharar** gehienak eta han daukate beraien ordezkari politikoak ere. Berria - Harian

Espainia **sahararren** sufrimenduaren erantzule politikoak eta legala zela adierazi zuen. Berria - Mundua

Giza eskubideen beste 37 **saharar** preso segitzen dutela adierazi zuen. Berria - Mundua

Maroko, ordea, ez dago **sahararrei** independentzia emateko prest. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ekintzaile saharar (3); **politiko saharar** (4); **preso politiko saharar** (4); **saharar atxilotu** (3); **saharar errepublika** (6); **saharar errepublika arabiar** (3); **saharar errepublika demokratikoaren** (3)

errefuxiatu sahararrek (4); **preso sahararrek** (4)

herri saharararen (5)

errefuxiatu sahararrek (3); **preso sahararrek** (4)

errefuxiatu sahararren (4); **sahararren autodeterminazio** (6); **sahararren autodeterminazio eskubidea** (4); **sahararren egoera** (4); **sahararren giza eskubideak** (3); **sahararren ordezkari** (3)

saharai (orobat **saharaiar**) 1 *izond* Mendebaleko Saharako, Mendebaldeko Saharari dagokiona. **iksaharar**.

Jazko udan, hiru haur **saharai** egon ziren Elgoibarren. Herria

Elgoibareko familia batek bi urtez segidan, udarekin, ongi-etorria egin diote bi haur **saharaiarri**. Herria

1990etik Saharako Errepublika Arabiar-**Saharaiuko** Lagunen Elkarte kidea da. Berria - Harian

2 *iz* Mendebaldeko Saharako biztanlea.

Saharaiarrek oso gutxirekin bizi dira, bainan dena ematen dut. Herria

saharaiar ik **saharai**.

sahasti *iz* sahatsak dauden edo hazten diren tokia.

Gau hartan **sahastien** artean kanpatu zuten, Ibai Elurtua Enturarekin batzen den lekuan, Edoastik ekialderantz hamabi legoara. Agustin Otsoa

Haren ostean, baliteke Tasarinango **sahastietan** elkar topatzea, udaberrian. Agustin Otsoa

sahats 1 *iz* leku hezeetan hazten den zuhaitz handia (*Salix cinerea*, *Salix atrocinerea* etab.). ik **zume**.

Nahas-mahas zegoen dena hor: astigarrek, madariondoak, **sahats** txikiak, urki gazteak, izeiak, otsaihena otsalzarretan kiribildurik. Jose Morales

Sahats zaharrek, itxuragabe bezain xarmagarri, ur-ertzean batzuk eta uretan bertan beste batzuk, beherantz makurturik zeuzkaten adarrak eta hostoak. Jose Morales

Urrutiratzen ikusi duzu, **sahats** abaildu baten lerdentasunaz. Eider Rodriguez

Belardia bezala haziko dira, ibai ondoko **sahatsa** bezala. Elizen arteko biblia

Zuhaitz airosa da **sahatsa**; arin hazten da, ez agudo bakarrik, baita arinkeriarik gabeko airosidez lirain eta garbozkoan ere. Pello Zabala

Duintasunez, askatasunez, loratu zaigun **sahatsa** gure eskuan ez da ageri, bestek besoan daratza. Iñaki Segurola

Erleak babesteko, Erramu egunean bedekintatutako **sahatsezko** gurutzea ipintzen da erlauntzean. J.M. Olaizola "Txiliiku"

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zuloz josiriko **sahats** -enbor zahar bat. Jose Morales

Sahats adarño edo makila bat lur umel samarrean sartzea nahikoa, zutzarrak agudo bota eta itsasteko. Pello Zabala

sahats zurez eginiko gurutzea zuten hilobiak ikusi nituen, baita hezetasunagatik, **sahats** arbola bihurturiko hilobiak ere. Felipe Juaristi

Sahats -makilatxo batekin. Pello Zabala

Harryk **sahats** jotzailea ikusi zuen urrutian, adar batzuk euskarrien gainean lotuta zituela. Iñaki Mendiguren

Zumadi sarriek latz egiten dute itsasertza, zeinetan makal baso zabal narako aurkitzen baitziren, gehiago lehen orain baino, han-hemenka haltz eta **sahats** sailez banatuta.

Koldo Biguri

sahesbide ik **saihesbide**.

saheski ik **saiheski**.

sahets ik **saihets**.

sai 1 iz hegazti harraparia, handia, mokoak kakoduna eta burua eta lepoa soilak dituen, batez ere abere hilak jaten dituen (*Gyps fulvus*). ik **putre**; **buzoka**.

Zuhaitz iharrak tankaz inarrosaraziz hegaldatzen ziren hogeit bat **sai**, zeru gris hotzean jostatzen miretsi zituen Agatak. **Itxaro Borda**

Saia ez da ehiztaria; ez dauka horretarako atzapar, moko, hegada egokirik. **Jon Alonso**

Mina hasi zitzaion, pixkanaka, gorputzaren atalez atal **sai** talde bat haragiari tiraka hasi balitzaio bezala. **Pako Aristi**

Sai baten begia zuen: begi urdin argi bat, ganduak lausotua. **Koro Navarro**

Saiek habia nola egiten duten, eta txita nola jaiotzen den ikusi ahal izanen dugu hemendik aurrera. **Berria - Euskal Herria**

Saien harrapakin izango da, badaki ilunpea duela bere zoria. **Elizen arteko biblia**

Gero artadian utzi zuten zakur bat bezala hilik, putre eta **saien** bazka. **Felipe Juaristi**

Gero, **saien** hegaldi biribila izanen da zeruan hauteman ahalko den bakarra. **Xabier Montoia**

Mirua eta mota guztietako **saiak**. **□**

2 (izenondoekin)

Euskal Herrian gairi aurki ditzazkeen bost abere mota nahi izan dauzkigu aurkeztu: pottokak, **saiak** (**sai** arrea, ugatza, **sai** zuria), manex buru beltzak, urtxoak eta betizuak.

Herria

Erakusketa huntan, bost xori harrapari zaizkigu nagusiki erakutsiak: ugatza, **sai**-arrea, **sai** xuria, miru gorria eta erroia. **Herria**

Buruz dakit, esaterako, etxe atzeko amildegiko zirrikituetan **sai** zuriak habia egiten duela. **Jon Alonso**

Bedatsean, **sai** xuria agertzean, behiak larratzeko bidea erakusten omen duelakotz. **Patziku Perurena**

Ordutik hona, **sai** arrea pasatu zen desagertzeko zorian zegoen espeziea izatetik hazten ari zen dezenteko populazio egonkorra izatera. **Jon Alonso**

Idatzederrek eskuetan zuen luma ez zen antzara batena... bai ordea, **sai** gorri batena! **Berria - Kultura**

Begi zorrotzeko **sai** beltza sarraskitan irten da. **Sonia Gonzalez**

Ulises eta bere lagunak, berriz, haien atzetik kolpeka zebiltzan, **sai** erpe-okerrak harrapakinarekin bezala. **Juan Kruz Igerabide**

Herbertek ezin jasan zezakeena zopileteak ziren; bizirik gauden bitartean ezer egiten ez badigute ere: kiratsa darie, besterik ere ezin espero **sai** sarraskijale batzuegandik.

Joxe Austin Arrieta

3 irud/hed

Futbolaren inguruan dauden **sai** begiluze asko Osasunari begira egongo dira. Ama Benita ondoan zeukala eta konponduko zirela biak **sai** haiei guztiei bizkar emateko.

Berria - Kirola

Gero, nola ez, holako lanak estimatzeko dauden erakunde ofizialak dauzkagu: kultur **saiak**, udal beleak, [...]. **Patziku Perurena**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Saiak dauden herrialde guztietan haren erezeko sinesteak izan dira, nabarmenenak Egiptokoak, Faraonak bere burukoan, **sai** burua zekarrelako. **Patziku Perurena**

Sugea edo azkazala edo sustraia edo **sai**-atzaparra, ez du axola handirik. **Monika Etxebarria**

Harik eta, azkenean, izpi mehe bakar bat, armiarma baten haria bezalakoxea, irekiduratik atera eta **sai** begia bete-betean jo zuen arte. **Koro Navarro**

Sai hezurrezko txürülak. **Herria**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hango ikusteko ederrenak hango kanpo zabalak ziren, zernahi ardi ikusi ditugu bazter orotan, eta ere Huanaco basa zernahi, eta mortu-**sai** iduriak ere frango polliki,

desertuko xoriak arras haundiak. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sai arrea (4)

saiakera 1 iz gai jakin bati buruzko gogoetak biltzen dituen hitz lauuko idazlana, gehienetan ez oso luzea.

Goitik behera berridazten ari naiz Magiaren Historiaz egin nuen **saiakera** osoa. **Iñaki Mendiguren**

Burutazio ergel bat izan nuelakoan, kontua bertan behera uzteko prest nengoen, baina azkeneko **saiakera** bat egitea otu zitzaidan. **Iban Zaldúa**

Julia Kristevak bere **saiakera** labor batean Dostoievskiren pertsonaia batek ahoskatutako hitzak gogorarazten dizkigu: [...]. **Bernardo Atxaga**

Liburu honetako artikulu bakoitza **saiakera** labor bat da bere horretan. **Markos Zapiain**

Pascal Quignard-en liburuak, adibidez, nobelak dira? **saiakerak**? poesia? **Ana Urkiza**

Saiakera horretan, hain zuzen, ezaugarri hau jartzen du zinemaren eta irudikapenean oinarritzen diren gainerako arteen bereizgarri gisa. **Josu Zabaleta**

Freud-ek eman zigun Totem eta Tabu **saiakeran** "aita primordiala"ren kontakizun mitikoa. **Joseba Zulaika**

La Réalité figurative (1965) bilduman jasotzen diren **saiakera** batzuetan, espazio irudikatua, ikuspenaren aldetik eta haren geometriarenetik ez ezik, [...] ikuspuntu zabalago batetik ere aztertzea proposatzen du. **Josu Zabaleta**

Bertsolaritzaren gaineko hogeita bi **saiakera** laburren bilduma. **Andoni Egaña**

Berak fikzioak asmatu nahi zituen, istorioak idatzi, ez **saiakera** moduko haiek. **Iñaki Iñurrieta**

Obra honetan, Jean-Louis Davant euskaltzale-abertzaleak biltzen ditu kazeta desberdinetan agertu dituen artikulu andana bat, baita **saiakera**, olerki eta pastoral zatiak.

Herria

2 idazlanen horien multzoa literatura-genero gisa.

Saiakera beste genero bat da, erudizioarekin zerikusia duena. **Ana Urkiza**

Sarritan eduki dut **saiakera** egiteko tentazioa, baina konturatzeko naiz, komunikatzeko, hau da, jendearengana heltzeko, errazagoa dela nobelarekin lortzea **saiakerekin** baino. **Ana Urkiza**

Egia da, **saiakera** egiten duten emakumeen kopurua txikia dela. **Ana Urkiza**

Saiakera landu zuen (*Vida de D. Quijote y Sancho*); olerkiak idatzi zituen (*Poesias, El Cristo de Velázquez*); antzerkia sortu (*Fedra*) eta eleberririk plazaratu (*La agonía del*

cristianismo, *Niebla*, *El sentimiento trágico de la vida*, etab.).

Askoren artean

Saiakera eta polemika bereziki landu bazituen ere, nobelagintzari eta ikerketari ere leku egin zien bere jardunean.

Askoren artean

Niri gogoetaz betetako narratiba duk gero eta gehiago gustatzen zaidana, edo **saiakera**, edo biografia nobelatuak.

Mikel Hernandez Abaitua

Idazle batek gai jakin baten inguruan ikerketa eta azterketa lan handia egiten duenean, zergatik jo nobelara eta ez **saiakerara**?

Ana Urkiza

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Beraz, beharturik nago, nolabait esatearren, nobela bakoitza **saiakera** lan batekin bikoiztera.

Monika Etxebarria

Jon Sarasuak eremu askotako lurak godeltu izan ditu bere **saiakera**-testuekin.

Andoni Egaña

Crónicas post-industriales (Bartzelona, 2000) **saiakera**-liburu bitxian aipatzen duen bezala: [...].

Iban Zaldúa

Aurtengo Espasa **Saiakera** Saria. **Hasier Etxeberria**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ekzondu orduko, Wildek alde batera utzi zuen poesia-lana, eta kontakizun laburrak, haurrentzako ipuinak eta kazetarako kritika-**saiakerak** idazten hasi zen.

Antton Olano

5 saiatzea. ik saiaketa; saiakuntza.

Urduritasuna baztertzeko **saiakera** egin eta botilen barrura emeki-emeki airea botatzen hasi zen.

Harkaitz Cano

Laugarren **saiakeran** ere porrot egin ondoren, taldea bosgarren tribura heldu zen.

Jon Arretxe

Eta **saiakerak** ez ezik, azken bururaino eramandako ihesak ere bai, izan dira.

Jokin Urain

Lucyk hiru egunez eutsi die tinko berari zerbait ateratzeko egin ditugun **saiakerei**.

Oskar Arana

Ezpata koskatu eta hautsia zegoen, azken **saiakera** etsian arroka altzairuaz zeharkatzen saiatu izan balitz bezala.

Agustin Otsoa

Guilherme Vitulok egin zuena, portugaldarrak erdeinuz hartu baino areago, beste egoera batean eta beste hitz batzuekin Deabruak egin zuen **saiakera** deitoragarria errepikatzea izan zelako.

Jon Alonso

-Orain arte, entzun nahi ez baduzu ere, **saiakera** guztiak saboteatzea lortu dugu.

Fernando Morillo

Saiakera eta esperientzia asko egin izan dira, batzuetan irakasleek bakarka eramanak.

J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

6 (hitz elkartuetan)

Martak, bere neurrien barruan abegikor izaten saiatu arren, gozotasunik ez zuen irribarre **saiakera** haietako bat egin eta kanpoko ateko kisketa bikoitza itxi zuen.

Harkaitz Cano

Zerbitzu sekretuek disidente errepublikanoen bi atentatu **saiakera** zapuztu zituztela dio txostenak.

Berria - Mundua

7 saiakera-egile ik saiakeragile.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atentatu saiakera (3); **azken saiakera** (10); **bigarren saiakera** (3)

egin zuen saiakera (3); **egindako saiakera** (3); **egiteko saiakera** (4); **egiteko saiakera egin** (3); **hainbat saiakera egin** (3); **hilketa saiakera** (5); **hiru saiakera nagusiak** (3)

idatzitako saiakera (4); **ihesaldi saiakera** (5); **izeneko saiakera** (6); **juan zelaia saiakera** (8); **lehen saiakera** (5); **lehenengo saiakera** (3); **miguel unamuno saiakera** (5); **nobela eta saiakera** (3)

saiakera antzua (3); **saiakera arloko** (4); **saiakera bat egin** (4); **saiakera egilea** (4); **saiakera egin** (28); **saiakera egin zuen** (4); **saiakera egin zuten** (4); **saiakera egingo** (9); **saiakera egiteko** (5); **saiakera egiten** (4); **saiakera guztiak antzuek** (3); **saiakera labur** (4); **saiakera liburu** (3); **saiakera liburua** (6); **saiakera liburuan** (3); **saiakera nagusiak** (3); **saiakera saria** (12); **saiakera sarian** (4); **saiakera ugari** (4); **sartzeko saiakera** (3)

unamuno saiakera saria (4)

saiakeragile *(orobat saiakera-egile) iz* saiakerak idazten dituen idazlea.

Urte gutxian bide oparoa egin du Iban Zalduak ipuingintzan, eta euskal literaturaren inguruko debateetan ere presentzia handia du, hizlari, artikulugile nahiz **saiakeragile** gisa.

Berria - Kultura

Hector Lopez Bofill poeta eta **saiakeragileak** manifestu bat irakurriko du: eskubideak eta askatasuna eskatuko dituzte herri katalanarentzat, eta Herrialde Katalanen autodeterminazioa.

Berria - Mundua

Hector Lopez Bofill poeta eta **saiakeragileak** manifestu bat irakurriko du: eskubideak eta askatasuna eskatuko dituzte herri katalanarentzat, eta Herrialde Katalanen autodeterminazioa.

Berria - Mundua

Mario Vinciguerra, historialaria, **saiakera-egilea**.

Fernando Rey

Ben Jelloun **saiakeragilea** *L'islam expliqué aux enfants* eta *Le racisme expliqué à ma fille* liburuaren egilea da, besteak beste.

Berria - Kultura

saiakeratxo iz saiakera laburra.

Ez dun nobela bat, **saiakeratxo** baizik.

Iban Zaldúa

Zeren liburu honetan gauza asko baitago: filosofia pixka bat, poesia, narratiba, **saiakeratxoak**, aitomenak, semiotika, Euskal Herriko gatazka konpontzeko errezetak...

Pako Aristi

Madrilako Akal argitaletxeak aspaldi itzultitako Duvrescuren **saiakeratxo**en bilduma batean haren jakituriaren isla bikaina aurki daiteke, batik batik niri bereziki atsegingarria irudititu zitzaidan George Eliot-en Middlemarch nobelaren inguruko azterketa zorrotzean.

Iban Zaldúa

saiaketa iz saiatzea. ik saiakuntza.

Gu komentzituta gaude ezker abertzalearen oinarri sozial guztiak nahiko lukeela lehenbailehen gatazka armatua gainditzea, eta beraz, oso ondo ikusten duela azken hilabeteetan egiten ari garen **saiaketa** zintzoa eta arduratsua gatazka armatuaren konponbiderako.

Berria - Euskal Herria

Eusko Jaurlaritza eta Espainiako Gobernuaren «gelditasuna» eta enpresaburuek «euren etekinak handitzeko enplegua murrizteko egindako **saiaketak**» jo ditu eragiltzat.

Berria - Ekonomia

saiakuntza 1 iz saiatzea; bereziki, esperientua. ik saiakera 5.

Saiakuntza edo esperientzia hura guztia behar bezala aztertzearen, sendagile ospetsu bat jarri zuen egin beharreko azterketa guztiak egiteko eta hartu beharreko ohar guztiak hartzeko.

J.M. Olaizola "Txiliku"

100 milioi animaliak pairatzen du urtero munduan ikerketarako laborategietan eginiko **saiakuntzak**.

Berria - Gaiak

Ez zen agian kasualitate hutsa hiri-estatuak izatea **saiakuntza** egiteko laborategiak.

Iñaki Mendiguren

Galilei, [...] oraindik ezbaian dabil behaketa-**saiakuntzaren** eta eraikuntza zientzialaren garrantzia metodo zientifikoan determinatzeko orduan.

Askoren artean

Saiakuntza horretan, ezkerreko esku ur hotzetan eta eskuineko ur berotan sartzen du behatzaileak.

Irene Aldasoro

Halako **saiakuntzek** zera erakutsi dute: leiho obaletik hurbilen dagoen mintz basilarraren aldeak maiztasun altuei erantzuten diela, eta urruneneko aldeak, berriz, maiztasun baxuei.

Irene Aldasoro

George, Lázló-ren anaia kimikaria, tinta berri baten bila murgildu zen, inprentetan erabiltzen diren lehorte azkarreko tintekin **saiakuntzak** eginez.

J.M. Olaizola "Txiliku"

Mota gutziatiko gaiak garatzeko erabiltzen dira horrela eginiko **saiakuntzak**: etxeko garbigarriak, kosmetikoak, elikagaietarako gehigarriak, botikak, industriako kimika-gaiak eta nekazaritzako produktuak, besteak beste. **Berria - Gaiak**

Saiakuntzari jarraipena eman zion hurrengo jardunaldian, Sadarren, bost atzelari zelairatuta ere. **Berria - Kirola**

2 (hitz elkartuetan)

Saiakuntza banku bat balitz bezala da, hau da, oraindik bizi izan ez ditugun gauzak eta esperientziak aurreratzeko edo behin eta berriz burura ekartzeko balio digu. **Luis Elberdin**

Nolakoak dira lor daitezkeen emaitzak **saiakuntza**-mota desberdinen arabera? **Askoren artean**

· Urte hauetan zehar denetik izan da kooperatiba **saiakuntzaren** gainean: mirespena, mistifikazioa, etsipena eta baita kritika latza ere. **Iñaki Heras**

saialdi 1 *iz* zerbait lortzeko egiten den saioa edo ahalegitenako bakoitza. ik **ahalegin**.

Lehenengo **saialdian** huts egin zuen. **Migel Angel Mintegi**

Telefonoz eginiko **saialdia** ere alferrikakoa suertatu zitzaion. **Migel Angel Mintegi**

Erraza izango zelakoan nengoan, baina sei edo zazpi **saialdi** behar izan nituen doinu egokia aurkitzeko. **Oskar Arana**

Itzarri zenean beste **saialdi** bat egin zuen. **Migel Angel Mintegi**

Entseguen, **saialdien**, huts egiteen eta berriz hastearen desordena "bizia". **Xabier Arregi**

Harriztar hura gurdi gainean ipintzeko ahaleginetan zebiltzala, **saialdietako** batean, harria langileetako baten gainera erori zen. **Askoren artean**

Edozelan ere, ez dut egin hari deitzeko **saialdirik**. **Iban Zaldúa**

Adimenaren adigai huts haiek esperientziatik eratorzeko eta beraiei jatorri empiriko soila egozteko **saialdi** guztiak erabat hutsalak eta alferrikakoak dira. **Ibon Uribarri**

Arrazoimen hutsak arimaren adigaitik abiatuta arimaren substantziasuna, batasuna eta hilezkortasuna inferitzeko egiten duen **saialdiak** inferentzia okerren sistema bat sortzen du. **Ibon Uribarri**

2 (hitz elkartuetan)

Mishrod Guvamombe epailearen arabera, «akusatuaren ekintzek arma erosketa **saialdia** agerian uzten» dute. **Berria - Mundua**

saialditxo *iz* saialdi laburra.

"Remington" kaxkar bat eman zidaten; eta goizero egiten nuen **saialditxo** bat, Borda tenientearen eskutik, tiroketa ordu erdi batez Aituriko mazela harritsuan "pratikatzten".

Txillardegi

saiarazi, saiaraz, saiarazten du *ad* saiatzera behartu.

Badira, halaber, espekulazio-arazo asko, zientzia metafisiko honetarako oinarri baliagarrik eskaini ez arren, halere, izpiritua azkartzen eta **saiarazten** dutenak. **Xabier Kintana**

saiatu 1 da *ad* saioa egin, ahalegindu. (-tzen objektuarekin)

-Ez da abentura bat -mugitzen **saiatu** nintzen, argia bilatzen, baina Taniak ez zidan utzi. **Jon Muñoz**

Margotzerik ez baduzu ere, **saia** zaitetz bederen zirriborroa egiten. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Horrelako hilak berpizten **saiatu** behar dugu, konkretutasuna itzuli behar diegu. **Bernardo Atxaga**

Harridura ezkatutzen **saiatu** zen. **Migel Angel Mintegi**

Egunero **saiatzen** ziren, hala ere, hura ikusten. **Jose Antonio Mujika**

Eta egia hau zuan: egunsentian nire adiskidea ni hiltzen **saiatua** zela. **Xabier Olarra**

Besoak mugitzen **saiatu** zen, baina ezin zuen... **Iñaki Mendiguren**

Biak ala biak begiradei eusten **saiatu** ziren lipar batez. **Unai Iturriaga**

Camel bat iziotu eta, besterik gabe, entzefalograma laua mantentzen **saiatu** zen. **Unai Iturriaga**

Furgonetan bertan **saiatu** nintzen Dan xaramelatzen. **Patxi Zubizarreta**

Ez **saiatu** haren bila joaten, lo baitago. **Felipe Juaristi**

Saiatu zen ihesa eragozten zion olatu hartatik irteten. **Karlos Zabala**

Une batean nire bizitza berriari konponbideak aurkitzen **saiatzen** nintzen. **Pako Aristi**

Nik une hartan inondik ere ez nuen kezka bat arintzen **saiatu** zitzaidan. **Anjel Lertxundi**

Ni neu ere zehazki erantzuten **saiatu** nintzaion. **Joxe Austin Arrieta**

Zu hil zinen legez hil zinelako egon nintzen prest, bezpera izutu baten, harro hiltzen **saiatzeko**. **Koldo Izagirre**

Izan ere, ez da **saiatu** maitasunez jokatzeko. **Elizen arteko biblia**

Saiatu zen, beraz, pausoak ziurtasunez ematen. **Unai Iturriaga**

Saiatu publikoari ezagutzera ematen ezagutzen ez dituen eta ezagutu nahi ez dituen balio berriak. **Anjel Lertxundi**

Ez dezala nehork uste izan Frantsesen Errege ospetsuaren boterea harrotu nahi dudala, edo ahultzen **saiatu**. **Piarres Xarriton**

Gizonak, bere garaian itunok onarturik ere, gero, ia gauero, andrearen etzauntza bortxatzen **saiatua** zen. **Juan Garzia**

Irakur nezala, ikasten **saia** nendila. **Juan Garzia**

Saia zaitetz ikasten, eta ikasiko duzu saiatzen. **Pello Zabala**

2 (-tzen objektuarekin, adizlagun eta kidekoekin)

Harry gogor **saiatu** zen erabat ikaratuta ez jartzen. **Iñaki Mendiguren**

Le Commercial, nolana ere, oso eragin handia zuen aldizkaria, gogor **saiatu** zen ideia horren kontra. **Koro Navarro**

Haritz alferrik **saiatu** zen birritan atezainaren aurrean bakarrik. **Urtzi Urrutikoetxea**

Berariaz **saiatzen** zen Euskal Herriko eta etxeko oroitzapenak bururatzeko. **Iñaki Zabaleta**

Lajos zinez **saiatu** zen Nunuri laguntzen. **Ander Irizar**

Egoera larri horretatik irteten biziki **saiatu** zen beti Agustin. **Imanol Unzurrunzaga**

Gogotik **saiatu** naiz jakintsu izaten. **Elizen arteko biblia**

Elkarrizketa sigi-saga eta itsumustuka **saiatzen** da misteriora -produktuaren benetako preziora- iristen. **Bernardo Atxaga**

Ohi baino pixka bat suharrago **saiatu** nintzen hura gorteiatzen. **Oskar Arana**

Alemanez ere **saiatu** zen irakurtzen. **Koro Navarro**

Egutxi bi aldiz **saiatu** zen, poliki-poliki, hura esnatzen. **Ibon Uribarri**

Gizon guztiak letrak eta sinboloak kartajokoan bezala nahasturik **saia** zitezela, halabeharrenean opari gertagaitz bat lagun, arauzko liburu horiek eraikitzen. **Juan Garzia**

Apaiz jantzirik **saiatu** zen Lizarratik ihes egiten. **Txillardegi**

Malda beheara aprobehatuz **saiatu** zen arnasa berreskuratzen. Unai Iturriaga

Begiak estututa **saiatzen** nintzen ikusten nola biribiltzen zituen Tomek eskuak Normaren bularretan. Koro Navarro

3 (-tzen objektuarekin, bila-rekin)

Eskua pistolatik gertu neukan badaezpada ere, eta Agirre, bitartean, paperen bila **saiatu** zen atearen poltsikoan. Rafa Egiguren

Iratzargailuaren bila **saiatu** zen itsumustuan, beso errariarekin han eta hemen joz. Unai Iturriaga

Gero aitaren bila **saiatu** zen, petriletak. Koldo Izagirre

Hitz-gako baten bila **saiatu** zen Nora, eta, hainbat hitzen errepasoa egin eta gero, iraupena iruditu zitzaion hitzik egokiena. Anjel Lertxundi

Zenbat eta gehiago **saiatu** gizon-emakumeak egintza horien arrazoi bila, hainbat eta nekezago aurkituko dute. Elizen arteko biblia

4 (-tzen objektua ezabaturik, adizlagun eta kidekoekin)

Handik pixka batera, berriro **saiatu** zara. Rafa Egiguren

Jan ezazu hau, berriro **saiatu** baino lehen. Iñaki Mendiguren

Berriro urpera jotzen genuelarik, sakonago ilunago itoago **saiatzen** ginen, inork ikusiko ez gintuen munduren batera. Koldo Izagirre

Nik Malfoyri begi bat belztu diot eta Neville, inoren laguntzarik gabe, Crabberen eta Goyleren aurka **saiatu** da. Iñaki Mendiguren

Ni **saiatu** ninduan lehenagokoan, eta ikusi zer gertatu zaidan. Iñaki Iñurrieta

5 (bestelakotean)

Saiatu gabe ez nuen etsiko ordea. Xabier Mendiguren Elizegi

Saiatuagatik ere, ezin izan zuen bultzada hura saihestu inola ere. Felipe Juaristi

Saiatu, **saiatzen** nintzen zerbait; baina berehala amaitzen zitzaidan jarduna. Jesus Mari Mendizabal

Erregea **saiatu** zen, baina ezin. Patxi Zubizarreta

Hori liburuetatik buruz ikasi ezinezko zerbait zen... bera **saiatu** zen arren. Iñaki Mendiguren

Saiatu nintzen, bai noski, baina orduan ere alferrik. Bernardo Atxaga

"**Saia** zaitetz Musekin", esan zidan adiskide batek. Bernardo Atxaga

Umetako grina berarekin **saiatu** zarete. Rafa Egiguren

Zu **saiatu** elkarrizketa interesgarriren batekin... Unai Iturriaga

Dobb-en liburuekin ere **saiatu** nintzen, eta, gerora, sutsu heldu nion gaiari. Rafa Egiguren

Kako-okar manera goxoagoekin **saiatu** zen. Julen Gabiria

Arreta gehiagorekin **saiatu** direnek aurkitu dute zortzi direla. Santiago Iruretagoiena

Mozorro batekin **saiatu** zen arratsalde hartan: itsu-makila eta eguzkitako betaurrekoak hartuta, itsuaren gisan Topoko bagoi batetik bestera ibili zen. Harkaitz Cano

Saiatu bai, baina ez da erraza begiak tinko edukitzea. Iñaki Iñurrieta

Azpitik **saiatu** behar izan zuten, eta hortik atzerapena. Rafa Egiguren

Ron beste ikuspegi batetik **saiatu** zen. Iñaki Mendiguren

Hain aurkitzen nituen, ordea, kritikak eta iruzkinak eskasak, **saiatu** ere ez nintzen egin. Juan Garzia

Saia zaitetz, gutxienez. Itziar Otegi

6 (-n deklinabide atzizkiekiko objektuarekin)

Baina bera ez da horrelako ezertan **saiatu**. Mirentxu Larrañaga

Saia zaitetz dantzan edo arbuia ezazu, izan zaitetz garbia edo lizunkoia, geratu hemen edo zoaz. Patxi Zubizarreta

Orotan erakutsi izan dizuet, horrela behar dela lanean **saiatu** gauza ez direnei laguntzeko. Elizen arteko biblia

Protestan **saiatu** arren, ez zuen benetan ahoskatu. Unai Iturriaga

Hurrengo, merkatarien herrialdean, Babilonian, **saiatu** zinen prostituzioan; halere, ez zinen ase. Elizen arteko biblia

Baina bera ez da horrelako ezertan **saiatu**. Mirentxu Larrañaga

Hasieran, **saiatu** zen zertxobait baratzean, uraza, porru eta zerba batzuk jarririk, baina laster aspertu zen. Juan Kruz Igerabide

Saia hadi bukian. Anton Garikano

Hori liburuetatik buruz ikasi ezinezko zerbait zen... bera **saiatu** zen arren. zuei ikustaldi bat egitea erabaki genuen -ni neu, Paulo, behin baino gehiagotan **saiatu** ere bai;

baina Satanasek galarazi egin zigun. Iñaki Mendiguren

Nahiz eta lasterka egin, ez zara iritsiko, ez eta ihes egingo ere **saiatu** arren. Elizen arteko biblia

Erreskadan **saiatu** zen giltza guztiekin. Anton Garikano

Siniatu egin nahi zuela, zin-zinez **saiatzen** zela horretan. Bernardo Atxaga

Beti aurkitzen du zertan **saiatua**. Hasier Etxeberria

7 (-tzero objektuarekin)

Gauzak argitzera **saiatu** nintzen. Aingeru Epaltza

-Ez **saiatu** ni engainatzera, Eduardo Jexus. Aingeru Epaltza

Aholku hura sekula ahantzi gabe, loreen maitatzera eta lorategien zaintzera fierki **saiatu** nintzen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Dutxa epela hartu eta Mikel lokartzera **saiatu** zen. Ramuntxo Etxeberri

Laugarren argudio nagusiak, erakusteko ez dela **saiatu** behar lehiatzera gure auzia. Piarres Xarriton

Gilles Guiguet, *Napurrak* taldeko aizkolaria, munduko marka baten haustera **saiatu** da. Herria

-Zergatik ez haiz **saiatzen** hire neskaengatik zer egiteko prest hagoen idatzera, ahal den gehien handizkatuz? Joxerra Garzia

Inor ni hiltzera **saiatua** zela erratan ari nintzaion. Aingeru Epaltza

8 (bestelako objektuekin)

Saiatu nintzen bide horretatik aurrera egin zezan. Joxean Agirre

Amona ez zen **saiatu** hobeto azal ziezaion. Mirentxu Larrañaga

Joxe Mari bera ere **saiatu** zen emaztea etxera itzul zedin, min egingo ote zioten beldurrez. Juan Kruz Igerabide

Zaindari on hau **saiatu** zaigu jendea zedien zentza... Herria

Zenbat **saiatu** ziren Espainiako zilar- eta urre-meatzak berenganatzeko. Elizen arteko biblia

Leihatilaz leihatila **saiatu** zara nor non dagoen jakiteko. Rafa Egiguren

• 9 du *ad* saiakuntza egin.

Forma nahiz psikologia mailako hainbat aldaera **saia** ditzaket. Juan Garzia

Inork ez du **saiatzen** zientzia baten sorketa ideia bat ezarri gabe oinarrian. Ibon Uribarri

Platonek jadanik kritikatu zuen Eleatar Zenon dialektiko sotila bera sofista gaiztotzat joz, zeren bere antzea erakustearren edozein esakune itxurazko argumentuen bitartez frogatu eta berehala hain indartsuak diren besteen bitartez berriro ukatzea **saiatzen** baitzuen. Ibon Uribarri

Deitu zituen medikuak, bainu-aldiak hartu, sendagai ugari **saiatu**, baina dena alferrik. Askoren artean

Etxeko logelan askotan **saiatu** nuena egin nuen: hankak elkarrengandik apartatu eta orekari ondo eusteko modua bilatu nuen. Anjel Lertxundi

Bestek esanaren sintesi bat **saiatzea** ere eginbide zaila da. Juan Garzia

Norbaitek berrikuntza bat **saiatu** zuen: aldeko zenbakien erroldan aurkako zorte bakan batzuk tartekatzea. Juan Garzia

Hobekuntza tekniko batzuk ere **saiatu** hitzen, fotograhatua barne. Txillardegia

Mundu honetara erakartzeko ahalegin ugari **saiatu** zituen amak, baina etsi egin izan zuen azkenean. Unai Iturriaga

Irribarretxo bat **saiatu** zuen: [...]. Anjel Lertxundi

Olio usainsu guztiak **saiatu** zituen; ur ugariz garbitzen zen. Karlos Zabala

Uda hastean, "kolpea **saiatu**" beharra zegoela baizik ez zuten aipatzen. Karlos Zabala

Historialariak **saiatu** gabe utzi nahi izaten ez duen ezinezko gauza horietako bat da, hain zuzen. Iñaki Mendiguren

Neska bankuko web orrian sartu eta Mutilaren jaiotza data **saiatuko** du kodean. Antton Olano

Nik eragozpen bat **saiatu** nuen, baina Giuliak, abiada hartu, eta han hasi zen aretoaren ilunbean: [...]. Juan Garzia

Eginahalak **saiatu** ditut aitak esan zizkidanak al bait zuzenen jasotzen. Anjel Lertxundi

Hortik, ondoren, gure konkistak hedatzen ditugu, eta erregela haien aldaera denak eta itxurazko saihesketak printzipio hartatik argitzea **saiatzen** dugu. Ibon Uribarri

Grappa bat eskatu, eta poema baten zirriborroa **saiatzen** hasiko da: [...]. Anjel Lertxundi

Geroztik arretaz berrirakurri ditut atal batzuk; oraingoz **saiatzerik** pentsatzen ez dudana kapituluak, hain zuzen. Juan Garzia

2002ko apirilaren 11ko kolpea **saiatu** zuten sektore kolpista eta terrorista ber-berek, zibil zein militarrek, kontratatu zituzten oraingo atxilotuak. Berria - Mundua

10 (era burutua izenondo gisa; pertsoneri buruz)

Banituena, gainera, beste alde on batzuk ere, inguruan nituenak erakartzeko: **saiatua** nintzen, egiatia eta eskuzabala. Josu Zabaleta

Bazekien leku guztietan ganoraz jokatzeko, eta asko ikusiriko gizon **saiatua** zela erakusten zuen edonon. Jose Morales

Biak ziren, halaber, langile **saiatuak**, eta horrela atera ahal izan zuten aurrera taberna. Joan Mari Irigoien

Hala ere, irakurle **saiatuak** izango du aukera Bonabenturaren lanaz gozatzeko. Askoren artean

Askotan irakasle **saiatu** langilearena egiteak laguntzen dik ikasleen aurrean hire maila eskasa zuzitzen. Jokin Muñoz

Ikasle **saiatua** nintzen ni, lehen urtean behintzat. Joxerra Garzia

Hala ere, horrelako bildumetan harribitxi eder askoak topa ditzake begiak erne dituen zale **saiatuak**. Berria - Kultura

Morrosko **saiatu** haiek bibaka hasi dira pozarren. Zaldun **saiatu** haien sua eta kemena. Txillardegia

Zeintzuk dira bada adiskide **saiatu** horiek? Jon Muñoz

Ez da ikaslerik onena, baina txarrena ere ez: behar bezain argia, baina ez aski **saiatua**. Oskar Arana

Oso aizkolari **saiatua** da, baina, agian, indar pittin bat falta zaio. Berria - Kirola

11 (era burutua izenondo gisa; gauzei buruz)

Musiak tronpeta hori jotzen zuen soldadua irudi **saiatua** zekusan, eta barre egiten zuen. Jose Morales

Lankidetzaz zabal eta **saiatuaren** emaitza da. Askoren artean

Ahalegin **saiatua**, etsipena eta halabeharra ibiliak ziren elkarlanean haien idazketan; Daneri-k egotzen zizkion bertuteak geroztikakoak ziren. Juan Garzia

Ikerketa lan **saiatuari** esker egiten du aurrera zientziak, teknologiak eta orobat gizarteak. Berria - Gaiak

Pertsonalki eta bere Elkartearen bidez, gutaz ardura **saiatua** eta axola berezia izatea, bere anaiez bezalaxe. Askoren artean

Gaymardek txalotu egin zuen Sarkozyren «politika **saiatua**». Berria - Ekonomia

Hamasei liburu, 14.028 orrialde, 21 urteko lan isil eta **saiatuaren** emaitza. Berria - Harian

Zuen sinesmen ekintzailea, zuen maitasun **saiatua**. Elizen arteko biblia

12 (era burutua izen gisa)

Saiatuaren egitasmoak irabazia, zalapartaka dabilenarenak pobrezia. Elizen arteko biblia

13 soineko bat, oinetakoak edo kidekoak jantzi, gorputzari edo oinari egokitzen zaion ikusteko.

Batek lapiko bati begiratzen zion eta salneurria galdetzen, besteak oinetako batzuk **saiatzen** zituen. Anjel Lertxundi

14 *saiatuaren saiataz (orobat saiataz)*

Sinetsidazu: **saiatuaren saiataz**, asmotsu bilakatzen da burua. Jose Morales

Normaltasuna ez baita **saiatuaren saiataz** lortzen den zerbait. Unai Iturriaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

agertzen saiatu (8); **aldatzen saiatu** (10); **aldiz saiatu** (24); **alferrik saiatu** (32); **alferrik saiatu zen** (9); **aprobetxatzen saiatu** (7); **argitzen saiatu** (18); **arintzen saiatu** (8); **askatzen saiatu** (7); **asko saiatu** (14); **askotan saiatu** (10); **asmatzen saiatu** (12); **ateratzen saiatu** (31); **ateratzen saiatu zen** (11); **aurkitzen saiatu** (23); **aurre egiten saiatu** (16); **azaltzen saiatu** (27); **aztertzen saiatu** (15)

babesten saiatu (7); **bahitzen saiatu** (8); **baliatzen saiatu** (12); **baretzen saiatu** (9); **barre egiten saiatu** (7); **begiratzen saiatu** (7); **berreskuratzen saiatu** (14); **berreskuratzen saiatu zen** (7); **berrirori saiatu** (27); **berrirori saiatu zen** (11); **berriz saiatu** (16); **beste egiten saiatu** (20); **betetzen saiatu** (14); **beti saiatu** (23); **beti saiatu naiz** (8); **bidez saiatu** (8); **bihurtzen saiatu** (15); **bila saiatu** (16); **bilatzen saiatu** (42); **bilatzen saiatu zen** (9); **biltzen saiatu** (19); **birritan saiatu** (7); **bitan saiatu** (9); **bortxatzen saiatu** (15); **botatzen saiatu** (9)

edukitzen saiatu (8); **egiten saiatu** (370); **egiten saiatu zen** (120); **egoten saiatu** (9); **ekartzen saiatu** (12); **ematen saiatu** (74); **ematen saiatu zen** (19); **engainatzen saiatu** (7); **erabiltzen saiatu** (12); **eragozten saiatu** (10); **eraikitzen saiatu** (8); **erakartzen saiatu** (7); **erakusten saiatu** (10); **eramaten saiatu** (12); **erantzuten saiatu** (14); **erasotzen saiatu** (10); **erosten saiatu** (7); **esaten saiatu** (15); **esaten saiatu zen** (7); **eskaintzen saiatu** (7); **estaltzen saiatu** (10); **eusten saiatu** (32); **eusten saiatu zen** (9); **ezkutatzen saiatu** (17); **ezkutatzen saiatu zen** (7)

frogatzen saiatu (9)

gainditzen saiatu (7); **garbitzen saiatu** (9); **gehiago saiatu** (21); **gehiagotan saiatu** (14); **geldiarazten saiatu** (7); **gelditzen saiatu** (10); **gogor saiatu** (26); **gogor saiatu zen** (11); **gogoratzen saiatu** (21); **gogoratzen saiatu zen** (7); **gogotik saiatu** (20); **gordetzen saiatu** (10)

harrapatzen saiatu (18); **harremanetan jartzen saiatu** (10); **hartzten saiatu** (39); **hartzten saiatu zen** (12); **hausten saiatu** (11); **hiltzen saiatu** (63); **hiltzen saiatu zen** (27); **hitz egiten saiatu** (25); **horregatik saiatu** (9); **horretan saiatu** (32); **horretan saiatu naiz** (7); **hurbiltzen saiatu** (8)

igotzen saiatu (9); **ihes egiten saiatu** (47); **ikasten saiatu** (12); **ikusten saiatu** (8); **irabazten saiatu** (15); **irakurtzen saiatu** (7); **irekitzen saiatu** (11); **irribarre egiten saiatu** (10); **itotzen saiatu** (7); **ixten saiatu** (8); **izaten saiatu** (26)

jarraitzen saiatu (13); **jartzen saiatu** (50); **jartzen saiatu zen** (17); **joaten saiatu** (13); **joaten saiatu zen** (8); **jokatzen saiatu** (14); **jotzen saiatu** (15); **jotzen saiatu zen** (7)

kentzen saiatu (29); **kentzen saiatu zen** (9); **kokatzen saiatu** (8); **konbentzitzen saiatu** (11)

laguntzen saiatu (8); **lasaitzen saiatu** (20); **lasaitzen saiatu zen** (8); **lortzen saiatu** (38); **lotzen saiatu** (8); **mozten saiatu** (7); **mugitzen saiatu** (11)

pentsatzen saiatu (12)

saiatu arren (57); **saiatu aurretik** (9); **saiatu baitzen** (8); **saiatu bazen ere** (12); **saiatu baziren ere** (8); **saiatu behar** (228); **saiatu beharko** (91); **saiatu beharra** (22); **saiatu beharra dago** (7); **saiatu beharrean** (13); **saiatu diren arren** (7); **saiatu ere ez** (16); **saiatu gabe** (28); **saiatu omen zen** (9); **saiatu ondoren** (32); **saiatu zen alde** (7); **saiatu zen arren** (11); **saiatu zen berrirori** (9); **saiatu ziren arren** (10)

saihesten saiatu (14); **salbatzen saiatu** (8); **sartzen saiatu** (59); **sartzen saiatu ziren** (13); **sortzen saiatu** (9); **suntsitzen saiatu** (7); **suspertzen saiatu** (7)

ulertzen saiatu (14); **urruntzen saiatu** (8); **uzten saiatu** (18)

zabaltzen saiatu (8)

alferrik saiatu (13); **argitzen saiatu** (7); **ateratzen saiatu** (12); **aurkitzen saiatu** (8); **aurre egiten saiatu** (12); **azaltzen saiatu** (18); **baliatzen saiatu** (18); **berreskuratzen saiatu** (13); **berrirori saiatu** (8); **betetzen saiatu** (7); **bilatzen saiatu** (14)

egiten saiatu (123); **ematen saiatu** (63); **erakusten saiatu** (20); **errepikatzen saiatu** (10); **eusten saiatu** (19); **ezustea ematen saiatu** (7); **ezustekoa ematen saiatu** (7); **garaipena lortzen saiatu** (9); **hartzten saiatu** (19); **hobetzen saiatu** (16); **horretan saiatu** (18)

irabazten saiatu (35); **iristen saiatu** (9); **jartzen saiatu** (10); **jokatzen saiatu** (10); **konpontzen saiatu** (13); **laguntzen saiatu** (7); **lortzen saiatu** (66); **mantentzen saiatu** (7)

osatzen saiatu (8); **sartzen saiatu** (21); **sortzen saiatu** (7)

uzten saiatu (9)

saiatuta ere (18)

aurkitzen saiata (8); **egiten saiata** (23); **ezkutatzen saiata** (7)

saiatzea egotzi (13); **saiatzea leporatu** (9)
bortxatzen saiatzegatik (7); **hiltzen** saiatzegatik (20)
berriro saiatzeko (9); **egiten** saiatzeko (13); **irabazten** saiatzeko (7); **konpontzen** saiatzeko (13); **lortzen** saiatzeko (10)
aldatzen saiatzeko (8); **alferrik** saiatzeko (9); **askatzen** saiatzeko (8); **asmatzen** saiatzeko (9); **ateratzen** saiatzeko (16); **aurkitzen** saiatzeko (13); **azaltzen** saiatzeko (10)
berriro saiatzeko (10); **betetzen** saiatzeko (10); **beti** saiatzeko (17); **bila** saiatzeko (14); **bilatzen** saiatzeko (21); **biltzen** saiatzeko (8); **bizitzeko** saiatzeko (15); **bultzatzen** saiatzeko (7)
egoten saiatzeko (10); **ematen** saiatzeko (46); **erakusten** saiatzeko (11); **eramatzen** saiatzeko (10); **erantzuten** saiatzeko (14); **eusten** saiatzeko (18); **ezkutatzen** saiatzeko (22)
gainditzen saiatzeko (7); **gogor** saiatzeko (9); **gogoratzen** saiatzeko (8); **gordetzen** saiatzeko (8); **hartzen** saiatzeko (13); **horretan** saiatzeko (22)
ikusten saiatzeko (8); **imitatzen** saiatzeko (12); **irakurtzen** saiatzeko (9); **izaten** saiatzeko (26)
jartzen saiatzeko (18); **jokatzen** saiatzeko (8); **jotzen** saiatzeko (7)
konpontzen saiatzeko (9)
laguntzen saiatzeko (10); **lortzen** saiatzeko (16)
saihesten saiatzeko (11); **sartzen** saiatzeko (22); **sortzen** saiatzeko (15)
ulertzen saiatzeko (13); **uzten** saiatzeko (8)

saiatuki *adlag* saiatuz, jarraikitasunez.

Izan ere, materia kopuru guztia gorputz osoan zehar kitzikatu behar dute, lohadarretan kitzikaturik, osoan eta **saiatuki** gogoaren jorinari segi diezaion. [Xabier Amuriza](#)

saiatze 1 *iz* saioa egitea, ahalegintzea.

Maitatzea jarduera (aktibitatea) da eta ez **saiatze** pasiboa. [Jenaro Garate](#)

Maitasuna... ez da afektu bat [...] norberaren maita ahalmenean zuzturtuta dagoen **saiatze** bizia baino. [Jenaro Garate](#)

Antzinateko gizon batek denbora luzea eman zuen naturaren izaera eta portaera aztertzen, eta, bere **saiatze** etengabearen ondorioz, sua zelan egin zitekeen asmatu zuen.

[Jon Arretxe](#)

Saiatze nekagarriaren balioa zalantzan jartzen du Koldo Mitxelena-ko 'Ahaleginak' erakusketak. [Berria - Kultura](#)

2 (hitz elkartuetan)

Erietxean huts egin duten **saiatze** kasuei ematen diete laguntza. [Berria - Euskal Herria](#)

saietera *iz* leiho meharra.

Leihoak, gela aldetik zabalak, kanpora berriz estuak, hormaren loditasun osoa hartzen zutela, **saieterak** baizik ez ziren, gizonak hiltzeko baliatzen ziren zirrikitu horiek, alegia. [Josu Zabaleta](#)

Zeren, Napumoceno jaunak testamentuan azaldu ez zuen arrazoiren batengatik, kanporako batere **saieterarik** gabeko jaki-gordailua, *pitch-pine* egurrezko ate sendo batek itxen baitzuen, albotik alborako altzairuzko bi xafraz indartua. [Bego Montorio](#)

saihesbide (*orobat sahiets bide g.er.*) 1 *iz* hirigune bat erditik ez zeharkatzeko, aldirietan zehar egiten den errepidea edo autobidea. ik **ingurabide 2.**

N-1 errepidearen **saihesbidea** egiteko asmoa du Lezo eta Gaintzurizketa bitartean Gipuzkoako Diputazioak. [Berria - Euskal Herria](#)

Luizi handia gertatu zen N-1 errepidearen eta A-8aren lotunean, Donostiako **saihesbideko** sarreran. [Berria - Harian](#)

Garesko **saihesbidea** zabaldu dute, Iruñea-Logroño autobiarren barne. [Berria - Euskal Herria](#)

Euskal Y-arekin eta Bilboko Hegoaldeko **Saihesbidearekin** bat egingo luke proiektuak. [Berria - Ekonomia](#)

Bihar goizean irekiko dituzte Txorrierriko **saihesbidea** eta Bilbo erdialdea lotzen dituzten igarobideak. [Berria - Ekonomia](#)

Ilunbe Anoetarekin lotzen duen pasabidea hartu zuen, **saihesbide** gainetik pasatzen dena. [Iñigo Aranbarri](#)

11:00etan manifestazioa egingo dute Andoaín eta Urnieta (Gipuzkoa) lotuko dituen G-131 **saihesbidearen** aurka. [Berria - Euskal Herria](#)

Cintruenigoko **saihesbidea**: N-113 errepidean dago gune beltz hori ere. [Berria - Euskal Herria](#)

Aurki botako dutela etxea **saihesbide** berria egiteko, horixe esan ziguten etxe hartakoek. [Hasier Etxeberria](#)

"Barreau Nord" deitua den Ipar **saihets** bidearen proiektua fase berri batean sartua da orain. [Herria](#)

Irun eta Hondarribia lotzeko **saihesbidea** egiteko proiektua. [Berria - Harian](#)

2 (hitz elkartuetan)

Pasaiaiko portuari buruz eta Bilboko porturako tren **saihesbideari** buruz ere hitz egin zuten Madril eta Lakuako ordezkariak. [Berria - Euskal Herria](#)

3 herrigunea edo errepide bat saihesten duen bidea.

Hiribide amaierako biribilgunetik errepide nagusira irten, aurreneko **saihesbidean** eskuinera jo, eta bihurgune itxi bati buelta osoa emanez, zuzenean bideratu ziren Hendaiarantz. [Migel Angel Mintegi](#)

Saint-Sulpiceko bide-seinalea, Norarekin nindoanean egiten nuen bezala autopistatik atera eta **saihesbide** hau hartzen dut, ez dago oso garbi lasterbidea ote den, askoz kilometro gutxiago izan arren bidea oso bihurgunetsua delako. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

Herrira iritsi aurretik, **saihesbide** are bihurriago batetik sartu baitzen, ezkerretara. [Jon Muñoz](#)

Müller jaunari dagokionez, izu batean egin zuen bidea, gidariak **saihesbideren** bat hartzen zuzenean tranparen batera ginderamatza uste baitzuen. [Anjel Lertxundi](#)

Orduan hasi nintzen auzoko **saihesbideetan** bakarrik edo ardien atzetik, irratia esku batean eta mizpirazko akulua bestean, terrentaz, ibiltzen. [Itxaro Borda](#)

Arratsaldean Büren herrira zeraman **saihesbide** bat hartu genuen, Paderborn bazterrean utzita. [Alberto Ladron Arana](#)

Harrisonen mitinera baino lehen bi aldiz aldatu nintzen taxiz, metro eta autobus batzuk hartu nituen, itzulinguruka ibili nintzen hainbat **saihesbidetatik**. [Jon Alonso](#)

Poliziak hautemandakoan **saihesbideren** bat hartzen zuen berehala, telebistan egiten duten gisara. [Xabier Montoia](#)

4 irud/hed

Hitz "lohiak" esateko nolabaiteko debekuaurrean asmatutako **saihesbidea**, nonbait. [Iñaki Arranz](#)

Bide hartako zenbait **saihesbidetan** sekretu lagarriak zeuden zain, arima zimelduko lidaketan sekretu kosmikoak. [Alberto Ladron Arana](#)

Eta jakin nuen nire bizitza osoak une magiko hartaraino bideratu ninduela, beti bide zuzena aukeratzera behartuz, **saihesbide** okerrak baztertera utzita, aurrera, beti aurrera Esbastikaren Kriptaraino... [Alberto Ladron Arana](#)

Patuaren apetak zer diren: Giovanni Boccaccio izenari erreparatuta, jakin-minak ustekabeko **saihesbidetik** jo eta Decameron obrarekin tupust egin. [Berria - Kultura](#)

Baina 'hiru' jartzerik ez zegoenez, beste **saihesbideren** bat topatu behar nian. [Xabier Etxabe](#)

Ez nuke martxan jarria dena gelditzerik lortuko, ez nioke patuari **saihesbiderik** aurkituko. [Karlos Linazasoro](#)

Bada, hala ere, belarri gor bati edo begi itsu bati **saihesbidea** bilatzeko aukera txiki bat. [Irene Aldasoro](#)

Horrexegatik joan nintzen; **saihesbide** literario bat. [Josu Zabaleta](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

garesko saihesbidea (3); hegoaldeko saihesbidea (21); iparraldeko saihesbidea (3); saihesbidea egin (3); saihesbidea egiteko (6); txorierriko saihesbidea (3)
hegoaldeko saihesbideak (5)
hegoaldeko saihesbidearen (11); hegoaldeko saihesbidearen aurka (3)

saihesgaitz *izond* saihesten gaitza dena, ia saihetsezina.

Koka-kola **saihesgaitzaren** alternatiba garestia, ardo ona 150 cc-ko botilan. **Edorta Agirre**

saiheska 1 *adlag* aurrez aurrekoa ez den norabidean edo egoeran. ikzeharka.

Zeharka eta **saiheska** egin dugu bidea, leihoko argiak ere itzala zeharka eta saihetsean uzten duen bezala. **Pello Salaburu**
Gabarrariak ontzia **saiheska** eramatea lortu zuten, pixkaka-pixkaka ezkerretako ibai bazterretan hurbiltzen zirela. **Karlos Zabala**
Saiheska erori zen, burua espaloian; horma bat igotzen ari balira bezala mugitzen zitzaizkion hankak errepidean. **Koro Navarro**
Azkenean, batera sartu ziren biak, **saiheska** eta bata bestea apur bat estutuz. **Jose Morales**
Igeltsero hura urtetan gora joana zen, baina hain bizkarzabala ezen **saiheska** jarri behar izan baitzuen ni pasa nendin. **Fernando Rey**
Zabal eta zabar lo egitea, hala **saiheska**, nola ahoz gora, nola beste edozein jarreratan. **Jose Morales**
Saiheska lo egin behar izan du, gorputza itzuliz gero harekin buruz buru kausitu beldur. **Aingeru Epaltza**
Gero iraulka bidebazterrean joan nintzen, justu **saiheska** etzanda zetzan soldadu aleman horren ondora. **Fernando Rey**
Armairu bat ere bazegoen, hormaren kontra **saiheska** jarririk. **Jose Morales**
Orduan, 2002ko otsailaren bukaera hartan, zuzenean lurrean jarrita eta **saiheska**, Mekara begira, eskeletoak. **Berria - Harian**

2 irud/hed

Laguna erakutsi zion eri batez, eta arreta guzira lanari eskaini zion, etorri berriei begia atxikiz, **saiheska**. **Elena Touyarou**
Logelara ez begiratzen ahalegindu nintzen arren, **saiheska**, ohe ertzean eserita ikusi nuen, jantziren bat -izara, beharbada- bularren kontra estutzen zuela. **Ramon Saizarbitoria**
Tarteka umeak txistuka aritzen zitzaizkien zeken merke-nahi zurbilei, **saiheska** begiratzen baitzuten, norbaitek han ikusiko zituen beldurrez. **Karlos Zabala**
Ez naiz uhartekoaz ari, nahiz eta hark, oso **saiheska** bada ere, ukitu ninduen. **Iñaki Iñurrieta**
Oraingo funtzionariook diplomazia zuriz eta paperez **saiheska** egiten baitituzte beren azio kobardeak, inori karrik emateko ere kapaz ez direla kasik. **Patziku Perurena**

saiheskara *adlag* saiheska.

Baina Oisinen begi lausotuak ez ziren batere argitu eta, bat-batean, **saiheskara** erori zen. **Joanes Urkixo**

saiheskari *izond* saiheska joateko joera duena.

Telebista, kirol, kultura eta kaka gehiegi jan gabe, gehiegi ezkondu gabe **saiheskariak** gara asko: hala esaten zaio nekez utzar litekeen idiari, uztarkidearekin batean ibili nahi ez duenari), eta inongo aldetatik gehiegi zeratu gabe betiere... **Iñaki Seguro**

saiheskatu, saiheska(tu), saiheskatzen du *ad* saihestu.

Saiheskatzen genituen bahia hutsetan, hunkitzean plastika ziruditen itsas belar malguren hiro gazi usainak gohaina hastapenean eta atsegina ondotik hazten zidan. **Itxaro Borda**

saihesketa *iz* saihestea.

Hortik, ondoren, gure konkistak hedatzen ditugu, eta erregela haien aldaera denak eta itxurazko **saihesketak** printzipio hartatik argitzea saiatzen dugu. **Ibon Uribarri**

saiheski 1 *iz* saihetseko okela; saihets hezurrari atxikia dagoen haragia.

Annetek, esku banatan, bi erretilu zekartzan, labean erretako patataz beteata eta sagar-konpotaz bestea; amak, berriz, **saiheskia** zekarren. **Anjel Lertxundi**
Urdai gizona ezezik, zerri odolkiak, **saiheskiak**, hezurkiak, azarekin nahasita, neguko eltzekorik gutiziatuenak genituen oraintsu arte. **Patziku Perurena**
Saiheskiak ebaki zituen bere lagun Taboureau andrearentzat, bere neskamea bidali baitzuen urdaitegira. **Karlos Zabala**
Saiheskiak bildu eta esku motelez pisatzen zituen bitartean. **Karlos Zabala**
Inoiz ezin jakin idi txuletak edo guraso baten **saiheskiak** jaten ari garen. **Patziku Perurena**
Gelditzen zaizu **saiheski** ogi-arrautzetaturik, Quenu andrea? **Karlos Zabala**

2 (neurriekin)

Libra bat **saiheski**, esan zuen, *Mansion House*-rako. **Irene Aldasoro**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ganibet mehe batez, txerri baten **saiheski** multzo batetik hiru bereizi zituen. **Karlos Zabala**
Ganibet luzea trebe maneiatzen zuen, **saiheski** puska batendako kalte-. **Aingeru Epaltza**
Lisak **saiheski** urdaia marmolezko apal txikian jarri zuen txukun, salmahaiaren muturrean. · Leihotik **saiheski** erre usaina dator. **Karlos Zabala**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Txerri- **saiheskia** ekarri dut, ofertan zegoen eta. **Pako Aristi**
Lisak jaramon egin behar izan zion libra bat txerri **saiheski** ozpinetako pepinoekin eroatera etorritako andre bati. **Karlos Zabala**
Primeran pasatu nuen, lehengusuekin etxoletan, baina ez ditut maite zerri- **saiheskiak**. **Aingeru Epaltza**
Orain, txahal- **saiheski** erdia ahiarekin eta platera adinako vatrushkak jaten dituk; bestela, txuletak boilurrekin izango hituen janari. **Jose Morales**
Hartu aharikia -esan zion Txixikov-, ahari- **saiheskia** da, artobeltz-ahiarekin! **Jose Morales**

saiheste *iz* bidetik ateratzea edo baztertea.

Euskaldunak sekulan ez du sumatu, goxatu, letren esentzia majjorik, eta **saiheste** popular horretaz landara garatu da komentuen eta burokraten grafolatria, euskal kaligrafoak eta pendolistak nagusi direla. **Patziku Perurena**

saihesteke *adlag* saihestu gabe.

Gustavok are tinkoago eutsi zion lemari orduan, jarritako norabidetik **saihesteke**, soinu hargatik izutzeke. Felipe Juaristi

saihestezin ik saihetsezin.

saihestu, saihets/saihestu, saihesten (*orobat saihetsi g.er.*) 1 da *ad* bidetik atera. ik baztertu.

Hala, bada, ukatu egin zionez Edomek Israeli bere lurraldetik barrena igarotzeko baimena, **saihestu** egin ziren israeldarrak bidetik, itzul-inguru bat eginez. Jose Antonio Mujika

Astemea, orduan, Jaunaren aingerua ikusi zuenean bide erdian, ezpata eskuan zuela, bidetik **saihestu** eta landan barrena joan zen. Jose Antonio Mujika

Bide nagusitik joango gara, ez ezker ez eskuin **saihestu** gabe, zure lurralde osoa zeharkatu arte. Jose Antonio Mujika

Aurrera zihoazen bidez bide, marrumaka, ez ezkerrena, ez eskuinera **saihestu** gabe. Elizen arteko biblia

Saihestu zen, ordea, David Saulen aurretik, eta horman sartu zen lantza. Elizen arteko biblia

2 irud/hed

Baina **saihestu** egin gara kapitulu honen xedetik. "Ene bihotza ez da behin ere bidetik okertu", erran nahi baita: 'nire sentimendua ez da **saihestu** ez hastandu hortik'. Xabier Kintana

Mesprezatu egiten dituzu zure arauetatik **saihesten** direnak, gezur huts baitira horien egitasmoak. Elizen arteko biblia

Ez gero engainatu zeuen buruak, ez **saihestu** Jaunarengandik, jainko arrotzak gurtuz. Elizen arteko biblia

Haiek emandako argibideen eta epaiaren arabera jokatu duzue, ezertan ere **saihestu** gabe. Elizen arteko biblia

• 3 du *ad* kaltegarria, zaila, ezatsegina edo arriskutsua gertatzen den zerbaiti buru ez egiteko, hari itzurtzeko edo hura alboratzeko eran aritu. (zerbait)

Gutxiगतिक **saihestu** dugu hot-dog saltzailearen orga. Harkaitz Cano

Juxtu-juxtu **saihestu** zuen bidean agertu zen harkaitz bat. Fernando Morillo

Saihesten baizik ez da saiaturko; ezpainak **saihestu**, begiak **saihestu**. Oskar Arana

Gasteizko erdigunea **saihesten** saiatzen da beti, oinezkoen esparruak bereziki: ez du aspaldiko adiskide eta ezagunekin topo egin nahi. Iban Zaldúa

Kortsario veneziarraren bi ezpatakada **saihestu** ondoren, jauzi egin zuen haren gainera. Felipe Juaristi

Gizonak beti **saihesten** zuen bidea, Calçada do Correio Velho, alegia, igotzen ari ziren, baina gaur hegoak balitu bezala sentitzen zen. Jon Alonso

Bi botika batera hartuta GIB birusa **saihets** daitekeen aztertzen ari dira. Berria - Gaiak

Harry sekula ez zen ordu arte Filchen bulegoan egon; ikasle gehienek **saihesten** zuten lekua zen. Iñaki Mendiguren

Harryk eraso **saihestu** eta ganberaren horma jo zuen basiliskoak. Iñaki Mendiguren

-Badaezpada ere, hobe dugu tiroak **saihesten** ahalegindu. Koro Navarro

Gazteak ezin izan zuen masailekoa **saihestu**, eta amorrazioz hartu zuen. Patxi Zubizarreta

4 (zerbait abstraktu)

Saihestu beharrekoa da, era berean, pedanteria eta hizkera "barrokoa". Koldo Zuazo

Delitu bat **saihestu** ordez beste bat eragiten du. Juan Martin Elexpuru

Norbanakook eurok, besterik gabe, legea **saihesteko** ahalak eta leherrak egiten dituzte. Andres Urrutia

Lege zibilak **saihets** dezake indarra eta bortxa erabiltzea. Andres Urrutia

Nire amak, hasieratik bertatik, **saihestu** izan zuen haiekiko harreman oro, eta haurrekin hitz egitea debekatu zidan. Eduardo Matauko

Kontu hartaz pentsatzea ere **saihestu** egiten nuen, hain zitzaidan mingarria. Alberto Ladron Arana

Gizasemearen larruan ipintzeko bulkada ezin izan dut **saihestu**. Karlos Linazasoro

Arazo hauek guztiak **saihets** ditzakegu. Itziar Laka

Borreroak, behiala, kondenatu bati bezero deitzeko tentazio itsusia izan zuen, azken unean **saihesten** jakin zuena. Karlos Linazasoro

Azken mailegatzaille bat, zordun subirano batek ordainketak etetearen sistemaren krisia **saihestuko** lukeena. Koro Navarro

Nahasketa **saihesteko**, analitikitasantaren nozio eraldatu sinpleena Gottlob Frege-k aurkeztu zuena da. Askoren artean

Gorputzasuna baztertu eta egiazko batasuna oinarritzeko -horren errealitatea ezartzeko gorputzasuna **saihestu** behar baita- [...]. Xabier Kintana

Ezusteak **saihestu** nahirik, *steam-boaten* bulegoetara joan zen lehenik, eta, bertan Kaukaso ontzia esandako orduan aterako zela ziurtatu zioten. Karlos Zabala

Beldurrak gidatzen duena eta gaizkia **saihesteko** ongia egiten, hura ez du Arrazoiak gidatzen. Piarres Xarriton

Okerrena **saihestua** zegoen! Juan Kruz Igerabide

Atzerapenak sortu ziren, Mikel Strogoffen aurrera jo nahi itsuak ere ezin **saihestu** zituenak. Karlos Zabala

Lucyrek in igaro zituzten bost hilabete eta erdi hartan pentsatzen nuenean, ezin **saihestu** nuen berengatik erruki sentitzea. Oskar Arana

5 (norbait)

Ni etengabeki zu hortik **saihesten** ahalegintzen nintzen, gauzak ordenatuki aztertzea gomendatuz. Xabier Kintana

Pucey jazarleak bi bludger, Weasley bikiak eta Bell jazarlea **saihestu** ditu eta ziztu bizian doa... itxaron pixka bat... snitcha ote da hura? Iñaki Mendiguren

Jauregirat heldurik, ohartu ginen ezen guztiak **saihesten** gintuztela, izurriak harturik bageunde bezala. Joan Mari Irigoien

Lanbidea galdu duzu, zure izena lokaztu, lagunek **saihestu** egiten zaituzte. Oskar Arana

Arratsalde guztian **saihestu** egiten du alaba, hari zakarkeriaren bat esateko beldurrez. Oskar Arana

Astemeak ni ikusi eta hiru bider **saihestu** nau. Jose Antonio Mujika

Delako profeta edo ikusketaria, berriz, hil egin behar da [...] zuen Jainkoak agindutako ibilbidetik zuek **saihesten** ahalegindu delako. Elizen arteko biblia

Handinahi zozoren batek **saihesten** ote gaitu, agian, hain beharrezko genukeen gezur eder horretatik? Patziku Perurena

6 ezin saihestuzko izlag ik saihetsezin.

Norberak nola egiten dion aurre ezin **saihestuzko** heriotzari. Jose Morales

Herio beltz eta ezin **saihestuzkoa**. Jose Morales

Orain, ustekabeko eta ezin **saihestuzko** zerbait gertatuko ote zitzaion beldur zen. Jose Morales

Truke-iragarpenak aldatzen diren unetik bertatik ezin **saihestuzkoa** izaten baita kapitalen ihes masiboa. Koro Navarro

Eraldakuntza genetikoak fatidikotzat, ezin **saihestuzkotzat** jotzen du egun zientifikoak. Edorta Agirre

Harik eta gau batean erabateko ziurtasunaz jakin zuen arte heriotza ezin **saihestuzkoa** zela eta hiru egunen buruan etorriko zela, egunsentian. Jose Morales

Amaitzeko, ezin **saihestuzko** galdera: matematikari haren baitatik igarotzeak zertan aurrerazari zien beren ikerketa? Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

heriotza **saihets** (5)

aise **saihestu** (3); arriskua **saihestu** (5); aurpegia **saihestu** (3); baina **saihestu** (4); bat **saihestu** (11); begiak **saihestu** (3); begirada **saihestu** (5); beti **saihestu** (3); bidetik **saihestu** (4)

"Errealitatearen" ertzean loratzen dirazte edota azpiratu **saihets** interesgarriak. Jose Angel Irigaray

Saihets politikotik, amaitzeko, oliba olioak eginkizun supraestukturala betetzen du. Edorta Agirre

Komunikabideek, berrien irudi eta abailari loturik, gero eta axola gehiago dute egiaren **saihets** desberdinez. Jose Angel Irigaray

Fernanek bertze **saihets** batetik jo zuen kontraerasoa: [...]. Aingeru Epaltza

Oraino beste **saihets** onuragarri bat sexualitatean duen eragin osagarria da. Jose Angel Irigaray

7 saihets-hezurra.

Ondorioz, sabel aldean kolpe izugarria jaso zuen, heste meharra zauritu eta hainbat **saihets** eta diafragma hautsi zitzaizkion. Berria - Ekonomia

Laugarren **saihetsean** jo zion kolpea Tootlesi, baina Smeek Curlyren kolpea jaso zuen. Julen Gabiria

Emaztea dena batera ari zen egiten: bere liburuxkatik nederlandera ikasi, zopari eragin, haragiari begiratu, intziriak bota eta hautsitako **saihetsagatik** kexuka aritu. Josu Zabaleta

Biriken ondoko **saihetsak** ditu apurturik, eta kolpez josita du gorputz osoa. Berria - Euskal Herria

Horrez gain, hautsia du sudurra, ezker lepauztaia eta ezker aldeko **saihetsak**. Berria - Kirola

Eskuineko aldaka bere lekutik kanpora, hiruzpalau **saihets** hautsita eta kopetan kolpe formala duela. Berria - Kultura

Adierazi zuen ezen hildakoak bi beheko **saihets** hautsirik zeuzkala, eta kolpe larriak eskuineko sorbaldan. Irene Aldasoro

Hartara patata-zakuen itzalak, gantzaren poto bat eta txerri ketuaren **saihets** bat ez nahasteko pertsona batena izan litekeen itzalarekin. harkaitzetan harrapatutako ostrak ekartzen dizkit, arkume **saihets** bi, lupia frijitua, [...]. Anton Garikano

8 saihets egin itzuri egin. ik izkina 6.

Konpainiak, jainkozko apaltasunez, **saihets egiten** dio iragarkunde orori. Juan Garzia

Han, ontziburuaren ganbaran, ontzian beste inork ez zituen jakiak eta edatekoak eskaintzen zizkiolako, eta nork haiei **saihets egin** ? Edorta Jimenez

Elikatu ere, beste batzuk ez bezala (hein batean) elikatzen gara, gure kulturak hala aginduta: akzioz, txoko edota sagardotegieta bilduz, babarrun- edo zikiro-jateak ospatuz, etc; erreakzioz, ezezagun dugunari **saihets eginez**. Edorta Agirre

Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordearen ikuskatzaileei eta Genevako Hitzarmenei **saihets egiten** dien leku hauetan giltzapetuta datxikizaten presoan aurkako «gehiegikeriak ausazkoak baino ziurrago ekinin ezinak» direla ohartarazi du HRFK. Berria - Mundua

Ameriketako Estatu Batuek Iraken, Afganistanen, Pakistanen, Jordanian eta itsasontzi militar batzuetan, nazioarteko arauai **saihets egiten** dieten hamar bat detentziogune sekretu badauzkatela salatu du Human Rights First (HRF) giza eskubideen defentsarako erakundeak. Berria - Mundua

9 saihetsa eman

Atsedenetako boxeo konbateetan -lehen-malkoa-nork izaten ziren, hau da, lehiakideetako batek bere burua galtzaitzat jo eta negarrez hasten zenean bukatzen ziren-, denek, Chessman menderaezinak izan ezik agian, **saihetsa ematen** zioten. Bernardo Atxaga

10 saihets-hezur (46 agerraldi, 24 liburu eta 9 artikulutan; orobat saihetsezur 14 agerraldi, 10 liburutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian saihets-hezur agertzen da)

Loak hartu zuenean, **saihets-hezur** bat kendu zion, hezuraren hutsunea haragiz bete ziolarik. Elizen arteko biblia

Gaitz erdi **saihets-hezur** guztiak hautsi ez ditudanean. Jose Morales

Bidezko eta ongi egina irudituko al litzaizuke, etorri eta, hezur bat onik utzi gabe, **saihets-hezurrak** makilaka hebainduko balizkizukete? Patxi Ezkiaga

Harkaitz batean goitik behera erori zela eta **saihets-hezurrak** pixka bat zanpatuak zekartzala. Patxi Ezkiaga

Uztaiak balira bezala nabarmetzen zitzaizkion **saihets-hezurrak**. Koro Navarro

Bigarren pitziak hartza zirudien: erdi jaikita zegoen eta ahoan, hortz artean, hiru **saihets-hezur** zituen. Elizen arteko biblia

Balak **saihets-hezurra** harrapatu bezain laster jakin zuen Humbertok galdua zela. Aritz Gorrotxategi

Kare hautsez osatutako errektangulu baten erdian, **saihets-hezur** zerrenda bat azaltzen zen; lehen begiratuan, uztaiak agerian zituen kupel baten tankera hartzen zitzaion. Bernardo Atxaga

Teilatu askok galbaheak baino zulo gehiago zituzten, gailurreko habea eta - **saihets hezurren** irudiko- albo banatako gapirioak besterik ez zen geratzen haietako batzuetan. Jose Morales

11 saihets-hezurdura (corpusean saihetsezurdura soilik)

Jantziak eta gorputza urratzen dizkidaten haiztak ez ote dira, bada, profeta irentsi zuen balea beraren **saihetsezurdura** edo "leize-sabela"? Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi saihets hezur (4); eskuineko saihets (4); hainbat saihets (3); lau saihets (4); lau saihets hezur (3)

saihets aldean (8); saihets aldera (3); saihets artean (4); saihets batean (7); saihets batetik (3); saihets egiten (3); saihets egon (3); saihets ezin daitekeen (3); saihets hezur (18); saihets hezur bat (3); saihets hezur hautsiak (3); saihets hezurak (14); saihets hezurren (5); saihets hezurrez (3)

eskuineko saihetsa (5); saihetsa lantzaz (3); saihetsa zulatu (3)

saihetsaren gainean (5); saihetsaren kontra (3)

brankako saihetsean (3); ene saihetsean (4); eskuineko saihetsean (4); nire saihetsean (3); oinetan eta saihetsean (4); saihetsean jarri (4); saihetsean jo (3); saihetsean sartu (4); saihetsean zegoen (3)

saihetsel itsatsia dagoen (5)

saihetseko zauria (21); saihetseko zauriaren (3)

saihetsen artean (3); saihetsen kontra (5)

eman zion saihetsetan (3)

saihetsalde (orobat saihetsalde) 1 iz gorputzaren saihetsaren alde.

Gerrikoa askatu dio, eta alkandora jasoz, **saihetsalde** txuria milikatu du, lege zahar batek odolari behin eta berriro lur horretara itzultzea aginduko bailion. Pako Aristi

Arnasestuka, **saihets aldean** min zorrotz bat zuela, Harry ez zen gelditu harrizko txirristara iritsi zen arte. Iñaki Mendiguren

Ezker eskua, ordea, luze erortzen zen, **saihetsaldean** behera. Felipe Juaristi

Etzeko korridorean berean aztertu zuen erizainari aditua nion besoak eta **saihetsalde** baizik ez zituela hunkiturik. Aingeru Epaltza

Saihetsaldean hartu zuen kolpea, arnasa hartzeko arazoak ere izan zituen une batez. Berria - Kirola

Medikuak ezker **saihetsalde** minbera eta arnasa hartzeko arazoren bat topatu zizkion Barriolari. Berria - Kirola

Saihets aldera etzanik, zauria ireki egin zitzaion, eta odoletan hasi. Juan Kruz Igerabide

Etzan zutenerako, soin osora hedatua zen **saihetsaldeko** inguru gorria. Aingeru Epaltza

Saihetsaldeko kolpeak ere ez dit jada min asko ematen, eta ostegunerako ongi egongo da. Berria - Kirola

2 hed

Fraideek, ordenazaleak izaki, elizaren atzealdean eta **saihetsaldean** lerroz lerro jarri zituzten gereziondoak. Felipe Juaristi

saihetsarazi, saihetsaraz, saihetsarazten du ad saihestera behartu.

Müller doktore ezezagunak bere baieztapena ber-bertan egiaztatzea gonbidatzen gintuen; efektua baiesten bazen, beren ohartarazpen hark nazioarteko tirabira baten eta berresportazio baten neke eta buruhausteak **saihetsaraz** ziezakizkieken alderdi bie. Juan Garzia

Danceney zaldunarenak dira akats horretarik salbuetsirik dauden bakarrak: izan liteke agian, poesia idatzten batzuetan, haren belarri trebatuagoak aiseago

saihetsarazten ziolako hutsegite hori. Jon Muñoz

Etz al zeneukan niri hori guztia **saihetsarazteko** modurik? Xabier Aranburu

saihetsezin *(26 agerraldi, 12 liburu eta 7 artikulutan; orobat **saihets ezin** 2 agerraldi, 2 liburutan; **saihestezin** 166 agerraldi, 48 liburu eta 68 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **saihetsezin** agertzen da)* **1** izond ezin saihestuzkoa.

Nire bidean, badakit orain bertan, zelatan dut zoriona segada **saihestezin** bat bezala. Urtzi Urrutikoetxea

Gizon-emakumeak indar **saihetsezinez** lotzen dituen grina baino indartsuagoa zuan. Xabier Olarra

Indar **saihestezin** batek erakarririk. Ander Irizar

Haien aurrean zuloa, trenbide iluna, ezkutuko erakarmen indar **saihestezin** hori. Harkaitz Cano

Agintzen dizkiguzuen zoritxar **saihestezin** horiei dagokienez, gertatu beharko ote duten, geroak esango. Jon Alonso

Charlie, eta hura pairatzen ari zen injustizia bidegabea, eta biharamunean halabeharrez gertatuko zitzaionaren ezinbestekotasun **saihetsezina**. Mirentxu Larrañaga

Modu berean, haur-hilketa ere kontraesan **saihestezin** baten ondorioa da, zeinetan aurkitzen baita derrigorrez edo ahuldadez amore emandako pertsona. Juan Martín Elexpuru

Gure buruaren errotak banaka-banaka ehotzen ditu sentipen negatibook, tortura psikologiko **saihetsezin** bihurtu arte. Unai Iturriaga

Beste tranpa sorgindu eta **saihestezin** batean. Karlos Linazasoro

Biek in maitemindu zen suhartasun **saihestezin** berberaz, eraspen zalantza gabeko berberaz. Oskar Arana

Saihetsezina da, pentsatzen du bere artean, baserria hirira ari da iristen. Oskar Arana

Amazoniarako bidaia gero eta **saihetsezinagoa** zen. Jon Muñoz

2 **saihetsezineko** *izlag* saihetsezina.

Horrek **saihetsezineko** frustraziora eraman zuen. Josu Zabaleta

Ba, uxaezineko zoritxarra gertatuko zaizu, **saihetsezineko** ezbeharrak jausiko gainera, ustekabeen hartuko zaituen bat-bateko hondamendia etorriko. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

indar **saihestezin** (3)

saihetsezur ik **saihets** 10.

saihetsezurdura ik **saihets** 11.

saihetsi ik **saihestu**.

sail **1** *iz* lur zatia edo lur eremua; bereziki, lantzen den lur zati mugatua. ik **alor**.

Inguru guztian, haranaren **sail** lauetan, mahastiak eta limoiondo lerroak ageri ziren. Bernardo Atxaga

Lanari ekin zioten berriro: bi **sail** geratzen baitziren oraindik, eta belarra gurdira kargatu behar zen gainera. Josu Zabaleta

Nekazariak, **saietik** bueltan, afaria jaso, haurrak etzan eta kriseluari putz eginda, beren isiltasunean murgilduko dira. Josu Zabaleta

Berak ez zituela muino haiek, **sail** haiek, etxe haiek gehiago ikusiko. Bernardo Atxaga

Uriasen seme zen Meremotek, Eliaxiben etxeko atetik etxe beraren ertzerrainoko **sailean** jardun zuen. Elizen arteko biblia

Eleazarrek eta bere gizonak, **sailaren** erdian tinko, defendatu egin zuten, filistearrak hilez. Elizen arteko biblia

Baratzean baziren zenbait fruitu-arbola, une hartan historik gabe; bi ibilbidek gurutzatzen zuten, erdian plazatxo bat eratuz eta lau **sail** berdinetan banatuz. Josu Zabaleta

Normalean elizatik ehun bat metrora jokatzeko, **sail** ezkutu samar batean. Bernardo Atxaga

"Porciuncula" (**sail** txiki) izena eman zitzaion, eliza eraikia zegoen lur-sailari ere horrela deitzen zitzaiolako antzinatik. Askoren artean

Emakumezkoek 50 metro kuadrado **sail** bana ebaki zuten eta gizonzkoek 100 metro kuadradoa. Berria - Kirola

Berak saldatuko **sail** haietan hipermerkatu bat egingo zela uste izan zuelako. Bernardo Atxaga

- Zein bilau dira hauek, nire **sail** pribatuaren sartzeko. Iñaki Mendiguren

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bazen han garagar-**sail** bat. Elizen arteko biblia

Patata-**sail** bat beharkatu behar dute itsuan eta behaztopaka etxaldera iritsi aurretik. Oskar Arana

Leku ezkutu eta eguzkitsu hartan tabako-**sail** egiazko bat landatu zuen. Koro Navarro

Neuk agorraziti ditut lurra eta mendiak, gari-**sail**, mahasti eta olibondoak. Elizen arteko biblia

Belar **sailaren** alde batean bi zaldi zeuden, Ava eta Mizpa, eta hiru zaldikume. Bernardo Atxaga

Agindu ezazu, beraz, ebaki dezatela niretzat Libanoko zedro-**sail** bat. Elizen arteko biblia

Muinoaren malda ondo berdinduriko belarrez jantzirik zegoen, eta Ingalaterrako enako bizpahiru lore-**sail** zituen, lilekin eta arkazia horiekin. Jose Morales

Bestalde, koka **sailak** suntsitzen badira drogaren prezioak gora egingo du. Berria - Gaiak

Bihotz erdiragarria duk departamentu adinako oihan-**sail** handiak ketan desagertzen horrela ikustea. Jon Muñoz

Medina hiriaren inguruko basamortu-**sail** txiki batzuetatik abiaturik, lastertasun harrigarritz hedatu zen islama. Jon Muñoz

3 giza jardun bat banatzen den zati bakoitza.

Literaturan ere badira, dena dela, **sail** nagusi bi: ahozkoa eta idatzia. Koldo Zuazo

Nahiz zuzenbidezko bi sailak landu, bakarrak **sail** kanonikoaren doktoregoa zuen eskatu; bi **sailak** irakatsi zituen bizkitartean Cahorseko eta Tolosako unibertsitateetan.

Piarres Xarriton

Hirugarren eta laugarren kapituluek **sail** bera daramate, hots, hor ikus dezakegu zer ote zen Azpilkuetaren garaian [...] irakasten zen eta irakasleen gogoan zebilen antropologia. Piarres Xarriton

Ume eta gazte jendeak eskola orduetatik kanpo egin ohi dituen ekintzak sartzen dira **sail** honetan: era guztietako kirol, jolas eta kultura ekintzak. Koldo Zuazo

Ez zenigun eskatu, ordea, "Bestelako matematika" edo "Matematika ez-mendebaldekoa" edo auskalo nola deituko zenion **sail** baten alde edo kontra botoa ematea. Jon Muñoz

Nik nere idazlana bidali nuela sariketa hartako **sail** batera: 1994eko "Mikel Zarate" sarira, hain zuzen. Patziku Perurena

Han mota guztietako pertsonaiek bazituzten hitzorduak: **sail** ezberdinetako abenturazaleek, arma kontrabandistek, mota guztietako gaizkileek, [...]. Elena Touyarou

4 (hitz elkartuetan)

Herregatik hizketa partzialaren eremua lan- **sail** oparao da fonetikan arietan arietan elkar-laguntzen. **Lourdes Oñederra**

-Turismoa ezin da izan gure herriaren garapen **sail** bakarra! **Itxaro Borda**

Pisu batean ehundegi **sail** bat zegoen, eta haietan neska batzuek, kotoi puskak ilean, trebetasun handiz korapilatzen zituzten hariak. **Koro Navarro**

5 erakunde baten antolaketa bereizten diren zatietako bakoitza.

Liburu honek Eusko Jaurilaritzako Kultura **Sailaren** laguntza jaso du. **Bernardo Atxaga**

Liburu honen itzulpena Eusko Jaurilaritzako Kultura **Sailak** Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkartearen Literatur Ondare Unibertsaleko Obra Nagusien Bilduma euskarara itzultzeko sinatutako hitzarmenaren barruan burutu da. **Jon Muñoz**

Jaurilaritzako Ingurumen **Sailak** ostegunean antzeman zituen isuriaren lehen arrastoak. **Berria - Euskal Herria**

EAEko Herrizaingo **Sailak** eta Espainiako Gobernuko Barne Ministerioak. **Berria - Harian**

Eusko Jaurilaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa **Saila**. **Berria - Harian**

Ramon Jauregi, Eusko Jaurilaritzaren Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte segurantz **sailaren** buru izandakoak. **Iñaki Heras**

Barne **Saileko** Ministroak, egileak zeintzuk ziren ere esan zuen agiri batean. **Hasier Etxeberria**

Hauexek dira Justizia **Sailak** deportatu dituen gorriak... **Lopez de Arana**

1980an, Estatu Batuetako Defentsa **sailak** programatzeko hizkuntza berezi bat asmatu zuen. **Pello Salaburu**

Unibertsitate beraren barnean gerta daiteke **sail** batzuek ikerkuntza handia egitea, eta beste batzuek, arloaren arabera, ez. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

EHUko Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalia Fisiologia **Saileko** zuzendaria da. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Igande goizean, campus hutsera doa autoz, eta **saileko** bulegora sartzen da. **Oskar Arana**

Erakunde handi batena bezalakoa da egoera: bulego nagusiak bere kasa jarduten eta erabakitzen uzten dio **sail** bakoitzeko buruari. **Irene Aldasoro**

Sail bateko zuzendariordea zen. **Migel Angel Mintegi**

Sistemak ez luke funtzionatu **sail** bakoitzeko laguntzaileek beren administrazio-sareak besteetatik aparte antolatuko balituzte. **Irene Aldasoro**

Hizkuntza Modernoetako irakasle izan zen garai batean, eta, berrantolakuntza handiaren ondorioz hizkuntza moderno eta klasikoan **sailak** ezabatu zirenez gerotzik, komunikazioetako irakasle laguntzaile da. **Oskar Arana**

Dublingo Gazteluan zegoen enplegatu, Irlandako Errege Polizia **Sailean**. **Irene Aldasoro**

6 (hitz elkartuetan)

Eta horrela aukeratutako errektoreak hauta litzake gainetik behera dekanok, **sail** zuzendariak, etab. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

- XVIII. mendean, "kolegioa" esaten zieten gobernu- **sail** nagusiei, hariak eta XIX mendean hasieran ministerioak sortu zituzten arte. **Jose Morales**

7 enpresa edo kideko baten antolaketa bereizten diren zatietako bakoitza.

Urdaitegi- **sailean** nengoen. **Iban Zaldúa**

Esnekien **saila** zegoen haren ardurapean eta Saito jaunaren maila berbera zuen, kontaduria orokorreko **sailaren** ardura baitzuen Saito jaunak. **Joxan Elozegi**

Gero X izpien **sailera** bidali ninduten. **Iban Zaldúa**

Erradiografiak egiteko paper-xaflak fabrikatzen diren **sailaren** kargua nuen. **Juan Garzia**

Haneda jaunak import-export **saila** kudeatzen zuen. **Joxan Elozegi**

8 talde batean, irizpideren baten arabera bereizten den zatia edo zatietako bakoitza.

Davidek hiru **sailetan** banatu zituen lebitarrak. **Elizen arteko biblia**

Kantagintzaren bidez, gazteriarren **sail** haziak aurkitu eta ezagutu zuen euskara. **Koldo Zuazo**

Gizonezkoen beste **saila** lodiek osatzen zuten. **Jose Morales**

Bakides eta Alkimo bidali zituen berriro Demetrio erregeak, gudarostearen eskuineko **sailarekin**. **Elizen arteko biblia**

Euskararen alde agertu zen herritarren eta elizaren **sail** zabalak. **Koldo Zuazo**

Iristear dago gosearen eta pobretasunaren garaia, hala herri osoarentzat, nola gizarte- **sail** bakoitzarentzat... **Jose Morales**

Armada **sail** oso bat zekarkion Ivan Ogareffek emirrari. Europako eta Asiaren erdialdeko bazter guztietatik hara bildutako jende **sail** horretatik ez zen geldituko merkataria bakar bat ere oraindik zerbitzatzeko asmotan. **Karlos Zabala**

9 taldea.

Sail bat dago berezia: literatura egileena. **Koldo Zuazo**

Bera ez zegoela betiko bizitarako aukeratuen **sailean**. **Askoren artean**

Traidore eta etsaien **sailean** kokatuko zuten. **Itxaro Borda**

Beraren ahaide egiten zirenak bizi ziren bertan, ume **sail** handi batekin. **Xabier Etxabe**

Bada herritar **sail** bat oso gogoko ez duena zientzia-ikerkuntzak berezko duen aurreikusiezintasun hori. **Juan Garzia**

Bere soldadu- **sail** indargabea lumatxoak airean bezala haizatuko dela behingoan. **Jose Morales**

Eskuineko gudari- **sail** hura menperatu eta pertsegitu egin zuen Azotoko muinoraino. **Elizen arteko biblia**

Garai hartan, zuhertasun eta azkartasun ikaragarri jokatzeko kontrabandista- **sail** ahaltsu bat sortu zen. **Jose Morales**

Lapur- **sail** baten antzera, zelatan dago apaiz-taldea. **Elizen arteko biblia**

10 multzo batean, irizpideren baten arabera bereizten den zatia edo zatietako bakoitza.

Sail bereko beste errima-hitz mordoska bat topatu beharko duelako. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Sail bereko beste kopia batzuekin batera. **Patziku Perurena**

Batzuetan estatistikok darabiltzaten zenbakien taula aleatorioa zenbaki-sinboloen **sail** bat da. **Xabier Arregi**

Aurrerantzean, arazoa **sailak** eratzeko izango da: **sail** bakoitzarentzat bere osagaiak definitzea, bere mugak zehaztea, berari dagokion harreman-mota berezia agerraraztea, berari dagokion legea formulatzea eta, honetaz guztiaz gain, **sail** ezberdinen arteko harremanak deskribatzea. **Xabier Arregi**

Baliokideak eta bateraezinak diren osagai horietako bakoitzetik ondorioztatu da objektuen **sail** koherente bat, forma enuntziatiboan **sail** bat eta kontzeptuen **sail** bat (eta **sail** bakoitzak bateraezintasun-puntu berriak izango ditu). **Xabier Arregi**

Oihaneko Liburutegian sartu, eta greziar matematikaren **sailaren** apaleraino eraman zuen Ruche jaunak aulki gurgilduna. **Jon Muñoz**

Buruari eragiten dio B **saileko** filmetako irudi zentzugabe horiek aienatzeko. **Antton Olano**

11 kideko diren eta hurrenez hurren datozen gauzen multzoa. ikserie.

Atrilean, Schumannen *Scènes d'enfants* **saileko** partiturak. **Anjel Lertxundi**

Goyaren margo bat da, gizon urkatu bat ageri duena, 'Gerraren hondamenak' **sailekoa**. **Pako Aristi**

Ez zen jadanik orro nahaspilatsu bat, kanoikada garbien **sail** bat baizik. **Karlos Zabala**

Nahikoa da **sail** horiei gain-gainetik begiratzea grezierazko eta latinezko paradigmen arteko erlazioaz ohartzeko. **Isabel Arrigain**

Honela **sailen sailak** edo "koadroak", eratzeko. **Xabier Arregi**

Esaldi bati edo zeinuen **sail** bati uztartutako arloak [...] bilbe konplexua eratzeko. **Xabier Arregi**

Hamar epiklesiz osaturiko **sail** bat idazten ari naiz aldizkari baterako. **Irene Aldasoro**

Lilura eragiten zioten orain Gabini liburu haiek guztiek, batez ere liburutegiaren goialdeko **sail** lerro-lerro jarriek. **Iñaki Iñurrieta**

Objektutik garuneraino, begitik igaroz, elkarren segidan burutzen zen isomorfia **sail** bat balitz bezala ulertzen zen pertzepzioa. **Josu Zabaleta**

12 (izenondo eta izenlagunekin)

Euskaraz, berriz, afrikatuek nortasun bereziko **sail** fonemikoa osatzen dute. **Lourdes Oñederra**

Zer irudi eratzen dute, ez bada ahal iritzira aukeratutako hizki taula bat, **sail** alfabetiko baten saila, halabeharrena baino beste legerik ez duena? Xabier Arregi

Sail diakronikoari dagozkion gertaerak, **sail** sinkronikoari dagozkionen maila berekoak al dira gutxienez? Isabel Arrigain

Oharra hartzeko, deskribatzeko, sailkatzeko, **sail** numerikoetan eta estatistiketan txertatzeko. Xabier Arregi

Ez da denboraz kanpoko forma izango, baizik eta denborazko **sail** askoren arteko elkarrekotasun eskema. Xabier Arregi

13 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehen osagaia gauza fisiko bat dela)

Lurrean zegoen mota bereko botila **sail** luze batetik bat hartu eta lepoa hautsi nion. Koro Navarro

Arku **sail** baten azpitik igaro ginen. Koro Navarro

Txabolak teiltatu bat zuen txirrika **sail** baten bitartez itxi eta ireki zitekeena. Koro Navarro

Tarot madarikatua irakurtzen jarriko zaituztet museko karta **sail** batekin. Harkaitz Cano

Don Blasek historiako liburu **sail** bat utzi zion. Josu Zabaleta

Kodize-**sail** bat aurkitu zuen leku horretako liburategian. Santiago Iruretagoiena

Aparatu **sail** bat, ministerio bateko bulegoak bezala elkarrengandik erabat bereziak, zituen armairu bat bezala ageri zen gizakia. Josu Zabaleta

Herriatik kanporako alderdia, etxe edo borda **sail** batez osatua. Patziku Perurena

Egin urrezko berrogeita hamar katigailu ere, zapi-**sail** bat besteari lotzeko, egoitza osoak bat egin dezan. Elizen arteko biblia

Irudi holografiko bat puntu eta orban **sail** zentzugabe bat da begi hutsarentzat. Irene Aldasoro

Gero, han-hemenka, dorretxo **sail** bat, printza diridirsuz izarniatzen zuten teila urdin eta zuriz estaliak. Josu Zabaleta

Gela **sail** bat igaro zuen gero. Josu Zabaleta

Tiro **sail** bat entzun zen, Dyer, Lewis eta Halligan tiroka ari baitziren. Xabier Olarra

Karlistak liberalek abandonaturiko herri **sail** batez jabetzen ari ziren. Koro Navarro

14 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehen osagaia gauza abstraktu bat dela)

Bizimodu osasuntsuaren arauak kontu handiz betetzeak urte **sail** luzeetan eztabaida emankorrean aritzeko aukera eman baitie. Xabier Olarra

Galdera **saila** kanporatu zitzaidan, bata bertzearen ondotik, hats hartzeko etenik gabe. Aingeru Epaltza

Zalakainek gezur **sail** bat kontatu zion. Koro Navarro

Inoiz ez ditu albistegiak atsegin izan, eta are gutxiago ulertzen du orduero alde handirik gabeko berriez osatutako albiste **sail** enlatatuak errepikatu beharrendak. Pako Aristi

-Ekuazioak ez ziren problema bat izendatzeko sortu, mota bereko problema **sail** osoak izendatzeko baizik. Jon Muñoz

Izaten dira gertaera **sail** idealak benetako gertaeren pare joaten direnak. Koro Navarro

G. M. Dyson-ek, lurrinean interesaturiko kimikari batek, esperimentu **sail** luze bat egin zuen; lehen saioetan, fenilo ziape-olioa aztertu zuen. Irene Aldasoro

Esperientzia **sail** izugarria bereganatua omen zuen urtetan. Xabier Olarra

Bertsolari bakoitzak buruan dauka errima-**sail** bakoitzaren "bere" ordenamendua. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Zernahi fonema **sail** hartuz gero, fonema horiek artikulatze modu batzuk beste batzuk baino naturalagoak, erosoagoak izan daitezke. Zeinu **sail** bat enuntziatu bihurtuko da baldin eta "beste gauza bat" badauka. Isabel Arrigain

Bi bulkada-**sail** bateraezin zuzentzen dira objektu bererantz, eta objektu hori haurra bera inguratzen duen unibertsoaren erdigunea da. Iñaki Mendiguren

-Bideo-pantaila **sail** bat elkarri atxikiak. Josu Zabaleta

15 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehena izenondoduna dela)

Pentsa daiteke giza gogamena bikain doitutako konputagailu **sail** bat dela. Xabier Olarra

Haren gelako apaindura guztia botila huts **sail** bat zen, alde guztietan banatua. Josu Zabaleta

Forma abstraktu **sail** bat bereganatzeko trebetasuna nabarmentzen zitzaion. Xabier Olarra

Ebaluazio psikologiko eta neuropsikologiko **sail** bat egin zioten Gregi. Xabier Olarra

Berak gertaera diskurtsibo **sail** batzuen eta beste gertaera eraldaketa, mutazio eta prozesu **sail** batzuen arteko artikulazio hastapena planteatzen du. Xabier Arregi

16 aldizkari, telebista edo kideko baten baten egituraren zati bakoitza.

Egunkari edo astekari batean zer irakurtzen duzu lehenik, politika, kirola, kultur **saila**, [...] ? Herria

Hartu nuen, *Herria* astekarian, pilotaren **saila**. Menane Oxandabaratz

Berriako *Mundua* **sailleko** sailburu Ainara Mendiolaentzat. Berria - Euskal Herria

Egunkarian ikusi zuen sukaldari eskea, *Wanted* **saillean**. Iñaki Zabaleta

Gutun bat bidali dut prentsara, iritzi **sailerako**, Xabier Mendiguren idazleak torturari buruz idatzi duen artikulua eraginda. Agurtzane Juanena

Hogei bat orrialde ziren, hainbat ataletan banatuak, bakoitza bere **sail** eta azpisailekin. Aingeru Epaltza

Ezkerreko orria "Euskadi" **sailari** zegokion. Iñaki Iñurieta

Anak zeremoniarik gabe itzuli zidan Gertakari **sailaren** ardura, "hozkaillua" hutsik eta deusen aurreikuspenik ez zuela. Aingeru Epaltza

Bi atzamar lohiren artean egunkari baten antzerki-**sailaren** orriari eusten zion, teink. Lopez de Arana

17 irratan edo telebistan kapituluka ematen den obra. ikserie 5.

Neskak, ordea, aski lan zuen arratsaldean, zertan eta Zabalguneko atso Rosariok elkarriketa egiten, "Gure irakurleak oporretan" **sail** ergelera. Aingeru Epaltza

Izarretako gerra **sailleko** lehen filmean, eszena gogoragarrietako bat mugako taberna horietako batean da. J.M. Olaizola "Txiliku"

Telebista piztu zuen eta han azaltzen zen eskualdeko berri-**sailari** beha geratu zen. Itxaro Borda

Delfin izen xelegeko diziplina-burua "Flipper" bilakatu zen nire bitartez, orduko telebista **sail** bateko izurde protagonistaren izenez baliatuz. Aingeru Epaltza

18 sorta, pilota.

Aipatuz Ikas zentroak ikas-liburugintzan daraman **sail** handia. Herria

19 **saillean** ekoizpenaz mintzatuz, mekanikoki eta era berean bata bestearen ondoan. ikserie 6; saldo¹ 6. irud/hed

Haur kopuruaren handitzea, haurdunaldiak **saillean** izatea, haur bat bestearen atzetik hazi behar izatea. Luis Elberdin

Saillean datoz galderak, eta nola edo hala erantzuten diet nik. Juan Garzia

Tumor horiek **saillean** transplanta daitezke sagu batetik bestera. Juan Garzia

20 **etxe sail** (*orobat etxesail g.er.*) elkarren ondoko etxe multzoa, kaleek edo kidekoek mugatzen dutena.

Izan ere, **etxe-sail** handi bat ari baitira eraikitzen orain, gurearen ezkerretara, alde horretako ikuspegi guztia jaten digula. Xabier Mendiguren Elizegi

Hurrengo **etxe saillean** hebreerazko eta yiddishezko liburua erakusten zituen liburu denda batek: *Belaunaldiak eta bere interpreteak, Pariseko misterioak, Gizontxo txikia, Masturbazioa, Nola aurea hartu biriketakoari*. Koro Navarro

Kaleak hondatuta aurkitu nituen, **etxe-saillean** hutsuneak tarteka, eta oraindik zutik zeudenak ere lorrinduta, narriatuta, zulatuta, leihorik gabe. Urtzi Urrutikoetxea

Ni berehala abiatzen nintzen berarengana, **etxe-sailari** buelta osoa emateko ardura hartuta noski, inork suma ez zezan nondik joaten nintzen. Iban Zaldúa

Hurbil zegoen, bi **etxe-sail** urrunago Mendebaldeantzat. Iñaki Zabaleta

Etxe-sail batzuk beherago zegoen 106. kalea. Iñaki Zabaleta

Bere kale-kantoia handik bost **etxe-sailletara** zegoen. Mirentxu Larrañaga

Sheilaren etxera hurbildu eta etxetik **etxe-sail** erdi batera aparkatu nuen, ea zerbait ikusten nuen handik. Xabier Olarra

Hasieran etxe bateko patioa izanzen zela pentsatu nuen, batek ez duelako espero parke publiko bat hori bezain txikia izatea: **etxe-sail** erdia ere ez zuen hartzen. Fernando Rey

Erabaki nuen sekula horrelako lasterketarik ikustera ez joatea eta geroztik ez naiz sekula santan izan; salbu behin bakarrik Salamancan, horretara behartu naularik ene **sailburu** eta buruzagi karguak, hori baitzoakidan doktoregora heltzen den edozein irakasle jakintsuri bezala. **Piarres Xarriton**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrantza sailburu (6)

barne sailburu (9); **barne sailburu javier** (4)

eaeko etxebizitza sailburu (3); **eaeko garraio sailburu** (5); **eaeko herrizaingo sailburu** (5); **eaeko hezkuntza sailburu** (6); **eaeko justizia sailburu** (5); **eaeko osasun sailburu** (4); **ekonomia sailburu** (4); **etxebizitza sailburu** (11); **eusko jaurlaritzako sailburu** (6)

garraio sailburu (20); **gizarte arazoetarako sailburu** (4); **gizarte gaietako sailburu** (13); **gizarte gaietarako sailburu** (23); **gizarte ongizate sailburu** (4); **gizarte segurantzako sailburu** (15); **gizarte segurantzako sailburu** (4); **governazio sailburu** (3); **governuko sailburu** (5)

herri lan sailburu (13); **herriltan sailburu** (4); **herrizaingo sailburu** (31); **hezkuntza sailburu** (38); **hezkuntza sailburu berriak** (3)

ikerketa sailburu (16); **industria sailburu** (11); **ingurumen sailburu** (9)

jaurlaritzako garraio sailburu (8); **jaurlaritzako herrizaingo sailburu** (14); **jaurlaritzako hezkuntza sailburu** (15); **jaurlaritzako industria sailburu** (6); **jaurlaritzako justizia sailburu** (25); **jaurlaritzako kultura sailburu** (15); **jaurlaritzako lan sailburu** (5); **jaurlaritzako osasun sailburu** (8); **jaurlaritzako sailburu** (8); **justizia sailburu** (35)

kultura sailburu (31); **kultura sailburu ohia** (4)

lan sailburu (22)

nekazaritza sailburu (4)

ogasun sailburu (4); **ongizate sailburu** (5); **osasun sailburu** (18)

sailburu berriak (8); **sailburu izan zen** (3); **sailburu ohia** (12); **sailburu ohiak** (8); **sailburu ohiaren** (3); **saileko sailburu** (3)

turismo sailburu (8)

arrantza sailburua (3)

eaeko hezkuntza sailburua (3); **eaeko justizia sailburua** (5); **garraio sailburua** (4); **gizarte gaietako sailburua** (3); **gizarte gaietarako sailburua** (7); **gizarte segurantzako sailburua** (5); **governuko kultura sailburua** (3); **herrizaingo sailburua** (11); **hezkuntza sailburua** (21)

iker sailburua (3); **inclin osasun sailburua** (3); **industria sailburua** (11); **ingurumen sailburua** (15); **jaurlaritzako hezkuntza sailburua** (8); **jaurlaritzako ingurumen sailburua** (7); **jaurlaritzako justizia sailburua** (7); **jaurlaritzako kultura sailburua** (14); **justizia sailburua** (20); **kultura sailburua** (33); **lan sailburua** (10); **nekazaritza sailburua** (4)

osasun sailburua (5)

sailburua izan da (3); **sailburua izan zen** (5); **sailburua izango da** (3)

turismo sailburua (5)

adierazi zuen sailburuak (5); **aipatu zuen sailburuak** (3); **arrantza sailburuak** (14); **azaldu zuen sailburuak** (5); **azpimarratu zuen sailburuak** (7); **barne sailburuak** (8)

eaeko herrizaingo sailburuak (7); **eaeko hezkuntza sailburuak** (6); **eaeko ingurumen sailburuak** (7); **eaeko justizia sailburuak** (12); **eaeko lan sailburuak** (3); **eaeko sailburuak** (3); **ekonomia sailburuak** (5); **esan zuen sailburuak** (9); **etxebizitza sailburuak** (14); **eusko jaurlaritzako sailburuak** (4); **garraio sailburuak** (17); **gizarte gaietako sailburuak** (19); **gizarte gaietarako sailburuak** (21); **gizarte segurantzako sailburuak** (16); **herri lan sailburuak** (15); **herrizaingo sailburuak** (56); **hezkuntza sailburuak** (89); **hezkuntza sailburuak esan** (4)

ikerketa sailburuak (5); **industria sailburuak** (35); **industria sailburuak azaldu** (5); **ingurumen sailburuak** (45); **jaurlaritzako etxebizitza sailburuak** (4); **jaurlaritzako garraio sailburuak** (6); **jaurlaritzako herrizaingo sailburuak** (14); **jaurlaritzako hezkuntza sailburuak** (36); **jaurlaritzako industria sailburuak** (11); **jaurlaritzako ingurumen sailburuak** (15); **jaurlaritzako justizia sailburuak** (24); **jaurlaritzako kultura sailburuak** (25); **jaurlaritzako lan sailburuak** (13); **jaurlaritzako nekazaritza sailburuak** (3); **jaurlaritzako osasun sailburuak** (13); **jaurlaritzako sailburuak** (5); **justizia sailburuak** (69); **kultura sailburuak** (61); **kultura sailburuak adierazi** (3); **lan sailburuak** (56); **nabarmendu zuen sailburuak** (5); **nekazaritza sailburuak** (10)

ogasun sailburuak (12); **osasun sailburuak** (22)

sailburuak adierazi (12); **sailburuak adierazi zuenez** (5); **sailburuak aitortu** (3); **sailburuak argi utzi** (4); **sailburuak argitu** (4); **sailburuak atzo adierazi** (8); **sailburuak atzo azaldu** (3); **sailburuak atzoko** (3); **sailburuak aurkezutako** (4); **sailburuak aurreratu** (7); **sailburuak aurreratu zuen** (3); **sailburuak azaldu** (20); **sailburuak azaldu zuenez** (16); **sailburuak azpimarratu** (7); **sailburuak azpimarratu zuenez** (3); **sailburuak berak** (15); **sailburuak berak eman** (3)

sailburuak egin (4); **sailburuak egindako** (4); **sailburuak eginiko** (3); **sailburuak eman** (8); **sailburuak eman zituen** (3); **sailburuak erantzun** (3); **sailburuak esan** (17); **sailburuak esan zuenez** (8); **sailburuak hartutako** (3)

sailburuak iragarri zuen (4); **sailburuak jakinarazi** (8); **sailburuak jakinarazi zuenez** (3); **sailburuak nabarmendu** (9)

sailburuak onartu zuen (3); **sailburuak salatu zuen** (3); **sailburuak uste du** (3); **sailburuak zehaztu zuenez** (4)

turismo sailburuak (9)

jaurlaritzako justizia sailburuarekin (3); **jaurlaritzako kultura sailburuarekin** (6); **kultura sailburuarekin bildu** (3); **lan sailburuarekin** (6); **sailburuarekin bildu** (5)

eaeko herrizaingo sailburuaren (5); **eaeko justizia sailburuaren** (3); **garraio sailburuaren** (4); **gizarte gaietarako sailburuaren** (3); **herri lan sailburuaren** (5); **herrizaingo sailburuaren** (20); **herrizaingo sailburuaren agerraldia** (3); **herrizaingo sailburuaren dimisioa** (5); **hezkuntza sailburuaren** (7); **industria sailburuaren** (3); **jaurlaritzako hezkuntza sailburuaren** (3); **jaurlaritzako justizia sailburuaren** (5); **jaurlaritzako kultura sailburuaren** (3); **justizia sailburuaren** (19); **justizia sailburuaren esanetan** (5); **justizia sailburuaren iritzi** (5); **kultura sailburuaren** (8); **lan sailburuaren** (13); **lan sailburuaren arabera** (3)

sailburuaren aburuz (6); **sailburuaren agerraldia eskatu** (4); **sailburuaren arabera** (18); **sailburuaren dimisioa** (5); **sailburuaren esanetan** (17); **sailburuaren hitzak** (6); **sailburuaren hitzetan** (3); **sailburuaren iritzi** (10); **sailburuaren irudiko** (10); **sailburuaren jarrera** (4); **sailburuaren ustez** (15)

eaeko herrizaingo sailburuari (5); **herrizaingo sailburuari** (25); **hezkuntza sailburuari** (6); **jaurlaritzako osasun sailburuari** (3); **justizia sailburuari** (8); **lan sailburuari** (5); **osasun sailburuari** (7); **sailburuari eskatu** (3)

jaurlaritzako sailburuek (3)

sailburuorde 1 iz sailburuaren hurrengoa, eta, egoera jakin batzuetan, haren ordekoa.

Iñaki Zabala Lan **sailburuordeak** aurreratu duenez, datorren irailean estreineko aldiz bilduko da organo berria. **Berria - Ekonomia**

Belaustegik leporatutakoak ukatu ditu Arrantza **sailburuorde** Luis Miguel Maciasek. **Berria - Ekonomia**

Larrañagak departamentu hori aski ongi ezagutzen du, Lurralde Antolamenduko **sailburuordea** izan baitzen. **Berria - Harian**

Jaurlaritzako Kirol **sailburuordeak** Astilleroren aurkako zigorra berretsi du. **Berria - Kirola**

Justizia Administrazioa euskalduntzeko prozesua bultzatzea eta herritarrei administrazio horrekin harremanak euskaraz izateko aukera ematea dira, besteak beste,

sailburuorde honen egitekoak. **Berria - Euskal Herria**

Marisol Esteban EHUKo idazkari ohia; Ander Gurrutxaga Hezkuntza **sailburuorde** ohia. **Berria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Aurreko legeagintzaldian Imazen aholkulari izan zen, **sailburuorde** mailarekin. **Berria - Ekonomia**

Joan den otsailaren amaieran, Unibertsitate **sailburuorde** kargua hartu zuen Ibone Amezagak. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

etxebizitza sailburuorde (4); **hizkuntza politikarako sailburuorde** (3); **ikerketa sailburuorde** (3); **jaurlaritzako justizia sailburuorde** (3)

hezkuntza sailburuordea (3); **hizkuntza politikarako sailburuordea** (3); **justizia sailburuordea** (3); **kultura sailburuordea** (3); **sailburuordea izan zen** (3); **unibertsitate sailburuordea** (3)

hezkuntza sailburuordea (3); **hizkuntza politikarako sailburuordea** (3); **justizia sailburuordea** (3); **kultura sailburuordea** (3); **sailburuordea izan zen** (3); **unibertsitate sailburuordea** (3)

hizkuntza politikarako sailburuordetzak (9)

sailburuordetza iz sailburuorde baten ardura den azpisaila.

Donostiako Aieteko jauregia monumentu izendatu eta ondasun gisa babesteko prozedura abian jarri du Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol **Sailburuordetzak**, eta behin behineko babes-arduria aplikatu dio jadanik. **Berria - Kultura**

Gizarte Gaietako **Sailburuordetzak** prestatu du eta, okerrik ez bada, plana prest edukiko dute datorren urteko maiatzetarako. **Berria - Harian**

Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioak, EHUKo Soziologia 2 Sailak, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikaren **Sailburuordetzak**, Udako Euskal Unibertsitateak eta SEIK

antolatzen dute. Berria - Euskal Herria

Eusko Jaurilaritzaren Hizkuntza Politikarako **Sailburuordetza** 44.982.755 euroko aurrekontua izango du hasi berri den urtean.

Berria - Euskal Herria

sailburutza *iz* sailburu baten ardura den saila. **iksail 5**.

Lehendakari berria urtarrilaren 16an sartuko da ofizialki bere karguan, euskal gobernuko karguak, industria **sailburutza** eta bozeramailegoa, alde bat utzi beharko dituelarik.

Herria

Kultura **sailburutzaren** lanari ardura handia gehitu zaio azken hilabeteotan, Josu Jon Imazen zeregina bere gain hartu zuenetik.

Berria - Euskal Herria

Hortik azpisailburutzara, edo **sailburutzara** bertara, ez zegoen tarte handirik. Iban Zaldua

sailka *adlag* sailen arabera, sailetan.

Sailka eta goraka, beheko arrotatik malkarrotan gora xuritzuz, loratuz joan ohi da udaberri parean elorria. Pello Zabala

Han daude oro **sailka** eta bereiz gorderik, bakoitza bere atetik sartuta: argi, margo eta gorputz itxurak begien bidez; soinu mota oro belarriz; usain oro sudur zuloz; dastagarri oro ahoz. Imanol Unzurrunzaga

Dena **sailka** banatua zeukan kaxoi eta armairuetan: galtzerdi grisak hemen, horiak hor; gorbatak txartelek, jakak eta trajeak katalogaturik, nahaste nabarmenik ez egiteko.

Xabier Olarra

Huna beraz emaitzak **sailka** :[...]. Herria

Bizidunak hiru taldetan **sailka** daitezke; ekoizleak, kontsumitzaileak eta deskonposatzaileak. Berria - Gaiak

Jendea **sailka** biltzen zitzaion, eta elkarri txanda hartu behar izaten zioten. Patziku Perurena

Sailka dago antolatuta unibertsitatea, bai gurea bai inguruko gehienak. Joxerra Garzia

So egin dio euskararen erakaskuntzaren errealitateari bai **sailka** (lehen maila, bigarrena) bai guneka xeheki aztertuz. Herria

Berriako erredakzioaren funtzionamendu okorraren berri asteartean jasoko dute, eta ostegunean eta ostiralean **sailka** ezagutuko dute eguneroko lana, bertatik bertara.

Berria - Euskal Herria

sailkaera *iz* sailtatzeko era.

Oro har, guk Oihaneko Liburutegirako erabili dugun **sailkaera** beraz baliatu ziren haiek ere. Jon Muñoz

sailkaezin *izond* ezin sailkatuzkoa.

Artista **sailkaezina**, urratzailea, librea eta harrigarria. Berria - Kultura

Orduz geroztik, ibilbide **sailkaezina** egin du Vegak. Berria - Kultura

Hasieran ez nuen ezer ikusi edo sentitu, edo hobeto esanda, soinu urrun eta **sailkaezin** bat besterik ez nuen atzeman. Bernardo Atxaga

Body snatchers, Don Siegelen zientzia fikziozko film arrakastatsuaren *remake*-a egin zuen; eta jarraian, berriz, *The addiction*, banpiro film **sailkaezina**. Berria - Harian

90eko hamarkadaren bigarren zatian brit-poparen multzoan sartu bazuten ere, *Super Furry Animals*ek etiketak gainditzen dituen pop koktel bitxi, haluzinagarri eta

sailkaezina egin du bere musikaren oinarria. Berria - Kultura

Halaber, **sailkaezina** gertatzen da [mintzaira] giza gertaeren inongo kategoriatan, bere unitatea desegiten eta argitzen jakin ez dugulako. Isabel Arrigain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ibilbide sailkaezina (3)

sailkagaitz *izond* sailkatzen zaila dena, ia sailkaezina.

Baina badu liburu **sailkagaitz** honek ikuspegi literario batetik gomendagarri egiten duen zinezko kalitaterik. Berria - Kultura

Generoei dagokienez, orotarik sartzen da herri literaturaren izenburupean: poesia, antzerkia, narrazioa, eta baita beste genero **sailkagaitzago** batzuk ere, hala nola atsoitzak eta lokuzioak, esaterako. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Pixka bat lotsaturik, bista jaso, eta espresio **sailkagaitzez** begiratzen zidan Albertoren aurpegia aurkitu nuen. Iban Zaldua

sailkagarri *izond* sailka daitekeena, sailkatzeko modukoa.

Sailkaketa hau sistematikoki egin da printzipio komun batetik abiatuta. Ibon Uribarri

Objektuak ulertuta karaktereen eramaileak eta horregatik **sailkagarriak** diren banakotasunen modura; alda daitezkeen osagai estrukturalen modura; ikus eta azter daitezkeen azaleren modura. Xabier Arregi

sailkaketa *iz* sailkatzea, sailkapena.

Filosofia transzendentalaren hastapena osatzen duen adigai goren, arrunki ahalgarriaren eta ezinezkoaren arteko **sailkaketa** da. Ibon Uribarri

Logika transzendentalaren **sailkaketaz**. Ibon Uribarri

Logika orokorraren **sailkaketaz** Analitikan eta Dialektikan. Ibon Uribarri

sailkapen 1 *iz* sailkatzea; irizpide jakin baten araberako zerrenda ordenatua.

Sailkapenak lagundu egiten du arazo konplexuak ulertzen. Lourdes Oñederra

Uste dut, **sailkapen** horren gainerik, errima pobre eta aberatsak, onak eta txarrak berezi behar genituzkeela. Andoni Egaña

Sailkapen honetatik at geratu diren bi filosofo aipatu nahi ditut: Henri Bergson eta Xabier Zubiri. Askoren artean

Beste **sailkapen** baten arabera, zerga progresiboak (sarreraren arabera tasa aldakorrek dituztenak) eta erregresiboak (tasa bakarrekoak) bereizten dira. Iñaki Heras

Zaila da, baina, **sailkapenerako** irizpide formal bat aurkitzea, arbitrarioa eta *ad hoc* ez dena. Itziar Laka

Sailkapena arbitrarioa da, azken finean. Berria - Gaiak

Bide horretatik, milaka **sailkapen** egin ditzakegu. Joan Mari Irigoien

Irakasleren bat ere hasi da bere **sailkapenak** egiten Espainiako unibertsitateei buruz, baina **sailkapen** hori oso eztabaidatua izan da. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Sailkapen hori egitea ez al zen, horrenbestez, matematikaren arkitektura osoa berregitea! Jon Muñoz

Lehenengo **sailkapena**: bikoitia/bakoitia. [Jon Muñoz](#)

Gramatikaren arabera **sailkapena**. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Ez da **sailkapenik** usain mota guztiak identifikatzen asmatu duenik. [Irene Aldasoro](#)

Karlosentzat, gainera, funtsezkoa zen, oinarri-oinarrizkoa, ordenaren, kategoriaren, mendekotasunaren ideia, eta Martin berriz **sailkapenez** eta kategoria sozialez askorik arduratu gabe saiatzen zen bizitzan mugitzen. [Koro Navarro](#)

Liburu-denda ireki zuenean, **sailkapen** bat ezarri behar izan zuen salgai zeuzkan liburuak antolatzeko: eleberriak, saiakerak, polizi-eleberriak, zientzia-fikzioa, bidaiak, eskulanak, etab. **sailkapenez** eta bereziki landare eta animalien **sailkapenez** diharduen jakintza. [Jon Muñoz](#)

Herrialde bakoitzeko ekonomiaren maila teknologikoa, erakunde publikoen kalitatea, eta baldintza makroekonomikoak hartzen ditu oinarri **sailkapen** honek. [Berria - Ekonomia](#)

Gai militarrek, merkataritza, ogasun eta beste objektu batzuek, harreman partikularrak dakartzate; horiek ere ez dira erraz moldatzen aurreko **sailkapen** horrekin. [Andres Urrutia](#)

Herrien **sailkapena** BPGren arabera (milaka milioi dolar). [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

2 (izenondoeekin)

Sailkapen sinpleegien etsai amorratua zen. Horretaz gain, ikasleen **sailkapen** bidegabea egiten du». bertsolari txapelketaren historia, saioen egitaraua, **sailkapen** eguneratuak, parte hartuko duten bertsolarien argazki eta biografiak. [Iban Zaldúa](#)

Al Khaiamek 1. 2. eta 3. mailako ekuazioen **sailkapen** osoa egin zuen. [Jon Muñoz](#)

Godmanen erakuntza teorikoa, **sailkapen** mailakatu baten barruan sartuta dago analogia. [Josu Zabaleta](#)

Historia naturala, XVII. eta XVIII. mendeen, ez da ezagutzeko era soil bat. [...] "**sailkapen** natural" eta "ugaztunen" moduko kontzeptu berriak sartu dituena; batez ere, arau-multzotzat da, enuntziatuak sailetan taxutzeko, nahitaezko eskema multzo bat da, mendetasuna, ordenarena, jarraitasuna. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Queer teoriak **sailkapen** finkoak haustea izan ohi du helburu; baina, adibidez, zenbait autokritikaren arabera, feminismoa inoiz baino gehiago ari da kategorizatzen. [Berria - Gaiak](#)

Fonologialariaren abantaila da [...] **sailkapen** fonetikoari ez zaiola horren estu lotu behar. [Lourdes Oñederra](#)

Onartzen da molekularren tamainak eta formak substantziaren usainarekin erlazioa dutela, oraindik aurkitu ez bada ere **sailkapen** numeriko edo geometriko asebetegarririk. [Irene Aldasoro](#)

Ekintzen eta zirkunstanzien **sailkapen** kasuistiko bati begira. [Xabier Arregi](#)

3 (izenondoeekin, kiroletan)

2.25 jan zion US Postalek, baina minutu bateko atzerapena agertzen da **sailkapen** ofizialean. [Berria - Kirola](#)

Gorritxoek Txapelaldun Ligarako **sailkapen** zuzena [...] eskura dutela dirudi. [Berria - Kirola](#)

Helburua aurtin Emakumezkoen Kopa irabaztea eta **sailkapen** nagusian lehen hamar postuetan sailkatzea du. [Berria - Kirola](#)

Sailkapen nagusian atzera egin ostean, helburuak etapa garaipenak zirela esan zenuen. [Berria - Kirola](#)

Hontxarrek irabazi du erlojupekoa, eta Popovitz da Giroko **sailkapen** nagusiko lider berria. **Sailkapen** nagusiko hiru lehenak. [Berria - Kirola](#)

Sailkapen nagusiko lidertzan jartzea lortu zuen, bonifikazioei esker. [Berria - Kirola](#)

Mendiko **sailkapen** berezian, Laurent Jalabert frantsesa denen aintzinean. [Herria](#)

Segitzen du bigarren lekuan **sailkapen** orokorrean. [Herria](#)

Hor daude kasik denak **sailkapen** orokorreko lehen lerroetan. [Herria](#)

Sailkapen orokorrean berdinketak gerta daitezke, eta tantoek erabakiko dute. [Berria - Kirola](#)

Taldea ere, **sailkapen** onak ukan ditu "Baztandarrak" elkarteak. [Herria](#)

Ahalik eta **sailkapen** onena lortzea, Top 16an aurkari samurragoak edukitzeko. [Berria - Kirola](#)

Txekiarrek **sailkapen** matematikoa lor dezakete laranja mekanikoa menderatzen badute. [Berria - Kirola](#)

Emakumeen artean, Anja Personek jaso du munduko kopa **sailkapen** konbinatuan. [Berria - Kirola](#)

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sailkapen-sistema ugari aurkeztu dira (oinarrizko lau usain baino gehiagokoak gehienetan), eta batzuk oso praktikoak gertatu dira zientzia edo industria arloko lanetarako.

Katramilatsua gerta daiteke egungo errima-sorten **sailkapen** era. [Irene Aldasoro](#)

Hurrengo urteek zehaztuko dute hobeki zein den erabil daitekeen metodologia eta zer **sailkapen** motak eskaintzen dituen garantiarik handienak. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

Saia gaitezen, bada, oihartzun luzatua deitu dugun honetan **sailkapen** irizpide batzuk ezartzen. [Iñaki Arranz](#)

Nola ezarri **sailkapen**-arau eraginkor bat, sailkatu beharreko gauzak ezagunak ez bazaizkizu? [Jon Muñoz](#)

Blowfieldarentzat, bestalde, banaketa edo distribuzio osagarrian azaltzen ziren hotsen **sailkapen**-tresna zen fonema. [Lourdes Oñederra](#)

Erabat edo neurri batean analogoak diren enuntziatuak **sailkapen**-koadro batean integratzea. [Xabier Arregi](#)

Koloniatik hurbil zegoen **sailkapen** zelai batera. [Josu Zabaleta](#)

Bigarren **sailkapen** saioa bihar jokatuko dute, Txurdinagako Gabriel Aresti institutuan, Bilboaldeak eta Ipar Urubek. [Berria - Kultura](#)

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, kiroletan)

Hormadi **sailkapen** postutik hiru puntura dago, eta etxean lotu behar ditu puntuak. [Berria - Kirola](#)

Sailkapen fasean, hala ere, Turkiako presioa gainditu zuen. **Sailkapen** faseko zortzi partidak irabazi ditu Santiniren eskutik. [Berria - Kirola](#)

Hondurasek 2006ko Munduko Txapelketarako **sailkapen** partidetan parte hartzen ari diren jokalariek ekarri beharko dituzte Donostiara. [Berria - Kirola](#)

Bosniak eta Espainiak Munduko Koparako **sailkapen** partida jokatu zuten. [Berria - Kirola](#)

Amiensekoak golegilerik onenak izan ziren (61) **sailkapen** ligan; Hormadik baino 12 gehiago. [Berria - Kirola](#)

Sailkapen ligako azken hirurak Pro D2ra jaitziko dira, eta 13. sailkatuak kanporaketa jokatuko du ez jaitzeko. [Berria - Kirola](#)

Sailkapen ligaxka jokatu ondoren, postuak finkatzeko lehiak ariko dira. [Berria - Kirola](#)

Nazabal eta Larretxea izan ziren onenak Txapelaldun Ligako **sailkapen** ligaxkan. [Berria - Kirola](#)

Sailkapen estropada oso arriskutsua izango da, ez baitago huts bat bera ere egiterik. [Berria - Kirola](#)

Sailkapen estropadan tosta bat hautsi, eta arraunlari bat ia-ia gutxiagorekin etorri baiginen. [Berria - Kirola](#)

Osteguneko **Sailkapen** Estropadaren ondoren, askoren ahotan zebilen galdera hau: «Nork egingo dio aurre Urdaibairi?». [Berria - Kirola](#)

Zolderreko (Belgika) zirkuituan atzo eginiko **sailkapen** lasterketen ostean Ander Vilarño seigarren postuan irtengo da gaur lehen lasterketan. [Berria - Kirola](#)

Larunbateko **sailkapen** proban nahikoa egin zuen 12. iritsita. [Berria - Kirola](#)

Bosgarren zerrendaburu eta **sailkapen** taulako bere aldeko favorito nagusi Lindsay Davenportek (6-4,6-4) kanporatu zuen Zvoraneva errusiarra. [Berria - Kirola](#)

Clujana Cluj taldearen aurka 0-5 irabazi zuten bilbotarrek, eta **sailkapen** buru, aurrera egin dute. [Berria - Kirola](#)

Garaipena ezinbestekoa du Alavesek, **sailkapen** burua ez galtzeko. [Berria - Kirola](#)

ik beherago sailkapenburu. [Askoren artean](#)

Suediak Danimarkarekin lehiatu beharko du bigarren **sailkapen** txartela. [Berria - Kirola](#)

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Indizearen ebaluazio **sailkapen** honen arabera egiten da. [Berria - Euskal Herria](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aizkolarien lehiaketako sailkapen (4); **giroko sailkapen** (5); **heineken kopako sailkapen** (8); **kopako sailkapen** (22); **kopako sailkapen fasea** (10); **koparako sailkapen** (5);

lehen sailkapen (4); lehenengo sailkapen (4); lehiaketako sailkapen (4); ligako sailkapen (8); magnus kopako sailkapen (6); munduko kopako sailkapen (6); probako sailkapen (4)

sailkapen berria (4); sailkapen buru (4); sailkapen buruan (5)

sailkapen estropada (13); sailkapen estropadan (17); sailkapen fase (6); sailkapen fasea (48); sailkapen fasea amaitzeko (16); sailkapen faseak (4); sailkapen fasean (60); sailkapen faseko (19)

sailkapen liga (7); sailkapen ligan (4); sailkapen ligaxka (13); sailkapen ligaxkan (10); sailkapen nagusia (56); sailkapen nagusia irabazi (4); sailkapen nagusiak (5); sailkapen nagusian (159); sailkapen nagusian hirugarren (6); sailkapen nagusian lehen (7); sailkapen nagusiaren (4); sailkapen nagusiari (6); sailkapen nagusiko (57); sailkapen nagusiko bigarren (4); sailkapen nagusiko buru (5); sailkapen nagusiko hirugarren (4); sailkapen nagusiko lehen (10)

sailkapen onena (8); sailkapen orokorra (13); sailkapen orokorrean (41); sailkapen proba (9); sailkapen proban (5); sailkapen probetan (6); sailkapen sistema (4) txapelketako sailkapen (6); txapelketako sailkapen fasea (4)

egungo sailkapena (5); final laurdenetarako sailkapena (5); finalerako sailkapena (5); finalerdietarako sailkapena (10); hurrengo faserako sailkapena (5)

iazko sailkapena (14); jardunaldiko sailkapena (12); jokatzeko sailkapena (6); laurdenetarako sailkapena (5); ligako sailkapena (4); ligarako sailkapena (9); lortu zuten sailkapena (4); mendiko sailkapena (11); mendiko sailkapena irabazi (6)

sailkapena egiten (4); sailkapena ematen (10); sailkapena ematen duen (4); sailkapena hurrenez hurren (6)

sailkapena ikusita (4); sailkapena irabazi (10); sailkapena irabazi du (5); sailkapena kontuan hartuta (4); sailkapena lortu (24); sailkapena lortu zuen (5); sailkapena lortzeko (13)

sailkapena ziurtatu (5); sailkapena ziurtatzeko (5)

tiraldietako sailkapena (7); txapelketaren ligarako sailkapena (9)

uefarako sailkapena (9)

azken sailkapenak (8)

sailkapenaren arabera (18); sailkapenaren azken postuetan (7); sailkapenaren bigarren postuan (5); sailkapenaren burua (5); sailkapenaren buruan (29); sailkapenaren buruan dauden (5); sailkapenaren burura (4); sailkapenaren erdialdean (8); sailkapenaren goialdean (5); sailkapenaren goian (6); sailkapenaren goiko (18); sailkapenaren goiko postuetan (5); sailkapenaren lehen (14); sailkapenaren lehen postua (4); sailkapenaren muturrean (4); sailkapenaren zuloan (9); txandak sailkapenaren arabera (5)

sailkapenari begira (10); sailkapenari begiratuta (7)

asobal ligako sailkapenean (6); azken sailkapenean (4); azkena da sailkapenean (9); berdinduta daude sailkapenean (4); bigarren da sailkapenean (5); bosgarren da sailkapenean (4); hirugarren da sailkapenean (4); kopako sailkapenean (5); lehen mailako sailkapenean (6); ligako sailkapenean (15); munduko kopako sailkapenean (5); sailkapenean gora egiteko (8); taldekako sailkapenean (4)

ligako sailkapeneko (10); sailkapeneko azken postuan (5); sailkapeneko azken postuetan (12); sailkapeneko azkena (9); sailkapeneko behaldeen (5); sailkapeneko bigarren postuan (6); sailkapeneko buru (17); sailkapeneko burua (21); sailkapeneko burua da (4); sailkapeneko buruak (8); sailkapeneko buruan (26); sailkapeneko buruan dago (4); sailkapeneko erdialdean (7); sailkapeneko goialdean (7); sailkapeneko goiko postuetan (5); sailkapeneko hirugarren (12); sailkapeneko hirugarren postua (6); sailkapeneko lehen postua (10); sailkapeneko lehen postuan (7); sailkapeneko lehen postuetan (8); sailkapeneko lider (4); sailkapeneko liderra (6); sailkapeneko putzuan (4); sailkapeneko zuloan (15); sailkapeneko zuloan dago (5); sailkapeneko zulotik (12); sailkapeneko zulotik ihes (4); taldekako sailkapeneko (4)

sailkapenburu *(orobat sailapen buru)* iz txapelketa edo kidekoetan, sailkapenaren burua den pertsona. ik lider.

Lehen multzoan, Brive da **sailkapenburu** , eta izugarritzko ezustea ematen ari da, iaz D2an jardun zuelako. Berria - Kirola

Bost proba irabazi ondoan, A multzoko **sailkapenburu** da 13 punturekin. Berria - Kirola

Soilik bitan izan gara **sailkapenburuak** Top 16an, baina egun beherago gaude, eta kezkatzekoa da». Berria - Kirola

Ondorioz, 4. multzoko **sailkapenburu** jarri dira miarritzarrak, eta horrela izango dira heldu den larunbata arte, Saracensek bihar jokatu duen arren, Trevison. Berria - Kirola

Uzkudunen idiek jarraitzen dute **sailkapenburu** Bakion. Berria - Kirola

sailkatu, sailka(tu), sailkatzen 1 du *ad* multzo edo talde bat, arau edo irizpideren baten arabera sailetan banatu.

Fabrika batean lan egiten zuela kontatu zidan, botoiak **sailkatzen** . Koro Navarro

1995ean, ikerketa-lan bati ekin genion bat-bateko bertsolaritzaren baliabide poetiko-erretoriko nagusiak identifikatu eta **sailkatzeko** . J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Abstrakzio horiek dira orain arte bereizi eta **sailkatu** ditugunak; baina beharrezkoa zen areago jotzea eta elementu konkreturaino iristea. Isabel Arrigain

Argudioak bildu, ebaluatu eta **sailkatu** beharko ditugu, zein den indartsuen eta zein pattalen garbi edukita. Txema Ramirez de la Piscina

Adibideak eman zituen, bertsolaritzaren barne-legeak sistematizatu eta aurkeztu zituen, generoak **sailkatu** zituen... J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Rodaseko Androniko-k bildu eta **sailkatu** zituela eskuizkribuak, aspektu didaktikoak izanik buruan batik bat. Askoren artean

Horrenbestez, berek finkaturiko "norma" baten arabera **sailkatu** dezakete jendea. Juan Garzia

Agian beldurra adinaren arabera **sailkatu** zitekeela otu zitzaidan. Pako Aristi

Denak **sailkatu** ditut berriz, egileen arabera, ordena alfabetikoz. Koldo Izagirre

Nola **sailkatu** matematika-lanak, tutik ere ez badakizu matematikaz? Jon Muñoz

Adibidez, nola **sailkatu** behar genuke mugimendu sionista? Iñaki Mendiguren

Eta sentimena bera, hiru hauetatik zein generotan **sailkatzen** duzu? Imanol Unzurrunzaga

2 (sailak adieraziz)

Argaletan eta Gizenetan **sailkatu** zituen gizonak. Karlos Zabala

Araudi horiek bost kapitulutan **sailkatu** ditugu. Herria

Batzorde hori lau azpiatzordetan **sailkatu** zuten: Osasunaren Zientziak, Gizarte Zientziak, Zientzia Teknikoak eta Giza Zientziak. Berria - Harian

Antoñitok bi motatan **sailkatzen** zituen emakumeak: alde batetik pobreak, dibertitzeko, eta bestetik aberatsak, haietakoren batekin diruagatik ezkontzeko. Josu Zabaleta

Esakune apodiktiko guztiak (frogagarriak zein zuzenki ziurrak direnak) dogmetan eta matematan **sailkatzen** ditut. Ibon Uribarri

Silabak konbinatu, eta hitzak zortzi genero eta formatan **sailkatu** zituen, haien erritmoa, morfologia eta egitura trebetasunez eta dotoreziaz bereiziz. Imanol Unzurrunzaga

Maiatzaren 1ean Aliatuak euron garraio-ontziak konboietan **sailkatzen** eta abiarazten hasiak baitira. Edorta Jimenez

Hona animalien hiru motak, **sailkatzeko** beste modu baten arabera: [...]. Edorta Agirre

3 (zein sailetan adieraziz)

Ezaba itzazu biziaren liburutik, ez **sailkatu** zintzoen zerrendan! Bada beste amodio kanta lizun bat, garbarienak edo artaxuriketakoak izenekoen artean **sailkatu** izan dena.

Elizen arteko biblia

Ikertzaileek iradoki dutenez, txinpantzeak *homo* generoan **sailkatu** beharko liriateke aurrerantzean. Berria - Gaiak

Frantziako kontra-espitate egiturak Jihad Islamikoa erakundeko ustezko kideztat **sailkatu** zuen. Berria - Mundua

Txernobilgo zentral nuklearreko istripuaren eraginez, bi milioi pertsona biktima gisa **sailkatu** zituzten Ukrainako agintariek. Berria - Gaiak

4 (adizlagunekin)

Orain, aise **sailkatu** ahal izango zuten liburutegia. Jon Muñoz

Egungo molde erretoriko guztiak egoki **sailkatzeko** , gutxienez honako aspektu hauek hartu beharko liriateke kontuan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Nasir al Dinek banan-banan **sailkatu** zituen, Behatokiko liburutegi aberatsean, Alamutetik itzuritako liburuak. Jon Muñoz

Ezin dira sistematikoki zerrendatu eta **sailkatu** fonemak bereiz, sistema fonologikoa baizik. Lourdes Ohiederra

• 5 da *ad* txapelketa edo lehiaketa jakin batean parte hartzeko beharrezko emaitzak lortu.

Abiatu diren 47etarik 23 baizik ez dira **sailkatu** . Herria

Zortzi **sailkatzen** dira, eta zuzenrik 1,95-1,96 metro marka eskatuko dute aurrera egiteko. Berria - Kirola

Azken partida hori baino lehen lortu nahi du Tauk **sailkatzea** . Berria - Kirola

Biharko derbia galduz gero, nafarrek sufritu egin beharko dute bigarrenez jarraian Europarako **sailkatzeko** . Berria - Kirola

Juanma Garate irundarra bosgarren **sailkatu** da Italiako Itzulian, Savoldelli italiakoak duelarik Giroa beretu. Herria

1986an Pasai Donibane irabazi zuen, eta San Pedro hirugarren **sailkatu** zen. Berria - Kirola

Errege Eguneke Krosean hirugarren **sailkatu** zen, Silvaren eta Pablo Villalobos espainiarren atzetik. Berria - Kirola

Lekunberriko *Gabari* taldea **sailkatu** zen bigarren. Berria - Kultura

Kanporaketan 8. postuan **sailkatu** zen. Berria - Kirola

Barrichello ustekabean **sailkatu** zen hirugarren postuan. Berria - Kirola

Sasoia bikaina izango da nafarrentzat, azkenean hamabigarren tokian **sailkatzen** badira ere. Berria - Kirola

Ondotik **sailkatu** dira Lopez senpertia, Duhalde milafrangarra, Daguerre jatsuarra, Iribarren senpertia eta Habans larresoroarra. Herria

Dorronsoro gaztea hasiberria da, eta Gipuzkoako kanporaketan aritu zen; ez zen **sailkatu** . Berria - Kirola

Saio bakoitzeko onena zuzenean **sailkatu** zen finalerako. Berria - Kultura

Duela bi urte finalerako **sailkatu** bazen ere, ez zuen parte hartzerik izan. Berria - Kultura

Amaia Agirre billabonarra da nagusitu (688,5 puntu) eta finalerdietarako **sailkatu** . Herria

Danimarka eta Suedia **sailkatu** ziren atzo final-laurdenetarako. Berria - Kirola

Discovery taldeko lau txirrindulari **sailkatu** ziren lehen hamarren artean. Berria - Kirola

Irabazlearengandik 15 segundora **sailkatu** zen Markko Martin. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

anaiak sailkatu (4); **ataletan sailkatu** (5); **azkena sailkatu** (4); **bederatzigarren postuan sailkatu** (5); **bederatzigarren sailkatu** (9); **bederatzigarren sailkatu zen** (6); **bi multzotan sailkatu** (4); **bigarren postuan sailkatu** (29); **bigarren sailkatu** (67); **bigarren sailkatu baitzen** (5); **bigarren sailkatu da** (11); **bigarren sailkatu zen** (30); **bigarren sailkatu ziren** (7); **bildu eta sailkatu** (4); **bosgarren postuan sailkatu** (9); **bosgarren sailkatu** (24); **bosgarren sailkatu zen** (13); **bosgarren sailkatu ziren** (4)

europarako sailkatu (6); **final laurdenetara sailkatu** (4); **final laurdenetarako sailkatu** (20); **final zortzirenetarako sailkatu** (5); **finala jokatzeko sailkatu** (4); **finalera sailkatu** (4); **finalerako sailkatu** (35); **finalerako sailkatu da** (7); **finalerdietara sailkatu** (9); **finalerdietarako sailkatu** (44); **finalerdietarako sailkatu ziren** (8); **hirugarren postuan sailkatu** (16); **hirugarren sailkatu** (57); **hirugarren sailkatu zen** (30)

jokatzeko sailkatu (20); **jokatzeko sailkatu da** (5); **kanporaketetarako sailkatu** (4); **kopako finalerako sailkatu** (4); **koparako sailkatu** (4); **laugarren postuan sailkatu** (13); **laugarren sailkatu** (27); **laugarren sailkatu zen** (14); **laurdenetara sailkatu** (4); **laurdenetarako sailkatu** (20); **laurdenetarako sailkatu dira** (4); **lehen postuan sailkatu** (5); **lehenengo sailkatu** (4); **liga jokatzeko sailkatu** (4); **ligarako sailkatu** (9); **multzotan sailkatu** (7)

sailkatu da bigarren (6); **sailkatu dira finalerako** (8); **sailkatu zen bigarren** (16); **sailkatu zen hirugarren** (7); **sailkatu zen lehen** (5); **sailkatu ziren finalerdietarako** (4)

segundora sailkatu (6); **seigarren postuan sailkatu** (4); **seigarren sailkatu** (10); **seigarren sailkatu zen** (6); **txapeladunen ligarako sailkatu** (9); **txapelketako finalerako sailkatu** (5); **txapelketako finalerdietarako sailkatu** (4); **txapelketarako sailkatu** (6)

uefa jokatzeko sailkatu (4); **uefarako sailkatu** (13); **zazpigarren postuan sailkatu** (5); **zazpigarren sailkatu** (8); **zazpigarren sailkatu zen** (5); **zortzigarren postuan sailkatu** (6); **zortzirenetarako sailkatu** (5); **zuzenean sailkatu** (7)

azken sailkatua (16); **bigarren sailkatua** (19); **bosgarren sailkatua** (5); **hirugarren sailkatua** (11); **laugarren sailkatua** (6); **lehen sailkatua** (16); **seigarren sailkatua** (5)

azken sailkatuak (8); **bi sailkatuak** (13); **bigarren sailkatuak** (19); **hiru sailkatuak** (8); **hirugarren sailkatuak** (8); **lehen bi sailkatuak** (11); **lehen hiru sailkatuak** (4); **lehen sailkatuak** (11); **txapelketatik sailkatuak** (4); **zuzenean sailkatuak** (6)

azken sailkatuaren (25); **azken sailkatuaren aurka** (12); **azken sailkatuaren kontra** (5); **lehen sailkatuaren** (4); **sailkatuaren aurka** (20); **sailkatuaren aurka jokatu** (6); **sailkatuaren kontra** (9)

bigarren sailkatuari (12)

lehen bi sailkatuek (9); **lehen hiru sailkatuek** (4); **lehen lau sailkatuek** (5); **sailkatuek lortuko dute** (5)

hiru sailkatuen (9); **hiru sailkatuen artean** (6); **lehen hiru sailkatuen** (6); **lehen sailkatuen artean** (4); **lehen zortzi sailkatuen** (5); **sailkatuen artean** (32); **sailkatuen aurka** (5); **zortzi sailkatuen artean** (7)

biak sailkatuko dira (5); **finalerako sailkatuko** (6); **finalerdietara sailkatuko dira** (5); **finalerdietarako sailkatuko** (4); **laurak sailkatuko dira** (4); **nor sailkatuko den** (5); **onenak sailkatuko dira** (6); **sailkatuko dira finalera** (4); **sailkatuko dira finalerako** (4); **sailkatuko dira finalerdietara** (5)

finalerako sailkatuta (5); **jada sailkatuta** (5); **ondo sailkatuta** (4); **ongi sailkatuta** (4); **postuan sailkatuta** (8); **postuetan sailkatuta** (7); **sailkatuta egon** (6); **sailkatuta egongo** (4); **uefarako sailkatuta** (5); **zuzenean sailkatuta** (4)

sailkatze estropada (4); **sailkatze estropadan** (4); **sailkatze fasea** (10); **sailkatze fasean** (13); **sailkatze faseko** (19); **sailkatze ligaxkako** (7); **sailkatze ligaxkan** (4); **txapelketako sailkatze faseko** (6); **txapelketako sailkatze ligaxkako** (4)

europarako sailkatzea (13); **final zortzirenetara sailkatzea** (5); **final zortzirenetarako sailkatzea** (13); **finalerako sailkatzea** (13); **finalerako sailkatzea lortu** (4); **finalerdietara sailkatzea** (6); **finalerdietarako sailkatzea** (7); **koparako sailkatzea** (5); **ligarako sailkatzea** (10); **lortu zuen sailkatzea** (4); **postuan sailkatzea** (4); **postuetan sailkatzea** (4); **sailkatzea espero** (4); **sailkatzea lortu** (42); **sailkatzea lortu zuen** (11); **txapeladunen ligarako sailkatzea** (9); **uefarako sailkatzea** (12); **uefarako sailkatzea lortu** (4); **zortzirenetara sailkatzea** (5); **zortzirenetarako sailkatzea** (5)

europarako sailkatzeko (14); **final laurdenetara sailkatzeko** (11); **final laurdenetarako sailkatzeko** (10); **finalera sailkatzeko** (12); **finalerako sailkatzeko** (6); **finalerdietara sailkatzeko** (17); **finalerdietarako sailkatzeko** (17); **koparako sailkatzeko** (4); **ligara sailkatzeko** (5); **ligarako sailkatzeko** (8); **postuan sailkatzeko** (4); **sailkatzeko aukera** (44); **sailkatzeko aukerak** (9); **sailkatzeko aukerarik** (10); **sailkatzeko borrokan** (6); **sailkatzeko itzaropena** (5); **sailkatzeko moduan** (5); **sailkatzeko zorian** (4); **txapeladunen ligarako sailkatzeko** (8); **txapelketarako sailkatzeko** (5); **uefarako sailkatzeko** (18); **uefarako sailkatzeko aukera** (6)

sailkatzaile 1 *izond* sailkatzen duena.

Espezie botanikoen taula **sailkatzaile** bat enuntziatuek osatzen dute, ez da esaldiez osatua. Xabier Arregi

Kanpai ere ez zen kanpaia, txapak txaparen kontra jotzean ateratzen zuen metal xaxtar baten zintzarri hots lehor hura, gure belarri **sailkatzaileentzat** apur bat arrotz. Harkaitz Cano

Bellek ez du artelanaren zentzu **sailkatzailea** kontuan hartzen, aztertzailea baizik. Askoren artean

Hemen soilik irizpide **sailkatzaileak** esango digu gauza bat artelana den ala ez, eta hori askotan artetik at dago. Askoren artean

Horra hor, beraz, Aristotelesen kategoriak edo kontzeptu **sailkatzaileak**: substantzia, (nolako) tasuna, erlazioa... Askoren artean

• 2 *iz* sailkatzen duen pertsona.

Thuletik etorritako jendeari irakurzaletasuna erantsi nahi dion komitea **sailkatzaile** eta diseinatzailez beteta dago. Bernardo Atxaga

Enkanteko **sailkatzaileak** haztegi haztegi zebiltzan, arrantzan, kirten laburreko sareak eskuan. Karlos Zabala

Nolatan Linnaeus eta Adansonen moduko **sailkatzaile** batzuk birmoldatu eta erabili zuten hizkuntza unibertsal, artifizial eta perfektu baten ideia. Xabier Arregi

Hor **sailkatzaile** bakoitzaren definizioa eta irizpidea ikusi beharko lirateke. Ana Urkiza

Familian egon izan zen diru bakarra aitak posta-bulego nagusian posta-**sailkatzaile** zeukan lanpostutik astero etxera ekarri ohi zuen soldatakoa baizik ez zen izan. Oskar Arana

Fawkesi eta Kapela **Sailkatzaileari** isekaz begiratu eta pauso batzuk urrundu zen. Iñaki Mendiguren

3 sailkatzen duen gauza.

Aristoteles izatea ulertzeko eta esateko modu desberdinak sailkatzen saiatzen da, eta Kategoriak izeneko testuan proposatzen digu **sailkatzaile** orokor (ezin orokorrago) horien zerrenda. Askoren artean

sailkatze 1 *iz* multzo edo talde bat, arau edo irizpideren baten arabera sailetan banatzea.

Beldurra ematen ziguten gauzak egitera behartzen gintuen, eta hartara **sailkatze** bat sortzen zen gure artean ere, zailduen hierarkia. Koldo Izagirre

Hautemateko beste **sailkatze** bat eta deskribatzeko hiztegi ia guztiz berria. Xabier Arregi

2 (hitz elkartuetan)

Sailkatze -zeremonia hastera doa. [Iñaki Mendiguren](#)

Xenpelarren aurrera doaz biltze- eta **sailkatze** -lanak. [Andoni Egaña](#)

Sailkatze estropada gauza bat da eta Kontxako Bandera bestea. [Berria - Kirola](#)

Komunikazioaren subjektu-hartzaile berria lortzeko, guztiz beharrezkoa da sintesi-ahalmena edukitzea, norik bere **sailkatze** -irizpide propioak ezartzea, hain zuzen. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

sailño iz sailtxoa.

Ohiko nobela eta ohiko liburuez gain, badago **sailño** bat euskal gaiei eskainia. [Berria - Kultura](#)

Guk ere solas horiek gogoan utziko dugu egungo **sailño** hau... [Herria](#)

sailordetza (*Euskaltzaindiaren Hiztegian sailburuordetza agertzen da*) iz sailburuordetza.

Hizkuntza Politikarako **Sailordetzak** maiatzean argitaratuko ditu deialdiak EHAAn. [Berria - Euskal Herria](#)

CCOoko Saez de Jauregik azaldu duenez, planak ez betetzearen errua ezin zaio Hizkuntz Politikarako **Sailordetzari** leporatu. [Berria - Euskal Herria](#)

sailtxo iz sail txikia. ik sailño.

Neure lotsagarri baitakuskit hogen mila gizon hortxe heriotzara bidean, ospe-kontu fantasia hutsezko bategatik, oheak bailiran beren hilobiak, osteak hartzeko aski zabal ez den **sailtxo** bategatik borrokan. [Juan Garzia](#)

Halabeharrez, derrigor erein behar balitz ere, gutxienez, bezperatik **sailtxo** bat bederen hasi ereiten, horrela segidako lana izan dadin. [Pello Zabala](#)

Lur- **sailtxo** bat erosteko asmoz bazabiltzate, eta bi lerro zuzen besterik ez badituzue, hobe bertan behera uztea kontua, ez duzue lortuko eta. [Jon Muñoz](#)

Noizbehinka, gure almendrondo **sailtxoaren** aurrean gelditu eta sineskieriazko zoramenegaz begiratzen nien. [Ander Irizar](#)

sainda (*corpusean sainta soilik*) izond/iz santa.

Maria **Sainta**, Jinkoaren Ama. [Herria](#)

Ondoko urtean, Maulen, "Jeanne d'Arc" trajerian, **saintaren** leküan "süjeta" izan zen, emazterik ez beitzen sartzen ahal ordüan gizonen pastoraletan. [Herria](#)

saindu (*orobat saintu g.er.*) izond santua.

Errege **saindu** haiek, beren legelari eta teologoen laguntzarekin, bazekiten beharrez gogor egiten aita sainduari berari. [Piarres Xarriton](#)

Kristoren gorputz bakarraren, hau da Erromako Eliza **saindu** eta katoliko bakarraren kide garena. [Piarres Xarriton](#)

Gure Jaun Txit **Saindu** Pio V. Aita Santuari. [Piarres Xarriton](#)

Hori bera irakatsi zuen gure aita guztiz **saindu** Agustinek, *De civitate Dei*k 19. liburuaren 3. kapitulu osoan. [Piarres Xarriton](#)

ik beherago 3. [Askoren artean](#)

Paretan, misiolari **saindu** batzuen biziaren diapositibak. [Ramuntxo Etxeberri](#)

Sinestea orokorki egia direla Erromako Eliza Katoliko Ama **Sainduak** sinesten dituen guztiak. [Piarres Xarriton](#)

Erromako Eliza Katoliko **Sainduak** sinesten duen bezala. [Piarres Xarriton](#)

Beren egun eder hori hasi dute meza **saindu** bat entzunez. [Herria](#)

Olio **saindu** hunen gozoa sar bedi gure baitara. [Herria](#)

Horra zergatik zuzen den epaiketa hau egin dezan Erromako Aulki **Sainduak**. [Piarres Xarriton](#)

Delako induljentiaren emateko arrazoi nagusia dela halako gerla **saindu** eta handiaren egiteko bildu behar den diru meta gaitza. [Piarres Xarriton](#)

Ttottek aldiz bizpahiru hilabeteke bizar nahasia zeukan, zapel zabala buruan eta zilarrezko gurutze **saindu** erraldoia papoan dil-dil. [Itxaro Borda](#)

Zalgizek Eskritura **Sainduak**, latina, frantsesa eta Gaztelako erromantzea irakasten zizkien. [Aingeru Epaltza](#)

Idatzi **sainduak** irakurri behar zituen Josefina, hinki-tinki igo zen aldarera. [Itxaro Borda](#)

Gure Ebanjelio **sainduak** ere hori erakatsi daukute. [Michel Oronoz](#)

Bekatuez garbitzeko indar berezia dute Ganga ibai **sainduaren** urek. [Gotzon Garate](#)

Munduan ez baita biztanlerik orotan aingeru denik, ez saindurik, orotan **saindu** denik. [Pello Salaburu](#)

Kofesioak Aiherran ortzegun **saindu** aratsean 8ak eta laurdenetan. [Herria](#)

Larunbat **Sainduz** aratseko 9 orenetan Aiherran, Bazko Gaua. [Herria](#)

2 irud/hed

Elizara ari dira hiruak, gau mineko argitasun **saindu** honetan. [Michel Oronoz](#)

Anartean Joanes, deus ez baillizan, bere paralitiko aulkiaren eremuan, eskuak gurutzean, [...] loeria **saindu** batean ito zen. [Itxaro Borda](#)

Nafarroan, berriz, bake **saindua**. [Aingeru Epaltza](#)

Horra beraz, eta gerlarik batere gabe, bakea egin dela betiko" lur **saindu** heietan. [Herria](#)

Amritsar da sikhen hiri **saindua**, bere "Urrezko Tenplu" ospetsuarekin. [Gotzon Garate](#)

Eta hala ere makurtu behar, beti makurtu behar, opor **sainduetan** gaudelako, eta opor **sainduetan**, itxuraz, zernahi diru xahutzea libro delako. [Aingeru Epaltza](#)

• 3 iz santua.

Jainkoarengan sinestea eta Andre Mariarengan eta **sainduengan** sinestea gauza bat eta bera ziren harendako. [Aingeru Epaltza](#)

Ezen san Bernatek eta beste **saindu** batzuek eta lehen artikuluan aipatu idazle sakratuek dioten bezala: [...]. [Piarres Xarriton](#)

Saindu baten erikiak lekuz aldatzea. [Berria - Kultura](#)

Benedikto bosgarren mendeko **saindu** handiaz oroitzuz... [Herria](#)

Frantzisko Xabier nafartar **saindua** Makaotik hurbil zendu zena. [Ramuntxo Etxeberri](#)

Saindu penitentzigile zenbaiten azotetzko zigortzeek zer zorion dauka? [Piarres Aintziart](#)

Aspaldiko **saindu** xumeek egungo idoloari agur eta ospe. [Piarres Aintziart](#)

Zurgin bati San Krispinen irudi bat eginarazi zion, Iruñeko zapataginen **saindu** zaindaria. [Aingeru Epaltza](#)

Konfesioa, eta Jainkoaren, Andre Mariaren eta **sainduen** irudiak debekatzeko dekretuak are gehiago harrotu zituen bazterrak. [Aingeru Epaltza](#)

Saindu guztien besta hurbiltzen ari zauku eta gure pentsaketak hileri buruz egiten ditugu egun hauetan. [Herria](#)

Zenbat prozesio egin dituen herri honek, lehenago **saindu** baten ipurditik "Ogi zerutik" kantatzen eta orain lelo agnostikoa dugula gidari, "Guk euskaraz, zuk zergatik ez?" gure ezipnetan. [Pello Salaburu](#)

Anbrosio **sainduak**, berriz, honetara dio: [...]. **Patziku Perurena**

4 irud/hed

Kartzela-zaina apez bat zen, **saindu** bat, zioten kanpoan libro zirenek. **Piarres Aintziart**

Jendeek erraiten zuten: **saindu** bat. **Michel Oronoz**

Beste batzuendako, bere herria aski maitez bere herriarentzat bere bizia eman duen ETA-ko gudari bat, kasik **saindu** bat. **Herria**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gogoan al duzue haren **saindu** itxura? **Karlos Linazasoro**

Kale bazterretan, mendian edo errekondoetan tenpluren bat, **saindu** etxeren bat eta jendea otoitzean ikusiko duzu. **Gotzon Garate**

Ez ditu beti **saindu** urratsak erabili armada aitzindari gazte alegera eta besta egile hasi zen gazte hark. **Herria**

Hark ez zuen **saindu** bokaziorik, egoera berri hark ez zion arimako zama astuna arinduko. **Karlos Linazasoro**

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, lehen osagai hori izenondoduna dela)

Hil den gizona protestantea zen eta suizarra, baina aspaldian **saindu** handi famarekin mundu zabalean ezaguna **Herria**

7 *aita saindu* aita santua.

Aita saindua Filipinetara etorri zelarik, jendeak milioika bildu zituen Manilako Rizal parkean. **Ramuntxo Etxeberri**

1999ko abuztuaren 14an hil zen, 41 urte zituela, elizakoak eta **Aita Sainduaren** benedikapena hartu ondoren. **Aingeru Epaltza**

Frantzisko Nafarroakoa deitzen zen eta 1518an, **Aita Sainduak** izendatu zuen Orreagako priore. **Piarres Xarriton**

Gure **Aita Saindu** Pio V.ari. **Piarres Xarriton**

Bere egoitza Erromatik Avignonera aldarazi zion Klemente V.a **aita saindu** frantsesari. **Piarres Xarriton**

Dohatsu izendatu zuen Erroman Pio XI **Aita Sainduak** 1926 an, eta saindu 1933 an. **Herria**

Erromatarrek ezen daukate Petirri eta haren ondokoei emana izan zaiela botere hura eta, beraz, **Aita Saindua** Kontzilioaren gainetik dagoela. **Piarres Xarriton**

Konstituzio berria izenpetzen ez dutenek, egitate horretatik beretik frogatuko die Erromako **Aita sainduaren** mutil izaten segitu nahi dutela. **Elena Touyarou**

8 *aste saindu* aste santua.

Hola hasi zen, ene lehenbiziko **Aste Saindua**, beretter bezala. **Michel Oronoz**

Aste sainduan gara eta deitoratzen dut gure telebixta publikoetan ez dela deus, ez emankizun bat ere **aste saindua** aipatzen duenik. **Herria**

Errobiko Salbatore parropian iraganen diren **aste sainduko** elizkizunak. **Herria**

Aste sainduko elizkizunak, huna zoin izanen diren: [...]. **Herria**

Aste sainduko ospakizunak: erroak eta sinboloak. **Herria**

9 *eguzki saindu* (orobat *eki saindu* eta *iduzki saindu*) ik eguzki.

10 *Grial Saindu* ik *Grial 2*.

11 *izpiritu saindu* ik *espiritu*.

12 *Ofizio Saindu* ik *ofizio 8*.

13 *omia saindu* ik *omiasaindu*.

14 *saindu-jale* ik *santujale*.

15 *Trinitate Saindua* ik *trinitate*.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aita saindu (66); **aita saindu berak** (3); **aita saindu berri** (6); **aita saindu berria** (3); **aita saindu berriaren** (4); **aita saindu zenaren** (3); **aste saindu** (7); **eki saindu** (6); **euskaldun saindu** (3); **gizon saindu** (6); **gure aita saindu** (6); **iduzki saindu** (3); **larunbat saindu** (3); **meza saindu** (3); **omia saindu** (5); **ortzegun saindu** (6); **ortzegun saindu aratsean** (3); **ortziraletainu** (8)

saindu bera (3); **saindu berri bat** (3); **saindu guzien** (7); **saindu guzien besta** (4); **saindu handi** (3); **saindu handia** (4)

aita saindua (91); **aita saindua bera** (4); **aita saindua izan** (3); **aste saindua** (20); **beren patroin saindua** (6); **gerla saindua** (6); **gerla saindua** (4); **gizon saindua** (3); **gorputz saindua** (5); **grial saindua** (5); **izpiritu saindua** (18); **lur saindua** (3); **meza saindua** (9); **patroin saindua** (11); **sakramendu saindua** (9); **trinitate saindua** (6); **urte saindua** (6)

aita sainduak (185); **aita sainduak berak** (7); **aita sainduak erran** (7); **aulki sainduak** (3); **eki sainduak** (3); **eliza ama sainduak** (3); **erromako aita sainduak** (3); **eskritura sainduak** (3); **gure aita sainduak** (6); **inozentzio aita sainduak** (3); **izpiritu sainduak** (10); **liburu sainduak** (5); **ofizio sainduak** (4); **orduko aita sainduak** (5); **paulo aita sainduak** (5)

aste sainduan (5); **bake sainduan** (3); **hiri sainduan** (4); **meza sainduan** (5)

aita sainduarekin (11); **aita sainduarekin batean** (3); **meza sainduarekin hasi** (3)

aita sainduaren (107); **aita sainduaren boterea** (3); **aita sainduaren inguruan** (4); **aita sainduaren izenean** (3); **aita sainduaren mezua** (3); **beren patroin sainduaren** (3); **erromako aita sainduaren** (3); **gizon sainduaren** (4); **grial sainduaren** (3); **gure aita sainduaren** (4); **herriko patroin sainduaren** (3); **izpiritu sainduaren** (13); **kurutzetainu** (3); **ofizio sainduaren** (12); **patroin sainduaren** (18); **patroin sainduaren ohoretan** (15); **paulo aita sainduaren** (3)

sainduaren besta (5); **sainduaren itxura** (4); **sainduaren izenean** (4); **sainduaren kaperan** (3); **sainduaren ohoretan** (22); **sainduaren parropia** (3)

sakramendu sainduaren (23); **sakramendu sainduaren aintzinean** (3); **sakramendu sainduaren ohoretan** (6)

aita sainduarentzat (3)

aita sainduari (24); **aulki sainduari** (3); **sakramendu sainduari** (5)

trinitate sainduaz (5)

aita sainduen (7); **eskritura sainduen irakurketa** (3); **liburu sainduen** (5); **sainduen artean** (4); **sainduen irria** (3); **sainduen lerroan** (3)

eskritura sainduetan (3); **liburu sainduetan** (6); **lur sainduetan** (4); **opor sainduetan** (3)

lur sainduetat (4)

aste sainduko (15); **aste sainduko elizkizunak** (5); **aste sainduko elizkizunen** (3); **ofizio sainduko** (12); **ofizio sainduko guardiak** (5); **omia sainduko** (3); **ortziraletainu** (3)

ofizio saindukoak (4)

lur saindura (3)

larunbat sainduz (6); **ortzegun sainduz** (14); **ortziraletainu** (12)

saindujale ik santujale.

saindukeria iz santukeria.

Molière-k dioen moduan gorputz osoan garbi belarriak baino ez dituen horrek, **saindukeriak** alegia, ordezkaturko du itsasoarekin jolasean aritzen diren neska hauen jatortasun libre eta errugabea. **Koldo Izagirre**

sainduki *adlag ipar* santuki.

Sartzen da gero komentuan eta **sainduki** bizitzen. **Xipri Arbelbide**

Bere oinarritzko erakuspenak egunerok praktikan jartzen saiatzen bitartean, ohe kantoian **sainduki** natxikan Paul Laffarguen "Alferreziaren Gorazarrea" izeneko testua.

Itxaro Borda

Eskaeri dizkiot Katalina Erreginari, izen hori daraman lehenari, bere merezimendu propioengatik bere senar Erregea bezain handiari eta areago hura galduz geroz, egun oroz bermatzen baita, elkarrekin izan duten iloba, Sebastian gure Erregea, hain **sainduki** altxatzen, non uste izateko den printze horrek gaindi ditzakeela bere aitaso eta arbaso guztiak. **Piarres Xarriton**

saindutasun *iz ipar* santutasuna.

Hirugarrena eta gorena, bihotzaren jakintasuna, zuhurtasuna, **saindutasuna** eta beraz fedea. **Herria**

Hau da erreinu horietan aurki ditzakezun gizon hoberenatarik bat, bere ikasketek, bere oneziak, bere biziko **saindutasunak** higuatua. **Piarres Xarriton**

Ni ere, orduan hilez gero, eta ez sainduen **saindutasunean** lorifikaturik eta golardoaturik. **Joan Mari Irigoien**

Eta hori egia dateke, manera horretan **saindutasunera** heltzen den jendea osasun psikiko onaren jabe balin bada. **Piarres Aintziart**

saindutegi *(orobat saintutegi g.er.) iz ipar* santutegia.

Saindutegiko eliza gotikoa betea zen goizik eta lehen apailuak ere, arimakoak otoitz eta kafesioekin, elizkizunekoak orobat, kantuko paper, apez eta laiko arduradunekin, hasiak, nahiz ixiltasun haundi hura ez den zinez meza hasterainokoan osoki egin. **Herria**

Lapurdiko zelai hodeitsu eta mutuak utzirik, Leitzarango lanoetan barna petik goiti, Jondoni Mikael **Saindutegiko** iguzki dirdirara. **Herria**

Nahi luke Vannes hiriko apezpikuak Auray-ko Anna Sainduaren **saindutegia** izan dadien bretainiar kulturaren alde egiten den indarraren leku sinbolikoa. **Herria**

Bitoriano Gandiaga poeta joan da Arantzazuko **saindutegitik** zerukora. **Herria**

Gure Eliza Katolikoa, gure **saindutegia**, gure edergarria, gure berregingarria, gure Erlisione guziz maitea, etsaiek jo dute. **Xipri Arbelbide**

saindutto 1 *iz adkor* saindua.

-Hona hemen gure etxeko **sainduttoa** ...! **Joan Mari Irigoien**

2 irud/hed

Biboteaundiren arrebei **Sainduttoak** deitzen zieten, hagitx santujaleak zirelako. **Fernando Rey**

saindutu, saindu(tu), saindutzen da/du *ad ipar* santutu.

Sainduen bizian ikusten dugu, Aitorensemeak eta jende handienak berak nahi izan direla esku-lanetan **saindutu**. **Xipri Arbelbide**

San Mamed izen moroa ote, katolizismoari itzultzeak **sainduttua**. **Piarres Aintziart**

saindutze *iz ipar* saindu bihurtzea.

Lehenik hilek bakarrik zuten **saindutze**, xantxa gehiago! **Herria**

sainete *iz antzerki lan laburra, herrikoia eta barregarria, askotan musikaduna.*

-Inguruko neska batzuk joango dituk, beren mutil-lagunekin, Casares, nire lagun kazetari hori, **sainete** -idazle bat eta beste batzuk. **Josu Zabaleta**

Izan ere, auzia gelditu ezean, 18/98 sumarioa bezalako «epaiketa-**sainete**» batean amaituko dela ohartarazi zuten. **Berria - Euskal Herria**

sainetegile 1 *iz sainete-idazlea.*

Hark **sainetegile** bat aurkeztu zion, gizon ergel eta goibela. **Josu Zabaleta**

Sainetegileek ordurako tankeratua zuten funtsean Borgesena zen mundu bat, baina jende ikasiak ezin zituen kontzientzia lasaiz mundu horretako ikuskizunak laket izan.

Juan Garzia

Bi **sainetegileek** izkirimiri zahar, gastatu sail bat kontatuz erakutsi zuten beren gatza eta piperra. **Josu Zabaleta**

Hurtado, zaratak eta **sainetegileen** graziek nekaturik, sukaldera joan zen, baso bat ur edatera. **Josu Zabaleta**

2 (izenondo gisa)

-Gauza bat egingo dugu -proposatu zuen Casaresen adiskide **sainetegileak**. **Josu Zabaleta**

sainga 1 *iz zaunka.*

Zuk ere aditu dituzu, orduan, hemengo zakurren **saingak**. **Hasier Etxeberria**

Zakur arrarentzat eta emearentzat ere ez dira **saingak** bat. **Gotzon Garate**

Arimarik ez, autoaren burrunba entzun zutelarik bizpahiru zakurren **saingen** hots ezberdinak eta ilargirik gabeko gau beltza. **Aurelia Arkotxa**

Izeba Gloriaren agerpenak zakur baten **saingak** baino bortitzago dardarazi ninduen. **Aingeru Epaltza**

2 irud/hed

Ondotik hogoi urte pasatu dira, ez gehiago, jendea bakeak xoxotua, ergeldua bezala, eta berriz beste gerla bat pitzen dute eta mundu guziari hedatzen Hitler-en **sainga** haserretuek. **Michel Oronoz**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hara berehala etsai errabiatuen **sainga** erauntsiak. **Herria**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zakur **saingen** eskas dira herrian. **Xabier Montoia**

Arrak arrari borroka **saingak** eta emeari lilura **saingak**. **Gotzon Garate**

5 *adlag* zaunka.

Zakur bat **sainga** hasi orduko, beste denak. **Gotzon Garate**

Guri, **sainga** ez ezik, hozka ere egiten digute. **Xabier Montoia**

Artetik, halere, batzuek **sainga** eta xanpa, zonbaitek huia, bertze batzuek akula, bakar batzuek... ñaka. **Herria**

6 *saingan* saingaka, zaunka.

Kraskitin, ordea, ez ziren **saingau** nekatzen. **Xabier Montoia**

7 *sainga* *egin* zaunka *egin*.

Gure bahitzaileak hurbildu eta **sainga** *egin* behar izan zion erranari lotzeko. **Aingeru Epaltza**

Kraskitinek eta Kraskitinek sekula baino amorru handiagoz *egin* zuten **sainga**. **Xabier Montoia**

saingaka 1 *iz* zaunka.

Zangoa lurrean pausatu eta hiru urrats gabe, tupusteko zalaparta batek irauli zidan bihotza: ondoko pabiloi batetik, zakur bat **saingaka** ari zitzaidan. **Aingeru Epaltza**

Zakurrak **saingaka** bazterretan. **Hasier Etxeberria**

Zakur bat **saingaka** kanpoan. **Ramuntxo Etxeberri**

Nahasmendua gazteluko patioan: zakurrak **saingaka**, emakumeak aieneka eta soldaduak lasterka armen hartzera. **Aingeru Epaltza**

2 irud/hed

Gorrotxa oraintxe jabetu bada ere -duela oso gutxi arte hain adiskide ontzat zuen Garate eta gainerako espainolistik **saingaka** hasi zaizkienean-, kontu zaharra da gureztat **Xabier Montoia**

sainkari *izond* zaunkaria.

Zakur **sainkaria** bakan horzkalaria. **Gotzon Garate**

sainta ik *sainda*.

saintu ik *saindu*.

saintutegi ik *saindutegi*.

saio 1 *iz* norbaitek edo zerbaitek zerbaitetan duen gaitasuna ikusteko egiten duen ariketa; ondorioaz ziur egon gabe egiten den ariketa.

Egin dezagun **saio** bat. **Antton Olano**

Berebiziko arrakasta izan zuen **saio** hark. **Koro Navarro**

Hori frogatzeko **saio** bat *egin* zuen 1746an, eta Eulerek ere bai berea haren ondoren, 1749n. **Jon Muñoz**

Eredu empiristaren arabera, behin eta berriro beteko litzateke hipotesi hori, "**saio** eta huts egite" modura. **Josu Zabaleta**

Zizonaren noblezia, **saio** eta hutsegitez josiriko ehun mendetan zehar irabazia, materiaren jaun eta jabe egitean zetzala. **Juan Garzia**

Zenbait **saio** egina nintzen laboratorion. **Juan Garzia**

Guztira 58 **saio** *egin* ziren, eta horietan adituek 33 aldiz asmatu zuten; kazetariek, berriz, 25 aldiz. **Iñaki Heras**

Saio franko *egin* nuen arren, ez nintzen berogailua martxan jartzeko gai izan. **Ramon Saizarbitoria**

Saio guztiak, esperantza guztiak, ispilukeria guztiak, behin eta berriz apurtzen eta zirtzilatzten dira kalekka hauen egunerokotasunaren, ezdeusaren, epika faltaren kontra. **Iñaki Iñurrieta**

Ondorio alerik ere ez zen segitu **saio** hartatik. **Juan Garzia**

2 (izenondoekin)

Txundigarria da bai arkitekto edo ingeniari sozial horien lana, horrenbeste hondamendi sortuko duen erabaki bat, laborategiko edozein **saio** kontrolatu bailitzan hartzea, frogakats joko gisara. **Iñaki Heras**

Eskua patrikan sartu eta pizgailua atera zuen, belarri parean astindu ondoren pizteko bi edo hiru **saio** alferrikako *egin*, eta lurrera botatzeko. **Ramon Saizarbitoria**

Izan ere, aipatu garai hartan gertatu zena **saio** berezia izan zen: hura ere *laissez-faire* merkatu global bat sortzeko saioa izan baitzen azken buruan. **Iñaki Heras**

Egunerokotasunari etekin poetikoak ateratzen dizkion **saio** arrunt itxurakoa... **Anjel Lertxundi**

Saio kimeriko horri buruzko maisulana da Karl Polanyi pentsalariak 1944an argitara eman zuen *The Great Transformation* liburua. **Iñaki Heras**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Saio -egun gutxiren buruan, untxietara jo baino ere lehenago, ikerbide hura artxibaturik uzteko baimena lortu nuen. **Juan Garzia**

Saio -egitasmok ozta-ozta ari dira itxuratzen. **Juan Garzia**

Zenbait **saio** motatara mugatzen dituelako ikerketa-aukerak. **Juan Garzia**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Laborategiko hainbat hazkuntza-**saio** edo animaliekin egindako hainbat esperimentu pasatu dituzten organismoekin. **Irene Aldasoro**

Pistola, errifle eta subfusilekin ere egiten genituen tiro-**saio** batzuk aldian behin. **Rafa Egiguren**

Gertuko informazioa eskuratu nahi genuen bidean zegoen ihes-**saio** bati buruz. **Rafa Egiguren**

Ezin konta ahal behaketa **saio** izango zituen *eginak*, eta hala ere, nonbait, zer ikusi asko geratzen zitzaion tapiz hartan,aldi bakoitzeko arreta beti berrituz ekiten baitzion azterketari. **Iñaki Iñurrieta**

Azken batean, idazte-**saio** orok duen xedea. **Iñaki Iñurrieta**

Hizketan hasi eta hala ematen zuten ia lan-**saio** osoa. *En torno al casticismo*-n (1895) [...] Volksgeist kontzeptuaren argiketa **saio** berri bat edireten dugu. **Iñaki Iñurrieta**

Bere hurbiltze **saio** xumeen emaitza. **Iñaki Iñurrieta**

5 helburua lortzen ez duen ekintza.

Oraingoz Etxe Zuriak *egin* duen bakarra ustezko kolpe **saioarekin** zerikusirik duela ukatzea izan da. **Berria - Mundua**

Ekuatore Gineako presidente den Obiang Ngema [...] agintetik kentzeko helburua zeukan estatu-kolpe **saioak** porrot *egin* zuen martxoaren 7an. **Berria - Mundua**

Haren arabera, oposizioa eta komunistak daude estatu-kolpe **saioaren** atzean. **Berria - Mundua**

Mark Thatcher epaituko dute, estatu kolpe **saio** laguntzaile gisa, auzian izan gabe. **Berria - Mundua**

Aurtengo apirillean, atentatu **saio** batean zauritu zuten. **Berria - Mundua**

-Hamaika **saio** *egin* nituen, eta denetan porrot. **Iñaki Iñurrieta**

Erregea hiltzeko **saio** -egileak laurdenkatuak izaten ziren plazan. **Felipe Juaristi**

6 ahalegina.

Saio bizia *egin* behar izan nuen begiek sala ez nintzaten. **Aingeru Epaltza**

bukaeran (6); **saioareen ondoren** (30); **saioareen ostean** (22)

biharko saioari (11); **biharko saioari begira** (9); **saioari begira** (14); **saioari dagokionez** (10); **saioari ekin** (6)

entzunezko saioen (12); **entzunezko saioen nazioarteko** (10); **ikus entzunezko saioen** (12)

asteko lan saioetan (6); **aurreko saioetan** (7); **azken saioetan** (7); **bertso saioetan** (12); **bi saioetan** (14); **egindako saioetan** (7); **entrenamendu saioetan** (29); **hiru saioetan** (7); **lan saioetan** (31); **saioetan parte hartu** (6)

inbestidura saioko (7); **saioko bertsoa** (10); **saioko probak** (10); **saioko probak jardunaldi** (8); **saioko puntuazioa** (6)

hurrengo saiorako (6)

saioeren ondoren (6)

saiorik onena (8)

bi saiotan (11); **hiru saiotan** (7)

saiotzat jo (6)

saioaldi *iz* saioa, jardunaldia.

Catherinek, lehen **saioaldi** honetan bere burua irabazle ikusiz, musika jarri zuen eta mutilaren ondoan eseri zen. **Iñaki Zabaleta**

Marcel Marceau-ren azken **saioaldia** Broadway-n oroituz poster bat zegoen eskegita mahai aldeko paretan. **Iñaki Zabaleta**

saiogile *iz* saiakerak idazten dituen idazlea. ik **saiakeragile**.

PEN Klub elkarte, jatorrian, poetak, gidoigileak, nobelagileak, **saioegileak** eta editoreak batzeko jaio zen, horien adierazpen askatasuna defendatzeko asmoz. **Berria - Kultura**

Transnational Institututuko zuzendari eta kanpo zorraren kontrako ekintzaile Susan George **saioegilearen** hitzaldiak jendearen arreta piztu zuen. **Berria - Mundua**

Hizkuntzaren eta euskalgintzaren inguruko diskurtsoa eta inertiaren indarrez eztabaidaezin bihurtutako ideiak ere berrikusi, berrirakurri eta birformulatzeko proposamena egiten baitu **saioegileak**. **Berria - Kultura**

Begi batekin ideia eta kontzeptu teoriko orokorrei erreparatzen die **saioegileak**, eta bestearekin ideia horien gauzatzeko errealei, batez ere, geure herriko biolentzia politikoiari. **Berria - Kultura**

Metafora izorratuz: bizitzaren militante, [...] gizartearen **saioegile**, Lurraren behargin eta alkimista, unibertsoaren erreakzio-eragile nimoñoa da "kimikari militante": liburuko historiak kontatzen dituen hori gizon bat da, ez gehiago eta ez gutxiago. **Juan Garzia**

saio gintza *iz* saiakerak ontzeko jarduera.

Saio gintzan, jagoletzan, euskalgintzan diharduten asko daude. **Berria - Kultura**

saiotxo 1 *iz* adkor saioa.

Hala etorri ez balitz ikerketa hori, baizik han-hemenka egin balitz, hainbat laborategitan, **saiotxo** bat hemen **saiotxo** bat han, luzaroan haztamuka [...]. **Juan Garzia**

Urtean behin edo, araldi garaian, egingo dituzte euren **saiotxoak**, eta hurrengo urtera arte! **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Ez bat eta ez bi, jantzi isotermikoak arrapataka erantzi, eta, panpandojak bistan, **saiotxo** lesbiko ikusgarri bati ekin zioten, koreografia modu eztiagatik erleen dantza zirudiena. **Patxi Iturritegi**

Finala hasi aurretik, ordu erdiko **saiotxo** arina egin dut, beroketa eta gihar luzatzea; ohi bezala. **Berria - Kirola**

Eta "Motxian"-en partaide delarik, azalduko da ostiral iluntzeren batean, bat-batean **saiotxo** bat egin, trebatzen ari diren lagunekin aritu... **Andoni Egaña**

A capella-ko *The dew* aire tradizionala eta Sean Reganekin batera egindako *mouth music* **saiotxo** bat. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan)

Helioterapia **saiotxo** baten ondoren, beldur nintzen ez ote ninduten berrogeialdian jarriko, baina jende ohatuz beteriko eri-auto batean igo nintzen azkenean. **Xabier Olarra**

Ilunabarrean prestaketa **saiotxo** burutu zuten, eta pentsatzekoa da oso garbi ukanen dutela nola mendean hartu Mulhouse. **Berria - Kirola**

3 adkor saiakera.

Quixoteren Meditazioak Ortega gaztearen aurreneko liburua da, eta ikerlan franko badago, **saiotxo** multzo horretan Ortega-ren "sistema filosofikoaren" lehen formulazioa induskatu guran. **Joxe Azurmendi**

Ortegaren **saiotxo** bat gomenda liteke: Mirabeau o el político, 1927koa. **Joxe Azurmendi**

saizki ik **zaizki**.

sajoniar ik **saxoniar**.

saka¹

1 (adizlagun balioko esapideetan)

Bat-batean, argazkilaria bat azaldu zen, Topaketa antolatzen zuen Tipi-Ttapa-koa, bere kameraren botoiari tira eta **saka**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ahotik biraoka, eskuak eta belaunak higatu beharrean eman nituen ate itxi berriari bulka eta **saka**. **Aingeru Epaltza**

Petrusen gonbidatuak inguruan bilzen ari dira, bultza eta **saka**, eta iruzkinak egiten dituzte ahots goraz. **Oskar Arana**

Saka eta maka sartu ziren. **Harkaitz Cano**

Errezitaldia ozpinduta amaitu zen, polizia **saka** eta maka sartu zelarik denok atxilotzera. **Javi Cillero**

2 **saka ahala**

Zubi baten gainean pasatzen ari zelarik treina gertatu da hori, jendea bazelarik **saka** ahala metatua treinen teilatu gaineraino. **Herria**

3 **saka egin** sakatu. ik **sakatu**¹.

Oinekin **saka** eginenez, gibelat abiarazi nuen hainbetez ordutan berotutako aulkia, nabarmen nahi nuen mugimenduan. **Aingeru Epaltza**

Gero neskeri eskuak lepoan ipini zizkion, eta **saka** egin zion, emeki, alborantz. **Edorta Jimenez**

Paparra askatu nion, eta berak alborantz **saka** egin zidan. **Edorta Jimenez**

4 **saka eta maka adlag** saka eta saka.

Saka eta maka sartu ziren. **Harkaitz Cano**

Errezialdia ozpinduta amaitu zen, polizia **saka eta maka** sartu zelarik denok atxilotzera. Javi Cillero

5 *saka eta saka adlag* sakatuz eta sakatuz.

Kalkulagailuko tekla **saka eta saka** ari nintzen eta gero eta zentzugabeagoak ziren emaitzak. Joxan Elozegi

Ibiliko zen **saka eta saka**, zertan ari zen arrastorik gabe! Anjel Lertxundi

Teklatu batean bost minutuan **saka eta saka** ibili behar nuenean, patata pure lodi itsaskor batean hondoratu izan banu bezain lirdingatsu jartzen zitzaidan eskua. Joxan Elozegi

6 *saka-saka adlag*

Etz dira guti jostatu beste biak: Xalak gibekeko paret hura miatuz **saka-saka** eta Fernandok berriz denen ekartzeko lan hura betez huts bat ere gabe. Herria

7 (izen gisa)

Gizona **saka-saka** lanetan zebilkidala, esku batez aldakatik heltzen zidan eta besteaz nire titien bila hasi zen, hau da, izebaren titien bila. Aitor Arana

saka² iz zakua.

Horiatarik jinen zen Lafitte liburu edo kaseta **saka** bat besoan edo, zertako ez ezar hemen, deplauki erraiten giniona "astoa bezala kargatua"! Herria

saka³ iz pilota-jokoan, sakatzea.

Batek **saka**, bertzeak errefera, batek inbido, bertzeak hordago. Herria

saka⁴ ik **sakatu**¹.

sakabanakatu, sakabanaka, sakabanakutzen du *ad* sakabanatu.

Esan zuenez, bera **sakabanakatuta** dauden presoen senideei diru laguntza ematearen «guztiz kontrakoa» da. Berria - Euskal Herria

sakabanaketa 1 iz sakabanatzea.

Sakabanaketaren ondoren ez baitzen modurik izan animalia bakoitza identifikatzeko. Juan Garzia

Honi gehituko nioke orain, Naturaren indar ezkuatak ez duela **sakabanaketa** bakarrik gaitzesten, baizik eta antzeko izatea ere gaitzesten duela, antzekotasunak ezberdintasuna eta bikoiztasuna baititu berekin. Joan Mari Lekuona

Haragi sektoreak duen egoera «egongaitzaren» arrazoiak bi dira: batetik, abeltzainen **sakabanaketa** eta elkarlanerako gaitasun falta; eta bestetik, [...]. Berria - Ekonomia

Hainbeste amestua genuen iraultza proletarioaren gainbehera ikusita, gero etorri zen **sakabanaketarekin**, denok hegan egin genuen industria osteko gizarte berrirantz, langabezia eta berregituratze basatiak jasan eta gero. Juan Kruz Igerabide

Teoria aberatsagoa egin zen, sofistikatuagoa eta, ondorioz, nolabaiteko batasun falta eta **sakabanaketa** hasi ziren nabaritzen. Askoren artean

Espazioaren handitasunak batetik, eta elementuen **sakabanaketak** bestetik, espazioaren irudi berri bat eskaini zidaten Utah, Kalifornia eta Nevadako lautada zabaletan. Berria - Kultura

Koka dezagun eguzkia 10 graduko altueran: ba, **sakabanaketa**, piko-pikoa dagoenekoarekin alderatuta, 4-5 bider markatuagoa izanen da; askotxo galduko du, beraz. Pello Zabala

Gertu egon behar dugu diskurtsoaren bat-bateko edozein agerpeni arreta jartzeko, agertzen den puntualtasunean eta denborazko **sakabanaketan**. Xabier Arregi

Enuntziatu-multzto bat bere indibidualtasunean definitzea objektu horien **sakabanaketa** deskribatzea izango da, eurak banatzen dituen zirrikitu guztiak atzematea, euren arteko distantziak neurtzea, beste hitz batzuetan esanda, euren banaketa-legea formulatzea. Xabier Arregi

2 (presoen)

Zeregin hoberik ez dugun bitartean -esan diot- ihesaldi eta deportazio, kartzelaldi eta **sakabanaketa** horien historia moduren bat idatzi beharko genuke. Jokin Urain

Euskal preso politikoei eta beren senideei ezartzen zaien **sakabanaketa** salatzeke. Txema Ramirez de la Piscina

Presoak ez ezik senideak ere zigortzeko asmatu zuten **sakabanaketa**. Jokin Urain

-Presoen eguneroko bizitzan, bakardade sententzia da **sakabanaketaren** eraginik gogorrena. Jokin Urain

Estatu hilketa dela diogu, kalkulaturako eta diseinatutako politika baita **sakabanaketa**. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Inferentzia kateak berriz osatu beharrean (zientzien eta filosofiaren historian sarritan egiten den legez), diferentzien taulak ezarri beharrean (hizkuntzalariek egiten duten bezala), **sakabanaketa**-sistemak deskribatuko lituzke. Xabier Arregi

Sakabanaketa politika egokia zela eta bere etekinak ematen ari zela esan zuen garai hartako Madrilgo ministro batek. Jokin Urain

«Inkomunikazioa» eta «**sakabanaketa** politika» gogor kritikatu ditu. Jokin Urain

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nazio eraikuntzaren dinamikan dauden egitasmoak badaude, baina indar **sakabanaketa** nabaria da. Berria - Harian

Enuntziatu-multzto bat deskribatzea kanpokotasun **sakabanaketaren** arabera eta ez asmo baten, pentsamendu baten, subjektu baten, barrukotasunarekin harremanean. Xabier Arregi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskal presoan sakabanaketa (32); ezartzen duten sakabanaketa (3); indar sakabanaketa (3); indarrean duten sakabanaketa (3); inkomunikazioa eta sakabanaketa (3); jasaten duten sakabanaketa (3); pairatzen duten sakabanaketa (3); preso politikoen sakabanaketa (3); presoan aurkako sakabanaketa (3); presoan sakabanaketa (57); presoan sakabanaketa amaitzeko (4); presoan sakabanaketa bukatzeko (3); presoan sakabanaketa politika (8); presoan sakabanaketa politikaren (3); presoan sakabanaketa salatzeke (6)

sakabanaketa amai (3); sakabanaketa amaitzea (6); sakabanaketa amaitzeko (24); sakabanaketa amaitzeko eskatu (7); sakabanaketa areagotu (3); sakabanaketa bukatzeko (7); sakabanaketa bukatzeko dela (3); sakabanaketa bukatzeko eskatu (4)

sakabanaketa hiltzaile (3); sakabanaketa hiltzailea (3)

sakabanaketa politika (101); sakabanaketa politika amaitzeko (11); sakabanaketa politika indarrean (5); sakabanaketa politika martxan (3); sakabanaketa politika salatu (11); sakabanaketa politikak (45); sakabanaketa politikak eragindako (6); sakabanaketa politikan (3); sakabanaketa politikarekin (4); sakabanaketa politikaren (31); sakabanaketa politikaren aurka (4); sakabanaketa politikaren ondorio (4); sakabanaketa politikari (6); sakabanaketa politikari amaiera (4)

sakabanaketa salatu (9); sakabanaketa salatu dute (3); sakabanaketa salatzeke (17)

euskal presoan sakabanaketak (7); presoan sakabanaketak (10); sakabanaketak eragindako (11); sakabanaketak eragindako istripuak (3); sakabanaketak hil egiten (9) sakabanaketarekin amaitzeko (4)

euskal presoan sakabanaketaren (4); presoan sakabanaketaren (9); sakabanaketaren amaiera (4); sakabanaketaren aurka (21); sakabanaketaren aurkako (14); sakabanaketaren eraginez (5); sakabanaketaren inguruan (3); sakabanaketaren kontra (4); sakabanaketaren kontrako (8); sakabanaketaren ondorioak (8); sakabanaketaren ondorioz (12)

sakabanarazi, sakabanaraz, sakabanarazten du *ad* sakabanatzera behartu.

Laino-hodeiek xurgatzen dituzten izpiak % 3 badira, islatu eta **sakabanarazten** dituztenak beste % 23 direnez, % 26 hodei-lainoekin galtzen dira. **Pello Zabala**

sakabanatu, sakabana, sakabanatzen 1 da *ad* bildua dagoena han-hemenka gertatu. ik **barreiatu**.

Besteok abiada bizian **sakabanatu** ginen oihan txikian barrena. **Aritz Gorrotxategi**

Jendea **sakabanatu** zenean bi jeep ikusi nituen, eta sei bat guardia fusilak tente zituztela. segika joan zitzaien harik eta taldea Darasako amaieran **sakabanatu** zen arte. **Bernardo Atxaga**

Erabakia deusik esan gabe hartu zuen jendeak, eta poliki-poliki **sakabanatzen** hasi ziren. **Joanes Urkixo**

Ustekabean harrapatu, Morgulgo hordak **sakabanatu** egin ziren, txinpartak haizean bezala. **Agustin Otsoa**

Kirxaren kafe etxeak ere ateak itxiak zituen eta bezeria **sakabanatua** zen. **Patxi Zubizarreta**

-Bada zure Inperioan herri bat, jatorri bereziko, probintzia guztietako herrien artean **sakabanatua** bizi dena. **Jose Antonio Mujika**

1989an ia 600 preso zeuden 70 espetxetan **sakabanatuta**. **Jokin Urain**

Logelara sartu naiz, neskaren oinetako eta arropa lurrean **sakabanatuak** bildu eta sukaldeko mahai gainean utzi ditut. **Joseba Sarrionandia**

Barra osteko neskak toplessean zeuden; han-hemenka **sakabanaturik** zebiltzanak, berriz, lenteria erakustaldi bat eginez. **Migel Angel Mintegi**

Hamar bat gizon zeuden erreka beste aldeko sailetan **sakabanatuta**, nor bere zaldiarekin. **Bernardo Atxaga**

Gau eta egun ziharduten suei egurra bota eta bota, eta haien ke lainoa **sakabanatu** egiten zen astiro zingiradi itzelaren gainetik. **Karlos Zabala**

Izan ere, errepresentazio ezberdinei lagun egiten dien kontzientzia empirikoa **sakabanatua** da berez eta ez du harremanik subjektuaren identitatearekin. **Ibon Uribarri**

Otoitz-denboran ameskeria hutsaletan **sakabanatuta** ibiltzea. **Askoren artean**

Haien inguruan **sakabanatuak**, eguzkitako bat, eskularruak, eta sakelako musuzapi bat, Marie Rogêt izena brodatua zuena. **Koro Navarro**

• 2 du *ad* bildua dagoena han-hemenka gertatu.

Administrazioak, gero, **sakabanatu** egin zituen. **Rafa Egiguren**

Horregatik, Babel -hau da, 'Nahasketa'- du hiriak izena, han nahasi baitzuen Jaunak mundu osoko hizkuntza eta handik **sakabanatu** baitzuten mundu zabalera. **Jose Antonio Mujika**

Pentsatu nuen: '**Sakabanatu** egingo ditut, / ezabatu egingo dut haien oroitzapena munduan'. **Jose Antonio Mujika**

Ettxera genozela, jainkoren batek akaiarren ontziak **sakabanatu** zitian. **Juan Kruz Igerabide**

Rohango Zaldizkoak Hegoaldeko Gizakien lerroen artera sartu ziren, zalditeria **sakabanatuz** eta infanteria zanpatuz. **Agustin Otsoa**

Lurrera eroritako karea **sakabanatu** duzu hankarekin zikina disimulatzeko, eta Iñakiri deitu diozu berriz. **Rafa Egiguren**

Gauean ziztuka ari den haizeak lotan dagoen ororen ametsak **sakabanatzen** ditu. **Juan Kruz Igerabide**

Haizearen indar suminduak itsasoa astintzen eta ontzi eskergak iraultzen eta hodeiak **sakabanatzen** ditu. **Xabier Amuriza**

Haizeak ke aztarna **sakabanatu** zuen. **Anton Garikano**

3 (era burutua izenondo gisa)

Denak seme galdu eta **sakabanatuak**, egiaren eta gezurraren arteko lurralde ilun eta arriskutsuan. **Felipe Juaristi**

Israelgo seme **sakabanatuak** biltzen dituen Jaunari egin zion otoitz, bere errukiz ahalik azkarren berriro elkar zitzaiz. **Askoren artean**

Beste hirurak, Miriam barne, aretoko mahai **sakabanatuetan** barreiatuta, bozgorailu txikietatik heltzen zen Billie Holidayren ahotsaz ezaxola. **Aritz Gorrotxategi**

Zirimiriaren azpiko hiri **sakabanatua**. **Koro Navarro**

Goizeko hamarretan ailegatu naiz Managua zabal **sakabanatura**, eta hamaiketarako etxera. **Joseba Sarrionandia**

Han nire bizitzako urteak saminez hausnartuko ditut eta, nire bihotz **sakabanatua** barnebilduz, nire espiritua gauza hobeetara bideratuko. **Askoren artean**

Enuntziatu **sakabanatu** eta heterogeneo horien arteko koexistentzia da ezaugarritu eta bereizi beharko litzatekeena. **Xabier Arregi**

Forma hauen guztien pean, horrela aurkitutako koherentziak beti paper bera jokatzeko du: [...] erakustea beharrezkoa dela argitasun **sakabanatu**en joko hau foku bakar batera murriztea. **Xabier Arregi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ardiak sakabanatu (4); **ardiak sakabanatu egingo** (3); **etsaiak sakabanatu** (3); **jendea sakabanatu** (5); **lurrean sakabanatu** (3); **nazioen artean sakabanatu** (3)

oso sakabanatuak (3); **sakabanatuak biltzen** (4)

modu sakabanatuan (4)

lurrean sakabanaturik (6); **sakabanaturik bizi** (5)

espetxeetan sakabanatuta (4); **han hemenka sakabanatuta** (3); **oso sakabanatuta** (6); **sakabanatuta bizi** (3)

lurrean sakabanatutako (3)

presoak sakabanatzea (3)

jendea sakabanatzeko (3)

sakabanatze *iz* bildua dagoena han-hemenka jartzea.

Kulturaren homogeneotasunaren eta botere politikoaren **sakabanatze** izugarriaren arteko kontrastea. **Koro Navarro**

Horren ondorioa izan da ikasleak oso zama handia zuela bere gainean: askoz ere ordu gehiago eskolan, eta askoz ere ikasgai gehiago, horrek dakarren frustrazio eta **sakabanatze** ikaragarriarekin. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Utzi behar al da **sakabanatze** hau bere itxurazko desordena horretan? **Xabier Arregi**

Heriotzari materiaren nahas-mahas eta **sakabanatze** handiagoa baitarraio eta inor ez baita itzarturik jalkitzen, behin biziaren eten hotza gertatuz gero. **Xabier Amuriza**

Eskemok aukera ematen dute deskribatzeko, ez kontzeptuak erakitzeko barruko legeak, [...] baizik eta euren **sakabanatze** anonimoa testuetan, liburuetan eta obretan zehar. **Xabier Arregi**

Kontzeptuen **sakabanatze**-legea bilatzean ez du elaborazio-prozesu guztien kontu ematen. **Xabier Arregi**

sakabutxe *iz* antzinako musika-tresna, tronboi arruntaren antzekoa.

Orkestran tronboiek (**sakabutxeek**) arestian aipaturiko grabeen gabezia zuzendu zuten. **Berria - Kultura**

sakada 1 *iz* bultzada.

Sakada askoz xumeagoz mugitzen baita. **Xabier Amuriza**

Zuhaitz hostotsu bat, ostera, haizearen **sakadaz** balantzaka, astitzen eta beste zuhaitz baten adarren gainera etzaten denean. **Xabier Amuriza**

Nabaria zen hegazkina bihurkadei itzuri eginez ari zela jaisten, **sakadarik** ez jasatearren, eta halaxe gindoazen hegan, lautada ustez aproposaren gainetik. **Joxe Austin Arrieta**

Badaki bere burua engainatzen diharduela, gaurkoa ez dela gaueroa ekinga, eta sarrailari ematen dion buelta bakoitza garroteari emandako **sakada** dela. **Urtzi**
Urrutikoeetxea

2 atxikia, xurgada.

Bi **sakada** egin zizkion zigarroari, eta kea eguzkiaren printza-sorta baterantz bota zuen bafada batez **Jon Alonso**

sakadiko *izond* begiaren, bururaren edo kideen higidurez mintzatuz, oso lasterra dena.

Mugimendu **sakadikoak**, oso bizkorak (segundo hamarren bat inguru), bat-batekoak, nahita eginak (ikusmenezko bilaketa batean, irakurtzen ari garena lehengo lerroa itzultzen garenean, adibidez, edota irudi bat aztertzen ari garenean), edo nahi gabe eginak [...]. **Josu Zabaleta**

sakadura *iz* presioa, bultzada.

-Zure gorputz adarretan **sakadura** bat jasateko ahulegi zaude. **Patxi Zubizarreta**

sakagune *iz* sakatzeko gunea.

Saka-gune zehatza bilatu nuela erabakirik, artilea apartatu nuen. **Anjel Lertxundi**

sakail 1 *iz* zauria. ik saki.

Urratuko eta **sakailako** odola. **Pello Lizarralde**

Sakaila handia du eztarri aldean, handik odolustu da. **Xabier Montoia**

Sakaila polita egin diozu saihetsean. **Aingeru Epaltza**

Sakail eta ubelduraz josiak zeuzkaten, puztuak eta babaz beteak. **Xabier Montoia**

Kopeta haztatu du orduan, ezker bekainaren gainean **sakaila** topatu duen arte. **Pello Lizarralde**

2 ebakiondoa.

Ebaki handi baten **sakaila** zeukan belaunaren gibeletik goiti, otsolaharra makilan iduri. **Koldo Izagirre**

Ezpainean behera **sakaila** duen Eibarko armagile batek. **Koldo Izagirre**

3 irud/hed

Harri beltzeko arranke luze bik seinalatzen dute fatxada hau **sakaila** batez goitik beheraino. **Koldo Izagirre**

sakailatu, sakaila, sakailatzen (*orobat sakaildu; Euskaltzaindiaren Hiztegian sakailatu agertzen da*) 1 da/du ad zauriz bete; sakaila egin.

-**Sakailatu** ezazue goitik behera! -baina segurtasunik gabeko agindua izan zen. **Julen Gabiria**

Beren etsai guztiak ezpataz jo, hil eta suntsitu egin zituzten juduek, lepoa moztuz eta **sakailduz**. **Elizen arteko biblia**

Eskua luzatu du kokotsa **sakaildua** duen langileak, mendeku zaharren bat gomutan, menturaz. **Koldo Izagirre**

2 erabat desegin, suntsitu.

Herrialde horiek guztiak tartariarrek **sakailatu** zituzten, eta nazio suntsitzaile hori bizi da bertan, bazter haiek kutsatzen. **Iñaki Iñurrieta**

Erromatar probintziak gobernu-era despotiko eta gogor batek **sakailatuta** zeudela. **Iñaki Iñurrieta**

Nola jasan dezaket nik neure herritarrek hondatuko dituen zorigaiztoa ikustea? Nola eraman ote nezake neure senideak **sakailtzen** ikustea? **Elizen arteko biblia**

Entzun, nahi baduzu, haren laguntza hartu zuen dohakabearren boza; baina ez hargatik entzungor egin **sakailatu** dituen ehundaka kaltetuen oihuei. **Jon Muñoz**

Soldadu israeldarrek hiru etxe eraitsi zituzten, baita oliobondoak eta limoiendoak **sakailatu**. **Berria - Mundua**

3 irud/hed

Lehen enperadoreen garaian, epaiketek etengabe **sakailatu** zituzten Erromako familia handiak. **Iñaki Iñurrieta**

4 (era burutua izenondo gisa)

Hiri kiskali eta populazio **sakailduetatik** ez dago irabazia ateratzeko modurik **Joxe Azurmendi**

sakailatze *iz* triskantza.

Normandiarren **sakailatze** beldurgarriek, esan dudanez, asko lagundu zuten sesio haiek buka zitezen. **Iñaki Iñurrieta**

[Dirua] mailegutan hartzeko premia handiegia zen, besterik ez bazen ere armaden **sakailatzeak** ordaintzeko, magistratuen lapurretak, tratularien kobraketa gaitzak eta egunero gertatzen ziren usadio txarrak ordaintzeko **Iñaki Iñurrieta**

sakaildu ik sakailatu.

sakaildun *izond/iz* sakaila duena.

-Zakur baten moduan! -egin dio oihu Cienfuegosek **sakaildunari** -. **Koldo Izagirre**

sakaka *adlag* bultzaka.

Aurrekoan bultzaka eta **sakaka** lortu zuen lagunarteko beste guztiak sartzea. **Sonia Gonzalez**

Aurkezpenak eginda, ahalik eta lasterren ahalegindu zen Kat eta bera tabernatik kanporatzen eta, ia **sakaka**, lortu egin zuen. **Sonia Gonzalez**

Bihurdikatu nintzen, berriz ere **sakaka** hasteko prest, baina Kristinaren zimiko batek eragotzi zidan. **Aingeru Epaltza**

sakalari (*orobat sakari; Euskaltzaindiaren Hiztegian sakalari agertzen da*) 1 *iz* sakea ateratzen duen pertsona. ik sakatzaile¹.

Bi **sakari** aitzinean, bi ekartzale jotzale gibelean, gustaturik utzia zuten Amikuzeko ikuslea. Heria
Erran behar da bizkitartean elgarren betetsu ibili direla bi **sakalariak** botean, lehenak lau sartuz eta bigarrenak hiru bakarrik. Heria
Sakari hoberena Etchegaray, finalerdian bezala. Heria
Hor zuen ere bere Biriatuko auzo gaztea, Sorhuet, **sakari** segura eta oro biltzen. Heria

2 (izenondo gisa)

Partida hau bizi bizia ereman dute bi pilotari **sakari** horiek, nahiz desberdinki. Heria

sakaldika *adlag* bultzadak emanaz.

Nahierara egiten du presioa: jarraituki, gorabeheraz nahiz **sakaldika** -gehitu zuen-. Xabier Olarra

sakaletxes *iz*

Sakaletxes esaten genion. Patxi Zubizarreta

sakamantekas *iz* umeak beldurtzen zituen alegiazko pertsona; tripa-ateratzailea.

Zakudun gizonaren edo **Sakamantekasen** antza ari ote zen hartzen? Harkaitz Cano
Ezagutzen dituk Jaun Barua, Musde la Place, Ursuko Beltza, Xarlem, Juan Patata, Doxamendi kapitaina, Otezaharreko buhamesa, **Sakamantekas** ? Anjel Lertxundi
Hemendik ordu bitara **sakamantekasen** pare erabiliko dute Santos, eta guk zeharo bestera egin beharko dugu, oker ulertuarena eta abar. Josu Landa
Botanikaz gehien zekien doktorea, **sakamantekas** bihurturik. Hasier Etxeberria

sakan¹ *iz* lurrazaleko sakongunea; mendiartea. ik *ibar*.

Gutxienez 57 bidaiari hil dira autobus bat **sakan** batera erorita. Berria - Mundua
Kanpamentua zeharkatu zuten, **sakana** inguratu eta, maldan gora igoz, Betuliako ateetara iritsi ziren. Jose Antonio Mujika
Handik **sakan** batera joan behar zuten, herriraino eramango zituen biderik ziurrena hartzeko. Jon Maia
Ohioko zoko honetako nekazari zuri batek bere esklaboari askatasuna eta ibai-**sakanean** lur sail bat agindu zizkion, baldin halako lanak, lan gogor batzuk egiten bazituen. Pablo Sastre
Obus baten zitzua entzun zen, beraiengandik berrogeita hamar pauso ingurura lehertu zen, **sakanaren** gaineko ordekan. Jon Maia
Gauero jaisten zen Betuliako **sakanera** eta bainua hartzen zuen kanpamentu ondoko iturrian. Jose Antonio Mujika
Sakan honetan, eltxoek ziztatu egingo zaituzte -'urmael lokaztuetan antigoaleko eresiak kantatzen dituzte igelek', baina udako gau argietan urretxindor zoragarriak bere kantu goxoaz lagun egiten dio unibertsoaren harmonia jainkozkoari. Koldo Biguri
Bete daitezela **sakanak**, beheratu mendi-muinoak; bihur bitez zelai eta lautada paraje latz eta malkarrak.

2 (izenondoekin)

Ertzaintzak jakinarazi zuenez, gidatzen zihoan kamioia errepidetik atera eta **sakan** txiki batera amildu zen. Berria - Euskal Herria
Sakan mehar bat zeharkaturik, askotariko basalandarez oparo jantziriko baso sarri batean sartu zen bidea. Jose Morales
Zeinen **sakan** tristea, sigi-saga egiten duen pezoiaarena! Koldo Izagirre
Sakan eguzkitsuaren oinaldean su ttipia izeki zuen egunera. Agustin Otsoa
Egungentira arte zain egon ginen, **sakan** estali eta ezkutuan, hiritik hain gertu non harresiko zaindarien oihuak entzuten baikenituen. Jon Alonso
Harrobitzat jo nituen halako **sakan** irregular batzuk itzulinguratu behar izan nituen. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan)

Ohioko zoko honetako nekazari zuri batek bere esklaboari askatasuna eta ibai-**sakanean** lur sail bat agindu zizkion, baldin halako lanak, lan gogor batzuk egiten bazituen. Pablo Sastre

4 irud/hed

Hatz lodiaren eta erdikoaren artean, hutsune nabarmena zuen, eta gauetan, kandelaren argitara otsoaren itzal bihurtzen zuen eskuko **sakan** hura, atzamarra galdu zueneko istorioa kontatzen zionean. Jon Maia

sakan² ik *sakon*.

sakanar *izlag/iz* Sakanakoa, Sakanari dagokiona; Sakanako biztanlea.

Mattin Mottela **sakanarrak** bi lanbide zituen: mandazaina zen, baina baita, noizean behin bederen, bidelapurra ere. Martin Anso

sakandun *izond* sakongunea duena.

Feltrozko kapela bat -marroia, **sakanduna**, ertz beheratukoa, txano aldea galoizko txirikorda batez inguratukoa- besteen artean zebilen. Xabier Olarra

sakangune *iz* sakongunea.

Feltrozko kapela bat -marroia, **sakanduna**, ertz beheratukoa, txano aldea galoizko txirikorda batez inguratukoa- besteen artean zebilen. Xabier Olarra

sakantxo *iz* sakan txikia.

Ezponda eta makaldi artean, **sakantxo** batean, baseliza zaharra zegoen, elizatxo txiki bat dorre motz bat zuena, eta urek zegoen bezala hartu zuten, barruan sakristau zaharra zegoela, bai eta estali ere. Koldo Biguri

sakaratu ik *sakratu*.

sakari ik sakalari.

sakarina iz gai zuria eta oso ezkia, azukrearen ordeaz erabiltzen dena.

Berak ere azukrea alde batera utzi eta **sakarina** eskatu zuen, irriño batez. [Berria - Kultura](#)
Arroz budina jaten du berriz, **sakarina**z gozaten du berriz kafea. [Koro Navarro](#)
Carvahok bere irribarre-erdiaz agurtu ninduen, eta deskafeinatu bat eskatu zuen, **sakarinarekin**. [Iban Zaldúa](#)
Katuek ez dute gauza gozorik dastatzen, eta **sakarinak** zapore garratzagoa du zakurrentzat. [Irene Aldasoro](#)

sakarinoso izond azukretsua.

Horra zergatik zurrizten dituen liztorrak ere lizar adaska hezeak: maná delako sustantzia **sakarinoso** horren bila. [Patziku Perurena](#)

sakarosa iz azukre arruntaren zientzia-izena.

Azukre txarra horrelako jakiek dute: laktosa esneak, fruktosa fruituek eta **sakarosa** azukre zuriak. [Berria - Euskal Herria](#)
Pregestimil laktosarik edo **sakarosarik** hartu ezin duten haurrei ematen zaie. [Berria - Euskal Herria](#)

sakats izond bihurria.

Erabakigarria herri gogoaren zerketan geografia izan bide da: batetik, honen gogorrak bertoko jatorrizko biztanleen izpirituak gogortu dituelako; bestetik, lekuaren bazterrekotasunak eta klimaren eta luraren lakarrak bertara jende tipo bat erakarri duelako: menturazale, **sakats**, gerraria, natiboekin urtu dena. [Joxe Azurmendi](#)

sakatu¹, saka, sakatzen 1 du ad zapaldu, presioa egin.

Piparatutako tabako harroa **sakatu** eta beheko sutik hartutako ziriarekin piztu zuen. [Joxemari Urteaga](#)
Eskuineko loki parean hatzaz **sakatu** eta ezkerreko hankako behatz lodian sentitu zuen mina. [Joxemari Urteaga](#)
Saka dezagun botoia. [Karlos Linazasoro](#)
Iggogailuaren botoia **sakatu** eta zain geratu zen. [Migel Angel Mintegi](#)
Telefono higikorra hartu eta urduri **sakatu** zituen botoitxoak. [Migel Angel Mintegi](#)
Bat-batean, tekla bat **sakatu** eta zas!, Mutila agertzen da pantailaren erdian. [Antton Olano](#)
Gizona bazara eta emakumezko batekin egon nahi baduzu, 1 **sakatu**. [Jon Arretxe](#)
Telebista piztu, *play* **sakatu** eta, urduri, sofán esertzen da, bideoa ikustera. [Antton Olano](#)
Behin eta berriz **sakatu** zuen txirrina. [Migel Angel Mintegi](#)
Orduan **sakatu** zuen alarma eta hasi zen oihuka: [...]. [Joseba Sarrionandia](#)
Interfonia **sakatu** dut. [Harkaitz Cano](#)
Giancarlo kotxera hurbildu eta klaxona **sakatu** zuen. [Joxemari Urteaga](#)
Izu laborri batean, azeleragailua **sakatu** eta Guardia Zibilaren kontrol seinaleen aurka zapatu zuen bere autoa. [Harkaitz Cano](#)
Errebolbera destatu eta katua **sakatu** zuen, azkenik. [Harkaitz Cano](#)
Sakatu zuenean kanpai-hots batekin urratu zuen isiltasuna. [Migel Angel Mintegi](#)
-Bilatu *Philosopher's Index* eta **saka** bertan. [Askoren artean](#)
Saka dezadan hatza, saka-saka, zaurian, eta atera dezadan plazara munta handiko gorabehera bat. [Anjel Lertxundi](#)

2 (dio aditz gisa, zer/nor osagarririk gabe)

Beira gainean jarri egunkari-orria, erdi-erdian kokatu argazkia, eta handitzeko botoiari **sakatu** zion. [Jon Muñoz](#)
Makinan pieza bat ipini, pedalarri **sakatu**. [Eskarne Mujika](#)
Erretzeko erabiltzen zituen bi hatzekin jostailuzkoa zirudien pistolaren katuari **sakatu** zion, lurretik. [Harkaitz Cano](#)
Arnasa hartu eta azeleragailuari **sakatu** zion Martak, bolantea ertz batera bortizki biratuz. [Harkaitz Cano](#)
Harria jo dut, kax-kax, etxean ez dagoen lagun baten atea jotzen dugun legez, etxean ez dagoen jakitun txirrinarri luze **sakatzen** dionak bezala. [Harkaitz Cano](#)

3 irud/hed

Demokraziaren leloa **sakatzen** daukela beti mutur aintzina "zuen eskakizunak errespetua merezi du, baina minoritario zaitez!" [Herria](#)

4 sinetsarazi.

-Ederra **sakatu** zigunan ia. [Harkaitz Cano](#)
Kambroia halakoa, ederra **sakatu** ziguk! [Alberto Ladrón Arana](#)
Udan baigara **sakatu** dizkigute bertze berri batzu, hala nola "Papillon" deitzen zen hartza hil izan dela Pirineotan eta Alpetan artzainek hil zezakeetela hiruzpalau otso, kalte handiak egiten baitituzte artaldeetan. [Herria](#)

5 (era burutua izen gisa) atxikia, xurgada.

Zigarroari **sakatu** bat egiten zioneko bekainak gorantz tinkatzen zituen. [Harkaitz Cano](#)
Olatz dagoeneko zigarro bati azken **sakatuak** ematen ari zen. [Harkaitz Cano](#)
Bi hatzez zigarroa piztu eta bi hatzez zigarroa sustengatuz, lehen **sakatua** eman zion. [Harkaitz Cano](#)

6 gezurra sakatu gezurra esan.

-Ez - **gezurra sakatu** zion, boz sendoz-. [Elena Touyarou](#)
Haren izenik ez zen agertzen baserriko orduko egotzaren artean, eta horrek frogatzen zuen hor bizi zela erran zuenean **gezurra sakatu** zuela. [Elena Touyarou](#)
Han nengoan, goxoki, ba lo, ez lo; karkulatzen ari nintzela, nagusiari **gezurra sakatuko** niola... ardi errebelatuaren ondok luza ibili nintzela, edo horrelako zerbait. Ospitalean egon zen eta bildu zituen zaurietaz medikuei **gezurra sakatu** zien: maitale ohia jin zitzaion eta dirurik eman ez ziolako kasik hil arte jo zuen. [Daniel Landart](#)
Egiazko hobendunak dira kondenuatuak izanak direnak **gezurra sakatu** baitute eta haurrak bortxatu gezurti izaiteko. [Herria](#)
Denak xeheki kondatzen ditu, den mendreneko **gezurrik sakatu** gabe. · Behin **gezur** bat **sakatzen** duenak alabaina ez ote du beste bat berdin aise jalgitzen ahal? [Michel Oronoz](#)
Apirilaren lehenaren antzekoa da Hegoaldeko inuxentent eguna, erran nahi baita edozein **gezur saka** daitekeela abenduaren 28-an, hala nola egiten den Iparraldean apirilaren 1-ean. [Herria](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azeleragailua sakatu (7); azeleragailuari sakatu (3); balaztari sakatu (3); berriri sakatu (3); botoi bat sakatu (8); botoi guztiak sakatu (4); botoia sakatu (34); botoia sakatu

zuen (10); **botoiari sakatu** (7); **botoiari sakatu zion** (3); **ederra sakatu** (5); **gezurra sakatu** (4); **katua sakatu** (9); **katua sakatu zuen** (3); **ondo sakatu** (4); **tekla bat sakatu** (7); **tekla sakatu** (5)

hortzen artean sakatuz (4)

botoiari sakatzen (3); **botoiei sakatzen** (3); **sakatzen eta sakatzen** (3); **teklak sakatzen** (4)

sakatu², saka, sakatzen du *ad* sakea atera.

Ondo **sakatuz** lorturiko abantailari esker, Agirrek hamaika tanto egin zituen jarraian, mota guztietakoak gainera (11-3). Berria - Kirola

Doneztebeako ezin hobeto **sakatu** zuen atzoko partidako hasierako tantoetan, lehen pilotakadatik behartu zuen Altuna II.ren jokoan. Berria - Kirola

Hasieran paretara **sakatuko** dut; gero, ordea, baliteke zabalera ere **sakatzea**. Berria - Kirola

Ezin **saka**, utzi dio sakea lagunari, berak aldiz sarea zainduz ahal bezala ezkeraz. Herria

Jendeak ezin sinetsu manera hortan apuñatik **saka** zitakeela zuzenean, pilotak gibelean errebot egin eta efetua beheiti eginez arras bitxi. Herria

Pilota partida batean bezala, nork du hobekien **sakatzen**, nork hobekien jokatzen. Herria

Bonetbeltz ainitz gustatu zaigu harekin, ernea, bipila, airez sartzen, **sakatzen**. Herria

Ni sakatzaile txarra naiz, baina binaka eta banaka **sakatzea** ez da berdina. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ongi sakatzen (5); **ongi sakatzen du** (3)

sakatzaile¹ *izond* sakatzen duena, bultzatzailea.

Talkaren beraren indarrak ere eragiten du sua, nahiz eta haize-kolpe **sakatzailea** hotza eta hasieran su gabea izan, dudarik gabe, zartada gogorrez jotzean, beroaren elementuak atera daitezkeelako. Xabier Amuriza

Horrela, haize **sakatzaileak** toki berean pilatzen eta galkatzen dituzte, gar koloreei distira ematen dieten hazi estutuak jaurtitzeko. Xabier Amuriza

sakatzaile² *1 iz* sakea ateratzen duen pertsona. ik **sakalari**.

Auzmendik **sakatzaile** trebea dela gogorazti zien Ezkurra eta Ioni, eta bere sakeek hasiera baldintzatu zuten. Berria - Kirola

Ni **sakatzaile** txarra naiz, baina binaka eta banaka sakatzea ez da berdina. Berria - Kirola

Sakatzaile hobea da, kolpe biziagoa dauka, aire-joko landuagoa, eraso eraginkorragoa. Berria - Harian

Egun tenis profesionalean ari diren bi **sakatzaile** bortitzenak aritu ziren atzo elkarren kontra. Berria - Kirola

2 (hitz elkartuetan)

Partida bitxia gaur Galarretan: Zeberio II.a aurrelari eta **sakatzaile** lanetan. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sakatzaile ona (3); **sakatzaile trebea** (6)

sakatz *iz* zapaltzea.

Stevie Wonder eta Diana Rossen diskoei dagokienez, oso ondo entzuten dira eta jartzen dituz noizbehinka, CD-aren tiraniatik ihesi, oraindik botoi-**sakatz** arruntaz haratago nire eskuek orratz bat hartu eta disko bat jartzeko errituala egiteko gogoia dutenean. Harkaitz Cano

sake¹ (*orobat sako g.er.*) *1 iz* pilota jokoan eta kidekoetan, jokaldia hasteko pilota jaurtitzea.

US OPEN-a, jotzaileen lurraldea da, **sake** eta bolea dominatzen dutenen erreinua. Berria - Kirola

Sakea, txapagaina, ezker besagaina... lau koadro horien barruko bazter guztietara daki pilota bidaltzen, eta kontrarioa behartzen. Berria - Kirola

Sakea eta erretoa, hala nirela nola berea, zuzenean tantoa lortu ala ez, lehen pilotakadak joko guztia baldintza dezake. Berria - Kirola

Sakea ateratzen du, pilotari gurpil suntsigarri eta erantzun ezinezko bat eraginez. Oskar Arana

Lege zaharreko pilotaria izanda ere, hiru **sake** airez erantzun zituen. Launa **sake** egin dituzte eta 52 minutu iraun du partidak. Berria - Kirola

Berak egin ditu 16 tanto, heietan bost **sake**. Herria

Zortzi **sake** erantzun zituen airez, eta askotan seigarren koadrora jaitsi zen. Berria - Kirola

Sakea sartzea lortzen badu, kontuz lñakirekin! Berria - Kirola

Ruizek 10 **sake** sartu ditu, Eugik baterez. Herria

Unanuek bi **sake** sartu zizkion Peñagarikano azpeitiarrari, eta Berasaluzek bakarra Errasti azkoitiarrari. Berria - Kirola

Oso gaizki ekin zion partidari, oso urduri eta **sakeak** bata bestearen atzetik galduz; guztira bost. Berria - Kirola

Errusiarrak **sakea** kendu zion eta *tie break*-ean lortu zuen garaipena, bere kolpe zehatzei esker. Berria - Kirola

Hirugarrenaren hasieran Mauresmok Suarezen **sakea** hautsi zuen eta erraz iritsi zen seigarren jokora. Berria - Kirola

Hunek, punpe makur bati esker pilota sarean sartzen du Amédéeren aitzin aitzinean..., ez baitu hunek sekulan ahanzi [...] bere lagunaren azken **sake** hori. Michel Oronoz

Pentsa: batean **sakean** eta bestean erreferan, hemeretzi kintze egin ditu oronoztarrak. Herria

Bere aita ezagutu zuelarik, mutikoak petto itsusi bat egin zuen **sakean**. Ramuntxo Etxeberri

Sake erretoaren ostean ere ez zuen gozatu, eta hala ezinezkoa da buruz buru deus egitea. Berria - Kirola

Aurrelari argentinarrek hamalau tanto egin zituen **saketik**. Berria - Kirola

Sakez kale egin du, eta hirugarren partida neuk irabazi. Xabier Etxabe

Nik bi tanto baino ez nituen egin **sakez**, baina ondo aritu nintzen. Berria - Kirola

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sake ona du, eta kolpe ederra. Berria - Kirola

Dejada batekin egin zuen gorrien bigarren tantoa, eta jarraian bi **sake** zital atera zituen. Berria - Kirola

Sarasuak partidaren erakutsiriko **sake** kamutsa. Berria - Kirola

Irujak bolea eta **sake** zehatz pare batekin partida hautsi zuen berriz (18-9). Berria - Kirola

Sake bortitza, lanjerosa. Michel Oronoz

Alboko **sake** luze batean Rayoko atzelariak ez zuten baloia urruntzen jakin eta Cuevasek area txikitik lehenengo gola egin zuen. Berria - Kirola

Orduan, alboko **sake** bat ateratzea egokitu zitzaidan. Joan Mari Irigoien

Irujo eta Eulata binakako txapelidunek egin zuten ohorezko **sakea**. Berria - Kirola

3 irud/hed

Izan ere ez ziren eskaleak, lana galdu edo gizarte lehiakorrean **sakea** galdu zutenak baizik. Iñaki Zabaleta

4 sakea ateratzen duen taldea.

Sakeak hamabost, erreferak esperantza. Edorta Agirre

5 asko jateko edo edateko ohitura.

Denak jatun onak, baina amonaren **sakea**! Joxean Sagatzizabal

Chowder-tarrek biek jasaten dute ondo alkohola, eta bere gorputz tzarrarekin eta bere **sake** itzelarekin, Tomek jarraitu egin diezaieke edariz edari. Oskar Arana

Txinan oro har asko edo sobera jatea oso gaizki ikusita dagoela, eta zaharrek **sake** oneko haurrei esaten dietela: inoiz ez zara deusetara ailegatuko, debru tripazale hori!

Pablo Sastre

Goizeko zortziak eta oraindik kristoren **sakea**... Unai Iturriaga

6 *sakez ipar* bat batean.

Sakez aitaren itxura agertu zitzaidan. Daniel Landart

Argiguneak moztzen du **sakez** azken izaien itzala eta hor berean daukat, azkenean, ene kapera. Piarres Aintziart

Eta **sakez**, anaiak eskainia zidan pilota larruzkoa sakelatik hartuz, firrindaka bota nuen itsasoko ur handietara! Daniel Landart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alboko sake (3); **sake egin** (3); **sake erantzun** (3); **sake falta** (3); **sake on** (3); **sake sartu** (14); **sake sartu ditu** (7)

ohorezko sakea (9); **sakea berreskuratu** (17); **sakea berreskuratu zuen** (4); **sakea egin** (3); **sakea egin zuen** (3); **sakea erabakigarria** (3); **sakea eta erretoa** (3); **sakea hartu** (3); **sakea izan** (5)

alboko sakeak (3)

sakean eta erretoa (3)

lortu zituen sakearekin (4); **sakearekin asmatu** (8); **sakearekin asmatu dut** (3); **sakearekin asmatuz** (4); **sakearekin asmatzen** (4)

sakearen erretoa (5)

sakeari esker (5)

saketik egin (6); **saketik egin zuen** (3); **saketik eginiko** (5); **saketik falta** (4); **tantoa saketik egin** (3)

sake² ik saki.

sake³ iz japoniar edari alkoholoduna, arroza hartituz egiten dena.

Gaur gauean **sakea** edaten aritu al zara? Ibon Uribarri

Oraindik eiki aho sabaietan josirik generaman **sakearen** gustu jarraikia, Padraigen. Itxaro Borda

Pekingo mendi amoltsuen maldetan ekoiztu ardoaren odotik, maitasun sakonez hurrupatu genuen **sake** basotxoetan. Itxaro Borda

Aurreko patioan jasotzen genituen bisitariak, eta te hotza, ur beroa eta **sake** urtsua eskaintzen genien. Javi Cillero

Sushia janez, eta **sake** bikain batetik bapo edanez. Jon Muñoz

Ohitura faltagatik, Sapporo garagardoagatik, edan genituen **sake** beroengatik edo, agian, egoeraren beraren aldrebesagatik, neu ere txoriburutzen hasi nintzen afariaren azken alderako. Hasier Etxeberria

sakeatu, sakea(tu), sakeatzen du *ad* arpilatu. ik harrapakatu.

Uhartea inbaditu, kolonizatu eta **sakeatu** zuten garaian. Berria - Harian

Agintari musulmanak Orreagako bidetik zeharkatu zituen Pirinioak, Bordele **sakeatu** zuen eta Toursera abiatu zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Azkenean mundua **sakeatzera** bidaltzen da bota-garbitzaile edo neskame gisa. Xabier Olarra

sakel ik sakela.

sakela (*orobat sakel g.er.*) 1 iz jantziei egiten zaizkien irekiduretan josten diren poltsa modukoetako bakoitza; orobat, gainean ehun zati bat josirik egiten dena. ik poltsiko.

Haztatu, bada, jakaren barrenko ezker **sakela**, eta eskuak billete bat non aurkituko zion. Matias Mujika

Armarri inperial ez zigorrik eskutitza brusaren barnealdean egindako **sakela** batean gorde zuen arduraz. Karlos Zabala

Mutilak mantalaren bi **sakelak** lurrez bete zizkion, azken kortesia gisa. Karlos Zabala

Gartziak paltoko **sakela** miatu zuen, zenbait plegutan emanak ziren paperak hartu, eta eskuratu zizkion. Elena Touyarou

Palto barruko **sakela** ferekatu zuen: sosa ederki eskuratu zuen Seinan Murtutsen hiltzearen karietara. Itxaro Borda

Mutilak mantalaren bi **sakelak** lurrez bete zizkion, azken kortesia gisa. Karlos Zabala

Emaztea bizkarrez zegoen, gizon batekin solasean, eta bere **sakela** miatu ondoan, zerbait eman zion, dirua naski, paket baten truk. Elena Touyarou

Orduan gutunak **sakelan** gorde zituen. Fernando Rey

-Ongi -esan zuen eta **sakelan** sartu zuen papera-. Matias Múgica

Hartu zuen eskuan bere makila, bost errekarri leun-leun aukeratu eta artzain-zorroko **sakela** batean gorde zituen. Elizen arteko biblia

Hatz lodiak kanpoan utzita, eskuak jakaren **sakeletan**, sabel lodia aurrera, buru handia atzera, harro. Ramon Saizarbitoria

Behar da **sakelan** moltsaño bat diru-paperez ongi hantua. Janbattitt Dirassar

Paul D-k gora begiratu, saihetseko **sakelako** mugimenduaz ohartu eta purrust egin zuen. Anton Garikano

ik *beherago* 6. Askoren artean

2 irud/hed ik poltsa 6.

Sakela hutsik nagok larunbatera arte, orduan ordainduko baitidate... Lopez de Arana

Sakela hutsik nekarren; burua ongi betea. Andoni Egaña

Batzuen lana, familia elikatzeko; bestetzuena, **sakela** puzteko. Berria - Mundua

Kortejatzaile gisa **sakela** diruz beteta zeukaten bi lagun aukeratu zituzten, bata merkataria zen eta bestea ere bai. Pello Lizarralde

Aurkituko zuen Ostolazari **sakela** arintzeko modua, aurkituko zuenez! Migel Angel Mintegi

Alde ederra gaur egungo sektekin, ederki zikiratzen baitiote horiek **sakela** jendeari. Jon Muñoz

Sakela gizona gizona zuten, droga pasatzen zieten lagun aberatsen zuten horrela. Karlos Zabala
Jatorri "ospetsuko" (Modena, Xerez, Borgoina, Libano, etc) ozpinen kontsumoa areagotuz doa, jendearen **sakela** epeldu ahala. Edorta Agirre
Arrantza xumeak miseria gorrian gelditzen ari dira gutxi batzuek **sakelak** betetzen dituzten bitartean. Berria - Euskal Herria

3 (izenondoekin)

Segituan gabardinak forruan duen **sakela** haundi batean gorde du paketea. Pello Lizarralde
Mundu guztiko gutunak eta posta-txartelak -nireak ziren haietako asko, jakina- irteten ziren zapata kutxetatik, **sakela** txikietatik eta paper, plastiko edo larruzko zorroetatik. Joxan Elozegi
Gazta eta ogia zamarrako **sakela** zabalean sartu eta ate aldera jo du. Pello Lizarralde
Kutxa hutsean gorde zuen, eta kutxa galtzetako **sakela** luzean. Koldo Izagirre
Sakela mehar haiek leporaino bete ziren. Karlos Zabala
Zarpa zaharrez janzten zen, eta, hala ere, sos batzuek izaten zituen **sakela** zulatuetan sartuak. Karlos Zabala
Agudo zebiltzan, ilaran, izeba-lobei **sakela** beteen zamak traba egiten ziela. Karlos Zabala

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bere **sakela** zola bezain ongi ezagutzen zituen gudaroste espainiarren nahiz frantsesen ibilbideak. Elena Touyarou
Joan eta joan, hartu zuten Kapito-Harrin gaindi bidez bide, Arruntza eta Arrangoitze alderat Lafitte beti mintzo, galdeak ere huntaz eta hartaz, orena **sakela** xokoan ixil ixila zagoela, noizbait ohartu ziren halere, etxerat itzuli beharko zela. Herria
Gaztetxo aberats handiki haren jiran berehala bildu ziren zuriak eta miatzkatzaileak, bizkarroiak eta zeremonia-egileak, **sakela**-bilatzaile eta diru-xahutzaile prestuenak. J.M. Olaizola "Txiliku"
Saunan bezalakoze izerdi-patsetan biok, larruzko nire **sakela** -xakearen gainean makurturik, eta berau, gure izerdi-tantez, penagarri margultzen ari. Joxe Austin Arrieta

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Egiaz, ordea, Roma dendan [...] giza buruak asma eta giza **sakelak** ordain lezakeen edozein gauza aurki zitekeen. Alberto Ladron Arana

6 sakelako¹ ik sakelako¹.

7 sakelako² ik sakelako².

8 sakela-telefono (7 agerraldi, liburu 1ean)

Sakela-telefonoa joka hasi zitzaion. Jose Morales
Mutirik **sakela**-telefonoaren bibrazioa sentiitu zuen izterrean. Fernando Morillo

9 salekako telefono (216 agerraldi, 28 liburu eta 114 artikulutan) sakelan eramaten ahal den telefonoa. ik segapoto.

Aldez edo moldez, **sakelako telefono** horiek lehenagoko mokanesa eta ganibetaren lekua hartua dute. Siemens markako **sakelako telefono** jakin batzuek kalte egin diezaiokeete entzumenari. Herria
Mahai gainean gin-tonic-a, liburu bat eta **sakelako telefonoa**, piztuta. Iban Zaldúa
Gehienak **sakelako telefonoak** eskuan, metroan joatekoak ziren ezagun edo senitartekoei deika ari ziren. Berria - Harian
Sakelako telefonoen zenbakiak eman genizkion elkarri. memelokeriak esaten elkarri **sakelako telefono** ñimiño eta koloretsua zela medio. Iban Zaldúa
Sakelako telefonoan ari zen emakume baten hitz-hotsak esnatu nau. Pako Aristi
Sakelako telefonoa atera du, eta deiarri erantzun dio. Iban Zaldúa
Han neuzkan, Palais de Justiceko bebarruan beren kronikak bidaltzen **sakelako telefonoetatik**. Koldo Izagirre
UEMAK **sakelako telefonoen** SMS mezuen lehiaketa antolatu du. Berria - Harian
Urteko fakturazioaren %1 ordaindu beharko dute Frantziako **sakelako telefonoen** konpainiek, GSM sareetako baimenak berritzean. Berria - Ekonomia
Gaur egun, "garapena" esanez gero edozein gauza uler dezakegu ia-ia; bai azpiegitura handi bat eraikitzea bai indigena masai batek **sakelako telefono** bat izatea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde
· Lehen ordenagailua oso garestia izan zen, **sakelako** lehen **telefonoa** bezala. Berria - Mundua
· Funerarian, **sakelako telefonotxoaz** gain, denok daukagu halako bat, badakizu: don hildakoei ez zaie ihes egiten utzi behar. Patxi Zubizarreta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sakela batean (3); **sakela hutsik** (4); **sakela telefonoa** (6); **sakela telefonoa joka** (3)
sakelak bete (5); **sakelak betetzen** (3); **sakelak diruz** (3); **sakelak miatu** (3)
sakelako telefona (3); **sakelako telefono** (30); **sakelako telefono bat** (4); **sakelako telefono batetik** (3); **sakelako telefono bidezko** (4); **sakelako telefonoa** (47); **sakelako telefonoak** (39); **sakelako telefonoarekin** (7); **sakelako telefonoaren** (12); **sakelako telefonoaren bidez** (4); **sakelako telefonoari** (4); **sakelako telefonoei** (5); **sakelako telefonoek** (7); **sakelako telefonoekin** (3); **sakelako telefonoen** (19); **sakelako telefonoen bidez** (5); **sakelako telefonoetan** (3); **sakelako telefonoetara** (3); **sakelako telefonoetarako** (3); **sakelako telefonorik** (4); **sakelako telefonotik** (8); **sakelako telefonotik deitu** (3); **sakelako telefonoz** (8)
sakelakoak jo (3)
sakelakoaren bidez (3)
barruko sakelan (3); **esku bat sakelan** (4); **eskua sakelan** (11); **eskua sakelan sartu** (6); **eskuak sakelan** (6); **jakako sakelan** (6); **jakako sakelan sartu** (3); **pistola sakelan** (3); **sakelan dirua** (4); **sakelan gorde** (19); **sakelan gorde zuen** (5); **sakelan sartu** (52); **sakelan sartu zuen** (19); **sakelan sartzen** (3); **sakelan zeraman** (5); **sakelan zeramatzen** (3); **sakelan zeukan** (3); **sakelan zuen** (3); **zamarraren sakelan** (3)
sakelara sartu (7)
alkandorako sakelatik (3); **atera zuen sakelatik** (20); **atorrako sakelatik** (3); **bere sakelatik** (23); **bere sakelatik atera** (3); **bere sakelatik ordaindu** (3); **bere sakelatik ordainduz** (3); **beren sakelatik** (7); **eskua sakelatik** (3); **jakaren sakelatik** (3); **nire sakelatik** (3); **sakelatik atera** (31); **sakelatik atera zuen** (4); **sakelatik aterako** (3); **sakelatik ateratzen** (3); **sakelatik ateraz** (3)
sakeleko telefonoa (3)
eskuak sakeletan (23); **eskuak sakeletan sartu** (3); **sakeletan sartu** (8); **sakeletan sartu ditu** (4); **sakeletan sartuta** (4); **zamarrako sakeletan** (4)
sakeletatik atera (3)
bere sakeletik (6)

sakelako¹ 1 izlag sakelan eramaten dena; sakelan dagoena.

Esan dut lehenago ere gaizkileak ez duela sekulan **sakelako** musuzapirik falta izaten. Koro Navarro
Solas horiek jende guztia jo zuten, eta gehienek gure **sakelako** mokanesak atera genituen. Daniel Landart
Eguzkitako bat, eskularruak eta **sakelako** zapi bat ere aurkitu zituzten. Koro Navarro
-Paul D-k txamarraren **sakelako** botilari heldu zion. Anton Garikano
Beti **sakelako** diru zorroan bere aitaren argazkia eramaten zuen. Gotzon Garate
· Sabeth, bere galtza bakero beltzean, noizbait txuri izandako jostakuz josituen, atze-**sakelako** bere orrazi berdearekin. Joxe Austin Arrieta

2 gauzakiez mintzatuz, sakelan eraman daitekeen motakoa.

Gaur egun, **sakelako** edozein kalkulagailuk egiten du lan handiago eta arinagoa. Pello Salaburu
Gizon gaztea duk oraindik, eta **sakelako** erlojua behar dik andregaiari gustatzeko! Jose Morales
Sakelako gailuak asko garatu dira azken urteotan, eta normala da haien kontrako birusak sortzea. Berria - Gaiak
Kafe-termoak, kanpin-sua, **sakelako** linternak, botila-irekitzekoak. Joxan Elozegi

Sakelako egutegia eskuan duela kalkuluak egiteari ekin dio. Pello Lizarralde

Sakelako agenda elektronikoa bat (PDA) izango da gidariaren eta ibilgailuaren arteko komunikazio tresna. Berria - Gaiak

Hasierako ETakoek azal zuriako **sakelako** liburuak bat zuten lagun. Joseba Zulaika

Bere epopeia idazten hasi zen, letra xehez inprimaturiko bost liburukik osatuko zuten ibai-nobela (hiru bihurtu ziren urte batzuk geroago argitaratu eman zen **sakelako** edizioan). Iban Zaldua

Zednicek kontseilariak lehenbizi Europako **sakelako** mapa bat hedatu zuen, Reicharen armaden egoera militarra aztertu eta azaltzeko. Fernando Rey

1674an, Perrault-ek berak argitaratu zuen "**sakelako**" Vitruvio moduko bat, *Abrégé des dix livres d'architecture* de Vitruve izenekoa. Santiago Iruretagoiena

3 irud/hed

Sakelako derbia. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sakelako labana (3); **sakelako musuzapi** (3); **sakelako salatoskopia** (4)

sakelako² *(orobat **sakelako** g.er.) iz sakelako* telefonoa.

Orduan jo du **sakelakoak**, eta Jaimeren izena irakurri du, letra likidoetan: Jaime, 09:42. Eider Rodríguez

Hegoaldeko **sakelako** batetik Iparraldera deitzeko, minutuko 0,12 eta 0,44 euro artean kobratzen dute Movistarrek eta Vodafone. Berria - Harian

Maddi dutxan zegoen batean, haren **sakelakoan** arakatuta ikasi nituen morroiaren telefono zenbakia. Aingeru Epaltza

Emakumeak txartel bat luzatu zidan: "Elena Duvrescu" jartzen zuen bertan, eta azpian, eskuinaldean, **sakelako** baten zenbakia. Iban Zaldua

Horretaz gainera, **sakelakoa** ere mezua hedatzeko tresna bezala erabili nahi dute. Berria - Euskal Herria

Sakelako baten tamainako aparatua bat. Berria - Gaiak

Karga ezak **sakelako** ustel hori, eta dei ezak, nahi baduk. Lander Garro

sakelakoarekin eginiko argazkiak erakutsiz. Berria - Ekonomia

Ezustean hartu eta aukeratik mugiarazi du bidaiaria **sakelakoaren** doinuak. Urtzi Urrutikoeetxea

Sakelako madarikatuak. Iban Zaldua

sakelaratu, sakelara(tu), salearatzen *(orobat **sakelaratu** g.er. eta **sakelatu** g.er.) du ad sakelara* eraman.

Dena ordaintzera noa -esan zuen ahots erlatsarekin, eskua **sakelaratzu**. Anton Garikano

Atea neronek ireki ondotik, nonbait, giltzak **sakelaratu** nituen oharkabeen. Aingeru Epaltza

Max gelan sartzen zen uneantxe **sakelaratu** zituen Perrettek lumak. Jon Muñoz

Irabazi guztiak Dhandapani osabak **sakelaratzu** zituen. Gotzon Garate

Udan diru poxi bat **sakelaratzeko** lan egiten duten gazteek ez dituzte beti une goxoak iragaten. Berria - Ekonomia

Sos batzuk **sakelaratzeko** saldu egiten dituzte alabatxoak. Gotzon Garate

Berrogei egunean problema gehien ebaztuko zituena izendatuko zuten garaile, eta hark **sakelaratu** zuen dirua. Jon Muñoz

sakelatu ik **sakelaratu**.

sakelatxo *iz sakela* txikia.

Emakumeak aurpegian estalgarri beltz batekin etorriko zen eta soineko berdearekin; lñaki, traje urdin batekin, jakako **sakelatxoan** krabelin bat zuela. Gotzon Garate

sakelako ik **sakelako**².

sakelaratu ik **sakelaratu**.

sakelogiko *izond adkor*

Gazte jendea doakio gehienbat, oilaskoa eta irina ekologiko edo **sakelogikoagoak** baitira kabierra eta trufak baino; edo militantziak bultzaturik, apika. Edorta Agirre

sakeo *iz arpilatzea*.

Txaletean ez, eta herriko batzokian ere ez: gerra aurreko artxibo guztiak galduta omen zeuden, frankistak sartu zireneko **sakeoan** desagertuta. Xabier Mendiguren

Louisianako kostaldeko hiriei eraso eta lapurreta eta **sakeoan** hasi zen, eta 1821. urtean amerikarren itsasontzi bat hondoratu zuen -zeuzkan ondasunak kendu ondoren-. J.M. Olaizola "Txiliiku"

saki *(orobat **sake** eta **saku**) iz zauria. ik sakail.*

Eskutartean zuen ganibetarekin **saki** bat egin zion eskumuturrean. Eneko Bidegain

Ordaintze horrek izen berezi bat bazuen erdaraz: "sisa", iduri izan balu bezala aixtur pare baten **sakia** oihal batean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hemengo **saki** hunengatik da hori -erantzun zizun hatz-muturra aurpegian jarri eta goitik behera labanaz mozteko imintzio eginez-. Hasier Etxeberria

Ilargia tipia da, **saki** mehe bat ortziaren sabelean. Xabier Montoia

Oin zolak **sakiz** xehaturik, odola gogorturik, besoak dilindan, buru-makur, herrestan Zakurrak zepora heltzean, makilarekin hiruzpalau **saku** egin zizkieten sabelean. Eneko Bidegain

Bat-batean, zauri-**saki** sekulakoa ikusi diot besaburuan, besoa enberrari lotzen zaion tokian. Anjel Lertxundi

Begien orde bi xilo ttipi dituzte eta ahoaren orde **sake** baten idurikoa den aho xabal bat, ezpainik gabekoa. Aurelia Arkotxa

Harrobia izeneko lekua mendi mazelako buztinean ireki sarraski itsusia zen, **sake** gorri bat, irudi odola zeriola, dena nahar eta asun, beleen kuku toki ahantzi bat baino ez. Itxaro Borda

2 irud/hed

Aurtengo arrangura nagusia gobernuaren salatzea izan da, eskubide sozialei egiten dizkien **sakuen** gatik. **Herria**

sako ik **sake**¹.

sakon (*orobat sakon g.er.*) 1 izond hondoa oso behean edo gainaldetik oso urrun duena; asko barneratzen dena.

Kolpez josi eta elurrez beteriko zulo **sakon** batera jaurti zuten. **Askoren artean**

-Oso putzu **sakona** daukat ezkaratzean. **Anjel Lertxundi**

Krater **sakon** batean murgil egin dugu, eta itzulipurdika zeharkatu dugu izotza, zalaparta bizian, hondo urtsuraino. **Mirentxu Larrañaga**

Hor egongo dituk sabel **sakoneko** gabarretaraino garraiatu arte. **Jose Morales**

Guk Sansonen putzua deitzen genion ur-bildua sortzen zuen haren oinean, txikia eta **sakona**, igeri egiteko baino gehiago bainua hartzeko baliatzen zitzaiguna. **Bernardo Atxaga**

Zuhaitzen azpitik, zuhaitzetan zihoan ibaia, ur gaina belarrez beteta, ibai **sakon**, hotz, gardena. **Josu Zabaleta**

Ibairik **sakonenak** irristatzen dira isilen. **Juan Kruz Igerabide**

Ibar **sakon** bat da, zintzur estu bat bi malda harkaiztsu, basoz bete, handiren artean. **Josu Zabaleta**

Oraindik amildegi **sakon** bat igaro behar zuten ihes egin nahi bazuten. **Askoren artean**

Leize **sakon** eta urrunetan. **Agustin Otsa**

Arku sail baten azpitik igaro ginen, beherago jaitsi, aurrera jo, eta berriz ere behera eginez, kriptu **sakon** batera iritsi ginen. **Koro Navarro**

-Aurrena zauri **sakona** ikusi nion Luteziari bekokian, ezker begiaren gainean. **Matías Múgica**

Sirius odola zeriola zegoen; ebaki **sakonak** zituen muturrean eta bizkarrean. **Iñaki Mendiguren**

Ahoaren ertzetan bi zimur **sakon** zituen, berriak. **Koro Navarro**

Itsaso ilun eta **sakon** batetik itendako antxetak bezala. **Felipe Juaristi**

Atzo Van Daan andrearen plater **sakon** bat eskuetatik irristatu eta mila puska egin nuen. **Josu Zabaleta**

Illaran zeuden azpil **sakonak** seinalatu zituen. **Iñaki Mendiguren**

2 irud/hed

Haren begiek begizulo **sakon** batzuetatik begiratzen zioten. **Alberto Ladron Arana**

Amaren eritasunak eta heriotzak arrasto **sakona** utzi bide zuten Poeren memorian. **Koro Navarro**

Tristurak, baretu denean ere, lorratz **sakon** bat uzten du zure baitan. **Pako Aristi**

Hemen behean geratuko da Gorria gaixorik, joritasunaren basamortu eta ahazturaren jungla **sakon** honetan. **Joseba Sarrionandia**

Zeregin jasoetan erdarara jotzeko ohiturak sustrai **sakonak** ditu, beraz, gure herrian. **Koldo Zuazo**

Ur **sakonak** dira giza pentsamenduak, zentzudunak asmatzen du ateratzen. **Elizen arteko biblia**

Herio-leize **sakonetik** Frantzisko Aita errukiarrari konfiantza handiz deitu zioten. **Askoren artean**

3 azalekoa ez dena, hondoraino doana, asko barneratzen dena; oso barnean sortzen dena.

Berak azaltzen ditu gauza **sakon** eta gordeak. **Elizen arteko biblia**

Ur handiak arrain itsuentzat direla eta arrain itsuen pare diren jakintsu, intelektual eta teorikoentzat; gai **sakonak** horretarakoxe direla, galtzeko, eta ez nork bere burua aurkitzeko edo jakintsu agertzeko. **Iñaki Segurola**

Soinu **sakon** eta betea zuten doinuaren notek. **Irene Aldasoro**

Eremua espazio **sakon** bat da, baina gainazal plano batean irudikatua. **Josu Zabaleta**

Mundua aldaketa prozesu **sakon** batean sartua zegoen. **Askoren artean**

Azterketa **sakonago** batean, hiruzpalau gauza arras desberdin somatu ahalko dira. **Isabel Arrigain**

Gogoeta **sakon** batean murgildu zen Héraclius Gloss, pozaren pozez zurbildurik. **Josu Zabaleta**

Halako bake **sakon** bat barneratu zaio orain, gizasemeak burutu nahi izaten dituen grina guztiak airean desegin balitzaizkio bezala. **Pako Aristi**

Misterio handi eta **sakonen** atek jo ondoren. **Imanol Unzurrunzaga**

Jakinmin **sakon** batek altxarazten zizkigun begiak liburutik eta bultzatzen gintuen [...] kalera eta moilaren burura. **Joseba Sarrionandia**

Europako kultura zaharrean sinbologia **sakona** zuen landare parasitua dugu mihura. **Patziku Perurena**

Bada hor logika **sakon** bat, Jainkoarena berarena dena. **Askoren artean**

Morfina injekzio bat sartu zuen, eta lozorro **sakon** batean geratu zen. **Josu Zabaleta**

Eguzkia ari du, zeruak urdin **sakon** bat du. **Josu Zabaleta**

4 (beste izenondo batzuekin loturik)

Zurezko ontzi karratu-**sakonetan** sailkatzen genuen alea. **Txillardegi**

Isildu, eta hasperen luze **sakonak** egiten zituen berriro. **Jose Morales**

Duchesne izeneko emakume batekin harreman luze **sakona** bezain ezkutukoa izan zuen. **Karlos Zabala**

Bertsulari sentikorra, hitz neurtu **sakonez**, bere sentimenduen berri zazkienak zabaltzen. **Herria**

Divertimento arin bat kanpotik, gizartearen kritika zorrotz **sakona** barrutik. **Antton Olano**

-Nortaz ari zara? -galdetu zuen, ahots apal **sakonez**. **Jose Morales**

Zergatik poz hori, alaitasun **sakon**, ulertezin hori? **Josu Zabaleta**

Jesuitetatik nahigabez kalera ateratzen nintzen, agnostizismo **sakon** ilunean hogeitaz urteko ibilaldia hastera. **Juan Garzia**

Analisi zorrotz, **sakon**, argi, zehatz garbiaren bidez. **Jenaro Garate**

Ustekabean, bat-bateko aldaketa **sakon**, latz, burtzoragarri hori gertatu zitzaion. **Jose Morales**

Tristura handi, **sakon**, ezin gaindituzko batek hartzen eta betetzen zuen dena. **Koro Navarro**

· Serioak, izatekotan ere, beste horiek dira, bizitzeko bilatzen diren arrazoi horiek, sakonetik oso gutxi duten arrazoi **sakon**-usteko horiek. **Iñaki Segurola**

5 irud/hed

Haren zaunka **sakon** eta durunditsuek gazteluan guztiak esnatuko ote zituzten beldurrez. **Iñaki Mendiguren**

Patxadaz piztu eta atxiki **sakona** eman zion. **Migel Angel Mintegi**

Oso hasperen **sakona** egin zuen gero. **Jose Morales**

Eta haren arnasestu **sakona** entzun nuen, haren eutsi ezinezko zirrara. **Jon Muñoz**

-Ez da sekula esnatuko lo **sakon** horretatik -esan zuen Denethorrek-. **Agustin Otsa**

Gero loak hartu ninduen, edo lozorro **sakonak** bederen. **Txillardegi**

Patxadaz piztu eta atxiki **sakona** eman zion. **Migel Angel Mintegi**

Txirria sutu eta zupada **sakon** bat eman dio. **Pako Aristi**

Egia esan, ez da lagun-laguna, ezaguna besterik ez -zupada **sakona** eman zion Winstonari-. [Sonia Gonzalez](#)

Hirugarren musua **sakonagoa** izan zen. [Jon Muñoz](#)

Nire bi-ga-rrren lehengusua subnormal bat dela, subnormal **sakona** ! [Unai Iturriaga](#)

6 (izan aditzarekin)

Putzuak oso **sakonak** ziren; haietatik baina baterako adina ur ateratzea lan gogorra zen. [Josu Zabaleta](#)

Sakonak dira polemika horren sustraiak, neurologiaren filosofiarenak bezain **sakonak** . [Xabier Olarra](#)

Galera horren oihartzuna **sakona** zen oso. [Xabier Olarra](#)

Hautura eta oroimina **sakonagoak** dira baldin eta, haztean, utzi edo galtzen badugu jaiotetxea edo haurtzaroko bizilekua. [Xabier Olarra](#)

Ur **sakon** dira gizakiaren hitzak, erreka gainezka, zuhurtzi iturri. [Elizen arteko biblia](#)

Bai handi eta **sakonak** Jainkoaren eskuzabaltasuna, jakinduria eta ezaguera! [Elizen arteko biblia](#)

Zurrinbiloak edo osinak hain izaten dira zabalak eta **sakonak** , non itsasontziak, haren erakarmenaren barruan sartzen baldin badira, erremediorik gabe gertatzen baitira irentsiak eta hondoratutak. [Koro Navarro](#)

Gogoratu etengabe zeinen **sakona** den zeure ezereza. [Joan Mari Lekuona](#)

Baina [zauriak] hain ziren ugariak eta **sakonak** , ez baitzuten sendatzerik lortu, eta etsi egin zuten. [Askoren artean](#)

Gero eta goibelago zegoen, haren mistizismoa gero eta **sakonagoa** zen, eta depresioak, berriz, etengabeak. [Jose Morales](#)

Sakona izanik, identitatea ez da, hala ere, irizpide bat. [Xabier Arregi](#)

Maitasuna **sakona** izanagatik, sumindura indartzen zijoakion. [Fernando Rey](#)

7 sakontasuna adierazten duena.

Behin, institutuan zebilen lagun bati 'Kcappo' nire nobelari buruzko lan bat egin nion, bost folio **sakon** idatziz. [Pako Aristi](#)

Liburu sintetiko eta **sakona**, baita gardena ere. [Askoren artean](#)

Egia bilatzen duen pentsalari **sakona** . [Xabier Kintana](#)

Jende **sakonak** ez du luze jarduten hizketan; are gutxiago idazketan. [Iñaki Seguro](#)

8 (neurrietan)

Hiramek brontzezko hamar orga egin zituen; bi metro luze ziren, bi metro zabal eta metro eta erdi **sakon** . [Elizen arteko biblia](#)

Aldare inguruan erretena zegoen, **sakon** eta zabal metro erdi zena. [Elizen arteko biblia](#)

Gailurraren tankerak, ordea, gutxienez berrehun oin **sakon** zen arro biribil harekin, eman zezakeen noski bidea hala zela burura zekigun. [Juan Garzia](#)

9 (adizlagun gisa)

Espaloiaren bestaldetik, ibaia zihoan, zabal eta **sakon** alde hartan, non batel-estropadak egiten baitziren udan, inguruetako auzoen gozagarri. [Juan Kruz Igerabide](#)

Kea **sakon** barneratu du, urdaileraino. [Aingeru Epaltza](#)

Ez zarete ausartzen zeuk gauzei **sakon** eta arretaz begiratzen, nahiago duzue gaingiroki behatu, inolako gogoetarik egin gabe. [Jose Morales](#)

Komeni da historia ere **sakon** ezagutzea. [Santiago Iruretagoiena](#)

Eibarko giro kosmopolitak **sakon** eragin zion musikari gazteari. [Koldo Izagirre](#)

Notazio hamartarra **sakon** sustraitua baitzegoen bizitza praktikoan. [Iñaki Mendiguren](#)

Idazkietako Frantzisko, lehenik eta behin, Jainkoaren irrika sutsu eta garbiak **sakon** markaturiko gizona da. [Askoren artean](#)

Desadostasun horrek **sakon** sustraituriko egonezin espirituala sortu zuen. [Iñaki Mendiguren](#)

Erniek kosk egin bere ezpain zuriei eta gero, arnasa **sakon** harturik, esan zion: [...]. [Iñaki Mendiguren](#)

Aita gelditu eta, arnasa **sakon** hartuta, begiratu egin zidan. [Alberto Ladron Arana](#)

Sakon hasperen egin eta Harryri begiratu zion. [Iñaki Mendiguren](#)

Aharrausi egin dut, hain **sakon** ezen negar malko bat etorri zait begietara. [Monika Etxebarria](#)

Harry gelditu geratu zen pixka batean, **sakon** gogoeta egiten. [Iñaki Mendiguren](#)

Kontua **sakonago** aztertzea erabaki nuen, psikoanalisiari buruzko eskuliburuak irakurtzea. [Juan Kruz Igerabide](#)

Erroetarago eta **sakonago** begiratzuz, orainaldian bizi dugun denborak funtsean duen izaera arrotza aztertzeke tresna izan da zinema. [Josu Zabaleta](#)

Espaloiaren bestaldetik, ibaia zihoan, zabal eta **sakon** alde hartan, non batel-estropadak egiten baitziren udan, inguruetako auzoen gozagarri. [Juan Kruz Igerabide](#)

10 (izen gisa) ik **sakonera**; **sakontasun**.

Hiramek brontzea urtu eta "Itsaso" deitu zuen uraska biribil bat egin zuen; ertz batetik bestera bost metroko diametroa zuen, bi metro eta erdiko **sakona** eta hamabost metroko ingurua. [Elizen arteko biblia](#)

Haraino joango gaitun igerian, **sakona** dagoen alderaino, eta gero estu-estu elkar besarkatu eta hondora ereriko gaitun. [Koldo Biguri](#)

Ezin parekatu dira inola ere gure sorkariak eta Haren eginen zabalatasun, sakontasun eta ulergaitzatasuna, Demokritoren putzua baino handiagoa baita haiek beren baitan duten **sakona** . [Koro Navarro](#)

Oihanaren **sakonera** egiten zituen joan-etorrietan. [Jon Muñoz](#)

Nolatan, baina, gailurretatik **sakonetara** amildu norberaren erditik igaro gabe? [Imanol Unzurrunzaga](#)

Keinu izugarriak ari zen egiten, ahoa estuturik, masailak **sakonerraino** ildokaturik. [Josu Zabaleta](#)

McCloskey estatubatuarrak **sakonean** aztertu zuen auzi hau. [Iñaki Heras](#)

Ez dut astirik gai hau **sakonean** jorratzeko. [Iñaki Iñurrieta](#)

Sakonean denok ere berdintsuak garen seinale. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Sinesten duenarekiko atxikimenduaren, koheretziaren eta kuraiaren erakustaldia dugu, sistemaren alde krudelena **sakonetik** ezagutzen duen batek izkiriatura. [Filipe Bidart](#)

Loak **sakonenean** harrapatu zaituenean hasi da negarrez. [Arantxa Iturbe](#)

Kolpeak 25 metroko **sakoneko** eta 100 metroko diametroko krater bat sortu zuen. [Berria - Gaiak](#)

11 (izen gisa, -en atzizkiaren eskuinean)

Azkenean amildegiaren **sakonerraino** erori zen. [Askoren artean](#)

Hogeita hamasei edo berrogei besokoa da uraren **sakona** . [Koro Navarro](#)

Berriz ere sentimendu beltz hura gaineratu zitzaidan, bularraren **sakonenean** hazten. [Alberto Ladron Arana](#)

Totte ez zen den-mendrenik oharitu Lilaren aluaren **sakona** zirrikatzen ari zela. [Itxaro Borda](#)

Barre-algara hura bere sinesmenen **sakonetik** erne zen, sua errautsetik bezala. [Bernardo Atxaga](#)

Horrek konbentzitu zuelako, azkenik, Antonioren eromenaren **sakonaz** . [Iban Zaldúa](#)

Amak bere arimaren **sakona** irekitzen dio bere alabarik maiteenari. [Askoren artean](#)

Ez naiz saiatu osotasun galdu bat bilatzen, ezta berpizten ere hitzaren betetasun bizia, berbaren aberastasuna, logosaren batasunaren **sakona** . [Xabier Arregi](#)

Urrutieneko izarraz arduratzen zen, ozeanoaren **sakonenean** zegoen harkaitz batez, hauts izpi txikiak. [Koro Navarro](#)

Kultura baten **sakonenean** sustraiturik dauden sinesteek ez dute, sarri askotan, inolako oinarri logikorik. [Juan Garzia](#)

Amazoniako oihanaren **sakonean** galdutako gizon batek. [Jon Muñoz](#)

Oso zapalduta egonda ere, izaera primitiboak kontzientziaren **sakonean** irauten du. [Iñaki Mendiguren](#)

Neskatoaren besotik agurearen betazalen barneko **sakonera** isurtzen zena bizitzaren jariora zen, bizitzaren ahairea, bizitzaren lilura. [Ibon Uribarri](#)

12 (hitz elkartuetan)

Espirituak, izan ere, guztia aztertzen du, bai eta Jainkoaren barne-**sakona** ere. Elizen arteko biblia

13 *sakoneko izlag* sakonetik datorrena, sakona.

Sakoneko asperdura, existentziala, haserrea ia. Eider Rodriguez

Sakoneko eta sustraizko aldaketa adierazten du paradigma-aldaketa kontzeptuak. Patxi Altuna

Sakoneko mezua argia zen. Edorta Jimenez

Hori da egiazko **sakoneko** arrazoia. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Sakoneko higuin batek hartua zidan barrena. Josu Zabaleta

Badakigu ez dela erraza, arazoa oso **sakonekoa** delako. Berria - Harian

14 *sakon-sakon izond*

Erruki **sakon-sakon** bat sartu zitzaidan ariman harenganako eta haur haienganako. Josu Zabaleta

Sakon-sakonean, ezintasun horrek eragina da ingurukoekiko oharmen-falta, jendeari buruzko jakingurarrik eza eta balio-kontuen duen muga. Xabier Olarra

Bizia da Jainkoaren hitza, bizia eta eragin handikoa, aho-biko ezpata bera baino sarkorragoa: gogo eta espirituren **sakon-sakoneraino** sartzen da. Elizen arteko biblia

Horrela, gaztetzen zuen beroa igo zitzaion gorputzaren **sakon-sakonetik**. Ibon Uribarri

Sakon-sakonetik ezagutzen zituen antzinako filosofiak eta filosofia moderno guztiak. Josu Zabaleta

Iritsi al zara itsasoaren iturburuetaraino edota ibili ote ur-leizearen **sakon-sakonean**? Elizen arteko biblia

Zehazgabetasun xume horiek aldatu egiten al du, akaso, oinazearen zentzu **sakon-sakonekoa**? Karlos Linazasoro

15 (adizlagun gisa)

Arnasa **sakon-sakon** hartu du. Jokin Muñoz

Zorionez ez zitzaidan **sakon-sakon** sartu ere. Urtzi Urrutikoeetxea

Sentimendurik gorenak, aratzenak, gizakiaren baitan **sakon-sakon** barneratzen den musika batek askatuak. Alberto Ladron Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

ahots sakon (18); aldaketa sakon (19); aldaketa sakon bat (6); amildegia sakon (6); arazo sakon (4); arnasa sakon (85); arnasa sakon hartu (50); arnasa sakon harturik (5); arnasa sakon hartuta (5); arnasa sakon hartuz (7); arnasa sakon hartzeko (6); arnasa sakon hartzen (4); arrazoia sakon (4); azterketa sakon (14); azterketa sakon bat (10)

ebaki sakon (4); erreforma sakon (4); eztabaida sakon (6); gaia sakon (7); gauza sakon (6); gogoeta sakon (14); gogoeta sakon bat (4); gogoeta sakon eta (4); hartu du sakon (5); hartu zuen sakon (7); hasperen sakon (12); hasperen sakon bat (9); hausnarketa sakon (8)

ikerketa sakon (9); ikerketa sakon bat (6); isiltasun sakon (10); krisi sakon (4); krisi sakon batean (4); lan sakon (5); leize sakon (7); lo sakon (9); luze eta sakon (7); modu sakon (4)

pase sakon (6); pase sakon bat (4); prozesu sakon (4); putzu sakon (8)

sakon arnasa hartu (4); sakon aztertu (37); sakon aztertu ostean (4); sakon aztertuko (6); sakon aztertuz (4); sakon aztertzeko (10); sakon aztertzen (10); sakon errotua (4); sakon eta zabal (5); sakon ezagutzen (7); sakon eztabaidatu (4); sakon hartu (79); sakon hartu zuen (25); sakon harturik (5); sakon hartuta (5); sakon hartuz (7); sakon hartzeko (6); sakon hartzen (9); sakon hausnartu (5); sakon sakon (11); sakon sakona (5); sakon sakonean (46); sakon sakoneko (10); sakon sakonetik (12); sakon sartu (6); sakon sartuta (4); sakon sustraitua (4)

sentimendu sakon (9); ur sakon (4); zabal eta sakon (9); zauri sakon (5); zimir sakon (5); zulo sakon (10); zupada sakon (4)

ahots sakona (6); aldaketa sakona (32); analisi sakona (4); arrasto sakona (18); arrasto sakona utzi (12); azterketa sakona (22); azterketa sakona egin (9)

ebaki sakona (4); eragin sakona (11); eragin sakona izan (5); erreforma sakona (9); esanahi sakona (5); ezagutza sakona (11); eztabaida sakona (13); garbiketa sakona (4); gogoeta sakona (28); gogoeta sakona egin (10); gogoeta sakona egitea (4); hasperen sakona (18); hasperen sakona egin (14); hausnarketa sakona (25); hausnarketa sakona egin (8); hausnarketa sakona egiteko (6); ikerketa sakona (15); ikerketa sakona egin (4); isiltasun sakona (6); kritika sakona (4); lan sakona (12); lan sakona egin (4); lo sakona (7); luze eta sakona (6)

politiko sakona (7)

sakon sakona (5)

tristura sakona (4); zauri sakona (4); zentzu sakona (4); zulo sakona (7)

are sakonago (6); askoz sakonago (5); gero eta sakonago (17); maila sakonago (6); maila sakonago batean (5)

sakonago aztertu (7); sakonago aztertu (6); sakonago aztertzeko (5); sakonago ezagutzeko (5); zenbat eta sakonago (5)

arazoa sakonagoa da (5); are sakonagoa (6); askoz ere sakonagoa (5); askoz sakonagoa (4); azalekoa baino sakonagoa (10); azterketa sakonagoa (14)

gero eta sakonagoa (9)

gero eta sakonagoak (4)

aldaketa sakonak (33); aldaketa sakonak egin (6); azterketa sakonak (9); begi sakonak (5); desadostasun sakonak (7); elkarrizketa sakonak (4); erabaki sakonak (5); erabaki sakonak hartzeko (5); erreforma sakonak (8); erro sakonak (6); eztabaida sakonak (6); gai sakonak (5); gogoeta sakonak (8); harreman sakonak (7); hausnarketa sakonak (6); ikerketa sakonak (5); sustrai sakonak (8); urrats sakonak (4); zauri sakonak (4)

ahots sakonaz (6)

arimaren sakonean (5); baina sakonean (5); bere sakonean (4); bihotzaren sakonean (9); gogoeta sakonean (4); isiltasun sakonean (4); itsaso sakonean (4); koma sakonean (5); krisi sakonean (16); lo sakonean (9); lozorro sakonean (4); modu sakonean (4)

sakon sakonean (46)

zulo sakonean (4)

sakon sakoneko (10); sakoneko aldaketa (8); sakoneko aldaketak (7); sakoneko aldaketarik (4); sakoneko arazoa (13); sakoneko desadostasunak (4); sakoneko egia (4); sakoneko gogoeta (4)

aldaketa sakonen (5); gogoeta sakonen (4)

gai sakonetan (4); gogoeta sakonetan (7); ur sakonetan (9)

ahots sakonez (8)

aldaketa sakonik (6)

sakonagotu, sakonago(tu), sakonagotzen da/du *ad* sakonago bihurtu.

Horrez gain samina areagotzen dugu gure intziriak **sakonagotzen** eta gure malkoak doblatzen dituen gastuak eginez. Xabier Olarra

Sakonagotzen da laguntasuna eta partaide egiten du bere zorionean. Joan Mari Lekuona

Oso gris iluna da, ia beltza, eta badakizu begiak **sakonagotzen** dizkizula. Sonia Gonzalez

sakonagotze *iz* sakonago bihurtzea.

Sentimenaren erantzunaren **sakonagotze** bat ateratzeko hortik. Xabier Olarra

sako (*orobat sakon-alde*) *iz* alde sakona.

Artista bakoitzaren gogamenaren **sakonaldeak** badu eredu moduko bat edo arkitektura mota bat. Xabier Olarra

Maila apalagoan bada ere, horixe bera gertatzen zitzaion Francori: Pontito zuen bere pentsamendu guztien **sakonalde**. Xabier Olarra

Su eternoa lurraren **sakonaldeetan** ezkutatzen den bezala. Xabier Olarra

Nahi gabeko oroimenak baizik ez dezake ekar oso-osorik, **sakonaldeetatik** berez jalgiz, inozentzian, harriduran eta izuan bildurik, haurtzaroko esperientziaren zer-nolakoa.

Xabier Olarra

sakondegi iz gune sakona.

Haizta eta harri-txintxarra dauzkagu berriz, berdetasuna **sakondegietan** ezkututzen baita. **Berria - Kultura**

sakondu, sakon(du), sakontzen 1 du/da ad sakonagoa egin.

Ostarte urdinak, hodei zuri harroen zuriak berak ilundurik itxuraz, **sakondu** -edo egin ziren beren urdinean. **Txillardegi**

Sakondu egin zitzaion depresioa S.B.ri; gaixotu, eta, operazioetik bi urtera, hil egin zen. **Xabier Olarra**

Muga klandestino iragan genuen hartan egiten zuen eguraldia adierazi behar du odol zipiritzakin indartzeko, laidoaren mindura **sakontzeko**, urduritasuna girotzeko.

Koldo Izagirre

Arnasa **sakondu** zaio bat-batean Anari. **Iñaki Iñurrieta**

Arnasa **sakonduz** eta bizkortuz erantzuten zaio muskuluek egoera horretan duten oxigeno-eskakizun handiagoari. **Irene Aldasoro**

Aho zabalik geratzen ginen entzuten, gure aulkietan uzkuriturik, beldurrez eta negarrez **sakondutako** begi tristeekin. **Joseba Sarrionandia**

Tunelerantz egin ahala, ezpata ikusezin batek ebakia **sakontzen** du poliki lgerdo eta Santa Klararen artean, eta zauriaren arrosa argia gorriminduz, odolduz doa. **Iñaki Iñurrieta**

2 sakonago bihurtu.

Eta zuk, Daniel, gorde isilpean mezu hau eta itxi zigiluz liburua azken garaira arte; orduan, askok aztertuko dute eta beren jakinduria **sakonduko**. **Elizen arteko biblia**

Geroago, gizakien arteko harremana **sakonduz** arimaren kultura ere sortu zen munduko leku batean bizitzeko. **Askoren artean**

Giza eskubideak hain arretatsu hedatu eta **sakondu** diren mende honetan, neskatilak ez du jarraitu behar bere familiaren esklabo dela pentsatzen. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Norbaitekin oheratzeak adiskidetasunaren adierazgarri izan beharko luke, adiskidetasun hori osatu eta **sakondu** beharko luke, eta ez inolaz ere hondatu. **Karlos Zabala**

Bere hitzek bereizketa **sakontzeko** baino ez dute balio. **Berria - Mundua**

Herbehereetako ezezko biribilak krisia **sakonduko** du European. **Berria - Harian**

Lorpen sozialak sendotu eta **sakontzeko**. **Berria - Mundua**

Tarte honetan arazoak eta ezberdintasunak **sakondu** eta okertu besterik ez dira egin. **Pako Aristi**

3 sakonunea egin; hondorantz jo.

Murruetako arraildurak petatxatu zituzten, lubaki betetzen hasiak **sakondu**. **Aingeru Epaltza**

Ura ere aterako da, putzuak **sakonduz** edota bat-bateko euri-eratsiak direnean teiletatik erortzen den ura jasoz. **Santiago Iruretagoiena**

Bide beretik joan ziren, baso-bide hartan barnatuz joan ziren, labana gurinetan bezala, zaurian **sakondu** ahala. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Txistuz edo labaingarriz bustiko du bere kirtena, eta xamurki aurkeztuko dio **sakondu** nahi duen zulo politari. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

4 irud/hed

Aldi honetan, nolabait, gau hartan baino adierazkorrako hitz egin zuen, benago, gogagarriago Amerikaren etorkizunaren gaineko bere etsipenean **sakontzen** zuen heinean.

Oskar Arana

5 (zerbait) arretaz aztertu edo hausnartu, hura hobeto ulertzeko eta ezagutzeko.

Zentzuzko erantzunak dirudite, baina, pixka bat **sakonduz** gero, berehala ikusten zaie amarrua. **Joxerra Garzia**

Zenbat eta gehiago **sakondu**, orduan eta ulergaitzagoa duk natura, bai horixe! **Jose Morales**

Beste batzuek teoriaren azterketa pragmatiko eta sozialean **sakondu** dute. **Askoren artean**

Gaian **sakondu** gura duenak, badiu Interneten kontzentrazio-esparruetako hiztegiak. **Urtzi Urrutikoetxea**

Tesia egin nuen, eta literaturaren zein filosofiaren arlo zenbait **sakontzen** jarraitu. **Juan Kruz Igerabide**

Izan ere, ez dute inola ere **sakondu** denboraren egiazko izaeran. **Xabier Kintana**

Agerpenei dagokien "objektu" hitzaren esanahiaren inguruan gehiago **sakondu** beharko genuke. **Ibon Urbarri**

Errepara diezaiogun baina, ekimenaren aldeko ikuspegian **sakonduz**, ustezko arazo teknikoaren aldeari. **Iñaki Heras**

PPK 2003ko uztailaren dekretu bidez onartu zuen erreforman **sakonduko** du akordio berriak. **Berria - Ekonomia**

Iruditeriaren kontzeptu hori asko **sakondu** dute psikoanalisiaren ikuspegitik zinemari buruz egin diren lanek Narrazio batek zergatik egoskortu behar du, bere benetako

esparruak aztertu eta **sakondu** ordez, menostu baten konplexu gogaikarri hori erakutsi, eta zinemari kompetentzia inozoa egiten? **Josu Zabaleta**

6 (era burutua izenondo gisa)

Braillea ez ezik, ingelesa ere erabilia baitzuen eskolan, letra konkortu edo **sakondu** batzuk baliatuz ikas-tresnatzat, eta gai omen zen nahiko segida onean irakurtzeko.

Xabier Olarra

Bere gogoeta zorrotzak, **sakonduak** eta gizontasunez neurtuak ez ditu bakarrik Euskal-Herriko gaietara mugatu, Europara eta mundu zabalera ere hedatu ditu. **Herria**

hitza multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arnasa sakondu (3); autogobernua sakondu (3); bide horretan sakondu (5); bidean sakondu (3); gaian sakondu (4); gehiago sakondu (15); gehiegi sakondu (7); harremanak sakondu (4); lanean sakondu (5)

autogobernua sakontzea (4); demokrazian sakontzea (5); harremanetan sakontzea (3)

autogobernua sakontzeko (8); estatutuan sakontzeko (3); harremanak sakontzeko (3); hezkuntzan sakontzeko (4); sakontzeko asmoa (5); sakontzeko asmoz (5); sakontzeko aukera (11); sakontzeko aukera ematen (4); sakontzeko balioko (3); sakontzeko balioko du (3); sakontzeko premia (3)

politikan sakontzen (3); sakontzen jarraitzen (4); sakontzen lagundu (3)

sakondura 1 iz sakontasuna.

Atera zuen mahukatik eskuineko besoa ezkerrekin muturrari eusten ziola, sartu zuen sakelan, lanpararen kaxa eskuratuz galtzen **sakonduretan**, egin diat orain ere, ongi dagoen probatu gabe etorri nauk. **Koldo Izagirre**

Iratze baso batek betetzen du **sakonduraren** gaina. **Koldo Izagirre**

Marinel bat entzuten dut kantari, haur batzuk barrez, txalupariak deika, garbitzaileak harria jotzen arroparekin, hemen ohitura den bezala, **sakonduretan** karranka egiten duten idi gurdiak, mendian marraka egiten duten ahuntzak, ontziolan jotzen duten mailuak, dabiletan lasaitzen diren kableak, jotzen duen haizea, gora datorren itsasoa.

Koldo Izagirre

Iduritzen zitzaidan eliza honen **sakonduratik** ez nuela ikusten nolanhiko paisaia, baizik eta Espainiaren begitartea. **Koldo Izagirre**

2 irud/hed

Lagunik gabeko, obligaziorik gabeko eta grinarik gabeko bakardade honek, berez sortzen duen asperraren, nazkaren eta etsiaren ondotik, neure baitako eta naturako

sakondurarik barreneetan murgiltzen naiz, oharkabean bezala, indar berri bila edo. **Patziku Perurena**

Islidu egiten da aldizka, eta halakoetan ni ere mutu egoten naiz, begiramenez, etorria ahitu izan balitz bezala, edo bere oroimenaren **sakonduretaraino** iritsiko ez balitz moduan, edo itsaso urrunen batetik datozen uhinek ekarri behar lizkioketen hitz berrien aiduru dagoelakoan. **Koldo Izagirre**

sakonera 1 iz sakontasunaren neurria; hirugarren dimentsioaren neurria.

Lau metroko **sakonera** zuen, eta kanpoko metro bateko lodiera. Elizen arteko biblia

Mendian hamalau zulo egingo dituzte, eta ehun metroko **sakonera** izango dute. Berria - Kultura

Ez zuen metro Erdiko **sakonera** baino askoz gehiago. Harkaitz Cano

Geltokiaren sotoan, 14 metroko **sakonera**n, hiru nasa egokituko dira. Berria - Harian

Zundatu eta, urak 75 metroko **sakonera** duela eta hondoa harrizkoa dela jakinen duzue. Joseba Sarrionandia

Zulaketa horietako batean, 3.100 metroko **sakonera** iritsi dira. Berria - Gaiak

3.100 metroko **sakonera**tik ateratako izotz bloke bat baliatuta. Berria - Gaiak

Zenbateko **sakonera** duen inork ez daki. Karlos Zabala

Irakatsia baitut lehenkien kopurua amaigabea eta espazioaren **sakonera** infinitua dela. Xabier Amuriza

Iluntasuna handiegia zen malkortegiaren **sakonera** kalkulatu ahal izateko. Agustin Otsa

Bazirudien erretiluak sekulako tamaina eta **sakonera** zeuzkala. Anton Garikano

Zulaketa horietako batean, 3.100 metroko **sakonera** iritsi diraHarresiaren aurrean zabaltzen zen lubeta guztiari askoz ere **sakonera** handiagoa eman zioten. Santiago Iruretagoiena

Dentikuluak bere altueraren erdia izan behar du, aurreko aldetik, zabalean; tartearen **sakonera**, berriz, izan dadila dentikuluaren aurreko aldearen hirutik bi adinakoa.

Santiago Iruretagoiena

Urpekari talde batek antzeman du, baina **sakonera** handian dagoela-eta ez dute oraindik lur azalera ateratzea lortu. Berria - Mundua

Sakonera txikiko putzu batera erori zen. Agustin Otsa

Sakonera txikiko urlaster baten gainetik zihoan. Migel Angel Mintegi

2 irud/hed

Sakonera izugarrikoa, gerra horien ondorengo amildegi espirituala. Anjel Lertxundi

Pentsatzen saiatu zen sexuaren ze hedadura eta **sakonera** ezagutu zuen bere hirurogeita zazpi urteetan. Sexuaren hedadura neurtezinaren, **sakonera** hondogabearen zein zati ezagutu ote zuen Egutik bere hirurogeita zazpi urtetan? Ibon Uribarri

Sakonera historiko handiko komunitatea dugu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

3 (hitz elkartuetan)

Erlojuaren lekuan, aparatu berezi bat neramala, zunda moduko bat, itsasoaren edo ibai baten sakonera neurtu beharrean, puntu geografiko bakoitzaren denbora **sakonera** kalkulatzeko. Bernardo Atxaga

Objektiboaren irekierak ezartzen du foku **sakonera**, oso garrantzizkoa argazkigintzan. Irene Aldasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

metroko sakonera (6)

metroko sakonerako (3); **sakonera**ko zuloa (3)

metroko sakoneran (19)

sakonera

sakonera(tu), sakoneratzen da *ad* (*elkarketa baten bigarren osagai gisa*)

Marmar ozen baten modukoa aditzen zen, gangatik jareginik lurraren kontra kanka jotzen zuten mila tantena eta zilar urtu gisara pil-pil isurtzen eta zoruko pitzaduretatik leize-**sakonera**tzen ziren txirriena. Juan Garzia

sakongune ik sakonune.

sakongunetxo ik sakonunetxo.

sakonketa iz sakontzea.

Botere zentroen hedakunde eta **sakonketaren** historia mendebaleko geografian. Joxe Azurmendi

Ikaragarritzko **sakonketa** lan bat eskatzen du. Berria - Euskal Herria

Rock musikaren "**sakonketa**" psikoanalitiko eta madarikazioa. Joxe Azurmendi

sakonki 1 adlag sakontasunez.

Bularrean edo sabelean labana **sakonki** sartu. Ibon Uribarri

Amasa hartu zuen, **sakonki**. Lopez de Arana

BLANCHEK **sakonki** begiratu dio. Xabier Paya

Sakonki barneratu zuen zigarro kea, biriken hondoraino. Joxemari Iturralde

Frommen alde baikor eta salbatzaile honek, Freuden ezkortasun sakonaz hain bestelakoa, **sakonki** eragin zien hippiei eta alternatiboiei. Markos Zapiain

Konpainiaren izpiritua eta haren operazioak **sakonki** aldatu zituen. Juan Garzia

Nire ikuspegia nire bizitzako pasadizo baten bitartez azaldu nahi nuke, halatan **sakonki** eta zehazki erantzungo baitiot zure proposamenari. Bernardo Atxaga

Botuez hain goraki, zuhurki eta **sakonki** mintzatu zen Inozentzio Aita Sainduarenganik. Piarres Xarriton

Logika klasikoaren propietate nagusiak **sakonki** aztertzen dituztenak. hautaturiko presuna batzu taldeka bilduko dira, elgarrekin eztabaidatzeko eta **sakonkiago** aztertzeko hori guziaz. Askoren artean

Sakonki azter ditzala bere egitate, bide, hitz, egintza eta ohitura guztiak, bilatuz zer dagoen hor Jainkoaz kanpo. Joan Mari Lekuona

Tortura salaketak «**sakonki**» ikertzeko eskatu zuen. Berria - Euskal Herria

Izan ere, **sakonkien** dagozkigun gaiak etikoak, mistikoak, estetikoak dira. Markos Zapiain

2 (izenondo eta kidekoekin)

Euskal gizartea **sakonki** gaixo dagoela eta balio kolektiboek ingurumenarenek bezalaxe gaur egungo sistema kapitalistan babes tresna eraginkorrik ez dutela. Berria - Euskal Herria

Armendarizek azpimarratu zuen ezker abertzalea gizartean **sakonki** errotua dagoela eta Nafarroa osoan «erreferente politiko nagusia» dela. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arnasa sakonki hartu (3); **sakonki aldatu** (4); **sakonki aztertu** (12); **sakonki aztertu zuen** (3); **sakonki aztertzea** (3); **sakonki aztertzen** (3); **sakonki ezagutu** (4); **sakonki ezagutzeko** (3); **sakonki ezagutzen** (5); **sakonki hartu** (7); **sakonki hartu zuen** (4); **sakonki ikertzeko** (4)

sakontasun 1 iz sakona denaren nolakotasuna. ik sakondura.

Graziaren errealitateak graziaren hiztegiak baino **sakontasun** eta funts handiagoa du Frantziskoren idazkietan. **Askoren artean**

Gizonaren begiak sakon mintzatzeko zitzazkion, hitzetatik eta zentzumenetatik haragoko **sakontasun** handiagoz. **Patxi Zubizarreta**

Sakontasun psikologiko eta sozial handiko kontaketa. **Iñigo Aranbarri**

Psikea -bere **sakontasun** subkontzientean eta bere gainazal kontzientean- ulertzen saiatuz. **Iñaki Mendiguren**

Baina igual entzungo da kanpai hotsa, pentsatuko duzu, itsaspeko **sakontasun** abisaletan. **Joseba Sarrionandia**

Sardexka utzi eta **sakontasun** miragarriaz begiratzen dit. **Monika Etxebarria**

Sakontasun handiegitan sartu gabe: [...]. **Arantxa Iturbe**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aise gerta daiteke toki bakoitzeko **sakontasun** irizpideak ez izatea aski, edo nahasgarriak izatea. **Josu Zabaleta**

Sakontasun -adierazle dinamikoak. **Josu Zabaleta**

Sakontasun -ilusioaren zehaztasunari ematen ziztaion gehiegizko lehenetasuna. **Josu Zabaleta**

Bi irudien arteko desberdintasunak kontu handiz kalkulatu, errealitatean gertatzen den **sakontasun** -efektuaren antzeko **sakontasun** estereoskopikozko efektu bat eragiten da. **Josu Zabaleta**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez zen normala komisaldegia batean inork eztarria leheritu beharrean barre egitea, zeremonia aurkezleek [...] soilik zuten leize **sakontasun** harekin. **Harkaitz Cano**

Eritasun tragiko horrek jainuko gizon bati erasaten badio -idatzi zuen Dostoevskiz-, hura gauza izaten da ulermen- **sakontasun** bat... Comollik filmetako eremu- s **sakontasunaz** hitz egiten badu, eremu- **sakontasun** hori perspektibari loturik doalako hitz egiten du. **Xabier Olarra**

4 sakonera.

Sakontasun gutxiko erreka batean hondoraturik aurrera doan kupel bateko uztaia bezala. **Fernando Rey**

sakontze 1 iz sakonago egitea.

Bakea eta **sakontze** demokratikoa; autodeterminazio eskubidearen defentsa; euskal ezkerre berritzea. **Berria - Euskal Herria**

2 (zerbait) arretaz aztertzea edo hausnartzea, hura hobeto ulertu eta ezagutzeko.

Ondorengo **sakontze** eta aberasteek eratorpen fonologikoaren eraldatze handiak ekarri zituzten. **Lourdes Oñederra**

Itxura hutsa baita berak agintzen duen **sakontze** zientifikoa. **Askoren artean**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Deliberatu dute epe hori luzatzea ekainaren 30 arte, **sakontze** lana hobeki egina izan dadin. **Herria**

Oinarritzko ikasketa ama-eskolako azken urtetik CE1 mailaraino litzateke, **sakontze** fasea CE2tik seigarrenera, eta zabaltze fasea bosgarrenetik hirugarrenera. **Berria - Euskal Herria**

Unibertsitateko **Sakontze** ikastaro batean. **Antton Olano**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Arnas- **sakontze** bik laxatua zioten barrera, baretuago gogo. **Josu Landa**

Liburutto bat ere banatua izan da, gogoeta **sakontze** horren lagungarri gisa. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sakontze demokratikoa (3)

sakonune (orobat sakongune g.er.) 1 iz gune sakona. (naturan)

Behean, mila eta bostehun bat oineko **sakonunearen** hondoa, barnealdeko lautada ilunpe itxuragabearen hedatzen zen bistatik galdu arte. **Agustin Otsoa**

Hezurak aterata agerian geratzen zen horma hartan, beste **sakonune** bat ikusi genuen, lau bat oin luze, hiru bat oin zabal eta sei edo zazpi oin garai. **Koro Navarro**

Errazena, azkenean, House tximinia ospetsua izan da, hogei metroko izotzezko **sakongunea**. **Xabier Montoia**

Hizketan aritu zen **sakonunean** behera, mendixka marmartietan gora, eta zelai malkartsuan barna. **Koro Navarro**

Hiru orduko ibili baten buruan, **sakonune** batean azaldu zen herria. **Josu Zabaleta**

Plataformatik jaitsi ostean [...]Gusev kraterreko **sakonune** baterantz abiatuko da robota. **Berria - Gaiak**

Konturatu zen **sakonune** handi baten ertzean zeudela; **sakonune** hura soilduta zegoen, zuhaitzik gabe. **Iñaki Mendiguren**

sakonune batean zihoan erreka ziztor baten ertzetik ibili ziren. **Koro Navarro**

Urak hartuta zegoen **sakonune** mehar hura Ubinsk eta Kamakova artean, [...] euria atertuta gabe aritu baitzuen aurreko asteetan. **Karlos Zabala**

Aldapan gora joan ziren, **sakonunetik** irteteko, eta laster ziren oihanean aurrera. **Iñaki Mendiguren**

Bi haiz ilunen arteko **sakonunea** gurutzatu zuten. **Agustin Otsoa**

2 (bestelakoak)

Sakonune hark ez zirudien berriaz egina, ez baitzen katakonbetako sabaiaeren bi euskarri erraldoiren arteko barrunbea besterik. **Koro Navarro**

Burukoan **sakonune** bat zegoen berak igandeaz geroztik burua jarrita izan zuen lekuan. **Joseba Urteaga**

Haren gorputz gurixka patxadan jesarririk zegoen larruzko besaulki handi baten **sakonunean**. **Monika Etxebarria**

Barrenera eginiko **sakonune** batean dago kokaturik barra. **Monika Etxebarria**

Eskuaira bat jartzen bada ildaxkaren **sakonunean** eta jiraka mugitzen bada erpinaren inguruan, [...]. **Santiago Iruretagoiena**

Aurpegia ere potoloa, berea zuen hazpegi bakoitza zalantza izpirik gabe, espresio eta keinu nabarmenez, kokotsa biribil, **sakonunea** erdian. **Urtzi Urrutikoetxea**

Begi haien **sakonguneetako** isla putzuko urarena bezalakoa zen. **Lopez de Arana**

3 irud/hed

Historia helenikoaren kultur gailurra antoninotarren aroan oso garbi bereizten zen hamasei mendeko denbora-tartearen -Gibbonentzat kultur **sakonunea** zen tartearen- bestaldean. **Iñaki Mendiguren**

Bekatuaren itzala ikaragarri honen hirugarren **sakonuneak**, oinarritzkoenak, nabarmetzen duena, gizakion alderik ilunenetakoa da: hots, mingarri zaiguna errepikatzeke joera bortitza, gozamenik ez etekinik batere gabeko ekintza errepikatzeke irrika eroa. **Markos Zapiain**

sakonunetxo (orobat sakongunetxo g.er.) iz sakongune txikia.

Aldamenetik, giharren arteko **sakonunetxo** luze hori, oraindik dudana, eskultura xamur bat, horretaz dakitenak erotzeko modukoa. **Karlos Zabala**

Erretinan, kristalinoaren ardatzean ia-ia, dagoen **sakonunetxo** bat, bereziki hartzaile asko dituen, da fobea. **Josu Zabaleta**

Itzalak bere babesean hartu zuen Madama Glynnen soineko margula, baina lepo-hezuraren atzeko **sakongunetxoan** jausi ziztaion mendekari. **Irene Aldasoro**

sakotontzi *iz* jakiak eramateko ontzia.

Bitez han beren iritzi eta zaldun lege gura nagusiak, eta jan bezate beraien arau-agindura; nik, nire **sakotontzia** nirekin, badaezpada; eta zahato hau ere bai zela aurrean zintzilik; eta hain maite dut eta hain da nire kuttuna, horra, oso bake-une motxak ohi ditu, nik mila muxu eta mila besarkada eman gabe. **Patxi Ezkiaga**

sakral *izond* sakratua.

Beste galdera bat egin nion Sabethi, eta erantzunik jaso ez, ea nondik ikasiak zituen bere hitz ezin-taxuzkoago haiek guztiak, esate baterako: arkaiko, lineal, helenistiko, dekoratibo, **sakral**, naturalistiko, espresibo, kubista, alegoriko, kultista, konpositibo eta abar, highbrow hiztegi hura, alegia. **Joxe Austin Arrieta**

sakralizatu, sakraliza, sakralizatzen **1** du *ad* izaera sakratua eman.

Italiarrak oso diferenteak dira, gehiago maite dute bizitza, bitalistagoak dira, ez dituzte legeak **sakralizatzen**. **Mikel Hernandez Abaitua**

Ez dut uste irakurketa literarioa **sakralizatu** behar denik. **Ana Urkiza**

Beti **sakralizatu** beharko da hitz soil bat, elizako Jainko Ahalguztidun haren ordezeko, sinestun laikoan erritual xurian erruz salduko dena. **Patziku Perurena**

Ez da esan nahi honekin historia, "gertatu dena", **sakralizatu** behar denik, edota modu fatalistan onartu behar denik. **Bernardo Atxaga**

2 (era burutua izenondo gisa)

Kristaion mundu eta gizarte **sakralizatu** haietan areago oraindik: hasi Erregena pasa orduko, eta Inauteri eta Karnabalak zirela, garizuma santu hura prestatu behar zen.

Pello Zabala

sakralizatzaile *izond* sakralizatzen duena.

Eta haren errituala askoz ere **sakralizatzaileagoa** zen alkoholarena baino, hau etxean ibiltzeko droga bihurturik baikenuen: informala, erraz lortzen eta erabat kontrolatzen genuena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

sakralizazio *iz* sakralizatzea.

Gauzen **sakralizazio** ezinbestekoa. **Joseba Urteaga**

Sakralizazioaren aurrean, ironiaren aldekoa zara. kirolaren **sakralizazioaz**. **Berria - Euskal Herria**

Euskal pilota jokoak oro har errespetuan oinarritu direlakoan nago, ia-ia **sakralizazioraino**. **Berria - Kirola**

sakraltasun *iz* sakrala denaren nolakotasuna.

Estatu-Nazioa erlijiosoa da errotik, **sakraltasunaren** erritu, bandera eta liturgia guztiekin; eta fedea eta debozioa exijitzen ditu. **Joxe Azurmendi**

sakramendu ik sakramentu.

sakramental **1** *izond* sakramentuari edo sakramentuei dagokiena. ik **sakramentu 2**.

Apaizei dien eta anaiek izan behar dieten benerazioa ere katolikotasun honen ondorioa da: ez onak edo txarrak direlako, haiek duten ministerio **sakramentalagatik** baizik.

Askoren artean

Jakina da hasierako ETAKide haiengan zer garrantzi zuen kristautasunaren mundu **sakramentalak**; Oteiza eta Chillidarentzat ere beren artegintza eginkizun **sakramental** izan zen funtsean. **Joseba Zulaika**

2 irud/hed

Pentsa liteke gazte errebolitari haien iraganeko legeak, demokrazia malenkonizata, euskara **sakramental**, eta antzekoak pentsamendu premoderno baten gogorapen etnikoaz aparte zer besterik ote diren. **Joseba Zulaika**

3 *auto sakramental* eukaristiaren gorazarrez onduriko antzerki lan laburra, XV. mendekoa.

Auto Sakramentalak edo mirakulu-antzerkiak erdi aroko dramak ziren; haietan Bibliako pasarteak edo santu edo martiriaren bizitzetan oinarritutako gertaerak taularatzen ziren.

Xabier Olarra

Aurreko batean ere, erredakziokook **auto sakramental** baten itxurako festa eszenifikatu genuenean, antzeko hitzak esan zituen Adak. **Anjel Lertxundi**

-Errusiarrek katedralean **auto sakramental** eman ziguten, ez ahaztu hor. **Edorta Jimenez**

sakramentario **1** *izond* sakramentala.

Heresi **Sakramentarioen** mintegi zornetsua ere bazen, zeinek ukatzen baitute Kristo dagoela Ostia Sagaratuan. **Jon Alonso**

• 2 *iz* sakramentuen errituala daukan liburua.

Baita Fiteroko **sakramentarioa** eta San Saturnikoko oharrak ere. **Berria - Kultura**

sakramentatu *izond* erlijio katolikoan, Jesusi buruz, ostia kontsakratuaren irudian dagoena.

Behin, Belenen, ahotza jateari uzti zenion Jainko jaio berriari behar bezalako harrera emateko, orain Tolosan garagarra jateari utzi diozu Jainko **Sakramentatua** gurtzeko.

Jon Alonso

sakramentino *izond/iz* Sakramentu Santuaren Betiereko Gurtzaren ordenakoa.

Lan hortan arizan da bereziki Juan Otaegi **sakramentinoa**, Deustuko Unibertsitateko erakasle ohia. **Herria**

sakramentu (**116** agerraldi, **31** liburu eta **9** artikulutan; orobat **sakramendu 210** agerraldi, **7** liburu eta **179** artikulutan –denak *Herria* astekarikoak-; *Euskaltzaindiaren Hiztegian sakramentu agertzen da*) **1** *iz* Jesu Kristok bere Elizari utzi zion seinale agiria, hartzen duenari grazia eta bertuteak eman edo gehitzen dizkiona.

Berak emanak ditugu **Sakramentu** santuak: lehenik bataioa, sendotza eta penitentzia, gero bere Gorputza eta azkenik Oliadura. **Joan Mari Lekuona**
Jainkoak hala nahita, beste gaixotasun batek jo zuen gorputz-arimaz sendatutako legendun hori, eta Elizako **sakramentuez** indarturik, santuki hil zen. **Askoren artean**
Nola Jesu Kristoren gorputz guztiz saildua Eukaristiako **sakramentu** hazkurri eta miragarrian aurkitzen baita oso osorik ogiare eta ardoaren itxura osoan ala itxura bakoitzaren baitan ala haren zati bakoitzean. **Piarres Xarriton**
-Sinesten al duzu Jesukristo gure jauna aldareko **sakramentu** guztiz santuan egiazki dagoela? **Iñaki Seguro**
Zer den penitentziako **sakramentua** eta zer haren parteak. **Piarres Xarriton**
Arinkeria dela emakumearekin solasean jardutea, aitortzako **sakramentuan** edo, ohitura denez, aholku oso laburren bat emateko izan ezik. **Askoren artean**
Ezkontza **sakramentua** den ala ez den eztabaida [...] tokiz kanpo dago hemen. **Esteban Antxustegi**
Eritu arraroak asmatu zituzten eta **sakramentu** deitu. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **sakramental**.

Sakramentu -bizitza. **Askoren artean**
Tsarrak bere eskuz emandako sinadura ezagutu zuen, **sakramentu** formularen ondotik. **Karlos Zabala**
Ordezkaritza honek egiten du, beren **sakramentu** -eginkizuna bete dezaten. **Joan Mari Lekuona**
Adorazio eta **Sakramentu** Gurtza guztiek, eta Biltzar Eukaristikoek zaindaritzat aukeratu dute. **Pello Zabala**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Garai hartan, klerikoak zabar eta arduragabe ziren maiz Jainkoaren Hitza iragartzerakoan nahiz Eukaristi **sakramentua** ospatzerakoan. **Askoren artean**
Apaizek oneski hitz egin bezate haiekin, penitentzi **sakramentua** nahiz bestelako aholku espiritualak ematerakoan. **Askoren artean**
Kristau-**sakramentu** horrek bere izena erromatar erito pagano batetik hartu zuen. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sakramentu txit santua (3)
aldareko sakramentua (3); **penitentziako sakramentua** (4)
elizako sakramentuei buruz (3)
bataio sakramendu (5); **ezkontza sakramendu** (4); **ezkontza sakramendu hortaz** (3); **sakramendu hori errezebitu** (5); **sakramendu hortaz elgarretaratu** (3); **sakramendu saildua** (9); **sakramendu sailduaren** (23); **sakramendu sailduaren aintzinean** (3); **sakramendu sailduaren ohoretan** (6); **sakramendu sailduari** (5)
bataio sakramendua (9); **erien sakramendua** (3); **ezkontzako sakramendua** (51); **ezkontzako sakramendua errezebitu** (10); **ezkontzako sakramendua errezebituko** (3); **ezkontzako sakramendua hartu** (3); **ezkontzako sakramendua ukan** (19); **konfirmazioeko sakramendua** (7); **sakramendua errezebitu** (14); **sakramendua errezebitu dute** (13); **sakramendua errezebituko dute** (3); **sakramendua hartu** (4); **sakramendua hartu dute** (4)
ezkontzako sakramenduak (27); **ezkontzako sakramenduak elgarretaratu** (25); **ezkontzako sakramenduak** (3); **ezkontzako sakramenduak elgarretaratu** (3)
ezkontzako sakramenduaz elgarretaratu (5)

sakratu *(orobat **sarakatu** g.er. eta **sagaratu** g.er.)* 1 *izond* Jainkoari edo jainkoei dagokielako begirunerik handiena eskatzen duena; ukitua edo erabilia ezin izan daitekeena. ik **sakro**; **santu**.

Bere itsumenean irudi **sakratu** bat, lapurtu gabe, profanatu duen gazte alferrik galdua eta Brinvilliers andrea, bere aita eta bere familia pozoindu duena, berdin tratatuko al dituzue? **Juan Martin Elexpuru**
Lia Fail zen, irlandarren harri **sakratua**, agi zenez giza ahotsez hitz egiten zuena. **Joanes Urkixo**
Behiak, **sakratuak** direnez gero, ez dituzte jezten. **Gotzon Garate**
Zeharo debekatuta dago baso **sakratua** sartzea... -esan zuen druidak ahots txistukariaz. **Joanes Urkixo**
Ghanako zuhaitzi **sakratuen** garrantzia ere nabarmendu du dokumentuak. **Berria - Gaiak**
Frantzisko dohatsuaren irudia zegoen elizan zauri **sakratuekin** pintatua. **Askoren artean**
Parropiako erretoreak esplikatzeko dizkit, azaltzen, halako kar goxo batekin, ontzi **sakratu** borobil horren marrazki zizelkatuak, batez ere kurutzeta mota guztien formen adierazpena. **Piarres Aintziart**
Milioi eta milioika hinduk arratoiak Ganesh jainkoaren "mezulari **sakratuak**" direla uste dute. **Gotzon Garate**
Koran Islamaren liburu **sakratua**. **Xabier Olarra**
Judu makabeoak nola matxinatu ziren siriar heleniarren kontra [...] eta nola sagaratu zuten Tenplu **Sakratua**, profanatu izan baitzen, Antioko Epifanesen buruzagitzapean. **Koro Navarro**
Merkuriok non zituen bere toki **sakratuak**? **Pello Zabala**
Mezkita edo santutegietan berdin, jaunaren lurra denez, ortutsik sartu beharra dauka, haren esanera datorrela adierazteko, eta ez haren lur **sakratuaz** jabetzera. **Patziku Perurena**

2 (gauza abstraktuak)

Herri **sakratu** izango zarete, apaizek gobernaturiko herria. **Jose Antonio Mujika**
Lege zibil **sakratuak** giza legeak baitira, eliz legeak izenekoak, gauza **sakratuei** buruzkoak; sekularrak, ordea, zibil izen orokorraz ezagut daitezke. Jainkoaren agindu **sakratuetako** bat da. **Esteban Antxustegi**
Ez omen zen zilegi-eta bidegabe lortutako ezer helburu **sakratuetarako** erabilitea. **Askoren artean**
Antzinakoen artean erregeen hira **sakratutzat** hartzen zen, jainkoren baten eragina erabil baitzezakeen hura agertarazteko. **Xabier Olarra**
Besta dionisiakoan, mozkortze **sakratuarekin**, entusiasmorekin, denboraren ezabatzeke ilusioa lor daiteke. **Ana Urkiza**
Gero hobeki ikusiko duzu, nola haritz gaineko mihurak jainkozko indar **sakratua** zuen Europa zaharreko erito paganoetan. **Patziku Perurena**

3 irud/hed

Horixe da egun merkatua: pentsamendu bakar hegemonikoak gurtzen duen zekor **sakratua**. **Iñaki Heras**
Egonkortasun Ituna ez da behi **sakratua**. **Berria - Ekonomia**
-Gutxienez plantillako behi **sakratuen** batek esan izan balu... **Jon Alonso**
Numerologiaren aldi bakoitzak, garatu eta ugaldu ahalean bere numero **sakratuak** sortu ditu: bata, hirua, bosta, zazpia, bederatzia, hamarra, hamabia... **Patziku Perurena**
-Zuk Hitz **Sakratuan**, Hitz Esentzialean, sinesten duzu. **Iñaki Iñurieta**
Emakume bat ez, baizik Hirutasun Santua aurkitu zuela esaten zien Perikok lagunei, eta, maitatu baino gehiago, halako izaki **sakratuari** dagokion debozioaz jauresten zuela. **Pako Aristi**
Beti bidea irekita utzi behar zaio errugabetasuna frogatzeko eskubide **sakratuari**. **Juan Martin Elexpuru**
SSetan leialtasuna **sakratua** da. **Alberto Ladron Arana**
Ez sekula ahaztu emandako hitza **sakratua** dela. **Bego Montorio**
Populu guztien subiranotasun printzipio **sakratua**. **Piarres Xarriton**
Elkarri laguntzeko agindu **sakratu** eta hautsiezina. **Juan Martin Elexpuru**
Merkataritzaren segurtasuna eta ondasunen jabetza **sakratua**. **Juan Martin Elexpuru**
Canyon de Chellyko giro **"sakratua"**, edo monasterio batekoa, oihartzunez eman zezakeen, eta berezko zentzu "erlijioso"rik batere izan ez. **Xabier Olarra**
Halako izu **sakratu** batek geldiarazi ninduen. **Juan Garzia**
Eri Aroko errege erreginek eta printze printzesak halaxekoa zuten beren ohitura eta desio **sakratua**: hil ondoan, beren gorputzeko organoak zatitu, eta beren guztizko santu eta santei eskaintzekoa. **Patziku Perurena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agindu sakratu (3); eremu sakratu (6); frantziskoren zauri sakratu (5); gauza sakratu (6); irudi sakratu (3); izu sakratu (3); landare sakratu (3); mendi sakratu (3); ontzi sakratu (4)

sakratu bihurtu (6); sakratu bihurtzen (4); sakratu santuak ezarri (3)

toki sakratu (3); tresna sakratu (3); zauri sakratu (22); zauri sakratu santuak (8); zauri sakratu santuen (5)

arbola sakratua (3); batzar sakratua (18); batzar sakratua eginez (3); batzar sakratua egingo (3); batzar sakratua izango (11); bizia sakratua (4); bizitza sakratua da (6)

egun sakratua (3); gauza sakratua da (3); guttiz sakratua (16); guttiz sakratua da (9); harri sakratua (4); hiri sakratua (5)

izen sakratua (3); leku sakratua (10); liburu sakratua (7); mendi sakratua (4)

ogi sakratua (3); opari guttiz sakratua (3); otordu sakratua (4)

sakratua izan (6); sakratua izango (20)

toki sakratua (4); zuhaitz sakratua (4)

zutoin sakratua (8)

gauza sakratuak (14); guttiz sakratuak (6); jantzi sakratuak (14); liburu sakratuak (8); ontzi sakratuak (3); opari guttiz sakratuak (3); opari sakratuak (8)

sakratuak izan (3)

su sakratuak (3); tenplu sakratuak (3); zauri sakratuak (15); zauri sakratuak hartu (3); zutarri sakratuak (14); zutoin sakratuak (18)

mendi sakratuan (4); toki sakratuan (13); toki sakratuan jan (4); toki sakratuan jango (4)

bihotz sakratuaren (5); harri sakratuaren (4); lur sakratuaren (3)

leku sakratuen (3); tenplu sakratuen (3); zauri sakratuen (8); zauri sakratuen bidez (3)

zauri sakratuengatik (3)

eremu sakratuetan (3)

zauri sakratuez (5)

haran sakratuko (3); mundu sakratuko (5)

prostituzio sakratuak (4)

gauza sakratuak (3); opari sakratuak (3)

sakratutzat jo (3); sakratutzat jotzen (3)

sakratutasun *iz* sakratua denaren nolakotasuna.

Marokoko hiru tabuak errespetatzen dituzte: erregearen **sakratutasuna**, Marokoko lurraldearen batasuna, eta erlijioa. Berria - Mundua

Irudiek sinbolo-balioa izan dute batez ere, erlijiozko sinboloena zehazkiago, ustez jainkoaren presentziaren agertze zuzeneko edo zeharbidezko baten bidez

sakratutasunaren mundurako sarbidea ematen zutela. Josu Zabaleta

Zer baliatzen zuen haren oroimenak, bada, kontu pertsonal, hutsal eta une-uneakoak eraldatu eta unibertsaltasunaren, **sakratutasunaren** erresumara hala igoarazteko?

Xabier Olarra

Jainkoen artea, anonimoa, oso-osorik **sakratutasunaren** munduan kokatua. Josu Zabaleta

Nabarmen hobea zen Stephenen marrazkia, eta (are artista navajoarentzat) leku haren misterio bitxia eta **sakratutasuna** sentiarazten bide zuen. Xabier Olarra

sakre 1 *iz* arnegua, madarikazioa. ik **birao**.

Honekin zenbait hitz egiten ditut latinez, alemanez ikasiak, **sakreak** baitira gehienak. Marzel Etxehandi

Migel Mailuk apeza ziegan sarrarazi du, haren birao, **sakre** eta madarikazioei entzungor. Aingeru Epaltza

Orro, **sakre** eta mehatxuei lotu eta muturra porrokatu nahi izaten diote elkarrri. Xabier Montoia

Bi hitz frantsesez edo **sakre** bat ahoskatzen direlarik da irria sortzen publikoan. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan)

Ni aitzina tematzen, tira eta tira azkenean **sakre** andana bat ederra bildu nuen burutik beheiti. Marzel Etxehandi

sakreka *adlag* arneguka.

Bizpahiru S.S. matrakadunek lo-egileak harrotzen dituzte, ostikoka eta **sakreka**. Marzel Etxehandi

Irainka eta **sakreka** hartu dituzue. Xabier Montoia

Sakreka aritzen zen eta arnoa edaten baleztari gaskoi baten gisara. Aingeru Epaltza

sakrifikaekin *izond* ezin sakrifikatuzkoa.

Baina horrek "guzti"ak salbuespen bat zuen, hauxe **sakrifikaekin**: dena haren aldarean entregatu behar zitzaion Gauza bera. Joseba Zulaika

sakrifikal ik **sakrifizial**.

sakrifikatu, sakrifika, sakrifikatzen 1 du *ad* zerbait edo norbait jainkoren bati oparizat eskaini.

Baina aharia **sakrifikatu** ondoren, etxerako bidean akabera desberdina du: egun haren ondoren Abraham zahartu egin zen, ezin zuen ahaztu Jainkoak zer eskatu zion.

Joseba Zulaika

Agamenonen arimaren alde zezenko bat **sakrifikatzen** ari zela, [...]. Xabier Olarra

Bibliaren arabera, Hinomen ibarrean dago, Jerusalemdik gertu, Moloch idoloari haurrak **sakrifikatzen** zitzaizkion lekua. Koro Navarro

Andra Pradeshen, berriz, herriko handi-mandiek emakume haurdun bat jainkoei **sakrifikatu** zieten, goialdetik euria ekar zezan. Gotzon Garate

Zuriz jantzitako apaiz bat zuhaitzean gora igotzen da, eta mihura ebakitzen du urrezko igotai batez, eta zapi zuri batean biltzen; gero biktimak **sakrifikatzen** dituzte, jainkoari otoitz eginez. Patziku Perurena

Deabruari edo dena delakoari **sakrifikatu** beharreko biktima aldarera lotu. Aingeru Epaltza

2 irud/hed

Anitzetan, zure jendetasuna sineste kolektiboan aldarean **sakrifikatzen** zenuelako irudipena eduki dut. Itxaro Borda

Frakasatu batzuk iruditzen zitzaizkidan: beren bokazioa **sakrifikatzen** zuten eguneroko ogiaren aldarean. Anjel Lertxundi

Hauxe da nire Euskal Herri fededuna, Abraham zoratuaren fedea, bere seme Isaak mendian gora **sakrifikatzen** daramana. Joseba Zulaika

Lurpeko hilotz bihurtu gabe ere eman daiteke bizia, edo **sakrifikatu**, edo eskaini ez dakit-Zer edo badakit-Norengatik; heriotza modu guztiak ez dira kolpe batekoak. Iñaki

Seguroa

Geu garella Ara mitokoa **sakrifikatzen** den abere sakratua, Abrahamen denboretan bezala. **Hasier Etxeberria**

3 zerbait edo norbait kaltea edo galera jasatera behartu, onuragarritzat hartzen den zerbaiten mesedetan.

Ingalaterrak Holandaren eta okupatutako gainerako lurraldeen alde borroka egin, guduak jardun eta **sakrifikatu** behar ditu bere semeak. **Josu Zabaleta**

Zeren izenean **sakrifikatzen** nauzu? **Jon Muñoz**

Egia da beraz **sakrifikatu** nauela, saldu ere nauela... eta nori? **Jon Muñoz**

Ohore zaharkitu baten aitzakian, hiru hobengabe **sakrifikatze** dudatu ez duen leinuko jauntxo urguilontzia. **Elena Touyarou**

Ezin al dugu izaki bakar bat ere **sakrifikatu** gure mendeku edo gutiziarako? **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Ez du esplikatu, ordea [...] zergatik **sakrifikatu** behar duen Komunitate batek gizon bakar baten alde. **Josu Zabaleta**

Horrela, abertzaletasunak dena **sakrifikatzen** zuen Estatuaren ongizatearen alde. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Justizia eta sortzeriaren ongia benetan maite bazituzten, ez zuten zertan iraintzat hartu nire harrokeria; aitzitik, beren handinahia ito eta beren nortasuna **sakrifikatu** beharko zuketena. **Jose Morales**

Hobe duk bat **sakrifikatu** hiru salbatzeko, harro ibili eta laurak akabatu baino. **Josu Zabaleta**

Emakume hauek bere izen ona **sakrifikatze** adorea dute gizartearen zerbitzuan, gizarte horrek bere fama hain era bidegabean lapurtu arren. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Izan nadin bidezko neure buruarekin, haren gisako aurkari batek merezi zuen ni hari **sakrifikatu** izatea. **Jon Muñoz**

Gu ez ginela bikote normal bat; ez zela normala den-dena nire karrerari **sakrifikatzea**. **Anjel Lertxundi**

4 (nork bere burua)

Hereseen ankeretasunaren biktima gisa **sakrifikatu** zuen bere burua Fedearen alde. **Jon Alonso**

Bere eleberrien amoreagatik, Balzacek [...] bere burua **sakrifikatu** zuen: kafe katilukada anitez eta anitez zigortzen zuen gibela, bere burua egunean hogeitaz idaztera behartuz. **Markos Zapiain**

Norbanakoak bere burua **sakrifikatu** beharra du kolektibitate baten salbamenerako, baina hau ez da aritmetika ergel bat. **Josu Zabaleta**

Nork bere burua **sakrifikatze** orduan gizonak aurrerago zauden, alde handiz, gu baino. **Antton Olano**

5 zerbaiti edo norbaiti uko egin, onuragarritzat hartzen den zerbaiten mesedetan.

Zati bat **sakrifikatu** zuten, gainontzekoak seguru eta lasai gozatzeko. **Juan Martin Elexpuru**

Iritzi horiei behar diedala plazer bat, gutizia bat **sakrifikatu**. **Jon Muñoz**

Eztabaida haietan gure amak erantzuten zion berak ere **sakrifikatu** zuela bizitza bere semei ogia ematearren. **Pello Lizarralde**

Euskal nazionalismoa ere **sakrifikatu** egin behar bazen askatasun berria lortzeko, erabaki hori hartu zuten. **Joseba Zulaika**

Beretik zerbait **sakrifikatu** duenak, salbatzeko borroka egin duenak, eta edertzeko nekeak hartu dituenak, hark, ez bestek, ulertuko du zer den etxaldea. **Josu Zabaleta**

Herrialde horietan inflazioaren kontrolaren izenean **sakrifikatu** ziren hainbat helburu ekonomiko. **Iñaki Heras**

Emakumeak bere zekenkeria gainditu ahal izan zuen, eta etorkizun loriatsu baten alde **sakrifikatu** zuen bere dirua. **Patxi Zubizarreta**

6 hil.

Berantxago, denek elkarrekin jan zuten: eltzekaria eta karia horretara **sakrifikatu** oilasko erreak. **Elena Touyarou**

Neronek, Tiberiok, Heliogabalok umeak **sakrifikatzen** zituzten zakila gogortzeko; Retz-eko mariskalak, Charolais-ek eta Condé-ren osabak ere lizunkeriazko hilketak burutu zituzten. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

• 7 da ad zerbaiti edo norbaiti uko egin, onuragarritzat hartzen den zerbaiten mesedetan.

Oso ongi dakit zer bilatzen dudana eta zertan ari naizen, eta zer dela-eta **sakrifikatzen** naizen. **Pako Aristi**

Eskifaia salbatzeko **sakrifikatzen** den ontzi-mutila bezala. **Jon Muñoz**

Harresi barruko osteek ezin zituztelako habailak eta baleztak erabili, lehen lerroko borrokaldi honetan [...] **sakrifikatu** ziren anaiak zauritu edo hiltzeko beldurrez. **Jon Alonso**

Denak beren borondatez **sakrifikatu** dira; ez dezagun alferrikako bihurtu haien odola. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

-Gu lan egiteko eta **sakrifikatze** jaioak gara: alferrik da buruan ideiak erabiltzea! **Josu Zabaleta**

Harresi barruko osteek ezin zituztelako habailak eta baleztak erabili, lehen lerroko borrokaldi honetan, bere borondatez edo ez, **sakrifikatu** ziren anaiak zauritu edo hiltzeko beldurrez. **Jon Alonso**

Faborez, ez nazatela sufritu dudana egiten edo **sakrifikatu** naizenagatik bakarrik gogoratu. **Ana Urkiza**

Sakrifikatzen bazarete, erresistentziako zuen lagunak salbatuko dituzue. **Josu Zabaleta**

8 (era burutua izenondo gisa)

Ama horiek ama **sakrifikatuak** dira, beti sufritzen daude, beraiek ez dira ezer eta besteak dira dena... **Ana Urkiza**

Mutil **sakrifikatu** eta langilea izan zen beti. **Xabier Etxabe**

Allen Ginsberg-en *Orroa* poemaren egitekoa ere [...] izarren hautsa bizigai bihurtzea zen, bere belaunaldiko gazte **sakrifikatu**en komunioan. **Joseba Zulaika**

Haurtzaroko eta gaztetako urterik ederrenak egoera umilean eta ikasi-behar gogorrean emandako presidente **sakrifikatuak** ezingo du ikusi gabe utzi dirua, pribilejioak, ondasunak, maitaleak, bidaiak eta gainontzeko luxuak lortzeko daukan parada, aukera, erraztasuna. **Pako Aristi**

Egiaz miresgarria da pertsona horiek, beren bizia arriskutan jarriz, besteei lagundu eta salbatzeko egiten duten lan prestu eta **sakrifikatu**. aire heroiko eta **sakrifikatuarekin**. **Josu Zabaleta**

Atzo, nire alabari tokatu zitzaion **sakrifikatu** izatea. **Anjel Lertxundi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

asko sakrifikatu (3); **bere burua sakrifikatu** (3); **bizitza sakrifikatu** (3)

sakrifikatu izan (4)

sakrifikatze (7)

sakrifikatzaile iz sakrifikatzen duen pertsona.

Zuzen da zu izan zaitezzen nagusi: **sakrifikatzaileari** baitagokio tenpluaz baliatzea. **Jon Muñoz**

sakrifikate iz zerbaiti edo norbaiti uko egitea, onuragarritzat hartzen den zerbaiten mesedetan.

Zure jendetasuna sineste kolektiboen aldarean sakrifikatu zenuela erran dizut gorago, baina segur naiz zuk ez zenuela **sakrifikate** horren kontzientziarik, zure jendetasunari hain zuzen ez zeniolako baliorik ematen, ez baitzen horrelakorik zure baitan. **Itxaro Borda**

sakrifizial (orobat sakrifikal g.er.) izond sakrifizioarena, sakrifizioari dagokiona. ik sakrifizio 4.

Dei ilunari men eginez, senari jarraituz, astero errepikatzen zen errito, ekintza **sakrifizial**, zeremonia hartan berritzen eta berresten zen kidetasuna. **Iñaki Iñurrieta**

Makal zuria usadio erritual eta **sakrifikal** askotan erabiltzen zuten, hosto zurixkak dituelako, bere zur zuri-zuriarekin batera. **Pello Zabala**

Gazte herrien hilketak zenezan erritto **sakrifiziala** irudikatzen du plazatik garaile inolaz ere irten ezin duen zenen erredimiorik gabe hilko dutenaren pareko da gaztea. **Iñaki Inurieta**

Su **sakrifizialetan** ere bai. **Pello Zabala**

sakrifizio 1 *iz* norbait edo zerbait jainkoren bati oparizat eskaintzea. ik **sakrifikatze**.

Jainkoari **sakrifizioak** eskaintzera joan behar dugu. **Jose Antonio Mujika**

Debekatua zuten juduek tenpluan erre-opariak, **sakrifizioak** eta isur-opariak eskaintzea. eskaini labore-opari eta **sakrifizioak** Jaunaren, gure Jainkoaren, aldare gainean. **Elizen arteko biblia**

Erregeak, herri osoarekin, **sakrifizioak** eskaini zizkion Jaunari. **Elizen arteko biblia**

Gizon haiek beldur handia hartu zioten Jaunari; **sakrifizio** bat eskaini, eta promesak egin zizkieten. **Jose Antonio Mujika**

Orobat, aldare handiaren gaina zirtatuko duzu erre-oparietako eta **sakrifizioetako** odol guztiaz. **Elizen arteko biblia**

Antzina jainko izugarriren baten izenean **sakrifizioak** egiten zituzten apaizen tankera. **Alberto Ladron Arana**

2 irud/hed

Aski dut neure jokabideaz argitua izatea, jauna, jokabide hori aldatzeko premia sentitzeko; **sakrifizio** hori eskaini diot Jainkoari. **Jon Muñoz**

Kontsumo alienatu eta konpultsiboa eritasun baten sintoma da, zibilizazio baten eritasunaren sintoma: kolektiboaren **sakrifizio** egiazkoa eta errituala, individualismoaren aldarean **Iñaki Heras**

3 zerbaiti edo norbaiti uko egitea, onuragarritzat hartzen den zerbaiten mesedetan.

Nire abortatzeko erabakia **sakrifizio** bat edo "maitasun-adierazgarri" bat bezala onartzea nahi nuen beharbada, nik neure nahiaren eta interesen arabera erabakitako zerbait bazen ere. **Joseba Urteaga**

Umiliaturik sentitu nintzen Vressaci sakrifikatua izateaz, eta **sakrifizio** hori ez pairatzea deliberatu nuen: eskaria errepikatu nion beraz. **Jon Muñoz**

Sufrimendua bertute baitzen, **sakrifizio** ideal bat. **Piarres Aintziart**

Sakrifizio absurdu eta sofrikario sailduaren mekanismoak gaur ulertzen ditut. **Piarres Aintziart**

Ez da justua jokalariei **sakrifizioak** eskatzea beste arlo batzuetan ezer egiten ez denean. **Berria - Kirola**

Gerraren tragediak harrapatuak, Lauaxetak bizitzaren **sakrifizioarekin** ordaindu zuen bere konpromisoa. **Joseba Zulaika**

4 (egin aditzarekin)

Pilotariak behar du ainitz **sakrifizio** egin, gero! **Menane Oxandabaratx**

Gauza ederra da nor bere buruaren **sakrifizioa** egitea: batzuk hiltzen dira beste batzuek bizirik jarrai dezaten. **Josu Zabaleta**

Hitz batean, egin **sakrifizio** handi bat jaunari, eta ez dadila zure eskuetan anatema horren pusketa txikien ere geratu. **Juan Martin Elexpuru**

Gure ama zegoen, ohean gaixorik, ipurdian hartutako kolpe itsusi hura zela eta; eta **sakrifizio** handia eginez altxatu behar izan zuen. **Pello Lizarralde**

Lehen faseak, garaipenaren aurreko borrorak, gizon eta emakume arruntei **sakrifizio** gorena egiteko aukera indargarria eman zien. **Iñaki Mendiguren**

Sakrifizio txiki bat egin beharko duzu niregatik: [...]. **Pako Aristi**

Sakrifizio ekonomiko handiak egiten genituen langile guztiok, kateak kiebra jo eta langabezia gertatuko ote ginen beldur. **Joxan Elozegi**

Apaiz batek, kasitate botoa betetzeaz gainera, beste **sakrifizio** batzuk ere egin behar dit. **Edorta Jimenez**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zu eta zure senarra, zure aldameneko gizon altua, gizon dotore isila, zure eskaintza, **sakrifizio** -aldarera ekarri duzun oparia. **Lourdes Oñederra**

Sakrifizio -harriak odoleztatzen dituzte eta aldareak oparizatzen, emazteak semen ugariz haurdun uzteko. **Xabier Amuriza**

Norberaganako maitasunak gaitasuna kentzen die **sakrifizio** -bizitza eramateko. **Joan Mari Lekuona**

Sakrifizio -eszena bat. **Joseba Urteaga**

Esan genezake Abraham, Sokrates eta Kristoren **sakrifizio** ereduetan oinarritutako mendebaldeko tradizio erlijiosoa jarraitu besterik ez duela egin euskal abertzaletasunak. **Joseba Zulaika**

Sakrifizio -egunean zigortuko ditut buruzagiak eta erregearen etxekoak eta atzerriko erara jantzita dabilzanak. **Elizen arteko biblia**

Eliza kristaun badela ordena sakratuen sakramentu bat edo apaizgoa, **sakrifizio** eginkizunak eta naturazgandiko ahalmenak berekin dituen. **Xabier Olarra**

Estilo berri hauek eraldatzen joaten dira **sakrifizio** -ohituraren eraginez. **Santiago Iruretagoiena**

Gure amak ez zuela ezer esaten, baina salto haiek nozitzen zituela amen **sakrifizio** izpirituaz. **Pello Lizarralde**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Giza **sakrifizio** ankerrak. **Iñaki Mendiguren**

Ez giza **sakrifizioan** oinarritutako subiranotasuna, gizartearen nahimen demokratiko eta askotarikoan baizik. **Joseba Zulaika**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sakrifizio handi (3); **sakrifizio handia** (7)

bere sakrifizioa (3); **isaaken sakrifizioa** (4); **sakrifizioa egin** (3); **sakrifizioa egiten** (3); **sakrifizioa eskaini** (4); **sakrifizioa merezi** (3)

bidezko sakrifizioak (3); **jainkoari sakrifizioak eskaintzera** (3); **jaunari sakrifizioak eskaintzera** (10); **opari eta sakrifizioak** (3); **opariak eta sakrifizioak** (7); **sakrifizioak** (3); **sakrifizioak eskaini** (12); **sakrifizioak eskainiko** (5); **sakrifizioak eskaintzea** (4); **sakrifizioak eskaintzeko** (8); **sakrifizioak eskaintzen** (12); **sakrifizioak eskaintzen dizkiona** (3); **sakrifizioak eskaintzera** (17); **sakrifizioak eskaintzera joan** (3); **sakrifizioak eskaintzera joaten** (4); **sakrifizioak merezi** (3)

sakrifizioari esker (4)

odol sakrifiziork egiten (3)

sakrifiziotxo *iz* *adkor* sakrifizio txikia.

Ni neu, egia esan, ez nago oso-oso pozik arrotz bat nire gauzak erabiltzen ikusita, baina zerbait egin beharra dago helburu onaren alde, eta gustura egiten dut **sakrifiziotxo** hori, azken finean. **Josu Zabaleta**

sakrifiziozale *izond* sakrifizioen zalea dena.

Hainbat hilketen ondoren, ETaren abertzaletasun transzendental **sakrifiziozale** horretan fedeaz galdu genuen euskaldun ia denok. **Joseba Zulaika**

sakrilegio (*orobat sakrileio g.er. eta sakrilejio g.er.*) 1 *iz* sakratutzat hartzen dena profanatzeko.

Profanazio handiagoren kasuan, **sakrilegio** deiturikoetan, legeria kriminalari buruzko gure bildumak [...] elizetan egindako lapurretez mintzatzen dira bakarrik. **Juan Martin Elexpuru**

Musulmanentzat **sakrilegioa** da Mahoma zein jainkoaren irudiak egitea. **Berria - Mundua**

Norbait ehortzeko baliatu izan den eremua, aldiz, ezin da hunkitu eta **sakrilegio** gisa bizi dute lurra iraultzea edo tokiz aldatzea. **Berria - Harian**

Beraz, gaitzen egile aitortzen duzu Jaungoikoa, eta hori baino **sakrilegio** gogaikarriagorik ez dago. **Imanol Unzurrunzaga**

Sakristiara iristean, serorari honako agindua eman dio: [...]. **Martin Anso**

Sakristia oso leku hezea omen da. **Antton Olano**

Sakristia ez zen erromanikoa, askoz geroago eraikitako eranskina baizik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Eta hala hasi ginen **sakristian** ostiak jaten. **Joseba Sarrionandia**

Sarritan Gavard isilarazten zuen, hark oso gustuko baitzituzen apaizen eta mojen istorioak eta **sakristiako** gordinkeriak. **Karlos Zabala**

2 (hitz elkartuetan)

Sakristia usain batek inguratu eta osoki hartu nau eta apaiz sotanadunaren irribarre eskasak hoztu. **Piarres Aintziart**

Sakristia lurrina kendu gabea. **Iñigo Aranbarri**

3 irud/hed

Zenbait gaitan ematen du **sakristian** itxita dagoela Vatikanoa. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

elizako sakristian (4); **sakristian sartu** (3)

sakristiaratu, sakristiara(tu), sakristiaratzen da *ad* sakristiara joan.

Sakristiaratu zen, Leonie segika zeukala. **Itxaro Borda**

sakristiazale *izond adkor* elizkoia.

Rockarenganako zaletasuna hark piztu zigun, gure hiriburu probintziano eta **sakristiazalean** oraino nabarmenkeria gertatzen zen garaian. **Aingeru Epaltza**

sakro *izond* sakratua.

Aita Angiozar, musika **sakroan** dagoen jakitunik handienetakoa. Musika **sakroan** Hungariarrek, Profanoan Hungariarrek, Polifonian Alemanek, Folklorean Letoniarrek, Haur Abesbatzetan Israelek eta Kutxa Saria ere Letoniak ereman zuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

The Upper Room Gospel bikoteak irekiko du Donostiako musika **sakro** zikloa. **Berria - Kultura**

Arte **sakroaren** inguruko ikasketak egin zituen Bartzelonan. **Berria - Kultura**

Arte **Sakroaren** Bilboko museoan. **Berria - Kultura**

Erdi Aroko artean, modernoan, **sakroan** eta primitiboan espezializatu da Plazaola. **Berria - Kultura**

Kontzeptu bat [...] sasimistiko, absolutuki unamunotarra, tragedia **sakro** baterako bakarrik zentzuzkoa. **Joxe Azurmendi**

Batetik, erabilera **sakroa** izan du, prozesioetan eta halakoetan, baina, bestetik, bazuen erabilera profanoa, herriarentzat dantzaldiak egiteko. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

musika sakroan (3)

sakrosantu 1 *izond* sakratua eta santua dena.

Jesukristoren doktrina **sakrosantuaren** ildotik fedearen eraginez ikasi dugunak hunkitzen bazaitu, [...]. **Imanol Unzurrunzaga**

2 irud/hed

Segurtasun **sakrosantua** zela medio, nik bakarrik neuzkan txosten guztiak, nik bakarrik neukan koadro osoaren ikuspegi orokorra. **Fernando Morillo**

Greba egiteak eskubide **sakrosantuak** defenditzea esan nahi dik, hire ogia, hire askatasuna eta hire umeen etorkizuna defenditzea. **Koldo Biguri**

Nekazari primitiboen gehiengoa noraino iritsiko zen Mendebaldeko nekazaritza-metodo zientifikoak onartzen eta tradizionalki **sakrosantua** zen ugaltzeko eskubide eta betebeharraren mugapenak onartzen? **Iñaki Mendiguren**

sakso ik **saxo**.

saksofono ik **saxofon**.

saku¹ ik **saki**.

saku² ik **zaku**.

sakulu *iz* barne belarriko xixku txikia.

Zirkuluerdiko formako kanalez gainera, beste bi hodi txiki ere baditu oreka-sistemak: **sakulua** eta utrikulua. **Irene Aldasoro**

Utrikulan eta **sakuluan**, gelatina gogor batean sarturik daude ile-zelulak. **Irene Aldasoro**

sakzofonista ik **saxofonista**.

sakzofono ik **saxofon**.

sala 1 *iz* etxebizitza batean, gela nagusia.

Apartamentua ederra da: **sala** handi bat, bi gela eta komuna. [Harkaitz Cano](#)

Beren bizitokia nolakoa den kontatzen digu: lau metro bider bost edo sei metro: gela bat, aldi berean **sala**, sukalde eta logela. [Pablo Sastre](#)

Etxearen neurriko **sala** niñiñoa zen: telebista aparatu bat, bideoa azpian zuena, besaulki bat, zur merkeko mahai tiki angeluzuzena, funtzionala oso, eta bi aulki, halaberekoak. [Aingeru Epaltza](#)

Solairu nagusia eremu publikoa izango zen: despatxua, harrera-gela, saloi-biblioteka, jantokia, sukalde eta officea; eta goiko planta familiaren bizitza pribaturako txokoa: **sala**, jantzitokia, logelak, bainugelak. [Patxi Iturritegi](#)

Sala eta logela banatzen zituen gortina ondora hurbildu nintzen. [Ramon Saizarbitoria](#)

Harritzekorik ez, **sala** izan baitzen egun horretan Klararen bizitegian urratu gabe utzi nuen atal bakarra. [Aingeru Epaltza](#)

Salako ispiluan Pataki ikusi zuen, jaiki berria, zahartuagoa, arropak zimurtuta. [Harkaitz Cano](#)

Sillitoe eta Fowles-i buruzko lana etxean utzi du Davidek, **salako** altzarian ahaztuta. [Iban Zaldúa](#)

Telebista **sala** erdian zetzan, pantaila hautsita, eta logelako ohe ondoan, azala odol tanta txikiz zipriztinduta, Rosaliaren liburua topatu nuen. [Iban Zaldúa](#)

Etxeo **salako** koadro handia. [Iban Zaldúa](#)

Sala erdiko mahaitxoan zegoen, goiko ertza leihora begira. [Iban Zaldúa](#)

Salara eraman ninduen, besaulkian esertzeko esan, eta ea edateko zerbait nahi nuen galdetu zidan. [Iban Zaldúa](#)

Harrera lekuak familia burges baten **sala** dirudi, lorez tapizaturiko sofaz eta besaulkiz jantzita. [Ramon Saizarbitoria](#)

Txikia zen eliza, gizon aberats baten **sala** baino handiagoa ez. [Anton Garikano](#)

2 jauregi, gaztelu eta kidekoetan, gela nagusia eta nagusietako bakoitza.

Musikazale zenez, **sala** bat apaindu zuen behealdean musika saioak entzuteko, eraikin hartako handiena, tximinia eta guzti. [Felipe Juaristi](#)

Salaz **sala** ibili zineten jauregian, pinturen lekuan lehenbizi, liburutegian gero, eta, azkenik, Lakoizketari eskainitakoan. [Hasier Etxeberria](#)

Apaingarritz eta edergarritz josi genuen jauregia, **sala** nagusia batik bat, jangelatzat eta dantzalekutat erabiltzekoa zena. [Joan Mari Irigoien](#)

Koadroa igande haietarik batean jauregiko **sala** nagusian eseki baitzuten. [Joan Mari Irigoien](#)

Gazteluko **sala** handia, bertzalde, Garrüzekoa halako hiru zen, eta horrek txiki, arrunt txiki, sentiarazten ninduen. [Aingeru Epaltza](#)

Paueko gazteluko **sala** nagusian. [Aingeru Epaltza](#)

Dorre berreraiki berrian Migelek **sala** ezarri zuen beheko oinean, beretako ganbera bigarrean eta armategia hirugarrean. [Aingeru Epaltza](#)

Tenpluko **sala** handiaren aurreko atalondoa hamar metro zabal zen. [Elizen arteko biblia](#)

Santutegi honen aurreko **sala** handia hogeit metro luze zen. [Elizen arteko biblia](#)

Gure lehen bisita kapera egiten zuen **sala** handia izan zen. [Marzel Etxehandi](#)

Hango tximinian, sagarondo egurra errez piztu zuen sua, bisitariak bero zitezten, eta berehala hartu zuen **salak** sagar usaina. [Felipe Juaristi](#)

3 bestelako eraikinetan, aretoa.

Gela, sukalde, **sala**, kafetegi eta terraza hutsek [...] bakardadeaz haratago eramaten zuten bere espirtua, Alaska hotel hura, orain, ataria baizik ez bailtzan, beste norabaiteko sarrera. [Bernardo Atxaga](#)

Beheko solairuan, halaber, **sala** egongo zen, eta, haren ondoan, ikus-entzunezkoentzako gela berezi bat. [Josetxo Azkona](#)

Sartu berria behar zuen erredakzioko **sala** handira, poltsa besotik dilindan baitzeraman oraindik. [Aingeru Epaltza](#)

Fabrikako **sala** luze eta estuak iruteko makinaz, ehundegi mekanikoz eta lurrin-motorrez bete zituen. [Iban Zaldúa](#)

Alderdi guztietako gudari eriak zeuden **sala** hartan. [Inazio Mujika Iraola](#)

Sala dezente gurutzatu genituen, ezker-eskuinera begiratu gabe [...] azkenean Turner-en alderdira iritsi ginen arte. [Ramon Saizarbitoria](#)

Sala zabala da, oheak ilaran igarri ditut eta leihoraino joan naiz. [Joseba Sarrionandia](#)

Belarririk tiraka salaz **sala** eraman zuen, Rembrandtek pintatutako juduen erretratu bakoitzaren aurrean geldiarazi eta jipoituz, "juduen adiskide denak juduen patua merezia dik" esaka. [Felipe Juaristi](#)

Gure lehen bisita kapera egiten zuen **sala** handia izan zen. [Marzel Etxehandi](#)

Gainezka bildu zen jendea biharamunean udaletxeko **sala** estuan. [Joseba Sarrionandia](#)

Dutxa labor baten ondotik botatzen gituzte, metatzen, biluzirik, **sala** batean, zoladuraren gainean etzanik, 200 preso baginen. [Michel Oronoz](#)

Gela horiek, ordea, exedrak edo **sala** karratuak baldin badira, zabalerrari beste erdi bat gehituz egingo da altuera. [Santiago Iruretagoiena](#)

4 (izenondo eta izenlagunekin)

Erizain batekin dago, **sala** zurian biak ariketak egiten. [Joseba Sarrionandia](#)

Harrera-gelarena egiten duen **sala** zabalean sartu naiz. [Edorta Jimenez](#)

Sala handia zen eta oheak bi aldeetan zeuden, bederatzire edo hamar alde bakoitzean. [Joseba Sarrionandia](#)

Zerbitziburua meteorito bat bezain laster heldu zen, **sala** luzearen bertze muturretik. [Aingeru Epaltza](#)

Ikusi zuen handik bost minutura film bat ematera zihozela zortzi **sala** haietako batean. [Joxemari Iturralde](#)

Sala hutsa zegoen, beti bezala: lau edo bost ikusle izango ziren denera, John Waineren film kaskar hura ikusten. [Karlos Linazasoro](#)

Jateko **sala** ia bete zen. [Daniel Landart](#)

Ikusi ditugu ganbara nagusiak (*suite* frantsesez), jateko **salak**, sukaldeak han lanean ari diren jendeak. [Herria](#)

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Musika-**sala** izaten jarraitu zuen, agian amak sekula galdu ez zuelako beste piano bat izateko esperantza. [Anjel Lertxundi](#)

Haztamuka hasi nintzen argiaren bila, baina musika-**salako** argia piztuta zegoela ikusi nuen. [Anjel Lertxundi](#)

Telefono-**sala** publiko batera iritsi nintzen. [Anjel Lertxundi](#)

-Mundua bai gauza dibertigarria, benetan -xuxurlatu zuen Andresek-: ospitaleak, ebakuntza **salak**, kartzelak, prostituzio etxeak. [Josu Zabaleta](#)

Ikasle gehienak irrikatan zeuden disezio-**salara** iritsi eta eskalpelo gorpuetan sartzeko. [Josu Zabaleta](#)

Barnean, kontratazio **sala** erraldoi bat, pantaila elektronikoa handi baten argitan. [Hasier Etxeberria](#)

Han ikusi ditugu mikro ainitz, estudioak, bilkura **salak**, tresna mota guztietarik... [Herria](#)

«Maule baita» zinema **salak** errezebitzen du neskenegun hunetan, SWING filme berri berria, aurrean doi doi eginik izan dena. [Herria](#)

6 emakizunetan edo bestelako ekitaldi publikoetan erabiltzen den aretoa.

Beheko solairuan zegoen, halaber, **sala** luze-zabal bat, non egiten baitziren zelebrazio handiak. [Joan Mari Irigoien](#)

Sala erraldoi bat zen, zeinean ikastolako ekitaldi nagusiak egiten baitziren: antzerki-emanaldiak, mozorro-dantzaldiak, kontzertuak. [Iban Zaldúa](#)

Zinearen **salak** almazena ematen zuen eta denetik batzen zen han barruko ilunpean. [Joseba Sarrionandia](#)

Salako argiak itzali, pantaila zuribeltzean piztu eta nodoa eman zuten lehenengo. [Joseba Sarrionandia](#)

-Ortzirale aratseko 9etan, Hendaian, Beltzenia **salan**, "Kaukasiar kreazko borobila" antzerkia. [Herria](#)

Nodoa hasten zen **sala** ilunean. [Joseba Sarrionandia](#)

Luhusoko **salan**, Beñat Errecalde-ren diapo-erakusketa, euskal mendiaz, aratsaldeko 5:30etan. *I Shim* eta *Shamen swing* dantza ikuskizuna, Miarrizteko Koliseo **salan**, igande arratsaldeko bost orenetan. [Herria](#)

7 epaitegietan, epaimahai bat biltzen den tokia; epaimahai bat osatzen duten epaileen multzoa.

Salako magistratuek gaiari buruzko lehen bilera. [Berria - Euskal Herria](#)

Auzitegi Goreneko Zigor **Salako** plenoak erabaki zuen Paroti aplikatu beharreko neurria. [Berria - Euskal Herria](#)

Del Olmoren tesiak bere egin eta auzipetzeak berretsi ditu Zigor **Salak** . Berria - Euskal Herria

Izendapena babestu egin zuen Auzitegi Gorenak, fiskal nagusiak Fungairiño **Salako** fiskal izendatzeko ahalmena zuela argudiatuta. Berria - Euskal Herria

Salak ezarritako bermea (600.000 euro) «neurrigabea» dela salatu zuen. Unai Elorriaga

Salak atzera bota du argibide helegitea. Berria - Euskal Herria

Salak aho batez onartu ditu Estatuaren Abokatuak eta Fiskaltzak HZren hautagaitzari aurkeztutako inpugnazioak. Berria - Euskal Herria

Ezkontza antolatu behar izan nuen itoka, baita hura burutu ere Epaitegiko **sala** kasik huts batean. Aingeru Epaltza

Administrazioarekiko Auzietarako **Salak** ez du helegitea onartu. Berria - Euskal Herria

EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko auzietako **salak** bi udal akordio baliogabetzeko erabakia hartu du. Berria - Euskal Herria

Bermea «neurrikoa» dela uste du Auzitegi Nazionaleko **Salak** . Berria - Euskal Herria

Gorenaren 61. **salak** organu parlamentarioen ekintzak baliogabetzeko eskumenik ez duela. Berria - Euskal Herria

Ermuko Foroak dei helegitea jarri zuen erabaki horren kontra, eta EAEko Auzitegi Nagusiko Zigor eta Zibileko **Salak** artxibatzea bertan behera uztea erabaki zuen. Berria - Euskal Herria

EAEko Auzitegi Nagusiko Zigor eta Zibil arloko **Salak** aste honetan erabaki beharko du auzia artxibatzen duen edo ez. Berria - Euskal Herria

Hala, zuzenean Madrildo Lurralde Auzitegiko bosgarren **salak** hartuko du orain auzia esku artean, dei helegitea ere aurkeztu baitzuen Iruinek. Berria - Euskal Herria

8 sala-fiesta

Sala fiestatako neskatxa gaztiak. Iñigo Aranbarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

auztegi goreneko sala (14); **etxeko sala** (7); **etxeko sala handian** (3); **gazteluko sala** (3); **goreneko sala** (16); **goreneko sala bereziak** (7); **goreneko sala berezian** (3); **goreneko sala bereziaren** (3); **herriko etxeko sala** (4); **herriko etxeko sala** (4); **herriko sala** (11); **herriko sala berrian** (4); **herriko sala handian** (5); **jateko sala** (4); **jauregiko sala** (6); **kirol sala** (3); **luhusoko sala** (7); **luhusoko sala berrian** (4)

sala bereziak (11); **sala berezian** (3); **sala bereziaren** (3); **sala berotuan** (9); **sala berri** (5); **sala berrian** (16); **sala bete** (7); **sala bete da** (3); **sala eder** (3); **sala ederra** (4); **sala ederrean** (4); **sala erdian** (3); **sala handi** (9); **sala handia** (7); **sala handian** (14); **sala handiaren** (5); **sala handira** (6); **sala haundi** (5); **sala handian** (3); **sala ilunean** (3); **sala nagusian** (6); **sala nagusiko** (3); **sala osoan** (3); **sala zabal** (3); **salaz sala** (5)

tenpluko sala (5); **vauban sala** (5); **zigor sala** (3)

auztegi nazionaleko salak (7); **salak atzera bota** (3); **salak jarritako** (3); **zigor salak** (27)

bigarren salako (3); **etxeko salako** (3); **goreneko zigor salako** (5); **salako argia** (3); **salako fiskal** (4); **salako horman** (3); **salako ispiluan** (3); **salako mahai** (4); **salako mahaiaren** (4); **salako presidente** (8); **salako presidentea** (3); **salako sei magistratuek** (3); **salako sofán eseri** (3); **zigor salako** (19); **zigor salako presidente** (7)

administrazioarekiko auzietako salan (3); **aiziritzeko herriko salan** (3); **auzietako salan** (3); **besta salan** (3); **etxeko salan** (31); **herriko etxeko salan** (11); **herriko salan** (17); **jauregiko salan** (4); **larrazkena salan** (3); **luhusoko salan** (5); **mendeala salan** (10); **ondoko salan** (4); **salan sartu** (5); **sartu zen salan** (3); **trinketeko salan** (4); **uztaritzeko lapurdi salan** (4)

logelatik salara (3); **salara eta sukaldera** (3); **salara iritsi** (5); **salara joan** (6); **salara sartu** (3); **zakurraren salara** (5); **zigor salara iritsi** (3)

salaren aurrean (5); **salaren erabakia** (3); **salaren erdian** (9); **salaren esku** (3); **zigor salaren** (3)

zigor salari (9)

salatik abiatuko da (3)

salaz sala (5)

salabardo iz arrantzaleak erabiltzen duten esku sare kirten zulekoa.

Han arroken azpian **salabardoaz** arrain txikiak harrapatzen genituen, mareak behera egitean putzuetan mugatuta geratzen ziren arraintxoak. Joseba Sarrionandia

Salabardoan gainean, katu-puskak gori-gori ageri dira ur gardenetan. Itziar Otegi

Ohe-mahaira joan eta, karramarro bat **salabardotik** bezala, telefonoa jaso du argazki Ama Birjinen irudi kolonia-ontzi eta zurezko panpinen artetik. Koldo Izagirre

Salabardoaren makila fusila balitz bezala apuntatuz, ozen egin nuen oihu. Joseba Sarrionandia

Zelai batean nenbilen, sigi-saga zihoàn tximeleta urdin baten atzetik, eskuan **salabardo** txiki irudiko bat neramala. Joan Mari Irigoien

salada izond (emakume) jostagarria, grazia duena.

Koro irakasleak - **salada**, sinpatikoa, adar-jotzailea eta parrandazaleak-, gehien bat Pablo tentatzeko erabiltzen zuen mingain piperduna, baina inor ez zegoen erabat salbu.

Joxean Sagatzizabal

salafista izond Koranen eta Sunan oinarrituz islamaren jatorrira itzultzea, aldarrikatzen duen higikunde sunitakoa.

Le Point Frantziako aldizkariak kaleratu duenez, Aldarrikapen eta Borrokarako Talde **Salafistak** sarraskia egin nahi izan zuen Dakar Rallyan. Berria - Kirola

Abu-Bakr Al Siddik Brigada **Salafista** deituriko taldeak bi bahitu hil zituela esan zuen atzo. Berria - Mundua

Aljeriako GSPC Prediku eta Borrokarako Talde **Salafista** erakunde armatuen inguruan. Berria - Mundua

Frantziak Aljeriara kanporatu zuen atzo Abdelkader Bouziane muturreko iman **salafista**, emakumeen aurkako indarkeriaren defentsa egiteagatik. Berria - Mundua

salagai izond salatzekoa.

HZren ilegalizazioa **salagai** Ebn. Berria - Euskal Herria

salagarri 1 izond salatua izatea merezi duena.

Politikeroen hipokrisia **salagarria** . Berria - Euskal Herria

Herialde kontserbadorearen ekintza **salagarriak** . Berria - Harian

Horregatik iruditzen zaio ETArri berri eguna berari menia edo tregua eskatzeko aprobetxatzea "mingarria, lotsagarria eta **salagarria**" dela. Joxerra Garzia

Haren ustez, «zentzugabekeria eta astakeria» da Urkulluk esandakoa; «erabat zoritzarrekoa, ulertezina eta **salagarria** ». Berria - Euskal Herria

Horixe pentsatzen dute, intromisio lazgarria izan zela hura, guztiz **salagarri** eta arbuigarria, zaila baita pentsatzea, inoren mesedetan aritu zirenik liskar haietan eskuhartu zutenak. hizkuntza eskubideak ez bermatzeagatik hainbatetan medikuen eta gaixoen artean sortu diren gaizki ulertuak ere **salagarriak** iruditzen zaizkie. Hasier

Etxeberria

Korsikaren eta kontinentearen artean lotura egiten duen konpainia batek batean eta bestean bizi direnen lanpostuak berrorkeatzea ez dut **salagarritzat** jotzen. Berria - Mundua

2 salatzen duena.

Keinu zapuztua jokalariek esku artean zuen karta-jokoaren **salagarri** izan zitekeen, jakina... Joan Mari Irigoien

Akabo da Hester gaixoarekikoa -errukitu zen Nora- epaileak berak askoz ere arrano eta putre sarraskizaleago horiekin, soinekoko A adabaki **salagarria** baino askoz ere kondena latzagoa erabakia baitute. Anjel Lertxundi

salakeria iz salaketa gaitzesgarria.

Herriko karlista nabarmen batzuen **salakeriari** eskerrak, ezkeriar eta abertzale ezagunen bila jo zuten nafarrek. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ezaren garaipena da ere, mota guztietako **salakeria** baten garaipena. **Berria - Harian**

salaketa (3212 agerraldi, 143 liburu eta 1554 artikulutan) 1 iz salatzea. ik salakuntza.

Salaketa hori zela eta, auzia izango zen eta auzi horretan ministroa bera sartuko zuten. **Gotzon Garate**

Traizioz hil hituen nire anaiak; hori duk nire **salaketa**. **Juan Kruz Igerabide**

Salaketa bati esker harrapatu genituen. **Oskar Arana**

Alabaina, ero batek baino ez luke pentsatuko **salaketa** horrek lotsaraziko zuenik, inoiz ez baitzitaion burutik pasatu kontrabandoan aritzea delitua izan zitekeenik. **Bego Montorio**

Emakumeak ere **salaketa** horixeie erantzun beharko die, atxilotu baitute. **Xabier Olarra**

Salaketa guztietatik 15 kasuk zigorra merezi dutela ondorioztatu dute ikuskatzaileek. **Berria - Ekonomia**

McCoy-ren idazlanetan indarkeria gogorra agertzen da, eta marginazio eta zapalketaren **salaketa** ere maiz. **Fernando Rey**

Auzoko batek esan zigunean anaia entzun zuela irratian, ezetz erantzun genion, ezin zitekeela bera izan; **salaketen** beldur ginen. **Juan Kruz Igerabide**

Emazteen kontrako bortizkeriaren **salaketa**. **Herria**

Lan baldintzen **salaketa** Ospitaleko batzorde teknikoan. **Herria**

Poitou aldeko jendarme erretiratu baten **salaketak** eragin zuen ikerketa. **Iban Zaldúa**

Petrusek aseguru-etxeetan duen konfiantza gorabehera, bere **salaketak** ez du aurrerabiderik. **Oskar Arana**

Ospitalera joanez gero, **salaketak** izango zirela, polizia agertuko zela. **Juan Kruz Igerabide**

Bere aurkako hamar **salaketari** egin zion aurre atzo Michael Jackson kantariak, Kaliforniako auzitegi batean. **Berria - Kultura**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Salaketa xuxena, ikusiz zer desmasia izigarriak egin lezazkeen mota hortako bide batek. **Herria**

Bai **salaketa** barregarria, bai oinarri eskasekoa, ez da hala? **Xabier Olarra**

-Hori **salaketa** larria da -Pilarrek, bere buruaren defentsan-. **Aitor Arana**

Ez egin **salaketa** faltsurik lagun hurkoa heriotzara kondenarazteko. **Elizen arteko biblia**

Ikerketari hasiera eman ahal izateko, lagungarri izanen omen zen **salaketa** formal bat aurkeztea. **Aingeru Epaltza**

Lan handiagoa izan zuen bere **salaketa** bihurritsu hura justifikatzen. **Juan Garzia**

Salaketa publikoa jendea informatzeko beste era bat ere bada. **Iñigo Aranbarri**

Baina bere **salaketa** publikoak ez du erantzunik jaso. **Edurne Elizondo**

Jaitsi egingo naiz, bada, **salaketa** zuzena den ikustera. **Jose Antonio Mujika**

Isilpeko **salaketa** onartzen da orduan, eta publikoa zigortzen. **Juan Martín Elexpuru**

Bere burua salatu zuen -zoriarekin **salaketa** -, zaharra izanik ere, mundua maite zuelako. **Askoren artean**

Ez zen [...] **salaketa** zuzen erasokor bat izan, jokaera sotil bat baizik. **Karlos Linazasoro**

3 (aditzekin objektu gisa)

Salaketa egin beharko diagu hire kontra, agintariak iraintzeagatik. **Aingeru Epaltza**

Apaizbureuk **salaketa** asko egiten zituzten haren kontra. **Elizen arteko biblia**

Zergatik egin zuen zure aurkako **salaketa**? **Oskar Arana**

Alabaina, egiten didan **salaketa** hain duk gogorra, non, aurre egiten ez badiot, ohorea baitut galduko. **Juan Kruz Igerabide**

Ertzainak agertu zirenean **salaketa** jartzeko asmoa agertu zuen, tabernako nagusiaren eta oihuka aritu zirenen aurka. **Iñigo Aranbarri**

Joxe Mari eta biak joan ziren epaitegira, **salaketa** ipintzera, baina **salaketa** bertan behera geratuko zen, ez baitzegoen nor salatu. **Juan Kruz Igerabide**

-Baina **salaketa** bat ezarri dute Epaitegian nire aurka. **Koldo Izagirre**

Itoizko Koordinakundeak Madrilgo Probintzia Auzitegian aurkeztu zuen urtegiaren arduradunen kontrako **salaketa**, eta aintzat hartu zuen epaileak. **Edurne Elizondo**

Ezen, ba al dute, egiaz, **salaketa** haiek jauritzeko froga argi eta erabatekorik? **Karlos Linazasoro**

Xerxesen erregealdiaren hasieran, **salaketa** bat idatzi zuten erbestealditik itzultitako etsaiek, Judako eta Jerusalemgo bizilagunen aurka. **Elizen arteko biblia**

Ondoren ken dezala **salaketa** epaitegitik. **Koldo Izagirre**

Utzi lana aldi batez, eta horren ordainetan, neskek edo haren familiak **salaketa** kentzea lor dezake unibertsitateak. **Oskar Arana**

Lehiaketa Batzordeak Clementeren kontrako **salaketa** artxibatu du. **Berria - Kirola**

Bestela norbait gainera jauziko zaigu anakronismoaren **salaketa** jaurtiz. **Jon Alonso**

Kapitaina etorri zitzaigun behin esanez zerraldoetan armak gordetzen genituelako **salaketa** heldu zitzaiola eta miaketa egin behar zuela. **Koldo Izagirre**

Biek planta egin behar zuten pixa egitera joanak zirela hara, polizien **salaketa** saihestearren. **Pello Lizarralde**

Bi **salaketak** onartzen ditut. **Oskar Arana**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Salaketa -orri bat bete genuen, bestela aseguruak ez zigulako ezer ordainduko. **Oskar Arana**

Horiek dira **salaketa** -karguak? **Oskar Arana**

Salaketa gutun hori komunikabide guzietan hel-arazi die Eriean Axurantzak Kutzak, eta denbora berean, Justizia eta Afera Sozialen ministroei. **Herria**

Orain, beste bati esaten diolarik, **salaketa** -hitzaldi horri guztiari melodramatikoki irizten dio. **Oskar Arana**

Baionan ginuen joandean ortzegunearan Amnesty-ren ordezkari bat, 2003 urteari doakion munduko txostena aurkezteko: 475 orrialdeko **salaketa** liburu gotor bat. **Herria**

Salaketa tonua du Dante: bai botere politikoaren eta bai botere espiritualaren eguzkiak itzalita ikusten ditu. **Joseba Zulaika**

Salaketa -bulegoan aurkezten da, eta handik korridore-labirinto batean zehar Ostutako Autoen Sailera eramaten dute. **Oskar Arana**

Horrela, sakramentu bat **salaketa** -bulego bihurtu zuten, eta baita sakrilegio-bide ere. **Juan Martín Elexpuru**

Haren hitzek, Hasiera-hasieratik jadanik, **salaketa** kutsua izan zuten, **salaketa** eta eskakizun kutsua. **Ander Irizar**

Nire galderak **salaketa** -hotsa izan dik. **Xabier Olarra**

Nork esan dik nigana etortzeko, **salaketa** kontu horiekin? **Josu Landa**

Pablo Picassok bonbardaketari egin zion **salaketa** koadroa. **Joseba Sarrionandia**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Entrenatzaile batek kargua utzi du ustelkeria **salaketengatik**. Tortura **salaketa** batzuk entzun ditugu egunotan. **Berria - Kirola**

Manifestazioak, tortura **salaketak**, atentatuak. **Patxi Zubizarreta**

Ez da sekula izan inolako auzitegitan ezer goitiki beheraino frogatuagorik zenbait heriotza ekarri zioten sorginkeria: **salaketak** baino. **Xabier Olarra**

6 ipar jakinarazpena.

Izan zen lehenik Abou Hafo Al-Masri deitu brigaden **salaketa** bat, ziona beren gain hartzen zutela egintza hori Europako Kurutzedunen Batasuna deitzen zuten baten kontra.

Herria

Bestalde, azapezak **salaketa** egin du holako bahiketa ez dela onesten ahal.

Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aurka jarritako salaketa (13); aurka salaketa jarri (5); aurkako salaketa (132); aurkako salaketa aurkeztu (10); aurkako salaketa jarri (34); aurkako salaketa jarriko (9); aurkako salaketa jartzeko (7); aurkeztu zuen salaketa (9); aurkeztutako salaketa (6); auzi salaketa (7); batasunaren salaketa (6)

egindako salaketa (21); eginiko salaketa (6); emakumeak salaketa jarri (8); empresaren aurkako salaketa (4); familiak salaketa jarri (4); gobernuaren aurkako salaketa (8); hiru salaketa aurkeztu (4)

jarri du salaketa (4); jarri zuen salaketa (13); jarri zuten salaketa (7); jarritako salaketa (48); kontra jarritako salaketa (6); kontrako salaketa (76); kontrako salaketa jarri (25); kontrako salaketa jarriko (6); nire salaketa (4)

ppren salaketa (4); romanoren tortura salaketa (4)

salaketa artxibatu (15); salaketa artxibatzea (8); salaketa artxibatzea erabaki (5); salaketa artxibatzeko (5); salaketa asko (10); salaketa atzera bota (5); salaketa aurkezteko (4); salaketa aurkeztu (65); salaketa aurkeztu zuen (19); salaketa aurkeztuko (5); salaketa aztertu (5); salaketa bakarra (4); salaketa bana (6); salaketa bat egin (8); salaketa bat jarri (15); salaketa baten ondotik (4); salaketa bera (9); salaketa berretsi (8); salaketa berretsi du (4)

salaketa egin (41); salaketa egin dute (4); salaketa egin zuen (4); salaketa eta eskaera (4); salaketa ezarri (23); salaketa ezarri dute (5); salaketa faltsua (12); salaketa faltsuak (11); salaketa gehiago (9); salaketa gogorra (4); salaketa gogorrak (11); salaketa gogorrak egin (8); salaketa horren harira (4)

salaketa ipini (12); salaketa izan (11); salaketa izango (4); salaketa jarri (287); salaketa jarri dio (16); salaketa jarri ondoren (8); salaketa jarri zuen (79); salaketa jarria (5); salaketa jarriko (40); salaketa jarriko du (13); salaketa jartzea (16); salaketa jartzea erabaki (5); salaketa jartzeko (30); salaketa jartzen (5); salaketa jartzera (8); salaketa jaso (25); salaketa kanpaina (9); salaketa kendu (7); salaketa kopurua (4)

salaketa oldea (5); salaketa onartu (9); salaketa publikoa (6); salaketa publikoak (4)

salaketa ugari (11); salaketa ugari jaso (5)

tortura salaketa (69); tortura salaketa artxibatu (7)

aurka jarritako salaketak (7); aurkako salaketak (30); aurkeztutako salaketak (7); bere aurkako salaketak (4); bere salaketak (4)

egindako salaketak (16); eginiko salaketak (9); eginiko tortura salaketak (4); herritarren salaketak (7)

iruzur salaketak (7); jarritako salaketak (16); kontrako salaketak (28); kontrako salaketak jarri (7); nazioarteko salaketak (4)

presoen salaketak (4)

salaketak aintzat hartu (4); salaketak aurkezteko (9); salaketak aurkeztu (8); salaketak aztertu (4); salaketak baztertu (7); salaketak baztertu zituen (5); salaketak berretsi (5); salaketak biltzeko (4)

salaketak egin (17); salaketak egitea (4); salaketak egiteko (4); salaketak egiten (5); salaketak egon (4); salaketak faltsuak (5); salaketak gaitzetsi (4)

salaketak ikertu (4); salaketak ikertuko (4); salaketak ikertzeko (8); salaketak ikertzen (6); salaketak izan (9); salaketak jarri (28); salaketak jarri zituzten (5); salaketak jartzen (4); salaketak jaso (9); salaketak jasotzeko (4); salaketak jasotzen (4)

salaketak ukatu (7); salaketak ukatu ditu (4)

tortura salaketak (110); tortura salaketak ere (4); tortura salaketak ikertzeko (6); tortura salaketak izan (4)

ustelkeria salaketak (5)

jarritako salaketan (5)

egindako salaketaren (4); jarritako salaketaren (14); salaketaren arabera (9); salaketaren berri (7); salaketaren harira (7); salaketaren ondorioz (11); salaketaren ostean (5); tortura salaketaren (8)

egindako salaketari (4)

kontrako salaketarik (5); salaketarik egin (7)

egindako salaketei (8); eginiko salaketei (4); salaketei aurre egiteko (5); salaketei erantzun (4); tortura salaketei (13)

egindako salaketen (6); salaketen arabera (7); salaketen aurrean (5); salaketen berri (7); salaketen harira (4); salaketen inguruan (9); tortura salaketen (24); tortura salaketen inguruan (6)

salaketagai iz salaketaren gaia.

Histrionismo izpirik txikienaz ere purifikatzen saiatu beharrean, **salaketagai** zuen perpaus hura xuxen-xuxen ortodoxoa zela frogatzen ahalegindu zen. **Juan Garzia**

salakot iz esfera erdi baten itxurako kapela, oso arina.

Hara abiatu nintzen, jantzirik nuen laneko arropa, Kandido Zubizarretaren **salakota**. Bitoriano Gandiagak behin erabili zuen estola bat eta Villasanterena izana zen Oteizaren hamabi apostoluen postala ekipaje bakartzat. **Jon Alonso**

Inoiz Kandido Zubizarretarena izandako **salakotari** etxola hartatik hegan aterako ninduten helize txiki batzuk hazi zekizkiola. **Jon Alonso**

salakuntza (32 agerraldi, 9 liburu eta 3 artikulutan) iz salaketa.

Salakuntza guztietatik libre bidali zuen erregeak Menelao, kalte guztien egilea. **Elizen arteko biblia**

Salakuntza hori egiaztatzeraz joan behar dut, eta egiazkoa den ala ez ikusi. **Elizen arteko biblia**

Erregearen aurrean herriaren kontra **salakuntzak** egin zituzten, esanez: "Judasek eta beronen anaiek hil egin dituzte zure aldeko guztiak eta gu geure herrialdetik egotzi".

Elizen arteko biblia

Desordenaren **salakuntza** ez ezik haren etsenplu garbi ere badiren hitzok nabarmen ematen dute aditzera hala mintzo direnen gustu ezinago txarra eta haien ezjakintasun etsi-etsia. **Juan Garzia**

Zorionekoa, bestek egindako oharpena, **salakuntza** eta errieta norbere buruari egindakoa bezalako pazientziak hartzen duen zerbitzaria! **Askoren artean**

Irakurtzen ari nintzen bitartean, idazlea, zenbait unetan, bere **salakuntzetan** neuri ari zitzaidala iruditzen zitzaidan, eta horregatik, orain, barrutik egiaz nolakoa naizen azaldu nahi nizuke, eta eraso horretatik defenditu. **Josu Zabaleta**

Elkarren **salakuntzetatik** defenditzeko. **Josu Zabaleta**

salakuntzaka adlag salakuntzak eginez.

Egia da ez zitzaidala gaitzespenka edo **salakuntzaka** ari; soilik, bezperan betetako hautsontzien hustuketan ari zen hura. **Joxe Austin Arrieta**

salamancar (orobat salamankar g.er.) izlag/iz Salamancakoa, Salamankari dagokiona; Salamancako biztanlea.

-Ez naizela **salamancarra**, zamorarra nauk, dedio! **Jon Maia**

Arreba nagusiarekin ateratzen zen mutila zen, **salamancarra**, eta Avarozon egiten zuen lan, administrazioan. **Jon Maia**

Burura etorriko litzazuigukeen lehen gauza ea horrela mintzo dena hegoamerikarra-edo ote den izango litzateke, baina **salamancarra** dela esango baligute, adar soinuaren dabilela, edo, bestela, petral eta pedante galanta dela esango genuke. **Koldo Zuazo**

Pedro eta **salamancarra**, amildegi pendiza jaitsi zutenean, haitzarte batean ezkutatu ziren, hegazkinak urruntzen entzun arte. **Jon Maia**

-Iliik egon hadi, **salamancar** alu hori. **Jon Maia**

salamandra iz arrabioa.

Mozorro aldaketa izan zen gauzarik ikusgarriena; onagroak putrearekin elkar trukea egin, **salamandrak** ardiarekin, ostrukak tximinoarekin... ezin konta ahala trukaketa izan zen ikusleen artean. **Karlos Linazasoro**

Panpinak jarri baitzituzten hildakoen eserlekuetan, txotxongiloak, kartoi-harrizko tigreak edo putreak edota **salamandrak**. **Karlos Linazasoro**

salamankar ik **salamancar**.

salami 1 *iz* hestebete lodia, behikiz egina.

Hungariatik **salamia** eta pepiniloak ekartzen zituen. **Felipe Juaristi**

Eseri ziren garbigune batean, eta patriketan zuten ogia eta **salamia** jaten hasi ziren. **Josu Zabaleta**

Umbertok oparitutako liburua hasi eta buka irakurri, sukaldean aurkitu nituen ogi apur batzuk eta **salamia** jan, ohean sartu eta loak hartu ninduen. **Anjel Lertxundi**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Baba pixka bat eta polenta, eta **salami** xerra bat, etxean ez dituk inoiz falta. **Josu Zabaleta**

Ekarri **salami** errazio bat, bi arrautza katilu batean, ogia, eta botila bat garagardo. **Anton Garikano**

Presaka prestatutako bazkaria egin ondoren -tomate-zopa, arrautza nahaskia eta **salami** ogitartekoak-, Lucy eta biok erosketak egitera atera ginen. **Oskar Arana**

salaminar ik **salaminatar**.

salaminatar (*orobat salaminar*) *izlag/iz* Salaminakoa, Salaminari dagokiona; Salaminako biztanlea.

Bistan da Gabiniar Legeak probintzietara zabaldua zuela Senproniar senatu-kontsultua, **salaminatarrek**, lege hori zela medio, ezin zietelako dirurik mailegutan hartu erromatarrei. **Iñaki Iñurrieta**

Hala ere, abiatu zinen **salaminarra** eta paralienarra ontzien buru... Ziziliaren menperatzera. **Itxaro Borda**

Mailegu hura ez zela hartuko legeari egindako iruzurtzat, eta Ziliziako gobernadoreak **salaminatarren** biletean adierazten ziren abenikoen arabera epaituko zuela. **Iñaki Iñurrieta**

salapide *iz* salatze bidea.

Irrati eta telebixtek hartaz dute beren errepika, sariak eta prima gaitzak hitzemanek Al Qaidaren buruzagi hortaz zerbait xehetasun eta **salapide** ekar lezakeen edozeini.

Herria

salarazi¹, salaraz, salarazten du *ad* saltzera behartu.

Damuan izango dut beti amak eta biok **salarazi** genion bihotz itxurako kutxatila hura, leunkiro landua. **Joxan Elozegi**

Zigor gisa, Abdi aghak bera eta bere ama, aurrena gari alerik gabe utzi zituen eta gero, zeukaten behi bakarra gari zaku baten truke **salarazi** zien. **Pablo Sastre**

Emakume horren historia erromantikoak eta maitasun fatalak makina bat malko isurarazi zuten Britainia Handian, baita milaka egunkari eta aldizkari **salarazi** ere. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

salarazi², salaraz, salarazten du *ad* salatze behartu.

Umiliaraztearren, barkamen eske ikustearren, beste batzuk **salaraztearren**. **Edorta Jimenez**

salatari (*221 agerraldi, 73 liburu eta 36 artikulutan*) 1 *izond/iz* salaketa egiten duena. ik **salatzaile**.

Delitu baten konplize **salatariari** inpunitatea aginduko balio, hobe izango litzatekeela hau edozein deklarazio berezi baino. **Juan Martin Elexpuru**

Konturatu zen, antza, Tsarren inperioko txakur **salatari** guztien artean gizarajoena nintzela. **Matías Múgica**

Puntu honetara heldurik, eta keinu dramatiko batez, atzamar **salatari** bat bideratu zuen Golengana, honelaxe jarraitu aurretik:- zer adierazi nahi digu, beraz, Golek? **Joanes Urkixo**

Hain **salatariak** dira hortzak, izan ere, ez baita sekreturik gure bizitzan, haietan agertzen ez denik! **Patziku Perurena**

Hark egin ez zituenak... -esaten zidan aitak, amaren ezkutuan keinu **salatari** bat erantsiz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zuzien argi **salataria** aldentzen hasi zen. **Agustin Otsoa**

Urduri nengoan, aingeru pausoeekin nindoan, lapur bihurria bezala, harrapatuko ninduten beldur, ezker-eskuin terrenoa ikuskatuz, poliki nenbilen egurrezko lur **salatariar**.

beribilen abiadura neurtzen, argazkia hartzen eta orena emaiten dituzten tresna **salatariak**. **Harkaitz Cano**

Masta bat zeru beltzaren **salatari** eta akusatzailea. **Felipe Juaristi**

Kikidurik joango dira beren bekaturen kontu ematera, beren gaiztakeriak izango baitituzte **salatari**. **Elizen arteko biblia**

Erraz jakin zitekeen, baike, soldadu alemanen ibileraren berri, kea baitzuten **salatari**, ke lodia, ke beltza, ke biribilkaria. **Felipe Juaristi**

Ez zitzaidan gogoratu ilea, Akademian hain arrangura handiz laburtzen zigutena, gure **salatari** gerta zitekeela. **Aingeru Epaltza**

Behin irakurri nuen Itsas Armada Britainiarrak erabiltzen dituen toldo guzti-guztiek hari gorri bat daukatela osagarri, eta horren kariaz inork ez dituela osten, hari gorria **salatari** bihur daitekeelako. **Bernardo Atxaga**

Begipe ubelak zeuzkan gaueko ibileren **salatari**. **Lutxo Egia**

ik beherago 5. **Askoren artean**

2 (adizlagun gisa)

-Erasoka ari dira! -garrasi egin zion Luthi **salatari** -. **Joanes Urkixo**

EEBBak lehorrak dira, baina Rio Grandetik hegoaldera, osteria ere, lurra da **salatari** dabilena. **Iñigo Aranbarri**

-lgandeeetako egunkariak irakurtzen aritu zara -bota zuen **salatari** Humphries jaunak. **Koro Navarro**

-Ez zakiat, baina, ikusitakoak ikusita, agian susmoa bazuelako, norbaitek Martin Mihurubikoa salatu ahalko zuela, eta **salatari** nor-eta huraxe joan zitekeela. **Edorta Jimenez**

Hatz zuzena hedatu zen, **salatari**, nire aitzinera. **Aingeru Epaltza**

Amorratuki ari dira, beren jabeen traizioaren **salatari**. **Xabier Montoia**

Gero, Jaunak Josue apaiz nagusia erakutsi zidan, Jaunaren aingeruaren aurrean zutik. Josueren eskuinaldean Satan etsaia zegoen **salatari**. **Elizen arteko biblia**

salbaezin izond ezin salbatuzkoa.

Esan nahi du ageriko madarikazioa bekatarri eskandalu-emaile txarrantzat; erritoak bihurtzen du Satanen esklaboa eta sekulakoz **salbaezina** Kristorentzat. **Xabier Olarra**

salbagailu 1 iz uretan igeri egoteko gerri inguruan jartzen den eraztun modukoa, edo gorputzean jartzen den txaleko modukoa.

-Lotu ezak **salbagailua** gerrian, Zulaika...! **Koldo Izagirre**

Frantsesek txalekoak zauzkatek, **salbagailuak** lotuta ibiltzen dituk Baionako portuko pilotu guztiak. **Koldo Izagirre**

2 irud/hed

Limes-a ez zen izan zibilizazioaren gordeleku bakarrik, baita probidentziako **salbagailu** ere barbaro erasotzailearentzat berarentzat, bere baitan zituen indar demoniakoki autosuntsitzaileen aurka. **Iñaki Mendiguren**

salbagarri 1 izond salbatzen duena. ik salbatzaile.

Teologoak [...] interpretazio **salbagarri** bat behar du baitezpada; ezin irents dezake interpretazio asaldagarririk, lazgarririk, zeren teologoak osasuna eta salbazioa nahasten baititu bidegabeki. **Iñaki Segurola**

Denek dituzte harengan doktrina **salbagarriaren** adibide argiak, jokabide santuaren etsenplu bikainak. **Askoren artean**

Aitak, ihes egiteko-eta, erakutsi zigun hitz **salbagarria**. **Karlos Linazasoro**

Aita santua, pozez gainezka, presaz jarri zen entzundako aholku **salbagarria** betetzera. **Askoren artean**

Haren egintza **salbagarria** adieraziko, sortzeko dagoen herriari. **Elizen arteko biblia**

Jaunaren ekimen **salbagarriaren** aitortza. **Askoren artean**

Bezperako jestu hura ez zen beraz inkontzienteki egin nuen buruberokeria, baizik eta, ene izate propioaren frogatzeko bultzatu nuen jazarraldi **salbagarriaren** seinalea. **Daniel Landart**

Mundu osoa poz **salbagarritz** beteko duen egun bedeinkatua. **Askoren artean**

Autoreak begiramen handia die frantses hizkuntzak Errusiari ekarri dizkion onura **salbagarriari**, begiramen handia dio goi-gizarteko jendeak eguneko ordu guztietan frantsesez mintzatzeko duen ohitura laudagarri horri. **Jose Morales**

Behar-beharrezkoa nuen sokorri **salbagarria** ekarriko zidan adiskiderik ba ote neukan? **Daniel Landart**

2 (izan aditzarekin)

Berak jasan zuen guretzat **salbagarri** izango zen zigorra: haren zauriek sendatu gintuzten. **Elizen arteko biblia**

Agertu da Jainkoaren onginahia, gizon-emakume guztientzat **salbagarri**. **Elizen arteko biblia**

Eta ETaren hondakinetan, gelditzen al da hor **salbagarri** den inolako altxorrik? **Joseba Zulaika**

salbai (orobat salbaia eta salbaje g.er.) 1 izond/iz basatia.

Kruasanak zer gerta ere zubitik uretara botatzen zituzten: haur **salbai** haiek ez zuten sekula horrelakorik jan. **Itxaro Borda**

Hasieran pentsatu zuen ardiak ebaseko barreiatzen ziren indio **salbai** haietarik bat zatekeela. nahiz eta arima-zola belar gaiztoek harturik eduki, inolako ontasunik gabe, piztia **salbaiaz** betea. **Itxaro Borda**

Hilketa **salbaiaren** berri aste baten buruan baizik ez zen jakin. **Itxaro Borda**

Atzera sentitu zuen bozkario zoro hura, bozkario **salbai** hura... **Patxi Zubizarreta**

Dena dela munduan hedatzen ari den liberalismo **salbaia** dute gudukatu nahi mundialtzearren kontrakoek, gure iduriko onar ez ditaken moldean. **Herria**

Arizan dira **salbaia** bezala; ukamilo ukaldia huni, muturrekoa bertzeari, errugbi guti, ukabilka asko. **Herria**

Londreseko abrekeria: Lehenik New-York eta Washington-en, gero Madrilen, azkenik Londresen Al Qaidako **salbaiek** hiltzen eta zauritzen dituzte jende xumeak, hobenik ez dutenak. **Herria**

Emetasunaren dohainez gabeturiko **salbaia** irizten zioten. **Patxi Zubizarreta**

Zenbait asteren buruko, 1940ko udaminuean, gure aitzinekoek sekulakotz garaituak eta suntsituak omen zituzten *les Boches* aleman **salbaiek** etxen genituen, Frantziako gudaloste garaitezinari berrogei egunez nagusiturik. **Piarres Xarriton**

2 (izan aditzarekin)

Etsaia beti **salbaia** da, alde batetik bestetik bezala, baina gerla beti zikina. **Herria**

-Agur mutiko, agur adiskideak, gutaz ontsa mintza zuen herrian, errazue nor garen, ez garela gu **salbaia**... **Aurelia Arkotxa**

-**Salbaia** zen, baina gizon ona, Senpe zaharra. **Hasier Etxeberria**

Lehen, demagun Erdi-arogan, jendeak **salbaia** zirelarik -batzuk dioten bezala- bestaburuetan uzten zuten borroka, uzten guduka bake garaia etorria zelakotz denen ustetan, bakea nagusitzen zela Eguberriz, Bazkoz, Mendekostez. **Herria**

3 (hitz elkartuetan)

Azala aitzurtzen baldin bazen, **salbai** izaera agertzen zitzaidan, harria bezain gogor, sugea bezain sotil, ekaizta bezain gaizto. **Itxaro Borda**

salbaikeria iz basatikeria.

Bertze edozeinen gisa, nazien **salbaikeriek** gazte gazterik okaztatu zuten eta are gehiago, baitzekien aitaixiri deabru gorria ikusarazia ziotela, hainbertzetaraino non amatxik, ez zuen nehoiz haren berririk izan. **Eneko Bidegain**

Bertze atxilotu batzuek oihu egin zuten **salbaikeria** horren kontra. **Jokin Urain**

Berriz erran eta ere, gerla bera da **salbaikeria** eta ez dira alderdi batean denak onak eta bestean denak tzarrak edo gaiztoak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Salbaikeria hasten da xehatzen dituztelarik eremaiten ahal ez dituzten gauzak, zizel-obrak, harri-lanak, pisuegiak direlako. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

salbaikeria horren kontra (3)

salbaiki adlag basatiki.

Gerezi-ondoaren atzetik Emma agertu zitzaidan eta, ezin kontrolatuzko indarrak bultzaturik, musukatzen hasi nintzaion, **salbaiki**. **Daniel Landart**

Bagoietatik **salbaiki** jautsarazi zituzten, besotik harturik lurrera botaz, azote eta makil ukaldika aitzinaraziz, ihizi arriskutsuak balira bezala. Dena aldrebes bihurturik zitzaion ezen, larra **salbaiki** jo eta koman zegoela irudiz, motel bateko gela beilegi nazkagarri batean gaindosiaz hil zitzaion Monika. **Eneko Bidegain**

Noiztenka lagun trufari batek ene kontakizuna **salbaiki** hausten zuen. **Itxaro Borda**

salbaitasun iz basatitasuna.

Hondarrean **salbaitasuna** hobesten zuen, bai eta LAPDen dastatu orduen finkotasuna, ordreen zehaztasuna eta bertako elkartasun sentimendu arraroa **Itxaro Borda**

salbajantzi iz (corpusean salba-jantzi soilik) iz salbagailua.

Kaieren inguruko kaleetan **salba** -jantziak saltzen dituzte. **Beria - Harian**

salbaje ik salbai.

salbakondukto (orobat salbokondukto) iz igarobaimena.

Lehenagoko denboretan elkarrekin berrogei aldiz arraildu izana ez da deusetarako **salbakonduktoa**, alderantziz baizik, aunitzetan. **Aingeru Epaltza**
Izena eman nuen, **salbokonduktoa** erakutsi nuen. **Koldo Izagirre**

salbakuntza 1 iz salbazioa, salbamendua.

Zorigaitzaren neurriak gainditu zituen Kumbakonam hiriko **salbakuntzarako** baliabideak eta Madras hiri nagusitik etorri behar izan zuten sorosleek, euren ekipamenduekin. **Beria - Mundua**

Robespierre, Montagnards taldeko Jakobinoak bere burua jarri zuen **Salbakuntza** Publikoaren Komitearen buruzagi. **Elena Touyarou**

Logikariek, **salbakuntza** horiek biak elkarrekin adosteko hizkerarik ezean, arima, edo gorputza, sakrifikatzekeo tentazioa izango dute. **Josu Zabaleta**

2 (hitz elkartuetan)

Atentatua gertatu eta gero, lekuko batzuek zehaztu zuten xiitak zein ere sunitak eskuz esku zebiltzala **salbakuntza** lanetan, hots, etxe apurkinen azpian harrapatutako enborrosteko ahaleginetan. **Beria - Mundua**

salbaleku iz salbatzeko lekua.

Salbalekura heldu eta gero ere jo egin ote zuen edo gerritik gora joan ote zitzaion eskua edo indartsuegi izan ote zen... bazuen beti muturtzeko aitzakiaren bat, nahiz eta inork jaramonik egin ez. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Auzuneko beste lau etxeak pasa zituen bata bestearen atzetik, eta guztiez egin zion bere buruari galde, han laguntza eskatu ala ez; guztiei buruz pentsatu zuen ondo zein gaizki, Kainen bizileku bailitzan eta Abelen bizileku bailitzan; herioleku edo **salbaleku**. **Bernardo Atxaga**

salbamen (349 agerraldi, 26 liburu eta 5 artikulutan) 1 iz arrisku larri batetik onik ateratzea edo ateraraztea; hondamenetik begiratzea. ik salbazio; salbamendu.

Salbamina, nola edo hala, geure eskuetan zegoen. **Karlos Linazasoro**

-Mikel Strogoff, [...] har ezak, bada, eskutitz hau; bertan zoak Siberia osoaren **salbamina**, bai eta agian nire anaia duke handiaren bitzita ere. **Karlos Zabala**

Gure inperioaren probetxua lortzeko gaude hemen (---) mendean hartu nahi zaituztegu arazorik sortu gabe eta zuen **salbamina** biontzat probetxuzkoa izatea nahi du.

Askoren artean

Estebanek, bi alde ezberdinetatik letorkiokeen tiroketaren erdian harrapaturiko gizagaixoak, Leon Martyrengan aurkitu zuen **salbamina**. **Pako Aristi**

Norbanakoak bere burua sakrifikatu beharra du kolektibitate baten **salbamenerako**, baina hau ez da aritmetika ergel bat. **Josu Zabaleta**

Batzuetan, izan ere, gozotasuna baita galbide, eta garraztasuna **salbamen**, Ediporen mitoan bezalaxe. **Juan Kruz Igerabide**

Amets arketipikoetan barna galtzea desiratzen nuen ondikotz, **salbamen** eske. **Itxaro Borda**

2 erlijioak sinestunei ematen dien ongi nagusia, zeruratzea.

Bakea eta **salbamina** Jainkoarekin adiskidetu. **Elizen arteko biblia**

Jainko gure Jaunaren gorespenerako eta neure arimaren **salbamenerako**. **Patxi Altuna**

Hasi nintzen ezohiko ikastaldietan, sakramentuak eta arimaren **salbamenari** zuzenean doazkion beste gai izpiritualak hunkitzen dituzten Dekretalen tituluak argitzen.

Piarres Xarriton

Zintzoen **salbamina** Jaunarengandik dator: hura dute gotorleku arrisku-garaian. **Elizen arteko biblia**

Jainkoak ez gaitu bere haserre-zigorra jasateko nahi, Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez **salbamina** iristeko baizik. **Elizen arteko biblia**

Izan ere, Jainkoaren asmoen araberako nahigabeak **salbamenera** garamatzen bizi-aldaketa dakar ondorio, eta horretaz damutu beharrik ez dago. **Elizen arteko biblia**

Herri eta auzo guztietan barrena zebilen, Jainkoaren erregetzaren eta bakearen berriona iragarri, eta **salbamina** eta bekatuaren barkamenerako bihotz-berritzea hots eginez.

Askoren artean

Esaguzue, bada, zein den guretzat **salbamenerako** bidea. **Askoren artean**

Esaten zuen, gainera, emakumeekin hitz egiten jardutea arinkeria zela, aitortzako sakramentuan edo arimaren **salbamenari** buruzko aholkuak emateko izan ezik. **Askoren artean**

Jauna dut indar eta gorespen, bera gertatu zait **salbamen**. **Askoren artean**

Eliza beti izango dela **salbamen** horren ezaugarri eta bultzagile. **Herria**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Senideok, Abrahamen odoleko zaretenok eta zuek, Israelen Jainkoa gurtzen duzuenok, guri bidali zaigu **salbamen** -mezu hau. **Elizen arteko biblia**

Ikara golkoan eta arreta handiz itzuli dira Croixera, nazioarteko izaera humanitarioa duen **salbamen** -altzora. **Anjel Lertxundi**

Haren santutasunaren usain gozoak erakarrita, Jainkoaganako begirunea sortu zuen barruan, eta **salbamen** -espiritua eman argitara. **Askoren artean**

Zure **salbamen** -asmoa, oi Jainko, zerurainokoa da, gauza handiak egin baitituzu. **Elizen arteko biblia**

Ofizioaren ardatza eta mamia Pazko Misterioa dela esan behar da, baina **salbamen** -historiako beste zenbait misterio ere badu garrantzia: kreazioa, Jaunaren Jaiotza, bigarren etorrera, azken judizioa. **Askoren artean**

Niregan bizi den Aita da bere **salbamen** -egintza burutzen ari dena. **Joan Mari Lekuona**

Zure **salbamen** -ekintzagatik alaituko gara, gure Jainko Jaunaren izenarengatik harrotuko. **Askoren artean**

Nahiz erasorako nahiz defentsarako, ez dugu Jainkoaren **salbamen** -indarra beste armarik. **Elizen arteko biblia**

Semeok, jakin ezazue pobretasuna **salbamen** -bide berezia dela; era askotako fruitua du, baina inor gutxik ezagutzen du. **Askoren artean**

Aitzitik, beste askori, beraien gaiztakerien azkena aurreikusiz, geroko **salbamen** -grazia iragarri zien. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

salbamen asmoa (7); **salbamen bide** (3); **salbamen bidea** (5); **salbamen egintza** (3); **salbamen indarra** (3); **salbamen indarrari** (3); **zure salbamen asmoa** (3)

arimen salbamena (3); **bakea eta salbamena** (3); **gure salbamena** (5); **nire salbamena** (6); **salbamena emango** (4); **salbamena iragarri** (3); **salbamena lortu** (3); **salbamena maite dutenek** (3); **zure salbamena** (7)
arimen salbamenaren (3); **betiko salbamenaren** (6); **salbamenaren iturri** (3)
arimaren salbamenari (6)
arimaren salbamenaz (4); **bere salbamenaz** (3)
aberastasuna salbamenarako oztopo (3); **arimaren salbamenarako** (8); **arimen salbamenarako** (3); **gure salbamenarako** (4); **salbamenarako eman baitzaizkio** (3)

salbamendu *(282 agerraldi, 31 liburu eta 147 artikulutan; orobat salbamentu 2 agerraldi artikululu 1ean)* 1 iz norbait salbatzea, bereziki ezbehar edo istripu batean.

Bizpahiru esaldi lauso atera nizkion, baina ez Orainvilleko berririk, ez salbatutako lagunaren izenik, ez **salbamenduari** buruzko xehetasunik ere. **Anjel Lertxundi** Zutik gelditzen diren supermerkatu eta denda apurrak arpilatzen ari diren bitartean, kontrola berreskuratzen saiatzen ari dira, oraindik ere bizirik dirauten pertsonen **salbamenduarekin** jarraitu ahal izateko. **Berria - Harian**

Izan ere, irribarre ergel bat aurpegian zintzilik, **salbamenduko** maskara eta salba-jantzia nola jarri bidaiariiei esplikatzearan hegazkin-laguntzaileak egiten dituen keinu mekaniko berberak egiten ari zen Max. **Jon Muñoz**

Mesedez ez zezatela huts egin biharamuneko ikastaroa, **salbamenduzko** lehen jakitekoak emanen zizkiela aditu batek. **Koldo Izagirre**
Federal Reserve Boardek, irailaren bukaeran, Long Term Capital Management diru-funtsaren **salbamendua** antolatu zuen. **Koro Navarro**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Dembak ez zuen parte hartzen **salbamendu**-lan horretan. **Anton Garikano**

Eguna argitu orduko indarrean jarri zirelarik **salbamendu** operazioak, airekoaren puskaikinak aurkitu ziren itsaso gainean zehar. **Berria - Mundua**

Berehala Bilboko Itsasoko Zerbitzuak Santanderren dagoen Herriko Itsasoko **Salbamendu** Zentroari istripuaren berri eman zion. **Berria - Ekonomia**

Maxek neurriak hartu beharko ditu amona salbatzeko... nahiz eta **salbamendu** nahi horrek bestelako ondorioa izan. **Berria - Kultura**

Bagenekien aurki azalduko zela gurean polizia edo dena delakoa, ordurako hasiak baikinen, **salbamendu**-talde eta halakoez gainera. **Karlos Linazasoro**

Ez ginela txalupan fijatuko **salbamendu**-txalekoaz hornitutako chihuahua harengatik izan ez balitz. **Bernardo Atxaga**

Salbamendu jakak jantzi eta bateletara ailegatze ariketak egingo dituzue. **Joseba Sarrionandia**

Mr. Densch adi zegoen, **salbamendu**-txalupa batez babesturik. **Lopez de Arana**

Gizonak ez zuen **salbamendu** gabarrara jaitsi nahi. **Txillardegi**

Bai, salbatuko zen, Dodov ohitua dago muturreko egoeretara, izaera militarra du, vivac, guerra de guerrillas, biziraupen ikastaroak, **salbamendu** patruilak. **Karlos Linazasoro**

Armadako bi itsasontzi eta **salbamendu** zerbitzuko hegazkin bat prest zituztela arestian aipatutako ontziari laguntzeko. **Berria - Harian**

Ertzaintzaren **salbamendu** txakurrak erabili zituzten mendian behera eroritako bi gazteak aurkitzeko. **Berria - Euskal Herria**

Banku horiek eta Erreserba Federalak antolaturiko azken orduko **salbamendu** ekintza batek atera zuen funts hori aurrera **Iñaki Heras**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ontziko eskifaia ateratzen laguntzeko eskatu zien Mangourasek itsas **salbamendukoel**, baina berak ontzi barruan gelditzea erabaki zuen, «ontzia ez galtzeko». **Berria - Gaiak**

Itsas **Salbamenduko** helikopteroak eta zenbait itsasontzik atzo jarraitu zuten ostiraletik desagertuta dagoen Irungo (Gipuzkoa) arrantzalea bilatzen. **Berria - Euskal Herria**

Estatu Batuak behartuta gertatu ziren estatu beregain baten onuran sekula ez bezalako finantza-**salbamenduzko** eragiketarik zabalenera ekitera. **Koro Navarro**

4 salbazioa, salbamena.

Iheslariak ez zuten muga zeharkatzearekin **salbamendua** irabazia. **Eneko Bidegain**

Jesus Kristo gure Jaunaren nagusitasuna arimaren **salbamenduari** eta izpirituko ontasunari buruz antolatua dela. **Piarres Xarriton**

Komentuetako esku-lanetarik atera dire, bai Europako aberastasuna, bai hainitz arimen **salbamendua**. **Xipri Arbelbide**

Munduko populu guztien artean, Euskal Herriak ere aurki dezake Kristautasunaren baitan **salbamendua**. **Piarres Xarriton**

Luteroren eta Kalbinoren eliza berrituak **salbamenduaren** bidean ezarri ninduen, baita umezurtz utzi ere aldi berean. **Aingeru Epaltza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

salbamendu lanak (26); **salbamendu lanekin** (3); **salbamendu lanetan** (12); **salbamendu plana** (4); **salbamendu planak** (3); **salbamendu taldeak** (28); **salbamendu taldeei** (3); **salbamendu taldeek** (56); **salbamendu taldeen** (11); **salbamendu taldeen arabera** (4); **salbamendu taldeen lana** (3); **salbamendu taldeetako** (8); **salbamendu taldeetako kideak** (3); **salbamendu taldeko** (5); **salbamendu taldeko kideek** (3); **salbamendu txalupa** (5)

itsas salbamenduko (15)

salbamentu ik salbamendu.

salbaontzi *(corpusean salbaontzi soilik)* iz salbamendu ontzia.

Azkenean lortu zuten bultzaka popa itsasoratzea, bota zuten **salbaontzia**, eta eraman zuten lur muturretik harantzago ere. **Anton Garikano**

Camek pentsatu zuen, zehatz zergatik jakin gabe harro, aita han izan balitz **salbaontzia** urerutako zuela, hondakinetara helduko zela. **Anton Garikano**

Salbatore 1 iz ipar Igoakundea.

Lau egun gutiago beraz lanean artzeko: maiatzaren lehena, lanaren ohoretan preseski, maiatzaren zortzia, gerlari ohiak gogoan, **Salbatore** eta ondotik Mendekoste biharamuna. **Herria**

Urtats ondoan berehala Pazko eta **Salbatore** jin orduko uda hor berean! **Herria**

Salbatore ere ginuen aste huntan eta Itsasun bi besta ohoratu ditugu: **Salbatore** eta haur ttipien lehen komunionea. **Herria**

Donibane Lohizunen, **Salbatore**-kari izaiten da Arin elkartearen besta. **Herria**

Salbatore-karieta lau egunez, erakusketa berezi batzu egingen dira Donibane Lohizunen. **Herria**

Maiatzaren 20 an, **Salbatozez** lehen komunionea haur ttipientzat. **Herria**

Salbatore ondoko igande hortan, asteburu luze bat bururatzen ari-eta, usaian baino jende gehiagok hartu beharra zuen treina Bordele eta Parise alderat. **Herria**

Urte guziez bezala, **Salbatoreko** beila egina izanen da Bestaberri zaharrez... beraz, helduden igandean, ekainaren 24 ean. **Herria**

2 (beste izen baten ezkerrean)

Salbatore egunak ekarri du usaian bezala asteburu luze bat, gero eta jende gehiagok "zubia" egiten-eta. **Herria**

Umore ona nagusitu da buruan buru Girouettes futbol zelaian **Salbatore** egunez, lbaialde elkarreak antolatu duen seikako futbol txapelketaren karietara. **Herria**

"Kalimotxo gaua"eginen da herriko pilota plazan, helduden asteazkenean, maiatzak 19, **Salbatore** bezperan beraz, aratseko 10-etarik goiti. **Herria**

Maiatzaren 20 an, **Salbatore** ostegunez, izanen da Baionako Elkartetxeak antolaturik bidaia eder bat autobusez Gasteizerat. **Herria**

Saindu horien oheretan, bi egun beila izaiten dira beraz maiatzean, 24-ean eta 25-etan, eta aurtengoak sekulan baino arrakasta gehiago ukan du lehen eguna **Salbatore** ortzegunarekin batean gertatu baita. **Herria**

Taller berezi batzu bestalde, **Salbatore** aratsaldez, haurrentzat eta helduentzat. **Herria**

Joanden asteen, **Salbatore** bihamunean, egin dira Philippe Cachenaute-en ehorketak. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
salbatore bezperan (3); **salbatore egunean** (8); **salbatore kari** (5)
mendibe salbatoreko beila (3); **salbatoreko beila** (8)
lehen komunionea salbatorez (4)

salbatu, salba, salbatzen 1 du *ad* arrisku larri batetik onik aterarazi; norbait hondamenetik edo suntsitzetik begiratu.

Jauna, senda nazazu eta sendatua geldituko naiz, **salba** nazazu eta **salbatua** izango. **Elizen arteko biblia**

Kubako gerraontzi batek **salbatu** zuen; ekaitz batean eraman zuen atoian. **Jon Muñoz**

Senak **salbatu** hinduen. **Anjel Lertxundi**

Zure arerioa hiltzeagatik, zure semea **salbatzeagatik**, zure gaixoa sendatzeagatik. **Josu Zabaleta**

Horra **salbatzen** saiatu den gizona. **Antton Olano**

Dokumentuak **salbatzea**, edo haurra **salbatzea**. **Josu Zabaleta**

Ez zuen semea heriotzatik **salbatu**. **Juan Garzia**

-Oraingoan, inork ezin izango zaitu **salbatu**, emakumetxo -egin zuen txistu Mullinsek, pozarren. **Julen Gabiria**

Ene larrua **salbatu** diat. **Itxaro Borda**

Gu guztiok, larrua **salbatu** nahi dugun funtzionariook nazionalsozialismora afiliatzeko presa izan dugu. **Ramon Etxezarreta**

Bere burua **salbatzeko** aukera bat. **Oskar Arana**

Bere burua **salbatu** nahi, ordea, eta prestatu egin zen atea zabaldu orduko kanpora egiteko. **Patxi Zubizarreta**

Gorrito zietenen eskutik **salbatu** zituen, etsaien menpetik askatu. **Elizen arteko biblia**

Ez zuen semea heriotzatik **salbatzeko** adina indarririk izan. **Aritz Gorrotxategi**

Heu izan hintzen-eta sugarretatik **salbatu** zuena. **Agustin Otsoa**

Argi frogatu dit ordea burua galdu duzula, eta soilik horrek **salbatu** zaitu nire erresuminetik. **Jon Muñoz**

Zaurituak zekartzaten gurdietan, Lautadako Gotorlekuetako hondamenditik **salbatzeko** aukera izan zuten guztiak. **Agustin Otsoa**

Liburu honek **salbatu** nau nire buruaz beste egitetik. **Karlos Linazasoro**

Etsai indartsuagandik **salbatu** ninduen.

Gudu-zelaian sorterría **salbatu** duten gizon bulartsuen alderako begiruneak bultzaturik. **Jose Morales**

Rock and rollak bizia **salbatu** zion. **Aingeru Epaltza**

Hamanek prestatua du, hain zuzen, urkabea Mardokeorentzat, bizia **salbatu** zizunarentzat. **Elizen arteko biblia**

Bi gerrateen ondoko porroten ondoren **salbatu** ahal izan genuena bera ere erazi nahi ditek Madrilen. **Txillardegí**

Frantzian, dena galdurik dela dirudienean, mirari batek **salbatzen** du Frantzia. **Josu Zabaleta**

Egin ezak ihes! **salbatu** dokumentuak! **Josu Zabaleta**

Elorza-k salbaziorik ez daukana **salbatu** gura du -edo **salbatzen** duelakoa egin? **Joxe Azurmendi**

• 2 da *ad* arrisku larri batetik onik atera; hondamenetik, suntsitzetik begiratu.

Kristauak gaitzetsi ondoren, pagano ugari **salbatu** ziren Erromaren inbaditzaileek errespetatu zituzten kapera eta basiliketan ezkutatuta. **Imanol Unzurrunzaga**

Hegazkinekoak jausgailutan garaiz saltatu eta **salbatu** egin ziren. **Josu Zabaleta**

"Ez nekien Lubisen aita **salbatu** zenik", esan nuen. **Bernardo Atxaga**

-Izan pazientzia, eta entzun nola **salbatu** nintzen -esan nion. **Patxi Zubizarreta**

Haien ontzia Erpiceko uharrietan tarratua zen, eta berak igerian **salbatu** dira. **Juan Garzia**

Jende gutxi **salbatu** zen orduan uholdetik. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Itsasoan galtzetik **salbatu** dena ikusten ote dugu baliabideak ezin hautatu izana deitoratzen? **Jon Muñoz**

Oroitu nola **salbatu** ziren gure arbasoak Itsaso Gorrian faroiak bere gudarostearekin pertsegitzen zituenean. **Elizen arteko biblia**

Jauna, ni ez naiz nor zu nire etxean sartzeko, baina esan ezazu hitz bakar bat eta nire zerbitzaria **salbatu** egingo da. **Xabier Aranburu**

Zergatik **salbatu** gara gu hirurok eta beste inor ez? **Karlos Linazasoro**

Egun hartan, bada, pertsona errugabe baten bizitza **salbatu** zen. **Jose Antonio Mujika**

Epaiketa eginda ez zen **salbatu**, kanjeetan ere ez zen sartu. **Koldo Izagirre**

Agian horrexegatik **salbatu** nindunan nazionalak sartu zirenean. **Josu Landa**

Azken herri horretan, metro gutxigatik, jauregiaren ondoko eliza **salbatu** da. **Edurne Elizondo**

Artelanak ere ez ziren **salbatu**. **Edurne Elizondo**

Atxik, kostarik kosta, eta **salbatua** haiz. **Piarres Aintziart**

Hantxe zeuden liburu mirariz **salbatuak**. **Jon Muñoz**

• 3 du *ad* erlijiozko salbamena eman.

Salbatzen gaituen grazia. **Koro Navarro**

Ur hura, orain zuek **salbatzen** zaituzten bataioko uraren irudi zen. **Elizen arteko biblia**

Horregatik, Jainkoak, guk hots egiten dugun zorakeriaren bitartez **salbatu** nahi izan ditu fededunak. **Elizen arteko biblia**

Eta **salbatu** egin gaitu, ez gure jokabide zuzenagatik, bere errukiari esker baizik, jaioberritzen gaituen garbikuntzaz eta Espiritu Santuak guregan eragiten duen berrikuntzaz. **Elizen arteko biblia**

Gizadia **salbatzeko** eraman zituen konta ezin ahala neke eta samin. **Askoren artean**

Arrisku baten aurrean paratzen du zubiak gizona, eta hartan iragotzeko erabakiak, **salbatu** edo kondenatu eginen du. **Patziku Perurena**

Mauka ederra duk arimak **salbatzeko** bizimodua duenarentzat. **Koldo Biguri**

-Behin hil zuten gu salbatzearren; orain geuk **salbatu** behar ditugu geure buruak! **Karlos Linazasoro**

• 4 da *ad* erlijiozko salbamena lortu. ik zeruratu.

Zeure bihotzean Jainkoak hilen artetik piztu zuela sinesten baduzu, **salbatu** egingo zara. **Elizen arteko biblia**

Zintzoa nekez **salbatzen** bada, zer izango ote da gaiztoez eta bekatariez? **Elizen arteko biblia**

Penitentzi bizitzan iraun ezean, ez baitaiteke inor **salbatu**. **Askoren artean**

Semetxook, begira zenbat arima **salbatu** diren zuen otoitzez; gauza gutxian leial izan baitzarete, askoren buru ipiniko zaituztet. **Askoren artean**

Neuk antolatuko dut zer egin behar duzuen zuen arimak **salbatzeko**. **Askoren artean**

Munduko probintzietan barrena bidaltzen ditu predikatzera eta arimak **salbatzera**. **Askoren artean**

Gizakiaren arima [...] berenez hain handia, hain gora eta hain ohoragarria dena, arrazoiaren erabiltzeko mailara heldu orduko behar dela bizi honetan **salbatu** edo

kondena, gizatiarrak, humano edo moralak zein diren haren erabakien eta ekintzen arabera. Piarres Xarriton

Azkeneraino sendo irauten duena, horixe izango da **salbatua**. Elizen arteko biblia

5 (era burutua izenondo gisa)

Ume **salbatuaren** aurpegia pixeldurik ageri zen, "Frantziako legeak honelako kasuetan adin txikikoak babesten dituelako. Iñigo Aranbarri

Sortzaileak Noeri eta haren ontzi-lagun **salbatuei** emandako itun-hitza etorri zen. Iñaki Mendiguren

6 (era burutua izen gisa)

Nolabait esan liteke **salbatuak** salbatzailea salbatu zuela. Gotzon Garate

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

biziak salba (3); **bizitza salba** (5); **salba dezagun** Ikerkuntza (3)

aita salbatu (6); **aitak salbatu** (3); **ama salbatu** (3); **arima salbatu** (6); **athletic salbatu** (3); **bere burua salbatu** (12); **bizia salbatu** (65); **bizia salbatu zion** (11); **biziak salbatu** (6); **bizitza salbatu** (17)

eskuetatik salbatu (4); **etsaiengandik salbatu** (3); **euskara salbatu** (5); **gizon bat salbatu** (3); **gu salbatu** (3); **heriotzatik salbatu** (6); **herria salbatu** (3); **hiltzetik salbatu** (3)

inor salbatu (4); **inork salbatu** (4); **jainkoak salbatu** (3); **jaunak salbatu** (5); **larrua salbatu** (4); **lepoa salbatu** (3); **mendizale bat salbatu** (6); **militarrak salbatu** (3); **mundua salbatu** (6)

ohorea salbatu (5)

salbatu da (7); **salbatu du** (18); **salbatu edo kondenatu** (3)

sinesmenak salbatu zaitu (3); **sorterria salbatu** (4); **sutatik salbatu** (3); **taldea salbatu** (8)

euskara salbatua (4); **salbatua izan** (3); **salbatua izango** (6); **salbatua izango da** (3); **salbatua izateko** (3)

salbatuak izan (5); **salbatuak izan dira** (5); **salbatuak izateko** (3)

bizia salbatuko (13); **bizitza salbatuko** (3); **jainkoak salbatuko** (4); **nork salbatuko** (3)

ia salbatuta (4); **salbatuta egotea** (3)

bizia salbatzea (9); **bizitza salbatzea** (4); **salbatzea erabaki** (3); **salbatzea lortu** (9); **taldea salbatzea** (3); **zu salbatzea** (4)

alstom salbatzeko (3); **arima salbatzeko** (10); **arimak salbatzeko** (3); **bahituak salbatzeko** (3); **bere bizia salbatzeko** (3); **bere burua salbatzeko** (5); **beren bizia salbatzeko** (3); **bizia salbatzeko** (34); **bizitza salbatzeko** (13); **bizitzak salbatzeko** (6)

euskararen salbatzeko (3); **gubernua salbatzeko** (3); **gu salbatzeko** (8); **haren bizia salbatzeko** (3); **haren bizitza salbatzeko** (3); **heriotzatik salbatzeko** (4); **herria salbatzeko** (3); **herriaren salbatzeko** (5); **hizkuntza salbatzeko** (3)

israel salbatzeko (3); **judua salbatzeko** (3); **ni salbatzeko** (5)

ontziola salbatzeko (5)

salbatzeko ahaleginak (3); **salbatzeko ahaleginetan** (3); **salbatzeko asmoz** (5); **salbatzeko aukera** (10); **salbatzeko bidea** (3); **salbatzeko gauza** (3); **salbatzeko giltza** (3); **salbatzeko itxaropenik** (3); **salbatzeko konpromisoa** (3); **salbatzeko plana** (3); **salbatzeko zer egin** (3); **taldea salbatzeko** (5)

zu salbatzeko (5); **zuek salbatzeko** (4)

bizia salbatzen (10); **bizitza salbatzen** (3); **salbatzen ahalegindu** (3); **salbatzen saiatu** (8); **salbatzen saiatu zen** (4); **salbatzen saiatzen** (3)

salbatzaile *(orobat salbazale g.er.)* 1 izond/iz arrisku larri batetik onik aterarazten duena, hondamenetik salbatzen duena.

Printze **salbatzaile** eta arratoi gaiztoek osatu mundu liluragarri batera eramaten du bere irudimenak. Berria - Kultura

7 itsaspekari erroso ziren itsas pazifikoa beren batizkafoan preso gertatuak oxigena erresalbuia arras xuhurtua bizpahiru egun hartan, hil edo bizi, 190 metra barnatasuneko urpean, noiz-eta ingeles Royal Navyko tresna **salbatzaile** bat doi doietarik heldu baita haren lekurtat eta zazpi mariñel errosoak osorik salbatu. Herria

Galga **salbatzaile** hori *limes*-ak berak ematen du, barbaroak suntsitu nahi izaten duena. Iñaki Mendiguren

Ene Jainkoa nire harkaitz babesgarri, nire babeski eta indar **salbatzailea**. Elizen arteko biblia

Beldur **salbatzaile** batek eman zidan abisua. Iñaki Segurola

Izan zakizkit harkaitz babesle, gaztelu **salbatzaile**. Elizen arteko biblia

Ordura arte, beren fedean tinko egon ziren arte, arbuia zuten hitz baten bertute **salbatzailearekin**. Jon Alonso

Goretsiko dut, bai, berriz ere, haren presentzia **salbatzailea**.

Salba gaitzazu, Jainko **salbatzaile** horrek; aska gaitzazu eta bildu nazioenartetik. Elizen arteko biblia

Zer egin dugu halako **salbatzaileak** merezi izateko? Hasier Etxeberria

Salbatzaile indartsua sortu digu bere morroi Daviden ondorengoan artean. Elizen arteko biblia

Fernando Katolikoa izan zen Jainkoak nafarro i gorri zigun **salbatzailea**, Nafarroa protestantismoaren atzaparretarik libratzeko eta zerurako bidean jartzeko. Joan Mari Irigoien

Nolabait esan liteke salbatuak **salbatzailea** salbatu zuela. Gotzon Garate

2 erlijiozko salbamena ematen duena.

Sineten dezaten Jainko ahalguztidun, Aita eta Seme eta Espiritu Santu, gauza guztien egileagan, eta Seme berrerosle eta **salbatzaileagan**. Askoren artean

Ahaztu egin zaizu, bestalde, Jainkoaren errukia munduko bekatu guztiak baino handiagoa dela, eta Kristo bedekintuak, gure **salbatzaileak**, mugagabeko prezioa ordaindu duela gu erostearren? Askoren artean

Horregatik saiatzen gara lanean eta borrokan, gizon-emakume guztien eta batik bat sinestedunen **Salbatzailea** den Jainko biziarengan itxaropen dugulako. txarrerako gogotsu egin zuten bieq bat, behinola Herodesek eta Pilatok **Salbatzailearen** aurka bat egin zuten bezala. Elizen arteko biblia

3 (hitz elkartuetan)

Boterea eskuratzeko aurrera egiteko prest zegoen herri **salbatzaile** beti bezain zorrotza. J.M. Olaizola "Txiliku"

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ene jainko salbatzaile (4); **gure salbatzaile** (7); **jainko salbatzaile** (7); **jainko salbatzaile hori** (4); **jesus salbatzaile** (3); **nire salbatzaile** (3); **salbatzaile gisa** (12)

bere salbatzailea (3); **ene jainko salbatzailea** (4); **gure salbatzailea** (7); **haren presentzia salbatzailea** (3); **indar salbatzailea** (3); **jainko salbatzailea** (5); **literatura salbatzailea** (3); **nire salbatzailea** (4); **zure salbatzailea** (6)

jainko salbatzaileak (4)

gure salbatzailearen (13); **jaun eta salbatzailearen** (4); **salbatzailearen onginahia** (3)

jainko salbatzaileari (3)

salbatze iz arrisku larri batetik onik ateraraztea; hondamenetik, suntsitzetik begiratzea.

Nork onartuko luke gaurko egunean horrela aritzea? bai, gauzak salbatu behar dira, baina **salbatze** horri zentzu bat eman beharra da. Berria - Kultura

Bai, liburu eder bat eta asko irakurleentzat egiazko altxor bat, denbora heietako ainitz izen eta gertakariarekin, jendeen **salbatze**, salatze, preso hartze, heriotze eta guziekin.

Gasna ote zen gure **salbatze** eremu bakarra jadanik? Herria

Orogarria da, ohoreetan kuttunena naski, herriaren askatze eta **salbatze** bidean sartzea. Itxaro Borda

salbatzearren *adlag* salbatzeko.

Ihes egin zuten, bizia **salbatzearren**. **Elizen arteko biblia**
Jainkoak ekarri nau ni hona zuen aurretik, zuen biziak **salbatzearren**. **Jose Antonio Mujika**
Arima hori desesperatuki **salbatzearren** Ortega-ren jokaera Primo de Rivera eta Franco-ren aurrean ez da gure gaia. **Joxe Azurmendi**
-Behin hil zuten gu **salbatzearren**; orain geuk salbatu behar ditugu geure buruak! **Karlos Linazasoro**
Sinesten zuten, ontzia urperatzen zenean **salbatzearren** aski zela kapitainari leial eta hurbil agertzea. **Itxaro Borda**
Guztiak infernutik **salbatzearren**. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bizia salbatzearren (3); **gu salbatzearren** (3)

salbauntzi ik **salbaontzi**.

salbazale ik **salbatzaile**.

salbazio (**364** agerraldi, **62** liburu eta **114** artikulutan; orobat **salbazione** g.er.) **1** iz arrisku larri batetik onik ateratzea edo ateraraztea; hondamenetik begiratzea. ik **salbamen**; **salbamendu**.

Artea da ankerkeriaren aurkako **salbazio** bakarra. **Berria - Kultura**
Une berean, herriaren **salbazio** hori bera da printzei aberastasunen bidea erakusten diena. **Esteban Antxustegi**
Salbazio pribatuaren gisako zerbait lortu nahian zabilta? **Oskar Arana**
Hura bihurtzen zaio bigarren **salbazio**, bere gaztaro berrituko emaztegai. **Oskar Arana**
Ez zegoen **salbaziorik** errebolber kargatuaren aurrean. **Anton Garikano**
Begiak itxi eta salto egitea, idaztea bera da **salbazioa**. **Ana Urkiza**
Sinestea Euskal Estatu lortzea dela gure azken **salbazioa**, beste guztia makurtu behar zaion kausa. **Joseba Zulaika**
Ortega-rentzat ere arazoa Espainiaren arimaren **salbazioa** da; bere kasuan, arima hori europartzea. **Joxe Azurmendi**
Arrateren porrot batek **salbazioa** emango lieke lortzen duten emaitza lortzen dutela. **Berria - Kirola**
Bidasoak, Barakaldok eta Arratek, aldiz, ez dute oraindik **salbazioa** ziurtatu. **Berria - Kirola**
Izan ere, **salbaziotik** puntu bira dago talde zuri-gorria. **Berria - Kirola**

2 erlijioak sinestunei ematen dien ongi nagusia, zeruratzea.

Bera arimen **salbazioaren** zaletasunaz barruraino betea zegoen. arima Jainkoarekin bat egitea eta betiko **salbazioa** aldarrikatzen zuten bizitzaren helburu bakar.
Askoren artean
Jaun gurutziltzatuarekin batera, salbatzekoak ziren guztien **salbazioaren** egarri zen. **Askoren artean**
Krisiak indartu bide ditu zientziok, itolarririk **salbazio** bila. **Joxe Azurmendi**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bazetorren **Salbazio** Armadako musika-banda, distiratsu, itsas urdin. **Lopez de Arana**
Booth jeneralaren **"Salbazio** Armadak". **Iñaki Mendiguren**
Izenak erroak bota zituen, eta **salbazio**-programa izen horrekin gelditu zen azkenean: Pandora. **Fernando Morillo**
Arteak, beraz, **salbazio** indarra hartuko du. **Berria - Kultura**
Esan senarrari Jainkoaren eta nire izenean, orain dela **salbazio**-garaia, gero justiziarena izango baita. **Askoren artean**
Bazuten **salbazio**-ikur bat ere, legearen agindua oroitarazten ziena. **Elizen arteko biblia**
Guztiei ematen zien bizi-araua, eta bakoitzari bere bizi-egoeraren arabera erakusten zion **salbazio**-bidea. **Askoren artean**
Katolikotasun hau enperadorearen helburu bakarrak eragina zen, hots, bere jendeari ezagutaraztea Asokaren maisuak, Gautamak, gizadiari errebelatutako **salbazio**-bidea.
Iñaki Mendiguren
Ez dago beste **salbazio**-biderik... **Fernando Rey**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gizakiaren gizarte-**salbazioa** ideal nagusi hori errealitatera aldatzeko. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

salbazio bide (3); **salbazio bidea** (5)
arimaren salbazioa (3); **gure salbazioa** (4); **helburu nagusia salbazioa** (4); **herriaren salbazioa** (4); **nire salbazioa** (4)
salbazioa eman (4); **salbazioa lortu** (8); **salbazioa lortzea** (3); **salbazioa lortzeko** (12); **salbazioa ziurtatu** (10); **salbazioa ziurtatuko** (5); **salbazioa ziurtatuta** (7); **salbazioa ziurtatzea** (4); **salbazioa ziurtatzeko** (4)
zure salbazioa (5)
salbazioaren alde (3)

salbazione ik **salbazio**.

salbe¹ (orobat **salve**) **1** *interj* ohoragarritzat hartzen den pertsona bat ikusten denean esaten zaio diosal hitza. ik **agur**.

Salbe, d'Artagnan! **Juan Garzia**
Salve, Maiakovski. **Edorta Jimenez**
Salve Cesar, hil behar direnek agurtzen zaituzte. **Berria - Mundua**

2 irud/hed

Salbe, fruitu nobleetan nobleena: mahatsa! **Xabier Olarra**

salbe² (orobat **salve**) *iz* **Salve Regina** hitzez hasten den otoitza.; otoitz hori errezatzen edo abesten den elizkizuna.

Dena dela, erreza dezagun **salbea**, eta eska dezagun, otoi!, barkamena hain berandu egiteagatik. esaten zuen kuerda paratzean, **Salvea** errezatzeko artaz oroitzean.
Edorta Jimenez
Gero Domingo **Salbea** esaten hasi zen. **Edorta Jimenez**

Maria Kristina erreginak lehenengo aldiz parte hartzen du abuztuaren 14ko **Salbean**. **Askoren artean**

2 otoitz horren hitzekin ontzen den musika-lana.

Igande hartan, elizan **Salbea** kantatu ondoren, don Justiniano udaletxeko balkoira igo zen, herriko jaiei hasiera emateko asmotan. **Joan Mari Irigoien**
Koruak elizatik kanpo, komentuko terrazatxo batean, Benedikta abestu zuen, **Salbe** eta guzti, elizan sermoi sutsua ziharduen bitartean. **Pello Zabala**
Emozioa senti nezakeen, harridura, lilura, Leireko monastegian, adibidez, monjeek konpletak eta **salbea** abesten zituztenean. **Herria**

salbe³ (orobat *sable* g.er.) 1 iz ipar hondarra. ik harea.

Dena **salbe**, dena bero, dena basamortu... **Herria**
Gizon bat, hantxe, urrun, bere atorra xuriarekin **salbe** gorrailean kanika bat dirudiena: "Hatxeman behar diat, galdegiteko". **Piarres Aintziart**
Zendu aitzin, azken jestu bat bideko **salbean** eri pototsaz marratu "Aski". **Piarres Aintziart**
Haren oinatzak bai eta haren lagunenak ere **sablean** markaturik egon ziren. **Elena Touyarou**
Hona non Zokoan haur batzuk hasiak zirelarik **salbearen** miazten, aurkitu duten joan den mundu gerlako obus bat. **Herria**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Harri bat, arbola bat edo **sable** pikor bat izan bazina, berdin zatekeen naski. **Itxaro Borda**
Galdu ez ote ziren dohakabeak, han egiten dituen **salbe** galerna batean. **Herria**
· Baina zer harri koskolak badiren hor Miarritzeko **salbe** -area finaren aldean! **Herria**

salberatasun iz

Politikarien **salberatasuna**, emakumeen ahultasuna, men egitea esan nahi zuen oro, gustatu egiten zitzaion; antzerki-aktorea bat, garrantzi handiko paper bat jokatzearagatik, enpresari zahar eta nardagarri batekin moldatzen zela; andre bat, itxuraz prestua, zita-etxe batera joaten zela; horrek guztiak txoratu egiten zuen. **Josu Zabaleta**

salbia iz landare ezpainduna, eremu lehorretan hazten dena, lore more handiak dituena eta sendagintzan erabiltzen dena (*Salvia officinalis*).

Atea ireki, begiak itxi, hamaika usain-belarrek perfumatutako airea biriketaratu -ezkaiak eta erromeroak, **salbiak** eta errudak, izpilikuak eta berbenak-, besoak zabaldu... eta mundua bere besoetan zeukân haur txiki bat zela iruditzen zitzaion. **Joan Mari Irigoien**
Berak gertatu eta antolatzen zuen urteroko Bridge Txapelketa; diru-funtsak handitzeko asmoz antolatu ere, Amerikako Iraultzaren Alaben kuartel nagusiaren aurrean zegoen kanoiaren inguruan **salbia** landatu ahal izateko. **Mirentxu Larrañaga**
Bi hilabeteren buruan, banituen eginak berrogeiren bat analisi: fosforo-eduki handieneko landareak **salbia**, zaran-belarra eta perrexila ziren. **Juan Garzia**

salbo (orobat *salbu*) 1 adlag arriskurik gabeko egoeran. ik onik.

Ni ere guztiei atsegin ematen saiatzen naiz gauza guztietan eta ez dut bilatzen neure ona, besteena baizik, **salbo** izan daitezten. **Eiizen arteko biblia**
Egia zen, bizia materialki lortu arren, ez zela aise garaizegi sufritutako ahalkerean harrak karrakatzen zuen zurrumbilo mentaletik **salbo** ilkitzea, partikulazki laguntzarik gabe. **Itxaro Borda**
Chadefaud tratulari ile zuridunak Janinari hitza eman zion Eva sano eta **salbo** Arbidera eta handik Zuberoara lagunduko zuela gau hartan berean. **Itxaro Borda**
Lapurdiko herri guztietakoak baziren, eta on eta **salbu** iristen ziren bestaldera. **Elena Touyarou**
Ekaizte ikaragarri hartatik **salbo**, abereak aterbe beroan lizarrostro jaten. **Patziku Perurena**
Amaren anaiek, ihes egin zuten eta Ipar Ameriketara azaldu ziren **salbu** eta bizirik. **Josu Zabaleta**
"Euskara **salbo** ikusi arte, ez tut kenduko bizarra" Arestik Fideli ikasia. **Patziku Perurena**

2 (izenondo gisa)

Guk bagenekien polizia batengandik arinetan ihes egin ostean gelditu zirela han, leku **salboan** zeudelakoan, baina irudian ikusten zen polizia hori euren atzean bertan zegoela ordurako, eskuak gerrian, eta bere bibote handiarekin. **Joseba Sarrionandia**

3 *salborik* (orobat *salburik*) adlag salbo, onik.

Hiru gizon hauekin ez duzu deusik irriskatzen, badakit, konfiantza osoa egiten baitiet, Argonen erreinura **salborik** helduko zarela. **Aurelia Arkotxa**
Txanponen aldean, billeteak isilak ziren, ez zuten zaratarik ateratzen, eta kalezuloko begiluzeengandik **salburik** sentitzen zen. **Patxi Zubizarreta**
Salburik zegoen, intimitatea berreskuraturik. **Anton Garikano**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

onik eta salbu (10); **salbu eta onik** (4)

salboi ik **salboin**.

salboin (orobat *salboi* g.er.) 1 iz ipar xaboaia.

Perfume eta **salboin** merkeen usain gohaingarria. **Itxaro Borda**
Zapata luzeak nituen: han sartzen ditut, **salboi** eta ikuzteko puska, ganibet, ogi puska, Bourgeois apezaren otoitz liburua... **Marzel Etxehandi**
Koipezko **salboina** erabiltzea, berriz, gutzia huts zen niretzat. **Edorta Jimenez**
Palaz jotzen zituen lehentxeago zurezko taulan **salboinez** marruskatu zituen jantziak. **Elena Touyarou**

2 (hitz elkartuetan)

Galtzak erori zitzaizkion eta, gotortutako zakila **salboin** urez eztiki garbitu ondoan, preserbagailuaz estali zion. **Itxaro Borda**
Salboin puxka bat banuen, eta mokanesa xukatzeko. **Marzel Etxehandi**

salbokondukto ik **salbakondukto**.

salbu 1 adlag izan ezik.

Bitartean Eusko Armadako soldaduek, **salbu** aspaldian sasiratu Bezek, ahalik biziiza normalena eramaten zuten. Itxaro Borda

Lagunak ez zituela ikusten, **salbu** tarteka Patrice eta Patricia, laster etxe berriaz jabetuko zirenak. Daniel Landart

Zaintzaleek, noski, ez zidaten deus erraiten, **salbu** *bonjour!* heltzen zirelarik eta *bonsoir!* partitzen zirelarik. Filipe Bidart

Hemen asmoak ez zuen, ordea, inolako oposiziorik izan, **salbu** aldizkari espezializatu batek itsasoaren hurbiltasunak bere kresala lurrinaren joan-etorrietara ohitu gabe zeuden animalien sor zezakeen eraginari buruz agertu zituen erreparoa. Pako Aristi

Herriko apeza **salbu**, inor ez zen Ttotteren balizko egoeraz kezkatzen. Itxaro Borda

Kartagotarrak salbu, lehen gerra punikoari amaia eman zion itunean ikus daitekeenez. Iñaki Iñurrieta

Ekialdeko herri guztiak, mahometarrek **salbu**, uste dute erlijio guztiak berez berdinak direla. Iñaki Iñurrieta

Ez zen arimarik ageri; txorien ttiuttak eta urruneko ardien joareak **salbu**, ez zen toki haren bakea hausten zuen beste azantzik. Elena Touyarou

Herritar guziak beren loan urrun joanak baitziren, bat **salbu** beharbada. Michel Oronoz

Nehorik ez baitu erabat galtzea onartzen, filosofoek eta poetek **salbu**. Itxaro Borda

Lehen saio horren ondoren, denak erretiratu dira Karmelo, Ruben, Tom eta ni **salbu**. Patxi Zubizarreta

Marisaren eta bion artean ez zegoen sekreturik, pistolarena eta balena **salbu**. Juan Kruz Igerabide

Etxe horretako neska-mutiko guztiak, edo zehatzago, sei urtez goitikoek, egunero zuten eskola, igandeetan **salbu**. Aingeru Epaltza

Egun osoan, orain arte, nehor ez dut ikusi bidean, **salbu** Logroñon. Piarres Aintziart

-Egia esateko, ez diot ezeri muzin egiten, salbuespen bat edo beste **salbu**. Migel Angel Mintegi

2 salbu eta

Jaka gorrixka eta buruan txano bat zeramatzan, eta, beraz, ez zen Maimieren ezertxo ere ikusten, **salbu eta** bere aurpegitxo polita eta kirruak. Julen Gabiria

Hori guztia - **salbu eta** urratsen eta objektuen hotsa, eta soldaduak adore emateko egindako iruzkin zorrotz baina umoretsuak- erabateko isiltasunean jazo da. Urtzi Urutikoetxea

Besteak ez zitzaizkion interesgarri eta bera ere ez zen besteentzat interesgarri, **salbu eta** Buxi doktorearentzat edota, haurrak beldurtze aldera, haren izena aipatzen zuten gurasoentzat. Justinianok ezarri zuen ezen, senarra joan ondoren zehaini denbora iragan eta gero ere, emagtea ezin zela ezkondu berriz, **salbu eta**, buruzagiaren aitortza eta zinaren bidez, senarraren heriotza frogatzen bazuen. Patxi Zubizarreta

Bidea jarraitu dute, hein handi batean: Arregi kalea (18:14), Gernika kalea (18:20), San Agustin kalea (18:25), Bergarako Seminarioaren enparantza (18:31), eskuineko espaloietatik kasu honetan, **salbu eta** San Agustin kalea zeharkatzean. Iban Zaldúa

Ez da soinurik txikiena ere entzuten, **salbu eta** koiotearen ulu bakartiaren imitazio zoragarria egiten dutenean. Julen Gabiria

Larrua jotzera joaten ginen besterik gabe, bakarrik uzten gintuzten ia guztietan, **salbu eta** nik gogorik ez nuenean -oso gutxitan-, eta horrelakoetan konturatu egiten zen sistema telepatikoren baten bitartez edo. Karlos Zabala

Ezer gutxi dakigu, besterik, Swann zaharraz [...] **salbu eta**, hala mintzatu arren, ez zuela aurkitu nahigabe haren benetako kontsolamendurik, eta bi urteren buruan ahitu zitzaiola bizidunen arteko aldia. Imanol Zurutuza

Kontuak kontu, ez nuen deus aurreratu, **salbu eta** Ibai-Ertzi buruzko artikuluxka hura. Xabier Mendiguren Elizegi

Ezerk ez, **salbu eta** ... Iñaki Mendiguren

3 salburik adlag salbu.

Bolikostan pasatuez ez dugu berriagorik, **salburik** Abidjaneko apezpikuak Frantziaren kontra erabili zituen solas gogorrak ez direla osoki ahantziak, Alliot-Marie andere ministroa gaitziturik utzi baitzuten. Herria

Ez dugu xehetasun osorik, **salburik** ondorio hau. Herria

Pilotariak desbardin hasi dira, maiz bezala, **salburik** Oçafrain bat eta Aramburu ere bere hainean. Herria

Haatik lehen partida huntan, behar zen mail hura ez dute denek kausitu, **salburik** Herve gostuan ari zela lekondarrarekin. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aita salbu (4); **astartetan salbu** (4); **asteazkenez salbu** (5); **bere burua salbu** (4); **bizia salbu** (5); **igandetan salbu** (6); **ni salbu** (5); **salbu astelehenetan** (7); **salbu bat** (6); **salbu batto** (4); **salbuespenak salbu** (11)

salbuesle *izond* salbuesten duena.

Espainiako Zigor Kodean **salbueslea** zen irakurtzen eta idazten ez jakitea. Berria - Gaiak

salbuespen 1 *iz* kideko guztiei dagokien edo guztiak hartzen dituen lege edo arau batetik at gelditzen den gauza edo gertaera.

Jainkoak guztia lezake, eta araua **salbuespen** bihur lezake mementu jakin batean. Joan Mari Irigoien

Baina **salbuespenek** araua berretsi ohi dute. Isabel Arrigain

Lege batean, **salbuespenak**, mugak, aldaketak, beharrezko ez direnean, askoz hobe da horrelakorik ez jartzea. Iñaki Iñurrieta

"Baietz" ihardetsi neion, **salbuespen** honekin: aitarek lekürik ezin züala bete andere batek, haboroziz eta gizon batek amarena. Herria

Dena itzuli-mitzuli, dena bihurri eta **salbuespen**, eta hori batere beharrik gabe gehiago dena... Herria

Salbuespen bat egiteak gure herrien arteko harremani zentzuzko onura ekarriko zien ulertaraztera saiatu nintzen. Aingeru Epaltza

Itxaropena neukan **salbuespena** egingo zuela nirekin. Oskar Arana

Salbuespenak ere kontuan hartu behar dira, batez ere froga empirikoei behatzeko baldintzei dagokienez. Askoren artean

-Eta bera enteratu gabe ezin al duzu **salbuespenik** egin...? -goxo-goxo Martak. Xabier Mendiguren Elizegi

Bi **salbuespen** besterik ez ditiat egiten. Karlos Zabala

Gurekin ere ez du **salbuespenik** egingo. Patxi Zubizarreta

Nork egin gaitu **salbuespen** bat herrien artean? Josu Zabaleta

Heroi modernoak **salbuespena** ere sakrifikatu egiten du. Joseba Zulaika

Beste **salbuespen** bat memoriak huts egiten duenean gertatzen da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Emakumeekin gosaltzea, tira, oporretan bai, **salbuespen** gisa, balkoi batean eta hola, baina hori bera ere ezin izan dut inoiz hiru aste baino luzaragoan jasan. Joxe Austin Arrieta

Haurraren ahoskerako ordezkatze horiek ez dira nolanhikoak izaten, ezta noizbehinkakoak ere, erregular eta **salbuespenik** gabeak baizik. Lourdes Oñederra

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Salbuespen nagusia Pierre Bourdieu-k argazkiari buruz idatzitako lana da, noski, dagoeneko klasiko bilakatu. Josu Zabaleta

Euskal Herriko unibertsitateetan ikerkuntza egiteko ditugun egiturak, **salbuespen** markatu batzuk kenduta, ez dira oso egokiak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hau salbuespena da, **salbuespen** bakarra. Patxi Iturritegi

Salbuespen bakarra Lehen Mundu Gerratik Bigarrenera doan aldiari dagokiona da. Koro Navarro

Salbuespen bakanen bat gora-behera. Juan Garzia

Salbuespen gutxi batzuk kenduta, laguntzaile osagaiko beste elementuak beti ager daitezke zehaini aditezkin. Itziar Laka

Salbuespen esanguratsu banaka batzuk alde batera utziz gero, [...]. Joan Mari Lekuona

Gure sistemak ez du literatura hutsetik adina bizitzeko ematen, **salbuespenak salbuespen**. Ana Urkiza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

ezarritako salbuespen (5); **hainbat salbuespen** (4)

salbuespen bakar (7); **salbuespen bakarra** (37); **salbuespen bakarrak** (4); **salbuespen bat egin** (4); **salbuespen batekin** (6); **salbuespen batzuk** (4); **salbuespen dira** (5); **salbuespen egoera** (59); **salbuespen egoera batean** (4); **salbuespen egoera ezarri** (11); **salbuespen egoerak** (6); **salbuespen egoeran** (14); **salbuespen egoeraren** (7); **salbuespen gisa** (13); **salbuespen gutxi batzuk** (6); **salbuespen txiki** (4)

salbuespenak salbuespen (69); **zen salbuespen** (7)

salbuespena egin (5); **salbuespena egingo** (4); **salbuespena izan** (29); **salbuespena izan zen** (5); **salbuespena izango** (8)

badira salbuespenak (7); **salbuespenak dira** (9); **salbuespenak izan** (6); **salbuespenak salbu** (11); **salbuespenak salbuespen** (69)

salbuespenen bat (5)

salbuespenik gabe (73)

salbuespentxo *iz adkor* salbuespen txikia.

Beste aldera, *euskarazkok* ere badu bere **salbuespentxo**, eta da garai batean, Oñatin eta Bizkaian gutxienez, esaten zen *euskerazko prakak* delakoa, [...] beharbada "euskarazko jendeak ardurenik janzen dituen prakak" bezala interpreta litekeena bere sorreran, eta garai jakin bati dagokiola. Iñaki Segurola

salbueste *iz* adierazten den lege, arau edo multzotik at (zerbait edo norbait) uztea edo uzten dela adieraztea.

Ez dago berezko erregela horren **salbuesterik**, gradu jakin batzuen arteko senideak izan ezik. Andres Urrutia

salbuestezko *izond* salbuesten duena.

«Zaila da hau baino egoera **salbuestezkoagorik** aurkitzea», diote aipatu epaileek. Berria - Gaiak

salbuetsarazi, salbuetsaraz, salbuetsarazten du *ad* salbuestera behartu.

Alabaina, ez da jadanik Tourvel andre maitagarri zerutiarra, emakume harrigarri, emakume fin eta sentikor bat da, halatan bertze guztiak **salbuetsarazten** dizkizuna; emakume bakan eta antzekorik ezin kausi litekeen gisarako bat da finean. Jon Muñoz

salbuetsi, salbuets, salbuesten **1 ad** adierazten den lege, arau edo multzotik at, zerbait edo norbait utzi edo uzten dela adierazi.

Badakizu garai hartan noraino hedaturik zeuden sabatarren iritziak, eta orduko gizaki guztiak, gutxi batzuk **salbuetsirik**, idolatriara emanak zirela. Xabier Kintana

Jainkoagandik hautemate motaren bat **salbuesten** bada, beharrezkoa da gainerakoak ere **salbuestea**, hau da, bost zentzuak, eta hautemate mota bat onartuz gero, noraezekoa litzateke bostenak ere ontzat ematea. Xabier Kintana

Pentsamendu oro, ikusmenaz baliatzen dena ere **salbuetsi** gabe, hizkuntzaz baliatzen da esplizituki. Josu Zabaleta

Hori, beldur gaindiezina, **salbuesten** den baldintza dela eskubideen doktrinan. Ramon Saizarbitoria

Atenasko lege batek pobrezia gorrian eroritako gurasoak elikatzerara behartzen zituen seme-alabak; **salbuetsi** egiten zituen emakume publiko batengandik jaiotakoak. Iñaki Iñurrieta

Raimundo Silvaren bulegoa **salbuetsirik** dago, noski, han txukuntasun faltak lanaren beraren baldintza ematen du. Jon Alonso

Esan liteke honelatsu direla gauzak, erabat harturik eta salbuespenak **salbuetsirik**: neurri jasagarri batetik aurrera, bat zenbat-eta abertzaleago orduan-eta españolagoa dela izatez. Iñaki Segurola

Zergak **salbuetsita** berunik gabeko erregaien %37,88 gasolinaren kostuei dagozkio. Berria - Ekonomia

Protektionismo selektibo batek [...] zergez **salbuesten** zituen industria-eraldaketarako behar ziren lehengaiak. hizkuntza eskakizuna langile euskaldunei jarri zitzaiera, arduradun politikoak eta goi karguak **salbuetsita** zeudela... Koro Navarro

Udalak dio kalean egiten diren ekitaldi guztiei eskatzen zaielabermea, eta soilik haurren olentzeroak daudela **salbuetsita**. Berria - Euskal Herria

2 (-tik atzizkiko osagarriaz)

Augusto **salbuetsia** izan zen askatasuna emateko eskuduntza mugatzen zuen legetik, eta legatzeko eskuduntza mugatzen zuenetik. Zure eskubideak errespetatzen ditut, ez ordea nire betebeharretarik **salbuetsia** izateko heineraino. Iñaki Iñurrieta

Inor ez legoke zoritxar horretatik **salbuetsirik**, agian "hiri bakoitzetik bana edo gehienez ere familia bakoitzetik bina". Xabier Kintana

Ohitura zen enperadoreak zenbait lege zibiletatik **salbuestea**. Iñaki Iñurrieta

Neure zerbitzutik **salbuetsi** nahi haut, baina ez nire adiskidetasunetik. Agustin Otsoa

Ez dugu utziko gure seme-alaben sufrimenduaren kontura inor bere erantzukizunetatik **salbuestea**. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

salbuetsita daude (6); **salbuetsita zeuden** (3)

salburik¹ ik **salbo 3**.

salburik² ik **salbu 3**.

salbutamol *iz* bronkioetako asma sendatzeko aerosol gisa erabiltzen den gaia.

Hogei ordu zeramatzan han, **salbutamol** inhalazioak hartzen, aldizka oxigenoaren hodira konektatuta. Bernardo Atxaga

salda **1 iz** okela edo beste jakiren bat egosiz egiten den zuku urtsua.

Ardi zaharra hil eta, haren haragiarekin egiten ziren **salda** eta tripotak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Lentejen **salda** eman zidan. Xabier Mendiguren Elizegi

Salda beroa hartzen. Martin Anso

Bobbik ekarritako **salda** beroak epelduko dizu barrua. Joseba Sarrionandia

Eguerdiko **saldaren** ontzeko baratzekiak bipiltzeari ekinez. Itxaro Borda

Sua egokitu zuen gero, irakiten jarrai zezan **saldak**. Jon Muñoz

Apirilaren 8an, 1945koan, **salda** partekatzen daukute eta 100 grama ogi. Michel Oronoz

Bagoiez bagoi jautsarazi gintuzten, ortutsik **salda** nahas-mahas baten edanarazteko. Marzel Etxehandi

2 (neurriekin)

Su apalean berotu ondoren, irakiten hasi zenean, katilu bat **salda** gorde, eta hara bota zituen azafrai-izpiak. Jon Muñoz

Dionisosek katilu bete **salda** jarri zion aurrean. Unai Iturriaga

Sukaldeak, 60 000 pinta **salda** egin ditzaketenak, xuriketategia, linjeria, dutxak modernak dira eta frango ontsa pentsatuak. Marzel Etxehandi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez ote dugu **salda** xorta bat merezi? Itxaro Borda

Eguerditan deia izaiten zen, **salda** xorta bat zerbitzatu aitzin. Eneko Bidegain

Goizean kafe ura banatzen zitzairen, eguerditan **salda** ura eta ogi puska idor bat, eta arratsetan eguerdiko hondarrak. Itxaro Borda

Txerrikia jaten dute eta janari kutsatuz eginiko **salda**-katilukadak hartzen. Elizen arteko biblia

Azken **salda**-koilarakada irentsi orduko, leihotik kanpoaldera begira jarri nintzen. Joxe Austin Arrieta

Dieta arruntarekin egunak 45 euro balio du, janari gordinak, frutak eta zukuak hartuz gero, 30 euro, eta ur edo **salda** baraua eginez gero, 18 euro. Berria - Harian

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Senar-emazteek baraua hautsi zuten, oilasko **salda** edanez. Koro Navarro

Eltze bete uretan oilo-**saldazko** bi kubotxo botaz hasi zen dena. Jon Muñoz

Zopa edo haragi-**salda** egiteko pastillen marka, Maggi enpresak merkatura aterea, Liebig baroiak asmatua. Fernando Rey

Baratzuri **salda** preparatu zion. Elena Touyarou

Gauza jakina baita gaztaina-**saldak** zer nolako erabilpen lubrifikatzailea izaten zuen akelarreetarako prestakuntzan. Anjel Lertxundi

Su gainean berotzen utziak zituen barazki **saldari** eta haragi saltsari ohore eginez. Elena Touyarou

Lehenago bazen ohidura, pilotarien artean, tripa **saldaren** jateko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

· Oilo **salda** usaina. Itxaro Borda

5 irud/hed

Nire gusturako, gutxitxo agertu da Oteiza hori hil eta geroko laudorio **salda** beroan. Joxerra Garzia

Egosi, halaber, desioz, beldurrez eta damuz osatu **salda** batean. Xabier Montoia

Ito egingo nintzen Ritarik gabe, neure ganora ezaren **saldatan**, une batetik bestera. Hasier Etxeberria

Are arinago zebilkion burmuinetako **salda** nahasi hura. Xabier Mendiguren Elizegi

Kaliza bedeinkatzeari ekin zionean don Martinek, beste hitz-**salda** batek irakiten zion buruan Markoxi. Joxemari Urteaga

Globalizazioa, mundializazioa... eremuak gainditzen ari den kultur **salda** honetan, jakin behar dugu geure baloreak, ikuspuntuak, borrokak zabaltzen, helarazten. Berria - Mundua

Soinu **saldaren** erdian, euskal musikak ukanen du leku garrantzitsuena halere. astapotroarena egiten genuen, gure gorputz nerabeetan bor-bor ari zen hormona-**salda** nolabait baretzeko. Berria - Kultura

Elurra mehetu eta gesaltzen denean, eta plisti-plasta ibiltzeko tamainako elur-**salda** bihurtuko da. Pello Zabala

Beraz, esaidak helbidea berandu baino lehen, bestela badakik... makila-**salda** berriro. Rafa Egiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egindako **salda** (3); haragi **salda** (4); oilo **salda** (6); **salda bero** (8); **salda beroa** (16); **salda egiteko** (3); **salda hartzen** (3); tripa **salda** (3)

tripa **saldak** (4)

tripa **saldarekin** (3)

saldatsu 1 *izond* salda duena.

Zopa hotza zegoelako edo babarrunak **saldatsuegi**. Ramon Saizarbitoria

Hori bai, lenteja gehiegi jarri zioten platerean, seiehun igual, eta itxura eskasa zuten, **saldatsuegi**. Unai Elorriaga

2 salda itxura duena.

Erdi Itsaso Atlantikoa erdi laku **saldatsua** diren urotan, lasai dabilta batel txikiak. Joseba Sarrionandia

saldo¹ 1 iz taldea, batez ere ez-txikia. ik **samalda**.

1200-1500 gizon zeukan gure **saldoa** abiatu zen geltokiari buruz. Marzel Etxehandi

Bost edo seiehun ardiko **saldoak** zaintzen. Itxaro Borda

Errusiarrak edo siberiarrak, tatariarren mende geratzeko beldurrez, hara joan ziren Feofar Khanen **saldoek** inbuditutako probintzietatik ihesi. Karlos Zabala

Kanpamenduak sutan zeuden eta orkoek ibairantz egiten zuten ihes ehiztariek jazarritako animalia basatien **saldoak** bezala. Agustin Otsoa

Taldeak, multzoak, **saldoak** norainoko desplazera pizten dion bazekien lehenagotik. Aingeru Epaltza

Emakume igerilarien **sald**o bati begira zegoen. Iñaki Iñurrieta

Emazte hanitz bazen antzezleen **sald**oan, eta denentako lanik ez gūnūan. Herria

ik beherago 6. Askoren artean

Gure korrikalarien **sald**o ez zen ez artetu, ez-eta mehatu ere: beti heldu lagun ziren berriak, beste batzu nekatuz bezala. Herria

God

God

Bera baitzen **sald**o horretan gutzian [...] latinez aise hitz egin zezakeen bakarra. Jon Alonso

Norbere izaerari eta barne-ahotsari jarraitu ala amore eman eta **sald**oaren moralari makurtu. Joxe Azurmendi

Zezenak, zama hura askatutakoan, bat egin zuen berehalakoan **sald**oarekin. Josetxo Azkona

2 (izenondoeekin)

Bertze **sald**o handi batek, aro txarraren beldurrik gabe, haize ematen zien su-emaileei, oihuka eta ufaka. Aingeru Epaltza

Han-hemenka ur-hegazti **sald**o handiak. Joanes Urkixo

Igerilekuaren ertzera **sald**o handian inguratzen ari ziren gizon dotore batzuekin zetozen. Joxan Elozegi

Arazoa zen estorninoak **sald**o handietan zebiltzala parkeetan. Jon Alonso

Saldo ederra bildu da lehen mustraka hortan, 90 batek izena eman dū taulen gainera igaiteko. Herria

Mila beso, mila ezpain, mila... izamolde nahi nituzke izan izakari xarmagarri garrantzi gabeko horietako **sald**o oso bat aldi berean besarkatu ahal izateko. Josu Zabaleta

Tomas **sald**o nagusitik kanpora zen, behar zirenak eginda badoanaren itxuran. Aingeru Epaltza

ribidiaz zaldia zuzentzeko erabiltzen diren beldurgarriak, botoa ematen duten herritarrek bezala, gizaritari esatera: [...]. [Josu Zabaleta](#)

Siberiako animalia [saldo](#) ikaragarrien elikagai bakarra. [Karlos Zabala](#)

Letrek zozabar [saldo](#) nekazekin ematen zuten paper zuriaren gainean. [Anjel Lertxundi](#)

Egunak joan, egunak jin, Graxik [saldo](#) ibiltariaren itxura burutik ezabatu zuen. [Itxaro Borda](#)

Giza [saldo](#) armatuak zebiltzan inguruko mendiak eta haranak arakutzen. [Anjel Lertxundi](#)

Lertxunak ugari, gure tren geldoa igaro ahala [saldo](#) zuritan hegaldatzen zirenak. [Joxe Austin Arrieta](#)

Ilunpean barreiatu ziren, pika-bele [saldo](#) alegera. [Itxaro Borda](#)

Hamabost soldaduko [saldo](#) urri honetara igorri nitek. [Itxaro Borda](#)

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehen osagaia animaliei dagokiela)

Otso- [saldo](#) bat orpoz orpo duela. [Anjel Lertxundi](#)

Basamortuan bizi diren gazela- [saldoak](#). [Fernando Rey](#)

Zaldi [saldo](#) amorratu bat uxatzen ari balitz bezala. [Jose Morales](#)

Arratsaldean, galeper [saldoa](#) etorri eta kanpamentu osoa estali zuen. [Jose Antonio Mujika](#)

Bi eskuak airean astindurik bele- [saldo](#) bat erasoan ari balitzaio baino erretxinago. [Anjel Lertxundi](#)

Kaio [saldo](#) handiak hegaldatu ziren bat-batean labarretatik. [Iñaki Iñurrieta](#)

Konturatu ziren Jasperek eskopetaz uxatutako zozo [saldoa](#) makalen gailurretan pausatu zela. [Anton Garikano](#)

Kardantxilo [saldo](#) harrigarri bat mundua txit-txit-txit ondo egina dagoela kantatzen ari zen goiz eder batez. [Anjel Lertxundi](#)

Bat-batean, kaosa egin da Joseren buruan, erle- [saldo](#) amorratu bat dabilkio buru-muinetan zitzaka. [Anjel Lertxundi](#)

Euli- [saldo](#) baten burrunba ateratzen zuen aire beroak. [Anjel Lertxundi](#)

· Uso poloniar [saldo](#) bat bulegoko ate aldera hegatu zen. [Fernando Rey](#)

Abelgorri erubi-gorritza [saldo](#) bat sakabanatu egin zen. [Mirentxu Larrañaga](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehen osagaia pertsonei dagokiela)

Euskaltzale [saldoa](#) espero da Baigorri. [Berria - Euskal Herria](#)

Gizon [saldo](#) bat badago, olibondo hostotsu baten azpian. [Jon Alonso](#)

Gizon-emakume [saldoa](#) sartu zen ostatuan, irribarrez eta alai denak. [Felipe Juaristi](#)

Gazte [saldo](#) ederrak bohemiaren eta etorkizun ziren euskal zine-antzerki-telebisten promesak liluratuta. [Iñaki Iñurrieta](#)

Atso-agure [saldo](#) batek inguratutik zeuzkan. [Aingeru Epaltza](#)

Zeremoniara Eskual Herriko sei kantoietarik jende [saldo](#) handia bildu zen. [Itxaro Borda](#)

Hilkutxaren inguruan jende- [saldo](#) ikaragarriak, Norari azken agurra ematera etorriak. [Anjel Lertxundi](#)

Bazterretan, buhame [saldoaren](#) harramantza salbu, ez zen ezer entzuten. [Itxaro Borda](#)

Ez zuten tenpluan sartzetik izan, soldadu [saldo](#) batek, armak eskuan, oztopatu baitzuten. [Elena Touyarou](#)

Akamarre izeneko herrixkako atean, bertze armagizon [saldo](#) batekin egin nuen topo. [Aingeru Epaltza](#)

Zaldizko lapur- [saldo](#) batek inguratu zituen behizaina eta behi-taldea. [Anjel Lertxundi](#)

Armada baten kideak baino gehiago, gaizkile [saldo](#) bat dirudizue. [Xabier Montoia](#)

Entzule [saldo](#) handi baten erdian. [Piarres Xarriton](#)

Garbi-garbia zegoen ontzigaina, distiratsu zeuden berunezko karel-barandak eta soka-gakoak; une hartantxe garbitzaile- [saldo](#) bat ontzia garbitzen aritu zela zirudien. [Anjel Lertxundi](#)

· Jende gaixo [saldo](#) bat. [Xabier Olarra](#)

· Gurutzean ilkatua munduaren Berrerroslea, inguruan aingeru- [saldo](#) hagitz ugari zuela. [Jon Alonso](#)

Pianoa pa-pa-pa-pa-pa hasten den hori, hasierako notek deabru- [saldo](#) bat orpoz orpo balute bezala. [Anjel Lertxundi](#)

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehen osagaia gauzei dagokiela)

Zenbaitetan hodeien lekua izar barreiatuek hartzen dute, zurrunbiloak sortzen biraka ibiltzen diren izar [saldoek](#). [Fernando Rey](#)

Erromako fakzio odoleztatuak bezala, beren bezero-oste armatu eta iraintzaileekin, atomo- [saldoen](#) zirimola begietsi zuen. [Juan Garzia](#)

Taxi- [saldo](#) batez inguratuta zeuden; ia denak aireportutik etorriak. [Jon Muñoz](#)

Zilegi izan bekik sinestea ezen haren aita begietan bertute [saldo](#) batek irabaz dezakeela ahulkeria baten barkamena. [Jon Muñoz](#)

Lokartu barik, aurrera, bizkor, oraindik auto [saldoa](#) dabil-eta. [Urtzi Urrutikoeetxea](#)

«Gizateriaren aurkako krimen [saldoa](#)» gertatzen ari dela esan zuen. [Berria - Mundua](#)

6 *saldoan adlag* ugari. ik *saldoka*; *sail 19*.

Saldoan bildū da berriz jentea: 3600 jarlekū baziren (lehen aldian beno 500 haboro), eta haboroak bete dira. [Herria](#)

Haren gudu-taldeak **saldoan** datoz, nireganaino iristeko bideak egin eta oihal-etxola inguratu didate. [Elizen arteko biblia](#)

Baina uxatu bezain laster berrito **saldoan** zetozkidan oldarka begiak lainotzera. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Ondoren, sehiak **saldoan** sartu ziren. [Jon Muñoz](#)

Turista-multzo handi bat **saldoan** igaro zitzaion aurretik. [Iñaki Mendiguren](#)

Mundua gero eta hobeia izateko berak egin behar zuen gauza bakarra aurkikuntza berriak **saldoan** egitea zela. [Iñaki Mendiguren](#)

Zuen elkartasunaren beharra dugu, zatotze **saldoan** aratsalde goxo baten pasatzera! [Herria](#)

Akemenestar Inperioa Alexandrok konkistatu aurretik eta iragarpen gisa, akemenestarrek eurek mertzenario helenikoak erabili zituzten **saldoan**. [Iñaki Mendiguren](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ardi saldo (3); **armagizon saldo** (3); **bele saldo** (6); **bele saldo bat** (4); **deabru saldo bat** (3); **erle saldo** (4); **euli saldo** (3); **gizon saldo** (4); **haur saldo** (3); **ikusle saldo** (3); **jende saldo** (17); **jende saldo bat** (3); **kaio saldo** (3)

saldo eder (3); **saldo ederra** (8); **saldo ederrak** (4); **saldo handi** (8); **saldo handi batek** (3); **saldo handia** (5); **saldo handiak** (4); **saldo handian** (4); **saldo haundian** (7)

soldadu saldo (5); **soldadu saldo bat** (3)

jende saldoa (6)

jende saldoak (3); **soldadu saldoak** (4)

jende saldoaren (4)

saldo² 1 iz kontu edo balantze baten azken emaitza.

Saldo horren bariazio negatiboak automatikoki urritzen du diru-masa, eta, horren ondorioz, interes-tasek gora egiten dute, eta eskariak, ekoizpenak eta enpleguak berriz behera. [Koro Navarro](#)

Saldoa ELGEko herrialdeetan inbertitu zen (%40), maileguan eman zitzaien garapen-bideko beste herrialdeei (%15) edota nazioarteko erakundeei aurreratu (%5). [Koro Navarro](#)

Mailegu pertsonalen **saldoak** ere %13,1 hazi dira. [Berria - Ekonomia](#)

Hazkundera handiagoa izan da epe luzerako aurrezkitan, pentsio, aurreikuspen eta erretiro planen **saldoa** %24,7 hazi baita urte betean. [Berria - Ekonomia](#)

Salgaia prezio onean **saldu** duen merkataria. [Patxi Zubizarreta](#)
Nahiko modu onean **saldu** zidaan, bera hil arte liburu-dendari eusteko baldintzarekin. [Anjel Lertxundi](#)
Erositako prezioan **saltzen** dizkizuet kontuok. [Juan Garzia](#)
Prezio doblean **saldu** beharko dinat! [Unai Iturriaga](#)
Haien gorozki guztiz ere urria errearen prezioan **saltzen** da. [Juan Garzia](#)
Gero jakin nuen Madrilen oso erraz **saltzen** zituela -salneurria bikoiztuta- Christie's-eko enkanteetan lortutako gauzak. [Ramon Saizarbitoria](#)
Hemengo hau 900 dolarrean **saldu** beharko zuen. [Anton Garikano](#)
-Tira, ondo da, prest nago hamabosna erubloan **saltzeko**! [Jose Morales](#)
Erosi baino prezio merkeagoan **saldu**. [Bernardo Atxaga](#)
Armadako tramankuluak merke-zurrean **saltzen** dituen gizon begibakarrari erosi diogu Fresnon. [Javi Cillero](#)
Garai hartan [...] orain bezala, ederki **saltzen** ziren hiztegiak, gramatika osoak edo zatikakoak, eta aditzen koloretako paradigmak. [Pello Salaburu](#)
Merke **saltzeko** egindako purtzileria haietan enplegatzen zuen bere sormena. [Iñaki Iñurrieta](#)
Diamanteak bezain garesti **saltzen** den beltz indartsua, lanerako aparta. [Felipe Juaristi](#)
Trintxerpe, arrantzale txiroen etxe multzo hezea, armadoreek berek merke jaso eta garesti **saldua**. [Koldo Izagirre](#)
Hamabi artistak beren obrak eskaini dizkiete demoei, enkantean **saltzeko**. [Berria - Euskal Herria](#)
Koadroak saldoka **saltzen** hasi zen Australian. [Unai Elorriaga](#)
-Asko **saldu** dut gaur. [Jon Muñoz](#)

3 irud/hed

Denik eta lan motarik exkaxenera, duingabeenera eroria zen jada: gorputza diruaren truke **saltzera**. [Oskar Arana](#)
Gaztea eta polita zen, gazteegia tamalez ametsik gabeko munduan murgildua izateko, gorputza garesti **saldu** arren. [Migel Angel Mintegi](#)
Ez nintzen bihurtu kaleko emakume deritzana, mari-purtzil bat, baina neure larrua **saldu** dut. [Eduardo Matauko](#)
Katilukada bat zopa edo non egona edukitzeko, arima **saldu** behar zenuen. [Koro Navarro](#)
Deabruari arima **saldua** diona. [Joan Mari Irigoien](#)
Arima **saldu** nahi al diozu eskaintzarik handiena egiten dizunari? [Lopez de Arana](#)
Segada batean eroria zela ulerturik, sablea atera eta bere burua garesti **saltzera** prestatu zen. [Felipe Juaristi](#)
Bere burua **saldu** edo bere buruaz beste egin. [Gotzon Garate](#)
Ikusi dugu kontraespiluaren astalogika zuri-beltztaile horrek zer eginarazten zigun: eskizofrenia lotsagarri bat **saldu** eta neurosi errukarri bat erosi. [Iñaki Segurola](#)
Ospe ona eta izen garbia garesti **saltzen** direlako gure gizarte itxuratian. [Migel Angel Mintegi](#)
Nortasuna bera ere **saldu** egiten da. [Joan Mari Irigoien](#)
Poza **saldu**. [Jasone Osoro](#)
Euskal idazleek edo euskal literaturak atzerrian ideia berezi, ezberdin edo propio bat **saldu** dezakeela esango zenuke? [Ana Urkiza](#)
Hartzaren larrua **saltzen** ari nintzen hura akabatu aurretik. [Juan Garzia](#)

4 leialtasuna zor diogun norbaiti edo zerbaiti kalte edo iruzur egin; norbaitenganako leialtasuna hautsi, bereziki diru edo onuraren baten truke. ik **traditu**; **traizionatu**.

Saldu gintuen salataria zen Gagni hori. [Juan Garzia](#)
Faxistak Bartzelonan sartu zirenean, Adelaren aita ihes egiten saiatu zen, familia eta guzti, baina, zer diren gauzak, beste maisu batek **saldu** zuen. [Juan Kruz Igerabide](#)
Bera ere gogor jo bazuten, seinale ez gintuela **saldu**. [Bernardo Atxaga](#)
Saldu egin ninduen kolegiotik bota ninduten egunean. [Bernardo Atxaga](#)
" **Saldu** egin nau, **saldu** egin nau, bihotza niretzat besterik ez omen zuen horrek; eta beragatik **saldu** nuen neuk, halaber, munduko gizonik zintzoena". [Juan Kruz Igerabide](#)
Saldu egin baikaituzte ni eta nire herria, txikituak, hilak eta suntsituak izan gaitezen. [Jose Antonio Mujika](#)
Amerikarrek **saldu** egin gintuzten, lehen sobietarrek bezalaxe. [Juan Kruz Igerabide](#)
Arrazoi duzu, horrek ez du baitezpada erran nahi zure aitatzik enea bezalakoak SS-**ei** **saldu** zizkiela. [Eneko Bidegain](#)
Saldu eta entregatu behar nituen erruso guztietatik, neska hura eta haren anaia ziren nire kontzientzietatik gelditzen zen apurra hunkitzeko gai ziren bakarrak. [Matías Múgica](#)
HBko batek esan zuen EE traizio baten ondoren jaioa zela, eta Espainiar Estatuari **saldu** ziotela beren burua. [Juan Kruz Igerabide](#)
Hiltzaileak halakoak, gobernu zitalari **salduak**. [Pello Lizarralde](#)

6 (da saileko laguntzaileekin)

Horra, **saldu** egin zarenez, eta Jaunak atsegin ez duena egin, zigorra hartuko duzu nire eskutik. [Jose Antonio Mujika](#)
Herriarrek Nafarroako Gobernuarekin negoziatu zetela salatu zuen Koordinakundeak; **saldu** egin zirela, nolabait. [Eduardo Elizondo](#)

7 zerbaiten edo norbaiten onarpena bultzatu.

Iristen den konponbidea gero "**saldu**" egin beharko dio alderdi bakoitzak bere publikoari, bai euskal alderdiek eta bai estatuko alderdiek ere. [Joseba Zulaika](#)
Negozio huts dena beharra balitz bezala **saldu** nahi dute. [Eduardo Elizondo](#)
Agintariek, hala ere, bortitzen kontrako gurutzatatzat **saldu** dute Itoizko urtegiaren ausia. [Eduardo Elizondo](#)
Hain trascendentetzat **saldu** nahi izan diguten bikotekidea aukeratzeari ez ziola hainbeste garrantzirik ematen esan nahi zuen agian. [Harkaitz Cano](#)
Nafarroako Gobernuak okupaziotzat **saldu** nahi izan zuen Artozkin gertatutakoa, baina ez zen hori izan. [Eduardo Elizondo](#)

8 (era burutua izenondo edo izen gisa)

Ni, berriz, gizon ahula naiz, bekatuari **saldua**. [Elizen arteko biblia](#)
Ondasun **saldua** jabe zehatzik gabe zegoen, hori ere nekazaritzarako kaltegarria izanik. [Berria - Mundua](#)
CIAk mertzenario bilakatu duen kazetari **saldua**. [Pako Aristi](#)
Ezagutzen duzu nire familia guztia; uste al duzu **saldu** bat naizela? [Juan Kruz Igerabide](#)
Le Détonant, erosi *Le Détonant*, faxisten eta **salduen** kontrako antidotoa! [Anjel Lertxundi](#)
-Basbusa **saldu** hutsarekin, gu denok lurperatzeko bezainbeste diru irabazia du. [Patxi Zubizarreta](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

akzio **saldu** (6); akzioak **saldu** (5); ale **saldu** (20); ale **saldu** dira (6); aletik gora **saldu** (4); altzariak **saldu** (4); ardiak **saldu** (4); arima deabruari **saldu** (4); arima **saldu** (10); armak **saldu** (4); asko **saldu** (11); auto **saldu** (10); auto **saldu** ziren (4); bere burua **saldu** (12); berehala **saldu** (5); deabruari **saldu** (5); dena **saldu** (11); denda **saldu** (5); disko **saldu** (6); dolarretan **saldu** (10); dolarretan **saldu** zen (5)
enpresari **saldu** (4); ere **saldu** (27); erosi eta **saldu** (4); eskubidea **saldu** (4); eskubideak **saldu** (4); eta gero **saldu** (4); eta **saldu** (46); eta **saldu** egin (6); eta **saldu** egiten (9); etxea **saldu** (12); etxea **saldu** eta (4); euroan **saldu** (10); eurotan **saldu** (21); eurotan **saldu** da (4); eurotan **saldu** du (4); ez **saldu** (8); ezer **saldu** (5); ezin **saldu** (4); gabe **saldu** (6); garesti **saldu** (9); garestiako **saldu** (5); gehiago **saldu** (36); gehiago **saldu** ziren (4); gehiago **saldu** zituen (4); gehien **saldu** (9); gehien **saldu** den (4); gero **saldu** (7); gisa **saldu** (4); gora **saldu** (6); gutxi **saldu** (5); gutxiago **saldu** (20); gutxiago **saldu** dira (5); guztia **saldu** (27); guztiak **saldu** (27); guztiak **saldu** dira (5); guztiak **saldu** eta (8); guztiak **saldu** zituen (4); hegazkin **saldu** (7); hegazkin **saldu** zituen (5); herria **saldu** (4); hori **saldu** (9)
jokalaria **saldu** (6); lurrak **saldu** (6); megawatt **saldu** (4); merke **saldu** (6); merkeago **saldu** (7); milioi auto **saldu** (6); milioi disko **saldu** (5); milioi dolarretan **saldu** (5); milioi eurotan **saldu** (7)
ondasunak **saldu** (5); ondo **saldu** (5); partaidetza **saldu** (6); prezio onean **saldu** (5); prezioan **saldu** (5)
saldu beharra (10); **saldu** dira (59); **saldu** ditu (25); **saldu** eta erosi (5); **saldu** izana leporatzen (5); **saldu** zeure ondasunak (8)

sarrera guztiak saldu (6); sarrera saldu (7); sarrera saldu dira (4); truke saldu (15); txartel saldu (9); zenbatean saldu (4)
libururik salduena (4)
libururik salduenak (4)
ama ere salduko (4); berehala salduko (5); bixkotxak salduko (4); bixkotxak salduko dituzte (4); euroan salduko (4); eurotan salduko (11); eurotan salduko dira (5); garesti salduko (9); gehiago salduko (6); merke salduko (5); merkeago salduko (4); prezioan salduko (7); salduko dira (22); salduko ditu (12)
zenbatean salduko (5)
salduta daude (6); salduta zeuden (5); sarrera salduta (4)
ale saltzea (4); arrautzak saltzea (4)
saltzea debekatu (5); saltzea debekatzen (4); saltzea egotzi (7); saltzea erabaki (12); saltzea erabaki dute (4); saltzea leporatu (4); saltzea lortu (8)
tabakoa saltzea (4)
bosch siemens saltzeagatik (4)
akzioak saltzeko (5); berriz saltzeko (4); enkantean saltzeko (5); etxea saltzeko (8); euskara saltzeko (4); garestiago saltzeko (4); gehiago saltzeko (5); merke saltzeko (6); niri saltzeko (5); produktuak saltzeko (8)
saltzeko asmoa (22); saltzeko asmotan (5); saltzeko asmoz (4); saltzeko aukera (13); saltzeko baimena (6); saltzeko eskaintza (31); saltzeko eskaintza publiko (5); saltzeko eskaintza publikoa (10); saltzeko eskaintza publikoan (4); saltzeko gai (7); saltzeko prest (26)
sarrerak saltzeko (5); tabakoa saltzeko (7)
bi sasetan saltzekoa (7)
ale saltzen (6); armak saltzen (4); arropa saltzen (6); asko saltzen (12); bere burua saltzen (5); dendetan saltzen (4); droga saltzen (8)
egiten eta saltzen (5); egunkariak saltzen (8); erosten eta saltzen (4); euroan saltzen (4); eurotan saltzen (6); garesti saltzen (7); garestiago saltzen (8); gauzak saltzen (6); gehiago saltzen (17); gehien saltzen (9); gutiago saltzen (5); gutxi saltzen (8); gutxiago saltzen (10)
jantziak saltzen (4); kea saltzen (8); kea saltzen ari (6); liburuak saltzen (4); merke saltzen (9); merkeago saltzen (9)
ondo saltzen (7); ongi saltzen (5); produktuak saltzen (5)
saltzen diren produktuak (5); saltzen dituen denda (4); saltzen ibili (7); saltzen saiatu (6); saltzen zituen denda (6); sarrerak saltzen (6)
tabakoa saltzen (4); txartelak saltzen (4)
zenbatean saltzen (4)

salduerosi ik **salerosi**¹.

salduezin *izond* ezin salduzkoa.

Galdetu al diok inoiz heure buruari zergatik margolan ospetsu jakin batzuk, berehala ezagutu daitezkeelako ustez **salduezinak** direnak, ostu egiten dituzten hala ere museoetatik? **Jon Muñoz**

saldukeria *(61 agerraldi, 32 liburu eta 11 artikulutan; cf traizio 525 agerraldi, 130 liburu eta 94 artikulutan)* 1 iz leialtasuna zor zaion zerbait edo norbait saltzea. ik **traizio**.

Saldukeria presondegi zigorrez eta, maiz, heriotzez ordaintzen da. **Elena Touyarou**

Saldukeriatzat jotzen zuen plagiaren posibilitate hura, beraren miresmenari egindako traizio izugarritzat alegia. **Iban Zaldua**

Dena ez zen hondamena eta **saldukeria**: karrikan omena zebilen bazela iruinseme bat baino gehiago, isilean lekutua errega kanporatuen aldera. **Aingeru Epaltza**

Julio Zesari ere, bere lagunena labanak zain zeuzkan lekura zihoala, ohartarazpen bat eman zioten, irakurtzeke geratu zena, zeinean agerian jartzen baitzen **saldukeria**, traidoreen izen eta guzti. **Juan Garzia**

Herritarren uztea frantsesa jakin gabe, hori da, hori, **saldukeria** nazionearen aurka. **Herria**

Jesusek Judasen **saldukeria** iragarri. **Elizen arteko biblia**

Santoñako **saldukeriaren** ondoren arras bizkurtu zen errepresio eta izua. **Jokin Urain**

Dena den, **saldukeriaren** aiztoak zauritzen zaituelarik, ez da samurra gizaki zuhur gisa jokatzea. **Juan Kruz Igerabide**

Ikusi dut zure **saldukeriaren** froga, zure eskuz izkiriaria. **Jon Muñoz**

Frantzisko Garzia jenerala, berriz, Nafarroako Buruzagi gorena, zetorkion **saldukeriaz** berantegi jabeturik, apaiz jantzirik saiatu zen Lizarratik ihes egiten. **Txillardegi**

Erregea bakar-bakarrak sartu zen Komunen Ganberan, hango lehendakariari eskatzeko **saldukeriaz** akusaturik zeuden bost diputatuak atxilotzeko entrega ziezazkion. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Jakin zuten, ordea, **saldukeria** juduek; eta Rodoko harrapatu eta hil egin zuten. **Elizen arteko biblia**

Ai, piztia intzestu-egile, ezkon-nahasle horrek, antzeko sorginkeriaz, **saldukeriazko** dohainez [...] bere irris laidotsura zuen erakarri ene erregina itxuraz hain onbidetsuaren gogoa. **Juan Garzia**

2 **saldukeriaz** *adlag* traizioz.

Halaxe hil zuen ia bostehun urte lehenago, **saldukeriaz** hark ere, Beltze Mikolaldekoak, ohandotarren ahaide egiten zenak, Martin Lopez Zalakaingoa. **Koro Navarro**

Artean ere, whiskia gai zen Morse andrea ezkitzeko, hein handi batean; baina tupustean eta unerik ulergaitzenetan, lainopeak bertan behera uzten zuen, **saldukeriaz**, eta orduan atsekabeak, durduzadurak eta asperdurak tartatzen zuten, beste edozein izaki antzo. **Mirentxu Larrañaga**

Herri akusazioak ere erailketa egotzi zien, baina «**saldukeriaz** eta ankerkeriaz jokatu» zutela gaineratu zuen. **Berria - Euskal Herria**

3 **saldukeria** *egin* ik **traditu**.

Noski, eseki egin behar izan nuen, eta, **saldukeria egitea** iruditzen zitaidan arren, aurreiritziak gainditurik osteratu deitu, eta azkenean jakinarazi nien harrerakoei mezua utzi besterik ez nuela nahi. Baina hori hala bazen, ba al zuen berak don Ottaviori sekretua salatu eta Grosrouvri **saldukeria egiteko** eskubidea? **Ramon Saizarbitoria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

judasen saldukeriaren iragarpena (3)

salemdar *izlag/iz* Salemgoa, Salemi dagokiona; Salemgo biztanlea.

Bero erreka egiten zuen, baina **Salemdarrek**, eguzkiaren erasanarekiko guztiz sorgor, udaletxeko atariaren aurrez aurre eraikitako urkamendian zeukatzen jarririk beren arreta osoa. **Anjel Lertxundi**

Salemdarrek ukabilak jaso zituzten borroarengantz: [...]. **Anjel Lertxundi**

salerosgai *(61 agerraldi, 3 liburu eta 2 artikulutan)* 1 iz salgaia. ik **salgai**.

Dirua **salerosgaien** edo artikuluen prezioa da. **Iñaki Iñurrieta**

Merkataritzaren xedea **salerosgaiak** Estatuaren mesedetan esportatzea eta inportatzea da. **Iñaki Iñurrieta**

Herri haietan, dirua ganadu, **salerosgai** edo fruitu bihurtzen zen; eta gauza horiek diru bihurtzen ziren. **Iñaki Iñurrieta**

Napoleonen garaiko frantziar gobernuak, britainiar **salerosgaiak** baztertzeko komedia egin zuen Berlingo dekretuarekin, baina isil-ezkutuan britainiar botak eta gainjantziak inportatu zituen Napoleonen armadetan erabiltzeko. **Iñaki Mendiguren**

Pasaiaiko portuan **salerosgaien** joan-etorriak %5,4 jaitsi dira. **Berria - Ekonomia**

Salerosgaien konfiskazioa berekin daramaten merkataritza-legeak. **Iñaki Iñurrieta**

2 (neurriekin)

Pasaiaiko portuak 5.364.424 tona **salerosgai** mugitu zituen iaz. **Berria - Ekonomia**

3 (hitz elkartuetan)

Mugikariak, hala nola dirua, ordaintzekoak, kanbio-letrak, konpainien akzioak, itsasontziak eta **salerosgai** -mota oro, mundu osoarenak dira. **Iñaki Iñurrieta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artikulu edo salerosgai (3)

salerosgarri iz saldu eta erosteko modukoa.

Maitasun **salerosgarri** eta ezkutuko horiek etsipenez bete zuten. **Irene Aldasoro**

salerosi¹, saleros, salerosten (orobat *saldu-erosi g.er.*, *salduerosi g.er.* eta *sal-erosi g.er.*) 1 du ad saldu edo erosi; saltzen eta erosten aritu.

Zaldi gainean ibiltzeko tresnak **salerosten** zizkizuten. **Elizen arteko biblia**

Ez da lan gozoa antzinako eran **saleroste**a, errekardaritzan jardunez. **Bernardo Atxaga**

Haietako ahulenak frutak, kalabaza pipitak, erlojuak, arropa **salerosten**, botak konpontzen aritzen dira, praka zaharrak adabaten. **Matías Múgica**

Espainiako Guardia Zibilak eta Poliziak 162 pertsona atxilotu zituzten iaz droga **salerosteagatik**. **Berria - Euskal Herria**

Ekoizpenak bidezko prezioan **salerosteko** lan egiten du. **Berria - Euskal Herria**

ATBk Trapagarango lantegia **salerosteko** kontratua izenpetu zuten joan den ostiralean. **Berria - Ekonomia**

2 (ekonomian)

Akzioak eta bonoak balira bezala, energia eta ura etorkizuneko prezioetan **salerosi** zitekeela ohartu zen. **Berria - Ekonomia**

Gai horiei balio merkantil bat eman beharko zaie eta merkatuan sartu, bai zergen bidez bai **saleros** daitezkeen kutsadura baimenen bidez. **Iñaki Heras**

Dibisa merkatuetan **salerosten** denaren %5a baino gutxiago omen dagokio ondasun eta zerbitzuen aldatetei. **Iñaki Heras**

Euroa 1,305 dolarretan **salerosi** da merkatuetan. **Berria - Ekonomia**

3.093 milioiren akzioak **salerosi** ziren atzo, edonor dardarka uzteko moduko kopuruak. **Berria - Ekonomia**

Brent petrolio upelaren ekaineko kontratua 38,24 dolarretan **salerosi** zen eguerdian Londresen. **Berria - Ekonomia**

Atzo goizean gora egin zuen berriro, eta 42,72 dolarretan **salerosi** zen. **Berria - Ekonomia**

50,3 milioi titulu eta 400 milioi euro **salerosi** ziren burtsan eta amaieran 3.855 milioi euroko kapitalizazioa zuen enpresak. **Berria - Ekonomia**

Edozein elkarte anonimoren akzioak bezalaxe, akzio horien salerosketa askea da, eta hala, akzio horiek **salerosi** ahal izateko kapital merkatu jakin bat antolatzen da. **Iñaki Heras**

3 (era burututa izenondo gisa)

BBVA izan da hirugarren baliork **salerosiena** (395 milioi euro) eta %0,56 egin du atzera. **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akzioak salerosi ziren (16); **dolarrean salerosi** (9); **dolarrean salerosi zen** (6); **dolarretan salerosi** (18); **dolarretan salerosi zen** (16); **dolarretik gora salerosi** (4); **euro salerosi** (13); **euro salerosi ziren** (10); **euroren akzioak salerosi** (7); **milioi euro salerosi** (12); **milioiren akzioak salerosi** (11)

kontratuak dolarretan salerosten (3)

salerosi² 1 iz saltzen eta erosten aritzea; saltzen edo erosten den gauza. iksalerosketa.

Etxe koentzat eta etxeko trabailarientzat egunoroz ekartzen zirèn jatekoak eta bizigaiak, eta egunoroz izaiten zirèn diru-sartzeak, **salerosiak** eta zor-hartzeak. **Joan Mari Irigoien**

-Lisa nirea, pozez betea ikusten dut zeinen ondo doazkizuen **salerosiak**; baina nik ez dut zuen dirurik nahi. **Karlos Zabala**

Nihaur nahi baininduen administratzaile berri, landareen, hornizoinen eta berte **salerosien** kontuen eramaiteko eta hango eta hemengo erosle zein saltzaileekin harremanetan jartzeko. **Joan Mari Irigoien**

Lisak adierazten zuenez, ez ziren handinahiak, ez zuten dirua arinegi biltzeko asmorik; bestela, senarra txerrien handizkako **salerosietan** hastera bultzatu eta "ehunka eta milaka" irabazaraziko zituzketen txanponak. **Karlos Zabala**

Hamahiru urte zituen orduan; ezin, beraz, **salerosi** handietan pentsatzen hasi, ezin loreen kalean saltoki bat izatearekin amets egin. **Karlos Zabala**

2 irud/hed

Nazionalismoa erlijio bat da, beste erlijio baten ordezkotzat nahiz beste erlijio baten lagunkide izan daitekeen erlijio bizi-betegarri bat, hitzaren adiera guztietan: fedeko gezur, egiazko profeta, liturgia, sufrimenduaren **salerosi** eta mistika. **Iñaki Segurola**

3 salerosian adlag salerosketan.

Beste gauzen antzera, dirua dohainez, mailegutan, akuran edo **salerosian** eman daiteke. **Andres Urrutia**

Salerosian aritzen zen Moskun, eta bostehun errubloko zergak ordaintzen zizkidan. **Jose Morales**

Ondasunak **salerosian** erabiltzen dituzte, jabetza erabatekoaren izatedunak dira. **Andres Urrutia**

saleroskera iz salerosketa.

Hemen egiten ditu bere **saleroskera** nazkagarriak. **Alberto Ladron Arana**

salerosketa (456 agerraldi, 53 liburu eta 238 artikulutan) 1 iz saltzen eta erosten aritzea. ikmerkataritza; tratu; salerosi².

Argi utzi behar da ekonomian dirua **salerosketarako** -hau da, trukerako- eskuarki onartzen den edozer gauza izan daitekeela, izan ukigai edo ez. **Iñaki Heras**

Gainerakoan beste edozein azoka bezalako da: **salerosketarako**, trukerako, tratuazko azoka da. **Joxerra Garzia**

Produktu eratorriak, salgai bati buruz epe jakin batera **salerosketa** bat egiteko kontratuak dira. **Iñaki Heras**

Merkataritza, **salerosketa** eta edozein gauza eduki edo sartzea guztiz debekatuta baitago Lager-ean. **Urtzi Urrutikoetxea**

Adinean aurrera zihoraz, irabazte handiagoa **salerosketekin** aske eginen zuten. **Karlos Zabala**

Salerosketak, dohaintzak, pribilegioak eta foru emakidak. **Berria - Kultura**

Ez duzue pisu eta neurri faltzurik erabiliko **salerosketetan**. **Elizen arteko biblia**

Salerosketa lapurreta balitz, ez litzateke gizarterik izango. **Koro Navarro**

Kontsumoko zergak **salerosketen** gaineko tasa nola bihurtu. **Karlos Zabala**

Jabego pribatuaren defendatzaile sutsua zen Anacharsis, eta baita **salerosketarako** askatasun osoaren aldekoa. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

2.367 milioiren **salerosketarekin**, egun baikorra izan zuten atzo indizeek. **Berria - Ekonomia**

Argi ikusi zuen **salerosketa** hura onuragarria gertatuko zitzaiola. **Patxi Zubizarreta**

Erosleak kosta ahala kosta ezarri zuen **salerosketa** bururatzeko baldintza gisa ken zezatela liburu-denda handik. **Oskar Arana**

Hirietan, nazioarteko merkatariek ezin zuten xehekako **salerosketan** parte hartu, salerosketa mota hori oso zorrotz arautua baitzegoen, ekoizleen interesen alde. **Koro Navarro**

Alor horretako profesionalak beste konpainia batzuekin **salerosketak** hitzartzeko astia izango dute. **Berria - Ekonomia**

Japonian burtsarekin zer gertatzen den, mendebaldeko jendea iratzarri orduko izango du eragina Parisko edo New Yorkeko akzioen **salerosketetan**. **Pello Salaburu**

2 (salgaia aipatuz)

Zaldien eta behorren **salerosketa** zen haren eginkizun nagusia. **Koro Navarro**

Astor koronelaren garaian larruen **salerosketari** esker aberastu zen. **Lopez de Arana**

Drogen **salerosketa**, baimenik gabe armak edukitzea, mehatxuak egitea eta justizia tratatzea leporatu die. **Berria - Euskal Herria**

Esklaboen **salerosketa** ez zen gauza berria Afrikan. **Koro Navarro**

Edozein elkarre anonimoren akzioak bezalaxe, akzio horien **salerosketa** askea da. **Iñaki Heras**

Legez kanpokoa da, orokorrean, abereon nazioarteko **salerosketa**, baimen berezirik ez bada tartean. **Berria - Gaiak**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Salerosketa etxe handi bateko nagusiak. **Patxi Zubizarreta**

Garai batean kasino izana zen orain orotarikoan **salerosketa** merkatu bihurtutako zoko ospel hura. **Harkaitz Cano**

Salerosketa -gune batean, beste hainbat purtzil-saltzaileren artean, jai-egunetako giro zaratatsuan... **Iñaki Iñurrieta**

Hiritarren **salerosketa** -leku edo ibiltoki diren bide publikoetan. **Juan Martin Elexpuru**

salerosketa azoka handia da Midem, eta euskal disketekek negozio txiki batzuk egin ditzakegu, urtetik urtera, ohartzen garelako badagoela gure musikarentzako merkatu bat. **Berria - Kultura**

Salerosketa bolumena, lehen hiru hilekoan, 170 milioi eurokoa izan da. **Berria - Ekonomia**

Irabaziak zerga tasa txikiak dituen tokian edukitzea aukeratu du, eta horren arabera finkatuko ditu taldearen barneko **salerosketa** prezioak. **Iñaki Heras**

Ekialde Urrunaren indarraren gorakadari ez zaio **salerosketa** -trukeetan bakarrik antzematen. **Koro Navarro**

Produktu manufakturatuen irailko ziztuzten produktu ezezagun asko erantsi behar zaizkio [...] **salerosketa** -ibilbide berriak menderatzen zituzten merkatariei mozkin izugarriak eman zizkietenak. **Koro Navarro**

Hobe izango da **salerosketa** -askatasuna pribilegio eskusiboen bidez ez oztopatzea. **Iñaki Iñurrieta**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zenbat ume mugitzen ditu urtean esklabo- **salerosketak**, Afrikan? **Berria - Gaiak**

Hegazti migratzaileek baino gehiago legez kanpoko hegazti **salerosketak** kezkatzen du Alemaniako Gobernuak. **Berria - Harian**

Jar zitzaizkete negozio guztietatik, bat bakarra jar zezaketen inbertsio handiegirik eta ezaupide zehatzik gabe, merkantzi **salerosketa** besterik ez. **Joseba Urteaga**

Mugaz kanpoko finantza **salerosketak** zainduko dituzte. **Berria - Mundua**

Atzo, jaieguna eta, horrek, mundu osoko akzio **salerosketari** eragin zion. **Berria - Ekonomia**

Salt Lake Cityko hiria 2002ko Neguko Olinpiar Jokoak antolatzeke aukeratu izan zenetik [...] eskandaluek euren gaitasun zuten arreta osoa: boto **salerosketa** Salt Lake City aukeratu izan zedin, Ipar Amerikako herrialdeen aldeko jarrera lotsagabea patinajeko puntuazioetan, boikot mehatxuak, inoiz baino dopin kasu gehiago. **Berria - Harian**

5 salerosketan adlag saltzen eta erosten.

Jesus, tenpluan sarturik, bertan **salerosketan** ari zirenak kanpora botatzen hasi zen. **Elizen arteko biblia**

Kolonia horiek herri barbaroekin **salerosketan** aritu ziren. **Iñaki Iñurrieta**

Gadusmar SL, bakailaoren **salerosketan** aritzen zen enpresa besterik ez zela. **Berria - Harian**

Homero aurreko greziarrek beren artean eta herri barbaroren batekin baino ez zuten jardun **salerosketan**. **Iñaki Iñurrieta**

Ameriketako Estatu Batuetako Oregonen bazen droga **salerosketan** jarduten zuen indonesiar talde amorratu bat. **Gotzon Garate**

Badirudi aita Virginiako larru-saltzaile bat zuela, indiarren eta larruzuriaren arteko mugan **salerosketan** eta ehizan ibiltzen zen gizona. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Emakumezkoen **salerosketan** dabilen tipo bat? **Fernando Rey**

Arabiarrek maite zuten kafea, eta kafearekin **salerosketan** dirua egin zitekeela ikusi zuten. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Tarsiseko jendeak zurekin eginen zuten **salerosketan**, hain ugaria baitzen zure aberastasuna. **Elizen arteko biblia**

6 salerosketa egin

Itsasontzia irlarik irla zihoraz, eta nik, eskuak gurutze egon gabe, hamaika **salerosketa egin** nuen. **Patxi Zubizarreta**

Sanzek azaldu zuen Acciona **salerosketa egiteko** aukerarik onena zela, «konpainia indartsua delako, eta Nafarroan eta sektorearen barruan gelditzeko asmoa duelako». **Berria - Ekonomia**

7 salerosketak egin

Euskaldunak sarri joan ohi ziren Ameriketako ipar-ekialdera XVI-XVII. mende bitartean, bai bakailao eta balea arrantzara eta baita **salerosketak egitera** ere. **Koldo Zuazo**

Salerosketak egiteko ondoan hotela eta negozio bulegoak izatea oinarritzakoa da. **Berria - Ekonomia**

Gizartea kudeatzen eta **salerosketak egiten** iaioak ziren. **Gotzon Garate**

Zure aita Nur Al-Dinek itsasontzi batzuk bidali zituen **salerosketak egitera**. **Patxi Zubizarreta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

armen salerosketa (3); milioi euroren salerosketa (32); milioiren salerosketa (21)

salerosketa arautu (3); salerosketa bolumena (12); salerosketa bolumenak (3); salerosketa handia izan (3); salerosketa izan (13); salerosketa izan zen (10); salerosketa lagun (8); salerosketa polita izan (3)

haurren salerosketak (3); milioiren salerosketak (4)

milioiren salerosketan (3); salerosketan ari (3); salerosketan aritzeko (3); salerosketan aritzen (4); salerosketan parte hartu (3)

milioiren salerosketarekin (7)

landareen salerosketaren (5); salerosketaren bidez (3); salerosketaren inguruko (6); salerosketaren nondik norakoak (3)

saleroskin iz salerosi den gauza. ik salerosi².

Bidaierie askotariko **saleroskinak** konfiskatu eta huskeria ugari kentzen bazizkien ere, ez zuen inolako kapitalik bildu. **Jose Morales**

salerosle 1 *iz salerosketan aritzen den pertsona. ik merkatari.*

Erreinu berriak sortu zituen; haren merkatariak printzeak ziren, haren **salerosleak** mundu guztian aintzat hartuak. **Elizen arteko biblia**

Atzerriko gobernuentzat **salerosleei** emandako gomendiozko kartak. **Matías Múgica**

Armada sail hura ez zen etorri Omsk eta Kolivandik segizio moduan hamaika eskale, litxarero, **salerosle** eta buhame ekarri gabe. **Karlos Zabala**

Emankorra izan zitekeen borroka honetan bakarrik mimoek eta ferietako **salerosleek** jarraitzen dute. **Xabier Arregi**

Asiako eskualde hurbiletatik etorritako **salerosle** guztiak. **Karlos Zabala**

Hamaika urterekin, dagoeneko traste-**saleroslearen** arima zuen. **Jon Muñoz**

Bazen entzuleen artean Lidia izeneko emakume bat, izatez Tiatirakoa, purpurazko oihalen **saleroslea**. **Elizen arteko biblia**

Will Armitage IG Index inbertsio sozietateko **saleroslearentzat** atzokoak ez zuen beldur handiegirik eragin merkatuetan. **Berria - Harian**

Era berean, nazioarteko diru merkatuetako **salerosleen** portaerak ere garrantzia du. **Berria - Ekonomia**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Salerosle etxe haundiek 2,8ko goratzea izan dute beren negozioan Euskal Herrian jaz. **Herria**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Frantziskoren aita, Pedro Bernardone, oihal-**saleroslea** zen lanbidez. **Askoren artean**

Glasgow-n zegoen bat, oihalgile baten dendan, eta Belfasteko te-**salerosle** baten enplegatu zegoen bestea. **Irene Aldasoro**

Hasi nintzen justu miserable xamar baina inolaz ere kriminal bat ez zen harengana, benetan esklabo-**saleroslea** edo neska-saltzailea izan balitz bezalako gorrotoa hartzen eta nire buruan itzulikatzen zer bide erabil nezakeen 9 zenbakiko neska hori harengandik salbatzeko. **Matías Múgica**

Garagar **saleroslea**. **Matías Múgica**

Lupulu **salerosleentzako** baimen bereziak. **Matías Múgica**

Azukre kana **salerosle** aberatsa zen, bigarren ofizioa zuela kontrabanda, hirugarrena esklabo tratua. **Herria**

salerospen *iz salerosketa.*

Indiako lehen minixtroak esperantza zuen bederen bi herrien arteko **salerospenak** aipatuz, tratu bat eginen zutela. **Herria**

salerosste *iz saldu edo erostea; saltzen eta erosten aritzea.*

Argi zekusan **salerosste** hark onura handia ekarriko ziola, baina ohiz kanpokoa zen, eta berriegia aukeran. **Jose Morales**

Biak **salerosstetan** ari dira lanean; nahiz gainerat, Alain erresuma gehienetan ibiltzen den artetan, erosketen egiten. **Herria**

Hiesa gehiago zabal ez dadin», odolaren **salerosstea** debekatu du Txinako Gobernuak **Berria - Gaiak**

salesiano *iz salestarra.*

Salesianoetan izan zela, txikitu egin ziotela automobila zuzendari jaunari. **Karlos Linazasoro**

salesiar ik salestar.

salestar *(orobat salesiar; Euskaltzaindiaren Hiztegiari salestar agertzen da) 1 iz Joan Bosco-k XIX. mendean sortu zuen "San Frantzisko Saleskoaren Bazkuna" izeneko erlijiozko ordenako kidea.*

Salestarrekin ikasi eta gero, 29 urterekin apaiztu zen. **Berria - Mundua**

Salestarren egoitzan egin nahi omen dute. **Berria - Euskal Herria**

Oposizioko alderdiak haserretu ziren zuzenketa horren bidez Iruñeko **Salestarren** orubean luxuzko ehun etxebizitza egiteko proiektuari bidea eman nahi zaiolako, haien ustez. **Berria - Euskal Herria**

2 (izenondo gisa)

Barakaldoko aita **salesiarren** ikastetxean izandako istiluen karian [...]. **Iñigo Aranbarri**

Bildu zituzten ikasle **salesiar** guztiak Aula Magnan, eta geure aztoramendurako den-denak berdin-berdin ez-mintzatzen zirela jabetu ginen. **Karlos Linazasoro**

saletxe *iz gauzak saltzen diren, salmentak egiten diren etxea. ik saltoki; denda.*

Ohartu zen Maddalenen berarengana begiratzeari utzi ziola eta aurrerantz zihoala beste aldera begiratu, **saletxeetako** erakusleihoetara. **Joxemari Iturralde**

Hazparne: Detchart prentsa **saletxea**. **Herria**

salgai *(993 agerraldi, 110 liburu eta 540 artikulutan; orobat salgei g.er.) 1 iz salerosketa baten gai izan daitekeen gauza. ik salerosgai.*

Salgaia izan daiteke arroza, garia, artoa, laranjak, urrea, akzioak edota dibisak, besteak beste. Diruak, **salgaiak** eta gizakiak aske zuten batetik bestera egiteko bidea: migrazio mugimendu handien aldia izan zen. **Iñaki Heras**

Emakume bat **salgaia** da zuentzat. **Koro Navarro**

Lana, gizarte kapitalistetan [...] **salgai** bat da, gainerakoak bezala saldu eta erosi egiten dena. **Iñaki Heras**

Salgai asko ez omen da iritsiko merkatura Asiaren erdialde horretatik, ez Samarkandeko alfonbrarik, ez ekialdeko artilerik, gantzik edo xalik. Alkohola eta beste **salgai** zenbait baziren, hala nola zetazko oihalak, mokanesak, eta soldaduek biziki preziatzen zituzten zilarrezko gauzak, hark labore zakuen eta irinaren kontra trukatzeko zituenak. **Karlos Zabala**

Salgaiak inportatu edo esportatu ahal izateko behar den dibisen salerosketarekin. **Iñaki Heras**

Bidaian urtebete emanda zeudenak ere baziren han, Asiaren erdialdeko merkatariak, kasu, ordoki luzeak zeharkatu zituztenak bere **salgaiak** merkatutzeko. **Karlos Zabala**

Egun batez, itsasontzi bat arribatu, eta **salgaiak** deskargatzeari ekin zioten. **Patxi Zubizarreta**

Ez baitizkie aurrerantzean inork erosiko beren **salgaiak**. **Elizen arteko biblia**

Paiva jaunak profetizatu urte hartan euria egingo zuela eta azkenean **salgai** guztiak salduko zituela. **Bego Montorio**

Salmahaia plastikoz estalita daude, eta **salgaiak** ahalik eta txukunen agertzen saiatzen dira. Aberastasunak harrapatu egingo dizkizute eta **salgaiak** ostuko. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Bulegoko katua da, **salgaien** biltegietatik arratoiak uxatzen dituena. **Josu Zabaleta**

Merkatariaren goraldiarekin, italiar merkatarien ekimenez, findu egin ziren finantza-teknikak, gerora **salgaien** joan-etorria erraztuko zutenak. **Koro Navarro**

Prezioen iraultzak [...] mozkinen inflazioa ekarri zuen, lasterrago handitu baitziren **salgaien** prezioak fabrikazio-kostuak (soldatak eta lehengaiak) baino. **Koro Navarro**

Portu sekulakoak ontzi sekulakoekin milioika **salgai** garraiatzeko. **Fernando Rey**

Produktu eratorriak, **salgai** bati buruz epe jakin batera salerosketa bat egiteko kontratuak dira. **Iñaki Heras**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Berrogeita hamar mando ziren, **salgai** ederrez zamatua. **Patxi Zubizarreta**

Ekainaren 25ean larunbatarekin egun guzian saltegiak karraketan, **salgai** merkeak. **Herria**

Laboreak dira **salgai** nagusia. **Jon Muñoz**

Fotogenia oso **salgai** bakana da haren iritzian ere; estetika bat definitzen du. **Josu Zabaleta**

Edukiontzietako **salgai** orokorrak %6 igo dira. **Berria - Ekonomia**

Irkuts biltegi handi bat da, non Txinaren, erdialdeko Asiaren eta Europaren artean trukatzeko **salgai** zenbatezina pilatzen diren. **Karlos Zabala**

Hornidura biltegi zabalak: orotariko **salgaiak** edukitzeko. **Josu Zabaleta**

Barkatu, osaba, baina ahalordea iraungi egin da eta lurreratutako **salgaiak** galtzeko arriskuan gaude, sinatu hemen, mesedez. **Bego Montorio**

Bigarren eskuko **salgaien** denda bat zen hura, zoko guztietan barreiatuta eta sabaitik zintzilik zeuden traste zaharrez bete. **Josu Zabaleta**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gero zapuztuta geratzen nintzen, ikusirik lehenago desagertzen zirela, zuhaitzari aurrea hartuta, **salgai**-ontzi holandar baten hondakinak. **Koro Navarro**

Bere dendako **salgai**-fardelen artean. **Anton Garikano**

1489an, Widmann delako batek ikur horiek erabili zituen **salgai**-kutxak markatzeko. **Jon Muñoz**

Salgai-bilduma bat oraindik ez zegoelako prest. **Anton Garikano**

Frankfurteko Pomosin fabrikako zuzendariak etortzekoak ziren, Opektaren **salgai** igorketak negoziatzeko. **Josu Zabaleta**

Ordaina **salgai** mota berean nahi diat, berria berri truk. **Aingeru Epaltza**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

1500 metro karratuko bastiza bat partekatuko du enpresa horrek haurrendako kirol **salgaiak** proposatuko dituen beste saltegi batekin. **Herria**

Billabong markako itsas kirol **salgaien** mega saltegi bat idekiko dute Angelun, Busquet deitu gunean. **Herria**

Orduan marru-dardarizotan hasten zaizkizu, arraza zuriaren likidazio-**salgai** horiek, izter artean deus ez dutenak. **Joxe Austin Arrieta**

Arabiar eta europar beltz-tratulariak ez ziren inoiz giza **salgaiaz** zuzenean jabetzen. **Koro Navarro**

5 pred saltzeko.

Dena **salgai** zen, ogia, margarina, ganitak, zakuak, trikotak, atorrak, uhalak, eta beste. **Marzel Etxehandi**

Genetikoki aldarazitako elementuez osaturiko jangai baliagarri asko izango ditugu **salgai** ohiko dendan. Arrosak, bioletak, daliak eta bitxiloreak zituzten **salgai**, sortaka bildurik. **Edorta Agirre**

Salgai dauzkat, aldean ditut Katalina sorgin Gezalakoak urkamendian kantatu zituen hamasei bertsoak. **Anjel Lertxundi**

Inditex S.A. enpresa [...] produktu bat berdiseinatu eta munduko edozein lekutan bi astetan **salgai** edukitzeko gai omen dena. **Iñaki Heras**

Emakumerik ederrenak... dena zagok **salgai**, badakik hori noski. **Jon Muñoz**

Ez, ez zegoen **salgai**: eskaintzan, bai. **Matías Múgica**

Ez zegoen bat ere ez alokairuan, ezta **salgai** ere. **Karlos Zabala**

Kapitalismo mota horretan gizakiaren lana **salgai** bihurtzeko zailtasunak askoz ere handiagoak dira. **Iñaki Heras**

Urte hartan pastilla itxurako antisorgailua, "pilula" famatua, jarri zen **salgai**. **Pello Salaburu**

Oparigintzari buruzko liburua izango denez, ez nuke **salgai** jarri nahi: opari ematea nahi nuke, eta hala proposatuko diet editoreei. **Joxerra Garzia**

Artzainek gaztak ekarri zituzten, eta arrantzaleek eguneko arraina **salgai** ipini zuten. **Joanes Urkixo**

Edozer espero daiteke kaleko merkatuan zumezko hilkutxak **salgai** eta makuludunak bizikletan ikus daitezkeen hiri batean. **Harkaitz Cano**

180 orrialde, **salgai** 100 liberetan. **Herria**

Afitxak eta liburuak **salgai**. **Edorta Jimenez**

Salgai, zioen afixak. **Harkaitz Cano**

Kretako esklabo-azokara eraman zuten, **salgai**. **Joxerra Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ez da salgai (15); **ez dago salgai** (4); **ez dela salgai** (5); **ez zegoen salgai** (3); **grabatu salgai jarriko** (3)

ikusgai eta salgai (4); **izanen da salgai** (3); **izanen dira salgai** (5); **jadanik salgai** (6); **jadanik salgai dira** (4); **jarri ditu salgai** (3); **jarri dituzte salgai** (6); **jarri dute salgai** (3); **jarri zen salgai** (4); **jarri zituzten salgai** (4); **jarri zuen salgai** (3); **jarriko dira salgai** (18); **jarriko ditu salgai** (10); **jarriko dituzte salgai** (17); **jarriko du salgai** (3); **jarriko dute salgai** (7); **laster salgai** (3); **liburu dendetan salgai** (3); **liburu salgai** (5)

salgai bihurtzeko (3); **salgai da** (21); **salgai dago** (9); **salgai dagoen** (6); **salgai datorren** (3); **salgai daude** (21); **salgai dauden** (5); **salgai dauzkat** (3); **salgai den** (3); **salgai dira** (26); **salgai dira herriko** (3); **salgai direla** (5)

salgai egongo (5); **salgai eman** (4); **salgai ezarri** (4); **salgai ezarriak** (6); **salgai ezarri dira** (3); **salgai ezarriko** (3); **salgai ezartzen** (3)

salgai izanen (35); **salgai izanen da** (5); **salgai izanen dira** (23); **salgai izango** (4); **salgai jar** (6); **salgai jarri** (37); **salgai jarri ditu** (6); **salgai jarri dituzte** (4); **salgai jarri dute** (3); **salgai jarri ziren** (3); **salgai jarriko** (26); **salgai jarriko dituzte** (5); **salgai jarriko du** (4); **salgai jarriko dute** (3); **salgai jarritako** (6); **salgai jartzea** (4); **salgai jartzen** (8); **salgai mota** (4)

salgai zegoen (4); **salgai zen** (3); **salgai zeuden** (4); **salgai ziren** (3)

sarrera salgai (3); **sarrerak salgai** (24); **sarrerak salgai daude** (5); **txartelak jadanik salgai** (4); **txartelak salgai** (24); **txartelak salgai dira** (9); **txartelak salgai izanen** (3)

xartelak salgai (3); **zozketaren txartelak salgai** (3)

beren salgaiak (6); **salgaiak erostera** (3); **salgaiak garraiatuko** (3); **salgaiak garraiatzeko** (5)

bere salgaien (3); **gipuzkoako salgaien** (3); **salgaien denda** (3); **salgaien garraioa** (3); **salgaien garraioaren** (3); **salgaien prezioen** (3)

salgarri 1 izond sal daitekeena, saltzeko modukoa.

Ohiko beste harrapakin **salgarri** batzuk liburuak eta CDak izaten ziren. **Jon Arretxe**

Zerbitzuen pribatizazioa etorri da, hezkuntza eta osasuna produktu **salgarri** bihurtu dituzte, eta dumping soziala eta fiskala areagotu egin dira. **Berria - Harian**

Salgarría eta funtzionala ere behar du onaz gainera. **Andoni Egaña**

Sinesgarría zen benetan haren istorioa, sinesgarríegia, tamalez; eta **salgarría**, **salgarririk** bada. **Berria - Kultura**

Salgarría ez litzatekeen akordioaren bat itxiz gero bake prozesuaren etekina txikiagoa litzatekeelako. **Berria - Euskal Herria**

2 pred saltzeko.

Esnea, haragia, ilea, bildotsak, larrua, guztiak ditu **salgarri**. **Itxaro Borda**

salgei ik **salgai**.

salgia 1 iz *ipar* saltegia.

Üskal edo biarnes ostatü edo **salgietan**, edari hori erosten ahal da, bai eta ere herri handi zunbaitetan. **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Badüt beldürra frantsesez ere ez dela hainbat irakurtzen gure probintzian, horren seinale delarik, ene ustez, egiazko libürü **salgiarik** ez dela Atharratzen eta Maulen.

Herria

Mauleko Marion Garses anderearen 5 lan ikus dateke Herri ekoizpen **salgian**. **Herria**

salgune (16 agerraldi, 13 artikulutan) 1 iz saltzeko gunea. ik **saltegi**; **saltoki**.

Ameriketean, New Yorken berean 350 metro karratuko **salgune** bat idekia du Quiksilver enpresak. **Herria**

Angelun ere izanen da mugimendu [...] BAB2 **salgunean**. **Herria**

Bost kontinenteetako ekoizle garratzitsuenen 757 **salgune**, munduko erosle handien erbitzura. **Berria - Ekonomia**

Saltegi gehienetan, bereziki **salgune** handi horietan, erosi pusken ezartzeko izaiten dira plastikazko zakuttoak. **Herria**

Urtearen amaieran hipermerkatu berriak izango ditugu Frantzian eta Espainian, Asturiasko Mieresen, Murtzian eta Madrilgo Torrelodosan; baita beste bi **salgune** handi ere Cadizko Chiclanan eta Ceutan. **Berria - Ekonomia**

Salgune handiei baimena emateko irizpideak aurten berrikusiko ditu Eusko Jaurlaritzak. **Berria - Ekonomia**

Ibiltokiaren beste aldetik, liburu-saltzaile baten **salgunearen** aurretik. **Jon Muñoz**

Aste osoa etxean sarturik ematen dugu, eta, asteburuan, **salgune** handietara joaten gara, gure dirua gastatzera behar ez ditugun gauzak erosiz. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan)

Afera zutik ezartzen dutenek erran dute itsas hegi kirol **salgunerik** handiena izanen dela Europa guzian. **Herria**

salhatu ik **salatu**.

saliar izond Erdi Aroko frankoen adarretako batekoa, merovingiarren agindupean zegoena.

Erromatar Inperioan Beheko Rhinen mugan zeuden **saliar** zaindari frankoen historia. **Iñaki Mendiguren**

Rhin aldeko frankoen tribuak Klodoveoren garaian franko **saliarrenekin** bat egin zuelarik, bere usadioak gorde zituen, eta Teodorikok, Austrasiako erregeak, idatziz jarrazti zituen. **Iñaki Iñurrieta**

Lege salikoa, adibidez, lege pertsonala zen; baina franko **saliarrak** bizi ziren lekuetan, lege saliko hori, denik eta pertsonalena izanda ere, lurralde-lege bihurtzen zen franko **saliarrei** zegokienean. **Iñaki Iñurrieta**

Lege saliko edo franko **saliarrenaren** eta franko erripuario eta beste herri barbaroen legearen arteko aldea. **Iñaki Iñurrieta**

saliko izond legeez mintzatuz, frankoen Klodoveo erregeak VI. mendearen hasieran promulgatu zuena; gaur egungo legeez mintzatuz, emakumeak eta emakumeen ondorengoak tronurik baztertzen dituen.

Frankoen mendeko lurraldean, lege **salikoa** zegoen frankoentzat, eta Teodosiar kodea erromatarrentzat. **Iñaki Iñurrieta**

Lege **salikoa**, adibidez, lege pertsonala zen; baina franko saliarrak bizi ziren lekuetan, lege **saliko** hori, denik eta pertsonalena izanda ere, lurralde-lege bihurtzen zen franko saliari zegokienean. **Iñaki Iñurrieta**

Frankoek erromatar zuzenbidea erabiltzeari utzi bazioten, franko, barbaro edo lege **salikopeko** gizona izateak abantaila handiak zituelako utzi zioten; mundu guztiak utzi zuen erromatar zuzenbidea, lege **salikoaren** azpian bizitzeko. **Iñaki Iñurrieta**

Lege salikoen biltzaileek frankoen usadio zahar bat aipatzen dute, zeinen arabera, inork gorpu bat hilobitik ateratzen bazuen lapurreta egiteko, gizarretik baztertzen baitzuten, harik eta hildakoaren ahaideek berriro gizartera zedin onartzen zuten arte. **Iñaki Iñurrieta**

Lege **salikoak**, ez baitzuten onartzen froga negatiboak erabiltzea, ez zuen borrokaren bidezko frogaren beharrik, eta ez zuen onartzen. **Iñaki Iñurrieta**

Inork franko bat, barbaro bat edo lege **salikopean** bizi zen gizon bat hiltzen zuenean, berrehun sos ordaintzen zizkien ahaideei; baina ehun besterik ez zituen ordaintzen erromatar jabe bat hiltzen zuenak, eta berrogeita bost besterik ez, erromatar zergapeko bat hiltzen zuenak. **Iñaki Iñurrieta**

Lege **saliko** eta erripuarioetan, alemanen, bavariarren, turingiarren eta frisiarren legeetan, sinpletasun miresgarria dago; jatorrizko zakartasuna aurkitzen da han, beste espirituren batek ahuldu gabeko espiritua. **Iñaki Iñurrieta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lege saliko (10)

lege salikoa (10)

lege salikoak (18)

lege salikoaren (8); lege salikoaren arabera (4)

lege salikoen (4)

salketa 1 iz saltzea. ik **salmenta**.

Salketa hau apirilaren 3an izanen eta saltzaile bakotzak bere tokia hartzen ahalko du goizeko 6 etarik 8ak artean. **Herria**

Salketa hortan kausituko dituzue, Eguberriari balia daitazken edergailuak, bertze asko gauza ere burraoek eskuz eginak eta oparizat eskaintzeko hautak izaiten ahal direnak. **Herria**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Laguntza elkarte hunek antolatzen du soineko **salketa** bat Aterbe Ona gelan. **Herria**

Gero, jendeari galdetzen diogu zer iritzi duen kamiseta **salketaz**. **Berria - Kultura**

Eta usaian bezala, marro **salketak**. **Herria**

salletar (orobat **lasalletar**) izlag/iz Salleko San Joan Bautistak sortu zuen Institutuari dagokiona.

Huraxe izan da, derradan bide batez, nik bizitzan ikasi dudana bakarretakoa, La Salleko ikastetxean ibili nintzen arren, **salletar** anaiek ere baztertua baitzuten latina orduko beren errezoetatik. **Joan Mari Irigoien**

Euskaltzaleak ziren **lasalletarrak**, eta abertzaleak. **Xabier Mendiguren** Elizegi

Salletarren futbol-taldearekin egiten nituen entrenamendu haietako batean, hamalau urterekin-edo, beste istilu bat izan nuen anai Jaxintorekin. **Joan Mari Irigoien**

Legazpiko **lasalletarren** *El Buen Pastor* ikastetxea, orain ikastola den hori. **Joxerra Garzia**

salmahai iz dendetan-eta, salgaiak ipintzen diren mahaia. ik **erakusmahai**.

Zuzenean hall-era irten eta autoak alokatzeko **salmahai** baten ondoan geratu nintzen. **Ramon Saizarbitoria**

Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak **salmahai** bana dute aurten ere azokan. **Berria - Ekonomia**

Pentsa zer-nolako ezustekoa hartuko nuen [...] *Brightman's Attic* liburu-dendara sartu eta sarrerako **salmahaiaren** atzealdean eserita nire iloba ikusi nuenean. **Oskar Arana**

Goiz guzian merkatua (35 **salmahai**), Telethon-en aldeko kutzekin. **Herria**

Lehenik, eskularruen **salmahairantz** jo zuen. **Lopez de Arana**

Andre fruitu saltzaileen **salmahai** gezak. **Karlos Zabala**

Salmahaiaren zinkak distira egiten zuen, eta likore flaskoek su biziagoak pizten zituzten ispiluan. **Karlos Zabala**

Zerbitzaria basoerdiak eta zuritoak banatzen ari da, **salmahai** osoa hartuta. **Javi Cillero**

Edaten ari ziren **salmahaiaren** aurrean zutik. **Karlos Zabala**

Abundio Martínezek beste hogei zentabo utzi zituen **salmahai** gainean. **Juan Garzia**

-Amaitu dut -Püchl andreak ogia bultzatu zion **salmahai** gainean-. **Anton Garikano**

Aspaldian ogia erosten zuen okindegiaren ondotik igarotzean, bisaia ezezagunak ikusi ditu **salmahaiak** bestaldean. **Javi Cillero**

Saltzaileak freskagarri-postuen marmolezko **salmahaiak** garbitzen ari ziren. **Lopez de Arana**

Arratsaldean animatu ziren nonbait erosleak, bai kaleko **salmahaietan**, bai liburu dendetan. **Berria - Kultura**

Merkatariak [...] berehalaxe altxatu zuen **salmahaiko** ohola, eta, igarobidea horrela irekirik, saltoki barruan kokatu zen, salgaiak atzean eta eroslea aurrean. **Jose Morales**

Halako batean, Mr. Goldsteinek errebolber berri eta distiratsu bat **salmahai** azpitik atera eta erreportariari destatu zion. **Lopez de Arana**

Neska eder hura hantxe zegoen, **salmahai** kolore eta pintura gabetu haren atzean, gozokiz betetako kristalezko txokolata ontzi hautsez zikinduaren eta latoizko balantza pisuaren atzean. **Josu Zabaleta**

salmenta (1036 agerraldi, 86 liburu eta 539 artikulutan) 1 iz saltzea; saltzearen ondorioa.

Bezeroak, hornitzaileak, eskaerak, **salmenta**, sailkapena, kontuak, itzulketak. **Jon Muñoz**

Dirua erabili eta gero, **salmenta**, erosketa eta bizitza zibilaren merkataritza izeneko ekintza multzo horren bitartez gauzatzen dira horiek. **Andres Urrutia**

Aitagarreba zena hil ondoren, bere gain hartu zuen jaki gazituen **salmenta**. **Felipe Juaristi**

Beharbada, Nepaleko neskatzen **salmenta**, prostituzio negozioren handiena da mundu guztian. **Gotzon Garate**

Errioxako ardoaren **salmenta** %5,6 jaitzi zen 2003. urtean. **Berria - Mundua**

Bere produktuen **salmenta** finantzatzeko. **Koro Navarro**

Animalien **salmentak** ematen du irabazpiderik mardulena. **Gotzon Garate**

Salmenta bertan behera uzteko agindu zien. **Karlos Zabala**

Urriaren 29an gauzatu zen **salmenta** 322 milioi eurotan. **Berria - Ekonomia**

Halaxe bukatu nituen liburu honekikoak, joan den urteko garagarriaren atzen aldera, eta hurrena, buruilaren erdi aldera ikasi nuen liburua **salmentan** zela. **Patziku Perurena**

Salmentako dirua eskaini zion, elizaren berriztapenerako eta behartsuen premietarako. **Askoren artean**

Martxel neure anaiarekin konpondu nituen Putzu kaleko neure partearen **salmentaren** gorabeherak. **Txillardegí**

Inork ez du auzitan jarri **salmenta** legezkoa denik. **Berria - Euskal Herria**

Ez da esan behar, Justinianok bezala, **salmenta** haiek alegiazkoak zirenik. **Iñaki Iñurrieta**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

-Niri ez zait iruditu alta **salmenta** handirik badela eskualde honetan... **Elena Touyarou**

Salmenta ona izan zen lehenengo goiz hartan. **Imanol Zurutuza**

Industriaren ikuspegitik, **salmenta** erreala eta hipotetikoa izugarria da. **Ana Urkiza**

Salmenta iruzurtia gero. **Anjel Lertxundi**

Bertako argitaletxeek **salmenta** errazeko liburuak itzultzeko politika lehenesten dutela esan beharko nuke. **Anjel Lertxundi**

Salmenta ibiltarian edota etxeko lanetan. **Koro Navarro**

Jack obsesionaturik dabil bortxakeriaren eta su-armen **salmenta** askearen kontuarekin. **Iban Zaldúa**

Trukean merkatu nazionalen **salmenta** segurua zuten artikulua lortzen zituen. **Bego Montorio**

Idazle bat, aspaldi honetan **salmenta** errekor guztiak hautsi eta fenomeno sozial bilakatzen ari den liburuaren egilea. **Txillardegí**

Idortazio eta esportazioko merkataria, **handikako** salmentarako saltokiak. **Bego Montorio**

Europar txikizkako **salmentak** igo direla. **Berria - Ekonomia**

Begia erne ibili behar, kalez kaleko **salmenta** horiek debekatuak baitzeuden. **Karlos Zabala**

Kostuen azpiko **salmenta** legezko egitea aztertuko du Sarkozyk. **Berria - Ekonomia**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Soziologia ikasi eta katalogo bidezko **salmenta** -enpresa batean zebilen. **Fernando Morillo**

Erosketa eta **salmenta** aginduak. **Iñaki Heras**

Aitaren eskutik sartu zen **salmenta** departamentura. **Migel Angel Mintegi**

Jendetza ugaritzen ari zen **salmenta** bulegoen inguruan. **Karlos Zabala**

Beste hiru kartelak zinematokian bertan ipintzen ziren, bi **salmenta** -leihatilaren alboetara eta hirugarrena hallean. **Josu Landa**

Antola ditzakezu Damaskon zeure **salmenta** -tokiak. **Elizen arteko biblia**

Gainontzeko **salmenta** postuak ondoko plazan daude. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Antigoaleko gauzen zale handia zen, **salmenta** -areto eta atxamarta azokena bezala. **Joxan Elozegi**

Ez din paperik erakutsi, ez **salmenta** -agiritik, ez halakorik? **Xabier Paya**

Gutunak artibatzea eta **salmenta** liburuan eragiketarik idaztea edonork egin dezakeen lana da. **Josu Zabaleta**

Salmenta teknika amerikarrak sartu nahi zizkigutela, eta jaten oso gaizki eman zigutela. **Ramon Saizarbitoria**

Salmenta ikastaro bat antolatuz zigutela jarri nion aitzakiatzat. **Ramon Saizarbitoria**

Salmenta arrakasta handiak izan zituzten Rougon-Macquartarren gainerako liburu gehienek. **Karlos Zabala**

Erlijio nagusien misiolariak landu zuten lehenengo, eta gero Mendebalde modernoko gizartean dendariak egokitu zuten **salmenta** -xedeekin. **Iñaki Mendiguren**

OPV delakoa, hots, **salmenta** eskaintza publikoa. **Iñaki Heras**

Han, adiskide mami izan zuen Jean Bruillot, kalonje eta txantrea, zeinarekin letania ederrik **salmodiatzen** baitzuen Mariaren ohorez. **Juan Garzia**
Tipo bat zegoen han, ebaketa-mahaiko hanketan kateaturik, nik dakit zer arraio **salmodiatzen**. **Joxan Elozegi**

salmodio ik **salmodia**.

salmonella 1 *iz Salmonella generoko bakterio gram negatiboa, izaera patogenoa duena gizakiengan eta zenbati animaliengan.*

Salmonellak eragin du Donostian gastroenteritisa. **Beria - Euskal Herria**

Salmonellaren aurkako txerto bat garatu du iruinseme batek. **Beria - Gaiak**

2 salmonellosia.

Osasun Departamentuak argitu duenez, **salmonella** eragin duen bakterioa desberdina da bi kasuetan. **Beria - Euskal Herria**

Salmonellaren bakterioak bere burua babesteko eta ugaltzeko txoko bat egiten du. **Beria - Gaiak**

Bajarekin zegoen **salmonella** izan zuelako. **Joan Mari Irigoien**

3 (hitz elkartuetan)

Donostiako **salmonella** kasuen zergatia argitu dute. **Beria - Euskal Herria**

salmonellosi (*orobat salmonelosi; Euskaltzaindiaren Hiztegian salmonellosi agertzen da*) 1 *iz salmonellak eragiten duen gaitza, intoxikazioa edo hesteetako infekzioa ezaugarri dituen.*

Salmonella deituriko bakterioak eragindako gaitza da **salmonellosia**. **Beria - Gaiak**

Lanean hasi zenetik behin baino ez da gaixotu Yolanda, duela hiru urteko ekainean, tortilla pintxo bat janda **salmonellosiaz** kutsatu zenean. **Eider Rodriguez**

Baldintza naturaletan animalietatik gizakira kutsatzen den gaixotasunik garrantzitsuen da **salmonellosia**, nazioarteko osasun erakundeen arabera. **Beria - Gaiak**

Hiru milioi pertsona hiltzen ditu **salmonellosiak** urtero munduan. **Beria - Gaiak**

Oiloaren genoma deskodetu izanak sekulako informazioa eman dezake gizakiaren biologiarekin inguruan, eta, besteak beste, **salmonellosiaren** eta hegaztien gripearen kontra borrokatzen lagun dezake. **Beria - Gaiak**

2 (hitz elkartuetan)

Orain dela gutxi azaldu diren **salmonellosi** kasuak aparte utzita, [...]. **Beria - Harian**

salmonelosi ik **salmonellosi**.

salmotegi *iz salmo bilduma.*

Oitoitz ongariagoa hauxe, **salmotegia** esatea baino. **Joan Mari Lekuona**

Zati handi bat, baita ere, zentzuen egitateagatik, gure praktika, gau-beila, **salmotegia** eta antzeko gauzengatik; hainbestearino hartzen gaituzte, non galarazten baitgute geure barruan sartzea. **Joan Mari Lekuona**

salmu ik **salmu**.

salneurri (310 agerraldi, 27 liburu eta 184 artikulutan) 1 *iz ondasun bat saltzen edo erosten den diru kopurua. ikprezio.*

Levine andreak Picasso txikia erosi du eskatuta genion **salneurrian**. **Ramon Etxezarreta**

Batek lapiko bati begiratzan zion eta **salneurria** galdetzen, besteak oinetako batzuk saiatzan zituen. **Anjel Lertxundi**

Hotel, kafetegi eta jatetxeetako **salneurriek** ere gora egin zuten, baina maila apalagoan. **Beria - Ekonomia**

Gero jakin nuen Madrilen oso erraz saltzen zituela - **salneurria** bikoiztuta- Christie's-eko enkanteetan lortutako gauzak. **Ramon Saizarbitoria**

Salneurria ere izutzekoa eskatu zuen, jakina, eta Héraclusek errekararitzatan ibili gabe ordaindu zuen. **Josu Zabaleta**

Enkantegile batek otarreak kokatzen zituen eta sortei eta arrain ale handiei **salneurriak** jartzen zizkien. **Karlos Zabala**

Salneurrien gorakada edo ogirik zuriena non eros zitekeen izaten zuten hizpide. **Josu Landa**

Ondasungabetzeak **salneurria** jartzen dio ahularen buruari, errugabeari errudunaren zigorra sufriarazten dio. **Juan Martin Elexpuru**

Beste kontua da ea egokia den errudun baten buruari **salneurria** jartzea. **Juan Martin Elexpuru**

Salneurriaren eranskailua kendu eta bitan tolestu zuen paperezko poltsa. **Harkaitz Cano**

Gizartean negoziak aurrera daitezen diruak **salneurria** behar du; bestela, ez dira mailegu emaileak izango. **Andres Urrutia**

2 (-en atzikiaren eskuinean)

Ezer gutxi aurreratu nahi dute upeltegiek eta mahastizainek mahatsaren **salneurriari** buruz. **Beria - Ekonomia**

Autobus-txartelaren **salneurria** ordaintzen ari zen bitartean, eserlekuak jendearen ipurdiekin katigatuak zeudela ohartu zen. **Aritz Gorrotxategi**

Zenbateko hori eguneratuz gero, 80 dolarrekoa litzateke erregaiaren **salneurria**. **Beria - Ekonomia**

Barazkien **salneurriek** %7,3 egin zuten gora EAEn eta %8,3 Nafarroan. **Beria - Ekonomia**

Bruselak agindutako politikaren ondorioz, datozen hiru urteotan esne litroaren **salneurria** 0,09 euro zentimo jaitsiko da. **Beria - Ekonomia**

Zenarutzabeitiak petrolioaren **salneurriaren** etengabeko garestitzeari egotzi zion inflazioaren igoera hori. **Beria - Ekonomia**

Gurinaren eta gariaren **salneurria** jakiteko eginak gara, edota bi zaldiren, bi itsasontziren, bi ministroren edo bi artistaren balioaz eztabaida egiteko, gehienez ere. **Josu Zabaleta**

Diruaren **salneurria** zehazten duten harremanak agintaritzatik kanpokoak dira; gobernuak ezin dute hori zehaztu aginduzko legeen bitartez. **Andres Urrutia**

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Ahari bi saldu berri nizkion Cox laborariari, eta **salneurri** onean, gainera. **Mirentxu Larrañaga**

Sei pennyren truke erosten dizut txakurra; ez da **salneurri** txarra, ezertarako balio ez duen txakurrarengatik. **Mirentxu Larrañaga**

Pedro Berrondok egindako itzulpena da salgai jarriko duena, **salneurri** merkean. **Beria - Kultura**

Produktu berriak merkaturatzea, **salneurri** baxua edota promozioak. **Beria - Euskal Herria**

Kalitatezko jaialdiak **salneurri** xumeetan eskaintzen. **Beria - Kirola**

Ezin da ahaztu duela hilabete batzuk petrolio upela inoizko **salneurri** garestienetan jarri zuen faktoreetako bat espekulazioa izan zela. **Beria - Ekonomia**

Salneurri tasatuetako etxeak. Berria - Euskal Herria

Baikorrenek espero dute joan den urteko batez bestekoei eustea, **salneurri** duina dela uste baitute. Berria - Ekonomia

Batez besteko **salneurria** 0,9 euro izan zen kanpainaren bukaeran. Berria - Ekonomia

Salneurri arrazoizko baten barruan. Andres Urrutia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

batez besteko salneurria (4); **direkzio elektrikoan salneurria** (3); **erregaiaren salneurria** (3); **etxebizitzan salneurria** (3); **gasolioaren salneurria** (3); **petrolioaren salneurria** (4); **salneurria merkatzeko** (4); **salneurria merkatzeko eskatu** (3); **sarreraren salneurria** (3)

etxebizitzan salneurriak (4); **salneurriak jaitea** (4); **salneurriak jaitsi** (5)

salneurrien igoera (5)

saloi (*orobat saloin g.er.*) 1 iz etxebizitzetan, sala; bestelakoetan, aretoa.

Alarguna **saloi** bateko tximiniaren aurrean hitz eginez dut gogoan. Ramon Saizarbitoria

Saloi jendez gainezka zegoen eta gizon gehien-gehienak esmokinez jantzita zihoazen. Fernando Rey

Saloi urdinez pintatutako gela txiki bat zen, belus gorritz estalitako hiru besaulki zituena, frantses erakoak hirurak. Felipe Juaristi

Klubera iritsitakoan, Lucy eta aita mahai eta eserleku handiz beteta zegoen **saloi** eskerga batera sartu ziren aperitibo hartzera. Joxemari Iturralde

Alarguna zen, nik uste, eta batzuetan auzolagunak gonbidatzen zituen **saloi** handian txokolata hartzera, hotza zetorrean. Javi Cillero

Bazter inarrosleak eta **saloi** iraultzaileak ere trenpu txarrean uzten zituzten. Itxaro Borda

Ahots goraz eta espantuka Ateneoko **saloi** mahai handiaren gainean zutik deklamaten zituen. Felipe Juaristi

Sukaldeko dantzaria esaten zaion hori nintzen ni, ez inolaz ere **saloi**. Harkaitz Cano

Nautilus-eko **saloi** beirate handiaren aurrez aurre daude Aronax jauna, haren zerbitzari Conseil eta Ned Land arpoi-jaurtitzaile kementsua, beren begien aurrean agertu berri den txibia erraldoiari so. Imanol Zurutuza

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Saloi dotorea, beheko sua, epeltasuna. Hark erakutsi zizkion **saloi** dotoreetako sedukzio arauak eta sexu-jolaserako lehen urratsak. Joseba Sarrionandia

Marmolezko zoria zuen **saloi** handi bat, irudimenean dantza aretoa iruditu zitzaiona, zeharkatu zuen ilunpean. Felipe Juaristi

Justina, bezperan berarekin errege jauregiko **saloi** handian dantza egin zuen neskatxa. Felipe Juaristi

Saloi argituan sartu behar nuen, loro nazkagarriaren eta horko zoo guztiaren ondotik pasatu. Matías Múgica

Saloi gorrian mahaiak eta aulkiak belus gorritz estalirik zeuden. Felipe Juaristi

Kafeteri edo halamoduzko **saloi** inportanteren batean ordu jakinetan soinua jotzeko konpromisoa harturik omen zeukan. Koldo Izagirre

Biliarrerako **saloi** berria ari omen dira egiten. Anton Garikano

Alde batera eta bestera zebilen zutabe anitzeko **saloi** marmolezkoan zehar. Fernando Rey

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Saloi bazter batean zegoen mahaiak. Joxemari Iturralde

Solairu nagusia eremu publiko izango zen: despatxua, harrera-gela, **saloi**-biblioteka, jantokia, sukaldea eta officea. Patxi Iturritegi

Ekzerretara jo du, haritz ilunezko ate eskerga zabalduz, eta **saloi**-janela moduan erabiltzen diren erreserbatuetako batera iritsi da. Joxemari Iturralde

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Amaitu ziren korruak eta neskatzen balkoipeetako errondak, eta pobreen igandeetako dantza **saloi** ere itxi egin zuten. Jon Maia

Senarra ahaldua duk aterki-enpresa batean, eta emazteak arropa-**saloi** bat zeukak. Anton Garikano

5 (*orobat salun g.er.*) industriako produktuen erakusketa, periodikoki egiten dena.

Baiona, Gipuzkoa eta Nafarroako merkatal ganbaren artean antolatutako ekitaldia zen aitzinagoko asteartean «Interplus» **saloi**. Herria

Ezkontzaren **Saloina** Baionako Lauga Salan iragan da joandean asteburuan. Herria

Bilan biziki baikorra ateratzen dute berriki Baionan iragan den bizitegien **saloinaren** antolatzaileek. Herria

Pariseko **saloin** saristatuak izan ziren departamenduko ekoizleak bildu dira duela gutti Pauen. Herria

Ingalaterran egin berri da hegazkien **saluna** Farnborough hirian. Herria

6 behinolako bilera aristokratikoa edo burgesa, batez ere literaturari, arteari edo politikari buruzkoa zena.

Literatura hizkuntzak gainditu egiten ditu literaturak jartzen dizkion mugak: gogora ditzagun **saloin** eragina, gortearena, edota akademiena, esaterako. Isabel Arrigain

Ekintza-gizon, abenturazale, bildumatzale, erudito, bidaiazale, **saloi** gizon, idealista gogoz kontra, hori baita bere dobladuren atzean ageri den pertsonaia. Josu Zabaleta

Hango alabek, hemeretzigarren mendean Ingalaterrako **saloi** sakabanatuak, zoragarri zazeatu eta zalaparta gartsuak harrotu zituzten. Anton Garikano

Nork asma zezakeen Madrileko **saloi** aterea zirudien galai lerdan beltzaran hura apez zela? Anjel Lertxundi

Hiriko jende apainak kopiatu egin ohi zion, eta toxatik nola atera eta pizten zuen zigarreta -keinu dotore distraitu harekin-, hura ere eredu zen mundu zabaleko **saloi**. Anton Garikano

7 saloia.

Berak Yuma, Denver eta Kansas City aldeko **saloi** epe laburrean maite izan dituen korista frantsesen antzik ez duelako. Joseba Sarrionandia

8 *saloi* izlag saloian gertatzen dena; benetakoa ez dena, friboloa.

Oso famatuak dira [Dvorak-en Dantza Eslaviarrak], baina beharbada niretzat behintzat bere garaiko **saloi** musika burgesaren eredura lotuegiak. Berria - Kultura

Ez da erraza jakiten zenbateraino ziren **saloi** keinu eta plantak Cloots jaunarenak. J.M. Olaizola "Txiliiku"

Saloi komunista saldoa zarete, eta urtero jaka aldatzen duzue. Fernando Rey

Nik uste dut oso jende gutxi jar dezakeela auzitan egia hori, soilik eskuin muturreko espainolstek, edo aspaldiko ezker dibinoak, askotan **saloi** faxismoan bukatu duenak. Bernardo Atxaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

saloi handi (3); **saloi handian** (3); **saloi jangela** (3)

saloin ik saloi.

saloitxo iz tamaina txikiko saloia.

Saloitxo batera eraman ninduten. Matías Múgica

Saloitxoan zegoen sofa bakarrean eseri nintzen nahiko larriturik. Joxemari Iturralde

Afaria amaitu ondoren, beste zerbeza lata bat hartu eta **saloitxo** sofan eseri zen. Joxemari Iturralde

salokeria iz jatunkeria.

Leku hari *Kibrot-Taaba* -hau da, "**Salokeri**" Hilobiak"- eman zioten izen, han lur eman baitzioten jan-irrika sartu zitzaion jendeari. Elizen arteko biblia

salomoniko izond auzitan diren bi alderdiak era berean gogobetetzen dituena.

Kaxako umeen batzordeak, erabaki **salomoniko** batean, Jazinto bere ama biologikoari, Maria Sanz Llorenteri ematea deliberatzen du, eta aldi berean epaitegiaren aurrean salatzea, umea abandonatu zuelako jaiio berritan. Koldo Izagirre

Hori ikusita, Espainiako Atletismo Federazioak erabaki **salomonikoa** hartu du: ez dio baimenik eman ez Donostian, ez Haron aritzeko. Berria - Kirola

Gaur gauean erabakiko du zuzendaritzak Quintanaren baldintzak onartzen dituenetz, nahiz eta litekeena da erabaki «**salomonikoa**» hartzea, hau da, erakundearen statu quo-a aldatuko ez duena. Berria - Mundua

Aitak, bista egunkaririk jaso ere egin gabe, erantzun **salomoniko** eman dio seme jakin-goseari. Joxerra Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erabaki salomonikoa (5); **erabaki salomonikoa hartu** (3)

saloon iz ipar amerikar mendebaldeko taberna, joko eta ikuskizun friboloak ere badaudena.

Orduantxe sartu zen Morgan katueroaren banda **Saloonean**, ateari ostikoa emanda. Joxean Sagartzizabal

Eta forasteroak zaldi gaintetik jaitsi gabe esaten zuen **saloon** alaiaren atarian, "Neska ederrak bai, baina jakin nahi dudana bakarra da ea hemendik pasatu diren sheriffa eta bere jendea". Joseba Sarrionandia

Atarian gizon bat zegoen karta jokoak eginez, **salooneko** tahurren gisara mozorroturik. Berria - Kultura

Kontsolamendu bakarra **saloon**-ean pistola eskuan sartzea izango dute herritarrek. Berria - Mundua

salpen iz ipar salmenta.

Aurtengo lehen sei hilabetetan % 18 ez goititu dira behi haragiaren **salpenak**. Herria

Donibane Lohizunen ere plantatu zen, mugaz hunaindirat hedatzeko bere **salpenen** sarea. Herria

salpikadero iz ibilgailuetan, gidariaren aurreko aginte taula.

Zazpiak eta hogeita bi irakurtzen dut **salpikadero** erlojuan. Mikel Hernandez Abaitua

Bederatziak hogeit gutxi direla ikusten dut **salpikadero** erlojuan, Mikel Hernandez Abaitua

salpostu iz saltzeko postua. ik salgune.

Eta **salpostura** hurbildu nintzen. Txillardegi

Bond Streeteko **salpostutik** atera zenean. Joxemari Iturralde

Aste hartan bigarren aldiz hurbiltzen zela **salpostu** hartara aterkia erostera. Joxemari Iturralde

salprezio iz salmenta prezioa.

DVD-aren **salprezioa**: 28,50 euro. Herria

salsa¹ (orobat *saltsa g, er.*) 1 iz jatorria Antilletan duen dantza-musika bizia eta alai, erritmo afrikarrak eta latinoak nahasten dituena.

Diskoaren mamia, **salsa**, reggae eta rockaren artean murgiltzen diren hamar kantuk osatzen dute. Berria - Kultura

60ko hamarkadan **salsak** hartu zuen nagusigoa, eta urte batzuen ondoren, 80ko hamarkadaren bukaeran, jazz latinoaren loraldia gertatu zen. Berria - Kultura

29an, ostiralez, aratseko 7.30etarik goiti, kontzertuak (rock, reggae, hip hop, **salsa** eta gaineratiko) talde hauekin: [...]. Herria

Kamera geldoan dantzatutako **salsa** baten antzekoa zen goizaldeko hura. Unai Iturriaga

Aurrena goiko pisuan egon gara eta zinez ikustekoa zen [...] dantzariak zein serio eta lizun hartzen zituzten **salsaren** konpas bihurriak. Patxi Zubizarreta

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Tokatan **salsa** musika jarri eta pozik. Jasone Osoro

Carloren herrian ikusitakoaz gogoratzen naiz, plazatxo batean zegoen jende multzoaz, **salsa** dantzari pilo bat zegoen, bertako italiar dantza tradizionalak balira bezala ari ziren. Mikel Hernandez Abaitua

Aratsean "**salsa** gaua". Herria

Herbehereetan nengoela [...] **salsa** big band batean ere aritu nintzen. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

salsa gaua (3)

salsa² ik *saltsa*¹.

saltaka ik saltoka.

saltalari izond saltokaria.

Uste zuten, mutilik **saltalarienaren** gurasoek izango zuela uztarik aberatsena; ordea, lotsatiren batek muzin egiten bazion jauzi egiteari, etxe hartako labore-lanak jai zuela urte hartan, kaxkar eta ahul geldituko zela soroko uzta. Pello Zabala

salтары, saltaraz, saltarazten du *ad* salto eginarazi.

Goizean goiz, sua berritu eta aziendak, zaldi eta behor, brasaren gainetik **salтарыzen** zituzten. Pello Zabala

Hain leku estrategikoan pausatutik, haren ukipenak guti faltan ez ninduen ohe gainean **salтарыzi**. Aingeru Epaltza

RIP hitza ukitu orduko, jaurtigailu metaliko batek **salтарыzen** duen burezur ezkutatua. Berria - Kultura

2 irud/hed

Nik bihurkin bat hartu eta sarraila **salтарыzi**. Joxe Austin Arrieta

Hidalgok **salтарыzi** zioek begia, nire aurrean, hiru gintuan, izutzeko... Koldo Izagirre

Lan baldintzak ahalik eta malguen atxiki nahi dituzte, zurruntasun guziak **salтарыzteko**. Berria - Harian

saltarello *iz* Erdi Aroko dantza alai eta bizia, hiru aldiko erritmoa duena.

Biolina eskuetan hartu eta jotzen hasten zen itsua, dantzarako piezak gehienetan, alemana ez bazen zarabanda, **saltarelloa** ez bazen gailarda edo-eta, etsi-etsian pabana bat. Felipe Juaristi

saltari 1 *izond* jauzi egiten duena.

Leiho zabaletik [...] bainatzen ari zirenen puntutxo biribilak, etxola txiki-txikiak, txotxongiloaren inguruko nano **saltariak** eta erlijio zirkulu txikia ikusi zituen. Koro Navarro

Jostailuzko untxi txiki **saltari** bat bezalakoa da. Iñaki Mendiguren

Uretan saltoka zebilen arrain bat zen ala Peter zen, txirularekin arrain **saltarien** doinua eginez? Julen Gabiria

Gorsehillgo oihan oparoak inguratzen ninduela, txori eta arrain basati, ezinezko eta **saltarien** artean. Koro Navarro

Badira Lycosa generoko armiarma handi, iletsu eta **saltari** batzuk, Taranto inguruetan beste zenbait lekutan baino ugariagoak zirelakoan *tarantula* izenarekin bataiatuak.

J.M. Olaizola "Txiliku"

Pilota **saltaria** komeni zaio hari, alai, erraz erabil dezakeen horietakoa. Berria - Kirola

Korrika joan ginen belar malgu **saltariaren** eta arroken orratz zulatzaileen gainetik. Ene maitearen ahotsa! Koro Navarro

2 irud/hed

Begi bizi **saltariak**. Patxi Ezkiaga

Arin eta urrats **saltari** laburrez barruratu zen. Sonia Gonzalez

3 (izen gisa)

Soka ematen zutenek markatzen zuten **saltarien** erritmoa. Anjel Lertxundi

Saltari trebeak ez zuen gerrikomunik izango igtai-lanetan jardungo zuenean. Pello Zabala

4 (adizlagun gisa)

Horra, hor dator bera, mendiz mendi **saltari**, muinoz muino jauzika. hortik jostatzen dira ume berriak, zango ahulekin **saltari**, belartza gurietan, euren burutxo bigunak esne hutsen xoraturik Elizen arteko biblia

saltarin *izond* saltaria.

Tronpatu nahi duenak utz biezaio gorputzari arkumeak bezala, aske eta **saltarin**. Pako Aristi

Polixenek apirileko ur biziak baino **saltarinago** jartzen zidaan bihotza. Pako Aristi

saltatu, salta, saltatzen 1 du *ad*

Harresia **saltatu**, basoa zeharkatu eta zabortege batera irten gara. Joseba Sarrionandia

Lepic jaunak beste langa bat **saltatu** du, ondoko alpapa-soroa arakatzeko. Itziar Otegi

Zurezko mailak launaka **saltatuz** jaitsi zituen bi pisuak. Joseba Sarrionandia

4,35 **saltatu** dut aurren, baina 4,40-4,45 **saltatzeko** moduan ikusten dut neure burua. Berria - Kirola

Sutegitik **saltatutako** su-printzak. Pello Zabala

2 (osagarri zuzena agertzen ez dela)

Miliok **saltatu** zuen orduan. Josu Zabaleta

Leiho apurtuen arteko barruko sukzo txinparta goriek kanpora **saltatzen** zuten. Jon Maia

Poliki-poliki, gizonen kamioi gainetik kaleko lokatzetara **saltatzen** zuten, armak eskuetan ondo helduta zituztela. Josu Zabaleta

Ez dela landareak biltzea edo noraezean ibiltzea baino hoberik, aldian behin hilobi baten gainetik **saltatuz** edo itzulunguru bat eginez. Bernardo Atxaga

Su gainetik **saltatuz**. Herria

Erbinudeak orduan lurrera **saltatu** zuen txistuka. Joanes Urkixo

Ni geldiro abiatu nintzen, eta ehunen bat metroren ondoren, orga gainera **saltatu** nuen. Josu Zabaleta

Ohera joan arte ibili ziren jolasten, herrenka **saltatzera** eta besoak lotuta eramatera. Julen Gabiria

Pentsatzeko astirik gabe, albora **saltatu** eta bi eskuez ote mordo bati heldu zion. Joanes Urkixo

Inortxok ere ez zidala jarraituko, are gutxiago martxan zegoen tren batetik **saltatu** behar bazen. Mikel Hernandez Abaitua

3 irud/hed

Zati bat **saltatu** duzu -mozten dio Janek, orain amak baino hobeto baitaki istorioa-. Julen Gabiria

Azken eskola-ordua **saltatu** eta zerbeza pare bat hartu dudala lagunekin. Patxi Iturritegi

Inportanteena da oso gustura nabilela Kutxin gora eta behera, taberna bat ere **saltatu** barik. Jon Arretxe

Astean behin gosaria **saltatu** eta hamasei kilometroko bidea egiten dute elizara, etxeratutakoan bazkari eder baten esperantzan. Anton Garikano

ONCEn kabinara abiatu ziren denak emanda, bidean aurkitutako semaforo guztiak **saltatu** ahal izateko sinkronia bikainean. Patxi Iturritegi

Azkenean, erlojuak zortzi eta erdiak adierazi zituen, eta sarrailek **saltatu** zuten. Xabier Olarra

Goitu egin zitzaizkion odolak eta tunpalahara erori zen pultsuak **saltatuta**. Koldo Izagirre

4 (da aditz gisa)

Bagoi bateko plataformara **saltatu** nintzen eta beheiti begiratu nuen. Fernando Rey

Ikusten dut nola **saltatzen** den ohetik, lotsarik gabe, gazte hura defenditzeko. Matías Múgica

Maitasunugarra pizten da ariman, non txinparta gozoak **saltatzen** baitira eta Jainkoaganako sentipen egarberak. Joan Mari Lekuona

saltegi (498 ageraldi, 28 liburu eta 263 artikulutan) 1 iz zer bait saltzen den, salmentak egiten diren tokia. ik **saltoki**; **denda**.

Jatekorik ez zakuan: erosketak egin ditut herriko **saltegi** bakarrean. **Piarres Aintziart**

Kongresu horiek aintz diru ekartzen dutela hotel, jatetxe, **saltegi** eta holakoeri. **Herria**

Saltegi eta lantegi handi askoren nagusiak bildu. **Herria**

Miarritzen, merkatuguneko **saltegiak** indar berezi bat egin dute aurten bazterren alegeratzeko San Ferminen ohoretan, Iruñako bestak zireno. **Herria**

Joan den udan hasia bainaiz lanean eta udan astelehenetan ere irekia baita gure **saltegia**. **Janbattitt Dirassar**

Quiksilver enpresak mega **saltegi** bat idekiko du Angelun, Pontots gunean. **Herria**

Auchan, Promodes eta Continent hiper **saltegiak** izan dituzte kondenu gorenak. **Herria**

Autoen mugimendu hura, hango **saltegien** distira eta apaindurak... **Janbattitt Dirassar**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

"LIDL" **saltegi** ezagutuak, Hazpamen idekiko du 700 M2-ko saltoki bat. **Herria**

Baionako **saltegi** handi batean lore sorta eta xanpaina botila bat erosirik, ospitaleko bidea hartu nuen. **Daniel Landart**

Saltegi handiak, hasteko, aitzineko urteetan ere irekiak ziren; *Geant Casino*, kasu. **Berria - Harian**

Supermerkatua itxi eta **saltegi** txikiak ireki behar ote dira? **Berria - Euskal Herria**

Ostatu bat eta **saltegi** tipi bat ere badaude. **Ramuntxo Etxeberri**

Saltoki handi frangotan, hyper eta supermerkatuetan, aurki daitaite, eta eskualde huntako **saltegi** ttipiago zenbaitetan ere. **Herria**

Marie Helene Oyhenart sartu zaiku herriak eraiki **saltegi** eder berrian, lehenagotik hurbil hurbila. **Herria**

Saltegi arrunt horretan pasatzen zituen egunak, hor zuen bere bizia, bere kargua, bere misioa. **Michel Oronoz**

Greba-egun segitua, tren geltokiko **saltegi** hertsia. **Itxaro Borda**

Saltegi beltz haien barrenean pila-pila eginik ikusten ziren kutxa zizelatuak, Rouengo, Neverseko, Moustierseko faiantzak, irudi margotuak, beste batzuk haritz zurezkoak, kristoak, amabirjinak, santuak, elizako jantziak, [...]. **Josu Zabaleta**

Arratsalde osoan autobusez ibili ginen hara eta hona, helbururik gabe, eta horrela, jauregi, monumentu eta **saltegi** espantagarriak ikusi genituen. **Daniel Landart**

Ainitz sari irabazteko aukera ederra da hemen, tokiko **saltegiak** lanean arraraziz. **Herria**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Duela zenbeit aste aipatzen ginuen Hazparneko **saltegi** andana baten hestea. **Herria**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baionan ari lanean, zapata **saltegi** batean. **Janbattitt Dirassar**

Ezagutzen ez zintuzten liburu **saltegi** batera joan zinen itzulpen horren erostera. **Ramuntxo Etxeberri**

Jende gutxi dabil Baionako karriketan, gutxi Baiona Txikiko bihotza den Pannecau karrikan eta gutxiago oraindik karrika erdian dagoen tabako **saltegian**. **Berria - Harian**

Hala ere joan zen 'Old England' jantzi **saltegi** parean finkatu zuten hitzordura. **Ramuntxo Etxeberri**

Taberna bidearen aldamean kokatua zen, ezantza **saltegia** eta drive-in jatetxea zetzizkiola. **Itxaro Borda**

Andere honek atxikitzen du edergintza **saltegi** bat Pannecau karrikan. **Herria**

Manifestazioa Hendaiaiko hondartzara hurbiltzean, apainketa **saltegi** batek atea eta pertsiana itxi ditu. **Berria - Euskal Herria**

5 irud/hed

Turko bikaina zen; ez arabiarra, turkoa baizik, lodia, abegikorra, xarmagarria, turkoz jantzia, turbante eta guzti, bizkarrean seda **saltegi** oso bat zeramana. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

liburu saltegi (3); **saltegi berri** (7); **saltegi berri bat** (4); **saltegi berria** (3); **saltegi handi** (11); **saltegi handi batean** (7); **saltegi handiak** (4); **saltegi handien** (3); **saltegi haundi** (5); **saltegi on** (3); **saltegi on guzietan** (3); **saltegi ttipi bat** (3)

saltegiaren aitzinean (3)

kanboko saltegietan (5)

saltegiño iz saltegi txikia.

Eta badu itxante hogoi urte hotelean berean muntatua dutela etxe-ekoizpen **saltegiño** bat, arrakasta ederra baduena. **Herria**

salterio¹ iz salmo liburua, salmutegia.

Salterioa eduki nahi zuen anaia laiko batek baimena eskatu zion Frantziskori; honek, ordea, errautsa eman zion salmo-liburuaren orde. **Askoren artean**

Salmoa: Ene Jainko, zatokit lagun! (8. Salmoa, **salterioan** dagoen bezala). **Askoren artean**

Salmo asko eta asko buruz zekizkien Frantziskok, **salterioarekin** ikasi baitzuen irakurtzen. **Askoren artean**

Salmoak irakurtzen dakiten laikoei ere zilegi bekie **salterioa** edukitzea. **Askoren artean**

salterio² iz Erdi Aroko zitarra, erresonantzia-kutxa prismatikokoa, hatzekin edo ziriek in jotzen diren hainbat hari dituen.

Izan ere, musika tresnak -zitarak, hamar hariko **salterioak** eta gainerako tresnak- handikeria eta bekatutako erabiltzen dituzte, Jainkoaren nahiari aurre eginez. **Askoren artean**

Salterioa, lautea, hiru arrabita, kontrabaxua, bongo moduko danborrak, pianoa eta bost gizonezko ahotsak izan zituen laguntza gisa. **Berria - Kultura**

Magnificat edo David-en salmoan, bakarlariak egiten zuen arabiar melopeari unisonoan elkartzten zitzaizkion instrumentuak lehenez **salterio** edo lautea. **Berria - Kultura**

saltinbanki 1 iz kale-saltokaria, akrobata.

Ez zen harriztekoa txerpolariek, **saltinbankiek** eta orekariak zarata itzela ateratzea beren txosnen aurrean saltoka eta dantzan, deus ez baitzuten arriskatzen koitadu horiek salerosietan. **Karlos Zabala**

Gurdietako bat **saltinbankien** etxea zen. **Koro Navarro**

2 (hitz elkartuetan)

Saltinbanki saldo handi hura mila verstako bideari lotu beharrean zegoen, hurbileneko mugara iritsi nahi bazuen. **Karlos Zabala**

Gero Lindak bereak kontatu zituen, bere **saltinbanki**-bizimodu bohemioa, harik eta jaun aberats batek zirikutik atera eta bere babesa eskaini zion arte. **Koro Navarro**

3 (izenondo gisa)

Ustez ilustratua zen kristau-uzte hemeretzigarren mendean, filosofo **salinbanki** bat aurkitzen dugu, "arrazia nordiko" barbaro osasuntsuaren mitoa zabaltzen. **Iñaki Mendiguren**

salinbankitza iz salinbankiaren lanbidea.

Salerosketarako aukera, esate baterako, edo ostalaritza berpizteko bidea; abadetxe, janari-denda, azoka, garraio eta **salinbankitzarako** diru-iturria zen, eta beste hainbatentzat bideko bizi-poza eta ondasunak eskuz aldatzearen alegantzia. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

salto (1548 agerraldi, 183 liburu eta 317 artikulutan; orobat saltu g.er.) 1 iz bat-bateko abiadaz, norbaitek edo zerbaitek, bera dagoen tokia epe labur batez utzi, eta toki berean edo beste batean gelditzea. ik jauzi¹.

Beste **salto** hori ikusi dezue, airean buelta eta guzti? **Jon Arretxe**

Azken bi **saltoetan** eskura izan zuen aurrera egitea, baina azkeneko mugimenduan kale egin eta listoia bota zuen. **Berria - Kirola**

Marmolezko eskailerak jaitsi zituzten biek batera, **salto** eta jauzi. **Felipe Juaristi**

Aneren kolega arlekin bilakatu zen, uju eta **salto** lokalean hara eta hona. **Unai Iturriaga**

Pentsamendu horrekin **salto** eta **salto** zebiltzan gazte guztiak, nor altuago eta luzeago. **Pello Zabala**

Sutzar sakratuen egunetako bat, kea eta beroa medio, **salto** eta brinko gainetik eginez. **Pello Zabala**

Beste **salto** bat eta zutik nintzen. **Fernando Rey**

Ziegako atea itxi bezain laster, **salto** bat eman eta, eskua zabalik, kolpe bat eman diozu paretari indarrez. **Rafa Egiguren**

Kolpeak **salto** emanarazi zion, eta burua jiratu zuen eskailera zurien atzetik zetozen xuxurletara. **Anton Garikano**

Suaren gaineko **saltoak** nolako, lihoaren uzta halako. **Pello Zabala**

Suaren gainetik **saltoa**, suabiar hauek binaka egiten zuten. **Pello Zabala**

Gazteek **salto** pare bat egin nahi izan zutenean, hasieran debekatu egin nahi izan zieten. **Josu Zabaleta**

Oso gutxitan lortzen zuen **saltoekin** batera konpasean kantatzen zuen leloa akatsik gabe bukatzea. **Anton Garikano**

Gorako eta luzerako **saltoan** aritzen naiz arin asko, orduak eta orduak ibiltzeko gauza naiz eta bai mendietara igotzeko ere. **Matías Múgica**

ik beheerago 6. **Askoren artean**

Alde guztietatik sartzen zizkidaten hatzak kilimalk egitearren, eta, jakina, **saltoak egiten** nituen. **Pello Lizarralde**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Salto handi batekin, Harryk giltzari heldu, kolpean atea itxi eta giltzaz itxia lortu zuen. **Iñaki Mendiguren**

Gero, bihotzak **salto** handi bat eman ziolarik, apatx-hotsa entzun zuen bere atzean. **Iñaki Mendiguren**

Jauzkariak, zenbat eta **salto** handiagoa jo, orduan eta gerrikomin gutxiago nozituko zuen gero liho-biltzean eta gainerako uzta-lanetan. **Pello Zabala**

Hanka-puntetan orain, **salto** txikiak emanez gero. **Anjel Lertxundi**

Usoak nonahi, **salto** txiki zalapartariak eginez hurbiltzen zitzaizkidan. **Anjel Lertxundi**

Begira ez zaudela uste dutenean, **salto** alaiak emanez joaten dira. **Julen Gabiria**

Bi katu ere bai, bere **salto** ustegabeko eta isilpekoekin izutzen nindutenak. **Matías Múgica**

Harryren bihotzak izugarritzko **saltoa** egin zuen. **Iñaki Mendiguren**

Orpoz sartu bainuen gola, airean inoizko **saltoa** eginik, sekulakoa. **Joan Mari Irigoien**

3 irud/hed

Mediterraneo Itsasoaren ertz eta aldamenean, klima gozo leun berezi-berezia osatu da, koska oso gutxi edo **salto** nabarmenik apenas duena. **Pello Zabala**

Zinez idazlea denak, **salto** bat eman eta errealtatera jauzi egin behar duela. **Ana Urkiza**

Orduan, **salto** handi bat emanez Japoniara joan, han finkatu eta Japoniako hiritar egin zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Lan honek istorioan **salto** handiak eskatzen dituzenez, joko asko ematen duen egitura sortu dugu. **Berria - Kultura**

Errealitatearen interpretazio molde razional bat deskatatu behar zuena, errealtatearen uko bihurtzen da, **salto** mortale logiko batean arrazoa hermeneutikatik ontologiara jauzaraziz. **Joxe Azurmendi**

Euskadik autogobernuan **salto** bat eman behar duela uste dugu. **Berria - Euskal Herria**

Aurrera emandako **salto** historikoa da eta ez da inorentzako mehatxua. **Berria - Harian**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hermionek dantza-**salto** batzuk egin zituen. **Iñaki Mendiguren**

Püchl andrearen alaba zaharrena, Katharine, soka-**saltoan** zebilen egongelan. **Anton Garikano**

Goma-**saltoan** aritzeko kantatzen den leloa xuxurlatu zuen Uilek. **Juan Kruz Igerabide**

Asto-**saltoan**, nahiago izaten du etsi-etsian beti asto gisa aritu. **Itziar Otegi**

Ureztontzia husten amaitu aurretik, halako ikara-**salto** bat egin du Garbiñek. **Berria - Kultura**

Hau ez da arrisku-**salto** bat, azken hamarkadako prozesuaren segida baizik. **Berria - Ekonomia**

4a (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Garmish-Partenkirchen-go eski **salto** txapelketan. **Berria - Kultura**

5 saltoan adlag salto eginez; salto batean; laster batean.

Dena orro, dena marru, haitzez haitz **saltoan**, harriz harri aurrera. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Trenetik **saltoan** jaitsi, markesinatik kanpora laster egin, eta estropezu egin nuen ikusi ez nuen oinezko batekin. **Fernando Rey**

Gerezi mordoz gehisko kargatu eta lurrerantz abaildutako bazterradarrik bajuenak eskua luzatuz **saltoan** harrapatu nahian. **Patziku Perurena**

Dursley jauna **saltoan** zutitu zen, lokietan zainak taupaka zituela. **Iñaki Mendiguren**

Harry **saltoan** eseri zen, bat-batean guztiz esnatuz. **Iñaki Mendiguren**

Lockhart **saltoan** sartu zen ikasgelara, eta ikasleak adi-adi begira geratu zitzaizkio **Iñaki Mendiguren**

6 salto batean adlag salto eginez; laster batean.

Azken sei mailak **salto batean** jaitsi zituen. **Iñaki Mendiguren**

Oihu handiz esan zion: "jarri tente oinen gainean!" **salto batean** zutitu eta ibiltzen hasi zen. **Elizen arteko biblia**

Salto batean altxatu ondoren, gelako atera hurbildu zara. **Rafa Egiguren**

Orduan, Raguelek **salto batean** jaiki eta musu eman zion. **Elizen arteko biblia**

Ama, eztago piperrik eta banoa **salto batean**. **Herria**

Entzun zuen lvyk nola ari nintzen erreserba agintzen, eta **salto batean** etorri zen niregana hura etenaraztera. **Joxe Austin Arrieta**

Joan zaitetz **salto batean** Posta-Bulegora, mesedez, eta begiratu ea ezer dagoen niretzat. **Pablo Sastre**

Gaur gauean ezer egiteko ez baduzu, etorri **salto batean** antzokira, unetxo baterako besterik ez bada ere. **Lopez de Arana**

Salto batean jaiki nintzen eta, janaria ukitu ere gabe, plazara joan nintzen. **Jose Antonio Mujika**

7 salto batez adlag saltoa bain.

Salto batez hegaldatzeko distantzia handiegia zen, eta igerian ez zekien. **Pako Aristi**
Itzuli, zaldi gainera **salto batez** igo eta arrapaladan abiatu zen Cirith Gorgorrerantz. **Agustin Otsoa**
salto batez zutitu eta ibiltzen hasi zen. **Elizen arteko biblia**
Peppone kapela jaurti eta **salto batez** oholtzara igo zen. **Koldo Biguri**
Une egokian, On Camillo erretenetik atera zen **salto batez**. **Koldo Biguri**
Salto batez iritsi zen nire aldamera. **Koro Navarro**

8 salto egin ik saltatu.

Lehendabizi makurtu eta gero **salto egin** behar dugu. **Josu Zabaleta**
Baina Antoniok kotxetik martxan **salto egin** eta mendira jo zuen. **Bernardo Atxaga**
Ohetik **salto egin** eta Lucasengana joan zen. **Unai Elorriaga**
Morroiak, zeharo ikaratuta, leihotik **salto egin** eta ihesari eman zion. **Martin Anso**
Errekara **salto egin** zuenean, guardia batek pistola atera zuen. **Fernando Rey**
Alabari helduta amak tranbiatik **salto egin** eta erori egin zunan. **Anton Garikano**
Horma gainetik **salto egin** duen lapurra naiz ni. **Josu Zabaleta**
Salto egitera zindoazen unean jo zintudan makilarekin buruan. **Aritz Gorrotxategi**
Kitok aitortu zuen txalupa barrura egiten zutela **salto** perke eta katu-arrainek. Mutilak, arin-arin, leihotik behera egin zuen **salto**. **Anton Garikano**
Kalera egin beharko nitek **salto**, baina... hiru solairu zeudek. **Rafa Egiguren**
Erbikumeak, aita onberaren deia entzunik, haren magalera egin zuen **salto** bizi-bizi. **Askoren artean**
Aurrera egin zuen **salto**, ezpata borrorakako prest. **Agustin Otsoa**
Erorikoa samurra da, egin **salto**! **Iñaki Mendiguren**

8a (tartekoeekin, edo egin ezabaturik)

Salto bat **egin**, armairura hurbildu eta whisky botila bat hartu du. **Xabier Paya**
Papera kendu zionean, **salto** handi bat egin zion bihotzak. **Iñaki Mendiguren**
Salto erdia egin zuen aulkian, eta zer nahi nuen galdetu. **Fernando Rey**
Egin festa eta pozez **salto**. **Elizen arteko biblia**
Mendiek **salto**, ahariak bezala, eta muinoek, arkumee bezala. **Elizen arteko biblia**
Berriz igo, berriz **salto**. **Pablo Sastre**
Ikusi dezu nolako **saltoa** egin duen tipo horrek? **Jon Arretxe**

9 irud/heg

Errealitatetik desirara **salto egiteko** nahi bat. **Iñaki Iñurrieta**
Eszenariotik **salto eginek** Dabiden bila joan da. **Patxi Zubizarreta**
Barneko orrialdeetara **salto egin** zuen azkar. **Unai Iturriaga**
Bihotzak **salto egiten** zion neskatxaren azal zuria ikusten zuen bakoitzean. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Itzali kalefakzioa; automatikoak **salto egingo** du bestela... **Pablo Sastre**
Mailaz maila, hitzetik hitzera **egiten** dugu **salto**, norabide jakineko progresio baten barruan. **Iñaki Arranz**
Onomatopeiak hitzetik esaldira **egin** du **salto**. **Iñaki Arranz**
Zenbat ahotatik zenbat belarritarra **egin** behar du **salto** esaera batek, esaera zaharraren kutsua jaso ahal izateko? **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Gero pare bat urtez egon zen Londresen, eta handik Erromara **egin** zuen **salto**. **Joxemari Iturralde**
Bretainiatik Ameriketarako **salto** handia **egin** zuen lehendabizi Pierre-Olivierrek, eta itsasaldi luzearen ondoren Hego Amerikako hainbat lurralde ezagutu zituen: Mexiko, Peru... **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Igotzke gogoia badago, baina ezkorren tropeletik baikorkeriaren tropelera **salto egiteko** arriskua du burtsako itzuliak. **Berria - Ekonomia**
Hego Euskal Herriko langabezia tasak gora egin du 2003ko abendutik 2004ko urtarrilera bitartean; %7,3tik %7,73ra **egin** du **salto**. **Berria - Ekonomia**
Txirrindulari italiarrak tropeletik **salto egin** zuen helmugarako 80 kilometro falta zirela. **Berria - Kirola**

10 salto eginarazi

Lehoiaren kaiolan sartu zen, jolasean ibili zen harekin, **salto eginarazi** zion eta zutik jarrarazi zuen. -Ikusi nahi al du? -esan zuen Pepponek oldarrean, hanka hezurtean hartutako ostikada izugarri batek **salto eginarazten** zion bitartean. **Koro Navarro**
Harryren atzean oihu lazgarri batek **salto eginarazi** zien bie. **Iñaki Mendiguren**
-Han! -oihu egin zuen Harryk, Roni eta Hedwigi **salto eginaraziz**-. **Iñaki Mendiguren**

11 salto eragin

Zekorren antzera **salto eragiten** die Libanoko mendiei, bufalokumearen antzera Sirion mendiari. **Elizen arteko biblia**
Myrtleren negar-zotinak atzera utzi eta Harryk atea itxi orduko, ahots ozen batek **salto eragin** zien hirurei. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atzera salto egin (5); aukititik salto egin (3); aurrera salto egin (5); autobusetik salto egin (3); behera salto egin (3); bihotzak salto egin (4)
egin du salto (13); egin nuen salto (6); egin salto (6); egin zion salto (4); egin zuten salto (37); egin zuten salto (9); egiten du salto (6); egiten zuten salto (4); gainera salto egin (24); gainera salto eginez (3); gainera salto egiten (5); gainetik salto egin (15); gainetik salto eginez (3); gero salto egin (3)
jauzi eta salto (3); lehorrera salto egin (6); leihotik salto egin (4); lurrera salto egin (3); noragabe salto egitea (3)
ohetik salto egin (10)
salto bat egin (4); salto bat eginez (3); salto bat eman (5); salto batean (58); salto batean altxatu (4); salto batean jaiki (3); salto batean jaitsi (3); salto batean zutitu (9); salto batez (31); salto batez igo (3); salto batez jaiki (3); salto batez zutitu (5)
salto egin (316); salto egin du (7); salto egin zion (11); salto egin zuen (85); salto eginaraziz (3); salto eginaz (3); salto eginda (23); salto eginda zutitu (4); salto eginen (3); salto eginez (30); salto egingo (16); salto egitea (24); salto egitean (7); salto egiteko (36); salto egiteko arriskua (3); salto egiten (56); salto egiten zion (3); salto egiten zuten (6); salto egitera (8); salto eta brinko (3); salto eta jauzi (6); salto handi (7); salto handi bat (5); salto handia (7)
salto txiki (7); salto txikia (4); salto txikiak (9); salto txikiak emanez (4); salto txikiak ematen (3); uretara salto egin (7); zelaira salto egin (3)
saltoa egin (4); saltoa eman (10); saltoa emateko (5)
saltoan zutitu (16); saltoan zutitu zen (9); soka saltoan (4)

saltoka (229 agerraldi, 91 liburu eta 30 artikulutan orobat saltoka 19 agerraldi, 11 liburu eta artikulua 1ean; Euskaltzaindiaren Hiztegian biak agertzen dira) 1 adlag saltoak egiten. ik jauzika.

Ez zen harrizkekoa txerpolariek, saltinbankiek eta orekariak zarata itzela ateratzea beren txosnen aurrean **saltoka** eta dantzan. **Karlos Zabala**
Itzal haiek zitu bizian urratzen ari ziren **saltoka**. **Karlos Zabala**
Euripean **saltoka** hasten zelako putzuetan. **Alberto Barandiaran**
Azkenean ni ere **saltoka** eta oihuka hasten nintzen, aztoratuta eta etsita. **Pello Lizarralde**

Laugarren pantan **Peliqueiroak Terranovan** ez zuten **saltoka** eta dantzan hasiak ziren. Berria - Kultura
Lasterka eta **saltoka** jaitsi zituen Escalda ibairaino daramaten karrika harlanduzkoak. Felipe Juaristi
Haranetarantz abiatu zen maldan behera **saltoka**, arrapalada bizian. Xabier Mendiguren Elizegi
Mendiz mendi **saltoka** doazen zalgurdiena bezalako burrunba dakarte. Elizen arteko biblia
Saltoka hurbiltzen ziren sukalde atzeko zaborrontzietara, edo hegaldi laburrak eginez. Bernardo Atxaga
Aldapan behera korrika eta **saltoka** zetozen neska-mutilek. Ramon Saizarbitoria
Sua pitzen dela herriko plazan eta gazteak **saltoka** suaren gainetik badabiltzala. Herría
Percy ere **saltoka** zebilen, erotuta bezala, duintasun guztia galduta. Iñaki Mendiguren
Ez zen pozez **saltoka** ibiltzeko moduko udaberria. Pello Lizarralde
Zart egiten duen zigorraren gainean **saltoka** mugitzea. Berria - Kultura
Eskailera **saltoka** igo eta sukaldean sartu da kolpean. Xabier Paya
Bulegotik ziztuan irten, **saltoka** eskailera jaitsi eta Maiden Lane-ra atera zen. Lopez de Arana
Ardiekin **saltoka** jarraitu zuen neskatilak puska batean. Xabier Aranburu
Nagiak ateratzen, gorbiztutako junturak **saltoka** berotzen. Berria - Euskal Herria

2 irud/hed

Giro jolastia, alegia, grabear eta agudoak **saltoka**. Berria - Kultura
Egun osoan, behean eta urrun, arroila garaitik ur-jauzietara **saltoka** zetozen erreka izan zuten bidelagun. Agustin Otsoa
Zer, hegazkina zurrunbilan ibilarazi nahi badu, edo, jauzi eta **saltoka**, zilipurdika, kiribilketan hasten bada. Xabier Olarra
Paul D-k **saltoka** sentitzen du bihotza. Anton Garikano
Peterren bihotza gora eta behera zebilen **saltoka**, entzuten ari zen bitartean. Julen Gabiria

3 (hitz elkartuetan)

Klasetik piper egiteko lizentzia izan zuenetik, amona **saltoka** ematen zuen ordua Jexuxek Sorazuko Felixianarekin. Xabier Etxabe
-Ardiekin **saltoka** jarraitu zuen neskatilak puska batean. Xabier Aranburu

4 *saltoka-saltoka adlag*

Untxiak bezala, **saltoka-saltoka** egingo zuen Gryffindorreko dorrerainoko bidea. Iñaki Mendiguren
Kanta zaharrak modu /erritmo berezian kantatzen zituzten, **saltoka-saltoka**. Berria - Kultura

saltokari 1 *izond* saltoka dabilena. ik *jauzkari*; *jauzilari*.

Anaia zaharrek **saltokari** bat baino ez zela zioten baina. Juan Kruz Igerabide
Andre hark, senarraz hitz egitean, "musikaria" edo "artista" zioen, baina gainerakoek **"saltokari"** deitzen zioten. Juan Kruz Igerabide

2 (gauzez)

Zer zen pieza **saltokari** hura izutu zuena? Alberto Ladrón Arana

saltokatu, saltoka(tu), saltokatzen du *ad* saltoka igaro.

Kantuaren bitartez populuen Europa berri bat eraiki dugu, muga guziak **saltokatuz** Euskaditik Astoriarat, Greziatik Georgiarat, Rusiatik Italiarat goresiz Ama Birjina, maitasuna, itsasoa, besta, borroka, ahantzi gabe alaitasuna. Herría

saltoki (*477 agerraldi*, *67 liburu eta 157 artikulutan*) 1 *iz* zerbait saltzen den, salmentak egiten diren tokia. ik *saltegi*; *denda*.

Marseillako azoka, **saltokia** izateaz gain, topagunea eta koprodukzioak hitzartzeko lekua izan ohi da. Berria - Kultura
Frantziako auzitegi batek Warner Music disko ekoizlea eta Fnac **saltokia** zigortu ditu CDak kopien kontra gehiegi blindatzeagatik. Berria - Gaiak
Saltokiko bi erakusmahaien gainean, atzealdean, sekulako gurin pilak zeuden, lerro-lerro jarriak. Karlos Zabala
Berger kalearen aldean, ostra handizkarien postuen atzean, haragi egosien **saltokiak** daude. Karlos Zabala
Saint-Marc plazara heldu nintzenerako, azokako **saltokiak** bilduta zeuden. Joseba Urteaga
238 **saltoki** zabaldu zirela zehaztu zuen, eta horrek sektore horretako enplegua handitzea ekarri duela. Berria - Ekonomia
600 milioi euro inbertituko dituzte 130 **saltoki** irekitzeko. Berria - Ekonomia
Iritsia zen **saltokia** zabaltzeko ordua. Jon Muñoz
Saltokia iteko agindu dute, ez baitago dendarik edukitzerik odol garbirik izan ezean. Urtzi Urrutikoetxea
Hegaztien pabiloian **saltoki** bat errentan hartzera deliberatu zen. Karlos Zabala
Apaizak kanpora bota eta haien **saltokiak** itxi behar zirela esaten zuen. Karlos Zabala
Saltokiak plazaren inguru guztian zabaltzen ziren. Felipe Juaristi
Donkin enparantzan, **saltoki**en jabeak badabiltza dagoeneko asto-mahaiak jartzen eta salgaiak mahaien gainean zabaltzen. Oskar Arana
Aita militar erretretatuaren elektrotresnen **saltokian**, ikuzgailuen eta hozkailuen artean. Aingeru Epaltza
Pitxer bat yaraki eskatu genuen, eta **saltokiko** jabeak ekarri eta edaten hasi ginen. Joan Mari Irigoien
Egunero ikasiko zuten elkarrekin, **saltoki** bateko bazkide ere izan zitezkeen. Koro Navarro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Saltoki handi frangotan, hyper eta supermerkatuetan, aurki daitaie, eta eskualde huntako saltegi ttipiagotatik zerbaitetan ere. Herría
1883an, *Au bonheur des dames*, **saltoki** handien sorrera, bilakaera eta salmenta modu berriak islatzen dituena. Karlos Zabala
Esaten zaio **saltoki** handietako irekialdi berezi horri? Jon Muñoz
Halako batean, eliza handi baten aurreko plaza ikusi dut jendez gainezka eta **saltoki** txikiez inguratuta. Anjel Lertxundi
Saltoki itzelak, askotariko salgaiz gainezka, amaierarik gabe hedatzen dira kaietan barrena, kilometro askotan zehar. Jon Muñoz
Concepción parrokiako **saltoki** nagusiak. Juan Garzia
Hiru emakumeak **saltoki** meharraren hondoan eseri ziren. Karlos Zabala
Elitearen pasabidean, **saltoki** ederrak joan dira irekitzen banan-banan. Monika Etxebarria
Hiriguneko **saltoki** berri batera jo genuen, jostailuak baino gehiago diseinua saltzen duten horietako batera. Iban Zaldua
Postarekin hitzarmen bat sinatua duten agentzia postalak edo **saltoki** pribatuak. Berria - Ekonomia
Laurek elkar hartu zuten Quenu-Gradelletarren **saltoki** purtzil hartan gertatzen zenaren berri bata besteari jakinarazteko. Karlos Zabala
Jendaurreko **saltokietako** izozkailuetan. Edorta Agirre
Ohizko **saltoki** eta elizetan aurki dezakezue. Herría
Dotorezia zerion guztiari, beti berri eta luxuzko **saltoki** batean bezala paraturik. Joxan Elozei

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jauriaritzak mugatu egin du **saltoki** gune handien gehienezko eremua. **Berria - Ekonomia**

Barakaldo albo batera utzi eta autobideko irteeraren ondoan dagoen **saltoki** -guneke Eroski-an. **Iban Zaldúa**

Saltoki eremu handiek sektoreko lan baldintza onak jaitsi egin dituztela **Saltoki** ilara bien arteko pasabideetan zebiltzanak hegoaldeko jatorrak ziren. **Berria - Harian**

Saltoki suete bat, tabernatza ere har zitekeena, non zerbitzatzen baitziren jan-edanak, mota orotako produktuak saltzeaz gain. **Joan Mari Irigoien**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Dendetan edo kale **saltokietan** ziria sartzen eta zure saketako pisua ahal duten gehien arintzen saiatuko dira. **Gotzon Garate**

Gizon bien atzetik etorri zara, postal **saltoki**, iragarki eta letrero guztiei begira. **Lourdes Oñederra**

Janari-**saltoki** batzuk zabalik zeuden oraindik. **Bernardo Atxaga**

Esne- eta haragi-**saltokian** ere bizi-bizi doa salerosketa. **Oskar Arana**

Poterie kalea eta Lingerie kalea, hango etxe sabeldunekin, hango gurin, arrautza eta gazta **saltokiekin**. **Karlos Zabala**

Baita liburu- eta disko-**saltoki** atseginak, marka onenetako arropa-dendak. **Jon Arretxe**

Prentsa **saltoki** eta diru kutxa bat. **Herria**

Aldizkari-**saltoki** bat dago lehen arraindegia zegoen izkinan, eta zenbait banketxe-sukurtsal berri. **Iban Zaldúa**

Karrika hits hartan bada ispilu **saltoki** bat. **Jose Angel Irigaray**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eroski saltoki (3); **nafarroako saltoki** (3); **saltoki berri** (5); **saltoki gune** (3); **saltoki handi** (13); **saltoki handia** (3); **saltoki handiak**(10); **saltoki handiei** (3); **saltoki handiek** (12); **saltoki handien**(19); **saltoki handietako** (6); **saltoki handietako salmentak** (3); **saltoki handietan** (10); **saltoki txikiak** (4); **saltoki txikiei** (4); **saltoki txikien** (5)

saltokiak itxita (5)

saltokietako langileak (3)

saltokiko jabea (3)

saltokitxo iz saltoki txikia.

Alferrik bilatu zuen, alabaina, herriko denda eta **saltokitxo** guztietan. **Bego Montorio**

saltotxo 1 iz salto txikia.

Ahalik eta gehien inguratu ontzirekuraino eta **saltotxo** bat egin zuen gabarrara sartzeko. **Joxemari Iturralde**

Saltotxoak egiten ditu aurreko gizonaren inguruan, bestea poliki eta dorpe mugitzen den bitartean. **Koldo Biguri**

Hirugarren aldiz abiatu zen zaharregina, **saltotxoak** eginez. **Josu Zabaleta**

2 irud/hed

Egin dezagun mende eta erdiko **saltotxoak** eta har dezagun E.T.A. Hoffmannen Hareetako gizona, siniestrotasunari ateak erabat zabaldu zizkion testu aitzindaria. **Anjel Lertxundi**

saltotxoka adlag salto txikiak eginaz.

Orduan, txapeldun federala **saltotxoka** hasi da, ustekabeen harrapatzeko. **Koldo Biguri**

Gero jiraka hasi zen galaiki, **saltotxoka**, modu harrigarri batean higituz. **Josu Zabaleta**

saltsa¹ (orobat salsa g.er.) 1 iz janari batzuk gozatzeko maneaten den nahastura, uretan, oliotan, esnetan edo kidekoetan desegiten diren zenbait gai koipetsu eta urrintsuz osatua.

Potagea, berdura, haragia **saltsan**, gazta eta fruta. **Edorta Agirre**

Saltsa egiteko kazolan jartzen zituen olio eta tipula txiki-txiki eginda, gero azenarioa ere bai, txiki-txiki eginda, [...]. **Pako Aristi**

Léa gogotik ari zitzaion sardexkaz eragin eta eragin, **saltsa** ondo nahasteko. azkenean, egin samartu zen garaian, pipermina lehendabizi, eta ogirina gero, **saltsa** loditzeko. **Jon Muñoz**

Saltsak, saiheskiak boilurrekin eta bestelako jaki gozoak prestatzen. **Jose Morales**

Hiru ordu laurden edukitzen zuen **saltsa** egiten pilpilean. **Pako Aristi**

Ahabetz garrantziz egindako **saltsa**. **Iñaki Mendiguren**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Osagai hobezinekin osaturiko pil-pil, **saltsa** berde, bizkaitar edo beltza -txipiroiena- erantsiko diogu. **Edorta Agirre**

Saltsa arrosarekin prestatzen dituzte sukaldean, oso goxoak dira. **Bernardo Atxaga**

Cocktailarena bezalako itsas aintzira baten pareko kolore berde bera zuen **saltsa** mehe, min eta fresko batean. **Jon Muñoz**

Maionesa, **saltsa** konplikatuak eta pastelak ez zitzaizkion batera gustatzen. **Joseba Urteaga**

Chopsuey-k eta **saltsa** txinatarrak isuritako usaina nabaria zen. **Lopez de Arana**

Sukaldaritzaren txinatarraren bezala, **saltsa** gozo-garratza osatzeko. **Berria - Kultura**

Kontua da, Patri, Ezpeletako piperra ez dela egokiena bizkaitar **saltsa** egiteko. **Hasier Etxeberria**

Saltsa bizkaitarrean beratutako patata eta itsaskien salda apartua. **Edorta Agirre**

Mango Sorbetea Marrubizko **Saltsa** Epelarekin Gero patatak zuri-tzera etor zaitezke eta entsaladarako **saltsa** egitera. **Jon Alonso**

3 (hitz elkartuetan, bigarren osagai gisa)

Jan artean ustel ez daitezzen (tomate **saltsa**, izozki industrialak), mikroorganismoei lehia irabaz diezaiegun. **Edorta Agirre**

Zorterik ez baduzu, pote batean luzokerrak eta mustarda **saltsa** pixka bat besterik ez dator. **Josu Zabaleta**

Mary Janeren ideia izan zen hori, eta antzararentzako sagar-**saltsa** ere iradoki zuen. **Irene Aldasoro**

Labean apur bat xigortu baizik ez dituela egin, gainetik tipula eta txokolata **saltsa** batez estaliz. **Hasier Etxeberria**

Zikiri **saltsa** "keztatuak" kozinatuzko, ardiak premiazko baino, hornigailu bilakatuak ziren. arroz koilarakada bat haragi-saltsan, eta kalabaza-xerra bat. **Itxaro Borda**

Bi ordu geroago, postrea irabazia genuen: soingaineko-botoi bat... intxaur-**saltsan**. **Xabier Olarra**

Dendatik ekarritako baratxuri-olio erreka edo txipiroi-**saltsa** beltza gaineratuko dio. **Edorta Agirre**

-Tomate-**saltsa** botila bat beira xehatuzko uhinen gainean zabukutzen zen, batetik bestera. **Lopez de Arana**

4 irud/hed

Beste **saltsa** bat mintzen ari dena, Europa batuaren lege nagusiarena...Esan behar dut gogoko izan nuela Harry, Tomi atsegin emateagatik eta haren fantasia gauzagaiztaren **saltsa** loditzen aritzeagatik. **Herria**

5 nahaste-borrastea.

Boto zenbaketan dagoen **saltsa** ez da makala, eta hori Bushen garaipen garbiaren aurka doa. **Berria - Mundua**

Gero etorri ziren **saltsak**. **Xabier Etxabe**

Berehala zetozen azterketak, eta gero selektibitatea, eta **saltsa** hura guztia baino lehen egin behar genuen gurea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Jendea segur da **saltsa** guzi hori **saltsa** bat baizik ez dela, ez dela larria oinarrian. **Berria - Harian**

Saltsa eta tirabiretan abiatua nintzen neure nagusi eta lankideekin. **Aingeru Epaltza**

Dena den, **saltsa** hartan putakumerik handiena puten mundutik at zegoen, zalantzarik gabe. **Migel Angel Mintegi**

Hauxe da **saltsa** sortu dudana! **Koro Navarro**

Saltsan sarturiko bat, noski, zuzenean edo zeharka baina **saltsako** bat. **Migel Angel Mintegi**

Dena zen posible **saltsa** hartan. **Migel Angel Mintegi**

-Ez, nik ez dut neure burua **saltsa** horretan nahastuta ikusi nahi. **Migel Angel Mintegi**

Ohi dudanez, damutzen hasia nintzen **saltsa** horretan sartu izanaz. **Aingeru Epaltza**

Hizkuntza aitzakia izaten delako hortik kanpo dauden **saltsak** konpontzeko. **Berria - Euskal Herria**

-Hainbat hobe, nahiago baitu emakumeen **saltsetan** sudurra sartzea diru kontu zikinetan baino. **Migel Angel Mintegi**

6 (izenondo eta izenlagunekin)

Hau kaka-nahastea, **saltsa** handian sartzen ari naiz. **Karlos Zabala**

Ondo asko zekien **saltsa** gaizto batean ari zela nahasten. **Koro Navarro**

Gogorik eta grinarik gabe bizi nuen **saltsa** politikoa guztia. **Juan Luis Zabala**

Gisa guziz, hortarat joan gabe ere bada jadanik **saltsa** bat ederra...! **Herria**

Detektibe lizentzia atera zuenetik **saltsa** lodi batean sudurra sartzeko aukera aurkezten zitzaion lehenbiziko aukera zen. **Migel Angel Mintegi**

Emakumea, egunen batean **saltsa** ederrean sartuko zaitu zeure aho handi horrek! **Aingeru Epaltza**

Jendetan ez da makurrik izan bainan kasik egun erdi bat osoa ikaragarriko **saltsa**! **Herria**

Saltsa harrigarria, kasik ezin sinetsia, bainan nun den egia finkatzen ahalko ote dute azkenean Paueko juje horiek? **Herria**

Handik gutxira hasten zen egiazko **saltsa**, zereko zera zertzeko ordua. **Xabier Mendiguren Elizegi**

7 (hitz elkartuetan)

Hizkuntza-**saltsa** guztietan atondu zuten Tales. **Jon Muñoz**

Famili **saltsa** hauek gainera. **Txillardegi**

8 **saltsa-maltsa** adkor saltsa.

Geroztik nik ahal dakit zenbat elkarte, erakunde eta enparauetako **saltsa-maltsatan** sartuta ibili naizen: idazleena dela, bertsozaleena, Egunkaria Sortzen... **Joxerra Garzia**

Leihatilaren beste aldean begira izango duzu, **saltsa-maltsa** hori guztia zer den ezin asmatutik. Gogoko zuen **saltsa-maltsatan** ibiltzea, Kenen emaztearekin eta lagun pila batekin jo zuen larrua, eta Gordonen seme zaharrarekin, eta baita jeneralarekin ere. **Xabier Olarra**

Okerreko **saltsa-maltsatarako** bidea eman dezakete deskuido santuan beste esku batzuetan eroriz gero. **Juan Garzia**

9 **saltsa mehe** egin etekinik ez atera.

Orain bai hasi garela **saltsa mehe egiten**. **Oskar Arana**

10 **saltsa-miatzaile** izond ik saltsero.

Ez pentsa batere erraza denik ezkutatu **saltsa-miatzaile** batzuen erdigune lotsagabea izatea. **Josu Zabaleta**

11 **saltsa-ontzi** (orobat **saltsontzi**) saltsaren ontzia.

Kikara eta **saltsa-ontzi** bana bota ditu lurrera. **Xabier Paya**

Dusselek, mahaian gaudenean, **saltsa ontziaren** laurdena beretzat hartu eta gainerakoak, besterik gabe, batere saltsarik gabe uzten gaituenean, jateko gogoa joan egiten zait. **Josu Zabaleta**

Koronel batek ezpata biluziaren puntan luzatu zion **saltsontzi** bat dama bati. **Jose Morales**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

a zer **saltsa** (3); axurki **saltsa** (4); bada **saltsa** (5); beste **saltsa** bat (3); gaitzeko **saltsa** (3); hauxe da **saltsa** (3)

saltsa bat ederra (11); **saltsa** ederra (8); **saltsa** ederrean (5); **saltsa** gaitza (6); **saltsa** gogorra (9); **saltsa** gogorra izan (4); **saltsa** guztietan (4); **saltsa** handia (3); **saltsa** horretan sartuak (3); **saltsa** izan (3); **saltsa** izigarria (3); **saltsa** maltsa (5); **saltsa** pixka (6); **saltsa** pixka bat (5); **saltsa** sortu (4)

tomate **saltsa** (4); zer **saltsa** (6)

saltsaren erdian (4)

saltsatan sartu (3); saltsatan sartuta (3); zer saltsatan (3)

halako saltsetan (3); horrelako saltsetan (3); saltsetan sartzeko (3)

saltsa² ik salsa¹.

saltsaberritu, saltsaberri, saltsaberritzen du *ad adkor*

Libururik **saltsaberritzen** ez badu, ezin du pentsatu. **Patziku Perurena**

saltsaki *iz* saltsa duen jakia.

Elizaren ondoko plazan, hamabost bikote arizan dira zoin-gehiagoka, zoinek prestatuko zuen hobekienik axoa deitzen den aratxeki **saltsakia**. **Herria**

Sukaldaritza lehiaketan, nor prestatuko duen gixadu hoberena (gixadua aratxe **saltsaki** bat izanki). **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrain **saltsaki** (6); arrain **saltsaki** prestatzaileen (3)

arrain saltsakiaren kofradiak (3)

saltsatxo *iz* adkor saltsa.

Egin ezazu bizkor **saltsatxo** bat esnegainaz eta ketchupaz. **Eskarne Mujika**

saltsear, saltsea, saltseaten du ad lardaskatu.

Arratsaldeetan kalera irteten gara, liburutegira joaten gara, interneten **saltseatzera**, edo osteratxoa egitera, besterik gabe. **Berria - Kirola**

saltsero 1 izond saltsetan sartzea atsegin duena. ik **saltsa**¹ 10.

Manu gogoratuko da hobeto; azken batean, bera da koadrilako **saltseroa**, jatetxeak aukeratzeaz eta telefono-deiak egiteaz arduratzen dena. **Iban Zaldúa**

Baina, hasi banintzen hasi, "nahastaile", "**saltsero**", "endredadore" tatxa guztiak aurpegitatu zizkidaten. **Pello Zabala**

Jendeak oro har ez du jakingo nola prestatu elikagaiak, [...] eta Mendebaldeko kontsumismoak eta ongizateak eramango du eginkizun hori baztertera: "sutondoko **saltsero**" edo filateliko izatea antzekoak izango dira, zaletasun kontu arkaiko samarrak, alegia. **Edorta Agirre**

Falta zela afera hortako hobendun handiena, **saltsero** atrebituena, Alfred Sirven, duela lau urte desagertua. **Herria**

Hizkuntzalari, doktore, jakintsu, matematikari eta enigmazale ugari ibili dira eskuizkribuaren ezkutukoak argitu nahiz azkeneko ehun urte hauetan, eta horiekin batera, **saltsero**, berritsu, pseudojakile eta parazientzialari ugari. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

2 martin saltsero ik martin 2.

saltsontzi ik **saltsa**¹ 11.

saltu ik **salto**.

saltxitxa 1 iz hestebete mehea, txerrikiz egina eta ondu gabea, erreta edo egosita jaten dena.

Moutonek sudurraren azpian zeukan oraindik **saltxitxak** egiteko haragiaren azpila. **Karlos Zabala**

Saltxitxen haragi gordina dastatzen zuten elkarrekin, mingain puntaz, ea behar bezala maneaturik zegoen ikusteko. **Karlos Zabala**

Txerriaren **saltxitxa** eman zion jateko. **Anton Garikano**

Eser hadi eta jan ezan **saltxitxa** bat. **Eskarne Mujika**

Harryk **saltxitxak** eta tomate frijituak hartu zituen. **Iñaki Mendiguren**

Lan egiten zuen zerrategitik etxeratu, gosaltzeko **saltxitxa** batzuk hozkailutik hartu, eta Four Rouses botila bat zabaldu zuen. **Koro Navarro**

2 (izenondoekin)

Orein okelaz egindako **saltxitxa** gorri-gorri batzuk. **Felipe Juaristi**

Barra bateko kakoetatik behera, lukainak, saltxitxiak, okelaz eta muinez egindako **saltxitxa** motzak dilindan ezarriak zeuden, eran-eran. **Karlos Zabala**

Jangela **saltxitxa** frijituaren usain gozoaz eta jendearen berriketa alaiaz betea zegoen. **Iñaki Mendiguren**

Itsusiak ere badira amerikano horiek, horratik, hemengo gizakien aldean: horien **saltxitxa** egosi tankerako larmintz gorrixka, okaztagarria. **Joxe Austin Arrieta**

Sei **saltxitxa** koipetsu eta kiskali samarrak. **Iñaki Mendiguren**

Begira-begira gelditu nintzaien sauerkraut eta patata-pureaz lagunduriko **saltxitxa** lodi haiei. **Alberto Ladron Arana**

Kalitatezko elikagairik ez, goizeko ordu txikietan hor galdu denak **saltxitxa** plastifikatua aski du eta. **Edorta Agirre**

Jarraian, azpil larriak ageri ziren: Strasbourgeko mingain bilduak, gorriak eta dirdirka, odoletan, **saltxitxa** zurbilen eta txerri hanken alboan. **Karlos Zabala**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eskuak dar-dar zituela **saltxitxa** -erretilua hartu zuen. **Iñaki Mendiguren**

Zerbitzariak **saltxitxa** -platerak ekartzen ditu. **Eskarne Mujika**

Saltxitxa -ogitarteko bat prestatu zuen sukaldean. Ore bihurtzen hasitako **saltxitxa** -haragia biltzeko. **Josetxo Azkona**

Saltxitxa gaia polikiago nahasten hasi zen. **Karlos Zabala**

Saltxitxa zatiak, gibel pate xerrak, urdai azal paketeak ateratzen zituen bularretik. **Karlos Zabala**

Rudolfek **saltxitxa** puska irentsi, garagardoari hurrupa bat eman eta burua Bavariako aterantz itzuli zuen. **Alberto Ladron Arana**

Kobrezko ontzia ura berotzeko, **saltxitxa** -pakete zanpatu samar bat, su-pala, te-ontzia. **Iñaki Mendiguren**

Agure zarpail bat eta **saltxitxa** itxurako txakurreme txiki bat ikusi nituen. **Jon Arretxe**

ik beherago 5. **Askoren artean**

Artega, bere atzamar **saltxitxa** -itxurakoez idazmahaiaren ertzaren kontra kolpe txikiak ematen ari zen. **Lopez de Arana**

- Marcel Martinen erru bakarra **saltxitxa** saltzaile itxura zuen alsaziarrunt harekin oheratzea izan omen zen. **Ramon Saizarbitoria**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Benetan ote ziren saltxitxa haiek -ketchupez eta ziapez ongi igurtziak irensten zituzten haiek- txerri-**saltxitxak**? **Karlos Linazasoro**

5 saltxitxa-txakurra.

Saltxitxa horietakoa, gorputz luzea eta ia zangorik ez dutenak. **Gotzon Garate**

Orduan etxeko txakurrak agertu ziren, bata arratoi txakurra eta bestea *dachshund*, **saltxitxa** horietakoa. **Gotzon Garate**

Bazituen bere mende beste hiru zakur bera baino ahulagoak: Pittin (**saltxitxa** horietako bat), [...]. **Gotzon Garate**

6 saltxitxa-jale iz

Eta okerrera, Del Valle Müller eta SDko bere **saltxitxa** -jaleen zakarkeriak pairatu behar izan zituen infernu hartan. **Alberto Ladron Arana**

Hansi eta haren manupeko **saltxitxa** -jaleei. **Alberto Ladron Arana**

7 saltxitxa-txakur (corpusean saltxitxa zakurra)

Saltxitxa zakurra. **Gotzon Garate**

saltxitxoi 1 iz gordinik jaten den hestebetea, txerrikiz, urdai giharrez eta piperbeltz alez ondua, gordinik jaten dena.

Goi-goian, barra bateko kakoetatik behera, lukainak, **saltxitxoiak**, okelaz eta muinez egindako saltxitxa motzak dilindan ezarriak zeuden. **Karlos Zabala**

Quenuk, Augusteren eta Léonen laguntzaz, **saltxitxoiak** betetzen zituen eta saiheski urdaia, hirugiharra eta betegarrietarako xingarra prestatzen, urdaiazpikoak atontzen zituen eta txerri gantza urtzen. **Karlos Zabala**

Batzuetan honako gauzak esaten baitzizkion Quenuri, **saltxitxoiak** lotzen zituen bitartean: [...]. **Karlos Zabala**

Estu-estu **saltxitxoiak** bezala sartuta. **Pello Lizarralde**

Saltxitxoiak bezala estutzen din andrazko horrek gerria... **Karlos Zabala**

Noiz edo noiz izebak gordean gonbidatzen zuen langilea **saltxitxoi** pixka bat edo kapoi egosia jatera edo ardoa edatera. **Pello Lizarralde**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lisa ganibet mehe bat hartu eta **saltxitxoi** xerrak ebakitzen ari zen. Karlos Zabala
Bi **saltxitxoi** zerra gure afarirako. Pello Lizarralde
Mutil koskor mehe bat zen, itxura gozokoa, ahaztutako **saltxitxoi** zatiak eta urdaiazpiko muturrak lapurten zituen. Karlos Zabala
Masail guriko kupido txiki batzuk ageri ziren jolasean, animali buruak, txerri saiheskiak, **saltxitxoi** girlandak inguruan zituztela. Karlos Zabala
Horretan hasi nintzen pentsaketan, **saltxitxoi** bokata jaten ari nintzela Jesus Mari Mendizabal

3 adkor zakila.

Kondoian bilduta, gainera, askarian jateko moduko **saltxitxola** zirudien. Aitor Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

saltxitxoi xerrak (3)

saltzaile *(orobat saltzaile g.er., satzalle g.er. eta salzale g.er.)* 1 iz zerbait saltzen duen pertsona.

Saltzaileak beren saltokiak atontzen ari dira, bi asto eta ohol bat, plazaren leku estrategikoenetan. Anjel Lertxundi
Saltzaileak ez du bere salgaia berreskuratuko. Elizen arteko biblia
Enpresaren funtzionamendua bermatzeko, bera eta **saltzaile** bat nahikoa zirela erabaki zuen. Bego Montorio
Aita **saltzailea** zen, amak denda lan egiten zuen, eta ni bakarrik geratzen nintzen etxean. Joseba Sarrionandia
Lanbidez **saltzaile** edo erosle dena erraz da ezagutzen. Juan Garzia
Eroslearen eta **saltzailearen** arteko tirabirak konpondu behar ditu. Karlos Zabala
Saltzaileak galdegina zion besteari zein zen erosi nahi zuen ametsa. Felipe Juaristi
Bi **saltzaile** mokoka ari ziren eta haiengana oldartu zen, borroka eragozteko. Karlos Zabala
Dendei zuzenean saltzen dieten **saltzaile** horietakoa izanen zara. Alberto Ladron Arana
Aitari irudituz zitzaion ziria sartu ziotela, eta **saltzailearen** kontra oihu egin zuen: [...]. Juan Kruz Igerabide
Baldin eta ezin bazen bat bera baztertu, zerk eragozten zion hirurogei urteko bizitza-aseguruen **saltzaile** ohi bati haien arteko lerroetara sartzea? Oskar Arana
Kartzelara hezitzaileak eta liburu eta argazki pornografikoen **saltzaileak**! Fernando Rey
Zure paperekin musika-diskoak **saltzaile** gisa aurkezten zaituzte. Alberto Ladron Arana
Arrazoi berberetatik, Estatuak irabazi egiten du **saltzaile** gisa. Iñaki Iñurrieta
Saltzaileak freskagarri-postuen marmolezko salmahaiak garbitzen ari ziren. Lopez de Arana
Chicagon hasi zen, Marshall Field's-en lurrinen sailean **saltzaile**. Oskar Arana

2 (izenondoeekin)

Handik egun gutxitara **saltzaile** ibiltariaren faktura jaso zuenean gutxi falta izan zuen bihotzekoa izateko. Bego Montorio
Mahaian hiru **saltzaile** bidaiari zeuden. Josu Zabaleta
Hauek autentikoak dira, [...] Cohibas marka banatzen duen **saltzaile** ofizialak ekarriak. Jon Alonso
Oro burgesak ziren; notario, abokatu, edo **saltzaile** aberatsak ziren. Elena Touyarou
Arteztu egin zen bezeroa sartzen ikustean, eta **saltzaile** ernearen ohiko irribarrearekin hartu zuen. Patxi Zubizarreta
Saltzaile horiek denak ikastaro berbera eginda zeudekeela, ikastaro estatubatuarra, ausaz, zeinean beraiek bezalako beste **saltzaile** gorbatadun irribarretsu batek, Ameriketatik etorriak, jakina, azalduko baitziren, Texasko azenturik onenarekin, jada ez duela balio garai batean bezala saltzeak, **saltzaile** erasokorren garaiak joan direla. Jon Alonso
Bera frantsesa zela, oihal-**saltzaile** frantsesa. J.M. Olaizola "Txiliku"
Saltzaile aditu eta amultsuaren moduek gidatzen zuten bere jokabidea. **Saltzaile** berantiarrenek ere beren liburu-txosna hamaiketarako zabaltzen zutela. Jon Alonso
Denda bateko **saltzaile** xumea. Patxi Zubizarreta
Arrain **saltzaile** zaharra, eserleku baten gainean makurturik, mendekuaren fintasunaz gozatzen ari zen. Karlos Zabala
Haren eskua eskuin-ekzer mugitzen zen, **saltzaile** andre guztiak batera seinalatuz. Karlos Zabala

3 (izenlagunekin)

Txinatarrek nahi izan zutelarik merkataritza hori geldiarazi, europar **saltzaileak** '-dealerrak'- kanporatu zituzten. Ramuntxo Etxeberri
Tximino handi bat erosi omen zien feniziar **saltzaile** batzuei. Josu Zabaleta
Goizean goiz jaikitzen zen, sapelarra, artatxiki adarrak, txori opilak erosten zizkien handizkako **saltzaileei**. Karlos Zabala
Auzoetako azoketarentz zihozten handizkako **saltzaileak** jotako zartailu kolpeak entzuten ziren. Karlos Zabala
Rambuteau eta Pont Neuf kaleen espaloiak ere gustuko zituen, fruituen pabiloen kantoia bereziki, txikizkako **saltzaileak** jartzen ziren tokia. Karlos Zabala
Ohiko **saltzailea** medikuarenera joanik zen goiz horretan, eta hura dendara itzuli artean haren lekua betetzeko eskatu zion Harry-k Tomi. Oskar Arana
Hor baziren tokiko **saltzaileak** eta ere kanpokoak. Herria
Lehendik ikusita nuen kaleko **saltzaile** bati bi domina erosi nizkion, lau liberatan. Jon Maia
Kalez kaleko **saltzaile** bati erosi zion liburu bateko istorio bat kontatzen. Koro Navarro

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zure **saltzaile** baimenean enpresaren izena ageri da... Alberto Ladron Arana
Saltzaile lana aurkitu zuen Mila eta Bat Orrin. Jon Muñoz
Saltzaile lanetan ibili zen lehen urtean bertan Urteko Saltzailearen saria eman zioten. Bego Montorio
Atez ateko **saltzaile** aurpegia jartzen saiatuko da. Iban Zaldúa

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gabriel Irisarri ikusiaz zituen edari-**saltzaileak**, ron barne-pizgarri **saltzaileak** batez ere, eta gozoki-**saltzaileak**, jende artekin oihuka. Felipe Juaristi
Baziren zapata-**saltzaile** poloniarrek, maskor-**saltzaile** turkiarrak eta perla-**saltzaile** errumaniarrak. Felipe Juaristi
Kaleko tabako-**saltzailearen** paretetik pasatzean beronek keinua egin dit Hussein seinalatuz. Jon Arretxe
Gure borondateari entzungor eginez, prostituta, txulo eta droga **saltzaileak** periferiako auzoak gugana ekartzen dituzte ilunabarrean. Harkaitz Cano
-Bunny Kaiser da, Glendaleko altzari-**saltzaile** nagusia. Xabier Olarra
Beste zeregin hoberik ez duen aseguru-**saltzaile** erretiratua baino ez naiz. Oskar Arana
Ez zuen onik izan, lore **saltzaile** haietako batekin lanean hasi zen arte. Karlos Zabala
Inprimatzea sortu zen garaian liburu-**saltzaile** izatea! Jon Muñoz
Zirtzil-**saltzaile** hura bilatuko bagenu... Anjel Lertxundi
Goiz batean, merkatu nagusian, liskar izugarria piztu zen Roseren eta arrain **saltzaile** baten artean. Karlos Zabala
Gaztanbera Cossonnerie kaleko andre fruitu **saltzaile** baten oparia zen. Karlos Zabala
-Amets **saltzailearen** ipuinaz ari al zara? Felipe Juaristi

6 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Ibrahim kanpa-denda **saltzaileak** bezala, ikasketak egitera Nichapurera bidali zuen hark ere bere semea. Jon Muñoz

Marcel Martinen erru bakarra saltxitza **saltzaile** itxura zuen alsiarri xarekin oheratzea izan omen zen. **Ramon Saizarbitoria**

7 (izenondo gisa)

Denda osoan barrena ibili zen emakume **saltzailearen** bila. **Jon Muñoz**

Neska **saltzailearen** deskribapena egin zion Perrettek. **Jon Muñoz**

OL ez zen saltoki handi bat, eta bera ez zen azpiko jantzien saileko neska **saltzaile** pinpirin bat. **Jon Muñoz**

Beharginak entzuten ziren biraoka, mutil **saltzaileak** [...] beren letania zolia deiadarka. **Irene Aldasoro**

Ez nuen lankide **saltzaileak** ikusteko gogorik izaten, itxura gaiztoa zuten, besterik ez esatearren. **Joxan Elozegi**

8 saldukeria egiten duena. ik **traidore**.

Saltzaileak seinale hau jarria zien: "Nik musu emango diodana, horixe da; atxilotu eta eraman arduraz". **Elizen arteko biblia**

Norbaitek bestela egiten badu, Judas **saltzaile** bilakatzen da eta Jaunaren gorputz-odolekiko errudun bihurtzen. **Askoren artean**

Judas **saltzaileak**, Jesus kondenatua zutela ikustean, damu izan zuen eta zilarrezko hogeita hamar txanponak apaizburu eta herriko zaharrei itzuli zizkien. **Elizen arteko biblia**

Judas Santiagorena eta Judas Iskariote -Jesusen **saltzaile** gertatu zena-. **Elizen arteko biblia**

9 *kale-saltzaile* ik **kale 23**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arma saltzaile (3); **arrain saltzaile** (11); **aseguru saltzaile** (4); **barazki saltzaile** (6); **droga saltzaile** (4); **egunkari saltzaile** (4); **esne saltzaile** (3); **handizkako saltzaile** (5); **hegazti saltzaile** (3); **kale saltzaile** (4); **kaleko saltzaile** (5); **kaleko saltzaile bati** (3); **krispeta saltzaile** (4); **liburu saltzaile** (13); **liburu saltzaile baten** (3); **lore saltzaile** (5); **neska saltzaile** (3); **oihal saltzaile** (7); **periodiko saltzaile** (3)

saltzaile andre (3); **saltzaile baten dendan** (3); **saltzaile ederra** (4); **saltzaile ederrak** (5); **saltzaile eta erosle** (3); **saltzaile gazteak** (4); **saltzaile gisa** (8); **saltzaile ibiltari** (8); **saltzaile lanetan** (4); **saltzaile ohi** (3); **saltzaile txikiak** (3)

tabako saltzaile (5); **urdai saltzaile** (10); **urdai saltzaile ederra** (3); **urdai saltzaile ederrak** (4)

arrain saltzailea (11); **bakailao saltzailea** (3); **esne saltzailea** (4); **gurin saltzailea** (3); **hegazti saltzailea** (7); **ikatz saltzailea** (3); **liburu saltzailea** (11); **saltzailea izan** (7); **saltzailea izan zen** (3); **tabako saltzailea** (3); **urdai saltzailea** (9)

arrain saltzaileak (20); **arropa saltzaileak** (3); **barazki saltzaileak** (3); **droga saltzaileak** (3); **egunkari saltzaileak** (6); **entziklopedia saltzaileak** (13); **esan zuen saltzaileak** (6); **gurin saltzaileak** (7); **hegazti saltzaileak** (8); **ikatz saltzaileak** (6); **liburu saltzaileak** (11); **lore saltzaileak** (5)

saltzaileak dira (4); **saltzaileak erantzun** (3)

sardina saltzaileak (3); **tabako saltzaileak** (7); **txikizkako saltzaileak** (3); **urdai saltzaileak** (13)

entziklopedia saltzailearen (6); **liburu saltzailearen** (5); **lore saltzailearen** (3); **neska saltzailearen** (3); **saltzailearen jarrera** (3); **tabako saltzailearen** (6)

liburu saltzaileari (3)

arrain saltzaileek (7); **droga saltzaileek** (3); **liburu saltzaileek** (9); **tabako saltzaileek** (5)

arrain saltzaileen (7); **gipuzkoako liburu saltzaileen** (5); **liburu saltzaileen** (13); **liburu saltzaileen elkarteko** (4); **saltzaileen elkartek** (3); **saltzaileen elkarteko** (4)

tabako saltzaileak (3)

saltzaileño (*corpusean saltzaileño soilik*) iz *adkor* saltzailea.

Maiatzean sartuak bainan aroa kasik otsailekoa, horra zer zion, irriño bat ezpainetan halere, maiatz-lore **saltzaileño** batek... **Herria**

saltzaile ik **saltzaile**.

saltzale ik **saltzaile**.

saltzaleño ik **saltzaileño**.

saltzalle ik **saltzaile**.

saltzapen iz saltzea.

Lantegi multinazionalen atarriak, etxe-**saltzapen** agentziak, zergategiak eta jendarmeriak. **Itxaro Borda**

Holandarako **saltzapen** horrekin oharitu gira Europan gaindi zerriki jale handiak direla, Belgikan, Holandan eta Alemanian. **Herria**

Nuna [Xinak] akorkio bat sinatu duela Europearrekin, bere **saltzapenak** ttipituko dituela ehuneko 12,5 ez. **Herria**

saltze 1 iz norbaiti zerbait ematea diru kopuru baten truke.

Saltze horrek arrakasta handia zuen, baitezpadakoa baitzen etxeetan ikatzaren ukaitea. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Bisitatzen ahalgo dira horgo biziguneak, lantokiak eta ere **saltzeen** gela. **Herria**

Bere **saltzeen** % 60a segurtatuko diote lantegi horiek. **Herria**

Ezagutu dugu bestaldea Donibaneko oihal saltzaile bat, Auritze eta Aezkoako jende anitzi, "Montañesa" autobusan etorriak, **saltze** onak egiten zizkiena astelehenetan.

Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bertze **saltze** handi zenbaiten mentura ere badela, hala nola aipatzen den Antoneneko eremuak, Euskal Herriko pottokaren eremu famatu horiek. **Herria**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Badute aipaldi barnekaldeko lur **saltze** horiek. **Herria**

Bixkotx **saltze** bat eginen da ere plazan. **Herria**

Igandean, puska **saltze** handi bat antolatzen dute egun osoan. **Herria**

Trebeak izan baitziren nola hidraulika kontutan hala ehunki lantze eta **saltze** kontutan. **Patziku Perurena**

Kapital **saltze** batekin. **Berria - Ekonomia**

Han bazegoen, mutil gisa, frantses bat José Pellou, eta honekin biziki aise zen aditzen gure Aguirre, bere haragi **saltzeetan**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bixkotx saltze (8); **bixkotxa saltze** (11); **bixkotxa saltze bat** (8); **lur saltze** (10); **saltze bat eginen** (4)

bixkotx saltzea (5)

saltzearren *adlag* saltzeko.

Ez zen eskerrak ematen ari ardiek larrean non eginik aurkitu zutelako, ezta beiraki gehiago **saltzearren** erreguka ere, ezta aurkitu zuen emakumea bere zain egon zedin eskatzen ere. **Xabier Aranburu**

saltzeke *adlag* saldu gabe.

Baziren artean lan batzuk **saltzeke**, baina sei hilabeteren edo urtebeteren buruan agorturik izango zen stocka. **Oskar Arana**

saludatu, saluda, saludatzen (*orobat saludatu*) du *ad* agur egin.

"Egunon!" **saludatu** zuen Taxik. **Pablo Sastre**

Aroztegi parean, Jone ikusi zuen: kokots-handia, dotore bere moduan, besapean karpeta zeramala, Tapax buru keinu eta irribarre batez **saludatu** zuen. **Pablo Sastre**

Eskuaz esnezalea **saludatu** zuen Aldaik. **Pablo Sastre**

Militar erara **saludatu** zuen. **Edorta Jimenez**

'Bai, hauxe bera!' erantzuten zuen, eta niri esan zidan: '**Saludatu** !'. **Joseba Sarrionandia**

salun ik **saloi** 5.

salutadore *iz* hurrenez hurreneko zazpi semeren saileko zazpigarrena, errabia-eta sendatzeko ahalmena omen zuen pertsona.

Zazpi seme segiduan baldin badira, zazpigarrena **salutadorea** da; zakur amorratuen kontrako birtutea arek du. Zakur amorratu batek koska egin ziola bere lehengusuari, eta "**salutadore**" esaten zitzaion petrikiloa etorri zela hura sendatzera. **Bernardo Atxaga**

Salutadoreak zaindu ondoren, lehengusu hura kantari egon omen zen hil arte. **Bernardo Atxaga**

Roch zen horietako bat, **salutadorearen** semea, gertuko koba-auzo batean bizi zena. **Josu Zabaleta**

salutantzia *iz* agurra, diosala.

Behartzen ere gintuen kortesiazko **salutantziaren** egiterat. **Joan Mari Irigoien**

Erreputa eztiak, hitz onak eta **salutantzia** arraiak. **Joan Mari Irigoien**

salutatu ik **saludatu**.

salvadortar *izlag/iz* Salvadorrekoa, Salvadorri dagokiona; Salbadorreko herritarra.

FMLNko idazkari nagusi Medardo Gonzalezek **salvadortarrentzat** aldaketa garaia iritsi zela nabarmendu zuen ostegunean, kanpainako azken egunean. **Berria - Mundua**

Lehenago vietnamdarren, **salvadortarren** eta hirugarren mundua delakoko herritarren balioaz mintzatu dira biak. **Berria - Harian**

salve ik **salbe**²; **salbe**³.

sama 1 *iz* lepoa.

Eskuak eta besoak garbitu ditu usain gozoko gel batez, baita musua eta **sama** ere. **Paddy Rekalde**

Ehun zurizko lepo almidoiztatua zeraman **samaren** jiran. **Karlos Zabala**

Laster eman dit pota **saman**, gosebera, bularrak itsatsiz nire aurka. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Gero toaila **saman** irten zen komunetik. **Joseba Sarrionandia**

Oso arrimaturik sentituko dituzu bere titiak zure paparraren kontra, bere gerria zure gerriaren kontra, bere izterrak zure zangoartean, bere amasa zure **saman**. **Joseba Sarrionandia**

Kapelua buruan, krabata **saman**, zulo bi aurrerago lotutako gerrikoa gilborrean. **Koldo Izagirre**

Labanak **saman** egindako zauriaren ondorioz odolustuta hil zen. **Berria - Harian**

-Akabatu egingo diat! -errepikatu zuen Joxanek, **samako** zaina hanpatuta. **Paddy Rekalde**

Joxanen eskuztarrak **samatik** oratu zion, atzera bultzaka. **Paddy Rekalde**

Sotana beltza oinetako beltzetatik **samaraino**. **Joseba Sarrionandia**

Go Rupert borobila dute eta **sama** luzea, bizkarraldea beltza eta paparraldea zuria, arrantzari miresgarriok. **Joseba Sarrionandia**

2 (animaliena eta gauzena)

Joan nintzen ni, heldu nion **samatik** geure zakurrari, eta bereizteko gauza izan nintzen. **Gotzon Garate**

Oso lantzean behin bakarrik, arrantzale txinoak, eraztuna **samatik** kendu eta ematen dio arrain puska txiki bat ubarroiari. **Joseba Sarrionandia**

Joxanek alkandoraren **samatik** gogor oratu eta, ia arrastaka, uretara doazen harrizko mailetara jaitsi du. **Paddy Rekalde**

Gabardinako **sama**-barrenera egiten zioten berba, aholku eske. **Edorta Jimenez**

Ontziaren piezak botilaren **sama** estutik sartu eta barruan pieza guztiak gakorratz luze batez eta itzelezko trebeziak antolatzen. **Joseba Sarrionandia**

samako *iz* lepokoa.

Sotana beltza oinetako beltzetatik samaraino, portzelanazkoa ematen zuen **samako** zuria. **Joseba Sarrionandia**

samalda 1 *iz* izaki biziduneko osaturiko taldea, handia bereziki. ik **aldra**; **saldo**¹. (pertsonak)

Intantzun hori, edo galdera hori, hobeto esanda, ergel **samarra** zen. [Josu Zabaleta](#)

Asto **samarra** izateaz harrotzen zen eta nabarmen txo jantzen zen. [Koro Navarro](#)

Handia eta zabala zen, eta ilun **samarra**. [Koro Navarro](#)

Anna Mari ilehoria zen, lodi **samarra**, ez horren altua ere. [Josu Zabaleta](#)

Baliteke bihurri **samarra** izatea nire arrazoibidea, baina zure bideak ere ez ziren zelai eta lau-lauak. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Ezagutzen ez dutenentzat ulertzen zail **samarra** denez, azalpen bat emango dut. [Josu Zabaleta](#)

Esanguratsu **samarrak** iruditu zaizkigu, hala ere, ikerketa erakunde multzo horren bi ezaugarri. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

Andre hura lizun **samarra** iruditzen zitzaidan mugimenduetan eta begiratuetan. [Pello Lizarralde](#)

Eskua erakutsi zigun, handitu **samarra** zeukan. [Bernardo Atxaga](#)

Bere trajea maiztu **samarra** zegoela konturatu nintzen. [Bernardo Atxaga](#)

Txolina eta malapartatu **samarra**. [Mirentxu Larrañaga](#)

2 (izen + izenondo multzoaren eskuinean)

Herri handi **samarra** zen, zortzi-hamar mila biztanle ingurukoa. [Josu Zabaleta](#)

Hurrengo piezak erritmo erraz **samarra** zuen, hizketari laguntzen ziona. [Bernardo Atxaga](#)

Eskerrak emateko era berezi **samarra** zuen, hori zen dena. [Harkaitz Cano](#)

Montanerrek halako segurtasun iraingarri **samar** batez hitz egiten zuen gauza guztiez. [Josu Zabaleta](#)

Hasieran egin nituen gastu handi **samar** haiek egin eta gero, ahaztu egin nintzen diruaz. komunista jator **samar** batzuk ere bagenituen tarteko. [Juan Kruz Igerabide](#)

Senar-emazte zahar **samar** batzuen etxean zegoen gordeta. [Rafa Egiguren](#)

Bien bitartean, erlijio esoteriko ergel **samar** batek mantendu zituen nolahlaka elkarturik. [Patziku Perurena](#)

Poltsa zahar **samar** baina zabal bat ere hartu nuen. [Antton Olano](#)

Erritmo bizi **samarrean** nabil poteoa egiten, ni bakarrik, eta dagoeneko "puntutxoa" hartuta daukat. [Jon Arretxe](#)

Gizon gaztearen logika zurrin **samarrekin**, Iraultzako tiporik handiena Sain Just izan zela sinestera iritsi zen. [Josu Zabaleta](#)

Kezka handiena ez zetorkion ingelesen bere maila baju **samarretik**, ezta hurrik eman ere. [Joxemari Iturralde](#)

Bi emakume makatu handi **samarrekin** jaso zituzten. [Koro Navarro](#)

Manolo Txoriburua eseri egin zen, susmo txar **samarrez**. [Josu Zabaleta](#)

Kolore deigarri **samarrez** jantzen zen, baina giro garbi eta argiz bete hartan ondo ematen zioten. [Josu Zabaleta](#)

Beti egoten da datu harrigarri **samarrik**. [Pello Zabala](#)

Trafiko handi **samarreko** errepidean makina bat ibilgailuk jo didate klaxona. [Jon Arretxe](#)

Gela guztiek zuten isiltasun-itxura bera, moro-tankera **samarrekoa**, argi estalizkoa. [Josu Zabaleta](#)

Ez halaber jauzi egitea, nahiz eta modu bitxi **samarrean** egiten ditudan biak. [Juan Kruz Igerabide](#)

3 (izenondoen kidekoekin)

Andresek begitan hartu **samarra** zuen Julio Aracil, baina gauza batzuetan bera baino gehixeago zela aitortzen zion. [Josu Zabaleta](#)

Cox laboraria adinean aurreratu **samarra** zen ordurako. [Mirentxu Larrañaga](#)

Esan berri dut zurrutaren gaitzetik osatu **samarra** zegoela aita. [Joan Mari Irigoien](#)

Beste anaiak buruan sartu **samarra** zeukan kontatu behar zidala nolakoak ziren emakumeak soinekoaren azpitik. [Pello Lizarralde](#)

4 (adizlagun baten eskuinean, eta hortaz, inongo markarik gabe, edota adizlagun batek har ditzakeen markak soilik hartzen dituela).

Izterra ere ongi **samar** neukan. [Txillardeggi](#)

Gainera, herr Öchlerrek estimua zidan ondo **samar** idazten omen nuelako. [Anjel Lertxundi](#)

Hizketan hasi zitzaidan, poliki **samar** hastean, bizkorrago gero. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Biak ere poliki **samar** mintzatzen ziren frantsesez. [Koldo Izagirre](#)

Pasarte batzuk errezitatzen hasi omen zen presaka **samar**. [Joxean Agirre](#)

Meatzeetako haitzean, beraz, bazen nikelik: gutxi **samar**; Marxismoari eta psikologiari buruzko liburu asko **samar** lapurtuak nituen. [Juan Garzia](#)

Pentsatu nuen emakumea bere senarra bezain xantua baldin bazen, hartuko zuen ustekabeokorekin goiz **samar** alde egingo zuela. [Xabier Olarra](#)

Ilunabar batean, berandu **samar** arte aritu nintzen aitaren garajejan, motor zahar haietako bat abian jartzeko probak egiten. [Juan Kruz Igerabide](#)

Aspaldi **samar** da Mr Worthing erretorearen etxerantz abiatu zela. [Antton Olano](#)

Ontzia uhartetik hurbil **samar** zihoala, sirenak konturatu egin ziren, eta kantuan hasi ziren. [Juan Kruz Igerabide](#)

Chelseako komisaldeggi nagusitik hurre **samar** zegoen garagardotegi handian bildu ginen hirurok. [Koldo Izagirre](#)

Öchler urruti **samar** bizi zen geunden tokitik eta metroa hartu behar zuen. [Anjel Lertxundi](#)

Gaur biharkoagatik eta bihar gaurkoagatik, aitak eta nik sarri **samar** izaten genituen sesioak. [Anjel Lertxundi](#)

Elkarrizketa klase horiek sarri **samar** erabili zituen bere lanegin guztian ideiak eta iritziak azaltzeko. [Josu Zabaleta](#)

Haurra linfatikoa eta katarroak aise **samar** harrapatzen zituena zenez, herrialde epel batera eramatea komeni zela iritzi zioten. [Josu Zabaleta](#)

Astiro **samar** igaro zen, bada, nire aurretik. [Anjel Lertxundi](#)

Ez dute polizia trazarik, baina aparte **samar** gelditu zara hala ere. [Rafa Egiguren](#)

Pianola baten musika mekanikoa entzuten zen hurbil **samar**. [Anjel Lertxundi](#)

Handik hurbil **samar** bi neska ari ziren, zaldun jantzian, zaldi bana eskuilazten. [Anjel Lertxundi](#)

Hala ere, Julian urduri **samar** zihoan hitzordura. [Pedro Alberdi](#)

Sarritan borrokan ibiltzen baitzen, ez hainbeste auzoan bertan, baizik eta urrun **samarreko** auzo zein herrietan. [Juan Kruz Igerabide](#)

5 (adizlagunen kidekoekin)

Esku bat eskuineko aldetik zintzilik, burua ezker aldera **samar** makurtua; lotan dagoen batena bezala... [Josu Zabaleta](#)

Artean fokoz kanpo **samar** zegoen, baina argi ageri zen absoluzio moduko bat nahi zuela nigandik. [Juan Garzia](#)

6 (adizlagun gisa ari den izenondo baten eskuinean)

Lizentziatu aurretik -azaldu nion harro **samar**-, hamalau eguneko ibilaldia egin nian mendirik mendi, hogeita hamar kilometro egunerok. Ibaia handi **samar** zetorrela jokatu zen dema haietako bat. [Bernardo Atxaga](#)

Txunditu eta kopetilun **samar** geratu zen bere porrota ikusita. [Josu Zabaleta](#)

Esan beharra zaukaat nire iritzian zeken **samar** jokatu duala, Fidel. [Antton Olano](#)

Camillak haurtxoari so egin ohi zion, geldo eta jostalari **samar**. [Mirentxu Larrañaga](#)

Deseroso **samar** sentitzen zen. [Iñaki Mendiguren](#)

Estu **samar** daukat. [Mirentxu Larrañaga](#)

Gutixi garestixkoa diruz urri **samar** bizi zen jende soilarentzako. [Patziku Perurena](#)

la mindu ninduen hitz horiez, eta halaxe esan nion bizi **samar**. [Josu Zabaleta](#)

Arin **samar** jantzia ibiltzen omen zen udan behinik behin etxe barruan zegoenean. [Joxean Agirre](#)

7 (adizlagun gisa ari den aditz era burutu baten eskuinean)

Bazituen hark ere orduak bi emazte ohi eta alaba hazi **samar** bat, Pamela. **Oskar Arana**

-Bai, bai, har ezazu -esan nion, aztoratu **samar**. **Migel Angel Mintegi**

Soil-soilik, damutu **samar** nago lehenago ez konturatua, hori baino ez. **Mirentxu Larrañaga**

Txunditu eta kopetilun **samar** geratu zen bere porrota ikusita. **Josu Zabaleta**

- Nahas-mahas eginda **samar** hago, Tommo. **Mirentxu Larrañaga**

8 **samarrera** (-ra atzikia berez hartzen duen hitzaren eta atzikiaren artean)

Esaten zuten haizeak uhin aparra kaleetan barru **samarrera** bultzaten zuela, batzuetan eliz ataria ere kresalaz igurtziz. **Pako Aristi**

Ibilian joan ginen urruti **samarrera**, zigarreta erreaz, hareatzen barrena, eta orduantxe aitortu nion paisaiak ez zaizkidala axola, eta hainbat gutxiago basamortukoak direnean. **Joxe Austin Arrieta**

9 **samarretik** (-tik atzikia berez hartzen duen hitzaren eta atzikiaren artean)

Juliette-k bihotzeko gorabehera larriak zituen aspaldi **samarretik**. **Josu Zabaleta**

Gorpuia urruti **samarretik** (arboladitilik nahiz beste edonondik) besoetan eraman ondoren, [...]. **Koro Navarro**

Hegazkinen bat goi **samarretik** igarotzen fortunatzea da ona honelakoetan. **Pello Zabala**

Atezainaren ondotik joango dira, urrun **samarretik** jarraituz, urduri eta galdu samar, ingurura begira. **Josu Zabaleta**

Une hartan tiro bat aditu zen, eta bala bat igaro zen gertu **samarretik** txistuka. **Koro Navarro**

Belaunak herdoilduak ukan ditut gazte **samarretik**. **Koldo Izagirre**

Beti egiten genion geure bisita putreak garbitutako aziendari, berta **samarretik** igarotzerakoan. **Patziku Perurena**

10 **samarrik** (-ik atzikia berez hartzen duen hitzaren eta atzikiaren artean)

Gisela liluratua zegoen, baita harritu **samarrik** ere nik ematen nizkion zenbait berri zirela-eta. **Fernando Rey**

Piak zabalik, izartuta eta busti **samarrik** zituen begiak. **Josu Zabaleta**

Niri gelako pertsianak ireki **samarrik** uztea eta Monikari erabat itxirik. **Joxean Agirre**

Isil **samarrik** pasatu da bere bisitaldia, katedratikoa izan arren maisu baita, batez ere, Carlos. **Joxerra Garzia**

Aizarnazabalen jao nintzen ni, Urola bailarako herririk gordeenean, eta gazte **samarrik** Tolosara ezkondu. **Juan Luis Zabala**

Vespa hamaika zati egina gelditu omen zen; bidaiariak, berriz, on **samarrik**, besoren bat eta saihtsen batzuk kalte. **Aingeru Epaltza**

Eginahalean esplikatu omen zioten, baina alfer **samarrik**. **Iñaki Seguro**

Guri ere erakutsi ziguten trantze jakin batzuetan eskerrik asko esaten (alfer **samarrik**, egia). **Iñaki Seguro**

Geroztik zerbeza askotxo edan dut tabernan bakar **samarrik**, eta zigarro mordo bat erre, pentsatuz hobe nuela mutikoskor dirugabea izateari sekula utzi ez banio. **Iñaki Seguro**

Hotzak edukiarazten zidan, halere, tente **samarrik**, saltxitxoi izoztu bat bezala. **Fernando Rey**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

ahul samar (9); **alai samar** (5); **aparte samar** (28); **aparte samar zegoen** (6); **argi samar** (8); **arin samar** (9); **arraro samar** (19); **artega samar** (6); **asko samar** (19); **aspaldi samar** (15); **azkar samar** (8); **baldar samar** (6); **barregarri samar** (7); **berandu samar** (43); **berandu samar heldu** (5); **berdin samar** (6); **bitxi samar** (8); **deseroso samar** (11)

eroso samar (5); **erraz samar** (5); **eskas samar** (6); **estu samar** (13); **fresko samar** (6); **gaizki samar** (5); **galdu samar** (5); **garbi samar** (7); **garesti samar** (5); **gertu samar** (7); **gogaitu samar** (5); **gogor samar** (10); **goibel samar** (9); **goiz samar** (20); **gutxi samar** (13); **handi samar** (42); **handi samar bat** (19); **harritu samar** (14); **harro samar** (10); **haserre samar** (25); **herren samar** (8); **hurbil samar** (22)

ilun samar (15); **justu samar** (14); **kezkatu samar** (7); **kritiko samar** (6); **larri samar** (13); **lasai samar** (10); **lauso samar** (8); **lotsati samar** (6); **lotsatu samar** (7); **luze samar** (21); **maiz samar** (11); **makal samar** (10); **merke samar** (6); **motz samar** (5); **nabarmen samar** (6); **nahasi samar** (9); **nekatu samar** (10); **ondo samar** (10)

ongi samar (5); **sarri samar** (17); **serio samar** (14); **trakets samar** (6); **triste samar** (12); **txiki samar** (5)

urduri samar (48); **urrun samar** (48); **urruti samar** (33); **zabal samar** (5); **zahar samar** (5); **zakar samar** (26); **zikin samar** (6); **zurbil samar** (6); **zurrun samar** (5)

ahul samarra (8); **alde handi samarra** (10); **altu samarra** (9); **antzeko samarra** (5); **apal samarra** (6); **argal samarra** (5); **arraro samarra** (30); **arraro samarra da** (6); **arrunt samarra** (8); **aspergarri samarra** (16); **astun samarra** (14); **aurreratu samarra** (5); **baldar samarra** (10); **barregarri samarra** (13); **berezi samarra** (14); **berri samarra** (12); **berri samarra da** (6); **bihurri samarra** (6); **bitxi samarra** (25)

ergel samarra (8); **ero samarra** (13); **erraz samarra** (8); **estu samarra** (8); **ezkor samarra** (6); **ezusteko handi samarra** (11); **gogaikarri samarra** (5); **gogor samarra** (16); **handi samarra** (171); **handi samarra da** (9); **handi samarra egin** (10); **handi samarra eman** (7); **handi samarra hartu** (11); **handi samarra izan** (15); **harrigarri samarra** (10); **harrigarri samarra da** (5); **harro samarra** (6); **hotz samarra** (6)

ilun samarra (13); **itsusi samarra** (5); **kolpe handi samarra** (15); **labur samarra** (7); **larri samarra** (6); **lotsati samarra** (5); **luze samarra** (34); **luze samarra da** (5); **motel samarra** (5); **nahasi samarra** (11); **nahasi samarra izan** (5)

on samarra (12); **serio samarra** (6); **surrealista samarra** (5); **triste samarra** (9); **txiki samarra** (19); **txiki samarra zen** (6); **txukun samarra** (5)

xelebre samarra (7); **zabal samarra** (6); **zahar samarra** (9); **zail samarra** (23); **zail samarra da** (9); **zakar samarra** (10); **zikin samarra** (6); **zuri samarra** (5)

arraro samarrak (5); **berezi samarrak** (6); **ergel samarrak** (5); **eutsi samarrak** (5); **handi samarrak** (25); **luze samarrak** (5); **txiki samarrak** (7)

handi samarrarekin (5)

luze samarrean (5)

handi samarren (5)

aspaldi samarretik (5); **urrun samarretik** (6)

samariar *izlag/iz* Samariakoa, Samariari dagokiona; Samariako herritarra.

Jesus eta emakume **samariarra**. **Elizen arteko biblia**

-Nola zuk, judu izanik, eskatzen didazu edatekoa niri, **samariar** naizen honi? **Elizen arteko biblia**

Hiri hartako **samariar** askok sinetsi zuen Jesusengan emakumeak emandako testigantzagatik. **Elizen arteko biblia**

Samariar on batek aurkitu zuen, ordea, eta eritegira eraman. **Gotzon Garate**

Ni hemen **samariar** onarena egiten. **Jon Alonso**

samaritano *izlag/iz* samariarra.

-Mila esker! -esan zuen mutilak, neskaren ohe-bazterrean kukulumuxu; zapatillak erantzi zizkion, **samaritanoaren** jokora jolastearren-edo. **Joxe Austin Arrieta**

Nola ez aipa, hemen, Jesussek kondatu **Samaritano** onaren parabola. **Herria**

Samaritano onen etsenplua baino askoz ere deigarriago zaizkio, eskuin eta ezker ikusten dituen miragarriak, ematen dituen etsenpluen kopurua hartzen baldin badugu kondutan. **Xipri Arbelbide**

samartu, samartzen **1 ad** (*aditz baten era burutuaren eskuinean eta laguntzailerik gabeko formetan*)

Harritu **samartua** nago oraingoz, ez zen hau nik espero nuena. Ohitu **samartua** zegoen ordurako Maddalenen nortasunaren gorabehera eta purrustadekin. **Juan Martin Elexpuru**

Utzi **samartua** zegoen kanpotik, baina behiak, bihotzak, arranoak, loreak zeuzkan sabaian margotuta. **Rafa Egiguren**

Esan diot gurean autoa jainkotu **samartua** dugula. **Patxi Zubizarreta**

Funtsean, trinkotu **samartuak** ditugun bertsamendua aldatu ditugu. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Gero, berriro kanila itxi **samartuaren** azpian ipini zuen edontzia. **Lopez de Arana**
So egin nien, ez nostalgiarik gabe, neure eskuizkribuei, zirriborro bukatu **samartuari** eta Artemido-ren ametsei buruzko tratatuari. **Juan Garzia**
Muturra jenio txarrekoa zuen, eta zanpatu **samartua**, buruz aurrera adreiluzko horma bat jo izan balu bezala. **Iñaki Mendiguren**
Galdu **samarturik** utzi zuen Rekexo ohar horrek. orain kontu hura ahaztu **samarturik** zegoen auzoan, beste albiste berriagoek estalirik. **Joxemari Iturralde**
Bere izualdiaz lotsatu **samarturik**, Harryk ez zion ezer esan Roni. **Iñaki Mendiguren**
Argizaria da -esan zuen berehala, txunditu **samarturik**. **Xabier Olarra**
Arazorik presazkoenak bederen konpondu **samarturik** utzirik, Skagen hirira [...] abiatu ginen nire zalgurdian. **Felipe Juaristi**
Loratu **samartuta** egon behar horrelakoak oihukatzeke, izan ere, frankisten presondegi batean. **Koldo Izagirre**
Fionnek txundituta begiratu zion, baita dezepzionatu **samartuta** ere. **Joanes Urkixo**
Harrizko bankuaren ondoan gelditu zen zutik, uzkur eta nahastu **samartuta**. **Ander Irizar**
-Ederki asko dakit -esan zuen goxo, mindu **samartuta** - ni ez naizela mundu honetarako egokia. **Ander Irizar**

2 (aditz baten era burutuaren eskuinean, eta aditz jokatu gisa)

Lotsagarritzko eusbakofharen sasiak jan **samartu** dizkigu oraintxe bazter guztiak. **Iñaki Seguro**
Bukatu **samartu** ziren hango lanak (edo egiteko gelditu), ixildu ziren erromeriak. **Iñaki Seguro**
Uko egin gaueon; eta horrek erositu **samartuko** dizu hurrengo abstinentzia. **Juan Garzia**
Horixe da, hain zuzen, gaur egun galdu **samartu** duguna. **Koldo Zuazo**
Beharbada Unamuno-ren pentsamendua bera hizkuntzari buruz orokorki ez da aldatu, esango genuke, baina interesa galdu da edo galdu **samartzen** ari da euskarari buruz. **Joxe Azurmendi**
Alboan nuen gizaseme gorraizetu **samartzen** hasiari bere estasi-une propialari buruz itaundu nion. **Karlos Linazasoro**
· Hanna ere lasai **samartu** zen... **Joxe Austin Arrieta**
Izu- **samartu** naiz, benetan. **Joxe Austin Arrieta**

3 (izenondo edo adizlagun baten eskuinean eta laguntzailerik gabeko formetan)

Ordaintzeko dauden epeak kita litezke eta artean ere zerbait geratuko litzateke; hori bai, ordea, urri **samartua**. **Juan Garzia**
Ilun **samartua** da kanpoan, eta kontuz ibili behar dut. **Pako Aristi**
Eta behar bada, ez gutxiagotan, oinaze erdi asmatu, negar eta espantu haundi **samartu**, eta kontu ilun ikaragarrituen gailurrean errukia sortzeko sastakai beltz gisan ere. **Patziku Perurena**
Goizetik ere mozkor **samarturik** baitzebilien. **Josu Zabaleta**
Eskueran izango duzu giza argelkeria ere, lingirdatsu eta likatsu **samartua** beroaren eraginez. **Xabier Olarra**
Baina gure protagonistan adinean aurrera **samarturik** zegoen eta jokabide zuhurreko gizon hotza zen. **Jose Morales**
Gero, urtetan aurrera **samartutako** emakume bat jaitsi zen. **Ander Irizar**
Datuen razzia aurrera **samartua** genuelarik, gero eta gehiago nabarmentzen ari omen zen hutsune baten berri eman zigun irakaslea. **Anjel Lertxundi**
Adinean aurrera **samartutako** bikote bat zihoan beste autoan. **Iñaki Iñurrieta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

galdu samarturik (3); **kezkatu samarturik** (3); **lotsatu samarturik** (3); **nahastu samarturik** (4)
mindu samartuta (3)

samats iz ongarria, simaurra.

Etzuten **samatseko** hegaztinek ildoxorien grazia. **Piarres Aintziart**

samba ik sanba.

sami 1 izond Laponiakoa, Laponiari dagokiona. ik laponiar.

70eko hamarkadan herritar **sami** batek ikus-entzunezko hedabideak arautzen dituen batzordean aurkeztutako salaketa baten ondorioz hasi zen telebista eta irrati publikoa sami hizkuntzan saioak igortzen. **Berria - Mundua**

Stockholmeko gobernuaren aurkako salaketa jarriko duela jakinarazi du alderdi **sami** nagusiak SSR Suediako Samien Erakunde Nazionalak. **Berria - Mundua**

Finlandiaren menpeko **samien** lurraldeetan dauden basoetan. Hegoaldeko lurralde **samien** inguruko hausnarketa egiten ari da orain Norvegiako Gobernuak, iparraldean jarraitutako bide bera hartuko duen erabakitzeke. **Berria - Mundua**

2 (izen baten ezkerrean)

Hitzartutakoa haustea eta **sami** herria diskriminatzea leporatzen diete komunikabideei. **Berria - Mundua**

Suediako gizarteak **sami** herriaren inguruan -laponiar ere deritzote- dagoen ezjakintasunari aurre egiteko SVT eta UR telebista kateek eta SR irratiak dute, gainera, **sami** hizkuntzan ikus-entzunezko programak hedatzeko monopolioa. **Berria - Mundua**

Hezkuntzari buruzko eta **sami** gazteentzako saio gehiago ere nahi ditugu. **Berria - Mundua**

Sami Legebiltzarrak Suediako telebista eta irrati publikoaren aurka aurkeztutako salaketaren nondik norakoez mintzatu da Legebiltzarreko presidente Lars-Anders Baer berriarekin. **Berria - Mundua**

• 3 iz Laponiako herritarra.

Inuiten, **samien** eta Artiko inguruko beste herri indigenen ordezkariak Kyotoko Protokoloa sinatzeko exijitu zioten atzo Estatu Batuetako Gobernuari. **Berria - Gaiak**

80 bat mila **sami** bizi dira Europako iparraldean: Norvegian (50.000), Suedian (20.000), Finlandian (5.000) eta Errusiako Kola penintsulan (2.000). **Berria - Mundua**

Hainbat estatutan sakabanaturiko nazioa izatea **samien** aurkako izango da hauteskundeetan. **Berria - Mundua**

Betitik beraienak diren 10.000 kilometro koadro lur aldarrikatzen dituzte Suediako **samiak**. **Berria - Mundua**

Hegoaldean, urrun dagoen herri exotiko gisa ikusten dira **samiak**; iparraldean, berriz, samien eta gainerako biztanleen artean lurra jabetzaren inguruan mendeetan izan diren gatazkek diskriminazio handia ekarri dute. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sami herria (8); **sami herriaren** (4); **sami hizkuntzan** (12); **sami hizkuntzan kaleratutako** (3)
samien informazio zentroa (3); **samien inguruan** (3); **samien legebiltzarrak** (5); **suediako samien** (3)

samiara iz finlandiaeraren familiako hizkuntza, Laponian mintzatzen dena. ik laponiera.

Samiara hitz egiten ez duten suediarrek gure egoeraren inguruan informazioa jasotzea ezinbestekoa iruditzen zaigu. **Berria - Mundua**

Lagun samin batek esan lan, ordea, samiek duela zenbait mende bazekitela eta zituzten errekek **samieraz** zituzten izenek, hori adierazten zutela. **Berria**

- Euskal Herria

Aurrekontuen murrizketa **samierazko** saioei soilik aplikatzea susmagarria da. **Berria - Mundua**

samin 1 *izond* garratza, mingotsa.

Limoi saskitxoen urrin **saminak**, bakailao bilduen usain latzak. **Karlos Zabala**

Bat-batean, limbourg gaztaren hilzoriko urrin **samin** mingotsak iritsi zitzaizkien hiru andreei. **Karlos Zabala**

Ai zuek, gaitzari on eta onari gaitz esaten diozuenok, iluna argi eta argia ilun, **samina** gozo eta gozoa **samin** bihurtzen duzuenok! **Elizen arteko biblia**

2 irud/hed

-Nire lagun maiteak! -xuxurlatu zuen, malko **saminak** isuriz-. **Jose Morales**

Ene Aita, edari **samin** hau derrigorrez edan behar badut, egin bedi zure nahia. **Elizen arteko biblia**

Edan baituzu Jaunak emaniko zigor-edari **samina**, hondoraino edan duzu zorabiozko kopa. **Elizen arteko biblia**

Eguzki **samin** haren eta errepide honen artean harrapatua naiz, gero ta berotuago. **Piarrés Aintziart**

Behatzak gorri **saminez** tindatuak, papoa frango zabalik, **Janbattitt Dirassar**

3 (adizlagun gisa)

Hain **samin** hitz egin zionean, bizitza guztia hondatu ziola eta. **Anton Garikano**

4 atsekabea edo nahigabea eragiten duena.

Min **samin** batek hartu zion bihotza. **Karlos Zabala**

Kirioak dardararazten zituen ahots gozo **samin** batez hitz egin zuen. Aurrerantz abiatu zen, oihu **samina** ito ezinik. **Josu Zabaleta**

Garrasi **samin** batzuk entzun nituen, emazte bat nonbait ari dena pleinu, negarrez naski, eta gizon bat erasiaka, arras bortizki. **Janbattitt Dirassar**

Politika gaiak hunkitzen zituzten eztabaida larri eta **samin** batzuen argitzeko parada izan bainuen. **Piarrés Xarriton**

Mitxelena handiak ikasketa hauek indartzeko bere Salamancako katedra goxo hura utzi eta hemengo borroka **saminetan** oldartzeko erabakia hartu zuenetik. **Pello Salaburu**

ik beheargo 9. **Askoren artean**

Kexa **samin** haien aurrean, laguna errukitu egin zen aitaz. **Askoren artean**

Negar **saminetan** zegoen andrea aparte hartu eta barrura sartu zuen isilpean santuaren bikarioak eta, lagunaren gorputza eskuetan jarriz, esan zion:Eta etorri ziren, gau beltzean, euriak eurari, beren tuta **samin** eta argi gorri, argi urdin, argi hori, argi zuri handiekin, halako apokalipsi giro bat sortzen zutela. **Askoren artean**

Hasperen handi **samin** batek. **Josu Zabaleta**

Hotzikara **samin** bat, beldurrezko eta larritasunezko hotzikara bat, sartu zitzaidan hezurretan barrena. **Josu Zabaleta**

Aitortzak liburuan kontatzen digu nola geratu zen bere arima galera hain **saminaren** aurrean. **Imanol Unzurrunzaga**

Goxoa bezain **samina** baina zernahi gisaz ezin ahantzia. **Janbattitt Dirassar**

Erabaki taktiko bat izan zen, Azpilgo giro gorria -herritarren **samina** eta sumina- hozte aldera. **Joan Mari Irigoien**

• 5 iz samintasuna.

Diotenez, sufre uretan murgiltzen denak ahaztu egiten omen ditu bere min eta **samin** guztiak. **Felipe Juaristi**

Gorputzeak oinaze gogorrek estutzen bazuten ere, neke **samin** haiek ez zirela "oinaze" esaten zuen, beraren "arrea" baizik. **Askoren artean**

Zeren, **samin** oroz at, arriskuetaatik libre [...] ez ongintzen menpe baitago, ez suminak jotzen baitu. **Xabier Amuriza**

Gogoeta eta **samin**, sufrikario, infernua bera, gaixoak ditu txera eta atsegintasun bilakatzen. **Juan Garzia**

Lagun min bat nuen aspalditik, eta horrek **samin** arintzen zidan. **Anjel Lertxundi**

Lagun guztiek haien **samina** partekatzen zuten, bat-bateko heriotzak mutil osasuntsua nola eraman zuen ikusiz. **Askoren artean**

Ez zuen gure **samina** areagotu nahi, ondo dakit hori. ez zitzaion hitzik ateratzen, bihotza erdibitzen baitzion **saminak**. **Anjel Lertxundi**

Safo eta Egea isildu egin ziren, Juvenaliaren hitzek **samina** islatzen baitzuten, **samin** urrutikoa, **samin** sendaezina. **Felipe Juaristi**

Semearen eta emaztearen faltak **samin** handia ematen baitio. **Juan Kruz Igerabide**

Eta gau eta egun aieneka zebilen **samin** handiz. **Askoren artean**

Eta **samin** latz hari beste bat gehitu zitzaion. **Alberto Ladron Arana**

Erabaki taktiko bat izan zen, Azpilgo giro gorria -herritarren **samina** eta sumina- hozte aldera. **Joan Mari Irigoien**

Penaz, nekez eta **saminez** nago. *ik beheargo* 10. **Iñaki Iñurrieta**

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Arimak bekatuaren edonolako zikinez kutsatuak ikustean, esan ezin ahalako **samin**-ezten zorrotzak bihotz-zulaturik, gupida samurrez haiengatik dolu egiten zuen.

Askoren artean

Hara, badator negar- eta **samin**-eguna, atsekabe- eta tristura-eguna! **Askoren artean**

Hau negar- eta **samin**-unea izango da anaientzat eta beste askorentzat, baina zuretzat kontsolazio eta alaitasun mugagabea. **Joan Mari Irigoien**

Bere **samin**-erakusaldiaren nabarmenak naik noski neure onetik atera. **Juan Garzia**

Samin tonua zeukan. **Fernando Morillo**

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bigarren izena ez dela)

Erregina itzultzen da; erregea hiiik aurkitu, eta **samin**-espantuka hasten da. **Juan Garzia**

Zure aitaren heriotzaz errugabe naizela, eta hartaz guztiz nagoela **samin**-larriturik, **Juan Garzia**

8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Berorren ama erreginak, gogo-**samin** guztiz larrian, berorregana nau igorri. **Juan Garzia**

Bihotz-**saminez** egingo dute negar, aiene egingo garratz. **Elizen arteko biblia**

Alde guztietatik oinaze-**saminez** jota, harrigarria zen haiek eramateko adina indar izatea. **Askoren artean**

9 *saminetan adlag* samina sentituz.

-Jakina, jauregian zagok hura, zain eta zain, gaeuz **saminetan**, egunez negarretan. **Juan Kruz Igerabide**

Buruz aurrera botako ditu Jaunak, txintxi ere ezin izango dutelarik esan; oinarritik astinduko ditu, hondoraino erraustuko; **saminetan** biziko dira eta haien oroitzapena ere galdut egingo. **Elizen arteko biblia**

10 *saminez adlag* samintasunez.

Beraz, jo bularra **saminez**. **Elizen arteko biblia**

Saminez onartu zien Arturrek, benetan baitzituen maite. **Juan Kruz Igerabide**

Berria jakinik, negar egin zuen **saminez** eta esan zuen: "Hauxe da, hain zuzen, izan dudana ametsa". **Askoren artean**

Haurdun gelditzean, oinazeak ugalduko dizkizut eta **saminez** izango dituzu haurrak. **Elizen arteko biblia**

Emiliok **saminez** baina gizonkiro onartu zuen bion porrota eta nire desertzioa. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere samin (4); **edari samin hau** (5); **eztabada samin** (4); **min samin** (3); **neke samin** (3); **oihu samin** (4); **samin handia** (6); **samin handiz** (10)
bere samina (13); **bihotzondoko samina** (3); **biktimen samina** (3); **dei samina** (3); **edari samina** (3); **egun samina** (5); **ene samina** (3); **eragindako samina** (4); **eztabada samina** (3); **gure samina** (3); **negar samina** (4); **nire samina** (8); **oroitzapen samina** (3)
samina adierazi (5); **samina agertu** (4); **samina areagotu** (3); **samina arintzen** (4); **samina eragin** (8); **samina eragin du** (3); **samina eragiten** (6); **samina eta etsipena** (3); **samina eta haserrea** (3); **samina gertatzen zitzaidan** (3); **samina izan** (8); **samina zen nagusi** (3)
arrangura saminak (3); **eztabada saminak** (7); **minak eta saminak** (3)
saminaren saminez (5)
saminean lagun (3)
edari saminetik (4)
ahots saminez (3); **saminaren saminez** (5); **saminez bete** (6); **saminez beterik** (7); **saminez dago** (3); **saminez izango dituzu** (7)

saminaldi *iz* egoera samina jasaten den denbora.

Han, elur-pistetan, Lola libre sentitzen zen, ahazten zituen bere magistratuak, ahazten zituen bere seme-alaben ikasketak, olio gehiegi gastatzen bide zuen neska, bere aldarre txarrak eta bere **saminaldi** betierekoak. **Fernando Rey**

samindu, samin(du), samintzen 1 da/du *ad* hasarretasunezko, nahigabezko edo samintasunezko egoeran jarri. ik **mindu**.

-Zergatik **samintzen** zara, neure alabarekin hitz egin dudala-eta? **Joxe Austin Arrieta**
Jende batzu **samindu** ziren beren libertatea ez zela aski errespetatua. **Herria**
-Ez zaitez **samindu**, arren. **Patxi Zubizarreta**
Lotsa handia ematen baitzion egunero aitortu beharrak, eta honek **samintzen** zuen gehiena. **Askoren artean**
Nola izan zaitezke horrelakoa, nola **samintzen** duzu horrela zure ama! **Josu Zabaleta**
Min berriz **samintzen** ninduen ene minak eta bi goibelaldik torturatzen ninduten. **Imanol Unzurrunzaga**
Beste bi oinazek **saminduko** dute orain Sade: eroetxe batean bizi beharrak, eta Vincennes eta Bastillan idatzitako hamabost obrak galdu izanak. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Handiagoa baita norbera **samindua** izateko beldurra, norberak norbait **samintzeko** gogoia baino. **Juan Martin Elexpuru**
Hori esanik, oroitzapenak arras **samindurik**, negarrez hasiko da, luzaro, etsimenean, bere burua besoen gainean duela, mahaitxoaren gainean. **Josu Zabaleta**
Hobe pattarra lur jota dagoenari ematea eta ardoa **samindutakoari**. **Elizen arteko biblia**

2 (gauzak)

Goizeko hotzak eta hezetasunak egoera **samindu** baizik ez dute egiten, eta karnioari haserrea haziz joan da orduz ordu. **Berria - Euskal Herria**
Guztiei itsusi litzaietxe alabaina, minduaren mina **samintzea**, justiziak ez duelarik horrelakorik eskatzen. **Piarres Xarriton**
Nekadurak jujamendua **samintzen** dit eta mina arrapizten. **Piarres Aintziart**
Lanceloti barrena **samindu** zitzaion; Ginebrak jakiten bazuen, irain larria irudituko zitzaion. **Juan Kruz Igerabide**
Haren atzetik joan nintzen, bihotza **samindurik**. **Juan Kruz Igerabide**
Ideia hauek zigorren edukia bigunduz gauzatzen dira, zuzenbide penalak ezin baitu gizakiaren duintasuna **samindu**. **Juan Martin Elexpuru**
Partida berriz hasten da eta hor bazterrak arras **samintzen**. **Herria**

3 (era bururuta izenondo gisa)

Soka-zatia emakume **saminduaren** gainean ipini bezain laster, mina desagertu zitzaion eta oso erraz bota zuen ume hila -herio eragile egina-, lehengo osasun betera itzuliz. **Askoren artean**
-Zu... -hiraren, edo gorrotoaren tonua duen ahoskera **saminduaz**. **Iban Zaldia**
Beren aberri txiki eta **saminduaren** defendatzaile sentitzen direnei. **Agurtzane Juanena**
Eta ez bakarrik jende kultura gabeko, **samindu** eta ergelek. **Felipe Juaristi**
Batzuk libre geratzen dira delitu txiki baten zigorretik alderdi **saminduak** barkatzen dionean. **Juan Martin Elexpuru**
Askotan doinu horiek hitz **saminduak** estaltzen zituzten. **Berria - Kultura**
Isilik egongo nintzen handik aurrera, **saminduarena** eginez. **Hasier Etxeberria**
-Ez areagotu bihotz- **saminduaren** nahigabea, ez itxaronarazi zeure emaitza beharrez dagoenari. **Elizen arteko biblia**

samindura 1 *iz* samintasuna, samina.

Ez diote barruan bizitzen ari direnari ateratzen uzten: amorrua, axolagabea, emozio eza, haur txikien moduko zinkurin mutuak, **samindura** eta etsipena aski oniritzi, ezagutu eta maitatu izan ez garelako eta aurrerantzean horrelakorik ezin espero delako. **Joxan Elozegi**
Imanolen heriotzak eragindako **saminduratik**, lan intimoa egin nahi nuen; ez hanpatua. **Berria - Kultura**
Idazluma jaso egin nuen tupustean, irainaren hizkiak irakurtzeak areagotu egin baitzidan barrengo **samindura**. **Pedro Alberdi**
Grebak ezfitu dira, nahiz halako **samindura** batek hartuak dauzkan aintzina bazterrak, bereziki hiri handietan. **Herria**
Justizia **samindura** bihurtzen dute, eta zuzenbidea hankapean erabiltzen. **Elizen arteko biblia**
Zendako horiek emaiten zautaten holako **samindura**, tristezia? **Michel Oronoz**
Samindurarik gabe. **Joxe Austin Arrieta**
Esan ezin ahalako **saminduraz**, dardarka hartu zituen semeen hilketaren frogak haiek. **Patxi Zubizarreta**

2 (hitz elkartuetan)

Samindura keinu bat egin zuen, eta eliz atariaren ertz baterantz urrundu zen. **Bernardo Atxaga**
-Hain zuzen ere, ondorengo horietako batek haren izen berbera du -bota zidan bisitariak, **samindura** aire batez. **Edorta Jimenez**

samingarri *izond* samintzen duena.

Hau da honen estatusan **samingarrian** aurkitzen naizen lehenengo aldia, eta ez naiz batere trebea gisa honetako gauzetan. **Antton Olano**
Gertakizun garrantzitsuenak ez ditut oraino ezarriak hemen eta sentimendu **samingarrienak** biharko utziko ditut. **Piarres Aintziart**
Egoera **samingarri** horren aurrean Eusko Legebiltzarrak ez duela deus egin salatu zuten. **Berria - Euskal Herria**
Hain da **samingarria** altzatzea lanik ez duzula jakinda. **Lopez de Arana**
Samingarria izaten da elurra ikusita harroskotzen ez den haur zibernetikoaren axolagabezia. **Patziku Perurena**
Seme zentzugabea aitarentzat mingarri, sortu zuen amarentzat **samingarri**. **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
egoera samingarria (3)

saminki 1 *adlag* samintasunez.

Van Daan jaunak jotzen du erasoa, amak **saminki** erantzuten dio, eta ez daki ezertaz normal hitz egiten. Josu Zabaleta

Badik jadanik kasik ehun urte frantsesa dela Frantzia osoko hizkuntza ofizial bakarra -moztu zuen ordezkariak, **saminki** -. Elena Touyrou

Ez diot hau **saminki**, baizik kezkati, ahoan min duenari eztia karmin egiten bazaio ere. Pello Salaburu

la inork ezin zion negarrari eutsi, bakearen mezulari haiek hain **saminki** negar egiten ikustean. Askoren artean

Gertakari haren berri jakitean, Matatiasek eta lagunek **saminki** egin zuten negar. Elizen arteko biblia

Erreginak, hori entzunik, negar egin zuten **saminki**. Juan Kruz Igerabide

Negarrari eman zion **saminki** eta ezin zen kotsolatu. Askoren artean

Efraimek **saminki** nahigabetu du Jainkoa: Jaunak lepora botako dio isuri duen odola, eta berari itzuliko bere irainak. Elizen arteko biblia

Penetan eta **saminki** hunkituak izan diren guzieri, gure euskal bihotzeko sendimendu leihalenak. Herria

2 irud/hed

-Ez da jauregi bat -erran zion gizonak hetsi gabe zegoen eta gontzak **saminki** karrankatu zitzaizkion atea bultzatuz-. Elena Touyrou

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
egin zuten **saminki** (3); eman zion **saminki** (8); **saminki negar egiten** (5)

saminkiro *adlag* saminki.

Beste kazeta batek, berriz, juduek eta atzerritarrek eragindako arazoez jarduten zuten **saminkiro**. Alberto Ladron Arana

-Parisen nagok -pentsatu zuten Del Vallek **saminkiro** -, munduko hiririk zoragarrienean, eta kankailu aleman baten zurrungak dituk gau osoan entzun dudan bakarra...
 Alberto Ladron Arana

saminkor *izond* erraz samintzen dena, samintzeko joera duena.

Horrek esan nahi du gorroto handia eta **saminkorra** sentitu behar dugula beti, edozein gauza gertatzen dela Jainkoaren borondatearen aurka. Joan Mari Lekuona

Morfemen, hitzen eta perpausen arteko leherketak baino ez direla, alegia, eta esplosaketak non harrapatzen zaituen, horren gorabeheran agertuko zarela haserregaitz edo **saminkorrago**. Iñigo Aranbarri

samintasun 1 *iz* atsekabea, nahigabea.

Jatsutik alde egin zuen, **samintasuna** bihotzean eta errabia gorputzean. Elena Touyrou

Gainera, sufrimendu luzean **samintasun** hura, paria begitarte goibel hura zeuzkan kaltetan. Karlos Zabala

Errabia hain **samintasun** sakona bihurtua zen non malkoak nekez jasaten baitzituen. Elena Touyrou

Jabetzen ziren zenbat **samintasun** sufritu behar izaten duten munduzaleek lurreko atseginen artean. Askoren artean

Kristok guregatik jasan zituen oinaze eta **samintasunek** halako bihozmina eragiten zioten egunero. Askoren artean

Malenkoniaren eta **samintasunaren**, tristuraren eta minaren, esker onaren eta etsipenaren artean, gurasoak zahartzen ikusteko eta haietaz mintzo ziren objektuak jasotzeko zortea izan nuela pentsatu nuen. Joxan Elozegi

Ingelesek, orduz geroztik, porrot bakoitzaren **samintasunaren** memoria gordetzen dute. Iban Zaldúa

Koroa distiratsua emango diet **samintasunezko** errautsaren ordez. Elizen arteko biblia

Samintasunik gabe diotsut hau. Karlos Linazasoro

2 (hitz elkartuetan lehen osgai gisa)

Samintasun itzal batek iluntzen zizkion aho ertzak. Ramon Saizarbitoria

Bat-batean atzera itzuli, eta, aurpegian **samintasun** keinu bat zuela, esan zidan: [...]. Josu Zabaleta

Izenburuak ezin hobeto islatzen duela denboraren **samintasun** puntu hori, gauza galduengatiko sumindura. Berria - Kultura

Samintasun egunetan gogoratu behar litzateke, gainera, Jainkoak egia diola, eta egiazkoak direla bere agintzariak, Bera ere Egia denez. Joan Mari Lekuona

Hilketa biolento baten aurrean denok sentitzen dugun kontzientziako inarrosiaren edo esijentzia primario baten eran, **samintasun** eta dardara sentimendu hori printzipio mailara altxatu nahi dugularik. Joxe Azurmendi

3 *samintasunez adlag*

-Tomek kai azpian pasatzen ditik igandeak -esan zuten **samintasunez** boxeolari aurpegiko gizonak-. Koro Navarro

-La Sarriettek nahi duena egiten du -erantzun zion Lecœur andreak **samintasunez** -. Karlos Zabala

Eta orduan, **samintasunez** gogoratzen ginen hoteletako garaiez, bizimodu burgesean ere basamortuko nomaden antzera bizi baikinen. Ander Irizar

samintsu *izond* saminez betea.

Gizonek, eskuetatik heldurik, aldarera eraman zuten dardaraz, ez, ohitura sakratuaren solemnea amaiturik, Himeneoa joez lagundua izateko, baizik nubilaroan bertan, bera hain garbia eta hain ezgarbiro, aitak inmolaturik, biktima **samintsu** eror zedin, ontziteriak irteera dohatsu eta oparoa izatearren. Xabier Amuriza

samoar *izlag/iz* Samoakoa, Samoari dagokiona; Samoako biztanlea.

Aipagarria izan zen, halaber, Lealamanua'a harroin **samoarraren** mugikortasuna. Berria - Kirola

Johnston **samoarra** orain gutxi sartu dute txapelketako zerrendan. Berria - Kirola

Aski nabarmenak dira Miarritzen eta Baionan diharduten jokalari **samoarrak** beren ezaugarri fisiko eta kulturalengatik. Lealamanua'ak bigarren sasoia du Miarritzen, eta sortzez Zeelanda Berrikoa bada ere, **samoarra** da. Berria - Kirola

Samoarra izaki, biziki maite dituela hemengo hondartzak. Berria - Kirola

samobar ik samovar.

samoiedo (*orobat samoyedo*) 1 *iz* Errusiako iparraldeko herri nomada, itsasalde artikoan bizi dena.

Finlandiarrak, estoniarrak, laponiarrak, txeremiarrak, txuvashiarrak eta permiakak gehitzen baditugu, eta alemaniarrak, grekoak, tatariarrak, Kaukasoko leinuak, mongoliarrak, kalmukak, **samoiedoak**, kamtxatkarrak eta aleutiarrak gaineratzen, ongi ulertuko dugu horren estatu zabalean batasunari eustea zaila baino zailagoa dela. Karlos Zabala

Burezur horren azpian, **samoiedoak**, nyam-nyamdarrek, malgatxeak, fueginoak ospakizun arraroenetan aritzen dira. **Monika Etxebarria**

2 (izenondo gisa)

Mendebete baino lehen ebatzi ahal izan zen zein hizkuntza zen: guaraniaren dialekto **samoiedo** -lituaniar bat, arabiera klasikoaren zenbait molde zerabiltzana. **Juan Garzia**

3 **samoiedo txakurra** ile zuri luzeko txakurra, berez Siberiakoa.

New Yorkeko bi ahizpa, Bandit eta Jenny, beren **samoyedo** zakurrekin. **Gotzon Garate**

3 samoiedo txakurra.

Alaskako malamutak, **samoyedoak**, Siberiako huskyak. **Gotzon Garate**

samostar Samoskoa, Samosi dagokiona; Samosko biztanlea.

Pitagoras **Samostarra**. **Imanol Unzurrunzaga**

samovar (*orobat **samobar** g.er.*) iz tea prestatzeko lanabesa, jatorriz errusiarra.

Samovar -aren lurrinak airea loditzen zuen. **Juan Kruz Igerabide**

Samovarra sutan jarriko dute, eta bere etxean bezain egoki sentituko da. goizeko bederatzietan esnatzen zen, **samovarraren** zain geratu, eta tea edaten zuen. **Karlos Zabala**

Saltzailearen aurpegia **samovarra** bezain gorria zen. **Jose Morales**

Ettxera itzulitakoan, **samovarraren** alboan ipintzen zituen galtzerdiak, lehor zitezen. **Jose Morales**

Gela atsegin eta epel batean, gantzezko kandela xume baten argitan, **samovarraren** marmarra lagun, bihotza eta arima berotzen ditu solas gozo batek. **Jose Morales**

samoyedo ik **samoiedo**.

sampleatu, samplea, sampleatzen (*corpusean **sanpleatu** soilik*) **1** du *ad* samplearra erabiliz jo.

Dominique bretoiak bi gitarra, bi mikro eta gitarrak eta ahotsak **sanpleatzeko** tresna baino ez zuen eraman. **Berria - Kultura**

Boskotearen bateria jotzailea ezin izan etorri (teklatuetan **sanpleatu** ziren erritmoak). **Berria - Kultura**

2 (era burutua izenondo gisa)

Hainbeste urtetan desiratutako enkontrua guztiz artifizial eta indarrik gabea iruditu zait, freskotasunik gabeko pasarte **sanpleatu** bat. **Patxi Iturritegi**

sampler (*12 agerraldi, liburu 1 eta 8 artikulutan; orobat **sanpler** 4 agerraldi, liburu 1 eta 3 artikulutan*) iz gailu elektronikoa, aldez aurretik grabaturiko pieza bateko instrumentu baten hotsa bakartzea eta gero zernahi emanalditan erreproduzitzea ahalbidetzen duena.

10.0 diskoan Mikel Errazkinek bere bakarkako ibilbidean jorratu duen pop lasaia nagusitzen da, baina badira beste abiadura bat hartzen duten doinuak ere, Hemendik urrun kasu, eta **sampler** eta loop-ak ere sartu ditu. **Berria - Kultura**

Fermin Muguruzak Bernat Detxeparen leloa bereganatu zuen: **'sampler'** eta kitarren distorzioak baliatuz "euskara plazara" jalgia razten zuen! **Ramuntxo Etxeberri**

Sports berrian, aldiz, orkestraren lana nabarmentzen da, nahiz eta badiren kirol bakoitzari lotutako hainbat **sampler** ere: *Mogambo* filmeko pasarteak edo *Wipe out surf* kantua ezagunaren lelo ospetsua, beste batzuen artean. **Berria - Kultura**

samu **1** iz kakalardoaren familiako zomorro mota.

Samuak intsektu txiki-txiki batzuk dira, kakalardoaren talde berekoak. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Imajinatu marigorringo txiki eta beltz bat eta **samuaren** gutxi gorabeherako irudia izango duzu. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Samu ezagunena, orokorrean hartuta, babarrun edo indaben samua izan daiteke. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Samuen ahoa elikadura berezirik moldatua egoten da: haziak jateko. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Babarrunari bezala, beste lekari askori egiten zaio **samua** (baita oteari ere, adibidez). **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Alabamako nekazariak monumentu bat egina omen diote kotoiaren **samuari**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Izan ere, **samu** -eme helduek hainbat landareren obulu ernaldut berrietan -landarearen hazi bihurtuko diren ale berdeetan- jartzen dituzte euren arrautzak. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

2 (hitz elkartuetan)

XIX. mendearen bukaera aldera, kotoiaren **samu** -izurrite batek erabat galdu zituen Alabamako kotoi-soroak, eta nekazari haien ekonomia hankaz gora utzi zuen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

samur **1** *izond* gogortasunik ez duena, biguna.

Amonak leuna zuen ahotsa eta **samurrak** zituen besoak. **Mirentxu Larrañaga**

Zahartzaro onean eta umotuan helduko zaik heriotza eta beren esku **samur** leunekin itxiko dizkiate begiak hire ilobatxoek. **Patxi Ezkiaga**

Lehengo gorputz-adar zurrunkak bigun-bigun eta moldakor bihurtu dira, batera eta bestera mugitu daitezkeela, haurtxo **samur** batenak bezala. **Askoren artean**

Goiki haren ezpain **samurrak** sentitu zituen ezpainetan. Mihi **samur**, epel eta hezeak klitoria maitasunez laztantzen eta miazkatzen duenean. **Joseba Sarrionandia**

2 irud/hed

Ea zein haizek bilakatuko duen arantza tortoa lore eder eta **samur**. **Pako Aristi**

Zuk, nire kidekoak, nire adiskide **samur** eta minak, zuk nauzu mesprezatzen. **Elizen arteko biblia**

Eme helduek eme **samur** heldugabeak limurtzen dituzte. **Luis Elberdin**

Jaiotzerakoan, amak bere bular **samurra** eskaintzen dio haurrari. **Luis Elberdin**

Malko **samurretan** lasaitzen zitzaion gogoia, eta bi eskuak nobela gainean utzirik geratzen zen luzaroen, gaua erori eta beheko suaren azken txinpartak ahitu ondoren ere. **Ramon Saizarbitoria**

«Gizon **samurra** eta bihotz onekoa» iritzi zion Laura Bushen George Bushi. **Berria - Mundua**

Zu, emazte txit zintzo, maitale txit **samur** hori, ez zinen unetxo batez ere harengandik aldentu. **Askoren artean**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Pasatu libururak pasatu arren, txoil aguregatzeta jatorra zela eta dela, berean buru-gogor bezain ingurukoekiko bihotz- **samur** . Juan Garzia

Ez dut gogoan noiz hasi nintzen emakume azal-zakar eta barne- **samur** horri ama erratan. Aingeru Epaltza

4 gogorkeriarik gabea, amultsua.

Non dira zure maitemina eta indarra? non zure bihotz **samurra** eta errukia? Elizen arteko biblia

Bihotz bi gorputz bakar batean baitziren: bigun, **samur** eta gozoa, bata; gogor, astun eta mingotsa, bestea. Felipe Juaristi

Haren musika, leuna eta **samurra** zenean ere, indarrez jo behar zela. Felipe Juaristi

Bazuen hauskortasun **samur** halako bat eta herabetasun ia etsigarri bat. Mirentxu Larrañaga

Zein bide misterioetatik iritsi zen askatasun harro eta mugagabearen sentipenetik erruki **samur** eta bizi horretara? Jose Morales

Oi zeinen santu eta **samur** , atsegin, apal, baketsu, gozo, maitagarri eta beste ezer baino desiragarriago den horrelako anaia eta horrelako semea edukitzea. Askoren artean

Berriro kausitu nuen begitarte xarmangarri hartan, tristura aldi berean sakon eta **samur** hura. Jon Muñoz

Irribarre leun eta **samur** batez begiratu zien hormei eta burdin hesiari. Jose Morales

Mutilak bere kanta **samur** umila bukatutakoan [...]. Karlos Zabala

Maitasuna ez al da memorian leku on bat, leku **samur** bat ematea, beste bati tarte bat irekitzea. Lourdes Oñederra

Ama ere ez zela tentazio **samur** horretaz ohartu gabea. Josu Zabaleta

Samurragoa zen latinetik hizkuntza erromantzeetarako jauzia, latinetik euskararako baino. Koldo Zuazo

Zigorra ez zen **samurra** izan. Felipe Juaristi

5 (adizlagun gisa) ik **samurki**.

Ez zen gai **samur** jokatzeko: bati besoa kraskatu edo beste bati sudurra hautsi, besterik ez zekien egiten. Jose Morales

Honela esan zuen **samur** baina lehor: [...]. Ander Irizar

Badakit ez nukeela sekula hain **samur** jarri behar, baina maiteminduta nengoan, zer egingo zaio. Harkaitz Cano

-Alazne -hasi zen Arantxa, **samur**-. Fernando Morillo

Orduak **samur** igarotzen, larruak larruari plazerra emanez gauak gozatzen, horditurik zoriotsu. Pako Aristi

Samur egin zenidan irribarre, bai, **samur** , ez dut beste hitzik. Eduardo Matauko

Orain, orde, ez zion aurpegia **samur** laztantzen bere esku-ahur bigunaz. Jose Morales

Jainkoaren ongina horagarría, hain **samur** bere zerbitzariengana makurtzen dena. Askoren artean

Bularrean pausatu zion burua, xalo eta **samur** . Jose Morales

Samur jokatu beharko duk, baina gogor, gogor baina **samur** . Koldo Biguri

6 (-en atzikiaren eskuinean izen gisa)

Luisek ez daki bere irribarreen **samurra** hitzez janzen, beti tontokeriaren bat esan behar du. Lourdes Oñederra

Araba urrunean mirari baten gisa ikusi zuen Perikok nola batzen zituen Isidorak bere oroimenaren bi sustantzia haiek, otorduaren **samurra** eta hizketaldiaren ederra. Pako Aristi

Gizon xehe haren irriaren **samurraz** ohartu orduko beranduegi zen neuretzat. Itxaro Borda

7 erraz murtxikatzen dena; tresna ebakitzaile batek erraz zulatzen edo ebakitzen duena. **ikuxter**.

Indioilar bikainen haragi **samurra** . Karlos Zabala

Beretzat patatarik txikiak, mokadurik gozoena, gauzarik **samurrenak** aukeratzea, horra bere lema. Josu Zabaleta

Zu, letxua, **samurregia** zara, belaxka ez esatearren. Josetxo Azkona

Nire behatzen artean bolatxo grisetan deseginen zen ore **samur** eta fresko haren ukitzeaz gozatzen. Monika Etxebarria

Sartu zen txir-txar burdina haragi **samur** hartan, eta kauterizazioa belarritik bekainetara zabaldu zen. Askoren artean

8 irud/hed

Zapore baten deira heltzen diren oroitzapenak, otordu **samurraren** gisa ahosabaian bizkor urtzeko. Pako Aristi

Txuleta bat zein prozesuren bitartez bilakatzen den sentsazio **samur** edo zail, txuleta moztu zaion animaliaaren adinaren arabera. Xabier Olarra

9 (adizlagun gisa)

Bestela ez dira egositakoan **samur** geratzen. Harkaitz Cano

10 (-en atzikiaren eskuinean izen gisa)

Menda belarraren fin betegarria; olioaren arina; Pertiako arrozaren **samurra** ; Felipe Juaristi

11 hauskorra.

Ebe jagon behar dut, hain da **samurra** eta babesgabea... Sonia Gonzalez

12 erraza. (ezezko esaldietan)

Opin ez duk, gero, kontrario **samurra** . Bernardo Atxaga

Ez da lan **samurra** , ez horixe. Patxi Iturritegi

Ez da lan **samurra** gaiaren labaina kontuan hartuta. Txema Ramirez de la Piscina

Izan ere, berez ez da batere prozesu **samurra** . Berria - Harian

Ez baitzen kontu **samurra** gauza horiek atzerriko hizkuntza batean kontatzea. Fernando Rey

Ez zen denboraldi **samurra** izan serbiarrentzat, Badakigu Patxiri ere ez zaiola batere **samurra** gertatu zenbait pasarte itzultzea. Berria - Kirola

Behin hiztegi bat zabaltzen denean, ixtea ez da **samurra** izaten. Bernardo Atxaga

Ez zen **samurra** hitanoko adizkiak bateratzea, eta horrexegatik atzeratu zen erabakia. Koldo Zuazo

Ez, nire bizitza ez zen batere **samurra** , baina lagun min bat nuen aspalditik, eta horrek samina arintzen zidan. Anjel Lertxundi

Baina ez da **samurra** agure matxino hau mendean hartzea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez zen hausnarketarako gai **samurra** . Mirentxu Larrañaga

13 (bestelakoetan)

Celtari min emateko biderik **samurrena** erasoan azkar jokatzela dela iritzi dio Athleticeko entrenatzaileak. Berria - Kirola

Izan ere, beti da lan **samurragoa** hitz eta esapide jakin batzuk ikastea, aditz egitura osoa eta, batez ere, fonetika eta intonazioa barneratzea baino. Koldo Zuazo

14 ipar haserrea.

Ondorioz, badira eztabada **samurrak** eta saminak. Herria

Eztabada **samur** batzu ere ba denbora berean. Herria

Euskal-Herri osoan, hor bizi diren jende guziteri behar zaiotela galdetu nolako geroa nahi duten, aspaldiko gataska **samurrak** behin betikotz gaintzeko xedetan. Herria

Kanpaina bizia, **samurra** eta nahasia. Herria

Dena galde **samur** eta deus ihardespenez. Janbattitt Dirassar

• 15 iz ipar haserrea.

Halako **samur** batek kolpez hartu banindu bezala. Janbattitt Dirassar

16 **samur-samur**

Errealitate bera baino interesgarriago agertzen zaigu eremu berri hori, aldi berean absurdoa, poetikoa eta **samur-samurra** dena. Berria - Kultura

Begitarte gogor atsekabetu hartako bi begi ilun handiak, bi begi **samur-samurrak**. Karlos Zabala

Hitz **samur-samurrak** aurkitzen zituen, haren senarrak bere aurrean etsia hartzen zuen guztian. Karlos Zabala

-Baziren haizetako barbarinak ere, haragi **samur-samurrekoak**. Karlos Zabala

17 ipar haserre-haserrea.

Libanoak eta Siriak protesta **samur-samurra** hel-arazi diote horren gainetik ONU erakundekoeri. Herria

18 (adizlagun gisa)

Istant batean **samur-samur** eginik jarri ninduen, trago bat eta penak konpartitzeko gogoz. Migel Angel Mintegi

Bihotza **samur-samur** eginik, Nadiari hitz egin zion irribarretsu: [...]. Karlos Zabala

Emakume bat ageri zen bertan, egundoko zorientasun-aurpegiarekin, bere sabel loditua laztantzen, atzean gizona zuela, emakumeari eta honen sabelari **samur-samur** begira. Xabier Mendiguren Elizegi

Berriz ere **samur-samur** begiratu zidan. Javi Cillero

-Sinets lezadazu - **samur-samur** hitz egin zuen handik pixka batera-, bati txantajea egiteko asmoa zuela, horixe besterik ez genekien guk. Migel Angel Mintegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begirada samur (3); **bihotz samur** (4); **gozo eta samur** (3); **haragi samur** (4); **haragi samur hartan** (3); **irribarre samur** (6); **modu samur** (3); **oso samur** (3); **samur eta bigun** (3); **samur jokatu** (4); **samur samur** (5); **sentibera eta samur** (3); **sentipen samur** (3)

aurkari samurra (9); **bihotz samurra** (3); **egoera samurra** (4); **erabaki samurra** (3); **ez da samurra** (86); **ez dela samurra** (11); **ez zen samurra** (17); **fin a eta samurra** (3); **gauza samurra** (4); **irribarre samurra** (3); **kontu samurra** (3); **lan samurra** (33); **lan samurra izan** (4); **lan samurra izango** (19); **maitasun samurra** (4); **oso samurra** (5); **partida samurra** (8); **partida samurra izango** (5)

ezin samurrago (3)

askoz ere samurragoa (5); **askoz samurragoa** (4); **ez da samurragoa** (4); **samurragoa da** (4); **samurragoa dela** (3); **samurragoa izan** (5); **samurragoa izan zen** (3); **samurragoa izango** (10); **samurragoa izango du** (3)

aurkari samurragoak (4)

begi samurrak (4); **bezain samurrak** (3); **eztabada samurrak** (8); **hitz samurrak** (8); **oso samurrak** (3); **samurrak izan** (11); **samurrak izango** (5); **samurrak ziren** (3); **sentimendu samurrak** (3)

ahots samurrez (3); **gupida samurrez** (4); **maitasun samurrez** (6)

aurkari samurrik (4)

samurai 1 iz japoniar gizarte feudalean, jaun baten mendeko gudaria.

Giza neurritik gainera errespetuak itxuraldaturiko ahotsaz zuzentzen dira **samuraiak** beren buruzagiei. Joxan Elozegi

Badakizue heikeak Antoku enperadorearen **samurai** leialak zirela, haren defendatzaile kementsu eta gogorak gengi klaneko **samuraien** aurka. J.M. Olaizola "Txiliku"

Samuraien garaiko film bat. Berria - Kultura

Borrokalaria sutsua, ez du inoiz amore ematen gladiadore txikia eta **samurai** txikia deitzen diote. Berria - Kirola

Oso **samurai** baldarra nintzen, jakina; **samurai** batek ez du begiralekua uzten, hilik ez baldin bada. Juan Kruz Igerabide

Merkatariak ziren, batez ere finantza-bitartekariak eta diru-mailegariak, *chonin* edo hiriko jende gutxietsia, teoriarik edozein **samurrik** zigorrik gabe hil zezakeena begirunerik gabeko mintzaira erabiltzeagatik soilik. Iñaki Mendiguren

Haren alde, hil arte nengoen borrokatzeko prest, **samurai** baten antzera. adinik eta zauririk gabeko terrorista eternal bat zen Veronica, mila aurpegi aldakorreko **samuraia** eta espia, bisaiarik gabeko Eztarri Sakona. Joxan Elozegi

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Samurai keinu handiz ekin nien. Joxan Elozegi

Tom Cruise **samurai** lanetan. Itxaro Borda

Biziki gogoko izan dut beti **samurai** filmetako aktoreen jokoari horren ongi dagokion formula hau. Joxan Elozegi

samurbera izond samurtzera jotzen duena.

Agenteak, prestuki, berri on bat dakarrenaren doinu **samurberaz**: [...]. Pablo Sastre

samurgaitz izond samurtzen zaila dena.

Nahita dira mutiko biok **samurgaitz** eta gogorak. Pablo Sastre

samurgarri izond samurtzen duena.

Gero jiraka hasi zen galaiki, saltotxoka, modu harrigarri batean higituz, bere txotxongilo gorputz xumea kiribilkatuz, aurre hutsera agur **samurgarri** eta irrigarriak eginez.

Josu Zabaleta

Hautua egin beharrez, Bambiren ipuina hain modu **samurgarrian** kontatzen dion amaren aldera egiten du. Pablo Sastre

samurgo iz ipar haserrea.

Lehen ere ikusi baita alabainan bozetarik sortu **samurgo** batek gero zernahi denbora irauten. Herria

Azken aste hortan, **samurgo** hori ez da emendatu baizik, eztabada gaitzak izan baitira batasuna egiten ahal zen ala ez Charles Millonere partzuer. Herria

Samurgo hori azkarki samindu zen 1711-an. Herria

Horren ondorioz gure auzapez jaunak, ez zuen bere **samurgoa** gordetzen; kantonamenduko boz emaila kopuru apalena izan da Saran. Herria

samurgo txarra ttipitzen ari den sistema elebakar eta pixka bat handitzen ari den sistema elebidunaren artean. Herria

samurkeria 1 iz samurtasun gaitzesgarria.

Deitoretarako, kexuetarako eta **samurkerietarako** aitzakia. Josu Zabaleta

Literaturan zaila da poza adieraztea **samurkeriarik** gabe, xalo edulkoratuia izan gabe. Berria - Kultura

Atearen markoan ikusi nuen haren zezen bizkar haiek makurtzen zirela eta nire amari ahoan musu ematen ziola, atzealdea **samurkeriaz** haztatzen zion bitartean. Joxan Elozegi

Eta barruan hiru liburukiko eleberri baten eskuizkribu bat, **samurkeriaren samurkeriaz** ohi baino okaztagarriagoa. Antton Olano

2 (hitz elkartuetan)

Wilma hil zenean, Lajosek, ohikoak zituen **samurkeria** -une haietako batean, onartzeko behartu ninduen. **Ander Irizar**

samurki 1 *adlag* samurtasunez. ik samur 5.

Agurtzerakoan, **samurki** besarkatu ninduen. **Juan Kruz Igerabide**

Samurki maite duten aberri horren kontura aberasteaz bakarrik arduratu diren zenbait abertzale. **Jose Morales**

Samurki maite zuten elkar nexka txikiak eta ipotx konkordunak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ez zioten elkarri **samurki** begiratzen edo laztanik egiten. **Joseba Urteaga**

Luzaroan eta **samurki** negar egin ohi zuen berripaperetako pasadizoak aitzakiatzat hartuta. **Mirentxu Larrañaga**

Nire orgasmoaren astinaldiak sentitu nituenean, **samurki** besarkatu ninduen, eta gogoan ez ditudan hitzak xuxurlatu zizkidan. **Juan Martin Elexpuru**

Poztu egin zen santua haren sinpletasun garbiaz, eta **samurki** debekatu zion berriri horrelakorik egitea. **Askoren artean**

-Lehen esan bezala -hasi zen, poliki mintzatzen, **samurki** -, txostena osatu gabe daukat, baina hitzez aurreratuko dizut jartzeko asmo dudana. **Migel Angel Mintegi**

Bularra ukitu zion, eta esku-ahurrean hartu zuen **samurki**. **Ibon Uribarri**

Ikastetxearen atarian geratzen zen, oharkabean bezala, **samurki** beldurturik, neguaren lehenengo bufadekin udazkeneko orriak han aurreko zuhaitzetatik zelan erortzen ziren begira bezala. **Joseba Sarrionandia**

2 irud/hed

Hurrengo, egun batzuetan bederen, whiskiak **samurki** tratatu eta beratu zuen Morse andrea, harengana laguntza eske jo zuen estreinako aldian bezalatsu. **Mirentxu Larrañaga**

Trenak goizean goiz utzi zuen Paris, **samurki** eta zarata handirik gabe, hiria esnatzeko beldurra balu bezala. **Anjel Lertxundi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

samurki besarkatu (3); **samurki maite** (4)

samurkiro *adlag* samurki.

Frantxua beha zegokion **samurkiro**, aspaldian egia aitortu bailion ez zuela gaurkoan horrelako krisiari jasanen pentsuz harilkatzen. **Itxaro Borda**

Eta irudia **samurkiro** eta errukiz mintzatu zitzaion: "Frantzisko, ez al duzu ikusten nire etxea erortzen ari dela? **Askoren artean**

Erizain oso polit baten besoetan azaltzen nintzen, gelako kristalaren beste aldean nire aita gazte **samurkiro** hunkituaren irudia, bere umeari irribarre eginez, gain-inpresioan bezala ageri zela. **Joxan Elozegi**

Familiaren, ahaideen eta adiskideen negar hipakoak aditu ziren, kanpotik sartzen zen haize arinak hilkutxaren gaineko ikurrinaren kantoiak altxatzen zituela, **samurkiro**.

Itxaro Borda

samurlari *iz ipar*

Jenden artean izatu banaiz bereizle **samurlaria**. **Herria**

samurraldi *iz* samurtasunezko aldia.

Poz edo etsimenduzkoak, onerako edo txarrerako **samurraldi** gordinenak. **Iñaki Segurola**

Poz edo etsimenduzkoak, onerako edo txarrerako **samurraldi** gordinenak, **Iñaki Segurola**

samurtasun 1 *iz* samurra denaren nolakotasuna. ik biguntasun.

Denda baten paretan axuriaren **samurtasuna** gorai patzen zuen iragarki bat irakurri nuen. **Itxaro Borda**

Bularreko haur baten **samurtasunaren** gisako bat. **Josu Zabaleta**

2 irud/hed

Larruazalaren kontaktua behar dugu, haren berotasuna, ezpainen berotasuna, eskuen **samurtasuna**. **Luis Elberdin**

Gure gorputz osoak parte hartzen du esperientzia sexualean: hormonek, burmuinak, hipotalamoak, larruazalak, hatz mami **samurtasunak**, ezpainen sentsualitateak, mihi heze eta jostariak [...]. **Luis Elberdin**

Esku dotorea zen, eta haren atzamar leunek aldi berean indarra eta **samurtasuna** erakusten zuten. **Patxi Zubizarreta**

Doriarraren izaera zuhurra eta korintoarraren **samurtasuna** nahastuz ederki lortzen baita haien izateko moduari dagokiona. **Santiago Iruretagoiena**

Taniak bere **samurtasun** bereziarekin besarkatu ninduen. **Jon Muñoz**

Emakumeekin batere harremanik izan ez duen gizonaren **samurtasun** traketsaz. **Jose Morales**

3 norbaitenganako sentipen edo joera samurra.

Samurtasuna hitz ederra da, esanahi sakonekoa, eta beti maitasunari eta txerari lotua. **Luis Elberdin**

Samurtasuna eta pasioa ez dira kontrakoak, elkarren osagarriak baizik. **Luis Elberdin**

Andrésen jolasari segitu nahi izan diozulako **samurtasuna** sentitu duzu zure barrenean. **Lourdes Oñederra**

Baten **samurtasuna** ederresten zuen, bestearen indar basatia. **Itxaro Borda**

Aspalditik baitzerabiltzan gogoan bere nagusiaren **samurtasuna** lapurtzen zion arrotzaren kontrako mendeku asmorik beltzenak. **Josu Zabaleta**

Hura ikustera joaten zara, maitale baten **samurtasunaz**. **Josu Zabaleta**

Begirada **samurtasunez** bete zitzaion, zorioneko zerbaitek txunditu edo gauza bitxiren bat aurkitu balu bezala. **Fernando Rey**

-Prefektua delako -esan zien amak **samurtasunez** -. **Iñaki Mendiguren**

4 (izenondo eta izenlagunekin)

Annyk irribarre egin dit bat-batean, hain **samurtasun** agerikoaz non malkoak etorri baitzaizkit begietara. **Monika Etxebarria**

Taniak bere **samurtasun** bereziarekin besarkatu ninduen. **Jon Muñoz**

Samurtasun eta gupida miragarriz makurtzen zen gorputzeko edozein minez atsekabetuta zeudenengana. **Askoren artean**

Ez nuen ezagutuko bihotzean igotzen ari zaidan **samurtasun** eder horren berri. **Josu Zabaleta**

Landarekiko **samurtasun** handia gordetzen zuen bihotzean. **Karlos Zabala**

Etiketik urrun, aita **samurtasun** abstraktu baten ziurtasuna izan zen niretzat. **Joseba Urteaga**

Ahizparen ondoan etzan da kolpean, **samurtasun** historikoz. **Xabier Paya**

Ebek apurtzen ez den benetako **samurtasuna** eman zidan. **Sonia Gonzalez**

Nonbait, bihotzeko **samurtasun** guztia husteko gogoan zuen. susmatu ezineko **samurtasun** batez jaso zuen jaioberria. **Jose Morales**

Hireganako **samurtasun** halako bat sentitzen diat **Eskarne Mujika**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Marta odol hotzeko eta kalkulataile haren barruan bazela **samurtasun** puska bat, denbora asko baino lehen [...] azaleratuko zena. Harkaitz Cano

Ama gazteak ez zuen inoiz horrelako amodio eta **samurtasun** oparirik erdietsi. Itxaro Borda

Ez **samurtasun** keinurik. Itxaro Borda

Lepic jaunak, **samurtasun** erakustaldien etsai, zirikatuz baino ez du azaldu semea berriz ikustearen poza. Itziar Otegi

Maitasun eta **samurtasun** beharra dauka. Josu Zabaleta

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Halako seme **samurtasun** bat sentitzen dut harenganako. Josu Zabaleta

Hegoalderantz abiatzen dira, han ongiatorria egiteko bihotz-**samurtasunik** balitz bezala. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

samurtasuna eta **maitasuna** (3); **samurtasuna** eta **pasioa** (4)

samurtasunez **betea** (3); **samurtasunez** **beteak** (3)

samurtu, samur(tu), samurtzen 1 da/du ad samur edo samurrago bihurtu. ik bigundu.

Okelak ez dira sosarekin **samurtzen**. Berria - Kultura

Haren aldera **samurtzen** zaio bihotza, berriro ere. Oskar Arana

Damuak harrizko bihotzak ere **samurtzen** ditu. Bernardo Atxaga

Begira, ez dizut negar eragin nahi, ez dut zure bihotza **samurtzeko** premiarik. Ander Irizar

Eta, nola diren gauzak, bihotza oraindik ere **samurtu** egiten dit gogoratzeak. Ramon Saizarbitoria

Bihotz **samurturik** zegoen guztiz. Karlos Zabala

Horrelakoetan bigundu eta **samurtu** egiten zitzaion arima, eta malkoz betetzen begiak. Jose Morales

Aseak **samurtutako** bere eskuak igurtzika zebiltzan nire titiburuetan. Juan Martin Elexpuru

Ez dute ezer txarrrik errituek, une zailak **samurtzeko** asmatu ziren. Oskar Arana

Sendagileak mina sendatzen du, mina **samurtzen**, leuntzen du, baina ez daki mina zer den. Felipe Juaristi

Irteerakoak, txirrista forma izango luke nolabait esateko, eta bere eginkizuna itzulbidea leuntzea, **samurtzea** izango litzateke. Bernardo Atxaga

Hasierako harreman txarrak **samurturik** daude nonbait, eta Ramuntxoren berri jakin zutenean kartzelara joan ziren bisitara Joseba Barrera presidentea eta Aitor Asua juntaren ordezkaria, haiek ahal zuten babes eta eragin guztiarekin. Pako Aristi

Juanluisek egoera **samurtu** du, dena baino oraindik modu amultsuagoan niregana zuzenduz. Eider Rodriguez

Uste dut erorikoaren kolpea **samurtzeko** dagoela hemen. emakumeen eta gazteen «egoera latza» **samurtzen** saiatuko da Jaurilaritza. Iñaki Mendiguren

Turkiako federazioak zigorra **samurtzeko** egin zitzakeen trikimailuak saihestu nahi izan ditu FIFAk. Berria - Kirola

2 (pertsonak)

Elizkizunean Flora negarrez ikusteak **samurtu** egin ninduen. Ramon Saizarbitoria

Ez daki bere trakestasunak **samurtzen** nauela hain zuzen. Josu Zabaleta

Inurriek, langile nekaezin burutsu horiek, guztiz **samurtzen** zuten. Josu Zabaleta

Hunkituta nengoen, erabat **samurtuta** ... eta amets egiten hasia-, lasai hitz egin ezazu, luze eta zabal. Migel Angel Mintegi

Peter Ansorena eta biok ginen ataka berean, eta, eginahalak eginda ere, ez genuen lortu aita Altuna **samurtzerik**. Joxerra Garzia

3 (era bururuta izenondo gisa)

François-ek hartu zuen, orduan, bi besoetan, eta bere anaia zaharrenaren oinetan bota zuen, ahots **samurtu** batez hari esanez: [...]. Josu Zabaleta

4 erraztu.

Laster, baina, ezinak alboratu eta testuen eta web orrien euskarazko itzulpenak automatikoki egitea posible izango da; itzulpenen lan nekeza **samurtu** egingo da. Berria - Harian

Ibildea **samurtu** nahi izan dugu, baina horrek ez du esan nahi txiririndulariet zailtasunik izango ez dutenik. Berria - Kirola

• 5 da ad ipar haserretu.

Badakite, **samurtzen** direlatik, elgarri laster barkatzen. Herria

Haste hastetik nahi dauzot erran ez girela **samurtuko** eztabada hunen gatik, baktotxak bere iritzieren emaiteko eskubidea baduelakotz. Herria

Zenbat intuizio, zenbat idazki ez ote ditu sortarazi, oihanetan zebilela, bakarrik, norbaitekin **samurturik** bere koska ezin heziz, edo munduari bere jeinuaren mezua botatu nahiz? Piarres Aintziart

Dakiguna da komentuko apez eta fraileak arrunt **samurtu** ere zirela Ziburu eta Donibane bi parropietako apezekin. Herria

Anitz zen, eta nik ahal nuena egiten nuen hura **samur** ez zekidan. Marzel Etxehandi

Samurtzen da eta barkamendu galdatzen du. Herria

Biziki **samurtua** naiz, polit hori, bai zu ikusteko plazerraz gabetu nauzulako, bai eta gabetze horren kausaz ere. Jon Muñoz

6 samurtzearren adlag samurtzeko.

Eginahalak eta bi egin dituzte besteek niri gauzak **samurtzearren**. Mirentxu Larrañaga

samurtze iz samur edo samurrago bihurtzea.

Baliteke nire **samurtze** honen errudun nire irudimena baizik ez izatea. Josu Zabaleta

san (8463 agerraldi, 215 liburu eta 2428 artikulutan; orobat sen g.er.) 1 kristau erlijioiko santu bat aipatzean aurrean ezartzen zaion hitza. ik santo; santa; done; jondoni.

Kristau-ankoretak, **San** Antonio basamortuan edo **San** Simeon zutarrian. Iñaki Mendiguren

San Paulo maisu ospetsuak hitz hauek esaten ditu bere gutunetako batean: [...]. Joan Mari Lekuona

Ez zen izan, dio **San** Agustinek, lege bidegabeagorik. Iñaki Iñurrieta

San Joan Bataiatzailearen jaiotza. Patxi Altuna

San Frantziskoren irudia bere idazkietan. Askoren artean

Lehen puntua da, **San** Gabriel aingeruak Andre Maria agurturik, Kristo gure Jaunaren gizon egitea adierazi ziola. Patxi Altuna

2 (gauzen izen gisa)

Ordu bat barne, Zuriain, **San** Millan elizaren gerizapean oraino lokartua. Piarres Aintziart

Bere omega eskumuturrekoari begiratu zion, **San** Pedroko elizan ordua egiaztatu ondoren. Ramon Saizarbitoria

Gurean, **San** Migel Goiaingeru Aralarako gainera, beste dozena bat mendi kate eta lerrotan badira ermitak, [...]. Pello Zabala

Hiriko domingotarren komentuan behin baino gehiagotan **san** Tomasen hilobia agurtzen izan zen. Piarres Xarriton

Txaneltxoa **San** Salvador ontzikoa zen, hartantxe baitzegoen armadako pagatzailea. Edorta Jimenez

San Anton egunez debekatuta zegoen abereak lotzea: uztarrian lanerako, alegia. Pello Zabala

San Joanetan iritsi zen beranduenera: 9ak eta 49 minututan hartu ohi zuen erretiroa orduan. Pello Zabala

San Agustinetan dantzan eta edanean arituta, Brinkolatik behera bide zaharretik zetozela, [...]. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aita san frantzisko (12)

san adrian (12); **san adrianen** (10); **san adriango** (17); **san agustin** (64); **san agustinek** (48); **san agustinen** (45); **san andres** (114); **san andres elizan** (17); **san andres plazan** (14); **san andreseko** (22); **san andresen** (14); **san anton** (50); **san antoni** (12); **san antoniko** (15); **san antonio** (169); **san antoniok** (106); **san antonioko** (24); **san antonioren** (25); **san antoniori** (23)

san bartolome (44); **san bartolomeko** (8); **san benediktoren** (14); **san benito** (8); **san bernardo** (12); **san bizente** (34); **san bizenteko** (13); **san blas** (36); **san bonabentura** (8); **san bonabenturak** (19); **san bonabenturaren** (15)

san cristobal (19)

san damian (37); **san damian eliza** (12); **san damianen** (17); **san damiango** (24)

san esteban (31); **san fermin** (130); **san fermin torneoa** (9); **san fermin torneoa** (8); **san fermin torneoa** (9); **san fermin torneoko** (40); **san ferminak** (11); **san ferminetako** (20); **san ferminetan** (17); **san fernando** (32); **san fernandoko** (15); **san fernandoren** (8); **san floreano** (8); **san francisco** (100); **san francisko ko** (11); **san franciscoko** (16); **san franciscon** (41); **san franciscora** (8); **san frantses** (78); **san frantses xabier** (16); **san frantsesen** (22); **san frantzisko** (385); **san frantzisko agertu** (9); **san frantzisko auzoan** (9); **san frantzisko bere** (11); **san frantzisko elizan** (11); **san frantzisko kalean** (8); **san frantziskok** (330); **san frantziskok bere** (15); **san frantziskok erantzun** (13); **san frantziskok esan** (26); **san frantziskoko** (74); **san frantziskon** (57); **san frantziskora** (15); **san frantziskoren** (271); **san frantziskorengana** (11); **san frantziskori** (79); **san frantziskotik** (9)

san giovanni (9); **san giovanniko** (18); **san giovannin** (11); **san gregorio** (28)

san ignazio (13); **san ignazioren** (8); **san inazio** (50); **san inaziok** (9); **san inazioren** (22); **san isidro** (33)

san jeronimo (13); **san joan** (113); **san joan bataiatzailea** (8); **san joanek** (21); **san joanen** (19); **san jordi** (8); **san jorge** (23); **san jose** (85); **san josek** (14); **san josep** (84); **san josep eskola** (8); **san josep eskolako** (26); **san josep eskolan** (9); **san josep parkean** (8); **san josepe** (68); **san josepe eskola** (9); **san josepe eskolako** (20); **san jua**n (167); **san jua**n bautista (8); **san jua**nen (17); **san juda** (10)

san klemente (11); **san kristobal** (14); **san kristobal**go (8)

san leon (33); **san leon elizan** (8); **san leonen** (12); **san lorentzo** (15); **san lorenzo** (15); **san luis** (15); **san luisek** (17); **san luisen** (34); **san luisen establezimenduak** (8); **san lukas** (11)

san marco (20); **san marko** (12); **san markos** (90); **san markos mankomunitateak** (14); **san markos mankomunitateko** (14); **san markosek** (8); **san markoseko** (49); **san markoseko zabortegia** (13); **san markosen** (15); **san martin** (169); **san martinek** (32); **san martinen** (35); **san martzial** (10); **san mateo** (19); **san mateoren** (8); **san matias** (11); **san migel** (72); **san migelek** (12); **san migeleko** (9); **san migelen** (13); **san miguel** (104); **san miguelek** (36); **san miguelen** (12); **san mikel** (20); **san mikel goiaingeruaren** (9); **san millan** (13); **san mixel** (98); **san mixel eskolako** (10); **san mixel garikoitz** (41); **san mixel kolegioko** (11)

san nicolas (8); **san nikolas** (54); **san nikolasen** (9)

san pablo (11); **san pantzar** (12); **san pantzarren** (14); **san paulo** (15); **san paulok** (31); **san pauloko** (8); **san pauloren** (13); **san pedro** (173); **san pedrok** (29); **san pedroko** (29); **san pedron** (13); **san pedroren** (24); **san pedrotan** (10); **san petersburg** (11); **san petersburgen** (15); **san petersburgo** (10); **san petersburgoko** (19); **san petersburgon** (19); **san petersburgora** (11); **san petri** (24); **san petri plazan** (8); **san prudentzio** (44); **san prudentzio txapelketa** (8)

san remo (53); **san remoko** (13); **san remon** (26); **san roke** (20)

san salvador (61); **san salvador ontzian** (9); **san salvador ontziko** (10); **san sebastian** (107); **san sebastian egunez** (9); **san sebastianek** (12); **san sebastianen** (8); **san simon** (13)

san telmo (129); **san telmo hondartza** (8); **san telmo museoa** (21); **san telmo museoan** (24); **san telmo museoaren** (9); **san telmok** (8); **san telmoko** (10); **san telmon** (10); **san telmoren** (8); **san tomas** (28); **san tomakek** (27); **san tomasen** (14)

san vicente (35)

San Joan *(orobat sanjoan, sanjuan eta San Juan g.er.)* 1 iz San Joan eguna.

San Joan goizean goiz jokatu behar diren ohiturak dira, bezperako sutzarraren errautsetatik ke poxi bat airera doan bitartean. Pello Zabala

Udako **San Joan** inguruko solstizioatik. Pello Zabala

Lotia denari, **sanjoan** loa duela esan ohi zaio. Pello Zabala

2

Hein handi batean, **San Juan** jaietan izan zuen sorrera, 80ko hamarkadaren hasieran. Berria - Kirola

San Joan festetan emanaldiak eskaini zituzten diskoan parte hartu duten talde guztiek, eta uda ondoren ere segida izango dute zuzeneko saioek. Berria - Kultura

3 San Joan bezpera

San Juan bezpera hartan suak egin genituen. Joseba Sarrionandia

Azken urteotako **San Joan bezpera** guztietan bezala, jaietxe txinatarrean elkartu gara. **San Joan bezperan**, ilunabarrean, mendi kaxko horretara zihoazen gizaseme guztiak, adineko eta gazte. **San Joan bezpera** gauean heldu ziren hondartzara. Iban Zaldúa

Mirariak gertatu ziren ibaiaren ertzean **San Joan bezperako** iluntze hartan. Edorta Jimenez

Ez zen futbola **San Joan bezperatako** jolas bakarra. Urtzi Urrutikoeetxea

4 San Joan egun

Ez badakizu ere, gaur **San Juan eguna** da. Bernardo Atxaga

Hala berean, **San Joan eguna** zen moroen arteko festegunik handiena. Patziku Perurena

Eskuetan dudan ohol hau eta azpikoa **San Joan egun** batez lapurtu genituen. Harkaitz Cano

Ohi bezala, 1948ko **San Juan egun** hartan ere Gail Halvorsen hegazkin-gidari estatubatuarrak, bere DC-3a hartu, eta hainbat aldiz zeharkatu zuen Berlin suntsitu, garaitu, gosetuaren zerua. Joxerra Garzia

San Joan eguna pasatuta ere, txondorraren sabelean suak iraungu zuela esaten zuten batzuek. Hasier Etxeberria

San Joan egunez, herri osoa lizar-arbaztaz egindako koroak alderdi eta baxter orotan kokatzen ibili ohi da. Pello Zabala

Kronika hau argitaratzen denean, aldiz, **San Joan Egunaren** bezpera izango da. Edorta Jimenez

5 San Joan gau

Beraz, aurtengo **San Joan gauean** ere, une batez, harriak ogi eta urak ardo bihurtuko dira. Martin Anso

Katalunian **San Joan gaua** beharbada gurean baino garrantzitsuagoa baita. Edorta Jimenez

Guk **sanjoan** gauez bezala, zeltiarrek apirilaren 30 gauean, egundoko sutzarrak pitzen zituzten. Pello Zabala

XVI. mendean, dozena bat katu bizirik erretzen zuten sutan Parisen **San Joan gauean**, hiritarren pozkarioa festa honetan guztizkoa izan zedin Joxe Azurmendi

6 San Joan su pl

Biztanleek erre zituzten, eta, dena esan behar denez, sute horiek **San Juan suen** pareko izan ziren. Koldo Izagirre

Guk ere badugu **San Joan sutara** zer jaurti. Edorta Jimenez

Leizara etorri berri hartan, hura poza gurea, herri inguruko bazterretatik **Sanjoan sutarako** epuruketan. plazako bazterretan, haizeak harroturik, **sanjoan suko** piltzar errausturen bat, garbitzaileen erratzei temoso ihes egindakoa. Patziku Perurena

Nafarroako herri eta auzo askotan, **sanjoan suarekin** guztiz lotua ageri da sarna. Pello Zabala

San Joan suak utzitako hautsak botere sendagarriak zituen. Joseba Zulaika

sanandres *(orobat san Andres) iz pl* San Andres jaiak; San Andres inguruko egunak.

Nazabal, gainera, erakustaldietan murgilduta ibili da **sanandresetan** eta santotomasetan. **Berria - Kirola**

San Andresetan, elurra ankazpitan. **Pello Zabala**

sanatorio *iz* sendategia.

Pasillora joan naiz, zapatak eskuan eta oin puntetan noa zaratarik ez egiteko, eta **sanatorioaren** aurrealdeko logela batera sartu naiz. **Joseba Sarrionandia**

Maryren aitak berdin segitzen du; dena dela gelak lortu ditugu **Sanatorio** moduko batean, Gulfporten, Gorriarengana jaitsi naiz, **sanatorioko** ordu garden eta mantso, luze eta hutsetara. **Edorta Jimenez**

Ricardo, gaztetan krisialdi bat izan eta **sanatorio** psikiatrikotik pasatu zena, eta orain artikulu bat argitaratu berri duena sendagileek gizartean duten botereaz. **Bernardo Atxaga**

Mugaz bestaldeko udaleku batean zeuden haurrak 1937ko abuztuan Gorlizko **sanatorio** -ospitalera herriratu zituztenean faxistek euren garaipen moduan ospatu zuten gertaera. **Jokin Urain**

sanba *(6 agerraldi, 3 liburu eta 2 artikulutan; orobat samba 10 agerraldi 9 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian sanba agertzen da) 1 iz* brasidar etorkiko dantza, erritimo bizikoa.

Tristeziarik gabeko **sanba** bat mozkortzen ez duen ardoa da. **Ramon Saizarbitoria**

Zatoz, Cumparsita, **sanba** bat dantzatuko dugu eta. **Pello Lizarralde**

Bat-batean etzanda jartzen dira, elkar besarkatzen dute eta, hitzik esan gabe, **sanba** dantzatzen hasten dira elkarrekin, sarritan gertatzen dira horrelakoak. **Karlos Zabala**

Zu zeu **samba** entzuten hazi zinen. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Iparraldeko kanten leloak datozkigu beti burura, eta Alejadinho eskultore barrokoa, eta **sanba** eskolak, futbola, inauteria eta São Pauloko makarroiak. **Karlos Zabala**

Aita **samba** konpositorea zen, eta etxean beti egoten ziren musikariak; Baden Powell eta beste hainbat. **Berria - Kultura**

Oskar Lasak **samba** eritmoko neurketa luzeak gustuko ditu, bi edo hiru orduko etenik gabeko piloteoak, hobeago. **Berria - Kirola**

sanbartolome *(orobat San Bartolome) iz pl* San Bartolome jaiak; San Bartolome inguruko egunak.

Aurreneko zazpi krosak **sanbartolomeetan** egin zituzten, abuztu amaieran. **Berria - Kirola**

San Bartolomeak ezkerro, arbiak lurrian eta txaketa bizkarrean. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Gure aitak ere, paper-olan ibili arren, atek itxi eta ireki eta gauean guarda lanak egitea besterik ez zeukan buruan, hurrengo **Sanbartolometako** festa asmoak ez baziren. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gure aitak ere, paper-olan ibili arren, atek itxi eta ireki eta gauean guarda lanak egitea besterik ez zeukan buruan, hurrengo **Sanbartolometako** festa asmoak ez baziren. **Xabier Mendiguren Elizegi**

sanbenito *iz* Inkisizioko epaitegiak zigor gisa ezartzen zuen jantzia; izen ona galarazten duen kalifikatiboa.

Sanbenito: inkisizioak zigor gisa inosatzen zuen ikurra, jantzita eramateko. **Patxi Ezkiaga**

Sanbenito horrekin ibili beharko duzu honezkero. **Joxe Azurmendi**

Berorien kondairak, ez erretzekotan, **sanbenito** bana behintzat merezi luketela jartzea, edota izen txarrekoak eta ohitura onen galtzaileak direla adierazteko ezaugarrien bat. **Patxi Ezkiaga**

sanbernardo *(orobat san bernardo) iz* txakur mota handia, ile zuri eta beltzekoa, berez Alpeetako San Bernardokoa, mendian galduak bilatzen iaioa.

Sanbernardo txakurrak dauden bezala, gurea sanpedro edo sanpaulo bat izan daiteke, eta baterat edo bertzerat dei diezaiokegu, nahi baduzu... **Joan Mari Irigoien**

Egilea erdi ardi-zakur, erdi **sanbernardo** bat zen, txuri-hori bat, Barrieren **san bernardo**, Porthos, 1902an hil ostean, idazleak Ternuako txakur bat eskuratu zuen, Luath izenekoa. **Gotzon Garate**

sanblas *(orobat San Blas) iz pl* San Blas jaiak; San Blas inguruko egunak.

Bi saio geratzen dira soilik Abadiñoko **sanblasak** amaitzeko. **Berria - Kirola**

Lau eguneko bidea egin dute Abadiñoko **sanblasetako** probek, eta bart gaueko markak aintzat hartu gabe, Telleriaren utzarriak egin du markarik onena: 59 itze eta 3,30 metro. **Berria - Kirola**

Idiazabalgo herriak, **Sanblasak** bururatu bezain laster, [...]. **Herria**

Behin, **San Blasetan** Bilbora joan ginan, bera eta Kepa alde batetik eta Roberto eta ni bestetik. **Xabier Amuriza**

sancta sanctorum *(orobat sancta sanctorum) 1 iz* Jerusalemgo tenpluko gune sakratuena.

Sancta-sanctorumean sartu ohi zen, berekin hartuz txekor baten odola, ikatz piztuekin batean. **Joan Mari Lekuona**

2 irud/hed

Orain arte gobernuek bizitza pribatuaren **sancta sanctorum** horretan sartzeko gehienez ere egin dutena ezohiko familia handien gurasoentzat sari negatibo edo positiboak ezartzea izan da. **Iñaki Mendiguren**

Egile eta itzultzaile saiatu batzuk **sancta sanctorum**, olinpotxo eta parnasotxo guztietatik at dauden artean.[...]. **Berria - Kultura**

sandalia 1 iz pl

oinetako arina, zola batek eta honi eusteko hede batzuek osaturikoa, behatzak agerian uzten dituen.

Bazuen buruaren jiran urrezko xingola bat, burdinorizko **sandaliak** oinetan, eta artile eta ereinotzez txirikordaturiko girlandak zeuzkan lepotik. **Juan Garzia**

Bere neskatxa-oin mehe biluzietan **sandaliak** jantzita. **Fernando Rey**

Kale piko harriztatuan zurezko **sandalien** hotsa entzun zen. **Patxi Zubizarreta**

Une hartan, **sandaliak** lotzen ari zen zerrizaina. **Juan Kruz Igerabide**

Sandaliak, lepokoak, eskumuturretakoak, eraztunak eta belarritakoak ere jantzi zituen. **Jose Antonio Mujika**

Oinetan **sandaliak** eraman zitazela, baina aldatzeko soinekorik ez. Elizen arteko biblia

Sandaliak erantziak zituen, oinen alboan baztertuak. Patxi Zubizarreta

Astegunetarako **sandaliak** eta igandeetarako tenisak erosi zituen. Bego Montorio

Badator Darruitx xaharra, **sandaliek**in lurrean putinka... Patxi Zubizarreta

Oinak **sandalietan** baneratu, eta hitzik esan gabe utzi zuen kafe etxea. Patxi Zubizarreta

Abitu-mahukan ezten bat aurkitu zioten, **sandalien** zorua konpontzeko erabiltzen zuena. behatz gorri biluziak ageri zituela larruzko **sandalia** handi batzuen aurreko zulotik. Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sandalia urdinak lokatzez zikindu zituen. oinetan **sandalia** gorriak, odola bera baino minagoak kolorez. Lander Garro

Gizonez mozorroturik agertu zen Atenea, oinetan **sandalia** hilezko urrezatuak jantzirik. Juan Kruz Igerabide

Gona gorria jantzi zion Nereari, bakeroak eta larruzko **sandaliak** Sebaasi. Eider Rodriguez

Jonathan haiengana bildu zen, malba koloreko indiar sari itxurako bat eta sokazko **sandaliak** jantzita. Jon Muñoz

Gomazko **sandaliarik** ezeean aitak besoetan hartu ninduen arroketara igotzeko. Eider Rodriguez

Montmartre tankerako soineko grisa soinean, eta belusezko **sandalia** urdin argiak. Lander Garro

3 (hitz elkartuetan)

Oihalezko soineko bat, melaia maiztu zahar bat, eta **sandalia** zola gastatuak. Patxi Zubizarreta

Urrineztatuturik zeuden haren **sandalia** -zolak. Juan Garzia

Egun batean emakume bat iritsi zen hondartzara eta jantzita zeukan guztia (**sandalia** pare bat) erantzten ari zela, kontsulak, bere onetik aterata, perdigo zaparrada bat bota zion pertsona haren alderik nabarmenenera. Xabier Olarra

Zoaz haren osaba Hasan **sandalia** egilearengana, Kurunfuxura, eta jakinaraz iezaiozu ilobaren heriotza. Patxi Zubizarreta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sandalia pare bat (3)

sandaliak jantzita (3); **sandaliak oinetan** (3)

sandalo 1 *iz Sandalum* generoko zernahi landare; bereziki, sandalo zuria, Hego Asia eta Australiako zuhaitza, zurgintzan erabiltzen den zur argia eta usainduna duena (*Sandalum album*).

Bibliako edo Koraneko hainbat pasartetako lurrin gozo eta hitz are gozoagoak oroitarazten zizkietenak, **sandalo**, intsentsu eta mirra. Joa Mari Irigoien

Intsentsuz, **sandaloz**, azafranez, argizariz, kakaz, espeziatz, jan hondakinez, fruitu ustelez, landarez eta giza izerdiz osatutako usaina. Gotzon Garate

Denetariko zerrikeriak botatzen zizkiok ardoari: **sandaloa**, artelazki errea... Jose Morales

Sandalozko kandelak piztuta. Unai Iturriaga

2 (hitz elkartuetan)

Ondoan, emakume batek **sandalo** -usaina isurtzen zuen. Hiram erregearen ontziteriak ere, Ofirko urreaz gainera, **sandalo** -zur ugari eta harribitxiak ekarri zituen. Lopez de Arana

Erregeak **sandalo** -zurez Jaunaren etxea eta bere jauregia jantzi eta kantariantzat zitarak eta harpak egin zituen. Elizen arteko biblia

Gaindegiko landareetatik, **sandalo** eta menda loreontzietatik, urrin gozozko bafadak iristen ziren. Josu Zabaleta

sandia¹ *iz* angurria.

Berak bezala, andre haiek bere herrian jaten zuten zerbait bilatzen zuten: mohama, txilarra, erromeroa, albahaka, **sandia**, olibak... Jon Maia

Maleta parrillan ipiniko duzu, poltsa, oilo, **sandien** artean. Joseba Sarrionandia

Egun batean, bi **sandia** zeramala aitarekin etxaldera zihoala, mutiko bati begira gelditu zen. Pablo Sastre

Mahatsa eta **sandia** eskaini ditu Danielak. Berria - Harian

Amak ogia jartzen zigun eskolarako txistorrarekin, edo piku, **sandia** edo menbrilo gozoarekin. Arantxa Iturbe

sandia² (*orobat Sandia*) *iz* “urlia”-ren ondoan, beste pertsona ez mugatu bat aipatzeko erabiltzen den izena. **ikberendia**.

Azken batean, zer axola zitzaion irakurleari urliak ilea luze ala motz zuen, **sandia** gizona ala argala zen, berendiak ibilera traketsa zuen. Imanol Zurutza

Urlia pixka bat bortxaka, **sandia** bere kontzientzia lasaitu nahian, berendia ongi pasatu nahirik. Pello Salaburu

Eskabide batekin joango zaio urlia: galdera sorta batekin **sandia**. Patxi Zubizarreta

Urliarentzat literatura gehiegi du saio-liburu bat izateko, eta **sandiak** justu kontrakoa adierazi dio. Anjel Lertxundi

Madriigo bilera hartan hau eta hura ez zirela egon, eta **sandia** eta berendia bai. Jon Alonso

Batzuk Urlia ote zaren esan didate, beste batzuk **Sandia** ote zaren esan didate. Hasier Etxeberria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sandia eta berendia (3)

sandinismo *iz* Nikaraguako higikunde iraultzailea, C. A. Sandino gerrillariaren ideietan oinarritua.

Esaten dute alderdi barruan bi adar daudela: danielistak eta 70eko hamarkadako **sandinismoa** berreskuratu nahi dutenak. Berria - Mundua

70eko hamarkadako gerrako urte gordinetan hedatutako **sandinismoan** sinesten du herriak, klase, erlijio edo lotura politikoak bereizten ez dituen ongizate gizartean.

Berria - Mundua

Sandinismoa boteretik bota zutenean Euskal Herrira itzuliko nintzen esperantzan idatzi zidaten etxetik. Xabier Mendiguren Elizegi

Hierarkia horrek funtsezko rola jokatu zuen hauteskunde garaietan, **sandinismoaren** aurkako oposizioaren alde. Berria - Mundua

sandinista 1 *izond* sandinismoarena, sandinismoari dagokiona.

Eskarmentua eta giza jeneroaren ezagutza sakonagoa eman bazizkidan niri iraultza **sandinistak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Fronte **Sandinistak** sozialismoranzko eraldaketarako gidatutako kontzientziazio prozesuak eragin latzak izan zituen sistema sozial horren kontrakoa ziren gizarte sektoreetan. Berria - Mundua

Gobernua izan zelarik, nazioartean gobernu **sandinistaren** kontrako desorekatze kanpaina bat aldarrikatzen tematu zen Reagan. Berria - Mundua

Terrorismo paramilitarraz Nikaraguako gobernu **sandinista** suntsitzen saiatu ziren Ronald Reaganen mertzenarioentzat Berria - Mundua

2 izond/iz sandinistmoaren aldekoa.

Daniel Ortega Saavedra **sandinistak** tarte handiarekin irabazi zituen. Berria - Mundua

Nikaraguako **Sandinisten** gobernuan lan egin zuela zenbait urtez. Herria

Sandinisten gobernuaren aurka 1980ko hamarkadan borrokatu zen Eden Pastora [...] Managuako alkatetzarako aurkeztu da Nikaraguan. Berria - Mundua

Zu gerrillari izan zinen Nikaraguan, **sandinistekin**. Berria - Euskal Herria

Nikaraguan, esaterako, azaroan egingo dituzte bozak, eta **sandinistak** dira faborito. Berria - Harian

Europak bere parlamentua hautatu zuen, **sandinistek** Somoza bota zuten Nikaragutatik, Khomeini Iranera itzuli zen, eta, Pertiako Sha kanpora bidaliz, erlijioa jarri zuen lurreko arazoak konpontzeko lege. Lau edo bost urteren buruan, **sandinistek** Managuako gobernuia galtzean, beste errefuxiatu euskaldun batzuek alde egin zutenean, Goiok ez zuen berehala ihes egin beharrik izan. Pello Salaburu

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

fronte sandinista (3); **iraultza sandinista** (6)

fronte sandinistak (8)

fronte sandinistako (3)

gobernu sandinistaren (3); **iraultza sandinistaren** (5)

sandios *interj*

-Putak ere ez zaizkiguk hurbiltzen, **sandios**! -jaurti zuen Imanolek. Fernando Morillo

Ai! **Sandios**! Nolako lana! Juan Martin Elempuru / Bego Montorio

sandu ik santu.

sandwich *(orobat sandwix g.er.) 1 iz* ogi karratuaz eginiko ogitartekoa.

Azkeneko tabernan **sandwich** bat eskaini zigan. Iban Zaldua

Parke batean pausatu gara, **sandwich** batzuk jateko. Iban Zaldua

Alabak hanburgesa, **sandwich** eta plater nahasien argazkiei begiratzen die. Pako Aristi

2 (izenondoekin)

Guk ondo ezagutzen genituen taberna hartako **sandwich** hotzak, barra gainean dotore-dotore eskainiak. Iban Zaldua

Marina neska ezin ederragoak indioilar haragizko **sandwich** bikoitzak eta kafe izoztuak zerbitzatu zizkigun, Beharbada **sandwich** bejetalak baino gauza goxoagorik aurkituko dut. eroan diogu **sandwich** bizi-bizia, eta bloodymarya, eta joan gara gure lekura, abadearen erreakzioa zein izango den itxarotera. Oskar Arana

Dutxatu, **sandwich** ñimiño bat prestatu eta telebista aurreko besaulkian jesarrita jan. Jon Arretxe

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kabiar **sandwich** batek. Xabier Olarra

Afaria: gazta-**sandwich** eta banana-erdi bana. Joxe Austin Arrieta

Afaltzeko ordua zela eta, gose zegoenez, gazta eta urdaiazpiko **sandwich** bat eskatu zuen garagardo batekin. Joxemari Iturralde

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gero tea hartuko zuten, eta bina **sandwich**-triangelu jango zituzten, bezpera gauean geratutako oilasko-hondar xehatuz eginak Mirentxu Larrañaga

5 irud/hed

Snowboardeko taulen kasuan **sandwich** motako material oso arinak erabiltzen dira, baina beti ere poliuretanoa oinarri hartuta. Berria - Gaiak

Sandwich horretako nukleoan, egurraren ordeaz, material termoplastikoa erabili, beste propietate asko emateaz gain, taula merkeagoak eta hezetasun gutxiago jasoko dutenak lortu nahi dira. Berria - Gaiak

sandwix ik sandwich.

saneamendu *(orobat saneamentu g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian saneamendu agertzen da)* 1 iz ur zikinen kudeaketa. ik sanotze.

Ez dugu bukatua oraino Baionako **saneamenduaren** gaia, nahiz legez hirigune elkargoak duen eskutan hartua. Herria

Bost gai proposatu zituen, lehentasun gisa: ura eta **saneamendua**, energia, osasuna, nekazaritza eta biodibertsitatea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Diru honek behar gorrian diren palestinarrei elikadura, ur edangarria eta **saneamendurako** bitartekoak emateko balio izango du. Berria - Mundua

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Amerikak eskaintzeko daukana: konforta, munduko **saneamendu** -instalaziorik onena, ready for use, mundua Ezerez amerikalera. Joxe Austin Arrieta

Saneamendu azpiegiturak egin ziren, eta murriztu kobrea (%59) eta zink mailak (%78), baita fosforodun konposatuak ere (%89). Berria - Euskal Herria

Diru horrekin **saneamendu** zerbitzuak duen kostua ordaintzen da. Berria - Euskal Herria

GMek bihar ofizialki aurkeztuko duen **saneamendu** planarekin 500 milioi euro aurreztuko dituk. Berria - Ekonomia

Langilea, **saneamendu** lanetan ari zela, hondeatzeko makinak harrapatuta hil zen. Berria - Ekonomia

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Herri **saneamendura** loturik ez dauden etxeen %90 inguruk ez dituzte Europako arau berriak betetzen. Berria - Euskal Herria

4 saneamendu sistema ur zikinen sistema.

Abertzaleen batasunak 99 ko urrian salatua zuen jadanik **saneamendu sistema** zaharkitua zela. Herria

Dirudienek hiriak nahi baitzuen POS eremu antolamendu plana berri, administrazioak nahi izan bide du uren eta **saneamendu sistema** ikertu. Herria

5 saneamendu sare ur zikinen sarea.

1998an Aturri-Garona agentziarekin osatu hitzarmenez geroztik, **saneamendu sarea** egokitzeko 60 milioi euroko inbertsioak egin dituzte hiri elkargoan. Berria - Euskal Herria

Noiz egongo da **saneamendu sarea** osoki amaituta? Berria - Euskal Herria

Aldundiak Bizkaiko udalerrietako bigarren mailako hornikuntza eta **saneamendu sareak** berriitu ditu azken urteetan. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

saneamendu sarea (3)

saneamentu ik **saneamendu**.

saneatu, sanea(tu), saneatzen **1** du *ad* saneamendua egin. ik **sanotu 2; drainatu**.

Ibai hura kanalizatuz **saneatu** dituzte bazterrak, zingira kiratsuak larre naro bilakaturik. **Karlos Zabala**

172 milioi euro baino gehiago erabiliko ditu Jaurilaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendurako Sailak Gipuzkoako ibaietako arroetan ertzak lehengoratzeko, uholdeei aurre egiteko eta inguru **saneatzeko** lanak egiteko. **Berria - Euskal Herria**

2 pertsona edo enpresa baten ekonomia edo ondasunak egoera onean jarri.

Norvegiarrek 50 milioi euro pagatuko dituzte beren zatiaren truke, eta Alstomek, berriz, 350 milioi inbertituko ditu finantza egoera **saneatzeko**. **Berria - Ekonomia**

2000an, kinka larrian zegoela, Moulinexek bat egin zuen Brandt **saneatuarekin**, baina biren bat egiteak ez zuen porrota eragotzi. **Berria - Ekonomia**

3 sanotu.

Lege unibertsala da hori: jarri saski batean sagar sano batzuk eta ustel bakar bat: sanoek, gehiago izanik ere, ez dute **saneatuko** ustela: ustelak ustelaraziko ditu sanoak.

Joxerra Garzia

Zabal leihoak, etxeko bazter denak argiz eta airez **saneatzeko**. **Pello Zabala**

saneatze *iz* saneamendua egitea.

Bereizkuntza analitiko bizitzaren **saneatze**, desinfektatze lan bat izango litzateke. **Josu Zabaleta**

Herriko **saneatze** horniduran egiten ari ziren lanen ondorioz aurkitu dute hilerrria. **Berria - Gaiak**

sanedrin *iz* antzina, juduen kontseilu nagusia, erlijio, justizia eta administrazio gaiez aritzen zena.

Nazaretoko semea, hutsik gabeko gizona, errurik gabe heriotzara kondenatua duten bezala, hala daramate urkamendira herri errukarri eta hobengabe hau; Erromaren lekuan jarri Espainia, **Sanedrinaren** lekuan jarri Vatikanoa, eta goitik behera betetzen da analogia. **Xabier Mendiguren Elizegi**

sanfermin (*orobat San Fermin*) *iz pl* San Fermin jaiak; San Fermin inguruko egunak.

Ataun Zugarramurdi Lesakako **Sanferminak**. **Lutxo Egia**

Gogora etorri zaizkio aspaldiko **sanfermin** haiek. **Jokin Muñoz**

San Ferminak hasten ziren, eta hango lagunekin bazkaldu eta egun aztoratuagoa pasatzea nahiago zuen, baina... **Pako Aristi**

Sanferminetako torneoa, urte guziz Iruñeko ferietan jokatzen dena ez dute Goñitarrek irabazi. **Herria**

Sanferminetako torneoa, urte guziz Iruñeko ferietan jokatzen dena ez dute Goñitarrek irabazi. **Herria**

Sanferminetako elastikoa. **Patziku Perurena**

«Hitzordu berezia eta oso garrantzitsua da guretzat **Sanferminetakoa**. **Berria - Kirola**

Idazlea askotan etortzen zen **Sanferminetara** -diost Untzainen ilobak-. **Edorta Jimenez**

1936an, lau garaztarrek deliberatu zuten behar zutela **Sanferminetara** joan. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Sanferminetatik heldu berria. **Jose Angel Irigaray**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurtengo sanferminetako (4)

sanfranciscotar *izlag/iz* San Franciscokoa, San Franciscori dagokiona; San Franciscokoko biztanlea.

Miraria bailitzan, misio hartako iturri santua izan zen **sanfranciscotarren** egarria leuntzeko gai izan zen bakarra. **Pello Salaburu**

sangaratze ik **sangratze**.

sangratu, sangra(tu), sangratzen (*corpusean sangreatu soilik*) du *ad* odolustu.

Eta ez zen irri egitekorik: mextak sutan, kabalak **sangreatuak**, neskatxak bortxatuak eta umeak urkatuak, harkiek makila ukaldika kalituro FLNko errebeldeak, soldaduek erititilla higitze beharrik gabe. **Itxaro Borda**

Aita **sangreatu** zuten duela sei urte Cassie iragarlearekin Verdundik herriratu zenean. **Itxaro Borda**

Soizan nola eginen dugun: ahalik ohore handiengan errezibituko dinagu, apailatuko diogun bainura gonbidatu eta, bargo gurintsuaren pare, trebeki eta halabiz batean

sangreatuko. **Itxaro Borda**

sangratze (*corpusean sangaratze soilik*) *iz* sangria egitea.

Sarasolak eta Zuazok gaixotasunaren sendatzeko ohiko sendagarriak erabili nahi izan dituzte: sendabelarrak, **sangaratze** arinak ebakuntza larriegirik gabe, eta abar. **Pello Salaburu**

sangreatu ik **sangratu**.

sangria *iz* edari freskagarria, urardoari azukrea eta limoi edo laranja zatiak gehituz egiten dena.

Amama **sangria** prestatzen ari zen, sukaldeko ilun nabarrean, kantinan izotz eta laranja zatiak ikusten ziren, urardoan igerian. **Joseba Sarrionandia**

Halaxe esan zion aittitek, galdi gaineke belar metatik jaitsi gabe, heldu berria agurtu eta **sangria** edateko egin zen atsedean uanean. **Joseba Sarrionandia**

23 orenetan, kontzertua eta **sangria** urrik. **Herria**

sanidade¹ iz sanotasuna.

Edukazio gehiago dute xiudadekumeek [...] baina guk gehiago estimatzen dugu **sanidadea**, hain maite dugun herri-giroko **sanidade** hori, baina zoaz zu xiudadanoari **sanidadea** aipatzera: ministerio edo garbiketa zerbitzuren batekin zer ikusia duen zerbitu delakoan geldituko da gaixoa. **Iñaki Seguro**

Eta badakit badela pesimismo modu bat ("onenak emanda gataudek, eta txarrenak hartzeko" dioenarena, adibidez), esperantzadun optimismo etsiaren aldean, beste **sanidade** bat adierazten duena edo dakarrena, beste grazia bat, indar bat, beldurrik eza eta kasik bizipoza ere bai. **Iñaki Seguro**

Zerga eta pagakizun guztiak dira badaezpadaoak, egia, baina herri-jendeak asmatutako txakil-ardo izeneko zerga popular honek, esango nuke baduela **sanidade** bat, jakinduria bat eta arrazoi eder bat: azpiko arrazoi zatar bat agerrarazten duen arrazoi eder bat. **Iñaki Seguro**

sanidade² ik **sanitate**.

saninazio iz pl San Ignazio jaiak.

-Ez: abuztu hasieran esango nuke, **Saninazioak** pasata. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Saninazioetan, Landetako luistarrek San Luisen irudia eraman ohi zuten Loiolako basilikara. **Berria - Kultura**

Bestalde, hurrengo asteburuan, **Saninazioetan**, hainbat elkarretaratzetara deitu dute. **Berria - Euskal Herria**

sanitario 1 izond osasunari dagokiona.

Kontrol **sanitarioa** izango du eta medikuek gomendatuta hartu ahal izango da soilik. **Berria - Harian**

Sagarnoaren ateratzea beste ofizio bat da, horretarako formakuntza beharrezkoa da bio kimikan, baitira ere araudi **sanitario** biziki zorrotzak. **Herria**

Lan egin behar dugu haurdunaldia egoera **sanitario** egokietan eten dadin. **Luis Elberdin**

Hilerrri guztiek bete behar dituzten baldintzak zehaztu ditu, hala nola ingurumenean eta osasun publikoan arriskurik ez izateko baldintza higieniko eta **sanitarioak** betetzen dituela. **Berria - Harian**

Beraz, tarte luze baterako eskarmentua bermatu beharko dute gehigarri ekoizleek, populazioaren egoera higieniko-**sanitarioa** zaintzeko, elikagai jakin bat kalera aitzinetik. **Edorta Agirre**

Plan Sozio-**sanitarioa** tresna garrantzitsua izango da. **Berria - Harian**

2 iz osasun-langilea.

Zain zeuden **sanitarioek** eta guardia zibelek berehala sarrarazi omen zuten anbulantzian. **Iñaki Iñurrieta**

Egun hartan bonbardaketa jasan zuen Bartzelonak, eta hartan lanpetuta zeuden **sanitarioak**. **Jokin Urain**

Arrisku gehien dutenak **sanitarioak** dira, gizarte zerbitzuetan lan egiten dutenak, jendearen aurrean lan egiten dutenak komertzio txikietan adibidez, irakaskuntzan dihardutenak. **Berria - Ekonomia**

Enpresek soldata igoera esanguratsuak soilik gidari eta **sanitarioentzat** eskaini dituzte. **Berria - Ekonomia**

sanitate (orobat **sanidade g.er.**) 1 iz osasun zerbitzuak.

Badira sei urte gazta-tokia egin genuela, eta arau gogorak izan ditugu **sanitatearekin**. **Berria - Euskal Herria**

Apustu egingo nuke kaña horrek ez dituela **sanidadeko** arauak betetzen, pentsatu zuen. **Harkaitz Cano**

2 (hitz elkartuetan) osasun- ik **osasun 5**.

Eusko Jaurlearitzak Hilotzen **Sanitate** alderdiei buruzko Araudia onartu zuen urrian. **Berria - Harian**

Herialde industrializatuetan **sanitate** -urgazle tekniko titulua behar da emagin izateko. Eusko Jaurlearitzak dekretu berria onartu du heriotza **sanitatearen** inguruko arauak berritzeko. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hilotzen sanitate alderdiei (3); **sanitate alderdiei buruzko** (3)

sanja iz ipar aldaketa. (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horra nola Biscoubyk irabazi duen finalarako baimena Parisen, lagun **sanjarekin** aurten. **Herria**

Ukrainako haur horiek aire **sanjan** etorri dira ekainaren 22 an Euskal Herriko familetara eta abuztuaren 29 artera egonen. **Herria**

Gero musika **sanja** beste alderat lehenak ere akitzearekin. **Herria**

sanjamendu iz ipar aldaketa.

Aljerian, apirilaren 8ko bozkek ez dutela **sanjamendu** haundirik ekarriko, ez dute mentura egiazkorik gazteek bederen. **Herria**

sanjatu, sanja, sanjatzan da/du ad ipar aldatu.

Aste huntan ez da aldaketarik izanen zeremonia edo parropiako mezetan, baina kasu helduden hilabetean, larunbat aratseko mezaren tenorea **sanjatuko** da. **Herria**

Orain Husseinen estakuruak joanak baitira, politika hori **sanjatu** dute. **Herria**

Merkatu berri batzuri buruz goatzu hala nola *Carrefour* eta *Leclerc*, beharrez beharko dugu gasna parte baten egiteko moldea **sanjatu**. **Herria**

Hori **sanjatzerat** doa, erran dugun bezala, orduak zabalagotuz. **Herria**

sanjoan (orobat **San Joan g.er.**, **sanjuan** eta **San Juan g.er.**) 1 iz pl San Joan jaiak; San Joan inguruko egunak.

Sanjoanak tradizio handikoak izan dira gurean ere. **Pello Zabala**

Sanjuanak ezkerro, ordea, etengabeko festa-soka dago aukeran, soka-saltoan ibili nahi duenarentzat. **Joxerra Garzia**

Sanjoanetan hemen ere festa izaki, sobratutako suzko baloiak hegan egin zuten asteazkenetik ostegunerako gauean, herri baten pozaren metxari su emanez bezala. **Berria - Kirola**

Iturriotzera iristeko, Ernio mendiko magaletan, hiru ordu behar omen zituen Sakabik, eta Egañazpik berak soinuaren kargarekin laguntzen omen zion **sanjoanak** zirenean. **Berria - Kultura**

Tolosan azoka berezia azin ekainaren 16an **Sanjoanetakoa** urtero egiten dutena. Berria

Hurrengo eguna ekainaren hogeita lauaren bezpera izango da, **sanjoanak**. Joseba Sarrionandia

Napumoceno jaunaren trajeak berritatz jo zitezkeela Estrela Plazara eramandakoan ere, gutxitan ikusten baitzuten eguzkia, **sanjoanetan**, Corpus Christi egunean, Gabon edo Urteberri egunean gertuenekoei nahiz Gobernadoreari egin beharreko bisitetan besterik ez. Bego Montorio

2 **sanjoan-belar** (orobat **sanjuanbelar**)

Sanjoan belarrak ere, millorria eta beste, komeni zen bezperako sutan esku-sortatxo bat aparte erretzea. Pello Zabala

Ur gehixeago edatea ez dator batere gaizki, sendabelarren baten laguntzarekin hobe, **sanjuanbelar** edo millorri xorta bat, edo santiobelar puxkatxo baten tisanatxoa prestatuz. Pello Zabala

sanjoandar *izond* San Joan apostoluari dagokiona.

Hizkuntza da, hitza, kasik balio teologiko **sanjoandar** batean (eta hainbat eratan Renan gogorarazten duen arren, inon ez da nabaritzen Herder edo Humboldt-en oihartzunik urrunekoena ere). Joxe Azurmendi

sanjose (orobat **San Jose**) *1 iz pl* San Jose jaiak; San Jose inguruko egunak.

Uzkudunen idiek osatu dute Bakioko **Sanjose** podioa. Berria - Kirola

Badakit negu hartan elurretik izan genuela, **San Jose**tan ere bai. Pello Zabala

Eta negu luzearen sonak ematen dituen beste hau: Kandelarioz elurra noraino, **San Jose**tan haraino. Pello Zabala

2 **sanjose-lore Primula** generoko belar landare hosto-zabala, lore horiak ematen dituena. ik **primula**.

Hasieran zuten lumajea **sanjose loreena** bezala galtzen zen, gero lumaje azkarragoa haziko zitzaielako. Joseba Sarrionandia

sanjuan ik **sanjoan**.

sanjuanbelar ik **sanjoan 2**.

sanjuandar *izlag/iz 1* estropadez mintzatuz, Pasai Donibaneri dagokiona; Pasai Donibaneko arraunlaria. ik **donibandar 3**.

Inoizko talde **sanjuandarrik** onenean aritu zen 80ko hamarkadan, eta hainbat postutan egin zuen arraunean. **Sanjuandarra** sentitzen baitzen goitik behera:

sanjuandarren aldeko bezain oriotarren aurkako. Berria - Kirola

Azken urte honetan ustekabean sartu ziren donostiarrak txanda nagusian, eta **sanjuandarrik** menderatu zituzten bigarren jardunaldian. Berria - Kirola

Urtebete lehenago San Pedrok irabazi zuen lehen jardunaldian, baina **sanjuandarrei** 1,72 segundo baino ez zien atera. Berria - Kirola

2 Pasai Donibanekoa.

Bargota, antzinako herria, non XII. mendean Bargotako Enkomiendako Ospitale **Sanjuandarra** zegoen. Piarres Aintziart

sankristia ik **sakristia**.

sanmartin (orobat **San Martin**) *iz pl* San Martin jaiak; San Martin inguruko egunak.

Beste batean Oriara deitu zioten **San Martinetan**. Pako Aristi

Eskerrak **sanmartinez** gizenduta zuketean txerria hazitzeko lain izaten zenik baserri inguruan. Pello Zabala

Huna Miarrizteko bestetan ere sartu dela Pilota Plazaberrin **San Martinetako**. Berria

Ez dira udak, "**sanmartinetako** uda txikiak" baizik, udazkena mozorrotu eta negua iragartzen dutenak. Iñaki Mendiguren

San Martinetako hego haizeak etxeetako ate eta leihoak pil-pil jotzen zituenean. Pako Aristi

Ze demontre, esan egingo dio Angel Mariri, **sanmartinetarako** buzkantza ederrak jateko era egin dezala. Urtzi Urrutikoetxea

sanmartzial (orobat **San Martzial**) *iz pl* San Martzial jaiak; San Martzial inguruko egunak.

San Martzialak ia-ia gainean daude, eta lorategiak guztiz itxuragabe daude. Berria - Ekonomia

San Martzialak nahiko ongi iragan dira Irunen, nahiz alardeen inguruko ikamikak ez diren oraino ezeztatuak. Berria

Emakumeak duela hamar urte hasi ziren aldarrikatzen herriko alardean parte hartzeko eskubidea dutela, eta urteurren hori gogorarazi nahi izan zuten atzo, **sanmartzialetan** egiten den alarderako bi hilabete falta direnean. Berria - Euskal Herria

Geure aitaren bidetik, aitaren anaiaaren etxera joaten hasi ginen, hara Altzara, **sanmartzialetan**. Joan Mari Irigoien

Bidasoaldeko Emakumeak taldeak gertu diren Irungo (Gipuzkoa) **San Martzialetako** alardean parte hartzeko deia egin zuten atzo. Berria - Euskal Herria

sanmateo (orobat **San Mateo**) *iz pl* San Mateo jaiak; San Mateo inguruko egunak.

Bukatu dira Logroñoko **sanmateoak**, udako feria luzeena, erakargarriena eta ezbehar gehien pairatu dituenak. Berria - Kirola

Irailaren 11n, **Sanmateoen** bezperan hartu zuen min Oier Zearra bizkaitarrak. Berria - Kirola

Bengoetxea VI.ak aurtengo udako bere lehen torneoa jokatu du Logroñoko **sanmateoetan**. Berria - Kirola

Partida asko jokatu ditut, irabazi ere bai asko, uda amaieran nire saria izan nuen **sanmateoekin**, eta orain eduki dut beste sari bat lau t'erdiairekin. Berria - Kirola

Xalاک eta Fernando Goñik Titin III.a eta Elkororen kontra jokatu dute gaur **San Mateoetako** binakako finala. Berria - Kirola

Aldaketa garrantzitsuak **sanmateotako** Torneoan. Berria - Kirola

Hurrengo konpromisoez mintzatzea udako azken torneoaz hitz egitea da, Logroñoko **san-mateoetakoa**, hain zuzen. Berria - Kirola

Pubisean ere min pixka bat badu **San Mateo**ez geroztik. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

logroño oko sanmateoetako (6); **sanmateoetako buruz buruko** (3); **sanmateoetako torneoan** (3); **sanmateoetako torneoko** (3)

sanmigel *(orobat San Migel eta sanmiel) iz pl San Migel jaiak; San Migel inguruko egunak.*

Sanmigel bestak ospatuko dira asko herritan, hala nola Igantzin eta Urrotzen, irailaren 28an hasirik urriaren 2raino. **Herria**
San Migel inguruko sasoi honetako fruituak ere aipatzen dira beste esakune zahar batzuetan: **San Migeletan** okaranak. **Pello Zabala**
2000. urteko **sanmieletako** bezperak Urriko edo **sanmigeletako** ilberria. **Pello Zabala**
Hautetako egun aparta, eroa, suertatu zitzaigun **sanmieletakoa**. **Pello Zabala**

sano 1 *izond irekia eta tolesgabea dena, bihurritsua-edo ez dena; gaixotia-edo ez dena.*

Zeltiar jende natural eta **sano** haientzat. **Pello Zabala**
Xanpun, bertsulari fina, errotik euskalduna eta donibandarra, gizon **sanoa** eta jendekina. **Herria**
Elgar iduriak balinbadira maiz elgarretaratzen, ezin uka Lafittek askotan gizon on, **sano**, arrailant eta bihotz haundiko horietarik zituela bere inguruan. **Herria**
Makea Uharteko Mari-Krixitina andereak hartu du biziko lagun Arrangoitzeko Xabi Dachary, gazte **sano** bat. **Herria**
Mutil **sanoak** zirela, basati samarrak, baina **sanoak**. **Inazio Mujika Iraola**
Musikarekin hiru mutil **sano** eta alaien itxura izango genikek. **Bernardo Atxaga**
Burrutu baino lehen, entzun ditugu bestalde gure bi kantari xahar eta **sano**, zinez herri gostuz betea baitzuten beren emaitza. **Herria**
Horregatik esan ohi dute munduan diren ezjakin **sano** bakaneke dena dakienak ez dakiela ezer Baigorriarraren nausitasuna egin dute hemen ainitz sake eta beste hainbeste pilota ongi negurtuek, lakartar **sano** eta azkarrak ez badu sekulan amor eman ere. **Iñaki Seguro**
Errotik **sanoak** ziren, gorputzez bezainbat buruz eta bihotzez. **Daniel Landart**

2 (gauzez)

Gazteria **sanoa**. **Herria**
Ez bageneki bezala, gure arteko jende **sanoenari** ikasirik, lerdokeria latza dela gaixoak bezala bititzea, gero azkenean sano-sano hiltzeko. **Iñaki Seguro**
Umore **sano** eta patxada ederrekoan aletzen genituen gure aro kontu eta komentarioak, algara lasaigarriren bat tarteko. **Pello Zabala**
Ordainetan, borrokaren tokian, denok dakigun, ulertzen dugun eta ez dugun Borroka etorri zen ("... borroka ere bai"), eta horrek kalte izugarria egin zion lehengo borroka **sano** hari. Burua bere tokian eta **sano** duenak ez du horrenbeste sentitzen. **Iñaki Seguro**
Maite ditugu lagunarteko edo mahaininguruko bertsu kantatze **sano** horiek. **Herria**
Baina filosofatze **sano** baten puntzoiak geure izpiritua zulatzen duenetik aurrera, puf! zenbat zikinkeria hustutzen den! **Patziku Perurena**
Lagun-arteko giro **sanoan**, jolasa joko eta jokoa jolas. **Joxerra Garzia**
Adiskidetasun-erlazio **sano** bat ere bai, ia edozertaz lasai-lasai hitz egin ahal izateko. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Kamusten ari ote zen nire oldarkortasun **sano** hura? **Joxan Elozegi**

3 (gauzez beste izenondo batekin)

Borroka errukigabea zen, mugan bezala, alabaina hirian falta zen adiskidetasuna, falta ziren bihotz **sano** eta zabalak, falta ziren... izarrak. **Pablo Sastre**
Amodio bero eta **sano** bat ez zitekeela eneztat ilusimendu huts baizik. **Janbattitt Dirassar**
Mendekoste izan dadila denentzat argi eta **sano**! **Herria**
Zientzia etsiarentzat, mitoarentzat eta erlijio eriantzat, mundua ulergarria da; arrazoi **sano** beldurgabearentzat ez. **Iñaki Seguro**
Begitarte erne, kokin eta sorgin batekin biltzen du Txominen arreta guztia Graxik, burua hari buruz itzultzen duelarik, irri poltit **sano** bat eskainiz. **Eneko Bidegain**
Benetako eztabaida politiko **sano** bat bultzatzea. **Berría - Euskal Herria**
Intuizio politiko **sano** baten ondorioa da HZ, ekimen eredugarria. **Berría - Euskal Herria**

4 (adizlagun gisa errepikaturik)

Ez daki ez *dakit* **sano-sano** esaten, ezin asmatu du inola ere; gehienez ere, "ez daukat datu hori orain esku artean" edo gisako zerbait botako dizu. **Iñaki Seguro**
Aurreneko aldiz zeinekin joko, eta arrebarekin jo omen zuela, eta morboaren batere arrastorik gabe kontatu zidan, **sano-sano**: [...]. **Iñaki Seguro**

5 osasuntsua, sendoa; osasungarria; gaixorik ez dagoena.

Diabetikoaren zein **sanoaren** baitako glukosaren metabolismoa. **Juan Garzia**
Emakume esklaboen kasuan ere, ez dira **sanotzat** hartzen haurdun daudenak, zeren eta beren gorputzean umekia hazten doan neurrian alimentu guztia beretzat hartzen baitu. **Santiago Iruretagoiena**
Gizon-emakume **sano** eta osasunekoak. **Felipe Juaristi**
Produktu fresko, oilasko **sano** eta kalitateko janari eskaintzekin. **Herria**

6 (gauzez)

Beti da arazo zaila protesia ondoko hezur **sanoari** lotzea. **Irene Aldasoro**
Jarri saski batean sagar **sano** batzuk eta ustel bakar bat: **sanoek**, gehiago izanik ere, ez dute saneatuko ustela: ustelak ustelaraziko ditu **sanoak**. **Joxerra Garzia**
Eta eguzki **sano** honekin, aiserian emaiten da indarra. **Piarres Aintziart**
Hontzaren kanta gertuko etxeondokoa, ordu **sano** gauekotan izanez gero, albiste ona zen. **Pello Zabala**
Udazken **sano** eta naturalak, arrats gorriak gehiago ekarri ohi ditu goiz gorriak baino. **Pello Zabala**
Eguraldi **sanoa**: egunez beroa eta gauzez 10 edo 12 gradu freskoago, eta iparreko haizea. **Berría - Ekonomia**
Gorputz osoa dut mindua, zure haserre-zigorrarengatik, hezurrik ere ez **sano**, neure bekatuagatik. **Elizen arteko biblia**

• 7 *adlag* osasunean, sendo.

Oinaztu makur batek ama bat kiskali eta haren haurra **sano eta** onez utzi zuen. **Pello Zabala**
Ernari daudenean, ez da **sano** daudela esaten, umea izan duten arte. **Santiago Iruretagoiena**
Guztien begien aurrean, gorputz-atal guztiak sendotu zitzaizkion eta haurra **sano** eta indartsu altxatu zen, bere kasa oinez. **Askoren artean**
Zaku horretatik ateratzen diren gauzak ez dakigu jateko diren, **sano** bizitzeko diren, sukaldean baliatzeko diren... **Edorta Agirre**
Egunean, lantegiak ere egiten ahal dute indar bat, bistan da, ingurumenaren **sano** atxikitzeko. **Menane Oxandabaratz**
Lurraren osasuna ostikatuz airoski, holako oihanak baitezpadakoak izanki-eta Lurra hein bat **sano** begiratzekotan. **Herria**
Inguruetako urak eta larreak gibelak **sano** eta sendo uzten zituztela egiaztatu ondoren, [...]. **Santiago Iruretagoiena**
Segur niz bere bizia opari bezala eskaini duela etxerat itzul nadin bizi eta **sano**. **Michel Oronoz**
- Harrikoskor batzuk 200 gramokoak omen ziren: teilaturik apenas **sano** utzitakorik. **Pello Zabala**

8 asko; oso.

Bestalde, iragarri du EHNEko lau federazioen arteko harremana «**sano**» hobetu dela azkenaldion. **Berría - Ekonomia**
Langabezia «**sano**» murriztu zen Bizkaian. **Berría - Ekonomia**
Azkeneko hamar urtean **sano** handitu da Gasteizko aireportutik atzerrira garraiatuko merkantzia kopurua. **Berría - Ekonomia**
Sano arinduta zeudela zirudien, ez zutelako Cumhail beldurgarri ospetsuaren aurka borrokatu beharko. **Joanes Urkixo**

Ezin esan ausarta ez zenik, **sano** sinetsita sartzen baitzen joko haietan, bere burua arriskatuz, ezkutuko arauak arkitzen saiatuz. **Iñaki Iñurrieta**

Gero, denborarekin, gauzak **sano** gozotu dira, itxuraz. **Iñigo Aranbarri**

Zorionez, gauzak **sano** aldatu dira urte gutxian. **Iñigo Aranbarri**

Sano gaiztotu da garabien gatazka. **Berria - Ekonomia**

Zartako **sano** lehorra izan da, oihartzunik gabea, garbia inondik ere. **Berria - Kultura**

Parranda **sano** dibertigarriak egin daitezkeela inon eta inori enbarazu egin barik. **Berria - Euskal Herria**

Aznarrek Espainiari buruz hitz egiten duenean, **sano** ondo dakit zer eratako nazioaz ari den. **Berria - Kultura**

Emiliak eta Mikelek **sano** ongi zekiten hori. **Berria - Kultura**

-Badirudi **sano** pozik zaudela etxera itzuli zarelako. **Lopez de Arana**

Barre egin dugu, luze eta **sano**. **Berria - Kultura**

9 ondo, ederki.

Aspaldi honetan ez duzue bat **sano** asmatzen! **Pello Zabala**

Eta gero, txandaka, **sano** edan zuten botilatik. **Patxi Iturritegi**

Urtean pilaturiko hautsak eta krakak **sano** amataturik zeukaten sasoi bateko kolore bizien garra. **Xabier Montoia**

Dagoeneko **sano** dakik, ezta halan? **Txillardegi**

Kalte-ordainak **sano** apalagoak lirateke kasu horretan. **Berria - Ekonomia**

Argi geratu da leku askotan kutsadura **sano** handiagoa zela metro bateko sakonean geruzean bertan baino. **Berria - Euskal Herria**

10 burutik sano (egon, ibili...)

Zu ez zaude **burutik sano**. **Patxi Iturritegi**

-**Burutik sano** al daude, horrelakoak asmatzeko? **Joan Mari Irigoien**

Burutik sano dagoen inork ez dezake uka Kristoren aintzarako izango zela, kristau askok Frantziskorena bezalako maitasun sutsuz Kristo buruarekin bat egingo balute. **Askoren artean**

Daviden ama ez zegoen oso **sano burutik**, baina funtsean ondo. **Oskar Arana**

-Tira, argi dago tipo hori ez dabilela **burutik sano** -erran nuen-. **Alberto Ladron Arana**

Ez zen **burutik sano**. **Eneko Bidegain**

Gorra eta zaharrieriak joa behar du egon, ez zuen **burutik sano** ematen. **Koro Navarro**

Nork ulertu behar du **burutik sano**, ongi esnatuta, zuhurtziaz beterik dagoen eta lotan zegoen bitartean desagertu den ur poxi bati botila baten beiratik zehar begira dagoen gizon baten emozioa! **Josu Zabaleta**

11 (burutik ezabaturik)

Sano al dago Hitler? **Berria - Kultura**

Hi ez hago **sano**! **Koldo Izagirre**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahal bezan sano (3); **bake sano** (3); **burutik sano** (18); **elkartasun sano** (4); **europa sano** (3); **garbi eta sano** (7); **harreman sano** (4); **in corpore sano** (3); **jendarte sano** (6); **jendarte sano batean** (3); **jendarte sano baten** (3); **oso sano** (3); **politiko sano** (3)

sano aldatu (4); **sano begiratzea** (3); **sano dago** (3); **sano eta garbi** (4); **sano garestitu** (3); **sano handitu** (4); **sano sano** (12)

bezain sanoa (3); **biziki sanoa** (3); **inbidia sanoa** (4); **sanoa izan** (3)

sanoki 1 *adlag* tolesgabeki, era sanoan.

Ikusiz nagusia, bekoz beko, zein **sanoki** mintzatzen zitzaidan, barkatu bezala nion bere jendetasun eskasa. **Daniel Landart**

Kasik erran nezake ez dela hori mundu honi **sanoki** behatzen dion norbaiten urratsa! **Janbattitt Dirassar**

Nire autoktono papera plantan eta **sanoki** bete nuen, isilik geratuz. **Itxaro Borda**

Geroztik, hiru-lau hilabetetarik edo, elkar ikusten genuen, elkarren berri on eta txarrak **sanoki** erabiliz. Holako filma batek badu bere balioa erakusten duelakotz nola jokutzen diren gure politikariak, ez beti **sanoki**. **Daniel Landart**

Nork negoziatuko du **sanoki**, jakinez hiltzaileen itzuleraren mehatxua dagoela? **Berria - Euskal Herria**

Arras **sanoki** eta adiskideki hartu eta artatu baigituzte beti hainbeste urtez. **Herria**

Hobe dute hola segitzea **sanoki** ta adixkidantzan. **Herria**

Nahi dute ere erakutsi mintzaira guttuetan, beste edozointan bezala, mundu guziko berriak hedatzen ahal direla goxoan eta **sanoki**... **Herria**

Liburu aberatsa, lañoki eta **sanoki** idatzia! **Herria**

Normahirekin aritzen naiz gogotik solasean, baina **sanoki** eta lañoki aritzekotan. **Janbattitt Dirassar**

Lañoki eta **sanoki**, urratsa urratsaren ondotik, ez tarrapataka. **Janbattitt Dirassar**

Raveliades sailaren konduko kontzertuak arras poliki iragan dira eta biziki **sanoki**. **Herria**

2 era osasungarrian.

Ekitaldi horrekin erakutsi nahi da kantinetan ere posible dela **sanoki** jatea, baktioxaren osagarriaren errespetuan. **Herria**

Laborariak berek ekoizten dute, «**sanoki**, naturaren legeak errespetatuz eta industria moldeei bizkarra emanez». **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

iragan da sanoki (3); **lañ oki** (3); **oki eta sanoki** (8); sanoki eta lañ

sanopotro *izond adkor* ergela.

Sanopotro bat; ebentuala; gurekin hirugarren eguna zian... **Pablo Sastre**

sanotasun 1 *iz sanoa* denaren nolakotasuna. ik **sanidade**¹.

Materialistak erranen du materia baizik ez garelako eta kontortsiene mistiko horiek ez direla **sanotasun** baten seinale. **Piarres Aintziart**

Euskarians deitu dute diska hirukoitz hau, "Euskarians Rugby Club"-aren filosofia kantagintzaren bidez ere zabaldu nahiz: mugaz bi aldeetako batasun herrikoa, adiskidetasuna, **sanotasuna**... **Herria**

Ez dira pagano basatiak eta ikastoletako haurrek horien perpausetan errespetuaren eta **sanotasunaren** derrigorrezko etsenplua hartuko dute nasaiki. **Itxaro Borda**

Daramagun bizimolde erdi-eroarekin, denek badugu kanpoaren **sanotasunaren** jastatzeko beharra. **Herria**

Nork bere bikotekidea ezer baino maiteago zuen, baina horrek ez zuen galarazten irrika eta fantasia oro beste norbaitekin edo denok elkarrekin **sanotasun** osoz gauzaterik. **Aitor Arana**

Denentzat ikusten da lana badela baktioxak eman dezala bere hoberena **sanotasunean** herriaren abantailetan. **Herria**

2 ipar sanitatea.

Haragiko behi aterbeen **sanotasunaren** segurtatzeko, Akitaniak 42 gazte lagundu ditu eta beste 32 laborari zohitu, 237 000 euro ekarri dizkie. **Herria**

Europako **sanotasun** neurriei egokitzen zena? **Itxaro Borda**

sanotu, sano(tu), sanotzen 1 du *ad ipar* sano bihurtu.

Goresmen beroenak familia berri huni eta beren etxekoeri eta bizi ditela urostatasunean aitamek **sanotu** eta berritu bide ederrean segituz. Elizak anitz lagundu dezake bortizkeria ohiturak **sanotzeko**. **Herria**

2 ipar saneamendua egin. ik **saneatu**.

Lur zati bat erosi behar izan da lehenik zointan egin baitira ur bilgia handi batzu nun batetik bertzerat pasatuz eta airerat egonez **sanotzen** den ur zikina errekarat ixuri aintzin.

Herria

Larrazken huntan hasirik elizateko ur zikinen **sanotzeko** lanak bururatu dira. **Herria**

3 pertsona edo enpresa baten ekonomia edo ondasunak egoera onean jarri. **iksaneatu 2**.

Batasun bat izendatu dute diosesa horren kudeantza kontrolatuko eta **sanotuko** duena ikusiz nola gutituko diren horgo 130 miliun eurotaraino heltzen diren zorrak. **Herria**

sanotze *iz ipar* saneamendua egitea.

Irisarriko ondarkin gunearen **sanotzea** ere solastatuko dute. **Herria**

Bata **sanotzeaz** arduratzen da eta bertzea edateko uraz. **Herria**

Ur **sanotze** lanak. **Herria**

Ur **sanotze** sarearen emendatzea, Hergarai eta Akertegarai kartieretarat. **Herria**

Urepeleko karrikan **sanotze** obrak egin beharrak dira. **Herria**

Eta, hunen baimenik gabe, antolatze eta **sanotze** obrarik ezin egin! **Herria**

Uraren **sanotzeko** elkarteak. **Herria**

Kultur sindikataren ageria, ur garbitze sindikatararena eta **sanotze** sindikatararena. **Herria**

Kolektiboa ez den Ur **Sanotzearen** onartzea. **Herria**

sanoxe *izond adkor* sanoa.

Gauzak horrela jarrita, trabesa bertatik: aurtengoa baietz **sanoxeagoa** izan! **Pello Zabala**

sanpantzar ik **zanpantzar**.

sanpedro (*orobat San Pedro*) *iz pl* San Pedro jaiak; San Pedro inguruko egunak.

Asteburu huntan aidiz, **Sanpedroak** dira ospatuko, Erratzu, Segura, Olaberria, Mutiloa, Pasaia eta bertze hainbat herritan. **Herria**

Kukuarekin batera, sanjuanetan, hasten da festa eromeria, baina ez da, ez, kukuarekin batera **sanpedrotan** amaitzen. **Joxerra Garzia**

-Gure aitaren urteko oporraldia **San Pedroetako** lau egunak izaten ziran. **Xabier Amuriza**

sanpedrotar *izlag/iz* estropadez mintzatuz, Pasai San Pedrori dagokiona; Pasai San Pedroko arraunlaria.

Santurtziarrak izan ziren denbora hori hausten lehenak, eta **sanpedrotarrak** gero. **Berria - Kirola**

Kontxako estropadako lehen aste bukaeran abantaila txukuna lortu zuten, baina bigarrengoan, ulerkaitza bazen ere, banderak eskuetatik alde egin zien, **sanpedrotarren** mesederako. **Berria - Kirola**

Hurrengo urtean **sanpedrotarrak** izan ziren Donibaneako menderatu zituztenak, baina lehen postua Zumaiarentzat izan zen **Berria - Kirola**

sanpelaio (*orobat San Pelaio*) *iz pl* San Pelaio jaiak; San Pelaio inguruko egunak.

Orain, koadrilakoak afaltzen ari gara taberna bateko mahaian: **sanpelaioak** dira. **Xabier Etxabe**

Sanpelaio bigarreanean izaten da hori: goizeko zazpiak aldera hasi eta eguerdian bukatu. **Xabier Etxabe**

Lagun artean soinua jotzen hasia zen Joxeaustin pare bat pieza ikasi orduko, eta **sanpelaioak** iristean, herritik Iñurritzara dagoen kilometroa "Ai Ximon, Ximon" joaz egiten zuela kontatzen zuen askotan Jexuxek. **Xabier Etxabe**

San Pelaioak ospatu dira Zarautzen. **Herria**

sanpleatu ik **sampleatu**.

sanpler ik **sampler**.

sansebastian (*orobat San Sebastian*) *iz pl* San Sebastian jaiak; San Sebastian inguruko egunak.

1977ko ilbeltzaren 19ko gauerdi aldera, herriko plazan eta **sansebastianetako** ospakizun ritualen erdian. **Iñaki Segurola**

San Sebastianetako eta Inauterietako jaietan "egingo zuen" eguraldiari zegokionez, iragarpena berbera izaten zen beti: "eguraldi ona". **Askoren artean**

Horren erakusle da **sansebastianetako** alea kalean izan zela. **Berria - Euskal Herria**

Lehenago bideari eutsi zion, eta Donostian San Tomas bezperan eta **San Sebastianean** hamabi obra antzetzu zituzten zortzi urtean. **Berria - Kultura**

sansilbestre *iz pl* San Silbestre jaiak; San Silbestre inguruko egunak.

Bertan izango da James Moiben ere, aurtan, Beasaingo eta Gasteizko **sansilbestreak** irabazi dituen keniarrak. **Berria - Kirola**

Korrikalari asko bildu den Euskal Herriko **sansilbestreetan**. **Berria - Kirola**

Sansilbestre probak amaituta, urte berriaren txanda da. **Juan Kruz Igerabide**

Emakumezkoen lasterketan ere lehia gogorra izan zuten Estibaliz Urrutia eta **"sansilbestreetatik"** garaipenez josita zetorren Iratxe Aranburuk. **Berria - Kirola**

sanskrito 1 iz antzinako Indiako indoeuropar hizkuntza.

Indoeuropar hizkuntzatik **sanskrito**, greziera, eslabiera, talde zeltikoa eta talde italikoa sortu zirela esatea, eta hizkuntza horietako bat indoeuropar hizkuntzaren lekuan jartzea oso gauza desberdinak dira. **Isabel Arrigain**

Egoera ezin hobean dagoela **sanskrito**, konparaketa hori argitu ahal izateko. **Isabel Arrigain**

Sanskrito, hain zuzen indoeuropar "s" guztiak atxiki dituelako gertatzen da hain argigarria. **Isabel Arrigain**

Punjab hitzak **sanskritoz** "bost ibai" esan nahi du. **Gotzon Garate**

1769an egin zen **sanskritoaren** eta latinaren konjugazioen arteko lehen alderaketa berriro eguneratzea. **Xabier Arregi**

1769an egin zen **sanskritoaren** eta latinaren konjugazioen arteko lehen alderaketa berriro eguneratzea 1769an egin zen **sanskritoaren** eta latinaren konjugazioen arteko lehen alderaketa berriro eguneratzea. **Xabier Arregi**

Mendebaldeko literaturari literatura pertsiar eta **sanskritoaren** gainetik lehentasuna emateko britainiar politikak eragin handia izan zuen hinduen kultur historian. **Iñaki Mendiguren**

Acharya, gizon saindu batek **sanskritozko** gorazarreak esaten ditu. **Gotzon Garate**

2 (izenondo gisa)

Izen **sanskritoak** ikasten nituen, jolas hutsez, eta grazia egiten zidaten. Hiztegi **sanskrito** guztietan, aditzak, beren erroaren arabera daude ordenatuak. **Juan Kruz Igerabide**

sanskritoartu, sanskritoar(tu), sankritoartzen da ad sanskritoar bihurtu.

Hindustanera esaten zaion **sanskritoartutako** hindiera herri-hizkuntza britainiar misiolari protestanteek landu zuten. **Iñaki Mendiguren**

sansonarri iz euskal mitologiaren arabera, Sansonek menditik behera botatako harria.

Tartean beste guztiok, geure bizitzak antolatu ezinean, **sansonarria** bizkarrean. **Hasier Etxeberria**

Bera ziztatzten zuden ederki zeuk harrotutako erleek, erlauntzetik dozena bat metrora artega eta **sansonarria** bezain geldirik egon arren. **Hasier Etxeberria**

santa 1 iz emakumezko santua. ik santu.

Artzainek zaindari bat bezala, artzaintsek bi **santa** dituzte: Genoveva eta Germana. **Pello Zabala**

Eliza garaileko santu eta **santen** artean goratuz eta aintzatzuz. **Askoren artean**

Hil ondoan, beren gorputzeko organoak zatitu, eta beren guztizko santu eta **santei** eskaintzekoa. **Patziku Perurena**

Bien bitartean, santu eta **santa** mordoska aitzaki, beti eske festarako prest. **Patziku Perurena**

Eulalia **santaren** oroipena egiten du gaur Elizak. **Pello Zabala**

-Avilako **santak** piztuko du jaun Lorenzo Cortés zalduna! **Joan Mari Irigoien**

Ez diguzu oraino kontatu nola eskuratu zenuen zuk **santaren** erlikia. **Joan Mari Irigoien**

Hik badakik, Joanikot, ezen **santaren** mirakulurik handiena, halarik ere, haren erlikien ingurukoa dela. **Berria - Mundua**

Gertaera hau **Santaren** Kanonizazio-prozesuan -bere zenbait moja testigu direla- jaulkitzen denarekin bat dator funtsean. **Askoren artean**

Nola Avilakoa naizen, debozione berezia baitiot gure **santari**. **Joan Mari Irigoien**

2 irud/hed

Santa hutsa duk, emakumea. **Edorta Jimenez**

3 kristau erlijioko santa bat aipatzean aurrean ezartzen zaion hitza. ik andredena.

Santa Germana, berriz, Okzitaniako Tolosa aldekoa zen. **Pello Zabala**

San Frantziskoren eta **Santa** Klararen Idazkiak. **Askoren artean**

-Santa Rita Casciakoa... -marmartu zuen abadetxoak. **Koldo Biguri**

Don Carlos bion artetik pasa zen zaldiz **Santa** Maria elizaraino. **Txillardegi**

1912ko abuztuaren 11n, **Santa** Klara egunean, San Nicolás lantxa arrantzara atera zen Lekeitioko portutik... **Bernardo Atxaga**

Beti **Santa** Rita barearen kubertan zeudenen Nemesioren eskua ikusi zuten sirenaren giltzari eragiten, **Santa** Anako belardian finkatu zuten hitzordua. **Koldo Izagirre**

Santa Barbarako ermitaren ondoan. **Juan Luis Zabala**

Erromeriak jotzen, ezkontzak, **Santa** Agedako eskeak, jubilatuen egoitzetan, festetan. **Pako Aristi**

Santa Eskolastikaren ordenako komentuan moja sartzea erabaki zuen. **Martin Anso**

4 Eliza ama santa (6 agerraldi, 4 liburutan) ik santu 13.

Eliza ama santa hierarkioaren mendean daudenak. behinola **Eliza Ama Santak** Sixtotar Kaperako kantariei, hobeto abes zezaten, barrabilak kentzen zizkien bezala. **Patxi Altuna**

Gure **Eliza Ama Santak** agintzen duen eran. **Patxi Ezkiaga**

Gure **Eliza ama santaren** kontzilioez, kanonez eta konstituzioez ere baliatzen dira. **Patxi Altuna**

Gure **Eliza Ama Santaren** grazian eta miserikordian hartu baitzaituzte **Juan Garzia**

5 santa sekulan (12 agerraldi, 4 liburu eta artikulua 1ean) sekula santan. ik sekula 13.

-Hori ez, **santa sekulan** ! **Elena Touyarou**

Eta **santa sekulan** ez ahaztu. **Patziku Perurena**

Ibilaldian zehar, **santa sekulan** ez zuen horri pentsatu eta, jin bidetik itzultzea ere pentsatu zuen, momentu batean. hor daude beren nahia erakutsiz, Christine Boutin, Corinne Lepage eta **santa sekulan** zahartzen ez den Arlette Laguiller, bihotzez eta izpirituz bederen. **Elena Touyarou**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

angeruen santa maria (8); **angeruen santa mariako** (7); **angeruen santa marian** (7); **angeruen santa mariara** (19); **ama santa** (4); **andere santa grazi** (5); **garaziko santa maria** (6); **gastelzko santa maria** (9); **miarritzeko santa eugenia** (7); **portziunkulako santa maria** (17); **portziunkulako santa marian** (28); **portziunkulako santa mariara** (10)

santa agata (6); **santa ageda** (25); **santa agedako** (6); **santa agedan** (9); **santa ana** (44); **santa ana elizan** (4); **santa anak** (4); **santa anako** (12); **santa anaren** (4); **santa barbara** (51); **santa barbarako** (17); **santa barbarako aldean** (4); **santa barbararen** (5); **santa cecilia** (4); **santa clara** (10); **santa claran** (5); **santa cruz** (20); **santa cruzen** (4)

santa elixabet (6); **santa engrazia** (5); **santa eugenia** (59); **santa eugenia elizan** (34); **santa eugenia elizapean** (5); **santa eugenia kaleko** (10); **santa eugeniako** (4); **santa eulalia** (9); **santa fe** (16); **santa feko** (4); **santa grazi** (16); **santa graziko** (7); **santa grazin** (4); **santa gurutze** (14); **santa gurutze auzoan** (4); **santa gurutzeko** (15); **santa**

santiagobide (*orobat* **santiagobide**) Done Jakue bidea. ik **done 4**.

Koadrilako adiskideak **Santiago bidea** egitekotan ziren, uda hartan. **Iban Zaldúa**

Bereziki Irunetik Agurainerako **Santiago bidea** ezagutzen baitut. **Piarres Aintziart**

Badirudi Nafarroatik ekin ziola Penintsulako **Santiago-bideari**. **Askoren artean**

Santio bidea bizikletaz egitera. **Iban Zaldúa**

Dirudienez, aspaldi, **Santiago bidea** hemendik igarotzen zen, eta ermita erromesen aterpe gisa zegoen antolatuta. **Fernando Morillo**

Santiago bidetan beilari. **Herría**

Lizarra **Santiago bideko** pitxi bikaina dela ulertu nuen betiko. **Txillardegí**

Santiagobide ik **santiago**.

santifikatu, santifika, santifikatzen **1 da/du ad** santutu.

Peste egunak penitentzia eginez **santifikatzen**. Lana zerbait arrunt eta morroi-neskameei zegokien gauzatat hartzeko ikuspegi helenikotik aldentze iraultzaile hau ez zen ezarriko San Benediktoren Erregelak ez balu **santifikatu** izan. **Patziku Perurena**

Erresuma hau **santifikatua** geldituko da, nik maitatua, bere Fedearen araztasuna eta bere errukiaren bikaintasuna direla kausa. **Jon Alonso**

Ez da egintza zibila ezta erlijiosoa ere, ezpada egintza natural hutsa, legegileen arreta antzeman eta erlijioak ere **santifikatu** egin duena. **Andres Urrutia**

Gainerakoek, izututa, torturak **santifikaturiko** haragi biluzi bati bezala behatzen zidaten. **Koldo Izagirre**

2 (era burutua izenondo gisa)

Behin eta berriz errepikatzen da gastu soziala oso dela inproduktiboa, eragin negatiboa duela altxor preziatu bilakatu den lehiakortasun **santifikatuarentzat**. **Iñaki Heras**

santifikatzaile *izond* santifikatzen duena.

Indiarrek sinesten dute Ganges ibaiko urek ahalmen **santifikatzailea** dutela: uste da ibaiaren ertzetan hiltzen direnek beste bizitzan zigorrik ez dutela izango. **Iñaki Iñurrieta**

Pirata [...]: maila apaleko konkistatzailea, handitasunaren meritu **santifikatzaile**rik ez duten anexoak egiten dituena. **Xabier Olarra**

santikruz (*orobat* **santikutz**) *iz* Gurutze Santu eguneko jaiak; Gurutze Santu egunaren inguruko egunak.

Orduantxe ezkondu giñan, **Santikruzetan**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Legazpin jaioa, apenas ezer esaten didaten **santikutzek**: goizegi alde egin nuen jaioterritik. **Joxerra Garzia**

santikutz ik **santikruz**.

Santio ik **Santiago**.

santio-belar (*orobat* **santiobelar**) *iz* epai belarra.

Epai-belar deitzen zaie **santio-belar** edo milazulo, ebakiak garbitzeko eta sendatzeko erremediotan erabiltzen diren hyperycon eta ebaki-belar horiei. **Pello Zabala**

Ur gehixeago edatea ez dator batera gaizki, sendabelarren baten laguntzarekin hobe, sanjuanbelar edo millorri xorta bat, edo **santiobelar** puxkatxo baten tisanatxoa prestatuz, edo insusa-lorerik bere garaian bildu bazenuen, handik xorta tiki bat botata edo... **Pello Zabala**

Santiobide ik **Santiago**.

santisima *iz* guztiz santa.

Rocío Juradoz eta bere ama **santisimaz** oroitu nintzen. **Juan Martín Elexpuru**

Haserre, suak hartuta, kontatuko zituela, bai, haiek denak Ministerioak edo bere ama **santisimak**, bihozgabe doilorra. **Karlos Linazasoro**

Belengo estalpe, orentzero, preso, kanta, errito, jostailu, angula, turroi, loteria, txanpan edo birjina maria **santisima**,igoaligoal dio. **Patziku Perurena**

santo 1 kristau erlijio Tomas eta Domingo santuak aipatzean aurrean ezartzen zaioen hitza. **iksan**.

Bidea, ja dakigunez, **Santo** Domingok idekia, hamaikagarren mendean. **Piarres Aintziart**

Santo Domingo-ren eliza tristea, uste zenuen Satanas bentzutua zenuela, eta Voltaire-k bentzutu zaitu! **Koldo Izagirre**

Santo Tomas ez beste ikasleak bilduta zeuden "juduen beldurrez". **Patxi Altuna**

Santo Tomas Akinokoaren *Suma* handietan goren jo zuena, jadanik iraganeko zerbait zen. **Joan Mari Lekuona**

Santo Tomas Villanuevakoa, gotzain jantzita, bere makulua eskuan zuela. **Josu Zabaleta**

Honela dio **Santo** Tomasek: [...]. **Joan Mari Lekuona**

Gustura ospatzen dugula **Santo** Tomas eguna hiri batzuetan eta Santamasak beste herri batzuetan. **Pello Zabala**

2 ik **santokristo**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

santo domingoko (16); **santo domingon** (19); **santo domingora** (14); **santo domingora joan** (3); **santo domingoren** (4); **santo domingotik** (5); **santo tomas** (53); **santo tomas eguna** (4); **santo tomas egunean** (5); **santo tomas lizeoan** (5); **santo tomas lizeoko** (3); **santo tomasek** (5)

santoi *iz* kristaua ez den anakoreta.

Bere bizar luzeagatik-edo [...] zena baino zaharragoa zirudien, hogeita hamar urterekin berrogeitik gorakoen heldutasuna iritsi balu bezala, Indiari buruzko dokumentaletan agertu ohi diren **santu** horietako bat iduri. **Joan Mari Irigoien**

santokristo *(orobat Santo Kristo)* iz Jesukristo gurutziltzatuaren irudia duen gurutzea. ik **gurutzefika**.

Zilarrezko **santokristo** gaitza zutitzen zen bere mahai beltzean argizarizko bi kandela horiren artean. **Matías Múgica**
Bergara esan eta berehala aipatuko dizkizute **Santo Kristo** eder bat eta bizkotxa beteak. **Koldo Izagirre**
Denek zeramaten **santokristoa** eta pistolak, zintzilik. **Berria - Harian**
Esku batian **santokristo** ta / bestian berriz pistola. **Patziku Perurena**

santomas *(orobat satamas)* iz pl santotomasak.

Santomasak balira bezala, txorixo eta ogiari laguntzeko zahato ardoa irten da nonbaitetik, eta eskuz esku ibiltzen hasi. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Gustura ospatzen dugula Santo Tomas eguna hiri batzuetan eta **Santomasak** beste herri batzuetan. **Pello Zabala**
Eta 1875ko **Santomasetan** (txistorrik gabe emana, ondikotz!) Donostiatik etorritako mezulari baten bidez izan nuen berri fidagarririk. **Txillardegí**

santotomas *(orobat Santo Tomas)* iz pl Santo Tomas jaiak; Santo Tomas inguruko egunak. ik **santomas**.

Prozesioak [...] kermesak, igandeko festak, San Juanak eta **Santo Tomasak** ... **Askoren artean**
Martinez Irujo protagonista, gaur, **santotomasetako** jaialdian. **Berria - Kirola**
Santo Tomasetako txerriaren zokketa baino ez zen falta atzo La Mongien. **Berria - Kirola**
Bigarren marka ahalegina **santotomasetan**, Azpeitian. **Berria - Kirola**
Eta hau txekorrarekin **Santo Tomasetara** joan zen batean, radioa erosita bueltatu zen. **Arantxa Iturbe**
Santotomasetakoan, berriz, Nazabal eta Azurmendi ariko dira. **Berria - Kirola**

santu *(orobat sandu g.er.)* 1 iz erlijio katolikoan, hil ondoan Elizak gurtza ageriko eta unibertsala eskaintzen dion pertsona. ik **santa; done**.

Santu edo martirien bizitzetan oinarritutako gertaerak. **Xabier Olarra**
Santu bakoitzak lan berezia du: San Anton azienda eta abereen zaindaria, eta, Paduako Antonio, gizakien laguntzailea. **Pello Zabala**
Lehenagoko egutegia, **santu** asko eta askoren oroipenetan mugarriritu zegoen. hala eskatu baitiet **santu** guztiei neure kar guztiaz. **Pello Zabala**
Jaiera handia izan bide du **santu** honek ere inguru hauetan. **Pello Zabala**
Nor ote genuen Medardo **santu** hau? **Pello Zabala**
Guzmango Domingo **santua**, Osmako kanonigo zela, Dinamarkara joatea suertatu zen. **Patziku Perurena**
Santuak lotsatzen ez badira, zergatik lotsatu behar dut nik, **santu** ez naizen honek? **Koro Navarro**
Santu baten ordeaz beste bat jarri genuen. **Pello Salaburu**
Zer diren gizonak paradisuako aingeruen eta **santu** guztien aldean. **Patxi Altuna**
Frantziako herritxoek zeinek bere **santu** patroia du zaindaria, zeinek bertako biztanleen irudira moldatua. **Josu Zabaleta**
Azkenengo aldia, hilabete lehenagoko **Santu** Guztien zubian. **Hasier Etxeberria**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Santu handia, jakitez eta neurritz, zintzoa eta egiazalea. **Pello Zabala**
Elizako beste **santu** handiek ere, San Dionisioko eta San Gregoriok eta beste askok, geldiro idatzi dute gai honi buruz. **Joan Mari Lekuona**
Itzulian Britainiako zazpi **santu** fundatzaileen elizak bisitatzen ziren. Kristau familien artean, Mateo **santu** ebanjelari honen eguna data ezberdinetan ospatzen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
San Lorenzo elizako San Fermin kaperan **santu** beltzaranari eskaini zioten nafarrek joan den larunbatean lortutakoa. **Berria - Kirola**
Vicent Ferrer valentziar **santu** ospetsuak. **Koldo Zuazo**
Elezahar batek zioenez, **santu** judu bat zegoen lurperaturik leizean. **Juan Kruz Igerabide**
Bada **santu** euskaldun bat, Martin izenekoa, frantziskotar sartu, misioetara joan eta Nagasakin hil zutena, XVI. mendean. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Gaur, gainera, **santu** nafar baten eguna da: Fiteroko Raimundo dohatsuarena. **Pello Zabala**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Santu fama handiko bi fraideren bihotzetan sartu nintzen harra sagarrean bezala. **Anjel Lertxundi**
Mementu batean begietan **santu** begirada jarri zitzaion. **Xabier Olarra**
Munduko tristezia guztia eta maitasun guztia biltzen ziren **santu**-aurpegiko gizon haren begietan. **Fernando Rey**
Gero, isipua mezamutil bati eman eta **santu**-irudi bana eman zien han bildutako guztiei, bira osoa eginda. **Koldo Biguri**
Orain franko baretua zegoen eta berreskuratua zuen lehengo **santu**-itxura. **Fernando Rey**
Santu itxurako deabru madarikatu bat da galerianoaren aita. **Anjel Lertxundi**
Karlos Setimoren **santu**-eguna anaiaren ondoan, eta Lizarran, handiro ospatzekotan omen zetorren Alfonso Carlos. **Txillardegí**

4 santu baten irudia.

Bete du bere hitza egunerok, **santuari** argizaria piztu eta errezoak eginez. **Pako Aristi**
Zurezko eta igeltsuzko **santuak**. **Inazio Mujika Iraola**
Elizan **santu** eta irudi berriak jarri zituztela antzeman zuen Pedrok. **Jon Maia**
Kaperan horretako Amabirjina Guztiz **Santuaren** aurrean. **Koldo Biguri**
Amorru bizian, **santuari** heldu eta handitxoak esan dizkio, eman dizkio zartada ederrak altzari eta hormen aurka, eta bota du azkenik leihotik behera. **Pako Aristi**

4a adkor irudia.

Bati baino gehiagori ulertezin egingo bazaio ere, liburuki hauek ez dira larraz azalezatutak, ez dute urrezko letrarik bizkarrean ez koloretako **santurik** barruan. **Berria - Kultura**

• 5 izond Jainkoari, erlijioari kontsakratua; Jainkoari, erlijioari dagokiona. iksakratu; jainkozko.

Brahmaren apaizak [...] sekula gaiztoak ez diren gizon **santu** eta ikasiak dira. **Xabier Olarra**
Zer eman liezaioke errotari apal batek kardinal jaun **santu** bati? **Anjel Lertxundi**
Ba omen zen gizon zahar **santu** bat, sorkarien irudietatik hain aske, non jadanik ez baitzezakeen oharmena galtzerik. **Joan Mari Lekuona**
Santa Ines beste birjina txit **santu** hura bezalaxe. **Askoren artean**
Hirutasun **Santu** Berritua balitz bezala. **Hasier Etxeberria**

-Zergatik ez zen errabino **Santu** bat ikustera joan? **Koro Navarro**

Roberto II.a, Frantziako erregea, Elizkoia edo **Santua** esaten ziotena. **Juan Martin Elexpuru**

6 (gauzekin)

Zerbait esan dezagun, beraz, gure barruan, eta arima **santu** guztietan, lortu behar den jaiotzari buruz. **Joan Mari Lekuona**

1224an, irailaren 14ko Gurutze **Santuaren** Gorapen jai inguruan gertatu zen. **Askoren artean**

Santa Klararen basilikan Sakramentu txit **santuaren** kapera dagoen lekuan. **Askoren artean**

Sinesten du, halere, profetak idatzitako Eskritura **Santu** fidagarriek hartaz diotena. **Imanol Unzurrunzaga**

Horregatik, erlikia **santu** bat bezala tratatu nuen neure ilar erdia. **Juan Garzia**

Olio **santuak** eman gaixoari eta esan: "bukatu dut". **Juan Garzia**

Arabiarren liburu **santuan** ez zegoela gamelurik. **Bernardo Atxaga**

Beti goratu dut Haren Izen **Santua**, nahiz eta sekula onartu ez Elizaren irakaspenak. **Karlos Zabala**

Ongi dakizu zuk, ene Jaun Jesukristo, zu zerbitzatzeagatik eta zure izen **santua** goresteagatik ekin niola zure etsaien aurkako gerrari. **Jon Alonso**

Zure jarduera **santu** eta biziera guztiz eredugarriaren ospea entzunik. **Askoren artean**

Lege **santu** eta ukiezin bakarra merkatuaren legea den bitartean. **Edorta Jimenez**

Heriotzak jainkoen etxe **santu** guztiak ere gorputz bizigabez beteak zituen. **Xabier Amuriza**

Gudukak egon ziren xiiten hiri **santu** honetatik hurbil. **Berria - Mundua**

AEBetako soldaduak hegoaldeko hiri **santu** nagusiak inguratu zituzten duela bi aste, Najaf, besteak beste. **Berria - Mundua**

Jainkoak salbatu gintuen eta bere herri **santu izatera** dei egin zigan. **Elizen arteko biblia**

7 irud/hed

Pirata **santuaren** bizitza harrigarria. **Berria - Kultura**

Klaus Dohrnek Sergeren anaia, eskuizkribua irakurri zuenean, izenburua aldatu beharra zeukala esan zion Rothi, eta ez zuela "edale **santua**" izan behar, "edale zorionsua" baizik. **Matias Mujika**

Nirea pazientzia **santua** izan arren, ezin izan nion gehiago eutsi halako geldotasunari. **Karlos Zabala**

Eta deskuido **santuan**, nire barrenki pizar ustelduak, bihotz eta guzi, putreek irentsiko balituzte, [...]. **Patziku Perurena**

Lehiakortasun **santuaren** izenean kaleratzen dira langileak, bere horretan uzten dira soldadak, edo malgutzen da lan-merkatua. **Iñaki Heras**

Bake **santuan** egon ohi zen etxea jendez beteta zegoen gauerdirako. **Joxemari Urteaga**

8 adkor

Zure aita eta lagun **santu** haiek oso adar-jotze dibertigarria egin nahi izan zidaten. **Iñaki Mendiguren**

Ni neu ere ez nengoen oso **santu**, egia da; lauso ikusten nuen dena gure aurrean. **Inazio Mujika Iraola**

Horra magnesioarekin fosfatao, beti berdin, egun **santu** guztietan. **Juan Garzia**

Bazen esamesarik Koronelaren jokamolde ilun gaiztoaz ere, zer-nola giltzapetzen zen batzuetan bere langelan egun **santu** osoan. **Mirentxu Larrañaga**

Hasiera batean, egun **santu** osoan etxean geratzen nintzen ezer egitekorik gabe. **Jesus Mari Mendizabal**

Motorrean ez habilenean, ordenagailuaren habil buru-belarri, txat **santu** horretara lotuta egun osoan. **Antton Olano**

Ni neu ere ez nengoen oso **santu**, egia da; lauso ikusten nuen dena gure aurrean. **Inazio Mujika Iraola**

9 Aita santu ik aita.

10 Aste santu ik aste.

11 Domu santu ik Domu.

12 eguzki santu ik eguzki.

13 Eliza ama santu (10 agerraldi, 2 liburutan) ik santa 4.

Jaunaren aginduen eta **Eliza ama santuaren** legeen arabera. **Askoren artean**

Jainkoak bereganako fedea indartzera eta **Eliza ama santuko** prelatu eta klerikoei laguntzera deitu gaitu. **Askoren artean**

Galdu, non galdu da emakume hori ez bada **Eliza Ama Santu** Katoliko Apostoliko eta Erromakoaren begietara, eta esanahi moral, ideologiko batez beti ere? gomendatzen dizkiet nire ahizpa guztiak, oraingoak eta gerokoak, Erromako **Eliza Ama santuari**. **Iñigo Aranbarri**

14 Larunbat Santu ik larunbat 4.

15 Lur Santu ik lur 30.

16 Ofizio Santu ik ofizio 8.

17 olio santu ik olio 14.

18 Ostegun Santu ik ostegun 5.

19 Ostiral Santu ik ostiral 4.

20 santu egin ik santutu.

Hilda printzesa abadesa **santu egin** zuten. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Eskerrak ematen dizkizut, pobreak gidatzen eta **santu egiten** dituzun Jauna, nire anaien berri hauekin pozez bete nauzulako. **Askoren artean**

Bedeinka itzazu, arren, anaia haiek bedeinkapen zabalez, eta **santu egin** itzazu dohan bereziz etsenplu onen bidez beren profesio erlijiosoa usain gozoko bihurtzen dutenak. **Askoren artean**

Nire kapusaiak, nire ilemotzak, nire konbentuak, giro santuak, honek guztiak ez nau **santu egiten**. **Joan Mari Lekuona**

21 santu izan

Gure Aita, zeruetan zarena, **santu izan** bedi zure izena. **Joan Mari Lekuona**

Beharrezkoa zait arima-zola santua, hutsa, garbia eta askea, ni **santu izatera** hel nadin. **Joan Mari Lekuona**

Jainkoaren gizona, bere asmo santuagatik jadanik **santu zena**, haitzuloan sartzen zen [...] eta espiritu berri, aparteko batez beterik, otoiiz egiten zion ezkutuan Aitari. **Askoren artean**

Santu izan beharra dago gaixoak sendatzeko, eta, ikusten duzunez, **santu izatetik** urruti nago. **Koro Navarro**

22 santu-jale ik santujale.

23 santu-santu

Toki hori santutegia, hots, toki **santu-santua** izateko antolatatu zuen. **Elizen arteko biblia**

Antioiko IV.a Epifanes seleukotar erregeak Zeus Olinpiarraren estatua bat Jerusalemgo Jahveren tenpluko leku **santu-santuan** jarri zuenean, [...]. **Iñaki Mendiguren**

Bi orriko ate batetik sala handira sartzen zen, eta beste ate batetik toki **santu-santura**. Ez dut zuhur izaten ikasi, eta nola izango dut **Santu-Santuaren** ezagutzarik? **Elizen arteko biblia**

24 (adizlagun gisa)

Liga **santu-santu** hasi ez badute ere pazientzia behar dutela adierazi zuen Aranburuk. **Berria - Kirola**

Ez nengoen oraindik **santu-santu**, gertaera askoz larriago baten txanda iritsi zenean. **Joxan Eloseggi**

aita santu (144); **aita txit santu** (5); **anaia santu** (21); **arima santu** (7); **aste santu** (14); **batzatu santu** (4); **bere santu** (7); **biziera santu** (4); **domu santu** (10)

egun santu (11); **egun santu osoan** (6); **eliza santu** (9); **erlikia santu** (4); **espiritu santu** (7); **frantzisko santu** (6); **gau santu** (4); **gizon santu** (19); **gutziz santu** (9); **herri santu** (5); **hiri santu** (11); **hirutasun santu** (4)

izan santu (4); **jainko santu** (4); **jaun santu** (4); **leku santu** (4); **mendi santu** (8)

oi zeinen santu (4); **ostiral santu** (6)

santu asko (5); **santu bakarra** (4); **santu beraren** (6); **santu edo santaren** (4)

santu egin (8); **santu egiten** (9); **santu egunean** (5); **santu eta santa** (8); **santu eta santen** (4); **santu guzien** (4); **santu guztiak** (12); **santu guztiei** (5); **santu guztiekin** (4); **santu guztien** (38); **santu guztien egunean** (5); **santu guztien egunetik** (4); **santu guztietan** (4); **santu handi** (5)

santu izan (23); **santu izan zen** (4); **santu izan zena** (4); **santu izango** (6); **santu izateko** (8); **santu izatera** (6); **santu izendatu** (6); **santu izendatu zuen** (4); **santu jauna** (4)

santu santu (4); **santu santua** (6); **santu santuan** (4)

toki santu (21); **toki santu santua** (5); **txit santu** (24)

aita santua (137); **aita txit santua** (15); **andere pobretasun santua** (4); **arma santua** (4); **asmo santua** (4); **aste santua** (18); **bake santua** (6); **biziera santua** (7); **bizitza santua** (4) **domingo santua** (5)

ebanjelio santua (26); **ebanjelio santua betetzea** (5); **egun santua** (5); **espiritu santua** (58); **espiritu santua jaitsi** (6); **frantzisko santua** (70); **gerra santua** (32); **gizon santua** (18); **gorputz santua** (10); **gorputz txit santua** (7); **gurutze santua** (9); **gutziz santua** (14); **haren izen santua** (4); **herri santua** (6); **hilobi santua** (4); **hiri santua** (15); **hirutasun guztiz santua** (4); **hirutasun santua** (8)

idazki santua (4); **israelen jainko santua** (5); **israelen santua** (4); **itun santua** (6); **izen santua** (17); **izpiritu santua** (24); **jainko santua** (18); **jainkoaren santua** (17); **lantza santua** (8); **liburu santua** (10); **lur santua** (7); **ni gizon santua** (4); **nire izen santua** (7)

ofizio santua (4); **ogi santua** (5); **ostegun santua** (4); **ostiral santua** (4); **pobretasun santua** (29)

santu santua (6); **santua baita** (10); **santua hil** (11); **santua zela** (5); **santua zen** (5)

tenplu santua (4); **toki santu santua** (5); **toki santua** (10); **txit santua** (41)

aita santuak (217); **aita txit santuak** (19); **akinotar santuak** (8); **apaltasun santuak** (6); **dio liburu santuak** (11); **domingo santuak** (4)

ebanjelio santuak (5); **eliza santuak** (4); **esan zion santuak** (6); **eskritura santuak** (6); **espiritu santuak** (75); **espiritu santuak eraginda** (4); **espiritu santuak eraginik** (4); **frantzisko santuak** (56); **gauza santuak** (5); **gizon santuak** (9); **gregorio aita santuak** (8); **gutziz santuak** (12); **hitz santuak** (6); **honorio aita santuak** (5)

israelen jainko santuak (6); **izpiritu santuak** (6); **jainko santuak** (11); **jainkoaren santuak** (11); **leku santuak** (4); **liburu santuak** (102); **liburu santuak dio** (7); **liburu santuak dioen** (25); **liburu santuak dioena** (9); **liburu santuak dioenez** (6); **misterio santuak** (4)

odol txit santuak (5); **olio santuak** (4)

santuak erantzun (18); **santuak erantzun zion** (13); **santuak esan** (38); **santuak esan zion** (23)

tomas akinotar santuak (8); **txit santuak** (34)

zauri sakratu santuak (8)

aste santuan (31); **bake santuan** (10); **hiri santuan** (15); **liburu santuan** (11); **mendi santuan** (20); **nire mendi santuan** (5); **ostiral santuan** (6); **pobretasun santuan** (5); **pobretasun txit santuan** (4); **santu santuan** (4); **tenplu santuan** (4); **toki santuan** (5); **txit santuan** (7); **zure borondate santuan** (4)

aita santuarekin (6); **espiritu santuarekin** (10); **frantzisko santuarekin** (6)

aita frantzisko santuaren (4); **aita santuaren** (152); **aita txit santuaren** (11); **akinotar santuaren** (6); **ama santuaren** (6); **ama txit santuaren** (4); **apaltasun santuaren** (8); **aste santuaren** (8); **biziera santuaren** (7); **ebanjelio santuaren** (20); **ebanjelio santuaren arabera** (5); **ebanjelio santuaren perfektzioa** (4)

edale santuaren kondaira (4); **eliza santuaren** (14); **erromako eliza santuaren** (4); **espiritu santuaren** (126); **espiritu santuaren argiz** (9); **espiritu santuaren bidez** (5); **espiritu santuaren bitartez** (4); **espiritu santuaren eraginez** (8); **espiritu santuaren graziaz** (4); **espiritu santuaren indarrez** (4); **espiritu santuaren izenean** (8); **frantzisko santuaren** (39); **frantzisko txit santuaren** (4); **gerra santuaren** (6); **gorputz santuaren** (4); **grial santuaren** (4); **gurutze santuaren** (31); **gurutze santuaren gorapen** (4); **gurutze santuaren seinalea** (8); **gutziz santuaren** (11); **herri santuaren** (5); **hiri santuaren** (6); **hirutasun guztiz santuaren** (5); **hirutasun santuaren** (13)

idazki santuaren (8); **izpiritu santuaren** (15); **jainko santuaren** (4); **jainkoaren santuaren** (6); **kapitulua santuaren** (11); **mendi santuaren** (4); **mikel santuaren** (4)

obedientzia santuaren (33); **obedientzia santuaren indarrez** (9); **obedientzia santuaren izenean** (5); **ofizio santuaren** (7); **pobretasun santuaren** (14); **pobretasun txit santuaren** (4)

santuaren hilobira (5); **santuaren hitzak** (6); **santuaren mirariak** (5); **santuaren oinetan** (4)

tomas akinotar santuaren (6); **txit santuaren** (39)

xalotasun santuaren (5)

aita santuarena (7)

aita santuarengana (15)

aita santuari (54); **aita txit santuari** (7); **espiritu santuari** (15); **frantzisko santuari** (23); **gizon santuari** (6); **izen santuari** (5); **izpiritu santuari** (6); **jainkoaren santuari** (7); **pobretasun santuari** (5); **pragako ines santuari** (4)

besarkada santuaz (4); **espiritu santuaz** (30); **espiritu santuaz beterik** (7); **santuaz beterik** (7); **zeure gurutze santuaz** (5)

aita santuek (5); **eskritura santuek** (4); **liburu santuek** (20)

aingeru santuen (5); **aita santuen** (4); **anaia santuen** (9); **anaia santuen bidez** (4); **birjina santuen** (4); **eskritura santuen** (6); **gizon santuen** (4); **idazki santuen** (4); **jainko santuen** (4); **liburu santuen** (14); **santuen artean** (6); **santuen irudiak** (8); **santuen izendegian** (7); **santuen izendegian ezarri** (4); **zauri sakratu santuen** (5)

liburu santuetako (5)

liburu santuetan (25); **liburu santuetan idatzia** (5)

hiri santuetatik (5)

aste santuko (47); **aste santuko oporrak** (5); **aste santuko oporren** (8); **ebanjelio santuko** (20); **ebanjelio santuko moldearen** (9); **eliza ama santuko** (4); **eliza santuko** (4); **idazki santuko** (8); **liburu santuko** (8); **ostiral santuko** (148); **ostiral santuko akordioa** (40); **ostiral santuko akordioak** (6); **ostiral santuko akordioan** (9); **ostiral santuko akordioarekin** (4); **ostiral santuko akordioaren** (16); **ostiral santuko hitzarmena** (4)

hiri santura (8); **lur santura** (5); **mendi santura** (4)

hiri santutik (4); **pobretasun santutik** (4)

santutzat zeukaten (8)

ostiral santuz (3)

santuario iz santutegia. • irud/hed

Ez dagokio, hain zuzen, **santuariorik** hilketari; ez da mugarik mendekuarentzat. **Juan Garzia**

Unibertsoko eremu bat -zibilizazioaren prozesuan gizakiak harturiko eremu metropolitarra- aginte nagusi izengaberen batek kaosarentzako **santuario** gisa gorde zuela aldarrikatzea asegarria izan zitekeen historialari antinomikoentzat, baina blasfemiatzat hartuko zuketen zientziaren jarraitzaile zintzo guztiek. **Iñaki Mendiguren**

Frantziako justizia ministroak erran du Frantzia ez dela sekula terroristen **"santuario"** izanen. **Herria**

santugin iz santuen irudiak egiten dituen eskulangilea.

Felipe Arrese Beitia (Otxandio, 1841-1906) arotza zen ogibidez, irudigile edo **santugina**. **Berria - Kultura**

Santu-irudi askoren egilea zelako esaten zioten **santugina**. **Berria - Kultura**

Ama Euskarari bere negar-erostak zuzentzea Otxandioko **santuginak** asmatu bazuen, ama-semeak elkarrizketan jartzea Hernaniko harginari bururatu zitzaion. **Xabier Mendiguren Elizegi**

santugintza iz santuen irudiak egitea; santuginaren lanbidea.

Idazteko epea eta astia bere arotzerian hartzen ei zituen; **santugintzako** zintzela eta mailuaren ordez, papera eta luma harturik, bere lantokia poesia-tailer bihurtzen zuela.

Berria - Kultura

santuhartu *izlag* adkor begikoa.

Jean Desmarets, Saint-Sorlingo jauna (1596-1666), literaturgile frantziarra, Frantses Akademiako lehen kantzilerra, Richelieuren **santuhartua** eta jansendarren etsai porrokatua. **Juan Martin Elexpuru**

santujale *(orobat santu-jale g.er., saildujale g.er. eta saildu-jale g.er.) 1 iz adkor* elizkoia.

Txinpartak erazi genizkionan bizitzari... **santujale** hura azaldu zen arte. **Migel Angel Mintegi**

-Nik pixa egingo diat San Nikolaseko ur bedeinkatuaren ontzira, hartara **santujaleek** nire pixaz egin dezaten aitaren! Horra Ruche jaun paganoa **santujale** bihurtua! **Inazio Mujika Iraola**

Bileran atera zen gaia: lehendik ere bagenuela eskarmentua, eta infiltratuak egon zitezkeela organizazioan; **santujale** asko. **Inazio Mujika Iraola**

Santujale infiltratuak harrapatzeko bilabide aproposa erakutsi nahi zigula. **Inazio Mujika Iraola**

Mikeren lehengusina zen, begitarte xamurrekoa, **santujale** eredugarria itxuraz, baina, gero ikusi genuenez, batere inbidiarik ez zien Frantziako XVIII. mendeko moja haragi-gose haiei. **Karlos Zabala**

2 (hitz elkartuetan)

Irakasle betaurrekodun bat, ezkontdua, **santujale** aurpegikoa eta alderdi kontserbadorearen jarraitzaile esanekoa. **Karlos Zabala**

Izan ere, formaltxo, **santujale** eta ikastun fama ondo irabazia neukan. **Iban Zaldua**

3 (izenondo gisa)

Tirano fanatiko horietako bat, besteei arauak eta legeak ezarri zalea, astopito **santujale** bat. **Oskar Arana**

Moral burgesaren aszetismo **santujaleari** aurre egiteko asmoz. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Gizarte zapaltzaile eta **santujale** hari mingarrienak zitzaizkion arloetan gauzatzen du bere apurketa-lana: sexuaren eta erlijioaren arloetan. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Mezatakoa! ez nuen sekula ulertu izan Estepanen **santujale** joera hura. **Edorta Jimenez**

santuki *adlag* santuen moduan. ik **sainduki**.

San Frantziskok halako debozioz eta hain **santuki** predikatu zien, ezen bakera, apaltasun handira eta elkartasunera bildu baitzituen. **Askoren artean**

Bertan **santuki** bizi izan zen eta aintzaz beterik hil. **Askoren artean**

Beste gaixotasun batek jo zuen gorputz-arimaz sendatutako legendun hori, eta Elizako sakramentuez indarturik, **santuki** hil zen. **Askoren artean**

santurtziar *1 izlag* Santurtzikoa, Santurtziri dagokiona.

Preciadok 29 urte ditu eta Gonzalezek 30, eta biak **santurtziarrak** dira. **Berria - Euskal Herria**

Azken urteotan bezala, Gomez **santurtziarra** zen faboritua. **Berria - Kirola**

Gros taldeko maisu handi **santurtziarrak** irabazi zuen Zorrotzan jokatu zen Euskadiko Txapelketa. **Berria - Kirola**

2 iz Santurtziko biztanlea.

Hildako **santurtziarra** ertzaina zen. **Berria - Euskal Herria**

Hango adierazteko moduak, hango negar egiteko gonbitak, hango hunkitzeko erak medellindar bilakatu zuten **santurtziarra**. **Berria - Kultura**

Dakigun bezala, **santurtziarra** euskaldun berria zen, eta ez nolana hikoia, Euskaltzaindiko alkietaraino heldua zen. **Herria**

Lezo Urreztietak -bai, Agirrerri armak erosten zizkion **santurtziar** abertzale suharrak-. **Iñigo Aranbarri**

santuru ik **domuru**.

santutasun *1 iz* santua denaren nolakotasuna.

Ez ziren defendatu, egun haren **santutasuna** errespetatzeagatik. **Elizen arteko biblia**

Luzaroan bizi izan zen, **santutasun**, zintzotasun eta jainkozaletasunean. **Askoren artean**

-Ez zarete nitaz fidatu eta ez duzue nire **santutasuna** israeldarren aurrean aitortu; beraz, ez duzue herri hau gidatuko emango diodan lurralderaino. **Jose Antonio Mujika**

Neure **santutasuna** agertuko dut nazioen aurrean. **Elizen arteko biblia**

Santutasunaren bilaketa pertsonala gizarte-ekintzaren forma bat baitzen. **Iñaki Mendiguren**

Honelako eta bestelako bertutez santutzen zuten leku hau eta beren buruak **santutasunean** gordetzen. **Askoren artean**

Baina horrek ez du esan nahi oso herrialde urrun batetik [...] ekarritako erlijioak bere **santutasunari** zor zaion arrakasta guztia izango duela. **Iñaki Iñurrieta**

Horrela denak eraberrituak izango gara zuzentasunean, egian, **santutasunean**. **Joan Mari Lekuona**

Jainkoak zuzentasunean eta egiaren **santutasunean** sortutako gizaki berriaz. **Joan Mari Lekuona**

Ez zuen umorerik Ahalguztiduna lausengatzeko [...] edo Bere **santutasuna** Sionera berriz eramanda Jerusalem berreraiki zezala erregutzeko. **Koro Navarro**

Gauza arrunta izan zen lur-jabeek lurrok elizei eman eta gero beraiek zentsuz hartzea, joputza horren bidez elizen **santutasunean** partaide zirelakoan. **Iñaki Iñurrieta**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

horrek, jainkoak jakingo du zergatik, ematen zion bere **santutasun** berezia. **Xabier Olarra**

Bere **santutasun** bakartian munduari eta errealismoari kontzesio gabe bizi denarentzat. Behin, **santutasun** handiko bi anaia frantsesek Frantzisko santuarekin topo egin zuten. **Joxe Azurmendi**

Bazen anaia bat, itxuren arabera, **santutasun** bikaineko biziera zuena; baina bere burua nabarmentzea gustatzen zitzaion. **Askoren artean**

Aureola **santutasun** goitarrago baten zeinutzat hartzen da, apezpikuen mitra edo Aita Santuaren tiararen gisara. **Santutasun** betearen gailurrera iritsi zen eta betetasun ororen azken muga atzeman zuen. **Xabier Olarra**

Espiritua **santutasun** gorenaren atzetik lehiatzen zenean, gorputzak ez baitzion eragozpenik jartzen. fariseuen azaleko **santutasuna**, zenbait praktikarekin aski dutenak barruko garbitasunik gabe. **Askoren artean**

Horiei uestezko **santutasun** eta garbitasuna dariela. **Xabier Kintana**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ordudanik, **santutasun** -bide guztietan aurrera egin zuen. **Askoren artean**

Hilobiek nolabaiteko **santutasun** ukitua dutela onartua da. **Xabier Olarra**

Arretaz azter dezatela arima-zola, ea barruratu zaien **santutasun** -ideia bat, Jainkoagandik ez datorrena eta Jainkoa garbi bilatzen ez duena. **Joan Mari Lekuona**

Frantzisko, sortzen ari den gizarte berriaren eskakizunei erantzuten dien **santutasun** -eredu berri bezala aurkeztea. **Askoren artean**

Erlijosioak **santutasun** -ispilu ziren, eta jende santu asko hilobi zurituaren itxurakeriaz kutsatu gabe zegoen oraindik. **Askoren artean**

Hain garbiak ziren Frantziskoren **santutasun** ezaugarriak, ez baitzen inor hari aurre egitera asartzen. **Askoren artean**
Nola izan daiteke -zioten-, hainbeste **santutasun** -seinaleren azpian faltsukeria eta itxurakeria baino ez egotea? **Berria - Ekonomia**
Luzaz bizi izan zen hango kobazuloan ermitau, beti ere bidaiariet laguntzeko pronto, harik eta **santutasun** usainean hil zen arte. **Martin Anso**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

frantziskoren santutasun (3); **santutasun ezaugarri** (3); **santutasun fama** (5); **santutasun gorenaren** (3); **santutasun handiko** (12); **santutasun handiko gizona** (6); **santutasun handikoa** (5); **santutasun handiz** (3)
frantzisko dohatsuaren santutasuna (3); **frantziskoren santutasuna** (4); **gizon honen santutasuna** (3); **neure santutasuna** (6); **nire santutasuna** (6); **santutasuna agertuko dut** (3); **santutasuna eratzten** (3)
frantziskoren santutasunaz (4)
santutasunez agertzean (3)

santutegi¹ 1 iz santu entzutetsu baten irudia edo erlikia gurtzen den eraikina.

Garai hartan, Asisko gotzaina Gargano mendiko San Mikel **santutegira** erromes joana zen. **Askoren artean**
Santa Maria **santutegia** hetsia zen baina eraikinaren urrezko handitasunak harritu ninduen. **Piarres Aintziart**
Arantzazuko **Santutegiko** teilatu izkina batean. **Pello Zabala**
Gerra zibilaren beldurra berriz piztu da Iraken, Samarrako Al Askari **santutegi** xiitaren aurkako erasoaren ondorioz. **Berria - Harian**
Zenbaitetan, **santutegiari** erantsitako arkupe eta zutabe galeria batek inguratzen du kanpandorre basa. **Berria - Kultura**
Loiolara iritsi, eta **santutegian** bertan antolatuta zegoen kuartelera joan ginen lehenbizi. **Inazio Mujika Iraola**
San Juan de Ortega, **santutegiak**, aterpeak eta ostatuak osatzen dute. **Piarres Aintziart**
Santutegiko horma euriak garbituen aurrean. **Josu Zabaleta**
V. mendean lotu zuen ospe handiena **santutegiak**. **Berria - Kirola**
Xiiten **santutegi** garrantzitsuenetarikoa bat suntsitu dute ekintzaile batzuek Samarra hirian. **Berria - Mundua**
Defentsako lanetan harresi, dorre eta ateen kalkulua sartzen dira [...]; erlijioetan jainko hilezkorren **santutegiak** eta tenpluak sartzen dira. **Santiago Iruretagoiena**
Eleusisen Zeres eta Proserpinarenaren **santutegia** eraiki zuen Iktinok estilo doriarrean. **Santiago Iruretagoiena**
Mekzita edo **santutegietan** berdin, jaunaren lurra denez, ortusik sartu beharra dauka, haren esanera datorrela adierazteko. **Patziku Perurena**

2 Juduen tabernakuluaren aurrealdea.

Tenplu barne-barneko toki hura, **santutegia**, Jaunaren itun-kutxa ezartzeko antolatu zuen Salomonek. **Elizen arteko biblia**
Apaizek bere tokian ezarri zuten Jaunaren itun-kutxa, tenpluko **santutegian**, hau da, toki santu-santuan, hegadun izakien hegalean. **Elizen arteko biblia**
Santutegia hamar metro zen luze, hamar metro zabal eta metro bat gora, eta urre garbiz jantzi zuen Salomonek. **Elizen arteko biblia**
Santutegian sartzeko jantziriko lihozko tunika erantzi eta bertan utziko du. **Elizen arteko biblia**
Santutegiaren aurrez aurre zegoen aldea, berriz, zedroz jantzi zuen. **Elizen arteko biblia**
santutegiak dituen diru-sarreretatik urtero kentzen diren zilarrezko bost mila txanponak bertan diharduten apaizentzat uzten ditut. **Elizen arteko biblia**
Zakarias bakarrik sartu zen **santutegian**, herria kanpoan zegoen bitartean. **Joan Mari Lekuona**
Baina **santutegia** inor gabe, aldea profanatu, atek erreak eta gelak deseginak zeudela, atarietan sasiak, edozein baso edo menditan bezala, erne zirela ikustean, [...].
Elizen arteko biblia
Nire **santutegiko** liturgi zerbitzua bera ere atzerritarren esku utzi duzue. **Elizen arteko biblia**

3 irud/hed

Kontua da, azaldu dugunez, Jainkoak bere argiaz eta distiraz nabarmendu eta nobletu duen leku orori, hala nola bere **santutegi** edo zeruari, tronua deritzola. **Xabier Kintana**
Ziur jakin beharra edukitzen du bere kolkotan, egia absolutu bat badagoela, eta leku seguru batean dagoela gordeta, fidelek eta berak badakiten lekuan, infidelak beti haren mehatxu barbaroa izaten diren **santutegian**. **Joxe Azurmendi**
Gandhiren "arima-indarra" askatu zuen gertaera espirituala topaketa bat izan zen, arimaren **santutegian** zertua, hinduismoaren espirituaren eta kristau-berrionaren spirituaren arteko topaketa, eta Adiskideen Elkartearen bizitzan gorputua. **Iñaki Mendiguren**
Kontenplaziorako kripta bat da, zaratarik gabeko **santutegi** bat arimak azkenean bake apur bat aurki ahal izan dezan. **Oskar Arana**
Herri zibilizatu guztietan nabarmen da, legeen **santutegiaren** aldamenen eta legegilearen zaintzapean, halako goiburua, ebatzi eta doktrinaren gordailua, egunero eraberritzen dena. **Berria - Euskal Herria**
Jakituriaren distirak joko zaitu, bere barne egoitzatik eta egiaren **santutegi** sakonetik abiatuta. **Imanol Unzurrunzaga**
Minnesotakoak gitarra elektrikoa hartu eta rock talde batekin Newporteko folk **santutegian** azaldu zenean, Seeger emanaldia boikotatzen saiatu zen. **Berria - Kultura**
Hori ote zen munduko jakintzaren **santutegia**? **Aingeru Epaltza**
-Frantziara joan, ostren **santutegira** hain justu, Arcachonera. **Migel Angel Mintegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

santutegi xiita (3); **santutegi xiitaren** (3)
al askari santutegia (3); **neure santutegia** (3); **nire santutegia** (7); **nire santutegia kutsatu** (3); **santutegia desegin** (3); **santutegia profanatu** (4)
arantzazuko santutegian (8); **jaunaren santutegian** (5); **loiolako santutegian** (3); **santutegian sartu** (5)
samarrako santutegiaren (3); **santutegiaren aurrean** (7); **santutegiaren aurrean zegoen** (3); **santutegiaren garbikuntza** (5); **santutegiaren kontrako** (3)
arantzazuko santutegiko (5); **san migel santutegiko** (3); **santutegiko liturgi zerbitzurako** (4); **santutegiko oihala** (3); **santutegiko pisu neurriaren** (11)
san mikel santutegira (3)
bere santutegitik (4)

santutegi² iz santuen egutegia.

Pentsatzekoa ere izan zitekeen, Santa Kruz eguna baita, elizaren **santutegiaren** arabera, maiatzaren hirua, eta hortik Gurutz izena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

santutu, santu(tu), santutzen 1 du/da ad santu bihurtu. ik santu 20.

Honelako eta bestelako bertutez **santutzen** zituzten beren buruak eta toki hura. **Askoren artean**
Apaltasun horrek **santutzen** eta grazian finkatzen zuen gizon hura, eta etengabe hazarazten zuen bertuteetan eta Jainkoaren dohainetan, eta ez zion bekatuan jausten uzten.
Askoren artean
Izan ere, limonako ogia ogi santua da, Jainkoaren gorespenak eta maitasunak **santutua**. **Elizen arteko biblia**
Erljiioak funtzekoza ez den zerbait **santutzen** duenean, alferrik galtzen du gizakien artean den bitartekorik handiena. **Iñaki Iñurrieta**

2 irud/hed

Badakigu erromatarrek Jupiter eta Ganimeseden amodioak **santutu** egin zituztela. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

santutxuar *izlag/iz* Santutxukoa, Santutxuri dagokiona; Santutxuko biztanlea.

Jon Ander Couceiro euskal preso **santutxuarra** aske geratu zen atzo, zigor osoa bete ostean. Berria - Euskal Herria

Garikoitz Aspiazu **santutxuarrarekin** harremanetan egotea ere leporatzen diote poliziek Perezi. Berria - Euskal Herria

Orain arteko denboraldi onak eta talde mailako Espainiako txapelketan erdietsitako emaitza azpimarragarriek podiumerako kiniela guztietan sartzen zuten **santutxuarra**. Berria - Kirola

Harrituta zegoen **santutxuarrak** guardia zein baxu zuen ikusita eta mozolotuta legez zegoen gainera. Josu Landa

santutzar *izond* adkor santua.

Ez halako jainkosa **santutzar** ezin hurbilduzko bat, baizik eta hezur-haragizko emakume bat, beste edonork bezala jaten, kaka egiten eta larrutan egiten zuena. Oskar Arana

santuzale *iz* santuen zalea dena. ik **santujale**.

Hogeita sei urte ditut eta **santuzalea** beharko nuke honezkerok; alabaina, emakumerik lizunena nauzu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Kreatina debekatzea santuak baino **santuzalegoa** izatea da. Berria - Kirola

sanusismo *iz* islamaren jatorrira itzultzea aldarrikatzen zuen higikundea.

Antzeratsu agertu zen mundu islamikoan wahabismoaren, idrisismoaren, **sanusismoaren** eta mahdismoaren mugimendu militanteki arkaistetan. Iñaki Mendiguren

sapa¹ *iz* sargoria.

584 lasterkari (292 pare) dira Bidarraitik abiatu goizeko 8etan, aroa guziz alde zutelarik eta aurten (ez jazko **sapa** zar hura!). Herria

Arratsalde apalean, karrikak aiosten ziren ipar haizearen edo itsas haizearen menturan, baina gauaz egunaz bezalako **sapa** zen, eta ez zen soleitze handirik. Elena Touyarou

Sargori latza, **sapa**, lanberoa, nik dakita nola esan? Txillardegí

Alpeetatik jaisten den udako haize beroak eragindako **sapak**, bat-batean badator behintzat, pertsonarik zuhurrena erotzerainoko dilatazioa eragin omen dezake neguko haize hotzak uzkuratutako burmuinetan. Anjel Lertxundi

Nafarroan, berriz, beroa **sapa** izango dela adierazi dute. Berria - Euskal Herria

Sapa sartua baitzait izaki osoan akidurak bidea doblatzen dit, bereziki errepide gogorraren gatik. Piarres Aintziart

Egun osoan gorputzak irentsi duen beroan murgildua naiz, Navarrete bera, **sapak** zapaturik, doi-doi higitzen hasia denean. Piarres Aintziart

Ez da ezer entzuten, kirol zelaiko oihu urrun bakan batzuk baino ez, arratsaldeko **sapan**. Koldo Izagirre

Alpeetatik jaisten den udako haize beroak eragindako **sapak** [...] pertsonarik zuhurrena erotzerainoko dilatazioa eragin omen dezake neguko haize hotzak uzkuratutako burmuinetan. Anjel Lertxundi

2 (izenondoekin)

Martxoko **sapa** bero ustel horretan. Pello Zabala

Egun osoa etxean ematen dugu, kanpoko **sapa** beroari ihesi. Javi Cillero

Alpeetatik dator neguko haize hotza, Alpeetatik udako **sapa** beroa. Berria - Kultura

Beharrik ez zuten bezperako bero asto hura, nahiz zonbeitzuk aski lan izan duten aintzina jarraitzen, hain zen tokika **sapa** haundia. Herria

Gauaz ere bero, **sapa** tzar pisu bat! Herria

Sapa jasanezina zen eta denak izerdi putzutan zeuden. Berria - Kultura

Sapa malapartatu hark izotz-kozkorrez freskatutako bainua hartzera gonbidatzen zuen bezala, egunean bi alkandora jantzera behartzen zuen Justo Badiola. Joxemari Urteaga

Berriro **sapa** urdin hura itsasoaren gainean. Joxe Austin Arrieta

3 (izenondo gisa)

Soldadu-patruilak dabilta nonahi; agerikoa da bertakoen urduritasuna; aire **sapak** berak ere arriskua du albiste. Anjel Lertxundi

Sekula ahaztuko ez dudan gauza bat gertatu zen arratsalde **sapa** haietako batean. Aitor Arana

Izerdi **sapa** batek hartu dit gorputza. Anjel Lertxundi

Eta, hori dela bide, Labartzan sentituko nuen sargori **sapa** itsaskorraren aztarnarik ez. Txillardegí

Hemen gehixago senditu ditake aro **sapa** horren eragina. Herria

4 (hitz elkartuetan)

Oroitzen dut **sapa**-egun hura. Anjel Lertxundi

5 *bero sapa*

Alpeetatik dator neguko haize hotza, Alpeetatik udako **bero sapa**. Anjel Lertxundi

Bero sapa baino ez, labe bat irekitzerakoan bezalakoxea, aire irakinezko bafada. Joxe Austin Arrieta

Bero-sapak paisaiari ematen dion isiltasun berezi horretan isolaturik, gora iritsi dira. Pako Aristi

Sant'Orso barruko freskura eskergarriaren ondoren, erreago egin dit eraso kaleko **bero sapak**. Berria - Kultura

Behar den bezalako aroarekin, ez euririk, ez **bero saporik**. Herria

Hogeita hamabost graduko **bero sapa** itogarria, hezetasunez eta argi itsugarriaz erasoka. Oskar Arana

Bero sapa egiten du. Pako Aristi

Bero sapa genuen goiztiritik. Txillardegí

Bero sapa itogarria egiten zuen. Iñaki Mendiguren

Ez da zuhaitz-koxkor hau lurralde nordikoetarako egokiena: mediterraneo aldetik oparoago dabilke, gusturago beti eguzki printzetan eta **bero sapa** emankorretan. Pello Zabala

1911n, **bero sapa** handia egiten zuen uda aurreko egun erre batez, Emilio Salgarik bere buruaz beste egin zuen. Anjel Lertxundi

Arratsaldean, **bero sapako** orduak igaro ondoren, patioan eseri eta etxeokoen hizketan aritzen zen. Josu Zabaleta

6 *izerdi-sapa*

Urkiaren izerdi-**sapa** edaten zuten, batez ere udaberrian, osasun garbi fina mantentzeko. Pello Zabala

Hasperenka eta **izerdi sapetan** jaikitzen nintzen goiz urratu horietan. Itxaro Borda

Izerdi sapa batek hartu dit gorputza. Anjel Lertxundi

7 *sapa-belar*

Zaldi-irrintzia iruditurik, **sapa**-belarrak ateratzeari utzi, eta burua jaso nuen. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bero sapa (41); **bero sapa handia** (3); **bero sapa itogarria** (3); **sapa egiten** (4); **sapa egiten du** (3); **sapa handia** (3)

bero sapak (9)

bero saparen (4)

sapa² 1 iz landarearen izerdia.

Lehenbizikoa, udaberriko **sapa** gora datorkionean: hostoa ernetzen hasten deneko amaizten da aldarte hau. Pello Zabala

Landareak berak ere sofritu egiten baitu: izerdi betean badabil, **sapa** eta barruko lurruna goraka duela, nola ebakiko diozu bada, bere punttetako muttur bigunena? Pello Zabala

Bere izerdi eta **sapa** bizigarria da oso: irakiten duenez gero, urki-ardoa eta urki-garagardoa prestatzen dituzte lurralde iparraldeko hotz haietan. Pello Zabala

2 irud/hed

Ilbeherak desintoxikatu egiten digu gorputza, garbitzearen aldera jotzen du, barruko **sapak** mugitu, ureztatu eta izerdiarazi, **sapa**-izerdiak mugiarazi eta atera, garbiketa behartuz; Pello Zabala

sapa³ iz txima.

Gabanaren botoiak katean askatu ondoren bisera kendu zuen, eta ile-**sapa** beltzarana bizkarrean behera haizatu Josu Landa

sapai ik sabai.

sapailo iz balkoia.

Kanpora eraman ninduen, bandera faxistak zeuden nonahi, baforeetan, **sapailoetan**, atelierretan, kanpandorreetan. Koldo Izagirre

Bere logelan, oilarrak egiten ez badu, bateleren kantak esnatzen du: **sapailoan** irakurtzen edo idazten dagoela, batelerak entzuten ditu badiaren beste aldean, kantari beti. Koldo Izagirre

sapalda ik zapalda.

sapar iz ipar laparra, laharra, sasia.

Kanporat egin nuen, eta, **sapar** batzuen arterat ezkutatzen nintzela, nigarrez hasi nintzen. Joan Mari Irigoien

Ez nau izuak irentsiko, **saparrek** harrapatutako papogorri ni... Itxaro Borda

Manexunek buneta goratzen eta aihena inguratzen zuen **saparrera** hurbiltzen zen. Itxaro Borda

sapatsu¹ izond sapa handikoa. ik sargoritsu.

Badaki **sapatsu** eta sargori jartzen ere, eta orduan kontuak. Pello Zabala

Elektrizitate gidatxo bihurtzen dira giro pixu eta **sapatsuan**, bai zuhaitzak, dorre altuzkoak, oletako tximini eta beste altuerako eraikinak. Pello Zabala

Egun luze hauetako eguzki ordu nasaien bero **sapatsuen** artean. Pello Zabala

Egun pare bat, ez askoz gehiago, bero samar, erre edo **sapatsu**, bota dituela... Pello Zabala

sapatsu² izond landaren izerdiz betea.

Egutera gozoki egonik, axkar demonio bere zainetan gora izerdi **sapatsua** altxatzen eta axkartzen zaion bat maitagarri zait oso. Pello Zabala

sapatsu³ izond tximatsua.

Baina uka liteke, diferentzia horiek gizadia arrazatan bereizi eta klasifikatzea justifikatzen dutela (zientifikoki), buruaren soilak edo **sapatsuak** ez duen legetxe. Joxe Azurmendi

sapaxut iz

Axkarrak da gure sagarrondotto **sapaxut** deitzen diodana. Pello Zabala

Urriko Pilareko Ama Birjina inguru horretan, brizt batean, loreak ñirñir dituela berriro gure sagarrondo **sapaxut** hori. Pello Zabala

sapelar iz hirustaren antzeko landarea (*Stellaria media*).

Goizean goiz jaikitzen zen, **sapelarra**, artatxiki adarrak, txori opilak erosten zizkien handizkako saltzaileei. Karlos Zabala

sapientzia iz jakinduria.

Egiazki ez ginuen uste herriko semeak ari zirela taulen gainean **sapientzia** osoan, ofiziokoak iduri. Herria

saponari iz belar landare lore-handia, xaboi gisa erabiltzen den sustrai duena(*Saponaria officinalis*).

sapristi *interj* harridura adierazten duen hitza.

Sapristi, neskatxa gozo batzuk hemendik iriteten ikusi ditiat eta ez zituan batere zatarra. **Lopez de Arana**

Bertze batek: errak **Sapristi**! **Herria**

Sapristi! ogi eta ezti. **Herria**

saproxiliko ik **kakalardo** 5.

sar-atera *(12 agerraldi, 7 liburu eta artikulu 1ean; orobat sarratera g.er.) 1 iz sartu-atera.*

Paco sei urterekin etxetik fuineta (eskapo) egiten hasi zen, auzoko sukaldeetan **sar-aterak** egiten zituen, joaten zen Mosenen beraren etxera. **Pablo Sastre**

Gero gazte aintzantzat bezala elizako **sarraterak** bakandu ziren, urtean ehorzketa bat nunbait, Eguberriko meza noiztenka... **Menane Oxandabartz**

Henrikeren armagizonek ezpatak herdoiltzera ez utzi nahi eta **sar-atera** azkarretan neurtu zituzten etsaiaren indarrak. **Aingeru Epaltza**

Iduri likek hiltzaileak ardura berezia hartu zuela bere **sar-ateren** lorratzik ez uzten. Inondik **sar-aterarik** ez zuen txara baten bazterrean ikusirik bere burua, biriketako arnasa faltaz itotako ahots eten ilaun batez hitz egin zuen Norak: [...]. **Aingeru Epaltza**

Heriok gorputz batean **sar-atera** egiten duenean litekeena duk kolpatua bere onera ekartzea. **Aingeru Epaltza**

2 (adizlagun gisa)

Merkatuko ateetariko batean ginen, **sar-atera** zebilen jendearendako traban. **Aingeru Epaltza**

3 *sar-ateraka adlag* sartu-ateraka.

Gure gibebeko etxeak argiak piztuak ditu, hogei bat urteko ikasleak **sar**-ateraka ari dira gelditu gabe. **Aurelia Arkotxa**

4 *sar-ateran (orobat sar-aterean) adlag* sartu-ateran, sar-ateraka.

Bertzerik ezinean, lau hilabete horietan Josuren ganberan **sar-aterean** ikusitako aurpegi ugarietariko bati lotzera saiatu nintzen hitz bakarreko boza. **Aingeru Epaltza**

Pare-paretik iragan behar izaten dute **sar-ateran** ibiltzen diren guztiek. **Aingeru Epaltza**

sar-hitza *(orobat sarhitz) iz sarrera-hitza.*

Aita Montcheuil-en "Problèmes de vie spirituelle" liburuaren **sar**-hitzean, [...] aita d'Ouince-ek izkiriatzen zuen "1943an, haren fraide lagun bat gestapoak arrastatu zuelakotz, ixitudiantek otoitz egiten zuten libra zezaten". **Marzel Etxehandi**

Batez ere hori esateko jarri naiz **sar**-hitza hau idazten; esana dago. **Pablo Sastre**

sar-jalgi *(orobat sarjalgi g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian sar-jalgi agertzen da) iz sartu-irtena.*

Bederatzi orenak inguruan, erantzun hura hartzeko gogoak neure etxean berariaz **sar-jalgi** bat eginarazi zidan, baina ez nuen fitsik kausitu. **Jon Muñoz**

Behi handi hau beti gustuan, ase eta lo, beti azkenik **sar-jalgietan**, nahiago du egon etxe ondoko pentzeetan, mendirat joan gabe; aldia egina du, helduden urtean salgai izanen da. **Herria**

Nafarrak nahiko zuen bai, baina Xabier bere aldetik ez zen presatu, funtsean Espainian gaindi iragaitean, Lisboako bidean ez baldin bazuen arterik hartu bere Xabierko sortetxean **sar-jalgi** baten egiteko, ez da hain handi izan behar, ez bazen ere Coimbrara aldaratu irakasle ahaide urrunaren agurtzeko. **Piarres Xarriton**

Nola etxe horretan hezia izan baita, eta batzuetan han **sar-jalgi** bat egiteko ohitura baitu, ohi bezala abegi egin zioten. **Jon Muñoz**

sarabanda ik **zarabanda**.

sarale iz abere bazka.

Han baitauzkate animaliak, eta zurezko gainean, harrizko bermez, dagoeneko aipatu dudanez, han bizi baitira berak eta han edukitzen **saralea** eta janariak. Larre-pentzeak zehar-argitan, **sarale**-metak eguzki-argitan gorri. **Juan Garzia**

Sarale-usaina usaintzeko desioa. **Joxe Austin Arrieta**

sarapide iz

Efesotarrek tunika amorginoak eramaten zituzten, gardenak, goruan iruniko lihozko jantzi bioleta, purpura eta azafrai kolorekoak, **sarapide** sagar-hori kolorekoak eta zuriak eta arrosak. **Juan Garzia**

sarar ik **saratar**.

sararazi ik **sarrarazi**.

saratar *(orobat sarar g.er.) 1 izlag* Sarakoa, Sarari dagokiona.

Saratar medikuaren deiak ez zuela izan, ez bere garaian, ez geroztik ere, oihartzun handirik Euskal Herrietan. **Piarres Xarriton**

2003ko ekainaren 22an zendu zen Manex Bergara **saratar** bertsu idazlea, 86 urtetan. **Herria**

Ramuntxo Lamothe, **saratar** korrikaria, izan da irabazdun haundia, bi lasterkaldiak berak ereman baititu. **Herria**

Etxalarreko gaztek, denbora hetan afari on bat eskaintzen zuten **saratar** laguneri eta guk gogotik ordaintzen ginuen gure bestetan. **Herria**

-Bai, sortzez **saratarra**. **Elena Touyarou**

Ganixon Larzabal **saratarrak** 1940an Joxe Miel Barandiarani nola, hala kontatu dugu guk, gutxi gorabehera, Mouriskot aintziraren elezaharra. **Martin Anso**

• 2 iz Sarako biztanlea.

Saratar guziak hor izaneko aurretik gauden. **Herria**

Egun batez, paskin batzuk agertu ziren **saratarren** ateetan. **Anjel Lertxundi**

Saratarrak, asteak eta hilabeteak joan arau, beren herria gertatzen ziren aldakuntzen lekuko kezkatuak ziren. **Elena Touyarou**

Oihu lazgarriak entzun ziren gau osoan, baina **saratarrik** ez zen leihora irten, indartsuagoa baitzuten haiek izua, jakin-mina baino. **Anjel Lertxundi**

Bizi luze **saratar** berrieri eta goresmenak burasoeri. **Herria**

Saratar hautetsiek esperantza dute auzo herriek ere sustengu bide bera hartuko dutela. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bero saparen (4)

saratarren kontra (6)

sarberri *izond* sartu berria.

Ez zekien **sarberria** ez zela edatera heldu. **Aingeru Epaltza**

sarbide 1 *iz* sartzeko bidea. ik **sarrera** 2.

Kalezuloaren **sarbidean** bi denda zabalik zeuden artean. **Patxi Zubizarreta**

Loratetik **sarbidetik** sartu zuen autoa. **Koro Navarro**

Handik datorkiela argiantza eta, aldi berean, han dutela tenpluko **sarbidea**. **Pello Lizarralde**

Eraikineko **sarbide** guztiak metalezko xafra astunez zarratzeko. **Berria - Euskal Herria**

Hamar minutu igaro aurretik, jauregiko **sarbidera** iritsiak ziren biak ala biak. **Karlos Zabala**

Volkswagen furgoneta zahar bat dago aparkatuta etxerako **sarbidean**. **Oskar Arana**

Bertara iritsi ahal izateko 405 metroko **sarbide** bat eraikiko dute. **Berria - Harian**

Ikastetxeko **sarbide** guzti-guztiak ari dira zaintzen. **Iñaki Mendiguren**

Lehorreko **sarbide** guztiak ixten zituzten Mendebaldeko eta Errusiako Gizartearen eremuetatik Mundu Zaharreko beste alde batzuetara. **Iñaki Mendiguren**

Bigarren zatiari zen sartzeko, baina lehen baino bortitzago galarazi zioten **sarbidea**. **Felipe Juaristi**

Norbaitek erabiltzen bide du **sarbide** hura, pentsatu du, susmoak gorpuzten ari zaizkielakoan. **Iñaki Iñurrieta**

Bi kuia ilarak barrikada bat eratu eta Rambuteau kalearen **sarbidea** trabatzen zuten. **Karlos Zabala**

Soldadu gehiegi ziren eta **sarbidea** oztopatzen zuten. **Patxi Zubizarreta**

Atariko ilunpean, **sarbideko** atearen aurrean, bortxaz heldu zion eta bere soinerantz erakarri zuen. **Lopez de Arana**

Horren ondorioz, trakea lehortu eta zurrundu egiten da aire-hodiaren **sarbidearen** inguruan. **Irene Aldasoro**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ate horiek ziren hiriaren **sarbide** bakarra. **Jon Muñoz**

Hirirako **sarbide** berriak egiten ez diren bitartean, zaila da hau konpontzea. **Berria - Euskal Herria**

Sarbide bakarra zegoen harako: zubi altxagarri bat, amildegi ezin malkorrageoan gainean ezarria. **Jon Muñoz**

Hainbat polizia hedatu dituzte aipatu lekuetan, baita inguruko **sarbide** nagusietan kontrol zorrotzak ezarri ere. **Berria - Mundua**

Aparkaleku berriak eta oinezkoen **sarbide** hobeak egin eta lorategi inguruak txukunduko dituzte. **Berria - Euskal Herria**

Ilun zegoen; sabaiaren erdian zegoen zulo bat zen argi naturalaren **sarbide** bakarra. **Jon Muñoz**

Alboetan, beste kaleen **sarbide** beltzak ageri ziren, oro isil, oro ilunpe. **Karlos Zabala**

Hortzak zotzez garbitzen ari zen Brooklyn-go zubiaren **sarbide** lohitik igaro zenean. **Lopez de Arana**

Ez du uraren **sarbide** zuzenik topatzen, nonbaitetik iragazten dela dirudi. **Joxemari Urteaga**

sarbide zaileko eta berandu erromantzuriko eskualde batzuk aurrez latina erabili gabe zuzenean igaro zirela euskara baliatetik katalana baliatzera. **Berria - Kultura**

Denak dira berdintsuak, batetik bestera ez dago alde handirik: aho beltz estua dute atari, denak dira **sarbide** zaileko. **Anjel Lertxundi**

3 (testuinguru abstraktuetan)

Gizarte-hizkuntzak, eta teknikoak, orain, zientziarako **sarbidea** eskaintzen zion. **Xabier Olarra**

Darritxonek, menturaz, kontseilu nagusira itzultzeko **sarbide** bat aurki zezakeen, Tassy ez balitz aurkezten. **Berria - Euskal Herria**

Dantza eskatzea izaten zen eritoaren hasiera, barnago ezagutzeko **sarbidea**, eta horraino bai, ausartzen nintzen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Horretarako, ordea, **sarbide** guztiak itxi behar lizkioke torturari. **Joxerra Garzia**

Zeinen garrantzitsuak diren, kapitalen **sarbidea** huts-hutsik exogenoa denean, **sarbide** horrekin batera gertatzen diren baztertzefenomenoak. **Koro Navarro**

Aztertzeari ekin diogun labirinto historikoan **sarbide** bat aurkitzeko arrastoa eman diezaguke. **Iñaki Mendiguren**

4 (testuinguru abstraktuetan, izenondo eta izenlagunekin)

Momentu horren argazkia **sarbide** ezin hobe izango da prentsa idatzirako. **Jon Arretxe**

Sarbide zuzeneko 203.200 bezero edukiko ditu telekomunikazioen euskal operadoreak urtea amaitzerako. **Berria - Ekonomia**

Nolahi ere, hilketa pare bat **sarbide** ona duk beti. **Aingeru Epaltza**

Zuhur jokatu genuke **sarbide** egokia bilatuko bagenu. garapenbideko herrialdeek Mendebaldeko merkatuetan duten **sarbide** mugatua ex post emaitza dela. **Iñaki Mendiguren**

Kreditua, meatzaritza edo nekazaritzako errentarik baldin badago, eta laguntza bereziki, izaten dira atzeritar kapitalen **sarbide** nagusia. **Koro Navarro**

Ekoizpen modu kapitalistaren erdizkako **sarbidea** izatea. **Koro Navarro**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sarbide arazoak konpontzeko akordioa hartu dute. **Berria - Euskal Herria**

Bataioaren **sarbide**-erri kristaua erromatar armadan sartzetakoan erreklutari eskatzen zitzaion zin-egite militarrekin (sacramentum) parekatzen du San Ziprianok. **Iñaki Mendiguren**

Egunkari-zatiak Irakasle Eskola Ofizialerako **sarbide**-proben emaitzak zekartzan, batxilerreren merezimenduen arabera ordenaturik. **Joseba Urteaga**

- Arrotzari trabak jartzen dizkioten mekanismoak dira horiek: **sarbide**-kontrol sistemak, sare birtual pribatuak, suebakiak sare pribatuaren eta Interneten artean jartzen den segurtasuneko hardware edo software sistema... **Berria - Gaiak**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Auto **sarbidean**, ilunpetan, atea zabaltzeko ahaleginetan zebilela, pastel bat erori zitzaion. **Koro Navarro**

Eta zaila da egokitzapen horiek egitea, sudur artifizialak ez baitu balio trakearen aire-**sarbidearen** ondo-ondoan kokaturik ez badago. **Irene Aldasoro**

Karta interaktiboaren bidez, kantonamendu bakotzeko internet **sarbide** libre guziak segidan agertuko dira, klik simple batez. **Herria**

7 **sarbide eman**

Badia Handira irekiak, honek **sarbide ematen** zuelarik esteparen ipar-mendebaldeko zerrendan zehar zegoen lur beltzeko zati goldagarria. **Iñaki Mendiguren**

Nori **eman** nahi diozu **sarbide** informazio horretara? **Juan Garzia**

Horazio, letrorok irakurritakoan, **emaiek** gizonoi erregerengana **sarbide**. Juan Garzia

8 sarbidea eman

Bazirudien atepak eta atepak zabaltzen zituztela infinituraino, okelaz mukurua betetako beste gela batzuetara **sarbidea ematen** zutenak. Karlos Zabala

Irudiek sinbolo-balioa izan dute batez ere [...] ustez jainkoaren presentziaren agertze zuzeneko edo zeharbidezko baten bidez sakratutasunaren mundurako **sarbidea ematen** zutela. Josu Zabaleta

Gileni, berriz, nire itzala izateak **sarbidea ematen** zion dorrean. Aingeru Epaltza

Zerga-salbuespen erabatekoak eta gizarte-arautegi murrizgarririk batere gabe nazioarteko zuzeneko inbertsioei **sarbidea ematen** zieten eremu frankoak. Koro Navarro

Ingeniaritza genetikoak esperimendu bidezko **sarbide** erabat berria **ematen** digu hainbat auzi konplexu aztertzeko. Juan Garzia

Brecht-en poemaren hitzek («Bizitza da handiena») **ematen** diote **sarbidea** hastapenetatik bikoiztasuna bere egiten duen nobela honi. Berria - Kultura

9 sarbide izan du ad

Garbiketa-zerbitzukoa izanik, **sarbide** baitzuen sail guztietara. Juan Garzia

10 sarbidea izan du ad

Kontsumoaren merkatu modernoan **sarbidea** duen erdi mailako klase zabal bat sortzea errazten du. Koro Navarro

Buxi doktorea hautatu zuen mezulari, izan ere, lanbidea zela eta, **sarbidea** baitzuen kalezuloko etxe guztietara. Patxi Zubizarreta

Herrialde horiek ia batere trabarik gabeko **sarbidea** zuten europar merkatuan. Koro Navarro

Zuzeneko **sarbidea duten** lineak 200.866 izatera iritsi ziren ekainean, eta EAEn zabaltzen ari den zuntz optikozko sareari lotuta daude. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sarbide bakarra (3); **sarbide guztiak** (3)

etxebizitzarako sarbidea (3); **sarbidea ematen** (4); **sarbidea izan** (3)

sarbideak egiteko (3)

lorategiko sarbidetik (3)

sarda¹ 1 iz itsasoan elkarrekin ibiltzen den mota bereko arrain multzoa. ik**baltsa**.

Biharamunean balea asesinoen **sarda** ikusi genuen. Edorta Jimenez

Bistan da **sarda** horiek jasaten duten arrantza presioa handiegia dela oraindik. Berria - Mundua

Sarda bat gomendaturiko gutxieneko kopururik behera dagoenean ez zaio ematen aukerarik ugaltzeko, eta arrain multzoak ekosisteman duen produktibitateak behera egiten du. Berria - Mundua

Azkenean inork ez du arrantzatik bizitzerik izango, **sardak** agortuko direlako. Berria - Mundua

Mareaje ona gertatu zen, **sarda** baten erdian gelditu ziren Ternuako uretara iritsi orduko, gogor jardun zuten denek gau eta egun. Koldo Izagirre

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Perka **sarda** bat zihonan gure aurretik, hogeit, hogeita hamar ale, bat bera ere ez bi libratik beherakoa. Koro Navarro

Ez dago zantzu argirik bakailao **sardak** suspertzen ari direla esateko. Berria - Mundua

Ez dago ezta ganorazko sardina **sardarik**. Berria - Harian

Neurri handiagoko sareak egitea alternatiba bat al da, arrain-**sardak** gero eta txikiagoak direnean? Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

3 aldra.

Ez naiz oroitzen non bazkaldu genuen, **sarda** polita bildu ginela bai, eta gero, berak jo eta jendeak dantza egiten zuela. Koldo Izagirre

Aldendu egin nintzen lagunengandik, bakartasuna bilatu nuen **sardatik** bereiz, gogora sortzen zitzaizkidanak igarriko ote zituzten lotsa. Koldo Izagirre

-Ganden igandean urte on gisa izan da gure ihiztari kementsuentzat, bainan aski hitsa Larrungo basurde **sarda** harentzat. Herria

4 sardako izlag arrainez mintzatuz, sardan ibiltzen dena.

Sardako arrainak sarean legez jausten ari dituk. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrain sarda (3)

arrain sardak (4)

sarda² ik **sarde**.

sardana iz Kataluniako herri dantza; dantza honen musika.

Sardana edo arin-arina. Karlos Linazasoro

sardango (orobat txardango) iz sardea.

Aztikerietarako erabiltzen omen zen: ur-bilatzaileen **sardango** makila, energia uhinen bila zerabiltena basa-lizar adarrez egina zen. Pello Zabala

Janari-etxean, lastoa ta belar ondua ugari, sabaian; atxur, eskuare, sarde, **txardango**, golde, periki, besabe, gurdi, gurtesi, orrazi, kabila ta uztarriak lur gainean. Xabier Mendiguren Elizegi

sarde (orobat sarda g.er. eta xarde g.er.) 1 iz gider luzea eta burdinazko bi hortz zorrotz edo gehiago dituen lanabesa, soroan eta ukuiluan lastoa, belarra edo simaurra jasotzeko edo biltzeko erabiltzen dena. ik **bihortz**; **matxarde**; **bostortz**.

Janari-etxean, lastoa ta belar ondua ugari, sabaian; atxur, eskuare, **sarde**, txardango, golde, periki, besabe, gurdi, gurtesi, orrazi, kabila ta uztarriak lur gainean. Xabier Mendiguren Elizegi

Belar-deskargagailu bat zen; behin zorura ezker, **sardearekin** aldameneko biltegi. Joxean Sagatzizabal

Eskuan dauka **sardea**, eta garia garbitzera doa: alea mandioan jasoko du; lastoa, ordea, inoiz itzaliko ez den sutan erreko. Elizen arteko biblia

Kako batean zintzilik zegoen **sardea** hartu nuen. Bernardo Atxaga

"Zer nahi duk? **sarde** hau sartzea!", esan nion. Bernardo Atxaga

Goitik behera sartu nion **sardea**, ni San Migel eta hura Satan, alderik alde, errukirik gabe, hondoraino. Joxean Sagatzizabal

Sarde bana hartu zuten, hosto pila simaurraren zuloan botatzeko. Karlos Zabala

Aittitte **sardeaz** belarra sabaira sartzen ari zen oraindik. Joseba Sarrionandia

Berak orduan **sardearekin** mehatxatu ninduen. **Bernardo Atxaga**
Zaindariak begiratzan ez zuela, atsedendalditxi bat, zelan heldu ahalik eta gutxien pala, **sarde** edo aitzurrari. **Urtzi Urrutikoetxea**
Leihora irten, eta gorri jantzitako gizon bat ikusi zuen, deabru bat iduri, **sarde** eta guzti. **Joan Mari Irigoien**
Sardearen hortz zorrotzek belarrean sartzean egiten zuten brazzz hotsa ere entzuten zuen. **Joseba Sarrionandia**
Azeituna iltzatuta zegoen lurrari, **sardearen** ziriak sator lurretan ondo sakon. **Joxean Sagatzizabal**
Nibs haien aurrean, zain, belarretarako **sardea** eskuetan. **Agustin Otsoa**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Begira ezak -esan zuen Claudek, azken **sarde** kolpea ematen zuela-, aza zurtoin hori ezagutzen diat. **Karlos Zabala**
Azpiak egiteko pala lana, eta asketako **sarde** lanak amaitu ondoren, Eligio, bere jokoko tokia hartu ordez, lasto pila batean etzatera joan zen. **Josu Zabaleta**
-Baserri askotan, **sarde**-koilarak urki-zurez egin ohi zituzten. **Pello Zabala**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Garro-pilak eta garro-metatxoak egin, garro-**sardeaz** lagunduta. **Pello Zabala**

4 irud/hed

Apropos goratu zuen soinekoa izterrean gora, zangoen **sarderaino** kasik. **Iñaki Zabaleta**

5 (tiragomarena)

Txominek tiragoma patrikatik atera, **sardea** gidatu, gomak luzatu, dispartatu... eta harriak bekokian jo zuen nagusia. **Joan Mari Irigoien**

6 sardexka.

Asko gustatzen zait erretilu bat, eta labana txikia, **sardea**, koilara eta paperezko aho-zapia hartu, eta erakusmahaian nahi dudana janaria aukeratzea. **Koro Navarro**
Mahai zapiari begiratzan zion, eta dudazko mugimenduak egiten zituen labana eta **sardearekin**. **Koro Navarro**
Emakume oreztadunak entsalada zerbitzatu die plastikozko koilara eta **sarde** oso handiekin. **Eider Rodriguez**
Esan gabe doa nazka ematen ziola ni sardina lata irekitzen ikuste hutsak ere, eta zer esanik ez, platerik ez zikintzearen, latan bertan **sardea** sakatuz ogitan bustitzeko orea -neuri ere begietara oso atsegina ez zaidan kolore susmagarrikoa- egiteak. **Ramon Saizarbitoria**

sardeka *adlag* sarde ukaldiz.

Halako kargamentua franko zaila duk kamionaren kajeran berdin samar uzten, inor ez daukak han palaka edo **sardeka** heure lanaren kuxidadea egiten eta kajeraren edo bagonaren bazter samarrean zabaltzen diagu aunitz aldiz **Koldo Izagirre**

sardeska ik **sardexka**.

sardeskada ik **sardexkada**.

sardeskatu, sardeska(tu), sardeskatzen (*orobat sardezkatu*) du *ad* Zeharkatu, iltzatu.

Jantzi militarren sakelatik laban mehe bezain zorrotza zanpez atera eta Katxoren begitarte urrako sakonaz **sardeskatu** zuen. **Itxaro Borda**
Leihoratu nintzen izuaz hustearren eta inguru beltza, zenbatu nituen zortzi segundo oroz argi marra batez **sardeskatua** zen. **Itxaro Borda**

sardexka 1 *iz* mahaiko labanesa, hiruzpalau hortz dituen, jakiak ziztatu eta ahoratze erabiltzen dena.

Ronek gisatua atera zuen bere platerera, eta **sardexka** hartu zuen, baina ez zen jaten hasi. **Iñaki Mendiguren**
Labanaren ahoari begiratu eta gero, **sardexka** sartu zion antzarari, irmo. **Irene Aldasoro**
Inork ezer esan beharrik gabe joan zen lasterka sukaldera beste **sardexka** baten bila. **Aitor Arana**
Mrs. Cardinalek sei plater ezarri zituen, bakoitza bere **sardexka**, aizto eta koilararekin. **Lopez de Arana**
Argi bizi batek intxaurkiz apainduriko jangela hura gainezkaturik zeukan, zilarrezko aizto eta **sardexketan** aldizka dir-dir eginez. **Lopez de Arana**
Aiztoen eta **sardexken** tintin-hotsak. **Iñaki Mendiguren**
Berehala ekarri zituen platera, ezpainzapia [...], ganiabet bat [...], bi hortzeko **sardexka** bat eta, azkenik, gatzontzia. **Jose Morales**
Nati **sardexka** handia jasotzeko mahaipera makurtu zenean. **Aitor Arana**
Léa gogotik ari zitzaion **sardexkaz** eragin eta eragin, saltsa ondo nahasteko. **Jon Muñoz**
Sardexkarekin espagetiak baldarki biltzen zituen artean kontatu zion: [...]. **Unai Iturriaga**
Hori adiuta Lakatos **sardexkarekin**, basoan joka hasi eta beste txanpan botila bat eskatu zuen. **Matías Múgica**
Kontu harekin jarraitu nuen bezperako platerak eta jateko tresnak garbitu bitartean, eta eginkizuna bukatu nuenerako **sardexka** baten hortzekin josita bezala zegoen erabakia nire bihotzean. **Bernardo Atxaga**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sardexka - eta koilara-hotsa hasi zen berriro. **Anton Garikano**
Baxerategian zeuden ilaran platerak, azpilak eta edontziak, eta labana- **sardexka** - eta koilara-sortak. **Irene Aldasoro**
Sardexka kolpea hartu du noski. **Karlos Zabala**
-Platerak, urrezko koilare- **sardexkak**, kristalezko kopak eta edalontziak. **Xabier Olarra**
Konfiantza tatxagabea dik niregan eta horrexegatik sartu naik tabakoaren, **sardexka** -labanen, izaren eta galtzerdi-oinetakoen estraperloan. **Patxi Zubizarreta**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Freddy Malinsek eritimoa eramaten zuen bere pudding-**sardexkarekin**. **Irene Aldasoro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aiztoa eta sardexka (3); **sardexka eskuan** (4); **sardexka plateraren** (3)

sardexkada (*corpusean sardeskada soilik*) *iz* sardexkak daukan jaki kopurua.

Gozoak ziren, astunegiak aukeran; kosta egin zitzaidan azkeneko **sardeskadak** irenstea. **Iban Zaldúa**

sardezkatu ik **sardeskatu**.

sardiant ik **sarjentu**.

sardina (*orobat txardina g.er. eta xardina g.er.*) **1** iz itsas arrain txikia, urdinxka, itsasertzetik gertu baltsetan bizi dena, jateko oso ona (*Sardina pilchardus*).

Sardina erretzeko surtako brasetan etzan behar dela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Munoa Plazan parrilan erretako **sardina** eta txitxarroa eskainiko da. Berria - Euskal Herria

Sardinak erretakoan bazter guztietan geratzen den usaina bezalakoak dira oroitzapenak. Anjel Lertxundi

Sardinak legez estu-estu eginik. Juan Garzia

Bertan egiten zuten lo, **sardinak** latan bezala. Julen Gabiria

Sardinak bezala gaude hemen, 25 bat pertsona ziega bakoitzeko. Berria - Mundua

Zer izango ote zen gutaz, baldin eta **sardinak**, berdelak eta karrakelak saldu izan banitu, liburuak saldu ordez? Jon Muñoz

Han sardinaz ketuen kaxek, Nantesko **sardinek**, hostoen gainean jarrita, bakailao bilduek, denak andre merkatarri lodi txepel batzuen aurrean zabaldurik. Karlos Zabala

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Arratsalde erditsutan ateratzen zen, **sardina** erre zenbait eta beste zertxobait erosten zuen. Elena Touyarou

Errai marroiak agerian zituzten **sardina** koipetsu haiek. Ramon Saizarbitoria

Sardina gazituen kaxa biribila hartu eta oliba olio lata koloretsuen gainean utzi du. Pello Lizarralde

Horiekin batera **sardina** eta antxo gazitua ugari. Felipe Juaristi

Afartzekorik ez zegoenean egiten nuen hori, **sardina** latakook jatea alegia. Ramon Saizarbitoria

Zakila aluan **sardina** da, itsaso zabalean. Markos Zapiain

Eskabetzeko sardina latak. Koldo Izagirre

3 (neurriekin)

Arrandegi baten bidez 20 bat kilo **sardina** sal ditzakezu, ez 2.000. Berria - Harian

Herenegun itsasoratu ziren hiru ontzien artean 400 kaxa **sardina** baino ez zituzten porturatu. Berria - Ekonomia

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez dago ezta ganorazko **sardina** sardarik. Berria - Harian

Bazkaltzeko garaia zenez, **sardina** lata bat ireki ala ez egon nintzen. Ramon Saizarbitoria

Garagardo botila eta **sardina** -pote zirtzilduak pilatzen diren lekua. Xabier Olarra

Gurdia bete **sardina** kaxa bentatik kamioietaraino eramateagatik sos batzuk biltzeko modua. Koldo Izagirre

Behinolako marmol eder bat bezalakoa zen, itsasoak eraman eta **sardina** arrantzale baten sarean kostaldera ekarritakoa. Karlos Zabala

Petra, chardin saltzallia obra txikiko **sardina** saltzaileen korua. Askoren artean

Egurrezko kaxa zaharraren **sardina** usainarekin. Joseba Sarrionandia

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hori AEBetako ekialdetik Itsaso Beltzera eraman dute eta, ondorioz, antxoa eta ijito **sardina** desagertu egin dira itsaso horietatik. Berria - Gaiak

6 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Petrolio usaina, **sardina** ustel usaina, gesal usaina sentitzen zen. Joseba Sarrionandia

7 sardina zahar sardina gazitua.

Non estutzen baitziren bidaiariak atabal-kutxan garraiaturiko **sardina** -zaharrak bezala. Xabier Olarra

Ba **sardina** zaharrak bezala, batek burua haruntza begira jartzen bazuen, hurrengoak hankak, txandaka. Pako Aristi

Zezipina, **sardina** zaharrak, jengibre-opilak, mahaspasak... -eskuak mugitu zituen desenkusaka-. Anjel Lertxundi

Sardina zaharrak jaten zituenean, labana lurtean sartzen zuen usaina kentzeko. Joseba Urteaga

Eskolatik irten, **sardina** zaharra ogi pusketa batean sartu, hura jan eta ahal bezain azkar lagunengana kalera ateratzen nintzen. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sardina lata (10); **sardina lata bat** (3); **sardina saltzaileak** (3); **sardina zahar** (3); **sardina zaharrak** (4)

sardinatzar ik **sardinzar**.

sardinera iz

Ionesco eta Beckett, eskua hilobitik ateraz gero elkar agurtzeko moduan jarrita daude, barne-patio batean balkoitik balkoira ttor-ttor ari den **sardinera** pareta bezain gertu.

Harkaitz Cano

sardinari **1** izlag Sardiniakoa, Sardinari dagokiona.

Abertzale **sardinari** guztientzako topagunea. Berria - Mundua

Herri **sardinariarren** autodeterminazioa zuten helburutzat. Berria - Mundua

Limba Sarda Comuna (Hizkuntza **Sardinari** Komuna) atondu, sardiniera batua lortzeko, eta honen erabilpena sustatzeko prozesuari bultzada ematea zen ekitaldiaren xedeetako bat. Berria - Mundua

Gilles Chabenaat korsikarrak, Roston Kuchichian armeniarrek, Heikki Syrjanen eta Pekka Westerholm finlandiarrek, Andrea Pisu **sardinariarrak** [...] parte hartu dute *Airea* lanean. Berria - Kultura

• 2 iz Sardiniako herritarra.

Katalan, euskal herritar, **sardinari**, eskoziar eta okzitaniarrek beren esperientziak alderatzeko aukera izango dute. Berria - Mundua

Lurra lantzea galarazten zien **sardinariari**, heriotza-zigorraz. Iñaki Iñurrieta

Erroman bizi diren **sardinariarrek**, aldiz, protesta eserialdi baterako deia egin zuten gaurko, Washingtonen politikarekin bat ez datozen hainbat italiarrekin batera. Berria - Mundua

sardiniera iz Sardiniako hizkuntza.

Sardinia: Eskualde Kontseiluak lehen ekitaldi ofiziala egin zuen **sardinieraz** . Berria - Mundua

Limba Sarda Comuna (Hizkuntza Sardiniar Komuna) atondu, **sardiniera** batua lortzeko, eta honen erabilpena sustatzeko prozesuari bultzada ematea zen ekitaldiaren xedeetako bat. Berria - Mundua

sardintzar ik sardinzar.

sardinzar *(orobat sardintzar g.er. eta sardinatzar g.er.)* 1 iz itsas arraina, sardinaren antzekoa, freskoa, gazitua edo ketua jaten dena. *(Clupea harengus harengus).*

Azaleko uretan bizi diren beste espeziek, berdela eta **sardinzarra** esate baterako, ez dute halako presiorik pairatzen. Berria - Mundua

Lurrean, kalez kaleko arrainketariak **sardinzar** eta arrain txikien otarreak banatzen ari ziren, bat hartuta erosiak baitzituzten. Karlos Zabala

Zein bere izaera eta gustuen arabera jaten hasi ziren denak, nor kabiarra, nor **sardinzar** ketuak, nor gazta. Jose Morales

Han **sardinzar** ketuen kaxek. Karlos Zabala

Olo-ahia zopa-ontzietan, **sardinzar** keztatua azpiletan. Iñaki Mendiguren

Bazituen itsas oilar txiki tente horiak, ore geruza lodiegi baten azpian, eta tripaki karratuak, paderaren hondarrean eztiro-eztiro egosten, bai eta **sardinzar** erreak ere.

Karlos Zabala

Ez zuen jan kabiarririk, ez xerra mehetan ebakitako **sardinzarrik** . Karlos Zabala

Islandiatik **sardintzarra** ekartzen zuen eta balea-haragi gazitu eta lehorra. Felipe Juaristi

Kolore distirant haiek guztiak nahasten ziren batzuk besteekin, maskorren haragi tonuak legatzen opaloekin, berdelen nakarrak barbarinen urreekin, **sardinzarren** urrezko haridun soinekoak izokinen zilar atal handiekin. Karlos Zabala

2 (hitz elkartuetan)

Sardinzar kiratsa zerion barrabasari, arrain gizenen baten sabeletik sortua zela pentsarazteraino. Karlos Zabala

Zeru puska zoragarriak, lorezko eskulturak, amets politik **sardinzar** saltzaile baten eskuetan jartzeko, bai eta markesa bati oparitzeko ere. Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sardinzar ketuak (3)

sardista iz sardiniar abertzale autonomista.

Hain justu, azken alderdi honetako kideek «abertzale sardiniar guztientzako topagunea» osatu nahi izan dute, «federalistak, **sardistak** eta nazionalistak barne hartuz eta eskuin, ezker eta zentrok bereizketak gaindituz». Berria - Mundua

sardonika iz agata horixka.

Bosgarrena **sardonikaz** , seigarrena kornalinaz, zazpigarrena krisolitoz, zortzigarrena beriloz, bederatzigarrena topazioz, hamargarrena agataz, hamaikagarrena hiazintoz, hamabigarrena amatistaz. Elizen arteko biblia

sardoniko izond sarkasmozkoa.

Ene oroitzapen xoxoelak behialako jakintsuaren errana gurutzatzen zuten, irri bidetik delirio **sardoniko** horien atzean, egia zerbait izan zitekeela sinesteraino. Itxaro

Borda

Ana Morenak irribarre **sardoniko** bat egin zuen, galdetzailearekiko irain gisa. Hirugarren oroitzapena, irri batena da: ene anaiaren irri **sardonikoarena** , zeina baita, bertze hitz batzuetan, oinazearen irria. Karlos Linazasoro

sardonikoki adlag era sardonikoan.

Tomas Friedmannek barre egin zuen berriro, **sardonikoki** oraingoan. Bernardo Atxaga

sare 1 iz hariak edo kidekoak gurutzatuz eta elkarri lasaiki lotuz egiten den ehuna.

Ikusmena mugatua du, bere zeldako horman gelditzen baita, aldiz entzumenak gainditzen ditu hormak, ate, burdin eta **sareak** . Filipe Bidart

Lau eraztun egin zituen brontzezko **sarearen** lau izkinetarako, haietatik hagak pasarazteko. Elizen arteko biblia

Arietearen babestoki horrek oholez egindako kutxa trinko eta ondo finkatutakoa zeukan, soka lodiz egindako **sarea** zuena; **sare** horren zimurtasunetatik hankak labaindu gabe igoz, errazago iristen ziren harresira. Santiago Iruetagoiena

2 (izenondoeekin)

Horretarako metodoetariko batek **sare** fineko zilarrezko gasa biribilkatu bat erabiltzen du, plastikozko tutu batean sartua. Irene Aldasoro

Zilarrak ondo hartzen eta botatzen du beroa, eta **sare** xehea oinarri egokia da aldika ura biltzeko eta lurruntzeko. Irene Aldasoro

Sare lodi batek ongi hesten baitu leihatila barneko aldetik. Filipe Bidart

Leihatila bera aski gora da, eta barneko aldetik **sare** trinko batek ongi hesten du. Filipe Bidart

Leihatila bat ikusi nuen, metalezko **sare** sarri batek estalia. Alberto Ladron Arana

Beste sei zazpi emakumerekin batera, **sare** handien alboan aulki txikian eserita, plastikozko jostorrazarekin eta hari lodiekin, arrantzaleek itsasoan erabiltzen zituzten sareak josten. Joseba Sarrionandia

Ihiak eta kanaberak ziren batik bat, **sare** korapilatsua eratzen zutenak, zulatu ezineko bilbea, kolore bizi-biziko mila lorez josia. Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bere oinek daramate sarera eta **sare** -mailan gelditzen da tratatua. Elizen arteko biblia

Beste batzuetan, ordea, **sare** -begiak estutu direla dirudi. Monika Etxebarria

Mugaldeko **sare** -hesiaren oinean jesarrita, marihuana erretzen ziharduten, megafoniari entzungor. Edorta Jimenez

Zutabe-buruetan zeuden kapitel haietarako **sare** antzeko apaindurak egin zituen eta kate-xortak, kapitel bakoitzerako zazpi. Elizen arteko biblia

Leiho osoa kolore askotako beiraki txiki-txikiz eginda zegoen, eta beirakiek marrazki bat osatzen zuten **sare** itxurako zurezko egitura batean. Jose Morales

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Trastetegietako alandre **sareak** zulatu nahian. **Karlos Zabala**

Bular-**sareak** eta brontzeko bular-oskolak jantzirik. **Elizen arteko biblia**

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Egurrezko zutabeak eta gapirioak ageri, etxeak badu halako "bartzandar" kutsua, nolabait erretikula-**sare** molde hori zer den nik hemen azaltzeko. **Txillardegia**

6 hed

Aipatu diren bi sinapsi maila horiez gainera, badira beste zehar-lotura asko ere, zelula horiek **sareetan** biltzen dituztenak. **Josu Zabaleta**

Inguragune asko dituen zuntz **sare** batek eusten die epidermisiko zelula biziak, geruza basalekoei eta ingurukoak. **Irene Aldasoro**

Zuntz elastikozko **sare** baten bidez hari lotua. **Irene Aldasoro**

Molekula txiki jakin batzuekin erreakzionatzeko gai da, zenbait oliorekin kasurako, eta haien artean zubiak sortzeko, **sare** -ehun trinko eta beraz solido batean eraldatuz.

Juan Garzia

7 irud

Iritziak kontrajarriak izan zitezten, mesfidantzak eta ustekeriak ehundutako **sareak** egia ezkuta zezan. **Jon Alonso**

Amodioaren **sareetan** preso zegoen garaian. **Itxaro Borda**

Dolua **sareak** bihotza tinkatzen zion. **Itxaro Borda**

Gizarte batek beti antolatzen du bere buruaren defentsarako kontrol-**sare** ezkutua, eta **sareko** hari mehe-mehe horiek gaiztoagoak izan ohi dira legeak baino. **Anjel Lertxundi**

Liburu baten mugak ez dira sekula garbiak; [...] harrapatua dago beste liburu, testu eta esaerekiko erreferentzia-sistema batean: **sare** bateko korapilo bat da. **Xabier Arregi**

Hainbat kolega depresioaren **sare** ilunetan gatibu zeudela. **Itxaro Borda**

Tximista batek argitzen du euri-**sarea**. **Anjel Lertxundi**

Begiak itxita, Stanek salto egin zuen ukabil-**sare** baten barnean. **Lopez de Arana**

Oraingoan zuk erabili duzu, nahita, babes-**sare** bezala, plurala. **Lourdes Oñederra**

Zu bezalako gizon handia esaldi bakarraren marasma-**sarean** harrapatutik: izadiaren handitasuna gauza txikiei begira aurkitzen da. **Hasier Etxeberria**

8 (futbol eta kideko jokoetako atekoa; trinketekoa)

Penaltia egin zioten Puñali, eta Nagorek **sarean** sartu zuen baloia, 60. minutuan. **Berria - Kirola**

Jaurtiketak **sarearen** kanpoaldea jo zuten. **Berria - Kirola**

Eibarrek lehen zatian lortu zuen gola, Fagoagak Manelen erdiraketa iztarrarekin **sareetara** bidali zuenean (23. min). **Berria - Kirola**

Aranzubiari hankartetik sartu zitzaion **sarean**. **Berria - Kirola**

Hiru pase bizkor nahikoa izan ziren Smertinek, area ertzetik boleaz baloia **sareetara** bidali zezan. **Berria - Kirola**

Molina atezainari ozta-ozta joan zitzaion baloia hatz puntetatik **sare** barrura. **Berria - Kirola**

Gero, izan du Biscoubyk pasaia bat ona, botea eta ainitz pilota biziki xuxen erabiliz, **sarearen** hegi heietan maiz. **Herría**

Boteak ere bortitiz eman ditu gibelego **sarerat** eta berriz gaina hartu, ondarrekotz segurean jarriz. **Herría**

9 (bestelakoak) ik saretxo.

Baionan eta Bordelen bidaiakide batzuen konpainia egokituko zitzaidalda pentsaturik, maleta goiko **sarean** utzi eta gero, [...]. **Anjel Lertxundi**

Beti ohe guztia **sareaz** inguratutik lo egiten genuen. **Gotzon Garate**

Aitak aholkatzen zidan brillantina jartzeko eta amak gaueko **sarea** jartzeko ileak bere tokian gera zitezten. **Pello Lizarralde**

Bazter batean, berriz, ama egoiten zen, adatsa maiz **sare** edo mantelina batez bildua. **Joan Mari Irigoien**

Gazteak, ilea **sare** batean bildurik, akituak ageri ziren jadanik. **Karlos Zabala**

Haietako batek ahaztua zuen burutik ile-**sarea** kentzea. **Iñaki Mendiguren**

10 arrainak, hegaztiak, piztiak eta kidekoak harrapatzeko prestatzen den zernahi tresna saredun.

Zubi erromatarren zuloetan aparailua eta **sarea** edukitzen zituen gordeta, debekualdirako; bazekien mailuz arrantza egiten. **Koro Navarro**

Sarea botako diot gainera eta tranpan geldituko da harrapatua. **Elizen arteko biblia**

Benetan alferrik botatzen da **sarea**, hegaz doazenek ikusten badute. **Elizen arteko biblia**

Zuloa egin baitzuten ni erortzeko, **sareak** ipini bidean ni harrapatuko. **Elizen arteko biblia**

Txoririk erortzen ote da lurlean jarritako **sarean**, zer janik ez badu? **sarea** lurretik gora teinkatzen ote da, ezer harrapatu ez badu? **Elizen arteko biblia**

Agirretarrok ongi dakigu, usook edo erizain atzemanekin bezala, **sareak** hedatu aitzin hegan egiten. **Koldo Izagirre**

Haztegiz haztegi zebiltzan, arrantzan, kirten laburreko **sareak** eskuan. **Karlos Zabala**

Hor daude zure seme-alabak, kaleburu guztietan etzanik, ezinaren ezinez, **sarean** harrapatutako antilopeak bailiran. **Elizen arteko biblia**

Guardietarik batek **sare** bat atera eta hedatu zuen, baita **sare** hartaz txakurra meneratu ere. **Joan Mari Irigoien**

-Badira tigreak, **sare** batean lotu eta zaldiaren gibelaldean eramaiten direnak, ehiza-lekuraino. **Joan Mari Irigoien**

Gerta bekizkie beren otorduak tranpa eta **sare**, erorbide eta zigor. **Elizen arteko biblia**

Sare pelagikoak, esaterako, ahalik eta arrain gehien harrapatzeko asmatu ziren. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Marinel haiek, haize ona zenean, **sare** baldar bat eraisten zuten, zeinak zurezko buiak baitzuten eta astungarrizat harriak. arrantzaleak, untzitik jaitzita, **sareak** garbitzen ari ziren. **Juan Garzia**

-Karramarrotan nembilen -esan zion mutilari amorruez, eskuan zeraman karramarroz betetako **sarea** astinduz-. **Joanes Urkixo**

11 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Konpontzen jarritako **sare** lerroei arrainek behin erantsitako hozkadaren lurrin urrea. **Harkaitz Cano**

Gasolio putzuetan islatutako garabi, **sare** eta txatarra meta haiek berberek osatzen zuten ispiluz bestaldeko mundua. **Harkaitz Cano**

Aurreraxeago, Santiago eta Joan anaiak, Zebedeoren semeak, ikusi zituen; **sare** -konponketan ari ziren beren untzian. **Elizen arteko biblia**

Sare -konpontzaileek lanean aspertzen direnean asmatutako kontuak. **Harkaitz Cano**

Goiori entzuna nion **sare** karramarroak txikiak direla eta euren aliketa lako besoez sareak ebakitzen dituztela. **Joseba Sarrionandia**

12 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ontzi bat segitzen zuen, ibai zabalean, ezpondatik ezpondara, arrantza **sareak** hedatzen. **Itxaro Borda**

Itsasoko haize umelen soka-**sare** estu itxia hasten da noizbait ere xaretzen, lasatzen. **Pello Zabala**

13 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Bazter batean arrantza-**sare** multzoa. **Jose Angel Irigaray**

14 irud/hed

Joanden egunean, hango polizak bere **saretarat** bildu du, jestu gutiz azkenean, han egoiteko paperik etzuela, ez segurik paper xuxenik. **Sarean** harrapatuta geratu al zara zeuk emandako hitzez, eta lakioan preso zeuk esandakoogatik? **Herría**

Kardinalak begi bat keinatu zigun guztioi, usapala **sarean** zuela adierazteko. **Anjel Lertxundi**

Aberats izan nahi dutenak tentaldiaren **sarean** erortzen dira. **Elizen arteko biblia**

Sare bat osatuz joan zinen hitzez hitz eta elez ele, eta ni **sare** hartan atrapatutik eta liluratutik sentitu nintzen. **Joan Mari Irigoien**

Sare koipetsu, estu batean harrapatua sentitzen zuen bere burua Josebak. **Iñaki Zabaleta**

Orduan zenbakiak **sare** bihurtu dira eta hesitu egin naute. **Iñaki Zabaleta**

Meridianoek eta paraleloek **sarean** harrapatzen dute lurra, apur bat lotzeko. **Joseba Sarrionandia**

Bere itsas urteetan ere buru baino bular gehiagorekin jokatu baitzuen beti, eta horregatik erori Maracaiboko gobernadoreak kortsarioen aurka jarrita zuen **sarean**. **Felipe Juaristi**

15 sistema bat osatzen duten bide fisikoen multzoa.

Muskuluek eta oxigeno-hornikuntzarako **sareak** ezingo dute egin eskailera lasterka igotzeko behar den indarrik. **Irene Aldasoro**

Isurbideen **sarea** aztertu zuten arretaz, estolda-zulorik egokiena aukeratu baino lehen. **Rafa Egiguren**

Eta elektrizitateko lanpek, [...] bizi-bizi, zurbil bihurtzen zituzten, beren argi nakaratu, misteriozko eta erregetiarren pean, gas **sareak**, gas zikin gaiztozkoak. **Josu Zabaleta**

Azpitik, lurpetik, metroa eta kalefakzioaren **sarea** pasatzen ziren. **Iñaki Zabaleta**

Eta berehala garestiago da, zeren eta ordaintzen dena da telefonoaren **sarea**. **Menane Oxandabaratz**

16 (izenondoekin)

Izerdi-guruinen bidez eta odol-hodien **sare** eraginkorraren bidez, gorputzeko temperatura erregulatzen du. **Irene Aldasoro**

Sare neuronal artifizialei behintzat horixe gertatzen zaie, apur apurka hilez gero ikasitako gutzia atzekoz aurrera pasatzen zaie, bere siliziozko bitiza desikasiz bezala.

Joseba Sarrionandia

Sare elektriko normal batean, eroalearen erresistentzia gaintzen galtzen da energia asko. **Irene Aldasoro**

Baina [Internet] **sare** handi hau gobernuak eta administrazio publikoek ere erabiltzen dute mundu osoan. **Pello Salaburu**

Mundu osoko ekarpenekin elikatzen den **sare** globala da. **Txema Ramirez de la Piscina**

17 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hainbeste izen eta hainbeste izenondo, horiek denek osatzen dutena **sare**-arte polita da eta, ez da zaila horretan harrapaturik geratzea. **Edorta Jimenez**

18 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jainkoak ahaztutako lurra zen periferia, eta horrek [...] inbertsio handietatik urrun egotea esan nahi zuen, urrun egotea halaber autopista **sareetatik**. **Bernardo Atxaga**

Lohia zegoen kaleetan alde oro, bezperako erauntsien eta bide-**sarearen** hondatze kronikoaren ondorioz. **Joxan Elosegi**

Ahalegin horren gakoetako batek, halabeharrez, garraio arloa izan behar zuen: trenbide-**sare** bat eraikitzea premiazkoa zen. **Iban Zaldúa**

Berrikitan bururatu da ur **sarearen** diagnostika. **Herria**

Lan komisioak agindu zituen ureztatze-**sareak** ez ziren egin. **Jon Maia**

Pedrok korrika segitu zuen, estolda **sareko** errekaostan sartuta, erori eta jaiki. **Jon Maia**

Behatokiak eta klimatologia hornituko duen azpiegitura **sarearen** zaintza. **Pello Zabala**

Espaloi berriak egiteko lanak zeuden, eta argiztapen **sarea** ere hobetzen nonbait. **Josu Landa**

Telegrafo-**sare** baten antzekoa da nerbio-sistema. **Irene Aldasoro**

Bainugelan oinen pean egurrezko ohol labainkorak topatu ditugu eta buru gainean dutxa pilo bat zeuzkan hodi **sarea**. **Urtzi Urrutikoetxea**

Muntaketa-kate likido, banaketa-**sare** eta hondakinak biltzeko sistema. **Irene Aldasoro**

Hodi-**sare** konplexu bat da sistema linfatikoa, zain eta arterietatik hurbil dagoena. **Irene Aldasoro**

Besoek eta zangoek badute beste zain-**sare** bat larruzalaren azpi-azpian. **Irene Aldasoro**

Segur aski, ez genuke irizpide finko batekin bat egingo, aldagai **sare** batekin baizik, isoglosa zenbaitekin. **Ana Urkiza**

Espezie berri bakoitzak behar izan balu, agertzeko, erregulazio-**sare** berriak eratzea, ez zen izango denbora nahikorik paleontologiak deskribatzen duen eran gerta zedin eboluzioa. **Juan Garzia**

19 irud/hed

Munduaren gidarizat jotzen diren indarren **sare** ikusezinari. **Juan Garzia**

Kultura baten ezaugarri diren sinesmen, ezaguera eta jarreraren **sare** zabal horrek. **Juan Garzia**

Euskal Herrian dagoen asoziazionismo-mailak harreman-**sare** trinkoa osatu du gizartean. **Txema Ramirez de la Piscina**

Gu ere, euskal presoak, elkartasun **sare** horretan parte hartuz, indartzen gira, baina gure indarra bikoitzen dugu euskal preso guzien elkartasunari esker. **Felipe Bidart**

20 (Internet aipatzeko)

Gaur, atzo baino milioi batzuk Web orri berri gehiago aurki ditzakezu **sarean**, Interneten. **Pello Salaburu**

Proposatzen dituen ariketak **sarean** aurki daitezke, honako helbide honetan: [...]. **Askoren artean**

Orain, berriz, **Sarean** ditugu itzaropenak, **Sarean** egote hutsak sendatu eta mundu-munduko egingo gaituelako uste ustel inozan. **Joxerra Garzia**

Labur esanda: edonork **sarean** jar dezaken egunerokoa, norberaren identitatea islatzen duen web orri pertsonalizatua, alegia. **Txema Ramirez de la Piscina**

Berton, kronologikoki azaltzen dira norberak **sarean** jartzen dituen informazioak, iritziak, artikulua eta estekarik interesgarrienak. **Txema Ramirez de la Piscina**

Erreferentzia hori bilatu egin behar duzu (liburutegietan, **sarean**, etab.). **Askoren artean**

Adbuster Media Foundation bezalako hainbat gune alternatibo daude **sarean**. **Txema Ramirez de la Piscina**

Bilaketa akademikoak egiteko komeni zaizu ahalik eta lasterren **sarean** nabigatzen ikastea. **Askoren artean**

Azkenik, **sarea** deskonektatzen du. **Antton Olano**

Sarearen erabiltzaileen artean, % 16k bakarrik erabiltzen zuten euskara; ingelesa, berriz, % 50ek erabiltzen zuten, Eustatek argitara eman zehaztapenen arabera. **Pello Salaburu**

21 hainbat puntutan eta bateraturik aritzen diren pertsonen edo elementuen multzoa.

Bello Monteko gorputegian taxi piraten **sare** bat sortu da, egunero, eta batez ere asteburuero gorpuen bila joaten den jendea joan-etorrian ibiltzeko. **Pako Aristi**

Frantses Indar Libreak izeneko **sarea** osatzen zuten. **Jokin Urain**

Nola ez aipa Florentino Goikoetxea famatua, hernaniarra, "Comète" **sarean** muga-pasatzaile izan zena? **Marzel Etxehandi**

Poliziaren arabera, Bogdan Madejak Cofidiseko mediku poloniarra da **sareko** arduradun nagusia. **Berria - Kirola**

Badute orain langile talde murrizt batekin merkataritza-agentzien **sare** astunek ematen ez dizkieten irabaziaz eskuratzeko aukera. **Koro Navarro**

Espioitza egiten harrapatua genuen Wakoning kontsularen **sarean**. **Koldo Izagirre**

22 (izenondoekin)

Estatuarteko logika gaintzera jotzen du, eta **sare** transnazionalen logika ipini nahi du haren lekuan. **Koro Navarro**

Eta nire lana ere, isildu eta desagertu egingo dela **sare** komertzialean eta tribuaren ideien sarean ez dagoelako... **Ana Urkiza**

Ikastolek ere, legearen irakurketa esku zabala eginez, hori bai, **sare** publikora igarotzeko aukera izan zuten. **Pello Salaburu**

Akademiak aztertu beharko luke ez ote litzatekeen komenigarria bide berriak irekitzea holako jendea ere **sare** zabalago batean biltzeko. **Pello Salaburu**

Meteorologia organizatua, egun ezagutzen dugun gisara **sare** estuan antolatua. **Pello Zabala**

Sare erregulatzaileen sortze-ahalmena sareek hierarkizatuak eta konbinagarriak izateari zor zaio. **Juan Garzia**

23 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Horixe bide da Duñabeitia kapitaina bere **sare**-buruarentzat: informatzaile hutsa. **Edorta Jimenez**

Enpresa multinazional zaharra, piramide moduan antolatua, eta New York, Tokio edo Londreseko egoitza zentraletik kontrolatua, desagertzen hasi da, **sare**-forma duen mundu osoko egitura baten mesedetan. **Koro Navarro**

24 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

iazitik hona sei ekintzaile **saretatik** bost inargabetu dituzte. **Berria - Mundua**
Megakorporazioak eta finantza talde erraldoiak komunikazioaren munduaz jabetu diren garai hauetan, horrelako hedabide **sareak** bizirik eta osasuntsu irautea miragarria da.

Txema Ramirez de la Piscina
Eusko Armadaren laguntzaile **sareko** kideen etxeetan gorde zitezkeen. **Itxaro Borda**
Kontraespionatza **sare** hori 1940ko txostenekoa dateke. **Edorta Jimenez**
Sara gaztetu zenean, Marina Ivanovna, ordurako sortua zuen adiskide-**sareari** esker, Pariseko Kontserbatorioan sartu zuen. **Felipe Juaristi**
Nazioarteko ekoizpen-**sareak**. **Koro Navarro**
Kontuan izan behar dugu XIX. mendean zientziak eta teknologiak -industria **sarean** zuten garrantziagatik-, kulturari dagozkionetan artearen rola gutxietsi egin zutela.

Askoren artean
Venezia hasi zen, XI. mendean, merkataritza-**sare** bat aurrenekoz ehuntzen. **Koro Navarro**
Finantza-globalizazioaren prozesua sendotu du -alegia, eguneko ordu guztietan ia abian dagoen finantza-**sare** global bat sortzea eragin du-. **Koro Navarro**
Mundu-ekonomiaren truke-**sarean** txertatzeko duen modu bereziak definitzen du periferia. **Koro Navarro**
Fenomeno honek komunikazio horizontala errazten du, eta gizarte-**sare** berrien sorrera ahalbidetzen. **Txema Ramirez de la Piscina**

25 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Kokaina **sare** banatzaileek zeharo kontrolatzen dute merkatua. **Iñaki Zabaleta**
Gizartearen babes-**sare** sistema (hala nola erretiroa eta osasun sistema). **Iñaki Heras**
Tamalez marketing eta ixurakeria amarru **sare** amaiezinen kontra borrokatzen gara. **Sonia Gonzalez**

26 ipar trinketean, sarean egiten den tantoa.

Ezcurrak lehena, baina 5etan ados eta 11-5, urruñarrak bi **sare**, bi punpa-**sare** eta hiru sakerekin, aldiz hiru sake eta **sare** bat dituelarik Oçafrainek. **Herria**
Joan du gazteak halere, baina 8 **sare** sarturik xaharrak, eta punpa-**sare** eta pausatuño batzu eta holako bixkotxañoak, gaztearen aztapar ukaldien ordaintzeko. **Herria**
Ikusgarria izan da, zenbat **sare** sartu dituzten (hor Muscarditz nausi baina Biscoubyk ere), zenbat punpa-**sare** (Biscoubyk) zenbat xilo (Ezcurra eta Muscarditzek), zenbat pilota ezteki pausatuak eskuin, plazan bezala (Serge Maytek). **Herria**

• 27 izond sarria edo trinkoa ez dena.

Itsasoan osatu ohi den lainobera **sarea**. **Pako Aristi**
Euri **sare** -sarea hasi zuen. **Anjel Lertxundi**

28 (adizlagun gisa)

Sare-sare ari zuen euria, eta noizbehinkako haize-adar nahasiek, elkar jorik, bihurrika harrotzen zituzten bide bazterretako zurzuri-sail biluzien hosto horixkatuak. **Anjel Lertxundi**

29 armiarma sare

Ukuilu eta ezkaratze, mandio eta ganbara, **armiarma-sare** franko bazen bazterretan garai batean. **Pello Zabala**
Begira **armiarma-sare** zuri horiek, nola distiratzten duten kobazuloko hormetan. **Koro Navarro**
Kokotsa oso egitura finekoa, bere aurrera beharrendar moralaren premiaz mintzatzen zena; **armiarma-sarea** baino leunagoa eta finagoa ilea. **Koro Navarro**
Iraganak, **armiarma sare** uher, gatibatu zion pentsamendua. **Itxaro Borda**
Ezin nintzen mugitu: paralizatuak nituen gihar guztiak, **armiarma-sarean** erori den eulia baino harrapatuago. **Anjel Lertxundi**
Honen uste sendoa funtsik gabea baita, **armiarma-sarea** baino ez honen konfiantza. **Elizen arteko biblia**
Hortik aurrera, ordea, ikuslea apurka-apurka katramilatuz doa zuzendariak atondutako **armiarma-sarean**. **Berria - Kultura**

30 burdin sare¹ burdin barraz eginiko egitura, leiho eta kidekoetan jartzen dena babesgarri edo apaingarri gisa.

Burdin sare altua zen, txikia, hiru barrarekin eta zeharragarrik gabe. **Koro Navarro**
Burdin sare horman sartuta zegoen, baina ez zen ateratzen zaila. **Koro Navarro**
Arrimatu zuen bankua paretara, banku gainera igo, barra lodieki heldu eta besoen indarrez altxatu zen, **burdin saretik** begiratu ahal izan zuen arte. **Koro Navarro**
Emaztea galaietarik begiratzearren leiho-balkoia **burdin-sare** sarriez, eta etxea ohointzatik begiratzearren borta burdinaje sendoz hornitzea, hauxe da Espainiako burges nobleen arrangura. **Koldo Izagirre**
Espaloiaren arrasean, zenbait argizulo zeuden, **burdin sare**z babestuak. **Karlos Zabala**
Orain, hiri guztia ari zen **burdin sare**zko atek zabaltzen. **Karlos Zabala**
Burdin-sare hau kaperako berezitasuna da, hala lanagatik nola materialagatik. **Koldo Izagirre**
Iruñeko katedraleko korua, hamaseigarren mendeko zurgintza garai eta iluna, karratu luze baten hiru aldeak hartzen dituzten bi ilara aukik osatua da, laugarren alde burdinazko **burdin-sare** batek ixten duela, aro bereko sarraingintza bikaina. **Koldo Izagirre**

31 burdin sare² burdin hesia.

1949ko su-eten lerroa baliatuta, Kaxmirren zatiketa fisikoa indartuko duen **burdin sare** eraikitzen ari da India. **Berria - Mundua**

32 punta-sare ik punpa¹ 5.

33 sare kota ik kota¹ 3.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

armiarma sare (21); **armiarma sare bat** (4); **brontzezko sare** (4); **burdin sare** (17); **eaeko trenbide sare** (5)
elkartasun sare (6); **errepide sare** (18); **errepide sare nagusian** (10); **espionatza sare** (4); **gizarte sare** (5); **goi tentsioko sare** (6); **harreman sare** (7); **hezkuntza sare** (6); **hodi sare** (4)
internet sare (4); **kolaboratzaile sare** (5); **komunikazio sare** (4); **nazioarteko sare** (7)
osasun sare (11); **osasun sare publikoan** (4); **pederastia sare** (5); **pornografia sare** (5); **prostituzio sare** (9); **prostituzio sare bat** (5); **punpa sare** (11)
sare bat desegin (8); **sare bat osatu** (4); **sare bat osatzea** (6); **sare bat sortu** (7); **sare berria** (5); **sare berriak** (9); **sare berriaren** (9)
sare elektrikoa (8); **sare elektrikoaren** (4); **sare elektrikoaren** (5); **sare elektrikoaren araudia** (5); **sare elektronikoa** (8); **sare elektronikoak** (4); **sare elektronikoan** (6); **sare elektronikoaren** (22); **sare elektronikoaren bidez** (11); **sare erraldoia** (4); **sare handi** (9); **sare handi bat** (4); **sare konplexua** (4); **sare kota** (4); **sare moduko** (4); **sare nagusian** (14); **sare nagusiko** (4)
sare osoa (7); **sare osoan** (4); **sare pribatuaren** (4); **sare propioa** (9); **sare publikoa** (7); **sare publikoak** (9); **sare publikoan** (49); **sare publikoaren** (14); **sare publikoko** (18); **sare publikora** (9); **sare sozial** (4); **sare trinkoa** (7); **sare trinkoa osatu** (4)
sare zabal (10); **sare zabala** (8)
trafiko sare (4); **trenbide sare** (30); **trenbide sare berriak** (4); **trenbide sare berriaren** (7); **ustelkeria sare** (4)
zerbitzu sare (4)
alanbre sare (4); **armiarma sare** (10); **banaketa sare** (4); **bere sare** (5); **beren sare** (4); **bulego sare** (4); **burdin sare** (5)
elkartasun sare (6); **errepide sare** (6); **eskolen sare** (6); **euskal trenbide sare** (5); **gogoeta sare** (7); **harrapatzeko sare** (8); **harreman sare** (4); **haur eskolen sare** (5)
industria sare (5); **internet sare** (5); **komunikazio sare** (5); **mamuk harrapatzeko sare** (6); **nazioarteko sare** (8)
sarea bota (4); **sarea botako** (4); **sarea desegin** (10); **sarea hedatu** (4); **sarea hobetzeko** (4); **sarea osatu** (7); **sarea osatzea** (11); **sarea osatzeko** (13); **sarea osatzen** (9); **sarea sortu** (9); **sarea sortzea** (4); **sarea zabaldu** (4)
trenbide sare (19)
armiarma sareak (6); **banaketa sareak** (4); **burdin sareak** (7); **hiru sareak** (4); **laguntza sareak** (4); **osasun sareak** (6); **punpa sareak** (4); **sareak botatzen** (4); **sareak josten** (4); **trenbide sareak** (5); **trenbide sozialerako sareak** (6)
armiarma sarean (6); **asier altunaren sarean** (4); **baloia sarean** (5); **errepide sarean** (6); **euskal lokuzioak sarean** (4); **hezkuntza sarean** (8); **internet sarean** (40); **mailako**

errepide sarean (4); osasun sarean (7)

sarean erori (6); sarean erortzen (5); sarean harrapaturik (5); sarean harrapatzeko (5); sarean jarri (14); sarean jartzen (5); sarean lan (4); sarean parte (4); sarean sartu (10); sarean sartu zuen (4); sarean sartzeko (11); sarean sartzten (4)

trenbide sarean (9)

burdin sarearen (10); ekintzaile islamista sarearen (4); hezkuntza sarearen (4); industria sarearen (4); internet sarearen (8); sarearen barruan (10); sarearen bidez (11); sarearen bitartez (5); sarearen eskaintza (5); sarearen ezaugarriak (4); sarearen gaineko (4); trenbide sarearen (13)

sareari esker (5); sareari lotuta (5); trenbide sareari (4)

burdinazko saredun kota (7); saredun eskua (8); saredun kota (14); saredun leihoak (4)

armiarma sareen (5); sareen arteko oreka (4); sareen bidez (4)

sareetan sartzeko (4)

baloia sareetara (14); baloia sareetara bidali (8); sareetara bidali (21); sareetara bidali zuen (10)

errepide sareko (8); sareko arduradun (5); sareko argia (4); sareko kide (5)

sarera bidali zuen (4)

bere saretarat bildu (12)

burdin sarez (5)

burdin sarezko (4)

sarealdi *iz* sarekada.

Guardien ohiko **sarealdi** baten aitzinean ote nengoen, bada, eta gartzelarat eramanen ote ninduten haiek? **Joan Mari Irigoien**

Zeren eta hura ez baitzen ohiko **sarealdi** haietarik bat, gobernariak aldian behin manatzen zutena, hiria jende lohi lizunaz garbitzeko, eta gartzelaldi jendetsu batekin akabatzen zena. **Jon Muñoz**

sareatu *izond*

Aldiz, merkatura atera berria den polietileno **sareatuak**, termoeogonkorrak, oso propietate onak aurkezten ditu. **Berria - Gaiak**

saredun 1 *izlag* sarea duena.

Ate **sareduna** erdi irekita zegoen, kutxa batekin eutsia. **Koro Navarro**

Erreglamentarioa deitzen zen futbol zelaiak hartzen zuen espaziorik hobereana, metalezko porteria **saredunekin**. **Joseba Sarrionandia**

Atalondoaren albo-hormetan, **saredun** leihoak eta palmondo-irudiak euden, bai eta tenpluko eranskinetan eta aterpetxoetan ere. **Elizen arteko biblia**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Eta poztu ere egin zen bere ohea eta bere leiho burdin **sareduna** ikusi zituenean, eta jaten eman ziotenean, goizetik ez baitzuen ezer jan. **Jose Morales**

ik sare 30.

3 *saredun kota* sare kota.

Zaharra eta bizar zuriduna izan arren, **saredun** kota eta kasketa beltza zekartzan, eta lantza luze eta astuna erabiltzen zuen. **Agustín Otsoa**

Burdinazko **saredun** kotaz jantzita zegoen, eta uhalak oso-osorik zeuden. **Agustín Otsoa**

sareetaratu, sareetara(tu), sareetarazten du *ad* sareetara eraman. ik **sareratu**.

Korner batean markatzaileari aurrea hartu eta buruz **sareetaratu** zuen azpeitiarrak. **Berria - Kirola**

Hurrengo jokaldian Figok baloia area ertzean hartu, eta jaurtiketa neurtu batekin baloia **sareetaratu** zuen. **Berria - Kirola**

saregile 1 *iz* sareak egiten dituen langilea. ik **saregin**.

Han ari zen sareak josten, beste sei **saregileren** artean jostorratzari eskularruarekin eusten. **Joseba Sarrionandia**

Doinuaz eta alarga motaz, Bermeoko **saregile** horietako bat izan zitekeen. **Txillardegi**

Saregile trebea zarela ikusi dut eta... **Martin Anso**

2 (hitz elkartuetan)

Konturatu nintzen **saregile** beharretik aparte arropak garbitu eta plantxatzen zituela etxean dirua egiteko. **Joseba Sarrionandia**

saregin *iz* saregilea.

Ez kezkatu horregatik, bilatuko zioat nik lana, **saregin** ez bada labari. **Koldo Izagirre**

saregintza *iz* sareak egitea.

Aitari **saregintzan** laguntzen eman zituen Hucklek egun aspergarri haiek, gero moilara joan izan zen kontrabandistekin hitz egitera. **Koldo Izagirre**

sareka *adlag* sareen arabera.

Zuzendaritza: sistema osoan Lehen Hezkuntzako zentruetako zuzendarien %53k hiru urte baino gutxiago daramate karguan; hala ere, **sareka** aztertuta, publikoan %87k daramate hiru urtetik behera eta %36k itundutakoan. **Berria - Euskal Herria**

Dena den, EAEn **sareka** dauden aldeak OCDEko txikienak direla azpimarratu du ISElko zuzendariak, eta beste guztietan **sareka** dagoen alde sozioekonomiko kulturala askoz handiagoa dela. **Berria - Hariari**

sarekada 1 *iz* poliziak aldi eta toki berean hainbat lagun atxilotzea.

Espainiako Poliziak **sarekada** egin zuen atzo eguerdian Bilboko San Frantzisko auzoan, bertan paper barik bizi diren etorkinen kontra. **Berria - Euskal Herria**

Sarekada bat egin zuten eta jendea hormaren aurka jarri zuten. eta Perez iazko urriaren 8an atxilotu zituzten, Garzonek agindutako **sarekada** batean. **Pako Aristi**

Kondatua dugu nolako **sarekada** izan zen duela kasik berrehun urte, Euskal-Herrian bizi ziren bost ehun bat buhami arrastatu baitzituzten. **Herria**

- **Sarekada** bat izanen da, laster, astearteko argi zirrintan! **Itxaro Borda**

Sarekada hartan 31 lagun atxilotu zituzten. Berria - Euskal Herria

Behin, homosexualen aurkako **sarekada** batean, Osasun Publikoaren polizia nire lagun mina atxilotu zuen. Anjel Lertxundi

Hiru lagun atxilotu dituzte Euskal Herrian haur pornografiaren aurkako **sarekada** batean. Berria - Euskal Herria

Sarekadan atxilotutako guztiek salatu zituzten tortura gogorrak. Berria - Euskal Herria

Ez ziren hogeita lau ordu **sarekada** hasi zenetik, eta, Umbertok zioenez, jada bazterrik bazter omen zebiltzan atxilotuei eragindako tortura izugarriei buruzko zurrumurrak.

Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

laz «atxiloketa prebentiboak» eta **sarekada** masiboak gertatu zirela komentatu zuen. Berria - Euskal Herria

Bilboko Udaltzaingoaen drogaren kontrako taldeak «egin ohi dituen **sarekada** ikusgarri horietako batean» [...]. Berria - Euskal Herria

Baina badakit Gestapoa jakinean dela, barrandan dagola, nola mendekatuko den antolatzen ari dela, noiz **sarekada** eder bat eratzin ahalko duen. Michel Oronoz

Norbaitek legez kanpoko zerbitu daukan jakiteko sekulako **sarekadak**, miaketak egiteak ez dauka zentzurik. Berria - Kirola

Pariseko gobernuaren manuz, bospasei ehun poliza-gizonen gaitzeko **sarekada** obratu zuten, ehunta hogoi bat etxe miatuz, ehun bat lagun geldituz. Herria

Atzeman zutenean, izugarritzko **sarekadak** gertatu ziren, eta, azkenean, buruzagitza osoa eta aparatua ia dena desegin zuten. Rafa Egiguren

Poliziaren aldzikako **sarekadak** ziren arazo bakarra. Berria - Harian

3 (hitz elkartuetan)

PSOEren gobernuak «polizia **sarekadekin**, torturekin, herrien okupazioekin eta errejeta errepresibo zaharrek» erantzuten dio. - Egun hartan bertze **sarekada** andana bat gertatu zen Hendaian, Donibane Lohizunen eta Baionan. Berria - Euskal Herria

4 sareaan jasotzen diren arrainen, usoen edo kidekoen multzoa.

Egin kontu: lauzpabost **sarekada** egunero, astebete itsasoan arrantzan... kiloka arrain txiki. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agindutako sarekada (4); **aurkako sarekada** (7); **egindako sarekada** (4); **sarekada bat egin** (9); **sarekada egin** (7)

sarelari iz

730.000 euro ateratu okasionezko **sarelari** baten erosteko. Herria

Federazioak bi **sarelari** zigortu. Herria

sareño iz ipar adkor sarea. ik sare 26.

Aguerrek ez bazuen ere zenbait aldiz bezain goxoki irri egiten, ez baitzuen beti suertea alde marrako xixtako heietan, huna Etchetok ederki irauin diola **sareño** batzuekin.

Herria

sareratu, sarera(tu), sareratzin 1 du ad sarera eraman, sarea sartu. ik saretaratu.

Ezin ateratu ahal arrain **sareratu** zuten. Patxi Altuna

Ehizaki bat **sareratzin** zuelarik, zenbait egunetan maitalearena egiten ibili ohi zen. Patxi Zubizarreta

2 sareaan -Interneten- jarri.

Orain *Egan* bezala, *Literatur Aldizkarien Gordailua*-k *Olerti* aldizkaria **sareratu** zuen duela gutxi. Berria - Kultura

Sareratu dituen ia 200 argazkiak ez dira, hala ere, egin dituen guztiak, ezta hurrik eman ere. Berria - Kultura

Lekeitioko Zinema eta Bideo Bilerako filmak **sareratzin** hasi da Nontzeberri webgunea. Berria - Kultura

'Konkordia bila' fikzio-net'-a **sareratu** du Fito Rodriguezek. Berria - Kultura

sareta (orobat xareta g.er.) 1 iz leihoetako itxitura mugikorra, zurezko zerrendatxoez edo kidekoen osatua dena.

Gizonak errezelak eta **saretak** egiten zituen. Koro Navarro

Hirugarren etxeak **sareta** horiak zeuzkan aurreko bi leihoetan. Anton Garikano

Ohartu nintzen etxearen aurrealdeko leihoetako **sareta** guztiak jaitsita zeudela. Oskar Arana

Leihora hurbildu zen, **saretak** irekitzeko. Anton Garikano

Begietako mina? -Mikschek segituan itxi zituen **saretak**, eta ilunpe bizian zegoen orain gela. Anton Garikano

Nire burutazioetan sartua, leihoko **saretaren** zirrikitu artetik lehen eguzki-printzak sumatzen ari nintzenean, logelako atearen kirrinka entzun nuen. Inazio Mujika Iraola

Leihoetan **sareta** veneziarrak, bazterretan lorontziak eta airean ke zaharra zituen egongela batean. Oskar Arana

Leherketak kalte materialak eragin zituen egoitzan, baita inguruko etxebizitzetako hainbat leiho eta **saretetan** ere. Berria - Euskal Herria

Etxeo leihon nengoela **xareten** artetik so eginez, heldugabeko gazte batzuen artean zentzugabe bat zegoela ohartu nintzen. Xabier Kintana

2 irud/hed

Bukatzeo aztertuko ditugu zehaztapen **saretak**: hauek sistemak dira, horien bidez zoramen ezberdinak, psikiatriaren gai diren neurrian, banatzen dira, kontrajartzen, elkarrekin lotzen, multzokatzen, sailkatzen eta bata bestetik eratortzen dira (bereizte **sareta** hauek XIX. mendean honako hauek izan ziren: arima, hierarkizatutako ahalmen-multzo modura ulertuta,[...]). Xabier Arregi

saretadun izond sareta duena, saretaz hornitua.

Horman oso goian, inor ez iristeko moduan, zulatutako leiho estu **saretadun** batek argitzen zuen gela argi, hits hura. Josu Zabaleta

Liburutegi bihurtutako armairu zoragarri bat zegoen gelan, eta haren ate **saretadunen** artetik liburu bikainak atzematen ziren. Jon Muñoz

saretegi 1 iz arrantzarako sareak konpontzeko eta gordetzeko tokia.

Eguerdian, zenbait zalapartari bilduak zeuden **saretegia** inguratzen ari zirela, eta alto adierazteko astirik eman gabe, tiroka egin zitzaion indar publikoari. Koldo Izagirre

Arauxok oihukatzen omen zuena erantsi morbosoz hobetzen zen ardandegian, ile-apaindegian, **saretegian**, mezako irteeran. Koldo Izagirre

2 usoak harrapatetzeko sareak jartzen diren tokia.

Gero urte bat orai Pierra Inchauspe Oxkaxekoa zendu zen hau ginuelarik urtxo **saretegi** eta hotelaren nausia. Herria

saretu, sare(tu), sarezen 1 da/du ad/du ehun batek, higatzen denean, sare itxura hartu.

Higatua dago, **saretua** ia-ia! **Fernando Rey**

Baita ohe-atorra arrosa ere, josturako ehuna han-hemenka **sareturik** zuena, ikuzi beharraren ikuzi beharraz. **Mirentxu Larrañaga**

Bere artilezko jaka kedar-kolorea erabiltzen zuen, sakelen aldean **saretua** eta zipildua. **Fernando Rey**

2 (era burutua izenondo gisa)

Samurragoa zen kotoi **saretuaren** ukitua. **Mirentxu Larrañaga**

Beti garbi-garbi joaten zen, bizarra ongi egina, txukun, baita bere arropa **saretuekin** ere. **Fernando Rey**

Ama-alabek jantzi **saretu** eta adabakituak zerabiltzaten. **Josu Zabaleta**

Mozkotea, baldarra, ile-gorria, eskumutur gorriak alkandora mahuka-motz **saretu** batetik ateratzen zitzaizkiona. **Koro Navarro**

Berak egiten zuen lixiba; bi atorra **saretu** besterik ez zuen, eta tentu handiz garbitzen zituen. **Fernando Rey**

Soineko zaharra ez zaio sekula erreko ez berez higatuko, eta beroki **saretuak** denbora luzea egingo du komodan gorderik. **Jose Morales**

Gelaren altzari goibelen eragin beldurgarriagatik zela, eta tapiz ilun eta **saretuengatik**. **Koro Navarro**

Haren oinetako zahar urratuei begiratu zien, haren ukondo **saretuei**, haren esku zikinei. **Karlos Zabala**

Ni arduratzen nintzen [kimu] hura zaintzeaz, inguruko belar txarrak kentzeaz, izotz beltza egiten zuenean zapi **saretu** batez estaltzeaz. **Anjel Lertxundi**

3 irud/hed

Euriaren errezela **saretu** zenean, hiru anaiek leihotik begiratu zuten. **Berria - Kultura**

Teilatu pikoak ikusten zituen, eta hezetasunez blaitutako zeruko errezel **saretuen** artetik zerura altxatzen ziren tximinia gris eta okertuak. **Xabier Olarra**

Eskuak oraindik ahoa estaltzen zion erdizka, eta hitzak urrunak eta **saretuak** entzuten ziren, benetan amarenak ez balira bezala. **Berria - Kultura**

4 trinkotasuna galdu.

Geltokian dagoen usain trinkoa **saretu** nahi duela ematen du. **Berria - Kultura**

Palas Ateneak lainoa **saretu** zuen, eta Ulisesek bere lurraldea ikusi zuen. **Juan Kruz Igerabide**

Areteren belaunak besarkatu zituen, eta lainoa **saretu** egin zen. **Juan Kruz Igerabide**

5 (era burutua izenondo gisa)

Bizar zuri-luze baina eskas eta **saretua**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

6 (era burutua hitz elkartuen bigarren osagai gisa)

Zeharo gautu eta herria argi-**saretu** denean nabarmenago egin da kanpandorra. **Jokin Urain**

Zilarbizia tantatxotan sublimatzea, sodioa kloruro bihurtu eta osatzen dituen taulatxo kristal-**saretuetan** ezagutzea. **Juan Garzia**

7 zeruaz mintzatuz, iluntasuna galdu.

Zerua ari da **saretzen** estoreen bestaldean, baina oraindik ez dago nahikoa argi begirada batetik bestera dauden trapezio kordelak ikusteko. **Harkaitz Cano**

Argi izpiek zerua **saretzen** zuten, deblauki. **Harkaitz Cano**

Laster zerua **saretuko** duen argi baten errainuek zipiztinduko gaitzuzela. **Pako Aristi**

8 sare bat osatu.

Bertatik bertarako komunikabideak **saretzeko** pauso bat gehiago emana da: ON aldizkaria kalean da pasa den ostegunetik. **Berria - Euskal Herria**

Neskatxak lanean atxikitzeko, ordea, proxeneta eta madame talde ongi **saretua** zegoen. **Gotzon Garate**

9

Gau oskarbiak izozte zuri sanoak dakartza, lur azala **saretzeko** dohaina dutenak. **Pello Zabala**

Lehenago, harrera hobea egiten geniolarik euriari, egun batzuk pasatzen zituen gure artean, errekarra eta ibaira baino lehen, lurra ongarriz eta **saretuz**... **Pello Zabala**

Zain eta zuztar, lurra **saretu** eta hezedura jasotzeko arte bereziza ditu haritzak. **Pello Zabala**

Sarri euria noiz atertuko zain, lurra zopa egindakoa noiz **saretuko**. **Pello Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lainoa saretu (3)

saretxo 1 iz tamaina txikiko sarea. ik sarexka.

Posible al da treneko **saretxoan** liburu bat ahazten zaigun bezala hilketa bat ikusi izana ere ahanzturaren **saretxoan** uztea? **Anjel Lertxundi**

Buruaren atzealdean, motots zuria **saretxo** batean bildua. **Anjel Lertxundi**

Han zituen termometro lehorra eta beste bat hatz-tamainako gasa **saretxo** bustiz inguratua. **Pello Zabala**

2 ik sare 10.

Oinetakoak haitz gainean utzi eta **saretxoaz** atzematzen genituen koloretako arraintxoak. **Joseba Sarrionandia**

Nik **saretxoa** botatzen nion behin eta berriro, bota nion auskalo zenbat aldiz, baina tximeletak guztietan egin zidan ihes. **Joan Mari Irigoien**

3 ik sare 21.

Port Vendrell inguruak ezagutzen nituen nik ondoen, eta pixkana-pixkana gaua pasatzeko ganbara edo lastategia utziko ziguten edo jaten emango ziguten nekazari fidagarrien **saretxoa** osatu nuen han-hemen. **Anjel Lertxundi**

Orduan urratu ziren hedabideen lehen **saretxoak**. **Pello Zabala**

Fabrika handi haiek hartzen zuten jende guztiarentzat apopilo etxeak-eta izaten zituzten prestatuta eta horrek ere negozio **saretxo** bat sortu zuen herrietan. **Jon Maia**

saretzar 1 iz adkor tamaina handiko sarea. ik sare 10.

Portuan, zezenak itsasontziratzen ari: zezen beltz-nabar haiek lurrean zabalduko sarearen gainera eramana, gero gorantz altxatuak, eta haien izua, haien bat-bateko ezintasuna, airean zintzilik, lau hankak **saretzarraren** txuloetatik kanpora luze, haien begi guztiz epileptikoakø **Joxe Austin Arrieta**

2 ik sare 21.

Gure laboratoriorio xume eta ausart hartan, gauzarik xelebreenak analizazterta, askotariko jendea etortzen zen, gizon eta emakume, zahar eta gazte, baina denak nabariki sartuak merkataritzaren **saretzar** anbiguo eta maltzurtean. **Juan Garzia**

sarexka iz saretxoa.

Ohe-atorra jantzi zuen, buruko **sarexkan** bildu ilea eta bizi-bizi orraztu zituen adats lehor kolore-aniztunak. **Mirentxu Larrañaga**

Han ari dira apaiz bi jantzen, kristalak estaltzen dituen metalezko **sarexkak** irudiari klausurako lekaiame lotsatien halako herabetasun aire bat ematen diolarik. **Pako Aristi**

Zilarrezko **sarexka** mehe-mehez estaliriko urrezko sagar aipatuaren antzera. **Xabier Kintana**

sarezain 1 iz uso sareak zaintzen dituen pertsona.

Saiberriko abatarriak, ahal guziak egiten ditu igorri nahiz uso pila, trapariaren menerat; orduan bai da egiazko loria sare azpian direlarik bilduak? **sarezainen** atzaparretan, gaixo xoriek, hor dute beren azken fina. **Herria**

2 ik sare 8.

Lehen taldeko jokolari hoberenatarik batto, Stephane Mendiboure, bederatziko urte huntan hor zena **sarezain** bezala, Baionarat johan da, Aviron elkartearen artzeko. **Herria**

sarezaku iz zaku mota.

Bildu izandu ditut karakolak askotan, eta **sarezaku** batean hamar dozena bat egunean zaitan eduki ondoren, kaxulka eder batzuk jan ere bai. **Patziku Perurena**

sareztatu¹, sareztatu, sareztatzen 1 du ad pasaratu. • irud/hed

Arropetan **sareztatuta**, azalean itsatsita, izerdi lehortuan harrapatuta ilunabarrero bere oheraino zekarren basoko lurrin sakona. **Jon Maia**

sareztatu² 1 izond sare hornitua. ik sarehun.

Katu-jan piloa eskuan hartu, eta, mantaleko patriketan sartuta, ate **sareztatua** ireki du. **Javi Cillero**

2 burdin sareztatu ik sarehun 2.

Biak kanpoan zeuden hotzetan, leiho burdin-**sareztatu** batetik labe orrolari batean botilak egiten ari zen gizon bati begira. **Irene Aldasoro**

Eta gero, ibiltokian nintzelarik, inguruetakoko egoizetako horma alimalei so, hainbeste leiho burdin **sareztaturik**, pentsatzen hasi nintzen bat edo bestearen gibekeko zelda horietarik batean euskaldun bat-edo izan zitekeela. **Filipe Bidart**

sarezulo iz sarearen zuloa.

Ezin askatuko zarela katramilatutako hari horietatik, zeuk sartu duzula burua eta hegala **sarezuloan**. **Hasier Etxeberria**

Gero noraeza dator, etsipena, gorrotoa; eta behin zirkuluaren baitan sartua, itxi egiten dira itzulbideak eta estutu **sarezuloak**. **Karlos Linazasoro**

sarfurtxa iz sardexka.

Mahaien gainean, mahai-tresnak -platerak, zerbietak, koilarak, **sarfurtxak**, nabalak eta ganibetak- eta argi-mutil batzuk zeuden. **Joan Mari Irigoien**

sarga¹ iz espartzua.

Tormesko itsumutilak ezagututako gizon-emakumeak alde batetik **sarga** edo kalamuzko zarpaikak eta bestetik pustulaz betetako gorputza zuten txanponak bezalakoak baziren, erregeak eta Gorteko gainerako kideak guztiz aurkakoa ziren edo izan nahi zuten, txanpon distiratsuak bi aldeetatik. **Bernardo Atxaga**

sarga² iz artile finezko ehuna.

Gelaren hormak arbel kolorekoak ziren, solairua lurra bezain arre, zurezko komoda berezko kolorekoa, gortinak zuri, eta osagai nagusia -burdinazko ohe baten gaineko estalkia- **sarga** urdinaren txatalez zegoen egina, artile beltza, marroia eta grisa. **Anton Garikano**

Hara abiatu ginen, Gwilym arropa beltzez jantzirik, nahiz eta asteleun goiza izan, eta ni berriz atzealdea pasaratua zeukan **sargazko** janzki batez. **Koro Navarro**

Herrietako neskakak eta Baionako jostun pertxentak usu ongi zulatuak izaten dituzten **sargazko** atorretan mainatzen dira, atorrek ezkututzen dutena zuloek erakusten dutenez futitzen direla. **Koldo Izagirre**

Sargazko gona urdina larruzko gerriko beltzez loturik zeukan gerrian. **Irene Aldasoro**

Nikolas Loyseleur notario batekin kokatua zen leiho baten koskan, **sargazko** oihal baten atzean, karguak soilik pilatu eta desenkusen herronka zuri uzteko asmotan. **Juan Garzia**

sargarritasun iz sartzeko aukera.

Sargarritasuna eta barne lotura tranbia bidez egitea aurreikusten du proiektuak, «Zorrotzurreko bizkarrezurra izateaz gainera, kanpoko trafikoa bidea ixteko balio izango du tranbiak», esan zuen egileak. **Berria - Euskal Herria**

sargaso ik sargazo.

sargatu

Entzun, adi, otoitz, gogoeta eta ixiltze, lur bat ere sasoi ez-tian, iraul, **sarga**, legun eta berdintzen eta ontzen den bezala. **Herria**

sargazo (orobat sargaso; Euskaltzaindiaren Hiztegian sargazo agertzen da) iz itsaso beroetan igeri dauden eta Ozeano Atlantikoan eremu handi bat estaltzen duen alga mota (Sargassum).

Harekin **Sargazoan** itsasora joaten zen, non lurrairene gainean nabigatzen baita. **Pablo Sastre**

Sargazo Itsaso zabala. **Berria - Kultura**

Almadiak ere pasatzen ziren, Atlantikoko **sargazo** ilara bukaezinak bezain luzeak; bai eta txanelak ere, gainez kargaturik, hondoratzeko zorian, uretan kareleraino sartuak. **Karlos Zabala**

sargento ik sarjentu.

sargia 1 iz ipar sarrera.

Kriseilu batek seinalatzen zuen aspaldiko harresia eta egoitza bereizten zituen bidexkaren abiapuntua eta, beste batek, etxeko **sargia**. [Elena Touyarou](#)
Irunetik Sarriara trenez egin dut bidea, Burgoseko geltokiko **sargian** ordu bat egon ondoan, gauaren erdi erdian. [Piarres Aintziart](#)
Hain segur **sargiako** bulegoan lan egiten duten presoek bila dabilta. [Marzel Etxehandi](#)
Kattalinek, pasatzean, sal-mahai gainean dagoen egunkaria hartzen du "garagardo bat aterako didazu" dion bitartean, eta bere ohiko mahaira, ixkinako mahaira doa eta paretari kontra jartzen **sargiari** begira. [Eneko Bidegain](#)
Sargiaren gaineko aldean, atarri egiten duen pitrailaren gainean irakur daiteke, zurean zizelkatutik "Recht oder unrecht, mein vaterland". [Marzel Etxehandi](#)

2 (hitz elkartuetan)

Bide handian, herri ttipi batetako eliza **sargian** horra ongietorririk eztena eta hungikarriena: lehen komunionez haurrak esku-zartaka eta agurka. [Marzel Etxehandi](#)
Beste seinale bat denborak aldatzen ari zirela berria jakin zen Kurutze Gorriaren oto batzuk jin zirela kanpaleku **sargiara**. [Marzel Etxehandi](#)

sargori 1 iz eguraldi bero hezea, itogarria gertatzen dena. ik sapa¹.

Zoratzeko moduko **sargori** hura berriro. [Joxe Austin Arrieta](#)
Ez dira gehiago gose, ez egarri izango, eta ez ditu eguzkiak, ez **sargoriak** joko. [Elizen arteko biblia](#)
Sargori latza, sapa, lanberoa, nik dakita nola esan? [Txillardeggi](#)
Sargori handiengan. [Berria - Mundua](#)
Hori dela bide, Labartzan sentituko nuen **sargori** sapa itsaskorren aztarnarik ez. [Txillardeggi](#)
Hotz eta **sargori**, bedeinka ezazue Jauna, goretsi eta gorapatu menderen mendetan! [Elizen arteko biblia](#)
Betidanik entzun izan du ura irakiten eta, tupina hustu den bakoitzean, euria egin, haizea egin, **sargori egin**, bete egin izan du beti. [Itziar Otegi](#)
Uda zen oraindik eta hondartzan **sargori** egiten zuen, eta harea udatiarrek botatako zaborrez ereinik zegoen. [Joseba Sarrionandia](#)
Egunak ez zuen bezperako **sargoriaren** inolako sapa astunik. [Anjel Lertxundi](#)
Hego-haizea denean, berriz, "**Sargoria** dugu" esaten duzue, eta hala gertatzen da. [Elizen arteko biblia](#)

2 (hitz elkartuetan)

Eguzkia galtzen hasita zegoen arren, **sargori** sentsazio higuigarria zegoen oraindik ere hiri osoan. [Aritz Gorrotxategi](#)
Sargori eguna izan zen goiz-goizetik. [Xabier Montoia](#)

3 (izenondo gisa)

Arropa dendetako aldagela txiki eta **sargorietan**. [Hasier Etxeberria](#)
Egun hartan, larunbat **sargori** hartan, plantxa egiten ari nintzela, derrepentean atea jo zuten. [Jasone Osoro](#)
Uda-gau bateko ordu txiki **sargorietan**. [Anjel Lertxundi](#)
Eguraldi **sargori** erabat sasoz kanpokoari jarraiki, udakoa zirudien zaparrada eta trumoiaren erasana entzuten zen kanpoan. [Harkaitz Cano](#)
Abenduaren zortziko eguerdi **sargori** hartan. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)
Arratsalde eguzkitsua eta **sargori** batean. [Aitor Arana](#)
Huraxe bai goiz **sargori** eta lurrintsua, eguzkia ere inoiz baino lirdingatsua ageri, eta hostoak ere distira itsuan. [Joxe Austin Arrieta](#)
Udako egun **sargorietako** zaparrada. [Jasone Osoro](#)
Egun **sargori** eta nekagarria espero zen. Egun **sargoria** izateko itxura zuen. [Patxi Zubizarreta](#)
Bero **sargoriko** egunetan itzal hozkirria egingo duten zuhaitz mardul eta hostotsuz jantziriko lorategia ezarri digute hiriaren edergarri. [Jose Morales](#)
Berorik **sargoriengan**, manta mordo bat gainean zuela egiten zuen lo formalista amorratuak. [Joxerra Garzia](#)

4 (izenondo gisa, irud/hed)

Hau da hau laztan **sargoria**! [Paddy Rekalde](#)

5 (predikatu edo adizlagun gisa)

Azaroaren hondarreko egun haietan **sargori** zen arren, arratsetan fresko samar egiten bazekien eguraldiak. [Harkaitz Cano](#)
Sargori dago, eta mimosaren usain melengak itolarria areagotzen dio. [Patxi Iturritegi](#)
-Ez al dago oso **sargori**? -esan zuen Danek. [Koro Navarro](#)
Egunak ez zuen bezperako **sargoriaren** inolako sapa astunik. [Anjel Lertxundi](#)
Udako giroa zirudien, **sargori** eta motel pasatzen diren arratsaldeko ordu horietako batean jasotakoa. [Berria - Kultura](#)
Erlorjoko kukuak fuerte kantatuz gero, euria zekarren [...]; eztulka kantatzen bazuen, **sargori**. [Unai Elorriaga](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
arratsalde sargori (3); **eguerdi sargori hartan** (3); **egun sargori** (4); **sargori dago** (5)
bero sargoria (4); **egun sargoria** (7); **sargoria dugu** (3)
udako sargorian (3)
arratsalde sargorietan (3)

sargoritsu izond sargori handikoa. ik sapsu¹.

Eguzkia atera zenean, Jaunak hegohaize **sargoritsua** bidali zuen. [Elizen arteko biblia](#)
Dena zen pisua goiz **sargoritsu** hartan. [Anjel Lertxundi](#)
Gaua **sargoritsua** zen. [Lopez de Arana](#)
Motelak eta egun biziak, egun hotzak eta gaurkoa bezain **sargoritsuak** ... [Paddy Rekalde](#)
Bero **sargoritsua** igo zitzaion Andreasi zainetan gora. [Anjel Lertxundi](#)
Abuztuko arratsalde bero- **sargoritsua** zen. [Joxemari Iturralde](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
gau sargoritsu (3)

sargoritu, sargori(tu), sargoritzen du ad sargori egin.

Egunak **sargoritzera** egin zuen, eta janari-dendetako erakusleihoetako galleta lizunduak hantxe zeuden, koloregabekten. [Irene Aldasoro](#)

sargune (orobat **sartune**; Euskaltzaindiaren Hiztegiaren **sargune** agertzen da) iz sartzeko gunea; sartzan den gunea. ik sarrera.

Sarguneko atera heltzean, plaka erakutsi behar izan zion zaindariari. **Aritz Gorrotxategi**
Hiri-atariko pasabidean, ezkerretan, eta Tito jaunaren etxe txukunerainoko tartean, hirirako **sargunean** alegia, arku txapal zabala gurutzatu dut. **Txillardeggi**
Iparraldeko muga baino ehun bat metro lehenago, errepidearen **sargune** batean apartatu genuen. **Rafa Egiguren**
Belarriaren eginkizun garrantzitsuok, entzutea eta oreka gordetzea, loki-hezurraren **sartune** txikitxo batean burutzen dira. **Irene Aldasoro**
Biak zutik zeuden, leiho haietako baten **sargunean**, dantzan ari zirenei begira. **Xabier Olarra**
Hirurogeita hamabost solairuko garaiera, zabaltzetarako **sarguneak** dituela. **Lopez de Arana**
Esfera erdiaren formako sakonune bat kanfor-usainari lotzen zaio, eta ziri formako **sargune** bat, berriz, menda-usainari. **Irene Aldasoro**
Kuantu bat argiren energia xurgatzen denean, erretineno molekula, eraldatu, eta bere **sargunetik** irteten da. **Irene Aldasoro**

sari¹ iz egin den lanaren, egintza onaren edo zerbitzuaren ordaintzat hartzen den ondasuna.

Lanari **saria** zor zaio. **Elena Touyarou**
Haurrak **sari** bat merezi zuen, halako egia begi-bistakoa azalartzeagatik. **Aingeru Epaltza**
Lortzen baduzu, **sari** ederra izango duzu. **Martin Anso**
Bekatariei zoritxarrak jarraitzen die, zintzok zoriona dute **sari**. **Elizen arteko biblia**
Harri bat ematen didanak, **sari** bat izango du. **Askoren artean**
Landatzen duena eta ureztatzen duena berdinak dira, bakoitzak, berak egindako lanaren arabera **saria** hartuko badu ere. **Elizen arteko biblia**
-Zein **sari** edo zein ordain eman zitzaion Mardokeori, egin zuenagatik? **Jose Antonio Mujika**
Hain baituk bera eskuzabal **saria** ematen. **Askoren artean**
Iheslari bat atxemaiten edo salatzen zutenek **sari** bat eskuratzen baitzuten. **Eneko Bidegain**
Helbururantz lehiatzen naiz **saria** iristeko. **Elizen arteko biblia**
Hiru sos **sari** exekuzio bakoitzeko, eta bi azotaldi bakoitzeko. **Aingeru Epaltza**
Legeen babespean dauden eta lanaren **sari** diren aberastasunak tiraniaren janari bihurtzen dira. **Juan Martin Elexpuru**
Laburra da hemen gure nekea, / eta **saria** betikoa. **Askoren artean**
Ehun ontza urre ere eman zioten **sari**. **Martin Anso**
Baina merezimendua Haren graziagatik da, eta zoriona izango du **sari**. Jarduera sexualaren **sarietako** bat orgasmoa dugu. **Imanol Unzuurrungaza**

2 (hitz soila –en atzizkiaren eskuinean)

Zorigaitz eternala duket amodiorik amoltsuenaren **sari**. **Jon Muñoz**
"Zeru gorenean egon dadila!", bai, lur honetan egin duen ongiaren **sari**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Italiak ere lur puska zenbait irabazi zituen, aliatuei eman laguntzaren **sari**, eta Belgikako erregeak Alemaniako mugetan bizpalau herrixka beretu, hortik jasan kalteen ordain. **Piarres Xarriton**

3 (izenondoekin)

Handitu egin ditut obeditu ez dutenen zigorrak, eta sariet dagokienez, hain dira handiak, non ez baitakit bertuteak inoiz hain **sari** handirik izan ote duen. **Iñaki Iñurrieta**
Sari betea eman diezazula Israelgo Jainko Jaunak, haren babespera etorri baitzara. **Jose Antonio Mujika**
Zure babesle nauzu, eta **sari** bikaina emango dizut. **Elizen arteko biblia**
Gaiztoak irabazi hutsalak izaten ditu, zuzentasuna ereiten duenak **sari** segurua. **Elizen arteko biblia**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sari - eta zigor-sistema oso bat. **Piarres Xarriton**
Bidaxuneko jaunak bere eskuz idatzirik egin zuen peoiarendako **sari** -eskaria. **Aingeru Epaltza**
- Bere asmakariaren abantailak azaldu eta **sari** -eske joan omen zitzaion berehala Thamus bere nagusiar. **Joxerra Garzia**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Itzulitakoan gutxieneko langile-kategoria ezarri ziotela, antzinasun-**sari** guztiak ezabatzeaz gain. **Iban Zaldúa**
Atzemandako otsokumeak askotan ikusi izan ditugu, otarretxo batean darabiltzatela bizirik herriz herri, atzitze **sari** eske. **Anjel Lertxundi**
Urteko zaintza-**sariaren** erdia xahutu omen zuen aitatxik seme sortu berriaren ospakizunetan. **Aingeru Epaltza**
Jendetza ugaria emango diot ordainetan, eta giza multzoak izango ditu garaipen-**sari**. **Elizen arteko biblia**
Egipto eman dut zure askapen-**sari**, Etiopia eta Seba zure ordaineta. **Elizen arteko biblia**
Ordain-**sari** i bat handia eta baliotsua. **Juan Garzia**
Ez zuela merezi, bost urte gehiago edo bost urte gutxiago lan eginda ere berdin-berdin izango nuela erretreta-**sari** kaxkarra. **Iban Zaldúa**
Funtzionarioak esan zionez, aurre-erretiroa hartzeko zerrendan zegoen; erretiro-**sari** txiki bat emango zioten. **Juan Kruz Igerabide**
Bertze san Isidro bat bai, onartuko nizueke, atsegin-**sari** gisa, hautsi zitzaigunaren orde. **Joan Mari Irigoien**
Luze gabe nekatu nintzen, eta halako zenbateko bat ordaintzeko proposamena egin nion, gela-**sari**. **Aingeru Epaltza**
Bere ondasunetarik asko eralgi zuen herri-gudarostea armatzen eta gudari-**saria** ematen. **Elizen arteko biblia**
Emakume batek bere umeari eta beste norbaiten umeari ematen badie bularra, eta inude-**sari** txikia ematen badiote, [...]. **Koldo Biguri**
Gona polit bat erosteko dirua izan zen barkamen **saria**. **Aingeru Epaltza**

6 bestelako arrazoiren batengatik hartzen den ondasuna.

Ekoizpenaren parte bat nekazariak bereganatzen du, gainerakoa jaunarena da, eta jaunak, bestalde, beste **sari** batzuk ere eskuratuko ditu, salgaietan gehienak. **Koro Navaro**
Ingurumenak dagoeneko kaltea edo hondaketa jasan duenean, kalte-**sari** bat eskuratzeko errekursoak baliatu ahal izango ditu. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

7 lehiaketa edo kideko batean irabazleari ematen zaion gauza.

Bazirudien hura zela biltzar burua eta hari zegokiola bukaeran **sariak** banatzea. 1998an *Nascimento* diskoarekin Grammy **sari** bat irabazi zuen. **Karlos Zabala**
Ez dakit zenbat **sari** irabazitakoa zientziaren alorrean. **Fernando Morillo**
Sari asko irabazitakoa zara eta gaur egun epaimahaietan diharduzu. **Ana Urkiza**
Memoirs of a Geisha filmak hiru **sari** eskuratu ditu. **Berria - Kultura**
Epaimahaiak **sari** hori jasotzeko nahiko kalitaterik duen lanik ez dagoela erabaki du. **Berria - Kultura**
Hainbat **sari** jaso zituen mundu osoan bere jarduera berritzaile eta hezitzaileagatik. **Txema Ramirez de la Piscina**
Sari eta omenaldi asko jaso zituen Altunak, batez ere azken urteetan. **Berria - Kultura**
Saria eman gabe geratu zen, beraz. **Iñaki Arranz**
Filmeko protagonistek, Joaquin Phoenixek eta Reese Witherspoonek, **sari** bana eraman zuten. **Berria - Kultura**
Mae West-en igeltsuzko figuratxo bat, tiro-postuetako **sari** arruntena, dakarrelako buruz behera. **Xabier Paya**
Ez dezatela pentsa loteria tokatu zaienik, **sari** hau beraiek irabazitakoa da. **Berria - Kirola**

8 (izenekin)

Sari handietatik kanpo geratu ziren, atzo, Eric Rohmer, Theo Angelopoulos, Ken Loach eta Patrice Leconte. **Berria - Kultura**

Eta irudituz zitzaidan oso **sari** txikia izan behar duela Nobel sariak. **Unai Elorriaga**

Espainiako **Sari** Nazionala eman zioten Atxagari **Obabakoak**engatik. **Joxerra Garzia**

Laster erabakiko zen **sari** literario batera nobela bat bidali nuelako. **Ramon Saizarbitoria**

Filmak epaimahaiaren **sari** berezia jaso zuen Cannesen. **Berria - Kultura**

Sari bereziak: interpretazioan Audrey Carrique; [...]. **Herria**

Frantziako **Sari** Nagusia jokatuko da gaur Le Mansen. **Berria - Kirola**

Duela lau urte *La estrategia del caracol* filmarekin **sari** nagusia irabazi zuen egile kolonbiarrak. **Hasier Etxeberria**

Miguel Indurain **Sari** Nagusia korrituko dute larunbatean, eta Euskal Herriko Itzulia ondoren. **Berria - Kirola**

Trilogiaren lehenengo atalak lau **sari** tekniko irabazi zituen orain dela bi urte. **Berria - Kultura**

9 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Parisen lizeoetako poesia sariketaren **sari** banaketan. **Edorta Jimenez**

Sari banaketako ekitaldian. **Patxi Zubizarreta**

Sari ematea handik pare bat egunera egin zen, Inauteri atarian. **Xabier Mendiguren Elizegi**

10 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zeren oihartzun handia baitute, besteak beste, enpresak lortzen dituzten ziurtagiriek [...] edota kalitate **sariak** (Eusko Jaurlaritzak banatzen dituen zilarrezko eta urrezko Q-ak, kasu). **Iñaki Heras**

Hadidex Pritzker arkitekturen **sari** ospetsua jasoko du maiatzaren 31n. **Berria - Kultura**

Espainiako Motoziklismo **Sari** nagusia. **Berria - Kirola**

Eleberrri erromantikoak egiten dituen idazle famatuak, iaz irakurleen elkarteko kritika **sari** nagusia jaso zuena. **Jon Arretxe**

Esan zidan itzal handiko jende asko lo egina zela ohe hartan, ministroak, hiru Nobel **sari**. **Jon Muñoz**

Kimikako Nobel **saria** eman zioten Van't Hoffi, 1901ean. **Unai Elorriaga**

Arthur Pigou Nobel **sariak** zioen bezala, [...]. **Iñaki Heras**

Paul Haggisen filmak hiru Oscar **sari** eraman ditu. **Berria - Kultura**

11 (loterian eta kidekoetan)

Ondotik loteria ainitz **sari** motarekin. Loteriako **sari** handia egokitu eta inori aitortu ezin diotenen senitartekoa nintzen. **Herria**

Iruzurra egiten dutenek Telefonicoak langileak direla esanez hainbat etxetara deitu izan dute **zozketa** batean **sari** bat egokitu zaiela esan, edo deitu diotenen izenean premiazko pakete bat dutela. **Berria - Euskal Herria**

Loteria bat zen ordea Liebkind Bendelen ideia kutuna, **saria** neska eder bat. **Koro Navarro**

Loteriaren **sari** nagusia irabazi duzu ala? **Karlos Zabala**

Opel Agila bat da Kanboko komertsanteen batasunak antolatzen duen Eguberriko **zozketaren** lehen **saria**. **Herria**

Loteriako bigarren **sariak** (45.564) 960.000 euro utzi ditu Gasteizen - Zozketako **sari** txikiak irabazitakoa nintzen baina nik **sari** handia nahi nuen, handiena: Rita. **Berria - Euskal Herria**

12 zerbitzu edo kideko batengatik ordaindu behar dena. ik **salneurri**.

Izan ere, gertatu ohi da, **sari** txiki batengatik ezin ordainduzko altxorra galtzea. **Berria - Kirola**

Atsegin duzu zeure prostituzioaren **saria** gari-larrain guztietan jasotzea. **Elizen arteko biblia**

Astebete buruan Ostolaza libre geldituz gero -jarraitu zuen-, sei mila euroko **saria** ordaintzekotan gelditu ginen, eta erdia epe hori gaindituz gero. **Miguel Angel Mintegi**

Mendebaldeko gizakiak giza izaera ez duten legeek bere arazoetan zuten eragina aldatzen izandako arrakasta aseguru-**sarien** kuotek izandako murrizketan geratu zen jasota. **Iñaki Mendiguren**

Baldin aberea alokatua badu, alokairu-**saria** bakarrik emango dio. **Elizen arteko biblia**

Libra ezazu hilibira jaistetik, aurkitu baitut honentzako erosten-**saria**. **Elizen arteko biblia**

Heriotzatik askatzeko jarein-**saria** ezartzen badiote, eskatutako guztia eman beharko du biziaren ordain. **Elizen arteko biblia**

Bazkide-**saria** ordaindu, eta Batzorde anonimoari idatzi nion esanez parte hartuko nuela afarian. **Juan Garzia**

13 irud/hed

Baina "mirariak" bazuen bere odol-**sari** latza. **Txillardegia**

14 diru sari ik diru 30.

15 hilabete sari ik hilabete 6.

16 lan sari ik lansari.

17 muga-sari ik muga 30.

18 ordain sari ik ordainsari.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

ainitz sari (15); alemaniako sari (13); asko sari (7); australiako sari (9); bbk sari (8); bertze sari frango (8); brasilgo sari (10)

epaimahaiaren sari (13); epaimahaiaren sari berezia (9); espainiako sari (31); espainiako sari nazionala (11); euroko sari (7); europako sari (20); europako sari nagusian (8); hainbat sari irabazi (7); hainbat sari jaso (9); hegoafrikako sari (8); hilabete sari (10)

italiako sari (7); japoniako sari (11); kataluniako sari (8); lanaren sari (9); laudioko sari (12); laudioko sari nagusia (8); lehen sari (11); lehiaketako sari (7); literatur sari (10); miguel indurain sari (9); nobel sari (13)

oscar sari (15)

sari ainitz (20); sari asko (21); sari bakarra (8); sari banaketa (36); sari banaketan (20); sari bat irabazi (9); sari berezi (32); sari berezi bat (24); sari berezia (41); sari bereziak (15); sari bikaina (7); sari bikoitza (7)

sari eder (16); sari ederra (10); sari ederrak (34); sari eman (7); sari eskuratu (8); sari frango (15); sari garrantzitsu (7); sari gisa (39); sari guztiak (10); sari handia (20); sari handiagoa (7); sari handiena (7)

sari irabazi (20); sari irabazi zituen (8); sari jaso (21); sari jaso ditu (7); sari nagusi (16); sari nagusia (237); sari nagusia eman (7); sari nagusia irabazi (18); sari nagusia jokatuko (11); sari nagusiak (30); sari nagusian (97); sari nagusiaren (15); sari nagusiko (39); sari nagusiko lehen (8); sari nagusirako (7); sari nazionala (35); sari nazionala irabazi (8); sari nazionala jaso (7)

sari txikia (8)

sari ugari (18)

txekiako sari (7); zuricheko sari (9)

aktore onenaren saria (14); antzerki saria (14); bakearen nobel saria (23); bakearen saria (8); bere saria (22); beren saria (8); bigarren saria (74); diru saria (29); dolarreko saria (17); donostia antzerki saria (7); donostia saria (38); donostia saria jaso (8)

eman zion saria (7); epaimahaiaren saria (8); euroko saria (61); euroko saria jaso (7); euroko saria jasoko (13); euskadi saria (39); euskadi saria irabazi (8); film onenaren saria (15); giza eskubideen saria (8); goncourt saria (12); goya saria (9); grammy saria (10); grinzane cavour saria (8); hernandorena saria (7); hilabete saria (14); hiria saria (15); hirugarren saria (22); hoberenaren saria (22)

ikusleen saria (8); jaso zuen saria (11); jasoko du saria (14); jokalarri onenaren saria (16); kritikaren saria (16); lan saria (7); lanaren saria (15); langabezia saria (12); lehen saria (171); lehen saria ardietsi (10); lehen saria irabazi (12); lehenengo saria (16); lehiaketako lehen saria (13); literatur saria (10); literatura saria (10); literaturako euskadi saria (7); literaturako nobel saria (8); lizardi saria (7); manuel lekuona saria (17); max saria (14); melles saria (7); merezitako saria (20); merezitako saria jaso (10); mikel zarate saria (8); nobel saria (125); nobel saria eman (24); nobel saria irabazi (8); nobel saria jaso (18)

ohorezko saria (20); onenaren oscar saria (21); onenaren saria (175); onenaren saria eman (12); onenaren saria eskuratu (7); onenaren saria irabazi (9); onenaren saria

jaso (30); **onenaren saria** (9); **ordain saria** (9); **oscar saria** (31); **publikoaren saria** (28); **pulitzer saria** (9); **saiakera saria** (12); **sakharov saria** (12)

saria ardietsi (16)

saria eman (134); **saria eman zioten** (28); **saria emango** (32); **saria emango dio** (9); **saria ematea** (12); **saria emateko** (14); **saria ematen** (13); **saria eraman** (12); **saria ereman** (11); **saria erredakzioa** (15); **saria eskaini** (10); **saria eskuratu** (67); **saria eskuratu zuen** (23); **saria eskuratzeke** (19)

saria irabazi (149); **saria irabazi zuen** (61); **saria irabazteke** (17); **saria izan** (29); **saria izango** (21); **saria jaso** (246); **saria jaso du** (40); **saria jaso duen** (8); **saria jaso dute** (8); **saria jaso zuen** (101); **saria jaso zuten** (12); **saria jasoko** (58); **saria jasoko du** (37); **saria jasoko dute** (9); **saria jasotzean** (9); **saria jasotzeko** (41); **saria jasotzen** (16); **saria jasotzera** (13); **saria lortu** (23); **saria lortu zuen** (7); **saria lortzeko** (16); **saria merezi** (15)

saria ukan (13)

txomin agirre saria (9)

urte saria (29); **vianako printzea saria** (12); **zilarrezko saria** (7); **zuzendari onenaren saria** (18)

diru sariak (12); **euskadi sariak** (9); **lehen sariak** (8); **literatura sariak** (7); **muga sariak** (10); **nobel sariak** (14); **onenaren sariak** (7); **oscar sariak** (8)

sariak banatu (35); **sariak banatu zituzten** (7); **sariak banatuko** (10); **sariak banatzeko** (7); **sariak banatzen** (7); **sariak eman** (9); **sariak irabazi** (8); **sariak jaso** (12)

euskadi sariaren (7); **nobel sariaren** (11); **sariaren irabazlea** (24)

sariari esker (8)

sariaz gain (9)

euskadi sarien (7); **goya sarien** (7); **hilabete sarien** (8); **oscar sarien** (16); **sarien banaketa** (22); **sarien banaketan** (9)

goya sarietarako (7); **oscar sarietarako** (17)

bbk sariketako (7)

bbk sariketaren (7)

nobel sarirako (14); **onenaren sarirako** (7)

ez zuen saririk (7); **saririk gabe geratu** (9); **saririk handiena** (13); **saririk onena** (7)

saritarako hautagai (3)

sari² iz emakumeen jantzi luzea, berez Indiakoa.

Emakumeek ez dute gonarik erabiltzen; eskuarki **sari** deritzan soinekoa. Gotzon Garate

Neska txinatarrek zirela, denak tiki samarrak, azal horioak eta **sari** gorri zilarreztatua jantzen zutenak. Joxemari Iturralde

Baliteke bilbotarrak jantzeko beharra eta baloratua izateko beharra izatea eta larruzko jaka bat desiratzea, eta Indiarrak, berriz, gisa bereko beharrak asetzeko, zetazko **sari** bat desio izatea. Iñaki Heras

Sari bat jantzi zioten. Gotzon Garate

Beldurrak erotirik, Tippuk jauzi egin zuen bidean ikusi zuen pozadera baten barrenera bularreko haurrekin, eta beraren **sari** jantziari atxikiak ziren beste biekin. Gotzon Garate

saridun 1 iz sari bat irabazi duen pertsona.

Ruche jaunak ezin etsi zuen **saridunaren** historia kontatu gabe. sekulako dirutza emango zitzaion **saridunari**, baina baldintza batekin: FATen demostrazioa 2007ko irailaren 13a baino lehenago egin beharra zegoen. Jon Muñoz

DIPC fundazioak sei nobel **saridun** ekarriko ditu Donostiara. Berria - Harian

Urte jakin bateko Nobel **saridunak** afari batean elkartu dira, saria jaso eta handik urtebetera. Anjel Lertxundi

Problemak eta korapiloak, alabaina, R. jauna -Kimikako Nobel **saridun** ezaguna- Bartzelonara iritsi zenean hasi ziren. Joan Mari Irigoien

Robert M. Solow Ekonomiako Nobel **Saridunak** erabakia hartzean zerikusi handia izan zuen Rigoberta Menchu Bakearen Nobel **saridunak**, herrialdea defenditzeko Atenasen izan baitzen. Berria - Kirola

"Gonbidaturik, besteak beste, Portugalgo Kultura Ministroa eta Nobel **Saridun** Saramago daude. Edortia Jimenez

Epaimahaiko kide izan dira edo dira, besteak beste, Noam Chomsky hizkuntzalaria eta Pulitzer **saridun** Susan Faludi feminista. Berria - Gaiak

Sariekin jarraituz, aurtengo Donostia **saridunak** AEBetatik etorriko dira: Willem Dafoe eta Ben Gazzara aktoreak. Berria - Harian

Enriqueillo Sanchez Ruben Dario poesia **sariduna** hil da. Berria - Kultura

2 izond saria duena.

Arrakastadunari merkatuko zenbaki **sariduna** egokitzea besterik ez zaio gertatu, egia, baina... "zerbait egingo zian, ezta?". Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nobel saridun (32); **nobel saridun bat** (3); **sei nobel saridun** (6)

bakearen nobel sariduna (8); **fisikako nobel sariduna** (5); **nobel sariduna** (38)

bake nobel saridunak (4); **bakearen nobel saridunak** (8); **fisikako nobel saridunak** (3); **nobel saridunak** (44)

nobel saridunaren (18)

nobel saridunari (9)

nobel saridunek (10)

sarigabe izond saririk ez duena.

Indargetzaile edo motelgailuarena egiteko zerbitzu **sarigabea**, Kristandade Ortodoxoaren gorputz nagusiak garai batean Mendebaldeko mundu berarentzat jokatua, eskualde lehegarria, ez India edo Txina, baizik eta arabiar musulman primitiboen gidaritza dinamikopeBankuak nahitaezko erreserba **sarigabeak**, egoiliar ez direnei diru nazionallean emandako maileguen arabera, osatzera behartzea. Iñaki Mendiguren

sarigarri izond saria merezi duena.

Nireak izan zarete, nire hainbat hitz konbinazio eszitagarri, hainbat metafora **sarigarri**, hainbat ezkutaleku bakarti; eta letagin handiko basurde baten, donazio furgoneta baten, etnia oso baten odola ez litzateke nahikoa nire literatur gosea asetzeko. Eider Rodriguez

sariketa 1 iz hainbat parte-hartzailearen artean sari bat edo batzuk banatzeko egiten den lehiaketa.

Antolatzen dira **sariketak** eta maila bikaineko sortak aurkezten dira. Andoni Egaña

Anitz dira urte sasoi honetan antolatzen diren **sariketa** eta txapelketak. Berria - Kultura

Jendaurreko emanaldien adierazpen berezi bat bertsoariaren arteko **sariketa** edo txapelketena da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Arratsaldean amaitzen zen hiriko sex-shopak antolatu ipuin erotikoan **sariketara** lanak aurkezteko epea. Aingeru Epaltza

Hasierako poema haiek "Premio Guipúzcoa" izeneko **sariketara** bidali nituen. Ana Urkiza

Bor-bor hartan idatzitako lana "Donostia hiria" **sariketara** aurkeztu eta irabazi egin nuen. Ana Urkiza

Anton Abbadia **sariketaren** bederatzigarren edizioan. **Berria - Euskal Herria**

Hor ere bertsu hitzordu bat baiginueen, Hernandezena **sariketaren** finala. **Herria**

71 zaldi etorriak ziren **sariketa** huntarat. **Herria**

2 (izenondoekin)

Nirea da ipuina **sariketa** literario batera bidaltzeko erabakia. **Anjel Lertxundi**

Sariketa handietako epaimahai askotan parte hartu duzu. **Ana Urkiza**

Japonian, herri hortako motoen arteko **sariketa** haundian, ixtripu izigarri bat izan du Daijiro Kato gazteak. **Herria**

Lehen aldikotz egin da Donibane Lohizunen tenislarien **sariketa** nagusia. **Herria**

Baziren **sariketa** bereziak ere. **Herria**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Literatur lantegian idatzitako gustu gutxiko ipuin gazgabe hori inongo literatur **sariketara** bidaltzea debekatzen dizut. **Anjel Lertxundi**

Parisen lizeoetako poesia **sariketaren** sari banaketan. **Edorta Jimenez**

Donostia Hiria piano **sariketa** hasiko da bihar. **Berria - Kultura**

Elizondon eginen da, lehen aldikotz, Mariano Izeta bertsu **sariketa**, Nafarroako Bertsozale Elkarteak antolatutik. **Herria**

Sariketa hau azaroaren 26an eginen da, ostiral arats huntako 9.30etan Santxotenen. **Herria**

Dantza **sariketetan** parte hartzen zuen, eta txapelena bat irabazi ere bai. **Pako Aristi**

Berangon jota **sariketea** dago eta ez daukat panderojolerik. **Xabier Amuriza**

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Errenteriako Gabon Abesti **Sariketan** parte hartzeko izen ematea zabalik dago. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gazteentzako sariketa (3); **ipuin sariketa** (4); **nazioarteko sariketa** (3); **sariketa antolatu du** (3); **sariketa eta txapelketa** (3); **sariketa irabazi** (5); **sariketa nagusia** (3)

bbk sariketako (7); **gazteen bbk sariketako** (4)

gazteen bbk sariketan (4); **sariketan parte hartzeko** (3)

sariketara aurkeztu (5)

bbk sariketaren (7); **bbk sariketaren finala** (3); **hernandorena sariketaren** (3)

sarin

iz gas pozoitsua, nerbio sistemaren paralisia eragiten duena, gerra-arma gisa erabiltzen dena.

Aireak ez duenez, oxigenoa eta nitrogenoa alde batera utzita, gas kopuru aipagarriak, garrantzi gutxioko tasuna da hori, gerra biologikoan ez bada: ziape-gasak eta oraintsuago garatutako beste gai batzuek - **sarinak**, adibidez- larrazala igarotzen dute. **Irene Aldasoro**

Poloniako Armadak atzo helarazi zuenez ekainean «**sarin** gasa» zuten jaurtigaiaak aurkitu zituzten hegoaldean. **Berria - Mundua**

sariño *iz adkor* saritxoa.

Bertze guziek ere **sariño** bat ukan dute, bixtan da, krakada on batekin bururatzen zelarik aratsaldea. **Herria**

HERRIAK langile eta berriketari xintxo frango baditu eta horietarik zenbaitsu nahi izan ditu eskertu, **sariño** bat eskainiz. **Herria**

saristapen ik sariztapen.

saristatu ik sariztatu.

saritu

sari(tu), saritzen **1** du *ad* eginiko zerbitzuaren edo lan onaren ordainetan saria eman. ik **sariztatu**. (norbait)

Bekatuak bertuteak baino liluragarriagoak edo, bederen, iraunkoragoak diren seinale da antzina Nemesis jainkosak onak **saritu** eta gaiztoak zigortzen zituela. **Xabier**

Olarra

Bistakoa zen Degrela koronelak **saritu** egiten zuela, hala nola **saritzen** zuen Berlino hotelaren ardura bere eskuetan utzi. **Bernardo Atxaga**

Eskuak astinduz eta malkoekin **saritzen** nau. **Anton Garikano**

-Jainkoak ontasunez eta ondasunez **sari** zaitzala! **Patxi Zubizarreta**

Saritu egin nau Jainkoak senarrari neskamea eman diodalako. **Jose Antonio Mujika**

Gibebeko patologien inguruan egin dituen ekarpenengatik **saritu** dute. **Berria - Gaiak**

Bakeak fidelak **saritzeko** tenorea ekartzen ohi du berekin. **Aingeru Epaltza**

Ingurumenaren alde egindako lanagatik **saritu** du Nobel Fundazioak. **Berria - Mundua**

Bere borondatez legea betetzen dutenak **saritu** nahi ditu. **Berria - Ekonomia**

Bizkaiko kirolari onenak **saritu** ditu Bizkaia Irratiak. **Berria - Kirola**

Aurtengo literatura-lehiaketan Iparraldeko hiru neska gazte izan dira **sarituak**. **Herria**

2 (zerbait)

AEBetako Glaukomaren Fundazioak EHUko proiektu bat **saritu** du. **Berria - Gaiak**

Etxeko nagusiek ematen zioten tratu ona **saritu** nahi zuen horrela. **Jose Morales**

Gure maisuaren txaloek **saritu** zuten nire ahalegina. **Aingeru Epaltza**

-SDn badakigu ongi eginiko lana **saritzen**... **Alberto Ladron Arana**

Gizartean itzala duten pertsonen lana **saritzea** "honoris causa" gradua edo unibertsitateko domina emanez. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

-Jainkoak arrakastaz **sari** ditzala zure asmoz. **Patxi Zubizarreta**

Baserritarren ahalegina eta borondatea **saritzeko** asmoz. **Berria - Ekonomia**

Egin dituen urratsak **saritu** nahi genituen. **Berria - Kirola**

Sekulako txalo zaparradaz **saritu** zuten afaltiarrek Mathilderen saioa. **Anjel Lertxundi**

Ondorengo gertaerek nire zuhurtzia **saritu** zuten. **Jon Alonso**

Aldi berean, kontsumora bultzatzen gaituzte, eta kontsumoa **saritzen**. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Ez dira hain zuzen horrexegatik txalotzen eta **saritzen** zinemaldietan *In this world* bezalako filmak? **Iñigo Aranbarri**

Bostongo agintariak eskekoaren ausardia **saritu** nahi izan zuten. **Anjel Lertxundi**

1998. urtean bere ibilbide literario luze eta oparoa **saritu** zuten, urte hartan Nobel saria irabazi zuelako. **Jon Alonso**

Herritarrek elkarriketa eta aldaketa **saritu** dituzte. Berria - Harian

Jendeak beste txalo-zaparrada batez **saritu** dio apaltasuna. Anjel Lertxundi

«Indarkeriaz jokatzea **saritu** egin da» gaineratu zuen Manigatek. Berria - Mundua

3 (zerbait eta norbait)

Ni bidali nau mundura; ni izendatu nau salbatzaile; historiak ni **saritu** ordeztu, ni naiz historia **saritzen** dudana. Anjel Lertxundi

Gizakiaren berezko mugak gainditzeko ahalegina **saritu** nahi bada, zergatik **saritzen** da beti ahalegin horretan arrakasta izan duena? Joxerra Garzia

4 (era burutua izenondo gisa)

Arkitekto **saritu** honek 2004ko Pritzker Saria jaso zuen esan duenez, Durangoko paisaia naturalari eta hiriaren ezaugarriei batasuna ematea izan da asmo nagusia. Berria - Kultura

Beste bi nobelak ez bezala, 'Vredaman' idazle **saritu**, aitortu eta profesional izatera heldu ostean idatzi duzu. Berria - Kultura

Euskadi Sariaren helburu nagusia idazle **saritu** ezagutzera ematea dela esango zenuke? Ana Urkiza

Uso dilistazaleak, uso goraiatuak, omenduak eta **sarituak**. Hasier Etxeberria

5 (era burutua izen gisa) saritua izan den pertsona.

Mahai beraren inguruan bildu ziren zenbait epaimahaikide eta **saritu**, afaltzeko. Imanol Zurutuza

Saritu ainitz futbolari eta futbolzaleak izan dira. Herria

Gero, izan dira beste zortzi **saritu** eta denek 457,35 E (3.000 F) errezebitu dituzte sari bezala. Herria

Ohorezko Aipamenari dagokionez, aurtengo **sarituaren** merezimenduak hauek dira: [...]. Pello Zabala

hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apustua saritu (3); egindako lana saritu (5); egindako lanagatik saritu (3); filma saritu (6); hainbat lehiaketatan saritu (3); idazle saritu (3); jainkoak saritu (3); lana saritu (18); lana saritu dute (5); lanagatik saritu (3); lehiaketan saritu (3); lehiaketatan saritu (5); lehiaketatan saritu dute (3); onak saritu (3); presidentea saritu (3)

ipuin saritua (3); saritua izan (9); saritua izan da (4)

film sarituak (3); lan sarituak (4); sarituak izan (7); sarituak izan dira (3)

sarituaren artean (3); sarituaren izenak (4)

lehiaketan saritutako (5); saritutako lana (6); saritutako lanak (6); saritutako liburua (5); saritutako liburua itzultzeko (3)

saritzat ematen (3); saritzat hartu (3)

lana saritzea (5); saritzea du helburu (4); saritzea erabaki du (5)

lana saritzeko (5); saritzeko eman (3); saritzeko modukoa dela (3)

lana saritzeko (5); saritzeko eman (3); saritzeko modukoa dela (3)

erakundeak saritzen ditu (3); lana saritzen (3); pertsonak saritzen (3)

saritxo 1 iz sari txikia.

Saritxo da isilikakoa, hain zuzen ere: sukaldera eramaten ditut eta litro bat esne ematen diet. Gotzon Garate

Berak ez baitaki **saritxoagatik** baino jokutzen. Joxe Azurmendi

2 (hitx elkartuetan)

Horrekin bizi zen, andre Leonardaren pentsio-**saritxoaz** gainera, familia osoa. Josu Zabaleta

Zakurrak bere burmuinetan bilatze lan hori maitasun-**saritxo** horiei lotzen die. Gotzon Garate

saritze 1 iz eginiko zerbitzuaren edo lan onaren ordainetan saria ematea.

Washingtonetik, bere adetik, 25 milioi dolarreko **saritze** bat hitzeman du Osama Bin Laden harrapatzen lagunduko lukeen informazioentzako. Berria - Mundua

Saritze horiek soldadu estatubatuar eta britainiarrek preso irakiarrei jasanaraziriko tortura eta tratu txarren «mendeku» gisa justifikatu zituen Al-Bahadiik. Berria - Mundua

2 (hitx elkartuetan)

Egia horiek oro entzunik, berari zoazkien eskuzartak eskaini diozka suharki jendeak: hori egin da **saritze** orduan eta, guziz, bere hitz lañoak entzun ahal zaizkonean, arras hunkitua, baina orozgainetik osoki emazte, osoki xehe eta bihozduen. · Badakizue AEBek diru **saritze** handiak agindu dituela mujahidinak (gudukari musulmanak) hiltzearen truke. Herria

sariztapen (corpusean saristapen soilik) iz sariztatzea.

Baionan apendizien **saristapenean** Ofiziale Ganbarako buruzagiek egin dituzten deklarapenak. Herria

Saristapen horrek beraz errekonozimendua ekartzen die tokiko langilek egin dituzten lanei. Herria

sariztatu (39 agerraldi, 12 liburu eta 14 artikulutan; orobat saristatu 198 agerraldi, 4 liburu eta 162 artikulutan -guztiak Herria aldizkarian-; Euskaltzaindiaren Hiztegian sariztatu agertzen da) 1 du ad saritu.

Unibertsitateko Irakasle aipatuak **sariztatzan** ohi zituzten araberako kargu handienekin: kalonje, auzitegi eta kontseilueta kide, apezpiku. Piarres Xarriton

-Gure Jainko Jaunak jakingo du nik baino milatan hobeki zu **sariztatzan**. Patxi Zubizarreta

Lehen aldikotz **saristatua** da musulman bat eta, gehiago dena, emaztea. Herria

Horretarako gizon kementsuak beharrezkoak dira, egiazko patriotak, eta gainera hauek...[...] beren zerbitzuaren ordainez ederki **sariztatuak** izanen dira. Elena Touyarou

-Egun on anderea, amoina otoi, jainkoak **sariztaturen** zaitu! Itxaro Borda

Eta, non ez den legeen haustea herioaz **sariztatzan**, zoritxarreko Antigona hark irakatsi zigun eran, legeak aldaezinak dira. Itxaro Borda

Davidek Bartzilai **sariztatu**. Elizen arteko biblia

Ondotxo dakit ez dituzuela nik gaurdaino euskararen alde irabazitako nola-halako merezimenduak **sariztatu** nahi izan. Berria - Kultura

1951n Estatu Frantsesak Aita Hondet eta Joannatéguy-ren merezimenduak **saristatu** zituen zitazio honen bidez: [...]. Marzel Etxehandi

2 (era burutua izenondo edo izen gisa)

Ni baino idazle handi eta **sariztatuagorik** hurbiletik eta arrakastaz interesatu zaionez gero, ez dut hemen behirik, are gutxiago euskal behi erorik aipatuko. Itxaro Borda

Bigarren **sariztatu**, Joseph Iragaray, Bidarteko nausia, 18 urtez Azkarateko auzapez egona. Herria

sariztatzaile iz sariztatzan duen pertsona.

Frantxua Tambourin eskolako kontseiluaren presidentea eta Alexis Inchauspe lehen urteetako erakasle ohia mintzalari ozen eta suhar, andere lrazoqui eta kontseilu nazionalako arduradunak denen goresle eta **sariztatzaile**. Herria

sarizatze (*orobat saristatze*) iz saritzea.

Sarizatzea holaxet egin da: [...]. **Herria**

Harri batez bi xori, bi **sarizatze** egin ditu berriki herrian. **Herria**

Azen ontzeko, zer ziliportak ez ditu izan azkenik Cannesko zinema festibalean eman den **sarizatzeak** ! **Herria**

Ondotik **sarizatzeak** izanzen dira eta afaria denentzat. **Herria**

sarjalgi ik **sar-jalgi**.

sarjant ik **sarjentu**.

sarjen ik **sarjentu**.

sarjiz ik **sarjentu**.

sarjento ik **sarjentu**.

sarjentu (*orobat sardiant g.er., sargento g.er., sargentu g.er., sarjant g.er., sarjen g.er., sargent g.er., sargento g.er. eta sarkentu g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian sarjentu agertzen da*) **1** iz ofizialaren agindupeko soldaduburua.

Berako errepidean fusilatu ditik segituan: tenientea, bi **sarjentu**, bi kabo, are Olaizola izeneko euskaldun bat, hemengotar bakarra dirudienez. **Txillardegi**

Bost axola hari zenbat bider ekiten zioten orroka **sarjentuek** eta kaporalek. **Mirentxu Larrañaga**

Hasiera-hasieratik, Hanley **sarjentuak** begitan hartu zuen Charlie. **Mirentxu Larrañaga**

Ni Europan **sarjentu** izatera iritsi nintzen, galoiak kendu zizkidaten arte. **Lopez de Arana**

Jaka harekin eta aitaren atorra, praka eta bota batzuekin SSetako **sarjentu** baten itxura peto-petoa hartu nuen. **Alberto Ladron Arana**

Guardia zibileko **sarjentu** bat hil behar genian, Panizo izeneko bat; torturatzaile putakume bat, ziotenez. **Juan Kruz Igerabide**

Bijilantzian zebilen milizietako beste **sarjentu** bati pistola ostu ziotela kuarteleko taberna ondoko takillatik. **Iñaki Iñurrieta**

Turkiako Armadako **sarjentu** bat hil zuten eta soldadu bat zauritu Damlarca eta Akdizgin herrien artean. **Berria - Mundua**

Epaitegi militar batek zortzi urteko kartzela zigorra ezarri zion atzo Ivan Frederick AEBetako Polizia Militarreko **sarjentuari**. **Berria - Mundua**

Itsas armadako **sarjentu** bat. **Lopez de Arana**

Jendarmeen **sarjentu** baten idazkari izendatu ninduten. **Edorta Jimenez**

Brutto tempo, tenente -esan zion Amianiri bere konpainiako **sarjentuak**. **Bernardo Atxaga**

Beren eremu txiki kaxkarrean festa egitea pentsatu zuten soldaduek, **sarjentua** buru zelarik. **Felipe Juaristi**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Beharbada aita armadako **sarjentu** ohia zuelako. **Aingeru Epaltza**

Sarjentu zahar bat, andaluzia bera, urrumaka hasi zitzaion ama nagusiari, eta konplimenduak egiten zizkion, klasikoetakoak. **Koro Navarro**

Sarjentu kontularia, birao gordinak txekieraz botatzen zituen, bestek irabazten zuenean. **Anton Garikano**

Sarjentu errekrutatzailearen aurrez aurre geundelarik, [...]. **Mirentxu Larrañaga**

Antjeren aita Holandan, gerra denboran, **sarjentu** nazia izan zen, Schumacher **sarjentua**. **Fernando Rey**

3 irud/hed

Pilik bilatu zuen Maruk falta zuen hitza: *hain sarjentu* ? Maruk *horixe!* bota zuen, eta ordutik aurrera elkarren arteko adiskidetasun-kode moduan edo, «Brown sarjentua» hasi zitzaizkion deitzen. **Berria - Kultura**

Sarjentu bat iruditzen zitzaidan Antje ere, aingerutxo maitagarri hura. **Fernando Rey**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zer berri dago herrian? -galdegin zion uniforme-sorbaldetan **sarjentu** -galoiak zeramatzan batek. **Felipe Juaristi**

Moisesen gainetik **sarjentu** -laguntzailea baitago, eta alferiza, eta kapitaina. **Jon Alonso**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Croly Polizia **Sarjentuak** adierazi zuen ezen bera iritsi zenean hildakoa nasan etzanda aurkitu zuela; hilda, itxura guztien arabera. **Irene Aldasoro**

Suhiltzaileetan buru egiten zuenari hitz batzuk, udaltzain **sarjentu** bati ere bai, eta hilotza aurkitu duenari ez, etxera itzuli baita, baina bai haren ilobari. **Aingeru Epaltza**

Horrexek arrimarazi zuen Châtelet-eko makila-**sarjentu** Casin Cholet-engana. **Juan Garzia**

6 (adizlagun gisa)

Eusko Milizietan **sarjentu** egondako eusko bat da -sozialista bera- orain Seguritatean lan egiten duena. **Edorta Jimenez**

Katxo zagok hemen **sarjentu**. **Koro Navarro**

7 *sarjentu nagusi*

Ingeniarien Gorputzeko **Sarjentu Nagusia**. **Xabier Paya**

Bizkarreko kamaretan aterpeturik, O'Keefe **sarjentu nagusia** eta Dutch Robertson lehen mailako soldadua berrogeialdian ainguratutako ontziei eta ontzirelekuz jositako itsasbaterrei begira zeuden. **Lopez de Arana**

Ingeniarien Gorputzeko **Sarjentu Nagusia**. **Xabier Paya**

Hurrengo, **sarjentu nagusiak** besapean jarri zuen ostera bere makila. **Mirentxu Larrañaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

armadako sarjentu (4); **sarjentu nagusi** (3); **sarjentu nagusia** (3); **sarjentu nagusiak** (6); **sarjentu nazi** (3); **sarjentu nazia** (3)

brown sarjentua (3); **guardia zibilen sarjentua** (4); **hanley sarjentua** (9)

brown sarjentuak (3); **esan zion sarjentuak** (3); **esan zuen sarjentuak** (4); **hanley sarjentuak** (6); **schumacher sarjentuak** (5)

sarkasmo **1** iz ironiazko edo burlazko esaera ankerra.

Ironia **sarkasmotik** bereizten duena ironiak objektuarekiko duen afektibitate dela, **sarkasmoak** ez duena. Berria - Kultura

Sarkasmoak ez bezala, ironiak izan dezake lotura afektiboa kritikatu nahi duenarekin. Berria - Kultura

Aise erabiltzen nuen umorearen ezten maiz korrosiboa, anbulatorioko beste medikukideen aurrean, esate baterako, **sarkasmoaren** mugetaraino. Joan Mari Irigoien

Ez zen, pentsatuko duzun bezala, irakurle, salaketa zuzen erasokor bat izan, jokaera sotil bat baizik, gehiago ironiaren edo **sarkasmoaren** bidetik zihoana. Karlos

Linazasoro

Antonio Basagoitik **«sarkasmotzat»** jo zuen atzo Eudelen (Euskal Udalen Elkarte) mehatxatutako zinegotzien aldeko kanpaina abiatzeko asmoa. Berria - Euskal Herria

Askotan irudikatu nuzen elkar ikusiko genuen momentua, eta aldizka gorrotoa, aldizka **sarkasmoa** eta gehienetan higuina ikusten nuen Hermannen alegiazko harrera haietan.

Anjel Lertxundi

-Halabeharra -erantzuten zuen neskak, **sarkasmoari** helduta-. Fernando Morillo

Bere buruari aitortze hutsa **sarkasmo** garbia izan arren, komediantearena izan zen agian zailena. Berria - Kultura

Ez dakit zer jarrera hartu; ezin diot bere utzikeria, bere **sarkasmoak** eta bere gogortasuna aurpegiratu, baina ez dut uste horren guztiaren errua nik dudarik ere. *Message?, mais quel message?*, erantzuten du Baconek **sarkasmoz** beteta. Josu Zabaleta

2 sarkasmoz adlag ik sarkastikoki.

Bere garaiko eta gizarteko konbentzioei aurka egin zien, ironiaz eta **sarkasmoz** maiz, argitasun handiz beti. Berria - Kultura

LUIS (**sarkasmoz**): hilekoa etorri zaidala uste dut. Patxi Iturritegi

Gelditu egin zen apur batean Léa, eta berriz ekin gero, **sarkasmoz** -Norbaitek esana da: askatasuna da matematikaren muina! Jon Muñoz

Baina orduantxe hasi zen "tira egiten dik, ezta?", gustuko daukag, ezta?" bezalako lelo temosoekin, noiz **sarkasmoz**, noiz erresuminez, besteak Idoiaren alde egiten zuen bakoitzean. Jokin Muñoz

-Gol-festa katedralean, beraz -gaineratu zuen Begoñak **sarkasmoz**, gorroto duelako futbola. Patxi Iturritegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sarkasmo hutsa (3)

sarkastiko *izond* sarkasmoa daukana edo adierazten duena.

Hamar orri ziren, aitarek kontakizun zuhurtasunik gabeko haiek oinarri zituztenak, **sarkastikoak**, krudelak eta ezin garratzagoak. Joan Mari Irigoien

CAIaren gida jadanik aipatutik harturiko aipu **sarkastiko** bat zen hura. Juan Garzia

Lehendik ere bagenekien, ala ezetz uste zenuen? -galdetu zuen Amaiak ukitu **sarkastiko** batez. Aitor Arana

Halaxe zegoen zuzentzailea, irribarre **sarkastikoa** ezpainetan zuela. Jon Alonso

Basapizti **sarkastikoa**, deitzen zion Andrewk. Anton Garikano

Zahar nahiz gazte, ezagun nahiz ezezagun, liriko edo oniriko nahiz ironiko edo **sarkastiko**, era guztietako poetei zabaltzen die atea urtero *Hatsaren Poesia olerki bilduma*-k.

Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

irri sarkastiko (3)

sarkastikoki *adlag* sarkasmoz.

-Hara, Luth, aspaldiko, oraindik hemen al zabilta? -esan zion Maelek **sarkastikoki**-. Joanes Urkixo

Fionnek ez zion arretarik ipini Belaskoren eraso honi, baina Maelek ezinegona erakutsi eta belarrira xuxurlatu zion **sarkastikoki**: [...]. Joanes Urkixo

sarkentu ik sarjentu.

sarketa *iz* koituan, zakila sartzea.

Gaur egungo aingeruek masturbazioa, **sarketa**, kitzikatzea eta abar garbi horiek oro txit ongi ikasiak dauzkate. Iñaki Segurola

Berriro lotu gintzaizkion oheko jolas atseginari eta, egoki iritzi genionean, **sarketarako** prestatu ginen. Aitor Arana

Sasoï-sasoïko emakume bati zakil gogorra gustatzen zaio eta **sarketa** gustatzen zaio. Karlos Zabala

Emakumea ohituta ez badago, aurretik nahiz atzetik egin, beti mingarria izango da **sarketa**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Aldizkari ia guztietan, **sarketa** bikoitzeko argazkiak ageri dira, bi tipo eta zoritzarreko tipa bat makillajez gainezka, hot dog erotiko bat gutxi gorabehera. Karlos Zabala

sarkin 1 *izond* eremu batean edo jarduera batean eskubiderik gabe sartzen dena.

Zitoplasmako antenak luzatuta, organismo **sarkina** inguratu, irentsi eta desegin egiten dute. Irene Aldasoro

Zibilizazio **sarkina** kanporatzeko eta bere historian estatu unibertsalaren fasea berriro hartzeko. Iñaki Mendiguren

Material **sarkina** gorpuztetik kanpora bidaltzen da (larruzaletik), edo zuntzeko ehunean bildu eta guztiz isolaturik uzten da. Irene Aldasoro

• 2 *iz* eremu batean edo jarduera batean eskubiderik gabe sartzen den pertsona.

Itsasaldetik amildegiak eta beste hiru hegaletatik burdinazko hesi batek babesten zuen etxea **sarkinengandik**. Migel Angel Mintegi

Fang-ek **sarkina** hil dezake, **sarkinak** Fang hil dezake, biak ere salba daitezke, biak ere hil daitezke, eta abar. Juan Garzia

-Eta hiri, gizagaixo **sarkin** zuhurgabe ergel hori, adio sekulako. Juan Garzia

Hala ere, okasio batzuetan **sarkin** barbaroak zerbitzu apal bat egin izan dio geroari. Iñaki Mendiguren

Sarkin bat sentitzen naiz -esan zuen-. Xabier Olarra

3 irud/hed

Nik **sarkin** bat aurkitzen dut sarri nire gogoan. Jenaro Garate

Hainbat mendez hibernatu, bere garaia zain egon eta azkenean bere aukera aurkitzen duen zibilizazio **sarkina** kanporatzeko eta bere historian estatu unibertsalaren fasea berriro hartzeko, eten zioten puntu bertan. Iñaki Mendiguren

sarkinkeria *iz* eremu batean edo jarduera batean eskubiderik gabe sartzea, gaitzesgarritzat markatua.

Sandrok ez zituen gogoko erlojuak: **sarkinkeriatzat** sentitzen zuen haien gaitzitu isil etengabea. Juan Garzia

sarkofago *iz* harrizko hilkutxa, eskuarki erliebeak eta idazkunak dituen.

Septimak, herabe, **sarkofagoen** artean lasterka ekin zion. **Juan Garzia**

Itxi egin zen horma, **sarkofago** baten estalkia bere altxor izugarrien gainean bezala. **Jon Muñoz**

Bainuontziari **sarkofagoaren** antza hartzen nik: etruskoa! **Joxe Austin Arrieta**

sarkoma *iz* ehun konjuntiboan sortzen den tumor gaiztoa.

Kutsadurarekin lotzen diren tumoreak (**sarkoma**, linfoma, jaiotzetiko anomaliak) %30 gehiago ziren Tarragonan Gipuzkoan baino. **Berria - Euskal Herria**

sarkor 1 *izond* erraz edo oso barnera sartzen dena. ik**barrenkor**. (hotsez eta kidekoez)

Hasperen **sarkorra** egin zuen, eta bezeroek sabela zatika jaurtiko zuela pentsatu zuten. **Patxi Zubizarreta**

Odola gatzatzeko moduko txilio **sarkor** batek hautsi zuen isiltasuna. **Iñaki Mendiguren**

Gizonak ahots ederra zuen, **sarkorra** eta katuaren ilea bezain leuna. **Anjel Lertxundi**

Kolera aienatu gabe zuela, atzealdetik zetorkion ahots sendo **sarkor** bat entzun zuen, samurtasunez beterik. **Patxi Zubizarreta**

Trenaren soinu **sarkor** sakona. **Felipe Juaristi**

Horretan ziztu **sarkor** bat entzun zen. **Josu Zabaleta**

Pedro Aranburu-k hitz **sarkor** batzu erran ditu ikastola guzaien federakundeko lendakari bezala, errepikatuz zoin beharrezkoak ditugun herri-eskola horiek. **Herria**

Mintzaldi **sarkor** baten ondotik, de Monsabert jenerala, Marsella 1944ko agorrilaren 15ean libratu zuenak, papoan eman zion "Légion d'Honneur" medaila ospetsua. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Xabier Leteren doinu **sarkorrak** izan dira aurrena: "Jo, a zer rolloa", esan du segituan batek. **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Badira zapore baten dei **sarkorrera** heltzen zaizkigun oroitzapenak. **Pako Aristi**

2 (bestelakoetz)

Nafarro aldetik datorren ipar gorri **sarkor** txorrotx horrek. **Pello Zabala**

Fionnek, burua altxatzean, Matienaren begirada **sarkor** hura beregan josita nabaritu zuen. **Joanes Urkixo**

Begirada akitu batekin egin du topo, inoiz bizi-bizi zelatatu duten begi **sarkorren** distira itzaliarekin. **Urtzi Urrutikoetxea**

Min **sarkor** eta hotza sentitzen dut, labankada baten antzekoa. **Iban Zaldúa**

Berebiziko oinaze **sarkor** bat sentitu zuen, eta begiak malkoz bete zitzaizkion. **Josu Zabaleta**

Neskatoaren usaina oso **sarkorra** zen. **Ibon Uribarri**

Goroldioarena bezalako usain **sarkor** bat sentitu zuen sudur-mintzetan. **Anjel Lertxundi**

Bulegoko usaina lehengo bera zela ohartu zen, nikotina eta mendazko lurrin **sarkor** hura. **Aritz Gorrotxategi**

Eskaileretan, perfume-usain heze **sarkor** batek egin zion ongiatorria gizonaren sudurrari. **Irene Aldasoro**

Gaua trinkoa zen; euri **sarkor** batek isilperatzen zituen zarata guztiak. **Juan Garzia**

Neguko hotz **sarkorrak** izoztuta hil omen zen. **Alberto Ladron Arana**

Ortega-ren ikusmoldeak arrazialismo **sarkor** batek inpregnatuak dira. **Joxe Azurmendi**

Neskarenganako gorrotz beterik, bihotzondoko **sarkorra** hartu zuen. **Patxi Zubizarreta**

Zorrotzak eta **sarkorrak** dira zortzi idazle hauengandik jasotako erantzunak. **Ana Urkiza**

Gezi bat bezain arin, gezi bat bezain **sarkor**, munduko indio guztiak bezalaxe. **Iñaki Segurola**

3 (izenondo elkarketan)

Hiru esku batera altxatu dira, eta egongela kristal-hots zorrotz **sarkorrez** bete da: hiru esku altxatu dira, hiru bihotz batu... **Joan Mari Irigoien**

Izerdi usain **sarkor** -mikatzaz eta urduritasunaz gainezka. **Xabier Montoia**

4 (adizlagun gisa)

Abartuza inguruetan bele asko jiraka hegaz, omen; eta beltzen gorpu usteldu kiratsa, **sarkor**. **Txillardegi**

Eta kresalezko lurrinaren usaina oso **sarkor** hedatzen. **Txillardegi**

Erabat ahantzia neukan keroseno usaina, bat-batean **sarkor**, gailen; eta hegazkin orroa, giroan gorgarri. **Txillardegi**

Hain **sarkor** nagusitzen da bere indarra. **Xabier Amuriza**

5 (-en atzikiaren eskuinean, izen gisa) ik **sarkortasun**.

Isiltasun karroinduren **sarkorra** baizik ez zen ozen, bistan dena. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahots sarkor (5); **doinu sarkor** (3); **doinu sarkor batez** (3); **hitzaldi sarkor** (3); **hotz sarkor** (3); **lurrin sarkor** (5); **lurrin sarkor bat** (3); **usain sarkor** (15); **usain sarkor bat** (3)

ahots sarkorra (4); **begirada sarkorra** (4); **hotz sarkorra** (3); **usain sarkorra** (21); **usain sarkorra zerion** (4)

begi sarkorrak (3); **hotz sarkorrak** (3); **usain sarkorrak** (11)

bihotzeko sendimendu sarkorrenak (10)

sarkortasun *iz* sarkorra denaren nolakotasuna.

Bi gauza argitu zirenaldi berean anaia honen hondamenean: Jainkoaren justiziaren zuzentasuna eta santuaren profezi espirituaren **sarkortasuna**. **Askoren artean**

Behaketa luzeagoa edo **sarkortasun** handiagokoa egin ondoren. **Ibon Uribarri**

Holakoxe arrazoi biribilak botatzen dituzte dena dakiten gizajoe, eta biribila kamutsa da beti, **sarkortasun** gutxikoa eta zorrotzasunik batera gabea. **Iñaki Segurola**

sarleku *iz* sartzeko lekua.

Errausturik dago herrien **sarleku** zen hiria. **Elizen arteko biblia**

Eguzkiaren sorlekutik **sarlekura**, goretsia bedi Jaunaren izena! **Elizen arteko biblia**

Jauna, jainkoen Jainkoa, mintzo da, mundu osoari egiten dio batzarrera dei eguzkiaren sorlekutik **sarlekura**. **Elizen arteko biblia**

sarmatiar ik **sarmaziar**.

sarmaziar (orobat **sarmatiar**) *izlag/iz* Sarmaziakoa, Sarmaziari dagokiona; Sarmaziako herritarra.

Gilermo Konkistatzailearen soldaduak **sarmatiar** kasket koniko eta ezkatzko armadura-jakaz ekipatuak kaudela, kometa formako ezkutuekin. honek hainbat germaniar eta **sarmaziar** koloniaren presentzia jasotzen du Galia, Italia eta danubiar probintzietako erromatar lurraldean. Jarraian zimeriarrak, eskitiarrak, **sarmatiarrak** eta godoak, besteak beste, iritsi ziren, K. a. lehen milurtean. barbaro teutoniko eta **sarmatiarren** gobernuak. **Iñaki Mendiguren**

sarmiento iz aihena.

Oraintxe, esan zuen, mmm, oraintxe arkume bat, oraintxe **sarmientoekin** erreta txuletilla batzuk... **Pablo Sastre**

sarna iz hazterea, ezkabia.

Beldur handia zioten **sarna** eta larruazaleko gaitz orori, sendatzeko ukendua besterik ez baitzuten ezagutzen. **Pello Zabala**

Sarnaren kontrako erremediotzat artoa ta koipetzu jatea, berriz, azken horretan. **Pello Zabala**

Egiptoarrak jo zituen bezalako zauri zornatsuz eta erlakizten, **sarna** eta ezkabiaz joko zaituzte Jaunak, eta sendaezinak gertatuko zaizkizue gaitzok. **Elizen arteko biblia**

Tuberkulosia, tifus exantematikoa (zorri berdea), **sarna**, eromena... **Jokin Urain**

sarnadun izond hazterea duena.

Berak orduan zirkulu erdi bat eginez hasi dira nire bila, zakur **sarnadunak** bezala, eta haietako biren erdian gertatu naiz ni, ondo-ondotik pasa zaizkit, eskerrak pagoen hostoen itzalek ilargiaren argitasuna zapuzten zuten. **Bernardo Atxaga**

sarobe ik saroi.

saroe ik saroi.

saroi *(orobat saroe g.er. eta sarobe; Euskaltzaindiaren Hiztegian saroi agertzen da, eta sarobe baztergarrizat jotzen da) iz zelaia edo bazkalekua ondoan duen borda.*

Ezker behatuz aldiz, Urkulu deitu misteriozko dorrea, Arnoztegi, beste mendi batzuk ere, etxola zenbait ere, beren **saroi** ederrekin. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Olibesarioko **sarioan**, Euskal Herriko erdigune geografikoa aurkitu omen dute. **Berria - Euskal Herria**

Baso iluneko **sarobe** izerdituak, larreko artzaitxabola isilduak, eguterako ardiborda itzalduek. **Patziku Perurena**

Ardirik gabeko **sarobe** baten paretan ostean. **Koldo Izagirre**

sarra iz metal urtuen hondakina. ik zepa.

Mendia gero eta handiagoa bilakatzen ari zen, gero eta hurbilagoa, eta buru astunak altxatzen zituztenean, errautsa eta **sarra** eta kiskalitako arrokkak osatutako mendi erraldoia besterik ez zuten ikusten. **Agustín Otsoa**

Azpiegitura horiek osatzeko, herrialdean 3.000 edukiontzi berri ipiniko dituzte, linea zuriko etxetresna elektrikoak birziklatzeko gutxienez instalazio bat eta burdin **sarrak** heltzeko beste instalazio bat. **Berria - Harian**

sarraila *(orobat sarrail g.er. eta serraila g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian sarraila agertzen da) 1 iz ateeetan, kutxetan... kokatzen den metalezko tresna, haiek giltzaz itxeko eta irekitzeko erabiltzen dena.*

Hiriko ate handiko **sarraila** jo eta puskatu zuen. **Pello Zabala**

Kutxaren **sarraila** hautsiko diat. **Koro Navarro**

Sarrailak daude kutxa, eskorta, estalpe, oilotoki, zelategi, eta mandioko atean. **Anton Garikano**

Isilik geratzen dira, adi-adi, zer entzungo: sarrerako **sarrailak** egindako hotsa ematen du. **Anitton Olano**

-Giltza **sarrailan** dago. **Iñaki Mendiguren**

Giltza **sarrailan** sartu, atea ireki, eta jarlekuan esertzen naiz. **Mikel Hernandez Abaitua**

Sarrailan indarrez sartu, bira eman eta... eta zabaldu egin zuen. **Iñaki Mendiguren**

Gurasoak esnatzeke izango ziren esperantzaz eragin zion giltzari **sarrailan**. **Unai Iturriaga**

Irekitzean, **sarrailak** kurrinka egin zuen. **Lopez de Arana**

Sarrailaren hots zakarrak esnarazi zaitu. **Rafa Egiguren**

Komunera behartu nintzenez, atea **sarrailaz** itxita zegoen. **Joxe Austin Arrieta**

Sarraila elektronikoa kontrolatzen zuen botoia zanpatu zuen. **Fernando Rey**

Seguritate-kutxara joan, ateko **sarraila** zifratuan zenbakiak sartu, hura zabaldu, [...]. **Edorta Jimenez**

Gabardinako patrikan, ezusteko opari bat: hogeita hamar dolar eta **sarraila** ezezagunen bat irekitzeko giltza bat. **Harkaitz Cano**

Ez zuen asmatzen, ez zuen **sarrailako** zuloa aurkitzen. **Karlos Zabala**

Sarrailaren begira giltza kateatu, bira bakar batez atea itxi eta kalera atera zen. **Harkaitz Cano**

2 (aditzaren objektu gisa)

Sarraila ireki zen une berean, giltza hegan irten zen berriro. **Iñaki Mendiguren**

Etxetik ateratzerakoan, Luisek itxi du **sarraila** giltzaz. **Lourdes Oñederra**

Bere txosnako pertsiana alderik alde hartzen zuen burdin hagaren bi muturretako **sarraila** tzarrak askatzen zituen. **Anjel Lertxundi**

Bi **sarrailak** libratu zituen eta berriz barrendik giltzatu. **Iñaki Zabaleta**

Ezezaguna egin zitzaion **sarraila** biratzeko presa hura. **Harkaitz Cano**

Eskailerapeko armairuaren **sarraila** behartu, bere liburuetako batzuk hartu eta bere logelan ezkutatu zituen. **Iñaki Mendiguren**

George urkila arrunt bat patrikatik atera eta **sarraila** bortzatzen hasi zenean. **Iñaki Mendiguren**

Aise bortxatu zuen Anjelmariren 127aren **sarraila**. **Unai Iturriaga**

Azkenean, erlojuak zortzi eta erdiak adierazi zituen, eta **sarrailak** saltatu zuen. **Xabier Olarra**

Armairuak zabaltzen zituzten ate-zangoak labanaz irekirik, kutxa handiak ere bai, **sarrailak** leherturik. **Felipe Juaristi**

Sarrailak klik egin eta atea zabaldu zen. **Iñaki Mendiguren**

Sarraila herdoilduta egon daiteke, edo kisketatik libratuta. Anton Garikano

Askotan konpondu zizkiguk **sarrailak**. Anton Garikano

Eskailera burura ematen zuen atearik **sarraila** emanda zeukan. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Begiak itxi eta **sarraila** hotsa entzuten dut goiko pisuan. Harkaitz Cano

Ohazur soinuak, "bai banoa", pausoak, **sarraila** -hotsak, eta Joseba agertu zen begietako makarrak kenduz. Iñaki Zabaleta

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ate **sarraila** estuen lehen bortxatzailea izateko irrikan. Xabier Amuriza

Jaiki naiz ene maiteari irekitzera: mirra-ukendua darie nire eskuei, hatzetan behera, ate-**sarraileraino**. Elizen arteko biblia

Snelling erloju-**sarraila** jartzera joan zen. Xabier Olarra

Hortaz baliatu da Sarkozy ministroa erranez ez zela bertze bat bezala **sarraila** lanetan ariko orain Frantziaren oihu eta marruma entzun gabe Herria

5 (su armena)

Fusil **sarrailaren** krakatekoa. Koldo Izagirre

6 *sarraila*-zulo ik zulo.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atearen sarraila (5); **ateko sarraila** (4); **sarraila ireki** (4); **sarraila zuloa** (3); **sarraila zulora** (3); **sarraila zulotik** (10)

sarrailak ireki (3)

giltza sarrailan sartu (10); **giltza sarrailan sartzen** (3); **sarrailan sartu** (15); **sarrailan sartu zuen** (4)

sarrailaz itxita (4)

sarrailagile *(orobat sarrailgile eta sarrailgin g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian sarrailagile agertzen da) iz sarrailak egiten dituen pertsona.*

Sarrailagile bati deitzea beste erremediorik ez daukala. arratsaldean bulegoan nengoela etorri zaiok nire amari **sarrailagilearen** morroia, zera, aldameneko mutila. Anton Garikano

Erremeritari eta **sarrailgileak** ere eraman zituen. Elizen arteko biblia

Rouendik **sarrailagile** bat ekarri, eta nire gelarako burdinazko leihosare bat egiteko agindu diot. Josu Zabaleta

sarrailagintza *(orobat sarrailgintza; Euskaltzaindiaren Hiztegian sarrailagintza agertzen da) iz sarrailak egitea.*

Aspaldian ikasi genuen eskolan **sarrailagintza** maite zuela Louis XVI.ak, horretan pasatzen zuela denbora ez zituelarik batere entzuten Frantsesen oihu eta marrumak.

Herria

Sarrailagintzak unatu zuen, ordea. Karlos Zabala

Laugarren aldean burdinazko burdin-sare batek ixten duela, aro bereko **sarrailgintza** bikaina. Koldo Izagirre

sarrailatu, sarraila(tu), sarrailtatzen du *ad* sarrailaz itxi.

Kisketa itxi barik eduki arren, Antoniak ez zuen gelan sartzeko atrebentziarik hartzen, eta ateko euslekuari gora eta behera egiten zion **sarrailaturik** balego moduan. Josu Landa

Landa

sarrailatxo *iz sarraila txikia.*

Sarrailatxoa ireki eta bi hatzen artean bat hartuz, sudur parera eraman zuen aurrena, begiak itxita usaintzeko, eta belarri ondora gero, puntuan lehortutako tabakorriaren

grakada fina sumatzeko. Joxemari Urteaga

sarrailgile ik sarrailagile.

sarrailgin ik sarrailagile.

sarrailgintza ik sarrailagintza.

sarrakio *iz laborria, izu-ikara.*

Doktorea zutik geratu zen, zurbil, izumenak harturik, begiak **sarrakioak** nahasturik, ilea burugainean zut, hortzak karraska, eta burutik orporaino dardara ikaragarri batek astintzen zuela aurrean zuen ikuskari ulertezinak hartaturik. Josu Zabaleta

Ez nintzen neure buruaren jabe, **sarrakio** zorrotz batek urraturik neukan barrena, aztoratuta nengoen eta zainak airean nituela, gizon haren mende ikusten bainuen neure burua. Anjel Lertxundi

sarraldi *(orobat sartualdi g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian sarraldi agertzen da) iz sartzea, norbait edo zerbait nonbait sartzten den aldi bakoitza. ik sarrera.*

Handik hasiko zituzten aurreneko **sarraldiak** eta erasoaldiak Europan barrena. Patziku Perurena

Fronteaz bestaldean **sarraldi** bat egitea erabaki zen, eta Alemaniako hamar fisikari bikainenak bahitzea. Fernando Morillo

Jonnet eta Jourdaine iazko jokalariek oso maila ona eman zuten iaz eta hegaletan zuloa egitea lortzen zuten **sarraldi** bakoitzean. Berria - Kirola

Idazlearen eta gertakariko protagonista nagusi izandako kide baten arteko harremana jorratzen du, pertsonaien psikologian **sarraldi** sakonak eginez. Berria - Kultura

Politeismoaren **sarraldi** horiek monoteismoa erabat finkatzea eragin zuten Islamean, baita protestantismoan ere hain sakon ez bada ere, eta bi mugimendu puritano horiei, beren aldetik, arimak duen jainko-aniztasunaren gose aseeginak eraso zien unibertso indar naturalen itxurazko aniztasuna islatzeko. Iñaki Mendiguren

Gizarte hauen jatorrietaraino joanda, mila urteko **"sarraldi"** helenikoaren" atzean, desagerturiko gizarte bat, Gizarte Siriako deitua, dagoela aurkitzen dugu. Iñaki Mendiguren

Mendiguren

2 (hitz elkartuetan)

Tanke **sarraldi** horiek erremediorik ez duten kalteak eragiten dituzte. **Josu Zabaleta**
Jennyren mihiak nire aho barnean egin zuen **sarraldi** ustekabeakoa. **Aingeru Epaltza**

sarrarazi (orobat sararazi g.er. sarrerazi g.er. eta sar-erazi; Euskaltzaindiaren Hiztegian sarrarazi agertzen da) 1 du ad sartzera behartu.

Lambertek ukuiluan **sarrarazi** gintuen, eta hantxe giltzapetuta utzi. **Mirentxu Larrañaga**
Hendaia tik Bordelerako trenean **sarrarazten** gaituzte. **Marzel Etxehandi**
Autoaren atzeka atea zabaldu, eta barrura **sarrarazi** nuen obispoa. **Inazio Mujika Iraola**
Ate beltz bat zabaldu zen, eta katez loturiko gizon bat **sarrarazi** zuten. **Koro Navarro**
Logelan **sarrarazi** ostean, atea giltzaz itxi zion. **Mirentxu Larrañaga**
Hitlerrek komunista guziak preso **sarrarazi** zituen eta orduan ireki herio zelaiak. **Eneko Bidegain**
Gero apez batek laminak gaztigatu zituen lurpean **sarraraziz**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Diligentziako zaldia bainatzen eramanen zituztenean, Tellagorrik errekan **sarrarazten** zuen biloba, haietako baten gainean. aita eta biok lo gaudelakoan, emaztea ohean **sarrarazi** du gelakideak. **Koro Navarro**
Herriko jendeak kontaktatzen zuela alaba komentatu batean **sarrarazi** zuela, bortxaz. **Elena Touyarou**
Neguak **sarrarazten** gaitu etxerat laster, kanpoan denbora handirik pasatu gabe. **Herria**
Ondoren, kantu sakratuak (mantrak) kantatu bitartean, ingurua atxurtu eta sugeak zakuan **sarrarazi**. **Gotzon Garate**
Manausko portuan, liburu-kutxak ontzira **sarrarazi** zituenean, [...]. **Jon Muñoz**
Diafragmaren jaisteak **sarrarazten** du airea biriketara. **Irene Aldasoro**

2 (testuinguru abstraktuetan)

Esplotatzaile madarikatu batzuek dirua lapurtu didate, ohitura txarren galbidean **sarrarazi** nahi ninduten berberak! **Fernando Rey**
Harekek **sarraraziko** luke arrastoan. **Mirentxu Larrañaga**
Preso guzietan kaskoan **sarrarazteko** zer zen ihesaldiaren saria eta halako xederik zutenei gogoia kentzeko. **Eneko Bidegain**
Batetik, soldadugai etorri berriak lasaiazziz, eta, bestetik, gure istorioekin haiei beldurra **sarraraziz**. **Mirentxu Larrañaga**
Hor ageri da frantses administrazioak eta eskolak euskaldun izaitearen ahalkea zer heineta raino **sarrarazi** zuten euskaldunen baitan. **Eneko Bidegain**
Zazpigarren kapituluak, **sarrarazten** gaitu erdiz erdi, mendeetan barna, filosofia ala teologia politikoaren eztabaidetan gai nagusietarik izan den boterearen eta botere mota ezberdinen arteko liskarren muinean. **Piarres Xarriton**
Literaturak sortzen dituen fantasia, amets, ilusio, abentura eta, zergatik ez, historiaren benetako kontaketa-munduan **sarrarazi** ninduten idazleen artean aurreneko tokian dagoela Jules Verne. **Berria - Harian**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

autoan sarrarazi (4); barrura sarrarazi (8); barrura sarrarazi zuen (3); etxean sarrarazi (4); preso sarrarazi (5); sarrarazi ninduen (14)
barrura sarrarazten (3); sarrarazten gaituzte (3)

sarrarazle iz zer bait edo nor bait sarrarazten duen pertsona.

Böhl de Faber-en ahaieginean gartzate espainolak zapuztu egin die, eta Bartzelonako Europeo aldirikariak ere arrakastarik ez du izan; Durán-en ekarpenak aldirik xaloka hartu dira, hau jo daiteke erromantizismoaren **sarrarazletzat** Espainian (kritiko edo teorikoen mailan). **Joxe Azurmendi**

sarrarazte iz sartzera behartzea.

Zuberoan eta mendiko nekazaritza bizirik dauden beste eskualdeetan hartzak berriz **sarrarazteak** piztu duten gartzate eztabaida gori-goriekin, ezinezkoa izango zen hartzik ez egotea maskaradetan... **Berria - Kultura**

sarraski 1 iz hilakintza, gizaki askori bizia kentzea. ik masakre.

Sarraski hartan gure gudarosteak galera handiak izan zituen: sei mila lagun hildakoen eta preso eroritakoaren artean. **Askoren artean**
Hamabi gizon baizik ez ziren bizirik atera **sarraski** hartatik... haien artean Fidel Castro. **Jon Muñoz**
Turkiarrek guri egindako **sarraskiaren** ospakizuna da. **Felipe Juaristi**
Oso harrapari taldeek **sarraski** handiak egiten zituzten, ez aberetan bakarrik, baita gizakietan ere. **Askoren artean**
Bahiketa **sarraski** bilakatu zen gero, Errusiako tropak haien kontra oldartu zirenean. **Berria - Gaiak**
Lehenengo udaberriaren donapaleutar erreformazaleen **sarraskian** parte hartu zuten herritarren zerrenda da. honek, zaurituta baina, **sarraskitik** ihes egin baitzuen. **Aingeru Epaltza**
Errudunak atxilo hartzea nahi dute Srebrenicako **sarraskiko** hilen senideek. **Berria - Mundua**
Sindikatu bat sortu zuelako lur-jabeek eta haien soldatapeko hiltzaile-taldeek egindako **sarraski** eta belzkeria guztien kontra borrokatzeko. **Jon Muñoz**
Eta drogen ondotik hiesa etorri zen, **sarraskia** ekarri zuen madarikazioa. **Juan Kruz Igerabide**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Horrela, Josuek eta israeldarrek **sarraski** handia egin zuten etsaien artean, ia denak hiltzeraino. Uholdeak **sarraski** ikaragarria sortu zuen. **Elizen arteko biblia**
Abiasek eta beronen gudarosteak izugarritzko **sarraskia** egin zuten israelarren artean: bostehun mila gudari aukerako erori ziren hilik. **Elizen arteko biblia**
Atzerriko zaldun batek berebiziko **sarraskia** egin zuen Arturren gudarostean. **Juan Kruz Igerabide**
Inoiz baino gerra handiagoak ikusi ditu mende honek [...] inoiz baino genozidio handiagoak egin dira, inoiz baino **sarraski** zikinagoak. **Pello Salaburu**
Errege eta buruzagi geziaz eta erromatarren **sarraski** etengabeak. **Iñaki Iñurrieta**
Hitz bat esan eta presoak akabatzen hasiko ziren haren gerlariak, **sarraski** odoltsu batean. **Karlos Zabala**
Haur errugabeen **sarraski** zuzengabeaz. **Elizen arteko biblia**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Beste batzuek Errusiak Txetxenian bideraturik darabilen **sarraski**-gerraren aurkako sinadura bilketarekin segitzen dute. Kolpetik ohartu nintzen iragana besterik ez zela gerra, baina **sarraski**-eremuetan gertaturikoak garun-harresian iltzaturik nituela betiko. **Edorta Jimenez**
Jar itzazu aparte gaiztoak, hiltzeko ardiak bezala, gorde itzazu **sarraski**-egunerako! **Elizen arteko biblia**
Lehen aldirik egunkariarik korrespontsalak igortzen dituzte **sarraski** lekura. **Pako Aristi**

4 irud/hed

Hementxe jazotzen dira espekulazioaren ondoriozko **sarraski** larrienak: "alferrikako" elikagaiak, kostua jaitsaraziko luketenak, etc, desagerrarazten dira, [...]. **Edorta Agirre**

3 (abere bat) sarraski bihurtu.

Piztiaren batek **sarraskitu** badu, hala gertatu delakoaren frogak aurkeztuko ditu, eta ez du ordaindu beharrik izango. **Elizen arteko biblia**
Munstro bilakatu eta nire ardiak banan-banan hiltzea erabakiko banu gaur, ia artalde osoa **sarraskitu** arte ez lirateke ohartuko eurak. **Xabier Aranburu**

4 (era burutua izenondo gisa)

Abere hilaren nahiz **sarraskituaren** gantzaz edozertarako balia zintezkete, jateko izan ezik. **Elizen arteko biblia**
Abelgorri baten hondar **sarraskituak** ziren. **Joanes Urkixo**

sarraskitzaille *izond* sarraskitzen duena.

Esan zioten Musuoker pirata odol gose eta **sarraskitzaillea** etorri zitziola borroka bila. **Felipe Juaristi**
Bihotzei dardar eragiteko eta hildako ugari egon dadin, ate guztietara zuzendu dut ezpata **sarraskitzaillea**, distira botatzeko egina, sarraskirako leundua. **Elizen arteko biblia**

sarraskizale 1 *izond* abere sarraskien zalea dena.

Sai, putre eta bertze hainbat hegazti **sarraskizalek** apailatuko dizkiete hiletak. **Xabier Montoia**
Akabo da Hester gaixoarekikoa -errukitu zen Nora- epaileak berak baino askoz ere arrano eta putre **sarraskizaleago** horiekin. **Anjel Lertxundi**

2 irud/hed

Ospearen eta arrakastaren ezia ondo dastatu eta gozatuta hil baita Orioko jenio handia, bere jenialtasunaren handiaren eta jendearen mirespen ez txikiagoaren jakitun, **sarraskizaleak** gorabehera eta museoak museo. **Joxerra Garzia**

sarratera ik **sar-atera**.

sarrats *iz* abere sarraskia.

Gu hara iristen ari ginen uneantxe ari zen halako txoritzar beltz-ubel saldo oso bat errai-multzo bati tiraka, hara eta hona, beren moko odoleztatuei **sarrats** -litsak zerizkiela **Joxe Austin Arrieta**

sarratzinismo ik **sarrazenismo**.

sarratzino ik **sarrazeno**.

sarrazenismo (*corpusean sarratzinismo soilik*) *iz* sarrazenoen sinesmena.

Luthertiar haiek berak [...] Jesu Kristoren izenean beren **sarratzinismoari** jarraitzen diren beste guztiekin, aski eta gehiegi izanen direla gure Aita Sainduaren erreinuan sartzeko eta haren iraultzeko. **Piarres Xarriton**

sarrazeno (*orobat sarratzino g.er., sarrazin g.er. eta sarrazino g.er.*) *izond/iz* arabiarra edo Arabian jatorria duena, musulmana.

Godoeak eta bandaloeak batetik, **sarrazenoek** eta tartaroeak bestetik, dena inbaditu zutenean. **Iñaki Iñurrieta**
Nafarrak eta leondarrak eta gero [...] beste herri guztiek **sarrazenoen** eskuetarik atera zituzten Espainia osoko erreinu guztiak. **Piarres Xarriton**
Longobardotarrak egundoko garaipena lortu zuten, Siponto itsasoan, **sarrazenoen** aurka. **Pello Zabala**
Erdi Aroko **sarrazenoen** inbasioaz geroztik nonahi ugaldu ziren moroak lurrotan, Espainiaren arrakonkista omen zenekoan uxarazi zituzten arte. **Patziku Perurena**
San Frantziskok binaka bidali zituen bere lagunak **sarrazenoen** hainbat lurraldetara Kristoren fedea predikatzerako. **Askoren artean**
Apezpikuak, garai hartan **sarrazenoen** eta saxoniarren kontra gerra egiten ohiturik, oso urrun zeuden monakotza-espiritutik. **Iñaki Iñurrieta**
Hark galdetu zien ea **sarrazeno** egin nahi zuten, ala mandatari bezala etorri ziren. **Askoren artean**
2 Zel 10&an **sarrazenoek** martiritaturiko beste anaia bat aipatzen da. **Askoren artean**

sarrazin ik **sarrazeno**.

sarrazino ik **sarrazeno**.

sarrera 1 *iz* sartzea.

Ontzien **sarrera** eta deskarga ikusi nahi nuen. **Joseba Sarrionandia**
Erdi Aroaren mugarriak nahiko ondo markatuta daude historikoki: batetik, Alarikoren **sarrera** Erroman eta bertako harrapaketa 410ean, eta, bestetik, humanistek aurrera eramandako iraultza kulturala 1400az geroztik. **Askoren artean**
Kontabilitate liburu gisako batean apuntatu dute nire **sarrera**, eta sinatu egin behar izan dut. **Agurtzane Juanena**
Joseba bizkarrez zegoen eta ez zen haren **sarreraz** konturatu. **Iñaki Zabaleta**
Emakumeei **sarrera** eragozten dien araua. **Askoren artean**
Sekularrek erabat debekatua zuten **sarrera**. **Askoren artean**
Nekazari bat etorri zen bere astoarekin Jainkoaren gizona bere lagunekin bizi aterpera; eta **sarrera** uka ez ziezaioten, astoari barrurantz eragiten zion, esanez: [...]. **Askoren artean**
Ene etxean **sarrera** debekatua baitute zu bezalako atso zahar purtzilek...! **Joan Mari Irigoien**
Sarrera ordaindu egin behar zen. **Gotzon Garate**

ik beherago 16. Askoren artean

Denek espero zuten orduan gizona beltzarenaren **sarrera** oldartsua, baina minutuak aurrera joan ziren eta ez zen beste inor sartu. Joxemari Iturralde

Trelawney andereñoak ohiko **sarrera** dramatikoak egin zuen itzalpetik. Iñaki Mendiguren

Atzo arratsaldean Bere Maiestate Enperadoreak **sarrera** publikoa egin zuen Tullerietan. Iñigo Aranbarri

Afrikan, Latino Amerikan, nazioarteko finantza-erakundeek [...] sistematikoki sustatu dute kapitalismoaren **sarrera**. Koro Navarro

Ameriketako konpainiak ez dute batzuetan **sarrera** erraza Europan. Pello Salaburu

Hor hartuko nuen nik parte, ikaztegiko **sarrera** -irteeren kargu egingo nintzela esan baitzidan Angelok: merkatalontziko sotoan pisatutako ikatzak ikaztegi iritsitakoan ere pisu bera zuela kontrolatu behar nuen. Anjel Lertxundi

-Baduzue denen berri, eta **sarrera** erraza etxe guztietan. Txillardegi

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ordu bata ipini dute **sarrera** -ordua. Agurtzane Juanena

Bigarrenik **sarrera** -kodea behar duzu. Askoren artean

Harako krak hura, garezurraren barruan itsatsirik, **sarrera** -giltza bihurtu zen nire baitan, heriotzarekin aurrez aurre ipintzen ninduen giltza. Juan Kruz Igerabide

Ingold zen haien gidari [...] Gandalf eta Pippini **sarrera** -baimena eman zien bera. Agustín Otsoa

Sarrera -orria betetzerakoan, errepikatu eta letraz letra eman behar izan zituen izen-deiturak. Juan Garzia

Kontuan izan behar da, esate baterako, 2001. urtean **sarrera** azterketa euskaraz egin zutenen kopurua %45 izan zela. Pello Salaburu

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aurreko kapituluetan ikasi dugu zer edo zer seinale **sarreraren** mekanismoez, eta aipatu ditugu seinale-irteeraren mekanismo batzuk ere. Irene Aldasoro

4 irud/hed

(36i) irudian, teoria lanabes gisa itxuratzen da: **sarreran** (input), eta gramatika irteeran (output). Itziar Laka

Garrantzitsua da egoera horrek zer egiten duen jakitea, zein den horren rol kausala **sarreraren** (input) eta irteeraren (output) tartean baita gainerako gogo-egoeren sarean ere. Askoren artean

(36ii) irudia gramatika eta corpusa **sarreran** dituen lanabesa da, irteeran, gramatika zuzena bada "bai", edo zuzena ez bada "ez" erantzuten duena; beraz, gramatikentzako erabaki-prozedura eskaintzen digu. Itziar Laka

5 norabaitera sartzen den jendearen kopurua.

Astigarragako kiroledegia oso **sarrera** aipagarria izan zuen (400 ikusle), eta sarritan nahi lukete tiralariek horrelako giroz. Berria - Kirola

Sarrera oso polita Zarauzko Aritzbatalde frontoian. Berria - Kirola

Sarrera txukuna Tolosako Beotibarren, eta dirua parekatuta hasieran. Berria - Kirola

Denboraldiko **sarrera** onena espero baita gaur Mendizorrotzan. Berria - Kirola

Gasteizko Ogeta pilotalekuko harmailek **sarrera** eskasa izan zuten. Berria - Kirola

6 dirua banku edo kontu batean sartzea; irabazten den dirua.

Aurrekontu publikoen **sarrera** eta gastuen arteko oreka. Iñaki Heras

Gastuak **sarrerak** baino handiagoak badira, defizit publikoa sortzen da. Iñaki Heras

Zuzeneko zergen **sarrerak** berriz, eskasagoak izan ziren, %2,9. Berria - Ekonomia

Zentraleko laguntzaileak izan ziren buketaren lehenak, egun bateko **sarreren** balantzea besterik ez baitzuten egin behar. Xabier Olarra

Zerga progresiboak (**sarreren** arabera tasa aldakorrek dituztenak) eta erregresiboak (tasa bakarrekoak) bereizten dira. Iñaki Heras

Txarrerako berriz, dibisen **sarrerak** produktu inportatuen kontsumoa areagotu zutenean. Koro Navarro

Sektore publikoaren finantzaketa-premiak murriztu egin ziren **sarrera** fiskalen gainean hazkundeak zuen eragin positiboari esker. Koro Navarro

Sarrera faltsu haiek guztiak diruak ongi koadra zezan eginak ziren. Xabier Olarra

Kaxako **sarrera** urriak ez baitzuen argindarra eta alokairua estaltzeko adina ematen. Xabier Mendiguren Elizegi

Lanorduak galtzea, produktibitatea beheratzea, etxeko **sarreren** murrizketa, aurrezkien galera... Pello Salaburu

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Atzerritar kapitalen **sarrera** moduak. Koro Navarro

Ordurako libretarentzat **sarrera** -agiria prestatua nuen eta diru kopurua kopiatua haren aurrean. Xabier Olarra

Ohiz kanpoko mozkinak eta **sarrera** -hesi gogorrek izatea da merkatu horien ezaugarria. Koro Navarro

8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Europarrek [...] ondo asko zekiten kapital **sarrera** horrek beren ekonomiak biziagotzen zituela. Koro Navarro

9 sarbidea; sarbideko eremua.

Kristalezko atea igaro eta **sarrean** geundela, atzera begiratu eta piltzar-biltzailea ikusi dinat. Anton Garikano

Alchononek, **sarrean**, bere kaftan zarpaila, bere litsekiko jantzia eta galtzak erantzi zituen. Koro Navarro

Erruki-etxeko zaindariaren irudi bitxi bat zegoen **sarrerako** galeria beiradunean. Anjel Lertxundi

Hiriko **sarrean** zegoen Zeusen tenpluko apaizak zezenak ekarrarazi zituen. Elizen arteko biblia

Bi erreken arteko **sarreatik** sartu zen. Jon Maia

Bart tirokaldi luzea entzun omen duk Arrameleko zubiaren aldetik, Tolosako **sarrean**. Txillardegi

Txaletarako **sarrera** ixten zuen burdinesi handiaren aurrean. Joxemari Iturralde

Atenasko Akropoliaren **sarrera** diseinatu zuen arkitektoa. Irene Aldasoro

Sarrera hogeita bost metro zen luze, eta hamabi eta erdi zabal. Elizen arteko biblia

Cella-rik gabe egindako tenpluek plataforma altxatua izaten dute, eta **sarrera** harmailaduna. Santiago Iruetagoiena

Barneko atariak ere bazuen **sarrera** bat hegoaldera. Elizen arteko biblia

Abimelekek bere taldearekin aurreratu eta hiriko **sarrera** hartu zuen. Elizen arteko biblia

Patitotik zeukan **sarrera**, eta zurezko mahai handi bat zegoen erdian. Rafa Egiguren

Gero, harri bat irauliz, hilobiko **sarrera** itxi zuen. Elizen arteko biblia

-Sekretuen Ganberako **sarrera** ! -esan zuen ahots latzez-. Iñaki Mendiguren

Erdiko solairurako **sarrera** tenpluaren eskuinaldeko saihetsean zegoen. Elizen arteko biblia

Sarrera giltzaz itxi eta zigilatu egin zuen mila urteak bete arte. Elizen arteko biblia

Sarrerako burdin-hesiak kirrinka egin zuen. Jon Muñoz

Sarrerako pasabideak barne patio batera jotzen zuen. Aingeru Epaltza

Dorreak egingo dira portukoan bi aldeetara, dorreetatik makina bidez kateak zeharkatu eta portuko **sarrera** itxi ahal izateko. Santiago Iruetagoiena

Bi letrero **sarrerakoan**: *Ez erre* bata; *Isilik* besteak. Txillardegi

10 (izenondo eta izenlagunekin)

Buru bat agertu zen **sarrera** zabalaren eta egongelaren artean zeuden gortinen artean. Lopez de Arana

Ez nizkien bisaia ikusi; **sarrera** argiztatuan distiratzten ziren bi nabala gorritatuek bihurtarazi zizkidaten begiak. Aingeru Epaltza

Gryffindor dorreko **sarrera** ezkutura iritsi ziren. Iñaki Mendiguren

Apaizak seguru eta harro agertzen ziren, mahai azpian **sarrera** ezkutu bat egina baitzuten. Elizen arteko biblia
Segurtasuneko gnomoen ondotik lasterka igaro eta **sarrera** nagusira bideratu ziren. Iñaki Mendiguren

11 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Etxe horiek **sarrera**-gela zoragarriak izaten dituzte eta duintasunez egindako ate egokiak. Santiago Iruretagoiena

12 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Metro **sarrera** batean geratu gara aurrekontratua sinatzeko. Harkaitz Cano

Institutu **sarreran** Itxaso bere lagunekin hizketan ikusten duenean. Pako Aristi

Hotel-**sarrerako** marmolezko bi estatua zuriak baino zurrunago. Anjel Lertxundi

Hantxe gelditu zen Joanes, plaza-**sarrera** zaintzen, ezer edatera ausartzeke. Felipe Juaristi

Atari-**sarrerako** oihala. Elizen arteko biblia

Hilobi-**sarrerako** harria biratua aurkitu zuten. Elizen arteko biblia

Asiriako erregeari atsegín emateko, aldatu egin zituen Akazek bai tenplu barruan egina zen larunbatetarako aterpea, bai kanpoan zegoen errege-**sarrera**. Elizen arteko biblia

Erregeak bere laguntzaile nagusi hura bidali zuen hiri-**sarrera** zaintzera. Elizen arteko biblia

Jendea hiri-**sarrerako** plazan bilarazi eta sutsu hitz egin zien, esanez: [...]. Elizen arteko biblia

-Baina liburategiko kontrol-**sarrerara** iristen denean, makinak ez dio txartela onartzen. Oskar Arana

13 gai edo ekitaldi bati buruzko atariko. ik **hitzaurre; sartaurre**.

Lan akademiko baten ohiko eskemak oinarrizko hiru zati ditu: **sarrera**, garapena eta ondorioa. Askoren artean

Kijoteren **sarreran** hala dio Cervantesek: [...]. Patziku Perurena

Julio Herranz anaiak "Los Escritos de Francisco y Clara de Asís" libururako prestatu duen **sarrera**. Askoren artean

Sarrera: Ezekielen profeta-bokazioa. Elizen arteko biblia

Sarrera honetan Sokratesen aurreko helendarren filosofia aztertzen da. Askoren artean

Bost atal nagusi dauka **sarrera** honek. Askoren artean

Sarrera historikoa. Elizen arteko biblia

Sarrerako ohar txoan esaten zaigunez, [...]. Askoren artean

"Fern Hill" poemaren **sarrera** -Aspaldi, artean gazte eta berde ginela..., datorkigu gogora Erretratuko "Extul Handi" kontakizunaren hasieran: [...]. Koro Navarro

14 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Euskaltzaindian onartua izateko eliza katolikoaren jarrera atzerakoaia kritikatu egin zuen **sarrera** hitzaldiagatik erbestera joan behar izan zuen. Askoren artean

Hori gaurko **sarrera** -mintzalditik aparte gelditzen zaidan gaia da. Jon Alonso

Dibulgazio modura idatzitako **sarrera** -testua. Iñaki Heras

Sarrera -liburu on bat da. Askoren artean

Pazkoaldiko III. igandeko mezako **sarrera** -antifonaren lehen hitza. Askoren artean

Liburuaren aurkibideak eta Maimonen **sarrera** -triptikoak aski behar lukete izan. Xabier Kintana

Aukeratu ditugunak ohikoenak izaten dira hemen Logikako **sarrera** -ikastaro baterako, baina ezberdintasunak badaude haien artean. Askoren artean

Sarrera -ohar baten bidez, itzultzailea bera Inkisizioarekin izan zitzakeen arazoei zirkín egiten ahalegindu zen. Juan Martin Elexpuru

-Beethovenen Bosgarren Sinfoniako **sarrera** -doinuak. Felipe Juaristi

15 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Musika-**sarrera** motz baten ostean, hurrengo igandeko futbol partidei buruzko ohar batzuk ematen hasi zen esataria. Iban Zaldúa

16 ikuskari edo emanaldi batera sartzeko aukera ematen duen txartela. **iktxartel**.

Pentsatu diat larunbateko borrokaldirako **sarrera** bat erostea. Lopez de Arana

Londresen bizi den lagun bati operara joateko **sarrerak** oparitu, nire etxetik mugitu gabe. Pello Salaburu

72 egun falta dira Jokoetarako, 1.833.919 **sarrera** saldu dira orain arte, eta beste 2.133.096 **sarrera** jarri dituzte orain salgai. Berria - Kirola

Parisko *Parc des Princes* zelaian, ordea, 25.000 edo 30.000 **sarrera** sal ditzakete. Berria - Kirola

Gasteizera 1.500 **sarrera** bidaliko ditu, guztiak 35 eurokoak. Berria - Kirola

Lauko Finala ikusteko **sarrerak** agortu dira. Berria - Kirola

Derbirako **sarrera** pare bat. Jon Alonso

Doi-doi eduki nuen denbora derbirako **sarrera** -multzo bat hartu eta poltsikoratzeko. Jon Alonso

Sarrera -txartela eskuan zuela, Alejandro atezainaren ondora joan, eta berbetan hasi zen berarekin. Pedro Alberdi

Sarrera: 25 euro. Patxi Iturritegi

Sarrera 30 liberetan finkatua da eta emanaldi bat baizik ez da izan. Herria

Zera esan zidan, ahapeka, etzaiok beltzari **sarrerarik** erosi, nik merkeago saltzen dizkiat. Jon Alonso

17 hiztegi eta kidekoetan, atal nagusi baten izenburua; atal hori bera.

Entziklopediaren batean bilatu beharko zuela erle **sarrera** edo erlezain **sarrera**. Unai Elorriaga

"25.000 **sarrera** ditu", zioen hitzaurrearen egileak, "eta koloretako 72 orri informazio eranskin gisa". Bernardo Atxaga

Hiztegietan **sarrera** bakarra dute hitz polisemikoek, **sarrera** ezberdinak hitz homonimoek. Iñaki Arranz

Komeniko litzateke han "non" **sarrerari**, esaterako, begirada bat ematea. Pello Salaburu

Ikus "Askatasun" **sarrera**. Xabier Olarra

Ezohiko **sarrera** zen hori entziklopedia batean. Unai Elorriaga

Diderotek berak eskaini zion Entziklopediaren **sarrera** oso bat *hobbisme* hitzari. Esteban Antxustegi

Horregatik, **sarrera** edo azpisarrera bereziak dituzte hiztegietan, non esamoldearen esanahia argitzen den. Iñaki Arranz

18 futboleko eta kidekoetan, jokalaria batek, pilota kentzeko, aurkariari egiten dion eraso.

Yachvilik 22 metrora baloia berreskuratuz, Gaitanek **sarrera** egin eta Bidaberi egin zion pasea. Berria - Kirola

Jonas Gutierrezek **sarrera** gogorra egin zion Tuniri, eta lurtean utzi zuen. **Sarrera** erdia baino gehiago Hernaniko Galarreta Jai-Alai pilotalekuan. Berria - Kirola

Berriz ere Racingen aurkako lagunarteko norgehiagokan, belauna bihurtu zuen **sarrera** gogor batean. Berria - Kirola

Moralesen **sarrera** beldurgarria izan zen lehia itsusitu zuen gauza bakarra. Berria - Kirola

Aranburuk denboraldiari agur esan behar izan zion, Oriol erdiko atzelariak egin zion **sarrera** ikaragarriaren ondorioz. Berria - Kirola

Emerson brasildarrak egun Juventusen dago **sarrera** itsusia egin zion Contrari, eta errumaniarra larriki lesionatu zuen. Berria - Kirola

«Egiten dituen **sarrerak** neurtu behar ditu», dio irribarretsu Sarriugartek. Berria - Kirola

19 *diru sarrera* ik **diru 31**.

20 **eguzki sarrera** eguzkia ostertzaren azpian ezkutatzea.

Urrezko **eguzki-sarrera** joaten ari zen eta airea mindurik zegoen. Irene Aldasoro

Udazken hondarreko **eguzki** i-**sarreraren** argitasunak estaltzen zituen berdeguneak eta ibilbideak. Irene Aldasoro

Bitartean Fionn **eguzki-sarrerari** begira zegoen, bere gogoetetan. **Joanes Urkixo**

21 sarrera egin

Lidia zain zuen Alexisek **egin** zuenean **sarrera** etxera. **Felipe Juaristi**

Jaunaren 1243. urtean, anai Gotfredok bere **sarrera egin** zuen probintzian. **Askoren artean**

Burua eta sorbaldak makurtu nituen, hamar minutuan, Yumimoto konpainian **sarrera egin** nuen egunean, txintik ere atera gabe, inpresio txarra eragin nuela konprenituz.

Joxan Elosegi

Begira jarri zen mostradoreaz harantz, aldi berean Txantoi nagusiak eta Orrondok **egingo** zuten **sarrera** zelatzen zuela. **Pedro Alberdi**

Gitarra eta bateria abio bortitz batek **sarrera egin** zion boz anfetaminiko maliziotso bati. pentsatu nuen errito hori alderantztea, gaztelaniaz **sarrera eginez** eta hitzaldia euskaraz. **Aingeru Epaltza**

Sarrera egin behar nion estasiaren paroxismoari. **Joxan Elosegi**

Rafael Calderaren gobernuari petrolioagatik bat-batean 11.000 milioi dolarreko **sarrera egin** zioten. **Pako Aristi**

-Bai, orri hau bete behar duzu eta ehun dolarreko **sarrera egin** banku-kontu honetan. **Jon Arretxe**

22 sarrera eman

Eskailearen behearenean ganga bat zegoen, egiaz katakonba heze, hotz, luze, bihurri baterako **sarrera ematen** zuena. **Josu Zabaleta**

1569ko apirilaren hondar egunetan, Nabarrenkoxeko atea ireki ziren ehunka biarnes izuturi **sarrera ematearren**. **Aingeru Epaltza**

Beste batzuek atea bota eta **sarrera eman** zioten juduen gudarosteari; horrela, jabetu egin ziren hiriaz. helburua da operadoreek sarean aritzeko **sarrera ematea**. **Elizen arteko biblia**

Markoa, izan ere, irudimen mundurako, irudiak irudikatzen duen diegesirako **sarrera ematen** duen irekiune bat bezala agertzen da orduan nolabait. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

baginako sarrera (9); **bere sarrera** (14); **derbirako sarrera** (6); **diru sarrera** (91); **diru sarrera garrantzitsua** (8); **egin zion sarrera** (4); **egin zuen sarrera** (8); **egindako sarrera** (6); **etxeko sarrera** (4); **euroko diru sarrera** (4); **euroko sarrera** (4); **ganberako sarrera** (4); **herriaren sarrera** (5); **hiriko sarrera** (4); **ikusteko sarrera** (4); **kontzerturako sarrera guztiak** (6); **portuko sarrera** (5)

sarrera aldera (10); **sarrera aurreko** (5); **sarrera bidaliko ditu** (4); **sarrera bortitzak** (4); **sarrera doakoa** (7); **sarrera doakoa izango** (5); **sarrera doan** (16); **sarrera doan izango** (8); **sarrera dohainik** (5)

sarrera egin (13); **sarrera ekitaldia** (4); **sarrera eman** (10); **sarrera eskatu** (4); **sarrera eskuratu** (4); **sarrera galarazi** (4); **sarrera garrantzitsua** (8); **sarrera gela** (5); **sarrera gelan** (4); **sarrera gisa** (16); **sarrera gogorra egin** (4); **sarrera guztiak agortu** (9); **sarrera guztiak saldu** (6); **sarrera hitzaldia** (18)

sarrera irteera (5); **sarrera irteerak** (8); **sarrera itxi** (7); **sarrera izan** (12); **sarrera izango** (6); **sarrera izatea** (4); **sarrera jarri** (5); **sarrera jarriko** (8); **sarrera jarriko ditu** (4); **sarrera liburu** (6); **sarrera moduan** (6); **sarrera moduko bat** (7); **sarrera nagusia** (4); **sarrera nagusian** (11); **sarrera nagusiaren** (5); **sarrera nagusiko** (7); **sarrera nagusira** (5)

sarrera ona (6); **sarrera ondoan** (9); **sarrera ondoko** (5); **sarrera ordaindu** (12); **sarrera polita** (8); **sarrera saldu** (7); **sarrera saldu dira** (4); **sarrera saldua** (4); **sarrera solteak** (7); **sarrera txartela** (4)

sarrera zaintzen (7)

bere sarrerak (6); **derbirako sarrerak** (11); **diru sarrerak** (86); **diru sarrerak izan** (12); **emanaldirako sarrerak** (5); **euroko diru sarrerak** (11); **euroko sarrerak** (10); **finalerako sarrerak** (7); **gastuak sarrerak baino** (5); **ikusteko sarrerak** (5); **joateko sarrerak** (4); **kontzerturako sarrerak** (19); **kontzerturako sarrerak agortu** (6); **partidarako sarrerak** (9)

sarrerak agortu (16); **sarrerak agortuta** (10); **sarrerak agortuta daude** (5); **sarrerak erosi** (6); **sarrerak erosteko** (5); **sarrerak itxi** (5); **sarrerak izan** (14); **sarrerak izan zituen** (7); **sarrerak salgai** (24); **sarrerak salgai daude** (5); **sarrerak saltzeko** (5); **sarrerak saltzen** (6)

atari sarrerako (5); **hiri sarrerako** (10); **hiri sarrerako plazan** (4); **sarrerako arasa gainean** (4); **sarrerako atarian** (5); **sarrerako ate** (14); **sarrerako atea** (29); **sarrerako atean** (10); **sarrerako atearan** (5); **sarrerako ateraino** (6); **sarrerako atetik** (6); **sarrerako burdin** (4); **sarrerako oihala** (9); **sarrerako plazan** (5)

aretoko sarrean (5); **ate sarrean** (4); **bere etxolaren sarrean** (5); **bere sarrean** (4); **dago sarrean** (4); **egoitzaren sarrean** (9); **elkarketa etxolaren sarrean** (23); **etxeko sarrean** (7); **etxola sarrean** (5); **etxolaren sarrean** (34); **herri sarrean** (6); **herriaren sarrean** (5); **herriko sarrean** (7); **hiri sarrean** (12); **hiriaren sarrean** (6); **hiriko sarrean** (12); **liburuaren sarrean** (10); **sarrean dagoen** (12); **sarrean gelditu** (5); **sarrean jarri** (11); **sarrean utzi** (6); **sarrean zegoen** (16); **sarrean zeuden** (10)

elkarketa etxolaren sarreara (13); **sarrerara eraman ninduen** (4); **sarrerara eramango** (4); **sarrerara heldu** (4); **sarrerara iritsi** (10); **sarrerara joan** (4)

hamateko sarrearraino (4)

sarrearen alde (4); **sarrearen aurrean** (11); **sarrearen ondoan** (11); **sarrearen prezioa** (4)

diru sarrearik (16); **diru sarrearik ez** (5); **ez dago sarrearik** (5); **sarrearik ez da** (4); **sarrearik gabe** (10)

sarrearik gertu (4); **sarrearik hurbil** (4)

diru sarrearekin (5)

diru sarrearekin (5)

bere diru sarrean (4); **diru sarrean** (52); **diru sarrean araberako** (4); **sarrean arabera** (5); **sarrean dirua** (4); **sarrean prezioa** (5)

diru sarreretan (10)

sarreratxo 1 iz sarrera laburra.

Atal honen xedea Hizkuntzaren Filosofian sortu diren arazo nagusiez eta joera desberdinez **sarreratxo** bat egitea da. **Askoren artean**

Hasiera-hasierako **sarreratxoan** adierazten du egileak bere lanaren helburua: [...]. **Askoren artean**

Irakurgai hautatuak funtsezko hainbat arazori buruz, **sarreratxo** egokiekin. **Askoren artean**

Familiaren baimena orduan lortu zuela dio Labaienek, antzerkiari paratu zion **sarreratxoan**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 irud/hed

Hiruzpalaurentzako jartzen zen lapikoak lau edo bostentzako ere ematen zuela eta, Justoren bazkariak beste **sarreratxo** bat zekarkien. **Joxemari Urteaga**

sarrerazain iz norabaiteko sarrean zaintzen duen pertsona.

Sarrerazainaren keinu idorra ikusirik, desenkusaka hasi nintzaion: banekiela ixteko ordua zela eta barkatzeko. **Anjel Lertxundi**

Sarrerazainak xera handirik erakutsi gabe utzi zidan pasatzen. **Anjel Lertxundi**

sarrerazale izond sarrearen zalea den pertsona.

Konturatu zen, modu berean, oso **sarrerazalea** zela Luvino. **Unai Elorriaga**

sarrerazi ik sarrarazi.

sarrezin (orobat sartuezin) izond bere barrura sartzeko ezintasuna agertzen duena.

Hedadura **sarrezina** (materia). **Ibon Uribarri**

Zerbait hau, ordea, ez da hedatua, ez da **sarrezina**, ez da elkarketazkoa, zeren predikatu hauek sentimenarekin eta bere begiespenarekin soilik baitute zerikusia. **Ibon Uribarri**

Zeren hor azaltzen baita agerpen iraunkorren espazioan (hedadura **sarrezinean**) hartueman soilak baino ez dituztela barnebiltzen, ezta barne-barnekoa den ezer ere, eta, hala ere, kanpoko hautemapen ororen lehen substratua izan daitezkeela. **Ibon Uribarri**

sarrezintasun *(orobat sartuezintasun) iz sarrezina denaren nolakotasuna.*

Hedadura eta **sarrezintasuna** dira (batera materiaren adigai osatzen dutenak) agerpenen batasunaren printzipio empiriko gorenak. **Ibon Uribarri**

Gorputz baten errepresentazioetik bertan adimenak pentsatzen duena kentzen bada, hots, substantzia, indarra, zatigarritasuna eta abar kentzen bada, halaber, sentsazioari dagokiona ere kentzen bada, hots, **sarrezintasuna**, gogortasuna, kolorea, eta abar, orduan oraindik ere begiespen empiriko horri dagokion zerbait geratzen zaigu, hots, hedadura eta tankera. **Ibon Uribarri**

Utz ezazue "gorputz" esperientzia-adigaitik pixkanaka bertan enpirikoa den guztia alde batera: kolorea, gogortasuna edo biguntasuna, pisua, **sarrezintasuna** bera. **Ibon Uribarri**

sarri 1 *adlag* maiz, asko aldiz, askotan. ikardura¹.

Sarri esan dut eredu hori ez dela gaur egunerako egokia. **Koldo Zuazo**

Harryk **sarri** maitatu izan zuen iraganean, baina oso bakan maitatu izan zuten bera ordainetan. **Oskar Arana**

Hori hiru urtetik behin, edo **sarriago** nahiz bakanago, aipaturiko ministroak agindu bezala. **Askoren artean**

Hegazkinak **sarri** datoz hiria bonbardatzera. **Urtzi Urrutikoetxea**

Hizkuntza handien jauregietan ere **sarri** ikusten dira horrelako egoerak. **Koldo Zuazo**

Aseguru-agente onak gauza izan behar du bere burua defendatzeko bezeroekin eztabaida zail bihurriak sortzen direnean, **sarri** gertatu ohi denez. **Oskar Arana**

Adituek diotenez, ura **sarri** edan behar da garai honetan, egarririk izan ez arren. **Berria - Harian**

Lujanbio mendizalea da, inguruko mendietan urteetan zehar **sarri** ibili izan dena. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Zer ote du niregandik **sarri** urruntzen duen eta **sarri** niregana etorrarazten duen hori? **Josu Zabaleta**

Hemen kontua da istorio hauetan Kristo gurutzekoak **sarri** hitz egiten duela. **Koldo Biguri**

Sarri huts egiten dute, egia da, baina huts egina onartu eta hurrengo eguneko eguraldia asmatzeari ekiten diote berriro. **Joxerra Garzia**

Sarri egin izan diet uko antzeko irritsei lehenago ere, lotsa dut esatea. **Oskar Arana**

Tolosako euskara aipatzen da **sarri** euskara onaren eredu. **Joxerra Garzia**

Dena galduta dagoenean iristen da **sarri** itxaropena. **Agustin Otsoa**

Aita apostolikoa: hitzok Erdi Aroan Aita santua adierazten zuten **sarri**. **Askoren artean**

Osperik ez duten hizkerak baztertua gelditzen dira **sarri**. **Koldo Zuazo**

Sarri, ordea, idazleak ezkutatu eta mozorrotu egiten ditu oihartzunok. **Anjel Lertxundi**

Nikolas, emakumeak bultzaturik, gero eta **sarriago** joaten zen bere lur-sailak eta baso pusak bisitatzera. **Felipe Juaristi**

Bere lurra lantzen duenak ogia ugari, huskerien atzetik dabilenak miseria **sarri**. **Elizen arteko biblia**

"Lituania Europa da" izan da **sarrien** entzun dudak komentarioa. **Edorta Jimenez**

Ez momentuoro, baina bai **sarri**. **Arantxa Iturbe**

Arrazoiz esan ohi da, maiz-**sarri**, giza izaera uanean-uean agortu eta sortzen dela, belaunaldi batetik besterako loturarik gabe. **Andres Urrutia**

Gauza batez oroitzen garenean, maiz **sarri** errana dudanez, horrenbestez gauza hori aitzinean bagenu bezalako afektuarekin kontenplatzeko prest gaude. **Piarres Xarriton**

2 (izan aditzarekin)

Sarri ez zen garagardorik, eta kafea esne eta azukrerik gabe hartzera behartzen zituzten. **Lutxo Egia**

Gure artean, hoskidetasun maila izan da **sarri** errima txarra eta ona bereizteko irizpide bakarra. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Psikoanaliaren sortzaileek, Freudek guztiaren buru, **sarri** izan zuten tentazioa arte-produkzioa bere alderdi subjektibotik ikusteko. **Josu Zabaleta**

Auzo herrien artean **sarri** izaten dira tirabirak. **Koldo Zuazo**

-Guk, emanaldien eraginez, **sarri** izaten ditugu tentsio metaketak. **Jasone Osoro**

3 (izenondo batekin)

Senar emakoiarekiko harreman liskartsu eta **sarri** bortitza gorabehera, beti izan zen haren lanaren defendatzaile irmoa. **Oskar Arana**

4 (beste adizlagun batekin)

Mozkortu egiten zen oso **sarri** eta emaztea jotzen. **Gotzon Garate**

-Oso **sarri** erabiltzen du juntagailu kopulatiboa (et=eta). **Askoren artean**

Sarri, oso **sarri** entzuten da obra pornografikoa dela. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Lehenbizikoaldi haren ondoko hilabeteetan aski **sarri** hitz egin zuten elkarrekin. **Oskar Arana**

Lorcarri buruz mila nobela, film, saiakera, antzezlan eta performance egin da, baita kantak eta diskoak ere, haren alderdi ugari aztertuz, eta horien artean homosexualitatea nahikoa **sarri**. **Juan Luis Zabala**

Gisa bereko leloak **sarri** samar entzuten dira han eta hemen. **Iñaki Heras**

Aitak eta nik **sarri** samar izaten genituen sesioak. **Anjel Lertxundi**

-Ez du inoiz adorerik izango bere mendea iritzi-moda zentzugabeek hain **sarri** sartzen duten lokatza arteki ateratzeko. baina horrelako aukerak ez dira beren sumina asetzeko bezain **sarri** gertatzen: konformatu egiten dira, eta sufritu egiten dute. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

5 berehala; aurki, laster.

Sarri ohartu nintzen euskaldunen sostengua baizik ez nuela. **Aingeru Epaltza**

Sarri Peko Arrúa suntsituko dute. **Itxaro Borda**

Eta **sarri**, nahi baduzu, aise gehiago ere behar gara biak goxatu! **Janbattitt Dirassar**

Sarri, arratsean, nota zenbait eskainiko dizkiot kaierari: [...]. **Piarres Aintziart**

Sarri, aroa edertzearekin, gure eskualde goxorat, jende frango etorriko da. **Herria**

-**Sarri** gaituzue hemen, Satankume alaeak! **Aingeru Epaltza**

Sarri aita heldu zait xerka. **Janbattitt Dirassar**

-Badakit, Menhirera abiatuko gara **sarri**. **Itxaro Borda**

Janztekoak jantzi bezain **sarri** duintasun galdua berreskuratu izan bagenu bezala. pilula bat ahoratu nuen etxeratu bezain **sarri**. **Joan Mari Irigoien**

Sarri arte. **Ramuntxo Etxeberri**

• 6 izond maiz egiten edo gertatzen dena.

Ertzain, erizain, argazkilari eta abarren joan-etorriak, jendearen jardunak, sirena-hotsak eta flash **sarriak**. **Anjel Lertxundi**

Euskal Herriko nekazarien bizimodua okertu dute ekoizpen eredu industrialak, lur eskasiak, lehorte **sarriek** eta jakien prezio txiekiek. **Berria - Ekonomia**

Hermannek askotan hitz egin ziola nitaz, eta elkarren arteko tratu **sarria** balute bezala hitz egin zidan Hermann buruz. **Anjel Lertxundi**

Etengabeko otoitz eta kontenplazio **sarriaren** bidez Jainkoarekin inimitatezko harreman esanezinekora lortu zuen. **Askoren artean**

Gogoratzeo ahalagin **sarri** eta burutsuen artean. Koro Navarro
Gelako isiltasun goibelean bi bihotzen taupadak entzuten ziren: batenak **sarriak**, lasterrak, urduriak; besteeenak sendoak, geldiak, izugarri bakanak. Jose Morales
-Normala denez, kasu partikular bat ez da kasu orokorra bezain **sarria**. Jon Muñoz
Arrazoren batengatik, bazirudien haien arteko gutunak ez zirela hain **sarriak**. Mirentxu Larrañaga
Horrek sexualitatea **sarriagoa**, askotarikoagoa eta jostagarriagoa izatea ekarri zuen. Luis Elberdin
Apaiz-batzarreko kideek gero eta trabes **sarriagoak** eta handiagoak egiten zituzten. Juan Garzia
Bazuen sorgin puntu bat, eskua irakurtzen zuen, aztien bezero **sarria** zen. Juan Garzia
Edari **sarriak** bezala lanbrozten dute adimena. Anjel Lertxundi

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Semeen errefusak ez ote zuen Domingo horren gizon isil eta ezkibela egin, emazte oihu-laster eta espantu-**sarria** ez bezalako. Aingeru Epaltza

8 (-en atzikiaren eskuinean izen gisa) ik **sarritasun**.

Berak ezagutzen zuen haren ilearen **sarria**; Jimmyk Ellie maite zuen. Lopez de Arana

9 eremu txikian banako asko, tarte gutxirekin, dituena. **iktapitu; usu**.

Hona non nagoen lantzakada sasitza **sarri** baten erdi-erdian. Josu Zabaleta
Hostotza **sarrian** kantuan ari ziren urretxindorrrak. Jose Morales
Zaldiak, bridak kenduta, bazkatzen hasi ziren lurzorua estaltzen zuen belardi **sarrian**. Karlos Zabala
Hartara, basoaren gune **sarri** eta etengabe ilunekin egokitu ginen, eta hezetasunak irristakor bihurtzen zituen pendizekin. Bernardo Atxaga
Aberatsa da gari-soroetan, eta baso **sarri** itxietan, eta belardi amaigabeetan. segur zegoen pistolariak azaldu behar zuela gurdibidetik behera errekaraino zabaltzen zen pagadi **sarrian**. Felipe Juaristi
Gazte mehar eta zurbila zen, eta ilea zeukan oraindik, ile **sarri**, hori eta kirrua. Urtzi Urrutikoetxea
Neure ondo-ondoan ikusi nuen... eskeleto bat bezala, ile **sarri** ugari eta zikin-zikinarekin. Iñaki Mendiguren
Ile fin **sarriak**, atzeraka orraztuak. Jon Muñoz
Ileak artean **sarriak**, bizarra ongi moztua. Juan Garzia
Adats beltz **sarria** harrotu zuen eskuaren mugimendu lirain batez. Jose Morales
Bibote **sarri** eta patilla luzeko gazte jazarra intelektual pentsati eta malenkoniaz bete bilakatu zen. J.M. Olaizola "Txiliku"
Begiak argitu zaizkio bekain **sarri** -berdin bien azpian. Anjel Lertxundi
Pertsiaiko klasiariak, ehun **sarri**, arinezkoak, beren hondo gorriminarean gainean kopela moldean tankeraturiko urre-pikorrez goitik beheraino josiak. Juan Garzia
Tximinoek, txinpantze eta gainerako primatreek [...] ile-jantzi **sarri** bat dute, beste animalia gehienek bezala. Irene Aldasoro
Bere pubiseko goroldioa **sarria** zen, eta triangulu perfektua markatzen zuen. Juan Martin Elexpuru

10 irud/hed ik **trinko**.

Bat-batean eta inpentsan sortutako laino **sarri** lodi batean sarturik. Felipe Juaristi
Badu bulta bat patarra beheiti egiten ari dela, baina oihana beti bezain **sarri**. Piarres Aintziart
Itsasontzi bat azaldu zen orduan, gezi batek bezala laino **sarriaren** sarea hautsiz. Felipe Juaristi

11 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Triskilatu egiten zizkieten bere belarrendoko bizar ile-**sarri** eta ondo zainduak. Jose Morales
Pintatu begi beltz kartsuak, bekain ile-**sarriak**, bekoki zimurtsua eta, sorbaldan, soingaineko beltza edo su-kolore gorriminekoa, eta prest daukazu potreta. Jose Morales
Gizon ederra baitzen, garaia, mehea, beltzarana, bibote-**sarri** eta dotorea ere bai. Felipe Juaristi

12 **sarri askotan**

Sarri askotan bere burua lurrera bota eta, begi-espresio izugarri, iraulka ibiltzen zen, lerdea zeriola. Askoren artean
Sarri askotan erabili da formula hau analogiaren fenomeno bera ulertarazteko. Isabel Arrigain
Kultura baten sakonenean sustraiturik dauden sinesteez ez dute, **sarri askotan**, inolako oinarri logikorik. Juan Garzia
Lehen kolpea, lehen trauma jasanezina, **sarri askotan** gertatzen den bezala, jaunartzean jaso zuen. Karlos Linazasoro
Jesukristo dela uste du, eta **sarri askotan** elizetan ezkututzen da. Bernardo Atxaga
Ezin zuen oso ondo ikusi; baina, **sarri askotan**, bazirudien ez zela gauza ikusten zuena ere ulertzeko. Mirentxu Larrañaga
Hainbeste urtean aurrezutatokotik gastatzen hasi zen, eta kontuak atera gabe **sarri askotan**. Patxi Zubizarreta
Ozpinetako pepinoak ematen zizkion, **sarri askotan**. Karlos Zabala

13 **sarritako adlag**

Zeren bikainek adimenduaren **sarritako** kontenplazteagatik eta argitasunagatik gehiago gogoratzen, hausnartzen eta kontenplazten baitute Jainko gure Jauna dagoela sorkari bakoitzean bere izate berberaz, bere egotez eta ahalaz. Patxi Altuna
Gainerakoan eguna ohiko otoizetan eman genuen, soil-soilik erriaren ahulezia **sarritakoak** etenik. Jon Muñoz
Moraltasunaren kezka da seguruenik arazo larriena, **sarritakoena** Nietzscheren obran. Joxe Azurmendi

14 **sarritan** maiz, askotan.

Sarritan festa alai negar-malkotan amaitzen zen. Askoren artean
Sarritan esaldi bakar batez argitzen zituen arazo eztabaidatsuak. Askoren artean
Nik **sarritan** ikusten nuen Greg pasabideetan, holako edo halako programara edo patiora zeramatela, gorpil-aulkian. Xabier Olarra
Ni behintzat, **sarritan** egokitu ohi naiz ataka horretan, eta idazteko konputagailua erabiltzen hasi nintzenetik gehiago. Ramon Saizarbitoria
Denok, **sarritan**, gogoan bizi-bizi genuen pertzepzio, irudi edo pentsamendu bat galdu egiten dugu bat-batean. Xabier Olarra
Jerusalemeko kaleen labirintoan zehar, **sarritan**, helbide ezezagun baten bila ibilia naiz. Xabier Kintana
Legeak eta lukainak parekoak dira **sarritan**: bagenek nola egiten dituzten ikaratuko ginatete. Pello Salaburu
Aitzitik, ordea, erlijioa bera da **sarritan** gaizkintzak eta inpiokeriak eragin dituena. Xabier Amuriza
Fernandok eta biok maitale berberak izaten genituen **sarritan**. Karlos Zabala
Agintari autoktonoen erreakzioak ekarriko zuen alde biko eta bakezko trukea, kanpoko erasoa zirudienari aurre egin nahian **sarritan**. Koro Navarro
'Etsaiekin' izandako borroka ugarien kronika luzea eta **sarritan** astuna. Jose Antonio Mujika

15 **sarrixego** (orobat **sarrixago**) **adkor**

Hau ere gutxitan, baina **sarrixego** gertatzen da, batez ere zakurra lotua badago. Gotzon Garate
Aitona eta amona baserrian bertan bizi ziren, eta gu, **sarrixego** edo bakanxeago baina bisitan joango ginen hara azken batean, eta, hortaz, litekeena da baserrian argazki-album osoagoren bat izatea. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

baso sarri (4); bibote sarri (5); ikusi bezain sarri (4); ile sarri (5); izan da sarri (5); izaten da sarri (5); laino sarri (8); maiz sarri (4); oso sarri (11)
sarri agertzen (9); sarri agertzen dira (4); sarri alpatu (9); sarri alpatzen (10); sarri aldatu (4); sarri aritu (5); sarri asko (7); sarri askotan (144); sarri azaltzen (6); sarri baino (5); sarri batek (4); sarri baten (4); sarri bere (4)
sarri egin (17); sarri egiten (28); sarri egiten du (5); sarri egiten dute (4); sarri eman (4); sarri ematen (5); sarri entzun (11); sarri entzuten (10); sarri erabili (15); sarri erabili ohi (5); sarri erabiltzen (15); sarri errepikatzen (7); sarri esan (19); sarri esaten (13); sarri etortzen (8); sarri galtzen (4); sarri gertatu (12); sarri gertatu ohi (9);

sarri gertatzen (28); **sarri gertatzen den** (5); **sarri hitz egin** (4); **sarri hitz egiten** (8)
sarri ibili (4); **sarri ikusi** (13); **sarri ikusi izan** (4); **sarri ikusten** (14); **sarri ikusten dira** (5); **sarri izan** (10); **sarri izaten** (19); **sarri izaten dira** (5); **sarri joan** (6); **sarri joan ohi** (4); **sarri joaten** (16)
sarri samar (17); **sarri sarri** (42)
bibote sarria (4)
askoz sarriago (4); **gero eta sarriago** (47); **inoiz baino sarriago** (6); **sarriago egiten** (6); **sarriago gertatzen** (19); **sarriago gertatzen da** (6); **sarriago gertatzen dira** (7); **sarriago joaten** (5)
bekain sarrien (4)
izan da sarritan (5); **izaten da sarritan** (11); **izaten dira sarritan** (7); **nahiz eta sarritan** (5); **oso sarritan** (6)
sarritan adierazi (4); **sarritan agertu** (5); **sarritan agertzen** (9); **sarritan aipatu** (17); **sarritan aipatu izan** (4); **sarritan aipatzen** (11); **sarritan aldatzen** (4); **sarritan bezala** (4)
sarritan egin (27); **sarritan egin du** (4); **sarritan egiten** (22); **sarritan egiten zuen** (7); **sarritan egoten** (6); **sarritan ematen** (4); **sarritan entzun** (13); **sarritan entzuna** (4); **sarritan entzuten** (5); **sarritan erabili** (7); **sarritan erabiltzen** (5); **sarritan erakutsi** (4); **sarritan errepikatzen** (6); **sarritan esan** (28); **sarritan esan izan** (7); **sarritan esaten** (19); **sarritan esaten da** (5); **sarritan eskatu** (9); **sarritan etortzen** (6); **sarritan galdetu** (4); **sarritan gertatu** (10); **sarritan gertatzen** (27); **sarritan gertatzen da** (8); **sarritan gogoratu** (4); **sarritan hitz egin** (5); **sarritan hitz egiten** (5)
sarritan ibiltzen (8); **sarritan ikusi** (15); **sarritan ikusia** (4); **sarritan ikusten** (12); **sarritan izan** (16); **sarritan izaten** (13); **sarritan jo** (8); **sarritan joan** (4); **sarritan joaten** (16); **sarritan joaten zen** (5); **sarritan jotzen** (4)
sarritan pentsatu (9); **sarritan pentsatzen** (5)

sarriagotu, sarriago(tu), sarriagotzen du/da *ad* sarriago bihurtu.

Barreak eta algarak, goitik, lorategiko hostaila **sarriagotzen** zuten, gizakortu natura. **Karlos Linazasoro**

sarridun 1 *izond* sarrikoa.

Kantari itsua, adinekoa eta bizar **sarriduna** zen. **Felipe Juaristi**

2 *izlag* sarriko.

Bibote gris **sarridun** bidaiari bat eseri zen laster nire parean. **Anjel Lertxundi**

sarrio *iz* ahuntzaren antzeko hausnarkaria, adarrak beltzak eta ilea arrea dituena(*Rupicapra rupicapra*).

Paleolitiko ondarrerako euskaldunok ehiztari trebeak omen ginen, eta gure ehizarik guztizkoena, orkatza omen zen, basahuntz, **sarrio**, zaldi, uro eta abarren artean.

Patziku Perurena

Sarrio talde bat bazkatzen ari da hemendik hurbil. **Aingeru Epaltza**

sarriro *adlag* sarri.

Zure arimak eta aldi berean nireak irrikatu eta opa bezain **sarriro** idatzi ez badizut ere, ez zaitze harritu, 5 ez eta uste izan ere inola, zuganako maitasunaren suak zure amaren erraietan gar txikiagoa duenik. **Askoren artean**

sarriten ik **sartu-irten**.

sarritasun *iz* sarria denaren nolakotasuna.

Nozio komun propioen tematizazioak bere burua gidatzeko hartzen dituen irizpideak (erlazioaren) **sarritasuna** eta (erlazionatuaren) antzekotasuna dira. **Piarres Xarriton**

sarritsu *izond*

Egunoro norbait bidaltzen dit **sarritsu** nire berri jakitera; hura ordea ez zait behin bakarrik ere etorri, nahiz erreku hori egin diezaioten manatu dudana: ez dut beraz Parisen balitz baino gehiago ikusten. **Jon Muñoz**

sarritxo *adlag adkor* aski sarri. ik **maiztxo**.

Sekula izan gabea nintzen hotel baten barruan, baina **sarritxo** igaroa nintzen haien ondotik hiri erdialdera amarekin egiten nituen osteretan. **Oskar Arana**

Gisa hartan jakin ahal izan zuen bazela mutil bat kafera aspaldian **sarritxo** etortzen zena eta nagusiak abegitsu hartzen zuena. **Patxi Zubizarreta**

Legendunekin eta zakurrekin bizi izan da, poliziek **sarritxo** jo dute, aldamenean jendea sexu harremanetan eta hiltzen ikusi du. **Gotzon Garate**

Laster arnasetutu nintzen, burua gorri-gorri, **sarritxotan** makurtu beharra bainuen pilota jasotzera, baina neskak ere erantzi behar izan zuen jaka, eta blusa-mahukak jaso, ni menderatuko baninduen. **Joxe Austin Arrieta**

sarrixago ik **sarri 15**.

sarrixago ik **sarri 15**.

sartalde (*149 agerraldi, 44 liburu eta 5 artikulutan; cf mendebalde 3757 agerraldi, 155 liburu eta 894 artikulutan*) 1 *iz* ostertzeko lau puntu nagusietako bat, eguzkia sartzen den aldeari dagokiona. ik **mendebalde**.

Asko etorriko dira sortaldetik eta **sartaldetik**, iparretik eta hegotik, eta Jainkoaren erreinuko mahaikide izango. **Elizen arteko biblia**

Lau aurpegiko aingeru bat. Sortaldera eta **Sartaldera**, Iparraldera eta Hegoaldera, aldi berean doana. **Juan Garzia**

Bitan ebakiko da Oliamendi, eta haran bat azalduko da sortaldetik **sartaldera**; mendiaren erdi bat iparralderantz aldenduko da, beste erdia hegoalderantz. **Elizen arteko biblia**

Sartaldera doa eguzkia, begi-bistatik galtzen den itsasontzi bat irudi. **Xabier Montoia**

Sartaldera ematen zuten etxeetako leihoko kristalek hodei-barra handi baten urre gorritzat islatzen zuten. **Irene Aldasoro**

Sartalderantz errekasto bat bada, nik eskuz arrantza egiteko egokia. **Juan Garzia**

Sartaldean lainoa ikusi orduko, "Euria dator" esaten dazue, eta hala geratzen da. Elizen arteko biblia

Ibilaldi luzea egin zuten **sartaldeko** bideetan barrena. Agustin Otsoa

Baliteke, norbaiten ustez, **sartaldeko** bizkaiera izatea jatorrena, aberatsena eta zuzenena, baina sortaldean egiten da euskara gehien, eta hizkuntzak ezertarako badira, erabiltzeko dira. Koldo Zuazo

Sartaldeko leihor aurkitu berrietara joan baino lehenago, sortaldera buruz abiatuko zen Marco Poloren eta Mandabillaren hatzei jarraikirik. Aurelia Arkotxa

Itsaso barea, **sartaldetiko** olatuekin. Joseba Sarrionandia

Deception Island, 66° 56' Hegoalde, 60° 40' **Sartalde**, 19 kilometro iparretik hegora, sortaldetik **sartaldera** 15 kilometro, eta 50 kilometro karratu. Joseba Sarrionandia

Mendebal barruan eremu edo azpieskalki bi badirela esan dezakegu: **sartaldea** eta *sortaldea* deituko ditudanak. Koldo Zuazo

2 lurralde edo herrialde baten sartaldeko eskualdea.

Barbados uharteetako gobernadoreak, **Sartaldeko** Indietan piratek berenganaturiko harrapakin eskergak erresumindurik, [...]. Juan Garzia

Otso jendearen aztarnak orain bi milioi bat urte suma litezke bai **Sartaldeko** Asian, bai Afrikan. Gotzon Garate

Haurrik gehienak **Sartaldeko** Bengalatik zetozen eta bost urtetik hamabost urtera bitartekoak ziren. Gotzon Garate

Sartaldeko Pirinioetan, esaterako, oso hartz gutxi geratzen omen da: dozena erdi bat edo, gehien jota. Joxerra Garzia

3 (-ko eta -en atzizkien eskuinaldean)

Txinako **sartaldean** dauden herrialdeetan zehar. Iñaki Iñurrieta

Euskara giputzaren tankera hartu dute Nafarroako **sartaldeko** hizkerek. Koldo Zuazo

Bitxia eta berezia indartu behar horretan, Bizkaiko **sartaldeko** ezaugarriei eman zaie lehentasuna. Koldo Zuazo

Lo dago, erietxe garesti baten, New Yorkeko goialdeko **sartaldean**. Gotzon Garate

Four Corner eskualdea zuen aipagai: New Mexiko Gallup hiria **sartaldeko** eremu zabalak hain zuzen. Itxaro Borda

4 jatorria Europako mendebaldean duen kultura partekatzen duten herrialdeen multzoa. ikmendebalde 4.

Galdera hori egitean ikusten dugu Mendebaldeko historiaren norabidea berezia zela hiru puntutan behintzat, guztiak ere juduen eta **sartaldearen** arteko harremanen historiari dagozkionak. Iñaki Mendiguren

Penzilinari esker gizakiok 80 urteko bizia dugu, ez 50ekoa edo 60koa, **sartaldeko** gizarteetan bederen. Pello Salaburu

Gu, jakina, **sartaldekoak** gaituk, edo hona iritsi eta bertakotuak, behintzat. Xabier Olarra

Kristauak gaituk, erru-sentipena diagu geure baitan, **sartaldeko** kulturaren heziak gaituk. Xabier Olarra

5 ipar-sartalde ik ipar 20.

6 hego-sartalde ik hego¹ 11.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sartaldea *sortaldea* (4)

bizkaiko sartaldeko (4); **sartaldeko eta sartaldeko** (3)

sartaldera begira (4); **sartaldetik sartaldera** (4)

sartaurre iz atariko. ik sarrera 13.

Marie Iholdiren olerkiak eta eskutitzak plazaratzeko aukera dugun honetan, **sartaurreko** solasa prestatzeko ardura eman didazue Javi Cillero

sartrear izlag J. P. Sartrerena, Sartreri dagokiona.

Abertzaletasun berriaren zutabe ideologikoak hauek ziren: erabaki aldaezin ignaziotarra (San Ignazio egunean sortu zen ETA ere, EAJ bezala); askatasun absolutu

sartrearra (begira Txillardegiren *Peru Leartzakoari*); eta Aberriaren alde bizitza eskaintzearen juramentu sabindarra (Sabinoren "espíritu neurrigabea" goraiatzeko da).

Joseba Zulaika

sartu, sar, sartzen 1 da ad barrura joan, barrura igaro.

Orduan, Tom **sartu** zen, Harryri irribarre eginez. Iñaki Mendiguren

Sartu zenean, bostekoa eman zion gonbidatu zuen gizon gazteari. Karlos Zabala

-Sar zaitetz, mesedez -laster itzuli zen emakumea-, Iturbide jauna zain duzu. Migel Angel Mintegi

Sartu orduko, akordeoi baten soinua entzun nuen. Bernardo Atxaga

Portuari begira bizi ginen, itsasontziak nola **sartzen** eta ateratzen ziren ikusten Zalgurdi bat zegoen atean zain; **sartzeko** agindu zioten. Ana Urkiza

Pikotxa kontu handiz **sarturik**, induskatzeari lotu zitzaion, lurra hanka artean metatuz. Patxi Zubizarreta

Eguzkia **sartzen** ari delarik, gizonezkoak udaletzeko plazako alde batean biltzen dira, korruan. Felipe Juaristi

Eguzkia **sartu** eta erabat ilundu zuenean, labe bat ketan eta zuzi bat sutan igaro ziren hildako abereen zatien artetik. Jose Antonio Mujika

Usain sarkorra, sudurzuloetan gora **sartzen** zaizuna, zehazteazina. Gotzon Garate

Itze bat, **sartzen** da edo ez da **sartzen**; sokak, eusten dio edo ez dio eusten: horiek ere ziurtasun-iturri ziren. Juan Garzia

Goxo-goxo **sartuko** zaizu. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (non)

Faxistak Obaban **sartu** zirenean -esan zuen-, nire kide guztiak mendira jo zuten Agirrearen armadarekin bat egiteko asmoz. Bernardo Atxaga

Jende arrotzak, larru xuri iletsuak, **sartu** zirelarik Indianoen lurretan, tiroka nahi izan zituzten ez bakarrik menperatu, baina ezeztatuz. Michel Oronoz

Seoane, arraioa, non **sartu** haiz! Koldo Izagirre

Non **sartu** nintzen galdetu zidaten. Anjel Lertxundi

Sar hadi behingoz hire zuloan eta ongi itxi atea! Patxi Zubizarreta

Taxi berean **sartu** ginen hirurok. Bernardo Atxaga

Martinek atea bultzatu zuen [...] eta etxolaren barruan **sartu** zen. Koro Navarro

Lapurrak, zuenean ez al dira **sartu**? Pablo Sastre

Estalpeko kale nagusian **sartzera** zihoan. Karlos Zabala

Dudleyk udako denborarik gehiena sukaldean **sartuta** eman zuen. Iñaki Mendiguren

Ordura arte Lisak behin ere ez zuen gonbidatu bere gelan **sartzera**. Karlos Zabala

Auto baten hotsa entzun nuen logelatik, patioan **sartzen**. Koro Navarro

Trena geltokian **sartu** zen, lurrin hodei batean bafaka. Alberto Ladron Arana

-1646an, Bartzelonan, tximista katedralean **sartu**, organoa erre, eta Santa Eulaliaren kapera hondatu zuen. Pello Zabala

Laukian **sartutako** argazki bat, non ageri baitziren iratze-landare baten aurrean irribarrez Annie, osaba Jim eta Gwilym. Koro Navarro

Alkohola Tellagorriren gorputzean **sartu** ahala, agurea suspertu eta animatu egiten zen. Koro Navarro

Sakelatik giltza bat atera eta sarriren, bere baitan pozarren egin zuen: [...]. **Patxi Zubizarreta**
Batzuk ezkutuan **sartu** dira Amerikako Estatu Batuetan. **Gotzon Garate**

3 (nora)

Berriro hilerrira **sartu** nintzen. **Bernardo Atxaga**
Begi distiratsua ikusi zizkion Emilek jangelara **sartzean**. **Joxemari Urteaga**
Umea txabola barrura **sartu** zen. **Jon Maia**
Barrura **sartu** zen presaka, galesez hizketan entzun nuen. **Koro Navarro**
Gela txiki batera **sartu** zen eta handik minutu batera edo pare batera itzuli zen, zetazko négligée zuri bat jantzita. **Fernando Rey**
Oinetakoak kendu, eta uretara **sartu** zen hura ere. **Josu Zabaleta**
Erle artera **sartu** beharrak arras izutu nau. **Pako Aristi**
Ostatu barnera **sartu** nahian zebilena abarroska eta ukaldika lotu zitzaion ate itxiari. **Aingeru Epaltza**
Behin hara **sartuta**, lanerako mahai liburuz mukuru zuenean eseri eta... amets egiten zuen. **Josu Zabaleta**
Hara **sartzeko** beldurra zuen alde batetik, eta bertzetik berantetsia zen. **Eneko Bidegain**
Horrela, bada, **sartu** zen Betsabe erregearen gelara. **Elizen arteko biblia**
Urteak ziren haren Agentziara **sartzen** ez nintzela. **Aingeru Epaltza**
Errepidera **sartu** gara berriz eta [...] hoge kilometro dituen aldapa goxo bati lotu gara. **Piarres Aintziart**
Osaba Vernonon autoa etxaurreko bidexkara **sartu** zenean. **Iñaki Mendiguren**
Goizeko hozkirria barruraino **sartu** zitzaion. **Karlos Zabala**
Nola **sartu** zara hona? -galdetu nion. **Fernando Rey**

4 (nondik)

Zulo batetik **sartu** ginen kaperara. **Koro Navarro**
Ezkaratzetik **sartu**, sukaldeko atea jo eta ireki zuen. **Eneko Bidegain**
Orduan **sartu** zen Olatz sukaldetik. **Harkaitz Cano**
Atetik **sartu** zenean, jode!, oso urrundik nire taberman hiltzera zetorren animalia jipoitua iruditu zitzaidan. **Pako Aristi**
-Hona atetik **sartzen** zarete eta tximiniatik ateratzen. **Eneko Bidegain**
Errekteak Nafarroatik **sartu** zirenean, aitarenean iritsi ziren gure auzora. **Juan Kruz Igerabide**
Lehentxeago ikusi dut atetik **sartzen**. **Juan Kruz Igerabide**
Oiloen zulo hartatik **sartu** nintzen, bada. **Juan Kruz Igerabide**
Gurasoak eta amona eraikin barrura **sartu** ziren, kristaltxo ilunak zituen ate batetik. **Anjel Lertxundi**
Eguzkiaren argia turrustan **sartzen** da leiho irekietatik. **Oskar Arana**
Pixka batera, linterna itzali zuen, leihotik **sartzen** zen argi apurrera ohitu zitezen begi-niniak. **Joxemari Urteaga**
Leihoko persianetako zirrituetatik **sartzen** ziren argi-zirrinten laguntzaz, [...]. **Aingeru Epaltza**
Hiru hontz **sartu** ziren leihotik barrura. **Iñaki Mendiguren**
Haize korrontea **sartzen** zen ate handi zabalduetik eta freskura pixka bat zekarkion ardo usainezko giro bero hertsu hari. **Karlos Zabala**

5 (nola)

Marta, isilik **sartu** zen sukaldera. **Harkaitz Cano**
Triste **sartzen** zen jangelan. **Josu Zabaleta**
Afaldu gabe **sartu** nintzen ohean. **Ramon Saizarbitoria**
-Saltsa horretan buru-belarri **sartuta** hago, e? -esan zidan. **Jon Muñoz**
Lantokian tarrapataka eta hatsantua **sartu** nintzen, erdia egia eta erdia alegia. **Aingeru Epaltza**
Arrapaladan **sartu** zen, arnasestuka, amorruz. **Migel Angel Mintegi**
Lehen emakumeek bakarrik zeukaten komunera binaka edo hirunaka **sartzeko** eskubidea. **Iñaki Segurola**
Neure egitekoak abandonatu izanak arategatua **sartu** nintzen hara. **Aingeru Epaltza**
Oldarrean **sartu** ziren denak korridorean. **Josu Zabaleta**
Abiadan **sartu** ziren Faedistarren patioan, euriak erdi jandako atetik zehar. **Josu Zabaleta**
Autoan jauzian **sartu**, gakoak itzuli eta segidan berogailua pizten du. **Eneko Bidegain**
Haize bafada bat bezalaxe **sartu** zen. **Josu Zabaleta**
Haizete bat bezala **sartu** ziren erresuman, eta etsaiari gibelka eginarazi. **Aingeru Epaltza**
Osoa artaldean bezala **sartu** zen doktorea umeteria haren erdian. **Josu Zabaleta**
Dinbili-danbala **sartu** zen orga zubian. **Koro Navarro**
Nola Sierra Maestran bat egin zuen Castroren soldadu iraultzaileekin, eta nola borrokatu zen Castrorekin eta "Che" Guevararekin batera, Habanan garaile **sartu** ziren arte. **Jon Muñoz**

6 irud/hed

Iluna **sartzen** hasia zen. **Patxi Zubizarreta**
Kontua da bertso-edo batzuk idazteko grina **sartu** zitzaidala, eutsi ezinekoa. **Juan Kruz Igerabide**
Peterrek gero agian gaizkile edo espekulatzaila egingo dela esaten duenean, sekulako beldurra **sartzen** zait. **Josu Zabaleta**
Kartak, eskua, galdutako zerbitu edo norbait berreskuratutako, negoziatzen baterako aholkua, izpirituren batekin harremanetan **sartu**... **Aingeru Epaltza**
Orduan da izpiritua barneko gogetetan **sartzen**. **Michel Oronoz**
Ni segurik, errabia gorrian **sartu** nintzen. **Daniel Landart**
1976ko urtarrilean eta martxoan, indarrean **sartu** ziren bi hitzarmen horiek, beren artikuluz guztiekin. **Piarres Xarriton**
Greziar ohiturak eta arrotzen joerak oso indartsu **sartu** ziren [...] Jason higuigarri haren eraginez. **Elizen arteko biblia**
Biolinak **sartzen** direneko unea. **Alberto Ladron Arana**
Zein ondo **sartzen** zaidan ardo hau. **Pako Aristi**
-Ea nire ordenagailuan **sartu** haizen! **Antton Olano**
Berak gure txatean **sartzerik** izan dik, eta zertan ari ginen jakin. **Antton Olano**
Aktualitatea -eta paisajea- begietatik **sartzen** da nagusiki. **Iñaki Segurola**
Klima aldaketaren inguruko NBERen goi bilera azken txanpan **sartu** da, eta protesta ekitaldiak ugaritu egin dira. **Berria - Gaiak**

7 (non)

"Asentatzea" deitzen diote, edo "arrastoan **sartzea**", "heldutasunera iristea". **Iñaki Segurola**
Baina **sar** gaitzen harian. **Pako Aristi**
-Zeren trukean? -haren jokoan **sartu** zen Maiza. **Migel Angel Mintegi**
Seme, ez zaitetz politikan **sar**, gaineratu zuen gero erreguzko tonuan. **Anjel Lertxundi**
Ia erotu zen Alderdi Jeltzalean **sartu** nintzela jakin zuenean. **Alberto Ladron Arana**

POUM lezitzen alderdian **sartu** zen, ezker muturrekoekin. [Juan Kruz Igerabide](#)

Ez al huen hik soldadu talde batean **sartu** nahi? [Koro Navarro](#)

Baina ez nuen lortu torturatzaile baten larruan **sartzea**. [Ana Urkiza](#)

-Ez haz ezertan **sartuta** ibiliko! [Unai Iturriaga](#)

Hau kaka-nahastea, saltsa handian **sartzen** ari naiz. [Karlos Zabala](#)

Eta bera ere, aitaren negozioan **sartua** ikusten dugu. [Askoren artean](#)

-Horregatik bakarrik **sartu** al hintzen borrokan? [Rafa Egiguren](#)

Begien bistakoa zen pozaren pozez zegoela, abentura arriskugarri batean **sartzen** ari zelakoan. [Karlos Zabala](#)

-Nolatan **sartu** da nahaste honetan? [Migel Angel Mintegi](#)

Mundua aldaketa prozesu sakon batean **sartua** zegoen. [Askoren artean](#)

Orduan bihurtu zen errepublikazale; errepublikan **sartu** zen, itxaropenik gabeko neska gazteak komentuan **sartzen** diren bezala. [Karlos Zabala](#)

Ez al nian gomendatu armadan **sartzeko**? [Patxi Zubizarreta](#)

Unibertsitatean **sartzeko** sistema murriztaileak ezartzea. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

Liburua [...] kontsolamenduzko liburuen tradizio luzean **sartzen** da. [Joan Mari Lekuona](#)

Urte horretan Sunny von Bulow intsulina koma batean **sartu** zen. [Gotzon Garate](#)

Jai-alai delakoaren historian **sartuko** ziren jokalaririk handiak. [Edorta Jimenez](#)

Ea Gerra Handiari buruzko zerbait **sartzen** zaizuen kaskezurrean. [Anjel Lertxundi](#)

Ez gaude gu ohituak, edo ez, bederen, behar adina, ebaluazioa eta neurketa **sartzera** unibertsitatean. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

Najeran, Nafarroan torneo baten **finalean sartu** da azkaindarra finalerdi eder hau irabazirik, gogotik ari zen Galarza baten kontra. [Herria](#)

8 (nora)

Gizakiaren bihotzera **sartzen** dena Jainkoaren gozotasunaren bitartez izan behar du. [Joan Mari Lekuona](#)

Oso barrura **sartzen** zen Hermannen ahotsa, bihotzeraino. [Anjel Lertxundi](#)

Batxilergora **sartzeko** proban huts egin genuen neska-mutiloi deitu, eta esan zigun: [...]. [Juan Kruz Igerabide](#)

Joera bera ikusten dugu urtero Unibertsitatean **Sartzeko** Hautaprobetan. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

9 (elkarrizketa batean)

-Eta zergatik ez alderantziz? -**sartzen** da Hauster, ordura arte bere azazkalari emana. [Iñaki Iñurrieta](#)

Durrutik ate asko zabalzen ditin, konpañera -**sartu** zen Fructuoso. [Inazio Mujika Iraola](#)

-Horretara nindoan -**sartzen** da Gabin-. [Berria - Kultura](#)

Sartzen da Basoi: [...]. [Michel Oronoz](#)

"Eta ez naiz alemana", **sartu** zen Susana tartean. [Bernardo Atxaga](#)

-Zergatik ez diozu amonari berari galdetzen? - **sartu** nintzen ni tartean, neure aukeraren zain oraindik ere. [Jon Muñoz](#)

10 (adizlagun gisako izenekin)

Ez zitzaion asko kostatu neska leku hartatik atera eta bere etxean neskame **sartzea**. Ignazia Arkalaren ostatuan **sartu** zen umezain, eta hamalau urte bete zituen arte hantxe aritu zen lanean. [Jon Muñoz](#)

Katekista **sartu** al zara? [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Horra zertaratuak ginen Eskualdunak Baionako apezpiku **sartu** nintzalarik, 1599ko azaroaren 12an. [Michel Oronoz](#)

11 (eguraldi kontuekin)

Ez da ezohikoa antizikloi hori Europa aldera **sartzea**. [Pello Zabala](#)

Handik pixka batera **lainoa sartu** zen, bazter guztietan, eta ez zen ezer ikusten, ez brankatik ez txopatik. [Felipe Juaristi](#)

Laino itxia **sartu** zitzaielara, poliki zetozela bai, baina errebuelta batean autoak eskuina jo eta bazterrera egin zutela. [Alberto Barandiaran](#)

Ez ei da, ez, batere parte onekoa, goizeko lehen ordu oskarbitu horien ostean, lainoa **sartzen** denean. [Pello Zabala](#)

Hego haizea ere **sartu** zuelakoz. [Pello Zabala](#)

Hegoaldi beroa **sartu** zuen ezustean, hego haize bolada ikaragarriak. [Pello Zabala](#)

Mendebal lanbroxka **sartu** orduko: euri xehea, iparra laster. [Pello Zabala](#)

• 12 du *ad* zerbait edo norbait barrura joanarazi, barrura igaroarazi.

Aurrena, burua **sartu** nuen; gero, besoak gorputzaren bi aldeetan luze utzita eta oinekin indarra eginez, sorbaldak **sartzea** lortu nuen, eta gainerakoa erraz joan zen. [Juan Kruz Igerabide](#)

Zirriak besterik ez, zakila **sartzeko** beldurrez zegoen-eta Almeida hura, horrelako. [Karlos Zabala](#)

-Ez didazu mutur osoa **sartu** nahiko, ezta? [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Amak labana **sartu** zion strudelari, eta lau zatitan banatu zuen. [Anjel Lertxundi](#)

Gainean, urteko agenda, idazmakina, eta bolalumak eta errotuladoreak **sartzeko** potetxoak. [Aingeru Epaltza](#)

Kaiolako barroteetara hurbildu eta eskua **sarturik**, tximinoak hozka egin zion segituan. [Josu Zabaleta](#)

-Baina ganibeta **sartzeko** moduak ere eragina dik -eten zuen Quenuk. [Karlos Zabala](#)

Errai-erraietan **sartu** diot tiro bat. [Koro Navarro](#)

Jakitea, konparazio batera, Mauritaniako hiriburua zein den, edo zeinek zenbat gol **sartu** edo zenbat boto atera dituen. [Iñaki Segurola](#)

Debutean, gainera, bi **gol sartu** nituen. [Joan Mari Irigoien](#)

Pixka bat goratu egin zion besoa, berea galtzarbe azpitik **sartu**, beste eskuarekin Joxe Mariren besoari heldu, eta mugimendu lehor batez krak hotsa atera zion. [Juan Kruz Igerabide](#)

Arrebak txanponak **sartu** zituen [...] Santa Anak oinetan zeukan itsulapikoaren zirrikitutik. [Anjel Lertxundi](#)

Zutoinak **sartuak** zituzten, sokak tenkatuak, eta, azkenean, toldoa zabaldu zuten. [Patxi Zubizarreta](#)

13 (non)

Bala bat **sartu** zion bularrean. [Karlos Zabala](#)

Ur epeletan **sartzen** ditu bi eskuak. [Irene Aldasoro](#)

Mingaina **sartuko** dizut zirrikitu guztietan, urdangatxo hori. [Karlos Zabala](#)

Edo-zein egunetan kartzelan **sartuko** haute! [Rafa Egiguren](#)

Osasun-zerbitzuetak langileek anbulantziara **sartzen** nindutelarik, ohartu nintzen Joyce han zela berriro, nire ondoan. [Oskar Arana](#)

Liburua eskuko maleta txiki batean **sartu** nuen aldean eraman ahal izateko. [Bernardo Atxaga](#)

Ondoren, karpeta kutxatxo batean **sartu** eta giltzaz itxi zuen. [Joxemari Urteaga](#)

Berunezko zerraldo batean **sartu** zuten gorputza. [Josu Zabaleta](#)

Eskua jertsepean **sartu** eta betaurrekoak atera zituen alkandorako patrikatik. [Anjel Lertxundi](#)

Kaskoa jarlekuaren azpiko kofretxoan **sartzen** ari zen motorraren gidaria. arrabildu egin nituen bi pardedtxoak, eta mesanotzeko kaxoian **sartu**. [Aingeru Epaltza](#)

Martinek sakelan **sartu** zuen gutuna. [Koro Navarro](#)

Haien atzetik iritsi zen Dan, txistu joka, eskuak sakeletan **sartuak**. [Koro Navarro](#)

Andrea burua biratu zuenean, azenaria ahoan **sartu** zuen. [Karlos Zabala](#)
Nork ez du metan zigarro piztu bat **sartu** saguzar baten ahoan? [Anjel Lertxundi](#)
Osabak azukre-kokkor bat **sartu** zion ahoan. [Bernardo Atxaga](#)
Beroki barruan **sartu** zion mutikoari lepokoa, eta esan zion Edithi: [...]. [Koro Navarro](#)
Hermann gugana itzuli zen, eskuak gabardinan **sartuta**, burua tente eta militar baten ibileran. [Anjel Lertxundi](#)
Harmonium txiki baten aurrean eseri da, oinak pedaletan **sartu** eta eragiten hasi zaio. [Pako Aristi](#)
Oskarrek beste bala bat **sartu** zuen Mauserraren errekaramaran. [Alberto Ladron Arana](#)
Kasete bat **sartzen** du bideoan. [Oskar Arana](#)
Orduan, Ripperrek salto egin eta osaba Vernonen zangoan **sartu** zituen haginak. [Iñaki Mendiguren](#)
Luma tintatan **sartu** eta idazten hasi zen. [Iñaki Mendiguren](#)
Honezkeru zazpi banderilla iltzaturik dituen zezenaren bizkarrezurrean ezpata **sartzen**. [Edorta Jimenez](#)
Baita sukaldeko su-zuloan ikatza **sartzen** ari zenean ere. [Anjel Lertxundi](#)
Non debru **sartu** ote ditut gako alu horiek. [Eneko Bidegain](#)

14 (nora)

Mary Annek franbuesa bat hartu zuen tartaren gainetik eta ahora **sartu** zuen. [Bernardo Atxaga](#)

15 (adizlagun gisako izenekin)

Menturaz, Gibarako porrotaren ostean Pako Garai kartzelan preso **sartu** zuten. [Edorta Jimenez](#)

16 irud/hed

Gizarteko agintariei kontu hauetan muturra **sartzen** utzi gabe. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

Sukaldari bat eta neskame bat dituzu muturra **sartzeko** prest. [Joxemari Urteaga](#)

Ez nuen Josuren bizian muturra sobera **sartu** nahi. [Aingeru Epaltza](#)

Hirugarren martxa **sartu** zuen brastako batez. [Aingeru Epaltza](#)

Gero nahi diren ñabardura guztiak **sar** daitezke [...] baina datu horrekin badugu abiapuntu bat aski serioa. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

17 (banku edo negozio batean)

Jainkoari eskerrak, joan den astean ez nuen dirua banketxean **sartu**. [Lopez de Arana](#)

Dirua bankuan **sartu** duenak ere dirua izango baitu (banku-dirua, alegia, bere aurrezki libretan edo beste finantza-produktu batean agertzen den anotazio kontablea: gordailua). [Iñaki Heras](#)

Partzuer guzkie lege premiatsuenetarik dutelarik hastapenetik irabazi guzien ber- **sartzea** argitaletxean, euskal kulturaren garapena laguntzeko. [Herria](#)

18 adkor eman.

Hiru zupada eder **sartu** dizkiot haxixari. [Pako Aristi](#)

19 gezurrez eta kidekoez mintzatuz, sinestarazi.

-Ederra **sartu** zigan dendari putakume horrek -Hausterrek. [Iñaki Iñurrieta](#)

Joseluk "hoa popatikl, niri ez didak **sartuko**, joder!" edo horrelako zerbait bota du. [Alberto Barandiaran](#)

-Ederra **sartu** zenion gaixoari -gaitzespenez baino areago, konplizitatez. [Aingeru Epaltza](#)

20 hanka sartu ik hanka 24.

21 sartu-atera ik sartu-atera.

22 sartu-ateraldi ik sartu-ateraldi.

23 sartu-ateratze sartzea eta ateratzea.

Beste batzuetan, gizasemea sentitzen da errudun emakumeak **sartu-ateratzearekin** orgasmoa lortzen ez duelako. [Luis Elberdin](#)

24 sartu-irten ik sartu-atera.

25 sartu-ireanaldi ik sartu-ateraldi.

26 ziria sartu ik ziri.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

ahoa sartu (54); ahoan sartu zuen (9); aita sartu (9); aldean sartu (9); aldiz sartu (32); aretoan sartu (18); aretora sartu (14); armadan sartu (19); arrapaladan sartu (9); atarira sartu (12); atean sartu (20); atean sartu zuen (10); atetik sartu (49); atzean sartu (13); atzera sartu (9); atzetik sartu (25); auto batean sartu (13); autoan sartu (83); autoan sartu eta (28); autoan sartu zen (11); autora sartu (9); azken txanpan sartu (13); azpian sartu (35); azpian sartu eta (11); azpira sartu (21); azpitik sartu (13)

baina sartu (17); baino gehiago sartu (12); bainugelan sartu (9); baitan sartu (17); bakarra sartu (18); bakarrik sartu zen (10); bana sartu (15); barna sartu (12); barnean sartu (23); barnera sartu (27); barrera sartu (33); barruan sartu (98); barrura sartu zuen (60); barrura sartu zuen (10); barruraino sartu (24); basoan sartu (18); batasunean sartu (35); bederatzi gol sartu (11); beldurra sartu (25); bere atean sartu (15); bere gelan sartu (22); berehala sartu (20); berriro sartu (47); berriro sartu zen (9); berriz sartu (26); bertan sartu (59); bertan sartu zen (10); bertara sartu (15); bete betean sartu (27); bi gol sartu (33); bidean sartu (26); bidez sartu (9); bigarren gola sartu (9); bihotzean sartu (9); bizian sartu (12); bizitzan sartu (16); borrokan sartu (16); bost gol sartu (27); bote sartu (23); bote sartu ditu (16); bulegoan sartu (28); bulegora sartu (22); buru belarri sartu (23); burua sartu (27); burua sartu zuen (9); buruan sartu (55); buruan sartu zitzaion (9)

deialdian sartu (50); deialdian sartu du (13); dendan sartu (29); dendara sartu (23)

ean sartu (10); ebn sartu (29); egoeran sartu (10); egoitzan sartu (16); egoitzara sartu (9); egongelan sartu (16); egongelara sartu (18); eguzkia sartu (38); elizan sartu (35); elizan sartu zen (9); elizara sartu (10); elkarrekin sartu (10); erdian sartu (19); eremuan sartu (14); erretretan sartu (9); eskolan sartu (11); eskua sartu (60); espetxean sartu (55); espetxean sartu zuten (15); etxe barrura sartu (14); etxe batean sartu (9); etxean sartu (192); etxean sartu orduko (10); etxean sartu zen (35); etxeetan sartu (16); etxera sartu (89); etxera sartu zen (13); etxolan sartu (9); etxolara sartu (11); europako batasunean sartu (23); europan sartu (30); ezin sartu (22); eztabaidan sartu (11)

final laurdenetara sartu (9); finalean sartu (31); finalerdietan sartu (12); finalerdietara sartu (10)

ganbaran sartu (11); garaipenaren gola sartu (10); gazte bat sartu (14); gela batean sartu (20); gelan sartu (150); gelan sartu zen (34); gelara sartu (91); gelara sartu zen (17); gerran sartu (22); giltza sarrailan sartu (10); giltza sartu (9); giltzapean sartu (11); gizon bat sartu (22); gizon sartu (15); gobernuan sartu (14); gogoa sartu (14); gol asko sartu (11); gol bakarra sartu (12); gol bana sartu (11); gol bat sartu (22); gol gehiago sartu (10); gol gehien sartu (23); gol gutxiago sartu (9); gol sartu (281); gol sartu zituen (81); gola sartu (162); gola sartu zuen (68); golak sartu (24); golik sartu gabe (15); gorputzean sartu (10)

han sartu (48); handik sartu (10); hanka sartu (67); hantxe sartu (15); hara sartu (29); harremanetan sartu (35); hegaletik sartu (9); hegazkinean sartu (13); herrian sartu (30); herrira sartu (11); hirian sartu (37); hirira sartu (14); hiru gol sartu (31); historian sartu (10); hor sartu (16); horregatik sartu (19); hotelean sartu (10)

igogailuan sartu (10); ikara sartu (10); indarrean sartu (66); indarrean sartu zen (12); indarrez sartu (26); indartsu sartu (10); inguru sartu (10); inor sartu (18)

jendea sartu (16); jokoan sartu (46)

kabinan sartu (9); kaiolan sartu (13); kalean sartu (13); kartzelan sartu (77); kartzelan sartu zuten (21); kartzelara sartu (19); komunean sartu (26); komunera sartu (20); krisian sartu (9); kutxan sartu (20)

labana sartu (15); lagun sartu (27); lagun sartu ziren (9); lan munduan sartu (9); laster sartu (9); lau gol sartu (22); legea indarrean sartu (9); lehen aldiz sartu (11); lehen gola sartu (12); lehian sartu (20); leihotik sartu (9); liburuan sartu (9); ligan sartu (9); ligaxkan sartu (10); logelan sartu (48); logelan sartu zen (9); logelara sartu (23); lurpean sartu (10); lurraldean sartu (12); lurrean sartu (10)

maletan sartu (10); metroan sartu (9); munduan sartu (22); muturra sartu (24)

nagusian sartu (14); noiz sartu (11); nola sartu (80); nola sartu zen (18); non sartu (73); non sartu haiz (11); nondik sartu (11); norbait sartu (16)

ohean sartu (77); ohean sartu zen (10); ohera sartu (22); ondo sartu (9); ondoren sartu (9); ontzian sartu (12); orain sartu (10); ordenan sartu (30); ordenan sartu zen (11); orduan sartu (25); orduantxe sartu (10); ospitalean sartu (15); ostatuan sartu (17)

partidan sartu (30); patrikan sartu (23); penaltia sartu (11); politikan sartu (11); polizia sartu (9); poltsa batean sartu (9); poltsan sartu (13); poltsikoan sartu (46); poltsikoan sartu zuen (9); postuetan sartu (16); preso sartu (54); presondegian sartu (16); puntu sartu (61); puntu sartu zituen (31)

sake sartu (14); sakelan sartu (52); sakelan sartu zuen (19); sarean sartu (10); sarrailan sartu (15)

Jendea **sartu-atera** zebilen. **Matias Múgica**

Bereziki dramatikoak dira sindrome neurologiko edo psikiatrikoetatik **sartu-atera** dabilzanentzat, eta lanbidez antzele direnentzat. **Xabier Olarra**

3 (aditz gisa)

Bortitzago hasi zen pistola **sartu-ateratzen**, mina ematen zidan. **Berria - Euskal Herria**

4 **sartu-ateraka** *adlag* sartzen eta ateratzen.

Remigio organista esku-soinu eta guzti gainean eseri, lagun taldekoa baitzuten, eta auzoan aurrera eta atzera ibili zuten, zarata batean, taberna guztietan **sartu-ateraka**, kalearen erdian dantzan. **Juan Kruz Igerabide**

5 **sartu-ateran** (*orobat sartu-aterean*) *adlag* sartzen eta ateratzen.

Erromako beren etxean ez zegoen Turinen bezala [...] **sartu-ateran** ibiltzen zen jenderik. **Fernando Rey**

Estropezu egiten dute sarritan, portaletik **sartu-aterean**, aterkiak gurutzatzen direnean. **Alberto Barandiaren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sartu atera bat (4); **sartu ateran** (4)

sartu-ateraldi *iz* sartu-irtenaldia.

Hobeki pentsatuta, **sartu-ateraldi** bat egin zuen tabernara, kopa bat koñak eskuratzeraz. **Alberto Ladron Arana**

sartu-irten (*117 agerraldi, 53 liburu eta 21 artikulutan*) **1 iz** aldi labur batez norabait sartzea eta bertatik irteea. **iksartu-atera**.

Garrasien Etxeak ere merezi du **sartu-irten** bat. **Iñaki Mendiguren**

Sartu-irten bat egin zuen atezainarenean. **Joxemari Urteaga**

Tira, **sartu-irten** bat egingo dut loradendan etxerakoan, eta sorta bat bidaliko dizut. **Mirentxu Larrañaga**

Goldschmidtek telefonoz deitu zigan, eta bere etxera **sartu-irten** bat egiterik banuen galdetu zidan. **Josu Zabaleta**

Txitxikovek, orobat, **sartu-irten** bat egin zuen hiriko lorategian. **Jose Morales**

Apaizgaien logeletan-eta mugimendu arraroak sumatzen hasita zegoen, **sartu-irten** gehiegi ibiltzen baitzen ilundu eta gero. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gero, zereginek ez baduzu eta etxera bidean nirearen aldamenetik igaro behar baduzu, eskertuko nizuke **sartu-irten** labur bat egitea. **Jose Morales**

Wilmarth andereñoa **sartu-irten** etengabean ibiltzen zitzaien, loreak ukitzen, burkoak esku-zartaka atontzen. **Mirentxu Larrañaga**

Arraunen **sartu-irtena** bizkortu genuen, horra gure erantzuna. **Edorta Jimenez**

Doktoreak Posta etxera egunero egiten zituen **sartu-irtenak**. **Josu Zabaleta**

Eguzkiaren **sartu-irtenak** iragarri beharra daukagu besteontzat. **Pello Zabala**

Arratsalderoko **sartu-irtenek** ez ote zuten zerikusirik berak uste zuenarekin? **Patxi Zubizarreta**

Jendearen **sartu-irtenekin** atea irekitzen den bakoitzean, ardaila ikaragarria ateratzen da barrutik, kirats nardagarri batekin nahasian. **Jokin Muñoz**

Ezikusia egiten zion, eta **sartu-irtenetan** hitz gutxi batzuk baino ez zituen harekin trukatzen. **Patxi Zubizarreta**

2 (adizlagun gisa)

Sartu-irten zebilen jendeari begiratu zion Georges Berniardek. Maryk ez zuen inolako zerikusirik izan nahi ez Wilmarth andereñoarekin ez hura bezalako jendailarekin; alegia, beti besteren jantokian **sartu-irten** zebiltzanekin. **Lutxo Egia**

Ikuskizunak zirrara handia eragin zion, eta shockak jota edo, zoro antzera etxetik eskailburura **sartu irten** aurkitu zuen bilizlagun batek. **Migel Angel Mintegi**

Usategi txiki bat zuen eta usok sarean egindako zulo batetik **sartu-irten** ibiltzen ziren, euren kasa, auzoko teilatu gainetan jirak egin eta berriz itzuliz. **Jon Maia**

3 (aditz gisa)

Zenbait etxe eta edifiziotan gizasemeak ate batetik eta emaztekiak bestetik **sartu-irteten** dira. **Gotzon Garate**

Printzea sarrerako atalondotik **sartu-irtengo** da beti. **Elizen arteko biblia**

4 **sartu-irtenean** *adlag* sartzen eta irteten.

Jende dezente zebilen **sartu-irtenean**, nor bere otarrarekin, nor sarezo zakutoarekin. **Anjel Lertxundi**

Gure atzera-aurreretan, oihuak eta algarak handiagoak izan ziren **sartu-irtenean** zebilen jende dotorearen artean. **Patxi Zubizarreta**

Sartu-irtenean zebiltzaneiz begira bakarrik susma zenezakeen bazela hemendik kanpo beste mundu bat. **Arantxa Iturbe**

Eguneko edozein ordutan, **sartu-irtenean** dabilza ontziak, Mediterraneoko portu guztietakoak. **Jon Muñoz**

Ezin ibili zen beti **sartu-irtenean** eta txikikeriatan. **Mirentxu Larrañaga**

Jendea **sartu-irtenean** ikusten dut, eta pentsatzen dut irteten direnek hobe luketela barruan geratu eta sartzen direnek kanpoan. **Eskarne Mujika**

Honez gero inor burua nahikoa bero ez bazegoen, horra prostitutak etengabeko **sartu-irtenean**. **Edorta Jimenez**

5 **sartu-irtenka** *adlag* sartzen eta irtenen.

Biltegitik merkantziak **sartu-irtenka** zebiltzan, errapeka, kamioien harrabotsa Sanadikia, Gurija eta Azar kaleetaraino zabalduz. **Patxi Zubizarreta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sartu irten bat (20); **sartu irten gehiegi** (3); **sartu irten labur** (3); **sartu irtena** (18); **sartu irtena egin** (6); **sartu irtenak** (11); **sartu irtenean** (16); **sartu irtenean ibili** (3); **sartu irtenetan** (3); **sartu irteten** (3).

sartu-irtenaldi *iz* sartu-irtena.

Eskolako **sartu-irtenaldietan** jendea pasilloan pilatzen zenean, atzekoak tratatuak eta mugiezinik geratzen ginen. **Pedro Alberdi**

sartu-irtentxo *iz* sartu-irten laburra.

Bulegotik goiz antza irten, loradendan **sartu-irtentxo** egitera geratu eta etxerantz abiatu zen Camillarengana. **Mirentxu Larrañaga**

Esan dezakegu, zientziaren asmazioetan **sartu-irtentxo** bat eginaz, ustezko quark-ek omen daukaten askatasun asintotiko deritzanaren tankera hartzen diogula amodio gatzatuaren zera honi. **Iñaki Segurola**

sartualdi ik sarraldi.

sartuezin ik **sarrezin**.

sartuezintasun ik **sarrezintasun**.

sartune ik **sargune**.

sartuxe *adlag* sartu samar.

Alexisek adinean **sartuxea** zen aitarengana jo zuen [...] eta esan zion semeak aitari, areago adindua delarik, zor zaion begirunez ea bizia emango ote zuen semea salba zedin. **Felipe Juaristi**

Langabezia zeuden gizonak ziren, adinean **sartuxeak** gehienak. **Harkaitz Cano**

Urteetan **sartuxeak** zeudenak ibiliko ziren estuen -gure aitona-eta-. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Inguruan, azken orduetako langarrak sortutako putzuetan **sartuxeak**, lata, kartoi eta plastiko hondarrak ageri dira nonahi. adinean **sartuxeago** gaudenok badakigu horrelako gauzak ez direla errazak. **Jokin Muñoz**

Emakume adinean **sartuxe** bat ari zitaidan nire alboko eserlekua seinalatzen. **Anjel Lertxundi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adinean **sartuxe** (3)

adinean **sartuxea** (3)

sartzaile 1 *iz* sartzen den pertsona; sartzen duen pertsona.

Sartzaileak, atea gurutzatzen zutenean, taldean edo bikoteka edo bakanka, baina inoren bila ez balebiltza bezala sartzen ziren. **Iñaki Zabaleta**

Alta Kaskarotak ziren lehen golaren **sartzaileak**, baina Lalanne eta Iparragerrek abantaila Baionesei ekarriko diete. **Herria**

Tantoen **sartzaileak** izan dira Kovacevic eta Xabi Alonso donostiarrentzat, eta Hakan Sukur turkiarrentzat. **Herria**

Hain zuzen psikologia horren **sartzailea** Espainian krausopositibismoa izan ei da. **Joxe Azurmendi**

2 (hitz elkartuetan)

Oreguy, Sabarots eta Tarrat dira entsegu **sartzaileak** eta Aguerre ostikalari trebea. **Herria**

Erdalgintza erdara-**sartzaile** eta euskalgintza euskara-saltzaile eta araugilearen kontra, gure euskara honen amarez. **Iñaki Segurola**

sartze 1 *iz* barrura jotea, barrura eramatea. ik **sarketa**.

Musuak, laztanak, **sartzeak**, miaketak, zirriak, miazkatzeak... **Luis Elberdin**

Sartze nausiaren gainean untsa agerian idatzia da: "zuzenbidea baino lehen ene eskubidea". **Michel Oronoz**

Elkarren ondo-ondoan zeuden neskak, urre eta beltz, eguzkiaren **sartzea** interesik gabe miresten, lepoko zapiak ukituz, irribarreak zuzenduz elkarri. **Koro Navarro**

Arratsaldean izan da **sartzea**. **Herria**

Andoni Arrietaren ezusteko **sartzeak** hitz etorria eten zion. **Migel Angel Mintegi**

Iragan igandean ginuen Noblia Andre gure erroter berriaren **sartzea**, egun garrantzia handikoa Baigorri, Banka, Aldude, Urepele eta Irulegi herriendako. **Herria**

Karrikaren beste aldean zegoen taxi gorri batek bidea zeharkatu zuen eta etorri zen hoteleko **sartzearen** aitzonean aparkatzera. **Ramuntxo Etxeberri**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez zegoen oinaririk Mendebaldeko kulturaren **sartze**-prozesua maila horretan geratuko zela uste izateko. **Iñaki Mendiguren**

Gure kulturaren, elkartze sexuala **sartze**-ateratzearen inguruan oinarritzen da. **Luis Elberdin**

Utzi balidate, sikanera, euren **sartze**, ateratze, miazkatze eta zurrupatze saioei begira egoten, hartan inspiratuta kanpaia jo nezan gustura! **Jon Arretxe**

Hirugarren legea zera da, kultur irrada integral baten abiadura eta **sartze**-ahalmena bere [...] osagai ekonomiko, politiko eta "kulturelek" izaten dituzten abiadura eta **sartze**-ahalmenen batez bestekoak dira. **Iñaki Mendiguren**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Orain ohartzen baitzen ilean bi aldiz jasotako diru **sartze** haiekin ez zuela lana bilatzen hasteko inolako premiarik. Irail honetako eskola **sartzeak** erakusten du erakaskuntza katolikoaren osasun ona. **Joxemari Iturralde**

Ama eskoletan eta lehen mailan ibiltzen diren haurren itzulua dugu egiten, eskola **sartzearen** karietarat. **Herria**

Ez da funtsezko arrazoirik errateko kasu horretan izan dela zuzenkontrako preso **sartze** zuzenik. **Piarres Xarriton**

Betteren sendia, alde batetik, eta haren aita handiustearen mutur-**sartze** larderiatsuak. **Oskar Arana**

Bertze bestarik ere baduk plaza huntan, dantza, kantu, bertsularitza, kabalkada, etxe **sartze** eta abar. **Michel Oronoz**

Eguzki-**sartze** hari begira geratu zen, luzaro geratu ere. **Lopez de Arana**

Eguzki **sartzeak** kalezuloko murruean hedatzen zuen argitasuna. **Patxi Zubizarreta**

Alabaina, eguzki **sartzearen** ondotik ere, kalezulorearen sarbidean bi denda zabalik zeuden artean. **Patxi Zubizarreta**

Kurmari eta handik, eguzki **sartzeari** buruz, hirurehun miletan den Eliko hiria ere aipatu nizkion. **Aurelia Arkotxa**

4 **eguzki sartze** sartaldea.

Bi zati ditu Etiopiak, eguzki sortzea eta **eguzki sartzea**. **Aurelia Arkotxa**

Lehenengo Euskaldunentzako Ternuako **eguzki sartzean** den baia hau ezaguna zen. **Aurelia Arkotxa**

Portu horretara baitira heltzen **eguzki sartzetik**, Hormes, Quis, Aden eta Nubia guztitik jiten diren ontziak. **Aurelia Arkotxa**

Mihi murriz honen eguzki sortzeko alderdiak gaurko Pointe au Mal eta Fox Island Riverren aldera ematen du; **eguzki sartzetik** berriz, mihi luzearen gainean diren Tea Cove, Lourdes, Winterhouse, Brook, Black Duck eta Long Pointen aldera. **Aurelia Arkotxa**

Handik **eguzki sartzera** bertze bi irla badituzu, Horia eta Argira, lurra urrez eta zilarrez dutena. **Aurelia Arkotxa**

5 **hanka sartze** ik **hanka 25**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

diru **sartze** (10); **eguzki sartze** (5); **eskola sartze** (13); **esku sartze** (8); **esku sartze politikorik** (3); **mutur sartze** (4)

sartze bilkura (3); **sartze egunean** (3)

eguzki sartzea (4); **erroter sartzea** (3); **eskola sartzea** (21); **eskola sartzea iraganen** (3); **esku sartzea** (7)

diru sartzeak (13); **eskola sartzeak** (6); **esku sartzeak** (4); **mutur sartzeak** (3)

eguzki sartzean (3); **eskola sartzean** (5); **etxe sartzean** (3)

sartzear *adlag* sartzeko zorian.

Ozta-ozta ikusi ahal izan zuen Ewing jauna, hura etxetik irtear eta bera etxera **sartzear** zela, edota hura etxera **sartzear** eta bera etxetik irtear zelarik. **Mirentxu Larrañaga**

Hirira **sartzear** zegoela, Atenea irten zitzaion bidera, neskatila baten itxuran, buruan pegarra harturik. **Juan Kruz Igerabide**

Gernikara **sartzear** zeuden faxistak. **Lutxo Egia**

Etxe ezezagun batera bi maleta eraldoirekin **sartzear** denaren buru desordena gainetik kendu ezinik, hara nor den ikusten dudan lehen pertsona: zuzenbide zibileko irakasle izan nuena. **Harkaitz Cano**

Garbitutasun bikoitz, hirukoitz batean **sartzear** nintzela esaten zidan. **Matías Múgica**

hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sartzear dago (3); **sartzear zela** (5)

sartzearren *adlag* sartzeko.

Ehun dolar han **sartzearren**. **Edorta Jimenez**

Urrunean, Hondarribiko arrantzako txalupa bat eginahalean ari da, bela biak haize alde, badian **sartzearren**. **Koldo Izagirre**

Pepponek alde egin zuen handik, bere burua estuasunetan ez **sartzearren**. **Koldo Biguri**

sartzeke *adlag* sartu gabe.

Lerroen atzetik bizi zirenei garaipenaren esperantza ematea ere bazuten helburu, etsipenaren ibai lohizko eta zurrnobilotsuan **sartzeke** lanean segi zezaten, aberriaren alde.

Felipe Juaristi

Sakontasunetan **sartzeke** azaldu zion, gainetik azaldu ere, bere jarduna. **Migel Angel Mintegi**

Sakontasunetan **sartzeke** azaldu zion, gainetik azaldu ere, bere jarduna. **Migel Angel Mintegi**

sasaniar *izlag* islamiar bihurtu aurreko azken mendeetan Pertsian agindu zuen dinastiari dagokiona.

Hori Arabiako basamortu eta oasietatik irten eta Erromatar eta **Sasaniar** inperioetako landa eta hirietara joanez egin zuten. **Iñaki Mendiguren**

Seleukotar Greziar Inperio baten ondorengo **sasaniar** eta abbastar estatuetan. **Iñaki Mendiguren**

Hizkuntza eta idazkera arabikoaren ordez greziera ezarri baitzuen arabiar kaliferrian erromatar izandako probintzietan, eta pehleviera **sasaniar** izandako probintzietan, agiri publikoak egiteko baliabide ofizial gisa. **Iñaki Mendiguren**

sasi 1 *iz* arrosaren familiako landarea, zurtoin luze aihentsuak eta arantzaz hornituak, eta lore zuri edo arrosadunak dituena, fruitutzat masusta ematen duena (*Rubus fruticosus*); sasiaren antzeko zuhaixka sarria. *iklahar*.

Gar bizian ari da gaiztakeria, sua **sasi** eta lahar artean bezala. **Elizen arteko biblia**

Sasia eta laharra emango dizkizu, eta basalandarez elikatu beharko duzu. **Jose Antonio Mujika**

Lugorri bihurtuko dut: ez dute inausiko, ez jorratuko, eta **sasiek** eta laharrek hartuko dute. **Elizen arteko biblia**

Sasi, lahar eta zakardietan basurdea bere gogara bizi da. **Gotzon Garate**

Sasia ugari, otea han-hemenka, lur erre, ahitua ageri duten soilguneak. **Pako Aristi**

Eguzkirik gabe gelditu da ibai gaina, hegaztien zalapartak hartu du airea, kanturik gabe gelditu dira **sasi** eta arbolak. **Anjel Lertxundi**

Inguruan dena belarbas eta **sasi**, arbol mehakoila, jauregia gaintu nahi balute bezala. **Michel Oronoz**

Erreka ilun bat, dena **sasi** eta lapar. **Janbattitt Dirassar**

Azpiko gela guzietako murrak deseginak dira, dena asun eta **sasi**. **Michel Oronoz**

Sasi eta sastrakak ematen baditu, ez du ezertarako balio, Jainkoak madarikatu egingo du eta, azkenik, erre egingo dute. **Elizen arteko biblia**

Nik, beste hamarrek **sasi** baten atzean kukuturik nengoela, aita ikusi nuen gugandik hogeit bat pausotara. **Koldo Biguri**

Zulo hori Larregiren azpian zegoen eta dago, orain laharrek eta **sasiak** estalita, seguru asko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Sasi batzuen ostean ezkutatu ginen gu ere. **Joseba Sarrionandia**

Lur zulatu berria estaltzeko **sasi** bila joan zenean, azken zakurra lurperatzeko erabili zuen kobazulo tikiaren paretik igaro zen. **Harkaitz Cano**

Zenbait hilabetez hodei guztien gainetik egonda, **sasi** guztien azpira behetitu nintzen kolpetik. **Aingeru Epaltza**

Orain, **sasi** guztien azpitik ari nintzen narraska. **Aingeru Epaltza**

Berrogei urteren buruan, aingeru bat agertu zitzaion **sasi** artean pizturiko sugarretan, Sinai mendiko basamortuan. **Elizen arteko biblia**

Oker eta erortzeak, basoak, **sasiak** eta errekoak hezetasunak janda, baina zutunik. **Hasier Etxeberria**

Makilaz ibili behar du **sasiak** baztertzen eta asunak zapaltzen, bidea libratzeko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Soineko baten puskak agertu ziren inguruko **sasietan**. **Koro Navarro**

Baserri abandonatu bateko pareta **sasiak** jandakoen artean sartu ginen arte. **Juan Luis Zabala**

Urrunxeago joan nintzen, **sasi** artera, parke publikoetan pixa egiteagatik ezartzen duten isun itzelezkoari itzuri egiteko. **Javi Cillero**

Sasi arteko hazia bezalakoak, berriz, hauek.

Sasia beti maldaren alde. **Koldo Izagirre**

2 (izenondoetan)

Gerard, bere lehen maitalea, arbola eta **sasi** nahasi haietan ezkututzen zela. **Itxaro Borda**

Abere bihoztun hori txilarrezko **sasi** handi baten atzean zegoen ezkutaturik, uzbeken begiradetatik kanpo. **Karlos Zabala**

-Agur, Julieta laztana betiko! -esan du, hitzek eztarrian gora **sasi** arantzatsuren bat aurkitu izan balute bezalako ele urratu batez. **Anjel Lertxundi**

Sasi lehor arantzadunei heldu nien, baina erroak atera egin ziren. **Koro Navarro**

Garaitsu hauxe hartuko zuen nekazariak **sasi** iharrak, kontuz-kontuz, garbitzen hasteko ere. **Pello Zabala**

Errepideraino erortzen diren mendi mazelak oihan basa dira, **sasi** itxiak eta zuhaixka moldatu gabeak. **Alberto Barandiaren**

Bide bazterreko **sasi** biluziak urratu zituen auto batek. **Iñaki Zabaleta**

Ibiliko ziren beste puska batez, jostailu deseginen azpian, **sasi** gorrien artean, asunetan, eraikin erdi erorien tripetan. **Karlos Linazasoro**

Sasi eta belar motzeko eremua. Agustín Otsoa

Bazen larrerik eta gari alorrik, eta **sasi** errezko usain garratz bat, neure herriaren mila ekarri baitit. Juan Garzia

3 (arte-ren ezkerrean) ik **sasiarte**.

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Han pasatuko dute atertu arteko denbora, **sasi**-sustraien inguruetan ere izango dute mokoaz lurra aztakatu eta zizareren bat edo beste ahoratzeko aukerarik. Anjel Lertxundi

Ordez, mugaz muga nabil, erdira hurbiltzeko beldurrez bezala arraposki, lehen nola hesiz hesi ardiak pasa zitezkeen balizko **sasi** zuloak begiztatzean, gaur hala salbamendua menturatik etorriko bailitzaidan. Itxaro Borda

Egun hartan, zilarrezko mila txanpon balio zituen mila landareko mahastia **sasi**- eta lahar-toki bihurtuko da. Elizen arteko biblia

Orduak entzuten genituenean, bagenekien Pitxita gure astoa lotzeko ordua zela, haizebelastu baino lehen; garbiketa egiteko ordua, gero arropak lehortuko baitziren; atzendu beste baterako **sasi** erreketa. Pako Aristi

· Askak bi dira, garai bateko latsarri egun lehortu eta **sasi**-jandakoen antzekoak, hauek urez beteak. Pako Aristi

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Txilar **sasi** batetik bestera lasterka doan sutea bezala. Anton Garikano

Bilo-**sasi** iluna zirudien hura txinaurri andana beldurgarria da, eta orain ahoaren barrunbean dabilzkio, eztarrian eta sudur zuloetan gora. Eider Rodriguez

Zelai-**sasiak**, izotzetan zuri. Anjel Lertxundi

6 irud/hed

Bere biziko une gogor batean, politikaren **sasitik** apur bat urrundu beharrez, Zizeron idazle handia hasi omen zen Estatuaren eraikuntzaz zenbait gogoetaren harilkatzen. Piarres Xarriton

Eta dena nahasian dagoenean, batek ez daki zer egin **sasitik** larrutu gabe osorik ateratzeko. Pello Salaburu

Latinetik frantsesera itzultzen loriatzen nintzen, lehenik testuak errana errespetatuz, perpausen barnean harat hunat ibiliz **sasitik** ezin jalgiz, gero beste mintzaira baten libreteari eskainiz aurrekoari zor nion obedientzia. Piarres Aintziart

7 *adkor* klandestinitatea.

Ondoko egun eta ilabetetan, militante ainitz geldituak ziren, batzuk **sasia** hartu zuten, beste batzu tirokatuak eta erahilak. Herria

Sasian, gerran bezala, inork ez du aukeratzen ahal laguna, etsaiak agintzen du norengana, nor hartu beharko duzun aliatu taktiko. Koldo Izagirre

Zazpi urte **sasian** eman eta gero, atxilotua izan zen. Filipe Bidart

ETAren zuzendaritzan bidalitako propaganda zabaltzen aritu zen garai hartan [...] 1967ko azaroan **sasian** sartu zen, atxilotzekotan zutenean. Berria - Euskal Herria

Nemesio Arozena dugu garai gogor haietakoak zehatzen kontakten dituena, gerraondoan ere Francoren aurkako **sasiko** borrokan elikatu duen memoria zintzoan. Koldo Izagirre

Lau mutil gazteak **sasiko** urteetan iragan gosearen erruz mehetuak ziren arras. Itxaro Borda

Ez dute denborarik ukan **sasira** eskapatzeko. Itxaro Borda

Sasirat jotzera behartu zaituzte, harrapatzeko arriskutik ihesean, baina ahal duzun gisa antolatzen duzu eguneroko bizitza. Filipe Bidart

Horregatik altxatuko dira, horregatik joko dute **sasirat**, horregatik borrokatuko dira, horretarako bizia ere emanen dute. Filipe Bidart

Battistik eskaintza onartu zuen, eta 1980. urtetik kartzelatik ihes egin zuenetik klandestinitatean zen militantea, **sasitik** atera eta Parisen jarri zen bizitzen. Berria - Mundua

7 *sasi-mozteko iz* sasiak mozteko tresna.

9000 Euroko auto bat, bapore lisa burdin bat, **sasi** mozteko bat, [...]. Herria

8 *sasitik berrora* txarretik okerrera.

Sasitik berrora. Luis Elberdin

Goiza **sasitik** berrora eta berrotik **sasira** egin genuen. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sasi artean erori (3); **sasi artean pizturiko** (3); **sasi baten atzean** (3); **sasi guztien gainetik** (4); **sasirik sasi** (3)

sasia eta laharra (6)

sasiak hartua (3); **sasiak hautsiak zeuden** (3)

); **sasian agertu** (3); **sasian bizi** (3); **sasian ibili** (3); **sasian sartu** (7)

sasiaren sustraiak (3); **sutan zegoen sasiaren** (3)

sasien artean (8); **sasien artetik** (9)

sasi-idazle *(corpusean **sasidazle** eta **sasi idazle soilik**) iz* idazlearenak egiten dituena.

Aizu, **sasi** idazle, ez gaude batere konforme ipuin eskas honi eman diozun amaiera eskasarekin. Jon Arretxe

Ni, **sasidazle** gizajoa, bere gaineko ikusten nau langile herritar batek. Patziku Perurena

-**Sasidazle** traidorea! -altxatu da beste ahots trumoitsu ezaguna: Dabid!!! Patxi Zubizarreta

sasi-ikurrina *iz*

Sasi-ikurriña horiek dira frantsesez "pavillons de complaisance" deitzen direnak. Herria

Frantses edo ingles banderarekin dabiltzan barkuetan eman dezagun, frantses edo ingles legeak berme, gauzak ez doatzi hain makur, nahiz baden oraino zer egin hobeki joan diten, bainan gogoetarriena da **sasi**-ikurriña batzuekin gertatzen dena. Herria

sasi-ilustratu *(orobat **sasiilustratu**) izond* faltsuki ilustratua.

Norbere sena [...] sen moral zuzen eta jatortzat hartzea, tradizio "ilustratu" enetaz oso **sasi**-ilustratu bateko agerkari susmagarria iruditzen zaidala. Joxe Azurmendi

Nahas-mahas **sasiilustratu** bat dirudi denak: munduaren arima, unibertsoaren batasuna, gizadiaren solidaritatea, nazioaren edo arrazaren izpiritua, norbanakoarena, etab. Joxe Azurmendi

sasi-informazio *iz* informazio faltsua.

Areago, Judith Miller-ek, kazeta horrek duen erreportari beterano eta prestigiotsuak, sarritan agertu zituen tesi hori berresten zuten **sasi**-informazioak lehen orrialdean.

Txema Ramirez de la Piscina

sasi-intelektual *(orobat **sasi intelektual**) izond/iz* faltsuki intelektuala.

Deutsch Schule hartako arkupeetan piztutako pospolo hura zen Azkona Estudioko erredakzioan piroteknia **sasi** -intelektuala leherrarazten zuena, diletantismoak horixe baitu bere alde. **Sasi** intelektual batzuek errana baino inportanteagoa duzu hori niretzat. **Anjel Lertxundi**

Edo, hobeto esanda, ez ote ginen **sasi** -intelektual klasista batzuen gisara jokatzeko ari? **Bernardo Atxaga**

sasi-interes *(corpusean sasi interes soilik) iz* interes faltsua.

Udalak argi eta garbi azaldu zuen ez duela onartuko, **«sasi** interesengatik, herriko bizikidetzara apurtzen saiatzea». **Berria - Euskal Herria**

sasi-interpretazio *iz* interpretazio faltsua.

Kasu batzuetan gomendagarria dirudi adierazpen hauek gorago aipatutakoen ordezkari erabiltzea, honela **sasi** -interpretazio oro saihestearren. **Ibon Uribarri**

Halere, hortik **sasi** -interpretazio asko sortzen da eta zehatzagoa eta zuzenagoa da akzidentea substantzia baten izatea positiboki determinatua izateko moduaren bidez izendatzea. **Ibon Uribarri**

sasi-irakasle *iz* irakaslearenak egiten dituenak.

Sasi-irakasleak. **Elizen arteko biblia**

sasi-irakaspen *iz* irakaspen faltsua.

Sasi -irakaspenen kontrako oharpena. **Elizen arteko biblia**

sasi-irakurri, sasi-irakur, sasi-irakurtzen du *ad* faltsuki irakurri.

-Petronioren gaitzeskeren gauza bat irakur daiteke -esan zuen P-k ordu arte **sasi** -irakurtzen aritutako poema liburua utziz-. **Bernardo Atxaga**

sasi-iraultza *iz* iraultza faltsua.

1994. urteaz geroztik Ukrainiako presidentea karguan egon den Leonid Kutxmak, berriz, Justxen koren jarraitzaileei **«sasi** iraultza» gelditzeko eskatu zien. **Berria - Mundua**

Leonid Kutxma jarduneko presidentea, berriz, «herrialdearen zatiketa» deragitenen salatu zituen eta euren **«sasi** iraultzari» amaiera emateko deia egin zien. **Berria - Mundua**

sasi-iraultzaile *(corpusean sasi iraultzaile soilik) izond* faltsuki iraultzailea.

"**Sasi** iraultzaile" eta "izu-eragile" deitzen zaien ETArri manifestuan. **Joxerra Garzia**

-Hi, hago isilik, oilartxo **sasi** iraultzailea! **Paddy Rekalde**

sasi-irmotasun *iz* irmotasun faltsua.

Nire **sasi** -irmotasuna, ordea, kordokatzeko hasia zitzaidala erreparatu nuen. **Txillardegia**

sasi-irribarre *(corpusean sasi irribarre soilik) iz* irribarre faltsua.

-Gure bideek topo egin dute berriro, lehengusu -esan zuen mornatarren buruzagiak azkenean, hortzak **sasi** irribarre batean erakutsiz. **Joanes Urkixo**

sasi-irtenbide *(orobat sasi irtenbide) iz* irtenbide faltsua. ik **sasi-aterabide**.

EHEK dei egin zien Euskal Herriko euskaltzale guztiei indarrak metatzera eskubideak errespetarazteko, «zapaltzen gaituzten estatuek eskaintzen dizkiguten **sasi** -irtenbideen zain egin beharrean». **Berria - Euskal Herria**

Batasunak torturaren aurka **«sasi** -irtenbiderik» ez dagoela ohartarazi zuen, asteartean Joseba Permachek eginiko prentsaurrekoan. **Berria - Euskal Herria**

Tortura amaitu behar da, eta amaitzeko ez dago **sasi** -irtenbiderik, legeria antiterrorista eta inkomunikazioa desagertzea ezinbestekoa da. **Berria - Euskal Herria**

Ez gaude **sasiirtenbideetan** sartzeko, benetako irtenbideak planteatzeko baizik. **Berria - Euskal Herria**

sasi-irudi *iz* irudi faltsua.

Handik aurrera, zenbat irudi edo **sasi** -irudi ikusten nituen! **Bernardo Atxaga**

sasi-itzulpen *(orobat sasi itzulpen) iz* itzulpen faltsua.

Sasi -itzulpen hauek euskara dute sorburu- edo xede-hizkuntza, eta beste edozein erdara egon daiteke tartean. Oharkabean egindako **sasi** itzulpen hauen harira, erraza da itzulpen okerrak nahita egitea. **Iñaki Arranz**

sasi-izar *iz* izar faltsua.

Baina izarren edo **sasi** -izarren artean, ezin. **Berria - Kirola**

sasi-izen *(corpusean sasizen soilik) iz* izen faltsua.

Kahina **sasizena** bera ere ez da hemen kasualitatez aukeratua: VIII. mendean inbasio islamikoei aurre egiteagatik burua moztu zioten erregina berebere baten izena da. **Berria - Kultura**

sasi-izpiritual *izond* faltsuki izpirituala.

Sasi -izpiritualentzat, ordea, benetan kaltegarri izan daiteke. Joan Mari Lekuona

sasi-ohetalde *iz* ohe talde faltsua.

Noizean behin Norminha eta biok ohe-taldeak antolatzen genituen, **sasi** -ohe-taldeak, egia esateko, inozokeriak. Karlos Zabala

sasi-radikal ik **sasierradikal**.

sasi-rock'n'roll *iz* rock'n'roll faltsua.

Telebistak mutu egon ohi ziren, eta Xarlesek sobera maite ez zuen **sasi** -rock'n'rollak baizik ez zion poxelu egiten hara bildutakoen solasari. Xabier Montoia

sasiabertzale *(corpusean sasi abertzale soilik)* *iz* abertzale faltsua.

Sasi -abertzale haien diskurtsoa. Berria - Euskal Herria

sasiabokatu *(corpusean sasi abokatu soilik)* *iz* abokatu faltsua.

-Ez da tokirik hiritar zintzoentzat; **sasi** abokatuez eta etxeko probetxu ari diren jendez osatu gobernua gure erresumaren errekaratzen ari da. Elena Touyarou

sasiadar *(corpusean sasi-adar soilik)* *iz* adar faltsua.

Erlitioak eta ezkontzak legitimo egindako seme-alaben zerrendetatik aldentzen ziren **sasi** -adarrak baitziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

sasiaditu *(orobat sasi-aditu)* *iz* adituarenak egiten dituen.

Hortik aurrera, gainerako **sasiaditu** edo sasikritikariak maisu horien ildotik sartu dira; gehienek, maisu horiek esandakoa errepikatu dute, askotan ulertu ere egin gabe zer esaten zuten. Jon Alonso

Antza, Alemaniako Borussia Dortmunden hainbat sasoitan jokatu zuela ahaztu zuten **sasi** -adituek. Berria - Kirola

sasiakazia *(orobat sasi-akazia; Euskaltzaindiaren Hiztegian sasiakazia agertzen da)* *iz* klima epelatako akazia-mota, loze zuri usaintsuak ematen dituen (*Robinia Pseudoacacia*).

Argitaraturik gabeko olerkien artean Kirmen Uriberen **Sasiakazia** izeneko dago. Berria - Kultura

Tom eta biok kalearen beste aldean geunden, **sasi** -akazia handi baten enborrharen atzean zuhurki kokaturik. Oskar Arana

sasiakordio *(corpusean sasi-akordio soilik)* *iz* akordio faltsua.

Ziur aski, CCOOK eta UGTk aste honetan bertan egingo dute **sasi** -akordioa Eudelekin, udal eta foru erakundeetako lan ituna lotzeko. Berria - Ekonomia

«Onartezina» iritzi zion gutxiengoaren «**sasi** -akordioari». Berria - Ekonomia

sasialbiste *(corpusean sasi-albiste soilik)* *iz* albiste faltsua.

Unibertsitateko korridore luzeetan, Condrenak, Sorbonako doktore eta predikatzaileerik suharrenak irri egiten zion **sasi** albisteari: [...]. Aingeru Epaltza

sasialternatiba *iz* alternatiba faltsua.

Ez gara konformatuko **sasialternatiba** batekin. Berria - Euskal Herria

sasialtzairu *iz* altzairu faltsua.

Jaregin dut, eta berak, artean izuak erabat harturik, azaldu dit gure haren moduko zilarbizi gordinak ez duela askorik balio, baina purifika daitekeela, whiskeya bezala,

sasialtzairuzko zein terrakotazko destilagailutan. Juan Garzia

sasiama *iz* zuhaixka aihentsua, lore usaintsuak ematen dituen (*Lonicera* sp.). ik **atxapar**.

Sasiamen eta amañilili laharren usainak. Oskar Arana

sasiamnistia *(corpusean sasi-amnistia soilik)* *iz* amnistia faltsua.

Sasi -amnistiarekin kaleratu nintzenezan, Alcalatik zuzenezan joan nintzaion bisitara. Jokin Urain

sasiandere *(corpusean sasi-andere soilik)* *iz* andere faltsua.

Jainkoak eman daukula andere eder bat lagun (eusgara) eta hau utzi eta **sasi** andere bat (erdara) hartzen dugun aldi bakotx bekatu linguistikoa egiten dugula. Herria

sasiantonimoa iz antonimo faltsua.

Atsekabearen **sasiantonimoa**, nahi eta ezinaren ume; nahigabearen kontrako botika gozagarria, ezen ez sendagarria. **Imanol Zurutuza**

sasiantropologo iz antropologo faltsua.

Gogorra da nola Ortega-k hala ere guztiz onesten duen, nahiago izanez hainbat literato, **sasiantropologo**, historiaren sasifilosofo eta propagandistari jarraitu. **Joxe Azurmendi**

sasiapaiz (orobat sasi-apaiz) iz apaiz faltsua.

Judako erregeek ezarriak zituzten **sasiapaizak** Judako hirixka eta Jerusalem inguruetako kultu-lekuetan, toki horietan intsentsua erre zezaten. **Elizen arteko biblia**
Sasiapaizen hezurrak, berriz, beraien aldareetan beretan errearazi zituen. **Elizen arteko biblia**
Nork, eta **sasi**-apaiz hark niri sermoiak! **Arantxa Iturbe**

sasiapostolu iz apostolu faltsua.

Horrelako horiek **sasiapostolu** dira, gezurrezko langile, Kristoren apostolu-itxura baino ez dutenak. **Elizen arteko biblia**
Paulo eta **sasiapostoluak**. **Elizen arteko biblia**

sasiarazo iz arazo faltsua.

Filosofo horien arabera, arazo tradizionalak -indukzioa barne- **sasiarazoak** dira, eta horien iturria hizkuntzaren erabilera traketsan aurki dezakegu. **Askoren artean**
Hori zuzenduz gero, hortaz, **sasiarazo** horiek disolbatu egingo lirateke. **Askoren artean**
Hizkuntzak ezin ditu muga horiek hautsi; hala egitean sortzen dira arazo filosofikoak (Wittgensteinentzat arazo filosofikoak **sasiarazoak** dira, hizkuntz arazo sinpleak).
Askoren artean

sasiardi (corpusean sasi ardi soilik) iz ardi faltsua.

Ainhoar abeltzainen partetik baginutuen: **sasi** ardiak, ardi mutur beltz eta mutur gorriak, exehorrak eta pottokak. **Herria**

sasiargi (corpusean sasi-argi soilik) iz argi faltsua.

Orduan hor datorkie deabrua, eta isurtzen die sasi-gozotasun bat eta **sasi**-argi bat, hauekin lilurutzen dituelarik arriskuan jartzera. **Joan Mari Lekuona**

sasiaristokrazia (corpusean sasi-aristokrazia soilik) iz aristokrazia faltsua.

Odolkidetasunak eta endogamiak ahuldatuko **sasi**-aristokrazia leinu baten azken alea. **Jon Alonso**

sasiarrabita iz arrabita faltsua.

Hungariarraren ahots durunditsua pintore erromantikoen **sasiarrabitak** barregarri uzteko puntuan zegoela, politika gaietara bideratu zuen Ségouinek taldea. **Irene Aldasoro**

sasiarrasto (corpusean sasi-arrasto soilik) iz arrasto faltsua.

Sasi-arrastoa zen apurtuta zegoelako eta ezin zelako jakin apurtu baino lehen paper karratua izan zen, edo laukizuzena izan zen, edo triangularra izan zen. **Unai Elorriaga**
Beste **sasi**-arrasto bat ere topatu zuen Matiassek. **Unai Elorriaga**

sasiarrazoi iz arrazoi faltsua.

Nik hau bakarrik diot: norbaitek zerbait dastatzen duenean, egiazta dezakeela zuzenki bere dastamenaren testigantzez badakiela gozoa ala kontrakoa den; eta zientzia hori ken diezaiokeen sofisma (**sasiarrazoi**) greziarrik ez dago. **Imanol Unzurrunzaga**

sasiarrosa (corpusean sasi-arrosa soilik) iz arrosa basatia.

Igarobidea eragozten baitiote haien distirari hemengo arku ilunek -bata bestearen gainean altxaturik, mahatsondo bihurriek, huntzak eta ezin zenbatuzko **sasi**-arrosek harturik-. **Jose Morales**

sasiarte (orobat sasi-arte) 1 iz sasitza, sasidia. ik sasi 4.

Sodomarena bera gertatuko zaio Moabi, eta Gomorrarena amondarrei: **sasiarte** eta gatzaga eta hondamendi bihurtuko dira. **Elizen arteko biblia**
Gorde gaitezen ongi bide-bazter, harri-arte edo **sasi**-arte izatetik. **Askoren artean**
Egun urratzetik eguzki gorritua zuhaitz handi bilztuen atzean etzan zen arte, **sasiarte** guztiak jotzen aritu ziren, ezer aurkitu gabe, ordea. **Josu Zabaleta**
Alferrik jotzen ziren basoak, alferrik miatzen **sasiarteak**, ez zuten aurkitzen. **Josu Zabaleta**
Ikuspegiak handik lerro biguneko panorama zabal bat hartzen du, berde bizi-bizikoa, harkaitz zorrotzik gabe, **sasiarte** ilunik gabe, gogortasunik eta basakeriarik gabe. **Koro Navarro**
Eguerdian aurkitu zuten gorpua Donostiako Zubiaurre pasealekuaren eta trenbidearen arteko **sasiarte** maldatsuan. **Berria - Euskal Herria**

2 (lekuzko deklinabide atzikiakin)

Sasiartean aurrera joaten entzun zuten eta elkarri begiratu zioten. **Iñaki Mendiguren**
Botila hutsak ikusi nituen **sasiartean**. **Koro Navarro**

Pistola bat atera zuen kolkotik, egunkarian bildu zuen eta **sasiartean** ezkutatu, paretaren kontra zangoarekin zanpatuz. Koldo Izagirre

Nire aita-eta lasterka zoroan hasi ziren inguruko harkaizpeetan eta **sasiartean** ezkutatzera. Anjel Lertxundi

Xingola askatu, sakelana gorde, eta ile-kiribila **sasiartera** bota zuen. Anton Garikano

Meharra astiro-astiro zihoan **sasiarterantz**, kontu handiz zapalduz, eta isiltasunak berunaren pisua bera zuen. Koldo Biguri

Han hiru edo lau lanrober edo patrol horietakoak zeudean eta, izkina denetan eta **sasiartean** ere zibila mordoa, denak txanoa jarrita. Pablo Sastre

3 irud/hed

Poliki-poliki, eztainua urtu egiten zen, eta tantak konketa bateko uretara amiltzen ziren karranka ozenez: hondoan metalezko **sasiarte** liluragarri bat osatuz zihoan, itxura beti berriz. Juan Garzia

Garai hartan Bereziartua herriko organojolearekin ikasten zuen, eta teklen basoan botoien **sasiartean** baino hobeto ibiltzen zela ikusi zuen. Pako Aristi

Usu ezagutu ukan du -bai sastian, bai **sasiartean** - bakardadea. Filipe Bidart

sasiartile *iz* artile faltsua.

Zuzentzaileak hain du itxura errukarria Eskoziako **sasiartilezko** bata hartan bildurik, bizarra egin gabe, ilea barregarri tindatua, aurpegiko arrasto zuriekin aurkakotasun tristea osatzen duela, ezen [...]. Jon Alonso

sasiartista *iz* artistarenak egiten dituen.

Azkenean **sasiartista** jendeak kutsatu egingo hau... eta astakeriarik egin ez dezaan... Urtzi Urrutikoeetxea

sasiartzain *iz* artzainarenak egiten dituen.

Sasiartzainek Jesus baztertu. Elizen arteko biblia

sasiaskatasun *(corpusean sasi-askatasun soilik)* *iz* askatasun faltsua.

Mende batean zehar **sasi**-askatasuna prometitzen zuten iraultza liberalen aurka altxatu ondoren, [...]. Iban Zaldúa

sasiaterabide *(corpusean sasi-aterabide soilik)* *iz* ateraiibide faltsua. ik **sasi-irtenbide**.

Hainbetez urtez Ipar Euskal Herriko gehiengoaren eskaria mespretxuz baztertu ondoin, **sasi**-aterabideak proposatu ondoin, orain argi ta garbi azaldu dute beren egiazko jarrera. Berria - Harian

sasiaukeraketa *(corpusean sasi-aukeraketa soilik)* *iz* aukeraketa faltsua.

Pilotarien iritziak jasotzeko hitzordu bat antolatzea ondo dago, baina ez dadila izan telegidaturiko **sasi**-aukeraketa baten aitzakian. Berria - Kirola

sasiausardia *(corpusean sasi-ausardia soilik)* *iz* ausardia faltsua.

Sasi -ausardia etilikoa aprobetxatu behar zuen. Fernando Morillo

sasiautobiografia *(corpusean sasi autobiografia soilik)* *iz* autobiografia faltsua.

Horren froga berria dugu **sasi** autobiografia postumo hau. Berria - Kultura

sasiautonomo *(corpusean sasi-autonomo eta sasi autonomo soilik)* *iz* langileez mintzatuz, autonomo faltsua.

Estatutuak **sasi**-autonomoen egoera berezia aintzat hartuko du. Berria - Ekonomia

Lanpostu tradizionalak desegin eta beste kontratu-lotura duten lanpostuak sortu dira, are baldintza kaskarragoekin **sasi**-autonomoak, aldi baterako enpresentzat lan egiten dutenak, edota orduka lan egiten duten langileak). Iñaki Heras

Etxeo langileak, zaintzaileak, **sasi** autonomoak eta, kasurik txarreanean, prostitutak. Berria - Euskal Herria

sasiazaldu, sasiazal, sasiazaltzen *(corpusean sasi-azaldu soilik)* du *ad* faltsuki azaldu.

Poeren *Arthur Gordon Pim* nobelako itsaso txurian azaltzen edo **sasi**-azaltzen ziren izakiekin. Bernardo Atxaga

sasibakezale *(corpusean sasi-bakezale soilik)* *izond/iz* bakezalearenak egiten dituen.

«Ibarretxeren gobernuaren kolaborazio politiko eta polizia» eta «erakunde **sasi**-bakezaleen konplizitatea» arbiatu zituen. Berria - Euskal Herria

Elkartasuna baldintzapean eskaintzen duten Elkarriko **sasi**-bakezale horien modukoak. Berria - Euskal Herria

sasibakezalekeria *(corpusean sasi-bakezalekeria soilik)* *iz* bakezalekeria faltsua.

Eskutitz faltsuen banaketa bultzatu zen Aturriko hiriburutik, azpitik sustatutako sasi-matxinadak eta **sasi**-bakezalekeriak prestatu ziren goitik behera, albiste faltsu etsigarriak hedatu ziren etengabe, mutilen gurasoengan bedurra eta etsipena erein ziren. Txillardegi

sasibarroko *izond* faltsuki barrokoa.

Erretaula barroko edo **sasibarrokoen** irudiek, entreteni daiteke bat eliza gehienetan, besterik ez bada; aszetismo horretan murgildurik, hori ere ez. Iban Zaldúa

sasibide *(orobat **sasi-bide**) iz bide faltsua.*

Sarkozyk hemen plazaratu duen mezua izan da Estatuaren partetik azken hamar urteetan izan dugunaren segida: ez tresna egituratzaileei, eta ireki **sasibide** batzuk denbora irabazteko. **Berria - Euskal Herria**

Erraza ematen du, baina baditu bere **sasibideak**. **Aingeru Epaltza**

Ez zen **sasi**-bideetarako, duda egiteko, momentua. **Joxan Elosegi**

sasibiki *(corpusean **sasi-biki soilik**) iz biki faltsua.*

Handik bederatzita hilabetera jaio ziren Jonathan-eta-Léa, bi **sasi**-biki peto-peto. **Jon Muñoz**

sasibizar *(corpusean **sasi-bizar soilik**) iz bizar faltsua.*

Hurrengo goizean, igandeko trajea jantzi, aurpegia **sasi**-bizar batekin mozorrotu, mediku-maletatxo bat hartu eta berriro lapurraren etxera jo zuen Mattinek. **Martin Anso**

sasibizi *(corpusean **sasi bizi soilik**) iz bizi faltsua.*

Sasi bizi bat antolatatu behar da ere, Filipe ez baita gehiago bakarrik... ondoko urteendako IK-k beharko du sustengu zabalago bat **Herria**

sasibizibide *(corpusean **sasi-bizibide soilik**) iz bizibide faltsua.*

Herrian ez zen aski zaldi, behi edo ardirik izango gazteen **sasi**-bizibidearen segurtatzeko. **Itxaro Borda**

sasibizigarri *(corpusean **sasi-bizigarri soilik**) iz bizigarri faltsua.*

Ezin konta ahala plan eta plantxo, proiektu eta proiektutxo asmatuko dira "bion artean", maite-denbora jakinaren betegarri edo **sasi**-bizigarri, edo, hobeki esan, asmatzen lanik izan ez dadin, **Iñaki Segurola**

sasibohemio *iz bohemioarenak egiten dituen.*

-Bien bitartean horrelako **sasibohemioak** aguantatu beharko ditut -erantsi du Sasanek, taldeari begira. **Jon Arretxe**

sasibulego *(corpusean **sasi-bulego soilik**) iz bulego faltsua.*

Otsailaren 25ean, Madrilako gobernua ordainduta, **sasi**-bulego bitxi bat zabaldu zen Baionan. **Txillardegi**

sasiburutazio *iz burutazio faltsua.*

Colum McCann *This Side of Brightness* liburutik jasoa da bestalde *Tunelak eta zenbait **sasiburutazio** arkitektoniko* ataleko elkar topatzen ez duten tunelen pasartea. **Harkaitz Cano**

sasidazle ik **sasi-idazle**.

sasidemokrata *izond/iz demokratarenak egiten dituen.*

Urrutira joan gabe ere, ongixto ezagutzen ditugu **sasidemokrataz** jositako demokraziak! **Joan Mari Irigoien**

sasidemokrazia *(orobat **sasi-demokrazia**) iz demokrazia faltsua.*

Agirre hori putakume itzela duk!, putre galanta!... **sasidemokraziaren** jauntxo negoziante berria, eusko jaurlaritzaren diputazioa eta udalaren babespean beti dirutza egiten. Espainiako **sasi**-demokraziak azken 27 urteetan kaltetu, torturatu eta hil dituen milaka euskal herritar. **Paddy Rekalde**

Uriak espetxe barruan «espainiar **sasidemokraziaren** aurpegi ezkutua» ezagutu duela ere esan zuen. **Berria - Euskal Herria**

36-39 epealdiko gudak eragindako biktimak, 39-75 frankismo aldiak eragindako biktima eta ondorioak, edota 75-05 Espainiako **sasi**-demokraziak eragindakoak. **Berria - Harian**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

espainiako sasi demokraziak (3)

sasidemonio *iz demonio faltsua.*

Orain ziur nago **sasidemonio** haiek bertan jo eta txiki-txiki egingo ditugula! **Joanes Urkixo**

sasidi *iz sasiz beteriko eremua. ik **sasitza**; **sasiarte**.*

Erreteren inguruan, glazisetan, zuhaitzi altuak eta erromantikoak daude, **sasidiak** eta zuhaitzi txikiak, eta loretxoez ziprztindutako belardi berdeak. **Koro Navarro**

Handixe geratu ginen kuzkurtuta, erne, adartxo bat noiz hautsiko, edo noiz zabalduko **sasidi** ezkutua. **Koro Navarro**

sasidiru *(corpusean **sasi-diru soilik**) iz diru faltsua.*

Gastatu du nasaiki sartu den dirua edozein pegeserietan, hain aipatua den egun hauetan **sasi**-dirutik % 5-a bakarrik doa Elyseora eta beraz % 95-a doa gobernura. **Herria**

sasidotore *izond* dotoretasun faltsukoa.

Perfumaturik eta ile-gantzuturik zegoen eta arrunt itxura **sasidotorea** zuen: *souteneur* bat ematen zuen, edo, hobeki esan, putazain-papera egiten zuen antzezte txar bat; edo eta kale izkinako erronkajole horietako bat. **Juan Garzia**

sasidun *izond* sasiak dituena.

Kantoiari buelta eman zion, eta, pareta **sasidunen** gainetik, neskaren ahotsa entzun zuen, ehundaka ahots, eta neskarenak ziren denak, bere izena esanez, eta ehundaka izen, bereak denak. **Koro Navarro**

sasieder (*corpusean sasi-eder soilik*) iz eder faltsua.

Sasi-egiak, **sasi**-ederrak, sasi -ongiak jota eta menperatuta izaten garela aldi askotan. **Jenaro Garate**

sasiegia iz (*corpusean sasi-egia soilik*) iz egia faltsua.

Sasi-egiak, sasi-ederrak, sasi-ongiak jota eta menperatuta izaten garela aldi askotan. **Jenaro Garate**

Gibelera behatu eta anitz dira bidean utzi **sasi** egiak eta gezur perrekak. **Xabier Montoia**

sasiegitura (*corpusean sasi-egitura soilik*) iz egitura faltsua.

ELBk argi erran zuen ez zuela orain arte bezalako «**sasi**-egiturarik» onartuko. **Berria - Ekonomia**

Aitzinamendutzat jotzen duen **sasi**-egitura bat indarrean ezarriko du. **Berria - Ekonomia**

sasiegunkari iz egunkari faltsua.

-Hori **sasiegunkari** bat da, txantajea egiten besterik ez dakiena. **Lopez de Arana**

sasiejekutibo ik sasiexekutibo.

sasiekialde iz ekialde faltsua.

Euskaldunara bildu zen jendetzak txalokin adierazi zuen atsedendaldian eta amaieran gustukoa izan zuela ikusi eta entzun zuen **sasiekialdeko** eszenaratze exotikoa. **Berria - Kultura**

sasiekologista (*orobat sasi-ekologista*) iz ekologistarenak egiten dituena.

Erruduna nire adiskide txirrindulari- **sasiekologista** horietako bat izan zela aldarrikatzen zuen Ainhizek. Integrista islamikoen intolerantzia eta Greenpeaceko **sasi**-ekologisten errezeloak gañditu behar izan ditugu zuengana heltzeko. **Iban Zaldua**

sasieledun (*corpusean sasi-eledun soilik*) iz eledunarenak egiten dituena.

Herriak aukeratu ez dituen **sasi**-eledun espainolistek zabaldutako kanpaina lotsagarria. **Berria - Euskal Herria**

sasielegante *izond* sasidotorea.

Ur hauek... laster ez dira ikusiko horrenbeste zubi **sasielegante** eta modernoekin, itsasadar hau hiri honen motorra izan dela ikusi ez dutenek propio jarriak... **Paddy Rekalde**

sasielkarrizketa iz elkarrizketa faltsua.

Batzuetan harritu egin naiz jendearekin izan ditudan **sasielkarrizketa** luzeekin, txantxa giroan, ganorazko ezer esan gabe, Europako futbolariaren izenak aipatuz, ekipoak goraiapatuz eta abar. **Jon Arretxe**

sasielkarte (*corpusean sasi elkarte soilik*) iz elkarte faltsua.

Iruzur horretan tartean izan dira abokatuak, bitartekariak, ustezko enpresak prozesua hasi baino egun bi lehenago sortutakoak eta etorkinen aldeko **sasi** elkarte bat. **Berria - Euskal Herria**

sasiemazte (*corpusean sasi-emazte soilik*) iz emazte faltsua.

Azkenik, hara, ezkontza txar bat eginik bederen ezkondata hobe noski alaba, **sasi**-emaztetan baino. **Patxi Ezkiaga**

sasienpresari (*corpusean sasi-enpresari soilik*) iz enpresariarenak egiten dituena.

«**Sasi**-enpresariak» beti egin dituztela horrelakoak, baina haiek salatzearekin bat Asegarceren ekimena ere salatzendutela, «EPELen barruko enpresa bat delako». **Berria - Kirola**

sasientrenatzaile (*corpusean sasi-entrenatzaile soilik*) iz entrenatzailearenak egiten dituena.

Eta atzoko partidaren bezperan, **sasi**-entrentzaile berria aurkeztu zuen, hori ere lotsagarri utziz.

Berria - Kirola

sasiepaiketa *(corpusean **sasi-epaiketa** soilik) iz epaiketa faltsua.*

Munduko urre guztiaren truke ere ez zirela hara hurbilduko, pasatu zituzten miseria eta neke ikaragarriak gogoan: **sasi**-epaiketa lehendabizi, zeinaren ondorioz gehienak heriotzara kondenatu zituzten; "entresakak", alegia, gauero zeldetan azaldu, eta norbait aukeratzeari, hilerrira eraman eta harresiaren kontra fusilatzeke. **Ramon Saizarbitoria**

Aukeran txekak nahiago zituela, baina egia entzun gura bazuen, haietako **sasi**-epaiketak ere ez ziren ba oso fidagarriak. **Lutxo Egia**

Gurasoak elkarteak elkarretaratzea egin zuen Bilboko epaitegiaren aurrean «**sasi**-epaiketa salatzeke». **Berria - Euskal Herria**

«Oinarrizko askatasunik ez» dagoela eta aurkarien kontrako torturak, **sasi**-epaiketak eta espetxeratzeak ohikoak direla dio Alk. **Berria - Mundua**

sasierakunde *(corpusean **sasi-erakunde** soilik) 1 iz erakunde faltsua.*

Orain arte **sasi**-erakundeak emanez konformatu da Frantziako Estatuak. **Berria - Harian**

Trufa trufaren gainean, **sasi**-erakundea **sasi**-erakundearen gainean, Ipar Euskal Herria aldarririkapen fasea utzi eta egiturak eraikitzen hasi da. **Berria - Harian**

2 klandestinitatean ari den erakundea.

ETA **sasi**-erakundeak jakin-arazirik bortizkeriarri uko egiten duela Kataluñan, bainan bakarrik Kataluñan, zernahi eztabada egundainokotan sortu da horren gainetik. **Herria**

"ETA" hiru hizkiak ere idatziak zituen norbaitek bainan nehorik ez du sinesten ETA **sasi**-erakundearen egintza bat ditakeela... **Herria**

sasierantzun *(orobat **sasi-erantzun**) iz erantzun faltsua.*

Eta **sasi**-erantzun honen bitartez eman nion segida jokoari. **Joxan Elozegi**

sasierlijio *izond erlijio faltsua.*

Alabaina, filosofiak fedea bere mendekotzat hartu nahiko balu, edo ordezkatu, erlijio hori eta berari dagokion fedea pobretu eta endekatu egingo liriteke, eta **sasierlijio** bihurtu, sasijainkoak sortuz. nazismoa «**sasierlijio** bezala» aztertzea beti iruditu izan zaiolako interesgarria. **Askoren artean**

sasierlijioso *(corpusean **sasi-erlijioso** soilik) izond faltsuki erlijioso.*

Edo, zabalago esanda, zer jarrera hartu behar nuke horrelako erreakzioen aurrean, horrelako ateraldi **sasi**-erlijiosoekin gertatzen naizenean? **Bernardo Atxaga**

sasierradikal *(corpusean **sasi-radikal** soilik) izond ipar faltsuki erradikala.*

Gerra zikina (harmatua eta psikologikoa), infiltrazioa (pertsonea eta ideiena), eta mozorroketak **sasi**-radikala, sistematikoki erabiliak izan direla ikastean, hemen ere ausarki pentsatzeko beharra dugu. **Iban Zaldúa**

sasierrealista *(corpusean **sasi-errealista** soilik) izond faltsuki errealista.*

Eta ez pentsa, nik errealistatatzat zaukaat hala ere, errealistagoa beste **sasi**-errealista batzuk baino. **Mikel Hernandez Abaitua**

sasierreferentzia *(corpusean **sasi-erreferentzia** soilik) iz erreferentzia faltsua.*

Sasi-erreferentziak emateko garaian maisu, memoria apokrifikoak idatzi zituen. **Bernardo Atxaga**

sasierrepide *(corpusean **sasi-errepide** soilik) iz errepide faltsua.*

Askok hirigune esaten diete hiri erditik 20 kilometrora dauden **sasi**-errepideei. **Berria - Ekonomia**

sasierromantiko *(corpusean **sasierromantiko** soilik) izond faltsuki erromantikoa.*

Esentzialismo eta ruralismo **sasierromantiko**, ezen ez erromantiko, honen kritika -Tx. Agirre, Orixé-, euskal literaturari begira, aspalditxo, h. d., jada 1960 eta 70eko urteetan, egin zen Euskal Herrian: Varela jaunak hori ez daki, noski. **Joxe Azurmendi**

sasierudito *(corpusean **sasi-erudito** soilik) iz eruditoarenak egiten dituen.*

Bibliarekin eta Marxen *Kapitalarekin* batera, **sasi**-erudituek irakurri gabe aipatzeko eskubidea dutela uste duten hiru liburuetako bat. **Iñaki Heras**

Lehen lerroak katedratikoaren, akademikoaren, helenistaren txaloa bereganatzen du, eta are **sasi**-eruditoena, ez baitira gutxi iritzi-emaileen artean. **Juan Garzia**

sasierudizio *iz erudizio faltsua.*

Beldur naiz, beraz, **sasierudizioaren** ostentazio erretoriko bat gehiagoren aurrean soilik gaudela. **Joxe Azurmendi**

sasieskola *(orobat **sasi eskola**; Euskaltzaindiaren Hiztegiaren **sasieskola** agertzen da)*

1 **sasiekola** egin eskola huts egin.

Batzuetan **sasieskola** egin genuen, alde egin eta gerretan olgetan genuen landaren batean, edo benetako gerrari buruz berba egin genuen haren batean. **Joseba Sarrionandia**

Sasi eskola egin duten haurren familiei presio handiagoa egin nahi die lege egitasmoak. **Berria - Euskal Herria**

Broadwaya irteetan, **sasieskola** egin duen mutilaren modura sentitu zen. **Lopez de Arana**

sasiestudiante *iz eskola huts egiten duen ikaslea.*

Hala ere, ez geneukan batere presarik ikasgai haiek gainditzeko, eta **sasiestudiante** errepikatzaile nekaezin bilakatuta geunden. **Jon Arretxe**

sasieuskara *iz euskara mordoiloa.*

Sasieuskara deitzen zion hizkera horri, eta buhame linguajia, berriz, Pagolakoak. **Koldo Zuazo**

sasiexekutibo *(corpusean sasiejekutibo soilik) iz exekutiboarenak egiten dituen.*

Baserritar iganderako jantziak, **sasiejekutiboak**, adurra zerien bi gazte... **Paddy Rekalde**

sasiezagutza *iz ezagutza faltsua.*

Descartesen Meditazioen lehendabiziko helburua benetako ezagutza eta ustezkoa (**sasiezagutza**) bereiztea da. **Askoren artean**

sasieztabaida *iz eztabaida faltsua.*

EHNEk azaldu duenez, «Foru Aldundia **sasieztabaida** bultzatzen ari da, arazoa ez baita non jarriko den errauste planta, hondakinak nola tratatu behar diren baizik». **Berria**
- Euskal Herria

sasifesta *(corpusean sasi-festa soilik) iz festa faltsua.*

Aukera kaxkarra da, baina, aukeran, nahiago dut, ordea, festarik gabe elbarri bizi, herritarren erdiari giza gradua ukatzen dioten **sasi**-festetan parte hartu baino. **Joxerra Garzia**

sasifilosofia *(orobat sasi-filosofia) iz filosofia faltsua.*

Lagunak gero eta erretxinduago nindukan bere **sasifilosofia** harekin. **Aitor Arana**

Sasi-filosofia merketan abiatzeko gogorik bat ere ez, ordea. **Txillardegi**

sasifilosofiko *izond* faltsuki filosofikoa.

Pentsamendu **sasifilosofiko** haiek bueltaka buruan ikusi zuen Iturbide abokatua espaloitik hurreratzen. **Migel Angel Mintegi**

Arrazoi bakarra, arazo hau soluziorik ez duen eztabaida (**sasifilosofiko**) infinitu batean nahaspilatzeko interesa izan liteke **Joxe Azurmendi**

sasifilosofo *(orobat sasi-filosofo) iz filosofoarenak egiten dituen.*

Gogorra da nola Ortega-k hala ere guztiz onesten duen, nahiago izanez hainbat literato, sasiantropologo, historiaren **sasifilosofo** eta propagandistari jarraitu. **Joxe Azurmendi**

Sasi-filosofo trufariren bat ere izan ohi zen tartean. **Pello Zabala**

sasifin *(corpusean sasi-fin soilik) izond* faltsuki fina.

Urliain, Sandiain eta Berendiainen ezin guztiz fina izan eta ezin jarri horrelako izenburu finik; **sasi**-fina izan behar, haiek bezala, **Karlos Zabala**

sasifroga *(corpusean sasi-froga soilik) iz froga faltsua.*

Adulterioa eta atsegin greziarra (sodomia), froga zailko delituak biak, direla ohiko irizpideen arabera, aurreiritzi tiraniko gehien onartzen dutenak, **sasi**-frogak, erdi-frogak (gizon bat erdi-errugabe, edo erdi-errudun izan ahalgo balitz bezala, edo erdi-zigorgai edo erdi-barkagai). **Juan Martin Elexpuru**

sasifuturista *izond* faltsuki futurista.

Behin barruan, eszena gainean ikusten dena ez da ezertan ere desberdintzen telebistako plato batean ikus daitekeenaz: fokuak, kamerak eta gustu diskutigarriko dekorazio **sasifuturista** dira elementu nagusiak. **Berria - Kultura**

sasigaixo *iz gaixoarenak egiten dituen.*

Ez diat nahi atzean gelditutakorik, ez eta **sasigaixo** itxuratirik ere; hitaz ari nauk, Peaceful. **Mirentxu Larrañaga**

sasigaraipen *(corpusean sasi-garaipen soilik) iz garaipen faltsua.*

Teknikari mendebaldarraren **sasi**-garaipen katastrofikoaz. **Joxe Austin Arrieta**

sasigauza *(corpusean sasi-gauza soilik) iz gauza faltsua.*

Gu indeterminazioaren alde gaudela; jeneralean gauzen kontra egon ohi gara, edo **sasi**-gauzen alde (izan zitekeen astodeterminazioa, edo apodeterminazioa), edo bestela ezezkako gauzen alde. **Iñaki Segurola**

sasigaztetasun

Horien sasi-osasuna, horien **sasi**-gaztetasuna, horien emakumeak, zahartzen ari direla onartzeari ezin amore emanak, horien kosmetika baita hildakoen gorpuei aplikatua ere, eta, oro har, Herioarekin duten harreman pornografikoa. Joxe Austin Arrieta

sasigerlari

(corpusean sasi gerlari soilik) iz sasigudaria.

Zertako ez dira jende berak oldartzen ikusiz egun guziez Irak-en milaka gizonak, emazteak eta ere haurrak hiltzen, Amerikanoek edo hango bereko **sasi** gerlariek tirokatutik: ez ote du musulmano baten biziak frantses batena balio? Herria

sasigerra

iz gerra faltsua.

Behin Istanbulera ailegatuta, Ekialderantz jo beharrean Mendebalderantz abiatzea, **sasigerra** madarikatu honek ziprztinduko ez dituen Bulgaria eta Errumanian barrena. Jon Arretxe

sasigizakoi

izond faltsuki gizakoa.

Ramírez Maldonadoren jokabide itsu, iraingarri eta **sasigizakoiak** ez luke gogoetarik bat ere merezi. Txillardegi

sasigobernu

iz (corpusean sasi-gobernu soilik) iz gobernu faltsua.

Frantzia eternoarekin zerikusik ez zuen **sasi**-gobernua besterik ez zela hura arrazoitu zuen. Joseba Zulaika

sasigogo

iz gogo faltsua.

Erich Frommek aipatzen du, nolabait, **sasigogo** hau, 'sataniko' deituz. Jenaro Garate

Gezur-gogoren bat, **sasigogoren** bat jabetuko bailitzan, nolabait, maitagogoaz. Jenaro Garate

Ahuldu egiten da maitagogoia, bai gogoko zaiona nabaritzeko eta maitatzeko, baita ere **sasigogoak** uxatzeko. Jenaro Garate

sasigogoeta

iz gogoeta faltsua.

Bardemek aurten Los lunes al sol 2 estreinatu izan balu, sikiera! **Sasigogoetan** nabilela, komunisten ipuin bat (zaharra naiz, benetan) datorkit gogora bat-batean. Berria - Kultura

sasigogoko

izlag faltsuki gogokoa.

Bereizi egiten ditu erakargarrien artean, gogoko zaizkionak eta **sasigogoko** direnen artean (gero aipatuko dugu gogoko ez direnen - **sasigogoko**en - erakargarritasunaren misterioa). Jenaro Garate

Gogoan bertan azaltzen diren gogoak, **sasigogoak**. Jenaro Garate

sasigozotasun

(corpusean sasi-gozotasun soilik) iz gozotasun faltsua.

Orduan hor datorkie deabrua, eta isurtzen die **sasi**-gozotasun bat eta sasi-argi bat, hauekin liluratzen dituelarik arriskuan jartzeraino. Joan Mari Lekuona

sasigudari

(orobat sasi-gudari) iz legalitatetik at aritzen den talde armatu bateko kidea. ikpartisano; sasitalde.

Guk, zaharrek, aldi bat baino gehiagotan kantatu dugu hain famatua eta hain hunkigarria den "Le chant des partisans", **sasi**-gudarien kantua. Herria

"Gerla ttipia", erran nahi baita **sasigudari** edo "maquisards" horiena. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gerla denboran arrisku anitz hartuz loturak bazituen **sasigudariekin** eta zenbat judu haur ez ditu gorde eta salbatu! Michel Oronoz

Orduan sartu da erresistentzian, juduak gerizatu, de Gaullen anaia Suizara ereman, bultzatu gazteak ez dituen joan STO delakora, bainan joan borrokatzera **sasi**-gudarien artean. Herria

Historia hurbila [...] Frantziak galdu zuelarik Alemanen kontra eta, emeki emeki, sortu zelarik "**sasi**-gudarien" armada, askatasunaren alde eta Frantziaren libratzeko. Herria

Hainbeste fama nahasi barreiatu zituzten batzuek, hastapen hastapenetik, bai kontrabandaren aldetik, droga eta beste, bai politikaren aldetik, **sasigudari**, terrorismo eta beste; legez kanpoko edo legearen kontrako ekintzak antolatzen zirela gain hartan. Michel Oronoz

Israeltiarrek suntsitu dituzte Libanoko lurretan **sasi**-gudari batzuk ezarri muntadurak. Herria

Ipar-Irlandako David Trimble gobernuburuak bere kargua utzi du, errana zuen bezala, IRA-ko **sasi**-gudariak beren harmak ez dituztelakotz nunbait pausatu eta indargabetu. Herria

Kolonbian ere (Amerika erditsu hartan) hogeita bi laborari hil dituzte eskuinburuko **sasigudari** batzuek, beren betiko lurraren jabetasun eta holakoak direla medio. Herria

Uribe jauna, Kolonbiako presidentea harremanetan sartu dela FARC delako **sasi**-gudariekin Ingrid Betancourt eta haren adiskidearen askatzeko. Herria

Dirudianez, Kolonbiako presidentak, Uribe jaunak libratu du berrikitan **sasi**-gudari bat erakusteko nahi zuela mintzatu haren kontra jokatzeko direnekin bahituak aska ditzaten. Herria

Gero jakinen dugu txekiar **sasigudariak** gu eremaitera entseatu zirela. Michel Oronoz

Soudanafrikar herriko gobernua beti lanetan baita Darfour aldean sinatu bake haren errespeterazteko, hor oldartuak zaizkon **sasigudariekin**. Herria

sasigudu

iz gudu faltsua.

Egun batez, **sasigudu** baten ondotik hogoi soldado hil ziren eta hogoita-hamabortz kolpatu. Herria

sasigunea

iz sasiz beteriko gunea edo eremua.

Beste mila hektara ere badira itsasondoko Alpesetan erre direnak Verdon haranean; eta hor da ere bestalde, Kortsikan, Vero eskualdean erre den 1.200 hektarako **sasigunea**. Herria

sasigutxiegitasun *(corpusean **sasi gutxiegitasun** soilik) iz gutxiegitasun faltsua.*

Nire sudurra luzeskoa ote den, izan nuen horretaz kezkaeren bat edo beste nerabezaroan, baina aurrerantzean batere ez; geroztik, izan ere, emakume dexentek askatu izan bainau **sasi gutxiagotasun**-uste horietatik. **Joxe Austin Arrieta**

sasihasperen *(corpusean **sasi-hasperen** soilik) iz hasperen faltsua.*

Eta hau bezalako zauri iraunkorreakin...-**sasi-hasperen** handi bat egin zuen-, batek daki nire besoa inoiz jarriko ote den ondo berriro. **Iñaki Mendiguren**

sasihatz *iz hatz faltsua.*

Mat **Sasihatz** gizajoa eta Rowlie Sagasti eta Tom Lahar txikia hil ziren Muinoaren beste aldaparen aldekoen artean; eta Willie Banku, han goikoa, eta Habarrietako Mendibeatar bat. **Agustín Otsoa**

sasihausketa *(corpusean **sasi-hausketa** soilik) iz hausketa faltsua.*

Udaberriko gau fresko batean gauzatu zen **sasi**-hausketa. **Fernando Morillo**

sasiheroiko *(corpusean **sasi-heroiko** soilik) izond faltsuki heroikoa.*

Gorroto zuen Smith-en erromantizismo joria, haren imintzio landuegiak eta bulkada **sasi**-heroikoak, baina horrek ez zuen esan nahi ez zenik gauza berak nahi zuen estiloa imitatzeko. **Oskar Arana**

sasihildako *(corpusean **sasi-hildako** soilik) iz hildakoarenak egiten dituen.*

Akabatutako piztien parean jartzen zituelarik telebistako **sasi**-hildako haiek, lasai asko begira zezakeen pantailara. **Imanol Zurutuza**

sasihippi *(corpusean **sasi-hippi** soilik) iz hippiarenak egiten dituen.*

Politikaz mintzatu ziren autobusean, Euskal Herriko mugimendu abertzalea sendotu beharraz, [...] San Cristobalen europartasunaz eta bertaratutako **sasi**-hippien aurpegiarikotasunaz, gai batetik bestera tximinoak adarrez adar bezala igaroz. **Eider Rodriguez**

sasihistorialari *(corpusean **sasi-historialari** soilik) iz historialariarenak egiten dituen.*

Nola ez, **sasi**-historialarien artean arrakasta handia izan du hipotesiak. **Berria - Gaiak**

sasihistrioniko *(corpusean **sasi histrioniko** soilik) izond faltsuki histrionikoa.*

Elkarrizketak aurrera jarraitu zuen bizi-bizi, lehentxeago bezalako iruzkin eroz, ateraldi zentzugabez, txantxa alaiz eta bufoikeria **sasi** histrionikoz beterik. **Oskar Arana**

sasihitz *(corpusean **sasi-hitz** soilik) iz hitz faltsua.*

Adibideotan, **sasi**-hitzak erabili beharrean hutsuneak erabili behar ditugu, izenek, Aditzek, Adjektiboek eta abarrek "mugagabetasuna" edo emankortasuna erakusten dutelako, Determinatzaileek, Adizkiek eta abarrek ez bezala. **Itziar Laka**

sasihumanista *(corpusean **sasi-humanista** soilik) izond faltsuki humanista.*

Pentsatu nuen, objektuena, gauza ahaztu eta gauza galduena duk mundu hau, eta ez, ordura arte nire izaera **sasi**-humanistak pentsatzera behartu ninduen bezala, gizon eta emakumeen bizilekua. **Harkaitz Cano**

sasijabe *iz jabe faltsua.*

Zorionez, histerismoa apur bat pasatuta, nire **sasijabe** puta hura ez zen hain-hain puta izan, eta halakorik ez egiteko eskatu zien medikuei. **Jon Arretxe**

sasijainko *(orobat **sasi jainko**) iz jainko faltsua.*

Egiazko Jainkoa eta **sasijainkoak**. **Elizen arteko biblia**

Utzi egin naute israeldarek eta **sasijainkoak** adoratu dituzte. **Elizen arteko biblia**

Sasijainkoen gurtzaileek jainkozaletasuna bertan behera uzten dute. **Elizen arteko biblia**

Alabaina, filosofiak fedea bere mendekotzat hartu nahiko balu, edo ordezkatu, erlijio hori eta berari dagokion fedea pobretu eta endekatu egingo lirateke, eta sasierlijio bihurtu,

sasijainkoak sortuz. **Askoren artean**

Eta hara non orain berriro ere Europara natorren, jendez gainezkatua, **sasi** jainkoz eta zorabiatzerainoko handikeriaz bete honetara. **Patxi Zubizarreta**

Sidondarren jainkosa Astarte gurtu zuen, eta berdin Malkon ere, amondarren **sasijainko** nazkagarria. **Jose Antonio Mujika**

Sasijainkoei eskainitako haragiaz, denok dakigu, noski, jakin behar dena. **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amondarren sasijainko (4)

sasijainkoak gurtu zituzten (4)

sasijainkoei eskainiriko haragia (3); **sasijainkoei eskainitako haragia** (3); **sasijainkoei eskainitako haragirik** (3)

sasijankotu izond sasijainko biurtua.

Nor engainatu nahi dute gure heroi berri txiotxiolari **sasijankotuek**? **Karlos Linazasoro**

Izkirimirik lehen une arriskutsu hura nolabait saihesten lagundu bazioten ere, sakon-sakonean halako erredura ozpin bat jasan zuen aurkezle **sasijankotuaren** banitateak, aldartea zeharo gaiztotuko ziona. **Karlos Linazasoro**

sasijainkozale izond/iz sasijainkoen zalea dena.

Ez nintzen mundu honetako lizunez mintzo, edo hemengo diruzale, lapur eta **sasijainkozaleez**; bestela, mundutik atera egin beharko zenukete **Elizen arteko biblia**

sasijakinduria iz jakinduria faltsua.

Ezjakintasun itsua **sasijakinduria** bezain kaltegarria ez bada ere [...] gizon argitua da soberanoak nazioari eta bere buruari egin diezaiokeen oparirik zoragarriena, lege santuen banatzaile eta zaintzaile bihurtzen duena. **Juan Martin Elexpuru**

sasijakintasun (corpusean sasi-jakintasun soilik) iz jakintasun faltsua.

Baina -aitortu ezak- posea besterik ez duk, defentsa mekanismo bat, alegia, ikasleen aurrean sarri erakusten duan harrokeria eta [...] **sasi**-jakintasuna bezalakoxea. **Jokin Muñoz**

sasijakintsu (orobat sasi-jakintsu, sasi jakintsun eta sasi jakintsu) izond/iz faltsuki jakintsua; jakintsuarenak egiten dituen.

Galde diezaiogun geure bihotzari: horixe gomendatzen diet beti gure moralista **sasijakintsuei**. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Hura bai amodio haragigabe eta "platonikoa", Donostiako señorito **sasi**-jakintsuek esaten zuten bezala esateko. **Txillardegi**

Baina nondik atera da ume txirriporro **sasijakintsu** hau? **Aitor Arana**

Sasijakintsu asko baita bazterretan. **Berria - Kirola**

Gizaki ororentzat ei dela ulergarri artea, **sasijakintsuarentzat** izan ezik. **Joxe Austin Arrieta**

Alferrikako jakinguratik guztei atzera eragiteko, eta haiek **sasi**-jakintsu baino karitatez beteak nahiago zituelako. **Askoren artean**

Oker dabilta **sasi** jakintsu horiek ere; ez dakikete ber gauza direla grekozko ethnos hitzetik datorkigun "etnia" eta latinezko natio hitzak sortu digun "nazioa". **Piarres Xarriton**

Sasijakintsu kalakari eta gaitzbakoen atxikimendua. **Juan Martin Elexpuru**

Burgesak, merkataritza maltzurak, **sasijakintsu** inozoak topatuko ditu Denbak diruaren atzetik egiten dituen itzuli-mitzuli zoroetan. **Berria - Kultura**

Euskaldungoaren defentsari unibertsalismoaren aitzakiaz uko egitera behartu nahi gaituzten filosofo, soziologo, **sasi** jakintsun batzuei. **Herria**

Mario **sasi** jakintsu horietako bat delako. **Lander Garro**

sasijakitun izond/iz sasijakintsu.

Baina noski, halako mauka bat baino ez du behar kritikari **sasijakitunak**, bere argitasun zorrotza erraz azaltzeko; idazle gazte gizajo batez ari denean, bereziki. **Ramon Saizarbitoria**

Datorren sasioan non jokatu zuen pentsatzeak Osasunaren ibilbideak baino gehiago kezkatzen zuela ere entzun zuen Krutxagak Iruñeko hainbat irratia eta telebistetan, futbol partidak matematika azterketak bailliran aztertzen dituzten **sasijakitunen** ahotik. **Berria - Kirola**

sasijangarri (corpusean sasi-jangarri soilik) izond faltsuki jangarria.

Geroz eta litxarrerria (bai fast food moduko zabor **sasi**-jangarriak, baita delicatessen plegukoak ere) gehiago ekoitziko dituzte. **Edorta Agirre**

sasijaponiera (corpusean sasi-japoniera soilik) iz japoniera mordoiloa.

Stephen **sasi**-japonierazko hitz parrastadak botatzen hasi zen, "japoniar" keinuz lagundurik. **Xabier Olarra**

sasijatorri (corpusean sasi-jatorri soilik) iz jatorri faltsua.

Baina ez gaitzezen gure hitzen esanahien **sasi** jatorrietan galdu. **Pello Salaburu**

sasijudizial (corpusean sasi-judizial soilik) izond faltsuki judiziala.

Eraso mediatiko eta **sasi**-judizial izugarria. **Berria - Euskal Herria**

sasijustizia iz justizia faltsua.

Sasijustiziaren aurrean, benetako justiziaren aldeko hautua egin dezala. **Berria - Euskal Herria**

sasikapitalista (corpusean sasi-kapitalista soilik) izond faltsuki kapitalista.

Izan ere, askorentzat kapitalismoari alternatiba ere baziren enpresak, egun azal desberdineko mami bera duten enpresa **sasi**-kapitalistak baizik ez baitira. **Iñaki Heras**

sasikazetari (corpusean sasi-kazetari soilik) iz kazetariarenak egiten dituen.

Talibanei buruzko iritzia eskatu zion **sasi**-kazetariak nobel saridunari, eta hark gogoan ez dudan zerbait erantzun **Joxerra Garzia**

sasikazetaritza *(corpusean sasi-kazetaritza soilik) iz kazetaritza faltsua.*

Ezerk ez omen dio antropologiari kalte gehiago egiten **sasi**-kazetaritzak edo sasi-literaturak baino... Anjel Lertxundi

sasikiste *(corpusean sasi-kiste soilik) iz kiste faltsua.*

Zaldia gainera eroria zitzaion estropezu eginda, eta pankreako **sasi**-kiste izugarri bat garatu zitzaion. Xabier Olarra

sasiklasiko *(corpusean sasi-klasiko soilik) izond faltsuki klasikoa.*

Herri-ipuin gatz gabeak baztertu, bada, eta, ordainetan, fabula **sasi** klasiko bat kontatzen jartzen du bere seme Txomintxo. Anjel Lertxundi

sasiko 1 *izlag* ezkontzaz kanpo jaioa; legezkoa edo bidezkoa ez dena.

Ez zarete nonbait benetako seme-alaba, **sasiko** baizik. Elizen arteko biblia

Bostondarrek Hester Prynneri leporatzen zioten **sasiko** neskato bat munduratu izanaren lotsagarrikeria adulteroa. Anjel Lertxundi

Sasiko edo...: jaiotzez apalak direnak, etxe pobreakoak. Patxi Ezkiaga

Madril aldetik-eta bere jatorriaren berri galdezka etorri den asko disgustu galanta hartuta itzuli dela, espero zituen euskaldun leinargi eta aitonen semeen orde **sasiko** eta parte txarreko arbasoak aurkituta. Xabier Mendiguren Elizegi

Sasiko seme-alabei elikagaietarako eskubidea baizik ez zitzaien aitortzen. Ramon Saizarbitoria

Nola urratuko litzaidake bihotza mundu guztiak **sasikotzat** daukan nire alabak 'ama, zergatik ez dut nik aitarik?' galdetuko balit? Guraso ezagunik eta sortzaile jakinik behar ez duen sasikume delako, eta zenbat-eta **sasikoago** orduan-eta jatorrago eta ederragoa delako. Anjel Lertxundi

2 (izen gisa)

Aurpegiaratu zidan anaiak eta biok goi-mailako traizioa egina geniola eta **sasikotzat** jo ninduen eta ez legezko semetzat. Pello Lizarralde

Bankarra zen, baina bere burua Idotzingo jaun Joanese Jatsukoaren **sasiko** baten ondoko egiten zuen, Nafarroa Handikoa, beraz. Aingeru Epaltza

3 irud/hed

Espetxe onuren «interpretazio irekiegia» egitea egotzi dio Gorenari, eta «**sasiko** interes politikoei» men egitea. Berria - Euskal Herria

Horrek sinesgarritasun handiagoa eman zion informazio **sasiko** hari. Txema Ramirez de la Piscina

Antje maitea, nola gustatuko litzaidakeen zuk irakurtzen jakitea idaztea egokitu zaidan hizkuntza nazional **sasiko** honetan. Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

seme sasikoa (3)

sasikolokialtasun *iz kolokialtasun faltsua.*

Sasikolokialtasuna eta sasikomunikatibotasuna uxatu egin behar ditugu, beraz, eta non gauden, norekin gauden eta zertaz dihardugun kontuan izan. Koldo Zuazo

sasikolore *(corpusean sasi-kolore soilik) iz kolore faltsua.*

Ez zaizkit sekula gustatu arrosak eta pastelak, **sasi**-kolorezko pertsonak. Xabier Paya

sasikomiko *izond faltsuki komikoa.*

-Badirudi munduko aktore **sasikomiko** guztiak hemen jaten dutela. Lopez de Arana

-Izan ere, munduko aktore **sasikomiko** guztiak Mrs. Sunderlanden etxean bizi dira. Lopez de Arana

sasikomunikatibotasun *iz komunikatibotasun faltsua.*

Sasikolokialtasuna eta **sasikomunikatibotasuna** uxatu egin behar ditugu, beraz, eta non gauden, norekin gauden eta zertaz dihardugun kontuan izan. Koldo Zuazo

sasikoñak *iz koñak faltsua.*

-**Sasikoñaketik** kopatxo bat -agindu zuen- eta txorrotxean sartuko zara sotoan. Juan Garzia

sasikondaira *(corpusean sasi-kondaira soilik) iz kondaira faltsua.*

-Gure kondairaz idatzi eta zabaldu izan diren ipuiñ, **sasi**-kondaira eta burgeskerien ganetik, ikuspuntu zientifiko materialista batetik berraztertu behar yuagu dana, diru interesak billatuz. Txillardeggi

sasikonponbide *iz konponbide faltsua.*

Bigarren gatazkaren **sasikonponbide** hori belaunaldiz belaunaldi igarota zen, egungo mundu mendebaldartuan erlijioaren eta arrazionalismoaren gatazka konpontzeko laguntza baino eragozpen handiagoa delarik. Iñaki Mendiguren

sasikontzertu *iz kontzertu faltsua.*

Aspaldion astelehen gauetako **sasikontzertu** horietako giroan bilatzen dut babesa; badakizu, elkar ezagutu genuen lekuan. Jon Arretxe

sasikotu, sasiko(tu), sasikotzen da/du ad sasiko bihurtu.

Pertsonak **sasikotu** egin badira, menderatu baldin banaute, zeren kexu izan ninteke ni? Josu Zabaleta

sasikotza *iz* sasikoa denaren egoera.

Eta baita bere **sasikotza** aldarrikatzeko ere. **Koldo Izagirre**

sasikritikari *iz* kritikariarenak egiten dituenak.

Hortik aurrera, gainerako sasiaditu edo **sasikritikariak** maisu horien ildotik sartu dira; gehienek, maisu horiek esandakoa errepikatu dute, askotan ulertu ere egin gabe zer esaten zuten, eta bigarren, hirugarren edo are laugarren mailako iturriak erabiliz. **Jon Alonso**

sasikritiko *iz* sasikritikaria.

Poeta omen duk orain, handia gainera, beketatik eta Diario-n idaztetik bizi diren beste sasipoeta, **sasikritiko** horiek diotena sinetsiz gero. **Xabier Montoia**

sasikultu *(orobat sasi-kultu)* *iz* kultu faltsua.

Sasikultuak antolatut zituzten hiri guztietan, bai eta zaintzaileen dorreetan eta gotorlekuetan ere. **Elizen arteko biblia**

Jerusalemen ziren **sasikultuko** aldare guztiak, bai eta intsentsua erretzeko aldareak ere, kendu eta Zedron errekarra jaurtiki zituzten. **Elizen arteko biblia**

Sasikultuetako gurtzaileen aurka. **Elizen arteko biblia**

Muinoetako **sasikultuekin** sumindu egin zuten, beren sasiainkoekin jeloskor jarri. **Elizen arteko biblia**

Zeuen semeak haien alabekin ezkonduko zenituzkete, eta hauek, beren jainkoen ohorez kultura egitean, zuen semeak ere **sasikultura** erakarriko lituzkete. **Elizen arteko biblia**

Sasi -kultu-lekuetako otorduetan parte hartzen du, lagun hurkoaren emaztea desohoratzen. **Elizen arteko biblia**

Deuseztu egingo ditut zuen **sasi** -kultu-lekuak, lurrera botako zuen intsentsu-aldareak, zuen gorpuak idoloen pusken gainean pilatuko eta gaitzetsi egingo zaituztet. **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sasi kultu lekuak (5); **sasi kultu lekuetako** (4); **sasi kultu lekuetako** (4)

sasikume 1 *iz* sasiko umea.

Guraso ezagunik eta sortzaile jakinik behar ez duen **sasikumea** delako. **Iñaki Seguro**

Nafarroako Frantzisko, Pedro mariskalaren **sasikumeari** *Comentarios sobre la penitencia* (Coimbra 1542) eskaini zion hitz hauekin: [...]. **Piarres Xarriton**

Sasikumeak ez du esku hartuko Jaunaren batzarrean, ezta haren ondorengoek ere hamargarren belaunaldira arte. **Elizen arteko biblia**

Orobat, Atenasen, herriak kendu egin zituen **sasikumeak** hiritarren artetik. **Iñaki Iñurrieta**

Hainbat hiritan, nahikoa hiritar ez zegoenean, **sasikumeak** oinordeko omen ziren, eta nahikoa zirenean, berriz, ez. **Iñaki Iñurrieta**

Erantzun zioten: gu ez gara **sasikume**; aita bakarra dugu, Jainkoa. **Elizen arteko biblia**

Hala, bada, ez da ezagutzen **sasikumerik** poligamia onartuta dagoen herrialdeetan. **Iñaki Iñurrieta**

"**Sasikumeak**" esatekotan egon zen, baina bertaratuaren artean asko haietarikoak izango baitziren, hitza jan zuen. **Harkaitz Cano**

Atsoek ahots apalez iraindu zuten Prothero andrea, gezurti, ezkontza nahasle, **sasikumeen** ama, lapur zikina. **Koro Navarro**

2 (irain hitz gisa) ik putakume.

Robe **sasikume** hau! **Sonia Gonzalez**

-**Sasikumea** galanta! -esan zuen Sobakevitxek-. **Jose Morales**

Badakizu zein izango den zure patua, orain argi daukazu, **sasikume** hori. **Sonia Gonzalez**

Sasikume horri lepotik helduko banio... **Lopez de Arana**

Zer ardura dio beste **sasikume** honi norekin ibiltzen naizen edo norekin ez naizen ibiltzen. **Sonia Gonzalez**

Ziria sartu izango omen zioten, noski, bestela, **sasikume** haiek. **Joxerra Garzia**

-Niri ere utziko didak **sasikume** horri tiro egiten. **Aingeru Epaltza**

3 (izenondo gisa)

Eta etxean zegoelarik noizean behin bururutzen zitzaion bere seme **sasikumearekin** berriketan hastea. **Pello Lizarralde**

sasilatin *(corpusean sasi-latin soilik)* *iz* latin mordoiloa.

Egin ditik latinezko edo **sasi** -latinezko orazino batzuk nik ulertu ez dizkiodanak. **Joan Mari Irigoien**

sasiletratu *(orobat sasi-letratu)* *iz* ustezko legelaria.

Eguraldiak eta eguraldi maisuek, **sasi** -letratuak bezala jakintsu eta lizentziatuak, denek merezi izan dituzte bertsolarien ahaleginak. **Pello Zabala**

2 (izenondo gisa) sasijakintsua.

Euskara **sasi** -letratu, hau da, ustez-eta handinahiko hitzak erabiliz zerbait ekartzten diogula hizkerari, hori ez denean horrela gertatzen. **Pello Salaburu**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskara sasiletratu (5)

sasiletratukeria *iz* sasiletratuaren jarduna.

Hori ez da aberastasuna, hori ez da hizkuntza jakitea; petralkeria eta **sasiletratukeria** besterik ez da hori. **Koldo Zuazo**

Oraingo honetan ez da **sasiletratukeria**; aldi honetan bada aberastasuna, bada hizkuntza jakitea, bada hizkuntzarekin jolastea eta gozatzea. **Koldo Zuazo**

sasiliterario *(orobat sasi-literario eta sasi literario)* *izond* faltsuki literarioa.

Sasiliterarioa, literaturaz kanpoko beste asmoren batez egindakoa izan delako (katekesia, hizkuntza normalkuntza...). **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Arazorik gabe imajinatu ahal dut liburua aireportu eta tren geltokietako liburu dendetan salgai, itxuraz gai sakonetan arakatu baina egiatan ezertan ere sakontzen ez duten

errazkeria **sasiliterarioen** artean. Berria - Kultura

XX. mendea ondo sartu arte behintzat, euskal literatura idatzia anakronikoa eta **sasiliterarioa** izan da gehienetan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

7.023 karaktereko informazioa, Tomasi mailegatutako grabazioez baliatuta gehienbat, eta 2.098 karaktereko kronika **sasi-literarioa**, hilotzaren erreskatearen inguruko hiletagi-uro udatiarraz. Aingeru Epaltza

Elkarrizketa **sasi literario**, sasi zientifikoak. Lourdes Oñederra

Lekuz kanpoko zarata batek ildo **sasi-literariotik** iradoki ninduen. Itxaro Borda

sasiliteratura *(corpusean sasi-literatura soilik) iz* literatura faltsua.

Ezerk ez omen dio antropologiari kalte gehiago egiten sasi-kazetaritzak edo **sasi-literaturak** baino... Anjel Lertxundi

sasilizun *(corpusean sasi-lizun soilik) izond* faltsuki lizuna.

Izena daukan pentsio bakarra behintzat -keinu **sasi**-lizun bat egin zuen gizonak. Unai Elorriaga

sasilogiko *izond* faltsuki logikoa.

Argudio **sasilogikoaren** nahasmendua ongi-ongi ulertu gabe. Josu Zabaleta

sasimahasti *iz* mahasti faltsua.

Neuk landatu zintudan mahatsondo jatorrez, mahasti bikain izateko; nolatan bihurtu zara fruitu garratzeko **sasimahasti**? Elizen arteko biblia

sasimahats *(corpusean sasi-mahats soilik) iz* mahats faltsua.

Erdian talaia eraiki zuen, eta dolarea egin; mahats gozoa espero, eta **sasi**-mahatsa eman zion. Elizen arteko biblia

sasimaistra *(corpusean sasi-maistra soilik) iz* maistrarenak egiten dituen.

Ez ezazu uste ni **sasi**-maistra zorrotz mutxurdin bat naizenik... ez dut horrelakorik pentsatzerik nahi. Xabier Paya

sasimaisu *iz* maisuarenak egiten dituen.

Zuen artean ere izango dira **sasimaisuak**, doktrina kaltegarriak zabaltzen saiatuko direnak. Elizen arteko biblia

Sasimaisuok harroputz eta ausart dira: inolako beldurrik gabe, maldizioak botatzen dituzte zerutar izakien kontra. Elizen arteko biblia

Sasimaisuen aurka. Elizen arteko biblia

sasimaitagai *(corpusean sasi maitagai soilik) iz* maitagai faltsua.

Maitagogoaren sasigogoak, **sasi** maitagaiak, gezurra. Jenaro Garate

sasimaitale *iz* maitalearenak egiten dituen.

Gainera etsaia **sasimaitalearen** modura aritzen da, isilik ibili nahirik eta inoiz ez agerian. Patxi Altuna

sasimaitatu, sasimaita, sasimaitatzen *(orobat sasi-maitatu) du ad* faltsuki maitatu.

Zuzen (maitatu) ala oker (**sasi**-maitatu), beti maitatzea. Jenaro Garate

sasimaite izan du ad

 faltsuki maitatu.

Gauza bat da nondik datorkion bizitzeko gogorik ez hori: fosforo faltatik, muineko zelulak gaixotzetik, maite -edo **sasimaite** - zituen asmoak ez betetzetik, gizartearen eraketek eragindako desbideratzetik Jenaro Garate

sasimarxismo *(corpusean sasi-marxismo soilik) iz* marxismo faltsua.

Modan zegoen ultra-klasismo eta **sasi**-marxismoaren aurka, kontrakoa aldarrikatu zuen Sartrek. Berria - Harian

sasimateria *(corpusean sasi-materia soilik) iz* materia faltsua.

Ez dut esango gure espedizioa Scott kapitainak bere egunkarian deskribatu zuen hura bezalakoa izan zenik, ez baitiot erantsi nahi, orduan gogorra iruditu zitzaidanari, **sasi**-materiarik. Bernardo Atxaga

sasimatxinada *(corpusean sasi matxinada soilik) iz* matxinada faltsua.

Eskutitz faltsuen banaketa bultzatu zen Aturriko hiriburutik, azpitik sustatutako **sasi**-matxinadak eta sasi-bakezalekeriak prestatu ziren goitik behera, albiste faltsu etsigarriak hedatu ziren etengabe, mutilen gurasoengan beldurra eta etsipena erein ziren. Txillardegi

sasimediku *(orobat sasi-mediku) iz* medikuarenak egiten dituen pertsona.

Sasimedikuak dira, diote, *medicine men*. [Xabier Montoia](#)

Horixe duk osasuntsuena, Mikel, ez egin kasurik **sasimedikuei** ! [Unai Iturriaga](#)

Gure etxetik berriro iragan ziren etxeko medikua eta Uraitzeko barbera, baita bertze bizpahiru mediku eta **sasi** -mediku ere. [Joan Mari Irigoien](#)

Legeak zigortu egiten du kaleko jendeak **sasi** -mediku deitzen duenaren lana, eta Sakabian horixe egiten da, hain zuzen, medikuek sendatu ezin dutena sendatu. [Iñigo Aranbarri](#)

Ez pistola batez, noski; medikuek egiten dituzte trepanazioak, eta **sasi** -medikuek ere bai. [Unai Elorriaga](#)

Zeren zuek gezurzale baitzarete, **sasimediku** besterik ez. [Elizen arteko biblia](#)

sasimetafisiko *izond* faltsuki metafisikoa.

Esanahia ez da hitzetik harago dagoen ente psikologiko edota **sasimetafisiko** bat. [Askoren artean](#)

sasimetodo (*corpusean sasi-metodo soilik*) iz metodo faltsua.

Berez nahi gabeko haurdunaldia eragozten ez duten **sasi** -metodoak erabiltzeagatik, batez ere atzerako martxa eta egunen metodoa. [Luis Elberdin](#)

sasimilitar (*corpusean sasi-militar soilik*) 1 *izond* faltsuki militarra.

Horrelako triskantza politiko **sasi** -militarrik gure herrian bederen gerta eta gazte bakar bat erakundean ez dadin gehiago sar. [Itxaro Borda](#)

• 2 *iz* militar faltsua.

1873ko uztailaren 9 harez geroztik, Gorteko **sasi** -militarrek eta **sasi** -politikariek, eta alfer mordo zabal batek, lasai egin zuten lo beren ohe leunetan. [Txillardegi](#)

sasimistiko *izond* faltsuki mistikoa.

Bagoian bizi genuen barne-giro **sasimistiko** hura aprobetxatuz, erabaki nuen zigarrokina itsuaren esku batean itzaltzea, argi jakin zezan nork agintzen zuen han. [Karlos Linazasoro](#)

Arazoa bera da, bere izaera **sasimistiko** hori. [Jon Arretxe](#)

Kontzeptu bat, ez politiko, bai politika orenen ukaziozko, **sasimistiko**, absolutuki unamunotarra, tragedia sakro baterako bakarrik zentzuzkoa. [Joxe Azurmendi](#)

sasimoral (*orobat sasi-moral*) 1 *izond* faltsuki morala.

Berrehun urtean gudan pisua izan duten printzipio **sasi** -moraletaz askatu ahal izango gara orduan. [Iñaki Heras](#)

• 2 *iz* moral faltsua.

Horregatik, morala "razionalki oinarritzen" enpeinatu diren lehengo filosofo moralisten aurka, **sasimoral** horren genealogia bastarta saiatuko da erakusten oraingo filosofo (agian hobe: "psikologo") inmoralista. [Joxe Azurmendi](#)

sasimoraltasun (*corpusean sasi-moraltasun soilik*) iz moraltasun faltsua.

Apaltasunak badu berekin **sasi** -moraltasun eta erlijio itxura bat. [Piarres Xarriton](#)

Desira bat, haren bidez gizakiek, **sasi** -Moraltasun baten itxuran, , maizenik liskarrak eta jazarketak sustatzen baitituzte. [Piarres Xarriton](#)

sasimuga (*corpusean sasi-muga soilik*) iz muga faltsua.

Horrek muga gaindiezina tatekatu zinan gu bion artean, egungo **sasi** muga horiek bezalakoa: politika, lana, kartzela. [Javi Cillero](#)

sasimundu (*corpusean sasi-mundu soilik*) iz mundu faltsua.

Historia zaharrak aieratu ziren, gehienak mikrokosmos irrigarri samar baten ondorio zaharkituak, adabakiz jositako **sasi** -mundu baten ondare pitzatuak. [Jon Alonso](#)

sasinarratibo (*corpusean sasi narratibo soilik*) izond faltsuki narratiboa.

Hari **sasi** narratiboa. [Berria - Kultura](#)

sasineurri iz neurri faltsua.

Jasan behar ote ditut gaiztoaren etxea eta ondasunak, okerbidez eta **sasineurri** madarikatuz sortuak? [Elizen arteko biblia](#)

sasiofizial izond faltsuki ofiziala.

Bihar hasiko da Munduko Rally Txapelketa; soilik bi talde ofizial egongo dira, **sasiofizial** diren beste lau talderekin batera. [Berria - Kirola](#)

sasiogibide (*corpusean sasi-ogibide soilik*) iz

Berak ez ziguin inoiz halakorik aitortu eta oso serio ekin zion **sasi** -ogibide berriari. [Jon Arretxe](#)

sasioilar iz pertsona harrokoa.

Dendariak dira begirunez tratatzen duten bakarrak, ez kalean topatzen dituen beste **sasioilar** horiek bezala. [Paddy Rekalde](#)

sasioldartze (*corpusean sasi-oldartze soilik*) iz oldartze faltsua.

- **Sasi** -oldartze baten erasoetarik jendeak salbatu behar genituan. **Itxaro Borda**

sasiongi (*corpusean sasi-ongi soilik*) iz ongi faltsua.

Sasi-egiak, sasi-ederrak, **sasi**-ongiak jota eta menperatuta izaten garela aldi askotan. **Jenaro Garate**

sasiontologia iz ontologia faltsua.

Nietzscheke Mendebaldeko kultura eta metafisikari egindako kritika hartu dute, hala ere, Nietzscheren betiereko itzuleraren **sasiontologia** zaharkiturik gabe. **Askoren artean**

sasiordain (*corpusean sasi-ordain soilik*) iz suzedaneoa.

Gogoaren **sasi**-ordain edo suzedaneoa den helburua hilburu bat da izatez, eta bizia orduan "nere bizia" bihurtua dago, bizitza, bizi-arte edo hil-arte, hartara arteko arte edo bitarte gisa sentitzen dena. **Iñaki Segurola**

sasiordeka iz ordeka faltsua.

Cerlerren ere antzera gerta daiteke, azken mendatearen altzora iristeko 30 kilometroko **sasiordeka** gainditu behar delako. **Berria - Kirola**

sasiorgasmiko (*corpusean sasi-orgasmiko soilik*) izond faltsuki orgasmikoa.

Karisma ez da abesten den bitartean aurpegi hiper eszizatua eta **sasi**-orgasmikoa jartzea bakarrik. **Patxi Iturritegi**

sasiorko (*corpusean sasi-orko soilik*) iz orko faltsua.

Ez nukeen inoiz pentsatuko: eskualdean bertan bidelapurrekin eta **sasi**-orkekin borroka egitea... **Agustin Otsoa**

sasiosasuna (*corpusean sasi-osasuna soilik*) iz osasun faltsua.

Horien **sasi**-osasuna, horien sasi-gaztetasuna, horien emakumeak, zahartzen ari direla onartzeari ezin amore emanak. **Joxe Austin Arrieta**

sasipanfletario (*corpusean sasi-panfletario soilik*) iz faltsuki panfletarioa.

Maizegi, kapitalismoari, merkatu ekonomiarri eta merkatuari oro har egiten zaion kritika, sinplea, erabat ñabardurarik gabea, eslogan errazetakoa, are **sasi**-panfletarioa bilakatu da (hitzaren zentzu txarreanean). **Iñaki Heras**

sasiparagoge (*corpusean sasi-paragoge soilik*) iz paragoge faltsua.

Hitz bat luzatu beharrean, laburtu egin duela, gero hitz laburtu hori hitz osoaren aurrean paratuta, **sasi**-paragoge bat sortzen duela: [...]. **Iñaki Arranz**

sasipartida iz partida faltsua.

Lau aurrelariaren arteko **sasipartidaren** ordezeko Titin eta Olaizola II.aren arteko kaiola barneko desafioa primerako ikuskizuna izan zen. **Berria - Kirola**

sasipe 1 iz sasiaren azpialdea.

Sasipe ilunak txaraz eta otez! **Patziku Perurena**

Sasipeko iluntasun hartan. **Pako Aristi**

Galizian ikasi du zelatan egoten, **sasipean** ibiltzen, joan-etorrien ordutegiak kalkulatzeko, ibilbideak zehazten... basurde ehizan balego bezala. **Paddy Rekalde**

2 irud/hed

Luze gabe galdu ginen, erraten bai baina konprenitzen ez genituen hitzen **sasipean**. **Aingeru Epaltza**

Ez du eskurik doinu zuri neutro batetik haratagoko esanetan: hor ez da euskararik aharaino iristen edo esan ezinkako kinkirrin baldar batean iristen da, erdara mordo baten **sasipean** kuxkurturik gainera. **Iñaki Segurola**

3 sasipeko izlag klandestinoia.

Ruhakana Rugundu da jazarle horien buruzagia eta bada ere beste **sasipeko** gudari bat besteak ez bazalako, Joseph Kony deitzen dena eta Museveni presidentaren kontra dena. **Herria**

sasipenalti (*corpusean sasi-penalti soilik*) iz penalti faltsua.

Arbitroak **sasi** penalti bat pitatu duenean jaiki eta kanpora joan dira. **Edorta Jimenez**

sasiperatu, sasipera(tu), sasiperatzen da *ad* sasipera joan.

Adimena landu ahala, nahimena indartu ahala, oroimena argitu ahala, gogo zimeldu, agortu, ilundu, **sasiperatu** egin dakioke. **Jenaro Garate**

sasiperpaus (*corpusean sasi-perpaus soilik*) iz perpaus faltsua.

sasipluralizatzaile *(corpusean sasi pluralizatzaile soilik) iz pluralizatzaile faltsua.*

Nor eta nori nahasi gabe, behar den tokian eta unean xarmanki nork baten jartzeko gai direnak, bat-batean mingain puntara datozkien partitiboa eta **sasi** pluralizatzailea, biak batera, esku zarta batekin gaitzesten dituzte, bekatu larria dela ikasi baitute. [Pello Salaburu](#)

sasipluraltasun *iz pluraltasun faltsua.*

Erakundeek «hizkuntza **sasipluraltasunaren** mozorropean hiru hizkuntza nagusien aldeko (alemaniera, frantsesa eta ingelesera) egin asmo dutela» salatu dute. [Berria - Mundua](#)

sasipoeta *(orobat sasi-poeta) iz poetarenak egiten dituen.*

Hildakoaren etxean **sasipoetaren** bat dagoenean ederki baliatzen du aukera. [Pako Aristi](#)
Poeta omen duk orain, handia gainera, beketatik eta *Diario*-n idaztetik bizi diren beste **sasipoeta**, sasikritiko horiek diotena sinetsiz gero. [Xabier Montoia](#)
Iskilu pila bat eman behar izan diotela gutarrek Ramón Fernández Garaialde donostiar Alkate **sasi**-poeta ustelari. [Txillardegí](#)

sasipoetiko *izond* faltsuki poetikoa.

Pentsamendu **sasipoetikoak** zerabiltzan duxapean. [Unai Iturriaga](#)
Horren adibiderik biribilena euskal arropagintzak eman du, kamiseta eta alkandoretan egin ohi diren aldarri idatziak ergelkeria **sasipoetiko** bihurtuz, *loreak mendian* eta gisakoak alegia. [Berria - Kultura](#)

sasipolitikagintza *(corpusean sasi-politikagintza soilik) iz politikagintza faltsua.*

Multikopistak sartu zirenean, jaun eta jabe ginen tramankuluok sasiko **sasi**-politikagintzatik ezagutzen genituenok. [Joxerra Garzia](#)

sasipolitikari *(orobat sasi-politikari) iz politikariarenak egiten dituen.*

1873ko uztailaren 9 harez geroztik, Gorteko sasi-militarrek eta **sasi**-politikariek, eta alfer mordo zabal batek, lasai egin zuten lo beren ohe leunetan. [Txillardegí](#)

sasipolitikeria *(corpusean sasi-politikeria soilik) iz politikeria faltsua.*

Gure herriak gudariak behar ditu; eta ez **sasi**-politikeria antzua. [Txillardegí](#)

sasipornografiko *(corpusean sasi pornografiko soilik) izond* faltsuki pornografikoa.

Poema **sasi** pornografikoak egin nituen. [Berria - Kultura](#)

sasipoz *(corpusean sasi poz soilik) iz poz faltsua.*

Etsaia baldin bada, poztu egingo gara -**sasi** pozez-. [Jenaro Garate](#)

sasiprensaurreko *(corpusean sasi prentsaurreko soilik) iz prentsaurreko faltsua.*

Sasi prentsaurreko baten bidez, martxoaren 31 n, IK-k esplikatu zuen bere postura: bere ustez, abertzale munduan egoera berri bat sortzen ari da eta nahiago du debatea libre utzi haien artean. [Herria](#)

sasiprofeta *iz profeta faltsua.*

Ez fidatu edozeinekin; aztertu lehenengo Jainkoarengandik datorren ala ez, **sasiprofeta** asko sortu baita munduan. [Elizen arteko biblia](#)
Israel herrian **sasiprofetak** izan ziren bezala, zuen artean ere izango dira sasimaisuak, doktrina kaltegarriak zabaltzen saiatuko direnak. [Elizen arteko biblia](#)
Izan ere, gezurrezko mesiasak eta **sasiprofetak** agertuko dira eta aukeratuak berak ere, ahal balitz, engainatzeko moduko mirari handiak eta egintza harrigarriak egingo dituzte. [Elizen arteko biblia](#)

sasiprogre *iz progreaena egiten duena.*

Irakasle jatorrak jarri nahi nituen beste **sasiprogre** haien parean, denak berdinak ez zirela erakusteko. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

sasiprogresismo *iz progresismo faltsua.*

Egia handia da asko hitz egiten duena nabarmendu egiten dela, eta niretzat bistan gelditu zen laster batean zenbateraino zen axalekoa haien ezkertiarasuna, zenbateraino faltsua haien **sasiprogresismoa**. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

sasiproiektu *(corpusean sasi-proiektu soilik) iz proiektu faltsua.*

Eskola publikoko euskal erakasleak Ikas-ekin eskuz-esku ari direlarik, harrigarri da nola Ikas-Bi-ko buruzagiak bertze bide batetik badoazin, "**sasi**-proiektu" bat aintzinaraziz, Ikas-en kalteetan. [Herria](#)

sasipropaganda *(corpusean sasi-propaganda soilik) iz* propaganda faltsua.

Estalinismoak ezarritako estatu-erlijioak horrelako zerbait ekar zezakeela-eta, **sasi**-propagandaren moztarok moztarok, ordurako jada ekarri zuela- iruditzen zitzaion.

Fernando Morillo

sasiproposamen *(corpusean sasi proposamen soilik) iz* proposamen faltsua.

Betiko **sasi** proposamenak. **Berria - Ekonomia**

sasiratu, sasira, sasirutzen da *ad* klandestinitatera igaro.

Munduko herrialde zibilizatu guztietan gertatzen ari omen zen arimaren bazterketaz, arimaren **sasiratzeaz** (hots, *maquis*-eratzeez), etabar. **Joxe Austin Arrieta**

Bitartean Eusko Armadako soldaduek, salbu aspaldian **sasiratu** Bozek, ahalik bizitza normalena eramaten zuten. **Itxaro Borda**

sasirromantiko ik **sasierromantiko**.

sasisalbatzaile *(corpusean sasi salbatzaile soilik) iz* salbatzaile faltsua.

[Euskal gizarteak] ez du behar aberriaren **sasi** salbatzailerik, egiten duten bakarra beldurra, gorrotoa eta frustrazioa sortzea baita. **Berria - Euskal Herria**

sasisantu *(orobat sasi-santu) iz*

Filotti etxeok **sasisantu** kanpolarrosa mordo bat baino ez dira denak, Judas baino zuriagoak -oihu egin zuen mutilak. **Koldo Biguri**

Isilik gelditu ziren anaiak, **sasi**-santuak eskandaluren bat sortuko zuen beldur. **Askoren artean**

Sasisantu [...]: bere jokabide zintzoaren atzean gordetzen den putetxe-jabea. **Xabier Olarra**

sasisarrera *iz* sarrera faltsua.

Osteguneko kontzertuan jende-joera hobeza izan zen, baina Kearney andreak berehalaxe ikusi zuen **sasisarreraz** beterik zegoela aretoa. **Irene Aldasoro**

sasisentiberatasun *(corpusean sasi-sentiberatasun soilik) iz* sentiberatasun faltsua.

Bestela, **sasi**-sentiberatasunezko erasoaldiek ezustean harrapatzen gaituzte. **Itziar Otegi**

sasisesio *(corpusean sasi-sesio soilik) iz* sesio faltsua.

Ikurren ahots erretxinduek eten du **sasi**-sesioa: [...]. **Xabier Mendiguren Elizegi**

sasisilogismo *(corpusean sasi-silogismo eta sasi silogismo soilik) iz* silogismo faltsua.

Sasi silogismo baten argumentua garatuko balitz bezala, honako adibide ereduak honetan ikusten dugunez:[...]. **Iñaki Arranz**

Entimema, berriz, nolabait esateko, **sasi**-silogismoa da, silogismo tranpatia, amarruzkoa. **Joxerra Garzia**

sasisindikatu *(corpusean sasi-sindikatu eta sasi sindikatu soilik) iz* sindikatu faltsua.

EHNEk salatu du orain arteko politiken porrota estaltzeko baliatu gura duela Aldundiak **sasi**-sindikatu. **Berria - Ekonomia**

Aldundiak **sasi** sindikatu bat sortu nahi du xantaia medio. **Berria - Ekonomia**

Nekazaritza diputatua jo zuen «**sasi** sindikatuaren» bultzatzaile nagusizat. **Berria - Ekonomia**

sasisofa *(corpusean sasi sofa soilik) iz* sofa faltsua.

Bulego hitseko **sasi** sofa batean eserita zegoen Mikel, leihotik kanpora begira bigarren lehengusuari hitz egiten zionean ere. **Unai Iturriaga**

sasisoinu *(corpusean sasi-soinu soilik) iz* soinu faltsua.

Jakina, haiek paperetik jotzen zuten, eta guk berriz, **sasi**-soinua. **Iñigo Aranbarri**

sasisorgin *(corpusean sasi sorgin soilik) iz* sorgin faltsua.

Horretarako, **sasi** sorgin igarle batez baliatu zen. **Martin Anso**

sasisorketa *(corpusean sasi sorketa soilik) iz* sorketa faltsua.

Nire lagunak eta biok, eta gu biok bakarrik, jakingo genuen Pitzadura bat elur izoztuan **sasi** sorketa zela, broma baten ondorio. **Bernardo Atxaga**

sasitalde *(corpusean sasi-talde soilik) iz* legalitate at aritzen den talde armatua. ik **sasigudari**.

Aspaldian bortzikeria asko egina duen **sasi**-taldeak jakin-arazi du, hamar bat lagunek, denek beren aurpegia gorderik muntatu prentsaurreko batean, jakin-arazi beraz gauzak nola itzulikatu diren ikusi arte segurik, bortzikeria arrunt bazterrerat uzten zutela. **Herria**

lduriz, partzuer zen ixlamixta **sasi** -talde batzuekin eta menturaz joanden asteko atentadu handi horiek egin dituztenekin. Herria

Noiz nahi ba nun nahi bahiketa batzu, **sasi** -talde batzuk egiten dituztenak, nehork ez jakin xuxen erraiteko nor den talde horien buru! Herria

Hilik eta kolpaturik ez da izan bainan makur handiak ba!; gero eta usuago badira gisa hortako ekintzak, **sasi** -talde batzuk juduak arrunt begietan... Herria

sasitar 1 *izond* sasikoa, klandestinoa.

Ugarte zenbaitzuen oihan trinkoetan, aldiz, 'Hukbalahap' erresistentzia **sasitar** mugimendua izan zen ere. Ramuntxo Etxeberri

2 *iz* sasigudaria.

Txokok bazekien, oraindik **sasitarra** izan gabe, Klentteren anai bat Eusko Armadan zegoela. Itxaro Borda

Lehergailuaren sistema hobeki menperatzen ikasten du, dirua behar du funtzionatzeko (banko arrotzeak) eta antolakuntza azkar bat behar du ekintzen kudeatzeko (lehen **sasitarra**). Herria

IK-k erabakitzen du borrokaren azkartzeko **sasitarrak** ukaitea (bizpahiru kide sartzen dira). Herria

2002 ko irailaz geroz, **sasitar** bilakatu zen. Herria

Zita bat egina geneukan mendi aldean, beti mendian ibiltzen ginen garai haietan, benetako **sasitarrak** ginen, bera zen karriketan lasai ibiltzen zekien bakarra. Koldo Izagirre

sasitegi *iz* sasitza. • *irud/hed*

Halakoak jo beharko zituen " **sasitegi** hartan"; tangoa Buenos Airesko *Maria la Vasca*-ren burdelean berritu zen bezala berritu zen Eibarko Petrarenean gure soinu txikiaren errepertorioa. Koldo Izagirre

sasiteilatu (*corpusean sasi-teilatu soilik*) *iz* teilatu faltsua.

Sasi -teilatu gorria du; eta atearen gainean, uztai itxuran, Baltza hitza irakur daiteke. Txillardegi

sasitekniko *izond* faltsuki teknikoak.

Funtsean hitz horietan oinarri **sasiteknikoak** ageri dira, zentzurik gabekoak, eta argiki erakusten dute epaile horrek ez duela ongi ezagutzen tokiko errealitatea. Berria - Euskal Herria

sasiteoria *iz* teoria faltsua.

Nire **sasiteorien** kontrako irakurlerik sutsuena ere komentzi dezakedala uste dut datu batzuekin. Berria - Kirola

sasitresna (*orobat sasi-tresna eta sasi tresna*) *iz* tresna faltsua.

Funtsezko tresna estrategikoen aldarrikapenaren ordez **sasi** tresnen eta bide faltsuen irekitzea. Berria - Euskal Herria

Botere publikoek sortuko duten Interes Publikoko Elkarteari «**sasitresna**» deritzo EHEk, ez diolako ofizialtasunik aitortzen euskarari. Berria - Euskal Herria

Egiturazko arazoak eta **sasi** tresnak. Berria - Euskal Herria

Oraingoan ere Frantziak **sasitresnak** proposatuko ditu, ez duelako arazoei egiazko konponbiderik emateko borondaterik. Berria - Euskal Herria

Xabi Larralde Batasuneko bozeramaileak Frantziako Estatuak eskaini «**sasi-tresnak**» salatu zituen. Berria - Euskal Herria

Bitartean, egungo ildo beretik lanean jarraitzearen beharraz ohartarazi zuen Agerrek, «gure tresnak eraikitzen segi dezagun, Sarkozyren **sasitresnei** aurre egiteko». Berria - Euskal Herria

sasitribuna *iz* tribuna modukoa.

Bigarren Etorbideak Houston Street-ekin bat egiten duen kale-kantoian, Cosmopolitan kafetegiaren aurrean, gizon bat garrasika ari zen **sasitribuna** batetik: [...]. Lopez de Arana

sasitsu 1 *izond* sasiz betea.

Eguzkiak argiturik, oihan **sasitsua** zabaldu egiten zen leku batzuetan, eta bere barrunbeak erakusten zituen, itzaltzu, laiotz, piztia baten ahutz ilunak bailiran. Jose Morales

Hiru edo lau abeslari lurrera erori ziren, eta gainerakoak, malkar **sasitsuen** artetik salto eginez, ihesari eman eta tiroka hasi ziren. Koro Navarro

2 *irud/hed*

Neurologoaren bizitza ez da zientzialariarena bezain sistematikoa, baina ustekabeko egoera berriak ematen dizkio, naturaren izate korapilotsura irekitako leiho edo zelata-zulo bihur daitezkeenak: batek ezingo luke aurrez ikusi bizitzaren ibili normalean korapilaketa **sasitsu** hori. Xabier Olarra

sasitu, sasi(tu), sasitzen 1 *da/du ad* sasiz bete, sasiak jana gertatu.

Eremu horiek laster **sasitzen** ahal baitira. Herria

2 (era burutua izenondo gisa)

Baratze **sasitu** bat dirudi. Koldo Izagirre

sasitza 1 *iz* sasiz beteriko eremua. ik **sasidi**; **sasiarte**.

Zapi batean bildurik, eliza osteko **sasitzan** ezkutatu zuen. Unai Iturriaga

Orbelez estalitako **sasitza** bat zabaldu zen haien aurrean, eta piztia erraldoi bat, gutzia grisa, atera zen eta ihesi abiatu zen basoan zehar. Josu Zabaleta

Erreka ertzeko **sasitza** batean ezkutatu zuen Mobylettea eta oinez abiatu zen errepide jeneralaren ertzetik, eskuak zimur-maxkal eta prakak astun. Unai Iturriaga

Alde bietako **sasitza** sarriaren ondorioz hartxintzarrezko bidea xendra bihurtzeraino estutzen zen. Anton Garikano

Laket ditu Argosek harainoko bidean aurkitzen dituenak, **sasizetako** hegaziak, zaldi eta behien gorotzak eta, batez ere, bere pausoaz azkarrarazten dituen ardi izutiak. Hasier Etxeberria

Morgaiko arroletan, haranaren beste aldean, zuhaitz baxu eta txepelek sendo heltzen zioten lurrari, belar grisetako sasiak harrien kontra egiten zuen borroka, eta **sasizetan** kiribilduriko liken idorrak eta lahar handiak edonon hasten ziren bihurriturik. **Agustin Otsoa**

Burutik jotako gizaseme azal-ilun batek [...] lana eman zion emakumea erail zuen, eta izua barreiatu zen **sasitzan** sua bezala. **Mirentxu Larrañaga**

2 irud/hed

Dena dago, trufaz irri egiten duen Odry barne, **sasitzazko** ileorde baten azpian. **Koldo Izagirre**

Zibilizazio garaikideen arteko topaketen azterketari ekitean, labirinto historiko ikaragarri nahasiaren aurrean aurkitzen gara, eta, **sasitza** horretan murgildu aurretik, [...].

Iñaki Mendiguren

Gaszte jendeari dagokion axolagabekeria-puntu harroaren **sasitza** gainditzen zuen berak bihotz zabaltasunez. **Berria - Kultura**

sasitze *iz* sasitsu bihurtzea.

Sasitze horrekin bazterra kanbiatzen... **Herria**

sasiumaldi *(corpusean sasi-umaldi soilik) iz* sasiko umaldia.

Ez zarete, bada, zeuek ere bekatukume eta **sasi**-umaldi? **Elizen arteko biblia**

sasiunibertsalismo *iz* unibertsalismo faltsua.

Erlatibista juridikoez (Gustav Hugo, Friedrich von Savigny, Rudolf von Jhering-ek) eta marxistek lege naturalaren **sasiunibertsalismoa** kritikatu zuten. **Askoren artean**

sasiunibertsitari *iz* unibertsirariarenak egiten dituenak.

Urte mordo pasatua zuten hirurek dagoen karrerarik laburrena presa barik ateratzen, eta titulua lortu ondoren, ganorazko lana bilatzeari ekin beharrean, nola edo hala moldatu ziren eskolan bertan bekadun lana lortzeko, **sasiunibertsitari** bizimodu patxadatsua luzatzearen. **Jon Arretxe**

sasiunibertsitate *(corpusean sasi unibertsitate soilik) iz* unibertsitate faltsua.

Euskal Herrian dauden eta egongo diren unibertsitate eta **sasi**-unibertsitate multzoari Euskal Herriko Unibertsitatea izena emango diogu. **Berria - Euskal Herria**

sasiurrats *iz* urrats faltsua.

Zibilizazio filiala Elizatik urruntzea Elizak egindako **sasiurratsei** zor zaie, eta horiek "lurrean militatzeko" helburuarekin erlijioaren espiritua eliz erakunde baten gorpuztearen ezinbesteko ondorio dira. **Iñaki Mendiguren**

Hiru motatako **sasiurratsak** aipatzen dira: (I) inperialismo politikoak agintari sekularrak iraintzeko arrazoizko zioa ematen du, eskusartzea iruditzen baitzitzairen beren eginbeharren egikaritzan; (II) [...]. **Iñaki Mendiguren**

sasiyuppy *iz* yuppiarenak egiten dituenak.

Sasiyuppi guztiak hain gogoko dituzten forma anglo horietako bat. **Unai Iturriaga**

sasizen ik sasi-izen.

sasizientifiko *(orobat sasi-zientifiko eta sasi zientifiko) izond* faltsuki zientifikoa.

Ez zegoen arrazoirik uste izateko, arrazoi **sasizientifikoetan** oinarrituta, beste zibilizazio guztiak desagertuta zeudelako edo desagertzen ari zirelako, Mendebaldean behartuta zegoenik bide berari jarraitzea. **Iñaki Mendiguren**

Arrakasta horren aurreneko zioa -dio- bere sinplismo **sasizientifikoa** da, bere sinplismoagatixe jende asko ustebetetzen duena. **Joxe Azurmendi**

Nahiz eta han-hemenka sarritan aipatua izan eta ikerketa **sasi**-zientifikoek sakratu bihurtu-. **Karlos Zabala**

Baieztapen **sasi**-zientifikoaren eta ondorio azkarregien tentaldian ez erortzeko. **Lourdes Oñederra**

Hizkuntza **sasi** zientifiko hori baldarregia irudituko zaie zenbait autore kritikori. **Askoren artean**

Unibertsitate publikoan *Artearen historia* lizentziatura berriak ezin izan dio erantzun gizarteak behar duen alde dibulgatiboari eta Espainiako eredu **sasi** zientifikoa jarraitu du.

Berria - Kultura

Elkarrizketa **sasi** literario, **sasi** zientifikoak. **Lourdes Oñederra**

sasizientzia *(orobat sasi-zientzia eta sasi zientzia) iz* zientzia faltsua.

Utzi alde batera fedearen kontrako berriketa hutsalak eta **sasizientziaren** argudioak. Eguzkirat eta eurirat itzulirik, berehala erranen dizut zein den errealitatearen eta poesiaren arteko aldea, edo zientziaren eta **sasizientziaren** artekoa. **Elizen arteko biblia**

Beraz, ekonomia, zientziaren eta artearen artean dagoen jakintza esparru bat da; **sasi**-zientzia bat, Samuelson eta Nordhaus-en hitz zatarretan esateko. **Iñaki Heras**

Zeren haien jakintasunak zientzia ez zen **sasizientzia** baitzuen harroin, baliatzen zirelarik, hartarakotz, hainbat iduri sakratuz [...] edo osabarentzat oinarri zientifikorik ez zuten sinbolo numeriko eta geometrikoen. **Joan Mari Irigoien**

Linbo moduko batean egon da harrezkero, poeta handi baten ateraldi xeble baten edo **sasi**-zientzia gisako baten pare. **Xabier Olarra**

Anatomia patologikoaren gisako diskurtsoak sorrarazi ditu, eta handikeria litzateke, zalantzarik gabe, hauei **sasi** zientzia izena ematea. **Xabier Arregi**

Herria gobernatzeko, administrazioa bideratzeko, baina ez **sasi**-zientzia zerbaite aldarrikatzeko edo mugatzeko, ez historiari aritzeko, izatekotan historia ikasteko. **Berria - Kultura**

Sasizientziaren zenbait jarraitzaile aldendu egin baita fede-bidetik. **Elizen arteko biblia**

sasizuberotar *izond* faltsuki zuberotarra.

Ni teledendako iragarki abailgarriak ikusten eta azpian hankapalo Benito Lertxundiren doinu **sasizuberotar** guztiak entzuten: arima biki bi, nor bere oinazearen kuskuan

saskel ik saskil.

saski 1 iz gauzak eramateko ontzia, berez zumitzez egina, gehienetan euskarririk gabea. ik [otarre](#); [zare](#); [otzara](#).

Asetzeraino jan zuten denek, eta gelditutako hondarrez hamabi [saski](#) bete zituzten. [Elizen arteko biblia](#)

Lepoan [saski](#) bat zeraman zamaketari bat igaro zen, bizkarra oker-oker eginda zamaren azpian. [Koro Navarro](#)

Papera zimurtu, mezuari kasurik egin gabe, eta [saskira](#) bota zuen. [Jon Alonso](#)

Haiek [saski](#) batean ipini, eta Aladinen jauregira jo zuen. [Patxi Zubizarreta](#)

Eseri orduko, afari oparoa atera zuten [saski](#) batetik. [Alberto Ladron Arana](#)

[Saskiek](#) bazuten enplegu nasaia, hala nola Pasaiako portuan: arrainak [saskietan](#) ezartzen ziren itsasuntziarik deskargatzerakoan. [Herria](#)

Sardinazarez beteriko [saski](#) bat lurrera bota baitzuen ukondo kolpe batez. [Karlos Zabala](#)

Katu siamesek beren [saskietan](#) eroso etzanda zurrunga ezia egiten zuten. [Matías Múgica](#)

[Saski](#) batean leihotik eraitsi ninduten harresian behera. [Elizen arteko biblia](#)

Txoriak zebiltzan, gozokiei mokoka, nire buru gaineko [saskian](#). [Jose Antonio Mujika](#)

Ondoan hiru asteko haurra zeukan, anega bateko [saskian](#). [Anton Garikano](#)

-Zer ikusten duzu, Amos? -galdetu zidan. -[Saskia](#) bete fruitu heldu -erantzun nion. [Felipe Juaristi](#)

Zure erradiadoreak [saskia](#) balitz bezalaxe galtzen du. [Josu Zabaleta](#)

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Kale saltzaileek beren postuak prestatu berriak zituzten, ohol batzuk [saski](#) handien gainean paratuz. hor, muinak, [saski](#) apaletan kontu handiz utzita; han, gibelak, odola zeriela. [Karlos Zabala](#)

[Saski](#) luzexkoak eta otzara motzak errenkadan jarrita zeuden, oihalez edo lastoz estalirik. [Karlos Zabala](#)

Emakume batzuk eserita zeuden lorez betetako [saski](#) karratu batzuen atzean. [Karlos Zabala](#)

Hegazti bizien kaiolak eta hegazti hilen [saski](#) karratu azpi-sakonak zorian deskargatzean. [Karlos Zabala](#)

Astean behin, portura hurbiltzen ziren bildu zituzten arrainak bi [saski](#) alimalekotan eramanez eta, gauza harrigarria, berehala saltzen zituzten. [Elena Touyarou](#)

Txintik atera gabe, bere enkarguaren seinale bakartzat besoko [saskia](#), herrira joaten zen, behartsuengana. [Anton Garikano](#)

Katutxo bat, txiki-txikia, ia jaioberria, zumezko [saski](#) barrubigun batean gorde eta biberoi esneaz elikatzen zutena. [Berria - Kultura](#)

Zumezko [saski](#) handi bat atera zuen arrastaka. [Koro Navarro](#)

Zumitzezko [saski](#) bat hartu, haren zirrikituak galipotez eta bikez estali, eta han sartu zuen haurra. [Jose Antonio Mujika](#)

Bere gurdiairen ondoan zebilen, esne botilez beteriko alanbrezko [saski](#) bat eskuan balantzaka zerabilela. [Lopez de Arana](#)

Atusa eta Mecautoko beharginek dirua bildu eta euren gabonetako [saskiak](#) emango dizkiete opari. [Berria - Ekonomia](#)

3 (neurri gisa) ik [saskikada](#).

Nik neure ametsean hiru [saski](#) opil neuzkan buru gainean. [Karlos Zabala](#)

Louiseren amak oraindik kontaktzen zuen nola iritsi zen Parisa, [saski](#) bat aingira besapean. [Karlos Zabala](#)

La Sarriette oroitzen zuten aurreko astean [saski](#) bat mertxika lapurtu ziotela. [Karlos Zabala](#)

Irin garbiz eginiko legamigabeko [saski](#) bat ogi. [Elizen arteko biblia](#)

Bi [saski](#) bete gereziri hezurak kendu behar izan genien bulegorako. [Josu Zabaleta](#)

Hala joaten zen aldirietako bidean barrena, [saski](#) bat ogi malgu zeramala zerbitzarien etxera. [Juan Garzia](#)

Goizero amak [saski](#) bat bete ogi eta sagar edo gaztainaz beteriko poltsatxo bat ematen zidan. [Koldo Biguri](#)

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kirol zelaira zuzenki iristen zen argiak aparteko zehaztasuna ematen zien txirristei, [saski](#)-zutabeei, lurreko marrei. [Bernardo Atxaga](#)

Beheko gizonak [saski](#) pila kulunkatu eta abiada hartu behar zuen, goiko lagunari botatzeko. [Karlos Zabala](#)

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Erosketa [saskia](#) merkatuko dut. [Berria - Euskal Herria](#)

Soineko marguldu batez jantziarik zegoen, betiereko esku [saski](#) beltza besoan. [Karlos Zabala](#)

Egun guztia ematen zuen batetik bestera errosketak egiteko aitzakiarekin, esku [saskia](#) hutsik aldean. [Karlos Zabala](#)

Aziendari bizkarrean jartzen zaizkion asta-[saski](#) haien antzera. [Pello Zabala](#)

Oila-lokak beren lanean ziharduten mandioko bazterren batean, ilunxko zegoen txokoan, lepa-[saskiren](#) baten pean. [Pello Zabala](#)

Merkantzi [saskiei](#) sorbalda kolpe batez erortzen lagunduz. [Karlos Zabala](#)

Batera eta bestera zabuka darabil hornizio [saskia](#). [Josu Zabaleta](#)

Egun batean, aita, Donibane-zuhaitzaren puntaraino igo ondoren, elikagai-[saskia](#) hartu gabe jaitzi zen. [Joseba Urteaga](#)

Itsasotik ekarritako arrain [saskiak](#) zurezko kutxa garai leporaino beteetan garraiatuz. [Karlos Zabala](#)

Opil [saski](#) batzuk ekarri zituzten. [Juan Garzia](#)

Mrs. Densch isilik ari zen negarrez, burua fruta-[saski](#) baten gainean bermaturik. [Lopez de Arana](#)

Merkatu nagusiaren inguruetako bankuetan hainbat saltzaile esertzen ziren, limoi [saski](#) banarekin. [Karlos Zabala](#)

6 irud/hed

[Saskian](#) aurkitutako pilotekin gustura gelditu ziren Olaizola I.a eta Ruiz; ez, ordea, Olaizola II.a eta Beloki. [Berria - Kirola](#)

[Saskian](#) jasotako piloten artean bi aukeratzeko lanean Ladis anaia izan zuen lagun. Baina bere ideia distiratsua ez du ahanzturaren [saskira](#) bota nahi. [Berria - Kirola](#)

Ximurrarekin erreta egoteko arrazoien [saskia](#) muku neukan. [Aingeru Epaltza](#)

7 (saskibaloikoa)

[Saskiak](#), markagailuak eta bestelakoak Casilla kiroldegitik eramango dira BECera. [Berria - Kirola](#)

Errebotean ere aise nagusitu zen bi [saskietan](#). [Berria - Kirola](#)

Dena den, burua ondo estaltzeak oinak airean uzten ditu eta gasteiztarren talde lanak [saski](#) azpiko zuloa bilatu beharko du. [Berria - Kirola](#)

Aurreko partidatan [saski](#) barruan bukatzen zuten jaurtiketa argiak ez ziren sartu hasiera batean. [Berria - Kirola](#)

Egin zituzten jaurtiketa gehienek [saski](#) barruan bukatu zuten. [Berria - Kirola](#)

Oholtzak gillotina bat zuen erdigunean, eta, aldeetako batean, saskibaloitaula bat, bere [saskiarekin](#). [Joan Mari Irigoien](#)

3.500 etxebizitza dago auzo honetan, eta bi saskibalo [saski](#) besterik ez dugu. [Berria - Euskal Herria](#)

Egoera aldatzeko Estudiantes zonakako defentsan jarri zen, eta baloia ondo mugitu ondoren, Prigionik eta Macijauskasek hirukoz josi zuten aurkariaren [saskia](#). [Berria - Kirola](#)

8 [saski-naski](#) (4 [agerraldi](#), 3 [liburu](#) eta [artikulu](#) 1ean; orobat [saski-nahaski](#) 4 [agerraldi](#), 4 [liburutan](#))

Bake Plana «**saski-naski**» bat dela iritzi zion, «terrorismoaren biktimak eta frankismoarenak, Zuzenbide Estatua eta ETA» bezalako gaiak nahasten dituela irizita. Berria - Euskal Herria

Euskal Herria

Saski-nahaski baten irudi, guztiz ezberdinak diren eta elkarren antza ez duten prozeduren nahasketa korapilatsu baten aurrean gaudela ematen du. Iñaki Arranz

Saski-naski gordin horren artetik, beste ezeinen antzik ez duen forma bat ontzeko osagaiak bereizten ditu biografoak. Juan Garzia

Arabiar literaturako genero ospetsua, **saski-nahaski** gisakoa. Xabier Kintana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hamabi saski bete (4); **saski banarekin** (3); **saski barruan** (3); **saski bat eskuan** (3); **saski baten gainean** (3); **saski bete zituzten** (4); **saski handi** (5); **saski handi bat** (3); **saski nahaski** (4); **saski naski** (4); **saski txiki** (3); **zumezko saski** (3)

saskia besoa (3); **saskia bete** (3); **saskia hartu** (4); **saskia ikusi** (3)

gabonetako saskiak (3); **saskiak egiten** (3)

saskian aurkitu (4)

saskira bota (4)

saskitik gertu (5); **saskitik urrun** (4)

saskibalo*i* (*orobat saski baloi g.er.*) **1** iz bosna jokalariz osaturiko bi talderen artean jokatzen den kirola, baloi bat, eskuekin jaurtirik, aski gora dagoen saski batean sartzean datzana; kirol horren jarduera.

Hamasei urte nituela, **saskibaloian** jokatzen nuen. Ana Urkiza

Giza ixuratik zipitzik ez duten zomorro batzuek ageri dira, **saskibaloian** jokatzen. Pako Aristi

Kirola nahi ez dela egiten da: ni **saskibaloian** aritu nintzen. Joxerra Garzia

Europako **saskibalo***i* onena Europako pabiloi onenetako batean bilduko da ostiraletik aurrera. Berria - Kirola

Euskal Herriko **saskibalo***i* profesionalak bere historiako garai gozoenak bizi ditu. Berria - Harian

Igandekoa euskal derbia baino gehiago izango da, Euskal Herriko **saskibalo***ia*ren festa izango da. Berria - Kirola

Saskibalo*o* jokalaria imitatuz, hiru bat metrora zeukan paperontzira bota zuen. Pedro Alberdi

Bestela, nola uler daiteke Asiako talde bat Europako **saskibalo***o* talde indartsuenen artean egotea? Berria - Kirola

Itxaron gela txiki bat ikusi zuen, eta familia bat hantxe, zumezko aulkietan eserita, gizon bat alkandora kakiz jantzita eta **saskibalo***o* txano bat buruan atzekoz aurrera jarrita.

Koro Navarro

Bosgarren baloia hartu du, **saskibaloian** erabiltzen duten horietakoa. Jokin Urain

Egiten duten **saskibalo***a*, gainera, ez da ohikoa. Berria - Kirola

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

New York Knicks **saskibalo***i* taldeak NBAko finala galdu du San Antonio Spursen kontra. Harkaitz Cano

Tau eta Pamesa **saskibalo***i* taldeetako elastikoak. Berria - Ekonomia

Egun, Olinpiar Jokoetan dopin analisiak egin ez dituen talde bakarretakoa da AEBetako **saskibalo***i* selekzioa. Berria - Kirola

Saskibalo*i* zelaian agertu berri zen itzal batek itauntzen zidan. Sonia Gonzalez

Bizkaia Arena **saskibalo***i* pabiloi bihurtzeko muntaia lanak iragan astelehenean hasi ziren. Berria - Harian

BEC erakustazoka bat da, ez **saskibalo***i* kantxa bat. Berria - Kirola

Gasteizko taldearen eta munduko **saskibalo***i* liga indartsuenaren artean harreman bitxia dago. Berria - Kirola

Aita **saskibalo***i* jokalaria izan zen, eta 6 urte besterik ez zituela hartu zuen baloi bat esku artean Ipiranga **Saskibalo***i* Klubeko eskolan. Berria - Kirola

Bordeleko talde baten kontrako **saskibalo***i* partida jokatu genuen. Ana Urkiza

Izan ere, eskolako **saskibalo***i* saskietako baten azpian zegoen. Berria - Mundua

Oholtzak gillotina bat zuen erdigunean, eta, aldeetako batean, **saskibalo***i* -taula bat, bere saskiarekin. Joan Mari Irigoien

Europako **Saskibalo***i* Federazioak maila berean jartzen ditu EBko eta EBtik kanpoko jokalaria europar guztiak. Berria - Harian

3 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Eskubalo*i* edo **saskibalo***i* kirol zelai handi bat. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

munduko saskibalo*i* liga (3); **nafarroako saskibalo***i* (3); **saskibalo***i* federazioak (4); **saskibalo***i* jokalar*i* (4); **saskibalo***i* jokalaria (5); **saskibalo***i* kantxa (3); **saskibalo***i* liga (4); **saskibalo***i* ona (3); **saskibalo***i* onena (3); **saskibalo***i* partida (7); **saskibalo***i* partida bat (3); **saskibalo***i* partidak (3); **saskibalo***i* profesionalean (3); **saskibalo***i* talde (5); **saskibalo***i* taldea (6); **saskibalo***i* taldeak (4); **saskibalo***i* taldeko (7); **saskibalo***i* txapelketa (3)

goi mailako saskibalo*a* (3); **maila handiko saskibalo***a* (3); **saskibalo***ia* egiten (3)

egungo saskibalo*ak* (3)

gaur egungo saskibalo*ian* (3); **saskibalo***ian* jokatzen (6)

europako saskibalo*ia*ren (13); **europako saskibalo***ia*ren histor*ian* (3); **saskibalo***ia*ren jaia (3)

saskibalo*ilari* *iz* saskibaloian jokatzen duen kirolaria.

Futbol-izarrak ez ezik, beste kirolari batzuk ere bazeuden: txirindulariak, tenislariak, **saskibalo***ilariak* ... baita politikariak -Pujol, Maragall, eta abar- eta beste alor batzuetako gizon ospetsuak ere. Joan Mari Irigoien

saskibalo*izale* (*corpusean saskibaoi zale soilik*) *iz* saskibaloiaren zalea dena.

Lagun Aroko Xabier Jon Davaillo presidentek Euskal Herriko **saskibalo***izaleen laguntza eskatu zuen, «historikoa izan daitekeen data egia bihur dadin Datuek agerian uzten dute pibot argentinarren maila bikaina: denboraldiz denboraldi markak apurtzen joan da, **saskibalo***izale* guztien onerako. Berria - Kirola*

Ez zegoen eguna ekitaldi sozial askotarako, baina **saskibalo***izaleek huts egin ezinezko hitzordu bat zuten Fernando Buesa Arenan: Baskoniaren eta Panathinaikosen arteko Euroligako norgehiagoka. Berria - Harian*

saskidun *izond* saskia duena; saskiak dituena.

Kalekkak estuak ziren, bi asto **saskidun** ozta-ozta gurutzatzeko modukoak; etxeak, nahiko altuak eta ia leihorik gabeak. Bernardo Atxaga

saskiegile ik **saskigile**.

saskigile *(orobat saskigile g.er. eta saski egile g.er.) iz saski egiten dituen eskulangilea.*

Saskigileak omendu dituzte Igantzin, horietan Jesus Mari Sein Igantziko azken **saskigilea** . **Herria**
Jesus Mari Sein beldur da haatik **saskigile** ofizioa ez ote den berarekin itzaliko. **Herria**

saskika *adlag* saski beteka.

Halaxe lagundu genion, gustura lagundu ere, arratsalde pare batez, artean teologia ikasle ginenok, saski ttiki edo kopa **saskika** lurra goi-goiko porlan-zoko hartaraino igotzen. **Pello Zabala**

saskikada *iz* saski betearen edukia. ik **saskitara; saski 3.**

Jaunak bi **saskikada** -piku erakutsi zizkidan, tenplu aurrean ezarriak. **Eiizen arteko biblia**
Onddori balego, senarra herrira arratsalderen batean hurbildu eta **saskikada** eder bat bilduta itzultzeko... **Jon Alonso**
Margaretek **saskikada** handi bat bete zuen jatekoz eta edatekoz, guretzako eta konpartimentuko gainerako bidaiarientzako adina. **Xabier Olarra**

saskil *(corpusean saskel soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian saskil agertzen da)* **1 izond** zikina, narrasa, arlotea.

-Zalamandrana **saskela** ! **Patxi Zubizarreta**
Baina Europako egunkari guztietan Portas lotinanta torturatzailer legez ageri den arren, zu ez zara morroi **saskel** bat besterik. **Koldo Izagirre**
-Beti izan zara txarri **saskel** itzela! **Sonia Gonzalez**

2 (izen gisa)

-Ni banao leku zikin honetatik, **saskelak** baino ez daude. **Sonia Gonzalez**

saskipe 1 *iz* saskiaren azpialdea.

Oila-loka jaiki eta berriz **saskipean** jartzean, hartu bera eskuetan eta hiru gurutze arrautzen gainean eragiten zaizkio. **Pello Zabala**

2 saskibalo saskiaren azpialdea.

Erusiarrek ez dute baliabide gehiegi **saskipea** ondo ixteko, eta Scolak garrantzi handia izan dezake hor. **Berria - Harian**
Tituluak norberaren **saskipea** ondo zainduta hasi behar dira eraikitzen. **Berria - Kirola**
Partidako minutu guztietan zehar burua argi edukitzeaz gain, jokoa **saskipean** oinarritu behar du Tauk. **Berria - Harian**
Defentsa dute ardatz, baina talentua ere bai: Billups eta Hamilton apartak dira, Prince beso-luzea jokalar osoa eta Wallacetarrak, Rasheed eta Ben, ederki moldatzen dira **saskipean** . **Berria - Kirola**
Pelaezek 23 puntu lortu zituen, Pagek 16 puntu eta zortzi errebote eta Ferragut ere txukun aritu zen **saskipean** : zortzi errebote. **Berria - Kirola**
Fuenlabradaren bertute nagusiak talde jokoa eta **saskipeko** defentsa gogorra dira. **Berria - Kirola**
Hutsune adierazgarriena greziarren **saskipeko** jokoa da. **Berria - Harian**

saskiraezin *izond* ezin saskibaloian,nsaskiratuzkoa.

Bilbao Basketen erasoak zaitatik lau metrora eginiko Scotten jaurtiketa behartuekin eta baloi jabetza denboraren amaieran jaurtitako hiruko **saskiraezinekin** amaitu ziren. **Berria - Kirola**

saskiraketa *iz* saskibaloian, baloia saskiratzea.

Lakers ahaltsuak ozta-ozta irabazi zion Houstoni, 72-71, O'Nealen **saskiraketa** bati esker. baloia modu egokian jasotzen duenean, jokaldia bi modutan bukatzen da: **saskiraketa** edo falta. **Berria - Kirola**
Barrutik, kanpotik, bi puntuko **saskiraketak** , hirukoak... kolore guztiko **saskiraketak** lortu eta 12 punturekin Skipper txikitu zuen. **Berria - Kirola**
Macijauskasek ere kanpoko lerrotik lagundu zuen ezinezko **saskiraketak** lortuz. **Berria - Kirola**
Hasiera batean Dusko Ivanovicek nahi zuen hegaleko altuaren tankera ez duen arren, laguntza polita eman diezaioke taldeari **saskiraketetan** . **Berria - Harian**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hiruko saskiraketa (3)

saskiratu, saskira(tu), saskiratzen **1 du ad** saskibaloian, baloia saskian sartu.

Prigionik, Jacobsenek eta Hansenek defentsa estu hori ireki zuten kanpotik **saskiratu** , eta hortik aurrera apur bat errazago jokatu zuen Baskoniak. **Berria - Kirola**
Saskipetik **saskiratzerakoan** . **Berria - Kirola**
Hiruko lerrotik gupidarik gabe **saskiratzen** hasi zen. **Berria - Kirola**
Kanpokoek jaurtitzen zuten guztia **saskiratu** zuten, ia-ia. **Berria - Kirola**
Splitter gelditzen badute Kornel Davidek bost metrotik **saskiratzen** du. **Berria - Kirola**
Partida hura Perasek azken unean **saskiratutako** hirukoarekin irabazi zuen Baskoniak. **Berria - Kirola**
Hiruko bederatzi jaurtiketa egin eta denak **saskiratu** zituelako Atenasen. **Berria - Kirola**
Navarro Bartzelonako jokalaria, berriz, hasieratik hasi zen baloia **saskiratzen** , eta Kataluniako taldeak 11-0eko partziala lortu zuen lehen laurdena amaitu aurretik (15-23). **Berria - Kirola**
Azken bi laurdenetan 27 eta 28 puntu **saskiratu** zituen. **Berria - Kirola**
Sartu zituen 15 puntuetatik 10 azken sei minutuetan **saskiratu** zuen. **Berria - Kirola**
62 jaurtiketa **saskiratu** zituen jarraian, Lakerseko betiko onena, baina bi kale egin zituen bere partida onenean. **Berria - Kirola**
Saskiratzerakoan ere dotore aritu zen McDonald: 35 puntu eta portzentaje ona jaurtiketetan: %68. **Berria - Kirola**

2 irud/hed

Jasoaren agiria sinatu zuen idazkariaren boligrafoaz, eta jakanarruko patrikan **saskiratu** zuen, Corte Inglesen Parker bat osten den moduan. **Unai Iturriaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

berriz saskiratu zuen (3); **erraz saskiratu zuen** (3); **hiruko lerrotik saskiratu** (3); **puntu saskiratu zituen** (5)

saskiratzaile 1 iz saskibaloian, baloia saskiratzen duen jokalaria.

Salgado eta Koljevic, jokoak ondo gidatzeaz gain, **saskiratzaile** petoak dira. Berria - Kirola

Bullock eta Rakocevic **saskiratzaile** trebeak dira, eta bi horiek kate motzean lotu ezean jai dutela aurreratu du Bidorretak. Berria - Kirola

Baskoniak Italiara jo du bertako **saskiratzaile** onena hartzeko. Berria - Harian

Euroligako **saskiratzaile**rik onenak ikuskizun paregabea eskaini zuen alor guztietan. Berria - Kirola

Ron Artest izan zen partidako **saskiratzaile** nagusia: 24 puntu. Berria - Kirola

2 (izenondo gisa)

Ikusgarriagoak, **saskiratzaileagoak**, indartsuagoak eta biziagoak diren jokariak bazeuden, baina Pablo Prigioni izan da Kopako jokalaria onena. Berria - Kirola

Tau talde **saskiratzaile** izan ohi da, baina atzo ez zuen inondik inora hori erakutsi. Berria - Kirola

Hortik aurrera, Baskoniaren dinamika **saskiratzailean** sartuta, gasteiztarren ustezko defentsa onak uzten zituen hutsunez baliatu zen behin eta berriz saskiratzeo. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

partidako saskiratzaile (3); **saskiratzaile nagusia** (4); **saskiratzaile onena** (13); **taldeko saskiratzaile** (3)

saskiratze 1 iz saskibaloian, baloia saskian sartzea.

Saskiratze asko ari da lortzen, eta Pamesaren kontrako partidaren bertan, bere hutsunea nabaritu zuten azken laurdenean. Berria - Kirola

Azken segunduan eta urrutiko **saskiratze** bati esker. Berria - Kirola

Bi puntuko **saskiratzea** lortu zuen eta partida erabakita utzi: 94-92. Berria - Kirola

Dwyane Wade rookie-ak, jokalaria berriak, erabaki zuen lehia, azken minutuan **saskiratze** erabakigarria lortuta. Berria - Kirola

Hortik aurrera gertatu zenak ezer gutxirako balio izan zuen: bi taldeen **saskiratze** ikusgarri batzuk, bilbotarren presioa... kontraerasoen bitartez **saskiratze** errazak lortu ahal izateko. Berria - Kirola

2 (hitz elkartuetan)

Saskiratze lanean laguntzen duen jokalaria sorta garrantzitsua du Tauk, azken urteetako handiena. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

saskiratze erabakigarria (3); **saskiratze errazak** (3)

saskitara iz ipar saskikada.

-Herriko etxera ekarriko dituzu bi **saskitara** oskol, eguerdi aitzin. Elena Touyarou

saskitaraka 1 adlag ipar saski beteka.

Iraila ondarrera, noiz eta ere golkoek iduri baitzuten aski ontuak zirela, mahats biltzea **saskitaraka**, orgetako gupelen betetzeko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

2 irud/hed

Harriet-tarrak aipatu ditu xeheki, lege-gizon eta beste, bai eta amaren eskualdeko Gorostarzu-tarrak, hau ere hedadura handiko familia, zernahi apez eta serora, "eta militarrek **saskitaraka**. Herria

Laguntza horiek ez ziren jin, trabak aldiz jin ziren **saskitaraka** ... Menane Oxandabartz

Badu mutiko horrek **saskitaraka** omere on. Herria

saskitxo 1 iz saski txikia.

Fraide batek ikusi omen ninduen aurrena, elizako ate ondoan, **saskitxo** batean. Jon Alonso

Ganbaran, zoko batean, **saskitxo** bat zegoen zerrautsarekin. Fernando Rey

Telemakok zerrizainari **saskitxo** bat eman zion okelaz beterik. Juan Kruz Igerabide

Zumezko **saskitxo** bat zegoen kutxa-metaren ondoan. Iñaki Mendiguren

Besteak zilarrezko mahaiak ipintzen zituen besaulkien aurrean, eta urrezko **saskitxoak** mahai gainean. Juan Kruz Igerabide

Hona zer egin behar duzun: sartu **saskitxoan** ogi pare bat eta Mountain Driveko helbide honetara joan. Xabier Olarra

Urtero **saskitxo** bete alixa izeneko arrain txiki bidaltzen zien monjeei, apaltasun eta pobretasunaren seinaleztat. Askoren artean

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ospitalean gizonak pasatu zuen lehen gauean bisitan joan nintzaion fruta- **saskitxo** batekin. limoi **saskitxo**en urrin saminak, bakailao bilduen usain latzak. Xabier Olarra

Mariok, esker onez, jostun- **saskitxo** bat oparitu zion hari. Fernando Rey

saskitzar iz adkor saski handia.

Saskitzarrera bertaratu, eta txakurkumeetako bat hurbildu zait harro-harro. Txillardegi

sasoal iz samurra.

Osoto gosea sabel-uzkur bat bainintzen, golas eta lamiti, Mignonen gorputza haginatzeko prestik, zeren haren haragi-giharrek bildots batenak izan baititezkeen, edo oreinkumearenak bezain samur, uxter eta **sasoal**, Joan Mari Irigoien

sasoi (orobat sasoin g.er. eta sasu g.er.) 1 iz nekazaritzari dagokion lanen batean aritzeko garai egokia.

Sasoi hau artoa erabilera zela dakusaghi: San Markos astea, artoa ereiteko astea izan da beti, esaerak dioen modura. **Pello Zabala**

Hain zuzen, mahatsa biltzeko **sasoi**a zen. **Elizen arteko biblia**

Gaztainak jasotzeko **sasoi**a da, almindra erribera aldean-eta, erremolatxa biltzekoa, asko urritu bada ere. **Pello Zabala**

Hauxe baita hain justu mahats-biltzearen **sasoi**a zabalda. **Pello Zabala**

Ur-xirripen ondoan landaturiko zuhaitzaren antzeko da: bere **sasoi**an fruitua dakar, eta ez zaio hostorik ihartzen. **Elizen arteko biblia**

Sasoi honetarako laborearen uzta egitear izan behar zuten orduko nekazariek. **Pello Zabala**

Artoa ereiteko a zer **sasoi**a dagon! **Pello Zabala**

Maiatza loreen **sasoi**a den gisara, abuztua fruituen garai gozoa da. **Pello Zabala**

Natura berritzen den urtaroa izanik ere, haziak ernatu eta landare berriak sortzeko garaia, puja eta kimuak ateratzeko **sasoi**a, udaberriaren ere ez du gupidarik heriotzak.

Imanol Zurutuza

Garrantzitsua baita **sasoi**a, landarearen itxura aldatzen ahal delako garaia arabera. **Berria - Gaiak**

Berak emango dio lurrari **sasoi**an sasoioko euria, eta garia, ardoa eta olioia izango dituzue. **Elizen arteko biblia**

Honelako esaerak gogoratuz gertatzen ziren, aste batzuk aurretik jada, lurra antolatuzeko kontuak ateraz eta, sasoiaren **sasoi**ko laborea martxan nola ipiniko. **Pello Zabala**

· Atunaren **sasoi**a Iparraldean. **Herria**

2 garaia.

Abraham eta patriarken **sasoi**a, Kristoren aurretik 19 mende lehenago hasten da. **Pello Zabala**

Sahatsa genuen zeltar egutegian oraingo **sasoi** honi dagokion zuhaitza. **Pello Zabala**

Denak du bere **sasoi**a, gauza bakoitzak bere garaia eguzkipean. esan nion, tira, bai, baina etxera joateko **sasoi**a zela. **Elizen arteko biblia**

Natura geldi eta lo dago **sasoi** honetan. **Pello Zabala**

Sasoi honetan, neguak ia lau aste bete dituenean. **Pello Zabala**

1580-1700; **sasoi** hau da arestian seinatu dugun hotzaldi klimatiko gertatu zenekoa. **Pello Zabala**

Berrogeitamar mila ale saldu zituen, kopuru izugarria **sasoi** hartarako. **Ramon Etxezarreta**

Hartarako Perugiara etorri zen, han bizi baitzen **sasoi** hartan anai Egidio. **Askoren artean**

Sasoi bateko motocar haien itxurakoa. **Xabier Montoia**

Beste mundu eta beste **sasoi** batetik heldu diren albiste, gutun, argazkiak. **Joseba Sarrionandia**

Beste **sasoi** bateko lanak, gure honetan, gariaren haiek. **Pello Zabala**

Sasoi latz haietatik onik irten nahi bazuen, beste aterabide bat bilatu beharra zeukan. **Patxi Zubizarreta**

Sasoi turistikoa egiten baitira txapelketak Iparraldean. **Ramuntxo Etxeberri**

Doktrina hori **sasoi** zail eta egongaitzetan nagusitzen da, eboluzionismoa, berriz, oparaldietan. **Askoren artean**

Azaro bukaeran etorri zen umea, ur hegaztien **sasoi** betean gertatu zen tarte hotz batean. astero astero bere krixtau gogoetak egin zitzaizkela HERRIAN, urteko **sasoi** liturgikoari edo bestaburu haundieri edo xoilki igandetik igandarako ebanjelioeri zoazkienak. **Koro Navarro**

Alde ederra gure **sasoi**tik oraingo honetara! **Xabier Montoia**

Gure langile zen **sasoi**tik ezagutzen dut. **Urtzi Urrutikoetxea**

Horretan ez du alderik bere **sasoi**ko beste idazle askorekin. **Xabier Mendiguren Elizegi**

ik beherago 8. **Askoren artean**

Egun argia **sasoi**rako. **Unai Iturriaga**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hostotan zegoen pikuondo bat urrutitik ikusirik, bertara joan zen, ea pikurik aurkitzen zuen; baina ondora iristean, ez zuen hostoa besterik aurkitu, ez baitzen piku-**sasoi**a.

Elizen arteko biblia

Loratze-**sasoi**a. **Oskar Arana**

Udako solstizioa da haritz **sasoi**a: hor ematen ditu loreak. orduan udazkena zen, iazko udazken **sasoi**a. **Pello Zabala**

Garizuma **sasoi**a. **Pello Zabala**

Festa kontuan, egia esan, irundarra naiz ni, eta hondarribiarra, hantxe eman bainuen nik neure festa **sasoi**a. **Joxerra Garzia**

Bururako itxura xelebretu txapel astun samar bat aurkitu nuen [...] gainera aldeak eta ertza zeharka zeuzkana, geometriaren -eskola **sasoi** urruna gogoratuz- erronbo deritzanaz hornitua. **Urtzi Urrutikoetxea**

Ekainean ebakiko dut ilea, dolu-**sasoi**a amaitzean. **Pello Zabala**

-Gure estudiante **sasoi**ko egiazko gertaeretan oinarritutako ipuin bilduma egin nahi dut. **Jon Arretxe**

ik beherago 8. **Askoren artean**

Igelen korroka entzun zuen; kilkerak; eurite **sasoi**ko gau geldia. **Juan Garzia**

4 urtaroa.

Urteak **lau sasoi** ukanez, lau kontzertu antolatuko dituzte, eta jadanik Xuberotar kantariekin hasi primaderako emanaldiak arrakasta ona bildu zuen. **Herria**

Vivaldiren "Lau **Sasoi**ak". **Alberto Ladron Arana**

Neguko urte-**sasoi**an eta eguraldi garbiarekin ganadua goizetik leku horietara eramaten denean. **Santiago Iruretagoiena**

Urte **sasoi** honetan neguak aldaba jotzen badaki. **Pello Zabala**

Ibaiek ur handia zekarren urte **sasoi** hartan, eta mendiko uhar baten indarrez isurtzen ari zen, nonbait. **Karlos Zabala**

5 kirolean-eta, denboraldia.

Brestek **bigarren sasoi**a du Maila Nagusian. **Berria - Kirola**

Larrazabalen ustez, datorren urtean Athleticen 109. **sasoi**a jokatu du gorengo mailan. **Berria - Kirola**

Hirugarrena, **sasoi** honetarako (2005-2006) aurrekontuaren aurkezpena eta onarpena izango da. **Berria - Kirola**

Udako **sasoi**a ez da Hazparden jokatu aurretik baino bai Luhusoko trinketean. **Herria**

Irailaren 21an abiatuko du bere **sasoi**a Angeluko Hormadi izotz hokeiako taldeak, Elite Super 16an. **Herria**

Bihar hasiko da **sasoi**a, Mungialdeko Ralysprintarekin. **Berria - Kirola**

Deportiboren zelaian ere inoiz ez zuten irabazi nafarrek, **sasoi** honetako bigarren jardunaldian 1-3 nagusitu ziren arte. **Berria - Kirola**

31 urteko errugbilariaren inguruan, ekiparen herena berria da **sasoi** honetan. **Herria**

Aviron indartsu **sasoi** berriari begira. **Herria**

Bi jokalaririk horiek, ordea, **sasoi** txarra izan dute 2003-2004koa. **Berria - Kirola**

Ohi baino atzerago jokatu duen arren, John Aloisi izango da **sasoi** honetan ere taldeko golegilerik onena. **Berria - Kirola**

Uztailaren 15ean ekin zioten bi taldeek **sasoi** aitzineko prestakuntzari. **Berria - Kirola**

Romandiako eta Suitzako Itzuli txukunak egin nahi ditu, iazko **sasoi**txarra ahazteko. **Berria - Kirola**

6 giza bizitzaren garai bakoitza, gorputzaren osasunaren aldetik ikusia; bereziki, garai osasuntsuena.

Adinekoa zirudien eta, aldi berean, **sasoi** ederrekoa. **Agustin Otsoa**

Lirainak eta **sasoi** ederrekoak ziren hango neskek. **Jose Morales**

Sasoi ederrean zegoan, eta hil egin duk bat-batean! **Jose Morales**

Gorputzaren eta arimaren baka, bizitza neurritsua eta bizidunaren **sasoi** ona. Imanol Unzurrunzaga

Haiek jokoan ikusiz bazekien Ernestek nor zegoen **sasoi** onean. Edorta Jimenez

Sasoi bikaina izango duzu hilobira arte, gari-balak uzta-arogan bezala. Elizen arteko biblia

Bera bizi-bizirik dago, lehen baino **sasoi** hobean gainera. Jose Morales

Beti **sasoi** berean. Daniel Landart

Zure **sasoi** mental eta fisikoaren eta zure abiaduraren arabera dago hori, jakina. Harkaitz Cano

Dagoeneko laurogei urte inguru dituzten arren, **sasoi** betean dauden senar-emazteak dira Mario eta Miriam. Harkaitz Cano

Bere bizialdiko erdi aldera, **sasoi** beteko gaztea zela, erabat aldatu zitzaion bizitza. Askoren artean

Izan al liteke **sasoi** beteak eta gainez egindako osasun eta bizi-indar batek ekarritako gogo-ixuri bat, gauza gogor, espantagarri, gaizto eta bizi-nahasgarrietara garamatzana?

Iñaki Segurola

Harlemgo apaizak **sasoi** puntu onean daude. Harkaitz Cano

7 gorputzaren sendotasunaren eta osasunaren betetasuna.

Gorputzaren **sasoi**a inportantea da, baina buruaren indarra ere bai. Josu Landa

Ezagun du, bai, **sasoi**an dagoela. Jon Muñoz

Egia zen pattal irudi zuela, ez zegoela **sasoi**an inolaz ere. Oskar Arana

llo beretik, bi herrialde bereizi zituen poetak, **sasoi**an daudenena eta gaixoena. Imanol Zurutuza

-Aski atsetua, baina **sasoi**an beti. Aingeru Epaltza

Hazi, handia egin eta **sasoi**ra iritsi zinen: bularrak hazi zitzaizkizun eta biloxka atera. Elizen arteko biblia

Urte haiek eta **sasoi** hura banu, [...]. Pello Zabala

Hobe osasuna eta **sasoi**a munduko urre guztia baino, hobe gorputz indartsua ondasun ugariak baino. Elizen arteko biblia

Aitzitik, **sasoi** handia du, eta batez ere bere bularrak izugarri mardulak dira, Victoriarenak adinakoa ia. Bernardo Atxaga

Hiltzen da bat sasoi-**sasoi**an, zoriontsu eta lasaitasun betean. Elizen arteko biblia

8 sasoi izlag sasoi dagoena.

Sasoiko andre bat zen, etxea alokatzen dutela entzun du, eta ikusi egin nahi luke. Javi Cillero

-Ez da batere usua zure **sasoi**ko gizon bat pianoa ikasten hastea -esan zuen Willemek. Anjel Lertxundi

Hogeita hamar bat urteko andre **sasoi**koa. Karlos Zabala

Oraindik gizon **sasoi**koa zela hil omen zen, bihotzekoak emanda. Anjel Lertxundi

Armagizonen erdiak baino gehiago gazte **sasoi**koak ziren, ezkongabeak edo emazteak urrun zituztenak. Aingeru Epaltza

Zenbat bertsolari gazte eta **sasoi**ko aritzen diren elkartearen ohiko lanetan txapelketa, batzar eta bestelakoan antolamenduan. Andoni Egaña

Stanleyk hirurogeita zazpi urte ditu baina **sasoi**ko dago duen adinerako. Oskar Arana

Germania aldeko idazle batek, ordurako, kontaktu zigon nola han, hiri eta auzoetan, sanjoan suak pizten diren, eta nola, zahar, adineko, **sasoi**ko eta gazte, gizakume eta emakume, suaren inguruan pasatzen duten. Pello Zabala

Osasun onekoak, **sasoi**koak, kementsuak, edozein ekintzatarako gogoz eta gorputzez prest daudenak. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina **sasoi**-sasoi emakume bati zakil gogorra gustatzen zaio eta sarketa gustatzen zaio. Karlos Zabala

Egun hartan, **sasoi**-sasoi ageri zen; mantalaren eta mahuken zuriatasunak azpilen zuriatasuna luzatzen zuen haren lepo beterraino, haren masail arrosetaraino. Karlos Zabala

-**Sasoi**ko ikusten zaitut, Tomas. Paddy Rekalde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azken sasoi (5); bere sasoi (33); bere sasoi puntu (6); bere sasoi puntua (5); bi sasoi (35); bost sasoi (5); hiru sasoi (13); hiru sasoi eman (5); lau sasoi (11); lehen sasoi (8); lehen sasoi puntu (5); orain bi sasoi (7); oso sasoi (11); oso sasoi onean (5)

sasoi aitzinean (8); sasoi aitzineko (17); sasoi aitzineko lehen (5); sasoi amaiera (16); sasoi amaiera arte (8); sasoi amaieran (31); sasoi aparta (6); sasoi bakoitzean (5); sasoi batean (47); sasoi bateko (31); sasoi baten (11); sasoi batzuetan (9); sasoi berean (11); sasoi bete (6); sasoi bete betean (5); sasoi betean (206); sasoi betean dago (14); sasoi betean egon (14); sasoi bikaina (18); sasoi bikaina egin (6); sasoi bikainean (8); sasoi bukaeran (9)

sasoi egin (9); sasoi egokia (12); sasoi eman (12); sasoi eman zituen (5); sasoi guztian (12); sasoi guztietan (5); sasoi hasiera (16); sasoi hasierako (6); sasoi hasieran (45); sasoi hasieratik (11); sasoi hobean (16); sasoi hoberenean (7)

sasoi maila (6)

sasoi ona (43); sasoi onak (5); sasoi onaren (5); sasoi onean (95); sasoi onean dago (11); sasoi onean egotea (5); sasoi onenean (31); sasoi onenetik (6); sasoi oso (8); sasoi oso onean (5); sasoi osoan (13); sasoi puntu (62); sasoi puntu egokia (6); sasoi puntu egokian (7); sasoi puntu on (6); sasoi puntu ona (14); sasoi puntua (25); sasoi punturik (6); sasoi punturik onenean (6); sasoi sasoi (5); sasoi txarra (8)

urte sasoi (38); urte sasoi hartan (6); urte sasoi honetan (9); urteko sasoi (8)

aurtengo sasoi (6); azken sasoi (6); bakoitzaren sasoi (5); bere sasoi (12); bigarren sasoi (9); bigarren sasoi du (6)

emateko sasoi (5); ez du sasoi (5); hasi zuen sasoi (6)

iazko sasoi (6); iragan sasoi (6)

sasoi amaitu (31); sasoi amaitu arte (18); sasoi amaituta (30); sasoi amaituta utzi (5); sasoi amaitzeko (12); sasoi ari da (5); sasoi berreskuratu (6); sasoi bukatu (5); sasoi du (8); sasoi egingo (5); sasoi hasi (26); sasoi hasi zenetik (9); sasoi heldu (7); sasoi izan (8); sasoi ona (5); sasoi prestatzen (6)

utziko du sasoi (5)

aurreko sasoi (34); aurtengo sasoi (8); azken sasoi (6); bere sasoi (13); datorren sasoi (57); datorren sasoi europar (5); heldu den sasoi (30); hurrengo sasoi (23); iragan sasoi (110); joan den sasoi (17); joan zen sasoi (8); lehen sasoi (11)

sasoi aritu (8); sasoi dago (15); sasoi dagoela (13); sasoi dagoela erakutsi (5); sasoi dagoen (7); sasoi daude (7); sasoi daudenena (5); sasoi egon (7); sasoi egonda (5); sasoi egoteko (6); sasoi iritsi (9); sasoi izan (6); sasoi jokatu (5); sasoi sasoi (7); uda sasoi (6)

bere sasoiaren (6); sasoiaren amaieran (12); sasoiaren hastapenean (16)

sasoiari begira (9); sasoiari eutsi (5)

azken bi sasoi (7); azken sasoi (13)

aurreko sasoi (8); bere sasoi (6); ez dago sasoi (5); heldu den sasoi (11); iragan sasoi (23); oso sasoi (16)

sasoi aritu (10); sasoi bigarren garaipena (5); sasoi dago (31); sasoi dagoela (20); sasoi dagoela erakutsi (6); sasoi dagoen (9); sasoi daude (19); sasoi daudela (5); sasoi egon (11); sasoi egotea (7); sasoi gizon (6); sasoi ikusten (6); sasoi lehen partida (8); sasoi zegoen (5)

uda sasoi (6)

datorren sasoi (6); hiru sasoi (8)

bere sasoi onenean (6); sasoi onena (10); sasoi onenean (29)

sasoi kanpo (20)

sasoi batean (6); sasoi berri (6); sasoi berria (7); sasoi bete (5); sasoi betean (6); sasoi ederra (8); sasoi guzian (6)

aurtengo sasoi (6); sasoi bururatu (5)

sasoi iz sasoi, garaia.

Lehen bi multzoetan aipagarria izan da Olasagastiren eta Larretxearen **sasoi**aldia; agerian utzi dute sailkatzeko aukeran direla. Berria - Kirola

sasoiberritu, sasoiberri(tu), sasoiberritzen du *ad* gaztetu, biziberritu.

Sasoiberritzen zuen Honoré hark guztiak. **Joxan Elozegi**

sasoidun *izond* sasoia duena, sasoiaren dagoena.

Inurriak zebiltzan arrastaka berak pintzelarekin lardaskatzen zituen zainbela artean -inurri gorriak, **sasoidunak**, Charles Tansleyren antzekoak. **Anton Garikano**

sasoika (*orobat sasoinka*) *adlag* sasoi jakinetan.

Aitzineko urtetsuan idekiak ziren bana-beste, Donapaleun, Maulen, Hazparne ondoko Garroan Lekornen, laborantzako eskolak, urte osokotz ez oraino, baina **sasoika** bederen ari zirenak. **Herria**

Haren azalean bide da ur hori, nahiz oraino ez dakiten zenbat, ez-eta ere **sasoinka** den hormatua, baititu Marzok ere bere gisako uda-neguak. **Herria**

sasoikako *izlag* lanaz edo langileez mintzatuz, sasoika lan egiten duena. **iksasoilari**.

Arabako Foru Aldundiak eta UAGAK **sasoikako** lanean esku-hartzeko programa prestatu dute. **Berria - Ekonomia**

EAEn **sasoikako** lanak egiten dituzten beharginen lan baldintzak eta bititokiak hobetzea, langile horiei loturiko adingabeei arreta ematea, eta beharginen integrazioa bermatzea. **Berria - Ekonomia**

Aurten, mahats-bilketarako 250 **sasoikako** langile kontratatzea espero du UAGAK. **Berria - Ekonomia**

Arartekoak prestatutako txosten batek dioenez, bitartekariak banatzen dituzte **sasoikako** langileei ordaintzen zaizkien hamar soldatetatik sei. **Berria - Ekonomia**

UAGaren arabera, mafiek batez ere Portugalgo **sasoikako** langileen kontratazioan esku-hartzen dute. **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sasoikako langileei (3); **sasoikako langileen** (3)

sasoikide *iz* sasoi berekoa. ik **garaikide**.

Edozein lege mota naturala baita, eta kronologikoki gizadiaren **sasoikidea**, eta, horrexegatik, letrak eta idazketaren artea asmatu zirenekoak baino zaharragoa. **Esteban Antxustegi**

sasoiko ik **sasoi 8**.

sasoilan *iz* sasoi jakin batean egiten den lana.

Izan dira Euskal Herrira **sasoilanak** egitera etorri diren kanpotarrak -harginak, gehienbat-, eta Euskal Herrian izan ondoren bertoko hitzak itsatsi ohi zituzten euren jardunean. **Koldo Zuazo**

sasoilari (*orobat sasoilari g.er. eta sasoinkari g.er.*) *iz* sasoikako langilea.

Urtero bezala, sasoin denboran, gazte edo heldu andana bat **sasoilari** gisa arituko dira lanean. **Herria**

Sasoilaria ez den langilea bilatzeko joera dugu, lan tresnari egokitu behar zaizkiolako. **Berria - Ekonomia**

Sasoilariak legearen arabera baino anitzez ordu gehiago pasatzen dute lanean, CFDTren arabera. **Berria - Ekonomia**

CFDT sindikatak **sasoilariei** buruzko kanpaina presentatu du Hendaiaiko ostatu batean. **Herria**

Antzerki taldeak hainbat gai jorratu ditu, besteak beste **sasoilarien** lana eta etxaldearen segida hartzeko gazteek dituzten zailtasunak. **Berria - Euskal Herria**

Gure hotelean sei langiletik bakarra da **sasoilaria**. **Berria - Ekonomia**

Kasu hau ere eztabadatu izan da eta deliberatua jakin araztea bi hilabeterendako herriko etxeak lan batzurendako **sasoinkari** bat hartzen ahal duela hilabetean, udako denboran. **Herria**

sasoin ik **sasoi**.

sasoinka ik **sasoika**.

sasoinkari ik **sasoilari**.

sasoinlari ik **sasoilari**.

sasoitsu 1 *izond* sasoi betean dagoena. ik **sasoi 8**.

Eurokopako hiru aurrelaririk **sasoitsuena** izango dira gaur aurrez aurre: Zlatan Ibrahimovic eta Henrik Larsson suediarrek eta Ruud Van Nistelrooy herbeheretarra. **Berria - Kirola**

Gazte **sasoitsu** asko majo sufriarazi diote errusiarrari orain arte, baina odolkiak ordainetan eman zizkien atzo denek. **Berria - Kirola**

NBAko talde **sasoitsuena** dela berretsi zuen atzo Phoenix Sunsek, hamargarren partida jarraian irabazita: 106-94 Toronto Raptorsi. **Berria - Kirola**

Gazteak ere nekatzen dira eta akitzen, **sasoitsuena** ere ahuldu eta erortzen. **Elizen arteko biblia**

2 irud/hed

Festa kontuan, egia esan, irundarra naiz ni, eta hondarribarra, hantxe eman bainuen nik neure festa-sasoia, 14 urtetik 22ra bitarteko sasoi ondo **sasoitsu**. **Joxerra Garzia**

Urte **sasoitsua** burutu zuen, aurrez, Urrezko Aizkorako bi txapelak eta Euskadiko Maila Nagusikoa irabazi zituelako. Berria - Kirola
Jendeak elurraren berandua, udaberri **sasoitsuan** guztiz ezohikoa, zuen solasgai nagusi. Anjel Lertxundi

3 (adizlagun gisa)

Eskarmentuz dakit, norbera **sasoitsu** ez dagoenean, emakumeek ere ez diotela beren sasoiari eusten. Joxe Austin Arrieta

Sasoitsu nago, ez dut inolako arazorik. Berria - Kirola

Orain ondo gaude, **sasoitsu**, gogotsu. Berria - Kirola

Sasoitsu egon ezker, hiru itzulietatik Giroa da egokiena niretzat. Berria - Kirola

Hamar aizkolarari aritu ziren lehian, Jaunarena ere agertu zelako, **sasoitsu** ez bazen ere. Berria - Kirola

Sasoitsu egon ezker, hiru itzulietatik Giroa da egokiena niretzat, Aitor Osa eta Gorka Gonzalez dira **sasoitsuen** dauden euskal txirrindulariak. Berria - Kirola

Hamar aizkolarari aritu ziren lehian, Jaunarena ere agertu zelako, **sasoitsu** ez bazen ere. Berria - Kirola

Datorren asteburura **sasoitsu** iristea da helburua orain. Berria - Kirola

Han lan txukuna egin, Euskal Herrira **sasoitsu** itzuli, eta Urkiolan edo Donostiako Klasikoan irabazita, poz-pozik erretiratuko nintzateke. Berria - Kirola

Vuelta **sasoitsu** bukatu zuen, halere, eta sasoi horrek beste gabezia guztiak estali ditu. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sasoitsu egon (3)

sasoitu, sasoi(tu), sasoi(tu) da *ad* sasoi hartu.

Horregatik ari da Jaungoikoa era horretan gure baitan bere indarrez aurrera bultza eta apaltasunaren makalean **sasoi** dadin karitatearen bertutea. Imanol Unzurrunzaga

sasoitxo *iz adkor* sasoi.

Apirilak, udaberriko lehen **sasoitxoan** marratzen doalako, xume eta apal jokatzeko du tarteka, eta eguzki-laino-hodei-euri-haize-elur... denetik egun berean emanez ere bai.

Pello Zabala

sast *interj* sastadaren onomatopeia.

Bestela, begiak bildu orduko, **sast**! Berria - Kirola

Hobe lukete erbi-lotan baleude, bat-batean, **sast**! jauzi egiteko. Berria - Kirola

Sast!, lepora jauzi eginez. Berria - Kirola

sasta 1 *iz* sastada.

Harry bere makilaz **sasta** egin zion atzetik. Iñaki Mendiguren

Seinale bat iduri, bertzei itsatsi gintzaizkien, hemen zizta eta han **sasta**. Aingeru Epaltza

2 *sisti* sasta ik *sisti*.

sastada (*orobat zasztada*) 1 *iz* sastatzea; gauzaki sarkor batez eginiko zauria. ikzitada; sastako.

Gero Seigarrenek **sastada** egin zion izterrean -sugearen hozkada balu bezala-, aitzakia gisa erabil zezan ez zelako garaiz heldu tabako-hostoen harrak astintzera. Anton Garikano

Gizon batek TAOko langile baten aurka egin eta hainbat **sastada** eman zizkion langileari. Berria - Euskal Herria

C. hil zuen lepoan **sastada** bat emanda. Berria - Euskal Herria

Hogeitaka **sastada** zituela, eta odolustuta hil zela. Iñigo Aranbarri

Haren hortzen **sastada** sentitu nahi zuen lepoan, hilezkortasuna eskuratu, eta jendearen odol gorriaz ezipinak margotu. Jasone Osoro

Larri egon zen denbora batean, **sastadak** birrikak zulatu baitzizkion. Berria - Kultura

Zurbil zegoen laguna, arnasa ere ahalik eta pausatuen hartzen ahaleginduz, biriketan airea sartzeak berak bizkarreko ornoan zuen **sastada** gaiztotuko balio bezala. Iñaki Iñurrieta

Ohitu egin nintzen dutxa hotza hartzera eta lokietako **sastadei** jaramonik ez egitera. Anjel Lertxundi

Txapeldunak **sastada** nabaritu zuen belaunean eta partida bertan behera uztea erabaki zuen. Berria - Kirola

Buruzagien oihuak oihu, zartailuen **sastadak sastada**, liskarrak eta ezpatak agertu ziren. Agustin Otsoa

Bidezidorrean behera hartu zuen gero, ezker-eskuin zeuden ote zuri, garo eta asunen **sastadei** erreparatu gabe. Hasier Etxeberria

Ohitu egin nintzen dutxa hotza hartzera eta lokietako **sastadei** jaramonik ez egitera. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Saruman Frodoren ondotik iragan zenean, eskuan zeraman sastakaik distira egin zuen, eta **sastada** arina luzatu zion. Agustin Otsoa

Sastada hilgarria emateko asmoz. Agustin Otsoa

Sastada hotza sentitu zuen izterrean. Fernando Morillo

Orduantxe jabetu nintzen, izter batean sekulako **sastada** hartzarekin batera, egunak generamatzala, edo asteak, mokadurik probatu gabe! Karlos Linazasoro

3 irud/hed

Euskaldunok gure lurraldetasuna nola bizi dugun, horren gaineko **sastada** ironikotzat hartu behar zen, batez ere. Iñigo Aranbarri

Hobeto bereganatzen ditu bizitzaren kolpeak, maitasunaren **sastadak** barne, gazteak baino. Pako Aristi

Eta nola sentitu nuen orduan ezintasunaren **sastada** erraietan, bizitzaz etsirik banengo bezala eta bizitzarekin etsaiturik! Joan Mari Irigoien

Lagun katolikoek, haren exakzioen **sastada** pertsonalki zein ahalduen bitartez hartzen zutenean, hitz garratzak erabiltzen zituzten haren kontra. Irene Aldasoro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ikusiko duzu nola desagertzen diren berehala min-**sastadak**. Jasone Osoro

Bizkarra laztandu dio, hitz samurrak esan dizkio, mingain-**sastada** biziei begira egon da, eta bihotza beratu zaio. Itziar Otegi

Etsipen **sastada** bat sentitu zuen haien aurpegiatan mesfidantza zantzuak aurkitzerakoan, baina laster otu zitzaion ezinezkoa zela ezagut zezaten. Elena Touyarou

sastadatxo *iz* sastada txikia.

Eta berriro eta berriro, aurrera egin eta **sastadatxoa** ematen zion. Julen Gabiria

sastagai ik sastakai.

sastaka 1 *adlag* sastadak emanez.

Izan ere iltzeak dauzkak buruan **sastaka**. [Pedro Alberdi](#)

Hatz handituetan ere sentitzen zituen erresumina eta eztenkadak, haragian milaka orratz **sastaka** ari balitzaizkio bezala. [Anton Garikano](#)

Pitzia-talde baten erdian ikusi zuen bere burua, elkarri gupidarik gabe **sastaka** eta tiroka. [Juan Kruz Igerabide](#)

2 irud/hed

Galderak **sastaka** erauntsi zidan: nire emazteak zapata takoidunetan eginen ote zuen Ximurrarekin? [Aingeru Epaltza](#)

Senaren barne-oihua **sastaka** hasi zitzaion Josebari barnean. [Fernando Morillo](#)

Aski adoretzoki heriotzaren zain nengoen egun haietan, hain zuzen, ooren gura zorrotz bat sumatzen nuen **sastaka** neure baitan, imajina zitekeen giza esperientzia oreana. [Juan Garzia](#)

sastakada 1 *iz* sastada, sastakoa.

Amorrazio beltzak harturik, ezpata atera eta, **sastakada** bakar batez, biei moztu zien burua. [Patxi Zubizarreta](#)

Prest zegoen, hori esaten zuen behintzat, ondra kendu nahi zionari **sastakada** bat emateko. [Josu Zabaleta](#)

Sastakada amorratua eman nion urdailean. [Anjel Lertxundi](#)

Burdina atera eta **sastakada** ematea besterik ez neukaan... [Koldo Izagirre](#)

Ez zait gustatzen iluntasunetik irits daitekeen **sastakada** baten aurkako babesgarri bakarra larruzko jantzi soila duzula pentsatzea. [Agustin Otsoa](#)

Bisaia oinazez mudatu zitzaion, **sastakada** bat bildu balu bezala. [Aingeru Epaltza](#)

Izan ere, zerbaitez duda guti nuen: anaiak hartutako **sastakadak** niretako ziren. [Aingeru Epaltza](#)

2 irud/hed

Aitortu behar dut [Rubio irakaslearen] liburu hau ezusteko bat izan dela niretzat, eta gustura irakurri dudala, **sastakadak** ahal nuen moduan saihestsiz, lana leitzen ari nintzen bitartean burua alde batera eta bestera makurtzen nuela. [Pello Salaburu](#)

sastakai (*orobat sastagai; Euskaltzaindiaren Hiztegian sastakai agertzen da*) 1 *iz* arma zuria, laburra, altzairuzko mutur zorrotzaren bidez zauritzen duena. ik **puñal**.

Larru oneko gerruntzea, gerrikoa eta **sastakaia**. ezpata bat baino tikiagoa eta ohiko **sastakaia** baino luzeagoa, aho lodi eta kiribilekoa. [Agustin Otsoa](#)

Ezkerreko eskuan **sastakai** luzea eta eskuinekoan tantaia harturik, [...]. [Agustin Otsoa](#)

Armairuan gordetako **sastakaia** hartu eta arnas estuka, otso pausuka, neskaen logelara jo zuen, jelskortasunak haraino eramanik. [Felipe Juaristi](#)

Sarumanen bizkarrera salto egin eta burua atzerantz bultzatuz, **sastakaia** lepoan sartu zion. [Agustin Otsoa](#)

Ala Charlotte Cordayk, Marati, gizona baineran zegoelarik, **sastakaia** alderik alde sartu zionean? [Felipe Juaristi](#)

Antza denez, zuzen-zuzen begian barrena sartu zioten **sastakaia**. [Oskar Arana](#)

Hitzordura **sastakai** ezkutu batekin agertuko ote zen, aurkariari zintzurra egingo ote zion? [Patxi Zubizarreta](#)

Lurraren kontra erori zen ahuspez, eta Alainekek, gainean zangalatrau, **sastakaiaz** ebaki zion zintzurra, alderik alde. [Juan Garzia](#)

Sastakaiaren inguruan uzurtzen da; zerraldo erortzen da. [Eskarne Mujika](#)

Eskuan zeraman **sastakaia** distira egin zuen, eta sastada arina luzatu zion. [Agustin Otsoa](#)

Mendeku gosea nagusitu zitzaizolarik, atsegin handiz iltzatuko zion **sastakai** zorrotz bat. [Patxi Zubizarreta](#)

Bihotzean **sastakaia** sartu izan baliote bezala. [Agustin Otsoa](#)

Kendu eskuak heure **sastakaitik** ala tripetan sartuko diat gezia. [Agustin Otsoa](#)

Zezenketa batean bezala esesten dute, sartzen dizkiote suzko **sastakaia**. [Iñaki Iñurrieta](#)

2 irud/hed

Komisarioak sorbaldak eta lepoa kizkurtu zituen, begietatik **sastakaia** jaurtikitzen zituela. [Harkaitz Cano](#)

Hotzaren eta beldurraren eraginez dardarka zarenean, oihu egin behar duzu, **sastakaiaz** leihora aterarazi zugar bizi den jainko zarrastel barru-nagi bezain barre-eragile hori. [Harkaitz Cano](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sastakaia sartu (4)

sastakarazi, sastakaraz, sastakarazten du *ad* sastakatzaera behartu.

Aladinoren historiak errakuntzaz kontatzen du afrikar magoa bere jauregian pozoitua izan zela eta haren gorputza, drogaren poderioz belztu eta arrakalatua, zakur-katuetara bota zutelara; egia da ezen haren anaiak, itxura horrek atzipetu, eta bere burua **sastakarazi** zuela, Fatima santuaren arropan bildurik. [Juan Garzia](#)

sastakatu, sastaka(tu), sastakatzen (*23 agerraldi, 14 liburu eta artikulu 1ean*) 1 du *ad* sastakaia sartu. ik **sastatu**.

Behin, espaloian lo zegoela, gizon batek labanaz **sastakatu** zuen. [Gotzon Garate](#)

Christopher Marlowe hil arte **sastakatu** zuten taberna-liskar batean hogeita hamar urte bete gabe zituela. [Oskar Arana](#)

44 urte zituen eta mozkorturik zegoen Michael McMorrow **sastakatu**, hil eta Central Parkeko aintzirara bota zuten. [Gotzon Garate](#)

Erasotzailea beste gizon bat **sastakatzen** saiatu zen Ego Gain kalean, baina ez zuen zauritu. [Berria - Euskal Herria](#)

Ganibeta haragian **sastakatzeko** gogo bizia sentitzen nuen. [Joxan Elozegi](#)

Goiz batez, bere dendan **sastakatua** aurkitu zuten Nizam u'l Mulk bisirra, errege-kanpamenduaren erdi-erdian. [Jon Muñoz](#)

2 irud/hed

Begiradaz **sastakatu** zidan Fubukik barrua. [Joxan Elozegi](#)

sastakatzaile *izond* sastakatzen duena.

Eguraldi txarra egingo du, haizea gogor iparsortaldetik, elurra eta kazkabarra bota ahalean, hala ere elur kristal **sastakatzaileen** menpean geratuko zara istriborrean.

[Joseba Sarrionandia](#)

sastako 1 iz sastada.

Hiru **sastakok** arnasa ebakitzen ziotela sentitu zuen. **Imanol Zurutuza**
Baina mugitzerakoan **sastako** zorrotz bat sentitu du gerri aldean. **Patxi Iturritegi**
Hura **sastakoa**! **Karlos Zabala**

2 sastakoan bat-batean, istantean.

Nire eskuak, **sastakoan**, hormaren tenperatura bereganatu zuen. **Aingeru Epaltza**
Sastakoan apaldu zen azal latz hori inguratzen zuen argia. **Aingeru Epaltza**
-Nabarrenkoxe ere bai? -galdegin nuen **sastakoan**. **Aingeru Epaltza**

sastar izond itsusia eta txarra.

Beti ikusiko duzu traje **sastar** dotore-nahi batez jantzirik. **Hasier Etxeberria**
Han etorri zen osaba, radio-trepeta **sastar** batekin. **Pako Aristi**
Maisu Txikiak bazuen denda **sastar** bat Fucar kalean, eta han egon ohi zen sarritan bere alaba Silveriarekin. **Josu Zabaleta**
Victoriok bazuen joko-etxe **sastar** bat Olivar kalean, debekatutako jokoetara jokatzeko zena, eta taberna bat Leon kalean. **Josu Zabaleta**
Hiriaren periferia hartako pinudi **sastar** batera. **Hasier Etxeberria**
Kontua da egonkorta bezala egin dela bere euskara maila eta gu hizkera eta intonazio **sastar** hori gauza normala dela pentsatzen hasiak gara. **Hasier Etxeberria**
Hortz artean nerabilen melodia **sastar** eta patetiko harekin. **Harkaitz Cano**
Gaztetxeko bonbillak itzali eta oholtzako argi **sastarrak** piztu zituzten: gorri bi, urdin bi eta laranja. **Unai Iturriaga**
Berak aparkatzeko maniobrari ekin eta, trabeska begiratzen zien txoferrari erdiko hatzaz keinu **sastar** bat egin zion Dimasek. **Pablo Sastre**

sastatu, sasta(tu), sastatzen (35 agerraldi, 17 liburu eta artikulua 1ean) 1 du ad sastakaia sartu. ik sastakatu.

19 urteko mutila igande goizean hil zuten labana batekin **sastatuta**, Poliziaren arabera, «diru kontuengatik». **Berria - Euskal Herria**
Ateratzen dut aiztoa jakatik, eta Kolomanen sabelean **sastatzen** dut. **Eskarne Mujika**
Ezpatari batek, sabelean hondoraino **sastatzen** zutelarik, ez zuen nik adinako ziztadarik sumatuko erraietan. **Juan Kruz Igerabide**
Denver lanera eramateko etorri zela gizon zuria, eta Sethek **sastatu** egin zuela. **Anton Garikano**
Urkilek burua **sastatzen** zioten. **Lopez de Arana**
Tenedorearen puntan **sastaturiko** patata frijituak hortzartean kras-kras hausten. **Pako Aristi**
Ezpatari batek, sabelean hondoraino **sastatzen** zutelarik, ez zuen nik adinako ziztadarik sumatuko erraietan. **Juan Kruz Igerabide**
Bezeroak ikusten nituen, nire eskoteko loreak jan nahian edo, hortzak nire lepoan **sastatuz**. **Joxan Elozegi**
Damak orduan ustekabeko minak **sastaturik** bezala begiratu zion, zurbil. **Agustin Otsoa**

2 irud/hed

Oraintxe bost urte pasatxo, eta atletaren heriotzak **sastatuta**, Andoni Egañak Euskaldunon Egunkaria-n argitara emandako agur gutuna dut hori. **Iñigo Aranbarri**
Lore adinera hel berri den zaldia, maitasun hegodunaren ezproiak **sastaturik**, behor artean berotzen denean. **Xabier Amuriza**

3 (era burututa izenondo gisa)

Orein eta zezen **sastatuen** iduriak. **Joan Mari Irigoien**

sastra iz satraka, sasitza.

G. gizezkoa erreta hil zen herenegun arratsaldean Garain (Bizkaia), **sastrak** erretzen ari zela. **Berria - Euskal Herria**

sastraka 1 iz basa zuhaixka abartsu eta sarriz beteriko lekua. iksasitza.

Zelaia bukatzen zen lekuan, lurra apur bat beherantz egiten zuen, lehorra eta harrisua bihurtzen zen, eta asunak eta **sastrakak** ageri ziren han eta hemen sakabanaturik. **Koro Navarro**
Otea eta txilarra hazten ziren ur istilen arteko **sastraketan**. **Karlos Zabala**
Baina ez zen belarra eta **sastraka** beste barik, zuhaixkak ere bazeuden. **Unai Elorriaga**
Sastrakak zumakeenak eta zorne-belarrenak ziren. **Lopez de Arana**
Goroldioz estalirik muino txikiak, izeidi bat, pinu gazte txiki osaturiko **sastraka** ziztrinak. **Jose Morales**
Etxe ondoko zaborra eta **sastrakak** garbitu, eta loreak jarri dituzte leihoetan. **Berria - Euskal Herria**
Zenbaitetan bizkor eta zuzen joaten zen, **sastrakaren** artetik bidea urratuz, eta zenbaitetan bazirudien adar batek jotzeko egiten ziola, lahar batek itsutzen zuela. **Anton Garikano**
Highgate-ko kanposantuko hilarriak nekuskien **sastrakak** estaliak. **Ramon Saizarbitoria**
Sastrakaren atzean ezkutatu ginen. **Koldo Izagirre**
Harresi pitzatuek baino **sastraka** erraldoiek hobekiago babesten zuten jauregi eroria. **Pako Aristi**
Ai jaitsiko bazina, **sastraka** erretzen edo urari irakinazten dion sua bezala! **Elizen arteko biblia**
Putzuaren jarraian urak beste ehun bat metro egiten zituen **sastraka** eta ihi artean, bizi-bizi orduan ere. **Bernardo Atxaga**
Sastrakaz beterik zituen bide batetik. **Josu Zabaleta**
Aurrean eta atzean etsaia dugu, saihesten batean Jordango urak eta bestean zingirak eta **sastrakak**. **Elizen arteko biblia**
Dionisosek opari bat egin nahi izan zion ninfari, eta, berarekin eraman ohi zuen makilatxo magikoa hartuz, ninfa gatibatzeko hazarazi zuen **sastraka** ukitu eta loratzeko agindu zion. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Marroren aitona geldirik egon zen, zuhaitzaren kontra bermatuta, nola egoten baita otsoa **sastraka** artean zain. **Juan Kruz Igerabide**

2 (hitz elkartuetan)

Sastraka -mutturak goizeko ihintzen buxti frexko ezkoetan. **Pello Zabala**
- Borroka-hots bortitza entzun zen, oinlodi-**sastraka** astindu eta Ron tente jarri zen. **Iñaki Mendiguren**

3 irud/hed

Eta hala doa irakurlea artikuluan barrena, **sastrakaz sastraka**. **Iñigo Aranbarri**
Itsuari erreparatu nion, bere amarekin maitagarri horien ipuin bat irakurtzen zuen umeari, eta bikote gazteari; surik antigualenak asebetetzen zituzten haiek, ahalkerik gabe, oihanetako piztien gisa, gordelekuan edota herioaren **sastrakan** begiak elkar aurkitzeko beldurrik gabe. **Karlos Linazasoro**
Hitz egiten genuenean, mihia trabatu egiten zitzaigun **sastraka** lizun batean, izar usteldu batean. **Karlos Linazasoro**

Zenobiaren begiak **sastraka** artetik bidaiariari deika ari diren bi masusta heldu ziren, beltz-beltzak. **Josetxo Azkona**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sastraka artean (14); **sastraka artetik** (6)

sastrakaren atzean (3)

sastrakaz sastraka (3)

sastraken artean (3)

sastrakatsu *izond* sastrakaz betea.

Fionn, ordea, jendearengandik aparte zebilen, baso **sastrakatsuetan** zehar, zauri eta urraduraz beterik, eta ilunabar aldera Busturiara itzuli zen jakin gabe non zegoen ere.

Joanes Urkixo

sastre *iz* jostuna.

"Munduko jabe"entzako **sastre** xelebre horietako bati traje batzuk enkargatu nizkion. **Matías Múgica**

Sastre -lokarria lepoaren inguruan zuen Minkiewicz jostun txalekoduna. **Harkaitz Cano**

sASU ik sasoi.

satagin (*corpusean satain soilik*) *iz* basasagua.

Haritzaren etxean denak daude gustura: mokotarro, xagu, **satain**, sator, kattagorri, kattamuxar, eta hainbat ezkurjale... **Pello Zabala**

"Gabirai arrea", hor goian, hegatsak izuikaraz dituela, toki berean hegaka egoten dena, beheko xagutxu edo **satainari** erreparatzen. **Pello Zabala**

satai *iz* itxura, gorpuzkera. ik jas.

Hain **satai** oneko gizona izateko, begiak oso txikiak ditu Dostoiievskik, eta inork pentsa dezake adimen askorik gabeko pertsona dela. **Anjel Lertxundi**

satain ik satagin.

satalur *iz* sator lurra.

Malenkonia satorra bezain itsu da, dagoeneko ez den denbora baten eraiki ezinak bazkatzen du, eta ezari emana baino areagoko eremu ezdeus bat eraikitzen du bihotzean, bertako bazter ilunenak bihurturik hutsunearen **satalur**. **Anjel Lertxundi**

satán 1 *iz/izond* deabrua.

-Fuera, **satán** hori! ez nauk nire eginbeharretik aterako. **Aingeru Epalza**

-Astopito **satának**, zuen amen alu zikinean ezar esku kakazu horiek! **Aingeru Epalza**

2 Zuberoako pastoraletako pertsonaia.

Mauleko pastoralaren beste lorpen oso handia izango da, aldiz, 18 **satán** oholntza gainean agerraraztea. **Berria - Kultura**

Satanak eta joteroak, bikain. **Berria - Kultura**

Dantzak ere lekū hanitx hartzen dū, hainbeste **sataneekin**. **Herria**

Sophie Larrandaburu dabil kantu zuzendaritzan, eta Jean Etxegoienek dihardu **Satán** dantzariak eskolatzen. **Berria - Kultura**

3 (hitz elkartuetan)

Azken bi mendeetako bilakabidearen emaitza dira maskarada eta pastoraletako **satán** dantzetako urrats segidak. **Berria - Kultura**

Dantza ezagutza akademiko hori zekarten gazteek etxera itzultzean maskarada eta pastoraletako jautzi, barrikada eta **satán** dantzetan txertatu zituzten urrats eta teknika berriak. **Berria - Kultura**

satandar *izond* Satani dagokiona. ik sataniko.

Deabruaren ziguilaren bila ibili ziren Micaelaren gorputzean; seinale **satandarrak**, ahozko auziak dioenez. **Juan Martin Elexpuru**

sataneria *iz* Zuberoako pastoraletako satanen multzoa.

Jelkaldi llabür andana batekin, **sataneriak** ere kantatüz, ez da denborarik irabazten. **Herria**

sataniko *izond* Satani dagokiona.

Litekeena da Egunkari honek eskatuta hiriko sekta **sataniko** eta talde okultisten gainean egiten ari zen ikerketa Anjel Urtxipiaren hilketaren nahigabeko eragile gertatu izana.

Aingeru Epalza

Iragan astean Savernen esbastikak eta 666 ikur **satanikoa** margotu zituzten hilobi juduetan. **Berria - Mundua**

Praktika **satanikoak** gure hirian? **Aingeru Epalza**

Sexu-harremanak salatu zituzten errito **satanikoak** zirelakoan. **Lopez de Arana**

Zenbaiten ustez, emakume hori desehortzi eta errito **sataniko** batean erabili zuten. **Aingeru Epalza**

Gaiztoa ez izatea soberbia **satanikoa** zela. **Juan Garzia**

3 **satanimismo** 1 *iz* deaburuen gurtza.

Satanismoa , sorginkeria, atso-hilketen estatistikak, ebaketa erritualak eta ez erritualak. Aingeru Epaltza

Satanismoa eta posesio diabolikoak, Magia zuria/Magia beltza, Sorginkeria gaur eta abar. Aingeru Epaltza

Horrek ez du esan nahi, hala ere, hilerriak liluragarriak zaizkidanik, bertan egoteko joera konpultsiborik edo **satanismorako** inolako zaletasunik izan dudanik Xabier Mendiguren Elizegi

2 (hitz elkartuetan)

-Eta **satanimismo** afera horretaz zein da zure iritzia? -Tomasek, ni bezain lehiatuta. Aingeru Epaltza

satanimizatu, sataniza, satanizatzen 1 du *ad* izaera satanikoa egotzi.

Carod **satanimizatu** zutenek akats politikoa izan zela esaten jarraitzen dute. nola negoziatu orain arte plana erabat arbuia eta **satanimizatu** dutenekin? Berria - Euskal Herria

Ez dugu inor **satanimizatze**ko asmorik. Berria - Euskal Herria

Ezin dugu elkarrizketa **satanimizatu** . Berria - Euskal Herria

«**Satanizatutako**» artearen jaialdia. Berria - Kultura

2 (era burutua izenondo gisa)

Halaber, FMiz gainera aipagarri dira zerrenda **satanimizatuan** nola Munduko Bankua [...] edota Munduko Merkataritza Erakundea (MME). Iñaki Heras

satanki *iz* era satanikoa.

Beha egoiterik beltzera, **satanki** organizatua, arratseko deia da: [...] 25/30 000 gizonek hantxet beha egon behar oren bat, edo bi edo berdin hiru, adizioe huts bat zuzendu arte. Marzel Etxehandi

satankume *iz* deabrukumea.

-Sarri gaituzue hemen, **Satankume** alaenak! zuen koskabiloak izanen ditugu sari! Aingeru Epaltza

satarte *iz* sagutegia. • *irud/hed*

Heriotzaren egun hori baino ia urtebete lehenago Bordeleko portuan **satartetik** ihes egin guran Ameriketara abiatu direnen artean, [...] Indalexio Tribisarrospe legenda bilakatuko da. Edorta Jimenez

Hiriko irteerako **satartean** jausi da, behinola Poliziaren atzaparretan bezala. Urtzi Urrutikoetxea

satelita ik **satelite**.

satelite (orabat **satelita** g.er.) 1 *iz* planeta baten inguruan biratzen den argizagia.

Hark irakatsi zidan, finean, lurra biribila zela, eta ilargia **satelite** bat, lurraren inguruan biraka zebilena. Joan Mari Irigoien

Lurraren **satelitea** ikertuko du hurrengo sei hilabeteetan. Berria - Gaiak

Marteren Phobos eta Deimos **sateliteetara** robotak bidaltzeko proposamena. Berria - Gaiak

Saturnoren Titan **satelite** misteriozua aztertu behar duen Huygens zunda. Berria - Gaiak

Astronomoen ustez, **satelite** horiek Neptunoren grabitatearen eraginez harrapatutako asteroideak izan daitezke. Berria - Gaiak

Askoz ere biziagoa da Saturnoren eratzun urdinean dagoen **satelitea** , Enceleadus. Berria - Gaiak

Uranoren eratzunak, Saturnokoak bezala, **satelite** bat du: Mab. Berria - Gaiak

Eguzki Sistemako **satelite** natural txikiak izan daitezkeela. Berria - Gaiak

2 *irud/hed* (*izen nahiz izenlagun gisa*)

Kulturaz ahul dabilen herriak, nahi dituen muga guztiak jarrita ere, herri **satelitea** izaten jarraituko du. Bernardo Atxaga

PPren eta PSOEren nahia da gu Espainia zentralista eta uniforme bateko **sateliteak** izatea, baina gu berezko argia duten izarrak izango gara Europan. Berria - Euskal Herria

Sumertar legeak, Hamurabiren Kodean gorpuztuak, indarrean jarraitu zuen Hamurabiren siriar mendeko edo **sateliteen** ondorengoan artean. Iñaki Mendiguren

Amerikar Batasunaren estatu **sateliteek** , ikuspegi gehienetatik, ekintza-askatasun inbidiarria zuten arren, Sobietar Batasunaren **sateliteei** erabat ukatzen zitzaizena, haiek ere egoera etsigarri berean aurkitzen ziren hil ala biziko gai hauetan. Iñaki Mendiguren

Herri **sateliteen** bizitza eta zoria jokoan jartzen zituzten politikak. Iñaki Mendiguren

Gasteizko **sateliteen** hazkundea. Berria - Euskal Herria

3 **satelite** artifiziala.

1957an [...] Sobiet Batasunak bidali zuen airera bere lehenbiziko **satelitea** : seinaleak igortzen zituen esfera txiki bat baizik ez zen izan. Pello Salaburu

Iranek **satelite** bat bidaliko du espaziora. Berria - Gaiak

Ameriketako Estatu Batuetako Espazio Agentziak **satelite** bat bidali du Nazioarteko Espazio Estaziora, «Erlatibitatearen Teoriaren zehaztasuna egiaztatzeko». Berria - Gaiak

Satelite guztiak Lurretik 705 kilometroko orbitan egongo dira, eta jira ia zirkularra egingo dute planetaren inguruan. Berria - Gaiak

Gerra Hotzaren garaian espioitzarako erabilitako **satelite** estatubatuarrek ateratako irudiak. Berria - Kultura

Panel batean **satelite** batetik ateratako mapamundi gisako bat topatu dugu. Patxi Zubizarreta

Telefono, zuntz optiko, nahiz **satelite** bidez, egunetik egunera, ugarituz doaz telebista kateak, telefono mugikorak, Interneten erabilera eta, oro har, teknologia berriak. Txema Ramirez de la Piscina

Herri arabiarretako herritarren %60ek **satelite** bidez jasotzen dituzte telebistako albisteak. Txema Ramirez de la Piscina

Auto guztiak **satelite** bidez kontrolatzea. Berria - Harian

80 gramoko hondakin baten talka-energia nahikoa da 500 kiloko **satelite** bat birrintzeko. Berria - Gaiak

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Satelite seinaleetatik zintzilik. Eider Rodriguez

Bidegainek komunikazio birtuala eta **satelite** sistemaren bidez funtzionatzen duen gizartea sortu digu. Berria - Kultura

Estatu Batuen **satelite** programak kontrolatzea izango zen haren egitekoa. Berria - Gaiak

Satelite mapetan norberak bere puntuak nabarmentzeko eta horien inguruko informazioa trukatzeko Tagzania egitasmoa. Berria - Gaiak

Jipoitzeaz gain, ordenagailu mugikorra eta **satelite** telefonoa lapurtu zizkioten. Berria - Mundua

Darwin Proiektuko **satelite**-teleskopioen kontrol automatikorako sistema garatu dute. Berria - Gaiak

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Komunikazio-**sateliteak** dira satelite horietako batzuk. Esan daiteke Marteko lehen eguraldi **satelitea** dela hau. Berria - Gaiak

Meteorologia **satelite** arruntek duten radarrak baino mila aldiz zehatzagoa da ClodSat-ek duena. Berria - Gaiak

6 **satelite artifizial** Lurretik jaurtiriko ibilgailua, planeta baten satelite bihurtzen dena.

Eta gela barruan errikikua sentitu naiz karikaturren moduan, **satelite artifizialaren** moduan, trapu zaharren moduan, postal turistikoaren moduan. Joseba

Sarrionandia

7 **satelite bidezko izlag**

Urte horretan bertan hasi ziren **satelite** bidezko komunikazioak. **Satelite** bidezko kate hau 1996ko azaroaz geroztik ari da bere seinalea aireeraten. Pello Salaburu

Rahimek **satelite** bidezko telebista dauka etxean, ilegala, jakina. Jon Arretxe

GPS **satelite** bidezko nabigazio sistemak salgai daude berrehun euroren truke. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

satelite bidez (14); **satelite bidezko** (24); **satelite bidezko nabigazio** (5); **satelite bidezko telebista** (6)

lurraren satelitea (3)

sateliteak aztertu (5)

satén ik **satín**.

satifamendu ik **satisfamendu**.

satifatu ik **satisfatu**.

satifazio ik **satisfazio**.

satifos ik **satisfos**.

satín (24 agerraldi, 11 liburu eta artíkulu 1ean; orobat **satén** 20 agerraldi, 8 liburu eta artíkulu 1ean; Euskaltzaindiaren Hiztegian **satínatu** agertzen da) iz ehun leuna, arina eta distiratsua.

Damen janzkerak gusturik onena agertzen zuen: muselínak, **saténak** eta gazak garai hartan moda-modan zeuden kolore margul horietakoak ziren. Jose Morales

Eta faisaiak, faisai paregabeak, txano gorrimina, **satín** berdezko idunekoa, urre nielatuzko kapa, sugarrezko isatsa, herrestan orain, gorteko soineko baten gisa. Karlos Zabala

Leunaren leunaz eta distiraren distiraz masailak **saténaren** pareko utzi arte bizarra egin. Jose Morales

Kirikaka so eginez, Brugesko **satínaz**, tafetanaz eta Florentziako raxaz apaindua zen baldakin-ohena ikusi zuen. Aurelia Arkotxa

Txano arrautza formakoa, gerezi-koloreko **satínez** egina, ertzak beltz, zerrenda gorri. Karlos Zabala

Satínezko bata gorri iluna jantzi du. Xabier Paya

Prozesioetan, elizan, tulezko soineko eta txanoa janzten zituen, **satínezko** xingolekin. Karlos Zabala

Camillaren adiskideak hura mirestera biltzen ziren, **satínezko** etzaulki abrikot-kolorearen inguruan. Mirentxu Larrañaga

Edredoiaoren zorroa **satínezkoa** zen. Fernando Rey

Egongela aretoko sofa **satínezkoan** etzanda aurkitu ohi zuten, eskuei harat-honat eraginez, haize leun ilaunak dilindan zerabiltzan zitori astunak balira bezala. Mirentxu Larrañaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

satínezko bata (4); **satínezko etzaulki** (3)

satínezko gorbata (3)

satínatu 1 *izond* satínaren leuntasuna eta distira eman zaiona.

Kretonazko ehun **satínatu** gehiegi aukeran. Mirentxu Larrañaga

Gortina gorriek eta soineko luze **satínatuek**. Iñaki Zabaleta

Purpura-koloreko kartazal **satínatu** handi bat, gainean zilar-itxurako hizkiak zituena. Iñaki Mendiguren

Ohar labur bat, hamabi lerro boteretsu, paper lodi **satínatu** batean Parisera igortzen nizkionak. Ramon Saizarboritza

Pentsamendu lore hori batez apainduriko orrialde **satínatu** batean. Karlos Zabala

Marraz bitza hire lasterraldi arin eta behaztoparikgabeak ifrentzu **satínatuzko** paperean glifo alfabetiko haiek. Xabier Olarra

2 irud/hed

Berak, bere besoek, bere lepoak ematen zieten fruituei maitasunezko bitzita hori, emakume epeltasun **satínatu** hori. Karlos Zabala

satira 1 *iz* norbait edo zerbait irrigarri jartzeko ontzen den idazlana.

Satira, sormena, ironia, irudimena... horietatik dira gerrilla komunikatiboaren osagaiak. Txema Ramirez de la Piscina

Berdin dio tragedia, komedia, **satira**, epika, alegoria... edota diskurtso politiko bat. Txema Ramirez de la Piscina

Eguneroko bizitzaren **satira** da Tatiren obren ardatza. Bernardo Atxaga

Gurean **satirak** ez du sekula izan bizi herbal eta hutsala besterik. Xabier Olarra

Non gelditu da agintari publikoak -**satiraren** bidez- kritikatzeko dugun eskubidea? Txema Ramirez de la Piscina

Ideien pinturaren **satira** ere ikusten zuen han, eskola zaharrei emandako masaileko bat. Karlos Zabala
Gorabehera guztiak sakon aztertzen dituenak ikusiko du gaur eguneko arazoak lehendakari datozela, eta iraganeko garaiei egiten zaiela hemen **satira** eta errieta, eta ez mende honi eta bere legegileei. Juan Martin Elexpuru

Ingelesez *Brave New World* esaten du hemen, Huxleyk 1932an idatzitako **satiraren** izenburua, euskaraz *Bai Mundu Berria* izenburuaz itzulia. Iñaki Mendiguren

2 (izenondoekin)

Guk, hortaz, ezin ikus genezakeen graziarik halako **satira** beltz batean. Karlos Linazasoro

Fantasia, komedia beltza eta **satira** soziala uztartzen ditu. Berria - Kultura

Bertan kokatzen zituen bere **satira** politiko edo moralak. Xabier Olarra

Satira politiko guztiak badute alegoria bihurtzeko joera. Berria - Harian

Gogoeta baliozkoa, **satira** politikoaren bisturi zorrotzaz Italiako historiaren zatirik mingarrietako bat urratzen duena. Koldo Biguri

Prosa soila eta **satira** zorrotza erabili zituen bere ikuskera ez-konformista. Unai Elorriaga

Nire parez pare, José eta hirurogeita hamar bat urteko planta ederreko gizon lerden bat: Juan Octavio Prenz, poeta, **satira** sozial zorrotzeko *Inocencio Honesto dekapitatuaren fabula* narrazio fantastikoaren idazlea. Anjel Lertxundi

3 (hitz elkartuetan)

Satira moduko bat egin nahi dute. Berria - Kirola

Axolagabe "Apuleius" Lucius Apuleius **satira** -idazle latindarraren aipamena da. Xabier Olarra

Mamu Heinrich Heine (1797-1856) poeta eta **satira** -idazle alemana. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

satira politiko (3); **satira politiko** (3)

satiragile iz satira-idazlea.

horregatik jendeak gizatar ospindutat hartu ohi du **satiragilea**. Erromako Juvenal **satiragilea**, kristau-aroko bigarren mendearen hasiera aldera idazten zuelarik, ohartua zen Orontes siriakoak Tiberrera zeramatzala urak. Xabier Olarra

Kalumniak, lagun; **satiragile** doilorrak baitio, hara, urdinuak dituztela agureek bizarrak, haien aurpegiak zimurturik daudela, begiei erretxina lodi eta aranondo-goma dariela, eta aurki nagusitzen zaiela buru-eskasia, guztizko zango-ahultasunarekin batera... Juan Garzia

Ilargitar Luziano Samosatokoa, bigarren mendeko **satiragile** greziarra. Xabier Olarra

satiriko izond satirari dagokiona; satira-lanak ontzen duena.

Hiru eratako eszena-motak daude: bata tragikoa deitzen dena, bestea komikoa, eta hirugarrena **satirikoa** deitzen dena. Santiago Iruretagoiena

Araoa izan zen **satirikoegia** gertatu zela, korrosiboegia, eta, ondorioz, konplizitatea izan zezaketen sektore batzuek *Euskadi Sioux* boikoteatu egin zuten. Berria - Kultura

Poeta **satiriko** frantsesa. Koldo Izagirre

Rabelaisen edo Quevedoren luma **satirikoetan**. Joan Mari Irigoien

Desiderius Erasmus (1467-1536) *Encomium Moriae* (Erokeriaren gorazarrea) izeneko liburu **satirikoa** idatzi zuen 1511n. Xabier Olarra

Lanbide hori etekin gutxikoa zela ikusirik, erreportajeak eta artikulu **satirikoak** idazten hasi zen Moskuko egunkari demokrata berri batean. Jose Morales

Pantomima bat idazten hasi nintzen *Simplicissimus* aldizkari **satirikoko** estiloa antzeratu nahian. Anjel Lertxundi

70eko hamarkadaren erdialdean sortutako beste kolektibo batzuek ikuspegi kritiko **satirikoa** landu zuten bereziki, Golvanoren iritzi. Berria - Kultura

Imintzio horiek oso ukitu garratza ematen zieten haren eztenkada **satiriko** ugari. irribarreak ezpain-ertzak gorantz jasotzen zizkion, eta aurpegiak halako itxura **satiriko**, txorrotx bat hartzen zion. Jose Morales

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldizkari satirikoak (3); **astekari satirikoak** (3)

satirizatu, satiriza, satirizatzen du ad zerbait edo norbait satira gai bihurtu.

Juvenalek anitzetan **satirizatzen** zituen Erromako herritarrak, mesprezatzen eta gutiesten. Joan Mari Irigoien

Edouart Maneten margolanak defendatu zituen burgesen konformismo ergelaren kontra, Napoleon III.aren inperioa **satirizatu** zuen, kartzelaren gogortasuna salatu, apaizen hipokrisia agerrarazi. Karlos Zabala

Arrakasta itzela izan zuen garai bateko eskola umore zorrotzez eta gupidarik gabe **satirizatzen** zuen lanak. Berria - Kultura

Gehienbat aldizkari errepublikazaleak ziren, eta Carlos VII.a eta hark ordezkatzan zuen karlismoa **satirizatzen** zuten; askotan krudeltasunez. Berria - Kultura

[Zolak] Edouart Maneten margolanak defendatu zituen burgesen konformismo ergelaren kontra, Napoleon III.aren inperioa **satirizatu** zuen, kartzelaren gogortasuna salatu, apaizen hipokrisia agerrarazi. Karlos Zabala

satiro iz mitologian, erdi jainko basatia, giza gorputza eta aker hanka eta adarrak dituen, haragikeriara oso emana.

Herritarrek uste dute inguru horietan ninfak eta **satiro** ahuntz-hankadunak bizi direla. Xabier Amuriza

Nor konturatu zen erdi biluzik zebiltzan hiru pertsonaiak gora eta behera lan gogoangarria, gainera mitologiako **satiro** zirikatzaileak zirela? Berria - Kultura

Opera bufoa da, eta, estilo horri segika, hiru pertsonaia asmatu ditut, hiru **satiro**. Berria - Kultura

Urrutiik ikustatu nuen Itsasoari izena eman zion mendia: haren mazelatan euforbia hazten da, edenen deusezgarria; gailurraldean **satiroak** bizi dira, haragikeriara emanak diren gizon anker basa batzuek. Juan Garzia

Gorteiatzen zuen gizon aberats batek Prosperidad-eko hotel batera eraman zuen, eta handik egun batzuetara hoteletik hanka egin zuen ilehori hark, bahitzailearengandik ihesi, **satiro** hutsa baitzen, nonbait. Josu Zabaleta

satisfakzio ik satisfazio.

satisfakzione ik satisfakzio.

satisfamendu (orobat *satifamendu*) iz ipar satisfazioa.

Ez da dudarik lanaren kalitateaz, **satisfamenduak** ez direla hor falta: etsaminetako erreusitzeak osoak, erakasle eta ikasleen arteko partaletasun haundi bat bestetik, orako pedagogia berrietan, hori da zinez orako berritasuna. **Herria**

Mahastizain, langileen eta erosleen **satisfamendua** beti gogoan. **Herria**

Satifamendu azkarra dugu bidaia erreusiturik. **Herria**

Ez dira gutti harro hemengoak, saria baino gehiago, **satisfamendu** hori bereturik. **Herria**

satisfatu, satisfatzen (orobat *satifatu*) du *ad* ase, bete, gogobete.

Adin orotakoak **satisfatu** partikulazki ondar gauean zikiro arrado eta alaitsua janez. **Herria**

Egun guzian zehar gose edo egarri tiki batzuen **satisfatzeko** parada izanen da tokian bertan. Ametsez betetzen nuen bihotzaren hutsa eta **satifatzen** gorputzaren gosea. **Herria**

Bere bizi luzean gogoeta franko garatu du mintza moldetaz, gauzen gisa batera erraiteak nola bultzatzen gaituen ekintzara ikertu du, sekulan ere behin betikoz **satifatzen** zuen arropaturik aurkitu gabe. **Herria**

satisfazio (orobat *satisfakzio*, *satisfakzione* g.er. eta *satisfazione* g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian *satisfazio* agertzen da) 1 iz poza, pozbidea.

Literatura egiterakoan **satisfazio** pertsonala du helburu. **Ana Urkiza**

Satisfazio neurritz kanpoko bat nabarituiko nuen, neure azal-zulotxoetarik gainezka. **Joan Mari Irigoien**

Txakur amorratua izatea da edozeri ostikadak ematea, eta horretan badago, bai, **satisfazioen** bat edo beste. **Julen Gabiria**

Isilik denok -esan zuen, **satisfazio** maltzurkeo begiradarekin-, entzun ditzagun ama batek bere umeei esango dizkien azken hitzak. **Julen Gabiria**

Eman zidana baino **satisfazio** handiagoa espero nian. **Anton Garikano**

Gero, idazle bezala, bizirik dagoen zerbait egin dudala jakiteak eman didan **satisfazioa** eta batzuei balio izan diela, niri irakurritako liburuek balio izan didaten bezala. **Ana Urkiza**

Satisfazioz egiten zuten garrasi, ikusterakoan Peterrek eskuekin hartzen zituela eurek botatako ogi-kozkorrak, ohiko moduan hartu beharrean, hau da, ahoarekin. **Julen Gabiria**

Zertan ari nintzen jabetu zenean **satisfaziozko** irri bat marraztu zitzaion, ume batena irudi, dena ondo zihoalako pozik eta lasai. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 (hitz elkartuetan)

-Zer iruditu zaizu poema? -galdetuko luke erromantikoak **satisfakzio** aurpegia jarri. **Bernardo Atxaga**

Eta sinatzen ikusi nuenean, bere txapelarekin, gizon handi hura, **satisfazio** gaindosi batek eraso zidan eta malkoa atera zitzaidan. **Jon Maia**

satisfos 1 *pred/adlag* pozik, kontent.

Bestalde, joanden igandean, Michèle Alliot-Marieere etzen hain **satisfos**. **Herria**

Eba ez zen arras **satisfos**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Lasserre **satisfos** ateratu da biltzar hortarik. **Herria**

"Eta bai!" erran nahi zuen irriaz ihardetsi nien, ene balentriaz behingoz aski **satisfos**. **Itxaro Borda**

Bayrou loriatua, ezkerreko alderdiak ere **satisfos**, gauzak hola hobeki direla demokraziaren onetan... **Herria**

2 (izenondo gisa)

Apezaren mintzaldia harrigarria kausitu zuen, hiriko apeza zelako eta fededunak hein bateko egoera material **satisfosean** aurkitzen zirelako. **Itxaro Borda**

Lehiaketa horrek ikertzen zuen zein saltegitako erosleak ziren **satisfosenak**. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arras **satisfos** (6)

satisfoski *adlag* satisfazioz.

Mattin, eskuak **satisfoski** torratuz, grebalarietarik alden du zen. **Itxaro Borda**

sator 1 iz oso ile leuneko ugaztun txiki intsektujalea, begiak oso txikiak dituena, eta bost behatz azkazaldunez osaturiko eskuez lurpean zulo bideak egiten dituena (*Talpa europaea*).

Haritzaren etxean denak daude gustura: mokotarro, xagu, satain, **sator**, kattagorri, kattamuxar, eta hainbat ezkurjale... **Pello Zabala**

Inurritegiak dozenaka azaltzen ziren, zomorro errukarriak aztoraturik; larre-saguak korrika bizian nire ondotoxik, ziraunak, armiarma erraldioak, zizareak, **satorrak**, bareak, matxinsaltoak, erletzarrek, ezparak, euli-mandoak, ehunzangoak, kakalardoak, barraskiloak, mantalgorriak, kilkerak, txiritak. **Joxean Sagatzizabal**

Egun hartan, gizaki orok **sator** eta saguzarrei botako dizkie bere idoloak, gurtzeko eginak zituen urrezko eta zilarrezko idoloak. **Elizen arteko biblia**

Elur-pilotetan harriak sartzeko bezain gaiztoa, jolas hutsagatik **satorrak** eta katuak akabatzeke gai, neskatoak engainatzen saiatzeko bezain lizuna. **Itziar Otegi**

Ikustekoa zen aita, tontortxo baten aurrean zut, **satorra** noiz hasiko lur azpian mugitzen. **Anjel Lertxundi**

Noizbait, **satorren** baten mugimendua antzemanik, aitzurra jasotzen zuen poliki-poliki; gero, sekulako kolpea ematen zion aitzur-buruaz lur harrotu berriari, eta **sator** bat hiltzea lortzen zuenean, animalia triste bat hil izanak ezin justifika zezakeen poz gehiegizko batek hartzen zuen aita. **Anjel Lertxundi**

Gabiraiazen hegadari behatzen zenion, xagu eta **sator** bila zerutik. **Hasier Etxeberria**

Begiak txipituak zitzaizkion, **sator** bat iduri. **Aingeru Epaltza**

Malenkonia **satorra** bezain itsu da, dagoeneko ez den denbora baten eraiki ezin bazkatzen du. **Anjel Lertxundi**

Aspaldi ez bezala, mozkortu egingo nintzen gau hartan, bakar-bakarrik, nola **satorra** bere zuloan. **Hasier Etxeberria**

ik satorzulo.

Satorra lanean ari. **Herria**

ik satorlan.

LEIAren iduriko, 2X2 proiektua aitzina doa **satorraren** lana bezala, lurpean nehorik ez ikusteko gisan. **Herria**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Orain bideak pinudi eder bat segitzen du eta, hantxe, mendiaren azken bizkarrek **sator** meta alimale batzuk dirudite, lerroz lerro eraikiak. **Piarres Aintziart**

Sator meten artean, egin ahala barna sartzan ditu gariak bere erroak: jendearen lan tematsua, haatik! Eramangaitzak zitzaizkion naziak eta etxe aurreko lorategi txikian du partean agertzen ziren **sator**-tontor txikiak. Pentze biluzien azaletan **sator** puloak turrupilo biderkatzean. **Piarres Aintziart**

satorraldi iz satorren gisa pasaturiko aldia.

Sokorriko armada 1569ko abuztuaren 9an agertu zen Nabarrenkoxen, hiru hilabete eta erdiko **satorraldiari** akabaila emanik horrela. Aingeru Epaltza

satortu, sar(tu), satortzen da/du ad sator bihurtu.

Heroi bat naizela pentsatu beharko zenuke, Estatuaren eta Sistemaren etsaien lerroetan **satortu** bainaitz, bizitza bera ere arriskuan jarriz, gure gizartearen baloreak defenditzeko. Jon Alonso

Premiazkoak ziren seguritate neurriak zaintzearen, Ivryra zihoan metroan **satortu** ziren. Itxaro Borda

Haietako gehienek inork baino denbora gehiago zuten Nabarrenkoxen, lehenbizikoak izan baitziren murrurraldiaren gabeleko **satortzera** etorritako iheslari uholdean. Aingeru Epaltza

satortxo iz sator txikia.

Iparrak garbitutako plazako harri eta lur gogortutik zehar elizara zihoazen atsoak ikusten ziren, **satortxo** beltzak bailiran. Josu Zabaleta

satorzulo 1 iz satorrak eginiko zuloa.

Inoiz, Arena giltzatu ostean, Arthur Cravan poeta boxeolariarekin mozkortzen nintzen ondoko **satorzulo** zikin batean. Iñigo Aranbarri

Sator-zuloek indiarren usadiora atondutako etxolen herri ñimiñoa osatu dute. Itziar Otegi

Lubaki, kobazulo, **sator**-zuloak ikusi nituen, soldaduen lurrezko estalki. Felipe Juaristi

Sator zulo batean usainka utzi nuen zakurra, eta komunaren zelaiko zuhaitzera igo nintzen. Koro Navarro

2 irud/hed

Zimur ñabarrak ezpainen hantura sukartuaren bi aldeetara, ezpondak, **sator**-zuloak. Monika Etxebarria

satraka iz

Handik aurrera, atzean bezalaxe, basamortuko lur zurikara eta ametsetan ere jazartuko zaizun **satraka** motxa besterik ez (gizakiaren ondoan bizi denez, honek ere badu bere izena: coirón). Iñigo Aranbarri

satrapa iz antzinako Pertiako probintzia bateko gobernaria.

Hiru ministro hauei eman behar zieten kontu **satrapa** guztiak, erregeak inongo kalterik izan ez zezan. Jose Antonio Mujika

Hara, jauna, erreinuko ministro, buruzagi, **satrapa**, aholkulari eta gobernadore guztiak aho batez diote erregeak honako agindu hau eman behar lukeela: [...]. Jose Antonio Mujika

Dario mediarrak, bere erregealdian, ehun eta hoge **satrapa** izendatu zituen erreinu osoan zehar, eskualdez eskualde, eta haien buru hiru ministro ezarri zituen. Jose Antonio Mujika

Ikus nola hiri guztiak atera zitzaizkion, nolabait esateko, aurrera; nola **satrapak** eta handikiak iritsi zitzaizkion oldean. Iñaki Iñurrieta

sats 1 iz simaurra, zaborra.

Ingeniaria izan banintz, kemena ukanen nuke **satsetan** jarduteko? Koldo Izagirre

Soro eta barruti lanetarako **satsa** eta ongarría ere, ilberriz lizundu ta gogortu egiten da. Pello Zabala

Soro eta barruti lanetarako **satsa** eta ongarría ere, ilberriz lizundu ta gogortu egiten da. Pello Zabala

Giro iluna, **sats** usaina, behiak muuuka, lurra oso labaina. Joseba Sarrionandia

Ez zitzaidan gehiegi axola jende horrexek ni antzatz ez hartzea, ene lana **sats**-biltzailearena baino areago ez estimatzea. Xabier Mendiguren Elizegi

2 irud/hed

-Hari muturretik mataza, bai! [...] haria bakarria denean; hariak bat baino gehiago direnean, **satsa** ! Edorta Jimenez

Berak du jende xehea hautsartetik jasotzen, behartsua **satsetik** ateratzen, handikiakin eser dadin eta aulki ospetsuan jarri. Elizen arteko biblia

Orduan, lege-hausle batzuk, Israelgo **satsa** zirenak, elkar hartu eta erregeagana joan ziren, Jonatanen aurka salakuntzak egitera. Elizen arteko biblia

Baina **satsa** besterik ez nuen lagun Bergaran aurrenekoz ezagutu nuen atxilotuen gela hutsean. Koldo Izagirre

Heltzen den zikina, ez kazetariak ez irakurleak ezin irents lezakeen **satsa** da. Iñigo Aranbarri

Apaintzen dugu geure **satsa** eta geure simaurra arrosa lurrinztatu batez. Joan Mari Irigoien

3 zirin-sats

Tira, bada, ekiok pozoi, ezpain--margo eta zirin-**sats** artean induska. Juan Garzia

Oilo-simaur edo zirin-**satsa** (hala esaten zaio: guk kalekumeok ez genekien, ez genekien ezen, nitrogenoaren kariatz beti ere, baratzeetarako ongarría gisa guztiz estimatua dela) ez da hutsean ematen. Juan Garzia

Ongi izerditutako kilo bat zirin-**sats** bizikletaren saskian. Juan Garzia

satsu 1 izond lohia, zikina.

Txakurrek ere jango ez zuketean usteltasunez elikaturiko piztia **satsua**. Karlos Zabala

-Lakuaren urik gardenenetan ere apoak eta igel **satsuak** ez daude geldi... Joan Mari Irigoien

Etxe hartan indiarrek arratoi **satsutzat** zituztela. Joan Mari Irigoien

Amona Mäliak bereizkeriarik gabe gordeak zituen arropa fin-finak zein pilda **satsuak**. Juan Garzia

Gainera, hondakin **satsuen**, jaki ustelen eta graka zikinaren zaletasun nabarmenak ez dio batere mesederik egiten euliaren irudiari. Juan Garzia

Hor goiko ortzi garai bipila, urrezko suz apainduriko sabai maiestatetsu hori, hara, ez zaidak niri lurrin-bilkura **satsu** eta kirats bat besterik. Juan Garzia

Bizi ohe zoldatsu baten ustel-izerdi kiratsean, lizunkeriak irakinak, maite-maite eginez heia **satsu** baten... Juan Garzia

Amorioak bakarrik atera diezaiok, halatan, baita materiari **satsuenari** eta zantarrenari ere, urre distirarik distiratsuen. Joan Mari Irigoien

2 irud/hed

Egostetak zerion usain **satsu** tristea aditu zuen berehala, eta pentsatu zuen apika arrazoi izan zezakeela apaizak, infernuañ sufre-usaina zegoela zioenean. Juan Garzia

Gaixotasun **satsu** batek jo duen eria bezala. Juan Garzia

Klararen arrazoi **satsuetatik** ale garbik ateratzea ez zen erraza. Aingeru Epaltza

Onartu behar da ere hurko lagunarentzat bizimodu **satsuenetaz** kapable dela gizona, sokorri errefusatzeko, lapurtze, bortizkeria, borroka, hiltze. Michel Oronoz

3 (izen gisa)

Satsu eta zentzugabeak ez dira hortik ibiliko; bida **saturatzeko** santua deituko zaio. Xabier Kintana

satsukeria iz lohikeria, zikinkeria.

Arki bere baitan murgilaraziko gintuen **satsukeria** kirats hartaz ez zitzaigun artean iritsi inolako berri zehatzik. Juan Garzia

Mailu jo, pikatu, garbitu eta harraskatzen jardun zuten, baina ama pozik zegoen, aurrerantzean azkenik bukatuko baitzen aldamenekoen **satsukeria**, berak zioenez.

Eduardo Matauko

Saiakeza hau eskaintzen diet harako mutiko bihurri eta beren eskuko horiei, zeinak deliberatuta dauden giroko **satsukerian** ez lurruntzera. Josu Zabaleta

saturatu, satura, saturatzen 1 du ad gauza bat bere edukieraren mugaraino bete.

Baina epe luzera begira, argi dago ezin dela guztia eremu txiki baten pilatu eta gureak bezalako auzoak **saturatu**. Berria - Euskal Herria

2 irud/hed

Syd Barreten musikak berehala **saturatzen** nau. Mikel Hernandez Abaitua

Hori guztia, jakina, egun haietako nire obsesiotik zetorren, aste luzez eduki bainuen josia arreata auzi berean, jira eta bira, arazo hark **saturaturik**. Juan Garzia

3 (era burutua izenondo gisa)

Patrizioarekin ez da nahastu behar, hura disoluzio **saturatua** baitzen. Xabier Olarra

4 (era burutua izenondo gisa, gai organikoez mintzatuz) ik ase.

Zuntz eta karbohidrato konplexu gutxiegi eta animalia proteina, lipido **saturatu** eta azukre soil gehiegi kontsumitzen delako. Edorta Agirre

Etorkizuneko elikagaiak oraingoek baino gantz **saturatu** gutxiago edukiko dituzte. Edorta Agirre

Kontuz ibili beharko dute, gantz asegabeen kontsumoa dela eta, koko, palma eta palmito olioak **saturatuak** baitira. Edorta Agirre

saturazio 1 iz saturatzea.

Eguneko merkaturen **saturazioak**, petrolioa, gasa, ura eta beste zenbait natur baliabide kontrolatzeko gerrak globalizatzeak, [...] hainbat trinomio osatzen dute, esate baterako pobrezia, enplegua eta kultur aniztasuna hirukoa. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Egun bizi dugun **saturazio** informatiboa da zentsurarik perfektuena askotan. Txema Ramirez de la Piscina

Bi erretorika edo mito horien inguruan gertatu den **saturazio** mediatikoa dela eta, [...]. Iñaki Heras

Metaketa-mugimenduak eta euren **saturazio** geldoak. Xabier Arregi

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Saturazio maila batera iritsi, eta, lurrina pilatu zaiolako. Pello Zabala

Kristau Eliza **saturazio** -punturaino helenizatua zegoen. Iñaki Mendiguren

-Telebistak sor dezakeen **saturazio** -mugaz jabetuz. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hurrena berriz, informazio **saturazioa**, horrek ere informaziorik eza dakarrelarik, noski. Iñaki Heras

saturnal izond Saturno jainkoari dagokiona; Saturno jainkoaren gorazarretan egina.

Kantatu genuen zerbait, sehaskatikoa, blues kartzelati bat, serventesio **saturnal** bat, ez dut ongi gogoan, eta loak hartu genuen segituan. Karlos Linazasoro

Bestalde, ospakizun **saturnaletan**, protagonista Gorosti-mutila zen. Pello Zabala

saturnismo iz berunak edo berunaren eratorri batek eraginiko posoitze kronikoa.

Saturnismoa berunak eragiten duen gaitza da. Berria - Harian

Ez zuten urik, hormak zartatuta zeuden eta hainbat umek **saturnismoa** zuten. Berria - Harian

saudade iz portugaldarren edo galegoen herrimina.

Tristura umel batez kutsaturik bezala ibili zen bolada batez, xangrin edo **saudade** sakon batekin. Joxean Agirre

Garai on haien **saudadea** sentitzen dut. Karlos Zabala

Alaba bat ere badu Ana Luisak, ostera, eta San Joan bezpera honetan **saudadez** beterik da. Edorta Jimenez

Saudade moduko zerbait da hori, udazkeneko hosto ihartuei behatzean sortzen den sentipena, gauza guztiak beren edertasunean iragankorrak direla eta. Ibon Uribarri

Zure **saudadean** murgildu eta harekin gozatzeko. Harkaitz Cano

Aulki horietan esertzen dira **saudadea** praktikatzan duten lisboatar ugariak: zerumugari begira egoten dira, norbaiten edo zerbaiten esperoan baleude bezala. Joxean Agirre

Halako nostalgia bat, halako **saudade** bat sentitzen dudala esan dut eta ez da gezurra, baina gauza onak eta txarrak bereizten saiatzea bezalakoa da, ezinezkoa. Karlos Zabala

Gai egokia, **saudadeak** utziko baititu tren honek, eta esan behar dut aukera izan dudala Portugalgo beste poeta handi bat ezagutzeko, Ruy Velo. Edorta Jimenez

saudadezale izond saudadearen zalea dena.

Guztiak hain baitziren beren baitara bilduak, hain **saudadezaleak**, beren sentimenduen kontaduria egiten iaioak, bakar-jokoan aritzeak. Joxean Agirre

saudiar (29 agerraldi 18 artikulutan; orobat sauditar 16 agerraldi 13 artikulutan) 1 izlag Saudi Arabiakoa, Saudi Arabiari dagokiona. ik saudiarabiar.

Saudiar Barneko Ministroak erran du badituela han beste holako jazarketak hutseginaraziak. Herria

Saudiar segurtasun indarrak atzetik zeuzkaten erasotzaileek jende andana bahitu zuten. Berria - Mundua

Riadek **saudiar** herriartasuna kendu dio, halaber, Al Kaedako sortzaile eta agintari goren bezala emana den Osama Bin Ladeni. Berria - Mundua

Nagusitasun **saudiarra** mundu arabiarrean bukatzeak ekimen politiko berrientzako lekurik utz lezake? Berria - Harian

Guardia **saudiar** eta kontsuletzeko bost langilek bizia galdu dute. Berria - Mundua

Jamaat al Tauhid e Islam taldeak bere gain hartu zuen atentatuaren erantzukizuna, ekintzaile suizida **saudiar** batek egin zuela zehaztuta. Berria - Mundua

• 2 iz Saudi Arabiako herritarra.

Ontziak 1.200 egitoar, 99 **saudiar**, hiru siriar, bi sudandar eta kanadar bat zeramatzan. Berria - Mundua

saudiarrek ziurtatu dute erraz igo dezaketela produkzioa 10,5 milioi uepletaraino. Berria - Ekonomia

Saudiarren trebatzaile ziren AEBetako bost militar eta bi indiar hil ziren. Berria - Mundua

Zazpi lagun hil ziren eraso hartan, zehazki, mendebaldeko herrialdetako 6 atzerritar eta **saudiar** bat. Berria - Mundua

AEBetan, hegazkinak gidatzeko eskola batean atxilotu zuten **saudiar** baten kasua aipatzen zuen liburuan. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arabia sauditarrean (6)

saudiarbiar *(10 agerraldi 7 artikulutan)* 1 izlag Saudi Arabiakoa; Saudi Arabiari dagokiona. ik **saudiar**.

Saudiarbiarra den Osama Bin Ladenek Riadeko monarkia agintetik kenduko duela agindu du. Berria - Mundua

Ustezko hemeretzi ekintzaileetatik hamabost **saudiarbiarrak** zirela baieztatu zuen Etxe Zuriak. Berria - Harian

Bandar printze **saudiarbiarra** presidentearen lagun mina da. Berria - Harian

• 2 iz Saudi Arabiako herritarra.

Iturri ofizialen arabera, zazpi siriar, hiru libanoar, **saudiarbiar** bat, palestinar bat eta jordaniar bat dira. Berria - Mundua

Saudi Arabiako lobbyaren eragina murrizten ari da eta diru beste herrialdeetara bideratzen ari dira egun **saudiarbiarrak**. Berria - Harian

Ez dut uste **saudiarbiarrek** eta bertan lan egiten duten estatubatuarrek terroristek irabaztea nahi dutenik. Berria - Mundua

LPEEK eta **saudiarbiarrek** ez dute nahi petrolio gehiegi merkaturatzea. Berria - Ekonomia

sauditar ik **saudiar**.

sauerkraut *iz* alemanezko hitza, ‘aza samina’ esan nahi duena.

Garai bertsuan, Estatu Batuetan aleman eskolak eta Beethovenen musika galarazita zirelarik, **sauerkraut** berdea ere itzuli zen: askatasunaren aza. Iñigo Aranbarri

Begira-begira gelditu nintzaien **sauerkraut** eta patata-pureaz lagunduriko saltxitxa lodi haiei. Alberto Ladron Arana

Ez zait sekula **sauerkrauta** gustatu. Anjel Lertxundi

sauldar *iz* Saulen leinuko kidea.

Zerahengandik zerahtarrak eta Saulengandik **sauldarrak**. Elizen arteko biblia

sauna *iz* oso tenperatura altuan hartzen den lurrin bainua; bainu hori hartzeko egokituriko lekua.

Deialdiaren arabera, eraikinak honako atalak izanen ditu, berteak berte: igerileku girotua, hidromasaje eta aquaerobic igerilekuak, **saunak**, Vichy dutxak, dutxa ziklonikoak, izotz iturria, yoga aretoa, gimnasioa, aldagelak eta kafetegia. Berria - Euskal Herria

Tennis Clubeko **saunan**, toalla zurietan bilduta eta izerdia kopetatik behera ibaika zeriela. Xabier Mendiguren Elizegi

Jesarri egin naiz ostera **sauna** higuigarri honetan. Koldo Izagirre

Sauna gay batean hasi nintzen lanean. Berria - Euskal Herria

Izerdi-parrasta, **sauna** batean bezala. Joxe Austin Arrieta

-Zu ez ezik, **sauna** honetan geu ere argaldu gara -zuzendu zaio Tom, irribarretsu. Patxi Zubizarreta

Saunan bezalakoxe izerdi-patsetan biok, larruzko nire sakela-xakearen gainean makurturik. Joxe Austin Arrieta

Sauna moduko zerbait omen zen, haren ustez. Fernando Rey

saunatokia *iz* sauna dagoen tokia, sauna.

Bertan lo egin eta, biharamunean, errusoen **saunatokia** atondu eta probatuko duzue. Joseba Sarrionandia

saurio *izond* narrastiez mintzatuz, lau hanka motz, gorputz eta isats luzeak, azal ezkatatsua edo tuberkuloz betea, eta baraila horzdunak dituena.

Kameleontidoen familiako narrasti **saurioen** izen arrunta. Unai Elorriaga

saussurear *izlag* F. Saussure-rena, Saussureri dagokiona.

Hizkuntza sistema sinkroniko baten egoera jakin batek ez du, **saussurear** pentsamoldean, diakroniarekin zer ikusirik. Isabel Arrigain

Badago Coseriuren hainbat idazti, **saussurear** mundua dela eta aipa litezkeenak. Isabel Arrigain

Frogatu beharko da nola positibismo neogramatikotik sailkapenen zientzia **saussurearra** sortu den, nola lege fonetikoaren ideiak egituraren ideia daraman, diakroniaren ideiak sinkroniarenera. Isabel Arrigain

savant 1 *iz* oroimen miragarria eta arrazoimen urria agertzen duen pertsona.

Bada haien artean mordoxka bat beste guztien gainetik atentzioa ematen duena, eta hura da teknikoki idiot **savant** deitzen den idiota klasea. Iñaki Segurola

la **savant** guztiek dituzte oroit-ahalmen miragarriak. Xabier Olarra

Agerian uzten dute **savantek**, froga sendo ere sendoz, badirela adimen mota desberdinak, eta ez dutela batak bestearekin zerikusirik. Xabier Olarra

Artista, Stephen Wiltshire, autista zen, eta **savanten** trebetasunak erakutsiak zituen txikitandik. Xabier Olarra

Savanten oroinaren enzagarrri bat [...] xehetasun gogoan hartzeak ahalmen miragarria da. Xabier Olarra

Sekula aztertutako **savant** dohaintsuetariko bat iruditu zitzairen Stephen, gaitasun izugarrikoa ikusmen-ezagutzan eta buruz marrazten. Xabier Olarra

"Jasotakoa denbora-tarte bat pasatuta bere hartan emateko gaitasuna" da **savant** artisten ezaugarria. Xabier Olarra

Stephen ez zen **savant** hutsa, haur miragarria baizik. Xabier Olarra

2 (hitz elkartuetan)

Dohain berezi horiei erreparatzen nien bereziki, **savant** sindrome horiei. garunaren alde batzuk oker edo gutxiuak badira ere, beste batzuk nabarmen garatuak dira: miragarriro, noski, **savant** sindromeak dituztenen baitan, baina, hein batez, autismoa duten pertsona guztiengan. Xabier Olarra

3 (izenondo gisa)

Garbi geratu zen autista **savant** askok dohain mota bat baino gehiago izaten zutelako: musika arlokoak, mnemoteknikoak, ikusmenezko edo grafikoak, konputaziokoak, etab. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

savanten dohainen (3); **savanten trebetasunak** (4)

savantismo iz savantari dagokion nahasmendua.

Alde batzuetatik, nerabe normal bat da; ez autismoak, ez **savantismoak**, ezin dute hori eragotzi. Xabier Olarra

Savantismoak autisten artean zuen intzidentzia -ehuneko 10 doi-doi- atzeratuen artean duenaren berrehun halako zela, eta biztanleria normalean duenaren mila halako. Xabier Olarra

saxo (76 agerraldi, 6 liburu eta 54 artikulutan; orobat sakso g.er.) 1 iz saxofoia.

Gorka Benitez jazz musikariak **saxoa**, alboka eta txirula jo ditu. Berria - Kultura

Hiruko formazio klasikoa mantendu du bizitza guztian: soinua, jatzana, **saxoa**. Pako Aristi

Magnus musikari trebea eta dotorea dugu, batez ere **saxoan**. Berria - Kultura

Iosu Izagirre (kontrabaxua), Alejandro Mingot (gitarra), Miguel Villar (**saxoa**) eta Hasier Oleaga (bateria). Berria - Kultura

Gustura sentitu genuen Obsidieene estreinako asmakizunarekin, klarinete, piano, biolin eta **saxorako** egindakoarekin. Berria - Kultura

Argiak musika jo ahal baleza, **saxo** altuaren soinua aterako luke, eta oboearen ezitia. Pako Aristi

2 (hitz elkartuetan)

Akordeoi edo **saxo** irakasle tituluarekin trikitia irakats dezakete. Berria - Kultura

3 saxo-jole (3 agerraldi, liburu 1 eta artikulua 1ean; orobat saxojole 6 agerraldi 2 liburutan eta saxo-jole 2 agerraldi artikulua 1ean) saxo-jotzailea.

Saxo-jolea John Coltranen musika imitatu nahian zebilen. Lutxo Egia

Neal Sugarman **saxo jolearen** zuzendaritzapean. Berria - Kultura

Jean Louis Hargous **saxo-jolearekin** batera eginikako jazz-obra, 12 kantuz osatua. Herria

Lanetik irten, Eguren **saxojolea** hartu, saxoa eta soinua motoan ezarri, eta abiatu ziren ilunpetan. Pako Aristi

- Horretaz aparte beste **saxo** eta bateria edo "jazbanjoleak" izan dira Gelatxo taldean urteotan: Arturo Zuloaga "Txokolo", [...]. Pako Aristi

4 saxo-jotzaile (23 agerraldi 18 artikulutan) ik saxofonista.

Jan Garbarek norvegiar **saxo jotzailea** ariko da, Kurasaaleko auditorioan. Berria - Kultura

Herbie Hancock piano jotzaileak eta Wayne Shorter **saxo jotzaileak** distira berezia ematen diote laukoteari. Berria - Kultura

Londresen jaiotako **saxo jotzaileak** freskotasan handiko jazz-a egiten du. Berria - Kultura

Magnus Lindgren **saxo** eta txirula **jotzaile** suediarra. Berria - Kultura

- Urteko artista, talde akustiko onena, **saxo** soprano **jotzaile** onena eta urteko konpositorea. Berria - Kultura

Hiru abestietan Guillaume Moreau **saxo** tenore **jotzaileak** lagunduta. Berria - Kultura

Fredrik Nordstrom **saxo** tenor **jotzailea** eta Filip Augustson baxu jotzailea. Berria - Kultura

5 saxo tenor tenorraren eskala-bitartea hartzen duen saxoa.

Ez zen gauza **saxo tenor** bat eta saxo altu baten artean bereizteko, baina ez zuen uste bereizi beharra zegoenik. Lutxo Egia

Hiru film labur emango dituzte, Tato Gracia kontrabaxu jotzailearen, Gorka Benitez **saxo tenor** eta flauta jotzailearen eta Jose Luis Canal pianistaren laguntzaz. Berria - Kultura

Gotzon Garate (bateria eta ahotsa) eta Josu Urkidi (**saxo tenorra**) ditu lagun egun. Berria - Kultura

Miguel Villar Pintxo **saxo tenor** jotzailea. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

saxo jotzaile (3); **saxo jotzailea** (9); **saxo jotzaileak** (4); **saxo tenor** (6); **saxo tenor jotzailea** (3); **saxo tenorra** (3)

saxofoi (70 agerraldi, 9 liburu eta 42 artikulutan; orobat saxofon g.er., saksofono g.er. eta saksofono g.er.) 1 iz metalezko musika tresna giltzaduna, gehienetan "U" forma duena eta ahokoa klarinetearena bezalakoa duena. ik saxo.

Gelatxok ia hasieratik eutsi dio formazio honi: soinua, **saxofoia** eta jatzana edo bateria. Pako Aristi

Ezpainetan **saxofoia**, eskuetan gitarra edo aho-bihotzetan bertsoa duenak aurrera pausoa eman eta bat-batean barrenean duena husten duenean bezala, [...]. J.M.

Orain, **saxofoiaren** doinuaren txanda da. Monika Etxebarria

Hartaz pentsatzen saiatzen naiz melodiaren bitartez, **saxofoiaren** soinuri eta garraztuetan zehar. Monika Etxebarria

Saxofoiaren birtuoso bat da Daniel Kientzy. Berria - Kultura

Zorionaren paradigma pasodobleak **saxofoiaz** jotzen aurkitzen zekienarentzat. Hasier Etxebarria

Summersen ondoan, Abraham Laboriel (baxua), Vinnie Colaiuta (bateria), John Beasley eta Tohn Novello (teklatuak) eta Katisse Buckingham (**saxofoia**) aritu dira diskoa grabatzen. Berria - Kultura

Perkusio, **saxofoi** eta konposizioko goi mailako eskolak ere egingo dira. Berria - Kultura

Juan Carlos Perezek perkusiorako eta **saxofoirako** eginiko 09 foxtrot obra. Berria - Kultura

Lacy New Yorken jaio zen, eta oso gazte zela **saxofoi** sopranoa jotzen hasi zen. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan)

Saxofoi nota baten soinua garbi eta zehatza. Monika Etxebarria

Besteak beste, txalaparta, pandero, alboka, trikiti, dultzaina, txirula, **saxofoi** eta piano eskolak ematen dituzte. Berria - Kultura

3 saxofoi-jole (*corpusean sasofoi joile eta saxofoijoile*) saxofoi-jotzailea.

Hargous **saxofoi joilearekin** musikak eta pinturak bat egiten zuten. **Herria**

Saxofoijoile baten laguntzarekin. **Herria**

4 saxofoi-jotzaile (26 agerraldi 23 artikulutan) ik saxofonista.

Tim Garland **saxofoi jotzaileak**, Gwilym Simcock pianistak eta Mark Hodgson baxu jotzaileak osatzen dute gaur egun taldea. **Berria - Kultura**

Iñaki Salvador pianistak eta Andrzej Olejniczak **saxofoi jotzaileak** Quitoko *La Mitad del Mundo* nazioarteko jazz jaialdiaren lehen ekitaldian parte hartuko dute, hilaren 8an.

Berria - Kultura

60ko hamarkadan jazz astindu zuen **saxofoi jotzailearen** laukote mitikoko partaide izan zen, McCoy Tyner pianistarekin eta Jim Garrison kontrabaxu jotzailearekin batera.

Berria - Kultura

Soft Machine taldeko **saxofoi jotzaile** ohia hilaren 8an zendu zen, Londresko ospitale batean. **Berria - Kultura**

Steve Lacy jazz **saxofoi jotzaile** estatubatuarra herenegun hil zen, Boston hirian. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

saxofoi jotzaile (10); **saxofoi jotzailea** (8); **saxofoi jotzaileak** (3)

saxofoijoile ik saxofoi 3.

saxofon ik saxofoi.

saxofonista (14 agerraldi, liburu 1 eta 12 artikulutan; orobat sakzofonista g.er.) iz saxofoi-jotzailea.

Bazuen lagun bat bandan, **saxofonista**. **Koldo Izagirre**

Daniel Kientzy **saxofonista** handiarekin. **Berria - Kultura**

Ramon Garcia tronpetistak, Jon Robles eta Mikel Andueza **saxofonista** altuek, Gorka Benitez eta Victor de Diego **saxofonista** tenorrek, Josetxo Silguero baritonoak, Iñaki Salvador pianistak, Dani Perez gitarristak, Laura Ridruejo abeslariak eta Gonzalo Tejada kontrabaxu jotzaileak. **Berria - Kultura**

Ekainaren 3-an, igande aratseko 9-tan, Vauban zinegelan, entzuten ahalko da David Arriola **saxofonistaren** "Sax d'Oc" laukotea. **Herria**

saxoi 1 iz Ingalaterran kokatu zen germaniar herri bateko kidea.

Beti ere lurralde eta ondasun gehiagoren gosean, iparraldeko eta ekialdeko alaman, bavariar eta **saxoien** aurka aritu zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

V. mendean **saxoiak** kontinentean gelditu balira, gaur egungo ingelesak beste eraketa bat agertuko luke noski. Jorvik-etik hegoaldera, **saxoien** armada atera zitzairen, buruz bururako prest. **Isabel Arrigain**

Berriz kantatu zuen erresinolak **saxoien** oihanetan, eta poeta ere itzuli zen bere kodizearekin; lehengoak baino laburragoa zen. **Juan Garzia**

Bedak **saxoien** mitologiak idatz zezakeen (eta idatzi ez zuen) tratatua. **Juan Garzia**

2 (izenondo gisa)

Ingalaterrako errege **saxoiaren** anaia. **Juan Garzia**

Oton I.a erromatar enperadore santuaren soldadu **saxoi** batek. **Iñaki Mendiguren**

Hitz **saxoiak** bakarrik ez erabiltzeko. **Xabier Olarra**

3 saxoiera.

Saxoiz idazten duen gizona, aizkoraz erdibitzeko ona. **Xabier Olarra**

4 anglo-saxoi ik anglo.

5 anglo-saxoiera ik anglo.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

anglo saxoi (3)

saxoiera iz saxoien hizkuntza.

Antzinako **saxoieraz**. **Isabel Arrigain**

saxojole ik saxo 2.

saxoniarr (orobat sajoniarr g.er.) 1 izlag antzinako Germaniako Saxoniakoa, Saxoniari dagokiona.

Nahiz eta piztia ilehori honen gerra-zaletasunak, saldukeriak eta handinahikeriak Anaren aita inperialari askoz arazo gehiago sortu zizkieten, Nizeforo enperadoreak inoiz Liutprandori eta haren **saxoniarr** ugazaba inperialari sortu zizkienak baino. **Iñaki Mendiguren**

Hamargarren mendeko italiar haren eta hamargarren mendeko greziar haien artean leize handia zegoen jada, baina ez zegoen halako leizerik Liutprandoren eta haren ugazaba **saxoniarraren** artean. **Iñaki Mendiguren**

Geroago, Arma Santua Heinrich I.a errege **saxoniarraren** eskuetara heldu zen. **Alberto Ladron Arana**

Gainera, ez dakit nola esan daitekeen Hébon bezalako jopu bat **saxoniarra** edo germaniarra zela: jopu batek ez du familiarik, eta, beraz, ezta naziorik ere. **Iñaki Iñurrieta**

2 iz Saxonian kokatu zen germaniar herriko kidea.

Alemanen, bavariarren, turingiarren, frisiarren, **saxoniarren**, lonbardiarren eta burgundiarren legeak erriparioen molde beraren gainean egin ziren. guk -eta 'gu' esatean lonbardiarrak, **saxoniarr**, frantziarrak, lorrenarrak, bavariarrak, suabiarrak eta burgundiarrak esan nahi dut- hainbestearinaxe mespretzatzen ditugu erromatarrak, ezen, [...]. **Iñaki Iñurrieta**

Saxoniarrak altxatu ziren iparraldean, eta itzuli egin behar izan zuen, haserre; bidean zihoala, ez dakigu oso ondo zergatik, Iruñea erre zuen. **Berria - Euskal Herria**

Saxoniarrak, frankoen mende bizi zirelarik, hezkaitzak ziren, eta behin eta berriz oldartzen ziren. **Iñaki Iñurrieta**

Apezpikuak, garai hartan sarrazenoen eta **saxoniarren** kontra gerra egiten ohihurtik, oso urrun zeuden monakotza-espiritutik. **Iñaki Iñurrieta**

Karlomagno izan zen lehena **saxoniarrak** bezatzen, eta ezagutzen dugun legea eman zien. **Iñaki Iñurrieta**

Auzitegi honen gogortasuna [...] hain zen handia, non heriotza-zigorra kondenatzen baitzen garizumako baraua hausten zuen edozein **sajoniarr**. **Juan Martín Elexpuru**

3 anglo-saxoniarr ik anglo.

sazerdote *iz* apaiza.

Egun hartako irakurraldietarik batean, Aaronen eta Faraoiren **sazerdoteen** arteko auzia kontagai duen Bibliako pasartea oroitarazi ziguten. **Joan Mari Irigoien**

Arbelaiz kultugin edo **sazerdote** paganoa da. **Joxe Azurmendi**

Sazerdote -elkargoak behin baino gehiagotan debekatu behar izan zion naosera sartzea, non Artemis estaltzen zuen ehun preziatu eta astuna aldaratzea espero baitzuen. **Juan Garzia**

sazerdotesa *(orobat sazerdotisa)* *iz* andre apaiza.

"Tombuctu"n, azkenik, Rhangun-en alabak gurtzen dituzte, berak dira agintari, epaile eta **sazerdotisa**: Jainkoaren eta andre yoruba baten alabak dira. **Markos Zapiain**

Nire burua Afroditaren **sazerdotesatzat** jo dezaket, nik uste; nire sona harena bezain handia da **Karlos Zabala**

sazerdotisa *iz* ik **sazerdotesa**.

scherzando *iz* scherzo moduan jotzen den pasartea.

Scherzandoan ere indar betetz eta bixi-bixi aritu ziren (hasierako serieak, ikusgarri). **Berria - Kultura**

scherzo *(orobat scherzzo g.er.)* *iz* musika konposizio alaia eta festa girokoa, eskuaki sonata edo sinfonia Erdiko zatia osatzen duena.

Emakumeek [...] **scherzori** ekin zioten. **Felipe Juaristi**

Vierneren 2. sinfoniaren **Scherzo** -arekin. **Berria - Kultura**

Maila ezin hobean jardun ziren, **scherzo** bukaeran mirakuluzko *pianissimo tenuto* aparta zela medio. **Berria - Kultura**

2 irud/hed

Behin berriro ulertzen dut arte modernoak irriaren baltsamua eskatzen duela, **scherzoa**. **Juan Garzia**

scherzZO ik **scherzo**.

schizofreniko ik **eskizofreniko**.

scorpio *(orobat eskorpio)* *iz* Zodiakoko konstelazioa; zodiakoaren zortzigarren zeinua; latinez 'eskorpioia' esan nahi du.

Eta oroitzen diat ezen, teleskopioa ukitu orduko, halako zirrara bat nabaritu nuela neure baitan, baita zirrara hura osoa eta guztizkoa egin zitzaidalda ere, noiz eta begia bere lekuan ipini eta **Scorpio** -ko izar distiratsu hura ikusi bainuen. **Joan Mari Irigoien**

4 Hauen jarraian eta Sagitario, **Eskorpio** eta Libraren gainetik, Sugea dator, bere buru-gainarekin Koroa ukituz. **Santiago Iruretagoiena**

scrofula ik **eskrofula**.

sebillano *izlag* sevillarra.

Kamargako zezen zaindaria zaldiz, zezenak karrika gainean zaldunez inguratuz, **sebillano** dantzak eta abar... **Herria**

sebo *iz* bilgorra. ik **sego**.

Pilotak aukeratzeko eurenak nahiko txukunak ematen zuten, baina partida hasi eta **seboa** joan ahala, asko motelduko dira. **Berria - Kirola**

seda ik **zeta**¹.

sedan *iz* karrozeria itxiko autoa, bi edo lau atekoa, atzeko maletategia irtena duena.

Sedan urdin bat zen. **Xabier Olarra**

Haien atzean, limusinak, turismoak, ibilaldi turistikoetarako autoak eta **sedanak** herrestan zebiltzan. **Lopez de Arana**

sedante *iz* lasaigarria.

Lana aurkitu arte, bere odola saltzea erabaki du Yellamma eritegi pribatura eraman dute Velu eta **sedante** bat eman diote. **Gotzon Garate**

sedatsu ik **zetatsu**.

sede *iz* egoitza.

Parrillada batean infiltratu ginen arratsaldeko 17:30ak aldera, Portotik hurbil, **sede** baten atzealdeko partean (*sede*-ak hemen kirol, kultur eta gastronomi elkarteak dira, gehienbat gastronomikoak). **Berria - Kirola**

sedentario *izond* herriez eta komunitateez mintzatuz, leku batean kokatua bizi dena, nomada ez dena; herri sedentarioari dagokiona.

Herri **sedentario** konkistatuen gain. [Iñaki Mendiguren](#)

Erronka hori komunitate nomada bat lekuz aldatzea izan zen, komunitate **sedentarioak** gobernatu behar zituzten ingurunera, alegia. [Iñaki Mendiguren](#)

Kultura nomadatik **sedentaria** pasatu eta nekazaritza hasi zenetik. [Luis Elberdin](#)

2 (izen gisa)

Lur beltzean eszitiarren mendeko **sedentarioek** hazitako labore-uztak itsasoz bestaldera eramaten baitziren. [Iñaki Mendiguren](#)

Nomadak basamortua ordeztzen du; **sedentarioak**, hiria. [Joxe Azurmendi](#)

3 pertonez-eta mintzatuz, bizilekutik gutxi mugutzen dena; pertsona sedentarioari dagokiona.

Txokoarekiko atxikimendua dela eta, gizakiek **sedentarioak** izateko joera dute. [Isabel Arrigain](#)

Esplikatu zidanez, bizimodu **sedentaria** eginez, gizen-deposito bat formatzen da begietan barrena, osasunaren kaltean. [Juan Garzia](#)

Egun gizentasuna oso zabaldua dago, elikadura txarra eta bizitza **sedentaria** dela eta. [Berria - Gaiak](#)

Lan **sedentaria** duten hainbat kontsumitzailek alergiak nozitzen dituzte. [Edorta Agirre](#)

sedentarismo *iz* sedentarioaren nolakotasuna.

Baina lurra lantzen hasi eta **sedentarismoa** ezarri zenean, egoera guztiz aldatu zen. [Luis Elberdin](#)

Sedentarismoaren eta giza kokagune gero eta handiagoen ondorioz, gizarte egitura gero eta konplexuagoa zen. [Luis Elberdin](#)

Gainerako herrialde aberatsetan bezalaxe, elikadura modernoak eta **sedentarismoak** dute errua. [Berria - Kirola](#)

Sedentarismoak, artzaintzak eta nekazaritzak ikusarazi ziguten koitoaren eta ernalketaren arteko lotura. [Luis Elberdin](#)

sedentarizatu, sedentariza, sedentarizatzen da *ad* sedentario bihurtu.

Teorian denbora laburrez egon behar dute bidaiariek, baina ohiturazkoa da familia anitz **sedentarizatzea**. [Berria - Euskal Herria](#)

sedentarizazio *iz* sedentarizatzea.

Erregadioan oinarrituriko ekonomia agropekuarioak, aginte zentralizatuaren menpeko lankidetzak komunitarioaren koordinazioa eta **sedentarizazioa** ekarri baitzuen.

[Patziku Perurena](#)

sedimentario *izond* jalkitzearena edo jalkinena.

Harri **sedimentarioak**, ikusi! -leihotik kanporanzko keinuak egiten ditu-. [Xabier Olarra](#)

Tratatu bako hondakin-urak, atmosferaren kutsadura, industriek isuritako hondakinak eta txarto kudeatutako arro hidrologikoetatik iristen diren arroka **sedimentarioak** dira, hein handi batean, horren errudun. [Berria - Gaiak](#)

sedimentatu, sediementa, sedimentatzen da/du *ad* jalki.

Behar dena azaltzeko astia badago, noski, baina ez dakit azalduko **sedimentatzeko** astirik dagoen. [Joxerra Garzia](#)

sedimentazio 1 *iz* jalgitzea; jalgitzearen ondorioa.

Medikuak laster erran zidan **sedimentazioa** beharko nuela guritu. [Piarres Aintziart](#)

2 irud/hed

Gure pertzepzioak berak aspaldiko **sedimentazioen** aztarna biziak dira. [Piarres Aintziart](#)

Idazten ari naizelarik, egundaino harri bihurtzear zegoen **sedimentazioa** harrotzen dut, atzarriz lo zagoen oroitzapen alferra. [Piarres Aintziart](#)

Beste multzoak, aitzitik, historia agerrarazten du inertzia eta astuntasun modura, iraganaren metaketa geldo modura eta esandako gauzen **sedimentazio** isil modura [Xabier Arregi](#)

3 (hitz elkartuetan)

Tresna hauen bidez historiaren alorrean bereizi ahal izan dituzte zenbait **sedimentazio** geruza ezberdin. [Xabier Arregi](#)

sedimentu 1 *iz* jalkina.

Mendikatearen gainaldean, bestalde, duela milioika urte pilatutako **sedimentuak** daude. [Berria - Gaiak](#)

Denborarekin **sedimentu** garbiagoak jalki direla. [Berria - Euskal Herria](#)

Ibaiek kutsaduraren eta **sedimentuen** maila erregulatzen dutela gogorazti du adituak. landarea hiltzen denean eta osagai toxiko horiek **sedimentu** bihurtzean zer gertatzen den ikertzen ari dira. [Berria - Gaiak](#)

Sedimentu horietan sufre sulfatoaren arrastoak topatu dituzte eta horiek ur azalean soilik aurki daitezke. [Berria - Gaiak](#)

Azido fluorhidrikoz eraso, horra burdinarekin amoniakoa, horra nikelarekin (zeinen gutxi! **sedimentu** poxi bat, arrosakolorea) dimetilgloxima, horra magnesioarekin fosfatoa, beti berdin. [Juan Garzia](#)

Sedimentuetan metal astunen kontzentrazioa murriztu delako. [Berria - Euskal Herria](#)

2 irud/hed

Erabaki etikoak, hasteko, ez du anean uneko arauei makurtua egon beharrik; ordena arau-emalea, aldiz, hasierako ekintza etikoaren **sedimentua** da. [Joseba Zulaika](#)

sedizio *iz* estatuaren gobernu eraisteko xedea duen matxinada.

Estatu txiki haietan gertatzen ziren **sedizioetan**, hiritarren gehienak liskarrean sartzen ziren, edota liskarra sortzen zuten. [Iñaki Iñurrieta](#)

Solonen lege bat - **sedizio** batean alderdiak hartzen ez zutenak izengabe deklaratzeko zituen- harrigarria iruditu izan zaie denei. [Iñaki Iñurrieta](#)

Ulema Musulmanen Elkarteak eraso gaitzetsi, eta giza taldeen arteko **sedizioa** bultzatzea zuela helburu salatu zuen. [Berria - Mundua](#)

Hortik sortzen dira gorrotoa eta inbidia gizonen artean, eta **sedizioa** eta gerra beraiekin batera, animalien artean gertatzen ez dena. [Esteban Antxustegi](#)

Erakutsi dugu pobrezia sorturiko gogoaren etsipenak bultzatu egiten dituela herritarrek **sedizioa**. [Esteban Antxustegi](#)

Sediziorako prestatzen duten doktrinen artean hau da lehenengo eta bakarra: ongiaren eta gaitzaren ezagupena guztiona da. **Esteban Antxustegi**

2 (hitz elkartuetan)

Goi-mailako traizio krimenez hartzen bada Estatuaren etxe batean egindako lapurreta bat, ustelkeria kasu bat edota **sedizio** -hitz batzuk, moteldu egingo da goi-mailako traizio-krimenak edo lesa maiestatekoak eragin behar lukeen izua. **Juan Martin Elexpuru**

Botere hori egon beti egon eta erabili da, **sedizio** eta gerra zibil garaian izan ezik, baina orduan bi botere absolutu sortzen dira bakar batetik. **Esteban Antxustegi**

3 **sediziozko** ik **sedizioso**.

-Sediziozko literatura bila gatz -esan zuen totelka Humphries jaunak, eskua agur egiteko jasoz batera. Tiranozidua zilegi dela iritzi **sediziozkoa** da. **Koro Navarro**

Ongiaren eta gaizkiaren gaineko iritzia partikularrei dagokiela diotenen ustea **sediziozkoa** da. **Esteban Antxustegi**

Iritzi **sediziozkoa** da herritar partikularrek jabetgo edo nagusitasun absolutua dutela beren gauzen gainean. **Esteban Antxustegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sediziorako prestatzen (6)

iritzi sediziozkoa da (5)

sediziogile *iz* sedizio batean parte hartzen duen pertsona.

Izan ere, botere absolutuaren aurka hitz egiten duten **sediziogileek** nahi dutena ez da berau deuseztatzea, beste batzuei transferitzea baizik. **Esteban Antxustegi**

sedizioso *izond* sediziozkoa.

Magistratuak nazkatzen ditu bere hitaldi **sediziosoekin**, nahiz eta bakanak izan. Menekotzat hartuz gero bai Estatuaren botereak deitu dituenak bai modu **sediziosoan** bildu direnak, askok uste baitute gehiengoaren baitan dagoela guztien adostasuna. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

seduktora *izond* andreez mintzatuz seduktorea dena.

Saio huts honek leher eginda utzi gaitu // baina jainkosak erakarri egiten gaitu // Hauxe du bere jokoa, **seduktora** halakoak! **Patziku Perurena**

seduktore *izond/iz* seduzitzen duena. ik **limurtzaile**.

Animozko atximur bat ferekatu zion matrailean, irribarre **seduktore** batekin hanka egin baino lehen. **Unai Iturriaga**

Hurbildu zaidan neska, jarri dizkin eskuak aulkian, egin zidan berriro irribarre -aurrekoa baino are **seduktoreagoa** nire pertzepzioaren arabera-, eta esan zidan: "A, libre dago? Zein emakumek ez lioke ihes eginen **seduktore** baten lehen proposamenari? **Anjel Lertxundi**

Woody Allen-en film bat datorrit gogora: "**Seduktore** baten ametsak" zuen izena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

sedukzio (*orobat sedukzione g.er.*) **1** *iz* seduzitzea.

Limurtzea zen orain persuasiorako bidea, **sedukzioa** alegia. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Sedukzioa da gizadiak bidera dezakeen bortizkeriarik bikainena, inolako babes-ahalmenik gabe uzten du eta seduzitua. **Anjel Lertxundi**

Desioa **sedukzioan** azaleratzen dugu. **Luis Elberdin**

Errekurtsuak bere autonomia dauka eta bukaera hasierari dagokio; finean, **sedukzioa** ez da beti jokoa izanena. **Janbattitt Dirassar**

Begiradaren eta laztanen ondoren, musuek osatzen dute **sedukzioaren** jolasa. **Luis Elberdin**

Ez zioat utziko ni harrapatzen **sedukzioaren** amarruekin! ni libratu ezinik nengoen haren **sedukzioaren** saretik. **Fernando Rey**

Pentsaera bakarrak pentsamendu propioa du etsai, nor bere gogoeta askeaz eraikitzen duen pentsamoldea, alegia; **sedukzioaren** indarrean sinisten duen gogoeta eta ekintza-bidea da. **Txema Ramirez de la Piscina**

Baina bihotza ahula izaki, erakusleho ongi hornituen **sedukzioari** ezin gogor egin, eta erosi eta erosi jardun beharra zeukan. **Anton Garikano**

Erakarri zaituen **sedukziozko** irribarra berehala bihurtuko zaizu hilgarri: lamiaren bila ibaian sartu orduko. **Anjel Lertxundi**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Garai hartan banuen halako lider-gaitasun bat, baina ez inola ere mimetismoak sortzeko adinako **sedukzio** ahalmenik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Sedukzio lanak berehala izan zuen eragina gaztearengan. **Aritz Gorrotxategi**

Hark erakutsi zizkion saloi dotoreetako **sedukzio** arauak eta sexu-jolaserako lehen urratsak. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Nork bere izaerari eustearen eta bestearen nahietara moldatzearen arteko dialektika bat sortzen zela **sedukzio** -jokoa eta halako topikoak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Apurka-apurka, **sedukzio** joko basatiagoen bidez erakarri zuen mutila, baraualdi sexualak, uholde sexuarekin tartekatuz, xantaila plan zehatza aurrera eramanez. **Aritz Gorrotxategi**

Emakumea **sedukzio** jolas baten partaide sentitzen da, baina ez dauka jolaserako gogorik, eta bestaldera begiratzen du. **Javi Cillero**

Txilintxok, Tigre Lilintxok eta Wendyk sekulako **sedukzio** -borroka izango dute mutikoa lortu nahian. **Julen Gabiria**

Beste alde batetik, **sedukzio** -saiorearen porrotak are erretxinago eta goibelago egin zuen. **Koro Navarro**

Ni libratu ezinik nengoen haren **sedukzioaren** saretik. **Anjel Lertxundi**

Sedukzio prozesua oso modu naturalean -ia oharkabe- inor zapaldu gabe gauzatzen da. **Txema Ramirez de la Piscina**

Asteburu hartan etengabe erabili nuen gogoan **sedukzio** istorio hura, nondik heldu ez nekila. **Xabier Mendiguren Elizegi**

seduzitu, seduzi, seduzitzen du *ad* **1** norbaitek beste pertsona batekin sexu harremanak izatea lortu. ik **limurtu** **5**.

Ez naiz **seduzitu** dituenak kontaktzen baratuko: zenbat ez ote ditu ordea galdu? **Jon Muñoz**

Karlos Ignazia **seduzitzen** saiatu zenean, indar gehiago zuen ia berarengan Martini zion gorrotoak neskarenganako zaletasunak baino. **Koro Navarro**

Zerorrek aitortu didazu literaturaz baliatuz emakume bat **seduzitu** zenuela. **Ramon Saizarbitoria**

Beharbada lesbiana da, beharbada frigida, ni **seduzitzea** premiazkoa zitzaion, egoista hutsa eta munstro bat nintzela uste baitzuen, tuntu ez da, baina bai perbertitu xamarra. **Joxe Austin Arrieta**

Etengabe nagusitzeko desira bortitz batekin hartua bizi zen, eta hala agertzen zuen bai gizonak **seduzitzeko** gogoan bai bere borondatea amarenarenetik gainjartzeko ahaleginean ere. **Patxi Zubizarreta**

Oso-oso jende gutxi dagoela **seduzitzeko** zaila. **Karlos Zabala**

2 norbaitek besteren nahia edo maitasuna bereganatu; norbaitek beste norbait bairatu. ik **limurtu** **4**.

Gure gutunen helburua atsegina zen naski, ideiak adimenaren **seduzitzeko** asmatuak ziren, eta bihotzen goxatzeko. **Piarres Aintziart**

Uste dut idazlearen eta irakurlearen artean dagoen sedukzio jokoa, umorea dela **seduzitzeko** armarik onena. **Berria - Kultura**

AEBak ere, kontentzitzen baino, **seduzitzen** errazagoa den herrialde bat dira, Denek egiten dizute irri, eta Diegok bidaiariak **seduzituak** ditu bere kanteekin. **Berria - Mundua**

Seduzitua denak ez daki noiz izan den **seduzitua**. Estatuak bere premien berri ematen zion herriari, eta ez zuen **seduzitu** nahi. **Lutxo Egia**

3 (era burutua izenondo gisa)

Sedukzioa da gizadiak bidera dezakeen bortizkeriarik bikainenena, inolako babes-ahalmenik gabe uzten du eta **seduzitua**. **Anjel Lertxundi**

seduzitzaile *izond* seduzitzen duena.

Izaki **seduzitzaile** baina erdeinugarritz inguratua, ezein ere ez zitzaidan arimaraino barneratu. **Jon Muñoz**

seduzitzaileari dagokio bakarrik berak sortu duen kaltea konpontzea, ahultasunak barkamenerako eskubidea ematen baitu. **Juan Martin Elexpuru**

Ez, dudarik gabe, emakume horrek ez du, gure emakume pinpirinen gisara, behako gezurtirik, batzuetan **seduzitzaile** eta betiere engainatzailerik. **Jon Muñoz**

Bihotz bihotzez sentitzen dut gu bion artean ez dela amodioaz bertze **seduzitzailerik** egon. **Jon Muñoz**

sefardi (*orobat sefarditar g.er., sefardiar g.er. eta sefardita; Euskaltzaindiaren Hiztegian sefardi agertzen da*) *izond* juduez mintzatuz, Erdi Aroan Iberiako Penintsulan bizitzen jarri zena.

Sefaradeko judutarrei *sephardim* deitu izan zaie, **sefardiak** edo **sefarditarak**, Europako beste komunitate judutarretatik [...] bereizteko. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

"Itsusia da...", esaten zion gure amari, Ginzburgez ari zela, "judu **sefardia** delako". **Fernando Rey**

Zure aitari Bordelen eman genion lurra, **sefardien** hilerrian. **Felipe Juaristi**

Turkoen gudu bertsoak; armeniarren eliza otoitzak; arabiarren poesia; greziarren negarra; **sefardien** erbeste eresiak. **Felipe Juaristi**

Gaztelaren hain antzekoa den **sefardia** txikitatik menperatzen duela diost. **Edorta Jimenez**

sefardiar ik sefardi.

sefardita ik sefardi.

sefarditar ik sefardi.

sega 1 *iz* laboreak edo belarra lur-arras ebakitzeko lanabesa, bi eskutoki dituen gider luze batez eta honen beheko muturrean finkatzen den altzairuzko xafla luze makotu batez osatua. ik **dailu**.

Burdinsareak, burdinesiak eta atepak egiteari utzi, eta **segak**, igitaiak, aizkorak eta aingurak egiten hasi zen. **Joan Mari Irigoien**

Hantxe, bazter batean, beste atxur, laia, hortzibiko, **sega** ta igitaiak su-egur, azpantar, abarka ta soka zaharren laguntasunean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Sega handiak 1,18 metro ditu xaflaren goialdean. **Berria - Kirola**

Sega txikia aukeratu dute, altzairuzko xaflaren goialdean 90 zentimetroko luzera duena. **Berria - Kirola**

Goierriko elkarteak **sega** txikiko hiru lehiaketa antolatu ditu. **Berria - Kirola**

Aitaz akordatzen zen, zelan etxeritzen zen ilunabarrean, aitzurra edo **sega** sorbaldan, burua makur. **Xabier Montoia**

Sega kamustu zitzaion. **Berria - Kirola**

Santutxoko bentaren ondoan, zumardi txiki baten itzalpean, han ari zen etxeko nagusia **sega** pikatzen. **Inazio Mujika Iraola**

Edozein neurritako **sega** erabili ahal izango da. **Berria - Kirola**

Araikiak (Araba) soro batean egindako ekitaldian gari transgenikoa **segaz** ebakitzen aritu ziren Zabaleta eta Aralarreko ordezkariak. **Berria - Euskal Herria**

Iratze guti da orai **segaz** pikatzen. **Herria**

2 (*Herioren*)

Herioren **sega** zorrotz gupidagabea airean geldiarazteko. **Anjel Lertxundi**

Horra non beraz pitzen hasia zen landare poltit hori kolpez moztu zuen herioaren **sega** maltzur zorrotzak! **Janbattitt Dirassar**

Arrotz arriskutsu bat zebilen herrian, eta gauez inortxo ere ez zen ausartzen leihoa irekitzera, beltzez jantzirik atsoa ikusiko zuten beldurrez, **sega** eskuan, ilargiak zuritutako larrainean. **Koldo Biguri**

3 irud/hed

Marroren ahotsak **sega** batek bezala moztu zizkidan zangarrak. **Juan Kruz Igerabide**

Gizartearen **sega** krudelak nire leporik ez duela moztu konprobatu nahi bat. **Pako Aristi**

Neure begien aurrean ikusten dut zer-nola **segaz** ebaki eta bertan behera zimeltzen utzi gaituzten, erabat deuseztatzeraino. **Mirentxu Larrañaga**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Etzanda, belar artetik begiratzean, hutsaren pareko begitantzen da heroiaren estatua eta handitasunez bete gizon arruntaren **sega**-lan apala. **Harkaitz Cano**

Borroka aktiboaren hazia ez zen heldu guganaino bizirik, urte gutxi batzuk lehenago iraungia zen, azken protagonista eta lekukoak [...] presondegira, konfinamendura, erbesteratzera edo isilatasunera errenditu zituen azken **sega**-kolpearekin. **Juan Garzia**

Sega zorroztailea: Xabier Mendizabal. **Berria - Kirola**

Sega-denbora denean-eta, segalari asko biltzen baitira hemen jaietan-eta. **Patxi Ezkiaga**

Hasieran, joan zen larunbatean zen hastekoa **sega** denboraldia, Arabako Txapelketarekin, baina ez zen jokatu. **Berria - Kirola**

Hiru alditan jardun du aizkora eta **sega** proba konbinatuetan. **Berria - Kirola**

Mixelena eta Urki **sega** apustua hitzartzekotan dira. **Berria - Kirola**

Aspaldi ez da Ipar Euskal Herrian **sega** lehiaketarik izan. **Berria - Kirola**

Euskadiko **Sega** Txapelketako kanporaketa igandean. **Berria - Kirola**

Goierriko Almitza **Sega** Elkarteak (Gipuzkoa) antolatutako lehiaketa da. **Berria - Kirola**

Sega Eguna ospatuko da bihar, Seguran, eta nazioarteko erako lau txapelketa jokatuko dituzte. **Berria - Kirola**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gero etorriko ziren lan guztiak: garo-**segak** eta garo-igitaiak pikatu eta zorrotzu. **Pello Zabala**

6 ipar zerra.

Alpana: pitrailen luzera mozteko erabiltzen zen **sega**. **Herria**

Entseguen erdian partalierrek hatsa hartzeko, 4 aizkolari: Aguite, Arria, Latasa eta Ayerbe, Baigorri usatuak, ariko dira Hairako oihanean hautatu pago batzuen aizkoraz eta

segaz mozten. Herría
Ainitz mintzaldi, kantaldi, bertsu, gauldi izan dira eta ere erakutsi daukute nola arbolak trenka **segaz** botatzen. Herría
Puskatzeko **segekin**, 4 gizon gipuzkoar arizan dira egur gordinarekin. Herría

7 *segan* *adlag* segaz mozten.

Denok dakigu zenbat lan egin duten emakumeek etxetik kanpo ere, **segan**, uzta biltzen, animaliak zaintzen eta etxean bildutakoarekin hainbat produktu egiten eta saltzen.
Luis Elberdin
Segan ari zen semeari begiratu zion. Anton Garikano
Hura **segan** eta ni eskuarearekin. Joxean Sagatzizabal
Bost kirolariak hiru txandatan jardun zuten **segan**. Berria - Kirola

8 *ipar* zerratzen.

Batez ere zur **segan** ari izan ziren, kamiun kargatzen eta xofurgoan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Pago trunko **segako** zoingehiagokan ariko dira. Herría

9 *ipar* (*pilotan*)

Makearra nausi sare egiten, **segan**, baina baigorriarra abila, defentsan edo pausatzeko, botean ere pare bat gehiago, xapeldun eder bat, nahiz besteak ere guti eskas.
Herría
Irujo atrebitu eta indartsu, besoairea berez trinketeko moldean eskuinetik ezker **segan**, azken krakoa bortitz. Herría

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aizkora eta sega (3); euskadiko sega txapelketako (3); sega almitza (3); sega eguna (5); sega erabili (3); sega libreko (6); sega sega (4); sega txapelketa (5); sega txapelketako (3); sega txikia (4); sega txikiarekin (6); sega txikiko (19); sega txikikoa (3); sega zorroztailea (4)

segada 1 *iz* ustekabean egiten den eraso. ik zelata.

Hilketa jendaurrean burutu ezin zuten, armaturik eta bakoitza bere aldearekin, **segadak** jartzen zizkieten elkarri behin eta berriz. Askoren artean
Ezkontzaiek **segada** bat prestatu diate Itaka eta Same uharteren tartean, handik igaroko haizelakoan; lurrera iritsi baino lehen hil nahi haute. Juan Kruz Igerabide
Segada batean hil zuten... bai. Paddy Rekalde
Herrera mendatean Ertzaintzaren aurka egindako **segadan**, ETAko bi kidek eskopetekin tiro egin eta bi ertzain zauritu zituzten. Berria - Euskal Herria
Turkoen **segada** batean erori zirela, eta berak ihes egitea lortu bazuen ere, gainerako lagunak galdu egin zirela, batzuk hilik, zauriturik besteak. Felipe Juaristi
Guztiak mobilizatu, eta zaindari taldeak antolatzea **segadak** eragozteko. Koldo Biguri
Segada batean atzeman dituzte, mendi zintzur batean. Xabier Montoia
Bere aita hilik zegoela esatera joan zen unetik aurrerakoa **segada** bat izan zela, ongi prestatutako amarrua, Agnès Bordelera ekartzeko trikimailua, eta biak erori zirela. Felipe Juaristi
Zergatik sartu nintzen halako **segadan**? Koldo Izagirre

2 irud/hed

Zer adierazi nahi duzu, Miss Fairfax, ezkontzaren **segadan** erorarazi nuela nik Fidel? Antton Olano
Nire bidean, badakit orain bertan, zelatan dut zoriona **segada** saihestezin bat bezala. Urtzi Urrutikoetxea
Hark berak ere, euskaldun guztiak bezala kristau zaharra izaki, Inkisizioak erabiltzen zituen tranpa eta **segaden** jakile, [...]. Felipe Juaristi
Sexu bateko zein berteko gazteek ikas lezakete orobat ezen ohitura gaiztoko presunek horren erraz eskaintzen bide dieten adiskidantza ez dela beti **segada** arriskutsu bat baizik izaten. Jon Muñoz
Emakumeei hartzera uzten bide diegun aginpide alegiazkoa nekez saihesten duten **segada** bat dela. Jon Muñoz
Segadan harrapatua zegoen Ruche jauna, *Oihane*ko *Liburutegiaren* existentzia isilpean gordetzera behartuta zegoen. Jon Muñoz
Elkarren maiztasunez askeak zirela uste izan zitean, eta zorion hark askeak zirela sinesteko **segada** jarri ziean. Jon Muñoz

3 txoriak-eta atzemateko lakioa edo artea. ik sare; xedera.

Hara-hona ibiltzen zen ordoki latzean, alertzez eta urkiz beteriko sastraketan, pinudietan, lakioa eta **segadak** ipiniz, ehiza xeheari eskopetaz segika, ehiza larria noiz agertuko zelatan. Karlos Zabala
Iduritu zitzaidan ezen zu zinela han **segada** prestatu zuen ehiztaria, eta ni ehiza, zuk **segadan** atrapatua. Joan Mari Irigoien

4 irud/hed

Deabruak anitz sare badu ere arimen atzemateko, ez du batez ere hainbat harrapatzen, nola emazte gaixtoez, eta haiek hedatzen eta paratzen dituzten artez, sarez, laxoez eta **segadez**. Aingeru Epaltza

5 (hitz elkartutetan)

Gero, bankero eta zerga-biltzaileenak erosoagoak eta itxuraz airosoagoak egingo dira eta **segada**-arriskuetaik babestuta gainera. Santiago Iruretagoiena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurkako segada (3); egindako segada (3); gertatutako segada batean (4); segada bat izan (5); segada batean hil (7); segada egin (5); segada jarri (3); segada prestatu (7)

segadora *iz* segatzeko makina.

Lehiaketaz gain, egun osoko jai prestatu zuten: txondorra, artisautza erakusketa, ardi-txarun erakusketa, belarra **segadoraz** ebakitzea idiekin, herri bazkaria eta musika. Berria - Kirola

segadun *izond* sega duena.

Gibela zaindu beharko zuen, hori bai, dama **segaduna** agudoegi irits ez zekion. Jon Alonso

segadura *iz ipar*

Hodien **segadura** horiek berriz erakusten diete botere publikoei, ez direla urrats guztiak bete lan gune hori seguritate osoan uzteko lantegia orobat hetsi ondoan. Herría
Hauk **segadurak** tapatu dituzte eta DRIRE, ingurumen administrazioari gertakarien parte eman diote. Herría

segail (*orobat sekail g.er.*) 1 *izond* gizonez edo emakumez mintzatzuz, luzea eta mehea, mami gutxi eta hezurdura handikoa.

Gorputzeraz **segaila** zela esan zidaten, baina jendartean nabarmentzen ez diren horietakoa. Joxean Agirre

Aizkorari eta **segarietan** Arria eta Ayerbe nausitu dira 10 pago 24 minutaz mozturik. **Herria**

2 segalaria.

Osinean, inurriak bezalako **segari** ttipiak ari dira garitan. **Koldo Izagirre**
Segariak gaiburuak nola, hala lotu ginen lepoak egiteari. **Aingeru Epaltza**

segatoki *iz ipar* zerratokia.

Beste batez **segatoki** batean arizan nintzen, haurtzaroko usain miresgarriak, auzoan sentituak, itzultzen zitzaizkidala burrustan. **Piarres Aintziart**

segatu, sega(tu), segatzen 1 du *ad* segaz ebaki.

Transgenikoak erabiltzen ari diren nekazariak badira, «guk **segatu** dugun soro honetakoak, adibidez», eta horiek guztiak kontuan hartu behar direla uste du. **Berria - Euskal Herria**

Lastozko kapela hegal-zabal handia jantzita, lur eremu zabalak betetzen zituzten jorنالariak gari lerroetan, egunsentitik ilunabarrera, **sega** eta **sega**, igitaia eskuan. **Jon Maia**

2 irud/hed

Hor kanpora irtenarazi nahi gaituzu orain, etsaien metrailadoreek jo eta **segatu** gaitzaten, garia bezala motz-motz ebaki. **Mirentxu Larrañaga**

Metrailak **segatuta** hiltzen ari zelarik oraindik betetzeko zeukan lagunak eskatu mesedea. **Koldo Izagirre**

Atzo bala batzuek haren bizia **segatu** zuten. **Berria - Mundua**

3 *ipar* zerratu.

«Ez naute hartaratuko! ez dut polizia deituko!», zioela, hark berak **segatu** zuen ikastetxea zerratzeko lizeoko ikasleek erabili kate lodia. **Berria - Ekonomia**

Egarten gütüan adarra ez dezagün **sega**. **Herria**

segatze *iz segaz* ebakitzea.

Orain, garbitzeak eta fregatzeak eta **segatzeak** eta kimatzeak ordura arte itota eduki balu bezala, erdizka aditutako melodia hori zabaldu zen, belarriak erdizka atxiki baina erortzen utzi izandako musika eten hori **Anton Garikano**

segeretario ik **sekretario**.

segeretu ik **sekretu**.

segeria *iz ipar* zerratokia.

Luzaiden **segeria** haundi bat muntaturik utzi zuten, Txirriskineko gune horretan. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Gero, mandoz eraman ondoan, metatzen zituzten gune batzuetan, kablez airean joanarazteko **segeriara**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Xehetasun ainitz ere Mendibeko armariez, elizaz, eskolez, etxeetaz, oihanaz, lehengo burdinolaz eta aski famatua izana den **segeriaz**. **Herria**

segetari ik **sekretario**.

segetario ik **sekretario**.

segetaritza ik **sekretaritza**.

segiarazi, segiaraz, segiarazten du *ad* segitzera behartu.

Lehen egunetan presoak lanean **segiarazi** zituzten, ahal zelarik, ahal zen lekuan eta ahal zen bezala. **Eneko Bidegain**

Eskolako kurtsoa **segiarazten** diegu eta handienek lan bat ikasten dute. **Ramuntxo Etxeberri**

Mayi Minaberry bere semen laguntzarekin eta langilekin, bi deiztegi **segiarazten** dituen. **Herria**

Aratsalde biziki ongi antolatua zen eta Ttotte Elgue eta bere lagunek ongi **segiarazi** dituzte partida guziak. **Herria**

Barkamena eskatu beharko nioke irakurleari jolas horietan **segiarazteagatik**, espero dut batzuek behintzat gustuko izatea. **Lourdes Oñederra**

Haur bakotxak **segiarazi** behar ditu laneko tresnak (arkatz, kola, haixtur etabar). **Herria**

segiarazle *iz segiarazten* duen pertsona.

Garat apetz nausia meza emaille lehen, Kattin jatsuarra **segiarazle** eta beste irakurleak harekin, Maritxu lasarra organoan goizean eta Felix, ama, aratsaldean, eta herri guziak oro batean kantari, hori baitzen zinez koro ederra. **Herria**

segida (*orobat segida g.er.*) 1 *iz* kideko diren eta hurrenez hurren dauden gauzen multzoa. **iksail**; **serie**.

2000. urtean giza genomaren **segida** aletu edo sekuentziatu dela iragarri zen. **Askoren artean**

Galdera-erantzun-zalantza **segidaren** kalbarioari ekin behar diogula dirudi. **Iban Zaldúa**

Irudi mugikorrez osatutako **segida** ordenatu bat. **Josu Zabaleta**

Letrak **segida** jakin batean ordenatzen ditu alfabetoak, eta hurrenkera horrek aurrera/atzera egiteko bidea zabaltzen digu guri. **Iñaki Arranz**

Osagaiak **segida** jakin batean antolatzen dira, eta **segida** hori markatzea edo azpikoz gora jartzea, horiek dira aukeran dauden bideak. **Iñaki Arranz**

Fonazioak inplosio eta esplosio **segida** bat izatea eskatzen du, eta hau da silabazioaren baldintza funtsezkoena. **Isabel Arrigain**

Irakur ezazu liburu hau - **segida batean** nahi baduzu edo atal solteka bestela, inoi atal bat eta hurrengo atal beste bat - Jose Antonio Mujika

- Eta **segida batean** konturatu zen lehen ez zela hain antikerrikala, errespetuzko zer bat gordetzen ziola elizari. Karlos Linazasoro

10 *segidako izlag* hurrengo, ondoko.

Egia da *interpretación* gisa bataiatzen duela bere saioa, baina egia da Oteizak idatzi zituela **segidako** hitzak ere: [...]. Anjel Lertxundi

Halako begiratu bat eman eta gero, **segidako** oharra idatzi zuen: [...]. Josetxo Azkona

Arte Eder museoan azter datekeen **segidako** lanean, Barbarigo jauregia pintatu zuen Canalettok oihalaren alde batean. Berria - Kultura

Halaber aurkitu dugu, aztertu ditugun gizarte-desintegrazioko iragan kasu guztietan, **segidako** etapa berberak hurrenkera berean gertatzen direla beti, etapa bakoitzak gutxi gorabehera denboraldi bertsua hartzen duelarik. Iñaki Mendiguren

Poloniarrei hainbat hiri kendu zien arren, Jusuf Khanek ez zuen grina handirik erakutsi **segidako** suntsiketari, **segidako** lapurretari, gainerako soldadu eta mertzenarioek bezala. Felipe Juaristi

11 (-en atzizki singularren eskuinean)

Palestina-erakundeak eman dira igandean Yasser Arafat zenaren **segidako** buruzagiaren hautatzeko. Herria

Haren **segidako** heste lodiak baino diametro txikiagoa duelako esaten zaió meharra (2-5 cm). Irene Aldasoro

Haiek osatzen dituzten parteek ez diruditelako bata bestearen **segidakoak**. Juan Garzia

Elkarren **segidako** hiru larunbatez, ez zuen hitz bat esan. Oskar Arana

Denbora tarte luzeegia baldin bada, berriz, elkarren **segidako** bi gertaera berezi bezala pertzibitzen dira. Josu Zabaleta

12 iraunkorra, etenik gabekoa.

Segidako amodio bero eta sano bat ez zitekeela enetat ilusimendu huts baizik. Janbattitt Dirassar

Bizpahiru miliun gizon eta emazte badirela **segidako** lanik gabe. Herria

Segidako paperik ez dute aise ardiesten. Herria

Uda nahasia dugula, ez da besterik aditzen; "ez da **segidako** denbora ederrik eta ez da **segidako** denbora txarrik, ardurenik bien arteko aro bitzi bat..." horra zer zion joandean egunean hazpandar laborari batek. Xabier Mendiguren Elizegi

EAEen migrazio saldoa positiboa den **segidako** bosgarren urtea izan zen 2004a. Berria - Euskal Herria

- Halaz, etxeko zazpi haurrideetarik bat **segidako** geratu zen, bi neska seroratzeko *Filles de la Croix* komentura bidali ziren eta gainerako laurak, Xarles bezala, Parisen ziren sehi eta mutil. Itxaro Borda

13 *segidan* ik *segidan*.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agerpenen *segida* (3); aitaren *segida* (4); argazki *segida* (3); asteko *segida* (3); badu *segida* (3); batasunaren *segida* (3); bere aitaren *segida* (3); bere *segida* (5); beren laneko *segida* (3); biziaren *segida* (4); denbora *segida* (4)

ekimenak *segida izango* (3); elementuez osatutako *segida* (3); etxaldearen *segida* (9); etxaldean *segida* (3); etxeko *segida* (13); etxeko *segida hartu* (4); gertaera *segida* (3); gertakarien *segida* (3); gobernuburu ohiaren *segida* (3); haikaren *segida* (3); hartuko du *segida* (3); hartuko duen *segida* (3); hitz *segida* (6)

izango du *segida* (6); laneko *segida* (21); laneko *segida bat* (6); laneko *segida baten* (3); mugimendu *segida* (6)

osatutako *segida* (4); prozesuari *segida* (4)

segida berean (3); *segida beretik* (6); *segida bestaldian* (8)

segida eman (53); *segida eman zion* (7); *segida emanez* (8); *segida emango* (10); *segida ematea* (11); *segida emateko* (22); *segida ematen* (12); *segida eta aldirerokotasuna* (3); *segida eza* (6); *segida gero* (5); *segida har* (5); *segida hartu* (45); *segida hartu arte* (4); *segida hartu du* (4); *segida hartu zuen* (12); *segida hartua* (7); *segida hartuko* (12); *segida hartuko duen* (3); *segida harturik* (5); *segida hartuz* (9); *segida hartzeko* (9); *segida hartzen* (21); *segida hartzen zuela* (6); *segida helduden astean* (4)

segida izan (18); *segida izan zuen* (7); *segida izango* (19); *segida izango du* (9); *segida izatea* (6); *segida jakin* (4); *segida luze* (4); *segida nork hartuko* (3)

segida on (3); *segida segurtatua* (4)

segida ukanen (4)

urrats *segida* (3); zer *segida eman* (3)

orduak *s segidak* (4); *s segidak a* (3); *segidak a asetzen* (3)

elkarren *segidako* (15); elkarren *segidako irudien* (3); *segidako biltzerik ez* (4); *segidako denbora* (4); *segidako irudien* (3)

denbora *segidaren* (4); *segidaren hartzea* (3); *segidaren hartzeko* (6)

ez du *segidarik* (5); *segidarik eman* (5); *segidarik ez ematea* (3); *segidarik gabe* (10); *segidarik gabeko* (5); *segidarik izan* (4)

segidan 1 *adlag* ondoren.

Lehenik oinak altxatuko ditu, gero burua aterako du, **segidan** isatsa. Joan Mari Irigoien

Segidan, epaile baten aurrean bezala, errugabetasun hura arrazoitu nuen-. Bernardo Atxaga

Ohiko galdera arinak egin dizkio **segidan**, eta gu biok gorantz abiatu gara. Txillardegi

Karrika Nagusia, zubia eta **segidan** seinalea, ezker aldera norabidea erakusten didana. Piarres Aintziart

Adeitsuki agurtu zuten elkar masailean muin emanez, eta **segidan** biak batera eseri ziren besaulkietako batean. Patxi Zubizarreta

Bozgorailuetan, Saint-Saëns-en Dantza Makabroaren albiste eman zuen ahots lodi-bildu batek, eta gramola bateko orratzaren krakatekoak entzun ziren **segidan**. Anjel Lertxundi

Gero, *Bitte, Bitte!*, entzun genuen, eta **segidan** bi mutil gurerantz inguratzen. Joxemari Iturralde

Eta **segidan** erran zuen: [...]. Joan Mari Irigoien

Nik, **segidan**, ogitarteko bat ukaiten ahal dudanez? -Baietz. Piarres Aintziart

Zezelka mintzatu zen **segidan**: [...]. Patxi Zubizarreta

Jendearen kurrikkak eta oihu lazgarriak **segidan**. Anjel Lertxundi

Ontziak lau edo bost bira egin zituen **segidan**, oso laster. Koro Navarro

2 (-en atzizki singularren eskuinean)

Salmahaia bat bestearen **segidan** zabaltzen ziren Karrika Nagusitik hasi eta, lege berriaren arabera, Errepublikak Enparantzaraino, kolorez josiak denak. Felipe Juaristi

Erronda ugari ordaindu nien, bata bestearen **segidan**: parranda polita antolatuta zen. Joxe Austin Arrieta

Pianoaren **segidan** zegoen atean finkatu zuen linternaren jopuntua. horren **segidan**, adierazi zuen bera ez zela bizi izan, ez zelako bere buruaz oroitu nahi. Josu Landa

3 berehala.

Abiatu eta **segidan** sumatu du pixa egiteko gogoia. Aingeru Epaltza

Baina **segidan** aldapak beheiti egin du. Piarres Aintziart

Segidan partitu ginen. Janbattitt Dirassar

Edurenek ez du **segidan** erantzun. Aingeru Epaltza

Banihak beraz **segidan**. Piarres Aintziart

Agindua zidan ni abiatu eta **segidan** joango zela Joachimengana. Joxe Austin Arrieta

Kattalinekin burua **segidan** altxatzen du eta egunkaria ezkerreko eskuarekin baztertzen. Eneko Bidegain

Eta etorri ere, **segidan** etorri zen: haren lehensemea bat-batean gaixotu eta handik gutxira hil zen. Askoren artean

4 elkarren ondoan.

Hitzak eta eleak hain **segidan** eta hain elkarren ondoan zetozkidala, non baitzirudien ezen Spiritu Saindua ene mihitik ari zela. **Joan Mari Irigoien**

Gaur egun uste da soslaiei buruzko informazio zehatza galdu egiten dela **segidan** datozen fotogramen arteko ilunaldian. **Josu Zabaleta**

5 etenik gabe; bestelakorik tartekatzen ez delarik. ik **segido**.

Hamabi astez **segidan**. **Koldo Biguri**

Harry ohetik kanpo hiru gau **segidan** hor zehar ibili zelako. **Iñaki Mendiguren**

Boi egunetan **segidan** kanpaiak joka aritu ziren eta seigarrenean ezkondu zen Alberto Díaz de Heredia Eugenia ederrarekin. **Felipe Juaristi**

Iratxen bi urte eta Artaxonan bakarra egin nituen nik, 1975ean hasita, **segidan**. **Joxerra Garzia**

Begitarte gorrixka hura ahazten saiatu nintzen, baita lortu ere, ia sei orduko loa egin bainuen **segidan**, hain nengoen-eta akitua. **Joxe Austin Arrieta**

Sei jokaldi jarraitzen, dado berberarekin, sei aldiz **segidan** batekoa agertzea. **Joxe Austin Arrieta**

"Ez zuen orduan oso **segidan** idatzi", esan nion. **Bernardo Atxaga**

6 elkarren **segidan** elkarren ondoan.

Jokaldiak sakon hausnartzen ari nintzelako itxurak egin nituen, baita elkarren **segidan** figura guztiak galdu ere. **Joxe Austin Arrieta**

-Ez da erraza, horrenbeste zero elkarren **segidan**. **Joxan Elozegi**

Hizki solteek, elkarren **segidan** kokaturik, hiru hitz osatuak zituzten, bata bestearen gainean: "Zarra, biba zu". **Pedro Alberdi**

Ikusmen-estimulu gehienak aldatuz joaten dira, irauan ahala, edo elkarren **segidan** gertatzen dira. **Josu Zabaleta**

Jarraian etengabe aurreratu dira [...] elkarren **segidan** mahaira hurbildu eta gauza distiratsuek edo txilin-hotsekoak, soinudunak edo zaratsuek utzi dituzte, zigorraren eta zorroaren arteko tarte txikian. **Urtzi Urrutikoetxea**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bainan ez segidan (3); **bata bestearen segidan** (24); **bi aldiz segidan** (9); **bi aratsez segidan** (5); **bi astez segidan** (3); **bi egun segidan** (3); **bi egunez segidan** (16); **bi partida segidan** (3); **bi urtez segidan** (8); **bigarren aldikotz segidan** (5); **bigarren urtea segidan** (5); **bigarrena segidan** (3); **bizpahiru egunez segidan** (3); **bospasei egunez segidan** (6); **bost egunez segidan** (15)

denbora segidan (3)

egin zituen segidan (3); **egin zuen segidan** (8); **egun segidan** (4); **egunez segidan** (90); **elkarren segidan** (74); **elkarren segidan datozen** (4); **entzun dezagun segidan** (4); **ere segidan** (3); **eta hala segidan** (8)

gauzez segidan (3); **gero segidan** (22); **guztiak segidan** (3)

hamar egunez segidan (3); **handik segidan** (15); **haren segidan** (5); **hasi zen segidan** (3); **hau segidan** (7); **hiru aldiz segidan** (5); **hiru egunez segidan** (16); **hiru igandez segidan** (3); **hiru larunbatez segidan** (3); **hirugarren aldikotz segidan** (3)

kasik segidan (9); **kintze segidan** (4)

lau egunez segidan (11); **laugarren aldikotz segidan** (3); **nahiz eta segidan** (4)

ondotik segidan (9); **ordu segidan** (3); **oren segidan** (4); **orenez segidan** (9); **oso segidan** (3)

partida segidan (11); **partida segidan galdu** (3)

segidan abiatu (4); **segidan aipatuko** (3); **segidan datozen** (7); **segidan doaz** (3); **segidan doazen** (8)

segidan egin (10); **segidan eginen** (4); **segidan eman** (3); **segidan erantsi** (4); **segidan erran** (15); **segidan erran zuen** (6); **segidan esan** (5); **segidan etorri** (4); **segidan galdetu** (5); **segidan galdu** (4); **segidan han berean** (3); **segidan hartu** (5); **segidan hasi** (4); **segidan heldu** (3)

segidan idatzi (4); **segidan irabazi** (6); **segidan izan** (6); **segidan jokatu** (3); **segidan kontatuko** (3); **segidan lance armstrong** (3); **segidan lanean** (3)

segidan oso (4); **segidan pentsatu** (6); **segidan pentsatu nuen** (3)

segidan utzi (4)

sei aldiz segidan (3); **sei egunez segidan** (3); **sei orenez segidan** (3); **tanto segidan** (3)

urtean segidan (3); **urtez segidan** (27); **zombait egunez segidan** (5); **zortzi egunez segidan** (5)

segidatu, segida(tu), segidatzen (*orobat **segidatu** g.er.*) da *ad ipar* tokiren batean gelditzeko kokatu.

Hamasei lagun horiek alta aspaldian gure artean kokatuak eta **segidatuak** dira, batzu hogoita-zonbait urte huntan! **Herria**

Mendeak jin, mendeak joan, beti izan dira kanpotikako jendeak Ziburun kokatu direnak kokatu eta **segidatu** ere... **Herria**

Egun hotan, Ziburuko alde hortan, Salaberry familia horietarik batto ukanen dute bereziki gogoan, orai Queec lurraldean **segidatua** bainan bere erroak Ziburun izanki. gure gazte horiek hemen berean **segidatzeko** moldea ukaiteari, ez da dudarik... **Herria**

segidilla (*orobat **segidilla***) iz lau lerroko ahapaldia, eskuarki lehenengoa eta hirugarrena zazpi silabakoak eta bigarrena eta laugarrena bostekoak dituena. ik **seguiriya**.

Esaterako, Aitor Sarriegi beasaindarrak eta Unai Muñoz lasartearrak kubako errepentistek ohikoa duten **segidillan** egindakoa. **Berria - Kultura**

Gogoeta horiek guztiak eta bertze anitz **seguidilla** bat kantatuz amaitu zuen hitzaldia Egañak, jendeak lepo bete zuen aretoaren berotasunean. **Berria - Kultura**

segidista iz politikan-eta, beste norbaiten ideiei eta jokaerei jarraitzen diena.

PSOEk PPren atzetik daraman diskurtso **segidistaren** biktima da Zapatero. **Berria - Mundua**

segido 1 *adlag* etenik gabe; bestelakorik tartekatzen ez delarik. ik **segidan** 5.

1435ean, Madril aldean, egundoko euri-jasak izan omen ziren, aste pare batean **segido**. **Pello Zabala**

Errogatibak egin zituzten egun batzuetan **segido**, lehorre makurrean murgilduta zeudelako. **Pello Zabala**

Sekulako elurtea martxoaren 16an, eta ia **segido**, berriro, 18an, errepikatua nahi izan zuen. **Pello Zabala**

Ongi eta **segido** ikasten nuen. **Matías Múgica**

2 **segidoan** *adlag* ondoren eta etenik gabe.

Ikus, hementxe, **segidoan**. **Pello Zabala**

3 **segidoko** *izlag*

Segidoko xirimiri xirri-xirri hori toki gehienetan ez baitu maiz egiten. **Pello Zabala**

Horrek, hego haize **segidoko** lehor iharrak ekarri zituen, bolada oso zakarrak tartekaturik. **Pello Zabala**

Hortxe doaz ilara **segidokoa**, beti utzarri bakarrean, banan-banan, zazpi egunak. **Pello Zabala**

4 **segido-segidoan** **segido**.

Irratian 13 urte eta erdi, **segido-segidoan**, jardun eta gero. **Pello Zabala**

segidore iz jarraitzailea.

Aurrenekoa Ximenez Radakoa bera izan zen, naparra eta euskalduna, 'De rubes Hispaniae' idatzi zuena, eta gero Garibay bere 'Compendio Historial' sekulakoarekin, eta hauen **segidore** izan dira gero Menéndez Pelayo, Sánchez Albornoz eta... **Patziku Perurena**

segika adlag segituz. ik jarraika.

Gizatxar hori atzetik **segika** dabilkit. **Koro Navarro**

Berriz ere aditu ziren **segika** zebilkion bi gizonen pausoak. **Koro Navarro**

Segika zihokion gaztea ere gisa berean jantzirik zegoen, eta hark ere maleta bat zeraman. bi ekintzaile palestinarri **segika** zihon soldadu bat hil zuten palestinarrek. **Patxi Zubizarreta**

Malta-usaina **segika** etorri baitzait etxe barruraino eta eskaileretan gora. **Anton Garikano**

-Ez zitzaizun inor **segika** ibiliko, ala? **Harkaitz Cano**

Gau batez diskoteka batean ezagutu nuen eta harrezkero niri **segika** dabil. **Patxi Zubizarreta**

Guardak aurkitu omen zuen bele beltz batzuen hegadari **segika**. **Hasier Etxeberria**

Lasterka zeharkatu korridorea, argia **segika** zuela. **Felipe Juaristi**

Gainean ditugu **segika**; leher eginak gaude, ez da atsedetik guretzat. **Elizen arteko biblia**

Jendea atzetik **segika** zuela igarri zuenean, zaldiak trosta luzean jarri baitzituen. **Koro Navarro**

Pauso luzeka, albo kale ttiki batera hurreratu zen, Abas orpoz orpo **segika** zuela. **Patxi Zubizarreta**

Laban Jakobi **segika**. **Jose Antonio Mujika**

Kaioak itsasontziari **segika**. **Joxe Austin Arrieta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrastoari segika (4); **atzetik segika** (51); **atzetik segika zuela** (3); **elkarri segika** (3); **guri segika** (3); **niri segika** (4); **orpoz orpo segika** (4); **segika ari** (4); **segika etorri** (8); **segika hasi** (6); **segika ibili** (5); **segika ibiltzeko** (3); **segika joan** (8); **segika joan zitzaion** (3); **segika joango** (3); **segika zituela** (3); **segika zituztela** (3); **segika zuela** (9)

segiketa iz norbaiti segitzea. ik jarraipen.

Burutazio neketsutik landa, bi gauza baiestekoak nituen: primo, Herri Urrats ez zela toki egokia **segiketa** sistematikoko baten obratzeko. **Itxaro Borda**

Ez nintzena **segiketa** diskretuaren berezilaria hobereena? **Itxaro Borda**

XIX. mendeko autore euskotar horiek ez ziharduten Europan puri-purian ikusten zutenari **segiketan** baizik. **Joxe Azurmendi**

segikor izond iraunkorra.

Suen gunean ordea, aldiro, lur hiro usain **segikorraren** presentziak gogoratzen zen, Pern puntan itsas ontzi hura kraskatu bitartean sala eta deigarri zitekeen desmasia handirik ez zela izan azpimarratuz bukatzeko. **Itxaro Borda**

segimendu 1 iz zerbaiten garapen edo bilakaerari arretaz segitzea. ik jarraipen 2.

Erdi Aro amaiera arte, jende arruntak apenas egiten zuen bere odolekoen **segimendurik**; nahaste eder batean bizi ziren orduan, batez ere, Trentoko Kontzilioak familiaren **segimendua**, apellidoak eta beste diziplinatu zituen arte. **Patziku Perurena**

Erien **segimendua** egiteko, nork zer egiten duen jakiteko, Segurantzza Sozialak kodeak ezarri ditu indarrean. **Berria - Harian**

Antolaketa orokorra, laborantza politiken **segimendua**, etxaldean transmisioa, laborariei proposatu formakuntzen balorapena. **Berria - Ekonomia**

Haiek egiten dute 10 cm baino handiagoak diren hondakinen **segimendua**, eta haiek dira beste guztientzako informazio-iturria. erreformak nola gauzatzen diren ikusteko **segimendua** egin beharko dutela azaldu zuen. museoaren kudeaketa ekonomikoan hainbat irregularitasun atzeman dituztela, bereziki 2002 eta 2003. urteko diru laguntzen **segimenduan**. **Berria - Gaiak**

2 (izenondoekin)

'Egunkaria auziaren' **segimendu** juridiko eta politikorako batzordea osatu dute 105 pertsonalitate katalanek. **Berria - Harian**

Immigrazioaren inguruko eztabaida jarraitzeaz gain, manifestazioen **segimendu** handia egiten ari dira asteotan. **Berria - Mundua**

Egia erran, kanpotik ikusirik eta kanpainari **segimendu** zehatza egin gabe, ematen du ez duela indar gehiegirik jarri amua ederresteko. **Berria - Harian**

3 zerbaiti edo norbaiti segitzea. ik jarraipen.

Jesu Kristo pobre eta apalaren **segimendua** ulertzeko era berria. **Askoren artean**

Poliziaren «jazarpena» jasan behar dute, kasu askotan, besteak beste «mehatxuak» eta «**segimenduak**». **Berria - Euskal Herria**

Jesusen **segimendu** -bidea, horixe da garrantzikoena Frantziskorentzat, eta horixe proposatzen die bere anaiei eta kristau guztiei, eta horretarako bidea ere erakusten die, agian Mariari begira: bertute "santuak", alegia. **Askoren artean**

4 segimendu batzorde jarraipen batzordea.

Emakundeko zuzendari Txaro Arteaga «oso pozik» da akordioaren praktika bideratzen duen **segimendu-batzordearen** bilerak nola joan diren ikusita, Arabako Garraio eta Herrilantetako diputatua den Rodolfo Saenz de Ugarte atzo agertu zen prentsaurrekoan, azpiegituraren **segimendu batzordeak** herenegun egindako bileraren berri emateko.

Berria - Euskal Herria

Orfila medikua eta Hondakin Solidoen **Segimendu Batzordeko** kidea da; Rivera fisikaria eta hondakin kutsatzaileen analisisetan aditua da. **Berria - Euskal Herria**

segipen 1 iz ipar zerbaiten garapen edo bilakaerari arretaz segitzea. ik jarraipen 2.

ondarkin bilketaren **segipena**. **Herria**

Hitzarmenen **segipena**, euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren garatzea eta egituratzea, euskararen presentzia bizi sozialean, partaidetzen eta ebaluaketa adierazleen **segipena**. **Herria**

Osagarri **segipena** eta dependenzien urratsaren jarraipena elkarrekin segurtatzen dute. **Herria**

2 segipen komite jarraipen batzordea.

Hitzarmen bereziaren **segipen komitea** martxan jarri. **Herria**

segira ik segida.

segiratu ik segidatu.

segitalde iz segizioa, jarraile taldea.

Jolasen atautaren **segitaldea** ginen, eta harrezkero ere era batean edo bestean, modu gazian edo gozoan, bizitzen jarraitu beharko genuen. **Joseba Sarrionandia**
Zabor biltzaileak izango dira, oharkabean, ezkontideen **segitaldea**. **Joseba Sarrionandia**
Habiarik habia joanen da horrela, zuek osaturiko **segitaldearekin**, familiak beren habiatik jaurtitzen eta arrautzak errebisatzen. **Joseba Sarrionandia**
Gero kalez kale ibili ginen berarekin **segitaldean**, kaleei izen berriak ezartzen. **Joseba Sarrionandia**

segittuan ik segituan.

segitu (8805 agerraldi, 256 liburu eta 3420 artikulutan), segi, segitzen 1 dio ad jarraitu. ik jarraitu.

Maggiak liluraturik bezala **segitzen** zion atzetik. **Juan Garzia**
Gure amak otzan-otzan **segitzen** zion pauso batzuk atzerago. **Fernando Rey**
Ez bai baten ondoren, beste gazteak haren atzetik joan ziren, eta Fionnek ere **segitu** egin zien, bien arteko tarteari eutsiz. **Joanes Urkixo**
Dorrekoei salaraino **segitu** nion, gainerako guztiak patioan utzita. **Aingeru Epaltza**
Eztairik barre eginez, emakumeari **segitu** zion gelatxo ilun bateraino. **Lopez de Arana**
Begiradarekin **segitu** zion Mathildek, harik eta ezkaratzeko ilunpeak senarra guztiz irentsi zuen arte. **Anjel Lertxundi**
Ezpatak hartu eta ziega aldera **segitu** zioten. **Fernando Rey**
Duke-ak, deabrukeria batean harrapatu haur bihurriak bezala, bere emazte printzipalagoari **segitu** zion, bilintzi-balantza, baratxe-baratxe. **Aingeru Epaltza**
Bildots bat bezain otzan **segitu** nion neure garraiatzaileari. **Aingeru Epaltza**

2 (zerbaiti)

Bideak erreka bati **segitzen** zion, aldapa malkartsu batean behera. **Anjel Lertxundi**
Bide bazterreko soroan artajorran ari diren baserriak batzuek, eskuak aitzurretan bermatu, eta markesaren zalgurdiari **segitu** diote begiradaz aldirietatik hirirainoko galtzadan aurrera. **Anjel Lertxundi**
Deiadar batean **segitzen** dio semearen hilkutxari. **Iñigo Aranbarri**
Ez zen abiada handia ere harrapatzen zuen tren, baina ez, ahariak ez zion **segitu**. **Pako Aristi**
Ematen du Asiriarr Inperioaren ondorengo estatu neobabiloniarrak Egiptoren jarraibideari **segitu** ziola mertzenario helenikoak alokatzean. **Iñaki Mendiguren**
Hurrengo asteetan, bide berari **segitu** zioten Biarnoko eta Nafarroako hainbat jaunek eta infantzoi eta kapare andanak. **Aingeru Epaltza**
Aldi berean [...] heteronomizatu egiten da, irudi, konparazio edo metafora batek iradokitzen duen bideari **segitzeko** gauza da. **Jon Alonso**
Konplitu ondoren, bakoitzak bere bideari **segitzen** dio. **Luis Elberdin**
Denek **segitu** zioten gogo onez hari berriari. **Aingeru Epaltza**
Denbora-pasa atseginagoak edukitzen nituen politikaren gorabeherei **segitzea** baino. **Xabier Montoia**
Segitu nahi baldin banion lau neskatoen mahaian gertatzen ari zenari, burua, eta sarri baita gorputz erdia ere, mugitu beharra nuen alde batera zein bestera. **Joxemari Iturralde**
Beti nire aholkuei **segitu** diezu, honetan izan ezik. **Fernando Rey**

3 (du aditz gisa)

Argosek ere ez zaitu **segitu**. **Hasier Etxeberria**
Nik hementxe uzten dut autoa baina nahi baduzu urruntxago **segitzen** ahal zaitut. **Janbattitt Dirassar**
Errepidea **segitzen** dut beraz. **Piarres Aintziart**
Parryk urraturiko bidetik **segitu** du Ongek eta, hark bezala, "formula" deitu dio unitate prefabrikatu horietako bakoitzari. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Hona non aurrean, **segitzen** ari dudan bide zabala, hertsitzera doan. **Piarres Aintziart**
Metro zenbaitetara kapitainaren urratsak **segitzen** zituen. **Itxaro Borda**
Dena dela, ikuspegi hori bai dela gauzak mistifikatzea, eta ez dut hortik **segitu** nahi. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Hurbiletik eta kartsuki **segitu** nituen urtean behin egiten ziren elizkizunak. -Apez batek behar ditu apezpikuaren manuak beti **segitu**? **Michel Oronoz**
Genevako dantzari guztiak formakuntza klasikoa **segitua** dute. **Berria - Kultura**
- Joanden larunbatean bere azken egoitzarat **segitua** izan da Ida Iraola 87 garren urtean zelarik. **Herria**

4 (zaio aditz gisa)

Urrats beretik azken patarrari lotzen dira, mendizalea kasu eginez fiteegi ez doala eta karrikako mutikoa **segitzen** zaiola. **Michel Oronoz**
Umexkoak sugandila bat bezala alde egin zuen, baina On Camillo burutik joanda zegoen eta atzetik **segitu** zitzaion. **Koldo Biguri**
Feudoen oinordekotzarako ere koroaren oinordekotzarako segitutako ordena berari **segitu** zitzaion. **Iñaki Iñurrieta**
- Eni **segitu** zen deusik erran gabe. **Janbattitt Dirassar**

• 5 dio ad beste zerbaiten ondotik etorri edo gertatu.

Taliban bizardunak ere indartu ziren Afganistanen, eta teologoak agintera eramanik, komunismoaren integrismoari erlijioaren integrismoak **segitu** zion. **Pello Salaburu**
Afari onari grappa hobeago batek **segitu** dio. **Anjel Lertxundi**
Hortik **segitzen** da, batetik, ezin dudala ilara alderantziz jarri, gertatzen dena honi jarraiki zaionaren aurretik ezarritik; eta bestetik, behin aurreko egoera jarrit gero, jazoera jakin hori hutsegiteke eta halabeharrez jarraiki zaiola **segitzen** da hortik. **Ibon Urbarri**

6 (da aditz gisa)

Ondorio alerik ere ez zen **segitu** saio hartatik. **Juan Garzia**
Baxenafarroan [1773an] Nafarroako erreinuaren denborako usaiak **segitzen** zirela mintzaren aldetik. **Michel Oronoz**

• 7 dio ad norbait edo zerbait gidaritzat edo arautzat onartu; norbaiten iritziak edo erakutsiak onartu.

Gero, berea ez zuen norbaiti bururatu zitzaion "ohizko"rekin hastea eta, ikusten dudanez, Atxagak ere **segitu** zion, antza, berak ere kanpotik ikasia baitzuen hitza. **Pello Salaburu**
Zeinek **segitu** dion zeini -edo kopiatu-, edo zeini segitzen dioten biek, ez da gure galdera. **Joxe Azurmendi**
Egutegi horri "kalendario juliano" deritza eta egutegi hau da, hain zuzen ere, eliza ortodoxoak **segitzen** duena. **Pello Salaburu**
Gülbaharren aitak estimu handian zuen Ismail eta hitzez hitz **segitzen** zien haren aholkuei. **Fernando Rey**
Hemen akademiaren arauak **segitzen** dira, barruak agintzen duen neurrian. **Iñaki Segurola**
Kaliforniako homosexualen artean berpiztu zen moda zahar hau, badakizue, kulturismoa eta gorputzaren gurtza, eta harrezkero itsu-itsuan **segitu** diogu denok. **Patxi Iturritegi**

• 8 da ad beste zerbaiten ondorio izan.

Et da hortik **segitzen** sintagman erabilera jakin? **Isabel Arrigain**

Ea zein ondorioztapen **segitzen** den hortik adimenaren erabilera enpirikorako. **Ibon Uribarri**

Oinarri-esakune honetatik bere ondorio zuzena **segitzen** da: "datur continuum formarum". **Ibon Uribarri**

Hortik **segitzen** da, batetik, ezin dudala ilara alderantziz jarri, gertatzen dena honi jarraiki zaienaren aurretik ezarri; eta bestetik, behin aurreko egoera jarri gero, jazoera jakin hori hutsegiteke eta halaberrez jarraiki zaiola **segitzen** da hortik. **Ibon Uribarri**

Hemendik **segitzen** da [...] adimenaren adigai hutsek inoiz erabilera transzendentalik ezin dezaketela izan. **Ibon Uribarri**

• 9 du *ad* egoera edo jarrera jakin batean iraun.

Gaur goizean hasi da guztia eta eguerdian ere **segitu** du. **Anjel Lertxundi**

Baina inork ez zian liburuaren negoziarekin **segitzeko** asmorik. **Anjel Lertxundi**

-Hor **segitzen** baduk, suge bat irten, eta heldu egingo dik. **Juan Garzia**

Horrelaxe **segitzen** du ipuinak. **Edorta Jimenez**

Baina gerrak eta neguak **segitu** zuten Stalingradoko garaipenaren ondoren ere. **Felipe Juaristi**

Sara Vidalek Odessan **segitu** zuen, eguneroko bizimodua eginez. **Felipe Juaristi**

Hiru umeek **segitu** zuten gurasoen ondoan, eta laster hasi ziren Fulsom andereñoaren eskolara joaten, umezainaren eskutik. **Julen Gabiria**

Zorionez nire laguna izaten **segitu** du orain arte. **Karlos Zabala**

Azken batez, Migel Mailuk, Garrüzeko bere talaiaitik, zerbitzu egiten **segitzen** zion Agaramonteko leinuari, Lüküzeko etxearekiko liskarretan. **Aingeru Epaltza**

10 (adizlagun eta kidekoekin)

Neskatxa irriberak kantari **segitu** zuen. **Karlos Zabala**

Emakumeak marmarka **segitu** zuen. **Juan Garzia**

-Halere, aitzina **segitu** zenuen. **Janbattitt Dirassar**

Bere jarrerarekin lotsatuta zegoen, baina aurrera **segitu** zuen. **Julen Gabiria**

Etsi-etsian **segitu** zuen oinez. **Lopez de Arana**

Horrela **segitu** genuen oporrek bukatu arte. **Karlos Zabala**

Haizeek jo eta jo **segitu** zuten egun horietan guztietan. **Juan Garzia**

Zeruak urdin-urdin **segitzen** du, airea ez da behean bezain epel. **Anjel Lertxundi**

Amak zerura begira **segitzen** zuen. **Anjel Lertxundi**

Ohean buelta erdi eman, eta lotan **segitu** dut berriro. **Anjel Lertxundi**

Lo-plantan **segitu** nuen. **Joxe Austin Arrieta**

Aitor dut nerabezaroz geroztik ez dudala meza bat hain arretatsu **segitu**. **Anjel Lertxundi**

Gero haren seme Kosme Duñabehiaren abokatu **segitu** zuen. **Edorta Jimenez**

Bi gizonen jardunean lotuta **segitu** du nire arreta osoak. **Anjel Lertxundi**

-Segitu nahi al duzu ikasten? **Matias Múgica**

Oso zaila zen Yvan gabe goiari eusten **segitzea**. **Joxan Elosegi**

Pixka batean belarriari tiraka **segitu**, besterik ez zuen egin. **Koro Navarro**

11 (hizketaldietan)

- **Segitu** aurretik, zerbaitetaz ohartarazi nahi zaitut: nekez sinetsiko duzu erran behar dizudana... **Alberto Ladron Arana**

Del Burgo hau **segitzen** du Jon Bilbaok Telesforo Monzoni azaltzen- Gernikan sartu zirenen lehenengoetakoa izan zen. **Edorta Jimenez**

-Gizonaren izena - **segitu** zuen Wendyk- Darling jauna zen, eta damarena Darling andrea. **Julen Gabiria**

Ongi da -**segitu** zuen, egunkaria utzita eta niri pentsakor begiratu-, esanien dizut zergatik etorri naizen. **Fernando Rey**

-Ez hago horretan, aita bitxi hori -**segitu** zuen Nikolasek-. **Karlos Zabala**

Maddalenek berak zuen **segitu**: [...]. **Janbattitt Dirassar**

Tadjikek **segitu** zuen, hotz: [...]. **Itxaro Borda**

-Zergatik egingo zuen horrelako zerbait? - **segitu** nuen nik-. **Joxan Elosegi**

12 (grebez-eta mintzatuz) parte hartu.

Langileek, beren aldetik, lan baldintza txarrak eta baliabide urriak salatu dituzte, duela hilabete abiatu duten greba **segituko** dutela iragarri. **Berría - Euskal Herria**

Baionako erietxean greban **segitzea** deliberatu dute sindikatuak. **Berría - Euskal Herria**

Iparragireraren abokatuak ez zekiten oraindik ea gose eta egarri greba **segitzen** zuen. **Berría - Euskal Herria**

Haniak esan du boikotarekin **segitzeko** Washingtonen eginiko presioei aurre egin behar diela Laukoteak. **Berría - Mundua**

Tarifak igotzeko akordioak ez eta lanuzteak aurrera **segitzen** du. **Berría - Ekonomia**

13 (era burutua izenondo gisa) etenik edo etenaldirik ez duena.

-1658an, aldiz, errogatibak Salamancan, eurite makur eta **segitua** geldiarazteko. **Pello Zabala**

Greba-egun **segitua**, tren geltokiko saltegi hertsia. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

ainitzek **segitu** dute (4); aintzina **segitu** (52); aitzina **segitu** (24); aitzina **segitu** zuen (4); atzetik **segitu** (8); aurrera **segitu** (70); aurrera **segitu** zuen (24); azken egoitzara **segitu** (4); azken egoitzarat **segitu** (32)

bakarrrik **segitu** (4); bederatzian **segitu** dugu (5); begira **segitu** (7); begiradarekin **segitu** (4); berdin **segitu** (9); berdin **segitu** zuen (4); bere bidea **segitu** (4); berean **segitu** (11); beretik **segitu** (8); besta **segitu** (9); besta **segitu** da (4); beti **segitu** (12); beti **segitu** du (6); bide beretik **segitu** (4); bidea **segitu** (17); bideari **segitu** (4); bidetik **segitu** (4); bizirik **segitu** (5); borrokan **segitu** (8)

dantzan **segitu** (9); dantzan **segitu** zuten (4)

egiten **segitu** (32); egiten **segitu** zuen (10); ematen **segitu** (11); ematen **segitu** zuen (4); ez du **segitu** (4)

formakuntza **segitu** (4)

gertutik **segitu** (5); gora **segitu** (6)

hala **segitu** (5); hantxe **segitu** (8); hantxe **segitu** zuen (4); hitz egiten **segitu** (7); hizketan **segitu** (15); hizketan **segitu** zuen (8); hola **segitu** (7); honela **segitu** (6); horrela **segitu** (12); hortik **segitu** (9); hurbiletik **segitu** (7)

idazten **segitu** (5); ikasten **segitu** (8); irakurtzen **segitu** (6); isilik **segitu** (15); isilik **segitu** zuen (7); izaten **segitu** (22)

jaten **segitu** (7); jaten **segitu** zuen (5); joka **segitu** (4); jokatzeko **segitu** (5); jotzen **segitu** (5); jotzen **segitu** zuen (4)

lana **segitu** (7); lanean **segitu** (23); lasterka **segitu** (4); lo **segitu** (4); lotan **segitu** (6)

mugimendua **segitu** (4); mugitzen **segitu** (4)

onak **segitu** (4); ondotik **segitu** (4)

politika **segitu** (4)

segitu aitzin (4); segitu arren (4); segitu beharra (10); segitu da (22); segitu dio (6); segitu du (131); segitu gogo (6); segitu izan (9); segitu nahian (4); segitu zen (6); segitu zion (20); segitu zuen (441); segitu zuen atzo (4); segitu zuen aurrera (4); segitu zuen berak (4); segitu zuen esaten (4); segitu zuen hizketan (10)

azken egoitzarat **segitua** (57); ondar egoitzarat **segitua** (5); **segitua** izan (75)

bi herritar **segituak** (7); **segituak** izan dira (4); **segituak** izan dire (11)

a arte **segituko** (7); aintzina **segituko** (17); aitzina **segituko** (7); arte **segituko** (28); astez **segituko** (6); aurrera **segituko** (14); aurrera **segituko** dutela (4); berdin **segituko** (5); bere horretan **segituko** (4); berean **segituko** (8); beretik **segituko** (16); beretik **segituko** dutela (6); besta **segituko** (4); bide beretik **segituko** (13); bila **segituko** (4); borrokan **segituko** (14); borrokan **segituko** dugu (4); borrokatzen **segituko** (5)

gabe segituko (5); **hala segituko** (6); **hartan segituko** (4); **harta segituko** (4); **hola segituko** (11); **horrela segituko** (7); **hortik segituko** (5)
izaten segituko (34); **izaten segituko duela** (6); **karguan segituko** (5); **lana segituko** (4); **lanean segituko** (25); **lanean segituko duela** (11); **noiz arte segituko** (5); **nola segituko** (6)
protestan segituko (5)
segituko da (29); **segituko du** (166); **segituko duela esan** (10); **segituko dutela esan** (4); **segituko dutela iragarri** (5)
urtez segituko (4)
aintzina segituz (8); **bidetik segituz** (4); **hala segituz gero** (7); **hola segituz** (62); **horrela segituz gero** (11); **ohidura segituz** (4)
aintzina segitza (8); **aurrera segitza** (5); **bide beretik segitza** (5); **bidea segitza** (5); **hurbiletik segitza** (4); **segitza erabaki** (20); **segitza espero** (5)
aintzina segitzeko (17); **aintzina segitzeko** (13); **arte segitzeko** (4); **aurrera segitzeko** (34); **bide beretik segitzeko** (4); **bideari segitzeko** (4); **bizirik segitzeko** (8); **bizitzen segitzeko** (6); **borrokan segitzeko** (9)
ematen segitzeko (4); **hizketan segitzeko** (5)
izaten segitzeko (12); **jotzen segitzeko** (7); **lan sailaren segitzeko** (4); **lanaren segitzeko** (4); **lanean segitzeko** (12); **mailean segitzeko** (4)
segitzeko asmoa (35); **segitzeko asmoa dute** (6); **segitzeko aukera** (13); **segitzeko beharra** (4); **segitzeko borondatea** (5); **segitzeko erabakia** (4); **segitzeko esan** (4); **segitzeko eskatu** (10); **segitzeko gai** (4); **segitzeko gisan** (6); **segitzeko gogoa** (8); **segitzeko gogorik** (4); **segitzeko keinua egin** (4); **segitzeko modua** (4); **segitzeko parada** (5); **segitzeko prest** (8); **segitzeko xedea** (5)
aintzina segitzekotan (4)
adi segitzen (4); **aintzina segitzen** (31); **aintzina segitzen du** (6); **aise segitzen** (4); **aitzina segitzen** (9); **arte segitzen** (8); **aurrera segitzen** (51); **aurrera segitzen du** (16)
bat izaten segitzen (6); **begira segitzen** (17); **begira segitzen zuen** (7); **berdin berdin segitzen** (5); **berdin segitzen** (20); **berdin segitzen du** (8); **bere bidea segitzen** (4); **bere hartan segitzen** (6); **bere horretan segitzen** (8); **berean segitzen** (13); **berean segitzen du** (5); **beretik segitzen** (10); **beretik segitzen dute** (4); **bertan segitzen** (10); **bertan segitzen zuen** (5); **bestek aintzina segitzen** (4); **beti segitzen** (22); **beti segitzen dute** (6); **bidea segitzen** (11); **bidetik segitzen** (5); **bila segitzen** (9); **bila segitzen dute** (4); **biraka segitzen zuen** (4); **bizia segitzen** (4); **bizirik segitzen** (19); **bizirik segitzen du** (4); **bizitzen segitzen** (5); **borrokan segitzen** (11)
ematen segitzen (13); **ematen segitzen zuen** (4); **erne segitzen** (4); **erretzen segitzen** (4); **eserita segitzen** (5); **etortzen segitzen** (5); **ezinik segitzen** (4)
gabe segitzen (36); **gabe segitzen zuen** (7); **gainean segitzen** (4); **gora segitzen** (4)
hala segitzen (4); **halaxe segitzen** (6); **han segitzen** (15); **han segitzen zuen** (5); **hantxe segitzen** (12); **hantxe segitzen zuen** (4); **hemen segitzen** (5); **hizketan segitzen** (12); **hizketan segitzen zuen** (5); **hola segitzen** (20); **hola segitzen badu** (5); **hor segitzen** (12); **hor segitzen du** (5); **horregatik segitzen** (4); **horrela segitzen** (15); **hortik nahitaez segitzen** (4); **hortik segitzen** (17); **hortik segitzen da** (13); **hurbiletik segitzen** (16)
idazten segitzen (6); **igande arte segitzen** (4); **indarrean segitzen** (6); **irakurtzen segitzen** (4); **isilik segitzen** (6); **izaten segitzen** (79); **izaten segitzen du** (23)
jaten segitzen (5); **joka segitzen zuen** (4)
lana segitzen (6); **lanean segitzen** (13); **lider segitzen du** (6); **lotuta segitzen** (4)
martxan segitzen du (5)
nahitaez segitzen (5); **nahitaez segitzen da** (5); **nik segitzen** (4); **niri begira segitzen** (4); **nola segitzen** (10); **nola segitzen du** (4)
oihuka segitzen (5); **ondoan segitzen** (4)
preso segitzen (12); **preso segitzen du** (4)
segitzen ahal (41); **segitzen ahalko** (33); **segitzen badu ere** (4); **segitzen da** (39); **segitzen dio** (10); **segitzen du** (436); **segitzen du aintzina** (9); **segitzen du lider** (9); **segitzen du lidergoan** (6); **segitzen du oraindik** (4); **segitzen duten bitartean** (4)
segitzen ere (5); **segitzen ote** (4); **segitzen utzi** (6); **segitzen zuen bitartean** (12); **segitzen zuten atzo** (7)
tinko segitzen du (5)
zergatik segitzen (6)
zutik segitzen (5)
aurrera segitzera (4)

segituan *(orobat segittuan g.er.)* 1 adlag berehala.

Segituan, Wendyren ilea lisatu ostean, Johnen tximak apur bat harrotzen zituen. **Julen Gabiria**

Segituan aspertu omen zen, ordea. **Karlos Zabala**

Segituan iritsi zen Villoslada kapitaina, Seat 124 urdin ilun batean. **Unai Iturriaga**

Gaua zen oraindik; **segituan** zen taldea prest. **Koro Navarro**

Segituan deituko dizut konfirmatzeko. **Bernardo Atxaga**

Segituan ezkonduko gaituk. **Koro Navarro**

Ikusten dudanean **segituan** antzematen diot talentuari, neuk ez dudan arren. **Koro Navarro**

Joxe ez da **segituan** jiratu. **Pello Lizarralde**

Gerra **segituan** bukatuko duk. **Koro Navarro**

Ezin izan nion **segituan** erantzun. **Eduardo Matauko**

Ez nintzen itzuli **segituan**. **Juan Kruz Igerabide**

Ez nintzen, ordea, **segituan** erretiratu. **Anjel Lertxundi**

Mutikoa eta beste biak, berriz, **segituan** desagertu ziren ur azpian. **Juan Kruz Igerabide**

Jaitsi zaitetz **segituan** hortik. **Bernardo Atxaga**

Cienfuegos, hator **segituan**! **Koldo Izagirre**

2 (aditz baten era burutuaren eskuinean tartean eta delarik)

Saihets batera okertu eta **segituan** jotzen nuen horma sorbaldarekin. **Bernardo Atxaga**

Beste batzuekin, aldiz, hizketan hasi eta **segituan** ohartuko ginen, topaketak ezer onik emango baldin bazuen, zenbait gai isilean gorde beharrak ginela. **Pedro Alberdi**

Gauean, lanetik iritsi eta **segituan** afaltzen nuen. **Juan Kruz Igerabide**

Sorbaldak mugitu eta **segituan** hasi zen logelan hegaz. **Julen Gabiria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atera eta segituan (4); **hartu zuen segituan** (3); **hasi eta segituan** (13); **hoa segituan** (4); **ia segituan** (5); **ikusita eta segituan** (4); **jo zuen segituan** (5)

segituan abiatu (3); **segituan agertu** (3); **segituan ahazten** (5); **segituan alde egin** (3); **segituan amaitu** (3); **segituan antzeman** (5); **segituan antzematen** (3); **segituan atera** (6); **segituan atxilotu** (4); **segituan azaldu** (3); **segituan dator** (3); **segituan derrepente** (5)

segituan egin (5); **segituan eman** (3); **segituan erantzun** (10); **segituan esan** (7); **segituan esan nion** (3); **segituan etorri** (6); **segituan etorri zen** (3); **segituan etorriko** (3); **segituan ezagutu** (3); **segituan galdu** (3); **segituan hartu** (6); **segituan hartuko** (3); **segituan hasi** (11); **segituan hasi zen** (8); **segituan hasiko** (3); **segituan heldu** (3); **segituan hemen naiz** (3)

segituan igarri (4); **segituan ikusi** (6); **segituan ikusiko** (3); **segituan iritsi** (9); **segituan iritsi zen** (4); **segituan isildu** (7); **segituan isildu zen** (4); **segituan itxi** (5); **segituan itzuliko** (3); **segituan izan** (3); **segituan izango** (3); **segituan jabetu** (7); **segituan jabetu ziren** (3); **segituan jakin** (6); **segituan jarri** (4); **segituan joan** (7); **segituan joango** (4); **segituan kendu** (4); **segituan konturatu** (17); **segituan konturatu zen** (6); **segituan konturatzen** (3)

segituan ohartu (6); **segituan ohartu nintzen** (3); **segituan ohartuko** (3); **segituan ohitzen** (3); **segituan sartu zen** (3)

segituan ulertu (8)

segituki adlag ipar jarraituki.

Epe hortan guzian, bere herriko arditegi batetik bestera zabilan gizon hori, maiz tokiz aldatuz eta bere aldeko lagunez **segituki** lagundua, dudarik ez dena. **Herria**

Bigarren maileko federakuntza gisa bat hoin ontsa eta **segituki** biziartzeko egiten duen guziarentzat. **Herria**

segitza iz jarraipena.

Unibertsitateko erakasle, kontsultatzaile eta hezitzaileak dira kurtso emaeleak eta banakako ikasle **segitzan** arduratzaileak. **Herria**

segitzaile (orobat *segitzale g.er.*) 1 iz jarraitzailea.

Orduan Nafarroako erreinuak gerla zibil izigarri bat jasan behar du: "Agramontesak", aitaren **segitzaileak**, ari dira karraskan "Beaumontesen" kontra; hauek dira semearen aldekoak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Europar Pragako Zirkulukoak eta horien ondorengoak dira estrukturalismoa hotsaren azterketan garatu dutenak, Ameriketan, berriz, Bloomfield-en **segitzaileak**. **Lourdes Oñederra**

Gaur soinu-jole ugari dago eta **segitzailerik** ez. **Koldo Izagirre**

Larramendy presidentak hitza hartu du eta eskertu elkarte hain hortarat heltzen lagundu duten guziak: entrenatzaile, laguntzaile, arduradun, partaide, herriko etxe, kontseilu orokor eta **segitzaile** guziak. **Herria**

Gora gure neska pilotariak, horien trebatzaileak, eta **segitzaileak**. **Herria**

2 ipar arduraduna.

Parkea bakoitxak bisitatzen ahal du bere gusturat bainan ere multxoka, **segitzaile** batekin, **segitzaile** horrek xehetasun guziak emanez (gisa hortako bisitak irauten du oren bat eta erdi). **Herria**

Donibanetik eta inguru hortarik baziren hamazazpi gazte, bestalde Hendaia bi elbarritu eta heien **segitzaileak**. **Herria**

Euro bat gostatzen da bidaia, sei urtez azpiko haurrek ez dute pagatzerik bainan heldua den norbait ukaitekotan **segitzaile**. **Herria**

segitzaile ik segitzaile.

segitze iz egoera edo jarrera jakin batean irautea.

Zenbait oharpen eginez, ohartzen gira gero ta herritar gutxiak segitzen dutela sakramendu saindua, kanpotiarren ari girelarik **segitze** hori balio handikoa dela. **Herria**

Askatasuna elkarrekin salatzen du Madrilerat **segitze** hori, estraditze bat dela bainan arrunt legez kanpokoa... **Herria**

segizio 1 iz hildako bati lagun egiten dioten pertsonen multzoa (*ik beherago 7*). ik ahuku.

Apaiza eta bereterra, zerraldoa zeramatzen aurpegi iluneko lau gizon larru beltzaren, eta larru-kolore bereko hamar bat gizon-emakume baino gehiago ez **segizioan**. **Anjel Lertxundi**

Kachuri Gali kalean barna bazoaz, laster ikusiko duzu ahuku edo **segizio** zirrargarriren bat. **Gotzon Garate**

Hildakoaren **segizioari** jarraitu diot eta ongi ohartu naiz bidez. **Patxi Zubizarreta**

Kanposanturako **segizioa** hunkigarria: oste jendetsuan ez zen hitzik batere entzuten. **Txillardegi**

Hangu hirian, Ashura eguna ospatzen zuten 29 xiita hil ziren **segizio** baten aurka gertatutako eraso baten ondorioz. **Berria - Mundua**

2 lagun-egileen multzoa.

Behereago, karlista armadako jeneralek, eta **segizioan** etorritako beste agintariak ere, Erregeren keinuetan eta urratsetan zeukaten jarritan beren arreta guztia. **Txillardegi**

Aldi hartan Oton enperadorea **segizio** eta arrandia handiz igaro zen inguru haietatik. **Askoren artean**

Gero buruzut alde egin zuen **segizio** guztia atzetik zuela. **Koldo Biguri**

Villagrandeko dukea Mantillanako kondearekin etorri zen, bakoitza bere emaztearekin eta bere **segizioarekin** -berrogeita hamarren bat pertsona orotara-. **Joan Mari Irigoien**

Makurtu, damari eskuan muin eman, eta lagundu zion aldameneko aretora, non bere **segizioko** gizonak zutik baitzeuden, zirkulu-erdia eginez. **Xabier Olarra**

Goi pertsonaiez eta dotore apaindutako andreez osatutako **segizio** horri haien handitasunaren neurriko ingurunea eskaintzen zion areto nagusiak. **Karlos Zabala**

Klaudio, Gertrude, Laertes, Osrik, gorte-gizonak eta **segiziokoak** sartzen dira, turutat eta danborrez, ezpata-jokorako tresnekin. **Juan Garzia**

Armada okupatzaile berez handiak are **segizio** handiagoa ekarri zuen berekin: eskaleak, gaiztaginak, iruzurtiak, pailardak, putzainak, bilaketariak, kausitzaileak eta mota guztietako harrapariak. **Aingeru Epaltza**

Puiuelo kalera abiatu zen **segizioa**, atzealdean Donostiako Orfeoia zihoala, ohorezko zutoihalarekin. **Askoren artean**

3 (izenondoekin)

Orain dela hogeita hamar urte, goi mailako bidazti bat ez zen Siberian barrena abiatuko **segizio** eder batek lagundu ezean. **Karlos Zabala**

Lehenengo lerroetan erregearen **segizio** pertsonaleko hamabi gizon zihoazen: izen handiko Zaldunak. **Agustin Otsoa**

Artilleriako maisu handia eta emirraren zalditegiko burua, zaldizko uzbeken **segizio** bikaina atzetik zeramatela. **Karlos Zabala**

Gildor ikusi zuten, elfo ederrek osaturiko **segizio** handiarekin batera. **Agustin Otsoa**

Jende guztia bidera ateratzen zaio eta **segizio** jendetsua eratzen da. **Askoren artean**

Herausteko geltokian [...] Napoleon III.a enperadorea bera topatu zuen zain; Bonaparte erraldoiaren iloba, **segizio** koloretsu batekin. **Txillardegi**

Gauza da, Bilboko Koralek (helduenak zein eta umeenak) non abestu, hara daramatela **segizio** nabarmena. **Berria - Kultura**

4 irud/hed

Gizonezkook, horrela, maitale ohiek osatzen duten mamuen **segizio** horretako partaide bihurtzen gara. **Joxean Agirre**

5 (hitz elkartuetan)

Mail-a alderik alde korritu zuen, errege-**segizio** guztian barrena, zurdazko zuzi izeki bat astinduz eskuan, printze pozoitzailearen gainean argi egin beharrez. **Juan Garzia**

Eztei-**segizioa**. **Elizen arteko biblia**

6 segida.

Ordura arte ikerketaren gaia izan den gertaeren **segizio** linealen lekua sakoneki erauzketa jokoek hartu dute. **Xabier Arregi**

Jakitekoa litzake hitz onomatopeiko honen **segizio** historikoa: pot, pot egin, pot, pototoa (alua, Goizuetan)... **Patziku Perurena**

7 hileta-segizio

Edonola ere, egun hartako gertakariak gogoangarriena ez zen hileta-**segizio** hura izan, Arantxaren ezezkoa baizik. **Iban Zaldúa**

Kale batean, hiru hileta **segizio** igaro zitzaizkion aurretik. **Koro Navarro**

Hileta **segizio** eta ospakizunetan dena kontrolpean izateko ariketak egin zituen. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hileta segizio (3)

hileta segizioa (3)

segzioburu *iz* segizioaren buru dena. • *irud/hed*

Eskailera estuetan, ezin Kristina eta biok batera jautsi, eta eskua askatu behar izan genion elkarri, ni **segzioburu** eta hura ondoko. **Aingeru Epaltza**

seglar *iz* laikoa.

Markulforen hirugarren formulak nahikoa frogatzen digu inmunitate-pribilegioa eta, beraz, justiziarena, elizgizonenak eta **seglarrenak** zirela, zeren eta batzuentzat zein besteentzat egina baita. **Iñaki Iñurrieta**

segmental *izond* segmentuei, bereziki hots kateko segmentuei, dagokiena.

Kontsonante eta bokal ordezkatzeko **segmental** horien ondoan, kanpotarren hizkeran ezaugarri nabarmenenetakoa "doinua" izaten da. **Lourdes Oñederra**

Garbi dago, beraz, prosodia dela gertakizun **segmentalen** gertaleku, eremu. **Lourdes Oñederra**

Silaba-egituraren aldaketak ikuspuntu **segmentaletik** aztertu izan dira. **Lourdes Oñederra**

Merezi du gai honetaz gogoeta egitea, maiz ahazten baititugu baldintza prosodikoa, ziurrenik **segmentalak** baino gaitzago direlako deskribatzen eta sailkatzen. **Lourdes Oñederra**

segmentatu, segmenta, segmentatzen du *ad* segmentuetan zatitu.

Gizartea **segmentatzeko** joera du egungo kultur sorkuntzak: gazteentzako musika egiten duen talde baten kontsumitzailea, folk talde batena edo operarena nahiko soslai definitukoak izaten dira oro har, eta bata bestearengandik ondo bereiztuak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Guardia zibilak Goiori, erantzuna mutikoaren gorputzetik bereizi guran bezala begiratu zion, espezie ezezaguna topatzeko gorputz txikiaren parteak **segmentatu** eta sailkatzen dituen entomologoaren gogortasunarekin. **Joseba Sarrionandia**

segmentatze *iz* segmentuetan zatitzea.

Ulric Neisser-ek, psikologia kognitibistaren sortzaileetako bat izan zenak, ikusmen-eremua objektu eta hondotan **segmentatze** gisako bat bezala definitu izan du arreta modu hau, gero arretari, behar duenean, segmentu horietako batean finkatzeko aukera ematen diona, hain zuzen. **Josu Zabaleta**

segmentu 1 *iz* zerbaitetik egiaz edo irudiz zatitzen den parte.

Nola eralda dezake mutazio batek gorputzaren **segmentu** bat? **Juan Garzia**

Geneak ADNaren helize bikoitzaren **segmentuak** dira. **Juan Garzia**

Intronak eta inguruko ADN **segmentuak** zehazki moldetakoak izan daitezke, kasuan kasu. **Juan Garzia**

Birus honek, baina, badu ezaugarri bat: genomak **segmentu** ezberdinak ditu. **Berria - Gaiak**

Organismoak -kasurako, intsektuak- **segmentu** errepikatuen taxuan garatzen dira, itxura denez. **Juan Garzia**

Burduntzi-arrak matxarda antzeko batzuk edukitzen ditu azken **segmentuan**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Bertsoa puntua baino atal edo **segmentu** handiagotan zatikatu, **segmentu** bakoitzari funtzio erretoriko jakin bat egokituz. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Ikusmen-sistema bere "egikeraz" dago ikusmenezko ertzak, zirrikituak, marrak, **segmentuak** ezagutzeko gai diren tresnez hornitua. **Josu Zabaleta**

Enuntziatu bat deskribatzea ez da **segmentu** horizontal bat bakartzea eta ezaugarritzea. **Xabier Arregi**

2 (gauza abstraktuetan)

Emakumea gizartearen **segmentu** bat dela diote, txiroak edo beste edozein **segmentu** bezala. **Berria - Euskal Herria**

Euskaldunak lurraldetasunaz hitz egiten hasten direnean, denak **segmentu** abertzale berekoak izanda ere, berehala sortzen da sesioa. **Bernardo Atxaga**

Biztanleriaren **segmentu** aberatsenaren irabazi erreala [...] %15 areagotu ziren 1988 eta 1998 urte bitartean. **Iñaki Heras**

Irakaskleen eta administrazio eta zerbaitzuetako langileen plantilak egonkortu gura zituela azpimarratu zuen, eta azken **segmentuari** dagokionez, handitu ere egin nahi du.

Berria - Euskal Herria

Irizar PB ereduak arrakasta handia izan du bere **segmentuan**, alegia, luxuzko autobusen alorrean. **Berria - Ekonomia**

Merkatuak dinamikoagoak eta aldakorragoak direnez, merkatu osoa osatzen duten **segmentuei** produkzioa hobeto egokitu ahal izateko, produktua desberdintzea da helburu nagusia. **Iñaki Heras**

3 (hitz elkartuetan)

Nola lor dezake, hirugarren torax **segmentuan** ageri diren koska edo halterioen lekuan, hegalkak instalatzea? **Juan Garzia**

Sistema oso bat da, elementu koordinatuz osatua; elementuok elkarturik irauten dute eboluzioan zehar kromosoma **segmentu** berean, eta bata bestearen segidan abiarazten da haien jarduna, hala eulian nola saguan, ordena zehatz baten arabera. **Juan Garzia**

Gene **segmentu** kopuru mugatu baten konbinazioz eraikiak dira halako generik gehienak. **Juan Garzia**

Trukea, eremu gehienetan, balizko osagarritasunei emandako erantzuna baino areago, borroka orokorra dela azpimarratu behar da oroz gain, ekoizpen-**segmentu** ondoena ordainduz jabetzeko lehia gogorra. **Koro Navarro**

Bertso bakoitza, bere diskurtso-izaera galdu gabe, diskurtso-**segmentu** bilakatzen den (makro) diskurtsoa sorrarazten da antolabide horri esker. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

4 (hizkuntzalaritzan) ahots katean analisiaren bidez bakartu daitekeen zatia.

Mintzamenaren fluxuaren elementuen banaketa, propietateak eta egiturazko konbinazioak; fonemak eta ezaugarriak, uhin akustiko baten edo artikulazio-mugimendu batzuen **segmentutzat** harturik. **Itziar Laka**

Silaba **segmentuz** (bokala eta kontsonantez) osatua dago, baina ez da **segmentu** multzo bat bakarrik. **Lourdes Oñederra**

Kontrastez oharitzen gara azentuaz, doinuaz, **segmentuen** luze-laburraz eta baita silabaz ere: beste batzuk edo bestelakoak daudelako aldamenean, beste horiekin kontrastatuz. **Lourdes Oñederra**

Alderdi operatibotik bakarrik interesatzen zaie analistei (alegia C edo V **segmentu** bakoitza baino unitate luzeagoa den bezainbatean), azentuaren kokalekua zehazteko, **segmentuen** zenbait ordezkatzeko sistematizatze. **Lourdes Oñederra**

5 (hitz elkartuetan)

Badirudi, beraz, **segmentu**-kateatze hutsa baino areagoko egitekoa duela silabak hizkuntza batean. **Lourdes Oñederra**

6 (geometriari) lerro edo azalera baten zati mugatua.

Aurreko tenplu horretan dagoen tribunak zirkuluerdi baten **segmentu**-forma dauka; **segmentu** horren zabalera, frontean, berrogeita sei oinekoa da, eta kurbaturak

hamabost oin ditu barruko neurtuta. [Santiago Iruretagoiena](#)
Arkuaren zein [segmentutan](#) kausitzen gara? [Joxe Azurmendi](#)

sego iz bilgorra. ik **sebo**.

Inoiz ez zuten patatarik horrela probatu, gehienetan etxean ez zen eta gantzik edo oliorik izaten, eta esnegain edo [segoarekin](#) moldatu behar izaten zuten etxeoandreek janaria maneatzeko. [Pako Aristi](#)

segoviar *izlag/iz* Segoviakoa, Segoviari dagokiona; Segoviako biztanlea.

Gipuzkoa Basketeko arduradunek jakinarazi dutenez, 39 urteko Porfirio Fisac [segoviarra](#) izango da entrenatzailea. [Berria - Kirola](#)

Rodriguez eta Bunes dira gehien etortzen diren [segoviarrak](#), baina ba omen dira gehiago. [Berria - Kirola](#)

Beti bezala lurrerat ere joan direnak izan baitira bai zezenetan eta bai gazteetan, izan dute lan Nafarroako Ospitalean eta Bideko Ama Birjinarenean ere: batean 35 urteko [segoviarrak](#) eta bestean 33 urteko australiarrak ere jastatu dituzte zezenaren adarrak eta mediku-erizainen tresna artatzaileak. [Herria](#)

segregazio 1 iz bereiztea.

New Izar sortzeko plana aurkeztuko dute bileran eta horrek ontziolen [segregazioa](#) onartzea ekarriko du. [Berria - Ekonomia](#)

Igeldoren [segregazioa](#) bideratzeko sortu zen Itxas-Aurre elkarteko kidea da. [Berria - Euskal Herria](#)

Itziarren 1990ean sortu zen [segregazioa](#) bideratzeko batzarra. [Berria - Euskal Herria](#)

Eskaera egin zuten unean indarrean zegoen legea ezarri behar zaiola Igeldoren [segregazio](#) prozesuari. [Berria - Euskal Herria](#)

2 arraza-talde edo gizarte talde bati egiten zaion bereizkeria.

Kanpotarren aurkako [segregazioa](#). [Berria - Mundua](#)

Erabateko [segregazioa](#) zegoen arlo guztietan: eskolan, elizan, hilerrian leku bereizi bat zeukaten, haurtzaindegia ijito ez zirenetzat bakarrik zen. [Berria - Mundua](#)

Eskolari uzten zaiola etorkinak integratzeko lana, baina horrela gizarteko integrazioa edo [segregazioa](#) lortzen da? [Berria - Euskal Herria](#)

Hor jada [segregazioa](#) indartzen ari gara. [Berria - Euskal Herria](#)

[Segregazio](#) garaian klase ertainak eta beltz aberatsak baztertuta zeuden, beltz txirolak bezalaxe. [Berria - Harian](#)

segregazionismo iz segregaziozko doktrina edo jarrera.

Guk ez dugu [segregazionismorik](#), AEBetan ez bezala. [Berria - Kultura](#)

segretu ik **sekretu**.

seguidilla ik **segidilla**.

seguriya iz ijitoen kopia mota, lau ahapaldikoa, konpas alternoan kantatzen dena; kantu horri dagokion dantza. ik **segidilla**.

Flamenkoaren palo guztietan barrena eginiko bidaia proposatuko diote ikusleari: [seguriyak](#), tarantoak eta buleriak dantzatzeko dituzte. Eta gero beste aireak etorri ziren (solea, [seguriya](#), buleria), hasieran hirurak elkarrekin, gero Riqueni eta Morente eskuz esku. [Berria - Kultura](#)

segunda¹ 1 iz auto baten abiadurez mintzatuz, bigarren sartzen dena.

Kontuz gero bihurtzeko, maitea, sartu [segunda](#). [Eider Rodriguez](#)

Hiru martxa dauzka: primera, [segunda](#) eta drick ("directa" omen ingelesez). [Pako Aristi](#)

2 bigarren maila.

Orduan dena primera, [segunda](#) eta tertzerakoa izaten zen, treneko bagoiak eta eserlekuak berak, medikuak, hiletak..., zenbat diru zenuen. [Patxi Zubizarreta](#)

segunda² ik **segundo**.

segundo (orobat *segundu g.er.*, *segunda g.er.*, *sekunda g.er.* eta *sekundu g.er.*; Euskaltzaindiaren Hiztegian **segundo** agertzen da) 1 iz minutuaren hirurogeirena. (zenbatzaile zehaztuen eskuinean)

Bi [segundo](#) egon zen hausnarrean, bilatzen jarraitu ez jarraitu. [Fernando Morillo](#)

Hori guztiori pentsatzeko bi [segundo](#) eta laurden behar izan zituen Matiasek. [Unai Elorriaga](#)

Amonarentzat bi [segundo](#) horiek garrantzi handikoak izan zirela. [Jon Muñoz](#)

Hamar [segundo](#) behar izan zituen lau hitz horiek josteko. [Unai Iturriaga](#)

Hamar [segundo](#) geroago, egundoko leherketak urratu zuen isiltasuna. [Koldo Biguri](#)

Pieza bukatutakoan, erlojuari begiratzeko diot: berrogeita hamabi [segundo](#). [Anjel Lertxundi](#)

Bukatzeke hogeita hamar [segundo](#) falta zirela, epaileak penaltia adierazi zuen. [Koldo Biguri](#)

Hamabost-hogeita [segundo](#) pasatu dira gai-jartzaileak gaia eman dionetik. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Hogeita bat [segundo](#) eta hogeita hamabi ehunen, bere kirol-erlojuko kronometroan. [Aingeru Epaltza](#)

Hizpidea eten zaiola josulagunari, pare bat [segundo](#). [Iñaki Iñurieta](#)

Goipuztatu ezkutan mantentzen dituen bideo irudiekian abiatzen da pieza, eta 3.600 [segundo](#) irauten du. [Berria - Kultura](#)

2 (zenbatzaile zehaztugabeen eskuinean)

[Segundo](#) asko eman nituen haren oihartzuna entzuten. [Koro Navarro](#)

[Segundo asko](#) galduta, eragina izan dezake psikologikoki. [Berria - Kirola](#)

Baliteke inbasioaren buruzko albisteek **segundo gutxi** irautea eta atzeko planoan ateratzea. Berria - Mundua

Segundo gutxiaren buruan ez zen odolaren arrastorik ageri. Joanes Urkixo

Oraindik zenbait **segundo** behar izan nituen aginduari obeditzten hasteko. Aingeru Epaltza

Zenbait **segundoz** zutik geratu ziren, bata bestearen aurrean. Josu Zabaleta

Iraupen hori **hainbat segundotakoa** izan daiteke distiraldi bizi bat izan denean. Josu Zabaleta

Nire ingurukoen oihuxka eta madarikazioak baizik ez nituen sumatu hainbat **segundotan**. Aingeru Epaltza

3 (artikulu edo erakusleekin)

Azkenik, hirugarren **segundoa** agortu eta gero, esan zuen, bai. Jon Alonso

Itzuliko ez den galdutako uea: **segundoa**, ordua, astea; bueltak ematen ditu lurrak. Lander Garro

Txokolatzeko **segundoa** izan zen hura. Unai Elorriaga

Mendea eta **segundoa** gurutzatzen diren lekua, lekua besterik ez, urrin deritzan herrian. Patziku Perurena

Segundo hartan, aditzen?, **segundo** hartan, gizon zaharrak, ni neska koskorra nintzenetik ikusi gabe ere, ezagutu egin ninduen. Eduardo Matauko

4 (bat-ekin)

Segundo bat barru ikusiko dituzu. Josu Zabaleta

Segundo bat geroago, absurdoa iruditu zitzaidan guztia. Aritz Gorrotxategi

Segundo bat ere ez nintzen luzatu izen bat gogora ekarri gabe: Manuel Sarasa Gonzalez, goitizenez "Potzolo". Aingeru Epaltza

Duda egin du **segundo** batez eta gero ohartu da ez duela besterik esateko. Monika Etxebarria

-Ez dut **segundo** bat edo bi baino gehiago beharko. Xabier Olarra

Gizakiak 6 zaldi potentziako (zp) indarra egin dezake **segundo** batean edo bitan. Irene Aldasoro

Segundo batzuk eta beltzak kantatuko du. Monika Etxebarria

Handik **segundo** batzuetara, ziplo. Xabier Olarra

5 (izenondoekin)

Segundo luzeena. Fernando Morillo

Bizpahiru **segundo** laburren buruan, isiltasun osoa egin zen gelan. Joan Mari Irigoien

Segundo isil batez Joek ez zuen mugimendurik egin. Iñaki Zabaleta

Musikarik gabeko **segundo** bakan haietan. Iñaki Mendiguren

Inork ez zion **segundo** katodiko bat bera ere eskaini albiste hari. Txema Ramirez de la Piscina

Segundo gutxi batzuetan. Jon Muñoz

Aurkariaren bertsoa osorik entzun eta gero oso **segundo gutxitan** hari erantzuna prestatu eta bota. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

6 (pluralean)

Segundoak, minutuak, orduak igarotzen ikustea. Imanol Zurutuza

Hurrengo **segundoak** isilik egin zituen emakumeak, eta hausnarrean nik, buruan zer ote zebilkion. Aingeru Epaltza

Uneak beti dira asko, **segundoak** gutxi izanik ere. Jon Alonso

Erreportaiaren hondar **segundoek** Poliziari hiriko zubiak nola blokatzen zituen azaltzen zuten. Itxaro Borda

Segundoen buruan, hanka bat Buckbeaken gainean zuen, eta laster zen oso-osorik haren gainean, Hermioneren atzean. Iñaki Mendiguren

Beldur handiagoa izaten du, hala ere, bukatu ondoren; ikus-entzuleak txaloka hasi aurreko **segundoetan**, hain zuzen ere. Ana Urkiza

Bi eskuak elkarriketa betean, azkeneko **segundoetara** iristen ari naiz. Anjel Lertxundi

Tresnaren muturra ez zela sekula handik irtengo iruditu zitzaion, **segundoetako** kontua izan arren. Hasier Etxeberria

7 (ordua adierazten)

Goizeko zortziak eta hogeit **segundo** ziren, zehazki. Josetxo Azkona

Manolo, hiru minuturen buruan, hau da, Iruñean zortziak eta hiru minutu eta hogeit **segundo** zirenean, gorpu zen Santo Domingo karrikako harlauzen gainean. Josetxo Azkona

8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Segundo zatiki baten buruan erregistratzen du garunak berotasuna. Irene Aldasoro

-Eta? -galdetu zuen Mentxuk, **segundo** erdi bateko zurrutaldiaren ondoren. Josu Landa

Egiatzko abenturak **segundo** hamarren bat iraungo zuen. Josu Zabaleta

Erretinako hartzaileek **segundo** milaren bat baino gutxiagoan erreakzionatzen dute pausaturik daudenean. Josu Zabaleta

TKEko azken proban, Oriokoan, Pedreñak ere **segundo andana** galdu zuen. Berria - Kirola

9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Isiltasun **segundo** batzuk, eta jarraitu du. Iban Zaldua

10 (denbora-atzizkiekin)

Ondorioz, 15-20 minutuz 35.000 hektometro kubiko ur kanporatuko lirateke **segundoan**. Edurne Elizondo

Azken **segundoan** heriotza-kondenatuari erregearen barkamena ekartzten dion mezulari hatsantuaren nobelako pertsonaia dirudi. Jon Alonso

Zotin isil horiek aharrasui bihurtzen ziren hiru **segundoan** behin. Karlos Zabala

Lepoa moztu eta handik 8 **segundora**, endorfinak askatzen dira; oinazetik gabe hiltzen da animalia. Xabier Olarra

11 (alde hitzarekin)

-2 minutu eta 30 **segundoren** aldearekin! -egin zuen jauzi Jonathanek. Jon Muñoz

Lehen itzulian 6 **segundoren** aldean jardun zuten eta lanerdietan parean ziren. Berria - Kirola

Hamabost **segundoko aldea** atera diot, minutu doia duen pieza batean! Anjel Lertxundi

Hainbat **segundoko aldea** eman nien, berriz ere agondu eta neroni ere abiatu artean. Aingeru Epaltza

Euskadiko Txapelketa Nagusiari dagokionez, kanporaketan 2 minutu eta 30 **segundoko aldea** atera zuen etxarriarrak. Berria - Kirola

12 arku minutu baten hirurogeirena.

Tresna konplexu batzuen bidez erretinako irudia finko mantenduz egiaztatuta ahal izan denez, irudi hori 1 **segundoko angeluaren** barruan finko edukiz gero [...] kolorea eta forma galduz joaten da, Josu Zabaleta

13 **segundo oro** (orobat **oro**) *adlag* segundo guztietan. ik **segundoro**.

2003ko maiatzeko **segundo oro** sei litro ur ari zen hormatik pasatzen. Berria - Euskal Herria

Segundo oro 300.000 zelula berri sorraraziz. Jenaro Garate

Joanesi ipurdi mazelak ontsa minberatu zitzaizkion, zurezko jarleku gogor haien kontra **segundo oro** kaska eta kaska. Eneko Bidegain

· Labartzakoa zehazki ezagutzen nuen: argi izpi bat bederatzit **segundo oro**; Matxitxakokoa baino geldoxeago. Txillardegi

Anartean bista luzatzen zitzaidan eta faroak aurtikitzen zuen su lerro bakoitza mugarik gabeko ur aldearen bizkar borobilean punpatzen ikus nezakeen, zortzi **segundo oro**: aski zen zenbatzea! Itxaro Borda

14 **segundo orratz** (orobat **segundoorratz**) segundoen orratza. · *irud/hed*

Atertu zuen elurra ezin ederrago atera zen, bazter guztietan tiktak egiten zuelako. **segundo orratz** koloretzuek. **Fernando Rey**
Elurrak dizdiz egiten zuen zelaietan eta elurrezko kristaltxo bakoitzean **segundoorratz** ñimiño batek tiktak egiten zuela zirudien. **Fernando Rey**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lau **segundo** ateratzen (4); **pare bat segundo** (8)

segundo andana (4); **segundo apur batzuk** (4); **segundo asko** (4); **segundo atera** (23); **segundo atera zizkion** (16); **segundo ateratzen** (20); **segundo ateratzen dizkio** (14)

segundo baino ez (9); **segundo baino gehiago** (6); **segundo bakan** (5); **segundo bakar** (36); **segundo bakar bat** (10); **segundo bakar batean** (5); **segundo bakar bateatik** (5); **segundo bakar batez** (4); **segundo bakarra** (4); **segundo bakarreko** (4); **segundo bakarrik** (5); **segundo bakoitzean** (6); **segundo bakoitzeko** (7); **segundo bat behar** (6); **segundo bat bera** (6); **segundo bat gehiago** (4); **segundo bat geroago** (11); **segundo bat lehenago** (8); **segundo batean** (29); **segundo bateko** (18); **segundo bateko aldea** (4); **segundo baten** (14); **segundo baten buruan** (4); **segundo batera** (5); **segundo batez** (47); **segundo batzuen buruan** (23); **segundo batzuetako** (9); **segundo batzuetan** (37); **segundo batzuetara** (9); **segundo batzuez** (15); **segundo batzuk baino** (5); **segundo batzuk barru** (4); **segundo batzuk behar** (13); **segundo batzuk geroago** (15); **segundo batzuk igaro** (6); **segundo batzuk itxaron** (4); **segundo batzuk lehenago** (5); **segundo batzuk pasatu** (4); **segundo behar** (35); **segundo behar izan** (35); **segundo besterik ez** (4)

segundo egin (4); **segundo erdi** (17); **segundo erdi batean** (4); **segundo erdian** (4); **segundo eskas** (13); **segundo eskas falta** (5); **segundo eskaseko** (4); **segundo eskasera** (4); **segundo eta erdiko** (4)

segundo falta (12); **segundo falta zirela** (8)

segundo galdu (21); **segundo galdu zituen** (14); **segundo gehiago** (26); **segundo gehiago behar** (16); **segundo geratzen** (4); **segundo geratzen zirela** (4); **segundo geroago** (9); **segundo gutxi** (56); **segundo gutxi batzuetan** (17); **segundo gutxi batzuk** (14); **segundo gutxiago** (5); **segundo gutxiko** (5); **segundo gutxira** (10); **segundo gutxiren** (18); **segundo gutxiren buruan** (11); **segundo gutxitan** (11)

segundo hamarren (13); **segundo hamarren bat** (5)

segundo irabazi (5); **segundo iraua** (9); **segundo iraua zuen** (5); **segundo irauten** (8); **segundo izan** (5)

segundo jan (18); **segundo jan zizkion** (7)

segundo kendu (7); **segundo kendu zizkion** (5); **segundo kentzen** (5)

segundo lehenago (8); **segundo luze** (7)

segundo oro (4)

segundo pare (17); **segundo pare batez** (10)

segundo zatiki (5)

segundoz segundo (5)

azken segundoan (23); **hiru segundoan** (4); **hurrengo segundoan** (4); **segundoan amaitu zuen** (6); **segundoan behin** (4); **segundoan ebaki** (4); **segundoan ebakita** (4); **segundoan egin** (11); **segundoan egin zuen** (8); **segundoan hobetu** (13); **segundoan hobetu zuen** (10); **segundoan irabazi** (4)

azken segundoetan (8)

segundoko aldea (168); **segundoko aldea atera** (68); **segundoko aldea aterata** (14); **segundoko aldea du** (8); **segundoko aldea kendu** (10); **segundoko aldea lortu** (21); **segundoko aldearekin** (29); **segundoko aldearekin helmugaratu** (5); **segundoko aldeaz** (13); **segundoko atzerapena** (14); **segundoko atzerapenarekin** (10); **segundoko errenta** (10); **segundoko tarte** (10); **segundoko tarte atera** (4); **segundoko zigorra** (5)

azken segundora arte (6); **bat segundora** (6); **bi segundora** (8); **bost segundora** (5); **hamar segundora** (6); **hiru segundora** (6); **lau segundora** (5); **segundora dago** (5); **segundora du** (5); **segundora helmugaratu** (4); **segundora iritsi** (4); **segundora iritsi zen** (4); **segundora sailkatu** (6); **segundotik segundora** (4); **sei segundora** (7); **zazpi segundora** (5)

hamar segundoren buruan (5)

bi segundotan (6); **hamar segundotan** (5); **zenbait segundotan** (8)

segundotik segundora (4)

segundotik behin (5); **segundotik segundora** (4)

bi segundoz (4); **hainbat segundoz** (5); **hamar segundoz** (4); **hiru segundoz** (4); **segundoz behin** (10); **segundoz segundo** (5); **zenbait segundoz** (15)

segundu bakar (6); **segundu batean** (4); **segundu batez** (6); **segundu berantago** (4)

segundoero ik **segundoro**.

segundoorratz ik **segundo 14**.

segundoro (*orobat **segundoero** eta **segunduro***) *adlag* segundo guztietan. ik **segundo 13**.

Zer egiten du egunero, orduro, minuturo, **segundoro**, ikusten dituen milaka eta milaka irudiekin, entzuten dituen milioika hitzekin? **Karlos Linazasoro**

30.000 eta 40.000 metro kubiko ur kanporatuko litrateke, **segunduro**. **Edurne Elizondo**

Segundoro, are gehiago! **Jon Muñoz**

· Matzakuko parolak zazpi **segundoro**. **Berria - Kultura**

Bost **segundoro**, bristada gorri birena nahasten zuen urak hamabost metro beherago. **Koldo Izagirre**

segundotxo *iz adkor* segundoa.

Arratsaldetik, ordea, **segundotxoak** bakarrik, minututxo bakar bat bera ere ez, ez du aurreratu erretiroa [eguzkiak]. **Pello Zabala**

segundoxka *iz adkor* segundoa.

Baxutxuena, segundoka kontatuz, hortxe 7 arratsean, eta **segundoxka** batzuk irabazten hasia da dagoeneko; etzi ja hurrengo minutura igaroko gara; etzi, 16.49an erretiratuko da eguzkia. **Pello Zabala**

segundu ik **segundo**.

segunduro ik **segundoro**.

segur (*3110 agerraldi*, *133 liburu* eta *1447 artikulutan*) *1 adlag* zalantzarik gabe. ik **seguru**; **segurki**; **segurik**; **ziur**.

Maitagarria **segur**, baina buruberoa! **Daniel Landart**

· **Segur** baietz, Abdelen dendara gaur bertan joko nuke, ordu honetan zerratua ez balitz. **Itxaro Borda**

Segur, Kattalin hasten delarik, ez da berehalakoan isiltzen. **Eneko Bidegain**

Segur luzeak izanen dira aste horiek, maiatzaren 29a artio. **Herria**

Segur gertatuko da hori; jakin bezate Israelgo leinuek. **Eliizen arteko biblia**

Segur beste jarleku opetsuagorik ezagutu zuela bere bizi denboran. Michel Oronoz

Segur, klientek estimatzen zutela eta nagusiak are gehiago. Daniel Landart

Bai, **segur** holako zerbaite nahiko nuela. Janbattitt Dirassar

Bai, nere buruaz, **segur** sentitzen naiz... Menane Oxandabaratx

Segur ez zuela ahantzia. Elena Touyarou

Segur galduko zaretela bakarrik joaten bazarete. Elena Touyarou

Orduan ez zen, **segur**, oraingo erretxasunik munduko gertakari jakiteko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ez zen, **segur**, lehen aldia izanen, ez eta ere azkena. Eneko Bidegain

Apezpikuaren eskuinean denak ez du **segur** elizgizon baten itxura. Michel Oronoz

Bilkura baliosak, iraganaz oroitu **segur**, bainan gerotiar gogoarekin... Herria

Zuk badakizu, eta Domingak ere, eta **segur** istorio hori herri osoak badakiela. Elena Touyarou

Hobe dute **segur**, ihardetsi zion Pantxikaren aitak, aski goiz jinen zaizkie negarrez aritzeko egunak. Janbattitt Dirassar

Bazutela **segur** beste mila gauza presatuagorik.. etxe berriaren egiten hasiak izanki eta. Daniel Landart

Han, **segur**, inork ez ninduela ezagutuko! Daniel Landart

Ez zinan leher eta zapart egiteko arrisku handirik, **segur** ezetz. Eneko Bidegain

Gauza batez **segur**: ikasketak ondorio onetara zihoazela eta ikasle izan behar eta nahi nuela. Piarres Aintziart

Bai, Patri laztana, gogorrek dira espainiarrak, edo erotuta daude, ez dakit **segur**. Hasier Etxeberria

Giro ezinago goxoa badüzü, hori **segur**! Menane Oxandabaratx

• 2 izond arriskurik gabea. ik **seguru** 4.

Herriko etxeak hitzeman dio Itsas-Begia elkarteari gela bat lehen barkuez dituen maketak toki **segurean** atxikitzeko. Herria

Erdi Aroan ere elizak ziren ihes-leku **segurrenak** persegituak zirenentzat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Azken honekin lokarri **segurrak** ukan behar nituen geroago. Marzel Etxehandi

Kantari ona, boz **segurra** eta pollita. Herria

Han leihorra **segura** dugu, euria izanik ere. Janbattitt Dirassar

Ehiza ugaria zen arren, ez zen beti gauza **segura**. Joan Mari Irigoien

Gauza **segur** bakarra zen lthurbide desagertu zela eraso gertatu zen gau hartan. Elena Touyarou

Norbaitek laguntzekotan, sustengurik hoberena, **segurrena**, Ximunek ekarriko zidala, dudarik ez. Daniel Landart

Biek ere bazituzten gibelego lagunak bat bestea bezain **segurak**. Herria

Erretreta arte, denbora guzia mutil eta langile on zerbitzari **segura** izanez. Herria

Urruñako bi anaiak pilotari **segurrak**; aise nagusitu dira. Herria

3 (izan aditzarekin; ik beherago 9)

Turkiar airekoak ez direla **segurak**. Herria

Astehenean denbora ez **segura** izanez, ez dira oihan xokorat joan. Herria

Halere, gauza bat bada **segura**, jendea pobreago eta etxeak txarragoak direla. holako lagun bat duelarik aintzinean, arras jestutsu eta **segura** da Serge gibelean. Herria

Zer gider on eta **segura** izan zuen Lafittek Altzürüküko apez xuberotarra. Herria

4 hain segur

Hain segur, toki guztietan daude ortutsik zakurrak. Ximun ikusi nuen autoan sartzen, **hain segur** lanera joateko. Pello Salaburu

Ez zuen iduri haren biziak luzaz iraunen zuenik eta ez zuen, **hain segur**, luzaz iraun. Eneko Bidegain

Horra zergatik **hain segur**, Mathias, gure adineko gazte guztiak baino zuhurragoa zen. Daniel Landart

-Erran, Kattalin, hire aitatzik ez zinan, **hain segur**, gaur guk bezalako otordu ederrik gain hartan. Eneko Bidegain

Eta ondoko aldian **hain segur**, toki gehiago ere izanen da. Janbattitt Dirassar

Hurrengo urteko, udaberrian **hain segur**, uzten dut gelditzen zaidan zatia. Piarres Aintziart

Doi bat zalantzan egonik -baina, **hain segur**, ontsa kontent gauzak hain aise zihoazelako- hiru alemanek baietz. Marzel Etxehandi

Inarrosaldi handi baten ukaiteak on egiten du, **hain segur**, bainan dena dela nahiago dut ez abiatu! Menane Oxandabaratx

Alkohol eta tabakoz aserik, **hain segur** lehengo kezka ahantzarazi dizkio, zer baitziren ere. Eneko Bidegain

Gehiago frantsesez **hain segur**. Menane Oxandabaratx

5 hain segur ere hain segur.

Hain segur ere biziki ontsa ari naiz ohitzen hemen egiten ari naizen egonaldira. Jon Muñoz

Hain segur ere, susmatua nuen bi hilabeteren buruan eta zeremonia gehiagorik gabe Epaitegian sinatuko genuen papera ez zela aldaketa bakarra izanen. Aingeru Epaltza

Honegatik izango zen, **hain segur ere**, etxeko nagusia hiltzen zenean erleek izan behar zutela horren berri. Pello Salaburu

Ez zen, **hain segur ere**, jarrerarik aproposena xarmatu nahi duzun neskaen aitzinean. Aingeru Epaltza

Denetarik egongo da, **hain segur ere**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Konduak atera dituzte, hunenbertze urtez hunenbertze deitura galdu direla sekulakotz Frantzian, eta **hain segur ere** gure Euskal Herrian. Herria

Azindak erosi behar, etxeak altxatu, lurak garbitu, aziak ere bildu behar, eta, **hain segur ere**, sosik ez! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

6 segur aski (467 agerraldi, 77 liburu eta 122 artikulutan; orobat **seguraski** 167 agerraldi, 23 liburu eta 32 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **segur aski** agertzen da) adlag seguru asko.

Segur aski beste tarantasik ez zen izango Perm hiri osoan. Karlos Zabala

Segur aski ez. Aurelia Arkotxa

Segur aski, hiltzaileren bat da hori; itsasotik ihes egin du, baina Justizia jainkosak ez dio bizitzen uzten. Elizen arteko biblia

Segur aski orain dena primeran joanen da, ziur, orain badakit nola egiten den... lasai! Fernando Rey

Bernat **segur aski** ez zen isilik egonen, hura zen kalakaria! Itxaro Borda

Baina, **segur aski**, sektore edo alor berean ez da berdin irabazten bigarren mailako edo unibertsitate mailako titulua edukita. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Itzultzaileen ustez, esaera hau, maiz errepikatua, **segur aski** garai hartako atsotitz ezaguna izan zitekeen. Xabier Kintana

Maximilian plazan (baita **segur aski** hiri osoan ere) denek zekiten zer negozio klase egiten zen karrika-zulo hartan. Alberto Ladron Arana

Bera ere ez da oso gaztea, eta jakingo du, **segur aski**, zer den ama edo aita galtzea. Imanol Zurutuza

Eguerdi inguruan **segur aski**, esan zuen mutilak. Koro Navarro

Hortaz, tartea ez da **segur aski** ere txikia izango. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Parisen hilko diat **segur aski**. Antton Olano

Bere printzipio **segur aski** katolikoek ametitzen zioten punturaino. Bernardo Atxaga

7 segur egon

Zerrenda horretako zenbait ederki menperatzen dituzula **segur** nago. Itxaro Borda

Ez gaude **segur** gizarteak, guk, unibertsitariok, ikusten dugun bezain garrantzizko ikusten duen unibertsitatea. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Segur zegoen ezer ez dela gertatzen berak hala nahi izan gabe. Matias Múgica

Ez nengoen oso **segur** kanpoko berri emateko gai izanen ote nintzen, uste nuen ez nuela adorerik ukanen egia esateko. Koldo Izagirre

8 segur ere segur.

Sosa **segur ere** burrustan irabaziko nuen. Itxaro Borda

Segur ere geihenak ez ziren ez nunbaitek jinan, ez eri; baizik eta lekuko jendea zen gizartetik kanporatua izan zena. Herria

Ez da, **segur ere**, beti errex izan, baina zure bidea segitu duzu, azantzik gabe, haurren beharrei lehenik kasu emanez. Herria

Zilokak ttipiegi dira eri punta bat ere sartzeko, salbu atxeman dudan ziloka hori, aitzineko presoek handiturik, **segur ere**. Filipe Bidart

9 segur izan da ad

Hortaz **segur naiz**. Herria

Segur nauk gure beha daudela. Janbattitt Dirassar

-**Segur hiza**? Marzel Etxehandi

Segur zen bereaz, eta ni zehe bat sudurrekin. Marzel Etxehandi

Segur bainaz bakoitzaren esperientzia pertsonala, nornahi ere den hau, ezin dela besterengana hedatu. Pello Salaburu

Ni **segur nintzen**, egun ere **segur naiz** ez zutela ukitu, berean bere isurazki zuela komandanteak fuela, jo zutela uste genezan. Koldo Izagirre

Ez nion galdetu, baina **segur naiz** amesten zituela duna handiak, hankapeak hondar kiskaliez erretzen dituzten horietakoak. Hasier Etxeberria

Nahiz eta elgarren artean mintzatzeko tenoreari eta zaintzaleen mugimenduari kasu eman, **segur da** gure solasaldi guziak entzuten zituztela. Filipe Bidart

Atalasean gelditu zen zutik, nahiz eta **segur zen** hurrengo momentuan barrura sartzeko gomita egingo ziotela. Matias Mujika

-Agertuko da, **segur naiz** -adore eman nahi zion Tomek. Iñaki Zabaleta

Bagenuen **segur denaren** beharra. Daniel Landart

10 segur eta fida izan da ad

Horiek horrela, **segur eta fida** zen herritarrek nahi zutelarik mendiak zeharkatzen zituztela oraino. Elena Touyarou

Segur eta fida naiz, ez duela oroitzen hori ahantzia Etxegaraik. Piarres Xarriton

Eta etxerako bidean, han edo hemen, gurutzatuko nuela, **segur eta fida** nintzen. Daniel Landart

Nehoren maitatzeko gaitasunik ez zuela eta, Sarako postua eskatzen baldin bazuen, han kontu batzuen zurrizko zela **segur eta fida** zen. Elena Touyarou

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bada segur (21); **bai segur** (17); **bezain segur** (5); **ez naiz segur** (5); **ez segur** (10); **ez zen segur** (13); **hain segur** (553); **hain segur ere** (81); **hain segur ez** (16); **hobe segur** (19); **izan da segur** (8); **izanen da segur** (8); **kasik segur** (13); **leku segur** (5); **oso segur** (6)

segur aski (465); **segur aski ere** (25); **segur aski ez** (26); **segur bai** (6); **segur baietz** (5); **segur bainago** (7); **segur baita** (7); **segur da** (37); **segur dena** (7); **segur dena da** (7); **segur derraizut** (5); **segur dira** (7)

segur eta fida (6); **segur gara** (5); **segur gira** (25)

segur izan (10); **segur izanen** (5); **segur izateko** (7); **segur nago** (14); **segur naiz** (123); **segur nengoen** (10); **segur nintzen** (22); **segur niz** (15); **segur nuk** (6); **segur nun** (7)

segur oraino (7)

segur zegoen (6); **segur zen** (13)

zaude segur (6)

gauza segura (9)

seguragotu, segurago(tu), seguragotzen da/du ad segurago bihurtu.

Aurten badu alabaina ainitz partida irabazirik uztaizarrak, eta finalak ere bai: duen beso fierrarekin min egiten baitu hunen pilotak eta esku-joa eta gero ta **seguragotzen** ari baitaizo, lehengo huts heietarik gutiago egingez. Herria

segurantzza (582 agerraldi, 41 liburu eta 242 artikulutan) 1 iz arrisku eta kidekoetatik at dagoela uste duenaren lasaitasunezko egoera; egiazko arrisku gabeziatik sortzen den egoera. ik **segurtasun**.

Hiritarrek askatasuna eta **segurantzza** galduko liuzkete, salatzaileek ez lukete konbentzitzeko bitartekorik, ez eta salatuek ere beren burua zurriztekorik. Iñaki Iñurrieta

Nigan aurkitzen zuen, falta zituen **segurantzza** eta babesak. Gotzon Garate

Galdu egin du eguneroko erreferentziak ematen duen **segurantzza**, eta babes bila mugitzen da oroitzen artean. Javi Cillero

Gure koloniak hain urrun egotea ez da haien **segurantzarako** eragozpena; izan ere, metropolia urrun badago hura defendatzeko, metropoliaren nazio etsaiak ere hura bezain urrun daude koloniak konkistatzeko. Iñaki Iñurrieta

Eskema horrek **segurantzza** sendotuko lizuke, bizitzan finkatuko, bermatuko zintuzke. Iñaki Iñurrieta

Errudun zenak ordaintzen zuen *fredum*-a, berak egindako gehiegikeriek galarazi zioten bake eta **segurantzaren** truke, babesari esker berreskuratu egin baitzitezkeen; baina haur batek ez zuen bere **segurantzza** galtzen; ez zen pertsona, eta ezin pertsonen artean kanporatua izan. Iñaki Iñurrieta

Hurtzarroan, **segurantzza** gose gara guztiok eta, gero, burasoek eta haien laguntzaileek eskaintzen digute jakintsuki beren **segurantzza**. Piarres Xarriton

2 duda-mudarik sentitzen ez duenaren egoera. ik **segurtasun 8**.

Segurantzza harrigarri batekin mutikoa zutitzen da. Michel Oronoz

Bitarteko bat da objektua, aitzakia bat, segurtasuna ematen du, **segurantzza**, konfiantza. Joxan Elozegi

Idazle alferrak aupatzen, nartzisoak balakatzten, zalantzatiei **segurantzza** ematen, seguruegiei frenoa jartzen. Jon Alonso

Halako **segurantzaz** ari zen kontari, non asaldatu ere ez baitzen egin seiak aldi berean irri erotan lehertu ginenean. Jon Muñoz

Gerra askotan ibilitako jokalariek dira, baina Savo Milosevicek **segurantzza** osoa ematen digu, zalantzarik ez genuen izan. Berria - Kirola

Afektu horietatik zalantza kentzen bada, Itxaropenetik **Segurantzza** dator, eta Beldurretik Etsipena. Piarres Xarriton

Hori duk hori **segurantzza**! Antton Olano

3 segurtamena ik ziurtasun.

Zu ere sekretuaren jakinaren gainean zaudelako **segurantzak** eztituko ditu bederen gabezia krudel horiek. Jon Muñoz

Erran gabe doa ez zituztela bahituak libre utziko, horien guztien gainean **segurantzak** erdietsi ezean. Aingeru Epaltza

Tupustean zabaldu zuen kalerako atea, laguna metro eskas batzuetara egongo zelako **segurantzaz**. Josu Landa

Gau hartan ez zuela etxean afalduko esan zuen gaztetxoak, amaren baimena lortuko zuela **segurantzza** osoa adierazten zuen irribarre samur batez goxatuta. Josu Landa

Inork ez du bere orduaren **segurantzarik**, iristen den arte. Imanol Zurutuza

Ziurtasun horrek barregarri uzten ditu nire gainerako **segurantzza** eta ezabpenak, nire kontu larri usteko guztiak. Xabier Montoia

Filosofiak eta zientziak -adimen hutsezko jakituriek, orokorrean- ezin didate eman ziurtasunaren **segurantzarik**. Jenaro Garate

Jakob nirekin egotea, dena dela, marka ona zen; **segurantzza** osoa nuen emakumeak igorria zuela niregana. Aingeru Epaltza

Estatu hauetan nor bere ondasunez uestez daukan **segurantzza** handiagoari esker, edozeri ekiten diote. Iñaki Iñurrieta

Pruden Gartzia Euskaltzaindiko Azkue Liburutegiko zuzendariak % 95eko **segurantzza** du. Berria - Kultura

4 (hitz elkartuetan)

Esne usain hura ere bertzeko bat zen ene bakardadearentzat, ene malenkoniarentzat eta ene **segurantz**a faltarentzat. [Joan Mari Irigoien](#)

Goizeko 11etan abiatuko dira Baionako ospitaleetik, CPAM (eritasun **segurantzaren** egoitza) aitzinera joateko. [Berria - Ekonomia](#)

5 **gizarte segurantz**a (406 agerraldi, 11 liburu eta 231 artikulutan)

Langabezia, zergak, **gizarte segurantz**a eta justizia soziala dira buruzagi politikoei hizpide hartu dituzten gai nagusiak kanpaina honetan. [Berria - Harian](#)

Berak aterako zuen lizentzia fiskala, berak emango zuen izena **Gizarte Segurantz**an. [Iñaki Iñurrieta](#)

Gizarte Segurantzan kotizatzen hasten direnean. [Berria - Harian](#)

Dendariek ez zuten oraindik **gizarte-segurantz**arik garai hartan. [Joseba Urteaga](#)

Tolosa, ordura arte, **Gizarte Segurantz**ako anbulatorioa zen niretzat. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Kreditu-txartelak, autoaren matrikula, **gizarte-segurantz**ako txartela, NAN, euskalduna eta espainola. [Jon Alonso](#)

Gizarte Segurantzaren Hego Euskal Herriko bulegoren batera joan, paper bat bete eta Ipar Euskal Herrian aurkeztuz gero, **Gizarte Segurantzaren** zerbitzuak jasoko dituzte han. [Berria - Harian](#)

Gizarte-segurantzako ikuskatzaille bat. [Joseba Urteaga](#)

Gizarte segurantza sistemiei hobekien egokitzen zaien tasa da. [Berria - Gaiak](#)

Justizia, Lan eta **Gizarte Segurantz**a Sailaren Argitalpena. [Iñaki Heras](#)

Justizia, Lan eta **Gizarte Segurantz**a sailburu Joseba Azkarragak irakurri zuen agiria. [Iñaki Heras](#)

6 **segurantz**a **sozial** (28 agerraldi, 3 artikulutan)

Indarrean da Parisek egindako **Segurantz**a Sozialaren erreforma. [Berria - Harian](#)

Segurantza Sozialak sendagile erreferentzialaren orria helarazi du etxeetara. [Berria - Harian](#)

Xahutzeak kontrolatzea da **Segurantz**a Sozialaren helburua. [Berria - Harian](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gizarte segurantza (152); **gizarte segurantz**a ordaindu (3); **gizarte segurantz**a saila (4); **gizarte segurantz**a sailak (14); **gizarte segurantz**a sailaren (7); **gizarte segurantz**a sailburu (15); **gizarte segurantz**a sailburua (5); **gizarte segurantz**a sailburuak (16); **nire segurantz**a (3)

segurantza ematen (3); **segurantz**a eta babes (3); **segurantz**a osoa (7); **segurantz**a sozialak (20); **segurantz**a sozialaren (9); **segurantz**a sozialaren helburua (3)

gizarte segurantzak (40)

gizarte segurantzako (47); **gizarte segurantz**ako atzerapenak (3); **gizarte segurantz**ako kotizazioak (3); **gizarte segurantz**ako sailburu (4)

gizarte segurantzan (40); **gizarte segurantz**an kotizatu (5)

gizarte segurantzara (6)

gizarte segurantzarekin (13)

espainiako **gizarte segurantz**aren (4); **gizarte segurantz**aren (100); **gizarte segurantz**aren erreforma (9); **gizarte segurantz**aren erreformaren (3); **gizarte segurantz**aren eskumena (3); **gizarte segurantz**aren galera (4); **gizarte segurantz**aren kotizazioa (3); **gizarte segurantz**aren kudeaketa (5); **segurantz**aren egoitza (3)

gizarte segurantzari (28); **gizarte segurantz**ari buruz (3); **gizarte segurantz**ari ordaintzen (3)

geroko segurantzarik (3); **gizarte segurantz**arik gabe (4); **segurantz**arik gabe (7)

gizarte segurantzatik (3)

segurantzia (61 agerraldi, 23 liburu eta artikulua 1) 1 iz segurantz

Gauza gutxitan izaten dut nik **segurantz**ia, eta gutxiago etimologia kontuotan. [Patziku Perurena](#)

Sakelan dirua daukanaren **segurantz**iarekin, Pernod bat eskatu eta **segurantz**iarekin edan ere zuen. [Matías Mujika](#)

Txunditu egin baininduen haren adierazpenaren **segurantz**iak, besterik ez; eta horrexegatik galdetu nion: izan al zara medikuarenean? [Joxe Austin Arrieta](#)

Segurantziarik sekula ez nik emakumeekin. [Joxe Austin Arrieta](#)

Bere buruarekiko **segurantz**ia eroa duen gizon autoestimatuaren eroriera da hori, arrain hilaren eroriera da hori: arrain hila, gizon garailea bezalaxe, gorantz erortzen da.

Iñaki Segurola

Hangoak dena lapurtu eta xehatuko diguten **segurantz**ian bizi gaituk hemengook. [Txillardeggi](#)

Ez izatetik, ezinetik eta ez jakitetik, **segurantz**ia oso bat ateratzen du hitzekiko jolas ergel batek. [Iñaki Segurola](#)

Ezin dut **segurantz**iaz esan, heleniarrek hori ere egiptoarregandik ikasi zutenik. [Patziku Perurena](#)

2 (hitz elkartuetan)

Eta, gainera, katastrofe txiki edo krisi sentimentu iraunkorra hedatu denez, "elikadura-**segurantz**ia" horren bila abiatu beharko da, lehenbailehen. [Edorta Agirre](#)

Alde horretatik, oinarrizko **segurantz**ia falta bat dut; zapaltzen dugun lurra ez zait segurua iruditzen. [Berria - Euskal Herria](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

segurantzia osoz (4)

segurar izlag Segurakoa, Segurari dagokiona; Segurako biztanlea.

Martin Alustiza **segurar** pilotariak erabaki du pilotaren uztea. [Herria](#)

Urte berean, Juan Ormazabal **segurarrak** hartuko dio txanda. [Pello Zabala](#)

Joseba Auzmendi **segurarrak** badu bere palmarek txikia. [Berria - Kirola](#)

15.000 euro ordaindu beharko dizkiote demanda jarri zienari, Rafael Berasategi 53 urteko **segurarrari**. [Berria - Euskal Herria](#)

Gostaia gosta ereman du **segurarrak** eta bigarren mailean egonen da Apeztegia nafarra. [Herria](#)

Launa berdinduta egon ziren, baina orduan **segurarrak** dakien guztia atera zuen, eta tartea handituz joan zen pixkanaka. [Berria - Kirola](#)

seguraski ik segur 6.

segurasko ik seguru 15.

segurata iz *adkor* seguritate pribatuko kidea.

Kalean jasaten duten kontrol soziala ere salatu nahi izan dute: **segurata** eta kamerarik ez irakur daiteke pankarta batean. [Berria - Euskal Herria](#)

seguratu ik segurtatu.

seguridade ik seguritate.

segurik 1 *adlag* behintzat, bederen.

Nehon ez dut **segurik** aditu behin ere norbaitek holakorik egin duela! **Janbattitt Dirassar**

Baina polliki-polliki, adimendu zorrotzagoa etorri zitzaidanean, ohartu nintzen anaia ere ez zela perfektua eta batzuetan **segurik**, haren balentriak ez zirela astakeria trauskil batzuk baizik. **Daniel Landart**

Eta beste honenbeste, ulertzeko **segurik** gauza direnak. **Pello Salaburu**

Egia erran, lehen begiradan **segurik**, frango murrakutuna iduritzen zaio. **Eneko Bidegain**

Gure eremuetako istorio aberatsak zerbaiz gisaz nahi ukan ditut bildu, oroz gainetik euskaraz ez direlaketoz, orain arte **segurik**, biziki aipatuak izan eta erdaraz ere gutixko. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ondarrola ere, paperetan **segurik**, ekarria zen Arnegiko. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Eliza katolikoak bi aldiz **segurik**, 1866an eta 1917an ofizialki hilekilako harremanak kondenatu ditu. **Michel Oronoz**

Nork ezagutzen zituen irabazleak? nik **segurik**, ez. **Herria**

Eta erran dezaket, ordu arte **segurik** nolabait eskapatu nintzela. **Daniel Landart**

-Beri ona dudarik gabe, loriatua iduri duzu **segurik**. **Janbattitt Dirassar**

Hori baizik ez dute gogoan, hala iduri du **segurik**! **Janbattitt Dirassar**

Santiagorot ari den beilari bat hemen gaindi ginuen orai, itxura halakoa zuen eta estakuru hori eman dau **segurik**. **Michel Oronoz**

-Entseazen dira, **segurik**. **Menane Oxandaratz**

2 zalantzarik gabe. ik **segurki**.

Eta ez zen bizitzarik txarrena; ez onena ere, **segurik**. **Jose Angel Irigaray**

3 segur, onik.

Lehenengo jaidurak uste baino nagusigo handiagoa izaten du beti eta Dancenik egun neskatxa hori berriz ikus baleza ez nengoke **segurik**. **Jon Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ainitzen **gostuko segurik** (4); **aldean segurik** (4); **aldiz segurik** (8); **artetan segurik** (4); **aurten segurik** (3); **balin bada segurik** (4); **balinbada segurik** (4); **behin segurik** (16); **bere gostuko segurik** (3); **beren gostuko segurik** (3); **beti segurik** (3); **bi aldiz segurik** (3); **biga segurik** (3); **bospasei segurik** (4); **denetan segurik** (3)

erran dute segurik (7); **errekotruz kanpo segurik** (3); **eskualdean segurik** (4); **ez segurik** (13); **frantzian segurik** (6); **gehienak segurik** (3); **gostuko segurik** (17); **gostuko segurik aski** (3); **gure eskualdean segurik** (4); **gure gostuko segurik** (5); **hala dio segurik** (6); **hala diote segurik** (10); **hamar bat segurik** (3); **hein bat segurik** (5); **hil segurik** (7); **hiru segurik** (4); **hor segurik** (4); **hurbil segurik** (10)

iduri du segurik (5); **iduriz segurik** (20); **iparraldean segurik** (3); **irudiz segurik** (5); **itxuraz segurik** (3); **itxuren arabera segurik** (3); **jakinean segurik** (3); **lagun segurik** (8); **lekuka segurik** (15); **liburu segurik** (3); **mila segurik** (9); **ni segurik** (3); **nik segurik** (14); **nik segurik ez** (5)

orai arte segurik (5); **orako ustez segurik** (3); **orain arte segurik** (4); **oraino segurik** (6); **orainokoa segurik** (12); **parte segurik** (24); **parte segurik guharen** (3)

segurik arras (5); **segurik aski** (9); **segurik guharen faltaz** (3); **segurik hor gaindi** (4); **segurik irau** (5); **segurik izanen** (6); **segurik izanen dira** (4); **segurik oraino** (3); **segurik sobera** (3); **segurik uste** (3)

tokika segurik (3); **tokitan segurik** (4)

urte segurik (9); **urtez segurik** (5); **ustez segurik** (5); **zenbait segurik** (4); **zonbait segurik** (3); **zortzi segurik** (3)

seguritasun *iz* seguritatea.

Portuko **seguritasun** programa pikoan emana dute 2001 urteaz geroztik, erran nahi baita Okzitaniako Tolosako AZF lantegiko zaparketa baino lehenagotanik. **Herria**

seguritate (120 agerraldi, 17 liburu eta 54 artikulutan; orobat *seguridade g.er. eta sekuritate g.er.*) 1 *iz* segurtasuna.

Horri esker, P2P erabiltzaileak **seguritate** juridikoa ukanen luke, eta egile eskubideak jasotzeko aukera ukanen lukete artistek. **Berría - Harian**

Gero, urteak eta urteak bakartasunean iragan ondoan, preso kategoria berezi horiek, kondena luze eta buru beroen kategoria bereziak, elgar atxemaiten dugu **seguritate** handiko zentraletan. **Filipe Bidart**

Nik berriz tropa haren **seguritateaz** arduratzeko agindua nuen. **Edorta Jimenez**

Hala Euskal Herriatik aldentzea, **seguritate** gorenzko espeteak, erregimen militarizatuak, isolatze politikoa, nola dispersioa. **Berría - Euskal Herria**

Lehenbizikorik lan baldintzak, xantieretako **seguritatea** eta higiena. **Herria**

Seguritateak, askatasun eta justiziaren ondorio ez bada, militarismora eramaten du. **Berría - Euskal Herria**

Zaila da **seguritate** inmanentea nozitzea. **Ana Urkiza**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Klandestinitateko **seguritate** neurriak zorrotz errespetatzen zituen. Premiazkoak ziren **seguritate** neurriak zaintzearen. **Itxaro Borda**

Behar dira haatik neurri zorrotzago batzu hartu, bereziki **seguritate** mailan. **Herria**

Seguritate -kutzako zenbakia eurek emango zioten. **Edorta Jimenez**

Gau batez hortxe ireki du Enbaxadako **seguritate** -kutxa, handik zifratuen kaxa harturik gainerako dena agindu bezala egiteko. **Edorta Jimenez**

Baina ez, zu zara Elpidas, goratik hartzen nauzuna, zure mendeetako jakitate eta **seguritate** premiarekin. **Itxaro Borda**

Ingurumenaren Iso 14001 ziurtagiria ere ukana du eta azkenik, laneko osasun eta **seguritate** baldintzena, OH SAS 2001 deitzen dena. **Herria**

3 segurtasun publikoa zaintzen duen taldea edo taldeen multzoa.

Eusko Milizietan sarjentu egondako eusko bat da -sozialista bera- orain **Seguritatean** lan egiten duena. **Edorta Jimenez**

Nire ustez, **seguritatearen** buru zen, baina ez nion galdetu. **Edorta Jimenez**

Beren buruak "mugako pentsalaritzat" dauzkate, Estatuaren **seguritatearen** mugazainak direlako apika. **Joxe Azurmendi**

Eskola nazionalen aurrean **seguritatekoak** jende olatuari eutsi ezinik, kamiseta estu eta baseballeko biserez jantzita. **Unai Iturriaga**

1943ko urtarrian, Enbaxadako 'legal attaché' delakoari -hots, **seguritatekoari** -iturri onetik jaso duten isilekoa jakinarazi diote Factorykoek. **Edorta Jimenez**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eskuin aldean, gaueko txandan egondako **seguritate** guarda bat. **Iñaki Zabaleta**

Francis Bardou deitzen da, 52 urte ditu, horixe dugu Lapurdiko **seguritate** buruzagi berria. **Herria**

Baionako besten antolaketa berritua presentatu dute herriko etxean, auzapeza, suprefeta, **seguritate** eta osagarri saileko kargudunen inguruan. **Herria**

Badute haatik zer egin oraino, egiazko Bake ta **Seguritate** kontseilu batera heltzeko, 27 Estadu behar bailukete izan halako batasun baten egiteko. **Herria**

Bolikostan, ikusirik luze doala Afrikako herri hortan bakearen segurtatzeko lana, horra ONUko **seguritate** kontseiluak beste mila soldado igortzea erabaki duela lehengo sei mila kasko urdinen eta lau mila frantsesen gainera. **Herria**

Ustez Errepublikaren **Seguritate** Zerbitzuaren kontaktuak zituen Ernest Hemingwayri. **Edorta Jimenez**

Seguritate indarrak dira orain erabaki horren betetzeaz axolatu behar, erraitea ez baita aski. **Herria**

Egun batean, alabaina, Errepublikako **Seguritate** Indarrekin egin zigiten eraso. [Rafa Egiguren](#)

Tamalez, biktimaren zapatetako bat besterik ez dute salbatu **seguritate** enpresakoek. [Patxi Iturritegi](#)

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Udagaien hartan *Pilar* ontziak norentzat lan egingo zuen argitzen da; itsaso- **seguritateko** agentearentzat, hain zuzen. [Edorta Jimenez](#)

Lanean elkar harturik ari dira Estatu Batuetako Enbaxada eta Kubako Barne **Seguritatea**. [Edorta Jimenez](#)

Testuinguru honetan Estatu Batuetako Enbaxada gai da Kubako Errepublikako goi- **seguritatekoari** Hemingwayri buruzko eskutitz horretan dioena, eta besterik ere, agintzeko [Edorta Jimenez](#)

6 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Seguritate ageri horrek erakusten du zenbat bide egin den lantegi horretan lan **seguritate** baldintzen hobetzeko. [Herria](#)

7 **seguritate sozial** (9 agerraldi, 3 liburu eta 5 artikulutan) gizarte segurantzaz. ik **segurantzaz** 5.

Zure irudiz, Elpidese, gerla premiazkoa izan daiteke jana, edana, lana, **seguritate soziala**, alokazioak, langabezia-sariak eta subentzioak estatutik ausarki eskuratu arren? [Itxaro Borda](#)

Erabaki nuen [...] **Seguritate Sozialeko** nire sendagilearengana joan eta, hasieran nahikoa urduri baina solasaldia aurrera joan ahala zertxobait lasaia, aspaldiko nire egonezinaren berri hari kontatzea. [Josexo Azkona](#)

Geriza sozialeko lau erakundek, prentsarekin kafea partekatuz markatu nahi izan dute **seguritate sozialaren** hirurogeigarren urtemuga Baionan. [Herria](#)

Berdin gertatuko da **seguritate sozialarenarekin** : ordain dezakeenak baizik ez du berea salbatuko. [Berria - Kultura](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

seguritate neurri (5); **seguritate neurriak** (6); **seguritate sozialaren** (5)

seguritateburu (*corpusean seguritate buru soilik*) iz seguratasunburua.

Lapurdiko **seguritate buru** berria. [Herria](#)

Nire ustez, seguritatearen buru zen, baina ez nion galdetu, **seguritate burutzat** jo dugunari ezin egin dakioken galdera bakarra horixe baita, ea zein den bere kargua.

[Edorta Jimenez](#)

segurki (*orobat sekurki g.er.*) *adlag* zalantzarik gabe; segurantzaz. ik **ziur**.

Segurki jakin ahal izateko Jainkoa bat dela. [Xabier Kintana](#)

Bada, **segurki**, zer erran aste honetan kirolei buruz, zer nahi iragan baita mundu guzian. [Herria](#)

Eta baditugu, **segurki**, idazle onak. [Menane Oxandabaratx](#)

Hobe, **segurki**, harentzat. [Eneko Bidegain](#)

Nagusiak berehala baietz **segurki**, dirua fornituko zuela. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

-**Segurki** baietz lan bat manatu zenidala! [Janbattitt Dirassar](#)

Ene ahizpa duk Elixabet eta maite diat **segurki** baina ez diagu jite bera. [Janbattitt Dirassar](#)

Jakinez **segurki**, zenbat eta Jainkoaren laguntza jarraikiago izan ariman, hainbat eta zoriontsuago izanen garela bakoitza gure bizian. [Piarres Xarriton](#)

Xaxik emazte plantakoa eta zintzoa irudi zuen, jeloskor errea **segurki**, sanao hartatik. [Itxaro Borda](#)

Donostiako prentsak, hitz batez, ez zuen **segurki** egia osoa esaten. [Txillardegi](#)

Zibilizazioak aurkituko du **segurki** erremedioa, baina bilatu egin beharko du. [Koldo Izagirre](#)

Benta ez zen nehoren lurretan ezen nehork ez zezakeen erran **segurki** frantses lurretan edo espainol lurretan zen. [Elena Touyarou](#)

Bihar jinen da **segurki**, hura adiskide ona baita, eta otoiztuko diot nire gutuna berehala eman diezazun. [Jon Muñoz](#)

Zenbait ehun preso bide ginen animaleko presondegi hartan, eta urruntxago emazteak, ez baitzeuden **segurki** isilik. [Marzel Etxehandi](#)

Zenbat eta zenbat miliun sartu dituzte beren moltsan ez dugu sekulan **segurki** jakinen. [Herria](#)

Belaun perfektu bat, **segurki**. [Piarres Aintziart](#)

Pollitak gara bai, **segurki**! [Daniel Landart](#)

Ez, **segurki**! [Antton Olano](#)

segurkiro *adlag* segurantzaz.

Orduan, gatuak **segurkiro** mihiperatzten zitzaizkion: jatekoa, garbitasuna, sega zahia, ura, artak eta milaka balakak [Itxaro Borda](#)

segurkita ere (*orobat segurkitare*) *adlag* segurki.

Gai horrek badu **segurkita**-ere aipamen denbora hautan. [Herria](#)

Beti bezala 11etan, lehen errepika eginen da Lacarre plazan, eta **segurkitare** ez da errepikatzeko kantu eskasik, ikusiz zenbat kantu berri sartu diren programan azkenaldi hautan, ondotik Merkaturako galeriak airostek. [Herria](#)

segurkitare ik **segurkita ere**.

seguro ik **seguru**.

segurtaezin *izond* ezin segurtatuzkoa.

Ados nago gizakia jainkozko gai zinez iraunkorretatik aldentzean eta aldakor eta **segurtaezinetara** bihurtzean gertatzen direla bekatu guztiak. [Imanol Unzuurrungaga](#)

segurtagailu 1 *iz* armetan-eta segurtasun gailua.

Pistolari **segurtagailua** kendu eta, kontu handiz, burua atera nuen. [Alberto Ladrón Arana](#)

Hirilau izango ziren, erdaraz egiten zuten eta urduri zeuden, armen **segurtagailuen** soinua entzuten baitzuen gure aitak belarpetik. [Joseba Sarrionandia](#)

2 irud/hed

Limes-aren bat-bateko kolapsoak **segurtagailu** hori desagertarazten duenean, diziplina desagertu egiten da eta aldi berean berarentzat zailegiak diren zereginak betetzea eskatzen zaio. **Iñaki Mendiguren**

segurtagarri *izond* segurtatzen duena.

Errebite horiek ere hartu dute, arin aldi **segurtagarria**. **Herria**

segurtageri ik segurtagiri.

segurtagiri *(corpusean segurtageri soilik) iz* segurtasun agiria.

Ipar Euskal Herriko 46 elkarte, komertsio eta lantegiri eskainia izan zaie "Bai Euskarari" **segurtageria**, euskararen alde hartu eta hemendik aintzina oraino hartuko dituzten engaia menduen sari gisa. **Herria**

Ikas zentroa, "Guk zerbitzua euskaraz" **segurtageria** ardietsi duena. **Herria**

segurtamen 1 *iz* zalantzarik ez duenaren, oker egoteko inolako beldurrik ez duenaren gogo egoera. iksegurantza 3.

Segurtamen gabeko jendea idekia dateke, duda ez da traba, atea baizik. **Piarres Aintziart**

Haren mintzoak salatzen zuen zer **segurtamen** eskasa zuen erraten ari zenaz. **Aingeru Epaltza**

Segurtamen osoa zuen ezen bere lastana munduan zenik eta gazterik pertxentena zela, eta ez zuen horren zalantza izpirik. **Patxi Zubizarreta**

Beti ukanen ote dugu **segurtamen** osoa "bio" ekarria dena errealki halakoa dela? **Herria**

Ez zezakeen **segurtamen** osoz erran sartu ziren haiek berak ote ziren, baina itxura guziak bazituen. **Eneko Bidegain**

Zer zela eta **segurtamen** irmo hura? **Patxi Zubizarreta**

Gizonak larritik ordaindu beharko zuen bere **segurtamen** lotsagabea. **Patxi Zubizarreta**

2 segurantza.

Goxoan ziren bata bestearekin, inguruan janari eskasa eta **segurtamen** eza sentiturik ere, eta hortaz poztu zen. **Elena Touyarou**

Ez zaitu gehiago izitzen, baina ezin erranezko **segurtamen**, atsegin batez betetzen zaitu. **Michel Oronoz**

Zu, pobre buru-ahul gisa begiratzen zaituzte, salbu neurekin zabiltzanean, bikoteak **segurtamen** soziala ekarriko bailuan! **Itxaro Borda**

Segurtamen hori gabe, ez direla berriz lanean hasiko mehatxatu zuten. **Berria - Ekonomia**

3 (hitz elkartuetan)

Neskak [...] galdeak, dudak, **segurtamen** izpiak, erantzunak, hipotesiak eta anitzetan ondorio hutsalak zizelkatzeko gai zen alimaleko irrati bat zeraman kolkoan, ahots etengabe bat, lotarako bakarrik isiltzen zen murduka zurrin bat, menturaz ametsetarik eleka ari zitzaiona. **Itxaro Borda**

Erne egon baitira haatik hango **segurtamen** zaintzaleak. **Herria**

Auto eta kamiun bonbadunen alderako beldurra dute manera berezi batez salatu hango **segurtamen** zerbitzuek. **Herria**

ONU ko Nazioenean **Segurtamen** Kontseiluak agurtu ditu holako urratsak bake jestu bezala, hala-nola Pretoriako akordioek galdegina zuten bezala. **Herria**

segurtarazi, segurtaraz, segurtarazten du *ad* segurtatzera behartu.

SIVU egitura berezi bat ere muntarazten du Garaziko 23 herri eta Baigorrialdeko 4 herriren artean, egitura hunen bidez botere publikoen ganikako finantzamendu bat **segurtarazi** nahian. **Herria**

Herri bihotzean dagon Etxegarara etxea, herriak erosi ondoan, hiru bizitegi eder eginik baititu hemen berean; CUMA laborarien batasunari, Aterbe handi bat tresnen aterbetzat **segurtaraziz**. **Herria**

segurtasun *(4776 agerraldi, 173 liburu eta 2167 artikulutan) 1 iz* arriskurik gabekoa denaren nolakosatuna. ik segurantza.

Zelula guztiak itsasoarekin kontaktuan dauden bitartean, segurtaturik daude oxigenoa eta elikagaia [...] baina **segurtasun** horrengatik ordaintzen den prezioa zera da: garapen biologiko oso mugatua izatea. **Irene Aldasoro**

Hiritarren **segurtasunaren** eta askatasunaren aurkako delituak dira, beraz, delituri handienetakoak. **Juan Martin Elexpuru**

Errusiar lurraldearen **segurtasuna** eta batasuna lehen-lehehik. **Karlos Zabala**

Itoitzen bezala, **segurtasunaren** afera bilakatu da urtegia handitzeko asmoen kontrakoen arma nagusi. **Eduarne Elizondo**

Segurtasuna da edozein kontraepizio metodok izan behar duen ezaugarri behinena. **Luis Elberdin**

Edozein urtegiaren edo errepidaren **segurtasunak** kezkatzen nau. **Eduarne Elizondo**

Urtegiaren **segurtasunik** eza, alegia. **Eduarne Elizondo**

Norberaren bizitzaren **segurtasuna** berezko eskubidea da, eta ondasunen **segurtasuna** gizarte-eskubidea. **Juan Martin Elexpuru**

Esana dugu lehen ere, **segurtasunak** behartzen gaituela neurriok hartzera. **Koldo Izagirre**

Segurtasunaren arduradunak eserarazi egin ninduen, eta galdetu zidan bat-batean: [...]. **Juan Kruz Igerabide**

Halako batean atea zabalduz joan zen, baina **segurtasunezko** kateak dena eman arte soilik. **Migel Angel Mintegi**

Guztion **segurtasunerako**, arren eskatzen da ordutegi hauek betetzeko. **Josu Zabaleta**

Segurtasuneko ofizial batek paperak eskatu zizkidan. **Juan Kruz Igerabide**

ik beherago 10. **Askoren artean**

Segurtasuneko agenteek biraogileztat zeukaten. **Josu Zabaleta**

Abeslariaren aginduen kontra **segurtasuneko** kideek taula ondora hurbiltzera baimendutako ikusle hautatuak gonbidatu zituen taula gainera igotzera. **Berria - Kultura**

Segurtasuneko zaindarien artean eraman behar izan zuten erditze-gelara. **Aingeru Epaltza**

Auzi honez Washingtonekin hitz egiteko prest dela jakinarazi zuen atzo Irango **segurtasuneko** kontseilu goreneko idazkari Ali Larijanik. **Berria - Mundua**

Ez dugu uste gaitza duenik», azaldu zuten Elikagaien Kateko **Segurtasuneko** Agentziako adituek. **Berria - Gaiak**

Gastu militarra eta **segurtasuneko** neurriz kanpo handitu baitute. **Berria - Ekonomia**

Bigarren hitzordu horri **segurtasuneko** deitzen zenioten. **Rafa Egiguren**

2 (aditzen objektu gisa)

Zaldien lokarriak bikoiztu, eta, **segurtasuna** handiagotu nahian, gurpil abatzen motelgailuak lastoz bete zituzten. Gizonak fuertea delako irudia eman du beti, bikotearen euskarriarena egin du, bikote harremanean aurea hartzen duena, **segurtasuna** ematen duena. **Karlos Zabala**

Pistolaren pisuak ematen duen **segurtasunak** lagunduta. **Rafa Egiguren**

Gizon bakoizta armatu zuten, baina babeskiak eta lantzak ematen duten **segurtasunaz** baino gehiago hitz jotzeko erabiltzen zuten. **Elizen arteko biblia**
Aldizkariako lanak **segurtasuna** eskaintzen zion, zioriontsua zela zioen. **Koro Navarro**
Segurtasuna ekarri zuela pentsatu zuen, arriskua desagerrarazi zuela. **Anton Garikano**
Lasaitasuna eta **segurtasuna** transmititu behar genituela. **Jon Alonso**
Boteredunen pozbidetza eta **segurtasuna** galdurik, zoritzarrez eta mehatxu guztiez inguratutako bizitza baten jabe izatera igaro nintzen oso egun gutxiaren buruan. **Anjel Lertxundi**
Herrialde demokratikoei Euzkadiaren independentzia behartuz gero, euskaldunok Frantziaren hegoaldeko mugaren zati baten **segurtasuna** bermatuko genuke. **Alberto Ladrón Arana**
Gero, jendearen **segurtasuna** ziurtatzeko adina karabinero daudenean, prozesioa egin. **Koldo Biguri**
Hartara, euren **segurtasuna** ezbaian jartzen dute tarteko diren esanezko zein ezkutuko egiune batzuek. **Andres Urrutia**

3 (izenondoekin)

Ez dago gizon argiturik, **segurtasun** komunaren hitzarmen ageriko, argi eta egokiak maite ez dituenik. **Juan Martin Elexpuru**
Segurtasun pribatu, mutualitate eta familia laguntzeko tresna pribatuak ahalik eta gehien garatu. **Iñaki Heras**
Beste [delitu] batzuek hiritar baten bizitzako **segurtasun** pribatua iraintzen dute, bere ondasun edo ohorean. **Juan Martin Elexpuru**
Segurtasun publikoaren aurkako atentatuak luxuzko objektu ziren. **Juan Martin Elexpuru**
Kode Zibilean ditugu garai honetako lege euskarri nagusiak eta oinarri gorenak, **segurtasun** juridiko delakoaren adierazmolderik bikainenak. **Andres Urrutia**
Nazioarteko diru-erregimen egonkorra, **segurtasun** kolektiboko sistema. **Koro Navarro**
Izatekotan ere, **segurtasun** burges baten asperdura janzen da halako ekimen-itxura batez, hartarako dohain aparta dugu gizakiok. **Anjel Lertxundi**
Segurtasun handieneko presondegiko patioan azaldu zinenen. **Koldo Izagirre**
Peter Laing, zientzia alorreko **Segurtasun** Nazionalako Kontseilaria. **Fernando Morillo**
Mehatxuka ere jardun zaizu **Segurtasun** Nagusiko Zuzendaritzara eramango zaituela. **Rafa Eiguren**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bigarrena pertsona dagokiela)

Apartamentu higuigarri haietan bera eta bere segizioa bakar-tuta edukitzen zituen **segurtasun**-poliziak. **Iñaki Mendiguren**
Konfiantza-itxura bikainez gidatu zuen Templek autoa atetik barnerantz, **segurtasun**-guardiarekin diosal-keinu txeratsu bat trukatu. Enkargaturik ez zen izaten inguruotan, Perrito esaten genion **segurtasun** zaindari bat baino ez. **Xabier Olarra**
Atera bidean, **segurtasun** zainzaile erraldoi bat hurakan baten pare igaro da gure alboetik. **Patxi Zubizarreta**
Zera erantsi zion **segurtasun**-arduradunak: [...]. **Josetxo Azkona**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bigarrena gauzei dagokiela)

Segurtasun-txartela kendu didate. **Fernando Morillo**
Nork askatu zuen nire **segurtasun**-uhala? **Anjel Lertxundi**
-Banku batean, **segurtasun**-kutxa batean, esaterako. **Migel Angel Mintegi**
Baina hori ez da dena, **segurtasun** kutzak ere garbitu ditu. **Xabier Olarra**
Ateburuetako **segurtasun**-argien helmenean ez zen aretoko bazter guztietarainokoa. **Anjel Lertxundi**
Eustorma fisiko baten egitura, ingeniariak **segurtasun**-balbulak jartzen ditu, uhateak alegia, egoerak eskatzen duenaren arabera zabaldu edo itxi egiten direnak, eta **segurtasun**-gailu hori limes militar baten ingeniari politikoei ez zaie oharkabean pasatzen, ikusiko dugun bezala. **Iñaki Mendiguren**
Segurtasun-hesia irekitzen du, gero atea, eta barrura sartzeko gonbita egiten dio neskeri. **Oskar Arana**
Barrak jarri beharko lituzkete, **segurtasun**-ateak, hesi bat inguru guztian. **Oskar Arana**
Eskuizkribua giltzapean gordeta dago Citibank bankuaren **segurtasun**-ganbera batean. **Oskar Arana**
Jantzi, hall-etik **segurtasun** gelara joan, eta Tomen kutxa zabaltzean [...] pistola bat topatu nuen! **Patxi Zubizarreta**
Zorionez, **segurtasun**-pisia ez zegoen hain urrun, eta hara abiatu nintzen. **Iban Zaldua**
-Gazte gaizkile zentzagaitzentzako San Brutus **segurtasun**-zentroa! -oihu egin zion osaba Vernonek. **Iñaki Mendiguren**
Lantegi nuklear bat lehertzeko zorian gelditu zela, **segurtasun** mekanismo guztiek huts egin ondoren. **Pello Salaburu**

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bigarrena bestelakoei dagokiela)

Segurtasun-kontua da. **Iñaki Mendiguren**
Era horretan, oinarrizko **segurtasun**-arau guztiak urratu zenituen. **Josetxo Azkona**
Txosten hartan Itoizko urtegiak inolako **segurtasun** bermerik ez zuela azpimarratu zuen Rebollok. **Eduarne Elizondo**
Tarte hori gure "**segurtasun** distantzia" zen. **Aingeru Epaltza**
Badu hezurra helburu praktikotarako egoki den **segurtasun**-tarte bat. **Irene Aldasoro**
Paolak esaten zuen Tersillak **segurtasun**-sentsazioa ematen ziola. **Fernando Rey**
Plastikozko manpara horrek gainera, ez du batere **segurtasun** sentsaziorik ematen. **Harkaitz Cano**
Bularra ez da elikagai iturri bakarrik; maitasun, berotasun, babes eta **segurtasun** iturri ere bada. **Luis Elberdin**
Finean, **segurtasun** arazoak ukatzen dituztenek euren burua engainatzen dute. **Eduarne Elizondo**
Horregatik komeni zaigu dauden kontrazepzio metodoen **segurtasun** neurria zenbatekoa den jakitea. **Luis Elberdin**
Jaiotzen garen unetik bertatik musua maitasun, onarpen eta **segurtasun** adierazpena da. **Luis Elberdin**
Segurtasun protokoloa jarraitu behar zuela ohartu zen Ramírez kapitaina. **Fernando Morillo**

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hiri **Segurtasuneko** eta Osasun sailletako teknikariek iazko abenduaren 17an ikuskatu zuten *La Posada de los Abrazos* ostautua. **Berria - Euskal Herria**
Ahalegina egin zuen giza **segurtasunari** eta giza garapenari lehentasuna emateko merkatu globalen eskakizunen gainetik. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**
Merkatu esferak irentsi egin du esfera politikoa, horren garapena eta berezko eginkizuna oztopatuz, eta giza zein ekologi **segurtasuna** merkatu globalen funtzionamenduaren mende jarri. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

8 duda-mudarik gabekoa denaren nolakotasuna. ik **segurantz** 2.

Ordu erdi geroago bulegotik atera nintzen, ikur txuri distiratsua ezker besoko mahukan eta nire izena jadanik sarean dantzan zebilelako **segurtasuna** nuela. **Iban Zaldua**
Bai, baliteke; nik behintzat ez daukat kontrako **segurtasunik**. **Josu Zabaleta**
Dakigunaren **segurtasuna** eta ziurtasuna ematen digu. **Imanol Unzurrunzaga**
Jainkoa, gizakiaren patua, gaitza eta askatasuna eta hainbat horrelako gai jorratzen zituen eszeptizismo apur batez, horiei buruzko egiaren **segurtasunik** gabe. **Imanol Unzurrunzaga**
Ez zuen oraindik gerokoei ihes egingo zien erabateko **segurtasunik**. **Askoren artean**
Segurtasunik gabeko geldokote herren bat iruditzen zitzaidan aita. **Anjel Lertxundi**
Segurtasunik handienaz esan zion ilunabar aparta zela hura. **Anton Garikano**
Segurtasun osoz oihu egin dezaket ezetz. **Aingeru Epaltza**
Segurtasun osoz zekien hori. **Joxemari Iturralde**
Honako hau segurtatzen dizugu, irakurle, berezko egiak segurtatzen diren **segurtasun** erabatekoak: [...]. **Joxerra Garzia**
Segurtasuna dario alde guztietatik, eta umorea, eta borondate ona. **Oskar Arana**
Segurtasunez dakigun ia gauza bakarra. **Julen Gabiria**

Ezin nuen orduan **segurtasunez** baieztatu, baina apustu egiteko prest nengoen. **Joxemari Iturralde**
Serio-serio mintzo zen, begi-bistako egiak botatzen ari denaren **segurtasunaz**. **Aingeru Epaltza**
Fedea, itxaroten dena lortzeko **segurtasuna** da, ikusten ez diren gauzez komentzitua egotea. **Elizen arteko biblia**
Zeren zerbitzu hau ongi betetzen dutenek ohorezko maila berenganatzen baitute, eta Kristo Jesusengan dugun sinesmenak **segurtasunez** betetzen ditu. **Elizen arteko biblia**
-Ez, ez, inondik ere -erantzun zion berehala Raukinak **segurtasun** handiz. **Joxemari Iturralde**
Inor nire zain ez zegoelako nolabaiteko **segurtasuna** bildu ahal izan nuelarik, pistolari sakela barnean gogor helduta, ostatura sartu nintzen. **Alberto Ladrón Arana**

9 (hitz elkartuetan)

Orduan zalantza nagusitu zitzaion eta sentitu zuen **segurtasun** falta handi batek ez ziola uzten eskua izen hartaraino inguratzen. **Joxemari Iturralde**
-Zerbaitek argia amatur du -esan zuen, **segurtasun** falta apur batekin. **Julen Gabiria**

10 segurtasuneko iz segurtasun talde bateko kidea.

Segurtasunekoek bazekiten anaia erresistentzia kurduaren irratiko esataria zela. **Juan Kruz Igerabide**
Hiru minutu-edo egin zituzten protestagileek zelaian, **segurtasunekoak** etorri eta zelaitik atera zituzten arte. **Berria - Euskal Herria**
Segurtasunekoek jeep batera igo nintzen; okerrera espero nuen. **Juan Kruz Igerabide**

11 Segurtasun Kontseilu (574 agerraldi, 2 liburu eta 248 artikulutan)

Nazio Batuetako **Segurtasun Kontseiluak** zigorra ezarriko dion beldur. **Berria - Ekonomia**
Europako Batasunari, G-8ko estatuei eta Nazio Batuen Erakundearen **Segurtasun Kontseiluari** gidarizta eza leporatu diete. **Berria - Gaiak**
Nazio Batuen Erakundearen **segurtasun kontseiluari**, eta baita Mendebaldeko Saharako mandatarari berezi James Bakerrri. **Berria - Euskal Herria**
Iranek dio auzia **Segurtasun Kontseilura** eramatea huts historikoa litzatekeela. **Berria - Harian**
NBEko **Segurtasun Kontseiluan** bi ordezkari nahi ditu. **Berria - Harian**
NBEan enbaxadore zelarik, Madeleine Albright-ek aitortza zintzo askoa egin zuen: **Segurtasun Kontseiluko** seigarren kide iraunkorra CNN da. nazio guztiek baldin badute ere Nazio Batuetan sartzeko eskubidea, zenbat eser daitezke erakunde horren **Segurtasun Kontseiluko** mahaiaren aulkietan? **Txema Ramirez de la Piscina**
- Arabako Biltzar Nagusiei eskatu die Espainiako **Segurtasun Kontseiluari** Garoñako zentral nuklearra itxi dezaten eskatzeko. **Berria - Euskal Herria**

12 segurtasun sozial (8 agerraldi, 2 liburu eta 2 artikulutan) gizarte segurantzaren ik segurantzaren 5.

-Eta Estatu Batuetan lan egiteko **segurtasun** sozialaren txartel berdea behar da izan. **Iñaki Zabaleta**
Handik aurrera, antizikloia eguzkiarekin lotuko zuen aitak, eguzkia azaleko minbiziarekin, minbizia **segurtasun** sozialarekin. **Joan Mari Irigoien**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

abetako segurtasun (20); agindupeko segurtasun (6); aginte nazionaleko segurtasun (8); arabiako segurtasun (10); arabiako segurtasun indarrek (5); askatasun eta segurtasun (6); auzia segurtasun kontseilura (21); barne segurtasun (14)

egungo segurtasun (6); erakundearen segurtasun (17); erakundeko segurtasun (94); erakundeko segurtasun kontseiluak (25); erakundeko segurtasun kontseiluan (11); erakundeko segurtasun kontseiluaren (11); erakundeko segurtasun kontseiluari (18); erakundeko segurtasun kontseiluko (9); erakundeko segurtasun kontseilura (11); erresuma batuko segurtasun (5); erusiako segurtasun (27); erusiako segurtasun indarrek (5); espainiako segurtasun (41); espainiako segurtasun indarrek (14); espainiako segurtasun indarren (5); espainiako segurtasun nuklearrerako (10); estatu batuetako segurtasun (5); estatuko segurtasun (30); estatuko segurtasun indarrek (10); etxe zuriko segurtasun (7); europako segurtasun (40); ezarritako segurtasun (7); gazako segurtasun (9); gazako segurtasun arduradun (5); gobernuaren agindupeko segurtasun (5); gobernuaren segurtasun (13); gobernuko segurtasun (8); gure segurtasun (8)

irakeko gobernuaren segurtasun (6); irakeko segurtasun (78); irakeko segurtasun indarrak (14); irakeko segurtasun indarrek (21); irakeko segurtasun indarren (15); irakeko segurtasun indarretako (11); irango segurtasun (8); israalgo segurtasun (24); israalgo segurtasun indarrek (10); laneko segurtasun (9); langraizko segurtasun (7); langraizko segurtasun buru (5); marokoko segurtasun (13); marokoko segurtasun indarrek (9); nazio batuen segurtasun (5); nazionaleko segurtasun (8); nbeko segurtasun (113); nbeko segurtasun kontseilua (5); nbeko segurtasun kontseiluak (34); nbeko segurtasun kontseiluan (18); nbeko segurtasun kontseiluaren (9); nbeko segurtasun kontseiluari (9); nbeko segurtasun kontseiluko (19); nbeko segurtasun kontseilura (14); nberen segurtasun (43); nberen segurtasun kontseiluak (15); nberen segurtasun kontseiluan (6); nberen segurtasun kontseiluaren (6); nberen segurtasun kontseilura (7)

palestinako segurtasun (10); paneko segurtasun (23); paneko segurtasun indarren (5); politika eta segurtasun (16); polizia eta segurtasun (9); saudi arabiako segurtasun (10)

segurtasun aholkulariak (7); segurtasun arauak (8); segurtasun arazo (6); segurtasun arazoak (24); segurtasun arduradun (20); segurtasun arduraduna (9); segurtasun arduradunak (9); segurtasun arloan (9); segurtasun arloko (6); segurtasun arrazoiak (17); segurtasun arrazoiengatik (27)

segurtasun baldintzak (6); segurtasun batzordea (7); segurtasun bila (8); segurtasun buru (25); segurtasun buru ohia (9)

segurtasun egoera (21); segurtasun enpresa (14); segurtasun eremua (7); segurtasun eta kooperaziorako (33); segurtasun eta osasun (10); segurtasun eta osasunaren (5); segurtasun eza (34); segurtasun eza salatu (5); segurtasun ezak (7); segurtasun ezaren (6)

segurtasun falta (27); segurtasun fisiko eta (5)

segurtasun handia (6); segurtasun handiagoo (8); segurtasun handiagoo (8); segurtasun handiko (16)

segurtasun idazkari (6); segurtasun indar (43); segurtasun indarrak (93); segurtasun indarrak trebatzeko (5); segurtasun indarrei (39); segurtasun indarrek (213); segurtasun indarrek egindako (7); segurtasun indarrekin (11); segurtasun indarrekin izandako (7); segurtasun indarren (140); segurtasun indarren arabera (5); segurtasun indarren artean (8); segurtasun indarren arteko (10); segurtasun indarren aurkako (10); segurtasun indarren kontrako (5); segurtasun indarren lana (5); segurtasun indarretako (71); segurtasun indarretako kide (9); segurtasun indarretako kideak (9); segurtasun indarretan (10)

segurtasun juridikoa (10)

segurtasun komunerako (11); segurtasun kontseilu (8); segurtasun kontseilua (30); segurtasun kontseiluak (157); segurtasun kontseiluak onartutako (5); segurtasun kontseiluan (61); segurtasun kontseiluaren (71); segurtasun kontseiluaren ebazpen (5); segurtasun kontseiluaren ebazpena (6); segurtasun kontseiluaren esku (14); segurtasun kontseiluari (62); segurtasun kontseiluko (99); segurtasun kontseiluko kideak (41); segurtasun kontseiluko kideak (5); segurtasun kontseiluko kideek (7); segurtasun kontseilura (81); segurtasun kontseilura eraman (7); segurtasun kontseilura eramango (5); segurtasun kontseilura eramatea (17); segurtasun kontseilura eramateak (5); segurtasun kontseilura eramateko (7); segurtasun kontseilura iristea (5); segurtasun kontseilura joko (7)

segurtasun maila (8); segurtasun ministro (11)

segurtasun nazionala (8); segurtasun nazionaleko (33); segurtasun nazionaleko kontseilari (6); segurtasun nazionalerako (56); segurtasun nazionalerako aholkulari (13); segurtasun neurri (128); segurtasun neurri bereziak (11); segurtasun neurri eskasak (5); segurtasun neurri gisa (7); segurtasun neurri guztiak (12); segurtasun neurri handiak (8); segurtasun neurri handien (8); segurtasun neurri zorrotzagoak (6); segurtasun neurri zorrotzak (15); segurtasun neurriak (177); segurtasun neurriak areagotu (12); segurtasun neurriak betetzen (6); segurtasun neurriak hartu (8); segurtasun neurriak indartzeko (5); segurtasun neurriak zorrotzu (12); segurtasun neurriek (6); segurtasun neurrien (11); segurtasun neurririk (13); segurtasun nuklearrerako (12); segurtasun nuklearrerako kontseiluak (5)

segurtasun osoa (10); segurtasun osoz (20)

segurtasun plana (7)

segurtasun sistema (17); segurtasun sistemak (6)

segurtasun uhala (10)

segurtasun zaintzaile (6); segurtasun zerbitzu (7); segurtasun zerbitzuek (18); segurtasun zerbitzuen (10); segurtasun zerbitzueta (8)

bakea eta segurtasuna (13); bere segurtasuna (6); egonkortasuna eta segurtasuna (6); errepideetako segurtasuna (7); euren segurtasuna (7); gure segurtasuna (9); herritarren segurtasuna (7); herritarren segurtasuna (14); lan segurtasuna (6); langileen segurtasuna (10); pertsonen segurtasuna (7)

segurtasuna arriskuan (20); segurtasuna arriskuan jartzen (5); segurtasuna bermatu (24); segurtasuna bermatu ahal (5); segurtasuna bermatuko (14); segurtasuna bermatzea (38); segurtasuna bermatzeko (96); segurtasuna bermatzeko eskatu (6); segurtasuna bermatzen (22); segurtasuna ematen (18); segurtasuna eta bakea (5); segurtasuna eta egonkortasuna (10); segurtasuna hobetzeko (16); segurtasuna izan (6); segurtasuna izango (6); segurtasuna kolokan (8); segurtasuna lortzeko (6); segurtasuna ziurtatzeko (8)

lan segurtasunaren (8); laneko segurtasunaren (9); segurtasunaren alde (10); segurtasunaren ardura (7); segurtasunaren auzia (7); segurtasunaren eta osasunaren (8); segurtasunaren inguruko (19); segurtasunaren izenean (13)

segurtasunari buruzko (39); segurtasunari buruzko txostena (5); urtegiaren segurtasunari (9)

segurtasunaz arduratzen (6)

barne segurtasunerako (6); espainiako segurtasunerako (10); politika eta segurtasunerako (29); segurtasunerako estatu idazkari (14); segurtasunerako estatu idazkariak (5); segurtasunerako goi arduradun (7); segurtasunerako goi komisario (19)

segurtasunik eza (14); segurtasunik gabe (14)

segurtasunburu (orobat segurtasun buru) iz segurtasunaren buru dena.

Arafatek Al Majaide ezarri du berriro ere PANeko **segurtasunburu**; gainera, segurtasun indarrak hirura murriztu ditu. **Berria - Mundua**

Omar 'mula' buruzagi talibanaren **segurtasun burua** atxilotu dute. **Berria - Mundua**

Segurtasun buru batek zabaldu zuen M-11ko lehergaia Titadyne zela. **Berria - Mundua**

Hartu nuen, eta zortzi-zortzietan iritsi nintzen elkartu behar genuen puntura, **segurtasun-buru** arratsaldero edatera joaten zen jatearean aurrera. **Juan Kruz Igerabide**

Aurrera egingo du bihar Mariano Merino Langraizko (Araba) espetxeko **segurtasun buru** ohiaren kontra abiatutako auziak, ustezko sexu jazarpenengatik. **Berria - Harian**

segurtate iz segurtasuna.

Segurtate bat... edo zuretzat berdin da, sosik gabe ere jendea bizitzen ahal da? **Menane Oxandabaratz**

segurtatu, segurta, segurtatzen (1183 agerraldi, 78 liburu eta 579 artikulutan; orobat seguratu 25 agerraldi, 7 liburutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian segurtatu agertzen da) 1 du ad zerbaiten segurtamena eman.

Liburua hamaika aldiz miatu, arakatu, aztertu eta berraztertu ondoren, honako hau **segurtatzen** dizugu, irakurle, berezko egiak **segurtatzen** diren segurtasun erabatekoaz: [...]. **Joxerra Garzia**

"Bai", **segurtatu** zion William Bankesi, "denontzat dago aski". **Anton Garikano**

Erdalduna dela, bai; "baina oso pertsona prestua" dela **segurtatu** dit. **Txillardegia**

Michel Goyenetche Ligako burulehenak **segurtatu** dauku garbiki "afera martxan dela eta martxa onean". **Herria**

Konpainiakok deitu eta **segurtatu** zidaten Evora egun bi geroago helduko zela. **Xabier Montoia**

Bidarteko herriak zorbait egunentzat aloimendua **segurtatu** diote hor bizi zireneri... **Herria**

Lantokitik zuzenean etorriko zela **segurtatu** bazidan ere, bistan zen lehenago etxea izana zuela geltoki. **Aingeru Epaltza**

-Gauzak hobetzen direnean, bila etorriko natzaizue - **segurtatu** zion Xanek andrearri, agur erratean-. **Elena Touyarou**

"El Eco de Navarra" egunkaria urrunago doa eta **segurtatzen** du gobernadorea entseatuko dela teileri baten sortzen inguruan. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Neure baietza areago **segurtatu** nion. **Jon Muñoz**

Deusik ez zuela **segurtatu** zion Mikelek. **Ramuntxo Etxeberri**

2 zerbait edo norbait seguru jartzea edo arriskuetaatik libre uztea lortu.

Joan ziren, bada, eta hilobia **segurtatu** zuten, harria zigitatuz eta guardia ipiniz. **Elizen arteko biblia**

Sareak, gainera, egurrezko ate bat edukiko du, burdinazko bi sarraila ezberdinekin, eta euskarriz eta morroiloiz oso ondo **segurtatua**. **Askoren artean**

Korapilo sendo batez **segurtatua**. **Koro Navarro**

Inguruko etsaiak mendean hartu eta Nafarroako mugak ondo **segurtatu** ondoren, [...]. **Martin Anso**

Honek asko maite baitu Ines eta bizibide materiala **segurtatu** nahi baitio ondasunen bidez. **Askoren artean**

Euskarari behar zaiola legez **segurtatu** hartze duen tokia. **Herria**

Enpresa amak **segurtatzen** du, IG jarduerak zentralizatuz, ekoizpenaren mundu mailako koordinazioa. **Koro Navarro**

Udazkenean, gobernuak ez zuen gizarte-babesean atzera egiteko dudarik izan, merkatuak **segurtatu** eta Maastrichteko helburuei atxikitzearen. **Koro Navarro**

Aldi huntan, gehiengoak behar lukeela **segurtatu**. **Herria**

Bi erdiak billete berarekin zirela **segurtatu** ondoan, gela tipiko atea doi bat pasatu zuten. **Eneko Bidegain**

Tokia **segurtatu** nuen gauaz dabilzan tren horietarik batean, etzateko lekua ere ba. **Janbattitt Dirassar**

Sailekapenean laugarren tokia **segurtatu** du, honenbestez Top 16-eko finalerdietan ariko baitira sasoi ondar honetan. **Herria**

Lana **segurtatua** izango dute. **Berria - Euskal Herria**

Bazkaria 15 eurotan da eta animazioa **segurtatua** da. **Herria**

Segurtatu onbidean zeure zerbitzari hau, ez nazaten harroputzek zapal. **Elizen arteko biblia**

-Urrundu dela **segurtatzea** hobe ginuke! **Michel Oronoz**

• 3 da/du ad zerbaiten segurtamena lortu.

Segurtatu nintzen etxe horretan ez zedin izan adinagatik edo gorpuzkeragatik nire ekintza susmagarria bihur zezakeen ezein neskatila edo emakumerik. **Jon Muñoz**

Bere bizia **segurtatu** nahi duenak galdu egingo du; galtzen duenak, berriz, onik aterako du. **Elizen arteko biblia**

4 (era burutua izenondo gisa)

Zorraren zerbitzu **segurtatuaren** erdia baino gehiago Munduko Bankuari eta NDFri egindako ordainketei dagokie. Orduan bururatu zitzaion ni berarekin sar nintekeela bonbilla salmentan, etorkizun **segurtatua** izanen nukeela. **Koro Navarro**

Urketa eta Milafangako herriek obrak abiatuak dituzte [...] beren posta bulegoak leku berri eta **segurtatu** emaiteko. **Herria**

"Hastamaska soilik" ibiltzetik "zientziaren ibilera segurura" doan igarobide gisa ulertzen du, aurretik marraztutako egitasmoaren eta metodo **segurtatuaren** araberako igarobide gisa. **Ibon Uribarri**

segurtatzaile izond segurtatzen duena.

Gainera armak, norberaren biziaren **segurtatzailea** eta etsaiaren kalitzaileak, nola erabiltzen eta artatzen ziren irakasten zieten. **Itxaro Borda**

Horiek izanen baitira harko bakearen **segurtatzaile**, partikularzki erakusten baitzaioe zer gauza behar gabekoa den gerla. **Herria**

Xarlesen gustuko metro edo postako ofizio horiek bizi **segurtatzaileak** izan arren, ez ziren aski emankorrak. **Itxaro Borda**

segurtatze iz zerbaiten segurtamena lortzea.

Apurkinen pean harrapatuta ustez geratzen ziren lau lagunene bilaketarako ahaleginak berriro hastekoak ziren, haatik, **segurtatze** lanak egin ostean. **Berria - Mundua**

Falujan burutzen ari garen **segurtatze** operazioak herrialde osoan izan dezakeen eraginaren arabera ebaluaketa bat egingo dugu», zehaztu zuen. **Berria - Mundua**

segurtki ik segurki.

segurtu, segur, segurtzen du ad segurtatu.

Ez da baitezpada aldaketa handirik kontseilu jeneralean, eskuindarrek gehiengo ederra **segurtua**-eta. **Herria**

Tramankulu hauek oso **seguruak** izan ohi dira. **Karlos Linazasoro**
Ocharturik kirol horietako tresnak zangoari finkatzeko moldeak ez zirela hain **seguruak**, lotgailu sistema berri bat asmatu dute. **Herria**

• 7 iz segurtasun gailua. ik **segurtagailu**.

Seguruak huts egin zuen, hori da dena... **Harkaitz Cano**

8 aseguruua.

Agentziak, kolpearen neurriaren arabera, **seguruak** ordaintzen ez duen konponketaren zatia ordainaraztera eta garajejan dauden furgonetak garbitzera zigortzen ditu gidariak. **Patxi Zubizarreta**

Marinelek apropos enkailatu zutela ur haitzetan, karga eta guzti, ontziaren armadore grekoak burdinazko tramankulu zahar hura mantendu baino nahiago zuelako **seguruak** ematen zituen diruak kobratu. **Joseba Sarrionandia**

Armadoreak **seguruak** kobratuko zuen eta enbarkazioa desegite eta burdinurtze lanetarako urgaineratu eta ekarri zuten atoian Kaioarriko nasa txikiraino, **Joseba Sarrionandia**

9 **seguruena adlag** seguruenik.

Seguruena pentsatuko huen beste erremediorik ez nuela izan, behartua nintzela horretara. **Xabier Olarra**

Puf, **seguruena** ez du deus. **Fernando Rey**

Gure aitak, **seguruena** bizar luze hori zela-eta, "Olivetti zaharra" deitzen zion beti. **Fernando Rey**

Hitzegian begiratzean okertuko nintzen **seguruena**, presagatik. **Fernando Rey**

-Plazan ibiliko da **seguruena**, pasieran. **Koro Navarro**

Irudipena nuen ez ote zuen maitaleren bat han, eta, **seguruena**, negozioko ere izango zituen. **Koro Navarro**

Zer edo zer gaizki egingo dut, **seguruena**. **Luis Elberdin**

Gela handi bat zen, bulego izandakoa **seguruena**. **Inazio Mujika Iraola**

10 **seguruenik (483 agerraldi, 91 liburu eta 122 artikulutan) adlag** aukera gehien arabera. ik beherago 14.

Seguruenik badakizu zer esan nahi dizudan. **Patxi Zubizarreta**

Detektibeok, **seguruenik** badakizu, ez dugu lan-ordutegirik. **Migel Angel Mintegi**

Seguruenik 1211. urtean jaio zen Pragan. **Askoren artean**

Husainek **seguruenik** arrazoiak zuen: bere bizimoldearekin, apenas ateratzen zuen iraubizitzeko. **Patxi Zubizarreta**

Eta horrek, **seguruenik**, ez digu gauza onik ekarriko. **Patxi Iturritegi**

Azaldu zidanez, Juliok gogor egin omen zion Marroren kontra, **seguruenik** jelsoskor zegoelako, edo agian drogaren susmoa ere bazuelako eta Adela hartatik babestu nahi zuelako; auskalo. **Juan Kruz Igerabide**

Familia bat bizi da hemen **seguruenik** edo bederen langileak. **Piarres Aintziart**

-Maiatzeko zenbaki berezian, **seguruenik** -erantzun zion Del Valle-. **Alberto Ladron Arana**

Eta Otero ere, ia **seguruenik**, hari zor zitzaion. **Bernardo Atxaga**

Norbaitek ikusiko balu, **seguruenik** irribarre egingo luke. **Xabier Olarra**

Beti iruditzen izan zait literaturak ordezkatzeko ziola bizitza, benetan sentitzeak edo bizitzeak beldur ematen ziolako **seguruenik**. **Joxean Agirre**

Ordurako, Tomas gizon eskolatua zen eta apaiza **seguruenik**. **Askoren artean**

Hautsak ez harrotzeko, **seguruenik**. **Iban Zaldúa**

11 **segurutik adlag** seguru asko.

Laurogeitaka urte (eta gehiago, **segurutik**) irauin dezakeen bizi-pasaren ondoren, zer egiten du zoriontsuak? **Iñaki Seguroa**

Zuzentzaileak ez dauka gogoan, honez gero, nola jakin zuen hau, **segurutik** denborak zuzendu ez duen konfiantzazko liburu batean irakurriko zuen. **Jon Alonso**

Inongo herritan jaio ez eta hiriburuan hil, alajaina!: liburuaren historia unibertsalean sartzeko moduko alea eta beste inon ikusi ez dena, **segurutik**. **Iñaki Seguroa**

12 seguru, dudarik gabe; segurtasunez.

Inork ez zekien **segurutik** Hüsok zenbat urte zituen. **Fernando Rey**

Segurutik dakigu tiro egin zutenen artean zegoela Juan Astigarribia, buruzagi boltxebike ezaguna, esan zigun gobernadore jaunak. **Koldo Izagirre**

Ez dakit **segurutik** zer bilatzen ote zuen ama iharrarekin, beti han eta hemen harekin lan bila. **Fernando Rey**

Badakik, ni hagitz **segurutik** beti. **Aingeru Epaltza**

13 ez-seguru izond

Ideien, pentsamenduaren, zientzien edo ezagutzen historia deritzen diziplinetan, euren mugez hain ez-**seguruak** eta euren edukietan hain zalantzatiak diren diziplinetan alegia. **Xabier Arregi**

14 **seguru aski (128 agerraldi, 33 liburu eta 17 artikulutan) adlag** seguru asko.

Seguru aski bahekien hik hau... **Txillardeggi**

Seguru aski, denbora luzea zeraman Hannak negar-zotinka, aurpegia burkoetan sarturik, gehiago ezin eutsi izan zion arte. **Joxe Austin Arrieta**

Ulertu nian, horrez gain, zein bitxi sentituko hintzen, **seguru aski**, gure artean, jende arruntaren artean. **Xabier Olarra**

Baina Jainkoak nahiko du, **seguru aski**, noizbait ni dirua itzultzeko gauza izatea. **Xabier Olarra**

Rafa gu baino askoz ere ganoratsuagoa duzu, eta **seguru aski** ez zaio gizalegezkoa irudituko arrazionamenduaren kontura txantxetan ibiltzea. **Josu Landa**

Nagikeria hutsez egingo nuen **seguru aski**. **Joxe Austin Arrieta**

Ezti-usain betegarria zerion haren arropari, halvah ezti-opilarena **seguru aski**. **Anjel Lertxundi**

15 **seguru asko (548 agerraldi, 94 liburu eta 73 artikulutan) adlag** aukera gehien arabera.

Seguru asko ez. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Seguru asko -halaxe pentsatu zuten-, lo zeuden andreak eta haurrak bakean utziko zituzten. **Gotzon Garate**

Seguru asko izen-aldaketa transkripzio-errua da. **Askoren artean**

Baina **seguru asko**, halaxe uste zuten denek, haien grebak, haien sakrifizioak, irabazia zuen saria ordurako. **Felipe Juaristi**

Inpresioarengatik **seguru asko**, pixa egin duzu galtzetan, eta agerian gelditu zaizu marka. **Rafa Egiguren**

Ordubeta lehenagoko deia ere haiena izango zen **seguru asko**, baina nik artean ezin atentitu. **Joxe Austin Arrieta**

Handiagoak ere esango zizkion, **seguru asko**, emakumeak bere pistola eskuan zuela isilik jarraitzen zuten bitartean. **Joxean Agirre**

Letretakoa monsieur Nestor izango zela **seguru asko**, ordu arte frantsesa eman ziguna. **Bernardo Atxaga**

Ritaren lagunen bat izango zen, **seguru asko**, hura zeramana. **Hasier Etxeberria**

Costaren mehatxuagatik ez baltiz, **seguru asko** ez zitzaidan inoiz burura etorriko harresiaren trazatua errepasatzea. **Jon Alonso**

Baina zergatik eskaini diot hainbesterainoko arreta **seguru asko** interes handirik ez duen Tortoren eta Agustin izeneko agure armairutxoaren arteko solasari? **Anjel Lertxundi**

Apal txiki batzuk besterik ez; aspaldiko artxiboren baten hondakinak, **seguru asko**. **Rafa Egiguren**

-Dirudunen bat, **seguru asko**. **Oskar Arana**

Sukaldean egongo dira **seguru asko**. **Arantxa Iturbe**

Ez da esku horren lazтана nahi izango duen inor **seguru asko**. **Joseba Sarrionandia**

16 **seguru askorik** seguru asko.

Hainbat artikulu idatzi eta argitaratu nituen, gainera, tarte horretan, orain **seguru askorik** -ez naiz, egia esan, bilatzen saiatu ere inongo hemeritekatan ezin aurkitu ahal izango liratekeenak. [Juan Luis Zabala](#)

Ohikoena eta errazena egin nuen horretan ere **seguru askorik**, egokitzen zitzaidana. [Juan Luis Zabala](#)

Betiko **seguru askorik**. [Juan Luis Zabala](#)

17 *seguru egonsup_1* zalantzarik ez izan.

Seguru hago esaten ari haizenaz? [Anjel Lertxundi](#)

-Ez **nagok seguru**, Jon. [Unai Iturriaga](#)

Ez al **zaude** diozunaz **seguru**? [Xabier Arregi](#)

Ez **nago** hain **seguru**. [Julen Gabiria](#)

Baina ez **nago** guztiz **seguru**. [Iban Zaldúa](#)

Seguru nago nire koinatuak oso prezio onean salduko digula. [Bernardo Atxaga](#)

Baina, **egon** zaitez **seguru**, izango dugu oraindik bakarka egoteko aukera. [Bernardo Atxaga](#)

Eta, bere burua ikusirik, **seguru nago** handik ere ihes egiteko premia sentituko duela atzera berriz. [Joxerra Garzia](#)

Besterik zioen arren, **seguru nago** Monikak gau horretan erabaki zuela nirekin bizitzera etortzea. [Joxean Agirre](#)

Ni irteten naizenean **seguru nago** saltzaile irtirin hori nire atzetik etorriko dela, ikusiko duzu. [Anjel Lertxundi](#)

Kontakizuna amaitu zela **seguru egon** zenean, barre-algaraka aritu zen minutu erdi osoan. [Irene Aldasoro](#)

Oraindik ez **zaude seguru** ezizen berriaren kontua denek behar bezala ulertu ote dizuten. [Rafa Egiguren](#)

Baina horretaz ere ezin **seguru egon**. [Aingeru Epaltza](#)

18 *seguru egonsup_2* arriskutik at egon.

Lasai utz dezakezu hemen, **seguru dago**. [Oskar Arana](#)

-Hemen ez **hago seguru**. [Lutxo Egia](#)

Etxe barruan eta zaintzaile zintzok inguratutik bazaude ere, ez pentsa gero **seguru zaudenik**. [Gotzon Garate](#)

Loiolan ari ziren Euzko Gudarostea antolatzen, eta inon ez omen ginen han bezain **seguru egongo**. [Inazio Mujika Iraola](#)

Bilobatxo, ez kezkatu zure aitaz; hura **seguru dago** mendietan, eta irakiarrek ezin dute harrapatu. [Juan Kruz Igerabide](#)

Gu **seguru gaude** hirian, haragia dupinean bezala. [Elizen arteko biblia](#)

-Ez, ez; hemen **seguru zaude**. [Koro Navarro](#)

Israeldarrak ez **daude seguru** armak dituztelako, mendi garaietan bizi direlako baizik. [Elizen arteko biblia](#)

Gizaki edo mamurik, inor ez **dago seguru**! [Iñaki Mendiguren](#)

19 *seguru izansup_1* arriskutik at izan.

Arduradun honekin **seguru zarete**. [Bernardo Atxaga](#)

Jeseren seme hori lurtean bizi dadin arte, ez **haiz seguru** izango, ez hi, ez hire erregetza. [Elizen arteko biblia](#)

Arduradun honekin **seguru zarete**. [Bernardo Atxaga](#)

Gure sagua **seguru dela** iruditu zait. [Harkaitz Cano](#)

Izan uste on Jaunarengan, zeuen Jainkoarengan, eta **seguru** izango **zarete**. [Elizen arteko biblia](#)

20 *seguru izansup_2* zalantzarik ez izan.

Irabazlearen koroa lortzeaz **seguru dira**, baldin eta azken eraso egiteko abantaila lortzen badute eta aurkakoaren eraso berria jasotzera behartuak ez badaude. [Ibon Uribarri](#)

Seguru baita ongi ezagutzen duela bere burua. [Jon Alonso](#)

Ez, ni **seguru naiz** lurreta, Lakua, Senpere, Garazi, Luzaide edo Goizueta aldera begira idatzi zuela. [Patziku Perurena](#)

Horretaz **seguru izaten** ahal zara! [Ramuntxo Etxeberri](#)

21 *seguru-seguru*

-**Seguru-seguru** hago nire semea dela? [Eskarne Mujika](#)

Seguru-seguru jakin nuenean keinua niretzat zela, hurbildu egin nintzen, nahikoa harriturik. [Jon Alonso](#)

Nik, adibidez, ez dakit Namibiako berri batere, ezta Afrika behealde horretan **seguru-seguru** non dagoen ere. [Iñaki Segurola](#)

Hamar-hogei urte barru doinu-bilketari heltzen dionak, Joanitok baino doinu gehiago bilduko ditu **seguru-seguru**. [Andoni Egaña](#)

· **Seguru-seguru** etxera eramango zaitu. [Gotzon Garate](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

bezain seguru (16)

egon seguru (7); **erabat seguru** (10); **ez dago seguru** (8); **ez dakit seguru** (20); **ez nago seguru** (24); **ez nengoen seguru** (5); **ez zaude seguru** (5); **ez zegoen seguru** (12); **ez zekien seguru** (8); **gustiz seguru** (13); **hago seguru** (5); **hain seguru** (33); **hemen seguru** (6); **hori seguru** (35); **horren seguru** (12); **horretaz seguru** (5)

ia seguru (31); **izango da seguru** (5); **izango zen seguru** (7); **lasai eta seguru** (6); **leku seguru** (6)

oso seguru (55); **oso seguru aritu** (5)

seguru al hago (5); **seguru al zaude** (6); **seguru aritu** (9); **seguru aritu zen** (8); **seguru aski** (127); **seguru aski ere** (8); **seguru aski ez** (5); **seguru asko** (549); **seguru asko bai** (5); **seguru asko ez** (23); **seguru askorik** (10); **seguru baietz** (8); **seguru baitzegoen** (8); **seguru bizi** (13); **seguru biziko** (16); **seguru biziko dira** (6); **seguru dago** (21); **seguru dakit** (8)

seguru egon (30); **seguru egongo** (11); **seguru egoteko** (6); **seguru esan** (8); **seguru eta lasai** (5); **seguru ezetz** (6); **seguru ezin** (6); **seguru gaude** (12); **seguru hago** (9)

seguru ikusi (7); **seguru jakin** (17); **seguru nago** (149); **seguru nagok** (20); **seguru naiz** (8); **seguru nengoen** (24)

seguru seguru (12); **seguru sentitzen** (18)

seguru zaude (27); **seguru zegoela** (5); **seguru zegoen** (55); **seguru zekien** (6); **seguru zer** (8); **seguru zeuden** (5); **toki seguru** (5)

zaude seguru (7)

bide segurua (9); **erabat segurua** (5); **ez da segurua** (17); **gauza segurua** (38); **gauza segurua da** (15); **gustiz segurua** (6); **hain segurua** (6); **ia segurua** (9); **ibilera segurua** (6); **kontu segurua** (9); **leku segurua** (7); **obra segurua** (7); **obra segurua dela** (5); **oso segurua** (10); **segurua baita** (5); **segurua da** (64); **segurua dela** (24); **segurua izan** (9); **segurua izango** (5); **segurua kendu** (6); **segurua zen** (16); **sexu segurua** (5)

seguruago egongo (11); **seguruago sentituko** (7); **seguruago sentitzen** (11)

seguruagoa da (13)

seguruagoak dira (6); **seguruagoak direla** (5)

oso seguruak (12); **seguruak direla** (5); **seguruak izan** (6)

leku seguruan (8); **toki seguruan** (8)

biderik seguruena (5); **lekurik seguruena** (7); **obrarik seguruena** (5); **seguruena da** (7)

bide segurutik (6)

ia segurutzat (5); **segurutzat jo** (11); **segurutzat jotzen** (14)

sehaska 1 iz haurrentzako ohe txikia, eskuarki kulunka daitekeena.

Neskak **sehaskan** utzi zuen berriz umea. [Koro Navarro](#)

Badakizu Jose negarrez dagoela **sehaska** alboan? [Joseba Sarrionandia](#)

Biolina mahai gainean tentuz eta maitasunez jarri zuen, ama batek umea **sehaskan** bezala- Felipe Juaristi

Haur zurien **sehaskari** eragitera. Anton Garikano

- **Sehaskan** ito behar nian-eta! Anjel Lertxundi

Herio haur bat **sehaskatik** hartzen. Anjel Lertxundi

Haurtxo bat ikusi zuen **sehaskan** etzana hiliik, eta santuak, harengana hurbilduz, lozorro batetik bezala iratzarri zuen. Askoren artean

Aspaldi galdutako anaia zenuela, behinola ijito batzuek **sehaskatik** ebatsitakoa. Mirentxu Larrañaga

Ohe-armairuak eta haurren zurezko **sehaskak** sukalde pribatuan zeuden. Itxaro Borda

Platanondo, zumar eta ezkien adaburuek, berriz, zabuka segitzen zuten **sehaska** erraldoi batzuk balira bezala. Anjel Lertxundi

Sehaska horiek oso zurrunk izaten dira, eta haurra **sehaskaren** erdian lotzeko uhal bat izaten dute. Berria - Euskal Herria

Kantu bat **sehaska** hutsari. Berria - Kultura

Liburuzaleen giroan, inkunabile esaten zieten halakoei: "**sehaskako**" obrak, 1500 urtea baino lehen inprimatuak. Jon Muñoz

Horregatik, esku bigunaren leuna erantsi behar diote beren kargu-itzalari, handizkien **sehasketan** hazi ez direnak. Patxi Ezkiaga

2 irud/hed

Emakumearen sabelean **sehaska** bat dago beti. Joseba Sarrionandia

Itsasoa ez zitzaigun bidaia hartan haserretu [...] eta, hargatik, berant gabe ohitu nintzen mugimendu hartarat, goiti-beheiti eta beheiti-goiti, uraren **sehaskan** kulunka. Joan Mari Irigoien

Druiden artean, mihura beneragarria zen, haritz gainean sorturikoa batik bat, jainkoen agerpena zelako; eta haritza, beneragarria, jainkoen **sehaska** eta jauretxe bihurtzen zelako. Pello Zabala

Hitzaren **sehaska**, beraz, badirudi Antzuolan eta Bergara aldean dagoela. Iñaki Segurola

Lurra zen bitizta, **sehaska** betierekoa, munduaren osasuna. Karlos Zabala

Kanta diezaiogun **sehaska** kanta bat gure herriaren **sehaska** hutsari: [...]. Patziku Perurena

Ateismoaren **sehaska** Europa da. Edorta Jimenez

Beti garbi izan ezazue erlijioak despotismoaren **sehaska** direla. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Florentzia (Italia) pizkundearen **sehaska** izan zen XV. mendean. Berria - Kirola

Sehaskatik urruntzea ez ote da bada akulturizazioa? Berria - Ekonomia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zerbait gozo eta ezti, **sehaska**-kanta baten antzekoa. Anton Garikano

Haur gaixoari bere mama goxoa eskaini bitartean, **sehaska** kantu bat abesten hasi zen. Patxi Zubizarreta

Sehaska-kanta baten doinua erabiliko du. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Autobusek, trenek edo metroek [...] "**sehaska**-efektua" izenez ezagutzen dena sortzen dutenez bidaiariengan, [...]. Harkaitz Cano

Lukrezioaren ahotsa gure bilaketen **sehaska**-eragile da. Xabier Amuriza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sehaska izan (3); **sehaska kanta** (22); **sehaska kanta bat** (7); **sehaska kanta baten** (4); **sehaska kantak** (5); **sehaska kantaren** (4); **sehaska kantu** (5); **sehaska kantuak** (4); **sehaska kantuen** (6)

sehaskan ito (3); **sehaskan lotan** (3); **sehaskan utzi** (6); **sehaskan utzi zuen** (4)

sehaskara hurbildu (3)

sehaskatu, sehaska(tu), sehasktzen du *ad* sehaskan kulunkatu.

Haizearen ahotsak **sehaskatzen** gaitu, kantuz. Karlos Linazasoro

Harmailetan ikusten nituën ikurrinak hiru koloretako izara uhintsuak ziren, nire gogoa **sehaskatzen** zutenak. Joan Mari Irigoien

sehaskatxo *iz* sehaska txikia.

Burura zetorkion orduan, ez atsegin handiz ere, Diane txikitxoa, musu-arrosa eta haserre-antza, bere **sehaskatxoan** ozta-ozta ikusgai, hainbeste pappaila eta gauzakiren artean. Mirentxu Larrañaga

sehi 1 *iz* etxeko zerbitzaria, gizona nahiz emakumea. ikmorroi; neskame.

Han ezagutu zuen Jeanne jaun-andere haien **sehia**. Itxaro Borda

Gehienetan, **sehiak** eta zaindarien baizik ez zuten bizi jauregi hori. Aingeru Epaltza

Arbidetar baten aholkuak jarraituz Rachel eta Jacob oihal-saltzaileen etxeko **sehi** bilakatu zen, Santa Izpiritu auzoan. Itxaro Borda

-Agure itsu bat duzu atarian, zure galdez -gaztigatu zion **sehiak** merkatarari. Imanol Zurutuza

Eta aitzinean edo azpian beste norbait, esklaboa edo **sehia**, honek bete dezan agindu zaion lana. Piarres Xarriton

Bere egitateaz damuturik, Martzelina, bizi guzian haiekin egona zen **sehia**, igorri zuen, har zezan eta etxera ekar, baina ordukotzat mutikoa desagertua zen. Elena Touyarou

Aldamioak itsasi zizkieten murruei eta horien azpian bastizak zutitu ziren, gaztelua, gotorleku ez ezik, bizitoki ere izan zedin: soldadu eta **sehiendako** bizitegiak, sukaldea, bihitegia, [...]. Aingeru Epaltza

Kalean **sehi** atso bat ikusi duzulako, soil-soilik, ezin zaitez negar-zotinka hasi haren kariatz, zinkulin-minkulin. Mirentxu Larrañaga

Etsetik kanpo, ainitz urtez lan egin baldin badu **sehi** bezala, sort etxeari eta herriari guziz atxikia zen. Herria

2 (adizlagun gisa)

Duela 78 urte Arizkunen sortua zen eta **sehi** etorria Garazi alde huntarat aspaldi huntan. Herria

Gaxton bera Trocadero ostatu bateko zerbitzari trebea zen eta Elli honen arreba aldiz Lutecia hotelean **sehi** zegoen. Itxaro Borda

Hazparnen Trolietean **sehi** egon zinen. Herria

Gazte gazterik joanik **sehi** bazuen 11 urte erretiratua zela zaharretxe batetarat. Herria

3 (izenondo gisa)

Araza konkistatzaileak daude, gudariak, eta herri konkistatuak, azpiratuak, baztertuak: herri xume laboraria, **sehia**. Joxe Azurmendi

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Janinak ez zuen Chadefaud hanpurusa begiko, nahiz eta gerla aitzineko urteetan, Rachel eta Jacoben **sehi** lanetan hasi baino lehen, harekin oheratzen zen erregulariki. Itxaro Borda

Tuileries baratzea ez zen oraino hertsia, eta Xarlesek La Motte Piquet etorbideko **sehi**-gela urriraino jo zuen. Itxaro Borda

Aita bretoina du, ama euskalduna, sortzez mugaz haindikoa, gaztean **sehi** kondu etorria Hendaia rat Herria

5 morroia.

Lasai asko igo zen bere karrozara; anitz **sehi**, neskame eta zerbitzarik lagunduta. Txillardegi

Ulibarri jaunaren zerbitzuko, sei bat **sehi** eta neskame topatu ditut. Txillardegi

sehigo *iz* sehi dagoenaren egoera. ik **sehtasun**. • *irud/hed*

Nola ez bada, iruindar guztiak eta are nafar guztiak ere apartaraziko genituen noizbait Erromako printze ustelaren **sehigotik**. Aingeru Epaltza

Finean, **sehigo** mota bat baizik ez da soldadutza. Aingeru Epaltza

sehilabeteko ik **seihilabeteko**.

sehileko ik **seihileko**.

sehtasun *iz* sehia denaren nolakoasuna. ik **sehigo**.

Zeren nahiago baitzuen etorkizunean etxe hartako nagusi izan, hatz hura gabe, ezen ez morroi izan, hatz harekin, morroi denak eta sehi denak bere morroitasunean eta bere **sehtasunean** balu bezala faltarik handiena, hutsik handiena eta akatsik handiena. Joan Mari Irigoien

sei 1 *zenbtz* bost eta bat, 6. (dagokion izenaren ezkerrean)

Ximeik hamasei seme eta **sei** alaba izan zituen. **Sei** orrialde idatzi ditut, nolabaiteko atseginaz. Elizen arteko biblia

Begiratu diezu lorea aspaldi galdutako **sei** magnolia arbola itzelei. Hasier Etxeberria

Gizaseme bat ikusi zuen, Serafin batek bezala **sei** hego zituena. Askoren artean

Sei maila zituen errege-aulkiak. Elizen arteko biblia

Sei zaldik tiraturiko kalesa. Jose Morales

Sei digitoak markatzea baino gauza errazagorik ez dago. Jon Alonso

Sei pisuko eraikina zen, leiho estuekikoa. Lopez de Arana

Sei aldeko poligono bat hartu. Jon Muñoz

Beheko aldearen diametroa **sei** partetan banatu eta goiko muturraren diametroari bost parte emango zaizkio. Santiago Iruetagoiena

Nafarroa Behereko borts hirietako eta **sei** ibarretako jendeak. Aingeru Epaltza

Kolomaren beheko aldeari aplikatutako diametroa hartuz, **sei** aldiz eman zioten neurri hori altuerari, kapitela ere barne. Santiago Iruetagoiena

Michael ere altxatuta zegoen ordurako, **sei** zerra-hortzeko labana zorrotza bezain prest. Julen Gabiria

Ozta-ozta **sei** edo zazpi ordu lo eginda zeuden eta. Edorta Jimenez

ik beherago 16. Askoren artean

Ohpetik **sei** botila Cutty Shark atera zituen. Harkaitz Cano

-Banekielako etxe zaharraren azpiko hartzuluan **sei** bidoi gasolina, laurogeita hamabost metraleta, berrehun eta hirurogeita hamabost eskubonba [...] zeudela ezkutaturik. Koldo Biguri

2 (dagokion izena ezabaturik)

Sei izen, eta **seiak** esanguratsuak. Pello Zabala

Espainiako Auzitegi Gorenak bederatzirteko kartzela zigorra **seira** murriztu dio. Berria - Euskal Herria

Horretan eman nituen bost urte Zarauzko ikastolan eta **sei** Lasartekoan. Ana Urkiza

Bide-bazterretan, berriz, beste **sei** hil zituela esaten dio Josek epaileari. Anjel Lertxundi

Sei hilda erori ziren. Agustin Otsoa

Hamabi urtez izan zen errege eta horietatik **sei** Tirtzan. Elizen arteko biblia

Gau haren ondoren beste bi, hiru, **sei** etorri ziren, auskalo, soka berari helduta. Karlos Linazasoro

-Zergatik bost, eta ez lau edo **sei**? Jon Muñoz

Sei hauek Hebronen jaio zitzaizkion. Elizen arteko biblia

Sei horien artean bizirik gelditutako bakarraren balentriek -nireek- hartzen zuten lekurik luzeena. Aingeru Epaltza

Txapeldunen Ligako zortzi partidetarik zazpi jokatu ditu, horietako **seitan** titular. Berria - Kirola

Neskak hamar groscheneko txanpon bat, **seiko** bat eta lauko bat hartu zituen. Koro Navarro

Hi zortzi urteko neskatillia; ni **selko** mutilla. Txillardegi

Atalondoaren luzera hamar metrokoa zen, eta zabalera **seikoa**. Elizen arteko biblia

3 (futbol, pilota eta kideko kirolen emaitzetan)

Jainkoa lagun, **sei** eta huts utziko ditugu. Koldo Biguri

4 (data adierazteko)

Urriaren **seia** zen. Agustin Otsoa

Otsailaren **seian** CRSak sartu ziren gose grebalarik guztiak atxilotu eta handik ateraz. Martxoaren **seian** askatu beharko lituzkete. Jokin Urain

Apirilaren lehenetik **seia** arte Gantxiki trinketean. Herria

Joan den irailaren **seiaz** geroz hasia da zerbitzu hori. Herria

Hilabete hunen **seian** herriko etxean elgarretaratu dire. aranzatarrek indarrez kendu, eta urriaren **seirako** Iruñean zuten denuntzia. Herria

Bi egun falta dira azaroaren **seirako**. Iban Zaldúa

Buckbeaken apelazioa... hilaren **seian** izango da. Iñaki Mendiguren

Aurrerantzean kondenatua deituko dena, ekainaren **seiko** ilunabarrean hil behar da... Iñaki Mendiguren

5 (ordua adierazteko)

Gaur goizerdian, goizeko **seiak** aldera, alegia. Pello Zabala

Arrats batez, **seiak** irian. Michel Oronoz

Seiak eta zazpiak bitartean gertatu ohi zela esango nuke. Ramon Saizarbitoria

Arratsseko **seietatik** zazpietara izango zen hori. Pello Zabala

Zortzietatik **seietara** egiten nian lan, eta egunetik egunera gero eta lan zikin gehiago agintzen zidanean. Lopez de Arana

Seiak hurbil abiatu naizenean. Piarres Aintziart

Arratsaldeko **seiak** baino lehenxoago. Bernardo Atxaga

Sei eta erdiak aldera hartu, handik sartu erdiak jaikiarazia. **Joxean Sagartzabala**

Seiak eta erdietako etxeratzan nintzen. **Daniel Landart**

Egunkariko telefonariak arratsaldeko **sei** eta erdietan ailegarazi zidan semearen deia. **Aingeru Epaltza**

"**Sei** eta erdietarako ilun dago, jauna. **Anjel Lertxundi**

Baina nik uste baino lehenago deitu naute: **seiak** eta laurden. **Txillardegi**

Seiak laurden gutxi ene erlojuan. **Txillardegi**

Nire erlojuan **seiak** eta hogezi ziren. **Bernardo Atxaga**

Seiak bost gutti, eta orai zer? **Filipe Bidart**

Goizeko **seiak** hamar gutxi ziren hegazkinak Miarrizteko aireportuan lur hartu zuenean. **Harkaitz Cano**

Seiak 12 gutxiagotan sartzen da eguzkia. **Pello Zabala**

Seiak minutu bat gutxi. **Mirentxu Larrañaga**

Zortziak eta **sei** ziren. **Aingeru Epaltza**

-T. andrea **seiak** arte ez dun itzuliko. **Koro Navarro**

Seiak jota ziren Bilbora heldu zirenerako. **Unai Iturriaga**

6 (denbora unitateekin)

Sei urte nituen Antonio zendu zenean. **Aingeru Epaltza**

Neskato hura **sei** urterekin hil zen. **Julen Gabiria**

Beti maite izan zituen liburuak, eta hark bost edo **sei** urte zituenetik hasita. **Oskar Arana**

Sei urte eman zituzten eraikina egiten. **Jose Morales**

Horrelaxe amaitu ziren Espainian enbaxadore egin nituen **sei** urteak. **Edorta Jimenez**

Migel baino **sei** urte zaharragoa zen Ramon Itsusko. **Aingeru Epaltza**

Sei hilabete inguru egin ditut han. **Oskar Arana**

Handik **sei** hilabetera ikusi nuen berriro, Bakearen kalean. **Josu Zabaleta**

Ez kezkatu, hemendik **sei** hilabetera pasatuko zain. **Harkaitz Cano**

Orain dela **sei** astetik hona ez du irten nahi izan ordu biak eta zazpietatik! **Josu Zabaleta**

Arratsaldeko bostetatik hurrengo goizeko bostak arte astean **sei** egunez. **Oskar Arana**

Sei egunen buruan, erdia ardoa eta erdia ura dago upel horretan. **Jon Muñoz**

Sei urtez goitikoek, egunero zuten eskola, igandeetan salbu. **Aingeru Epaltza**

-**Sei** minutu seieterako -dio Felixek. **Edorta Jimenez**

8'30etan aieratu zen, **sei** ordurako erregaiarekin. **Josu Zabaleta**

7 (diru unitateekin)

Sei dolar eta hirurogeiko lenteja platerkada bat hartu eta hamar dolarreko propina utzi dit... **Harkaitz Cano**

Verstako **sei** kopek gehienez ere! **Karlos Zabala**

Ez nuen **sei** penikeko sarbiderik aurkitu. **Irene Aldasoro**

Orduan izango ditut libera bi, bederatzit txelin eta **sei** penny. **Julen Gabiria**

Hogeita lau sos -esan zion-, eta gantzaren **sei** sosa, hogeita hamar. **Karlos Zabala**

Brontzez egindako **sei** txanpon izatea, **sei** as alegia. **Santiago Iruretagoiena**

8 (luzera neurriekin)

Sei metro luze eta **sei** metro zabal zen, eta hutsik zegoen, noski. Herritik **sei** kilometrora zegoen auzoan. **Iban Zaldúa**

Bost edo **sei** metro karratu besterik izango ez zituen esparru batean. **Bernardo Atxaga**

Trokolaren azpian erregela bat jartzen da, bi oin inguru luzekoa eta **sei** hatz zabalekoa, eta lau hatz lodikoa. **Santiago Iruretagoiena**

Sei hazbeteko obusak telegrafo bulegoko pareta suntsitu du. **Karlos Zabala**

Sei oin horietatik, beheko harmailak eta bainularien eserlekuak bi oin hartuko dituzte. **Santiago Iruretagoiena**

Sei oin ingeles lur horiei, "for a grave" ("hilobizat") eransten die. **Juan Garzia**

Konturatu ziren, gainera, ukondo batek ere **sei** arra dituela, hau da, hogeita lau hatz. **Santiago Iruretagoiena**

9 (bestelako neurri unitateekin)

Kamioi bakoitzean **sei tona** gatz sartzen dira. **Berría - Harian**

Egunean **sei** gramo baino gehiago ez hartzea aholkatzen dute medikuek. **Berría - Gaiak**

Hartu usainkirik bikainenak: **sei kilo** mirra isurkor, hiru kilo kanela eta beste hiru kilo kanabera usaintsu. **Elizen arteko biblia**

Eztainu kloruroa **sei** litroko beirontzi mokodun zein torroiletan kontzentratzeko baliatzen zen. **Juan Garzia**

Sei litro espirometroan! **Berría - Euskal Herria**

Bere aldi bereko memoria **sei** tetrabytekoa (**sei** bilioi bytekoa alegia) da. **Pello Salaburu**

• 10 iz zenbaki naturalen sailean bostaren ondotik datorren zenbakia.

Gero zifrak hartzean okertu zen, **seia** paratuz hirua zen tokian. **Jon Alonso**

Dadoetan dabilen batek bi **sei** elkarren ondotik ateratzea aski arrazoi dela apustu egiteko, ziurtasun osoz, ezetz atera **seia** hirugarren saioan. **Koro Navarro**

Bi hiruko, **sei**. **Lourdes Oñederra**

Bederatzi **bider sei**: zenbat? **Itxaro Borda**

Matematikariek [...] esan zuten zenbaki perfektua **seia** zela, zenbaki honek badituelako zatiki batzuk beren artean batuz **sei** ematen dutenak. **Santiago Iruretagoiena**

Seiaren seirena, bat da; herena, bi da; **seiaren** erdia, hiru da. **Santiago Iruretagoiena**

Zenbakitzaillean, zenbaki oso bikoiztuak: bi bider bi, bider lau bider lau, bider **sei** bider **sei** bider eta abar. **Jon Muñoz**

Hauen ustez ihardespren heina ona da, galdeketen ehuneko **seia** jada itzulia baita. **Herria**

Justu-justu aprobatu zuen; **sei bat** jarri zioten, 'Ongi' besterik ez. **Pako Aristi**

Ehuneko **seiko** interesari lukuruaren erdia deitzen zaiola. **Iñaki Iñurrieta**

11 **seiko izlag** (kalibreez mintzatuz)

Ikaragarri horiekin mosketeen tiro zoliak nahasi ziren, bai eta emirraren artilleria osatzen zuten **seiko** eta lauko kanoien eztanda hots apalagoak ere. **Karlos Zabala**

12 **seitan** sei aldiz.

Zalgizek Eskritura Sainduak, latina, frantsesa eta Gaztelako erromantzea irakasten zizkien, astean **seitan**, Ezponda Baitako neska-mutikoei. **Aingeru Epaltza**

13 **bost-sei** ik **bost**.

14 **sei bat** (54 agerraldi, 27 liburu eta 20 artikulutan; orobat **seiren bat** 18 agerraldi, 7 liburu eta artikulua 1ean) gutxi gorabehera sei.

Beste **sei bat** lagun bizi ziren nirekin batera. **Rafa Eiguren**

Artean **sei bat** urte zituen Beñatek. **Joxerra Garzia**

Jendea sakabanatu zenean bi jeep ikusi nituen, eta **sei bat** guardia fusilak tente zituztela. **Bernardo Atxaga**

arratsaldeko seietan (40); **goizeko seietan** (42)
arratsaldeko seietatik (8); **seietatik aurrera** (8)
seiren bat (18)

seiehun *(orobat seirehun g.er. eta seireun g.er.) 1 zenbtz sei bider ehun, 600.*

Erregearen gudarosteak **seiehun** gizon galdu zituen. **Elizen arteko biblia**

Motor baten ordezt, **seiehun** motor baino gehiago dituela gorputzak. **Irene Aldasoro**

Gogoan hartu **seiehun** kilometro egin behar ditugula Bartzelonaraino. **Bernardo Atxaga**

Marte **seiehun** eta laurogeita hiru egun inguru ibili ondoren izarren arteko espazioan zehar, berriro bere lehenengo ibilia hasi zuen puntura itzultzen da. **Santiago Iruretagoiena**

Ukabila bezain handia zen eta 3.106 kilate zituen (**seiehun** gramotik gora). **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Aurrezki kutxatik zetorren, eta **seiehun** zloty galdua zen. **Koro Navarro**

Seiehun dolar sartu behar genituen egun hartan Sheilaren kutxan. **Xabier Olarra**

Seiehun urteko denboraldia zuen eguraldi-ziklo baten zeharkako frogak aurkitu genituen. **Iñaki Mendiguren**

Jekaterinburgetik **seiehun** eta hogeita hamar verstara. **Karlos Zabala**

Gruaroko eskualde guztian **seiehun** langaberi lana ematea. **Josu Zabaleta**

Bost edo **seiehun** ardiko saldoak. **Itxaro Borda**

Euskal Herriak bi mila errefuxiatuen kuota jaso zuela 2043. urtean, zeinetatik **seiehun** Gasteizen kokatu baitziren. **Iban Zaldúa**

Seiehun eta sei lagun bazirela kontatzen du Basilio Pujanak, langile batailoiak osatzeko. **Koldo Izagirre**

Mila **seiehun** eta laurogeita hamabiko irailaren hogeita bi honetan. **Anjel Lertxundi**

Trenera bultzaka eraman zituzten batzuk, **seiehun** bat. **Felipe Juaristi**

Duela **seiehun** bat milioi urte, alegia. **Juan Garzia**

2 (izen gisa)

Seiehun eta hogeita hamabia. **Xabier Paya**

3 bostehun-seiehun ik bostehun.

4 seiehun mila

Frantziak, aurrenik, 1830ean heldu zion Aljeriaren kolonizazioari, eta hala, 1900erako, **seiehun** mila europar bizi ziren bertan. **Koro Navarro**

1794ko urtarrilean Barrère adiskideak salatu zuen bazirela Frantziako lau eskualdetan **seiehun** mila frantses bederen, nazioaren hizkuntza tutik ez zekitenak. **Piarres Xarriton**

Popea, berriz, herriko apaiz xume bat zen, inperio errusiarrek dauzkan **seiehun mila** horietako bat. **Karlos Zabala**

Nahiz batere laguntzarik ez eduki ez mendebaldetik, ezta ekialdetik ere, nahiz barbaro horiek **seiehun mila** izan, sekula ez diat Irkusk haien eskuetan utziko! **Karlos Zabala**

seiehuna *adlag* bakoitzari seiehun, bakoitzak seiehun.

Brontzezko hamar ur-ontzi ere egin zituen, orga bakoitzerako bana; bina metroko diametroa zuten, eta mila eta **seiehuna** litro ur hartzen. **Elizen arteko biblia**

seiehungarren *ord* zerrenda batean aurretik bostehun eta laurogeita hemeretzi dituen (600.).

Noeren bizitzako **seiehungarren** urtean, lurratzpiko itsasoaren iturri guztiak lehertu ziren eta zeruko ataskak ireki. **Jose Antonio Mujika**

seigarren *ord* zerrenda batean aurretik bost dituen (6.).

Seigarren izurria: zauriak.

Ildo beretik datoz, bosgarren eta **seigarren** kapituluak. **Piarres Xarriton**

XII. dinastiako **seigarren** erregearen erregealdian. **Jon Muñoz**

Seigarren Etorbidean behera zihoazen. **Lopez de Arana**

Seigarren Kalearen eta Zazpigarren Etorbidearen artean dago. **Oskar Arana**

Liburuko bosgarren eta **seigarren** orrialdeak erabili behar dituzue. **Iñaki Mendiguren**

Bosgarren edo **seigarren** egunean adineko turista haietako bat hurbildu zitzaigun. **Bernardo Atxaga**

Bere konbertsioaren **seigarren** urtean. **Askoren artean**

Hau ez zen ohiko gauza bihurtu aro honetako **seigarren** mendea arte. **Iñaki Mendiguren**

Haien bekatuak **seigarren** manamenduaren kontraokoak baitira. **Joan Mari Irigoien**

Egia izango ote zen **seigarren** zentzumenaren kontua. **Migel Angel Mintegi**

Hamar eranskinetatik bigarrena, **seigarrena**, zazpigarrena eta hamargarrena aldatu egin behar dira. **Patxi Altuna**

Abenduaren hogeita **seigarrenean**. **Anjel Lertxundi**

Seigarrenaren eskuak naturaz haragoko gogo nabaritzen du bateko edo biko diamanteari ertz batean koskatzo bat egiteko. **Jose Morales**

Ikusteko dago **seigarren** honetan azterketa gairidizeko gai den. **Berria - Kirola**

Rowling, Harry Potterren sortzailea, **seigarren hori** idazten ari da egun, eta iragarri du jadanik izenburua: *Harry Potter and the half blood prince*. **Berria - Kultura**

seihilabete *iz* seihilekoa.

Konstituzioa Irlandako presidentetzapean onartu behar da eta ekainaren 1erako ez badugu lortzen Holandaren **seihilabetean**, baina, edozein kasutan aurt. **Berria - Mundua**

Gazako kokaguneak urte honetako bigarren **seihilabetean** bertan behera uzten hasiko direla jakinarazi zion Olmertek Powelli herenegun. **Berria - Mundua**

seihilabetekari *iz* urtean bitan agertzen den aldizkaria.

Datu horren berri Eusko Jaurlaritzak kudeatutako Iritzia **seihilabetekariak** eman du. **Berria - Euskal Herria**

seihilabeteko (7 agerraldi 7 artikulutan; orobat seihilabeteko g.er.) iz seihilekoa.

Seihilabeteko horretan, gai garrantzitsuak erabaki behar ditu Bruselak. Berria - Mundua

Obren eskaintzak martxoko bigarren hamabostaldian egingo lirateke eta obrak, berriz, aurtengo bigarren **seihilabetekoan** hasiko lirateke. Berria - Euskal Herria

2004ko lehen **seihilabetekoan** 485 emakumek salatu zituzten tratu txarrak Bizkaian. Berria - Euskal Herria

seihileko (87 agerraldi, 8 liburu eta 61 artikulutan; orobat seihileko g.er.) 1 iz sei hilabete hurrenez hurrenekoren denbora-bitartea.

Seihilekoa bete zuen ezkontuta; urtebete hurrengo; eta gero beste hiru urte bete zituen. Mirentxu Larrañaga

Unibertsitatean ikasteko bere buruari ordurako zaharregi iritzi eta hiru **seihileko** egin ondoren utzi egin zuen. Oskar Arana

Unibertsitatean bi **seihileko** oso eginik, ez neukan titulurik ateratzeko ez gogo ez premiarik. Joxerra Garzia

2 (ordinalekin)

Lehen **seihilekoa** bukatu baino lehen Jerry ezkondu egin zen, eskola utzi, eta lanpostu finko bat hartu zuen Robby's saltokian. Koro Navarro

Alemaniar jarduerak eta inportazioek 1991ko bigarren **seihilekoan** gailurra jo zuten arren [...] 1992ko abuztua arte epe laburreko interes-tasa altuen politikari eutsi zion Bundesbankek. Koro Navarro

Narbartek apartamentu txiki bat utzia zidan Münsterren bertan, eta hantxe egiteko asmoa nuen hurrengo **seihilekoa**. Joxerra Garzia

seikako izlag seinakoa.

Umore ona nagusitu da buruan buru Girouettes futbol zelaian Salbatore egunez, Ibaialde elkarteak antolatu duen **seikako** futbol txapelketaren karietara. Herria

seiko 1 iz sei lerroko ahapaldia.

Eta berriz ere ofiziotan, **seiko** motzean hiruna bertso osatu beharko dituzte. Berria - Kultura

Seiko motzean Silveiraren jarduna polita izan zen, eta Juan Mari Lopezek ahal bezala erantzun zion, bigarren bertsoan errimarekin hagitz trakets ibili bazen ere. Berria - Kultura

Seiko motzean, Estitxu Arozena eta Erika Lagoma gazteek egin zuten saiorik onena. Berria - Kultura

Egitasmoa xumea izanagatik ere, interneterako sarbidea gazteen artean zabalduena egonik, bertsolaritzari, eta bereziki bertsozale eta bertsolari gazteei plaza bat egitea du xede **Seiko** Motzak. Berria - Kultura

2 sei laguneko taldea. ik seikote.

Hamburger, Mori, Backstedt, Ziegler, Albasini eta Mori **seikoak** egin zuen aurrera helmugarako 50 kilometro geratzen zirela. Berria - Kirola

Euskaltel-Euskadiko **seikoa** Koldo Fernandez de Larreak, Markel Irizarrek, Aketza Peñak, Antton Luengok, Joseba Zubeldiak eta Igor Antonek osatuko dute. Berria - Kirola

Eutsi zion **seikoan** ere batzuk besteak baino indartsuago zeuden, eta galbahea ibilbidearen gogortasunak egin zuen berriro. Berria - Kirola

3 izlag seik osatua.

Oinezko **seiko** eskoadrilla bat eta zaldizko bi zeuden, denak fusilez armatuak. Jon Maia

Izanan dira jokoak haur eta handientzat, hala nola **seiko** birlak. Herria

4 joko kartetan, sail bakoitzeko seigarren zenbakia.

Andolin Eguzkitza zenak *Egunkaria*-ko **Seiko Urrea** sailean idatzitako azkenaurreko artikuluan. Berria - Euskal Herria

seikoiztu, seikoitz/seikoiztu, seikoizten da/du ad sei halako, sei aldiz handiago bihurtu edo egin.

1998tik 2005era **seikoiztu** egin da atzerritarren kopurua Hegoaldean. Berria - Euskal Herria

Inguruko glaziar batzuen abiada **seikoiztu** dela ondorioztatu dute. Berria - Gaiak

seikote 1 iz sei laguneko taldea. ik seiko 2.

Jean-Michel Galant ABkoa, Frantxoa Maitia eta Monique Larran-Lange PSkoak eta Beñat Gimenez eta Beñat Intxauspe UDFkoak ere **seikote** horretan dira. Berria - Euskal Herria

Jean-Michel Galant ABkoa, Frantxoa Maitia eta Monique Larran-Lange PSkoak eta Beñat Gimenez eta Beñat Intxauspe UDFkoak ere **seikote** horretan dira. Berria - Euskal Herria

Plan hoberik ez neukan gau hartarako eta, **seikoteko** inork trabarik ipini ez zuenez, euren atzetik abiatu nintzen. Jon Arretxe

Hiru **seikotetan** banatuak izanik hauetarik lehenak jokatu du beraz igandean Leitza-ko zine aretoan finalerdia. Herria

Ez zitzaion dolutu, haatik, hurbildu eta beha egon zenari gaitzeko saioa egin baitzuen bertsolari **seikoteak**. Herria

2 sei laguneko musikari taldea.

Kursaaleko emanaldia jazz musikaren estandarretan oinarrituko du **seikoteak**. Berria - Kultura

Larunbatarekin, urriak 29, Ziburuko elizan, *Die Singphoniker* aleman **seikotea**, hogoi bat urte huntan fama gaitza bildua duena. Herria

Disko horretan agerian uzten du **seikoteak** (ahotsa, baxua, bateria, organoa eta ahosoinua eta bi gitarra) non jartzen duen arreta. Berria - Kultura

Harri Sparnaayren aginduetara hari **seikote** batean jo zuen. Berria - Kultura

Genero horretan, ohi den legez, ez dago korurik, eta bakarlariren artean zabalitzen da kantaldia: errezitatibo, aria, cavatina, duo, trio, laukote, boskote eta azken eszenetan **seikote**. Berria - Kultura

seikun izond seikoitza.

Ur ertzean lehendabiziko zitori zuri **seikunak** loretan. Txillardegia

seilatu, seila, seilatzen du ad zigitatu.

Harri bat ekarriz, lehoi-zuloaren sarreran jarri zuten, eta erregeak bere errege-zigiluz eta funtzionarioen zigiluz **seilatu** zuen, Danieli buruz erabakitakoa inork alda ez zeza

Elizen arteko biblia

seilu 1 iz zigilua.

Biharamunean Gombrowiczen testuaren fotokopia bat egin du postariak, posta-kutxa bateko zenbakia idatzi du bertan, gutunazalean sartu du fotokopia, **seilua** jarri dio gero, eta eskuz esku eman dio N. jaun artistari. [Berria - Kultura](#)

Bat-batean, eguerdi hartan jasotako gutun berriaren **seiluan** itsatsi zituen begiak, eta Ingalaterrako Isabel erreginarene irudia ikusi zuen. [Joxemari Urteaga](#)

Hamar rappen ordaindu behar omen zituen, bere helbidera oker bidalia zioten gutunaren **seiluengatik**. [Joxe Austin Arrieta](#)

Seilu bat gutunari erantsi eta gero buzoian uzteko. [Koldo Biguri](#)

Idazteko asmaoa dutenei **seiluarekiko** kartazala bidaltzeko eskatzeak, zer zentzu izan dezake? [Bernardo Atxaga](#)

Munduko posta-zerbitzu guztietako **seiluak** lortzea. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Baziren larruz forratutako liburu itzelak, edo gutun-azaletako **seiluen** tamainakoak. [Iñaki Mendiguren](#)

Seiluari hortzak apurtzen bazaizkio, ez du balio. [Joxemari Urteaga](#)

2 marka, ezaugarria.

Benetan bertso ederrak, Imanolen **seilua** eta ukitu leundua daramatenak. [Pello Zabala](#)

3 (hitz elkartuetan)

Seilu bilduma egiten hasi nintzela esan nien eta bildumagile askorekin harremanetan jarri nahi nuela. [Aitor Arana](#)

Egun batean, etsipenaren etsipenaz, sutara bota nuen nire **seilu**-bilduma. [Monika Etxebarria](#)

-Ongi nago! -oihu egin zuen gorantz, posta-**seilu** baten tamaina zuen argiunerantz, tranpola irekirantz, alegia-. [Iñaki Mendiguren](#)

Aipatutako arau-hausteetako bat eginez gero, etxean jasotzen da abisua, eta ordaintzeko zerga etxean edo prentsa eta tabakoa saltzeko guneeetan mailaren arabera isun **seiluak** saltzen dira. [Berria - Harian](#)

sein 1 iz haurra.

Buru halakoetan nerabilerla, andrazko bat agertu zen etxeko ate-postan, **sein** bat besoetan eta neskatxo bat gonari oraturik. [Edorta Jimenez](#)

Jose Luis, **sein** txikerra zala, oso lotia ei zan. [Xabier Amuriza](#)

-Trankil, **seina**, oraintxe emango dizu amatxuk bazkaria. [Urtzi Urrutikoetxea](#)

2 (hitz elkartuetan)

-Eta gero **sein** piloa iladan. [Xabier Amuriza](#)

seina 1 adlag bakoitzari sei, bakoitzak sei.

Bazen han gizon erraldoi bat, esku-oinetan **seina** behatz, orotara hogeita lau, zituena. [Herria](#)

Hiriburu eta Mugerrek **seina** ordezkari dute, beste hiru herriek aldiz launa. [Herria](#)

Lau izakiok **seina** hego zituzten. [Elizen arteko biblia](#)

Botoientzako hamabi kako beltz behean -alde bakoitzean **seina**-. [Anton Garikano](#)

Denen artean, begira botata, 1.205.000 kintal metriko belar jo zuten, eta **seina** pezeta kintaleko: 7.230.000 pezeta. [Pello Zabala](#)

Talde bakoitzak **seina** saio jokatu ditu, eta sei horietatik hiru irabazi eta beste horrenbeste galdu. [Berria - Kultura](#)

2 seinako izlag

Seinako berdinketarekin Bereikuak saskiaren takoa hautsi zuen, eta aldagelatar joan behar izan zuen. [Berria - Kirola](#)

Irabazleek **seinakoarekin** apurtu zuten partida, hamalau tanto erreskadan egin zituztenean [Berria - Kirola](#)

seinaka (orobat seinazka g.er.) 1 adlag seinako multzoetan.

Han bebiltzan eurak, bonbaz txikitutako hirietako hondakinen artean alderrai neguko hotzak zapalduta, basoetan janari bila azterka, umeak bakarrik, umeak bikoteka, umeak taldeka, launaka, **seinaka**, hamarnaka, piltzarrak oinen inguruan bildurik oinetakoen orde, haien aurpegi zargalduak lokatzez ziprztinduak. [Oskar Arana](#)

Ur gainean dabiltzan lazunei begiratu die; hortxe daude, banaka, hirunaka, **seinaka**... [Paddy Rekalde](#)

Seinaka egin zituen jasoaldiak, baina azkenekoan 14 egin zituen; guztira, 80 jasoaldi. [Berria - Kirola](#)

Gero, hamaraka, **seinaka** edo launaka eramandarazten zituen bi mendien artean gordea zegoen baratze miresgarrira iratzartzen zirelarik. [Aurelia Arkotxa](#)

2 seinakako izlag

Seinakako multzotan hiru emakumek eta hiru gizonek egon behar zuten, errenkadan, zerrenda osatu artean-. [Berria - Harian](#)

Haren atzetik hamabi zaldi gorri-beltzak zihoazen, **seinakako** ilaretan, sei orain eta sei gero. [Felipe Juaristi](#)

Gauza bitxia zen, alegorikoa ematen zuena, neskatxoak lasterka eta oihuka jolasean ikustea, eta aldi berean fraideak bost edo **seinakako** ilaratan patioari jiraka. [Josu Zabaleta](#)

seinalagailu iz seinalatzeko gailua.

Debekaturik zegoen, orobat, orrien artean **seinalagailu** bat uztea bera, edo orriaren ertza tolestea. [Juan Garzia](#)

seinalagarri izond seinalatzeko modukoa.

Guk ez baitugu ezer **seinalagarririk** inguruetan, ezer nabarmenik alegia. [Felipe Juaristi](#)

Cajal-en erantzuna da, dekadentziarik ez dagoela, zientzia produkzio **seinalagarririk** inoiz ez delako egon. [Joxe Azurmendi](#)

Seinalagarri da manera batez hango bereko Bam hiria bezalako bat kasik osoki suntsitua izan dela. [Herria](#)

seinalakuntza iz seinalatzea.

Amerikar film askori esker egia erran, galaxiatik kanpoko izaki horien **seinalakuntza** zehatza baneukan: kuskandel larrua, suge mihi eztena, dinosauro beso eta zangoak. [Itxaro Borda](#)

seinalamentean (corpusean sinalamentean soilik) adlag

Belateko lapurrak, Iruñean urkatu dituzte 1818ko abenduaren 4an, Santa Barbara egunez **sinalamentean**. [Patziku Perurena](#)

seinalatu

seinala, seinalatzen (*orobat seinalatu g.er.*) **1** du *ad* zerbaiti, nabarmentzeko edo bereizteko, seinale bat ezarri.

Periodikoan azpian zegoen errepide komarkalen mapa, errotuladore gorri **seinalatua** eta puntutik puntura heltzeko behar zen minutu kopurua anotatua. **Harkaitz Cano**

Heletaruntz eta zubiaren ondotik ezker, bidea **seinalatua** izanen da. **Herria**

Punta doblatu batek **seinalaturiko** orrialdean zabaldu zuen Norak liburua. **Anjel Lertxundi**

Horregatik dago hainbeste buia, eta buia lerroek **seinalaturiko** erretenetik nabigatu behar duzu. **Joseba Sarrionandia**

Baina zer txikitu **seinalatu** zenieten zuen atzetik etorriko zirenei. **Anjel Lertxundi**

Bertze irris batek **seinalatuko** din gure egun dohatsuetako une bakoitza. **Jon Muñoz**

2 adierazi, markatu.

Alferrik dute erlojuek arratsaldeko hirurak eta laurdenak **seinalatzen**. **Joxerra Garzia**

Almuedanoak eskua mugitu zuen karel zirkularrean zehar, Meka hiri santuaren norabidea **seinalatzen** zuen marka, harrian zizelatu, aurkitu arte. **Jon Alonso**

Eskuinean dauka Jerusalem **seinalatzen** duen gezia. **Elizen arteko biblia**

Haren bekoki urdin distiratsuan, lerro mehe ilun batek **seinalatzen** zuen zauri orbaindua. **Jon Muñoz**

Katiximako haurrek [...] ekarri dituzten argiek **seinalatu** dute zer lekua zuen lur huntan bere lekukotasunaz hoin betea izan den bizi horrek. **Herria**

Ez zuten garbi **seinalatzen** beste teoria berri bateranzko bidea. **Xabier Olarra**

Alta, Virgen del Caminotik jalgita, ezker aldera gidatua ninduen geziak beste bide bat, agian, gidaliburuak **seinalatzen** ez duena. **Piarres Aintziart**

3 hatzaren edo kideko zerbaiten bidez adierazi edo erakutsi.

Kartoizko kaxa **seinalatu** zidan: "Ekarridazu, mesedez". **Bernardo Atxaga**

"Eser zaitezte denak hor", eskatu zigun gizonak lehen aulki ilara **seinalatuz**. **Bernardo Atxaga**

Eta zer da hori dena, Hermione? -galdetu zion Harryk, haren ondoko aulkian zeuden [...] hiru poltsa handiak **seinalatuz**. **Iñaki Mendiguren**

Nire gurasoen etxeko salan ere badago antzeko bat -esan zidan Mary Annek jantokian zintzilikatua zegoen Picassoren koadro ospetsuaren erreproduzio bat **seinalatuz**-. **Bernardo Atxaga**

Non zegoen **seinalatu** zioten. **Jon Muñoz**

Ikasketa-buruak skai berdeko sofa bat **seinalatzen** dit. **Anjel Lertxundi**

Gordelekua **seinalatu** nion. **Bernardo Atxaga**

Ni **seinalatu** ninduen. **Bernardo Atxaga**

Atea **seinalaturik**, gelatik bota ninduen. **Anjel Lertxundi**

Pozak txoratzen jarri ziren eltzea **seinalatu** eta nahi zuten guztia hartzeko esan nienean. **Bernardo Atxaga**

Iduritu zitzaidan ezen Jainkoa mapa hartaz mintzatzen ari zitzaidala eta mapa haren bidez **seinalatzen** ari zitzaidala neure xedea eta etorkizunerako bidea. **Joan Mari Irigoien**

Ilargia **seinalatzen** zaiolarik [...] hatzari begira geratzen dena ergeltzat jo ohi da. **Joxerra Garzia**

Errealitatea ez dago behatzez **seinalatzerik**, zeren errealitatea adreilu idealez jasotako eraikin edo asmakina baita. **Iñaki Segurola**

4 (nola adieraziz)

-Gauzak hatzaz **seinalatzen** zitizten; orduan, nik, baietz adierazteko, buruaz keinu bat egin eta *Awright* esaten nian. **Lopez de Arana**

Ruche jaunak hatz batez **seinalatu** zuen paretatik zintzilik zegoen tipula-korda. **Jon Muñoz**

Hatzez **seinalatzen** du erosi nahi duena: esnea, pastak, marmelada. **Eskarne Mujika**

Kalezulo baten hondoan zegoen etxe bat **seinalatzen** zuen aitak, hatza luzaturik. **Juan Kruz Igerabide**

-Horixe! -esan zuen Pettigrewek zoli, bere esku moztuaz Hermione **seinalatuz**-. **Iñaki Mendiguren**

Luthek zerbaít ahoskatu zuen ahopetik eta Cumhailengana **seinalatu** zuen besoaz. **Joanes Urkixo**

Nire bihotza **seinalatu** zuen gero makuluaren puntaz, eta beste hizketa-saio luze bati ekin zion berriro. **Anjel Lertxundi**

Amonak begiradarekin **seinalatu** ninduen. **Anjel Lertxundi**

-Lan ederra izango du Harry hemen aurkitzen -esan zion Ronek, maineldun leihoez bestaldean mara-mara ari zuen elur zurrunbilotsua buru-keinu **seinalatuz**-. **Iñaki Mendiguren**

Aita **seinalatuko** du begi-keinu izugarri batez. **Josu Zabaleta**

Gero, oso astiro, hutsik zeukan eskua altxatu zuen, eta zuzenean Ron **seinalatu** zuen. **Iñaki Mendiguren**

-Hartzen al ditu agindutako horma-belarrak? -galdetu zuen, burua erdi jiratu, eta Nora **seinalaturik**. **Anjel Lertxundi**

5 irud/hed

Ertzainek ez zuten egilearen aztarrenik atera, baina denek Marro **seinalatzen** zuten ezkutuan. **Juan Kruz Igerabide**

Pertsona bat **seinalatzen** du, izen eta guzti. **Gotzon Garate**

6 adierazi, nabarmendu.

Gainera, zantzu gehienek **seinalatzen** digute ilargi amandrea gertuago sentitzen zuela euskaldunak, eguzkia bera baino. **Pello Zabala**

-Andaluzia aldean, uholde pare bat **seinalatzen** da garai honetan. **Pello Zabala**

-Zenbat denbora duk gidabaimena atera huela? asko ez - **seinalatu** zuen Haritzek. **Fernando Morillo**

Eta bakarrik zagok - **seinalatu** zion Alexek. **Fernando Morillo**

-Besteengana itzuli beharko diagu - **seinalatu** zuen Imanolek-. **Fernando Morillo**

Liburu hunek, bertzalde, Donostiako jatetxe hobereenak ezagutzeko parada emaiten du, baktokian zer aurki daitaiken **seinalatuz**. **Herria**

Altamira-ren nazioa [...] ekibokoa da, eta A. Rivero Rodríguez-ek haren kontraesan errepikatua **seinalatzen** ditu. **Joxe Azurmendi**

7 (era burutua izenondo gisa)

Hurrengo eguna juduen pazko-bildotsaren festa **seinalatua** zelako ibili ginen bezperan hainbat atetan izarrak margotzen. **Anjel Lertxundi**

Gezurra, hurrengo eguna zen-eta Adlerhausera joateko egun **seinalatua**. **Anjel Lertxundi**

"Poztu hadi egun **seinalatuotan**!", erantsi du begiraleak. **Anjel Lertxundi**

Errege egunez eman ohi zuen urteko data **seinalatuenen** berri apaizak pulpitotik. **Pello Zabala**

Garizuma sasoi **seinalatua** denez, baditu bai, esaera zahar eta atsoitiz batzuk bere bizkar jasotakoak. **Pello Zabala**

Halaber, toki **seinalatua** dute Somerset Maugham, Graham Greene, E.A. Waugh, edo J. Kerouac bezalako publiko zabaleko autoreek. **Anjel Lertxundi**

Manuel Castells bezalako analista **seinalatua** honelako ondoriora iritsi da: [...]. **Joseba Zulaika**

Reclus jaun geografo hori anarkista **seinalatua** izan zen. **Iñaki Segurola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atea seinalatu (4); atzamarrez seinalatu (3); bidea seinalatu zidan (3); burua seinalatu (5); burua seinalatu zuen (3); data seinalatu (3)

egun seinalatu (22); egun seinalatu hartan (4); egun seinalatu horretan (3); erlojua seinalatu (5); estatua seinalatu (3); gela seinalatu (7); gela seinalatu zuen (3); gizona seinalatu (3); harry seinalatu (3); hatzaz seinalatu (7); hatzaz seinalatu zuen (5); hatzez seinalatu (4)

leihoa seinalatu (3); lulu seinalatu zuen (3); ni seinalatu ninduen (4)

puntu bat seinalatu (4)

seinalatu zuen hatzaz (4)

xubani seinalatu (16); xubani seinalatu zizkion (16); zerbaít seinalatu (4)

egun seinalatua (12); toki seinalatua dute (4)
egun seinalatueta (7)
aita seinalatu du (8); ama seinalatu du (11); emakumezkoa seinalatu du (3); pertsoniak seinalatu ditu (4); semea seinalatu du (7); ugazalaba seinalatu du (8)
egun seinalatuotan (4)
hatzaz seinalaturik (3)
aita seinalatu (5); atea seinalatu (4); hatzaz seinalatu (4); liburua seinalatu (4); mahaia seinalatu (4); mapa seinalatu (3); seinalatu esan nion (3); seinalatu esan zuen (4); vasili seinalatu (3); zerbait seinalatu (3)
hatzaz seinalatu (6); hatzez seinalatu (5); zerbait seinalatu (4)

seinalatu, seinala, seinalatu (orobat *senalatu* g.er.) 1 du ad zerbaiti, nabarmentzeko edo bereizteko, seinale bat ezarri.

Periodikoen azpian zegoen errepede komarkalen mapa, errotuladore gorri **seinalatu** eta puntutik puntura heltzeko behar zen minutu kopurua anotatua. [Harkaitz Cano](#)

Heletaruntz eta zubiaren ondok ezker, bidea **seinalatu** izanen da. [Herria](#)

Punta doblatu batek **seinalaturiko** orrialdean zabaldu zuen Norak liburua. [Anjel Lertxundi](#)

Horregatik dago hainbeste buia, eta buia lerroek **seinalaturiko** erretenetik nabigatu behar duzu. [Joseba Sarrionandia](#)

Baina zer txikitu **seinalatu** zenieten zuen atzetik etorriko zirenei. [Anjel Lertxundi](#)

Bertze irris batek **seinalatu** din gure egun dohatsuetako une bakoitza. [Jon Muñoz](#)

2 adierazi, markatu.

Alferrik dute erlojuek arratsaldeko hirurak eta laurdenak **seinalatu**. [Joxerra Garzia](#)

Almuedanoak eskua mugitu zuen karel zirkularrean zehar, Meka hiri santuaren norabidea **seinalatu** zuen marka, harrian zizelatu, aurkitu arte. [Jon Alonso](#)

Eskuinean dauka Jerusalemara **seinalatu** duen gezia. [Elizen arteko biblia](#)

Haren bekoki urdin distiratsuan, lerro mehe ilun batek **seinalatu** zuen zauri orbaingua. [Jon Muñoz](#)

Katiximako haurrek [...] ekarri dituzten argiek **seinalatu** dute zer lekua zuen lur huntan bere lekukotasunaz hoin betea izan den bizi horrek. [Herria](#)

Ez zuten garbi **seinalatu** beste teoria berri bateranzko bidea. [Xabier Olarra](#)

Alta, Virgen del Caminotik jalgita, ezker aldera gidatua ninduen geziak beste bide bat, agian, gidaliburuak **seinalatu** ez duena. [Piarres Aintziart](#)

3 hatzaren edo kideko zerbaiten bidez adierazi edo erakutsi.

Kartoizko kaxa **seinalatu** zidan: "Ekarridazu, mesedez". [Bernardo Atxaga](#)

"Eser zaitezte denak hor", eskatu zigun gizonak lehen aulki ilara **seinalatu**. [Bernardo Atxaga](#)

Eta zer da hori dena, Hermione? -galdetu zion Harryk, haren ondoko aulkian zeuden [...] hiru poltsa handiak **seinalatu**. [Iñaki Mendiguren](#)

Nire gurasoen etxeko salan ere badago antzeko bat -esan zidan Mary Annek jantokian zintzilikatua zegoen Picassoren koadro ospetsuaren erreprodukzio bat **seinalatu**-. [Bernardo Atxaga](#)

Non zegoen **seinalatu** zioten. [Jon Muñoz](#)

Ikasketa-buruak skai berdeko sofa bat **seinalatu** dit. [Anjel Lertxundi](#)

Gordelekua **seinalatu** nion. [Bernardo Atxaga](#)

Ni **seinalatu** ninduen. [Bernardo Atxaga](#)

Atea **seinalaturik**, gelatik bota ninduen. [Anjel Lertxundi](#)

Pozak txoratzen jarri ziren eltzea **seinalatu** eta nahi zuten guztia hartzeko esan nienean. [Bernardo Atxaga](#)

Iduritu zitzaizkidan ezen Jaunkoia mapa hartaz mintzatzen ari zitzaizkidan eta mapa haren bidez **seinalatu** ari zitzaizkidan neure xedea eta etorkizunerako bidea. [Joan Mari Irigoien](#)

Ilargia **seinalatu** zaiolarik [...] hatzari begira geratzen dena ergeltzat jo ohi da. [Joxerra Garzia](#)

Errealitatea ez dago behatzez **seinalaturik**, zeren errealitatea adreilu idealez jasotako eraikin edo asmakina baita. [Iñaki Seguro](#)

4 (nola adieraziz)

-Gauzak hatzaz **seinalatu** zitizten; orduan, nik, baietz adierazteko, buruaz keinu bat egin eta *Awright* esaten nian. [Lopez de Arana](#)

Ruche jaunak hatz batez **seinalatu** zuen paretatik zintzilik zegoen tipula-korda. [Jon Muñoz](#)

Hatzez **seinalatu** du erosi nahi duena: esnea, pastak, marmelada. [Eskarne Mujika](#)

Kalezulo baten hondoan zegoen etxe bat **seinalatu** zuen aitak, hatza luzaturik. [Juan Kruz Igerabide](#)

-Horixe! -esan zuen Pettigrewek zoli, bere esku moztuaz Hermione **seinalatu**-. [Iñaki Mendiguren](#)

Luthek zerbait ahoskatu zuen ahopetik eta Cumhailengana **seinalatu** zuen besoaz. [Joanes Urkixo](#)

Nire bihotza **seinalatu** zuen gero makuluaren puntaz, eta beste hizketa-saio luze bati ekin zion berrira. [Anjel Lertxundi](#)

Amonak begiradarekin **seinalatu** ninduen. [Anjel Lertxundi](#)

-Lan ederra izango du Harry hemen aurkitzen -esan zion Ronek, maineldun leihoez bestaldean mara-mara ari zuen elur zurrunbilotsua buru-keinu **seinalatu**-. [Iñaki Mendiguren](#)

Aita **seinalatu** du begi-keinu izugarri batez. [Josu Zabaleta](#)

Gero, oso astiro, hutsik zeukan eskua altxatu zuen, eta zuzenean Ron **seinalatu** zuen. [Iñaki Mendiguren](#)

-Hartzen al ditu agindutako horma-belarrak? -galdetu zuen, burua erdi jiratu, eta Nora **seinalaturik**. [Anjel Lertxundi](#)

5 irud/hed

Ertzainek ez zuten egilearen aztarrenik atera, baina denek Marro **seinalatu** zuten ezkutuan. [Juan Kruz Igerabide](#)

Pertsona bat **seinalatu** du, izen eta guzti. [Gotzon Garate](#)

6 adierazi, nabarmendu.

Gainera, zantzu gehienek **seinalatu** digute ilargi amandrea gertuago sentitzen zuela euskaldunak, eguzkia bera baino. [Pello Zabala](#)

-Andaluzia aldean, uholde pare bat **seinalatu** da garai honetan. [Pello Zabala](#)

-Zenbat denbora duk gidabaimena atera huela? asko ez - **seinalatu** zuen Haritzek. [Fernando Morillo](#)

Eta bakarrik zagok - **seinalatu** zion Alexek. [Fernando Morillo](#)

-Besteengana itzuli beharko diagu - **seinalatu** zuen Imanolek-. [Fernando Morillo](#)

Liburu hunek, bertalde, Donostiako jatetxe hobereenak ezagutzeko parada emaiten du, bakoitzean zer aurki daitaiken **seinalatu**. [Herria](#)

Altamira-ren nazioa [...] ekibokoa da, eta A. Rivero Rodríguez-ek haren kontraesan errepikatua **seinalatu** ditu. [Joxe Azurmendi](#)

7 (era burutua izenondo gisa)

Hurrengo eguna juduen pazko-bildotsaren festa **seinalatu** zelako ibili ginen bezperan hainbat atetan izarrak margotzen. [Anjel Lertxundi](#)

Gezurra, hurrengo eguna zen-eta Adlerhausera joateko egun **seinalatu**. [Anjel Lertxundi](#)

"Poztu hadi egun **seinalatuotan**!", erantsi du begiraleak. [Anjel Lertxundi](#)

Errege egunez eman ohi zuen urteko data **seinalatu** berri apaizak pulpitotik. [Pello Zabala](#)

Garizuma sasoi **seinalatu** denez, baditu bai, esaera zahar eta atsoitz batzuk bere bizkar jasotakoak. [Pello Zabala](#)

Halaber, toki **seinalatu** dute Somerset Maugham, Graham Greene, E.A. Waugh, edo J. Kerouac bezalako publiko zabaleko autoreek. [Anjel Lertxundi](#)

Manuel Castells bezalako analista **seinalatua** honelako ondoriara iritsi da: [...]. **Joseba Zulaika**

Reclus jaun geografo hori anarkista **seinalatua** izan zen. **Iñaki Segurola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atea **seinalatu** (4); **atzamarrez** **seinalatu** (3); **bidea** **seinalatu** zidan (3); **burua** **seinalatu** (5); **burua** **seinalatu** zuen (3); **data** **seinalatu** (3)

egun **seinalatu** (22); **egun** **seinalatu** hartan (4); **egun** **seinalatu** horretan (3); **erlojua** **seinalatu** (5); **estatua** **seinalatu** (3); **gela** **seinalatu** (7); **gela** **seinalatu** zuen (3); **gizona** **seinalatu** (3); **harry** **seinalatu** (3); **hatzaz** **seinalatu** (7); **hatzaz** **seinalatu** zuen (5); **hatzez** **seinalatu** (4)

leihoa **seinalatu** (3); **lulu** **seinalatu** zuen (3); **ni** **seinalatu** ninduen (4)

puntu bat **seinalatu** (4)

seinalatu zuen **hatzaz** (4)

xubani **seinalatu** (16); **xubani** **seinalatu** zizkion (16); **zerbait** **seinalatu** (4)

egun **seinalatua** (12); **toki** **seinalatua** **dute** (4)

egun **seinalatu**etan (7)

aita **seinalatuko** **du** (8); **ama** **seinalatuko** **du** (11); **emakumezkoa** **seinalatuko** **du** (3); **pertsonaiak** **seinalatuko** **ditu** (4); **semea** **seinalatuko** **du** (7); **ugazalaba** **seinalatuko** **du** (8)

egun **seinalatu**otan (4)

hatzaz **seinalaturik** (3)

aita **seinalatuz** (5); **atea** **seinalatuz** (4); **hatzaz** **seinalatuz** (4); **liburua** **seinalatuz** (4); **mahaia** **seinalatuz** (4); **mapa** **seinalatuz** (3); **seinalatuz** **esan** nion (3); **seinalatuz** **esan** zuen (4); **vasili** **seinalatuz** (3); **zerbait** **seinalatuz** (3)

hatzaz **seinalatzen** (6); **hatzez** **seinalatzen** (5); **zerbait** **seinalatzen** (4)

seinalatzaile *izond* seinalatzen duena.

Ez dinat ezer ikusten. –Denverrek hatz **seinalatzaileari** segitzen dio. **Anton Garikano**

seinale *(orobat **sinale** g.er. eta **siñale** g.er.)* 1 *iz* zerbait adierazten edo ezagutarazten duen aztarna, ikurra, higidura edo ezaugarria.

Zeruaren keinu, aieru eta **seinale** eta halakoetan sinesten hasiko ote nintzen, bada? **Edorta Jimenez**

Pasadan oharitu zen gizonaren ilajejan xerlo horiak bazeudela, tindagaiaren hondakina, agian, zaharrieriaren **seinale** behin-betikoa, agian. **Jon Alonso**

-Zer **seinale** ematen diguzu hori egiteko aginpidea duzula frogatzeko? **Elizen arteko biblia**

Apostolu naizela adierazten duten **seinaleak**. **Elizen arteko biblia**

Eta hau egia dela frogatzeko, **seinale** hauek ematen dizkizut. **Askoren artean**

Emanen dizuet **seinale** bat, ezagutaraziko zaituztena. **Piarres Aintziart**

Susmoaren **seinale** gisa interpretatzen da seriotasun hori. **Josu Zabaleta**

Seinale eta mirari bila dabiltzanek, errepara bieziote Frantziskoren santutasunari, eta aurkituko dute bilatzen dutena. **Askoren artean**

Galera handi baten **seinalea** daramagu kopetan idatzia, eguzki betearen argitan ezin ikus daitekeen **seinale** bat. **Iñaki Segurola**

Beste **seinale** bat agertu zen zeruan: herensuge gorri handi bat, zazpi buru eta hamar adar zituena, eta buruetan koroa bana. **Elizen arteko biblia**

Gérard-ek arrazakeriaren **seinale** diren alukeriak noizbehinka eta alegia deus ez botatzen ditu. **Eneko Bidegain**

Mary Annek zigarro bat piztu du, animatuta zegoelako **seinale**. **Bernardo Atxaga**

«Herritarrek **seinale** argi-argia eman digute eta errespetatuko dugu», erantsi zuen. **Berria - Harian**

Gero, lurrean ahozpeztu eta, turutek **seinalea** ematean, deiadar egin zioten Jainkoari. **Elizen arteko biblia**

-Armada abiatzeko **seinalea** kanoikada bat izango duk. **Edorta Jimenez**

Abiatzeko **seinalea** emateko. **Elizen arteko biblia**

Faramirrek **seinale** bat egin eta Maizterra erretiratu egin zen, gurkera eginez. **Agustin Otsoa**

Behin **seinale** hori eginda, Irkutskeko defendatzaileak eraso guneetara bilduko ziren. **Karlos Zabala**

Azkenik, bedeinkatu egin zituen, gurutzearen **seinalea** eginez. **Askoren artean**

Hitz hauek esanik, gurutze santuaren **seinalea** egin zion bekokian. **Askoren artean**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Seinale txar horien aurka sintoma hobeago batzuk ere bazeuden. **Iñaki Mendiguren**

Bi bezero sartu zaizkit gaur zu ontziak garbitzen ari zinela, eta **seinale** ona izan da hori. **Xabier Aranburu**

Hau nahiko berria da euskal munduan eta, zalantza gabe, ez da batera **seinale** txarra. **Pello Salaburu**

Amodioaren estiren auhena eta soldaduen herotsak zeramatzen gogoan, lanjer hurbil baten **seinale** isila bailiran. Zeruan beste **seinale** handi eta harrigarri bat ikusi nuen: zazpi aingeru zazpi izurriekin; azken izurriak ziren, horietan burutzen baitzen Jainkoaren zigorra. **Itxaro Borda**

Jainkoak maite eta lagunduko zuelako **seinale** ezin argiago gisa. **Jon Alonso**

Zer egin? gizon hau mirarizko **seinale** asko egiten ari da! **Elizen arteko biblia**

Parte txarreko **seinale** hark lur jota utzi zuen. **Karlos Zabala**

Indian pertsona bati izterretik eustea ohorezko **seinale** da. **Gotzon Garate**

Euskal Herrian beltzik ez duk eta azken beltza ikusten denean, miseriaren **seinale** garratza dela aitortzeko. **Itxaro Borda**

Azkenean, leihora hurbildu eta ohiko **seinalea** egin zuen. **Askoren artean**

Lau nota botatzen zituen beti -mi, la, mi, la-, norbaitekin harremanetan jartzeko **seinale** ezkutua ziruditenak. **Ramon Saizarbitoria**

Azkenaren aurreko **seinaleak**.

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ordaintzen ez zuenari beso bat moztuko zitzaion, lapur **seinale** gisa, jendeak hala ezagun zezan. **Karlos Linazasoro**

Argi **seinale** nabariak azaldu omen ziren zeruan. **Bernardo Atxaga**

Biharamunean antzeman zuten lehenbiziko arrisku-**seinale** zehatza. **Xabier Aranburu**

Ametsaren errepikapen erlatiboarekin harritu samar nengoan, baina artean ez zitzaizkidan alarma-**seinaleak** piztu. **Iban Zaldua**

Sendagile eta ingeniariet neke handiak hartu behar izaten dituzte matxura-**seinaleak** agertzen dituzten piezak konpontzeko edo ordezkatzeko. **Irene Aldasoro**

Martiri-**seinale** haiek ez zuten ikusleen barnean beldur-ikara sortzen. **Askoren artean**

Drogak bihurtu ziren askatasun-**seinale**, eta,aldi berean, gatibu tristen ikur. **Juan Kruz Igerabide**

Larunbata ere eman nien, atsedeen-eguna, nire eta haien arteko elkartasun-**seinale** izateko. **Elizen arteko biblia**

Bainugela edukitzea, aberastasun-**seinale**, gero eta normalago bihurtu zen gerra ostean Elkartasun **seinale** legez, jaiki eta Mentxuri hurbildu zitzaion. **Joseba Urteaga**

Guztiak santutasun **seinale** bereziz aberastuak izan ziren. **Askoren artean**

Lagun on batekin bide bera egin eta borondate bereko ez izatea, gaiztakeria-**seinale** da eta zentzu faltaren adierazle garbia. **Askoren artean**

Mendebaldeko Zibilizazioa zela bere espezieko ordezkari bakarra, desintegrazio-**seinale** ukaezinik ageri ez zuena. **Iñaki Mendiguren**

Uria zen altxaturik zekarren esku, ahurra aurrerantz, bake- **seinale** gisa. **Agustín Otsoa**

4 marka.

Eta bezperako gogoeta berak eginik, alboko atepak **seinale** gorri markatu zituen. **Patxi Zubizarreta**

Horretan, burua ezer ulertu ezinik eta bihotza ezohiko ikuskariagatik kezka bete zuela, iltzeen **seinaleak** hasi zitzaizkion esku-oinetan agertzen. **Askoren artean**

Jipoiak utzitako **seinaleak** dauzka soinean nabarmen. **Rafa Egiguren**

Ikuskariak, desagertzean, halako kartsutasun miragarri bat utzi zion bihotzean, eta hori bezain **seinale** miragarriak haragian inprimatuak. **Askoren artean**

Santuaren gorputzean zigilu bezala markaturiko Errege gorenaren **seinaleak**. **Askoren artean**

5 zerbeit jakinarazteko, argibideren bat emateko erabiltzen den abenikozko ikur grafikoa.

Gidariak askotan ez dituzte errespetatzen **seinaleak**. **Berria - Ekonomia**

Maniobraria esnatu eta **seinalea** aldatzen du. **Fernando Rey**

Semaforoan bide librearen **seinalea** jarri nuen zerbitzuko bagoneta motorduna sar zedin. **Fernando Rey**

Bide bakoitzaren hasieran jarri **seinale** bat, ezpatak zein hiritara joan behar duen adieraziz. **Elizen arteko biblia**

Irteeran, **seinale** zahar batean, inguruko herrien izenak zeuden idatzita: ezkerrera, Cestona 14 km, Azpetia 22 km; eskuinera, Guetaria 3 km eta Zumaya 9 km. **Rafa Egiguren**

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Besteekin komunikatzeko balio ez duen **seinale** sistema bat erabiltzea ez da erabilgarria, alegia. **Berria - Gaiak**

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Beste bide-**seinale** batzuen artean, bazen bat "San Sebastián 3 km" jartzen zuena. **Inazio Mujika Iraola**

Kataroen lurraldeak oraindik, autopistako bide-**seinaleak** ondo gogoratzen duen bezala. **Mikel Hernandez Abaitua**

Hazparneko herriak erabaki du bide **seinaleak** emaitza bide eta bidexka guzietan. **Herria**

Bide-**seinale** elebidunak direla eta ez direla. **Aingeru Epaltza**

Zurezko kale-**seinale** zahar bat zegoen zintzilikak kandela pozoitsuak saltzen zituen denda baten gainean. **Iñaki Mendiguren**

Motorra trafiko-**seinale** baten kontra utzi, eta une batez, eskuak gerrian, pentsatzen ahalegindu nintzen. **Iban Zaldúa**

8 eroalaren batek transmititzen duen gauza entzungaia, ikusgaia edo kontrolatzailea.

'Galileo' sistemaren sateliteak lehenengo **seinaleak** igorri ditu. **Berria - Gaiak**

Soinu horiek bibrazio mekanikoak dira, eta horiek garunean prozesatzeko moduko **seinale** bihurtzeak ingeniariaritzaz-azaz interesgarri eta zailak sorrarazten ditu. **Irene Aldasoro**

Badirelako ikusmen sisteman mugimenduaren atzemaile bereziak, erretinan elkarrengandik hurbil dauden puntuetan eragina duten **seinaleak** kodetzeko gai direnak. **Josu Zabaleta**

Laborategian **seinalea** analizatzean, [...]. **Lourdes Oñederra**

Antz handiagoa du Morse **seinale** batekin korrante beti-berdin batekin baino. **Irene Aldasoro**

Bip-bip **seinaleak** Agataren belarria oihartzun metalikoz bete zuten. **Itxaro Borda**

Ezinbestekoa da muskuluek oso bizkor erantzutea uzkuertzeko agintzen dien **seinaleari**. **Irene Aldasoro**

Seinale horiek, nerbio-konexioetan zehar garunera iristean, gutxitu egiten dute ADHren emaria; horren ondorioz, gernu-ekoizpena handitu, eta odol-bolumena murrizten laguntzen dute. **Irene Aldasoro**

Muskulu bat luzatzen den guztietan, haren nerbio-amaierak **seinale** bat sortzen dute; **seinale** hori, bizkar-muinera iritsi bezain laster, nerbio-amaieretara bideratzen da berriro, mugimendu-neurona batetik zehar, eta nerbio-amaierak muskulua uzkurrazten dute. **Irene Aldasoro**

Garunetik muskuluraino [...] **seinalea** milisegundo batzuetan helaraztea da diseinuaren lehenengo arazoa. **Irene Aldasoro**

Baina **seinale** eferente bat igortzen da, eta ikusleak **seinale** hori begiaren inolako mugimenduri ez dagokion **seinale** erreferente batekin alderatuz, "mugitzen" ikusten du mundua. **Josu Zabaleta**

9 (izenondoekin)

Seinale ahul batek, berriz, maiztasun apalean transmitituko ditu bulkadak. **Irene Aldasoro**

Soinu-bibrazioak **seinale** elektriko (edo agian kimiko) bihurtzen direla belarrian. **Irene Aldasoro**

Inguruko nerbio zelula batek **seinale** elektriko bat sortzen du, eta garunera igarotzen da seinalea. **Irene Aldasoro**

Seinale kontrajarri horiek elkarri gehitzen (edo kentzen) zaizkio, eta, azken emaitzak abiatze-atalsea gainditzen badu, beste bulkada bat transmititzen da; gainditzen ez badu, berriz, blokeaturik geldituko da mezua. **Irene Aldasoro**

Beste arazo bat, berriz, **seinale** entzungarriak nahiko konplikatuak izateak sortzen du, Ez dakigu nola ateratzen duen garunak hain informazio zehatza **seinale** aski landugabe horietatik. **Irene Aldasoro**

10 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aurreko kapituluetan ikasi dugu zer edo zer **seinale**-sarreraren mekanismoez, eta aipatu ditugu **seinale**-irteeraren mekanismo batzuk ere, eta nola haien bitartez bihurtzen den nerbio-bulkada bat benetako ekintza: muskulu-uzkurtze, esate baterako. **Irene Aldasoro**

Garunera iristen diren **seinale** mota berriak interpretatzen ikasi behar du, kasu horretan, pazienteak. **Irene Aldasoro**

11 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Halako une jakin batean output funtzionalari (esate baterako, eskuari edo ahotsari) hemisferio bat bakarrik konektatzen zaiola segurtatzeko, beste kontrol-**seinale** batzuk beharko liriateke. **Irene Aldasoro**

Intentsitatea gehitu ahala, soinu ozena zena sentipen mingarri bihurtzen da: entzumen-organo delikatuak berehalaxe kaltea datorkien abisu-**seinalea**. **Irene Aldasoro**

Halako moduz ezen askoz konstanteago mantentzen baita output-**seinalea** argi-inputa baino. **Irene Aldasoro**

Nerbio **seinalearen** izaera zein den ere, elektrizitate bidezko **seinalearekin** metafora gisa baizik berdindu ezin daitekeena, ez baitago batere garbi oraindik. **Josu Zabaleta**

Begia sentikorren den lekuan, gutxi gorabehera 50 eta 150 arteko kuantuko ikusmen-**seinale** batek ikuste-sentipen bat sortuko luke, gehienetan, begiaren kanpoaldea (kornea, alegia) ukitzean. **Irene Aldasoro**

Kenketa baten aurrean gaudela esan daiteke eta hori ere [...] hots **seinalearen** ahultzetat hartu behar da. **Lourdes Oñederra**

"Zarata" hori baino nabarmen handiago izan behar du argi-**seinaleak**. **Irene Aldasoro**

Usain-**seinaleak** zuzenean igarotzen dira garunera. **Irene Aldasoro**

12 **seinale izansup_2** du ad

Ez nintzen ohartua ere barneko inketa gosearen **seinale nuela**. **Piarres Aintziart**

Gaizki erabilia izan zen **seinale zuen**. **Gotzon Garate**

-Hain zuzen ere hantxe, urrats bakar batzuetara zegoen bat, panama kapela eta bota horiz [...] aurpegi gorri biribilean atsegin sakona **seinale** zuela. **Anton Garikano**

13 **seinale izansup_1** da ad

Ez da bertutearen **seinale**, jelsia ongi ulertu batena baizik. **Josu Zabaleta**

Hiltzen badira, Jaunak bidali ez nauen **seinale** izango da. **Jose Antonio Mujika**

Kultura mailan, klimatxo bat igo dugun **seinale** ere bada hori. **Pello Zabala**

Haurra zela, tximeletak zorte onaren **seinale** zirela esana zion aitonak. **Xabier Aranburu**

Ez da ohartzen gau-argien itzaltze hori egunaren itzuleraren **seinale** dela. **Iñaki Mendiguren**

Hizketa arrotze mintzatzen, beraz, sinesgogorrenzat da **seinale**, ez sinestenduntzat. **Elizen arteko biblia**
Ezekiel **seinale** izango da zuentzat; berak egin duen gutzia egingo duzue. **Elizen arteko biblia**
Pesimismo hori gainbeheraren, hondamendiaren, nekearen eta ahuleriaren **seinale** ote da baitezpada? **Iñaki Seguro**
Orain dena da akordioa, adostasuna, elkar hartu beharra [...] eta arrosario zuri hori bitzasun falta latz baten, bizi-beldur baten, **seinale** da, zahardadezko eritasun batena.
Iñaki Seguro
Ezkerraldeko bidean, kurutze bat, naski bide xuxenaren **seinale** dena. **Piarres Aintziart**
Errusian, erbi bat bidazti baten bidean gurutzatzea ezbeharren bat hurbil dagoen **seinale** da, herri sineste baten arabera. **Karlos Zabala**

14 (aditza ezabaturik)

Edertasuna, Egia baten **seinale** edo ikur ote? **Piarres Aintziart**
Kanpoan zebilelako **seinale**. **Migel Angel Mintegi**
Itsua sutarantz badoa, **seinale** suaren premia sortu zaiola. **Josu Zabaleta**
Artelanak aura baldin badu, **seinale** argitasuna dariola, bibrazio bereziak eragiten dituela. **Josu Zabaleta**
Ilea, mototsik gabea jadanik, idor zekarren hala ere, txanoa buruan edo arta handiz dutxatua zen **seinale**. **Aingeru Epaltza**
Ona da hori, bihotza bizirik daukazu **seinale**. **Xabier Aranburu**
Bera ere gogor jo bazuten, **seinale** ez gintuela saldu. **Bernardo Atxaga**
Han-hemenka, herri batzuk, inor gabe jadanik, tatariarren tropak hurbiltzen ari ziren **seinale**. **Karlos Zabala**
Ardo-sagardoek ere kaltea nozitzen zuten **seinale**. **Pello Zabala**
Mary Annek zigarro bat piztu du, animatuta zegoelako **seinale**. **Bernardo Atxaga**
Begirada finkatzeko eginahala zuen pinpirrindua zegoen **seinale**. **Aingeru Epaltza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aieru eta seinale (6); **aldaketaren seinale** (6); **ari den seinale** (13); **ari diren seinale** (6); **ari naizen seinale** (4); **ari zelako seinale** (4); **arrakastaren seinale** (4)
bide seinale (25); **bide seinale bat** (6); **bide seinale elebidunak** (4); **bizi seinale** (4); **bizirik dagoen seinale** (5)
dabilen seinale (4); **dagoen seinale** (26); **dagoen seinale da** (4); **dauden seinale** (8); **delako seinale** (7); **den seinale** (58); **den seinale da** (6); **diren seinale** (27); **diren seinale da** (6); **dituen seinale** (4); **dituzten seinale** (5); **doan seinale** (8); **duen seinale** (32); **dugun seinale** (5); **duten seinale** (12); **dutzen seinale** (4)
ere seinale (6); **erlisione seinale** (7); **ez dagoen seinale** (4); **ez den seinale** (11); **ez duen seinale** (5); **ez zen seinale** (5); **ez zuen seinale** (6)
maitasunaren seinale (4); **mirarizko seinale** (10); **mirarizko seinale eske** (4)
naizen seinale (8); **nuen seinale** (5)
oso seinale ona (5)
seinale argia (12); **seinale asko** (6); **seinale bat egin** (6); **seinale bat izan** (7); **seinale baten zain** (5); **seinale berezi** (5); **seinale berriak** (7)
seinale egin (6); **seinale elebidunak** (9); **seinale elebidunen** (4); **seinale elektriko** (6); **seinale elektrikoak** (4); **seinale eske** (7); **seinale garbi** (5); **seinale garbia** (6); **seinale gisa** (18); **seinale handi** (5)
seinale izan (11); **seinale izango** (20); **seinale izango da** (14); **seinale izaten** (4)
seinale ona (87); **seinale ona da** (16); **seinale ona iruditzen** (4); **seinale ona izan** (4); **seinale ona izango** (5); **seinale ontzat** (4); **seinale ote** (7); **seinale txar** (4); **seinale txarra** (39); **seinale txarra da** (6); **seinale txarra izango** (4)
toki seinale berriak (4)
zegoelako seinale (6); **zegoen seinale** (8); **zela seinale** (5); **zelako seinale** (10); **zen seinale** (21); **zenaren seinale** (5); **zer seinale** (6); **zerbaiten seinale** (8)
abiatzeko seinalea (6); **den seinalea** (7); **duen seinalea** (5); **gurutze santuaren seinalea** (8); **gurutzearen seinalea** (72); **gurutzearen seinalea egin** (24); **gurutzearen seinalea eginez** (12); **hasteko seinalea** (4); **krexaren seinalea** (4); **lehen seinalea** (7)
seinalea agertu (4); **seinalea egin** (49); **seinalea egin zuen** (17); **seinalea eginez** (16); **seinalea egiten** (6); **seinalea eman** (12); **seinalea emateko** (4); **seinalea galdu** (4); **seinalea izan** (11); **seinalea izango** (7); **seinalea jaso** (5); **seinalea jasotzen** (5)
zelako seinalea (6); **zerbaiten seinalea** (4)
bide seinaleak (22); **mirarizko seinaleak** (5); **seinaleak ageri** (5); **seinaleak egiten** (5); **trafiko seinaleak** (4)
seinalearen zain (5)
gurutzearen seinaleak (4)
arrisku seinaleren (4); **seinaleren baten bila** (5)
bizitza seinalerik (4); **inolako seinalerik** (6); **seinalerik argiena** (4); **seinalerik eman** (9); **seinalerik ematen** (5); **seinalerik gabe** (6); **seinalerik jaso** (4)
seinaleztat hartu (17)

seinale (orobat *sinale* g.er. eta *ññale* g.er.) 1 iz zerbait adierazten edo ezagutarazten duen aztarna, ikurra, higidura edo ezaugarria.

Zeruaren keinu, aieru eta **seinale** eta halakoetan sinesten hasiko ote nintzen, bada? **Edorta Jimenez**
Pasadan oharitu zen gizonaren ilajeon xerlo horiak bazeudela, tindagaiaren hondakina, agian, zaharreriarren **seinale** behin-betikoak, agian. **Jon Alonso**
-Zer **seinale** ematen diguzu hori egiteko aginpidea duzula frogatzeko? **Elizen arteko biblia**
Apostolu naizela adierazten duten **seinaleak**. **Elizen arteko biblia**
Eta hau egia dela frogatzeko, **seinale** hauek ematen dizkizut. **Askoren artean**
Emanen dizuet **seinale** bat, ezagutaraziko zaituztena. **Piarres Aintziart**
Susmoaren **seinale** gisa interpretatzen da seriotasun hori. **Josu Zabaleta**
Seinale eta mirari bila dabilzanek, errepara biezaiote Frantziskoren santutasunari, eta aurkituko dute bilatzen dutena. **Askoren artean**
Galera handi baten **seinalea** daramagu kopetan idatzia, eguzki betearen argitan ezin ikus daitekeen **seinale** bat. **Iñaki Seguro**
Beste **seinale** bat agertu zen zeruan: herensuge gorri handi bat, zazpi buru eta hamar adar zituena, eta buruetan koroa bana. **Elizen arteko biblia**
Gérard-ek arrazakeriaren **seinale** diren alukeriak noizbehinka eta alegia deus ez botatzen ditu. **Eneko Bidegain**
Mary Annek zigarro bat piztu du, animatuta zegoelako **seinale**. **Bernardo Atxaga**
«Herritarrek **seinale** argi-argia eman digute eta errespetatuko dugu», erantsi zuen. **Berria - Harian**
Gero, lurrean ahozpeztu eta, turutek **seinalea** ematean, deiadar egin zioten Jainkoari. **Elizen arteko biblia**
-Armada abiatzeko **seinalea** kanoikada bat izango duk. **Edorta Jimenez**
Abiatzeko **seinalea** emateko. **Elizen arteko biblia**
Faramirrek **seinale** bat egin eta Maizterra erretiratu egin zen, gurkera eginez. **Agustin Otsoa**
Behin **seinale** hori eginda, Irkutskeko defendatzaileak eraso guneetara bilduko ziren. **Karlos Zabala**
Azkenik, bedeinkatu egin zituen, gurutzearen **seinalea** eginez. **Askoren artean**
Hitz hauek esanik, gurutze santuaren **seinalea** egin zion bekokian. **Askoren artean**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Seinale txar horien aurka sintoma hobeago batzuk ere bazeuden. **Iñaki Mendiguren**
Bi bezero sartu zaizkit gaur zu ontziak garbitzen ari zinela, eta **seinale** ona izan da hori. **Xabier Aranburu**
Hau nahiko berria da euskal munduan eta, zalantza gabe, ez da batere **seinale** txarra. **Pello Salaburu**
Amodioaren estiren auhenak eta soldaduen herotsak zeramatzen gogoan, lanjer hurbil baten **seinale** isila bailiran. Zeruan beste **seinale** handi eta harrigarri bat ikusi nuen: zazpi aingeru zazpi izurriekin; azken izurriak ziren, horietan burutzen baitzen Jainkoaren zigorra. **Itxaro Borda**

Jainkoak maite eta lagunduko zuelako **seinale** ezin argiagoko gisa. [Jon Alonso](#)

Zer egin? gizon hau mirarizko **seinale** asko egiten ari da! [Elizen arteko biblia](#)

Parte txarreko **seinale** hark lur jota utzi zuen. [Karlos Zabala](#)

Indian pertsona bati izterretik eustea ohorezko **seinale** da. [Gotzon Garate](#)

Euskal Herrian beltzik ez duk eta azken beltza ikusten denean, miseriaren **seinale** garratza dela aitortzeko. [Itxaro Borda](#)

Azkenean, leihora hurbildu eta ohiko **seinalea** egin zuen. [Askoren artean](#)

Lau nota botatzen zituen beti -mi, la, mi, la-, norbaitekin harremanetan jartzeko **seinale** ezkutua ziruditenak. [Ramon Saizarbitoria](#)

Azkenaren aurreko **seinaleak**.

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ordaintzen ez zuenari beso bat moztuko zitzaion, lapur **seinale** gisa, jendeak hala ezagun zezan. [Karlos Linazasoro](#)

Argi **seinale** nabariak azaldu omen ziren zeruan. [Bernardo Atxaga](#)

Biharamunean antzeman zuten lehenbiziko arrisku-**seinale** zehatza. [Xabier Aranburu](#)

Ametsaren errepikapen erlatiboarekin harritu samar nengoen, baina artean ez zitzaizkidan alarma-**seinaleak** piztu. [Iban Zaldúa](#)

Sendagile eta ingeniariarik neke handiak hartu behar izaten dituzte matxura-**seinaleak** agertzen dituzten piezak konpontzeko edo ordezkatzeko. [Irene Aldasoro](#)

Martiri-**seinale** haiek ez zuten ikusleen barnean beldur-ikara sortzen. [Askoren artean](#)

Drogak bihurtu ziren askatasun-**seinale**, eta, aldi berean, gatibu tristeen ikur. [Juan Kruz Igerabide](#)

Larunbata ere eman nien, atsedeen-eguna, nire eta haien arteko elkartasun-**seinale** izateko. [Elizen arteko biblia](#)

Bainugela edukitzea, aberastasun-**seinale**, gero eta normalago bihurtu zen gerra ostean Elkartasun **seinale** legez, jaiki eta Mentxuri hurbildu zitzaion. [Joseba Urteaga](#)

Guztiak santutasun **seinale** bereziz aberastuak izan ziren. [Askoren artean](#)

Lagun on batekin bide bera egin eta borondate bereko ez izatea, gaiztakeria-**seinale** da eta zentzu faltaren adierazle garbia. [Askoren artean](#)

Mendebaldeko Zibilizazioa zela bere espezieko ordezkari bakarra, desintegrazio-**seinale** ukaezinik ageri ez zuena. [Iñaki Mendiguren](#)

Zuria zen altxaturik zekarren eskua, ahurra aurrerantz, bake-**seinale** gisa. [Agustin Otsua](#)

4 marka.

Eta bezperako gogoeta berak eginik, alboko atepak **seinale** gorritz markatu zituen. [Patxi Zubizarreta](#)

Horretan, burua ezer ulertu ezinik eta bihotza ezohiko ikuskariagatik kezka bete zuela, iltzeen **seinaleak** hasi zitzaizkion esku-oinetan agertzen. [Askoren artean](#)

Jipoiak utzitako **seinaleak** dauzka soinean nabarmen. [Rafa Egiguren](#)

Ikuskariak, desagertzean, halako kartsutasun miragarri bat utzi zion bihotzean, eta hori bezain **seinale** miragarriak haragian inprimatuak. [Askoren artean](#)

Santuaren gorputzean zigilu bezala markaturiko Errege gorenaren **seinaleak**. [Askoren artean](#)

5 zerbait jakinarazteko, argibideren bat emateko erabiltzen den abenikozko ikur grafikoa.

Gidariak askotan ez dituzte errespetatzen **seinaleak**. [Berria - Ekonomia](#)

Maniobraria esnatu eta **seinalea** aldatzen du. [Fernando Rey](#)

Semaforoan bide librearen **seinalea** jarri nuen zerbitzuko bagoneta motorduna sar zedin. [Fernando Rey](#)

Bide bakoitzaren hasieran jarri **seinale** bat, ezpatak zein hiritara joan behar duen adieraziz. [Elizen arteko biblia](#)

Irteeran, **seinale** zahar batean, inguruko herrien izenak zeuden idatzita: ezkerrera, Cestona 14 km, Azpetia 22 km; eskuinera, Guetaria 3 km eta Zumaya 9 km. [Rafa Egiguren](#)

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Besteekin komunikatzeko balio ez duen **seinale** sistema bat erabiltzea ez da erabilgarria, alegia. [Berria - Gaiak](#)

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Beste bide-**seinale** batzuen artean, bazen bat "San Sebastián 3 km" jartzen zuena. [Inazio Mujika Iraola](#)

Kataroen lurraldeak oraindik, autopistako bide-**seinaleak** ondo gogoratzen duen bezala. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

Hazparneko herriak erabaki du bide **seinaleak** emaitza bide eta bidexka guzietan. [Herria](#)

Bide-**seinale** elebidunak direla eta ez direla. [Aingeru Epaltza](#)

Zurezko kale-**seinale** zahar bat zegoen zintzilika kandela pozoitsuak saltzen zituen denda baten gainean. [Iñaki Mendiguren](#)

Motorra trafiko-**seinale** baten kontra utzi, eta une batez, eskuak gerrian, pentsatzen ahalegindu nintzen. [Iban Zaldúa](#)

8 eroalaren batek transmititzen duen gauza entzungaia, ikusgaia edo kontrolatzailea.

'Galileo' sistemaren sateliteak lehenengo **seinaleak** igorri ditu. [Berria - Gaiak](#)

Soinu horiek bibrazio mekanikoak dira, eta horiek garunean prozesatzeko moduko **seinale** bihurtzeak ingeniariaritzaz arazo interesgarri eta zailak sorrarazten ditu. [Irene Aldasoro](#)

Badirelako ikusmen sisteman mugimenduaren atzemaile bereziak, erretinan elkarrengandik hurbil dauden puntuetan eragina duten **seinaleak** kodetzeko gai direnak. [Josu Zabaleta](#)

Laborategian **seinalea** analizatzean, [...]. [Lourdes Oñederra](#)

Antz handiagoa du Morse **seinale** batekin korronte beti-berdin batekin baino. [Irene Aldasoro](#)

Bip-bip **seinaleak** Agataren belarria oihartzun metalikoz bete zuten. [Itxaro Borda](#)

Ezinbestekoa da muskuluek oso bizkor erantzutea uzkuertzeko agintzen dien **seinaleari**. [Irene Aldasoro](#)

Seinale horiek, nerbio-konexioetan zehar garunera iristean, gutxitu egiten dute ADHren emaria; horren ondorioz, gernu-ekoizpena handitu, eta odol-bolumena murrizten laguntzen dute. [Irene Aldasoro](#)

Muskulu bat luzatzen den guztietan, haren nerbio-amaierak **seinale** bat sortzen dute; **seinale** hori, bizkar-muinera iritsi bezain laster, nerbio-amaieretara bideratzen da berriro, mugimendu-neurona batetik zehar, eta nerbio-amaierak muskulua uzkurrazten dute. [Irene Aldasoro](#)

Garunetik muskuluraino [...] **seinalea** milisegundo batzuetan helaraztea da diseinuaren lehenengo arazoa. [Irene Aldasoro](#)

Baina **seinale** eferente bat igortzen da, eta ikusleak **seinale** hori begiaren inolako mugimenduri ez dagokion **seinale** erreferente batekin alderatuz, "mugitzen" ikusten du mundua. [Josu Zabaleta](#)

9 (izenondoekin)

Seinale ahul batek, berriz, maiztasun apalean transmitituko ditu bulkadak. [Irene Aldasoro](#)

Soinu-bibrazioak **seinale** elektriko (edo agian kimiko) bihurtzen direla belarrian. [Irene Aldasoro](#)

Inguruko nerbio zelula batek **seinale** elektriko bat sortzen du, eta garunera igarotzen da seinalea. [Irene Aldasoro](#)

Seinale kontrajarri horiek elkarri gehitzen (edo kentzen) zaizkio, eta, azken emaitzak abiatze-atalsea gainditzen badu, beste bulkada bat transmititzen da; gainditzen ez badu, berriz, blokeaturik geldituko da mezua. [Irene Aldasoro](#)

Beste arazo bat, berriz, **seinale** entzungarriak nahiko konplikatuak izateak sortzen du, Ez dakigu nola ateratzen duen garunak hain informazio zehatza **seinale** aski landugabe horietatik. [Irene Aldasoro](#)

10 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aurreko kapituluetan ikasi dugu zer edo zer **seinale**-sarreraren mekanismoez, eta aipatu ditugu **seinale**-irteeraren mekanismo batzuk ere, eta nola haien bitartez bihurtzen den nerbio-bulkada bat benetako ekintza: muskulu-uzkurtze, esate baterako. [Irene Aldasoro](#)

Garunera iristen diren **seinale** mota berriak interpretatzen ikasi behar du, kasu horretan, pazienteak. [Irene Aldasoro](#)

11 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Halako une jakin baten output funtzionari (esate baterako, eskuari edo ahotsari) batakori konektatzen besterik gabe zuzentzen da. **seinale** batzuk beharko litateke. [Irene Aldasoro](#)

Intentsitatea gehitu ahala, soinu ozena zena sentipen mingarri bihurtzen da: entzumen-organoko deialak berehalaxe kaltea datorkien abisu- **seinalea**. [Irene Aldasoro](#)

Halako moduz ezen askoz konstanteago mantentzen baita output- **seinalea** argi-inputa baino. [Irene Aldasoro](#)

Nerbio **seinalearen** izaera zein den ere, elektrizitate bidezko **seinalearekin** metafora gisa baizik berdindu ezin daitekeena, ez baitago batere garbi oraindik. [Josu Zabaleta](#)

Begia sentikorren den lekuan, gutxi gorabehera 50 eta 150 arteko kuantuko ikusmen- **seinale** batek ikuste-sentipen bat sortuko luke, gehienetan, begiaren kanpoaldea (kornea, alegia) ukitzean. [Irene Aldasoro](#)

Kenketa baten aurrean gaudela esan daiteke eta hori ere [...] hots **seinalearen** ahultzetat hartu behar da. [Lourdes Oñederra](#)

"Zarata" hori baino nabarmen handiago izan behar du argi- **seinaleak**. [Irene Aldasoro](#)

Usain- **seinaleak** zuzenean igarotzen dira garunera. [Irene Aldasoro](#)

12 **seinale izansup_2** du ad

Ez nintzen ohartua ere barneko inketa gosearen **seinale nuela**. [Piarres Aintziart](#)

Gaizki erabilia izan zen **seinale zuen**. [Gotzon Garate](#)

-Hain zuzen ere hantxe, urrats bakar batzuetara zegoen bat, panama kapela eta bota horiz [...] aurpegi gorri biribilean atsegin sakona **seinale** zuela. [Anton Garikano](#)

13 **seinale izansup_1** da ad

Ez da bertutearen **seinale**, jelsolia ongi ulertu batena baizik. [Josu Zabaleta](#)

Hiltzen badira, Jaunak bidali ez nauen **seinale** izango da. [Jose Antonio Mujika](#)

Kultura mailan, klimatxo bat igo dugun **seinale** ere bada hori. [Pello Zabala](#)

Haurra zela, tximeletak zorte onaren **seinale** zirela esana zion aitona. [Xabier Aranburu](#)

Ez da ohartzen gau-argien itzaltze hori egunaren itzuleraren **seinale** dela. [Iñaki Mendiguren](#)

Hizketa arrotzez mintzatzea, beraz, sinesgogorrenzat da **seinale**, ez sinestedunentzat. [Elizen arteko biblia](#)

Ezekiel **seinale** izango da zuentzat; berak egin duen gutzia egingo duzue. [Elizen arteko biblia](#)

Pesimismo hori gainbeheraren, hondamendiaren, nekearen eta ahuleriaren **seinale** ote da baitezpada? [Iñaki Segurola](#)

Orain dena da akordioa, adostasuna, elkar hartu beharra [...] eta arrosario zuri hori bizitasun falta latz baten, bizi-beldur baten, **seinale** da, zahardadezko eritasun batena.

[Iñaki Segurola](#)

Ezkerraldeko bidean, kurutze bat, naski bide xuxenaren **seinale** dena. [Piarres Aintziart](#)

Errusian, erbi bat bidazti baten bidean gurutzatzea ezbeharren bat hurbil dagoen **seinale** da, herri sineste baten arabera. [Karlos Zabala](#)

14 (aditza ezabaturik)

Edertasuna, Egia baten **seinale** edo ikur ote? [Piarres Aintziart](#)

Kanpoan zebilelako **seinale**. [Miguel Angel Mintegi](#)

Itsua sutarantz badoa, **seinale** suaren premia sortu zaiola. [Josu Zabaleta](#)

Artelanak aura baldin badu, **seinale** argitasuna dariola, bibrazio bereziak eragiten dituela. [Josu Zabaleta](#)

Ilea, mototsik gabea jadanik, idor zekarren hala ere, txanoa buruan edo arta handiz duxtatua zen **seinale**. [Aingeru Epaltza](#)

Ona da hori, bihotza bizirik daukazun **seinale**. [Xabier Aranburu](#)

Bera ere gogor jo bazuten, **seinale** ez gintuela saldu. [Bernardo Atxaga](#)

Han-hemenka, herri batzuk, inor gabe jadanik, tatariarren tropak hurbiltzen ari ziren **seinale**. [Karlos Zabala](#)

Ardo-sagardoek ere kaltea nozitzen zuten **seinale**. [Pello Zabala](#)

Mary Annek zigarror bat piztu du, animatuta zegoelako **seinale**. [Bernardo Atxaga](#)

Begirada finkatzeko eginahala zuen pinpirindua zegoen **seinale**. [Aingeru Epaltza](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aieru eta seinale (6); aldatetaren seinale (6); ari den seinale (13); ari diren seinale (6); ari naizen seinale (4); ari zelako seinale (4); arrakastaren seinale (4)

bide seinale (25); bide seinale bat (6); bide seinale elebidunak (4); bizi seinale (4); bizirik dagoen seinale (5)

dabilen seinale (4); dagoen seinale (26); dagoen seinale da (4); dauden seinale (8); delako seinale (7); den seinale (58); den seinale da (6); diren seinale (27); diren seinale da (6); dituen seinale (4); dituzten seinale (5); doan seinale (8); duen seinale (32); dugun seinale (5); duten seinale (12); duzun seinale (4)

ere seinale (6); erlisione seinale (7); ez dagoen seinale (4); ez den seinale (11); ez duen seinale (5); ez zen seinale (5); ez zuen seinale (6)

maitasunaren seinale (4); mirarizko seinale (10); mirarizko seinale eske (4)

naizen seinale (8); nuen seinale (5)

oso seinale ona (5)

seinale argia (12); seinale asko (6); seinale bat egin (6); seinale bat izan (7); seinale baten zain (5); seinale berezi (5); seinale berriak (7)

seinale egin (6); seinale elebidunak (9); seinale elebidunen (4); seinale elektriko (6); seinale elektrikoak (4); seinale eske (7); seinale garbi (5); seinale garbia (6); seinale gisa (18); seinale handi (5)

seinale izan (11); seinale izango (20); seinale izango da (14); seinale izaten (4)

seinale ona (87); seinale ona da (16); seinale ona iruditut (4); seinale ona izan (4); seinale ona izango (5); seinale ontzat (4); seinale ote (7); seinale txar (4); seinale txarra (39); seinale txarra da (6); seinale txarra izango (4)

toki seinale berriak (4)

zegoelako seinale (6); zegoen seinale (8); zela seinale (5); zelako seinale (10); zen seinale (21); zenaren seinale (5); zer seinale (6); zerbaiten seinale (8)

abiatzeko seinalea (6); den seinalea (7); duen seinalea (5); gurutze santuaren seinalea (8); gurutzearen seinalea (72); gurutzearen seinalea egin (24); gurutzearen seinalea eginez (12); hasteko seinalea (4); krexaren seinalea (4); lehen seinalea (7)

seinalea agertu (4); seinalea egin (49); seinalea egin zuen (17); seinalea eginez (16); seinalea egiten (6); seinalea eman (12); seinalea emateko (4); seinalea galdu (4); seinalea izan (11); seinalea izango (7); seinalea jaso (5); seinalea jasotzen (5)

zelako seinalea (6); zerbaiten seinalea (4)

bide seinaleak (22); mirarizko seinaleak (5); seinaleak ageri (5); seinaleak egiten (5); trafiko seinaleak (4)

seinalearen zain (5)

gurutzearen seinaleaz (4)

arriku seinaleren (4); seinaleren baten bila (5)

bitzita seinalerik (4); inolako seinalerik (6); seinalerik argiena (4); seinalerik eman (9); seinalerik ematen (5); seinalerik gabe (6); seinalerik jaso (4)

seinaletzat hartu (17)

seinalekuntza iz seinalezatzea.

Obra batzu badira bestalde ez oraino bixtan ezarriak, argi-joko zenbait ez arras pikoan, **seinalekuntzan** ere eskasño batzu ba han-hemenka. [Herria](#)

seinaletika iz ipar seinaleak.

Joanden astean, berriz ere Baionako geltokira hurbilduak ziren demo kide batzu, frantses huteszko **seinaletika** euskaratu nahian. [Herria](#)

Ez da Konstituzioa berrikuste beharrik **seinaletika** elebiduna sartzeko geltokietan. **Berria - Euskal Herria**
Euskararen Zerbitzua lan eta lan ari da euskara gehixago sar dadin bizi publikoan: bide- **seinaletikan** , telefono-urtekarian, ospitalean eta abar... **Herria**
Nola ez aipa, azkenaldi honetan agertu zaizkigun **seinaletika** eta paisaje linguistikoa euskaldundu beharra, hau da, mutuei euskaraz erakutsi beharra. **Iñaki Segurola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)
barne seinaleetika (4); **seinaletika elebiduna** (7)

seinaleztapen *iz* seinaleztatzea. ik **seinalizazio**.

Autobideko **seinaleztapena** «lotsagarria» dela salatu du, eta auto gidari askok ez dietela jaramonik egiten seinalei. **Berria - Harian**
Hitzeko jardutearen mailan, espirituaren edo gauzen ordenan garatu ahal izan den **seinaleztapen** soila. **Xabier Arregi**

seinaleztatu, seinalezta, seinaleztatzen 1 du *ad* seinalez hornitu. ik **seinalizatu**.

Eginiko bideak ikertzeraz bultzatzen gaituzte, gaizki **seinaleztaturiko** pistak berriz irekitzera, menderaezin ziruditen oztipoak gainditzera. **Joxan Eloegi**
Erretzeko toki berezi hauek ondo **seinaleztatuta** egon beharko dute, gainontzeko eremuetatik bereizirik egon beharko dute, eta berariazko aireztapena izan beharko dute. **Berria - Harian**

2 (era burutua izenondo gisa)

Nire bizitza bide **seinaleztatu** -eta zapaldu- bati segitzera mugatu dela. **Patxi Zubizarreta**

seinaleztatze (*orobat seinalizatze*) *iz* seinalez hornitzea. ik **seinalizazio**.

Herri Elkarteak bideratutako ekimena udal bakoitzaren nahikundeari lotuta zenez, haietatik hiruk zehazki Hauzek, Irurik eta Santa Grazik ez dute, orainokoa behintzat, **seinaleztatzea** euskaraz ere ezartzerik erabaki. **Berria - Euskal Herria**
seinalizatzea Bidelaneko langileek egiten dute beti. **Berria - Ekonomia**
Gutzira, 86.881,65 euro eraldi ditu Herri Elkarteak **seinaleztatze** elebiduna gauzatzeko; hots, 54.003,18 euro seinaleak eginarazteko eta 32.878,47 euro pankarta horiek ezarrarazteko. **Berria - Euskal Herria**
Seinaleztatze elebidunaren esanahi politikoa nabarmendu nahi izan du batez ere. **Berria - Euskal Herria**

seinalizatu, seinaliza, seinalizatzen du *ad* seinalez hornitu. ik **seinaleztatu**.

Errepidearen beste aldean, kontrako bidean, bi ertzain istripu bat **seinalizatzen** ari ziren. **Berria - Euskal Herria**
Ezbeharra goizeko 05:30ean izan zen, Baiona pasa eta gutxira autoak obrak **seinalizatzeko** piboteen aurka jo zuenean. **Berria - Kirola**
Gipuzkoan megalito guztiak, 300dik gora, **seinalizatu** ditugu. **Berria - Euskal Herria**

seinalizazio *iz* seinaleztatzea.

Baina maniobrarrien loa **seinalizazio** sistema bereziren batek gidatua dago zerbitzuan daudenean. **Fernando Rey**

seinaliztatze ik **seinaleztatze**.

seinazka ik **seinaka**.

seindun *adlag* haurdun.

-Eta neska, **seindun** egoan? **Gotzon Garate**

seinu ik **zeinu**¹.

seipazazpi *zenbatz* sei edo zazpi.

Gogoan ditut oraindik duela **seipazazpi** urte Callejak Cadizeko hitzaldi batean esandakoak. **Hasier Etxeberria**
Gainera herrian ez zen aski zaldi, behi edo ardirik izango gazteen sasi-bizibidearen segurtatzeko, Xarlesen bandak urtean **seipazazpi** kalitzen baldin bazituen: mutikoaren koloka-hotsa irentsi zuen ipar haizeak. **Itxaro Borda**

seira *banatz ipar* seina.

Seira bote orohar. **Herria**

seirehun ik **seiehun**.

seireun ik **seiehun**.

seirtar *iz* Biblian, Seirren leinuko kidea.

seiscientos *iz* Fiat eta Seat markako automobil txikia.

Garaia duk, ilehoria, eta **"seiscientos"** berde bat erabiltzen dik, gorritz tapizatua, Bilboko matrikula daukana... **Rafa Eiguren**

Ez al zara konturatzen **seiscientos** bat zarela kamioi baten aurka egin nahirik? **Agurtzane Juanena**

Automobilak miatzen dabilta; **seiscientosak** batez ere. **Rafa Eiguren**

Eta Zabaleta, **seiscientos** baten gurpil estalkia koilaratxoekin jotzen zuen lagun batekin! **Iñigo Aranbarri**

seismo *(26 agerraldi 13 artikulutan)* *iz* lurrikara. ik **lurrikara**.

Lurrikara izan zen tokian **seismoak** nabaritzen dira oraindik. **Berria - Mundua**

Seismoak Richter eskalan 6,5eko indarra izan zuen. **Berria - Mundua**

Richter eskalan 2,6 gradu izan zituen **seismoak** baina agintariak ukatu egin zuten horrek eragitea luizia. **Berria - Mundua**

Indiako Andaman eta Nicobar artxipelagoetan 5,3 graduko **seismoa** izan zen gero. **Berria - Harian**

Chipungaberra herrian (Sofala eskualdea) izan zuen epizentroa herenegun gauean izandako **seismoak**. **Berria - Mundua**

Seismoaren 70 erreplika inguru izan dira Al Hoceiman. Adituen ikerketaren arabera, **seismoa** lur azaletik 26 kilometro barrualdera izan zen. **Berria - Mundua**

Seismoa izan eta ordu batzuetara itsasoa zakar zegoen oraindik. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

seismoa izan (5)

izandako seismoak (3)

seiurteko *iz* Espainiako unibertsitate sisteman, ikerlarien lana saritzen duen soldata-osagarria, sei urtean behin ematen dena.

Hola sortu ziren **"seiurteko"** izenarekin ezagutu ditugun soldata osagarri berezi batzuk: lana egiten duen ikertzaileak osagarri horiek eskuratzeko aukera du harrezkero.

Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hiru eragile horietan oinarritu da **seiurtekoen** sistemaren arrakasta. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

sekadero *iz*

Urte batzuk geroago, krisi gogor samar bat zela eta, taxi batean sartu eta **sekaderora** -izen hori ematen zitzaion psikiatrikoari bertan egoten ziren alkoholikoengatik-berreramaten saiatu ziren. **Bernardo Atxaga**

sekail ik **segail**.

sekale ik **zekale**.

sekante

1 *paper* **sekante** xukapapera.

Paper **sekanteak** sekula ere ez ziren aski gure estilo traketsa garbitzeko. **Joseba Sarrionandia**

Inazitok ... *hasta que choques* erantsi zuen disimuluan, burua altxatu gabe, tinta eta kaligrafia dotore berberetz, azken letrak paper **sekantez** txukundurik **Joseba Sarrionandia**

sekatu ik **sikatu**.

sekeretu ik **sekretu**.

sekeretutxo ik **sekretutxo**.

sekito *iz* errege edo kireko baten jarraileria. ik **segizio**.

Erregearekin Bragako artzapezpikua zegoen, João Peculiar, eta Portoko gotzaina, Pedro Pitões, biak latinez adituak, zein baino zein areago, eta erregearen **sekitoa** duintasunez osatzeko adina jende. **Jon Alonso**

Enperadorea eta **sekitoa** gu geunden tokitik metro gutxitara gelditu ziren. **Jon Alonso**

Orduan sortu zen Urbe jainkosa: eraikuntzak, merkatu organizatua, garraioa, artea... ezin izan haren **sekitoak** baizen. **Patziku Perurena**

seko 1 *adlag adkor* erabat, zeharo.

Seko beldurtuta dago, laster berrogei urte beteko dituelako. **Harkaitz Cano**

-Maiteminduta dago, **seko** maiteminduta. **Felipe Juaristi**

Apur bat desorientatuta ez, **seko** galduta. **Harkaitz Cano**

-**Seko** burutik, nor den ere ez zekik. **Koro Navarro**

Burutik **seko** jota zaude. **Mirentxu Larrañaga**

-Hi **seko** erotuta hago, ezta? **Antton Olano**

1719an, Valladolid hirian Pisuerga ibaia **seko** izotzuta zegoen zen hamabostaldi osoan. Pello Zabala

Zorionez, Lepic andrearen begiratu izoztupean, **seko** isildu da. Itziar Otegi

Seko ergeldu zait Kerli hau! Josu Zabaleta

Ondoko harri batean eseri eta burua **seko** hustu zait. Alberto Barandiaren

Orduan **seko** gelditu zen, ezتل egin zuen, zuzendu zuen panamazko kapela, gure begiei itzuri egin, eta buelta emanda bere eserlekura abiatu zen. Koro Navarro

Mael bertan **seko** gelditu zen eta eskuaz keinu misteriotsu bat marraztu zuen airean. Joanes Urkixo

Beharbada ez dio ezer esango, txarrean **seko** aspertuko du. Xabier Mendiguren Elizegi

Eguraldia **seko** aldatuko da. Pello Zabala

Seko ergela. Aingeru Epaltza

Sinetz iezadazu, **seko** itxura osasuntsua zeukan. Harkaitz Cano

2 hilik.

Gure aita erbikume bat laurogei metrora **seko** uzteko gauza zelako. Koldo Biguri

Frankotiratzailleek bala gaizto bat nahikoa zuten gidaria **seko** uzteko. Karlos Linazasoro

Zakur bat atera zitzairen, baina zaunka hasteko astirik ere ez zuen izan, makilakada batek berehala utzi baitzuen **seko**. Koldo Biguri

Ez zaizu gustatuko tiroak pum pum entzun eta hegatzia **seko** erortzen ikustea. Joseba Sarrionandia

Itsua **seko** geratu zen espaloiaren gainean, uso grisak odol arrastoaren inguruan mokoka zituela. Patxi Iturritegi

Perretxiko naturalegiak janda bertan **seko** gelditzea baino gauza naturalagorik ez dagoela kasik ezer. Iñaki Segurola

Natxo, ordea, **seko** dago, burua bolante gainean, besoak alde banatara zintzilik. Patxi Iturritegi

Basurtura gabe **seko** gelditu zitzairen anbulantziaren bertan; **seko**, txoritxo baten modura. Patxi Iturritegi

-Ibai hotzera salto egin zian, bai, salto [...] ipurdia gora, eta, ene!, hantxe geratu zuan, bertan **seko**. Koro Navarro

· Gainera, zuek bezalako ehiztariek ez dute ehizakia zauritzen: **seko** akabatzen dute. Itziar Otegi

Bere ama derrepentean **seko** hilda geratuko zela. Pello Lizarralde

Francoren soldaduek harrapatzen zituztenak **seko** garbitzen baitzituzten. Eneko Bidegain

3 lo; konortea galdurik.

Nire ohera jo beharrean, auskalo nola, Tetrako besaulkian amaitu nuen; eroso-edo zela erabaki eta, kontzientzia handirik gabe, hantxe geratu nintzen **seko**. Iban Zaldua

Halako batean **seko** gelditu zen. Koro Navarro

Orduan nik ezkerrez desbideratu eta eskuinez jo eta **seko** utzi dut. Koldo Biguri

4 (lo hitzarekin; ik beherago 5)

Gauez **lo seko** egiten baitut. Joxemari Iturralde

5 lo seko (37 agerraldi, 26 liburu eta 3 artikulutan; orobat seko lo 22 agerraldi 16 liburutan) adlag erabat lo, lo zerraldo.

Eta bera nire ondoan, aingerutxo bat bailitzan, **lo seko**. Jasone Osoro

-Lo gelditu zen, **lo seko**, nik baino hobeto egiten zuen eta. Migel Angel Mintegi

Bainuontzian etzanda **lo seko** dagoela. elkarren ondoan lozakuen gainean **lo seko** jarraitzen baitzuten. Harkaitz Cano

Barruan, ozta-ozta ikusten zela, mutikotxo bat zegoen, **seko lo**. Iñaki Mendiguren

Otsailekoa, lurra **seko lo** dagoenekoa, ama lurrari dedikatzen zioten. Pello Zabala

Bestea ez da mugitu ere egin: ezkerrez desbideratu du, eta muturreko gaizto galanta eman dio eskuinez, hainbestearainokoa non txapeldunak ohe-bagoia hartzen baitu: hau da, bidaian lo gelditu eta **lo seko** erortzen da borroka-uztaitik behera. Koldo Biguri

· Azkenik nire esku utzi zidaten denbora zelan eman, eta, batez ere, **seko lo** egiten. Urtzi Urrutikoetxea

Barbituriko dontsu horrek lasai eta **seko lo** eginarazten dit. Mirentxu Larrañaga

Igandetan **seko** egiten zinan **lo**. Anton Garikano

"(Euskal) filologoak eta filologo-euskaltzainak **lo** ederrean daude, ametsetan, **seko**", oroitarazten digu. Pello Salaburu

Eta aire pixka bat balitz Itzalpean pausatu gara eta **seko** lokartu dira bi holandesak. Piarres Aintziart

Autoan sartu orduko, ene gorputza bota nuen tanpalahara atzeko aukien gainera eta **seko** lokartu nintzen. Daniel Landart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bertan seko gelditu (4); **jo eta seko** (4); **lo seko** (35); **lo seko geratu** (7); **lo seko geratzen** (5); **lo seko zegoen** (3)

seko erotuta (3); **seko gelditu** (19); **seko gelditu zen** (11); **seko gelditzen** (3); **seko geratu** (13); **seko geratu zen** (6); **seko geratzen** (6); **seko hilda** (6); **seko hoztuta** (3); **seko isildu** (3); **seko izoztuta** (3); **seko jota** (3); **seko lo** (22); **seko lo egiten** (3); **seko lo zegoen** (4); **seko lokartu** (4); **seko maitemindu** (4); **seko moztu** (3); **seko utzi** (8); **seko utziko** (6); **seko zegoen** (3)

sekreta 1 iz polizia sekretuko kidea.

Esaten dute **sekreta** pila bat dabilela, bai zipaioenak bai paisanozko pikoloak. Unai Iturriaga

Lisboan egon ginen errebentaren gorabeherekin jakin-mina pizturik, baina uniformedunak eta **sekreta** kantosoak baizik ez zeuden estadio inguruan, larunbatez. Berria - Kirola

2 polizia sekreta

Turistaz beteriko hegazkin batean iritsi zen, eskoltarik gabe, tartean polizia **sekretaren** batzuk bazetozela uste duen arren. Pako Aristi

sekretaria iz emakukezko idazkaria.

"Academia"ko **sekretariak** galtza estu berdeak janzten ditu; bluxa berde-beltza, ez askoz laxoagoa; eta takoi luzeko bota beltz altuak. Txillardegi

Labana zorrotza ahurrean tinkatu zuen, eskaileretan gora igo zen, nagusia eta bi **sekretariak** plastikozko berinaren atzetik beha zeuzkala. Itxaro Borda

Behin puta bat kontratatu genuen horretarako propio, eta Fernandoren **sekretaria** zela esan genion medikuari. Karlos Zabala

sekretario (orobat segetario g.er. eta segetario g.er.) 1 iz erakunde bateko idazkaria.

Deputatu-talde osoa, Bizkaiko karlisten errespetua Erregeri erakustekotan, bertara zen: Arrieta Maskaruako Lorenzo, korrejidorea; Piñerako Pedro deputatua, Tollara eta Saratxu aholkulariak, eta Olaskoaga **sekretarioa**. Txillardegi

Bigarrenik, luzaz ere Donostiako Udaleko **Sekretario** ibilitako Lorenzo Alzate izenekoa. Txillardegi

Maialen Christy Aire Ona-ko etxekandereak, 23 urte hauetan Bastidako Herriko Etxean idazkari edo **sekretario** zenak, erretreta hartu du. Herria

Alkate asko, orain gutxi arte, **sekretarioaren** bastoi inozentea izan ohi zen. Patziku Perurena

Gehienak mail gorakoak eraksle, sindikatetako zuzendari edo **sekretario**, Hitler-en aldekoak ez zirenak, edo epelegiak. Marzel Etxehandi

Zereginetan, berriz, ni ontziburu eta bera eskribau eta kontulari, hots, **sekretario**. Edorta Jimenez

2 kargudun baten idazkaria. ik **idazkari** 2.

Sinatu zuten agiri batzuetan hitzarturik zuten tratua, gure aitaren administratzaileak eta Villagrandeko dukearen **sekretarioak** aitzinetik prestatu zutena. **Joan Mari Irigoien**

Txekoslovakiako barne-ministroaren **sekretarioa**. **Marzel Etxehandi**

3 **lehen sekretario** lehen idazkaria.

Buruzagia han zelarik, oro zelai, baina falta zenean lehen **sekretarioak** luzatzen zuen. **Marzel Etxehandi**

sekretariotza iz idazkaritza.

Liburuaren lehen argitalpenerako, «Xalbadorren **sekretariotza** lana egitea» egokitu zitzaion Zabalari. **Berria - Kultura**

sekretaritza (orobat **segetaritza g.er.**) iz idazkaritza.

Ikasle haietatik, batzuen batzuk fraidetzara joko zuten bezala, beste askok beren herritan maisutzan, apaizgoan, organistatzen nahiz **sekretaritzan** jardungo zuten: Don Ramon Etxeberria abadea eta Tomas Garbizu, adibide pare bikaina. **Pello Zabala**

sekreter iz idazteko taula ezkutagarria duen altzari tiraderaduna.

Sekreter ttipi bat dago ohe bihurtu dugun sofaren ondoan eta bertan jarri dut idazmakina elektrikoa. **Harkaitz Cano**

sekretismo iz egitekoak eta gorabeherak isilean atxikitze joera.

Sekretismorik gabe baina diskrezioz landu behar dugu bidea. **Berria - Euskal Herria**

Paradoxa, disidentzia, **sekretismo** eta ezjakintasun guztien gainetik, erantzukizuna exijitzen dio, erabakiak hartu beharra. **Joseba Zulaika**

Mitxoletaren egoeraren inguruan nolabaiteko **sekretismoa** hedatu bazen ere, andereñoek esanda jakin genuen oso noizbehinka hitz batzuk esaten zituela, behintzat. **Jon Alonso**

«**Sekretismo** osoz» jokatu izana leporatu zioten eta eztabaida publikoa isilaraztea. **Berria - Euskal Herria**

sekreto ik **sekretu**.

sekretu (orobat **segeretu g.er.**, **segretu g.er.**, **sekeretu g.er.**, eta **sekreto g.er.**) **1** iz isilpean edo ezkutuan atxikitzen den gauza.

Haren gorputzak **sekretu** guztien berri zuela zirudien. **Xabier Olarra**

Zientziak ez du jakin [...] orain artekoan **sekretu** horren berri. **Pello Zabala**

Ez zion inori eman bere bihotzeko **sekretoaren** berri. **Askoren artean**

Sekretu baten jabe den gizonaren begiak ziren. hala ere, lagunartean begiradek norbera zelatan zuten gizarte hartan, gutuna mamitasunaren, isilmandatuaren eta **sekretoaren** eremua izan zitekeen. **Alberto Ladron Arana**

Sekretu bat zen, gauetan, beren sabai-zuloen azpian, ahapeka aipatzen zutena. **Jon Muñoz**

Askoren arteko **sekretoak** ezin du **sekretu** izan. **Fernando Morillo**

Aitaren **sekretu** guztien jabe zen. **Karlos Zabala**

Erabat lasai, ia umoreko sentitzen nintzen, **sekretu** baten jabe den haurren pare. **Joxean Agirre**

Herriko **sekretoek** ez diete ihes egiten taxi-gidariei. **Urtzi Urrutikoetxea**

Zeren badira beste **sekretu** garrantzi handiagoko batzuk izarretan. **Josu Zabaleta**

Ezin izan nioan Krisztinari lagundu, **sekretu** bat baitzegoen bion artean, barka ez daitekeen **sekretu** bakarra. **Xabier Olarra**

Zer egin lau sosoeko egia horrekin, jadanik existitzen ez den gorputz baten **sekretoekin**? **Xabier Olarra**

-Esan nahi du -erantzun zion Dumbledorek- **sekretoen** Ganbera berriro ireki dutela. **Iñaki Mendiguren**

Zer ziren, zehatz-mehatz, Grosrouvrek aipatutako akusmata haiek, eta zergatik **sekretoaren** betekizun hura? **Jon Muñoz**

Ostatua zela adierazten zuen idazkunik ere ez zegoen; etxe haren **sekretoa** zela-eta ziurrenik. ez nuela inongo eskubiderik hildako baten **sekretoetan** kuxkuxean ibiltzeko. **Ibon Urbarri**

Gutarik bakoitzak bere **sekretoan** gordezik dauzkan atxikimendu eta lokarri bereziet. **Piarres Xarriton**

2 (izenondoekin)

Ez zion inori, edo ia inori, agertzen bere **sekretu** handia. **Askoren artean**

Armairua zabaldu eta, karpeta askoren azpitik, paper tolestatu bat atera zuen, **sekretu** handiz nire aitaren aurrean paratu zuena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hura gure **sekretu** txikia izango zen. **Pedro Alberdi**

Tentsio tinkoenean nahi ditut gertatu direnak hitzen barnean atxiki bizirik, xoko honen **sekretu** goxoan mina eztituz. **Piarres Aintziart**

Sekretu ikaragarri bat baitut isilean gordezik ene baitan. **Mirentxu Larrañaga**

Hain argi eta garbi azaldu baitzizkion jainko-jakinduriaren **sekretu** ezkutuenak, [...]. **Askoren artean**

Titan, **sekretu** harrigarriak gordetzen dituen ilargia. **Berria - Gaiak**

Sekretu saminak, **sekretu** lotsagarriak, gure izatean zehar izan ditugun ahulezia aitor ezin guztiak gordetzen diren barren zoko horretan. **Josu Zabaleta**

Lan-eremua ez zian eskas, gehienek txantajerako behar diren bi baldintzak betetzen baitituzte: **sekretu** aitorrezinak eta kontu korrente pollita. **Aingeru Epaltza**

Zu zara gure **sekretu** madarikatua! **Anjel Lertxundi**

Ezetz esaten zioten lehenik, **sekretu** profesionala argudiatu. **Jon Muñoz**

Urtebetez, eztabaidatu bitartean, **sekretu** ofizialaren tratamendua eman zioten. **Rafa Egiguren**

Zigarro bildu berria eskaini zidan, **sekretu** militar bat ematen ariko balitzait bezalako zeremoniaz. **Anjel Lertxundi**

Ni ez ninduan joango biharamunean hire etxera, sekula gonbidatu ez ninduan etxe hartara, non gordetzen huen heure sekretua, gure adiskidetasuna pozoitu zuen **sekretu** ulertezin hura. **Xabier Olarra**

3 (aditzen objektu gisa)

Traidorea etxekoa izaten da, zure **sekretu** guztiak dakizkiena. **Joseba Zulaika**

Oihanak **sekretu** asko ezkututzen ditu. **Iñaki Mendiguren**

Zer **sekretu** gordetzen ote zuen hitz xume horrek? **Ramuntxo Etxeberri**

Hik ere **sekretua** gordetzen eskatzen diat. **Jon Muñoz**

Oihaneko **sekretua** beretzat gorde behar zuela? **Jon Muñoz**

Kezkatu egiten ninduen pentsatzeak zer oinaze ez ote zituen jasan bere **sekretu** hari eusteko. **Oskar Arana**

Alemanen **sekretu** izigarriaren atxikitzeak molderik hoberena hiltzea zen, dudarik gabe. **Eneko Bidegain**

Garbi zegoen **sekretu** batek bestea bermatzen zuela. **Juan Garzia**

Agureen **sekretua** ez zuela hautsiko agindu zuen. **Ibon Urbarri**

-Zer **sekretu** darabillizue? **Irene Aldasoro**

Sekretu bat kontatu berri duenaren herabetasun damuzko horrekin. **Koro Navarro**

Bere **sekretu** guztia eman zuen jakitera, bere bizitza alferrik galduaren istorio gordin ergel guztia. **Oskar Arana**

Geroztik neure **sekretu** guztiak jakinarazi dizkizut. **Jon Muñoz**

Sekretu bat esateak **sekretu** horren mirabe bihur gaitzake. **Ana Urkiza**

Kontatu nahi dizudana beste inori esango ez niokeen **sekretu** bat da. **Koro Navarro**

Ez naiz ausartzen neure atsekabean **sekretua** paperari fidatzera. **Jon Muñoz**

-Elgar-ek **sekretua** fidaturiko pertsonak, ordea, berehala zabal zezakeen jendaurrean. **Jon Muñoz**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sekretu giroa nonahi. **Fernando Morillo**

Bere etxean eta **sekretu** giroan egin zidan aitortpena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Batzuek uste dute pertsiar **sekretu** -jakileren batzuk etorri zirela harekin hitz-aspertu bat egitera. **Juan Garzia**

Nik neuk aitortu nion Ministerioari Sirius izan zela Pottterarren **sekretu** -gordetzaila. **Iñaki Mendiguren**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kontua da mespretxu handiz esan zidala ea ez al nuen uste umea intseminazio artifizialaren bidez sortua izan balitz, mundu zabalean jakingo zela, mediku-**sekretu** guztien gainetik ere. **Ramon Saizarbitoria**

Frantzisko, errege **sekretuaren** jakitun, arreta osoz saiatzen zen ezaugarri sakratu haiek ezkututzen. **Askoren artean**

Egurats ustelduko logela-**sekretu** lizunduekin. **Xabier Olarra**

Adin berekoak ziren eta etengabeko harremanez sakonduriko elkarrenganako estimuak konfiantza ematen zion Frantziskori bere barne-**sekretuak** lagunari agertzeko.

Askoren artean

• 6 izond isilekoa, ezkutukoa.

Bi agente **sekretu** bagina bezala. **Oskar Arana**

Polizia **sekretu** batzuk bikotearen atzetik ibili dira zenbait egunetan. **Lopez de Arana**

Zerbitzu **sekretuen** agentea naiz, ala zoro bat? **Koldo Izagirre**

Jendeak ez zekien kode **sekretu** bat ote zen, berba horiek mezuren bat ezkututatzen ote zuten. **Patxi Zubizarreta**

Ate **sekretu** bat! **Jon Muñoz**

Uste dut behin norbaitek zerbat kontatu zidala Hogwartseko ganbera **sekretu** bati buruz... **Iñaki Mendiguren**

Etxe **sekretu** hari klub dei zekiokeen arren, agure gutxi batzuk besterik ez ziren haren kide. **Ibon Urbarri**

Lee Jordanek uste du pasabide **sekretu** bat aurkitu duela ikastetxetik irteteko. **Iñaki Mendiguren**

Leku **sekretua** zen hura, Hassanek zeregin oso berezi baterako gordea zeukana. **Jon Muñoz**

Inork iristerik ez zeukan leku **sekretu** bat beretzat bakarrik edukitzea bezala zen. **Xabier Olarra**

Nazien arma **sekretu** baten inguruko zurrumurruak zebiltzan nonahi. **Fernando Morillo**

-Ekontza **sekretu** bat egin behar dinagu. **Inazio Mujika Iraola**

Hitz **sekretu** batzuk esan zizkidan, oraindik inori jakinarazi ez dizkiodan hitzak. **Askoren artean**

Oso interesgarria iruditzen zait idazkera **sekretu** hori ongi menderatzea. **Josu Zabaleta**

Elkarte **sekretu** bateko kide izatea leporatu zioten. **Karlos Zabala**

Kontua duk..., ispiluez bestaldeko mundu paralelo **sekretu** hori hor dagoela. **Iñaki Iñurrieta**

Sinfonia **sekretu** bat zuzentzen ari balitz bezala. **Anton Garikano**

Oh gauak, oh ilunbearen goxo eta epela, oh maitasun ibai **sekretu** bat bezala isurtzen dena. **Juan Garzia**

Maruja ere ez dago geldu, baina erritmo **sekretu** pausatuagoan ari da, zalapartatik at bezala. **Iñaki Iñurrieta**

Bere galtza estuen atzeko poltsikoan eskua sarturik ibiltzea gustatzen zitzaidan, mami urrien azpitik braille **sekretu** eta epel baten bidez bere hezurduraren mugikera nahasia irakurriz. **Joxean Agirre**

Niniren kemenak etxea eta pertsonak betetzen zituen; paretak, gauzak zeharkatzen zituen indar-laster **sekretu** bat bailitzan. **Xabier Olarra**

Zu maparantz inguratuko zara, izen horrek **modu sekretuan** zeure sorterrri urrunera deituko zaituelako. **Joseba Sarrionandia**

ik beherago 7. **Askoren artean**

Beharbada hori izan zen arrazoa, ni, beldurrez beteriko basamortu lausoetan barrena, Hilezkorren Hiri **sekretuaren** xerkan oldar nendin. **Juan Garzia**

7 sekretuan adlag isilean. ik isilean.

Ektor hura ere **sekretuan** ari zen borrokan, eta inork ez zekien bera zenik. **Juan Kruz Igerabide**

Testes intrare iudicii secretum, "lekukoak **sekretuan** itaundu" behar zirela esan nahi zutela. **Juan Martin Elexpuru**

Kreazioaren lan gehiena **sekretuan**, isilik eta ilunpean iragaten baita. baina oturuntza prestatzen aritu direnek **sekretuan** gorde nahi d Lehenik eta behin predikariak

sekretuan eginiko otoitzetik edan behar du, gero predikazio sakratuan isuriko duena. **Ana Urkiza**

Hiru edo launazka ibiltzen ziren harat honatka, **sekretuan**, zuhurtzia handirekin, Jaunaren eguna otoitzaz ohoratzen zutela. **Marzel Etxehandi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agente sekretu (7); agiri sekretu (4); aitaren sekretu (3); bere sekretu (13); bere sekretu guztiak (4); beren sekretu (4); bozketa sekretu (3)

elkarte sekretu (5); etxe sekretu (5); hitz sekretu (3)

itun sekretu (3); izen sekretu bat (3); kode sekretu bat (3); kongresuko sekretu ofizialen (7); mezu sekretu bat (4); nire sekretu (4)

pottterarren sekretu gordetzaila (3); sekretu bat dauka (3); sekretu bat esan (4); sekretu bat gordetzen (3); sekretu bat kontatuko (4); sekretu baten jabe (6); sekretu gordetzaila (5); sekretu gordetzen (3); sekretu handi (8); sekretu handi bat (4); sekretu handia (3); sekretu izan (3); sekretu izugarria (3); sekretu militar (3); sekretu ofizialen batzordea (3); sekretu ofizialen batzordean (8); sekretu profesionala (5)

zer sekretu gordetzen (3); zerbitzu sekretu (25)

agente sekretua (3); arrakastaren sekretua (4); atxiki sekretua (4); beltzaren sekretua (9); benetako sekretua (3); bere sekretua (15); bihotzeko sekretua (3); bion arteko sekretua (3)

eguzki beltzaren sekretua (8); erakunde sekretua (3); gure arteko sekretua (3); gure sekretua (6); hor dago sekretua (3)

ilargiaren sekretua (11); informazio sekretua (9); itun sekretua egin (3); jaunaren sekretua (3); nire sekretua (14)

polizia sekretua (9)

sekretua gorde (7); sekretua gordetzeko (6); sekretua gordetzen (3); sekretua izan (16); sekretua izan zen (4); sekretua izango (7); sekretua izango da (4); sekretua kontatu (3); sekretua zela (6); sekretua zen (14); sumarioa sekretua (3); zein da sekretua (3)

zoriontasunaren sekretua (3); zure sekretua (8)

agente sekretuak (4); barneko sekretuak (3); bere sekretuak (6); beren sekretuak (5); erakunde sekretuak (4); hegaldi sekretuak (6); israelgo zerbitzu sekretuak (3); kartzela sekretuak (5); kontu sekretuak (3); mailegu sekretuak (5); mezu sekretuak (3); munduko sekretuak (3); polizia sekretuak (5)

sebetuak azaldu (3); sekretuak dituzte (3); sekretuak ezagutu (6); sekretuak gordetzen (3); sekretuak ikasi (3); sekretuak izan (3); sekretuak izango (3)

zentro sekretuak (3); zerbitzu sekretuak (40)

sekretoaren berri (4); sekretuaren bidez (3); sekretuaren jabe (6); sekretuaren jakitun (3); zerbitzu sekretuaren (4)

espainiako zerbitzu sekretuei (3); zerbitzu sekretuei (18)

aebetako zerbitzu sekretuek (8); alemaniako zerbitzu sekretuek (4); cia zerbitzu sekretuek (3); errusiako zerbitzu sekretuek (6); espainiako zerbitzu sekretuek (14); fsb zerbitzu sekretuek (4); zerbitzu sekretuek (142); zerbitzu sekretuek egindako (3)

zerbitzu sekretuekin (3)

aebetako zerbitzu sekretuen (5); bere sekretuen (3); cni zerbitzu sekretuen (4); hegaldi sekretuen (3); kartzela sekretuen (4); kontu sekretuen (3)

sekretoen ganbera (21); sekretuen ganbera ireki (4); sekretuen ganberako (4); sekretuen ganberako sarrera (3); sekretuen ganberan (5); sekretuen ganberara (3); sekretuen ganberari (4); sekretuen ganberaz (4); sekretuen jabe (3)

zerbitzu sekretuen (99); zerbitzu sekretuen agiriak (3); zerbitzu sekretuen arabera (3); zerbitzu sekretuen datuek (3)

zerbitzu sekretuentzat (8)

aebetako zerbitzu sekretuetako (3); cia zerbitzu sekretuetako (3); irakeko zerbitzu sekretuetako (3); israelgo zerbitzu sekretuetako (4)

zerbitzu sekretuetako (91); zerbitzu sekretuetako agente (3); zerbitzu sekretuetako buru (12); zerbitzu sekretuetako burua (3); zerbitzu sekretuetako buruak (8); zerbitzu sekretuetako kide (6); zerbitzu sekretuetako kideak (4); zerbitzu sekretuetako kideek (3); zerbitzu sekretuetako talde (3)

euskaldunak zerbitzu sekretuetan (3); zerbitzu sekretuetan (10)

zerbitzu sekretuetarako (5)

zerbitzu sekretuetatik (4)

polizia sekretuko (7); zerbitzu sekretuko (3)

epaileak sekretupean jarri (4)

sekretopean dagoela (3); sekretupean egondako (3); sekretupean ezarri (3); sekretupean gorde (5); sekretupean gordetzen (4); sekretupean jarraituko (3); sekretupean jarraituko duela (3); sekretupean jarri (9); sekretupean jarri du (6); sekretupean zegoen (3)

sekretopeatik atera (6)

ez da sekreturik (4); ez dago sekreturik (9); ez du sekreturik (6); sekreturik gabe (4); sekreturik gabeko (3)

elkargo sekeretu (7)

segeretuzko bozak (3)

sekreto *adlag* era sekretuan, isilean.

Erraten zidan garbiki nik **sekreto** pentsu nuena: [...]. **Piarres Aintziart**

Batetik triste sentitu zen etxearen maileguen ordaintzeko emaztearen hilabeteko sosaren premia gorria zeukatelako, baina bestetik, **sekreto** pozten zen hobereenen multzoan geratzeko hautatu zutelako. **Itxaro Borda**

Sekreto, haiengana isurtzen du Bere maitasuna, eta gertutik ematen die arreta, Beraren maitasunaren duin ote diren ikusteko. **Patxi Zubizarreta**

Bi galdeketa egin zizkioten, egiaztatzeko ea zinez **sekreto** bidalia zion bere txostena Erregeri, ala Erromako edo Trentoko bideetan ateraita zen. **Piarres Xarriton**

Aita Renteriak, ohe ertzean eserita, eskuak Susana San Juanen sorbaldeen gainean jarririk, ahoa haren belarriari ia itsatsita goraki ez mintzatzeko, **sekreto** tartekatzen zuen bere hitzetako bakoitza: "Lurrez beterik daukat ahoa". **Juan Garzia**

sekreto *iz* sekretua denaren nolakotasuna.

«ERCKo eta EAKo ordezkarien arteko komunikazioen **sekreto** hautsi duten CNlren ekimenei buruzko informazioa» da bi alderdiek eskatu dutena. **Berria - Euskal Herria**

sekreto *(orobat sekeretutxo g.er.) iz* garrantzi txikiko sekretua.

-Nik ere neure **sekreto** ditut... **Joan Mari Irigoien**

Biolonek maite ditu haren ume-kontakizunak, eta esna mantentzen du **sekreto** eta istorio samurrak kontatuz. **Itziar Otegi**

-**Sekreto** bat kontatuko dizut -esan zidan, irribarretsu-. **Patxi Ezkiaga**

sekreto *1 izond* sekretuen zalea dena.

Engainatu nahi duten erregimen **sekreto** ari zarenean, ez duzu ziur egoteko modurik. **Berria - Mundua**

Teknologiak demokratizazioa ekarriko duela ziurtzat jotzen du Vicente Aceituno irakasleak; Microsoften Windows bezain **sekreto** eta iluna izateak, bestalde, luzarora kalte egiten duela dio. **Berria - Gaiak**

Nolatan da posible sistemarik **sekreto** ahulena izatea? **Berria - Gaiak**

2 (izen gisa)

Ez zen **sekreto** amorratua. **Jon Muñoz**

sekreto *iz* jariatzea.

Ulermen [...]: Burmuinaren **sekreto** bat, zaldia eta etxea bereizteko ahalmena ematen duena, teiltua dela medio. **Xabier Olarra**

seksu ik seksu.

seksu *1 iz* erlijio edo kideko baten barruan doktrina bera duen pertsona-talde egituratua; bereziki, kideentzat kaltegarria eta alienatzailea dena.

Seksu bat indarrean dauden erlijio komunitateekiko erlazioan definitzen da. **Berria - Gaiak**

Erljio beraren **seksu** arteko gerrak eta Estatu bereko fakzioen artekoak direla gogorrenak. **Esteban Antxustegi**

Juduen ikuspegitik, Kristau Eliza, juduen fedea ukatzen zuen **seksu** bat zen. **Iñaki Mendiguren**

Kristo o. III. mendean Manesek fundatutako **seksu** dugu manikeismoa. **Imanol Unzurrunzaga**

Zenonen **seksu** suntsitzea gizadiaren zoritxarren artean jarriko nuke ezinbestean. **Iñaki Iñurrieta**

Prizilianori dagokionez, berriz, bere **seksu** martiritzat ohoratu zuen. **Juan Martin Elexpuru**

Erljioek aukera bat egin behar dute: eboluzionatu eta eraberritu, edo baztertu eta **seksu** bihurtu. **Askoren artean**

«Gizarte askeagoa, parekatuagoa eta zuzenagoa» lortzeko eman diren urratsak geldiarazi nahi dituztela «Elizako hierarkiak eta integritate katolikoaren **seksu**». **Berria -**

Euskal Herria

Musulmanek metodo hori onartu zutenetik, beren artean **sekta** bat sortu zela, *mutazili*-ena. Xabier Kintana

Harrituko hintzateke jakinen bahu nor den **sekta** horretako apez-buru edo dena delakoa. Aingeru Epaltza

Irrazionalak al dira ezbeharraren aurrean federa edo **sekta** baten ideietara jotzen dutenak? Bernardo Atxaga

Militarrek ez eta, erlijioak biziarri zentzu bat aurkitzen lagunduko ziolakoan, **sekta** batean sartu zen. Karlos Linazasoro

Poliziaren arabera, hildakoak Alusi Okija izeneko **sektako** kideak dira. Berria - Mundua

Garai honetako gertaerarik esanguratsuena manikeismoak eragindako desilura izan zen, **sektatik** irteera erabakitzea arte. Imanol Unzurrunzaga

Sekta horretatik ihesi alde egin nuen Afrikara. Karlos Linazasoro

Arrasateko mugimenduaren ezaugarri nagusia da, **sekta** baten gisako antolaketaz, langileen ustiaketa harik eta handiena egiten duela. Iñaki Heras

2 (izenondoekin)

Bai nestoriotarren eta Mendebaldeko kristau katolikoan elizek bai Islamak, baita mahayaniar budismoaren **sekta** tantriko lamaistak ere. Iñaki Mendiguren

Hamaseigarren mendearen bukaerako Espainiako **sekta** heretiko bat. Xabier Olarra

"zeloteen" erreakzio totalitarioa, bere adierazgarri tipikoak Sinesle Zaharren **sekta** fanatikoan aurkitu zituena. Iñaki Mendiguren

Honek burua berotu zion erregeari esanez Simon Morin gizajoak **sekta** berri bat antolatu zuela, ia jansendarrena bezain arriskutsua. Juan Martin Elexpuru

Sekta nekrofiloez jakingarriren bat ikasteko. Aingeru Epaltza

Litekeena da Egunkari honek eskatuta hiriko **sekta** sataniko eta talde okultisten gainean egiten ari zen ikerketa Anjel Urtxipiaren hilketaren nahigabeko eragile gertatu izana.

Aingeru Epaltza

Sekta okultisten gaineko ikerketa, Urtxipiaren hilketaren eragile. Aingeru Epaltza

- **Sekta** puta batekoak dirudizue, nik ez dakit ezer! Harkaitz Cano

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Poetek eta poesia-irakurleek aspaldi hartu zuten **sekta** itxura hartzen ari dira narratzaileak eta narrazio-irakurleak. Anjel Lertxundi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Federalismoa historian eta geografian oinarrituko da, ez etnia edo erlijio **sektetan**. Filofofi **sektak**, antzinakoan artean, erlijio-motatzat har zitezkeen. Berria - Mundua

Filosofo **sekta** bat, lehen kristauen eta Platonzaleen arteko batasuna moldatu nahi izan zuena. Xabier Olarra

Sermoilari-**sektaren** bateko kidea etxean hartu duelako. Juan Martin Elexpuru

Badakit zaila dela zu bezalako pertsona judutar batentzat guri ulertzea, baina gu ez gara Biblia mailuka sartzen eta infernuko sua predikatzen ibiltzen den kristau-**sekta** horietako beste bat. Oskar Arana

Karaitarrak, testu sakratuen letra idatziari erabat atxikia zen judu **sekta** bat zen ("literalistak"). Xabier Kintana

- Bizi osoa eraman ote zitezkeen **sekta** militar kutsuko sineste murrizt horietan bermatuz, zioen, aberria, herria eta hizkuntza, denak ama deituz? Itxaro Borda

5 irud/hed

Ba ote du interesik filologo eta literatur ikerlarien **sekta** murriztetik kanpoko irakurlearentzat idazle baten ariketen bildumak? Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sekta berri (4)

sektakeria *(2 agerraldi 2 artikulutan)* iz doktrina edo ideia baten alde fanatikoki egiten duen pertsonari dagokion portaera edo nolakotasuna. ik **sektarismo**.

Jendearen sentimendu erlijiosoak erabiltzen dituzte erasoetan; berez xede politikoa dute, baina erlijioa eta **sektakeria** erabiltzen ari dira, beti bezala. Berria - Harian

Nire ustez, **sektakeria** alde batera uzteko gai ez den herria ez da herri bat. Berria - Harian

sektakide iz sekta-laguna.

Fausto, manikeoen buruetariko bat, Cartagon izan zen sasoi hartan **sektakideen** atxikimendua sendotu nahian. Imanol Unzurrunzaga

Sektakide bat Konstantzaren aitorlea izana zen. Juan Martin Elexpuru

Sektakide bezain militante izateko lur-beltza zen bera. Itxaro Borda

sektario 1 *izond* sektarismoz jokutzen duena.

Parroki estatuak, eliza **sektarioak** bezala, ez bakea baizik eta ezpata ekartzen zuten idoloak zirela. Iñaki Mendiguren

Euskaldun bat izan zen, agian mende oso batez Gipuzkoan izan zen katolikotasunaren aurkaririk gogorrena, bere furfurua **sektarioan**, Ostiral Santuko egunean, zenbat urtez ez gara gogoratzen, promiskuitatezko parranda publikoak antolatzea ere iritsi zena. Askoren artean

New Age erlijioa ez da **sektarioa**, eta ez dago kultuaren inguruan guztiz oinarriturik. Berria - Gaiak

Urte haietako katalogoari begiratzen bazaio, argitaletxea ez da batera **sektarioa**, orduko kulturaren ispilu baizik. Anjel Lertxundi

2 sektarismoaren ondoriozkoa.

Indarkeria **sektarioa**, dena den, bere horretan da. Berria - Harian

Hemen gaude oztopo **sektario** guztien gainetik, emakume modernoari geure onena eskaintzeko. Patxi Iturritegi

Ideologia arrazista, terrorista edo muturrekoa, garbiketa **sektarioa** bultzatzen duena. Berria - Harian

Adibide garbiak daude EAJk eta EAK borondate **sektarioa** dutela adierazten dutenak. Berria - Euskal Herria

Eraso eta atentatu **sektario** horien helburua nahasmena sortu eta herritarren eta aldean artean gerra zibila piztea dela dirudi. Berria - Harian

Abizenak ez dira hizkuntzak berak markatzen duen *gu* horretatik ematen, aldakorrek diren irizpide **sektarioagoetatik** baizik. Iñigo Aranbarri

3 (izen gisa)

Neurriz kanpoko botere zibila egin dudalako salaketak jaso ditut, baina elizgizonen eskutik; kontzientzi askatasuna deuseztatu dudala, baina **sektarioen** eskutik. Esteban Antxustegi

4 (hitz elkartuetan)

Sektario -talde horietako batean edo bestean. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

indarkeria sektarioa (5)

eraso sektarioak (6)

eraso sektarioen (3)

sektaria (*7 agerraldi, 2 liburu eta 5 artikulatzen*) iz doktrina edo iban alde fanatikoki egiten duen pertsonari dagokion portaera edo nolakotasuna. ik **sektakeria**.

Hizkuntza ez erabiltzea tentsio politikoaren hornigarri; ahalegintzea, joera demokratikoak lagun, **sektarismoak** baztertzuz, bere oinarria zabaltzen. **Bernardo Atxaga**

Era berean, PPre «moduak eta **sektarismoa**» kritikatu zituen, negoziazioa baztertzearagatik. **Berria - Euskal Herria**

Batzuetan hizkuntza gutxituei atxikitutako kultura txikiak **sektarismo** dogmatiko ikaragarria erakusten dutela, kanon orokorrak ezartzen duena baino gogorragoa inondik ere. **Berria - Ekonomia**

Zergatik hainbeste **sektarismo** egitasmo baikor baten kontra? **Berria - Kultura**

Felipe Puig bozeramaileak hirukoari «**sektarismoz** aritzea» salatu zion. **Berria - Mundua**

sektazale iz sekten zela den pertsona.

Garai batean biziki kritikatu ohi nuen, lagunartean behintzat, jarrera mota hori, eta haserretu egiten nintzen **sektazaleekin** ate joka etortzen zitzaizkidanean. **Bernardo Atxaga**

sektore 1 iz helburu bera duten edo sailkapen berean sartzen diren jarduera eta enpresa multzoa.

Ondoren, antolamendu modu kapitalistak beste **sektore** batzuk eskuratzen hasi ziren: meatzaritza, ontzigitza eta burdingintza. **Koro Navarro**

Petrolioaren **sektorean** oso argi ikusten da hori. **Koro Navarro**

Aisialdiaren **sektorea** enpresa multinazionalen hazkundearen paradisu bihurtu da. teknologia-maila altuko **sektoreetan**. **Koro Navarro**

Eraikuntzako greba beste **sektore** batzuetara hedatuko dute Gipuzkoan. **Berria - Ekonomia**

Ekipamendu-ondasunak ekoizteko **sektore** baten falta. **Koro Navarro**

Halaber, **sektore** arteko akordioa osotasunean sinatzeko aginduari «gehiegizkoa» iritzi zion. **Berria - Ekonomia**

Lehen **sektoreak** ekoitzi eta bigarrenak transformatzeko duena konpainia itzel horiek erosi eta beren biltegietan metatzen dute. **Edorta Agirre**

1975ean, hirugarren **sektoreak** nazioarteko zuzeneko inbertsioen munduko stockaren %30 inguru baino ez zuen hartzen; industriak berriz %45 hartzen zuen, eta lehen **sektoreak** %25. **Koro Navarro**

2 (izenondoekin)

Sektore ekonomiko guztietako 150 enpresa etorri dira xehetasun biltzera eta harremanen lotzera, erdia pasa hegoaldeetik. **Herria**

Unibertsitate eta ikergune publikoek har zezatela bere gain arlo hauetan egiten den ikerkuntza, berriz ere **sektore** pribatutik **sektore** publikora eramanez zeregina. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Sektore publikoak metatutako zorraren maila ez izatea Barne Produktu Gordinaren ehuneko 60a baino handiagoa. **Iñaki Heras**

Teknikari edo kontularirako bokaziorik ez eta erabat abandonatu nuen **sektore** primarioan kokatzeko ene xede leiala. **Itxaro Borda**

Truke-tasak ekonomiaren batez besteko produktibitatearen mailan geratzera jotzen baitu, eta ez **sektore** esportatzaile bakarraren mailan. **Koro Navarro**

"Ez haute mobilizatutako arrantzan habilela, **sektore** estrategikoa diagu. **Koldo Izagirre**

Mendealdeko ekonomiei aukerak zabalduko zaizkie beraz, [...] beren jarduerak eduki teknologiko eta produktibitate handiko sektoreetara bideratzen badituzte, eta **sektore** tradizionalak garapen-bideko herrialdeen esku uzten. **Koro Navarro**

Elkartzeak, zatiketak, **sektore** ez-errentagarrien salmenta, finantza-amarruak. **Iñaki Heras**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Garai batean, **sektore**-korruetan antolatuturik, erosketa eta salmenta aginduak elkarri ahoz esaten zizkioten. **Iñaki Heras**

Sektore Konferentziak: gehiengo sindikalak ez du begi onez ikusten enpleguari edo prestakuntzari buruzko gaiak estatu mailan erabakitzea. **Berria - Ekonomia**

Lanaldiari dagokionez, Arabako metalgintzako **sektore** itunak 1.735 orduko ezarri zuen aspaldi. **Berria - Ekonomia**

Enpresetako negoziazio kolektibo lehenetsiko du ELAK, **sektore** akordioaren emaitzarik eza dela eta. **Berria - Ekonomia**

-Ikuspegi integratua: lehenetsia du ingurumen-aldagaia **sektore**-politika guztietan txertatzeak. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Estatuaren jarduera, **sektore** mailan birgaiturik, erabakigarria gertatzen da bestalde politika makroekonomiko globalan eta politika horiek truke-tasen gainean duten eraginean. **Koro Navarro**

Sektore barneko merkataritzaren ehunekoa, manufaktura trukeen osotasunean, %80ra heltzen zen Alemania, Frantzia eta Erresuma Batuen kasuan 1991n. **Koro Navarro**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Soluziobideak 1980ko hamarraldiaren bukaeran hasi zitzaizkien ematen, banku-**sektorearekin** zorpeturiko herrialdeei dagokienez behintzat. **Koro Navarro**

60ko urteetan, elektronika **sektoreko** zenbait enprekin antzekorik gertatu zen [...] eta, 80ko urteetan, bioteknologia **sektorekoekin**. **Iñaki Heras**

Aurrerabide teknikoak kanpokoak izateak eta ekipamendu-ondasunen ekoizpen-**sektore** baten faltak sortzen dituzten arazoak. **Koro Navarro**

Kristina eta Ximurra gure ondoan ziren berriz, eraikuntza **sektorearen** garapenak gure Erkidegoari dakartzkeen onuzer aspertuak nonbait. **Aingeru Epaltza**

Fernando Soria delakoa, ikuzgintza **sektoreko** enpresaria. **Aingeru Epaltza**

Manufaktura-**sektoreko** soldata errealek, berriz, urteko ia %2 handitu zirela. **Koro Navarro**

Jarduera-**sektore** osoei berregituratzen eta modernizatzen laguntzen diete (nekazaritzari, energiari edota komunikazioei, adibidez). **Koro Navarro**

Bost **sektore** nagusi aztertu ditugu: okelagintza **sektorea**, arrantza **sektorea**, esne ekoizpen **sektorea**, barazkien kontserba **sektorea**, eta ardagintza **sektorea**. **Berria - Gaiak**

5 alorra, eremua, zatia.

Elkartea kultur arloa ez den beste **sektore** batzuetan ere aritu baita; nekazaritzan eta ekonomian, esaterako. **Berria - Kultura**

Gizarteko **sektore** guztiek dute zeregina iraunkortasunerako prozesuan. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Kulturgintzako **sektore** guziki ordezkatuak dira, baita ere EKE, AEK eta Seaska. **Herria**

Zuk badakizu San Mameseko **sektore** batek eta hedabide batzuek ez zaituztela oso gogoko. **Berria - Kirola**

Irizpide batzuk zehaztu dira eta horietatik estrapolatzen dute herrien edo gizarte **sektore** batzuen bizi-kalitatea. **Berria - Gaiak**

Etxe guztietara ordenagailuak eramango ditu baina ez ditu interes demokratikoak kontuan izango, ezta herri-**sektoreen** nahiak ere. **Txema Ramirez de la Piscina**

6 (izenondoekin)

Unibertsitateko **sektore** euskaltzaleak, abertzaleak, ezkertiarak eta aurrerakoiak bildu nahi ditu. **Berria - Euskal Herria**

Bartzelonako **sektore** aurrerakoiek, elkarrizketa eta elkartasuna bultzatzen dutenek, ez dute begi onez ikusten foroa. **Berria - Kultura**

Hori egin izana ez diote inoiz barkatuko AEBetako **sektore** atzerakoienek, ezta bertako komunitate judu indartsuak ere. **Berria - Kultura**

2002ko apirilaren 11ko kolpea saiatu zuten **sektore** kolpista eta terrorista ber-berek, zibil zein militarrek, kontratatu zituzten oraingo atxilotuak. **Berria - Mundua**

Garai horretan aurkitzen ditugu oso **sektore** adierazgarrietan erlijio-esperientziaren lekuko behinenak, Arrazakeria pairatzen dutenak, feministak, langabetuak, gay eta lesbianoak, unibertsitateko **sektore** kritikoak. **Joan Mari Lekuona**

Hori ez da **sektore** politiko zehatz bati soilik dagokion erroka, klase politiko guztia baizik, jendartean sinesgarritasuna lortu nahi badu, bederen. **Txema Ramirez de la Piscina**

Dei marxista horren ahalmenaren aurrean amerikar **sektore** antikomunista batzuen larritasuna ez zen ezkututzen. **Iñaki Mendiguren**

Hazkundera, estentsiboa izateetik, intentsiboa izatera igaro zen, eta gizartearen **sektore** zabalagoei gertatu zitzaizkien onuragarri. **Koro Navarro**

Hiru patronatukide gehiago izendatzea proposatu du **sektore** ofizialak, eta kritikoak aurka agertu dira. **Berria - Kultura**

7 txirrindularitza, etapa baten zatia.

Gaurko etapak bi **sektore** izango ditu: goizean 93 kilometroko errepidekoa, eta arratsaldean 8,8 kilometroko erlojupekoa. **Berria - Kirola**

Bi **sektore** korritu ziren atzo. **Berria - Kirola**

Konyshhev nagusi goizeko **sektore** bizkorrean. **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

alderdiko sektore (8); alderdiko sektore batek (3)

eajko sektore (3); eako sektore (4); ehuko sektore (3); eskuineko sektore (3); espainiako sektore (4); euskal gizartearen sektore (3); euskal gizarteko sektore (6); euskal herriko sektore (3); gizarte sektore (3); gizartearen sektore (13); gizarteko beste sektore (5); gizarteko sektore (26); hainbat sektore (16); herriko sektore (3)

industria sektore (5); jarduera sektore (5); nafarroako sektore (3)

oposizioko sektore (3); psoeko sektore (3)

sektore abertzale (3); sektore arteko (4); sektore bakarra (4); sektore barneko (5); sektore berriak (4); sektore desberdinen (3)

sektore ekonomiko (5); sektore ekonomikoen (5); sektore estrategikoa (7); sektore eta enpresa (3); sektore ezberdinen (3); sektore garrantzitsu (3); sektore handi (6); sektore handi batek (3)

sektore jakin (6); sektore konferentzietan (3); sektore kritikoa (5); sektore kritikoak (7); sektore kritikoek (3); sektore kritikoko (5); sektore mailako (7); sektore mailan (3)

sektore ofizialak (3); sektore ofizialarekin (3); sektore politiko (5); sektore politikoek (3); sektore pribatu (4); sektore pribatua (4); sektore pribatuak (5); sektore pribatuan (8); sektore pribatuaren (7); sektore pribatuari (4); sektore pribatuko (9); sektore publikoa (8); sektore publikoak (10); sektore publikoan (16); sektore publikoaren (10); sektore publikoko (7)

sektore zabal (8); sektore zehatz (5)

sektorez sektore (4); unibertsiteko sektore (8)

bigarren sektorea (5); eraikuntza sektorea (6); lehen sektorea (6); liburugintza sektorea (4); makina erremintaren sektorea (3); sektorea liberalizatzeko (5); zerbitzuen sektorea (11); zerbitzuen sektorea liberalizatzeko (3)

energia sektoreak (4); energiaren sektoreak (3); eraikuntza sektoreak (4); industria sektoreak (4); zerbitzuen sektoreak (6)

elikagaien sektorean (4); energia sektorean (3); energiaren sektorean (3); eraikuntza sektorean (10); eraikuntzaren sektorean (4); esnearen sektorean (3); etapako lehen sektorean (3); garraio sektorean (4); hirugarren sektorean (3); industria sektorean (8); lehen sektorean (7); nekazaritza sektorean (4); zerbitzu sektorean (4); zerbitzuen sektorean (4)

sektoreei dagokienez (7)

herri sektoreen (4); sektoreen artean (4); sektoreen arteko (7)

administrazio sektoreko mahaia (5); eraikuntza sektoreko (8); lehen sektoreko (5)

sektoreko enpresa (11); sektoreko enpresek (4); sektoreko enpresen (5); sektoreko eragileekin (4); sektoreko hitzarmen (5); sektoreko hitzarmena (8); sektoreko ituna (7); sektoreko lan (23); sektoreko lan itunaren (4); sektoreko lan itunen (5); sektoreko langileak (4); sektoreko langileen (8); sektoreko mahaia (12); sektoreko negozioaz (4)

sektoreka 1 *adlag* sektoreen arabera, sektorez sektore.

Klaustroak aukeratzten dituen 14 ordezkariak **sektoreka** aukeratzten dira. **Berria - Euskal Herria**

Lana **sektoreka** banatuz gero, zerbitzuetan daude langabegehien. **Berria - Ekonomia**

Sektoreka hartuta, funtzionario doktoreek 354 boto eman dizkiote (%10,99), irakasle kontratatuek 306 (%4,07), ikasleek 1.527 boto (%2,76) eta Administrazio eta Zerbitzuetako Plantillako (AZP) 230 langilek (%2,29). **Berria - Euskal Herria**

Sektoreka, zerbitzuak izan ziren lanpostu gehien sortu zituztenak. **Berria - Ekonomia**

Sektoreka industriak eta zerbitzuek izan dute aktibitate gehien. **Berria - Ekonomia**

2 sektorekako izlag

Sektorekako datuek erakusten duten bezala, energiaren prezioa eragiten ari da batez ere goranzko joera. **Berria - Ekonomia**

Negoiazio kolektiboa ezin da sustatu **sektorekako** hitzarmenetan bakarrik. **Berria - Ekonomia**

Sektorekako mahaia ez al dira hori lortzeko tresna egokia? **Berria - Ekonomia**

Sektorekako azterketa egin zuen Gabiolak. **Berria - Ekonomia**

«Malgutasuna» helburu, **sektorekako** banaketa zurrunik ekiditeko, Kongresuak antolakuntza berria onartu zuela azaldu zuen Cataniak. **Berria - Harian**

Sistema eta **sektorekako** plan estrategikoak eta egoeraren azterketak egitea. **Berria - Kultura**

sektorial *izond* sektorearena, sektoreari dagokiona.

Hitzarmen **sektorialetan** eta enpresetako hitzarmenetan euskararen aldarrikapena agertzeko. **Berria - Euskal Herria**

Eraginkorra izan nahi badu, legeak akordio **sektorialak** garatu beharko ditu, bitarteko behartzaileak zehaztea ahalbidetuko dutenak. **Berria - Euskal Herria**

Udaletxei dagokionez, esate baterako, Aralarrek prestatua du proposamena, batzorde **sektorial** bat sortzeko. **Berria - Euskal Herria**

Bileran negoziatorako mahai **sektoriala** osatuko dute eta hitzarmen berrirako hizketaldiak hasiko dituzte. **Berria - Ekonomia**

Grebari eutsi diote sindikatuek Mahai **Sektoriala** bildu eta gero. **Berria - Euskal Herria**

Mahai **sektorialeko** gehingoarekin. **Berria - Harian**

Izaera **sektorialeko** pentsio osagarriak. **Berria - Ekonomia**

Mahai **sektorialaren** bilkura eten ondoren, protesta gisa, Osakidetzaaren egoitzan ziren langileek itxialdia hastea erabaki zuten. **Berria - Euskal Herria**

«Arlo **sektorialetan** zer motatako erantzuna eman daitekeen, dinamika bateragarriak nola eraman eta alderdi politikoek zer nolako tokia duten» gogoetatzeko asmoa du Batasunak. **Berria - Euskal Herria**

Ekoeraginkortasun globala eta **sektoriala**. **Berria - Euskal Herria**

Programa horiek arazo ekologikoen ikuspegi bertikal eta **sektorial** batean oinarrituta zeuden. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

mahai sektoriala (11)

mahai sektorialaren (6)

izaera sektorialeko (3)

hitzarmen sektorialetan (3)

sektorializatu, sektorializa, sektorializatzen da/du *ad* sektoretan banatu.

Edo **sektorializatu**: gaeuz publikoari ixten zaien esparruekin. **Berria - Euskal Herria**

sektorialki *adlag* sektorez sektore.

sektorizatu, sektoriza, sektorizatzen du/da ad sektoretan banatua.

Euskara alortuta dagoela uste dugu, **sektorizatuta**. **Berria - Harian**

sekuentzia 1 iz elkarren artean kidetasunen bat duten elementuen segida; segida horren ordena.

Gauaren eta egunaren etengabeko **sekuentziak** zehazten du zehaztasun konkreturik gabe denboraren joana. **Unai Iturriaga**

Tartekatze perfektuaz ari garenean (k-b-k-b-k-b), *banana* hitza da nazioartean erabili ohi den izena, fruitu horren ingelesezko -eta euskarazko- hitzak **sekuentzia** hori betetzen baitu. **Iñaki Arranz**

Heroien arraza bat brontzezko arrazaren eta burdinazko arrazaren artean sartzea garbi dago geroko burutazioa dela, olerkiaren **sekuentzia**, simetria eta zentzua apurten duena. **Iñaki Mendiguren**

Ezagutzen ez dugun hizkuntza bat entzuten dugunean, ez gara gai esateko hotsen **sekuentzia** nola aztertu behar den. **Isabel Arrigain**

Hor gertakariaren batek begitartea iluntzen diola ematen du, zoriotsu zeneko irudien **sekuentzia** etenez. **Joxean Agirre**

Kasu guztietan, erreakzio-kate linealak ditugu, hots, **sekuentzia** batzuk, non urrats bakoitza entzima espezifiko batek katalizatzen baitu. **Juan Garzia**

Sekuentzia baten moduan funtzionatzen du, ez da bat-bateko kontua. **Pako Aristi**

Txinatar kapitalismoa prest dago gaur Txinako kontinente-eremua bere mendean hartzeko, Europako aldi merkantilista biziki gogorarazten duen **sekuentzia** batean. **Koro Navarro**

Garbi dago, ordea, ezin dugula aurrekusi bihar-etzi historia egingo duten gertakarien **sekuentzia**. **Juan Garzia**

Ikertzaileen artean bi talde egin ziren, norgehiagoka, nork identifikatu lehenago ADNaren atalkako **sekuentzia** hori. **Pello Salaburu**

Elementuak, galaxiak, izarak, Lurra sorrarazi duten aldiari aldiriko gertakarien **sekuentzian** haietariko batzuk gauzatu ez balira, gerta zitekeen ez izatea historik zahaitzetan, ez eta zahaitzik ere, ez eta, apika, mundu bizirik batere. **Juan Garzia**

2 (izenondoekin)

Gertaera diskurtsiboan esparrua, berriz, formulatuak izan diren **sekuentzia** linguistiko hutsen multzoa da. Bagenekien bere listuaren ADNko nukleotidoen **sekuentzia** zifratua. **Xabier Arregi**

Entzima horiek guztiak ere espezifikoak ziren: bakoitzak ADN **sekuentzia** labur jakin bat ezagutzen zuen. **Juan Garzia**

Badira, gehien-gehienetan, **sekuentzia** ez-kodetzaille batzuk -intronak- tartekatua. **Juan Garzia**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Era orokor batean esan daiteke hizkuntza osagaien **sekuentzia**-enuntziatua dela. **Xabier Arregi**

Errua "**sekuentzia**-arazo"ei egozten bazien ere, bazirudien pertsonaiekiko enpatiarik ezak sortzen ziola arazoa, eta zio eta asmoen joko katramilatua ez ulertzeak. **Xabier Olarra**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ume normalek garapen-**sekuentzia** bat pasatu behar izaten dute urratsez urrats, hasi zirimarrak egitetik eta irudi eskematiko eta geometrikoekin jarraituz, zapaburu ("tadpole") estiloko irudietaraino iritsi arte. **Xabier Olarra**

Gerora, berriz, ikurren bidez irudikatuko zituen soinu **sekuentzia** haiek egunen batean, idazkuntza asmatuko. **Imanol Zurutuza**

Inpresio-**sekuentzien** bidez antolatzen dituzte itsuek beren munduak (ukituzko, entzunezko, usnazo munduak, alegia) eta ez dira gauza, ikusmena dugunok bezala, aldi bereko ikusmenezko pertzepzioarako. **Xabier Olarra**

Proteina bakoitza aminoazido-**sekuentzia** batek osatua da. **Juan Garzia**

Gene bakoitza nukleotido-**sekuentzia** berezi batek osatua da. **Juan Garzia**

Proteina baten baitako aminoazido-**sekuentzia**, jakina denez, proteina hori determinatzen duen genearen baitako nukleotido-**sekuentziak** kodetzen du. **Juan Garzia**

5 zinema eta kidekoetan, batasun motaren bat osatzen duten planoen segida. ikpasarte 4.

Ivan Beldurgaria filmeko orgiaren **sekuentzian**. **Josu Zabaleta**

Irrikan egon nintzen ea **sekuentziaren** batean aitona ikusten nuen. **Jon Muñoz**

Segida bereko edo **sekuentzia** bereko bi irudi finkoren artean badela bitarte bat (denborazkoa). **Josu Zabaleta**

-Irudi autonomoa vs. **sekuentziako** irudia: oraingo honetan semantikoa da, batez ere, irizpidea, **sekuentzia** beren esanahiak lotzen dituen irudi sail bat baita izatez. **Josu Zabaleta**

Lau marrazki ziren, nik kontatutako ipuinaren **sekuentzia** osatzen zutenak. **Joan Mari Irigoien**

Gogora dezagun badirela, gainera, irudi finko eta narraziozkoen **sekuentziak** (komikian, pinturan), bideratzen duten narraziozko edukiarengatik, neurri bateraino bederen filmeko **sekuentziarekin** aldera daitezkeenak. **Josu Zabaleta**

Gurutze-bideen adibidea aipatzen du, elizetan Kristoren nekaldia irudikatuz egon ohi diren hamalau irudizko **sekuentziak**. **Josu Zabaleta**

Hor ditugu, adibidez, hainbat **sekuentzian** erabilitako testura aldatetak, kameraren mugimendu azkarrak eta ahotsik gabe musika hutsarekin utzitako eszenak. **Berria - Kultura**

Aurretik ezarritako eredu bati jarraiki konposaturiko **sekuentziek** osatzen dute musika kadentzia bat. **Iñaki Arranz**

6 (izenondoekin)

Komikietakoa dirudien ekintzen **sekuentzia** geldoan Platoan lehiakidearen **sekuentzia** eskatologiko gogoangarrienak pasatzen dizkigute: Vanessa dutxan, Vanessa kakalekuan, Vanessa tetrabrikerako ardoaz mozkortuta konpresa zikina aldatzen... **Harkaitz Cano**

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Russellek hitzaurre moduan edo diktadorearen ametsa balitz bezala -flash back antzeko batean- txertatu nahi zuen **sekuentzia** multzo hurra. **Harkaitz Cano**

8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Duane Michalsek historiabto bat [...] kontaktzen duen argazki-**sekuentzia** batean, elkarren segidako argazkien arteko denborazko hutsarteak denbora diegetiko koherente batean du erreferentzia. **Josu Zabaleta**

Bazinek ere arazoiz mantendu ahal izan du plano-**sekuentziak** hainbesteko errealitate-sentipena ematen duela non errealitatearen oso irudikapen modu berezi bat gertatzen baita hartan. **Josu Zabaleta**

Pintura-**sekuentzia** tradizioaletan (gurutze-bidea da hemen ere prototipoa), sketch erdi-autonomo bat irudikatzen du irudi bakoitzak. **Josu Zabaleta**

Surrealismotik gertu dauden musika **sekuentziak**. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adn **sekuentzia** (4); adnko **nukleotidoen sekuentzia** (3); aminoazido **sekuentzia** (4); nukleotido **sekuentzia** (4); nukleotidoen **sekuentzia** (3); nukleotidoen **sekuentzia** zifratua (3); **sekuentzia osoa** (3)

sekuentzial izond sekuentziarena, sekuentziari dagokiona; sekuentzietan zatitua dagoena.

Templek adierazten du goi-goiko maila ematen zuela haur-haurretatik test espazial eta ikusmenezkoetan, baina nahiko gaizki ibiltzen zela lan abstraktu eta **sekuentzietan**.

Prozedurak deskriba ditzakete, erabaki **sekuentzial** jarraituak eskatzen dituztenak barne. Berria - Harian
Badira **sekuentzialak** izanagatik mugimendurik gabekoak diren irudiak, eta badira mugimendua duten obrak, baina egiaz **sekuentzialak** ez direnak. Josu Zabaleta

sekuentziantasun *iz* sekuentziala denaren nolakotasuna.

Pertzepzioaren helburua ikusmenezko munduaren ebaluazio-eskala bat ematea da nolabait Gibsonentzat [...]; mugimendua eta **sekuentziantasuna** -eta, horrenbestez, denbora- funtsezkoak dira pertzibitzen den munduaren oinarrian dagoen espaziozko eskala hau eraikitzerakoan. Josu Zabaleta

Zinematografiako muntaketaren oinarri berean oinarritzen da elkarketa hori -metaketatik hurbilago baitago, Eisenstenen iritzian, printzipio hori **sekuentziantasunetik** baino.

Josu Zabaleta

Horrelako margolanak irudi-sekuentzien parekoak dira, Rudolf Arnheimek esan zuen bezala; hark dio, gainera, ez dela nahasi behar **sekuentziantasuna** eta mugikortasuna.

Josu Zabaleta

sekuentziatu, sekuentzia(tu), sekuentziatzen da/du *ad* sekuentzietan zatitu.

2000. urtean giza genomaren segida aletu edo **sekuentziatu** dela iragarri zen, eta gero eta nabariago agertzen da prentsan eta komunikabideetan medikuntza genomikoa panazea berri gisa. Askoren artean

Adibidez, 21. kromosoma hau da txikiena, eta **sekuentziatu** ahal izan den bigarrena. Pello Salaburu

Orain, genoma ia osoa **sekuentziatuta** egonik, egin daitezkeen estimazioak askoz ere zehatzagoak dira. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aletu edo sekuentziatu (3)

sekuentziatze *iz* sekuentzietan zatitzea.

Horrenbestez, narraziozko irudi oro, eta berdin irudikapenezko irudi oro, narratibotasunaren "kodeek" markatuta dator, narratibotasun hori **sekuentziatze** baten bidez agertu baino lehen ere. Josu Zabaleta

Berriro zinemara itzultzeko, bada, muntaketak, **sekuentziatzeak** denbora guttiz artifizial, sintetiko bat sortzen du, errealitatean elkarren segidan ez doazen denborazko blokeak elkarrekin lotuz. Josu Zabaleta

sekuentziazio *iz* sekuentzia ordenatuetan zatitzea.

Sekuentziazioa deitzen zaio hurrenkera zehatza eta egiazkoa aurkitzeari. Pello Salaburu

sekuestratu, sekuestra, sekuestratzen du *ad* bahitu.

-Baina zer egin nahi diguzue: **sekuestratu** ? Xabier Mendiguren Elizegi

Gizon-emakume horiek zahar bat daukate hor barruan lotuta, **sekuestratuta**, eta orain berarekin zer egin ari dira eztabaidatzen, beren ezkutalekua deskubritu duenez gero.

Xabier Mendiguren Elizegi

sekuestro *iz* bahitzea, bahiketa.

Gaurkoa egun arrunta duk, ez duk ezer berezirik gertatu, eta, guri dagokigunez, behintzat, ez duk **sekuestrorik** izan. Pedro Alberdi

Berria jakin, eta Julianen lehenengo akordua, Seat 124 zuriarentzat izan zen. "**Sekuestroaren** lekuko izan ote da?". Pedro Alberdi

sekula *(5779 agerraldi, 250 liburu eta 674 artikulutan; orobat sekulan 963 agerraldi, 54 liburu eta 438 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian sekula agertzen da)* 1 *adlag* inoiz ere ez. (ezezko esaldietan; ez partikularen ezkerrean)

Sekula ez naiz lapurretan aritu. Jose Morales

Sekula ez naiz horretaz libratuko. Xabier Olarra

Sekula ez zuen halakotzat hartu bere burua. Mirentxu Larrañaga

Sekula ez dut halakorik ikusi Italiako lurretan. Felipe Juaristi

Hortaz, **sekula** ez zara Brasilen izan. Iñaki Mendiguren

Baliteke berak ere **sekula** ez jakin izana istorio osoa. Oskar Arana

Zin egin nuen **sekula** ez nituela ahantziko. Felipe Juaristi

Ez dut **sekula** ahaztuko. Xabier Olarra

Itsasoari esker bizi bazen ere, **sekula** ez zuen Nikola Saltzek itsasorik ikusi. Felipe Juaristi

Sekula tratatu ez dugun jendeaz ere aise lor genezake informazio baliagarria. Iñaki Segurola

Basa gauzatxo bat **sekula** kontatu ez nizuna gure topaketa laburrean. Iñaki Mendiguren

Banning Cocq eta Willem van Ruytenburgh, esaterako, gizon printzipalak Amsterdamen, **sekula** tiro bakar ere egin ez zutenak. Felipe Juaristi

Ama batek **sekula** izan ez duen umearen mina bezalakoa, aberririk **sekula** izan ez duen abertzalearen mina bezalakoa. Felipe Juaristi

Big Joek bizirik iraun zuen, eta onera egin zuen, nahiz eta erabat **sekula** ez. Mirentxu Larrañaga

Hobe da berant, **sekula** ez baino. Berria - Euskal Herria

Sekula ez, edo oso gutxitan, eraman nahi izaten zuen oihal berrizko tunikarik. Berria - Gaiak

Geroztik, **sekula** Hannaren berririk ez. Joxe Austin Arrieta

. Zorte hark **sekula** ihes ezin egingo zioneko pentsamendu lausoa baitzuen buruan. Harkaitz Cano

Sekula ezingo dizut adierazi galera horrek eragiten didan samina. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

2 (ezezko esaldietan; ez partikularen eskuinean)

Ez dut **sekula** gizon hori ikusi, ez dut ezagutzen. Oskar Arana

Ez zen **sekula** argitu ea gaixotasun akutuak eragin zion erretinetako lesio hori, ala erretinen endekapena sortzetikoa zen. Xabier Olarra

la bi hilabete iraganak ziren jada: erantzuna ez zen **sekula** iritsiko. Juan Garzia

Infernuak ere ez du **sekula** halakorik kanpora jaurti. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Jesu Kristo gure Jaunaren izenean ez dezazuela **sekula** zerupean besterik ezer eduki nahi. Askoren artean

Garbi zeukan ez zuela **sekula** inor tirokatuko. Harkaitz Cano

Ez didala inork **sekula** mundu onetan gaur zuk egin didazun bezainbat ohore egin. **Oskar Arana**

Ez nion berriro **sekula** deituko. **Oskar Arana**

Ez diot inori hitz egiten, **sekula**; ez dut deus hartzen, ez dut deus ematen. **Monika Etxebarria**

3 (baldintzetan)

Baina baldintza honekin, hots, **sekula** frogatzen baldin **bazen** heretikoa zela, bera izanen zela haren kondentzaile lehena. **Piarrres Xarriton**

Peter, halaber, **sekula** herriratuko **balitz** arras bestelakotua atzemanen zuketan otsabidetarrek. **Itxaro Borda**

Frantses Estatuak **sekula** onartuko **balu** Iparralde mailan departamenduaren inguruko galdeketa bat egitea, nonbait Iparraldearen ezagupenari buruz aitopanen hastapena litzateke. **Berria - Euskal Herria**

4 (galderetan)

Kontatu diat **sekula** nire kosmosaren ikuspegia? **Harkaitz Cano**

Jakin al dugu **sekula**, nere arbaso gaxte begi-ederrok? **Iñaki Segurola**

Uzten al diogu **sekula** bakarrik egoteari? **Ana Urkiza**

Zuen aitak **sekula** jan al du emandako hitzik? **Sekula** sentitu al dugu, bada, geure ona beharrean inorena hobestera eraman gaituen berezko bultzadarik? **Mirentxu Larrañaga**

-Fantaisi polonaise hura... jo al huen tropikoan **sekula**? **Xabier Olarra**

5 (bestelakoak)

Doinu bat etorri zitzaion orduan, gela hartako bazter batetik sortua, **sekula** ordu arte entzun gabea bera. **Felipe Juaristi**

Haiek ziren gela hartan **sekula** ukitu gabeak ematen zuten gauza bakarrak. **Iñaki Mendiguren**

Ezein gizakirengan **sekula** ikusi den jarrerarik errukarrienean baitzegoen. **Jose Morales**

Hitz batean, ederra zen dena, naturak edo arteak -zeinek bere aldetik- **sekula** asmatuko lukeen baino ederragoa. **Jose Morales**

Sekula idatzi den libururik ospetsuenetakoa. **Oskar Arana**

Orduko hura ez zen borondatezko isiltasuna izaten, han denek baitzeukaten zer esana eta zer iritzia, **sekula** baino gehiago gainera. **Hasier Etxebarria**

Sekula halakorik! **Lopez de Arana**

6 sekula baino

Gauza asko **-sekula baino** gehiago- esanarazi behar zaizkio artelan garaikideari, bera berez gutxi **-sekula baino** gutxiago- delako, edo batere ez. **Iñaki Segurola**

Denek baitzeukaten zer esana eta zer iritzia, **sekula baino** gehiago gainera. **Hasier Etxebarria**

Gau hartan hondarrean etxeratzean, **sekula baino** gehiago, hozkailuan gasnaren ez atzematea deitoratu nuen. **Itxaro Borda**

Sekula baino hobeto. **Oskar Arana**

Goiz hartan **sekula baino** lehenago jaiki nintzen. **Jasone Osoro**

Sekula baino tristeago iritzi nion hots betibateko hari. **Alberto Ladron Arana**

Eta beroa ere **sekula baino** pixuagoa. **Joxe Austin Arrieta**

Ezkutu bat, gaur munduak **sekula baino** beharrago duena. **Iñaki Segurola**

Sekula baino harrituago nengoen. **Janbattitt Dirassar**

Gryffindorreko taldea **sekula baino** gogorrago ari zen entrenatzen Hooch andrearen begiradapean. **Iñaki Mendiguren**

Etxean **sekula baino** krisialdi luzeagoa, zaratatsuagoa eta larriagoa izan zen. **Jesus Mari Mendizabal**

Nikolas Pigassof, aldiz, **sekula baino** sasoi hobean zegoen. **Karlos Zabala**

Big Lanniek **sekula baino** arrazoi handiagoz bedeinkatu zuen dama andrea. **Mirentxu Larrañaga**

7 sekula betiko adlag

Demostraziook **sekula betiko** gal ez daitezten. **Jon Muñoz**

Lo suspergarri bati emana ote, ala koman eroria **sekula** betiko? **Jon Muñoz**

Askotan maletak itxia geratzen ditun, sekretu guztiak barruan gordez **sekula betiko**. **Harkaitz Cano**

Ez dut gehiagorik galdatzen, non ez den gure adiskidantzak iraun dezan **sekula betiko**. Adio, jauna; zure jokabideak dit erakutsiko zer nolako sentimenduz behar natzaizun izan, **sekula betiko**. **Jon Muñoz**

Hala jokatura, gera zitezten, lur gainean gizona, bizialdirako aske, eta lurpean emakumea, **sekula betiko** preso. **Felipe Juaristi**

8 Sekula Betiko Lurralde

Peter eta Wendy horretan agertzen dira, jakina, **Sekula Betiko Lurraldea** eta Kako-okar kapitaina. **Julen Gabiria**

Sekula Betiko Lurraldea Barrieren lurralde desiratua da, haurtzarokoa. **Julen Gabiria**

Irla zoragarri horietatik, goxo eta erosoena **Sekula Betiko Lurraldea** da. **Julen Gabiria**

Sekula Betiko Lurraldean umeen eguneroko bizitza etengabeko jolasa da, baina jolas horretan hil egin zaitezke, edo norbait hil dezakezu. **Julen Gabiria**

9 sekula ere adkor sekula. (ezezko esaldietan; ez partikularen ezkerrean)

Sekula ere ez naiz berriz liburutegira joanen. **Monika Etxebarria**

Bap! ez nintzen **sekula ere** hara azaldu. **Txillardegí**

Halako desengainu katean ari zen Hadass sarrarazten eta ari zen bera sartzen, eta hainbeste arau ari zen urratzen, non **sekula ere** ez baitzen gai izango haien guztien zigorra ordaintzeko. **Koro Navarro**

Baina **sekula ere** ez dute esan nahi Jainkoak (gorets bedi!) hotsen edo hitzen bidez hitz egin duenik. **Xabier Kintana**

Orduan eskubiderik ez zen, eta **sekula ere** argia ikusi ez duten euskal esparru batzuk, esparru berriak, ditugu orain eskura. **Pello Salaburu**

Han aurkitzen dira amets ere egin daitekeen mendeku gai ederrenak, mendeetako gorrotoak, aldi batez baketuak, baina **sekula ere** ez itzaliak. **Josu Zabaleta**

Beti puta, **sekula ere** ez maitale, maitasunari ihes eginez, plazera adoratzu. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Ezkonduta gero morroiak hartu, **sekula ere** ez maitaleak. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Sekula ere ez berriro! **Joxe Austin Arrieta**

Hara, eskatu egiten dizut, ez berriro hona deitzeko, **sekula ere** ez. **Oskar Arana**

Orain ala **sekula ere** ez. **Hasier Etxebarria**

· Karpeta urdinean gordetzen zuen eskuizkribua **sekula ere** abandonatu gabe. **Harkaitz Cano**

Esanen dut, bestetik, nolako belazeak ikusi nituen, ordu arte nik **sekula ere** ikusi gabeko belaze handiak. **Fernando Rey**

10 (ezezko esaldietan; ez partikularen eskuinean)

Ez duzu **sekula ere** probatu? **Aingeru Epaltza**

Ez da **sekula ere** abiaburutzat hartu eskualde ahul eta atzeratu bateko hizkera. **Koldo Zuazo**

Ez diote **sekula ere** elkari aditzen. **Monika Etxebarria**

Ez zuen **sekula ere** inor egin sentimendu horren partaide, eta damu zuen Amianorekin zenbait gauzatan, sakonera heldu gabe, azalean geratu izana. **Ramon Saizarbitoria**

· Ezin izango ziokeen barkatu, **sekula ere**, 600 librako ezpatarraina harrapatu barik joaten utzi izan balu. **Edorta Jimenez**

11 sekula ez bezala

Sekula ez bezala artatua eta gozatua sentitzen zen. **Itxaro Borda**

Ongi mereziak naituen gainera, **sekula ez bezala** gezurretan ibiltzeagatik. Hasier Etxeberria
Stalingradon, ordea, soldaduek **sekula ez bezala** aritu behar izan zuten, alemanek gogor erasotzen baitzieten egunez nola gauez, airez nola lurrez. Felipe Juaristi
Arte garaikideak zerbait esan nahi badu, sistemaren garaipena esan nahi baitu: [...] esanahi handiko ezerezarekin eta ezerezaren esplikazioarekin gizabanakoak **sekula ez bezala** entretentuz itxuragabeko arte-dirua mugiarazten duen sistemarena. Iñaki Seguro
Aparteko ezer aipatzekorik ez zeukan andre baten gose nintzen, **sekula ez bezala**. Hasier Etxeberria
Tootlesen aurpegia zuri-zuri zegoen, baina duintasuna ere nabari zitzaion, ordura arte **sekula ez bezala**. Julen Gabiria

12 sekula guztian adkor sekula.

Baina nor zara zu niretzat, **sekula guztian** ezagutu ez nauzun hori, [...] beti aurrera eta aurrera eginez amaigabeko itxaronaldian uzten nauen hori? Eduardo Matauko
Horrexegatik, erran ez zuelako, ez-osotasun kutsua txertatu zion esaldiari, zerbait falta balitz bezala eta huts hori **sekula guztian** ez betetzera kondentaturik balego bezala. Aingeru Epaltza

Liburuari esker, hilabeteko epean ikasten duzu adituen ahotik **"sekula guztian"** ikasiko ez zenukeena. Jon Muñoz

Gero, arratsalde haren oroitzapena biziro gorderik geratzen zaizu gogoan, behin betiko, **sekula guztian**, eta zehatz-mehatz oroitzen duzu hain egun gogoangarrian gertaturiko guztia. Jose Morales

Orain galdezka ari zara, ene maitea, zergatik gorde dudan isilpean haur hau urte luze guztiotan eta ez dudan egundo bera hizpide izan, hemen ilunpean lo datzana, betiko loan, joateko eta **sekula guztian** ez itzultzeko prest, **sekula guztian** ez! Eduardo Matauko

13 sekula santan (86 agerraldi, 41 liburu eta 6 artikulutan) adkor sekula. ik santa 5.

Sekula santan ez zen gerezi-ondoaren azpira etorriko. Daniel Landart

Sekula santan akabatu behar ez zuen hilabetea. Jesus Mari Mendizabal

Ez dut **sekula santan** denborarik alferrik galdu literatur kritikoaren terminologia antzu, barbaro zuri eta nahitanahiez guzia saikatu behar larriaren sasi zikinean. Patziku Perurena

Nik ez zioat Eñauti **sekula santan** neskari ezagutu. Sonia Gonzalez

Bere ezpainenatik ez zen **sekula santan** halako eskaerarik jaulkiko. Anton Garikano

Uriel da Ruaren begi inozo ongira eginek ez zuten **sekula santan** halako bortizkeriarik ikusi. Felipe Juaristi

Baditugu ur-erlojuak, itsaso guztietako ura jaso, bildu eta gero gora botatzen dutenak, **sekula santan** gelditzen ez den iturrian. Felipe Juaristi

Zin egin zuen ez zela berriro **sekula santan** taberna batera sartuko. Bego Montorio

Ez dit axola **sekula santan** ikusten ez badut ere berriro. Mirentxu Larrañaga

-Sekula -esan zuen-, **sekula santan** ez du agertu hain jokamolde txarrik. Mirentxu Larrañaga

Eta esan zuen, ezohiko irimotasun erabateko esan ere, ez zituela **sekula santan** ikusi nahi ez kautxu-lantegia, ez Ruby, ez eta Durant jauna ere. Mirentxu Larrañaga

Ez da ordea, hizkuntzen zentzua gure filologoena bezain simetrikoa izandu **sekula santan**. Patziku Perurena

14 sekulako ik sekulako.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

baina sekula ez (89)

ez baita sekula (13); **ez baitu sekula** (8); **ez baitut sekula** (8); **ez baitzen sekula** (13); **ez baitzuen sekula** (14); **ez da sekula** (149); **ez dela sekula** (28); **ez diat sekula** (12); **ez dio sekula** (11); **ez diot sekula** (15); **ez dira sekula** (46); **ez dit sekula** (9); **ez ditut sekula** (11); **ez dizut sekula** (7); **ez du sekula** (105); **ez dudala sekula** (9); **ez duela sekula** (33); **ez dugu sekula** (31); **ez duk sekula** (17); **ez dut sekula** (149); **ez dute sekula** (22); **ez dutela sekula** (9); **ez duzu sekula** (16); **ez gara sekula** (11); **ez genuen sekula** (13); **ez luke sekula** (7); **ez naiz sekula** (7); **ez nau sekula** (11); **ez nintzen sekula** (23); **ez niola sekula** (7); **ez nion sekula** (9); **ez nuela sekula** (16); **ez nuen sekula** (68); **ez sekula** (22); **ez zaio sekula** (11); **ez zait sekula** (19); **ez zaitut sekula** (8); **ez zela sekula** (30); **ez zen sekula** (114); **ez zidan sekula** (15); **ez zion sekula** (26); **ez ziren sekula** (19); **ez zituen sekula** (7); **ez zitzaidan sekula** (10); **ez zitzaion sekula** (11); **ez zuela sekula** (27); **ez zuen sekula** (163); **ez zuten sekula** (32)

orain arte sekula (20); **ordu arte sekula** (19); **ordura arte sekula** (19)

sekula aditu (12); **sekula ahantzi** (10); **sekula ahantziko** (17); **sekula ahaztu** (14); **sekula ahaztuko** (60); **sekula ahaztuko ez** (15); **sekula aipatu** (8); **sekula aipatzen** (11); **sekula aitortu** (8); **sekula aitortuko** (7); **sekula amaitzen** (8); **sekula atera** (9); **sekula aurkitu** (11); **sekula aurkituko** (8); **sekula ausartu** (7)

sekula baino gehiago (30); **sekula baino hobeto** (8); **sekula barkatuko** (14); **sekula betiko** (72); **sekula betiko lurraldea** (13); **sekula betiko lurraldean** (8); **sekula betiko lurraldera** (7); **sekula bizi** (8); **sekula bukatuko** (9); **sekula bukatzen** (13)

sekula egin (68); **sekula egin den** (8); **sekula egin ez** (18); **sekula egingo** (14); **sekula egon** (22); **sekula eman** (13); **sekula entzun** (40); **sekula entzun ez** (9); **sekula erabat** (7); **sekula erabili** (10); **sekula ere** (118); **sekula ere ez** (74); **sekula esan** (31); **sekula esan ez** (7); **sekula esango** (7)

sekula ez (1441); **sekula ez baita** (11); **sekula ez baitzen** (10); **sekula ez bezala** (13); **sekula ez bezalako** (7); **sekula ez da** (83); **sekula ez dela** (13); **sekula ez diat** (9); **sekula ez dira** (12); **sekula ez du** (36); **sekula ez dudala** (8); **sekula ez duela** (18); **sekula ez dugu** (10); **sekula ez dut** (116); **sekula ez dute** (20); **sekula ez duzu** (10); **sekula ez naiz** (32); **sekula ez naizela** (8); **sekula ez nintzen** (18); **sekula ez nuen** (70); **sekula ez omen** (7); **sekula ez zait** (8); **sekula ez zara** (10); **sekula ez zela** (15); **sekula ez zen** (60); **sekula ez zidan** (7); **sekula ez zion** (26); **sekula ez zioten** (7); **sekula ez ziren** (14); **sekula ez zituen** (9); **sekula ez zitzaidan** (9); **sekula ez zitzaion** (12); **sekula ez zuela** (24); **sekula ez zuen** (123); **sekula ez zuten** (23)

sekula ezagutu (40); **sekula ezagutu dudan** (12); **sekula ezagutu ez** (7); **sekula ezagutu gabeko** (8); **sekula ezer** (33); **sekula ezin** (22); **sekula ezingo** (12)

sekula galdetu (11); **sekula galdu** (15); **sekula galtzen** (11); **sekula gehiago** (60); **sekula gehiago ez** (12); **sekula gertatu** (30); **sekula gertatu ez** (9); **sekula gezurrik** (7)

sekula hain (10); **sekula hainbeste** (7); **sekula halako** (9); **sekula halakorik** (24); **sekula hemen** (8); **sekula hitz** (17); **sekula hitzik** (8); **sekula horrelako** (14); **sekula horrelakorik** (18); **sekula huts** (14)

sekula ibili (10); **sekula idatzi** (11); **sekula ikasi** (7); **sekula ikusi** (149); **sekula ikusi dudan** (10); **sekula ikusi ez** (33); **sekula ikusi gabea** (11); **sekula ikusi gabeko** (17); **sekula inor** (17); **sekula inori** (10); **sekula inork** (9); **sekula iritsi** (12); **sekula iritsiko** (8); **sekula irten** (10); **sekula itzuli** (11); **sekula itzuliko** (17); **sekula izan** (131); **sekula izan den** (12); **sekula izan ez** (37); **sekula izango** (16); **sekula izaten** (7)

sekula jakin (33); **sekula jakin ez** (7); **sekula jakingo** (29); **sekula jakiterik** (11); **sekula jo** (7); **sekula joan** (10); **sekula joaten** (8); **sekula jokatu** (9)

sekula lortu (13); **sekula lortuko** (13)

sekula onartu (10); **sekula onartuko** (11)

sekula pentsatu (18); **sekula pentsatuko** (9)

sekula santan (86); **sekula santan ez** (18)

sekulako 1 izlag berebizikoa.

Sekulako lasaitua hartu zuen Perrettek. Jon Muñoz

Sekulako garrasi batez ezproinatutak zituen zaldiak. Anjel Lertxundi

Sekulako ahalegina egin zuten tronuaz jabetzeko. Txillardegi

Sekulako poza hartu nuen alemanez ere eguzkia andrazkoa dela jakitean: "Die Sonne". Joxerra Garzia

Sekulako buruko minak ematen zizkidan. Daniel Landart

Berri hark **sekulako** harrimena sortu zion. Josu Zabaleta

Sekulako balantzak egiten zituela iruditu zitzaidan, ibaiaren bazter biak joz, behin bata behin bestea. Josu Zabaleta

Sekulako ostia eman omen zion behetik gora bat-batean. Rafa Egiguren

Sekulako kalapita izan zuen nagusiarekin. Aingeru Epaltza

Sekulako presioa sentitzen ari nintzen lepo-bizkarretan. Anjel Lertxundi

Sekulako haize-boladak astintzen du etxea. Anjel Lertxundi

-Nor izan dira **sekulako** dirutza irabazarazi dizutenak? Elena Touyrou

Sekulako arazoa behar dugu konpondu, lekuarena. Michel Oronoz

Sekulako ergelkeria! Jon Muñoz

Haren aurpegiari, ordea, **sekulako** lasaitasuna zerion. Anjel Lertxundi

sekular ik sekula.

sekular¹ 1 *izond* elizgizonez eta mozej mintzatuz, monasterio edo ordena baten araupean ez dagoena.

Beren bekatuak apaiz **sekular** bati aitortzen zizkioten sari. Askoren artean

Silvestre Asis hiriko apaiz **sekularra** zen. Askoren artean

Anaiaren bat hilko balitz, ez litzateke egokia hemen edo kleriko **sekularren** elizaren batean lur ematea. Berria - Kirola

Frantziskotarrek Parisen zuten *Studium*-eko zuzendari zela, klero **sekularrarekin** izandako eztabaidetan parte hartu zuen Ordenaren defentsan. Askoren artean

· 2 *izond/iz* kristuaez mintzatuz, elizgizona ez dena; horrelakoei dagokiena.

Edonon eta edozein **sekular** nahiz erlijiosoren aurrean zelarik, bere barrena harrokeria, handiuste edo beste grina txar batera tentatua sentitzen zuenean, berehala argi eta garbi aitortzen zuen. Askoren artean

Bazuten han mantu bat, anaia batek **sekular** zelarik erabili zuena. Askoren artean

Herriari predikatu ondoren, leku bakartiren batean bildu ohi zituen bertan ziren apaiz guztiak, esaten ziena **sekularrek** entzun ez zezaten. Askoren artean

Sekularrek erabat debekatua zuten sarrera. Askoren artean

Frantziskok, orduan, oso jainkozalea zen **sekular** bati dei egin eta esan zion: [...]. Askoren artean

Jendearen zein fraideen begietan haien bizierak ez zirudien familian bizi diren **sekularrena**, Jaunaren zerbitzuan urte asko bizi izandako pertsona santu eta erlijiosoena baizik. Askoren artean

Ikusi nuen eta aitortzen dut jantzi **sekularren** azpian Kristo Jaunari sagaraturiko arima zela. Askoren artean

Ikusi nuen eta aitortzen dut jantzi **sekularren** azpian Kristo Jaunari sagaraturiko arima zela. Askoren artean

Anaia hura, handik egun gutxira, bere borondatez atera zen Ordenatik eta, **sekularrez** jantzita, mundura itzuli zen. Iñaki Iñurrieta

Gisa berean, eskumiku zigorraren mehatxupean, debekatzen diegu ere ikusgarri horrien beren ikustera joatea, fraideei eta **sekularrei**, elizaren kargutan edo ordena sailduetan sartuak direnei. Piarres Xarriton

3 (adizlagun gisa)

Frantzisko, oraindik **sekular** jantzita, erlijioso da bihotzez. Askoren artean

4 (hitz elkartuetan)

Oraindik **sekular** jantzia zeraman arren, ezagutzen ez zuten hiriren batean egon nahi zuen, bertan bere jantziak erantzi eta behartsuren bati maileguz hartutakoak jantzeko. Askoren artean

Baina gaztetxo hauei ere **sekular** jantzia utzi eta erlijioso jantzea ezartzen die. Askoren artean

· 5 *izond* laikoa.

Milurteko-laurden bat igaroa zen gizarte **sekular** berri batek Mendebaldeko Kristau Eliza Katolikoaren krisalidatik irteteko prozesu luzea osatu zuenetik. Iñaki Mendiguren

Kasu batzuetan eragin intelektual eta moral hauek ez ziren transmititu jarraibide hutsez, baizik eta pertsonaren bat eremu **sekularretik** eliz eremura aldatuz. Iñaki Mendiguren

Eliz gorpuz batetik ihes egiten duen zibilizazio **sekular** bat gai dela bere bidea egiteko, aurreko zibilizazioaren bizitzako elementuen laguntzaz. Iñaki Mendiguren

Pariseko unibertsitatean, maisu **sekularren** eta mendikanteen arteko polemika pizten da. Askoren artean

Elizgizonak pozik zeuden ikusten baitzuten arazo **sekular** guztietan elizetara eta aldareetara jotzen zela. Iñaki Iñurrieta

Beren eliz krisalidetatik irten eta beren kasako bizitza **sekular** berri bat bizitzeari ekitea. Iñaki Mendiguren

Elizaren batasun espiritualean bat eginda zeuden botere **sekular** eta intelektualak. Iñaki Mendiguren

Frantziar iraultzaileek, beren egutegi **sekular** berria ezartzen hain osoro huts egin zutenek, arrakasta ekumenikoa izan zuten beren pisu eta neurri berriekin. Iñaki Mendiguren

Egungo gizarteak, ordea, gero eta **sekularragoak** dira. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apaiz **sekular** (3); zibilizazio **sekular** (3)

sekularrak onbidean (3)

sekular² *izond* mendeetakoa.

Egunotan estreinatua den *Yo, Satan* antzezlanak Vatikanoko obskurantismo **sekularra** eta Aita Santuaren inguruko intrigak hartu ditu gaitzat komedia eta dramaren arteko produktu hau eratzeko. Berria - Kultura

Gure dependenzia **sekularren** alegoria nazionalizat irakur daitezkeela uste dut, nahiz eta ez dauden Galizian kokatuta. Berria - Kultura

sekularioan *adlag* mendeen mendeetan.

Eternal dirauten gauzek nahitaez behar dute edo kolpeak ezetsi, gorpuz trinkodunak direlako, eta ez utzi barne-atal batuak, euren izaera lehen azaldu dugun materiaren lehenkiak direlakoak, banatzeko ezer sar dakien, edo bestela **sekularioan** irauteko gauza izan, kolpeetatik libre dagozelako. Xabier Amuriza

sekularismo *iz* zernahi eliza edo erlijioaren eraginetik kanpo egotea. iklaizismo.

Kristautasunaren ondoko Mendebaldeko Zibilizazioa hamazazpigarren mendetik aurrera Mendebaldeko Kristandadetik aldentuta garatu zenean, Elizak, **sekularismoa** hedatzearen eta neopaganismora itzultzearen beldur izanik arrazoiz, fedea desagertzen ari zen gizarte-sistemarekin identifikatu zuen, oker. Iñaki Mendiguren

sekularizatu, sekularizatu, sekularizatzen 1 da/du *ad* sekular bihurtu. ik sekular¹.

Mendebala **sekularizatu** arau gogortuko da Eliza katolikoa, honek erranen baitu ez dela moralik Egiaren kanpotik, mundua erlatibo dela definizioz eta gizona laxista jitez. Piarres Aintziart

Gaur eguneko gizartearen jainko, azti eta apaizen beldurra gero eta txikiagoa denez, gizartea gero eta **sekularizatuagoa** dagoenez. Luis Elberdin

Mendebalde moderno berant **sekularizatuaren** zientzia berria, ordurako, holandarren bidez, ezkutuan aztertzen ari ziren kriptoi-kertzaileak animatzen zituen mugimendua. Iñaki Mendiguren

2 (era burutua izenondo gisa)

Mendebaldeko Zibilizazio moderno **sekularizatu** batek lortu zuen azkenaldian benetako unibertsaltasuna ekonomia eta teknologian, politika edo kulturaren pareko arrakastarik lortu gabe. Iñaki Mendiguren

Mendebaldeko mundu moderno **sekularizatuan**. Iñaki Mendiguren

sekularizatzaile *izond* sekularizatzen duena.

Berritasun **sekularizatzaile** hori aintzat hartuta ere, ezagunak ditugun hipotesiak errepikatzen ditu Kritiasek. **Askoren artean**

sekularizazio 1 *iz* sekularizatzea.

Mendebaldean, modernitateak **sekularizazioa** ekarri zuen. **Berria - Harian**

Modernitatearen balioetan oinarritua dago, aldaketa politikoen bultzatzaile delako eta bizitza politikoaren **sekularizazioa** bultzatzen duelako. **Berria - Euskal Herria**

Horrek guztiak hizkuntz deseterrealizazioa adierazten du, gizartearen **sekularizazioaren** ikurra baino ez dena. **Iñaki Mendiguren**

Nazio estatuari zaion gorrotoa, azken batean, legearen **sekularizazioari** zaion gorrotoa da. **Berria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Gure kontzepzio etikoa guztiz dago moral kristauaz blai eginda, eta azken mendeetako **sekularizazio** -prozesua ez da eragin horretatik libratzen. **Askoren artean**

sekularpen *iz* sekularizazioa.

Ilustrazioak Jainkoa kendu eta haren lekuan arrazoimena jainkotu zuen (bitxiki **"sekularpena"** bezala ederretsi ohi dute batzuek filosofiaren teologizazio lirdinga hori!).

Joxe Azurmendi

sekularitu, sekular, sekularitzen 1 da/du *ad* sekular bihurtu. ik **sekularizatu**.

Kritiko agertzen da konpromisoa eta fedea eskatzean oinarritzen diren kanpaina erraldoi binkulanteekin; gizarteak **sekularituz** doan bitartean, liturgien estetika eta izaera gordetzen baita, demagun, *Bai euskarari* moduko kanpainetan. **Berria - Kultura**

Natura hori Jainkoa bera zen **"sekularituta"**, esan ohi den bezala **Joxe Azurmendi**

2 (era burutua izenondo gisa)

Esan daiteke nahasmendu horren lokatz artean mugitu dela askotan pentsamendu **sekulartua**. **Askoren artean**

sekulorum ik **sekulorun**.

sekulorun (*orobat sekulorum g.er.*) **sekulotan adlag** mendeen mendeetan.

Saiek ez diote erasotzen Akeronten datzan Tiziori eta ziur ezingo luketela haren bular zabalean ezer miatzekorik aurkitu **sekulorun** sekulotan. **Xabier Amuriza**

Saiek ez diote erasotzen Akeronten datzan Tiziori eta ziur ezingo luketela haren bular zabalean ezer miatzekorik aurkitu **sekulorun** sekulotan. **Xabier Amuriza**

Gatazkatsu, dudakor eta aldabera **sekulorun** sekulotan, hariak eta lurrekoak egiten ditudan arte. **Aingeru Epaltza**

Errege katolikoen izpirituak zutik baitirau eta zutik iraunen baitu, sozialismo eta komunismo guztien gainetik, **sekulorun** sekulotan, amen! **Joan Mari Irigoien**

sekulotan ik **sekulorun**.

sekunda ik **segundo**.

sekundario 1 *izond* bigarren mailakoa.

Hau da, arriskuak ez dira besterik gabe aplikazio hondarrak, albo-ondorio **sekundarioak**, gure gizartearen erakusle fidelak baizik. **Berria - Gaiak**

Liburuan aparteko garrantzia daukate bigarren mailako pertsonaiak edo pertsonaia **sekundarioak**, horiek sostengatzen dute nagusien balioa. **Berria - Kultura**

Konstruktio teoriko horrek -ahozkotasun primarioa, kultura idatzi inprimatua, ahozkotasun **sekundarioa** - badu bere egitura kutsu ia bibliko halako bat. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Endelgu hori **sekundarioa** da, organismoaren *posteriusa* da, berorrek baldintzatua, burmuinaren funtzio soila den heinean. **Askoren artean**

Erabaki horrek -beste zeinahi erabaki ekonomikok bezala- baditu efektu **sekundarioak** ere (inflazioa, ekonomiaren uzkurtzea edota interes tasen areagotzea, hurrenez hurren, aipatu finantzazio bideei dagokionez). **Iñaki Heras**

Batzuetan tratamenduak, hainbat arazo direla medio, ez duela aurreikusiriko efektua sortzen, edota, lortu arren, txarrera ere egiten duela eriak tratamenduaren efektu **sekundarioengatik**. **Iñaki Heras**

I. jaunaren ikusmen-kortez primarioa funtsean ukitu gabe zegoen, eta kortez **sekundarioa** zen (V4 aldeak zehazki, edo haiekiko konexioak) lesioaren ia zama guztia jasan zuena. **Xabier Olarra**

2 bigarrena.

Merkatu **sekundarioa** ere esaten zaio burtsari. **Iñaki Heras**

3 *iz* taldeko aktore lana.

Sekundario politikak egin ditut, eta ni horrekin konforme nago. **Berria - Harian**

sekundariotze *iz* sekundario bihurtzea.

Lehenengo Mundu Gerraren ondoren psikoanaliak alemaniar hizkuntzako herrialdeetan izan zuen zabalkundearekin batera, era bateko edo besteko abstrakzionismoekin eta, batez ere, espresionismoarekin, neurri batean bederen **sekundariotzea**, arrazionalizatzea alde batera utzi eta beren obran produkzio primarioak nahita azaleratzen uzten duten pintura-eskolak agertzen dira. **Josu Zabaleta**

sekundarizazio *iz* sekundariotzea.

"Sentimena" eta "grina" afektuaren **"sekundarizazioak"** dira, afektua dagoeneko irudikapen sail batean nahasten dutenak; emozioa, berriz, "primarioagoa" da hori baino, eta esanahi jakinik gabe bizi izaten da askotan. **Josu Zabaleta**

sekundu ik segundo.

sekuoia 1 iz pinuaren ordenako zuhaitza, jatorriz Kaliforniakoa, guztiz handia, 150 metroko garaiera iritsi dezakeena (*Sequoia sp.*).

"Munduko izaki bizidun zaharrena" ikustera joan gara gero, hiru mila urte inguru omen dituen **sekuoia**. Bernardo Atxaga

Yosemite parkeko **sekuoia**. Patxi Zubizarreta

Ni isilean geratu naiz **sekuoia** tantai bat besarkatu ezinik. Patxi Zubizarreta

Ez dakit [...] nire bihotzean erne den zuhaitz aldaxka asko ala gutxi haziko den, bonsai bat bezain tiki ala hemengo **sekuoia** bezain sendo eta garai haziko den. Patxi Zubizarreta

Gaszte haien artean Landau nagusitzen zen, **sekuoia** bat bitxiloreen artean bezala. Fernando Morillo

2 (hitz elkartuetan)

Sasiak ikusi zituen **sekuoia** egurrezko hesiaren ondoan haziak. Koro Navarro

sekuritate ik seguritate.

sekurokrata iz adkor seguritate zerbitzuetako kidea.

Londresko **sekurokraten** eta ikertzaile politikoen ordezkaria besterik ez den batzorde antierrepublikanoaren lana. Justizia arloan, aldiz, bi lege proiektuekin gabiltza, eta orain botere transferentzia egitea geratzen da; **sekurokraten** eta inteligentzia zerbitzuen eskutik kendu eta herritarren ordezkarien esku jartzeko, Ostiral Santuko Akordioa zioen bezala. Berría - Mundua

Zer dakite IMCko kideek hitz egin nahi dutenari buruz? [...] Armagh hegoaldeko zokoei buruz? ezer ere ez, espiek eta **sekurokratek** esaten dietena besterik ez. Berría - Mundua

sekzio (orobat *sekkzione g.er.*) 1 iz saila; atala. (armadan eta kidekoetan)

Soldadu italiarren zenbait **sekzio** agertu ziren geroxeago kaian. Jokin Urain

Paris hoge **sekkziotan** banandu zuen, hiriaren hogei barrutien arabera; **sekzio** bakoitzean, buruzagi bat jarri zuen, jeneral moduko bat. Karlos Zabala

Partaideek tenientea baizik ez zuten ezagutuko, eta honek bere **sekkzioko** buruzagiarekin baino ez zuen harremanik izango. Karlos Zabala

CDJA-ko ardi hazkuntza **sekkzioko** ordezkaria. Herria

Berehala **sekzio** hartako langile guztiak deitu gintuzten batzarrera, gertatutakoa argitzeko. Jon Maia

-Sekzioko idazkariak bidali nau esatera -esan zuen Zakarrak-, prozesioan **sekzio** osoak parte hartuko duela, bandera eta guzti. Koldo Biguri

2 (epaitegietan)

Auzitegi Nazionaleko Zigor Aretoko Lehen **Sekkzioaren** ebazpena. Berría - Euskal Herria

Gipuzkoako Auzitegi lehen **sekkzioko** Fiskaltzak. Berría - Euskal Herria

Izan ere, AVTK ere kereila jarri du Auzitegi Nazionaleko Lehen Zigor **Sekkzioan**. Berría - Euskal Herria

Gipuzkoako Auzitegi 2. **sekkzioak**, auziaren artxibatzea atzera bota eta ikerketarekin jarraitzeko agintzearekin batera, [...]. Berría - Harian

3 (Frantziako hezkuntza-sisteman)

Sekkzio berriak jada elebitasuna segurtatzen duten eskoletan dira denak. Herria

Bi **sekkzio** elebidun ideki dira Azkainen eta Ziburun. Herria

4 (erakundeetan)

Oroitu behar da lantegi batean edozein sindikatan **sekzio** baten idekitzea ez dela gauza erretxa. Herria

Iparraldean sozialista alderdiak dituen hamabi **sekkzioetatik** bostek Emmanuellistak dituzte idazkariak, baina Baionako sekzioa, kopuruz aise nagusi dena, Pierre Lalanne Holandetiarr gaztearen alde agertu da deplauki. tipo batek miñ bat emango zuela herriko plazan, alderdi liberalaren **sekkzioak** gonbidatuta. Herria

Fokutik kanpoko argazkia bezalako zen dena, Armanik esan ohi zien bezala **sekkzioaren** bileretan. Jon Alonso

5 (orkestra eta kidekoetan)

Berreskuratu nuen hirukote formula hura, eta haize atal bat gehitu nion, metal **sekzio** bat. Berría - Kultura

Brussels Jazz Orchestra 15 musikarik osatzen dute eta haize eta perkusio **sekzio** oparoak darabilzki. Berría - Kultura

· Gela isil batean, Zenobiaren adatsaren hari- **sekzio** osoak soinu ezin sarkorragoz doitutako kontzertu bat eskaintzen zion Sixtiro. Josetxo Azkona

6 (dendetan eta)

Eroskin izan zen: jateko zerbait eskuratzea joan, eta esnekien **sekkzioaren** beste muturretik norbait ni tirokatzera zihoala konturatu nintzen. Iban Zaldúa

Zilar koloreko errimelak probatzen ari nintzela, aterkien **sekkzioan** bikote batek atentzioa eman zidan. Jasone Osoro

· Ertzaintzako objektu galduen **sekkziara** ere jo dut, baina han ere ez dut aurkitu. Joan Mari Irigoien

7 (testuetan)

Sekkzio hau aurreko **sekkzioko** azken adibidearen argudioaren jarraipena da. Iñaki Mendiguren

8 geometrian, ebakidura.

Beste adibide bat aipatzearen, **Sekkzio** konikoen II. liburuan frogatu izan da badirela bi lerro, halako puntu batzuetatik irteten direnak, eta hasierako puntuan badutela beren artean halako distantzia bat, lerrook luzatzen diren heinean txikituz doana. Xabier Kintana

Horregatik deitzen dira zuen begien aurrean eratutako lau irudi horiek **Sekkzio** koniko; edo Koniko, laburrago esanda. Jon Muñoz

Lurrarekiko kontaktu-eremua [...] oso txikia baita, gorputzaren parterik gehien zeharkako **sekkzioarekin** alderaturik. Irene Aldasoro

· Landare baten zurtoina zeharka mozten badugu, **sekkzioaren** gainaldean konplexutasun handiko edo ez hain handiko marrazkia geratzen da agerian. Isabel Arrigain

9 geometrian, zatia.

Nire bista-eremuan dagoen zerbait hori (koilara), okertuta dago, beren arteko angelua osatzen duten bi **sekzio** zuzenetan dago banandurik. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lehen **sekkzioari** (3)

sekkzioko idazkaria (3)

sekkzioburu (orobat *sekkzio buru*) iz sekzio baten burua.

Ikusia naiz erredakzioko laguntzaileak erredaktore bilakatzen, erredaktoreak **sekkzioburu**, **sekkzioburuak** erredakzioburu eta erredakzioburuak zuzendariorde. Aingeru

sekzione ik **sezkio**.

selaru ik **selauru**.

selauru (orobat **selaru**) 1 iz ganbara, aletegia.

Etexz etxe ibili ziren, **selauru** eta ukuluak oro miatuz, eta elizako ageri bildumak herriko etxeokoen erkatu zituzten. **Elena Touyarou**

Teilatua berritua da, **selaurua** ere. **Herria**

Selaurua zaukaten belarrez betea. **Herria**

Iduriz berogailu tresna batetarik abiatu da sua eta hau **selauruan** zagon. **Herria**

Gustatzen zitzaion errain ukaldi batez zamaren bizkarreratzea eta trinkili-trankalaka **selauru** edo ganerrera hupatzea. **Itxaro Borda**

Hirugarren batek histua deplauki emaiten du, bularrak, **selauruko** tabako hostoak iduri, xukatuak balitu bezala. **Piarres Aintziart**

- Bazkaria etxen, **selauruan**, ezkaratzean lekurik ez izanez. **Piarres Aintziart**

2 irud/hed

Bertzalde egun berean, **selaru** zoko horietan aspaldiko denboretan lo zagotzin puskak, xabalerat agertzen ahalko dire. **Herria**

Hilabeteak ahitu ziren eta Agatak, tristura sakona gainturik, gutxienez solaskide izaera eskertzen zion Louise memoriaren **selauruan** kokatu eta laster ahanzi zuen.

Itxaro Borda

Gaur bezalako ilunpean euskara amaren bularrean eta aitaren **selauruan** jaso nuen. **Itxaro Borda**

3 selauru huste ipar

Selauru eta xoko husteak argitarat emaiten dituzte asko gauza baliatzen ez direnak eta beraz salgai izan ditazkenak. **Herria**

Maiatzaren 1ean, larunbatarekin, Sanoki gelan, "**selauru** huste" 50 bat saltzailerekin. **Herria**

Larunbatean, Azkainen **selauru**-hustea herriko plazan. **Herria**

Ber-denboran iraganen dira ere tokiko ekoizpenen merkatua eta **selauru** hustea. **Herria**

- *Haurrentzat* elkarteak Donostiri eta Donamartiriko eskola publikoaren onetan **selauru** -hutsaldi bat muntatzen du maiatzaren lehenean, *Bil-Etxea* gelan, goizeko 8-ak eta erdietarik aratsaldeko 6-ak arte. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

selauru huste (13); **selauru huste bat** (4); **selauru hustea** (14)

selegilina iz Parkinson eritasunaren eta depresioaren aurka erabiltzen den sendagaia.

Selegilina deituriko botika du partxeak. **Berria - Gaiak**

selektibitate iz Espainiako hezkuntza-sisteman, unibertsitate ikasketak egiten hasteko gaintu behar den azkerketaren izena.

Selektibitatea esaten dioten espantukeria zentzugabe hori pasatu behar izan duen mutil baten aita naizelako. **Joxerra Garzia**

Selektibitatea kendu, eta errebalida jarriko omen dute atzera berriz. **Joxerra Garzia**

Amaitzen ari ginen kurtsoa: berehala zetozen azterketak, eta gero **selektibitatea**, eta saltsa hura guztia baino lehen egin behar genuen gurea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Kontua da EHU ez direla sartzen **selektibitateko** hautaprobak gaintu dituzten ikasleak bakarrik. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Arreba **selektibitatea** egitera joana zen goizean, eta azterketara iritsita paper bat falta zitzaiola ohartarazi zuten, eta biharamunerako eraman behar zuela ezinbestez.

Pako Aristi

Selektibitatean D ereduko ikasleek lortzen dituzten emaitzak. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

selektibitate azterketa (6); **selektibitate azterketa euskaraz** (3)

selektibitatea egiten (4); **selektibitatea euskaraz egin** (3)

selektibo 1 izond hautaketa egiten duena, hautaketaren ondoriozkoa.

"Komunikazioan hezteza" irakasgaiaren helburua ez da kazetariak sortzea, baizik eta, gaztetxoek masa-hedabideen bitartez jasotzen duten mezua jabetze **selektibo** ahalbidetzea. **Txema Ramirez de la Piscina**

Protektionismo **selektibo** batek [...] zergez salbuesten zituen industria-eraldaketarako behar ziren lehengaiak. **Koro Navarro**

Betiere **selektibo** da oroimena, nahi duena gomutan hartu eta nahi duena ahazten du. **Berria - Gaiak**

Artikulu eta liburuetan bibliografia **selektiboagoa** etorri ohi da, testuan esplizituki aipatzen diren liburuak bakarrik sartzen baitira. **Askoren artean**

Ordura arte ETaren ekintzak oso **selektiboak** izan ziren, gaur ulertezina iruditzen zaigun arren borroka armatu on eta txarraren artean bereizten baikenuen. **Mikel Hernandez Abaitua**

Atzerriko enpresek Errusian inbertitzeko konfiantza ahuldu daiteke araudia betetzerakoan gobernuak irizpide **selektiboak** erabiltzen dituelako. **Berria - Ekonomia**

Zerbaitekin esaten dit ez naizela sadikoa; esan dezagun, normalean, sadiko **selektibo** naizela. **Karlos Zabala**

Israelek 'eraso **selektiboak**' egiten segituko duela berretsi du; Gazan bi ekintzaile hil ditu tiroz. **Berria - Mundua**

Israelgo Armadak gutxienez hiru palestinar hil eta hainbat zauritu zituen atzo Gazan, hilketa **selektiboetan**. **Berria - Mundua**

Potzolozen gorrieria **selektibo**: sekula ez nire puntak entzuten. **Aingeru Epaltza**

2 gaikakoa.

BAMek hondakinen bereizketa **selektibo** sustatzeko kanpaina abiatuko du. **Berria - Euskal Herria**

Ez dute hondakin organiko ugari sortzen dituztenen zabor biketa **selektibo** egiten, ez dute beharrezkoa den konpostgintza planta eraiki, ez dute zaborra jasotzeko inolako aterik ateko zerbitzurik jarri. **Berria - Euskal Herria**

Herritar bakoitzak modu **selektiboan** 81,88 kilo zabor bildu zuen iaz. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hilketa selektibo (3)

eraso selektiboak (5); **hilketa selektiboak** (12)

hilketa selektiboan (6)

selekto *izond* bere motako onenetakotzak hartzen dena.

Hau oso **selektoa** izan da beti, alderdikoa, PNVkoa, eta oso puritanoak ziren. **Pako Aristi**

selektore *iz* hautagailua.

Konturatu baitzen ez zela merkatuan ezein **selektore** magnetiko hauts finetan zegoen material bat bereizteko gauza zenik, eta hauts zakarragoekin nire metodoak ezin zuela funtzionatu. **Juan Garzia**

selekzio (*orobat selekzione g.er.*) 1 *iz* kiroletan, herrialde jakin bateko jokalarari onenak hautatuz osatzen den taldea.

Gauza bera gertatu zen Kataluniako **selekzio** nazionalen alorrean. **Berria - Mundua**

Lortutako onespenerarekin Kataluniak **selekzio** ofizialak eduki ahal izango ditu lau kiroletan. **Berria - Kirola**

Poza sentitu nuen batez ere, Espainiako **selekzioak** entrenatzailearen deia jaso nuenean. **Joan Mari Irigoien**

Euskadiko **selekzioak** hautatzailea da Martija, eta duela hilabete batzuk kirol ekitaldien barruan derbia antolatzeke idea proposatu zigan. **Berria - Kirola**

Amonak gelan zuen argazkia etorri baitzitzaidan burura, gerra garaiko euskal **selekzioarena**. **Joan Mari Irigoien**

Portugalgo **selekzioak** jokatzaren zuean. **Hasier Etxeberria**

Halako batean harrobiarekin kezkatzen hasi ziren, tokian tokiko **selekzioen** etorkizunarekin. **Berria - Harian**

Egiptoko **selekzio** sendoa da. **Berria - Kirola**

Txekia bezalako **selekzio** indartsuei aurre egiteko moduan dela erakutsi zuen. **Berria - Kirola**

Esadazu, zuri zein gustatzen zaizu gehiago, Brasilgo **selekzioaren** futbola edo Alemaniarena? **Joan Mari Irigoien**

Irlandako Nazioarteko **Selekzioak**. **Iñaki Mendiguren**

Nor ote zen ziklista hura, ze **selekzioak**. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Irizpideak jokalaririk aukeratzera, irizpideak Euskal Herriko jokalaririk guztiak hautatuak izateko aukerari buruz, lurraldetasunaren kontzeptuari buruz, **selekzio** ereduari buruz... **Berria - Kirola**

Selekzio mailan, 80ko hamarkada kenduta, Magrebetik behera dauden herrialdeak nagusi izan dira Afrikan. **Berria - Kirola**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Argentinako futbol- **selekzioaren** elastiko ofizial bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ez pilotako euskal federazio bat edo hockey **selekzio** katalan bat antolatuta ahal duzu, ez Trebiñuko arazotxo konpondu. **Joxe Azurmendi**

Eta Neville lehenago jokatu du Ingalaterrako quidditch- **selekzioa**, Hagriden Dumbledoreri huts egin baino. **Iñaki Mendiguren**

Euskal Herriko kirol **selekzioen** aldeko ekimenak ere izan dira. **Berria - Euskal Herria**

Kataluniako kirol **selekzioek** nazioarteko lehiaketetan parte hartzeko aukera izango dute. **Berria - Euskal Herria**

4 hautaketa.

Ortega-ren misioa edo egitasmo publikoa [...] bi jomugatan zertu da: arraza espainolaren jasoera kulturala, bat; bestea -inarrosgarria benetan, baina koherentea-, arrazaren hazkuntza biologiko edo **selekzioa**. **Joxe Azurmendi**

Bederatzi ordu eta laurdeneko azterketaren ostean, beste hirurehun geratu ziren kanpoan -berrogei bat **selekzio** naturalaren ondorioz-. **Unai Elorriaga**

Eboluzioaren eragiletzat **selekzio** (hautespen) naturala ematen duen teoria ez da, ordea, metazientifiko. **Jenaro Garate**

5 (hitz elkartuetan)

Hautaketa eta **selekzio** lana poeta bakoitzaren lanak dira, eta izan, zamatsuak dira lanok. **Bernardo Atxaga**

- Aurre- **selekzioa** pasatzeko egin beharreko sub-frogetara 1.007 lagun bildu ziren, umeak eta agure-atsoak kontatu barik. **Unai Elorriaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskal selekzio (4); **frantziako selekzio** (3); **kirol selekzio** (4); **selekzio ariko dira** (6)

selekzio bakarra (5); **selekzio berean** (3); **selekzio mailan** (3); **selekzio nagusiarekin** (6); **selekzio ofiziala** (5); **selekzio ofizialak** (7); **selekzio onenak** (3); **selekzio propioa** (3); **selekzio propioak** (4)

bere selekzioa (9); **espainiako selekzioa** (6); **etxeko selekzioa** (5); **euskadiko selekzioa** (10); **euskal herriko selekzioa** (3); **euskal selekzioa** (11); **greziako selekzioa** (7); **kataluniako selekzioa** (7); **lehen selekzioa** (3); **nafarroako selekzioa** (5); **selekzioa utzi** (3); **selekzioa utziko** (7); **selekzioa utziko du** (3)

danimarkako selekzioak (3); **emakumezkoen selekzioak** (3); **eskubaloien selekzioak** (4); **espainiako selekzioak** (11); **etxeko selekzioak** (5); **europako selekzioak** (3); **euskadiko selekzioak** (22); **euskal herriko selekzioak** (4); **euskal selekzioak** (9); **frantziako selekzioak** (6); **futbol selekzioak** (4); **kataluniako selekzioak** (4); **marokoko selekzioak** (3); **multzoko lau selekzioak** (4); **nafarroako selekzioak** (4)

selekzioak deitu (3); **selekzioak jokatzeko** (3); **tenis selekzioak** (3)

espainiako selekzioan (21); **euskadiko selekzioan** (3); **frantziako selekzioan** (10); **ingalaterako selekzioan** (4); **selekzioan aritzeko** (4); **selekzioan jokatzeko** (3); **selekzioan jokatzeko** (4); **selekzioan jokatzeko** (5)

aritu da selekzioarekin (3); **australiako selekzioarekin** (8); **bere herriko selekzioarekin** (5); **bere selekzioarekin** (22); **espainiako selekzioarekin** (34); **espainiako selekzioarekin ariko** (3); **euskadiko selekzioarekin** (7); **frantziako selekzioarekin** (7); **herrialdeko selekzioarekin** (4); **jokatu ditu selekzioarekin** (3); **jokatu du selekzioarekin** (3); **kamerungo selekzioarekin** (6); **kroaziako selekzioarekin** (3); **marokoko selekzioarekin** (9); **portugalgo selekzioarekin** (9)

selekzioarekin ari (11); **selekzioarekin ari zela** (5); **selekzioarekin ariko da** (3); **selekzioarekin aritu** (7); **selekzioarekin aritzeko** (3); **selekzioarekin izan** (3); **selekzioarekin jokatu** (13); **selekzioarekin jokatu zuen** (4); **selekzioarekin jokatu** (6); **selekzioarekin jokatu du** (4); **selekzioarekin jokatzeko** (7)

turkiako selekzioarekin (3); **uruguaiako selekzioarekin** (3)

espainiako selekzioaren (16); **euskadiko selekzioaren** (6); **euskal herriko selekzioaren** (3); **euskal selekzioaren** (51); **euskal selekzioaren alde** (4); **euskal selekzioaren aldeko** (19); **euskal selekzioaren eguna** (11); **euskal selekzioaren ofizialtasuna** (3); **frantziako selekzioaren** (3); **futbol selekzioaren** (3); **irlandako selekzioaren** (3); **nafarroako selekzioaren** (4)

selekzioaren alde (13); **selekzioaren aldeko** (24); **selekzioaren aldeko aldarria** (3); **selekzioaren aldeko eguna** (3); **selekzioaren aldeko iritzi** (9); **selekzioaren aurka** (3); **selekzioaren deia** (3); **selekzioaren eguna** (11); **selekzioaren eguna egingo** (3); **selekzioaren ikurra** (3); **selekzioaren kontra** (3); **selekzioaren ofizialtasuna** (3); **selekzioaren partida** (3)

bere selekzioari (4); **espainiako selekzioari** (5); **etxeko selekzioari** (3); **frantziako selekzioari** (4)

kirol selekzioek (7); **nafarroako selekzioek** (4)

euren selekzioekin (11); **selekzioekin aritu** (3); **selekzioekin aritzen** (3); **selekzioekin aritzen diren** (3)

bi selekzioen (7); **euskal selekzioen** (10); **euskal selekzioen aldeko** (7); **kataluniako selekzioen** (5); **kirol selekzioen** (4)

selekzioen alde (4); **selekzioen aldeko** (9); **selekzioen artean** (5); **selekzioen arteko** (15); **selekzioen arteko txapelketa** (6); **selekzioen ofizialtasuna** (3)

bere selekzioak (3); **espainiako selekzioak** (15); **euskadiko selekzioak** (7); **euskadiko selekzioak hautatzailea** (4); **frantziako selekzioak** (10); **frantziako selekzioak jokalaririk** (3); **greziako selekzioak** (4); **ingalaterako selekzioak** (3); **marokoko selekzioak** (3); **nafarroako selekzioak** (3); **portugalgo selekzioak** (3)

selekzioak entrenatzaile (3); **selekzioak entrenatzailea** (4); **selekzioak hautatzailea** (5); **selekzioak hautatzaileak** (3); **selekzioak jokalaririk** (15); **selekzioak jokalaria** (6); **selekzioak jokalariek** (5); **selekzioak jokalariek** (3); **selekzioak kapitaina** (3); **selekzioak kapitainak** (3); **suitzako selekzioak** (3); **turkiako selekzioak** (3)

selektionatu, selektiona, selektionatzen du *ad* kirol selekzio baterako hautatu.

Nafarroako Federazioak GRAVN txapelketarako Belate elkarteko pilotaririk **selektiona** dezakeen galdetu genion, eta zera erantzun zuen: «**Selektiona** ditzake, nahiz eta berez ez dituen bere pilotari gisa errekonozitzen». **Berria - Kirola**

selektionatzaile *iz* kirol selekzio bat hautatzen eta entrenatzen duena pertsona. ikhautatzaile 2.

«Hori baliatuz, **selektionatzaileek** euren irizpideen arabera, Euskal Herriko jokalaririk onenak hautatzeko aukera izatea», hori da ESAITek aipatu federazioei luzatzen die lehen eskaera. **Berria - Kirola**

Denboraldi bukaera aparta izan nuen: hain aparta, non Espainiako futbol-**selektionatzaileak** -Clementek- deitu egin baininduen. **Joan Mari Irigoien**

selekzione ik selekzio.

selektionista *izond*

Baina aski erakusten du, ezagutzen duela Nietzsche, ageriki ezagutzen dituela halaber Vacher de Lapouge edo Chamberlain arraza **"selektionisten"**, Renan antisemitaren eta konpainiaren teoriak, **Joxe Azurmendi**

selenio *iz* gai bakuna, ez-metal oso pozoitsua, 217 °C-tan urtzen dena (Se; at. z. 34).

A, B, C edo D bitaminak, burdina, **selenioa**, manganesoa edo ginsenga dira osagarri horietako batzuk. **Berria - Gaiak**

Badirudi mineral batzuen (**selenioa**, zinka, kobrea) gabezia izan daitekeela gaixotasun horien iturrietako bat, xede "objektiboa" biritza luzatzea izaki. **Edorta Agirre**

Ibaira gai toxikoak isurtzen hasi zen industria duela bi urte pasatxo; toluenoa eta **selenioa**, besteak beste. **Berria - Euskal Herria**

seleukotar *izlag/iz* Alexandro Handiaren jeneral Seleukok sorturiko dinastiakoa. ikseleuzida.

Aurreko urteetan emanak zizkieten **seleukotar** erregeek jduei zenbait eskubide ogingahiz, Eupolemoren aita Joanen ahaleginei esker. **Elizen arteko biblia**

K. a. 167an Antioko IV.a Epifanes **seleukotar** erregeak Zeus Olinpiarraren estatua bat Jerusalemgo Jahveren tenpluko leku santu-santuan jarri zuenean, [...]. **Iñaki Mendiguren**

Seleukotar Inperioaren ondorengo asondar estatua Judean ezarri zenetik. **Iñaki Mendiguren**

Seleukotarren agintaldiko ehun eta berrogeita seigarren urtea zen. **Elizen arteko biblia**

K.a. 190. urtean, erromatar armadak Magnesiako asiar gudu-zelaien **seleukotarren** armada menderatu zuelarik, legioak garaiz iritsi ziren arazo sinple honengatik **Iñaki Mendiguren**

seleuzida *izond* Alexandro Handiaren jeneral Seleukori dagokiona. ik seleukotar.

Seleukok aztertu zuenari Itsaso **Seleuzida** deitu zioten; Antiokok aurkitu zuenari, berriz, Itsaso Antiokida. **Iñaki Iñurrieta**

seljuktur *izlag/iz* Mendebaleko Asia XI. mendetik XIII. mendea arte menderatu zuen turkiar dinastiakoa.

Normandiar "frankoak" eta **seljuktur** turkiarrak, biak, barbaro ohiak ziren, eurek inbaditu eta, zentzu askotan, menderatu zuten gizartearen erlijio nagusira duela gutxi konbertituak. **Iñaki Mendiguren**

Armeniar eliza eta **seljuktur** *karabansari*-en hondakinetan. **Iñaki Mendiguren**

Normandoak, frankoen erasoaren lantza-mutur zirenak, **seljuktarrak** bezain konbertitu berriak ziren barbarotasunetik. **Iñaki Mendiguren**

Patioko atera iritsi zen, parerik ez zuen dekorazio **seljukturreko** arku sekulakoa baitzuen. **Fernando Rey**

semaforo 1 *iz* zirkulazio-argia.

Kaleburuko **semaforoaren** ondoan gelditu nintzen arnasa hartzeko. **Javi Cillero**

Semaforoak geldiarazi zituenenerako bidea zeharkatzen hasia zen pareko espaloiko mutila. **Unai Iturriaga**

Oinezkoen **semaforoan**, argi berdeak dizdiz egin zidan. **Aingeru Epaltza**

Hantxe omen zegoen geldirik, bai **semaforoa** gorri zegoenean, bai berde zegoenean. **Pako Aristi**

Beste batzuetan, ordea, gauzak ez ziren ongi ateratzen, **semaforoak** beti gorri harrapatzen zituen. **Iñaki Iñurrieta**

Semaforoa gorri pasatu zen eta gelditu behar izan nuen. **Daniel Landart**

Ez zen **semaforo** gorrian gelditu. **Unai Iturriaga**

Semaforoa berde noiz jarriko zain dago alarguna. **Imanol Zurutuza**

Semaforo aurrean gelditu da, argi berdea noiz agertuko zain. **Sonia Gonzalez**

Poliziaren autoak alden zirenean jarri zen **semaforoa** berdean. **Unai Iturriaga**

Semaforo laranja baten aurrean frenatu zuen gidariak. **Unai Elorriaga**

Errepidea gainezkatzen zuten motor, kotxe nahiz autobusak era anarkikoan zebiltzan, ke handia botaz eta **semaforoak** errespetatu gabe. **Jon Arretxe**

Putabatzen eta Udalak bi **semaforo** jarriko dituzte istripua gertatu zen lekuan, Basurtun. **Berria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Tarteka, **semaforo**-argiak, ohiko butxadurak. **Joxe Austin Arrieta**

Haiatzat baino ez zuten ordu hartan **semaforo** argiek dir-dir egiten. **Harkaitz Cano**

3 tren-gidarietako seinale optikoa.

-Maniabraburu jauna, **semaforoaren** besoa erori zaigu! **Fernando Rey**

Semaforo eta seinaleetako palankak arin mugitu nituen. **Fernando Rey**

Semaforoan bide librearen seinalea jarri nuen zerbitzuko bagoneta motorduna sar zedin. **Fernando Rey**

Bidea emateko edo ixteko **semaforoaren** argia etengabe gorritik berdera aldatzen ari zen, trenbideorratzen seinaleak argi zuriak ematen zituen. **Fernando Rey**

Hradec Královéko Trenbideen Zuzendaritzan esan ziotena trenbideen ondoan gelditzeko eta **semaforoak** altxatzeko eta jaisteko Reicharen armada geltokian barna pasatzen zuten bitartean. **Fernando Rey**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

semaforo baten aurrean (4); **semaforo gorria** (4); **semaforo gorrian** (3)

semaforoa berde jarri (5); **semaforoa gorri** (8); **semaforoa gorri jarri** (3); **semaforoa gorrian** (3)

semaforoaren besoa (3); **semaforoaren ondoan** (5)

semaiko *(orobat xemaiko, xemeiko, xemeko eta semeiko)* iz sei marabediko dirua; pezetaren bost zentimoko txanpona.

Mirariz, landetxe txiki eta bakarti bat eskaini zioten, lehenago jabeak bertan behera utzia, eta bi **semaikoren** truke. **Eskarne Mujika**

Oker zegoela esan zion bere nagusiari, **xemaiko** bana ez baina erreal-erdi bana balio zutela eta halako azoteak. **Patxi Ezkiaga**

Egia esan, ez zara handik aterako azken **semeikoa** ordaindu arte. **Elizen arteko biblia**

Berak ez zuela **xemaikorik** ere eskuratzen. **Gotzon Garate**

Bost urtez egin zien diru horrekin txantaia egunkariei, bere gustukoak ez ziren gauzak ateratzen bazituzten ez zutela **xemeikorik** jasoko esanez. **Pako Aristi**

semantika 1 iz hitzen esanahiaz diharduen hizkuntzalaritzaren adarra; ikurren eta dagozkien gauzakien arteko harremanen azterketa.

Lexikologia eta **Semantika** irakatsi ditu. **Berria - Kultura**

Egokitasun hauek, sintaxia, **semantika** eta bion arteko loturak aztertuko dituen hizkuntz teoria orokorrako baten ikergaiaren atalak izan litezke. **Itziar Laka**

Semantikan adituek badute zer azterturik hizkera ekonomikoan, non terminologia emozionala den nagusi. **Iñaki Heras**

Sistema postidealisten jarrerak elkartzu doaz, bai filosofia anglosaxoian, bai filosofia kontinentalean: hizkuntzaren aldetik, sintaxia, **semantika** eta pragmatika bateratzen hasi dira. **Askoren artean**

Arretaz ibili behar da Semiologia, eta esanahi aldatetaz aztertzen dituen zientzia, **Semantika** alegia, ez nahasteko. **Isabel Arrigain**

Etimologiak hitz bat aztergai hartzen duenean, fonetika, morfologia, **semantika** eta abarretik hartuko ditu aldizka hitz horren azterketarako behar duen guztia. **Isabel Arrigain**

Zelula-masatxo horrexen barruan daude algebra eta musika, sintaxia eta **semantika**, geometria eta kontrapuntua. **Juan Garzia**

Euskal Herria 2050. urtean irudikatzea, irudimena nahiz etorkizunerako **semantika** osoa eraikitzeko gonbidapena luzatuz. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik semantiko.

Semantika -hausnarketa sistematikoak. **Itziar Laka**

Teoria hau iker-olor erabat formala izango dela agintzea erraz batera daiteke **semantika** -teoria paralelo batekiko bilbatze iradokitzaile eta esanguratsuak izan ditzan nahi izatearekin. **Itziar Laka**

Erreferentziaren oinarritzko **semantika** prozesuaren kasu bat. **Josu Zabaleta**

Hizkuntza naturalek egiten dituzten **semantika** eta sintaxi bereizkuntzek mundu naturalaz egiten diren bereizkuntza desberdinak islatzen baitituzte. **Josu Zabaleta**

Semantika irakasle zenetik hasita Eguzkitzaren ibilbide emankorra ekarri zuen gogora Fernandezek. **Berria - Kultura**

3 (logikan)

Aurkez dezagun orain logika honentzako **semantika**. **Askoren artean**

Semantikako kontzeptuen formulazioa errazteko definizio batzuk behar ditugu lehenago: xi aldagaiak azalpen lotua izango du formula batean, •xi edo •xi adierazpen kuantifikatuaren eraginpean baldin badago. **Askoren artean**

Egiazkoa eta faltsua egia-balioak 1 eta 0-ren bidez adierazten baditugu, proposizioen logikaren **semantika** sinbolikoki honako taula honen bidez adieraziko genuke: [...].

Beste logika batzuk sortu dira baldintzatzaile desberdinak edo baldintzatzailearentzat beste **semantika** batzuk definituz. **Askoren artean**

Defini dezagun errekursiboki **semantika**, konektatzaile horiek dituzten formulentzat. **Askoren artean**

Ez da kontuan hartzen formulen esanahia, hori **semantikan** azaltzen den kontzeptua baita. **Askoren artean**

Mundu posibleen **semantikak** Fregeren zentzu kontzeptuaren pareko den bat darabil: termino singular batek edo predikatu batek estentsio bat eta intentsio bat (edo "zentzu" fregear bat) dauzka. **Askoren artean**

Behin hizkuntzarentzako interpretazioa definitu eta gero, **semantikako** kontzeptu nagusiak definitzen has gaitezke, hala nola: asegarratasuna, egia, eredia, baliozkotasun logikoa, etab. **Askoren artean**

4 esanahia.

Ikustea, alegia, ez dela txoko-mintzaira jakin baten kontua lurtasun horrena, eta **semantika** sakonago, unibertsalago bati dagokiola. **Juan Garzia**

Hau ez da **semantika** kontu hutsa. **Berria - Euskal Herria**

Alkate hitzak **semantika** zabalaz izandu du gizaldietan barrena. **Patziku Perurena**

Semantika ugaria eta sorburu iluna du *tobera* hitzak. **Patziku Perurena**

Krisialdiko egoera soziopolitiko aldakorretan ohiko adieren eta terminoen **semantika** nola aldatzen den. **Askoren artean**

Hiztunak esapideak sortzeko eta bere gramatikakotzat ezagutzeko duen gaitasunak ez du zerikusirik esanahiarekin (**semantikarekin**). **Itziar Laka**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskal semantika (3); **hitzaren semantika** (4)

sintaxiaren eta semantikaren (4)

semantikagabe izond semantikarik ez duena.

Gramatika aztertzeko ikerbide **semantikagabeak** semantikan oinarritzen direnen kideko aukera bezala hartu ohi dira. **Itziar Laka**

Badira **semantikagabeak** diren bikoteen froga bezalako eragiketazko azterbide nahiko zuzenak bereizkuntza fonemikoa erabakitzeko. **Itziar Laka**

semantiko 1 izond semantikari dagokiona; esanahiari dagokiona. ik semantika 2.

Frantziskoren garaian *diligenter* adberbioak galdua zuen bere jatorrizko balio **semantikoa** (*diligere*=maitatu) eta "arretaz, arduraz" esan nahi zuen. **Askoren artean**

Izan ere, alor **semantiko** zabal-zabala du "errepikapen" hitzak. **Iñaki Arranz**

Lokalismoa, kosmopolitismoa, sustraiak, aberria eta arlo **semantiko** bereko hainbat kontzeptu izango dituzte aztergaieta eztabaidagai Bernardo Atxagak [...] eta beste hainbat idazlek. **Berria - Kultura**

Sarrerarekin batera kategoria gramatikala eta ohar **semantikoak** sartu ditugu. **Berria - Euskal Herria**

Gaur egunean, *hats* hitza, espainoleko *aliento* esateko besterik baliatzen ez badugu ere kasik, harrigarria baita behialako euskara bizian erakutsi duen ugaritasun

semantikoa. **Patziku Perurena**

Esaldiek eduki **semantiko** dute. [Askoren artean](#)

Hitz horren eremu **semantikoaren** zehazgabetasuna. [Josu Zabaleta](#)

Ikusten da enuntziatio-maila honetako deskribapena ezin dela egin ez azterketa formal baten bidez, ez ikerketa **semantiko** baten bidez. [Xabier Arregi](#)

Froga honek ez luke inolako kutsu **semantikorik**. [Itziar Laka](#)

Argi irudi, beraz, hizkuntzaren ezaugarri formalen eta **semantiko** artean badela lotura ukaezina, perfektoa ez den arren. [Itziar Laka](#)

Eztabaida **semantikoekin** geratzea zinismo ariketa bat iruditzen zait. [Berria - Harian](#)

Gatazka guztiek bere fase **semantiko** ere badutela erakutsi du. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

Doris Allen psikologoak "defizit **semantiko** -pragmatiko"tzat deskribatzen du autismoaren alderdi hori. [Xabier Olarra](#)

2 irud/hed

-Irudi autonomoa vs. sekuentziako irudia: oraingo honetan **semantiko** da, batez ere, irizpidea, sekuentzia beren esanahiak lotzen dituen irudi sail bat baita izatez. [Josu Zabaleta](#)

Gertaera bat "une" baten bitartez irudikatzea keinuen, jarrearen, eszena-antolamenduaren kodeketa **semantikoetan** oinarrituta baizik ezin daiteke egin. [Josu Zabaleta](#)

Paradoxa badirudi ere, ordea, esango litzateke ustez "iruditsuagoa" den prozesu **semantiko** hori, "ikusmenezko pentsamenduari" atxikiago behar lukeen prozesu **semantiko** hori, hitzari ez ezik literaturari zehazki atxikirik ez bada ezin uler daitekeela. [Josu Zabaleta](#)

3 (logikan)

Semantikaren arloan bagaude, aldiz, aztertzen direnen artean honako hauek lirateke: asegarritasuna, egia, eredu, baliozkotasun logikoa, ondoriotasun **semantiko**, baliokidetzat **semantiko**, etab. [Askoren artean](#)

Tarskiren "Egiaren kontzeptzio **semantiko**". [Askoren artean](#)

Metahizkuntzaren eremuan oso erraza da "egia" "asegarritasun" bezalako kontzeptu **semantikoetara** laburtzea. [Askoren artean](#)

B A-ren ondorio **semantiko** bada, sinboloetan honela idatziko dugu: $A=B$. Logika bati eska diezazkiokegun propietate metalogiko garrantzitsuenen artean bi aipatu ditugu hemen: zuzentasuna eta osotasun **semantiko**. [Askoren artean](#)

Logika bat proposatzen denean, logika horrek dituen propietate sintaktiko eta **semantikoak** aztertea da logikarien zeregin nagusietariko bat -edota propietate sintaktiko eta **semantiko** artean korrespondentziarik edo loturarik ote dagoen-. [Askoren artean](#)

A eta B formulak baliokide **semantikoak** direla esango dugu, eta sinbolikoki $A \bullet B$ idatziko, baldin eta bakarrik baldin A eta B-k egia-taula bera badute. [Askoren artean](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eremu semantiko (3)

eduki semantiko (5); egia kontzeptzio semantiko (5); eremu semantiko (4); kontzeptzio semantiko (5); ondorio semantiko (6); perpausen eduki semantiko (3)

egiaren kontzeptzio semantikoaren (3)

semantikoki 1 *adlag* semantikaren aldetik.

Zentzuak ahalbidetzen die izen hutsei (erreferentziarik ez duten ize-nei, alegia) **semantikoki** baliagarri izatea. [Askoren artean](#)

Perpaus gramatikalak, **semantikoki** esangura dutenak dira. [Itziar Laka](#)

2 (logikan)

Bi formulak baliokideak badira, **semantikoki** propietate berdinak izango dituzte. Logika bat osoa izango da (sistema batentzat) **semantikoki** ondorioztatzen dena sintaktikoki ere ondorioztatzea posible denean. Zuzentasuna honela definituko genuke: logika batentzat sistema formal bat proposatzen denean, sintaktikoki ondorioztatzen dena sistema horretan **semantikoki** ere ondorioztatu egin behar da. [Askoren artean](#)

semantizista *izond/iz* teoriez edo ikerketez mintzatuz, hitzen esanahian oinarrituriko irizpideak erabiltzen dituen; irizpide horiek erabiltzen dituen pertsona.

Ikusmolde **semantizistan** ez, teoria zuzenean identifika baitaiteke ereduak identifikatuz. [Askoren artean](#)

Semantizisten aldetik, Zientziaren Filosofiaren helburua hau da: zientziaren barneegitura argitzea teorien berreraikuntza logiko-matematikoaren bidez. [Askoren artean](#)

Semantizisten eta estrukturalisten arabera, ostera, teoria ez da identifikatzen sistema formal edo hizkuntz formulazio batekin, eredu klase batekin baizik. [Askoren artean](#)

Semantizista gehienena bezala, van Fraassenen zientziaren irudia antifundazionalista da (vs ikusmolde estandarra), antinaturalista (vs enpirismo quinear eta kognitiboa, bai eta vs naturalismo sozio-historikoak) eta konstruktibista (ereduen eraikuntza azpimarratuz eta ez, errealista zientifikoak egiten duen moduan, fenomeno behagarrien arteko erregulartasuna). [Askoren artean](#)

seme 1 *iz* gizakumea bere gusaroekiko.

Hiru **seme** izan zituen: Sem, Kam eta Jafet. [Askoren artean](#)

Haurdu geratu zen berriro Lea, eta beste **seme** bat izan zuen. [Jose Antonio Mujika](#)

Hara, Jaunak ez dit **semeak** izaten uzten. [Jose Antonio Mujika](#)

Seme honek beste **seme** bat izan zuen, aurrekoa ez bezala etxetik atera zena. [Bernardo Atxaga](#)

Baina begira: **seme** bat sortu eta izango duzu orain. [Jose Antonio Mujika](#)

Jaunak, bere errukian, **seme** asko eman dizkit, eta emango ere oraindik. [Askoren artean](#)

-Nik ere ez dut **semea** zure alabarekin ezkonduko -sumindu zen Nur Al-Din. [Patxi Zubizarreta](#)

Jauna gutxietsi duzulako, jaiotza **semea** hil egingo da. [Jose Antonio Mujika](#)

Semea bere gisa sendatzeari ekin zion amak; zauriak lotu, ukenduz igurtzi umea, eta bere lana egiten utzi zion denborari. [Jon Muñoz](#)

Paseo horietako batean ezagutu zituen, 1897an, Arthur eta Sylvia Llewelyn Davies senar-emazteen hiru **seme**, artean umeak. [Julen Gabiria](#)

Biziki atsekabetu zen Abraham, hitz horiek entzutean, **seme** baitzuen Ismael ere. [Jose Antonio Mujika](#)

Hantxe geratu zen Noemi, bakarrik, ez senar eta ez **seme**. [Jose Antonio Mujika](#)

Seme bat galdua zuen 22 urtetan ixtripuz. [Herria](#)

Egun batean, Terah-ek, Abran **semea**, Lot biloba eta Sarai erraina berekin hartu eta Kaldearren Ur hiria utzi zuen, Kanaan lurraldera joateko. [Jose Antonio Mujika](#)

Telemako, **semea**, aitaren berrien bila irteten da. [Juan Kruz Igerabide](#)

Gogorra da, bai gurasoentzat eta bai **seme** edo alabarentzat. [Luis Elberdin](#)

Don Pedrok begitan hartua zeukan **seme** hura; menderakaitz eta bihurtzat zeukan. [Josu Zabaleta](#)

Hori esanik, **semea** musukatu eta negar egin zuen ugari, ordura arte eusten aritu baitzen. dena aldeko zitzaion: salmentak goraka, osasun ona eta familia pozik, eta **semeek** bizimoldea aurrera atera zuten. [Juan Kruz Igerabide](#)

Semea sartu zitzaigun gelara! [Matías Múgica](#)

Gurasoen gaiztakeria **semeengan** zigortzen duena. [Xabier Kintana](#)

-Mutil, noren **seme** haiz? [Jose Antonio Mujika](#)

Orestes, Agamenonen **semea**, artean txikia zen. [Juan Kruz Igerabide](#)

Adio, Peregrin Paladinen **semea** . Agustín Otsoa
Eneidak hiriarren jatorria Eneasi egozten dio, jainkoen **seme** bati, Troiako heroiaren bere. ene pilotu kide Mattin, Basurtoko Joan Sanzen bigarren **semea** . Juan Kruz Igerabide

Gure feudoetako legeek beren arrazoiak izango zituzten agian **semeetan** zaharrenak, edo gizonezkoen bidetiko ahaidetik hurbilenak, dena jaso zezaten. Iñaki Iñurieta

Senar-emazteek idazlea **semetzat** hartu zuten, eta umeez anaiatzat. Julen Gabiria

Barka iezadak hika hitz egitea: neure **semetzat** haukadalko ari nauk horrela. Juan Garzia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hi, Nikolas, **seme** bakarra haiz eta oinordekoa haiz, eta enekin etorriko haiz. Joan Mari Irigoien

Egun batean, Esau **seme** nagusiarri deitu zion: [...]. Jose Antonio Mujika

-Esau naiz, zure **seme** nagusia. Jose Antonio Mujika

Seme zaharrenak, Silviok, bere buruaz beste egin zuen gau batez. Fernando Rey

Penelope emaztea eta Telemako **seme** gaztea etxean utziak zituen. Juan Kruz Igerabide

Senarra eta beste bi **seme** zaldun borroketan galduak ditu alargunak, eta **seme** txikia babestu nahi du. Juan Kruz Igerabide

Iñaki Murua irakasle da ogibidez, eta ezin izan zuen saihestu **seme** txikiaren okerra zuzentzeko grina. Joxerra Garzia

Gure printzearen **seme** naturala nintzelako. Matías Múgica

Haren edertasunaz liluraturik, errege ahaltsu batek bere emaztetzat hartu nahi izan zuen, harengandik **seme** ederrak sortuko zituelakoan. Askoren artean

Seme galant bat zuen, baina aspaldian ez dugu haren albisterik izan. Patxi Zubizarreta

Arreba horrek **seme** hazia omen zeukan eta Blancok kuttun-kuttuna omen zuen. Gotzon Garate

Gauza bera egin ohi du Jaunak bere **seme** kutunekin. Joan Mari Lekuona

Siberian, baseritarren **seme** baseritarrak, erbesteratuak denak, elurretan ikusi nituen hiltzen. Felipe Juaristi

Zertarako irakatsi bere **seme** urrikalgariari halako ogibide hutsal eta alferrekorik? Patxi Zubizarreta

Irlandar judua eta analfabetoa zela esaten zuten, eta haren **seme** idiotaren bitartez Jainkoak lukurreriaren gaitzespena agertzen zuela uste zuten. Irene Aldasoro

Honetan, aita, guk, **seme** endekatuok, ez zaitugu zu engainatzen, geure burua engainatzen dugu geure gaiztakeriaz. Askoren artean

Zaldun baten **seme** herrena Toscanellan. Askoren artean

Nagusi zitalek ematen zioten soldata ziztrinarekin ezin izango zituela beti mantendu bi **seme** bizkarroi tripontzi eta errespetu gabeak. Pello Lizarralde

Seme etxekaltearen gamelua edo emazte gazteagoaren amorantea -golfeko irakaslea? Aingeru Epaltza

ik beherago 12. Askoren artean

Europak gaitz sendaezin modura bizi du bertako **seme** ustez zibilizatu batzuen eskubideen kontua. Edorta Jimenez

Aurpegiratu zidan anaiak eta biok goi-mailako traizioa egina geniola eta sasikotzat jo ninduen eta ez legezko **semetzat** . Pello Lizarralde

Etzeko **seme** baten heriotzak agerian jarriko ditu belaunaldien arteko teinkak: gorpua non beilatu, nola ehortzi... Daniel Landart

Nago abantaila izugarria dela **seme** sasikoa izatea. Bego Montorio

Bistan da haren **seme** sasikoa zarela. Matías Múgica

Zein amak ez luke irakurri nahi izango bere **seme** poliziaren bizitzaren istorioa, zeina hogeita hamalau urterekin tirokatu baitzuten zerbitzua betetzen ari zela? Oskar Arana

3 (-en atzikiaren eskuinean eta pertsona izen baten eskuinean)

Haren **seme** Domingok hartu zuen segida aitaren ofizio nagusian nahiz gainerakoetan. Aingeru Epaltza

Bitartean, Daviden eta Hagit-en **seme** Adonias harrotzen hasi zen, errege izanen zela pentsatuz. Elizen arteko biblia

Kretako Idomeneoren **seme** Ortiloko hil nian, eta orain ihesi noak. Juan Kruz Igerabide

Sara ohartu zen Abrahamek Agar egiptiarragandik izandako semea bere **seme** Isaakekin jostatzen ari zela. Jose Antonio Mujika

Honela diotso Jaunak Joiakimen **seme** Jekoniasi: [...]. Elizen arteko biblia

Konturatu zara zure **seme** Mokii Kifovitxen jokaeraz? Jose Morales

Joan ziren, bada, Hamor eta haren **seme** Siken hiriko ateko bilgunera eta honela mintzatu zitzaizkien hiritarrei: [...]. Jose Antonio Mujika

Urte horretan, Ameriketara joandako zuberotar baten **seme** Robert Laxalték *Sweet Promised Land* izeneko liburua ederra argitaratu zuen Estatu Batuetan. Pello Salaburu

Haren **seme** abokatu Aref Selim Aluanek, politikan ez menturatzea gomendatu zion. Patxi Zubizarreta

4 (deiki gisa)

-Zer duzu, **seme** ? -Sosega zaitetz, **seme** . Joan Mari Irigoien

Seme , Jauna zerbitzatu nahi baduzu, prestatu zeure burua probarako.

Seme , ikas enegandik, adorea eta benazko irmotasuna; besterengandik, arrakasta. Juan Garzia

Frantziskok esan zion: "**Seme** , lor itzazu artazi batzuk, nire azazkalak mozteko". **Seme** -esan zion-, ez da zilegi inoren dirua hartzea, eta besteena emateari bekatuaren zigorra dagokio, ez merezimenduaren ospea. Askoren artean

Ez dut gauza askoren beharrik, **seme** ; ezagutzen dut Kristo pobre eta gurutziltzatua. Askoren artean

-Amak kolpe latza hartuko dik, **seme** . Txillardegia

-Nestorren **seme** hori: gauza bat eskatuko diat. Juan Kruz Igerabide

Hor ikasiko duk egunen batean, **seme** . Herria

5 irud/hed

Juan Bautista Agirre, Asteasuko **seme** eta erretorearen "Eracusaldiac"etik. Pako Aristi

Nafarroa Behereko **seme** den Baigorriko auzapez ohiari. Herria

Ez dio axolik, beste **seme** bat irabazi dut. Pako Aristi

Aitamen umea baino gehiago Elizaren **seme** izan naizela eta etxea ez zaidala arras arrotz. Piarres Aintziart

Bi artistak «bere **garaiko semeak** » izan zirela deritzo Pierluigi de Vecchiok, Strozzi jauregiko erakusketako komisarioak. Berria - Kultura

Ez naiz nire garaiko **seme** . Anjel Lertxundi

Odolez eta suz egin ninduen denbora baten **seme** naiz, eta nolabaiteko azalpen bat aurkitu nahi diot honi guztioni. Juan Kruz Igerabide

Bai, XX. mendeko **semea** nintzen. Alberto Ladrón Arana

-Jainkoaren nahikaria da, zoroaren **seme** ! Patxi Zubizarreta

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Seme -maitasuna da egiazki Frantziskorekin pozte, zeren hil ez, baizik eta zeruko azokara joana baita, diru-zorroa berekin eramanez, eta ilbeteen itzuliko da. Askoren artean

Gizagabea iruditzen zitzaidan, hegaldia hasi aurretik, eta orain, hegazkinak berak edoskiarazten didala, halako **seme** samurtasun bat sentitzen dut harenganako. Josu Zabaleta

Amak nire anaiaren lepoan **seme** -usaina bilatzen zuen. Juan Kruz Igerabide

Une bat besterik ez du egin Imanolek **seme** aulkian. Joseba Sarrionandia

-Zartaginean badago gehiago, azukre koskor hori -esan zion izeba Petuniak, begi lausotuak bere **seme** -puskarengana zuzenduta-. Iñaki Mendiguren

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aitak aberats- **seme** baten haurtzaroa izan zuen. **Josu Zabaleta**
Paxkal dugu eleberrri honetako protagonista: laborari- **seme** gazte bat, nabarmentzeko gogorik ez duena, "bigarren izateko beti lehena". **Daniel Landart**
Llanako Diego da bere izena, eta, etxe- **seme** eta kristau jator, nahi adinakoan. **Patxi Ezkiaga**
Nire ustez, etxe- **seme** jauna, andereño gazte eder-ederraren antzeko da olerkia. **Patxi Ezkiaga**

8 kristauen jainkoaren bigarren pertsona.

Semearengana (dibinitatean) heldu nahi duenak, lehenago berak seme bihurtu beharra dauka, eta seme izan ondoren, **Semea** dagoen tokian dago, hau da, "Aitarean aitza eta bihotzean". **Joan Mari Lekuona**
Horregatik ongi dio **Semeak** (=Kristok): Jainkotasunaren **Semea** (Logosean eta berarekin) Aitarengan, ni nagoen tokian, han egon beharko du. **Joan Mari Lekuona**
Aita Jainkoa, **Seme** Jainkoa eta Izpiritu Santu Jainkoa, eginak diren gauza guztien Jaun direla. **Joan Mari Lekuona**
Era honetan, Aita **Semeagan** dago eta **Semea** Aitagari; eta Aita eta **Semea** bat dira Izpiritu Santuagari. **Joan Mari Lekuona**
Jaunaren, Aita, **Seme** eta Espiritu Santuaren izenean. **Askoren artean**
Sinets dezaten Jainko ahalguztidun, Aita eta **Seme** eta Espiritu Santu, gauza guztien egileagan, eta **Seme** berrerosle eta salbatzaileagan. **Askoren artean**
Bere bizitzako gai nagusia aipatzen du berriro: Jesu Kristo **Seme** maiteari jarraitzea. **Askoren artean**

9 aitonen seme ik aitoren.

10 aitoren seme ik aitoren.

11 seme-alaba (orobat semealaba)

Jakoben **seme-alabak**. **Jose Antonio Mujika**
Bost **seme-alaba** zituzten. **Irene Aldasoro**
Seme-alabak Venezuelan zituen, eta neba-arrebak Donostian. **Ramon Saizarbitoria**
Sarai agorra zen eta ez zuen **seme-alabarik**. **Jose Antonio Mujika**
Baduzu **seme-alabarik**? **Harkaitz Cano**
Ez **seme-alabarik**, ez amaginarrebarrak. **Patxi Zubizarreta**
Lurrak erosi zituzten han, **seme-alabak** sortu eta erruz ugaltu ziren. **Jose Antonio Mujika**
Zeruko Aitarean **seme-alaba** dira, haren obrak egiten baitituzte. **Askoren artean**
Nola hazi **seme-alabak** inguruan anarkia besterik ez dagoenean? **Oskar Arana**
Seme-alaben irakasleekin hitz egitera doanean, nahiago du erdaraz hitz egin. **Koldo Zuazo**
Horri dagozkio, baita ere, inguruko beste gaiak, hala nola, gurasoen ahalgoa, dibortzioa, **seme-alaben** egoera zibila, egoitza, absentsia eta abarrekoak. **Andres Urrutia**
Heure **seme-alabei** emaietan, eta **seme-alaben seme-alabei**. **Joxan Elozegi**
Bi minutu igaroz gero, **seme-alabaren** bat izango duzu. **Patxi Zubizarreta**
Gai honetaz dagoeneko luze idatzi dugu eta fenomeno normal eta beharrezkotzat jo daiteke, horri gurasotasun eta **seme-alabatasunaren** analogia aplikatu diogunean suposatzen zen bezala. **Iñaki Mendiguren**

12 seme-kalte

Biharamunerako, ustezko **seme**-kalteen guraso guztiak ziren txandrioren jakitun. **Aingeru Epaltza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

aita seme (14); aitonen seme (8); aitoren seme (47); amaren seme (8); apaizaren seme (8); bi seme izan (9); bi seme zituen (8); bigarren seme (15); emazte eta seme (40); erregearen seme (13); etorkinen seme (20); etxeko seme (13); euskaldun seme (9); hamedataren seme (9); herriko seme (37); hiru seme izan (12); hirugarren seme (9)
israelgo seme (11); jainkoaren seme (77); jainkoaren seme alaba (28); jefuneren seme kaleb (9); joiadaren seme benaias (8); lehen seme (36); nebaten seme jeroboamek (9); noren seme (8); nunen seme josue (9)
postariaren seme (13)
seme alaba (532); seme alaba asko (12); seme alaba ditu (15); seme alaba guztiak (16); seme alaba izan (33); seme alaba izango (8); seme alaba ugari (8); seme alaba zituen (14); seme alabak (934); seme alabak dira (17); seme alabak dituzten (10); seme alabak izan (43); seme alabak izateko (8); seme alabaren (29); seme alabarik (103); seme alabatat (8); seme alabei (179); seme alabek (245); seme alabekin (127); seme alabekin batera (13); seme alaben (329); seme alaben aita (10); seme alaben ama (15); seme alaben artean (10); seme alaben arteko (14); seme alaben egoera (8); seme alaben zaintza (10); seme alabena (12); seme alabengan (15); seme alabengana (9); seme alabengatik (18); seme alabentzako (8); seme alabentzat (53); seme alaberi (21); seme alabetako (11); seme alabetan (12); seme alabetatik (9); seme alabez (18); seme alabok (37)
seme bakarra (68); seme bakarraren (9); seme bat bezala (9); seme bat eman (16); seme bat izan (28); seme bat sortu (8); seme biak (12)
seme edo alaba (27); seme eta alaba (18)
seme gaztea (10); seme gazteena (15); seme gazteenak (13); seme guztiak (28)
seme hauek izan (13); seme izan zituen (21)
seme kutun (12)
seme maite (11); seme maitea (23); seme maitearen (8)
seme nagusi (11); seme nagusia (15)
seme on (8)
seme zaharrena (37); seme zaharrenak (20); seme zituen (13); senarra eta seme (8)
zenbat seme (12); zenbat seme alaba (9)
aita eta semea (18); bigarren semea (21); emaztea eta semea (15); erregearen semea (11); gizonaren semea (60); herriko semea (8); jainkoaren semea (53); lehen semea (30)
semea edo alaba (17); semea eman (18); semea eman zion (11); semea galdu (9); semea hartu (12); semea hil (37); semea hiltzen (8); semea ikusi (9); semea izan (58); semea izan zuen (31); semea izango (16); semea izango du (8); semea jaio (10)
senarra eta semea (8); soinu-jolearen semea (82); urteko semea (26)
aita semeak (72); ama semeak (28); bere bi semeak (12); enperadorearen guardiaren semeak (8); gizonaren semeak (17); herriko semeak (8); jainkoaren semeak (22); lehen semeak (23)
semeak berak (8); semeak hil (12)
aitaren eta semearen (20); gizonaren semearen (17); jainkoaren semearen (16)
semearen amodio (8); semearen aurrean (9); semearen izena (9)
aita semeek (19); ama semeek (9)
semeekin batera (12)
semeetako bat (16)
semetzat hartu (20)

semealaba ik seme 11.

semeatxi ik semebitxi.

semebitxi

(orobat semeatxi eta semetxi; Euskaltzaindiaren Hiztegian semebitxi agertzen da) **1** *iz seme besoetakoa.*

Ikus Bergerot hau lehengo esku-huskalari onaren **semetxia** dela, Harriet apezarekin biak hain pilotari haundiak baitziren. **Herria**

Dawson, Joanesen **semeatxiak** apezak hautatu Charles Peguyren olerki bat irakurri zuen. **Itxaro Borda**

Semebitxia zuen. **Daniel Landart**

Ospitaleko gaztigu-orriaren ariora, balentriaren berri ematen ahalko zieten, zahartzean, **semetxi** eta alabatxiei. **Aingeru Epaltza**

2 irud/hed

NATO da globalizazio neoliberalaren beso armatua, eta Silicon Valley beren **semebitxia**. **Txema Ramirez de la Piscina**

semeiko ik semaiko.

semen 1 iz esperma, hazia.

Semenak biziaren transmisioan parterik bazuela jakitea traumatikoa gertatu zen gizartearentzat, patriarkatua ezartzen lagundu baitzuen. **Luis Elberdin**

Epermatozoideak **semenera** iristea galarazten dugu basektomia eginda. **Luis Elberdin**

2 (hitz elkartutetan)

Hazia espermatozoidez eta prostatan eta **semen** besikulan sortzen diren likidoez osatua dago. **Luis Elberdin**

semenario ik seminario.

semental izond/iz ugalketarako bereizten den arra. • irud/hed

Nire **sementalaren** kemena ez da inoiz agortzen, hau da gozamena! **Jon Arretxe**

semeorde 1 iz semetzakoa.

Aitak huraxe hartu zuen zapategian, bere odolekoa, adinez **semeordea** aitzinean egonagatik ere. **Aingeru Epaltza**

Domingoren lanbideak **semeordea** liluratzen bezainbat zuen semea nardatzen eta malerusten. **Aingeru Epaltza**

Jesukristo Gure Jaunak kristau guztiei laguntzen die, guztiei berdin, horixe besterik ez genuen behar, batzuk semeak eta besteak **semeordeak** baldin bagara, akabo erlijioa.

Jon Alonso

2 ezkonlagunetako batekiko, besteak aurreko ezkontza batean izen duen semea.

Edadeko gizon bat hil da Gasteizen,ustez **semeordeak** leihotik botata. **Berria - Euskal Herria**

Lekukoen arabera, «neu izan naiz, zer gertatzen da?» esan zien **semeordeak** kalean zeudenei. **Berria - Euskal Herria**

semetxi ik semebitxi.

semetxo iz seme txikia.

Lehengo batean, Circo Raluyra joan nintzen nire **semetxoarekin**. **Iñaki Arranz**

semetza 1 iz semearen egoera.

Ez da jakitea ezta egia ere, ez da erreinua ezta jakituria, ez da ba ez batasuna ez dibinitatea edo ontasuna; ezta ikusi gaituen izpiritu ere; ezta **semetza** ez gurasotza, ezta guri edo existitzen direnetako batzuei ezaguna zaien beste edozer gauza ere, ezta ez diren eta diren gauza haietako ezer. **Joan Mari Lekuona**

2 lehen-semetza ik lehen 9a.

semetzako 1 iz semetzat hartzen den gizakumea.

Beraz, Jazinto **semetzako** hartua zuten, eta bere senideordekoen adinari erreparatzen badiogu premutzako, maiorazkotzako hartua izan zela pentsa genezake. **Koldo**

Izagirre

Ordudanik, esana zien adiskideei, ez zen behin ere damutu mutikoa **semetzako** hartu izanaz. **Mirentxu Larrañaga**

Eszipion zentsorea, herriari ohiturez egin harengan, kexu da jadanik sartuta zegoen gehiegikeriaz: **semetzakoak** seme naturalaren pribilegio berbera izatea. **Iñaki**

Iñurrieta

2 (herri batek ohore gisa ematen duen titulua)

1980an Toledon **semetzako** izendatu zuten. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

semetzako hartu (3)

semi (aurrezki gisa) erdi.

Haren okelaz ospe handiko "quaiëtta 'd pitô" (indioilar-opil) **semi**-ritual bat atontzen zelako Pazgo jaietarako. Estatu **semi**-autonomoak dira eta tribu buruzagiak dira bertan agintzen dutenak. **Juan Garzia**

semiautomatiko izond erdiautomatiko.

Behar bada, pistola **semiautomatikoetarako** baino, optikarako aurrekontu handiagoak komeni dira Polizia departamenduetan. **Harkaitz Cano**

semibokal

Horrela, azaldu dugun ordenaren arabera, bokalak, **semibokalak** eta mutuak deitu zien. Imanol Unzurrunzaga

Semibokalak ere (edo semikontsonanteak) badaudela ohartaraziko gintuzke hizkuntzalari batek, baina gure jardunerako ez digu axola: bokalen kontura utziko ditugu. Iñaki Arranz

semieslabiar

izlag xake jokoan, defentsez mintzatuz, dama ganbitoaren aldaera nagusia. Berria - Kirola

semifinal

iz finalerdia, finalurrekoa. ik **finalerdi**. Berria - Kultura

semikonstonante

iz kontsonanterdia. ik **kontsonanterdi**. Semibokalak ere (edo **semikontsonanteak**) badaudela ohartaraziko gintuzke hizkuntzalari batek, baina gure jardunerako ez digu axola: bokalen kontura utziko ditugu. Iñaki Arranz

seminal

izond haziari dagokiona. Landareak, hegaztiak, arrainak eta gizakiak potentzialki sortuak izan ziren, hots, euren arrazoi **seminaletan**. Imanol Unzurrunzaga

Arrazoi **seminalak** sorkarrietan daude eta garapenerako ahalmen ezkutua agerian jartzen dituzte. Imanol Unzurrunzaga

seminario

(*orobat semenario g.er.*) **1** *iz* apaizgaitegia. Larresoroko **seminarioan** sartu zen 7. klasean 1855ean, 14 urtetan beraz. Xipri Arbelbide

Osaba Xabier Gasteizko **Seminarioa** ikastera joan zenean irakasle euskaltzaleak izan zituen, Don Manuel Lekuona eta Don Joxemiel Barandiaran besteak beste. Mikel Hernandez Abaitua

Erromako elizak bidali zigan apezpikuak garbiketa etnikoa egin zuen jarraian Baionako **seminarioan**, Frantziako IV. edo V. Errepublika Bakar eta Zatiezinen onetan. Piarres Xarriton

Nabarrengoxe hirira joana nintzen Uztaritzeko **Seminario** Txikian ezagutua nuen garaztar adiskide baten gana, astelehenez. Piarres Aintziart

Ondotik **seminario** handian sartu zen, 1867an apeztua izateko, ekaineko 15ean. Xipri Arbelbide

Idatzi diot **Seminarioko** kontseilari espiritualari, erranez zertan nintzen. Piarres Aintziart

Ni ere **seminariotik** atera berriko apaiztxo bat ninduan gerra erdian sartu nintzenezan. Koldo Biguri

Gipuzkoa ertzeko Saturrarango **seminarioa** emakumeentzako kartzela bilakatu zuten. Jokin Urain

Seminarioa faltan bota balu, ez zizkion izebari beste hamar seme-alaba egingo bata bestearen atzetik. Arantxa Iturbe

2 mintegia.

Denbora galdu alde, **seminario** bat egitea pentsatu dute idazle errealistaren metafisikak aztertzeko. Karlos Linazasoro

Borreroari, zenbait alditan, egoerak beharturik, *in situ* lan egitea tokatu zai; hala futbol partidu batean, nola parapsikologiari buruzko **seminario** batean. Karlos Linazasoro

seminarista

iz apaizgaia. Politika gaietan, gure inozentzia ala enuxentzia etikoa galdua genuen **seminarista** gutiz gehienek. Piarres Xarriton

Seminarista haietako baten aurrean gure ama kasualitatez mahuka-hutsik agertzen bazen, gogorki egingo zion errieta osaba Xabierrek. Mikel Hernandez Abaitua

Richard uneka-uneka puzten zen, ikasle mukitsuek arbelaren aurrean ernegarazten duten **seminaristaren** eran. Harkaitz Cano

Baina **seminarista**-ohi baten itxura guztia izanda ere- neu nintzen Espaniako polizia handi, libre eta anitzen arreta erakartzen zuen bakarra. Iban Zaldúa

Noizbait Richard **seminarista** ipurdimiazkatzaileak eta sarjentuak gure errespetu apur bat merezi izan bazuten [...] egun hartantxe galdu zuten betirako. Harkaitz Cano

seminola

izond Florida penintsulan kokatu zen herri amerindiar bati dagokiona. Ez ditut gustuko gandorra ematen duten horiek ere, bi izterondoetako ileak moztu-moztuak eta erdikoak hantxe, indio **seminola** baten burua balitz bezala, edo filmetako zenturioi erromatar baten kaskoko luma-mototsa. Karlos Zabala

semiolinguistika

(*orobat semio-linguistika*) *iz* linguistikaren adarra, semiotika kontuan hartzen duena. Irudiak berez eta ezin banatuzko moduan lotzen ditu bi funtzio psikologiko hauek; besteren artean [...] errealtateari buruzko jakintza forma kodetuan bideratzen du nahitaez ("kodetu" hitza **semiolinguistikak** ematen dion zentzuaren oso antzera hartuta, oraingo honetan). Josu Zabaleta

Irudi oro, nahi den bezain analogia "perfektua" izanagatik ere, egiaz erabiltzen eta ulertzen denean, azken finean hizkuntzan oinarritzen diren gizarte-konbentzio batzuen arabera erabiltzen eta ulertzen dela azpimarratzea zen, batez ere, Metzen asmoa (horretan garbi ageri da **semio**-linguistikaren oinarritzeko postulatuetakoa bat). Josu Zabaleta

semiologia

(**36** *agerraldi*, **6** *liburu eta artikuluko 1ean*) **1** *iz* zientziaren adarra, ikurrak eta ikur sistemak aztertzen dituena. ik **semiotika**. Gure autoreak [Saussurek] uste zuen hizkuntzek, idazkerak edo errito sinbolikoek ideiak adierazten dituzten ikur sistemak osatzen dituztela, eta taxu daitekeela, era horretara, "ikurren bizitza gizarte bizitzaren barruan aztertuko duen zientzia" bat, zainari **"semiologia"** esatea proposatzen baitu. Isabel Arrigain

Semiologiarentzat hizkuntza baita komunikazio eta esanahi-fenomeno ororen erredua. Josu Zabaleta

Semiologiak beste zernahik bezala bere aztergai propioa izanik, nolatan ez da hartzen oraindik zientzia autonomo gisa? Isabel Arrigain

Informazio guztiak bezala, kodetuta dago hau ere, hitz horri **semiologian** eman ohi zaion zentzuan zehazki ez bada ere. Josu Zabaleta

Idea bera aurkitzen da Umberto Ecoen **semiologiako** lehen lanetan, beste era batera adierazita. Josu Zabaleta

Otegiak azterketa estrukturalista egin zuen; Toledok ere bai, baina **semiologiaren** edo narratologiaren ildotik. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan) ik **semiologiko**.

Hizkuntzan, -**semiologia** sistema orotan bezala- ikur bat beste ikurretatik bereizten duen guztia da, hain zuzen, ikur hori osatzen duena. [Isabel Arrigain](#)

Formaren analisia Worthek "film antolamenduaren garapenaren egituraz" egindako lehenagoko **semiologia** -lanetan landutako eredu baten arabera egin zuten. [Josu Zabaleta](#)

Ezaugarri hau da, dudarik gabe, hizkuntza, gainerako **semiologia** erakundeetatik bereizten duena. [Isabel Arrigain](#)

semiologiko *izond* semiologiarena, semiologiari dagokiona. ik **semiologia 2; semiotiko**.

Esan daiteke ikur erabat arbitrarioak direla hobekien betetzen dutenak prozedura **semiologikoaren** egoera ideala. [Isabel Arrigain](#)

Worthek bereziki bi entitate **semiologiko** bezala definitzen ditu "kamerako" planoak, filmatzerako planoak (berak kadema deitzen duena) eta "filmeko" planoak. [Josu Zabaleta](#)

Horixe azpimarratu dute joera **semiologikoko** autore askok: espazioan bezalaxe inskribatzen da denboran kontaketa. [Josu Zabaleta](#)

Guretzat, aitzitik, arazo linguistikoa **semiologikoa** da batez ere, eta horrela, ikuspegi horretatik, gure arrazoinamendu guztiek esanahia eta garrantzia hartzen dute. [Isabel Arrigain](#)

semiologo *iz* semiologian espezialista den pertsona.

Nik beti esaten nion ez nintzela idazlea, **semiologoa** baizik, baina nola ulertarazi berari zer zen **semiologo** bat. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

semiotika (7 *agerraldi*, 5 *liburutan*) 1 *iz* semiologia.

"Irudien **semiotika** bat osatzeko ahaleginak egin diren guztian, **semiotika** ikoniko bat baizik ez da egin orain arte"; irudia mimesi bezala hartzen duen **semiotika** bat, esan nahi dute artikulua egileek. [Josu Zabaleta](#)

Zeren liburu honetan gauza asko baitago: filosofia pixka bat, poesia, narratiba, saiakeratxoak, aitormentak, **semiotika**, Euskal Herriko gatazka konpontzeko errezetak...

[Pako Aristi](#)

Ez al dira Saussuren aurrekoak Pierce eta bere **semiotika**, Arnauld eta Lancelot eta euren zeinuari buruzko azterketa klasikoak, estoikoak eta adierazlearen teoria-sail berean eta aurrekotasun modu berean? [Xabier Arregi](#)

2 (hitz elkartuetan)

Moda mundua doluz jantzia dago, noski, eta gertaera triste honek zer esanik franko emango du hurrengo **semiotika** ikastaroetan. [Patxi Iturritegi](#)

semiotiko *izond* semiologikoa.

Nobela da, laburra da, baina ez da "nobela laburra" bere egitura **semiotiko** sakonenean, irakurle jantziak antzeman dikeenez. [Iñaki Segurola](#)

Eta Foucaulten pendulu ospetsua; izen hori bera jarri zion Umberto Eco bere eleberr **semiotikoetariko** bati. [Jon Muñoz](#)

Saio **semiotikoa**, halaxe esan dit berak... [Iñaki Iñurrieta](#)

semiperiferia *iz*

Semiperiferia, hortaz, hau da: kapitalismoaren nazioarteko zabalkundearen logikak, zeina aurren-aurrenik zentrotik hazkunde-ahalmen handia duten lekuetarako kapitalen esportazioan gauzatzen baita, nazio-garapeneko dinamika bat aurkitzen duen espazioa; garapen hori, normalean, estatuak bultzatzen du. [Koro Navarro](#)

Espazio horiek definitzen saiatzen da **semiperiferiaren** kontzeptua: XIX. mendearen amaieran, politikoki, espazio burujabeak ziren, baina bertako ekoizpen modu kapitalista zentroko nazioen finantza eta teknikari buruzko mendekotasunean garatu zen. [Koro Navarro](#)

Mendebaldeko kapitalen sarrera da **semiperiferia** eta periferia bereizten dituzten ezaugarrietako bat. [Koro Navarro](#)

semiperiferiak, nahiz eta ez egon beti esportazioan espezializatua, ekoizpen-oinarri dibertsifikatuagoa izaten du. [Koro Navarro](#)

Semiperiferia oso espazio egokia da kapitalismoaren zabalkunderako: Europaren hegoaldea eta ekialdea EBren gune nagusiarentzat, Mexiko eta, teoriarik, Latino Amerika osoa NAFTAren kasuan, Urruneko Ekialdea Japoniarentzat eta lehen belaunaldiko herrialde industrializatu berrientzat, laster ezingo baita haien nagusitasuna auzitan jarri.

[Koro Navarro](#)

Zenbat eta indartsuago barneratu hazkundea [...] are gehiago murriztuko da finantza- eta teknologia-mendekotasuna, eta errazagoa izango du **semiperiferiak** zentroko nazioen talde itxian sartzea. [Koro Navarro](#)

semiperiferiko *izond* semiperiferiakoa dena.

[Larrugintza, zurgintza, jostailuak, material elektrikoak, etab.] denborarekin, eta berrikuntza tekniko handiren bat ez badago, soldata apaleko eskualdeetara joango da, eta aspaldi industrializaturiko herrialdeek, ez badituzte ekoizpen horiek baztertzeko, edo beranduz baztertzeko badituzte, arrisku handia izango dute estatu **semiperiferiko** bihurtzeko. [Koro Navarro](#)

XIX. mendean bertan ere pairatu zuten herrialde **semiperiferikoek** kanpoko finantzaketak ekar dezakeen mendekotasuna. [Koro Navarro](#)

semita 1 *izond* semitikoa.

Juduei ez ezik, arabiarrei ere egokitzen zaie **semita** definizioa, bereziki hizkuntzari dagokionez. [Berria - Mundua](#)

Izaera **semitak** berezkoa du hori. [Ramon Etxezarreta](#)

"Progresoaren" historia (filosofia, zientzia) espiritu indoeuroparraren obra da; espiritu **semitak** lehenago erlijio eta poesia fruituak eman zituen. [Joxe Azurmendi](#)

Abimelech I.a Gideon-en eta ohaide **semita** baten semea zen. [Lopez de Arana](#)

Sumeriera eta euskara bitarteko hizkuntza **semita** guziak jorratzen ditu, itzal, atz (apar) eta gisako hitzen azpiko metafora sistema zaharrak oso antzekoak direla erakutsiz. [Patziku Perurena](#)

Hitler edo Rosenberg-en testuek berek [...] beti kualitate moralak azpimarratzen dituzte: arraza ariarraren kualitate moral olinpikoak, arraza **semitaren** kualitate moral edentsuak. [Joxe Azurmendi](#)

2 (dagokion hitzaren ezkerrean)

Gure bertsolariak, gehienak **semita** kastakoak, sermoilari judukristau peto-petoak izan dira horretan. [Patziku Perurena](#)

Hark bezala du beltza ilea, luzea sudurra, eta **semita** tankerakoa ahoa. [Ramon Saizarbitoria](#)

3 *iz* herri semitiko bateko kidea.

Greziarrek eta **semitak** bizitzeko sen indartsua zuten, berentzako jainkoak asmatzen zituzten, berentzako bakarrik izango zen paradisu bat asmatzen zuten. [Josu Zabaleta](#)

Semitek, berriz, kontsonanteak markatzen zituzten soil-soilik. Isabel Arrigain

Semitek paradisu materialista bat asmatu zuten (zentzu txarrean). Josu Zabaleta

semitar *izlag* semita.

Julio feniziar hutsa zen; Mallorcakoa zen jatorriz, eta bazuen **semitar** odol puska bat segur aski. Josu Zabaleta

Parasanga: [...] **semitar** munduan Erdi Aroan erabiltzen zen luzera neurria, 5.762 metro zituen. Xabier Kintana

Maimonen ustez, hitz biak **semitar** erro berekoak dira. Xabier Kintana

Jiddisch hizkuntza **semitarra** ote? Joxe Azurmendi

semitartu *izond* semitar bihurtua.

Izan ere, hainbat feniziar-kartagotar, arabiar eta judurekin, Espainia ez ote da herri **semitartu** bat? Joxe Azurmendi

semitiko 1 *izond* arabiarrak, hebrearrak eta beste herri batzuk biltzen dituen talde etnikokoari dagokiona.

Baal, Antzinako herri **semitikoak** zituen oparotasunaren jainkoetako bat zen, hebrearrek jainkoizuntzat zeukatena. Xabier Olarra

Baziren, azkenik, afgano azal-ilunak, arabiar ederrak, arraza **semitikoen** eite antzinakoari eusten ziotenak. Karlos Zabala

Erlijio **semitikoa** dugu, odol **semitikoa** dugu. Josu Zabaleta

Esango dugu sintaxi mota honek zerbaiten argitzen digula pentsaera **semitikoa**? Isabel Arrigain

Bi eratako gizakiak daudela Espainian, ikuspegi moraletik begiratuta: gizaki mota iberikoa eta **semitikoa**. Josu Zabaleta

-Nola ageri den pikaro **semitiko** sail horren sen praktikoa! -esan zuen Iturriozek-. Josu Zabaleta

Hizkuntza **semitikoek** aldaketa fonetiko gutxiago jasan dituzte beste hizkuntza batzuek baino, eta kontsonanteek hobeto irauin dute bere hartan hizkuntza multzo horretan, beste batzuetan baino. Isabel Arrigain

Hizkuntza afrikar eta **semitikoetako** "hots enfatikoa". Lourdes Oñederra

Erro **semitikoek** antzeko ezaugarriak dituzte, baina nabarmenagoak oraindik. Isabel Arrigain

2 *iz* hizkuntza-familia semitikoa.

Semitikoari jarraituz, ohar gaitezke hiru kontsonanteen "legea" ez dela hizkuntza familia horren ezaugarria bakarrik. Isabel Arrigain

Berdin gertatzen da, eta hein handiagoan oraindik, bokalekin **semitikoen**. Isabel Arrigain

semitismo 1 *iz* semitaren nolakotasuna.

Semitismoa izan da [...] munduko nagusia, hark izan du aukera eta indarra. -Nik ez dut sinesten sen horretan -esan zuen Iturriozek-, eta **semitismoaren** hondamendian ere ez. Josu Zabaleta

Semitismo judua, kristaua edo musulmana izango da aurrerantzean ere munduaren jabea, guztiz aldaera bereziak hartuko ditu. Josu Zabaleta

2 (hitz elkartuetan)

Kristautasunak -beste **semitismo** modu bat, hau ere- gizakiaren bukaeran eta haren bizitzaz kanpo kokatu zuen paradisu. Josu Zabaleta

semitono *iz* tonuerdia.

Makina horiek zeharkako habeetan **semitonoen** zuloak izaten dituzte ezker-eskuin irekita, eta zulo horietatik teinkatzen dira nerbioak, tornu eta larakoekin bihurrituz; eta nerbio horiek ezin izaten dira teinkatzez utzi harik eta langilearen belarriarentzat soinu garbi eta afinatua ematen duten arte. Santiago Iruretagoiena

semizirkular *izond* zirkuluerdi formakoa.

Plazako bi aldeetan, bankuak daude, bata bestearen ondoan jarrita, ilara luze **semizirkularra** osatzen dutenak. Karlos Zabala

semizirkulu *iz* zirkuluerdia.

Ministroak erakutsi zituen, esku zabalarekin **semizirkulu** bat eratuz. Jon Alonso

Don Patricioren eskuetan globomundiaren marmolezko oina eta metalezko **semizirkulua** ikusten nituen, munduaren beraren muga eta koloreak buelten abiadarekin berratu baitziren. Joseba Sarrionandia

Badia osoaren inguruan, muinoek eginiko **semizirkulu** zabal bat ostertzean galtzen diren izurduetan, Larrun mendiaren mende. Koldo Izagirre

semola *iz* irin larria.

-**Semola** zopa nahi al du? -galdetu zuen amak jaten hasi ginenean. Matías Múgica

sen¹ 1 *iz* berezko joera indartsua, sortzetikakoa, ez ikasia, izaki bizidun guztiek edo mota bateko banako guztiek batera dutena. ik **instintu**. (abereetan)

Animaliek **senean** atxikitzen dute beren jakituria guztia, ezagutu beharreko informazio guztia, eta **senak** agintzen die Hegoaldera noiz joan behar duten, habia nola egin behar duten, edota bikotekidea erakartzeko zer nolako dantzak eta kantuak egin behar dituzten. Patxi Zubizarreta

Sena, zakur izaera, edo katu izaera, edo abere izaera, azken batean. Lander Garro

Berezko **sena** dute hori, zakurrek ere etsaiak izaten baitituzte. Gotzon Garate

Jaik amarengandik ekarriko zuen uretan ibiltzeko **sena**. **Sen** hori zeukan, katuak akabatzeko eta bito. Gotzon Garate

Inolako ikerketak ez du argitu ahal izan katu haren **sena**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Artista hintzen: piztien **sen** anker horiek findu egin al dituk heure barruan? Xabier Olarra

Ikusten duzu, bada, nola jende guztia den inozoa, estua, eta gure adimenaren ahalmenaz uste handia duena, ozta gainditzen badu ere animalien **sena**. Josu Zabaleta

Senez joaten zen, enarek hegora edo alkatxofek eguzkitara jotzen duten bezala, Anton Garikano

2 (gizon-emakumeengan)

Azokaren plazan hain zegin topo batak bestearekin, eta ozta-ozta harriz ziren horregatik, **sen** berak bultzatzen zituen-eta arraste arretetik. **Karlos**

Zabala

Noski, alferrik zen ohartaraztea zientzialari bati ez dagokion bezala mitifikatzen zuela amatasunaren **sena**. **Ramon Saizarbitoria**

Haragiaren **sena** astuna da, haragizkoa delako; hori du izaera. **Imanol Unzurrunzaga**

Ehiztariaren **senak** hartuta koadrila osoa. **Iñaki Iñurrieta**

Bere izaeran zegoen **sena**, bere independentzia pertsonala gordetzeko **sen** gehiegizkoarekin zerikusirik zuena. **Ramon Saizarbitoria**

Nola ulertu, beraz, **sen** edo "barru" sano hori? **Joxe Azurmendi**

Nondik norakoa eta zer-nolakoa ote da **sen** edo sentimendu hori? **Joxe Azurmendi**

Elkarrizketa hainbat abarretan ari zen banatzen aldi berean, eta **sena** huts egiten hasi zitzaidan. **Oskar Arana**

Basagizon baten **senez** asmatzen edo zituen ibilbideetan barrena. **Juan Garzia**

Guk horrela esaten diogu **senez** aritzeari, pentsatu gabe egiten denari, egin nahi hutsagatik egiten denari. **Jon Muñoz**

Emakumeak, **senez**, haurra nahi du lehendabizi; baina naturak beste forma poetikoago, iradokitzaileago batez jantzi behar du desira hori, eta maitasuna osatzen duten gezur horiek, errezel horiek sortzen ditu. **Josu Zabaleta**

Halako **sen** berezia zuen, garaiko munduarekin sintonizatzeko (ez noski analisi teorikoen bidez, berezko **senez** eta intuizioz baizik). **Askoren artean**

3 (gizon-emakumeengan, izenondo eta izenlagunekin)

Sen naturala ote da hori, biologikoa edo, instinto animal baten antzera diharduena gure baitan? **Joxe Azurmendi**

Batzuek **sena** esaten diote; beste batzuek, bizitzaren legea. **Arantxa Iturbe**

Berezko **sen** baten jabe naizela aitortu behar. **Karlos Zabala**

Norbere **sena** (jeneralean norbere kontzientzia edo kultura besterik izaten ez dena) **sen** moral zuzen eta jatorizat hartzea. **Joxe Azurmendi**

Naturaren printzipioarekin, hau da, ugaltzarekin bat ez datorren **sen** sexualaren edozein adierazpen perbertsioa da. **Luis Elberdin**

Sen berezko eta primarioenari jarraituz egiten dute musika, «natura basatiari erantzuteko modu bakarra da». **Berria - Kultura**

Barneratu, berriz itxi eta, **sen** hutsez, giltzatak eta kartera sarrerako mahaitxoaren gainean utzi nituen. **Aingeru Epaltza**

Hildakoaren dohain ugariak laudatzen hasi zen, haren negoziarako **sen** berezia. **Bego Montorio**

Asmarena eta sormena bezalako dohain modernoek blaituriko beren **sen** praktikoarengatik. **Jon Alonso**

Sen gaiztoak eragin zidan, **sen** gaiztoak. **Karlos Zabala**

Neure burua distantziaren bidez babesteko **sen** irrazionalari amore emanez, kontrako espalora jo nuen. **Aingeru Epaltza**

Traidore horri aurre hartu behar ziola sentitzen zuen, halako **sen** berezi batengatik. **Karlos Zabala**

Sen ulertezin batek, esker ona baino biagiagoak, bultzatu egiten zuen traidorearen esklabo izatera. **Karlos Zabala**

Niri berriz, **sen** atabikoa abisuka ari zitzaidan. **Joxean Sagatzizabal**

"**Sen** moral jatorraren" edo "barruak" agintzen omen digunaren arrazoa. **Joxe Azurmendi**

Sen estetikoak erabat itxuragabetua eta atrofiatua du hori dioenak. **Karlos Zabala**

Ohitura edo gure izaeraren berezko **sen** jakin bat, beste **sen** batzuen antzera, engainagarria eta iruzurtia izan daitekeena bera ere. **Askoren artean**

4 gogoetaren, esperientziaren edo heziketaren ondorio ez den berezko aritzea, helburu jakin baterantz diharduena. ik intuizio.

Norbere buruarekiko ziurtasuna eta sortzeko gaitasuna dira, azken baten, hizkuntza jakitearen ezaugarria, eta ezaugarri hori "**sena**" deitu ohi zaio euskaraz. **Koldo Zuazo**

Bere intuizioari, nire gorputzeko zein zoko nahi dudan ferekatzea jakiteko **senari**, zein muino atximurkatu edo miazkatu asmatzeari deabrukeria deritzot. **Ramon Saizarbitoria**

Senak esaten dio konspirazio baten aurrean dagoela. **Anjel Lertxundi**

-Detektibeei ere huts egingo dizue **senak**. **Migel Angel Mintegi**

Tropoei dagokienez, ikerketa ezean **senak** gidatuta esan ahal izango dugu nagusi direla metonimian oinarrituriko jardunbideak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Osaba mediku ezin hobea zen, giza zuhurtiaz betea eta diagnostikorako **sen** finekoa. **Juan Garzia**

Emakumeen **sen** zier horrekin, istanteko igartzen baitiote beren enamoratu beldur eta ahuleziari. **Matias Múgica**

Primerako emakumea dela esango nuke: elegantea, azkarra, **sen** handikoa... **Ana Urkiza**

Romanen koinatuak "Ambrose" izena ikusi zuenean eta bere **sen** linguistikoak adierazi zionean testu guztiak frantsesez zeudela, pentsatu zuen frantziar gehienek izen negargarriak dituztela. **Unai Elorriaga**

Axaleko dotorezia lehenetsiz, gu ilustratuok baino mila aldiz **sen** hobegakoko euskara zerabilten hiztun asko lotsarazi eta mututu ditugu.-Nire **sen** maskulinoa izango dun - esan zuen barrez. **Joxerra Garzia**

Teoria kuantikoak eta erlatibitatearen teoriak, beren ondorioekin, muturrez mutur jotzen dute denboraz eta espazioaz dugun **sen** berezkoarekin. **Juan Garzia**

Sen berezi baten jabe sentitzen nintzen, hala ere, bizi izandakoek arriskuari aitzintzeko dohainaz jantzi banindute bezala. **Aingeru Epaltza**

Injinerua gainditzen zaio arkitektoari, teknika **senari**, ikuskizuna arimari. **Anjel Lertxundi**

Badirudi **senez**-edo zalantza metodikoa aukeratua duela. **Iñaki Iñurrieta**

5 (hitz elkartuetan, lehen nahiz laugarren adierakoak)

Abere-**sen** hain primario hori azaldu beharrak lotsatu egiten naularik ere [...]. **Ramon Saizarbitoria**

Izan zaitetzehurra; hazi hori orain isurtzen bada, zure abere-**sen** grinatsuak moteldu egingo dira. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Hiri honek argazkilari **sena**, margolari **sena**, zerbait egiteko **sena** pizten ditu. **Harkaitz Cano**

Emakumei ama **sena** pizten zieagu, baina, hori bai, hortaz baliatzen ikasi beharra zagok. **Anjel Lertxundi**

Ama-**sena** sortuko zitzaiola, nonbaitetik bidalitako seinaleren batekin. **Arantxa Iturbe**

-Bitxia -esan du Axenariok-, familia-**sen** hori artile-fardel hauen artean. **Itziar Otegi**

Norbere buruarekiko konfiantza eta ziurtasun horretan oinarrituta, umearen hizkuntza **sena** ere garatuaz joango da. **Koldo Zuazo**

Kultur **sen** ia biologiko hura geureganatuko dugu. **Iñaki Iñurrieta**

Dolar bakoitza merkatari **sen** handiarekin defenditzen zuen. **Jon Muñoz**

Nire arrisku **sena** lo zegoen, nonbait, Haren nagusitasun **sena** tikiagoa zen eztabaida eta kalapitarako zuen joera baino. **Aingeru Epaltza**

Talde **sena** sendotzeko balio dute, elkarte jakin bateko kide egiten gaituzte. **Koldo Zuazo**

Arazoa da umore-**sen** handiegia duela enpresaburuei eta ikusleei koipea emateko. **Lopez de Arana**

Bizitza atzemateko jakingura hori, hain gizakiarena den ikerketa-**sen** hori. **Josu Zabaleta**

Babes bila, kotserebazio-**senez**. **Xabier Olarra**

6 zentzu ona, gogo oreka.

Hamlet bere **sen** eta burutik horrela itrena badago, eta bera ez delarik badio egiten kalte Laertes, ez dio Hamletek egiten kalte. **Juan Garzia**

Denak harriduraz sor eta lor, **sena** galduta bezala, mamu bat ikusten ari zirela uste zuten. **Askoren artean**

-Jakin egin nahi dut, Sonjari buruz esatera zindoazena! -egin zuen marru Dembak, **sena** galduta. **Anton Garikano**

Burua galdurik bezala agertu bagara, Jainkoarengatik izan da, eta orain geure **senean** agertzen bagara, zuengatik da. **Elizen arteko biblia**

Bere **senean** dagoen inork ez du urla ezezagun baten ardura hartzen. **Anjel Lertxundi**

Haur hura ez dago bere onean eta **senean**, haur gaixo bat da hura, bere gurasoek gaixotutako haur bat. **Iñaki Segurola**

Txinatar enpresa, autoritariora baina desentralizatua aldi berean, familia-jakintza metatuan oinarritzen da, eta betebeharraren **sen** guztiz indartsu batean. Koro Navarro

Bere **senetik** aterea, presaka, ohartu gabe egin zuen etxerainoko bidea. Iñaki Zabaleta

Ziur zegoen lehenegusia erakarriz urdai saltzailea **senetik** aterako zuela. Karlos Zabala

Ni **senetik** kanpo bainengoen, desiraz gainezka. Karlos Zabala

Jainkoaren erregetza hots eginez eta gurasoak eta seme-alabak elkarrekin baketuz eta zentzugabeak zintzoen **senera** bihurtuz bizi izan zen. Askoren artean

Ez nuke esango berriro neure buruaren jabe egin eta nire **senera** itzulia nintzenik. Josu Zabaleta

Senera etorri ziren noizbait, hordialdi baten ondotik bezala. Jose Morales

Ez dira idazleak **senez** eta zentzuz jokatzeko duten bakarrak; hitzuen arruntek ere ederki asmatzen dute sarritan. Koldo Zuazo

7 senezko izlag

Ezin dut irudika erro erotiko sineste **senezko** hori gabeko pentsalaririk, ez izpiritu azkarrik. Patziku Perurena

Horrek esan nahi du sexualitate ez dela **senezkoa** -esaterako, txoriek habiak egiteko duten ahalmena den bezalakoa; ez datorkigu zehaztuta emaketa unetik bertatik, baizik eta prozesu bat da, osatzen, ikasten eta lantzen den zerbait. Luis Elberdin

Poeren kontakizunetik sentikortasunari eragiten diote, haren alderdirik **senezkoen** eta ezkutuenari. Koro Navarro

Senezko erreakzioa izan zen, noski, egindakoa egin eta gero ez baitzuen uste emakumea han-hemenka ibiliko zenik aldakak kulunkatzen, bolada luze batean bederen. Migel Angel Mintegi

8 sen on zentzu ona.

Sen onak eta begi erne batzuek, besterik gabe, erakusten digutena paperera eramanez. Pello Salaburu

Sarak, egoera gorabeheratsuetan ohi zuen bezala, zentzuari eta **sen onari** men egin nahi izan zien. Joan Mari Irigoien

Sen onari jarraiki, beraz, botere-egitura (politiko, sozial, administratibo...) berriak asmatu beharko ditugu nahitaez. eta koherenteak direlako eta oinarritzko **sen onarekin** guztiz bat egiten dutelako. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Aristoteles, horrenbeste, **sen onari** jarraituz, errealista da, gizatiarra. Askoren artean

Otzanegi ere ez jardun, baizik heurre **sen onari** fida. Juan Garzia

hitza multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abere sen (3); **berezko sen** (4); **halako sen** (4)

sen berezia (4); **sen gaiztoak** (3); **sen handikoa** (3); **sen hutsez** (16); **sen kritikoa** (3); **sen moral** (4); **sen ona** (11); **sen onak** (8); **sen onaren** (15); **sen onari** (4)

ama sena (4); **berezko sena** (9); **egiteko sena** (4); **ehiztari sena** (3); **euskal sena** (12); **garaile sena** (3); **gol sena** (6); **idazle sena** (3); **irabazle sena** (5)

sena eman (3); **sena erakutsi** (5); **sena erakutsi zuen** (3); **sena galduta** (4); **sena pizten** (6); **sena sendotzea** (3)

talde sena (3); **teknika eta sena** (3)

senak aginduta (4); **senak agintzen** (5); **senak bultzatuta** (3); **senak eraginda** (3); **senak esan** (4); **senak esan zion** (3); **senak esaten** (9); **senak gidatuta** (4); **senak hala aginduta** (3)

senari eutsi (3); **senari jarraituz** (9); **senari jarraitzen** (4)

afrikarraren senaz fidatuz (3); **gidari afrikarraren senaz** (3)

bere senean zegoen (3)

bere senera etorri (8); **bere senera etorriko** (3); **bere senera itzuli** (8)

senera etorri (11); **senera etorri zen** (3); **senera etorri zenean** (3); **senera etorriko** (3); **senera itzuli** (10); **senera itzuli zenean** (3); **senera itzultzen** (3)

bere senetik aterata (6); **bere senetik ateratzen** (6); **senetik atera** (3); **senetik aterata** (7); **senetik ateratzen** (8); **senetik ateratzen zuen** (3); **senetik aterea** (7); **senetik irtenda** (5); **senetik kanpo** (8); **senetik kanpo dago** (3)

senik gabeko (3)

sen² ik san.

senadia iz (corpusean *senai*a soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian *senadia* agertzen da) iz badia txikia.

Minututik minutura gero eta argiago ageri dira itsasoa eta zerua, baina lehorra ez, oraindik; antzeman daiteke Atenas non dagoen gutxi gorabehera, eta uharte beltzak ere bai **senai**a argitsuetan. Joxe Austin Arrieta

Bera joan zen, zenbait itsasontzirekin, itsasoa arakatzen, eta portuak, **senaiak** eta armategitarako erabili nahi zituen lekuak markatu zituen. Iñaki Iñurrieta

senadore ik senatari.

senadu ik senatu.

senai

senar 1 iz gizon ezkondua emaztearekiko. ik gizon.

Eman bieziaio **senarrak** emazteari zor diona, eta berdin emazteak **senarrari**. Elizen arteko biblia

Hitzaldia **senarrak** eman zuen, baina emaztea, gizon handiaren atzeko emakume handia, han zegoen, isilik baina jakintsu. Lourdes Oñederra

Senarra duenak jaun izaten ohi du. Aingeru Epaltza

Ez dut nire **senarrak** jakiterik nahi. Bernardo Atxaga

Gainera, haren **senarra**, zerbaitetaz mesfidatzen hasia. Daniel Landart

Arazoa da **senarrak** egin nahi duela, eta nik, ez. Luis Elberdin

Bizia galduko dute, bai berak, bai eta beraren **senar**, seme eta zerbizariet ere. Elizen arteko biblia

Senarra hil zitzaionean bi umerekin geratu zen. Koro Navarro

Etxean bost haur bazituen hazteko, eta **senarra** hila. Elena Touyarou

-Zergatik ez duzu **senar** guztien antzera jokatzeko? Patxi Zubizarreta

Eskandalurik gabe ikusi ohi da nola doan andrazkoa eskurik esku eta besorik beso, **senar** batengandik beste batengana. Andres Urrutia

Bigarren **senarra** burtsa-artekari aberats bat zen, New Jersey-koa. Oskar Arana

Bera eta **senarra** Andrew Levitt izeneko kirurgia plastikoko doktore baten adiskide egin ziren. Oskar Arana

Bere **senar** jaunaren krabelin gorriak familiaren tradizio bat dira, nonbait. Josu Zabaleta

Hesterren **senarra** irreabak joan Hester haurdun alajaina! **Anjel Lertxundi**
Ene osaba hartu zuen **senar**, ene aitaren anaia. **Juan Garzia**
Klodiak bere lehengusu Metelo hartu zuen **senar**, gizon zintzo bezain trauskila. **Juan Garzia**
Senarra non zuen galdetu gabe. **Edorta Jimenez**
Ezin zuen **senarra** gobernatu. **Mirentxu Larrañaga**
Senarrak maitekiro pausatu zion besoa, eta "tira, tira!", xuxurlatu zion sailean. **Mirentxu Larrañaga**
-Ene, berandu da! -esan dio **senarrari** -: zuk ere lo egin beharko zenuke. nire **senarraren** isilik, berarekin geratu nintzen bere gogoia betetzeko eta, bide batez, nik neure jakinmina asetzeko. **Imanol Zurutuza**
Luisi ez zenion analisisena aipatu kafean, zuen kafe hartan, **senarrarekin** inoiz egon ez zaren kafean. **Koldo Izagirre**
Gaua nire **senarraren** besoetan pasa dut. **Patxi Zubizarreta**
Egunez bere amaginarrebak jo egin ohi zuen, eta gauetz bere **senarrak** ostikoz eta ukaldiz jipoitu. **Gotzon Garate**

2 (izenondoekin)

Guraso on, **senar** on, seme-alaba on horiek egiten dituzte herritar onak. **Andres Urrutia**
Lan ona, **senar** prestua, apartamentu eroso. **Oskar Arana**
Emazte aberats batekin ezkondu zen [...] zeinarekin ezin hobeto portatu zen bizitza osoan, **senar** maitalea izan baitzen, eta elkarrekin izan zituzten bederlatzi seme-alaben aita eredugarria. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Neure **senar** gizajoa galdu nuenetik, goizero joaten naiz merkatu nagusira. **Karlos Zabala**
Senar susmatia beti izango da halakoa: sekula ez da ziur egongo besarkatzen duen umea benetan berea denentz. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Haren **senar** adarduna horren beharrean baldin badago oinak berotzeko, ez zabilen toki txarrean! **Karlos Zabala**
Kixaren emazteak [...] ama izatea opa zion, gau eta egun joka erabiliko zuen **senar** bihozgabe baten mendean haurrei bularra eman behar izate. **Patxi Zubizarreta**
Izan ere, oso **senar** ankerra zuen eta asko sufriarazten zion. **Askoren artean**
Françoisen hilketa **senar** jeloskor bati leporatu zioten, botikari bati hain zuzen. **Felipe Juaristi**
Arratsaldeak Gordon-entzat ziren, baina gauetz **senar** eta aita arduratsuen eginkizunera itzultzen zen isilean. **Oskar Arana**
Sekula ez dut ikusi **senar** jaierratsuagorik nire bizi osoan. **Mirentxu Larrañaga**
Badakit ez naizela **senar** perfektua. **Patxi Iturritegi**
Buffalon jaioa, Beteren **senar** ohia, Floraren aita eta espetxean egona. **Oskar Arana**
Senar ezkonberria soldaduskatik aske. **Elizen arteko biblia**
Izen horixe zuen nire **senar** zenak. **Lopez de Arana**
Senar zenaren dolua zekarren, negarrez hipaka, Xarlorekin bizitzen jarria zen arren. **Itxaro Borda**

3 (-en atzikiaren eskuinean eta pertsona izen baten eskuinean)

Biharamunean, herria Susanaren **senar** Joakimen etxean bildu zenean, etorri ziren bi zaharrak ere. **Elizen arteko biblia**
Husnia okinak bere **senar** Jada jipoitua zuen, odola eragiteraino. **Patxi Zubizarreta**
Haren **senar** Xalum, Tikbaren seme eta Harhasen biloba, tenpluko jantzien arduraduna zen. **Elizen arteko biblia**
Harekin izanen zen bere **senar** Antonio Borboikoa ere, Frantziako leinu printzipalenetariko baten semea. **Aingeru Epaltza**

4 (hitz elkartuetan)

Horrelako emakumeak **senar**-hiltzaileak izaten ziren. **Koro Navarro**

5 *senar-emazte (orobat senarremazte g.er.) pl*

Egia da **senar-emazteak** maiz batu egiten direla elkar ezagutu gabe eta elkarrekin bizitzera kondnaturik daudela, elkarrekiko maitasunik gabe. **Andres Urrutia**
Horra: **senar-emazte** zarete hemendik aurrera; zeurea duzu betiko. **Jose Antonio Mujika**
Van Daan **senar-emazteek** sekulako liskarra izan dute. **Josu Zabaleta**
Matson **senar-emazteek** aho batez onartzen zuten izugarritzko hondamendia letorkiekeela gainera, iloba axolagabe haiek jabetzen baziren inoiz Matsondarren eta Whitmoretarren diruaz. **Mirentxu Larrañaga**
Bikote adineko bat zegoen, **senar-emazte** itxurakoak, jangelaren beste aldeko mahaian eserita. **Inazio Mujika Iraola**
Besterik ez baitzuen munduan nahi, bera eta Arianna **senar-emazte** moduan bizi baino. **Felipe Juaristi**
Jabeak edadeko **senar-emazteak** ziren, haurrik ez zutenak. **Koro Navarro**
Gutxi barru, aspaldiko **senar-emazte** arruntak izango gara. horra zertan den dibortziazatutako **senar-emazte** ohien arteko tolerantziaren eta onginahiaren mitoa. **Mirentxu Larrañaga**
Hor aldiz **senar-emazte** bikote bat, frantsesez ari. **Piarres Aintziart**
Egun batez, **senar-emazte** beharrak joan ziren Bidarterat. **Janbattitt Dirassar**

6 *senar-emaztegai pl*

Senar-emaztegaiek hara jotzen zuten ezkondu aurretik. artean Pili eta biok **senar-emaztegai** huts baizik ez ginela. **Karlos Zabala**
Senar-emaztegaien gaua, hain zuzen ere, errotazain herrena eta urpeko kanpaia gogoratzen ziren horietako bat izaten zen. **Koldo Biguri**
Ez da sekula krisailu-argirik izango, ez eta entzungo **senar-emaztegaiein** kanturik ere zure baitan. **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

senar berria (10); **senar emazte** (142); **senar emazte berrien** (4); **senar emazte gazteak** (4)
senar emaztea (4); **senar emazteak** (178); **senar emazteak dira** (5); **senar emazteak hil** (4); **senar emazteak ziren** (8); **senar emazteei** (10); **senar emazteek** (74); **senar emazteek ospatu** (6); **senar emazteen** (81); **senar emazteen artean** (10); **senar emazteen arteko** (19); **senar emaztegaiek** (4); **senar emaztegaiein** (7); **senar emaztegaiein kantutak** (4); **senar emaztek** (6); **senar eta aita** (5)
senar ohi (5); **senar ohia** (14); **senar ohiak** (9); **senar ohiaren** (9); **senar on** (7)
senar zena (6); **senar zenak** (5); **senar zenarekin** (15); **senar zenaren** (10); **urteko senar** (4)
andrearen senarra (5); **bera eta senarra** (8)
emakumearen senarra (4)
senarra atxilotu (8); **senarra bizi** (5)
senarra eta alaba (4); **senarra eta biak** (6); **senarra eta biok** (7); **senarra eta seme** (8); **senarra eta semea** (8); **senarra etxean** (6); **senarra galdu** (17); **senarra galdu zuen** (4); **senarra galdua** (5); **senarra hartu** (5); **senarra hil** (33); **senarra hil zitzaionean** (4); **senarra hiltzen** (5)
senarra ikusi (5); **senarra iritsi** (4); **senarra itzuli** (4); **senarra izan** (14); **senarra izango** (5); **senarra jo** (4); **senarra joan** (4)
senarra utzi (5); **senarra zegoen** (4); **senarra zenaren** (6); **senarra zuen** (7)
esan zuen senarrak (20)
senarrarekin batera (8)
bere senarraren ondoan (4)
senarraren abizena (4); **senarraren adiskide** (4); **senarraren alde** (6); **senarraren aurrean** (5); **senarraren bila** (4); **senarraren deitura** (4); **senarraren etxekoek** (5); **senarraren heriotza** (5); **senarraren izena** (5); **senarraren kontrako** (4); **senarraren lagun** (4); **senarraren ondoan** (11)

Bakarrik utziaren seme-alabak gehiago izango baitira, **senardunarenak** baino. **Elizen arteko biblia**
Alegia, bakoitza beste guztiekin, eta bereziki gizon bakoitza emakume guztiekin, ezkongabe zein **senardun**, eta emakume bakoitza gizon guztiekin. **Juan Garzia**

senargai (orobat *senar gai g.er.*) iz emakumearentzat, ezkontzeko hitza eman dion gizona. ik **gizongai**.

Nire **senargai** Maurioren apartamentu baten atean. **Karlos Zabala**
Nire bigarren **senargaia** maritu porrokatua zen eta erdi inpotentea. **Karlos Zabala**
Egunen batean etxe honetatik ihes egingo nuen gauaren erdian, Lajosekin, nire ahizparen **senargaiarekin**. **Ander Irizar**
Neskak **senargaia** omen zuen. **Edorta Jimenez**
Badakizu ez dudala **senargairik**. **Itxaro Borda**
Hala ere beste bat egokitu zitzaion **senargai**, morroi jator bat, gris-gris eta arrunt-arrunta. **Juan Garzia**
Gizontasunaren indarra kentzen zien **senargaiak**. **Koro Navarro**
Ezin baitzuen inolaz ere **senargai** haren gomuta uxatu. **Joxemari Iturralde**
Behin bere **senargaia** aurkeztu zidan. **Fernando Rey**
Senargaiarentzat emazte hartzea tresna bat hartzea bezala da, izozgailua, telebisia edo beste zerbait ukaitea bezala. **Gotzon Garate**
Senargaia atxeman du, ezkonduko da. **Eneko Bidegain**
-Kattalin, hona Gérard ene **senargaia**. **Eneko Bidegain**

senarremazte ik **senar 5**.

senartxo iz *adkor* senarra.

Emazte jatorrak ederki jakin dik bere **senartxoa** sendabidean ematen. **Aingeru Epaltza**
-Egia nahi duzu, eta egia kontatuko dizut, **senartxo**. **Joan Mari Irigoien**
-Ezer ez **senartxo** gaixoarentzat! **Irene Aldasoro**

senatari (329 agerraldi, 12 liburu eta 207 artikulutan; orobat *senadore 67 agerraldi, 11 liburu eta 35 artikulutan, senatore 14 agerraldi, 7 liburu eta 6 artikulutan, senator g.er. eta senatur g.er.*; Euskaltzaindiaren Hiztegiaren *senatari* agertzen da) 1 iz senatuko kidea.

Atzo goizean eman zuten agiriaren berri diputatuek eta **senatariak**, Madrilen, Kongresuan egindako agerraldian. **Beria - Harian**
Eusko Legebiltzarrean parlamentari eta Espainiako Gorteetan **senatari** ere izan zela. **Beria - Harian**
Edward Brongersman Alderdi Laboristako **senatari** izandakoari hiltzen lagundu zion sendagilearen kontra egin zuen Gorenak. **Beria - Gaiak**
Gonzalo Quiroga PPKo **senatariaren** etxeari eraso diote Donostian. **Beria - Euskal Herria**
1977an **senatari** izendatu zuten arte. **Beria - Euskal Herria**
1977ko hauteskundeetan Gipuzkoan **senatari** aukeratu baitzuten. **Beria - Euskal Herria**
Californiako **senatari** Dana Rohrabacherrek, berriz, uztak bilketa etorkinek egin beharrean, presoek egitea proposatu du. **Beria - Mundua**
Dei zuzen bat egin die Miarrizeko auzapez eta **senatari** Didier Borotrari eta Baionako auzapez eta diputatu Jean Greneti. **Beria - Harian**
Ruben Giustiniani Argentinako **senatariaren** arabera, legez kanpoko abortuak dira andreen heriotza eragile nagusia. **Beria - Gaiak**
Pere Macias CIUKo **senatariak** PSCren jarrera salatu zuen. **Beria - Kirola**
Pinochet Armadatik erretiratu zen eta bizi osorako **senatari** izendatu zuten. **Beria - Harian**
Hango **senatari** anitz politika bakarzalea baztertu eta AEBei munduan dagokien tokia hartzearen alde omen daude. **Alberto Ladrón Arana**
Hantxe zegoen Jakoba andrea, Erromako dama txit ospetsua, **senatari** ziren bere bi semeekin, zaldizko gizon asko lagun zituela. **Askoren artean**

2 (izenondoekin)

Larry Craig **senatari** federalaren ordezkarri batekin. **Beria - Euskal Herria**
AEBetako **senatari** errepublikano Lincoln Chafeek «herri venezuelarraren aurkako errespetu faltatatz» jo zituen alderdikidearen hitzak. **Beria - Harian**
Nancy Pelosi **senatari** demokratik, berriz, bere irteera «gobernuarentzat eta herrialdearentzat galera» handia dela adierazi zuen. **Beria - Mundua**
Senatari sozialistak kritikatu egin zuen Eusko Jauriritzak egunkariari diru laguntzak eman izana. **Beria - Euskal Herria**
Gatazkak dauzkagu toki izenekin, italiarazko izen gehienak Tolomei **senatari** faxistak asmatu baitzituen. **Beria - Euskal Herria**
Politikaren mundua nabarmen aldatu dela dio **senatari** ohiak. **Beria - Euskal Herria**
Arratsaldeak Senatuan ergelkeriez eztabaidatzen eta Aberriaren aitonei logalea eraginez ematen duten **senatari** gogaikarri horietako bat. **Josu Zabaleta**

3 (hitz elkartuetan lehen osagi gisa)

Gaur egun, bizi osorako **senatari** kargua du. **Beria - Harian**
Mendes Saakoa, guztiz isila, nahiz bera Coimbrako etxe handienetarik jalgia eta gero Toledoko Artzapezpikuaren kontseiluko kide ezagun jakintsuetarik izanik, orain, berriz, **senatari** karguan distiratzten duena. **Piarrés Xarriton**
Helegiteak Jose María Aznar garai hartako Espainiako presidentiak, Espainiako artekoak eta PSOEko **senatari** talde batek aurkeztu zituzten. **Beria - Euskal Herria**
"Ordenei" (ordines) dagokienez, izena erromatar gorputz politikoan zeuden politikoki pribilegiaturiko klaseetatik hartu zuten, "**Senatari** Ordena"tik, adibidez. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aebetako **senatari** (7); bizi osorako **senatari** (5); diputatu eta **senatari** (5); **john McCain** **senatari** (4)
senatari aukeratu (5); **senatari** demokratik (11); **senatari** errepublikano (5); **senatari** errepublikanoak (7); **senatari** izendatu zuten (3); **senatari** ohi (4)
kerry **senataria** (3)
aki **anasagasti** **senatariak** (4); **eajko** **senatariak** (3); **iñ john edwards** **senatariak** (3); **kerry** **senatariak** (4); **massachusettsko** **senatariak** (3)
mccarthy **senatariaren** (4); **quiroga pppo** **senatariaren** (3)
diputatu eta **senatariak** (6); **diputatuek eta** **senatariak** (3)
diputatu eta **senadore** (3)

senatarigai (orobat *senatari gai*) iz senatari izateko bozketan partze hartzen duena.

Bera, Haiti hego-ekialderako **senatarigai** bezala lehiatu da, otsailaren 7ko bozketan. **Beria - Mundua**
Frantz Large, *Haitiko itxaropena* plataformako eleduna eta **senatarigaia**. **Beria - Mundua**

senator ik **senatari**.

senatore ik **senatari**.

senatu (*orobat **senadu** g.er.*) **1** iz antzinako Erromako kontseilu gorenaren semeen biltzarra; antzinako edo Erdi Aroko errepubliketako zenbait biltzar politikori ematen zitzaizko izena.

Marko Senpronio herri-tribunoko plebiszito bat eginarazi zuen **senatuaren** agintearen izenean, zera zioena: [...]. **Iñaki Iñurrieta**

Erromako **senatu** eta herriaren erabakiz. **Santiago Iruretagoiena**

Erromako **senatuak** guk bezain errespetu sakona zion, zalantzarik gabe, Jainko gorenari, eta baita haren menpeko jainko hilezko eta bigarren mailakoei ere, guk geure santuei diegun adinakoa. **Juan Martín Elexpuru**

Hannonek, Kartagoko **senatuaren** aginduz, hogeita hamar mila kartagotar barreiatu zituen Herkulesen zutabeetatik Zerneraino. **Iñaki Iñurrieta**

Milango **senatuan** ez zioten men egiten arau horri. **Iñaki Iñurrieta**

2 bi ganberako parlamentu sistema batzuetan, eskuarki legeen bigarren irakurketa egiten duen ganbera.

Asteazkenean Asanblea Nazionalak onartu eta gero, atzo gauza bera egin zuen **Senatuak**. **Berria - Ekonomia**

Bere alderdiko jendea hasia da kezkatzen, hala nola **Senatuko** lehendakaria. **Herria**

Legea onartua dago Espainiako Parlamentuan eta **Senatuan**, alderdi guztien oniritziarekin, EAJrena barne. **Berria - Kultura**

Lege proiektua **Senatura** iritsi baino lehen egin beharko dituzte aldaketak. **Berria - Harian**

PP ez beste alderdi guztien akordioa lortu dute **Senatu** eta Kongresurako. **Berria - Euskal Herria**

Demokratak Etxe Zurian, **Senatuan** eta Kongresuan nagusi jartzeko helburua. **Berria - Mundua**

Senatuko eta Legebiltzarreko ordezkariekin biltzeko asmoa du Zenarrutzebeitiak. **Berria - Ekonomia**

Legebiltzarrek eta **Senatuak** dituzte lehendakariaren poderea orekatzen [Filipinetan]. **Ramuntxo Etxeberri**

Txekiako **Senatuak** ontzat jo du sexu bereko pertsonen arteko harremanak legez arautzea. **Berria - Gaiak**

Legearen bozketa atzeratzeagatik protesta egin zuten Valparaison, **Senatuaren** egoitzaren aurrean. **Berria - Mundua**

NY estatuko **senaturako** zerrendaburu hautatu zuten errepublikarrek. **Harkaitz Cano**

Lehiarik handiena Dakota Hegoaldeko **senaturako** eserleku bati dagokiona da. **Berria - Mundua**

3 (hitz elkartuetan)

Altxortegia, presondegia eta kuria edo **senatu**-etxea foroari itsatsita egin behar dira. **Santiago Iruretagoiena**

4 senatua dagoen eraikina.

Legebiltzarra eta **Senatua** ere hetsiak, alta deputatu eta senatoreek dute Mendekoste astelehenean lan egitearen alde bozkatu. **Herria**

Urriaren 17an, Frantziako 321 gazte, tartean 4 baiones, bilduko dira Pariseko **Senatuan**, beren lekukotasuna zabaltzeko eta gizarteaz eztabadatzeko. **Herria**

Hauta nezakeen beste edozein ere: **Senatua** edo Kongresua, Espainiako Erregearen palazioa, Valle de los Caídos-eko gurutze erraldoia, Pariseko Euro Disney, El Corte Inglés, Bruselako Parlamentua, Escoriala, zubi bat, metroa, museo edo antzerkaren bat. **Hasier Etxeberria**

Egun batean, **Senatutik** zetorrela, nekaturik, edatekoa eskaini zion. **Juan Garzia**

5 **senatu-kontsultu** (*orobat **senatukontsultu** g.er.*) antzinako Erroman, jatorria Senatuan zuen testua.

Senatuak, botere betearazlea baitzuen, erromatar hiritarrengandik mailegutan hartzeko baimena ematen zuen, batzuetan behar hutsez, besteetan fabore gisa, eta **senatu-kontsultuak** egiten zituen horretarako. **Iñaki Iñurrieta**

Nahi nuke lege erromatarrik irakurtzen dituztenek ondo bereiztea batetik hipotesi moduko horiek eta bestetik **senatu-kontsultuak**, plebiszitoak, enperadoreen konstituzio nagusiak eta gauzen izaeran, emakumeen hauskortasunean, adinez txikien ahulezian eta baliagarritasun publikoan oinarritutako lege guztiak. **Iñaki Iñurrieta**

Argi dago **senatu-kontsultu** hori Lege Papiarraren luzapen bat besterik ez zela; honek, kasu berean, arrotzek ematen zizkieten jarauntsiak eman zizkien emakumeei. **Iñaki Iñurrieta**

Ez al ziren bata bestearen ondoan etorri, **senatukontsultuak**, plebiszituak, pretoreen ediktuek, kontsulen ordenantzak, edilen araudiak, juriskontsultoen erantzun edo erabakiak, pragmatika-berronespenak, erreskriptuak, ediktuek eta enperadoreen nobelak? **Andres Urrutia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

senatu kontsultu (7); **senatu kontsultuak** (4)

espainiako senatua (7); **kongresua eta senatua** (4)

aebetako senatuak (8); **espainiako senatuak** (7); **frantziako senatuak** (3); **ganberak eta senatuak** (5)

senatuak atzera bota (3); **senatuak berretsi** (8); **senatuak onartu** (3)

txileko senatuak (3)

aebetako senatuan (4); **espainiako senatuan** (36); **frantziako senatuan** (3); **kongresuan eta senatuan** (14)

senatuan eztabaidatuko dute (3)

espainiako senatuaren (3); **senatuaren erreforma** (14)

aebetako senatuko (4); **espainiako senatuko** (37); **espainiako senatuko presidente** (16); **espainiako senatuko presidentek** (5); **kongresuko eta senatuko** (15); **legebiltzarreko eta senatuko** (3)

senatuko batzorde (3); **senatuko eta kongresuko** (3); **senatuko eta legebiltzarreko** (3); **senatuko mahaian** (3); **senatuko mahaian** (3); **senatuko presidente** (23); **senatuko presidentea** (5); **senatuko presidentek** (17); **senatuko talde** (3)

txileko senatuko (4)

senatura iritsi (3); **senatura joango da** (3)

espainiako senaturako (8); **kongresu eta senaturako** (3); **kongresurako eta senaturako** (23)

senaturako eta kongresurako (3); **senaturako hautagai** (6); **senaturako hautagaiak** (9); **senaturako zerrendaburu** (5); **senaturako zerrendaburuak** (8)

senatukontsultu ik **senatu 5**.

senatur ik **senatari**.

senda iz bidea.

Elizako **sendetarik** hürüntürik zirener, ezinezko batzarri huna egiten zünian eta, holaz, bihotzak eztiki hunkitzen. **Herria**

senda-agiri (*54 agerraldi, 2 liburu eta 34 artikulutan*; orobat **sendagiri 14 agerraldi 11 artikulutan**) iz norbait sendatu dela dioen agiria.

Erietxean **senda-agiria** eman zidaten egunean. **Anjel Lertxundi**

Mutualitateetako sendagileak osasun etxeko ikuskaritza medikuari azaldu beharko dio langileari **senda-agiria** noiz emango dion. **Berria - Ekonomia**

Denbora hori pasaturik, sendaturik zegoela eta bere buruari **senda-agiria** emanda etxera itzul zitekeela erabaki zuen. **Bego Montorio**

Inclanek berak begi txarrez dakusa mutualitateek **senda-agiri** arruntak eman ahal izatea. **Berria - Ekonomia**

Ander Vilarñok ostiralean jasoko du **senda-agiria**. **Berria - Kirola**

Mohamed Radi gaztea Emara hiriko erietxean **senda agiria** jaso eta bi egunera hil zen. **Berria - Gaiak**

Auto baten kontra jo zuen autobusean zihozzen beste hamalau lagunek jaso dute **senda-agiria**. **Berria - Gaiak**

Tang Xiaoping erietxeko zuzendariaren esanetan, **senda-agiria** hartzeko prest dago kazetaria. **Berria - Gaiak**

Txaskoren **senda-agirian** jartzen du sudurreko hezurra apurtuta daukala. **Berria - Harian**

ELA, LAB, ESK eta EILASen ustez, ez da zilegi lanetik kanpoko istripuen **senda-agiriak** kudeatzea. **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

senda agiria eman (12); **senda agiria jaso** (7)

senda-indar iz sendatzeko indarra.

aingeruen hizkuntzan hitz egin eta izarren ibilbideak eta belarren **senda-indariak** ezagutuko balitu, **Askoren artean**

senda-laguntza iz sendatzeko laguntza.

Lehen **senda-laguntzak** eman ondoren ambulanzian sartu eta, sirena eta argiak egin ahalean, 96. kaleko Metropolitan Ospitalera abiatu ziren. **Iñaki Zabaleta**

senda-lan iz sendatzeko lana.

Frantzisko dohatsuak, ordea, ez zuen sendaketa hasi nahi anai Elias etorri arte, honek esana baitzion bertan egon nahi zuela medikua **senda-lanean** hastean. **Askoren artean**

Frantzisko dohatsuak, ordea, ez zuen sendaketa hasi nahi anai Elias etorri arte, honek esana baitzion bertan egon nahi zuela medikua **senda-lanean** hastean. **Askoren artean**

Biltegitako moldatutako gela batean sartu da **senda lanak** akituta. **Aingeru Epaltza**

sendabelar (orobat **senda-belar** g.er.; *Euskaltzaindiaren Hiztegian **sendabelar** agertzen da*) **1** iz sendagintzan erabiltzen den belarra.

Sendabelarrak eta beste landare batzuk ekartzen zituen. **Joanes Urkixo**

Ur gehixeago edatea ez dator batera gaizki, **sendabelarren** baten laguntzarekin hobe, sanjuanbelar edo millorri xorta bat, edo santiobelar puxkatxo baten tisanatxoa prestatuz. **Pello Zabala**

Batzuetan zulo inguruan legar xehea, **sendabelar** bereziak eta beste nahasgarri berezi batzuk ipintzen dituzte sugeak konortegabe uzteko. **Gotzon Garate**

Ze gaixotasun duten, hari dagokion **sendabelarra**. **Gotzon Garate**

Neska ilegorri eder batek, **sendabelarrak** saltzen zituenak. **Karlos Zabala**

Dioskorideseen liburua, non, dakizun bezala, mila **sendabelarren** berri emaiten baitzaigu. **Joan Mari Irigoien**

197 **sendabelarren** salmenta debekatu du Osasun ministerioak. **Berria - Gaiak**

Sendabelarren kulturari, loreen kulturari, usadioen kulturari, birziklaiaren kulturari, horiei gutzietoki eginen dien mundua posible dela uste dugu. **Berria - Harian**

2 (hitz elkartuetan)

Gaur egun ezagutzen diren 50.000 **sendabelar** espezieetatik 10.000 inguru galtzeko arriskuan daudela ohartarazi du aste honetan Erresuma Batuko Plantlife International erakundeak. **Berria - Gaiak**

sendabelar espezie askoren geroa «inoiz baino ilunagoa» da egun. **Berria - Gaiak**

2737. urtean Txinako Shen Nung enperadoreak buruturiko **sendabelar** bilduman hainbat gaixotasunentzat kalamua gomendatu zuen. **Berria - Harian**

3 irud/hed

Zein, euskarak behar duen **sendabelarra**? **Pello Salaburu**

Baina poetari, poeta den aldetik, erantzukizun artistikoak galdegiten eta estimatzen zaizkio, literatura ez baita soziologiaren, politikaren edo historiaren suzedaneo edo **sendabelar** bat. **Anjel Lertxundi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sendabelarren industria (3); **sendabelarren laborantza** (3)

sendabide (*211 agerraldi, 72 liburu eta 45 artikulutan*) **1** iz eritasun edo gaitz bat sendatzeko bidea. ik **osabide**; **sendagai**; **erremedio**; **tratamendu 2**.

Ez diote eritasunek **sendabideari** amore ematen, non ez diren garaiz hartuak izaten. **Jon Muñoz**

Minbizia eta **sendabidea**. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Hiltzen laguntzea delitua da, nahiz eta leku gehienetan legezkoa izan hilzorian dagoena hiltzen uztea eta **sendabiderik** gabeko gaixoei beren tratamenduari uko egiten uztea. **Berria - Harian**

Mediku asko saiatu ziren beren **sendabideez** Frantziskori laguntzen. **Askoren artean**

Sendagileek kauterizazioa aholkatu zuten eta anaiak behin eta berriz erregutu zioten **sendabidea** onar zezan. **Askoren artean**

Sendabidea ohatua egotea zen, geldirik, ez dakit zenbat egunez. **Fernando Rey**

-Hortaz -amaitu zuen jakintsuak-, bihar bertan ekingo diogu **sendabideari**. **Patxi Zubizarreta**

-Nire begiaren **sendabidea** bilatzen dut. **Patxi Zubizarreta**

Euren asma diabetesarentzako **sendabidea** aurkitzea da. **Berria - Gaiak**

Enbrioien zelula amekin **sendabideak** egitea debeketzen dute Espainiako legeek. **Berria - Euskal Herria**

Zure hondamendiak ez du erremediorik, ez zure zauriak **sendabiderik**. **Elizen arteko biblia**

Ez da inor zutaz arduratzen denik, ez dago zure zaurientzat **sendabiderik**. **Elizen arteko biblia**

Sendabide guztiak alferrikakoak gertatu zitzaizkion. Askoren artean

-Hortaz -amaitu zuen jakintsuak-, bihar bertan ekingo diogu **sendabideari**. Patxi Zubizarreta

Ez daگو ura bezalakorik zauriak gozatzeko, **sendabide** eraginkorra da eta gaur egun gehien erabiltzen dena. Karlos Zabala

Sendabiderik onena baxoerdi bat ardo. Koldo Biguri

Hortaz, huraxe zen sorgina, belar eta **sendabideetan** aditua, alegia. Joanes Urkixo

Maitasuna da **sendabiderik** onena. Patxi Zubizarreta

2 (hitz elkartuetan)

Gaitza hain larria zenez, mediku-**sendabideez** etsita zegoen. Askoren artean

Gaitza larria bezain sendaezina zenez, haren gurasoek, giza **sendabideez** etsita, Frantzisko dohatsuaren laguntza eskatu zuten arrenka. Askoren artean

3 irud/hed

Gainpopulazioaren **sendabide** tradizionala goseari, izurriari, desordena zibilari eta gerrari biztanleria murrizten uztea zen. Iñaki Mendiguren

Ortega-k [...] Espainiaren gaitzaren diagnosiak bazekien zorrotzak egiten, baina ez zeukan **sendabiderik**. Joxe Azurmendi

Beraz, **sendabiderik** egokiena Tolosan ongi jokatzea da. Berria - Kirola

Era horretara, bazekien denei **sendabiderik** onena ematen, hots, harroak beheratuz, apalak gora jasoz, bizioak gaitzetsiz eta bertuteak aupatuz. Askoren artean

Horrelakoan tumorearentzat **sendabide** hau erabiltzen zuen inoiz: "Zergatik harrotzen zarete gizon-emakumeen konbertsioaz, horien onbideratzea nire anaia sinpleen otoiitzez lortua bada?". Askoren artean

Huraxe zuela, une hartan, doluaren **sendabiderik** eskuragarriena, esperantza moldatzeko zeukan tornu bakarra. Imanol Zurutuza

Eraldatzen ez den enpresa **sendabiderik** gabeko krisian izango da. Berria - Ekonomia

4 *sendabidean adlag* sendatzeko bidean.

Orain sentitzen dituzun ezerosotasun arin horiek, eta ausaz zerbait erremedio galdatzen dutenak, ez direla haatik deus, dagoeneko **sendabidean** duzun eritasun izugarriarekin konparatuz gero. Jon Muñoz

Ama **sendabidean** jartzeko esperantza ez dute oraindik erabat galdu. Harkaitz Cano

Aukeran, nahiago zakar xamar umea **sendabidean** jarriko duen medikua, gozo-gozo erremediorik aurkituko ez duena baino. Arantxa Iturbe

Sendabidean jarri nahi omen gintuen: "Zer kalte ekarriko dizue eguraldiak hotzera egin du, eta horrelakoak esateak? Anjel Lertxundi

Frantzia onezik izan duk hondar urteetan, alemanek ezarriko gaitiztek **sendabidean**. Berria - Kultura

-**Sendabidean** zagok. Aingeru Epaltza

Zurbil zegoen, eritasun baten **sendabidean** balego bezala. Koro Navarro

Gaitzen kontrako **sendabidean** abiatzeko efikazena, informazioa. Edorta Agirre

Emazte jatorrak ederki jakin diik bere senartxoia **sendabidean** ematen. Aingeru Epaltza

Ordubate, bi, lau edo hamabost ordu entrenatuta ere, gaixoa ez da **sendabidean** sartzen. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sendabide gisa (3)

askorentzako sendabidea aurkitzen (3); **gaixotasun askorentzako sendabidea** (3); **sendabidea aurkitu** (4); **sendabidea aurkitzen lagunduko** (3)

sendabidean jarri (3)

sendabiderik bako (3); **sendabiderik gabeko** (6); **sendabiderik onena** (3)

sendaerraz *izond* erraz sendatzen dena.

Nazionalismoak kutsatuak garela gu ere, eta gaitz hori ez dela **sendaerraza**. Piarres Xarriton

Beretzat eta bere kapitaintzat, elizen ondasunak eta elizak berak hartu zituen, eta gehiegikeria bat gerarazi zuen: ohiko gaitzak ez bezala, askoz **sendaerrazagoa** zena, askoz muturrekoagoa zelako. Iñaki Iñurrieta

sendaetxe *iz* erietxea.

Zaragozan eta Iruñean aurrena, eta azkenaldian, etxetik bertan, Francoren armadak **sendaetxe** bihurtua zuen Zestoako bainuetxean. Iñigo Aranbarri

sendaezin *1 izond* ezin sendatuzkoa.

Eri asko gaitz **sendaezinak** jota zeuden, Itzal Beltza deitzen zioten gaitzak jota. Agustín Otsoa

Gaitz larri eta **sendaezin** honegatik hiltzera zoazela erabat sinetsita daude. gaitz genetiko **sendaezin** batekiko immunea den enbrioiak odol bereko gaixo bati laguntzerik izango luke. Askoren artean

Gaitz kutsagarria da, eta, aldizkakoa bada ere, **sendaezina**. Xabier Olarra

Ondoren, Jaunak errailetako gaixotasun **sendaezinaz** jo zuen Joram. Elizen arteko biblia

Central Parken euli bereziren bat omen dabil uda honetan gaixotasun tropikal **sendaezin** bat zabaltzen. Harkaitz Cano

Gorenak Pinocheten sendagileen agiria aintzat hartu eta «dementia **sendaezina**» zuela adierazi zuen. Berria - Mundua

-Kalte **sendaezinik** behintzat ez du -erantsi zuen Dumbledorek. Iñaki Mendiguren

Oinaze moral korapilatuak, **sendaezinak**. Josu Zabaleta

Nola gairiditu senitartekoan heriotzak uzten duen zauri **sendaezina**? Karlos Linazasoro

Juvenaliaren hitzek samina islatzen baitzuten, samin urrutikoa, samin **sendaezina**. Felipe Juaristi

Arimaren bakardade **sendaezinari** buruz jardun eta jardun. Irene Aldasoro

Gonazale **sendaezin** batekin elkartu ez bazara bederen. Oskar Arana

Berdinik ez duen elbarri **sendaezin** bat asmatu diat, Bunbury izenekoa. Antton Olano

2 (predikatu gisa)

Gaitza larria bezain **sendaezina** zenez, haren gurasoek, giza sendabideez etsita, Frantzisko dohatsuaren laguntza eskatu zuten arrenka. Askoren artean

Zure gaitza **sendaezina** dela eta denbora gutxirako duzula bizia. Janbattitt Dirassar

Sendaezina da nire gaitza, erremediorik gabea. Elizen arteko biblia

Gaixotasun horietako asko ez dira **sendaezinak**. Berria - Gaiak

Erremediorik gabea da zure hondamena, **sendaezina** zure zauria. Elizen arteko biblia

Abusuak grinren eskutik datozenean, legeak zuzentzeko modukoak dira; legeen emaitzak direnean, ostera, gaitza **sendaezina** da, sendabidean bertan baitago. Andres Urrutia

Sendaezinak gertatuko zaizkizue gaitzok. Elizen arteko biblia

3 *sendaezineko izlag* sendaezina.

Azkenean, bertan behera balduko da fruitua, zoritxarrak, **sendaezineko** gaitzak jota. [Elizen arteko biblia](#)

Zergatik jo gaitzuz **sendaezineko** gaitzaz? [Elizen arteko biblia](#)

Irakurleak liburua itxi beste erremediork ez luke, **sendaezineko** malenkonia beltze zauritua barren-barrenetik arima. [Juan Garzia](#)

4 **sendaezinezko** *izlag* sendaezina.

Emaztearen heriotzak **sendaezinezko** samina piztu omen zuen Sha Jahanen bihotzean. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Hark dei egin zion bere Jainkoari eta honek **sendaezinezko** izurriz zigortu zuen Egipto. [Elizen arteko biblia](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gaitz sendaezin (5); **gaixotasun sendaezin** (4); **larri eta sendaezin** (4)

gaitz sendaezina (4); **gaitza sendaezina** (6); **gaitza sendaezina da** (4); **gaixotasun sendaezina** (12); **gaixotasun sendaezina duen** (3); **gaixotasun sendaezina zuelako** (3); **gaixotasuna sendaezina** (3); **larri eta sendaezina** (15)

zauri sendaezina (4)

gaitz sendaezinak (6); **gaitz sendaezinak dituzten** (4); **gaixotasun sendaezinak** (6); **gaixotasun sendaezinak dituzten** (5); **larri eta sendaezinak** (4)

sendagai (*313 agerraldi, 52 liburu eta 122 artikulutan*) **1** iz eritasun edo gaitz bat sendatzeko erabiltzen den gaia. ik **sendagarri**; **erremedio**; **sendabide**.

Azarias, ene anaia, zein **sendagai** ateratzen da arrainaren bihotz, behazun eta gibeletik? [Elizen arteko biblia](#)

Deitu zituen medikuak, bainu-aldiak hartu, **sendagai** ugari saiatu, baina dena alferrik. [Askoren artean](#)

Homeopata batengana ere joan ginene, eta hark ere **sendagai** batzuk eman zizkion. [Juan Kruz Igerabide](#)

Sendagaiek eragindako alergia. [Imanol Zurutuza](#)

-Erabil ezazu zeure **sendagai** horietako bat -esan zion Cumhailek burlati. [Joanes Urkixo](#)

Mediku eta petrikilo guztiek beren **sendagaiak** eskaini arren, erregea ez zen osatzen. [Martin Anso](#)

Pulmicort **sendagaia** botika guztietan eros daiteke. [Berria - Kirola](#)

Tinko eta lasai hartu zuen erabakia: **sendagaiak** utzi, eta azken asteetan jateari ere uko egin zion; ura eta zukuak besterik ez zituen hartzen. [Juan Kruz Igerabide](#)

Diru dezente pagatuz botikan **sendagai** bat erostea. [Berria - Euskal Herria](#)

Alzheimerra geratzeko **sendagaia** bidean da. [Berria - Gaiak](#)

Erabilitako enplasto eta beste **sendagaiek** ez zioten inolako lasaibiderik ekarri. [Askoren artean](#)

Artemisina izeneko **sendagai** bat erabiltzen du OMEK malariaren kontrako ohiko botikekiko erresistente direnak artatzeko. [Berria - Gaiak](#)

Hanturaren kontrako **sendagai** guztien artean estimatuena zen Vioxx. [Berria - Gaiak](#)

Bila **sendagaiak** haren zaurientzat, ea sendatzen den. [Elizen arteko biblia](#)

2 (izenondoekin)

Hartu behazuna, bihotza eta gibela, eta gorde itzazu, **sendagai** onak baitira. [Jose Antonio Mujika](#)

Oinazeak beraren indarrentzat jasanezinak bihurtu zirelarik, bere gogoz kontra izanik ere, ezinbestekoa gertatu zen haren gorputza **sendagai** aringarritz zaintzea. [Askoren artean](#)

Sendagai generikoek izen komertziala duten sendagaien konposizio berbera dute, baina askoz merkeagoak dira. [Berria - Euskal Herria](#)

Jatekoaren osagai gisa saltzen dituzte botikok eta **sendagai** naturalak direla esaten dute. [Berria - Gaiak](#)

Bazirela, beharbada, beste aukera batzuk, **sendagai** kimikoetatik kanpo, medikuntza alternatiboan. [Juan Kruz Igerabide](#)

Bi gaixorekin egin zen saioa, **sendagai** berria injektatuz. [Josu Zabaleta](#)

Droga edo **sendagai** indartsu bat eman zaie. [Ibon Uribarri](#)

Artean ez baitziren **sendagai** retrobiralak sortu. [Joan Mari Irigoien](#)

Roche botika etxearen Tamiflu da hegaztiaren gripearen kontrako **sendagai** eraginkor bakarra. [Berria - Harian](#)

Ganbelako belarra, herriak gordea, gaixo zeuden abereentzat **sendagai** miragarri [...] gertatu baitzen. [Askoren artean](#)

Aletu berri diren sekuentzietan eta geneetan oinarrituriko **sendagai** iraultzaile berriak garatuko direla. [Askoren artean](#)

3 (hitz elkartuetan)

Arma produkzioan gertatutako gorakada izan daiteke, edo eskolen eraikuntzari edo **sendagai** produkzioari esker izandako gorakadak. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Europako Batzordeak Bayer eta Roche **sendagai** ekoizleen bat-egitea onartu du. [Berria - Ekonomia](#)

Elikadura, ur eta **sendagai** behar gorrian gaude. [Berria - Mundua](#)

AEBetako jaki eta **sendagai** agintaritzak. [Berria - Ekonomia](#)

4 (izenondo gisa)

Zeren eta gaitz hura ez baitzen **sendagai**, ez sendakizun. [Joan Mari Irigoien](#)

5 irud/hed

Harrokeria dogmatikoaren aurkako **sendagai** gisa. [Ibon Uribarri](#)

Frustrazioaren aurrean **sendagai** bakarra ikasteko gogoa zela azaldu zuen adituak. [Berria - Euskal Herria](#)

Helduleku egokia izan daiteke Kopa, taldearen ajeentzako **sendagai** eraginkorra, epe motzean behintzat. [Berria - Kirola](#)

Betiko arerioari irabaztea baino **sendagai** eraginkorragorik ez dago. [Berria - Gaiak](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurkako sendagai (5); **kontrako sendagai** (4)

sendagai bakarra (4); **sendagai bila** (4); **sendagai gisa** (8); **sendagai ugari** (3)

elikagaiak eta sendagaiak (5); **hiesaren kontrako sendagaiak** (3)

sendagaiak hartzen (3); **sendagaiak legeztatze** (3); **sendagaiak legeztatze** (3); **sendagaiak merkatzeko** (3)

sendagaila **1** iz harrotasuna.

Eta iritsi zen, bai, Mattinen balentriaren eguna eta haren **sendagailarena**! [Joan Mari Irigoien](#)

2 **sendagaila** *egin* harrotu.

Izan ere, ba ote zen munduan gauza faunagorik eta are ergelagorik ere, hutsik uzten ninduen hartaz banaloriatzen eta **sendagaila** egiten ibiltzea baino [...]? [Elizen arteko biblia](#)

sendagailu (*48 agerraldi, 10 liburu eta 26 artikulutan*) **1** iz sendagaia, erremedioa.

Orduan genuen jakin nola 1928an Fleming britaniarrak atzeman zuen **sendagailu** orokor hori, damurik gerla ondoan baizik hedatu ez zena munduan zehar. [Angel](#)

[Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Herri ttipietako elizatan hetsirik, artamenturik gabe, janari eta **sendagailurik** gabe. Elena Touyarou
Goizean goizetik arratsa arte, hainbat **sendagailu** ahotik irentsi behar izateaz gain, kinesoterapeuta egun guziz bi aldiz ikusi beharra du birikiak garbitzeko. Berria - Euskal Herria
Ezagutzen ditugu orai **sendagailu** generikoak, beste erremedioak baino ainitzez merkeago izaiten ahal ditugunak eritasun gaixto batzuen artatzeko. Herria
Eterrez eta **sendagailuz** urrinezatu klinikako pasagia beilegian, eskuak aurpegiratu zituen. Itxaro Borda
Lehen bi hegazkin militarrek tonaka elikadura, ur, **sendagailu**, oihal aterpe eta estalki eraman zituzten artxipelagoaren erdialdeko eta iparraldeko bi aireportutara. Berria - Mundua
Minixtroak ez duela hori deliberatu bere baitarik bainan **sendagailu** egilekin funtsez solasean arizanik. Herria

2 irud/hed

Eta beraz, Nazionalismoen **sendagailu** bakarra Federalismoa dela behar genuke denok orozbat onetsi. Piarres Xarriton
Izpirituaren ezagutza soilaz zehaztuko ditugu afektuen **sendagailuak**, guztiek apur bat probatu ditugunak baina ez ditugunak aski artarekin ikertu ez aski bereziki ikusi. Piarres Xarriton
Nostalgiaren **sendagailu** bat izan liteke, edo, hobeto agian, etorkizunarekiko itxaropenaren agergarri. Xabier Mendiguren Elizegi
Lagunak aterpe, lagunak abaro, lagunak belaki, lagunak tristuren **sendagailu**, lagunak malko eta mukien biltontzi. Aingeru Epaltza

sendagailuztatu

sendagailuzta, sendagailuztatzen (*corpusean **sendagailustatu** soilik*) du *ad* sendagailua ezarri.

Frantses hitzez mintzatua den euskara zer izan ditake? beharbada Frantseskuara bena nehola ere ez euskara! behar da gauza hori jakin, erran eta... **sendagailustatu**!
Herria

sendagaitz

izond sendatzen zaila dena, ia sendaezina.

Orduan, herriak oihu: "ai ene, hau hondamena gurea!, **sendagaitza** gure zauria!; eta gu, gaitz eramangarria izango zelakoan! Elizen arteko biblia
Badarakusa, batez ere, nortasun ahulezia bat ia beti **sendagaitza** eta orori ihardukitzen zaiona. Jon Muñoz
Arrisku gordea duten gauzek kalte **sendagaitzagoak** egin ditzakete arriskua argi eta garbi ezagutzen denean baino. Joan Mari Lekuona
Misterio neurtezin eta sakon bat baino ez dago honela batu ahal izateko harmonia minean eta erlijiosoan izakiaren endekatze **sendagaitza** eta kreazonearen gaztetasun betierekoa. Koldo Izagirre
Aspaldi zen ohartua bere amodioaren ezintasunaz, baina zauri **sendagaitz** hark okerrera egingo zuen Jauregian zegoen bitartean. Xabier Mendiguren Elizegi

sendagarri

(*73 agerraldi, 33 liburu eta 8 artikulutan*) **1** iz sendagaia. ik **sendagai**.

Eskarmentuz daki emazteen larruazal leuna **sendagarri** hauta dela buruko minendako. Aingeru Epaltza
Ene herriminen arintzeko **sendagarri** egokiagorik ez zezakeen Fanchek asma. Itxaro Borda
Izan ere, **sendagarri** naturalak dira belarrak. Koldo Zuazo
Oin puztu eta gorrituetarako **sendagarri** bila. Xabier Montoia

• 2 *izond* sendatzen duena.

Nagorek, izena ahazturik dudan krema **sendagarri** bat jarri zidan barnean, arreta handiz, inguruko odola ongi garbitu ondoren. Aitor Arana
Izan ere, 2000. urtean Donostiako Perla zentroa bisitatu eta erabiltzen ari zen lokatz **sendagarri** asko Israeldik zekartela jakin zuten. Berria - Gaiak

3 (-en atzikiaren eskuinean, adizlagun edo predikatu gisa)

Mihura oso gutxitan sortzen da zuhaitz horietan; baina han aurkitzen dutenean, zeremonia larri batean biltzen dute eta gaitz orenen **sendagarri** aldarrikatzen dute. Patziku Perurena
Bi ipuru klaseokiko gizakiak erakutsi duen jainera eta sinesmena arrunt zaharra eta ugaria da; lehen esanaz gain, ipuruaren azala eta fruituak mila gaitzen **sendagarri** erabili izan baititu. Patziku Perurena
Beste zatia [...] Irisarriren jauregian geratu zen, Safo eta Egearekin batera, haien minaren min, hain oihuaren oihu, haien gaitzen **sendagarri** izan ezik, haien beraien kontsolagarri izan nahian. Felipe Juaristi
Filosofoak ongi erran zuen bezala, heriotza da gaitz guztien **sendagarri**. Joan Mari Irigoien
Nikolas Loyseleur mastru jaunak esan zuen iruditzen zitzaiola ezen, neskaren arimaren **sendagarri**, on zatekeela torturapean ezartzea. Juan Garzia
Grenobleraino ez zuten arazo handirik izan, Robespierren pasa-agiria mirakuluzkoa baitzen ausaz, gaitzen **sendagarri**. Felipe Juaristi
Desio zuen edari hura Emaile eskuzabalak eskuratu ziola, ez hainbeste atseginarean asegarri, osasunaren **sendagarri** baizik. Askoren artean
Labaoren ahots apala entzun zen bozgorailuan, Leteren hitzak kantatzen, plazan zeudenen begien eta sentimenduen gorritasuna laztantzen bezala, etsipenaren **sendagarri**: [...]. Joseba Zulaika
· Bere hitza bidali zien **sendagarri**, eta hondamenditik atera. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gaitzen sendagarri (3)

sendagarrien poltsatxo (4)

sendagela

(*orobat **senda-gela***) **1** iz lehen sendaketak egiteko erabiltzen den gela.

Senda-gelan ikusten nituen zauriak nireen antzekoak ziren, gehienetan izterrean edo aztalean. Urtzi Urrutikoetxea

2 irud/hed

Bide hegiko sasiaren maldaren aterpean nolabaiteko **sendagela** naturalean amultsuki eta emeki pausatu orduko, [...]. Itxaro Borda

sendagile

(*1246 agerraldi, 106 liburu eta 274 artikulutan*) **1** iz lanbidetzat medikuntza duen pertsona, horretarako gai egiten duten ikasketak bururatu dituena. ik **mediku**; **osagile**; **sendalari**; **sendatzaile**.

Zeren ez baitute osasunduek behar **sendagilea**, gaixoek baizik. Askoren artean
Ospitaleko kirofano ondoko gelan da, **sendagile** eta erizainez inguraturik. Jose Angel Irigaray
Sendagile eta erietxeek ezer gutxi egin dezakete haien alde, botikak eta osasun arloko gaiak ere eskasian daudelako. Berria - Mundua
Baina ez batere larria, **sendagileek** esan didatenez. Txillardeggi
Gaixoardiaren ostean, **sendagilearenera** joateko usadioa hartu zuen. Patxi Zubizarreta
Gero eta larriago zebilen, baina **sendagilearenera** joan eta zerbait eskatzeko aholkurik ez zuen entzun ere egin nahi. Jokin Urain
Gaixoa **sendagilearengana** hurbildu zen, esanez: [...]. Josu Zabaleta

Eta guregana, **sendagilearengana** bezala, arazoren bat duenean jotzen du jendeak, orduan bakarrik. **Migel Angel Mintegi**
Ostiraletan, **sendagileari** bixita egin ostean. **Xabier Etxabe**
Sendagilea ikustera joan naiz, ezin nuen lorik egin eta. **Josu Zabaleta**
Sendagile batek pikura bat egiten dizu. **Ramuntxo Etxeberri**
Sendagileak injekzio aringarri bat jarri zion. **Joseba Urteaga**
Sendagile hura -gizon ikastuna-, diagnostikoa oso gutxi ohi duten bezala menderatzera iritsia zen. **Josu Zabaleta**
Sendagileak erretzea debekatua zion. **Patxi Zubizarreta**
Gaueko bederatzietatik aurrera pasatzen ziren guztiak atxilotzeko agindua emana zuen, **sendagile** eta emaginak salbu. **Monika Etxebarria**
Diru handia egiten dute **sendagileek** lorea galdu duten neskei himena berriz ipintzen. **Gotzon Garate**
Sendagileen lana luzea baina benetan taxuzkoa izan zen. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**
Mediku horrek gutxienez beste **sendagile** bati kontsultatu behar dio kasua, eta haren onospena izan jaso behar du, eutanasia egin ahal izateko. **Berria - Gaiak**
Tristuraren argi abaildua zuten **sendagilearen** begiek. **Anjel Lertxundi**
Sendagile, sendatu zeure burua. **Elizen arteko biblia**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Luze gabe auzunean bizi zen **sendagile** judu baten helbidea jakin zuten. **Patxi Zubizarreta**
Jendea **sendagile** berriaren jakintzan sinesten hasia zela ikusirik. **Josu Zabaleta**
Gizonaren eskariz, **sendagile** ospetsu batek neskaren ardura hartu zuen. **Lopez de Arana**
Ez zien epaileak bezala hitz egiten, aita errukitsuak seme-alabei eta **sendagile** onak gaixoei bezala baizik. **Askoren artean**
Mediku-ikasketak egina zen eta **sendagile** ona izatera iritsia. **Juan Garzia**
Ez da pentsatu behar, hala ere, **sendagile** txarrak direnik kartzeletan lan egiten dutenak. **Jokin Urain**
Enpresen ligak **sendagile** independentea sortu beharko luke, forensearen figura hain justu. **Berria - Kirola**
Sendagile espezialisten sindikatuak. **Berria - Harian**
Alfredo Cahe Maradonaren **sendagile** pertsonalak eman zizkien argibideak erietxe atarian ziren kazetariet. **Berria - Kirola**
Norberaren **sendagileak** osasun sistemaren zutabea izan beharko luke. **Berria - Ekonomia**
Sendagile usteleñ penzilina erosteko aski diru lortu ez zuelako. **Alberto Ladrón Arana**
Sendagile adintsu samar batek hartu ninduen. **Joseba Urteaga**
Ba omen zuen iragan mendeko **sendagile** anatomistak bizi izandako istorio tristearen aditze lanbrosua. **Anjel Lertxundi**
Especialistengana joan ahal izateko jendeak **sendagile** erreferentzialaren oniritzia beharko. **Berria - Harian**
Burgosen ere muinoa erakutsi beharko zion **sendagile** militarri. **Ramon Saizarbitoria**
Bi frantsesak beti han daude, bi italiar **sendagile** laguntzaile andereak ere bai. **Herria**
Han ezagutu zuen Ernesto Guevara, argentinar **sendagile** bat bere anaia Raúl-en adiskidea zena. **Jon Muñoz**
Konfiantzazko **sendagile** batengana joan, hori egin behar du lehenengo gauza. **Josu Zabaleta**
Egun batez, begietako **sendagilea** etorri zitzaion ikustera hiritik. **Askoren artean**
Mutualitateetako **sendagileak** osasun etxeko ikuskaritza medikuari azaldu beharko dio langileari senda-agiria noiz emango dion. **Berria - Ekonomia**
Guardiako **sendagile** haren abizena jakingo eta gogoratuko banu, ez nuke inongo eragozpenik izango hemen idazteko. **Joseba Urteaga**
Medikuntza orokorreko **sendagile** batek. **Joseba Urteaga**

3 irud/hed

Agintzen neurritsu nahi zituen, hutsegiteekiko onbera, irainak jasateko gertuago egiteko baino, bizioen etsai baina biziotsuen **sendagile**. **Askoren artean**

4 (adizlagun gisa)

Ez diat uste **sendagile** ari denik, baina ongi bizi duk. **Josu Zabaleta**
Manuel Leiras Mondoñedo aldean ibili zen **sendagile**. **Paddy Rekalde**
Juan txo zen ikaskide berantiarra, gaur egun Donostian **sendagile** dabilena. **Joxerra Garzia**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erregearen eskuak **sendagile** eskuak dira. **Agustin Otxoa**
Nire **sendagile** -maleta hartu nuen. **Felipe Juaristi**
Lehenago, suge-liluratzaila, **sendagile** lana ere egiten zuten. **Gotzon Garate**
Erremedioak bezala, **sendagile** ekipak ere eskas dituzte. **Herria**
Askotan itxaropen izpi batek **sendagile** aldra batek baino gehiago egin baitzezakeen. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**
Sendagile estatutuak gaitasun eta jakinduria-irizpideak biltzen ditu. **Xabier Arregi**
Sendagile kontuak izan zitian hizpide bazkalondoan. **Xabier Etxabe**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Marrande doktoarek, ero-**sendagile** famatuena eta goratuena, [...]. **Josu Zabaleta**

7 (izenondo gisa)

Bolada hartan bi emakume **sendagile** zeuden Herreran. **Jokin Urain**
Gaingiroki ezagutzen zuen emakume **sendagile** baten etxera joan zen. **Gotzon Garate**
Etiopiako kontakizuna, Poncet jaun **sendagileak** egina. **Iñaki Iñurrieta**

8 sendagile-buru ik sendagileburu.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ospitaleko **sendagile** (4)

sendagile baten bila (3); **sendagile** batengana (3); **sendagile** erreferentziala (8); **sendagile** erreferentzialaren (3); **sendagile** eskuak dira (4); **sendagile** estimatua (3); **sendagile** ospetsu (4); **sendagile** talde (4); **sendagile** talde batek (4); **sendagile** taldeak (3)

etorriko da **sendagilea** (3); **sendagilea** etorri (6); **sendagilea** etorri zitzaion (3); **sendagilea** ikustera (3)

esan zidan **sendagileak** (3); **esan** zuen **sendagileak** (11); **realeko** **sendagileak** (3); **sendagileak** **esan** (9); **sendagileak** **esan** zidan (4)

sendagilearen arabera (3); **sendagilearen** aurrean (3)

norberaren **sendagilearengana** (3); norberaren **sendagilearengana** joan (3); **sendagilearengana** joan (10)

sendagileari deitu (6); **sendagileari** deitu nion (4)

athleticeko **sendagileek** (3); klubeko **sendagileek** (3); ospitaleko **sendagileek** (4)

sendagileek artatu (3); **sendagileek** berek ere (3)

ospitaleetako **sendagileen** (3); **sendagileen** arabera (6); **sendagileen** artean (8); **sendagileen** esku (3)

sendagileburu

*(corpusean **sendagile-buru** soilik) iz sendagile talde baten burua.*

Jakin nuenez, aurpegi larrutua zeukana **sendagilea** zen, **sendagile-burua** hobeto esanda. **Urtzi Urrutikoetxea**

sendagilegai *iz* sendagile izateko prestatzen ari den pertsona.

Osabak gauzak konpondu zituen era zibilizatuan, ebakuntza txikia praktikatan zebilen **sendagilegai** batek arratsalde hartan bertan egin ziezaion. **Aitor Arana**

sendagingo *iz* sendagintza.

Txomin Peillen xiberotar ikerleak mintzaldi bat eskainiko du Baionako Eusko Ikaskuntzaren egoitzan: "**Sendagingoa** eta sendakuntza Zuberoan". **Herria**

sendagintza 1 *iz* medikuntza.

Ez zen ikasleen **sendagintzarako** gogoak berotzeko modua, baina iritzi horixe zuen irakasleak, inondik ere, eta ongi egiten zuen esanez. **Josu Zabaleta**

Erietxea, etengabeko behaketarako lekua dena, kodifikatua, sistematikoa, **sendagintzako** langile-multzo berezitu eta hierarkizatu batek bermatua. **Xabier Arregi**

Sendagintzako liburuak eta aldizkarietako artikulua irakurtzen nituen. **Koro Navarro**

2 (hitz elkartuetan)

[Demografia] leherketa hori, alde batetik, hilkortasunaren beherakada lasterretik dator (Mendebaldeko **sendagintza** -metodoen zabalkundeak eragina). **Koro Navarro**

sendagiri ik **senda-agiri**.

sendagune *iz* sendaketak egiteko gunea.

Momadayren nobela bateko navajo **sendagune** baten deitura zen Lukatxukai. **Itxaro Borda**

sendakari *iz* sendagaia.

Maisuaren **sendakarien** poltsatxoa nirekin atxiki nuelako nire artean berriro eskerrak eman nituen,ez dakit nori zuzenduz ordukoan. **Edorta Jimenez**

sendaketa 1 *iz* sendatzea.

Amak, inongo medikurengana jo gabe, Frantzisko dohatsuari eskatu zion **sendaketa**. **Askoren artean**

Bati, Espirituaren egitez, sinesmen-dohaina ematen dio; beste bati, **sendaketak** egiteko dohaina. **Elizen arteko biblia**

Aholkuak emanez eta **sendaketak** eginez, mesede handiak egin zizkieten hainbeste sufrimenduz itxaropena galdua zutenei. **Karlos Zabala**

Bizpahiru aldiz **sendaketa** egin eta arrastorik ere ez, nire lankide maite hori! **Karlos Zabala**

Estoizismoz pairatu zituen **sendaketak**, mingarriak baitziren oso. **Juan Garzia**

30eko hamarkadan baserri giroko etxeoandreek eginiko **sendaketak** erakusten dituzten filmak dira. **Berria - Kultura**

Frantziskok dohatsuak ez zuen **sendaketa** hasi nahi anai Elias etorri arte. **Askoren artean**

Nik uste keinu bat egin zuela kotoia eta alkohola hartzeko, **sendaketaz** arduratzeko asmoz. **Ramon Saizarbitoria**

Hiltzear zegoen gaztearen **sendaketa** San Gimignanon. **Askoren artean**

Fedearen ahalmena: epileptikoaren **sendaketa**. **Elizen arteko biblia**

Bekatuaren barkamenari buruz: elbarriaren **sendakuntza**.

Idi baten **sendaketa**. **Askoren artean**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Odoljarioa zutenei eta legendunei garbitasuna eta osasuna eman zizkien, larriki zaurituei **sendaketa** osoa. **Askoren artean**

Puntuak berez erortzen dira, 10-15 egunen buruan, eta bien bitartean **sendaketa** txiki bat egin behar da. **Luis Elberdin**

Gure Auschwitz komunean **sendaketa** aseptiko gehiegirik nekez egin daitekeen arren, orbaina nahiko garbi mantendu eta ongi itxi da. **Harkaitz Cano**

Eta baliteke beste sendagile bat ere, maila txikiagokoa, eguneko **sendaketetan** ibiltzea. **Urtzi Urrutikoetxea**

Emakumearen bat-bateko **sendaketa**. **Askoren artean**

Bere aitak misteriozko **sendaketa** haiek, pertsonetan bezala zaldietan ere, nola egiten zituen kontatzen zuen. **Josu Zabaleta**

Ahal izan nuen moduan Burgoseraino heldu, hango anbulategi batean larrialdiko **sendaketa** egin, eta aurrera jarraitu nuen besteekin batera. **Iban Zaldua**

Harriturik gelditu zen gizona ustekabeko **sendaketaren** bizkortasunaz, eta hain bat-batean gertaturiko **sendaketa** benetakoa zen egiaztatzeko hainbat ariketa fisiko egiten hasi zen. **Askoren artean**

Andoainera etorri zen J.M., eta, urgentziako **sendaketa** egin ondoren, antibiotikoak eman zizkidan. **Rafa Egiguren**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Luzeegi izango litzateke guztien oinaze-nekeak eta **sendaketa** -moduak banan-banan kontatzea. **Askoren artean**

Baina urtaro hartan hotz handia egiten zuen, eta ez zen garai ona **sendaketa** -lanetan hasteko. **Askoren artean**

Naturala da, hortaz, **sendaketa** -uste horrek bultzatzea Napumoceno jauna hirugarren koadernoari Adeliaren itzulera izenburu iradokitzailea jartzera. **Bego Montorio**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sendaketa egin (4)

sendakin *iz* sendagilea.

Rousset Donibane Garaziko mediku zaharra, tropetako **sendakina**, lehenbiziko auto batean horraraino heldua nolabait. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Sendakina -edo etorri da, galdera batzuk egitera; besteren artean eia gutun hura nirea ote zen. **Jose Angel Irigaray**

sendakizun *izond* sendatzekoa.

Zeren eta gaitz hura ez baitzen sendagai, ez **sendakizun**. **Joan Mari Irigoien**

sendakuntza 1 iz sendaketa.

Ezekiasen gaixoaldia eta **sendakuntza** .

Erituetarako, **sendakuntzarako** , magiarako gai indartsu gertatzen dira errautsak. **Joseba Zulaika**

Concharen senitarteko urruna, bularretik gaixorik dagoena bera, eta gaixotasun horren kariaz urtero-urtero, eta urteetan, Suitzara joaten izan dena hango mendietan **sendakuntzak** egitera. **Edorta Jimenez**

Beste era batera geraezinak ziren odol-isuriak agortu egiten zitzaizkion Grigoriren errozo eta **sendakuntza** esoterikoekin. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Txanoa erabiltzen zuen buruan, begietako **sendakuntzak** utzi zizkion orbainak estaltzeko. **Askoren artean**

2 (hitz elkartuetan)

Armadako **sendakuntza** zentroko Andrew Shor medikuak pneumonia eosinofiloa akutua (AEP) deritzon gaixotasunaren ezaugarriak aurkitu zituen iaztik aurtengo martxoan bitartean ikertutako hemezortzi soldadu zauritutan. **Berria - Mundua**

Telefonoak eskuko izatea, **sendakuntza** zerbitzu eta janari hobeak lortzea. **Berria - Mundua**

- Gizateria osoa ari da jasaten apaiz- **sendakuntzen** inozokeria horien eraginak: dietak, kastitatea, bakardadea... **Patziku Perurena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sendakuntza egun batez (3)

sendalari (5 agerraldi, 4 liburutan) iz ikasketa akademikoak ez dituen sendagilea.

Etxeko beste tipo bat, oso ezaguna, Maisu Txikia zen, mantxatar pedante eta orojakin bat, drogeriako saltzailea, **sendalaria** eta izain-jartzailea. **Josu Zabaleta**

Sendalariak gaixoarengorputz etzana zelana arakatzeko duen, halaxe ekin zion otoiaren, ebanjelioaren eta Apokalipsiaren liburuei zegokien azal barrua haztatzeari. **Edorta Jimenez**

Malasiar guztiak dituk **sendalariak** . **Xabier Olarra**

sendalaritza iz sendalariaren jarduerak.

Ramona, bizia eta amaren dohain beraren jabe **sendalaritzan** . **Aingeru Epaltza**

sendamen iz sendaketa.

Garbikuntzaren eta azaleko gaitzen **sendamenaren** aztarrenak, akaso? **Pello Zabala**

sendarazi, sendaraz, sendarazten du ad sendatzera behartu.

Lafourcade Baionako klinikan egonik etxeratua dugu Noelie Uhart Iguzkilarrekoa, etxeko goxoak **sendaraziko** du gaineratikoa. **Herria**

1916an kolpatua izan nintzen, gas paralisatzaileak irentsi nituela ederki artatu eta **sendarazi** ninduen, bestela ez nintzen hemen zuen aitzinean izango. **Itxaro Borda**

Hala ere, Kristorengana bihurtu zen une beretik izan zuen espiritu sutsuagatik, ez zuen inoiz bere burua gaitz horietako batetik ere **sendarazteko** ardurarik hartu nahi izan.

Askoren artean

Nork **sendarazi** zuen eta Maisuak egin ote zuen, bihotza halako itxaropen mehe batek zabaldu zidan. **Edorta Jimenez**

sendategi 1 iz sendagela.

Arratsaldean zaintzale bat etorri zitzaigun atera: *Infirmierie* erraiera... ez, ez, *pas d'infirmierie*... zeren **sendategia** kartierren gainaldean baita eta handik kartierrean laster egina baitzen. **Filipe Bidart**

2 erietxea.

Historiaren jarraipenean, Cady, **sendategian** sendatu ondoren etxera itzuli eta Hans-i gutunak idazten hasten dela pentsatu dut. **Josu Zabaleta**

Erizain ikasketak burutzen dituenean, Suitzara jotzen du, bere aitaren lagun batzuek aholkatuta, eta biriketarik gaixo daudenentzako **sendategi** batean hartzen du lanpostua. **Josu Zabaleta**

sendatoki iz sendatzeko tokia.

Aitzitik, atzera begiratu eta, garai batean bere inguruan bat eginda zegoen jendea, izarrek egin moduan erabat urrundu eta hutsaldia ikusirik atsekabetzen denari memoriak eskaintzen dio, unibertsoaren erlaxapenak planetei ez bezala, babes, gordeleku, **sendatoki** eta batasun gune. **Pako Aristi**

sendatu, senda, sendatzen (orobat sendotu g.er.) 1 da/du ad norbaiti osasun fisikoa bihurtu; gorputzeko gaitz batetik begiratu; eritasuna desagertu edo kendu.

Nork **sendatu** zaitu, seme? **Askoren artean**

Zoaz, zeure sinesmenak **sendatu** zaitu. **Elizen arteko biblia**

Jendea **sendatu** nahi izaten zuen, baina **senda** zitzala eskatzen ez bazioten betiere. **Fernando Rey**

Jauna, **senda** nazazu eta **sendatua** geldituko naiz, salba nazazu eta salbatua izango. **Elizen arteko biblia**

Ipar-mendebaldekoarekin ezulka hasten da; iparraldekoarekin, berriz, **sendatu** egiten da. **Santiago Iruretagoiena**

Ikazkinak edabe plazebo bat eman zion erreginarari eta **sendatu** egin zen. **Martin Anso**

Urtebete barru, ume hau **sendatu** egingo da, edo hil. deabrudun askorengandik ateratzen ziren espiritu gaiztoak deiadarka, eta elbarri eta herren asko **sendatzen** ziren.

Pako Aristi

Marrantaduna **sendatu**, eta goxo-goxo mainatu zuen. **Jon Muñoz**

Lancelot erabat **sendatu** zenean, Kamelot aldera abiatu ziren biak, bi ezkutariarekin, basoan barna. **Juan Kruz Igerabide**

Las Heras doktoarearen iragarpena ez ezik, Bilbao doktoarearena ere motz geratuko zela sinetsi nahiko zukeen senarrak, denak erratuak zirela, gaixoa **sendatu** egingo zela. **Imanol Zurutuza**

Handik aurrera, gero eta hobera egin zinan, guztiz **sendatu** zen arte. **Joan Mari Irigoien**

Aurreko udan Genovan bihotzeko larria jasan ondoren, zeharo **sendatu** ez, eta urtarrilaren 27an hil egin baitzen Via-reggion. **Txillardegia**

15 urteetan 12 milioi legendaridun **sendatu** dira dapsona, rifampizina eta klofazimina nahastuz osatutako tratamenduari esker. **Berria - Gaiak**

-Baina nik ez dut **sendatu** nahi -esan zuen berak-. **Agustin Otsoa**

Neu **sendatu** naiz, neure egintzak zein okerrak ziren buruari ikusarazi. **Josu Zabaleta**
Gainera, erabat **sendatu** gabeko gaitza neukan giltzurrunetan, eta minez nindoan. **Rafa Egiguren**
Odol-jarioa eteteko, amaraun bat jarri nahi zioten; Espinosak pastila batzuekin **sendatu** zuen. **Juan Garzia**
Espero dut honezkero **sendatua** egotea... **Alberto Ladron Arana**

2 (objektua sendatu den zatia dela)

Santuak, errukiz beterik, eskuak ukitu eta **sendatu** egin zizkion. **Askoren artean**
Jaunak gurutzera ikusi bezain laster, artzainari besoa **sendatu** zitzaion. **Martin Anso**
Bihurritutako hanka **sendatu** nion mando bati, eta 10 erreale irabazi nituen. **Bernardo Atxaga**
Gau osoa hilobiaren aurrean otoiitzean eman ostean, hanka **sendatu** zitzaion. **Askoren artean**
Nire magia boteretsuari esker oraintxe bertan **sendatu** dut orkatila, inongo ukendurik erabili gabe. **Joanes Urkixo**
Konturatu zirenean hezurrak **sendatu** ahal izateko hilabete luzea behar zutela, [...]. **Koldo Biguri**
Asensioak ez du **sendatu** ezker oinek tendinitisa eta ez da deialdian sartu. **Berria - Kirola**
Dena **sendatzen** du heriotzak. **Imanol Zurutuza**

3 (objektua eritasuna edo kidekoa dela)

Oinazea gehitu egin zen eta gaitza **sendatu** beharrean larriagotu. **Askoren artean**
Biriketako gaitza **sendatu** zitzaidanean, psikiatriako pabiloira eraman ninduten. **Eskarne Mujika**
Lupetzetatik atera eta tuberkulosia **sendatu** zion putaseme handi harekin zer egin pentsatzen aritu zen. **Bego Montorio**
Lorik eza **sendatzen** dute somniferoek. **Lourdes Oñederra**
Jainkoaren probidentzia bihozberak espirituaren ezkutuko gaitza haragiaren ageriko kauterioak **sendatu** zuen, espirituaren sendatzearekin batera gorputza ere **sendatuz**. **Askoren artean**
Zoaz eta busti zaitez zazpi aldiz Jordan ibaian, gaitza **sendatu** eta garbi geldituko zara. **Eiizen arteko biblia**
Arrosa loreak begietako gaitzen sendatzeko balio duen gisara, bihi gorrixkekiko patxaranak auskalo zenbat tripako-min **sendatu** dituen gure etxean...! **Pello Zabala**
Begiratze hutsarekin esango zinan non heukan mina, eta baita **sendatu** ere. **Anton Garikano**
Eizagirre gaur itzuliko da kantxetara, lesioa **sendatu** ostean. **Berria - Kirola**
Badago beste ur hotz mota bat nitroa duena [...] edaten denean barrua garbitzen duena eta hesteetatik pasatzen denean eskrofala-tumoreak **sendatzen** dituen. **Santiago Iruretagoiena**
Nire birraitonak toteltasuna nola **sendatu** aurkitu zuela. **Karlos Zabala**
Gwainen zauriek, ondo **sendatu** gabe berrituta, oso itxura txarra zeukaten. **Juan Kruz Igerabide**
Sendatu gabeko zaurien antzera. **Karlos Zabala**
Uste duzu nekea **sendatu** egingo zaizula lana eta giroa urtebetez alboratuta. **Lourdes Oñederra**
Berehala, ene zangoko hausturak **sendatu** ere gabe [...] aurkeztu nintzen auzitegian. **Piarres Xarriton**
-Lepotik bularrerrainoko urraduraren marka duenez, hori **sendatu** arte oporrak eman dizkiogu. **Ibon Urbarri**

4 (-tik atzikiaren eskuinean)

Bere gaitzetik **sendatu** zenean.
Azaro hasieran izan zuen lesiotik **sendatu** ondoren, Bartzelonaren kontra eskuin hankako kuadrizepsean mikro-haustura bat egin baitzuen. **Berria - Kirola**
Frantzisko dohatsuak gaitz orotatik **sendatu** nau goizean, eta orain arte inori ez esateko agindu dit. **Askoren artean**
Hilabete behar izan nuen lehenengo zoritxar hartatik **sendatu** arte. **Rafa Egiguren**
Anaia bat sabelpeko fistulatik **sendatua**. **Askoren artean**
Urte hauetan jasan dituen gaitz ugarietatik ez **sendatua** baina bai hobeto zegoela esan daiteke. **Berria - Harian**

5 (gaitz psikikoak eta kidekoak)

Gutunek **sendatu** egin dute neskatoaren nahigabea. **Oskar Arana**
Nahigabe-minak **sendatu**, beharrak osatu, andereñoak babestu, alargunen bihotza suspertu. **Patxi Ezkiaga**
Ez zion bakean uzten, bere bihotzeko zauria gozatu eta **sendatu** arte. **Askoren artean**
Heriotzari nion beldurra ere **sendatu** zitzaidan. **Ander Irizar**
Berritoki psikologoarengana joan beharko duzula, ez zaizula oraindik **sendatu** misantropia. **Bernardo Atxaga**
Engainatzeko grina unibertsala da, gazte, eta behin gizaki batek gustua hartutakoan, ezin da inoiz **sendatu**. **Oskar Arana**
Zuk eman ez diozun kontsolamendua, zuk **sendatu** ez diozun mendekotasuna, zuregan aurkitu ez duen babes. **Lourdes Oñederra**
Ez litzateke ederra izango, nire osaba jauna zalduneria-minetik **sendatu** eta gero hauek irakurriaz buruan sartuko balitzaio... **Patxi Ezkiaga**

6 irud/hed

Liburuak, bistan denez, ez zituen euskararen gaitz guztiak **sendatu**. *Volksgeist* espainola gaixo dago [...] medikatu eta **sendatu** -erregeneratu- egin behar da. **Joxerra Garzia**
Frankismoaren ondoren ere holako zerbait gertatu zen, **sendatu** gabeko zauriak zornatzen utzi ziren. **Joseba Zulaika**
Sendabide bikaina, sofismetatik erabat **sendatu** baitzuen. **Koldo Biguri**
Hasiak gara makiavelismotik **sendatzen**, eta egunez egun sendatuko gara Merkataritzak **sendatu** egiten ditu aurreiritzi suntsitzaileak. **Iñaki Iñurrieta**
Desadostasun horrek sakon sustraituriko egonezin espirituala sortu zuen, Mendebaldeko ereduaren arabera antolatutako indiar nazio-estatuarentzat independentzia lortzearen panazea politikokoak **sendatu** ezin zuena. **Iñaki Mendiguren**

7 (era burutua izenondo gisa)

Hernia **sendatuak**. **Askoren artean**
Pozarren aldatuko genuke gure burua, ospitaletik alde egitear, poltsan arropak batzen ari den gaixo **sendatu** berri horren zoriagatik. **Harkaitz Cano**

8 ezin sendatuzko ik sendaezin.

Ezin sendatuzko zauria izan zen nik harendako senditu nuen maitasuna. **Aurelia Arkotxa**
Bere begi beltz ederrak betzuloetan hondoratuak zituen, **ezin sendatuzko** tristeziak. **Fernando Rey**
Maiz hola zaiku agertzen bere pertsuetan **ezin sendatuzko** min batek jana. **Herria**
Bihotzeko desformakuntza bat zioten hari ezagutua, **ezin sendatuzkoa**. **Herria**
Gaitz dorpe **ezin sendatuzko** horrentzat sendagailuak bilatzen ari direnentzat. **Herria**

9 senda-agiri ik senda-agiri.

10 sendatu-pasara

Behar du Dylanek lasaialdi bat, **sendatu**-pasara bat, eta Yoloren aitari ongi etorriko zaio konpainia, laguntza. **Pako Aristi**

11 sendatuxe sendatu xamar.

Valdivia begi bistan zutelarik, bere burua **sendatuxe** aurkitu, eta itsasontziaren bizkarrera igo zen Patrizio, kapitainari dagozkion lanak egitera. **Felipe Juaristi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aita sendatu (4); **alaba sendatu** (4); **amaginarreba sendatu** (3); **azkarrago sendatu** (3); **berehala sendatu** (4); **berehala sendatu** (3); **deabruduna sendatu** (3)

emaztea sendatu (3); **erabat sendatu** (17); **erabat sendatu zen** (5); **eskua sendatu** (7); **gaitzetik sendatu** (3); **gaixo asko sendatu** (5); **gaixoa sendatu** (3); **gaixoak sendatu** (4); **guztiz sendatu** (12)

itsua sendatu (3); **Jesusek itsua sendatu** (3); **larunbatez sendatu** (4); **lesioa sendatu** (7); **nola sendatu** (7)

ondo sendatu (4); **oraindik sendatu** (4)

sendatu ahal (15); **sendatu ahal izateko** (8); **sendatu arte** (21); **sendatu baino lehen** (3); **sendatu berri** (3); **sendatu bitartean** (3); **sendatu da** (4); **sendatu du** (6)

sendatu eta gero (4); **sendatu gabe** (14); **sendatu gabeko** (6)

sendatu naiz (3); **sendatu nau** (3)

sendatu ondoren (5); **sendatu ostean** (6)

sendatu zaio (5); **sendatu zen** (19); **sendatu zuen** (21); **sendatu zuten** (4)

simonen amaginarreba sendatu (3); **sinesmenak sendatu zaitu** (5); **untsa sendatu** (3); **zauria sendatu** (10); **zauriak sendatu** (6)

elbarria larunbatez sendatua (3); **erabat sendatua** (4); **guztiz sendatua** (6); **guztiz sendatua gertatu** (3); **sendatua gelditu** (5); **sendatua gelditu zen** (3); **sendatua gertatu** (8); **sendatua gertatu zen** (8); **sendatua izan** (3); **sendatua zegoela** (3); **sendatua zela** (6); **sendatua zen** (5); **sendatua zuela** (3); **une hartatik sendatua** (3)

denborak sendatuko (3); **gaitza sendatuko** (4); **garaiz sendatuko** (3); **laster sendatuko** (12); **sendatuko da** (13); **sendatuko du** (3); **sendatuko zaitu** (6); **sendatuko zen** (3)

zauriak sendatuko (3)

aita sendaturik (4); **erabat sendaturik** (4); **guztiz sendaturik** (3); **sendaturik dago** (4); **sendaturik gelditu** (4); **sendaturik gertatu zen** (3); **sendaturik jaiki zen** (5); **sendaturik nago** (6); **sendaturik zegoen** (4)

erabat sendatuta (5); **guztiz sendatuta** (4); **sendatuta zegoen** (5)

ezin sendatuzko (5)

ezin sendatuzkoa (3)

ezin sendatuzkoak (3)

azkar sendatzea opa (3); **diabetesa sendatzea lortu** (3); **gaixoa sendatzea** (4); **inor sendatzea** (3); **laster sendatzea** (6); **sendatzea lortu** (5); **sendatzea opa dizut** (4)

diabetesa sendatzeko (13); **erien sendatzeko** (3); **gaitz guztiak sendatzeko** (3); **gaitza sendatzeko** (7); **gaitzak sendatzeko** (8); **gaixoak sendatzeko** (6); **gaixotasuna sendatzeko** (5); **gaixotasunak sendatzeko** (6); **guztiak sendatzeko** (4); **mina sendatzeko** (4); **pubalgia sendatzeko** (3)

sendatzeko ahalmena (5); **sendatzeko aukera** (3); **sendatzeko balio** (7); **sendatzeko balio duten** (3); **sendatzeko bidea** (5); **sendatzeko bidean** (5); **sendatzeko denbora gehiago** (3); **sendatzeko dohaina** (3); **sendatzeko ebakuntza** (5); **sendatzeko erabil** (3); **sendatzeko erabill** (4); **sendatzeko erabiltzen** (12); **sendatzeko erabiltzen da** (3); **sendatzeko gai** (3); **sendatzeko modu** (3)

tuberkulosia sendatzeko (3); **zauria sendatzeko** (4); **zauriak sendatzeko** (7)

denborak dena sendatzen (4); **erraz sendatzen** (5); **gaitz guztiak sendatzen** (3); **gaitza sendatzen** (4); **gaixoak sendatzen** (6); **nekez sendatzen** (5); **ondo sendatzen** (4)

sendatzen ari da (5); **sendatzen ari zen** (3); **sendatzen da** (12); **sendatzen du** (14); **sendatzen hasi** (6); **sendatzen hasia** (3); **sendatzen omen** (6); **sendatzen ziren** (5); **sendatzen zituen** (7)

zauria sendatzen (4); **zauriak sendatzen** (12)

sendatzera bidali (3); **zauriak sendatzera** (11)

sendatzaile 1 *izond* sendatzen duena.

Gauean, afaldu ondoren, ur **sendatzailea** borborka ari den parkeko zuhaitzen pean. **Josu Zabaleta**

Ordezkarri goi horrek bere diosala **sendatzailea** egiten dionean bakanetan bisitatzen duen jendeari, [...]. **Xabier Olarra**

Bere ondorengoei Erregeek uzten **die** bedeinkazio sendatzailea. **Xabier Olarra**

2 (izen gisa)

Ingalaterrako azken errege-erreginak ez dira ukipen bidezko **sendatzaileak** izan. **Xabier Olarra**

-Izarren adarra! -esan zuen nire **sendatzaileak** -. **Edorta Jimenez**

Ez zuen umorerik Ahalguztiduna lausengatzeko, jakintza-emaile, hilen bizi-emaile, gaixoen **sendatzaile**, atxilotuen askatzaile deitzeko. **Koro Navarro**

sendatze 1 *iz* norbaiti osasuna bihurtzea.

Mateo Vicalviko elizgizon pozoituaren **sendatzea**. **Askoren artean**

Zenbat **sendatze** huts eginak anartean, jende frango hiltzen baitzen holako baten eskasean! **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Zure aitaren **sendatze** mirakulutsuak. **Joan Mari Irigoien**

Gerta liteke Jainkoak niri osasuna ematea bere asmoen aurka, baina orduan **sendatze** hori ez litzateke ene gogoko. **Joan Mari Lekuona**

Sendagileen iritziz, ezinezkoa zen **sendatzea**. **Askoren artean**

5 mediku izendatu zituzten orduan **sendatzearen** alderdi guzien miazteko, 9 teologo ere ba fedearen partetik altxatuak izaiten ahal diren galde guzien ikertzeko. **Herria**

Bururatu zitzaidan, lehenik, ene balizko **sendatzearen** ordainean, Donejakuerako bidea egitea **Joan Mari Irigoien**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mundu osoan, han eta hemen osasun ikerketan gastatzen den diru gehiena ez doa eritasun larrienen zergatiak eta **sendatze** bideak bilatzera. **Pello Salaburu**

Sendatze bidean ibiliko zen zure antzinako alde hori. **Hasier Etxeberria**

Gaitz hilgarri batez akitua zegoen Anconako neskatila baten **sendatze** -ahalegina bertan behera utzia zuten. **Askoren artean**

Hilabete batzuk irauten ditu **sendatze** -prozesu osoak. liburu horrek ez zukeen Ttotteren osasun mentala **sendatze** -ildoan jarriko. **Irene Aldasoro**

Egia da arrautzak sartzeko agintzen zuela, baina bistan da **sendatze** -kontu hori kazetariak asmatu zuela. **Karlos Zabala**

Orain **Sendatze** Etxeetara goazak. **Agustin Otsoa**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
sendatze epea (3); **sendatze etxeetako** (5); **sendatze etxeetan** (5); **sendatze etxeetara** (6)

sendatze *adlag* sendatzeko zorian.

Ezker orkatilan duen lesioa **sendatze** da Tiko Athleticeko erdilaria. **Berria - Kirola**

sendetsi, sendets, sendesten du *ad* berretsi.

Zentzu horretan ezin interesgarriagoak dira ahozkotasunaren hipotesia **sendetsi** duten Parry, Havelock, Nagy eta gainerako autoreen ekarpenak. **Askoren artean**

Edo neure burua, neure izatea, amodio-grina baten bitartez **sendesteko** premia? **Matias Múgica**

sendi¹ 1 *iz* familia. ik familia.

Martin Tolosan gertatu zen **sendi** bereko kide aipagarri batekin. **Piarres Xarriton**

Lepic **sendia** amorrazioz ito beharrean dago. **Itziar Otegi**

Isidoraren **sendiak** morroi hartu baitzuen Periko. **Pako Aristi**

Denera, lau kide ditu **sendiak**, gurasoak eta bi seme-alaba, eta bederatzi metro koadroko etxola batean bizi dira. Berria - Gaiak

Biztanleria baten, talde baten, **sendi** baten, banako baten osasunaren zaintzailea. Xabier Arregi

Atzean utzi zuten **sendi** eta lagunarteak ez zuen haien izenik gehiago berreskuratzen. gure familiakoak hemen izateak poza ekarri zuen **sendira**. Pako Aristi

Sendi baten erradiografia egiten du filmak. Berria - Kultura

Biktima eta erasotzailea **sendi** berekoak dira. Berria - Euskal Herria

Otoitzak eta bihotzak azaroaren hasieran badute, bai, norabide eta txoko jakin bat **sendi** bakoitzean. Pello Zabala

Evo Morales (Isallavi, 1959) nekazarien **sendi** batean jaio zen, pezozko etxe batean, areazko kaleak dituen herrixka batean. Berria - Harian

Frantzia 165.478 **sendi** zorrari aurre egin ezinik. Berria - Ekonomia

183 **sendik** interesa azaldu dutela esan zuen, eta 18 familiak haurrak hartuko dituztela. Berria - Euskal Herria

Hura **sendiko** nuela, amonaren lehengusu. Xabier Mendiguren Elizegi

Auskalo nongoak, jakin ezazue noren **sendikoak**. Xabier Etxabe

2 (izenondoekin)

Rastignac zuzenbidea ikastera etorria da hegoaldetik Parisa; bere **sendi** apalak diru sakrifizio handia egin du semearen alde, kinka larrian gelditu da. Markos Zapiain

Betiere jaun agurgarri horrentzat eta bere **sendi** agurgarriarentzat onena opa eginez. Bego Montorio

Harrera familiak, ordea, ez du **sendi** naturala ordezkatu nahi. Berria - Euskal Herria

Ezinezkoa da bizi izan duena, **sendi** biologikoa alde batera uztea. Berria - Euskal Herria

Iñakik eta Albertok, eta lehenengoaren alaba biek osatzen dute **sendi** homoparental horietako bat. Berria - Harian

Bazekiten ni babestuta nagoela, kontuan hartzen badugu Albia ondoan jaioa naizela, eta Abandoko **sendi** abertzale batetik natorrela. Javi Cillero

Badakigu badirela berez azter daitezkeen harremanak **sendi** burgesaren eta epai-instantzien eta epai-kategorien funtzionamenduaren artean. Xabier Arregi

Bakuban, berriz, **sendi** xiita bateko hamaika kide hil dituzte tirokatuta. Berria - Harian

Kondairak dioenez, **Sendi** Saindua Egiptora ihesi zihoala -astotxo batekin-, gurutzatu beharreko basamortuan ez zuten landare bakar baten babesik eta itzalik izan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zarauzko Itegi harkaitzean **Sendi** Donearenak eta astoarenak ikus omen daitezke. J.M. Olaizola "Txiliku"

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gabonetako **sendi** giro beroarekin. Pello Zabala

Mirto Czentovic umezurtz txiro erdi pepeleroa, xakerako dohain apartek munduko txapeldu izatera goitua, eta B. **sendi** gizon aberats jantzi bezain argia, halabeharrak elkartu egin ditu xake partida gogoangarria jokatzera. Markos Zapiain

Iruzurra edo ahaztea edo intumisia, gauza da ordaindu ez, eta, agindu bezala, besoa moztu zietela **sendi**-buruei, betiko oroimen basati gisa. Karlos Linazasoro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baserria baitzen, baserri **sendi** luze eta zabalekoa gehienon sorlekua. Pello Zabala

Azti-**sendietakoek** etengabe hitz egiten zuten quidditchari buruz. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

berruetaren sendiak (4)

sendiaren abokatuak (3)

sendiari elkartasuna (3)

sendi² ik **senti**.

sendiarazi ik **sendiarazi**.

sendiarte *(orobat senditarte)* 1 iz familiartea.

Une batean nire bizitza berriari konponbideak aurkitzen saiatzen nintzen: beste **sendiarte** batean sartu beharko nuen, otorduak ordaintzeko lana egin, gurasoak ahaztu, eta pena hura menderatzen nuenean, neska polit batekin ezkundu. Pako Aristi

Etxeak harrizpean gelditu ziren, bideak hondatuta [...] itsasoa gorpuz betea, **sendiarte** osoak hilda, desagertuak, lokatz toneladak eta toneladak... Pako Aristi

Atzo, orain gurasoak falta direla, **sendiarte** guztiaren ordezkari modura-edo etorri behar izan dut aldeko Jeronimoren hiletetara. Pako Aristi

2 sendiartean familiartean.

Badira pertsonak, umetatik badakitenak bizitzan zer egin nahi duten, zer izan, zein funtzio bete gizartean eta **sendiartean**. Pako Aristi

Azken batean, inork ez dio idazterik eskatu, inoiz ez da haren hitza garrantzitsua izan, ez lantokian, ezta **sendiartean** ere. Pako Aristi

3 sendiarteko izlag familiarteko.

Munduari buruz, gizarteari begira, **sendiarteko** harremanei dagokionez edo sexuaren gainean kezkatuta zegoen jendez inguratutik eman dut nire gazte denbora. Pako Aristi

Sendiartekoek ez dute albisterik. Pako Aristi

Txaletaren jabeak, nire neskaren **sendiartekoa** izaki, ez zidan ezer kobratzen. goiz osoan joan-etorrian ibili ziren **sendiarteko** bakanen eta auzokide ugarien bazkalorduko hutsuneak hilkutxa inguratuz eskaini zien abagunea. Pako Aristi

Gero erabateko iluntasunak ostuko dio senaren indar guztia, eta **sendiarteko** egingo ditu gizona eta harria, gizonari dagokion muginahia harriaren ibilezaren altzoan bilduz. Pako Aristi

sendikide iz sendi berekoa.

Kanpotik begiratu, ez inor mindu, ez neure burua samindu, jarraipen luzeko ekimenik ez hasi; edo bihotza leihotik bota, eguneroko tirainaren borrokara jaitsi, lana egin neure **sendikideen** alde, haserretu, dagoena onartu eta sumindu: bi jarrera horien artean labaintzen dira nire egunak. Pako Aristi

sendikor ik **sentikor**.

sendimendu ik **sentimendu**.

sendimendutsu ik **sendimendutsu**.

senditarte ik **sendiarte**.

senditu ik **sentitu**.

sendo 1 *izond* gauzez mintzatuz, lodia edo gorpuzkera handikoa delako, trinkoa edo irmoa dena.

Aurrean, garaiak hosto gabetua, zuhaitz **sendo** bat. Txillardegi

Apur bat urrunago, lainotan galduta, zuhaitz **sendo** eta ordurako biluzien multzoa. Urtzi Urrutikoetxea

Hendrikek txabola **sendo** bat eraiki du, leihorik gabea. Juan Garzia

Gotorleku ikaragarri **sendo** batek defendatua. Karlos Zabala

Penduluak trinkoa eta astuna zirudien, eta ertzetik gora mehetu egiten zen, goiko egitura **sendo** eta zabaleraino. Koro Navarro

Elefante bakoitzak oholez eginiko dorre **sendo** bana zeraman bizkarrean. Elizen arteko biblia

Burdinazko hodi **sendo** baten gainean. Pello Zabala

Kate **sendo** bati lotutako burdinazko esku bat. Jon Muñoz

Ate **sendo** batek eta gimnasioan hezi eta hazitako bi tipo ikaragarrik galarazten zieten sarrera sudurluzeei. Migel Angel Mintegi

Paperez beteriko mahai **sendo** baten atzean zegoen. Migel Angel Mintegi

Artile urdineko jertse bat jantzia zekarren, kaki koloreko prakak, eta kapela, eta oinetako **sendoak**. Patxi Zubizarreta

Makila **sendo** batean bermaturik. Lopez de Arana

Azal beltzeko liburukote **sendo** bat. Iñaki Mendiguren

Sendo zegoen orain ere, harkaitza nola. Jon Muñoz

2 irud/hed

Grafenoa erabilia gai **sendo**, malgu eta egonkorrak sortzea egongo dela gaineratu zuten atzo. Berria - Gaiak

Eskoziako ohial **sendo** eta beroa da, gizezkoen gona tipikoak eta abar egiteko erabiltzen dena. Iñaki Mendiguren

Paper **sendo** marroiaz bilduta zegoen. Iñaki Mendiguren

Azkenean gorbata laranja bat aukeratu zuen -zeta **sendo**, nabarrekoa-. Anton Garikano

Anna izozki-puska batzuk arrantzatzen ari zen bere edontziko likido **sendo** apartuan. Lopez de Arana

Horretarako kafe **sendo** eta trinkoa prestatzen dute, alea xehe-xehe ehot. J.M. Olaizola "Txiliiku"

Usain **sendoak** zetorren sukaldetik. Karlos Zabala

Dena hauts-geruza **sendo** batez estalia zegoen. Iñaki Mendiguren

Onespenez begiratu zion Lenehanek neskaren gorputz motz **sendo** gihartsuari. Irene Aldasoro

Oin-hots **sendo** batzuk entzun zituen korridorean. Lopez de Arana

Bisigodoek ez dute gizarte feudal **sendo** bat -zinezko "jaunekin" lurraldean zehar- eratu. Joxe Azurmendi

Hura ez zen onura ateratzeko ahalegin hutsa, bai zera!, asmo **sendoak** baizik-. Migel Angel Mintegi

Mugimendu **sendo** batez -arretazko, albokako, atzeranzko mugimendu motel batez-, xingolaren loturatik apartatu nintzen. Koro Navarro

Pertika-jauzlari baten lerdentasun **sendo** hartaz oroitzeko. Lopez de Arana

Argudioa ez da batera **sendoak**, baina bai zehatza. Askoren artean

Ez da beste teoria fonemiko edo morfologikorik irizpide **sendo** hau betetzen duenik. Itziar Laka

Erabaki **sendo** hau hartu zuten: [...]. Askoren artean

Erlazio **sendoak** dago bigarren eta hirugarren mailen artean. Xabier Kintana

Lehena hitz **sendoak** da, unitate morfologiko batuagoa. Lourdes Oñederra

Berriro harremanetan geunden, oinarri **sendoen** gainean. Oskar Arana

Barazki-lapikoko **sendo** eta min bat jaten hasi ziren. Lopez de Arana

Hara han Arrietaren lasaitasunaren iturria, koartada **sendo** bat, alegia. Migel Angel Mintegi

Flako da haragia eta **sendo**; flako defendatzeko, **sendo** tentatzeko. Aingeru Epaltza

3 pertonez-eta mintzatuz, orobat osasuntsua, sasoikoa.

Baserritar emakume **sendo** bat, zinezko *boervrou*-a. Oskar Arana

Biak ziren andre **sendoak**, aurpegi garbikoak. Bernardo Atxaga

Hogeita hamabosten bat urteko gizon **sendo** zen, luze samarra, tankera onekoa. Migel Angel Mintegi

Gizon azkar eta **sendo** bat. Itxaro Borda

Gizon gazte **sendo** bat neukan begien aurrean. Txillardegi

Gizaseme **sendo** eta lerden bat sartu zen gelan. Jose Morales

Gizon **sendo** eta harroak dira, eta oso isilak. Agustin Otsoa

Flora emakume **sendoak** zen, ni baino **sendoak**, eta joko ote ninduen beldur ere izaten nintzen sarritan. Ramon Saizarboritza

Bazen zerbait begirada hartan Franz **sendoaren** irribarreak baino izu handiagoa eragin zidana. Alberto Ladron Arana

Atzamarrak eraztunez beteak zituen gizon **sendo** bat, judua bera. Lopez de Arana

Sorgin-orratz bat sentitzen zen sarjentu mozkote **sendo** hura. Fernando Rey

Morroi **sendo** gihartsua zen, boxeolari itxurakoa. Alberto Ladron Arana

Annarekin dantzan ari zena suediar garai eta **sendo** bat zen. Lopez de Arana

Izan **sendo** eta adoretzu! Elizen arteko biblia

Mando bat bezain **sendo** eta osasuntsu. Patxi Zubizarreta

4 hed

Onespenez begiratu zion Lenehanek neskaren gorputz motz **sendo** gihartsuari. Irene Aldasoro

Neskaharraren gorputz **sendo** zuria goitik behera, orpotik hasi eta kokotseraino ikusi zuen. Joseba Sarrionandia

Beso **sendo** batek gerria estutu zion. Lopez de Arana

Ez zitzaizkion oharkabe pasa gona motzak agerian utziriko izter **sendoak**. Migel Angel Mintegi

Bularrak, **sendo** eta ederrak, bularretako itxialditik askatu nizkion. Migel Angel Mintegi

Bular tenteak eta aldaka **sendo** eta biribilek berehala erakartzen baitzuten ingurukoena soa. Migel Angel Mintegi

Mr. Densch gelatik irten zen, burua sorbalda **sendo** erorien artean hondoraturik. Lopez de Arana

• 5 *adlag* irmoki, bortizki. ik **sendoki**

Sakon errotu eta **sendo** eta luze hazitako zuhaitza. Urtzi Urrutikoetxea

Haurra **sendo** eta indartsu hazi zen. Askoren artean

Sendo zegoen iltzatua, zioen Mildredrek. segundo gutxiko lana izan zen nire adiskidea horman **sendo** kateatzea. Anton Garikano

Goizuetarrak oso partida serioa jokatu zuen, **sendo** agertu zen bai erasoan bai defentsan. Berria - Kirola

Hala ere, juduen gudarosteak **sendo** eutsi zion erasoari. Elizen arteko biblia

Azkeneraino **sendo** irauten duena, horixe izango da salbatua. Elizen arteko biblia

Egon erne, iraun **sendo** sinesmenean, joka gizonki eta izan indartsu. Elizen arteko biblia

Sendo ihardetsi zion Itziarrek, iradokizunei jaramonik egin gabe. Migel Angel Mintegi

Esnatu zenean, apaizak jakin zuen eta **sendo** sinetsi Kristoren egiazko adiskidea eta zerbitzaria zela Frantzisko. Askoren artean

Osasuntsu eta **sendo** nagoenean, ezerk ez nau nire bidetik ateratzen. Juan Martin Elempuru / Bego Montorio

Fededun guztiak oso pozik geratu ziren fedean **sendo** indarturik. Askoren artean

Mari Altzaten zegoen, bere familiarekin, **sendo** eta salbu. Elena Touyarou

6 *sendoxeago*

Aldiz, udaberria haritzaren hosto berdexka **sendoxeago** horrek agurtzen badu lehenago, urte hori nahastua eta giro ezberdin koskadunarena izango omen da. Pello Zabala

7 *sendo-sendo*

Bi dorre **sendo-sendotan**, gutxienez, bederatzi mila lagun babestu ziren. Elizen arteko biblia

Zimendu horiek, ahal bada, estruktura **sendo-sendoarekin** bete beharko dira. Santiago Iruetagoiena

Epe hori eskuzabalegia delako susmo **sendo-sendoa** daukat, zinez. Karlos Linazasoro

Uste zuen, uste **sendo-senzoz**, hondamendiaren errudunak bi bakarrik zirela, erregea eta Galeazzo Ciano. Juan Garzia

Hauxe da nire nahi **sendo-sendoa**: aitor zaitezela astean bitan. Askoren artean

Atari ilun, bi orrikoaren aurrean, atezain uniformatu **sendo-sendoa** zegoen zutik. Matías Múgica

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

ahots **sendo** (15); **atzean sendo** (24); **azkeneraino sendo irauten** (5); **berean sendo** (5); **defentsa sendo** (7); **defentsan sendo** (23)

egitura sendo (5); **ekonomia sendo** (9); **erabaki sendo** (9); **erantzun sendo** (6); **esku sendo** (6); **etxean sendo** (5); **gazte sendo** (5); **gizon sendo** (14); **gorputz sendo** (5)

iraun sendo (5); **konpromiso sendo** (5)

oinarri sendo (16); **osasuntsu eta sendo** (6); **oso sendo** (29)

sendo agertu (18); **sendo agertu zen** (7); **sendo ari** (17); **sendo ari da** (5); **sendo aritu** (16); **sendo egon** (12); **sendo egotea** (6); **sendo eta egonkor** (5); **sendo eusten** (11); **sendo eutsi** (13); **sendo eutsi zion** (5); **sendo eutsiko** (5); **sendo ezarri** (12); **sendo iraun** (11); **sendo iraungo** (6); **sendo irauten** (13); **sendo irauten duena** (7); **sendo jarraitu** (7); **sendo jarraitu zuen** (5); **sendo jarraitzen** (9); **sendo jarraitzen du** (8); **sendo sendoa** (6); **sendo zegoen** (6); **talde sendo** (10); **uste sendo** (6); **zuhaitz sendo** (5)

ahots sendoa (5); **apustu sendoa** (18); **apustu sendoa egin** (7); **arrazoi sendoa** (6); **asmo sendoa** (36); **bezain sendoa** (28); **bikote sendoa** (8); **bikote sendoa osatzen** (5); **borondate sendoa** (6); **defentsa sendoa** (16)

erabaki sendoa (36); **erabaki sendoa hartu** (15); **erabaki sendoa harturik** (5); **erabakia sendoa** (6); **erantzun sendoa** (8); **gizon sendoa** (7); **gorputz sendoa** (7); **handi eta sendoa** (5); **handia eta sendoa** (7); **hautagai sendoa** (8)

industria plan sendoa (5); **itxura sendoa** (5); **jarrera sendoa** (8); **konpromiso sendoa** (17); **lan sendoa** (8); **lider sendoa** (10)

oinarri sendoa (36); **oso sendoa** (24); **oso sendoa da** (8); **oso talde sendoa** (11); **plan sendoa** (6); **politiko sendoa** (5)

talde sendoa (78); **talde sendoa da** (15); **talde sendoa du** (6); **urrats sendoa** (5); **usain sendoa** (6); **uste sendoa** (20)

gero eta sendoago (20); **inoiz baino sendoago** (5)

askoz sendoagoa (8); **talde sendoagoa** (13)

argudio sendoak (7); **arrazoi sendoak** (13); **hautagai sendoak** (5); **konpromiso sendoak** (6); **lotura sendoak** (8); **oinarri sendoak** (37); **oso sendoak** (9); **pauso sendoak** (5)

urrats sendoak (19); **urrats sendoak egin** (7); **uste sendoak** (7)

defentsa sendoan (5); **uste sendoan** (5)

asmo sendoarekin (7)

dolar sendoaren (5)

oinarri sendoen (9); **oinarri sendoen gainean** (5)

ahalik eta sendoena (5); **bikote sendoena** (11); **hautagai sendoena** (13); **irabazteko hautagai sendoena** (6); **talderik sendoena** (6)

froga sendorik (6); **oinarri sendorik** (10)

ahots sendoz (10)

sendoagotu, sendoago(tu), sendoagotzen da/du *ad* sendoago bihurtu.

Hitz egin ahala, Del Valleren ahotsa **sendoagotuz** zihoan. Alberto Ladron Arana

Airean kea zen nagusi, egongelako atmosfera **sendoagotu** egiten zuen Laboaren 7. Lekeitioak. Unai Iturriaga

sendogarri 1 *izond/iz* sendotzen duena.

Medinako surah-etatik, lege-sistema orotakoa, kanpoko **sendogarririk** gabe, ateratzea. Iñaki Mendiguren

2 (izen soila –en atzizkiaren eskuinean)

Ikuskizun hain ezohiko eta harrigarri hura fedearen **sendogarri** eta maitasunaren bizkorgarri gertatu zen ikusi zuten guztientzat. Askoren artean

Pazientziaren **sendogarri** bekizu bart gaueko gure solasa. Juan Garzia

Donostiatik betiko aldegitiko erabakia hartua neukalarik, poesia hau aurkitu nuen, neure deliberoaren **sendogarri**. honela mintzatu zen bere arrazioen **sendogarri**: [...].

Txillardegi

Jauna nire alde, nire **sendogarri**: etsaien porrotaz alaituko naiz. Elizen arteko biblia

3 *sendogarri izan*

Zuek ikusi nahian nago, **sendogarri** izango zaizuen espirituzko dohainen bat emateko. Elizen arteko biblia

sendoki *adlag* sendotasunez. ik **sendo 5**.

Esकुmurturretatik **sendoki** helduta mantendu zituen Martak mutilaren esku biak sukaldeko plakako su-bixietan erretzen. Harkaitz Cano

Sendoki maitatzea baita onuraren egiteagatik zauritzearen eta laidostatzearen arriskatzea. Patziku Perurena

Baitezpadakoa den laguntza bat, elkarteak **sendoki** aintzina jo dezan!Eldarnio horiek moteldu behar izan zituen Gracinhak, oso gozo baina **sendoki**, Herria

sendokote

Gizon **sendokotea** zen hura eta zezen-lepoa zuen. **Lopez de Arana**

Ondo jantzitako bi gizonezko ziren, **sendokoteak** eta buru-irritziak, eta oparotasun-arnasa bat ekarri zuten lagunarte hartara. **Irene Aldasoro**

Txunditurik zeuden denak [...] eta Delacour andereñoa, zein ere pertsona **sendokote** jator bat baitzen, irribarre zabala egiten hasi zen. **Irene Aldasoro**

Wood ikasle baten abizena zen, bosgarren urteko mutiko **sendokote** batena. **Iñaki Mendiguren**

Handia zen, **sendokotea**, eta masailuz indartsua nabarmen irtena zuen oldarkor. **Iñaki Mendiguren**

Jarraitu egin zion brankarantz zihoan gorputz **sendokote** hari. **Lopez de Arana**

30 metrora igo daiteke haritz **sendokote** bat. auskalo zenbat akuilu egin izan diren hurriz makila **sendokotez**. **Pello Zabala**

Piztitxo **sendokotea** zen, txima zuri nahaspilatuak zituen eta han-hemenka beltzuneak alboetan. **Mirentxu Larrañaga**

Enara arreak ziren, **sendokote** indartsuak. **Pello Zabala**

Altzoan jasotzen saiatu zenean ezin izan zuen pisu **sendokote** harekin. **Joxemari Urteaga**

2 (adizlagun gisa)

Mediterraneo eta arabiar nahiz hebrear kulturari, itsas inguruan behar zukeen palmondoak **sendokote** hazteko. **Pello Zabala**

sendor iz azaoa, karga.

Egur **sendorra** atarira elduta mailadian gora igoten asi zenean, atso min-zorrotz bat etorren mailadian bera. **Pello Zabala**

sendoro adlag sendoki.

Hizkera berez-berezkoa eta oso-osokoa du Arresek, herri tradizioan sakon sustraitua, eta berberak, tradizioko iturrietatik edanez, **sendoro** landua. **Berria - Kultura**

sendotasun 1 iz sendoa denaren nolakotasuna. (pertsonak, gauzak)

Zeren aita Bartolome gizon sendoa baitzen eta nik haren **sendotasuna** behar bainuen. **Joan Mari Irigoien**

Begira zer **sendotasun** duen bizkarraldean, nolako indarra sabeleko muskuluetan! *Firmitas, utilitas, venustas*, hau da, eraikuntzaren **sendotasuna**, eraikuntza bere funtzioari egokitu egotea eta edertasuna. **Elizen arteko biblia**

Horregatik, maite duguna **sendotasun** gehiagoz maitatuko dugu. **Piarres Xarriton**

Taj Mahal bere samurtasunez eta sotiltasunez ikusgarria den bezala, Lal Quila gotorlekua bere **sendotasun** eta izugarrikeriagatik da mirestekoa. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Indarra eta sasoia, gorputz atalen **sendotasuna** eta gorputzaren mugimenduen abiadura eta arintasuna. **Imanol Unzurrunzaga**

Besoak ere berdin, ikusi besterik ez zegoen biceps haien taxua eta **sendotasuna**. **Karlos Linazasoro**

Bestela **sendotasuna** nonahi: bular ederretan, sabel leunean eta aldaka biribiletan. **Migel Angel Mintegi**

Pezoen erdia junturen gainean geratzen denez, **sendotasuna** harzeaz gainera, bi aldeak ere ez dira itxuraz grazia gabeko geratzen. **Santiago Iruretagoiena**

Angeluetako pilareak neurri zabalekoak egin baldin badira, dobeleki eutsi eta aparailuari **sendotasuna** emango diote. **Santiago Iruretagoiena**

Hiru litro odol-plasmatan disolbatutako kilo bat proteinak zopa lodi baten **sendotasuna** emango lioke odolari. **Irene Aldasoro**

Ba ote da **sendotasunaren**, sasoi onaren pesimismorik? **Iñaki Seguro**

2 (bestelakoak)

Adelaren ideien **sendotasunak** txunditu egiten ninduen. **Juan Kruz Igerabide**

Indarra taldearen **sendotasunean** datza. Baina **sendotasun** hori fede itsu batetik edo pentsuaren **sendotasunetik** baizik ezin etor daiteke. **Berria - Kirola**

Haren asmoaren **sendotasuna** eta borondate santuaren sugarra. **Askoren artean**

Templeren artikulua irakurri nituenean [...] berehala aurkitu nuen halako xehetasun eta **sendotasun** bat -zuzenekotasuna-, iritzia aldarazi zidana. **Xabier Olarra**

Bere esplikazio arrazialari sakontasun eta **sendotasun** hori beste guztien aldean aitortzea bera, literatura arrazialistaren karakteristikoa da. **Joxe Azurmendi**

Prozesuak izan beharreko «**sendotasun**» hori, sei printzipioetan laburbildu dute: [...]. **Berria - Harian**

Paragrafo hau, osorik, koherentzia eta **sendotasun** gabeko paper puska bat da orain guretzat. **Koro Navarro**

Olabe etorri denetik, taldeak **sendotasunean** irabazi duela dirudi. **Berria - Kirola**

-Ezin duzu hau ikusi! -esan nion, dardar-ikaraz, Usherri, gozo baina aldi berean **sendotasunez** leihotik aulkira eramanez-. **Koro Navarro**

«Desafioei **sendotasunez**» erantzun die BBK-k. **Berria - Ekonomia**

Udala, «**sendotasunez**» jokatzeko prest. **Berria - Euskal Herria**

3 (izenondoekin)

Gurdien gupilak zurezkoak ziren hasieran [...] baina burdinazko uztai bat jarri zitzaientzen **sendotasun** handiagoa emateko. **Irene Aldasoro**

Euren bakuntasun trinkoagatik dira [lehenkiak], beraz, indartsuak, eta hauen elkartzeko estuagoz bat egiten dute eta **sendotasun** bortitza erakusten. **Xabier Amuriza**

Sendotasun mekanikoan, adreilua edo hormigoia baino askoz hobea da hezurra, zura eta metal asko baino hobexea, eta ez altzairua baino askoz txarragoa. **Irene Aldasoro**

Alde batean Mesquita Urdinaren liraintasun argia, beste aldean Santa Sofiaren **sendotasun** iluna. **Jon Arretxe**

Osasunaren ohiko **sendotasun** defentsiboa. **Berria - Kirola**

Sendotasun ekonomikoaren eta berrikuntza teknologiararen sinbolo bat. **Berria - Harian**

Herri-ipuinetako bikoteak ez duen **sendotasun** ideologikoa du Basarteko matrimonioak. **Anjel Lertxundi**

Sendotasun geometriko handiko eraikina diseinatu du. **Berria - Kultura**

Oroimen mota horren egitura oso desberdina da normalaren aldean, eta **sendotasun** eta ahulezia nabarmena ditu aldi berean. **Xabier Olarra**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hark ematen zidan halako **sendotasun** sentipen bat, kontrapisu bat eskuin aldean, esku inerte bat izatearen sentimendua, bederen. **Harkaitz Cano**

Efektibo minimoekin ahalik eta **sendotasun** itxurarik handiena ematea. **Harkaitz Cano**

Gorabeheratsu ari da McLaren; **sendotasun** arazoak dituztela da begi bistako kontu bakarra. **Berria - Kirola**

Berriz aukeratua bazina, zer proposatuko zenuke nazioa gidatzeko izan duzun **sendotasun** eza aldatzeko? **Berria - Mundua**

Ahotsari **sendotasun** apur bat eman nahirik **Alberto Ladrón Arana**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sultanaren aurrean izan zuen gogo-**sendotasuna**, hitz egiteko barne indarra, kristau fedeari egiten zizkioten irainei erantzuteko hitz etorria eta adorea? **Askoren artean**

Atlas munduari eusten irudikatzen da historian, bera izan zelako, adimen-**sendotasunez** eta trebetasunez, gizonari eguzkiaren ibilieren eta ilargiaren eta astro guztien iraulien arazoien berri ekartzeko saiatu zen lehenengoa. **Santiago Iruretagoiena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sendotasun gehiago (4); **sendotasun handiagoa** (4)

euroaren sendotasuna (4); **sendotasuna agerian** (3); **sendotasuna azpimarratu** (3); **sendotasuna berreskuratu** (9); **sendotasuna eman** (5); **sendotasuna emango** (4);

sendotasuna ematen (6); sendotasuna erakutsi (6); sendotasuna falta (3); sendotasuna izan (4)

euroaren sendotasunak (6)

sendotasunaren aldetik (3)

erakutsitako sendotasunari (5); sendotasunari esker (6); sendotasunari eutsi (3)

sendotasunez erantzun (3)

sendotu¹, sendo(tu), sendotzen 1 da/du ad sendotasuna hartu; sendotasuna eman. (izaki bizidunetz eta gauzez mintzatuz)

Janaria hartzen da, lohadarrak **sendotzeko** eta han-hemengo indarra berritzeko. **Xabier Amuriza**

Ibiltzen **sendotzen** dira hankak. **Berria - Gaiak**

Leitzarrak aitortu du finkatzen ari dela bere burua aizkoran, baina baduela zer hobetu oraindik: "Gorputza **sendotu** behar dut eta indarra atera nondik edo handik". **Berria - Kirola**

Sukar horrek, bene-benetan, gorputz osoa **sendotu** dik. **Edorta Jimenez**

Bide horretan gizakiaren gripearen birusa agertzen bada, hasierako birusa **sendotu** egin daiteke eta errazago zabaldu. **Iñaki Heras**

Hainbat urte lehenago, Sams Al-Dinek edabe bat eginarazi ziola hazia **sendotzeko** eta trinkotzeko. Judako herria gudurako **sendotuko** dut, Joseren ondorengoei garaipena emango diet. **Patxi Zubizarreta**

Material polimeriko bat **sendotzeko** eta bere propietate mekanikoak hobetzeko gehigarriak erabiltzea oso gauza hedatua da plastikoen munduan. **Berria - Gaiak**

Honela, hiru kareorezko geruza eta beste marmolezko beste hiru geruzarekin lana ondo **sendotuta** dagoenean, ez da ez zartaturik eta ez bestelako akatsik sortuko.

Santiago Iruretagoiena

Bet-Sur eta Gazara hiriak eta Jerusalemgo gotorlekua ere **sendotu** zituen. **Elizen arteko biblia**

Ate-morroiloak **sendotu** baititu. **Elizen arteko biblia**

Zuhurtasunak defentsak **sendotzea** eta erasoaren zain geratzea aholkatzen du. **Agustin Otxoa**

Horrelako hodi mehe batek okertzeko arriskua du tentsioaren pean, baina gehienetan barne-ostikoz **sendoturik** egon ohi dira. **Irene Aldasoro**

Gorago altxatu behar izan baikenen txopako gaztelua, beste bat eregi brankakoan, kartolak ezarri hesi legez manda bietako kareletan, eta, batez bestekoan, gotortu eta

sendotu oholak, mastak eta aparailuak denak. **Edorta Jimenez**

Egurrezko beste armazoi bat jartzen zen akerrerkin eta besoekin gogor **sendotuta**, ilea **sendotzeko** krema gehienek urea izan ohi dute osagairik printzipalena. **Santiago**

Iruretagoiena

Animalien ilez **sendotutako** igeltsua. **Irene Aldasoro**

Berez kirasdunak diren lekuak neguan osasungarri bihurtzen direla, zeren eta hotzarekin **sendotu** eta irmotu egiten baitira. **Santiago Iruretagoiena**

2 (bestelakoez)

Garapen berri horiek sintaxiaren, semantikaren eta pragmatikaren arteko zubiak **sendotu** zituzten. **Askoren artean**

-Gure apaiz kokorren indarrak **sendotzera** joango naiz. **Juan Garzia**

Espainian eta Portugalen, penintsularen errekonkistaren eta islamak atzera eginaren ondorioz **sendotu** zen aginpide zentrala. **Koro Navarro**

Gaurko gizon-emakumeen debozioa suspertzeko eta gerokoan sinesmena **sendotzeko**. **Askoren artean**

Horrela, **sendotu** egin zen erregetza Salomonen eskuetan. **Elizen arteko biblia**

Perezek bere lidergoa **sendotu** zuen. **Berria - Kirola**

Eliz elkarteak fedean **sendotuz** eta egunetik egunera ugalduz zihoazen. **Elizen arteko biblia**

Horrek autoestimua **sendotu** egingo die. **Luis Elberdin**

Espainian eta Portugalen, penintsularen errekonkistaren eta islamak atzera eginaren ondorioz **sendotu** zen aginpide zentrala. **Koro Navarro**

Ahoko zapora mikatzak ajearen ebidentzia **sendotu** zion. **Fernando Morillo**

Erabaki zehatzak ere hartu zituen hizkuntzaren osasuna **sendotze** aldera. **Koldo Zuazo**

Bakegintza prozesuan urrats batzuk **sendotu** behar dira. **Berria - Harian**

Trukeen hazkundearen moteltzeak pertsona batzuen aberasteak beste batzuen pobretzea dakarrelako ustea **sendotu** zen. **Koro Navarro**

Egiazko predikaria zen, Aita santuaren aginpidez **sendotua**. **Askoren artean**

3 (era burutua izenondo gisa)

Zigorrek kentzeaz gain, Batasunak Kubako oposizioarekin «elkarrizketa **sendotua**» bilatu behar duela esan zuen batzordeak. erasoaldi militar berriak edota **sendotuak**.

Berria - Mundua

Bakearen babesleak ez baina, Espainiako konstituzioaren zaintzaileak, bigarren indar politiko **sendotua** bihurtzen da euskal herrian. **Berria - Harian**

4 **sendotzearen** sendotzeko.

Botereak ere sortzen ditu mamuak, bere ahala **sendotzearen**, bere indarrak zabaltzearen. **Bernardo Atxaga**

Baina ez, eutsi egiten diogu eraikuntza mingarriari, "errealitateak" ematen dizkigun datuak geure mina larriagotuko duen ikuspuntua **sendotzearen** erabiliz. **Markos**

Zapiain

5 **sendotzenago**

Gizon hark egiten zizun hitz bakoitzarekin zentimetro bat sakonago sartzen zitzaizkizun oinak lurrean behera, **sendotzenago** oinarri airezkoak, Arizkongo eliza aurrean.

Hasier Etxeberria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bake prozesua **sendotu** (3); bakea **sendotu** (3); demokrazia **sendotu** (3)

elkarlana **sendotu** (5); erakundea **sendotu** (3); eskaintza **sendotu** (3); euskararen erabilera **sendotu** (3); gehiago **sendotu** (4); gorputza **sendotu** (3); harremana **sendotu**

(3); harremanak **sendotu** (13); harremanak **sendotu** eta (3)

indarra **sendotu** (5); lidergoa **sendotu** (8); lidergoa **sendotu** du (3); loturak **sendotu** (3)

oinarriak **sendotu** (4); politikoa **sendotu** (4); prozesua **sendotu** (5)

taldea **sendotu** (3)

betiko **sendotuko** (3)

ondo **sendotuta** (4); **sendotuta atera da** (3)

sendotuz doaz (4); **sendotuz joan** (3)

bake prozesua **sendotzea** (4); bakea **sendotzea** (4); harremanak **sendotzea** (18); prozesua **sendotzea** (4); sena **sendotzea** (3); **sendotzea ekarriko** (3); **sendotzea erabaki**

(4); **sendotzea izan** (7); **sendotzea izan da** (5); **sendotzea izango** (6); **sendotzea izango da** (3)

harremanak **sendotzearen** (5); harremanak **sendotzearen alde** (3); **sendotzearen alde** (6); **sendotzearen alde agertu** (3); **sendotzearen aldekoa** (3)

sendotzeaz gain (4)

aukera **sendotzeko** (4); bake aukera **sendotzeko** (3); bakea **sendotzeko** (5); batasuna **sendotzeko** (4); demokrazia **sendotzeko** (3)

egitura **sendotzeko** (3); ekonomia **sendotzeko** (4); elkarlana **sendotzeko** (6); elkarlana **sendotzeko** beharra (4); harremana **sendotzeko** (6); harremanak **sendotzeko** (24);

harremanak **sendotzeko** aukera (3); hegala **sendotzeko** (3)

indarztatzeko eta **sendotzeko** (3); lidergoa **sendotzeko** (5)

osasuna **sendotzeko** (3); populazioa **sendotzeko** (5)

sendotzeko asma (5); **sendotzeko** asmoz (5); **sendotzeko** aukera (10); **sendotzeko** balio (5); **sendotzeko** balioko (3); **sendotzeko** beharra (5); **sendotzeko** beharra nabarmendu (3); **sendotzeko** bidea (4); **sendotzeko** bideak (4); **sendotzeko** eskatu (4); **sendotzeko** konpromisoa (6); **sendotzeko** konpromisoa hartu (3); **sendotzeko**

xedez (3)

balloak sendotzen (3); lotura sendotzen (3); pixkanaka sendotzen (3); sendotzen joan (5)
sendotzera etorri (3)

sendotu² ik **sendatu**.

sendotxo *izond adkor sendoa*.

Artaburu pare bat, **sendotxo**en eta beteenak. **Pello Zabala**

Sendotxoenak erdiko nerbiotarako ipini, eta haien artean bigunago eta zumelagoak tartetik, batean goitik eta bestean azpitik pasatuz, ehundu eta trentzatuz **Pello Zabala**

sendotza *iz* Elizaren sakramentua, bataioan harturiko grazia sendotzen duena.

Berak emanak ditugu Sakramentu santuak: lehenik bataioa, **sendotza** eta penitentzia, gero bere Gorputza eta azkenik Oliadura. **Joan Mari Lekuona**

Alferrik egin zuen zin apezpiku batek eman ziola zaflada batez **sendotza**, hamar urte zituelarik: *patre-nostreak* osorik esaten ere ez zuen asmatu. **Juan Garzia**

UBI egiten ari ginela **sendotzako** sakramentua hartu behar zuen Arrigainek, aurreko bi-hiru urteetan horretarako prestatzeko asteroko bileretan ibili ondoren. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Horrez gainera, orobat nire esku ditut, eta poztuko zaitu entzuteak, Miss Cardewren jaiotza-agiria, bataio-agiria, kukurruku eztularen agiria, erroldarena, txertoarena, **sendotzarena** eta elgorriarena. **Antton Olano**

sendotze *iz* sendotasuna hartzea; sendotasuna ematea.

Konkurrentziaren eremuaren **sendotzea** eta zabaltzea. **Koro Navarro**

Muga ekonomiko eta kulturalen **sendotzea**. **Txema Ramirez de la Piscina**

Zer ondorio ekarri zituen **sendotze** horrek? **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hori hitzaren **sendotze** morfologikoaren aldetik mesedegari da, baina ez gardentasun morfosemantikoaren aldetik. **Lourdes Oñederra**

XX. mendeko lehen hamarraldi hori Pío Barojaren nahaste eta katramila politikoen urteak izan ziren Alejandro Lerroux-en Alderdi Erradikalaren lerroetan [...] baina baita bere idazkintzaren **sendotze** urteak ere. **Josu Zabaleta**

sendoxe ik **sendo 6**.

senegaldar (*orobat senegaltar g.er.*) **1** *izlag* Senegalgoa, Senegali dagokiona.

Waly Ndiaye **senegaldar** medikuak arta batzu segurtatzen ditu urririk, hilabetean zenbait egunez. **Herria**

Haurtzaroan kloritoria moztu zioten Colle Ardo **senegaldarrari** erlijio kutsuko erritu batean. **Berria - Kultura**

Sokhna, halaxe zeukan izena emakume **senegaldar** itoak. **Koro Navarro**

Kanariak jomuga zituzten 83 etorkin **senegaldar** hauen herrialdera itzuli zituen atzo Marokoko Gobernuak. **Berria - Harian**

Saharaz hegoaldeko immigranteak dira: maliarrak, gambiarrak, **senegaldarrak**. **Berria - Mundua**

Bigarren gizona beltz-beltza, **Senegaldarra**, hori ere ederki mintzo. **Herria**

Exotikoagoa izango da, **senegaldarra** edo nigeriarra delako prostituta. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Aita **senegaldarra** du, ama Euskal Herrikoa. **Berria - Euskal Herria**

2 *iz* Senegalgo herritarra.

Senegaldarrak, ghanatarrak, maliarrak, gambiarrak, nigeriarrak, ginearrik, sierraleonarrak, bolikostarrak, kamerundarrak, kongoarrak, marokoarrak eta aljeriarrak bizi dira bertan. **Berria - Harian**

Senegaldar batek 34 egun eman ditu kartzelan, deliturik egin gabe. **Berria - Euskal Herria**

Senegaldar gehienak wolof tribukoak dira. **Berria - Mundua**

Denak ere **senegaldarrak**, noski, baina han ere gurean bezala batzuk zaindari eta bestea preso... **Jokin Urain**

senegales *izlag /iz* senegaldarra.

Bat-batean Gurseko **senegalesak**, Lorentxoren eta beste hainbaten oroimenean halako arrastoa utzi zuten haiek, etorri zaizkit gogora. **Jokin Urain**

Hain zuzen ere, zer esango ote luke, bizi balitz, Ondarroako arrantzale baporeak gaur egun **senegales** -ez josita (trípulazio gehientsuenak **senegalesak** dituk, bai) daudela ikus-entzungo balu? **Jokin Urain**

senegaltar ik **senegaldar**.

senekismo *iz* L. A. Séneca-ren doktrina moral estoikoa.

Izpiritu espainolaren **senekismo** eta Senekaren espainoltasun hori, hamaika autore gehiagotan aurki daiteke (Ganivet, etc.). **Joxe Azurmendi**

Senekismoa arima espainolaren betidaniko eta berezkoa da. **Joxe Azurmendi**

Ganivet-entzat arima espainola esentzialki zertzen duena da **senekismoa**. **Joxe Azurmendi**

seneratu, *senera(tu)*, *seneratzen da/du ad*

Erortzean, konortea galdu zuen; **seneratu** zenean, orainaldia, hain aberats eta zehatz izatez, ia jasanezina zen, eta halaxe oroipenik aspaldikoen eta arruntenak ere. **Juan Garzia**

Horrenbestez, ez zen harritzekoa funtzionarioek, nahi gabe, horrelako gogoetak erabiltzea buruan; nolana ere, laster **seneratu** ziren, konturaturik gehiegi lasaitu zituztela irudimenaren hedeak eta errealtatea bestelakoa zela. **Jose Morales**

Guregatik segi beza betiko horrelaxe loak, ez baitugu **seneratzeko** irrisik nabari. **Xabier Amuriza**

seneskal 1 iz Erdi Aroko Europako gorte batzuetan, maiordomo nagusia; gorteko ofizial nagusia, batzuetan eskumen judizialak eta militarrek zituen.

Zaldunik ausartenen artean zeuden Lancelot, Perceval, Keu (Arturren **seneskal** fidela), Gwain, Tristan eta beste hainbat. **Juan Kruz Igerabide**

-Zin egiten dut leiala izango naizela, eta Gondorren eta Erresumako Jaun eta **Seneskalaren** zerbitzurako lan egingo dudala, hitzez zein isilduz, eginez zein egiten utziz.

Agustin Otsoa

Faramir Jauna da, ordea, zuzenbidez, Hiriko **Seneskala**. **Agustin Otsoa**

Seneskala sugarrek kiskalita hil zen, Rohango Erregea hilda zetzan Gotorlekuan. **Agustin Otsoa**

-Hemen datza, **Seneskalen** Etxean -esan zuen Denethorrek-. **Agustin Otsoa**

2 (hitz elkartuetan)

Seneskal aginpidea baliatuz, gure arbasorik urrunenen garaian bizi zen Earnur azken Erregearen koroa ekarri dut hona Rath Dinenetik. **Agustin Otsoa**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gondorko seneskala (3)

sengabetu, sengabe(tu), sengabetzen du ad sena galdu, ergeldu.

Ez dakit eman ditudan argibide guztiak halaxe direnentz; ezin jakin dezaket jadanik halako edo halako zertzelada errealitatearen traskribapena diren, ala ene gauak

sengabetu zituzten itxura haiena. **Juan Garzia**

senide 1 iz norbaitentzat, bere gurasoen beste seme-alabetako bakoitza. ikhaurride.

Gure ama-eta hamar **senide** ziren; haren ama begien aurrean daukat. **Arantxa Iturbe**

Feli eta... zazpi **senide** dituk. **Pablo Sastre**

Hamabi **senide** ginela, aita baten seme, baina bat galdua dugula eta gazteena, berriz, aitarekin geratua zela Kanaanen. **Jose Antonio Mujika**

Ezagutu ziu, bai, Josek bere **senideak**, baina hauek ez bera. **Jose Antonio Mujika**

Gu, berriz, zazpi **senide** izan gara. **Arantxa Iturbe**

Berriki hila zen bestalde Eñaut Arhanegoiti, etxeko hirugarren **senidea**, 36 urtez Arrokiagako erretora izan ondoren. **Txillardegi**

Aita ederki moldatzen zen frantsesez, **senide** guztiok genuen frantsesaren hor nonbaiteko ezagutza. **Anjel Lertxundi**

Lan egiteko moduan diren **senide** guztiak langabezia dituzten familiak 11.300 dira EAEn. **Berria - Ekonomia**

Senide bikiak aztertu ostean, jakin ahal izan dugu ezaugarri genetikoak dituen gaitza dela hau. **Berria - Gaiak**

Presoen **senide** eta lagunen historia hori ere idatzi behar luke norbaitek. **Jokin Urain**

Sansonen **senide** eta ahaideak etorri, haren gorpua hartu eta aita Manojen hilobian ehortzi zuten. **Jose Antonio Mujika**

Izan hadi heure **senideen** nagusi, makur daitezela hire aitzinean hire amaren semeak! **Jose Antonio Mujika**

2 hed ik ahaide.

Aita-amaren oinordetza, zati berdinetan dagokie seme-alaba guztiei, sexu bereizketarik gabe; horiek ezean, **senide** hurbilekoeni. **Andres Urrutia**

Tania Kovaltxukek ez zeukan **senide** hurkorik. **Jose Morales**

Non geratu da **senide** eta adiskidez inguratutako "bel morir" hura? **Bernardo Atxaga**

Ama eta gainontzeko **senideak** ez ziren jaiki artean. **Xabier Etxabe**

Emadazue seinale bat, segurua, bizirik utziko dituzuela nire aita eta ama, nire nebak eta ahizpak, beren **senide** guztiekin, eta heriotzatik libratuko gaituzuela. **Jose Antonio Mujika**

Hirugarrenik, gurasoak, neba-arrebak, senar-emazteak, seme-alabak, ahaideak, **senideak** eta nolabaiteko kideak. **Imanol Unzurrunzaga**

Haien harremanak baketsuak izan ziren jeneralaren etxera bi **senide** agertu ziren arte: Boldireva kondesa eta Juziakina printzesa. **Jose Morales**

Baina benjaminarrekin ez zieten entzun nahi izan beren **senide** israeldarrei. **Elizen arteko biblia**

Emazteak eta seme-alabek, **senide** eta adiskideek negar-itxurak egiten dituzte. **Askoren artean**

Gurekin trenetik jaitzita batzuei **senideak** -edo etorri zitzaizkien ongiatorria ematera. **Jon Maia**

Kurduok eta arabiarrek elkarren artean banatuko genuen guztia, **senideek** bezalaxe! **Juan Kruz Igerabide**

Indioek animaliak **senidetzat** dituzte. **Gotzon Garate**

3 irud

Autista askotxo dira idiota hauen **senide** diruditenak. **Iñaki Segurola**

Zibilizazio Helenikoak **senide** ziren bi gizarte sortarazi zituela. **Iñaki Mendiguren**

Dударик ez, semantika bereko **senide** ugari izanen dutela "Nabar" horiek gure usuarioan. **Patziku Perurena**

Izterdia, munduan gaizki bizitzen hasi ginenetik, nekearen eta lanaren **senide** da. **Iñaki Segurola**

Guziak **senide** dira hortzak, baina ez kasta bereko: hortzak, letaginak, haginak. **Patziku Perurena**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Carlosi **senide** izaera kentzera behartu zuten gertakari negargarriek baieztatu zioten ondo jokatu zuela horretan bere burua enpresako buru utzita. **Bego Montorio**

Jainkozaletasunarekin **senide** -batasuna, eta **senide** -batasunarekin maitasuna. **Elizen arteko biblia**

Senide -harremanak (ama-ahizpa-alaba) eta ebanjeliozko askatasuna, erabateko pobretasuna. **Askoren artean**

Antzeratsu erabili zituen judaismoak eta honen **senide** -erlijio zen zoroastrismoak. **Iñaki Mendiguren**

Senide edo lagun arteko otordu batean. **Patziku Perurena**

Kilometroak hurrengo egunean Zarautzen eta Orion, **senide** giro ederrean. **Iñigo Aranbarri**

Ondorengorik ez badago, alboko **senide** guztiak deitua izango al dira oinordetzara, **senide** gradua edozein izanda ere? **Andres Urrutia**

Eta neure **senide** -tartekoa bat, gainera. **Gotzon Garate**

Espiritu basati berberak gidatzen zuen legegilearen eskua, eta **senide** -hiltzailearena edo sikarioarena. **Juan Martin Elexpuru**

Beste **senide** -herri batzuekin batera nazio handi batean elkartzeko **Iban Zaldúa**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

biktimen senide (6); **biktimen senide batzuek** (3); **elkarren senide** (5); **euskal presoen senide** (18); **gure senide presoak** (3); **hildako senide** (4); **lagun eta senide** (6); **preso politikoaren senide** (3); **presoen senide** (35); **presoren senide** (4)

senide arteko (4); **senide bat ikustera** (3); **senide dituzuen** (3); **senide edo lagun** (3); **senide eta abokatuek** (5); **senide eta adiskideen** (3); **senide eta ahaideak** (3)

senide eta lagun (37); **senide eta lagunak** (35); **senide eta lagunei** (21); **senide eta lagunek** (70); **senide eta lagunekin** (6); **senide eta lagunen** (33); **senide eta lagunentzat** (4)

senide hil dituela (4); **senide izan** (4); **senide maiteok** (9); **senide presoak** (7); **senide zen** (7); **senide ziren** (10); **senide zituen** (3); **senideak senide** (3)

aita eta senideak (4); **biktimen senideak** (5); **euskal presoen senideak** (10); **hildakoaren senideak** (5); **joseren senideak** (4); **lagunak eta senideak** (3); **preso eta senideak** (4); **presoen senideak** (21); **presoen senideak eta** (3)

senideak biltzen (5); **senideak biltzen dituen** (5); **senideak dira** (5); **senideak eta aitaren** (3); **senideak eta lagunak** (11); **senideak etorri** (4); **senideak ikusteko** (3)
senideak zigortu (4); **senideak ziren** (3)
senideari gorroto diona (4)
biktimen senideei (3); **euskal presoan senideei** (7); **hildakoaren senideei** (3); **hildakoan senideei** (5); **lagun eta senideei** (4); **presoan senideei** (23); **presoan senideei ematen** (3)
senideei doluminak (7); **senideei elkartasuna** (10); **senideei emandako** (3); **senideei esan** (3); **senideei eta lagunei** (4)
amaren senideek (3); **atxilotuen senideek** (3); **azkarateren senideek** (3); **bi presoan senideek** (3); **biktimen senideek** (9); **eskatu dute senideek** (4); **eskatu zuten senideek** (3); **euskal presoaren senideek** (6); **euskal presoan senideek** (11); **gazteen senideek** (3); **hildakoaren senideek** (3); **hildakoan senideek** (5); **jokinen senideek** (3); **lagun eta senideek** (5); **lagunek eta senideek** (6); **preso baten senideek** (6); **presoaren senideek** (10); **presoan senideek** (32); **presoren senideek** (8); **salatu dute senideek** (6); **sanchizen senideek** (5)
senideek adierazi (3); **senideek eta lagunek** (15); **senideek istripua izan** (6); **senideek pairatzen** (3); **senideek salatu** (4)
atxilotuen senideen elkarteko (7); **biktimen senideen** (8); **biktimen senideen abokatuek** (3); **desagertutako atxilotuen senideen** (6); **euskal presoan senideen** (8); **fusilatuen senideen** (6); **fusilatuen senideen elkartek** (3); **nafarroako fusilatuen senideen** (3); **preso eta senideen** (6); **presoan eta senideen** (8); **presoan senideen** (18); **presoan senideen elkartek** (5)
senideen abokatuek (3); **senideen alde** (5); **senideen arabera** (4); **senideen artean** (18); **senideen arteko** (10); **senideen aurkako** (9); **senideen aurrean** (4); **senideen egoera** (5); **senideen elkartek** (11); **senideen elkarteko** (12); **senideen elkarteko kidea** (3); **senideen eskubideak** (10); **senideen eskubideen** (6); **senideen eskubideen defentsan** (5); **senideen eta lagunen** (5); **senideen istripuak** (4); **senideen izenean** (3); **senideen sufrimendua** (3); **senideen testigantzak** (3); **senideen ustez** (3)
senideengan eta lagunengan (4)
senideengandik hurbil (3)
presoan senideentzako (3)
presoan senideentzat (3)
ene senideok (8)
seniderik txikien hauetako (4)

senideordeko iz senidearen ordekoa.

Beraz, Jazinto semetzako hartua zuten, eta bere **senideordekoen** adinari erreparatzen badiogu premutzako, maiorazkotzako hartua izan zela pentsa genezake. **Koldo Izagirre**

senidetasun 1 iz senideak elkartzen dituen lotura. ik **senidetza**; **haurridetasun**; **anaitasun**.

Adiskidetasun eta are **senidetasun** erakutsi bat izanen zatekeen, nik, zerri honek, igandean nire aitzinean dardarikatzen zen ezker bular belztu eta sumindua izan ez banu gogoan. **Aingeru Epaltza**

Klan familiarra eta **senidetasun** sarea amen eta haien anaia eta ahizpen eta seme-alaben inguruan eraikitzen zen. **Luis Elberdin**

Hala ere, zuei mandatariak bidaltzen saiatu gara, zuekin ditugun **senidetasuna** eta adiskidetasuna berritzeko, zuentzat arrotz gerta ez gaitezen. **Elizen arteko biblia**

Politikak zuen lehentasuna; politikak, Frantziako Iraultzaren zentzu zabalean: askatasuna, berdintasuna, **senidetasuna**. **Ana Urkiza**

Bazekien Abasek Hamidari lotzen zion esnezko **senidetasuna** zuela gogoan. **Patxi Zubizarreta**

Ba al dute zer ikusirik edo **senidetasunik**? **Iñaki Segurola**

San Frantziskok, ordea, ez du izaki guztiekin bizi duen **senidetasuna** adieraztea beste intentziorik. **Askoren artean**

Orduan **senidetasun** unibertuala izango da zeru bihurtutako lur honen gainean. **Iñaki Segurola**

2 (hitz elkartuetan)

Ez dut oker handirik egingo esaten badut asko lasaitu zuela Angelorekin lotzen ninduen **senidetasun** -lokarri bat zela entzuteak. **Anjel Lertxundi**

Zer izango da gradu urruneko **senidetasun** lotura hori, bestelako loturarik ez bada? **Andres Urrutia**

senidetu, senide(tu), senidetzen du/da *ad* senide bihurtu.

Aurkitu egin dugu, denok ere, mesfidantza eta antipatia gaizto guztien azpian, batzen eta **senidetzen** gaituen hitza. **Bernardo Atxaga**

Banekien [...] mundu zabaleko erdi-kalean bizi direla uste duten mixiolari edo internazionalistentzat, lurra "planeta" zela eta ez besterik, den-denok **senidetzen** gaituen bizitoki globala. **Iñaki Segurola**

Halabeharrezko zera horrek **senidetzen** ditu, beraz, gizon-emakumeak, eta haien tasunak berdintzen. **Iñaki Segurola**

Gurean, biztanleen ehuneko hamarra inguru judua zen, edo juduren batekin **senidetua**. **Anjel Lertxundi**

Protagonista Carlos Evans da, hiriburuan bizi den militar eta diplomatiko ingelesa, Andaluziako familia aberats batekin **senideturik** dagoena. **Berria - Kultura**

Ondorioz, gure lagunartek txikitu egingo ziren, **senidetu**. **Pedro Alberdi**

Lapurdiko Kanbo eta Gipuzkoako Deba haurridetu edo **senidetu** ziren, duela bi urte, bi herrietako auzapezek izenpetu zuten hitzarmen baten bidez. **Herria**

senidetxo 1 iz senide txikia.

Kalean bost urteko haurra bi urteko **senidetxoa** lepoan edo bizkarrean daramala ikusiko duzu. **Gotzon Garate**

2 *adkor* senidea.

-Eskertzen dizut laguntza, **senidetxo** -esan zion Golek Fionni ankerkeriaz-. **Joanes Urkixo**

senidetza 1 iz senidetasuna.

Udalbiltzako buruak gogoratu zuen Euskalduna jauregiko sorrera batzarrean onartutako bost oinarrietako batean euskal herrialde eta udalerrien arteko **senidetza** bultzatzea hartu zuela ardatz nazio instituzioak. **Berria - Euskal Herria**

Teoria, XIX. mendeko filologian, hizkuntza indoeuropar guztien **senidetza** -seme-alabatasuna edo lehengusua izatea- eta euren abiapuntu komuna izango litzatekeen hizkuntza arkaiko bat. **Xabier Arregi**

2 (hitz elkartuetan)

Eta nola bi herriak bat besteari lotuak diren **senidetza** hitzarmen baten bidez, bi elkarteko kideek deliberatu dute harreman batzuen ukaita elgarren artean. **Herria**

senidetze 1 iz senide bihurtzea.

Euskal Herriak bere herrialde eta udalerrien arteko elkar ezagutzaren eta **senidetzeen** premia handia duela uste du Udalbiltzak. **Berria - Euskal Herria**

Senidetzeari begira konpromisoak hartzeko eta elkar aberasteko deia egin zien Arkotxak udalerriei. **Berria - Euskal Herria**

Ofizialki izenpetu zuten **senidetze** hori bi herrietako auzapezek Kanboko bestetan. **Herria**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erran behar da bi herrietako auzapezek izenpetu **senidetze** hitzarenan sortzen ari direla bi herrien artean. **Herria**
Udalbidek nahi du ere "Hurbiltzen" izeneko saila akulatu, Ipar eta Hegoaldeko herrien birazkatze edo **senidetze** urratsak sustatuz. **Herria**
Hunoak ezohiko basatasunezko barbaroak izan arren, eta haien agintea Erromatar Inperioko europar limes-ean iragankorra izan arren, hiru **senidetze** -kasu ohargarriren berri gorde da pasadizo labor honen garaiko kontaketen gerakin zatikatuen artean. **Iñaki Mendiguren**

senior 1 iz aita.

Abeslari lirikoak ziren bere gurasoak, eta aita, Robert McFerrin **Senior**, New Yorkeko Metropolitan orkestrako lehenbiziko bakarlari beltza izan zen. **Berria - Kultura**

2 eskarmentu goreneko mailan dagoen pertsona.

Eta zer esan Hank Miller-ez, unibertsitateko futbol taldeko atzelari eta emakume ospetsuen **senior** mailako limurtzaileaz. **Oskar Arana**

Hernaniko Musika Eskolako Orkestra izan zen akordeoi taldeen ataleko irabazlea, eta Idoia Laburu, **senior** musikarien mailan, Variettes saileko onena izendatu zuten. **Berria - Kultura**

3 kirolariez mintzatuz, hogeita bat urtetik gorakoa.

Seniorretan 67 pilotari ariko dira, 22 urtez azpikoetan 41 pilotari, eta jubeniletan 37. **Berria - Kirola**

19 urte zituela egin zuen **seniorrekin** jokatzeko urratsa, Pauen (Biarno). **Berria - Kirola**

Vega II.a-Markaidak irabazi zuten paletaz, Berasaluze-Bengoetxeak eskuz binaka **seniorretan**, eta Antxia II.ak eskuz banaka **seniorretan**. **Berria - Kirola**

Binakako saioak izango dira, erlojupean, eta **seniorretan** honakoa da ordena: Fortuna-Bermeo, Getaria-Algorta, [...]. **Berria - Kirola**

Lasterketa nagusiak 12:00etatik aurrera jokatuko dira: junior gizonak eta **senior** emakumeak, biak 5.330 metroetan. **Berria - Kirola**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Senior mailako final-laurdenetako azken partida Bellosok eta Oteizak jokatu zuten. Nazioarteko atalean jazotakoaren kontra, **senior** mailan lehen saria banatu zuen bakarrik. **Berria - Kirola**

Modernean Amaturrek eskuinaldea bete dute ikusleetan Junior eta **Senior** bi finaletan. **Herria**

70 batel ariko dira infantil, kadete, gazte eta **senior** mailetan. **Berria - Kirola**

Aguraingo pilotalekuan hiru partida jokatuko dituzte, **senior** eta kadete mailetan. **Berria - Kirola**

5 (izenondo gisa)

Goizeko 10:15ean hasiko da lehen proba, baina 12:15ean hasiko da emakume **seniorrena**, eta orduerdi geroago gizonekoena. **Berria - Kirola**

6 hed

[Akordeoi Leihaketan] nazioarteko atalean jazotakoaren kontra, **senior** mailan lehen saria banatu zuen bakarrik. **Berria - Kultura**

Hernaniko Musika Eskolako Orkestra izan zen akordeoi taldeen ataleko irabazlea, eta Idoia Laburu, **senior** musikarien mailan, Variettes saileko onena izendatu zuten. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

junior senior (3); **senior mailako** (7); **senior mailan** (8); **senior mailetan** (3)

seniparte 1 iz gurasoek seme-alabei utzitako ondasunetik senide bakoitzari dagokion partea. ikondare.

Aita, emadazu dagokidan **senipartea**. **Elizen arteko biblia**

- **Senipartearen** bila etorri naiz, aita. **Javi Cillero**

Denbora batez, Lajosek **senipartea** eskuratu zuenean, elkarrekin bizi izan ziren hiriburuan [...] ezkongabe-apartamentu zoragarri batean. **Ander Irizar**

Maisu, esaiozu nire anaiari **senipartea** nirekin erdibanatzeko. **Elizen arteko biblia**

Iraganean larderia emateko erabili zituen taktika berberak erabili zituen **senipartea** kentzeko mehatxua, aldika eman ohi zizkion diru-kopuruak berririo ez emateko mehatxua. **Oskar Arana**

Bere jabetzatik bakarrik emango die semeei **senipartea**. **Elizen arteko biblia**

- Etxetik bota, eta **senipartetik** kendu zuen. **Jon Muñoz**

2 irud/hed

Hauxe da Jaunaren zerbitzarien **senipartea**, nik ematen dieran garaipena. **Elizen arteko biblia**

Harrezkero, beste **seniparterik** ez-eta, susmo txar haiek hartu zituen osabaren ondareztat, eta susmo horien gainetik Aita Morlansenganako herra, bihotzean zulatua betiko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

senitarte 1 iz anai-arreben multzoa; ahaideen multzoa.

Senitartean, lagunekin edo bikotean gaztelania erabiltzeko joera da nagusi. **Berria - Euskal Herria**

Antza denez, ehorzketaren eguna arte Sabinoren **senitartea** bera ere ez zuten zeremoniaz ohartarazi. **Ramon Saizarbitoria**

Izaba Milca-ren susmoen idotik, osabak **senitarte** guztia eraman zuen horrenbestez bere hondo-jotze hartan. **Juan Garzia**

Senitarte ezagun horretan bazen bat letregana gerturatu zena, Juan Perez Lazarraga zen berau. **Berria - Kultura**

Helegite Auzitegiaren erabakia poztasun oihu eta txalo artean hartu zuten epaitegiaren aurrean bilduta zeuden biktimeen **senitarteek**. **Berria - Mundua**

Diru laguntza eta Gizarte Segurantzako kotizazioa zaintze-lanak egiten dituzten **senitarteei** emanez etxeko zaintzei garrantzi handia egozten die, zerbitzu publiko eta anitzen sorreran lehentasun osoa jarri beharrean. **Berria - Harian**

2 (israelarren artean)

Judaren leinuko **senitarteak** aurkeztarazi eta Zerahen **senitartea** gertatu zen izendatua. **Elizen arteko biblia**

Juditen senarra, Manases, beraren leinu eta **senitarte** berekoa, garagarren uzta-aroen hila zen. **Elizen arteko biblia**

Tobitek galdetu zion: ene anaia, zein **senitarte** eta leinutakoa zaitugu? **Elizen arteko biblia**

-Zer, emakumerik ez al da, ba, zure **senitartean** eta zure herri osoan, filistear erdaingabe horien alabetara joateko emazte eske? **Jose Antonio Mujika**

Simeonen leinuko **senitarteak** ez ziren Judarenak bezain ugari izan. **Elizen arteko biblia**

-Zureak egin du, Ahimelek!, zureak eta zure aitaren **senitarte** osoarenak! **Elizen arteko biblia**

Apaiz lebitarren familia osoak sartu behar zuen erroldan: emazte eta seme-alabekin, hots, **senitarte** osoak. **Elizen arteko biblia**

Hauak guztiak familiaburu izan ziren beren **senitartean**. **Elizen arteko biblia**

Isakarren **senitarte** guztietako ahaideak, denen errolda kontuan harturik, laurogeita zazpi mila gudari adoretu ziren. **Elizen arteko biblia**

Benjaminen leinuaren lurraldean, berriz, beste hiri hauek eman zizkieten: Geba, Alemet, Anatot eta hauen inguruetak herri-lurrak; orotara, hamahiru hiri **senitarte** haientzat. **Elizen arteko biblia**

Jende ona da zure **senitartea**. **Elizen arteko biblia**

3 (hitz elkartuetan)

Lebitarren senitarte bakoitzak lagun diezaiola herriko **senitarte** -talde bati. **Elizen arteko biblia**

Goiz osoan zehar, hirurek piazientzia handiz bisitatu zituzten klanak, Maelek ordenaturik bakoitzaren garrantziaren edo **senitarte** harremanen arabera. Joanes Urkixo
Auzolagun eta **senitarte** elkartasun batek du bata eta besteen gutxien-gutxieneko egunerokotasuna nola edo hala ziurtatzen. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

senitarte osoa (4); **senitartez senitarte** (5)

aitaren senitarte (3); **nire senitarte** (4); **zure senitarte** (3)

judaren leinuko senitarteak (3); **leinuko senitarteak** (18); **ondorengo senitarteak** (3)

bere senitartearen (4)

leinuko senitarteei (9); **leinuko senitarteei egokitu** (7); **ondorengo senitarteei** (3)

leinuko senitarteek (3)

senitarteburu iz senitarteko burua.

Orduan, Salomonek bere inguruan, Jerusalemen, bildu zituen Israelgo herri-arduradun guztiak, leinuburuak eta israeldar **senitarteburuak**. Elizen arteko biblia
Lebitarren **senitarteburuak** Eleazar apaizarengana, Nunen seme Josuerengana eta israeldar leinuetako **senitarteburuengana** joan ziren. Elizen arteko biblia

senitarteka iz senitarteen arabera.

Egizu lebitarren izen-bilketa, **senitarteka** eta familiaka, hilabetez gorako gizonetako erroldatuz. Elizen arteko biblia

Jar zaitezte, bada, Jaunaren aurrean leinuka eta **senitarteka**. Elizen arteko biblia

Amatziasek bildu eta **senitarteka** antolatu zituen Juda eta Benjaminen leinuetako gizonak, mila gizonen eta ehun gizonen buruzagiak ezarriz. Elizen arteko biblia

Ekialdeko muga Jordan ibaia zen; horra, bada, Benjaminen leinuko **senitarteka** banaturiko ondarearen mugak. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

izen bilketa senitarteka (4); **senitarteka banatua** (11); **senitarteka erroldaturik** (3); **senitarteka eta familiaka** (9)

senitarteko 1 iz ahaidea, familiakoa.

Ondasun handiak eskuratu ahal izateko, **senitarteko** eta adiskideei banatzeko asmoz. Askoren artean

Bazuten **senitarteko** bat Parisen, amaren anaia bat. Karlos Zabala

1936ko gerran fusilatuen **senitarteko** eta lagunen batzordeak antolatuta. Berria - Euskal Herria

Tom **senitartekoa** balitz bezala da niretzat, eta zu Tomen **senitarteko** zarenez, nire **senitarteko** zara zu ere. Oskar Arana

Garaziren **senitarteko** lapurtarrak ere etortzen ziren normalean; eta gure mahaikide izaten. Txillardeggi

Gertaera hark, bai **senitartekoak** eta bai inguruan genbiltzan batzuk markatu egin gintuen ezinbestean. Jokin Urain

Hark Jaurilaritzan zuen **senitarteko** baten bidez ere saiatu nintzen, baina ez nuen lortu. bakarrik **senitarteko** hurbilenean bisitak izateko eskubidea dute. Joxerra Garzia

Senitarteko guztiak opariak eskaini zizkioten, eta niri ipuin bat egitea otu zitzaidan. Iban Zaldúa

Oraingo, zu eta Rachel zarete irentsi ahal ditudan **senitarteko** bakarrak. Oskar Arana

Bost auzi-jartzaileek hainbat **senitarteko** galdu zituzten nazien kontzentrazio esparruetan. Berria - Gaiak

Salomon Egiptoko faraoiarekin **senitarteko** egin zen, haren alaba batekin ezkonduz. Jose Antonio Mujika

Gainerako gonbidatuak, berriz, bertsolariak eta **senitartekoak** ziren. Joxerra Garzia

Nire **senitartekoa** da, nire jende artekoa. Oskar Arana

Galdera horiek ia egunero entzuten dira bakarrik bizi den adineko **senitartekoren** bat duten familietan. Berria - Gaiak

Mutil hori, **senitartekoa** al duzu? Oskar Arana

2 (izenlagun gisa)

Senitarteko festa bat antolatuko dugu. Irene Aldasoro

Gizon egin nintzenez, gure **senitarteko** emakume bat, Ana izenekoa, hartu nuen emazte. Jose Antonio Mujika

Ilunabarrean hil zenez, biharamunerako utzi zuten lur ematea, **senitarteko** jende ugaria bildu ahal zedin. Askoren artean

Delako euskal gatazka hori ez dela espainolen ez frantsesen egitekoa, euskaldunen arteko gerla baizik eta, ondorioz, **senitarteko** liskarrak oro bezala, polizia dagokiola gaizkileen zentzatzea. Piarres Xarriton

3 senitarte.

Jaso ezazue euskal preso politiko guztion dolumin zinezkoena, euskal preso politikoon **senitarteko** osoari zabaltzen dioguna. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere senitarteko (9); **fusilatuen senitarteko** (3); **gure senitarteko** (3); **kehaten senitarteko** (4); **senitarteko eta lagunei** (5); **senitarteko eta lagunak** (4); **senitarteko eta lagunak** (3); **senitarteko guztiak** (5)

senitartekoa da (3); **senitartekoa zen** (4)

presoen senitartekoak (5); **senitartekoak eta lagunak** (7); **senitartekoak ziren** (3)

biktimen senitartekoei (3); **euren senitartekoei** (4); **hildakoen senitartekoei** (3); **senitartekoei eskaini** (3)

bere senitartekoak (3); **biktimen senitartekoak** (5); **fusilatuen senitartekoak** (4); **senitartekoak eskatu** (3)

akaben senitartekoen (6); **bere senitartekoen** (3); **euren senitartekoen** (3); **fusilatuen senitartekoen** (9); **fusilatuen senitartekoen elkartek** (6); **nafarroako fusilatuen senitartekoen** (8); **senitartekoen elkartek** (9)

senitartekotasun iz senitartekoen arteko lotura. ik senidetasun.

Gutxitan, oso gutxitan izan dira adiskidetasuna edo **senitartekotasuna** euskal nobelaren sorburu nagusi. Berria - Kultura

Kontua da Araujorik gabeko Maria da Graçaren 25 urteetan inork ez ziola inoiz, gaiztakeriaz, begirune faltaz edo jolas hutsez, Napumoceno jaunarekiko [...] balizko **senitartekotasunik** aipatu ere egin. Bego Montorio

señora iz anderea, andrea.

-Mila esker, **señora** -agurtu zuen oraingoan Taniak. Jon Muñoz

Non lagako ditut, **señora**. Joxemari Urteaga

Gutxiago behar izan du **señorari** badoala esateko. Arantxa Iturbe

Orain leundu egin da **señora**. Pako Aristi

Algara ederra egingo du entzuten duenean zer komeriak izaten zituen **señora** gajoak loreak zaindu ezinean. Arantxa Iturbe

Eta hor daude, edo zeuden, asto ilunak eta aker beltzak; Mari edo hango eta hemengo damak, **señorak** eta sorginak; basajaun, herensuge, tartalo eta beste. **Iñaki Seguro**la **"Señoraegi** ematen dut!", esaten zuen. **Fernando Rey**

señorita 1 iz emakume gazte ezkongabea.

Veleno artean beste neska batekin ibiltzen zen, neska Veleno bezain altua zen eta ordurako **señorita** bihurtua, eta saltzaile zen denda batean. **Pello Lizarralde**

2 ikastetxeko maistra.

*Formación del Espíritu Nacional*eko **señoritak** mahaiaren gainean zuen paper bat gainetik kendu eta azpian beste bat aurkitu zuenean. **Joan Mari Irigoien**

Petardo bat behar baitzuen berak, hain zuzen ere, **señoritare**n klasean nola edo hala lehertzeko! **Joan Mari Irigoien**

3 adkor prostituta.

Han-hemenka **señorita** asko ikus zitezkeen bi barren inguruan, eta aldika bezero batzuekin esertzen ziren, geroxeago saloiaren atzealdean zegoen erreserbatu batean desagertu baino lehen. **Joxemari Iturralde**

Atzerantz zihoazen turisten prozesioa -erreserbatuan alde zurreratik aukeraturiko **señorita** baten laguntzarekin- etengabea zen. **Joxemari Iturralde**

Angel **señorita** horietako batekin etorri zunan Iruainera inork ikusiko ez zuelakoan, eta ari zunan hor larrua jotzen eta zaldia irrintzika, bera jo eta jo eta zaldia irrintzi eta irrintzi. **Bernardo Atxaga**

señoritinga iz adkor señorita.

Luxua gustatzen baitzaio **señoritingari**, afaltzera irten, pitxi dotorez apaindu, pelukeria, arropa garestiak. **Karlos Linazasoro**

señoritismo iz señoritoari dagokien gizarte jokaera.

Señoritismo -an erori gabe, euskal idazlea, kritikoki, ezker abertzalean kokatu behar dugu; hemen idazle batek bere herri zapalduarekin bat eginda lan egin behar du **Berria - Kultura**

señorito 1 iz aberatsen semea, alferkerian bizi dena.

Hura bai amodio haragigabe eta "platonikoa". Donostiako **señorito** sasi-jakintsuek esaten zuten bezala esateko. **Txillardegi**

Neskamearen esanetan, **señoritoa** irten berria baitzen kanpora, egun osorako, bere anaietako baten etxera. **Joan Mari Irigoien**

Eta hurrengo egunean, beste bat izango zen aitzakia, **señoritoa** bildurik baitzegoen familiarekin, aitek utzitako negoziotei buruz hitz egiteko. **Joan Mari Irigoien**

Neskameak hala esan zidan txikitari, gure ama **señoritoen** espaloioa zela, ez dakit gorrotoz ala mirespenez esan zuen. **Mikel Hernandez Abaitua**

Protestaldi gisa, zuhaitzak moztzen hasi ziren, hango **señoritoek** ez baitzuten fruitu arbolarik ez bestelako labore sailik landatu nahi. **Jon Maia**

Ez zituen maite Tomen lehengusuak, haiek bai zirela **señoritoak**, gure artera azaltzen ziren bakanetan aletak jantzita egiten zuten igeri, bermudak erabiltzen zituzten. **Koldo Izagirre**

Finketara zihoazenei lapurtzen zien, **señoritoei**, haien alaba pinpirinei, medikuei, apaizei, badakizu, jendilaje horri guztiari. **Jon Maia**

Bere lagunek gizarte-maila oneko madrildar **señorito** baten ideiak eta bizimodua hartzera bultzatzen bazuten ere, Hurtadok ez zuen etsitzen. **Josu Zabaleta**

Etorriko da ama sukaldetik berriro, **señoritoak** telebistaren aurrean ikusmena galtzen duen bitartean -bota zion semeari. **Joxemari Urteaga**

2 (hitz elkartuetan)

Aspaldion **señorito** ohiturak hartuta habil. **Unai Iturriaga**

Bai; **"señorito"** herria omen dela Miarritze: dena errege, erregina, printzes, jauregi... **Txillardegi**

senper

1 senperrek ikusi/ikusarazi asko sufritu/sufriarazi.

Senperrek ikusi ditiat katea limatzen eta karraskatzen, eta lehen bezalaxe zegok. **Anton Garikano**

Eman dian porrazo bakoitzeko, **senperrek** ikusaraziko zizkioagu Xegama horri. **Koldo Izagirre**

- Hori ez zekiten ni atxilotzera heldu ziren mendizerriek, eta **senperrek** entzun behar izan zituzten lekuko gisa sinarazi nahi ziotelako paper bat, nire etxeko miaketan ikusle egon gabetanik. **Koldo Izagirre**

Hala entzuten nion behin, mahainguru batean, literatur itzulpenak menosten dituen baina euskara itzulpen tekniko eta burokratikoaren pean itotzeko **senperrek** eta bi egiten ari den hizkuntzaren teknokrata bati: [...]. **Anjel Lertxundi**

Eta apologistek katolizismoa dela egiazkoa protestantismoaren aurka, edo alderantziz, demostraturaz, **senperren** lanak ibili dituzte beti. **Joxe Azurmendi**

2 senperrenak ikusi/ikusarazi asko sufritu/sufriarazi.

Itzultzaile arituenak eta trebatuenak ere gorriak eta **senperrenak** ikusi beharko baitzituzkeen, jatorrizkoa itzultzeko. **Patxi Altuna**

Senperrenak ikusi zituela, hori bai, baina joan zirela oinazeak. **Inazio Mujika Iraola**

Gogoratu **senperrenak** ikusi zenituela mutil horren erruz... **Mirentxu Larrañaga**

Senperrenak ikusarazten zizkion Allie-ri, okela berak nahi bezain bizkor ebakitzen ez bazion. **Mirentxu Larrañaga**

3 senperrenak egin ahalegin handiak egin.

Amak eta arrebak zaharrenak **senperrenak egin** behar izan zituzten, aita zenak toxikomanoak bergizarteratzeko zentro batean giltzapera ez nintzan. **Aingeru Epaltza**

Begiak erdi itxita zeuzkan eta **senperrenak egin** ari zen haiek ireki nahirik, logaleari eusteko. **Lopez de Arana**

Senperrenak egin ditu zer ahaztu zaion gogoratzeko: sudur-zapia, beharbada? **Jose Morales**

Filotti hau kea ere emango ez lukeen zeken eskulehor horietako bat zen, eta lira bat aterarazteko **senperrenak egin** behar izaten ziren. **Koldo Biguri**

Nik behintzat, **senperrenak egin** arren, ez nuke hobeki pintatuko. **Patziku Perurena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

senperrenak egin (5); **senperrenak egin** (3); **senperrenak ikusi** (5)

senperrendu, senperren(du), senperrentzen da ad ahalegin handiak egin.

Idatzi ere samin eta suminetan idazten **senperrendu** dena bigarren karlistada galduaren ondoko euskal gizarte abarrakitan. **Joxe Azurmendi**

Ez duela merezi modernotzen **senperrentzea**, hala ere ez lukeelako balio "munduan", mundu modernoan gabe. **Joxe Azurmendi**

senpersekula *iz* ik sekulurun.

Hementxe nagoen lekuan, hementxe egona nauzu **senpersekula** guztian... beno, ez hain beti ere. **Juan Garzia**

senpertar 1 *izlag* Senperekoa, Senpereri dagokiona.

Emanak eman, ez baitzuen biderdi uztekotan hasia bere ildoan **senpertar** laborari semeak. **Herria**

Mirentxu Doyhenard, 23 urteko **senpertar** gaztea. **Herria**

Senpertar pilotari gazteak ez dira berehala jokoan sartu, ondarrera aldiz beren ahal handiak erakutsi dituzte. **Herria**

Hona, adibidez, Azpeitiko bestetan, 1894an, Adema Zaldubiri egin omenaldian, **senpertar** kalonje xaharrak, karia horretara, ontu zuen errepika: [...]. **Piarres Xarriton**

Ondotik sailkatu dira Lopez **senpertarra**, Duhalde milafrangarra, Daguerre jatsuarra, Iribarren **senpertarra** eta Habans larresoroarra. **Herria**

Hogoi urteko lan luzea du bururatu Henri Duhau **senpertarrak**. **Herria**

2 *iz* Senpereko biztanlea.

Euskaraz mila bider esana eta idatzia berritu dezagun hemen, bat hautatu behar eta Zaldubi aspaldiko **senpertar** haren ahoz: [...]. **Iñaki Segurola**

Senpertarrak baigorriar trebea garaitu du. **Herria**

Urruñarrak xapeldun **senpertarren** aitzinean. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

senpertar gaztea (4)

sensazio ik **sentsazio**.

sensibilitate ik **sentsibilitate**.

sensibilizatu ik **sentsibilizatu**.

sensibilizazio ik **sentsibilizazio**.

sensible ik **sentsible**.

sensoire ik **sentsore**.

sensorial ik **sentsorial**.

sensoriomotor *izond* alde sentsorialak eta motorrak hartzen dituen.

Denbora-sekuentzien entzutezko pertzepzioa ahotsaren aparatu **sensoriomotorraren** zenbait adaketaekin egokiturik, guztiz modu berrian sinboliza daiteke, eta kodetu, irudikapen kognitibo hori. **Juan Garzia**

sensu ik **sentsu**.

sententzia 1 *iz* epaia.

Gizon bati ezin zaio errudun deitu epailearen **sententzia** baino lehenago. **Juan Martin Elexpuru**

Sententzia irakurriko diat. **Edorta Jimenez**

Sententzia emateko eginbidea dugu eta hemen idatzia den bezala erraten dugu. **Piarres Xarriton**

Sanz Bareak egin zuen txostenak baliorik ez zuela erran zuen **sententziak**. **Berria - Euskal Herria**

Gobernuaren jarduerak, halaber, ez dio **sententziak** jasotakoari men egiten. **Berria - Euskal Herria**

Sententzia hura berretsi zuen 1997. urtean Espainiako Auzitegi Gorenak. **Edurne Elizondo**

Fiskalarentzat delitua ez zegoen preskribitua, eta, gainera, uste du forma akatsak daudela **sententzian**. **Berria - Euskal Herria**

Iruñeko Familia Epaitegiak plazaratutako **sententziak** haur bat adoptatu nahi duten bikote homosexuali «bidea ireki» diela uste du abokatuak. **Berria - Euskal Herria**

Epaileak **sententziak** azpimarratu duenez, familia ez da mugatzen gurasoen eta seme-alaben harremanetara. **Berria - Euskal Herria**

Hainbat **sententziak** legez kanpokatutako izan dute urtegia. **Edurne Elizondo**

Sententzia oso sendoa da, eta uste genuen helegitea aurkezteko aukera aztertu ere ez zuela eginen Itoizko Koordinakundeak. **Edurne Elizondo**

Bosman **sententziak** merkatua zabaldu eta futbolaren inguruan dantzan dabiltzan hainbaten interesa ere areagotu zuen. **Berria - Harian**

C-93/415 **sententziak** Europako kirol araudia hankaz gora jarri zuen. **Berria - Harian**

Lege berria bultzatu zuten arrazoiei eskaini zieten tartean, Itoitzen kontrako **sententziak** eragindako araudia dela onartzen du. **Edurne Elizondo**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

1948. ean bizi osorako kartzela **sententzia** eman zioten. **Iñaki Zabaleta**

"Jendeen erranez" deitu kapituluko eskumiku **sententzian** erraten da alabaina Frantziako erreinuan heretikoak ez direla zigortuko. **Piarres Xarriton**

-Zuen heriotza- **sententzia** sinatu duzue. **Julen Gabiria**

Zergatik eman zion heriotza- **sententzia** ? **Irene Aldasoro**

3 esaera, esakunea.

Eta nola apuntatzen nituen nik gisa hartako **sententziak** eta erranak, ene spirituak harri preziatu haien ederretik hats hartuko balu bezala...! **Joan Mari Irigoien**

Uste izan genuen Amurizak bertsozintza irauli zuen kantaerarengatik, bere metaforizatze gaitasunarengatik, bere **sententzien** eder-betearengatik... **Andoni**

Egaña

Tomas Handiak frogatzen duen bezala, **Sententzien** 2. liburua 3. bereizketako galdearen 6. artikuluan, nahiz bestaldera, edozein substantzia ez den giza arima. **Piarres Xarriton**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldeko sententzia (3); **aurkako sententzia** (3); **auzitegiaren sententzia** (3); **behin betiko sententzia** (6); **emandako sententzia** (3); **epailearen sententzia** (3); **kontrako sententzia** (3); **plazaratutako sententzia** (6)

sententzia bete (4); **sententzia betetzeko** (3); **sententzia eman** (12); **sententzia eman arte** (3); **sententzia plazaratu** (4)

kontrako sententziak (3)

sententziaren arabera (8); **sententziaren berri** (4); **sententziaren zain** (3)

sententziatu, sententzia(tu), sententziatzen 1 du *ad* epaia eman; kondenuatu.

Madrilgo ospitalera eraman gintuzten eta erabakirik ei zegoen beste espetze batzuetara aldatzea, baina azken uneko Ministro Kontseilu batek **sententziatu** ei zuen gu berriro Zamorara itzultzea. **Jokin Urain**

Espainiako prentsa guztia gainean izan dugu, etengabeko presioa jasan dugu, komunikabideetan **sententziatu** egin gaituzte. **Berria - Euskal Herria**

2 baieztatu.

Depresioak aire guztia kentzen baitie baita beste egoera batean gora egin dezaketean ametsen globoei ere -eta, zalantzaldi baten ondotik, **sententziatu** zuen- horregatik, heriotza baino okerragoa da. **Joan Mari Irigoien**

-"Estatuarekin, azken batean, ez gaitzezen engaina", **sententziatua** zuen Godotek. **Iñaki Iñurieta**

Hirekin beti berdin: lan bat kendu, eta handiagoa jarri...! - **sententziatu** zuen amak, zaplazteko bat ematen zidala, bizitza osoan eman didan bakarra. **Joan Mari Irigoien**

-Garçon, ardoa edateko asmatu zen, ezarririk pasa ondoren lurrunak garuna kilika dezan, eta ez poesia egiteko **sententziatu** zuen aitagarrebak etxera sartu zen lehenengo hartan. **Joxemari Urteaga**

senti (*orobat sendi*) ipar

1 senti izan du *ad* (indikativoko formetan) sentitu.

Bihotzean zarratza bat **senti** dutela diote aintzek, partida denboran entzutearekin: *a moi* edo *laisse*. **Herria**

Sabelean mugitzen **sendi** diat; jalgi nahi dik eta nik nahiago nikek hor egon dadin. **Elena Touyarou**

Beste asko bokazione **sendi** ditut nere baitan: apez, apostolu, martir bokazioneak... **Herria**

Ez dut **senti** Euskal Herria. **Piarres Aintziart**

Ezin da erran nola mintzo ziren hartaz jendeak, ez zer **senti** zuten haren aldera erromesek. **Piarres Xarriton**

Etsituak gira, herioa ez dela urrun **sendi** baitugu. **Michel Oronoz**

Erran nezake beraz "zuzenak", hala **senti** baititut ezagutzen ditudan euskal fededun horiek. **Piarres Aintziart**

Horitik dator Izpiritu batek eta Gorputz batek osatzen dutela gizakia eta giza Gorputza existitzen dela **senti** dugun bezala. **Piarres Xarriton**

Bere bere hura **sendi** ez duenak ez du ulertuko mundu zabaleko gauzen neurria eta zentzua. **Herria**

Lehenengo barkoxtarraren "ahuntz-jaki jate" hartan ez omen baitzen deus eskasik... daukat halere **sendi** zutela kantari horiek norbaiten mina... **Herria**

2 (da ad, inpersonaletan)

Kanbiamen aire azkarra **sendi** da Xiberoko sindikatean. **Herria**

Lantegi askotan, **sendi** da holako giro mintu aire bat. **Herria**

Euskal-Herrian, salbu Xuberoko alde hortan diotenaz, ez da mediku eskas hori orainokoa **sendi**. **Herria**

Jendetasuna **sendi** zen zure ondoan. **Herria**

Garzteetan **senti** zen egonezin bat, gizarte problemei buruz. **Piarres Aintziart**

sentiarazi, sentiaraz, sentiarazten (*orobat sentierazi g.er. eta sentituarazi g.er.*) 1 du *ad* sentitzera behartu.

Damuaren auzoko den errudun-sentimena sortu bide dio bizidunak abandonatu beharrak, borondatez kontrako desertore, gogoz kontrako traidore **sentiarazi** bide du.

Imanol Zurutuza

Aspaldi honetan Pedro Agerre gauza anitzek **sentiarazten** dute bekatari. **Aingeru Epaltza**

Baina hain da handia basamortua, hain dago urruti zeruertza... ezen txikia **sentiarazten** baitute jendea, eta isilik egonarazten. **Xabier Aranburu**

Deseroso **sentiarazten** zuen berehala Anak halakoetan, bere kontraesanetan harrapatuta. **Iñaki Iñurieta**

Ordea, denbora guztian etzanda egoteak sakrifizioarako zain dagoen abere otzan bat bezala **sentiarazten** zuen, eta bere buruari lana jartzea deliberatu zuen. **Bernardo Atxaga**

Horrek zaharrago **sentiarazten** zuen, adiskide ezkonduak izateak alegia. **Koro Navarro**

Odolean barna bueltaka zebilzkion alkohol litroek, erretako marihuana guztiak eta bere sudurraren birjintasuna apurtua zuten lerro sutsuek burrunbadan irentsia balego bezala **sentiarazten** zuten. **Sonia Gonzalez**

Hotza eta harriaren gogortasuna **sentiarazten** zituen erantzuna: [...]. **Jose Morales**

Nire betidaniko joera batek [...] Jonas balearen sabelean egon zen hartan bezala **sentiarazten** nau. **Anjel Lertxundi**

Izugarri gaizki **sentiarazten** nau. **Mirentxu Larrañaga**

Ez nion deus ere aitortu, traizio txiki hark oraindik ere gaizki **sentiarazten** nauen arren. **Joxan Elozegi**

Ondo **sentiarazten** nauzu! **Pako Aristi**

Ongi **sentiarazten** zaitu. **Alberto Ladron Arana**

Kontzientzia lasai edukitzeak sendo **sentiarazten** zaitu! **Josu Zabaleta**

Sarkin **sentiarazten** gaitu. **Harkaitz Cano**

«Batzuetan gaizkileen moduan **sentiarazten** gaituzte», gaineratu zuen ELAko ordezkariak. **Berria - Ekonomia**

Eta hitzuna zen, izugarri hitzuna: lehenengo unetik eroso **sentiarazi** gintuen. **Iban Zaldúa**

Bazen han desgogara **sentiarazten** ninduen zerbait: nire aurreko ispilua, urrezaturiko markoduna. **Joxe Austin Arrieta**

Hitz batean esatearren: askeago **sentiarazten** ninduen [pilulak]. **Patxi Zubizarreta**

Galtzontzilo hutsetan zegoen, eta horrek jantziegi **sentiarazi** ninduen. **Aingeru Epaltza**

Eta ez dizuet ukatuko, ene lagunak, lapurretako batek errudun **sentiarazi** ninduela. **Patxi Zubizarreta**

Makina bat pasadizo gogoratu nituen, gero eta errudunago **sentiarazi** nindutenak. **Pedro Alberdi**

2 (nor-nori-nork sailekoak)

"Polita" iruditzen zaio, baina ez dio barnean ezer **sentiarazten**. **Xabier Olarra**

6 (testuinguru teknikoetan) ik **sentikor 3**.

"Fotograma" hitzak bi esanahi ditu [...]: argazkigintzan, gainazal **sentibera** batean, objektibo batetik igaro gabe, argazkiak duen eraginaren bidez eratzten den irudi bat nahi du esan. **Josu Zabaleta**

Oso **sentibera** da usainetarako. **Xabier Olarra**

Kono mota horietako bakoitza uhin-luzera desberdin baterako da **sentibera**. **Josu Zabaleta**

Erretina begiaren barneko geruza bat da, argiarekiko **sentibera** den geruza. **Berria - Gaiak**

Uhin-luzerarekiko **sentibera** ziren V1eko zelulek ateratzen zituztela uhin-luzera bakoitzaren argitasun-indizeak. zelula "iragankorrek" berriz, eremu aski zabala dute, estimulu aldakorrei erantzuten diete, periferian daude batez ere, eta ez dira oso **sentiberak** irudi lausoetarako. **Xabier Olarra**

7 (testuinguru teknikoetan hitz elkartuetan) ik **sentikor 4**.

Izan ere, konoeak (hau da, erretinako zelula kolore-**sentiberak**) duten akats baten ondorio izaten da. **Xabier Olarra**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

emakume sentibera (3); **gizon sentibera** (4); **oso sentibera** (13); **pertsona sentibera** (4); **sentibera eta samur** (3); **sentibera izan** (3)

sentiberatasun 1 iz sentibera denaren nolakotasuna. ik **sentikortasun**.

Normala baino askoz sentiberagoa zen; baina pasiboa zen **sentiberatasun** hori, hautapen edo gune-zehaztapenik gabea. **Xabier Olarra**

Torturaren arrakasta izakera eta kalkulu kontua da; kalkulua gizon batetik bestera asko aldatzen da bakoitzaren sendotasunaren eta **sentiberatasunaren** arabera. **Juan Martin Elexpuru**

Zenbateraino gara dezake **sentiberatasun** edo estilo berezko bat? **Xabier Olarra**

Sentiberatasun horren suak ez ditzala gure plazerak baino berotu! **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Alabaina, inspirazio eta **sentiberatasun** bera aurki daiteke obra osoan. **Askoren artean**

Gizarte-egoeran, animak samurtuz doazen neurrian, hazi egiten da **sentiberatasuna**, eta hau hazten denean leundu egin behar da zigorraren indarra. **Juan Martin Elexpuru**

Biografoek Frantzisko gaztearen bihotz ona eta eskuzabalasuna azpimarratzen dute, eta bereziki behartsuenganako **sentiberatasuna**. **Askoren artean**

Efektu honek lehenengo estimularekiko **sentiberatasuna** txikitzen du: kontraste gutxiago nabaritzen da, begi-zorroztasuna gutxitu egiten da. **Josu Zabaleta**

Nire adaitasunak, **sentiberatasunak** edo dena delakoak hunkiturik, bere etxera eraman ninduen. **Joxean Agirre**

Barkatuko didazue, baina nik ez dut sinesten diruaren **sentiberatasunean**. **Berria - Kirola**

2 (izenondoekin)

Andre Virginiak guztiz **sentiberatasun** fineko emakumea zela erakutsi nahi zuen. **Josu Zabaleta**

Artista plastikoa da eta, beraz, paisaietarako **sentiberatasun** berezia duena. **Iñaki Iñurrieta**

Bazeukan halako **sentiberatasun** berezi bat jendeak erakusten zuen kualitate fisikoarekiko. **Jon Alonso**

Naturarekiko **sentiberatasun** berritu honetan [...] laguntzaile bikaina izan nuen Faustino Erro. **Txillardegi**

Margolari klasikoek **sentiberatasun** handia izan dute beti bitartekaritza-eginkizun horretarako. **Josu Zabaleta**

Nortasun handiko emakumea da, **sentiberatasun** sakonekoa, argia eta orekatua. **Askoren artean**

Horrez gain, **sentiberatasun** aparteko gizakia zen. **Alberto Ladron Arana**

Andres Hurtado medikua urte askoan izan da ingurunearen aurkako eta ideologia eta **sentiberatasun** nagusien aurkako errebeldiaren sinbolo. **Josu Zabaleta**

Zaildu, landu, zigortu, bihotza gogortu, **sentiberatasun** belaxkari biderik ez eman. **Anjel Lertxundi**

Ezin al duzu bertan behera utzi **sentiberatasun** milika hori? **Mirentxu Larrañaga**

Esnatu beharra daukazu zure **sentiberatasun** desfasatu horretatik. **Ramon Etxezarreta**

Kezka politikoa, **sentiberatasun** soziala, ankerkeria batzuen ezagutza, munduan dagoen saminaren negar-zotina iritsia zen ordurako nire belarrirara. **Pako Aristi**

Aukera guztiak zirela egoki **sentiberatasun** sentigogorraz hitzegiteko; ahaleginak egin behar zirela edertasuna aberekeriaren maskara bihur ez zedin. **Bernardo Atxaga**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Berrikusketa bat ari zen gertatzen, halatan non, bere lehengo mundu koloretakoa, eta are haren oroimena, ahultzen eta barnean itzaltzen ari zitzaizkion bitartean, ikusmen-, irudimen- eta **sentiberatasun**-mundu berri bat ari baitzitzaion aldi berean jaiotzen. **Xabier Olarra**

Gizartearen eta kontsumitzaileen arreta edo **sentiberatasun** areagotze horretan eragin itzela izan du GKEen eta hirugarren sektorearen hedapenak. **Iñaki Heras**

Guk edaniko ardoaren ozpinduak zer berezi bat, hondar berezi bat utzi baitzuen gudan, **sentiberatasun** isuria biziki areagotzen zuena. **Karlos Linazasoro**

Mugimendu hauek **sentiberatasun**-galera txikiago edo handiago bat eragiten dute beti, gertatzen ari diren bitartean. **Josu Zabaleta**

Sinetsi, Eugeni, sinetsi **sentiberatasun** ezetik jaiotzen diren atseginak sentiberatasunak emandakoak baino gehiago balio dutela. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Kopeta makurtuta urrundu behar izan dut handik, lotsaz beteta erakutsi dudana **sentiberatasun** faltagatik. **Jon Arretxe**

Begiak oso **sentiberatasun** tarte zabala du luminantziarako, lehen ikusi dugun bezala (10-6 cd/ml-tik 107 cd/m²-ra). **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sentiberatasun aparteko (3); **sentiberatasun apur** (3); **sentiberatasun berezia** (4); **sentiberatasun handia** (6)

halako sentiberatasuna (3); **sentiberatasuna izan** (3)

sentiberatasunik gabeak (3)

sentiberatu, sentibera(tu), sentiberatzen da/du *ad* sentibera bihurtu.

Argituz, finduz, **sentiberatuz** joango da beti. **Joxe Azurmendi**

Hasi omen da hizketan, ahora etortzen zaizkionak botatzen, urduri, **sentiberaturik**, besoak astinduz etxeen gainetik zeru-ertzerara begira. **Pako Aristi**

Matazako haria askatu ahala, neuk ere askatzenago nabaritzen nuen neure barrua, baretzenago eta **sentiberatzenago**. **Hasier Etxeberria**

sentiberatze iz sentibera bihurtzea.

Erabilera askeko guneetan euskara erabiltzeko zerbitzuak eskaini, bilguneak sortu eta **sentiberatze** lana egiteko jarduerak garatu. herritarren kontzientzia lantzeko egin izan digutun informazio eta **sentiberatze** kanpainak. **Berria - Euskal Herria**

Entitate, zerbitzu eta enpresa pribatuak; komunikabideak; azpiegiturak; diru laguntzak; **sentiberatze** eta partaidetza; koordinazioa eta aurrekontua. **Berria - Euskal Herria**

sentidu¹ iz zentzua.

Miranderen amoralismoak ere, kristautasunaren arbuioak bezalaxe, bere testuinguru eta lagunarte zabalagoa duela, hortxe duelarik bere **sentidua** kultur historian. **Joxe Azurmendi**

Gizakia historian bizi da eta historia bizitzaren **sentidurik** edo ekintzaren arau absoluturik emateko ez du balio. honen guztiaren **sentidua**, barne-barnean, ez da hertsiki historikoa. **Joxe Azurmendi**

Aro suntsituaren amaia zibilizazio berri baten hasiera irekitzen zuela, balio-sistema eta bizitzearan **sentidu** berriekin. **Joxe Azurmendi**

sentidu² ik **sentitu**.

sentiera 1 *iz* sentimena; sentipena. ik **sentikera**.

Nire **sentiera** guztiek, nire gurariet, nire joranez, jomuga aurkitua zuten noizbait ere! Portretak ere margotu zituen, nahiz eta jakin ezin zuela ereditik zuzenean lan egin, baizik eta zuri-beltzeko argazkietatik, eta, betiere, eredueta bakoitzaz zuten ezagueraz eta **sentieraz** baliatuz. **Matías Múgica**

Bestelako izaera bihurtzen da orduan itsuarena, izateko beste modu bat, bere sentiberatasun, koherentzia eta **sentierarekin**. **Xabier Olarra**

Behar bada, izaera, **sentiera**, honegatik, pentsamentu hutserako nere joera gero eta nabarmenagoa. **Patziku Perurena**

Portretak ere margotu zituen, nahiz eta jakin ezin zuela ereditik zuzenean lan egin, baizik eta zuri-beltzeko argazkietatik, eta, betiere, eredueta bakoitzaz zuten ezagueraz eta **sentieraz** baliatuz. **Xabier Olarra**

Aleunka gizalditan umotutako **sentiera**, hitz batean fosildurik. **Patziku Perurena**

Munduko erlijioek ez diete atxikimendurako arrazoi berberak ematen beren jarraitzaileei; hori, erlijioek gizakien pentsaerarekin eta **sentierarekin** bat etortzeko moduaren arabera da hein handi batean. **Iñaki Iñurrieta**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Jokaera, **sentiera** eta biziera alternatiboak. **Iñaki Mendiguren**

Neolitikoan gauzatu eta finkatu zela euskaldunaren **sentiera** estetikoak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Industrializazio basatiaren aurreko jarrera prekapitalista bat, naturarekiko **sentiera** protoekologista. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ez hil nahi izateak, **sentiera** zaharkitu ahul baten aztarna erakusten du. **Patziku Perurena**

Dena den, izan zaitezte denok gogo eta **sentiera** bateko, elkarren senide on, errukior eta apal. **Elizen arteko biblia**

Bete nazazue pozez, denok iritzi eta **sentiera** bereko izanez, elkar maitatuz eta ongi hartuz. **Elizen arteko biblia**

sentierazi ik **sentiarazi**.

sentiezgarri *izond* ezin sentituzkoa.

Hauek honela, zer da zure gogoaz zauritzen, zirraratzen eta askotariko gogoetak azalarazten dizkiona, **sentiezgarritik** sentigarria sortzen dela ez sinesteko? **Xabier Amuriza**

Eta hau ez dute errefutatzen ez ezeztatzen berbertatik ezagutzen diren gertakari nabariet, aitzitik euren eskutik eroaten eta pentsarazten digute bizidunak, diodanez, zer **sentiezgarrietatik** harakoak direla. **Xabier Amuriza**

sentigabe *izond* sentimenik ez duena.

Catherineren mugimendu erotizatzaileak deblauki bertan behera geratu ziren; dendetako kartoizko maniki baten jarrera **sentigabea** hartu zuen Josebaren "ez nauzu berotzen" entzutean. **Iñaki Zabaleta**

· **Sentigabe** horra belarriak, entzun behar zigutenak bete dugula, bete, emaniko agindua, eta Rosenkrantz eta Gildenstein hilik daudela. **Juan Garzia**

sentigai *iz* senti daitekeen gauza. ik **sentikizun**.

Izatean badira gauza argi eta nabarmen asko: batzuk lehen nozioak edo **sentigaiak** dira, beste batzuk berorien antzekoak, halako moldez non, gizakia den bezalakoa utzirik ere, ez bailuke horri buruzko frogarik. **Xabier Kintana**

sentigaitz (*orobat sentikaitz*) *izond* sentitzen zaila dena, ia ezin sentituzkoa.

Orduan Iñon **sentigaitzak**, kolpea somaturik irudi, gailurrak sugarrez hor lur jo du bertan. **Juan Garzia**

Zeren ez zuen haize bolada batek ere ematen, izotza gogorra eta **sentigaitza** zegoen. **Josu Zabaleta**

Lotsa **sentigaitza** zaion izaera baten gaiztotasunean. **Ibon Uribarri**

Bizitza **sentikaitz** bilakatzen duen / min urdin bat sentitzea. **Pako Aristi**

Honetan, sentikor ikusten ditugun izakiak ere, denak lehenki **sentikaitzez** osatzen direla aitortu beharra dago. **Xabier Amuriza**

sentigaiztasun (*corpusean sentikaiztasun soilik*) *iz* sentigaitza denaren nolakotasuna.

Hanketako **sentikaiztasun** ederra gorputzera zabaldu zitzaion, buruaren aginduak handik baletoz bezala. **Pako Aristi**

sentigarri *izond* senti daitekeena.

Sentimenez hautemandakoari **sentigarri** deitzen diogu, adimenez sumatutakoari, berriz, ulergarri. **Imanol Unzurrunzaga**

Esperientzia **sentigarririk** ez dugunaz ezingo dugu adigai edo kontzepturik eduki. **Askoren artean**

Ez dut uste zuregan adimenaren kontzepzioa irudimenarekin lausotua dagoenik, ez eta, honen gainean, zure fantasiak gauza **sentigarriekin** konparaketarik egin dezakeenik ere. **Xabier Kintana**

Errealitate materialetatik espiritualetara, **sentigarritik** materiagabekora jauzi egiteko. **Imanol Unzurrunzaga**

Jakinduria gauza materialetan (plazer **sentigarrian** eta aberastasunetan) ez baina espiritualetan (bertutean eta egian) aurkitzen zela. **Imanol Unzurrunzaga**

Garrantzi handikoa dela zer **sentigarriaren** sortzaileak zein txikiak diren eta nolako taxua daukaten. **Xabier Amuriza**

Osagai **sentigarri** batean gorpuztu izan ez balitz eta arrastoa utzi izan ez balu. **Xabier Arregi**

Begieste mistikoan biziki trerabatuz utz iztak alde batera zentzumenak eta endelguaren jardunak, eta **sentigarria** eta adigarria den guztia, eta baden eta ez den guztia. **Joan Mari Lekuona**

sentigogor (orobat **sentigor**) *izond* nekez sentitzen duena.

Pentsatu nuen museoko bisitak harrotutako gaiak zentzu berri bat zuela garaiotan, mutil harena bezalako eritasunengatik, teoria salbatzaileen hondoraketagatik, munduan barneratu den isiltasun berriarengatik; aukera guztiak zirela egoki sentiberatasun **sentigogorraz** hitzegiteko. **Bernardo Atxaga**

"Sentibera **sentigorrak**", deitu zien norbaitek artistei, gerra betean itsasoaren immensitate eta edertasunaz idazten zuten poetak gogoan hartuta. **Bernardo Atxaga**

Ez, artista guztiak ez zuten jarrera bera boterearekiko, denak ez ziren "sentibera **sentigorren**" kastakoak. **Bernardo Atxaga**

sentigor ik **sentigogor**.

sentikaitz ik **sentigaitz**.

sentikaiztasun ik **sentigaiztasun**.

sentikari *izond* sentikortasun handikoa.

-Sentikari totala. **Iñaki Iñurrieta**

sentikera *iz* sentitzeko era. ik **sentiera**.

Edozein gizon zentzudun, hots, bere ideiak taxuz lotzen dakiena eta gainontzeko gizonen **sentikera** berdintsua duena, izan daiteke testigu. **Juan Martin Elexpuru**

Senarrak baizik ezingo zukeen haien egiazko izaera eta **sentikera** ezagutu. **Josu Zabaleta**

sentikeria *iz* sentikortasun gaitzesgarria.

Izan ere, **sentikeria** errazeko poetak azalean gelditzen dira, lehen mailako emozioetan; beren buruak heldutzat dituzten errealistak kezka betetzen dira **Askoren artean**

sentikide *izond/iz* sentimen berekoa.

Hilkorra betikorrearekin batzea eta **sentikide** eta ekinkide direla pentsatzea zorakeria baita benetan. **Xabier Amuriza**

Honela, geuk sentitzen duguna sentitu behar dute, bizi-sentimen osoan **sentikide** izateko. **Xabier Amuriza**

Badakusu, gainera, gogoia nola aldi berean gorputzarekin ari den eta nola gorputz barruan haren **sentikide** den. **Xabier Amuriza**

Baina, gogoia beldur bortitzagoak jotzean, arima osoa ere lohadarretan **sentikide** dela dakusgu eta gorputz osoan izerdiak eta zurbiltasuna datozela eta mihia moltsotzen eta abotsa iraungitzen dela, begiak iluntzen, belarriak furruntzen, lohadarrek makaltzen **Xabier Amuriza**

sentikidetasun *iz* sentikidea denaren nolakotasuna.

Eta gorputz amaituetan sartzea ere ezinezkoa da; ezingo bailukete haiekin sutilki bat egin, ez **sentikidetasunez** elkar ukitu. **Xabier Amuriza**

sentikizun *iz* sentitzen den gauza. ik **sentigai**.

Sentikizunak adierazi nahi ditut. **Ana Urkiza**

Gizonezkoen bizitzan **sentikizunak** bigarren mailako kezka dira. **Ana Urkiza**

Besterik egitea bere buruari -Guzmudenari- eta barren-barrengo **sentikizunei** uko egitea zatekeen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

sentikor (orobat **sendikor g.er.**) 1 *izond* erraz hunkitzen dena. ik **sentibera**.

Liburu honetako heroiak **sentikorrak** dira, eta nobela osoa malkoz josia dago. **Jon Muñoz**

Sentipen hark eragiten zion bere baitara biltzea, sentipen haren erruz zeukaten auzoek hotz eta hantustetzat berez apal eta **sentikor** hutsa zen mutila. **Anjel Lertxundi**

Oso **sentikorra** zen, olerkari on guztiak bezala. **Lander Garro**

Urteek **sentikor** bilakatu naute [...] neure baitatik atera eta besteenganako kontzientzia berri bat sortzen sentitu dut. **Pako Aristi**

Euskara eta Euskal Herria errotik maite dituen militante **sentikor** baten lanak daude bilduak liburuan. **Berria - Kultura**

Uko horrek ez ninduen haserretzen, atsekabetzen ninduen; neure adiskide **sentikor** horrek ez ote zizkidan kontsolamendu batzuk zor? **Jon Muñoz**

Adinak ez dit oraino adiskidantzari **sentikor** ez izateko heineraino hoztu. **Jon Muñoz**

Merkatari ezin pragmatikoagoen aldean, ohoreekiko **sentikorra** zen. **Patxi Zubizarreta**

Ez uste igurikitzen dudarik zu noizbait **sentikor** bihurtzea: baina nire nahira erori gabe, nire iritzira bildua izanen zara azkenik. **Jon Muñoz**

Sentikor natzaio orobat zure kontseiluak iradoki dituen adiskidantzari. **Jon Muñoz**

Paristar **sentikorren** gogoan zirrara sakona eragiteko. **Koro Navarro**

2 kanpoko zerek nabarmen eragiten diotena. ik **sentibera 5**.

Poeta **sentikorra**, gazte sentibera. **Berria - Kultura**

Eguraldi koska bakoitzarekiko guztiz **sentikor** azaltzen dira sagarrondotxo xumeok. **Pello Zabala**

Nataliaren ukitu leuna sorbaldan, hatz **sentikor** hura marra bertikal bat marraztuz bere azalean. **Aritz Gorrotxategi**

Organo **sentikor** eta praktikoa da belarria, baina ez da, bihotza bezala, bizitzeko guztiz beharrezkoa. **Irene Aldasoro**

3 (testuinguru teknikoetan) ik **sentibera 6**.

Klitoria, berriz, errezeptore **sentikorre**z josita dago. **Luis Elberdin**

Cuvier baleen sonar sistema oso **sentikorra** da, eta erdi mailako frekuentzia erabiltzen du. **Berria - Gaiak**

Gune **sentikor** horien azpiko nerbio-amaierak aztertzen badira [...] denak berdinak direla ikusten da; ezerk ez du adierazten zergatik erantzuten dieten estimulu desberdinei. **Irene Aldasoro**

Haren mukosa **sentikorra** oso izurtua eta tolestua da, eta horrek ahalbidetzen dio leku txikian azalera handia hartzea. **Irene Aldasoro**

Argazkiari begira, paper **sentikorrean** geldituriko indizeetatik ahalik eta erantzun gehien jaso nahian dabil. **Eider Rodriguez**

Emultsio **sentikorrean** zehar igarotzean baliatu ez den argiaren parte bat, zeluloidearen onnarriak islaturik edo barreiaturik, geruza **sentikorretara** irits daiteke atzera.

Irene Aldasoro

Film horrek, **sentikorragoa** izanik ere, irudi pikortsuagoa ematen du. Irene Aldasoro

Begiak puntu baterainokoa argazki-makina baten antza badu ere, erretina-xafila **sentikor** bat balitz bezala ikus badaiteke ere, [...]. Josu Zabaleta

Larruzazaleko gune batzuk beroarekiko dira **sentikorrak**; beste batzuk, hotzarekiko, eta beste batzuk, berriz, presioarekiko. Irene Aldasoro

Baditu zelula batzuk presioarekiko **sentikor** direnak, arteria handietan, bai eta beste zelula batzuk ere zabalduarekiko **sentikor** direnak. Irene Aldasoro

Nerbio-amaierak oso **sentikorrak** dira beroarekiko. Irene Aldasoro

Garunaren berezko jarduera elektrikoa detektatzeko gai den erregistragailu **sentikor** bat da elektroentzefalograma. Irene Aldasoro

4 (testuinguru teknikoetan, hitz elkartuetan) ik **sentibera** 7.

[Erretina] zelula argi-**sentikorre**z eta bestelako ehunez osatutako pila korapilatsu baten azpian dago. Irene Aldasoro

Film edo plaka argi-**sentikor** bat, han eratuko baita argazkilaria atera nahi duen objektuaren edo eszenaren irudia. Irene Aldasoro

5 hunkigarria.

Beste pasarte batzuk bertan dituzu, soinu apartarekin eta Cassandra Wilson, Irvin Mayfield Jr (unerik **sentikorrena**), Aaron Neville eta Buckwheat Zydecoren eskutik, besteak beste. Berria - Kultura

Une horietan, balada **sentikorrak** nagusi egiten direnean, Flaco Jimenez handiaren laguntza dauka, haren akordeoiaeren intziarik Downsen beraren ahotsarekin bat eginez.

Berria - Kultura

Ahots lodi eta doinu **sentikorrean**, horrelako zerbaite kantatu zuen, gutxi gorabehera: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

6 bihotzetikoa.

Atso-agure saldo batek inguraturik zeuzkan, nork doluminik **sentikorrena** adierazteko lehian. Aingeru Epaltza

Jean bere senarrari, seme alaberi, herren, suhi eta familiako guzieri, gure dolumin **sentikorrak**. Herria

Mintzaldi **sentikorrak** erran dituzte. Herria

Ziur dakit Lizardiri buruzko Orixeren olerki batetik hartutako hitz **sentikorrak** direla. Karlos Linazasoro

Modu honetara, omenaldi xumea eta **sentikorra** eskainiko diote herriko olerkariari. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

izaki **sentikor** (4)

sentikortasun 1 iz sentikorra denaren nolakotasuna. ik **sentiberatasun**.

Erromantikoa da, eta sentiberatasunari, **sentikortasunari** eta sentimenduei garrantzi handia ematen die. Askoren artean

Poeren kontakizunek **sentikortasunari** eragiten diote, haren alderdirik senezkoen eta ezkutuenari. Koro Navarro

Donostiar izaeraren **sentikortasuna** hunkitzeko bertutea. Askoren artean

Haren kontra bihurtuko ditut arimaren dohainik baliosenak, **sentikortasuna** eta jarraikitasuna? Jon Muñoz

Espazio-propietateek objektua osatzen dute, baina,aldi berean, gure mende daude, gure **sentikortasunaren** mende (espazioa gure **sentikortasunaren** a priori eginiko forma bat da). Askoren artean

«Dominazio kulturalaren aurkako **sentikortasuna**» dutenen aldetik. Berria - Kultura

Horren adierazle dira patronalak agertu dituen langileenganako «**sentikortasunik** eza» eta «arduragabetasuna». Berria - Ekonomia

2 (izenondoeekin)

Ez da pentsatu behar gauzak bizitzen ditugun **sentikortasun** berarekin idatzi behar ditugunik. Pako Aristi

Zalantza apur batez betiere, bihotza biluzteak **sentikortasun** ulergaitz halako bat erantsiko balio bezala. Mirentxu Larrañaga

Naturak emakumeari gizonari baino izaera sutsuagoa eta **sentikortasun** sakonagoa eman dio. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Lauaxeta **sentikortasun** berezi batekin hartuko duen jendea biltzen saiatu naiz. Berria - Harian

Halako **sentikortasun** berezi bat, negatiboa, balukeela kontsumitzaileak konpostaz osatu ongailuentzat iruditzen zaie enpresa horiei. Herria

«**Sentikortasun** politiko askotako udal hautetsiekin harremanetan» jarri dela jakinarazi du. Berria - Euskal Herria

Sentikortasun desberdinetako pertsona ezagunen talde batek. Berria - Euskal Herria

Egungo egoera politikoa osatzen duten **sentikortasun** ezberdinak aintzat harturik. Berria - Euskal Herria

Zirrarak uanean uneko astindu gozagarria izan behar du, eta gero aldatzen jakin **sentikortasun** berrien haizetean. Pako Aristi

3 (testuinguru teknikoetan)

Belarriak **sentikortasun** hobe da 1.000 Hz eta 4.000 Hz bitarteko maiztasunetan, eta **sentikortasun** hori apaldu egiten da eskalaren bi muturretan. Irene Aldasoro

Argi-bizitasunarekin erlazionaturik dago begiaren **sentikortasuna**, halako moduz ezen askoz konstanteago mantentzen baita output-seinalea argi-inputa baino. Irene Aldasoro

Begiaren **sentikortasuna** ikusmen-eremu osoaren batez besteko argitasunera automatikoki doitzen delako. Irene Aldasoro

Argazki txukun bat egiteko, hainbesteko argi kantitate bat behar da, filmaren **sentikortasuna** (edo lastertasuna) zenbatekoa den. Irene Aldasoro

Gauez edo argi naturalik gabe lan egiteko, nahiago izaten du film laster bat, argiarekiko **sentikortasun** ona duena. Irene Aldasoro

Pertsona gehienentzat normalak diren eragileen aurrean gorputzak agertzen duen gehiegizko **sentikortasuna** izatea da alergia. Berria - Gaiak

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sentikortasun falta leporatzen zion bere buruari, haien etxean modu horretan ostatu hartzeagatik. Karlos Zabala

Ez dira izango familiak -euren arauekin, debekuekin, **sentikortasun** atalaseekin- erabakiko dutenak zein den zoroa eta proposatuko dutenak gaixoa aztertu behar dela eta psikiatrarren esku jarri behar dela. Xabier Arregi

Ikusmen-zelulen argizatze biziak auzoko zelulen **sentikortasun**-galera eragiten du. Irene Aldasoro

Sentikortasun maila hori da -edozein mikrofonorena baino askoz ere handiagoa- errendimenduaren azken muga. Irene Aldasoro

5 sentitzeko ahalmena. ik **sentimen**.

Hain gogor heltzen zion Hermioneek Harryren besoari, ezen hau **sentikortasuna** galtzen ari baitzen hatzetan. Iñaki Mendiguren

Itsuak entzuteko **sentikortasun** aparta garatzen duen bezala. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sentikortasun politiko (3)

begiaren sentikortasuna (3); **belarriaren sentikortasuna** (4)

sentikortu, sentikor(tu), sentikortzen 1 da/du *ad* sentikor bihurtu.

Zer da bada zuk gure artean iraun dezan onartzen duzun adiskidantza hori, baldin nire atsekabeaz **sentikortzeko** bezain ahaltsua ere ez bada. Jon Muñoz

2 mindu.

Erraiten zidan, bertze hitz jakatu behar nuela eta ezin jar neza keela neure gizontasuna kolokan eta kordokan, nihaur ere gizon nintenez gero, eta hartatik **sentikortu** eta anaiarekin muturtu egin behar nuela. **Joan Mari Irigoien**

sentikortze iz sentikor bihurtzea.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 60. urteurrena dela-eta, Nazioarteko Biltzar bat burutzea; urtero giza eskubideen adierazpenari buruzko **sentikortze** kanpaina garatzea; edota giza eskubideen alde lan egingo duen Nazioarteko Behatokia bultzatzea. **Berria - Euskal Herria**

sentimen (787 agerraldi, 60 liburu eta 27 artikulutan) 1 iz sentitzeko ahalmena. ik zentzumen.

Ezagutza edo zientziari gagozkiola, hori hanka biren gainean dabilela esan behar dugu, **sentimenaren** eta adimenaren gainean. **Askoren artean**

Gauza bat da, beraz, sentimena eta bestea **sentimen** bidez sumatzen dena. **Imanol Unzurrunzaga**

Kontrolatu ezin ditugun **sentimenetatik**, entzumena da iruzurrik handienak egiten dizkiguna. **Pako Aristi**

Jainko ahalguztidunak itsuei ikusmena bihurtu zien, gorrei entzumena, mutuei hitza, herrenei ibiltzea, elbarrituei **sentimena** eta mugimendua. **Askoren artean**

Sentimen oro erraiei, nerbioei eta zainei loturik baitago, beti bigun eta gorputz hilkorrez ikusten ditugun organoak eurok. **Xabier Amuriza**

Gure **sentimenak** ez dira honaino iristen, holakoak ezkatatu egiten zaizkigu erabat. **Imanol Unzurrunzaga**

Esadazu orain, ea badakizun gorputzaren bost **sentimen** txit arruntak dituzula, alegia, ikusmena, entzumena, usaimena, dastamena eta ukimena. **Imanol Unzurrunzaga**

Harmonia hau **sentimenari** dagokiolako eta arimak, gorputzari itsatsita dagoelako, haren poza antzematen du. **Imanol Unzurrunzaga**

Halaz guztiz, eta hutsak huts, seigarren **sentimen** edo zena zelakoa beti izan zuen kontuan. **Migel Angel Mintegi**

Su beroak eta antzigar izotzuak gorputzaren **sentimenak** ezten ezberdinez zatatzen dituztela, bien ukituak seinalatzen digu. **Xabier Amuriza**

Film bat geratu baldin bazitzaidan gogoan, hori "**Sentimenen** inperioa" izan zen, Nagisa Oshimarena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik sentisorial.

Informazio eferentea garunetik **sentimen** - eta mugimen-organoetara doan nerbio bidezko informazioari esaten zaio; [...] informazio erreferentea, nahita egindako mugimenduek eragindako **sentimen** -gertaerek emandako informazioari. **Josu Zabaleta**

Sentimen -organoak beren ahalmenaren mugara iristen direnean, haien argia itzaltzen hasten da. **Oskar Arana**

Larruazaleko bero-hartzaileek bulkada bat bidalarazten diete **sentimen** -neuronei bizkar-muina. **Irene Aldasoro**

Kontaktu moduak desberdinak direnez, gure larruazalak ere hainbat **sentimen** bukaera ditu, bakoitza estimulu eta kontaktu modu desberdinak jasotzeko espezializaturik.

Luis Elberdin

Objektu materialak existitzen direla ustea **sentimen** -datu batzuen esperientzia dugula ustea besterik ez da. **Askoren artean**

Sentimen -esperientzia subjektiboak kanpoko mundu materialaren errepresentazioa eraten du. **Askoren artean**

Sentimen -esperientziaren usteak sistema koherente baten barnean kokatuz justifikatuko dira. **Askoren artean**

Psikologiak egin dezakeena beste gauza bat da, esaterako, uste anitz eta desberdinak kausatzeko **sentimen** -esperientziak -Quineren hitzetan, **sentimen** -estimuluak dituen prozedurak azaldu. **Askoren artean**

Epistemologia naturalizatuaen helburua **sentimen** -ebidentzia eta teoria (zientifikoa) nola erlaziona ditzakegun aztertzea da. **Askoren artean**

Horren aburuz, nire **sentimen** -ideiak Jainkoak sortzen ditu nire gogoan. **Askoren artean**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Barne **sentimen** hau piztiengan ere aurkitzen baitugu, eta piztiek ez daukate adimenik. **Imanol Unzurrunzaga**

4 sentipena; sentimendua. ik sentipen.

Etzeratu bezain laster ekin zion idazteari, sakoneko **sentimen** eta sentsazioak azalarazteari. **Berria - Kultura**

Organoek ezin dute euren kabuz **sentimenik** eduki; zeren lohadarren **sentimen** oro beste **sentimen** batzuei begira baitago, eta ez gorputzetik moztutako eskuak, ez beste ezain organok dezake bakarrean **sentimenik** eduki. **Xabier Amuriza**

Sentimen oro erraiei, nerbioei eta zainei loturik baitago, beti bigun eta gorputz hilkorrez ikusten ditugun organoak eurok. **Xabier Amuriza**

Horixe izan zen gizonaren nahiz emakumearen barreak astindu zituen **sentimena**. **Imanol Zurutuza**

Formula horrek egoki adierazten du irudiak geroz eta ugariago, bai, baina geroz eta dibertsifikatuagoak eta geroz eta trukagarriagoak diren mundu batean bizi ote garen guztiok izaten dugun **sentimen** hori. **Josu Zabaleta**

Orobat zen egia, ordea, doluak bere baitan biltzen dituen **sentimenak** -nahigabea, tristezia, gogogabetasuna, inhibizioa- poliki-poliki atzean utziz joana zela. **Imanol Zurutuza**

Hamabi lerroak baliozkoak zirela uste izatearen pozak gainerako **sentimen** orori lekua kentzen baitzion. **Ramon Saizarbitoria**

Gehienak zaharrak dira, eta lekuari bizitzaren hoberenak bota dituztenen bake eta tristuraren arteko **sentimen** bat itsasten zaio. **Pako Aristi**

Sentimen hauek islatu ziren atzo hainbat kazeten orrietan, *borrero, torturatzaile, barbaro, kriminal* hitzak baliatu zituzten AEBetako eta Erresuma Batuko militarren ekintzak salatzean **Berria - Mundua**

5 (izenondoekin)

Zuk ez didazu ulertzen beharbada **sentimen** bizkor horietatik geratu zaidan zirrara. **Josu Zabaleta**

Gizakiak, bereziki gaixorik dagoenak, etorkizunaren aurrean duen **sentimen** naturala, begiak itsu amildegiaeren ertzean egoteak sortzen duenaren parekoa. **Imanol Zurutuza**

Hau **sentimen** soilaren objektua izan daiteke (atsegina), edo arrazoimen hutsarena (ongia). **Ibon Uribarri**

Gauza jakina da huts egiten dutela hitzek, **sentimen** biziak adierazi nahi direnean. **Imanol Zurutuza**

Frogatuta dago min eragitea oso **sentimen** atsegina dela guretzat. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Eta gauza hori, azkenean, **sentimen** hutsa da, plazera. **Askoren artean**

Minak edo beste **sentimen** bortitzen batek eraginda. **Pako Aristi**

Ezin zion ukatu bere buruari jeloskortasunetik oso urruti ez bide zegoen **sentimen** bitxi bat pizten ziola horrek, barne ezkutuean. **Imanol Zurutuza**

Hondarrean, plaza hura xarmagarria zelako **sentimen** lausoa geratu zait. **Monika Etxebarria**

Zer da politika, gizonen **sentimen** aldazkinak hobeto gidatzeko eta sortzaile bihurtzeko artea baino. **Juan Martin Elexpuru**

Rollebon jaunak, sinesgabea izaki, apustua egin zuen Moulinseko apaizarekin ezetz bi ordu baino gehiago eman eria **sentimen** kristauetara bil zedin. **Monika Etxebarria**

Sentimen erlijioso hori ukaezinezkoa zen Erdi Aroan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Gure lanbidean, **sentimen** osoak baizik ez ditugu izaten esku artean eta izen generikoak ematen dizkiegu: handinahia, interesa. **Monika Etxebarria**

Esker oneko **sentimen** epel batek bete zidan barrena. **Anjel Lertxundi**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Honela, geuk sentitzen duguna sentitu behar dute, bizi-**sentimen** osoan sentikide izateko. **Xabier Amuriza**

Argitasun **sentimena** ikusmen-sistemak gauzen luminantziaren aurrean dituen erreazioek eragina den bezala, kolore **sentimenak** ere ikusmen-sistemak gauza horiek emittitzen edo islatzen dituzten argien uhin-luzeraren aurrean dituen erreazioetan du jatorria. **Josu Zabaleta**

Horrela lehenago urratuko dira haren himenaren mintzak, eta arinago piztuko zaizkio atsegin-**sentimenak**. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Herrian, nolana ere, lasaitasun **sentimen** bat zegoen, ia isiltasunekoa. **Josu Zabaleta**

Barrez irten ginen uretatik eta ohera egin nuen salto; zorabio **sentimen** batek hartu ninduen bat-batean. **Juan Martin Elexpuru**

Berebiziko argitasun **sentimen** batez sentitzen dut komunitate hau. **Josu Zabaleta**
Abentura **sentimen** hori ez da heldu, dudarik gabe, gertaeretatik: frogaturik dago. **Monika Etxebarria**
Berriketa haiek bazuten halako gauza kitzikagarri bat, ausardiakoa, eta erru **sentimen** apur batekoa. **Josu Zabaleta**
Erljio **sentimenen** indarra. **Juan Martin Elexpuru**
Sentimen ugari bilduko ziren orduan beren baitara, nahaspila bizian; haien arteko bat erabat harrigarria: errudun-**sentimena**, bizirik jarraitzeak sortua. **Imanol Zurutuza**
Uler zezakeen errudun-**sentimen** hura, maite direnak joan eta norberak bizirik jarraitzeak pizten duen sentimen zentzugabea. **Imanol Zurutuza**
Berrito indartu dut nire baita isilean dastatzeko den komunitate **sentimen** hori. **Josu Zabaleta**
Hutchesonek onartzen du kognizio-funtziorik ez duten barne-**sentimenak** ere badirela -moral, handitasuna, edertasuna, etab-. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

barne sentimen (13); gorputzaren sentimen (5)

sentimen bidez (3); sentimen datuak (4); sentimen datuen (4); sentimen errezeptoreak (3); sentimen esperientzia (3); sentimen esperientziak (3); sentimen oro (3); sentimen orotatik (3)

barne sentimena (8); errudun sentimena (5); gorputzaren sentimena (3); gure sentimena (3)

barne sentimenak (3); gorputzaren sentimenak (4); gure sentimenak (4)

gure sentimenaren (17); sentimenaren antolaera (3); sentimenaren baldintza (9); sentimenaren baldintzarik gabe (3); sentimenaren forma (7)

sentimendu (2276 agerraldi, 227 liburu eta 415 artikulutan; orobat **sendimendu** 203 agerraldi, 9 liburu eta 142 artikulutan eta **sentimentu** 90 agerraldi, 16 liburu eta 23 artikulutan) 1 iz gogo egoera edo jarrera, bihotzondoak edo zirrararen batek eragina. ik **sentimen** 4; **sentipen**.

Uste da minak, **sentimendu** bat, azken batean, garbitu egiten duela doilorkeria, harreman moral zuzena dutela biek. **Juan Martin Elexpuru**
Izan ere, gorrotoa maitasuna baino **sentimendu** iraunkorragoa da. **Juan Martin Elexpuru**
Ez duk hire **sentimenduak** menderatzen jakin, eta **sentimendua**, horrela, bakarka, lagun eskasa duk. **Bernardo Atxaga**
Beharbada lotsak derrigortuko zuen **sentimenduak** gordetzera eta alde egitera. **Patxi Zubizarreta**
Sentimenduak eraman ninduen. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Maitatu behar hori izan zela zure **sentimenduen** motorra, Urteen poderioz, **sentimendu** hura ahuldu egin zitzaion. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Zergatik haserretuko zinateke zuk sorrarazi duzun **sentimendu** batez? **Jon Muñoz**
Zure **sentimenduetan** sinestea, ez litzateke **sentimendu** horien beldur egoteko bertze arrazoi bat? **Jon Muñoz**
Sentimendu horiek guztiak gailendu zitzaizkion harik eta ipiluak Farairen begitartea [...] itzuli zion arte. **Patxi Zubizarreta**
Ezin dut zehaztu zein **sentimendu** nagusitzen zitzaidan halakoetan. **Anjel Lertxundi**
Sentimendu hori atsekabezkoa da, dudarik gabe, sorrarazi duenak ez badu beretu. **Jon Muñoz**
Haren aldera dituen **sentimenduak** adeitsuak dira, ohartzten da, baita maitekorregiak ere. **Oskar Arana**
Magistratu **sentimendu** gabearen erositasun eta plazerrak, alde batetik, eta presoaren malko eta saminak, bestetik. **Juan Martin Elexpuru**
Hemeretzigarren mendetik han kokatu industriak eman zion hiritartasun modernoaren **sentimendua**. **Janbattitt Dirassar**
Sentimenduak **sentimendu**, barkatzerik ez dagoen gauza bakarra adimen eza da. **Pako Aristi**
Hitz haien azpitik bultzaka ari ziren **sentimenduek** hunkitu egin ninduten. **Bernardo Atxaga**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gorputz-atal ihartuei indarra bihurtzen baitziren eta bihotz gogorrei **sentimendu** samurrak ezartzen. **Askoren artean**
Sentimendu goibeak ez zuten, ordea, luze iraun. **Bernardo Atxaga**
sentimendu gazi-gozo bat sumatu zuen eztarrian gora. **Harkaitz Cano**
Sentimendu nahasiak irribarre faltsu bat eragiten dit ezpainetan. **Mikel Hernandez Abaitua**
Abasen begiradapean, neskak **sentimendu** nahasi eta kontraesankorrak zituen. **Patxi Zubizarreta**
Bihotza, **sentimendu** ezezagun batez harrítua, baratu edo egiten da urrats bakoitzean, sentitzen ari den bozkarioaz gozatzeko. **Jon Muñoz**
Alabaina, bada, edo izan daiteke, bederen, **sentimendu** moral bihotz-eragingarri horren manipulazioa, aldebikotasun arketipiko horri probetxua ateratzeko. **Jon Alonso**
Sentimendu indibiduala (kulpaa) eta **sentimendu** soziala (lotsa). **Luis Elberdin**
Plazerezko eta harrotasunezko **sentimendu** sakon batek hartu zuen Hamida. **Patxi Zubizarreta**
Leiho atzetik itsasoari, itsaso adiskideari, itsaso minari, itsaso **sentimendu**-sortzaileari begira. **Felipe Juaristi**
Gogobetetasunezko **sentimendu** batek hartu zuen eta arretea handiagotz entzun zituen gizonaren hitzak Ez zen harritzekoa jelsiazko **sentimendu** hura. **Patxi Zubizarreta**
Izumenezko **sentimendu** batez xurgatu nituen ero hark asmatu giro surrealistaren xehetasun guztiak. **Alberto Ladron Arana**
Esker oneko **sentimendu** bat. **Jon Muñoz**
Nekez deskriba dezakedan **sentimendu** galdu-minezko batez egin dit osinak gainezka. **Anjel Lertxundi**
Amore eman edertasunak sortu eta bertuteak justifikatzen duen **sentimendu** gogoz kontrako bati. **Jon Muñoz**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sentimendu-egoera mesedegarria ez da ekintzaren ordekoa; eta adiskidetzea lortu nahi izatekotan, ahalegin bateratu baten bidez bilatu beharko lukete alderdiek. **Iñaki Mendiguren**
Ez zen ohikoa nigan **sentimendu** erakustaldi handiak egitea. **Oskar Arana**
Berak berretsi egin du aurreneko **sentimendu** inarrosaldia igaro ondotik, senarrarekiko orain sentitzen duen amodioa handiagoa dela. **Patxi Zubizarreta**
Ez dut hitzik nire zoriona deskribatzeko, nire **sentimendu**-uholde hura azaltzeko. **Karlos Zabala**
Orduan, bikotekideak banatu egiten dira edo, bestela, beste harreman mota bat hasten dute, lotura eta **sentimendu** harremana. **Luis Elberdin**
Troiarren eta pertsiarren artean, biak "asiar" ziren aldetik, **sentimendu**-kidetasuna zegoela. **Iñaki Mendiguren**
Ikustekoa da gu gizakiok nola gauden eginda, **sentimendu**-nahasketa hartan borrokan egonagatik oraindik bazuen izpiritu-hoztasuna egingo dizut entzuteak eragin zion desatsegina identifikatzeko. **Jon Alonso**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Erru **sentimendu** pisutsu, eutsi ezinezko batek malko saminak isurazazi zizkidan kaperako erdi itzaletan. **Alberto Ladron Arana**
Une batez behintzat hala aurkitu nuen, eta bat-bateko eta ustekabeko gupida-**sentimendu** horrek oharkabean harrapatu ninduen. **Oskar Arana**
Nork biziarazi bere baita Jainkoagana etengabe isurtzen zenituen esan ezineko maitasun-**sentimendu** haiek? **Askoren artean**
Nazio-**sentimendu** indartsu bat. **Koro Navarro**
Eta honen ondorioei elkarren interes kontrajarriek eutsi ahal izango diete bakarrik, eta ez askatasun eta berdintasun-**sentimendu** indartsuak. **Juan Martin Elexpuru**
Une horretan berezkoa den harrotasun **sentimendu** batek eraginda, munduan bakarra izan nahiko luke sentitzen duena sentitzen. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Akidura eta hustasun **sentimendu** jasanezin bat. **Alberto Ladron Arana**
Beldur puntu bat sentitu nuen, eta libertate **sentimendu** izugarri bat ere bai, beldurrarekin batean. **Joan Mari Irigoien**
Halako izu **sentimendu** lauso bat izan zuelako. **Jon Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

antzeko sentimendu (5); **aurkako sentimendu** (4); **doluminezko sentimendu** (12); **doluminezko sentimendu bizienak** (7); **erru sentimendu** (6); **giza sentimendu** (4); **halako sentimendu** (11); **halako sentimendu bat** (5); **maitasun sentimendu** (6)

sentimendu berri (5); **sentimendu bitxi** (5); **sentimendu bizienak** (8); **sentimendu garbi** (5); **sentimendu gazi** (7); **sentimendu gazi gozo** (4); **sentimendu handi** (4); **sentimendu handiz** (5); **sentimendu ilun** (4); **sentimendu kontrajarri** (4); **sentimendu kontrajarriak** (14); **sentimendu onak** (4); **sentimendu sakon** (9); **sentimendu zoragarri** (4)

erru sentimendua (5); **erruki sentimendua** (4); **herritarren sentimendua** (5); **izatearen sentimendua** (7); **sentimendua eta borondatea** (5); **sentimendua nagusitu** (4)

benetako sentimenduak (4); **kulpa sentimenduak** (5)

sentimenduak adierazteko (12); **sentimenduak adierazten** (4); **sentimenduak eta ideiak** (4); **sentimenduak ezkutatu** (4)

sentimenduen berri (6); **sentimenduen gainean** (5)

horrelako sentimendurik (4); **sentimendurik gabe** (4); **sentimendurik gabea** (4); **sentimendurik gabeko** (10)

bihotzeko sentimendu (34); **bihotzeko sentimendu lehialenak** (5); **bihotzeko sentimendu lehialenak** (11); **bihotzeko sentimendu lehialenak** (6); **bihotzeko sentimendu sarkorrenak** (10); **doluzko sentimendu** (8); **doluzko sentimendu bizienak** (7); **euskal bihotzeko sentimendu** (33); **euskal sentimendu** (5); **gure doluzko sentimendu** (7); **sentimendu sarkorrenak** (12)

doluzko sentimenduak (4)

sentimenduka *adlag* sentimenduz sentimendu.

Ezin baitu denbora guztian **sentimenduka** bizi. Joxe Austin Arrieta

sentimendukeria *iz* sentimentalkeria.

Lizunkeria onargarria da, lizunkeria eta **sentimendukeria**. Oskar Arana

sentimendutsu (*orobat sendimendutsu*) *izond* sendimenduz betea.

Periferiako lurak zentzumenen pekoak dira (Mediterraneo argitsua, iparralde **sentimendutsu** gozoa, hegoalde sorgina), izpirituaren eta arrazoiaren parajea meseta da.

Joxe Azurmendi

Urte undarreko pesta eder huni buruz bagoazi eta karia huntarat baliatzen naiz, Eguberri on eta **sendimendutsu** baten agiantzak egiteko irakurle guzieri. Herria

sentimental *1 izond* sentimendu samurrek hunkitzen dutena; sentimendu samurrak adierazten dituena.

Ohartu zara zientifiko batzuk **sentimentalak** direla? Piarres Aintziart

Benito Lertxundi kantariak **sentimentalak** ginela esaten zigun, gazte **sentimentalak**. Pello Salaburu

Sentimental hutsa naiz, badakit. Josu Zabaleta

Badakizu ez naizela bereziki **sentimentala**, ezta bereziki kartsua ere. Ander Irizar

Isekari eta alai zena, triste eta **sentimental** bihurtu zen. Josu Zabaleta

Hain **sentimentalak** jartzen dira elkarrekin daudenean. Josu Zabaleta

Hiriburuan galtzaile **sentimental** eta gautxoriak biltzen diren lekuen ibilbidea egiten. Joxean Agirre

2 (adizlagun gisa)

Aurreko hitzekin **sentimental** jartzeko bidera lerratu banaiz, Inazio Mujika Iraola honezkero idazle ez hain gazteak nik bidali nion eskakizunari erantzun diolako da. Anjel Lertxundi

Mikelek lepoa igurtzi zion leunkiro, pertsonak **sentimental** edo triste jartzen zirenean egiten zekien bakarra. Unai Iturriaga

Mikelek ezagutu izan zuen behin edo behin halako egoera batean, eta beldur zen **sentimentalegi** jarriko ote zen. Unai Iturriaga

O. irakaslea azaldu zen [...] nire maisu estimatua izana; baina baita zeharo **sentimental** azaldu ere, negar eta negar, besterik ez baitzuen egiten, nahiz eta, berez, bera matematikaria izan. Joxe Austin Arrieta

3 sentimenduei, batez ere sentimendu samurrei, eta bereziki maitasunezkoei, dagokiena.

Maitagarrien zitzaizkidan pertsonen izenekin osatzen nituen zerrendek ere -nire zerrenda **sentimentalek** - ez zuten besterik erakusten. Bernardo Atxaga

Abentura politiko zein **sentimentalei** hitz arranditsuz ekiten zien. Ander Irizar

Nire bizitza **sentimental** ordurako nahiko egonkoraren kontrairudi moduan. Xabier Mendiguren Elizegi

Garai hartan, lau toki sinboliko ezberdinetan bizi nintzenez, erro **sentimentalik** gabekoa nintzatekeen, nehork ez ninduen espreski maitatzen eta desertu horretan nirauen, nomada, aire kutsatua usnatzen. Itxaro Borda

Oso hitzaldi hanpuru eta puztua, ukitu **sentimental** batzuekin. Josu Zabaleta

Balio **sentimentala** beste deusik ez zuten pitxiak, koadroak, ontziteriak. Anjel Lertxundi

Maitasuna gorroto bihurtzen denean bezala, kontsultorio **sentimentalen** estiloan esateko. Bernardo Atxaga

Ez nuke nahi erruki **sentimental** batek nire babes-ahalmenak ahultzea. Anjel Lertxundi

Mugarri bat izan zen nire heziketa **sentimentalean** eta heziketa literarioan. Ana Urkiza

Nire azken urteotako frakaso **sentimentalen** zerrendatxoa. Joxean Agirre

Amaren txantaje **sentimentalaren** aurrean ahul agertzeko beldurrez. Anjel Lertxundi

Ez dira ergelkeria **sentimentalak**, istorio honetan aitaren historiaren zati bat baitago. Josu Zabaleta

Gure betetasun **sentimentalaren** fruitu eder zirudiena usteldu egin dela ikustea. Pako Aristi

Egun argitsua da gaurkoa, eta egun argitan ikusi nahi dut nire txikitako paisaia **sentimentala**. Anjel Lertxundi

Goroldio **sentimentalik** itsatsi ez zaion hitz soil batek sor lezakeen oharkabetasun beraz [...] entzun nituen Daneli buruzko aipamenak ere. Anjel Lertxundi

Gau mineko solaskidearen aurpegiaz ontsa gogoratzen nintzen: argizeituak amultsutasuna oparitzen zion eta bihotza arintzearen, prest nintzen naski, bertan debalde bezain arriskurik gabeko, dena ere on, transfer **sentimental** baten bideratzeko. Itxaro Borda

sentimentaldu, sentimental(du), sentimentalitzen da/du *ad* sentimental bihurtu.

Beharbada, edozein gizoni onartuko zion, egiazki, gonbidapena: ideia horrek ez ninduen sumindu, baina jeloskurtu bai, zeharo **sentimentaldu** alegia. Joxe Austin Arrieta

sentimentalismo *iz* sentimental denaren nolakotasuna. ik **sentimentaltasun**; **sentimentalkeria**.

Gizasemeok gogor lan egiteko hezi gaituzte, eta esan digute alde batera utzi behar ditugula **sentimentalismoak** eta tontakeriak. Luis Elberdin

Ihes egin behar geniola **sentimentalismoari**, subjektibotasun gehiegia arimaren aihaldadea erakusten omen du-eta. Anjel Lertxundi

Magrisek, emaztea hil zitzaionean, liburuari idatzi zion batere **sentimentalismorik** gabeko -eta sentiberatasun aparteko- posfazioa. Anjel Lertxundi

Eskarmentuko jendea, **sentimentalismora** batere ez emana. Felipe Juaristi
Hiltzen dituen animaliei **sentimentalismorik** gabe begirutzen saiatzen da. Oskar Arana
Andresek **sentimentalismo** beharbada morboso samar horren erakarmena sentitu zuen. Josu Zabaleta
Erauza apaltasunerako, norbere buruari uko egiteko, tristurarako, engainurako, lapurretarako, **sentimentalismo** joera oro. Josu Zabaleta

sentimentalista *izond* sentimental.

Bera ez da, hala espero du bederen, **sentimentalista** bat. Oskar Arana

sentimentalkeria *iz* sentimentalismoa, gaitzesgarritzat hartua.

Halako **sentimentalkeria** lauso batek itotzen zion espiritua. Josu Zabaleta
Eta, gainera, sentimendu falta hori itxurazko **sentimentalkeriekin** ezkututzen nuela. Ramon Saizarbitoria
Egiaz, bere **sentimentalkeriak** ez zidan onik egiten. Ramon Saizarbitoria
Sentimentalkeria alde batera uzten duen lirika bat. Berria - Kultura
Ez da negarrez eta **sentimentalkerietan** hasten; ez da hori; baina ohitura du ordu laurden osoan oin orpoen eta oin puntuen gainean balantzaka aritzeko. Josu Zabaleta
Arduradunaren ahotsa aditzen da sei ontza zentzu eta hausnarketa erlijiosoko hiru lerro eskatuz edo jakituria alde batera uzteko eta **sentimentalkeriar** bide emateko aginduz. Xabier Olarra

sentimentalki *adlag* sentimenduen aldetik.

Ekonomikoki proletarioa naiz; **sentimentalki** nerabe hutsa; baina bizi, burges ttipi bat bezala bizi naiz. Pako Aristi
Sentimentalki garrantzi handia hartzen du euskarazko itzulpen honek. Berria - Kultura
Ez ninduten betetzen damu- eta elkartasun-aldarrikapen prestu eta orokor haiek, sekula ikusi gabeko jendeak eginak, ez bainuen ezagutzen haien beste aurpegia, eta ez baitziren ziur aski **sentimentalki** baino inplikaturik egongo. Juan Garzia
Hemen gertatzen ziren gauzak abstraktuak ziren enetatz edo **sentimentalki** ikusten nituen. Piarres Aintziart

sentimentaloide *izond* sasisentimentala.

Batzuk eta besteak bat etorri dira esatean modu serioan tratatu dela maitasuna eta maitemintzea, eta ez dela egin melodrama **sentimentaloide** eta erromantikozalea. Ana Urkiza
Euskal eta andaluz folkloreaken artifizea, funtsean beratsua (jende jitojudutar komiko **sentimentaloidea**) izan dela ikusteko, ez baita antropologian doktore izan beharrik. Patziku Perurena

sentimentaltasun *iz* sentimental denaren nolakotasuna. ik **sentimentalismo; sentimentalkeria**.

Biak erromantizismoaren aurkakoak dira, baina beren **sentimentaltasuna** aurkituko dute. Berria - Kultura
Gure historiari buruz axalezko gainbegiradak eman dizkiegu, legenda sortzen dutela laster ezjakinak eta **sentimentaltasunak**. Piarres Aintziart

sentimentu ik **sentimendu**.

sentina *iz* itsasontziko bateko behealdeko barrunbea, gilaren gain-gainean dagoena, eta filtraturiko urak pilatzen direna.

Ni makina gelan nago, **sentinako** kiratsa baino lurrin betegarriagoan, Alejo Bilbao komandantearen ordenak hartzen. Koldo Izagirre
Inork ez zuen hitzik atera nahi, **sentinako** txapetara beha geunden hamabi gizon gordin. Koldo Izagirre

sentipen (*995 agerraldi, 144 liburu eta 112 artikulutan*) **1** *iz* gogo egoera berezia, zentzumeneren bidez edo bestelako eraginen baten ondorioz nabaritzen dena. ik **sentsazio; sentimendu**.

[Lobulu frontalek] ez dute zerikusirik mugimenduarekin eta sentsazioarekin eta halako funtzio "behe mailako"ekin, baizik eta "goragoko"ekin; alegia, ezaguera eta jokaera, irudipen eta **sentipen** guztiak bat eginez "nortasun", "nitasun" eta halako hitzez aipatzen dugun identitatea osatzen dutenekin. Xabier Olarra
Gau eta egun nerabilen auzotar atxikiezin hura han nuelako **sentipena**, ziurtasuna, eta ordutik ordura, minututik minutura, bizitza kentzen ari zitzaidala orobat. Josu Zabaleta
Zuzen jokatzeko jakin ez zuelako **sentipena** zeukan, iruditzen zitzaion bere ahalbideak ez zituela egoki erabil. Joxemari Iturralde
Orain badakigu **sentipen** eta emozioak urdailean izaten direla, janaritik bilakatuak isurkin gastrikoaren eragin kimikoaz. Xabier Olarra
Animaliei **sentipenak** ukatzen zizkien aro bat zen Skinnerren aroa -ondorioztatu zuen Templek-, eta automatizatzen hartzen zituen. Xabier Olarra
Sarritan izan dut **sentipen** hau: ume baten begietatik beste norbait ari zitzaidala begira. Pako Aristi
Itomenezko **sentipen** batek gainezka egin zion Ruche jaunari. Jon Muñoz
Gerora obsesio bihurtuko zitzaion irudipen bat nagusitu zitzaion gainerako **sentipen** guztien gainetik. Hasier Etxeberria
Iritziaren oinarria arrazoizten edota sinesten duenaren errorean edo egian datza; **sentipena**, aldiz, usadioan edo naturan oinarritzen da. Imanol Unzurrunzaga
Erbesteratze- eta galera- **sentipenek** eta oroiminen mundu mota bat, berak galdutako benetako munduaren ordeko bat eskatzen bazuen ere. Xabier Olarra
Lehenbiziko margolanek barne-bulkada bortitzak adierazten zituzten: amorrua, beldurra, etsipena, aztoramena; artegintzaren ahalmenaren adierazgarri, ordea, kontrolpean zeuden **sentipenok**. Xabier Olarra
Saudade moduko zerbit da hori, udazkeneko hosto ihartuei behatzean sortzen den **sentipena**. Ibon Uribarri
Sakonagoko nahasmendu ia adierazezin bat sentitzen zuen, eta ikara, eta **sentipen** horiek, hain zuzen ere, margolanen kolorea erabiltzen saiatu zen hilabetean jo zioten gailurra. Xabier Olarra
Etzerako bidean, maitasuna, sakontasunik gabeko **sentipen** bat zela iruditu zitzaion. Aritz Gorrotxategi
Hik, egiaz, gorrotoa hidan, hogeita lau urtez gorrotatu ninduan, eta **sentipen** horrek higan loturarik sendoenen ezaugarria zian, bai, anaitasunaren pareko indar eta garra. Xabier Olarra
Azkenik, gertaera edo fenomeno bati buruz batek duen iritzi edo **sentipen** bat. Josu Zabaleta

2 (izenondoekin)

Amets tankerako irudi haiekin batera, **sentipen** berri bat nagusitu zitzaion: "deitua" zela sentitzen zuen. Xabier Olarra

Batera eta bestera ibili nintzen Branforden, *déjà vu* eta **sentipen** bitxienarekin. Xabier Olarra

Sentipen atsegina zen, han Ronekin eserita egotea. Iñaki Mendiguren

Bere gorputza ezagutzen eta sentitzen hasten da, eta berehala ohartzten da gorputzeko zati guztiek ez dizkiotela **sentipen** berdinak eragiten. Luis Elberdin

Irudiak ikuslearen atsegingarri izateko helburua du, hari **sentipen** (*aisthesis*) bereziak sorraraztekoa. Josu Zabaleta

Errezeptore desberdinak informazio eta **sentipen** desberdinak jasotzeko. Luis Elberdin

Gorputzeko parte batzuk ukitu eta horiekin jolasean hasten denean, ohartzten da horrekin oso **sentipen** atseginak dituela. Luis Elberdin

Hain zuzen ere, (sentsazio eta **sentipen** oinarrikoen ikuspegitik) animaliek eta pertsonok dugun oinarri komunaz jabetzeak ematen zion aukera animaliekiko halako sentiberatasuna erakusteko. Xabier Olarra

Gauean izarretara begiratzen dudanean, badakit izan beharko nukeela **sentipen** "numeniko" bat, baina ez dut halakorik sentitzen. Xabier Olarra

Arteak bai baitu indarra halako **sentipen** bete-betekoak agerian jarri eta, hala ere, bridaturik emateko. Xabier Olarra

Sentipen berekoi, itsu eta absolutua da maitasuna. Xabier Mendiguren Elizegi

Nire **sentipen** beroenak. Joxean Agirre

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ezin zezakeen azaldu, **sentipen** kontua zen dena. Aritz Gorrotxategi

Kontatzen ditudanak oker badaude, ez da inor engainatzeko asmoz propio okertu ditudalako, **sentipen**-ustetek niretzat ustekabeen ustel direlako baiziki. Joxerra Garzia

Sentipen-ikara handi bat sorrarazi zidan, nire sentimenaren erdi-erdian jo ninduen. Jon Muñoz

Isla orok gugan helburu bat balu, susma genezake adimena ez dela islatzeko tresna bat bakarrik, bere **sentipen**-horizontean jartzen zaion orentzat arduragabe den ispilu bat. Josu Zabaleta

Elkartze sexuala **sentipen** eta plazer sinfonia ederra da. Luis Elberdin

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Akademia bukatu, eta Armadako zerbitzuan izan ginen garaian, nik beti izan nian neure baitan segurtasun-**sentipen** hori. Xabier Olarra

Gauzen zein ezaugarrik bideratzen dute mugimendu-**sentipena**? Josu Zabaleta

Erretinan gertatzen diren aldaketa kimikoek eragiten dute ikuste-**sentipena**. Irene Aldasoro

Nondik nora, zer bidetatik igarotzen da gure desioa, harik eta bizipen erotikoak eragiten digun ongizate, samurtasun, esker on eta lasaitasun **sentipen** horretaraino iritsi arte. Luis Elberdin

Bere arimaren bi muturrak ziren, batetik, mingostasun-, lehortasun-, garratzasun-egoera bat, eta, bestetik, depresio- eta tristura-**sentipen** bat ziren. Josu Zabaleta

Kulpa **sentipen** horrek zer egin ez dakitela uzten ditu emakume asko. Luis Elberdin

Japonia Asian dago, baina modernizazioaren ondoren bere burua ez du asiartzat; eta, gainera, nagusitasun-**sentipen** batek Asiako beste lurraldeak zapaltzera bultzatu zuen. Ibon Uribarri

-Joateko agindu dizut! -zioen printzeak, oin azpian zapaltzeko adorerik gabe zomorro nazkagarri bat dakusanak sentitzen duen higuin-**sentipen** ezin azalduzko horrekin. Jose Morales

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bizi sentipen (3); **erru sentipen** (5); **halako sentipen** (9); **oso sentipen bitxia** (4)

sentipen arraro (3); **sentipen arraroa** (4); **sentipen atsegin** (3); **sentipen atsegina** (4); **sentipen atseginak** (3); **sentipen bakarra** (3); **sentipen bat izan** (3); **sentipen bat uzten** (3); **sentipen bera** (7); **sentipen berak** (3); **sentipen berbera** (4); **sentipen berezi** (5); **sentipen berezi bat** (3); **sentipen berri** (4); **sentipen berriak** (4); **sentipen bitxi** (6); **sentipen bitxia** (11); **sentipen bitxia zen** (3)

sentipen eta plazer (3); **sentipen gazi** (5); **sentipen gazi gozo** (3); **sentipen kontrajarriak** (5)

sentipen onak (5); **sentipen oso** (3); **sentipen samur** (3)

antzeko sentipena (3); **ari nintzelako sentipena** (3); **barne sentipena** (3); **bezalako sentipena** (3); **delako sentipena** (3); **handi baten sentipena** (3); **izanaren sentipena** (4); **izandako sentipena** (3); **izatearen sentipena** (4); **nintzelako sentipena** (3)

sentipena daukat (4); **sentipena ematen** (4); **sentipena eragiten** (5); **sentipena izan** (12); **sentipena izan nuen** (4); **sentipena izaten** (4); **sentipena nuen** (3); **sentipena sortzen** (5)

usain sentipena (3); **zegoelako sentipena** (3); **zelako sentipena** (3); **zuelako sentipena** (3)

sentipenak adierazten (3)

sentipenei buruz (3)

sentitu, senti(tu), sentitzen (*orobat sentidu g.er*) 1 du ad zerbaiten sentipena izan.

Freskotasuna **sentitu** nuen, iturri batena zirudien ur hotsa entzun nuen. Bernardo Atxaga

Orduan negu gorriko izotza **sentitu** nuen berriro. Patxi Zubizarreta

Gutziz kontzentraturik nengoela, esku bat **sentitu** nuen bizkarrean. Anjel Lertxundi

Izaren igurtzia **sentitu** nuen titibruetan, eta orduan eta gehiago asaldatu nintzen. Juan Martin Elexpuru

Hamabigarren tronkoan itomena **sentitu** zuela, eta hortik aurrera ez zela ezertaz gogorutzen. Pako Aristi

Egiaz diotsuet, ez dudala suaren berorik, ez haragian minik **sentitu**. Askoren artean

Gauerdia jo zuen; zirrara **sentitu** zuen. Josu Zabaleta

Beraz, ez nuen zalantzaren zirrarakik **sentitu**, eta ezta gelatik atera beharrik ere. Ramon Saizarbitoria

Ikasturtea amaitu eta agur esatean, sekulako emozioa **sentitu** genuen, eta biak egon ginen negarrez. Josu Zabaleta

Hura gutzia norbaiti adierazteko gogoia **sentitu** zuen, bere buruan argiako ikusteko batez ere. Ramon Saizarbitoria

Andreak frantsesez hitz egiteko premia **sentitzen** omen du batzuetan. Bernardo Atxaga

Egun batez, berak tratabiderako uzten zidan zirrikitua handitu egin zela **sentitu** nuen, eta "zer moduz, Virginia?", esan nion, bere izena ebakiz. Bernardo Atxaga

Hala **sentitzen** dut nik behintzat. Alberto Ladron Arana

Horretan, han zegoela **sentitu** nuen, eta pozak, poz ero batek, hartu ninduen. Josu Zabaleta

Une batetik bestera, urrun egondako gauzak hurbil **sentitu** nituen. Bernardo Atxaga

-Ez al duzu inoiz **sentitu**, Fermin, izarrek zerbait esan nahi digutela baina guk entzun ezin, eta ezintasun horrek are gehiago larritzen gaituela? Pako Aristi

Hori fisikoki **sentitu** dut. Ana Urkiza

Estepa-otso **sentitu** izan duzu, maiz, zeure burua... Ana Urkiza

Xurgatua **sentitu** zuen Perrettek bere burua; garrasi egin zuen. Jon Muñoz

2 (da aditz gisa)

Luigik eskua estutu zidan berriro berotasun handiz; ni, ordea, oso gaizki **sentitu** nintzen. Bernardo Atxaga

Ni errugabe **sentitzen** ninduan, noski: arau guztiak zorrotz bete nitian beti, ez nioan inolako aitzakiarik onartu neure buruari. Juan Garzia

Bat-batean txikia **sentitu** nintzen, barregarria. Jon Muñoz

Ondoezik **sentitu** nintzen, ez dakit zergatik ia beldurra izan nuen. Josu Zabaleta

Indarberritua **sentitzen** nintzen, gauza handiak egiteko gai. Anjel Lertxundi

-Triste **sentitzen** naiz -esan zuen. Juan Garzia

Dohatsu **sentitzen** naiz -erantzun zuen behin. Xabier Olarra

Taldean integratu **sentitu** izan zara beldanik? **Ana Urkiza**

Seguruago **sentitu** naiz: [...]. **Txillardegi**

Ahalmenik gabe **sentitu** nintzen, antzu. **Ramon Saizarbitoria**

Zirraren zirraraz, zinez maitemindua **sentitu** zen. **Patxi Zubizarreta**

1220an erabaki larri bat hartzera behartua **sentitu** zen Frantzisko: Ordenako agintea besteen esku uztera, alegia. **Askoren artean**

Gizon guztiak altxor ukigabe eta isilpeko baten jabe **sentitu** ziren. **Juan Garzia**

Ez naiz emakume izateaz harro **sentitu** izan. **Ana Urkiza**

Sarkin bat **sentitzen** naiz -esan zuen-. **Xabier Olarra**

3 entzun-edo.

Presaka Pantxok eta Sebastianek, txorien kantak **sentitu** eta kosta egiten zitzaielako haien bila joan gabe etsi. **Bernardo Atxaga**

Haiek ez zituzten tiroak entzun, gizonak erortzerakoan ateratako soinua **sentitu**, odola ikusi. **Anjel Lertxundi**

Amonaren ahotsa **sentitu** genuen gelako leiho irekitik. **Anjel Lertxundi**

Iruainera iristean, goiko bizitzako gela batean **sentitu** nuen osaba Juan, altzariren bat arrastaka mugitzen, iruditu zitzaidanez. **Bernardo Atxaga**

Ez dituzu nire pausoak **sentitu** eskaileretan behera? **Harkaitz Cano**

Kolpeak **sentitzen** nituen, min egiten zidaten, sendoa banintzen ere. **Matías Múgica**

Laster, ama **sentitu** nuen atea zabaldu eta egun onak ematen. **Anjel Lertxundi**

Ate hotsa **sentitu** zuen tabernaren beste muturrean, eta burua jiratu zuen. **Aritz Gorrotxategi**

Une hartan atea **sentitu** genuen eta Annette sartu zen alaitasun iskanbilatsuz. **Anjel Lertxundi**

Musika gora etortzen **sentitu** zuen Dylanek. **Pako Aristi**

Zigilu bila hasita nengoela, sarraila-hotsa **sentitu** nuen. **Inazio Mujika Iraola**

4 damu izan, atsekabe hartu.

-Sentitzen dut -esan nuen. **Fernando Rey**

Benetan **sentitzen** dut. **Oskar Arana**

Biziki **sentitzen** dut. **Alberto Ladron Arana**

Sentitzen dut, baina bizitzak sekulako bueltak ematen ditu. **Sonia Gonzalez**

Ralph, **sentitzen** dut, baina etorri naizenerako bisita-ordua pasea zen. **Fernando Rey**

-Sentitzen dut, barazki estimagarri horiek, baina, inori meriturik kendu gabe, neure egiten dut adiskidetasunaren gorengo ordezkari izatearen ohorea. **Josetxo Azkona**

Sentitzen zuen artistengatik, nola ez. **Irene Aldasoro**

Sentitzen diat berarengatik. **Juan Garzia**

Sentitzen dut neure kromosomengatik. **Juan Garzia**

5 *sentitzeke adlag* sentitu gabe.

Han zegoen burua hesi gainetik begira, ni airez aire eta batere oinazerik **sentitzeke** bera. **Patxi Ezkiaga**

Handik aurrera hala-hola jarraitu zuen harremanetan, baina jadanik Maddalenenenganako ezer berezirik **sentitzeke**. **Joxemari Iturralde**

Anestesia lokalaren eraginpean agerian jarrita, nahiko xehetasun handiz azter dezake kirurgialariak, gaixoa erabat kontziente egonik eta minik **sentitzeke**. **Irene Aldasoro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

amorrua **sentitu** (9); **antzeko zerbait sentitu** (13); **arraro sentitu** (7)

bakarrik sentitu (26); **barruan sentitu** (6); **beharra sentitu** (49); **beharra sentitu zuen** (16); **beharturik sentitu** (8); **behartuta sentitu** (9); **beldurra sentitu** (17); **beldurra sentitu zuen** (8); **berehala sentitu** (10); **berehala sentiitu nuen** (6); **berezirik sentitu** (10); **beroa sentitu** (19); **beroa sentitu zuen** (6); **berriro sentitu** (13); **beti sentitu** (12); **bezala sentitu** (79); **bezala sentitu nintzen** (23); **bezala sentitu zuen** (10); **bezalaxe sentitu** (12); **bizia sentitu** (16); **bizia sentitu zuen** (11)

dardara sentitu (9); **deseroso sentitu** (27); **deseroso sentitu zen** (10)

errudun sentitu (24); **errudun sentitu zen** (8); **errukia sentitu** (7); **esku bat sentitu** (9); **eskua sentitu** (9); **ezer sentitu gabe** (7)

ganean sentitu (8); **gaizki sentitu** (20); **gaizki sentitu nintzen** (10); **gertu sentitu** (8); **gogo bizia sentitu** (8); **gogoa sentitu** (20); **gogoa sentitu zuen** (8); **goragalea sentitu** (9); **gustura sentitu** (14)

hala sentitu (14); **halakorik sentitu** (7); **halaxe sentitu** (7); **harro sentitu** (23); **hobeto sentitu** (19); **hobeto sentitu nintzen** (7); **horrela sentitu** (7); **horrelakorik sentitu** (9); **hotsa sentitu** (10); **hotza sentitu** (14); **hotza sentitu zuen** (10); **hotzikara bat sentitu** (9); **hotzikara sentitu** (16); **hurbil sentitu** (10)

ikara sentitu (8); **ikusi eta sentitu** (9); **inoiz sentitu gabeko** (6); **itolarría sentitu** (8)

kanpo sentitu (7)

lasai sentitu (6); **lasaiago sentitu** (11); **libre sentitu** (9); **lotsa sentitu** (12)

mina sentitu (23); **mina sentitu nuen** (8)

ondo sentitu (13); **ondozik sentitu** (11); **ongi sentitu** (7); **orduan sentitu** (13)

pena sentitu (11); **pena sentitu zuen** (6); **poza sentitu** (18); **poza sentitu nuen** (8); **pozik sentitu** (12); **premia sentitu** (14)

sentitu gabeko (11); **sentitu orduko** (11); **sentitu ote zuen** (10); **sentitu zuen harryk** (12); **sentitu zuen norak** (6); **sentitu zuen orduan** (11)

usaina sentitu (8)

zerbait sentitu (22); **zirrara sentitu** (13); **zirrara sentitu zuen** (9); **ziztada bat sentitu** (8); **zoriontsu sentitu** (12)

bakarrik sentitzea (6)

eroso sentitzeke (7); **errudun sentitzeke** (6); **harro sentitzeke** (6)

sentitzeke aukera (7); **sentitzeke gai** (11); **sentitzeke gauza** (9); **sentitzeke modu** (6)

ahul sentitzen (9); **ama sentitzen** (6); **antzera sentitzen** (7); **arin sentitzen** (6); **arinago sentitzen** (6); **arraro sentitzen** (10); **arrotz sentitzen** (16); **aske sentitzen** (10); **asko sentitzen dut** (11); **askotan sentitzen** (6)

bakarrik sentitzen (57); **bakarrik sentitzen zen** (8); **barnean sentitzen** (9); **barruan sentitzen** (19); **baztertuak sentitzen** (8); **baztertuta sentitzen** (11); **beharra sentitzen** (43); **beharra sentitzen zuen** (7); **beharturik sentitzen** (7); **behartuta sentitzen** (11); **beldurra sentitzen** (7); **bene benetan sentitzen** (6); **benetan sentitzen** (23); **benetan sentitzen dut** (13); **berdin sentitzen** (6); **beroa sentitzen** (17); **berriro sentitzen** (6); **beti sentitzen** (8); **bezala sentitzen** (176); **bezala sentitzen naiz** (29); **bezala sentitzen nintzen** (22); **bizia sentitzen** (9); **biziki sentitzen** (10)

desberdin sentitzen (6); **deseroso sentitzen** (21)

eroso sentitzen (58); **eroso sentitzen naiz** (6); **erosoago sentitzen** (18); **errudun sentitzen** (43); **errudun sentitzen zen** (7); **errukia sentitzen** (6); **etxean bezala sentitzen** (11); **euskaldun sentitzen** (7)

falta sentitzen (8)

gai sentitzen (17); **ganean sentitzen** (7); **gaizki sentitzen** (39); **gaizki sentitzen zen** (8); **galdua sentitzen** (8); **galduta sentitzen** (7); **gauza bera sentitzen** (10); **gauza sentitzen** (16); **gehiago sentitzen** (15); **gertu sentitzen** (11); **gertuago sentitzen** (6); **gizon sentitzen** (8); **gogoa sentitzen** (11); **gorrotoa sentitzen** (6); **gustura sentitzen** (33); **gusturago sentitzen** (10)

hala sentitzen (28); **hala sentitzen zuen** (6); **halaxe sentitzen** (20); **harro sentitzen** (32); **harro sentitzen zen** (7); **hobeki sentitzen** (13); **hobendun sentitzen** (6); **hobeto sentitzen** (45); **hobeto sentitzen hasi** (7); **hobeto sentitzen naiz** (18); **horixe sentitzen** (14); **horregatik sentitzen** (11); **horrela sentitzen** (14); **hotza sentitzen** (13); **hurbil sentitzen** (15); **hurbilago sentitzen** (13); **hutsik sentitzen** (9)

ikusten eta sentitzen (6); **indartsu sentitzen** (13); **indartsuago sentitzen** (8)

jota sentitzen (6)

kanpo sentitzen (7); **kide sentitzen** (6)

lasai sentitzen (7); **lasaiago sentitzen** (6); **libre sentitzen** (15); **lotsa sentitzen** (15)

mina sentitzen (22)

nekatuak sentitzen (8); **nola sentitzen** (47); **nola sentitzen zara** (7)

ondo sentitzen (37); **ongi sentitzen** (13); **orain sentitzen** (20); **oso bakarrik sentitzen** (7); **oso eroso sentitzen** (6); **oso gaizki sentitzen** (7); **oso ondo sentitzen** (6)

pena sentitzen (6); **pentsatzen eta sentitzen** (7); **plazera sentitzen** (7); **poza sentitzen** (13); **pozik sentitzen** (17); **premia sentitzen** (24); **premia sentitzen zuen** (6); **presioa**

sentitzen (6)

seguru sentitzen (18); seguruago sentitzen (11)

sentitzen dut (471); sentitzen naiz (273); sentitzen nintzen (269); sentitzen nuen (289)

triste sentitzen (6); urrun sentitzen (13); urrunago sentitzen (7)

zer sentitzen (111); zer sentitzen zuen (13); zerbait berezia sentitzen (9); zerbait sentitzen (15); zergatik sentitzen (10); zorabioa sentitzen (6); zorionsu sentitzen (24); zorionsu sentitzen nintzen (6); zoritxarreko sentitzen (9)

sentituarazi ik **sentiarazi**.

sentitze 1 iz zerbaiten sentipena izatea.

Sentitzearen xedea ez da jakitea, arrazoimenak eragiten baitu jakitea, mugitze soila baizik. **Imanol Unzurrunzaga**

Baina zinez normala da orain bi urte doi idatzi nuen testuan nire deus ez ikuste edo ez **sentitze** hori? **Anjel Lertxundi**

Orduan sentitu nuen hezurretaraino paper zuriak eragiten duen zorabio hori, tximeletak sabelean **sentitze** hori. Nahiz eta taldekideekin entrenatu, taldearen barruan

sentitze hori edo tokia bilatze hori hasieran pixka bat kostatzen zaizu. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Badirudi zenbait herrik bereziki sentitzen duela herrimina eta besteek ez bezala **sentitze** horrek hitz nostalgikoak sortzen dituela: morriña, saudade, sodade... **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Maisua eta distzipulua, mila modutan, fedeak sortu ditu, munduan errudun **sentitze** zahar batek. **Patziku Perurena**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Barne sentimenak **sentitze** ekintzak antzematen ditu. **Imanol Unzurrunzaga**

Arrazoitako pertsonak, beren ulertze- eta **sentitze** -moldeetatik dena iragazten dutenak. **Joan Mari Lekuona**

Musikari bakoitzaren ikuspuntua edo **sentitze** era talde osoarenarekin amankomunean jartzeko gaitasunean. **Berria - Kultura**

sentitzeke ik **sentitu**.

senton¹ iz pertsona oso zaharra.

Malkoak zerizkiela ikusi ditiagu Zazpi Urteetako gerratean borroka latza egindako **sentonak**. **Txillardegí**

Berrogeita hamar urteko **senton** kaskaildu honek -ni neure artean- zer espero dezake 30 urte gazteago diren sexu-pitxi horiengandik? **Txillardegí**

senton² iz

Hitz eta esapideetatik unitate handiagoetara igarotzen bagara, **sentonak** aurkitzen ditugu. **Iñaki Arranz**

Asmatitzek eta **sentonek** hitzak-eta biltzen dituzte, bi batugai (edo gehiago) zeuden lekuan batura bat ezarriz. **Iñaki Arranz**

sentondu, senton(du), sentontzen da/du ad senton bihurtu.

Eta, baldin zaharraren ezaugarrietarik bat esperientzia bada, nola sentitu nintzen, gazte nintzen arren, zaharturik eta **sentondurik** ...! **Joan Mari Irigoien**

sentorale iz erromesa.

Iratzar **sentorale**, ez egon egarri. **Herria**

sentsasio ik **sentsazio**.

sentsazio ik **sentsazio**.

sentsazio (927 agerraldi, 134 liburu eta 265 artikulutan; orobat sentsazione g.er., sentsasio g.er. eta sentzazio g.er.) 1 iz sentipena.

Entzutea, ikustea, **sentsazio** guztiak, erabat pasibo eta jasotzaile ziren Lockerentzat. **Xabier Olarra**

Nik benetan sinisten dut haurtzaroko **sentsazioek** eta bizipenek guregan duten eraginean. **Ana Urkiza**

Artelanak eragiten dituen **sentsazioen** eta sentipenen azterketa. **Josu Zabaleta**

Baditugu haurrak, bizitzan momentu bat dira eta momentu hori ere bukatzen da, eta badaukagu pasatzen den denboraren **sentsazio** bat. **Ana Urkiza**

Bizi-bozkarioaren **sentsazio** gero eta biziagoaren prezioa ordaintzeko modu oso nirea zatekeen agian hura guztia. **Joxan Elosegi**

Unean uneko **sentsazio** eta inpresioei soilik erantzuten zieten, edo joan-etorri urduri eta zentzugabeetara pasatzen ziren moteltasunetik. **Xabier Olarra**

Sukararekin egon naizen egunetan, inoiz sentitu ez nuen **sentsazio** bat izan dut. **Anjel Lertxundi**

Ez daukat hitzik Chicagok sortarazi dizkidan **sentsazio** eta sentimenduak azaltzeko, **sentsazio** eta sentimendu horiek hitzetan itzulezinak balira bezala. **Patxi Zubizarreta**

Sentsazio batzuk nabarmen eta are jasanezin zaizkie; beste batzuk, berriz, apaldurik edo ia ezereztuak dituzte (esate baterako, batzuetan ez dute sentitzen mina bera). **Xabier Olarra**

Gelditasun handia eta bake-**sentsazioa** biltzen ditu, ez bakarrik haren Pontiton jenderik ez dagoelako eta eraikinak eta kaleak hutsik daudelako. **Xabier Olarra**

Esaldia burutu bezain pronto, halako *déjà vu* **sentsazio** bat izan nuen, baina ez zen ilusioa. **Ramon Saizarbitoria**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sentsazio fisikoa da, guztiz erreala. **Ana Urkiza**

Garbi dago bi farola dauden kale batean baino seguruago sentituko garela hogeai dauden lekuan, baina **sentsazio** psikologikoa da hori. **Berria - Gaiak**

Zakila hatz artean estutu eta **sentsazio** atsegina izan nuen. **Aitor Arana**

Etzetik gertu, halako batean, **sentsazio** berezi bat nabaritu zuen bizkarrealdean, hats epel moduko **sentsazioa** garondoan. **Miguel Angel Mintegi**

Sentsazio berrien gaidosia. [Patxi Iturritegi](#)

Sentsazio goxo lasaigarria zen; aspaldiko urpekaritza-urteak gogora ekarri zizkidan **sentsazio** bat. [Xabier Olarra](#)

Urdailean halako **sentsazio** bitxi bat nuela, bulegoko sukualdean sartu nintzen. [Josu Zabaleta](#)

Ikusmen normaleko pertsonak, ikusmen hutsezko **sentsazioetatik** abiatuz, nekerik gabe taxutzen dituzte formak, ertzak, gauzak eta eszenak. [Xabier Olarra](#)

Uste dut folioz beteriko karpeta lodia ikusi baino lehenagoko **sentsazio** bat izan zela. [Iban Zaldúa](#)

Bere etxean zegoelako **sentsazio** iheskorra izan zuen lehen uanean. [Fernando Morillo](#)

Film on bat egiteko elementuak zituen zuzendariak, baina elementu horiek alferrik galdu dituelako **sentsazioarekin** amaizten du ikusleak. [Berria - Kultura](#)

Zuk fitxatutako zein jokalarirekin izan duzu asmatu duzulako **sentsazioa**? [Berria - Kirola](#)

Oso **sentsazio** bitxia da benetan, ni bezalako batentzat, egunkaria idaztea. [Josu Zabaleta](#)

Ez zuen sekula **sentsazio** izu-goza hura bizi izan. [Anjel Lertxundi](#)

Yolok 14 urterekin izan zituen lehendabiziko **sentsazio** homosexualak. [Pako Aristi](#)

Hortxe zegokeen, Verreyren ondorioaren arabera, "**sentsazio** kromatikoaren gunea". [Xabier Olarra](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nik ez nuen hori "ikusi" inola ere; ez nuen inolako eszenarik ikusi, baizik kolore askoko irudi korapilatsu bat, **sentsazio** multzo zeharo abstraktu eta kategorizatu gabeko bat.

[Xabier Olarra](#)

Sentsazio gurpirlaren edozein jira-biraren distira edo itzala pausatutako unea kristalizatu eta izozteko. [Anton Garikano](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horregatik, ordenagailu aurrean jartzen nintzen bakoitzean, idazten nuelarik ere, ezintasun **sentsazio** batek harrapatzen ninduen. [Iban Zaldúa](#)

Neure barruan hazten sumatu nuen, ustez lehenbiziko aldiz, huts **sentsazio** higuigarri bat: horixe zen, beraz, "bestelakoa izatea". [Juan Garzia](#)

Bularrean nuen hustasun **sentsazio** berezi zoragarri hori gorputz ataletara zabaldu zen berehalaxe. [Josu Zabaleta](#)

Deserosotasun **sentsazio** difuminatu baten menpe, tragoxka luzea eman zion edariari. [Aritz Gorrotxategi](#)

Euforia **sentsazio** on batek hartuta sentitzen zenez gero. [Joxemari Iturralde](#)

Libertate **sentsazio** bera sentitzen nuen irakurtzen nuenean eta bazterretan, naturan, zaldiek, ninderabilean. [Ana Urkiza](#)

Urteak ziren jadanik ez zuela tristura **sentsazio** hori nabaritzen beragan. [Joxemari Iturralde](#)

Sargori **sentsazio** higuigarria zegoen oraindik ere hiri osoan. [Aritz Gorrotxategi](#)

Halako babes- **sentsazio** bat ematen zizun, hots guztiak eta gauzen abiadura bera moteldu balira bezala. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Mundu naturalarekiko galera- **sentsazio** hori kasu guztietan nabarmendu izan da. [Xabier Olarra](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

halako **sentsazio** (11); halako **sentsazio bat** (3); oso **sentsazio** (8); oso **sentsazio onekin** (3); porrot **sentsazio** (3)

sentsazio arraro (5); **sentsazio arraro bat** (3); **sentsazio arraroa** (4); **sentsazio arraroak** (4); **sentsazio atsegina** (8); **sentsazio bat izan** (4); **sentsazio bera** (4); **sentsazio berezi** (10); **sentsazio berezi bat** (6); **sentsazio berezia** (5); **sentsazio berri** (4); **sentsazio bitxi** (7); **sentsazio bitxi bat** (3); **sentsazio bitxia** (5)

sentsazio eta sentimendu (3); **sentsazio gazi** (5); **sentsazio gazi gozoa** (3)

sentsazio kontrajarriak (3)

sentsazio on (3); **sentsazio ona** (6); **sentsazio ona da** (3); **sentsazio onak** (24); **sentsazio onak izan** (7); **sentsazio onekin** (4)

zein sentsazio (3); **zer sentsazio** (8)

gorri sentsazioa (6); **izanaren sentsazioa** (7); **izatearen sentsazioa** (4); **lasaitasun sentsazioa** (4); **segurtasun sentsazioa** (3)

sentsazioa dut (3); **sentsazioa dute** (3); **sentsazioa ematen** (8); **sentsazioa ematen zion** (3); **sentsazioa eragiten** (3); **sentsazioa geratu** (3); **sentsazioa izan** (9); **sentsazioa izango** (6); **sentsazioa izango duzu** (4); **sentsazioa izaten** (8); **sentsazioa izaten zuen** (3); **sentsazioa sortzen** (7); **sentsazioa sortzen du** (3); **sentsazioa utzi** (4)

sentsazioak berreskuratu (3); **sentsazioak berreskuratze** (3); **zer nolako sentsazioak** (3)

izanaren sentsazioarekin (3); **sentsazioarekin irten** (3)

sentsazioari dagokiona (5)

sentsazionalismo 1 *iz* komunikabide batzuen joera, berrien alde deigarrienak nabarmentzea, garrantzizkoenak alboratuz, ezaugarri duena.

Hedabideek jarraitu beharreko hamabi puntu aipatzen ditu Minobisek, besteak beste, honakoak: genero indarkeriak giza eskubideak urratzen dituela erakutsi, biktimen intimitatea errespetatu, **sentsazionalismoa** saihestu eta edukia daukaten irudiak bakarrik argitaratu. [Berria - Euskal Herria](#)

Argentinan **sentsazionalismoa** da nagusi gisa horietako gaietan. [Berria - Euskal Herria](#)

Sentsazionalismo hutseko albisteak zabaltzea. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

2 (hitz elkartuetan)

Hogeita hamarreko urteen hasieran, sona hartu zuen Lyssenkoren izenak, hark bere "aurkikuntza" esaten zionari ematea lortu zuen **sentsazionalismo** -kutsuarengatik.

[Juan Garzia](#)

sentsazionalista 1 *izond* sentsazionalismoa ezaugarri duena; sentzazionalismoa lantzen duena.

Prentsa **sentsazionalista** zein kalitatezkoak, eskuinekoak zein laboristak, den-denek kritikatu zuten oso gogor Blair-en jokamoldea. *News of the World* egunkari

sentsazionalistak igandean ematen zuen horren berri. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

Zer egin ezean aldizkari **sentsazionalista** bat irakurtzen ari zen, munduko miseria, ospetsuen esamesa eta zenbait emakume ospetsu eta ez hain ospetsuren

biluztasunarekin denbora pasatzen eta morboa asetzen. [Migel Angel Mintegi](#)

Hau kultur saioa baita, KULTUR saioa, eta ez eztabaida saio **sentsazionalista** horietarikoak! [Jon Arretxe](#)

Usteko duzu literatura **sentsazionalista** merkea egiten ari naizela. [Patziku Perurena](#)

Agentzia horiek mundu osoko "puntu beroenetan" barreiatuak dituzte beren erreportariak irudirik ikusgarrienak, **sentsazionalistenak** eta unibertsalenak hartzeko eta zabaltzeko prest. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

IMCk ezkerreko poltsikotik ateratzen du informazioa, era **sentsazionalistan** hitz eginez, IRAk gobernuaren erakundeetan espiak dituela dioenean. [Berria - Mundua](#)

2 irud/hed

Esate bateko, zaldiak eta behorrak bezain gordin, beren organu sexual **sentsazionalistak** amodio grina gorritan erakutsiz. [Patziku Perurena](#)

sentsazione ik **sentsazio**.

sentsibilisatu ik **sentsibilizatu**.

sentsibilizazio 1 iz sentiberatasuna, sentikortasuna.

Eseak amatasuna, erroak, **sentsibilitatea** dakartzigu gogora. **Patxi Zubizarreta**

Ustez **sentsibilitatea** dutenek gai handietara jotzen dute beren burua edertu nahi dutenean. **Bernardo Atxaga**

Edozeinek pentsatuko du, **sentsibilitate** pixka bat izanez gero, basakeria hutsa izan zela. **Karlos Zabala**

Hik gauza horiek ulertzeko **sentsibilitatea** bahuen. **Mikel Hernandez Abaitua**

Jakitateak ez duen **sentsibilitatea** badu bihotzak eta konprenitzen du doinu horrek zer erran nahi duen. zakar erasan baitio kalimotxoaren eta kalitxikiaren azpikulturak geure gazteen **sentsibilitateari**. **Michel Oronoz**

Haiek han etzanda, bakarrik, noragabe dauden bezala nago ni, heroinaz izan ezik osterantzeko gauza guztiekiko **sentsibilitatea** galdurik. **Pako Aristi**

Mundu mailako ingurumen eta gizarte arazoak konpontzeko beste **sentsibilitate** batzuk eta funtzionatzeko beste modu batzuk behar direla iritzita, [...]. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Sentsibilitatez egindako itzulpena inondik ere. **Iñigo Aranbarri**

2 (izenondoekin)

Sentsibilitate politiko desberdinak zaudek, zaharrak eta gazteak zaudek, unibertitatean ikasitakoak, hiri eta baserriko girokoak... **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Aukera horrek, noski, **sentsibilitate** erromantikoa adierazten zuen. Zibilizazioaren lehen ondorioa **sentsibilitate** nerbioaren garapena da, eta **sentsibilitate** horren harrotze edo bizkorteta gure gaitz nahiz plazerren jatorrian dago. ez dakit urteen berezko uzurtze baten poderioz ala irakurketaren **sentsibilitate** erne berriaz, artaldean ez nintzela gustura sentitzen oharitu nintzen. **Bernardo Atxaga**

Hurrengo kantua ere **sentsibilitate** handikoa izan zen; handiegikoa apika. **Patxi Zubizarreta**

Eta **sentsibilitate** osagarri bat: lurraldetasuna. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Wagnerren musikan **sentsibilitaterik** gorena aurkituko duk, Oskar, giza arimak asma ditzakeen sentimendurik garbienak, Jainkoarengana hurbiltzen gaituztena. **Alberto Ladron Arana**

Saiatuko naiz, nolana ere, [...] irakurlearen **sentsibilitate** kristalezkoa ez mintzen, edo hobe -kristalezkoa den neurrian-, ez pitzatzen edo hausten. **Karlos Linazasoro**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mina sortzen sentitu zuen puntu haiek denak bat egin zuten berehala, ondoez orokor eta normalago bat sortuz, eta orduan **sentsibilitate** une berriak piztu zitzaizkion. **Pako Aristi**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Euskal Herrian, beste lekuetan bezala, idazleek literatur **sentsibilitate** ezberdinen arabera dituzte koadrila ezberdinak egiten, modu naturalean gainera. **Ana Urkiza**

Frantzia-katolikoaren-apezgai-euskaldun-fededun gixakoak ginen, doi doia Ybarnegarayen altxotik harrotzen hasiak, Errepublikaren maitatzen ere, eta kristautasunaren gizarte-**sentsibilitateari** oharitzen. **Piarres Aintziart**

Gure agintarien kultur politika eta **sentsibilitatea** oso kaskarrak dira, oinarritzakoak. **Pako Aristi**

5 irud/hed

Gai honekiko **sentsibilitatea** hildakoak daudenean baino ez da agertzen, baina ezin dugu ahaztu istripu larri eta lanak eragindako gaixotasun ugari ere badaudela. **Berria - Ekonomia**

Askotariko ikuspuntu eta **sentsibilitateak** bilduko dituen akordioa lortzea du helburu prozesuak. **Berria - Harian**

Harrigarria da nola isurtzen duen liburuak sekulako gizatasuna eta **sentsibilitatea**. **Fernando Rey**

Ohartua nintzen ene omonier lagunari arrisksutua iduritzen zitzaiola **sentsibilitate** hori, bereziki marxismoaren analisek leku handiegia hartzen zutelakotz Mounieren ikuspegian. **Piarres Aintziart**

6 zentzumeneren bidez sentimenak hautemateko ahalmena.

Erretinaren eta begiko nerbioaren **sentsibilitatea**, ordea, errotik suntsitu zituen altzairu galdatuaren beroak. **Karlos Zabala**

Gero, musuak **sentsibilitatearen** punturik finenera iristen dira. **Luis Elberdin**

Giza primatuek ez daukagu beste ugaztunek usainetarako daukaten **sentsibilitatea**. **Luis Elberdin**

Espresiorik eta **sentsibilitaterik** gabeko bere begi biribilekin. **Mikel Hernandez Abaitua**

Ezkerrekoa protesia zuen, bizi-zipritzinik gabekoa, Danielak ukatzen zion **sentsibilitaterik** gabekoa. **Jasone Osoro**

Bartzelonako Udalak zezenek **sentsibilitate** psikikoa dutela dioen deklarazioa onartu du. **Berria - Gaiak**

7 eragineei erantzuteko ahalmena.

Atalas-fenomeno batzuk ere ez ditugu gogoratzeko baizik aipatuko (oso azalera txikiak direnean, esate baterako, argizko orbanaren tamainak ez du eraginik **sentsibilitatean**). **Josu Zabaleta**

Efektua handik egun gutxira ikusi zen: xafaren **sentsibilitatea** desagertua zen, literalki. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskal herriko sentsibilitate (5)

sentsibilitate apur bat (3); sentsibilitate eza (4); sentsibilitate ezberdinak (4); sentsibilitate guztiak (6); sentsibilitate guztiek (4); sentsibilitate guztien (3); sentsibilitate handia (4); sentsibilitate politiko (26); sentsibilitate politiko ezaz (3); sentsibilitate politiko guztiak (4); sentsibilitate politiko guztien (3)

sentsibilizatu, sentsibiliza, sentsibilizatzen (orobat *sentsibilisatu g.er.*) da/du ad zerbaiten garrantzia edo balioa ikusarazi.

Egūnaldi hortaz baliatuko da gazteen **sentsibilizatze** eūskararen egoeraz. **Herria**

Gizartea **sentsibilizatzen** saiatuko dira ELA eta LAB, eta «beharrezkoa bada», protestak antolatuko dituzte merkataritza guneean. **Berria - Ekonomia**

Oso garrantzitsua da etorkin horiek nahiz bertako jendea **sentsibilizatzea** eta kontzientziatzea. **Berria - Gaiak**

Zeharo **sentsibilizaturik** gaudela pobrezia, egitura-doiketak eta zor programek, nazioarteko merkataritzak eta jabetza intelektualeko jardunbideek Giza Eskubideei eragiten dizkieten kalte larriez. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Montrealek erreferenduma proposatu zuenean Kanadako Armadako buruak ez zuela esan Kanadako Armada lurraldearen batasunaz «oso **sentsibilizaturik**» zegoela. **Berria - Harian**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

herriarrak sentsibilizatze (3)

sentsibilizatze iz zerbaiten garrantzia edo balioa ikusaraztea.

Ingurumenaren zainketari buruzko **sentsibilizatze** lan honetan, hitzek gauzen erranahia adierazten badute, argazkiek finkatzen laguntzen dute. **Herria**

Baina halako gertaerak salatzen ditugun guztiok gizartearen **sentsibilizatzea** sustatu beharko genukeela uste dut. **Berria - Euskal Herria**

sentsibilizazio 1 iz sentsibilizatzea.

Buru batzarrek gure alderdikideek euskararen erabileraren alorrean izan beharreko **sentsibilizazio** aktiboa bultzatuko dute. Berria - Euskal Herria

Indarkeria eta gatazkei eman beharreko konponbideen inguruko **sentsibilizazio** soziala sakondu dutela. Berria - Ekonomia

Sakoneko afera jendearen benetako **sentsibilizazioan** datzala uste du. Berria - Euskal Herria

Campusean Sexu Erasoan gainera **Sentsibilizazioaren** Astea da. Oskar Arana

Musika jaialdiaren aurretik Bilboko Erakustazokan hegoaldeko komunitateekiko **sentsibilizazioa** bultzatzen duten ekintzak egingo dira, beste kultura eta gizarte mota batzuk ezagutarazteko asmoarekin. Berria - Kultura

Informazioa kanpainak: **Sentsibilizaziorako** eta prebentziorako kanpainak egingo dira. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan)

Sentsibilizazio kanpaina hasi du Oinarriak elkarguneak Nafarroan. Berria - Euskal Herria

Sentsibilizazio lana aspalditik ari da egiten, kontua da berdintasun gaietan adituak diren langileen falta dagoela. Berria - Euskal Herria

Erakunde ofizialek **sentsibilizazio** planak egin behar dituzte. Berria - Euskal Herria

Sentsibilizazio garaiotan, *Berria*-n, asteartean: "Iragan apirilaren 8an aurkeztu zen Ahotsak Euskal Herrian, Donostiako Miramar jauregian. Iñigo Aranbarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

informazio eta sentsibilizazio (3); **sentsibilizazio kanpaina** (12); **sentsibilizazio kanpainak** (5); **sentsibilizazio lana** (3)

sentsible 1 izond sentikorra.

Gure hankak oso **sentsibleak** dira. Berria - Kirola

Lukrezioaren konparazioak zer **sentsiblearen** eta gogoetaren arteko bitartekari dira. Xabier Amuriza

2 kontuz tratatu behar dena.

Kontu **sentsiblea** izango dela badakigu. Berria - Euskal Herria

Plan hori denon artean hitzartua zegoen, eta hori zaila izaten da euskara moduko gai **sentsibleetan**. Berria - Euskal Herria

3 (Kant-en filosofian)

Adigai intelektualak onesten zituzten, baina objektu **sentsibleak** baino ez zituzten onartzen. Ibon Uribarri

Horrela, askatasuna eta izadia bakoitza bere esanahi osoan beren kausa inteligiblearekin edo **sentsiblearekin** alderatu ondoren aldi berean eta aurkakotasunik gabe aurkitzen dira ekintza berberetan. Ibon Uribarri

sentsifikatu, sentsifika, sentsifikatzen du ad

Leibnizek agerpenak intelektualizatu zituen, Locke, berriz, bere aldetik adimenaren adigaiak noogoniaren bere sistemaren arabera [...] osotara **sentsifikatu** zituen, h[au] d[a], hausnarketa-adigai enpirikotzat edo bakartutat baino ez zituen hartzen. Ibon Uribarri

sentsitibo izond zentzumeneana, zentzumenei dagokiena.

Landareen arima vegetatibotik eta beste abereen arima **sentsitibotik** bereizteko. Piarres Xarriton

Beraz horrela arima bera da bidezidun bezala vegetatiboa, sentibera bezala **sentsitiboa** eta arrazoidun bezala adimentsua. Piarres Xarriton

Baitirudi hiru arima badirela gure baitan, hots, vegetatiboa, **sentsitiboa** eta arrazoiduna eta hiltzen garelarik gure arima bi dira bakarrik hiltzen. Piarres Xarriton

Delako ahalmen **sentsitiboa**, sentsualitatea deitzen dena komunzki, tirria ere badela, hark baitu gutiziatzen berari dagokiona eta gogaizten kaltegarri iduritzen zaiona. Piarres Xarriton

sentsomotore izond sentipenari eta higidurari batera dagokiena.

Irudi mota berri horrek krisialdi bat erakusten du, "lotura **sentsomotoreen**" eten bat, eta denbora, ordu arte filmeko irudia definitu izan zuen mugimendu soilaz harago, zuzen-zuzenean aztertu nahia. Josu Zabaleta

sentsore 1 iz ingurumeneko magnitude fisikoen aldaketak erregistratzen dituen gailua.

Korridoreko argia pizteko eskua altuera jakin batean mugitu beharra dago, **sentsore** baten bidez piztu beharko bailuke korridore luzearen amaieran dagoen bonbilak. Harkaitz Cano

AEB Ameriketako Estatu Batuetako zientzialariek atzo esan zuten giza ile baten zabalera baino txikiagoak diren **sentsoreak** erabil daitezkeela gaitzak diagnostikatzeko. Berria - Gaiak

Sentsore elektronikoen datuen maiztasuna aberastu eta ziurtatu dute: 10 minuturo seinatzen eta biltzen dituzte datuak zintzo erregistratuta. Pello Zabala

Ukipen errezeptoreak nerbio sistemako bukaera superespezializatuak dira, kanpotik datorren ukimenezko edozein estimulu atzematen duten oso **sentsore** sofistikatuak. Luis Elberdin

Hobekuntza ekarri zuen esposimetra eta bere **sentsorea** uztai baten forman objektiboaren inguruan jarri ahal izateak. Irene Aldasoro

Ettxera iritsi eta **sentsore** batzuen bidez, ordenagailuak gure egoeraren berri emango digu. Berria - Kultura

Lau gailu berezi ditu Aurak: erresoluzio handiko zunda dinamikoa, mikrouhin zunda, ozonoa kontrolatzeko **sentsore** espektrometroa eta **sentsore** troposferikoa. Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan)

Ura berotzeko hornigaietan erabiltzen den murgil-berogailuan, tenperatura-**sentsore** batek korrontea itzaltzen du tenperaturak maila jakin bat gainditzen duenean, eta piztu, berriz, tenperatura behar den mailatik gradu bat edo bi jaisten denean. Irene Aldasoro

sentsorial 1 izond zentzumeneana, zentzumenei dagokiena.

Irudi hori **sentsoriala** da, eta "materiala" ere esaten badiogu, zentzu horretan eta elkarretaren beste terminoaren aurkakotasunez da; termino hori *kontzeptua* da, eta, eskuarki, abstraktuagoa da. Isabel Arrigain

Lukreziok gertaera **sentsorialetan** eta arrazoiketa inferentzialetan oinarrituriko argitasunez aurkezten ditu beti bere tesiak. Xabier Amuriza

Gizakia zer horietariko bat da: ezagutza sentimenteratik hasten delako eta ezagutarik behinena **sentsoriala** delako baiespina gizakiaren kosmoango inkardinazioaren ideiatik dator, hain zuzen. Xabier Amuriza

Pentsamendu maskulinoan, oster, asepsia handiago dago; elementu **sentsorialek** ez dute eragiten neurri berean. Ana Urkiza

85 dezibeliotik aurrerako soinuk jasan behar dituztenek gorreria **sentsorial** progresioa garatzeko arrisku handia dute. Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan)

sentsorialtasun *iz* sentsoriala denaren nolakotasuna.

Besteei, hots, irakurleari, eskatzen ari da obrak garatzen duena amankomun ipintzeko prozedura komunikatibo berberak erabil ditzala: irakurlearen **sentsorialtasun** arazoitzaleari bultz egiten dio, komunikazio giro baten barruan. **Xabier Amuriza**

sentsu 1 *iz* zentzumena.

Hari esker ditu gizakiak mugiarazten besteak eta mugitzen da bera ere, eta haren bitartez dute ezagutzen kanpoko bost **sentsuek**, hots, Ikusten, Entzuten, Usnatzen, Dastatzen, Hunkitzen, bai eta berdin jakiten barneko lau **sentsuek**, hots, **Sentsu** komunak, Gogamenak (batzutan Irudimena deitua), Jujamenduak, Oroimenak. **Piarres Xarriton**

Sudurraren bitartez gure **sentsuak** hunkitzen dituzten gauzak, Usain-onoak edo Usain-tzarrekoak deitzen dira. **Piarres Xarriton**

Objektuen azalean, haien itxuran geratu gabe, sakonera jotzea; bazter batera uztea, ahal den neurrian, geure **sentsuen** eta geure burmuinaren izaerak eragiten dizkiguten irudipen ustelak. **Juan Garzia**

Beilan, informazio kantitate gaitza iristen da, **sentsuen** bidez, ugaztun goren baten burmuinera. **Juan Garzia**

Fisikariak objektu bati buruz eraikitzen duen irudikapenaren eta geure **sentsuek** ematen digutenaren arteko aldea. **Juan Garzia**

Objektua (**sentsuen** objektua den aldetik) gure begiespen-ahalmenaren antolalarari egokitzen bazaio, berriz, orduan ederki errepresenta dezaket nik horren ahalgarritasuna. **Ibon Uribarri**

Asmamen handia behar da [...] **sentsuei** bistako zaien ooren aurka, intuizio ooren aurka, bidea egiteko. **Juan Garzia**

Justizia hura galduz geroz, galdu zen ere hastapeneko ordena eta harmonia miresgarria, eta **sentsuak** jazarri ziren arrazoiaren aurka, eta arrazoiak ez zion Jainkoari sinetsi. **Piarres Xarriton**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kanpoko mundua, espezie bakoitzak hautematen duen moduan, bere **sentsu**-organoen araberakoa da, batetik, eta, bestetik, **sentsu**- eta mugimendu-gertakariak burmuinean integratzen diren moduaren araberakoa. **Juan Garzia**

Kalkuluz, halako errealtate batera iristen dira, non gauzek hala behar dutelako ebidentzia matematikoak muturrez mutur jotzen baitu **sentsu**-intuizioaren datu guztiek. **Juan Garzia**

Gu geu ere hertsiki kaiolatuak gaude geure nerbio- eta **sentsu**-tresneriak inposatzen digun mundu-irudikapenean. **Juan Garzia**

3 ipar noranzkoa.

Heldu den primaderan, trinketeko eta "Les Terrasses" karrikak **sentsu** bakarrean ezarriak izanen dira herriko etxetik elizaraino, lehenik entseatzeko. **Herria**

Lerro bat baizik ez da idekia, aldizkatu beharrean dira bi **sentsuetan** dabilzan ibilgailuak. **Herria**

Sentsu batean baizik ez dira ibilgailuak hor haizuko, aldizkatzeko su gorri bat izanen delarik manatzaila. **Herria**

Hego Lapurdiren kasuan urratsa ongi eta zuzen daramate hautetsiek zentzu eta **sentsu** horretan. **Herria**

4 ipar adiera.

Azken bi puntu horiek ongi gogoetatuz, konturatuko zare **sentsu** bat baino gehiago adieraz dezaketela marka berek. **Herria**

Badira hola hitz batzu, lehengo **sentsurik** ez dutenak: gure mendean, zer da ahalgea? zer da beldurra? zer da lana? zer da elkartasuna? **Herria**

5 ipar zentzua.

Iduritzen zaio ere, herri-elkargo hau tipixegia delakoan, luza gabe Amikuzeko herri-elkargoari josia izanen dela, eta hala balitz, orduan-ea **sentsu** gutiago lukeela Irisarrirentzat egitura horren barne izaitea. **Herria**

6 ipar ildo.

Sentsu hortan hitzordu inportanta dukegu helduden urtarilaren 10an antolatzen dugun kantaldiarekin. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

barneko sentsua (18); kanpoko sentsua (4)

barneko sentsuak (5); gure sentsuak (8)

barneko sentsuan (8)

barneko sentsuarekin (3)

barneko sentsuaren (44); barneko sentsuaren forma (3); barneko sentsuaren formaren (4); barneko sentsuaren objektu (5); barneko sentsuaren objektua (5); gure barneko sentsuaren (4); kanpoko sentsuaren (8)

sentsuaren bitartez (3); sentsuaren forma (4); sentsuaren formaren (4); sentsuaren objektu (5); sentsuaren objektua (5)

barneko sentsuari (7); gisa barneko sentsuari (3); kanpoko sentsuari (5); sentsuari soilik (3)

gure sentsuei (4); sentsuei ematen (3)

barneko sentsuen (3); gure sentsuen (13); gure sentsuen objektu (3); kanpoko sentsuen (20); kanpoko sentsuen objektua (3)

sentsuen arabera (7); sentsuen begiespenaren (4); sentsuen bidez (4); sentsuen bitartez (7); sentsuen mundu (4); sentsuen munduak (4); sentsuen munduan (18); sentsuen munduaren (11); sentsuen munduari (4); sentsuen munduaz goiti (4); sentsuen munduko (18); sentsuen mundutik (3); sentsuen objektu (18); sentsuen objektu gisa (4); sentsuen objektu ooren (3); sentsuen objektua (4); sentsuen objektuak (9); sentsuen objektuei (5); sentsuen objektuen (9); sentsuen objektuetara (4)

sentsurik gabe (4)

gure sentsuzko (15); gure sentsuzko begiespenaren (7)

sentsuzko baldintza (5); sentsuzko begiespen (11); sentsuzko begiespena (9); sentsuzko begiespenak (3); sentsuzko begiespenaren (38); sentsuzko begiespenaren baldintzarik (3); sentsuzko begiespenaren forma (5); sentsuzko begiespenaren objektua (4); sentsuzko begiespenari (4); sentsuzko begiespenaren (6); sentsuzko begiespenen (4); sentsuzko ezagutzaren (4)

beti sentsuzkoa (3); sentsuzkoa den (4); sentsuzkoa denez (3); sentsuzkoa ez den (13); sentsuzkoa izan (3)

sentsual 1 *izond* zentzumenek eraginiko sentipenei dagokiena.

Harrizko zutabeekin halako ukimenezko harreman **sentsuala** izan ostean. **Harkaitz Cano**

Sexua da sentimendu, nahi eta desio horren adierazpen fisikoa, materiala, **sentsuala**. **Luis Elberdin**

Amodio **sentsual** bat, fisikoa, ia lizuna, uholdea nola, musika-gela osoan barreiatu zen. **Eskarne Mujika**

Adimenaren plazer oro, edo aintza da (hau da, norberaren izen ona), edo, azken batez, aintzari dagokio; beste guztia sentsuala da edo **sentsualera** darama, eta komenientziaren izenpean sarturik dago. **Esteban Antxustegi**

Hori guztia sexuala edo **sentsuala** den berdin dio. **Luis Elberdin**

2 sexuaren plazerekin lotua dagoena; plazer horiek eragiten dituena.

Literaturak Venezian kokatu dituen istorio erotikoen, inauteriek eta inauterietako mozorroek, kale estuetako enkontru klandestinoek... horrek guztiak Venezia **sentsual** baten irudia eraiki du. **Anjel Lertxundi**

Montse **sentsuala** zen, limurtzailea zen, lizuna zen, fantasia bera zen... eta, batez ere, jolastu egiten zuen, eta jolasarekin liluratzen ninduen, egiatik haratago, baina baita gezurretik haratago ere. **Joan Mari Irgoien**

Nahita aukeraturiko jarrera zen, **sentsuala** oso, gorputzaren lerdentasuna erakusteko aukeratua. **Migel Angel Mintegi**

Bazen zer bait **sentsuala**, eta morbosoa batera, eszena hartan. **Karlos Zabala**

Orain bizkarraren gainean zetzan, lasaiturik, ezti eta **sentsuala**, eguzkitan berotzen ari den bainulari baten biluztasun utziarekin. **Monika Etxebarria**

Irrika **sentsualak** hain diziplina gogorrez zentzatzzen zituen, ez baitzuen jaten naturari eusteko behar-beharrezkoa baizik. **Askoren artean**

Haien laztan samurraren gozamen **sentsual** gozagarria dastatzen denean. **Josu Zabaleta**

Neska beltzaren **sentsual** bat zegoenean begiak kolore desberdinekoak zituen. **Koro Navarro**

Erdilunpetan gelditu ginenean, musika **sentsual** bat jarri zuten platoon. **Karlos Linazasoro**

70. urtebetzean atera duen diskoko singela Cohenen sustraietara itzulera bat da, abesti **sentsual** eta zintzoa. **Berria - Kultura**

Segidan, ezpainak belarrian ipini eta, ahots tonu isil eta **sentsual** batez, halaxe esan zidan: [...]. **Joan Mari Irigoien**

Begirada urdin, ezpain **sentsual** eta su itzalezineko ofizialaren aurrean. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

3 irud/hed

Dutxatik irten zenerako italianak etxe osoan zehar barreiatua zuen kafearen usain **sentsuala**. **Unai Iturriaga**

sentsualismo iz sensualitatea.

Sentsualismoak, bestalde, gune aparta ukan du Luis Mari Mujikaren poetikan. **Berria - Kultura**

sentsualista 1 izond sentsualismoari dagokiona.

Bi **sentsualista**: horrek eduki zituen elkarrekin, irauin zuen bitartean. **Oskar Arana**

2 filosofian, giza ezagutzaren iturri bakartzat kanpo sentimenak hartzen dituen.

Gure arrazoimen-ezagutza ororen objektuari begira filosofo batzuk **sentsualista** soilak izan dira, besteak, filosofo intelektualista soilak. **Ibon Uribarri**

Ezagutzaren teoria atomista-**sentsualistaren** tradizioan kokatuta. **Askoren artean**

sentsualitate (56 agerraldi, 24 liburu eta 13 artikulutan) 1 iz sentsuala denaren nolakotasuna. ik sentsualtasun.

Haragiak gutiziatzen du Izpirituaen aurka eta Izpirituak Haragiaren aurka; haragiak erran nahi baitu **sentsualitatea** arima sentsitiboa den bezainbatean eta izpirituak erran nahi baitu nahimena arima arrazoiduna den bezainbatean. **Piarres Xarriton**

Delako ahalmen sentsitiboa, **sentsualitatea** deitzen dena komunzki, tirria ere badela, hark baitu gutiziatzen berari dagokiona eta gogaitzen kaltegarri iduritzen zaiona.

Piarres Xarriton

Orduan, amonak plazera eta **sentsualitatea** erakutsiko dizkio, txokolatina zuri bat dela medio. **Berria - Kultura**

Berezia du gida lanetan aritzen den honek hiria erakusteko, zubiekien eta eraikinekin duen harremana **sentsualitate** handikoa da, ia sexuala. **Harkaitz Cano**

2 sexuaren plazerekin lotua dagoenaren nolakotasuna.

Istorio horiek direla-eta, zenbait kritikarik [...] **sentsualitatearen** nabarmentzea aurpegiratu diote Singerrri, pertsonaien sexualitateari eskainitako leku haien ustez handiegia.

Koro Navarro

Areago, judu ortodoxoen artean **sentsualitatea**, sexualitatea, guztiz menderatu eta ezabatu beharreko gauza dira. **Koro Navarro**

Sentsualitateak obedi diezaion arrazoiari eta beheko grina guztiak egon daitezen goikoei menderatuagoak. **Patxi Altuna**

Ez dut sentitu gehiago hain **sentsualitate** eta erotismo zirraragarririk. **Juan Kruz Igerabide**

Giza primatzen artean, musuak maitasun adierazpenak dira eta gure **sentsualitatearen**, jolas erotikoaren eta kitzikapen sexualaren oinarritzko osagaia. **Luis Elberdin**

Bere musuak bereziak zirela, bere ezpainen ukitu bakoitzari **sentsualitate** harrigarria zeriola, grina ezkutuz beteriko musuak zirela. **Sonia Gonzalez**

Laztan, usain eta zapore nahasketak **sentsualitatearen** gorenera eramaten gaitu. **Luis Elberdin**

Haren keinu guztiei [...] fiantasun apartaren eta **sentsualitate** ilunaren lurrina zerien. **Alberto Ladrón Arana**

Cadinek bere sudur arrosa irekitzen zuen kateme baten **sentsualitatearekin**. **Karlos Zabala**

Gaurko klasean Marisari esan zioat, prosa honi **sentsualitatea** dariola. **Iñaki Iñurrieta**

sentsualki adlag sentsualitatez.

Bakan entzun dut norbait gaztelaniaz hoin ederki, garbiki, emeki, **sentsualki** mintzo, hitzez gozatuz. **Piarres Aintziart**

Bere inguruan oinaz geldiro eta ia **sentsualki** zapaltzen zuen lurra, marra biribil bat markatzeko. **Xabier Olarra**

Ezpainak **sentsualki** plegatuz, senarra beste batekilan nola harrapatu zuen erraten zion, ttatit beha zegokion pareko gizonari. **Itxaro Borda**

sentsualtasun (19 agerraldi, 6 liburu eta 9 artikulutan) 1 iz sentsuala denaren nolakotasuna. ik sentsualitate.

-Ez egidak esan kilima egiten ez dianik tonu bibliko latino honek, euskara arkaikoaren sintaxian halako **sentsualtasun** batez bilduta... **Iñaki Iñurrieta**

Erromantizismo samur batek -baita **sentsualtasun** lotsati batek ere- blaitzen dituen pasarteak. **Unai Elorriaga**

N. jaun artistak hegoa maite badu, biziki maite ditu utopia, **sentsualtasuna**, beroaren koloreak eta koloreen beroa, atabismoa, bat-batekotasuna, bidaiari inizatitua... **Anjel Lertxundi**

Begiratzeko gozamen, sentiberatasuna, **sentsualtasuna**, irudimena, bihotzera iristen den guztia nire kameraren objektiboan elkartzen da **Berria - Kultura**

2 sentsuala denaren, sexuaren plazerekin lotua dagoenaren nolakotasuna.

Orri ilun esperantzarik gabeko hauetan Pío Baroja sumindu bat ageri da, izuaren eta jasotako ideien kontra borrokan, erotismo bizi larri batek atakaturia, **sentsualtasun** ia gaixo batez gainditua, sekula ez asetzera kondenatua. **Josu Zabaleta**

Erotismoa eta **sentsualtasuna** goratzen du Singerrek pertsonaien bidez. **Berria - Kultura**

Emakume hotza iruditzen zait, indar organikorik eta **sentsualtasunik** gabea, beretzat inpresio guztiak intelektual soilak direna. **Josu Zabaleta**

Emakumearen **sentsualtasunaren** goraiapamen poetiko bat. **Berria - Kultura**

Ahotsaren **sentsualtasuna** hainbestekoa da non gizona hunkitu egin baita. **Monika Etxebarria**

Neskak marmar egiten zuen, oraindik lotsaturik, geroago arte ez baitzion bidea eman **sentsualtasun** neurrigabe eta ero hari, ez atera orain!, esango zion gero neskek, ahalke eta lotsa oro desagertu zirenean. **Bego Montorio**

sentsuratu ik zentsuratu.

sentibera izond adkor sentibera.

Ez, ez nuen besterik espero moddernaje **sentibera** moxkortutako "proyecto hombre" berriogandik! **Patziku Perurena**

sentzazio ik sentzazio.

sentzillo (orobat **senzillo**) izond laua, soila, bakuna.

Niri holakotan erantzten zaizkit lagunak, eta ttak, momentutxo batez larrugorritan jartzen, eta, nahiz beren jantzi jator eta **sentzilloekin**, zeremoniarik ez dutela batere gogoko disimulatu nahi izaten duten, inork baino itsuago bizitzen dute zeremonia. **Patziku Perurena**

Inoiz ez da erraza izan **"sentzillo"** izaten, baina, gaurregun inoiz baino zailago. **Patziku Perurena**

Orain hauek erabiltzen dira asko, gama honetan, edo honetan, hauek denak gaztainedzak dira eta hauek, berriz, **senzilloagoak**. **Pablo Sastre**

Euskara **sentzilloaren** manifestua-rekin adibidez, saio mordo bat ari dira egiten Patxo Telleria eta Mikel Martinez. **Berria - Kultura**

Idazkera gardena baina ez **sentzilloa**, prosarena ez den narratibarekiko joera. **Berria - Kultura**

sentzillotasun iz bakuntasuna.

Nere gutizia ez da, zuzendari edo artista izatea, neure buruarekiko karreran **"sentzillotasunean"** masterra ateratzea baizik. **Patziku Perurena**

sentzumen ik zentzumen.

senzillo ik sentzillo.

separata iz aldizkari artikuluez eta kidekoez mintzatuz, aparteko inprimaldia.

Susa aldizkariaren **separata** gisa kaleratu zuen bigarrena, 1992an: *Begien bizkar*. **Berria - Kultura**

Krestomatiak, antologiak, edizio kritikoak, eskuliburuak, **separatak**, kantutegiak, poesia klasikoaren edizio elebidunak [...]. **Anjel Lertxundi**

Gutxi gorabehera 4.500 liburuk, testuk, artikuluk eta **separatak** osatzen dute Eguzkitzaren obra eta artxiboa. **Berria - Kultura**

Cecil Day Lewis ingeles poetaren (1904-1972) *The Nabarra* poema narratiboa eman du argitara, bi hizkuntzatan, jatorrizko ingelesean eta euskaraz, *Idatz&Mintz* aldizkariak, 37. zenbakiaren **separata** gisa. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

separata gisa (3)

separatismo iz ideologia edo higikunde politikoa, nazio bat, parte den estatutik bereiztea aldarrikatzen duena.

Han, Herder biziki gogoratzen duen ikuskari batean, ez **separatismoz**, baizik herrien askatasunaren garapen naturalez, gainditua gaurko liberalismo jakobinoa ere, Euskal Herriaren independentzia ikusten zen. **Joxe Azurmendi**

Aurrerantzean, Espainian **separatismoaren** alde egiten zuenari estatuaren kontrako errebeldia ekintza bultzatzaile izatea leporatuko zioten. **Pello Salaburu**

Gerotzik, nazionalismoek eta **separatismoek** etengabe baldintzatu dituzte gertakariak. **Berria - Euskal Herria**

ETAren helburu politikoak, beraz, askatasun nazionala, independentzia, eta **separatismoa** baino haratago doaz. **Joseba Zulaika**

Euskal nazionalismo berri bat sortu behar zen aranismo eta **separatistotik** harantzago, Europa federal batean bilatu behar zen Euskadiren tokia, muga nazional guztien gaindi internazionalismo sozialista baten aukera ikusi behar zen urrunean. **Joseba Zulaika**

separatista 1 izond separatismoarena, separatismoari dagokiona.

Ez da haatik lehen aldia txetxeniar **separatistek** beren burua erakusten dutela holako jokoetan. **Herria**

Egunkaria dela atentatu **separatisten** beldurra suspertzen ari dena. **Anjel Lertxundi**

Broussain, Constantin, Mendiboure, Dourisboure eta mediku gazte zenbaitek, berriz, alderdi **separatista** baten antolatzeaz izan zuten solas, Sabino Arana Goirik Hegoaldean ireki biderei pentsatuz. **Piarres Xarriton**

Kaxmirko talde **separatistetako** buruzagiekin bilduko da Singh. **Berria - Mundua**

40 urtez borrokan aritu ostean, «euskal talde **separatistak**» su-eten iraunkorra iragarri duela nabarmentzen du telebista arabiarrek. **Berria - Harian**

Horretaz gain, «euskal mugimendu **separatistarekin**» zer harreman duen ere galdetu zioten. **Berria - Kultura**

Ez dago oso argi zertarako: "ideia **separatistak**" ezeztatu, eta aurka egiteko asmoarekin seguru asko. **Rafa Egiguren**

Laboristek esan dute independentzia eskaera «ezinezko amets **separatista**» dela: Gales independenteak EBtik dirua jasotzeari utziko liokeela eta 50.000 lanpostu galduko lirakeela. **Berria - Mundua**

«Apeta **separatistei**» aurre eginen diela. **Berria - Euskal Herria**

Bera zinegotzia zelarik (73-79), kabroi **separatista** horien trapu zikina bere kabuz Udaletxean jarri zuen. **Pablo Sastre**

2 iz separatismoaren aldeko pertsona.

Francoren hitzetan, komunistek eta **separatistek** galdua zuten guda. **Alberto Ladron Arana**

Marxistak, **separatistak** eta masoiak euren gordeleku siniestroetan sartuta zeudela eta gogor egin behar zela. **Joseba Sarrionandia**

Separatisten atzaparretatik salbatu gaitu sarritan. **Berria - Kultura**

Gehienetan Britainia eta Euskal Herria ere talde berean sartzen dituzte, hala nola «nazionalisten», «erregionalisten» edo «**separatisten**» zerrendan. **Berria - Euskal Herria**

-Zer harremon mota eduki izan duzue **separatista** euskaldunok iraultzaile greziarrek? **Koldo Izagirre**

Separatista zikin zerria! **Rafa Egiguren**

3 gorri separatista izond

Gudarien amenaza **gorri separatistak** alde egin ondoren, ez zen kalean inor geratu, ateak itxi, leihoak zarratu, ordu erdi inguruan geure moduko mutiko batzuk ibili ginen bakarrik kale hustuetan gora eta behera. **Joseba Sarrionandia**

4 (izen gisa)

Eskolako liburuetan Francoren argazkiak ziren eta **gorri separatisten** aurkako garaipenak ikasi behar zituen.

Sonia Gonzalez

Gorri-separatisten izutik ihesi zihola, istripu zoritzarreko bat izan, eta hanka hautsi zuen.

Inazio Mujika Iraola

BE Cen **gorri separatisten** zelatan dabilzan bitartean, txerri txokoak gorriak ikusten ari dira burtsan.

Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

talde separatista (3)

atentatu separatisten beldurra (4); **gorri separatisten** (3); **separatisten beldurra** (4)

separatu *izond* banandua, bereizia.

Linoren emaztea - egindako ikerketetatik ondorioztatu zutenez karabana **separatuetan** lo egiten zuten-, bera ere zirkuko langilea, Gorky zelako harekin, hildako morroiarekin oheratzen zen aspaldiko asteetan.

Harkaitz Cano

Gertaera txiki **separatuz** osatuta.

Anton Garikano

separazio *iz* banantzea, bereiztea.

Horrela, amodioaren objektua galtzean bere eta bestearen arteko mugak non dauden erabakitzea behartua aurkitzen da nartzisista, bere identitatearen **separazio** oinarrikoaren arriskuak onartzera.

Joseba Zulaika

Behar dena da kaleratzea alde batetik aztertzea, **separazioa** bestetik eta erreklamazioak bestetik.

Berria - Euskal Herria

sepia 1 *izond* koloreez arituz, marroi argi gorrikara.

San Sebastian martiriaren nekaldiari buruzko estampa **sepia** bat.

Mirentxu Larrañaga

Begiratu eta oharitzen gara ze arrotza den irudia, ze ohitura arraroak genituen iraganaren herrialde **sepiari**.

Joseba Sarrionandia

2 (kolore hitzaren ezkerrean)

Gogoratzeke, hortxe ditu argazkiak; eurotan dira Pako eta Duñabeitia, **sepia** koloreak nekez baina hortxe jaso duen Karibe itsasoko argitasunean brankara begira.

Jimenez

Auzoak geruza **sepia** kolore bat zuen, iraganarena, haurtzaroarena, oroimenena.

Anjel Lertxundi

Sepia kolorez margoturik ageri zen zeru urdinaren gainean

Karlos Zabala

3 *sepia koloreko izlag*

Bazen **sepia koloreko** argazki eskerga bat, Templeren aitona North Dakotako Grandin herrian 1880an zuen etxaldearena.

Xabier Olarra

Baita **sepia koloreko** hainbat argazki ere, zinta beltz batez lotuak.

Iban Zaldúa

Mr. Zucher ikusi zuen **sepia-koloreko** laino apartsu batean, ahate-ibilkeraz, ate birakarietatik irteten.

Lopez de Arana

Gorago argazki **sepia-koloreko** batek betetzen du alderik alde horma.

Edorta Jimenez

septentrio (*orobat septentrione g.er. eta setentrione g.er.*) *iz* iparraldea.

Karaianera helduko zara eta handik **septentriora** buruz joan beharko duzu bertze zortzi egunez.

Aurelia Arkotxa

Diotenez, **Septentrio** aldetik zetorren Rodeseko Hospitaliako zalduna.

Aurelia Arkotxa

Alemaniano Bohemiaren inguruetan, berrogeita hemezortzi gradutan eta **septentrioaren** aldera hirurogei gradu eta minutu batzuetako alturan.

Aurelia Arkotxa

Indiako **septentrioko** zatian hotzak ura kristalizatzen du eta kristalezko arroketa heldzen dira diamanteak.

Aurelia Arkotxa

septentrione ik septentrio.

septiko

1 *hobi septiko* ik *hobi 10*.

septizemia *iz* infekatze larria, odolaren bidez organismo osora hedatzen dena.

Septizemia jota hil ez nendin saiatu zen gutxienez.

Joseba Urteaga

septuagesima *iz* Garizuma aurreko hiru igandeetatik lehena edo hiru asteetatik lehena.

Hiru aste gehiago ipini zituen Elizak sasoi hura gertu izateko: **septuagesima**, sexagesima eta quinquagesima.

Pello Zabala

Hiru astez aurreko ostegun horri **septuagesima** ondokoa deitzen zitzaion Elizaren egutegian: izan ere, Elizak garizuma 40 eguneko gutxi balitz bezala, beste hiru aste hartzen zituen aurretik, garizumako giroa prestatzeko.

Pello Zabala

sepultura *iz* hilobia.

Gure memoria historikoan eta autokontzientzian, guk ez daukagu piramiderik eta tenplu galantik, trikuharri eta **sepultura** galdu batzuk mendietan apal-apalak bakarrik dauzkagu hasieran, orgabidezko historia mehar neketsu luzea gero.

Joxe Azurmendi

Letra gabeko aisia, deus eztaienaren alferkeria, gizon biziaren hobia da eta **sepultura**.

Anjel Lertxundi

Sepulturetako kiratsa aditzen dut bazter guztietan.

Joan Mari Irigoien

serafiko *izond* serafinena, serafinei dagokioena.

Atsegin izan bekio Jainkoari, atal askok maitasun **serafiko** beraz Kristo Buruarekin gorputz bat bakarra egitea.

Askoren artean

Horrela, bada, Frantzisko bere gurariaren sugar **serafikoek** Jainkoarenganaino altxatua eta gupida samurrez Kristo [...] bihurtua, goiz batez, mendi hegal batean oitotzean ari zen.

Askoren artean

Horrela, bada, Frantzisko bere gurariaren sugar **serafikoek** Jainkoarenganaino altxatua eta gupida samurrez Kristo -neurrigabeko maitasunez gurutziltzatua hil nahi izan zuen

hura- bihurtua, goiz batez, mendi hegalean otoitzean ari zen. Askoren artean

Haien artean etorri zen anai Egidio serafiko eta jainkozalea, eta anai Bernardo ikustean, pozez gainezka esan zuen [...]. Askoren artean

serafin 1 *iz* aingeruen hurrenkerako bederatzita taldeetako lehena osatzen dutenen kidea, hiru hego parez irudikatzen dena.

Ama ospetsu eta beti Birjina Maria txit dohatsuari; Mikel, Gabriel eta Rafael dohatsuei eta espiritu dohatsuen talde guztiei: serafin, kerubin, ahalmen, nagusi, aginte, botere, indar, aingeru eta goiaingeruei. Askoren artean

Serafinek aingeruen korurik gorena osatzen dute. Askoren artean

Kerubinen gozamina eta serafinen kantua. Juan Garzia

Gorenean, serafinak dena irudi batean begiratzen du. Joan Mari Lekuona

Hartan, Serafin bat ikusi zuen zeru goienetik jaisten, suzko sei hego distiratsu zituela. Askoren artean

Berebiziko poz-alaitasuna sentitzen zuen, ikusten baitzuen zein aurpegi onbera eta atseginez begiratzen zion neurrigabeko edertasuna zuen serafinak. Askoren artean

Estasian geratu zen, begiak zabalik kerubinak eta serafinak ikusten ari balitz bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (hitz elkartuetan)

Gainera asko harritzen zen horrelako ikuskari miresgarri eta ezohikoarekin, bai baitzekien nekaldiko ahulezia ez zetoirela bat serafin-espirituaren hilezkortasunarekin.

Askoren artean

serbentesio ik **serventesio**.

serbiar 1 *izlag* Serbiakoa, Serbiari dagokiona.

Oroitzen ziren, bai, biak ia berdinak zirela, udako garia bezalakoxe ilea zutela buruan, eta biak ala biak zirela iharrak bezain gihartsuak: serbiar arrazarik petoenaren erakusle. Felipe Juaristi

Kosovoren auzia hor geratzen bada ere, serbiar nazionalismoaren oinpean. Piarres Xarriton

Hau izan zen sikh eta maratek mogolei emandako erantzuna, eta greziar eta serbiar nazionalistek osmanliarrei emandakoa. Iñaki Mendiguren

Kristau ortodoxoek Mendebaldearekiko zuten jarreran, hamazazpigarren mendean izandako iraultzak are aldaketa handiagoa ekarri zuen serbiar eta greziar bihotzetan errusiar bihotzetan baino. Iñaki Mendiguren

Mira Milosevic soziologo serbiarra gonbidatu ditu UPNk Jose Jabier Mugikaren omenez egiten duen udako ikastarora. Berria - Euskal Herria

Musulman bosniarrak gehiengo zituen 60.000 biztanleko hiri honetan indarrez sartu ziren Ratko Mladic jenerala buru zuten indar serbiarrak. Berria - Harian

Ez nolana hiko txerria, txerri serbiarra baizik, txerri konkorduna, zenbat eta gehiago jan orduan eta mutur luzeagoa zeukana. Pablo Sastre

2 Serbiako herritarra.

Radovan Karadavic Bosniako serbiarren buruzagi politikoa ohia ihesi joan zen nazioarteko tribunalaren ganik. Herria

Oker izugarria izan zen botere hori ez erabiltzea serbiarrei akordioak beteazteko. Berria - Harian

Borrokaldi horretan, jakina denez, serbiarrei eta hungariarrei esker salbatu zen, Viena ez ezik, Europa Mendebaldea ere bai. Felipe Juaristi

Joan da Artest, eta Peja Stojakovic serbiarra etorri. Berria - Kirola

serbiera *iz* serbokroazierari Serbian ematen zaion izena.

Albaniera zatekeen edo serbiera, edo errusiera, poloniera agian, dena K eta Z hotz. Itxaro Borda

Norvegieraz edo serbieraz jakin zezakeen, apika, eta horrek ia ezinezkoa bihurtzen zuen Josebaren ahalegin guztia. Iban Zaldua

Alegia, serbiera eta kroaziera bi hizkuntza direla orain. Edorta Jimenez

Txerna Gora (Mendi Beltza, serbieraz). Berria - Mundua

SPrako tranbia estonieraz argitaratuta dago, eta eslovenierara, serbierara eta kroazierara itzultzen ari dira. Berria - Kultura

serbiletta ik **serbiletta**.

serbiletatxo ik **serbiletatxo**.

serbilismo *iz* gehiegizko mendekotasuna agertzen duenaren portarera.

Gogoan dut baita ere agindua betetzen hasi nintzela, esaneko bai baina serbilismorik gabe. Joxean Agirre

Gizonezko helduok emakume gazte batzuen aurrean serbilismora iritsi gaitzke. Joxean Agirre

serbiletta (*orobat serbiletta*) 1 *iz* ezpainzapia, ahozapia.

Kafesnea bukatu zuenean, serbiletaz muturra garbitu eta mukizapiaz begiak sikatu ondoren, hizketan hasi zitzaidan. Xabier Mendiguren Elizegi

Har ezak serbiletaren azpian jarri diadan papera. Koldo Izagirre

Xanpaina atera genuen izozkailutik, eta ontzi batean jarri bere serbiletta zuri eta guzti. Bernardo Atxaga

Berna gaineko serbiletta kizkurtua mahai gainean laga eta ahurraz prakak astinduz abiatu zen. Josu Landa

Haizeak pasteleria bateko paperezko serbiletta zerabilen airean. Unai Elorriaga

2 (hitz elkartuetan)

Isiltasuna nagusitu zen beste behin: bata serbiletta-ontziarekin jostalari, bestea azazkalez mahaian joka, elkarrekiko mututasun eta ihesketan tematsu Xabier Mendiguren Elizegi

serbiletatxo (*corpusean serbiletatxo soilik*) *iz* serbiletta txikia.

Zerbeza bana hartzen ari gara Natxo eta biok, botilatik, muturrean jartzen dieten serbiletatxo hori kenduta. Xabier Mendiguren Elizegi

serbitu, serbi, serbitzen du *ad* zerbitzatu.

Hemen behintzat ia denetik egitea tokatzen zait: mahaia jarri, jaso, otorduak **serbitu**, meriendak prestatu, batzuetan ontziak garbitzen edo lehortzen laguntzea ere bai, eta ume pila batentzat gainera! **Xabier Mendiguren Elizegi**

serbitzu ik **zerbitzu**.

serbokroata *iz* serbokroaziera.

Ildo horretan, deigarri egin zait lehen **serbokroata** zen hizkuntza hura, egun, bitan banatu dela. **Edorta Jimenez**

serbokroaziera *iz* Jugoslavia ohiaren lurralde gehienetan mintzatzen den eslaviar hizkuntza.

Taldearen ezaugarriak nabarmenena, bertako kide diren idazle triestetarren sormen-hizkuntzen ugartasuna: italiara, **serbokroaziera**, alemana, gaztelera, friulera, esloveniera, ingelesa, frantsesa eta orain gogoan ez dudana bederatzigarren bat. **Anjel Lertxundi**

Baina nire egiazko pasioa **serbokroaziera** zen, nire lehen amoranteak, Belgradeko opera-kantari batek ohean hitz egiten zidan hizkuntza. Itzulpenaren maila baloratu beharko luke? baina nola, demagun, jatorrizko testua **serbokroazieraz** idatzia bada? **Jon Alonso**

Serbokroazierako idazlerik ezagunenetakoa da. **Berria - Kultura**

serenata 1 *iz* gauaz eta toki agirian egiten zen musika saioa; musika-saio horietarako onduriko musika-lana.

Don Juanek **serenata** bat eman dio amoranteari eta bere etxean sartu da. **Berria - Kultura**

Altisidorak **serenata** bat kantatzen dio Don Kijoteri eta honek ezingo du lorik egin. **Patxi Ezkiaga**

2 *irud/heg*

Tronpeta eta platilozko txaranga batek egiten du zapart plaza nagusian; guarnizioko musikariak dira hiriari **serenata** ematen. **Koldo Izagirre**

Geroago, gau hartan bertan, ezezagun batek **serenata** jo zion, apaizetxeko ate aurrean petardo bat jaurtiz. **Koldo Biguri**

3 hainbat zatitan bereizitako musika-lana, batez ere zurezko musika-tresnentzat idatzia.

Pareko gaitasuna sumatu genuen Mozarten Do minorreko **Serenata** K.388-an galante den estiloa izateko ezohiko tonuan egin zuena. **Berria - Kultura**

serenatatxo *iz* serenatan laburra.

Seietatik zazpiak eta laurdenetara bitartean Mozarten kontzertu oso polit bat eman zuten irratitik: Gau **serenatatxo** gustatu zitzaidan batez ere. **Josu Zabaleta**

serendipia *iz*

Serendipia, antza, aurkikuntza zientifikoetara ailegatzeko bide kasuala da. **Berria - Kultura**

serenisimo *adlag*

Veneziaiko Errepublikak **Serenisimoak** zeraman politika eztabaidatu edo gaitzetsi nahi zutenean, lan egitera ohituta eta zama astunak eramaten ikasia zegoen harrizko eta burdinazko gizon hau hartzen zuten ordeko. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

serenitate *iz* inongo grinaren eraginak nahasten ez duenaren egoera.

Handik bost egunetara hil zen Bartzelonan: **serenitatez**, solemnitateari edo gurasoen fedeari amore eman gabe. **Bernardo Atxaga**

"Atera egin gara orbitatik, egoera oso arriskutsua da", esan zidan **serenitate** handiz. **Bernardo Atxaga**

sereno 1 *iz* gauzaina.

Kairako bidean gehienez **sereno** birekin topo egingo zuela kalkulatu zuen. **Josu Landa**

Hiri barnean, berriz, gauetan, ordua kantatzen zuen **serenoak** ozenki. **Txillardegi**

Serenoa ibiltzen zen orduan, eta kantatzen zuenean, denok ohera. **Arantxa Iturbe**

Zapataria izan zen lanbidez, urte askoan, nahiz eta sei urtez, 1871etik 1877ra bitarte, Tolosako bigarren **serenoa** izan zen. **Berria - Kultura**

2 egurats zabala.

Den dena ondo xehatu eta birrindu ondoren, pilota baten antzekoa egin osagaiekin eta hiru gauetz **serenoan** utzi, euriak eta ihintzak ez bustitzeko moduan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

serenotza *iz* gauzaintza.

Garbi eusten dio inguruneari: eguzkiak jotzen du egunez eta ilargiak gauetz, gauetz tokatzen bazaio bere **serenotza**. **Pello Zabala**

serial¹ *iz* irrati nobela, irrati saila; telesaila.

Bezeroei atea ireki aurretik hamar bat minutu bazituen oraindik, eta irratiari bolumen baxuan entzuten ari zen **serialaren** amaiak puntuan adieraziko zion kaleko ateari sarraila noiz libratu. **Josu Landa**

serial²

1 **serial killer** sailean hiltzen duen hiltzailea. ik **serie 9**.

Gérard Marchand Frantziako **serial killer** -ik handiena bihurtzeko bidean omen da, polizia bere biktimen kopuru doi-doi zein den oraindik ez badaki ere. **Iban Zaldúa**

Herriko plazan bustiak goseti bilatzen zituen **serial killer** baten balzko presentzia imajinatu nuen. [Itxaro Borda](#)

Ez zen ordua enetako sadiko edo **serial-killer** baten aztarparretara erortzeko! [Itxaro Borda](#)

Bat-batean ulertu zuen atxilotu guztiak beren argazki polizialean halako **serial killer** aurpegiarekin agertzearen arrazoia huraxe zela: alegia, denak, bera bezalaxe, goizeko hirurretan jaikiaraziko zituztena begizuloen neurria azpimarratzeko. [Harkaitz Cano](#)

Fidelak ez diren emazteak kalitzeko xedea baizik ez zuen Oresten gisako **serial killer** bat ote zara? [Itxaro Borda](#)

serializazio iz serietan antolatzea.

Lotura duten eta bata bestearen atzetik doazen elementuekin kate bat osatzea da **serializazio** ororen funtsa. [Iñaki Arranz](#)

Formula bat dago **serializazio** guztien oinarrian, matematikako hitza erabiltzerik badugu. [Iñaki Arranz](#)

Ordena edo hurrenkera konkretu bat ere izan daiteke **serializazio** baten indar eragilea. [Iñaki Arranz](#)

Silabak, hitzak... berdin erants edo ken daitezke, erregulartasunez, kopuruak markatutako **serializazio** hauetan. [Iñaki Arranz](#)

serie 1 iz kideko diren eta hurrenez hurren datozen gauzen multzoa. **iksail 11.**

Zera ematen du, leku bakoitzak bere erritimoa duela eta bertako gauza guztiak erlazio zuzenean daudela, **serie** bateko elementuak bezala. [Bernardo Atxaga](#)

Minotauromakia (1935) deritzon **serieko** grabatu bat da bildumaren lan nabarmenena, 1,1 milioi euro balio dezakeena. [Berria - Kultura](#)

Datu teknikoak, mesedez: marka, modeloa, **serie** edo identifikazio zenbakia... [Iñaki Iñurrieta](#)

Neurri zabaleko 8000 **serieko** 14 bagoi motor egiteko kontratua ere itxi du CAFek, 34 milioi euroan. [Berria - Ekonomia](#)

Errepikapena nolakoa den galdetzean, errepikapen hutsa den (*elur eta elur*) edo aldaketa onartzen duen (*elur-melur*) aztertu behar dugu, are **serie** batean mailakatzen den (*melur-elur-lur-ur*) **Serie** batzuk egiten aritu zen osaba Joanikot, baita iduri geometriko batzuk ere, **serie** haiek zimendu harturik. [Iñaki Arranz](#)

Bainulariak izeneko **serie** horrek, Cezannen beste lan askok bezala, bide berriak ireki zituen artista gazte konformagaitzen artean. [Berria - Kultura](#)

Zer periodizazio-irizpide hartu behar dugu **serie** bakoitzarentzat? [Xabier Arregi](#)

Ehun urte inguruko ziklo horietako bakoitza **serie** baten zati bat baino ez da. [Iñaki Mendiguren](#)

Aztertu bigarren garapena, Fourierren **serie** batekin hasten dena. [Fernando Morillo](#)

Tenis jokalaria onenak ariko dira gaurtik igandera Indian Wells tornean, denboraldiko lehen masters **seriea**. [Berria - Kirola](#)

Bihar hasiko dira Bilbon Munduko **Serieak** izeneko auto lasterketak, eta horrek polemika bizia piztu du herritarren artean. [Berria - Hariari](#)

Proba handi bat edo final baten aitzinetik larunbatean egin ohi dut prestaketa proba osoa eta asterdian **serieak**. [Berria - Kirola](#)

2 (izenondoekin)

Zenbakien **serie** naturalerako hiztegi infinitu bat. [Juan Garzia](#)

Sinesten zuen denbora **serie** infinituetan; denbora dibergente, konbergente eta paraleloen halako sare gero eta zabalago, zorabiozko batean. [Juan Garzia](#)

Aurpegien **serie** infinitua zeinu abstraktuek osatzen dute, hala nola gertatzen den suarekin, itsasoarekin edota arabeskoekin. [Bernardo Atxaga](#)

Beraz, **serie** historiko bat dugu honela sailkatuko duguna: [...]. [Iñaki Mendiguren](#)

Jakingo bagenu *quantum* horren balioa **serie** psiko-sozialean [...] gai izango ginatkeela kopuru ezezagunaren magnitudea kalkulatzeko beste **serieetan**. [Iñaki Mendiguren](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez dezagun ahaztu Oteizak **serie** lanak egin arren eskultura autonomoak ere badirela. [Berria - Kultura](#)

Maniako baten pentsamoldea agerian jarriko zuen nolabaiteko **serie** edo datu-sailik (deituren hasierako letraren harremana, krimenak gertatzen ziren asteko egunak, hilketako tokien artean ezar zitezkeen nolabaiteko erlazioak...) ez zen, edo ez zen inondik atzematen. [Jon Alonso](#)

Berak azaldu zidan **serie** zenbakirik gabeko pistola dela, noizbait delituren bat egiteko erabilia. [Berria - Euskal Herria](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hitz **serieak** ditugu, beraz, hitz kateak. Inolako zentzurik ez luke bost menderen joanean Vitruvioren obrak izan dituen ilustrazio **serie** guztien egin gabeko historia sistematikoaren zirriborrorik eman nahi izatea. Zoruan, baina zorua ukitu barik, sabaitik eskegita, beste artelan **serie** bat ikus daiteke. [Iñaki Arranz](#)

8 argazki **serie** eta bideo jarri ditu erakusketa aretoaren gela bakoitzean. [Berria - Kultura](#)

Sinesten zuen denbora **serie** infinituetan; denbora dibergente, konbergente eta paraleloen halako sare gero eta zabalago, zorabiozko batean. [Juan Garzia](#)

Jarrera horretan irauteak esplikatzen ditu topaketaren errepikapenak ziklo-**serie** batean. [Iñaki Mendiguren](#)

Mendebaldeko Zibilizazioaren hazkundean ere ikusten dugu erronka-**serie** bat erantzun arrakastatsuak sortarazten. [Iñaki Mendiguren](#)

5 telebista, irradi edo komikietako saila. **iksail 17.**

Tabernako telebistan estatubatuar **seriea**, poliziena. [Sonia Gonzalez](#)

-Bizitza ez da telebistako **serie** bat, ezta mundua kolonia iragarkia ere. [Sonia Gonzalez](#)

Gustatuko litzaidake telebistarako **serie** bat edo beste pelikula bat egitea. [Berria - Kultura](#)

Aurrena **serie** bateko pertsonaia batez gara maitemintzen, ondotik Institutuko edo Lizeoko haren islarekin gara jotzen entsatzen. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Gaur egun, globalizazioaren garaian gaude eta gure haurrek, aldi berean, Harry Potter irakurtzeko eta **serie** japoniar bat ikusteko aukera dute... [Ana Urkiza](#)

Horiatariko lauk halako **serie** bat osatzen zuten, zinematografikoa oso, nire kargu utzitako egunkariko erdiko bi orrialdeetan: [...]. [Aingeru Epaltza](#)

Sei film laburreko **serie** baten bitartez, XX. mendeko sei zuzendari ezagunen haurtzarora kontatu nahi dute ekoizleek. [Berria - Kultura](#)

Frantziar, *Fournier&Zidrou* bikoteak aldizkarietan maiztasunez kaleratzen den *Les crannibales* **seriean**. [Iñigo Aranbarri](#)

Tipo gogorrena egin nuen berarekiko aurrez aurrekorako, eta B **serieko** filmetako hiltzaile ahots urratuko batena trudi zuen zitalkeriaz eraso nion hari. [Oskar Arana](#)

B **serieko** beldurrezko filmen batetik ateratako dekoratua ematen zuena. [Sonia Gonzalez](#)

6 **serieansup_1 adlag** ekoizpenaz mintzatuz, mekanikoki eta era berean bata bestearen ondoan. **iksail 19.**

Fatroniketik, dena den, ez ditu makinak **seriean** ekoizten. [Berria - Ekonomia](#)

Seriean fabrikaturiko produktuak eta publizitatea, bi egiturak bultzaturiko karrera da gaur egungo bizimodua. [Patziku Perurena](#)

Zergatik ari dira Ingalaterran geroz eta hegazkin handiagoak, geroz eta bonba astunagoak egiten, eta beste alde batetik herrialdea berreraikitzeko etxeak **seriean** egiten? [Josu Zabaleta](#)

Honen herrian hi baino monigote azkarragoak **seriean** fabrikatzen dituzte! [Pablo Sastre](#)

7 **serieansup_2 adlag** korrante elektrikoak, elkarren segidan loturik dauden osagai guztiak zeharkatzen dituela. **ikparalelo 10.**

Aspaldi ez dela, **seriean** elkarturiko hiru neurona edo gehiagoren eratzunean dabilzan korrante elektriko txiki batzuekin lotzen zen oroimen zati bakoitza. [Irene Aldasoro](#)

irud/hed Ahalegindu behar da zehazten zein eskemen arabera (**seriean** jarri, aldi bereko taldekatzeak, aldaketa lineal edo elkarrekikoak) lotu daitezkeen enuntziatuak elkarren artean diskurtso-mota batean. [Xabier Arregi](#)

8 **serieko izlag** seriean ekoiztua edo egina.

Lehenago bakarrak eta errepikaezinak ziren ekoizpenak (etxean egindako jantzi bat, postre bat), orain **serieko** ekoizpenak dira gehienbat. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Serieko ekoizpen horretatik 100 liberatan saldurik makina bakoitza, diru mordoak eskuratu zuen Pascalek. [Jon Muñoz](#)

Lanak izen guturriekin eusten, zeren batak mutur **serioa** berreskuratzen orduko, han hasten bestea iji eta aja. **Alberto Ladrón Arana**

2 (gauzak) seriotasuna duena.

Margotek liburu **serio** asko irakurri ditu dagoeneko, eta ez dabil debekatuta dauzkan gaien bila. **Josu Zabaleta**

Traje bat jaso behar nuen, traje **"serio"** bat, iluna. **Jon Muñoz**

Plaza zeharkatzeko, arropa **serioa** jantzi zuen, zeta beltzezkoa goitik behera, xal handi batekin. **Karlos Zabala**

Esaten zuen hori gauza **serioei** barre egitea dela. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Epaileak halako irribarre **serio** bat egin zuen: [...]. **Josu Zabaleta**

Mitologia, zer lan mota da hori, eta puntu egitea eta irakurtzea ere ez dira lan **serioak**. **Josu Zabaleta**

Ez omen zuten beren burua lan politiko **serio** eta jarraituan ikusten. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Orain kontua **serio** hartu beharra zegoen. **Juan Garzia**

Baionan, Mousserolles auzoko altzairutegia berriz zutik abiatua da joan den urte ondarreko krisi **serioaren** ondotik. **Herria**

Robineren aurpegi bizardun ezitia, Clémenceren soslai **serioa**, Charveten argaltasun zurbila. **Karlos Zabala**

Ofizialki kultura ez da hirugonaren boteretan sartzen baina aurtengo buxetean argi eta garbi erakusten du diruketa **serioa** sartuko duela kapitulu horretan. **Herria**

Kontratu **serioa** zen, esamolde juridikoz bete, testamentu edo ezkontza-kontratuetarako erabiltzen den hizkera tekniko eta hanpatuaz idatzia. **Ander Irizar**

Serioak, izatekotan ere, beste horiek dira, bizitzeko bilatzen diren arrazoi horiek, sakonetik oso gutxi duten arrazoi sakon-usteko horiek. **Iñaki Segurola**

Bi mutikoen arteko adiskidetasuna, bada, bizitza osoan irauten duen beste edozein sentipen garrantziko bezain **serioa** eta isila zen. **Xabier Olarra**

3 (adizlagun gisa)

Serio ala txantxetan, hala jaso zian paperean! **Pako Aristi**

B-k **serio** baino lasai hartu zuen medikuaren epaia. **Jon Alonso**

Serio heldu zen, kezka antzean beharbada, baina haserre mikorik gabe. **Aingeru Epaltza**

Larri daude, **serio**. **Luis Elberdin**

Mary Ann oso **serio** jarri zen. **Bernardo Atxaga**

Oso **serio** ari naiz. **Bernardo Atxaga**

Arras **serio** zegoen, ezpainak estu, begiak argi, saiheskiak. **Karlos Zabala**

Berritso jarri nintzaienean isilik zeudela konturatu nintzen, eta oso **serio** gainera. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Erdi **serio** erdi irribarreka begiratu zion emakumeak. **Migel Angel Mintegi**

Serio samar erantzun nien, agindua goitik zetorrela, eta azkar esateko non zegoen. **Inazio Mujika Iraola**

Halako batean, aurpegia **serio**, ETArekin harremanik ote neukan galdetu zidan. **Agurtzane Juanena**

Lisak, ohi baino zurbilago eta **serioago**, bosgarren solairura igoarazi eta dendan laguntzeko hartua zuten neskaren gela eman zion. **Karlos Zabala**

Okerrena zen **serio** egin zuela magia. **Iñaki Mendiguren**

Orduan has ginteze **serio** lanean. **Koro Navarro**

Egia da batzuetan badirela arrazoiak **serio** haserretzeko, baina hemengo ika-mikak huskeriak baizik ez dira. **Josu Zabaleta**

-Andres -moztu zidan, **serio** -, ezin haut behartu. **Inazio Mujika Iraola**

"Juani ez zaio dantza egitea behin ere gustatu", erantzun zidan amak **serio**. **Bernardo Atxaga**

-Orduan nik ere adiskidea dut -esan zuen **serio**. **Xabier Olarra**

-Berehala aterako nauk -esan zidan osabak oso **serio**, nik kontra egin banio bezala-. **Koro Navarro**

Gogoeta egin behar dut horretaz **serio**. **Karlos Zabala**

-Egia al da zeure izeba puztu zenuela, Harry? -galdetu zion Hermionek oso **serio**. **Iñaki Mendiguren**

-Horregatik nago Aranjuetzen -erantzun zidan, ez **serio** ez txantxetan; akidura puntu batekin, beharbada. **Ramon Saizarbitoria**

4 (hitz elkartuetan)

Kaxilda, gainera, mutil batekin ibiltzen duk **serio**-itxuran aspaldisko honetan. **Txillardegi**

-Ea zer den txarra... -erantzun zuen emakumeak **serio**-itxurak eginez. **Josu Zabaleta**

Serio plantak egin ditu. **Lander Garro**

5 serio-serio adlag

Pepponek **serio-serio** onetsi zuen buru keinu batez. **Koldo Biguri**

Gero, **serio-serio**, lilurak joa, "polit, polit, polita" hitzak errepikatzen zituen, andreari begira, doinu motelagoz. **Karlos Zabala**

"Joan banadi" eta "joaten banaiz" adizkien arteko desberdintasunaz jabetzen ez denak ez omen daki euskaraz, hala zioen **serio-serio**. **Pello Salaburu**

Nik ez nuke esango batere gaizki zaudenik -esan nuen nik **serio-serio**. **Juan Garzia**

-Horra nire orga-pulpitua -esanda, hagatik igoz **serio-serio** sartu zen organ-. **Koro Navarro**

Kattalinek galdera zehatzagoa pausatzen du, **serio serio**. **Eneko Bidegain**

Hau gizonen gauza da -lñakek **serio-serio**, solemne ia. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Baina nik lezioa ikasia nekaren, eta aurrera ekin nion, **serio-serio**. **Joan Mari Irigoien**

6 seriotan adlag serio.

Horrek adierazten baitu beren ezberdintasuna defendatu eta bultzatzeagatik zanpatuak direnekin hartzen ditugula **seriotan** haien arrisku berak. **Piarres Xarriton**

Horrekin inori ez diot kalterik egiten, ez daukate zertan horren **seriotan** harturik. **Josu Zabaleta**

Edipok bere burua **seriotan** hartzen du. **Joxe Azurmendi**

Harreman hark nik idazkuntza **seriotan** hartzeko balio izan zuen. **Ana Urkiza**

Elkarrekin ibiltzen hasi orduko, **seriotan** ibili nahi zuela esan zion Llumi. **Antton Olano**

Seriotan ari da? zer nahi du egin? **Josu Zabaleta**

Besotik heldu nion, **seriotan** ari nintzela azpimarratzeko. **Harkaitz Cano**

Ez dut uste **seriotan** esaten duenik. **Josu Zabaleta**

Erdi-txantxetan erdi-**seriotan** esaten zuen eten behar ez zen hari ikusezinezko arrasto bat uzten zuela igarotzean. **Josu Zabaleta**

Seriotan esaten ziola ikusi ahal izan zuen eta, nondik norakoak eta nola zitekeen konprenitu gabe, berak maite zuela sinetsarazten saiatu zen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Horregatik bururatu zitzaidan niri ideia, txantxetan baino, **seriotan**. **Sonia Gonzalez**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aurpegia serio (6); erdi serio (11); gauza serio (6); gauzak serio (5); gizon serio (12); guztiz serio (5); isilik eta serio (4); lan serio (5); oso serio (109); oso serio hartu (5); oso serio hartzen (7); oso serio jarri (6); oso serio jokatu (4); oso serio zegoen (6)

serio agertu (4); serio antzean (6); serio ari (32); serio ari naiz (10); serio ari zela (4); serio ari zen (5); serio aritu (13); serio aritu ziren (4); serio arraio (5); serio azterten (8); serio begiratu (10); serio begiratu zidan (4); serio begiratzen (8); serio demonio (13)

serio egin (8); serio egon (4); serio erantzun (4); serio esan (11); serio esan zion (4); serio eta sendo (4); serio hartu (41); serio hartu behar (9); serio hartuko (6); serio hartzea (6); serio hartzeko (6); serio hartzen (25); serio hasi (6); serio heldu (4); serio hitz egin (5); serio hitz egiteko (5)

serio jarraitu (6); serio jarraitu zuen (4); serio jarri (42); serio jarri zen (23); serio jarrita (5); serio jartzen (5); serio jokatu (17); serio jokatu zuen (6); serio jokatzeko (4)

serio samar (14); serio samarra (6); serio serio (78); serio serio esan (4)

serio zegoen (12)

ahalegin serioa (7); **apustu serioa** (5); **aurpegi serioa** (7); **ekarpen serioa** (4); **eskaintza serioa** (17); **gauza serioa** (16); **gauza serioa dela** (4); **gizon serioa** (6); **hain serioa** (4); **ikerketara serioa** (5); **itxura serioa** (6); **kontu serioa** (7); **kontu serioa da** (4); **lan serioa** (17); **lan serioa egin** (5); **mutil serioa** (5); **oso gauza serioa** (5); **oso partida serioa** (4); **oso serioa** (25); **oso serioa da** (5); **partida oso serioa** (4); **partida serioa** (23); **partida serioa egin** (11); **partida serioa jokatu** (4); **pertsonek serioa** (7); **proposamen serioa** (4)

serioa baita (5); **serioa da** (48); **serioa izan** (16); **serioa izango** (5); **serioa zela** (8); **serioa zen** (16)

zerbait serioa (8)

serioago hartu (4)

askoz serioagoa (4); **gauza serioagoa** (5); **serioagoa da** (6)

serioagoak dira (4)

izan gaitetzen serioak (4); **lan serioak** (4); **serioak direla** (5); **serioak izan** (6)

lan serioari (4)

serioegi hartzen (4)

gai serioez (4)

oso seriotan (5); **oso seriotan hartzen** (4); **seriotan ari** (4); **seriotan hartzen** (10)

aurpegi serioz (4)

serioagotu, serioago(tu), serioagotzen da/du *ad* serioago bihurtu.

Hasiera batean txantxa giroan hasi dena **serioagotu** egin da. Patxi Zubizarreta

Eta orain, suposatzen dut mesede moduko bat eskatu behar dizuedala -aurpegiara zeharo **serioagotu** zitzaion Imanoli. Fernando Morillo

Um Hamidak sakelana sartu zuen argazkia, marko eta guzti, eta, zigarro bat pizturik, hizketa moldea **serioagotuz** mintzatu zen: [...]. Patxi Zubizarreta

Erantzute aldera, ahotsa **serioagotu** egin zitzaion. Patxi Zubizarreta

serioki (*4 agerraldi, 2 liburu eta artikulu 1ean*) *adlag* seriotasunez. ik **serioski**.

Zergatik ez zaie hauei **serioki** eskaintzen, XXI. mendean gaudela, euskara Interneten bidez ikastea ikasle arruntek dituzten onura guztietik? Pello Salaburu

Hondora joan ziren behin ere **serioki** tirorik egin gabe, ariketak-eta alde batera utzirik. Jon Alonso

Ekzer Abertzalea taldeko bozeramaile Nekane Erauskinen aburuz, bada garaia Legebiltzarrak auzia «**serioki**» jorra dezan. Berria - Harian

serios (*436 agerraldi, 69 liburu eta 172 artikulutan; orobat **serius** g.er.*) 1 iz serioa. (pertsonek eta pertsona-alderdiak)

Hori izanen da halaber mendean hartu dudana emakume **serios** horri eginen diodan lehen desleialtasuna. Jon Muñoz

Bazkideak han biltzen ziren filosofoaren teorien aztertzeko eta eztabaidatzeko, baina berak nehoiz ez zien gizon **seriosen** zantzurik aurkitu. Elena Touyarou

Herrian sartzen nintzela, atso eskale **serios** batek, ehun urtekoa bai, pareta baten bazterretik zutitu eta erremusina eskatu zidan babes-keinu ikusgarri batekin. Berria - Euskal Herria

Gizon **serios** eta maltsoa. Daniel Landart

Goizean itsas adarra elkarrekin iraganak ginen gizon **seriosa** zen. Koldo Izagirre

Goresmenak denaden Berasategui pilotari **serios** eta finari. Herria

Andre Maria Erreginarenean aurpegi **seriosa**, altzoan daukala bere semea ja heldua. Piarres Aintziart

Xavier, azkenik, bidean gora topatu dugua: izerditan, baina adoretu, aurpegi ezinago **seriosarekin**. Patxi Zubizarreta

Aitak igandeetako begitarte **serios** eta larderiatsua aitzinatu zuen: [...]. Itxaro Borda

Aurpegiara zeharo **seriosarekin**, mahaian zehar besoa luzatu eta kolpetxoak eman zizkidan eskuan. Oskar Arana

2 (gauzak)

Eguneroko ezin finituzko liburu gris **seriosa**. Piarres Aintziart

Ez dute, aperianteziarik ere, beste jaun-etxeek Etxauzea balio, ez Leizaratzuk ez Urdoz jauregiak, nahiz hau guziz ederra den bere harri azkar **seriosetan**. Michel Oronoz

Bainan laburzki erranen dautzut, hori gai **seriosa** da, herioaren bel-durra eta hiltzearen beldur bat ikaragarria ukana dut. Menane Oxandabaratx

Baina emaztearen aire **seriosak** neska gaztea beldurtu du. Ramuntxo Etxeberri

Miaketa luzea, xehea, **seriosa**, baina ororen buru gauza guti Harritu nintzen, notetan ez baitzen arrazoi **seriosik** holakorik egiteko. Marzel Etxehandi

72 urte zituen eta azken bi urte hauetan osagarri arrangura **seriosak** bazituen. Herria

Serge atearen argumentuak indartsuak dira, fededun eta apez anitzenak baino **seriosagoak**. Piarres Aintziart

Kantu **seriosak**, bainan ere umorez beteak. Herria

Ez da sekulan berantegi urrats alai eta **seriosen** egiteko. Herria

3 (adizlagun gisa)

Maiek ez zekien engoitik, irri egin edo **serios** egon behar zuenez. Itxaro Borda

Bezperetan bezain **serios** hasi da finalerdi hau igandean bost orenetan. Herria

Handik landa Xabi etxera bildu zelarik, usaian baino berantago, biziki **serios** kausitu zuten aitemek. Michel Oronoz

Serios begiratu zion detektibeari. Migel Angel Mintegi

Hantxe zegoen eserita, xume, **serios**. Anton Garikano

Zu, aldiz, **serios** zoaz. Xabier Montoia

4 **serios-seriosa** *adlag ipar* serio-serio.

Serios-seriosa baratu nion alegerazkoa, hastapenean baliatzeko arinegia iruditzen baitzitzaidan; adiskidetasun Jon Muñoz

5 ez-serios

Gai ez-**seriosa**, umoretsu eta parte hartuz bizitzekoa. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atso eskale serioa (3); **biziki serioa** (3); **eri serioa** (3); **gauza serioa** (3); **guztiz serioa** (3)

biziki serioa (3); **gai serioa** (3); **gizon serioa** (3)

ezin serioago (13)

arrangura serioak (3)

serioski (*223 agerraldi, 53 liburu eta 100 artikulutan*) *adlag* seriotasunez. ik **serioski**.

Horri buruz **serioski** pentsatzea erabaki zuen, egun hartan bertan, biharamunekoaz axolatu gabe. Patxi Zubizarreta

Norbaitek zerbait **serioski** esan arren, bera edozein hitzetan tratatzen, beti. Joxe Austin Arrieta

Ez dago jakiterik **serioski** ala brometan ari den, baina badaezpada ere likorea probatu beste aukerarik ez zaigu geratu. Harkaitz Cano

Zenbait egunez, Frantzia **serioski** kolpatua da, azken hatsetan. Michel Oronoz

"Baina ez dago beste aukerarik", esan zidan **serioski**. Bernardo Atxaga

Gizonak **serioski** begiratu zidan. Juan Garzia

Berriz diotsut, **serioski** ari nintzen zurekin ezkonduko nintzatekeela esan nizunean. Itziar Otegi

Aztertu zeuen barrua ea sinesmenean zaudeten, aztertu **serioski**. Elizen arteko biblia

Bada, despilfarro hori, gauzak ondo eta **serioski** programatuz geroz. Patziku Perurena

Ez zen irrikik, ez zen jostetarik, denak **serioski** ari ziren. Michel Oronoz

Gaixo emazte borondate onekoa: baduke hogeit urte jestu bera **serioski** egiten, eta hutsegiten duela. Piarres Aintziart

Hartu dut bada haren amorosago agertzeko asmoa, nire xedea aiseago bete ahal izateko: hark ordea **serioski** hartu du. Jon Muñoz

Gizonak **serioski** hartu zuen mehatxua. Elena Touyarou

Ondoko istorioen egiazkotasuna ez da **serioski** gezurtatu. Xabier Olarra

Nire existentziaz **serioski** harritzen hasia nintzen. Monika Etxebarria

Ruche jaunaren itsukeriak bakarrik eragotzi zuen aztarna hori **serioski** kontuan ez hartzea. Jon Muñoz

Bizpahiru lagun aurkitu nituen, Rio de Janeiron, Egintza Handiari **serioski** emanak, baina ez ninduten errezibitu nahi izan. Xabier Aranburu

Gezur polit horietako bat, **serioski** aztertua eta zientifikoki ikertua eta ondorioztatua izan dena. Iñaki Segurola

Iruñean altxatu dute zinez burua Xala eta Pascualek, biziki **serioski** jokatzuz biek. Herria

70 bat orrialdetan, bada nun zer irakur eta denak argi ezarriak dira, xintxoki, funtsez, arrunt **serioski**. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arras **serioski** (4); biziki **serioski** (5); oso **serioski** (3)

serioski ari (15); **serioski** egiten (4); **serioski** hartu (5); **serioski** hartzen (6); **serioski** iragan (3); **serioski** mintzatzeko (3); **serioski** segituko (3)

seriostasun 1 iz seriotasuna.

Bai **seriostasuna**, eta irria. Menane Oxandabaratx

Baina borroka armatuaren alternatiba bati **seriostasuna** emateko, hitzetatik haratago joan behar da. Berria - Euskal Herria

Gero, bere **seriostasunera** itzuli zen eta burua hazkatu berriz mintzaten hasi aitzin."Txorakeriak" esan zuen Ramsay andreak, **seriostasun** handiz. Elena Touyarou

Auxotean elgarretaratuko dira, **seriostasun** haundienean hain segur, otsailaren 20an, arratsaldeko 3tan. Herria

Inportantzia baitu errespetu eta **seriostasun** osoan egoitea. Herria

2 (hitz elkartuetan)

«Inongo daturik gabe» mintzatu izana «arduragabekeria izugarria eta **seriostasun** falta izugarria» dela salatu zuen Segiko bozeramaileak. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

seriostasun haundienean (3)

seriostu, serios(tu), serios(ten) du ad seriotu.

Seriostu zen eta soa ilundu zitzaion. Elena Touyarou

Emeki-emeki **seriostu** eta zibilizatu ginen. Itxaro Borda

Baina orain **seriosteko** tenorea jin zaio. Eneko Bidegain

Musu emon gura izan zenion, baina Dolorsek atzera egin zuen, **seriostua**. Koldo Izagirre

Amaturretan huna barraderak nola joan diren, eta gero dira aferak **seriostuko**. Herria

Hainbertze **seriosten** haizenean ez haiz betiko Edu izaten. Aingeru Epaltza

seriotasun 1 iz serioa denaren nolakotasuna.

Bazen han zerbait, samurtasuna, **seriotasuna**, eskuzabaltasuna, patu-kutsuko zerbait, eta distira horrek hitzik gabe uzten zituen txantxazaleenak ere. Xabier Olarra

Horrek aspertzen zuen, eta hortik **seriotasuna**. Jon Alonso

Esan berri zuenaren sinesgarritasuna adierazten zuen haren aurpegiaren **seriotasunak**. Jon Muñoz

Seriotasuna zen zeremonia guztiaren ezaugarri bereziena. Xabier Mendiguren Elizegi

Hala bizi ziren gaztaroko betetasunean [...] hark ematen baitziren beren bizitzei beharrezko **seriotasun**, ernetasun eta itxura. Xabier Olarra

Auditoria, normalizazio eta sinestamendu ereduak ere proposatu izan dira, nolabaiteko **seriotasuna** ematen omen diotelako. Iñaki Heras

Eztitasunez, baina **seriotasunik** galdu gabe. Anjel Lertxundi

Ateraldiak ez zion bisaiaren **seriotasuna** mudarazi. Aingeru Epaltza

Beharrezkoa da planteamendu horiek gutxieneko **seriotasunez** eta analisisiez hornitzea, erreferentzia utopiko eta lelo soiletan utzi nahi ez badira. Iñaki Heras

Ordu arte erakutsi ez zuen **seriotasunez** mintzatu zen. Ramon Saizarbitoria

Solemnea deituko nukeen **seriotasun** batez mintzatu zitzaidan: [...]. Anjel Lertxundi

Aspaldi izan dugun pozik handiena eman diguk baieitzkoarekin", esan zidan Martinek beragan imaginatu izango ez nuen **seriotasun** batez. Bernardo Atxaga

2 (izenondoekin)

Hermannen ahots lodiak **seriotasun** handia ematen zion esaten ari zenari. Anjel Lertxundi

Seriotasun larria erakusten baitzuen, beso horiek bular parean fuerte. Alberto Barandiaren

Goxotasuna, konfiantza, muturririk ez, honenbeste gustatzen zaidan **seriotasun** neurritsu hori. Fernando Rey

Tamalez gizon ezkondua nintzela eta ezin nuela esan nion, "je regrette"; **seriotasun** itxuratiz, baina esan egin nion, eta berak ulertzen zuela erantzun zidan, "je vois".

Ramon Saizarbitoria

Kontsigna demagogiko eta **seriotasun** gutxiakoa. Iñaki Heras

Burua astindu zuen, **seriotasun** komikoz. Irene Aldasoro

Mentxuk zetorkion algara ito zuen eta **seriotasun** fermutuaz hurreratu zuen bere kopa Luigirenera. Josu Landa

Zirt edo zart egiteko asmoa hartua zuen guztiz, dardararik gabe, **seriotasun** latza begietan. Karlos Zabala

Seriotasun mingarria itzuli zen segituan. Karlos Linazasoro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bere aurpegi txiki haserreari **seriotasun**-airea emateko alferrikako ahaleginak egiten. Jose Morales

Saioari **seriotasun** itxura emateko. Migel Angel Mintegi

Hemengo gainerako lankideei esan beharko diedala zure **seriotasun** falta dela medio ez dela batere komenigarria jaun agurgarri horrekin traturik txikiena ere egitea. Bego

Montorio

Ez zela **seriotasun** kontua, arazoa agertzeko modua baizik. **Bego Montorio**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ume ugari zegoen eskolako ate handien aurrean, bakoitza bere maletarekin [...] bere amarekin, bere haur **seriotasunarekin**. **Joseba Sarrionandia**

5 *seriotasunez* *adlag* ik *serioski*.

-Ez dakit berpiztuok ezkontzerik ba ete dogun -komentatu zuen **seriotasunez** -. **Juan Luis Zabala**

Gertaerei begira jartzen zen, **seriotasunez**, irakaspena ondorioztatzeko. **Monika Etxebarria**

Mugimendu finez jaten dute, baina baita leinu zaharren otoruntza erritualean bezala ere: **seriotasunez** eta erne. **Xabier Olarra**

Isiltasun osoan hartu ditugu osaba Lajosek **seriotasunez** esandako berbak, jainkoari laguntza eskatuz. **Urtzi Urrutikoetxea**

Kalitatezko enplegu egonkorren alde borrokatuko dutela esan zuten, prekarietatea, behin-behinekotasuna eta ezbehar kopurua "**seriotasunez**" landuz. **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

seriotasun batez (3); **seriotasun falta** (3); **seriotasun gehiago** (3); **seriotasun handiz** (9); **seriotasun osoz** (6)

bere seriotasuna (4); **gutxieneko seriotasuna** (3)

seriotasunik gabe (3)

seriotu, serio(tu), seriotzen da/du *ad* serio bihurtu, serio jarri.

Dylan deblauki **seriotu** da oraingoan; bere onera dator. **Pako Aristi**

Amak ere irribarre egin zuen hura entzunda, baina berriro **seriotu** zen begien aurrean agertu zitzaiena ikusi zuenean. **Aitor Arana**

Badakit horrekin bakarrik ez dugula **seriotuko** hizkuntza, baina agian honek guztiak lagun dezake pixka bat. **Pello Salaburu**

serioxeago *adlag/pred* apur bat serioago.

Ez, motel, ez haiz oraingoz hilko, broma bat zuan, ondo bizirik hago!, esan zuen Angelok, apur bat **serioxeago**, baina artean trufa-doinua guztiz baztertu gabe. **Anjel Lertxundi**

Kaleko antzeztoki handian, **serioxeago** ala alaxeago, ez zirudien jendeak arazo asko zuenik. **Patxi Zubizarreta**

Serioxeagoa izatea nahiko luke, arduratsua, baina horrela galduko luke bizitasun guztia. **Jokin Muñoz**

serius ik *serios*.

sermogile ik *sermoigile*.

sermoi 1 *iz* eliz hitzaldia. ik *prediku*.

Elizkizunak (behin eta berriz ageri direnak, bere forma eta aldaera guztietan: errogatiba, **sermoi**, letania, pazkoazko, bezpera, konjuro, **sermoi**, prozesio, hileta... garai batean jendearen bizimodua arautzeko elizak izandako aginte osoaren seinale). **Xabier Mendiguren Elizegi**

Igo zen anai Filipe pulpitora **sermoia** egitera eta oso debozio handiz predikatu zuen. **Askoren artean**

Sermoia entzun, miraria ikusi eta bedeinkazioa hartu ondoren, jendetza erretiratu egin zen. **Askoren artean**

San Frantziskok **sermoia** bukatu zuenean, otoitzari ekin zioten guztiek. **Askoren artean**

Apaiza, Tabor mendiko kontakizuna aitzakiatzat harturik, jardunari jardun ari zen **sermoian**. **Anjel Lertxundi**

Honela idatzi zuen laurogeita bigarren **sermoian**: [...]. **Iñaki Mendiguren**

Isilean bere etxera deitu eta oso ondo pentsatutako eta ederki idatzitako **sermoi** bat jarri zion eskuetan. **Askoren artean**

Egunon, erretore jauna, asko gustatu zait hipokresiar buruzko berorren gaurko **sermoia**. **Anjel Lertxundi**

Hor daude lekukotzat zenbait **sermoi** edo prediku gure mintzairan emanak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Aleman errabinoaren **sermoien** ondoren, beste gorazarre bat izan zen, New Yorkeko hebrear aldizkari baten argitaratzaileak egina. **Koro Navarro**

Galderak, errepikazioak eta **sermoien** erretorikak berezko dituen gisa horretako baliabidea. **Jon Muñoz**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sermoi luzeak egiten zituen arren, ez zen aise marrantatzen eta erlasten zen predikaria. **Joan Mari Irigoien**

Sermoi luzeak ipurdia mugiarazten du, eta motzak bihotza. **Pako Aristi**

Sermoi sutsuak egiten zituen aldi behin arrantzaleei soldata duina eman nahi ez zieten armadoreen aurka. **Koldo Izagirre**

Batzuetan, esaten dutenez, ez zuela oso **sermoi** ortodoxoa egiten. **Irene Aldasoro**

Hunkiturik utzi zituen eliztarrak bere **sermoi** distiratsu haiekin. **Joan Mari Irigoien**

Sermoi maltzur honek emakume guztiak asalatzeko ahalmena izan zuen. **Koldo Biguri**

Ez zuten izan hara itzultzeko baimenik, harik eta Hugolino jaunak [...] jendaurreko **sermoi** batean etxe hura berea zela aldarrikatu zuen arte. **Askoren artean**

Suizidioari buruzko **sermoi** ikaragarri bat eman zuen mezatan. **Koldo Biguri**

Sermoi gogorra, beldurgarria, gupidagabea izan zen. elizak ikaragarritzko boterea du, dena menperatzen du ematen dituen arau eta egiten dituen **sermoi** zitalekin. **Koldo Biguri**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sermoi-gaia ere eman zien: "Zoazte eta egin prediku esanez: zeruetako erreinua hurbil da". **Patxi Altuna**

Agarradoan ikusten bahinduten agoazilari azkar apartatzeko agindua, eta hori ez bazen **sermoi** garaian denen aurrean igual salatuko hinduten. **Pako Aristi**

Sermoi kutsuko erretolika horiek. **Pako Aristi**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Don Humberto abadeak egoki topatu zituen hitz haiek familiakoa zen "Buendía" cortijoko kaperan ospatuko zen hileta-**sermoia** prestatzeko: "Penak eraman du". **Joxemari Urteaga**

5 irud/hed

Zigarro bat falta nuen, baina salan utzia nuen toxa, eta nahiago nuen barau, beste **sermoi** bat entzun baino. **Inazio Mujika Iraola**

Gaur goizean beste **sermoi** bat bota dit amak, eta ezin dut onez eraman. **Josu Zabaleta**

Lezio emaile zaharkitu horietako bat da, azkenean, manera onez eta ongi portatzeaz ezin bukatu ahalako **sermoiak** botatzea gustatzen zaiona. **Josu Zabaleta**

Fideltasunari buruz **sermoiak** entzun behar... **Migel Angel Mintegi**

«**Sermoi** luzerik» ez zuen egin nahi izan Juan Joxe Petrikorena Batasuneko ordezkariak, atzo eguerdian. Berria - Kultura

Arkaleren etxeko parlamentura **sermoiak** botatzera zihoanean, esaten zion: [...]. Koro Navarro

Jendea ez omen zegoen inoren **sermoiak** irensteko. Andoni Egaña

Nork, eta sasi-apaiz hark niri **sermoiak**! Arantxa Iturbe

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sermoi luzeak (3)

egin zuen sermoia (3); **esteberen sermoia** (3); **sermoia amaitu** (3); **sermoia bukatu** (4); **sermoia egin** (3); **sermoia ematen** (3); **sermoia entzun** (5); **sermoia entzuten** (3)

sermoiak egiten (3)

bere sermoietan (3)

sermoigile *(orobat sermogile)* iz sermolaria.

Sermogile oparoa izan zen gerra osteko urteetan, eta hizlari dotorearen fama bereganatu zuen. Berria - Kultura

Sermogile onaren fama zuen Altunak. Berria - Kultura

sermoigintza iz sermoiak egitea.

Sermogintza alde batera utzitakoan bestelako lan batzuei ekin zien, etnografiaren arloari estu lotutakoak. Berria - Kultura

Sermogintzarako bokazioa zer den. Arantxa Iturbe

sermoilari ik sermolari.

sermoitxo 1 iz sermoi laburra.

Abadetxoa, aho-zabalik jarraitu ondoren Pepponeren ekintza, zurbildu eta bere **sermoitxo** ahal bezala tetelkatuz, aldarera itzuli zen meza bukatzeko. Koldo Biguri

-Ea hemendik aurrera isilxeago zaudeten -esan zigun fraideak Txufik alde egin ostean, eta proiektorea berriz martxan jarri aurretik **sermoitxo** botatzeko aprobetxatu zuen-.

Xabier Mendiguren Elizegi

2 irud /hed

Nik neuk, lagun-artean, "**sermoitxoak**" esaten diet ostiraleroko hitzalditxo hauei. Joxerra Garzia

Geroztik, Espainiako funtzionarioa naiz, baina espero dut ez diozuela horregatik nire **sermoitxo** hauek entzuteari utziko. Joxerra Garzia

Orain, berriz, ostiraleko nire **sermoitxo** hau egitera natorrenean, ez dut neure irrati haren arrastorik topatzen. Joxerra Garzia

sermolari *(20 agerraldi, 9 liburu eta 2 artikulutan; orobat sermoilari 19 agerraldi, 8 liburu eta 5 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian sermolari agertzen da)* 1 iz sermoiak egiten dituen apaiza. ik **predikari**.

-Zuen **sermolari** horrek jendea senda dezakeela diozu? Juan Kruz Igerabide

Gaur, gure **sermolariak** otoi bat esango du, eta eskuak ipiniko dizkizu, eta dantzari baten pare ibiltzen hasiko zara. Juan Kruz Igerabide

-**Sermolari** atera zaigu, bai -ahalegindu da haria harrapa-tzera. Aingeru Epaltza

Probintzia batera bere jarraitzaileei ezkutuan predikatzeraz datorren **sermoilari** kalvindarrak heriotza-zigorra bereganatuko du. Juan Martin Elexpuru

Ez pulpituetak **sermoilari** arranditsua, talde txikitako hizlari hurbilekoa eta solas-eragilea baino. Berria - Kultura

Gizon hori elektroshock baten tankerakoa da, **sermoilari** eta fanatiko on bat bakarrik izan daitekeen bezala. Ramon Etxezarreta

Meskitetako Batzordeko presidente Sale al Sadlanek ukatu du **sermoilariok** muturreko islamismoa sustatzeko mezuak helarazten dituztela. Berria - Mundua

Erljio islamistaren alderik irekiena sustatu nahi dute Marokoko zenbait agintaririk, eta bide horretan aurrera egiteko 50 emakumeri **sermoilari** izateko aukera eman diete.

Berria - Gaiak

Gizona iluminatu bat da, eta **sermolaria**, baina zintzoa, bere fedea zabaldu nahi du: Jesukristoren predikazioa faltsua izan zen. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan)

Sermolari -sektaren bateko kidea etxean hartu duelako. Juan Martin Elexpuru

3 (izenondo gisa)

Apez **sermolaria** "bizkaitarra" Arana Goizale edo jeltzale zela. Joxe Azurmendi

sermolaritza iz sermolariaren jarduera.

Apaiz hura trebea zen **sermolaritzan**, arima sendatzeko erremediogintzan. Xabier Olarra

sermonatu, sermona, sermonatzen *(orobat sermoneatu)* du *ad adkor* sermoia bota.

Euskaldun eta katalanen joera partikularista grinatsu eta kaldarraren kritika hau, joera berak Hispanoamerikan **sermonatzeko** zeharbide bat da kasu honetan nolana ere.

Joxe Azurmendi

Escola, pentsa dezakezen bezala, drama egina dugu etxean... Ama negarrez eta aita errietan; edo alde bestera, agian: amak nau **sermoneatzen** eta aitak ez du txintik ere ateratzen.

Jesus Mari Mendizabal

sermoneatu ik sermonatu.

serodiskortante *izond* bikoteez mintzatuz, seropositibo batek eta seronegatibo batek osatua.

Eskarietako lehena bikote **serodiskordantei** buruzkoa da. Berria - Harian

seronegatibo *izond* hiesaren birusa ez duena.

Agiri horretan «gizarte hipokrita honek» bere barruan dagoen errealitatea ezkutatu nahi duela salatu zuten aipatutako taldeek; gizartea «bere burua zuri, **seronegatibo**, patriarkal, kapitalista, heterosexista eta konbentzional» gisa azaldu nahian dabilela. **Berria - Euskal Herria**

seropositibo *izond* hiesaren birusa duena.

Pertsona bat kutsatzen denean, hiesaren birusa haren immunitate sisteman sartzen da, eta une horretatik aurrera pertsona hori **seropositiboa** da. **Luis Elberdin** 1990 inguruan, hiesaren arazoa pil-pilean zegoenean, hainbat euskal presori odol analisiak egin eta **seropositiboak** zirela erakutsi zieten. **Jokin Urain** Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ia gaixo **seropositibo** gehienek (%96) hiru edo lau botika hartzen zituzten birusaren garapena geldiarazteko. **Iñigo Aranbarri** Garai hartako adituek ziotenez, bizialdi laburrera kondenaturik zeuden haur **seropositiboak**. **Joan Mari Irigoien** Horretaz gain, «**seropositiboenganako** elkartasun faltako jarrerak» ere badirela azaldu zuen. **Berria - Euskal Herria** **Seropositibo** kutsatu berria. **Berria - Euskal Herria**

seror ik **serora**.

serora (*orobat serora*) 1 *iz ipar* moja.

Nahi izan zuen parropiaren izenean beste eskola bat sortu, eta eskatu zituen **serora** erakasle zenbait, "Filles de la Croix" ordenakoak. **Michel Oronoz** Ernestine zuen izena, **serora** bezala Sœur Ignace. **Michel Oronoz** Marie Marceline **serorak** bizi hau utzi du. **Herria** Zazpi haur altxatu zituzten, zeinetarik bat apeztu baitzen eta beste bat berriz **serora** egin. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren** San Bartolome berri bat antolatu gogo zuten noski, katolikoek lepotik oraingoan, eta hiriko apez, monje eta **serora** guztiak espataz pasatu. **Aingeru Epaltza** Mende horretan dira sortu ere hemen Angeluko **serorak**, Betarrameko misionestak. **Xipri Arbelbide** Frantzia egon zelarik, bestalde, Albiko Klaratar **seroren** komentuan aterpetu handiki agramondarrekin harreman hertsia izan zituen Irakasle Nafarrak. **Piarres Xarriton** Aspaldiik ohardua zen neska euskaldun asko joaten zela **serora**: bi kongregazio berri baziren hemen, Angeluko **serora** urdinak eta Uztarituzeko **serora** beltzak. **Xipri Arbelbide** **Serora** beltzak, tuneldunak, berriz jiten dira 1933an. **Michel Oronoz** Apeztu nahi nuen, naturalki, ebidentzia, aitaren anaia misionest gaia, eta arriba **serora** xuria heroi perfektuak zirelako ez enetat. **Piarres Aintziart** 1903an, Errepublikak lege tzar bat bozkatzeko du, honen arabera behar baitira eskolak hetsi eta fraile-**serorak** kanporatu. **Michel Oronoz**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nahiz behialako mantalina buruzapi baten kontra trukatu zuen, argi zen haren soinekoak **serora** jantziak zirela. **Elena Touyarou** Ez zituen bakarrik apez xahar eta eriak gogoan, **Serora** bokazioak ere bai, eta etxe horren ondoan, seroragaientzat etxe berri bat eraikitzea erabakia izan zen. **Xipri Arbelbide** Uztarituz sartu zuten **serora** eskoletan. **Itxaro Borda** Gurutzadako Mezulariari eta haren ordezkariari emanez eskua baimena emateko sar daitezen **serora** komentuetan. **Piarres Xarriton** Arbelbidek izan zuen etxe hori apezten pausa leku eta apez xaharren erretreta-etxe egiteko ideia, **serora** kongregazio baten gain emanez etxearen erostea eta ideia gauzatzea. **Xipri Arbelbide** 19. mendean, 397 **serora** ordena berri sortu ziren, bainan 51 gizon ordena bakarrik. **Xipri Arbelbide**

3 (izenondo gisa)

Bazituen bi arreba **serora** komentu bortitz batean zerratuak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren** Iparralde honetan karmelitak aipu ditugularik, santa Terexa Lisieuxkoaren ahizpa **serorak**, Baionan ere komentu bat daukatenak zaizkigu soilik gogoratzen. **Herria** Mayi Sabalçagaray herritar andere **serora** zendu da Alzazian, bere kongregazio etxean. **Herria**

4 elizaren ardura duen andrea.

Obispoak oso alai agurtu zuen **serora** eta apaiza. **Inazio Mujika Iraola** Sakristiari iristean, **serorari** honako agindua eman dio: [...]. **Martin Anso** Ihes egin dute denek, baita **serorak** eta sakristauak ere. **Koldo Biguri** Handik urteetara **serora** igorri zion mezulari erretoreak, konfesioz jakin ahal izan omen zuenaren berri emateko: Oartzunen fusilatu zuten, zor batek galdu zuen eta mezarara ez joatea izan zen aitzakia. **Koldo Izagirre** **Serora** aurpegiko neskameak lehor erantzun zuen: [...]. **Josu Zabaleta** Etorri dira, bai, apaizaren bila, eta **serorak** erbia askatu ere egin du. **Martin Anso**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

andere serora (7); **andere serora zendu** (3); **apez eta serora** (4); **arriba serora** (4); **bere serora** (4); **bi serora frantses** (3); **dominique serora** (7); **serora egin** (3); **serora zendu** (4)

andere serorak (3); **euskaldun serorak** (3)

fraile eta seroren (3); **seroren etxean** (3); **seroren komentuan** (4)

seroragai *iz ipar* mojagaia.

Apez, apezondo eta serora zein **seroragai** erle-kofoin hori? **Itxaro Borda** Bainan ez zituen bakarrik apez xahar eta eriak gogoan, serora bokazioak ere bai eta etxe horren ondoan, **seroragaientzat** etxe berri bat eraikitzea erabakia izan zen. **Xipri Arbelbide** Hiru neska gazte bazituen, **seroragaietan** sartzeko prest. **Xipri Arbelbide**

serorago *iz ipar* serora-egoera.

Jandaramendiko Mari Graxi St Martinek, joan den igandean, **seroragoko** urrezko ezteiak ospatu ditu, Aiherrako elizan. **Herria** **Seroragoa** utzirik, beti kar berarekin jarraiki du borroka sozialetan, greba, manifestaldi eta gaineratik. **Herria** Uztarituz seroren komentuan izan da erretretaren bururatzeko eta urte guziz bezala hor ororatzen dituzte 50, 60, 70 urte **seroragoren** jubilauek. **Herria**

serorategi (*orobat seroratei; Euskaltzaindiaren Hiztegian serorategi agertzen da*) *iz* serora-komentua.

Atzo Baionan eskaintako prentsaurrekoan jakinarazi zuten, Poliziak Fresnes ondoko **serorategia** miatu zuen. **Berria - Euskal Herria**

Bainan bereziki astean bietan bere lagunekin ezin hutsinezko hitzorduek zituen **Serorateian** arratsaldea musean iragaita gatik. **Herria**

Kreatura basatia zen, legerik eta araudirik gabeko askatasunean bizitzeko sortua, ebasle baten aurrean izutua, baina hari oldartzeko kalipua bazuena; menpekotasunaren gaitu **serorategian** bizi zen amaren aurkakoa zen. **Elena Touyarou**

seroratei ik **serorategi**.

seroratu, serora(ru), seroratzen da *ad ipar* serora egin.

Edmeak garai batean pentsatu zuen, Germena etxeko eta beraren barne-bakeagatik **seroratuko** zela. **Itxaro Borda**

Egun hortan ohoratzen dira 50-60 eta 70 urte **seroratu** direnak. **Herria**

Halaz, etxeko zazpi haurriedetarik bat segidako geratu zen, bi neska **seroratzeko** *Filles de la Croix* komentura bidali ziren eta gainerako laurak, Xarles bezala, Parisen ziren sehi eta mutil. **Itxaro Borda**

serositate iz serumaren antzeko likidoa.

Trokarra atera eta kanula han uztean, ura, berdekara, **serositatez** betea, azpil batetik barrinoin batera bezala zerion. **Josu Zabaleta**

serotonina iz neuronetan dagoen gaia, neurotransmisore betekizuna duena.

Biokimikaren ikuspuntutik, badirudi buruko neuronak **serotoninarik** gabe geratzen direnean gertatzen eta ezartzen dela depresioa. **Joan Mari Irigoien**

Buruko neuronetako **serotonina** agortzen zaigunean, itzalak hasten dira dantzan -ihardetsi nion-. **Joan Mari Irigoien**

Baina halakoxea da mundua: batzuek **serotonina** behar dute, eta beste batzuek saratonina... **Joan Mari Irigoien**

Jende anitzek eskas genituen adrenalina, endomorfin eta **serotonina** pastillak farmazietan saltzen zirelako. **Itxaro Borda**

serpentina 1 iz paperezko tira bildua, botatzen denean askatzen dena.

Serpentinak eta girlandak nonahi, farfaileria berde eta gorrizko oihana. **Joxe Austin Arrieta**

Jangela apaintzeko ehunka eta ehunka kalabaza ipini zituzten, barruan kandelak piztuta zituztela, eta saguzar bizi-pila bat airean hegaldaka, eta laranja-kolore biziko **serpentina** ugari, sabaitik sigi-sagaka erortzen zirenak, uretako suge distiratsuk balira bezala. **Iñaki Mendiguren**

Serpentinak ateratzen ziren emakumeen autobusetik. **Koro Navarro**

Serpentina bustia. **Berria - Kultura**

2 irud/hed

Sukaldeko mahaiaren aurrean, plater hutsak jaso gabe, bazkalostearen kolore bakarra postreko laranja azalaren **serpentinak** dira. **Eider Rodriguez**

serraila ik **sarraila**.

serrana iz Espainiako *sierra*-ko emakumea.

Lope de Vegak ospetsu egindako **serrana** gizajalearekin. **Bernardo Atxaga**

serratu ik **zerratu**¹.

serum 1 iz esnea, odola edo linfa gatzatzean bereizten den isurkaria. **ikgazur**.

Seruma eraldatzeko eta esne kondentsatua eta esne hautsa ekoizteko lantegi berria irekiko du Iparleak Kantabrian. **Berria - Ekonomia**

Esku gaineko azalean sartuta ditut bi orratz eta hortik bideratzen dute **seruma** odolera zuzen. **Hasier Etxeberria**

15 jaioberri hil dira Brasilen, ustez kutsatutako **seruma** hartzeagatik. **Berria - Gaiak**

Hildako 15 haurrei eta larri dauden beste 24 jaioberriri Ganutre enpresak egindako **seruma** txertatu zieten. **Berria - Gaiak**

Serumaren poltsa eusteko oin metalezkoa tatarrazka zeramala, ematen zuen autobuseko barrari helduta zihoala danbalaka. **Hasier Etxeberria**

2 erietxeetan-etan seruma zainean sartzeko tresna.

40 egun egin zituen atzo gose greban eta Fresnesko ospitaleko sendagileek **seruma** ezarri zioten. **Berria - Euskal Herria**

Iragan ostegunean jarritako **seruma** kendu egin diote Atxurrari, eta ura onartzen ere hasi da berriro. **Berria - Euskal Herria**

3 (hitz elkartuetan)

Neskari **serum**-injekzioa jarria ziotela eta salbu zegoela. **Joxe Austin Arrieta**

- Aurrerantzean esne kontsumoa jaisten den urte sasoietakoa soberakinak eta gazta **serumak** baliatu ahal izango dituzte, besteak beste, animalientzako jangaiak eta kosmetikoak ekoizteko. **Berria - Ekonomia**

serventesio (*orobat serbentesio*) iz ahapaldi nagusi mota, lau lerrok osatua, non lehen lerroak hirugarrenarekin errimatzen baitu, eta bigarrena laugarrenarekin.

Libretatxoa atera nuen lehenik, igandeko emaitzak eta **serventesioak** eta epitafioak apuntatzen nituen huraxe, Zuhurra eta onargarria al zen pentsatzea akabatu egin nahi nindutela nire ipuin erromantiko edo endetxa edo **serbentesio** edo liren kausaz? **Karlos Linazasoro**

Kantatu genuen zerbait, sehaskatiko, blues kartzelati bat, **serventesio** saturnal bat, ez dut ongi gogoan, eta loak hartu genuen segituan. **Karlos Linazasoro**

sesamo iz belar landarea, jatorriz Indiakoa, hazi oliotsu eta jateko onak ematen dituena(*Sesamum indicum*).

Euskal Jai gaztetxeko plazan, Iruñearen kiratsa estaltzeko-edo, **sesamoak** eta geranioak landatu zituzten lorategian. Ezti eta **sesamozko** bizkotxoak ziren. **Berria - Euskal**

Herria

Sesamo -ogitarteko bat egin zuen, eta te beroa edan zuen kristalezko baso batean. Xabier Aranburu

sesiante *iz adkor* sesioaren zalea dena, liskarzalea.

Marta ere atera da, hurbildu da **sesianteengana**, ikusi du ukabilkada, eta hitzik esan orduko ateratzen du Mikelek bonboi paketea kotxe barrutik eta eskura luzatzen dio.

Xabier Mendiguren Elizegi

Hirurak jo ditu kanpaina honetako **sesiantetzat**. Berria - Euskal Herria

sesio¹ *iz adkor* istilua, liskarra.

Eskola-umeen arteko **sesio** batek merezi ote du errugabe bat berriro Azkabanen sartzea? Iñaki Mendiguren

Hortik hainbeste **sesio** eta negar. Gotzon Garate

Alde egizu eztabaida zoro eta zentzugabeetatik, badakizu-eta horiek **sesioak** sortzen dituztela. Elizen arteko biblia

Geraroko artzainek **sesioa** izan zuten Isaaken artzainekin. Elizen arteko biblia

Berealdiko **sesioak** izaten zituzten batzarretan. Juan Kruz Igerabide

Aita-semeek sekulako **sesioa** izan omen zitean lehengoan, bide-seinale elebidunak direla eta ez direla. Aingeru Epaltza

Autoritarismoa zuen amak **sesioetatik** onik irteko bide bat. Anjel Lertxundi

Hiri handira hurbiltzen gaituk, lortzen ditiagu emakume batzuk, pagatuta, noski, **sesio** bila hasten gaituk, eta nonahi bilatzen diagu, eta den-dena lehertu egiten zaiguk inguruan. Xabier Olarra

2 (izenondoekin)

Arkumeak jaiotzeko ilargiaren koskek zerikusirik baduten eztabaidatzen zebiltzan, **sesio** handirik gabe. Pello Zabala

Sesio ederra izan genian Denverrengatik. Anton Garikano

Amamak eta aitak **sesio** izugarriak izaten zituzten hura zela-eta. Mirentxu Larrañaga

Gero eta **sesio** bortitzagoak izaten zituzten. Mirentxu Larrañaga

1819an, **sesio** nabarmena izan zen Mitxelena jaunaren eta Iturbe alkate jaunaren artean, hain zuzen ere, Mitxelena jaunaren iritzian, herriak pairatu dituen zoritar guztiengatik, orain jostatu egin behar baitu, Iturbe jaunaren iritzian, berriz, arrazoi berberengatik, alderantziz behar du izan. Askoren artean

Hemeretzi hilabetez minbiziarekin **sesio** latza izan ondoren, atzo hil zen, Basurtuko Ospitalean (Bilbo), Iñaki Uriarte Zabala. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan)

Halako batean **sesio** -hotsa sentitu genuen geure atzealdean, eta geure kamioi aldera jiratu genuen burua. Inazio Mujika Iraola

4 *sesioan adlag*

Zergatik nahi duzu **sesioan** hastea? Mirentxu Larrañaga

Berehala hasiko zela Jamesekin beti bezala hika-mika eta **sesioan**. Anton Garikano

Ez gara **sesioan** arituko. Pablo Sastre

Maltzurkeriaz betea, beti asmo txarretan eta **sesioan** ibiltzen da. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sesio bila (4)

sekulako sesioa izan (3); **sesioa izan** (13); **sesioa izan zuen** (4); **sesioa izan zuten** (3)

sesioak izaten (3)

ez gara sesioan (4); **sesioan aritu** (3); **sesioan arituko** (3); **sesioan hasi** (3); **sesioan hasiko** (4)

sesio² *iz* saioa, jardunaldia.

AEBetan ematen dituzte zenbait animazio lan labor, elkarren segidan, **sesio** bakar batean. Berria - Kultura

Animazio filmak aukera polita eman dio bere kantugintza alaiaren beste **sesio** bat eskaintzeko, Ben Harper eta G Love lagun dituela. Berria - Kultura

Milaka orratzek haginka egingo lidakete bihotz aldean, akupuntura **sesio** definitiboan legez. Sonia Gonzalez

Bakarrik ez joatearren, zinemarako edo, zeudenean, luchalibre **sesioetarako** sarrera ordaintzen nion beti norbaiti. Jon Maia

2 bilera.

sesioko 3. kapituluan erabaki duela 3. kanonean heretikotzat edukitzea. Piarres Xarriton

sesioaldi *iz* sesioa.

Azaldu zuenez, **sesioaldi** baten ostean jo zuen senarrak, etxean zeudela. Berria - Euskal Herria

sesiobide *iz* sesiorako motiboa.

Testuinguru horretan, sekulako **sesiobide** bihurtu zen, esaterako, gizakien arimari zegokiona. Askoren artean

Baina **sesiobide** nahiz konponbide askotarako aitzakia ere eman behar zuen kristau kulturaz kanpo sortutako Aristotelesen mundu-irudia arau-emaitzat hartze horrek. Askoren artean

sesiozale *izond* sesioaren zalea dena.

Ez ardozale, ez eta **sesiozale** ere, bihozbera baizik, baketsu eta ez diruzale. Elizen arteko biblia

Ez harro, ez haserrekor, ez ardozale, ez **sesiozale**, ez okerreko irabazien gose. Elizen arteko biblia

Berebiziko ika-mikak izaten zituzten abertzaleetako batekin, gazte luzanga **sesiozale** batekin. Juan Kruz Igerabide

sesitu, sesi(tu), sesitzen *1 da ad ipar* atzeman, harrapatu, atzitu.

Biriatukomugan, guardek 31 kilo heroina **sesitu** dituzte Espainiarat ari zen auto batean. Herria

Berrizere droga tornu ederra **sesitua** izan da Biriatuko mugan. Herria

Orotarat 1200 kilo zartagailu eta arma parrasta bat **sesituak** izan dira,muntadura diru eta dokumentu asko bestalde. Herria

Harekin zen iparraldeko presuna bat ere arrastatu du polizak, hunen bizitegian Hendaian ordenadore bat eta dokumentu batzu **sesitu** ditu. Herria

47 pasaporte **sesitu** daizkiote beren autoan, denak Pariseko alde hortan ebatsiak. Herria

Sesitu edo ebatsi, hartu zernahi gisaz! Herria

2 irud/hed

Aitortu bezala du berak ez zekiela sobera non zegoen, bere andre eta ama eginbideak bete zituela bai halako beste bizi batean eta gero ezagutzen ez zuen edo ahantzia zuen libertate batek **sesiturik** utzi zuela uste gabean. Piarres Aintziart

Badakit hastetik borda honen inguruetan baizik ez naizela ibiliko, kasik jeiki orduko, gosaria presaka harturik, ideien haiduru eta sendimenduen oldarretan **sesitua** bezala izatekotan, agian. Piarres Aintziart

Bainan denbora haietako bizimoldeak desagertu dira, hainbestearino non ez baitut **sesitzen** mugimenduaren isuria. Piarres Aintziart

Bat-batean, ideia honek **sesitu** nau. Piarres Aintziart

Euforia batek gorputza **sesitu** dit. Piarres Aintziart

3 guztiz harritu, nahasi.

Harritua gelditu nintzen, harritua baino gehiago ere, arrunt **sesitua** ! Janbattitt Dirassar

Joanes mututurik, **sesiturik**, ikaraturik gelditu zen gizon itxurarik ere ez zuten gizaki haiei so. Eneko Bidegain

Sesitu eta obsesionatua, ez da gehiago libro. Jose Angel Irigaray

Denak **sesitu** dituen gertakari latza! Herria

Ixil-ixila nengoen ene xokoan, burua apal-apala, gaitzeko hotzikara batek kolpez **sesitua**. Janbattitt Dirassar

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrunt sesitua (3); **sesitua gelditu** (5); **sesitua gelditu nintzen** (3); **sesitua izan** (3); **sesitua izan da** (3)

sesiturik utzi (3)

sesitze *izipar* atzematea, harrapatzea, atzitzea.

Norbaitekin mintzatu behar nuen -aitortzen diot, hatsa har ezinik, hormazko **sesitze** itzel; deblauki ari natzaio, sekula eta neherekin ez bezala-. Itxaro Borda

Henry irriz ari zen, itsas ertzeko arrain malgu eta zurpail bilakatu Euskal Elkarteen Ordezkariaren **sesitzeaz** ohartu gabe. Itxaro Borda

seska *iz* kanabera.

Mendikletaz Fanchekin Feunten Velen aldera zuzendu ginen, ilardi, ote sail, ihidoi eta ahul itxurako **seska** landen artetik. Itxaro Borda

sestante *iz* argizagi baten egongunearen luzera eta latitudea kalkulatzeko erabiltzen den itsasketa-tresna.

Axelek **sestanteaz** kalkulatuko du, eguzkiaren deklinazioa kalkulatzeko den bezala, hogei metroko altura dutela urginean. Behin barruan, Jules Vernerren harako Nautilus itsaspeko hura gogorarazten duen espazio harrigarri bat, dena itsasoari buruzko liburuz eta itsas trepetez beteta: mapak, grabatuak, **sestanteak**, urpekariaren kaskoak, unamak eta era guztietako sokak, aingurak... Joseba Sarrionandia

sestaotar *izlag/iz* Sestaokoa, Sestaori dagokiona; Sestaoko biztanlea.

-Hainbeste kezka Porturekin, zu ez zinen ba **sestaotarra**? Josu Landa

M. **sestaotarra** atxilotu zuen herenegun, emazte ohia jo zuelakoan. Berria - Euskal Herria

32 urteko **sestaotarra**. Berria - Euskal Herria

sestario (*orobat sextario*) *iz* erromatarren edukiera-neurria, 54,68 litroren baliokea.

Honela osatutako tantak tamainaz lau **sestario** dituenean, pisatzen bada ikusten da ehun libra hartzen dituela. Santiago Iruretagoiena

Ondoren, masa atera eta berriro bete zuen isuritako ura, **sestario** bat, lehen bezala ontzia ertzearino betez. Santiago Iruretagoiena

sestertzio 1 *iz* erromatar diru zilarrezkoa, denario laurdena balio zuena.

Denarioaren laurdena bi as eta erdirekin egiten zelako, **sestertzioa** deitu zioten. Santiago Iruretagoiena

Kinario izeneko erdiak ere egin zituzten, dio autore horrek, bai eta **sestertzio** izeneko laurdenak ere. Iñaki Iñurrieta

Zesarrek debekatu egin zuen etxean hirurogei **sestertzio** baino gehiago gordetzea. Iñaki Iñurrieta

Laurehun **sestertzio** jarri dituenak obra egiteko, beste ehun jarri behar baditu ere, atseginez jarriko ditu bukatzeko itxaropenik baldin badu. Santiago Iruretagoiena

Zesarren garaian, lur-zatiak izan ziren zor guztiak ordaintzeko dirua; Tiberioren garaian, berriz, hamar mila **sestertzio** lurretan bost mila **sestertzio** dirutan balio zuen diru arrunta bihurtu ziren. Iñaki Iñurrieta

2 (hitz elkartuetan)

Nebak, Apio eta Kaio, egiten zitzaizkien larruzko igel eta intxaurrezko orgatxoez zikoitz ziren ordurako; geroago, **sestertzio**-gose izan ziren. Juan Garzia

sestra¹ 1 *iz* garaiera edo maila. ik galga 4.

Beharrezkoa da ezen ura edozein aldetarantz isurtzen dela ere, erdian puzgune bat edo kurbatura baldin badu ere, ezkerreko eta eskuineko muturretan **sestra** berean egotea. Santiago Iruretagoiena

2 (hitz elkartuetan)

Depositu hori ez da ez maldan behera egingo, ez lautadako sabelean eta ez gorako aldapetan, eta ezta, inola ere, haranetan ere, baizik eta **sestra**-maila konstantea mantentzen den lekuan. Santiago Iruretagoiena

· Nibelatzeko, dioptrea edo ur-**sestrak** edo korobatea erabiltzen dira, baina seguruagoa da korobatea, dioptreak eta ur-**sestrekin** inoiz huts egiten baitute. Santiago Iruretagoiena

3 *sestran adlag* garaiera edo maila berean. ik galga 8.

Komeni da altuera desberdineko plintoak jarriz estilobatoa erdi parean zertxobait altxatzea, zeren eta erabat **sestran** jartzen bada, begiari irudituko baitzaio sakonunea daukala. Santiago Iruretagoiena

sestra² 1 iz liskarra, ika-mika.

Beste bezero batek hitz egin zuen, tabernariaren eta gizonaren arteko **sestra** arintzeko jarrera nabarmenduz: [...]. [Anjel Lertxundi](#)

Horra bada, antropologiaren arreta merezi duen ikerketa-bide bat: baserri giroko auzo-liskarretan, metari meta, munta gutxiko lapurretek sortu ohi dituzten elkar hiltzerainoko **sestrak**. [Anjel Lertxundi](#)

Lehen zegoenaz gainera berotu zen gela eta uanean baino uanean zailago gertatu zen Ségouinen eginkizuna: bazen **sestra** pertsonala sortzeko arriskua ere. [Irene Aldasoro](#)

2 (hitz elkartuetan)

Ez nuen inorekin bizitzen ikusten, ezin nion pasio bana-banakorik irajinatu, ezin lot nezakeen diru-kezkak edo politika-**sestrak** edo moda-gorabeherak bezalako arreta mundutiarrekin. [Anjel Lertxundi](#)

sestratu, sestra(tu), sestratzen du ad sestran jarri.

Hareatza berriaren aurrealdea **sestratu** eta estalitako lorategi handia bihurtu zuten, eta hegiaren hegoaldean haizulo berriak indusi eta adreiluz estali zituzten. [Agustín Otsoa](#)

set iz tenis partida bat banatzen den zati nagusietako bakoitza, jokoz osatze dena.

3-6 eta 5-7 hasi zen galtzen, baina hurrengo hiru **setak** irabazi zituen (6-3, 6-4 eta 6-4). [Berria - Kirola](#)

Zazpi falta bikoitze egin zituen, eta horietatik bi jarraian lehen **seteko** laugarren jokoan. [Berria - Kirola](#)

33 urteko beteranoa saiatu zen lehen **setean** kontrarioa bolea eta globoekin amorrarazten. [Berria - Kirola](#)

Bigarren **seta** izan zen lehiako gakoa. [Berria - Kirola](#)

Bigarren **seta** izan zen lehiako gakoa. [Berria - Kirola](#)

6-1 irabazi zuen lehen **seta** eta 2-0 zen aurretik bigarrenean. [Berria - Kirola](#)

Bigarren **seta** berdin hasi zen, 2-1ekoarekin euriak moztu zuen arte. [Berria - Kirola](#)

Federer amorratuta hasi zen tenisean jokatzeko, eta jarraian irabazi zituen hurrengo hiru **setak**. [Berria - Kirola](#)

Nalbandian 5-1 jarri zen aurretik, baina ez zuen **setari** azkena ematen jakin. [Berria - Harian](#)

seta 1 iz gogor eta amore eman gabe eusten zaion uste edo iritzia; asmo, erabaki edo kideko bati gogor eta amore eman gabe eusten dionaren jarrera edo jokabidea. ik tema¹; egoskorkeria.

Horretaz gain, kantatzeko **seta** izaten zuen, jai guztietan kantatzen zuen. [Karlos Zabala](#)

Gorrotagarria zitzaion gobernuak droga zabaltzen zuten tabernazuloak zaintzeko zuen **seta**, batik bat haxixa arimaren sendabidetzat zuelako. [Patxi Zubizarreta](#)

Gizakiaren bizitza existentziaren zirkunferentziaren ukitze-gunean ihesbide bat sortzeko ahalegina da, hain zuzen, existentzia berezi bat eraikitzeko **seta**, betiereko itxitura biribiletik ihesi. [Juan Kruz Igerabide](#)

Kexu azaltzen zitzaidan hotelera joaten ez nintzelako eta "artzain baten bizitza" egiteko **setarekin** jarraitzen nuelako. [Bernardo Atxaga](#)

Frantsesez jakitea beti interesgarria izan daitekeela-ta... **seta** hori jarri zaiok buruan aitari. [Txillardegí](#)

Aitari bost axola zitzaion zinema: Sorbonneri buruz hitz egiteko **seta** sartu zitzaion. [Harkaitz Cano](#)

Nekez uler daiteke antzinakoek Kaspio itsasoa ozeanoaren zati bat zela sinesteko hartua zuten **seta**. [Iñaki Iñurrieta](#)

Seta hori hartua zeukan, hankapean ikusi nahi zituen Euzkadi galtzen utzia zuten aliatuen hiriburu guztiak. [Koldo Izagirre](#)

Zientzialariak [...] ezin atera dezake arrazoizko hitzik beste mundu bateko abstrakzio errealean **setak** harrapatu ez duenaren aurrean. [Iñaki Segurola](#)

Ukrainako **seta** eta temaren nondik norakoaz susmoak badituz, ostera. [Edorta Jimenez](#)

Ezin nuen nire benetako sekretua azaldu; hortaz, nire aldetik aurka egiteak tema hutsa zirudien, makurkeria eta **seta**. [Eduardo Matauko](#)

Gure moduko xoriño ergelak kapaz dira [...] haren atzetik abiatzeko esperimentuetako arratoien itsumen eta **seta** berberekin. [Iñaki Segurola](#)

Hobe genikek **seta** eta kemen hori guztia onerako erabiliko balu! [Jose Morales](#)

Oso gustu txarrekoa zela bere **seta** eta bere gorrotoak era bortitzean halako lekuan agertzea. [Karlos Zabala](#)

Harria bezalako **seta** eta irmotasuna igartzen zitzaizkion masail irtenetan, goibeltasuna bekokian, nahigabea begietan. [Jose Morales](#)

Beste behin ere, ezin ihes egin neskaren **setari**, nobia formalarena egiteko egoskorkeria hari. [Iñaki Iñurrieta](#)

Ene Jainkoa, bizkonde, zeinen gogaikarria zaidan zure **seta**! [Jon Muñoz](#)

Gerra guztiek bere **setak** dituzte. [Lutxo Egia](#)

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sobakevitxek hain **seta** handiz ekin zion dirua bazeukala esateari, non beste billete bat atera behar izan baitzuen, esanez: [...]. [Jose Morales](#)

Harrotasuneko **seta** irrazional batengatik. [Juan Garzia](#)

Bide horri berorri heltzera behartu zituzten ordea Saharaz hegoaldeko herrialdeak 1980ko hamarraldiaren hasieratik, **seta** harrigarriaz. [Koro Navarro](#)

Baldin nire ilobak segi baleza nigana darakusan **seta** gaizto horri loturik, hartuko dut, bizkortzen naizen orduko, hura bere gelan ikusteko deliberoa. [Jon Muñoz](#)

San Marco Plazan nengoen eserita [...] Sabethek, **seta** hutsez nik uste, klaustro osoa bisitatzen zuen bitartean. [Joxe Austin Arrieta](#)

Telefonoa ez zen isiltzen, nolabaiteko **seta** barearekin hots egiten zuen. [Jon Alonso](#)

Horren froga, mahometarren eta judutarren **seta** setatsua, eta herri barbaroek eta basatiek erlijioz aldatzeko duten erraztasuna. [Iñaki Iñurrieta](#)

Bere ohiko **seta** batere leundu gabe. [Anjel Lertxundi](#)

Ez ginen demasazko **setan** tematu gajoarekin ordea, zauritua zetorren-eta. [Karlos Linazasoro](#)

Aita bere **setan**. [Gotzon Garate](#)

3 (hitz elkartuetan)

Zahardadeari dagokion **seta** puntu horrekin, bere polemika zaharretako esaldirik bikainenak zerabiltzan parrastaka. [Juan Garzia](#)

setakeria 1 iz setatsuaren jarrera; uste, iritzi, asmo edo kideko bati gogor eta amore eman gabe eustea. ikhisia.

Giza izaeraren **setakeria** naturaren legeekiko. [Iñaki Mendiguren](#)

Argi eta garbi ikusi zen deabruaren **setakeria** ez dela gauza obediencia santuaren indarrari aurre egiteko. [Askoren artean](#)

Politikariaren «arduragabekeriari» eta «**setakeriari**» egotzi diete ontziolaren beheraldia. [Berria - Ekonomia](#)

Langileek diotenez, «FEVEren **setakeriak** zapuztu du negoziazio kolektiboan». [Berria - Ekonomia](#)

-Orain ulertzen diat lora berreskuratzeko izan duan **setakeria**. [Jon Muñoz](#)

Setakeria gisako bat zen ausaz, **setakeria** motetan azkena, bakarra, agian -aitortu behar dut- ezarritakoa, nolabait esatearren inposatutakoa, neurri egina-edo, beharrezkoa eta halaber alferrekoa. [Urtzi Urrutikoetxea](#)

Aztiakeria adinako bekaketa da desleial izatea, sasijainkokeria bezain hutsala **setakeria**. [Elizen arteko biblia](#)

Zenbat eta handiagoa **setakeria**, hainbat eta biagiago liskarra. Elizen arteko biblia

Nire iritziei, ez **setakeriaz**, baizik eta arrazoiari zor zaion indarrez eusteagatik. Felipe Juaristi

Emakume gaiztoa da -errepikatu zuen haurren **setakeriaz** -. Alberto Ladron Arana

Hamahiru urteko neskatila saiatu baten **setakeriaz**, nekagaitz, nire bizitza zurearen jiran zebilen, zure existentziaren inguruan. Eduardo Matauko

Zalantza egin du bigarrengoz, ardiarenaren moduko **setakeriaz**. Monika Etxebarria

2 (izenondoekin)

Haurren **setakeria** berekoiaz, taula aitzinera eraman nuen ama eta zehatz-mehatz azaldu nion zertan zetzan ganbitoaren estrategia bikaina. Alberto Ladron Arana

Andresek ez zuen amore ematen bere eskubidetzat zeukan ezertan, eta halako **setakeria** bortitz eta erasokor batez egiten zien aurre aitari eta anaia nagusiari. Hazpegiek **setakeria** astuna uzten diote agerian; harrokeriazko pareta bat da. Josu Zabaleta

Agintzen dizut, arrazomenik gabeko Kreatura horri, ezen, bazka horri muzin eginik, zu sortu zaituen Sortzailea behar bezala gurtu dezazula, gizonen **setakeria** maltzurra honela komentziturik, Zamarien sen ez hain **setakeriak** itsutuak hala behaturik Erromako Fede Katolikoaren egiak aldarrika ditzan. Jon Alonso

setaldi iz seta gailentzen den denbora.

Gerozago, **setaldi** askoren ondotik, beste bi tenplu egin zizkieten, tabernakuluaren eredu berekoak. Patziku Perurena

setati (*105 agerraldi, 56 liburu eta 3 artikulutan*) 1 izond uste, iritzi edo asmo bati gogor eta amore eman gabe eusten diona. ik **setatsu**; **tematsu**. (pertsonez)

Konturatuta nengoen berriz ere jostailu berria nahi duen haur **setatiaren** gisara nengoela jarrita. Hasier Etxeberria

Oi, errektore **setatia**! Ardiak bezala tirano batengandik besteagana pasatzen ohitutako gizakiak aldatu eta jarraitzaile sutsu eta errebelde **setati** bihurtu zituen. Josu Zabaleta

Ni bezalako uko egile **setatientzat** prestaturiko putzua. Koro Navarro

Bazuen beste ezaugarri bat ere Massók; Wagner-zale suhar eta **setatia** izatea. Josu Zabaleta

Setatia zarelako eta ni haserraraztea gogoko duzulako.Tontakeria batengatik haserretu ginen, eta halakoetan oso **setatia** nintzenez, pikutara bidali nuen, besterik gabe. Patxi Zubizarreta

Nola irakurlearen baitan biziro txertatzen duen, maizegi guk geuk eraikitzen dugula geldika-geldika baina **setati** mespretxatuak sentiaraziko gaituen antzerki ankerra. Markos Zapiain

2 (gauzez)

Ez nuen oso ondo ulertzen haien jarrera **setatia**. Xabier Mendiguren Elizegi

Gogor pertsegitzen eta zigortzen zuen desobedientzia **setatia**. Askoren artean

Bera bezalako begirale zorrotz batek haren ahalegin **setatia** suma zezakeen lainoen artean. Pedro Alberdi

Zertarako, bestela, Garibai hil eta gero ere Garibairen izen ona lohitu nahi **setati** hori? Anjel Lertxundi

Mahatma Gandhik, indiar independentziaren bilaketa **setatian**, [...]. Iñaki Mendiguren

Oraindik idazteko intentzio **setati** horretan jarraitzen duk? Harkaitz Cano

Agustinek ez du onartzen ez eszeptizismo **setatia** ez eta arinkeria ere proposizio bat ontzat ematerakoan. Imanol Unzurrunzaga

Bai, eternitatea bezain kopetilunak beren mugiezintasun **setati**, ia traidore hartan. Matías Múgica

Estatu unibertsalen hilezkortasunari buruzko sinesmen **setatiaren** lekukotasun are ohargarriagoa haien arimei dei egiteko praktika da. Iñaki Mendiguren

Giza arazoak **setatiak** direla naturaren legeekiko. Iñaki Mendiguren

Modu **setati** baina nahasi batean. Xabier Arregi

3 irud/hed

Zer ote zen ezin igarrizko arrabots ez ozen baina bai **setati** batek. Joxe Austin Arrieta

Hego haize **setatia** sartzen bada eta eusten badio, [...]. Pello Zabala

Ur-azalean geratuko zen, burbuila **setati** baten antzera. Jose Morales

4 (adizlagun gisa)

Setati eta tristuraz begiratu zuen bakezko estalki batean bildutako lehorralde hartara. Anton Garikano

Uko egin zion **setati** berak ere ihes egiteko aukerari. Oskar Arana

Hilabete batzuetan **setati** ibili zen Gegenbauerren ihesi. Anton Garikano

Bazen abesti bat, Martin andreak fonografoan **setati** jarri ohi zuena. Mirentxu Larrañaga

Esklabotasunaren erakundeari **setati** iraunaraztea. Iñaki Mendiguren

Beren joera gaiztoei jarraitu diete **setati**. Elizen arteko biblia

Behin eta berriz zuzentzen zuten tiroa, **setati**. Ramon Saizarbitoria

Ez zuen hitz egiten, eta, **setati**, egunak eta gauak pasatzen zituen "Miserere" berri bat konposatu nahian. Martin Anso

Bide txarrean **setati**, ez du gaizkia utzi nahi. Elizen arteko biblia

Alabaina, nagusiak, **setati** eta erretxin, oihuka jarraitu zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

setati jarraitu (3)

setatiro *adlag* era setatian.

Setatiro esaten dute Jainkoak (gorets bedii) akzidente horiek istant batean sorrarazi dituela, lege naturalaren edo beste edozein gauzaren bitartekotasunik gabe. Xabier Kintana

setatsu (*98 agerraldi, 38 liburu eta 4 artikulutan*) 1 izond uste, iritzi, asmo edo kideko bati gogor eta amore eman gabe eusten diona. ik **setati**; **tematsu**. (pertsonez)

Jende burugogor eta **setatsuagana** bidaltzen zaitut nire mezua adieraztera. Elizen arteko biblia

Emakumeek jakinmin handia izaten dute eta **setatsuak** izaten dira. Jon Muñoz

Ivan Antonovitxek antzeman zion gizon **setatsua** zela, eta ez ziola gehiago emango. Jose Morales

Baina bera tematu egin zen, ezaguna zen, gainera, gizon **setatsua** zelako, eta ordaina hartua zuen orain. Bego Montorio

Hire amona, ezer izatekotan, **setatsua** duk, eta edozer gauza egingo zian bere semeengatik. Jon Muñoz

Izatez baitzen hura, izan, **setatsua** eta gaiztoa. Koro Navarro

Setatsu bihurtuko dut nik Faraويا eta ez dio herriari joaten utziko. Jose Antonio Mujika

Bere hitzaren indarrez **setatsuak** biguntzen zituen bihotz-berri zitezen. Askoren artean

2 (gauzez)

Ez zituzten aldatzen beren jarduera gaizto eta jokabide **setatsuak**. Elizen arteko biblia

Liburu honek kritika zorrotzak jaso ditu hasieratik, katolizismo **setatsuenaren** partetik batez ere. Berria - Kultura

Horren froga, mahometarren eta judutarren seta **setatsua**, eta herri barbaroek eta basatiek erlijioz aldatzeko duten erraztasuna. Iñaki Iñurrieta

Nahiz emakume horrek denik eta isilasun **setatsuen**a gorde duen, erdietsi dut harengandik erantzunik agian nahasmen gutxiene duena eta balakariena berebat. Jon Muñoz

Begirada **setatsu** bat bota zion Léari Ruche jaunak. Jon Muñoz

Neskak luzatzen zion begirakune hozmindu, **setatsu** eta mehatxukoari erreparatu zion. Patxi Zubizarreta

Zerk eragiten zion zeruaren eta itsasoaren kontra lehiatu behar **setatsu** hartan jarraitzera. Anjel Lertxundi

3 irud/hed

Dirdir egiten zuen xanpainak edontzietan; plateretan, berriz, enbor izotzu puskek, izozmendi **setatsuek**, gogor eusten zieten mahakideen koiarakadei. Jon Muñoz

1999ko EEBBetako bero-lamada **setatsuen** ondorioak. Pello Zabala

4 (adizlagun gisa) ik setatsuki.

Mundu guztiak bazekien, aspaldidanik, erizain tituludunak **setatsu** tematzen zirela otseinak bezala trata ez zituzten. Mirentxu Larrañaga

Bera eta bere funtzionarioak **setatsu** jarri ziren. Elizen arteko biblia

Bere lanean jarraitu zuen **setatsu** arratsera arte. Askoren artean

Tentetnikovek **setatsu** eutsi zion bere erabakiari. Jose Morales

Senatuak lukurrerien alde hain **setatsu** jokatzeko zuten garaian, pobrezia, neurritasuna, urritasunarekiko maitasuna oso handia zen erromatarren artean. Iñaki Iñurrieta

Nora kiliditu egin zen, azkonar baten moduan begiratzen baitzuen aitak, makur eta **setatsu**. Anjel Lertxundi

Hamaika aldiz libratu zituen, baina haiek, beren jarreran **setatsu**, beren erruengatik galtzen ziren. Elizen arteko biblia

Ez diot beraz amodio hitz hori hain **setatsu** ukatua errepikatu. Jon Muñoz

Le Soleilek hain **setatsu** azpimarratzen duen lizun hori dela-eta, hain **setatsu** non oraintxe errepikatu dizudan paragrafo labur horretan hiru bider baino gehiagotan aipatzen baita, [...]. Koro Navarro

Eta **setatsu** desobediente zen anaiari, zigorra bete ostean ere, nekez itzultzen zion bere onginahia. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

jaunak setatsu bihurtu (9); **nik setatsu bihurtuko** (4); **setatsu bihurtu** (13); **setatsu bihurtu zuen** (10); **setatsu bihurtuko** (6); **setatsu bihurtuko dut** (5)

setatsuki *adlag* setatsu. ik setatsu 4.

Hasiera batean begiak **setatsuki** itxi banituen ere, kontu haiek guztiak nirekin zerikusirik ez zutela izango esperantza intimoarekin, gero, bidaiaren lehen unetik bertatik laino artean azalduz joan zitzaizkidan ebidentziak ekarri nituen argitara. Karlos Linazasoro

setatu, seta(tu), setatzen da *ad* uste, iritzi edo asmo bati gogor eta amore eman gabe eutsi; setan gogortu. ik *tematu*.

Eta aita **setatzen** zenean, ez zegoen zereginik. Harkaitz Cano

Gaszte askok ikasi nahi zuela aerodromoan, baina gehien **setatzen** zirenak baizik ez zituztela hartzen. Anjel Lertxundi

Nire ezagun bat **setatu** zen, zu bezala, ohore handirik egiten ez zion emakume batekin. Jon Muñoz

Zergatik **setatzen** zara kontu horri jirabiraka. haiek indarrez erreskatatzeko asmoan **setaturik** jarraitzen du. Mirentxu Larrañaga

Zer, andereño, niri erantzuteko ukoan **setatua** zara oraino! Jon Muñoz

Ezetz eta ezetz, berean **setatu** zitzaidan irakasle anderea. Joxerra Garzia

Hain segur ere sinetsiko haut, horretan **setaturik** bahago. Jon Muñoz

Horretan **setatzen** bahaiz, merezient izanen haiz gertatuko zaiarenen. Iñaki Iñurrieta

Aitarengatik hasi nintzen, aita baitzen arrisksuena harroko jartzen bazen eta ezezkoan **setatzen** bazen. Jon Muñoz

Nolanahi ere uste dut, guretzat, edukitzezik ez dagoen arrazoi bat edukitzean **setatzea** baino inportanteagoa, soluzioa lortzea dela. Joxe Azurmendi

Hartan **setatzen** da, amasari arnas, harik eta irentsitako keak arnasa laburtzen dion eta hats-neketan itotzen duen arte. Anjel Lertxundi

Durant jauna adeitsuki **setatu** zitzaion Roseri diru hura ematen. Mirentxu Larrañaga

-Durruti bera ez al zaik nahikoa gora iruditzen? - **setatu** nintzaion. Inazio Mujika Iraola

-Hor bazegok zerbait, erakarmen ezkutu bat, ez didak ukatuko - **setatu** zen Xereal. Iñaki Iñurrieta

Jabetzen naizela nire arreta liburu gutxi batzuetan **setatzeak** ez diola onik egiten ez nire buruari ez nire espirituari... Anjel Lertxundi

Russell **setatuta** zegoen: filmean Hynkelen pertsonaiari background moduko bat, hitzaurre bat erantsi behar zitzaiola uste zuen. Harkaitz Cano

setemere (*orobat seteme g.er.*) iz ipar iraila.

Setemere hatsarrean Maulen, eraikuntzako ofizioetaz AFPA formakuntza egiturak ikastaldi bat proposatu zūan 11 gehitūer. Herria

Setemerearen 15a astelehena: Herritarren Egūna. Herria

Setemearan 25ean, iganteariki, beste alkarte elibateki botin, Bortūkariak parte hartūren dū, *muscoviscidose* haurren eritarzūn izigarriaren goitzeko sos biltze egūnaldian. Herria

Ondorioz **setemerearen** 13an, Bretaindar ohidūrazko kantari eta dantzariak kūmitatū dūtū Muskildiat. Herria

Bildū sosaren banatzeko, lan talde bat sortūko da dagūn **setemez**, eta ordūan dūtūe gaūzak erabakiko. Herria

Asteaskenetan eta ostegūn goizetan, 2004ko **setemeretik** goiti. Herria

setenbre iz iraila.

Harik eta **setenbre** hatsarreko egun batean erran zuen arte: [...]. Joan Mari Irigoien

Eta hala egon zen handik aitzina, hitz bat bera ere erran gabe **setenbre** osoan, bere hutsean amildua Joan Mari Irigoien

setentrione ik septentrio.

setiaketa 1 iz setiatzea. ik setio.

Hastera zihola Donostiaren **setiaketa**. Txillardegi

Beste 10.000 soldadu gehiago bidali ditik Bizkaira; nola-hala, kosta ahala kostarik, Bilbo "kankailu bandoleroen" **setiaketatik** jaregiteko. Txillardegi

Hiria gotortu zuen **setiaketari** aurre egiteko. Elizen arteko biblia

Garbi baitzegoen troiarrek itzuliko zuketela, hori egiteko moduan egon izan balira, hamar urteko **setiaketa** jasan ordez. Iñaki Mendiguren

Jaunak eskura eman zien hiria eta **setiaketaren** bigarren egunean hartu zuten. Elizen arteko biblia

2 irud/hed

Ikusten duenean tentaldiaren **setiaketa** eta arima-ehiza oso gogorrek eta neketsuak gertatzen direla, etenaldi bat egin ohi du eta bihotz atsekabetuaren bilgunetan ur tanta bat jaurtikitzen du, hau da, betiko bizitzaren zapore atsegina. Joan Mari Lekuona

setialdi iz setioa.

Hilabetetan barrena Armada liberalak, hiritik mugitu ezinik egon ondoren, bat-batean **setialdiari** akabera ematea erabaki zuen. Txillardegi

Israelek Palestinako herriari jasanarazten dizkion sarraski eta **setialdiari** emandako erantzuna da eraso Berria - Mundua

setialeku iz setioaren lekua.

Hortaz, zereginik ez zegoen, zeren On Camillo saiatu izan balitz **setialekutik** behera ateratzen, herri erdian agertuko baitzen, eta, **setialekutik** gora saiaturaz gero, basoan aurkituko baitzen. Koldo Biguri

setiatu, setia(tu), setiatzen 1 du ad setioa jarri.

Lisboa **setiatu** eta konkistatzeko lan izugarriari egokien zaizkion taktikak prestatzeko. Jon Alonso

Kartagotarrek Gades **setiatzeko** asmotan ezarri zituzten kanpamentuak. Santiago Iruretagoiena

1813an, hiria **setiatu**, erre eta harrapakatu ondoren, San Sebastianen erlikia desagertu egin zen. Askoren artean

Inguratu eta **setiatu** behar, derrigorrean. Karlos Zabala

Elurrak etxea bakarturik utzi zuen, erabateko setioa ezarri zion, iparraldetik iritsitako gudaroste isil eta ilun batek gaztelu bat **setiatzen** duen bezala. Xabier Olarra

Etsaiak **setiatu**rik, suak inguratutik. Agustin Otsoa

Setiatzen ari garen gotorlekua oso sendoa da eta, gainera, erresumako arazoez arduratu beharra dugu. Elizen arteko biblia

Setiatu gaituzten tropei buru egiteko. Joan Mari Irigoien

Ezin ziren Irktsken sartu, armada tatariarrek **setiatua** baitzuten. Karlos Zabala

Setia ezazu hiria: jarri eraso-dorreak beraren aurka, egin lubetak, ezarri gudu-kanpalekuak eta jarri eraso-tresnak inguru guztian. Elizen arteko biblia

Setiaturik hiria barruan. Karlos Zabala

Jakin bezain laster Patton jeneralak, Munich-etik 14 kilometrotan denak, delako tropa ttipi hori igortzen du eta hunek uste gabetarik 2 000 S.S.ak **setiatzen** ditu. Michel Oronoz

Honek, orduan, gastu handia eta teknika eta lan handiak beharko zituen **setiatzeko** makina bat eraiki zuen, 125 oin altuerakoa eta 60 oin zabalakoa. Santiago Iruretagoiena

Berde-kaki kolorez beztitu arrotzez **setiatu**rik zen plaza hertsia. Itxaro Borda

Beste hainbeste portugaldar bazik ez zaio gelditzen, ez dira nahikoa etenik gabeko fronte oso bat **setiatzeko**. Jon Alonso

2 irud/hed

Nire gelan **setiatu**rik sentitzen naizenean ez dut jakinen nora joan. Monika Etxebarria

Klinikako gelara heldu zenean, aita hariz eta monitore argitsuz **setiatua** ikusi zuen. Itxaro Borda

Eskaeraz eta helegitez **setiatu** zuen Amiralgoa. Juan Garzia

Idea beltzez **setiatu**rik jaikitzen zen eta eguna mutur higatzen zuen. Itxaro Borda

Usaian loriatua nindoala, egun hartan lotsatua nengoan eta beldur samin batek **setiatua**. Janbattitt Dirassar

Ilunpea zilar eta autoa **setiatuz**, euria ausarki ari zen. Itxaro Borda

3 (era burutua izenondo gisa)

Garrüzeko gaztelu **setiatuan** armagizon izatea erraza ez bazen, ez zen hagitez aiseagoa haurra izatea. Aingeru Epaltza

Abaurretarrak ere ez ziren normahi plaza **setiatuan**. Aingeru Epaltza

Hiri **setiatura** hurbiltzen hasi zirenean, argia inoiz baino apalagoa zen. Agustin Otsoa

Biharamunean jakinen nuen ziudadela **setiatuan** gelditzen ziren barrika apurrak arnoz hustu zirela egun hartan. Aingeru Epaltza

Ilunpea du bere alde, hiltzera dihoan animaliares desesperazio arriskutsua, piztia **setiatuaren** oldarra. Pako Aristi

4 (era burutua izen gisa)

Nola edo hala, **setiatuen** nekeen berri izan zuten setiatzaileek. Aingeru Epaltza

Setiatuak azken bi egunetan lasai antzean zeuden, tatariarrek erasorik ez baitzuten egiten, setioaren hasieratik ohi zutenaren kontra. Karlos Zabala

Setiatu gehienei, berriz, ikaragarria iruditu zitzaion. Aingeru Epaltza

Leku gehienetan bezala, **setiatuen** artean guti ziren igeri zekitenak. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hiria **setiatu** (7); lisboa **setiatu** (3); **setiatu** egin zuen (8); **setiatu** ondoren (4)

hiria **setiatua** (3)

hiri **setiatuan** (3)

hiria **setiatu**rik (3); **setiatu**rik zeuden (4)

hiriak **setiatzeko** makina (3)

hiria **setiatzen** (8); lisboa **setiatzen** (4); **setiatzen** ari (17); **setiatzen** ari zen (3); **setiatzen** ari zenean (3)

setiatzaile 1 izond/iz setioa jartzen duena.

Infiltrazio-prozesu neketsu hau aurrera egiten eta bukaera garratzera -Madiango oste **setiatzaile** guztia Israelgo defentsa inguratuen barrura- eramaten ikusten dugularik, [...].

Iñaki Mendiguren

Bidaia ikusgarriak egin ditzake setioa ezarri 1147tik egungo Lisboaraino, Raimundoren gogotik on Afonso Errege **setiatzailearenera**. Markos Zapiain

Orduan, amerikar **setiatzaileen** kontrako amorruz, makurtu eta nire bularraren gainean pausatu zuen burua, lo egin nahian bezala; ez luzaroan, halere. Joxe Austin

Arrieta

Ezinbertzean, haren anaiak, Nabarrenkoxeko **setiatzaileen** artean zuenak, bere parte bildu zuen eleketan. Aingeru Epaltza

Nola edo hala, setiatuen nekeen berri izan zuten **setiatzaileek**. Aingeru Epaltza

Haren asmoa, dakigunez, hirian sartu, duke handiaren ganoa joan, haren uste onaz jabetu, eta, memento egokian, harresiko ate bat **setiatzaileei** zabaltzea zen. Karlos Zabala

Kantatzeko gai ginen guztiak, mila lagun baino gehiago, igoarazi gintuen harresietara, gure boza **setiatzailearen** kanpamenduetara heda zedin. Aingeru Epaltza

Setiatzaileek gibelka egin zuten, bortu aldera. Aingeru Epaltza

2 irud/hed

Morala zen **setiatzailea**, moral katolikoa. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan)

Rodastarrek Kaliasi eskatu zioten presta zezala bere makina beste hiri-**setiatzaile** haren kontra, hasieran agindu bezala kanpoko makina hura hartu eta barrura sar zezan Santiago Iruretagoiena

setiatze *iz* setioa jartzea.

12 elkartek dei eginik, jendea bildu da palestindarrek Ramallah eta inguruetako herrietan Israel-en ganik jasaiten duten **setiatze** izigarria salatzen. Herria

Setiatze horrek gogorarazten dauku, neurri apalagoan balin bazen ere, orain dela 15 urte uxen Ipar Euskal Herri huntan gertatu zena. Herria

setio 1 *iz* gudaroste bat, hiri edo gotorleku bat hartzeko, jartzen den tokia; hiri edo gotorleku bat hartzeko egiten dituen operazioen multzoa.

Akilesek Troiako **setioa** eraman zituen. Xabier Olarra

Borrokalaria idenpendentistek soldaduen **setio** horretatik ihes egitea lortu zuten. Berria - Mundua

Irkutsken **setioa** eta errendizioa denbora kontua besterik ez zen, eta denbora laburreko kontua beharbada. Karlos Zabala

Batailak jo, **setioak** jarri, eta zazpi soldadu besterik ez zituen galdu. Iñaki Iñurrieta

Bihar tigre tamilek srilankar soldaduei egindako **setioaren** urteurrena beteko baita. Joseba Sarrionandia

Setioa hasi berria zen, jendeek ez zekiten oraino zer etorriko zitzaien. Aingeru Epaltza

Gderra zibilean, gudaroste karlistaren **setioan** gertatu zen dena. Askoren artean

Argi zegoen ez zutela inondik inora ere pentsatzen **setioa** altxatzerik. Koldo Biguri

Antonio Borboikoa hil zen Rouengo **setioan**. Aingeru Epaltza

Hemen, Lisboako **setio** honetan, emakume hau belauniko zegoen eta orain zutitu da niri harrera egiteko. Jon Alonso

Jasser Arafaten egoitzaren kontrako **setioa** gero eta zorrotzagoa dela salatu du PANek. Berria - Mundua

Fruizen hil, 1937an, Bilboren **setioa** hautsi nahian ziharduen armada frankistan kamillero zebilela. Xabier Mendiguren Elizegi

Setioa ez zen tartean laxatu. Aingeru Epaltza

Hiriak gerrak eta **setioak** pairatu zituen garaian. Askoren artean

Setioaren amaiera zen eta hura ospatu beharra zegoen. Aingeru Epaltza

Nabarrenkoxen, amets daitezkeen gaiak oro izan zitezkeen solasgai **setioko** egun luzeetan. Aingeru Epaltza

Baimena eskatu zuen gogorarazteko Europako **setio** guztietan erabili ohi direla, emaitzarik onenekin, zurezko dorre mugikor batzuk. Jon Alonso

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gerra hau iritsi, ikusi eta irabaztea izango ote zen [...] ala **setio** luzea izango ote zen. Jon Alonso

Bihitegiak mukuru zeuden, **setio** luze baterako bezain. Aingeru Epaltza

Garrantzikoena oroz gain hiria **setio** luze samarrari eusteko eran ezartzea zen. Karlos Zabala

1779: Espainiak haizta berreskuratzeko asmoz **Setio** Handia deiturikoa hasi zuen. Berria - Mundua

Zisjordaniako **setio** nagusiak. Berria - Mundua

Setio atakatua izan zen, baina -lehendik ere banekien- Garrüze ez zen Nabarrenkoxe. Aingeru Epaltza

Ivan Ogareff, ingeniari iaioa, ongi prestatua zegoen erazko **setio** baten lanak zuzentzeko; baina baliabide materialak falta zituen azkar jarduteko. Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Horixe ari garela gerran, **setio**-gerra duk, gainera, gutariko bakoitzak bestea setiatzen dik, eta besteak setiatzen dik gutariko bakoitza. Jon Alonso

Gezien eta jaurtigaien euria areagotu egin zen; **setio**-dorreak amilduta edo sutan zeuden, zuzien antzera ahituz. Agustin Otsoa

Bidaxunen jan-edanaz lepo egindako bi astei esker, sasoiagoan nengoen nire **setio**-lagun gehienak baino. Aingeru Epaltza

Irakurlea Saramagok proposatzen dituen bi historien artean -bata orain mende asko gertatzen dena, **setio** garaian, alegia, bestea gaur egun gertatzen dena- kulunkatzen baita. Jon Alonso

Setio egoera jarri dute, eta gurin kupoi bat gutxiago eman behar diete denei. Josu Zabaleta

4 irud/hed

1987a zen, Ipar Euskal Herrian iheslarien aurkako **setioan** ari zen Frantziako Polizia. Jokin Urain

Elurrak etxea bakaturik utzi zuen, erabateko **setioa** ezarri zion, iparraldetik iritsitako gudaroste isil eta ilun batek gaztelu bat setiatzen duen bezala. Xabier Olarra

Estatu Batuen **setio** ekonomikoak zaildu egiten zuen dena. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta halako **setio** limurtzaile eta estua antolatutako otordu, txango, opari eta jaiekien, non besteek ia hilabete osoan lortu ez zutena erdietsi baitzuen astebeteren buruan. Bego Montorio

Funtsean atsegin nuela, pentsatzen dut, Patxiren **setio** galaia. Patxi Zubizarreta

Horrenbesterekin, **setio** eta eraso latzean oldartu zen Lyssenko sobietar genetika-eskola ordura arte bikain askoaren aurka. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lisboako setio (3); setio egoera (6); setio luze (3)

ezarririk setioa (3); najafeko setioa (3); setioa ezarri (3); setioa hasi (4)

lisboako setioaren (58); setioaren historia (41); setioaren historiak (5); setioaren historian (3); setioaren historiaren (6)

setoso *izond* adkor setatsua.

Mutiko **setosoa** hura. Gotzon Garate

1978an bisitan joan zirenek ez zuten asko pentsatuko noraino, noiz arte iraun behar zuen Sisiforen harri horren dantza **setosoak**. Jokin Urain

Diziplina handiz transmititu da, **setoso**, egoskor. Berria - Kultura

setter *iz* ehiza-txakur arraza, aski handia, gorputz-sendoa eta ile-luzea.

Setter arrazako txakurra. Berria - Euskal Herria

Azterago txakur bat zetorren, **setter** bat. Aritz Gorrotxategi

Gero ardi zakurrak (3.635), ingeles **setterrak** (2.862), pointerrak (2.229) eta cocker spanielak (1.614). Gotzon Garate

Auzokoen **setter** urduria zaunka bizian hasi da lorategi bazterretik. Patxi Iturritegi

Setter bat zen, arra, ederra. Gotzon Garate

seudonimo *iz* izengoitia, izenordea.

Emilio Bobadilla (1862-1921) idazle kubatarren **seudonimoa**, hori Biarritzen hil zen. Joxe Azurmendi

sevillana *iz* Andaluziako herri dantza, segidillaren hitzekin kantatzen dena, berez Sevilla eta ingurukoa.

Nik Katalunian lan egingo banu, katalanez ikasiko nuke, baina nire burua aberasteko, Andaluziara joanez gero, **sevillanak** dantzatzen ikastea gustatuko litzaidakeen bezala.

Berria - Mundua

Sevillanak trikitixa eta txistua baino maizago entzuten baitira gure auzoan... Joan Mari Irigoien

sevillar *izlag/iz* Sevillakoa, Sevillari dagokiona; Sevillako biztanlea.

Buelta eman zuenean, **sevillar** kapela jantzita ikusi zuen, esku bat goian eta bestea behean, dantzan hasteko prest balego bezala. Joxemari Urteaga

Jesus Quintero **sevillar** kazetariaren enkarguz egingo dut. Berria - Kultura

Aipa dezadan, bitxikeria gisa, idazle **sevillarrak** Euskal Herriko mugan girotu zuela elezahar hori, Moncayo aldean. Martin Anso

Pare bat aldiz entzun ahal izan diot Jose Antonio Maldonado **sevillarrari**, bere andaluz sanoenaren umore eta ukittuz emaniko hitzaldia. Pello Zabala

22 urteko **sevillarra** Real Madril B taldean aritu da azken zortzi urteetan. Berria - Kirola

Sevillarrei eskerrak emateko aukera hoberik izango da, ordea. Berria - Harian

sevillazale *iz* Sevilla F.C.-aren zalea den pertsona.

Sevillara gerturatu ziren osasunazale apurrek mendeku gosea izango dute, Sanchez Pizjuanen bildutako **sevillazaleek** infernu bilakatu baitzuten zelaia nafarrentzat. Berria

- Kirola

sex-symbol *iz* pertsona ospetsua, eskuarki zinema-izarra, bere erakargarritasun fisikoagatik sexu sinbolotzat hartzen dena.

Jane Birkin Europako musika eta zinemako **sex-symbola** izan zen, eta, oraindik ere, ia 60 urte dituela, erraz ulertzen da zergatik. Berria - Kultura

Oso andre ederra; **sex-symbol** erabatekoa. Bernardo Atxaga

Ile zuriak erakargarritasun seinale izatetik zahartzaroaren oinaze izatera igarotzen diren tarte arriskutsu horretan aurkitzen den olerkigintzako **sex-symbola**. Berria - Kultura

sexagesima *iz* Garizuma aurreko hiru igandetatik bigarrena edo hiru asteetatik bigarrena.

hiru aste gehiago ipini zituen Elizak sasoi hura gertu izateko: septuagesima, **sexagesima** eta quinquagesima. Pello Zabala

Hurrengo osteguna zen emakumeentzakoa, **sexagesima** ondorengoa, alegia. Pello Zabala

sexí ik **sexy**.

sexismo *iz* sexuan oinarrituriko bereizkeria.

Homofobiak baditu hamaika aurpegi, **sexismoak**, arrazakeriak edo faxismoak bezala. Berria - Harian

Sistema horiek elkar elikatu eta indartzen dira eta arrazakerian, **sexismoan**, misoginian, xenofobian, homofobian, kolonialismoan, inperialismoan eta esklabismoan oinarritzen dira. Berria - Harian

Aginteak erabiltzen duen ikonografiaz baliatzen dira bestelako mezua zabaltzeko, arrazakeria, **sexismoa**, patriarkatua eta nazionalismoa kritikatzeko, alegia. Txema Ramirez de la Piscina

Aginteak erabiltzen duen ikonografiaz baliatzen dira bestelako mezua zabaltzeko, arrazakeria, **sexismoa**, patriarkatua eta nazionalismoa kritikatzeko, alegia. Txema Ramirez de la Piscina

Sexismoa eta militarismoa sustatzen duten jostailuen kontrakoak. Berria - Euskal Herria

Ez dezagün **sexismo** haboro sar gure hizkuntzan. Herria

Lan mundua **sexismoaren** gotorleku da oraindik ere. Berria - Euskal Herria

sexista *izond* sexismoari dagokiona; sexismoa erakusten duena.

Berria-k ez ditu, berez, eta estilo zuzenean, erabilera **sexista**, xenofobia edo oro har, baztertzaila duten hitzak erabiltzen. Iñigo Aranbarri

2004ko abenduaren 30eko legeak gogortu egin ditu adierazpen **sexista** eta homofoboaren aurkako zigorrak. Berria - Harian

Bortizkeria **sexistaren** aurkako kolektiboa. Berria - Harian

Nafarroako Indarkeria **Sexistaren** Kontrako Emakumeen Plataformak agerraldia egin zuen batzorde horren aurrean. Berria - Euskal Herria

Horrelako irain **sexistak** eta mehatxuak entzun behar izan zituzten atzo alarde mistoan parte hartu zuten gizon eta emakumeek Irungo Kale Nagusian. Berria - Harian

Espazio hegemoniko horiek egituratzen dituzten eduki **sexistak**. Berria - Kultura

Ez ditut batere maite kalifikatibo horiek, oso **sexistak** iruditzen zaizkit eta fabore guti egiten diete emazte idazleei. Ana Urkiza

2 ez-sexista izenak

Aldarrikatu dugu Euskal Herri euskalduna, **ez sexista**, zapalkuntzan baino justizia sozialetan oinarrituko dena, naturaren errespetuarekin bat egiten duen garapen eredu bat izango duena.. [Berria - Euskal Herria](#)

Kazetarietzako estilo liburu «ez **sexista**» kaleratu du Bilguneak. [Berria - Euskal Herria](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

liburu ez sexista (4); **neurri sexista** (3); **publizitate sexista** (4); **sexista izan** (3)

irain sexistak (5)

bortizkeria sexistaren (6); **bortizkeria sexistaren kontrako** (3); **indarkeria sexistaren** (4); **indarkeria sexistaren kontrako** (3)

bortizkeria sexisten (3)

SEXO ik **sexu**.

sexofobiko izond sexualitatearen beldurrari dagokiona.

Askotan, gabeziak izan daitezke kulturak ezarri dizkigun eredu **sexofobikoengatik**, edo gure desio sexuala benetan ezin dugulako zertu, dela adinagatik, dela lagun faltagatik, dela laguna urruti dagoelako, dela lagunarekin haserre edo krisian gaudelako, dela besteak ez diolako gure desioari erantzuten... [Luis Elberdin](#)

sexologia 1 iz gizakiaren sexualitatearen azkerketa.

Masters eta Johnson-en lana XX. mendeko **Sexologiak** egindako ekarpen handienetako bat dugu. [Luis Elberdin](#)

Gaurko **Sexologiak** dio desira dela giza sexualitatearen mamia. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Sexologia ere aspalditik ari da primateen, gure senideen jokabide sexualak aztertzen. [Luis Elberdin](#)

Puta batek asko erakuts lezake bere gau-eskolan, edo zezakeen bederen, **sexologia** deritzan madrea azaldu baino lehen. [Iñaki Segurola](#)

Gaur **sexologia** izan dugu eskolan. [Joxerra Garzia](#)

Sexologiako kontsulta batean lan egiten dugunok. [Luis Elberdin](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sexologia ikasketarik ez duen hezitzailea. [Berria - Euskal Herria](#)

Adriana neska normala zen guztiz, baina **sexologia** ikastaro batean izena eman orduko hasi ziren gure arazoak. [Alberto Barandiarren](#)

Sexologia kontsulta bateko gai nagusia dela esango nuke. [Luis Elberdin](#)

sexologo iz sexologian aditua den pertsona.

Sexologoarekin izandako lehenbiziko kontsultan jakin nuen, nire pozerako, arazoaren muinean ez zegoela inongo akats fisikorik, esan nahi dut, arazoa nire buruaren funtzionamendu desegokiari bakarrik zegokiola. [Jose txo Azkona](#)

XIX. mendean onanismoaren inguruan egon ziren bezala, egun haurren eta helduen arteko sexu harremanek hartu dute lekukoa Maider Altuna **sexologoaren** ustez. [Berria - Harian](#)

Sexologo batek "Gure Irratian" gazteentzat emankizun bat egiten duenetik, Euskal Herriko betiko balore sakratuak desagertzen ari dira... [Ramuntxo Etxeberri](#)

Beatriz Preciado **sexologoa** elkarrizketatu dute Ostiela! aldizkariaren 36. zenbakian. [Berria - Kultura](#)

sexta iz orduen liturgian, tertziaren ondoan errezatzen den otoitza.

Laikoek, berriz, esan bitzate hogeita lau Gure Aita maitinen orde; gorespener orde; bost; prima, tertzia, **sexta** eta nona, bakoitzaren orde; zazpi; bezperen orde; hamabi, eta kompletan orde; zazpi. [Askoren artean](#)

Gero **Sexta** eta Nona erreza bitzate; eta erreza bitzate Bezperak dagokien orduan. [Askoren artean](#)

sextario ik **sextario**.

SEXU (orobat **sexo g.er.**) 1 iz arra eta emea bereizten dituen ezaugarri fisikoen multzoa.

Sexua, sexualitatea eta erotismoa prozesu bat da, ez da alde zuzenik zehaztuta ematen zaigun zerbaitekin, aldaezina eta faktore bakarrekoa, baizik eta prozesu dinamiko, etengabe eta eragile askotakoa da. [Luis Elberdin](#)

Medikuaren **sexua** ez dela garrantzikoena esaten dit buruak, baina, erditzeko orduan, lagundu behar zidan medikua emakumea zela ikusi nuenean, askoz erosoago sentitu nintzen. [Arantxa Iturbe](#)

Pertsonaien **sexuari** eta adinari erreparatzen badiogu, sailkapen bat egin liteke. [Jon Muñoz](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **sexual**.

Masturbazioak **sexu**-organoen hondamena zekarrela. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Garunaren eta **sexu**-guruinen arteko labirintoetan. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Kalera sekula jaisten ez diren lotsatienena, edo jaitsiz gero uhala eta **sexu**-estalkiarekin jaisten direnena. [Jon Alonso](#)

Hark guztiz burutua du **sexu**-aldakuntzari buruzko ebakuntza. [Edorta Jimenez](#)

Haurdunaldiko zati handi batean ez dago **sexu** bereizketarik. [Luis Elberdin](#)

Onordetza, zati berdinetan dagokie seme-alaba guztiei, **sexu** bereizketarik gabe. [Andres Urrutia](#)

Sexu banaketa horretan, Merteuileko markesa guztiz pertsonaia arauz kanpokoa da. [Jon Muñoz](#)

A zer zentzugabekeria **sexu** berdintasunaz hitz egitea! [Antton Olano](#)

Hirugarren orrian ageri da artikulua: "**Sexu**-erasoen salaketa irakasle baten aurka" du izenburua. [Oskar Arana](#)

Sexu-instintuak gizona emakumearenganantz eta emakumea gizonarenganantz bultzatzen ditu. [Josu Zabaleta](#)

Sexu beharrak asetzeko emakume-etxeetara joaten dira. [Gotzon Garate](#)

3 sexu organoen kanpo zatia.

Zapalkuntza sexualak, neskatoei, nerabeei eta emakumei galarazi egin die beren **sexua** aztertzea eta ezagutzea, harekin jolas egitea. [Luis Elberdin](#)

Bere **sexu** gogor eta beroa sentitu nuen nire ipurmasailen ondoan. [Juan Martin Elexpuru](#)

Orain beste esku jostari bat hasi zait **sexua** laztantzen. [Patxi Zubizarreta](#)

Emilioen **sexua** Noraren barruan mugituz imajinatzeak ezertzuz egiten ninduen lanetarako. **Mikel Hernandez Abaitua**

Emeek bata bestearen **sexua** miatzatu eta elkar masturbatu, ukitu eta estaltzen dute. **Luis Elberdin**

Bestea, izterratean belaunikaturik, **sexua** ukitzen hasi zaio inongo koplarik gabe. **Juan Martin Elexpuru**

-Maitemindu egingo zaitut -esan zion Bibik ke, izerdi eta **sexu** usainak nahasian. **Paddy Rekalde**

-Peter, **sexu** alderdiak deitzen ditugun horiek badituzte izen bereziagoak ere arrarentzat eta emearentzat. **Josu Zabaleta**

Legenak jota edo **sexu** -jarioarekin dagoen apaizak ez du opari sakraturik jango. **Elizen arteko biblia**

4 sexualitatea; sexu jarduera.

Sexua ez da lotura bakarra, baina **sexurik** ez badago - **sexu** ona-, ez dago bikoterik. **Luis Elberdin**

Sexua deitzen duten gozamen-bide bat badagoela. **Pako Aristi**

Sexu eskasa dutela, bata ez dela joaten, besteak ez duela disfrutatzen... **Luis Elberdin**

Zuena, antza, ez da erotismoaren mugarrietara iristen, **sexu** hutsa da, **sexu** basatia. **Lutxo Egia**

Arratsalde sargori batean, **sexu** sukartsuaren osteko solas izerdituan, zure izena aipatu nuen. **Eider Rodriguez**

Hala, bada, nahigaberik ez izateko: **sexu** segurua. **Luis Elberdin**

-Ba horixe, zirri batzuk, **sexu** apur bat... txortan edo. **Jon Arretxe**

Naturak ardura handia hartzen du jan dezagun eta **sexua** jo dezagun; izan ere, gure biziraupena dago jokoan. **Luis Elberdin**

Jaten dugunean eta **sexua** egiten dugunean plazera sentitzen dugu. **Luis Elberdin**

Berak azaldu dit zer-nolako gauzak egiten diren, **sexua** egiteko preserbatiboak erabili behar dela eta gauza horiek. **Berria - Harian**

Jendeak **sexua** hainbeste kakarekin lotuko ez balu -zitalkeria, zeloak, hisiak, ziurtasun-eza, txutxu-mutxuak, errezeleak, "ego" harrotuak, kaka eta kaka gehiago-, lagunekin egiteak ez lioke inoiz kalterik ekarriko adiskidetasunari. **Karlos Zabala**

Sexua zen hura, sexu huts zikina eta norberarena, horixe baizik ez baita **sexua**, beste norbaitekin egiten den norberaren kontua. **Hasier Etxeberria**

Hemezortzi hilabeteko karrera luze samarra egina zuen **sexuaren** negoziotan. **Oskar Arana**

5 (hitz elkartuetan) ik **sexual** 2.

Sexu -heziketako eskuliburu lodikote bat eskuratu nuen nonbait, aitonaren liburategian, nik uste. **Karlos Zabala**

Lehenik eta behin **sexu** eta maitasun heldutasuna lortu behar dela. **Bernardo Atxaga**

Gaitua nengoen orain **sexu** -mota guztietarako. **Karlos Zabala**

Sexu kontuetan konfidantza handia dugu. **Aitor Arana**

Mutilak beti **sexu** -proposamenak egiten zizkion. **Gotzon Garate**

Ni, esan bezala, zenbait gizonekin **sexu** esperientziak izandakoa nintzen. **Juan Martin Elexpuru**

Ez duzu **sexu** -harremanik izango zeure aitaren emaztearen alabarekin: zure aitarengandik sortua da, eta arrebak duzu. **Elizen arteko biblia**

Herbalduetaz sobera baliatzen direla enplegatzaileak, heien eskubideak zangopilatuz, **sexu** bortxaketetaraino. **Herria**

Interes handia zegoen ugalketara zuzentzen ez zen edozein **sexu** -jokaera itozteko. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Hik behar duana **sexu** saio on bat duk -bota zion-. **Fernando Morillo**

Sexu jolasak gustatzen zaizkiola. **Luis Elberdin**

Sabaiari begira zegoen bikotea, **sexu** -atseginaren osteko lasaitasunaz gozatuz. **Migel Angel Mintegi**

Askotako **sexu** -fantasia probokatazile eta kilikagarrien kateaketa. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Saio luze bat oso bizipen ederra izan ohi da, baina baita **sexu** -jotze azkar bat ere, biek hala nahi izanez gero. **Luis Elberdin**

Bi euli ikusi nituen beiraren kontra **sexu** -jotzen, doilorki, maitasunik gabe. **Karlos Linazasoro**

Sexu bidezko ugalketa. **Iban Zaldua**

Sexu -marketing hutsa! **Patxi Iturritegi**

6 sexu bereko gizakien multzoa.

Begia eta hizpidea hankartean jarri ezker, ez dago bi **sexuak** berdintzeko modurik. **Iñaki Segurola**

Beste pertsona **sexu** berekoa nahiz bestekoa izan daiteke. **Luis Elberdin**

Harreman sexualak beren **sexu** berekoekin dituztenak. **Luis Elberdin**

Sexu arteko asimetria dela eta, Euskal Herriko emakumeen langabezia tasa EBkoa baino handiagoa da. **Berria - Ekonomia**

Izadiak bi **sexu** bestelakotsu egin ditu, euren nahitaezko batuketa gauzatzeko asmoz. **Andres Urrutia**

Emakumezkoak gizonezkoak baino aiseago lotsagorritzen dira, **sexu** ahulekoak gara, Eta horrekin ez zebilen **sexu** maskulinoarekiko zuen arrakasta eskasa estali nahian. **Jon Alonso**

Badakigu primate eta ugaztun familia askotan ere oso ohikoak direla sexu berekoen arteko jarduera sexualak, bai beste **sexuokak** aurrean egonda nahiz ez. **Luis Elberdin**

7 **sexu grina** (orobat **sexugrina**)

Sexu-grinak hartuta geunden eta geure gogoia lasai askatu ahal izan genuen arratsalde hartako eguzki goxotan. **Aitor Arana**

Baina horrek ez zion **sexu-grinarik** piztu. **Ibon Uribarri**

Ohikoa omen zen hori autisten artean, eta horrexegatik huts egiten omen zuten, besteak beste, nahiz eta **sexu-grina** sentitu, inorekin irteteko kontuetan eta sexu-harremanetan. **Xabier Olarra**

Eta ez zuen zerikusirik **sexu-grina** asetu nahi izatearekin, voyeurismo berezi hori B-erentzat pertsonak pertzibitzeko manera baizik ez baitzen. **Jon Alonso**

Euskaraz ere badugu *ihel*, *iheldu*, *ihel egon* aditza, hain zuzen ere, abereen **sexugrina** adierazteko erabiltzen dena. **Patziku Perurena**

Maitemintzea **sexu-grina** formateatzea besterik ez da. **Karlos Zabala**

8 **sexu irrika** (orobat **sexuirrika**)

Hor kokatzen dira emozio primitiboak -gosea, beldurra, atsegina, **sexu-irrika** -, banakoa nahiz espeziea arriskutik babesten dutenak. **Irene Aldasoro**

Dena den, hori guztia zuzen ulertzeko derrigorrezkoa da psikoanaliariaren hainbat kontzeptu eta teoria ezagutzeari, inkontzienteari, haur-sexualitatea eta **sexuirrika** batez ere. Iragarri batean etxe baten eraikuntzan lanean ari ziren neska gazte batzuk ikusten ziren, aldameneko kaletik pasatzen zen mutil lerden bati **sexu-irrikaz** begira. **Berria - Harian**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

alabari **sexu** gehiegikeriak (4); **haurrekin sexu** harremanak (5)

sexu abusuak (12); **sexu** abusuak egiteagatik (5); **sexu** askatasuna (5); **sexu** askatasunaren (7); **sexu** aukera (4)

sexu bereizketarik (6); **sexu** bereko (117); **sexu** bereko bikote (5); **sexu** bereko bikoteak (11); **sexu** bereko bikoteei (6); **sexu** bereko bikoteek (9); **sexu** bereko bikoteen (18); **sexu** bereko bikotekideen (6); **sexu** bereko gurasoak (4); **sexu** bereko pertsonen (23); **sexu** berekoa (5); **sexu** berekoak (6); **sexu** berekoen (20); **sexu** berekoen arteko (12); **sexu** bidez (5); **sexu** bidezko (8); **sexu** bila (7); **sexu** bizitza (5); **sexu** bizitzaren (4)

sexu eraso (4); **sexu** eraso (22); **sexu** eraso egin (5); **sexu** eraso egiteagatik (5); **sexu** erasoak (55); **sexu** eraso egin (6); **sexu** erasoak egiteagatik (11); **sexu** erasoak jasaten (4); **sexu** eraso (6); **sexu** erasoengatik (5); **sexu** erasoren (4)

sexu gehiegikeria (29); **sexu** gehiegikeriak (83); **sexu** gehiegikeriak egin (11); **sexu** gehiegikeriak egitea (7); **sexu** gehiegikeriak egiteagatik (20); **sexu** gehiegikeriak egiten (4); **sexu** gehiegikeriak jasan (5); **sexu** gehiegikerien (5); **sexu** gehiegikeriengatik (5); **sexu** gosez (4); **sexu** grina (15); **sexu** grinak (4)

sexu harreman (20); **sexu** harremana (5); **sexu** harremanak (127); **sexu** harremanak edukitzera (4); **sexu** harremanak izan (19); **sexu** harremanak izatea (11); **sexu** harremanak izateagatik (4); **sexu** harremanak izateko (4); **sexu** harremanak izaten (10); **sexu** harremanak izatera (14); **sexu** harremanei (4); **sexu** harremanen (23); **sexu** harremanen bidez (10); **sexu** harremanen bitartez (4); **sexu** harremanetan (14); **sexu** harremanetarako (8); **sexu** harremanik (36); **sexu** harremanik ez (7); **sexu** harremanik izan (8); **sexu** harremanik izango (15); **sexu** heziketa (7); **sexu** heziketaren (5); **sexu** hutsa (7)

sexu identitatea (7)
sexu jarduera (4); **sexu jarduna** (5); **sexu jarria** (4); **sexu jazarpena** (17); **sexu jazarpenak** (6); **sexu jazarpenak egitea** (4); **sexu joera** (7)
sexu kontuak (4); **sexu kontuan** (5); **sexu kontuei** (4); **sexu kontuetan** (16)
sexu organoak (12); **sexu osasun** (4)
sexu segurua (5)
sexu usaina (4)
maitasuna eta sexua (4); **nire sexua** (8); **sexua aldatzeko** (5); **sexua egiten** (7); **sexua jotzen** (5)
sexuaren arabera (11); **sexuaren araberako** (7); **sexuaren inguruan** (4); **sexuaren inguruko** (5)
sexuaz hitz egin (7)
sexuen arteko (44); **sexuen arteko berdintasuna** (8); **sexuen arteko parekidetasuna** (4)
beste sexuko (4)
bere sexura (4); **sexura eraman** (4)
sexurik gabeko (7)

sexual 1 izond sexuarena, sexuari dagokiona. ik **sexu 2**.

Beste askok bizitza gutzian pentsatuko dute beren organo **sexualak** tentaziora eta infernura bultzatzeko baizik ez daudela dauden lekuan. **Karlos Zabala**

Guruin **sexualak** diferenteak omen ziren neskenentzat eta mutilentzat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Ba, maitasuna, eta badakit pedantea irudituko natzaizula, instintu fetixistaren eta instintu **sexualaren** bateratzea da. **Josu Zabaleta**

Batere argi ez eduki ondoren bere apaiz bokazioa edo nortasun **sexuala** bat-batean aurkitzen duena bezala sentitu naiz. **Harkaitz Cano**

Elkartzen dituen grina **sexuala** pikutara joango da ikusten dutenean eguneroko egoeretan oso gutxitan datozela bat. **Luis Elberdin**

Berdintasun **sexuala** baino haratago, aita eta haurren arteko lotura sinbolizatzen duen elementu bakarrenetako abizena dela entzun da. **Berria - Euskal Herria**

Garai batean, lanaren banaketa **sexuala** oso eredu egokia izan zen; hala, amak zaintzen zituen umeak eta aitak babestu egiten zituen. **Luis Elberdin**

Eraso **sexualen** mehatxua ere etengabea izan zen. **Berria - Euskal Herria**

Emakumeari eredu **sexual** maskulinoa inposatu nahi hori oso antzinatik dator. **Luis Elberdin**

Inor ez da mundura sortzen rol **sexual** zurrin batekin. **Karlos Zabala**

2 sexualitatearena, sexualitateari dagokiona. ik **sexu 5; sexualitate 3**.

Masturbazioa jolas **sexual** atsegintzat jotzen dugu. **Luis Elberdin**

Egia esateko, behin ere ez nuen lortu animaliekin izaten nituen fantasia **sexual** gutxi haiek errealitatera eramatea. **Karlos Zabala**

Sexologia ere aspalditik ari da primaten, gure senideen jokabide **sexualak** aztertzen. **Luis Elberdin**

Baraualdi **sexual** haietako batean zeudela, sexu grinaz eta alkoholez mozkorturik erabat, Manuelek aitaren pistola hartu eta Varelaren etxera joan zen. **Aritz Gorrotxategi**

Heziketa **sexualak** kontuan hartu eta errespetatu egin behar ditu gazteen sexualitatearen egungo adierazpideak. **Luis Elberdin**

Bizitza **sexuala** zapuztu egiten du telebistak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zaila da Stephen neskekin irteteko gelditzen irudikatzea, are gutxiago harreman pertsonal edo **sexual** sakon batzuez gozaten. **Xabier Olarra**

Bestela [...] ez duzu behar bezalako sintonia emozionalik lortzen, eta sexu-jarduera zentzurik gabeko kamasutra bihurtzen da, gimnasia **sexual** hutsa. **Patxi Iturritegi**

Orain beren senarren emaitza **sexual** pobreei buruz txisteak egiten dituzten emakumeek beren garairik hoberenean sexuak ez zituela erakartzen sinestarazteko interesa izan zuten. **Ramon Saizarbitoria**

Hilketa baten ostean eldarnio paranoiko bat dagoela edo delitu **sexual** batean neurosi bat dagoela. **Xabier Arregi**

Maniako **sexual** batek? -kezkek atzeratu egin zuen erantzuna. **Migel Angel Mintegi**

Turista **sexual** horiek adingabeak aukeratzeko arrazoiak bat hiesaz kutsatzeko beldurra da. **Berria - Gaiak**

3 sexuaren bidezkoa.

Darwinen garaiko arazoa herentziari buruzko azalpen sendorik ez izatea zen, orduko teoriek **ugalketa sexualean** karaktere desberdinek bat egingo zutela azaltzen baituzten. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bizitza sexual (4); **elkartzte sexual** (3); **eraso sexual** (5); **eredu sexual** (5); **estimulu sexual** (4); **harreman sexual** (10); **harreman sexual iraunkorrek** (3); **heziketa sexual** (3); **jarduera sexual** (4); **jokabide sexual** (7); **jolas sexual** (5); **objeto sexual** (3); **sexual guztiak** (3)

askatasun sexuala (4); **bizipen sexuala** (3); **bizitza sexuala** (8); **desbideratze sexuala** (3); **desio sexuala** (7); **disfuntzio sexuala** (4)

elkartzte sexuala (9); **erantzun sexuala** (5); **eraso sexuala** (4); **eredu sexuala** (6); **esperientzia sexuala** (3); **estherren turismo sexuala** (3); **eszitazio sexuala** (5); **garapen sexuala** (3); **grina sexuala** (3); **harreman sexuala** (14); **harreman sexuala izan** (3); **heziketa sexuala** (42)

informazio sexuala (4); **iraultza sexuala** (4); **jarduera sexuala** (10); **jazarpen sexuala** (3); **jokabide sexuala** (3); **jokaera sexuala** (3); **jolas sexuala** (7); **kitzikapen sexuala** (7)

objektu sexuala (3); **orientazio sexuala** (3); **plazer sexuala** (4); **turismo sexuala** (22)

urte garapen sexuala (3); **usain sexuala** (3)

elkartzte sexualak (7); **eraso sexualak** (16); **eredu sexualak** (4); **estimulazio sexualak** (4); **fantasia sexualak** (11); **gustu sexualak** (4); **harreman sexualak** (46); **harreman sexualak izan** (8); **harreman sexualak izatea** (7); **heziketa sexualak** (11)

jarduera sexualak (3); **jokabide sexualak** (4); **jolas sexualak** (8); **nahi sexualak** (3)

organo sexualak (3); **rol sexualak** (3); **turismo sexualak** (3)

usain sexualak (5)

askatasun sexualaren (4); **bizitza sexualaren** (5); **heziketa sexualaren** (8); **heziketa sexualaren kontra** (3); **jarduera sexualaren** (5); **jolas sexualaren** (4); **kitzikapen sexualaren** (4); **plazer sexualaren** (4); **turismo sexualaren** (6)

arlo sexualean (6); **jolas sexualean** (5)

harreman sexualekin (3)

transmisio sexualeko gaitzak (4)

elkartzte sexualen (3); **harreman sexualen** (5); **jolas sexualen** (3)

plazer sexualerako (3)

elkartzte sexualetan (3); **harreman sexualetan** (19); **jolas sexualetan** (7)

sexualismo iz sexuala denaren gorazarrea.

Gizarte Maia, Hitita, Babiloniko eta Indioak, desegiten direnean, gizaki primitiboaren ethos-era itzultzen direla dirudi, beren erlijioaren **sexualismo** abandonatuaren eta beren filosofiaren gehiegizko aszetismoaren arteko leizearekiko itxurazduren sentiberatasunean. **Iñaki Mendiguren**

sexualitate (orobat *setsualitate g.er.*) 1 iz sexuari buruzko jokabide edo jarduera.

Freuden ekarpen handizat jo da **sexualitatea** eta ugalketa bereizi izana. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Ugalketara zuzentzen ez den **sexualitate** oro -homosexualitatea, masturbazioa- itotzea da helburua, eta sexu adierazpen guztiak ezkontza ugalkorren barrutira mugatzea.

Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Giza eskubideen arabera, emakumea bere **sexualitatearen** jabe da eta bere esku daude hari buruzko erabakiak. Berria - Gaiak

Bakterioen lisogenia eta **sexualitatea** ikertzeko. Juan Garzia

Haur batek **sexualitatea** dauka, baina **sexualitate** hori ez da emakume edo gizon heldu baten modukoa. Berria - Harian

Batzuek oso markatuta dute beren **sexualitatea**, eta homosexualak edo heterosexuak dira. Joan Mari Irigoien

Judu ortodoxoen artean sentsualitatea, **sexualitatea**, guztiz menderatu eta ezabatu beharreko gauza dira. Koro Navarro

Kulturak debekatu eta ukatu dizkigun gure **sexualitateko** hainbat alderdi garrantzitsu garatu ahal ditugu fantasien bitartez. Luis Elberdin

Eta ez zen konformatu beste behin ere masturbazioa, lesbianismoa edo homosexualitatea gaitzestearikin; **sexualitatearen** psikiatrizazio obsesiboak "perbertsio sexualen" zerrenda azkengabe bat egitera eraman zuen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

2 (izenondoekin)

Ugatzun gehienek **sexualitate** ziklikoa daukate. Luis Elberdin

Sexualitate egonkorra, ludikoa, kitzikagarria, sarria eta maitaleen artean lotura sendoak sortuko zituen. Luis Elberdin

Heziketa sexualak errespetatu egin behar ditu gazteak, eta haien **sexualitate** sutsu, oparo eta bizia argi eta garbi onartu behar du. Luis Elberdin

Ez dago **sexualitate** normalik eta anormalik, osasun sexuala ez baitagokie arau sozialei. Luis Elberdin

Hilabete haietan, begitan hartu nuen morroi hura; likatsua iruditzen zitzaidan, melenga, ia-ia lizuna, ez sexuari zegokionez zuzen-zuzenean, baina bai halako **sexualitate** "sublimatu"tik zetorkion zerbaiten kariaz. Juan Kruz Igerabide

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Esporulazio- eta **sexualitate** -fenomeno batzuk alde batera utzita, ez zuen inolako zerikusirik enbrioaren garapenarekin eta zelula-desberdintzearekin. Juan Garzia

Afektibitate eta **sexualitate** kontuetan. Berria - Gaiak

Arauk badaki hainbat **sexualitate**, maitasun eta erotismo klase daudena -horregatik, hain zuzen, egiten dira arauak-, baina saiatzen da hori guztia arau baieztatzen duen salbuespena baino izan ez dadin. Luis Elberdin

Panden kopurua ttipituz joan da ez baitira ontsa populatzen, **sexualitate** lan hortan frango alferak izanez. Herria

Beste antolatzaile batek, «gizartean **sexualitate** mailan saltzen diguten aurrerapen hori faltsua» dela adierazi zuen. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

emakumearen **sexualitatea** (3); **giza sexualitatea** (9); **haurren sexualitatea** (3); **primateen sexualitatea** (3)

sexualitatea adierazteko (3); **sexualitatea bizitzeko** (6); **sexualitatea eta erotismoa** (6); **sexualitatea eta ugalketa** (5)

giza sexualitatearen (9); **lapurtutako sexualitatearen** (3); **primateen sexualitatearen** (3); **sexualitatearen gaineko** (3); **sexualitatearen inguruan** (5)

emakumeen **sexualitateari** (3); **sexualitateari buruzko** (4)

sexualki 1 *adlag* sexuaren bidez, sexuaren aldetik.

Mike-Hellok sexua nahi du, noski, ezezagun batengana **sexualki** sartzek ematen dion morbo izugarriaren harira. ezin da inor ezkontzera eta lana egitera behartu; ezin da pertsonekin trafikatu, ezta **sexualki** esplotatu ere. Pako Aristi

Ez garraioetan bakarrik, **sexualki** ere xantaiatu egiten nau. Iñaki Zabaleta

Bost zentzumenak modu bikainean erabili ohi dira bata bestea **sexualki** erakartzeko. Luis Elberdin

2 sexuaren edo sexualitatearen arabera.

Emakumeak lehen begiratuan taxutzen ditu, eta **sexualki** sailkatzen; buru barruko irudi gordinek zehazten diote nola egin behar dien irribarre. Xabier Paya

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sexualki eraso (3)

sexualtasun *iz* sexualitatea.

Esan nahi baitut, ez diot **sexualtasuna** igartzen. Edorta Jimenez

sexuatze *iz* sexudun bihurtzea.

Gizakiaren **sexuatze** prozesuko faktore biologiko, psikologiko eta sozialen bateratze horretan, gerta liteke anatomia maskulinoa izanik emakume sentitzea. Luis Elberdin

Hala, **sexuatze** prozesua orain faktore sozial eta kulturelek aberastuko dute, eta bakoitzak bere bizipenak izango ditu, norberaren sexualitatea osatuz joango da. Luis Elberdin

Dudarik ez: **sexuatze** prozesua ikasi egiten da. Luis Elberdin

sexudun *izond* sexua duena.

Izaki **sexudunak** gara, eta ernalketa gertatzen denetik bertatik gara desberdinak. Luis Elberdin

Gurasoek ez dute onartu nahi beren seme-alabak jaiotzen direnetik bertatik izaki **sexudunak** direla. Luis Elberdin

Freudek ezeztatu egin zuen ikuspuntu hori, eta gizon eta emakume, jaiotzen garenetik hiltzen gareneraino, denok gara **sexudunak** onartzera behartu zuen gizartea. Luis Elberdin

Gaur [...] psikoanalisiak badu izateko arrazoiak: bere sufrimenduaren bitartez salatzen duen desordenaren aurrean, subjektu hiltzen, **sexudun** eta hilkorri arduraren pixka bat hartzeko aukera ematea. Berria - Kultura

sexugabe 1 *izond* sexuik ez duena.

Izaki **sexugabe** urdinak dira, robotak iduri. Xabier Montoia

Ezin da onartu, emakumeak -objektu desiratua, baina ez desiratzaila, **sexugabea** eta tatxagabea- beste emakume bat maitatzea. Luis Elberdin

Soldaduen subjektua definizioz da zikiratua; izan, "ni" izenordaina ere ez du berea, eta debekaturik dauka lehen pertsona hitz egitea; ni-gabe subjektua izateaz gain, **sexugabea** ere bada, Aberriaren alde bizitza emateko prest egon behar baitu, sublimazioa edo putetxeak gelditzen zaizkio irtenbide, sexu harremana eta sorrarazte arrunta ez beste edozer. Joseba Zulaika

2 irud/hed

Txakurrak, baratzea, astrologia-liburuak, arropa **sexugabetuak**: gauza bakoitzean beregintasun-adierazpen bat ikusten du berak, sakon hausnartua, irmoa. Oskar Arana

3 sexu bidezkoa ez dena.

Mikroorganismoetan, zera adierazten du klon izenak: erditibez -hots, ugalketa **sexugabez** - organismo bakar batetik datozen banakoen multzoa. Juan Garzia

sexugrina ik **sexu 7**.

sexuirrika ik **sexu 8**.

sexuka *adlag* sexuaren arabera.

Gaurko garaietan, **sexuka** biltzea, bereiztea da, apartheidean biltzea. [Ana Urkiza](#)

sexukera *iz* sexua egiteko era.

Esan liteke Anja izan nuela irakasle nik "sexu zientifikoa" deitzen dudan alor horretan, erran nahi baita, norberaren gozamen hutserako biderik onena darabilen **sexukeran**.
[Hasier Etxeberria](#)

sexuketa *iz* sexua egitea.

Horrela, hogei urte betetzerako, bi haurdunaldi saihestu zituen eta kanpaia jotzearen eta **sexuketarako** alua ez erabiltzearen abantailak ikasi zituen. [Aitor Arana](#)

Bagenekien Mikelek eta Joxemarik ez zutela gizon helduekin **sexuketan** ibiltzeko joerarik. [Aitor Arana](#)

Nola diren gauzak, gizonak **sexuketarako** gogoko ez zituen gizon bat ari zitzaidan popatik ematen. [Aitor Arana](#)

sexukide *iz* sexu bereko pertsona.

60 urtez santutegi batean bere **sexukideez** soilik inguratua eta kaititate-botoak gorde beharrean bizi den norbait. [Pako Aristi](#)

Etsaigoa aktiboa eta pasiboa izan daiteke; adibidez (hurrenez hurren) emakume baten sentiera bere lagun emakumezkoenganako edo bere gainerako **sexukideenganako**.

[Xabier Olarra](#)

Uste nuen emakumeekin soilik egoteak zentzatu egingo ninduela;... gurariak nire **sexukideengana** bideratzeak zure sexukoenganako joera moztuko zidala. [Juan Martin Elxpuru / Bego Montorio](#)

sexuondo *iz*

Zer sexu eta zer **sexuondo**? [Luis Elberdin](#)

sexuzale *izond* sexuaren zalea dena.

Francesco gizon harroa, oldarkorra, **sexuzalea** eta menperatzailea zen, eta biolentzia eta bortxa erabiltzea zen gehien atsegin zitzaiona, agintea eskuan zuela erakustea.

[J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

-Hara, hara, gure **sexuzalea**! [Fernando Morillo](#)

sexy (*orobat sexi g.er.*) *izond* sexualki erakargarria dena, sexu grina pizten duena.

Joana zentzudunagoa eta maitagarriagoa da; Irati, ordea, **sexiagoa** eta ausartagoa. [Berria - Kultura](#)

Aipatutako azken film horretan, zer egiten ote dute Grant dotoreak eta Eva Marie Saint ilehori **sexiak** trenan tunelean sartzerakoan? [Berria - Kultura](#)

Haren gorputz txiki liraina; haren arropa **sexiak**; haren begiak, kilikaduraz distira zerienak. [Oskar Arana](#)

sezesio 1 *iz* estatu batetik haren zati bat bereiztea. ik **banakuntza**.

Europako bihotzean estaturik gabeko nazio baten **sezesiorako** bidea zabaltzen zuen legea onartu zuten. [Berria - Euskal Herria](#)

Autodeterminazio eskubidea eta **sezesiorako** aukera arautzea jasotzen dituzten 42 atalkako zuzenketa aurkeztu ditu. [Berria - Euskal Herria](#)

Herrien autodeterminaziorako eskubideak ez du **sezesioa** ahalbidetzen. [Berria - Euskal Herria](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

«Ezin dugu besoak gurutzaturik geratu iragarritako **sezesio** prozesuaren aurrean», esan zuen atzo PPKo Ignacio Astarloak. [Berria - Euskal Herria](#)

Bi irizpiderekin erantzun zion Kanadako Gobernu Federalak Quebecen **sezesio** eskubideari buruz egindako galderari. [Berria - Euskal Herria](#)

Amerikako **Sezesio** Gerran Abraham Lincoln presidentek *habeas corpus* eskubidea bertan behera utzi izana. [Berria - Mundua](#)

Dead birds (Alex Turner) AEBetako **sezesio** gerran girotutako ipuin beldurgarria. [Berria - Kultura](#)

3 irud/hed

Katalaneraren defentsarako elkarteentzat Alderdi Popularrak Valentzian eta Balear Uharteetan ezarritako «**sezesio** politikari» emaniko kolpe juridikoa da ebazpena. [Berria - Mundua](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sezesiorako aukera arautzea (3)

sezesionista 1 *izond* sezesioaren aldekoa.

Osteguneko bilkurak zenbait erkidegotako presidenteen «egitasmo **sezesionistak**» arbuizatzeko balio behar duela uste du PPK. [Berria - Euskal Herria](#)

Espainiatik aldentzea du helburu [proposamenak] eta **sezesionista** da. [Berria - Euskal Herria](#)

André Gunder Frank-ek aipatzen du nola Ulysses Grant amerikar lehendakariak, Hegoalde **sezesionista** azpiratu zuenak, modurik argienean salatzen zuen doktrina liberalaren akatsa. [Koro Navarro](#)

Konturatu nintzen Estatuako kapituloiaren aurrean, masta handiaren puntan, hegotarren bandera zegoela harrera-emaile, haizea harro igurtziz; gerra zibilean **"sezesionista"** deitutako bandera bera. [Iñaki Zabaleta](#)

2 irud/hed

Bloc nazionalistak eta ACPV Valenziako *Accio Culturalek*, aldiz, ebazpenak PPren politika **sezesionista** (valentziera katalanetik bereizteko) gutxiesten duela diote. [Berria - Mundua](#)

3 iz sezesionistean aldeko pertsona.

Kontuan hartuz jasan bai baina borrokatu ez zituen gerrak -miamien, espainolen eta **sezesionisten** aurka-, astiro joan zen denbora. **Anton Garikano**

shakespearear *izlag* Shakespearea, Shakespeareri dagokiona.

Tragedia handi bat, **shakespearearra**, biblikoa. **Iban Zaldúa**

shanghaiar *izlag/iz* Shanghaikoa, Shanghaiari dagokiona; Shanghaiko biztanlea.

Lorontzia esaten zioten **shanghaiarrek**, *statu quoaren* alde beti, ekimen gutxiko pertona zela iritzita. **Berria - Mundua**

sherif ik **sherif**.

sheriff *(31 agerraldi, 6 liburu eta 5 artikulutan; orobat sherif 14 agerraldi, 3 liburu eta artikulua 1ean)* 1 iz Estatu Batuetako konderri batean, justiziaren ordezkaria, ordena atxikitzeko eta legea betearazteko eginkizunak dituen.

Sheriffak erabakita zeukanean harengana hurreratzea eta nola edo hala lotzea haren esku busti gorriak, buelta emanarazi zion atzeko itzal batek. **Anton Garikano**

-Ez dut ezer eransteko **sheriffari** esan nionari! **Koro Navarro**

Beren izenak eman zizkion **sheriffari**. **Koro Navarro**

Humboldt Countyko **sheriffaren** laguntzailea. **Javi Cillero**

Ingaterrako erregeak sir William Phips titulua eman zion eta Bostongo High **Sheriff** izendatu. **Juan Garzia**

Ameriketako indigenekin hezitako Mike Blueberry **sheriffa** da filmaren pertsonaia nagusia. **Berria - Kultura**

Gaizka, gure atariko lehenengo pisuan bizi dena eta lagun artean (errealitatetik askorik urrundu gabe) **"Sheriffa"** deitzen duguna. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 (hitz elkartuetan)

Theok paltoa estekatu zuen, papoan dilindan zerabilen LAPDko **sherif** plaka, oihal zuri zatiaz kukutzen entseatu zela. **Itxaro Borda**

3 irud/hed

Azkuna, *city-ko* **sheriff** -ak eman du abisua: identifikazioa eta miaketa. **Berria - Ekonomia**

«Bushen atzerri politika arriskutsua da, eta ez du Amerika segurua egin», esan du *The Boss*-ek, Etxe Zuriko **sheriff** -a kritikatzeko. **Berria - Mundua**

-Kerry hitzez, Bush ekintzez, **sheriff** jokatzeko ari dira biak, untxi desberdinak jomugan izanik ere. **Berria - Mundua**

sherpa 1 iz Himalaiako mendietan bizi den mongoliar herri bateko kidea.

Mera Peak mendia (6600 m.) igan du hango lagun batzuekin, **sherpa** batek gidaturik. **Herria**

Sherpak altuerara ohituta omen daude, dagoeneko, eta azkar-azkar igo omen daitezke hilotza dagoen lekuraino. **Berria - Kirola**

Everest mendi kaskorak heldu zen lehen aldikotz euskaldun bat, Martin Zabaleta, Pasang Temba **sherpakin**, 1980eko maiatzaren 14ean. **Herria**

Ximiko bat bihotzean ukanen dute haatik, duela bi urteko lasterkaldiaren irabazlea, Sumba **Sherpa** nepalدارra, berriketan zendua baita goi mendi horietan. **Herria**

Hilotzaren bila joan daitekeen **sherpa** talde bat bilatzen saiatuko dira. **Berria - Kirola**

Lope eta ni abiatu ginen lehenengo, gailurrera igotzeko dauden aukerak aztertzeraz bidaltzen dituzten **sherp**en gisa. **Pako Aristi**

Hemendik joan diren mendizaleen ondoan, hango **sherpa** jendeak kanpaina hauek nola bizi dituen agertzen da. **Pako Aristi**

2 (izenondo gisa)

Herri **sherp**aren errespetua merezi duen mendirik badago, hori Ama Dablam da. **Berria - Kirola**

shirt ik **T-shirt**.

shock 1 iz kommozio larria eta eskuarki bat-batekoa, etorki psisiko edo fisikokoa.

Ikuskizunak zirrara handia eragin zion, eta **shockak** jota edo, zoro antzera etxetik eskaliburura sartu irten aurkitu zuen bizilagun batek. **Migel Angel Mintegi**

-Zure nebak **shock** bat izan du. **Juan Kruz Igerabide**

Heriotza, beraren ustez, **shock** bat izan eta bat-batean bihotza gelditu izanak eragin zuela. **Irene Aldasoro**

Haietako bat d'Agilera poliklinikara eraman behar izan zuten jasandako **shockaren** eraginez. **Patxi Iturritegi**

Yonsuk andreak ere **shock** bat jasan zuen, eta horregatik dago betiko eri. **Juan Kruz Igerabide**

Izeba Garbiñe maitearen heriotza tragikoak sortu zion **shocka** gainditzeko. **Aitor Arana**

Eta aldiro **shock** moduko bat hartuko zuen, eta sekulako zarrakoa sentiaraziko zion. **Xabier Olarra**

Shock moduko bat eragin zidan hark. **Berria - Gaiak**

Psikiatra jendaila horrek azalpen aldrebes bat baino gehiago asmatuko luke jarrera muker hartarako, gerra garaiko sindromeaz hasiko lirakete, edo trauma osteko **shockei** buruz. **Alberto Ladrón Arana**

Hain nengoen prestatu gabe borond ate onezko eraso hartarako, non ia-ia botaka hasi bainintzen nire sistemari eragin zion **shockagatik**. **Oskar Arana**

2 (izenondoekin)

34 urteko gizonak ez zuen zauri fisikorik izan, baina ospitalera eraman behar izan zuten **shock** handia zuelako. **Berria - Euskal Herria**

Ez nago, bada, **shock** latz baten eraginpean? **Anjel Lertxundi**

Segurtasunerako prefetaren ondoko berriak nolabaiteko **shock** psikologiko bat piz dezake klandestinoen artean. **Berria - Mundua**

Shock traumatikoa. **Agurtzane Juanena**

3 inarrosaldia.

Beretzat **shock** ikaragarria izan zela emakumea zela deskubritzea. **Ana Urkiza**

Bat-batean pentsamendua gelditzen denean tentsioz ernaldutako egitura, egitura honi **shocka** eragiten dio... **Joseba Zulaika**

Blancheren aurpegiak **shock** txiki bat adierazi du. **Xabier Paya**

4 irud/hed

Bi ezaugarri horien eraginak eta «**shock**» demografikoak kalte handia egingo lioke pentsio sistemari. **Berria - Ekonomia**

5 *elektro-shock* ik **elektro 3**.

6 shock egoera

Natachak ezin dio erantzun, **shock egoeran** baitago. Berria - Kultura

Asko **shock egoeran** zeuden, iparra galduta. Berria - Mundua

Buruak banatu ondoren, baina, eta koagulazio arazoek eraginda, haurra **shock egoeran** sartu zen. Berria - Gaiak

Lekuko baten esanetan, bidaiari asko **shock egoeran** atera ziren trenetik. Berria - Mundua

7 shock elektriko ik elektro 3.

Gose greba bertan behera utz zezaten, tartean, **shock elektrikoak** jaso zituztela adierazi zuten. Berria - Mundua

Torturatzeko baliatzen diren metodoen artean, berriz, loa eta janaria ukatzea, **shock elektrikoak** jartzea eta jipoitzea daudela zehaztu zuen. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

shock egoeran (7); **shock moduko bat** (3)

shopping 1 iz dendetan erosten ibiltzea.

Eta ukanen dugu **shopping** egiteko astia? -edertasuna lore fresko zeukan neskatxak. Itxaro Borda

Kontua, baina, ez da AEBetako lehendakartzarako bi hautagaiek **shopping** -a edo barbakoak maite dituzten edo ez, biek, azaleko diferentziak alde batera utzita, antzeko politika ordezkatzen dutela baizik. Berria - Mundua

Kontsumo ekologikoaren utopia da nagusi: produktu biologikoen eta ekologikoen **shopping** ekologikoa, nolabaiteko hedonismo ekologikoa, eta produkzio bide ekologikoen neofordismo ekologikoa, ekoprodukzioa. Iñaki Heras

Jatetxetik ateratu ziren **'shopping'** gunetara joateko. Ramuntxo Etxeberri

2 shopping center merkataritza-gune batean bilduriko dendan multzoa.

Ikara ematen didate Rioko auzo berri horiek, separatistek arrazoi dute, kaka zahar hura blokeatu beharko lukete eta hango jendea bakean utzi beren **shopping-centers** modernoetatik atera gabe, izugarria da. Karlos Zabala

3 asilium-shopping

Errefuxiatuei giza babes osoa bermatuko zaie baina asilium-**shopping** delakoa, hau da, errefuxiatuak direla dioten etorkin ekonomikoen arazoa eragotzi beharra dago.

Berria - Mundua

shoppingzale izond shopping-aren zalea dena.

Ninak, **"shoppingzalea"** izanki, nahiago zituen saltegiak bisitatu. Ramuntxo Etxeberri

short iz helduentzako galtza motzak.

Zilborra, **short** edo praka-labur banaren goian, oraindino lar hazi barik. Edorta Jimenez

Hark **short** ñimiño bat jantzia zuen lasai xamarra, eta blusa bat, egundoko bular haien gainean. Karlos Zabala

Short eta blusa erantziak zituen, den-dena erantzia zuen, larru gorrian zegoen, ahuspez, hankak angeluan tolestuak, bizkarra pixka bat kaketua. Karlos Zabala

show 1 iz ikuskizuna.

42. kalean Walt Disneyko *Lyon King* musikala eta antzeko **showak** daude egun ikusgai. Harkaitz Cano

Musika, edariak, jatekoak eta, halako batean, trabestien **showa**. Edorta Jimenez

Showra bultzatu zuten hitzok mutila: arrenkari erakutsi zuen bularra, esaldi solemneren bat zioela: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

«**Show** handi bat besterik ez da», esan zuen Dennis Shepherdek abailduta. Berria - Mundua

Show erotikoa eta pornografikoz beteriko kalea. Harkaitz Cano

Behin **show** porno batean ikusitako zaldi-zela bat marraztu ere egin nuen buruz. Karlos Zabala

Hiru egunez izanen da zernahi joko: aerotrin, jumping, quad eta kart lasterketa, **show** akrobatikoa, skate eta gaineratiko. Herria

Telebistako **show** bati begira. Iñaki Segurola

Bakarkako **showa**. Jon Muñoz

Alvaro Uribe Kolonbiako presidentea, ordea, esan zuen ez zuela nazioarteko **show** -rik onartuko eta aukera hori atzera bota zuten. Berria - Euskal Herria

3 irud/hed

1966an **show** mediatiko itzela egin zuen Fragak. Berria - Harian

4 reality-show (orobat reality-show g.er.) telebista-programa, gizarteko jendearen arazoak, askotan eskandalagarriak, aurkezten dituen.

Denetan ikusiko duzu telebista piztuta, inor begira ez dagoela, **reality show** liluragarriak ari eta ari. A3ko **reality show** morbosoa. *Gran Hermano*, *Confianza Ciega* eta Espainiako telebistetako beste **reality show** batzuetan errealizazio lana egin izan du Kobeagak, eta *Vaya Semanita* ETB2ko saioan gidoilari ibili zen, Nacho Vigalondorekin batera. Edorta Agirre

Halako gertaera bat ezin da bihurtu «**reality-show**», tele-zaborraren gertaera hutsal edo morboa eta eskandalua nahi duten kazetaritza artikulu». Berria - Euskal Herria

5 show-business ikuskizunen munduarekin loturiko negozioak.

Ene iduriko euskaldun taldeek ez dute **show-business** hortako itxura batzu hartu. Menane Oxandabaratz

6 talk-show

Talk-show horietako bat zen. Iban Zaldúa

Talk-show bat grabatzen ari zela joan den ostiralean, zera agindu zuen: bozak galduz gero, ez zuela bere enpresa inperioko zuzendaritza berriro hartuko. Berria - Harian

Ikusi egiten dugu Fox kateko Gerardo Riviera **talk-show** aurkezlea Afganistanen barrena, pistola gerrikoan duela: "Bin Laden topatzen badut ez diot galderarik egingo, bi bala sartuko dizkiot sabelean". Iñigo Aranbarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

reality show (12); **talk show** (5)

showgirl iz ikuskizun-aurkezle emakumezkoa.

Profumo afera 1963an ere gertatu zen, eta hautsak harrotu zituen: Harold Macmillanen gobernu kontserbadoreko ministroak sexu harremanak zituen Christine Keeler

showman *iz* ikuskizun-aurkezle gizona.

Ez da **showmana** izan, baina bazekien alkandora koloretsuak jutzen. **Pako Aristi**

Peter La Farge Estatu Batuetan country deitzen zaion musika egiten -sortzen eta abesten- duen kantari eta **showman** -a da: rodeo-etako zaldun, zezen-hezitzaile, bidaiari...
J.M. Olaizola "Txiliiku"

showzale *izond* ikuskizunen zalea dena.

Showzalea da Feld. **Berria - Kultura**

si *iz* musika-eskalako zazpigarren nota, germaniar eskalako B notaren kidea.

Do-re-mi-fa-sol-la-**si**: bat-bi-hiru-lau-bortz-sei-zazpi: notak eta numeroak... **Joan Mari Irigoien**

Widorren Bigarren sinfonia re maiorrean eta Mendelsshon eta Bartholdyren Laugarren Sonata **si** maiorrean eskainiko ditu. **Berria - Kultura**

Bach-en Meza **Si** minorrean. **Berria - Kultura**

Ez zen ohikoa orduan **si** bemola. **Iñigo Aranbarri**

Handik gutxira joko dute elkarrekin Komunisoron, "**si** bemolean" afinaturiko Larrinaga-Guerriniekin biak. **Iñigo Aranbarri**

Si agudoa emateko izan zuen zailtasunak ez zuen lainotu oso ona izan zen kantaldia. **Berria - Kultura**

siamdar 1 *izlag/iz* tailandiarra.

Gauza bera **siamdarren** artean ere. **Iñaki Iñurrieta**

2 *izond pl* bikiez mintzatuz, gorputz zati batetik lotuak jaito direnak.

Tanzanian, haurtxo **siamdarrak** erdibitzetik atera nuela ogibide nahikoa itxuroso bat? **Karlos Linazasoro**

Bi ahizpa **siamdarrak** gibeletetik lotuta jaito ziren iazko abenduan. **Berria - Gaiak**

Lazareffek burutik lotuta jaito ziren Guatemalako bi ahizpa **siamdar** banatzea lortu zuen, 2002 urtean. **Berria - Gaiak**

Zazpi zirujau, zazpi erizain eta 22 ordu behar izan zituzten asteartean bizkarretik loturiko bi haur **siamdar** banantzeko, Zeelanda Berriko Hamilton hiriko erietxean. **Berria - Gaiak**

3 irud/hed

Parte-hartzetik eta adostasunetik ezin daitekeela aurrera egin uste duen munduaren ideiaaren anai **siamdarrak** dira gerra eta terrorismoa. **Berria - Mundua**

siames (orobat siamesa) 1 *izond* katuez mintzatuz, arraza gorputz-lirain, belarri-handi eta ile-labur batekoa dena.

Katu **siamesek** beren saskietan eroso etzanda zurrunga ezitia egiten zuten. **Matías Múgica**

2 bikiez mintzatuz, siamdarrak. ik siamdar 2.

Bi ahizpa **siamesa** elgarri bizkar-hezurretik loturik sortuak zirenak, gaixoak, berexi ahal izan dituzte 15 oren ebakuntza edo operazioneren ondotik Riadeko ospitalean, Araba Sauditarrean. **Herria**

Siamesak deitzen dira biak elgarri loturik sortzen diren haurrak. **Herria**

sibarita *izond* bizitza leuna eta zentzumenen atsegina bilatzen duen pertsona.

Arri direnen arteko onena izatea ez da, antza, aski arrakasta gu bezalako **sibaritentzat**. **Joxerra Garzia**

"**Sibarita** bat" pentsatu du Robertok, [...] Colon de Larreategi kaleko jatetxerantz joateko agindu dionean. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Sibaritagoak dira erleak. **Unai Elorriaga**

Halere, Roata jeneralaren **sibarita** fama ezagututa, ez zeukan esperantza handirik. **Bernardo Atxaga**

siberiar 1 *izlag* Siberiakoa, Siberiari dagokiona.

Siberiar tundraren hegoaldeko zerrendetatik. **Iñaki Mendiguren**

Negu **siberiarrean** pilotatuko elurra guztiz urtzen du udako eguzkiak. **Karlos Zabala**

Europa aldera oldartuko haiz, eta agudo konkistatuko dituk Tobolskeko probintzia **siberiarrak** Ural mendietaraino. **Karlos Zabala**

Inguru hartan bizi ziren **siberiar** lertxunak ere joan egin ziren. **Berria - Harian**

Ehiza larria ez zen ez hutsaren hurrengoa, hartza **siberiarra**, alajaina. **Karlos Zabala**

Mikel Strogoffek ganibet **siberiarra** beste armarik ez dauka eta ezin etsaia ikusi. **Karlos Zabala**

Ivan Ogareffek, egia susmo harturik, zuzenean galdekatu nahi izan zuen andre **siberiar** zaharra. **Karlos Zabala**

Ehiztari **siberiar** zailduena ere ezin sekula ohitu sastada horietara. **Karlos Zabala**

Batean agintariak eta funtzionarioak besterik ez dira bizi, eta bestean merkatar **siberiarrak** gehienbat. **Karlos Zabala**

Soroetan nekazari **siberiar** banaka batzuk edo bat ere ez. **Karlos Zabala**

2 *iz* Siberiako herritarra.

Siberiarren garezurrak, esate baterako, «zabalak eta biribilduak» dira. **Berria - Gaiak**

-Ivan Ogareff duk -erantzun zion **siberiarrak**, gorrotoa zeriola bere ahots apalari. **Karlos Zabala**

Errusiako Sinodo Santuko apezpiku eta popeak ez zeuden oso gustura San Petersburgora etorri eta agintearen goren gradura iritsi zen **siberiar** baldan eta lizun harekin.

J.M. Olaizola "Txiliiku"

Marfa emakume adoretua dun, kemen handiko **siberiar** ausarta. **Karlos Zabala**

Hura, **siberiar** peto-peto bat, berehala agertu zen. **Karlos Zabala**

3 (txakurrez mintzatuz)

Soka bat darama gerrian lotuta, eta sokatik tiraka, **Siberiar** huski txakur zuri-gris horietako bat. **Anjel Lertxundi**

Bi zakur handik laguntzen zioten mutikoari, rottweilerra zen bata eta **siberiar** husky arrazaz nahasita bestea. **Gotzon Garate**

sida iz hiesa.

Begien bistakoa da **SIDA** edo HIES eritarzünaren tratatzeko, xahütarzünaren peredikatzea ez dela segur aski. **Herria**

Ez al zen haietako txalet batekoa mutil teatrozale hura, **SIDAK** hil zuena? **Bernardo Atxaga**

Nire biloba eta zure osaba zena ere, Julen, hemen dago, **Sida** demonio horrek harrapatuta... **Patxi Zubizarreta**

Hik ere **Sida** daukak orain. **Bernardo Atxaga**

SIDAZ zurgatua, otsaileko egun batetan Padraig beste munduratu zen. **Itxaro Borda**

Sidak jotzen ditu 45 milioi biztanle munduan eta horren kontra kanpainak segitu behar dute. **Herria**

Jende askok uste du izakien hiltze gehienak direla gerla, terrorismo eta **SIDAREN** gatik. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sida edo hiesa (9)

sidekar 1 iz motozikleta bati alboan lotzen den kotxetxo modukoa, gurpil batean bermatzen dena.

Baina askotan eramango zuen moto kaskarren baten **sidekarrean**, guaguan bestela, edo boniatoz beteriko kamioiaren bolketan **Pako Aristi**

2 motozikleta sidekarduna.

Daniar handiari eskatu nion **sidekarrean** nire bila joan al zitekeen trenera. **Fernando Rey**

Goiz haietako batean abiatu ginen bere **sidekarrean**. **Fernando Rey**

Nire gauzak **sidekar** barrerera bota nituen eta, abiatzekotan geundela, Antje atera zen kanpora. **Fernando Rey**

sideral 1 izond izarrena edo argizagiena, izarrei edo argizagiei dagokiena.

Izaki gorpuzdunen munduan, masa **sideraletik** hasi eta gure ileen kopururaino, mailaz maila hain ongi ordenaturik dago gauza guztien perfektzioa ezen tentelkeria baiiltzateke esatea: "zer da hau?". **Imanol Unzurrunzaga**

Ikuskizuna ez zen turista **sideralak** erakartzeko modukoa, zertan ukatu. **Patxi Iturritegi**

2 irud/hed

Izen horrekin erabateko artista espero nuen, eta halakoxea topatu dut: txikia, ilea erabat soildua, pasta lodiko betaurreko **sideralak**, pega-pega egindako galtzak eta likrazko jertse bat. **Harkaitz Cano**

[Nikelaren] gogortasun **sideral**, etsai, arrotzean hautematen nuen inguratzen ninduen haitzaldea, Alpe-mendipeen berde sigi-sagatsua. **Juan Garzia**

Zaharrak begiratu zion deus esaten ez zuten begiez, edo agian zorabio **sideral** baten erakusgarri zen espresio huts batez. **Jon Alonso**

siderurgia 1 iz burdingintza.

Isurtzeko eskubideen beharra hasiera batean zazpi sektoretan ezarriko dira: zementua, petrolio findegiak, **siderurgia**, beiragintza, zeramikagintza, papergintza eta energia. **Berria - Ekonomia**

Siderurgia garatzen hasi zen, baina industria ehungintzara mugatzen zen ia osorik. **Koro Navarro**

Siderurgia bat antolatzea urteetako kontua da. **Pako Aristi**

Euskal Herriko ia **siderurgia** guztia Gipuzkoan dagoela gogorazari zuen. **Berria - Harian**

Siderurgia oso garrantzitsua da Frantziarentzat, 30.000 langiletik gora baititu. **Berria - Ekonomia**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik siderurgiko.

Arcelor Europako **siderurgia** taldeak 257 milioi euroko irabazi garbiak eduki zituen 2003an. **Berria - Ekonomia**

Siderurgia sektoreak mundu mailan izandako arazoei eta CLH enpresaren itxierari egotzi zien errua Jose Ignazio Espel Pasaiaiko Portuko Agintarien presidentek. **Berria - Ekonomia**

Arcelorrek Erosteko Eskaintza Publiko (EEP) berria egin zuen Dofasco **siderurgia** enpresarengatik. **Berria - Ekonomia**

siderurgiko izond siderurgiarena, siderurgiari dagokiona. ik siderurgia 2.

Talde **siderurgikoak** 6.899 milioi euroko negozio bolumena kudeatu du iaz baino %0,7 gehiago. **Berria - Ekonomia**

Barakaldo betidanik sektore **siderurgikoan** murgilduta egon da. **Berria - Euskal Herria**

Bilbon ez dira ezertarako kontserbatu industria **siderurgikoaren** eraikin industrialak. **Berria - Kultura**

Gehien mugitutako salerosgaiak **siderurgikoak** izan ziren, 3,3 tona. **Berria - Ekonomia**

Lapurdikoko portuan produktu **siderurgikoak** eta erregaia dira merkantzia nagusiak. **Berria - Ekonomia**

sidondar izlag/iz antzinako Feniziako Sidongoa, Sidoni dagokiona; Sidongo biztanlea.

Faraoiaren alabaz gainera, moabdar, amondar, edomdar, **sidondar** eta hitita emakumeak ere bai. **Elizen arteko biblia**

Libanotik Misrefot-Maimeraingo mendialdea, **sidondarrak** bizi diren lurraldea. **Elizen arteko biblia**

Salomon erregeak emakume atzeritar asko maite izan zituen, Faraoiaren alabaz gainera: moabdarrek, amondarrak, edomdarrek, **sidondarrak** eta hitiarrak. **Jose Antonio Mujika**

Sidondarren jainkosa Astarte gurtu zuen, eta berdin Malkon ere, amondarren sasijainko nazkagarria. **Jose Antonio Mujika**

siesta 1 iz bazkalondoko loaldia. ik biao.

Siesta ere ondo etorriko zitzaion. **Joxemari Urteaga**

Siesta ostein, galtzak janzten ari nintzela, zerbait arraroa sumatu nuen patriketako batean. **Anjel Lertxundi**

Bazkal tenoreko etxeratu zena; **siesta** bota eta etxaldeko lanei lotu zitzaion. **Eneko Bidegain**

Behin, goian inor ez zela, igo eta, sofan **siesta** ederra bota nian. **Pablo Sastre**

Siesta labor baten ondoren, erabaki bat hartzera altxatu zen. **Koro Navarro**

Ekaitzak ez zuen ordu erdi ere iraun; juxtu, **siestako** denbora. Berria - Kultura

Ea egun batekoagatik **siestarik** gabe ez den geratuko. Andoni Egaña

Laurak hogeai gutxi, mundu guztia **siestan**. Joxean Sagatzizabal

2 irud/hed

Gosaldu-ondoko eta bazkalondoko **siestak**. Berria - Gaiak

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Siesta ordu horiek astunak, izugarriak iruditzen zitzaizkion Hurtadori. Josu Zabaleta

Tailatuean habia egindako txoriek **siesta** garaiari zegokion bakea hautsiz barreiatutako txioak. Josu Landa

4 *siesta* egin

Partida bukaturik ostatura itzuli ziren berriro, **siesta** egitera. Josu Zabaleta

Bikiak umore onean, **siesta** eginda, kabroi haiek. Joxean Sagatzizabal

Osaba Vernonek berehala jo zuen beira hatz-koskoekin, baina sugeak **siesta** egiten segitu zuen. Iñaki Mendiguren

Geletara itzuliko dira gero, eguneroko **siesta** txikia egitera. Berria - Harian

Siesta luzeegia egina banengo bezalako astuntasunarekin altxa naiz. Koldo Izagirre

Geletara itzuliko dira gero, eguneroko **siesta** txikia egitera. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

siesta ederra (3); **siesta egin** (3); **siesta egiteko** (8); **siesta egiten** (17); **siesta egitera** (3); **siesta labur** (3)

siestatik jaiki (3)

siestatxo *iz adkor* siesta.

-Siestatxo egin behar det, Juan Martin. Joxean Sagatzizabal

Horrela egoten da idazmahaitxoaren aurrean, etengabe lanean, inoiz aurrera egiten ez duela, bere lana **siestatxoa** egiteko. Josu Zabaleta

Ez dit inork kenduko bankuetako batean bota dudan **siestatxoa**. Anjel Lertxundi

sifili (*orobat sifilis; Euskaltzaindiaren Hiztegian sifili* agertzen da) *iz* sexu bidez kutsatzen den eritasuna, bakterio batek, *Treponema pallida*-k, eragina.

Historian zehar giza primateok gure harreman sexualetan bata besteari kutsatu dizkiogun hainbat gaitz ezagutu ditugu: **sifilia**, gonokozia, herpesa, klamidia... Luis Elberdin

Sifiliaren kontrako lehenbiziko sendagaiak ere orduan hasi ziren saltze. Pello Salaburu

Sasoiko gizona izana elbarritzen ari da, gaztarotik datorkion **sifilisak** eta amaren aldetik herentziaz datorkion neurosirako joerak elkar indartuta. Josu Zabaleta

1877rako heriotzaraino lagunduko zion **sifilisaren** seinaleak agertu ziren. Josu Zabaleta

Hire amak **sifilia** al dik? Pello Lizarralde

Sifilia ere harrapatu zuen. Gotzon Garate

Sifiliak jota hiltzen direnengatik... Jose Morales

EHun bat gaixok salatu dute transplantea egin ondoren hiesaren birusaz, B eta C hepatitisaz edo **sifiliaz** kutsatu direla. Berria - Gaiak

sifilidun *izond* sifilia duena. ik sifilitiko.

Osaba agintzaileak agindurik, haurgaldu **sifilidun** bat familian ez zutela onartuko esan zuten. Gotzon Garate

sifilis ik sifili.

sifilisdun ik sifilidun.

sifilitiko 1 *izond* sifilia duena. ik sifilidun.

Haur gaixoak, tuberkulosoak, **sifilitikoak**, neurastenikoak izaten badira, kriminalizat hartuko ditugu gurasoak. Josu Zabaleta

2 sifiliarena, sifiliari dagokiona.

Onak ez zituzten ordura arte ezagutzen zuriak ekarritako hotzeriaren birusak, birikaminaren bakteriak, txankro **sifilitikoak**. Joseba Sarrionandia

sifoi 1 *iz* hodi kurbatua, S itzurakoa, komunetan eta, usain txarrak saihesteko ezartzen dena.

Komuneko **sifioia** hondatuta dago. Jokin Muñoz

Ni **sifoi**ko U-bihurgunean nengoen eserita, heriotzari buruz gogoetan. Iñaki Mendiguren

2 ur gasduna daukan botila, barneko likidua aterarazteko sakatzen den giltz moduko bat duena.

-Aizu, Bob, deitu telefonoz izotz xehetu apur bat eta **sifoi** bat ekartzeko... Lopez de Arana

Sei margolarik **'Sifioia** eta ron botila' lanaren bertsioa egin dute Cadaquesko galeria batentzat Berria - Kultura

sigi-saga 1 *iz* angeluak eta bihurguneak eratzen dituen lerroa.

Sigi-saga askoko errepede basotsu batean gora. Anjel Lertxundi

Ondoan zolagunea, hots eguzkiaren sinbolaria; baita **sigi-saga** batzuk ere, eta beste markak. Berria - Kultura

Mapa hori **sigi-sagaz** beteta dago. Julen Gabiria

Zaharrenek, astebetekoek, atzealdea zakar astinduz luzatu eta **sigi-saga** garbi bat marrazten dute airean. Itziar Otegi

Ikastetxetik bidali eta lanbidez lanbide **sigi-saga** bihurrian abiatu zenetik. Aingeru Epaltza

Dantzatzeari lotu zitzaion, trebe, ezin airosoago, sugeenaren gisako **sigi-sagarekin**. Patxi Zubizarreta

Sabai garaiko gela zen, arotzeria zahar, ilun eta astuzeko giderrak eta zizareen **sigi-sagak** gogora ekarrazten zituzten ezinbestean. Mirentxu Larrañaga
Maite itzazu mozkorrei itzuri egiteko euritan egiten dituzten **sigi-sagak**. Javi Cillero
Sukarra duzuenean, medikuak tenperatura hartzen dizue, eta graduak papertxo batean irudikatzen ditu, eta papertxo horretako marrak ere **sigi-sagak** dira. Julen Gabiria
Horrelako **sigi-sagez** dago beteta ume baten buruaren mapa. Julen Gabiria

2 irud/hed

Euskaraduntasuna ukatzen zitzaigun garaiotan, merkatuaren **sigi-saga** zirristsuen artetik gasnak zekarren gure izatearen hondar zigilu zilegia. Itxaro Borda

3 *adlag* sigi-sagak eginez.

-Jo **sigi-saga**, kapitain jauna! Josu Zabaleta
Jira eta bira ibili zen, kiribilean, **sigi-saga**, itzulipurdika. Iñaki Mendiguren
Herri txiki batean sartu zen, bera bakarrik, zaindarien artetik **sigi-saga** suge baten moduan irristatu eta gero. Felipe Juaristi
Mota guztietako musker eta sugeak narraska eta **sigi-saga** zebiltzan egur eta harrien gainean. Iñaki Mendiguren
Erreka batek [...] **sigi-saga** eta ikur-makurka zeharkatzen zuen inguru guztia. Jose Morales
Mendian **sigi-saga** hedatzen den pistaren ingurua. Patxi Zubizarreta
Ilara luzea zihoan **sigi-saga** dendaren azkeneraino. Iñaki Mendiguren
Zaldizkoak beherantz zihoazten, beherantz etengabe lerro luzean, **sigi-saga**. Agustin Otsoa
Haren barrenetik zerbait ari zen **sigi-saga** irteten. Iñaki Mendiguren
Bat-batean, ziraun bat ikustea lipar batez, belarretan **sigi-saga** bidea irekitzen. Oskar Arana

4 *sigi-sagan adlag* sigi-saga.

Mendi maldaren oinean ia ikusezin dagoen herritxo horretaraino mendi zutaren bizkarrean **sigi-sagan**, itzuli eta itzuli doan bidezidorraren ertzean gelditu zen mandoa. Josu Zabaleta
Milaka auto pasatzen ziren, furgoneta batek **sigi-sagan** denak aurreratu zituen. Fernando Rey
Ortega-ren meditazioa **sigi-sagan** doa, behin arrazaren alderdi biologiko edo bitalista nabarmendu, bestean kontzientzia edo izpiritu/karakterea azpimarratu. Joxe Azurmendi
Hor zoaz airean eskegita bezala, oztzopen artetik **sigi-sagan**, ahalik eta lasterrena iristen zara hara, baina deus egitekorik edo esatekorik ez duzu kontu horretan guztian. zuzenean emanak **sigi-sagan** eta andarka ibili gabe. Oskar Arana
Oinaztargiak **sigi-sagan** ari ziren leiho hilen ilaretan zehar. Lopez de Arana

5 *sigi-saga* egin

Farolen argi berdeek haien inguruan **sigi-saga** egiten zuten, sugeen gisa. Lopez de Arana
Lagunek ez diote jaramonik egin, eta aurrera segitu dute beren bidean, elkarri bultzaka eta kontu kontari, mojaren atzetik **sigi-saga** eginez. Patxi Iturritegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sigi saga egin (6); **sigi saga** egiten (6); **sigi saga** ibili (3); **sigi saga** jaisten (3); **sigi saga** zihoan (4); **sigi sagaka** (22); **sigi sagako** (3); **sigi sagan** (16)

sigi-sagatsu *izond* sigi-saga askokoa.

Arkupeetara ematen zuen kale bihurri **sigi-sagatsu** baterantz jo zuen berlinak. Arin bai arin abiatu gara bidexka **sigi-sagatsuan** behera. Anjel Lertxundi
Ibai **sigi-sagatsuaren** ibilbideari jarraitzea oso atsegina izan da. Patxi Zubizarreta
Bide **sigi-sagatsuak** dira pentsamenduak hor ibili beharrekoak. Juan Garzia
Begien urdinarekin batera, iritsi ote zait niri ere, geneen ibilbide **sigi-sagatsuan**, haien zoro-ukiturik? Xabier Mendiguren Elizegi
Udako tximista **sigi-sagatsuek** urratzen zuten aldian-aldian zerua argi masusta-zukutsu batez. Anjel Lertxundi

sigilu ik zigilu.

sigla 1 *iz* erakunde, enpresa edo kideko baten deituraren hitzen lehen letrek osatzen duten laburdura. **ikakronimo**.

Hitz bat baino gehiagoren laburdura da **sigla**, normalean hitzen lehen letrez osatua (AEK=Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundea). Iñaki Arranz
DIU **siglak** Umetoki Barneko Gailu esan nahi du (gaztelaniazko *dispositivo intrauterino* hitzen **siglak** dira). a) azken orduko maileguak (*rally*, *stop*), b) **siglak** (RENFE), eta c) izen bereziak (Sri Lanka). Luis Elberdin
ICHN (Indemnit  Compensatrice des Handicaps Naturels) **siglarekin** ezagutua den laguntza hori, ISM deitzen genuen lehenago (Indemnit  Sp ciale Montagne). Herria
Sigla horren azpian *Ouvroir de Litt rature Potentielle* dugu. Iñaki Arranz
Hitz bilakatze horretan, **sigla** batzuk izen arruntzat jotzen dira zentzu guztietan, eta horregatik hiztegietan aurkituko ditugu, minuskulaz, gainerako hitz osoen parean (*radar*, *laser*). Iñaki Arranz
Ez diat gorde buruan [...] gutun hura igorri zuen merkataritza-erakundearen **sigla** bihurria. Juan Garzia

2 irud/hed

Zenbat **sigla** eta zenbat burruka gure herri tipietan. Patziku Perurena
Alabaina, bake prozesuak aurrera egitea borondate kontua da, ez **sigla** kontua. Berria - Mundua

3 laburdura.

Bibliako liburuen **siglak**, eta liburu honetako Bibli aipamenak Bibli Elkarte Batuek eta Euskal Elizbarrutiek argitara emandako Elizen arteko Biblia-tik hartuak daude. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

siglak eta akronimoak (3)

siglen ginetik (7)

siglatu, sigla(tu), siglatzen du *ad* sigla ezarri.

Balio etnografikoa duten piezak eskuratzen jarraitzeaz gain, azken urteotan eskuratutakoak ordenatu, **siglatu** eta inbentariatzeko lanean jarraitzen du, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izenpetutako hitzarmenari jarraiki. Berria - Kultura

siglazale *iz* siglen zalea dena.

A.D.N.E., **siglazaleei** plazer emanez gero. Aingeru Epalza

signatura *iz* liburu edo kideko bat liburutegi edo artxibo batean kokatzeko erabiltzen den letra- eta zenbaki-multzoa.

Hantxe zegoen, SSA-7.894 **signaturarekin** klasifikatua, orri horiztatuez osatutako koaderno txiki bat, Mexiko DF-ko Gráficas Cultura-k inprimatua eta 1944ko data daramana. Iban Zaldúa

signifikagarri 1 *izond* adierazgarria.

Atsegin al zaizu **signifikagarri** deitzea ezaugarriak izan gabe ezaugarri bidez ezagutzera ematen direnei, ikus daitezkeenak ikusgarriak deitzen ditugun moduan? Imanol Unzurrunzaga

2 (izen gisa)

Lehen ere onartu dizut hori ezaugarri eta **signifikagarri** orori buruz Imanol Unzurrunzaga

signifikantza *iz* esanahia.

Hitzen **signifikantzari** gehiegi erreparatu gabe. Joan Mari Irigoien

Oroitzen dut, alde horretarik, usu baino usuago erabiltzen zituela **signifikantza** bakarra ez zuten erranak eta etsenpluak edo hainbat haritako anekdotak. Joan Mari Irigoien

signifikatu, **signifika**, **signifikatzen 1** *du ad* adierazi, esan nahi izan.

Ireki nuen meza-liburua eta bi marrazki haiek ikusi nituen: ezkerreko orrian hamar harroineko zubi bat zegoen, hamarrek numeratuak eta hamar manamenduak **signifikatzen** zituztenak. Joan Mari Irigoien

Beraz, zera diogunean, alegia: "betikoa, hilezkorra, hondaezina, aldaeizina, bizia, jakintsua, ahaltsua, ederra, zuzena, onbera, zorionsua, espiritua", hauetatik guztietatik azken aipatutakoak soilik dirudi **signifikatzen** duela substantzia. Imanol Unzurrunzaga

2 ekarri, ondorioz ekarri.

Balio edo arauok absolutuak ez direla jendea ohartzeak aparteko desordenarik ez du mendebalean **signifikatu**, ordenaren kontzeptu esentzialista edo naturalista (metafisiko) batez bakarrik seguru samar sentitzen diren espirituren batzuentzat izan ezik. Joxe Azurmendi

3 (era burutua izenondo gisa)

Ezaugarri horretan bi gauza daudelarik, hots, soinua eta signifkazioa, ez dugu soinua aditzen ezaugarri bidez, hark entzumena ukitzen duelako baizik, eta signifkazioa sumatzen dugu gauza **signifikatua** ikusi ondoren. Imanol Unzurrunzaga

signifikazio *iz* esanahia.

Pasaia eta Lezo ez dira bi errealitate, baizik bi **signifikazio**, bi sinbolo, euskal errealitate berak dauzkan bi alde. Koldo Izagirre

Iraganaren eta etorkizunerantz ireki orainaren bikoiztasun hori ez da ematen bereizita, gauza batzuk politak eta beste batzuk lotsagarriak: bikoiztasuna **signifikazioan** dago. Koldo Izagirre

Eta ezaugarri horretan bi gauza daudelarik, hots, soinua eta **signifikazioa**, ez dugu soinua aditzen ezaugarri bidez, hark entzumena ukitzen duelako baizik, eta **signifikazioa** sumatzen dugu gauza signifkatua ikusi ondoren. Imanol Unzurrunzaga

sij ik sikh.

sikagailu *iz* lehorgailua.

Ez nuen **sikagailuaren** ahotsik aditu hura kanpoan egon bitartean. Aingeru Epaltza

sikario *iz* soldatapeko hiltzailea.

Strogoff, tsarraren **sikario** hori, hazi ahala gero eta larderiatsuagoa zen eta nire ekintza guztiak ilegaltzat hartzen zituen. Pello Lizarralde

Alfer-alferrik ukatuko zuen tsarren **sikario** hark. Pello Lizarralde

Forondako aireportuko TNT Express Worldwide enpresak **sikario** kroaziarrak hartu ditu kaleratutakoak ordezkatu dituztenen bizkartzain gisa. Berria - Ekonomia

sikate (*orobat sikute; Euskaltzaindiaren Hiztegian sikate agertzen da*) **1** *iz* lehortea.

Etorriko dituk hotzak, beroak, eurite eta **sikateak**, baina hemen gu eta beste bi baino ez gaituk ezinbesteko. Urtzi Urrutikoeetxea

Gaztela aldean, baina, lehorre eta **sikate** latzeko urteak izan dituzte, azkena, batez ere. Edorta Jimenez

Nire aitaren etxea egurrezkoa da, eta defendatuko dut otsoetatik, **sikateetatik**, Jehovahren lekukoetatik (kosta lain kosta), baina sute batetik ezingo nuke. Karlos Linazasoro

2 (hitz elkartuetan)

Proiektuok **sikate** denboraldiari aurre egiteko urreztatze sistema eta mendi eskola bat dira, hain zuzen. Berria - Kirola

3 irud/hed

Leitzarrak zortzi urteko **sikatea** eten zuen 2001eko finala jokatu zuenean. Berria - Kirola

sikatu, sika, sikatzen (*orobat sekatu g.er.*) **1** *du ad* lehortu.

Une batez geratu egin behar izan zuen bekokia **sikatze**ko. Julen Gabiria

Edalontziak lehortzeko zapiarekin **sikatu** du kopeta. Eider Rodriguez

Malkoak eskuez **sikatuz** eman zion erantzuna Helenak, oraindik zotinka: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Izardia **sikatu** eta beste zigarro bat isiotu du. Paddy Rekalde

Izardia **sikatu** eta beste zigarro bat isiotu du. Paddy Rekalde

Bukatutakoan, eskuak mandarrean **sikatu** zituen. Jon Alonso

Ura berotzen jartzen dugu; Linek harrikoa egiten du; nik ontziak **sikatzen** ditut. Eskarne Mujika

Salemdik iparralderakoan bidean ziholan kalea, hiru gabiraiak inguruan zituela, eguzkiak **sikaturiko** bideko zokor-zuloetan klankaka. **Anjel Lertxundi**
Kanbioak itzultzerakoan eskua hoztu zaio eta eztarria **sikatu**. **Berria - Kultura**

2 irud/hed

Horixe pentsatu izan du sarritan, bihotza **sikatzen** ari zaiola, boxeo borroketan galdutako odola birsortu ez balitzaio bezala. **Paddy Rekalde**

Nik ez dut txibatoa bihurtu nahi -klinkada bakarrean **sikatu** zuen kopatxo-. **Josu Landa**

Suitzako taldeak presionatzeari ekin zion, Zidani pentsatzen ez uzteko eta frantziaren jokoa **sikatze**. **Berria - Kirola**

3 (era burutua izenondo gisa)

Eman zidan, bada, soina ere ez ote zitzaion arrain **sikatuari** bezala urritu eta kiribildu. **Edorta Jimenez**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begiak sikatu (3)

sikemdar *(orobat sikendar) izlag/iz* Samariako antzinako Sikem hirikoa, Sikemi dagokiona; Sikemgo biztanlea.

Eta, kanaandar, periztar, jebustar, **sikemdar** eta girgaxtar guztiak bertatik egotzirik, bera gelditu zen luzaro lurralde hartan bizitzen. **Elizen arteko biblia**

Simeonek eta Lebig **sikemdar** xehatu. **Elizen arteko biblia**

Kanaango gorabeherak: **sikemdar** suntsitu, Benjamin jaio eta Rakel hil. **Jose Antonio Mujika**

sikendar ik sikemdar.

sikera ik sikiera.

sikh 1 iz

Baba Nanak erreformatzaile hinduak XVI. mendean sorturiko erlijio sektako kidea.

Punjaben kondairan **sikhen** eragina handia izan da. **Gotzon Garate**

Indira Gandhiren bizitza eta heriotza **sikhei** loturik daude. **Gotzon Garate**

Amritsar hiria da **sikhen** Erroma saildua. **Gotzon Garate**

Debekaturik daude, beraz, musulmanen *hijab*-a, judutarren *Kippa* eta **Sikh**-en buruzapia ere. **Berria - Euskal Herria**

Sikh gizonezko guztiak, zein adinetako ziren kontuan hartu gabe, makilaz ehoak edo bizirik erreak izan ziren. **Gotzon Garate**

Britainiarrek barbaroen aurkako muga **sikh**-engandik heredatu zutenetik, 1947a arte. **Iñaki Mendiguren**

Ondoren, **sikhen** aurkako mendeku kanpaina hasi zen herrialdean. **Berria - Mundua**

Munduan estatu asko daudela terrorismoarekin bizitzen ohituak, «Irlandan IRArekin, Espainian euskaldunekin, Indian **sikhekin** ...». **Berria - Euskal Herria**

2 (beste izen baten ezkerrean)

Sikh komnunitateko kideei turbanteen ordez sare ikusezinak erabiltzeko gomita egin zien. **Berria - Euskal Herria**

Martin Luther (1483-1546) Alemanian protestantismoa predikatzen ari zen garaian, Indiako Iparraldean Baba Nanak (1469-1539) erlijio berria zabaltzen hasi zen, **sikh** erlijioa. **Gotzon Garate**

Sikh erlijioa Punjaben finkatu zen batez ere. **Gotzon Garate**

Sikh erlijioa Manmohan Singh, 71 urtekoa eta CP Kongresuaren Alderdikoa, Indiako 13. lehen ministro bihurtu zen atzo, Abdul Kalam presidentearen aurrean zin eginda. **Berria - Mundua**

Ongi jabetzen ziren, bide beretik, mogolen agindupeko lurralde izandako gehiena ondorengo hindu-estatu-*maratha* eta **sikh** estatu-*harrapakin* izango zela, **Iñaki Mendiguren**

3 izond sekta horri dagokiona.

Eskolara aitzo txikiak eramaten utziko diete Kanadan ikasle **sikh** ortodoxoei. **Berria - Gaiak**

sikhismo iz sikh erlijioa.

Kabirismoa; **sikhismoa**. **Iñaki Mendiguren**

sikhtar iz sikha.

Sikhtarrei, berriz nazkagarri zaie hindutarren mila eta mila jainko, ikono, irudi eta pintura. **Gotzon Garate**

Musulmanek, berriz, **sikhtarrek** hindutarren aldera jotzen dutela uste dute, behia ohoratu eta zerria jaten baitute. **Gotzon Garate**

sikiatra ik psikiatra.

sikiatriko ik psikiatriko.

sikiera *(orobat sikera g.er. eta sikira g.er.) 1 adlag* behintzat, bederen, gutxienez; besterik ez bada.

Gaurkoan **sikiera** iritsi gaituk norabait. **Iñaki Iñurrieta**

Horrek **sikiera** barrenak berotuko lizkioke. **Sonia Gonzalez**

Basokada bat ur **sikiera**. **Iñaki Iñurrieta**

Eta ez zaizu inportako **sikiera** ikusi ote dudan, **sikiera** zer pentsatu ote dudan, [...]. **Eider Rodriguez**

Ez bata eta ez bestea, ez ziren biratu, baina biek mantendu zuten, nor bere kolkorako, beste lagunak zorte ona opatuz samurtasunez biratu eta **sikiera** begiradarekin agur keinu isil bat egin ote zioneko itxaropena. **Harkaitz Cano**

Guk **sikiera** harri bat hartu eta farola bat hautsiko genian... **Pablo Sastre**

Leioa zabaltzera jaiki beharko nuke **sikiera**: kedarraren usaina aditzen da, ustelarena, itxiarena. **Eskarne Mujika**

Bularrak hustutze aldera **sikiera**. Patxi Zubizarreta

Entretenu egingo hau **sikiera** -eta kokotsa jaso zuen makulu-kirnetetik-. Anjel Lertxundi

Egun asko pasatu ziren egunerokoa oparitu zidanetik, eta, gaur haatik eta bihar hargatik, nik ez nion artean esker oneko ezer esan, ezta **sikiera** ohar labur bat bidali ere.

Anjel Lertxundi

Ezin bizizko ahaleginean pitintxo bat **sikiera** bizia zer den jakiteko. Juan Garzia

2 (balizko adizkiarekin)

Sikiera Lolik itzulpena ondo egin badio... Iban Zaldia

Edateari utziko balio **sikiera**! Lopez de Arana

Burdinazko kota hori jantzi izan banu **sikiera**! Agustín Otsoa

Gazta pixka bat jarri balu **sikiera**, saguren bat eroriko zen agian. Xabier Mendiguren Elizegi

-Suz egindako marka bat egin izan balute **sikiera** Hester Prynne horren kopetan! Anjel Lertxundi

Gaitzerdi gainera, **sikiera** gonak eta lepoko lazoak erabiliko bazenitu. Arantxa Iturbe

Sikiera polita izan balitz, ni ere entregatuko ninduan. Koldo Izagirre

Sikiera afariren batera etorri izan balitz, jarraitu du pentsatzen, berarekin akordatuko zen. Iban Zaldia

Haserretu balitz **sikiera**, haserretu balitz, errua berea, Luisena, zela garrasi eginez joan balitz behintzat. Lourdes Oñederra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

balitz sikiera (6); **balu sikiera** (6); **balute sikiera** (3); **banu sikiera** (7); **bat sikiera** (8); **bazenu sikiera** (5); **lehen sikiera** (3)

sikira ik **sikiera**.

siklo *iz* hebrearren zilarrezko dirua, ontza erdiko pisua zuena.

Bost **siklo** beti bost **siklo** izango dira; hamar **siklo** beti hamar, eta berrogeita hamar **siklok** mina bat balioko dute.

Elizen arteko biblia

Gudu-gurdi batek zilarrezko seiehun **siklo** balio zuen, eta zaldi batek ehun eta berrogeita hamar **Xabier Kintana**

sikoanalista ik **p****sikoanalista**.

sikodelia ik **p****sikodelia**.

sikodeliko ik **p****sikodeliko**.

sikologia ik **p****sikologia**.

sikologiko ik **p****sikologiko**.

sikologikoki ik **p****sikologikoki**.

sikologo ik **p****sikologo**.

sikomoro *iz* basapikua, piku masustondoa.

Zitzu bizian oihanaren ertzerara joan eta hanka altxatu zuen **sikomoro** pikuondo baten kontra.

Iñaki Mendiguren

sikomorondo *iz* sikomoroa.

Zure gainean izarrak distiraka, badirudi gaueko haize finak "maite zaitut" dioela, txoriak **sikomorondoan** kantatzen ari dira, egin ezazu nitaz amestxo bat.

Gotzon Garate

sikopata ik **p****sikopata**.

sikopatologiko ik **p****sikopatologiko**.

sikopolitiko ik **p****sikopolitiko**.

sikotekniko ik **p****sikotekniko**.

siku 1 iz lehorra. ik lehor.

Kako-okerrek ezpain **sikuak** busti zituen. **Julen Gabiria**
Mingain **sikua** aho sabaian duzu itsatsita. **Sonia Gonzalez**
Bakailao **sikua** baino **sikuago**. **Paddy Rekalde**
Ogia, nahiz eta **sikua** izan, **Edorta Jimenez**

2 irud/hed

Aitak aurreneko bihotzekoa izan zuenetik, Joxan konturatu da ez dela hain gogorra, hain **sikua**, eta bihotzak oraindik eskertzen dituela besarkadak eta laztanak. **Paddy Rekalde**
Lurrera bota zuen behin, zeharkako matraileko-andana batetik babestu guran ari zelarik gantxoaz sartutako kolpe **siku** baten ostean. **Josu Landa**
Zartadaxto **siku** batez lehertzen zen burbuila. **Juan Garzia**
Zalantza momentu labur baten ondoren, "bai" **sikua**. **Sonia Gonzalez**
Astegunetan nahiago izaten zuen bermut zuri **sikua**; jaiegun eta igandeetan, gin-tonika hartu ohi zuen. **Bego Montorio**

3 (adizlagun gisa)

Lokomotoraren argiek ere [...] distira bortitz eta dirdaitsua marraztuko zuten noski airean, tren gidariak **siku** balaztari sakatu zionean. **Harkaitz Cano**
Mmmm... eztarria **siku** daukat. **Jon Arretxe**
Patata-tortilla berotu beharko dizut, eta badakizu zer **siku** geratzen den mikrouhin-labean pasata. **Patxi Iturritegi**
Andaluzia aldean ere badaki majo ematen: han, euritsu dabilenean, gurean uzkur eta **siku** portatzen da. **Pello Zabala**
Konturatu nazenerako lo **siku** hengoen. **Unai Iturriaga**
-Bai halaxe izango da, egunen batean amaitzen badut, behinik behin -erantzun zidan, **siku**. **Hasier Etxeberria**

4 (izen soila –en atzizkiaren eskuinean, izen gisa)

Takateko bat aditu zen, eztanda txiki baina bere **sikuan** amorru bizikoa. **Juan Garzia**

5 iharra.

Arbola **sikuaren** adar bakarretik urkatu zuten. **Iban Zaldua**
Arin jausten da erreka, adaxka eta adar **siku** hilak umelduz eta berpiztuz. **Sonia Gonzalez**
Abuztuko beroa, Gaztelako zelai **sikuetatik** pasatzean askoz beroagoa. **Sonia Gonzalez**
Baserriraino eraman eta ahalik eta belar **sikurik** gehiena sartu behar zuten sabaira. **Joseba Sarrionandia**
Hosto **siku** eta eroriek denboraren herdoila ziruditen. **Iñaki Zabaleta**

6 *sikuan adlag* bat-batean.

Berak **sikuan** erantzun eustan: "Niri ez deust inork irakatsiko". **Xabier Amuriza**
Auzia **sikuan** ebagiko eban: "Giputzek eurena eta guk geurea". **Xabier Amuriza**
Anek ia minutuko soloa egin eta txapa kolpe batekin moztu zuen, **sikuan**. **Unai Iturriaga**

sikulu

1 *sikulu-saltsa*

Edukirik gabeko kontzeptu horiek eta nire etxeko euskara nahastuta, sekulako **sikulu-saltsa** sortu nuela oroitzen naiz, aberrazio gramatikalen antologietan agertzeko modukoa. Bikoiztasun hau oreka berri baten seinale ote den ala dijestio txarra eragingo digun **sikulusaltsa**, igarleek eta prospektibazaleek antzeman beharko diote.-
Txorakeria bat asmatu nuen, Quevedo, Gómez de la Serna, Valle-Inclán eta Francisco Umbral eltze berean nahastuz eta **sikulu**-saltsa bat eginez, pedantea eta jasangaizta.
Xabier Mendiguren Elizegi

sikute ik sikate.

silaba 1 iz ahots igortze bakarrean ahoskatzen den hotsa edo hotsen multzoa, fonetikaren oinarritzko unitatea.

Silaba da hizketa erritmoaren unitate oinarritzkoena. **Lourdes Oñederra**
Silaba segmentuz (bokal eta kontsonantez) osatua dago, baina ez da segmentu multzo bat bakarrik. **Lourdes Oñederra**
Silabak, hitzak, esaldiak, paragrafoak. **Iñaki Arranz**
Latinez azentua azken aurreko silaban zegoen, **silaba** hori luzea zen guztietan; eta **silaba** hori laburra baldin bazen, orduan azken hirugarren silabaren gainean kokatzen zen. **Isabel Arrigain**
Ahozko katea **silabatan** banatuko bagenu. **Isabel Arrigain**
Azentu esaten zaio **silaba** bat bere ondoan gertatzen diren gainerakoetatik bereizteari. **Lourdes Oñederra**
Silaba guztietako bokalek gutxieneko iraupena eta nolakotasun garbia izaten dute. **Lourdes Oñederra**
Silabak ongi ebakiz. **Koldo Izagirre**
-Carolinan -esaten du, **silabak** luzatuz. **Oskar Arana**
Azken zortzi **silabak** errepikatu egiten zituen. **Andoni Egaña**
Hiru **silaba** oihukatzen hasi zen modu konbultsiboan. **Joxan Elozegi**
Bokalak, beraz, **silaba** osa dezaketen hots irekienak dira. **Lourdes Oñederra**
Letretatik eta **silabetatik** hitzetara. **Iñaki Arranz**
Bokalen arteko arazoak beti izango dira **silaben** artekoak. **Lourdes Oñederra**
Silaba bat nabarmentzeko baliabide linguistikoak hiru dira. **Lourdes Oñederra**
Lau **silaba** xuxurlatu zizkidan belarrira: "Winston-Salem". **Oskar Arana**
Bi bokal elkarren ondoan egokitu eta **silaba** edo erritmo unitate berean ahoskatzen direlako. **Lourdes Oñederra**
Arreta handiz, **silaba** bakoitza azpimarratuz. **Jon Muñoz**
Hala, esaten da frantsesezko azentua azken **silaban** dagoela; txekierazkoa, berriz, hitzaren lehen **silaban**. **Lourdes Oñederra**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Egia da halaber ebakera laxoak **silaba** luzeetan gertatzen direla, eta **silaba** laburrak arta handiagoa eskatzen du. **Isabel Arrigain**
Silaba azentugabeek azentudunekiko izaten duten ahuleziagatik, **silaba** azentugabeetako bokalak galtzeko joera handitzen da. **Lourdes Oñederra**
Bigarrenak **silaba** luze bat sortzen du. **Isabel Arrigain**
Silaba irekia bada, alegia, silabagune bokaliakoaren ondoren kontsonanterik ez badago, codarik ez duela esan ohi da. **Lourdes Oñederra**
Zortziko handi baten egituran, **silaba** gurutzedunak lirarteke lehenik pentsatzen direnak. **Andoni Egaña**
Ez dakit zer **silaba** ulergaitz. **Koldo Izagirre**

Hatz erakusleaz katilua seinalatu eta *ko-bra-tu-ko* **silaba** mutuak osatu ditut ezpainetan. Pako Aristi
Latinez azentua azken aurreko **silaban** zegoen. Isabel Arrigain

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **silabiko**.

Silaba muga adierazteko. Lourdes Oñederra

Indar handiko azentua **silaba** egituraren hausle izaten da, azentua gauza erlatiboa baita. Lourdes Oñederra

Horrelako **silaba** egituratze sendoari eusteko, mesedegarri da azentu ahula. Lourdes Oñederra

Berto bakoitzak oin kopuru jakina du, eta oin hauek berriz, **silaba** kopuru jakina. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Euskararen **silaba** hasierak indartzeko joerak. Lourdes Oñederra

Ez dira ahaztu behar, halaber, *etxiya* bezalako **silaba** moldaketak. Lourdes Oñederra

Hizkuntzaren eritmo-ereduak, doinu-ereduak, azentu-guneak, **silaba**-neurriak. Lourdes Oñederra

Silaba barneko kontsonante multzoak osatzeko. Lourdes Oñederra

50 inguru **silaba**-zeinu sortu zituzten hizki txinatarrak zeinu biribiletan sinplifikatuz. Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azken silaba (3)

silaba aldiko (4); **silaba azkenean** (3); **silaba bakar** (6); **silaba bakarrean** (6); **silaba bakarreko** (6); **silaba beraren** (3); **silaba egitura** (13); **silaba egituratze** (3); **silaba kopuru** (5); **silaba kopurua** (5); **silaba kopuruari** (3); **silaba luze** (3); **silaba muga** (3); **silaba osatzeko** (3); **silaba osatzen** (3)

lehen silaban (3)

silabaren gainean (3)

silababakar *izond* silaba bakarrak osatua.

Nire maitea, abesten du Teresak, poetaren ohean ikasi zuen ingelesezko hitz **silababakar** lodia hanpatuki esanez. Oskar Arana

Alcide Jolivet esaldi luzeez ari eta ari, eta Harry Blount hitz **silababakarrez** erantzuki. Karlos Zabala

Baina harrituta geratu gara zenbat **silababakar**, silabekiko eta hiruko dauden harrapatuta dagoeneko. Hasier Etxeberria

silabadun *izlag* silabak dituena.

Ez al da antzeko zerbait gertatzen verbum bi **silabaduna** esatean? Imanol Unzurrunzaga

Zeren, bi **silabadun** honek esanahiren batekin ahotsaren artikulazioz adierazten den oro ezagutzera ematen badu, espezie honen baitan bera ere sartu behar da. Imanol Unzurrunzaga

Ba al dakizu, halaber, *animal* (animalia) esatean gauza bat dela ahotsez esandako hiru **silabadun** hitz hau eta beste zerbait horrek ezagutzera ematen duena? Imanol Unzurrunzaga

silabagile *izond* silaba bat osatzen duena.

Berez, silaba osatzeko gai den hotsaz esan ohi da **silabagile** dela. Lourdes Oñederra

Aintzat hartuta bokalen arteko kontua dela eta bokal oro dela **silabagile**, bokalen arteko arazoak beti izango dira silaben artekoak. Lourdes Oñederra

Bokalak **silabagile** dira, baina kontsonanteek bokal baten laguntza behar dute silaba osatzeko. Lourdes Oñederra

Badira kontsonante **silabagileak**. Lourdes Oñederra

Herskariak, berriz, ezin dira **silabagile** izan, ez baita posible herskari bat inolako bokalen laguntzarik gabe ahoskatzea. Lourdes Oñederra

silabagiletasun *iz* silabagilea denaren nolakotasuna.

Silabagiletasuna, indarra, luzera eta horrelakoak, baldintza linguistikoren bat [...] ez duten neurrian bilakabide prosodikoen araberakoak dira. Lourdes Oñederra

Kontsonante ozenen **silabagiletasunaz**. Lourdes Oñederra

silabagune *(orobat silaba gune)* *iz* silabaren gunea.

Silaba irekia bada, alegia, **silabagune** bokalikoaren ondoren kontsonanterik ez badago, codarik ez duela esan ohi da. Lourdes Oñederra

Hots horren ozentasuna aski da kontsonante ozenak **silaba-gune** izan daitezen hizkuntzak hala eskatuz gero. Lourdes Oñederra

Indar, garaiera eta iraupen nabarmenenak **silaba guneetan** jarri ohi dira. Lourdes Oñederra

silabaka *adlag* silabaz silaba, silaba oinarri hartuz.

Letraz letra ez, **silabaka** irakurtzen badugu atzekoz aurrera *-besdreal*, alegia-, [...]. Iñaki Arranz

Mundu osoko hizkuntza guztietan hizketa **silabaka** ateratzen da. Lourdes Oñederra

Zerbait esaten zuenean hitzak **silabaka** ebaki eta doinu kantariz ahoskatzen zituen. Ander Irizar

Silabaka kontatzea atseginago dute, antza, hizkuntz jostalariek. Iñaki Arranz

silabakatu, silabaka(tu), silabakatzen du *ad* silabaka ahoskatu.

-*U-ni-tà* -**silabakatu** zuen On Camillok-. Koldo Biguri

silabario *iz* irakutzen ikasteko erabiltzen den liburua, hitzak silabetan banatuak biltzen dituena.

Sequoyahk asmatutako glifo bilduma **silabario** baten antzekoa zen, nahiko erraza eta ulergarria -dirudienez- cherokee indiarrentzat, eta haien izateko erarekin bat zetorrena.

J.M. Olaizola "Txiliku"

silabatze *iz* silabaka ahoskatzea edo zatitzea. ik **silabazio**.

Ez da erraz jakiten hizketaren prozesatzean, pentsaturiko esaldia ahozko hizketa bilakatu bidean, zein momentutan gertatzen den silaba, **silabatzea**. Lourdes Oñederra

Gorago aipatu bezala, **silabatzearen** kokalekua oso azaleko liteke ahoskeraren eratorpenean. Lourdes Oñederra

Esango genuke **silabatzea** (non gertatzen, sortzen den silaba) ez dagoela sakonean, baizik eta sakon hori (pentsatutako esaldia), azalertzeko abian jartzen denean, erabat azaleko errealitate fisiko bihurtu bitarteko bidearen punturen batean. Lourdes Oñederra

silabazio iz silabatzea.

Fonazioak inplosio eta esplosio segida bat izatea eskatzen du, eta hau da **silabazioaren** baldintza funtsezkoena. Isabel Arrigain

Zeren **silabazioa** baita, nolabait esateko, fonologia horrek hasieratik bukaerara kontuan hartzen duen gertaera bakarra. Isabel Arrigain

Artikulazio irekitzaileen eta itxiztaileen artean aukeratzeko ahalbideak, hein handi batean, ber hartan jarraitzen du, eta hain zuzen aukeraketa horren arabera izango da **silabazioa**, eta ez zuzen-zuzenean mota fonologikoen arabera. Isabel Arrigain

silabifikazio iz silabatzea.

Orain bertsolariak aztertzen ari naiz fonologia aldetik, **silabifikazio** aldetik. Berria - Kultura

silabiko 1 izond silabarena, silabari dagokiona. ik silaba 3.

Kasu batzuetan, muga **silabikoa** fonemen sail bakar baten bi puntu desberdinetan koka daiteke. Isabel Arrigain

Beste horrenbeste gertatu bide da silaba azentugabeetako bokal murriztuak denbora eta nolakotasun beteagora igarotzean erritmo **silabiko** berriaren arabera. euskarak antolamendu **silabikoari** garrantzi handia ematen dio, bestelako aukeren arteko lehentasuna du euskararen egituratze fonologikoan. Lourdes Oñederra

Halako hotsak halako funtzioa du "azentu **silabikoa**" jaso edo ez jaso. Isabel Arrigain

2 oinarritzat silaba duena.

Idazkera fonetikoak izan daitezke **silabikoak** nahiz alfabetikoak. Isabel Arrigain

Ikusia dugu idazkera primitibo batzuek banako **silabikoak** markatu zituztela; sistema alfabetikoa geroago etorriko zen. Isabel Arrigain

Izan ere, tigrina, Eritreako hizkuntza, **silabikoa** da, eta alfabeto latinoan ez zuten ezagutzen. Joxerra Garzia

silarri iz harlandua.

Neurri horiek ez dira **silarrietan** bakarrik hartu behar, baizik eta baita harlangaitz bezala erabiliko direnetan ere. Santiago Iruretagoiena

Haiek ez dute kanpotik morteroz estalitako harri bigunez egindako obrarik egiten, baizik eta, **silarriak** erabiltzen ez dituztenean, sukarrizko edo harri gogorrezko ilarak egiten dituzte. Santiago Iruretagoiena

Ondoren, landutako **silarrizko** horma bat altxatuko da, junturak ahalik eta luzeenak eginez erdiko harriak elkarrekin ondo tratatuta gera daitezen junturen bitartez.

Santiago Iruretagoiena

silbote iz txistuaren tankerako musika-tresna, hura baino handiagoa.

Soinu tresnetan, hor dira segur txistua, xirula, txiribita, txanbela, **silbotea** eta holako batzuo... Herria

silesiar izlag/iz Silesiako, Silesiari dagokiona; Silesiako herritarra.

Baina ez naiz **silesiarra** -zuzendu zion gizonak, hortz zuri-zuriak agerian, eta, erreberentzia txiki bat eginik, eskua eskatu zion Norari-. Anjel Lertxundi

-Gerezi beltzek ematen dioten aldebereko garratzasun eta gozotasun puntu hori estimatzen diote **silesiarrek**. Anjel Lertxundi

silex 1 iz suharria.

Sua ardaila eta **silexez** eginez, patata-ogia janez. Pablo Sastre

Badira hor sua egiten zuten tokiaren herrestoa, eta harri bat ondoan jarlekutat, laneko tresna apaintzeko **silexak**, hiru ahuntz-hortz eta xokoan lo egiteko lekua. Herria

Ortz semearekin futbolean ari ginela, zuk inguruetan **silexa** xerkatzen zenuen. Berria - Kultura

2 silex harri suharria.

Barruan bi oin zabaleko hormak egin beharko ditu harri karratu gorriarekin edo adreilu errearekin edo **silex** harri arruntekin, ilaratan jarriz. Santiago Iruretagoiena

silfide 1 iz germaniar mitologian, aireko espiritua.

Silfideak gnomoen, ninfen eta arrabioen lagunak ziren oso, oihanean, uretan eta sutan hurrenez hurren bizi baitziren, gaur hiru leku osasungaitz direnak. Xabier Olarra

Silfideak, aireko txoriak bezala, arrak eta emeak ziren, alferrik, dirudienez; izan ere, ondorengorik izan balute, leku iritsezinetan egingo zuten habia, kumerik ez baitie inork sekula ikusi. Xabier Olarra

Oi, Arnheimgo zuhaixketako **silfidea**! Koro Navarro

2 emakume mehe eta lerdena.

Aspertzearaino ibili nintzen larrugorrian, hura atzetik nuela lasterka gelan barrena, eta nik **silfide** iheskorren poseak hartzen nituen eta gutxi gorabehera parnasianoen eta arkadiarren eta erromantikoen moduan hitz egiten nuen. Karlos Zabala

silikato iz azido silizikoaren gatza.

Hartarako, zatiki magnetiko bat bainuen analizatu beharra (eta, beraz, uste izatekoa zen, **silikatoz** pobrea) eta presari men eginez, aldaera sinplifikatu bat saiatu nuen bertan. Juan Garzia

Normalean, nanokonposatuetan erabilitako kargak edo gehigarriak **silikatoen** familiakoak izaten dira. Berria - Gaiak

Kometak hondarrezko poltsak zirela uste zuten astronomoek, baina Whipplek «elur zikinezko bolak» zirela esan zuen, hau da, kometen nukleoak izotz konglomeratu batez (ura, amoniakoa, anhidrido karbonikoa) eta karbonozko eta **silikatozko** hondar solido batzuek osatuta zeudela. Berria - Gaiak

silikona 1 iz gai sintetikoa, funtsean silizioz eta oxigenoz osatua, beroa, hezetasuna eta elektrizitatea jasaten dituena, industrian hainbat erabilera dituena.

Beraz, mina [...] zertan inplementatzen den jakitea -burmuina, konexio elektronikoak, **silikona** ... -ez da garrantzitsua mina identifikatzerakoan. Askoren artean

Dardaragailua atera nuen poltsatik -ukimen naturala, **silikona** hutsa- eta ahoan sartu nion. Juan Martin Elexpuru

Kapsulak **silikonaz**, urrez, zafiroz eta diamantez egindako kolektoreak zituen. Berria - Gaiak

Ikastetxe batzuetako atea **silikonaz** blokeatzen saiatu dira, beste udal garbiltzailen lana oztopatzeko. Berria - Ekonomia

Etxe salmentarako 40 agentziatako atea **silikonaz** itxi dituzte. Berria - Euskal Herria

2 (gorputzaren estetikan)

Ez dakit beste belarria moztu ala, aitzitik, zirujaurik garestiena erosi eta kirurgia hobereenez josiko ote zukeen **silikona** koloreztatuzko bat. Hasier Etxeberria

Estatu Batuetako Elikagaiak eta Botikak Legezatzeko Agentziak ez duela **silikonazko** bularreko protesien merkaturatzea baimenduko iragarri zuen atzo. Berria - Gaiak

Alabaina, bertsolariei bota gaietako bat, **silikonazko** bularrez mintzo zen. Berria - Kultura

Gustuko zituelako haren ezpain eszituak, lodiak, **silikonaz** puztuak bezala, desioz kargatuak. Jasone Osoro

Silikonaz puztutako azal margulean aureola eguzkitsua tatuatuko zuen. Jasone Osoro

Ilehoria zen, bular harroa eta aldaka zabalak zeuzkan: gerritik gorakoa **silikonaz** harrotua eta beherakoa, zelulitisa. Migel Angel Mintegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

silikonazko bularreko protesiak (3)

silikonatu *izond* silikonaz hornitua.

Hark munduko marka hautsi zinan bere bular eta izter **silikonatuekin** ! Itxaro Borda

Aspertuta nagok hoteletako eta egunkariko iragarkietako puta **silikonatuez** eta ilehori tindatuez! Urtzi Urrutikoeetxea

silikosi *iz* arnas aparatuko eritasuna, silize hautsa arnasteak eragina.

Beste aldeko aitona [...] arbel meatzean aritu zen lanean, harik eta, 50 bat urte zituela, medikuak **silikosisia** diagnostikatu eta lanerako ezgauza izendatu zuten arte. Xabier Mendiguren Elizegi

Badakik zer jazotzen den meatzetan dabilen alproja bat tuberkulosiak edo **silikosiak** jota gaixotzen denean? Josu Landa

Telebistakoak edo egunkarietakoak izango nituen lanbide horri buruzko lehenengo berriak, hango edo hemengo meatzari-kontuak agertzen zituztenekoak, Asturias aldekoak segur aski: grisu-leherketa bat eta hildakoak, **silikosisia**, zulo barruko ilunpea eta klaustrofobia... Xabier Mendiguren Elizegi

Soldata barregarriak, istripu larriak oso sarri, baita hildakoak ere, **silikosisia** guztien biriketan habia eginda. Xabier Mendiguren Elizegi

silize 1 *iz* silizio oxidoa, mea oso gogorra, lurrazalaren osagai ugarienetakoa.

Nikelak, burdinarekin batera, hodihihurraren egituran itsatsirik egon behar zuen finko, **silizearekin** eta urarekin bat eginik. Juan Garzia

Izotzutako **silizea** ere izan daitekeela esan dute adituek. Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan)

Beste hainbeste gertatzen da **silize**-harriarekin ere, ez burdinak eta ez suak ezin izaten dutena berez desegin. Santiago Iruretagoiena

Mendien oinetan eta **silize**-harkaitzen artean ateratzen dira urik ugariena. Santiago Iruretagoiena

silizio 1 *iz* karbonoaren saileko gai bakuna, ez-metal solidoa, oso ugaria dena naturan silize eta silikato forman (Si; at. z., 14).

Gaurko teknologia **silizioan** oinarritzen da. Pello Salaburu

Landareak ematen dute, baina berez, galio metalaren tantatxoak **siliziozko** gainazal baten gainean jartzean hazitako egiturak dira. Berria - Gaiak

Eta Harri Arokoa izanik, hizkuntza honek ez zuen tokirik XX. mendeko hezkuntzan [...] ez zuen tokirik Punta Galeako golfean edo medikuen kontsultazietan, ez zuen tokirik **silizioaren** gizartean. Pello Salaburu

Sare neuronal artifizialei behintzat horixe gertatzen zaie, apur apurka hilez gero ikasitako guztia atzekoz aurrera pasatzen zaie, bere **siliziozko** bizitza desikasiz bezala, ez dira inkoherentziatan galtzen, baizik eta lehen bizikizunetara itzuliz. Joseba Sarrionandia

2 (hitz elkartuetan)

Hondarraren edo kristalaren antzeko **silizio** dioxidoa. Berria - Gaiak

Luzaz jarduten nuen irudikatzen, paperean marraztuz, **silizio**, oxigeno, burdina eta magnesio katea luzeak, nikel apurra haien sare artean harrapatutik. Juan Garzia

silla 1 *iz* aulkia, eserlekua.

Sillak mahaietatik metro pare batera daude, hiruak beste hainbeste aldetara jarriak. Pello Lizarralde

Datzuetan hasperenka hasten zen sukaldean **silla** batean eserita. Pello Lizarralde

Bi hurrupa tiki egin eta **silletako** batean jarri da. Pello Lizarralde

Oihu bat egin eta **silla** batera igotzen zen. Pello Lizarralde

Beren **sillatik** jaiki ziren, magiaz bezala zutitu alegia. Matías Múgica

Maisuak **sillatik** salto egin zuen hori entzunda. Pello Lizarralde

Federicok **silla** bat eman zion eser zedin. Pello Lizarralde

Aurki **sillan** jarriko naitek. Pablo Sastre

2 (izenondoekin)

Legarrezko eremuan burdinezko bi mahai eta hiru **silla** herdoildu daude. Pello Lizarralde

3 *silla elektriko* aulki elektriko.

EHiztari bikainak zirela-eta kartzelara, edo Ameriketara egiten zuten bezala, **silla** elektrikora eraman behar zen jendea harrapatzeko orduan. Pello Lizarralde

silloi (*orobat siloi*) *iz* besaulkia.

Bazterrean, erdi argituak, egurrezko **silloi** bat eta bi silla kaskar dira. Pello Lizarralde

-Zer da? -galdetu dio ahopean Abelek Joxeri, honek zoruan, **silloi** ondoan utzi duen botila seinalatuz. Pello Lizarralde

siloi 1 izale biltegia, hezetasunetik begirataua, lehen lurpean eta gaur egun dorre garai gisa eraikitzen dena.

Udaberrian **silora** sartutako belarra ematen ari zaie animaliei. Berria - Harian

Maiatza belarraren lehen mozketa nahiko apala izan delako, ez dute aurreko urteetan bezainbeste belar sartu **siloetara**. Berria - Harian

Erromatarren garaiko etxebizitza azaleratu zuten makinek, eta Garesen, berriz, hainbat **silo**. Berria - Kultura

Silo batek azpian harrapatuta hil da azkoienar bat. Berria - Euskal Herria

2 erregai solidoak, zementua, hondarra eta kidekoak gordetzeko biltegia.

Zortzi milioi euroko inbertsioa egin du 43 metroko altuera eta 39,6 metroko diametroa duen **siloa** eraikitzeko. Berria - Ekonomia

Kamioia **siloaren** azpian jarri, eta berehala betetzen du guztia. Berria - Harian

Norvegiako UECC ontzi konpainiak 18 milioi euroren inbertsioa egingo du Pasaiaiko Portuan, 90.000 metro koadroko zutikako **siloa** eraikitzeko asmoz. Berria - Ekonomia

Siloak hiru solairu izango ditu eta Pasaiaiko Portuko autoen garraioa bikoiztea eragingo du. Berria - Ekonomia

silogismo 1 iz bi perpausuz eta horietatik nahitaez ondorioztatzen den beste batez osatzen den arrazoibidea.

Badakizue zer den **silogismoa**: bi premisa xuxen hartu, eta premisa horiei ezinbestean darien ondorioa ateratzea. Joxerra Garzia

Logikaren oinarria **silogismoa** da. Xabier Olarra

Silogismoaren zerizana printzipioetatik ondorioetarako erlazioan datza, premisetatik ondorioa heltzean. Askoren artean

Silogismo hori zuzena da; ezin ditugu zalantzan jarri lehenengo bi premisak. Askoren artean

Silogismo osoa honela litzateke: gutxi direnei, arrazoiak izanagatik ere, ukatu egiten zaie arrazoiak. Joxerra Garzia

Beraz, eszeptikoak ongi ibiliz gero, **silogismoa** tautologikoa litzateke. Askoren artean

Darabilten argudiabideetan bada **silogismo** bat, ametsen eskolaurrean ere onartuko ez litzatekeena. Joxerra Garzia

Topikoen eta, bereziki, **silogismoen** xedea argudiatzea da. Askoren artean

2 (izenondoekin)

Epaileak edozein delitutan **silogismo** perfektu bat egin behar du: nagusia lege orokorra izango da, txikia legekoa edo ezlegezkoa den ekintza, ondorioa libertatea edo zigorra. Juan Martin Elexpuru

Entimema, berriz, nolabait esateko, sasi-silogismoa da, **silogismo** tranpatia, amarruzkoa. Joxerra Garzia

Homeroren ekarpena ez da Sokratesek ukatuko duen **silogismo** hutsaren modukoa. Askoren artean

Eta hala, azkenik gabe, Tomas Akinokoak **silogismo** jainkotarrez ukatu nahi zuen hondogabetasun kosmikoraino... Juan Garzia

Zenbait **Silogismo** nahasketa-eragingarriren eleketak mordoilo mamituak. Jon Alonso

3 (hitz elkartuetan)

Figurak eta moduak, premisak, ondoreak eta korolarioak, baita hainbat **silogismo** molde ere. Joan Mari Irigoien

Ondorio bakoitzari egiazko premisa bana gehituz, horietatik nahitaezko ondorioak ateratzeko, **silogismo** kate baten ondoan, azken bi ondorioen arteko kontraesano edo aurkaritza argitzera helduko da. Xabier Kintana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

silogismo osoa (3)

silogismogintza iz silogismoak egiteko jarduna.

Lan soilak, **silogismogintzak** eta irain asmakuntza hutsak, nego eta autem eta nequaquamen erabilerak ematurik, arrangura hura ahazteko modua izan zuen. Juan Garzia

silogistiko izond silogismoarena, silogismoari dagokiona.

Lau figura **silogistiko**en irakaspene zabala arrazoimen-inferentzia kategorikoei baino ez dagokie. Ibon Urbarri

Metodologikoki axioma unibertsal gisa baliozkoa, handik zuzen deduzitzeko gainerako jakite guztien printzipioak, ez deduzizio **silogistikoan** [...] deduzizio matematikoaren eran baizik. Askoren artean

siloi ik silloi.

silueta (orobat ziluenta g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian silueta agertzen da) 1 iz hondo argiago batean nabarmentzen den objektu baten forma; objektu baten inguru lerroa.

Bere **silueta** irudikatzen du, hormaren kontra itzal-antzerki txinatarrak egiten duenaren erara. Sonia Gonzalez

Gure itzalak ilargitan: guraizez ebakitako **siluetak**!, Sabethen irudiko. Joxe Austin Arrieta

Guraso bat **silueta** bat baino ez da, eta seme-alabak dira gurasoek utzitako **siluetan** eta zuloetan sartzen direnak. Harkaitz Cano

Halako batean, emakume adindun baten **silueta** islatu zen beiran. Aritz Gorrotxategi

Pertsonaia erabat zehaztu gabe moldatu zituen nortasunaren aldetik, laino arteko **siluetak** besterik ez balira bezala. Anton Garikano

Denverren **silueta** ikusi zuenean lanpararen argitan leihoan, ezin izan zuen baztertu pentsatzea: "Eta hi noren alde hago?". Anton Garikano

Bata besteari begira, eszenatikian bi **silueta** bailiran. haien orde, François Hugot arkitekto frantziarrak 1883an eraikitako pabilioi lirainak, eta auzoari **silueta** ematen zioten hiru tximinia luzeak. Berria - Kultura

2 (izenondoekin)

Silueta txiki bi ikusten ziren haiztaren kontra joka. Julen Gabiria

Iduritu zait karrikaren buruan zebilen **silueta** fina Mariarena zela eta urratsa zalatu dut. Piarres Aintziart

Hainbat kanpandorre suma zitzaizkete, itzaletan lauso, han-hemenka beren **silueta** itzelak agertzen. Karlos Zabala

Haren **silueta** lausoa besterik ikusten ez bazuen ere, oroimenak eta irudimenak osatu egiten zuten haren ikusmen akitua. Patxi Zubizarreta

Santosek **silueta** ilun bat besterik ez zuen bereizi Azken Portuko kaian. Josu Landa

Logelatik irteetan, Elleni **silueta** garai bekain gorrixka bat hurreratu zitzaion, egiptoar buru-estalkia zeramana. Lopez de Arana

Une hartan, aurreko eserlekuetako **silueta** ezagun bati erreparatu zion. Aritz Gorrotxategi

Espaloian gelditu zen, arrosa koloreko egunkari-pilo baten ondoan, arnastetukak, Woolworth eraikinaren **silueta** dirdaitsuari so. Lopez de Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

silueta ikusi (7)

sim¹ iz leizea, osina.

Nagoren, atzeko presak eraikitzeko egindako zundaketetan **sim¹** batekin egin dute topo, eta horma atzerago eraman behar izan dute. [Eduarne Elizondo](#)

sim² iz arkitekturan, S formako moldura.

Tenpluen saihetsetako erlaitzen gainean jartzen diren **sim²** edo molduretan, lehoi-buruak zizelkatuko dira. [Santiago Iruretagoiena](#)

Erlaitza bere zimazioarekin, **sim²** aparte utzita, arkitrabearen erdiko faxaren neurri berekoa izango da. [Santiago Iruretagoiena](#)

Gainerako elementu guztiak, hala nola tinpano, **sim²** eta erlaitzak, ordena joniarrari buruz gorago esandakoen arabera egingo dira. [Santiago Iruretagoiena](#)

simaur (orobat ximaur g.er.) 1 iz abereen gortza, bereziki ongarrri gisa erabiltzen dena; gai organiko ustelezko ongarrria. ik sats.

Denetik egin nuen: ukuiluak garbitu, zaldiak garbitu, **simaurra** jaso. [Berria - Kirola](#)

Hermannek, azpiak egiteko pala harturik, ukuiluko **simaurretan** sartu zuen kirtenaren barrenearaino. [Anjel Lertxundi](#)

Bi egun hauetan ez dela ongarririk eta **simaurrik** belazeetara atera behar. [Pello Zabala](#)

Belar iharra eta laboreak usteldu egiten ziren; gari-azaoak eta belar-metak **simaur** bihurtzen ziren -oso egokia, gutxienez, aza-soroak ongarritzeko-. [Jose Morales](#)

Mundu osoko biztanleen erdiak, **simaurra**, ikatza edo egurra erabiltzen dute energia iturri gisa. [Berria - Gaiak](#)

Makina hark sartu behar zuen lekutik harresia zulatu zuen eta jende guztiari agindu zion [...], jasotzeko ahal zuten ur, **simaur** eta basa guztia eta hodian bidez ateraz zulo hartatik bota zezatela den-dena harresiaren aurrera. [Santiago Iruretagoiena](#)

Gizonak behin ikusi zuen zalditegian, zapi zuria buruan, soineko baldres zakarra gorputzean, **simaur** biltzen. [Felipe Juaristi](#)

Nik, giroa arintzearen, ez kexu izateko esan niola, arrosarena bezain ederra zela **simaurraren** usaina. [Bernardo Atxaga](#)

Burutik behera bota genion **simaurraren** usaina sentitu nuen. [Anjel Lertxundi](#)

Haren gorpua **simaur** bihurtuko zela alorrean, Izreelgo landan; inork ere ezin izango zuela "Hau Jezabel da" esan. [Elizen arteko biblia](#)

Arreba hegatzabalak txanoa du erlijiosoek bezala; eta hegazti apala da, pozik joaten baita bidean zehar aleren baten bila, eta, **simaur** artean aurkitzen badu ere, atera eta jan egiten du. [Askoren artean](#)

Bizirik ikusten zituena, hostoak zabaltzen, sustrai lasai beroak oraindik **simaurretan** sartuak eduki izan balituzte bezala. [Karlos Zabala](#)

2 (izenondoekin)

Simaur ona zen. [Karlos Zabala](#)

Arbitarako **simaur** egokia omen duk obixpo jendea... [Inazio Mujika Iraola](#)

Izan ere, **simaur** higuinarririk har bizidunak sortzen ikusten da, euri larregiz beraturiko lurra usteltzen denean. [Xabier Amuriza](#)

Ai! haragia, **simaur** erakargarri bizia, ibiltzen, pentsatzen, hitz egiten, begiratzen eta irribarre egiten duen ustelkia. [Josu Zabaleta](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Simaur gurdi batean ezkatutu izan balitz ez zuten berehala harrapatuko, esan zidan amak. [Harkaitz Cano](#)

Nor da bizitza honetan hain handikia, urrez betetako etxe bat emango baliote, mundu guztian zehar **simaur** saskia pozik eramango ez lukeenik? [Askoren artean](#)

Hor-hemengo **simaur**-metatxo izoztuak. [Jose Morales](#)

Noiz utziko ote diozue **simaur**-usaineko hizketa-modu horri! [Anjel Lertxundi](#)

Gaztaroan kortatik gora zetorkigun **simaur**-sunda bera eta abereen marruak aditzen hasia nintzela iruditu zitzaidan. [Txillardegi](#)

Erregearen izendapenak bat-batean sortu dizkion arerio ugari gupidagabeek ez dute barkatzen ldiak berbera bezalako **simaur**-seme batek hain bat-batean gorteko distira lortu izana [Anjel Lertxundi](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zaldi **simaurra** bildu, garraiatu eta baratzean ongarrri moduan zabaltzen. [Felipe Juaristi](#)

Urde-**simaurra** aspaldi hildako asta-barren ustelduetara botata ere ez zegoen berdintzerik mofeta-kirats hura. [Anjel Lertxundi](#)

5 irud/hed

Biografoak ez du gehiago emateko premiarik ikusten, ez da bere asmoa irakurlearen gustu onean **simaur** botaka jardutea. [Anjel Lertxundi](#)

Simaurra balitz bezala tratatzen zuen andrea. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Armadan bi urte, lana, ezkondu, familia baten ardura, geroz eta diru gehiago irabazi beharra, eta geure kasa aurrera egiteko potrorik ez daukagunean itozten gaituen **simaur** hori guztia. [Oskar Arana](#)

Pentsatzen dena esateko aukerarik ez dagoen lekuan, satorrak nagusi, esan zuen Öchlerrek erregimenaren **simaurretan** hazitako idazleengatik. [Anjel Lertxundi](#)

Isildu hadi, **simaurra** esaten ari haiz eta. [Pablo Sastre](#)

Auzoan zabaldu zen anaiak bortxatu egin zuela neska, baina anaiak esaten zidan: ez airean dabilen **simaur** hori irentsi, Julinho. [Harkaitz Cano](#)

Horrela jokatzeko dute, ETArek aurka ari diren aitzakian, edozein aukeraz baliatzen direnek euskaldunen gainera -euskaldun guztien gainera- **simaur** mordoxka bat botatzeko. [Bernardo Atxaga](#)

Halakorik osteria esanez gero independentziaren aldeko mugimenduaren **simaur** fronteak lehen martiria izango zuela. [Bernardo Atxaga](#)

6 (izenondo gisa)

Ina garai hartan euskara ikasten ari zuan, eta bahago esaten huenarekin baino areago, hire euskara **simaur** esklerotikoarekin zegoela txora-txora eginda. [Jokin Muñoz](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

simaur artean (3)

simaurra bezala geldituko (3)

simaurraren usaina (4)

simaurjale izond simaurra jaten duena.

Antzinako egiptoarren kakalardo sakratua, gure "kakalardo **simaurjalearekin**" lotura duena. [Xabier Olarra](#)

simaurtegi 1 iz ukuiluko simaurra gordetzen den tokia.

Badira helburua berengan ez duten espezieak ere, baina ugaltze- eta suntsitze-legeen nahitaezko ondorio direnak, hala nola, adibidez, **simaurtegi**en jaiotzen diren har mota ezberdinak. [Xabier Kintana](#)

Simaurtegi batean ere sartuko litzateke! [Jose Morales](#)

2 irud/hed

Hainbeste zoritxarreko andre etxegabe, sala beltz batean abandonaturik, giza **simaurtegi** batean ikusteak, sexu-bizitza pozoitzen duen ustelkeriari erreparatzeak, zirrara larri

bat eragin zion Andresi. Josu Zabaleta
Aipatutako artikulu horretan bertan detektibeak "hiriaren **simaurtegi**etan gerriraino zion eta usain txar guztiak bereizten jakin behar duela" zioen modu erabat metaforikoan. Joxean Agirre

simaurtoki iz simartegia.

Lehenago bai, komunak: lehenago jendeak kaka egin behar zuenean **simaurtokiko** atean elkartu eta, solas egiten zian, e, solas... Pablo Sastre

simaurtu, simaur(tu), simaurtzen du ad ongarritu.

Ilargibeteko gau zoro hodeitsu hartan, lorategiek, berakatzak, ibaiek eta arrosa-eremu **simaurtu** berriek isuritako usainak nahasten ziren. animalientzako janari (pentsuak, irinak) edo soro eta baratzeak **simaurtze**ko ongarririk bihurtuko du industriak. Lopez de Arana
Obispoa arbi-sailen bat **simaurtze**ko erabiltzea eragotzi izana ez zidala inoiz barkatuko txerrenkume hark. Inazio Mujika Iraola

simetria 1 iz aurrez aurreko zatien erabateko egokitasuna forman, tamainan eta egongunean; geometrian, puntuz puntuko egokitasuna puntu, ardatz edo plano bati buruz.

Ispiluaren bestaldeko **simetria** munduaz jabetzen ari balitz bezala. Harkaitz Cano
Alfonbra pertsiar eder baten aurrean, urliak ez du ikusten alfonbra egin zuen ehulearen nekea beste deus, berendiak, aldiz, **simetri**en ederra edo hari baten lotura miresgarria. Anjel Lertxundi
Errealitateak **simetriak** eta anakronismo arinak maite ditu. Juan Garzia
Patuari atsegin zaizkio errepikapenak, aldaerak, **simetriak**. Juan Garzia
Metodoak edo teknikak transferitzea baimendu duen isomorfismoa finkatzea, orokortzeak baimendu dituzten auzotasunak, **simetriak** edo analogiak. Xabier Arregi
"Zentrikotasunaren" artea da espresionismoa (inpresionismoaren "azentrikotasunari" kontrajarririk), esentzialtasunaren, **simetriaren**, estatikotasunaren artea. Josu Zabaleta
Komenigarritasun ideia faltsua da izaki sentikorren multzoari materia landugabe eta bizigabearen **simetria** eta ordena berbera eman nahi izatea. Juan Martin Elexpuru
Arkitektoa formalista zen eta gogoko zuen **simetria**. Jose Morales
Ez zuen **simetriarik** ikusten abertzaletasunaren eta nazionalismoaren artean. Berria - Kultura

2 (izenondoekin)

Etzegaragoienetxe abizenak bi aldiz esaten du gauza bera **simetria** perfektuko kiasmo txundigarri batean. Iñaki Arranz
Zetazko oihal luze batek, zeinak baitzuen erdian brodaturik gure etxeko armariaren iduria, estaltzen zuen balkoia, **simetria** osoz. Joan Mari Irigoien
Ia bata bestearen gainean, azpian, barnean..., **simetria** ia atsolutuan. Jose Angel Irigaray
Beti osatu behar izaten baitu gure gogo lojizak gaixotuak, **simetria** ergelen bat. azalpenaren eta auresan zientifikoaren arteko **simetria** estrukturala. tinta tantaren eta odol tantaren arteko **simetria** topikoa guztiz atsegin zuen. Patziku Perurena
Bi hitzetan esateko, honatx **simetria** sinbolikoa: erregetzaren arranoa, egun batez, buhame eskazaleen errepetita bihurtuko da. Patziku Perurena

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat simetri)

Egitura geometrikoen arteko **simetria** jokoak nonahi, horrelaxe osatuta zeuden tapizaren motibo dekoratiboak. Iñaki Iñurieta
Bereko **simetria**-akatsen ondorioz, arazo handiak agertzen ziren: inperfekzio txikienek prozesu osoa desegonkortzen zuten. Fernando Morillo
Eta nola diagonaletarik hobeki adieraz daitezkeen ekaizaren errealitatea eta ekaizaren desoreka koadroaren **simetri** ardatzetarik baino, hala bihur daitezke diagonalak koadroaren ardatz. Joan Mari Irigoien

simetriko 1 izond simetria duena.

Irudi geometrikoak eta **simetrikoak** dituzten formatu ertaineko piezak dira. Berria - Kultura
Eunateko eta Olkozko parrokiako atek berdinak dira, edo, hobe esan, **simetrikoak**, batek ezker-eskuin dituen irudiak, eskuin-ekzer baititu besteak, elkarren ispilu balira bezala. Martin Anso
Teilapea bi gela **simetriko**tan banaturik zegoen. Jon Muñoz
Itzaletan, kolore **simetriko**z egindako tapizeri lana. Karlos Zabala
Gaur, hara bat-batean jabetu, neure gorputz guztian sentitu, alegia, halako egitura **simetrikoak** barnean zeukan ahalmen ikaragarria. Juan Garzia
Pedalkada moduaren azterketa da lehena, hankek pedalei eragiteko mugimendua **simetriko** den, disimetriarik balego, hori konpontzeko. Berria - Kirola
Kimikan ere suertatzen da, arkitekturetan bezala, eraikin "ederrak"-hots, **simetriko** eta sinpleak- orobat izatea sendoenak. Juan Garzia
Horregatik ez dira errazak lortzen inplosio **simetriko** horiek. Fernando Morillo
Aldi berean balantza korrontearen mugimendua Estatu Batuetakoaren **simetriko** gertatzen zen erabat. Koro Navarro

2 irud/hed

EAPren teoriaren arabera, bi herrialdeen arteko inflazio-aldeek badute joera bat truke-tasen alde biko mugimendu **simetriko** batek oreka ditzaten. Koro Navarro

simetrikoiki adlag simetriaz.

Beldardiak, ezpel-hesiak eta loretoiak ikus zitezkeen, iduri geometrikoetan bilduak eta **simetrikoiki** banatuak. Belaunak **simetrikoiki** jarriak behar ditut bolanteari buruz. Joan Mari Irigoien
Epinaren alde batera eta bestera **simetrikoiki** zabaltzen diren bi azalerek eratzen dute konoa. Jon Muñoz
Mahai baxu baten inguruan **simetrikoiki** elkarrengandik pare bat metrora-edo dauden bi besaulki erositan. Xabier Mendiguren Elizegi
"Kaixo, mutilak" esan, eta han hasiko zela biei, sinkronikoki, **simetrikoiki**, burua laztantzen. Xabier Olarra

simetrikoitasun iz simetrikoa denaren nolakotasuna.

Bi txakur ekartzea ez ote zegoen, hein batez, loturik egongo **simetrikoitasunerako** konpultsioarekin? Xabier Olarra

simetrikoitu, simetriko(tu), simetrikoitzen du ad simetriko bihurtu.

Paragrafo bakoitza, eta askotan lerro bakoitza antolatzeaz gain, silabak eta hitzak "orekatu" beharrak, puntuazioa gogamenean **"simetrikoitu"** beharrak, letra jakin baten maiztasuna neurtu beharrak eta bere golkorako hitzak, perpausak edo esaldiak esan beharrak, ez zioten bakerik ematen. Xabier Olarra

simil *iz* gauzen arteko antzekotasunaren adierazpena edo erkaketa.

Simil baten bidez esateko, filosofiara ateratzen da Kant begiratzera ea zenbat eta zer dela-eta ikusi egiten duen. **Jenaro Garate**

Demagun gure **similean** *limes*-aren ikurra den irudizko eustorma, Txinako Shinsi eta Shansi probintzia modernoaren barruan Harresi Handiak benetan zeharkatzen duen eskualdean goiko haranen batean hankalatraba eraikia izan dela. **Iñaki Mendiguren**

Adera horien erantzunak gure **similari** Ekialdeko Asian izan zuen kokapen geografikoaren arabera jarraitzen badiogu aurkituko ditugu. **Iñaki Mendiguren**

simonia 1 *iz* eliz karguen, sakramentuen eta kidekoen salerosketa.

Bi kasu berdinetan **simoniaren** aitzakia bera baita. **Piarres Xarriton**

Jaunen aztaparretik eta **simoniatik** libratzea izan zen Cluny-koen lehen urretsa. **Herria**

Gero oroitzen nintzen paralelasiaz hil zela, eta konturatu nintzen nik ere irribarre arin bat egiten nuela, haren **simoniak** bekatua barkatzeko bezala. **Irene Aldasoro**

2 (hitz elkartuetan)

Zeren eta adieraztea eta finkatzea zer neurritako amoina behar den izpirituko sariarentzat ez du **simonia** arrisku gehiago izaten promesa orokor batek sari nabarmen batentzat izan behar duen baino, [...]. **Piarres Xarriton**

simposium ik **sinposio**.

simuladore *iz* simulagailua.

Ziurrenik, mundu guztiak ikusi du noizbait Formula 1eko **simuladore** bat. **Berria - Euskal Herria**

Ez dirudi horrek pistaren ezagutzan eragingo dienik, euren trebetasuna eta **simuladoreen** laguntza kontuan hartuz gero. **Berria - Kirola**

simulagailu 1 *iz* gertakari bat edo tresna baten funtzionamendua artifizialki erreproduzitzen ahal duen gailua. ik simuladore.

Simulagailuak, sintesi bidezko irudiak asmatu direnetik batez ere, erabat ugaltzen ari dira. **Josu Zabaleta**

2 (hitz elkartuetan)

Erreakziozko hegazkinetako gidariak trebatzeko erabiltzen diren hegaldi **simulagailua**, adibidez, ikaslea hegazkinetako agindu-sistemaren guztiz antzeko baten aurrean eseri eta informatikazko sistesiz bere aurrean duen pantaila batean agertzen zaizkion ikusmenezko gertaeren arabera jokatu behar duen gela itxi bat da. **Josu Zabaleta**

simulakre ik **simulakro**.

simulakro (*orobat simulakre g.er.*) 1 *iz* beste zerbaiten simulazioa den gauza.

Horren harira, hegazti gripe kasu bat agertuz gero nola jokatu behar den ikusteko, **simulakroa** egingo du Jaurilaritzak datorren astean. **Berria - Harian**

Klikada batzuen **simulakroa** egin zuen argazkirik egin barik. **Josu Landa**

Hein batean, literatura guztia da iruzur edo **simulakro**. **Iban Zaldúa**

Fikzioa versus **simulakroa**. **Ana Urkiza**

Nik fikzioa egiten dut baina ez dut **simulakrorik** egiten. **Ana Urkiza**

Autentikotasuna dagoeneko ez da existitzen Cilleroren ipuinetan ere, eta suzedaneok, **simulakroak** ordezkatu du errealitatea. **Berria - Kultura**

Gupidaren **simulakroak** antolatzen ditu gizarteak, zaharren egoitzak adibide, ONGak, % 0,7a eta horrelakoak. **Pako Aristi**

2 (izenondekina)

Gezurrezko montajea eraikitzen ari dituk hemen, dena **simulakro** hutsa. **Iñaki Iñurrieta**

Gehienez ere emozioaren planta tristeak egiten dituzue, **simulakro** hitsak, itxura patetikoak, antzeppen penagarriak. **Jon Alonso**

3 (hitz elkartuetan)

Istripu **simulakroak** «ganorarik» ez zuela izan diote. **Berria - Euskal Herria**

Borgesaren literaturaren kasuan, **simulakro** -jolas moldakor -ez libre- batetik adierazpen guztiz errealismo itxurakoak eratzen baititu, [...]. **Iban Zaldúa**

Hori hizki larriz eta gero poema **simulakro** bat: [...]. **Harkaitz Cano**

4 irud/hed

Saint-Exuperyren ustez, eurek egiten dutena ez da gerra, gerraren **simulakroa** baino. **Berria - Kultura**

Partida **simulakroa**. **Berria - Kirola**

5 zerbaiten edo norbaiten irudikapena.

Gauzen **simulakroak** deritzegunak badirela azaltzen saiatuko natzaizu; hauek, gauzen gainazaletik jarreindako mintzak bezala, airean hara-hona hegan dihardute, eta eurok izutzen dituzte, bidera irtenik, gure gogoak, itzarrak zein lotan gagozela, irudi txundigarriak eta argigabetuen **simulakroak** ikusten ditugunean. **Xabier Amuriza**

Sarritan ehiza-txakurrek, lo gozoan, bat-batean hankei eragiten eta ahausi egiten dute [...] ehiziaren arrastoa aurkitu eta segika bailihoazen, eta batzuetan, itzarturik, oreinen **simulakro** funts gabeei segitzen diete, iheska ikusiko bailituzten, okerra ezabaturik seneratu arte. **Xabier Amuriza**

Gertatzen da baita irudi bat ispilitik ispilura bidaltzea eta bospasei **simulakro** bilakatzea ere. **Xabier Amuriza**

Postaletako Donostia hura **simulakroa** zen, jarraitzen zuen Godotek, eta horren kontra errebelatzea zen beren egitekoa. **Iñaki Iñurrieta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

simulakroa egin (3)

gauzen simulakroak (4)

simulatu, simula, simulatzen 1 du *ad* itxurak egin.

Paripé hitzaren bidez zerbaitetik eduki ez eta edukiko balitz bezalako plantak egitea, edo **simulatzea**, faltsutzea, eta faltsukeria sinesten delakoa egitea. **Jon Alonso**

Dutxan ez dute kantatzen, telebistako eta irratioko **elkarrizketak** simulatzen dituzte. gure kideak estimatzeko eta atsegin irizteko itxura egitearen poderioz, langintzan urte batzuek eman ondoren azkenean zinezkoa bihurtzen da jarrera hori, luzaroan eromena **simulatzen** duena sarritan ero bilakatzen den modu berean. **Unai Elorriaga**

Peter Pettigrewek bere heriotza **simulatu** zuen! **Iñaki Mendiguren**

2 gertakari edo egoera bat artifizialki itxuratu.

Metodoaren funtsa zera da: komunikazio pieza egoki baten aitzakian komunikazio egoera bat **simulatzen** da gelan, abiapuntuko pieza horretan erabili diren estrategiak bistaritzen dira gero, eta, azkenik, ikasleak estrategiak erabiliz bere diskurtsoa moldatzen du. **Joxerra Garzia**

Heldu diren 200 urteetan espazioko zaborraren bilakaera nolokoa izango den **simulatu** dute ikertzaile horiek, eta ikusi dute 2055. urtetik aurrera handitzen hasiko dela. **Berria - Gaiak**

Ereak iritelen direnean euria **simulatu** behar da. **Unai Elorriaga**

Ozonoaren imitazioa da, badakizu, hor gain gainean hamaikaren bat kilometrora ozono geruzan dugun zuloaren ordezen hemen ozono kontzentrazioa **simulatzea** otu zitzaigun. **Joseba Sarrionandia**

Bertsio-eskoletan ere, mikrofonorik ezean, eta plazako egoera hobeto **simulatze**, erratz-kirtenari kantatzen zitzaion. **Andoni Egaña**

simulazio 1 iz gertakari edo egoera bat artifizialki itxuratzea.

Auto istripu baten **simulazioa**. **Txema Ramirez de la Piscina**

Gure erremintekin posible da sistema baten gainean eragin aurretik, **simulazio** bidez, ondorioak ikustea. **Berria - Euskal Herria**

Zentraleko istripu nuklearraren **simulazioak** 14 herriri eragingo die. **Berria - Euskal Herria**

Sistema dinamikoen **simulazioa**. **Berria - Euskal Herria**

Egingo duten **simulazioan** balizko kutsatze kasu bati egingo diote aurre Jauriaritzako adituek. **Berria - Gaiak**

Simulazioa garrantzitsua da, batik bat norbere buruarekin konfidantza hartzeko. **Andoni Egaña**

Gehien-gehienak hutsalak, ordea, **simulazioak** eta irudikeriak baino ez direlako. **Txema Ramirez de la Piscina**

Baina **simulazio** moduko edo irudikapen konkretu horiek ez dira hain egokiak beste pentsamendu mota batzuetarako: pentsamendu sinboliko, kontzeptual edo abstrakturako, kasu. **Xabier Olarra**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Nago, **simulazio** hutsean oinarritu izan dugula gure prestakuntza. **Andoni Egaña**

Bere entrenamendua ez da **simulazio** soilean oinarrituko. **Andoni Egaña**

Egiazko laborategi bat behar dute muntatu, mikroskopia eta **simulazioko** material duinarekin. **Herria**

Txoraturik dabil Pontitoren ordenagailuzko **simulazioen** ideiaz. **Xabier Olarra**

Ordenagailu bidezko **simulazioak** egingo dituzte, besteak beste. **Berria - Harian**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Pertzepzioa dena, pertzepzio hutsak eragiten duen errealtate-efektuaren oso antzeko bat eragiten duen ia-haluzinazio bat bihurtzea da **simulazio**-aparatu. **Josu Zabaleta**

Nik garapen iraunkorraren inguruan landu ditudan **simulazio** modelok garbi erlazionatzen dute munduko populazioa, elikagaiekin eta osasun nahiz hezkuntza zerbitzuekin. **Berria - Euskal Herria**

Munduko 13 herrialdeetako ikasleek hartzen dute parte **simulazio** jolas honetan. **Berria - Ekonomia**

Zer dira **simulazio** sistemak? **Berria - Euskal Herria**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hilketa **simulazioa** gizakiaren duintasunaren aurkakoa da. **Berria - Gaiak**

Frantziako Canal Pluseko kazetari batzuek atzo salatu zuten, soldaduek atxilotu eta «exekuzio **simulazioa**» egin zieten askatu aitzin. **Berria - Mundua**

5 itxurak egitea.

Bertan dena da **simulazioa**, itxurakeria, bikoizketa eta mozorroa. **Joxean Agirre**

Tortura metodoen **simulazioak**: estutu gabe buruan poltsa jartzea, edo elektrodoak balira legez kableak erakustea... **Berria - Harian**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

simulazio bat egingo (3)

sinadura (orobat *siñadura* g.er.) 1 iz norberaren izena iruditzaken duen marrakia, beti era berean egiten dena, izkribu baten egiazkotasuna adierazteko edo haren erantzukizuna hartzeko erabiltzen dena. ik **izenpe**.

Sentimendu kontrajarri horiek guztiak desagertu egin ziren ordea, paper hartan, bere **sinadura** ikusi zuenean, eta bere sinaduraren pean, amesgaiztoa borobilduz, bere izena eta lehen bi deiturak. **Harkaitz Cano**

Behaldez, letra argiz idatzirik, *king c. gillette* **sinadura** irakur zitekeen. **Lopez de Arana**

Eta **sinadura**: Angie. **Iñaki Zabaleta**

Maraten **sinadura** zeukaten pasa-agiriak zeramatzaten arren, gerra garai hartan bide guztiak ziren arrakatsak. **Felipe Juaristi**

Ale bat erosi nian, **sinadura**, eskaintza eta guzti. **Iban Zaldúa**

Ez dut sekula zalantzan jarri **sinadura** haien benetakotasuna. **Ander Irizar**

Dean Thomas, lumarekin trebea baitzen, baimen-orrian osaba Vernonen **sinadura** faltsifikatzeko prest agertu zen. **Iñaki Mendiguren**

Aditua ez bazen ere, bitan behintzat, nahiko ezaguna zen pintore baten **sinadura** ikusi zuen. **Migel Angel Mintegi**

Ezin irakurritzko **sinadura** bat zegoen idatziaren azpian. **Koro Navarro**

Grafologoen baietz, **sinadura** emakumearena zela. **Gotzon Garate**

Hala ere, **sinadura** ederra zuen, harrotasunez ikasia, hain ziur. **Edorta Jimenez**

Herritarren **sinadurak** biltzen ari zela. **Joan Mari Irigoien**

Castejongo zentralaren aurka 50.000 **sinadura** bildu ziren Erriberan. **Edurne Elizondo**

Elkarrizketa foroaren aldeko 100.000 **sinadura** lortu ditu Elkarrizketa. **Berria - Euskal Herria**

Mendea bukatzen ari ginenean **sinadura** digitala garatzen ari ziren euskal epaitegiak. **Pello Salaburu**

2 *hed* artikulua edo kideko baten behealdeko izena.

Isabel Sanjoserren **sinadura** aurkitu berria nuen hainbertze asaldatu ninduen albistearen azpian. **Aingeru Epaltza**

Ohiko poster edo iragarki batean ondorengo elementu hauek auzaltzen dira, normalean: irudia, titulua, azpititulua, testua eta **sinadura**. **Txema Ramirez de la Piscina**

Sinaduran erreparatu eta esperotakoa: "Erredakzioa". **Iñigo Aranbarri**

3 *irud*

Orain ez dakit, nola esango nuke, urte batzuk baditut, eta uste dut adin honetan maitasunak nire bihotzean uztea interesatzen zaidan **sinadura** bakarra barre zoroa dela... **Pako Aristi**

Denak tiroz josiak zeuden, metalezko paretek metraileten **sinadura** zeramaten. **Fernando Rey**

Porlanetan utzi diat nire **sinadura**, tango bat! **Harkaitz Cano**

4 (hitz elkartuetan)

Izan baitira erasiak, protestak, **sinadura** biltzeak eta manifestaldiak kontra egiteko. **Herria**

Sinadura nahasteak-eta ez badira, egunkariak ez dute ohikoa okerrak zuzentzea. **Iñigo Aranbarri**

14-15 urte ditugunean egolatria-fase bete-betean egon ohi gara: horoskopoa irakurri, **sinadura** -modu berriak probatu, nortasun-testak bete **Xabier Mendiguren Elizegi**

5 sinatzea.

Akordioaren **sinadurara** atzo azaldu ziren 11 senitartekoez euren poza azaldu zuten ondorio honetaz. **Berria - Mundua**

Paperen artean, andrea eta bion argazki bana zegoen, bai eta **sinadura egiteko** lekuan zirriborro bana ere. agiriaren irakurketa osoan bertan egonak zirela ziurtatu behar baitzuten beren **sinadurekin**. **Javi Cillero**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abiatutako sinadura (3); aldeko sinadura (10); aldeko sinadura bilketa (3); aurkako sinadura (4); aurkako sinadura bilketa (3); behar adina sinadura (3); bere sinadura (12); beren sinadura (4); milaka sinadura (4)

sinadura aurkeztu (16); sinadura aurkeztu zituzten (5); sinadura bildu (48); sinadura bildu dituzte (15); sinadura bilketa (70); sinadura bilketa abiatu (4); sinadura bilketa egin (5); sinadura bilketa egingo (3); sinadura bilketa hasi (4); sinadura bilketak (9); sinadura bilketan (9); sinadura bilketaren (6); sinadura bilketari (4); sinadura biltzea (4); sinadura biltzeko (8); sinadura biltzen (4)

sinadura ekitaldia (3); sinadura ekitaldian (3); sinadura eman (11); sinadura emateko (3); sinadura eraman (4); sinadura erregistratu (3); sinadura gehien bildu (3)

sinadura ikusi (3); sinadura jarri (3); sinadura jaso (12); sinadura jaso dituzte (6); sinadura kopuru (3); sinadura lortu (16); sinadura lortu ditu (6); sinadura lortzeko (3); sinadura mordoia (3)

sinadura zeraman (4)

sortzeko sinadura (3)

aldeko sinadurak (11); aldeko sinadurak biltzen (4); aurkako sinadurak (6); aurkako sinadurak biltzen (4); bazkideen sinadurak (3); beharrezko sinadurak (3); bildutako sinadurak (6); eskatzeko sinadurak (4); herritarren sinadurak (7); izateko sinadurak (3); jasotako sinadurak (3); pitermanen aurkako sinadurak (4)

sinadurak aurkeztu (4); sinadurak batzen (4); sinadurak bildu (23); sinadurak bildu dituzte (5); sinadurak bilduko (8); sinadurak bilduko dituzte (6); sinadurak biltzea (5); sinadurak biltzeari ekin (3); sinadurak biltzeko (31); sinadurak biltzeko kanpaina (4); sinadurak biltzeko mahaia (4); sinadurak biltzen (50); sinadurak biltzen jarraitzen (5)

sinadurak egiaztatzeko (6); sinadurak eskatzen (3)

sinadurak lortu (4)

sinadurak onartu (3)

sinaduraren bidez (4)

sinadurekin batera (3)

sinaduren baliogarritasuna (3)

sinadura *(orobat **siñadura** g.er.)* 1 iz norberaren izena iruditzaken duen marrazkia, beti era berean egiten dena, izkribu baten egiazkotasuna adierazteko edo haren erantzukizuna hartzeko erabiltzen dena. ik **izenpe**.

Sentimendu kontrajarri horiek guztiak desagertu egin ziren ordea, paper hartan, bere **sinadura** ikusi zuenean, eta bere sinaduraren pean, amesgaiztoa borobilduz, bere izena eta lehen bi deiturak. **Harkaitz Cano**

Behaldean, letra argiz idatzirik, *king c. gillette* **sinadura** irakur zitekeen. **Lopez de Arana**

Eta **sinadura** : Angie. **Iñaki Zabaleta**

Maraten **sinadura** zeukaten pasa-agiriak zeramatzaten arren, gerra garai hartan bide guztiak ziren arriskutsuak. **Felipe Juaristi**

Ale bat erosi nian, **sinadura**, eskaintza eta guzti. **Iban Zaldúa**

Ez dut sekula zalantzan jarri **sinadura** haien benetakotasuna. **Ander Irizar**

Dean Thomas, lumarekin trebea baitzen, baimen-orrian osaba Vernonen **sinadura** faltsifikatzeko prest agertu zen. **Iñaki Mendiguren**

Aditua ez bazen ere, bitan behintzat, nahiko ezaguna zen pintore baten **sinadura** ikusi zuen. **Migel Angel Mintegi**

Ezin irakurrizko **sinadura** bat zegoen idatziaren azpian. **Koro Navarro**

Grafologoek baietz, **sinadura** emakumearena zela. **Gotzon Garate**

Hala ere, **sinadura** ederra zuen, harrotasunez ikasia, hain ziur. **Edorta Jimenez**

Herritarren **sinadurak** biltzen ari zela. **Joan Mari Irigoien**

Castejongo zentralaren aurka 50.000 **sinadura** bildu ziren Erriberan. **Eduarne Elizondo**

Elkarrizketa foroaren aldeko 100.000 **sinadura** lortu ditu Elkarrizketa. **Berria - Euskal Herria**

Mendea bukatzen ari ginenean **sinadura** digitala garatzen ari ziren euskal epaitegiak. **Pello Salaburu**

2 hed artikulu edo kideko baten behealdeko izena.

Isabel Sanjosereren **sinadura** aurkitu berria nuen hainbertze asaldatu ninduen albistearen azpian. **Aingeru Epaltza**

Ohiko poster edo iragarki batean ondorengo elementu hauek azaltzen dira, normalean: irudia, titulua, azpititulua, testua eta **sinadura**. **Txema Ramirez de la Piscina**

Sinaduran erreparatu eta esperotakoa: "Erredakzioa". **Iñigo Aranbarri**

3 irud

Orain ez dakit, nola esango nuke, urte batzuk badituz, eta uste dut adin honetan maitasunak nire bihotzean uztea interesatzen zaidan **sinadura** bakarra barre zoroa dela...

Pako Aristi

Denak tiroz josiak zeuden, metalezko paretek metrailaten **sinadura** zeramaten. **Fernando Rey**

Porlanetan utzi diat nire **sinadura**, tango bat! **Harkaitz Cano**

4 (hitz elkartuetan)

Izan baitira erasiak, protestak, **sinadura** biltzeak eta manifestaldiak kontra egiteko. **Herria**

Sinadura nahasteak-eta ez badira, egunkariak ez dute ohikoa okerrak zuzentzea. **Iñigo Aranbarri**

14-15 urte ditugunean egolatria-fase bete-betean egon ohi gara: horoskopoa irakurri, **sinadura** -modu berriak probatu, nortasun-testak bete **Xabier Mendiguren Elizegi**

5 sinatzea.

Akordioaren **sinadurara** atzo azaldu ziren 11 senitartekoez euren poza azaldu zuten ondorio honetaz. **Berria - Mundua**

Paperen artean, andrea eta bion argazki bana zegoen, bai eta **sinadura egiteko** lekuan zirriborro bana ere. agiriaren irakurketa osoan bertan egonak zirela ziurtatu behar baitzuten beren **sinadurekin**. **Javi Cillero**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abiatutako sinadura (3); aldeko sinadura (10); aldeko sinadura bilketa (3); aurkako sinadura (4); aurkako sinadura bilketa (3); behar adina sinadura (3); bere sinadura (12); beren sinadura (4); milaka sinadura (4)

sinadura aurkeztu (16); sinadura aurkeztu zituzten (5); sinadura bildu (48); sinadura bildu dituzte (15); sinadura bilketa (70); sinadura bilketa abiatu (4); sinadura bilketa egin (5); sinadura bilketa egingo (3); sinadura bilketa hasi (4); sinadura bilketak (9); sinadura bilketan (9); sinadura bilketaren (6); sinadura bilketari (4); sinadura biltzea (4); sinadura biltzeko (8); sinadura biltzen (4)

sinadura ekitaldia (3); sinadura ekitaldian (3); sinadura eman (11); sinadura emateko (3); sinadura eraman (4); sinadura erregistratu (3); sinadura gehien bildu (3)

sinadura ikusi (3); sinadura jarri (3); sinadura jaso (12); sinadura jaso dituzte (6); sinadura kopuru (3); sinadura lortu (16); sinadura lortu ditu (6); sinadura lortzeko (3); sinadura mordoia (3)

sinadura zeraman (4)

sortzeko sinadura (3)

aldeko sinadurak (11); aldeko sinadurak biltzen (4); aurkako sinadurak (6); aurkako sinadurak biltzen (4); bazkideen sinadurak (3); beharrezko sinadurak (3); bildutako

sinadurak (6); **eskatzeko sinadurak** (4); **herritarren sinadurak** (7); **izateko sinadurak** (3); **jasotako sinadurak** (3); **pitermanen aurkako sinadurak** (4); **sinadurak aurkeztu** (4); **sinadurak batzen** (4); **sinadurak bildu** (23); **sinadurak bildu dituzte** (5); **sinadurak bilduko** (8); **sinadurak bilduko dituzte** (6); **sinadurak biltzea** (5); **sinadurak biltzeari ekin** (3); **sinadurak biltzeko** (31); **sinadurak biltzeko kanpaina** (4); **sinadurak biltzeko mahaia** (4); **sinadurak biltzen** (50); **sinadurak biltzen jarraitzen** (5); **sinadurak egiaztatzeko** (6); **sinadurak eskatzen** (3); **sinadurak lortu** (4); **sinadurak onartu** (3); **sinaduraren bidez** (4); **sinadurekin batera** (3); **sinaduren baliogarritasuna** (3)

sinagoga *iz* juduak otoitz egitera eta Moisesen doktrina entzutera biltzen diren etxea; juduen erlijiozko batzarra.

Sinagoga gehienetan hitz egin dut. **Koro Navarro**
Gogoan dut oso deseroso egon nintzela **sinagogako** zeremoniak irauin zuen denbora guztian. **Anjel Lertxundi**
Spinola, italiar faltsua, kristau faltsua, aitorzera ausartzen ez bazen ere judua baitzen odolez, edo hori aipatzen zuten Portugalدارren **Sinagogako** ofizioetan. **Felipe Juaristi**
Sinagogara otoi egitera joango da. **Berria - Harian**
Gure hiriko **sinagoga** nagusiaren kontra egindako ekintza basati batean. **Josetxo Azkona**
Lehenbiziko hirurak atributuak ere ez ginateke esatera ausartuko, baldin eta Moisesek Legean aipatu ez balitu eta **Sinagoga** Handiko gizonek otoitzean finkarazi ez balituzte. **Xabier Kintana**
Mementoaren xarma paregabeak lagunduta, are Santa Maria Jus-eko **Sinagoga** zaharra sumatu nuen, eta bertako judu gorrotatuak. **Txillardegi**
Sinagogako arduradunetako bat, hiriko komunitate juduan zaharrenetakoa, desagertua zegoela arratsaz geroztik. **Josetxo Azkona**
Bi aldiz madarikatuak izan ziren, elizan batetik eta **sinagogan** bestetik. **Felipe Juaristi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sinagoga handiko gizonek (4)
sinagogako buruzagiaren (3)
sinagogan sartu (4)
sinagogara joan zen (3)
sinagogetan irakasten (3)

sinagogazain *iz* sinagoga bat zaintzen duen pertsona.

Monje budistak, eskaleak, eskribak, guruak, koro-arduradunak, **sinagogazainak**, fakirrak, elizainak, beneragarriak, errebibalistak, zenobitak, [...]. **Xabier Olarra**

sinalamentean ik **seinalamentean**.

sinalatu ik **seinalatu**.

sinale ik **seinale**.

sinale ik **seinale**.

sinalefa *iz* hitz baten amaierako eta hurrengoaren hasierako bokalak silaba bakar gisa ebakitzea.

Irizpide batzuk jarri genituen, metrika lantzeko, errima, **sinalefa**, bukarako arrazoa... ariketa ezberdinen bidez bertsoaren atal ezberdinak jorratzeko, eta baita gaiari dagozkionak ere. **Berria - Kultura**

sinapsi 1 *iz* bi neuronen elkartze gunea.

Axoiak, hala ere, ez du benetako kontakturik egiten dendritarekin, baizik eta, bat-batean gelditu, eta tarte bat uzten du (**sinapsi** delakoa), hazbete baten milioienaren neurrikoa gutxi gorabehera. **Irene Aldasoro**

Seinale elektrikoa **sinapsia** gainditzeko gai ez bada ere, eragile kimikoak nahikoa erraz gainditzen du, eta hala transmititzen da mezua. **Irene Aldasoro**

Irakodki izan da sartzen diren seinaleek eraldatu egiten dituztela neurona auzoen arteko konexioak eratzten dituzten **sinapsiak**, hartara ondorengo bulkadei pasatzen uzteko.

Irene Aldasoro

Erretinako hartzaile bakoitza nerbio-zelula banari lotuta dago **sinapsi** deitzen den errele baten bidez. **Josu Zabaleta**

Sinapsiak, adibidez, ez dira errele soilak; eginkizun eraginkorra dute, "kitzikatzaile" baitira batzuk, eta "inhibitzaile" besteak. **Josu Zabaleta**

2 (hitz elkartuetan)

Zelula hauen arteko komunikazioak oso konplexuak dira: aipatu diren bi **sinapsi** maila horiez gainera, badira beste zehar-lotura asko ere, zelula horiek sareetan biltzen dituztenak (aurreraxeago ikusiko ditugu horren ondorio batzuk). **Josu Zabaleta**

sinaptiko *izond* sinapsiarena, sinapsiari dagokiona.

Soziologia konputazionala eta kartografia **sinaptikoa** izango dute mintzagai Biltzarrera batzen diren adituek. **Berria - Kultura**

sinarazi, sinaraz, sinarazten du *ad* sinatzera behartu.

-Kondenatuari sententziaren ohartarazpena **sinarazten** ahaztu zitzaian. **Edorta Jimenez**

Ekintza terroristei uko egiteko' konpromisoa zehazten zuen papera **sinarazi** zieten atzo askatutakoei. **Iñigo Aranbarri**

Lauaxeta pantanuan, gure aitona ez, egun batean beren askapen-agiria **sinarazi** zieten berari eta beste errepublikar batzuei, alkateari adibidez, kamioi batean sartu eta Azatzeta mendaterantz eraman zituzten egunsentia baino lehen. **Mikel Hernandez Abaitua**

Autokritika bat **sinarazi**? **Koldo Izagirre**

Gero, faxistak han sartu zirenean, gezur mordo hura **sinarazi** zioten. **Edorta Jimenez**

sinatu, sina, sinatzen (*3218 agerraldi, 159 liburu eta 1750 artikulutan; orobat **siñatu** g.er.*) **1** du *ad* norbaitek izkribu baten azpian, egilea dela edo adierazten denaz bat datorrela aditzera emateko, bere sinadura ezarri; zerbait onartzen dela sinadura ezarri adierazi. ik **izenpetu**.

Paperak **sinatzen** dituzte, eta kanpalekuari buruz bagoaz, bosnazka lerrotaturik. **Marzel Etxehandi**

Agiri bat **sinatu** genuen biok, eta gero erditik zatitu genuen: zati bat niri eman zidan Gabaelek eta bestea berari eman nion nik, diruarekin batera gorde zezan. **Jose Antonio Mujika**

[Palindromo] hori "Txadin" **sinatzen** zuen neska batek bidali zuen. **Iñaki Arranz**

Galdetu zion ea bazuen eroste-agiria **sinatzeaz** eta gainerako eginbideez ardura zitekeen ahaldukin edo ezagunik hirian. **Jose Morales**

Ikaratuta, minbera, aitorpena **sinatu** nuen azkenean. **Rafa Egiguren**

New York-eko zabalgunerako proiektua **sinatu** du. **Lopez de Arana**

Martxoko egun eder batean, Saddam Hussein irakiarrak hitzarmen bat **sinatu** zuen Iraneko Xa-rekin; galdua genuen azken euskarria. **Juan Kruz Igerabide**

1929ko otsailaren 11n **sinatu** ziren Letrango Itunak eta, ondorioz, 44 kilometro koadroko estatu berri bat sortu zen monarkia absolutu gisa. **Pello Salaburu**

Eisenhower presidentea itunak **sinatu** zituen Francorekin hango armadaren gotorlekuak jartzeko Zaragozan. **Pello Salaburu**

Armistizioa irailaren 3an **sinatu** zen, ingelesak Italian lehorreratu ziren egun berean. **Josu Zabaleta**

Esaten didate autoa berria balitz bezain ondo dagoela, Al Zaharrak bere zerbizuegatik zor didanaren faktura eskuratzen dit, eta txeke bat **sinatu** eta ematen diet uanean bertan. **Oskar Arana**

Argazkiak **sinatzen**? **Iñaki Mendiguren**

Nire ohe aurreko margolana **sinatzen** zuen artistarenean. **Bernardo Atxaga**

Ez nintzen arrotz sentitzen, liburu bat **sinatzen** ari banintzen. **Josu Zabaleta**

Buruzagiak bostekoa eman zion eta aitak liburuan **sinatu** zuen. **Jon Maia**

Sinatu gabe daude eta nik ezin ditut kobratu, baina zuk, atzeritarra izanda, agian bai. **Jon Arretxe**

Nik ez nuen kontratu-paperik **sinatu**, eta berak ez zidan titulu-paperik eskatu. **Joxerra Garzia**

Albistea Reuters berri-agentziak **sinatzen** du. **Lutxo Egia**

Nork **sinatu** zuen?, nor izan ziren lekukoak? **Jose Morales**

Sinatu hemen... eta hemen. **Lopez de Arana**

Hamabostean behin gure herriko ertzain-etxean **sinatzera** agertzeko aginduarekin. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Permachi egunero **sinatzera** joateko agindu dio, eta besteen egoera ez du aldatu. **Iñigo Aranbarri**

2 (eta burutua izenondo gisa)

Nor ari da argazki **sinatuak** ematen? **Iñaki Mendiguren**

Lehenbiziko edizioak, are lehenbiziko edizio **sinatuak** ere. **Oskar Arana**

Sinatuetan, aldiz, ageriago da nolabaiteko nahiera: "bazterkeriaren eta arrazakerien kontra piztutako liskarrek 13. suzko gaua izan zuten herenegun". **Iñigo Aranbarri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

abenduan sinatu (5); adierazpena sinatu (9); adierazpena sinatu zuten (5); agiri bat sinatu (6); agiria sinatu (34); agiria sinatu dute (6); akordio bat sinatu (26); akordioa sinatu (150); akordioa sinatu ondoren (5); akordioa sinatu zenetik (4); akordioa sinatu zuten (51); akordioak sinatu (12); alde sinatu (4); atzo bertan sinatu (5); atzo sinatu (15); atzo sinatu zuten (8); aurreakordioa sinatu (7)

bake akordioa sinatu (13); bake ituna sinatu (6); bakea sinatu (7); bi urterako sinatu (4)

deklarazioa sinatu (4); dekretua sinatu (5); denboraldirako kontratua sinatu (8); dokumentua sinatu (10)

egiteko akordioa sinatu (4); elkarlanerako hitzarmena sinatu (5); epaia sinatu (4); eragilek sinatu (4); etena sinatu (10)

gehigarria sinatu zuen (4)

hiru urterako sinatu (5); hitzarmen bat sinatu (22); hitzarmen demokratikoa sinatu (11); hitzarmen kolektiboa sinatu (8); hitzarmena sinatu (133); hitzarmena sinatu ondoren (4); hitzarmena sinatu zuten (47); hitzarmenak sinatu (9)

idatzia sinatu (4); itun bat sinatu (5); ituna sinatu (100); ituna sinatu zuten (16); itunak sinatu (4); izenez sinatu (4)

konpromisoa sinatu (4); konstituzioa sinatu (7); kontratu bat sinatu (6); kontratua sinatu (64); kontratua sinatu du (27); kontratuak sinatu (5); kyotoko protokoloa sinatu (4)

lan hitzarmena sinatu (9); lan ituna sinatu (4); lankidetzak akordioa sinatu (6); lankidetzak hitzarmena sinatu (5); luzapena sinatu (4)

manifestua sinatu (16); manifestua sinatu dute (5)

ohd sinatu (4); ordezkariak sinatu (5)

proposamena sinatu (4); protokolo bat sinatu (4); protokoloa sinatu (16); protokoloa sinatu zuten (6)

sinatu arren (6); sinatu aurretik (13); sinatu du kontratua (4); sinatu dutenen artean (4); sinatu eta biharamunean (4); sinatu eta gero (5); sinatu gabe (15); sinatu hemen (6); sinatu izan (4); sinatu ondoren (27); sinatu ostean (5); sinatu zen (37); sinatu zuen (186); sinatu zuten akordioa (12)

sindikatuak sinatu (4); su etena sinatu (10); ugaltzeko ituna sinatu (6); urteko kontratua sinatu (7)

argazki sinatuak (5)

akordioa sinatuko (5); bihar sinatuko (4); datorren astean sinatuko (4); gaur sinatuko (6); hitzarmena sinatuko (12); hitzarmena sinatuko dute (4); ituna sinatuko (12); kontratua sinatuko (9); kontratua sinatuko du (7); protokoloa sinatuko (5)

sinatuko du kontratua (5); urteko kontratua sinatuko (4)

atzo sinatutako (7); batera sinatutako (4); euskarara itzultzeko sinatutako (4); herenegun sinatutako (4); itzultzeko sinatutako hitzarmenaren (4); psoek sinatutako (8)

sinatutako agirian (5); sinatutako akordio (4); sinatutako akordioa (15); sinatutako akordioak (16); sinatutako akordioaren (9); sinatutako akordioaren arabera (5); sinatutako akordioari (6); sinatutako hitzarmena (7); sinatutako hitzarmenak (5); sinatutako hitzarmenaren (12); sinatutako hitzarmenaren arabera (5); sinatutako hitzarmenaren barruan (4); sinatutako ituna (7); sinatutako kontratuen (5); sinatutako lan (4); sinatutako mailgutasun (4); sinatutako su (4); sinatutako terrorismoaren aurkako (5); udalak sinatutako (4); udalarekin sinatutako (4)

akordioa sinatzea (4); hitzarmena sinatzea (10); kontratua sinatzea (6); sinatzea erabaki (8)

agiria sinatzeko (10); agiria sinatzeko eskatu (4); akordioa sinatzeko (12); akordioak sinatzeko (4); etxean sinatzeko (4); ez sinatzeko (7); hitzarmena sinatzeko (23); ituna sinatzeko (9); kontratua sinatzeko (9); lan hitzarmena sinatzeko (5); lan ituna sinatzeko (5); protokoloa sinatzeko (4)

sinatzeko asmoz (4); sinatzeko aukera (9); sinatzeko baldintzarekin (4); sinatzeko ekitaldia (4); sinatzeko epea (4); sinatzeko eskatu (9); sinatzeko exijitu (4); sinatzeko garaian (4); sinatzeko prest (12)

autografoak sinatzen (4); hitzarmena sinatzen (5); ituna sinatzen (5); liburuak sinatzen (4); sinatzen dugunok (4)

alde sinatzera (5); aurrean sinatzera (4); sinatzera behartu (8); sinatzera joan (10); sinatzera joateko (4)

sinatu, sina, sinatzen (*3218 agerraldi, 159 liburu eta 1750 artikulutan; orobat **siñatu** g.er.*) **1** du *ad* norbaitek izkribu baten azpian, egilea dela edo adierazten denaz bat datorrela aditzera emateko, bere sinadura ezarri; zerbait onartzen dela sinadura ezarri adierazi. ik **izenpetu**.

Paperak **sinatzen** dituzte, eta kanpalekuari buruz bagoaz, bosnazka lerrotaturik. **Marzel Etxehandi**

Mundua

Berrikitan sinatu da Miarrizeko udaletxean Biarritz Olympique errugbi batasuna eta Miarrizeko euskal taldeen artean, **sinatzaile** zirela ere Euskaltzaindia eta Euskal Kultur Erakundea, hitzarmen bat dioena euskara sartuko dela kirol zelaian jokatuko diren partidetan. **Herria**

Francoren garaiko zentsuraren arduradun, heriotza-zigorren **sinatzaile**, Gasteizko hilketen eragile harro. **Joxerra Garzia**

sinatze 1 iz norbaitek, izkribu baten azpian, haren egilea dela edo adierazten denaz bat datorrela aditzera emateko, bere sinadura ezartzea; zerbait onartzen dela sinadura ezarriz adierazea.

Sinadura kanpaña bat badabila han 120.000 **sinatze** ukan dituena lege laxoago baten aldekoa. **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Iñaki Mendiguren ere azken urteetan beterano bihurtu da azokan, **sinatze** lanetan. **Berria - Kultura**

Sinatze ekitaldian, Gipuzkoako ahaldu nagusiaz eta Zarauzko alkateaz gain, Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkariak, Jose Miguel Corres EHUko Berrilikerketa, dibulgazioa eta kontserbazioa erakunde horiekien elkarlanean garatuko dira. **Berria - Kultura**

Sinatze ekitaldian azaldu zutenez, «herrien errealitateak» Europan ere onartzea izango da Galeusca-Europako Herriak koalizioaren helburu nagusia. **Berria - Euskal Herria**

sinbiosi 1 iz bi organismoren arteko elkartze edo harreman iraunkorra, bientzat onuragarria dena.

Nunu besterik ez nuen; harekin **sinbiosi** berezian bizi nintzen, hala nola mihura eta zuhaitza, eta biotan inork ez genekien nor zen bizkarroia eta nor arbola. **Ander Irizar**

2 irud/hed

Sinbiosi guztietan bezala, harremana bi aldean mesederako da: birusak azkarrago zabaltzea lortzen du mezu faltasun bidez, eta bidea irekitzen du zabor-mezu gehiago zabal daitezela. **Berria - Gaiak**

Ekonomia terminoak bi greziar hitzen **sinbiosian** baititu erroak: *oikos*, etxea, eta *nomos*, gobernu edo gidaritza. **Iñaki Heras**

Naturaren eta arkitekturaren arteko **sinbiosia** zena kirolgune bilakatu du Donostiako Udalak. **Berria - Kultura**

Arrazoiaren eta erriutalaren **sinbiosi** adiskidetsuaren aurrekari itxaropentsuan oinarrituta. **Iñaki Mendiguren**

Edertasunaren eta indarraren **sinbiosi** perfektuak eraikia bezala du eliza. **Piarres Aintziart**

3 (hitz elkartuetan)

Emaitza paradoxal batekin, joera arriskutsua gararazi baitute nigan maltzur benetako batekin lotzeko **sinbiosi** -bidez. **Juan Garzia**

sinbiosikide iz sinbiosiaren kidea.

Alberto **sinbiosikide** ideal bat zen, bere maltzurutasuna nire kaltean erabiltzeari uko egiten baitzion **Juan Garzia**

sinbiotiko izond sinbiosiarena, sinbiosiari dagokiona.

Ama eta biak nolabaiteko intimitate eta hurbiltasun aurreedipiko ia **sinbiotikoan** murgilduak ziren, nonbait berriro. **Xabier Olarra**

Demokrazietan -eta Espainiakoa Italiakoa edo Frantziakoa bezain ona da-, Armada **Sinbiotikoa** edo Baader Meinhoff bezalako taldeak sor daitezke, ez Liberazio Mugimendurik. **Bernardo Atxaga**

sinbolika iz sinbolismoa.

Egun hori kristautasunak hautatu du, Jondoni Batista (bataiatzailea) ospatzeko; **sinbolika** azkarra du. **Herria**

Horrek eragin litzakeen arazoaren konplexutasunak eta Frantziako Koparen **sinbolikak** helegite batzordea Baionako taldearen proposamena ez onartzera bultzatu dute.

Berria - Kirola

Diskurtso mota berri bat sortzeko premiaren kontzientzia berdinarekin bizi gara, adimena eta ezagutza zer poetikoaren, ametsaren eta zer primitiboaren esparrura bazterturiko **sinbolikaren** erreskatearekin bilduko dituen diskurtsoa. **Xabier Amuriza**

sinboliko 1 izond sinboloari dagokiona; sinbolo bidezkoa

Kreatzailearen pasadizo **sinboliko** klasikoak ditu poemak: Beherapena, Heriotza, Pizkundea. Ez dakit nik Landartek irakurketa **sinboliko** bat proposatu nahi digun; ez dakit anaia hilari Abel izena ematean beste guztiok, oharkabean bezala, Kain bihurtzen gaituen. italiar horren arabera, pertsonaia **sinbolikoa** da Homero, Pluton edo Akiles-en antzera. **Joseba Zulaika**

Egun **sinbolikoa** hautatu nahi nuen. **Daniel Landart**

Funtzio **sinboliko** guztiak bezala, hau ere era askotakoa izan daiteke, indarrean dauden sinbolismoen arabera. **Josu Zabaleta**

Bizitzaren hizkuntza **sinboliko** eta berezia mila modu desberdinetan mintzatzen zaiguk horrelako egunetan, eta, guztia oharpen eta seinale bihurtzen denez, haiek diotena ulertzea besterik ez duk falta. **Xabier Olarra**

Irudikapen konkretu horiek ez dira hain egokiak beste pentsamendu mota batzuetarako: pentsamendu **sinboliko**, kontzeptual edo abstrakturako, kasu. **Xabier Olarra**

Xake taula denboraren errepresentazio **sinbolikoa** dela. **Bernardo Atxaga**

Zinema klasikoaren muntaketa "gardenaren" garapena gertaeren denboraren irudikapen **sinboliko** konbentzionalen oinarritzen da. **Josu Zabaleta**

Idazle hauen mundu **sinbolikoak** eta hizkerak Biblian du bere iturri aberatsena. **Askoren artean**

Perspektiba zentratuak [...] ongi erakusten du, gehienez kontuan hartzen ez badugu ere, aukera ideologiko, edo, zentzu zabalagoan, **sinboliko** bat egin dugula: gizakiaren ikuspena irudikapenaren arau bihurtzea. **Josu Zabaleta**

Gottlob Frege, Bertrand Russell, Alfred N. Whitehead eta Ludwig Wittgenstein-en logika **sinboliko** sortu berria, logika matematikoa. **Askoren artean**

Lehena **sinboliko** eta esoterikoa da; bigarrena filosofiko eta frogatzailea. **Joan Mari Lekuona**

2 (izenondo elkartuetan)

Pixkana-pixkana, ikasketek aurrera egin ahala, euskararen mundutik urrutiratzen eta euskarak bere baitan duen mundu **sinboliko** -afektibotik urrutiratzen hasi nintzen.

Anjel Lertxundi

Hemen desagertu da amona, aienatu da umea eta suntsitu da poeta bisitaria ere, maila errealista-deskriptiboa utzi eta **sinboliko** -ideologiko hutsean ari baita egilea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gainera, baginatik odola botatzea gaixotasuntzat jo izan da, edo, pentsaera magiko-**sinboliko** baten arabera, egoera zikintzat, eta, osatzeko edo garbitzeko, hainbat erritu magiko asmatu izan dira. **Luis Elberdin**

Beste pasarte batek erakutsi zien modu are argiagoan erredaktore anitzen kontua; bat-batean, itzulgaiaren joera antropologiko-**sinboliko** halako bat zuen testua aurkitu zutenean. **Iñaki Iñurrieta**

3 sinbolo balioa duena.

Horren truke, Büren eskualdeko udalak reichmudeko bateko errenta **sinbolikoa** jasotzen du urtean. **Alberto Ladrón Arana**
Ekintza txiki **sinbolikoak**, hala nola hil-mezua idaztea, hitzak eta izenak aukeratzea, argitaratze epea errespetatzea, lerroak kontatzea. **Joxan Elozegi**
Uribetarrei ere lur asko kendu zieten gerra bukatutakoan, prezio **sinbolikoan** beti, miseria bat. **Mikel Hernandez Abaitua**
Zuloaga eskolak bi egunez «**era sinbolikoan**» gaztetxe bilakatzea nahi zuten gazteek. **Berria - Euskal Herria**
Erakundein min ematea, betiere modu **sinbolikoan**, bilera bat izorratuz, edo ekintza zehatz bat zapuztuz. **Eduarne Elizondo**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

balio sinboliko (9); **ekintza sinboliko** (3); **esanahi sinboliko** (3); **forma sinboliko** (5); **forma sinboliko bezala** (4); **leku sinboliko** (4); **mundu sinboliko** (5); **okupazio sinboliko** (3); **prezio sinboliko** (3); **sinboliko handia** (4); **sinboliko hori** (8); **zentzu sinboliko** (3)
balio sinbolikoa (11); **ekintza sinbolikoa** (8); **ekitaldi sinbolikoa** (3); **forma sinbolikoa** (3); **keinu sinbolikoa** (3); **kutsu sinbolikoa** (5); **oso sinbolikoa** (3); **sinbolikoa izan** (8); **sinbolikoa izan zen** (3); **sinbolikoa izango** (8); **sinbolikoa izango da** (4); **soilik sinbolikoa** (3); **zikiratze sinbolikoa** (5)
balio sinbolikoan (3); **era sinbolikoan** (3); **modu sinbolikoan** (3); **okupazio sinbolikoan** (3)
aita sinbolikoaren (3); **zikiratze sinbolikoaren** (4)

sinbolikoki 1 *adlag* era sinbolikoan.

Tradizio handiko bitxi denda bat erosi zuen MacDonald's-ek, eta hura eskandalu bihurtu zen batzuen ustez, nahiz **sinbolikoki** ederki erakusten zuen noraino zen egia globalizazioaren kontu hau guztia. **Pello Salaburu**

-Ez al duzu inoiz entzun nor bere gurasoak hil behar dituela, **sinbolikoki** bada ere, hori delako bizitzan hazteko modu bakarra? **Joan Mari Irigoien**

Ez du estatus sozial edo ekonomiko berezirik, ez da bere berezko inguruetik ez fisikoki ez **sinbolikoki** ez ekonomikoki urruntzen. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Gero, handik ez oso urrun ikusten zen Askatasunaren Estatuak erakarri nau, neure egoeran, besterik ez bada ere, **sinbolikoki** laguntzen zidalako. **Patxi Zubizarreta**

Herri elkargoak proposamena luzatu zion Coumet jaunari, Eihartzearen biltzar nagusi batean: utzi Eihartzea etxea herri elkargoari (euro baten truk, **sinbolikoki**) eta Herri elkargoak eginen zituela lanak eta beste. **Herria**

2 sinbolo bidez.

Multzoa • bada, eta A •-n dauden formulen ondorio logikoa bada, **sinbolikoki** • • =A idatziko dugu. **Askoren artean**

A eta B formulak balioekin semantikoak direla diogu, eta **sinbolikoki** A • B idatzi, baldin eta bakarrik baldin A B-ren ondorio semantikoa bada eta B A-rena, hau da, A=B eta B=A baldin baditugu. **Askoren artean**

sinbolikotasun *iz* sinbolikoa denaren nolakotasuna.

Ikonologiaren "iraultza" [...] irizpide bezala artelan bateko elementu guztiak sinbolikoak direla hartzean datza **sinbolikotasun** hori zentzu zabalean harturik-. **Josu Zabaleta**

sinbolismo 1 *iz* sinboloak erabiltzea; sinboloen bidezko irudikatzea edo adierazpena; sinbolo sistema.

Mendebaldeak interes handiagoa du arrazionaltasunean, zuzentasunean eta praktikotasunean; Ekialdeak, aldiz, nahiago ditu **sinbolismoa** eta mistika gaiak. **Berria - Gaiak**

Errealitatearekin dituen erlazio modu guztietan eta funtzio guztietan, **sinbolismoaren** munduaren mende dago irudia. **Josu Zabaleta**

Funtzio sinboliko guztiak bezala, hau ere era askotakoa izan daiteke, indarrean dauden **sinbolismoen** arabera. **Josu Zabaleta**

Sorbonaren **sinbolismo** hori guztia buruan zutela itxi zen han ikasle talde bat duela bizpahiru egun. **Berria - Ekonomia**

Antagonismo politiko zuzenera eraman zuen ETAk gerra osteko umilazioa eta derrota; Espainiaren eta Euskal Herriaren arteko diferentzia purua markatu zuen, **sinbolismo** eta lege ororen mediaziotik harantzago dagoen antagonismoa. **Joseba Zulaika**

Alegoria dute hondakinek beren tropo egokia, ez **sinbolismoaren** betetasuna. **Joseba Zulaika**

Hizkuntza kontuetan **sinbolismoak** indar gehiegi du. **Pello Salaburu**

Orduan, benetako ekintzak hasi ziren behar izaten, ez zen aski **sinbolismoa**. **Oskar Arana**

Eztabaida independentziaren **sinbolismora** mugatu asmo du. **Berria - Mundua**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Dudarik ez dago **sinbolismo** handiko omenaldia izango dela. **Berria - Harian**

Ikerketek argitu dute urreak Perun edukitako **sinbolismo** konplexu, magiko eta erlijiosoa. **Berria - Kultura**

Nolanahi ere, ordea, eta onartuz 10 zenbakia ez dela inola ere arbitrarioa eta baduela, benetan, **sinbolismo** magiko-matematiko bortitza, [...]. **Santiago Iruretagoiena**

Pertsonaien buruaren atzean ipinitako argizko biribil edo aureolak haien santutasuna adierazten zuen (**sinbolismo** zaharrago batetik etorritako eskema ikonografikoa da, izatez, argi-koroatik, auratik, datorrena). **Josu Zabaleta**

Premia espiritual hori ezin ase horrelako alegoriazko **sinbolismo** batez, inoiz edo beste goreneko ironia batez ez bada (Ariostorengan, adibidez). **Josu Zabaleta**

3 (hitz elkartuetan)

Areago baliozta dezakegu haren ekarria, noski, hots **sinbolismoari** buruzko haren lanetan (Sapir 1911, 1915, 1929). **Lourdes Oñederra**

4 literatura eta arte higikundea, XIX. mendearen azken partean Frantzia sortu zena, irudien erabilera sinbolikoa ezaugarri duena.

Lehen atalean, azpi-atal bana dute euskal literaturak, literatura klasikoak, neoklasizismoak, erromantizismoak, **sinbolismoak** eta modernismoak, besteak beste. **Berria - Kultura**

Andreieven obra guztiak hiru polo nagusi izan zituen: errealismoa, **sinbolismoa** eta espresionismoa. **Jose Morales**

-Onartzen dut jende honek XIX.eko traste zahar dezente bota zuela leihotik kanpora, eta **sinbolismoari** edo *art nouveau*-ari zabaldu zizkiotela ateak. **Ramon Saizarbitoria**

Sinbolismoa alderantzizko bidea delako, errealitatea ordenatzeko edo errealitatea goraiatzeko sortutako bidea. **Ana Urkiza**

Mikel Lasak Rimbaud, Rimbaudek Baudelaire, eta Baudelairek **sinbolismoa**. **Anjel Lertxundi**

Errealismotik **sinbolismora** egin duzun jauzia naturala ala probokatua izan da? **Ana Urkiza**

Bere liburuetan Maupassanten naturalismoa eta Poeren **sinbolismoa** bateratzen zituen. **Jose Morales**

Frantziako **sinbolismoarekin** eta Espainiako modernismoarekin (estetika bera deitzeko era bi azken batean). **Berria - Kultura**

Frantses **sinbolismoa** Poeren *Konposizioaren filosofia* lanean oinarritu zen. **Koro Navarro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sinbolismo handiko (3)

sinbolista 1 *izond* sinbolismo literarioarena, sinbolismo literarioari dagokiona.

Banvilleren poema erromantikoak, parnasianoak eta **sinbolistak**. **Berria - Kultura**

Soneto **sinbolista** bat, *La Conque* aldizkarian (aldaera batzuekin) birritan agertu zena. Juan Garzia

Mallarmé poeta **sinbolistaren** itzalpean. Juan Garzia

"Fin de siècle" delako belauernaldi **sinbolistaren** espirituari higuingarriak gertatu behar zitzaizkion Frantziako nobelaren norabidea zein gizartea ber. Juan Garzia

Sasoi **sinbolista** horretan natura inspirazio iturri duten lanak egiten hasi zen. Berria - Kultura

• 2 iz sinbolismoaren jarraitzailea den idazlea edo artista.

Hastapenean, literatura italiarra izan genuen eredu, batez ere, olerkigintzan; gero frantsesa, kontraerreformako idazleekin, eta XIX. mendean **sinbolistek**, Baudelaire eta Rimbaud-ek, eragin handia izan zuten. Ana Urkiza

Lan honetan Nabis taldearen eragina nabarmena da, Gauguinen inguruan bildu ziren **sinbolistena**: Serusier, Denis, Vuillard eta Bonnard bera. Berria - Kultura

Hautabide hori, espainiar batengan, erraz antzean esplika zitekeen; nekezago, ordea, Nîmes-ko **sinbolista** batengan. Juan Garzia

sinbolizatu, sinboliza, sinbolizatzen du *ad* zerbait beste zerbaiten irudikapen sinbolikoa izan.

Sinbolizatzen ez den emozioak alde egiten du, eta errealtatea abstraktuan eta **sinbolizaturik** baizik ez da transmititzen. Josu Zabaleta

Sinboloak [...] kaltegarriak gerta daitezke arras, azkenean sinboloa bera jartzen baitugu ikurrak **sinbolizatu** nahi duen horren gainetik, sinboloak berak ordezkatzeko duela, amets batean bezala, **sinbolizatu** nahi duenaren funtsa. Pello Salaburu

Bizitza, heriotza, ihesa, aldaketa, mugimendua, etorkizuna eta iragana maleten bidez **sinbolizatu** dizkigu Olasagarrek. Berria - Kultura

Artikulazio bakoitza formula baten bitartez **sinbolizatuko** dugu. Isabel Arrigain

Denbora **sinbolizatze** oso baliabide ahaltsuak ditu, gainera, zinemak: iraungipen kateatua, gaininprimaketa, bizkortzea, adibidez. Josu Zabaleta

Baina zer **sinbolizatzen** du, munduko hegaztirik tipiena egun jakin batzuetan munduko errege izendatze horrek? Patziku Perurena

India aldean berriz, begien edertasuna **sinbolizatzen** du eperrak. Patziku Perurena

Sinboloa artearen osagai bat besterik ez da (arkume baten marraskia, adibidez) eta kualitate batzuk **sinbolizatzen** ditu (maitasuna edo sakratua, esaterako). Askoren artean

Horrez gainera, apezaren zirikatzaile, zakurren zaunka izanzen da, zorigaitzerako deabruaren deia **sinbolizatu**. Patziku Perurena

Autore guztiak ez datoz bat adarbakarraren itxura agertzean; bai, ordea, zer **sinbolizatzen** duen adieraztean. Martin Anso

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

heriotza sinbolizatzen (3)

sinbolizatze iz zerbait beste zerbaiten irudikapen sinbolikoa izatea.

Terminologia horretan, errealtatearen **sinbolizatze** prozesuaz hitz egiten da beti, gizarte batean "truka" daitezkeen eta konbentzioz errealtatea aipatzeko balio duten sorkarien produkzioaz, alegia. Josu Zabaleta

Arkeologiak bere azterketa beste maila batean kokatzen du: adierazpen, islapen eta **sinbolizatze**-fenomenoak berarentzat irakurketa global baten ondorioak dira analogia formal baten edo zentzu translazioen bila dihardutenak, besterik ez. Xabier Arregi

sinbolizazio iz sinbolizatzea.

Eraketa diskurtsibo bat ezaugarritzen duen harreman-arloa da **sinbolizazioak** eta ondorioak hautematea, kokatzea eta mugatzea ahalezkoa egingo duen lekua. Xabier Arregi

Adierazgarritasunaren kontzeptua etengabe aldatuz baitoa gizartea balio estetiko berriak onartzu doan heinean; **sinbolizazio**-eginkizuna den aldetik, esanahiarekin loturik dago beti, harekin berdindu gabe, ordea. Josu Zabaleta

sinbolo 1 iz egokitasun baten bidez beste gauza bat irudikatzen duena; bere forma edo izateagatik, aurrean ez dagoen edo abstraktua den zerbait gogora ekartzen duen gauzakia. ik **ikur**.

Pasaia eta Lezo ez dira bi errealtate, baizik bi signifikazio, bi **sinbolo**, euskal errealtate berak dauzkan bi alde. Koldo Izagirre

Horiek direla mende honen aurrerapenaren ispilu eta **sinbolo**: atomoa, genea, konputagailua. Pello Salaburu

Alfa, omega, giltza, denak beste zerbaiten **sinbolo**. Edorta Jimenez

Hizkuntzarekiko eten formalista horren **sinboloa** h dugu. Koldo Zuazo

Eta **sinboloak** batzuetan onak baldin badira ere -zure gela **sinboloez** bete dago, hori badakit-, horretan bakarrik geldituz gero kaltegarriak gerta daitezke arras, azkenean **sinboloa** bera jartzen baitugu ikurrak sinbolizatu nahi duen horren gainetik, **sinboloak** berak ordezkatzeko duela, amets batean bezala, sinbolizatu nahi duenaren funtsa.

Pello Salaburu

Burugogorkeriaren **sinbolo** eta agerbiderik zabalduena mandoa da, oso abere argia. Xabier Olarra

Kristauek sineste hori egokitu zuten eta arrabioa haragiaren grinin **sinbolotzat** hartu zuten. Xabier Olarra

Sinboloen sinbolo, gurutzean iltzatutako Semearen heriotza narrazio kontsolatzaile horren orrialde nagusia bihurtu zen. Bernardo Atxaga

Zuretzat **sinboloak** besterik ez dira. Monika Etxebarria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gure historiako sinesmenetan marigorringoari [...] egiten zitzaizkion galderak eguraldiari buruz, hura baitzen, azken batean, ilargiaren **sinbolo** bizia. Pello Salaburu

Joak izan dira Estatu Batuetako seinale edo **Sinbolo** nagusiak: ekonomia bi dorreekin, politika *Pentagone* delakoarekin. Herria

Behin berrogei urteetatik gora, aldaketa oro denboraren iragategaren **sinbolo** gorrotagarria da. Juan Garzia

Oinetakoa, beraz, jabetza eskubidearen **sinbolo** garbia da. Patziku Perurena

Usoa ere, hegaztirik agresiboenetakoa da berez, nahiz bakearen **sinbolo** unibertsal zuria izan. Patziku Perurena

sinbolo misterioitsu osaturiko mikrokosmos miragarri bat eratu zuten La Torreko geografia osoan. Aritz Gorrotxategi

Haragizko **sinbolo** erotiko horregatik edo, herejia eta sorginkeria kontuetan ere maiz ageri da pikoia. Patziku Perurena

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hizkuntza oro **sinbolo**-alfabeto bat da eta, baliagarri izan dadin, ezinbestekoa da solaskideentzat amankomuna den iragan bat. Juan Garzia

Lan horretan "sinboloen" [...] eta "**sinbolo**-sistemen" edo "hizkuntzen teoria orokorraren" oinarriak jarri nahi ditu estatubatuar filosofo horrek. Josu Zabaleta

Enuntziatuak sintagma bat edo **sinbolo** sail bat esaldi bihurtzen du. Xabier Arregi

Irudiek **sinbolo**-balioa izan dute batez ere, erlijiozko sinboloena zehazkiago. Josu Zabaleta

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haunditasun, trebetasun eta maitasun **sinbolo** deneko eper bizirik gabe baitator ehiztari zozoa. Patziku Perurena

Berez literatur **sinbolo** baizik ez den "zazpi/zortzi" kontu hori, zinezko zifratzat zeukan nonbait. Patziku Perurena

Kontua da [...] pikoia ere, hasieran sexu grinin eta bizi haziaren ugalkortasun **sinbolo** naturala zena, erlijioak bereganatu eta sakralizatu egin zuela. Patziku Perurena

5 (logikan eta kidekoetan)

Sinboloetan honela idatziko dugu: $A^* = B$. Askoren artean

Batzuetan beste **sinbolo** logiko bat ere sartzen da alfabetoan, "*****", identitatea errepresentatzeko. Askoren artean

A formula bada eta xi aldagai indibidual **sinbolo** bat bada, orduan $*xi$ formula da. Askoren artean

(16) erregelari, X sinboloak **sinbolo** bakarra izan behar du, esaterako *Det*, edo *Aditza*, baina ez *Det/* bezalako **sinbolo** Itziar Laka

Nahiz eta $X-k$ ez duen **sinbolo** bakarra izan behar, X -eko **sinbolo** bakar bat berridatz daiteke Y sortzean. Itziar Laka

QLren azpizhizkuntza logiko desberdinak kontsidera ditzakegu horretarako alfabetoan azaltzen diren konstante-**sinbolo**, funtzio-**sinbolo** eta predikatu-**sinboloen** azpimultzoak zehaztuz. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

funtzio sinbolo (5); **sinbolo bihurtu** (8); **sinbolo bihurtu zen** (3); **sinbolo bilakatu** (8); **sinbolo bizia** (3); **sinbolo ederra** (4); **sinbolo erotikoa** (3); **sinbolo gisa** (17); **sinbolo izan** (3); **sinbolo n tar** (4); **zerbaiten sinbolo** (5)

askatasunaren sinboloa (4); **borrokaren sinboloa** (3); **euskal herriaren sinboloa** (3); **gaizkiaren sinboloa** (3); **herriaren sinboloa** (4)

sinboloaren interpretazioa (3)

funtzio sinboloen (3); **sinboloen bidez** (3)

sinbolotzat har (3); **sinbolotzat hartu** (4); **sinbolotzat hartzen** (6)

sinbologia 1 iz sinbolo multzo edo sistema.

Analogiak, **sinbologiak** eta metaforak erabiltzen ditu Jainkoaz hitz egiteko. Berria - Gaiak

Sinbologia horren arabera, Andre Mariaren mantua margotzeko erabiltzen zen itsaso urdin biziak zeruko mantua, zero-ganga sinbolizatzen zuen. Josu Zabaleta

Gauza jakina da bildotsak kristandadean duen **sinbologia**. Patziku Perurena

Iraultzaren **sinbologian** ere antzeman zitaion aldakuntzari. Koldo Zuazo

Ordu asko ematen nituen egunean haren **sinbologia** konplexua ulertu nahirik. Xabier Aranburu

Dirudienez, nekazaritzako **sinbologiari** jarraituz, lurra bera baino askoz garrantzitsuagoa da hazia. Luis Elberdin

Eszenografia figuratibotik aldendu, eta **sinbologiaz** beteriko oholtzan ariko dira *Els Jøglarsø* aktoreak. Berria - Kultura

2 (izenondoekin)

Hagit **sinbologia** aberatseko hegaztia izandu da belea munduko kultura guzietan. Patziku Perurena

Omenaldiak «**sinbologia** handia» izango duela azaldu zuen Saenz de Santa Mariak. Berria - Euskal Herria

Hala, «**sinbologia** arrotzaren» aurkako «intsumisio ekimena» egin nahi izan zuten gazteek atzo. Berria - Euskal Herria

Nafarroako «irudi eta **sinbologia** propioak» zabaltzea. Berria - Kirola

Oina oinetakoan sartzen denez, **sinbologia** femeninua omen dute oinetakoek Freud, Jung eta beste sikoanalista fededun askok diotenez. Patziku Perurena

Egun arranoaren **sinbologia** inperial eta konkistatzailea nagusi da munduan. Berria - Mundua

«**Sinbologia** faxistaren kontrako kanpainari jarraiki», Ferrol hiriko udal liburutegian zegoen Franco diktadorearen garaiko ikurra arrosaz pintatu zutela iragarri zuen *NOS-Unitade Populare* ezker independentistako alderdiak. Berria - Mundua

3 (hitz elkartuetan)

Athleticek, historikoki, badu Victor Alexandrek atzo Berrian azaltzen zuen nazio **sinbologia** beste euskal taldeei euren kantu gabe, Bartzelona Kataluniarekin lotzen duena, Liverpool Ingalaterrarekin eta Celtic Glasgow Eskozia eta Irlandarekin. Berria - Kirola

Goyaren *Fusilamientos del 3 de Mayo* obratik gertu ikusten dut San Bizentzen dagoena, eta badu kristau **sinbologia** ere. Berria - Kultura

sinbologintza iz sinboloak eratzea.

Artea gizakiaren produkzio-alor berezi bat da, hizkuntzarekin aldera daitekeena, hizkuntzak bezala **sinbologintzako** balio bat duena. Josu Zabaleta

sindikala 1 izond sindikatoari edo sindikatoei dagokiena. ik sindikatu¹ 3. (pertsonez mintzatuz)

Arauca eskualdeko hiru buruzagi **sindikala** exekutatu izana leporatzen diote Armadari. Berria - Mundua

Jose Bove buru **sindikala** eta globalizazioaren aurkako mugimenduaren ikurra gutun bat bidali die antolatzaileei. Berria - Kultura

SEPIko kudeatzaileak ordezkari **sindikalen** bozeramaileekin izandako azken bileran. Berria - Ekonomia

Sammy zen, delegatu **sindikala**. Pablo Sastre

Aholkulari **sindikalaren** paperari eutsi behar diozu kosta ahala kosta, eta Antonio zarella sinistu behar dute. Rafa Egiguren

Zu oso morroi xelebrea zara ordezkari **sindikala** ibiltaria izateko. Lopez de Arana

Euskal Herriko eragile politiko, **sindikala** eta sozialei. Berria - Harian

2 (gauzez mintzatuz)

Manifestazio erraldoiak egon dira, ia erakunde politiko, **sindikala**, kultural, eliztar guztiak euren protesta eta solidaritatea erakutsi dute. Joxe Azurmendi

Indar politiko, **sindikala** eta eragile sozialen ekarpen mardula azpimarratu nahi du. Berria - Harian

Horregatik emango diogu ezetza itun honi gehiengo **sindikala** eta politikoak. Berria - Harian

Elorrietaren arabera, «ez dago batasun **sindikala** sendo batez hitz egiterik». Berria - Ekonomia

Lege **Sindikala** berriari aurre egiteko jarraibideak ematera etorri ninduan Herrialdeko Mahaira. Rafa Egiguren

Iparraldeko karta **sindikalean** analisi sozio ekonomikoetan askotan hartzen da modelo nazional frantsesa. Herria

Hauteskunde **sindikalak** antolatuta zituzten, sindikatu bertikalerako hauteskundeak. Koldo Izagirre

Mugimendu **sindikalean** «espazio abertzale eta klasekoaren» aldeko urratsak egin direla uste du. Berria - Ekonomia

Ondasunen banaketan oinarritzen den dinamika **sindikala** berriaren ardatz nagusiak lanaren banaketa eta gizarte soldata dira. Iñaki Heras

Arlo **sindikalean** dauden arazoak ezagunak dira, negoziazio kolektiboan, ekintza **sindikalean**. Berria - Euskal Herria

Aitzitik, ordea, erizainak: ama batek ez bezala, ordutegi bat bete behar du; estrategia **sindikala** gupidagabe batekin babesten ditu bere lan-eskubideak. Anjel Lertxundi

Langileen aldeko propaganda-jarduerak egin ditugu askatasun **sindikala** eta politikoak eskatzeko. Ildo **sindikala** berria zehaztu bezain laster, mugaz beste aldera itzuli beharra neukan. Rafa Egiguren

Ondare **Sindikala** Metatuaren banaketan sindikatuen ordezkari da irizpidea. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dinamika sindikala (3); **ekintza sindikala** (3); **gehiengo sindikala** (7); **lege sindikala** (10); **lege sindikala berria** (4); **lege sindikala berriari** (3); **ondare sindikala** (12); **ondare sindikala metatuaren** (6); **politiko eta sindikala** (9)

sindikala eta politiko (5); **sindikala eta politikoa** (3); **sindikala eta politikoak** (4); **sindikala eta sozial** (6); **sindikala eta sozialekin** (3); **sindikala eta sozialen** (5); **sozial eta sindikala** (8)

askatasun sindikala (4); **batasun sindikala** (9); **ekintza sindikala** (9); **estrategia sindikala** (4); **gehiengo sindikala** (14); **gehiengo sindikala osatzen** (3); **ordezkari sindikala** (3)

batasun sindikalak (3); **ekintza sindikalak** (3); **euskal gehiengo sindikalak** (5); **federazio sindikalak** (3); **gehiengo sindikalak** (32); **sindikalak** (11); **munduko federazio sindikalak** (3); **ordezkari sindikalak** (5); **politiko eta sindikalak** (7)

gehiengo sindikalarekin (4)

ardura sindikalaren kontua (3); **ekintza sindikalaren** (3); **euskal gehiengo sindikalaren** (4); **gehiengo sindikalaren** (15); **ordezkaritza sindikalaren** (7)

batasun sindikalari (3); **gehiengo sindikalari** (7)

arlo sindikalean (4)

sozial eta sindikalei (5)

ordezkari sindikalek (14); **politiko eta sindikalek** (4)

politiko eta sindikalekin (5); **sozial eta sindikalekin** (7)

ekintza sindikaleko (3)

ordezkari sindikalen (4); **politiko eta sindikalen** (5); **sozial eta sindikalen** (8)

hauteskunde sindikaletan (5)

sindikalgintza *(45 agerraldi, 4 liburu eta 32 artikulutan)* iz jarduera sindikala. ik **sindikalismo**.

Gaurko manifestazioarekin bat egin dute euskalgintza, **sindikalgintza**, hezkuntza, gizarte, kirol edo kultur alorreko hainbat eragilek; hala nola, ELA eta LAB sindikatuek, Bilgune Feministak, EHEK, Askatasunak, Batasunak, Ikasle Abertzaleak taldeak, Segik, Bai Euskal Herriari taldeak eta Etxeretek. **Beria - Euskal Herria**

Euskalgintza **sindikalgintzan** txertatu. **Beria - Euskal Herria**

Euskalgintzan, **sindikalgintzan** edota osasungintzan dabilzanak. **Beria - Harian**

Politika alorreko, **sindikalgintzako** zein kulturgintzako ordezkaritza zabalak. **Beria - Harian**

Euskal Herriko bizimoduko esparru guztietan gertatu zen aldakuntza: politikan dela, **sindikalgintzan** dela, erlijioa ulertzeko eta bizitzeko eran dela, emakumearen statusean dela... nonahi. **Koldo Zuazo**

Sindikalgintzak Euskal Herrian dituen erronkak ez dira gutxi. **Beria - Ekonomia**

Besterik da sindikatu bakoitzak duen oinarritzko estrategia, ez bakarrik **sindikalgintzan** edo maila sozialean, baita arlo politikoan ere. **Beria - Euskal Herria**

Sindikalgintzaren bidetik ekin zion lanari. **Beria - Mundua**

Txostenak Europaren erakuntza, euskal **sindikalgintza** eta Europako Konstituzio Ituna ditu aztergai. **Beria - Euskal Herria**

Gerra Zibila eta ondoko garapen soziala gogorazi diozu hasteko, eta nola **sindikalgintza** estatuko aparatuan integratuta zegoen garai hartan. **Rafa Egiguren**

Sindikalgintzan hasi zuen ibilbide publikoa, 1978an. **Beria - Euskal Herria**

Ikasle garaiko manifestaldiak, bilkurak, politika eta **sindikalgintza** ahortzi nahi zituen. **Eneko Bidegain**

Sindikatuok eta **sindikalgintza** abertzaleak helburu horien arabera ekarpenak eta ekimenak egin beharko genituzke. **Beria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sindikalgintza abertzaleak (4)

sindikalismo *(74 agerraldi, 5 liburu eta 49 artikulutan)* 1 iz jarduera edo sistema sindikala. ik **sindikalgintza**.

Saltoki handien eta bankuen sorrera, kapitalaren eta lanaren arteko borroka, **sindikalismoaren** hastapena, grebak, [...]. **Karlos Zabala**

Euskalgintza, **sindikalismoa**, hezkuntza, ekologismoa, [...]. **Beria - Euskal Herria**

Politika eta **sindikalismoko** eragileekin egin bezala, **Berriak** euskalgintza eta kulturgintzako eragileekin hitz egin du. **Beria - Euskal Herria**

ELA eta LAB sindikatuek Espainiako Gobernuan «beste giro bat» sumatu dute, baina euskal **sindikalismoan** eta politikagintzan ez duela aldaketik eragin diote. **Beria - Euskal Herria**

Politikan, **sindikalismoan** eta kulturgintzan lan egiten duen jende ezagun ugari bildu zen 18/98 ekimenak deitutako ekitaldian. **Beria - Harian**

Sindikalismoan zebilen bitartean hasi zen ETArekin lehen ekintzetan parte hartzen. **Beria - Euskal Herria**

Sindikalismoaren tradizio errotuenean bezala, gorrotagarriak zaizkio aparteko orduak. **Aingeru Epaltza**

Sindikatuetaiko kideekin hitz egiten dudanean, azpimarratu egiten diet **sindikalismoaren** helburua langileen lan baldintzak hobetzea baldin bada, mundu justu eta solidarioagoa egiteko, hori ere badela euskalgintzaren eta hizkuntz normalizazioaren helburua. **Beria - Euskal Herria**

Gizartearen aldaketan subjektu aktiboa izan behar du **sindikalismoak**. **Beria - Ekonomia**

Larunbat aratsaldean aldiz Mixel Berhocoirgoin laborantza arloko **sindikalismoaz**. **Herria**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Uste dut Iparraldeko **sindikalismo** abertzaleari begirako gogoeta LABekin eta ELAekin eraman behar zela. **Beria - Ekonomia**

Alternatiba bat behar dugu, **sindikalismo** gatazkatsua eta demokratikoa berriro eraiki. **Beria - Ekonomia**

Nazioarteko lankidetzak indartu, gutxieneko lan egoera globala eskatu, enpresa mailan negoziatu hitzarmenak eta ez herrialde mailan, azken batean, **sindikalismo** global berri bat eraiki. **Iñaki Heras**

«**Sindikalismo** askotarikoa eta solidarioa» lelopean. **Beria - Ekonomia**

Ez dugu defendatzen **sindikalismo** apolitiko bat, alderantziz, defendatzen dugu sindikatuak gai izan behar duela bere kabuz pentsatzeko, proposatzeko eta erabakitzeko. **Beria - Euskal Herria**

Bi sindikatuon kritikak haratago joan ziren eta ELA, LAB eta ESKri «**sindikalismo** bizkarroia» egitea egotzi zien. **Beria - Ekonomia**

ELAri, CCOOri eta UGTri «**sindikalismo** mediatikoa» egitea ere leporatu zien Urrutikoetxeak. **Beria - Ekonomia**

Ohiko **sindikalismoa** krisian dagoela diozu. **Beria - Ekonomia**

Diru murrizketak; zurruntasun administratiboak eta gehiegizko esku-hartzea; politizatutako **sindikalismoa**. **Beria - Ekonomia**

3 (hitz elkartuetan)

Zubiaren irudiko, «70eko **sindikalismo** ereduak» hobetsi du ELA, eta «borrokarako grina horrek» kalte egiten die «lan harreman modernoei». **Beria - Harian**

· Txosten politiko sindikalean burujabetzak, klase **sindikalismoaz** eta eredu sozialaz hitz egin zuten. **Beria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskal sindikalismoa (3)

sindikalista 1 *izond* sindikalismoari dagokiona.

LABek gonbidatuta, Euskal Herrian dira Europako ordezkariak, eta datozen hilabetetan immigrazioa, Palestina eta hezkuntza **sindikalista** gogoeta gai izango dituztela iragarri dute. **Beria - Ekonomia**

Goi mendietako umezaroa, borroka **sindikalistak** eta botererako bidea deskribatuko ditu filmak, 50.000 dolarreko aurrekontuarekin. **Beria - Kultura**

Horretarako, Jose Bove, globalizazioaren kontrako mugimenduaren ikur **sindikalista** gomiatu dute. **Beria - Kultura**

• 2 iz sindikatu bateko kidea den pertsona.

1934 eta 1940 artean, naziek kanpaleku hortan sartzen zituzten beren kontrakoak komunistak, sozialistak, **sindikalistak**, katolikoak, eta beste. **Marzel Etxehandi**

Ezaguna omen zuen liburuaren egilea, apaiza eta komunista, *Proceso 1001* deituriko epaiketan beste **sindikalista** batzuekin batera epaitua. **Juan Kruz Igerabide**

Sindikalista batek salatu zuen. horrexen usaina hartzen bainien nien nik batez ere **sindikalistei**, irakindako izerdiarena. **Hasier Etxeberria**

Langreko-ko eta Gijon-go portuetako **sindikalista** gorriak, subertsioaren profesionalak. **Koldo Izagirre**

Navaleko **sindikalistek** ohartarazi zuten SEPLK «brehala» zatitu nahi duela Izar taldea, eta ontziola publikoaren birmoldaketa «gerorako» utzi nahi duela. **Berria - Ekonomia**

Bonbaz eta terrorez noizbait bazterrak majo espantatu zituzten **sindikalista** iraultzaileak edo anarkistak. **Joxe Azurmendi**

Sindikalista «ustelak» izatea eta diru publikoa «lapurtzen» saiatzeari leporatu zion langileen ordezkari horiei. **Berria - Ekonomia**

Sindikalista etxegilearen solasa gurea baino interesgarriagoa izaki. **Aingeru Epaltza**

3 (izenondo gisa)

Preso **sindikalista** batek. **Unai Elorriaga**

Paul Nicholson bizkaitar laborari **sindikalista**. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bove sindikalista (3)

sindikalizatu, sindikaliza, sindikalizatzen da *ad* sindikatu bateko kide bihurtu.

%8 **sindikalizatu** da Frantzia. **Berria - Harian**

sindikalizazio *iz* sindikatu bateko kide bihurtzea.

Lan-eskaintza gehiegizkoak oztopatu egiten ditu **sindikalizazio** -ahaleginak, estatu-aparatu zapaltzaileek debekatzen ez dituztenean behintzat. **Koro Navarro**

sindikatu *ik* **sindikatu**¹.

sindikatu¹ (*orobat **sindikatu** g.er.*) **1** *iz* kideen interesak babesten dituen elkarte; bereziki, langileen interesak babesten dituena.

Gobernu, **sindikatu** eta enpresa elkarteek sinatutako hiruko akordio honek berriz, enplegua eta hezkuntza, lan egoera eta lan harremani buruzko gomendioak ezartzen zituen. **Iñaki Heras**

Negoiazten diren puntu askotan aldeak daude **sindikatu** eta patronalaren artean. **Berria - Ekonomia**

Idazki bateratua hitzartu dute hainbat alderdi, **sindikatu** eta gizarte eragilek. **Berria - Euskal Herria**

Sindikatu bat sortu zuelako lur-jabeek eta haien soldatapeko hiltzaile-taldeen egindako sarraski eta belzkeria guztien kontra borrokatzeko. **Jon Muñoz**

Beste **sindikatu** bateko kideak hitz egin zuen goraki, sindikatuen arteko influentzia gatazkak langile borroken minean ziharduela seinale. **Itxaro Borda**

Programa horiek langile eta enpresarioen **sindikatu** eta elkarteak zuzenean finantzatzeko erabili izan dira praktikan. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Bestetik langileak, hauek ere taldeetan antolatuz eta **sindikatu** bidez ordezkaturik. **Iñaki Heras**

Zertarako balio du **sindikatu** batek behar duzunean harengana jotzen ez baduzu? **Fernando Rey**

Katedraletik ez urrun U.N.E.F ikasle ezkeriarren **sindikatuaren** egoitza. **Piarres Aintziart**

Donostian, *Adarra* talde pedagogikoan ere ibiltzen zen, eta orobat irakasleen **sindikatu**etan. **Juan Kruz Igerabide**

Ikasleen **sindikatuaren** aretoa ilunetan dago. **Oskar Arana**

Sindikatu horren ordezkari %3a ere ez dela iristen azaldu zuten atzo beste **sindikatu**ek. **Berria - Ekonomia**

--- Baina **sindikatu**ak ez al zizun greba ordaindu? **Lopez de Arana**

Hasieratik erakutsi zuen lankideen arazoket biziki kezkatzen zutela, eta horrek LAB **sindikatu**an militatzera eramane zuten. **Berria - Euskal Herria**

Jornalaria zen, han zeuden gehienak bezala, baina aspaldi **sindikatu**an buru-belarri sartua zegoen. **Jon Maia**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aldian-aldian etortzen zitzaizun bisitan unibertsitateko **sindikatu** demokratikoko ikasle-jende gaztea eta artean klandestinoa zen *Comisiones Obreras* sindikatuko militanteetarikoa. **Juan Garzia**

Espainiako **sindikatu** nagusiek eta CEOEko Negoiazio Kolektiborako Akordioa izenpetu dute. **Berria - Ekonomia**

UGTK patronalaren eta **sindikatu** nazionalisten arteko kidesuna salatu du. **Berria - Ekonomia**

Sindikatu abertzaleak dira nagusi Hego Euskal Herrian. **Berria - Ekonomia**

Sindikatu ez-abertzaleek greba uztea erabaki dute. **Berria - Mundua**

Sindikatu sozialista, antikapitalista eta internazionalista gisa agertzen da. **Berria - Ekonomia**

Sindikatu laborista nagusien bozen eraginez, bozen %86k ezezkoa eman zioten proposamenari. **Berria - Mundua**

Sindikatu plurala eta solidarioa da CCOO. **Berria - Ekonomia**

Sindikatu profesionalak eta klase sindikatuak dituzten «hutsuneak» betetzea da **sindikatu** profesional berri horren helburua. **Berria - Ekonomia**

Frankismoko **sindikatu** bertikalak ez zuen ezer egingo, eta bestelako **sindikatu** klandestinoek artean ez zuten aski indarrik ez tradizioz inon. **Xabier Mendiguren**

Denak ginen **sindikatu** gorri-beltzekoak, komunista jator samar batzuk ere bagenituen tarteko. **Koldo Izagirre**

Gobernuak kontseiluan egoteko «**sindikatu** otzanak hobetsi eta kritikoak baztertu» dituela salatu du ELAK. **Berria - Ekonomia**

Sindikatu berriko paperak ziren, inprentatik atera berriak. **Jon Maia**

ELA da **sindikatu** borrokalariena eta erradikalena, gaur egun, Hegoaldean. **Berria - Ekonomia**

Ohiko **sindikatu** asko, ordezkatzeko dituzten langileengandik oso urrun daude. **Berria - Ekonomia**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) *ik* **sindikal**.

Ez al zintuen konbentzitu **sindikatu** -kuota ez ordaintzeko? **Lopez de Arana**

Egindako zuzenketek zabalantzan jartzen dute txosten nagusiak dioena, hots, ELAren **sindikatu** ereduaren aldaketa sakona izan dela. **Berria - Ekonomia**

Javier Bermejo UGTko EAEko **sindikatu** ekintzako idazkariak ere. **Berria - Ekonomia**

Geroa gorria ekarri lempaean 500 **sindikatu** kide bilduko ditu LABek datorren hilaren 21 eta 22an Iruñeko Baluartean. **Berria - Ekonomia**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

[ELAK] ez du Europako bertze sindikatuen bilakaera jasan; hots, ez da sistemari osoki lotua zaion kudeaketa **sindikatu** bihurtu. **Berria - Ekonomia**

Klase **sindikatu** borrokalariena. **Berria - Ekonomia**

Bastiza bat altxatu bi partetan baliatuko dena, bata langile **sindikatu** eta elkartek, bestea aldiz *Orai Bat* kultur elkartearen esku. **Herria**

sindikatuok salatu dutenez (3)
sindikatuon arabera (3); **sindikatuon esanetan** (3); **sindikatuon ustez** (7)
sindikaturako ordezkariak (3)
langile sindikat (6)
cfdt sindikata (7); **cgt sindikata** (4); **elb sindikata** (3); **lab sindikata** (3)
cfdt sindikatak (13); **cgt sindikatak** (9); **ehne sindikatak** (3); **elb sindikatak** (25); **euskal sindikatak** (4); **fdsea sindikatak** (3); **herrien sindikatak** (4); **lab sindikatak** (11); **laborari sindikatak** (4); **langile sindikatak** (13); **sindikatak jakinarazi** (3)
garaziko sindikatek (3); **langile sindikatek** (4); **langileen sindikatek** (3); **sindikatek deiturik** (4)
cfdt sindikateko (3); **ehne sindikateko** (3); **elb sindikateko** (6)
sindikaten arabera (6); **sindikaten sustenguarekin** (3)

sindikatu², sindika, sindikatzen da *ad* sindikatu batean afiliatu.

Tarteko hilabeteetan, ekialdeko herrialdeetan gauzak mugitzen hasi ziren, eta lanterrietan egindako presioa zela eta, Poloniak **sindikatzeko** askatasuna lortu zuen. soldata igoera eta **sindikatzeko** eskubidea aldarrikatzegatik metrailatu eta hil zituzten langile batzuei buruz ari gara. **Pello Salaburu**
Eguberri, urtats eta jaietako Jacquesek derrigorrez laneko aukeratzaren zuzen, **sindikatzeko** garesti ordainarazi nahiko bailion. **Itxaro Borda**
Sindikatura zen eta, langileen dretxoak ongi ezagutu beharrez, maiz biltzarretara zihoan. **Daniel Landart**

sindikaturu (*orobat sindikatu buru*) iz sindikatu baten burua.

Mintzatu zen Jean-Louis Caset **sindikaturu**, sindikatuaren betebeharez eta azpimarratu sindikatuaren diru sartzeko bakarrak direla artzainek ordaindu bazkariak eta oihanen salmentak. **Herria**

«Nigeriako barne politikan nahastu dira, eta gobernuarekin bat egin dute gure jendea zapaltzeko» salatu zuen NLCKo **sindikaturuak**. **Berria - Ekonomia**

Aurrera egiteko ahaleginak **sindikaturu**, burges ezkeriar, apaiz konprometitu eta urte haietako borroka harremanetan jarritako hainbat pertsonaia haragituak. **Berria - Kultura**

Sindikatu buru guztiak elkarren artean bildu behar lirerateke, beren artean ikusteko zein helburu dituzten eta gero zein baldintzetan ariko diren elkarrekin lanean. **Herria**

sindikazio iz sindikatu batean afiliatzea.

Sindikazioaren bitartez, toki agenteen arteko lankidetzak formulak zabaltzen dira, bai telebisten kudeatzaileen artean, baita tokiko ikus-entzunezkoen alorreko enpreekin ere. **Berria - Euskal Herria**

sindrome 1 iz eritasun baten ezaugarri diren sintomen multzoa.

Arraza, kultura eta gizarte maila guztietan gertatzen da Touretteren **sindromea**; ohituta dagoenak aski du begirada bat ezagutzeko. **Xabier Olarra**

–**Sindromearen** sintoma guztiak dituzu –Gorkak. **Aingeru Epaltza**

Sindromearen ezaugarriak honako hauek ziren batik bat: tik konbultsiboak, besteren hitz edo egintzak nahi gabe imitatzea edo errepikatzea eta madarikazio nahiz zantarkeriak gogoz bestera eta konpultsiboki botatzea. **Xabier Olarra**

Oso eritasun bitxia zuela komunikatu zioten medikuek, Churg-Straussen **sindromea** delakoa. **Iban Zaldua**

Nagusiengan ere gara daiteke autismoa, edo autismoaren antzeko **sindromeak**. **Xabier Olarra**

Halako gaixotasuna, itsutasun psikiko erabatekoa (Antonen **sindromea** esaten zaiona), kasurako, apoplexia baten ondorioz gerta daiteke, garuneko ikusmen-aldeetan hondamena larria bada. **Xabier Olarra**

Fiskalak Carmen Lopezen lekukotzaren baliogabetasuna eskatu zuen, bere deklarazioak Stockholmeko **sindromearen** eraginez eginak zirelakoan. **Koldo Izagirre**

Hiesa (Hartutako Immuno Eskasiaren **Sindromea**) gaitz bat da, GIB Giza Immuno-Eskasiaren Birusak eragiten duena. **Luis Elberdin**

"Bagoiko azkenaren **sindromea**" deitzen zaio honi arrazakeriari buruzko ikerlarien artean. **Ana Urkiza**

21. kromosoma, esaterako, Down **sindromearekin** erlazionatua. **Pello Salaburu**

Pickwick **sindromean**, anasaren depresio larria eta odol guztia oxigenatzeko gutxiegitasuna gertatzen dira, garuneko anasgunearen depresioari lotuak. **Xabier Olarra**

Ez nion nabaritzen ez amnesiaren, ez lobulu frontaleko **sindromearen** aztarnarik. **Xabier Olarra**

Fibromialgia **sindrometzat** hartzen da soilik, ez gaixotasuntzat. **Berria - Euskal Herria**

2 (izenondoekin)

Haren amnesiaren tragedia urteekin batera gero eta handiago bihurtu zen, nahiz eta amnesia berak, haren **sindrome** neurologikoak, lehen bezalatsu iraun. **Xabier Olarra**

Litekeena da ibilera **sindrome** genetiko batekin lotuta egotea. **Berria - Gaiak**

Nik ez dut uste **sindrome** psikiatriko larri bat duen gaztearen gaitzaren iturria droga denik. **Berria - Euskal Herria**

Txantxazaletasun mota hori, izan ere, oso berezkoa da **sindrome** orbito-frontaletan. **Xabier Olarra**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hipokondria **sindromera** itzuli zen Ana Luisa. **Edorta Jimenez**

Abstinentzia **sindromeak**, dardarak, buruko minak, botagurea, konbultsioak, izerdi botatzeak, makalaldiak eta *delirium tremensa* eragiten dutela dio. **Berria - Gaiak**

Handik gutxira, jakin nuen alkoholaren abstinentzi **sindromearen** ondorio direla *delirium tremens*-ak. **Joan Mari Irigoien**

Bihotzeko arazoak, dislipemia, hepatopatia, gaixotasun neurologikoak eta depresio **sindromea**. **Berria - Gaiak**

4 irud/hed

Mexikar **sindromea** edo nazioarteko finantzaren arriskuak. **Koro Navarro**

Gero, sorkuntza krisia ezagutu zuten, hirugarren elepearen **sindromea** deitutakoa alegia. **Patxi Iturrategi**

Ezagutzen dut hizlariaren **sindrome** hori: behin hitzaren dohaina biziberrituz gero zaila da gelditzea. **Pako Aristi**

Eskua paralizatzen zidan patata purearen **sindromearen** berri eman nion. **Joxan Elozegi**

Rezolako tximiniaren **sindromeak** jota nengoela. **Joan Mari Irigoien**

Aizkolariaren **sindromea** sartuko zait koadrodun alkandora honekin. **Harkaitz Cano**

Nire ustez, Mendebaldea-Ekialdea **sindromeak** jota jaino da. **Edorta Jimenez**

"Prentsaurrekoaren **sindromea**" erraten diot nik. **Aingeru Epaltza**

Eguraldiaz mintzo direnen **sindromea**. **Pako Aristi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abstinentzia sindromea (3); **aspergerren sindromea** (7); **down sindromea** (5); **downen sindromea** (7); **esne behiaren sindromea** (3); **golkoko sindromea** (3); **sindromea duten** (7); **sindromea dutenek** (3); **touretteren sindromea** (17); **touretteren sindromea duten** (3); **ulises sindromea** (7)

abstinentzi sindromeak (3); **heriotzaren sindromeak** (6); **heriotzaren sindromeak jota** (4); **sindromeak jota** (10); **touretteren sindromeak** (4)

touretteren sindromearen (5)
heriotzaren sindromearen (3); **sindromearen ondorioz** (3); **touretteren sindromearen** (5)
touretteren sindromeari (3)
sindromepean bizi (3)

sindromedun *izlag* aipatzen den sindromea duena.

Aste bikaina izan zen benetan, hango arduradunetako bat, Shane, Touretteren **sindromeduna**, laguna bainuen, eta, gezurra badirudi ere, ederki moldatzen baita autismorik sakonena duten umeekin. **Xabier Olarra**

Zama handiegia ezarri gero, edo leher eginda zegoenean, atzera-aurrera ibiltzen zen itsutasun fisikoaren mugan, eta are Antonen **sindromedunen** itsutasun psikiko erabatekoaren mugan. **Xabier Olarra**

Erdi eraso, erdi tik alegia, Touretteren **sindromedun** petoen erara moldatutako ongietorri-keinu bat. **Xabier Olarra**

sinekdoke *iz* hitz bati berez dagokiona baino zentzu zabalagoa edo estuagoa ematean datzan irudia.

Nozio bat berez beste zerbait esan nahi duen hitz baten bidez adierazteari deitzen zaio **sinekdokea**. **Iñigo Aranbarri**

Arima hitzak gizaki bizia adierazten duela, horko iruzkin egileak ikusi duen bezala, **sinekdokearen** itxurak hartzen baitu osoaren orde zati soila. **Piarres Xarriton**

Atalak osotasuna izendatzen duen **sinekdoke** berezi horretan filosofiak bere buruarekiko antzinatik daukan konpromiso baten aipamena egiten da agian. **Piarres Xarriton**

Erretorika-poetika bikoaren lehen osagaia **sinekdoke** bat da berez, osotasuna izendatzen baitu (erretorika) haren zati bat adierazteko (*elocutio*aren teoria). **Piarres Xarriton**

Bere-bereak ditu kazetariak **sinekdokea** eta metonimia. **Iñigo Aranbarri**

sinergia *1 iz* hainbat eragile edo elementuk batera jarduteko ekintza, ondorioztat bakarkako emaitzen batze hutsa baino emaitza ahaltsuagua ematen duena.

Etorkizunari begira ere, elkarlan horrek berebiziko garrantzia izaten jarraituko du: **sinergiak** sustatu eta garatu behar dira, baita baliabideen erabilerearen optimizazioa bilatu ere. **Beria - Euskal Herria**

Europako bost talde ahaltsuenen artean segitu gura du kooperatibak eta, horretarako, **sinergiak** bultzatuko ditu. **Beria - Ekonomia**

«Harremanak eta **sinergiak** bultzatzea ere bada helburu», azaldu du Garazi Andonegik. **Beria - Gaiak**

Gainerako herri mugimenduekin **sinergiak** lortu behar direla azpimarratu du talde ekologistak. **Beria - Euskal Herria**

Talde berriak 2006rako mozkinak emango dituela uste du Santanderreko Zuzendaritzak eta 560 milioi euroko **sinergiak** ere lortuko direlakoan dago. **Beria - Ekonomia**

Geure enpresen eta atzerrikoen artean **sinergiak** bilatzen lagundu behar dugu. **Beria - Ekonomia**

«**Sinergiak**» eragin nahi dituzte zientzia eta teknologiaren alorrean, enpresen kudeaketan eta giza baliabideen garapenean. **Beria - Ekonomia**

Desio izeneko tranbia irakurri ahala, ziurrenik zuk ere atzemango dituzu Stanley Kowalski eta Blanche DuBois protagonisten **sinergia** osatzen duten bost osagai nagusiak: indarkeria, pertsonaien jatorri kontraesankorra, sexualitatea, bakardadea eta egia/gezurra erlazioa. **Xabier Paya**

Gaur egungo erretorikan, aldiz, diskurtsogintzan etengabe, **sinergia** bidez eta elkarriraginez diharduten alderdiak dira kanonak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

2 (izenondoekin)

Halaber, nazioaren garapenerako «**sinergia** berriak» sortu behar direla eta «ikuspegi endogamikoak apurtu» beharra dagoela iritzi zion Sotok. **Beria - Euskal Herria**

Hazkunde eta diziplina fiskalaren arteko **sinergia** hobeak lortzea da helburua. **Beria - Ekonomia**

Indar politiko desberdinen arteko «**sinergia** plurala» lortzea. **Beria - Euskal Herria**

Sektore pribatuarekiko **sinergia** ereduzko baten bidez. **Koro Navarro**

3 (hitz elkartuetan)

Ez dago inongo **sinergia** aprobetxamendurik, eta ez du aldaketa politikorik ordezkatzeko», esan zuen Barrenak. **Beria - Euskal Herria**

sinesbera (*orobat sinisbera g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian sinesbera agertzen da*) *1 izond/iz* sineskorra.

Sinesberak ginen, eskarmentu gutxikoak. **Xabier Montoia**

Ez naiz oso **sinesbera**; oraintxe bertan ere, dudak dauzkat. **Koro Navarro**

Jainkoak ez ninduen bertze anitz jende bezain **sinesbera** egin. **Joan Mari Irigoien**

Nork ez daki itxuratasun sentikorrek arrazoiaren indarra duela herri **sinesbera** eta txundierazean? **Juan Martin Elexpuru**

Ez ulertzeraz, ez bilatzeraz, ez jakiteraz ohituta zegoen behinolako arraza **sinesberakoa**. **Josu Zabaleta**

Piztia beratua (hozbera, minbera, gaixobera, sentibera, bihozbera, **sinesbera**) edo beratzen jarritakoa... **Iñaki Segurola**

Hainbeste gerra eta errege istilu bizi izan dituen euskal lur **sinesbera** honetan. **Patziku Perurena**

Hil behar duten ardi bat baino **sinesberagoa** baitzen. **Anjel Lertxundi**

Geroztik, edonolako gezurren aurrean **sinesbera** izaten jarraitzen badut ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Santo Domingon jendea oso **sinesbera** da sorgin eta azti kontu horietan. **Gotzon Garate**

Orain jendea antibiotikoetan **sinesberago** da. **Gotzon Garate**

Bizitza horiek idatzi dituztenei batzuetan **sinesberegiak** izatea egotz badakieke ere Jainkoak ezbaierik gabe egin dituen gauzez, [...]. **Iñaki Iñurrieta**

Sinesberak izutzeko asmaturiko ipuina da. **Iñaki Mendiguren**

2 (adizlagun gisa)

Deabruak, **sinesbera** eta mesfidantzarik gabe, erantzun zion: [...]. **Josu Zabaleta**

Gure herriska bixion arima pixarra pozointzera sartu den azken funtzionario berria, eta honen esanera erne eta **sinesbera** jarri den herriskotako jendaje ikasi informatua.

Patziku Perurena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oso sinesbera (3); **sinesbera egin** (3)

sinesberatasun *iz* sinesbera denaren nolakotasuna.

Bere xalotasun eta **sinesberatasuna** zela eta, era guztietako txantxa eta azpikeria klase guztien xede izan zen Temple hasieran. **Xabier Olarra**

Mikel Strogoffek bere lagunaren duda-muda ulertu zuen, nahiz haren **sinesberatasunarekin** bat ez egin inola ere pasatzen diren erbiak direla-eta, eta lasaitzen saiatu zen. **Karlos Zabala**

Hain baita handia gizonon ergeltasuna, baldin beldurra eta **sinesberatasuna** ehun berean bilbatzen eta irazkitzen badira eta gorputz-arimetako endrezera, juntura eta parte

sinesbide *iz* sinesmena. ik [sinespide](#).

Ideologia edo [sinesbide](#) liberalak behin eta berriz kontrakoa dioen arren, lana eta lurra ez dira ekoizpen faktoreak, gizartearen funtsa baizik. [Iñaki Heras](#)

Mendebaldeko munduaren aldeko desberdintasun honek bazirudien, batez ere, kristautasunaren espirituaren etengabeko eraginari zor zitzaiola, artean galdu gabea zuelarik bere agintea Mendebaldeko gizon-emakumeen bihotzetan, nahiz eta hauen gogoek errefusatu zuten kristautasunaren egia iraunkorrak filosofia heleniko paganoaren hizkera iragankorrera aldatu zituen [sinesbidea](#). [Iñaki Mendiguren](#)

sinesdun ik [sinestun](#).

sinesgabe (*orobat [sineskabe](#) g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian [sinesgabe](#) agertzen da*) **1** *izond* sinesten ez duena, bereziki sinesmen erlijiosoa ez duena. ik [fedegabe](#).

Atzerritar [sinesgaberik](#), kutsaturiko inor ez baita berriro zuregan sartuko. [Elizen arteko biblia](#)

Ikusten ari gara Jainkoak bere haserrea agertzen duela gizon-emakume guztien gain zerutik, [sinesgabe](#) eta zuzengabe direlako. [Elizen arteko biblia](#)

[Sinesgabea](#) izanik ere, katedralaren ilunpeko espazio hotz, isil eta handi hartan bakarrik aurkitzen omen zuten atsedean aski, bere buruaz beste ez egiteko. [Hasier Etxeberria](#)

-Herri honetako biztanleak [sinesgabeak](#) eta arrakatsuak dira -argitu zion nekazariak-. [Patxi Zubizarreta](#)

Kontuan izanda musulman eta kristauak ofizialki "[sinesgabeak](#)" zirela batzuk besteentzat, eta fanatikoki eskusibistak ziren bi erlijio judaiko horien aldekoak kronikoki gerran zeudela, miragarria gerta dakiguke borrokalarri haiek elkarrenganako sentitu zuten begirune-maila. [Iñaki Mendiguren](#)

Ni bezain [sinesgabea](#) zen ordurako, fede guztia abertzaletasunari emanik. [Joxerra Garzia](#)

2 irud/hed

Herri [sinesgabearen](#) aurka bidaltzen dut, haserretu ninduen herriaren aurka. [Elizen arteko biblia](#)

Bere fedeaz gaitzetsi egin zuen mundu [sinesgabea](#), eta fedetik datorren salbamenaren oinordeko egin zen. [Elizen arteko biblia](#)

Haien gaiztakeriaren lekuko, hor da oraindik lur idorra ketan, garaiz aurretik fruitua galtzen duten arbolekin, bai eta gatzeko zutabea ere, arima [sinesgabearen](#) oroigarri.

[Elizen arteko biblia](#)

Ez dezala zuetako inork bihotz gaizto eta [sinesgaberik](#) izan. [Elizen arteko biblia](#)

3 (-en atzizkiaren eskuinean izen gisa)

Izan ere, nitaz errukitu egin zen Jainkoa, neure [sinesgabean](#) ez bainekien zer egiten ari nintzen. [Elizen arteko biblia](#)

4 (adizlagun gisa)

Izan ere, ez dira gutxi Europari [sinesgabe](#) begiratzen dioten britainiarrak. [Berria - Mundua](#)

• 5 *iz* sinesten ez duen pertsona.

Ordurako [sinesgabe](#) hutsa nintzen, baina hain zuzen horrexegatik ez zitzaidan axola erlijiozko klasea jasotzea. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Ez nahasi [sinesgabeekin](#): ba al dute zerikusirik elkarrekin zuzenbideak eta gaiztakeriak? [Elizen arteko biblia](#)

Behin gertatu zen, anaia batzuk [sinesgabeen](#) lurraldeetara iritsi zirela, eta han musulman batek, errukiturik, jatekoa erosteko behar zuten dirua eskaini zien. [Askoren artean](#)

Zer espero lezake [sinesgabeak](#) Jainkoak bizia kenduko dionean? [Elizen arteko biblia](#)

[Sinesgabeei](#) dagokien heriotza lotsagarria izango duzu atzerritarren eskutik. [Elizen arteko biblia](#)

Baliteke hauxe izatea benetako [sinesgabea](#), pentsatu zuen errabinoak. [Koro Navarro](#)

Liburutegira jo nuen: erran nahi baita, Turingo Unibertsitateko Kimika Ikastegiko biblioteka beneragarria, Meka bezala [sinesgabeentzat](#) guztiz itxirik dirauen tenplu hartara. [Juan Garzia](#)

Beretarez eta etxekoez bereziki arduratzen ez den norbait baldin badago, honek bere sinesmenari uko egin dio eta [sinesgabea](#) baino okerragoa da.

6 [sinesgabeko izlag](#) sinesgabea.

Agorra da [sinesgabeko](#) jendea, suak suntsituko ditu eroskeriazaleen etxeak. [Elizen arteko biblia](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

[sinesgabe horiek](#) (6)

[sinesgabeen artean](#) (4); [sinesgabeen aurka](#) (4)

sinesgabetasun **1** *iz* sinesterik eza; sinesgabea denaren egoera edo nolakotasuna.

Alauri «gaizkiaren ikur eta [sinesgabetasunaren](#) agente» izatea leporatzen dio ahotsak. [Berria - Mundua](#)

Azkenik, Hamaiketi agertu zitzaizen, mahaian eserita zeudela, eta aurpegira bota zizkien beren [sinesgabetasuna](#) eta burugogorkeria, pizturik ikusi zutenei sinetsi ez zietelako.

[Elizen arteko biblia](#)

[Sinesgabetasun](#) beraz erreakzionatu nahi izan nuen Alos-Torreako gertakariak amestu eta hurrengo goizean bele batek kua-kua eginez esnatu ninduean. [Anjel Lertxundi](#)

Irribarrea sentitzen du ezpainetan, [sinesgabetasunak](#) ekarri ohi duen ezpain zabaltze arin bat. [Karlos Linazasoro](#)

2 (hitz elkartuetan)

Boninok [sinesgabetasun](#) zeinuren bat atzeman bide zuen nirean, zeren bere jarduna moztu eta, halako doinu apur bat minduan, esan baitzidan: [...]. [Juan Garzia](#)

sinesgabezia *iz* sinesgabetasuna.

Eta ez kristauak bakarrik, sarrazenoak eta [sinesgabeziaren](#) ilunpetan daudenak ere. [Askoren artean](#)

sinesgai *iz* fedez sinetsi behar den gaia. ik [sineskizun](#); [dogma](#).

Fedeko [sinesgaiak](#) argitasunez eta trebetasunez ulertzen dituzte. [Joan Mari Lekuona](#)

Honako Tratatu honek [...] Torah-ren zientzia bere errealitatean aztertzea du helburu, edo hobeki esan, gure Legearen egia ariman [sinesgai](#) gisa ezarria daukan gizon erlijiosoa argitzea. [Xabier Kintana](#)

sinesgaitz (orobat *sinisgaitz g.er.* *sinisgatx g.er.* eta *sineskaitz g.er.*; Euskaltzaindiaren Hiztegian *sinesgaitz* agertzen da) 1 izond nekez sinets daitekeena, sinesten zaila. ik **sinestezin**.

Berehalakoan, halako ausardia **sinesgaitz** batez, eskutik heldu zion. **Patxi Zubizarreta**

Mirakulu **sinesgaitz** baten eraginez. **Patxi Zubizarreta**

Alemaniarren okupazioaren denboran, eta Parisen bizi ginel, bi bidaia **sinesgaitz** egin genituen Hego Euskal Herrira. **Jokin Urain**

Torturak bere horretan dirauela esan zuen, Auzitegi Nazionalen 18/98 bezalako epaiketa «**sinesgaitzak**» egiten direla. **Berria - Euskal Herria**

Irribarre **sinesgaitza** egin nuen. **Alberto Ladron Arana**

Gol **sinesgaitz** bat sartu du Mendieta. **Iban Zaldia**

Egiaz, Botanikoa oasi **sinesgaitza** da, Pradoko zirkulazioaren burrunba ikaragarria urruntzen duena. **Ramon Saizarbitoria**

Sinesgaitza da honelako leku baten ondo sentitzea, baina ni ondo sentitzen naiz. **Jon Arretxe**

Sinesgaitza da, hala ere, Frantziskok Sultanaren aurrean bere espiritutik hain urruti dagoen argudioa erabili izana. **Askoren artean**

Roberti **sinesgaitza** zitzaion batzuetan horrelako haur batek hain ulermen izugarria izatea. **Fernando Morillo**

Aliziar **sinesgaitza** iruditzen zaio oraindik bart gertatutakoa, amets hutsa. **Patxi Iturrategi**

Sinesgaitza gertatuko litzaizueke guretarrek zer hartu duten sorgintzeko... **Iñaki Mendiguren**

Sinesgaitz gertatzen zait Maximilian plaza inoiz toki baketsu edo atsegintzat hartu izana. **Alberto Ladron Arana**

Aski **sinesgaitza** da arma horrek gure garaia arte irautea. **Alberto Ladron Arana**

Zure istorioa erabat **sinesgaitza** da eta badakizu. **Harkaitz Cano**

Sinesgaitza edo ez, egia da. **Arantxa Iturbe**

Suharki, aberri-zale agertzen diren diskurtsoen muina **sinesgaitzago** zait, manipulazio hutsa irizteraino batzuetan. **Itxaro Borda**

Oraindino ere bonba-zulo erabat **sinesgaitzak** ikusi ahal dira. **Edorta Jimenez**

Egosketen lurrinak eta usain **sinesgaitzenak** sortzen ziren han. **Anjel Lertxundi**

Gure identitatea, azken finean, kontakizun bat delako, kontakizunik **sinesgaitzena**. **Joxean Agirre**

Modu **sinesgaitzean** antzezten zituen animaliekiko sexu egoerak. **Jon Arretxe**

Realak, modu **sinesgaitzean**, markagailuari buelta emanaz irabazi du partida. **Berria - Kirola**

2 (adizlagun gisa)

Ez nintzateke ausartuko esaten pozik, harriturik edo **sinesgaitz** galdetu zuen. **Ramon Saizarbitoria**

Diruagatik?... - **sinesgaitz** begiratu zion, kirtenkeriaren bat entzun izan balu bezala. **Migel Angel Mintegi**

Sinesgaitz behatu nion, nekizkien guztiak kontatzeko prest. **Aingeru Epaltza**

-Benetan? -galdetu nion **sinesgaitz**. **Alberto Ladron Arana**

Burua astindu nuen, **sinesgaitz**. **Alberto Ladron Arana**

Eszer-eskuin mugitu zuen burua, **sinesgaitz**. **Lutxo Egia**

3 irud/hed

Begi **sinesgaitzez** begiratzen zioten Agustinari gizonak eta neskatoak. **Aitor Arana**

• 4 iz sinesgogorra den pertsona.

San Tomas bezalako **sinesgaitz** eta sinesgogor hanix beita euskaldunen artean ere. **Herria**

Laborari debota eta fraile **sinesgaitza** elkarrekin ehortziak dira. **Piarres Aintziart**

Santo Tomas **sinesgaitzak**, aurreko agerkundean ez baitzegoen beste lagunekin, esaten du: "Ikusten ez badut, ez dut sinetsiko". **Patxi Altuna**

Sar ezak hemen behatza eta ikus ezak egia, eta ez adi izan **sinesgaitza**, baizik sinestuna. **Patxi Altuna**

Oraingoan aurrez aurre begiratu nion, mirari baten aurrean **sinesgaitzok** begiratu ohi dugun harridurarekin. **Joxean Agirre**

Merkatari zuhur bezala, aurkitutako harribitxia **sinesgaitzen** begietatik ezkututzen zuen eta, bere gauza guztiak salduz, hura erosi nahi zuen isilpean. **Askoren artean**

5 *sinesgaitz egin* (orobat *sinesgaitza egin*)

Izan ere, antigoaleko jende askorentzat, bihotza baitzen kontzientziaren organoa eta burua sentimenduena, orain burmuinaz pentsatzen dugula hain begi-bistakoa denean, inoiz bestela izan zitekeenik ere **sinesgaitz egiten** zaigun arren. **Patziku Perurena**

Sinesgaitz egiten da hemen iturriko ura ez edatekoa izatea. **Edorta Jimenez**

Ikusleari **sinesgaitza egiten** zaio Jose Garfia hiltzaile gupidagabearen onbideratzea. **Berria - Kultura**

Öchlerrek harrituta begiratu zidan, **sinesgaitza egingo** balitzaio bezala nire ezjakintasuna. **Anjel Lertxundi**

Sinesgarri izan nahi zuten hitzek, ordea, **sinesgaitz egin** zuten kontatutakoa. **Joxemari Urteaga**

Sinesgaitz samarra **egiten** baitzitzaidan tipo bitxi hura halako aingeru baten aita (edo aitaordea behinik behin) izatea. **Alberto Ladron Arana**

Ez zuen sinetsi nahi Justina don Leonardorekin ezkontzera zihoanik; are **sinesgaitzago egiten** zitzaion bezperan elkarrekin bizi izandakoa akordura zetorkionean. **Felipe Juaristi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sinesgaitz begiratu (3); **sinesgaitz** egiten (4)

sinesgaitza bada ere (3); **sinesgaitza badirudi ere** (3); **sinesgaitza da** (27); **sinesgaitza dela** (3); **sinesgaitza dirudien arren** (3); **sinesgaitza egiten** (4); **sinesgaitza iruditzen** (4); **sinesgaitza izan** (3); **sinesgaitza zen** (4)

modu sinesgaitzean (3)

sinesgaizki *adlag* era sinesgaitzean.

Pasaiaik nolabait inpaktatu egin zuen, eta gizona kalean eta mendian pasieran ez ezik, marrazkiak egiten (oso onak), notak hartzen, jendea eta gauzak behatzen, **sinesgaizki** ekinkor egon zen Pasaiaiko egun guztietan. **Koldo Izagirre**

Zeinen **sinesgaizki** tristea den dena: galitziar aberetu eta errukigarriok, sinagogen hondakinok, bizitza doilor hau, gertakari izugarriak inon, zeinen isla baizik ez dugun ikusten... **Pablo Sastre**

sinesgaitzasun (orobat *sineskaiztasun g.er.*; Euskaltzaindiaren Hiztegian *sinesgaitzasun* agertzen da) 1 iz sinesgaitza denaren nolakotasuna.

Ez nion hitzik ere sinetsi, jakina... eta dibertigarria gertatu zitzaidan nire **sinesgaitzasuna**. **Ander Irizar**

Nire **sinesgaitzasuna** jarraera intelektual zuhurraren ondorioa ez, baizik eta gabezia baten emaitza iruditzen baitzitzaidan behingoz. **Ramon Saizarbitoria**

Ez nuen ondo ezagutu Harry, baina nahitasuna hartu nion modu berezi batez (aldez miresmenez, aldez harriduraz, aldez **sinesgaitzasunez**). **Oskar Arana**

Haren **sinesgaitzasuna** sinesgarri zait eta gainera osoki fededuna balin bada, Gaizkiak ez dituela aski gogoetak egin botako diot. **Piarres Aintziart**

Zenbat eta handiagoa delituaren basatikeria eta gorabeheren **sinesgaitzasuna**, orduan eta txikiagoa testiguen sinesgarritasuna. **Juan Martin Elexpuru**

2 irud/hed

Juan Garzia

sinesgarri (orobat *sinisgarri g.er.*; Euskaltzaindiaren Hiztegian *sinesgarri* agertzen da) 1 izond sinestekoa, sinesteko modukoa. (pertsonez mintzatuz)

Haren ahotik neuk entzunak eta testigu **sinesgarri** eta probatuengandik jaso ditudanak. **Askoren artean**
Hurbileko buruzagi **sinesgarri** bat bilatzen zuten hautesleak bereganatzea lortu duen fenomeno politiko bat. **Berria - Harian**
Kabinetean dauden hutsuneak «sunita **sinesgarri** eta ordezkatzailerek betetzea» espero duela adieraztearekin batera. **Berria - Harian**
Ezinbestekoa zen abestea, ezinezkoa egingo zitzaidan Cash **sinesgarri** bat izatea benetan abestu gabe. **Berria - Kultura**
Gatazkan baino, gatazkek inguratuta bizi diren pertsonaia **sinesgarriak** eraikiz. **Berria - Kultura**

2 (gauzez mintzatuz)

Idatzia dago ere eta lekukotasun **sinesgarriz** frogatua. **Askoren artean**
-Oso arrazoi **sinesgarriak** eman ditu -esan zuen Trumbellek-. **Oskar Arana**
Beraz lehenbailehen asmatu behar zuen aitazkia **sinesgarri** bat. **Migel Angel Mintegi**
Fedea **sinesgarria** eta bizigarria da. **Felipe Juaristi**
Hautesle asko ez daude Bushekin gustura, baina ez dute uste Kerry alternatiba **sinesgarria** denik. **Berria - Mundua**
Andreas isilik egon zen une batez, argibide **sinesgarri** baten bila. **Anjel Lertxundi**
Trikimailu **sinesgarriren** bat topatu beste erremediorik ez daukazu. **Rafa Egiguren**
Argazkia berez, ontologikoki objektiboa da, eta pintura baino **sinesgarriagoa**, beraz. **Josu Zabaleta**
Sinesgarria eta guztiok onartzekoa da doktrina hau. nork epai lezake zer den posible eta **sinesgarri**. **Elizen arteko biblia**
Erantzuna ere prest daukazu, eta **sinesgarria** gertatzea espero duzu. **Rafa Egiguren**
Agidanez, jendeak **sinesgarriagotzat** hartzen ditu argazkiak ilustrazioak baino. **Txema Ramirez de la Piscina**
Natura, lege eta graziaren testigantzak baietsia gertatuko da egiazko eta **sinesgarri**. **Askoren artean**
Gezur txiki bat kontakizuna **sinesgarriagoa** egiteko. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Kontzentrazio-efektu horrek modu **sinesgarrian** esplikatuko luke airean oso kontzentrazio txikian dauden gai batzuk detektatzeko gaitasuna. **Irene Aldasoro**
Artista izan behar da hain eszena zailak hain modu garbian eta **sinesgarrian** filmatzeko! **Anjel Lertxundi**
Era **sinesgarrian** beti. **Iñigo Aranbarri**

3 (adizlagun gisa)

Ez nintzen arras **sinesgarri** agertu. **Aingeru Epaltza**
-Inork ez dik egindakoa eskertuko -esan dizu, **sinesgarri**, konbentzitzeko asmoz-. **Rafa Egiguren**
Markesaren alabari benetan gertatu omen zitzaiona kontatzen hasi zitzaidan emakumea, kontagai zituenak une hartantxe bere begien aurrean gertatzen ari balira bezain bizi eta **sinesgarri**. **Anjel Lertxundi**

4 modu *sinesgarrian* (orobat *era sinesgarrian*)

Kontzentrazio-efektu horrek modu **sinesgarrian** esplikatuko luke airean oso kontzentrazio txikian dauden gai batzuk detektatzeko gaitasuna. **Irene Aldasoro**
Bada beste alderdi bat Barojaren baitan inoiz ez zuena modu **sinesgarrian** garbitu: familia hurbilaren gorabeherak. **Josu Zabaleta**
Artista izan behar da hain eszena zailak hain modu garbian eta **sinesgarrian** filmatzeko! **Anjel Lertxundi**
Era **sinesgarrian** esan behar diegu gaitubei inork ez dakiela non dauden eta kanpoan inor ez dela beraietaz kezkatzen. **Berria - Mundua**
Gizakiaren motibazioek eta zortek ere eragin ederra dute istorioan, eta era **sinesgarrian** txertatzen ditu narrazioan. **Berria - Kultura**
- Horrek behartzen gaitu, hain zuzen, modu **sinesgarri** samarrean irudikatuzera nolatsu joan den poliki-poliki eraikiz halako konplexutasuna **Juan Garzia**

5 *sinesgarri* egin

Pertsonaia erabat **sinesgarri egin** zuen eszenifikazioari esker. **Berria - Kultura**
Zein da, zure ustez, obra bat **sinesgarri egiten** duen elementua? **Ana Urkiza**
Acqua Sappone taldeko txirindulariak ezinezkoa zirudiena lortu du, sineskaitza zena **sinesgarri egin** du: Alessandro Petacchi garaitzea. Ozenegi abestuz gero, gaitzeko arazoak izango ditu bertsolariak eszena **sinesgarri egiteko**. **Berria - Kirola**
Kontatzen duena edo idazlea istorioan sartuta sumatzeak **egiten** du obra bat **sinesgarri**. - Niri **sinesgarri** samar **egiten** zait Satrustegiren susmoa. **Ana Urkiza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sinesgarri egin (4); **sinesgarri egiteko** (3); **sinesgarri egiten** (8); **sinesgarri izan** (3); **sinesgarri izateko** (8)
benetakoa eta sinesgarria (3); **erabat sinesgarria** (5); **ez da sinesgarria** (12); **fedea sinesgarria** (3); **guztiz sinesgarria** (3); **oso sinesgarria** (6); **sinesgarria da** (13); **sinesgarria dela** (7); **sinesgarria den** (4); **sinesgarria egin** (3); **sinesgarria eta bizigarria** (3)
sinesgarriago egiten (3)
sinesgarriagoa da (3)
ez dira sinesgarriak (5); **oso sinesgarriak** (3); **sinesgarriak ziren** (3)
era sinesgarrian (3); **modu sinesgarrian** (6)
froga sinesgarririk (5)
sinesgarrizat jo (4)

sinesgarriki *adlag* era sinesgarrian.

Eta, bistan da, ahulezia honek galaraziko dio asmaziozko fabulazioa -zeinean denok, nork gehiago nork gutxiago, hartzen baitugu parte-, **sinesgarriki** erabiltzea. **Jon Alonso**

sinesgarritasun (orobat *sinisgarritasun g.er.*; Euskaltzaindiaren Hiztegian *sinesgarritasun* agertzen da) 1 iz sinesgarria denaren nolakotasuna.

Zenbat eta handiagoa delituarren basatikeria eta gorabeheren sinesgaiztasuna, orduan eta txikiagoa testiguen **sinesgarritasuna**. **Juan Martin Elexpuru**
Bere nazioarteko **sinesgarritasun** eta itzala indartzeko asmoz. **Berria - Harian**
Sinesgarritasuna eman nahi nion istorioari, **sinesgarritasuna** politikoki zuzena litzatekeen jarreraren aurrean. **Pako Aristi**
Ez da egia ETArri Gobernuari baino **sinesgarritasun** gehiago ematen diogula. **Berria - Euskal Herria**
Batzuek diote ospetsuek mezua gehiago zabaltzen dutela; besteek mezuar **sinesgarritasuna** kentzen diotela. **Pako Aristi**
Beraz, gure susmoak frogatuko balira, edo okerrera, baten batek frogatuko balitu eta ezagutzera eman, gure alderdiak, esan bezala, **sinesgarritasuna** galduko luke. **Migel Angel Mintegi**
Gobernu errepublikarrak **sinesgarritasuna** eta urte hartako hauteskundeak galdu zituen. **Unai Elorriaga**

Sinesgarritasuna eraginek lanak ekarriak dio "Euskal Herriko laborantza ganbarari". **Herria**

Sinesgarritasuna ez duk kontakizunean jokatzen, kontakizunaren prestakuntzan baino. **Anjel Lertxundi**

Zer **sinesgarritasun** izan lezake orain? **Iñigo Aranbarri**

Ez dakit zer **sinesgarritasun** duten Lamassourenen hitzek. **Berria - Euskal Herria**

Bat-bateko aldaketa horren neurriak baldintzatuko du erreformaren **sinesgarritasuna**. **Koro Navarro**

Iruzur hauekin aldizkari zientifikoen **sinesgarritasuna** ere kolokan jarri da. **Berria - Gaiak**

Batzorde berriaren zilegizkotasuna kideen **sinesgarritasunean** oinarrituko. **Berria - Mundua**

Haren **sinesgarritasunaren** benetako neurria, egia esateko edo ez esateko duen interesa da. **Juan Martin Elexpuru**

Erori diren bertsoaldiak narrazioaren elementuak behar bezala lotu ez eta **sinesgarritasunean** eragin zuzena izan duelako erori izan dira. **Berria - Harian**

Ni idazlea naiz, eta idaztearen funtsezko legeari baizik zor nion errespetua: **sinesgarritasunari**. **Pako Aristi**

2 (izenondoeekin)

Horregatik, Gipuzkoako Auzitegiak uste du neskaren deklarazioak «**sinesgarritasun** gutxi» duela. **Berria - Euskal Herria**

Jose Luis Rodríguez Zapatero Espainiako gobernuburuaren elkarriketarako deia positiboa dela esan zuen Aralarrek, baina ez zion **sinesgarritasun** handirik eman. **Berria - Harian**

Horrek **sinesgarritasun** handiagoa eman zion informazio sasiko hari. **Txema Ramirez de la Piscina**

Sinesgarritasun handiagoko zeozer asmatu beharko bailitzateke, beste gabe egiak gezurra gainditzea eragingo lukeena. **Xabier Amuriza**

Ikerketa horren emaitzek **sinesgarritasun** eskasa dute. **Berria - Gaiak**

Garai urrun haietan, hautagai baten balio eta **sinesgarritasun** politikoa, mintzaldiaren ondotik eskaintzen zuen aperitifaren oparotasunaren arabera trenkatzen zen. **Itxaro Borda**

Zinez uste dut Frantziako Elizak bere **sinesgarritasun** etikoa galdu duela XIX. mende hondarrean. **Piarres Xarriton**

Kristauen komunitatea oso une zaila bizitzen ari da, bere **sinesgarritasun** moralak kolokan baitago. **Berria - Euskal Herria**

«Politika publikoak **sinesgarritasun** osoa galdu du herrialde horietan, eta horregatik alferrik da lege berriak sortzea. **Berria - Gaiak**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Komunikazioa, ordea, ez da sinesmen kontua, baizik eta **sinesgarritasun** kontua. **Txema Ramirez de la Piscina**

Lucio Gutierrez presidentearen **sinesgarritasun** maila %3,9 da. **Berria - Harian**

Argazki-sekuentzia baizik ez da gai -argazkiaren *arhkéak* berekin duen **sinesgarritasun** -indarraren eraginez-, horren bortizki ez bada ere, filmeko sekuentziarekin alderatzeko. **Josu Zabaleta**

Vitruvioren kritika estetikoak eta moralak da, aldi berean, eta ez da materialen izaerari zor zaion leialtasunean oinarritzen [...] **sinesgarritasun** -premioa baizik. **Santiago Iruetagoiena**

Maila sozialean, demokraziaren gaineko halako **sinesgarritasun** galera garbi bat gertatu da. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Aipatu ikerketan, ageri-agerian gelditu zen masa-hedabideek Euskal Herrian duten **sinesgarritasun** -defizita. **Txema Ramirez de la Piscina**

Zuzendarien dimisioak soilik emango lioke «**sinesgarritasun** puntu bat» asteazkeneko bilerari. **Berria - Ekonomia**

Planak duen gabeziarik handiena **sinesgarritasun** -eza da. **Berria - Euskal Herria**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Beharkizun hori oso kontuan hartu zuten gobernuek, eta, hala, diru-**sinesgarritasunaren** alde egitea erabaki zuten, diru bakarraren igarobiderako baldintzetan ofizialki ipiniz. **Koro Navarro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sinesgarritasun eza (4); **sinesgarritasun falta** (7); **sinesgarritasun gehiago ematen** (4); **sinesgarritasun gutxi** (7); **sinesgarritasun guztia** (4); **sinesgarritasun handia** (6); **sinesgarritasun handiagoa** (3); **sinesgarritasun handiko** (3); **sinesgarritasun handirik** (8); **sinesgarritasun osoa** (9)

bere sinesgarritasuna (3); **duen sinesgarritasuna** (4); **salaketei sinesgarritasuna eman** (3)

sinesgarritasuna eman (17); **sinesgarritasuna eman die** (3); **sinesgarritasuna ematen** (14); **sinesgarritasuna ematen dio** (4); **sinesgarritasuna galdu** (15); **sinesgarritasuna galdu du** (5); **sinesgarritasuna galduko** (4); **sinesgarritasuna irabazi** (4); **sinesgarritasuna izan** (7); **sinesgarritasuna izan dezan** (4); **sinesgarritasuna jokoan** (3); **sinesgarritasuna kendu** (8); **sinesgarritasuna kendu zion** (4); **sinesgarritasuna kentzea** (3); **sinesgarritasuna kentzeko** (3); **sinesgarritasuna kentzen** (7); **sinesgarritasuna kolokan** (4); **sinesgarritasuna lortu** (3); **sinesgarritasuna zalantzan** (13); **sinesgarritasuna zalantzan jarri** (8)

ez du sinesgarritasunik (10); **ez dute sinesgarritasunik** (6); **inolako sinesgarritasunik** (6); **sinesgarritasunik eman** (5); **sinesgarritasunik ematen** (8); **sinesgarritasunik ez duela** (6); **sinesgarritasunik gabeko** (4)

sinesgogor 1 *izond* nekez sinesten duena, zalantzatzeko joera duena; sinesgogortasuna adierazten duena. ik sinesgabe.

Santo Tomas **sinesgogorra** zen, Kristoren zauria ukitzen. **Juan Garzia**

Egun osoan luzatuak nituen eskuak, herri **sinesgogor** eta errebeldeagana. **Elizen arteko biblia**

Nazi **sinesgogor** goiargitu hauek ez zekitek kontu hauetaz! **Fernando Rey**

Horregatik egin nien nik ere aurka eta etsaien lurraldera eramane, ea horrela haien barru **sinesgogorra** apaltzen zen eta zigorra merezia zutela aitortzen zuten. **Elizen arteko biblia**

Ondo gogoan ditu Mirenek ama lotsatuaren, nekatuaren begirada **sinesgogorra**, eta alabaren keinu despistatuak. **Iban Zaldúa**

Haien bihotza **sinesgogor** eta desleial bihurtu da; niregandik urrutii joan dira; ez baitzaituzte zu gutxietsi, ni gutxietsi naute. **Askoren artean**

Sineskor izatetik, **sinesgogor** izatera iritsi zen. **Felipe Juaristi**

Nire **sinesgogor** aurpegiaren aurrean, zerbait ekartzeko agindu dio seme nagusiari. **Jon Arretxe**

2 (adizlagun gisa)

-Ez naiz fida -iritzi zuen bentazainak, **sinesgogor** -. **Elena Touyarou**

Abokatuak burua astindu zuen, **sinesgogor** Batzuek onartzen. zuten Paulok esana; beste batzuek, ordea, **sinesgogor** jarraitzen zuten. **Fernando Rey**

Sinesgogor bazegoen ere Belasko hasieran, aho zabalik eta miretsita geratu zen azkenean. **Joanes Urkixo**

-Horrenbestearino, hortaz? -galdegin zion, artean **sinesgogor** antzean. **Patxi Zubizarreta**

Nire lehengusina irribarrez ari zen, oso **sinesgogor** hura ere. **Josu Zabaleta**

Cartierrek ezetz **sinesgogor**, felagen espioia dela, goi hauetan harriak baizik ez dituztelako alhatzeko ahuntzek. **Xabier Montoia**

-Nola hiltzailea? -erantzun zion Anak zakar samar, hiltzaile kontu hari **sinesgogor** eginez-. **Aitor Arana**

• 3 iz sinesgogorra den pertsona. ik sinesgaitz 4.

Zonbaitek maitarzun ütüz maite düğü arbasoen ganiko hizkuntza, bena San Tomas bezalako sinesgaitz eta **sinesgogor** hanitz beita euskaldunen artean ere. **Herria**

Hizketa arrotzez mintzatzea, beraz, **sinesgogorrenzat** da seinale, ez sinestedunentzat. **Elizen arteko biblia**

Halako erruki mugimendu moduko bat izan zen **sinesgogor** haren inguruan, fraide biltzar batean biraoren bat bota izan balu bezala. **Josu Zabaleta**

Baina Bko bi kondesak, gure **sinesgogor** hura ondoan baitzuten, harekin batera lotu zitzaizkion beren solas partikularrari. **Jon Muñoz**

4 *izond*/iz eszeptikoa.

Sinesgogor samarra da banku pribatuon jardunarekin. **Berria - Gaiak**

Dirua, bada, ideia edo sineste puru-purua da, dagoen idealik garbiena edo, hobeki esan, zikin-estaliene, eta hartatik esan ohi du herri-jende desengainatu eta

sinesgogorkeria iz sinesgogortasun gaitzesgarria.

Bi eguneari oihu eta orro egon zen min izugarriagatik, eta denei azaldu zien ezkutuko bere **sinesgogorkeria**. Askoren artean
Saia gaitzezen, bada, atseden horretan sartzen, eta ez dadila inor **sinesgogorkerian** eror. Elizen arteko biblia
Etorriko da askatzailea, eta **sinesgogorkeria** kenduko du Jakoben ondorengoetatik. Elizen arteko biblia
Saia gaitzezen, bada, atseden horretan sartzen, eta ez dadila inor **sinesgogorkerian** eror. Elizen arteko biblia
Harrigarria benetan: **sinesgogorkeria** baztertuta, espirituaren sendaketari gorputzarenak jarraitu zion. Askoren artean

sinesgogortasun 1 iz sinesgogorra denaren nolakotasuna. ik sinesgogorkeria.

Kritika da eskuarki kaltegarriak izan daitezkeen materialismoari, fatalismoari, ateismoari, libreprintsalarien **sinesgogortasunari**, gogoberotasunari eta sineskeriari erroak ebaki diezazkiokeen bakarra. Ibon Uribarri
Mutil sendo bat, neskazale eta andre-ehiztari amorratua, hain finko baitzuen gauza orotarako **sinesgogortasuna** non ez baitzuen eztabaidarik onartzen. Josu Zabaleta
Ez zion, beharbada, aurre egin nahi ezjakitun **sinesgogortasunari**. Juan Garzia
Haren gorputzera mardul haragitsuari begirakune grinatsua jostea, eta seta eta **sinesgogortasuna** areagotzea dena bat izan zen. Patxi Zubizarreta
Baina gero ezereza itzultzen zen, **sinesgogortasunera**, bakardadera. Fernando Rey
Tomi barre labur bat atera zitzaion, **sinesgogortasunezkoa**. Oskar Arana

2 (hitz elkartuetan)

"Lizardiren Onuzki?", galdetu nuen nik erretorikoki, **sinesgogortasun** kutsu batez. Karlos Linazaso
Horregatik, lagunak itxura oneko ikusten duela esan dionean, nekez ezkutatu du sumindura **sinesgogortasun** -mozorroaren pean. Imanol Zurutuza

sineskabe ik sinesgabe.

sineskaitz ik sinesgaitz.

sineskaiztasun ik sinesgaiztasun.

sineskera 1 iz sinestea, norbaitek sinesten duena. ik sinesmen.

Hirutasunaren misterioa eta Jesusen Mesianismoa dira, hain zuen, juduen eta kristauen **sineskeren** arteko harresi gogor eta gaindiezinena. Xabier Kintana
Ikasleak harrituta zeuden suaren inguruan sortutako erritu ugarien ondorioz, eta haietariko askok beharrezkotzat jo zuten gizon-emakume haien **sineskera** eta jokabideak aldatzea. Jon Arretxe
Herritar askoren ordezkari gara eta, horregatik, gure **sineskerak** albo batera uzten jakin behar dugu, erabaki publikoak hartzeko. Berria - Gaiak
Gure jakintza eta **sineskera** guziek, analogia klasikoan dute beren lehen sustraia. Patziku Perurena
Bere ideiak eta **sineskerak** gorabehera, oso pertsona zintzo eta lagunkoia iruditu zait Said. Jon Arretxe
Zazpi arkuko zubi sinboliko honen usuarioak, **sineskera** musulmanaren zazpi betebeharreran ditu bere erroak. Patziku Perurena
Badirudi Nikolas santuaganako **sineskera**, Santiobideko merkatu eta hiri guneetan kokatu ziren frankoek sartu zutela gure artera. Patziku Perurena
Paganoen gurkerari buruz zeukan jakituria irakatsi zioten liburuek, geroago aipatuko dituenek, **sineskera** hori, oro har, astrolatrian oinarritzen zela pentsarazi zioten. Xabier Kintana
Herri afrikar askotako **sineskeran**, hitzaren sorrera gorpuzten baitu kurriloak. Patziku Perurena

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Akerra ere ikusi zuten zalditegian, zeren eta, antzinako herri-**sineskera** zahar baten arabera, abere hori eduki beharra baitago zaldien artean. Kristauen Elizak, zeinen fede-**sineskera** jakina den, bere baitan filosofoen iritzi horiek [...] oso hedaturik zeuzkaten nazioak bereganatu zituenean, [...]. Jose Morales
Etnia, erlijio **sineskera** eta alderdi politiko guztien arteko oreka nola edo hala errespetatuz. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gure sineskerak (3)

sineskeria (orobat siniskeria g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian sineskeria agertzen da) 1 iz sinesgarri ez diren gauzei buruzko sinesmena, arrazoiaren aurkakoa; ikur eta egintza jakin batzuek, modu estalian eta halabeharrez ondorio onak edo txarrak ekartzen dituztela sinestea. ik superstizio.

Sinesmena eta **sineskeria** nonahi sumatzen dira. Gotzon Garate
Ez nion erran emazte gazteari bere sinesteak **sineskeria** zirudiela, ene ustez. Piarres Aintziart
Elezaharrez bete nuen gogoia, **sineskeria** eta superstiziozko lurralde honi buruz entzun edo irakurriak nituen historiez bete. Josu Zabaleta
Nik ez nekien zer erran, zeren eta egia izan baitzitekeen, baina baita **sineskeria** eta superstizioa ere. Joan Mari Irigoien
Ez, ez: hamahiru zenbakia harro daramat elastikoan, ez dut horrelako **sineskeriarik**. Berria - Kirola
Sineskeriara emana naiz, eta beti iruditu zait seinale txarra hortzetako zotza lurrera erortzea, beraz, muker samar itzuli nintzen bestaldera. Javi Cillero
Oso **sineskerietara** emana zen; kalearen erditik ibiltzen zen, eta inoiz ez espaloitik; erdi-txantxetan erdi-seriotan esaten zuen eten behar ez zen hari ikusezinezko arrasto bat uzten zuela igarotzean. Josu Zabaleta
Irlandako **sineskerien** arabera, sorginen erratz magikoak ez dira lizarrez egiten. Pello Zabala
Zabaldur zure fedegabekeria lau haizeetara, oraindik ere **sineskeriaren** ilunpean galduta dabilzaten zure adineko gazteen artean zaudenean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Erljioak dituen eta izan dituen betiko arriskuak: dogmatismoa, **sineskeria**, intolerantzia, indarkeria... Berria - Euskal Herria
Lurra sakratua delako **sineskeriak** gehiago haserretzen zituen bakean ez uzteak baino. Anton Garikano
-Herriak uste du gurutzatzea eskuetatik jausten zaionean hil dela osoro urkatua, baina horiek **sineskeriak** dira. Koldo Izagirre
Sorginak, fraideak, txiroak, prostitutak, astoak eta bestelako pertsonaiak erabiltzen zituen ezjakintasuna edo **sineskeria** salatzeko. Berria - Kultura
Filosofiak, ordea, bide luzea egin du geroztik [...] eta izarrak eguzkia piztearekin batera nola, halaxe ezabatuko dira haren aurrean **sineskeria** guztiak. Josu Zabaleta

Hortik artean dira **sineskeria**, gizakiezi nahai jabetzen direnak. Piarres Xarriton

Heriotzaren eta hildakoen inguruko **sineskeria** eta aurreiritzi sozialen bidegabekeria erakusten ere saiatzen nintzen. Ramon Saizarbitoria

Aurreiritzi hura **sineskeria** bihurtu da eta barna sartu ditu erroak gogo-bihotzetan. Piarres Xarriton

Sinetsita nago, egun ere -eta ia **sineskeria** den uste berezi hori indartu egin zen gutun haiek irakurrita-, bazela Lajosengan indar-iturri misterioitsu bat, zenbait errekatxok dutenaren parekoa. Ander Irizar

Zeltiar **sineskeria** baten arabera, haurtxo bat intsusaz egindako sehaskan ipiniko balitz, haren galera izango litzateke, ubelduraz eta atximurrez belztuta utziko lukete sorginek. Pello Zabala

Indioen artean bada **sineskeria** bat: gaitz asko sendatu egiten direla birjina batekin sexu harremanak izanez gero. Gotzon Garate

Hilketak ederretzatzeko **sineskeria** ere tartean sartzen da. Gotzon Garate

Niri gorpuzkiak ondratzea eta horrelakoak **sineskeriak** iruditzen bazitzaizkidan ere, gure kultura sustraitutako kontuak ziren. Ramon Saizarbitoria

Sineskeria horrek jota daudenek estiloztat daukatena ez da orrialde baten eragingarritasun edo eragingarritasunik eza, idazlearen itxurazko trebezia han-hemenkakoak baizik. Juan Garzia

Badabil hor barrena **sineskeria** bat oso kaltegarria, zerbait berria onartu aurretik zaharra borratu behar dela, alegia. Karlos Zabala

Sinetsita nago, egun ere -eta ia **sineskeria** den uste berezi hori indartu egin zen gutun haiek irakurrita-, bazela Lajosengan indar-iturri misterioitsu bat, zenbait errekatxok dutenaren parekoa. Ander Irizar

2 (izenondo eta izenlagunekin)

-Hori **sineskeria** hutsa da; ez du inolako zentzurik. Juan Kruz Igerabide

Hiru hauen argitan Jaungoiko bakarraren eta substantzia bakarraren ulertzera iristen gara, **sineskeria** hutsalak alde batera utzita. Imanol Unzurrunzaga

Ergelkeria irudituko zaizu, **sineskeria** merkea, nahi baduzu, baina horrela pentsatu eta sentitzen dugu hemen. Paddy Rekalde

Sineskeria inozo horietako bat zen. Harkaitz Cano

Sineskeria maltzur eta ilun batek baizik ez dezake plazer hartzea debeka. Piarres Xarriton

Fraideen **sineskeria** zitalak sorrarazitako irudi gorrotagarri eta nazkagarriez. Koro Navarro

Nik okerrarazi nuen bere egiazko sinestetik [...] gezurrezko **sineskeria** galgarrietara. Imanol Unzurrunzaga

Filosofatze zinezkoak ematen digun saririk ederrenetakoa, **sineskeria** zikinetatik libratzea da. Patziku Perurena

Gizadi negartsua **sineskeria** gupidagabearen mende. Juan Martin Elexpuru

Abereak hiltzea debekatzen duen legea, alferreko **sineskeria** batean eta emazteen urrikakeria batean oinarritzen dela, zentzuzko Arrazoiari baino segurago. Piarres Xarriton

Beste **sineskeria** guzietan ere, emetasunaren zantzua hartu izan dio jendeak hego haizeari. Patziku Perurena

Argi sentitzen nuen nola barneratzen zitzaidan, mailaka-mailaka, motel baino ziur, Usherren **sineskeria** zoro baina zirraragarrien eragin gaiztoa. Koro Navarro

Erromatar zaharren garaian, **sineskeria** berdintsua zegoen indarrean: itsasoratzean, ontzia portura iritsi artean, guztiz debekatuta zeukaten ile-azazkalen ebakitzea eta moztea: ekaitzaren beldurra hala aginduta, noski. Pello Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sorginkeria eta **sineskeria** klase guztietan sinesten zuen. Koro Navarro

Jauregiri besotik heltzen nion, eta une orotan markagailua errateko eskatzen nion, ez baitu inoiz begiratzen, **sineskeria** kontuak direla eta. Berria - Kirola

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Denborarekin, herria aspaldiko lokarrietarik, ohidura zaharkituetarik, erlijio **sineskerietarik** aske sentituko zenean, besterik izanen zen. Elena Touyarou

Herri **sineskeria** zaharrok jakin-mina sortu zuten haurrarenagan, bizitza osoan iraun zuen jakin-mina. Berria - Harian

Herri-**sineskeriaren** arabera, alfonbran zuloa egiteko bezain indartsua da urdaileko azidoa. Irene Aldasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sineskeria hutsa (3)

sineskeriadun iz superstiziosoa den pertsona.

Galdetu banio hobee: ea mahomatarra ote zen, filmatua izateari hala uko egiteko, edo bestela zernolako **sineskeriaduna**. Joxe Austin Arrieta

sineskeriatsu izond superstiziosoa.

Ez pentsa, haatik, halako axolagabe erosten zuenik jenero hori: **sineskeriatsu** izaki erlijozale baino areago, deseroso sentitzen zen kasher'taren arauak hautsirik. Juan Garzia

Nikolasek, **sineskeriatsua** erusiar gehienen antzera, kibitka gelditu zuen. Karlos Zabala

sineskeriazale (orobat sineskeria(-)zale) izond sineskerien zalea dena.

Josefina, sortzez kreol eta **sineskeriazalea**, Enperadorearen lagun zetorren Baionara. Koldo Izagirre

Eta zinez baitira **sineskeriazale**, apaizari diote Jainkoari baizik zor ez zaion errespetua eta fedea. Jon Muñoz

Munduan gorrotoa merezi duen amarik baldin bada, zurea bat, dudarik gabe!; haserrekorra, **sineskeria zalea**, santujalea, kontakatilua... Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Astearteak hortxe baitu, auskalo nondik, bere maldiziotxo elegaitzekoa, ostiralaren pareko, zeinetan zenbait lantxo egitea debekatzen zioten beren buruari baserritar eta artzain **sineskeria-zaleenek**. Pello Zabala

sineskizun 1 iz fedez sinetsi behar den gaia. ik sinesgai.

Argitasun pixkaten jabe dena erraz samar oharzten da nik sinesten ditudan zera horiek denak fedetzat, **sineskizuntzat** eta ideiatzat hartzen ditudala. Iñaki Segurola

Fedearen zera honetan gertatzen da gauza bat beste ezertan gertatzen ez dena, eta honelatsu formula litekeena: **sineskizunari** dagokionez, itsuago eta argiago; zenbat-eta itsuago (sinetsi), orduan-eta argiago (ikus). Iñaki Segurola

Euskal Herriarekin sinesteak adierazten duena da hori guztia **sineskizun** bat dela, ikusten (edo entzuten) ez den zerbaitetan sinestea, ez den zerbait badela -edo, okerrago dena, izango dela- uste izatea. Iñaki Segurola

2 sinestea, sinesten den ustea.

Jose Maria Satrustegik [...] bildu zuen **sineskizun** baten arabera, Donibane gauean ba omen da une bat zeinean harri guztiak ogi eta ur guztiak ardo bihurtzen diren. Martin Anso

Likantropia, **sineskizun** ez ezik, metafora ere bada. Martin Anso

Mendebaldeko gizakiaren fede nagusia **sineskizun** hau izan zen beti: unibertsoa legearen mende zegoela eta ez kaosaren esku. Iñaki Mendiguren

Herodetar asimilazionista zirenen gaitzespena ere bereganatu zuen; hauek juduak "herri berezi bat" zirelako **sineskizun** irrazionala deitoratzen zuten. Iñaki Mendiguren

sineskor 1 *izond* erraz sinesten duena, esaten diotena sinesteko joera duena. **iksinesbera**.

Apaiz zahar **sineskor** bat zen. **Josu Zabaleta**

Aise erakutsi die Bush-ek Amerikano **sineskorrei** non zagoen gaizkia, nor ziren gaixtaginak. **Herria**

Edozein baldintzatan, menturaz Hokusaien eragin urrunez, kamikaze xume, **sineskor** eta umil baten moduan funtzionatzen nuen, ene kideen antzera. **Itxaro Borda**

Jendetasuna, funtsean, animalia **sineskor** izatetik datorkigu. **Patziku Perurena**

Begiek ikuspen bat izan zuten, jende **sineskorriari** mirarietan sinetsarazten dioten ikuspen horietakoren bat. **Josu Zabaleta**

Nire segurantza **sineskorrean**, lasai lokartua nintzen. **Jon Muñoz**

Rudolf enperadorearen izaera **sineskorra**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Sineskor izatetik, sinesgogor izatera iritsi zen. **Felipe Juaristi**

[Filologoa] fidakaitz eta sinesgogor amorratua baita dotrinanteekiko, fedekalte eta fedegalgarria, letrazko irudipen engainagarrien ezeztatzailea, izpiritu xano **sineskorren**, ideien eraikitzaile gezur-merkeen eta "bizitzen laguntzen duten" gezur polit kontsolagarrien etsai txarrena. **Iñaki Segurola**

Xiudadekumeak **sineskorrak** eta toleranteak direla genioen, eta halaxe dira, bai, informazioarentzat, zientziarentzat eta, nola ez!, artearentzat. **Iñaki Segurola**

Jakina baita gezurtirik handienak izaten direla **sineskorrenak**. **Patziku Perurena**

• 2 *iz* sineskorra den pertsona.

Han, zibilizazioaren muga bero hartantxe, ugalduko zen Joan izena, **sineskorren** ohoretan erruz, eta sineskaitzen desohoretan franko. **Patziku Perurena**

Baina **sineskorrei** beste galdera batzuentzat hizpide ez emateko, nahiago dut hau bere horretan utzi. **Piarres Xarriton**

Sineskorrentzako botikarik merkeena. **Patziku Perurena**

sineskortasun 1 *iz* sineskor denaren nolakotasuna.

Ume baten **sineskortasuna** zuen, eta heroi baten konfiantza. **Karlos Zabala**

Laño-laño azaltzen ahaleginduko natzaizue, auverniar baten **sineskortasuna** banu bezala. **Josu Zabaleta**

Pikarok edo azpisugeek, beren herrikideen **sineskortasunaz** abusatuz, beren eldarnio barregarriak hedatu dituzte. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Beste ministroek **sineskortasuna** eman zioten haren hitzei, «Batzordeak eskatutakoa bete duelako». **Berria - Ekonomia**

Bere kontzientziak eta **sineskortasunak**, oroitzapen bortitzek gizonen **sineskortasun** beldurtian duten eraginagatik. **Juan Martin Elexpuru**

Eta baldin, amoltsutasun tronpagarri horren lilurari men egini, zeure bihotzaren arabera ihardetsiko bazenio [...] zeure **sineskortasun** itsua negarretan zenuke deitoratuko.

Jon Muñoz

Haren ahotsa entzute hutsak **sineskortasun** osoz betetzen nain. **Antton Olano**

2 (hitz elkartuetan)

Halako zerbait bakarrik egin daiteke **sineskortasun** eta idealismo maila batekin. **Berria - Euskal Herria**

Atzo ikusitako guztia ipuin batean jarriko bagenu, **sineskortasun** falta egotziko ligukete. **Berria - Kultura**

sineskortu, sineskor(tu), sineskortzen da/du *ad* sineskor bihurtu.

Jendea hezteko eginarazi zituen errege Faraonek, eta gaur ere jendea hezteko dira arte garaikidearen mozkin eta eraikinik beldurgarrienak, eta, lehenaz gain,

sineskortzeko, eskasteko eta gixaixotzeko. **Iñaki Segurola**

sinesle 1 *iz* sinestuna.

Doktrina norberekoi eta ez-moral honen ezinbesteko ondorioa **sineslea** zerbitzu publikotik gero eta gehiago aldentzea izan zen. **Iñaki Mendiguren**

Ez niri berriz Haren izenean agindu mundua erdibi dezadan: **sinesle** eta fedegabe, lagun eta etsai. **Joseba Zulaika**

Sinesle bazara, begiak erakusten dizutenari baino nahiago izango duzu sinesmenak esaten dizunari kasu egin. **Joseba Zulaika**

Kristoren **sinesle** bezala duzuen jokaera onaz gaizki-esaka ari direnak beren hitz gaiztoez lotsatuko dira. **Elizen arteko biblia**

Piccaninnytarak, bestalde, ohorearen **sinesle** sutuak ziren, Etorri da oraingo gizona, dotrina orenen **sinesle** eta guzien ignoratzaile, eta ez daki zer egin. **Julen Gabiria**

Ehunka mila **sinesle** Hussein imamaren hilobiaren kokaleku den Kerbala hiri santuan elkarretaratu ziren. **Berria - Mundua**

2 (izenondoekin)

Halaber, **sinesle** sutua izatearen irudiarekin bat, lehen adierazpenak honela amaitu zituen Ahmadinejadek: [...]. **Berria - Harian**

Sinesle erromantikoa edo senezkoa dateke zinez sentitzen eta pentsatzen duen bakarra. **Patziku Perurena**

Mirande **sinesle** handi izan zen; beharbada euskal kulturak eman duen **sineslerik** finenetakoa. **Patziku Perurena**

3 (izenondo gisa)

Azken egun guztiotan bezala, milaka musulman **sinesleren** kale protestak gertatu ziren atzo ere, hala nola Palestinan. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sinesleen gidari (3)

sinesmen (*orobat sinismen g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian sinesmen agertzen da*) 1 *iz* erlijioko egiei eta dogmei buruzko sinestea. ik **fedee**; **sineste**.

Erlijioen arteko elkar ulertzea bermatzeko, ezinbestekoa da erlijio bakoitzak dituen **sinesmen**, erritu eta ohiturak errespetatzea. **Berria - Harian**

Fededunaren arrazioa irrazionala da, **sinesmen** batetik hasten da. **Piarres Aintziart**

Judutarra zen **sinesmenez**. **Herria**

Filemonen maitasuna eta **sinesmena**. **Elizen arteko biblia**

Erromatar ehuntariaren **sinesmena**.

Sinesmenaren argiak gidatzen gaitu eta ez ikusten dugunak. **Imanol Unzurrunzaga**

Har itzazu jarraibidetzat, Kristo Jesusengan oinarritzen diren **sinesmen** eta maitasunari buruz niregandik entzun dituzun hitz osasungarriak. **Elizen arteko biblia**

-Izan **sinesmen** Jainkoarengan! **Elizen arteko biblia**

Nolatan duzue oraindik hain **sinesmen** gutxi? **Elizen arteko biblia**

Erlijioa, ezer izatekotan, gizarte-fenomenoa da, **sinesmen** eta praktika asko eragiten dituen zerbait. **Askoren artean**

Sinesmena eta sineskeria nonahi sumatzen dira. **Gotzon Garate**

Sinesmena hedatzeko eta superstizioa borrokatzeko. **Aingeru Epaltza**

Fededuna zen, eta **sinesmenari** tinko eusten zion. **Juan Kruz Igerabide**

Diruaren irrikagatik **sinesmenetik** aldendu eta atsekabe asko bereganatu du zenbaitek. **Elizen arteko biblia**

Egon erne, irau sendo **sinesmenean** . Elizen arteko biblia
Garai batean suntsitu nahi izan zuen **sinesmena** zabalitzen ari zela orain. Elizen arteko biblia
Dohakabeak **sinesmena** galbidean jartzen dutenak! Elizen arteko biblia
Sinesmenari uko egin dio eta sinesgabea baino okerragoa da.
Iritziak, jakintzak eta **sinesmenaz** . Ibon Uribarri
Sinesmenak mundua garaitu. Elizen arteko biblia

2 (izenondo edo izenlagunekin)

Kernan jauna protestantea zen jatorriz eta, ezkondu zenean **sinesmen** katolikora bihurtu bazen ere. Irene Aldasoro
Lurperatzeko zeremonia ere berezia izaten da **sinesmen** budista dutenentzat. Berria - Harian
Nik banekien gorabehera asko izan zituela, agnostizismotik **sinesmen** itsura eta **sinesmen** itsutik ezertxo ere ez sinestera iragan zela. Joan Mari Irigoien
Berak apaizgai izaten segitzen zuen, gero eta **sinesmen** sakonagoz. Xabier Mendiguren Elizegi
Jainko gure Aitaren aurrean gogora dakartzagu etengabe zuen **sinesmen** ekintzailea, zuen maitasun saiaturia eta Jesu Kristo gure Jaunarengan duzun itxaropen iraunkorra.
Elizen arteko biblia
Nazionalismo aranazalearen Jainkoarenganako **sinesmen** programatikoa. Joseba Zulaika
Sinesmen heldugabekoei lagundu. hurbil gakizkion bihotz zintzoz eta **sinesmen** osoz, barrua bekatu-kontzientzia guztiak garbiturik eta gorputza ur garbiz txukundurik.
Elizen arteko biblia
Jarrai ezazue zeuen bizitza **sinesmen** txit santuaren oinarri gainean eraikitzen. Elizen arteko biblia
Itxurakeriarik gabeko **sinesmen** benetakoa. Askoren artean
Koldar eta **sinesmen** gutxikook, zergatik egin duzue ihes? Elizen arteko biblia
Erabateko **sinesmen** horretan oinarritzen da Islama. Berria - Euskal Herria
Sinesmen Islamikoaren Elkarteko buruzagia da. Berria - Mundua

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Estatuaren neutraltasuna eskatzen du, **sinesmen** askatasuna bermatuz. Berria - Harian
Erlijio edo **sinesmen** askatasun eskubidea urratu diete. Berria - Harian
Uko egin zion beti horri, ez erlijiozko **sinesmen** -irrotasunez, ekimen faltaz eta axolagabetasunez baizik. Horrela, bertze **sinesmen** motaren bat zuten jendeak ere bertan hilobiratuak daude. Juan Garzia
Komunikazioa, ordea, ez da **sinesmen** kontua, baizik eta sinesgarritasun kontua. Txema Ramirez de la Piscina
Itun zaharreko gizon-emakumeak **sinesmen** -eredu. Elizen arteko biblia
Guk ere, **sinesmen** -espiritu bera dugularik, sinesten dugu eta horregatik hitz egiten. Elizen arteko biblia
Nire **sinesmen** -gabezia ezaguna bide zuenez, pontekotzat ni hartuta [...] ekitaldi harekiko arbuio antzeko bat adierazi nahi zuen. Xabier Mendiguren Elizegi
Bati, Espirituaren egitez, **sinesmen** -dohaina ematen dio; beste bati, sendaketak egiteko dohaina. Elizen arteko biblia
Hau ez da **sinesmen** edo pentsaera-kontua. Oskar Arana
Bi **sinesmen** -artikulu besterik ez? Ibon Uribarri

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horrek David Minor-engana eta haren erlijio-**sinesmen** zurruntara eraman zidan gogo. Oskar Arana
Sekula ez zion buruhausterik eragin ezkein erlijio-**sinesmenek** . Mirentxu Larrañaga
Kristau-**sinesmena** arrazoiak onartzeko modukoa izan daiteke, baina ez da sekula arrazoiaren emaitzekin berdintzen, edo arrazoiaren oinarriaren gainean altxatzen.
Askoren artean

5 irud/hed

Fede eta **sinesmen** handiko iraultzailea behar da izan gaur egun Kuban *Granma* irakurtzeko eta sinesteko. Txema Ramirez de la Piscina
Hor ezagutzen duen prostitutak koloka jartzen ditu iraultzailearen **sinesmen** ordu arte sendo guztiak. Jose Morales
Grafologian, ordea, **sinesmen** osoa daukat. Gotzon Garate
Ongia Jainkoarengan eta naturaren baitan aurkitzeko itxaropena galdu dut eta gizonarenganako **sinesmena** ere galtzen hasia naiz. Felipe Juaristi
Neure **sinesmen** anarkista horrek eraman ninduen ordea eztabaida lotsagarriagoetara ere. Xabier Mendiguren Elizegi
Berak ulertzen ez zituën hitz haien gainean finkatu zuen bere **sinesmen** berria, aurrekoa bezain itsua. Joan Mari Irigoien
Sinesmen itsua zuela erakutsi zuen Jobsek, 60 milioi dolar inbertituak zituelako konpainian. Berria - Ekonomia
Hain ote ziren bada haren **sinesmenak** gogorrak non babestu egin nahi baitzuen alabatzakoa amerikar pop kulturaren inauteri erotik. Oskar Arana
Estatu indargabetuaren azken fetixea besterik ez da subiranotasunaren **sinesmen** hau. Joseba Zulaika
Saldu gintuen salatari zen Gagni hori: salatari guztizkoa, bere haragiaren gramo bakoitzez, salatari izatez eta joeraz, **sinesmen** faxistaz edo interesez baino arego. Juan Garzia
Ezin da, ezinezkoa da eguneroko eguzkiaren agertzea **sinesmen** soilaren kontua izatea. Ibon Uribarri
Honelakoei beharbadako **sinesmenak** deitzen diet, baina ekintza jakinetarako baliabideen benetako erabilera oinarrian dutenei **sinesmen** pragmatikoak. Ibon Uribarri
Mila bider ere ikusi zaitut, gero eta epelago, gero eta **sinesmen** gutxiagorekin, horrelakoak esaten, baina halako gauza bat dogmatzat hartzen bada, edozer da, orduan, baleko. Hasier Etxeberria
-Ez da, ez, nere **sinesmen** sistiman hori. Menane Oxandabaratz

6 sinestea.

Euskal Herriko **sinesmen** zahar baten arabera, zeruetatik jaurtikita harriak dira tximistak. J.M. Olaizola "Txiliku"
Anuntzi Aranakkari hortarat biltzen diren belarren inguruko **sinesmen** eta kondairak aipatuko dauzku. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sinesmen erlijioso (3); **sinesmen gutxiko** (3); **sinesmen gutxikook** (6); **sinesmen heldugabekoei** (3)
haien sinesmena ikusirik (3); **kristau sinesmena** (3); **sinesmena galbidean jartzen** (6); **sinesmena ikusirik** (3); **sinesmena ukatu** (3)
erlijio sinesmenak (3); **sinesmenak salbatu zaitu** (3); **sinesmenak sendatu zaitu** (5)
sinesmenaren arabera (4); **sinesmenaren bidez** (12)
sinesmenari esker (7); **sinesmenari uko** (4); **sinesmenari uko egin** (3)
sinesmenean sendo (4)
bere sinesmenen (3); **sinesmenen arabera** (6)
sinesmenetan oinarritzen (3)

sinesmendun iz fededuna.

Sinesmenduna baitzen, Jainkoa da, aldez edo moldez, haren poetikaren substantiboa. Berria - Harian

sinespide iz sinesteko bidea. ik sinesbide.

Beharbada errealitateak berak emango die hitzei **sinespidea**. **Xabier Amuriza**

Belarriek inoiz entzun gabeak jaulkitzean gertatzen den bezala, begien bistara ekarri edo eskuar ipini ezin duzunean, bide hauxe baita gizakien bihotzera eta gogoaren barrutietara **sinespidea** eroan ohi duen hurbilena. **Xabier Amuriza**

Hobe da arrazoi erratuak itxura bien kausak oker eman ditzan, ezen ez ebidentziari eskutik alde egiten uztea eta lehen **sinespidea** haustea eta gure bizia eta salbamena bermatzen dituzten oinarriak desegitea. **Xabier Amuriza**

sinestamendu iz zerbait sinestarazten duena; batez ere, zerbait baieztatzen edo ziurtatzen duen agiria.

Zein ziren nire **sinestamenduak**? **Juan Garzia**

Auditoria, normalizazio eta **sinestamendu** ereduak ere proposatu izan dira, nolabaiteko seriotasuna ematen omen diotelako, nahiz eta ezaguna den **sinestamendu** eta auditoria prozesu horien inguruan ere iruzurrak baduela lekurik, **Iñaki Heras**

sinestaraz ik sinetsarazi.

sinestatu, sinesta, sinestatzen (orobat **sinistatu**; *Euskaltzaindiaren Hiztegian **sinestatu** agertzen da*) du ad sinistu.

Burumakur eta aurpegiari jele-txarroaren irribarrea zuela zihoan beltza igual hasiko zen bat-batean orroka zezena bezala, eta **sinestatzekoak** ez ziren gauzak egiten. **Anton Garikano**

Beren harridura gora-behera, begibakarraren zortea inozotasunari zegokiona zela **sinestaturik**, borrokarik gabe joaten ziren norbere etxera edo lantegira, alferreko madarikaziotan. **Felipe Juaristi**

Mitxirrika batzuek horrenbesteko lana eman behar zutenik ere! Ez da **sinistatzekoa** -esan zuen. **Bernardo Atxaga**

sineste (orobat **siniste** g.er.; *Euskaltzaindiaren Hiztegian **sineste** agertzen da*) **1** iz frogatua edo egiaztatua ez den zerbait egiazkotzaz hartzea.

Nik berdin-berdin irensten ditut **sineste** guztiak, dogma guztiak, moral guztiak, sineskeria guztiak, hipotesi guztiak, begitazio guztiak. **Josu Zabaleta**

Ez dago tenplu zabalagorik, ez beste **sinesterik**, isiltasun hau baizik... **Patziku Perurena**

Zeren aipatu ditudan erdi-**sineste** horiek ez baitute sekulan izaten pentsamenduaren indar betea. **Koro Navarro**

-Zaudete isilik, hainbertze **sineste** eta sinesteondo, hainbertze usadio eta usadiondo. **Aingeru Epaltza**

Sinestearen onura (*De utilitate credendi*) apaiz ordenatu ondoren 391.ean idatzia. **Imanol Unzurrunzaga**

Halere, tinki neukan bihotzean zure Kristoren, gure Jaun Salbatzailearen Elizako **sinestea**. **Imanol Unzurrunzaga**

Nire **sinesteak** deitzen zaitu, bai; adierazleen bidez, zure Seme gizon eginaren bitartez eta piztarazi didazun **sinesteak**. **Imanol Unzurrunzaga**

Osabak, nola zientziaren **sinestean** hartzen baitzuen kontsolamendua, gaineratu zuen: [...]. **Joan Mari Irigoien**

Joan dira mundu hau poetiko bihurtzen zuten **sinesteak**. **Josu Zabaleta**

Han Nonbait dena jakina dagoelako **sinestean** zurrunduak eta zurrungatuak bizi direnak asko eta gehiegi dira. **Iñaki Segurola**

Denborarekin, nire **sinesteetariko** batzuk aldatu egin dira. **Juan Garzia**

Garagardotegi zalapartatsu batean aurkitu zuen, bere ikasleen artean eserita, lehor, zimur, barre ahaztezin batez barreka, ideiak eta **sinesteak** hitz bakar batez hozkatuz eta urratuz. **Josu Zabaleta**

Ideien eta kulturen, **sinestean** eta praktiken arteko harremanak ez dira inoiz izaten zentzu bakarreko prozesuak. **Juan Garzia**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Eta Rafaren beraren ahotsa, **sineste** osoz kantatzen. **Berria - Kultura**

Sineste erroto eta sakonak zeuzkan gizarte batean errazago zitziola pertsonari zein bide hartu jakitea. **Daniel Landart**

Munduko **sineste** pagano eta erdipagano ugarietan, bildotsaren sinbologia hori, nola edo hala jainkotasunari lotua zegoelako. **Patziku Perurena**

Zein **sineste** politikok justifikatzen zuen herra hori?, non ikasten zen? **Itxaro Borda**

Sineste handia aitortu izan zaie lege horiei. **Josu Zabaleta**

Kontua da lizarrari buruzko euskal sinesteak, mundu zabaleko **sineste** zaharretatik edan dutela noizbait. **Patziku Perurena**

Neure **sineste** intimoa da... **Itxaro Borda**

Munduko **sineste** partikular guzien iturria, horixe sumatzen dut: senezko gizaindar askatzaile basatia. **Patziku Perurena**

Erromatar paganoen **sineste** okerretara itzultzea litzateke hori, dudarik gabe. **Piarres Xarriton**

Ez utzi nire bihotzari **sineste** okerretara jotzen. **Elizen arteko biblia**

Erregea babesten duen jainkotasuna, hasiera batean ez zen formula hutsa, **sineste** sendo baten agerpena baizik. **Patziku Perurena**

Superstiziozko **sinesteetan** erortzen ziren berriro. **Josu Zabaleta**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Fedeaz edo fededunetz ari garelarik, ez gara halere mintzo mundu zabalean alha diren **sineste**, erlijio edo ideologia mota guztiez. **Piarres Xarriton**

Ja aipatua dut ene ustez **sineste** molde hori. **Piarres Aintziart**

Filmak eragiten dituen gainerako **sineste**-fenomenoak, fikzio-efektuaren bidez eragiten dituenak. diegesia eta hark eragiten duen **sineste**-efektu ahaltsua. **Josu Zabaleta**

Ez zait interesatzen **sineste** aztarnarik gabeko pentsalaririk, idazlerik, lagunik. **Patziku Perurena**

Soziala izan zein intelektuala, politikan, artean zein zientzian gertatu, iraultza orok eskatzen du, lehenik, posible denaren lerratzeko bat. **sineste**-jokoaren berrantolatze bat. **Juan Garzia**

Zinezko **sineste** indarririk gabeko zozo gregario batzuk bezala gutiz gehienak. **Patziku Perurena**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Animalia zenbaiten hibernazioaz herri-**sineste** bitxi franko izan da. **Xabier Olarra**

5 erlijiojoko egia eta dogmei buruzko sinestea. iksinesmen.

Ene **sinestea**, Eliza katolikoarena. **Piarres Aintziart**

Amaren **sinestea** orekatua senditzen nuen, fatalismo bati naturalki loturik, halabeharrak transzendentzia lur honetara jautsarazten zuela. **Piarres Aintziart**

Musulmanen **sinestearen** arabera, Jainkoak agertu zizkion sura horiek Mahoma igarleari. **Xabier Olarra**

Gauza bera suertatu zen erlijiojoko **sineste** batzuekin, eta geroago ideia laikoekin. **Askoren artean**

Erromako Eliza Ama Sainduaren **sineste** katolikoaren arabera arima gorputzean dago haren substantziazko forma bezala hari emateko bizia eta fedea. **Piarres Xarriton**

Jaungoikoaren **sineste** zuzenik gabe ez dago ongi bizitzerik. **Imanol Unzurrunzaga**

Metafora horietan guztietan datzan irakaspenak gudan **sineste** hori sendotzea dauka helburu, badela Izaki "bizidun" bat beragandik kanpoan den guztia egiten duena.

6 *sineste izan* du *ad*

Harengan "esentziako atributuak" badirela **sineste dutenen** ustean, naturari eta gizakiari buruzko ezagutza objektibo eta sistematikoan **sineste** osoa **duela** azpimarratzeko. Xabier Kintana

Ez **dut sineste** handirik errealismoaren metodoetan. Juan Garzia

Gezurra emango du, baina **sineste** handia **dut** Jainkoarengan. Karlos Zabala

Sineste handia **du** jenden barneko handitasunean. Herría

Zeren **sineste** osoa baitut gizakiaren barne zintotasunean. Josu Zabaleta

- Guk ezetz, baina **sineste** handirik gabe. Joseba Sarrionandia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere sineste (4); **lehengo sineste** (4); **munduko sineste** (3); **neure sineste** (3); **sineste doktrinala** (3); **sineste efektu** (3); **sineste handia** (5); **sineste osoa** (4); **sineste zahar** (10)

ene sinestea (5); **gure sinestea** (3); **sinestea baduzu** (4)

sinesteak lan (3); **sinesteak lanak** (5)

gure sinestearen (3); **sinestearen arabera** (3)

sinestear *adlag* sinesteko zorian.

Eta **sinestear** nengoen agerpena izan zela, nire zentzumenen hutsegite bat izan zela; leihora ondoratu nintzen. Josu Zabaleta

sinestedun 1 *iz* sinestuna.

Zuek zarete testigu, eta Jainkoa ere bai, zein garbi, zuzen eta akasgabe jokatu genuen zuekin, **sinestedunokin**. Elizen arteko biblia

Sinestedun guztien betebeharrak. Elizen arteko biblia

Gizon-emakume guztien eta batik bat **sinestedunen** Salbatzailea den Jainko biziarengan itxaropen dugulako. Elizen arteko biblia

Sinestedun zintzo ez izanik ere, jende horiek badute dretxoa elizarat jiteko, Jainkoaren Hitza entzuteko. Herría

Sinestedun fidela izatera saiatu naiz nire bizi osoan, baina, Orthezeko egonaldiaren ondotik, asexea nintzen dotrinaz eta dotrina-emaileez. Aingeru Epaltza

Sinesteduna da baina azkenaldion fedea «galdu» duela onartu du. Berria - Kirola

2 (izenondo gisa)

Nagusi **sinestedunak** dituztenek ez ditzatela gutxiets. Elizen arteko biblia

3 irud/hed

Beraz **sinesteduneri** arizan da predikuan Tony Blair jauna. Herría

sinestegabe *izond/iz* sinegabea.

Eta Saddam Hussein-en eskualdea hartuz, nahiz ez duen batere maite, **sinestegabe** batentzat baitauka. Herría

sinestegabetu *izond* sinestegabe bihurtua.

Erlisioe guziak hinguindu eta hobedun ezarri nahi luzkeela orain jende paganotu edo bederen **sinestegabetu** honek, hots, gaitz guziak erlisionetik heldu balire bezala, alta, guk ongi dakiguna, lur hunen gaitz on eta baitezpadakoa egoitea duelarik xoilki Ebanjelioak bere xedea eta izaitea. Herría

sinesteke *adlag* sinestu gabe.

Iritsi zen goraino, ikusi zuen sumendia borborka, ahotik sua botaka, eta bi aldiz pentsatzeko, biharamunik bazenik **sinesteke**, ezpata eskuin eskuan, bere burua bota zuen barrura. Felipe Juaristi

sinesteondo *iz*

-Zaudete isilik, hainbertze sineste eta **sinesteondo**, hainbertze usadio eta usadiondo. Aingeru Epaltza

sinestesia 1 *iz* gorputzaren alderdi batean gertatzen den sentipen sekundarioa, beste alderdi batean eragindako estimuluari lotua dagoena.

Istripua izan aurretik, **sinestesia** bizi-bizia zuen: tonu musikalek berehala bilatzen zuten beraren baitan pareko kolorea, eta beraren barneko kolore-burrunbada aberatsa balitz bezala bizitzen zuen beti musika. Xabier Olarra

Goizaldean, egunsentiaren lehen printzek lorea miazkatzen dutelarik, edertasuna sentimen orotara hegaldatzen da **sinestesia** zoragarrien bidez, eta aberaskaraino iristen, dastamenaren hordigarri. Anjel Lertxundi

2 zerbaiti, ez dagokion sentipen bat egokitzean datzan figura erretorikoa.

Harriei goroldioa nola hitzari ere historian zehar eta hiztunon erabileran lotu zaion iradokizunerako, metaforarako, analogiarako, **sinestesiarako** dohain definiezin horrek ematen dio anekdotari literaturarako gai izateko aukera. Anjel Lertxundi

sinestesiko *izond* sinestesiarena, sinestesiari dagokiona.

Erreparatzea bakarrik irits daiteke ikusmen bete-betea izatera, arreta poliki-poliki puntu jakin batean biltzen denean, hau berdin gertatuko da borondatearen erabaki baten ondorioz nola borondatearen fruitu ez den nolabaiteko egoera **sinestesiko** baten ondorioz. Jon Alonso

sinestezin (*orobat sinetsezin g.er., sinistezin g.er. eta sinets(i) ezin g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian sinestezin agertzen da*) 1 *izond* ezin sinetsizkoa.

Poz **sinestezinak** tristura arintzen zien. Askoren artean

Asmatutako istorio **sinestezinak** kontatzen dizkiot aztiez, nik sinetsiko banitu bezala. Koldo Izagirre

Mailak eta berak buruz behera zeuzkaten alderantzizko eskailera **sinestezinak**. Juan Garzia
Frantzisko eta bere lagunen bizimodu **sinestezina**. Askoren artean
Emakumeak berak ere interesaturik zeuden kontakizun odolgirozko eta sarritan **sinestezinezko** horietan. Josu Zabaleta
Ez diezagutela gehiago hitz egin beren kimeretako izakiaz eta beren erlijio **sinestezinaz**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Benetan amodio **sinestezina** zen, artista pintoreek baino ez duten horietakoa. Pello Lizarralde
Babesturik nengoelako sentimendu **sinestezin** horrekin nindoa noranahi. Oskar Arana
Goxoa haren irri-karkailak aditzea, haren istorio ia-ia **sinestezinak** entzutea. Aingeru Epaltza
Haren politika harropuzkeriaz eta ipuin **sinestezinez** elikatzen zen. Karlos Zabala
Izpirituaren oihua, deiadar **sinestezinez** zeruak urratzen dituen. Joan Mari Lekuona
Labirinto kiribilatua hau zentzugabekeria **sinestezinez** betea aurkituko du. Juan Martin Elexpuru
Ene haurtzain izan zenari ipuin **sinestezinagoak** sinetsi izan nizkion. Joan Mari Irigoien

2 (predikatu gisa)

Sinestezina dirudi baina Indian harrigarriak harrigarri gainean gertatzen dira. Gotzon Garate
Gaur, dena dakidalarik, **sinestezina** ere iruditzen zait nola ez nintzen, orduan bertan, Via Appiako elkarriketa hartantxe, egia osoaz jabetu. Joxe Austin Arrieta
Jainkoak hildakoak piztea **sinestezina** iruditzen al zaizue? Elizen arteko biblia
Adak begiak zabaldu zituen, entzuten ari zena **sinestezina** gertatuko balitzaio bezala. Anjel Lertxundi
Harrigarria eta ia **sinestezina** egiten zait, halako santutasun-ezaugarri eta egintzak erakusten dituenari zuk diozuna gertatzea. Askoren artean
Ez al da hau guztia **sinestezina**? Pello Salaburu
Ikuskizuna **sinestezina** zen. Iñaki Mendiguren
Sinestezina zen, baina aldi berean nahastezina. Agustin Otsa
Hori guztiz **sinestezina** da. Patxi Zubizarreta
Sinestezina izan zen esaldi horrek etxeko besteengan izan zuen eragina. Iñaki Mendiguren
Sinestezina da gertatu dena. Berria - Gaiak
Sinestezina den gauza gertatu da... Juan Garzia
Sinestezina zitzaion hura bezalako batek Pepe Pinto, cante hondoaren maisua [...] ez ezagutzea. Jon Maia
Gutziz **sinestezina** zen, ordea, emakume aberats batek hori egitea, hezibidea dela medio ez baitu horrelako keinurik egiten. Pello Lizarralde

3 sinestezineko izlag sinestezina.

Niri dagokidanez, **sinestezineko** gogo biziz, eta hitzez adierazi ezin dizudan pozak gaintuta, diozun guztia onartzen dut eta egia hutsa dela aldarrikatzen dut. Imanol
Unzurrunzaga
Sinestezinekoa da haren erortzea; ez du nork kontsolaturik. Elizen arteko biblia

4 sinestezinezko izlag sinestezina.

Historia **sinestezinezkoak** baina gertatuak. Josu Zabaleta
Begira egoten zaizkit, ikusten naute, izakari harrigarri, **sinestezinezko** horiek. Josu Zabaleta
Emakumeak berak ere interesaturik zeuden kontakizun odolgirozko eta sarritan **sinestezinezko** horietan. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gauza sinestezina (3); guztiz sinestezina (4); sinestezina da (26); sinestezina dirudi (6); sinestezina egiten zait (4); sinestezina iruditzen (13); sinestezina izan (4);
sinestezina zen (9); sinestezina zirudiena (3)
gauza sinestezinak (4)

sinestu ik sinetsi.

sinestuki adlag

Inoren lotsagarria gertatzen da orduan akademiko eta politiko probintziano batzuen diskurtso jakintsuareta Estatuaren ezdeusaz, multinazionalen ekoa **sinestuki** simulatzen ari direla dirudiena. Joxe Azurmendi

sinestun (orobat *sinestun*, *sinistun g.er.* eta *sinisdun g.er.*; Euskaltzaindiaren Hiztegian *sinestun* agertzen da) 1 iz sinesmena duena, fededuna. ik fededun; sinestedun; sinesle.

Ez bide dago, ordea, benetako kontsolamendurik, ez bada **sinestunentzat**. Imanol Zurutuza
Hiena bat zen; ez zen, beraz, jakina den bezala, ez har eta ez eme, eta ez zen, era berean, ez **sinestun** ez pagano ere. Karlos Linazasoro
Han bildutako sinesgabeok, **sinestunek** adinako premia genuen geure pena adierazi eta sublimatzeko. Joxerra Garzia
Orain almuédanoak ezin izango du sekula gehiago **sinestunak** Alaren alde otoitz egitera deitu. Jon Alonso
Bekatar bat onbideratzen duena miletan eta miletan hobe da **sinestunekin** ibiltzen dena baino. Patxi Zubizarreta
45 urtetik beherakoen artean %27,4 ateok edo katolikoa ez den beste erlijioaren bateko **sinestunak** dira. Berria - Euskal Herria
Erritu zaharreko **sinestunak** gara. Jose Morales
Ez sekula txantxarrik egin **sinestunaren** aurrean haren erlijioaz. Edorta Jimenez
Mahomaren paradisuari **sinestunen** zain dauden huri ezin ederrago horietako baten lehen fereka zehazteza. Jon Alonso
Katolikoa naiz, **sinestuna**, Jesusen bizitza eredu hartu dudalako. Berria - Euskal Herria
Borroarentzat, **sinestun** den aldetik, Jesukristo gurutziltzatzea litzateke goi-asmorik ederrena. Karlos Linazasoro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sinestuntzat zeukala bere burua, **sinestun** eszeptiko samartzat. Karlos Linazasoro
Ikusi gabe eta ukitu gabe moldatu behar, beraz; **sinestun** txintxoek, maitale platonikoek eta Heisenbergekin erakusten duten bezala. Iñaki Segurola
Moskuko Simeonofeko monasterioa, Kazangoa, bai eta **Sinestun** Zaharren eliza ere. Karlos Zabala
Ez zen erraza Amikuzen Erlijioaren **sinestun** fidela izatea. Aingeru Epaltza
Tenplu barruan, benetako **sinestuna** zela ematen zuen. Unai Elorriaga

3 (izenondo gisa)

Hauxe bera ere zerbait litake, Ratzinger kardinalaren errana gauzatzea oraiko mundu **sinestunear**: "Gure fede nekatua iratzar-arazi du!". Herria
Jende **sinestuna** da eta inondik ere ez luke halakorik egingo. Patxi Zubizarreta
Heriotza baino ez zuen gogoan, baina gizon **sinestuna** izaki, ez zen gizon koldarra. Patxi Zubizarreta
Jon, gizon zintzo eta onpuska, erromantiko **sinestuna** zen funtsean. Patziku Perurena

-Jainko maitea! -oihukatu zuen, izan ere jeinu hura **sinestuna** baitzen-, mutiko hau ederrenetan ederrena da! **Patxi Zubizarreta**

4 irud/hed

Galdera horiek ordea, eta erantzun hori, zientziaren teologoentzat eta **sinestunentzat** dira, ez guretzat. **Iñaki Seguro**

Madrilii agur esateko orduan geltokira bildu direnak trenaren fedeko **sinestun** bakarrak dira. **Edorta Jimenez**

Kontua da egiten dutenaz konbentzituta daudela atentatuak gauzatzen dituztenak eta estatuaren indar guztiaz giza-eskubideak zapaltzen dituztenak; kontua da erabateko **sinestunak** direla. **Iban Zaldua**

5 (hitz elkartuetan)

Ez dut sekula jakin zelan jartzen den **sinestun** aurpegia. **Iban Zaldua**

Sekta berriak sortzen ari diren honetan, erreflexu gehien duen elizak edukiko du -gero eta gehiago- **sinestun** kopururik zabalena. **Harkaitz Cano**

sinetsarazi, sinetsaraz, sinetsarazten (*orobat **sinestarazi**, **sinistarazi** g.er., **sinitsarazi** g.er. eta **sinetsierazi** g.er.*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian **sinetsarazi** agertzen da*) du ad sinestera behartu.

Batzuek, jendetasunez, entzuten dute eta noizbehinka galdera bat pausatzen, solasa segitzen dutela **sinetsarazteko**. **Eneko Bidegáin**

Zure egiteez, Aita, eztiago **sinetsarazten** zenuen, errazago konbentzitzen, indar handiagoz frogatzen. **Askoren artean**

Ni arrunt sinetsita nago horretaz, baina ez diot besteri ezer **sinetsarazi** nahi. **Koro Navarro**

Gure beste erdiaren mitoa **sinetsarazi** digute. **Luis Elberdín**

-Baina, azken batean, zerk **sinetsarazi** dik hiri hain gauza sinestegaitza? **Jon Muñoz**

Gure lehen usteak **sinetsarazten** digunaren kontra, kolorea ez dago "gauzetan", argitasuna ere ez dagoen bezala, gure pertzepzioan baizik. **Josu Zabaleta**

Geure buruei **sinetsarazteko** soldaduak ginel. **Mirentxu Larrañaga**

Sinetsarazi nahi dizut egin nezakeen guztia egin dudala zugatik. **Jon Muñoz**

Ni ordea beti saiatu izan naiz neure buruari **sinetsarazten** ezen kontra egiteko, aski dela kontra egin nahi izatea. **Jon Muñoz**

Sinetsarazi nahi baitzait "sistema erreferentzial" jakin bat neureganatu behar dudala, edo hobeki, neuregan dudala, hizkuntza hori jakite hutsagatik. **Iñaki Seguro**

Zendako **sinetsarazi** nahi zenidan ama inbaliera zenuela eta aita mundu honetarik joana, bide ixtripu batean bizia galdurik? **Janbattitt Dirassar**

Xehetasunik nimitioenak ere kontatzen zizkion, Quenutarrak jende zintzoa zirela **sinetsarazi** nahian. **Karlos Zabala**

Ezinezkoa izanen zitzaion **sinetsaraztea** ez zekiela apez ihardokitzaila emazte haren etxean zegoela. **Elena Touyarou**

sinetserraz (*orobat **sinets-erraz***) izond erraz sinesten dena.

Egigurenen *Ave María* obra behartuaren ordurarteko interpretaziorik erosoena eta taularatze zoragarri eta **sinetserraza** lortu zuten, oso noizbehinka ikus daitekeen erakoa.

Berria - Kultura

Izenak horditu bezala egiten du adimena, sutu irudimena: izenak **sinets** -errazago bilakatzan ditu aurrena eta ezin dudatuzko hurrera, azkenerako mundua mundu denetik beti hor egon direla iruditzerainokoa, jakinak eta izatedun. **Iñaki Seguro**

sinetsezin ik **sinestezin**.

sinetsi, sinets, sinesten (*orobat **sinestu** g.er., **sinistu** g.er. eta **siñistu** g.er.*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian **sinetsi** agertzen da*) **1** du ad frogatua edo egiaztatua ez den zerbait egiazkotzaz hartu.

Ez nuen **sinesten**, harik eta neu etorri eta neure begiz ikusi dudan arte.

Sinestea beti errazago da pentsatzea baino. **Patziku Perurena**

Ez duzu **sinetsiko**, baina etxe honetan bertan bizi izan da bizitza osoan. **Oskar Arana**

Agustinentzat **sinestea** ez da lotsagarri. **Imanol Unzurrunzaga**

Sinesten nuen **sinesten** nuelakotz, ez galdera bati erantzuna eskainiz, baizik printzipio-eskabide baten bidez. **Piarres Aintziart**

-Lily eta James... ezin dut **sinetsi**... ez dut **sinetsi** nahi... **Iñaki Mendiguren**

Jainkoa hautemateko beste biderik ez da, Haren obrez ez bada, horiek Haren existentzia eta Hartaz **sinetsi** behar den guztia aldarrikatzen baitute. **Xabier Kintana**

Ezin dut **sinetsi** zein ergela naizen. **Oskar Arana**

Ezin **sinetsia** da zein diren lasterkari trebeak, mirestekoa da. **Aurelia Arkotxa**

Ezin **sinetsia** zait! **Elena Touyarou**

Ezin **sinetsia**! **Txillardegi**

Sinetsitakoan ikusiko dut. **Oskar Arana**

2 (objektu zuzena pertsona bat dela)

Sinets nazak ikasia baitut! **Piarres Xarriton**

Sinetsiko nauzu nahi baduzu baina egia hauxe da: deus guti dudala erraiteko! **Janbattitt Dirassar**

-Zendako ez zaitut **sinetsi** behar? **Janbattitt Dirassar**

-Ez, zautan ihardetsi, **sinesten** zitut, eta esker mila, ez dut gehiago zure barrandatzerik. **Marzel Etxehandi**

Sinetsi ninduten ene ustez. **Piarres Aintziart**

3 (objektua pertsona bat dela, dio aditz gisa)

Aristotelesi **sinetsiz** gero, Tartesosera iritsi ziren feniziarrek hainbeste zilar aurkitu zuten han, non ez baitzen kabitzen haien itsasontzietan. **Iñaki Iñurrieta**

Maggieri **sinestera**, ordea, berak aditu omen zuen ahots hark, egun batean, gure patua, uhartearena eta giza jende guztia esan zion. **Juan Garzia**

Garrüzeko soldaduei **sinestera**, bertze merezimendurik ez zuen Migel Mailuren bigarreña izateko. **Aingeru Epaltza**

-Esaten didazulako **sinesten** dizut. **Josu Zabaleta**

-Ez dizut **sinesten**. **Oskar Arana**

Inork ez dit **sinetsiko**. **Jon Muñoz**

-Ez dut nahasmendurik nahi, **sinets** iezadazu, erran nuen herabeki, Maiena Garatek. **Itxaro Borda**

Baina **sinets** iezadan, kontrolpean zeukanat. **Harkaitz Cano**

Esan dizugu, baina ez diguzu **sinetsi**: irakurri frog. **Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio**

4 (objektu zuzena gauza bat dela)

Sinesten al dituzu zuk gauza horiek? **Oskar Arana**

Sinets itzazue haren erakutsiak. **Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio**

Baitezpadako da alabaina fededun guztiek **sinestea** bederen inplizitoki fede katolikoaren gai guztiak. **Piarres Xarriton**

Eta baldin hori guztia **sinesten** badute eta leial aitortzeko eta azkenera arte tineto berezko borondate badute, [...]. **Askoren artean**

Anitz heretiko asko gisatara errebela direla, gauza makurrak **sinetsiz** bekatuari buruz. **Piarres Xarriton**

Anaiek kontsolatu egiten zuten, ez zezala horrelakorik **sinetsi** esanez. **Askoren artean**

Ezin zuen entzuten ari zena **sinetsi**. **Askoren artean**

Agnostizismotik sinesmen itsura eta sinesmen itsutik ezertxo ere ez **sinestera** iragan zela. **Joan Mari Irigoien**

Nik ez nekien zer **sinetsi** ere. **Joxe Austin Arrieta**

Eskarmentuak erakutsi diit, ordea, azalpen zirtzil eta funtsik gabeenak izaten direla **sinesten** errazena. **Aingeru Epaltza**

Sinets ezazue **sinetsi** ezina eta heriotzako orduan egin ezazue negar, alferrik galdutako denbora guztiaren damuaz. **Hasier Etxeberria**

-Poliziak ez dio **sinesten** ilehoriarena, jakina. **Migel Angel Mintegi**

5 (kompletibekin)

Sinets ezazu badakidala zertan ari naizen. Azkenerako, neronek ere **sinetsi** nuen testua ongi idatzita zegoela. **Xabier Kintana**

Nik uste zuk ez zenuela sekula **sinetsi** entomologoa nintzela -esan zidan-. **Bernardo Atxaga**

Gorputzeko begiz ogia eta ardoa ikusiz, ikus eta **sinets** dezagun tinko Jaunaren gorputz eta odol guztiz santuak bizi eta egiazkoak direla. **Askoren artean**

Sinesten zuen, konfesatzaile ona [...] izateko ez dela aski, bi eskulibururen ikastea tarteka, jolasten ariz, baina behar dela izan teologian, kanonetan eta legeetan ongi moldatua. **Piarres Xarriton**

Baina nola **sinets** estatua ez dela kaosa eta nazionalismoa bai? **Iñaki Segurola**

-Hura ikusita ezin **sinets** zitekeen hark ikasitako dotrina guztiak horren buru txikian sar zitezkeenik. **Josu Zabaleta**

Ezin genuen **sinetsi** hura Venezuelan gertatzen ari zenik. **Pako Aristi**

6 (objektua non deklinabide atzizkiarekin)

Eta nork **sinets** dezake erlijioan? **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Nik ez dut Halabeharrea eta Patuan **sinesten**; teknikaria naizenez, gertagarritasunaren formulen arabera pentsatzen ohitua nago. **Joxe Austin Arrieta**

Ez ninan sorginkeriatan **sinesten**, baina aurrerantzean ez zekinat... **Migel Angel Mintegi**

Maimon pentsamenduzko aristokrata bat da, elite intelektualak masekiko duen erantzukizunean **sinesten** duena. **Xabier Kintana**

Hain da ederra, Nathan, eta bere bi umetxo horiek in ikusteak, berriro ere gizadiarengan **sinesten** hasteko gogoaz pizten dit. **Oskar Arana**

Jainkoarengan **sinestea** eta Andre Mariarengan eta sailduengana **sinestea** gauza bat eta bera ziren harendako. **Aingeru Epaltza**

Sinesten dut Jainko Aita baitan. **Herria**

Zergatik ez duzue egia ezagutzen eta Jainkoaren Semearengan **sinesten**? **Askoren artean**

Minbiziaren kolpea hain izan zen handia non artean ere ez bainuen **sinesten** bizirik ateratzeko aukeran. **Oskar Arana**

Jainko bakarraren baitan **sinesten** zuen jendeak honako itxura hauen guztien bidez agertu zuen delako izaki horren izena: [...]. **Iñaki Segurola**

Jo dezagun eboluzioaren dotrinan **sinesten** dugula. **Iñaki Segurola**

-Nigan **sinets** ezazu. **Jon Muñoz**

7 (adizlagun eta kidekoekin)

Ez zen aise **sinesteko** kontua. **Jon Muñoz**

Egia garbia da, nahiz eta nekez **sinesten** den. **Karlos Zabala**

Benetan **sinetsi** dute zuregandik natorrela eta ezagutu zuk bidali nauzula. **Askoren artean**

Zinez **sinestean**, suzko argia sumatzen baitu gogoak. **Patziku Perurena**

Sinets ezazu, bihotzez **sinesten** baldin badakizu. **Patziku Perurena**

Zinez mintzo zen, zioenaz erabat **sinetsirik**. **Joxe Austin Arrieta**

Ostia Biribila gurtu beharrean, karnetarekin egindako Lerro Zuzena gurtzen dugu, eta itsu-itsuan **sinesten** han dagoena kristoren gorputz kimikoa dela. **Iñaki Segurola**

8 ezin sinetsizko izlag ik sinestezin.

Antzeko gauzak gertatzen dira, nonbait, ametsetan, zeren **ezin sinetsizko** fantasmagorietan barneratzen baikara eta ez baikara batere harritzen. **Josu Zabaleta**

Ezin sinetsizko sentimentu xoragarrietan urtua nintzen. **Piarres Aintziart**

Bere painelu zuria eta bere ile beltza, eta bere **ezin sinetsizko** oin ederrak. **Joxe Austin Arrieta**

Ezin sinesteko moduan zen ederra, esan zuen Tomek. **Oskar Arana**

Dancenryi izkiriatzeko unea hurbiltzen ari den heinean, bihotza taupadaka ari zait **ezin sinetsizko** eran. **Jon Muñoz**

Ezin sinetsizko ahaleginean, besoa luzatu zuen Ruche jaunak, bai eta lortu ere idazlana harrapatzea. **Jon Muñoz**

N. Etxanizen euskaldun horiek bakanduak eta urrituak daude **ezin sinetsizko** heineraino. **Iñaki Segurola**

Seguraski, hainbat irakurlek esango dute **ezin sinetsizkoa** dela hori. **Jose Morales**

Ezin sinetsizkoak ikusten ditut orduan. **Michel Oronoz**

Kalitua bezala uzten ninduen bere ateraldi **ezin sinetsizkoekin**! **Janbattitt Dirassar**

Gazteek gorrotz eta hiraz beterik fusilatu zituztela kuartel txikiko militarrek, zinismo beldurgarri, **ezin sinetsizkoz**, gudu-arioak garbitzen ari balira bezala. **Karlos Linazasoro**

9 sinestean lanak izan du ad

Badakit **sinestean lanak** dituela, baina izterren artean baizik ez zuen egin. **Karlos Zabala**

Saiatu izan dira berdintasun eseriaren aldeko emakume batzuk beste sexukoei txixa eserita eginarazten, eta itxura denez, lortu ere bai **sinestean lanak** baditu ere. **Iñaki Segurola**

Sinestean lanak. **Patxi Zubizarreta**

-**Sinestean lanak** ematen ditu. **Berría - Kirola**

10 sinestekoa izan da ad

Hura ezagututa, **sinestekoa zen** gizona gaixorik zela. **Edorta Jimenez**

Ez da **sinestekoa** nolako kiratsa botatzen duen aza zimurra. **Josu Zabaleta**

Badakit ez dela **sinestekoa**, baina berehala ulertu nuen zer egin nahi zuen. **Ramon Saizarbitoria**

-**Sinestekoa** lukek, ezta? -Charlyk bere begirada lasaigarriaren oparia egin zidan mahaiaz bertzaldetik. **Aingeru Epaltza**

Egun haren ondotik ez genuen ia inoz hitz egin elkarrekin, ez **sinestekoa** da, ezta? **Karlos Zabala**

Egoera horretan egotea oso nekez **sinestekoa da**. **Jon Alonso**

-Ez, ez duk aise **sinestekoa**. **Aingeru Epaltza**

Ez zen oso **sinestekoa**. **Koro Navarro**

11 sinesten lanak izan du ad

Sinesten lanak izan nituen lehendabizikoz entzutean. **Txillardegi**

Sinesten lanak izango dituzu, David, baina mahai honetan bildu garenok ez gara zure etsaiak. **Oskar Arana**

Denen protagonista zinez ni izan ote nintzen, **sinesten lanak**. **Aingeru Epaltza**

AEBetan 337.000 landun gehiago egoteak, **sinesten lanak** izan arren, analisten aurrikuspenak bikoiztu eta indizeak bizkortu zituen. **Berría - Ekonomia**

12 sinetsia egon (33 agerraldi, 14 liburutan)

Kakotxipi **sinetsia** ergela zela, Arizmendik esan zion bezala. Koro Navarro
Mari Karmen ia **sinetsia dago** bera gauzaki txolin, zentzugabe eta gauzaeza dela. Iñaki Segurola
Horixe besterik ez dugu ikusten, eta **sinetsiak gaude** aztikeria dela. Koldo Izagirre
Guztiz **sinetsia zegoen** inoren beharrik ez zeukala atseginek handienak lortzeko. Karlos Zabala
Zeren gero eta **sinetsiago bainago** ezen Jainkoa infinitua dela, bere formarik gabeko forman. Joan Mari Irigoien

13 *sinetsirik egon* (37 agerraldi, 20 liburutan)

Sinetsirik nengoen horrelako kontuak amaitu zirela nireztat, gainbeheran nindoala jada, baina Gordonek gaztetu egin nau. Oskar Arana
Nire etxe berean izaki ikus ezinezko bat bizi zela **sinetsirik bainengoen**, hain sinetsirik hala ere. Josu Zabaleta
Irakurri zuena ezin **sinetsirik zegoen** Ruche jauna. Jon Muñoz
Erabat **sinetsirik zegoen** lizentziatu bat ezin zela izan benetan "subertsibo" bat. Juan Garzia
Hara lan egitera joaten ginenok gudaritiki zertxobait behintzat bagenuela **sinetsirik nengoen** hasierako garai hartan. Juan Luis Zabala

14 *sinetsita egon* (205 agerraldi, 53 liburu eta 89 artikulutan)

Sinetsita nengoen orduan, eta hala **sinetsita nago** orain, hatz gurutzatuak eta Mollyren harribil iragarleak Jainkoari otoi egitea bezain fidagarri edo fidagaitz direla. Mirentxu Larrañaga
Sinetsita zeuden deabrua jabetu zela hiltzen zegoenaren gorputzaz. Askoren artean
Batzuk, egindakoa egitea baino beste aukerarik ez zitzaielara eman uste zutenak, eta gainerakoak, hautaketarik nobleena egin zutela **sinetsita zeudenak**. Ramon Saizarbitoria
Gavard, egun hartatik aurrera, elkarte sekretu baten partaide zela eta sator lanean ari zirela **sinetsita egon** zen. Karlos Zabala
Baina garai hartan anaia zen **sinetsita zegoena** ni zorigaiztokoa izango nintzela. Pello Lizarralde
Honezkero **sinetsita egon** behar zenuke, bada, maitea; ezin duzu besterik egin. Mirentxu Larrañaga
Zerbait egin beharra daukat, eta are gehiago horretan guztiz ere **sinetsita banago**. Jon Muñoz
Ni arrunt **sinetsita nago** horretaz, baina ez diot besteri ezer sinetsarazi nahi. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

azkenean sinetsi (4); benetan sinetsi (7); beti sinetsi (7)
erabat sinetsi (5); ezin dut sinetsi (55); guztiz sinetsi (6); harengan sinetsi (4); hori sinetsi (22); horretan sinetsi (9); hura sinetsi (6)
ia sinetsi (4); itsu itsuan sinetsi (6); itsuan sinetsi (6); jainkoarengan sinetsi (4); nola sinetsi (11); nori sinetsi (5); nork sinetsi (9)
sekula sinetsi (7)
sinetsi ez arren (4); sinetsi ez ezik (6); sinetsi ezean (4); sinetsi ezina (4); sinetsi ezinda (10); sinetsi ezinik (79); sinetsi guran (6); sinetsi nion (10); sinetsi niri (5); sinetsi nuen (34); sinetsi zion (4); sinetsi zuen (44); sinetsi zuten harengan (5)
zer sinetsi behar (4); zertan ez sinetsi (4)
ezin sinetsia (72); ezin sinetsia da (10); kasik ezin sinetsia (24)
gero eta sinetsiago (4)
ezin sinetsiak (7)
errazago sinetsiko (5); nekez sinetsiko (5); nola sinetsiko (7); nork sinetsiko (10)
erabat sinetsirik (8); ezin sinetsirik (20); guztiz sinetsirik (6); sinetsirik nengoen (7); sinetsirik zegoen (9)
erabat sinetsita (23); erabat sinetsita nago (4); ezin sinetsita (9); guztiz sinetsita (13); ni sinetsita nago (4); sinetsita agertu zen (5); sinetsita dago (40); sinetsita daude (17); sinetsita egon (8); sinetsita gaude (11); sinetsita geratu (4); sinetsita nago (40); sinetsita nengoen (17); sinetsita zegoen (19)
ezin sinetsiz (12); nigan sinetsiz gero (4)
ezin sinetsizko (37)
ezin sinetsizkoa (12)
ezin sinetsizkoak (5)
zaila zen sinestea (4)
sinesteak lanak (5)
ez sinesteko moduko (5); ez sinesteko modukoa (9); gutzia sinesteko (4); hori sinesteko (5); sinesteko aukera (4); sinesteko moduan (8); sinesteko moduko (7); sinesteko modukoa (12); sinesteko modukoak (5); sinesteko prest (5)
ez sinestekoak (5)
ametsetan sinesten (4); aukeretan sinesten (4); baitan sinesten (11); batasunean sinesten (4); benetan sinesten (27); berarengan sinesten (7); beti sinesten (4)
egiaz sinesten (5); erabat sinesten (6); eraikuntzan sinesten (4); eskubideetan sinesten (4); ez dizut sinesten (13); gehiago sinesten (13); gehiagi sinesten (7); giza eskubideetan sinesten (4); guztiz sinesten (5); hala sinesten (4); harengan sinesten (9); hartan sinesten (4); hori sinesten (19); horretan sinesten (25)
itsu itsuan sinesten (13); jainkoan sinesten (4); jainkoarengan sinesten (9); jakitate berarekin sinesten (6); Jesusengan sinesten (4); justizian sinesten (6); mirarietan sinesten (4); nazio eraikuntzan sinesten (4); nekez sinesten (6); nigan sinesten (8); nik benetan sinesten (4); niregan sinesten (10); niregan sinesten duenak (4); nola sinesten (4)
oraindik sinesten (7); proiektuan sinesten (4); sendo sinesten (4)
sinesten dizut (10); sinesten lanak (9); sinesten zaila (5)
sinestera heldu (5); sinestera heldua (6); sinestera iritsi (6)

sinetsierazi ik **sinetsarazi**.

sinfalta (orobat *sinpalta*) adlag huts egin gabe.

Bere inbestigazioen berri emateko, gauean bertan edo bestela biharamun goizean telefonatuko zuela **sinfalta**. Xabier Mendiguren Elizegi
Aurrena, "eskaera" eta "urgente" hitzak aditu ditut, eta gero "astelehenerako **sinfalta**...". Patxi Iturrategi
Piztu, urteko lau jaiegun handi, hiru hilabetetik behin ospatzen zituzten hauetan pizten zituzten **sinfalta**. Pello Zabala
Martxoak, hegoalde baten beroalditan barnealdeko ordokitik arrimatu ohi diren ekaitzen abisua hor izaten duela **sinpalta**. Pello Zabala

sinfonia (orobat *xinfonia g.er.*) 1 iz sonata forma duen musika lana, orkestrarentzat ondua.

Gramofonoak Cesar Franck-en **sinfonia** jotzen zuen. Lopez de Arana
Filarmonicaren egoitzan, orkestrako musikariak Gustav Mahlerren laugarren **sinfonia** prestatzen ari zirelarik [...] gizon bat etorri zen Agnès de Espinosaz galde egiten. Felipe Juaristi
Hotz hasi ziren Schumanen laugarren **sinfonia** interpretatzen. Berria - Kultura
Brahms aukeratu zuen bere kontzertuaren ardatz bezala, eta egile honen Biolin, Biolontxelo eta Orkestrarako kontzertu bikoitza (Opus 102) eta Bigarren **Sinfonia** Re Nagusian (Op 73) eman zituen. Berria - Kultura
Txekiarrak Widorren Bigarren **sinfonia** re maiorean eta Mendelsshon eta Bartholdyren Laugarren Sonata si maiorean eskainiko ditu. Berria - Kultura
Juan Crisostomo Arriagaren obra bi emango ditu BOSeq, Juanjo Menak zuzenduta: Esklabo zoriontsuak eta Re nagusiko **sinfonia**. Berria - Kultura
Mahlerren laugarren **sinfoniako** doinuak baitzituen buruan, txorien modura hegana. Felipe Juaristi

Bigarren zatian (Allegretto) **sinfoniako** momenturik ederrenak lortu ziren. Berria - Kultura

Beethovenen bederatzigarren **sinfoniaren** bosgarren mugimendua. Itxaro Borda

Hizkuntza, **sinfonia** batekin erka dezakegu; izan ere, **sinfonia** horren errealitateak ez du zer ikusirik gero **sinfonia** hori joko den moduarekin; **sinfonia** jotzerakoan musikoek egin ditzaketen akatsek ez dute inondik ere errealitate hori arriskuan jartzen. Isabel Arrigain

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **sinfoniko**.

Mahlerren doinuak ere jotzen zituzten, batzuetan: pieza solteak, **sinfonia** zatiak, lurraren kantak. Felipe Juaristi

Orokorrean, onik atera direla esan behar da, baina tonuen mugetan mugitzen den **sinfonia** lan latza eta konplexua da. Berria - Kultura

3 irud/hed

Goizean, atzoko argixinta berberarekin abiatu dute [txoriek] kantu-**sinfonia** ondo entsaiatua. Pello Zabala

Ez zuen ematen neskari negarontzien **sinfonia** gehiegi gustatzen zitzaionik. Xabier Mendiguren Elizegi

Zeren Maitasuna, Gorespena eta Gorazarrea, hirurak nahastuz moldatutako **sinfonia** sotil eta atergabea izango baita aurrerantzean nire bizitza osoa. Antton Olano

Gaur ere lo tzarra: bizpahiru orduz bederen zurrungalariek gaitzeko **sinfonia** egin digute. Piarres Aintziart

Goiz ederren **sinfonia**. Alberto Barandiaran

Halatsuko zerbait izandu da neretzako toponimia, eta esan dezaket, ume-umetatik mila akorde sekretuz osaturiko **sinfonia** lurrezko hori adituz hazia dela nere bihotz koxkorra. Patziku Perurena

Laztan, irudi, musu, usain eta zapore **sinfonia** horrek aztoratu eta kitzikatu egiten ditu. Luis Elberdin

Sexua sekulako jaia zen, jolasa, komunikazioa, plazer **sinfonia**. Luis Elberdin

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

beethovenen bederatzigarren sinfonia (4); **berlizen sinfonia fantastikoa** (3); **bigarren sinfonia** (4); **eskaintako sinfonia** (3); **mahlerren laugarren sinfonia** (3); **plazer sinfonia** (6)

mahlerren laugarren sinfoniako (3)

sinfonier *iz* tiradera-armairua, garaia eta estua.

Berehala ikusi zuen armairu handia, eta, alboan, armairuaren eta **sinfonier** baten erdian, aulki zaharkitua, gainean matrikula-plaka zuela. Joxemari Urteaga

Akaso **sinfonierreko** goiko kaxoiko jertseak jantzi zituen egunen batean. Joxemari Urteaga

sinfoniko 1 *iz* sinfoniari dagokiona; orkestra handirakoa. ik **sinfonia 2**.

EOSek euskal konpositoreen musika **sinfonikoa** eta **sinfoniko** -korala ezagutarazteko abian jarritako egitasmo baten azken alea. Berria - Kultura

Ez ditu **lan sinfoniko** asko, eta horregatik ahazturik gelditu da. Berria - Kultura

Orkestra-lan **sinfoniko** konplexuak konposatzen ohitua zegoela. Patxi Iturritegi

Azken hori, balet obra baten bertsio **sinfonikoa** da. Berria - Kultura

Weberren gai bati buruzko metamorfosi **sinfonikoa**. Berria - Kultura

Straussen *Macbeth* poema **sinfonikoa**. Berria - Kultura

Donostiako Orfeoiak eta Euskadiko Orkestra **Sinfonikoak** emango diote aurtengo ekitaldiari amaiera, Brahmsen *Alemaniar requiem bat* obrarekin. Berria - Kultura

Ni lehenago rock **sinfonikoaren** atzamar likatsuetan nengoen harrapatua. Xabier Mendiguren Elizegi

2 irud/hed

Eta niri, berriz, **sinfonikoago** ez ezik, poetikoago egiten zait, askoz, larrua jotzea maitasuna egitea baino. Joxerra Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

kataluniako orkestra sinfoniko (3); **orkestra sinfoniko** (22); **orkestra sinfoniko nazionalarekin** (3); **orkestra sinfoniko osoaren** (3)

bilbao orkestra sinfonikoa (21); **bilboko orkestra sinfonikoa** (10); **euskadiko orkestra sinfonikoa** (35); **irratiko orkestra sinfonikoa** (4); **musika sinfonikoa** (6); **orkestra sinfonikoa** (91); **orkestra sinfonikoa zuzendu** (3); **orkestra sinfonikoa zuzenduko** (3); **poema sinfonikoa** (6)

bilbao orkestra sinfonikoak (26); **bilboko orkestra sinfonikoak** (18); **euskadiko orkestra sinfonikoak** (37); **galiziako orkestra sinfonikoak** (3); **irratiko orkestra sinfonikoak** (6); **musikene orkestra sinfonikoak** (3); **orkestra sinfonikoak** (111); **orkestra sinfonikoak antolatutako** (3); **orkestra sinfonikoak emango** (3)

bilbao orkestra sinfonikoarekin (5); **bilboko orkestra sinfonikoarekin** (3); **euskadiko orkestra sinfonikoarekin** (10); **orkestra sinfonikoarekin** (29)

bilbao orkestra sinfonikoaren (7); **bilboko orkestra sinfonikoaren** (4); **euskadiko orkestra sinfonikoaren** (15); **orkestra sinfonikoaren** (30)

orkestra sinfonikoarena (4)

bilbao orkestra sinfonikoko (5); **euskadiko orkestra sinfonikoko** (8); **orkestra sinfonikoko** (19)

singapurtar *izlag/iz* Singapurkoa, Singapurri dagokiona; Singapurko biztanlea.

Preverterenaren bertsio erraldoia zen Yumimoto enpresaren import-export katalogoa: emmenthal finlandiarrarekin hasi, zuntz optiko kanadar, gurpil frantses eta jute togoarrekin segi, eta soda **singapurtarrarekin** buka, ezertxo ere ez zen haren eskutik irago gabe, Joxan Elozegi

singel ik **single 2**.

singladura *iz* itsazontzi batean egiten den bidaldia. • *irud/hed*

Uruzunotarren **singladura** aurrera doa, eta gure literatur-ontzi berriak kostea ederrak bisitatzen jarraitzen du. Berria - Kultura

single 1 *izond* bakuna. ik **simple**.

Komisarioak orrialde **single** hura hartu eta bere kabutan irakurri zuen: [...]. Harkaitz Cano

Txalupari biek zutik egiten zuten arraun, gibeletik aitzinerat, erramu banarekin, mugimendu motel, **single** eta dotorez. Koldo Izagirre

Keinu **single** batek blokeatuta. Harkaitz Cano

Zuk jakin gabe betikotzen duzun bere mugimendu **single** hori. nire hilobia harri **single** batez estaltzea nahi dut, marmolezkoa, eta han zera idatziko dute: Napumoceno da Silva Araujo 1898-19..., duintasunez bizi eta hil zen. Harkaitz Cano

Estilo **single** bezain eragingarria. Eskarne Mujika

Hagitz misterio eta tentsio iluneko poema, axalez aski **singlea** izanarren. Patziku Perurena

Arizkunera bidean itzuli zinenean, Garai Bareak betiko amaitzen ari zitzaizkizula pentsatu zenuen, eta gogoeta **single** horrek berriro lotsarazi zintuen. Hasier Etxeberria

Zuzentasun **single** eta zuzena, ez sortua ez egina, Jainkoa bakarra da. Joan Mari Lekuona
 Bada hemen bakartasun **single** bat, oroz gairindikoa, misterioitsua, eta iluntasun bat libreki eskuera dagoena, baina zentzuen bidez eskuraezina. Joan Mari Lekuona
 Batasunak ez duenez desberdintasunik eta mugarik, eta beragan dena **singlea** bihurtzen da, bereizkuntzak eta mugaketak galduz. Joan Mari Lekuona
 Txikitasun honetan ulertzen da, eta ez bestetan, egia **single** eta garbia, zorionaren funtsa. Joan Mari Lekuona
 Arimaren izate soil eta **singlea**. Joan Mari Lekuona

• **2** (*orobat **singel g.er.***) *iz* lau bat abesti zeuzkan diskoa, tamaina txikikoa.

1966an sortu zen Oskarbi taldea, eta 1984an plazetatik erretiratu zenera arte lau kantuko **single** bat eta bost disko luze kaleratu zituen; 65 abesti guztira. Berria - Kultura
Ameba izenarekin bi kantuz osaturiko **single** bat eta maketa bat kaleratu ondoren, *Sexty Sexers* taldeak bere lehen diskoa kaleratu berri du, *Iluntze berri baten zain* (Gaztelupeko Hotsak). Berria - Kultura
 Bitxikeriak, **singleak**, B aldeak, bertasioak eta maketak bildu dituzte. Berria - Kultura
 Bestalde, **single** errazak (itxura batean bakarrik) egiten dituenen ere, funk eritmo bizi baten ganean hiru minutuko zartakoa emateko gauza dena. Berria - Kultura
 70. urtebetzean atera duen diskoiko **singela** Cohenen sustraietara itzulera bat da, abesti sentsual eta zintzoa. Berria - Kultura
 Orai arte baditu bi diska grabaturik, **single** moduko diska laburrak: "Aukera" eta "Nire Ametsa". Herria
Dani California **singlea** apirilaren 3an aurkeztu zuten. Berria - Kultura
 Bestalde, **singlea** CD- **single** eta binilozko hamar hazbeteko disko formatuetan berragitaratuko dute egunotan Erresuma Batuan. Berria - Kultura

singletasun iz singlea denaren nolakotasuna. ik bakuntasun.

Beti harritu nauen **singletasun** hungikarri batekin amaitzen du Patrick Modianok *Le livre de famille* eleberria: [...]. Anjel Lertxundi
 Sar zaitez eta eraman Harenganaino zure multiplizitatearen azkengabeko izaera ulertezina, Berak sinplifika dezan bere esentziaren **singletasunean**. Joan Mari Lekuona
 Ez dago adierazterik zenbaterainokoa den pertsonen arteko bereiz-izatea, hauek bata besteagandik datozenean esentziazko batasunean, eta batasun honetara berriro itzultzen direnean guztizko **singletasunean**. Joan Mari Lekuona

singular 1 izond gramatika kategoria, hitz edo sintagma bat pertsona edo gauza bati, eta ez askori, dagokiola adierazten duena.

Ala **singular** guztiek eta plural guztiek hartzen dute parte? Isabel Arrigain
 Horren adibide dugu ondorengo **singular** / plural parea, *Rad / Räder*, non erroko bokala ondorengo atzizkian datorrenaren palataltasunera asimilatzen den. Lourdes Oñederra
 Analogia, aktiboaren **singularreko** lehen pertsonan soilik gauzatu zen hasiera batean. Isabel Arrigain
 Indoeuropeoz, **singularreko** akusatibo guztiek bukaerako *-m* bakarra agertzea zuten ezaugarri. Isabel Arrigain
 Beti dago Kultura (**singularrean** eta letra larrian) kulturetan (pluralean eta letra xehean), baina ez dago Kulturarik kulturetan zehar baino. Askoren artean

2 osagai bat bakarra duena.

Termino **singular** baten estentsioa berorrek denotatzen edo erreferitzen duen objektua da. Askoren artean
*Gauza **singularrak*** deitzen ditut mugatuak diren eta existentzia determinatua dutenak. Piarres Xarriton
 Edozein gauza singularren eta, ondorioz, gizakiaren existitzeko eta iharduteko ahalmena ez du sekula beste gauza **singular** batek baizik determinatzen. Piarres Xarriton
 Judizio **singularra** (*judicium singulare*) [...] baliogarritasun orokorreko judizioetatik (*judicia communia*) ezberdintzen da. Ibon Uribarri
 Pentsamendu **singularrak**, hots, pentsamendu hau edo hura, Jainkoaren izaera modu zehatz eta determinatuz adierazteko moduak dira. Piarres Xarriton
 Gorputzak gauza singularrak dira mugimenduaren eta gelditasunaren aldetik bereizten direnak; eta, ondorioz, bakoitza mugitzera ala gelditzera determinatu behar izan du beste gauza **singular** batek, hots, beste gorputz batek; eta hau ere mugitzen da edo geldirik dago. Piarres Xarriton
 Asma dezagun, beraz, nahi izate **singular** bat, hots, pentsatzeko modu bat. Piarres Xarriton
 Unibertsal **singular** bakoitzak osaezineko eta irekia jarraitzen du. Joseba Zulaika
 Azken finean dualismoak ez du **Singular** Absolutuaren "Ni ez" oro suntsitzeko amorru horixe besterik ezkututzen! Joxe Azurmendi
 Horregatik, ipuinetan, ni pertsona **singularra** nagusitzen bada ere, a propos, intentsitatea emateagatik, hori ez da derrigorrez monologo bat. Ana Urkiza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

esentzia singular (3); **gauza singular** (30)

pertsona singularra (4)

gauza singularrak (8)

singularraren eta pluralaren (3)

gauza singularrei (4)

singularreko eta pluraleko (3)

gauza singularren (19)

singularitate iz singulartasuna.

Arrazaren kontzeptuak [...] erremittitzen du **singularitate** biologikora. Joxe Azurmendi

singulartasun iz singularra denaren nolakotasuna.

Hasiera batean beste euskaldun askori bezala gertatzen zitzaidan niri, onartu egiten nuela galderak berarekin zekarren aurrejuzgua, euskal literaturaren **singulartasunari** buruzkoa. Bernardo Atxaga

Non gelditzen zen Euskal Herriaren sinbolo horren **singulartasuna**. Mikel Hernandez Abaitua

Singulartasunaren seinale bereizgarriak. Xabier Arregi

Eremu diskurtsiboaren azterketa oso bestela dago orientatua; kontua da enuntziatua atzematea bere gertatzearen estutasunean eta **singulartasunean**; zehaztea bere existentziaren baldintzak, bere mugak finkatzea. Xabier Arregi

Arazoa, orduan, izango da jakitea ea diskurtsuaren batasuna zertzen den gehienbat objektu ezberdinak taxutzen diren eta etengabe eraldatzen diren espazioan, eta ez hainbeste objektu baten iraupenean eta **singulartasunean**. Xabier Arregi

Horretarako, ETAk, Euskal Herriaren **singulartasunean** kokatua, unibertsal berri bat proposatzeko ausartasun ezin sinetsizkoa izan zuen. Joseba Zulaika

Unibertsal bakoitza singularra da, edo **singulartasun** bat da. Joseba Zulaika

siniestralitate iz ezbehar kopurua.

Ganaduaz gain beste hainbat azpi sektorek ere kalte handiak jasan zituzten euren ekoizpenetan: esnearen ekoizpena %10 jaitsi zen, animalien «**siniestralitateak**» eta

siniestro *izond* parte txarrekoa, beldurra eragiten duena.

Hotelera bidean taberna **siniestro** batera sartu gara. Harkaitz Cano

Lekua **siniestro** samarra baino areago susmagarria da. Harkaitz Cano

Paisaia bare, hotz eta **siniestro** horretan. Berria - Kultura

Ez behintzat umeak harrapatu eta haien gantz fina lortzeko lan **siniestroaren** gorabeheran. Bernardo Atxaga

Istorio txit **siniestroa**, noski, industri iraultzaren hasiera halaber **siniestroan** hertsiki egokitzen dena. Bernardo Atxaga

Ez zekinat zer istorio **siniestro** moja bati eta marinela bati buruz. Harkaitz Cano

Montjuickek badu historia **siniestro** bat, eta hori oso oinordetza onuragarria da estatuak ankerkeria izugilea erabili behar duenerako. Koldo Izagirre

Hitz horiek entzun zituenean, egia esan, Alberto ez zen gehiegi arduratu, aitek halako solemnitate kasik errikiduluarekin hitz egin ohi zuelako, baina, une hartan, oihartzun **siniestro** batez durundatzen ziren bere burmuinean. Iban Zaldúa

Auschwitzeko dutxak ez ziren askoz **siniestroagoak** izango. Harkaitz Cano

siniestrotasun *iz* siniestroa denaren nolakotasuna.

Egin dezagun mende eta erdiko saltotxo eta har dezagun E.T.A. Hoffmannen *Hareetako gizona*, **siniestrotasunari** atek erabat zabaldu zizkion testu aitzindaria. Anjel Lertxundi

siniko *izond* antzinako Txinari dagokiona.

Karaktere **sinikoak** esanahiak dauzkaten "ideogramak" zirenez, eta ez hotsak adierazten dituzten "fonemak", Tsin She Huang-tiren egintzaren ondorioa Gizarte **Sinikoa** ikus-hizkuntza uniforme batez hornitzea izan zen. Iñaki Mendiguren

Historia **sinikoan** Gizarte **Sinikoak** kolapsoaren ondoren izandako lehen susperraldian, [...]. Iñaki Mendiguren

Zibilizazio Helenikoak Gizarte Hitita, Siriako, Egipziako, Babiloniko, Indiko eta **Sinikoan** izandako eraginarekin neurtzen badugu, [.....]. Iñaki Mendiguren

Pax Hanica-k mundu **sinikoan** eskainitako aukerengatik lehian jardun zuten erlijio proletario indiko batek -mahayanak- eta bertako erlijio proletario **sinikoa** zen taoismoak. Iñaki Mendiguren

Mahayana mundu indikotik **sinikora** transmititu zen, bi gizarteak elkarren aurka inoiz gerran jardun gabe. Iñaki Mendiguren

Liu Pang mundu **sinikoko** nagusi bakar bihurtu zenean, gehien merezi zuten ordezkarietako feudoak ematea izan zen lehen ekintza. Iñaki Mendiguren

Estatu unibertsal **sinikoko** biztanleria osoaren eskubidetze politikoa K.a. 196an data daiteke. Iñaki Mendiguren

Tsin lehiakide garaileak [...] ezarritako estatu unibertsal **sinikoan**, Han Liu Pang-ek K.a. 207an Hsien Yang, Tsin boterearen hiriburua, hartu zuenean bukatu zen Tsin-en nagusitasuna. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gizarte sinikoa (3)

historia sinikoan (3); **mundu sinikoan** (11)

estatu unibertsal sinikoaren (4); **mundu sinikoaren** (3)

karaktere sinikoen (3)

sinisbera ik **sinesbera**.

sinisdun ik **sinestun**.

sinisgaitz ik **sinesgaitz**.

sinisgarri ik **sinesgarri**.

sinisgarritasun ik **sinesgarritasun**.

sinisgatx ik **sinesgatx**.

siniskeria ik **sineskeria**.

sinismen ik **sinesmen**.

sinistarazi ik **sinetsarazi**.

sinistatu ik **sinestatu**.

siniste ik **sineste**.

sinistezin ik **sinestezin**.

sinistu ik **sinetsi**.

sinistu ik **sinetsi**.

sinistun ik **sinestun**.

sinitsarazi ik **sinetsarazi**.

sinkopa 1 *iz* hitz barruko letra baten edo silaba baten galera.

Hitzak hasierako letrak, tartekoak edo bukaerakoak gal ditzake, baina oraingo honetan aferesia, apokopea eta **sinkopa** dira, hurrenez hurren, hizkuntzalaritzari maileguan hartuko dizkiogun hitz bereziak. [Iñaki Arranz](#)

Sinkopa dela eta, *de tanche*, *d'tanche* bilakatu da; baina leku horretan nabarmentzeko, *d*-ak inposiboa izan behar du: *d*-><*tanche* eta bokal bat agertzen da bere aurrean, aurreko kasuetan bezala [Berria - Harian](#)

2 musikan, indarraldia konpasaren aldi fortetik ahulera pasatzearen ondoriozko erritmo mota.

Flauten eta klarineteen **sinkopak** hatz dardariak ziren, galdera-hostoa airean harrapatu nahi zutenak. [Ramon Saizarbitoria](#)

sinkopatu, sinkopa(tu), sinkopatzen **1** du *ad* hitz baten barruan letra bat edo silaba bat kendu.

Baliteke, ordea, *or (d) ots*, *orots hori*, behialako *urdeurruz* **sinkopatua** besterik ez izatea ere. [Patziku Perurena](#)

2 musikan, sinkopa egin.

Bigarren zati jazzistikoa erakustaldia eskaini zuen, *cadenza* erritmikotik **sinkopatua** den *perpetuum mobil*-era pasatuz beheko errejistroetatik goienetaraino, akatsik gabe. [Berria - Kultura](#)

3 (era burutua izenondo gisa)

Erritmo **sinkopatuak** eta jazz akorde bereziak eskaini zituen, ideia sinfonikoak nola garatu jakin gabe. [Berria - Kultura](#)

Bakarlarriak akats gabeko teknikarekin soinu gardena atera zion atariko joaldi lirikoari, eta erritmo bizia eta **sinkopatua** arku-kolpeekin bigarren mugimenduan. [Berria - Kultura](#)

Cadanza zailean eta bigarren zati arin eta **sinkopatuan** harnasketa eta teknika handiaren jabea zela erakutsi zigun. [Berria - Kultura](#)

4 irud/hed

Ealdien ibili **sinkopatuak** baizik ez ninduen lotzen idatzi beharreko orrira. [Pello Lizarralde](#)

sinkopatze *iz* hitz baten barruan letra bat edo silaba bat kentzea.

Badirudi beraz, *atxoatu* < *atxauretu* < *atxoaguretu* < *atsoaguretu* izan dela **sinkopatze** horren bilakaera. [Patziku Perurena](#)

sinkope 1 *iz* konortearen galera igarokorra.

-Ez da ezer, **sinkope** txiki bat. [Jose Morales](#)

Aurreko igandean, hilaren 8an, **sinkope** koronario bat izan zuen, eta erietxera eraman behar izan zuten. [Berria - Euskal Herria](#)

Langraizko kartzelan astebete egin baino lehen eta ebakuntzaren zain zegoela izan zuen **sinkopea**. [Berria - Euskal Herria](#)

2 sinkopa.

Beste testu batzuk, berriz, hitz, hots, letra, silaba eta abarren manipulazioetan oinarrituak dira (aferesiak, apokopeak, **sinkopeak**, permutazioak). [Xabier Olarra](#)

sinkretiko *izond* sinkretismoarena, sinkretismoari dagokiona.

Eklektizismoaren garaia da Stendhalena; iraganeko elementuen erabilerari interpretazio formal berriak erantsiz sortutako emaitza **sinkretikoena**. [Anjel Lertxundi](#)

Frankismo-garaiko arkitekura **sinkretikoaren** adibide formal jorienetakoa da Zuazo-enea etxea: eraikuntzak adreilua, harria eta egurra konbinatzen ditu; elementu formal gotiko, errenazentista eta barrokoak ageri dira nonahi, baina ez nola hala nahasian. [Anjel Lertxundi](#)

Kultura desberdinetako elikagaiak nahasiko dituzte-eta elikabide berriek, ezagun ez ditugun zaporeak eskainiz: mestizaiaren sukaldaritza **sinkretikoa** osatuko da. [Edorta Agirre](#)

Kultura askoren arteko "fusio sukaldaritza" **sinkretikoak** gora egingo du. [Edorta Agirre](#)

Neurri handiko erakusketez gain, bilduma propio **sinkretiko**, koherente eta interesgarria eskaintzen duena. [Berria - Kultura](#)

sinkretismo *iz* elkarren kontrako ideia edo estiloak konbinatzeko edo adosteko joera.

Filosofien eta erlijioen arteko amalgama edo **sinkretismoa**. [Iñaki Mendiguren](#)

Bai, *Amorezko pena baño* liburuan egin nuen halako **sinkretismo** bat hainbat euskalkiren artean. [Ana Urkiza](#)

Gizon engeiatua bai segur, halako **sinkretismo** konketu bat antolatu nahi izan zuena, Jainkoaren semea eta gizarte material baten gauza uztartu nahiz izate berean. [Piarres Aintziart](#)

Halako **sinkretismo** sentimental baten bila? [Piarres Aintziart](#)

Sinkretismo nazional-katoliko horren adibide txiki-txiki bat: [...]. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

halako sinkretismo (3)

sinkronia 1 *iz* hizkuntza baten bilakaeraren une jakin batean sistemaren osatzailetzat hartzen diren hizkuntza-egitateen multzoa.

Saussurentzat, **sinkronia** elkarri eusten dioten balio sistema itxi bat da. Isabel Arrigain

Sinkronia eta diakronia, aspaldixko irakatsi zuen Coseriu, ez dira hizkuntzaren mailako bereizkuntzak, metodoaren mailakoak baizik. Lourdes Oñederra

Sinkroniaren egoeran esku hartzen duenak ez du eraginik diakroniaren gainean; aldaketa diakronikoa da **sinkronian** eragina duena. Isabel Arrigain

Gauzei begiratzeko modu bi direla esan genezake: **sinkroniak** denboran batera gertatzen direnei begiratzeko die; diakroniak, denboran zehar, lehenagotik gerora edo orainetik iraganera. Lourdes Oñederra

Sinkroniari dagokio "Gramatika orokorra" esaten zaion guztia, zeren gramatikari dagokion erlazioak hizkuntza egoerengatik ezartzen baitira soil-soilik. Isabel Arrigain

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **sinkroniko**.

Gertaera diakronikoa da izateko arrazoia bere baitan duena; bestalde, **sinkronia** mailako ondorioak erabat arrotz zaizkio. Isabel Arrigain

Morfologia, sintaxi eta lexikologiaren intepretapena uler daiteke, **sinkronia** gertaera guztiak, funtsean, berdinak direlako izaeraz. Isabel Arrigain

Elkartze eta sintagma mailako **sinkronia** egoera orok bere historia baldin badu, [...]. Isabel Arrigain

3 bi gertakari edo gehiago aldi berean gertatzea.

Zeren indar eta mugimendu haiek guztiak senaren meneko baitzituen eta sena zuten, halatan, gidari, **sinkronia** eta harmonia zirelarik, azken finean, leherketaren fruitu.

Joan Mari Irigoien

Sinkroniaren eta asinkroniaren zentzua: zer da "une bera"? Josu Zabaleta

Denborari dagokionez, plana orainean dago [...]; aldibereketasunaren eta **sinkroniaren** mailakoa da beti; eta muntaketak baizik ez du uzten orain etengabe horretatik ihes egiten. sentitzen eta ikusten nuenaren arteko **sinkronia** falta bitxi batek astindu zidan barrera. Josu Zabaleta

Zeure buruarekin deseroso zeundela ematen zuen, lehen aipatu dudan **sinkronia** -ez hori areagotu balitzaizu bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sinkronia eta diakronia (5)

sinkroniko 1 *izond* hizkuntzalaritzan, sinkroniarena, sinkroniari dagokiona. ik **sinkronia** 2.

Hizkuntza sistema **sinkroniko** baten egoera jakin batek ez du, saussurear pentsamoldean, diakroniarekin zer ikusirik. Isabel Arrigain

Hizkuntzalaritza **sinkronikoa** batera gertatzen diren eta sistema bat osatzen duten erlazio logiko eta psikologikoez [...] arduratuko da. Pablo Sastre

Estudio **sinkronikoak** ez du helburu aldi bereko den guztia, hizkuntza bakoitzari dagokion gertaera multzoa baizik. Isabel Arrigain

Garbi dago, noski, hizkuntzaren historian ikusi eta diakronikotzat jotzen ditugun asimilazio horiek jatorrian (gertatzen ari zirenean) aldaketa **sinkronikoak** izango zirela, beste edozein gertakari fonologiko bezala. Lourdes Oñederra

Horrela, aintzat hartu behar da analisi **sinkronikoetan** mailegu irentsiak ez direla gehiago mailegu. Lourdes Oñederra

Haien lanak garbi uzten digute agerian, egoerak nahi dituztela azaldu; haien egitasmoa erabat **sinkronikoa** da. Isabel Arrigain

Zer da errealitate **sinkronikoa**? Isabel Arrigain

Lege **sinkronikoa** eta lege diakronikoa. Isabel Arrigain

2 bi gertakari edo gehiagor mintzatuz, aldi berean gertatzen direnak.

Esperientzia askok erakutsi dute begiak ez dituela bi argi gertaera **sinkronikotzat** atzematzen denboran aski bereziak ez baldin badira: 60-80 segundo milaren inguru behar dira bi gertaera horiek ziur berezi ahal izateko, eta tarte hori 100 segundoko milarenekoa izatera iristen da (1/10 segundo) gertaerak bereiziz gainera bietan lehenengoa zein izan den bereizi nahi baldin bada. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

identitate sinkroniko (3)

gertaera sinkronikoa (4); **hizkuntzalaritza sinkronikoa** (4); **lege sinkronikoa** (4)

diakronikoaren eta sinkronikoaren (4); **eta sinkronikoaren** (4); **eta sinkronikoaren arteko** (3); **sinkronikoaren arteko** (3); **sinkronikoaren eta** (4); **sinkronikoaren eta diakronikoaren** (4)

diakronikoaren eta sinkronikoaren (4); **sinkronikoaren eta diakronikoaren** (4)

sinkronikoki 1 *adlag* sinkroniaren ikuspuntutik.

Oso da posible hiztun zenbaitentzat ez egotea hor kenketarik **sinkronikoki** (inolako ordezkatzetik ez ezartzea hitz egitean), horrela ikasi eta memorizaturiko hitzak izatea baizik. Lourdes Oñederra

Bokal azentugabeak kentzea bilakabide natural unibertuala da eta hizkuntza batzuek beren fonologiaren zati egiten dute neurri batean edo bestean (alemanez edo ingelesez handia da horrelako bilakabideen oparotasuna diakronikoki zein **sinkronikoki**). Lourdes Oñederra

2 sinkroniaz.

Bat-batean begitandu zitzaidan bere ahots tourettikoan "Kaixo, mutilak" esan, eta han hasiko zela bie. **sinkronikoki**, simetrikoki, burua laztantzen. Xabier Olarra

sinkronikotasun *iz* sinkronikoa denaren nolakotasuna.

Kannerren eta Aspergerren txostenek antz harrigarria zuten (izugarria, inoiz) alde askotatik: **sinkronikotasun** historikoaren adibide polita. Xabier Olarra

sinkronizatu, sinkroniza, sinkronizatzen 1 du *ad* gertakari bi edo gehiagoren sinkronikotasuna gauzatu.

Are eragingarriago bihur daiteke akaso, erlojuak **sinkronizatu**, eta adostutako orduan denok kateari tira egitearena. Harkaitz Cano

Erlorju biokimiko sintetikokoak **sinkronizatze** era ikertzen ari dira. Berria - Gaiak

Lurra eta bere orbita Lurrarekin **sinkronizatuta** daukan zeruko puntu finko baten arteko bidea egingo du igogailuak. Berria - Gaiak

Sukaldeko iturriari tanta etemal bat zerion, segundo bakoitzari oihartzun egiten ziona: bi hots segundoko beraz, bata bestearen atzetik **sinkronizatuta**, segundoa erdibanatuz. Harkaitz Cano

Gustura egoten nintzen bie begira, elkarrekin oinez zihoazelarik [...] betiere pauso arinean, **sinkronizaturik**. Juan Kruz Igerabide

Agertokiko kantaria bere mugimendu zabarrak eta bere akorde zatarrak **sinkronizatzen** saiatzeko bitartean. Karlos Zabala

Amak deitu zuen berriro, eta handik gutxira, **sinkronizatuta** baleude bezala, Elenak. Horrela ikasi genuen gozarena **sinkronizatzen**. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (era burutua izenondo gisa)

Argazki-makina bikoitz **sinkronizatu** bat hartu eta bi objektiboak begien arteko distantzia bererara jarri, eszena beraren bi ikuspegi zertxobait aldenak hartzen zituzten bi plaka atera zitezkeen. Baketa hotsak, bonboa sartzen da orain, txastona gero, kontrabaxuaren soka-kolpe limurtzailea, orkestra **sinkronizatu** bat segidan. Josu Zabaleta

Orgasmo **sinkronizatuak** ere primeran ateratzen dira sarritan hiru lagunen artean. Karlos Zabala

Aurretik, igeriketa **sinkronizatuko** proba jokatu da. Berria - Kirola

Bizitza eternala, denek dakiten legez, horrorearen **sinonimo** da. Xabier Olarra
Antzinakoen artean Hadesen ideia ez zen Infernuarenaren **sinonimoa**; izan ere, antzinako gizon prestu franko hantxe bizi ziren eroso asko. Xabier Olarra
Zentzu horretan, konkurrentziaren printzipioaren mundu osoko garaipenaren **sinonimo** da globalizazioa, antolamendu printzipioaren kaltetan. Koro Navarro
Mimesis analogiaren aski **sinonimo** egokia da, funtsean. Josu Zabaleta
Azterketa batean, hainbat erdal hitzen **sinonimoak** eman behar zituzten ikasleek. Joxerra Garzia
Askotan elkarren **sinonimo** erabiltzen diren arren, garbi dago ikasketa eta heziketa ez direla gauza bera. Joxerra Garzia
Leku ruralak **sinonimo** gaiztoak zituela jakin nuen, bai behintzat hiriko ikaskideen artean; aldeano, palurdo edota boronoen jatorri zela, nonbait. Bernardo Atxaga
Izenik gabeko izenondoaren pilatze bat da, eta izenondo horiek **sinonimo** kontestualtzat jo daitezkeelarik, alferrikako pilatze bat da. Iñaki Segurola
Garazin XANGO-GORRI izena bildu du agoteren **sinonimo** bezela. Herria
Ekonomia hazkundera eta garapena **sinonimo** gisa erabiltzen dira, eta herrialde bat garapen bidean dagoela esaten da, kasu, 6.000 dolar per capita errentatik behera badago. Iñaki Heras
Sinonimoen hiztegia, Donostia, Elkar. Askoren artean

2 (izenondo gisa)

Lautik gora ez dugu guk aurkitu, hau da, lau hitz **sinonimo**, denak monobokalikoak eta bakoitza bokal baten inguruan eraikia. Iñaki Arranz
Salneurrien eta zirkulazioan dagoen moneta masaren arteko harremanaren formulazioa hitz berekin gauza daiteke -edo hitz **sinonimoekin** - eta arrazoiketa berarekin lor daiteke. Xabier Arregi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sinonimo dira (5)

sinonimoak dira (8)

sinonimoen hiztegia (4)

sinonimotzat erabiltzen dira (4)

sinonimotsu *izond* gutxi gorabehera sinonimoa.

Aski da Pérez Galdós-en sarrera hitzak irakurtzea, *arima* eta *arraza* **sinonimotsu** legez erabiltzen direla ohartzeko. Joxe Azurmendi

sinopsi *iz* laburpena.

Askotan atal bakoitzari "aurreko kapituluaren **sinopsia**" eranstean zaio. Xabier Olarra
Sinopsiak irakurrira, gauza asko ikusten da: idatzi duenaren eskua, moldatzailearen eskola, eta statu quo-aren ahalmena denboraren orratzak hautsi eta izan ez dena egungo egiturak sendotzeko ordain gisa saltzeko, esate baterako. Iñigo Aranbarri
[Sinopsia] idazlana amaitu eta gero idatziko duzu; **sinopsi** bat baita, ez proiektua. Askoren artean
Zinemaldiko liburuxkan dagoen **sinopsiari** kasu eginez gero, drama gordin eta gupidagabe baten aurrean gaudela pentsa dezake ikusleak. Berria - Kultura
Sinopsia: Corey Harris musikariak Mississippitik Afrikarako bidaia egingo du bluesaren sustraien bila. Berria - Kultura
Baten bati antzeko **sinopsia** zuen beste pelikula bat etorriko zaio burura: *Airbag*. Berria - Kultura

sinoptiko 1 *izond* ikuspegi orokorra ematen duena.

Komedia Jainkozkoaren imajina **sinoptikoetan** aurki zitekeen Infernuaren irudi eskematikoaren antzekoa zen guztiz. Juan Garzia
Bildutako datu horien arabera, aroa nondik nora dabilen edo doaken, nolatsu datorren, mapa **sinoptikoak** landu eta iragarpenak osatzea litzateke gertuenerako eginbeharra. Pello Zabala
Azterketa **sinoptikoa** egiteko. Iñaki Mendiguren
Txostengile saiatuaren estilo zurrin eta **sinoptikoaren** gristasuna. Aingeru Epaltza

2 ebangelioez mintzatuz, Mateo, Lukas eta Markos-enak, egitura bertsua izanik gertaera beraren kontakizunak erkatzea ahalbidetzen dutenak.

Zelanok ez du testu jakin bat aipatzen, baizik eta hiru **sinoptikoetatik** hartutako testu-zatiak elkartzen ditu. Askoren artean

sinoptikoki *adlag* era sinoptikoan.

Jarraiko ikerketak Azterlan honetan onartu eta honaino izan dugun ikuspuntutik desbideratze bat markatzen zuen, hau da, historian ezagututako zibilizazio guztiak **sinoptikoki** tratatzekoa. Iñaki Mendiguren
Giza burmuinak ehun mila milioi neurona baino gehiago ditu, horietako bakoitza **sinoptikoki** lotuta dago beste batzuekin, beste askorekin seguru asko. Joseba Sarrionandia

sinpalta ik **sinfalta**.

sinpatia 1 *iz* norbaiten edo zerbaitenganako sentimen beroa eta berezkoa.

Badakit, bai, **Sinpatia** edo Antipatia hitzak lehen aldiz sarrarazi dituzten autoreek gauzen nolokotasun ezkutu batzuk adierazi nahi izan dituztela izen horiekien. Ez da inongo alderditakoa, gizatasunari ez baitio traiziorik egin nahi, baina jende xehearenganako **sinpatia** du. Piarres Xarriton
Ezagutu zezatela hango eta hemengo irakurleek Théophile Gautierrek gureganako izan zuen **sinpatia**, maitasuna. Bernardo Atxaga
Normala omen den jende horrek, homosexual edo yonki ez direnek alegia, halako **sinpatia** bat sentitzen zuen gaitzarekiko. Bernardo Atxaga
Ez dugu sentitu inolako **sinpatiarik** irailaren 11ko atentatuan hil zirenekiko. Ana Urkiza
Nik ez diot **sinpatiarik** *Vlaams Blok*i, baina nire ustez bistan da prozesu politikoa dela. Berria - Mundua
Horrek guztiak diskurtso populista, demagogiko eta faltsuekin nazkatuta zegoen jendearen **sinpatia** eta afektua piztu zuen. Pako Aristi
Begi-bistakoa baitzen, ETAk halako **sinpatia** sortzen zuela herriko jende askorengan. Pedro Alberdi
Handik onik irten nahi banuen, eskuratu beharra neukala nolabait ikusleen **sinpatia**. Karlos Linazasoro
Bokazioen, **sinpatien**, gustuen, ikasbideen, zirraren berdintasun bitxi horrek lotu egiten ditik bi pertsonak, eta patu berdina ezartzen ziek. Xabier Olarra
Marisaren lagun gizonetakoek erakusten zizuten **sinpatiaz** gogoratzen zara eta Marisaren irribarre alferraz, begirada triste ironikoaz. Lourdes Oñederra
Andresk esaten zuen jendaila zikin bat baizik ez zela hura guztia, ez zuela merezi ez **sinpatiarik** ez errukirik. Josu Zabaleta
Sinpatia handiagoa diot biriketako gaixotasun kroniko bat zuela jakin nuenetik, hortik atera kontuak **sinpatiaren** bideskak zein bihurriak diren. Harkaitz Cano

Maite-jolasak, musutxoak eta **sinpatiazko** irribarretxoak. **Josu Zabaleta**

Anaia bat bezala maite izan dudan gizona, bihotzak beti **sinpatia** eta adiskidetasuna zabaldu dituen, jende errugabearen masakrean partaide izatea, ezta pasiboki ere, ez da posible. **Ramon Etxezarreta**

2 (izenondoekin)

Victor Hugok **sinpatia** handi adina deskontzertuz ikusi du Euskal Herria. Ekonomia eskolan zurekin ibilitako neska bat hurbildu omen zitzaizun **sinpatia** handiz. **Koldo Izagirre**

Ez gero nigandik **sinpatiarik** txikiena ere espero, David, ezta beste inorengandik ere. Gure artean, David, nire **sinpatia** osoa duzula esan behar dizut. **Oskar Arana**

Jose Javierren **sinpatia** naturala. **Iban Zaldúa**

Hasieran Dembari zion higuina **sinpatia** sendoa bihurtu zen. **Anton Garikano**

Dagoeneko ez zen lehengo **sinpatia** txeratsu eta lotsati hura, hain gozoa; abere-maitasun bat zen orain. **Josu Zabaleta**

Edo, besterik gabe, **sinpatia** kontrolaezina ote zen harena? **Xabier Olarra**

Keriken izendapenak areago agertzen du Bush bere kabinetea **sinpatia** politikoetan eta leialtasun pertsonaletan oinarritua atontzen ari dela. **Beria - Mundua**

Emakumearen **sinpatia** intelektualen baitan dago hori. **Antton Olano**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Naturala dela dio, halaber, lagun hurkoarekiko **sinpatia** sentimendua, eta baita kulpa sentimendua ere. Itsuseria baten erruduna zarela onartzu gero ezin espero **sinpatia** keinu oldeak ordainetan. **Iñaki Heras**

Komentarioaren transkripzioak adeitasuna adieraz lezake, **sinpatia** keinu bat berarekin geundenon aldera. **Bernardo Atxaga**

Ez zen ondoan gustura sentitzen nintzen lehenengo neska izango, seguru aski, baina gutxitan sentituko nuen aurretik horrelako **sinpatia** -uhina. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Euskararen arazoa, hizkuntz komunitatearen arazoa, erdal komunitateekiko harremana, erdal komunitateekiko **sinpatia** prozesuak. **Beria - Euskal Herria**

Sinpatia giro hunkigarria zen. **Itxaro Borda**

4 bi sistema edo gorputzen arteko erlazioa, bataren aldaketa batek bestean aldaketa bera eragiten duenean.

Batzuetan, iruditzen zitzaidan berehala hartzen zuela lekuen, jendearen eta eszenen giro edo umorea, istanteko **sinpatiaz** edo imitazioz, sentiberatasun deitu lekiokena baliatuz baino areago. **Xabier Olarra**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

halako sinpatia (3)

sinpatiko 1 *izond* sinpatia pizten duena. (pertsonez)

Horrek ez dio eragozten neska ona eta **sinpatikoa** izatea. **Edorta Jimenez**

Hori ez da arazoa, neska! -moztu zuen potolo **sinpatikoak** -. **Jon Arretxe**

Bikiak **sinpatikoak** ziren, jardun eta jardun ari zitzaizkidan. **Joxean Sagatzizabal**

Sinpatiko samarra da nirekin. **Anjel Lertxundi**

Oso itsusia iruditu zitzaigun hiruroi: **sinpatikoa**, baina itsusia. **Iban Zaldúa**

Oso tipo **sinpatikoa** zen, asko maite ninduen. **Mikel Hernandez Abaitua**

Adin ederreko bikote **sinpatikoa**. **Piarres Aintziart**

Beharbada ez da hori Marcos komandanteordea **sinpatikoago** gertatzearen arrazoa. **Joxerra Garzia**

2 (bestelakoez)

Ahoa **sinpatikoa** iruditzen zait oraindik ere, ez dakit zergatik, ahoa eta begiak ere bai. **Joxe Austin Arrieta**

Begietsi nuen berriro argazkiko Joachimena aurpegia, gizonezko-aurpegi **sinpatikoa**. Baina hain ziren erleak **sinpatikoak** eta adiskidetasunera emanak. **Joxe Austin Arrieta**

2004ko urtarilaren 20an pare bat solidariok beste ekintza **sinpatiko** bat egin zuten. **Txema Ramirez de la Piscina**

Eztabaida bitxia, bere barregarrian **sinpatikoa** begitantzen zaidana urteen buruan, batez ere anarkismoaren nahiz komunismoaren paradero beltzari erreparatuz gero. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Iribarre **sinpatiko** eta urrikalkor bat. **Piarres Aintziart**

Logela ttipi **sinpatiko** bat eta kanpoan baratzea. **Piarres Aintziart**

Sinpatikoak dira untxi-zapatilak, kolore bizikoak. **Iban Zaldúa**

Ez dun ezer gertatzen esan dio modu **sinpatikoan**. **Eider Rodriguez**

3 sinpatiaz (laugarren adieran) gertatzen dena.

Azal gazteago baten igurtzia zuen ximurra suntsituko diarelakoan, magia **sinpatikoz** edo? **Xabier Mendiguren Elizegi**

Musika-tresna horren tonu xarmargarria hainbat hari **sinpatikok** eragiten dute, hari nagusietariko batean nota ozen bat jotzen denean hasten baitira bibratzen hariok. **Irene Aldasoro**

4 nerbio sistemaz mintzatuz, sistema horren zatia, zenbait organoren funtzionamendua borondateak parte hartu gabe zuzentzen duena.

Hox direlako geneon arabera kokatzen dira ornoak, saihetsak, giharrak, nerbio-sistema zentral eta **sinpatikoaren** egiturak. **Juan Garzia**

5 tintaz mintzatuz, ikusten ez dena, harik eta errektibo egokia ezartzen zaion arte.

Giua kimikoa da, badaki nola egiten den tinta **sinpatikoa**! **Fernando Rey**

Giuitarren etxean tinta **sinpatikoaz** idatzitako gutun batzuk aurkitu zituztela. **Fernando Rey**

Tinta **sinpatikoaren** aukera bururatu zaizu, baina mundu honetan ez dago hori sinistuko duenik. **Rafa Egiguren**

6 sinpatikoa egin sinpatikoa gertatu.

Marcos komandanteordea **sinpatikoago** egiten zait, baina ez dakit ziur zergatik. **Joxerra Garzia**

Esan beharra dut Pertiren bizimodua ez zitzaidalda oso **sinpatikoa** egiten. **Anjel Lertxundi**

7 sinpatikoarena egin

Sinpatikoarena egiten ez badu, ez du bezerorik izango. **Juan Kruz Igerabide**

Uste dut beldur ziola bakardadeari, hortik beti **sinpatikoarena** egiten ibili beharra. **Anjel Lertxundi**

Eta irrati esatariak orduan: «Potoiloaren beste gol bat», barrez, **sinpatikoarena** egiten. **Beria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sinpatikoarena egiten (4)

sinpatizante *iz* alderdi politiko bateko kide izan gabe haren ikuspuntuaren eta jardueraren alde nagusiekin bat datorren

pertsona.

Beharbada nire irakurle eta laguntzaile guztiak ETaren **sinpatizanteak** dira eta oso ongi saltzen dut produktua, edo oso gaizki. **Joxe Azurmendi**

Sinpatizante ugari izan dituena bata; gure zibilizazioaren jatorria gorpuzten duena bigarrena. **Berria - Kultura**

sinpatizatu, sinpatiza, sinpatizatzen du *ad* alderdi politiko edo ideia-joera baten ikuspuntuen eta jardueraren alde nagusiekin bat datorrena.

Lehen Mundu Gerra osteko errepublika "kaotikoekin" baino errazago Salazar eta Franco bezalako "diktadura paternalistekin" **sinpatizatu** du. **Joxe Azurmendi**

Aitzitik, ulertzeko eta **sinpatizatze**ko eskatzen zaigu. **Oskar Arana**

simple 1 *izond* bakuna. ik **simple**. (gauzez)

Jantzi beltz **simple** eta galanta duela. **Piarres Aintziart**

Makina **simple** bat da palanka, oso ezaguna eguneroko bizitzan. **Irene Aldasoro**

Kamera **simple** batean, tutu haridun batean muntaturik egoten da objektiboa. **Irene Aldasoro**

Ongi naiz ohandze **sinplean**. aurre-erromaniko estiloko eliza **sinplea**. **Piarres Aintziart**

Aldare **simple** bat. transistore bat eta beste osagai bakan batzuk izaten ditu modelorik **sinpleenak**. **Irene Aldasoro**

Lente **simple** baten lehenengo akatsa irudiaren distorsio bat da, teknikoki aberrazio esferikoa esaten zaiona. **Irene Aldasoro**

Ilea mototsa **simple** batean biltzen dute. **Lander Garro**

Itsasoan bizi diren izaki zelulabakarrak dira animalia **sinpleenak**. **Irene Aldasoro**

2 (gauza abstraktuez)

Soluzioa **sinplea** zen, aski zen ez lanik egitea. **Juan Garzia**

Azterketa ginekologikoa oso gauza **sinplea** da. **Luis Elberdin**

Gaur iduri zait gauza **simple** bat gertatu zela edo bederen era askotako gauzak konkretzio bakar batean bildu zirela. **Piarres Aintziart**

Modu **sinplean** esateko. **Askoren artean**

Modu **simple** batean azaltzea zaila da. **Berria - Gaiak**

Era **simple** eta laburrean laburbildu digu izurriteak azken urteotan izan duen garapena. **Mirentxu Larrañaga**

Egoera ez da hain **sinplea**. Aztertu behar dugun kasuak aukera **simple** baten aurrean jartzen gaitu: operatu eta soilik bikietako bat salbatuko dugu; ez operatuta, berriz, bi bikiak hilko dira. **Askoren artean**

Beharrik ideia **simple** bat bururatu zitzaidan: sarraila zulotik behatzen saiatzea. **Jon Muñoz**

Formula **simple** horretan ageri dira matematikako oinarritzko zenbakia. **Jon Muñoz**

Borondatea ez dela gauza **simple** eta bakun bat. **Piarres Aintziart**

Pentsamendu **simple** eta errepikatu batzuetan murgildurik, kalkulu **simple** batzuk aski dira erakusteko gaur egun Lurrean bizi diren gizaki guztiak ahaide urruntxeagoak edo hurbiltxeagoak direla. **Piarres Aintziart**

Pertsonak usainagatik ezagutzeko txakurrak duen gaitasun ukaezina ikusita, metodo **simple** hori oso eraginkorra da identifikaziorako eta oharpenerako. **Irene Aldasoro**

Efektu mekaniko **simple** bat da hori. **Irene Aldasoro**

Are argiago ikusten da egoera proba **simple** bat eginez. **Irene Aldasoro**

Oso arrazoi **simple** bategatik, hori ez zelako agurearen borondatea, erantzun zuen Carlosek irribarrez. **Bego Montorio**

3 pertonez mintzatuz, tolesgabea, xaloa, eta batzuetan, inozoa.

Hain zen handia, hain jasoa ere esan liteke, nire ama zen emakume **simple** haren maitasuna. **Matias Múgica**

Haurren inozentziara zeharo itzultzearen, sehaska bat fabrikatu zuen, troxaz bil zezaten agindu, eta bularra eskatu zion errukiz negar egin zuen emakume **simple** bati.

Juan Garzia

Gizon **simple** eta eskolagabe bat besterik ez haiz. **Askoren artean**

Gizon **simple** samarra zen; mutiko baten itxura izan zezakeen, buru soilagatik ez balitz. **Julen Gabiria**

Maimie deseroso sentitu zen, egia zelako izaki txiki eta **simple** hura ezdeusegia zela maitagarria izateko. **Julen Gabiria**

Jakintsuek **sinpleen** balioak ikasten dituzte beren onerako. **Askoren artean**

Jakintsu nahiz **simple**, santutasun handiko nahiz erdipurdiko, gazte nahiz zahar. **Askoren artean**

Aberats izan nahiz behartsu, noble nahiz xume, arbiuatu nahiz estimatu, zuhur nahiz **simple** eta ezjakin, kleriko nahiz laiko. **Askoren artean**

Gizontxo **simple** eta ezjakin horrek, esadazu: [...]. **Askoren artean**

Ez zaitugu errege nahi, hitz-motela baitzara, **sinplea** eta ergela. **Askoren artean**

Lege horiek herri **simple** eta berez xalo zen batentzat bakarrik ziren egokiak. **Iñaki Iñurrieta**

4 *simple-simple* *izond*

Egia da fabrika honetako lana **simple-simple** dela, gormutu bati ere azaltzeko modukoa, izan ere. **Eskarne Mujika**

Merkatariek badakite, batere durduzatu gabe, bigarrena hirugarrenaz biderkatzen eta biderkadura lehenaz zatikatzen, zeren edo ez baitute oraino ahantzi nagusiari batere demonstratu gabe erratan entzun diotena edo berek maiz zenbaki **simple-simple** batzuekin saioa egin baitute. **Piarres Xarriton**

5 (adizlagun gisa)

Zalantza dagoenean, horixe izaten da beti onena, **simple-simple** jantzea. **Hasier Etxeberria**

6 *simple-simple* ik **sinpleki**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adibide **simple** bat (4); arrazoi **simple** (9); arrazoi **simple** bategatik (5); bezain **simple** (3); emakume **simple** (3); era **simple** (4); galdera **simple** (3); gauza **simple** (8); gizon **simple** (7); herri **simple** (3); hitz **simple** (4); ideia **simple** (5); ideia **simple** bat (3); mezu **simple** (3); modu **simple** (7); oso **simple** (3); proba **simple** (3)

simple samarra (3); **simple** **simple** (4)

arras **simplea** (5); arras **simplea** dugu (3); arrazioa **simplea** da (5); azalpen **simplea** (3); bezain **simplea** (13); bizitza **simplea** (3); gauza **simplea** (15); gauza **simplea** da (5); gehiengo **simplea** (11); gizon **simplea** (4); hori bezain **simplea** (3); horren **simplea** (12); oso gauza **simplea** (8); oso **simplea** (30); oso **simplea** da (13); **simplea** izan (16)

askoz **simpleago** (3)

forma **simpleak** (3); oso **simpleak** (6); **simpleak** dira (10)

modu **simplean** (8); oso modu **simplean** (3)

modurik **simpleena** (3)

modurik **simpleenean** (3)

sinplekeria 1 *iz* pertsona sinplearen nolokotasuna edo ekintza gaitzesgarria.

Haur baten **sinplekeriarekin**, sinistua zuen argazkiei egiten zizkien faltsifikazioak ez zirela azken batean faltsifikazioak.

Matias Múgica

Zure **sinplekeriak** xamurtu egiten nau. Jon Alonso

Pare bat urte egon zen EEBBetan ingelesa ikasten, eta horrek halako batean lizentzia eman zion abertzaletasuna bidaiatuz sendatzen da eta antzeko **sinplekeriak** esateko.

Jokin Muñoz

Ni kultura motz bateko ordezkari erudizio laburrekoa naiz, eta, segurutik, **sinplekeriak** irudituko zaizkizue esateko ditudanak. Jon Alonso

2 sinpletasun gaitzesgarria.

Ingresen koadroek **sinplekeria** horiek gaintzen dituzte eta konplexutasun handiagoa erakusten tematzen dira gure begi posmodernoen aurrean. Berria - Kultura

Euzkitzek Maritxu kantua atera zuen **sinplekeriaren** zokotik: egun kantu inozotzat badugu ere kantu erotikoenetako bat zen bere garaian, azaldu zuenez. Berria - Kultura

la **sinplekeriaren** mugan dagoen lanak 25.000 ale baino gehiago saldu ditu. Berria - Kultura

Oker ez banago, nekrofiliaren etiketa gotziz deskalifikatzea **sinplekeria** litzatekeela dio egileak. Ramon Saizarbitoria

sinpleki 1 *adlag* sinpletasunez. ik **bakunki**; **lañoki**.

Beharbada, fruitu gehiago lortuko dut **sinpleki** hitz eginez. Askoren artean

Hori guztia **sinpleki** adieraz daiteke. Juan Garzia

Honekin abisaturik zaude alde handia dagoela ametsari edo gaueko ikuspenei buruz esandakoaren eta bestela **sinpleki** adierazirikoaren, hala nola: [...]. Xabier Kintana

Sinpleki janzten denean, pertsonak garbiagoa ematen du. Hasier Etxeberria

Nik hitz gutxitan eta **sinpleki** idatzarazi nuen, eta Aita santu jaunak baietsi egin zidan. Patxi Zubizarreta

Eta beraz **sinpleki** irudikatzen dugun gauza baten aldeko afektua, besteak beste, handiago da, ezinbesteko, ahalezko edo kontingente bezala irudikatzen dugunaren aldekoa baino. Piarres Xarriton

Gure mundu makroskopikoak ere ez duela horren **sinpleki** funtzionatzen diote hainbat fisikarik. Berria - Gaiak

Zorria etsaiaren gorputza zela imajinatzea, eta orduan krak egitea, krak egitea hain erraz eta **sinpleki**. Joseba Sarrionandia

2 soilik, besterik gabe.

Arima ziniko, maltzur, edo **sinpleki** inkontziente batek. Harkaitz Cano

Ni, **sinpleki**, emakumeei batere gustatzen ez zaien gauza bat naiz: erabat praktikoa. Joxe Austin Arrieta

Azken kasu horretan, literatura egiten zuten, **sinpleki**, gezurra esatea baino kaltegarriagoa izan daitekeena, zenbaitetan. Harkaitz Cano

2003-2004 ikasturteko beren haurraren izenaren emaitako gutizia, edo **sinpleki** informazio gehiagoren ukaiteko xedea duten buraso guziak gomituak dira. Herria

Bere burua eskaini zion **sinpleki**, egunen batean haren beharra baldin bazuen bere zorionerako. Karlos Zabala

Zera esan zidan **sinpleki**: hire txanda duk! Joxe Austin Arrieta

-Ez diat borrokan egingo -esan zuen Mikel Strogoffek **sinpleki**. Karlos Zabala

Gogorik batere ez nik hegaldi hartan jarraitzeko, **sinpleki**. Joxe Austin Arrieta

3 *sinple-sinpleki*

Maite dutalakat, sinple-**sinpleki**. Menane Oxandabaratz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gutxitan eta sinpleki (4)

sinpletasun 1 *iz* sinplea, bakuna denaren nolakotasuna. (pertsonaz)

Gotzainak, Jainkoaren gizonaren **sinpletasun** garbiaz hunkiturik, eskerrak eman zizkion Jainkoari. Askoren artean

Oginahiz interpreta dezala irakurtzen duena eta barka edo zuzen dezala kontalariaren **sinpletasuna**. Askoren artean

Gizon hark ideia baten **sinpletasuna** zuen. Monika Etxebarria

Umearen barruko **sinpletasunari** dagokio. bi eskuak poltsikoetan dauzkan pertsona batek zer esan behar duen entzutera 13.000 lagun joatea eta 100.000 lagunek telebistaz ikustean kanpokoak liluraturik gelditzen dira gure **sinpletasunaren** arrakastarekin. Berria - Kultura

2 (gauzez)

Nerea zuen gogoan, harekin igarotako gaua, haren larruaren sentipena berean, bularren **sinpletasun** epela, gerrialdearen malgutasuna. Unai Iturriaga

3 (gauza abstraktuez)

Azken egoitzara lagundu dugu Héliène Gueraçague, otsailaren 21ean, bere 75. urtean, **sinpletasun** handiengan. Herria

Natura, artzain bat, ardiak, jestu bat, bi hitz: mendez mendeko biziaren **sinpletasun** sakonean murgildua nago. Piarres Aintziart

Lege saliko eta erriparioetan, alemanen, bavariarren, turingiarren eta frisiarren legeetan, **sinpletasun** miresgarria dago. Iñaki Iñurrieta

Hitz soil bat izan liteke deskripzioa, eta bere **sinpletasunean** gorde dezake potentzia handiagoa izenonoz beteriko pasarte batek baino. Ana Urkiza

Nire gustuaren **sinpletasuna** dela-eta. Anjel Lertxundi

Aski ahul eta zapaldua nintzen, hots hamabi urteko haurra, denak sinesteko, absolutu baten **sinpletasunari** lotzen den bezala, osotasunez. Piarres Aintziart

Xalotasun edo **sinpletasun** santua [...] arreta bereziz bilatzen zuen beretzat eta maite zuen besteengan Frantzisko santuak. Askoren artean

Haren obra inolako tolesik gabe idatzita dagoenez, eta jatorri zuen antzinako nobleen **sinpletasunaz**, zabaltasunaz eta xalotasunaz mintzatzen denez, [...]. Iñaki Iñurrieta

Hildakoen belarri zoliaz, seriooki aditu dute nire bidaldi handiaren meditazio isila, baserriko **sinplet[aj]sunean** jαιο eta hazitako mutiko hartatik, orain naizen honetaraino: gizon konplexu bat, arazoz eta angustiaz zamaturia. Xabier Mendiguren Elizegi

4 (hitz elkartuetan)

Bere burugogortasun, euskortasun, ideia-**sinpletasun** eta ausardia berezkoari esker. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere sinpletasunean (7)

sinpletu, simple(tu), sinpletzen da/du *ad* simple bihurtu. ik **sinplifikatu**.

Obra batek prezio ertaina badu, bai erosleari eta bai egileari komeni zaiena, hura egitea **sinpletuko** luketen makinak, hau da, langile-kopurua gutxituko luketenak, kaltegarriak lirateke. Iñaki Iñurrieta

Modua errazteagatik edukia **sinpletzeak** ez luke barkamenik izan behar zientziaren munduan. Lourdes Oñederra

1905eko urte miresgarritik, fisika teorikoaren sistema ahal bezainbeste **sinpletu** eta bateratzen saiatu zen etengabe. Berria - Harian

Xede nagusia Federazioaren eta lander-en legeria eta haien arteko finantza arloko harreman korapilatsuak **sinpletzea** da. Berria - Mundua

Beren edukia izugarri **sinpletu** eta desitxuratuko dira, horrek ekarriko duen kalitate galerarekin. Berria - Harian

Keynesen ideiak **sinpletu** egin zituzten. Iñaki Heras

Batetik /rd/ multzoa **sinpletu** da /rd/ -> [r]. Lourdes Oñederra

sinplezale *izond* gauza sinpleen zalea dena. ik **sinplista**.

Halere, ikuspegi **sinplezale** hori laguntza handikoa gerta dakiguke egiara hurbiltzeko, zeren erakusten baitigu banako linguistikoa gauza bikoa dela, bi terminoen loturaz egina dena. **Isabel Arrigain**

sinplezia 1 *iz* sinpletasuna; sinplekeria.

Gizonek, eta baita emakumeek ere, gauzen aniztasuna aintzat hartu gabe, berarekin **sinpleziaren** lasaitasuna erabili izan zuten. **Anton Garikano**

Egunetik egunera ohartzuz joan zela andregai haren **sinplezia**, neskatoaren inozotasuna, bere hutsalergia, gauza baitzen telefonoan segi eta segi egoteko ezertxo ere kontatzeko ez eduki arren. **Joxemari Iturralde**

Belarriak tapatzeko egon nintzen, auskalo zer **sinplezia** asmatu behar zuen Soterok. **Koldo Izagirre**

2 (hitz elkartuetan)

Elkarren aurka biribildu ziren, trikuaren modura, fusilak soilik erakutsirik geratu ziren, haizeari aurre egiteko, elurrari aurre egiteko, uste baitzuten, beren soldadu **sinplezian**, elurra eta hotza, eta ez errusiarrak, izan zituztela garaile. **Felipe Juaristi**

sinplifikaezin *izond* ezin sinplifikatuzkoa.

-Har dezagun forma hori duen zatikirik txikiena, zatiki **sinplifikaezina**. **Jon Muñoz**

sinplifikatu, sinplifika, sinplifikatzen 1 du *ad* sinpleago bihurtu. ik **sinpletu**.

Elurrak **sinplifikatu** egiten du paisaia: bideak, koloreak, etxeak ezabatu egiten dira, hortik bien arteko harremana. **Bernardo Atxaga**

Berariaz **sinplifikatu** dugu, jakina, begiak argi-fluxuen aurrean duen funtzionamenduaren aurkezpen hau. **Josu Zabaleta**

Lehen belaunaldia dena aldi berean hil balitz, eta bigarrena ere bai, topaketen bilbea espazio-dimentsioan **sinplifikatua** geratuko litzateke. **Iñaki Mendiguren**

2 matematikan, zatiki, ekuazio edo kideko bat era sinpleenera ekarri.

Entzun, Ruche jauna: zatikiak batu, izendatzaile berera eraman, **sinplifikatu**. **Jon Muñoz**

Sinplifikatu ondoren, emaitza hau lortu zuen Ruche jaunak: [...]. **Jon Muñoz**

3 (era burutua izenondo gisa)

Beltz hura ez nuen ikusten: ikusmena asmazio abstraktua da, ideia garbitua, **sinplifikatua**, gizaki ideia bat. informazio jakin bat beste hitz batzuekin jakinaraz daiteke, sintaxi **sinplifikatu** batekin edo adostutako kode baten bidez. **Monika Etxebarria**

Diskoen gibebeko azaletan agertzen ziren dantzaren urratsen eskema **sinplifikatuak** segitzen zituzten, lerroz lerro. **Ramuntxo Etxeberri**

Oso irudi **sinplifikatua** da hori, ez baita batere ohikoa axoi bakar batetik datorren seinaleak aktibatzea neurona. **Irene Aldasoro**

Ez gara gauza interrelazio konplexu hauek azaltzeko eredurik, ezta **sinplifikaturik** ere, emateko. **Josu Zabaleta**

sinplifikatzaile *izond* sinplifikatzen duena.

Burubide horiek, ikuspegi berezi hori, pragmatismo baliagarri bat izaten dira, **sinplifikatzailea**, sintetizatzailea. **Josu Zabaleta**

Burke eta Hare jaunen lankidetzan, ez da inolako dudarik ahalmen asmakoi eta **sinplifikatzailea** Burke jaunari zor zitzaiola. **Juan Garzia**

Zientifismo **sinplifikatzailea** ez dator erlijioaren aurka, eta ez dakarkio inolako mehatxurik teologiari. **Patziku Perurena**

sinplifikazio *iz* sinplifikatzea.

Ereduak ez dira ekonomia errealtatearen **sinplifikazioak** baizik. **Iñaki Heras**

Hizkuntza bat ikasten ari zarenean faltan bilatzen duzu **sinplifikazio** gehiago, logika piska bat. **Harkaitz Cano**

Errua pilotariari leporatzea ez zait zuzena iruditzen, **sinplifikazioa** besterik ez da. **Berría - Kirola**

Halako **sinplifikazio** eskematikoa dela medio, irudituko zaigu errealtatea desitxuratzen dela; baina lehenbizi bere hartan aztertu behar da gertaera naturala. **Isabel Arrigain**

Askotan uste izaten da bihotzak ponpatzen duela odola gorputz osora, baina engainuzko **sinplifikazio** bat da hori. **Irene Aldasoro**

"Ismao, ista" atzizkiak ez zaizkit sobera laket, maiz kulturarik ezaren marka diruditelakotz, **sinplifikazio** esnobak. **Piarrés Aintziart**

Afrikako zenbait iruditan aurki daitezkeen erabateko **sinplifikazio** grafikoak. **Josu Zabaleta**

Orobat, ikuspen, amets, uste gabeko lotura, **sinplifikazio** sarritan haur batenaren modukoak, zunda-botatze aliritzikoak, ezker-eskuin, guztiz jakin gabe nora daraman bideak. egitura juridikoaren **sinplifikazioa**, Europako Batasunari «izaera juridikoa» onartzea, Oinarritzko Eskubideen Agiria jasotzea, edo «gizarte politika hobea» ahalbidetzea. **Juan Garzia**

sinplismo *iz* sinplekeria.

Sinplismoaren eredutzat A. Fouillée aipatzen du. **Joxe Azurmendi**

Arrakasta horren aurreneko zioa -dio- bere **sinplismo** sasientifikoa da, bere **sinplismoogatixe** jende asko ustebetetzen duena. **Joxe Azurmendi**

Listoegia ez dago izaterik presidente izateko, eta listoegia denak disimulatu egin beharko du, joko **sinplismoaren** eta ergelkeriaren joko-zelai lokatzuan jokatu baita ia beti. **Berría - Mundua**

sinplista *izond* sinplekerian erortzen dena.

Betiko topiko ergelenak berriro alegia, filosofia arroxa batean orain, betiko eskema dikotomiko **sinplistik**. **Joxe Azurmendi**

Erran behar da atentaduen salbaikeriak ekartzen dituela menturaz arrazoi **sinplista** hortara. **Herría**

Obsesio **sinplista** horren ondorioz benetako irudia ez dute antzematen. **Berría - Mundua**

Badira, halere, **sinplistegia** eta aldebakarreko dirudien ikuspegi hori baino askoz ere ekarpen kritiko interesgarriagoak eztabaida horren gainean. **Iñaki Heras**

Guztiz **sinplista** eta nahiko txotxoloa zen nire anarkismoa, baina ezaugarri biak ere ulertzekoak dira: txotxolotasuna, ezinbestean neurri batean, eta **sinplista**, hezkuntza zapaltzaile baten pean hazitakoak erantzun erraz eta sinpleak behar zituelako. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zintzotasun dosi txiki batez aztertzen badugu ausia, alde batera utzi beharko dugu hain ezaguna, gogo-asegarria eta **sinplista** den diskurtso hori. **Iñaki Heras**

Tamalez, sarritan planteamenduaren defentsa oso da **sinplista**, ebidentzia aritmetiko soil gisa azaltzen baita, bere indarra nonbait aritmetika horretan oinarritu nahirik bezala berriz ere. **Iñaki Heras**

sinplizitate

iz sinpletasuna, bakuntasuna.

Jainkoa gizakiari lotzen zaio bere **sinplizitatean**, bete-betean. Joan Mari Lekuona

Sentiberatasunak arrazioan antzaldaterik baleuka, eta hauek biok izpirituari, kolore beltza kolore hori bilakatuko litzateke, eta gero zuri guztia **sinplizitate** hutsean. Joan Mari Lekuona

Jainkoagan pertsoneri dagokie hain zuzen ekintza, eta poza berriz ezartzen zaio esentziari **sinplizitatean**. Joan Mari Lekuona

sinposio

(*orobat **simposium** g.er., eta **sinposium** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **sinposio** agertzen da*) **1** iz jakintza alor bateko adituek gai jakin bati buruz jarduteko egiten duten batzarra, maiz nazioartekoa.

Atzo, bestalde, 1998an egindako Inkisizioari buruzko nazioarteko **sinposioan** idatzitako aktak aurkeztu zituzten. Berria - Gaiak

'Hizkuntz eskubideak hezkuntzan' **sinposioa** antolatu du Behatokiak. Berria - Euskal Herria

Fisikari katalanak mekanika kuantikoaren paradoxen inguruko ikerketa egin du, eta ondorioak Euskal Herriko Unibertsitatean jarduera zientifikoaren inguruko **sinposioan** azaldu ditu. Berria - Gaiak

Gaur, bihar eta etzi Europako Batasuneko kultura-politikaren gainean **sinposio** bat egingo da Bartzelonan. Berria - Kultura

Errauste plantek sor dituzketen arazoaren inguruan eztabaidatzeko medikuen **sinposioa** egiten ari dira Donostian. Berria - Euskal Herria

Azurmendik nabarmendu du **Sinposioa** izan dela Pizkundean eta XVIII. mendera arte Platonen testuetan eraginkorra. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan)

Joan nintzen esate baterako Salamancako Unibertsitateak antolatutako idazle **sinposio** batera, eta nire txanda heldu zenean adierazi nuen: [...]. Bernardo Atxaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

platonen sinposioa (3); **sinposioa antolatu** (3)

sinposioan parte hartu (3)

sinposium ik sinposio.

sintagma 1

iz perpausaren barnean bakartu daitekeen elkarren ondoko elementu saila, bereziki perpausaren antolaketaaren banakoetako bat osatzen duena.

Sintagma, beraz, hurrenez hurreneko unitate bi edo gehiagoz dago osatua beti. Isabel Arrigain

Hitzaren, esaldiaren edo testuaren osagaiak (letrak, fonemak, silabak, hitzak, **sintagmak**, perpausak, isiluneak...) modu konkretu batean antolatzen dira hizketako edo idazketako egintza bakoitzean. Iñaki Arranz

Besteak beste, paradigma eta **sintagma** ez dira bikote modura aurkezten, ez baitzait etiketak kokatzea interesatzen, kontzeptuak berez ulertzea baizik. Lourdes Oñederra

Hau da aglutinazioa: bi termino edo gehiago, berez desberdinak direnak baina eskuarki perpausaren **sintagman** agertu ohi direnak, erabatekoa -edo analizatzeko zaila- den unitate batean lotzea. Isabel Arrigain

Enuntziatuak **sintagma** bat edo sinbolo sail bat esaldi bihurtzen du, eta berari zentzua izendatu ahal izango zaio, edo proposizio bihurtzen du, egia-balioa jaso ahal izango duena. Xabier Arregi

Kontrako norabideko bilakabideak bilatzeko, dena dela, ez dago paradigma-**sintagma** alderatzeetara joan beharrik. Lourdes Oñederra

la alferrikakoa da ohartaraztea **sintagmen** estudioa ez dela sintaxiarekin nahasten: sintasia [...] estudio horren zati bat baizik ez da. Isabel Arrigain

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aglutinazioa **sintagma** mailan bakarrik gauzatzen da; haren eragina multzo jakin baten gainean gertatzen da; ez du besterik kontuan hartzen. Isabel Arrigain

Sintagma mailako lotura *in praesentia* da; sail batean batera dauden bi termino edo gehiago ditu oinarri. forma erregularren gainean osaturiko **sintagma** mota guztiak hizkuntzan sartu behar dira, ez hizketan. Isabel Arrigain

Perpaua da **sintagma** tipo beteena. Isabel Arrigain

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Deskribapen zehaztuak "Frantziako erregea" edota "Gipuzkoako hiriburua" gisako izen **sintagmak** dira. Askoren artean

Beraz, *to* eta *ing* morfemek antzeko jokabidea daukate izen sintagman, aditz **sintagmak** izen **sintagma** bihurtzen baitituzte. Itziar Laka

Bereziki, pasiboak muintetik kanporatzen baditugu ere, esan nahi dugu by-osagaia preposizio **sintagma** dela perpaus pasiboan. Itziar Laka

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

izen sintagma (14); **izen sintagma bihurtzen** (3); **sintagma bihurtzen** (3); **sintagma mailako** (7); **sintagma mailan** (3); **sintagma mota** (5)

izen sintagmak (5)

aditz sintagmaren (5)

erlazio sintagmatikoak (3)

izen sintagmen (4)

sintagmatika

iz sintagmen azterketa.

Sintaxia, edota, ohikoagoa den definizioa erabiliz, hitzen multzokatzearen teoria, **sintagmatikan** sartzen da, zeren multzokatze horiek, berez, gutxienez bi banako espazioan banatuak izatea baitakarte. Isabel Arrigain

Sintagmatikari dagozkion gertaera guztiak ezin sailka daitezke sintaxiaren barnean, baina sintaxi gertaera guztiak **sintagmatikaren** barnean daude. Isabel Arrigain

sintagmatiko 1

izond sintagmarena, sintagmari dagokiona.

Jar gaitezen orain ikuspuntu **sintagmatikoan**. Isabel Arrigain

Maila **sintagmatikoan** (hotsak hizketan bata bestearen atzetik kateatzen direnean) hitz-azkenean eta, oro har, trabari bilkuretan ahoskabetzea da nagusi euskaraz. Lourdes Oñederra

Haatik, bilakabide **sintagmatiko** bati esker, kontsonante ozenen aurreko txistukariak ahostundu egiten dira. Lourdes Oñederra

Ingelesak, *gooseberry wine* "andere mahatsezko ardoa", *gold watch* "urrezko erlojua" eta abarreko mota **sintagmatikoan**, hitz ordenaz bakarrik baliaturik adierazten ditu erlazio batzuk, frantses modernoak preposizioen bidez adierazten dituenak. Isabel Arrigain

Hizkuntzaren mekanismoa honetan dago finkatua: adierazleen eta adierazien batzean, eta hizkuntzaren linealtasunean oinarriturik sortzen diren ikurren arteko erlazio **sintagmatikoetan**. Isabel Arrigain

Diskurtsoan erlazio **sintagmatikoak** sortzen baitira hitzen artean. Isabel Arrigain

2 irud/hed

Joskera edo sintaxiari dagokion aldetik, esan nezake nereak omen diren bizi-puska **sintagmatikoak** elkarri josiko lizkioketen orratz eta bizi-hari paradigmatorik ez dudala uste kausi litekeenik. **Iñaki Seguro**

sintagmatikoki *adlag* era sintagmatikoan.

Dix-neuf solidarioa da *dix-huit*, *soixante-dix* eta abarrekin elkartze mailan; eta **sintagmatikoki** *dix* eta *neuf* haren elementuekin. **Isabel Arrigain**

sintaksi ik **sintaxi**.

sintaktiko 1 *izond* sintaxiarena, sintaxiari dagokiona. ik **sintaxi 2**.

Askatasun **sintaktikoaren** gupril zoroan gero eta barrenduago. **Iñaki Iñurrieta**

Maiztasun-ereduek ez dutela argirik egiten egitura **sintaktikoaren** oinarriko arazo batzuetan. **Itziar Laka**

Ordna **sintaktiko** naturala edo alderantzikatuaren adigai, osagarriaren adigai (Beauzée sartutakoa XVIII. mendean zehar) integratu daitezke oraindik Port-Royaleko gramatikaren sistema kontzeptualean, ez dago zalantzarik honetaz. **Xabier Arregi**

Perpaua ingelesaren gramatikako lege **sintaktikoen** arabera eratuta dagoela. **Itziar Laka**

Hizketa entzutean, goitik beherako (top down) prozesatzea abiatzen da: entzuleak bere ezagutza **sintaktikoa**, morfologikoa, lexikoa abian jartzen ditu seinalea deskodetzeko. **Lourdes Oñederra**

Aldaketa **sintaktiko** eta morfologikoei dagokienez, arazoa ez dago hain garbi lehen begiratuan. **Isabel Arrigain**

Hitzen arteko lotura **sintaktikoetara** jo gabe, hitzen morfologia ere izan daiteke lardaskatze prozesu honen kaltetua. **Iñaki Arranz**

Ezeztapenak eta beste aldagai **sintaktiko** batzuek perpausari gehitzen dizkioten konplexutasunak alde batera utzita. **Itziar Laka**

Uste dut antzeko zerbait egia dela hizkuntzaren ikerkuntza **sintaktikoen** eta estatistikoen arteko harremanari dagokionez. **Itziar Laka**

Hitzezko jardute-multzok, elkarren artean uztartzen ez direnak esaldien mailan lotura gramatikalen bidez **sintaktikoak** edo semantikoak). **Xabier Arregi**

2 (logikan)

Logika bat proposatzen denean, logika horrek dituen propietate **sintaktiko** eta semantikoak aztertzea da logikarien zeregin nagusietariko bat. **Askoren artean**

3 irud/hed

Harreman **sintaktikoak** dira gehienbat hegemoniarenak. **Joseba Zulaika**

Alabaina, ideiak, irudiak, herdoildu egiten dira, gauza fisikoak balira bezala, ez dute luzaro irauten esamolde boteretsuen bizkarrean ondo eta tenkor itsastan ez badira, euren bete-betean dagozkien gorpuzkera **sintaktikoetara** egokitzen ez badira. **Pako Aristi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

askatasun **sintaktiko** (3)

egitura **sintaktikoak** (3)

sintaktikoki *adlag* sintaxiaren aldetik.

Logika bat garatu nahi badugu **sintaktikoki**, behin hizkuntza formalaren formulak zehaztuta sistema formal bat behar dugu, inferentziak egin ahal izateko. **Askoren artean**

Hau da, logika bat osoa izango da (sistema batentzat) semantikoki ondorioztatzen dena **sintaktikoki** ere ondorioztatzea posible denean. **Askoren artean**

Errima-hitza puntuari **sintaktikoki** josi beharrean, errima-hitza besterik gabe eranstea da potoo ez egitearren sarri egiten den hankasartze gure ustez larriago horietako bat.

J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

sintasi ik **sintaxi**.

sintaxi (*orobat **sintaksi** g.er. eta **sintasi** g.er.*) 1 *iz* hitzen hurrenkera eta perpausen eraketa gauzatzen duten arauen azterketa; arau horien multzoa. ik **joskera 3**.

Sintaxia hizkuntzetako perpausak eraikitzeo hatsarre eta prozesuen azterketa da. **Itziar Laka**

Esan ohi da **sintaxiaren** helburua hizkuntza unitateen berezko funtzioak direla, eta morfologiaren helburua, berriz, hizkuntza unitateen formak soil-soilik. **Isabel Arrigain**

Morfologia, **sintaxi** eta lexikologiaren intrepretapena uler daiteke, sinkronia gertaera guztiak, funtsean, berdinak direlako izaeraz. **Isabel Arrigain**

Ingelesaren **sintaxiaren** deskribapena errazteko. **Itziar Laka**

Hizkuntzen oinarriko aurkezpen fonologikoak segmentalak dira funtsean eta ez prosodikoak, salbu azentuaren kokalekua [...] edo **sintaxiak** kudeatzen duen esaldi-doinua.

Lourdes Oñederra

Ulermenaren oihal garbian makularik utziko ez duen **sintaxi** garbi baten bila. **Pako Aristi**

Informazio jakin bat beste hitz batzuekin jakinaraz daiteke, **sintaxi** sinplifikatu batekin edo adostutako kode baten bidez. **Xabier Arregi**

Hizkuntza giza bizitzaren adierazle da, haien ustez, eta herri zein arraza bakoitzaren espiritua -espiritu berezia, *Volkgeist* izendatzen dena- bere hizkuntzaren **sintaxi** eta fonetika halaber berezian islatzen da. **Bernardo Atxaga**

Ezinezkoa litzateke **sintaxiko** kasu bati buruz arazoitzea, termino jakin batzuen gainean egingo ez balitz arazoibide hori. **Isabel Arrigain**

Musika hori **sintaxiaren** barru-barruko joskeran dago, eta, doinu horretaz jabetzeko, ezinbestekoa da klasikoak irakurtzea. **Ana Urkiza**

Tesia, antitesia eta **sintaxia**. **Joseba Sarrionandia**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **sintaktiko**.

Hizkuntzaren **sintaxi** egitura erabaki ondoren, hizkuntzaren benetako ibilian **sintaxi** egitura hau nola erabiltzen den iker genezake. **Itziar Laka**

Ezin da onartu **sintaxi** teoriari fonologia eta morfologiako arazoak noiz konpondu zain egon behar duenik. unitate simple eta bakungaitzak ez diren hitzak ez dira funtsean bereizten esaldi ataletatik, hau da, **sintaxi** gertaeretatik. **Isabel Arrigain**

Ulergarritasunaren muga gaindituta, morfologia eta **sintaxi** arauak haustera iristen dira horrelako ariketak. **Iñaki Arranz**

Hitz, **sintaxi** eta metafora sistema. **Patziku Perurena**

Hizkuntza batean eskuragarri dauden **sintaxi** eragiketak nola erabiltzen dira hizkuntza horren benetako erabileran? **Itziar Laka**

Joskerari dagokionez, nabarmena gertatuko zaio inoizka hegoaldeko irakurleari aditzaren **sintaxi**-jokoa. **Juan Garzia**

Sintaxi mailako hizkuntz deskribapena osagai-analisiaren (parsing) bitartez formulatu ohi da. **Itziar Laka**

Esango dugu **sintaxi** mota honek zerbaiten argitzen digula pentsaera semitikoak? **Isabel Arrigain**

Hizkuntza jakin bati buruzko **sintaxi** ikerkuntzak aztergai den hizkuntzako perpausak sortzeko lanabestzat har daitekeen gramatika bat egitea du helburu. **Itziar Laka**

3 irud/hed

Joskera edo **sintaxiari** dagokion aldetik, esan nezake nereak omen diren bizi-puska sintagmatikoak elkarri josiko lizkioketen orratz eta bizi-hari paradigmatorik ez dudala uste kausi litekeenik. **Iñaki Seguro**

Irudien **sintaxia**, berariazkoa eta berria, airean esekitako pixontzi handi baten antzekoa da. **Anjel Lertxundi**

Koldo Izagirrerren hizkeraren berezitasunetako bat gizakiak dagoenari mintzatze hutsaz eragiten dion indarkeriari uko egitean datza, giza **sintaxiaren** alderik bortxatzaileenei muzin egitean. **Markos Zapiain**

4 (logikan)

Sintaxiaren arloan gaudenean, formulek ez dute esanahirik, sinboloen segidak dira soilik. **Askoren artean**

Defini ditzagun orain logika horren **sintaxiaren** oinarriak. **Askoren artean**

Beraz, **sintaxiaren** arloan azterten diren kontzeptuak honako hauek dira: axioma, teorema, ondoriotasun sintaktikoa, froga formal, konsistentzia, etab. **Askoren artean**

Orain arte egin duguna QL logikaren **sintaxia** definitzen hasia izan da. **Askoren artean**

Orduan hizkuntzaren analisia zientzia matematikoetan barneratu zen, batez ere proposizioen **sintaxiaren** eremuan. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sintaxi egitura (4)

lexikoa eta sintaxia (3)

sintaxiaren eta semantikaren (4)

sintaxigintza iz

Ikusmolde hau onartzen bada, arrazoi gutxi gelditzen da eragozpen bezala mailak nahasten direla salatzen [...]. Edo fonemika eta morfologiako arazo guztiak konpontzen diren artean **sintaxigintzarako** goizegi dela uste izateko. **Itziar Laka**

sintesi (orobat *sintesia g.er.*) 1 iz bakunetik konposatura, osagaitik osotasunera diharduen ariketa; adigai bati buruzko ezagutza osagaiak osotasun batera biltzen dituen buru ariketa. ik **analisi**.

Al Kashik, Samarkandako behatokiaren zuzendariak, aurreko zazpi mendeetako arabiar matematikaren **sintesia** egin zuen. **Jon Muñoz**

Francastelentzat, irudikapen-espazioa geometriaren eta gizarte baten mitoen arteko **sintesi** bat da. **Josu Zabaleta**

Bestek esanaren **sintesi** bat saiatzea ere eginbide zaila da. **Juan Garzia**

Esan daiteke gizakiaren psikologia animalaren psikologiaren **sintesi** bat baizik ez dela. akordioa bilatzeko, proposamen guztien **sintesi** bat egiteko. **Josu Zabaleta**

Eztabaidatu ditugunak bezalako gramatikak guztiz neutralak dira hiztunari eta entzuleari dagokienez, esaldien **sintesiaren** eta analisiaren artean. **Itziar Laka**

Vitruvioren tratatuak **sintesi** guztiz pertsonala egiten du afan kulturalista orokorren eta diskurtso tekniko eta espezifikoki profesionalak bilduz. **Santiago Iruretagoiena**

Batasun sinteitiko honek, ordea, **sintesi** bat auresuposatzen du, edo jasotzen du, eta batasun hark a priori beharrezkoa izan behar badu, orduan honek ere apriorizko **sintesia** izan behar du. **Ibon Uribarri**

Beraietan oinarritzen da, beraz, irudimenaren **sintetiko** batasun formal oro, eta honen bitartez, baita bere erabilera enpiriko oro ere. **Ibon Uribarri**

Halere, errepresentazioen bateratze orok kontzientziaren batasuna eskatzen du bere **sintesian**. **Ibon Uribarri**

Agerian dago Locke eta Descartes **sintesi** batean lotzeko asmoa. **Askoren artean**

Irudimenak kategorien arabera egiten duen begiespenen **sintesiak** irudimenaren **sintesi** transzendentala izan behar du. **Ibon Uribarri**

Nabari du tesiaren, antitesiaren eta **sintesiaren** nostalgia. **Markos Zapiain**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **sintetiko**.

Segur nintzen orduan gure tribukoa zela eta **sintesi**-marrakziak pantailan lasterregi lerritzen zirelako ez nuen haren soaren ebastea lortu. **Itxaro Borda**

Komunikazioaren subjektu-hartzaile berria lortzeko, guztiz beharrezkoa da **sintesi**-ahalmena edukitzea. **Txema Ramirez de la Piscina**

Filmean, bere egituraz baitu perspektiba, espazioaren irudikapena **sintesi**-prozesu bat da. **Sintesi** lana eginez, hona hemen antolaketa berriek betetzen dituzten zenbait ezaugarri: [...]. **Josu Zabaleta**

Agerraraz diskurtso batean lanean jarri ahal izan diren egitura formalak, kategoriak, kateatze logikoaren moduak, arrazoitze eta indukzio-motak, azterketa eta **sintesi** erak. **Xabier Arregi**

Esan beharra dago, hain zuzen ere, gutxienekoaren printzipio horrek berebiziko eragina duela, bistan denez, **sintesi** bidezko irudietan. **Josu Zabaleta**

Ekonomiaren globalizazioaren gainean **sintesi** liburu polita dela deritzot Jacques Adda-ren *La mondialisation de l'économie*. **Iñaki Heras**

Laguna ez da ordea **sintesi** itxurako esaldietan sinesten duen horietariko. **Iñigo Aranbarri**

Batera-ko biltzar nagusian aztertuko duten **sintesi** moziok ondoko urteetako ekimenak aipatzen ditu. **Berria - Euskal Herria**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horagoko mailako memorizazio hori alderdi anitzeko prozesua da, eta pertzepzioak edo oharren **sintesiak** epe laburreko oroimenetik epe luzeora bultzatzea eskatzen du. **Xabier Olarra**

4 konposatu kimiko bat bere osagaietatik abiatu lortzeko prozesua.

Proteinen **sintesiaren** mekanismoa aztertzea. **Juan Garzia**

Proteinen **sintesiak**, berriz, are makromolekula gehiago eskatzen ditu, eta mota gehiagotarikoa. **Juan Garzia**

ADHren **sintesia** mantsotzen du, eta, horren ondorioz, gernu ekoizpena handitzen. **Irene Aldasoro**

Bere lanak erakutsi zion Oudin-i geneak zuzenean inplikaturik zeudela antigorputzen **sintesian**. **Juan Garzia**

Iker-txosten hura zeinean Wöhler gure aitak lehen **sintesi** organikoaren berri ematen baitu. **Juan Garzia**

Kontua da indarrean dagoen nekazaritzak, **sintesi** kimikoan oinarrituta, lurak zeharo kaltetu dituela. familia garrantzitsua osatzen dute bakterioek eragindako **sintesietan** lortutako polimeroek, ad. polihidroxialkanoatoek (ezagunena, PHBa behar bada). **Berria - Euskal Herria**

Estatinek kolesterolia sintetizatzea eragozten dute; baina, aldi berean, prozesu horretan bitarteko lana betetzen duten beste batzuen **sintesia** ere eragozten dute: isoprenoidea. **Berria - Gaiak**

Egun halako gutxi dago jada, haxixa eta **sintetiko** drogak nagusitu direlako. **Berria - Gaiak**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **sintetiko** 2.

Munduko Medikuen elkarteak **sintesi** drogen inguruan prebentzioa egiten ari dira Gipuzkoako dantzaleku handietan. **Berria - Euskal Herria**

Azken boladan, gainera, ugaritu egin da kokaina eta psikosuspergarrien kontsumoa, ketamina eta **sintesi** drogekin nahastuta. **Berria - Euskal Herria**

Imajina ezazu istant batez, bezperan bilkuran izanik, biharamunean lanera joatean, **sintesi**-molekula soilen botereaz kolegek irri zabala dutela ezpainetan. **Itxaro Borda**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jacques Monod-ekin gero, kolibaziloaren baitako proteina-**sintesi** induzigarria aztertzea. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agerpenen sintesi (3); **anizkuniaren sintesi** (4); **atzematearen sintesi** (6); **irudimenaren sintesi** (11)

sintesi enpiriko (4); **sintesi enpirikoa** (3); **sintesi enpirikoaren** (8); **sintesi enpirikoari** (3); **sintesi hutsa** (4); **sintesi itzulkorraren** (3); **sintesi lan** (5); **sintesi lan interesgarria** (3); **sintesi lana** (3); **sintesi modernoak** (3); **sintesi soila** (4); **sintesi transzendentala** (3)

anizkunkiaren sintesia (8); baldintzen sintesia (4); elementuen sintesia (3); gutziaren sintesia (3)
sintesia barnebiltzen (5); sintesia egin (6); sintesia egingo (3)
agerpenen sintesian (6); anizkunkiaren sintesian (3)
adimenaren sintesiaren (3); anizkunkiaren sintesiaren (8); anizkunkiaren sintesiaren batasuna (3); hurrenez hurrengo sintesiaren (5)
sintesiaren ahalgarritasuna (3); sintesiaren batasuna (6); sintesiaren bitartez (8); sintesiaren ekintza (3); sintesiaren erregela (3); sintesiaren funtzio (3); sintesiaren osotasun (3); sintesiaren totalitate (3)

sintetiko 1 *izond* sintesiarena, sintesiari dagokiona. ik **sintesi 2**.

Liburu **sintetiko** eta sakona, baita gardena ere. bi ikuspegi nagusiren arten kokatu dira eztabaidak, ikuspegi horiek denboran zehar izan dituzten aldaera guztiekin: ikuspegi analitiko bat, eta ikuspegi **sintetiko** bat. **Askoren artean**

Judizio analitikoaren eta **sintetikoaren** arteko bereizketaz. **Ibon Uribarri**

Denbora **sintetiko** hori (argazkiak horren aise, horren "naturalki" sortu ezin duena) da, inondik ere, zinema narratibotasunera, fikziora, gehien bultzatu duen ezaugarrietako bat. **Josu Zabaleta**

Judizio matematikoak **sintetikoak** dira osotara. **Ibon Uribarri**

Ideia haien errepresentazio sistematiko batean aipatutako ordena **sintetikoak** litzateke egokiena. **Ibon Uribarri**

Zure pentsamoldea, intuitiboa baino gehiago **sintetikoak** bada -hau da, zailtasunak badituzu gaiaren ñabarduretan sartzeko, edo, ongi laburbildu arren, zail egiten bazaizu kontzeptuen arteko erlazioak bilatzea-, ideiak sintetizatzea komeni zaizu. **Askoren artean**

2 (kimikan) ik **sintesi 5**.

Konposatu **sintetiko** min bat da fenilo ziape-olioa, ziape-hazietatik ateratzen den gai batekin kimikoki erlazionatua. **Irene Aldasoro**

Kurarearen kideko substantzia **sintetikoak** erabiltzen dira kirurgian (dosi txikitik) muskuluak erlaxatzeko. **Irene Aldasoro**

ADNa, ADN molekula **sintetikoak** eta berez sortzen den entzima mota bat dira haren osagaiak. **Berria - Gaiak**

Medikuen kontrolpean hartutako droga **sintetikoak** esker. **Jon Alonso**

Lipido, protido eta gluzido **sintetikoak** osatu janariak. **Itxaro Borda**

Landareak izurrietatik eta biktimak intsektuen erasoetatik arma egokiez hornitu baititu naturak, antibiotiko **sintetikoak** (hauen erabilera masibora) jo beharrik izan gabe. **Edorta Agirre**

Txerto **sintetikoak**, Patarroyoren eskutik. **Pello Salaburu**

Nabilonak, TCHaren eratorri **sintetikoak**, kimioterapiak eragindako gorakoa gutxitzen du. **Berria - Harian**

Hemoglobina **sintetikoak** (gorputzak bere kabuz sortzen ez duen hemoglobina). **Berria - Kirola**

Aluminioz eta zuntz **sintetikoak** egindako lera. **Joxemari Urteaga**

Erretxina **sintetikoak** bat zen bakelita jatorriz, nahiko erabilgarria kola edo isolagarri gisa. **Irene Aldasoro**

Giltzurrun artifiziala handia eta baldarra da, material **sintetikoak** ezin baitute berdin organo naturalaren errendimendua. **Irene Aldasoro**

Beste langile batek apar **sintetikoak** kubotxoek beteko du hartza. **Iban Zaldia**

3 sintetizadorearen bidez lortua.

RERa sei minuturen buruan etorriko zela zioen geltokiko eme-ahots **sintetikoak**. **Itxaro Borda**

Edmeak hilabetearen bitan entzuten zituen marmara **sintetikoak** ziren; alabaina ahots **sintetikoak** hegaldaten zirela, bere baitako kanta doloretuaren errepika ematen zuten. **Itxaro Borda**

Europar 20ko hamarkadan, horrelako musika **sintetikoak** sortzen jardun zirenak, 60ko hamarkadan lehen sintetizadoreak merkaturatu baino lehen. **Berria - Kultura**

Ordenagailu baten bidez erritmo **sintetikoak** sortzen dituzte zenbait kantutan. **Berria - Kultura**

4 euskal aditzen mintzatuz, perifrastikoa ez dena.

Behin, etxerako lana agindu die irakasle sonatuak ikasleei: aditz **sintetikoak** erabiliz esaldiak osatu behar dituzte ikasleek: *daramazu, dario, dakartzate, genekien...*

Joxerra Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

anizkunkiaren batasun sintetiko (3); apriorizko esakune sintetiko (3); batasun sintetiko (21); esakune sintetiko (19); ezagutza sintetiko (4); judizio sintetiko (10); oinarri esakune sintetiko (7)

anizkunkiaren batasun sintetiko (3); apertzepzioaren batasun sintetiko (3); batasun sintetiko (19); biologia sintetiko (4); esakune sintetiko (9); ezagutza sintetiko (5)

apriorizko esakune sintetiko (5); apriorizko judizio sintetiko (5); esakune sintetiko (17); ezagutza sintetiko (4); judizio sintetiko (5); larru sintetiko (5); material sintetiko (4); sintetikoak barnebiltzen (4)

batasun sintetiko (4)

anizkunkiaren batasun sintetikoaren (5); apar sintetikoaren (4); apriorizko ezagutza sintetikoaren (3); batasun sintetikoaren (20); biologia sintetikoaren (4); ezagutza sintetikoaren (3); jatorrizko batasun sintetikoaren (3)

analitikoaren eta sintetikoaren (3); apriorizko esakune sintetikoaren (3); apriorizko judizio sintetikoaren (3); esakune sintetikoaren (5); ezagutza sintetikoaren (3); judizio sintetikoaren (5)

judizio sintetikoetan (3)

batasun sintetikorik (3); esakune sintetikorik (4)

sintetikoki 1 *adlag* era sintetikoan.

Geometria espazioaren berekitasunak **sintetikoki** eta, hala ere, a priori determinatzen dituen zientzia da. **Ibon Uribarri**

Adigai jakin bat beste batekin **sintetikoki** alderatzearen bertatik irten behar dela onartuz gero, orduan hirugarren bat behar da, bertan bi adigaien sintesia gerta dadin. **Ibon Uribarri**

A priori **sintetikoki** pentsatua zegoena a posteriori analitiko itzultzen digute. **Ibon Uribarri**

Horrela, berari jarraiki egun batean arrazoimen hutsaren Filosofiaren sistema osoki aurkeztu ahal izango da analitiko nahiz **sintetikoki**, bere ezagutzen hedapenaz nahiz mugapen soilaz osatzen bada ere. **Ibon Uribarri**

2 (kimikan)

Sintetikoki prestatutako hainbat substantzia kimikori dagokionez usainak molekularen formarekin korrelazioa duela aurkitu zenean, izan zituen atxikimendu batzuk Amoo-oren sailkapenak. **Irene Aldasoro**

sintetizadore *iz* sintesi elektronikoa gauzatzen duen gailua; musika-tresna teklaturduna, soinuak uhin-sortzaile multzo baten bidez gauzatzen dituen.

80ko hamarkadan **sintetizadoreak** eta elementu elektronikoak erabiltzen hasi zen. **Berria - Kultura**

Badira animazio zinemaren historian hainbat errealizadore, ikertzaile lanetan ere aritu direnak luze eta zabal, batez ere Europar 20ko hamarkadan, horrelako musika sintetikoak sortzen jardun zirenak, 60ko hamarkadan lehen **sintetizadoreak** merkaturatu baino lehen. **Berria - Kultura**

Sintetizadoreak ez al ditu txikitu film duinak izan zitezkeen lan asko? **Berria - Kultura**

Hala ere, **sintetizadoreekin** ere musika erasokor eta probokatzaillea egin zitekeela erakutsi zuen. **Berria - Kultura**

Genna (ahotsa) eta Lover (**sintetizadoreak**) cyborg-mozorro ikusgarri batzuk jantzita agertu zitzaizkigun taula gainera. **Patxi Iturritegi**

Kontzertua zoragarria iruditu zitzaidan: **sintetizadorea** eta pianoa, biolina, perkusioa eta nire amaginarrebaren ahotsa, mugimenduak, begirada eta irribarra. **Berria - Kultura**

sintetizatu, sintetiza, sintetizatzen 1 du *ad* sintesia egin.

Homeroren testuetan aurki daitezkeen pertsuasio-bideak -hitz ederra, mitologiaren erabilpena, adibide eredugarriak...- Aristotelesek maila gorenean **sintetizatu** zituen.

Txema Ramirez de la Piscina

Zure pentsamoldea, intuitiboa baino gehiago sintetikoa bada [...] ideiak **sintetizatzea** komeni zaizu. **Askoren artean**

Goihenetxeren obraren **sintetizatzea** biziki «delikatua» dela deritzo. **Berria - Harian**

Haien itxura aldakorrek objektutasun bakar batean **sintetizatu** eta hartaz jabetu nahian. **Xabier Olarra**

Bioi gustatzen zaigun film batetik abiatzen ginen; ez gidoia **sintetizatze**ko, baizik eta giro edo atmosfera bat iradokitze. **Berria - Kultura**

Hauxe izan liteke, beraz, irudian denbora **sintetizatze**ko formularik orokorra: irudiaren espazioan leku desberdinei une desberdinak dagozkie irudikatzen den gertaeraren denboran. **Josu Zabaleta**

2 konposatu kimiko bat bere osagaietatik abiatuz lortu.

1988an **sintetizatu** egin zen, eta rEPO izena hartu zuen artifizialki sortutako EPO horrek. **Berria - Harian**

Zelula etengabe ari da proteinak **sintetizatzen** eta ezabatzen. **Berria - Gaiak**

Estatinek kolesterol **sintetizatzea** eragozten dute. **Berria - Gaiak**

Bakterio askotan PHBa **sintetizatze**ko azetil koentzima A (azetil-coA) erabiltzen da. **Berria - Gaiak**

Hartarako, desberdindu izanak hura sortzea eragozten zien entzima bat **sintetizatze**ko gai ziren zelulak aukeratzen genituen. **Juan Garzia**

Antigorputz bat **sintetizatzen** zuen linfozito bat halakorik **sintetizatzen** ez zuen beste batekin bat egiteko. **Juan Garzia**

Begetarianoak dira egun, Mendebaldean, **sintetizatu** eta lurrindutako elikagai gehien kontsumitzen dituzten pertsonak. **Edorta Agirre**

3 (era burutua izenondo gisa)

Zinemak ahalbidetu du [...] denbora **sintetizatuaren** kontzeptua irudi mugimendudunera zabaltzea. **Josu Zabaleta**

sintetizatzaile *izond* sintetizatzen duena.

Burubide horiek, ikuspegi berezi hori, pragmatismo baliagarri bat izaten dira, sinplifikatzailea, **sintetizatzailea**. **Josu Zabaleta**

sintetizazio *iz* sintetizatzea.

Halere, beste batek hastetik buru eramanez **sintetizazio** lan bat egingarria izan daiteke. **Berria - Harian**

sintoista (*orobat xintoista*) 1 *izond* Japoniako erlijio politeista eta animistari dagokiona.

Argi eta garbi aitortzen dut nola neure gaixoei eta hiesdunei erants dakiekeen adjektiboa -marxista edo kristaua, maoista edo taoista, budista edo **sintoista**, musulmana edo animista, materialista edo idealista, fededuna edo ateo- hori besterik ez den enetzat. **Joan Mari Irigoien**

Taiko-danbor hotsak ermita **xintoista** batetik zatozan, ezta? **Ibon Uribarri**

• 2 *iz* erlijio horren jarraitzailea.

Erlijio kristaua eta Indietako erlijioak; hauek infernua eta paradisia dituzte; **sintoisten** erlijioak, berriz, ez du halakorik **Iñaki Iñurrieta**

sintoma 1 *iz* eritasun bat ezagutarazten duen gertakaria.

Gaur egun badira **sintoma** horiei aurre egiteko tratamendu ugari. **Berria - Gaiak**

-Sindromearen **sintoma** guztiak dituzu. **Aingeru Epaltza**

Hori depresio arin baten **sintoma** izan daiteke. **Berria - Gaiak**

Uremiaren **sintomak** desagertuz zihoazen. **Josu Zabaleta**

Gaitzaren **sintomak** sentitu orduko medikuarena joatea ezinbestekoa dela gogorarazi dute sendagileek. **Berria - Gaiak**

Estatuen gerran edo klaseen arteko borrokan kolapsoaren hurbileko kausak gaixotasun espiritualaren **sintomak** baino ez ziren. **Iñaki Mendiguren**

Sintoma horiekin batera, erreflexuak galtzen dira eta halako gogogabezia eta urruntasuna sortzen bizitzarekiko. **Joan Mari Irigoien**

Gaixotasun haren **sintomarik** behinena autoestimaren desagertze erabatekoa baita. **Karlos Linazasoro**

Sintometan oinarritutako medikuntzatik geneetan oinarritutako medikuntzara. **Berria - Gaiak**

Urte haren bukaeran aitaren eritasunaren **sintomek** okerrera egin zuten. **Joan Mari Irigoien**

Sendagaiekin **sintomak** tapatu bai, baina gaixotasuna ez da sendatzen. **Berria - Harian**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Nerbio sistemaren gaixotasuna da Parkinsonen gaitza, eta dardara eta giharren zurruntasuna dira **sintoma** nagusiak. **Berria - Euskal Herria**

Gaur senarrari tokatu zaio oheratzea: hotzikarake eta sukarra, gripearen **sintoma** ezagunak. **Josu Zabaleta**

Sintoma nabarmenenak sukar handia eta giltzaduretako oinazea dira. **Berria - Gaiak**

Gaitzaren **sintoma** jakin batzuei aurre egiten diete botika horiek, baina ez gaitzari bere osotasunean. **Berria - Gaiak**

Sintoma argirik gabeko anorexia eta bulimia kasuak ugaritzen ari dira. **Berria - Euskal Herria**

Sintoma fisiologikorik ez zutela zirudien arren, alterazio nabarmena izan zuten animaliek izaeran eta jokabidean. **Xabier Olarra**

Lobulu frontaleko tumor baten lehen operazioa 1884an egin zen, eta **sintoma** psikiatriko hutsengatik egindako lobulu frontal baten lehen ebakuntza, berriz, 1888an. **Xabier Olarra**

Lehenengo maila, prozesu inkontzienteen antolamenduari dagokiona (**sintoma** neurotikoa, ametsak), eta bigarren maila, psikologia tradizionalak kontuan hartzen zuena (pentsamendu ohartua). **Josu Zabaleta**

Horiek bihotzkearen ohiko **sintomak** zirela jakiteko beste irakurria nintzen. **Oskar Arana**

Poliomielititsaren hasierako **sintomak** nekea, sukarra, buruko mina, gorakoak, zurruntasuna eta lepoko eta gorputz adarretako mina izan ohi dira. **Berria - Gaiak**

Orduan, gaitzaren lehenengo **sintomak** agertzen hasten dira: azaleko lesioak, infekzioak, sukarra, beherakoa, jateko gogo gutxiago eta nekea. **Luis Elberdin**

Ageriko **sintoma** gutxi dituzten gaixotasun kroniko asko daude eta haietako askoren ondorioa izaten da erekzioaren disfuntzioa batzuetan. **Berria - Gaiak**

Denek eztarriko mina izan zutela gaitzaren bestelako **sintomak** agertu aurretik. **Berria - Gaiak**

3 (hitz elkartuetan biqarren osagai gisa)

Medikuntza konbentzionalak gaixotasun **sintomen** aurrean diagnostikoa egin eta hori tratatzen du. **Berria - Harian**
Israelgo hegoaldeko etxaldeen artean sartu zituzten atzo gripe **sintomekin**. Urtarrilaren 27an hainbat hegazti akabatu ostean sukar handia eta pneumonia **sintomak** hasi zitzaizkion. **Berria - Gaiak**
Fuerteventura uharterko uretan 13 etorkin hilda eta beste lau hipotermia **sintoma** handiekin aurkitu zituzten atzo ontzi batean. **Berria - Mundua**
Behatzetan izozketa- **sintomak** hasi zaizkit. **Unai Elorriaga**

4 zerbait ezagutarazten duen zantzia.

Gizarte-desintegrazioaren **sintomak** dira. **Iñaki Mendiguren**
Ausentzia ikaragarri baten **sintoma**. **Patziku Perurena**
Gauza guztietan ikusten ziren agerian porrotaren **sintomak**. **Josu Zabaleta**
Seinale txar horien aurka **sintoma** hobeago batzuk ere bazeuden. **Iñaki Mendiguren**
Horrelako mugimenduak, ez indarraren, baizik eta ahuleziaren **sintoma** ziren. **Iñaki Mendiguren**
Mendebaldeko munduan kolapsoaren **sintometatik** desintegrazioaren **sintometara** igarotzen bagara, [...]. **Iñaki Mendiguren**
Hedapen militarra militarismoaren emaitza izaten da normalean, eta hau gainbeheraren **sintoma**. **Iñaki Mendiguren**
Mendebalde modernoaren historian **sintoma** etsigarri bat, lehenengo Prusian eta gero Alemanian oro har, militarismoa sortzea izan zen. **Iñaki Mendiguren**
Eduardo Fungairiño fiskalburu kargutik kentzea **sintoma** positibotzat har daiteke? **Berria - Euskal Herria**
Poema hauek lehen **sintomei** erantzuten diete, aspirinek bezala, eta hori dute ona. **Berria - Kultura**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lehenbiziko berri-emate horietan beretan ere argi dago fenomeno- eta **sintoma** -espekto zabalagoa. **Xabier Olarra**
Diskurtso primario, inkontziente baten **sintoma** -aztarrenak dituela. **Josu Zabaleta**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Konbertsio- **sintoma** historikoen sorrerari zegokionez, [...]. **Berria - Kultura**
Baliatze arrakasta beti negatibo eta sarri nahigabeko honen ondorioz garrantzitsuena den gizarte- **sintoma** barne-proletalgoaren alienazioak edozein kasutan ere planteatzen duen arazoa larriagoa izatea. **Iñaki Mendiguren**
Pertsona helduek edo bikotekidea dutenek beren burua masturbatzea desoreka psikologikoren baten edo heldugabetasun **sintoma** da. **Luis Elberdin**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sintoma nagusiak (9)
antzeko sintomak (4); **bestelako sintomak** (3); **gaitzaren sintomak** (13); **gaixotasunaren sintomak** (3); **gripearen sintomak** (5); **lehen sintomak** (18); **lehen sintomak agertu** (3); **lehenengo sintomak** (3)
sintomak agertu (6); **sintomak agertzen** (6); **sintomak agertzen hasten** (3); **sintomak arintzeko** (4); **sintomak hasi** (5); **sintomak izan** (4); **sintomak murrizten** (4); **sintomak sentitu** (3)
sintomarik ez duten (3)
gaitzaren sintomekin (3)
sintometako bat da (3)

sintomatiko *izond* sintomari dagokiona; sintoma gertatzen dena.

Substantzia horrek kimioterapiaren daudenentzat ekartzen duen lasaitasun **sintomatikoa** azpimarratu nahi izan dute elkarteko ordezkariak. **Berria - Euskal Herria**
Hiesa gaitzaren aldi **sintomatikoa** eta infekziosoa da, gaitzaren aldi terminala. **Luis Elberdin**
Esklerosis mesialak eragindako epilepsia fokal tenporal **sintomatikoa** dutenei asko lagundu ahalko diegu. **Berria - Gaiak**
Perspektibak [...] mugak ezartzen dizkio orobat, begirada batek ikusten duen alor bat bezala antolatzen du (*veduta* bat bezala, ikuspegi bat bezala, lehenbiziko paisaia margotuar izendatzeko erabiltzen zen izen aski **sintomatiko** hura bera erabiltzeko). **Josu Zabaleta**
Sintomatikoa da, esaterako, Italiako irakurle gazteek Osvaldo Soriano irakurtzen jarraitzea. **Berria - Kultura**
Larria, ez dakit den, baina **sintomatikoa**, bada. **Iñigo Aranbarri**
Bada beste tesi ospetsu bat, oso modu **sintomatikoan** harekin bat datorrena. **Josu Zabaleta**
Tajo ibaia han atzean genuela, gazte bi poetak, bata asmatikoa bestea **sintomatikoa**, biak parapatetikoak, portugesez olerkiak esaten. **Edorta Jimenez**

sintomatologia *iz* sintomen multzoa.

Ez da soilik goibel egotea; **sintomatologia** bat dauka depresioak. **Berria - Gaiak**
Badaude botikak eta gaixotasunak depresioaren antzeko **sintomatologia** eragiten dutenak. **Berria - Gaiak**
Sintomatologiaren larritasuna sailkatzeko Letamendiak bost mailetan banatzen du gaitza. **Berria - Kirola**
Betiko teoria izan da garuneko molekula batzuk gutxitu egiten direla, eta gutxitze horrek dakarrela depresioaren **sintomatologia** somatiko guztia. **Berria - Gaiak**
Hori gaur egunean normala da, gizarte eri honen **sintomatologia** jakinekoa; zurea larrixeagoa izatea, besterik ez. **Iñaki Seguroa**

sintonia *iz* irrati edo telebista-emankizun baten hasiera edo bukaeraren ezaugarri den doinua.

Radio Segurako kantu eskaintza orduaren **sintonia**. **Jon Maia**
Hasteko, *La clave* telebista saioko **sintonia** joko du orkestrak. **Berria - Kultura**
Sintoniaren ondoren, Goetheplätzen entzundako Hitlerren hitz berak errepikatu zituen irratia: [...]. **Anjel Lertxundi**
Bideo pantailan, berriz, PPren hauteskunde **sintonia** ospetsua jo eta jo. **Berria - Euskal Herria**
Beti bezala, irratsaio honen hasieran *Zaharra zara Bilbo* kantuen musika, Gariren ahotsa... **sintonia** itzela, ez duzue uste, txirenetarrok? **Paddy Rekalde**

2 igorgailu baten eta hargailu baten arteko maiztasun berdintasuna, bereziki irrati edo telebista igorgailu baten seinalea hartzea ahalbidetzen duena.

Aparatu irrati-hartzaile bat zen funtzionean, maiztasun-alde txiki-txikiak atzematen zituena: eta, bai, kolpetik **sintoniatik** irten, eta lastategiko txakurra bezala zaunka hasteko, aski zuen operadorea aulki gainean higitzea, edo esku bat mugitzea. **Juan Garzia**

3 bat etortzea.

Sintonia eta adostasuna nagusi izan zen, ekarpen ugari egin zituzten ordezkarien artean. **Berria - Ekonomia**
Gero eta argiago dago haien arteko **sintonia**. **Patxi Zubizarreta**
Hasieratik eduki genuen elkarrenganako **sintonia** ona. **Agurtzane Juanena**
Ni batez ere Karmelo eta Rubenekin ibili naiz; badirudi bidaia honetara bakarrik etorri izanak gure artean **sintonia** berezia sortzen duela. **Patxi Zubizarreta**
Bestela -erantzun fisikorik gabe esan nahi dut- ez duzu behar bezalako **sintonia** emozionalik lortzen, eta sexu-jarduerak zentzurik gabeko kamasutra bihurtzen da. **Patxi Iturritegi**
Giro ona, eta **sintonia** herrikideen artean. **Berria - Euskal Herria**

Sektore gertuenen gertuenen **sintonia** berreskuratu nahi dugu eta gure jarduera euskal zentro politikoan kokatu nahi dugu. **Berria - Euskal Herria**
Bileretan izaniko «**sintonia** maila oso esanguratsuak» azpimarratu zituen Olanok. **Berria - Euskal Herria**

4 irud/hed

Obra ikusteko **sintonia** horretan jarri behar dugu. **Berria - Kultura**

Kanpotik, badiirudi, zuek Tabako Fabrikaz duzuen ikuspegia eta Bearing Pointek egindako txostena ez daudela **sintonia** berean. **Berria - Harian**

Prentsan irakurri dudanagatik, sumatzen dut beste idazle batzuk ere egon daitezkeela **sintonia** horretan. **Ana Urkiza**

Modu berean, desberdintze terminalak, gorputzean atzeman daitezkeen zelula mota hain desberdinak eragiten dituenak, kontserbaturiko zenbait gene multzo erabiltzen ditu, elkarrekiko **sintonian**, bere eragiketan. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sintonia ona (5)

sintonizatu, sintoniza, sintonizatzen 1 du ad igorgailu bat eta hargailu bat sintonian jarri.

Poliziaren emisorak **sintonizatzen** nituen, ea aditzen nuen Brent inguratzeko ari zirela adierazten zuen zerbat. **Xabier Olarra**

Loiola **sintonizatu** beharrean nahiago zutenak Arrate Irratia entzun. **Iñigo Aranbarri**

Irratia piztu, eta **sintonizatzen** hasi da. **Patxi Iturritegi**

Ongi etorri gaur ere Txirene irratia **sintonizatu** duzuenoi! **Paddy Rekalde**

Bere behinolako bulegoan alemaniar irratia **sintonizatu** du eta ateari giltza eman dio. **Josu Zabaleta**

Uhin laburretan zegoen **sintonizatuta**, ia ez entzuteko moduan, baina piztuta. **Xabier Olarra**

Irrati bat frekuentziatik kanpo **sintonizatuta** dagoenean bezala. **Harkaitz Cano**

Garrasiak hasi ziren berriro Harryren buru barruan... baina oraingoan gaizki **sintonizaturiko** irrati batetik zetozela ematen zuen. **Iñaki Mendiguren**

2 hed

Gau hartan afalondoan berriak **sintonizatu** nituenean, lehenbiziko aldiz ohartu nintzen berriak zalaparta gutxiago egiten zuela. **Xabier Olarra**

Irratian umoristen saioak **sintonizatzen** zituen, lehiaketak. **Joseba Urteaga**

Gaizki **sintonizatuta** dagoen irratsaio bat entzutean. **Iban Zaldúa**

3 pertsona bat beste pertsona edo gauza batekin sintonian jarri.

Baina zu han zeunden, nonbaiten, zehatz kokatzeko beharrik ez zuen lekuren batean, berearekin **sintonizatu** zegoen maiztasun batean. **Lourdes Oñederra**

Orduantxe **sintonizatu** zuen mutilak errealitatearekin. **Fernando Morillo**

Segundo batzuk behar izan zituen munduarekin **sintonizatze**ko. **Fernando Morillo**

Baina era berean, halako sen berezia zuen, garaiko munduarekin **sintonizatze**ko (ez noski analisi teorikoan bidez, berezko senez eta intuizioz baizik). **Askoren artean**

Ingururekin **sintonizatzen** zekien; baina une berean, errealitatearen mugak gainditzen ere bai, mundu berri baten ametsa pizten. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

irratia sintonizatu (3)

sintzeritate iz zinezkotasuna, egiaztatua, zintzotasuna.

Uste dut **sintzeritatea** agertzea jendeari begirunea eta errekonozimendua erakusteko bide bat baino ez dela. **Pako Aristi**

Aitorru dut, bi aldiz gutxienez, Montsek **sintzeritate** handiarekin jokatu zuela nirekin eta, funtsean, halaxe izan zen, nahiz eta xehetasunei buruz beste zerbat esan dezakedan. **Joan Mari Irigoien**

Mentxu apur bat zapuztuta zegoen Fonsecarengandik espero ez zuen **sintzeritatearen** ondorioz. **Josu Landa**

Eskertu nion, bihotzez eskertu izan diot **sintzeritate** hura. **Koldo Izagirre**

sintzero (orobat sinzero) izond zinezkoa, egia, zintzoa.

Oso **sintzeroa** da, ni naiz diskoan ageri dena. **Berria - Kultura**

Halakoxe artistak zarete zuek, halakoxe espontaneo eta **sinzeroak**. **Iñaki Iñurrieta**

Bukaera aldera, zurikeria nabarmenaz, dena hutsean geratzen da, hau da Opuosekoa jende asto samarra baina **sintzeroa** bezala agertzen da. **Berria - Kultura**

sinu¹ 1 iz angelu batez mintzatuz, angelu hori hartzen duen triangelu angeluzuzenaren aurkako katetoaren eta hipotenusaren luzeren arteko zatidura.

Angelu baten **sinua** eta kosinua zenbakiak dira. **Jon Muñoz**

Bere **sinuari** eta kosinuari esker ezagutu daiteke angelu bat, zuzenean neurtu beharrik gabe. **Jon Muñoz**

Zirkulu oso baten ibilbidea (bidean egiten diren angeluen **sinuak** kalkulaturik eta denboran zehar marraztuta). **Lourdes Oñederra**

2 (hitz elkartuetan)

Kalkulu astronomiko ororen doitasuna **sinu**-taularen zehaztasunean datza. **Jon Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sinu taulak (3)

angelu baten sinua (3); **sinua eta kosinua** (3)

sinu² iz zenbait hezurretako barrunbea.

Aurpegiko hezurrek lau zokogune pare dituzte (**sinuak**), barrutik mukosaz estaliak. **Irene Aldasoro**

Sinuaren irteera estua itxi egiten da batzuetan. **Irene Aldasoro**

Sinuetatik jariakin bat isurtzen da sudur-hobietara, horiek heze egon daitezke. **Irene Aldasoro**

Sinuak infektatzen direnean (hotzeri arrunt bat harrapatzen denean, esate baterako), hazi egiten da mukosa. **Irene Aldasoro**

Irribarre egin eta, zori hutsean, nota batzuk kanta-murmuriatzen zituen, kopeta-hezurreko **sinuan** zer efektu egiten zuen ikusteko. **Irene Aldasoro**

sinu³ iz keinua.

Taxistak **sinu** bat egin zuen helbidea eman nionean. **Bernardo Atxaga**
Musua okertu eta, klink egiteko **sinua** egin zuen Mikaelak. **Pablo Sastre**

sinu⁴ iz patua.

Inola ere ezin dut ekarri gogora, gizakion munduko **sinua**, ehule baten eskuetan nahasten diren bi hari (zinezko eta grinezko) horien irudipean baino ederkiago. **Patziku Perurena**

sinuka *adlag* keinuka.

Bere ikaskideak ez tulka edo doministikuka hasiz gero, **sinuka** hasten da bera, eta irain larriak botaka: [...]. **Bernardo Atxaga**

sinuntzi *izond adkor* keinu asko egiten duena.

Etixerat itzuli eta, etziron gorde Blair jaunak arras nardatua zela eta zion **sinuntzi** batzu zirela frantses horiek! **Herria**

sinuoso *izond* bihurgune irregularrak eta hainbat norantzatakoak dituen. *iksigi-sagatsu*.

Denetik ikus daiteke: Canovaren eskultura neoklasizista bere linea sosegatuen oreka eta araztasunarekin (*Le Tre Grazie*), Rodinen forma **sinuosoagoak** *Donna accovacciata* bere obran. **Berria - Kultura**

sinusitis *iz* aurpegiko sinuak estaltzen dituen muki mintzaren hantura.

Sinuan geratzen den airetik oxigenoa xurgatzen jarraitzen dute mukosako odol-hodiek, eta horrek dakarren presio-gutxitzeak eragiten du **sinusitisarekin** loturik dagoen buruko min bereziki mingarria. **Irene Aldasoro**

Sinusitisak jota jaiki nitzela gogoan dut. ostegunetik anginekin, gripearekin eta **sinusitisarekin** egon zela esan zuen igandekoa hasi aitzin. **Karlos Linazasoro**
Izigarriko **sinusitis** krisiak ukaiten nituen, eta radiestesistak bere eskua ene kopetaren gainean pausatzen zuelarik, ba orduan ikaragarriko beroa senditzen nuen. **Menane Oxandabaratz**
Eguzkiak jotzen baldin banau berriz ere ene **sinusitisa** eta eritasun guziak martxan abiatzen zaizkit. **Menane Oxandabaratz**

sinusoidal *izond* sinusoideari dagokiona.

Uhin **sinusoidalaren** gorako eta beherako olatua edo zirkulu oso baten ibilbidea. **Lourdes Oñederra**

sinusoide *iz* sinu funtzioa irudikatzen duen kurba.

Espazio sekulakoan, goraka eta beheraka zihozten lorratz eta uhinak sortu eta abiatzen ziren; dirdai arrosa baten gainean igo eta dirdai more batean jaisten ziren **sinusoideak**, gero, luzatuta eta zerrenda bihurtuta, ero moduan zihoztenak lasterka bata bestearen atzetik. **Fernando Rey**
Bi **sinusoidez** inguraturiko kasko esferiko batez hornitua. **Xabier Olarra**

sinzero ik *sintzero*.

siondar *iz* Sioneko —Jerusalemgo- biztanlea.

Poz bedi Israel bere Egileaz, alaitu **siondarrak** beren Erregeaz. **Elizen arteko biblia**

sionesta ik *sionista*.

sionismo *iz* Palestinan estatu judu bat eratzeko helburuarekin sorturiko higikunde.

Sionismoa, bere sortzaile izan zen Theodor Herzl-ek berak aitortuaren arabera, larritasun baten erakusgarri zen. **Iñaki Mendiguren**
Nazismoaregandik ihesi, **sionismoaren** alde egin zuen eta juduen lider bihurtu zen. **Berria - Harian**
Buru-belarri aritu zen **sionismoaren** helburu nagusiaren alde: aberri bat lortzea. **Fernando Rey**
Alderdi sionistaren klub batera joaten naiz, joan, nahiz eta hara joateko eskubiderik ez izan, aiton-amonak **sionismoaren** oso kontrakoak baitira. **Josu Zabaleta**
Bundistak **sionismoaren** etsai gogorrak izan ziren. **Koro Navarro**
Binyamin Netanyahu **sionismoaren** alde gogorra gorpuztu nahi izan du kanpainen. **Berria - Harian**
Bagdad Irratiak gu salatzen jarraitzen zuen, gure buruzagia eta beste guztiok, **sionismoaren** agenteak eta Baas-en etsaiak ginela esanez. **Juan Kruz Igerabide**
sionismoa eta arrazismoa ez direnez elgarren bete. **Herria**

sionista (*orobat sionesta g.er.*) 1 *izond* sionismoari dagokiona.

Nola sailkatu behar genuke mugimendu **sionista**? **Iñaki Mendiguren**
Estatu **sionista** sortzen ari zen. **Pablo Sastre**
Hamasen arabera «armada **sionistak** porrot egin du leku guztietan». **Berria - Mundua**
Nire aiton-amonak uste dute zura grabatzen ikastera joaten naizela, baina alderdi **sionistaren** klub batera joaten naiz. **Josu Zabaleta**
Ez da funtsezko aldaketarik izango [...] politika **sionistan**. **Berria - Mundua**
Neurriotako asko lobby **sionistari** men egiteko onartu dituzte. arerio **sionistaz** mintzatu da, baina bide politikoa erresistentzia armatua baino egokiago dela esan du. **Berria - Mundua**

Erdian, suhiltzaileen autoa, **sirena** eta guzti.

Iban Zaldúa

Gaua bake-bakean dago eta soil-soilik **sirena** baten argi distiratsuek urratua da.

Patxi Zubizarreta

Anbulantzia edo antzeko ibilgailu bat **sirena** intzirika daroala pasatzen bada, soilik bertako biztanleek begiratzen diogu haren ibilbideari.

Hasier Etxebarria

Handik gutxira polizia etorri zen **sirenak** uluka.

Iñaki Zabaleta

Moto, auto, kamioneta, **sirena** guziak pizturik, oihuka marrumaka, nehon gelditu gabe.

Filipe Bidart

Ondotik **sirenen** hotsa aditzen hasi zen eta zenbait ambulantzia pasatu ziren.

Fernando Rey

Une hartan, fabriketako **sirenak** orroka hasi ziren, egun hartako lanaren amaiera lau haizetara aldarrikatuz. elur fabrikako **sirenak** jo eta ontziola aldeko zerra eta mailu hotsa isiltzen zenean neskamutikoak etxera itzultzen ziren.

Pedro Alberdi

Zarama biltzaileak beren kamioiekin, langileak lanerantz, mozkorrak etxera bidean, okindegietako usaina, negozioak irekitzen, fabrika eta ontzietako **sirenak** muuuka.

Joseba Sarrionandia

Sirenak durundika gure inguruan.

Joxe Austin Arrieta

Ez zirudien soinu lurta bat, ez zen fabriketako tutuen gisako **sirena** bat, soinu ikaragarri ozen bat zen.

Juan Garzia

Meatzarien hurrek, **sirena** baten oihuak lur azpiko eztandaren bat aldarrikatutakoan.

Felipe Juaristi

-Alfako **sirena**.

Pedro Alberdi

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sasoi elezaharrezko hartan, arratsaldero, bost eta erdietako **sirena**-tutua jotzen zuenean, enplegatuetariko inor ez zen etxeratzen.

Juan Garzia

Ospitalerantz zihoala Harlemgo kaleren batetik **sirena** uluak zetozen. barrandako polizi-kotxeen **sirena** oihuak.

Iñaki Zabaleta

Sirena -dei batzuk entzun nituen urrun samar.

Anjel Lertxundi

Batzuetan, **sirena** -jotzearen ondoren laboratoriaoan ixten nintzen luzaroen.

Juan Garzia

Aitak itsasaldeko paseoan barrena doan argi eta **sirena** herrenkada seinalatzen dio semeari.

Jokin Muñoz

Inguruko jendea, suhiltzaileak, ambulantiak, ertzainak... **sirena** eta argi festa antzeko bat izan zen.

Fernando Morillo

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Etxerako bidea hartu nuen, neure buruari galdetuz nolatan ez nuen entzun alarma **sirenarik**. Polizia-**sirenak** gailendu zaizkie trafikoaren eta euriaren hotsei, Euskaldunara heltzen zaudetela.

Felipe Juaristi

6 *sirena-hots* (*orobat sirenots g.er.*)

Kanpoan, itsasontzi baten **sirena hotsa**.

Monika Etxebarria

Sirena hotsa eta ambulantiak kanpoan.

Harkaitz Cano

Hartan, **sirena-hots** bat hurbiltzen ari dela konturatzen naiz.

Anjel Lertxundi

Aisialdiaren **sirena hotsa** entzun bezain laster, Ogasun egoitzaren parean zegoen kafetegira abiatu zen.

Aritz Gorrotxategi

Egun osoan, Poliziaren helikopteroa ibili zen hiriaren gainaldean eta ambulanzien edo polizia-autoen **sirena hotsak** noiznahi entzuten ziren.

Berria - Harian

Arriaga pareko semaforo gorrian geldi zeudela, Poliziaren auto bi igaro ziren ondotik **sirena hotsean**.

Unai Iturriaga

Antzerkira eta kontzertuetara joaten ginen, zeinak noizean behin ekitaldiaren erdian eteten baitziren aire-alarmen **sirena-hotsera**.

Juan Garzia

Kaleek gerra bateko gertalekia ziruditen, tiro eta **sirena hotsaren** oihartzunak barreiatzen zuela dena estaltzen zuen ke lodia.

Ramon Saizarbitoria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sirena hots (8); **sirena hotsa** (13); **sirena hotsak** (19); **sirena hotsak entzuten** (3); **sirena hotsen** (3)

sirenak jo (3)

sirenen kantua (4)

sirenots ik **sirena** 6.

sirga ik **zirga**.

siriako *izond* antzinako Siriari dagokiona.

Gizarte Babilonikoa eta Egipziakoa azkenean Gizarte **Siriakoak** bere gizarte-gorputzera ekarri zituen.

Iñaki Mendiguren

Gizarte Babilonikoak **Siriakoan** izandako eragin militarrek judaismoaren eta zoroastrismoaren epifania sortarazi zuen.

Iñaki Mendiguren

Lege ekumeniko bat sortzea, estatu unibertsal **siriako** berrezarri baten premietarako balio behar zuena.

Iñaki Mendiguren

Erdi Aroko Mendebaldea eta mundu **siriakoa**.

Iñaki Mendiguren

Bide horietatik lasterren zabaldu ziren erlijioak Jupiter Dolikorenen gurtza hitita helenizatua eta jatorriz iraniarra zen Mitras jainkoaren gurtza **siriako** helenizatua izan ziren.

Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gizarte siriako (7); **zibilizazio siriako** (6)

gizarte siriakoa (10); **mundu siriakoa** (3)

gizarte siriakoak (4)

mundu siriakoan (7)

gizarte siriakoaren (4); **mundu siriakoaren** (3)

mundu siriakoko (3)

siriar 1 *izlag* Siriakoa, Siriari dagokiona.

Siriar jatxe on bat ezagutzen dut Washington Street-en.

Lopez de Arana

Hiru hilabete bahituak izan direla frantses bi kasetariak beren **siriar** gidariarekin.

Herria

Egilea hemen greziar eta **siriar** eliz idazleez ari da.

Xabier Kintana

Siriar gudarosteak Judeari eraso.

Elizen arteko biblia

Kasu batzuetan iturburu horretatik **siriar** probintziako bertsioan hartu zuten zuzenean.

Iñaki Mendiguren

Siriar hitz horrekin egileak Talmudaren garaiko doktoreak adierazten ditu, kaldear edo **siriar** hizkuntza (arameera) erabiltzen zutenak.

Xabier Kintana

Eragin honek erakusten du Zibilizazio Sumerikoak zein sakon eta setati bota zituen sustraiak **siriar** lurrean Hamurabiren belaunaldian bukatu milurtekoan.

Iñaki Mendiguren

Zeinek egiten du zalantzarik, katoliko japoniarrak, ortodoxo **siriarrak** eta kopto egipzotarrak arraza espainol purua direla?

Joxe Azurmendi

Mende horietako jakintsu greko eta **siriarrak** ikusi zuten bazirela baieztapen batzuk filosofoen iritziekin kontraesan handi eta nabarian zeudenak.

Xabier Kintana

Anakoreta **siriarren** artean, "neurritasunaren aurkako bekatutzat jotzen zen janari egosiak jatea", S. Jeronimoren esanetan. **Askoren artean**

Davidek hogeita bi mila gizon **siriar** hil zituen.

2 Siriako herritarra.

Hiru haltera (Aleksandr Koroljov estoniarra, Youssef Cheikh Younes **siriarra** eta Ali Hosseini iraniarra) eta tandem diziplinako bide-erakusle bat (Jurak Petrovic eslovakiarra).

Berria - Kirola

Baltasar Garzón Real epaileak kazetari horietako bat -Taysir Alony **siriarra** - atxilotu zuen Madrilen 2003ko irailean, Al Kaedako kolaboratzaile zelakoan. **Txema Ramirez**

de la Piscina

Siriarek AEBei leporatu diete kurduen matxinada. **Berria - Mundua**

Hiru urtetan ez zen borrokarik izan **siriarren** eta israeldarren artean. **Elizen arteko biblia**

Israeldarrek ehun mila **siriar** hil zituzten egun hartan. **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

siriar gudarosteak (3); **siriar hil** (3)

sirimiri ik zirimiri.

sirofeniziar *izlag/iz* antzinako Siriari eta Feniziarri dagokiena.

Akemenestar politika berberak, kostako **sirofeniziar** hiriei eurentzako autonomia ez ezik beste siriar komunitate batzuen gain -akemenestar subiranotasunaren pean- agintea ere eman zien, eta horrek gutxienez mundu helenikoko hiri-estatu ahaltsuenen parean jartzen zituen. **Iñaki Mendiguren**

Ezbehar heleniko horiek areagotu egin ziren pertsiar inperiogileek **sirofeniziarrei** eman zizkieten onura bat-bateko eta garrantzitsuengatik. **Iñaki Mendiguren**

siroko *iz* Ipar Afrikako haizea, oso beroa eta lehorra, Hego Europa jotzen duena.

Ez zuen euririk ari, baina azalean eta jantzietan uraren hotza sentitzen zen, oraindik ere Adriatikotik **siroko** haizeak jotzen zuen arren. **Josu Zabaleta**

Behin, Agrigento herriko mendi tarte guzia milaka astalarruz ixtea bururatu omen zitzaion, zertarako eta, **siroko** delako haizea honutz pasa ez zedin. Tartean behin **siroko** bafadaren batek beste zaparradaren bat botarazten zuen oraindik San Giovanni gainean. **Patziku Perurena**

siropa ik ziropa.

sirope ik ziropa.

sirtaki *iz* greziar herri dantza, eskuarki gizonek ilaran dantzatzen dutena.

Ez du ahaztu Egipton jaio zela greziar familia batean eta Theodorakisen agurreko kantuan, **sirtaki** txikia eta guzti, grekeraz kantatu zuen bouzouki bat eskuetan zuela.

Berria - Kultura

sisibasa (*orobat sisipasa g.er.*) 1 *iz* s eta z-ak ongi ahoskatu gabeko hizketa.

Pilulek baldartutako mihi lodiaren **sisibasa** soila entzuten zitzaion bart. **Anjel Lertxundi**

Ahotsa apaldurik, ia bere golkorako zen **sisibasa** triste batez mintzatu zen. **Anjel Lertxundi**

Gero, barkamen moduko baten **sisibasa** egin, eta gelatik alde egin zuen. **Anjel Lertxundi**

2 (adizlagun gisa) ik **sisibasaka**.

Nire esku ahurretik sorbalda gainera egin du salto, eta **sisibasa** hasi dela iruditu zait, belarrira zerbait esan nahi balit bezala: [...]. **Anjel Lertxundi**

Riddlek ahoa zabaldu eta **sisipasa** hitz egin zuen, baina Harry ulertu egin zuen esaten ari zena. **Iñaki Mendiguren**

3 **sisibasan adlag** sisibasaka.

Alabak ulertu ez zion hitz-andana arranguratuaz aritu zen gero, bere kolkorako **sisibasan**. **Anjel Lertxundi**

sisibasaka *adlag* s eta z-ak ongi ahoskatu gabe.

Sisibasaka badarik ere (urduri, hitzarekin hitza janez) nik uste dudanaren exempli gratia bat garatu dut: [...]. **Anjel Lertxundi**

Ezpainak mugitzen nituen **sisibasaka**. **Anjel Lertxundi**

Ezpainak hozkatu, eta **sisibasaka** hitz egin zuen: [...]. **Anjel Lertxundi**

sisipasa ik sisibasa.

sismiko *izond* lurrikarei dagokiena.

Bertako ezaugarri **sismikoak** kontutan hartu behar dira. **Berria - Mundua**

Erakundearen esanetan, Nafarroa iparraldea aktibitate **sismiko** handiko eremua da. **Berria - Euskal Herria**

Hala ere, gaineratu dute urtegiak ez diola eragiten inguruak duen ahalmen **sismikoari**. **Berria - Euskal Herria**

Bi sare horietan [...] nabarmena da 2004ko irailaren 18an eta gainontzeko egunetan gertatu zen ekaitz **sismikoa**. **Berria - Harian**

Urtegia betetzen hasi zirenetik bi urte pasa dira eta ordutik urtegiaren inguruan 1.000 mugimendu **sismiko** izan dira. **Berria - Euskal Herria**

Mugimendu **sismikoak** bai, baina ahulak. **Berria - Harian**

Azaldu zuen urtegia beteta, edo mugimendu **sismiko**en eraginez, ezker magalaren egonkortasuna "larriki baldintzatuta" geldituko litzatekeela. **Edurne Elizondo**

Espainiako Sare **Sismikoaren** arduradun Emilio Carreñok. **Berria - Euskal Herria**

Espaniako Infomazio **Sismikoko** Zentroak, baina, 6,1eko intentsitatea izan zuela dio. **Berria - Mundua**

sismikotasun *iz* lurrikaren maila eta intentsitatea.

Nafarroako **sismikotasuna** maila baxukoa edo ertainekoa dela azaldu du geologoak. **Berria - Harian**
2004. urteko irailean Lizoaingo lurrikara handia gertatu zenetik, Itoizko urtegiaren inguruko eztabaidaren ardatz izan da inguru horretako **sismikotasuna**. **Berria - Harian**
Itoitz ingurukoa ez da berezko **sismikotasuna**. **Berria - Euskal Herria**
Eragindako **sismikotasuna** gizakiak sortutakoa da, modu naturalean ez dagoen **sismikotasuna** da. **Berria - Harian**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eragindako sismikotasuna (7); **urtegiak eragindako sismikotasuna** (3)

eragindako sismikotasunaren (3)

sismoakustiko *izond*

Axelek bere tresneria **sismoakustikoak** prestatu eta eginen ditu bere azterketak. **Joseba Sarrionandia**

sismografo *iz* lurrikarak grafikoki erregistratzen dituen tresna.

Pendulu astun bat da **sismografoa**; duen inertiagatik gelditu geratzen da lurrikara bizkor bat denean, inguruan lurra dardaraz dagoela. **Irene Aldasoro**
Lurrikarak detektatzeko erabiltzen diren **sismografoek** bezala jokatzan dute egitura horiek. **Irene Aldasoro**
Lurrikaren neurriari dagokionez, **sismografoek** neurri ezberdina eman diote: Espainiako Geografia Institutuaren arabera, 1,7 graduko indarra izan zuen Richter eskalan; Estrasburgoko Unibertsitateak (Belgika) kudeatzen duen **sismografo** frantsesen sarearen arabera, ordea, 2,2 gradukoa. **Berria - Euskal Herria**
Sismografoan begiratu beharko nuen nire erantzunak masailazurretan eragin zuen xifridura arinaz jabetzeko: gozatzen ari zen. **Joxan Elozegi**

sismologia *1* *iz* lurrikarak aztertzen dituen zientzia.

EAKo ordezkari Maiorga Ramirezek azpimarratu zuen geologoaren agerraldiak agerian utzi duela **sismologiako** aditurik ez duela Nafarroako Gobernuak, eta lurrikaren inguruko ikerketarik egin ez duela ondorioz. **Berria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Hala neurtu dute Espainiako Institutu Geografikoak eta Frantziako **sismologia** sareak, Itoizko Koordinakundeak jakinarazi duenez. **Berria - Euskal Herria**

sismometro *iz* lurrikaren oszilazioen intentsitatea neurtzeko tresna.

Dagoeneko dituzten inklinometro eta GPSei, **sismometroak** gehituko zaizkie, Espainiako Geografia Institutuak bultzaturik. **Berria - Euskal Herria**

sista¹ ik **xixta**.

sista² ik **zizta**.

sistako ik **ziztako**.

sistatu ik **ziztatu**.

sistema (orobat *sistima g.er.*, *xixtema g.er.* eta *xixtima g.er.*) *1* *iz* adigaien multzo egituratua.

Periferia ez dago sistematik kanpo, aldiz, **sistemaren** parte da. **Koro Navarro**
Hizkuntza oro den **sistema** ez dago, bere osotasunean, gizataldeko ezkin kideren baitan, "oso-osorik gizarte masan baizik ez baitago": altxor berdintsua da, gizabanakoz gizabanako. **Isabel Arrigain**
Sistema horren orokortasuna frogaturik gelditzen da, ezin bada sortu **sisteman** ez dagoen bokal berririk. **Lourdes Oñederra**
Ezagutza filosofiko ororen **sistema** Filosofia da. **Ibon Uribarri**
Barne-merkataritzaren liberalizazio-mugimendu zabala izan zen, [...] hirien babes ekonomiko eta sozialeko **sistemaren** amaiera ekarriko zuena. **Koro Navarro**
Marketinaren ideologiari egiten zaion kritika nagusia, beharrak asetzeko **sistema** bat baino gehiago dela beharrak sortzeko **sistema** bat. **Iñaki Heras**
Gaur egungo diru laguntzen **sistema** oso ahula da, eta Europan oraindik ez da egon indar politiko nahikorik maileguzen **sistema** eraginkorrik ezartzeko. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Unibertsitatea gobernatzeko erabiltzen diren **sistemak**. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Kapitalismoak frogatu du, historian zehar, aurreko **sistema** guztiak baino aurrerapen handiagoa ekarri duela. **Iñaki Heras**
Jakitearen **sistema** zuhaitz baten pareko ei da: metafisika da erroa, fisika enborra, adarrak zientzia espezializatuak [...] eta fruituak diziplina praktikoak. **Askoren artean**
Ereduak ez dira izaten egitura fisikoak, analogia edo teoriak baizik, ikertzen den **sistemaren** egitura, funtzio eta portaera beste **sistema** baten ezaugarri dagoeneko ezagunekin erlaziozartzen dituztenak. **Irene Aldasoro**
Ernest Crocker, lau koloreko **sistema** asmatu zuen kimikari estatubatuarra, gai zen 9.000 usain bereizteko. **Irene Aldasoro**
Bi ezezaguneko bi ekuazioko **sistema**. **Jon Muñoz**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jainkoaren ideia gorenetik hasi eta behera, ideia guztiak nahitaez bata bestearekin dedukzio-**sistema** batean josita daude. **Askoren artean**
Saussurek oso sendo [...] azaltzen du hizkuntza **sistema** guztiaren barnean gertatzen den terminoen arteko aurkakotasuna. **Isabel Arrigain**
Garbi dago fonema-**sistema** hizkuntzaren fonologiari dagokiola. noiz arte jarraitu dezake mendebaldeko gizarteak edo mundu ustez garatuak garapen **sistema** horretan?
Lourdes Oñederra

[urrats iraultzailean egin zuten beren pisu eta neurri-**sistema** oinarri hambatarraren berreginez. **Iñaki Mendiguren**

Bi erreferentzia **sistemaren** arteko mugimendu erlatiboa da kontuan hartu behar dena. **Fernando Morillo**

Gizartearen babes-sare **sistema** (hala nola erretiroa eta osasun **sistema**). **Iñaki Heras**

Aipatu bi ekonomia **sistemak** muturrekoak dira, historian zehar oso gutxitan eta ez oso luze aplikatu izan direnak. **Iñaki Heras**

Californiako unibertsitate **sistema** publikoa da, bere osotasunean harturik, munduan ezagutzen den onenetako bat. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

ISO 9000 arauak enpresetan kalitate **sistema** bat ezartzea dute helburu. **Iñaki Heras**

Estatuek edo herrialdeek beren diruei buruz truke egonkortasuna bermatzeko sortzen duten arau multzoari Nazioarteko Diru **Sistema** esaten zaio. **Iñaki Heras**

Batetik, badira diotenak egungo ekonomia **sistema** epe luzera automatikoki doitzen den mekanismo bat dela. **Iñaki Heras**

Ekonomia-historian truke-tasa **sistema** finko garrantzitsuena urre-patroia izan da. **Iñaki Heras**

Osagai-egitura **sistemaren** ezaugarri formalak ikergai interesgarria dira. **Itziar Laka**

3 mota bereko edo funtzio bereko gauzakien edo osagaien multzo egituratua.

Ereduak ez dira izaten egitura fisikoak, analogia edo teoriak baizik, ikertzen den **sistemaren** egitura, funtzio eta portaera beste sistema baten ezaugarri dagoeneko ezagunekin erlazionatzen dituztenak. **Irene Aldasoro**

Barne-aldamio gisa ere baliagarria da eskeletoa, gorputzeko organo eta **sistemei** beren lekuan eusteko. **Irene Aldasoro**

Zaldia hamazazpi muskuluko **sistema** korapilatsua du belarriaren posizioa doitzeko. **Irene Aldasoro**

Odolaren beste osagai batzuek, berriz, osaketa-lanerako beti prest dagoen **sistema** bat eratzen dute. **Irene Aldasoro**

Kolorea taxutzeko **sisteman** jasandako hondamena. **Xabier Olarra**

Kolorearen ikerketa fisiologikoaren muga, gaurdaino, ikusmen primarioan koloreekiko sentibera diren **sistemetan** dago. **Xabier Olarra**

Gorputzeko **sistema** asko zailtasun handirik gabe deskriba daitezke ingeniariartzaren ikuspuntutik. **Irene Aldasoro**

Sistema horretan, olioaren presioan sartzen da bi gainazalen artera, eta, hartara, olio geruza eraginkor bat mantentzen da mugimendurik ez denean ere. **Irene Aldasoro**

Alfabetoa hots bakoitzari ikur bat egokituzko **sistema** grafikoa dela esan genezake. **Lourdes Oñederra**

4 (izenondoeekin)

Sistema zaharraren dekadentzia, eta sortzeko dagoen **sistema** berriarekiko izua. **Anjel Lertxundi**

Teorian bi dira truke-tasak antolatuta ahal izateko **sistema** nagusiak: aldakorra eta finkoa. **Iñaki Heras**

Haren testua metaforaz betea da [...] konfigurazio plastikoak oso estetika idealista batean oinarritutako **sistema** orokor baten barruan ezaugarritzeko asmoz. **Josu Zabaleta**

Brasilen, **sistema** demokratikoa ez da gai Amazoniako lur-jabe handien txikizioei aurre egiteko. **Iñaki Heras**

Hegelen **sistema** moderno erudugarria indargabetu ondoren, [...] Estamentuz osatutako **sistema** sozialean, herriko jende xeheak gizarte mailan igotzeko zuen aukera ia bakarra Elizako erakundearen babesera biltzea zen. **Askoren artean**

Sistema kapitalistari erabat kontrajarrita dago **sistema** sozialista edo plangintzapekoa. **Iñaki Heras**

Sistema formal bat zuzena bada, haren teorema egia logikoak edo formula logikoki baliozkoak izango dira. **Askoren artean**

Sistema axiomatikoetan a priori onartutako axiomak deituriko formulak ditugu. **Askoren artean**

Sistema quinearrak esanahia baztertuko du kontzeptu autonomo gisa, eta bere jakintza sistema ereduak guztitasun bat bezala jokatuko du. **Askoren artean**

Gorputzaren **sistema** immunologikoa. **Irene Aldasoro**

Bi belarriek **sistema** estereofoniko bat eratzen dutelako. **Irene Aldasoro**

Sistema funtzioaniztun baten adibide da odol-zirkulazioa. **Irene Aldasoro**

[Garuna] **sistema** eraginkor eta alde-orotako bat dela. **Xabier Olarra**

Sistema integratzaileak, izan ere, norbanakoen eta komunitateen artean kodeak eta komunikazio espazioak ezarri ezberdintasuna errespetatzen dutenak dira. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Munduan gaur egun nagusi den **sistema** sozio-ekonomikoaren aldaketa. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

5 (izenlagun eta kidekoekin)

Antzeko **sistema** erabil liteke [...] txerriak hiltzeko ere, nahiz elektrokuzioa den halakoak akabatzeko ohiko **sistema**, eta ez iltze-ukaldia. **Xabier Olarra**

Horrelaxe hautsi ziren tradiziozko gizarteak konkurrentziako **sistemaren** kontra zituen azken hesiak. **Koro Navarro**

Giza izaeraz batere arduratu gabe, otomandar **sisteman** bezalaxe. **Iñaki Mendiguren**

Muin-perpauen bukaerako kateak osagai-egiturazko **sistema** erraz baten bitartez eratorri Eragin-truke konplexuzko **sistema** bat da beti. **Itziar Laka**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zenbat milaka gertakari erabat independente behar izan dira, ordena jakin batean, gure unibertsoa, gure galaxia, gure eguzki-**sistema** eta Lurra sor zitezen? **Juan Garzia**

Zangoetan dagoen palanka- **sistema** bertsuak ematen die gizakiari eta beste animalia batzuei lasterka egiteko ahalmena. Telegrafo-sare baten antzekoa da nerbio-**sistema**.

Irene Aldasoro

Digestio-hodira banatu den odola beste zain-**sistema** batera biltzen da. **Irene Aldasoro**

Zirkuitu itxiko telebista-**sistema** baten antzekoa da ikusmena. **Irene Aldasoro**

Gorputzaren berotze-**sistema** (eta freskatze-**sistema**) eraginkorren funtsa eta infekzioen aurkako babes-mekanismoa da odola, zelula "iragankorrak" alarma-**sistema** moduko bat-edo balira bezala har daitezke. **Irene Aldasoro**

Begia eta ikusmen-**sistema**. **Josu Zabaleta**

Motor baten kontrol-**sistemak**, abiatzeko, gelditzeko eta indarra erregulatzeko mekanismoak izaten ditu. **Irene Aldasoro**

Egitura eratzen duten gaietan, hezurra da interesgarrienetarikoa bat ingeniariarentzat [...] giltzadureta lubrifikazio-**sistema** burutsuagatik. **Irene Aldasoro**

Baditu ingurua arakatzeko duten orientazio- eta nabigazio-**sistema** landuak ere: 3D kamera bat eta hi-fi soinu-errepuzitzaile estereofoniko bat, besteak beste. **Irene Aldasoro**

Honelako perspektiba-**sistema** batean, kubo baten irudikapenean ez dira ikusten haren aurpegiaren barnealdeak. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

alarma sistema (8); babes sistema (10); balio sistema (25); bozketa sistema (11); defentsa sistema (15); diru sistema (10)

eaeko hezkuntza sistema (9); eguzki sistema (28); ekoizpen sistema (6); ekonomia sistema (9); eraketa sistema (12); ereduaren sistema (15); eskola sistema (7); espainiako sistema (7); euskal sistema (7); euskal unibertsitate sistema (13); finantza sistema (10); finantzaketa sistema (22); garraio sistema (13); gizarte sistema (7); gps sistema (12); harreman sistema (7); hauteskunde sistema (25); hezkuntza sistema (146); hezkuntza sistema nazionala (7); hezkuntza sistema propioa (8); hezkuntza sistema publikoan (8); hizkuntza sistema (17); hizkuntzaren sistema (6); hozte sistema (12); hutsaren sistema (7)

ikur sistema (9); ikusmen sistema (8); immunitate sistema (16); indarrean dagoen sistema (8); irakas sistema (7); irakas sistema ebaluatu (6); irakaskuntza sistema (9); izeneko sistema (6); joko sistema (55); joko sistema aldatu (6); justizia sistema (11); kanporaketa sistema (6); kontrol sistema (15); kreditu sistema (15); kudeatzeko sistema (8); lege sistema (8); lehiaketa sistema (16); linux sistema (7); literatur sistema (8); mailegu sistema (14); mundu sistema (6); nabigazio sistema (7); nazioarteko sistema (8); nerbio sistema (15); neurri sistema (7); neurtzeko sistema (7)

oinarritutako sistema (10); osasun sistema (33); osaturiko sistema (6); osatutako sistema (6); pentsio sistema (32); pentsioen sistema (6); planeta sistema (6); produktio sistema (6); puntuazio sistema (7); segurtasun sistema (17)

sistema aldaketa (7); sistema aldatu (36); sistema aldatzea (19); sistema aldatzeko (12); sistema aurkeztu (8); sistema bakarra (12); sistema bat garatu (6); sistema bateratua (9); sistema bera (38); sistema berbera (6); sistema berezia (12); sistema berri (48); sistema berri bat (29); sistema berria (55); sistema berriak (33); sistema berriekin (12); sistema berriaren (16); sistema demokratiko (7); sistema demokratikoa (14); sistema demokratikoaren (8)

sistema ebaluatu (6); sistema egokia (9); sistema ekonomiko (9); sistema ekonomiko (9); sistema ekonomikoaren (9); sistema elektronikoa (6); sistema erabili (14); sistema erabiliko (15); sistema erabiltzen (13); sistema eragile (7); sistema eragilea (11); sistema eragilean (7); sistema eragilearen (14); sistema eraginkorra (10); sistema ezarri (11); sistema filosofiko (8); sistema fonologikoa (9); sistema formal (12); sistema formal bat (7); sistema garatu (10); sistema gisa (12); sistema horren bidez (9)

sistema informatikoak (8); sistema izan (6); sistema izango (8); sistema jakin (6); sistema kapitalista (14); sistema kapitalistaren (15); sistema nazionala (14)

sistema operatiboa (6); **sistema osatzen** (6); **sistema oso bat** (13); **sistema osoa** (36); **sistema osoan** (9); **sistema osoan** (15); **sistema patriarkala** (7); **sistema politiko** (28); **sistema politikoia** (18); **sistema politikoaren** (8); **sistema propio** (8); **sistema propioa** (20); **sistema publiko** (6); **sistema publikoa** (27); **sistema publikoak** (11); **sistema publikoan** (15); **sistema publikoaren** (13); **sistema sozio** (10)

sistema zehaztu (6)

unibertsitate sistema (34); **ureztatze sistema** (10); **windows sistema** (24)

eaeko hezkuntza sistemak (9); **enplegu sistemak** (6); **hauteskunde sistemak** (6); **hezkuntza sistemak** (45); **ikusmen sistemak** (18); **immunitate sistemak** (7); **joko sistemak** (7); **kontrol sistemak** (7); **mailegu sistemak** (10); **nabigazio sistemak** (6); **nerbio sistemak** (7); **osasun sistemak** (9); **segurtasun sistemak** (6); **unibertsitate sistemak** (9)

eguzki sistemako (34); **hezkuntza sistemako** (19); **nerbio sistemako** (10)

eguzki sisteman (17); **hezkuntza sisteman** (74); **hizkuntzaren sisteman** (6); **nerbio sisteman** (6); **osasun sisteman** (11); **unibertsitate sisteman** (6)

egungo sistemaren (6); **eguzki sistemaren** (20); **euskal unibertsitate sistemaren** (15); **finantza sistemaren** (8); **hezkuntza sistemaren** (50); **hezkuntza sistemaren egoera** (7); **mailegu sistemaren** (8); **nerbio sistemaren** (17); **osasun sistemaren** (18)

sistemaren aldaketa (8); **sistemaren alde** (15); **sistemaren arabera** (16); **sistemaren aurka** (8); **sistemaren barruan** (13); **sistemaren beraren** (7); **sistemaren bidez** (18); **sistemaren egoera** (13); **sistemaren inguruan** (10); **sistemaren kontra** (6)

unibertsitate sistemaren (28); **unibertsitate sistemaren legea** (7); **unibertsitate sistemaren legearen** (7)

hezkuntza sistemari (8); **sistemari buruz** (8); **sistemari buruzko** (14); **sistemari esker** (6)

eguzki sistematik (19); **eguzki sistematik kanpo** (8); **hezkuntza sistematik** (10); **sistematik at** (10); **sistematik kanpo** (21)

hezkuntza sistemen (7)

sistemadun *izond* aipatzen den sistema duena.

75 trenetatik 45 CAFek patentatutako Brava **sistemadunak** izango dira, eta horien balioa 585 milioi eurokoa da. **Berria - Ekonomia**

sistematika 1 *iz* zerbait sailkatzeko sistema edo metodoa.

Garbi ikusten dena da ez dela egokia alde akustikoa erabiltzea hotsen **sistematikaren** oinarritzat; oinarria hutsik akustikoa badu, **sistematika** ezin zaio erabat atxeki oinarri horri. **Lourdes Oñederra**

Gizakiok mintzairaren ahalmena erabiltzeko modua ulertaraziko digun **sistematika** bilatzea, eta hori dela eta "ordena natural bat" ezartzea estudio horretan. **Isabel Arrigain**

Estetika burmuineko zein zatik hautematen duen argitu du Balear Uharteetako (Herralde Katalanak) Unibertsitateko Giza **Sistematika** Laborategiko zientzialari talde batek. **Berria - Gaiak**

2 (hitz elkartuetan)

Funtsean berdin zaio, hots **sistematika** edo zatiketa egiteko, bata zein bestea hartzea. **Lourdes Oñederra**

sistematiko 1 *izond* sistema bati dagokiona edo jarraitzen diona, sistema baten araberkoa dena.

Algoritmo **sistematiko** baten laguntzaz egin zitekeen eragiketa. **Jon Muñoz**

Berpizkudean "espazio **sistematikoa**" (matematikoki ordenatua, infinitua, homogenea, isotropoa) azaldu zenean [...]. **Josu Zabaleta**

Gertakari-mordo baten azalpen **sistematiko** eta antolatua eskaintzeko aukeraren arabera. **Itziar Laka**

Zelanok espiritualitate-tratatu txiki **sistematikoa** eskaini nahi die anaiei. **Askoren artean**

Oro har, euskal literaturan ez dago kritika **sistematikorik**, ez gara antologietan sartzen, eta ez dugu jakiten ahal zer oihartzun duen gure lanak. **Ana Urkiza**

Gizartean andreen kontrako eraso **sistematikoak** gertatzen dira. **Pello Salaburu**

Idazlantto honen helburua ez da, hala ere, lan **sistematiko** baten osatzea izanen, ez tesi berezi berri baten aurkeztea. itxaron al daiteke ezer onik suntsipen **sistematiko** eta mendekuzko horretatik? **Piarres Xarriton**

Bilaketa-ahalegin **sistematiko** batean murgildu zen. **Iban Zaldúa**

Gezur **sistematiko** eta kalkulatu. **Juan Garzia**

Lan-molde hura ildo **sistematiko** bati ekitea baino eramangarriagoa balitz bezala. **Joxan Elozegi**

Gehien jota kontzeptuak eratzeko arauak alderaketa **sistematiko** baten bidez erka daitezke eskualde bataren eta bestearen artean. **Xabier Arregi**

Ohar bedi soiltasuna neurri **sistematikoa** dela. **Itziar Laka**

Jelosia sorgor horrek Florenten aurkari **sistematiko** bihurtu zuen. **Karlos Zabala**

Euskararen erabilpena izan dadila **sistematikoa** herri-dokumentu guzietan. **Herria**

Mende bat baino ez da modu **sistematikoan** lantzen hasi dela. **Juan Garzia**

Ez al zen, baina, fisiognomia zientzia zuhur eta **sistematiko** bat? **Karlos Linazasoro**

Arrazoimenaren batasun **sistematiko** beteginean. **Ibon Uribarri**

Modu **sistematikoagoan** ikusiko ditugu berriro 3. kapituluan. **Josu Zabaleta**

Eztabaida bideratu zuten egiazen bila era **sistematikoagoan**. **Askoren artean**

Estatuak bizitza ekonomikoan modu **sistematiko** eta koherentean aurrenekoz parte hartu zuen alditzat har daiteke merkantilismoa. **Koro Navarro**

Estilo batzuek modu **sistematiko** batean desitxuratzten dituzte beren irudiak ikusgai denaren bertsio errealista batekin alderatuta. **Josu Zabaleta**

Benetako hizkuntzaren konplexutasun itzela berreraikitzea, era **sistematiko** eta dotore batean. **Itziar Laka**

2 (adizlagun gisa) ik **sistematikoki**.

Horren ongi, horren luze, horren **sistematiko**. **Lourdes Oñederra**

Euskararen edo hizkuntzaren izpiritua Unamuno baitan **sistematiko** arakatztea, zeregin iluna eta labainkorra da. **Joxe Azurmendi**

*Volksgeist*aren presentzia letra espainoletan ez da neuk **sistematiko** inoiz arakatu dudana, eta, dakidala, inork artaz arakatu izan duen gaita. **Joxe Azurmendi**

3 *ez-sistematiko izond*

Ondorengo oharrok ez dira izango irakurzale batek afiziozko irakurketa libreetan -ez **sistematikoak**-, urteetan zehar, aspalditxo gehienak, gustu lukeen baino usuago, aurkitu izan dituen adibideen oroitzapen mortxaka besterik. **Joxe Azurmendi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

batasun sistematiko (23); **ikerketa sistematiko** (3); **modu sistematiko** (5)

batasun sistematikoa (27); **izadiaren batasun sistematikoa** (4); **praktika sistematikoa** (4); **sistematikoa izan** (5); **tortura sistematikoa** (5)

torturak sistematikoak (7)

modu sistematikoan (14)

batasun sistematikoaren (22); **batasun sistematikoaren printzipio** (7)

erabilera sistematikoari (3)

sistematikoki *adlag* era sistematikoa. ik sistematikoa 2.

Lan hau historikoki ez ezik **sistematikoki** ere Arrazoimen hutsaren kritikaren benetako muinera iristeko aurre-jolasa edo prestaketa da. **Ibon Uribarri**

Komunitate linguistikoko baten parte garen neurrian objektu fisiko batzuk (hitzak) **sistematikoki** eta modu jakin batean interpretatzeko gai gara. **Askoren artean**

Lehenbiziko hilabeteen, beraz, **sistematikoki** aztertu zituen, ikusiz eta ukituz, etxeko gauza txiki guztiak. **Xabier Olarra**

Ibairen egoera **sistematikoki** neurtu ahal izateko metodologia. **Berria - Gaiak**

Saillaketa hau **sistematikoki** egin da printzipio komun batetik abiatuta, hots, juzgatzeko ahalmenetik abiatuta. **Ibon Uribarri**

Oroimen artifizial hori da, hain zuzen ere, bertsolariaren egitekoari hertsiki lotzen zaiona, baita kontziente eta **sistematikoki** landu eta hobetu daitekeena ere. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Auzia bozgorailu bihurtu nahi dugu horrelako prozesu guztietan tortura **sistematikoki** erabili dela argitara emateko. **Berria - Harian**

Afrikan, Latino Amerikan, nazioarteko finantza-erakundeek [...] **sistematikoki** sustatu dute kapitalismoaren sarrera. **Koro Navarro**

Gizarte prekapitalistetan [...] ekonomia ez zen alor beregaina; aitzitik, **sistematikoki** txertatua zegoen gizarte-harremanetan. **Koro Navarro**

Arrazoimenaren batasuna indeterminatua da bere baitan adimenak bere adigaiak **sistematikoki** lotzeko dituen baldintzei dagokienez. **Ibon Uribarri**

Armada izanik Estatu weberiar modernoaren zutabe, mutil gazteak **sistematikoki** zikiratu izan ditu armadak. **Joseba Zulaika**

Bere garajearen parean aparkatzea zure autoa **sistematikoki**. **Hasier Etxeberria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eskubideak **sistematikoki urratzen** (7); ia **sistematikoki** (3); **sistematikoki erabiltzen** (6); **sistematikoki gertatzen** (3); **sistematikoki hiltzen** (3); **sistematikoki ukatzen** (3); **sistematikoki urratzen** (11); **sistematikoki urratzen dira** (4)

sistematikotasun 1 *iz* sistematikoa denaren nolakotasuna. ik sistematismo.

Proposizioen egia eta batzen dituzten harremanak aztertuta ez-kontraesan logikoen arlo bat defini daiteke: **sistematikotasun** bat aurkituko da orduan. gaur egun daukagun Aristotelesen liburuen sailkapena Andronikok eginkoa da, eta horrek didaktika, logika eta **sistematikotasuna** hartu zituen aintzat. **Xabier Arregi**

Hasieran beti oso zaila iruditzen zaie [euskaraz], diferentea den neurrian, baina bukaeran iritzia aldatzen dute eta askotan hizkuntzaren **sistematikotasuna** aipatzen dute abantailatzat. **Berria - Euskal Herria**

Kartesianoismoa paradigma bat da, zientziarentzat (a) zalantzan jar ez daitekeen ziurtasuna eta (b) **sistematikotasun** erabatekoa bilatzen duena oinarritzko ideia bakar batean. **Askoren artean**

Ezin aurkituko al da euren artean gertatze-sistema bat **sistematikotasun** logiko bat izango ez dena? **Xabier Arregi**

2 (hitz elkartuetan)

Antzinako munduko obra gutxi, bakarrik bada, kontserbatu izan zaigu **sistematikotasun** maila honekin. **Xabier Amuriza**

sistematismo *iz* sistematikotasuna.

Sistematismoa, akumulazioaren estetika bat, norbanakoaren mugak sexuaren bitartez ezagutzeko ala desegiteko grina. **Berria - Kultura**

sistematzatu, sistematzatu, sistematzatzen 1 du *ad* elementu multzo bat sistema bat osatzera ekarri.

Teoria hau Raymond Vernonek **sistematzatu** zuen, eta *produktuaren ziklo* esaten zaio. **Koro Navarro**

Adibideak eman zituen, bertsolaritzaren barne-legeak **sistematzatu** eta aurkeztu zituen, generoak sailkatu zituen. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Hinduismoa metodo zaharrek -Jogasutran **sistematzaturik** daudenek- azaltzen dituzten erlaxatzeko teknikak. **Jon Alonso**

Kontenplazio hau San Bonabenturaren ohiko doktrina da, *Itinerarium mentis in Deum* liburuan **sistematzatu** zuen bezala. **Askoren artean**

Informazio mardula dago batzordearen esku, eta hori guztia **sistematzatuz** egin dugu txostena. **Berria - Euskal Herria**

Gure asmoa da talentu apartekoak identifikatzeko prozesuak **sistematzatea**. **Berria - Euskal Herria**

Bateraezinez diren zenbait proposizio, elkarri egokitzen ez zaizkion esanahiak, batera **sistematzatu** ezin diren kontzeptuak. **Xabier Arregi**

Araudiak espazio publikoaren kontrola **sistematzatzen** du, eta askatasunak murrizten ditu. **Berria - Harian**

2 (era burutua izenondo gisa)

Kontuan hartu behar du ikasle etorkinen jatorrizko hizkuntzak ezin direla eskolako praktika **sistematzatuan** sartu, baina hauen presentzia ziurtatzea beharrezkoa dela ikasleen garapenerako. **Berria - Euskal Herria**

Ekimen honek Euskal Herriko enpresen inguruko informazioa modu **sistematzatuan** eskainiko dio ikus-entzunezkoen industriari. **Berria - Kultura**

sistematzatze *iz* elementu multzo bat sistema bat osatzera ekartzea.

Sistematzatze horrek ondorengo lan guztia erraztu egiten du- **Berria - Harian**

sistematzazio 1 *iz* sistematzatzea.

Lau gizonok kanposantura bildutako familia-ko ale gehienak mobilizatu eta, **sistematzazio** ikusgarritz, hilerriaren zatirik handiena orraztu zuten, harik eta batek, panteoi baten barrualdetik, "Hemen" oihukatu zuen arte. **Unai Elorriaga**

Badira **sistematzazio** kontzeptual batzuk, kateaketa enuntziatiboak, objektuen multzoak eta antolaerak, ahalezkoak izango ziratekeenak. **Xabier Arregi**

2 (hitz elkartuetan)

Boppek sorturiko zientziaren **sistematzazio** saio bat da. **Isabel Arrigain**

Diskurtso ekonomikoa garai klasikoan definitzen da harremanean jarri modu konstante batean diskurtso baten barruko **sistematzazio** aukerak, bere kanpoko beste diskurtso batzuk eta eremu ez diskurtsibo bat, jardutez, jabetzez, interesez, eta gurariz osaturikoa. **Xabier Arregi**

sistemiko 1 *izond* sistema baten osotasunari dagokiona.

Osagai bati (kiebrari) edo merkatu bati (kraxari) dagokion ezbehar bakartu bat, jardueren, osagaien jokamoldeen eta merkatuen elkarrekiko txertakuntzaren ondorioz, sistema guztira zabaltzeko dagoen arrisku gisa definitzen da arrisku **sistemikoa**. **Koro Navarro**

"Ber-arautzearen" ahalegina [...] urrutit dago oraindik bankuak nahiz finantza-merkatuak mehatxatzen dituzten arrisku **sistemikoei** erantzun asegarriak ematek. **Koro Navarro**

Euskadiko Psikoterapia Dinamiko eta **Sistemikoaren** Elkarteak antolatutako jardunaldia. **Berria - Euskal Herria**

2 odolaren zirkulazio orokorrari dagokiona.

Bihotzetik irten eta gero, zirkulazio **sistemikoko** arterietara banatzen da lehenik odola; handik, arteriola izeneko beste hodi txikiago batzuetara, eta kapilar estuetara gero.

sisti

1 *sisti sasta ipar* mahatsa zapaltzearen onomatopeia.

Lehenik, moda xaharrean, mahatsaren itxikatzea zangoz, sisti **sasta**, zangoak ur beroan ontsa ikuzi ondoan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

sistilo 1 iz

Bost dira tenpluen altxaera-motak eta hauek dira horien izenak: piknostiloa, hau da koloma-lerro zerratuak dituena; **sistiloa**, tarte handixeagoarekin dauzkanak; diastiloa, tarte oraindik handiagoarekin; areostilo, a kolomarteak komeni baino irekiagoak dituena; eustiloa, tarteak egoki banatuta daudenean. Santiago Iruretagoiena

Estilobatoen gainean kolomak egingo dira, goian esanda bezala; tenplu piknostiloa bada, piknostiloetan bezala; edo **sistilo**, diastilo nahiz eustiloa bada, bakoitza goian esandakoaren eta araututakoaren arabera. Santiago Iruretagoiena

Sistiloan, altuera bederatzita eta erdi zatitan banatu behar da, eta horietako baten lodiera eman kolomaren diametroari. Santiago Iruretagoiena

2 (izenondo gisa)

Tenplu eustiloaren kolometan ere, **sistiloarenetan** bezala, bederatzita zati eta erditan banatu behar da altuera, eta horietako zati bat izango da imoskapoaren lodiera. Santiago Iruretagoiena

sistima ik sistema.

sistole 1 iz bihotzaren uzkuertze mugimendua. ik diastole.

Ibiltari erneak noizbait antzemango dio **sistole** -diastoleen segida horri. Iñaki Iñurrieta

2 irud/hed

Inguruaren ezagutze eta bilatze horretan zabaltzen eta biltzen dena, **sistole** eta diastolearen erritmoan, bizia eta heriotza, kreaioarena da baita. Ana Urkiza

Behar zaitut, behar zaitut, behar zaitut... bi hitz, amodiozko bi kolpe bezala, infinituraino errepikatuak, **sistole** eta diastole perfektuan! Joan Mari Irigoien

Itsasoaren zelai ilun bizia desagertu egingo da, begiak antzeman dezakeen espazio guztia zurututa, hila izaraz bezitzen den moduan, eta ez da itsas bihozkaririk izango gehiago, ez **sistole** ez diastolerik. Joseba Sarrionandia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sistole eta diastole (5)

sistuka ik ziztuka.

sitar 1 iz gitarraren antzeko musika-tresna, gidar luzea duena, berez Indiakoa. ikzitarra.

Sitarra Indiatik kanpo atera zuen lehenengo musikarietako bat izan zen Khan, eta AEBetan irakasle ere aritu zen. Berria - Kultura

2 *sitar-jotzaile* sitarra jotzen duen musikaria.

Vilayat Khan **sitar** -jotzaile indiarra asteburuan hil zen Bombayn, 76 urte zituela. Berria - Kultura

sits 1 iz gau tximeleta txikia, zurixka edo arrea, beldar egoeran dagoenean oihala eta larrukiak jaten dituena(*Tineola biselliella*, *Trichohaga tapetzella* etab.); delako tximeletaren beldarra. ikpipi; zeden.

Gaueko **sits** hauek antena ondo garatuak eta izpi edo ile ugarikoak izan ohi dituzte. J.M. Olaizola "Txiliiku"

Gauetzko tximeletak -gehienetan **sitsak** dei daitezkeenak- direla usainaren bidez orientatzeko behar eta ahalmen gehiena daukatena. J.M. Olaizola "Txiliiku"

Gizakia pipiak jotako zura bezala birrintzen da, **sitsak** jandako soinekoa bezala. Elizen arteko biblia

Ezin finagoa du oihala, **sitsak** jaten ez duena. Anjel Lertxundi

Sitsak jandako arropak bezala galduko dira nire etsai guztiak. Elizen arteko biblia

Sitsek sekula ez dute arroparik jan; **sitsen** larbak dira jertseak eta alargunen fajak jaten dituztenak. Unai Elorriaga

- **Sitsak** zaharren etxeetan baino ez dira egoten. Unai Elorriaga

Gero **sitsak** jotako somier zahar baten gainean ibili nintzen jauzika. Berria - Kultura

Izeba Petuniak lizundutako burusi bakan batzuk aurkitu zituen bigarren gelan eta Dudleyrentzako ohea prestatu zuen **sitsak** jotako sofan. Iñaki Mendiguren

Hegoaldera begira egiten badira, beroaren eraginez pipia, **sitsa** eta harrak eta bestelako zomorro kaltegarriak sortuko dira, egurra janez mantentzen direnak. Santiago Iruretagoiena

2 irud/hed

Sits txiki bat da don Rodrigo, arrea eta nerbioa. Unai Elorriaga

3 (hitz elkartuetan)

Sator batek pintatutako paisajeari darion xarma, edo **sits** -beldar batek idatzitako istoriari dariona. Xabier Olarra

Sits -bolaren usain pixka bat dauka. Anton Garikano

4 pipia.

Goikoan, **sitsak** jaten hasitako lauzpabost liburu ikusi zituen. Joxemari Urteaga

Munduko plazan eskegiko dugu lotsagabe halakoa, paperetako **sitsa** beltzek, uhinetako bele are beltzagoek eta Sareko armiarma ezinago beltzek beren bazka izan dezaten. mahai ondoan **sitsak** jota zegoen aulkian eseri zen Harry. Joxerra Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sitsak janda (3); **sitsak jandako** (6); **sitsak jaten** (3); **sitsak jotako** (4)

situatu, situa, situatzen du ad kokatu.

Berauek ere mendebalaren krisi kultural eta krisi politiko azkenbetiko baten kontzientzia larrituaren markoan **situatu** beharko lirateke. Joxe Azurmendi

situazio *(orobat **situazione**) iz egoera.*

Afaria egingo dugu, **situazioaren** urgentziaren arabera. **Joseba Sarrionandia**
Linterna magikoak oraindik bizi gabeko **situazioak** proiektatu ditu. **Joseba Sarrionandia**
Neskatoa lasai zegoen, **situazioa** ederki menderatzeko gauza zela ikusiko bailuen. **Joxemari Iturralde**
Beste **situazio** batean bromatan hartu izango nion ateraldia, baina haren aurpegierak besterik adierazten zuen. **Pedro Alberdi**
Iritsitaokan, ez bainuen ene **situazioneaz** baliatu nahi, poltsatik hirurogeita hamabost sos atera eta eman nizkion kotxeroari. **Koldo Izagirre**
Henryk gero esplikatzan zion, lau haurrideek, handikapik jasan gabe, **situazio** politik erdietsi zituztela, estatuko funtzio publiko ezberdinetan. **Itxaro Borda**
Aitama zaharrak haurrek lortu **situazioneaz** harro ziren. **Itxaro Borda**

situazione ik **situazio**.

situazionismo *iz*

Diskurto dominatzailea desituzuratzeko ariketak onartzen dizkie erakusketaren arduradunak parte hartu duten artelan guztiei, 60ko hamarkadetak **Situazionismoaren** bidegabeko jabetzatik eta testuingurutik ateratzeko estrategiei jarraituta. **Berria - Kultura**

siUX ik **sioux**.

sixtina ik **sixtino**.

sixtino *(orobat **sixtina**) izond sixtotarra.*

Nire atzeko horman ipinitako posterra seinalatu zidan: Kapera **Sixtinoa**, Michelangelo Buonarrotirena. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Michelangeloren freskoak, ordea, Kapera **Sixtinaren** horma oso bat hartzen du. **Josu Zabaleta**
Maxi galdetu zion Ruche jaunak, hura ere lepoa zeharo okertuta baitzegoen, formulari begira, Erroman turistek Kapera **Sixtinoko** sabaiei mira egiten dioten bezala. **Jon Muñoz**
Sixtinako freskoak askoz handiagoak direnez, xehetasun bat aukeratu behar genuen guk. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Txaplata bat izango litzateke gangan **Sixtinaren** kopia bat pintatzea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

sixtotar *izlag* Sixto IV aita santuari dagokiona.

Beherakoa eta Michelangelo Buonarrotiren **Sixtotar** Kapera elkarren ondoan daude liburu honetan. **Berria - Kultura**
Wolfgang Amadeusek hamalau urte bete berri zituela, Erromara joan omen ziren aita-semeak Aste Santurako, eta **Sixtotar** Kaperan izan omen ziren Asteazken Santuan, Miserere famatua entzuten. **Imanol Zurutuza**
Kapera **Sixtotarra**... Treblinkako gas-ganbarak. **Felipe Juaristi**
Ama Birjina **Sixtotarra** ikusi ondoren, oso erraz erabili izan dut, eraginaren eraginez, hitz izugarri bat, hilezkortasun hitza, hain zuzen. **Felipe Juaristi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ama birjina sixtotarra (4)

siziliar 1 *izlag* Siziliakoa, Siziliari dagokiona.

Senakerib sumindu egin zuen bere agintepeko lurren **siziliar** kostan "itsasotiko gizon lotsagabe" heleniko kanpotarren matxinada ausartak. **Iñaki Mendiguren**
Siziliar birjina batek bezala begiak apaltzen. **Jon Muñoz**
Bere garaiari eta etorkizunari buruzko galderak planteatzeko darabil Vincenzo Consolo **siziliar** idazleak nobela historikoa. **Berria - Kultura**
Siziliar doinuak zipriztindutako frantsesez. **Jon Muñoz**
Ekialdeko **siziliar** despotismoarekin. **Iñaki Mendiguren**
Lehen bazen talde **siziliar** abertzale bat, baina gaur egun oso gutxi dira. **Berria - Mundua**
Gazte zela hainbat gizonekin izaniko sexu harremanak bildu ditu idazle **siziliar** gazteak '100 colpi' liburu erotik-pornografikoan. **Berria - Kultura**
Gure aroak baino VI. mende lehenagoko poeta **siziliarra**, Stesikoro Himerakoa, arras estimatua izan zen aintzinate guzian. **Patziku Perurena**
Prakak janzen zituen etxean egoteko, bertan urte batzuk zeramatatzan emakume **siziliar** australiartuen moduan. **Xabier Montoia**

2 (hitz elkartuetan)

Italiar- **siziliar** estatu osoa, Pedroren ondare gisa aita santuek gutiziatzen zutena, [...]. **Iñaki Mendiguren**

• 3 *iz* Siziliako herritarra.

Erromatar Inperioaren ekialdeko probintzietako jendeak arabiar gerra-taldeenganako zituen sentimenduak eta **siziliarrek** Garibaldiren-ganako zituztenak ez ziren batere desberdinak. **Iñaki Mendiguren**
"Awright", esan zuen **siziliarrak**. **Lopez de Arana**
Siziliarrak legez, asko izaten ziren gabonetan etxean: osaba-izekoak, lehengusuak, aitite-amamak... **Xabier Montoia**

siziliera *iz* italieraren Siziliako euskalkia.

Sizilieraz lehenik, italieraz ondoren. **Berria - Kultura**

ska *iz* Jamaikan rhytm n'blues-etik sorturiko musika-estiloa, erritmo bizi eta sinkopatua ezaugarri duena.

Hardcoretik aldentu da, eta reggae, **ska**, dub, dance hall, guaguanco, cumbia eta Balkanetako erritmo beroei bidea eman die *Toulouse* lan berrian. Berria - Kultura

Ameriketako *rhythm n'blues*aren eta Jamaikako tradizioaren erdian hasi zen, bada, bere **ska** eta reggaea egiten. Berria - Kultura

Skaren barruan trebatutakoa da urte luzetan. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

22etan *Maximum kouette* (**Ska** musika) kontzertua eliza aintzinean. Herria

Reggae, ragga, eta **ska** doinuen artean murgilduak segitzen dute. Berria - Kultura

Korroskada Gasteizko "**ska**" talde famatua zen gau hartako izarra. Ramuntxo Etxeberri

Baita ere "**ska**" estiloko "Bizkar Hezurra" taldea, geroxago "Txakun" osatuko zuten musikari zenbaitzuekin. Ramuntxo Etxeberri

Ska ukituko kanta alaia atera zaio, dantzarako oso aproposa. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ska talde (3)

sketch (orobat **sketx**) 1 iz ikuskizun edo emankizun batean tartekatzen den eszena laburra, eskuarki umorezkoa.

Garai batean Frantzia osoa barrez jarri zuen Fernand Raynaud **sketch** bat. Joseba Urteaga

Berbenetan mingaina dantzatzen trebe ziren imitatzailer batzuek, normandiar erara jantzita, **sketchak** egiten zituzten patoisez, jendeak barre egiten zuen. Joseba Urteaga

Sketx batzu, Pantzoren umorearen lekuko direnak, telebixtan ikusten diren horien idurikoak. Herria

Pintura-sekuentzia tradizionalan (gurutze-bidea da hemen ere prototipoa), **sketch** erdi-autonomo bat irudikatzen du irudi bakoitzak. Josu Zabaleta

Horren isla telebistako umore saio bateko **sketchak**: pertsonaia batzuk talibanen antzera mozorroturik ageri dira, euren txano eta bizar luzeekin, eta besteak USAko soldadu barregarri, bandera eskuan, denak ere lelokeriak egiten. Jon Arretxe

2 (hitz elkartuetan)

Lau edo bost **sketch** -marrakiz osatutako kartel bat diseinatuko dut. Iñaki Zabaleta

sketx ik **sketch**.

ski ik **eski**.

skiatu ik **eskiatu**.

skriba ik **eskriba**.

skribatu ik **eskribatu**.

skribatzaile ik **eskribatzaile**.

skribu ik **izkribu**.

slalom ik **eslalom**.

slip (ETCn 35 agerraldi; orobat **eslip** ETCn 9 agerraldi) 1 iz kulero txikia; hankatarrea soilik estaltzen duten galtzontzilloak. ik **eslip**; tanga¹; kulero; braga; galtzontzillo.

Seguru nekien garbitzeko eramaten nion arropa guztia miatzen zuela eta **slipak** kontrolatzen zizkidala hilero. Joseba Urteaga

Slip bat eta kamixeta zeramatzan, halaxe egiten zuen lo gauero. Xabier Mendiguren Elizegi

Alde batera erortzen da izara; elastikoa eta **slipa** baizik ez ditu jantzita. Oskar Arana

Germaniar haietako batek bainujantzi handi-zabal bat zeukan jantzita eta bestea **slip** ñimiño batez ari zen jolasten. Joxemari Iturralde

2 **salva-slip** (corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi) konpresa txikia.

Iritsi nintzenezan gonbidatuen logela atondu zidan, eta gau-mahaian konpresak eta tanpoiak utzi zizkidan otartxo arrosa batean, halako moduz antolatua -plastiko horiz bilduriko tanpoiak erdian eta **salva-slip** zuriak inguruan kiribilduta-, konposizio higienikoak bitxilore bat osatzen baitzuen. ETC-literatura, saiakera

Eta berunezko hitzekin batera, plastikoak, tetra brickak, Coca-cola lata herdoilduak, itotako gorpu baten moduan puztutako **salva-slipak**. ETC-literatura, saiakera

3 **slip-babes** (corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi) konpresa txikia.

Nicok ere barre egiten du, kopak iraultzen ditu eta ko-munera joan behar du txiza egitera; Nandok aukera apro-betxatzen du pixoihal, konpresa eta **slip-babesei** buruzko txistekak kontatzeko. ETC-literatura, saiakera

Hala ere, askotan izen barregarriki edo itsusiak ere zabaltzen dira, itxura batean arazo barik: free tanga izan da espainiar merkatuan **slip-babes** baten izena, nahiz eta espainieraz fritanga guztiz desegokia izan higiene-produktu batentzat. ETC-zientzia, zuzenbidea

slogan (6 agerraldi, 4 liburu eta 2 artikulutan; cf **eslogan** 48 agerraldi, 24 liburu eta 10 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegiaren bi aldaerak azaltzen dira) iz eslogana.

Hormak **sloganez** eta Lehendakariaren argazkiz apaindurik zeuden. Juan Kruz Igerabide

Gaztelerazko esaldiak **slogan** bat dirudi: [...]. Pako Aristi

snifatu ik **e****snifatu**.

snob ik **e****snob**.

snobismo ik **esnobismo**.

snowboard 1 *iz* elurretan ohol baten gainean ibili eta jauziak egitean datzan kirola.

Elur taula erran nahi du azken modako emana den **Snowboard** hitzak. **Herria**

Snowboardeko taulen kasuan sandwich motako material oso arinak erabiltzen dira, baina beti ere poliuretanoa oinarri hartuta. **Berria - Gaiak**

Snowboardeko emakumezkoen erraldoi paraleloan. **Berria - Kirola**

Snowboardeko gizonezkoen eslalomean. **Berria - Kirola**

Gaztetxoek hain gustuko duten **snowboardeko** taulak bi ezaugarri izan behar ditu: arintasuna eta egonkortasuna. **Berria - Gaiak**

Gero eta jende gehiago joaten da neguan eskia edo **snowboard** egitera. **Berria - Euskal Herria**

17 urterekin hasi nintzen **snowboarda** egiten. **Berria - Kirola**

Zein aholku emango zenieke pistetatik kanpo **snowboard** -a praktikatzeko duten lagunei? **Berria - Euskal Herria**

Urtebete eskas darama goi mailako **snowboardean**, eta marka da lortu duena. **Berria - Kirola**

2 (hitz elkartuetan)

Hamar urte baino gehiago joan dira **snowboard** taula lehen aldiz hartu zutenetik. **Berria - Kirola**

Snowboard -cross diziplinan ariko da. **Berria - Kirola**

Puntu gehien lortzen dituzten hamabi **snowboard** kirolariak sailkatzen dira finalerako. **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

snowboard crossa (3)

snowboardlari *iz* snowboard kirolaria.

Beste 39 **snowboardlarirekin** ariko da **Berria - Kirola**

SO 1 *iz* begiratua, behakoa. ik **soako**.

Margolan bati begi zabalik pausatzeko diogu **soa**. **Herria**

Maianak **soa** apaldu zuen eta konturatu zen oinezkoen zebra-pasabidetik hamar bat zentimetrotan zegoela. **Itxaro Borda**

Soa ahal bezain urrun botatzen dut gaineko sarearen artetik. **Filipe Bidart**

Begia itzatua baitzuen ostia eta kalitzari, mixteriozko **so** bat botatzen zuela. **Herria**

Kaperari doi-doi **so** bat botaturik. **Piarres Aintziart**

Soa biltzen zizun, gogo-bihotzak joz eta bereganatuz. **Daniel Landart**

So bat aski ote zen xendra lahartsuan tematzeko? **Itxaro Borda**

Emazteak mutikoaren **soan** abisu antzeko zerbait hauteman zuen. **Elena Touyarou**

Zure niniketan neurekiko erasia irakurtzen dut, ez nazazula erantzun ments abandonatu, bestela bizi osoan **so** horren kezka putzu amilgarri gisa atxikiko dut, damuzko makila: mintza zakizkit oraino. **Itxaro Borda**

Eseritakoan adi begira geratu zitzaizuen Maiza, **soaren** bidez has zitezen eskatuz. **Migel Angel Mintegi**

Bere aurpegiaren betegintzarreak mirespen **soak** bereganatzen zizkion. **Elena Touyarou**

Haren **soa** bainuen gogoan -amodioaren atarikit hartu nuena-, eta ziur bainengoan, **so** haren arabera, Sara ni ikusten ahaleginduko zela. **Joan Mari Irigoien**

Lasai eutsi zion **soari** Maizak, lan zailena egina baitzuen. **Migel Angel Mintegi**

Begi urdin-ilunen **soa**, berriz, gozo-herabea... **Anjel Lertxundi**

Espetxetik epailetara daramatenaren antzera nindoan: **soa** lurrari iltzatua. **Joxe Austin Arrieta**

2 (izenondoekin)

So luze bat atearren arteka batetik, eta gertakari ttipi batzuren lekuko nintzen. **Marzel Etxehandi**

Gérard ere segundu horretaz baliatu da titi artekara **so** labur baten emaitere. **Eneko Bidegain**

Joanto bat-batean itzuli zen zaharo batek zafratu balu bezala, eta Agathari **so** beltz bat bota zion. **Elena Touyarou**

Ondotik pasatzean, zaintzalearen **so** ilun beltzari erantzuten diot ene irriño pollitenarekin. **Filipe Bidart**

So urrikaltsua botaz joan zen behialako bikotea. **Itxaro Borda**

Mahai gainera eman zuen **so** nekatua. **Felipe Juaristi**

Bikote gazteak, ezkontzako argazkiei emana zien bere **so** arretatsua. **Harkaitz Cano**

Deiari erantzunez atera zen emazteak **so** kezkatu batez behatu zien, lehenik Joantori eta, ondotik, elizgizonari. **Elena Touyarou**

Amodioa egiten zutenean, gizonaren **so** uherrak Rachel eta Jacoben herioaren errudun seinatzen zuela iruditzen zitzaion Janinari. **Itxaro Borda**

Isilune bat izan zen, eta laurak elkarri begiratu zioten **so** uherrez. **Karlos Zabala**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gehienetan Heraitze nuen, ene kartiera, behakoaren **so** -mugatza hartzen. **Piarres Aintziart**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Marik ezin izan zuen egon erretore etxerantz saihets **so** bat egin gabe. **Elena Touyarou**

-Argibideak zertaz? -mahai gainean ukitu gabe zeuden libretoa eta grabagailuari zehar-**so** egin zien. **Aingeru Epaltza**

Zibila makurtu, atzera gain-**so** bat eman, gero Dimasi zorrotz begiratu zion. **Pablo Sastre**

• **5 adlag** begira.

Ama Doloretakoaren akuarelazko kopia bat, begi larriak zeru hotzerantz **so** zituela. **Mirentxu Larrañaga**

So dituzue, begiak arma eta uniformeetan itzazturi. Xabier Montoia

Diana **so** ari zitzaion nire hatzen azpiko orriari. Aingeru Epaltza

Bertzeak ez bezala, **so** ari zitzaidan, miruaren behako tinko eta harroaz. Aingeru Epaltza

Zurgina **so** jarri zitzaion. Elena Touyarou

Gaur egun begiak kanpora **so** ezarri ditugu eta munduaren konplexutasunak zorabiatzen gaitu. Piarres Aintziart

Burua altxatu eta ateari **so** emaiten naiz. Filipe Bidart

Burua altxatu eta zeruari **so** eman nintzen. Filipe Bidart

Aitaren begitarteari **so** gelditu zen. Elena Touyarou

Pierra **so** geratu zen: han, euri trebeskariak teiltuak eta loiroa astintzen zituela, buhame taldeak sua atitxatu zuen. Itxaro Borda

Bere ondora iritsitakoan adi-adi geratu nintzaion **so**. Xabier Mendiguren Elizegi

Ezpatari **so** jarraitu zuten begiek beste segundo batzuez. Xabier Aranburu

Kanpoari **so** plantatu nintzen ni ere ixil-ixila, delako neska pollit arrotz haren aldean. Janbattitt Dirassar

6 (aditza ezabaturik)

Bizkarra arin, gorputza lasai, izpiritua usaian baino baketsuago, ezker eta eskuin banoa, umorea gidari, jendeari **so**. Piarres Aintziart

Geldi-geldirik zeuden orain biak, zirkirik egin gabe, bekoz beko elkarri **so**. Jose Morales

Ahoz gora etzanda zegoen, sabaia **so**. Lopez de Arana

Inguruetara **so**, zerbaitek jo ninduen begietara. Aingeru Epaltza

Ezker-eskuin begira zihoan, nesken aurpegiei **so**. Lopez de Arana

Bizpahiru aldiz harrapatu zuen hari zeharka **so**. Elena Touyarou

Bitorrek begiak zabaldu zituen, denei **so**, harriturik. Elena Touyarou

Zaintzale bat atean, beste bat gibelean, hitzik ez, ni **so**, mugitu gabe. Filipe Bidart

Iduritzen zait norbait badela ate zilokatik **so**. Filipe Bidart

Bi buru ikusi zituen, berari **so** biak. Felipe Juaristi

Zeharka begiratzu Mona ikusten nuen, niri **so** zorrotz-zorrotz. Fernando Rey

Baina ez zegoen Irisarri Londresen, Baionan baizik, jauregiko salan isiltasunari **so** eta adi, isiltasuna bere forma geometrikoetan aztertu nahirik. Felipe Juaristi

7 *so-egile* (orobat *soegile*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian so-egile* agertzen da)

Bidaia **so egile** bat da, beti pentsaketa. Piarres Aintziart

Leku xoragarri hauetan ez dakit zer naizen, **so egile** ala argazkilaria. Piarres Aintziart

Pilota plaza haundia bada ere, betea zen mukuru dantzariz eta **soegilez**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

1875eko urtarilaren 23an, batera telegrafoz eta gure **soegileen** mezuez, beldur ginen berri hitza etorri zitzaigun. Txillardegi

Horiek hola, bi terrorismoren mehatxu pean ditakeela orai Espainia daukate **so-egile** aintzek. Herria

Beroa, koloretsua, barokoa eta gordina da Saint Marc en Pintura eta **soegileak** bere gisara sendituz beregana dezake. Herria

Neska gazte bat pasatu da, betan eder eta pollit, eta haren behako zorrotz eta harroak erakustera emaiten du baduela presunak bere edertasunaren berri: badirudi **so** egiten duela, eskuin eta ezker, **so egilerik** badenez karrikan. Piarres Aintziart

M6 gatean emaiten zuten «Popstars», ikusgarri berezi bat, abantxu 5.000.000 **so egile** ukan dituen. Herria

8 *so egin* (orobat *soegin g.er.*) ik begiratu.

Florentek begiak altxatu eta ganga garaiari **so egin** zion. Karlos Zabala

Helduei **so eginez** nabari zen egoera larria zela. Eduñe Elizondo

Hotsak gogaiturik, Raimundo Silvak zeharka **egin** zuen **so**, agiraka eginez bezala. Jon Alonso

Aitzinera **so eginez**, aldiz, hantxe, jadanik, Puente la Reina famatua, gure Gares. Piarres Aintziart

Autoko koadro digitalera **egin** nuen **so**: 99.08.05 01:32 17.5°C. Aingeru Epaltza

Dembak berririo behartu zuen bere burua, haiei **so** ez **egiteko**. Anton Garikano

Bertzorduz urtzen nintzen, begi ilun izarniatu horiek **so egiten** zidatenean. Aingeru Epaltza

Mutilak neskaren begiei **so egiteari** utzi zion. Mirentxu Larrañaga

Alegia eta deusez **so egiten** du, ezker, eskuin, burua sobera mugitu gabe. Michel Oronoz

Matson andreak arretaz **so egin** zion Curtisi. Mirentxu Larrañaga

Estonaturik **so egin** nion eta buruzagiak behako beltz bat bota zidan. Piarres Aintziart

Begi urdinek zuzen **egin** zioten **so**. Iñaki Iñurrieta

Madeleinek begi argi eta hutsez **so egiten** dio. Monika Etxebarria

Beldurrik ez nuela baina borroka alferrikakoa izango zela azaltzeko moduan **so egin** nion. Joseba Sarrionandia

Lelotu antza, belauak dardaraz, ikusi gabe **so eginez**. Juan Garzia

Gure kontrolen helburua gizakien osasunari **so egitea** da. Berria - Harian

So egizue eta ikus nolakoak diren lurraldea eta han bizi direnak, ea indartsuak ala ahulak diren, gutxi ala asko. Jose Antonio Mujika

-So egizue zer gertatuko zaion mihia laxatzen duen zuetariko lehenari. Itxaro Borda

9 (osagaiekin)

Kafe bat hartuko dut, tokiko egunkariari **so** bat **eginez**. Piarres Aintziart

Euskal herrien historia luzeari **so** bat **egitea** askiko zaigu oartzeko azken bi mendeetan, mundu guzian bezala, gure Herrian ere agertu den Estatu-Nazioaren arrakastak baduela ondorioz. Herria

Detektibea begi-bistan azaldu orduko, hortzak estuturik, **so** beltza **egin** zion. Migel Angel Mintegi

Urdai saltzaile ederrak **so** larria **egin** zion. Karlos Zabala

So arretatsu bat **egin** zion txitari eta barrez erantzun zidan: [...]. Gotzon Garate

10 *so egon*

Yhwh-ren begiak **so daude**. **So nago** begi bistan dudana hormairudi eder bati. Xabier Kintana

Gizon gaztea eskumuturreko erlojuari **so zegoen**, ordua irakurtzen trebatu nahian balebil bezala. Mirentxu Larrañaga

Arbolari **so nago**, idaztea bertan behera utziz. Piarres Aintziart

Zeldari behako bat eman eta leihatilari **so egoiten** naiz. Filipe Bidart

Eni **so zegoen** S.S.aren begia ez zen ez hotza ez beroa. Marzel Etxehandi

Graxi eta Domenga bata besteari **so egon** ziren, etsiturik. Elena Touyarou

Logroñon sartu aitzin, Ebro ibai ospetsuari **so egon** naiz. Piarres Aintziart

Dudarik gabe, **egoten** ahal dun gutun bati **so** gutuna irakurri gabe. Jon Muñoz

Treinetik **egon** nintzen bazterrari **so**. Janbattitt Dirassar

Sugea, bere gorputz meharreko ezpalak kraskaraziz, begietara **so zegokion**. Itxaro Borda

Oroitzaipen zaharretan galduta, negar egiteko gogoari eusten, **so egonez** **so** egin gabe: halaxe zegoen Angelo. Anjel Lertxundi

11 *so eta so adlag*

Mutikoa alderdi guzietara ari da, **so eta so**. Michel Oronoz

Apur bat han egon nintzen, eskualde guzietarat **so eta so**. Janbattitt Dirassar

Bulta luze bat egoten zen zeruari **so eta so**. Daniel Landart

Josepe han zegoen bere tresnari **so eta so**. Janbattitt Dirassar

Auzoak hor dabiltza orain **so eta so**, zerika diren xuxen gazte horiek, euskaldun ala arrotz ote, erakasle ala ofiziale... Herria

12 *so-so adlag*

Ama, tanpez, lurtean belaunikatu zen eta ezkoargiari **so-so** plantatu. Daniel Landart

Geroxago, eni **so-so** egonik, galdatu zidan: [...]. Daniel Landart

Konturatu nintzen, hura eni **so-so-so** zegoela, irri firfira bat ezpainetan. Daniel Landart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adi adi so (11); **adi so egin** (5); **ateari so** (5); **aurpegiari so** (6); **aurrez aurre so** (5); **bazterretik so** (14); **begie so** (5); **begietara so** (74); **begietara so egin** (32); **begietara so eginez** (8); **begietara so egiten** (6); **begietarat so** (6); **behera so egin** (5)

egin nion so (6); **egin zion so** (9); **egin zuen so** (5); **elkarri so egin** (5); **elkarri so geratu** (6); **eni so** (14); **erlojuari so** (9); **erlojuari so egin** (6); **etorkizunari so** (5); **gibelera so** (8); **gizonari so** (6); **guri so** (16)

itsasoari so (7); **jendeari so** (7); **kanpora so** (6); **leihotik so** (15); **munduari so** (20); **neuri so** (8); **niri so** (29)

sabaiari so (7)

so bat (14); **so dago** (15); **so daude** (12)

so egile (17); **so egilea** (6); **so egileak** (8); **so egin** (390); **so egin gabe** (7); **so egin zion** (116); **so eginda** (19); **so eginen** (5); **so eginez** (109); **so eginez gero** (12); **so egingo** (6); **so eginik** (13); **so egiozu** (5); **so egitea** (38); **so egitean** (10); **so egiteko** (44); **so egiten** (250); **so egiten zion** (28); **so egitera** (7); **so egizu** (11); **so egoitea** (5); **so egon** (46); **so egon zen** (9); **so egonez** (7); **so egotea** (5); **so egoten** (5); **so eta so** (24); **so gelditu** (28); **so gelditu zen** (6); **so gelditzen** (5); **so geratu** (60); **so geratu zen** (23); **so geratzen** (5); **so jarri** (13); **so nago** (19); **so nengoen** (7); **so plantatu** (5); **so zegoela** (10); **so zegoen** (29); **so zegokidan** (6); **so zeuden** (12)

telebistari so (15); **tinko so** (7)

zeharka so (7); **zeruari so** (17); **zuri so** (6)

bere soa (8)

soako iz behakoa.

Hortik aurrera, Marysek ez zion hitzik luzatu eta Jakes haren **soakoari** ihes zebilkion. Itxaro Borda

Soakoa uhertzen zitzaion eta zintzur alde korapilatzen. Itxaro Borda

Ez du begiratu ere egin, eta infinituraino luzatu du **soakoa**. Jon Alonso

Ikusi ninduelarik, inguruan eraikia zuen erronda sakratua errespetatzen nuen ala ez segurtatzeko, **soako** geldu urdin bat eman zidan, burua emeki enegana itzuliz. Aurelia

Karrikaren bi aldeetan **soako** panoramiko bat bota zuen Mikelek. Ramuntxo Etxeberri

Beribil zabal dirdiradunean zabilan ixil ixilik lehena... eta harri hausten ari bigarrena izerdi lapetan, elgarri **soako** bat ere egin gabe bat eta besteak. Herria

XVI-XVII. mende berri horietara itzuliz eta gure Herriaren zorteari **soako** bat eginez, [...]. Piarres Xarriton

Bururatu delarik filma **soako** bat eman diot berriz futbolari: beti adosean ziren 0 eta 0. Herria

Euskal literaturari **soako** bat emanez, ohartzen gara, hala ere, mende hondarrean politika gaiak sartzen hasi zirela gure bertso edo olerkietan. Piarres Xarriton

Enetako erratan da orain, mesprezua **soakoetan** berme, tiranoak sustengatzen nituela, ene andrearena jasanezin zitzaidan arren. Itxaro Borda

soaldi iz begiraldia.

Mirarik Julenen **soaldia** sumatu zuen bere gainean. Fernando Morillo

Konduei dagokionez, **soaldi** batez ikusi da, ez bakarrik zorrik gabe, baina ere gainerateko apur batekin gelditzen dela elkarte, ondokoek sailari jarraitzeko gisan. Herria

Segurtasunez irakurri zuen, astiro, eskuizkribuari **soaldirik** ere egin gabe. Juan Garzia

sobatu, soba, sobatzen du *ad* eskukatu.

Ohean sartu dira, larrua larruaren kontra, dena, goitik beherraino elkarri eskainiz, gorputz atal guztiak ukituz, mamituz, **sobatuz**. Pako Aristi

Urrutiik ere **sobatua** ematen zian, festara joandako guztiek eskua bizkarretik pasa izan baliote bezala. Bernardo Atxaga

sobera 1 *adlag* gehiegi.

-Ez dut maite besta egitea **sobera** jaten badut, eritzen bainiz. Menane Oxandabaratx

Sobera bazenek, lanjerrean zinateke. Ramuntxo Etxeberri

Sobera izorratu nauzue eta nahikoa da. Pello Lizarralde

Sobera mintzatzen ari denaren keinu damutua marraztu zitzaion. Aingeru Epaltza

Mintzatzeak **sobera**, darama kaltera. Elizen arteko biblia

Ez da komeni legeari eta ordena gailenari **sobera** begiratzea. Iñaki Segurola

Sobera goretsia nuen nire hizkuntz gaitasuna. Aingeru Epaltza

Sobera txunditua dagoenaren itxura zeukan. Fernando Rey

Etxeok egin baino lehen, joan behar zenuen auzoko lanetara, **sobera** gibelatuak baitziren. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gizonak ezagutu zituen, anitz eta **sobera**, baina ez zuen Man-ekikoa bezalakorik nehoiz dastatu. Itxaro Borda

Hurbildu nintzaion, baina ez **sobera**, izi ez zedin. Aurelia Arkotxa

Hurbildu nintzaion -ez **sobera**, hertsiki debekatua baitzen-. Marzel Etxehandi

Bon, kiroletan aritzen nintzen, **sobera**, nik uste. Menane Oxandabaratx

2 (adizlagunekin)

Sobera fite zoazte! -erasiatu zituen gizon xaharrak. Ramuntxo Etxeberri

Ilehoriari aurpegiatzen zion **sobera** lotsagabe jokatzeko zuela, emakumea izateko. Pello Lizarralde

Egon hein batean, ez **sobera** ezker, ez **sobera** eskuin, ipar eta hegoaren erdi huntan. Herria

Baina kasu, ez **sobera** barna joan, ibil arraposki, ezagutzak poliki-poliki eginez. Janbattitt Dirassar

Gauza bat gorde dut, **sobera** luzaz gorde, eta ene bizi guzia nahasia da. Janbattitt Dirassar

Gibetetik zaitaitea ene ustez ez da on, bainan **sobera** aitzinetik zirelarik ere... Ez duk **sobera** gaizki, leku garbia duk! Menane Oxandabaratx

Emakumeak lehenengo eguneko zapata takoidunak zeramatzen, **sobera** finki estekatutako albornok marradun lodieren azpian. **Sobera** mozko arribatu nintzen, ordea, aspirinak gogoan izateko. [Aingeru Epaltza](#)

Parrokira **sobera** usu joateko aitzakiak asmatzen nituen. [Piarres Aintziart](#)

Gehienetan, ez nintzen **sobera** gaizki konpontzen neskekin! [Ramuntxo Etxeberri](#)

3 (izenondoekin)

Beldurra emateko moduko txilioak egiten zizkieten **sobera** motelak ziren langileei. horiek ez dira makinista batenak, **sobera** lirainak dira zangar horiek. [Pello Lizarralde](#)

Gehienetan kanpotiarrek ez dute **sobera** gustukoa. [Ramuntxo Etxeberri](#)

Sobera ederra da! [Ramuntxo Etxeberri](#)

Tentazioa **sobera** azkarra izan zen eta bere alabaren sekretuak nahi izan zituen ezagutu. [Ramuntxo Etxeberri](#)

Barren-barrenean, halere, ez nintzen **sobera** zoriontsu sentitzen. [Fernando Rey](#)

4 (izenekin, izenaren ezkerrean)

Sobera arrabots! [Ramuntxo Etxeberri](#)

Sobera sari, **sobera** instituzio... [Ana Urkiza](#)

Dena den, **sobera** kiilometra, **sobera** paper, **sobera** telefona. [Herria](#)

Sobera ohointza, **sobera** bortizkeria, **sobera** molde txar, jende ainitz nardatuak dira eta behar da zerbaite egin, zerbaite baino gehiago hain segur. [Herria](#)

Sobera izar fina zara. [Janbattitt Dirassar](#)

Sobera pena handia zuen hezur muinetaraino sartua. [Janbattitt Dirassar](#)

Honenbestez, **sobera** lan egiten duen alferraren fama daukat nik. [Ana Urkiza](#)

Sobera komedia egiten dik. [Piarres Aintziart](#)

Sobera arrotze hautsi ote dituzte, ogi erdi baten hartzeko, ala azken hau ja hor zeno, araberako moleta metatu dute? [Piarres Aintziart](#)

· Hemen badugu aski lan, eta **sobera**, apez eta apezgai abertzale horiekin. [Piarres Aintziart](#)

5 (izenekin, izenaren eskuinean)

Lan **sobera** egiten duzu eta ez zenuke larunbatetan etorri behar. [Aingeru Epaltza](#)

Denbora **sobera** gastatu zuen bilatzen, gainerako jendeak automatikoki heltzen ziren gunera iristeko. [Itxaro Borda](#)

Gauza **sobera**, haietaz taxuzko gogoeta bat egin ahal izateko. [Alberto Ladron Arana](#)

Erokeriak egiten ditu **sobera** duenak. [Menane Oxandabaratz](#)

Gero ikxilimik behar ziren untsa plegatu, xixta **sobera** hartu gabe. [Menane Oxandabaratz](#)

Bularralderik ez eta ipurdi **sobera** zuen. [Itxaro Borda](#)

Isiltasan **sobera** hemen. [Aurelia Arkotxa](#)

Beharbada telesail merke **sobera** ikusia naiz. [Aingeru Epaltza](#)

6 (aditzekin, ezezko esaldietan) asko, askorik.

Ez zitzaidan **sobera** kostatu haren telefono zenbakia zein zen jakitea. [Patxi Zubizarreta](#)

Pixka bat kexaturik, hitz larriak ez baitzuten **sobera** maite. [Ramuntxo Etxeberri](#)

Hala iruditzen zait, Adanek ez zuela **sobera** sentitu paradisuaren galtzea. [Bernardo Atxaga](#)

Barneko harra alhan ari zaio, berak ez baitaki **sobera** zergatik. [Eneko Bidegain](#)

Ez dut ihardesten, eta ez zaitu horrek **sobera** kezkatzen. [Jon Muñoz](#)

Bertzeaz ez nauk **sobera** oroitzen, eskasagoa-edo. [Aingeru Epaltza](#)

Ene izpirituan, idaztea eta marraztea ez ziren **sobera** bereizten. [Ana Urkiza](#)

Nire ustez haiekin ez zegoen **sobera** fidatzerik. [Pello Lizarralde](#)

Donostia maite nuen nik, baina... donostiarrek ez **sobera**. [Txillardegí](#)

· **Sobera** pentsatu gabe erran nuen. [Aingeru Epaltza](#)

Herritik **sobera** urrundu gabe. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

7 soberako izlag

Musikak ez du **soberako** apaingarririk behar. [Joan Mari Irigoien](#)

Soineko estu baten bildutako birbiltasunak eta **soberako** txitxiak nabarmenki astinduz joan zen bezeroarekin. [Migel Angel Mintegi](#)

Soberako pisua hobe lehenbailehen baztertu, Richard. [Harkaitz Cano](#)

Ez, dena eman dut; ez neukan **soberako** indarririk. [Berria - Kirola](#)

Legegileak **soberako** esku-sartzetik ihes egin behar du. [Andres Urrutia](#)

Pepperoni **soberako** pizza bat eta hiru zerbezakada sabeleratu nituen, jatetxe italiar hurbil batean. [Aingeru Epaltza](#)

Estakuru, pitin bat ahalkegarria zaizun hurrentasun **soberakoaren** hausteko. [Xabier Montoia](#)

Hobeto esanda, Inportanteena nekien, **soberakoa** zitzaidan gainerako guztia. [Anjel Lertxundi](#)

Erabaki egin beharko genuke zein kultur arlori buruzko itzulpenak ditugun ezinbesteko, zein **soberako**. [Anjel Lertxundi](#)

Arloetako batean duen gabezia edo **soberakoa** beste batean **soberakoa** metatuz edo gabezia eraginez konpentsatzea. [Iñaki Mendiguren](#)

Ea ez ote den prentsan [...] gaitz bera, ea ez ote diren asko **soberakoak** eta betelanak, ez ote den astun irrati orologoen eta kazetariak eguneroko jardunean darabilten gainezko hori, haborokina, burrusta. [Iñigo Aranbarri](#)

8 soberan (275 agerraldi, 74 liburu eta 119 artikulutan) adlag behar dena baino gehiago izanik, beharrezko ez dena izanik. ik sobra 4.

Orain materiala **soberan**, dirua **soberan**. [Sonia Gonzalez](#)

Deus ez faltan ez **soberan**. ez zen prestatutako paella erraldoi hartarik deus ere **soberan** izan... [Aingeru Epaltza](#)

Eta ohartzen gara, finean, nola amodioaren puzzlean, onenean ere, beti dauden pieza batzuk faltan eta beste batzuk **soberan**. [Joan Mari Irigoien](#)

Harentzat barruko arropa **soberan** zegoen. [Jasone Osoro](#)

Azalpena, hortaz, **soberan** zegoen, baina marka onekotzat jo nuen berak oroitaraztea. [Aingeru Epaltza](#)

Mundua bakarra da, eta leku batean **soberan** dagoena bestean faltako da. [Pako Aristi](#)

Ziudadelako armagizonak gazte eta eskarmentu gabeak ziren gutiz gehienak, eta adorez ez zebiltzan **soberan**. [Aingeru Epaltza](#)

Irudipena daukat, urteetan aurrera, 35etik gora-edo doazenentzat, istorioak ez ote diren **soberan** gelditzen; eurek daukate kontatzeko aski. [Pako Aristi](#)

Estepaz nagusitzeak nomadei hainbeste energia eskatzen dienez, ez zaie **soberan** batere geratzen. [Iñaki Mendiguren](#)

Soberan sentitzen nintzen beren arteko irribarre eta ahopekako jardun gozo gogaikarri haien artean. [Anjel Lertxundi](#)

Denbora **soberan** dugu, ez zaitez kezkatu. [Joxemari Iturralde](#)

Gainerako argibideak **soberan** zituen. [Juan Kruz Igerabide](#)

Emozioa sortzeko, ordea, hamarreko txikiaren 65 silabatatik 63 **soberan** ditu Uztapidek. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Urritasunean dena duzu faltan, aberastasunean oro **soberan**. [Karlos Linazasoro](#)

Sofaren ertz-ertzean zegoen eserita, hanka biak zabalik eta eskuak **soberan** balitu bezala, zintzilik, zurrin. [Harkaitz Cano](#)

Nahi gabeko opporretan, munduko erloju guztiak **soberan** nituen. [Aingeru Epaltza](#)

Bizitza guztian **soberan** edukitako inbarkatzen denak batera baldin baziuko. **Pako Aristi**
Ni ondo sentitzen naiz, oso ondo, Askalena aurkitu dudana jendearen izaerak **soberan** konpentsatu baitu gainerako guztia. **Jon Arretxe**

9 soberazko izlag soberako.

Beren burua engainatzen ez duten guztiek dakiten bezala, esaldi horiek **soberazko** hitz-jarioaz eta distira faltuko irudiez mantentzen dira. **Xabier Kintana**

Nik haatik ez nuen irri egin, beldur bainintzen **soberazko** moldakaizkeria hark ez ote gintuen tradituko. **Jon Muñoz**

Di-da hiltzen zuten jendea sarritan, zeremoniak **soberazkoak** zirelakoan. **Joseba Sarrionandia**

Herra eternalaren edo bihozberatasun **soberazkoaren** artean hautatu behararen karietara. **Jon Muñoz**

10 nahikoa eta sobera ik nahiko 30.

11 aski eta sobera ik aski.

12 sobera egon, gelditu, geratu behar dena baino gehiago egon, gelditu.

Sobera dagoena kentzeko, eta falta dena gehitzeko. **Ana Urkiza**

Lotarako ere tokia **sobera zegok**, bertan gelditu nahi baduk. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Industria Planaren arabera, 239 langiletik 77 **sobera zeuden**. **Berria - Ekonomia**

-Alferreko berbarik ez idatzi - **sobera dauden** adjektiboak, izenlagunak edo hitz-jokoak, adibidez-. **Askoren artean**

Haragi eta ogietarik **sobera gelditzen** dena. **Xabier Kintana**

Niri, bederen, hitz asko eta asko **sobera gelditzen** zaizkit. **Ana Urkiza**

Sobera gelditzen diren haragia eta ogia erre egingo dituzue. **Elizen arteko biblia**

Hark asetzera ino jan zuen eta, halere, **sobera geratu** zitzaion. **Elizen arteko biblia**

-Ez, keak nazka ematen dit, eta areago oraindik erretzaileek -era hartan adierazi zion **sobera zegoela** han. **Migel Angel Mintegi**

Bakar bat ere ez **dago sobera**. **Joxerra Garzia**

13 sobera izan du ad behar dena baino gehiago izan.

Astia **sobera** zuenez, aitek biolin bat ekarri zion alabari, Pragan egina bera, jotzen ikas zezan. **Felipe Juaristi**

Nire hanka zaharrak ia ez dira gauza **sobera** ditudan kiloei eusteko. **Aitor Arana**

Asko bildu zuenak ez zuen **sobera**, ez eta gutxi bildu zuenak ere eskas. **Elizen arteko biblia**

Izan ere, beste horiek guztiek **sobera** dutenetik egin dute limosna; honek, ordea, bere eskasian, bizitzeko zeukan guztia eman du. **Elizen arteko biblia**

Aberatsa izango da beti, baldin eta, bere muga egokian gelditurik, **sobera** duenarekin trafikatzan badaki. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Zabalean **sobera** dutena bi alboetatik zintzilik geldituko da -metro erdia alde bakoitzetik-, egoitza estaltzeko. **Elizen arteko biblia**

Ase itzazu horien seme-alabak, eta utz bezate **sobera** dutena beren haurrentzat. **Elizen arteko biblia**

-da ad Pariseko bosgarren estaietako neska-ganbaretan, ezer ez da **sobera**, asmakizunik ez da eta giroa oso ongi emana dago. **Janbattitt Dirassar**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aise sobera (14); **aski eta sobera** (41); **ez da sobera** (30); **ez dago sobera** (7); **ez dela sobera** (6); **ez dira sobera** (4); **lan sobera** (4); **nahikoa eta sobera** (18)

sobera aise (12); **sobera ardura** (4); **sobera arrabots** (4); **sobera berandu** (5); **sobera berandu gabe** (4); **sobera berant** (4); **sobera berotu** (4); **sobera bortxatu gabe** (5); **sobera denbora** (6)

sobera edaten (4); **sobera erakusterat** (4); **sobera erakutsi** (5); **sobera erran** (4); **sobera ezagutzen** (6); **sobera fida** (5); **sobera fidatu** (6); **sobera fidatu behar** (5); **sobera fite** (6); **sobera gaizki** (6); **sobera gauza** (5); **sobera gelditzen** (4); **sobera goiz** (4); **sobera goizik** (6); **sobera gora** (8); **sobera gostako** (5); **sobera gostatzen** (5); **sobera handia** (5); **sobera harritu** (9); **sobera hartu** (4); **sobera heda** (4); **sobera hurbil** (5)

sobera izan (17); **sobera izanen** (4); **sobera izango** (9); **sobera jende** (17); **sobera karga** (4); **sobera kario** (10); **sobera kezkatu** (5); **sobera kotsadura** (4); **sobera lan** (9); **sobera laster** (8); **sobera luzatu** (17); **sobera luzatu gabe** (12); **sobera luzaz** (13); **sobera luze** (13); **sobera maite** (18)

sobera ona (7); **sobera ongi** (9); **sobera ontsa** (7); **sobera sartu** (8); **sobera sartu gabe** (4)

sobera urrun (25); **sobera urrun joan** (5); **sobera urrundu** (9); **sobera urruti** (4); **sobera usu** (7)

ez legoke soberan (5); **hitzak soberan** (4); **soberan dago** (12); **soberan dagoela** (8); **soberan dagoena** (4); **soberan daude** (8); **soberan dauden** (4); **soberan du** (6); **soberan egongo** (5); **soberan izan** (7); **soberan izango** (4); **soberan zegoela** (5); **soberan zegoen** (7)

soberako apaingarrik (4)

soberakeria iz gehiegikeria.

Aljeriako gertaren kontra, palestindarren alde, eskuin muturraren bai-eta polizaren **soberakerien** kontra. **Herria**

"Lehenbiziko betegintza" eratzen duten gorputz-zereginek eskatzen duten ardura da, eta bereziki horrek ondoan emaztearen eta haurren arreta badakar, eta are gehiago horri bizitzaren **soberakeriak** erantzen bazaizkio, ohitura txar eta portaera gaitzesgarrietatik noraezeko premia natural bihurtu direnak. **Xabier Kintana**

Mesias bezala espero dela esatea **soberakeria** litzateke segur aski, baina igande honetan Maulen taularatuko den *Jesús* pastoralak ikusmin handia sortzen duela zalantzarik ez dago. Uste dut **soberakeriari**, nahiz ontasuna hurbil duen beti, beldur izan behar zaiola halakoetan. **Berria - Kultura**

Ez baitzaie **soberakeriei** amore eman behar, ez bada berehala utzi nahi diren gizonekin. **Jon Muñoz**

soberakin 1 iz zerbaiti dagokiona edo aski duena kendu ondoren gelditzen den gauza. ikgainerako; haborokin.

Otordu baten ondoren, asko igotzen da odoleko glukosa maila, baina, **soberakina** atzera bildu, eta glukogeno bihurtzen du gibelak. Beste partikulekiko hamar mila milioireneko **soberakin** hori hantxe egokitu ez balitz, gure unibertsoa ez zen existituko, edo ez, behintzat, ezagutzen dugun itxura horrekin. **Irene Aldasoro**

Kamioia AEBek duten arma nuklearren **soberakinez** betea dago, Greenpeacearen arabera. **Berria - Gaiak**

Merkatu inguruan aiseago, Rosariok hango **soberakin** eta hondakinen artetik ateratzen baitu eguneroko jana. **Aingeru Epaltza**

Ponpaketa-zikloaren hasierako likido-**soberakina** gorde eta bulkada batetik besterako tartetean emateko. **Irene Aldasoro**

Lurra lantzen edo lanarazten dutenak, fruitu-**soberakina** dutenez, ezerk ez ditu behartzen hurrengo urtean lan egitera. **Iñaki Iñurrieta**

Aisialdian ere, beraz, endreda-makila eta **soberakin** hutsa baino ez zen Wilmarth andereñoa. **Mirentxu Larrañaga**

Garbiketa egin beharko luke: atzoko **soberakinak** plateretan gogortzen, harria gainezka. **Sonia Gonzalez**

Neketan aurkituko dugu horiek baino hizkuntza pedanteagorik eta erredundanteagorik (bide batez, agian **soberakin** horiek bazterteza ez litzateke ona izango komunikaziorako?). **Pello Salaburu**

Ez dira hain juxtu "beroa" eta "ikusgarria" bezalako adjektiboek eginiko kliseak prentsa idatzian komunikazioa bera ezereztatzen eta kazetariaren hizkera loratarazten duten lasto, **soberakin** eta betelan horiek? **Iñigo Aranbarri**

Kopuru honi gehitu behar zaizkio esperimintuetarako hazi ondoren «**soberakin**» gisa hildako animaliak. **Berria - Gaiak**

Soberakina soberakin, alabainan! **Herria**

Zeren, **soberakinak** ere, zilarrezkoak edo urrezkoak direnean, ez baitira izan ohi soberako. **Joan Mari Irigoien**

Eskuliburuan aipatzen direla anitz bekatu mota, eta horrela nabari da batzuk bihotzkoak direla, besteak ahozkoak, egitezkoak edo ohiturazkoak [...] batzuk haragizkoak, besteak izpirituazkoak, batzuk eskasez eginak, besteak **soberakinez**. **Piarrés Xarriton**

2 (izenondo edo adizlagun gisa)

Erabaki hori hartu zen inglesa sobera sartzen ari zela denetan eta frantsesaren kaltetan zela ingleskeria **soberakin** hori. **Herria**

Haur hori bederen ez da zakur ume **soberakin** baten pare karrikan abandonatua izanen. Material baliagarriak (esate baterako, glukosa eta bitaminak eta ur gehiena) atzera

odolera bidaltzen dira, eta hondakinak eta beste substantzia **soberakin** batzuk, berriz, eta ur pixka bat, kanpora garraiatzen dira. Elena Touyarou

Sophie-k ez daki nola kasatu behar duen sorbalda goxotasun **soberakin** batekin tinkatzen dion esku bortitz hori. Eneko Bidegain

Jendeari gomendatua zaio **soberakin** lituzkeen jantzi, mihise, mahai gaineko, zerbita eta erridauek biltzea, eta ezartzea ondarkin zaku batzuetan. Herria

Arras **soberakin** sentitzen nintzen eta, ene popularean bihotzaren joaldien ildotik, ametsaren arorari uztartu nintzaion. Itxaro Borda

Horiek guztiak iraganda, hondarrak baizik ez ziren gelditzen **soberakin**. Aingeru Epaltza

3 (ekonomian)

Epe luzera, egoera horrek, berez, **soberakin** bat eragin beharko luke truke korronteen balantzean. Koro Navarro

Lan-banaketa horren ondorioz sortzen ziren **soberakinak** ez ziren merkataritza-eremuak zabaltzeko erabiltzen, azpiegiturazko lan handiak [...] eraikitzeko baizik Ekoizpenaren antolamendu autarkiko horrek, **soberakinak** sortzen badira, lekutxo bat uzten dio beti trukeari, eta **soberakin** horiek beste unitate batzuek ekoizturiko ondasunekin truka daitezke. Koro Navarro

Nekazaritzatik edo meatzaritzatik sortutako **soberakinez** jabetu nahia. Aldi berean, enpresen **soberakinen** pisua %37,2tik %40,6ra igo zen EAEko ekonomian. Koro Navarro

Balantza horrek **soberakin** handiak eman zituen 1950eko hamarraldian, baina negatiboa bihurtu zen 1971n. Koro Navarro

Politika ekonomikoaren orientazioa, oro har, murriztailea zen; horren ondorioz, **soberakin** korrontea mailarik altuenera iritsi zen 1989an. Koro Navarro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Dolar- **soberakinak** ez zituzten munduko gainerako banku zentralak eskatzen urre bihurtzeko; truke-erreserba moduan gordetzen ziren eta Estatu Batuetan inbertitzen ziren. Koro Navarro

Persiar Golkoko herraldeetako aurrezki- **soberakinak**. Koro Navarro

Ekialde Urrunak ez du bere kideen manufaktura askorik inportatzen, eta horren ondorioz merkataritza- **soberakin** aski handia sortzen da. Koro Navarro

Europak ez zituen bere biztanleria- **soberakinak** bakarrik esportatzen. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

soberakin hori (3); **soberakin horiek** (5); **soberakina soberakin** (3)

lardia soberakina (3); **soberakina soberakin** (3); **ur soberakina** (3)

soberakindu, soberakin(du), soberakintzen da *ad* soberakin gertatu.

Funtsean, jendea **soberakindu** ere da, franko egon dira kanpotik so, zero gardenaren azpian eta sartu ezinean. Herria

Mahasti gazteak direla, 10-15 urte gehienek, emankorrenean eta jada sendi dutela **soberakintzen**, joanden urtean jada bildu gabe utzi behar izan dituztela ainitz hektara. Herria

soberakintasun *iz* soberakin gertatzen dena.

Soberakintasun horien ondorioak ez dira uste bezain larriak izan. Herria

Gero **soberakintasun** batetik beste soberakin batera pasatzea, ez zen hori ere soluzioa. Menane Oxandabaratx

Hor **soberakintasun** batzu baziren. Menane Oxandabaratx

soberakintxo *iz* soberakin txikia.

Antimateriarekiko **soberakintxo** horrek irau du, hain zuzen -hamar mila milioiren baten gorabehera hortxe-, eta, handik hiru minutura, atomo-gune arinak eratu; gero, milioi bat urteren buruan, atomoak; askoz ere geroago, izarretako elementu astunak. Juan Garzia

soberania¹ *iz* gehiegia.

Soberaniatik hurbilago doitasunetik baino. Joan Mari Irigoien

Solasaren beroan hitzak hantzen eta hanpatzen zituela, gehiegikeriak eta **soberaniak** gainez eginak, [...]. Joan Mari Irigoien

Neure sofrimenduak maiteko ditut; neure amodioaren **soberania** frogatuko didate. Jon Muñoz

Ez dut fitsik entzuten, sorgortua nauka **soberaniatzko** Babcock Wilcox motor horrek, trasatlantiko batean nago makinista. Koldo Izagirre

soberania² *iz* subiranotasuna.

Erregearen, estatuaren eta **soberaniaren** jainkozko jatorriaren arteko identifikazioak bere baitan zekarren, orokorrean, boterea monarkaren eskuetan pilotzea. Juan Martín Elexpuru

Erortzen denaz axolatu gabe, monarkia, errepublika edo **soberania** izanik ere, arima deabruari saldu behar badiote ere, beren interes bakarra aberastea duten haiek ditut gogoan. Elena Touyarou

ETAk bost irtenbide desberdin posible arrazoitzen ditu **"soberaniaren** ikuspuntutik": [...]. Joseba Zulaika

Guk, gure aldetik, onartu dugu uko egin behar geniola gure **soberaniaren** apur bati eta, besteek beren aldetik, berdin egin dute. Piarres Xarriton

Gatazka politikoaren muina euskal herritarren erabakia errespetatzean datzala adierazi zien Espainiako nazioaren **soberania** bakarraren ordezkarien aurrean, eta subiranotasun subjektuen arteko talka agerian utzi zuen. Berria - Harian

2 (hitz elkartuetan)

Errusiak XVIII. mendeko ideiak muinetaraino buruan sartuak ditu, hots, Estatu **soberania** absolutuarenak. Piarres Xarriton

Gure gizartea eraldatzeko helburuak lortze aldera ari gara, baita gaur ukatzen dizkiguten **soberania** kuotak erdieste aldera ere. Berria - Euskal Herria

soberaniazale *izond* soberanista.

Indar abertzaleek sustaturiko ekimenak eta foro **soberaniazaleak** bultzatzea eta/edo haietan parte hartzea erabakitzen du. Berria - Euskal Herria

soberanismo ik subiranismo.

soberanista ik subiranista.

soberano ik **subirano**.

soberanotasun ik **subiranotasun**.

soberasko ik **soberaxko**.

soberatasun *iz* gehiegikeria.

Ez zuten alferrik esaten lehengo zaharrek pertsona logura antxean, gose antxean eta diru-falta antxean ibiltzen dela ondoena, eta ez -gehitzen dugu gaur- ongizatezko deritzan gizarte honek saltzen dizkigun orotariko litxarrerien gaindiduran; aniztasunean eta **soberatasunean**; asetasunean eta aspertasunean **Iñaki Seguro**

soberatu, sobera(tu), soberatzen **1** du *ad* soberakin gisa gelditu. ik **sobratu**.

Duela bi aste hemen berean kondatzen ginuen jakzo arno ainitz **soberaturik** mahastizainak arrangura zirela Frantzia behere hortan. **Herria**

2 (era burutua izenondo gisa)

Biltzarretan kide guziek behar zuten aurkitu eta huts-egiten zuenak, 50 zentimaren zigorra behar zuen pagatu, nun ez zen arrazoien **soberatu** baten jabe. **Herria**

Baina **soberatu** nabarmenaren azpian, egia: Jazinto Rivas "putetxeko pianista" izan zen. **Koldo Izagirre**

soberatuki *adlag* aski eta sobera.

Manatu nion ezen diru segura nahi nuela eta ez zedila egiteko arrikutsuetan bentura, zeren **soberatuki** bizi baikintezkeen dirutza haren interesetarik, **Joan Mari Irigoien**

soberaxe *adlag adkor* soberaxko.

Aldiz debeiatzen balin bazira, horrek erran nahi dū istorian ez zirela sartū, kalakan erauntsi dūzūla **soberaxe**, haria galdūrik, edo ũngūrukoen kalakek nahasi zūtūela.

Herria

Jinko honaren **soberaxe** tentatzea. **Herria**

Irakurlearen minberatasuna **soberaxe** kolpa lezaketen xehetasun ezinago lazgarrien abar luxe esateko baino ixilpean uzteko hobia den bat. **Iñaki Seguro**

soberaxko (*orobat soberasko*) *adlag adkor* gehitxo.

Arbelbide **soberaxko** baikorra agertu zela dio Urricarietek. **Xipri Arbelbide**

Soberaxko edaten ere du; eta edana sartzen delarik etxerat, kasu! **Janbattit Dirassar**

-Duela aste pare bat, larunbat batez, **soberaxko** edan nuen, eta gauza batzuk erran nituen, isilik egonik hobeko bainuen. **Elena Touyarou**

De Villepin horrek ez ote du berak **soberaxko** erakusterat emaiten kargu hori gogotik har lezakeela? **Herria**

Bestalde ez ote diren zergak **soberaxko** emendatuko. **Herria**

Atzo **soberaxko**, gaur gutixko. **Aingeru Epaltza**

Biok egin genuen irri, ozenago eta luzeago hark, bertzelako batean **soberaxko** idurituko zitzaidan maneran. **Aingeru Epaltza**

"Denbora" deitzen badud badirudi orain dela bi mila urte gertatukoaz ari naizela eta hori ere **soberaxko** da. **Pello Salaburu**

Soberakina soberakin, **soberaxko** bazela pentsatu dukete Goncourt Sariko epaileek, saria eman baitiote Weyergans jaunari. **Herria**

Kanpotar bat lur hartaz, eta haren biztanleetaz, gutiespenekin mintza zedin **soberaxko** zen. **Elena Touyarou**

soberbia *iz* hantustea; harrokeria.

Jota utzi zuen kolpea onuragarri izan zela agertzeraino zeraman **soberbia**. **Juan Garzia**

Orobat esaten zuten gaiztoa ez izatea **soberbia** satanikoa zela. **Juan Garzia**

Soberbiatzko egintza nabarmena. **Juan Garzia**

soberetsi, soberets, soberesten du *ad* garrantzi gehiegi eman.

Soberetsi ditugu, beharbada, bide horretan Hussein egiten ari zen urratsak. **Berria - Mundua**

sobiet 1 *iz* Errusian, 1917ko iraultzaren garaiko langileen edo soldaduen ordezkarien batzordea.

Bezperan, hiriko **sobieteko** idazkariarengana joana nintzen eta ebakuazioaz galdegin nionean, emakumea haserre bizian jarri zitzaidan. **Felipe Juaristi**

Rollebonen iloba, 1810ean tsarraren poliziak eraila, haren paperak bahituak eta artxibategi sekretuetara eramana, eta ehun urte geroago, **sobietek**, botereaz jabetu ondoren, Estatuko liburutegian utzitakoak; bertatik ostu nituen nik 1923an. **Monika Etxebarria**

Hego Osetiako **Sobiet** Gorenak Ipar Osetiarekin batzeko erabakia onartu zuen. **Berria - Mundua**

1973an Politburoan sartu eta **Sobiet** Goreneko Presidiumgo lehendakari izan zen. **Bernardo Atxaga**

1917: Tashkenteko **sobieta** abian. **Berria - Harian**

Egun hartan Petrogradoko herriak, **sobietetan** antolatuturik, Petropavlovski gotorlekua hartu zuen. **Koldo Izagirre**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sobiet Errepublikak Sozialisten Batasuna, hots, "Langileriaren Aberria". **Piarres Xarriton**

Uzbekistan Turkestango **Sobiet** Errepublikak Sozialista Autonomoaren zati bilakatu zen. **Berria - Harian**

Sobiet iraultzak utopia berri bat sortu zuen munduan, gizarte justu eta klaserik gabeko baten utopia alegia. **Pello Salaburu**

Sobiet iraultzaren sasoiaren «sentimenei loturiko artea» nagusitu zen. **Berria - Kultura**

Estonia, itxuraz, beste errepublika bien aldean **Sobiet** garaiko azala galduen duen izaki gaztea da. **Edorta Jimenez**

3 Sobiet Batasun (**193** agerraldi, **19** liburu eta **91** artikulutan) Sobietar Batasuna.

Geroago ere berriz eragin erusian, hau da, ez ja Erusian, **Sobiet Batasunean** baizik, egunkari handi bateko mandatarari. Matias Múgica

Begira zer gertatu den garai bateko **Sobiet Batasunaren** barruan zeuden herrialdeekin. Berria - Euskal Herria

Elurretako Lehoiabarra proiektua gauzatu zuen **Sobiet Batasun** ohian 7.000 metrotik gora dauden bost mendiak igota. Berria - Kirola

Mundu Gerraren amaieran, 1944an, Estonia **Sobiet Batasuneko** errepublika sozialista sobietar bat gehiago bihurtu zen. Berria - Kultura

Txekoslovakian, **Sobiet Batasuneko** agintari komunisten kontrako mugimendua sortzen da, tankeek isilarazten dutena. Pello Salaburu

Sobiet Batasuneko KGBko saila. Koro Navarro

1970eko hamarkadan Bulgariako eta **Sobiet Batasuneko** atletak hasi ziren kreatina kirolean erabiltzen. Berria - Kirola

Sobiet Batasunak, edota Maoren Txinak eragin oso negatiboa izan zuten ingurumenean; estalislalista, nolabait esanda. Iñaki Heras

Jakina, **Sobiet Batasunean** zer, eta huraxe aplikatzen zen haren mendeko herrialdeetan. Juan Garzia

Sobiet Batasunaren literaturaren historian gehiago dira atxilotutako, erbeste-atutako, tiroz jotako idazleak, etxean lasai-lasai idatzi dutenak baino. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sobiet batasun (17); **sobiet batasun ohian** (4); **sobiet batasun ohiaren** (4); **sobiet batasun ohiko** (5); **sobiet batasuna** (26); **sobiet batasunak** (21); **sobiet batasunaren** (35); **sobiet batasunaren artean** (3); **sobiet batasunari** (3); **sobiet batasunean** (23); **sobiet batasuneko** (47); **sobiet batasuneko armadak** (3); **sobiet batasuneko errepublika** (3); **sobiet batasuneko kide** (3); **sobiet batasuneko presidente** (3); **sobiet batasuneko zinema** (3); **sobiet batasunera** (7); **sobiet batasunetik** (8); **sobiet errepublika** (3)

sobietar *(orobat **soviatar** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **sobietar** agertzen da)* **1 izlag** sobietei dagokiena; Sobietar Batasun ohiari dagokiona.

Stalin, eta, harekin batera, **sobietar** agintari guztiak, Estatua, Alderdia, justizia eta prentsa. Juan Garzia

Sobietar politikaria, 1909-1989. Bernardo Atxaga

-Kim Philby **sobietar** espia ospetsua Gernikan izan zen, hara! Edorta Jimenez

Afrikako eta Asiako herrialdeak hirugarren mundukoak deiturikoak kezkatuta zeuden, AEB Ameriketako Estatu Batuak eta SESB **Sobietar** Errepublikako Sozialisten Batasuna garatzeko bidean zeuden herrialdeak kontrolatu nahian zebiltzalako. Berria - Harian

Kirgiztan estatua **Sobietar** errepublika ohi bat da, bost milioi herritarrekin arunt Asiako aldean kokatua. Herria

Georgiako errepublika **sobietar** ohira bidaliko zuela. Iban Zaldua

Titoren komunismoak ez zuen ondarrerokotz **Sobietar** menpekotasuna onetsi eta 1949 an elgarren arteko haustura egin zuten Stalin eta Titok. Herria

Stalinen eta **sobietar** botere guztiaren adostasuna eta laguntza. Juan Garzia

Lana argitaratzeak kalte handia egingo dio komunismoari, alegia **sobietar** botereari, **sobietar** herriari. Felipe Juaristi

Fisikari **sobietar** gazteek muintaraino miresten zaituzte. Fernando Morillo

Sobietar blokearen hondamendiarekin batera, kapitalismoak zuen eragozpen handienetako bat desagertu zen. Koro Navarro

Garai **sobietarreko** zurruntasuna eta estilo uniformeak. Berria - Kultura

Afganistango **sobietar** inbasioa. Koro Navarro

• **2 iz** Sobietar Batasun ohiko herritarra.

Errusiarra eta **sobietarra** naiz, ezer izatekotan. Felipe Juaristi

Amerikarren eta **sobietarren** arteko Gerla Hotzaren ondorioz. Piarres Xarriton

Mundu Gerran, 1939ko abuztuan, **sobietarrek** inbaditu zuten Estonia, Sobietar Batasunak eta Alemania naziak egindako tratua dela eta. Berria - Kultura

Sobietarrek erasoak jo eta milaka lagun hil ziren [Hungarian]. Berria - Mundua

Diktadoreak Gustavo Duran **sobietarren** agentea eta homosexuala dela haizatzeko agindua ematen du. Edorta Jimenez

Sobietarrak xakean munduko onenak ziren, baina Brooklyneko mutilak erraz gainditu zituen denak. Berria - Kirola

Beldurrez josi zuen **sobietar** oro. Fernando Morillo

Beste alde batetik, ehunen bat **sobietar** genetista, aurpegiak zorrotz, besoak gurutzaturik, harri eta zur mezatan egoteaz. Juan Garzia

3 Sobietar Batasun (***72 agerraldi**, **11 liburu** eta **18 artikulutan**)* Errusiar inperioan 1917an sortu zen estatuaren izena. **ik sobietar 3.**

Sobietar Batasuna eta Estatu Batuak K.o. 1956an elkarren aurrean aurkitu ziren, lur gainean bizirik zirauten bi botere handi bakar gisan. Iñaki Mendiguren

1940an **Sobietar Batasunak** gerra deklaratu zion Finlandiari. Iban Zaldua

1957an **Sobietar Batasuneko** Atzerriko ministro izendatu zuten. Bernardo Atxaga

Orduan Kubaren eta **Sobietar Batasunaren** arteko harremanak onak ziren eta sarri joaten omen zen Kubara. Edorta Jimenez

Béla Kun-ek gidatutako gobernu iraultzaileak 133 egun iraun zuen, Errumaniak Hungaria inbaditu eta **Sobietar Batasunera** ihes egin baitzuen Kun-ek. Urtzi

Sobietar Batasun ohiko lan esparruetan egin ziren gehiegikeriak ahaztu ez zitezen sortutako erakundea. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errepublika sobietar (3); **sesb sobietar errepublika** (4); **sobietar batasun** (4); **sobietar batasuna** (13); **sobietar batasunak** (12); **sobietar batasunaren** (14); **sobietar batasunari** (3); **sobietar batasunean** (8); **sobietar batasuneko** (11); **sobietar batasunera** (4); **sobietar blokearen** (4); **sobietar errepublika** (12); **sobietar errepublika sozialisten** (8)

errepublika sozialista sobietarra (3)

tropa sobietarrak (6)

sobietarren aurka (4)

soldadu sobietarrez (3)

sobietiko *izond/iz* sobietarra.

Armada **sobietikoak** Berlin hartu zuenean. Koldo Izagirre

Atleta **sobietiko** batek ehun metroak hamar segundotan egin zituen, baina erakunde internazionalak ez zioten marka ametitu. Joseba Sarrionandia

Gauza ohartgarria da, hamar herri horietarik zortzi egonak direla, azken gerlatik landa, erruso **sobietikoan** aztaparretan. Herria

Eurak ehiza-hegazkin **sobietikoak** ekarri ebezala. Lutxo Egia

Maisu eta maistra askok pedagogia **sobietikoaren** eta lengoia separatistarekin lan egin zutela esan zuen maisu berriak. Joseba Sarrionandia

Livornon ginen, gomutan daukat **sobietikoak**. Laika txakurtxoa espaziora bidali zutela zekartela izparringi guztiek. Koldo Izagirre

sobornaezin *izond* ezin sobornatuzkoa.

Bezatzaila [...] adarra jo besterik egin ez zien morroi gogor **sobornaezina**, horratz orain, begiak malkotan blai. Harkaitz Cano

Sapa **sobornaezinak** tantez bete du gidariaren aurpegia, eta ez dakiela erantzun dizu, hor ondoan Leroy Merlin bat dagoela, bertan ere altzariak eta etxerako gauzak saltzen dituztela. Eider Rodriguez

sobornagaitz *izond* sobornazen zaila, ia sobornaezina.

Jende xumearen oso gainetik ibiltzen diren intelektual **sobornagaitz** batzuek, arazoa "razionalizatu" edo "objektibatu" nahita, bizia bizia dela, esango dizute, eta hilketa guztiak berdinak eta berdin gaitzesgarriak direla. **Joxe Azurmendi**

sobornagarri *izond* soborna daitekeena, sobornatzeko modukoa.

Zuzendari literario txarra hazela emango zinan, sentimenduen bidez **sobornagarria**. **Jon Alonso**

sobornatu, soborna, sobornatzen 1 du *ad* erosi, eroskeria egin.

Zaindaria **sobornatuz**, René hura salbatu zen, eta kontzentrazio-eremutik bizirik atera ahal izan zen. **Iban Zaldúa**

Sobornatu egin dugu... baina ez kendu begirik gizon horri. **Lopez de Arana**

Eta, badaezpada, Zurrutas **sobornatzeak** ere ziurtatzen zigun helburua, denak Bilbora begira egotea. **Josu Landa**

2 (era burutua izenondo gisa)

Sobornatuaren begirada irribarretsua ikusi eta berehala ohartzen da gehiegizkoa dela eta hanka sartzea konpontzen saiatzen da: kanbioak eskatzen dizkio. **Harkaitz Cano**

sobornatzaile *izond/iz* eroskeria egiten duena.

Sobornatzaile hasiberri baten istorioa kontatzen da bertan. **Harkaitz Cano**

soborno *iz* eroskeria.

Borreroak ez du eskupeko edo gabonsaririk onartzen; are gutxiago **sobornorik**. **Karlos Linazasoro**

Bere burua setiatuta ikusi zuenean, txokolatea eskaini zion Mariak Lucasi, amore emateko eta hilerrira joateko: txokolatearen **sobornoa**. **Unai Elorriaga**

Kunderari konpromisoa eta ausardia eta zorrotasuna txalotzen zizkiotenek **soborno** triste bat eskaintzen diote beste honi. **Xabier Mendiguren Elizegi**

sobornozale *iz* sobornoen zalea dena.

Heroien gose zen agure **sobornozale** eta mozkortia, ordurako egitandiaren eta pairakortasunaren hazia ariman zeraman emakume lizuna, eta gizona. **Jose Morales**

sobra 1 *adlag* sobera, gehiegi.

Batzuetan Ainararen etxera deitzen zuela, Txatxoz galdezka, nahiz jakin behar zuen, **sobra** jakin ere, Txato jada ez zela Ainararen etxean bizi. **Jon Alonso**

Errege guzietarik eztena eta amaltsuena - **sobra** ezti eta amaltsua, ezen bortitzago izan balitz, bere eginbideak hobeki beteko zituen. **Xipri Arbelbide**

• 2 *iz pl* hondarrak, geldikinak.

San Juan suetarako etxean **sobra** bila ari nintzela topatu nuen amak kendutako nire metalezko pistola. **Joseba Sarrionandia**

Sutara bota genituen sanjuan sobrak, aurreko urtetik sabaian sikatzen egondakoak, **sobra** handirik ez zegoen arren. **Joseba Sarrionandia**

3 *sobrado izlag* soberako.

Zenbat ere gauza zentzugabe eta **sobrado** egiten zituen, denak iruditzen zitzaizkidan niri natural askoak eta ezinbestekoak. **Matías Múgica**

Musuen dosifikazio hura: beti musu baten faltan, eta "ilun dago hemen, Lucas" eta "hobeto" eta "ez, hemen ez, gero, Lucas"; **sobrado** musurik ez, dosifikazioa beti. **Unai Elorriaga**

4 *sobran* (102 agerraldi, 29 liburu eta 30 artikulutan) *adlag* behar dena baino gehiago izanik, beharrezko ez dena izanik. ik sobera 8.

Gainera aterpea geneukan, nahikoa egur sutarako, janaria **sobran** jakitegian... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Kontakizun minimalistetan, "**sobran**" dagoen guztia ezabatu egiten da, kontatzen diren gauzetatik nahiz kontatzeko modutik. **Koro Navarro**

Baina nire tokia ez dago inon ere; **sobran** nago. **Monika Etxebarria**

Txilintxo hauek **sobran** daude hemen. **Askoren artean**

Klinikek enbrioiak **sobran** gordetzen dituzte ernalketa saioek hainbatetan huts egiten dutelako. **Berria - Gaiak**

Ez dute erabat lortzen **sobran** ez sentitzea. **Monika Etxebarria**

Beste asmazio guztiak **sobran** ditu, edo eskas. **Patziku Perurena**

Oslora zihoala esan zidan, olio eta kortxoak garraio, baina denbora **sobran** zuenez, Kopenhagen gelditu zela, derrigorrezko konponketak egitera. **Felipe Juaristi**

Ez da existitzen, ez baitu ezer **sobran**: gainerako guztia da **sobran** dagoena haren aldean. **Monika Etxebarria**

Batzuei kontzientzia nazionala falta zaie; nik **sobran** daukat. **Iñaki Segurola**

5 *aski eta sobra* ik aski.

6 *nahikoa eta sobra* ik *nahikoa* 31.

7 *sobra ere* (*orobat sobrare*) itxuraz, antza denez.

Idazlearen hilketan, **sobra ere**, ez zegoen argitu beharreko ezkutukirik. **Joxean Agirre**

Sobra ere bere amorantearen aitak arreglatuko zuen horrela. **Matías Múgica**

Badaki bai, **sobra ere**, ondorio ekaitztsuak inguratzen. **Pello Zabala**

Baina Pedromari parte txarrekoa izan eta, **sobra ere**, guri hasiera-hasieratik antzeman zertan genbiltzan, eta... **Patxi Zubizarreta**

Sarjentuak irizten zion bera ordurako nahiko su itzalita zegoela bere bizitzan, eta **sobra ere**, berriz larrua suari eskaintzen hasteko. izan ere aurrean hainbat baso hustu edo erdi hustu zeuzkaten, nahiz eta haiak **sobrare** usteko zuten bakarra edan zutela. **Jon Alonso**

Bizitza bera ere irautea besterik ez baldin bada, motela da **sobra ere**, ez? **Berria - Kultura**

8 *sobra izan* da/du *ad* sobera izan.

Zein dugu hortaz, zinetan **sobran** dena, publiko hutsean oinarritutako gizarte eredu honetan, artista edo publikoa? **Patziku Perurena**

Nik dirua **sobra** dut. **Matías Mujika**

-Hi ez hago ongi -esaten dio Jesus Mariak-, **sobra ere** sekretu garratzen bat gordetzen duk hik. **Pablo Sastre**

Gu beti kejo eguzkiarekin: eskas ez badugu **sobra**. **Patziku Perurena**

Ez zitzaioala ez koma bat falta ez **sobra**. **Ramon Saizarbitoria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sobra ere (14)

sobran dago (3); **sobran egonen** (4)

sobrakin *iz* sobra dagoen gauza.

Ripiorik gabeko soneto bat izaten da, eskuarki, baina oso-osorik ripio hutsa dena: hots, **sobrakin** bat, alferrikako den zerbaiz. **Juan Garzia**

sobrante 1 *izond* sobran dagoena.

Negu gorrian esne **sobrantea** berotu, zopak egin, eta behin baino gehiagotan bota izan dizkiegu espaloira. **Patxi Zubizarreta**

Horretarako ari dira sua egiten kartoizko kutxa **sobranteekin**. zuk dena eskas duzu, nik dena **sobrante**. **Jon Arretxe**

Bisitariak nekez ulertzen diote, arnasa ez baitu **sobrante** eta hortzik gabe dago gainera. **Xabier Etxabe**

Atleten gorputzen aldean guri **sobranteak** tokatu zaizkigu banaketa orokorrean. **Joseba Sarrionandia**

2 (adizlagun gisa)

Sobrante gelditutako pusketak hurrengo urterako gordeko ziren. **Pello Zabala**

Eta ez denbora **sobrante** daukadalako, ez horixe. **Xabier Mendiguren Elizegi**

sobrare ik **sobra** 7.

sobratu, sobra(tu), sobratzen 1 da *ad* soberakin gisa gelditu. ik **soberatu**.

Nire gurasoei ez zitzaizen askorik **sobratuko** hileko soldatetik, baina **sobratzen** zen apur hura gordetzen ohituagoak ziren gastatzen baino. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Sukaldariak esku ona zuen haietarako, eta Sawyer jatetxean ez zen behin ere **sobratzen** saltxitxarik. **Anton Garikano**

Antonio Musu-tristeren azalpenei kasu egitera, guti batzuk baizik ez ziren **sobratu**. **Aingeru Epaltza**

Ez zitziola inch bat ere **sobratzen**. hain zapore gaitza zuten, ezen uko egin bainion **sobratu** zena saltzeari. **Bernardo Atxaga**

Igandean **sobratutako** arrozenea jaten hasi zirelarik begietara behatu zion. **Koldo Izagirre**

Sukaldariak beti gordetzen dizkie **sobratutako** ogi pusketak. **Bernardo Atxaga**

• 2 du *ad* aurreztu, aurreratu.

Konponduko dugu dirua **sobratzen** dugunean. **Bernardo Atxaga**

· Egin beza berorrek, etxekoandre, mantarren batzuk **sobratzeko** moduak, norberak behar duena ez da-eta faltatuko, nik ere min pixka bat bai baitut nire gerruntzean.

Patxi Ezkiaga

Sokrates maitea, ez al duk zikuta apur bat niretzat **sobratua**? **Joxerra Garzia**

sobre *iz* gutun-azala.

Buzoiari kanpotik begiratu, zer etor daitekeen pentsatu, ireki, **sobreak** hartu eta gora igo **sobre** bakoitzaren edukina hatz mamiez imajinatzen saiatuz. **Harkaitz Cano**

Ordurako, **sobretik** aterata, eskuan izango duzu nortasun agiria eta ardao koloreko pasaporte berria. **Joseba Sarrionandia**

Guztia hartu, **sobre** batean sartu, eta Txoforen lantokira bidali nuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Propio bereizi nuen materiala **sobre** txiki batean sartu eta komedorera abiatu nintzen gauzak lehen zeuden bezala utzi ondoren. **Xabier Etxabe**

Ez zuen **sobrearen** atzealdeko inzialak ikusi beharrik izan gutuna gailurretik zetorrela ohartzeko. **Harkaitz Cano**

Sobre bat eskuetan zuela agertu zen Catherine. **Iñaki Zabaleta**

Bankuko **sobreak** eta publizitatea batez ere. **Unai Elorriaga**

2 irud/hed

Babarrun pinto edo zurizko zopa, patata zopa, juliana zopa **sobretan**, oilasko zopa **sobretan**, edo babarrun pintozko zopa **sobretan**. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sobrea hartu (4)

zopa sobretan (3)

sobreagudo (*orobat sobre-agudo*) *iz* soinuez mintzatuz, agudoaren gainekoa.

Ignacio sopranoak Lucia-ko *Il dolce suono*... ikaragarri eman zuen, benetan handia **sobreagudoetan**. **Berria - Kultura**

Chateau Margot-en, aldiz, eman zuen gaueko **sobre-agudo** bakarra. **Berria - Kultura**

Publikoak ondo txalotu zituen, merezita, **sobre-agudoak** eta bere gurguilu politik. **Berria - Kultura**

sobresaliente *izond* bikaina.

Matildek esan zion eskualdeko esnerik **sobresalienteena** zela hura eta biharamunean epelago ipiniko ziola kafesnea. · Filosofian **"sobresaliente"** atera nuen, orain "bikain" esaten zaion hori. **Unai Elorriaga**

sobreseitu, sobresei, sobreseitzen du *ad* auzibideez mintzatuz, epaileak edo epaimahaiak bertan behera utzi, artxibatu.

Egunkaria kasuaren **sobreseitzea** eta auzipetuen eskubide pertsonal eta material guztiak berritzultzea errebindikatzen dugu. **Berria - Harian**

soda (*orobat zoda g.er.*) 1 *iz* karbono dioxidoa duen uraz eginiko edari gasduna.

Senarrari whiskia eta **soda** nahastu zizkion edontzi luze batean eta berarentzat pare bat hazbete whisky atera zuen beste edontzi batean. **Mirentxu Larrañaga**

Sodak whiskya hondatzen du, maitea! **Xabier Paya**

Scotch highballs: whiskya, **sodaz** eta izotzaz hornitua. **Lopez de Arana**

-"Ballantine" bat hartuko dut, **sodarekin** -esan zuen berak-. **Fernando Rey**

Nik whiskia **sodarekin** edan nuen, hurrupa bat. **Fernando Rey**

Lurrina eta zetazko jantziak eta larru-azalen berotasuna, eta guztiak hara eta hona ibiltzea esku batean edalontzi bat whisky eta **sodarekin** eta bestean zigarreta batekin.

Oskar Arana

Bi whisky- **soda** prestatu nituen, dibanen arteko mahaitxoan jarri, eta ondoan eseri nintzaion. **Xabier Olarra**

Whiski-eta- **soda** edaten ari ginen gu denok, Felix izan ezik. **Edorta Jimenez**

Pioneer konpainiak *Sunskit* marka daramaten **sodak** promozionatu nahi ditu. **Iñaki Zabaleta**

2 (hitz elkartuetan)

Soda ura balitz bezala edaten du koñaka. **Koro Navarro**

3 edontzi bete soda.

Orduan bere **soda** bukatu eta patioke aterantz abiatu zen. **Koro Navarro**

Verak **sodak** zerbitzatu zituen. **Koro Navarro**

4 *soda erregarri* soda kaustikoa.

Azido klorhidrikoa indargabetzeko **soda** erregarria eta ura erabili zituzten eta laino kaltegarri bat sortu zuen horrek enpresa barrualdean. **Berria - Euskal Herria**

5 *soda kaustiko* sodio hidroxidoa, purua denean erregarria dena, eta ezkata edo ale gisa merkataturatzen dena xaboiak egiteko.

Kloroa, **soda kaustikoa** eta azido klorhidrikoa ekoizten ditu *Electroquímica de Hernani* enpresak. **Berria - Euskal Herria**

Bi kamioiek elkar jo zutenean bietako batek zeramatzen substantzia arriskutsuak errepidera erori ziren: mila litro **soda kaustiko** eta 40 litro akuaforte. **Berria - Euskal Herria**

Lagunak, baietz bai, garbituko ziola; bazuen hartarako zoda **kaustikoa**, zernahitarako balio zuen ixurki kimikoa. **Eneko Bidegain**

Zoda **kaustikoak** oihal guzia jan zuen, erre, suntsitu. **Eneko Bidegain**

sodadun *izlag* soda duena.

Whiski eta **sodadun** edontzi erdi hustuak zituzten alboan. **Mirentxu Larrañaga**

sodazale *izond* sodaren zalea dena. ik brandy.

Indian ehun mila rosbig-jale eta brandy- **sodazale** britainiarrek arraza ario bereko berrehun eta berrogeita hamar milioi barazkijale urzale mendean eduki zituzten. **Xabier Olarra**

sodiko *izond* sodioari dagokiona; sodioa daukana.

Ez dute edarion izenik zabaldu, baina, esan dutenez, osagaien artean benzoato **sodikoa** eta azido askorbikoa (C bitamina) dituzte. **Berria - Gaiak**

Hodiak-eta garbitzeko erabilitako nitrato **sodikoa** isuri zuten San Pedro errektora. **Berria - Euskal Herria**

Fiteroko urak kloruratu **sodiko** sulfatatuak, fluoratuak, bromuratuak eta litinikoak dira, eta 48,5 graduko tenperaturarekin ateratzen dira lurretik. **Berria - Euskal Herria**

sodio 1 *iz* gai bakuna, zilarraren kolorea eta distira dituen metala, oso arina eta argizaria bezain biguna (Na; at. z. 11).

Sodioa metal dejenaturatua da: izan, hitzaren zentzu kimikoan baino ez da metala. **Juan Garzia**

Potasioa, esan dudanez, **sodioaren** bikia da, baina are indar handiagoz erreakzionatzen du airearekin eta urarekin. **Juan Garzia**

Beste substantzia batzuk ere badira - **sodioa** eta kaltzioa, besteak beste- odolean eta gernuan kontzentrazio berdin samarra dutenak. **Irene Aldasoro**

Haize hegoak jotzen duenean nerbio sistemaren barruan **sodio** eta potasiozko partikulen dantza gelditu egiten da eta horixe omen zen haize hegoarekin hainbat pertsonak sentitzen zuten ondorearen arazoia. **Joseba Sarrionandia**

Tokaimurako zentrallean (Japonia) bizpahiru tona **sodio** likidoren ihesa izan zen. **Berria - Gaiak**

Zilarbisia tantatxotan sublimatzea, **sodioa** kloruro bihurtu eta osatzen dituen taulatxo kristal-sartuetan ezagutzea mikroskopiora. **Juan Garzia**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bere **sodio** -lanparen argiarekin parekatu zuen, berehala ezkutarazten baititu kolorea eta ñabardura xumeak. **Xabier Olarra**

Katuetan eta tximinoetan posible da ezarpena aldatzea hipotalamoko **sodio** - edo kaltzio-kontzentrazioa handituz. **Irene Aldasoro**

Tubuluetaiko zelula espezializatuek energia erabiltzen dute [...] **sodio** ioiak berriro odol-kapilarretara bultzatzeko. **Irene Aldasoro**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, gatzten izenetan)

Hala transferituriko **sodio** kloruroak kontzentratuago bihurtzen du odola. **Irene Aldasoro**

Batzuetan begietatik **sodio** -kloruro hidratatuaren jario ugaria izaten du lagun. **Xabier Olarra**

Lehergailua **sodio** kloratoz osatua zegoen. **Berria - Euskal Herria**

Azido sulfurikoa, **sodio** kloratoa, binil kloruro monomeroa, **sodio** dikromatoa... **Berria - Euskal Herria**

Lehen gatz larria eta xehea baizik ez genuela, egun Camargue, Maldon, Guèrande eta beste hainbat tokitako kontsumitzen dugu, hainbat agerpenetan: gemma, kristal larritan, lurrinduak (hainbat espeziak), **sodio**-glutamatoa, gesala (potasio-nitratoa), gatz urdin edo grisa, itsas gatz, etc. **Edorta Agirre**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sodio ioiak (3)

sodomar ik sodomatar.

sodomatar (*orobat sodomar*) 1 *izlag/iz* Sodomakoa, Sodomari dagokiona; Sodomako biztanlea.

Egiptoarrak eta **sodomarrak**. **Elizen arteko biblia**

2 sodomita.

Naturak gozamen **sodomarrak**, intzestuko atseginak, masturbazioa eta antzekoak debekatuko balitu, utziko al liguke horietan hainbeste plazer hartzen? **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Bai, emaila trebea bihurtu nintzen bi urte haietan: adarkari bizia, bugre zaildua, **sodomatar** peto-petoa. **Aitor Arana**

sodomia 1 *iz* uzki bidezko sexu elkarketa.

Adulterioa eta atsegin greziarra (**sodomia**), froga zaileko delituak biak. Juan Martin Elexpuru

Kontua da epaitu eta kondenatu egin zutelako, eta bi heriotza-zigor eman zizkiotela: bat pozoitze ahaleginagatik, lepoa moztera, bestea **sodomiatik**, sutan erretzera. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez da munduan **sodomiak**, ustezko krimen horrek, bere tenpluak eta bere jarraitzaileak izan ez dituen bazter bakar bat ere. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Honek, Klemente VIII.ak, ez zuen inoiz zigortu, ezta Francescoren amoranteak **sodomiaz** salatu zuenean ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

1772ko irailaren 2an, 32 urte zituela, errebeldian epaituko dute "pozoitze ahaleginagatik" eta **"sodomia"** krimenagatik". Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

2 (hitz elkartuetan)

Iraken askatasun haizeak hedatu behar zituztenek presoak arrastaka ibilarazi dituzte biluzik, itxurazko **sodomia** ekintzetan parte harrarazi, [...]. Berria - Mundua

sodomita 1 *izond/iz* uzki bidezko sexu elkarketa egiten duen pertsona.

Bi mota bereiz daitezke: aktiboa eta pasiboa; mutil edo neska bati ipurditik ematen dion gizonak sodomia aktiboa egiten dihardu; **sodomita** pasiboa izango da berari atzetik ematen diotenean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

2 irud/hed

Apoa, tutulu **sodomitaren** bidez putz eginik handitzen genuen, zangodun pilota berdea bihurtu arte. Joseba Sarrionandia

sodomizatu, sodomiza, sodomizatzen 1 *du ad* norbaitengan sodomia praktikatu.

Egunero **sodomizatzen** ditut zu baino gazteagoak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Lehenengo eta behin, **sodomizatzen** zaituztenean, ez utzi inoiz klitoria masturbatu gabe. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bi esku-igurtziz, berriz gogortuko diot Agustini, eta atzetik emango dit, nik zu **sodomizatzen** zaitudan bitartean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Lizunak dira, libertinoak, homosexualak, intzestugileak, eta **sodomizatu**, jo, zauritu, hil egiten dute. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

2 irud/hed

Mundua **sodomizatzen** dut Iñaki Zabaleta

sodomizatze *iz* norbaitengan sodomia praktikatzea.

Ni hartu eta gorputzez bere egin ninduean, arranoak baino aguroago jaso ninduen zerura eta bertan gozatuarazi zidan **sodomizatzearen** plazerrak ongi ezagutzen dituztenek bakarrik dakitena. Aitor Arana

soegile ik so 7.

soegin ik so 8.

sofa 1 *iz* jarleku eroso, bizkarra eta besoak dituena, lagun bi edo gehiagorentzakoa. **ikkanape**¹.

Telebista dago sukaldean, eta **sofa** bi, handiak. Unai Elorriaga

Sofa eta besaulkiak larruzkoak ziren, altzariak zur noblezkoak eta alfonbrak eskuz eginikoak. Migel Angel Mintegi

Leiho ondoan zegoen **sofa** batean eseri ginen, eta betiko ezagunak bagina bezala aritu ginen hizketan. Koro Navarro

Van Daan andrea **sofan** etzatera joan zen, eta senarra nire oinen gainean etzan zen. Josu Zabaleta

Irentsi egiten nau **sofak**, zaharra delako eta bigunegia. Unai Elorriaga

Sofa alderik alde zegoen urratua, betegarria kanpora ateratzen zitzaion. Fernando Rey

Gizona **sofan** eseri zen, bizkarra bermatu zuen eta mutilari eta neskarri begira geratu zitzaion. Koro Navarro

Kapela burutik kendu eta **sofa** gainera bota zuen. Lopez de Arana

Bide luzea egin zuten **sofa** aldean zeramatela. Harkaitz Cano

-Ez igo **sofa** gainera, Jack, mesedez! Koro Navarro

Gauean **sofan** prestatzen dut ohea, eta goizean ni jaikitzen naiz aurrena. Koro Navarro

Sofatik altxatu, eta "banoa" esan nuen pausorik egin gabe, Florak ez alde egiteko esango ote zidan gain. Ramon Saizarbitoria

Llum **sofatik** altxatu eta gelan hara-hona ibiltzen hasten da, urduri, eskuak igurzten, ilea leuntzen. Antton Olano

Sofaren azpian gorde du Agirrek bere pistola ahalik disimulurik handienarekin. Rafa Egiguren

Sofako amodioak. Eider Rodriguez

2 (izenondoekin)

Bi aulki, bi besaulki eta **sofa** luzea. Joan Mari Irigoien

Hamida **sofa** zahar batean etzan zen; ama, oster, zoru gainean ezarria zuten lastairan bertan. Patxi Zubizarreta

Isabelleren ondoan eseri zen, hiru gorputzeko **sofa** berdean. Harkaitz Cano

Behean pista; [...] ziur goia **sofa** eroso eta iluminazio ilunagoez horniturik dagoela. Pako Aristi

-**Sofa** austriar horietako bat, ezkoihalezkoa? Fernando Rey

Nik txakurka jarrarazi nuen **sofa** hirukoitz luzea, eskuak sofaren besoetako baten gainean. Aitor Arana

Mrs. Densch astunki eseri zen **sofa** txiki hanka-okerraren erdian. Lopez de Arana

Probageletako **sofa** zabaletan. Joxan Elosegi

Plastikozko **sofa** puzgarri banatan eserita daudela agertzen dira Natalia Monge eta Brian Degn dantzariak. Berria - Kultura

3 **sofa-oh** (8 *agerraldi*, 6 *liburutan*)

Bi besaulki, **sofa-oh** zabala, eta armairu bat, arrunt samarrak denak. Migel Angel Mintegi

Ordura arte **sofa-oh** bat genuen egongelan. Iban Zaldua

Hemen berokien armairua; han **sofa-oh**; apain-mahaia; bionbo bat. Josu Zabaleta

Hutsik zen logelara eraman nuen Tomek dagoeneko eginda zegoen **sofa-oh** hedatzen eta tapakiak zabaltzen zituelarik. Oskar Arana

4 **oh-sofa** (5 *agerraldi*, 2 *liburutan*)

Ohe-**sofan** etzan eta eta bere esku mehezu zantzu zuen ile-adats marroi hitsa. Mirentxu Larrañaga
Ohe-**sofa** batean lo egin ohi dut etxean nagoenean, alegia zaintza batetik besterako aldian. Mirentxu Larrañaga
Begira ezazu ea biltegian ohe-**sofaren** bat ba ote den. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egongelako sofa (4); **hiru gorputzeko sofa** (3); **sofa batean eserita** (5); **sofa berdean** (3); **sofa gainean** (20); **sofa gainean eserita** (3); **sofa gainean etzanda** (5); **sofa gaineko** (3); **sofa gainera** (3); **sofa gainetik** (3); **sofa hartan** (3); **sofa luze** (4); **sofa ohea** (4)

egongelako sofan (21); **egongelako sofan eseri** (7); **etxeko sofan** (6); **ohe sofan** (3); **salako sofan** (3); **salako sofan eseri** (3); **sofan erdi etzanda** (5); **sofan eseri** (39); **sofan eseri zen** (17); **sofan eserita** (24); **sofan esertzen** (9); **sofan esertzen da** (6); **sofan etzan** (8); **sofan etzan zen** (3); **sofan etzanda** (10); **sofan etzanik** (4); **sofan jarri** (4); **sofan jarrita** (3); **sofan jesarri** (5); **sofan jesarri zen** (3); **sofan jesarrita** (3); **sofan lo** (3)

sofaren azpian (3); **sofaren ertzean** (3); **sofaren gainean** (13); **sofaren gainera** (3); **sofaren ondoan** (4)

sofatik altxa (3); **sofatik altxatu** (13); **sofatik altxatzeko** (3)

sofaulki *iz* sofa.

Sofaulkian eserita zaudetela, lehortean zaudenetik lehenengo aldiz, zaborraz elikatzen jarraitzen duzulako zalantzak asaldatu zaitu. Lutxo Egia

sofazale *izond* sofaren zalea dena.

Sofistak, gehienetan, **sofazaleak**. Iñaki Arranz

sofisma *iz* egia itxurako arrazoibide faltsua.

Zenbat eta pobreago sujetak, hainbat ugariago familiak; zenbat eta zergaz zamatuko, hainbat eta errazago ordainbidea: bi **sofisma** horiek beti hondatu dituzte eta beti hondatuko dituzte monarkia. Iñaki Iñurrieta

Hori **sofisma** hutsa da, honetan oinarritua: gizadiari ez zaio batere ballagarri halako gizaki bat badela sinestea; aldiz, oso ballagarria zaio Jainkoa badela sinestea. Iñaki Iñurrieta

Uste dut haien artean hori esan zuena zentzu oso zuzeneko gizona zela, eta higuin zuela **sofismak** onartu beharra. Xabier Kintana

Kontzientziaren ziztadak ez datoz espiritutik; bihotzaren fruituak dira, eta buruaren **sofismek** ez dituzte inoiz itzaliko arimaren sentimenduak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Merezi du arazo hauek zehaztasun geometriko aztertzea, **sofismen** lainoei, hizjario xarmatzaileei, eta zalantza lotsakorrei zirrikiturik utzi gabe. Juan Martin Elexpuru

sofismakeria *iz* sofisma, gaitzesagarritzat markatua.

Bere **sofismakeria** iruzurtizko sare artifiziosak guztiz birrindurik ikusirik, Santuaren modestia eta apaltasuna tentatzen hasi zen, diskurtso zital honekin, [...]. Jon Alonso

sofismazalekeria *iz* sofismen zalekeria.

Sofismazalekeria [...]: arerioaren eztabaida-metodoa, norberarenaren aldean gezur eta engainioz hornituagoa. Xabier Olarra

Sofismazalekeria hitzaren zentzu peioratiboa Platonek sofisten kontra zuen jarreratik heldu da. Xabier Olarra

sofista 1 *iz* antzinako Grezian, filosofia eta erretorikako maisua, jendearean hitz egiteko eta eztabaidetan garaile irteteko antzea herriz herri erakusten ibiltzen zena.

Platonek jadanik kritikatu zuen Eleatar Zenon dialektiko sotila bera **sofista** gaiztotzat joz, zeren bere antzea erakustearren edozein esakune itxurazko argumentuen bitartez frogatu eta berehala hain indartsuak diren besteen bitartez berriro ukatzea saiatzen baitzuen. Ibon Urbarri

Sofistek engainua bilatzen dute hitzarekin eta aberasteko idazten dute. Askoren artean

Izaera eta bizimodu berri eta arraroa baita Sokratesena: ez da **sofista**, ezta ohiko jakintsua ere. Markos Zapiain

Sofistika itxurazko jakituria besterik ez da, inola ere ez erreala; beraz, itxurazko jakituriarekin egiten du negozio **sofistak**, inola ere ez errealarekin. Askoren artean

Konturatu baitira **sofistak**, hitza bera, egiaren gordetegi sokratikoa baino gehiago, boterea dela giza auzietan. Askoren artean

Sofistak ez baitziren izateaz batere arduratu, giza bizitza praktikoaz baizik, batez ere. Askoren artean

Sofista grekoek balio oren erlatibotasunetik, diskurtsoaren eta erretorikaren garrantzia ondorioztatzen zuten. Joxe Azurmendi

Baina beude ene **sofista** molde nazkagarriak! Itxaro Borda

2 (izenondo gisa)

Esklabotzaren filosofiatik egin ohi den interpretazio **sofistak** bakarrik nahas dezake egia eternoak desberdina dela garbi utzitakoa. Juan Martin Elexpuru

Honen aurrean ezin daiteke ezain itxura **sofista** faltsu atxiki, baizik honek berehala salatu behar du bere burua, bere estalketaren oinarria edozein izanda ere. Ibon Urbarri

Sokrates baita irakasle **sofista**. Askoren artean

3 irud/hed

Akademia eta aholkularitza mundutik datozen **sofista** berriek asmatutako erretorika. Iñaki Heras

Enpresaren managementaren teorian erroto da azken urteetan enpresaren erantzukizun soziala areagotu beharra, bai guru eta **sofista** berri handien obran, eta baita egungo managementak gurtzen dituen eredu ospetsuetan. Iñaki Heras

Sofistak, gehienetan, sofazaleak Iñaki Arranz

sofisteria *iz*

Pierre Menard-en [...] don Kixotea halako **sofisteria** lainotsuetan berriro erortzea, ordea! Sutara orduan: ez baitugu **sofisteria** eta irudikeria besterik ekarriko. Juan Garzia

sofistika *iz* sofisten jakiteen multzoa.

Sofistika eta Periklesen garaiko kultura politikoa. **Sofistikak** garatuko du, hain zuzen, presokratikoen artean salbuespena izan zen hipotesia. Askoren artean

Horiek ez dira froga erabakigarriak demostrazio, dialektika eta **sofistika** artean bereizten ez dakienarentzat ez bada. Xabier Kintana

Sofistika aipatuko zaio eta, modu maltzurragoan sofistak asmazioak salduz aberastu ziren alprojak izan ziren erantzuteko ausardia hartuko du. Askoren artean

Sofistika itxurazko jakituria besterik ez da, inola ere ez erreal; beraz, itxurazko jakituriarekin egiten du negozio sofistak, inola ere ez errealarekin. **Askoren artean**
Uste dugu ariketa logiko horren bidez ez dela gehiegi lausotzen **sofistikaren** espiritu pragmatikoa. **Askoren artean**

sofistkatu, sofistika, sofistkatzen 1 du ad teknika edo jarduera berrien bidez konplexuago edo bereziago bihurtu.

Geroago, primateek **sofistkatu** egin zituzten estrategia haiek. **Luis Elberdin**

2 (era burutua izenondo gisa) naturala edo bakuna ez dena; konplexutasun tekniko handia erakusten duena.(pertsonez)

Ederra zen oso, **sofistkatua** ez ordea, naturala ematen zuen. **Migel Angel Mintegi**

Sofistkatua baina ez gehiegi, utzikeria-ukitu ondo estudiatu batzuekin. **Xabier Mendiguren Elizegi**

llehori bat aurkitu nahi nuen, **sofistkatu** samarra. **Migel Angel Mintegi**

Ikusleek, simple zein **sofistkatuek**, badakite zeren bila doazen antzerkira. **Juan Garzia**

Ile laranjagatik izan ez balitz, ez zukeen igarriko, agian, aurrean zeukan emakume **sofistkatu** hura Irene zenik. **Fernando Morillo**

Karlomagno bezain gerra-jaun **sofistkatu** eta konparatiboki zibilizatuaren inperioaren patuak ezintasun horren adibide dramatikoa ematen digu. **Iñaki Mendiguren**

Orkideei buruz hitz egiten ari zen bikote **sofistkatu** bat bere ondoan: fotometriaz loratzen dira orkideak. **Harkaitz Cano**

3 (era burutua izenondo gisa, tresna eta gailuez)

Denboraren makinan edo beste makina **sofistikaturen** batean. **Unai Elorriaga**

Gaur egun, bosgarren belaunaldiko DIUak ditugu: [...] seguruagoak dira eta eragiteko mekanismo **sofistkatuagoak** dituzte. "Asmatu berri duten tortura-aparatu **sofistikaturen** bat" pentsatu duzu. **Luis Elberdin**

GPS mapak, deien jatorria ezagutzeko aparatu **sofistkatuak** ... **Berria - Euskal Herria**

Esku batean pistola **sofistkatu** bat zuen, laser izpien jaurtigailu edo. **Aingeru Epaltza**

Kamera **sofistkatu** baten ezaugarri asko ditu begiak. **Irene Aldasoro**

Inoiz egin den edozein tresna elektronikoa baino konputagailu **sofistkatuago** batek kontrolatzen du aparatu osoa. **Irene Aldasoro**

Tresna elektriko arras **sofistkatuak** erosi nituen Honoréren sukaldarako. **Joxan Elozegi**

4 (era burutua izenondo gisa, bestelakoez)

Honelako eskari bat Mendebaldeko elite **sofistkatuari** erabat zentzugabea irudituko litzaioke. **Iñaki Mendiguren**

Auzo onean, adreilu gorrikoez eraikin itxurosoa daukate, Ertzaintza **sofistkatuagoa** baita, europarragoa, lorategi eta guzti kasernan. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Leku lauetan operazioak egiteko asmaturiko ekipamendu **sofistkatu** eta garestiak. **Iñaki Mendiguren**

Metodo analitiko bizkor eta sentikorretan oinarrituriko teknologia kimiko **sofistikatuaren** adibide dira usaimena eta dastamena. **Irene Aldasoro**

Badaude arazo horiek saihestu nahi dituzten teoria **sofistkatuagoak**. **Askoren artean**

Baina BEKOZ jantzirik zoazenean ez zaizu komeni itxura **sofistkatuegia** ematea. **Juan Garzia**

Serenissimaren garaietatik, Veneziak ez zuen hain bizitza **sofistikaturik** ezagutu. **Anjel Lertxundi**

Mendebaldeko musika **sofistkatuena** soka koartetoena da nire ustez. **Berria - Kultura**

Antolatu dudana espioitzako filmena baino **sofistkatuagoa** baita. **Karlos Zabala**

Hori baino modu **sofistkatuagoan** dihardute muskuluek. **Irene Aldasoro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gizarte sofistkatu (3)

sofistikazio 1 iz sofistkatua denaren nolakotasua; teknika edo jarduera berrien bidez konplexuago edo bereziago bihurtzea.

Absurdoa da sexuan gero eta **sofistikazio** gehiago behar izatea, berez gauza naturala izanda. arrazoibide erraza, naturala, **sofistikaziorik** gabea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ebakuntza-gelari bisitaren bat edo beste egin, artifizialtasun nabaria, **sofistikazioa** ... **Fernando Morillo**

Adituen esanetan, **sofistikazio** handiko eraikinak eraiki zituen orduko gizakiak, harrizko piramideak kasu. **Berria - Gaiak**

Kritikariek beraren espressionismoa gaitzesten zuten eta **sofistikazio** gutxiagorekin idatzi behar zuela esaten zioten. erregeak, bere luxu, aberastasun eta **sofistikazio** guztiarekin, ez du bere bizitzan amurrain hauek bezalakorik jan. **Jose Morales**

Aitortu behar dut ni, behinik behin, ez naizela gauza **sofistikazio** hori ulertzeko. **Karlos Zabala**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gustatu zitzaidan tokia, eta gustatu zitzaidan janaria, **sofistikazio** puntu batez prestatua. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Sofistikazio -maila altua. **Iñaki Mendiguren**

Basakeria hutsa da, jatorri eskasa adierazten du, eta heziketa-falta, eta klase-falta, eta kultura-falta, eta **sofistikazio** -falta. **Karlos Zabala**

sofistiko 1 izond sofistmarena, sofistmari dagokiona; sofistmak dauzkana.

Ez nintzen argumentazio **sofistikoetan** ibili, nahiz analisisa maite nuen. **Piarres Aintziart**

Argumentu **sofistiko** honen iruzurra aurkitu aurretik, ordea, horretarako prestatu behar gara bertan aurkitzen diren adigai jakinen zuzenketaren eta determinazioaren bitartez. **Ibon Urbarri**

Arazonamendu maltzur eta **sofistikoetarako** agindu labur bat dago: oker egindako arrazonamendu batetik abiatu badira, onartutako guztiaren berrazterketara itzuli behar da. **Imanol Unzurrunzaga**

2 sofistena, sofisteki dagokiena.

Sokratosen nagusigoak, bestalde, ezkutatu egiten du, batzuetan, bere garaian izugarriko garrantzia izan zuen eskola **sofistikoa**. **Askoren artean**

Pentsamolde **sofistikoak** beste gai handia ekarri zuen eztabaidara: legearen (*nómos*) eta indarraren (*physis* edo izadia) arteko tentsioa. **Askoren artean**

Adibidea, ironiaz betea, guztiz interesgarria da politikaren heziketa **sofistikoak** jaso zituen kritikak neurtzeko. **Askoren artean**

Periklesek beretzen dituen garai hartako balio **sofistiko** gailenak -komententzia, pragmatismoa eta erlatibismoa- Tuzididesez hain maisutasun handiz kontaktzen dituen gertakizun historikoetan ageri dira garden eta gordin. **Askoren artean**

sofre ik **sufre**.

sofriarazi ik **sufriarazi**.

sofrikaitz ik **sufrikaitz**.

sofrikario ik **sufrikario**.

sofrikarioxka ik **sufrikarioxka**.

sofrikizun ik **sufrikizun**.

sofrimendu ik **sufrimendu**.

sofrimentu ik **sufrimendu**.

sofritu ik **sufritu**.

sofrologia **1** iz medikuntzaren adarra, hipnotismoak, sugestioak eta kidekoak organismoaren duten eragina aztertzen duena.

Gorputzaren heziketa edo lasaimena (**sofrologia**) eta Tai shishun. **Herria**

Sofrologia egiteko hitzorduak. **Herria**

Eta horren bidez erdietsi ezean, hor dituzten bertze guztiak: eskultura, **sofrologia** eta hamaika zozokeria gehiago. **Xabier Montoia**

2 (hitz elkartuetan)

Lanbidez aldatu, mukizapi fabrika bat ipintzeko, esaterako, edo **sofrologia** -kabinete bat. **Jon Alonso**

Eta **sofrologia** tailerra, asteazkenez, aratsaldeko 6.30 etan, Eihartzean. **Herria**

soft *izond* biguna.

Jakin gabe, Eguzki Berriaren lurraldeko gazte askok oraindik ere bideratzen duten errebisionismo **softaren** ildotik mugitzen zen Fubuki ere. **Joxan Eloegi**

softball ik **softbol**.

softbol (*orobat softball*) iz beisbolaren aldaera, zelai txikiagoan jokazen dena.

Ordenagailuen kasuan **software** bera (Word programa, adibidez) hainbat hardwaretan edo oinarri fisikotan inplementa daitekeen moduan, izaki bizidunen kasuan ere gogo-egoerak hainbat oinarri fisiko-kimikotan inplementa daitezke. **Askoren artean**

Nazioarteko Olinpiar Batzordeak 2012ko Olinpiar Jokoetatik kanpo utzi ditu beisbola eta **softbola**, forma akats bategatik. **Berria - Kirola**

Beltzeanean, Txingudiko haur pilotariak lehian, Irungo Artian, **softball** kirolariak egun osoan. **Herria**

Ordiziako errugbi, atletismo, futbol eta **softbol** klubak hor bildu nahi ditu. **Berria - Kirola**

Kirolgi OBBk irabazi du Donostiako Nazioarteko Areto **Softboleko** Torneoa. **Berria - Kirola**

software **1** iz ordenagailua erabiltzeko programen eta kidekoen multzoa.

Tresneria bat zein beste, **software** bat zein bestea izan, tresneria eta **software** horrekin zer egin nahi den da funtsezko kontua. **Joxerra Garzia**

Are gehiago jakinik azken orduko **software** hori historiaurrekoa izango dela ikasleak unibertsitatetik ateratzen direnerako. **Joxerra Garzia**

Microsoften **softwareak** bulegoko programen merkatuaren %90 du AEBetan. **Berria - Gaiak**

Gure **softwarea** Wordekin bateragarria izatea eragozteko egin zuen hori. **Berria - Gaiak**

Bi zigortuek **software** informatikoak, pelikulak, pornografia eta jokoak legez kanpo kopiatu eta Internet bidez saldu zituzten. **Berria - Euskal Herria**

Ez da **software** berezirik instalatu behar, ezta ezer ordaindu behar ere. **Txema Ramirez de la Piscina**

Etorkizuna **software** librearena dela dio Stallmanek. **Berria - Gaiak**

Datuak Interneten argitaratu izanak, ordea, informazio hori erabiliz antzeko **softwareak** garatzeko aukera eskaintzen die beste enpresei. **Berria - Gaiak**

Minbizia ikertzeko **software** berri bat sortu du NorayBio enpresa bizkaitarrak. **Berria - Gaiak**

Software bat programatu du pertsonen mugimenduak artikulatzeko. **Berria - Kultura**

Koordinadoraren ustetan, zenbatzeko tresnen **softwarea** manipulatu izan zen. **Berria - Mundua**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sakelako telefonoen bidez zabal daitekeen lehen birus informatikoa atzeman du *Panda* **Software** enpresak. **Berria - Gaiak**

SCO Group **software** konpainiaren web orria hondatu du 'Mydoome' birusak. **Berria - Gaiak**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Euskarazko ikus-entzunezkoen eta hezkuntza-**softwarearen** alorrean. **Txema Ramirez de la Piscina**

Multimedia **softwarearik** onena: Ikastolen Elkarteak, *Birraitonaren Museoa* / CD-ROMa. **Berria - Euskal Herria**

Gizarte **softwarearen** iraultzaren ametsa da, jendeak berak sorturiko edukiekin osatutakoa. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ixi software (3); **panda software** (5); **software enpresak** (3); **software konpainiaren** (3); **software libre** (12); **software librearen** (11); **software librearen aldeko** (3)

gizarte softwarea (3)

multimedia softwarean (3)

softwaregintza iz softwareak sortzea.

Bestalde, jabeago pribatuaren eta publikoaren arteko eztabaiden garaiotan **softwaregintzaren** funtzioa aldatu egin da. **Berria - Kultura**

sogdiera iz antzinako Sogdianako hizkuntza.

Harrigarria zen, gero, zenbat hizkuntzatatik itzuli beharra zeukaten; hainbestearino, non Babel jakintsu bihurtua baitzen Jakintzaren Etxea: greziera, **sogdiera**, sanskritoa, latina, hebreera, arameera, siriera, koptoera. **Jon Muñoz**

sohorna iz bi etxeren arteko sakongunea.

Mohamed Chukrik, hara joaten zen bakoitzean, karrika eta **sohorna** desberdinak hautatzen zituen: ez zuen atsegin beti bide bera ibiltzea. **Patxi Zubizarreta**

soil 1 izond lagungarri edo apaingarri guztiez gabetua.

Soineko **soil** eta arin batek haren gerri biribil eta zaulia ikusteko parada eman dit. **Jon Muñoz**

Ohe-ator **soil** bat zeukan jantzia, ezeren axolarik gabe. **Jon Muñoz**

Indio-txabola baten barruan zegoen, euritatik hosto-sabai **soil** batez babestua. **Joxe Austin Arrieta**

Etxola **soil** batek, urrutira argiturik baldin badago, neguko gaurik gorriena ere Gabon Gau bihurtzen duen bezala. **Josu Zabaleta**

Geltokia bide zena azafran koloreko eraikin **soil** bat baino ez zen. **Xabier Montoia**

Gela zabal guzti **soil**, handi, ilun batean zegoen etzanda. **Josu Zabaleta**

Atea ere **soila** zen; ez, Obabako baserri askotan bezala, arkuduna. **Bernardo Atxaga**

Gela huts izoztu hartan, monasterioko ohe **soil** hura baino zoragarriagorik ez zitzaidan ezer iruditzen. **Josu Zabaleta**

[Kontakizunak] **soilak** dira, adar apaingarrik gabeak, funtsari estuki atxikiak. **Jose Antonio Mujika**

Baita izkribu **soil** hau ere: "Margarita de Parma // Reina de España". **Txillardegi**

Ale bakan bat izanez gero, ordea, kopia **soil** bat izuliko zaio jabeari. **Jon Muñoz**

Datu **soil** horiek erakuts dezakete Maupassanten sormena, lanerako lehia zenbaterainokoa zen. **Josu Zabaleta**

Tresneria **soil** horren laguntzaz, aurkikuntza txundigarria egin berria zuen Pitagorasek: bitarte musikala bi zenbakiren arteko erlazioa da. **Jon Muñoz**

Zutoin arrunt **soil** batetik. **Juan Garzia**

Bezeroentzako gelak ere berdinak dira, baina altzariz **soilago** jantziak. **Josu Zabaleta**

2 hutsa, aipatzen denaz besterik edo bestelakorik ez duena.

Jainkoa pentsamendu **soila** da, bere buruaz du egiten gogo. **Askoren artean**

Jaungoikoa, esentzia **soil**, aldaezina. **Imanol Unzurrunzaga**

Jakina da deliturik ankerrenak, edota ilun eta kimerikoenak, inprobabilitate handikoak, alegia, uste **soilekin** edo froga oso ahul eta ekibokoekin frogatu ohi direla. **Juan Martin Elexpuru**

Orduan, erleak ez dira erle **soilak**: itxuraldatuak, aingeru ere badira, parkeko arbola eta loreei arnasa emanez. **Anjel Lertxundi**

Bere begi urdinekin -North Cape-; bere belarritakoekin -bi perla **soil**-; bere ezpaineekin. **Bernardo Atxaga**

Milaka eta milaka gizon-emakume itsasoz abiatu baitziren oso ontzi hauskorretan, batzuetan elkarri lotutako pneumatiko **soiletan**, Floridako hondartzetatik bereizten zituen tarte txikia egin eta Estatu Batuetara, Lur Agindura, iristeko. **Jon Muñoz**

Organismo berria sortzen da heldu baten zelula **soil** batetik. **Berria - Gaiak**

Sinapsiak, adibidez, ez dira errele **soilak**; eginkizun eraginkorra dute, "kitzikatzaile" baitira batzuk, eta "inhibitzaile" besteak. **Josu Zabaleta**

Gripe **soil** bat izan zitekeen, edo bat-bateko ondoeza, emakumeen gauzak, esaterako. **Jon Alonso**

Apendizitis **soil** batek hil gaitzan utzi, eta kito. **Joxe Austin Arrieta**

Bizitzatik oso hurbil, berriz, eszenografia huts eta tramaia **soil** baino zerbait garrantzitsuagoa den plano batean [...] era guztietako paisaiak daude. **Anjel Lertxundi**

Ez al da bada morse kodea txistu **soil** eta isiluneen arteko konbinazioa? **Harkaitz Cano**

Arantzazun, aldiz, 12 litro **soil** bildu genituen. **Pello Zabala**

Gauza bitxiren bat adierazten zuen, nonbait, eta konplexuagoa defizit **soil** bat baino. **Xabier Olarra**

Gertaeretatik berrietatik hasi nahi dut, gertaera **soiletatik**. **Josu Zabaleta**

Itxuraz western **soil** bat dena, bilakatuko da izana eta ukanaren arteko gogoeta gaia. **Herria**

Konparatista **soila** den metodo honek ikusmolde desegoki batzuk dakartzala berarekin. **Isabel Arrigain**

Ekintza mekaniko **soil** baten bidez egiten dute muskuluek beren lana. **Irene Aldasoro**

Lege enpiriko **soil** baten arabera elkartzten dira azkenean elkarren segidan doazen edo elkarri lagun egiten dioten errepresentazioak. **Ibon Urbarri**

Funtsezko unearren kontzeptu hori kontzeptu estetiko **soil** bat baizik ez da, izatez, eta ez dagokio inolako errealitate ideologikori. **Josu Zabaleta**

Aglutinazioa prozesu mekaniko **soil** bat da, non uztardura berez gertatu ohi baita. **Isabel Arrigain**

Tenienteak irribarre **soil** bat egin zuen. **Bernardo Atxaga**

Ahalik eta era **soil** eta sinpleenean bizi, ondasunen grina baztertu, eta karitatea ahalik eta gehien egin. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Orduan hasiko nintzen ulertzen mundua ez zela ulertzeko egina, hitza ez zela **zergatik?** **soil** batera errenditzeko egina, gezurra egia izateko asmatu zela. **Iñaki Segurola**

Gauza **soil** errazen bat aurkitu nahi zuen hari esateko. **Anton Garikano**

Baina honako istorio hau ez da kronika poliziako bat edo biografia baten kontaketa **soil** hotza. **Karlos Linazasoro**

3 (pertsonez mintzatuz)

Hura ez ezik, erregeak probintzia guztietan dituen buruzagiak eta herritar **soilak** ere iraindu ditu. Dornier eta Heinkel hegazkin naziek mila eta bostehun eta gehiago pertsona **soil** hil zituztela Gernikan. **Jose Antonio Mujika**

Agustinek filosofatu egingo baitu, baina ez da filosofo **soila** izango, greziar klasikoak ziren zentzuan. **Askoren artean**

Soldadu **soil** ginenean esaten genuen bezala. **Jon Muñoz**

Eta berdin fededun **soilentzat** ere. **Piarres Xarriton**

Hangoak ez ziren ikasle edo langile **soilak**. **Fernando Morillo**

Moskutik Irkutskera zihoan merkatarí **soil** bat zen, Nikolas Korpanoff izenekoa. **Karlos Zabala**

Nahiz amodio horrek ez dion eragotziko maiz nahiago izatea odaliska **soil** bat. **Jon Muñoz**

Gaurko trikitilarietako zeozer falta zaie, **soilak** dira oso, horregatik sartzen dituzte kontrabajoa eta, betetzeko. **Pako Aristi**

Onenak emanda, bertsogile **soil**, plazaz plaza segitzeko ilusioak ihes egingo zidala aurreikusten nuen. **Andoni Egaña**

Adiskide gintuan, ez jolaskide, abenturakide, armadakide **soil**. **Xabier Olarra**

Historian zehar korronte indartsu bat doa beti behetik gorantz, gizaki **soiletik** gizaki itxuraz handirantz [...] menpekoengandik agintariengana. **Jenaro Garate**
Erdaldun **soilentzat** eta erdaldun ere badiren euskaldunentzat. **Iñaki Iñurrieta**

4 buruan ilerik ez duena. ik **soildu 4; burusoil.**

Burua **soil** eta bizarra motz dute guztiak. **Elizen arteko biblia**

Konkorkara, buru **soila**, bibote beltzak aho ertzetara luzatuak. **Pablo Sastre**

Gero beti astintzen zuen buru **soil** hura, marmarka esanez: "Hotz, guztiz hotz". **Julen Gabiria**

Durero bera ere -hantxe ikusten nuen, bere Autorretratuan- ileluzea zen, bigote eta bizarduna, ez, inolaz ere, azal **soilekoa**. **Bernardo Atxaga**

5 lur sail edo eremuez mintzatuz, landarerik ez duena. ik**soildu 6.**

Jaso gudu-bandera mendi **soil** baten gailurrean! **Elizen arteko biblia**

Esauren ondorengo edomdarren mendialdea lur **soil** bihurtuko dut. **Elizen arteko biblia**

Israel, eremu **soil** bihurtu ote naiz zuretzat? ala beti ilunpe beltzean dagoen lurralde? **Elizen arteko biblia**

Zure kontra nator, Seir mendialde hori, zure aurka ekin eta basamortu **soil** bihurtuko zaitut. **Elizen arteko biblia**

Harkaitz **soil** bihurtuko zaitut, sareak lehortzeko leku. **Elizen arteko biblia**

Mendi **soil** batean bakarrik, edatekorik gabe, lurreen etzan zen akiturik. **Askoren artean**

Ordoki **soil** zabalak, oraindik ere negukoa den berde hotz eta arin batekoak. **Josu Zabaleta**

Hiriak deseginik eta hutsik, etxeak inor gabe eta lurrak **soil** gelditu arte. **Elizen arteko biblia**

6 bakarra.

Hauek guztiak bilduak dira ez lekuko **soil** batenganik baina askotarik. **Piarres Xarriton**

Tipitik eta eskasetik abiatuak, erran daiteke aitzinatuko dela, etxe **soiletik** etxe multzora. **Piarres Xarriton**

Nire susmoa da Hassan eta beste guztiak arrazoi **soil** batengatik jotzen dutela irrazionaltasunera, beren egoeran praktikoa zaielako. **Bernardo Atxaga**

Orain bi barku **soil** baizik ez dira gelditzen eta hamar bat arrantzale. **Herria**

Astebete **soilez** erabilitako praka zuri-gorri berrietako gerrikoa tinkatu zuen. **Josu Landa**

7 (adizlagun gisa) erabat; soilik.

Buruko ilea **soil** moztua du, eta zezen baten lepoa du. **Oskar Arana**

Unamuno-k ideiak handik eta hemendik bildu, eta bere pentsamenduaren modura eraldatu egiten ditu, edo **soil** metaforizatu, literarioki baliatzeko. **Joxe Azurmendi**

Erlatibismoaren kritika eta absolutuaren galdea Renanen filosofiaz jantzi edo bermatu, edo **soil** asoziatu, nahi izatea, edozein txunditzea da, haren ideia pittin bat edukiz gero. **Joxe Azurmendi**

Adimenaren aprioriko aparamen guztia arrazoiaren printzipiora **soil** ekarriz. **Askoren artean**

"Arrazaren arimaren" edo **soil** arrazaren lehenetsun, jatorrizkotasun absolutu hau historiako faktore gisa. **Joxe Azurmendi**

Agatak manua betetzen zuen **soil** bezain fermuki. **Itxaro Borda**

Erlatiboak ez duela esan nahi **soil** subjektiboa (edo subjektiboa deitu nahi bada, honek ez duela esan nahi individual) eta kapritxosoa, bakoitzaren apetzakoa. **Joxe Azurmendi**

Gure baiesperetan bezainbat ezesperetan, edo gure ezbaietan **soil**, gure egungo kulturaren. **Joxe Azurmendi**

Gero bere doinu jatorrera berriz itzulirik, eta **soil** baino soilago esan zidan-: [...]. **Jon Muñoz**

8 *soilik* ik **soilik.**

9 *bere soilean*

Bizia bere **soilean** irentsi ezinik, bixiaren eta biziagoaren minak darabil gure kasta hau. **Iñaki Segurola**

Izan ere, gogo biziko jendeak, bere **soilean** bakartzera egiten baitu, eta gogo ahul eta zurikoak, jende oldearen zurrunbiloan bere burua babestera. **Patziku Perurena**

Horra zergatik, gauza baten irudia, bere **soilean** harturik, berdina den, nahiz geroaldiari nahiz iraganaldiari nahiz orainaldiari dagokiola. **Piarres Xarriton**

Imanol Muruak, beretik, Pirinioetako indioentzat sarbide ona daitekeen bere liburuan Geronimoren historia bere **soilean** eta zehatzean jasotzen du. **Pablo Sastre**

Laburtasunaren amoreagatik, xehetasun asko bazterrerera utziko ditut eta, miresleen arrandiak isilduz, gertaera miragarriak beren **soilean** kontatuko ditut. **Askoren artean**

Balio izango ahal digute, beren **soilean**, Ignazioaren obra egoki ulertzeko! **Patxi Altuna**

10 *soil-soilik* ik **soilik 2.**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

agerpen soil (5); agerpen soil gisa (4); buru soil (7); burua soil (5); determinazio soil (5); determinazio soil gisa (4)

ekintza soil (4); elementu soil (5); errepresentazio soil gisa (5); esaldi soil (4); gauza soil (5); gizaki soil (4); hitz soil (14)

ideia soil (7); izaera soil (4); izan daiteke soil (4); kanta soil (4); kanta soil bat (4); keinu soil (4); langile soil (6); merkatari soil (4)

objektu soil (4); soil bihurtu (5); soil bihurtuko (5); soil bilakatu (4); soil izango (4); soil soil (12); soil soila (7); soil soilean (6); soil soilik (419); soil soilik dakit (5); soil soilik esan (5); soil soilki (6)

soldadu soil (6)

adigai soila (4); agerpen soila (7); arazo soila (4); begiespenaren forma soila (4); buru soila (7)

erabilera enpiriko soila (4); erabilera transzendental soila (4); errepresentazio soila (9); esprinter soila (4); forma soila (17); galdera soila (4)

ideia soila (17); ideia soila da (4); irakurketa soila (4); itxura soila (10); logiko soila (10)

ondorio soila (4); pentsamendu soila (4); sintesi soila (4)

soila aski (4); soila izaki (4); soila izan (28); soila izango (4); soila izatea (5); soila litzateke (4); soila zen (10)

transzendental soila (7)

agerpen soilak (6); bide politiko soilak (4); errepresentazio soilak (12); forma soilak (7); hitz soilak (9); politiko soilak (5)

soilak baino (5); soilak dira (24); soilak direla (7); soilak diren (7); soilak izan (9)

adimen soilaren (5); arrazoimen espekulatibo soilaren (5); esentzia soilaren (5); espekulatibo soilaren (7); izaera soilaren (4); soilaren arabera (15); soilaren bidez (11); soilaren bitartez (19)

izpiritu soilari (4)

adigai soilean (7); bere soilean (4); soil soilean (6)

lege soileri esker (4)

adigai soilen (25); adigai soilen arabera (4); adigai soilen bitartez (16); ideia soilen (6); lege soilen (4)

modurik soilenean (5)

adigai soiletatik (12); adigai soiletatik abiatuta (8)

adigai soiletik (4); definizio soiletik (5)

agindu soilez (5)

soildu, soil(du), soiltzen 1 da/du *ad* soil edo soilago bihurtu.

Latineko -ss- multzoa, oster, **soildu** egin zen. **Koldo Zuazo**

Ezaguna denez, mendebalean **soildu** egin da txistukarien saila. **Koldo Zuazo**

Hark akuilatu zuen jende hori iluna dena argitzera eta konplexua dena **soiltzera**. **Jon Muñoz**

Sorterrira bueltatze orokor haren ondotik, astero Arriaga atzean bildu ohi ginenon lagunarteak, urritu ez ezik, **soildu** egingo ziren jendez, desagertzera. **Pedro Alberdi**

Janarien egitura **soildu** zaigu (bazkari edo afari egitura klasikoaren edozein [...] jaki bakar bat hartzen dugu, edo postrea baizik ez, etc.). Edorta Agirre

Legeari **soildu** eta erraztea, guztion mesede izan liteke. Berria - Ekonomia

Nobelaren izpiritua eta nobelaren giroa mantendu behar nituen [...] baina testua **soildu** beharra nuen, aldi berean, eta zaborrontzira bota soberan ikusten nuen guztia. Joan Mari Irigoien

Urteetan zehar nire estiloa aldatuz joan dela uste dut, **soilduz** esango nuke, agian. plataforman zutik, Sidney O´Connor-en estilora **soildutako** bikote bat doa, eta neskaen begi urdinak zuloetan hondoratuta daudela dirudi. Ana Urkiza

Izatekotan, estrategiok argitu eta **soiltzea** da, gaur egun, kontua. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Harmoniak edo erritmoak **soildu** egin dira, ikasleek errazago irakur ditzaten. Berria - Harian

Erregela formaldatzaileek izugarri **soiltzen** dute gramatika. Itziar Laka

Gramatikaren atal bat **soiltzeak** beste atalen neurri bereko soiltze bat eragiten duenean sumatzen dugu bide zuzenetik gabiltzala. Itziar Laka

2 (era burutua izenondo gisa)

Niaren eraikuntza bide bat, etika baten eraikuntza bide bat, La Rochefoucauldena esango litzatekeen estilo trinko eta **soildu** batean. Josu Zabaleta

3 ilea galdu edo galarazi.

Gazterik **soiltzen** hasia da, eta beharbada horregatik zaintzen ditu hainbeste gorputza eta janzkera. Koldo Izagirre

Lokietako ilea urdintzen hasia zuen, eta buru gainekoa, berriaz, guztiz **soiltzeko** bidean. Anjel Lertxundi

Hogei urte lehenago zuen itxurarekin, hau da, artean erabat **soildu** gabe, bere xerlo urdintzen hasiak kopetatik behera erortzen zitzaizkiola. Patxi Iturritegi

Jerusalemgo jendea, moztu ilea, **soildu** burua hain maite dituzun zeure seme-alabengatik. Elizen arteko biblia

Kontu zabaldua zen Kasparren andreaki eta bere hiru ahizpei burua **soildu** zietela faxistek herria hartu zutenean. Koldo Izagirre

Ez duzue gorputza urratuko, ezta **soilduko** ere buruaren aurrealdea, dolua adierazteko. Elizen arteko biblia

Gizon lodikotea, burugaina berez eta ingurua makinaz **soildua**. Urtzi Urrutikoetxea

Izen horrekin erabateko artista espero nuen, eta halakoxea topatu dut: txikia, ilea erabat **soildua**, pasta lodiko betaurreko sideralak, [...]. Harkaitz Cano

Burua **soildurik** eta bere bizar apurrarekin hiltzailea edo halakoren bat ematen du. Edorta Jimenez

· Etxeko soineko bat zeraman, arabeskoz apaindua, zapañillak, eta zetazko zapi bat buru ile- **soilduan**. Koro Navarro

Ile motzak gazteagoaren itxura ematen zion aski urdin- **soildutako** idazleari. Koldo Izagirre

4 (era burutua izenondo gisa)

Botikariak hazka egin zuen buru **soilduaren** gainean. Aingeru Epaltza

Jeneralaren buru **soildua** leihatilan agertu zen. Bernardo Atxaga

Atezainaren zakur begirada, mutil eta gelarien bizkar makurtua (inoiz ez nien garondo **soildua** besterik ikusten). Matías Múgica

Ordurako argi horixka batek argitzen zizkion bekoki **soildua** eta sudur kakoa. Urtzi Urrutikoetxea

Salmahaian kaiola handi bat arratoi beltz distiratsuekin, beren buztan **soildu** luzeak baliatuz, jauzika, jolasean zebiltzanak. Iñaki Mendiguren

Amaren alu **soildua**. Xabier Montoia

5 landareak edo hostoak galdu edo galarazi.

Piztiak muga hertsia goetarat gibelatu eta baztertuko genituzke, paraje oihantsu hauek **soildu** eta garbitu ondoren. Joan Mari Irigoien

Erreka zulotik aldendu ahala **soilduz** joan da oihana. Pello Lizarralde

Igo zaitetze oihanera eta **soildu** periztarren eta refatarren lurraldea. Elizen arteko biblia

Basorik trinkoena ere **soiltzen** duten egurgileak. Elizen arteko biblia

Txingor-erauntsiak **soildutako** galsoroetako lasto izpien antzera. Jose Morales

Harantzago auzoko oiloek **soildutako** eremu bat ageri da, txarrantzax inguraturik. Hasier Etxeberria

Hirietan guztia harrapatu, landak **soildu** eta jende gaztea ezpataz hil zuten. Elizen arteko biblia

Nahiz eta baso hutsa den, **soildu** egingo duzue eta zuena izango da alde batetik bestera. Elizen arteko biblia

Gure azpian harea, ibar lau bat muino artean, harkaitz-muinoak nonbait, dena erabat **soildua**, basamortu. Joxe Austin Arrieta

Artistak egitura bat nahi du, logika bat, eta sasiak garbitzen hasten da, kimatzen, **soiltzen**. Xabier Mendiguren Elizegi

Gero, behera jaitsita, aizkoraz **soildu** zituen bi adarrak. Inazio Mujika Iraola

Sakonune hura **soilduta** zegoen, zuhaitzik gabe. Iñaki Mendiguren

Santutegia **soildua** gelditu zen, basamortu egina. Elizen arteko biblia

· Basatza eta urmaelen artean zegoen, haraindian eta honaindian zuhaitzez soil- **soildua**. Karlos Zabala

6 (era burutua izenondo gisa)

Mendi **soilduak** ikusten nituen, ibaiak zizarez beterik eta zerua napalm bonbaz estalia. Kontzertuaren bigarren atalean, Mussorgskyren *Gau bat mendi* **soilduan** eskainiko dute. Juan Kruz Igerabide

Eta harantzago, baso txiki eta **soildu** hartako beste urki batean, beleak zeuden, entzuleak irudi, beleak zeuden zuriz antzaldaturik haiek ere, usoak irudi. Felipe Juaristi

Maien Zibilizazioa oihan tropikalaren erronkatik sortu zen; Andetarra goi-ordoki **soilduaren** erronkatik. Iñaki Mendiguren

Zerutik oso hurbil, ordoki **soildu** batean. Koldo Izagirre

Inglaterra Berria [...] kontinente hartako zatirik **soildu** eta idorrenetakoa da. Iñaki Mendiguren

Lehenengo sarbideetik parkera sartu eta arbola **soilduen** azpitik aurrera joan zen. Irene Aldasoro

Zuzen-zuzen joan zen irristaka zuhaixka **soildu** baten kontra. Koro Navarro

Mihurak betiko hosto hezeekin segitzen zuela, eta neguan haren hostaje hezea ikustean haritz adar **soilduen** artean. Patziku Perurena

hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

buru soildu (4); **burua soildu** (4); **sail handiak soildu** (3)

buru soilduan (3)

larruzko txano soilduaren (3)

soildun *izlag* soileko.

Bonbain, Malabarreko Hill-eko Dorre Isilaren inguruan lepo **soildun** saiak dotore-dotore aritzen dira hegan. Gotzon Garate

soilgune (69 agerraldi, 26 liburutan; orobat **soilune** 41 agerraldi, 19 liburutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **soilgune** agertzen da) 1 iz landarerik gabeko gunea.

Ibaieren ertzean kokaturik zegoen etxaldea, oihaneko **soilgune** batean. Jon Muñoz

Iluntasunean, basoko **soilgune** txiki batean gelditu ziren. Jose Morales

Samek ez zuen, oihanen bateko hostailaren artean edo ezkutuko **soilguneren** batean, olifanteren bat agertuko zitzaion esperantzarik galtzen. Agustin Otsoa

Egun batean hantxe iritsi ziren, zuhaitzi batean zehar bide eginik, artelatuz zaharrez guztiz inguraturiko **soilgune** batera. Juan Garzia

Alderdi honetan bada **soilgune** bat, pagoez osatutako plazatxo moduko bat duena. Koro Navarro

Ilargia ere berehala goratu zen, eta **soilgunea** argitzeko moduan kokatu. Jon Muñoz

2 ilerik gabeko gunea.

Orrazteko, ezkerretako ileak luzatu eta, **soilgunea** estalita, eskuinaldera eramaten zituen, eta eskuinaldeko ileak belarritik, **soilgunean** zehar, beste aldera. Fernando Rey

Hatzak pasatu zituen loki batetik bestera, kalpar harrotua berdindu eta **soilgunea** estaltzeko. Anjel Lertxundi

Ilea aurrerantz orraztuta, handitzen ari zitzaizkion **soiluneak** nola edo hala disimulatzearren. Jon Arretxe

Hobbes "oso burusoil geratu zen zahartzarotan [...] eta esaten zuen ez zuela inoiz hotzik harrapatzen baina gogaikarrietan gogaikarri zitzaiola euliak **soilgunean** pausa zekizkion eragotzi beharra". Juan Garzia

-Poeta arruinatuaren tximak dauzkazu -esaten dio andreak senarrari **soilgunearen** azpian ilea luzeegi, narrasegi hazi zaiolarik. Iñigo Aranbarri

Osaba Lajosek zetazko txapel txiki, beltz eta biribila jantzi du buruan, ile urdin bakanez **soilgune** txiki bat osatzen duten lekuan. Urtzi Urrutikoetxea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

basoko soilgune (4)

soilgunetxo iz ilerik gabeko gune txikia.

Baina, ail, buruan **soilgunetxo** bat zuela konturatu zen, eta tristuraz esan zuen: "Zergatik lerratu naiz hain bortizki etsipenera? Jose Morales

soilik 1 adlag bakarrik.

Soilik ez duzula inorekin bizitzen jarri nahi. Hasier Etxeberria

Egongelara sartu ginen, baina ez nuen ia arreta jarri, premiazkoena **soilik** zeukatela jarrita, besterik ez dut gogoratzen. Migel Angel Mintegi

Neure indar guztiak behar nituen, **soilik** eserita jarraitzeko ere. Joxe Austin Arrieta

Zeu ere bordako aterpean sartu zinenean **soilik** ulertu zenion irribarre zabal batekin esaten zizuna: [...]. Hasier Etxeberria

Behar zenean **soilik** hitz egiten zuten eta ez zen sekula haien ahotik hitz gordin edo hutsalik irteten. Askoren artean

Denetan historia bera zela eta **soilik** pertsonaiak aldatzen zirela. Felipe Juaristi

Tabakoaren erostera joan ondoan, **soilik** papera eskuan atera nintzen saltegitik. tabakoaren erostera joan ondoan, **soilik** papera eskuan atera nintzen saltegitik. Itxaro Borda

Nik uste dut oso jende gutxi jar dezakeela auzitan egia hori, **soilik** eskuin muturreko espainolistek, edo aspaldiko ezker dibinoak. Bernardo Atxaga

Militarrentzat eta haien senideentzat da **soilik** ospitalea. Pako Aristi

Plazer istant ziztrin, minimo eta **soilik** a posteriori idealizatu hori. Harkaitz Cano

Lurrean lur eginik berdinduko du bere lurak bera ere: lurrak **soilik** iraungo du. Juan Garzia

Denda batean **soilik** zara nor. Anjel Lertxundi

Zartakoa **soilik** du maite. Andoni Egaña

Zientzian, aldiz, ia edukiak **soilik** ematen dio lanari bere balioa. Juan Garzia

Nire ustez, traidoreek **soilik** merezi zuten heriotza. Juan Kruz Igerabide

Altxatu zenean, gosearen antzeko zerbait sentitu zuen, baina edaleek **soilik** izaten duten moduko gosea. Matías Mujika

Joseph Conrad-ek zioen idazleak liburuaren erdia **soilik** idazten duela eta irakurlearen kontura doala beste erdia. Anjel Lertxundi

Venezuelak kontsumitzen dituen gauzen %70 inportatzen du, eta %30 **soilik** ekoiztu. Pako Aristi

Lau lagunek **soilik** erosi dugu Gasteiz-Irun autobuserako txartela. Iban Zaldua

Ohar solteak **soilik** idazten dituzte, iruzkin xume diruditenak klasikoan orrialde ertzetan. Joxean Agirre

Oihu egin zuen Luteziak, bistako egia bat ukatzeko emakumeek **soilik** oihu egin dezaketen moduan. Matías Múgica

Gure aita basamortuan hil zen; ez zen Koreren taldeko partaide izan, ezta elkartu ere haiekien Jaunaren aurka; bere bekatuagatik **soilik** hil zen. Elizen arteko biblia

Ez da inor berarentzat **soilik** galtzen, besteen galbide eta galtzaile gara bidenabar. Patziku Perurena

Erregela batzuk beste batzuk ezarri ondoren **soilik** erabili ahalgo baitira. Itziar Laka

Lasterketari **soilik** diot beldur, itsasoa asko nekatu bainaiz. Juan Kruz Igerabide

Guk ez baitugu seneko eskurik, ukimenera **soilik** errenditzen denik. Felipe Juaristi

Magandu ere egin nuen makina bat museotara, berarengandik hurbil egotearen **soilik**. Joxe Austin Arrieta

-Beti ez, noski, aldarte onean jaikitzen naizenean **soilik**. Migel Angel Mintegi

Biluzgorririk zaude zure egitekoaren tenorean, mendeetako injustiziek eta borrokek **soilik** sostengatua. Filipe Bidart

2 (ezezko esaldietan)

Ez zen **soilik** une zoriontsu hartako lilura. Felipe Juaristi

Uste hori, hala ere, ez da halakoena **soilik**. Juan Garzia

Arriskua ez zen **soilik** literarioa. Juan Garzia

Ez dela uste izan behar bihotzean **soilik** dagoela arima. Piarres Xarriton

Ez naiz sexuaz **soilik** ari, ezta maitasunaz ere, nahiz eta horiek ere esku-beteka eman zenizkidan. Juan Kruz Igerabide

Orain berpiztu duen ahotsak dakarren kontuaren antzekoren bat gertatu zela lehen ere, alegia, baina ez gertatu **soilik**; kontaktu ere, kontaktua izan dela behin baino gehiagotan. Pako Aristi

Batzuetan iruditu izan zait ez dela **soilik** gizon-emakumeen irudi, lur honetako bizitzari dagokion zerbaitena ere badela. Felipe Juaristi

Ez daukagu denbora bat **soilik**, denbora asko baizik, eta, tartean, amildegiak. Juan Kruz Igerabide

Aurpegia ez du **soilik** zurbila, erabat aldatua baizik. Joxe Austin Arrieta

Halako gertakariak [...] azpikoz gora jarri behar zuen, ez biologia eta medikuntza **soilik**, baizik eta gizarte osoa. Juan Garzia

Gero ez baita erabiltzen **soilik** hunkigarri dituen gauzekin, baina bai adigarri zaizkion gai izpiritualekin. Piarres Xarriton

Dirassar ez da **soilik** sentimenduz mintzo: sentsazioak ere ematen dizkigu eta bereziki sentsazio sexualak. Janbattitt Dirassar

Mendekua behar nuen, ez **soilik** Adelari egin zionagatik, baita haur txikia nintzela etxeordean egin zidanagatik ere. Juan Kruz Igerabide

Alde askotarik gaitza izanez biziki gutiago balio duela, ezenez eta **soilik** alde batetik. Piarres Xarriton

Hori finkatzea ez dagokie herri erakundeei **soilik**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Konturatzen nintzen, bai, hura ez zela dagoeneko beldur hutsa **soilik**. Mirentxu Larrañaga

Iruditzen zait taberna bat ez dela dirubide hutsa **soilik**. Pako Aristi

Heldugabearen erreakzio neurritz gainekoa? ez hori **soilik**. Aingeru Epaltza

Ez **soilik** animaliak garai jakin eta mugatuetan jartzen direlako altan [...] baizik oroz lehen animaliaaren desira berehalakoa delako, desiraren eta desiratuaren artean ezin duelako ezer tartekatuta, ez bada desira indartsuago bat. Xabier Mendiguren Elizegi

3 soil-soilik

Soil-soilik dakit oso bekatu larrira egin duzuela... Patxi Zubizarreta

Soil-soilik, damutu samar nago lehenago ez konturatua, hori baino ez. Mirentxu Larrañaga

Soil-soilik, mesedetxo bat, ez ezazu zeure burua horrela asaldarazi, mesedez. Mirentxu Larrañaga

Eta niri **soil-soilik**, gainera. Matías Múgica

Soil-soilik Karmelo, Adela eta, harrigarria bada ere, Dan bera geratu dira emoziorik bortitzenak dastatu gabe. Patxi Zubizarreta

Soil-soilik mirabeek eta maisu jakintsuek ikusten zuten. Patxi Zubizarreta

Beren sineskera faltua Jainkoari besterik zor ez zaion zerbaiti aplikatzen ziotenez gero -hau da, **soil-soilik** Jainkoari eman behar zaizkion gurkera eta jauresteari [...].

Xabier Kintana

Une batez, **soil-soilik** une batez, izugarri gorrotatu nuen neure laguna. Aingeru Epaltza

"Eromena kimika arazoa duk **soil-soilik**", esaten zuen. Bernardo Atxaga

Konpainia murrizt bat utzi zuten, **soil-soilik**, Santiago gaztelu eraiki berrian, Herrero gobernari gaztelarraren eta Loiola kapitain gipuzkoarraren gain. Aingeru Epaltza

Printzeak gogoan har dezala beraz, **soil-soilik**, bere biziaren eta Estatuaren iraupena. Piarres Xarriton

Gaiztakeriak dira, **soil-soilik**, jendeari kalte egiten diotenean. Mirentxu Larrañaga

Esadazu, **soil-soilik**, ez nuela izan nik uste bezain jokabide tamalgarria. Mirentxu Larrañaga

Gerta zitekeen **soil-soilik** metabolikoa izatea jasandako lesioa. Xabier Olarra

Gauzak ondo aztertzen baditugu, konturatuko gara legeak gaitzesten duen hura dela **soil-soilik** benetan kriminala. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Isil-trebetasun horretatik idazketa **soil-soilik** ideografikora [...] distantzia ahitezina dago. Juan Garzia

Hiru azken horien obra ia **soil-soilik** matematikoa zela apuntatu zuen Ruche jaunak. Jon Muñoz

Kontsolamendu eskasa nolanahi ere, ezen han barnean bizia ez baitzen jada gure baitakoa: oroimen bat zen **soil-soilik**. Karlos Linazasoro

Eta hau, ez inork behartzen duelako, ezta gero emaitza bereziren bat egokituko zaiolako ere, **soil-soilik** Aidós sentitzen duelako baizik... Iñaki Mendiguren

4 (ezezko esaldietan)

Gure arteko bakoitzak, eta ez **soil-soilik** ametsetan, hiltzen du bere gurasoa eta are guraso biak, haien ondotik bizirik irautearren. Joxan Elosegi

Bilbon dago Guggenheim, baina ez da bilbotarrena **soil-soilik**. Koldo Zuazo

Zaita, erdeinu aire bat begitarlean, aho zabalik geratu zen, eta ez **soil-soilik** bere burua Jada baino hobea jotzen zuelako, baina harekin alderatze hutsa birao barkaezina zitzaielako. Patxi Zubizarreta

Hala eginik, ez dugu argituko hizkuntzalarizaren arazoa **soil-soilik**, baizik eta, errito, ohiturak eta abar ikur gisa hartzean, beste itxurapean agertuko zaizkigu gertaera horiek.

Isabel Arrigain

Sorreratik beretik, giza ezaugarriak ezin dira **soil-soilik** produkzioa eta kontsumora mugatu, nahiz kontsumo merkatu neoliberalak hori ezartzen duela dirudien. Itziar

Eizagirre / Amaia Lizarralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

abiatuta soilik (8); **adimenean soilik** (9); **arabera soilik** (28); **arazoa soilik** (8); **arte soilik** (12); **artean soilik** (18)

bada soilik (8); **baina ez soilik** (10); **baina soilik** (69); **baita soilik** (13); **baitan soilik** (9); **baitira soilik** (8); **bat soilik** (64); **batean soilik** (20); **batek soilik** (39); **baten bitartez soilik** (8); **batez soilik** (11); **batzuek soilik** (12); **batzuetan soilik** (15); **batzuk soilik** (17); **behin soilik** (14); **berak soilik** (10); **bezala soilik** (9); **bi soilik** (11); **bidez soilik** (20); **bitartez soilik** (56)

da soil soilik (22); **da soilik** (195); **dago soilik** (18); **daiteke soilik** (11); **daude soilik** (10); **dela soilik** (36); **delako soilik** (9); **denean soilik** (9); **dio soilik** (9); **dira soilik** (54); **direla soilik** (9); **direnean soilik** (8); **ditu soilik** (28); **dituzte soilik** (17); **du soil soilik** (8); **du soilik** (57); **dugu soilik** (11); **dute soilik** (23)

edo soilik (20); **egiteko soilik** (8); **egun soilik** (9); **esker soilik** (11); **esku soilik** (10); **eta ez soilik** (75); **eta soil soilik** (17); **eta soilik** (188); **ez da soilik** (118); **ez dela soilik** (20); **ez dira soilik** (20); **ez du soilik** (12); **ez soilik** (231); **ez zen soilik** (21)

galdu zuen soilik (8); **gero soilik** (8); **gisa soilik** (44)

hau soilik (13); **heinean soilik** (18); **honek soilik** (8); **honetan soilik** (11); **hori soilik** (26); **horiek soilik** (10); **horrek soilik** (8); **horrela soilik** (9); **horretan soilik** (17)

jokalari soilik (13)

nik soilik (8); **noizean behin soilik** (10)

ondoren soilik (10); **orain arte soilik** (10); **orduan soilik** (12)

partida soilik (16); **partidatan soilik** (10)

soil soilik (419)

soilik abiatuta (9); **soilik adierazten** (9); **soilik agertu** (9); **soilik agertzen** (14); **soilik alde** (11); **soilik alderdi** (9); **soilik arduratzen** (10); **soilik ari** (13); **soilik aurki** (12)

soilik balio (19); **soilik begiratzten** (8); **soilik behar** (13); **soilik bere** (31); **soilik beren** (8); **soilik beste** (9); **soilik bi** (44); **soilik bide** (10); **soilik bost** (9)

soilik da (27); **soilik dago** (12); **soilik daki** (8); **soilik dakit** (8); **soilik daude** (8); **soilik dela** (8); **soilik den** (8); **soilik dira** (29); **soilik direla** (8); **soilik ditu** (8); **soilik du** (21); **soilik duela** (9); **soilik dute** (16)

soilik egin (59); **soilik egingo** (9); **soilik egiten** (35); **soilik egon** (14); **soilik eman** (24); **soilik ematen** (29); **soilik erabaki** (8); **soilik erabil** (9); **soilik erabili** (9); **soilik erabiltzen** (20); **soilik eragiten** (13); **soilik esan** (22); **soilik eskaintzen** (8); **soilik eskatzen** (9); **soilik eta** (26); **soilik euskal** (20); **soilik existitzen** (13); **soilik ez** (55); **soilik ezagutzen** (16); **soilik ezin** (10)

soilik falta (17); **soilik falta da** (9); **soilik funtsatzen** (9)

soilik galdu (12); **soilik geratuko** (8); **soilik geratzen** (25); **soilik gerta** (10); **soilik gertatzen** (13)

soilik har (8); **soilik haren** (8); **soilik hartu** (20); **soilik hartzen** (19); **soilik hasi** (8); **soilik hiru** (27); **soilik hitz** (21); **soilik hitz egiten** (11); **soilik horrela** (9)

soilik igo (8); **soilik ikusi** (15); **soilik ikusten** (9); **soilik irabazi** (10); **soilik iristen** (12); **soilik izan** (68); **soilik izango** (31)

soilik jaso (16); **soilik jasotzen** (8); **soilik joan** (9); **soilik jokatu** (24)

soilik kontuan (8)

soilik lan (9); **soilik lau** (14); **soilik lor** (14); **soilik lortu** (19); **soilik lotzen** (10)

soilik nahi (10); **soilik nire** (14)

soilik oinarritzen (9); **soilik onartzen** (21); **soilik orduan** (8)

soilik parte (9); **soilik partida** (8); **soilik partida bat** (8); **soilik pentsatu** (9); **soilik pentsatzen** (12)

soilik sartu (15); **soilik sei** (8); **soilik sor** (8); **soilik sortu** (8); **soilik sortzen** (10)

GGsoilik uler (8)

soilkeria iz soiltasun gaitzesgarria.

Hagitx ugaria da ordea liburua, nere betiko **soilkeriotan** ito nahi zateko; literatur urraketa honen harira, bai baitu beste oharpen dizdizari anitz. Patziku Perurena

soilki 1 *adlag* bakarrik, besterik gabe. ik soilik.

Soilki ordudanik zaigu haizu horiek otoitzetan erabiltzea. Xabier Kintana

Bataioak, ezkontzak, **soilki** ezinbestean egiten ditut. Piarres Aintziart

Geure helbururako behar ditugun adierak aipatzen ditugu **soilki**, besterik ez. Xabier Kintana

Aldi hauetan **soilki** onartzen dute arra. Gotzon Garate

Ikas ezazu **soilki** zilegi duzuna, eta ez zaitex gauza ilunez ardura. Xabier Kintana

Beste kasu batean beste batek esanikoa onetsi eta **soilki** haren iritzia izkiriatu du. Xabier Kintana

Baina ez zegoen grabaziorik, **soilik** nire oroimenean gelditutako hitzak. Bernardo Atxaga

Lockek eta Berkeleyy ideiak proposatzen dituzte **soilki**, ez sentimen-datuak. Askoren artean

Portugesak Goa inguruetako lurraldeetara hedatu ziren **soilki**. Gotzon Garate

Horixe esan nahi dut **soilki**: trepeta hura askatzen hasi ez banintz, ez nindukeen dei hark etxean harrapatuko. Joxe Austin Arrieta

Menturaz haren bila etortzeko parada ukanen zuten, nahiz biek bazekiten oraingoz aukera hori **soilki** menturazkoa zela. Elena Touyrou

Hori da existitzen dena, matematizatu ahal dena **soilki**. Askoren artean

Bi foto zekartzan **soilki**! Txillardegi

Batak, sorkari ulergari eta sentigarria non bukatuko zen, besteak hau **soilki**: nondik irtengo ote zen gorputzeko eraikin sentigarri hau, bere kolko handian sorkari agerikoak gertu zeuzkana. Imanol Unzurrunzaga

Ez nintzen asko harritu nik **soil-soilki** eskaintzen nion gutun hura hark hartu nahi ez izanaz; zerbait ematea zatekeen jadanik, eta nik defentsa luzeago bat igurikitzen dut.

Jon Muñoz

Beraz soil-soilki kopiatu, eta are **soilkiago** diot lehendakariaren emazte zerutiar horri igorri. Jon Muñoz

2 (ezezko esaldietan)

Gizonak ez diela **soilki** bere animalia izaeraren bulkadei jarraiki behar. Xabier Kintana

Gogoaren deskribapena ez da burmuinaren deskribapena eta, adibidez, min izatea ez da **soilki** egoera neuronal jakin batean egotea. Askoren artean

Ez **soilki** hilabete luzeetan menperatu desira ase zuelako, baizik eta jadanik sekulako gutizia baitzuen eguna laster iragan eta gaua berriz etor zedin. Elena Touyrou

Begi bistakoa da jokatzeko dena ez dela **soilki** Batasunak ekitaldi bat antolatzea, baizik eta gatazkaren konponbidea abiatzea oztopatzea. Berria - Euskal Herria

Argi dago, halaber, adimendua, adimenduna eta adigarria kopuruz bat izanik, berau ez zaiola **soilki** Sortzaileari aplikatzen, adimendu orori baizik. Xabier Kintana

Azken esaldi hau ez doakie, **soilki**, belarriari buruzko metaforei, aurreko kapituluetan agerturiko guztiei baizik, eta, oso bereziki, zentzuei dagozkieni. Xabier Kintana

Bulkatu ninduen, ez **soilki** itsasoa ibiltokizat hartzerat, baina neure etxetzat eta egonlekutzat hartzerat ere. Joan Mari Irigoien

Gainerako izenez den bezainbatean, horiek guztiok atributuak adierazten dituzte, ez **soilki** esentzia bat, baina atributuak dauzkan esentzia bat, eratorriak baitira. Xabier Kintana

3 era soilean, lagungarri edo apaingarririk gabe.

Soilki jantzitako bi emakume zahar txiki ziren izebak. Irene Aldasoro

Soilki eta ele murritez agertu zidan Fanchek egoera. Itxaro Borda

Sinagogari, berriz, apaltasun harroz, **soilki** "scòla" deitu ohi zioten, hots, ikaskuntza eta heziketa hartzen den lekua. Juan Garzia

Maien ezpainek neureak libre utzi zituztenean, erran nion **soilki**: [...]. Itxaro Borda

4 soil-soilki

Soil-soilki adiskideak dira. Gotzon Garate

Azaldu nahi ukan dizut, **soil-soilki**, ez dela egia erakutsi gura izan den bezala, bide hori aurrekoa ez bezalakoa denik; aitzitik, aurrekoarekin bat datorrela, jadanik ezaguna den onargarritasunari dagokionez. Xabier Kintana

Soil-soilki kopiatu, eta are soilkiago diot lehendakariaren emazte zerutiar horri igorri. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da soilki (4); **eta soilki** (6); **ez soilki** (5); **soil soilki** (6)

soiltasun 1 iz soila denaren nolakotasuna.

Gizona ez dela gorputz eta arima, osotasun eta **soiltasun**, baizik eta esperientzia oro unitario dela. Patziku Perurena

Urteekin, gero eta hitz gutxiagoko bihurtu zen; halako **soiltasun** lehor eta gupidagabe batek hartu zuen, bizitzako abentura guztiak gozatuak izango balitu bezala. Ander Irizar

Barrean dekorazioaren **soiltasun** orokorra nabarmena zen eta ez zeukan estatubatuar film puztuetan agertzen diren publizitate konpainien luxu faltsua. Iñaki Zabaleta

Eszenatokiari dagokionez, **soiltasuna** da nagusi, taula gainean mahai metaliko bat, jesarleku batzuk eta burdinazko lau panel haietariko bi atedunak besterik ez dagoelako.

Berria - Kultura

Kasu bereziak eztabaidatzerakoan, erabaki batek edo bestek **soiltasun** orokorrari nola eragingo dion iradoki baino ezin dugu egin. Itziar Laka

Zenbait goiargik *Putzu*-ren **soiltasun** formala mespretxuzko imintzio aristokratiko batez arbuiatzen du, ez baitu ez dakit zer xilipurdi nouveau baliatu. Markos Zapiain

Ez al dator koadrila hau, jakinduriaren moda eta modista "konplikagarri" guziak saihestu nahiz, **soiltasun** xalo baten indar bila? Patziku Perurena

Zoragarri zaio tenpluaren **soiltasuna**. Alberto Barandiaren

Bizarra ugaria zuen, luzatzen uzten ez zion arren; burua, berriz, gaztetatik soildu zitzaion, baina **soiltasun** hura ongi estaltzen ikasi zuen, birreta gainean jarrita. Joan Mari Irigoien

Gavoillek, **soiltasun** guztiaz, izterrean hazka jarraitzen zuen. Josu Zabaleta

Hitzak bere **soiltasunean** hartuko ditugu, kasu atzizkirik gabe, hiztegi batek jasotzen dituen -jasoko lituzkeen- eran. Iñaki Arranz

2 (hitz elkartuetan)

Bertsolariek eta beste kultura batzuetako inprobisatzaileek batera eginiko saioetan, aldiz, entzule gehienek, bertsoen testua ez ulertu arren, generoaren aberastasun erantsi gisa, eta ez akats gisa, jaso dute bertsolaritzaren musika-**soiltasun** hori. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere soiltasunean (5)

soiltxo izond adkor soila.

Adibide **soiltxo** bat jartzeagatik [...], diapositiba-proiektore bat, proiektatzen ari den bitartean, bera ere mugitzen baldin bada, hark proiektatutako irudia mugikorra izango da, baina ez du izango berezko mugimendurik. Josu Zabaleta

soiltze 1 iz soilago bihurtzea.

Soiltzea aurrerapena bada, asko aurreratu dugu horretan, gaur egungo zesarrek eta haien andreak arau bakarra baitute begiratzekoa: gizalegeko agertzearena, noski. Joxerra Garzia

Erregela honek, beraz, gramatikaren **soiltze** nabarmen batera garamatza. Itziar Laka

Gramatikaren atal bat soiltzeak beste atalen neurri bereko **soiltze** bat eragiten duenean sumatzen dugu bide zuzenetik gabiltzala. Itziar Laka

Bokal kenketa eta kontsonante taldeen **soiltzea** harmonizatzeo aukera bilatzen zuen nonbait 3,8 urte zituen Ander euskaradun gasteiztarrek (Legorretako hizkeran hezia) honelakoak ahoskatzen zituenean: *tirgea*, *kokodirdua*, *korkodiloa*. Lourdes Oñederra

Arrunt eragin gaiztoa dute guraren kudeaketa txarrak, basoen neurririk gabeko **soiltzeak**, eta kontrol egokirik gabe egindako nekazaritzak eta abeltzaintzak ere. Berria - Gaiak

Ekologistek salatu dutenez, Brasiliak ez du gauza handirik egiten **soiltzearen** kontra. Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Basoen **soiltze** prozesuari aurre egin ezearan, 20 urtean basoak galduko ditu Ekuadorean. **Berria - Gaiak**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Buru-**soiltzea**, egia esan, jaio aurretik hasten den prozesua da. fotomatona uste zuena, han ari ziren obra bateko kaseta bat izan, eta kanpoan ziren fotoak, ile **soiltzearen** aurkako anuntzio batekoak! **Irene Aldasoro**

Baso-**soiltzea** dela eta, uholdeek triskantza nabarmenak egin dituzte uharterko lurretan. **Berria - Mundua**

Aintzat hartu behar da multzo-**soiltze** horiek (-kt- > -t-) egiten zituztenak alfabetatu gabeko hiztunak izaten zirela sarri. **Lourdes Oñederra**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baso soiltzea (8)

soilune ik soilgune.

soin (orobat *soiñ* g.er.) 1 iz gorputza, bereziki gorputz enborra.

Mundu honekin dugun egiazko komunitate bakarra ez da jaiotzarekin hasi, ezta **soinaren** heriotzarekin bukatuko ere. **Ibon Uribarri**

Gorputz ikusgarria zuen eta bere **soina** nabarmentzeko moduko kamiseta estuak janzen zituen. **Joseba Sarrionandia**

Buru uretan pulunpatu, bainuontzitik atera eta **soina** astindu zuen txakur baten gisa. **Lopez de Arana**

Ez **soina** erdimenez kakotirik izan nuen orduetan, ez gorputza lotsaren lotsaz irakiten izan nuenean estudianteen behako haztatzaileen pean, [...]. **Eduardo Matauko**

Aurpegia besterik ez zuen agerian, eta, haren **soina** ikusi ezin zuen arren, ez zituen hogeitaz urte ere izango. **Ibon Uribarri**

Zangoak gurutzatu, **soina** aurrera makurtu, eta [...] begira geratu zitzaion. **Migel Angel Mintegi**

Stanek musuzapia mahai gainean utzi eta, barre-algaraka, **soina** atzerantz eraman zuen. **Lopez de Arana**

Aitak orduan **soina** altxatu zuen zertan ari nintzen ikusteko. **Joseba Urteaga**

Budek bere **soinaren** pisua oin batetik bestera aldatu zuen. **Lopez de Arana**

Emakumearen **soinak** erakartzen omen du gizona "infernura". **Ibon Uribarri**

Jantziak nabarmenago egiten zuen **soinaren** segailtasuna. **Iñaki Zabaleta**

Ez nekien, zinez, zer egiten nuen ere, eta **soin** osoa neukan dardar. **Txillardegi**

Pijamaren lepotik helduz barrabiletan ostiakadak eta **soin** osoan ukabildakadak eman zizkidan. **Jokin Urain**

Ez egin ebakirik **soinean** dolua adierazteko, ez marraztu tatuajerik larruazalean. **Elizen arteko biblia**

ik beherago 7. **Askoren artean**

Abiatu eta hamalaugarren egunean, eguzkia ikusi genuen aurreneko aldiz, eta **soineko** arropa leran jarri behar izan genuen. **Bernardo Atxaga**

ik soineko.

Lanean makurtuta ziharduelarik, zuri nabari ohi zitzaion bizkar aldean **soin** gaineko blusa narrasaren azpian. **Mirentxu Larrañaga**

Ez da nire burua, oraintxe **soin** gainean daukadan hauxe. **Mirentxu Larrañaga**

Sorpresa handirik gabe, **soin** gainetik Massimo Dutti jaka kendu, eta ate ondoko armairuan eseki nuen. **Iban Zaldua**

2 (izenondoekin)

Soin sendo, leun eta luze hura emetasun gaztearen sinboloa iruditzen zitzaion. **Ibon Uribarri**

Jertse lodiarren azpitik **soin** sendoa nabarmendu zitzaion. **Iñaki Zabaleta**

Ile mataza gaztinkara eta begi pikaro ilunak zeuzkan, bular tenteak, **soin** luzea eta zango zuzenak. **Migel Angel Mintegi**

Txalekoari behera tira egin zion, bere **soin** betearen inguruan tinko jartzeko. **Irene Aldasoro**

Aulki batean eseri da; haren ipurmasail tinkatuek bizkarra ukitzen dute eta haren **soin** tentea aurrerantz makurturik dago. **Monika Etxebarria**

Bere **soin** segail ederrarekin ibilian. **Patxi Zubizarreta**

Jantziztat, **soin** argal eta haugintzak maiztua estaliz, burusi bat, izuaren asalduan atzema. **Juan Garzia**

Arropa beltzak zituen, estu-estu lotuak, bere **soin** motzean. **Irene Aldasoro**

Hor zegoen, **soin** geldia barraren gainetik tenteturik, irribarretsu. **Monika Etxebarria**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hobe dela **soin**-azala ez bustitzea, zulotxoak ohi baino irekiago egon ez daitezten. **Edorta Jimenez**

Eskuak zuriak eta txikiak zituen, **soin**-egitura hauskorra. orain **soin**-lanik latzenak zeinek daramazkin ikustera. **Irene Aldasoro**

Ikus bestela, **soin**-indar hutsez antzeman eta sumatu ote daitezkeen, etsaiaren asma bihurriak eta jokabide eta eragozpenak. **Patxi Ezkiaga**

Horixe esaten aritzen naitzaio beti honako rosakruztar honi: egiteko **soin**-ariketa. **Irene Aldasoro**

Buztingintza eta pintura Sophie, Michel eta Véroniquekin, **soin** dantza Stelinarekin, majia Gilles magoarekin. **Herria**

Ez nuen begirik kentzen haren **soin**-irudi beltzaretatik. **Irene Aldasoro**

Kamisoi erdi garden batez jantzirik, **soin**-ertzak nabarmetzen zitzaizkion kontrargira. **Iñaki Zabaleta**

Soin Heziketan Lizentziaduna eta Psikologian Diplomaduna da. **Berria - Kirola**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Barre egin zuen Irisarrik eta gazte **soin**-luzeari erreparatu zion. **Felipe Juaristi**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Giza **soinaren** egitura ikusten dutelarik, zorrotzen dira eta antolaketa eder horren kausak ez baitakizkitez, hortik ateratzen dute ez dela antze mekanikoz egina baina jainkozko edo naturazgandiko antzez osatua dela. **Piarres Xarriton**

Hirurogeita zazpi urte beteak zituen Egutxik pentsa zezakeen, nahi bazuen, emakume **soin** guztiak funtsean antzekoak direla. **Ibon Uribarri**

Oroituko duk, noski, haren idi-**soina**! **Jon Muñoz**

6 p/ besagainak.

Zu harriturik geratuko zara horren aurrean, eta **soinak** goratuko dituzu, besterik egin ezinik. **Jose Morales**

Lumek **soinak** altxatzen ditu garagardoari azkeneko zurrutada eman bitartean. **Antton Olano**

Besoetatik heldurik, ziegatik atera zuten, eta bera otzan ibiltzen hasi zen, **soinak** altxaturik. **Jose Morales**

Soineko luzeak janzen zituzten, propio aukeratutako **soin** lerdanak nabarmentzeko eta larruazalarekin kontrastatzeko. **Migel Angel Mintegi**

Erantzuna ezin aurkiturik, **soinak** goratzen zituen, gelan batera eta bestera zebilela. **Jose Morales**

7 soinean

Hogeita hamar urte inguru zituen eta **soinean** jaka lasai bat zeraman. **Jose Morales**

Kolore argiko mantal bat zeukan **soinean**, sedazkoa, oso ondo ematen ziona. **Jose Morales**

Lihozko mantua zeraman Davidek **soinean**. **Elizen arteko biblia**

Dotore jantzia, zertakoa arrosa-kolorea **soinean** eta gainean besaburuetan artilezko jertse aurretik irekia. **Felipe Juaristi**

Kapelua buruan, longaina **soinean** eta zapi ñabarra lepo inguruan. **Jose Morales**

Haien artean, armeniarrek zeuden, jantzi luzeak **soinean** eta mitra antzekoak buru estalgarri. **Karlos Zabala**

Zeuner zutik zegoen, kanpainako uniformeak **soinean** eta eskuak atzean. **Felipe Juaristi**

Eskaileretan behera jaitsi zen, bizkarra zuzen, agure tankera ematen zion traje beltza **soinean**. **Xabier Olarra**

Emakume askok birjintasuna gordetzen zuen, beren etxeetan biziz eta erlijio-jantzia **soinean** eramanez. **Askoren artean**

Gora eta behera dabil gelan, barruko galtzak eta bularretakoa **soinean**, edaria eskuan. **Koro Navarro**

Erdi biluzirik, galtzoina bakarrik **soinean**. **Eneko Bidegain**

Olatz da, mutil jantzia eta ileorde beltz bat jantzita duela, haren pastazko betaurrekoak ere **soinean**. **Harkaitz Cano**

Ana erredakzioan, kamiseta tirantedun llaburra **soinean** zuela. **Aingeru Epaltza**

Gu beraien inguruan, igeri-jakak **soinean**, egonean. **Joxe Austin Arrieta**

Halaxe, bada, **soinean** zakua jantzi eta lepoan soka loturik, heldu ziren Israelgo erregeagana. **Elizen arteko biblia**

Berrogei edo berrogeita hamarna zinta zeramatzen **soinean**, ez bi edo hiru bakarrik. **Bernardo Atxaga**

Holandako oihal hoberenaz egin galtzoinak **soinean** ukanik ere, beren buruak sans-culottes iraultzaile izendatzen zituzten burges haiek: notario, abokatu, negoziogile dirudun. **Elena Touyarou**

Batez ere dama-itxurako izaki horietako asko badago, bidegurutzeetan zain saguzarren antzera, galtzerdirik gabe, sorbalda-oihal gorria eta bortzegiak **soinean**. **Jose Morales**

Etxaizko bizkondea bezala, zaldi xuri baten gainean, zilarrezko armadura bat **soinean**. **Michel Oronoz**

8 soin adar

Soin-adarrak luze, giharrak teinkaturik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Auto abarrikatu baten pusken arteak agertzen diren **soin-adar** zatikatuak, bide bazterretako erretenean. neguko hilaldia bere baitan sartzen zitzaizkiola iruditu zitzaion, odola gelditu eta izoztuko ziotela, **soin atalak** zurrunduko zizkiotela. **Aingeru Epaltza**

Berrehun hildakotik gora, haur eta emakume ugari kiskalita eta **soin-adarrak** gabe. **Berria - Mundua**

Haur potolo bat atzera ari da geratzen: nekearen zama sentitzen du **soin-adarretan**, igurtziaren gorria izter lodi bien barnealdean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Eskua luzatu gabe ere, halako deskarga elektriko batek zizta egin zidan beheko **soin-adarretan**. **Aingeru Epaltza**

Eztarria idortu zitzaidan, **soin-adarrak** txinaurritu. **Aingeru Epaltza**

9 soin atal (orobat soinatal g.er.)

Ratapoil pertsonaiaren kokaera, **soin-atalez soin-atal** desmuntatzen du, gorputz-atal horiek keinu oso bat beraren segidako uneak direla frogatzeko. **Josu Zabaleta**

Beraren **soin-atal** lirain luzexkekin, pertsona ahul, eraginez eta marituaren eredu berbera zen. **Oskar Arana**

Soin-atal guztietan sentitzen nuen dardara izuarena zen. **Anjel Lertxundi**

Ukitzean hotzikara luze bat sentitu nuen **soin atal** guztietan zehar. **Josu Zabaleta**

Jantziek zabalegi ziruditen haren **soin atal** iharrentzat, haren bular estuarentzat, haren sabel hustuarentzat. **Josu Zabaleta**

Eskuetatik artelana eta espiritutik hura egiteko asmoa kentzen badiozu, non eta **soin atalen** xedea plazera edota denbora-pasa baino izan ez dadin, orduan langintza honi *dantza* deitzen diogu. **Imanol Unzurrunzaga**

Etsaien sable okerra baino zaurigarriagoa zen haizea eta hotza, esku-hankak ez ezik, **soin atalak** oro, automaten gisa erabiltzera behartzen zituen nekea eta hotza. **Felipe Juaristi**

10 soin enbor

Luzamendurik gabe, soinean zeraman elastiko morea kendu zuen gure begien aurrean bere **soin-enbor** ederra agerian utziz. **Aitor Arana**

Besoak **soin-enborraren** albo banatan utzi ditu. **Pello Lizarralde**

Maria Sara doktoreak eseririk jarraitu zuen, baina **soin-enborra** tentetu eta aurrerantz makurtu zen apur bat, ikusiarazi nahian edo, berari zegokionez, elkarrizketa bukatutik zela. **Jon Alonso**

Eskua ez zegoen hor, ez, baina gorputzak, **soin-enborrak**, bizkarreko kirioek, hori ez balekitez bezala jokatzeko zuten. **Harkaitz Cano**

Urkamendiak zeuden [...] eta bertan, zintzilik, aurpegia desitxuratu, eskuak gogortuak, **soin enborrak** baldar airean eta oinutsik, soldadu alemanak. **Felipe Juaristi**

Intsektu argi-emaileak dira, are argirik gehien ematen omen duten intsektuak, edo halaxe dute fama, bederen, **soin-enborraren** bi aldeetan argia ematen duten bi organo dituztelako. **Jon Alonso**

11 soin eta muin adlag buru eta bihotz.

Bere herritarren alde **soin eta muin** lehenengo lerroan borrokatu zen hark, gaztarotik bere aberkideentzat onginahia izan zuen hark, Nikanorri buru-besoak sorbalda eta guzti moztu eta Jerusalem eraamateko agindu zuen. **Elizen arteko biblia**

Dantzarien takioek gogor zapaltzen zuten zorua, eta armadako kapitainorde batek **soin eta muin** eragiten zien besoei eta hankei, ametsetan ere inork lortuko ez lukeen pauso bat markatzeko ahalegin biziak eginez. **Jose Morales**

12 soinez soin elkarren ondoan.

Andreas eta Nora **soinez soin** zeuden brankako barandan. **Anjel Lertxundi**

Soinez soin, elkarrengandik askatu gabe, ordu laurden bat egon ziren zurbia igo ezinik. **Jose Morales**

Itzulerako bidea hartu zuten, oinez oin eta pausuz pausu, **soinez soin** eta bihotzez bihotz, lehendik zihoazen gizonekin biltzeko. **Felipe Juaristi**

Ikusiak zituen gizon-emakumeak dantzan, ezpainak ezpaini, eskuak eskuei, gerriak gerriei, gorputzak **soinez soin** eta oinez oin elkarri loturik. **Felipe Juaristi**

Horrela bataku eskuin hankatik eta besteak ezkerretik herren eta herren, berehala ondo lotu zitzaizkien elkarri **soinez soin** eta hankaz hanka. **Felipe Juaristi**

Serantes mendia, Cuesta, Abanto, Putxeta, Somorrostro, Santeliz, Muñeka inguruak, **soinez soin** amaitu dituk, hilgintza beldurgarritan gorriturik. **Txillardegí**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

soin adarretan (4); **soin atal** (7); **soin atal guztietan** (3); **soin atalak** (10); **soin atalen** (4); **soin enborra** (4); **soin enborrak** (3); **soin gainean** (3); **soin gaineko** (3); **soin irudi** (3); **soin osoa** (5); **soinez soin** (8)

soina biluzik (4); **soina eta burua** (3); **soina goratu** (4)

soinak altxatu (3)

armak soinean (3); **berokia soinean** (4); **besterik ez soinean** (3); **darama soinean** (7)

elastikoa soinean (7); **eramango du soinean** (7); **galtzak soinean** (4)

jaka soinean (5); **jantzi zuen soinean** (3); **jantzi zuten soinean** (3); **jantzia soinean** (11); **jantzia zeraman soinean** (3); **jantziak soinean** (15); **jantziak zituzten soinean** (3); **lan jantzia soinean** (3); **maillot horia soinean** (4); **mantala soinean** (3)

pijama soinean (3)

soinean darama (3); **soinean daramadan** (3); **soinean daraman** (7); **soinean duela** (5)

soinean eraman (11); **soinean eraman zuen** (3); **soinean eramango** (6); **soinean eramatea** (3); **soinean eramateko** (3); **soinean eramaten** (7); **soinean eramaten zuen** (3)

soinean jaka (3); **soinean jantzi** (4); **soinean jantzita** (7); **soinean jarri** (5)

soinean urrezko domina (3); **soinean zakua** (4); **soinean zeraman** (38); **soinean zeraman lehergailua** (4); **soinean zeramaten** (3); **soinean zeramatzen** (10); **soinean zeramatzen** (10); **soinean zituela** (7); **soinean zituen** (9); **soinean zituztela** (8); **soinean zituzten** (6); **soinean zuela** (12); **soinean zuen** (12); **soinean zutela** (3); **sotana soinean** (3); **suzidita batek soinean** (4); **uniformea soinean** (9); **urdira soinean** (6)

zekarren soinean (5); **zeraman soinean** (39); **zeramatzen soinean** (15); **zeramatzen soinean** (8); **zeukan soinean** (11); **zituela soinean** (3)

soinetik kendu (4)

soinez soin (8)

soin *(robat soñ g.er.)* 1 iz gorputza, bereziki gorputz enborra.

Mundu honekin dugun egiazko komunitate bakarra ez da jaiotzarekin hasi, ezta **soinaren** heriotzarekin bukatuko ere. **Ibon Uribarri**

Gorputz ikusgarria zuen eta bere **soina** nabarmentzeko moduko kamiseta estuak janzen zituen. **Joseba Sarrionandia**

Buru uretan pulunpatu, bainuontzitik atera eta **soina** astindu zuen txakur baten gisa. **Lopez de Arana**

Ez **soina** erdimenez kakoturik izan nuen orduetan, ez gorputza lotsaren lotsaz irakiten izan nuenean estudiantean behako haztatzaileen pean, [...]. **Eduardo Matauko**

Aurpegia besterik ez zuen agerian, eta, haren **soina** ikusi ezin zuen arren, ez zituen hogeit urte ere izango. **Ibon Uribarri**

Zangoak gurutzatu, **soina** aurrera makurtu, eta [...] begira geratu zitzaion. **Migel Angel Mintegi**

Stanek musuzapia mahai gainean utzi eta, barre-algaraka, **soina** atzerantz eraman zuen. **Lopez de Arana**

Aitak orduan **soina** altxatu zuen zertan ari nintzen ikusteko. **Joseba Urteaga**

Budek bere **soinaren** pisua oin batetik bestera aldatu zuen. **Lopez de Arana**

Emakumearen **soinak** erakartzen omen du gizona "infernura". **Ibon Uribarri**

Jantziak nabarmenago egiten zuen **soinaren** segailtasuna. **Iñaki Zabaleta**

Ez nekien, zinez, zer egiten nuen ere, eta **soin** osoa neukan dardar. **Txillardegi**

Pijamaren lepotik helduz barrabiletan ostikadak eta **soin** osoan ukabildakadak eman zizkidan. **Jokin Urain**

Ez egin ebakirik **soinean** dolua adierazteko, ez marraztu tatuajerik larruazalean. **Elizen arteko biblia**

ik beherago 7. **Askoren artean**

Abiatu eta hamalagarren egunean, eguzkia ikusi genuen aurreneko aldiz, eta **soineko** arropa leran jarri behar izan genuen. **Bernardo Atxaga**

ik soineko.

Lanean makurtuta ziharduelarik, zuri nabari ohi zitzaion bizkar aldean **soin** gaineko blusa narrasaren azpian. **Mirentxu Larrañaga**

Ez da nire burua, oraintxe **soin** gainean daukadan hauxe. **Mirentxu Larrañaga**

Sorpresa handirik gabe, **soin** gainetik Massimo Duti jaka kendu, eta ate ondoko armairuan eseki nuen. **Iban Zaldua**

2 (izenondoekin)

Soin sendo, leun eta luze hura emetasun gaztearen sinboloa iruditzen zitzaion. **Ibon Uribarri**

Jertse lodiarene azpitik **soin** sendoa nabarmendu zitzaion. **Iñaki Zabaleta**

Ile mataza gaztinkara eta begi pikaro ilunak zeuzkan, bular tenteak, **soin** luzea eta zango zuzenak. **Migel Angel Mintegi**

Txalekoari behera tira egin zion, bere **soin** betearen inguruan tinko jartzeko. **Irene Aldasoro**

Aulki batean eseri da; haren ipurmasail tinkatuek bizkarra ukitzen dute eta haren **soin** tentea aurrerantz makurturik dago. **Monika Etxebarria**

Bere **soin** segail ederrarekin ibilian. **Patxi Zubizarreta**

Jantzizat, **soin** argal eta haurgintzak maiztua estaliz, burusi bat, izuaren asalduan atzema. **Juan Garzia**

Arropa beltzak zituen, estu-estu lotuak, bere **soin** motzean. **Irene Aldasoro**

Hor zegoen, **soin** geldia barraren gainetik tenteturik, irribarretsu. **Monika Etxebarria**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hobe dela **soin**-azala ez bustitzea, zulotxoak ohi baino irekiago egon ez daitezen. **Edorta Jimenez**

Eskuak zuriak eta txikiak zituen, **soin**-egitura hauskorra. orain **soin**-lanik latzenak zeinek daramazkin ikustera. **Irene Aldasoro**

Ikus bestela, **soin**-indar hutsez antzeman eta sumatu ote daitezkeen, etsaiaren asma bihurriak eta jokabide eta eragozpenak. **Patxi Ezkiaga**

Horixe esaten aritzen natzaio beti honako rosakruztar honi: egiteko **soin**-ariketa. **Irene Aldasoro**

Buztingintza eta pintura Sophie, Michel eta Véroniquekin, **soin** dantza Stelinarekin, majia Gilles magoarekin. **Herria**

Ez nuen begirik kentzen haren **soin**-irudi beltzaretatik. **Irene Aldasoro**

Kamisoi erdi garden batez jantzirik, **soin**-ertzak nabarmetzen zitzaizkion kontrargira. **Iñaki Zabaleta**

Soin Heziketan Lizentziaduna eta Psikologian Diplomaduna da. **Berria - Kirola**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Barre egin zuen Irisarrik eta gazte **soin**-luzeari erreparatu zion. **Felipe Juaristi**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Giza **soinaren** egitura ikusten dutelarik, zorutzen dira eta antolaketa eder horren kausak ez baitakizkitez, hortik ateratzen dute ez dela antze mekanikoz egina baina jainkozko edo naturazgandiko antzez osatua dela. **Piarres Xarriton**

Hirurogeita zazpi urte beteak zituen Egutirik pentsa zezakeen, nahi bazuen, emakume **soin** guztiak funtsean antzekoak direla. **Ibon Uribarri**

Oroituko duk, noski, haren idi-**soina**! **Jon Muñoz**

6 p/ besagainak.

Zu harriturik geratuko zara horren aurrean, eta **soinak** goratuko dituzu, besterik egin ezinik. **Jose Morales**

Lumek **soinak** altxatzen ditu garagardoari azkeneko zurrutada eman bitartean. **Antton Olano**

Besoetatik heldurik, ziegatik atera zuten, eta bera otzan ibiltzen hasi zen, **soinak** altxaturik. **Jose Morales**

Soineko luzeak janzen zituzten, propio aukeratuak **soin** lerdanak nabarmentzeko eta larruazalarekin kontrastatzeko. **Migel Angel Mintegi**

Erantzuna ezin aurkiturik, **soinak** goratzen zituen, gelan batera eta bestera zebilela. **Jose Morales**

7 soinean

Hogeita hamar urte inguru zituen eta **soinean** jaka lasai bat zeraman. **Jose Morales**

Kolore argiko mantal bat zeukan **soinean**, sedazkoa, oso ondo ematen ziona. **Jose Morales**

Lihozko mantua zeraman Davidek **soinean**. **Elizen arteko biblia**

Dotore jantzita, zetazko atorra arrosa-kolorea **soinean** eta gainean besaburuetan artilezko jertse aurretik irekia. **Felipe Juaristi**

Kapelua buruan, longaina **soinean** eta zapi ñabarra lepo inguruan. **Jose Morales**

Haïen artean, armeniarrek zeuden, jantzi luzeak **soinean** eta mitra antzekoak buru estalgarri. **Karlos Zabala**

Zeuner zutik zegoen, kanpainako uniforme **soinean** eta eskuak atzean. **Felipe Juaristi**

Eskaileretan behera jaitsi zen, bizkarra zuzen, agure tankera ematen zion traje beltza **soinean**. **Xabier Olarra**

Emakume askok birjintasuna gordetzen zuen, beren etxeetan biziz eta erlijio-jantzia **soinean** eramanez. **Askoren artean**

Gora eta behera dabil gelan, barruko galtzak eta bularretakoa **soinean**, edaria eskuan. **Koro Navarro**

Erdi biluzirik, galtzoina bakarrik **soinean**. **Eneko Bidegain**

Olatz da, mutil jantzian eta ileorde beltz bat jantzita duela, haren pastazko betaurrekoak ere **soinean**. **Harkaitz Cano**

Ana erredakzioan, kamiseta tirantedun llaburra **soinean** zuela. **Aingeru Epaltza**

Gu beraien inguruan, igeri-jakak **soinean**, egonean. **Joxe Austin Arrieta**

Halaxe, bada, **soinean** zakua jantzi eta lepoan soka loturik, heldu ziren Israelgo erregeagana. **Elizen arteko biblia**

Berrogei edo berrogeita hamarna zinta zeramatzen **soinean**, ez bi edo hiru bakarrik. **Bernardo Atxaga**

Holandako oihal hoberean egin galtzoinak **soinean** ukanik ere, beren buruak sans-culottes iraultzaile izendatzen zituzten burges haiek: notario, abokatu, negoziogile dirudun. **Elena Touyrou**

Batez ere dama-itxurako izaki horietako asko badago, bidegurutzeetan zain saguzarren antzera, galtzerdirik gabe, sorbalda-oihal gorria eta bortzegiak **soinean** . **Jose Morales**

Etxauzko bizkondea bezala, zaldi xuri baten gainean, zilarrezko armadura bat **soinean** . **Michel Oronoz**

8 *soin adar*

Soin-adarrak luze, giharrak teinkaturik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Auto abarrikatu baten pusken arteik agertzen diren **soin-adar** zatikatuak, bide bazterretako erretenean. neguko hilaldia bere baitan sartzen zitzaizkiola iruditu zitzaion, odola gelditu eta izoztuko ziotela, **soin atalak** zurrunduko zizkiotela. **Aingeru Epaltza**

Berrehun hildakotik gora, haur eta emakume ugari kiskalita eta **soin-adarrrik** gabe. **Berria - Mundua**

Haur potolo bat atzera ari da geratzen: nekearen zama sentitzen du **soin-adarretan**, igurtziaren gorria izter lodi bien barnealdean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Eskua luzatu gabe ere, halako deskarga elektriko batek zizta egin zidan beheko **soin-adarretan**. **Aingeru Epaltza**

Eztarria idortu zitzaidan, **soin-adarrak** txinaurritu. **Aingeru Epaltza**

9 *soin atal (orobat soinatal g.er.)*

Ratapoil pertsonaiaren kokaera, **soin-atalez soin-atal** desmuntatzen du, gorputz-atal horiek keinu oso bat beraren segidako uneak direla frogatzeko. **Josu Zabaleta**

Beraren **soin-atal** lirain luzekekin, pertsona ahul, eraginerraz eta marituaren eredu berbera zen. **Oskar Arana**

Soin-atal guztietan sentitzen nuen dardara izuarena zen. **Anjel Lertxundi**

Ukitzean hotzikara luze bat sentitu nuen **soin atal** guztietan zehar. **Josu Zabaleta**

Jantziek zabalegi ziruditen haren **soin atal** iharrentzat, haren bular estutuarentzat, haren sabel hustuarentzat. **Josu Zabaleta**

Eskuetatik artelana eta espiritutik hura egiteko asmoa kentzen badiozu, non eta **soin atalen** xedea plazera edota denbora-pasa baino izan ez dadin, orduan langintza honi *dantza* deitzen diogu. **Imanol Unzurrunzaga**

Etsaien sable okerra baino zaurigarriagoa zen haizea eta hotza, esku-hankak ez ezik, **soin atalak** oro, automaten gisa erabiltzera behatzen zituen nekea eta hotza. **Felipe Juaristi**

10 *soin enbor*

Luzamendurik gabe, soinean zeraman elastiko morea kendu zuen gure begien aurrean bere **soin-enbor** ederra agerian utziz. **Aitor Arana**

Besoak **soin-enborraren** albo banatan utzi ditu. **Pello Lizarralde**

Maria Sara doktoreak eseririk jarraitu zuen, baina **soin-enborra** tentetu eta aurrerantz makurtu zen apur bat, ikusiarazi nahian edo, berari zegokionez, elkarrizketa bukatuturik zela. **Jon Alonso**

Eskua ez zegoen hor, ez, baina gorputzak, **soin-enborrak**, bizkarreko kirioek, hori ez balekite bezala jokutzen zuten. **Harkaitz Cano**

Urkamendiak zeuden [...] eta bertan, zintzilik, aurpegia desitxuratua, eskuak gogortuak, **soin enborrak** baldar airean eta oinutsik, soldadu alemanak. **Felipe Juaristi**

Intsektu argi-emaileak dira, are argirik gehien ematen omen duten intsektuak, edo halaxe dute fama, bederen, **soin-enborraren** bi aldeetan argia ematen duten bi organo dituztelako. **Jon Alonso**

11 *soin eta muin adlag* buru eta bihotz.

Bere herritarren alde **soin eta muin** lehenengo lerroan borrokatu zen hark, gaztarotik bere aberkideentzat onginahia izan zuen hark, Nikanorri buru-besoak sorbalda eta guzti moztu eta Jerusalem era mateko agindu zuen. **Elizen arteko biblia**

Dantzarien takoiek gogor zapaltzen zuten zorua, eta armadako kapitainorde batek **soin eta muin** eragiten zien besoei eta hankei, ametsetan ere inork lortuko ez lukeen pauso bat markatzeko ahalegin biziak eginez. **Jose Morales**

12 *soinez soin* elkarren ondoan.

Andreas eta Nora **soinez soin** zeuden brankako barandan. **Anjel Lertxundi**

Soinez soin, elkarrengandik askatu gabe, ordu laurden bat egon ziren zurubia igo ezinik. **Jose Morales**

Itzulerako bidea hartu zuten, oinez oin eta pausuz pausu, **soinez soin** eta bihotzez bihotz, lehendik zihoazen gizonekin biltzeko. **Felipe Juaristi**

Ikusiak zituen gizon-emakumeak dantzan, ezpainak ezpainei, eskuak eskuei, gerriak gerriei, gorputzak **soinez soin** eta oinez oin elkarri loturik. **Felipe Juaristi**

Horrela bataku eskuin hankatik eta besteak ezkerretik herren eta herren, berehala ondo lotu zitzaizkion elkarri **soinez soin** eta hankaz hanka. **Felipe Juaristi**

Serantes mendia, Cuesta, Abanto, Putxeta, Somorrostro, Santeliz, Muñeka inguruak, **soinez soin** amaitu dituk, hilkintza beldurgarritan gorriturik. **Txillardegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

soin adarretan (4); **soin atal** (7); **soin atal guztietan** (3); **soin atalak** (10); **soin atalen** (4); **soin enborra** (4); **soin enborrak** (3); **soin gainean** (3); **soin gaineko** (3); **soin irudi** (3); **soin osoa** (5); **soinez soin** (8)

soina biluzik (4); **soina eta burua** (3); **soina goratu** (4)

soinak altxatu (3)

armak soinean (3); **berokia soinean** (4); **besterik ez soinean** (3); **darama soinean** (7)

elastikoa soinean (7); **eramango du soinean** (7); **galtzak soinean** (4)

jaka soinean (5); **jantzi zuen soinean** (3); **jantzi zuten soinean** (3); **jantzia soinean** (11); **jantzia zeraman soinean** (3); **jantziak soinean** (15); **jantziak zituzten soinean** (3); **lan jantzia soinean** (3); **maillot horia soinean** (4); **mantala soinean** (3)

pijama soinean (3)

soinean darama (3); **soinean daramadan** (3); **soinean daraman** (7); **soinean duela** (5)

soinean eraman (11); **soinean eraman zuen** (3); **soinean eramango** (6); **soinean eramatea** (3); **soinean eramateko** (3); **soinean eramaten** (7); **soinean eramaten zuen** (3)

soinean jaka (3); **soinean jantzi** (4); **soinean jantzita** (7); **soinean jarri** (5)

soinean urrezko domina (3); **soinean zakua** (4); **soinean zeraman** (38); **soinean zeraman lehergailua** (4); **soinean zeramaten** (3); **soinean zeramatzen** (10); **soinean zeramatzen** (10); **soinean zituela** (7); **soinean zituen** (9); **soinean zituztela** (8); **soinean zituzten** (6); **soinean zuela** (12); **soinean zuen** (12); **soinean zutela** (3); **sotana soinean** (3); **suizida batek soinean** (4); **uniformea soinean** (9); **urdira soinean** (6)

zekarren soinean (5); **zeraman soinean** (39); **zeramatzen soinean** (15); **zeramatzen soinean** (8); **zeukan soinean** (11); **zituela soinean** (3)

soinetik kendu (4)

soinez soin (8)

soinalde iz soinaren alde.

Buruaren ondotik besoak eta **soinaldeak** jauki ziren, gero sabela eta azkenik oinak, lekeda beltz, zeru grisaren pean distira ketsuz emokatuak. **Itxaro Borda**

soinatal ik soin 9.

soinbera iz moluskua.

Ontzi hura ongi bikeztaturik zegoen, eta hala ere zoru guztia zulotxo josirik zeukan: **soinberak** jana, azaldu zidaten. **Juan Garzia**

· Baziren Jurasiko eta Kretaziko garaietan bizi izan ziren txapiroien antzeko bizidun batzuk *-belemnite* izenez ezagunak- eta txapiroiek izan ohi duten luma edo hezurtxo gardenaren ordeaz, atzealdean karezko bala edo azkon txiki baten antzeko bat zeukaten -euren **soinbera** hezurgabearen euskarri bezala edo. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

soinburu (**41** ageraldi, **3** liburutan) iz besaburua, besagaina.

Abokatuak **soinburuak** jasotzen ditu. **Oskar Arana**

Tomek **soinburuak** goratu zituen. **Oskar Arana**

Hitz egin duen gizona txikia da, mehea, **soinburuak** aurrerantz makurtuta ditu. **Oskar Arana**

Soinburuan esekitzen du bere esku-poltsa. **Oskar Arana**

Arrano handi bat eskuineko **soinburuan**. **Oskar Arana**

Uharte batean zigante begibakar beldurgarriak dira; ondoko bateko jendeak burugabeak dira, begiak **soinburuetan** dituzte eta zaldien ferraren formako aho itsusi bat badute bularretan. **Aurelia Arkotxa**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

soinburuak altxatzen (5); **soinburuak altxatzen ditu** (5); **soinburuak goratu** (3); **soinburuak goratu zituen** (3); **soinburuak jasotzen** (3); **soinburuak jasotzen ditu** (3)

soineko 1 iz jantzia; batez ere gorputz enbor osoa estaltzen duena.

Emakumeak ez du gizezkoen jantzirik erabiliko, ezta gizonak ere emakumezkoen **soinekorik** jantziko. **Elizen arteko biblia**

Galtzak ala **soinekoa**? **Ana Urkiza**

Etsia hartu beharrean, ez bat eta ez bi, senarraren **soinekoak** eta haren durbantea jantzi, eta dendatik irten zen. **Patxi Zubizarreta**

Aldatu zuen Saulek bere itxura beste **soineko** batzuk jantziz eta bi gizonekin joan zen. **Elizen arteko biblia**

Erantzi, kendu **soineko** horiek, eta estali dolu-jantziz. **Elizen arteko biblia**

Burura errautsa bota eta urratu egin zituzten beren **soinekoak**. **Elizen arteko biblia**

Soinekoa eta soingainekoa urratuak nituela, belauniko jarri eta Jaunarengana, neure Jainkoarengana, luzatu nituen eskuak. **Elizen arteko biblia**

Ez zakutorik biderako, ez **soinekorik** aldatzeko, ez oinetakorik, ez eta makilarik ere. **Elizen arteko biblia**

Laborari baten **soinekoekin**, bere apez lana aintzina eremanen du gordeka. **Heria**

Bai jaunak, eta bai andereak ere, oso dotoreak eta anpurusak ziren, bai beren **soinekoetan**, bai beren hizkera ozenean ere. **Txillardegia**

Jaka bana zuten biek **soinekoaren** gainean. **Felipe Juaristi**

Soineko bat egin diot. **Bernardo Atxaga**

Gure amarentzat, **soinekoak** egitea arte bat zen, beti zer ikasia eskaintzen zuen arte bat. **Fernando Rey**

Adabakiekin **soineko** berria josteko. **Ana Urkiza**

Nire ama ere joslea zela eta **soinekoak** mozten zituela. **Fernando Rey**

Soinekoaren bizpahiru botoi askatu zituen, beroak eragindako itomena arintzeko. **Anjel Lertxundi**

Bizkor-bizkor, etxeko mantala kendu eta **soinekoa** sartzen dut burutik behera. **Anjel Lertxundi**

Soinekoaren mahukan lehortu zituen begiak. **Koro Navarro**

Han, bere **soinekoaren** aurea zabaldu, bularra altxatu eta azpialdea seinatu zidan. **Anton Garikano**

Txamarrotia aldiz hango arrantzaleen **soineko** bat zen. **Heria**

Bere **soineko** eta kaftanarekin dotore jantzirik, pauso luzeka abiatzen zen kalezuloko sarbidera, han izaten baitzuen zaldikotxea zain. **Patxi Zubizarreta**

Tanga bat neraman jantzita; kuleroak **soineko** azpian nabarmendu ez daitezen erabiltzen dut. **Juan Martin Elexpuru**

Pezaka kentzen zizkieten bere **soineko** guztiak eta erlikiatzat eramaten. **Piarres Xarriton**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bere **soineko** bikainak erantzirik, dolu-jantzi zarpailak hartu zituen soinean. **Elizen arteko biblia**

Soineko motz bat jantzi zuen, besterik ez. **Miguel Angel Mintegi**

Soineko luze ederrez jantzia zegoen neska, halaxe jantzen baitziren errege-alaba ezkongabeak. **Elizen arteko biblia**

Mundura traje edo **soineko** lisatu eta guzti erdituak izan balira bezala. **Harkaitz Cano**

Soineko gris botoiduna. **Fernando Rey**

Nire Lehen Begiek han egon nahi zuten: ikusi egin nahi zuten *la paysanne* rasoiko **soineko** zuri batekin jantzita. **Bernardo Atxaga**

Soineko estu beltza jantzi duzu, Eñauti gustatzen zitzaiona. **Sonia Gonzalez**

Amerikar jostunek **soineko** koloretsuak egiten dituzte Europako emakumeentzat, eta jostun europarrek, berriz, **soineko** ilunak Amerikakoentzat. **Anjel Lertxundi**

Soineko dotoreen eta altzari garestien ikusmirak diru-gosea pizten zion. **Patxi Zubizarreta**

Artean mahuka gabeko udako **soineko** loredua zeraman emakume handi batek aurrera egin zuen gu guztionartetik. **Urtzi Urrutikoetxea**

Haren azpiko **soineko** zabal loreduaren gisakoa Kristinak ere probesten zuen. **Aingeru Epaltza**

Bere ezkontzako **soinekoa** guretzako jaunartzeko soineko egin zuen. **Ana Urkiza**

Kotoizko **soineko** zuri-gorri bat, betiko **soineko** klasikoa. **Oskar Arana**

Zetazko **soineko** zuri garden batez jantzia, azahar lurrin gozoz oparo bustia. **Juan Martin Elexpuru**

Beharrik Aqualanden itxurazko **soineko** bat irabazi nuen. **Joxan Elozegi**

Eskolarako 2 **soineko** (negurako), jantzeko 2 **soineko** (udarako). **Josu Zabaleta**

Annak dantzarako **soinekoa** erantzi eta kamisoiak jantzi zuen. **Lopez de Arana**

Halako batean, bere pieza bakarreko **soinekoa** gainetik kentzen zuela, biluztu zitzaidan Mignon. **Joan Mari Irigoien**

Etxean tindaturiko **soineko** bat zeukan jantzirik, eta oinutsik zegoen. **Jose Morales**

Ez daitezela apain orrazkera nabarmenez, urrez, harribitxiz edota **soineko** aberatsez. **Elizen arteko biblia**

Parisen jositako **soineko** garestiak eta larru leunez apainduriko berokiak. **Alberto Ladron Arana**

Zer ikustera irten zineten bestela?, **soineko** apainez jantzitako gizona? **Elizen arteko biblia**

Perkalezko **soineko** ñabar batez jantzirik emakume lodi adineko bat. **Jose Morales**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Atzetik hurbildu eta **soineko** -ertza ukitu zion Jesusi. Besteak, berriz, **soineko** -hegala jasoz jarraitzen. **Elizen arteko biblia**

Zeta beltzeko **soineko** botoiak lotzen ari zen, oihala bere eskumutur gizenen indar guztiarekin tenkatuz. **Karlos Zabala**

Lehen orkatilak agerian uzten zizkieten **soineko** -barrenek orain lurra erraztatzen zuten. **Anton Garikano**

Goxoki ugarien artean bakar bat hautatu behar duen haurraren erabaki neketsua bihurtzen ari zitzaion Norari **soineko** -probaketa. **Anjel Lertxundi**

Lissar karrikan behin **soineko** saltegi bat eta ere Francis Jammes karrikan eskulan saltegi bat. **Heria**

Eskualdatuz joan zen, pixkana-pixkana, **soineko** bilduma hura. **Joxan Elozegi**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Galeoi bat azaldu zen, emakume ilehori **soineko** zuri batek gidatua. **Felipe Juaristi**

Gizon bizar-gorriak emakume **soineko** -zuria hartu zuen, eskuin eskua emakumearen gerrian jarri eta ezker eskuaz emakumearen eskuinari oratuz, eta jira eta buelta egin zuten dantzariak. **Felipe Juaristi**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Smoking, frak eta trajeak zeramatzen gizezko askok eta gau- **soineko** luzeak, larruzko gaineoen azpitik, emakumezkoek. **Iñaki Zabaleta**

Ahantz ote daiteke neskatxa bere bitxiak, andregaiak bere ezkon- **soinekoaz** ? **Elizen arteko biblia**

Ireki dugunean bolante zuri deigarri batzuek dituela ohartu gara, eztei- **soineko** baten eran. **Harkaitz Cano**

Eszena samur baten erdian, ni, gala- **soineko** beltz berria jantzita. **Anjel Lertxundi**

Jarri zioten buru-zapi garbia, eta jai- **soinekoa** jantzi. **Elizen arteko biblia**

Satinezko festa- **soineko** zuri zimurtu bat. **Xabier Paya**

Bainu- **soineko** garbi bat bere plastikozko zorrotik atera eta dutxara abiatu nintzen. **Joxan Elozegi**

Éva, berriz, dama gazte bat zen, hiritarra oso, moda-modako kirol- **soineko** batez jantzia. **Ander Irizar**

Bere sport- **soinekoa** ez zela jateixe dotore baterako batera egokia. **Joxe Austin Arrieta**

Ez ziren ezemaileak falta, baizik eliz- **soinekoak**, apezpiku makila, eta apezpiku burukoa. **Marzel Etxehandi**

Albak ez ziren denak izarikoak, meza- **soineko** zenbait deskoloratuak ziren. **Marzel Etxehandi**

Errazago sartu zitzairen neskame **soinekoa** neskame izaera baino, arima ez baita gorputza bezain moztuzale. **Felipe Juaristi**

Orduan Tamarrek alargun- **soinekoa** erantzi eta zapi batez estali zuen aurpegia. **Jose Antonio Mujika**

Gatibu- **soinekoa** erantzi eta etxean geldituko da hilabete batez bere aitamengatik negar egiten. **Elizen arteko biblia**

6 irud/hed

Nire liburua **soineko** bat da, egunerokotasunaren absurduan ehundua. **Karlos Linazasoro**

Jerusalem, erantzi nahigabe eta zoritxararren **soinekoa**, jantzi betiko Jainkoak damaizun ospearean **soineko** ederra. **Elizen arteko biblia**

Mendekua jantzi zuen **soineko**, haserre-sumina soingaineko. **Elizen arteko biblia**

Harrokeria dute lepoko, bidegabekeria **soineko**. **Elizen arteko biblia**

Nik eman nizkion hodeiak **soinekotzat** eta behe-lainoa ume-zapitzat. **Elizen arteko biblia**

Hezurdurak, zinezko eskeletoak, larruzko **soinekoekin** eta begiekin, oraino bizirik zeuden. **Eneko Bidegain**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bainu soineko (3); **bere soineko** (24); **beren soineko** (4); **bi soineko berri** (3); **egindako soineko** (3); **gau soineko** (7); **hitzaren soineko** (3); **koloreko soineko** (5); **kotoizko soineko** (4); **lepoko zuridun soineko** (3); **nire soineko** (5)

soineko apainez jantzitako (4); **soineko arin** (6); **soineko arin bat** (3); **soineko azpian** (3); **soineko bat jantzi** (3); **soineko bat zeukan** (3); **soineko beltz** (21); **soineko beltza** (9); **soineko beltzak** (3); **soineko beltzaren** (5); **soineko beltzez** (6); **soineko berde** (11); **soineko berri** (16); **soineko berri bat** (6); **soineko berria** (10); **soineko berriak** (4)

soineko eder (5); **soineko ederrak** (3); **soineko ertza** (4); **soineko estu** (4); **soineko estua** (4); **soineko gorri** (10); **soineko gorri bat** (4); **soineko gorritz** (3); **soineko gris** (5); **soineko grisa** (3)

soineko ilunak (3); **soineko koloretuak** (6); **soineko luze** (15); **soineko luze bat** (3); **soineko luzea** (4); **soineko luzeak** (3)

soineko politak (3); **soineko soil** (3); **soineko txiki** (3)

soineko urdin (10); **soineko urdina** (3); **soineko zaharra** (3); **soineko zuri** (26); **soineko zuri bat** (7); **soineko zuria** (18); **soineko zuria zeraman** (3); **soineko zuriak** (4); **soineko zuriz** (11); **soineko zuriz jantzia** (4)

udako soineko (7); **udako soineko zuri** (3); **zetazko soineko** (10)

alargun soinekoa (3); **bere soinekoa** (9); **egindako soinekoa** (4); **ezkontzako soinekoa** (3); **gaueko soinekoa** (3); **neskaren soinekoa** (3); **nire soinekoa** (4)

soinekoa erantzi (9); **soinekoa jantzi** (13); **soinekoa jantzi zuen** (3); **soinekoa jantzirik** (3); **soinekoa jantzita** (3); **soinekoa zeraman** (3)

bere soinekoak (10); **beren soinekoak** (4)

soinekoak egiten (3); **soinekoak erantzi** (5); **soinekoak hartu** (3); **soinekoak jantzen** (3); **soinekoak urratu** (4)

bere soinekoaren (5); **soinekoaren azpian** (5); **soinekoaren azpildurarena** (3); **soinekoaren botoiak** (3); **soinekoaren goiko** (3); **soinekoaren mahuka** (3); **soinekoaren puskak** (3)

bere soinekoari (3)

ez soinekorik aldatzeko (3); **soinekorik ederrenak** (3); **soinekorik gabe** (3)

soinekotik heldu (3)

ezkon soinekoz (3); **soinekoz jantzia** (3); **soinekoz jantzita** (5)

soinekodun *izlag/iz* soinekoa duena.

-Etxeko zazpi emaztekiak neuretzat ditut, baina neure eskuetarik iragan diren bertze **soinekodun** guztiekin nahi duzuna egin dezakezu, nonahi-den eta noiznahi-den.

Joan Mari Irigoien

soinekotxo 1 *iz* soineko txikia.

Sabela handituz zihokion bitartean, haurrari **soinekotxo** bat egiten hasi zitzaion Pantxike. **Joan Mari Irigoien**

Zure udako **soinekotxo** haiek. **Lourdes Oñederra**

2 (hitz elkartuetan)

Sabeth, bere gau- **soinekotxo** urdinarekin. **Joxe Austin Arrieta**

Hebrida uharteetan, adibidez, otsailaren 1ean, gauean oherakoan, garagar bala bat hartu, emakume **soinekotxoak** jantzi eta eskusaski batean etzanda gordetzen zuten.

Pello Zabala

soineratu, soinera(tu), soineratzen du *ad* soinera ekarri.

Nik izen hori duen markako niki berria **soineratua** nuen. **Patxi Zubizarreta**

Mentxuk txabusina **soineratzen** zuen bitartean gizonaren galdera entzun zuen: [...]. **Josu Landa**

Ikasi egin behar izan genuen nola **soineratu** gure kaki-jantziak -behin ere ez nuen jantzi hainbeste gutiziaturiko uniforme gorrimin eskarlata-kolorerik-. **Mirentxu Larrañaga**

Abiatu aurretik, bazter batean utzirik zuen bizkar-zorroa **soineratu** eta galtza barrenak jaso zituen Lauaxetak. **Juan Luis Zabala**

Zazpiak eta hogeiz ziren Patakik, jaiki, pastazko betaurrekoak **soineratu**, tokatara zuzendu eta kantu bat jarri zuenean. **Harkaitz Cano**

soinestalki *iz* soinaren estalkia.

Eta Hator jainkosak bere **soinestalki** margotuaren barnean etzana segitu zuen. **Juan Garzia**

soingabe *izond* soinek ez duena

Ez gara subjektu ezagutzaille hutsak ("aingeruburu hegaldun **soingabe**"), zintzilika dugula gorputz arrotz bat, gorputz biziak baizik. **Askoren artean**

soingain iz kapa.

Demo mugimenduak aurrera eramano hainbat ekimen azaldu eta adibidez jarri zituen Ahdok: besteak beste, SNCF tren konpainian euskara sartzearen aldeko kanpainaren barnean, demoek burdinbide gainean antolatuta zuten mus txapelketa berezia edota Frantziako Errepublikaren ikur den Marianne-ren **soingainak** herriko etxeetatik ostu zituztenekoa. **Berria - Euskal Herria**

Dei anonimo batek atzo jakinarazi zuen Hazparneko Herriko Etxetik «Maianaren **soingaina** askatu dutela». **Berria - Euskal Herria**

soingaineko (orobat soin-gaineko) iz jantzi luzea, berez mahukarik gabea, soina eta besoak estaltzen dituen eta soinekoaren gainean ipintzen dena. ik kapa.

Soingainekoa eta kapela presaka jantzi eta kanpora irten zen. **Irene Aldasoro**

Eta **soingainekoa** kentzen dietenei, ez bieziaiete ukatu soinekora ere. **Askoren artean**

-Itzuli naiz, ba -esan nuen, **soingainekoa** erantzi bitartean. **Fernando Rey**

-Berehala hemen naiz berriz -esan zuen, **soingainekoa** hartuta. **Fernando Rey**

Kontuz gero deabruak ez diezazula **soingainekotik** heldu. **Fernando Rey**

Duintasun paregabez estali zuen eta aginte-ezaugarri koroatu: galtzaz, **soingainekoz** eta efodaz. **Elizen arteko biblia**

Bere begi malkoz lausotuekin nire lanjantzia goitik hasi eta beheraino aztertu zidan, gero **soingainekoko** botoi bat lotu zidan. **Fernando Rey**

Joanesek **soin**-gainekoa eman zion, garbi zezan. **Eneko Bidegain**

Emakume bat, gona luzearekin eta **soingaineko** laburrearekin, kale huts batean aurrera doala. **Juan Kruz Igerabide**

Frogatu nahi baitzidan nire **soingainekoa** irekiegia dela paparrean eta beste botoi bat erantsi beharko niokeela. **Xabier Olarra**

Soingainekoaren sakelatik soka bat atera nuen. **Fernando Rey**

Soingaineko dotore finak zeramatzaten, mahukak atzera jasoak eta polisoi europarraren antzera lotuak, beso biluziak agertzen zituztela. **Karlos Zabala**

Kontakizunak **Soingaineko** Berdeko Zaldunaren etxean segituko du. **Patxi Ezkiaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

soingaineko beltz (4); **soingaineko beltza** (3); **soingaineko bila** (3)

bere soingainekoa (5); **nire soingainekoa** (4); **soingainekoa erantzi** (5); **soingainekoa hartu** (4); **soingainekoa jantzi** (5); **soingainekoa kentzen** (5); **zure soingainekoa** (3)

soingainekoaren ertza (6); **soingainekoaren ertza ebaki** (3)

soinkari iz zamaketaria.

Marjolin nora ezean ibiltzen zen, bestela; Cadinek bakarrik uzten zuen gauetan, guardiako **soinkari** taldearekin geratzen zen pabiloietan. **Karlos Zabala**

soinketa (33 agerraldi, 10 liburu eta 2 artikulutan) 1 iz gorputza indartzea eta zailtzea helburu duten ariketa fisikoen multzoa. ik gimnastika.

Soinketa gorputzaren harmonia da. **Karlos Linazasoro**

Igarkizunak asmatzen, ilunpetan **soinketa** egiten. **Josu Zabaleta**

Zergatik egiten du **soinketa**?, indartu beharra daukalako, entzuten dut. **Joxerra Garzia**

Soinketa horrek berotu nau pixka bat eta urrats arin batez hasten naiz joan-jinka zeldan harat-honatka. **Filipe Bidart**

Gauean **soinketa** pixka bat eginez oinazea behintzat zertxobait arintzen nuen. **Josu Zabaleta**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

"Talmúd Thorà"ko -Legearen Eskolako- **soinketa** -gelan biltzen ginen. **Juan Garzia**

Egun batean ikastetxeko prefektoa izango zen, **soinketa** saio batean azaldu eta "etor daitezela herri txikiak morrosko horiek ehun flexio egitera" esaka. **Bernardo Atxaga**

Orereta Ikastolako **soinketa** irakaslea eta egungo Euskadiko hautatzailea da Jose Inazio Altube. **Berria - Kirola**

Beren atzealde handi hori zerbait jaisteko **soinketa** ariketa barregarri horiek egiten hasten direnean. **Josu Zabaleta**

Gero bostetan itzuli nintzen etxera, **soinketa** ikastarora joan nintzen-eta. **Josu Zabaleta**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hemendik goiti, gorputz **soinketa** eginen da asteart eta ortzirale arratsetan, 20.30tan, Denen Etxeko gela nagusian. **Herria**

4 irud/hed

Fisika prosa zen: adimenaren **soinketa** dotore, Kreazioaren ispilu, gizonak mundua menderatzeko giltza. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gorputz soinketa (3); **soinketa egiten** (4)

soinketari iz soinketa egiten duen pertsona.

Badu, bai, akrobazia puntu bat, malgutasun estilistiko eta formal bat, goi-mailako **soinketarien** ezpaleko egiten nauena. **Karlos Linazasoro**

soinki iz txerri xerra.

Xingar eta arrotzeari jarriegia denak har dezake besterik: urdeki, **soinki** edo lukainka, hauk ere etxean ditugunak. **Herria**

"De porc en port", **soinki**, giltzurri, xerrikiak, besteak beste aipatzen ditu bainan antzerki ibilkari honen xede nagusia da antzerki herrikoia sustatzea... **Herria**

soinlabur iz

Kapitain bat, hatzak kobrezko bitrix kargatua, eta bi galai, **soinlabur** lasaiz jantziak, bisitan etortzen zitzaizkion afal ondoan. **Juan Garzia**

soinu 1 iz hotsa.

Soinu horiek bibrazio mekanikoak dira, eta horiek garunean prozesatzeko moduko seinale bihurtzeak ingeniari-tza-arazo interesgarri eta zailak sorrarazten ditu. **Irene Aldasoro**

Bi lagun motor gainean, **soinu**, pandero eta guzti. Iñigo Aranbarri

Beti **soinua** bizkarrean. Iñigo Aranbarri

Soinu hauxe da zaharrak eta gazteak dantzan jartzen dituen **soinua**. Iñigo Aranbarri

Botoizko **soinua** ikasten hasi zen orduan anaia Lorentzorekin. Pako Aristi

Aurrerapen handia izan zen hogeita hiru botoidun **soinu** hura. Iñigo Aranbarri

Bere kasa ikasi izango zuen Gelatxo zaharrak soinua jotzen, ilara bateko **soinu** batekin. Pako Aristi

Hiru ilarako **soinua** du esku artean, "Cengotita" izenekoa. Xabier Etxabe

Gelatxok ia hasieratik eutsi dio formazio honi: **soinua**, saxofoia eta jazbana edo batera. Pako Aristi

Erretiratu da biltegira, badakar **soinu** hori, jarri du barra gainean, ikusi du, eta Sakabiaren poza!, frontean utzi zuen **soinua**! Iñigo Aranbarri

Aitaita gerran, aita lanean eta biloba **soinu** jotzen: Eibarko Urki auzoko Altamira baserriko hiru belaualdi ibili ziren Cuban. Koldo Izagirre

9 (izenondoekin)

Soinu kromatikoa jotzen zuen, baina txikiarekin hasia zen, diatonikoarekin. Koldo Izagirre

Larrinaga-Guerrini izeneko **soinu** barria lepoan ekarrela itzuli ei zan. Xabier Amuriza

Aitona ez bazen osaba, beti bazen etxeko **soinu** zaharrari notak ateratzen ahalegintzen zen bakarren bat. Iñigo Aranbarri

Orduan lortu zituen Jexuxek **soinu** berria erosteko behar zituen xoxak. Xabier Etxabe

10 esku soinu ik eskusoinu.

10a *soinu-egile ipar* musikalaria.

Soinu egileen atalean ere, xumetasunerat jo du Jesús pastoralak, txirulari, txanbelari, atabalari eta ttun-ttun eta arrabita jotzaileek soilik lagunduko baitituzte kiristi, türk eta satanen ateraldiak. Berria - Kultura

11 *soinu handi* eskusoinua.

Soinu handia eta soinu txikia, dena da balekoa jendea dantzan jartzeko. Iñigo Aranbarri

Besoen artean **soinu handi** bat dauka, tekladuna. Pako Aristi

Lehen **soinu handia** bazen txikia gutxiestea lortu zuena, Trinidadeko saio haien ondoren handiari zegokion zaputzaldia. Iñigo Aranbarri

Zeuk ere **soinu handia** jotzen zenuen. Berria - Kultura

Euskal Herriko Trikiti Elkarteak **soinu handia** gonbidatu zuen lehen urtean, eta dultzaina bigarren goan. Berria - Kultura

12 *soinu txiki* trikitia.

Soinu txikiaren handitasuna. Berria - Kultura

Soinu txikia baserri giroko soinu tresna izan zen. Koldo Izagirre

Soinu handia inportanteagotzat jotzen zen **soinu txikia** baino. Berria - Kultura

Soinu txiki bat erosi eta bere kasa ikasi zuen. Koldo Izagirre

Kaletik urruti, munduko doinuak ekarri zizkion **soinu txikiari**, hiriaren usaina. Iñigo Aranbarri

13 *soinu-jotzaile* (*63 agerraldi*, *3 liburu eta 25 artikulutan*; *orobat soinu-jotzaile g.er.*) soinua jotzen duena. ik **soinujole**; **soinulari**.

Azken batean **soinu-jotzailea** festarekin lotzen zen, eta festa **soinu-jotzailearekin**. Xabier Etxabe

Sakabi soinu txikia kalera ekarri zuen **soinu jotzailea**. Berria - Kultura

Benetako plazagizona da, erromerietako **soinu-jotzaile** peto-petoa. Xabier Etxabe

Eguna amaitzeko, Migel Angel Agerralde **soinujotzaileak** kontzertua eskaini zuen. Berria - Euskal Herria

Dantzarako orduan **soinu jotzailea** eta haren laguntzailea panderoarekin, agertzen ziren. Berria - Kultura

14 *soinu jotze* (*orobat soinujotze*)

«Nire **soinu jotzea** Iturbidetarrei lotua dago», esaten zuen. Berria - Kultura

"Nik beti pentsatu izan diat" ihardetsi zion Lizarriturrik, agian bere **soinu-jotzearen** helburua gogoan, "animalien ulua, marrua, nahi duan bezala, etengabe eragiten diegun heriotzaren aurrean gure bihotzak samurtzeko-edo asmatu duten defentsa dela, erruki eskaera bat bezalakoa!". Pako Aristi

Ezagutzen nuen Pedrorren **soinujotze** martxa, baina etxetik kanpo hainbeste egun pasako zituenik ez nekien. Pako Aristi

15 *soinu tresna* musika-tresna.

Huna **soinu tresnak** zoin diren: akordeoia, batera, bibolina, djembé, flauta, gaita, gitarra, pandero, pianoa, saxofonoa, xixtu, trikitixa, tronboia, txalaparta. Herria

Albokak eta dultzainak, aldiz, melodia soilik jo dezakete, honela uler daiteke **soinu tresna** hauen bazterteza. Koldo Izagirre

Soinu tresnetan, hor dira segur txistua, xirula, txiribita, txanbela, silbotea eta holako batzu. Herria

Donaitxiko kilka sartu da bere **soinu tresnekin**, denak harriarazten ginduztela. Herria

Euskal Herriko musika erakunderik zaharrenak, Iruñeko katedralaren musika kaperak, 800 urte beteko ditu aurtan, eta XIV. mendeko **soinu tresnak** berreskuratu ditu ospatzeko. Berria - Kultura

Hemen aurkitzen ditugu bereziki Joxan Goikoetxea hernaniarra, akordeoi joilea, eta Alan Griffin irlandesa, haizezko **soinu tresnen** joilea. Herria

Juan Mari Beltran musikariaren laguntzarekin, Euskal **Soinu Tresnen** Musika Eskola sortu zuten 1991n. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

bere soinu (11); **beren soinu** (9); **dantza eta soinu** (6); **erpurua soinu hegialaren** (4); **esku soinu** (6); **euskal soinu** (5); **filmeko soinu** (5); **gure soinu** (6); **kantu eta soinu** (19); **ohiko soinu** (3)

soinu aldetik (8); **soinu arraro** (4); **soinu artxiboek** (4)

soinu banda (45); **soinu bandak** (8); **soinu bat entzun** (6); **soinu berezi** (5); **soinu berezia** (6); **soinu berria** (4); **soinu berriak** (5); **soinu bikaina** (4)

soinu ederra (5); **soinu efektuak** (4); **soinu egokia** (5); **soinu eta dantza** (14); **soinu eta jauziekin** (4); **soinu eta kantu** (8); **soinu garbi** (5); **soinu garbia** (7); **soinu guztiak** (8); **soinu handia** (22); **soinu handia jotzen** (7); **soinu handiarekin** (4); **soinu hegialaren** (5); **soinu huts** (5)

soinu jole (4); **soinu jotzaile** (16); **soinu jotzailea** (19); **soinu jotzaileak** (11); **soinu jotzailearekin** (4); **soinu jotzailearen** (5); **soinu jotzen** (5); **soinu metalikoa** (4); **soinu mota** (6)

soinu ona (6); **soinu ozen** (5); **soinu tresna** (17); **soinu tresnen** (5); **soinu txiki** (6); **soinu txikia** (36); **soinu txikiak** (11); **soinu txikiarekin** (7); **soinu txikiaren** (19); **soinu txikiari** (6)

soinu zahar (5)

aho soinua (5); **ahotsaren soinua** (4); **bere soinua** (15); **bezalako soinua** (4); **esku soinua** (19); **irudia eta soinua** (4); **itsas soinua** (5); **jo soinua** (8)

soinua aditu (4); **soinua atera** (8); **soinua ateratzen** (9); **soinua besterik ez** (4); **soinua bizkarrean** (9)

soinua egiten (11); **soinua egiten zuen** (5); **soinua ekarri** (8); **soinua ematen** (6); **soinua entzun** (12); **soinua entzun zuen** (4); **soinua entzutean** (4); **soinua entzuten** (24); **soinua entzuten da** (7); **soinua eta argia** (15); **soinua hartu** (11); **soinua hartu eta** (8)

soinua izan (5); **soinua jo** (20); **soinua jo eta** (5); **soinua joko** (10); **soinua jotzea** (9); **soinua jotzeko** (13); **soinua jotzen** (56); **soinua jotzen hasi** (4); **soinua jotzera** (7); **soinua kendu** (5); **soinua lagun** (6)

taldearen soinua (5); **telebistaren soinua** (4); **txistu soinua** (5)

egunari doazkon soinuak (4); **euskadiko soinuak egitasmoaren** (4); **soinuak entzun** (8); **soinuak entzuten** (7)

soinuarekin batera (5)

soinuaren bila (4)

soinurik atera gabe (6); **soinurik gabe** (13); **soinurik txikiena** (5)

soinu egile ik soinu.

soinudun *izlag* soinu z hornitua.

-Hau ez da pelikula **soinuduna**, ezta? -galdetu nuen. **Fernando Rey**

Baina orain ezinezkoa da zine **soinudunarekin**. **Fernando Rey**

Orduantxe egin ziren lehenbiziko urratsak **soinudun** zinema sortzeko. **Pello Salaburu**

Ordenagailu bidezko zuzeneko musika kontzertuekin hasi eta instalazio **soinudunetara** igaroko gara. **Berria - Kultura**

Maxek edontzi **soinudunetariko** bat jo zuen. **Jon Muñoz**

Obra horiez gain, dokumentu bildumak musikariaren argazkiak, egunkari artikulua eta **soinudun** grabazioak ere biltzen ditu. **Berria - Kultura**

«Kantuketan» erakusketa ibiltari eta **soinudunak** bere bidaia segitzen du, eta oraingoan Bilbon, Euskal museoa. **Herria**

soinuez *iz* soinurik eza.

Halakorik batean oharzen zara ez dituzula bagen plastakoak entzuten kostaduan, kaioen txilio urruna sumatzen duzu bakarrik **soinuezaren** handiaz jabetzeko. **Koldo Izagirre**

soinugailu *iz* soinua egiteko gailua, musika-tresna.

Musika landu bat, **soinugailu** xahar eta berriak nahasiz, naturaren eta eguneroko lanen ahotsak ere erabiliz, hala nola ardi deizte tresnaren arrabotsa! Plazer handiz entzuten den obra! **Herria**

soinugile *iz* soinuak (bosgarren adieran) egiten dituen pertsona.

Halaxe egin zuen, Martzelino Larrinaga **soinugileak** lagunduta. **Koldo Izagirre**

soinugintza *iz* ahotsa, soinua eta musika sortzen, aldatzen, grabatzen edo erreproduzitzen duten tresna eta sistemen multzoa.

Erritmo nekaezina, are gehiago **soinugintzan** hasi berria den batentzako. **Berria - Kultura**

Soinugintza lan artistiko zabalago batean ulertuz gero, norberak egiten duenari buruz galderak egitea gomendagarria da. **Berria - Kultura**

Txostenak onartzen du, esaterako, badirela lanbidean lan eskaintza apala duten ikasketa batzuk: Arte grafikoak, Kimika, Osasuna, Ileapainketa eta Estetika, Irudigintza eta

Soinugintza, edo Administrazioa. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

soinujoile ik soinujole.

soinujole (*200 agerraldi, 18 liburu eta 44 artikulutan; orobat soinujoile g.er.*) *iz* soinu-jotzailea.

Soinujolea naiz, nire aita bezala. **Bernardo Atxaga**

Bizkaiko trikitixa Gipuzkoan sartu zuten bi **soinujoleak** Lasturren. **Iñigo Aranbarri**

Trikitilarien artean, hala-moduzko asko zebilen, errepertorio motzeko **soinujole** kaxkar bat baino gehiago. **Iñigo Aranbarri**

Gaurkoen aldean, **soinujole** zaharrek gehiago jotzen zuten ilara bakarrarekin, eta hauspoari ere, gehiago eragiten zitzaion. **Iñigo Aranbarri**

Hala ageri da gerra aurreko **soinujolea**, bakarrik batzuetan, panderoarekin besteetan, beste **soinujole** batzuekin askotan. **Iñigo Aranbarri**

Digitalizazioa, ordura arteko **soinujoleena** zuen, bi atzamarrekin dena, atz lodia atzean gordeta. **Iñigo Aranbarri**

Soinujole bat behar dugu ezteietarako, eta zuri esatea pentsatu nuen aurrena. **Bernardo Atxaga**

Bazkalondoren agertuko da **soinujolea**. **Pako Arísti**

Galesko zaldiak hazten zituen etxalde baten jabe zen, **soinujole** trebea eta emakumezale amorratua. **Berria - Mundua**

soinujotzaile ik soinu 13.

soinujotze ik soinu 14.

soinuka *adlag*

Silabak **soinuka** iragan ziren, bigarrena lehenaren ondotik, hirugarrena bigarrenaren atzetik eta horrela hurrenez hurren, azkena besteen ondotik eta azkenaren hurren isiltasuna. **Imanol Unzurrunzaga**

soinulari 1 *iz* soinu-jotzailea.

Buenos Airesera alde egitean, osaba batek, Bizkaiko **soinulari** txapeldun izan zanak, soinua hemen itzi eban eta harexegaz joaten ei zan ardi zain. **Xabier Amuriza**

Soinulari bakotzak bere jestu berezia dauka. **Xabier Amuriza**

Euzko Gudariak kantatzeari ekin zitoten, Andoni Olabe **soinulari** zutela. **Koldo Izagirre**

Teodoro Etxeberri izeneko **soinulari** edo akordeonixta izana pausatu zauku, bere sort etxean sartzean. **Herria**

2 musika-jotzailea.

Farfailez jantzitako eta itxura tristeko bi **soinulari** ari dira arrabita eta panderoa jotzen. **Koldo Izagirre**

Azkenean, noizbait, **soinulariak** igan ziren taula gainerat. **Janbattitt Dirassar**

Musika eta dantza nahasiz, orotara 100 dantzari, **soinulari** eta antzerkilari biltzen ditu lan horrek. **Berria - Kultura**

Dorre handi batean soinua joarazten zuen sekulan **soinulariak** agerrarazi gabe eta zion Jainkoaren aingeruak zirela musikaren jotzen ari. **Aurelia Arkotxa**

Karrika ondoko autoetan gaindi **soinulari** eta dantzari batzuk egiten dute itzulia, auzo horier. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

"Tanbur eta attabalak" maite zituzten bestaberrietako aitzindari, **soinulari** edo apez nahiz apezpiku batzuk, gure beste herritar iheslari, gudari ala desertur frango ere nazkatu eta nardatu zituzten. Piarres Xarriton

3 (hitz elkartuetan)

IAZAR Baionako **soinulari** taldea (piano, eskusoinu, kobrezko tresna, kantu eta perkusioak: euskal, afrikano eta jazz musika). Herria

4 (izenondo gisa) soinua ateratzen duena.

Nahiz eta gizakien eta aingeruen hizkuntzez hitz egin, maitasunik ez badut, brontze **soinulari** eta ezkila tintinlari besterik ez naiz. Elizen arteko biblia

Narrastia hila zen baina ezpal **soinularien** oiharrak entzuten zituen, hezur karkarekin nahas. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dantzari eta soinulari (6); **gure patronajeko soinulari** (3); **kantari eta soinulari** (5); **soinulari eta dantzari** (4); **soinulari eta kantari** (4); **soinulari eta kantariak** (6); **soinulari gazte** (3); **soinulari taldea** (4); **soinulari taldeak** (5)

gure soinulariak (5); **herri soinulariak** (4); **soinulariak karriketan** (3); **soinulariak trenpu gaitzean** (3)

soinulariek alaiturik (9)

erdizka taldeko soinulariekin (3); **mendi soinulariekin** (3)

soinularitza iz soinulariaren jarduna edo lanbidea.

Berari eskerrak, batez be, jakin dot Rufo nortasun bildurgarriko gizona zala; bere lanbide nagusi bietan, errementaritzan zein **soinularitzan**, urgulu profesional totalekoa.

Xabier Amuriza

soinuratu, soinura(tu), soinuratzen du *ad* musikatu.

Dio, Emily Dickinsonen olerki guziak musikalak direla eta hark aspaldi **soinuratu** zuela bat. Aurelia Arkotxa

soinutegi iz eskusoinu fabrika.

Soinutegi hau 1922an sortua dela kontuan hartzen baldin badugu, segurutik esan genezake ordurako aski zabaldua zegoela musikatresna madarikatua gure artean, parke oso bat zegoela. Koldo Izagirre

soinutsik *adlag* biluzik.

Lauaxetak esan zidan ohitua zegoela jendea "ia **soinutsik**" ikusten hondartzetan, baina nire iritziz ez zen oso lasai sentitu. Juan Luis Zabala

soinutsu *izond* soinu handikoa.

Keinu dotore edo mot **soinutsu** baten bidez. Iñaki Mendiguren

Putrek mendin, ez udalaxen! lelopean protesta **soinutsua** antolatatu dute bihar gauerdirako. Berría - Euskal Herria

OAKAn bildutakoek gora egin zuten lehenengoz (31-33), Erdoganeke zale **soinutsuak** isiltzea erabaki zuen arte. Berría - Kirola

soinutxo iz soinu laburra.

Bateria artifizialak eta aurrez grabatutako **soinutxoak** uztartuz. Berría - Kultura

Ez da gauza bera egur bati kolpetxo bat ematea edo kolpe baten bidez 30 metrotar **soinutxo** bat sortzea. Berría - Kultura

soja 1 iz landare lekaduna, jatorriz Asiakoa, babarrunaren antzeko fruitu jateko onak ematen dituen(*Glicine max*).

Erresuma horrek **soja** ainitz saltzen du kanporat. Herría

Esnekiak jende askorentzat jangarri ez izaki (esnearen laktosa digeritzeko laktasa entzimarik pertsona gehienek helduaroan mantendu ez dute-eta), proteina-iturritzat, **sojaren** kontsumoa biderkatu egingo da. Edorta Agirre

WWFk dio **sojak** txandakako laborantza egiteko aukera eskaintzen duela. Berría - Gaiak

Sojaren gerra abiatu dute nekazariak eta ekologistek. Berría - Gaiak

Ari gira ere **soja** erreka sukrez estalirik haurrer emaiten eta biziki maite dute hori. Herría

Duela hiru urte Argentinak izan zuen krisia gainditu zuen, neurri batean, **soja** transgenikoaren uzta oso handia izan zuelako. Berría - Hariari

Soja, alfalfa, gari eta abarren haziak. Jokin Urain

Brasilen 1994. urtean 10 milioi hektarea erabiltzen ziren **sojarako**, eta 2004an 21 milioi hektarea. Berría - Gaiak

Elikagai funtzional, "probiotiko" edo "nutrizeutikoan" [...] kontsumoa hasia da dagoeneko hedatzen (jogurt eta esnekiak, oro har, zukuak, **sojazko** elikagaiak, gatzak, ogi eta opilak...) gure artean. Edorta Agirre

Irizpide horiek **Sojaren** Ekoizpen Iraunkorrari buruzko Nazioarteko Mahai-inguruan aurkeztuko dituzte, 2005. urteko martxoaren 11-12 egunetan. Berría - Gaiak

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez dugu uste gantzen kontsumo handia egiten duten herrialdeetan ekilore, **soja** eta koltza olioek oliba olio zeharo baztertuko dutenik denboralditxo batean. Edorta Agirre

Moyresak ekoiztutako **soja**-lezitina edo **soja**-olio transgenikoa asko erabiltzen da margarinak, txokolatetak, jogurtak eta antzekoak egiteko. Berría - Euskal Herria

Soja alearen ekoizpen iraunkorrerako irizpideak zehazten ari dira. Berría - Gaiak

Hala da bai, **soja** bihia saltzen duela kanpo herrietarat. Herría

Elikagai "etnikoak" biderkatu egingo dira, oraingo joerari jarraiki (wok-ekoak, paprika, pizza, tabulé, **soja**-saltsa...). Edorta Agirre

Txerri xerra ogitan pasatua erosten zigun, edo arroz pastelak, **soja**-ore eta piperrautsarekin egosiak. Juan Kruz Igerabide

Zetazko zuntzak eta **soja**-ogia egin nahi du, eta baita gazta ekologikoa ere. Berría - Kultura

Bertan genetikoki aldatutako **soja** pentsua eta olio ekoizten dela salatu dute. Berría - Euskal Herria

Soja eskaerak nabarmen egin du gora azken urteotan. Berría - Gaiak

Hego Amerikan **soja** soroen zabalkuntza gelditzeko asmoz. Berría - Gaiak

Cargill, Bunge eta ADM konpainien esku dago **soja** ekoizpenaren finantzaketaren %60. Berría - Gaiak

2020. urterako **soja** laborantzak 22 milioi hektarea baso eta sabana suntsituko ditu Hego Amerikan. Berría - Gaiak

sojadun *izlag* soja daukana.

Sojadun elikagaiak sarri hartuta, umetokiko minbizia izateko arriskua murrizten dela ondorioztatu du Txinako zientzialari talde batek. **Beria - Gaiak**

Bost urte iraun duen ikerketa batean, arto anzilatu eta **sojadun** jangai osagailu horiek jateko ordez, pentzean alarazi izan diren behi batzu hamabost hazkuntza tokitan jarraikiak izan omen dira. **Herria**

soka (1470 agerraldi, 196 liburu eta 218 artikulutan) 1 iz elkarrekin bihurtzen diren ezpartzu edo kalamuzko hari multzoa. ik korda.

Larrua, zerranda fin-finetan moztu zuen Hassanek, eta muturrez mutur lotu zituen, gero, **soka** bat egiteko haiekin. **Jon Muñoz**

Sokaren goiko muturrera heldu denean, [...]. **Gotzon Garate**

Kaxa **soka** haiekin lotu behar nuela. **Edorta Jimenez**

Oihalez estali eta **soka** batez lotu pakete bat. **Elena Touyarou**

Orthezeko harresietatik beheiti lerratu nintzen bi egun geroago, **soka** baten laguntzaz. **Aingeru Epaltza**

Hark irakatsi zidan nola egiten zen zirkunferentzia **soka** batekin, baita elipse bat ere **soka** bat eta bi iltzerekin. **Joan Mari Irigoien**

Gerrikoa kendu eta **soka** jarri zuen gerrian. **Harkaitz Cano**

Biluzik eta **soka** bat lepotik zuela. **Askoren artean**

Balezta **soka** bezain teinkaturik. **Aingeru Epaltza**

Ikus zitekeen masten zutasuna, oihalen zuritasuna eta **soken** nabardura, **soken** txirikorda. **Felipe Juaristi**

Ontzien **sokak** lasaituak daude, ezin diote mastari eutsi, eta belarik zabaldu ezin.

Guk jolas egiten genuen munstroarekin, mendean hartzen genuen, orain seko geldiaraziz, orain **soka** emanaz. **Iñaki Iñurrieta**
ik beherago 13. **Askoren artean**

Soka ematen zutenek markatzen zuten saltarien erritmoa. **Anjel Lertxundi**

Soka batetik zintzilik urkatuak ikusi nuen. **Felipe Juaristi**

Arropa zabaltzeko **soka** bi zurtoinen artean. **Koro Navarro**

Eskuaz gorbata laxatuko zuen urkatuak **soka** laxatuko lukeen moduan. **Joseba Sarrionandia**

Soka bat askatu zuen leihotik kalera, eta ikusi zuen hogeita hamar oin zeudela, hor nonbait. **Julen Gabiria**

Nik eutsiko zioat **sokari**. **Koro Navarro**

Uraren **sokari** tiratu nion. **Anjel Lertxundi**

Sansonek, ordea, eten egin zituen **sokak**, iztupa-haria sutara inguratzean eteten den bezala. **Jose Antonio Mujika**

Aska ezak pixka bat **soka**, eteteko zorian zagok eta. **Juan Kruz Igerabide**

Belar ondua estekatzen duen **soka**. **Edorta Agirre**

Itsasoak irentsi aurretik **soka** eskatzen duenean bezala. **Harkaitz Cano**

Klabijak zorroztea, **sokak** txirikordatzea. **Jon Alonso**

Bati erasotzen diotelarik, biek eginen dute aurre; hiru hariko **soka** etetea gaitz. **Elizen arteko biblia**

Nora lotzen erabiliatiko **soka** ukalondoaren eta ukabilaren artean jiraka biltzen ari zela. **Anjel Lertxundi**

Lixiba egiten dute, arropa lehortzen jartzen dute **soketatik** zintzilik. **Felipe Juaristi**

Soketan zabalduak zeuden arropen. **Juan Kruz Igerabide**

Huraxe nire agurra ring gaineko hamabi **sokai**. **Paddy Rekalde**

Soken kontra jaurtiak ginenean **soka** horiek berek bueltatzen gintuzten koadrilateroaren erdira. **Harkaitz Cano**

Bere txanodun beroki beltza zeraman, zurezko eta **sokazko** lokarri eta guzti. **Joxe Austin Arrieta**

Malba koloreko indiar sari itxurako bat eta **sokazko** sandaliak jantzita. **Jon Muñoz**

Ez da **soka**, listaria baizik. **Bernardo Atxaga**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Lasterka aldendu zen, eta **soka** luze batekin agertu. **Juan Kruz Igerabide**

Soka lodiz egindako sarea. **Santiago Iruretagoiena**

Goiko poleatik, tiratzeko **soka** nagusia pasatzen da. **Santiago Iruretagoiena**

Goitik **soka** sendoa luzatu zieten. **Edorta Jimenez**

Gauzak gauzen barruan eta mundu txikiak mundu handiagoen baitan **soka** finez lotuta daudela iruditzen zaio sarri. **Beria - Kultura**

Soka finkoak guk paratu ditugu. **Xabier Montoia**

Soka elastiko bati lotutako hondartza-pilota horien antzera. **Bernardo Atxaga**

Gerra urteek elkarrekin odolez eta izerdiz lotutako **soka** haustezinei esker. **Felipe Juaristi**

Gerra urteek elkarrekin odolez eta izerdiz lotutako **soka** haustezinei esker. **Felipe Juaristi**

Hurrengo egunean **soka** gakodun bat hartu eta zuhaitzetan goiti ibiliko ginen. **Joan Mari Irigoien**

Bi tunika txanogabe, gerriko **soka**, azpiko galtzak eta sokarainoko longaina. **Askoren artean**

Zilborreste baten gisara, **soka** gotorrak lotu ninduen haiekin nire haur denboran. **Aingeru Epaltza**

Abere horiek hamarnaka zeuden jarriak, bi **soka** paralelotan loturik. **Karlos Zabala**

Supermerkatuetan erabiltzen diren plastikozko **sokak**. **Harkaitz Cano**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Itsasoko haize umelen **soka**-sare estu itxia hasten da noizbait ere xaretzen. **Pello Zabala**

Azkenean, **soka**-zurubia! **Joxe Austin Arrieta**

Soka-zattia emakume saminduarien gainean ipini bezain laster, mina desagertu zitzaion. **Askoren artean**

Plazako iturriaren ondotik pasatzean, uretara bota zuen gainerako **soka** puska. **Koro Navarro**

Luca bere denbora guztian sekula pakete bat egin gabea bazen ere, amak eskuan paper mordo bat eta **soka**-mataza bat jartzen zizkion. **Fernando Rey**

Beste batek botatako **soka** muturra hartu eta lotu egin zuen. **Felipe Juaristi**

ik sokamutur.

Aitak **soka**-lantegikoa baino hobeto ordaindutako lan bat aurkitu zuen. **Joseba Urteaga**

Urkatuaren etxean ez da **soka**-solasik izaten. **Aingeru Epaltza**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Urdinak zituen zapatak eta urdinak zapata-**sokak**. **Felipe Juaristi**

Kartzelatu leihotik behera izara **soka** zintzilik. Joseba Sarrionandia

Bota zuten berun- **soka** neurtzeko, eta hogeit hamar besaldi eman zituen. Elizen arteko biblia

Askatutako txanelak, hondoratutako ontziak, kortxo- **soka** atalak. Txillardegi

Alde banatako kareletako toletetara loturik zeuden espartzuzko bela- **sokak** lasaitzen ari zen. Anjel Lertxundi

Aingeruek ere tronpetak utzi zituzten, eta kanpanjoleak kanpai **soka** . Bernardo Atxaga

Lemaren ondoko zirga lodi bati eragiten zion, zeinak bela- **soka** guztien gida-lana egiten baitzuen, belak lasaitzeko. Anjel Lertxundi

Zaldiaren aho- **sokak** eskuetara eman zizkidan, haietatik tiraka atera gintezen kanpora. Aingeru Epaltza

ik beherago 10. Askoren artean

Gauza zen Coppolaren iturriak bezalako gai erudito bati buruz haur- **soka** jostari bat balitz bezain modu naturalean jarduteko. Anjel Lertxundi

Borroaren itzalak, badaezpada, urka- **soka** bat eramaten du beti aldean. Karlos Linazasoro

5 (neurriekin)

Guztira, kalkulatu dugunez, seihun metro **soka** paratu dugu kanpamendu nagusitik bigarrenera. Xabier Montoia

6 irud/hed

Gelatinazko **soka** bat da muskulu normal bat: zuntz fin andana bat. Irene Aldasoro

Kontakizun bakoitzean badago beti, hori hala da, benetako erreferentziaren bat, errealitatearekin lotzen duen **soka** bat. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nafarroako Gobernuak lotu gabe ditu oraindik hainbat **soka mutur**: ezagutzeko falta diren epaiak; segurtasunaren azia. Edurne Elizondo

Gazteoi zegokigula borroka egitea Alemaniaren etorkizuna **soka** motzez estutu nahi zutenen espiritu herdoildua salatzeko. Anjel Lertxundi

R. Koselleck-ek erakutsi du, nola pentsaera nazistan, konkretuki Hitler-en testuetan beretan, **soka** biak, biologikoa eta historiko-filosofikoa, arrazoi bakarrean kiribiltzen diren.

Joxe Azurmendi

Aitortu nion pintura hark, literatura hark zehatzago [...] nire **soka** morbosoren bat ukitzen zuela. Ramon Saizarbitoria

7 elkarri nolabait loturik dauden gauzen multzoa.

Goseak jotako jendeak, enplegatu apalek, sukarez dardarka zeuden emakumeek **soka** luzea osatzen zuten txandaren zain. Karlos Zabala

Goitik eta kanpotik [...] dator aurreneko ezpata zorrotza, eta debekua, eraztuna, zigorra eta gainerako **soka** lodia. Iñaki Segurola

Irain- **soka** luzea jaurti zion. Oskar Arana

Ez urte solte batean, urte **soka** luze batez baino. Pello Zabala

Sanjuanak ezker, ordea, etengabeko festa- **soka** dago aukeran. Joxerra Garzia

Ekaitz bateko trumoi- **soka** danbartsuari, tinbalada itzel bat baillitza, Jaunaren mintzoa deitzen dio. Pello Zabala

8 musika-tresnetan, haria. ik korda 5.

Jo dezagun pianoaren **soka** bat gozakaiztua dagoela. Isabel Arrigain

Pianoari **sokak** kendu eta **soken** ordezkari jarri. Harkaitz Cano

Hatzekin [harparen] **sokel** eragin, eta sentiberatasun handiko pieza bati ekin zion ahots ezti mela batez. Anjel Lertxundi

Irribarre egin du gitarraren **sokak** orotarazi dizkiodanean. Pako Aristi

Zazpi **sokako** banjo txiki zaharra. Oskar Arana

Biwa bost sokako laute txiki bat da, Europan Berpizkunde garaian erabiltzen zenaren nolabaiteko antza duen musika-tresna: kutxatxo sabelduna [...] pertika edo ezpata labur eta mehea, eta zurezko bost ziri **sokak** tenkatzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Robin jaunak ez du kantatzen, baina aparteko musikaria dugu **sokako** instrumentuetan. Berria - Kultura

Haren hatzak kateatuta gelditzen ziren biolinaren heldulekuko **soketan** . Felipe Juaristi

Arkuak ekarri zuen **soken** gainera eta jotzen hasi zen. Felipe Juaristi

Gorputza teink zuen biolin- **soka** baten antzo. Lopez de Arana

Sokak lan fina egin zuen, zuzendariaren erritmo nekezari egoki jarraituz. Berria - Kultura

Soka grabaek (kontrabaxu eta txeloak) apartak eta metal taldea indartsua. Berria - Kultura

«Ezohiko **soka** hirukote» batekin ariko da Xabier Erkizia. Berria - Kultura

Baketa hotsak, bonboa sartzen da orain, txastona gero, kontrabaxuaren **soka** -kolpe limurtzailea, orkestra sinkronizatu bat segidan. Harkaitz Cano

Musika-tresnak sortzen zuen melodia eta **soka** -zur durundi nahasian kontzentratzen zuen belarria. Josu Landa

9 sokako (-en atziakiaren eskuinean) –en segiziokoa.

Halako areriotasuna, Ohandok eta haren **sokako** jauntxoek ederki baliatua, Katxoren lagunek proposaturiko partida batean bukatu zen. Koro Navarro

Gainera, bere alderdian ere baziren ybarratarren **sokako** batzuk. Edorta Jimenez

Kartelak inprimarazi eta kantoi guztietan jarraraziko ditut, berak eta haren **sokako** guztiek ikus ditzaten. Koldo Biguri

Ez ahaztu gainerakoak errege katolikoek **sokakoak** izanen direla. Joan Mari Irigoien

Erabat burutik nahastu zen, ustez bere **sokakoa** zen alderdi horrek zeraman politika atzerakoiaz jabetua. Harkaitz Cano

· Erkidegoko legebiltzar autonomikoko parlamentari mutuetariko bat hemen, pare bat poesi libururen autoeditorea hor, **sokakoa** ez izan eta administrazioaren laguntza faltaz lantegia itxi berria zuen enpresari tikia han. Aingeru Epaltza

10 aho soka aho korda.

Glotis, bi gihar paraleloz -hau da, bi **aho sokaz** -osatua dagoena, iriki edo itxi egiten da sokak urrundu edo hurbildu ahala. Isabel Arrigain

Lehen kasuan, haizea oztoporik gabe igarotzen da, eta **aho sokak** ez dira dardaritzen. Isabel Arrigain

11 soka bilur urka-bilurra.

Borroak merkataria **soka bilurra** lepoan ezarri zionean, ahots bat nabarmendu zen jendetzaren zalapartaren erdian: [...]. Patxi Zubizarreta

Atzera agindu zion borroari **soka bilurra** lepoz aldatzeko eta benetako hiltzailea urkatzeko. Patxi Zubizarreta

Soka bilurretik pasatu eta zezenaren lepoari lotuko zioten beste muturra. Iñaki Iñurrieta

12 soka-dantza ik sokadantza.

13 soka eman hitz eragin, hizpidea eman.

Solasbidea emateari, gure etxean, "**soka ematea**" esaten zitzaion. Fernando Rey

Ez duzu **sokarik ematen**, ez duzu deus kontaktzen! Fernando Rey

14 soka koarteto soka kaukotea.

Transilvan Koartetoa, Errumaniako **soka koarteto** bat, ariko da gaur Gasteizen, Vital Kutxako Astearte Musikaletako kontzertuen barruan. Berria - Kultura

Mendebaldeko musika sofistikaatua **soka koartetoena** da nire ustez. Berria - Kultura

15 soka laukote

Beethovenen *Harpak* izeneko **soka laukotea** . Felipe Juaristi

Denis haraino joan baitzen Alouette izeneko **soka-laukotearekin** . Felipe Juaristi

Soka laukote batek musika jotzeari uzten zionean, arrapaladan esertzen ziren denak. Harkaitz Cano

Bi abestitan orkestrazioa sartu dute, «**soka laukote** bat». Berria - Kultura

16 soka luzea ekarri

Dusselekin hurrengo kontu hark **soka luzea ekarri** du atzetik, eta bere erruagatik dena. Josu Zabaleta

Zaldibian aurkitutako gorpuek **soka luzea ekarriko** dute. Xabier Etxabe

Soka luzea ekar baitzezakeen ene laguna Lohizuneko Donibanen ezagutu nuela argitzeak. Edorta Jimenez

Samaniegoren Alegiek garai hartan, berritasuna ekarri zuten bertsoz idatzitako kontakizun ziren aldetik, baina atzetik tradizioaren **soka luzea zekarten**. Berria - Kultura

Konpartsei inauterietako jaitiera galarazteak, baina, **soka luzea ekarri** du, eta Bilboko Aste Nagusian zer gertatuko den da orain hizpide. Ez urte solte batean, urte **soka luze** batez baino. Berria - Euskal Herria

- Aita-semeen arteko ezinikusiak **soka luzea** zuen, lehenagotik zetorrena. Xabier Etxabe

Soka luzeko afera da. Aingeru Epaltza

17 soka-salto ik sokasalto.

17a soka-tirari ik tirari 2.

18 soken kontra (boxeoan)

Hamahirugarren asaltora Cassius Clay erdiantzan irten zen berriro, eta kolpe ugari eman zuen, harik eta ostera ere **soken kontra** errefuxiatu behar izan zuen arte.

Joseba Sarrionandia

19 irud/hed egoera larri-larrian.

Soken kontra nengoen, ezin nuen gehiago lukainka puska harekin. Halakoxea zen bera, **soken kontra** harrapatzen bazenuen noizbait, edo kontraesana aurpegiratzten bazenion, zezen bihurtuta oldartuko zitzaizun. Karlos Linazasoro

Soken kontra jaurtiak ginenean soka horiek berek bueltatzen gintuzten koadrilatzeroaren erdira. Harkaitz Cano

Norbaitek borroka egin behar din **soken kontra** daudenen alde. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erabilitako soka (4); **gaitzeko soka luzea** (3); **gerriko soka** (18); **lepoan soka** (6); **lotutako soka** (3); **neskatxen soka dantza** (3)

soka askatu (4); **soka bat eten** (5); **soka bat hartu** (4); **soka bat lotu** (3); **soka batekin lotuta** (4); **soka baten gainean** (3); **soka batetik dilindan** (3); **soka batetik zintzilik** (6); **soka batez lotu** (3); **soka bereko** (3); **soka berriak** (4); **soka bihurrituen** (3); **soka bilurra** (4); **soka dantza** (8)

soka eguna (3); **soka elastiko** (3); **soka eskuan** (4); **soka eten** (5); **soka finez** (3); **soka finez lotuta** (3); **soka finko** (3); **soka gainean** (4)

soka lepoan (5); **soka lepotik** (3); **soka lodi** (8); **soka lodi batez** (3); **soka lotu** (4); **soka luze** (13); **soka luzea** (35); **soka luzea ekarri** (6); **soka luzeagoa** (5); **soka luzeak** (3); **soka luzeko** (3); **soka mehe** (7); **soka mehe batez** (4); **soka motz** (3); **soka moztu** (4); **soka mutur** (8); **soka muturra** (5)

soka puska (4); **soka saltoan** (4); **soka sendoa** (4); **soka tira** (54); **soka tirako** (6); **soka tiran** (9); **soka tirari** (3)

soka zati (3)

urka soka (3)

sokak askatu (7); **sokak hautsi** (3); **sokak moztu** (3)

aritu ziren sokan (5)

sokaren mutur (3)

sokari heldu (3); **sokari tira** (8); **sokari tiraka** (8)

aho sokatik (3); **sokatik dilindan** (6); **sokatik helduta** (4); **sokatik tira** (5); **sokatik tiraka** (14); **sokatik zintzilik** (6)

sokaz lotu (5); **sokaz lotua** (3); **sokaz loturik** (5); **sokaz lotuta** (6)

aho soken (3); **soken artean** (5); **soken gainera** (3); **soken kontra** (9)

soketan goiti (4)

soketatik zintzilik (5)

sokaburu iz sokaren muturra.

Eskatu zuen **sokaburu** gakoduna, eseki zuen gakoa adarretik, laxatu genuen guk soka luze hura... eta sokak zuloan beheiti egiten zuela, bele bat jalgi zen bertatik karranka. jaitsi zen toreatzailea zalditik, lotu zion zaldiari buztanetik soka bat, egin zuen bertze **sokaburuarekin** lakio bat, [...]. Joan Mari Irigoien

Zeren zinez baitira elkarren kontrakoak diruditen grinak -nola zoria eta zorigaitza, hala ausartzia eta beldurra, eta bertze anitz sentimendu- soka bereko **sokaburuak**.

Joan Mari Irigoien

sokadantza (orobat soka-dantza; Euskaltzaindiaren Hiztegian sokasalto agertzen da) 1 iz auresku mota, eskutik helduta soka antzeko bat eratzen duten dantzari talde bateko kideek banan-banan egiten dutena.

Lehenean gozatuko dira gorteko dantza ospetsuak: Lekeitioko andreen **soka dantza**, Kaixarranka, baiones Panperruka, zinta dantza... Herria

Orduan zaiku agertu, bizi bizia, lehengo moduan, gure arbasoek herriko plazan eta karriketean dantzatzten zuten **sokadantza**. Herria

Soka dantza egiten zuten eta neskek orduan ateratzen zituzten, ligatzeko formula zen. Berria - Kultura

2 irud/hed

Haizea azkartu zen, eta haien buru gainean, hodeiak **soka-dantzan** zebiltzan. Elena Touyarou

sokadun 1 iz belaontzi batean, soken ardura duen marinela.

Kapitainari eta eskifaiburuari bina parte zegozkien; mastruari, **sokadunari** eta kanoizainari, bat eta erdi bakoitzari; beste ofizialei, bat eta laurden. Juan Garzia

• 2 izond sokak dituen.

Mandinka etniako partaide beltz batek, kora deritzan tresna **sokaduna** lagun, Gambiako aire beroz eta bukolikoz bete zuen areto osoa bere hizkuntzan kantatzen hasi bezain laster. Josetxo Azkona

• 3 izlag sokako.

Gitarra jolerik ezean, bi **sokadun** baxua jotzen du Mark Sandman liderrak eta saxojole nahiz batera batez osatzen da taldea. Harkaitz Cano

sokagile iz sokak egiten dituen langilea.

Udaberrian kakamarloak bezala agertu ziren, auskalo nondik etorriak, harginak eta **sokagileak**, harri-pikatzailleak eta zurginak, arotzak eta kisuginak, beren maisu, peoi, ofiziale eta ikastunekin. Aingeru Epaltza

sokagin iz sokagilea.

Arrantzuan jarduna zenez, arrantzale, eta arrain-saltzailek hartu dute zaindarizat eta **sokagin** eta soka-dendetako langileek eskatu diote bere itzala. Pello Zabala

sokaje

Efektu berezia egiten zuen gainera zure senarra zebilen ontziak, gogoan daukat bai, masta biak eta **sokaje** gutzia biluzik, Karmengo Amaren festetarako bezala apainduak zeuden baforeen artean. **Koldo Izagirre**

sokaka

adlag sokaz saka. Haize-bolada bakoitzak laino eta hodeiak, aleka edo **sokaka**, fronte eta frontekatan artaldeka pilatuta. **Pello Zabala**

sokalagun

iz eskaladetan, soka berari lotua doan laguna. 1992an Annapurnan istripu larria izan zuen Pierre Beghin **sokalagunarekin**. **Beria - Kirola**

sokamutur

iz herri jaietan lepoan soka luze samar bat loturik duen idiskoaren inguruan egiten den jolasa. **Sokamuturrean** lasterka egiteko zain zeuden gautxori batzuk. **Askoren artean**
Sokamuturrerako bilurra kokatzen zuten puntuaren pareraino. **Iñaki Iñurrieta**
Danborrada ez da ateratzen, **sokamuturraren** debekuarengatik protesta egiteko. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
sokamuturrerako bilurra (3)

sokaratu

sokara(tu), sokaritzen du *ad* sokatiran parte hartu. Lau tiralari aritu **sokaratu** zituen, eta tiraldi guztiak irabazi zituzten bi pisuetan. **Beria - Kirola**
Laukizkoek txapela irabazi nahi dute eta A taldean **sokaratuko** dute talderik indartsuena. **Beria - Kirola**
Pisurik txikienean zailtasunak izan ohi dira pisuan sartzeko, baina abadiñarrek talde batekin jardungo dute eta Edu Mendizabal entrenatzailea laukorik indartsuena **sokaratzeko** aukeran izango da. **Beria - Kirola**
Gainera, Gaztedik 680 kilokoan ere **sokaratuko** du talde bat. **Beria - Kirola**

sokasalto

(*orobat soka-salto; Euskaltzaindiaren Hiztegian sokasalto agertzen da*) **1** *iz* bakarrik edo taldean egiten den jolasa, soka bati bi muturretak heldu eta birak emanez saltoka ari denaren oinen azpitik eta buru gainetik pasatzean datzana.

Sokasaltora lotu nahi zuenak "bekatu!" erantzuten zuen, eta sokaren erdian hasten zen, jauzi bakoitzeko "bekatu!" esaka. **Anjel Lertxundi**
Norak **sokasaltoko** neska-koskorrek ezagutu zituen jende artean. **Anjel Lertxundi**
Neska-koskorrek **sokasaltoari** ekin zioten berriro. **Anjel Lertxundi**

2 sokasaltoan adlag ik sokasaltoka.

Sokasaltoan ibiltzeko soka batez lagundurik. **Eskarne Mujika**
-Zergatik egiten duzu korrika, Ellie? -galdetu zuen Gloria Draytonek **sokasaltoan** Norelandarren etxearen aurrean. **Lopez de Arana**
Urkamenditik gertu, neska-koskor talde bat ari zen **sokasaltoan**. Agur-ekitaldia, denek **sokasaltoan** burutzen dutena. **Anjel Lertxundi**

sokasaltoka

adlag sokasaltoan. Gerrirainoko galtzerdiak eta titi-zorroak, ile-lehorgailuak eta tanpoiak, makillaje-potoak eta ezpain-margoen hoditxoak, panpinak eta **sokasaltoka** aritzeko sokak, gau-soinekoak eta ile-orratzak, kizkurgailuak eta aurpegirako kremak eta ezin konta ahala oinetako, elemeniaka. **Oskar Arana**

sokategi

iz soka biltegia. Eta horra hor zergatik instalatu zen, 1812an uste dut, ontziolan dagoen **sokategi** handia, nik hainbeste mesprezatu nuena. **Koldo Izagirre**
-Jakin ezazu, jauna -erantzun nion arranditsu-, gorroto berezia diedala gauza luze, bikain eta kordelez tratatuei, eta berrehun legoa eginen nituzkeela **sokategi** baten ez ikusteagatik! **Koldo Izagirre**
Arras ongi daki **sokategi** bat dagoela hemen, berrehun legoa eginak dituen haren ikusteko. **Koldo Izagirre**

sokateri

iz belaontzi batean, soken multzoa. Mendebaldeko Kristandadean, atlantiar itsasertzeko herriek ozeanoan ibiltzeko ontzi-mota berria asmatu zuten hamabosgarren mendean, hiru masta eta **sokateriaz** hornitua, lehenengo latindar haize-oihalak eta gero txopatik brankara oihalak zituena, portura sartu gabe itsasoan hilabeteak emateko gai zelarik. **Iñaki Mendiguren**

sokatira

(*orobat soka-tira g.er.*) **1** *iz* sokaren alde banatan jarririk, bi taldek, bakoitzak bere alderantz tiraka, bestea bere alderdira erakartzean datzan herri kirola.

Probak: Harri jasotzea, ingudea, lasto-aitxatzea, dantza bikoteka, jende probak, lokotxak, txingak, zaku lasterketa, toka, trontza eta **sokatira**. **Beria - Kirola**
Gu serio ari gara pentsatzen **sokatira** uztea; ez du merezi. **Beria - Kirola**
Sokatirak duen hobetzeko gauzen artean saioen murriztea da, eta, ikusgarriago bilakatzea. **Beria - Kirola**
Herri kirolek laguntza eskasa dutela esan du, eta **sokatirak** are eta gutxiago. **Beria - Kirola**
Sokatiraz gain, herri kirolen zabalkundearen dihardute Arrizkuzubikoek ikastetxe, kirol, jai eta kultur erakundeekin elkarlanean. **Beria - Kirola**
Euskal **sokatirak** TWIFen egon behar du. **Beria - Kirola**
Bost urte egin ditu **sokatiran**, 18 urterekin hasita. **Beria - Kirola**
ik beherago 3. **Askoren artean**
Lauko **sokatiran** sei talde ariko dira gizonetako eta bi emakumetakoetan. **Beria - Kirola**
11 eta 16 urteko gazteak ariko dira proba konbinatuan eta **sokatiran**. **Beria - Kirola**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Horixe gertatzen da, hain zuzen ere, Ezpeletako (Lapurdi) Ñapurrak **sokatira** taldearekin. **Beria - Kirola**

Sokatira txapelketako saioa jokatuko da,gaur, Gatikan. Berria - Kirola

Sokatira sasoia larunbatean hasiko da, eta horretan ere badute irizpideak batzeko beharra, batez ere, faltetan. Berria - Kirola

Sokatira federaziorik ez dago Euskal Herrian eta ezta Espainian ere. Berria - Kirola

3 irud/hed

Sokatira politikoa hasi da. Berria - Harian

Errepide horren aldekoen eta aurkakoen arteko **sokatira** galdu du Bidaxuneko politikariak. Gailurrera jo, ez jo duda-muda horretan edo **sokatira** horretan zuk gorantz esaten omen zenuen behintzat Berria - Harian

4 *sokatiran* adlag

Beti izan dut **sokatiran** aritzeko gogoa. Berria - Kirola

Hirurok aritzen gara **sokatiran**, lasto-altxatzen eta zaku-eramate lasterketan. Berria - Kirola

Bizkaitarrak bi kiroletan gailendu ziren: **sokatiran** eta lokotx-biltzen. Berria - Kirola

Sokatiran aritu dira bi aldeak, baina irabazle argirik gabe amaitu da lehia. Berria - Kirola

5 irud/hed

CPE atzera bota edo ez, **sokatiran** dabilta ikasleak eta gobernua. Berria - Ekonomia

Etxea eta Lurra: uztarrian ala **sokatiran**? Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sokatira pisu (3); **sokatira taldeak** (3); **sokatira txapelketa** (3); **sokatira txapelketako** (5)

konbinatuan eta sokatiran (3); **sokatiran ariko dira** (3)

sokatiralari *iz* sokatiran aritzen den pertsona. ik *tiralari*.

Gaurtik aurrera atsedenaldirik gabe jardungo dute goma gaineko **sokatiralari**ek, Euskal herriko Txapelketa hasiko baita. Berria - Kirola

sokatxo *iz* soka txikia.

Lepoaren bueltan, **sokatxo** beltz bat, eta, handik zintzilik, zilarrezko lauburu bat. Anjel Lertxundi

Eta fardelaren inguruko **sokatxoak** korapilo gaitza zeukan. Edorta Jimenez

Sedazko **sokatxo** bati eraginez, txilina jo zuen. Jose Morales

Gida bezala erabiltzen zuen **sokatxoak** ez zuen deustako balio erdi zoraturiko zaldi haiengan. erraz ere erraza izango zitzaidan, segurua kendu, **sokatxotik** tira egin, eta behingoan amaitzea, beretariko batzuk aurretik eramanez, baina ez nuen izan adorerik. Karlos Zabala

sokatzar *iz* adkor soka luze eta lodia.

Hala eta guztiz, kontakizun bakoitzean badago beti, hori hala da, benetako erreferentziaren bat, errealitatearekin lotzen duen soka bat: itsasontziak lotzeko **sokatzarra** bezalaxe ziba dantzarazteko listari mehea. J.M. Olaizola "Txiliku"

sokil *iz* lur zati trinkoa.

Harrituta gelditu ziren hanka haien ederra eta zuria ikusi zutenean; ezagun zuten, ez zirela **sokil**-gainean harean edo idien atzetik arituak. Patxi Ezkiaga

Sokil emankorrak goldatuz eta lur zorua zehatuz. Xabier Amuriza

Polita izango litzateke, kondetzar edo handizki horietakoren batekin ezkondu nire alaba, eta hark, gogoak emandakoan, bilaukume eta **sokil**-jole baten, gorulexar baten alaba gisa goitik behera bedeinkatzea! Patxi Ezkiaga

sokor ik zokor.

sokorri 1 *iz* ipar laguntza. ik sorospen.

Nehori ez nuen ene mina aipatzen ahal, **sokorri** zerbaiten menturan edo hola, ene bihotzeko segeretu gordeena ez salatzekotan. Janbattitt Dirassar

Hasten ontsasko lagundu ninduen, gisa guzietara, bereziki erliosionearen **sokorria** ekarriz, oliadura barne, ene lehen eritasun hartan. Marzel Etxehandi

Egun bakoitz ehun bat lagun gehiago Ospitaleko lehen **sokorrietan**, beste hainbeste San Andres auzoan idekia zen sokorri gunean. Herria

Behar-beharrezkoa nuen **sokorri** salbagarria ekarriko zidan adiskiderik ba ote neukan? Daniel Landart

Ondoan badago ur sorgi bat freskoa, horgo ibiltarien **sokorri**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bazuten holako **sokorri** bero baten beharra, lau hilabete ilun eta latz horietarik landa...! orai urte berrian sartuak gira, izan dadila esperantzazko urte zoriontsua denentzat, bakea galdatuz eta ezindueri **sokorria**. Herria

Gure xokoan pobrezia handituz doa, berrikitan **Sokorri** Katolikoak agertarazi duenaren arabera. Herria

Euskal Herrian ere talde bat muntatu da, "Humani-Terre" izenekoa, elkarte andana bat bere baitan biltzen duena, Afrikakolore, Amnesty International, Attac, Emmaüs,

Euskadi-Senegal, CCFD, **Sokorri** Katolikoa, Piztu, Askapena eta bertze. Herria

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Xiberoko **sokorri** zentroaren estrena. Herria

Frangotan aipatu izan bada kontzentrazio zelaietako anaitasuna, onartu behar da ere hurko lagunarentzat bizimodu satsuenetaz kapable dela gizona, **sokorri** errefusatze, lapurtze, bortizkeria, borroka, hiltze. Michel Oronoz

Izu laborriak eta etsipenak hartaratua, biziaren ertzei eutsi zien, eta hamaika anpulu eragin zizkion, hamaika **sokorri**-dei oihukarazi. Patxi Zubizarreta

Iduritu zitzaidan norbaiten **sokorri** behar handitan zegoela eta ni nintzela sokorri hori ematen ahalko ziona. Janbattitt Dirassar

Merteuil jaunaren eritasunak zeregin hain eztiak eten zituen; hirira behar izan nintzaion jarraiki, **sokorri** galdez zetorren eta. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sokorri katolikoa (6); **sokorri katolikoak** (5); **sokorri katolikoko** (3); **sokorri zerbaiten** (5)

sokorrigune *(corpusean sokorri gune soilik) iz* laguntza emateko gunea.

Egun bakoitz ehun bat lagun gehiago Ospitaleko lehen sokorrietan, beste hainbeste San Andres auzoan idekia zen **sokorri gunean**. Herria

sokorritu, sokorri(tu), sokorritzen du *ad ipar* laguntza eman. ik **sorotsi**.

Aterre gabe eta hazkurri eskasean diren 45 lagun **sokorrituko** dituzte arats guzietan heldu den asteleheneretik haste, "Table du soir" elkartean bilduak diren laguntzaileek.

Herria

Errusia guzizia harritu dela eta zernahi odol emaila presentatu direla atentadu hortan berean izan diren 113 kolpatuen eta beste holakoen **sokorritzeko** beren ahalekin arabera.

Herria

Ondarrean, zernahi bagenuen, eta aise eta gogotik besteen laguntzera, bereziki apez italiaroen **sokorritzera** joaiten ginen. **Marzel Etxehandi**

Edozoin sasoinaz, gau ala egun, aroa arrunt hitsa izanikan ere, denak utzirik badoatzi itsasoan laguntza beharretan direnen **sokorritzerat**. **Herria**

Mendez mende, fraile elkarte zenbaitek ospitaleak eta elizak eraiki zituzten, han hemenka bide luze horien bazterrean, bide frango baitzen, beren eginbidea zutela beilarien **sokorritzea**, bertzerik ez. **Michel Oronoz**

Bere amarekin elgar **sokorrituz** goxo goxo bizi ziren. **Herria**

sokorritzaile (*orobat sokorritzaile g.er*) 1 *iz ipar* laguntza emailea. ik **sorosle**.

Istripua itsusia izan zela agertu zidan Fanchek, uhinen indarragatik, **sokorritzaileak** harkaitzetara ezin aski goiz hurbilduz geratu zirela hutsal eta aldion ez zela hegiatan Arrosa Héréren trakako emazte zainartik suertatu marinelen salbatzeko. **Itxaro Borda**

Sokorritzaileetan, bi suhiltzaile gazte zauritu dira. **Herria**

Han berean zendu da, **sokorritzaileek** ez zezaketelarik deusik egin. **Herria**

Behardunen **sokorritzaile** den elkarte hunek abiatuko du bere urteko diru biltzea. **Herria**

2 (izenondo gisa)

Sei elkarte **sokorritzailek** buruz gairi dute horrelako jokabideaz. **Herria**

3 (hitz elkartuetan)

Sokorritzaile ikasketa batzu antolatua izanen dira Ortzaizen helduden otsailean. **Herria**

sokorritzaile ik **sokorritzaile**.

sokorro¹ *interj* laguntza!

-Sokorro, **sokorro**, belar artean nago, **sokorro**! **Joxean Sagastizabal**

Tatarrez heltzen ari zela balkoi horretara, Matiasengana, **"sokorro"** esanez, edo "ai, ai" esanez. **Unai Elorriaga**

sokorro² laguntza. ik **sokorri**.

Behoko solairuko aitona, petxuan mina sortu zaiola eta, **sokorro** eske ari daiteke, ordea. **Joxerra Garzia**

sokotar ik **zokotar**.

sokrateszale *izond* Sokratesen zalea dena.

Nik Aristoteles nian gogoko, hainbat eta hainbat idazlan utzia bere atzean; hi, berriz, **Sokrateszale** amorratua hintzen, eta haren idazlan bat bera ere ez duk iritsi gugana.

Jon Muñoz

sokratiko 1 *izond* Sokratesena, Sokratesi dagokiona.

Heroi homerikoaren nortasunarekin lotzen den zentzu agonikoa ez da kabitzen agonismo **sokratikoaren** baitan. **Askoren artean**

Behar-beharrezko da gehiegikeria **sokratikoa**, arrazoizkoa, kulturalista bere neurritan ipintzea. **Patziku Perurena**

Homerok ongi erakusten digu [...] botereak berak erabakitzen dituela -ikuspegi **sokratikoaren** ustez absolutuak izango diren- ongiaren eta gaizkiaren taulak. **Askoren artean**

Poematxo honekin, Novalisek [...] arrazoinamendu itxuraz **sokratikoa** berritzen zuen, mundua ezagutzea eta nork bere burua ezagutzea eginkizun parekoak zirela, alegia. **Bernardo Atxaga**

Aintzat hartu behar da batik bat zein abantaila neurrigabea daukan etikotasunaren eta Erlijioaren aurkako objektio guztien auzia era **sokratikoan** behin betiko bukatzea, hots, aurkakoaren ezjakintzaren froga argienaren bitartez. **Ibon Uribarri**

Gero, ohiko metodo **sokratikoaz**, galdera bat: "Azalduko al dit zuetakoren batek, zer den nortasuna?". **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 (izen gisa)

Sokratiko erretoriko guzientzako bazka gozo izanen da beti jainko hitza, eta zaplaztekoa berriz larreko belar klase lehorra. **Patziku Perurena**

3 (izenondo elkartuetan)

Beraz, biraketa **sokratiko**-platonikoa ulertzeko, besterik ez bada, ezinbestekoa da Sokratesen herrikideek partekatzen zuten etika homerikoa aztertzea. **Askoren artean**

sokratizatu, sokratiza(tu), sokratizatzen du *ad sodomizatu*.

Zuk, Saint-Ange, hurbildu zurea, horrela hobeto igurtz eta **sokratiza** dezadan... ipurdiz inguratuta egotea komeni da ipurdi bat izorratzen denean. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Eugeniri zer egin behar duen hobeto azaltzeko, Dolmancék berak **sokratizatzen** du Agustin. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

solairu 1 *iz* etxe edo eraikin bateko egitura horizontaletako bakoitza. ik **kestai**.

Bost **solairu**, beheko beste pisu bat, bi soto, atikoa eta aparkalekua. **Berría - Euskal Herria**

Behekoaz gainera, **solairu** bakarra zuen etxeak, eta teilape bat goialdean. **Jon Muñoz**

Oso fatxada luzea eta bi **solairu** zituena; behekoa ez zegoen kareztaturik; goiko solairua, berriz, ohiko kolore horiaz margoturik zegoen. **Jose Morales**

Beha solairua eta ganbara barne, lau **solairu** zeuzkan. **Aitor Arana**

Erentako etxe baten goiko bi **solairuetan** jarri ziren bitziten Tomekin batera. Oskar Arana

Goreneko gelak beste bi **solairuetakoak** baino estuagoak ziren, galeriek tokia kentzen zieten eta. Elizen arteko biblia

Solairu askotako auto-aparkaleku batean. Iñaki Mendiguren

Lur azpiko hiru **solairu** izango ditu aparkalekuak. Berria - Kultura

Bazitekeen itsasontziak behar baino bi edo hiru **solairu** gehiago izatea, legez kanpo eraikita. Berria - Mundua

Gogoan dut, artean haurra nintzela, bagenuela bizilagun munstro bat, hirugarren **solairuan** bizi zena. Harkaitz Cano

la museoaren zero **solairu** osoa atonduko dute dokumentazio gune berrirako. Berria - Kultura

Liburu-dendaren eta garajearen gainean, etxebizitzak hartzen zuen lehenengo **solairu** oso-osoan. Jon Muñoz

Kalera egin beharko nikek salto, baina... hiru **solairu** zeudek. Rafa Egiguren

12. A etxebizitza hartatik **solairu** bereko B-ra pasatu nintzen jarraian. Josétxo Azkona

Museoak lau **solairu** ditu, sei instalazio-mailatan banatuak. Edorta Jimenez

Hautzaindegi bat dauka, orain goian beste **solairu** bat jaso nahi liokeena. Pako Aristi

Mailarik gabeko arrapak dira **solairu** arteko bidea. Edorta Jimenez

Oinazpian zafirozko **solairu** moduko bat zuen, zerusabaia bera bezain gardena Jose Antonio Mujika

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hotel berean hartu genuen ostatu, noski [...], baina ez **solairu** berean. Joxe Austin Arrieta

Etxe txiki bat, **solairu** bakarrekoa, herrietakoak bezalakoa, bi balkoi loreontziz beteak eta beheko **solairuan** burdinsare bat zuena. Josu Zabaleta

Dantza-aretoa beheerenero **solairuan**. Oskar Arana

Goiko **solairuan** igarotzen zuen denborarik gehiena. Oskar Arana

Solairu altuenetan, zuloak ageri ziren igeltsuzko hormetan. Koro Navarro

Solairu nagusia eremu publikoa izango zen: despatxua, harrera-gela, saloi-biblioteca, jantokia, sukalde eta officea. Patxi Iturritegi

Juliok gauzainari deitu zion, hark atea zabaldu zien, eta denak igo ziren **solairu** nagusira. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan)

Orain sei erakusketa-**solairu** atondu dituzte, arranken bidez lotuak. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beheko solairu (5); **bigarren solairu** (3); **hirugarren solairu** (4)

solairu bakarreko (10); **solairu bakarreko etxe** (5); **solairu bakarreko** (4); **solairu bakoitzean** (4); **solairu bat gorago** (3); **solairu batetik bestera** (4); **solairu berean** (3); **solairu igo** (3); **solairu osoa** (5); **zazpigarren solairu** (3)

azken solairua (3); **beheko solairua** (11); **bigarren solairua** (13); **eginiko solairua bezalakoa** (3); **goiko solairua** (6); **lauaz eginiko solairua** (3); **lehen solairua** (7); **zazpigarren solairua** (3)

beheko solairuak (3)

azken solairuan (8); **behe solairuan** (4); **beheko solairuan** (75); **beheko solairuan jarri** (3); **beheko solairuan zegoen** (6); **bigarren solairuan** (33); **bigarren solairuan bizi** (3); **bosgarren solairuan** (4)

eraikineko lehen solairuan (3); **etxeko hirugarren solairuan** (3); **gainerako solairuan** (7); **goiko solairuan** (45); **goiko solairuan bizi** (4); **gure solairuan** (3); **hirugarren solairuan** (25); **hirugarren solairuan bizi** (7)

laugarren solairuan (14); **lehen solairuan** (25); **lehenbiziko solairuan** (6); **lehenengo solairuan** (19)

seigarren solairuan (6)

zazpigarren solairuan (5)

goiko solairuetako (3)

goiko solairuetara (4)

azken solairuko (3); **behe solairuko** (11); **beheko solairuko** (26); **beheko solairuko gela** (4); **berrogeita laugarren solairuko** (8); **bi solairuko autobus** (6); **bi solairuko eraikin** (3); **bi solairuko etxe** (7); **bi solairuko etxea** (3); **bigarren solairuko** (29); **bigarren solairuko ate** (3); **bosgarren solairuko** (5)

goiko solairuko (29); **goiko solairuko gela** (3); **hiru solairuko etxe** (5); **hirugarren solairuko** (36); **hirugarren solairuko korridore** (3)

laugarren solairuko (19); **lehen solairuko** (26); **lehen solairuko gela** (6); **lehen solairuko leiho** (4); **lehenbiziko solairuko** (5); **lehenengo solairuko** (4)

goiko solairukoak (3)

goiko solairukoek (3)

behe solairura (3); **beheko solairura** (14); **beheko solairura jaitsi** (6); **bigarren solairura** (12); **bigarren solairura igo** (5); **bosgarren solairura** (3); **goiko solairura** (32); **goiko solairura eraman** (3); **goiko solairura igo** (7); **goiko solairura igotzen** (4); **hirugarren solairura** (11); **laugarren solairura** (7); **lehen solairura** (6); **lehenengo solairura** (6)

bigarren solairuraino (4); **hirugarren solairuraino** (3); **laugarren solairuraino** (4); **lehen solairuraino** (4)

beheko solairutik (7); **bigarren solairutik** (7); **bizi den solairutik** (3); **goiko solairutik** (12); **goiko solairutik behera** (3); **hirugarren solairutik** (7); **laugarren solairutik** (3); **lehen solairutik** (7); **lehenengo solairutik** (3)

solairuarte *iz* bi solairu hurrenez hurrenekori altuera-tartea kenduz egiten den solairua.

Solairuarlean egon nintzen itxaroten. Sonia Gonzalez

solairuka *iz* solairuz solairu.

Solairuka saldu zuten, beraiek egin beharrekoa egina zutela ikusi zutenean. Arantxa Iturbe

solapa *iz* papar hegala.

Dolua dakartenen usadioaren arabera, **solapa** urratua zeukan, eta gabardinaren barrualdea ikusten zitzaion. Koro Navarro

Obabako garai haietan enblema moduan eraman zezakeela txaketaren **solapan**. Bernardo Atxaga

Geratuko zaio emakumea begira, itxoiten geratzen diren emakumeek duten oztantasunarekin, esku bat ateko sarraian eta bestea paparrean, bularrak doi-doi estaltzen dizkion bataren **solapak** bilduz. Joxean Agirre

solapatxo *iz* liburuetan, azal hegala.

Frantziar kolonia ohi honetan elite kulturalak liburuaren **solapatxoan** esaten zaigunez Kahina irakaslea da frantsesez idazten jarraitzen du Berria - Kultura

solarium *iz* eguzkia hartzeko egokituriko terraza edo gunea.

Club Marítimoko **solariumean** goxo-goxo daude eguzkipean Marta eta Letizia. Xabier Mendiguren Elizegi

Zuri-zuriak eta beltz-beltzak, **solariumetan** beltzandarukoak eta sortzez beltzaranak. Migel Angel Mintegi

Alkandora bat arratsalde osoa denda dendaz alferrik botatzeko, **solariumetan** eta hondartzetan orduak emateko gure barne-bakeari halako mesedea egingo liokeen gogoeta unearentzat astirik gabe bizi garen bitartean... **Pako Aristi**

solarizatu, solariza, solarizatzen da/du ad argazkiak errebelatu bitartean argitan jartzea.

Artistaren mundua zabalagoa da, eta **solarizatutako** argazkiak eta film baten bidez ere osatuta dago eta hondoko aretoan lau pantailatan azaltzen diren artistaren tailerrek espazioa biderkatuko digute, berriz ere fantasia espazio batean sartzeko, oraingo honetan artearena bada ere. **Berria - Kultura**

solas 1 iz hizketa; p/ hitzak. ik solasaldi.

-Ez zara aspertzen, engoitik, beti **solas** beretan. **Eneko Bidegain**

Solas horrek **egin** du bide geroztik, baina gure frantses pentsalari, kazetari, irakasle, apezpiku, diputatu xuri ala gorrien gogoak ez dira hainbat aldatu. **Piarres Xarriton**

Irriño bat, bi **solas** erretore etxeko kalostrapean, esku fereka bat... gazteak ziren, eta elkar maite zuten. **Elena Touyarou**

Luzaidoko eta Arnegiko zubietaz bi **solas**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Zigarroak, kafea eta patxarana: gau ilunaren kideak, **solasaren** lagunak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bien artean doi-doi bi **solas** baizik ez eginak-eta? **Janbattitt Dirassar**

Solas horiek barnea nahasi zidaten. **Janbattitt Dirassar**

Hainbeste hausnarketa eta **solas** erabili ondoan [...] herrigintzaz edo politikaz, nago ez ote dugun bitartean gizaki soilaz arduratzea ahantzi. **Piarres Xarriton**

Badakizue hondar gerlan nolako **solasak** ibili diren hortaz munduan. **Piarres Xarriton**

Tomas Akinokoak, adibidez, [...] *De Deo* kapituluari, honela hasten du **solasa**: Jainkorik ez dela dirudi... **Piarres Xarriton**

Horretan gelditu ziren gure **solasak**. **Patxi Ezkiaga**

Batzuek, jendetasunez, entzuten dute eta noizbehinka galdera bat pausatzan, **solasa** segitzen dutela sinetsarazteko. **Eneko Bidegain**

Falangisten edo erregularren ahotsak garbi-garbi, **solasa** segitzeko moduan entzuten zituela. **Ramon Saizarbitoria**

-Etorri bai, zuek, hain goizik... -hasi zen ama ahal bezain poliki baina Colettek **solasa** moztu zion: [...]. **Daniel Landart**

Amak zituen gure **solasak** bat-batean moztu. **Janbattitt Dirassar**

Ez nuen **solasa** luzatzeko estakururik erantsi nahi. **Aingeru Epaltza**

Horretan gelditu ziren gure **solasak**. **Patxi Ezkiaga**

Solasa harilkatzen zenean, barkamenaz, salbamenduaz, konpasioenez eta urrikiak mintzo ziren. **Itxaro Borda**

Guk euskaldunen tradizio antisentimentala atxikitzen dugu, gure **solas** hitzez baino isiltasunez beteagoan. **Joseba Sarrionandia**

Makina hilkorri buruzko gure **solasean** ez da oraindik agertu ugalketa. **Irene Aldasoro**

ik beherago 5. **Askoren artean**

Jesusen zazpi azken **solasak**. **Herria**

2 (izenondoekin)

Buruz buruko **solas** luzeak izaten zituen harekin tximinia ondoan. **Josu Zabaleta**

Gantzezko kandela xume baten argitan, samovarraren marmarra lagun, bihotza eta arima berotzen ditu **solas** gozo batek. **Jose Morales**

Biziki alegaria, dena **solas** goxo, begiak amodio pindarrez beteak. **Janbattitt Dirassar**

Maurice Ducreuxekin izan **genuen solas** aberatsa. **Joan Mari Irigoien**

Horren kezka piztu die Gérard-en **solas** bitxiek, hitz-erdiak eta jestuek. **Eneko Bidegain**

Hauek ez dira literatoen, semiotikoen edo psikotikoen **solas** merkeak. **Iñaki Segurola**

Solas aspergarrietarako gordetzen dudan irribarre erdia erakutsi nion. **Aingeru Epaltza**

Solas herabe batzuk baizik ez zaizkio ateratzen, alta, berez ez delarik batere lotsatia eta oraino gutiago bere ikasleekin. **Eneko Bidegain**

Nire **solas** zentzugabeak nardaturik bezala, haien buruzagiak isiltzeko manatu zidan keinu bortitz batez. **Aingeru Epaltza**

Solas nahasia, ezin jasanezko zentzugabekeria zorrotza! **Janbattitt Dirassar**

Kattalin **solas** serioetan ari da, ordea. **Eneko Bidegain**

Zure bizi guztian hildakoarekin izan duzun **solas** intelektuala betirako eten da. **Koldo Izagirre**

Solas teknikoetan hasten dira nola osa dezaketen gunea, zer informazioekin, nolako dokumentuak eta abar. **Eneko Bidegain**

Sukaldean, beti **solas** berak. **Daniel Landart**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Solas mota frango entzuten da hemen. **Janbattitt Dirassar**

Behin, mahaian geundela, eta auskalo zer **solas** -klasek ekarrita, Frantziako herri txiki baten izena esan zuen aitak. grekoek *logeion* (**solas** -plaza) deitzen diote, aktore tragikoek eta komikoek eszenan egiten dituztelako beren hizketaldiak. **Anjel Lertxundi**

Beste hiru portiko horietan *exhedra* zabalak egingo dira, **solas** -gela jarlekudunak. **Santiago Iruretagoiena**

Bazkalondoko prosa, **solas** -prosa eta ez deklamaziozkoa dugu Cervantesena, eta bestelakorik ez du behar. **Juan Garzia**

Dirudinez, bezperako **solas** -saioa eskaintzen ari dira. **Lutxo Egia**

Gehiegikeria nabarmenez baliatzen zen eskolako **solas** -jolasetako hitz zaharkituez. **Juan Garzia**

Bi gizasemeren **solas** hotsak trabeska egin zuen autoaren xafra metalikoan barna. **Aingeru Epaltza**

Azkenik, **solas** -ondoko uzten dut galde bat, egundainotik kezkatu nauena, eta gaur hemen zertan dugun berrikusi nahi nukeena: [...]. **Piarres Xarriton**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Harrondoko bikoteak ez zuen iparra galtzen eta ondoko astean eztei **solas** baizik ez zen haien sukaldia. **Itxaro Borda**

Tomas ezkon- **solasetan** hasia zen karrika bereko bertze ofiziale batzuekin. **Aingeru Epaltza**

Horra iritsirik, barne- **solasa** eten eta pentsakor geratu zen Txitxikov. **Jose Morales**

Arras gustatzen baitzaio jantzi **solas** aritzea. **Eneko Bidegain**

Gerla **solas** ari baikara, iruditzen zait etsaia balioztatuago eta gerla hobestenago dela. **Itxaro Borda**

Ez denak jostatze **solas**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Liburu **solas**: Ministroak, Frantziari, ez dira bakarrik beren sailaren kudeatzeko izendatuak, aise gehiago egin nahi dute. **Herria**

5 solasean hizketan.

Bulta bat egon ginen **solasean**. **Janbattitt Dirassar**

Orenak eta orenak egon zen harekin **solasean**. **Eneko Bidegain**

-Daniel Landart-ekin **solasean** ari gara. **Menane Oxandabartz**

Horra zertaz ari ziren **solasean** joanden aratsean Donibane Lohizunen. **Herria**

Kattalinen esperantza du, **solasaren** abiarazteko. **Eneko Bidegain**

Elgarrekin **solasean** hasiak dira, bainan neskaen aitak debekatzen dio mutikoaren ikustea, agotea delakoan. **Herria**

Bestea, oster, zakar hasi zen **solasean**. **Patxi Zubizarreta**

Urduri nago, ondo ortzo zait norbaitek **solasean** aritzea, eta areago Josebarekin. **Bernardo Atxaga**
Hor ginelarik hain zuzen, Elizondoko eliz'aintzinean solas eta gogoeta, gure herriko izar horiekin **solasean**, norbaitek egin du, aintzek gogoan zuten galdea: zer adin zuen Marianok? **Herria**

6 solas egin hitz egin.

Partida bukatutakoan, **solas egiten** zuten. **Karlos Zabala**
Erromeseekin **solas egiteak** anitz aldiz on egiten du, haien pentsamoldeak gurekilar parean emanez, eta harreman baliosak sortaraziz. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Euskaraz eta frantsesez **solas egiten** ahalko da, batbateko itzulpena emanen baitigu biltzar hori kudeatuko duen Txomin Peillen jaunak. **Herria**
Ezagunak agurtu, te bana eskatu, eta lagunekin **egiten** zuten **solas**. **Xabier Montoia**
Oiarbide, eskuak bizkar atzean, ene ondotik dator **solas eginez**. **Koldo Izagirre**
Benetan sinpleekin egiten du Jainkoak **solas**. **Askoren artean**
Atsegin handi dut zurekin berriz **solas egitea**. **Janbattitt Dirassar**
Vicente Fox presidentia agurtu du beraz eta harekin **solas** zorbait **egin** bereziki bi herrien arteko harremanez. **Herria**
Nahi zituela bi **solas egin** nirekin. **Piarres Xarriton**
Eguerditan ja bi **solas** eginik, arratsean bagenuen ontsalaz aise denbora gehiago gure gomendio. **Janbattitt Dirassar**

7 solas eta solas

Hola hasi ginen **solas eta solas**. **Janbattitt Dirassar**
Juan Jose Ibarretxe hasia da jadanik **solas eta solas** bainan denbora poxi bat joan ditake halere gauzak untsa argitu arte. **Herria**
Kontua da gero lapur mozorrotu eta gautarrarena gertatu zela, eta jendea **solas eta solas**. **Pello Lizarralde**
Biak egon ziren goxoan **solas eta solas**, hartaz eta honetaz. **Janbattitt Dirassar**
Kontua da gero lapur mozorrotu eta gautarrarena gertatu zela, eta jendea **solas eta solas**. **Pello Lizarralde**

8 solas izan du ad

Aldi luze batean denboraldiko gonak, merkealdietako galtzak, modako jakak eta egikera egoki edo desegokiko jantziak izan genituen **solas**. **Aingeru Epaltza**
Broussain, Constantin, Mendiboure, Dourisboure eta mediku gazte zenbaitek, berriz, alderdi separatista baten antolatzeaz izan zuten **solas**, Sabino Arana Goirik Hegoaldean ireki bideari pentsatuz. **Piarres Xarriton**

9 (aditza ezabaturik)

Kurrida **solas**, badira bidekari handiak, Santiago Konpostelarat edo beste, baina horiek aipatuak ditugu jadanik. **Herria**
Etxeratu nintzaionetik, hiru-lau muturraldi baizik ez zen piztu gutartean; denetan, ama **solas**. **Aingeru Epaltza**
Hurrengoan, elkarrengandik berrogeita hamar zentimetrora eta ahots apalagoaz, eskola ume gineneko denborak **solas**. **Aingeru Epaltza**
Erausian heldu dira, huskeriak **solas**. **Aingeru Epaltza**

10 solas-molas adkor

Handik pixka batera, ordu laurden, hogei minutu gehienez, elkarrekin atera ziren, **solas-molas** goxoan. **Aingeru Epaltza**
Haiekin **solas-molasean** ari nin-tzela, maletategi irekira lerratu zitzaizkidan begiak. Laneko goiti-beheitiak [...], Josu itzulita elkarrekin egin behar zuten bidaia, etxeko eskaileretako argia konpondu beharra, batetik bertzera ibili zen **solas-molas**. **Aingeru Epaltza**

11 solas-ondo iz

Lan hura bera atseginekin onartu zidan ordea Montréal *Fides* argitaletxeak, eta argitaratu [...] Guy Bourgeault Montréal *e*ko Unibertsitateko irakasleak eskaini aitzin-solas laburrekin eta **solas**-ondo mamitsuarekin. **Piarres Xarriton**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aintz solas (7); **aintzin solas** (7); **aintzin solas gisa** (3); **aintzin solas** (9); **bake solas** (3); **bazen solas** (5); **beti solas** (4); **bi solas** (24); **bi solas egin** (8)
egin zuten solas (3); **eliza solas** (5); **erabili solas** (4); **gerla solas** (6); **gure solas** (6)
irri eta solas (6); **irri solas** (4); **mintzaira solas** (3); **nire solas** (3); **pilota solas** (6)
solas argi (3); **solas ari** (4); **solas bat** (9); **solas batek** (4); **solas batzu** (8); **solas batzuk** (3); **solas bera** (3); **solas berak** (4); **solas beretan** (6)
solas eder (3); **solas ederra** (3); **solas ederrak** (5); **solas egin** (17); **solas egin ditugu** (4); **solas egitea** (6); **solas egiteko** (22); **solas egiten** (9); **solas egitera** (5); **solas erabili** (3); **solas eta alegantzia** (3); **solas eta gogoeta** (4); **solas eta solas** (25); **solas gaiak** (6); **solas gisa** (5); **solas goxo** (3); **solas guti** (6); **solas guziak** (3); **solas haiek** (4); **solas haietan** (3); **solas hartan** (3); **solas hau** (5); **solas hori** (8); **solas horiek** (20); **solas horien** (9); **solas horietan** (4); **solas horrek** (3); **solas horri** (3); **solas hura** (4)
solas ibili (3); **solas labur** (4); **solas molasean** (3); **solas mota** (3); **solas nahasi** (4)
zenbait solas (3); **zer solas** (5); **zernahi solas** (3)
aintzin solasa (11); **aitzin solasa** (15); **arteko solasa** (10); **azken solasa** (4); **bere solasa** (8); **beren solasa** (3); **gure solasa** (12); **holako zerbaiten solasa** (3); **izandako solasa** (3); **lurraren aldeko solasa** (5)
solasa bukatu (3); **solasa egin** (3); **solasa eman** (3); **solasa eten** (15); **solasa eten zuen** (3); **solasa frango** (9); **solasa hedatu** (7); **solasa hedatu da** (4); **solasa hedatua** (5); **solasa moztu** (5); **solasa zen** (4)
azken solasak (4); **bere solasak** (7); **beren solasak** (3); **erabili solasak** (4); **gisa bereko solasak** (4); **gure solasak** (5); **jendeen solasak** (3); **nolako solasak** (4)
solasak entzun (3); **zazpi azken solasak** (4)
aintzin solasarekin (3)
solasaren haria (3)
ekin zion solasari (3); **solasari ekin** (5); **solasari lotu** (3)
aintzin solasean (4); **aitzin solasean** (5); **aitzin solasean erran** (3); **ari zen solasean** (4); **aritu ziren solasean** (8); **aritzen zen solasean** (3); **artean solasean** (7); **biak solasean** (4)
elkarrekin solasean (9); **gizon batekin solasean** (4); **gure solasean** (4); **hasi zen solasean** (4); **inguruan solasean** (3); **lagunarekin solasean** (3); **lagunarekin solasean jarduten** (3); **nirekin solasean** (4)
solasean ari (68); **solasean ari ziren** (7); **solasean ariko** (4); **solasean aritu** (14); **solasean aritu ginen** (3); **solasean aritzeko** (7); **solasean aritzen** (5); **solasean aritzen zen** (3)
solasean egon (7); **solasean egonik** (5); **solasean egoten** (4); **solasean entzuten** (3); **solasean erran** (3); **solasean erran dizudan** (3); **solasean hasi** (24); **solasean hasi ginen** (3); **solasean hastea** (4); **solasean hasteko** (3); **solasean hasten** (4); **solasean jarduteko** (3); **solasean jarduten** (4); **solasean jarraitu** (5)
solasean segitu (3)
gure solasek (3)
bi solasen (7); **gure solasen** (3); **solasen gaia** (4); **solasen ondotik** (4)
solasera ekarriz (4)
bake solasetan (4); **bere solasetan** (5)

solasaldi *(orobat solasaldi g.er.) 1 iz hizketaldia, solasa.*

Batzu eta bertzen artean **solasaldiak** eta eztabadak egin dira, zerrenda ideki bat behar zenez ala zerrenda hetsia. **Herria**
Iluntzero bezalaxe, dendetako atek itxirik zeuden eta kalezuloko auzokideak **solasaldi** bat egitera joanak ziren kafera. **Patxi Zubizarreta**
Solasaldiak ere egiten dizkizue noiztik noizera. **Xabier Montoia**
Halaxe hasten zen gurekin hizketan, etengabe galderak eginez, **solasaldi** bat sortu nahian. **Bernardo Atxaga**
Ez genuen **solasaldi** bati hasiera emateko astirik. **Ramon Saizarbitoria**

Bere hartan izati zuten **solasaldia**. Patxi Zubizarreta
Pertsona horiekin izaten zituen **solasaldiek** ez zuten ez aspertzen ez dibertitzen. Fernando Rey
Harekin izandako **solasaldia** kontatzeari ekin zion. Patxi Zubizarreta
Lotsa pixka bat ematen zidan **solasaldi** hori Lallyren aurrean izateak. Fernando Rey
Hitz beste egin, eta ohiko hizpideetara eraman zuen **solasaldia**. Pedro Alberdi
Orduan gure amak ere hartzen zuen parte **solasaldietan**. Fernando Rey
Gizonak, **solasaldiari** ekiteko plazer hutsagatik, honela galdegin zion: [...]. Patxi Zubizarreta
Beste **solasaldi** bati ekin zioten, hariak eta goiz-albak hari zuria beltzetik bereiztea ahalbidetu zuen arte. Patxi Zubizarreta
Bihotzez eskertzen dizut etenik gabe eskaini didazun **solasaldi** hau. Imanol Unzurrunzaga
Andereño gazteen heziketarako **solasaldiak**. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gaixoak irribarre gozo batez eskertzen zuen **solasaldi** lasai hura, dizipulua maisuaren aurrean bezala sentitzen baitzen medikuaren hitzak entzutean. Imanol Zurutuza
Aldarte oneko zegoen, eta **solasaldi** luzea izan genuen. Iñaki Iñurrieta
Ohi bezala, elkarran alboan esertzea eta **solasaldi** amaigabearen hastera dena bat izan zen. Patxi Zubizarreta
Solasaldi laburra, bainan zoin goxoa! Herria
Bitarte hartan, Garrüzeko kapitainordeak **solasaldi** goxoak egin zituen jaun noblearekin. Aingeru Epaltza
Ez dezatela emakumeekin tratu edo **solasaldi** susmagarririk izan. Askoren artean
Bertze **solasaldi** telefoniko batean. Aingeru Epaltza
Zoritxarrekoa alferreko **solasaldi** hutsaletan gozaten den erlijiosoa. Askoren artean
Ustekabeko **solasaldi** bat izan nuen, guztiz gogoangarria. Bernardo Atxaga
Zeren eta gogoan bainuen gurasoen isilpeko **solasaldi** hura. Joan Mari Irigoien
Gaizkak esan zuen behin, ez dakit bilera batean edo lagunarteko **solasaldian**, autojestioa zela alternatiba. Xabier Mendiguren Elizegi
Tenientearekiko nire asteroko **solasaldi** haiek. Juan Garzia
Bere nagusiarekin lagunarteko **solasaldi** batean dagoen ofizial baten gisan. Xabier Olarra
Deboziazko **solasaldi** hauei esker konberitu zen behin San Severinoko gazte bat. Askoren artean
Adi zegoen, isilik, alboetatik zetozen begiradek osatutako amaraunaren barruan eta jatetxeko ohiko **solasaldi** gorabeherarik gabekoen erdian. Lopez de Arana

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Solasaldi hasieratik lehenbiziko aldia zuen apaltasun pikor bat adierazten. Aingeru Epaltza
Tristatu eta sumindu egin zuen entzuten zituen **solasaldi** zatietan gaztelania nagusi zela jabetzeak. Juan Luis Zabala

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Telefono-**solasaldi** hauxe daukat nik neure bizitzako mugarri-gune garrantzizkotzat. Pello Zabala
Negozio-**solasaldi** bat, nolabait esateko, oker ez banago eskuen artean bioi interesatzen zaigun bat duzu eta. Migel Angel Mintegi
Hasieran Nora ere aitarekin batera sartzen zen, etxe, txabola nahiz borda, gonbidatzailearen aterpera, gau-**solasaldi** egokiren baten itxaropenez. Anjel Lertxundi
Han biltzen baitziren Kirxaren haxix **solasaldia** egiteko. Patxi Zubizarreta
Nire narratzaile-**solasaldi** bridagabeak, Balzac, Ariosto, Fantomas, Madame Bovary, Tristan eta Isolda eta halakoen moduan. Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gure solasaldi (6); **gure solasaldi honetan** (3); **izandako solasaldi** (4); **solasaldi guztiak** (3); **solasaldi haiek** (3); **solasaldi haietan** (3); **solasaldi hau** (9); **solasaldi honetan** (6); **solasaldi horietan** (4); **solasaldi horretan** (4); **solasaldi hura** (6); **solasaldi labur** (7); **solasaldi labur bat** (3); **solasaldi laburra** (3); **solasaldi luze** (4); **solasaldi luzea** (5); **solasaldi luzeak** (8); **solasaldi luzeak izaten** (3)
gure solasaldia (5); **izandako solasaldia** (6); **lehen solasaldia** (3); **solasaldia izan** (3)
bere solasaldiak (3); **gazteen heziketarako solasaldiak** (4); **haien arteko solasaldiak** (3); **kultur solasaldiak** (3)
izandako solasaldian (3); **solasaldian zehar** (3)
izandako solasaldiaren (3); **solasaldiaren ondoren** (3); **solasaldiaren ostean** (3)

solasaldiño iz solasalditxo.

Gure **solasaldiño** hau nahiko ginuen segur goxo goxoa eta burutik buru Xanpun zenari eskaini. Herria

solasalditxo iz solasaldi laburra.

Kontzentrazio guztiak dira antzekoak, mekanikoak: gosaldu, entrenatu, dutxa, masajea, afaria, kafetxoa, **solasalditxo** eta ohera. Berria - Kirola
Horrela **solasalditxo** lasaia egiteko aukera izan zezaten. Joxemari Iturralde
-Ezer askorik ez, zurekin **solasalditxo** bat izatea, horixe besterik ez. Migel Angel Mintegi
Han elkartu eta aitzakia horrekin, kafe bat hartu eta **solasalditxo** bat izaten genuen sarritan. Berria - Kultura
Ikusi uste ere dut zure **solasalditxo** horren bitartez plazerra arras balioets zenezakeela. Jon Muñoz

solasbide (orobat *solas-bide* g.er. eta *solaspide*; Hizegi Batuan *solasbide* agertzen da) iz hizpidea, solasgaia.

Ordenaren egoeraz eta Erregela gordetzeaz Frantziskorekin izaniko hainbat **solasbideren** artean, gai berezi batez galdetu zion: [...]. Askoren artean
Barrenak irauli zizkidan nire ezkonbizitzaren porrota zizare horren **solasbide** bilakatu ahal izan zela pentsatze hutsak. Aingeru Epaltza
-Arrazoren bat edukiko zuen, ez duzu uste? -eutsi zion **solasbideari** -. Migel Angel Mintegi
Mugatuagoa egingen dut hemengo **solasbidea**. Herria
Solasbidea emateari, gure etxean, "soka ematea" esaten zitzaion. Fernando Rey

solasgai (orobat *solas gai*) 1 iz solasaren gaia, hizketa-gaia. ik solasbide.

Afaldu bitartean nahiz afalostean gehixeago nahastu dira solaskideak eta **solasgaiak**. Xabier Mendiguren Elizegi
Eta menturaz, **solasgaiaren** berritasunak erakarririk, entzule asko etorri zitzaizkidan. Piarres Xarriton
Solasgaien ordena bulegoak finkatuko du helduden astelehenean, abendoak 15, egitekoa den bilkura batean. Herria
Hori ere ez omen zen **solasgaietan** ezarria bainan barne-minixtroak ikusiko omen du halere zer egin ditakeen, Justiziaren minixtroarekin egon ondoan. Herria
-Etxean denak ontsa -Eusebiok **solasgaia** aldatu zuen. Eneko Bidegain
Arimak gorputzarekin duen komunitatea argitzeko eginkizuna ez dagokio benetan hemen **solasgaia** den Psikologiari. Ibon Uribarri

Forentsea, hots, minutu bat lehenago **solaskide** zuena, hor zen beti. [Aingeru Epaltza](#)
Kafetegiko ordu hiletan **solaskide** izaten ere ikasi izan zuen Aitorrek. [Unai Iturriaga](#)

Irakurlea **solaskide** bihurtzea. [Xabier Amuriza](#)

Hauek ere ez zuten ondoriorik lortu, eta azkenik Mogueime **solaskide** harturik, Mem Ramiresek deia dar egin zuen, hunkipenak ahotsa blaitzen ziola, [...]. [Jon Alonso](#)

Hartu **solaskide** jende zentzuduna, eta mintza beti Goi-goikoaren legeaz. [Elizen arteko biblia](#)

4 (hitz elkartuetan)

Agatak, tristura sakona gairiditurik, gutxienez **solaskide** izaera eskertzen zion Louise memoriaren selauruan kokatu eta laster ahantzi zuen. [Itxaro Borda](#)

Inputatu horietako zenbaitek normalizazio eta bake prozesuan izan dezaketean **solaskide** izaeraz ohararazi du Zabaletak, sei lagunei elkartasuna adierazi ondoren. [Berria - Euskal Herria](#)

5 (negoiazioetan)

Gehienentzat prozesuaren «**solaskide**» bat kartzelatzea ez da albiste ona. [Berria - Euskal Herria](#)

Balitzo elkarrizketa horretarako **solaskideak** hiltzen ari da, ordea, ETA. [Joxerra Garzia](#)

Blancoren hitzetan, Otegi ez da PSOEren «**solaskide** baliagarria» izango indarkeria gaitzesten ez duen bitartean edo ETAr armak uzteko eskatzen ez dio bitartean. [Berria - Euskal Herria](#)

Elkarrizketetarako **solaskidea** ezker abertzaleak berak aukeratu beharko duela zehaztu zuen, eta ez alderdi sozialistak. [Berria - Euskal Herria](#)

Stormont-eko hitzarmen historikoak gorri zintatu ditu **solaskideen** ezpainak. [Lutxo Egia](#)

Solaskideak aurreko bilerako bostak izan ziren. [Berria - Harian](#)

Onartezina da **solaskide** politikoak espeteratzea. [Berria - Harian](#)

Auzapezen **solaskide** zuzenaren funtzioa beteko du. [Berria - Harian](#)

Euskal gizarteko sektore guztien PSOEren **solaskidea** PSE-EE da. [Berria - Euskal Herria](#)

Geroztik geldi dago, negoziaketari ekiteko prest, **solaskideen** beha. [Berria - Ekonomia](#)

6 irud/hed

Esan daiteke Erdi Aroko filosofia bi **solaskide** nagusi izan dituela bere gogoeta propioa osatzerakoan: kristau-tradizioa (Elizgurasoak edo patristika barne) eta, harekin batera, antzinako filosofia. [Askoren artean](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

etaren solaskide (4); **psoreen solaskide** (4); **solaskide baliagarria** (3); **solaskide izan** (12); **solaskide izan zuen** (4); **solaskide izango** (4); **solaskide izateko** (3); **solaskide nagusi** (3); **solaskide politiko** (4); **solaskide politikoak** (3)

bere solaskideak (4); **bigarren solaskideak** (3); **etako solaskideak** (4)

bere solaskideari (3)

solaskideetako batek (4)

solaskidetza 1 iz solaskideen elkarrizketa edo jarduerak.

Zergatik utziko dugu **solaskidetza** gobernu zentralak eta ETak bakarrik izan dezaten?, zergatik ezin du izan **solaskidetza** Eusko Jaurilitzak? [Berria - Euskal Herria](#)

Solaskidetza baldintzatuak sortzeko tresna zen deportazioa. [Berria - Harian](#)

Solaskidetza ez bada bermatzen eta politika egiteko eremu politikoa ez bada zabaltzen oso zaila izango da aurrera joatea bakearen bidean. [Berria - Harian](#)

Euskal alderdien **solaskidetza** bateratua baztertuta, Kataluniako, Galiziako eta Euskal Herriko hiru alderdi abertzale nagusien **solaskidetza** egituratu nahi du EAJK, estatuen erreformari begira. [Berria - Euskal Herria](#)

2 (hitz elkartuetan)

Gobernuak erabakita, **solaskidetza** eskema jakin bat finkatzen da eta, horrela, negoziazio prozesua gutxieneko bermeekin gauzatzeko beharko liratekeen mugimendu eta komunikazio askatasunak ezinezko bihurtzen dira. [Berria - Harian](#)

3 solaskideen taldea.

Rafael Vera Estatu idazkaria eta Juan Manuel Egiagarai Murtziako gobernu ordezkaria [...] osatu zuten Gobernuaren **solaskidetza**, eta Etxebestek, Belen Gonzalezek eta Iñaki Arakamak ETAKoa. [Berria - Harian](#)

Gu ez ginen Erakundearen zuzendaritza, **solaskidetza** baizik. [Berria - Harian](#)

solasño iz solas laburra.

Ez gira egun manifestaldi hortaz berriz ariko, baina karia hortarat handik nonbait urratsetan entzun ditugun **solasño** batzuetaz, gogoetagarriak iduritu baitzaizkigu. [Herria](#)

Hor ziren guziekin gure apezak **solasño** bat egiteko denboran herriak eskaini zintzur bustitze bat egin da. [Herria](#)

solaspide ik solasbide.

solastari iz egoki solastatzen den pertsona

Solasa dut maite, **solastari** petoa naiz. [Berria - Kultura](#)

Ez nion deus konprenitzen, baina segur nintzen **solastari** egokia zela. [Xabier Montoia](#)

solastatu, solasta, solastatzen 1 da ad solas egin, mintzatu. ik hizketatu.

Norbaitekin mintzatu nahi nuen garbiki, norbaitekin patxadan **solastatu**, norbaiti neure kezka larria deblauki aitortu. [Txillardegia](#)

Harekin **solastatu** zen bati erran zion bere bidaian ikasi zuela jende anitzek bihotz ona dutela. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Ahots koleratuak mututu direlarik **solastatu** da zaharra. [Xabier Montoia](#)

Ez beti gai beraz mintzatzeko, rugbyaz **solastatu** ginen pixka bat. [Daniel Landart](#)

Gorde nuen atzera berriz arkatza eta munduaren egoeraz **solastatu** ginen. [Joxe Austin Arrieta](#)

Indiaz, Orkada uharteez eta haiek gobernatu zituzten jarl norvegiarrez **solastatu** ginen. [Juan Garzia](#)

Auto-markei buruz **solastatzen** gara, mutikoa eta biok. [Joxe Austin Arrieta](#)

Berarekin berriro eta sakonkiago **solastatzeko** gogoia piztu zitzaidan. [Txillardegia](#)

Lubaki berean egokitutako ezezagunekin **solastatzen** dira soldaduak beren beldur eta ikarez, tiro hotsen artean. [Imanol Zurutuza](#)

Honela **solastatu** zitzaion amari, aita Bartolome eta bion aitazinean: [...]. [Joan Mari Irigoien](#)

Oneski **solastatzea** gustatzen zait. [Janbattitt Dirassar](#)

Luzaz **solastatu** ginen nire ezteiez, eta ez dut deus onik jakin. Jon Muñoz

Josepek egina zuen minitelez **solastatu** ondoan apur bat, oren laurden baten heina delo holako zerbait, Loretxuri galdutako ziola telefonaz deitzen ahal zuenetz. Janbattitt

Dirassar

2 (du aditz gisa)

Solastatu dugun Jean Léon Irigarai hoztarra eta Clermont-Ferrand-go unibertsitateko irakasleak erraiten digu ezetz deplauki. Herria

Solastatu ditugun enpresa buru batzuk diote biziki zaila dela oraiko egunean langile batzuen aurkitzea beren sailean eta gazteak holako ofizio batzutara moldatuz baluketela herrian bizitzeko eta lan egiteko manera. Herria

Zerbait arin jan eta joaiten dira berehala Xantiren burasoak behar dituztela **solastatu**. Michel Oronoz

Irisarriko ondarkin gunearen sanotzea ere **solastatuko** dute. Herria

Herriko Etxean elgar **solastatzean** finkatu ere dute egun hori helduden urtean Aiherran ohoratzea. Herria

Pseatzeko eta **solastatzeko** lagunak, alaialdian elkarrekin irri egiteko lagunak, , ilunaldian elkar kontsolatzeko lagunak. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hala solastatu (3); **halaxe solastatu** (3); **solastatu da** (5); **solastatu dira** (4); **solastatu ginen** (6); **solastatu nintzen** (3); **solastatu zen** (6); **solastatu zitzaidan** (3)

solastatzeko premia (3)

solastatzen dira (5)

solastatze iz solas egitea, minzatzea.

Solastatze luze horiek noizbait bukatu ginituen eta hitzarmen bat izenpetu ginuen gure bi erreinuen izenean. Michel Oronoz

Ondarrean **solastatze** beroak izan dira Atarratzen Pilotarien eta Federazionearen artean hasia den gataska hortaz. Herria

Bi kulturen berezitasunak hobeki ezagutzen ahalko dira, dela erakusketa, mintzaldi, **solastatze** eta kontzertuaren bitartez,aldi bakoitz, bi hizkuntzak erabiliak izanen baitira.

Herria

Helbuden ortzirale aratsaldean, jakin arazten daikute merian izanen dela CTE (Contrat Territorial d'Exploitation) hiru herrien arteko kontratuaz **solastatze** bat, lur jabe eta laborari guziak gomit baitira. Herria

solaste iz solastatzea.

Solasak **solastei**, urratsak araberakoak izaitekotan bixtan da! Herria

solastiar iz solas-egilea.

Erizain lanetan zebilen neska falta da **solastiarren** artean. Aingeru Epaltza

solastu, solas(tu), solasten da ad solastatu.

Eskertzekoa zen inguru-mingururik gabe **solastu** ahal izatea, ahotik ahora. Aingeru Epaltza

Zeure zorionean, izeba ero edo osaba pakete mozkortzioren bat izateko ditxa bazenu, **solastu** harekin, galdegin handien gauzak nola diren, eta hark erranen dizu noski.

Iñaki Segurola

Hobe omen baita andre bat deabruarekin berarekin **solastea** frantses batekin baino. Koldo Izagirre

Erran bezala, forentsearekin goizeko lehen orenetan **solastua** nintzen, hazi-arrasto hutsalen xerka. Aingeru Epaltza

Urketariaz **solastu** ginela bai, oroitzen naiz, Amsterdam aipatu niola, portu hori. Koldo Izagirre

Hainbat hilabete geroago, gertatuaz jende zibilizatuen gisara **solasteko** gauza izan ginenean, [...]. Aingeru Epaltza

Osasunaz, kulturaz eta hainbat gizarte gaiez **solastekoak** ziren baina, osasuna baino ez zutela hizpide izan adierazi zuten hainbat iturrik. Berria - Mundua

Eta, noiz eta indiar gorriez **solastu** baitzen, erran zigun: [...]. Joan Mari Irigoien

Arma nuklearren inguruan **solastu** dira Piongiang eta Pekin. Berria - Mundua

solasturi 1 izond/iz hiztuna.

Haren gibelean ezagun zen moketa gaineko arrasto iluna, atezain **solasturiaren** garbikariak ezabatu ahal izan ez zuena. Aingeru Epaltza

Luis bezala, ez zen **solasturi** handia. Gotzon Garate

Akats bakarra, sobera **solasturia** izatea, nire beheraldi alkoholikoetan batere komenigarria ez zena. Aingeru Epaltza

Hirekin nirekin baino **solasturiagoa** egonen duk agian. Aingeru Epaltza

Nire gogoan atxiki baino garaiaagoa, sendoagoa, gizonagoa, eta, bistan zena, **solasturiagoa**. Aingeru Epaltza

2 irud/hed

Ardaua, bai, arda **solasturi** eta filosofoa... Txillardegi

solastxo iz solas laburra.

Nola izan zuen doktoreak **solastxo** labur bat. Josu Zabaleta

solbente izond fidagarria.

Karrera amaitu eta gero doktore egin zen, eta Europako arkitekto onena izendatu zuen Europako arkitekto-elkarterik **solbenteenak**. Unai Elorriaga

Solbezio iz ipar Ama Birjinaren jaiotzaren eguna.

Igandean izan dugu Luzaidarren beila Orreagarat ohi den bezala buruilaren 8 an, **Solbezio** eguna ospatzeko. Herria

soldado ik soldadu.

soldadogu ik **soldadugu**.

soldadogu ik **soldadugu**.

soldadore iz soldatzailea.

Zortzi ordu txandaka lan egiten duen **soldadoreak**, baietz, badituela autoa, plater-garbigailua, telebista, DVD aparatua, sakelako telefonoa, eta baita Internet ere, baina ez dela hobeto bizi. **Iñaki Heras**

Albertok, zenbait astez **soldadore**-talde batekin aritua baitzen lanean, esplikatu zidan oxiazetileno-hodien puntan muntaturik joaten direla, garra pizteko. **Juan Garzia**
Gibelera behatu zuen, **soldadoreak** ezin zuen ikusi. **Koldo Izagirre**

soldadotegi ik **soldadutegi**.

soldadu (orobat **soldado** g.er. eta **soldatu** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **soldadu** agertzen da) **1** iz

Hogei **soldadu** oldartu ziren Mikel Strogoffengana. **Karlos Zabala**

Aurretik **soldaduak** fusilak eskuetan, baionetak fusil ahoetan. **Felipe Juaristi**

Ilara estu-estueta, uniforme beltzez jantzitako milaka **soldadu** lerrokatzen ziren. **Alberto Ladron Arana**

Baratzea, amultsuki artatua, bertan lerrokatuak zeudela, **soldaduak** iduri, piperra, tomate, entsalada eta tipulak... **Elena Touyrou**

Soldaduak formazioan antolatuta ziren eguzkipean. **Joseba Sarrionandia**

Desfilean doan **soldaduren** batena? **Anjel Lertxundi**

Soldadu bat preso hartu eta hona ekarri behar dugu galdeketa egiteko. **Mirentxu Larrañaga**

Hiru edo lau **soldadu** garbituko nituen, ez dakit, euliak bezala erortzen ziren gure aurrean. **Jon Muñoz**

Afonso erregearen hamabi mila **soldaduak** bost taldetan banatu beharko direla. **Jon Alonso**

Jesusen Lagundikoa, Inazioren armadako **soldadua**. **Iñaki Iñurrieta**

Kristau Elizaren iruditeria militarren bilakaera "Jainkoaren **soldadua**" lehenengo misiolaria zen. **Iñaki Mendiguren**

-Entzun, Israelgo **soldaduak**, entzun nire erronka! **Jose Antonio Mujika**

Bi **soldadu** hil nituen, labanaz, tiro hotsik ez egitearren. **Alberto Ladron Arana**

20.000 **soldadu**, leporaino horniturik zaldiz eta kanoiz. **Aingeru Epaltza**

Berrogeita hamar mila **soldaduko** tropak tatariarrei alboetatik eraso eginez berehala askatuko gaitu. **Karlos Zabala**

Uniformez jantzitako **soldadu** bat ikuste hutsak kolpetik isilduko zituen merkatari haien mingainak. **Karlos Zabala**

Hiru adarreko kapeluz jantziriko **soldaduak**. **Jose Morales**

Goarnizioko **soldaduen** bake denborako bizitegian. **Aingeru Epaltza**

Nik, **soldadu** odoletan lezatu honek, Jauregi adiskidea, soka batetik zintzilik urkatu ikusi nuen. **Felipe Juaristi**

Soldadu bat ikusi zuten, bi eskuak aurrera, elurpeko liluramendu hartan, elur bisutsaren astinaldiak eraginiko eldarnio hartan, maite zuen emakumea besartean zuela, benetako emakumea hartzen zuela sinestun. **Felipe Juaristi**

Sanz koronel-ordea, bere agindupeko 3 kapitainak, 7 ofizialeak eta 475 **soldaduak**, preso altxa genituen. **Txillardegí**

Soldaduak eta mertzenarioak leporaino armatuta. **Felipe Juaristi**

Soldaduak eta peoiak organ kokatzen ari ziren azken kanoia. **Aingeru Epaltza**

Jaitsi ziren biak, tenientea eta **soldadua**. **Felipe Juaristi**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Irkskeko goarnizioan une hartan kosakoen errejimentu bat zegoen, bi mila **soldadu** oinezko guztira. **Karlos Zabala**

Peaceful **soldadu** soila arin antzean libratu zela, baina obedientzia ukatzea matxinadatzat har zitekeela gerra-garaian. **Mirentxu Larrañaga**

-Aurrerantzean armada britainiarreko **soldadu** boluntarioa izango zara. **Patxi Zubizarreta**

Dozena erdi bat **soldadu** uniformedun baitzeuden atarian zelatan. **Jon Muñoz**

Itsas armadako **soldadu** ohia. **Oskar Arana**

Inaziok badaki Gabriel, Bonaparteren jarraitzaile izana, **soldadu** zaildua dela. **Felipe Juaristi**

Bota karrankariak zeramatzen **soldadu** saiatu haiek. **Jose Morales**

Itsasuko berrogeita zazpi **soldadu** gazte, "Chasseurs Basques" gudarostekoak. **Elena Touyrou**

Norbaiten aginduz zelatan jarritako **soldadu** esanekoa balitz bezala. **Jose Morales**

Soldadu gogorrek dira gero alemanak! **Felipe Juaristi**

Nola gure aitona Kubara ihes egin zuen, nola Sierra Maestran bat egin zuen Castoren **soldadu** iraultzaileekin. **Jon Muñoz**

Atarian hamar **soldadu** mutur beltz zeudela ikusi zuen. **Felipe Juaristi**

Geldi zeuden, erregearen **soldadu** harroek inguratutik. Guda zelaian hiltzea merezi du **soldadu** ausartak! **Felipe Juaristi**

Ukabilak adinako egiak esaten dizki irakurleari **soldadu** on-puska eta motz samar baten ahotik. **Fernando Rey**

Amerikar **soldaduei** posizioak hartzen lagundu ziela. **Edorta Jimenez**

Atzean israeldar **soldaduak** zihoazen, armak eskuan eta koroak buruan. **Jose Antonio Mujika**

Espainol gudarostearen aitzinean frantziar **soldaduak** iheska joan ondoren, [...]. **Elena Touyrou**

Irandar **soldaduen** atzean zeuden gutarrak arretaz begira zeuden ea nola hartzen gintuzten. **Juan Kruz Igerabide**

Bi **soldadu** aleman hil zituzten bezperan errepidean. **Felipe Juaristi**

Soldadu errusiarren osteak, berriz, urruti zeuden. **Karlos Zabala**

Burgesak ziren gure benetako etsaiak, ez **soldadu** frantsesak edo ingelesak. **Alberto Ladron Arana**

Mauleko bastidako **soldadu** zaindaria ez ziren guti harritu ni ikusita. **Aingeru Epaltza**

Patioan, goardiako **soldadua** gehitu zitzaion, zuzi batekin. **Aingeru Epaltza**

Soldatapeko **soldadu** egin zen. **Aingeru Epaltza**

Berunezko **soldaduen** kutxa. **Anton Garikano**

3 (predikatu gisa)

Hamasei urte bete berri zituenean alde egin baitzuen aitaren ezkutuan Parisa, eta han **soldadu** sartu, Frantziaren etsaien aurka borrokatzera. **Felipe Juaristi**

Gerrari ekin zitoten alemanek, eta Isaak Zeuner **soldadu** eraman zuten. **Felipe Juaristi**

Erabakita zuen tertzioetan izena ematea **soldadu** jarduteko. **Anjel Lertxundi**

Soldadu zebilen garaietan. **Xabier Etxabe**

Zapatagin-ikastuna **soldadu** bilakatu zenekoa. **Aingeru Epaltza**

Asensio Kuban **soldadu** egona zen denboraldi batez, eta lur haietako pasadizoak kontatu zituen. **Koro Navarro**

Soldadu pasatako hilabeteak, berrogei hilabete beltz haiek. **Xabier Etxabe**

Bortxaz **soldadu** izendatuek zernahi estakuru asmatzen zuten deiarri ez erantzuteko. **Elena Touyrou**

Hoa gerrara, baina ez **soldadu**. **Koro Navarro**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, soldadu multzoak izendatuz)

Aginte handiko bi ordezkari eta **soldadu** taldea bidali zituen heretik aldura hura guztia atxilotzeko. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Kanpoko argiarekin ez zen deus gehiago ageri, bakar bakarrik **soldadu** talde bat ari zela bordara sartzen. **Eneko Bidegain**

Sarara iritsi ziren eguneko azken leinuruak itzaltzeko tenorean bidean **soldadu** talderik ikusi gabe. **Elena Touyrou**

Soldadu osteak bidali zituen emirrak Errusiako mugaz harago. **Karlos Zabala**

Soldadu saldoek jatekoa beharko zuten, eta tokiko jendeak hertsatuko zituzten haien eskuratzerat. **Elena Touyrou**

Soldadu -aldra txikiak tarteka etsaian frontean egiten zituzten eraso-erretira laburretako batean. **Anjel Lertxundi**

Zulo horietatik guztietatik barneratzen ziren hirian Feofar Khanen **soldadu** sailen atzetik zihoazen litxarrerokak. **Karlos Zabala**

Gernikarako bidean, bi **soldadu** ilara antolatuta ziren errepidearen bi aldeetan. **Txillardegia**

-Nahiko al zenuke bihar Artxurira igoko den **soldadu** -zutabearentzat gidari-lanak egin? **Koro Navarro**

Soldadu patruilen urratsak entzuten zituzten orobat, harlauzetan pausoa markatzen. **Karlos Zabala**

Soldadu pelotoi batek zaintzen zuen bereziki. **Karlos Zabala**

Gero beste hogeitahogeita bost minutu oinez **soldadu** -segizioarekin. **Urtzi Urrutikoetxea**

Karolinako gobernadore Spotswood jaunak igorritako **soldadu** -konpainia batekin. **Juan Garzia**

Soldadu -erregimentu oso baten aurrera bakarrik irten, eta pistola automatikoarekin haien kontra tiroka hasi. **Jose Morales**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bestelakoetan)

Mairuek behin eta berriz eraso egiten zieten, beti indarberrituta, **soldadu** kopuru mugagabea balute bezala. **Martin Anso**

Lau edo bost **soldadu** -deialdi laster desmobilizatzeakotan ei dira. **Edorta Jimenez**

Bi asteko **soldadu** -apailakuntza ukana zuten Marseillan. **Itxaro Borda**

Eskualde guzian badabilta **soldadu** -agintarien mezuen garraiatzeko. **Elena Touyrou**

Gizon gazteak ziren batzuk, besterik gabe mentura eta **soldadu** itxurak egiteko aukeraren bila abiatuak. **Edorta Jimenez**

Soldadu -kontrolaz beteta baitaude Frantziako bide asko erlijio-gerren eraginez. **Anjel Lertxundi**

Pistola utzi eta **soldadu** kaskoa hartu nuen. **Bernardo Atxaga**

Zergatik lapurtu duk **soldadu** -longain hori? **Jose Morales**

It's a long way to Tipperary, it's a long way to go izeneko **soldadu** -kanta ezaguna, 1912an konposatua. **Mirentxu Larrañaga**

Bere **soldadu** -ibilerei buruz galdetzen nion. **Anjel Lertxundi**

Ahaztuak zituen erabat **soldadu** garaiak, orduko balentriak. **Felipe Juaristi**

Uste baitzuten, beren **soldadu** sinplezian, elurra eta hotza, eta ez errusiarrek, izan zituztela garaile. **Felipe Juaristi**

6 (hitz elkartuetan)

-Gerra- **soldadu** irebatua zara benetan, ikusten dudanez -esan zuen-. **Agustin Otsoa**

7 (neurriekin)

Lau lerro **soldadu**, zutik edo zaldi gainean, atzean jarri zitzaizkien, ihesaldia guztiz oztopatzeko. **Karlos Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

aebetako bi soldadu (14); aebetako soldadu (40); aebetako soldadu bat (29); armadako bi soldadu (11); armadako soldadu (10); armadako soldadu bat (5); bi soldadu estatubatuar (18); bi soldadu hil (35); bi soldadu zauritu (8)

ehunka soldadu (10); estatu batuetako soldadu (9); haur soldadu (5); haurrak soldadu (9); hildako soldadu (11); hiru soldadu estatubatuar (13); hiru soldadu hil (17); hiru soldadu zauritu (8)

izeneko soldadu (5); kristoren soldadu (5); lau soldadu (37); lau soldadu hil (11); mila soldadu (18); milaka soldadu (16)

polizia eta soldadu (7); sei soldadu hil (7)

soldadu aleman (8); soldadu alemanak (11); soldadu andana (5); soldadu bat hil (44); soldadu bat zauritu (9); soldadu bidali (14); soldadu bidali zituen (7); soldadu bidaliko (6); soldadu britainiar (30); soldadu britainiarrek (13); soldadu britainiarren (9); soldadu daude (7); soldadu ditu (24); soldadu ditu iraken (6)

soldadu eraman (5); soldadu errusiar (12); soldadu errusiar hil (8); soldadu errusiarrek (5); soldadu espainiar (6); soldadu espainiarren (7); soldadu estatubatuar (116); soldadu estatubatuar bat (28); soldadu estatubatuar hil (36); soldadu estatubatuar zauritu (9); soldadu estatubatuarrek (36); soldadu estatubatuarrei (8); soldadu estatubatuarrek (60); soldadu estatubatuarren (49); soldadu eta polizia (19); soldadu eta zibil (5); soldadu ezezagunaren (5); soldadu frantsesen (7); soldadu frantziarrek (6); soldadu frantziarren (7); soldadu gazte (6); soldadu gazteak (9); soldadu gehiago bidali (6); soldadu gehiago bidaliko (10); soldadu gehiago bidaltzea (6); soldadu gehiago bidaltzeko (7); soldadu gisa (19); soldadu gutxi (5); soldadu guztiak (14); soldadu guztiei (6); soldadu hil (124); soldadu hil ziren (43); soldadu hil zituzten (12)

soldadu irakiar (15); soldadu irakiar hil (9); soldadu irakiarrek (5); soldadu israeldar (24); soldadu israeldar bat (12); soldadu israeldarrak (14); soldadu israeldarrek (61); soldadu israeldarren (21); soldadu italiar (12); soldadu izan (12); soldadu izateko (5); soldadu izatera (6); soldadu joan (10); soldadu kopuru (5); soldadu kopurua (14); soldadu langileen (7); soldadu langileen diziplina (7)

soldadu ohi (10); soldadu ohia (5); soldadu ohiak (5); soldadu osteak (8); soldadu poloniar (8); soldadu sail (8); soldadu saldo (5); soldadu soil (6); soldadu talde (33); soldadu talde bat (8); soldadu taldeak (6); soldadu turkiar (10)

soldadu ugari (6); soldadu zauritu (33); soldadu zauritu ziren (16); soldadu zauritu zituzten (8); soldadu zeuden (7)

zortzi soldadu hil (7)

soldadua zen (5)

aebetako soldaduak (23); armadako soldaduak (17); bere soldaduak (13); bi soldaduak (6); dauden soldaduak (5); gure soldaduak (14); haur soldaduak (7); israelgo soldaduak (6); nazioarteko soldaduak (13); sartu ziren soldaduak (6)

soldaduak bidali (10); soldaduak bidaltzeko (11); soldaduak erretiratu (8); soldaduak erretiratuko (12); soldaduak erretiratuko dituela (5); soldaduak erretiratzea (5); soldaduak erretiratze (11)

aebetako soldaduei (8); bere soldaduei (8)

aebetako soldaduek (48); armadako soldaduek (14); erresuma batuko soldaduek (12); estatu batuetako soldaduek (10); hil dituzte soldaduek (5); hil zuten soldaduek (8); israelgo soldaduek (13)

soldaduek hil (5)

bere soldaduekin (7); soldaduekin batean (5); soldaduekin batera (6)

aebetako soldaduen (17); armadako soldaduen (10); dauden soldaduen (6); gure soldaduen (5); haur soldaduen (5); hildako soldaduen (12); nazioarteko soldaduen (7) soldaduen amona (5); soldaduen arteko borroketan (7); soldaduen buru (8); soldaduen eta kolonoen (5); soldaduen kontra (8); soldaduen kopurua (10); soldaduen zain (5)

soldaduetako batek (7)

soldaduez gain (6)

bi soldaduk (10); soldaduk bizia galdu (7)

soldadurik gabe (7)

soldaduz osatutako (7)

amerikano soldado (7); catm soldado (8); catm soldado ohien (6); pg catm soldado (5); soldado amerikano (17); soldado amerikano hilak (5); soldado hilan (12); soldado ohi (5); soldado ohien (12)

soldaduburu *(orobat soldadu-buru) iz* soldaduen burua.

Kontroletako batean, **soldadu-buruak**, higanota baita, espiatzen jo du Garibai. **Anjel Lertxundi**

Soldaduburu izan nahi duena iritsiko da **soldaduburu** izatera, baina gero, gerran hil ezean, zauriturik geldituko. Ez dira bakarrik ibiltzeko lekuak -esan, eta, musuzapia jaitzirik, irribarre egin zion **soldaduburuak** Norari. **Felipe Juaristi**

Izan ere, idi, zekor gizen eta ardi ugari hil ditu gaur, eta zure seme guztiak, **soldadu-buruak** eta Abiatar apaiza gonbidatu ditu. **Jose Antonio Mujika**

Ilundu duenerako, andre Madalenen ahaide eta lagunen oin-arrastoak zeuden edekanaren, **soldadu-buruaren**, zerga-zainaren eta sindikoaren jauregietako atari elurtuetan. **Anjel Lertxundi**

soldadueria *iz* soldadu taldea.

Haren soinuera, funtzionario beltzez jantzien emazteak dantzan ari ziren larruz beztituriko **soldadueria** basarekin, beren senarren begi urduriek zainduta. **Aingeru Epaltza**

Hiriko toki gomendagaitzak bisitatzen hasi zen: Bertako portu inguruko karrikatxoak, Gaztelu Berriko **soldadueria** ibili ohi zen zerritegiak, Baiona Ttipiko hegoaldeko harresi ondoak. **Elena Touyarou**

soldadugai *iz* soldadu izateko prestatzen ari den pertsona.

Sarri samar berritzen zituzten **soldadugaien** erroldak. **Anjel Lertxundi**

Andres katedraduna ikustera joan zen; **soldadugai** bat balitz bezala tratatu zuen hark. **Josu Zabaleta**

Sarritan joan behar izaten zuen hirira, **soldadugaiak** biltzera eta bestelako zereginak egitera. **Jose Morales**

Soldadugai etorri berriak hasiak ziren pentsatzen gu, beteranook, ahoberokeriatan aritu ginela lubakietako gerra-istorio latz horietako batzuekin. **Mirentxu Larrañaga**

Kristau-sakramentu horrek [Komunio Santuak] bere izena erromatar errito pagano batetik hartu zuen, non **soldadugai** berriak zin egiten baitzuen Erromako armadako kide bihurtzeko. **Iñaki Mendiguren**

soldadugo *(orobat soldadogo eta soldadogu g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian soldadugo agertzen da) iz* ipar soldadutza.

Dozena bat urte Gerla zibila bukatua zela, hona **soldadugoaren** tenorea enetzat jina. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Soldadugoa aspaldian jadanik bukatua zuten gizonak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Gazteek soldado joan behar zutela eta **soldadogoak** 5 urte irauten zuela. **Xipri Arbelbide**

Soldadogoko azken hilabeteak luzeak bezain ilunak kausitu nituen. **Janbattitt Dirassar**

Beren urte ederrenak **soldadugoa** gastatzera. **Piarres Xarriton**

Jan-Batista Garatek gerla denboran egin zuen beraz bere **soldadogua**. **Xipri Arbelbide**

soldadukide *iz* talde bereko soldadua.

Amultsutasan une horietan oroitzen zen Villejuif hirian utzi zituela andrea eta alaba, bere **soldadukide** hoberena emazteaz amorostu ondoan. **Itxaro Borda**

Abu Ghraibeko **soldadukideek** esan zioten Armadako buruzagien aginduak zituztela presoak torturatzeko, haiek hitz egitera behartzeko. **Beria - Mundua**

Biskratik nekez Aljerrera zetorren saldo xifrituko **soldadukide** bihurtu aitzin, [...]. **Itxaro Borda**

soldadura 1 *iz* soldatzea; soldatzearen ondorioa.

Soldadura gabeko tuboen negozio nagusian. **Beria - Ekonomia**

Makina-erreminta hain sona handikoaren erakustaldi horietako batean, han ateratzen zen **soldadura** eta zerra metaliko hotsa, txinparta, su artifizial, eta sirena-soinuak entzun eta ikusirik. **Jon Alonso**

Prestige-ren istripuaren arrazoi zehatza «**soldadura**» zela agertu zuen. **Beria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Soldadura -puntuen antzekoak dira ainguragune horiek, alboko zelulen pareten han-hemenkako loditzearen bidez eratuak. **Irene Aldasoro**

soldaduska *(56 agerraldi, 24 liburu eta 21 artikulutan; orobat soldaduzka 11 agerraldi, 5 liburu eta 4 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian soldaduska agertzen da) 1 iz* soldadutza.

Osaba Xabierrek ez zuen inolaz ere nahi aita hil zion armada bereberean osaba Gabrieleak **soldaduska** egitea. **Mikel Hernandez Abaitua**

Gizon ezkonberria ez dago **soldaduska** egitera behartua, ezta beste edozein zerbitzu publiko egitera ere. **Elizen arteko biblia**

Bi jende-mota zeuden **soldaduska** egitera behartuta: leude basailu edo azpibasailuak, beren feudoaren ondorioz; eta gizon libreak. **Iñaki Iñurrieta**

Senencito **soldaduskara** joan zen eta Afrikan ia bi urte egin behar izan zituen. **Jon Maia**

Manolo **soldaduskako** laguna da... **Juan Martin Elexpuru**

2 (hitz elkartuetan)

Soldaduska garaian, Logro-on, Ferdinand de Saussureren liburu bat irakurri omen zuen. **Rafa Egiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

soldaduskara joan (3)

soldadutegi *(corpusean soldadotegi soilik) iz* kaserna.

Soldadotegian, orenak egon nintzen ezin loakartzu. **Janbattitt Dirassar**

Biharamun goizean Magali despeitu nuen ortzeguna arte, bi egunez segidan aratsarekin zerbitzuko beharra bainintzen **soldadotegian**. **Janbattitt Dirassar**

Ni ere zerbait gisaz usaian baino goizago libratua **soldadotegitik**, eta aitzinetik jakina gisa horretan libratzen ahalko nintzela, denbora gehiago baguenen elkarrekin egoteko, ene bihotzeko izarrak eta nik. **Janbattitt Dirassar**

soldadutxo 1 iz soldadu txikia.

Berunezko **soldadutxo**en bilduma txikia zeukan -husarrak, granadariak, korazariak...-. **Iban Zaldia**

Gerra egin nahi diten baina beren berunezko **soldadutxoetako** bat bera ere zauritu gabe! **Harkaitz Cano**

Berunezko bi **soldadutxo**, kolore biziz pintatuak, bata sarjentua, bertzea jenerala... **Joan Mari Irigoien**

Beraz, askatu, eta lurrera erortzen utzi nian, berunezko **soldadutxo** bat bailitzan. **Xabier Olarra**

2 adkor soldaduak.

Lau **soldadutxo** aleman hituen, eskailear txoan elkarri bultzaka, bete-betean harrapatu gintuztenak. **Josu Zabaleta**

Jakina, ginebrarik ez balute ondoan nahi adina zintzurreratzeko, hanka eginen liketek, istant bat ere gabe, ingeles **soldadutxoek**. **Aingeru Epaltza**

A, **soldadutxoak**, **soldadutxoak**, bakarrik nago. **Jose Morales**

soldadutza (144 agerraldi, 53 liburu eta 14 artikulutan) 1 iz herritar bat bake garaian armadan aritzea; han igaro behar duen denbora.

1943an **soldadutzara** deitu zutelarik, eta armak alemaniarren esku uzteko agindu zitzaie, ihes egin zuen. **Josu Zabaleta**

-Hire aita laguna diat nik; **soldadutza** elkarrekin egin genian. **Josu Zabaleta**

Soldadutza egitearen aurkako kontzientzi eragozpenean. **Iñaki Mendiguren**

Soldadutza lehorrean egin zuen, komandantzia, jeneral baten laguntzaile edo horrelako zerbaitetan. **Jon Muñoz**

Hautzaro guztian eta **soldadutzara** joan zen arte, biek gela berean lo egiten genuen. **Daniel Landart**

-Bihar joan behar dut **soldadutzara**. **Koldo Biguri**

Honen aita artzain joan zen Ameriketara **soldadutzatik** ihes egiteagatik. **Arantxa Iturbe**

Hermannen aitak fabore aitorrezin egin omen zituen **soldadutzatik** libratzeko. **Anjel Lertxundi**

Dirudienez, **soldadutzatik** libre atera zen Joxemari gaztea, zozketan zenbaki altua irtenda edo. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Sergeik **soldadutzan** ikasi zuen kantuan. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Soldadutzako denbora gehiena elkarrekin egin genuen, Mont-de-Marsan hirian. Aukerarik txikiena ematea aski, hura ere **soldadutzakoak** kontatzen hasteko. **Daniel Landart**

2 (hitz elkartuetan)

Soldadutza garaian Joxe Mari Arrietaren bertso-liburu berdexka hura izan nuen ezinbesteko lagun. **Andoni Egaña**

Ibilbide erosoak izan genuen, eta nahiko samurra gertatu zitzaigun **soldadutza**-bizimodurako bataioa. **Mirentxu Larrañaga**

3 soldadu bizitza.

Esan daiteke hiru **soldadutza** zeudela: leude edo erregearen leialenak, haiek ere beren mende beste leial batzuk zituztelarik; apezpiku edo beste elizgizon batzuenak, eta haien basailuenak; eta azkenik kondearena, zeinek gizon libreak eramaten baitzuten. **Iñaki Iñurrieta**

Soroak eta lantegiak utzi berri dituzten laborari eta ofizialeen itxura zuten, ez **soldadutza** lanbide dutenena. **Aingeru Epaltza**

Negozio espirituala mundua arbuizatzetik hasten dela, eta Kristoren **soldadutzak** nork bere burua garaitzean duela abiapuntua. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

soldadutza egin (10); **soldadutza egiten** (7)

soldadutzara deitu (3); **soldadutzara joan** (8); **soldadutzara joan arte** (3)

soldadutzatik etorri (3)

soldaduzka ik soldaduska.

soldagailu iz soldatzeko erabiltzen den gailua.

Soldagailuaren garraren ukitu urdinska. **Joxe Austin Arrieta**

Brikolaje zale horietako bat bestela, molde guztietako tresneriak liluratuko duena: **soldagailuak**, azkoinak, iltzeak eta iltze-ateratzekoak, zizelak, pintzak, kurrikak, artaziak eta altxaprimak. **Joxan Elozegi**

Berraunditzen ari diren burdin fabrikaren teilatuan egunero ikus ditzakegun soplete argiak izango dira langabetuarentzat direnetan izarrik diratsuenak, **soldagailuen** bidez mintzo baita fabrika jabea, **Pako Aristi**

soldaketa iz soldatzea.

Artisauak zilarginari ematen dio adore, mailukari leuntzaileak ingude-jotzaileari, esanez: "Ederra **soldaketa**!". **Elizen arteko biblia**

Baita errementari ere, **soldaketa** lanetan bista galtzeko arriskuarengatik. **Pello Zabala**

soldat ik soldata.

soldata (orobat soldat g.er.) iz 1 langileak lanaren truke halako maiztasunez hartzen duen diru saria.

Nik eskatutako **soldata** -berrigeita hamabost koroa eskas, astean sei orduengatik- bost koroa gutxitu zidatek errekararitzea eginda. **Anton Garikano**

Hamar dolarreko **soldata** eguneari ontziola batean lan egiteagatik, pentsa... **Lopez de Arana**

Bigarren urtea hasterako Lizarraga jauna Rafa bihurtua zen Mentxurentzat eta **soldata** jasotzen ere hasi zen. **Josu Landa**

Ez dut gogoan zenbatekoa zen **soldata**. **Joxerra Garzia**

Bigarren jaka, bere lehen **soldatarekin** erosi zuen. **Harkaitz Cano**

Portugalen irakasten zuelarik **soldata** ederra irabazten zuen. **Piarres Xarriton**

Urte beteko **soldata** eman zien gudariei. **Elizen arteko biblia**

Arropak jantzi eta kalera segituan, **soldata** kobratzera. **Unai Iturriaga**

Opelek ere lan astea luzatu nahi du **soldatak** bere hartan utzita. **Berría - Ekonomia**

Alonso

Soldatapeko klaseen bizi-maila ekonomiko eta soziala klase ertainen mailara igoz. [Iñaki Mendiguren](#)

«**Soldatapeko** idazleak» arbuizaten ditu, «beka-sari jokoak» gaitzetsi, eta, poeta bainoago, «frankotiratzaitzat» du bere burua. [Berria - Kultura](#)

Iranen **soldatapeko** espioia izatea leporatzen dio CIAk orain. [Berria - Mundua](#)

Ivan Janson hura **soldatapekoa** zen nekazari aberats baten etaldean. [Jose Morales](#)

Ez zuen entzuten ari zena sinetsi nahi, herri-infanteriariko **soldatapeko** batek erreibindikatu nahi izatea bere gremioarentzat aitoren semeen zalditeriari baizik ezin aitor dakizkiokeen merezimenduak. [Jon Alonso](#)

Gaztea oso azkarra zenez, **soldatapeko** ez, baizik ugazabaren bazkide bihurtu zen. [Martin Anso](#)

2 soldatapean aritzen dena.

Gobernuko espioia edo **soldatapeko** hiltzailea? [Fernando Rey](#)

Chico Mendes kautxu "zain-ateratzailea" nola hil zuten kontatzen zuen, sindikatu bat sortu zuelako, lur-jabeek eta haien **soldatapeko** hiltzaile-taldeek egindako sarraski eta belzeria guztien kontra borrokatzeak. [Jon Muñoz](#)

• 3 izlag soldatapean egiten dena.

Gaur egun **soldatapeko** lanaren banaketarekin planteatzen den azken xedea edo helburua errentaren banaketarena da. [Iñaki Heras](#)

Soldatapeko lanaren esplotazioaren teoria, aukeran, erradikal samarra iruditzen zitzaion. irabazi-asmorik gabeko erakunde batean dabil boluntario, eta horrek eta **soldatapeko** beharrak uzten dioten denboran, euskaltegian dabil euskara ikasten. [Fernando Rey](#)

4 soldata dagokiona.

Soldatapeko kargu bakarra Nora Erfjord idazkariarena izan zen, ez baitzuen bizibiderik eta lan ikaragarria baitzuen bere gain. [Juan Garzia](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

soldatapeko langile (4); **soldatapeko langileen** (6)

soldatatxo iz soldata txikia.

Ordainduko al dit **soldatatxo** bat nire lanarengatik? [Oskar Arana](#)

Juliok, ospitaleko **soldatatxo** harekin, ezin sinetsizko gauza zoragarriak egiten zituen. [Josu Zabaleta](#)

Ni pozik, eta etxean, azken finean, **soldatatxo** bat gehiago zen. [Jon Maia](#)

Etxea (edo etxeak) erostea, osasun sarean integratzea, jubilatzen garenerako **soldatatxo** bat bermatzea... [Pako Aristi](#)

soldatu¹, solda(tu), soldatzen (*orobat soldeatu*) 1 du *ad* bi metal zati fusioz batu.

Gero adierazi diot nola orriekin, alde batetik burdina gori batez **soldaturik**, hodi-tuturik egin daitekeen. [Juan Garzia](#)

Bi zatiak **soldatu** besterik ez nuen egin behar izan. [Harkaitz Cano](#)

Williamsek bolantearen barra aldatu egin zuela, luzeraren parte batean diametro txikiagoko barra bat **soldatuz**. [Berria - Kirola](#)

Gero izotza estutu eta xafiak **soldatuko** dira. kroskoa Txinan **soldatu** zuten lehenago, eta «metalezko xafiak ondo batu gabe» zituelako susmoa du Alcedok. [Joseba Sarrionandia](#)

Soldatu gabeko eta altzairu herdoilezineko tutuak egiten ditu Tubacexek. [Berria - Ekonomia](#)

Geuk ere ikusi izan ditugu hemen ziegetako leihoetan barroteak **soldeatzen** kartzelarentzat lan egiten duten presoak... [Jokin Urain](#)

Galipotaren usaina, koipearena, erradiadore elektrikoarena, **soldatzeko** burdinarena, egurrentzako kolarena, tabakoarena eta gainerakoena. [Jesus Mari Mendizabal](#)

Soldatutako altzairuzko egiturak dira. [Berria - Gaiak](#)

Eskulangile «finak» dira, eta zeregin korapilotsuagoetan ere aritu daitezke: **soldatzen** eta trokelatzen, esaterako. [Berria - Ekonomia](#)

2 irud/hed

Ematen zuen beste eskua helduta zuen gapiarioi **soldaturik** zuela eta zailtasun handiz lortu nuen handik askatzea. [Bego Montorio](#)

soldatu² ik soldadu.

soldatzaile iz soldatze lanetan aritzen den langilea.

Soldatzaileek, berriz, «giro itogarrietan» lan egiten dute. [Berria - Ekonomia](#)

Uzkudunek indar berezia jarriko du bi sektoretan: garbitzaile eta **soldatzaileenean**. [Berria - Ekonomia](#)

soldatze iz bi metal zati fusioz batze.

Ondorengo azterketek erakutsi dutenez, barra ez zen edozein tokitan hautsi, **soldatze** lokarritik baizik. [Berria - Kirola](#)

23 urteko behargin batek deskarga elektriko bat jaso zuen, farola batean **soldatze** lanetan ari zela. [Berria - Ekonomia](#)

soldatze lanetan sorturiko txinpartek sutea eragin zuten, eta haizeak kea tunelaren barrura bideratu zuen. [Berria - Mundua](#)

soldeatu ik soldatu¹.

solegitu ik soleitu.

solegitzaile ik soleitzaile.

soleigarri izond soleitzen duena.

Zuen bertute handi eta harrigarriek esker eta aitzineko egun beltz haietan Tolosan ongi etorri **zinez** soleigarria izan nuen. [Piarres Xarriton](#)

soleimendu iz ipar soleitzea.

Sentipen bikoitza daukat, hots, alde batetik, **soleimendua** eta bestetik, ordea, ondoeza. **Beria - Mundua**

Zeren bizitzak zaurituak, beren buruan konfiantza galduta, ez baitute askotan gehiago nehorrekin harremanik, **soleimendurik**. **Herria**

Preso gehienak elgarrekin gira eta gure zorigaitzen artetik elgarrekin izaitea halako **soleimendu** bero bat da. **Michel Oronoz**

Erreinu guztien, Eliza Osoaren eta bereziki beti hain garbi egon den Toledoko elizaren, bai eta ere haren Ordena argiaren eta katoliko guztien **soleimendurako**. **Piarres Xarriton**

Eguberriko eginbidea bete nuen, ikusiz **soleimenduz** omoniera urruntzen. **Piarres Aintziart**

soleitu, solei, soleitzen (orobat **solegitu g.er.**) da/du ad ipar kontsolatu; oinazeak eta nekeak arindu.

Soleitu zen azken hitz hauek aditzean. **Elena Touyarou**

Ainhoarantz abiatzen ikusi zituztelarik, herritarrek **soleitu** ziren baina ez zuten beren burua enganutzen. **Elena Touyarou**

Garazitik heldu zen Luzaidera, Auritzera eta urrunago ere, eri zirenen **soleitzera**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Larunbatetan jendeen **soleitzeko** behar dira holako emankizun alaiak eta hori aurkitzen da edozein telebixtetan. **Herria**

Beste gauza honek izigarri **soleitzen** nau, hots, jakiteak Jainko onak baduela aski indar zure arima sainduaren eta zure idurien nasaiki sariztatzeko ene orde. **Piarres Xarriton**

Ene lagunek **soleitzen** ninduten, ahal zuten guzia. **Marzel Etxehandi**

Hurrengo ilabetek nolazpait **solegi** bitzate Babiren herioak zauritu bihotz guziak! artean harremanen hobetzeko eta elkar ezagutzeko, gure minen **soleitzeko**. **Herria**

Egia da, nihundik ahal bada, behar direla eri handi baten oinazeak osoki eztitu eta **soleitu**. **Herria**

soleitzaile (corpusean **solegitzale soilik**) iz ipar

Lehena: Otharan Thierry, Kapusolokoak, hartu du biziko lagun, Jauregiberri, hazpandar anderea; **solegitzale** dena. **Herria**

soleitze iz ipar kontsolatzea; oinazeak eta nekeak arintzea.

Arratsalde apalean, karrikak aiosten ziren ipar haizearen edo itsas haizearen menturan, baina gauaz egunaz bezalako sapa zen, eta ez zen **soleitze** handirik. **Elena Touyarou**

solemne 1 izond hotsandikoa, ospetsua.

Ekintza serioa da, **solemnea**, baita modurik apal eta sinpleenean egiten bada ere. **Koldo Biguri**

Sendagileak seriotasun **solemne** batez erantzun zuen: [...]. **Josu Zabaleta**

Ikuskizun zorrotz -hala sentitzen nuen nagusiki- eta **solemnea** zen. **Urtzi Urrutikoetxea**

Gaur egun okasio handietan eta leku ospetsuetan elizkizun **solemneak** zergatik ezarriak diren. **Xabier Amuriza**

Musika ona eta handiosa aditu nahi baduzu, musika **solemnea**, [...]. **Joan Mari Irigoien**

Ramon Fernandez berak badu beste ereserki bat, **solemnea** hau ere, donostiarrek erabaki egoki horrengatik zuten poza adierazteko. **Askoren artean**

Norberaren atarmentua ez jakiteak biktima gehiago eskaini dio tirania ezkutuari, ageriko ankerkeria **solemneak** baino. **Juan Martin Elexpuru**

Zentzugabekeria **solemne** ugari barreagarritzat hartuak izan dira mendeetan zehar. **Xabier Olarra**

Esaldi **solemne** bat behar nuen errematerako, baina **solemne** behar zuena barreagarri samarra atera zitzaidan. **Juan Luis Zabala**

Adats zuriak, bibote gomaztatuak, bizar punta-zorrotzak [...] ahots huts **solemneak**, drama bateko aita zorrotzaren itxura ematen zioten. **Josu Zabaleta**

-Hildakoen nahia sakratua da -esan zuen ahots **solemnez**-. **Koldo Biguri**

Era horretan mintzatu zitzaigun obispoa [...] duintasun ikasi batez, zetorkiokeenari antzemanik, nonbait, eta bere baitarako etsia hartuta, zutitu, zigarroa hautsontzian itzali, eta era **solemne** batean. **Inazio Mujika Iraola**

Inork ba ote daki artzaiak nola sentitzen duen putreen presentzia **solemne** hori? **Patziku Perurena**

-Berorren eskutitza hartu dudalarik -ekin nion, buruz, faxista **solemneen** tonuaz. **Edorta Jimenez**

2 (adizlagun gisa) ik solemneki.

Solemne jarri da orain. **Harkaitz Cano**

Hau gizonen gauza da -lñakek serio-serio, **solemne** ia. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Egun hartan, auzia bideratzen ari zen ofizialak **solemne** irakurtzen zizkion karguak Hemingway grabeari. **Edorta Jimenez**

Hortxe daukag, eskutitzean, Falangearen definizioa -eta **solemne** jarraitu nuen-. sai batek zerua zeharkatzen zuen, geldo eta **solemne**. **Edorta Jimenez**

solemneki adlag era solemnean. ik solemne 2.

Gizarte zibilarren nagusitasun moralak erakutsi beharrez, **solemneki** aldarrikatu nuen Kolko Mitxoletarengana iristeko delibero irmoa hartua nuela. **Jon Alonso**

Gau batean hitza eman genioan elkarri, **solemneki** eman ere, bizirik segitzen zutenak horretaz arduratuko zirela. **Aingeru Epaltza**

Hainbeste denboran mihia erretzen zidan esaldia bota ahal izan dut, **solemneki**, lekuko harritu hauen aitzinean. **Koldo Izagirre**

Kokotsa paparretik aldendu zuen Fonsecak eta **solemneki** errexitatu zuen: [...]. **Josu Landa**

Gotzain jauna -azaldu zuen **solemneki** -, *casus bello* bat izan zen hura, kasu *sui generi* bat, esan ohi den bezala. **Koldo Biguri**

solemnetasun iz solemnea denaren nolakotasuna. ik solemnitate.

Amari eskuia luzatuko dio, azkeneko eskailera mailak igotzen lagutzeko, eta oraindik ere eskutik helduta duela, halako **solemnetasun** tragiko batez agertokiaren beste alderaino eramango du. **Josu Zabaleta**

Madrilgo ikaslea, probintzietatik etorria batez ere, halako Don Juan espiritu batez iristen zen gortera, jostatzeko, jolas egiteko, emakumeen atzetik ibiltzeko asmoz, Kimikako irakasleak bere ohiko **solemnetasunarekin** esan ohi zuen bezala, giro oxigenatuegi batean laster erretzeko asmoz. **Josu Zabaleta**

solemnitate 1 iz solemnea denaren nolakotasuna. ik solemnetasun.

Unearen **solemnitateak** eta hizkuntzak hunkiturik naukate, esan zuen Maria Sarak. **Jon Alonso**

Handik bost egunetara hil zen Bartzelonan: serenitatez, **solemnitateari** edo gurasoen fedeari amore eman gabe. **Bernardo Atxaga**

On Camillo eliz atetik kanpora irten zen, **solemnitate** handiz, bere gurutze erraldoiari eutsiz. **Koldo Biguri**

Gozamen nazional honen aurrean, Estatu zentralak "nazio ez zarete" erabaki lezake **solemnitate** osoz. Joseba Zulaika

Nabaria da Bonabenturak esaldiari -beronen egitura behartzeraino- eman nahi izan dion **solemnitatea**. Askoren artean

Primeran portatu zara, eta mila esker, beraz -bostekoa eskaini zion aitopenerari **solemnitatea** erakusteko. Josu Landa

Ironiaz jantzitako **solemnitatea** erabiltzen genuen horrelakoetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Alberto ez zen gehiegi arduratu, aitak halako **solemnitate** kasik erridikuluarekin hitz egin ohi zuelako. Iban Zaldúa

2 *solemnitatez* adlag

Arazoa elizaren auzitegi nagusiaren eskuetan jartzen zen, eta hark **solemnitatez** eskomikatu eta anatematizatzen zituen. Xabier Olarra

Ni, hain zuzen be, Lauaxeta naz, aberriaren eta Jaungoikoaren zerbitzurako berpiztua -esan zuen **solemnitatez** Lauaxetak-. Juan Luis Zabala

Ondo neurtutako **solemnitatez**, belaunikatu eta bekokiarekin lurra ukitzen du. Oskar Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

solemnitate handiz (3)

soleo 1 *iz* zango-mamiko giharra, bikien behealdeari lotua dagoena eta Akilesean orpoa osatzen duena.

Lehenengo azterketan, **soleoa** hautsia izan lezakeela jakinarazi zuten. Berria - Kirola

Prietok kolpea hartu zuen buruan eta Expositok arazoak ditu **soleoan**. Berria - Kirola

San-Remo korritzeko taldean sartzeaz egon zen, baina aste horretan, muskulu bikian, **soleoan**, bat-batean, "mina berriz". Berria - Kirola

Ezker hankako **soleoan** lesionatu zen, eta gaur erresonantzia magnetikoa egingo diote. Berria - Kirola

Iaz ezker hankako **soleoko** minez ibili zen Pablo Garcia uruguaiarra. Berria - Kirola

2 (beste izen baten eskuinean)

Soleo muskuluan du haustura, izterrean, aduktoreetan. Berria - Kirola

Eskuin hankako **soleo** muskuluan gainkarga duelako. Berria - Kirola

Hasieran abduktorea hautsi zuela bazirudien ere, mediku azterketak **soleo** giharreko haustura zela erakutsi zuen. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan)

Lizasok ez zuen minik nabaritu, **soleo** hausturak hogeii egundik gora behar dituen arren. Berria - Kirola

solezismo *iz* sintaxi-hutsa.

Luze-zabal korapilaturiko periodo ia askaezinak eraiki zituen, intzisoz trabatuak, zeinetan zabarkeriak eta **solezismoak** destainaren formak baitziruditen. Juan Garzia

Baina bere traizioa baino lehen, Kaliforniari ezarri zion konstituzioa **solezismoz** jositako idazki traketsa zen benetan. Xabier Olarra

solfa ik solfeo.

solfeatu, solfea, solfeatzen du *ad* (doinu bat) abestuz eta notak izendatuz irakurri.

Joxe Kakotxipik, musikarako bere zaletasun guztiagatik ere, ez du bere gainean inork **solfeatzerik** nahi izan eta hilabete bada Apaizaren soldadu taldean dela. Koro Navarro

solfeo (*orobat solfa g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian solfeo agertzen da*) 1 *iz* musika idazteko eta irakurtzeko sistema.

Elgoibarrera jaisten zen oinez Gonzalez Bastida musika bandako zuzendariarekin **solfeoa** eta tronpeta ikastera. Pako Aristi

"**Solfeorik** badakizu?", galdetu zion hasi eta gerora. Iñigo Aranbarri

Harrotuta zegoen, eta lezio bat eman nahi zidan, **solfeoa** irakasten zidanean bezalaxe. Bernardo Atxaga

Solfeoa, zeozer moldatzera heldu zen, baina ez berak nahi adina. Iñigo Aranbarri

Solfeoa apuntatu ninduen amak, hamar bat urte nituela. Xabier Mendiguren Elizegi

Eskaileratan gora noala, soinu ezagun lasaigarriak: **solfeoko** eskalak, irakasleren bat arreta eske oihuka, bizpahiru pianoren digitazioak eta arpegiok... Anjel Lertxundi

Akademia baten **solfeoko** irakasle gisa lortutako lanean astebete eskas aguantatu zuen. Jon Arretxe

"Egoki kantatzea" ez da, bertsolaritzan, kantuaren edo **solfeoa**ren arauen arabera kantatzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Halakoetan, nik ziztua jotzen dut, baina, partituran baino gehiago jendearen portaeran erreparatuz, garai batekoak bezala, **solfarik** gabe, belarriz eta begiz aritzen bainauzu.

Patziku Perurena

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gorka seietan irtetzen duk **solfeo**-eskoletatik. Iban Zaldúa

Mutilaren gelara joan zen, eta han eman zuen bere lehen **solfeo**-eskola. Koro Navarro

Amonak partiturak irakurtzen erakusten zidan, **solfeo**-ariketarik egiten. Fernando Rey

Arestian adierazi dugun bezala, bertsolarien doinuek **solfeo**-transkripzioak urrun daude oso bertsolariak doinu horiek kantatzen dituen era zuzen islatzetik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

soliba *iz* haga nagusietan bermatzen den haga txikiagoa, solairuari edo sabaiari eusten diona.

Egiptoarretan, aldiz, kolomen gainean arkitrabeak, eta arkitrabeetatik inguruan dauden paretetara, **solibak** jarriko dira, eta **soliben** gainean zoladura, inguru guztian aire zabalera irekita. Santiago Iruretagoiena

Soliba bakoitzean taularen bi muturretan bina iltze josiko dira, ez dezaten okertu eta angeluan altxatzeko aukerarik izan. Santiago Iruretagoiena

Egurrezko kanal bat josi zuen **solibaren** azpian eta bertan txirrikak jarri zituen. Santiago Iruretagoiena

Ezin begiratu nien aurrez aurre piramidearen azkeneko beirakie, distira betean zeudelako, **soliba** haiek urrezko geruzez estali izan balituzte bezala. Joxan Elozegi

solidario 1 *izond* pertsoez mintzatuz, norbaitekin edo zerbaitekin solidarizatzen dena.

Soil-soilik enpresaburu **solidarioarekin** topo egiten duenak lortuko du zerbait. Berria - Euskal Herria

4.000 sindikalista **solidario**. Berria - Ekonomia

Gazteria konprometitu, **solidario** eta erreboltariaren ikur bihurtu ziren kantuak. Berria - Kultura

Euskal Herri askea, sozialista eta **solidarioa** lortzeko. [Berria - Euskal Herria](#)

Miserable-olde bat inoiz ez da **solidarioa** izango; aski da ogi-puska bat botatzea haien artera elkarrekin borrokan jartzeko. [Pako Aristi](#)

Gasako txartel bat eskuratutik **solidarioagoa** izan zintezke, izan ere, iragarkian bertan datorren interneteko helbide batean bozkatu ahal izango duzu gogokoen duzun ONGaren alde. [Pako Aristi](#)

Gizakiek arrazoimenak gidaturik jokatzen duten neurrian soilik, zerk elkartzen dituen jakitun izanez, izango baitira **solidario** beren gurarietan. [Piarres Xarriton](#)

Arrazoiak nekez erakutsiko dizkigu **solidario** edo eskuzabal edo idealista izateko bideak, filantropiak berak ere status sozial bati dagokion portaera itzaltsua gordetzeko komententzia pragmatikoan du oinarria. [Anjel Lertxundi](#)

Emakumeak ez dira gaizki esaka aritzen haiekin larrua jotzen duten gizonen kontra, ulerkorrak dira salbuespenik gabe eta baita **solidarioak** ere ahal duten neurrian. [Karlos Zabala](#)

Itxuraz irekia eta **solidarioa** den abertzale mugimendua [...] erakargarria da, herrietan hauek baizik ez baitira loeria egoeraren harrotzeko maneran antolatua. [Itxaro Borda](#)

Solidario gara batzuetan, jakin gabe hala garenik ere, ez dakigun jendearekin eta ezgaraiko heroiekin, urte askoren buruan jaio edo aspaldi hil ziren heroiekin **solidario**, aspaldi jaioko ziren eta urte askoren buruan hilko ziren haiekin ere **solidario**. [Harkaitz Cano](#)

2 horrelako pertsonen dagokioena; solidaritatea adierazten duena.

Uruguako herriari «barkada **solidario** eta esker onekoa» bidali zion Nazioarteko Euskal Diaspora Elkarteak. [Berria - Euskal Herria](#)

Badago funts **solidario** eta etikoetan inbertitzea errentagarritasunari uko egin gabe? [Iñigo Aranbarri](#)

Gizarte arazoei kasu egin ez, ikuspegi **solidarioago** batekin. [Berria - Euskal Herria](#)

Finantzaketa **solidario** bide arrakastatsuak azaldu dituzte. [Berria - Ekonomia](#)

Herrien arteko elkarbizitazarako politika ekonomiko **solidarioago** baten beharraz. [Anjel Lertxundi](#)

Guztiekin hautsi nahi izan zuten gurasoen munduarekin, askoz ere **solidarioagoa** izango zen bizimodu berri bati ekiteko. [Joan Mari Irigoien](#)

3 elementuez mintzatuz, bat egiten dutena.

Formak eta funtzioak **solidarioak** dira, eta zaila da -ezinezkoa dela ez esatearren- biak bereiztea. [Isabel Arrigain](#)

Banako hori **solidarioak** diren bi osagaien konbinaketa bat da. [Isabel Arrigain](#)

Gai eboluzionistak zerikusi handiagoa du jarraitasunik gabeko taldeen deskribapenarekin eta organismo baten (bere elementu guztiak **solidarioak** izango dituen) eta ingurune baten arteko interakzio moduen azterketarekin, espezieen taula jarraitu baten osaketarekin baino. [Xabier Arregi](#)

4 zuzenbidean, erantzukizun edo eginbide batez mintzatuz, zenbait pertsonen parketatzen dutena, denei haren osotasuna dagokielarik.

Konfiantza sor dezaketen erakundeak, fidantzen betebeharrak **solidario** edo ez-**solidarioen** gaineko araubide egokiak, hipoteken oreka berma dezaketen lege jakintsuak, [...]. [Andres Urrutia](#)

Auzipetuak erantzukizun **solidarioa** du, besterik ez; hots, ihes egiten badu, badaki bere sendia edo lagunak geldituko direla bermearen dirua jaso gabe. [Berria - Euskal Herria](#)

solidarotasun iz solidaritatea.

Eta ni ere gustura nengoen, **solidarotasun** sentipen indartsu bat sentitzen nuelako, gaur arte nire lagunekin baizik sentitu ez dudana bezalakoa. [Josu Zabaleta](#)

solidaritate 1 iz solidarioa denaren nolakotasuna.

Gipuzkoarren **solidaritate** eta eskuzabaltasunari esker, erreserbako famili poltsa bat ere badugu etorkizunerako. [Berria - Euskal Herria](#)

Solidaritatea, samurtasuna, eramankortasuna, iraun duten bikoteen ondarea dela uste dut... [Herria](#)

Ni, Jauna, **solidaritatea**, justizia eta zuzenbidea munduan ezartzen dituen. [Elizen arteko biblia](#)

Hau da izpirituzko gorputzari dagokion **solidaritatea**. [Joan Mari Lekuona](#)

Auziperatuak euskal kulturako pertsona famatuak dira, eta Euskal Herriko aukera politiko, sozial eta instituzional zabalaren atxikimendua eta **solidaritatea** jaso dute. [Berria - Harian](#)

Manifestazio erraldoiak egon dira, ia erakunde politiko, sindikal, kultural, eliztar guztiak euren protesta eta **solidaritatea** erakutsi dute. [Joxe Azurmendi](#)

Denei eskertu die laguntasuna eta **solidaritatea**. [Joan Mari Irigoien](#)

Ederki egin zenuten nire atsekabeen zeuen **solidaritatea** agertzean. [Elizen arteko biblia](#)

Ez dakit sexu berekoen arteko konplizitate izan zen, generozko zapalkuntza bera pairatzen dugunon arteko **solidaritatez** alegia. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Zoritzarreko gaixo haiek ez zuten ulertzen oraindik behar suaren **solidaritateak** baduela aberatsa suntsitzeko indarra. [Josu Zabaleta](#)

Frantziskok, ordea, ez die txoriei gizakien eskarmeturako hitz egiten, haiekin bizi duen **solidaritate** espirituala gatik baizik. [Askoren artean](#)

Benetako **solidaritatea** (ez telemaratietakoa) errealitate bihurtu da, eta bidezko merkataritza-formak errekuiperatu egin dira (trukea, kasu). [Txema Ramirez de la Piscina](#)

Solidaritateagatik jesarri zen lurrean, sinpatikoa iruditzen zitzaizolako gizona. [Unai Elorriaga](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Solidaritate edo konplizitate sentimendu bat besterik ez da. [Arantxa Iturbe](#)

Hala moduzko **solidaritate** izpi batek prestutasuna ematen zion proposamen anker hari. [Koldo Izagirre](#)

Blutman judu saltzaileak ezagutu egin du eta Szuach abenidako Gestapoko egoitzara darama... alta, **solidaritate** kate bati esker, lepoa salbatu zuen: Mokotow kaleko Korda filologoak Paweli abisu eman zion; Pawelek, Filipek xeminotari; Filipekek, [...]. [Pablo Sastre](#)

Arazo honetan gizatasun eta **solidaritate** printzipioek beharko lukete izan orotan lehenak. [Iñaki Heras](#)

Solidaritate espiritua. [Berria - Euskal Herria](#)

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nork bere buruarengana fidelotasuna eta besteearengana errespetua, norbanakoaren baiespena eta gizarte-**solidaritatea**, [Piarres Xarriton](#)

4 elementuen arteko interdependentzia.

Sistema berez aldaezina da, eta soilik elementu batzuek jasotzen dituzte aldaketak, elementu horiek sistema osoarekin elkartzen dituen **solidaritatea** kontuan hartu gabe. [Isabel Arrigain](#)

Orain, aldiz, banakoak haien artean lotzen dituzten elkartzak onartuko ditugu; **solidaritate** hauek dira elkartze mailakoak eta sintagma mailakoak, eta arbitrariotasuna mugatzen dutenak. [Isabel Arrigain](#)

Unitate txikiagoez osatuak dauden unitate zabalagoez aritzen gara; batzuen eta besteen artean, **solidaritatezko** erlazioak daude. [Isabel Arrigain](#)

solidarizatu, solidariza, solidarizatzen da ad beste pertsona batzuen kausen edo interesen alde egin eta haiekin bat egin, batez ere egoera zailetan.

Badakit, ondo jakin ere, ezkutatuta edo errefuxiatuta dauden beste batzuei dagozkien gauzak biziki interesatzen zaizkigula eta egiaz **solidarizatzen** garela ezkutatuta daudenak alemaniarrek aurkitu eta deportatzen dituztenean. [Josu Zabaleta](#)

Kontsumo-gizarteak ezarritako edertasun-modeloaren aurka dagoen emakumearen ahotsa ere badago, edo telebistako albiste bat ikustean beste ama batekin

solidarizaten den amarena, edo eguneroko martxa eroari nekez eusten dion emakume langilearena. **Ana Urkiza**

solidifikatu, solidifika, solidifikatzen da/du *ad* egoera solidoa hartu edo harrarazi. ik **solidotu**.

Berniz-erretxina sorta bat inportatua genuen -egurats-giroan utzirik besterik gabe tenperatura aruntean **solidifikatzen** diren horietakoa, hain zuzen-, eta kezaturik geunden.

Juan Garzia

Gerta daiteke berniz bat biltegiko egonaldian **solidifikatzea**, eta orduan jeneroa bota egin behar da; edo oinarriko erretxina **solidifikatzea** sintesiak dirauen bitartean, hamar edo hogei tonako erreaktor batean, eta ondorio trajikoak izan ditzake noski horrek; edo alderantziz, berniza ez **solidifikatzea** batere, dagokion lekuan eman eta gero ere, eta orduan barregarri geratzen da bat, zeren "lehortzen" ez den berniz bat tiro egiten ez duen fusil bat bezala baita. **Juan Garzia**

solidifikazio *iz* solidifikatzea.

Solidifikazio -prozesuan aireko oxigenoak parte hartzen du kasu askotan. **Juan Garzia**

solido (*orobat solidu g.er.*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian solido agertzen da*) **1** *izond* gotorra.

Badira, beraz, lehen gorputz **solidoak** eta hutsune gabeak. **Xabier Amuriza**

Izatez, habe **solido** batean, bada eskualde bat geruza neutral horren gainean eta azpian, konpresio- edo tentsio-indar nahiko txikiak jasaten dituena habea kargatzen denean.

Irene Aldasoro

Leku erresonanteetan, ahotsak gorputz **solido** baten kontra jotzen du eta atzera itzultzen da, oihartzuna sortuz. **Santiago Iruretagoiena**

Lur beltzetan, berriz, jario txiki batzuk eta tanta urriak bakarrik aurkituko dira, neguko euriteetatik jaso ondoren leku trinkotu eta **solidoetan** geratu direnak. **Santiago Iruretagoiena**

Zergatik aurkitzen dugu burdina honen gorputza erabat **solido** eta gogorra, eta kolore ilunekoa, eta gurinaren gorputza guztiz samur eta bigun, eta kolore zurikoa? **Xabier Kintana**

82 urteri buruz joan izana gatik, emazte **solido** eta azkar baten itxuran zabilan Delphine bere etxeko harat hunatetan. **Herria**

2 gaiez edo gorputzez mintzatuz, molekulen artean lotura handia edo forma iraunkorra duena.

Normalean, kantitate txikian egoten da eta egoera **solidoan**. **Berria - Gaiak**

Zirkunstantzia batzuetan, zenbait berniz likido izatetik **solido** izatera pasatzen dira. **Juan Garzia**

Gas edo lurrun bat gainazal **solido** batean adsorbitzeko prozesuak beroa askatzen du beti. **Irene Aldasoro**

Airean doan soinu-uhin bat gainazal **solido** edo likido batera iristen bada, islatu egiten da gehiena, eta parte txiki bat baino ez da transmititzen. **Irene Aldasoro**

Nola egin, nola asmatu, kanpoan azkar lehortu eta barruan **solido** bihurtuko ez zen tinta egoki eta erabilgarria? **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Cavalierik, XVII. mendearen hasieran, esan zuen **gorputz** solido oro plano kopuru infinitu baten gainezarpenez osaturik dagoela. **Juan Garzia**

Trabekulak deritze belakiaren zati **solidoak** osatzen dituzten hezur-egiturei. **Irene Aldasoro**

Kometen nukleoak izotz konglomeratu batez (ura, amoniakoa, anhidrido karbonikoa) eta karbonozko eta silikatozko hondar **solido** batzuez osatuta zeudela. **Berria - Gaiak**

Sukaldean erabili ohi diren erregai **solidoak** sortzen dute kutsadura. **Berria - Gaiak**

Zaborrak erraustean, dioxinaz, furanoz eta metal astunez osatutako gasak sortzen direla azaldu zuen, baita hondakin **solido** oso toxikoak [...] ere. **Berria - Euskal Herria**

Hondakin **solidoak** kudeatzeko teknika. **Berria - Euskal Herria**

Maradonak bere kabuz arnasa hartzeko zailtasunak ditu, egun hauetan janari **solido** asko hartu duelako. **Berria - Kirola**

3 (izen gisa)

Lehenik, odola iragazten da: globuluak eta plasma utzi egiten dira, baina ur gehiena eta **solido** disolbatu gehienak kendu egiten zaizkio. **Irene Aldasoro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hondakin solidoak (10); **hondakin solidoak kanporatzeko** (3)

egoera solidoan (3)

hondakin solidoen (3)

solidoki *adlag* irmoki.

Aintzinaldea Aguerrek hartua zuen xixtako batzuekin, Dermite ere **solidoki** ari gibeletik: 9-5, 19-14, baina beti hurbil besteak ere eta horra berdintzea 23 tan. **Herria**

solidotasun *iz* solidoa edo gotorra denaren nolakotasuna.

Aldiz, harri horiek labean sartu eta suaren bero bizia muineraino barneratuz gero, galdu egingo dute hasieran zuten **solidotasunaren** funtsa, eta indar guztiak erre eta agortu ondoren, poroak hustuta eta irekita geratuko dira. **Santiago Iruretagoiena**

solidotu, solidu(tu), solidotzen da/du *ad* solido edo gotor bihurtu. ik **solidifikatu**.

Porlan horren bidez errautsak egonkortu eta **solidotu** egiten dira isuri aurretik. **Berria - Gaiak**

Suaren eraginez oso antzera eratutako hiru substantziak nahasketa berean elkartzen direnean, bat-batean hartzen dute ura eta elkarrekin itsasten dira, ur horren indarrez berehala eta irmoki **solidotuz**. **Santiago Iruretagoiena**

Arreta kendu behar zaio adierazteko, izendatzeko, erakusteko, agerrarazteko, zentzuaren eta egiaren lekua izateko duen ahalmenari eta, haatik, begiratu behar zaio bere existentzia berezi eta mugatua zehazten duen uneari -berehala **solidotzen** dena, berehala harrapatua geratzen dena adierazlearen eta adierazitakoaren jokoan. **Xabier Arregi**

solidu ik **solido**.

solilokio *iz* bakarriketa.

Solilokio konpartituan mintzatu nahi zenuen, psikoanalistarenean bazeunde bezala, kea gorantz botaz, hankak mahai azpian luzaturik, tabernako leihotik begira, gizon-emakumeen silueta errariak pasatzen. **Eider Rodriguez**

solipsismo ¹ *iz* doktrina filosofikoa, pentsatzen duen norbanakoarentzat bera baino beste errealiterik ez dagoela aldarikatzen duena.

Beraz, soilik nire gogoan geratzen zait (**solipsismoa**). **Askoren artean**

2 irud/hed

Arazoi izan dezake, eta horregatik jasotzen dut hemen; ez da porrot komertzialaren beldurra, noski, baizik eta **solipsismo** ariketa antzu batean jardutearena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

solipsista *izond* solipsismoaren aldekoa.

Tractatus-eko Wittgenstein gazte suhar **solipsistak** hizkuntza aldatu nahi du, halatan mundua ere aldatuko duelakoan. **Markos Zapiain**

solisonbra (*orobat solisombra*) *iz* anisez eta koñakez osaturiko edaria.

Goizaldeko txandan laguntzen zion aitari tabernan, kafeak, **solisonbrak** eta pelikula pornoen giro algaratsuan. **Paddy Rekalde**

Adur potxingo bat utzi zuten txotxak mamurtzen zituzten australopitecus haiek euren **solisombra** edalontzien aurrean. **Sonia Gonzalez**

solista ¹ *izond/iz* bakarlaria.

Urtzi Aranburu Nederlands Dans Theatreko dantzari **solista**, Lucia Lakarra Municheko Opera Balleteko dantzari nagusia eta Iker Murillo Zuricheko Balleteko dantzari **solista**. **Berria - Kultura**

Nedjo Kovacevic (biolina eta ahotsa), Miso Petrovic (gitarra **solista** eta sargija). **Berria - Kultura**

Ahots **solisten** aldetik, [...]. **Berria - Kultura**

Biolontxelo-jole bakarlaria orkestrako bertako artista gazte bat dela, lehenengo aldiz arituko dena hemen **solista** gisa: Michèle Marineau, hain zuzen ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Michel Luro, Miarrizteko Oldarra taldean **solista** gisa hasi zen. **Herria**

Laster hautatua izan nintzen **solista** izateko, zeremonia handietan eta ere igande arratsalde batzuz dama ongiegile baten egongelan kantatzeko. **Piarres Aintziart**

Berak afariko menua erabakitzen laguntzen zien, ardoa hautatzen zuen, abeslariaren txandak antolatzen zituen eta **solistak** aukeratzen zituen. abonamenduarekin hamalau kontzertu antolatuta dituzte, eta prezigiozko **solista**, zuzendari eta orkestra gehiago entzun ahal izango dira. **Jose Morales**

2 irud/hed

Farolik gabeko gauaren xarma, hontza eta zapoa **solista** dituen sinfonia isilaren atsedenekoa, hortxe dago, ordea, debalde. **Pello Zabala**

3 (hitz elkartuetan)

Solista talde baten eta orkestra handiaren arteko elkarrizketa musikala. **Berria - Kultura**

solistiko *izond* bakarlariarentzakoa.

Bis bezala, Handel-en Pasacaglia eman zuten, bertsiolibre eta **solistikoa**. **Berria - Kultura**

solitasun ik **zolitasun**.

solizitatu, solizita, solizitatzen du *ad* eskatu, galdea egin.

Konta ahalekoak izaiten baitziren konfesionea **solizitatzen** zioten herritarrek. **Joan Mari Irigoien**

Nola Axularrek eskatu eta **solizitatu** behar izan zion behin, bi aldiz eta hiru aldiz, sakristauak, finean, amore eman zezan eta hartaratu ausart zedin. **Joan Mari Irigoien**

Motel, aspaldi honetan oso **solizitatu** nagok. **Pablo Sastre**

solo ¹ *iz* bakarkako zatia.

Bit-artekoek bakarkako lan bat egiteko eskatu zidaten, **solo** bat. **Berria - Kultura**

Solo gehienak Simon Wettenhallet (tronpetan) eta Jerry Zigmontek (tronboian) jo zituzten. **Berria - Kultura**

Oboearen **soloa** eta fagotaren kontrakantoa. **Berria - Kultura**

Burua jaso zuen, gelditu egin zen Antxetak taldeko gitarra baxuak ahalaldien arteko **soloari** ekiten ziola. **Koldo Izagirre**

Ane minutu beteko **soloan** murgildu zen luzimendu eta luzamenduan, eta txapa kolpe batekin amaitu. **Unai Iturriaga**

Erritmo sendoak eta biziak, gitarraren **solo** ugari. **Berria - Kultura**

Gitarraren **solo** luzeak hobeto azpimarratuz. **Berria - Kultura**

Lalo Tejada bailaora-k gurutzearen inguruan eta gainean burutzen duen **solo** zirrargarri eta probokatzaila. **Berria - Kultura**

Atsedendialdiaren ostean, Kiki la Rose **solo** ederra eskaini zion Bruno Roy dantzariak. **Berria - Kultura**

Charnett Moffett kontrabaxu jotzaileak lidergoa hartzen zuen **solo** zoragarrien bidez. **Berria - Kultura**

Askatasun falta hau urruntzen joan zen sinfoniaren bigarren denboran, kontzertinoaren **solo** ezititsuren bitartez. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Burdinazko bolak bezala sentitzen dira bateriaren kolpeak, gitarra **soloak**, kantariaren oihuak. **Pako Aristi**

Klarinete-**solo** batek erantzuten du, mehetuz doa, isiltasuna egiten da. **Oskar Arana**

Kontrabaxu **solo** polita eskaini zion bakarlariak baina saio borobilena orkestrarena izan zen. **Berria - Kultura**

Non ez dituzte ezagutzen Andra Joseparen tronpeta-**soloak**, prozesioaren erritmora egokitzen diren pausoa pausoko jardunak? **Anjel Lertxundi**

3 irud/hed

Usoek sexu-**soloak** jotzeari ekin diote, mekanikoki, hiriko trafikoko orkestra lagun dutela urrutian. **Joxerra Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

solo ederrak (3); **solo ugari** (6)

solo² ik soro.

solomo 1 iz bizkarraren azpialdeko okela gihartsua, bereziki txerriarena. ikazpizun.

Odolki eta gibel, txorizo eta **solomo**, urdaiazpiko eta txerri-hanka, dena aprobetxatzen zaion jakiduna izaki txerri maitagarria. **Pello Zabala**
Benetan, **solomoa** edo azpizuna edo haragi egosia? **Karlos Linazasoro**
Lokarri batzuekin lotu dut zakua, labean erretzerakoan **solomoarekin** egiten den legez. **Jokin Urain**
Dionisosek klasikoago bat: **solomoa** piperrekin, eta botila bat ardo. **Unai Iturriaga**
Solomoa bukatu orduko kafea eta kontua eskatu dizkio zerbitzariari. **Pello Lizarralde**
Bazkatzeko *Bow Wow Tenderloin* (**solomo** xamur-xamurra) (19\$) edo *Chow Hound Chicken* (oilaskoa) (18\$). **Gotzon Garate**

2 (hitz elkartuetan)

Orain badut nire zamau zuria, eta kristaleria, eta zilarrerria, baina izokinak eta orkatz **solomo** -zerrak beranduegi iritsi dira. **Eskarne Mujika**

solstizio 1 iz Eguzkia ekuatoretik urrunen aurkitzen den aldia.

Ikasi dugu gure arbasoek **solstizioa** markatzen zutela eta suaren bitartez eritasunak eta gauza txarrak haizatzen zituztela. **Herria**
Solstizio eta ekinoziotik 40 egunera, beti ospatzen zuten zeltiar prestu haiek festa-egun oparo ongi prestatua. **Pello Zabala**
Eguzkiak egiten duen bidearen eta neguko **solstizioaren** goranzko itzalaren behaketaz ateratako erlazioa da analemma. **Santiago Iruetagoiena**
Udako **Solstizioaren** bezpera zen. **Agustin Otsoa**

2 (hitz elkartuetan)

Erregeen Hirian, udako **solstizio** -egunear. **Agustin Otsoa**
Solstizio inguruko bi aste horiek Altzioneren egunak dute izena eta egun bereziak dira. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

udako solstizio (3)
udako solstizioa (6)
neguko solstizioan (4)
udako solstizioaren (4)
neguko solstiziotik (4)

soltatu, solta, soltazen 1 du ad askatu.

Etzan eta ikusi dut hezetasunak sabaiko pintura azala **soltatu** duela, zementu zaharraren grisa agerian utziz. **Joseba Sarrionandia**
Papera **soltatzen** ari zen paretetatik. **Iñaki Mendiguren**
Izotz tontorrek zati handia **soltatuz** gero posible da, grabitate zentroa galduz, iraultzea. **Joseba Sarrionandia**
Edonola margoturik ere, ondoren errazago **soltatzen** ziren pastak bandexatik; bestela josita bezala gelditzen ziren. **Pako Aristi**
Hagrigendandik **soltatu**, besotik helduta baitzuen, Dracori keinuz deitu eta dendatik alde egin zuen bizkor. **Iñaki Mendiguren**

2 utzi.

'**Soltatu** pistola hori, ustela!' esan nion. **Joseba Sarrionandia**

solte 1 izond besterekin multzoa osatzen ez duena.

Hitz eta espresio **solteak** ulertzen nizkion noizik behin. **Anjel Lertxundi**
Pieza **solte** batzuk besterik ez nituen, oso gutxi, eta puzzle zail bat osatu nahi nuen zati gutxi haiekin. **Juan Kruz Igerabide**
Mahlerren doinuak ere jotzen zituzten, batzuetan: pieza **solteak**, sinfonia zatiak, lurraren kantak. **Felipe Juaristi**
Bulegoak ez zuen hari **solterik** utzi nahi. **Edorta Jimenez**
Orri **solte** haietan, euskarazko bertsoak zeuden idatzita, bertso-paperekin gisara. **Juan Kruz Igerabide**
Edozein paper **soltetan**. **Berria - Kultura**
Liburu bateko pasarte bakanen batzuk, artikulua zati bat, film bateko irudi **solteak**. **Imanol Zurutuza**
Album bateko argazki **solteetan** bezala ikusten baitut. **Anjel Lertxundi**
Etxe **solte** baten inguruetara iristean, On Camillo bufandaz begietaraino estali eta erretenean ezkatutu zen. **Koldo Biguri**
Ile **solte** batzuk bekoki gainera eroriak. **Felipe Juaristi**
Haren aurpegia masailetik gertu sumatzen nuen, haren ezpainen berotasuna belarrian, haren ile kizkur **solte** bat nire kopetan kilima eginez. **Juan Kruz Igerabide**
Orain arteko kontakizunak herriaren tradizioan nolabait gordetako istorio labor eta **solteek** osatzen zituzten. **Jose Antonio Mujika**
Azkenean lortu nuen eskola **solte** batzuk ematea AEKn. **Jon Arretxe**
Imanolek idatzitako inpresio **solteak** dira, boligrafo tinta desberdinez, bakoitza bere datarekin. **Joseba Sarrionandia**
Txosteneko merituetako batzuei buruzko iruzkin **solte** batzuk egingo ditugu. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**
Jarrera hau ez zen azalekoa edo **soltea**. **Bernardo Atxaga**

2 askatua.

Arabian aurreku eta dantza **solteko** txapelketak jokatu berri dira. **Berria - Kultura**
Mingain **solteko** bertsolari batek lasai asko eta hitz bakar batez esango lukeen bezala: alferrentzat. **Anjel Lertxundi**

• 3 adlag askaturik, lokarrik gabe. ik suelto.

Baldosa bat loka zegoen, etxe guztietako pasilloetan dago ohol bat edo baldosa bat **solte** eta inoiz ez dugu ikasten zapaldu gabe iragaiten. **Joxean Agirre**
Ospitaleko korridoreetan **solte** dabilten birus horietakoren bat ez harrapatzearen. **Iban Zaldúa**
Gauza askoren artean eskusoinu mordo bat, batzuk **solte** geratu zirenak, besteak txukunago eta egokiago, kaxa handi haien barruan. **Pako Aristi**
Ilea **solte** eraman beharko luke. **Sonia Gonzalez**
Aurpegian almuadaren markak, zapatilak **solte** eta brageta zabalik. **Berria - Kultura**
Kanpaiaren katea zabuka zebilen, **solte**. **Agustin Otsoa**
Kamisetan estu beltza, bota luzeak, ile gorria **solte**. **Sonia Gonzalez**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

esaldi solte (3); hitz solte (8); hitz solte batzuk (5); ilea solte (4); orri solte (4); pieza solte (3); solte geratu (3); zapatilak solte (3)
adats solteak (3); esaldi solteak (4); hitz solteak (9); orri solteak (6); sarrera solteak (7)

solteka *adlag* soltetan.

Irakur ezazu liburu hau -segida batean nahi baduzu edo atal **solteka** bestela, inoiz atal bat eta hurrengo batean beste bat-, eta ikusiko duzu gustagarri ez ezik, jakingarri ere gertatuko zaizula. **Jose Antonio Mujika**

soltera *izond/iz* emakumez mintzatuz, ezkongabea, ezkongai.

Ama-**solterak** erditzen ziren han. **Arantxa Iturbe**

soltero *izond/iz* ezkongabea, ezkongai.

Museoko langile baten atzetik ere bazebilela, eta berrogeitazak urteko andretxu bat zela, alarguna, eta **soltero** zegoela bera. **Unai Elorriaga**

Soltero guztiak mutil ezkongabeak dira. **Askoren artean**

Neguko solstizioarekin mugante, hementxe daukagu, urteko egun bakar **soltero** -mutilzahar urterokoa. **Pello Zabala**

soltura *iz* aisetasuna.

Pérez izatea ezin onartzetik euskal atso guziek nahiko luketen suhia izatera pasa den espezimen eredugarria, dioen guziari **soltura** faltsu, errepelente eta beratza kutsatzen diona. **Patziku Perurena**

solugarri *iz* soluzio batean disolba daitekeen gaia.

Plebeiu Kimikan, soluzio ase da tenperatura jakin batean bertan disolbatu daitekeen adina **solugarri** duena. **Xabier Olarra**

soluzino ik **soluzio**¹.

soluzino ik **soluzio**¹.

soluzio¹ *1 iz* kimikan, gorputz baten molekulak isurkari batean barreiatzea; barreiatze horretatik sortzen den nahastura homogeneoa. ik **disoluzio**.

Soluzio pixkana-pixkana disolbatuagoz egin genian aproba, homeopatek egiten dutenez. **Juan Garzia**

Soluzioa irazi, azidotu, Kippa hartu, hidrogeno sulfuratua pasarazi. **Juan Garzia**

Usain-sentipena eragiten duten lehenengo aldaketa fisiko edo kimikoak sudur-mukosaren gainazal hezean gertatzen direnez, pentsa liteke eragina handiagoa litzatekeela aurrez prestatuturiko **soluzio** bat aplikatuz gero. **Irene Aldasoro**

Hartatik pixka bat disolbatu nuen ur destilatutan: **soluzioa** arrea zen, bazuen noski akatsen bat azukre hark. **Juan Garzia**

Zilar nitratozko **soluzio** baten tantatxo batekin ukitu nuen jalkina. **Juan Garzia**

Aproba egin nuen 1:10.000 **soluzio** bat atomizatzen erradiografia-xflaren lagin bat agerian zegoen kamera beltzean. **Juan Garzia**

Hitzak argi eta garbi lerratzen zitzaizkion ezpainetan behera, banan-banan, eta antzu, azido borikodun **soluziotan** garbitu berriak balira bezala. **Mirentxu Larrañaga**

Soluzio edo emulsio bateko partikulak **Berria - Gaiak**

2 (izenondoekin)

Tubuluetatik igarotzen den gehiena **soluzio** simple bat da, baina badira substantzia batzuk gernuan, hala nola azido urikoa, kaltzio fosfatoa eta kaltzio oxalatoa, disolbatu ez, baizik kristal txiki gisa geratzen direnak. **Irene Aldasoro**

Landare eta animalietan, eta orobat gizakietan, gertatzen diren prozesu garrantzitsu asko ez lirateke gertatuko ura eta beste substantzia batzuk igaroko ez balira **soluzio** diluitu bat eta **soluzio** kontzentratu bat bereizten dituen mintz batetik. **Irene Aldasoro**

Plebeiu Kimikan, **soluzio** ase da tenperatura jakin batean bertan disolbatu daitekeen adina solugarri duena. **Xabier Olarra**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urarekin nahastutako alkohol-**soluzioak** ez du zaporerik, gutxienez % 14ko kontzentrazioa ez bada. **Irene Aldasoro**

Fluido biologiko normalen konposizioaren antzeko gatz-**soluzioetan** substantzia usaintsuak erabilia. **Irene Aldasoro**

Urre **soluzioetan** disolbagarria. **Xabier Olarra**

Hori baino metodo sinpleagoa da, berriz, odola hartzerakoan zitrato- edo oxalato-**soluzio** pixka bat jartzea botilaren barruan. **Irene Aldasoro**

Aski da, horretarako, potasio kloruro **soluzioa** aplikatzea garun ageriari. **Irene Aldasoro**

soluzio² (*orobat **soluzione** g.er., **soluziño** g.er. eta **soluzino** g.er.*) **1 iz** irtenbidea, konponbidea.

Horixe bai **soluzio** funtsezkoa arazo existentzialari. **Iñaki Iñurrieta**

Berriro ere gaitzaren arazoari **soluzio** bila dihardu Manikeismoari aurka egiteko. **Imanol Unzurrunzaga**

Zaharragoen asperdura eta mixeria guztien **soluzioa** zirudien amodioa bera ere [...] inertzia bihurtzen da. **Lourdes Oñederra**

Munduan gaitza existitzearen auziari [...] **soluzioa** ematen lehenbizikoz saiatzen da solasaldi honetan. **Imanol Unzurrunzaga**

Etsipenak ez du **soluziorik**, haserreak bai. **Jasone Osoro**

Zer nolako prozesua egingo dugun guztion artean gatazkari **soluzio** politiko eta demokratikoa emateko. **Berria - Harian**

Zeren asko eta benetan sufritzen duenak **soluzio** bat aurkitu nahi izaten baitu, ate bat, argizulo bat. **Bernardo Atxaga**

Heriotza gertu duten gaixoez [...], sendabiderik ez duten gaixotasunen biktimez, hots, **soluzio** bakarra heriotza duten pertsonen kasuaz ari gara hemen. **Askoren artean**

Heretikoen zen enigma horren **soluzio** bakarra: ez dago ez epailerik ez epairik. **Koro Navarro**

Errazegia da heriotza **soluzio** bezala ematea. **Harkaitz Cano**

Euskal Herrian aspaldi problema bat dago, politikak noizbait **soluzio** bat eman beharra daukana. **Joxe Azurmendi**

Honek, ordea, **soluzio** txarra du, nonbait. **Xabier Olarra**
Zer egin edo nola bizitza arautu esaten diguten balioekiko arazoez, bazutela guztiek **soluzio** objektibo bat; eta **soluzio** hori, **soluzio** egiazkoa bazen, gizon-emakume guzientzat bera zela. **Joxe Azurmendi**

2 (hitz elkartuetan)

Konpromiso eta **soluzio** garaiak dira hauek. **Berria - Euskal Herria**

3 problemetan eta ekuazioetan, ebazpena.

Zilegi bekik problema zaharrena honako **soluzio** hauxe iradokitzea: [...]. **Juan Garzia**

Les Problèmes d'un problème obra (Paris, 1917), zeinean ordena kronologikoan eztabaidatzen baitira Akiles eta apoarmatuaren problema ilustrearen **soluzioak**. **Juan Garzia**

Soluzioa hemen laburki azaldu aurretik [...] ekar ditzadan gogora bizpahiru axioma. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

soluzio bakarra (4); **soluzio bila** (3)

gaurko soluzioak (4)

soluziorik onena (3)

soluziobide iz soluzioa, irtenbidea, konponbidea.

Euskal Herriarentzako oinarriko eskubide den Autodeterminazio eskubidea berreskuratzea da **soluziobidea**. **Berria - Euskal Herria**

Neuk ere ez bainuen **soluziobiderik** ikusten kasu hartan. **Joxemari Iturralde**

Zuek hemendik kanpo egonda ez baitago **soluziobiderik**. **Berria - Harian**

Haren lana zalantzan jartzea erraza bada ere, zailena **soluziobideak** proposatzea da. **Berria - Kirola**

Hemen ez da inor isilduko **soluziobidea** aurkitu arte. **Berria - Ekonomia**

Guztien artean aurki dezakegu erantzun eta **soluziobide** egokia. **Berria - Euskal Herria**

Sinestuta nago drogen konturako **soluziobide** bakarra legeztatzearen bidetik datorrela. **Iban Zaldua**

Sinestuta nago drogen konturako **soluziobide** bakarra legeztatzearen bidetik datorrela. **Iban Zaldua**

Euskal Herriak espainiar eta frantziar Estatuekin duen gatazka politikoarentzat **soluziobide** demokratiko eta politikoak bilatzeari begira. **Berria - Harian**

Hasiera batean beste buruhauste handiago bat zena [...] gerora **soluziobiderik** onena suertatu zen. **Joxemari Iturralde**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erantzun eta soluziobide (3); **soluziobide egokia** (3)

soluzionatu, soluziona, soluzionatzen du ad soluzioa eman.

Zertarako behar ditugu politikoak, arazo politikoak **soluzionatzeko** ez bada? **Joxe Azurmendi**

Berehala **soluzionatu** zuen afera, hari batetik eta bestetik tiraka ibili ondoren. **Joan Mari Irigoien**

Berehala ohartu nintzen, ordea, nik neuk **soluzionatu** beharreko problema zela hura. **Joan Mari Irigoien**

Depresiotik ateratzeko kontraesanak oso garbi jakin behar dituzu, eta **soluzionatu** behar dituzu eta erabakiak hartu. **Berria - Kultura**

soluzione ik soluzio¹.

somagaitz ik sumagaitz.

somaketa ik sumaketa.

somaliar izlag/iz Somaliakoa, Somaliari dagokiona; Somaliako herritarra.

Atzo kamioilari **somaliar** bat bahitu zuen talde islamista batek. **Berria - Mundua**

Talde berak bahitua zuen kamioilari **somaliarra** aske utzi zuen atzo. **Berria - Mundua**

Hirsi Ali **somaliar** jatorrikoa da eta emakume musulmandarren eskubideen aldeko borrokan nabarmendu da Herbehereetan. **Berria - Kultura**

somatiko 1 izond izaki baten gorputz alderdiari, eta ez psikikoari, dagokiona.

Mediku burutsu batek dena **somatikoa**, gorputzaren araberakoa dela esan dit berrikitan Bilbon. **Gotzon Garate**

Tristura patologikoak, arazo **somatikoak** eragiten ditu: nekea, bertigoa... **Berria - Euskal Herria**

Bukatu omen zaio fase **somatikoa**. **Iñaki Iñurrieta**

Betiko teoria izan da garuneko molekula batzuk gutxitu egiten direla, eta gutxitze horrek dakarrela depresioaren sintomatologia **somatiko** guztia. **Berria - Gaiak**

Terapia alternatiboek gaitzaren eragin **somatiko** nahiz psikikoei aurre egiten lagundu bazezaketen ere, [...]. **Imanol Zurutuza**

Tik **somatikoa**. **Karlos Linazasoro**

2 zelulez mintzatuz, ugalketarako ez dena.

Zelula **somatiko** hutsen tratamendu hori ez da bereizten, bada, bere printzipioan, medikuntzan aspalditik erabiltzen direnetatik: protesia, organo-txertatzea edo -transplantea.

Juan Garzia

somatizatu, somatiza, somatizatzen du ad nahasmendu psikikoak sintoma organiko eta funtzional bihurtu.

Alferrikako eutsi nahi horretan, hari lotutako talketatik etengabe sortzen zaizkizu ezinak eta amorruek, gero eta nabarmenkiago **somatizaturik**. **Txillardegi**

Umearen aipua entzun orduko hasi da gatazka psikikoa **somatizatzen**. **Patxi Iturritegi**

somatu ik **sumatu**.

somelier ik **sommelier**.

sometitu, **someti**, **sometitzen** 1 da *ad* makurtu.

Phoolanek ez du onartzen, ez da **sometitzen**. Pablo Sastre

Sometitu beharko orden arabera. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

2 (era burutua izenondo gisa)

Ezagunak dira berak bide bazterrean hilik utzitako lankide-lehiakideak, baita bere inguran osatzea lortu zuen epigonoen gorte **sometitua**. Berria - Kultura

somier *iz* ohearen oinen edo euskarriaren gainean jartzen den egitura arina, lastairari eusten diona.

Koltxoi bat eta **somierra** ere utzi dizkit. Harkaitz Cano

Euskaldunek alanbreak kendu zizkieten itxiturei, **somierak** egiteko. Jokin Urain

Sitsak jotako **somier** zahar baten gainean ibili nintzen jauzika. Berria - Kultura

Oheko **somier** herdoilduaren kirrinkak. Jon Arretxe

sommelier (*orobat somelier*) *iz* jatetxe bateko ardoez arduratzen den pertsona.

Sudurra zimurtu eta mantoago mastekatzen hasi zen, ahoan zerabilen mokadua dastatuz, **sommelier** batek ardo ezezagun batekin eginen lukeen bezala. Alberto Ladrón Arana

Sommelier batek bezala, mingainaren papila bakoitzarekin sentitzen du, eta plazeraren irudia da. Alberto Barandiaren

Onespen-keinua egiten dio **sommelierari**, dastatzaile bikainenak baino antzezen gehiago eginez. Anjel Lertxundi

Aitaren arreta osoa ardoan jarrita dago, **sommelierak** bete dion kopa usaintzen ari baita. Anjel Lertxundi

somnifero 1 *izond* logalea ematen duena.

Mariak ordainetan hauts **somniferoak** eskatu zizkion. Jasone Osoro

Garagardo eta nekearen efektu **somniferoa** gainditzeko. Eider Rodriguez

Gutxika-gutxika, mutilaren begiak laino etilikoz, **somniferoz** estaltzen hasi ziren; dantzaren magia beltzak bahitu zituen Alesen irribarreak eta neskaren mugimendu bakoitzak bertigoa eragiten zion, amildegira erortzen ariko balitz bezala Jasone Osoro

• 2 *iz* logalea ematen duen gaia.

Hegazkinean sartu orduko, **somnifero** bat hartu eta ahalik lasterren lokartzen saiatzen da. Patxi Iturritegi

Lorik eza sendatzen dute **somniferoek**. **Somniferoak** botikatzat hartzeak grazia daukala bururatzen zaizu. Lourdes Oñederra

Somnifero gogor hark eragin zizkidan ametsetan iruditzen zitzaidan ezin izango nintzela berriro itzarri. Pello Lizarralde

somozismo *iz* Somoza familiak Nikaraguan ezarri zuen erregimen diktatoriala.

Sergio Ramirez idazle ezagunarena eta Violeta Barrios de Chamorro eta Alfonso Robelorena **somozismoaren** kontrako burgesiakoak. Berria - Mundua

somozista 1 *izond* somozismoari dagokiona.

Reaganek kontrairaultza sostengatu zuen, nagusiki guardia **somozistako** kide ohiek eta indarrez errekrutatutako nekazariak osatua. Berria - Mundua

• 2 *iz* somozismoaren aldeko pertsona.

Eta egindakoa zuzitzeko, esaten zuten ahalik eta gutxienez utzi behar zitzaizela **somozistei**. Berria - Mundua

son *iz* Kubako musika estiloa, espainiar kantua eta Afrikako erritmoak konbinatzen dituena.

Son -a dantzatzen ez badu, odolak lo hartzen du. Jon Muñoz

sona 1 *iz* ospea, omena.

Sekulako **sona** hartu zuen, bazekien-eta zorrotza izaten [...] bere gainetik ez zeudenekin. Joxerra Garzia

Badirudi absentak Aljeriako gerran (1830-1843) hartu zuela lehenengo aldiz geroztik galdu ez duen ospea eta **sona**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Dena lortu nuen aldi berean: **sona**, dirua eta mundua. Hasier Etxeberria

Eguraldiari buruzko xehetasunak eskainiz **sona** lortu zuen lehendabiziko meteorologoa. Pello Zabala

Zinema munduan lorturiko **sonan** oinarritu du bere kanpaina. Berria - Mundua

1988an gertatutakoak halako **sona** eman dio. Berria - Kirola

Oso azkar zabaldu zen pintorearen **sona** euskal diasporan. Joxean Agirre

Liburu arraroaren eta arrakastuaren fama jaso zuen zirkulu esoteriko eta espiritistetan, eta haren **sona** handiagotuz joan zen urteek aurrera egin ahala. J.M. Olaizola "Txiliku"

Euskal Herriko merkataritza gune handiena izateko **sonarekin** zabaldu zuten Boulevard joan den urteko azaroaren 3an, Gasteizko Zaramaga auzoan. Berria - Ekonomia

Zabalkundea edo **sona** ez zaio beti zor obraren balioari, beste faktore batzuei baizik. Ana Urkiza

Ekimenean, ernetasunean, argitasunean oinarritzen zen haren **sona**. Patxi Zubizarreta

Baltsamatzaile apartaren **sona** zuela, Velasco izan zela munduan kloroformoaz baliatu zen lehendabizikoetako sendagilea. Anjel Lertxundi

Domingotar haien bizikera eta **sona** medio, erruz ugalduko zen Domingo izena gure artean. Patziku Perurena

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hipnosiak **sona** handia zuen XX. mendean hasieran, eta hainbat gauzatarako erabiltzen zen. XX. mendean zehar, **sona** handia izan zuten 1929ko eta 1987ko urrian gertatu ziren porrotek. J.M. Olaizola "Txiliku"

Arrebak **sonanbulo** -urratze arrarre nola egiten zuen begira geratu zen Jonathan **Jon Muñoz**

4 irud/hed (izenondo gisa)

Lehengo zakur **sonanbuluaren** balantza berberak eginez itzuli zen berriro. **Josu Zabaleta**

sonante *izond/iz* kontsonantez mintzatuz, ahostuna eta ia bokalak bezain irekia dena.

Bokal eta kontsonante terminoek mota desberdinak adierazten dituzte [...]; **sonante** eta kontsonante terminoek, aldiz, silaban betetzen dituzten funtzioak adierazten dituzte.

Isabel Arrigain

Gero, e batek agertzetik izan du r **sonantearen** aurrean. **Isabel Arrigain**

la ezinezkoa da **sonanteen** kontua eztabaidatzea, fonemen konbinaketak erauzten dituen legeak modu zehatzean atzematen ez badira. **Isabel Arrigain**

Azterketak frogatzen digu **sonanteak** betiere inplosiboak direla. **Isabel Arrigain**

sonantiko *izond* sonanteen nolakotasuna duena.

Baina, lege horiek ez adierazteaz gain, kualitate **sonantiko** honi "silbenbildend" esaten zaio gainera, silabaren eraketa azentu honen eraginpean baitiltzan. **Isabel Arrigain**

Bi inplosiboak, aurretik beste bat ez dutenez, **sonantikoak** dira. **Isabel Arrigain**

Sonantikoa zenez, bokal irekitzaileago bat garatu ahal izan zuen bere aurrean (a bat, grafiaren lekukotasuna sinetsiz gero). **Isabel Arrigain**

sonar 1 *iz* soinu uhinen bidez urpean diren gauzakiak atzemateko erabiltzen den tresna.

Itsasoan dagoen nahiz dabilen edozer jo ondoren, **sonarrera** itzultzen dira uhinok, oihartzun gisa. **Beria - Gaiak**

Adituen arabera, **sonarrak** egiten die kalte gehien itsas ugaztunei. **Beria - Gaiak**

Uhinena maiztasunaz gain, intentsitateak ere eginkizun handia du **sonarrek** eragindako kaltean. **Beria - Gaiak**

Militarrek erabilitako **sonarrak** dira zetazeoen hondartze eta hiltzearen arrazoi nagusia. **Beria - Gaiak**

Itsasontziek, **sonarra** erabiltzean, *cuvier* baleak nahastu egiten dituzte. **Beria - Gaiak**

Sonarrok sorturiko uhinek zetazeoei eginiko kalteak 1997. urtetik ezagutzen ditu, ofizialki, NATOk. **Beria - Gaiak**

Intentsitate handiko soinu uhinak erabiltzen ditu LFAS **sonarrak** (Maiztasun Baxuko **Sonar** Aktiboa). **Beria - Gaiak**

Ekologistek NATOri **sonar** pasiboak (uhinik igortzen ez dutenak) erabiltzeko eskatu diote. **Beria - Gaiak**

2 (hitz elkartuetan)

Cuvier baleen **sonar** sistema oso sentikorra da, eta erdi mailako frekuentzia erabiltzen du. **Beria - Gaiak**

Animalioak arma gisa erabiltzeko probak egiten dabil NATO eta zifioak trebatu dituzte **sonar** sistema berriak garatzeko lanetan. **Beria - Gaiak**

sonata *iz* XVI eta XVII. mendeetako musikan, zati lasterrak eta geldiak txandakatzen dituen musika-lana, zenbait tresnarentzat ondua; hurrengo mendeetan, hiru edo lau aldiko eta egitura jakineko musika-lana, tresna batentzat edo birentzat ondua.

Musika gehiago jartzen du: Scarlatti-ren **sonatak**, katuentzako musika. **Oskar Arana**

Konpositoreak klabezinerako idatzitako **sonatak** jaso ditu grabazio batean musika taldeak. **Beria - Kultura**

Biberren lehen bi **sonatetan** taldea oreka faltarekin nabaritu genuen, eta afinazio arazo batzuekin. **Beria - Kultura**

Arreta handiz entzuten zituen koronelaren alaben praktikak, haiek pianoan **sonata** eta minuetoak jotzen zituztenean. **Xabier Olarra**

Beethovenen hamabigarren **sonatari** ekin zion gero. **Anjel Lertxundi**

Beti doinu bera hasten zen jotzen, Biolin eta Pianorako **Sonata**, 5 zenbakia, *Udaberria* gisa ezagunagoa. **Felipe Juaristi**

Gero, kafetegiko pianistarekin eta biolinistarekin Beethovenen **sonata** baten edo Mozarten minuet baten edertasuna komentatzen. **Josu Zabaleta**

sonatatxo *iz* sonatina.

Simrock editoreak Dvoraki gauza «txikiak» idazteko esaten zion abestiak, duoak, **sonatatxoak**, baltseak... editatzeko errazak baitziren eta saltzeko oso onak **Beria - Kultura**

sonatina *iz* sonata laburra eta jotzeko erraza.

1949. urtea aparta izan zen: *La Duquesa del Candil* zartzuela, La bemol maioreko Sinfonia, *La Zapatera y el Embozado* baleta eta pianorako **Sonatina** idatzi zituen. **Beria - Kultura**

sonatu 1 *izond* entzutetsua. (pertsonez)

Leibniz **sonatuak** munduaren sistema intelektuala antolatatu zuen. **Ibon Uribarri**

Bazen orduan preso **sonatu** bat, Barrabas zeritzana. **Elizen arteko biblia**

Beste gauza bat zen merkatu-sisteman artista **sonatuek** beren sinaduraz hornituriko oro diru bihurtzeko zuten gaitasuna. **Ramon Saizarbitoria**

Etzerako lana agindu die irakasle **sonatuak** ikasleei: [...]. **Joxerra Garzia**

Horiek diote eskarmentu handia dutela, pertsonaia **sonatuak** entzun dituztela eta oso eguneratuak daudela gauza guztietan. **Joan Mari Lekuona**

Suess Aja Cawa denbora haietako zine-aktore oso **sonatua** zen. **Fernando Rey**

Artxanberri azeri-harrapatzaile **sonatua** izan zen bere denboran. **Iñaki Segurola**

2 (gauzez)

"Villa Eugénie" ezin bikainago hori, berriz, hamaika harrera eta bilera **sonaturen** gertaleku izan ondoren, aurki salduko omen da. **Txillardegí**

Ez du aipatu, oster, armeniarrek turkiarren eskutik jasandako genozidio **sonatua**. **Jon Arretxe**

Arbelean idatzi nuen ekuazio **sonatua**, eta Enricori azaldu nion nola ari zen han idatzirik zegoena xuxen-xuxen gertatzen. **Juan Garzia**

Descartes filosofo ospetsu bat izan zen, *Cogito ergo sum* esaera **sonatuaren** sortzailea. **Xabier Olarra**

Hori izan da garaiko historialarien polemika **sonatuena**. **Joxe Azurmendi**

Hautura, etete horretarako lanabesak dira Portalisek bere hitzaldi **sonatuan** [...] laburbildu eta azaltzen dituen oinarriak. **Andres Urrutia**

Borgesek bere soneto **sonatuan** aipatutako Omar Khayyam poetak ia bederatzita mende lehenago idatzitako hitz gardenak: [...]. **Imanol Zurutuza**

Oroitzen Edgar Allan Poe eta "THE RAVEN" izeneko poema **sonatuaz**? **Patziku Perurena**

1871n Robert Buchanan-ek hitz umiliagarriak bota zizkion *The Fleshly School of Poetry* -Poesiaren eskola haragizkoa- panfleto **sonatuan**. **Ramon Saizarbitoria**
Santu hauek, neguko supazterreko epeletan, tradizio handi eta **sonatua** izan dute. **Pello Zabala**
Egoera bestelakoa gertatzen da, ordea, hainbat porrot **sonaturen** ondoren, sektore pribatua konturatzen denean galerak sozializatzeko aukera errealak mugatuak direla **Koro Navarro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sonatua izan (9); **sonatua izan zen** (6)

sonatuagoak izan (3)

sonatuki *adlag*

Kobrearekin nahasturaten delako brontzea emateko, materia errespetagarria inon errespetagarririk bada, **sonatuki** betiraunkor eta *well established*. **Juan Garzia**

sonbrailu ik **sonbreiru**.

sonbrairu ik **sonbreiru**.

sonbreilu ik **sonbreiru**.

sonbreiru *(89 agerraldi, 15 liburu eta 2 artikulutan; orobat sonbrailu 20 agerraldi, 4 liburutan; sonbrairu g.er.; sonbreilu g.er.)* 1 iz kapela. ik **kapela; sonbreru**.

Sonbreirua jaso eta gorantz abiatu nintzen. **Bernardo Atxaga**

Kaliforniako bere rantxoan beti **sonbreiruarekin** ibiliko zela pentsatu nuen. **Bernardo Atxaga**

Zaldi gainean, bere txaleko berriarekin eta neskek garbituriko **sonbreiruarekin**. **Joseba Sarrionandia**

Cetme distiratsua eskuan, begirada **sonbreiruaren** biseraren itzalean ezkutatu zuela ohartu zen mutila. **Unai Iturriaga**

Alkandora urdin argi bat zeraman, bakeroa, lore zuriko brodatuekin, eta lastozko **sonbreiru** batekin babesten zen eguzkitik. **Bernardo Atxaga**

Sonbreirua feltro grisekoa zen, J.B. Hotson markakoa barreneko oihalean irakurtzen zenez. **Bernardo Atxaga**

Müller jaunak **sonbreirua** kendu zuen eta zutik jarri zen. **Anjel Lertxundi**

Haren betaurrekoak eta **sonbreirua** jantzeko eskatu dit. **Patxi Zubizarreta**

Lubisek estalkia altxa zuenean Hotson **sonbreirua** jantzita aurkitu ninduen. **Bernardo Atxaga**

Sonbreirua altxatzen zuen beti, adeitasunez, damaren batek txabola barrura begiratzen zuenean. **Julen Gabiria**

Erantzi **sonbreirua** segituan, izan errespetua gure kapitainari! **Bernardo Atxaga**

Peterrek **sonbreiru** bat zuen eta nik txapela. **Josu Zabaleta**

2 (hitz elkartuetan)

Sonbrailu -dendako erakusleihoari begira suertatu zen egun hartan. **Harkaitz Cano**

Nik deskribatzen nizkion okin, **sonbrailu** saltzaile eta kalean barrena zihoazen gainerakoei, nire hitzekin eraiki berri nituen mamu haien. **Harkaitz Cano**

· Gazteago emango luke baldin eta larruzko unai **sonbreiru** handi batekin ikusi ez banu. **Patxi Zubizarreta**

Malboroari begira zaldiak eta cowboy **sonbreiruak** heldu zaizkit gogora. **Joseba Sarrionandia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hotsen sonbreirua (8); **sonbreirua hartu** (3); **sonbreirua jantzita** (3)

sonbrailu denda (3)

sonbreirutxo *iz kapelatxo*.

Andrea bere **sonbreirutxoarekin**, kipea bizkarrean urrundu da ttpa ttpa pauso arinka. **Joseba Sarrionandia**

sonbrero ik **sonbreru**.

sonbreru *(14 agerraldi, 3 liburutan; orobat sonbrero 9 agerraldi, 4 liburu eta artikulua 1ean)* iz kapela. ik **sonbreiru**.

Ondoren **sonbrerua** jantzi zuen. **Anton Garikano**

Larruzko gainekoa jantzi, fieltrozko **sonbreru** jarri eta, euritakoa eskuan, kalera irten zen. **Iñaki Zabaleta**

Ezkerreko eskuaz **sonbreruari** eutsiz pauso luze bat eman zuen. **Iñaki Zabaleta**

-Goiz interesgarria, ezta, Tom? -fieltrozko **sonbreru** eta gainekoa aulkiaren bizkarrean utzi zituen. **Iñaki Zabaleta**

Kopeta gainean zeukan **sonbrerua**, erdizka beheratu. andreak **sonbreru** grisa omen zeraman lehen aldiz ikusi zuenean. **Anton Garikano**

Askotan beltzez noa, frakez, **sonbrero** altuarekin. **Pablo Sastre**

Nabarmen jantzia baitziholan, **sonbreru** mexikar gorri-urdin batekin. **Joan Mari Irigoien**

Semaforo ondoan aurpegi hotzek eta **sonbreru** sartuek argi berdeari itxaroten zioten. **Iñaki Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

fieltrozko sonbreru (3)

sonbrerudun *izond/iz* sonbreru jantzia duena.

Ostatu aurre batean tronpeta jotzen ikusitako gizaseme zahar, narrats, kopazko **sonbrerudun** baten antza zuen. **Anton Garikano**

sonbrilla *iz* itzalkina, eguzkitakoa.

Sonbrillak -eta dauzkaten horretan? **Xabier Mendiguren Elizegi**

sonda ik zunda.

sondaia *(orobat sundaia g.er.) iz ipar zundaketa, inkesta.*

Horiek hola, **sondaiak** poliki hasiak dira president-bozeri buruz, jakin gabe ere zoin izaneren diren hautagaiak! **Herria**

Ordu arte agertu beste **sondaia** guziek zioten baia nagusitu behar zela... **Herria**

Sondaia ez baititu batere alde. **Herria**

Berrikitan akulatu **sondaia** batek erakusterat eman duenaren arabera, iduri du ainitz bikote gaztek nahiko dituztela bi deiturak josi. **Herria**

Agian langile saldo handia joanen da bozkatzera, gaurko **sundaiek** hautemaiten duten %70ko ezbozkatzea gezurtatuz. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sondaien arabera (7)

sondaketa ik zundaketa.

sondaldi *(corpusean sundaldi soilik) iz* sondaia.

Hori bera dute pentsatzen **sundaldien** arabera, hamarretarik sei frantsesek, eta Alemanian jendeen erdiek. **Herria**

sondeo *iz* zundaketa.

Era berean, **Sondeorik** ez, *AHT gelditu* eta *AHT ez da pasatuko* leloekin bi pankarta jarri zituzten. **Berria - Euskal Herria**

sondikar *izlag/iz* Sondikakoa, Sondikari dagokiona; Sondikako biztanlea.

Grebaldia beraiekin hasi zuen Txus del Bado preso **sondikarrak** pasa den ostegunean, apirilaren 8an, osasun arazoengatik protestaldia bertan behera utzi behar izan zuen.

Berria - Euskal Herria

sonero *iz* Kubako son estiloa abesten duen kantaria.

Musika kubatarren eskola zaharreko **soneroa** da Pio Leyva. **Berria - Kultura**

Pio Leyva **soneroak** eta Teresa Caturla kantariak lagunduta. **Berria - Kultura**

Kuba-ko **soneroen** alegria, Lisboako fadisten melankolia, **Herria**

soneto 1 *iz* hamalau lerroko poesia lana, lau lerroko bi ahapaldik eta hiruko beste bik osatua, inguruko literaturetan oso erabilia. ik hamalaudun.

Soneto bat ondu zuen, non Danteren kanten neurria eta zentzua kritikatzan baitzuen. **Juan Garzia**

Buruz ikasten zituen insomniozko hutsarteetan haren **sonetoak**. **Harkaitz Cano**

Oihenartek Zalgiz poetari egindako **soneto** ospetsu haren ildotik (alexandrinoz osatua, 12-13 silabako lerroz alegia). **Xabier Olarra**

Soneto sinbolista bat, La Conque aldirian (aldaera batzuekin) birritan agertu zena. **Juan Garzia**

Marmolakeko orrietan argitaratuko ziren **soneto** betegin haietakoren bat. **Juan Garzia**

Ez da neurtitz-idazlerik, txiripazko eta ezteusena izanik ere, bere **soneto** perfektoa zizelkatu [...] ez duenik. **Juan Garzia**

Ezaguna da haren **soneto** miragarria: [...]. **Josu Zabaleta**

Juan Garziak Shakespeareren **sonetoak** itzuli zituenear, testua eta forma hartu zituen aintzakotzat: ingelesezko **sonetoak soneto** dira euskaraz ere. **Anjel Lertxundi**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bacourt-eko baronesari eskainiriko **soneto** sorta bikain bat. **Juan Garzia**

Zeren bere bizitza letrazkoa beste bizitza menturazko bat ez bizi izatearen truke bizi izan duela sentitzen baitu Borgesek, **soneto** puskotan irakur daitekeenez: [...]. **Juan Garzia**

Hirueta hogoi bat olerki aurki daitazke liburu goxo huntan, erditsuak **soneto** moldean idatzirik, berteak molde librean. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

biziminaren sonetoak (5)

sonista *iz* musika-emanaldietan eta, soinuaren tratamenduaz arduratzen den tekniko.

Zuzeneko emanaldietan ñabardurak azpitik manipulatzan dizkion **sonista** baten beharra du, Reina Portuondo kubatarra da bere hirugarren eskua. **Berria - Kultura**

Nik nire kontsola eramaten dut, nahiz eta jendea ez dagoen ohiturik **sonistaren** irudiarekin. **Berria - Kultura**

sono *iz*

Sala sukaldearekin 50 euro gehiago, **sonoarekin** 40 euro oraino gehiago. **Herria**

Shohütarrak ahatzarazi gabe, ontsa erauntsi düe arizaleek, eta bereziki süjetak, bai joküan, bai botzen erabiltean, botz handien ükeitea bezain balios beita oraiko **sonoekin**.

Herria

sonograma *iz* soinu espektrograma.

Sonograma ere deitzen zaio, baina esan daiteke espektrograma dela gehien erabiltzen den izena eta esanahiaren aldetik gardenena dena. [Lourdes Oñederra](#)

Sonogramak erradiologoarekin aztertu -kistearen murriztea berretsi zioten-, eta gero, itzuli, eta gaixoa lasaitu zuen. [Xabier Olarra](#)

sonoridade ik **sonoritate**.

sonoritate *(orobat sonoridade g.er.) 1 iz* ozentasuna.

Kanpoko paisaiarantz begiratzen dut, Pietra Ligure, Noli, Spotorno, **sonoritate** handiko izenak. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

«Irudien **sonoritatea** eta soinuaren irudikapena» berreskuratzea. [Berria - Kultura](#)

Saxofoiaren **sonoritateari** halako garrantzia emanez, zer azaldu nahi duzue? aren historiarako kolore eta **sonoritate** berriak utzi zituen bere 18 sonatan. [Berria - Kultura](#)

Menak ondo azaldu zuen hiru mugimenduetan barrena lanak eskatzen zuen **sonoritate** hutsa. [Berria - Kultura](#)

Idatziz ere letrak errepikatzen badira ere, **sonoritatea** jotzen du bete-betean aliterazioak, eta horren efektuak bilatzen. [Iñaki Arranz](#)

Inori ez zaio oharkabean joan Lukrezioaren **sonoritate** eta biribiltasun espresiboa. [Xabier Amuriza](#)

2 soinu kalitatea.

Estudioaren **sonoritatea** beste bat da, baina gustatzen zait. [Berria - Kultura](#)

Sonoritatea, oihartzuna, distira, gardentasuna eta epeltasunari dagokionez hauexek dira akustikak neurtzen dituen gaiak, Baluarte Musikvereinen antza handia izango luke; Kursaal Concertgebouwen neurrien pare ibiliko litzateke, eta Euskalduna, gutxienez oihartzunari dagokionez, Bostongo aretoarekin alderatu liteke. [Berria - Kultura](#)

3 (hitz elkartuetan)

Jazz **sonoritateak** bide luzeagoko trenbidean jarri nau. [Berria - Kultura](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sonoritate hutsa (3)

jazz sonoritateak (3)

sonorizatu *izond* soinu sistema batez tratatua.

17.00etan, kantaldia *Izarrak* eta *Geroa* taldeekin; ondotik afaria, musika **sonorizatuz** alaitua. [Herria](#)

sonorizate *iz* soinu sistema batez tratatzea.

Gainera, aktoreen ahotsa entzunarazteko sartu duten **sonorizate** sistemak asko faltsutzen du antzezpeneren egiazkotasuna. [Berria - Kultura](#)

sonorizazio *iz* sonorizatzea.

Erakunde horrekin batera, zuzeneko ikuskizunaren argiztapen eta **sonorizazioari** buruzko ikastaroak egingo dira. [Berria - Kultura](#)

Abendu-urtarril parterako muntaketa eta **sonorizazio** lanak amaituta edukitzeko asmoa dute. [Berria - Kultura](#)

sonoro 1 *izond* soinuari dagokiona. ik **soinu 3**.

Gaur egun bizi dugun garai bisualean soinu-arteak edo arte **sonoroa** etorkizunetz beterik dago. [Berria - Kultura](#)

Plano **sonoroak** oso argi egon ziren, melodia piano batetik bestera pasatzen, instrumentu bakarra baillitza. [Berria - Kultura](#)

Euriak paisaiaren ikuskera lausotzen du, eta gauarekin batera errekurto bisual bat izateaz gain, **sonoroa** ere bihurtzen da. [Unai Iturriaga](#)

Ilustralari **sonoroa** emankizun kulturalen arduradun eta berriemaile bilakatu zen, eta 1981ean Hego Amerikarako emanaldien zuzendari izendatu zuten. aurtengo ekaina arte. [Berria - Mundua](#)

2 soinu hornitua.

Lehen film **sonoroak** egiten hasiak ziren arren, Akusatu errugabea mutua da. [Berria - Harian](#)

sonotone *iz* gorren entzungailua, audifonoa.

Hari ardoa debekatzen diote, honi bizikletan ibiltzea, urliari **sonotonea** kentzea, berendiari kantatzea, guztioi gaeuz irakurtzea. [Anjel Lertxundi](#)

sopa ik **zopa**.

sopelar *izlag/iz* sopeloztarra.

34 urteko **sopelarrari** xafra bat gainera erori zitzaion atzo 09:30ean. [Berria - Ekonomia](#)

sopeloztar *izlag/iz* Sopelakoa, Sopelari dagokiona; Sopelako biztanlea. ik **sopeloztar**.

Argentinarrak eta **sopeloztar** beteranoak Iriondo eta Lujanen aurka jokatu dute. [Berria - Kirola](#)

Espainiako Kirol Sari nagusia eman diote Joane Somarriba txirindulari **sopeloztarrari**. [Berria - Kirola](#)

Partida bateko zigorra bete ostean, **sopeloztarra** prest dago taldera bueltatzeko. [Berria - Kirola](#)

Ermuarrak eta **sopeloztarrak** Belodromoaren omenaldia jaso zuten, iaz Hamiltonen Munduko Txapelketan eginiko balentriaren aitortza gisa. [Berria - Kirola](#)

soperna *iz ipar* uholdea.

Ekaitza, hegoa, ziertzoa, enbata, **soperna** jeneralaren hatsa eta mortu erreak. [Itxaro Borda](#)

soplete 1 *iz* oso temperatura gorako garra sortzen duen tresna, tutu formakoa, metalak-eta berotzeko edo urtzeko erabiltzen dena.

Atea ireki ezin zutenez, **sopletearekin** ekin zioten, burdinazkoa eta barrotezkoa baitzen atea. **Jokin Urain**

Ez behatu inoiz **sopletearen** garrari. **Koldo Izagirre**

Herdoilaren pikorrak blakaren geruza lehertzen, portilo zapartatuak, **sopletearen** pindarra ontziaren hesteetan. **Koldo Izagirre**

Labearren gainaldeak edo sutondoak betetzen zituen funtzio zenbait **sopleteak** beteko ditu (karamelatzea, xigortzea, gratinatzea, etc.). **Edorta Agirre**

2 (hitz elkartuetan)

Berraunditzen ari diren burdin fabrikaren teiltuan egunero ikus ditzakegun **soplete** argiak izango dira langabetuarentzat direnetan izarrrik distiratsuenak, soldagailuen bidez mintzo baita fabrika jabea. **Pako Aristi**

3 irud/hed

Sopleteak bezain ebakitzen zutela etxean ikasitako uste zaharren burdina herdoildua. **Koldo Izagirre**

soportatu, soporta, soportatzen (*orobat suportatu g.er.*) 1 du *ad* jasan, pairatu. (gauzak)

Ez zitzaidan ezer gustatzen, ez nuen ezer **soportatzen**. **Fernando Rey**

Gure aitak, jeneralean, ez zituen **soportatzen** txistekak. **Fernando Rey**

Ez nituen **soportatzen** film aleman haiek. **Fernando Rey**

-Eta beste sasoinak ere untsa **soportatzen** dituzu halarik ere? **Menane Oxandabaratx**

Ez dute **suportatzen** dena ez kontrolatzea, preso batek bere nahikeria erakustea, bere nortasuna atxikitzea, buru egitea. **Filipe Bidart**

Ez nuke **soportatuko** idazten dudan lerro bakoitzarengatik dirua irabazten ari naizela jakitea. **Pako Aristi**

Gainera ez zuen **suportatzen** besteak uros izan ziten beren familian. **Herria**

Gainera ez zuen **soportatzen** besteak uros izan ziten beren familietan. **Herria**

2 (pertsanak)

Ez baititut **soportatzen** hitz egiteko horrenbeste hurbiltzen diren ez gizaseme eta ez emakumeak. **Joxean Agirre**

Zailen-zailena **soportatzen**, euskaltzalearentzat, ez al da izaten euskaltzaleak **soportatzea**? **Joxe Azurmendi**

Biharamunean, nekaturik zegoenez, ez zegoen aita nork **soportaturik**. **Fernando Rey**

Hango haiek ez baintuen **soportatzen**, ez zegoen haiekin moldatzeko modurik, eta ulua dena zen niretzat: gauza santua. **Fernando Rey**

Erromantikoak ziren gutxiena **soportatzen** nituenak. **Fernando Rey**

soporte *iz* euskarria.

Soporte desberdinetan tokia hartzeko egokia izan behar du: agenda, afitxak, jantziak, txartelak..., eta 1, 2, 3, 4 koloretan argitaratua izateko. **Herria**

Amets Arzallus-ek ihauterietako **soporte** umoretsuak banatu dizkie bertsutan beste lau kideei **Herria**

soportu *iz* pairamena.

Nik ez dakit nola atera ginen handik bizirik, ez bada zeren Probidentziak gidaturik eta indaturik baikinodozen, hain izan baitzen neurritz kanpokoak gure gorputzen **soportua** eta jasanana. **Joan Mari Irigoien**

soprano 1 *iz* emakumezkoen artean ahotsik garaiena; ahots hori duen kantaria. **iktenor**.

Maite Idirin **sopranoari** esker kasik sekula entzun ez ditugun Eguberri kantak gozatzen ahalko ditugu. **Herria**

Ainhoa Arteta **sopranoak** errezitala emango du Ainhoa Zubillaga mezzo-**sopranoarekin** batera bihar Tolosako Leidor zineman. ahots guztien artean, baina, bi nagusituko dira: Nuria Orbea bilbotar **sopranoarena** eta David Sagastume arabar kontratenorrarena. **Berría - Kultura**

Madama Glynn **sopranoa** zela esan zuen norbaitek. **Irene Aldasoro**

Julia, oso buruzuriturik zegoen arren, Adan eta Eba elizako lehen **sopranoa** zen oraindik. **Irene Aldasoro**

Ahots biak, **sopranoa** eta tenorra, aurrez aurre, elkarren inguruan kiribiltzen, sugeak bezala, hitzik gabe. **Oskar Arana**

Luciak **soprano** baten aho kolpea aurkitu nahi luke tekla bakoitzaren atzean. **Alberto Barandiaren**

Ahotsen erabateko urte-kateatuan, **sopranoarena** pixkanaka-pixkanaka apaldu ahala, ozenduz joan zen Ruche jaunarena. **Jon Muñoz**

Kantari batek, berrogeita hamarren bat urteko urretxindor tripan dia, **sopranoendako** kabatinak abestuko ditu. **Koldo Izagirre**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Soprano -ahots bat goratu zen lantegian, eta a cappella abestu Bachen kantata bateko aria: *Ich habe genug*. **Jon Muñoz**

Edurtxo Caterpillarrek irakurri zuen, **soprano** ahotsez, une hartan jartzeko moduan zituzten gaixotasunen zerrenda. **Karlos Linazasoro**

Zorionekoak hildakoak, kantatu zuen Elena Königek, **soprano** ahotsez. **Felipe Juaristi**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ontziko kide bat da, opera-**soprano** ospetsu bat. **Anjel Lertxundi**

4 (izenondo gisa)

Kantari **sopranoak** zion, sagarnoa jastatu ondoan, oso ona zagola, "txuleta, gasna eta intxaur batzuekin bikaina". **Herria**

• 5 *izond* saxoiez mintzatuz, errejistorik garaiena duena.

Urteko artista, talde akustiko onena, saxo **soprano** jotzailerik onena eta urteko konpositorea. **Berría - Kultura**

Bere gitarra klasikoaren soinuarekin nahastean dira Geoff Warrenen txirula eta saxo **sopranoarena**, Salvatore Maioreren biolontxelo eta kontrabaxuarena eta Joxan Goikoetxearen soinuarena. **Berría - Kultura**

Lacy New Yorken jaio zen, eta oso gazte zela saxofoi **sopranoa** jotzen hasi zen, artean jazzlari gutxiak jotzen zutenean tresna hori. **Berría - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arteta soprano tolosarrak (3); italiako soprano (3)

soprano ahotsa (3); soprano ahotsez (3); soprano ezaguna (3); soprano liriko (3); soprano tolosarrak (6)

ainhoa arteta sopranoa (5); sopranoa ariko (3)

ainhoa arteta sopranoak (5); almodena ortega sopranoak (3); bayo sopranoak (3)

sopranoarekin batera (3)

sopuertar *izlag/iz* Sopuertako, Sopuertari dagokiona; Sopuertako biztanlea.

Agustina **sopuertarra** zuen, hala ere, solaskiderik maiteena. **Martin Anso**

sor-denbora *iz* sortzeko denbora.

Munduaren **sor**-denboraren eta itsas-lehorren lehen egunaren eta eguzkiaren jaiotzaren ondoren. **Xabier Amuriza**

sor-marka *(35 agerraldi, 2 liburu eta 17 artikulutan; orobat sormarka 40 agerraldi 22 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian sor-marka agertzen da)* *iz* produktu baten jatorria eta kalitatea bermatzen duen kalitatea.

Abenduan, esnetegien okupazioekin batera, justuki Ossau-Iraty **sor-markaren** erreklama ikus genezakeen telebistan. **Itxaro Borda**

Ossau Irati **sor markatik** baztertu dute EHLG. **Berria - Ekonomia**

Ondorioz **sor-markaren** elkarteak arras lanetan ezarria da. **Herria**

Rene Renou Frantziako **Sor-marken** Erakundeko lehendakariak. **Berria - Harian**

Sor marka hortako gasna egileen zerrenda 120 000 aletan banatua da turismo bulego guzietan. **Herria**

Bixkotxa horren egiteko gauzak ez direlaketoz hemen ekarraraziak, botere publikoek erraiten daukute ez dela hemengo **sor markarik** posible. **Herria**

229 parteliantek, 30994 axuri ekarri dütue; 180 **sor markan** ari dira. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sormarka duten (4)

sor¹ *iz* mojei ematen zaien izena edo trataera. **ikarreba.**

-Emazteki onest hau **sor** Klara duzu, ene neskame leiala, Uraitzeko komentutik etorria... **Joan Mari Irigoien**

Haietako baten izena zuen bere paperetan idatzita, **Sor** Begoña Ibarloza, bizkaitarra, eta harengana jo behar zuen Rekekox iritsi orduko. **Joxemari Iturralde**

Reginak **Sor** Maria zuen estimatua, Ceciliak **Sor** Celeste... **Josu Zabaleta**

sor Clotilde moja superiora arreba baitzuen. **Berria - Kultura**

30 urte lehenago nire aitari eta osaba Migeli eskola eman zien **Sor** Conce berbera hain zuzen ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

a (6); **ak** (3); **ari** (3); **sor begoñ sor begoñ sor begoñ sor clotilde moja** (4); **sor klara** (4)

sor² **1 izond** sentiberatasunik ez duena. **ik sorgor; soraio.**

Nik, hirugarrenak, definizioz itsu eta **sor** denak, zerbaiten errezeloa hartu izango nian. **Xabier Olarra**

Ume autistetan -hurkoentzat **sor**, gor eta axolagabe izaten diren horien arteanharretatik batek omen ditu *idiot savanten* abildade beldurgarri horiek. **Iñaki Segurola**

Noiz alai-isekari, noiz haserre, noiz temati eta **sor**. **Jose Morales**

Tsarraren mandatariak, aldiz, **sorra** eta gorra zirudien min fisikorako. **Karlos Zabala**

ik beherago 7. **Askoren artean**

2 (adizlagun gisa)

Azpian zegoen hiria, eta **sor** gelditu nintzaion begira. **Rafa Egiguren**

Begiak **sor** eta adimena gor, neskaxari so jarraitu zuen Joanesez. **Felipe Juaristi**

Eskale sail bat iruditu zitzaion, ibaiertzetan elkarrengana pilaturik, soingainekoak hautsez eta kedarrez estalirik, eguzki-sarreraren ikuspegiaren aurrean **sor**. **Irene Aldasoro**

Kabala, berriz, nire orpo txipien zitzada ahulei **sor**. **Aingeru Epaltza**

Zentzumenak oro ahuldurik baitzebiltzan, ahoa lehor, begiak lanbro, belarriak gor, burua **sor**, oin-hankak ahul. **Felipe Juaristi**

Odoletan zen, gaitzak ahuldua, mugitzeko **sor**, ukitzeko latz. **Xabier Amuriza**

3 gauza abstraktuez mintzatuz, ia nabari ez dena, bizia ez dena.

Lehendabiziko bizpahiru egunetako oinaze **sorra** kenduta, amairik gabeko ordu astunen zama geldoa egin zitzaidan jasangaitzena. **Anjel Lertxundi**

Giharreraino ukitzen nauen min **sor** ikusgaitz batek. **Koldo Izagirre**

Hain lehor nuen eztarria ezen min taupada **sorrak** sentitzen bainituen, zintzurrean beste bihotz bat banu bezala. Isilik edaten zuen bitartean, bazirudien norbait suntsipen-lan ikaragarria, lasterra eta **sorra** egiten ari zela beraren barnean. **Alberto Ladron Arana**

Haserre **sor** txikiak areagotu eginen ziren areto ilunean. **Monika Etxebarria**

Raimundo Silva halako ernegu **sor** bat sentitu zuen gizon harekiko. **Jon Alonso**

Léonce andrea ere altxatu zen, hitz **sorrak** ahopetik esaka. **Karlos Zabala**

Ezertxo ere esango ez zuela zirudienean, erantzun **sor**, berankor, izugarri urruna iritsi zen. **Jose Morales**

Lilleko geltokien hitz emanda genuen eta huts egindako topaketaren arrasto **sorra**, nire amesgaizto familiarra. **Josu Zabaleta**

Erbestea min **sor** baita. **Felipe Juaristi**

4 (hotsei buruz)

Hots lehorra izan zen, **sorra**. **Alberto Ladron Arana**

Une hartantxe, izan ere, hots apal, **sor**, laster bat iritsi zitzaidan belarrietara. **Koro Navarro**

Gaueko elizkizunera deitzen zuten kanpai hots banaka, **sor**, ozenekin. **Josu Zabaleta**

Goialdetik beren soinua **sor** urrutikoa bidaltzen zuten kanpaien hotsek. **Josu Zabaleta**

Kolpe **sor** bat entzun nuen handik pixka batera, eta gero garrasi bat. **Rafa Egiguren**

Eztanda **sor** batzuk entzuten ditugu, hain zuzen. **Josu Zabaleta**

Sorra eta etengabea, luzaroan gogaikarria, badirudi murmurio horrek, ikusezin eta zalapartari, saguen antzera, isiltasuna karraskatzen diharduela. **Itziar Otegi**

Zotin **sor** eta luze batzuk egin ondoren, negarra eten zen eta sorbaldek dar-dar egiteari utzi zioten. **Jose Morales**

5 bero sor

Bero **sorra** (hau da, ura lurruntzeko behar den energia kantitatea) oso altua da (gramoko 0,58 kcal inguru), eta horretan galtzen den beroa nahikoa eta gehiago da barrura

sartzen den aire beroaren energia arintzeko. Irene Aldasoro

Ura lurruntzen erabilitako energiaren parte bat bero **sor** gisa itzultzen da atzera. Irene Aldasoro

Galera horretan doan bero **sorra** 300 kcal baino gehiago da (eguneroko dietan hartzen den energiaren % 10, gutxi gorabehera). Irene Aldasoro

6 gor eta sorik gor 9.

7 sor eta gor adlag sorgorturik, inolako sentimenik gabe.

-Zeren Jainkoa mintzatu baitzitzairen, eta **sor eta gor** egon baitziren haien belarriak... Aingeru Epaltza

Oraina hortxe dago **sor eta gor**, egoskorki. Iban Zaldua

Sor eta gor gelditu nintzen une batez. Karlos Linazasoro

Emakume haren oihuek **sor eta gor** uzten zuten. Juan Garzia

Ivan Ogareffek, **sor eta gor** beti bezala, hoztasunez erantzun zien haren bila. Karlos Zabala

Nadia, **sor eta gor**, eta Mikel Strogoff, dardaraz artean, postako aretoan gelditu ziren bakarrik. Karlos Zabala

8 sor eta lor adlag harriturik.

Sor eta lor gelditu ziren anaiak, gertatua mirari handizat hartuz. Askoren artean

Sor eta lor geratu zen, zer egin ez zekiela, urduri eta deseroso antza. Mirentxu Larrañaga

Sor eta lor utzi behar gintuzkeena zera da: behin ernalkuntza buruturik, lehenbiziko zelula, arrautza ernaldia, erdibitzen hastea. Juan Garzia

Santuairengana hurbildu zen, eta belauniko jarririk, Sakramentuko Kristo gurtu zuen, bertan zeuden guztiak **sor eta lor** utzirik. Jon Alonso

Sor eta lor nengoen ni, horrelakoak ikusita. Joxan Elosemi

Denak harriturik **sor eta lor**, sena galduta bezala, mamu bat ikusten ari zirela uste zuten. Askoren artean

Bi aldiz ikusi nuen burdinsarearen atzean[...]: batean, geldi-geldi, begiak itxita; bestean, geldi-geldirik orduan ere, santonina-zati usaintsu bati begira **sor eta lor**. Juan Garzia

9 sor-sor

Berari begira dago, **sor-sor**, mekanoaz pixka batean ahaztuta. Jokin Muñoz

Neska beti isilik, Tapax **sor-sor**, aurrera begira. Pablo Sastre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amorru sor (4); **eztanda sor** (4); **hots sor** (4); **hots sor bat** (3); **min sor** (8)

sor eta gor (14); **sor eta lor** (30); **sor sor** (4)

bero sorra (4); **eta sorra** (3); **min sorra** (6)

sorabiar *(orobat sorbiar) izlag/iz* Erdi Aroan Alemanian kokaturiko eslaviar etorkiko herri batekoa.

Hermannen etxeko emakume **sorabiarra** bezala, gai zen ezer esan gabe egoteko nik al dakit zenbat denboran. Anjel Lertxundi

Nekazari **sorabiarrak** beren hizkuntzan entzun nituenean konturatu nintzen horretaz: **sorabiarrak**, juduen moduan, ez ziren alemanak. Anjel Lertxundi

Sorabiarra zen eta neke handiz mintzatzan zen alemanez. Anjel Lertxundi

Bileran Saxonian bizi diren **sorabiarren** eskubideak izango dituzte gogoan. Berria - Euskal Herria

Birao bat atera zitzaidan, eramanezina egiten zitzaidan-eta **sorabiar** haiek, alemanak izan arren, alemana ez zen hizkuntza batean aritzea han, gurean, alemanaren zelai-mendietan. Anjel Lertxundi

sorabiera *iz* sorabiarren hizkuntza.

Atzerritarrek izango zirela pentsatu nuen, baina gurekin zihoan batek **sorabieraz** ari zirela argitu zigun. Anjel Lertxundi

soraio 1 *izond* sorra; bereziki, gogo edo arimako gauzetarako nagitasuna edo sentimenik eza agertzen duena. *iksorgor*.

Begirada luze **soraio** bat zuzendu zidan, eta gero baietz egin zuen buruarekin. Oskar Arana

Bere aita mozkortia, ama serora, aitaxi **soraioa** eta emazte desleiala ziren haren erreferentzia pertsonal bakarrak. Elena Touyarou

Apaingarria eta lilura erauzi, eta, notario **soraio** antzo, akta jaso egiten du Otamendik. Markos Zapiain

Hain gizon txepel eta **soraio** bilakatu zen, sena kamustua eta sumatzeko ahalmena ere erkindua zuen. Patxi Zubizarreta

Sheila han zegoen nik harena kontatu nuenean, ezer adierazten ez zuen aurpegi **soraioarekin**. Xabier Olarra

Soraio dira halakoak beren usterik sendoen zein emozioekiko. Juan Garzia

Han da Pirro gelditu, tirano margotu baten gisa, bere xedea burutzeko **soraio** irudi, deus egin gabe. Juan Garzia

Ez gira údūri bezain **soraio**. Herria

2 (hitz elkartuetan)

Hala zian enea mindu; eta bat-bateko heldeak zian pikortatu, **soraio** -itxura betean, zarakar higuinarriz, ene gorputz leun osoa. Juan Garzia

Orduan ere **soraio** omena zuen, nehork eta nehoiz arranguririk entzuten ez ziolako. Gotzon Garate

· Materia ergela, bere nagi- **soraioan** etsai, giza ergeltasuna etsai den bezala. Juan Garzia

3 (adizlagun gisa)

Joanto **soraio** gelditu zen, eta aurpegiko gihar bat ere higitu gabe, laster gogoetatu zen. Elena Touyarou

Neskatoak aulkian eserita **soraio** begiratzen baitzieten, maistren galderei erantzuteke, haien adierazpenei kasu handirik egiteke. Felipe Juaristi

Kirxa, **soraio**, egon gabe zegoen. Patxi Zubizarreta

Hitz haiek zuzendu zizkidanean ere, batere entusiasmorik gabe ziharduen, **soraio** eta sorgor. Joan Mari Irigoien

Itsasoa **soraio** agertu zait, eder, irain bat bere baretasunean. Txillardegi

Eta halaxe egon ginen, **soraio**, harik eta bigarren miraria obratu zen arte. Edorta Jimenez

Joanto lthurbide Aturri ertzeko hirian barna ibili zen, Jakobino sutsuenek Pariseko boterea uzkaile eta politikoki haiekin ados ez ziren guziak garbitu gogo omen zituztelako zurrumurruei **soraio**. Elena Touyarou

Azken honek erlojuari begiratu zion, ororendako **soraio**. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

soraio agertu (3)

soraio *garri izond* soraiotzen duena.

Epedoklesek, zutitu, besoa luzatu, eta Homerok nepenta **soraio** buruz paraturiko bertsoak kantatu zituen. Juan Garzia

soraiokeria iz soraiokeria gaitzesgarria.

Soraiokeria honek mundua ikusteko era are zabarraoa du gibelean. **Iñigo Aranbarri**

soraiotasun 1 iz soraioa denaren nolakotasuna edo egoera.

Harrigarriena, hala ere, bere **soraiotasuna** gertatu zen, zeren ez baitzuen begikotasun edota estimurik ttikiena ere erakutsi. **Patxi Zubizarreta**
Zaharren ezaugarri diren **soraiotasun** eta indar horrek, edozein helbururantz zuzendutako egoskortasun ulertezin horrek... **Xabier Olarra**
Nabari zitzaion ez zela bizi geldotasunaren eta **soraiotasunaren** altzoan. **Jose Morales**
Komisarioak bere **soraiotasunean** buru-zirkina egin zuen, Zeunerren hitzak ontzat jotzen zituen seinale. **Felipe Juaristi**
Jaun-andreek berreskuratua dute **soraiotasuna**, baina badute oraindik ere ukitu alai bat aho inguruan. **Monika Etxebarria**
Haien ahalmenaren sekretua ostien aurkako **soraiotasuna** da; borraz kilimak eginiezazkiezu, eta pellokeria batekin barre egingo dute. **Xabier Olarra**
Data du bere pertsonaia kuttuna, androide bat, bere **soraiotasuna** gorabehera, gizaki izatearen jakin-mina eta inbidia sentitzen dituen. **Xabier Olarra**
Neure ahotsaren **soraiotasunak** harritu ninduen. **Juan Garzia**
Euri tanta lodi batek atera ninduen nire **soraiotasunetik**. **Edorta Jimenez**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Distantzia eta **soraiotasun** handiz bizi nituen Egunkaria-ren gorabeherak, eta baita inguruko egoera politikoa ere. **Juan Luis Zabala**
Orain behintzat pozik zegoen atsedendialdi, pozik beraren erokeria estaliko zuen **soraiotasun** beltzaz. **Irene Aldasoro**
Uste du ezen, berez biziak diren presunetan, ez dela halako **soraiotasun** bet-betako horrez sekula ezaxolatu behar. **Jon Muñoz**
Eginbeharrek eta akaso halako **soraiotasun** batek irauarazten zioten hirian. **Juan Garzia**
Baldin entseiatzen banintzen haren arreta niganantz erakartzera fereku batez [...] ustezko **soraiotasun** haren ondoren berehala zetorkin izua. **Jon Muñoz**
Ez zen nabaritu haien arteko maitasun-seinalerik, zeren **soraiotasun** jainkozko bati eusten baitzion Enpedoklesek. **Juan Garzia**
Suhartasuna baino gogagariago zen halako **soraiotasun** inolaz ere goxo batez, Macedonio Fernández-en ahotsak arima hilezkorra dela errepikatzen zuten. **Juan Garzia**

3 (hitz elkartuetan)

Beretzat ez zen isekarik, bere **soraiotasun**-korazan irristatzen ziren guztiak. **Josu Zabaleta**
Akuilatu ezean, **soraiotasun** moduko bat nagusitu ohi zitzaion. **Xabier Olarra**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

halako soraiotasun (3)

soraiotu, soraio(tu), soraiotzen du ad soraio bihurtu.

Kiratsaren sarkorrak berak geldotzen ninduen, **soraiotzen**, sortzen. **Txillardegi**
Egun-argiz etxera iristea janarik ezinezkoa bazen ere, gutxienez Landetako errepide zuzen amaigabeek **soraiotu** baino lehenago litzatekeela zuhurrena. **Txillardegi**
Templek dioenez, zorrotzegi zaizkio sentsazioak, hori du bereizgarri beraren munduak (eta, horrekin batera, sentsazioen inhibizioa, batzuetan erabat **soraiotzerainokoa**). **Xabier Olarra**

soraluzetar izlag/iz Soraluzekoa. Soraluzeri dagokiona; Soraluzeko biztanlea.

Eraso horretan parte hartzea egotzita atxilotu dute 26 urteko gazte **soraluzetarra**. **Berria - Euskal Herria**

sorarazi ik sorrarazi.

sorbalda 1 iz besaburua.

Besaburuari jarraiki, **sorbalda** bat, eta **sorbalda** biren erdian lurperatua, lepoa. **Harkaitz Cano**
Herrenka hasi zen gero, **sorbalda** bat bestea baino gehiago altxatuz. **Koro Navarro**
Martin leher egina zegoen, eta **sorbalda** batek min ematen zion. **Koro Navarro**
Sir Thomas Holtek aihotza hartu eta bere sukaldaria burutik behera jotzean, buruaren erdi bat **sorbalda** baten gainera eta bestea beste sorbaldaren gainera erori ziren. **Xabier Olarra**
Amaiak **sorbalda** batean jarri zion eskua Leireri. **Aitor Arana**
- **Sorbalda** pare ona daukazu, On Camillo -kontsolatu zuen Kristok irribarrez-. **Koldo Biguri**
STANLEYk, altxatu, eta eskuak STELLaren **sorbalda** bietan jarri ditu maitasunez. **Xabier Paya**
Kazadora beltza **sorbalda** batean jarria darama, toreroek kapotea bezala. **Jokin Muñoz**
Sorbalda batetik behera dilindan zuen zira, toreatzaileen erara. **Irene Aldasoro**
Jakanarua **sorbalda** batean eutsi eta, irtetear zegoenean, praktetako atzeko poltsikoa ukitu zuen gainetik. **Unai Iturriaga**
Horra non, orde, gauza harrigarri bat ikusten diodan, orban beltz bat, **sorbalda** artean. **Josu Zabaleta**
Kontrako **sorbaldaraino** eroan zuen besoa Mentxuk bizkarretik. **Josu Landa**
Ezkerreko **sorbalda** ... lepoa... eskuineko **sorbalda** ... oso-oso poliki, ez nuen segituan bukatu nahi. **Joxean Sagartzizabal**
Gure azafata [...] nire ezkerreko **sorbalda** ukitu, esna nendin, eta azalpenetan-edo ari zitzaidan. **Joxe Austin Arrieta**
Ezkerreko **sorbalda** goratuz, erdizka biratu zen neskatoa. **Ibon Urbarri**
Eskua **sorbalda** artetik ipurdaraino jaitsi dizu bizkarrean lerro zuzen bat marraztuz. **Lourdes Oñederra**
Norbaitek eskua jarri zion **sorbaldan** sendo. **Karlos Zabala**

2 pl

Biktimaren bizkarreko eta **sorbaldetako** marka berezi horiek txalupa baten hondoko egurrak gogorarazten dituzte. **Koro Navarro**
Ai, zein zoragarriak diren **sorbalda** horiek! **Jose Morales**
Pisu ikaragarria sumatu nuen neure **sorbaldetan**. **Joxan Elozegi**
Haren **sorbaldak** biribilak ziren, eta haren gerruntze oparo beteak guttiz tenkatu agertzen zen kortsearen kariaz. **Karlos Zabala**
Sorbaldak eta besoak minberaturik oheratzen zen. **Elena Touyarou**
Sorbalda biak jasota. **Antton Olano**
Bestela tiro egingo ziola bi **sorbalden** artera. **Koldo Biguri**

Keinu bat egiten zuen ezpainekin eta **sorbaldekin**. Bernardo Atxaga

Sorbaldak jaso zituen, irritxo batez. Koldo Biguri

Mr. Denschek bere buruari ispiluan begiratu, **sorbaldak** tentetu eta boneta doitu zuen. Lopez de Arana

Endrek, gero, **sorbaldak** goratu zituen, nahikoa ikusi eta entzun izan balu bezala. Ander Irizar

Sorbaldak harrotu nituen nik, galdezka bezala. Inazio Mujika Iraola

Emakumeek **sorbaldak** erorixe zituzten, hotzagatik bainoago beldurragatik. Felipe Juaristi

Gizonak **Sorbalda** politik zituen alde aurretik ziur zegoen gizon gazte guztiak zeharo txoraturik geratuko zirela. Jose Morales

Bere **sorbalda** beti biluziak mugitzeko erak nahastu egiten ninduten. Joxean Agirre

Florentek bere ukondo zimelak, bere **sorbalda** iharrak atzeratzen zituen. Karlos Zabala

Beso batez haren **sorbalda** txikiak inguratu zituen. Lopez de Arana

Neskazaharra gorri-gorri jarri zen, bere **sorbalda** meheak estutu eta alde egin zuen, ez ikusiarena eginez. Karlos Zabala

Gretta zihoan atezainaren atzetik, burua beheraturik, bere **sorbalda** hauskorrek zama bat balerama bezala makur. Irene Aldasoro

Bere lepoa eta bere **sorbalda** zabalak nire gainean. Anton Garikano

On Camillok, etxetik atera, eta bere **sorbalda** erraldoiak plazatik gora eta behera paseatzera eraman zituen. Koldo Biguri

Begiak ondoko emakumearen **sorbalda** gurietan behera limurtu zituen, bizkar hautsezatuan gaindi. Lopez de Arana

Artilezko xala ipini zuen **sorbalda** biluzien gainean. Jose Morales

Poliziak aurrera eta atzera zebiltzan, porrak kulunkari, euren gorila-aurregiak eta txinpantze-**sorbaldak** erakutsiz. Lopez de Arana

3 bizkarraren gainaldea. ik soin 6.

Eskumuturrak, bizkarra eta **sorbalda** minduta dauzka. Berria - Euskal Herria

Tentuz aztertu zuen **sorbalda** haren azalaren guritasuna. Unai Iturriaga

Lepoa mehea: **sorbalda** zuzena; besoak laburrak. Askoren artean

Mathildek **sorbaldari** gora eragin zion, ezjakintasuna adierazteko. Anjel Lertxundi

Atzetik begiratuta, ile luzea daramala ikusi duzu, beltzarana, **sorbaldaraino**. Rafa Egiguren

Deere jauna zutik zegoen, eskuak **sorbalda** atzean ezkutaturik. Karlos Linazasoro

Presidente ohia eserita ageri da: bere **sorbaldan** usoak pausatzen dira. Harkaitz Cano

Sorbaldan zeraman xal gerezi-kolorearen ertzak lotu zituen amak katekorratz batez. Anjel Lertxundi

Bi eskuak **sorbaldara** eraman, eta soinekoaren kremailera gerriraino jaitsi zuen. Ramon Saizarbitoria

Harry Blount, **sorbaldan** zauriturik, lurrera erori da. Karlos Zabala

Nataliaren ukitu leuna **sorbaldan**, hatz sentikor hura marra bertikal bat marraztuz bere azalean. Aritz Gorrotxategi

Ez zitzaidan gustatu haren makila **sorbaldan** sentitzea. Matías Múgica

4 (aditzekin)

Sorbalda makurtu eta buzoia ahotik begira geratu zen. Harkaitz Cano

Begoña delakoak **sorbalda** uzkurtu du, errieta egin dioten umeak bezala, lotsatuta. Harkaitz Cano

Salako atearen markoaren kontra bermatu zuen **sorbalda**. Harkaitz Cano

Nikanorri buru-besoak **sorbalda** eta guzti moztu eta Jerusalem era eramateko agindu zuen. Elizen arteko biblia

Sorbalda inguratu zion bere mahuka zetazkoaz. Lopez de Arana

Keinu urduri batez, aitak **sorbalda** estutu zidan. Alberto Ladrón Arana

Metraila puskak **sorbalda** ukitu besterik ez ziola egin ikusi zuen. Karlos Zabala

Sorbalda berriz zamatuta ekin zion atzealdeko erripan gora. Josu Landa

Burutik behera sartu zuen Norak soinekoa, eta gorputzari egokitu zizkion **sorbalda** eta gerraldea. Anjel Lertxundi

Neskatoak agerian zuen **sorbalda** estali zion eta begiak itxi zituen. Ibon Uribarri

Sorbalda jaso dut, ezer ez nekiela adieraziz. Iban Zaldúa

Arnasari eutsirik, **sorbalda** jaso zuen, lepoaldea euri xehe sarritik babesteko. Anjel Lertxundi

Neskak **sorbalda** jaso, irribarre egin eta bere kaxa zegoen lekura itzuli zen. Lopez de Arana

Neskatoak **sorbalda** pixka bat goratu zuen bi besoak luzatzeko. Ibon Uribarri

5 (izenondo eta izenlagunekin)

Mikel Strogoff garaia zen, indartsua, **sorbalda** eta bularralde zabalekoa. Karlos Zabala

Astindu bat eman zion emakumearen **sorbalda** beroari. Mirentxu Larrañaga

Xalotasun miragarriko lagun bat **sorbalda** mindua igurzten ari zitzaion. Askoren artean

Sarritan, zamak zeramatzen pobreekin bidean topo egitean, bere **sorbalda** ahula eskaintzen zien pisua arintzeko. Askoren artean

Bere **sorbalda** aski ahula eskaintzen zien laguntzeko. Askoren artean

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Merkantzi saskiei **sorbalda** kolpe batez erortzen lagunduz. Karlos Zabala

Olatzek bere **sorbalda** -keinu barkamen eskezko bat egin eta [...] nor bere postu eta zereginetara itzuli zen. Harkaitz Cano

Maite genuen neska geureganatzearen imintzio burlatiak egiten genituenetik geratu zaigun **sorbalda** mugimendu airos eta dantzaria. Harkaitz Cano

Keinu honek - **sorbalda** -goratzeak, alegia- duen nagusitasunetik ondorioztat ateratzen du frantsesak dortoketatik sortuak direla. Xabier Olarra

Artilezko **sorbalda** -zapi bat hartu eta lurrean zabaldu zuen, arrautza hantxe eror zedin. Josu Zabaleta

Nora popa aldean zegoen, Hawthorneren liburua eskuetan eta **sorbalda** -oihal bat soinekoaren gainetik. Anjel Lertxundi

Etxeako andrea sartu zen, presaka jantzirik lo-txano bat buruan eta flanelazko **sorbalda** -oihal bat lepo inguruan loturik. Jose Morales

Bi **sorbalda** -babeski egin zizkioten efodari, bi ertzetatik lotzeko. Elizen arteko biblia

-Hotz egiten du, eta ez zara **sorbalda** -gain soil batez babesturik irtingo. Anjel Lertxundi

7 (gain-en ezkerrean)

Sethek haren **sorbalda** gainetik begiratu zuen, ate itxirantz. Anton Garikano

Niri so daude, **sorbalda** gainetik begira, eta barreka. Mirentxu Larrañaga

Anek hormaren kontra bultzatu zuen Mikel, esku bat mutilaren **sorbalda** gainetik. Unai Iturriaga

Burua aitaren **sorbalda** gainean jarririk. Anjel Lertxundi

Andreasek gizonaren **sorbalda** gainean jarri zuen eskua. Anjel Lertxundi

Juanak takoi azpian itzaltzen du zigarreta, eta bere esku beltzarana nire **sorbalda** gainean pausatzen. Joxe Austin Arrieta

Nire esku ahurretik **sorbalda** gainera egin du salto. Anjel Lertxundi

Fred Weasleyren burua Alicia Spinneten **sorbalda** gainera erori eta zurrungaka hasi zen. Iñaki Mendiguren

Karmen lo zerraldo neukan ondoan, eta nire **sorbalda** gainera erortzen zitzaion burua. Inazio Mujika Iraola

8 (abereetan)

Hona herriak oparizat eskaintzen dituen zekor eta arkumeetatik lebitarrei eskubidez dagokiena: **sorbalda**, matrailak eta urdaila. Elizen arteko biblia

9 irud/hed

Lekurkorik ez zen egon, hedabideak ez ziren bozeramaile izan, hiriaren **sorbaldak** ez zuen inolako hotzikarak astindu. **Sonia Gonzalez**
Baserriko **sorbaldan** dagoen pagadi oinean aurkitu zuten Erramun, sastraka batzuen alboan. **Joxemari Urteaga**
Handik ez oso urruti Virgoren irudia azaltzen da, eskuineko **sorbaldaren** gainean izar txit distiratsua duena. **Santiago Iruretagoiena**

10 sorbalda hezur bizkarrezurra.

Lurrera erori eta hanka-hezurra hautsi zitzaien eta **sorbaldak** -hezurra bere lekutik atera. **Askoren artean**
Denverri **sorbaldak** -hezurretan jotzen zion txanoak. **Anton Garikano**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere sorbalda (26); **bere sorbalda gainean** (5); **besoa sorbalda gainean** (4); **bi sorbalda** (3); **efodaren sorbalda** (6); **emakumearen sorbalda** (3); **eskua sorbalda gainean** (7); **eskuin sorbalda** (5); **eskuineko sorbalda** (3); **ezkerreko sorbalda** (5); **haren sorbalda gainean** (5); **neskaren sorbalda** (4); **neskatoaren sorbalda** (5); **nire sorbalda gainean** (7); **setheren sorbalda** (3)
sorbaldak bat (5); **sorbaldak batean** (3); **sorbaldak batetik** (6); **sorbaldak biluziak** (3)
sorbaldak gainean (76); **sorbaldak gainean ezarri** (4); **sorbaldak gainean igo** (3); **sorbaldak gainean ipini** (3); **sorbaldak gainean jarri** (10); **sorbaldak gainean pausatu** (4); **sorbaldak gainera** (7); **sorbaldak gainetik** (41); **sorbaldak gainetik atzera** (3); **sorbaldak gainetik begira** (3); **sorbaldak gainetik begiratu** (6)
sorbaldak hautsi (4); **sorbaldak hezurra** (3); **sorbaldak jaso** (15); **sorbaldak jaso zuen** (11); **sorbaldak keinu** (3)
sorbaldak oihal (4)
sorbaldak ukitu (10); **sorbaldak ukitu zion** (3); **sorbaldak ukitzen** (4); **sorbaldak uzkurto** (3); **sorbaldak zabalak** (3); **sorbaldak zabalekoa** (3)
burua eta sorbaldak (8); **camillok sorbaldak jaso** (4); **gizonak sorbaldak jaso** (3)
sorbaldak agerian (4); **sorbaldak altxatu** (6); **sorbaldak altxatu zituen** (4); **sorbaldak astintzen** (3)
sorbaldak goititu (5); **sorbaldak goratu** (25); **sorbaldak goratu zituen** (15); **sorbaldak goraturik** (3); **sorbaldak goratuz** (6); **sorbaldak goratzen** (6); **sorbaldak goratzen ditu** (3); **sorbaldak harrotu** (7); **sorbaldak harrotu zituen** (3)
sorbaldak jaso (100); **sorbaldak jaso zituen** (66); **sorbaldak jasorik** (3); **sorbaldak jasota** (4); **sorbaldak jasotzen** (11); **sorbaldak jasotzen ditu** (3); **sorbaldak jasoz** (11); **sorbaldak mugitu** (3)
sorbaldak tentetu (3); **sorbaldak uzkurto** (13); **sorbaldak uzkurto zituen** (9); **sorbaldak zabal** (3)
anaiaaren sorbaldan (3); **bere sorbaldan** (7); **burua nire sorbaldan** (5); **burua sorbaldan** (6)
eman zidan sorbaldan (3); **eskua sorbaldan** (17); **eskua sorbaldan jarri** (8); **eskuak sorbaldan** (3); **eskuineko sorbaldan** (5); **ezkerreko sorbaldan** (7); **ezkerreko sorbaldan jarri** (3); **fusila sorbaldan** (3); **haren sorbaldan** (6)
jarri zidan sorbaldan (5); **jarri zion sorbaldan** (6); **nire sorbaldan** (14)
pegarra sorbaldan (4); **sentitu nuen sorbaldan** (4)
); sorbaldan behera (5); **sorbaldan hartu zuen** (3); **sorbaldan hartuta** (3); **sorbaldan ipini** (5); **sorbaldan jarri** (26); **sorbaldan jarri zion** (6); **sorbaldan jarrita** (6); **sorbaldan jo** (6); **sorbaldan min hartu** (8); **sorbaldan pausatu** (7); **sorbaldan pausatuz zen** (3); **sorbaldan zeukan** (3); **sorbaldan zuela** (4); **sorbaldan zuen** (3); **zekarren sorbaldan** (3)
sorbaldara igo (3)
bere sorbaldaren (3); **ezkerreko sorbaldaren** (3); **haren sorbaldaren** (6); **haren sorbaldaren gainetik** (5); **sorbaldaren gainean** (14); **sorbaldaren gainean pausatu** (3); **sorbaldaren gainetik** (17); **sorbaldaren kontra** (11); **sorbaldaren parean** (3)
sorbaldarik gabe (3)
haren sorbaldatik (3); **sorbaldatik behera** (5); **sorbaldatik heldu** (12); **sorbaldatik helduta** (3); **sorbaldatik oratu** (5); **sorbaldatik zintzilik** (12)
sorbaldei eragin (5); **sorbaldei eragin zion** (3)
bere sorbalden (5); **bere sorbalden gainean** (3); **sorbalden artean** (4); **sorbalden gainean** (26); **sorbalden gainean jarri** (4); **sorbalden gainera** (3); **sorbalden gainetik** (10)
haren sorbaldetan (4); **nire sorbaldetan** (4); **sorbaldetan behera** (8); **sorbaldetan jarri** (6)
sorbaldetaraino iristen (4)
sorbaldetatik heldu (14)

sorbaldalde iz sorbalda aldea.

Garaia eta meharra zen, **sorbaldalde** ederrekoa, burua agerian zeraman eta ile sarria zuen. **Patxi Zubizarreta**

sorbaldape iz sorbalden azpialdea.

Gero beso eta **sorbaldapetik** gorantz tirarazi. **Harkaitz Cano**

sorbaldatxo iz tamaina txikiko sorbalda.

Negua oso hotza izan zen eta maistrak urte gehiegi zituen bere **sorbaldatxo** makurren gainean, moldatzen jarraitu ahal izateko. **Koldo Biguri**

sorbeltz iz enararen antzeko txori luma-beltza (*Apus apus*).

Udaberrian, enarek eta **sorbeltzek** biribil bitxiak egiten zituzten airean, garrasi zoliak botaz. **Josu Zabaleta**

Eliza-dorrearen inguruan txiloka zebiltzan **sorbeltzei** so. **Mirentxu Larrañaga**

Sorbeltzak goi-goian zebiltzan, zeharretara bizi-bizi hegaka, eta gure inguruan txiloka. **Mirentxu Larrañaga**

sorberri ik sortu¹ 7.

sorberritu, sorberri(tu), sorberritzen du ad berriro sortu.

Den-dena badakigu zer den, estatua, eta halakoak ez du hitzez gorroto duen estatua (gainean egokitu zaiona) **sorberritu** edo birsortu besterik egiten. **Iñaki Segurola**

Bere ekintzen sentsazioak **sorberritzeko** indarrrik gabe, nola gorde hizkuntza baten jario bizia? **Patziku Perurena**

Kartagarrek erraiten dute, hezurretik **sorberritzen** dela beren zaizkia, guk odoletik erraiten duguna. **Patziku Perurena**

sorbete iz erdi izoiztua zerbitzatzen den edaria, gehienetan fruituduna.

Segundo gutxiren buruan pronto izango du krema, betegarria, salda- edo barazki-hondoa, izozki edo **sorbetea**, bere lurrin eta guzti. **Edorta Agirre**

Ez nuen asko itxaron behar izan zalantza erabat argitzeko, minutu bat baino lehen azaldu baitzen zerbitzaria **sorbetea** eta basoko fruitu gorriak zekartzala, eta "your fruits, madam" esan zuen. **Ramon Saizarbitoria**

Nekez gerta zitekeen hark ere nik bezala xanpain **sorbetea** basoko fruitu gorriekin eskatzea. **Ramon Saizarbitoria**

Carbayok, eskuineko hatzak klikatuz, zerbitzariari deitu eta Mango **Sorbetea** Marrubizko Saltsa Epelarekin eta Tolosako Teila Ostoratuarekiko errazio bikoitz bat eskatu

sorbiar ik **sorabiar**.

sorbide *iz* sortzeko bidea.

Mirabeagandikoa giza **sorbide** hutsez jaio zen; emazte librearengandikoa, berriz, Jainkoaren agintzariaren indarrez. [Elizen arteko biblia](#)

Analisi molekularren emaitzen arabera, espezie berrien **sorbidea** ez da, antza, bestelako gene eta bestelako funtzio berriak gehitzea, besterik gabe, organismo zaharragoak hortik gara daitezten. [Juan Garzia](#)

Galde diezaiogun geure buruari, mamuen **sorbideari** buruz ari garen honetan, zein beste eragile dagoen pertsonaia horren oinarrian. [Bernardo Atxaga](#)

Euliaren kasuan bezala, gene horietariko batean mutazio bat gertatzeak berekin dakar bestela eratzea **sorbidean** den organismoa eta, maiz asko, goiztar hiltzea. [Juan Garzia](#)

Alfabetoaren letra bakoitzari poema bat eskaintzen dio, eta kasuan kasuko letra ahalik eta gehienetan erabiltzea du xede eta **sorbide**. [Iñaki Arranz](#)

- **Sorbidea** : inprobisatua / ez inprobisatua. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sorbidean den (4)

sorburu¹ *1 iz* jatorria, etorkia, iturburua.

Nilo ibaiaren **sorburua** Mauritania aldetik datorrela. [Santiago Iruetagoiena](#)

Haurrak bere egiazko jatorria, **sorburu** genetikoa eta genealogikoa ezagutzeko eskubidea baitu. [Ramon Saizarbitoria](#)

Enekiko daukat maitasun ukatuan duela gaitz horrek bere jatorri eta **sorburu** lehena. [Juan Garzia](#)

Lehen kasuan, errakuntza hauen **sorburuak** zentzumenen inperfezioak dira. [Jon Alonso](#)

Aurrerantzean, ez duzu Abram izango izen, Abraham baizik, herri askoren **sorburu** egingo baitzaitut. [Elizen arteko biblia](#)

Ongi handiak **sorburu** batetik eta txikiak beste batetik etortzea absurdoa da; batzuk zein besteak jatorri berekoak dira, ongi gorena den Jaungoikoagandik datoz. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Elkar maite zuten, **sorburuko** bekak barkatzen zioten elkarri. [Xabier Olarra](#)

Greenpeace **sorburura** itzuliko da, itsas txakurren hilketari salatzera. [Berria - Gaiak](#)

Horrela **sorburura** itzuliko zarete, egiazko argiak distiratzten duen hartara. [Joan Mari Lekuona](#)

Handik hiru minutura, atomo-gune arinak eratu; gero, milioi bat urteren buruan, atomoak; askoz ere geroago, izarretako elementu astunak; eta, azkenik, mundu biziaren **sorburuan** dauden materialak. [Juan Garzia](#)

2 (izan aditzarekin; da ad)

Susmoa baita behaketa ororen oinarri, **sorburu** eta eragile. [Iñaki Iñurrieta](#)

Maitasuna eta nahi izatea dira oinazearen **sorburu** eta azkena. [Joan Mari Lekuona](#)

Susmoa baita behaketa ororen oinarri, **sorburu** eta eragile. [Iñaki Iñurrieta](#)

Santuak gorrotoa zion gaitz guztien **sorburu** den harrokeriari. [Askoren artean](#)

Bedeinkatuko dut eta nazio askoren **sorburu** izango da: harengandik erregeak aterako dira. [Jose Antonio Mujika](#)

Guretzat Jainkoa bat bakarra da, Aita, gauza guztien **sorburu** eta helburu dena. [Elizen arteko biblia](#)

3 (izan aditzarekin; du ad)

Bi **sorburu** ditik filosofiak -heuk esaten huen hori-: Tales eta Pitagoras. [Jon Muñoz](#)

Merkataritza mota honek ekonomiaz kanpo dagoen esparru batean duela **sorburua**. [Koro Navarro](#)

Orduan konturatu baita ijitoak joka ari diren doinuak Haydn duela **sorburu**. [Felipe Juaristi](#)

- **Sorburu** izan dugun tokira -erantzun zidan. [Felipe Juaristi](#)

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Itzulpen okerrak direla eta, behar-beharrezkoa da **sorburu** -hizkuntza jakitea xede-hizkuntzan emandako mezua ulertu ahal izateko. [Iñaki Arranz](#)

Sasi-itzulpen hauek euskara dute **sorburu** -edo xede-hizkuntza, eta beste edozein erdara egon daiteke tartean. [Iñaki Arranz](#)

Lan polita litzateke aztertzea non duten beren **sorburua** Bidasoa, Zadorra, Urumea, Arga, Irati, Urrobi, Errobi eta gainerako ibai-izenek. [Iñaki Segurola](#)

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Irudia afektu-**sorburu**. [Josu Zabaleta](#)

bizi **sorburua** itsastan zaio, gorputzari eta sentimen guztiei indar emanez, eta hauetaz baliatzen da kanpokoak sentitzeko. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Bi zibilizazio -erlijio nagusi baten inspirazio-**sorburu** izandakoa eta erlijio nagusi hori sustraitu denekoa- behintzat kontuan hartu gabe. [Iñaki Mendiguren](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

duela sorburu (3); **dute sorburu** (7); **herri askoren sorburu** (4)

sorburu beretik (4); **sorburu den** (5); **sorburu dena** (3); **sorburu eta helburu** (3); **sorburu izan** (14); **sorburu izan zen** (6); **sorburu izango** (3); **zuen sorburu** (3)

beren sorburua (3); **du sorburua** (5); **duela sorburua** (3); **dute sorburua** (4); **izan zuen sorburua** (3); **sorburua da** (3); **sorburua izan** (4)

sorburuetako bat (3)

bere sorburura (4)

sorburu² *iz* besaburua, sorbalda.

Oihalezko xerrenda ilun batek inguratzen zion lepoa, eta mantelina beltza ikus zekiokkeen **sorburuen** gainetik. [Txillardegui](#)

sorddes (*corpusean sordeis eta sordies soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian sorddes agertzen da*) izond gaiztoa, lotsagabea, kaltegarria.

Edozein eskualde ala herritan aurkitzen ditugu jende onak, hobeak eta bikainak, gaiztoak, gaitzagoak eta **sordeisenak**, baina haiek guztiak, salbuespenik gabe, maitatu behar ditugu, Jainkoaren izenean bederen. [Piarres Xarriton](#)

Silicon Valley-ko injinadoreak, Niger-eko artzain gaiztoak baino askoz ere **sordiesagoak** izan behar dukete, ikusiz nola laguntzen dituen Jainkoak! arneko sua eho zuen, lagun hurkoen konfiantzaz asebetetzeko: biharko geroa **sordeis** baino **sordeisago** imajinatzen zuen beti. [Xipri Arbelbide](#)

Maniako edo **sordeis**, frustratu sexual gisa kontsideratua izateko gutizia izpirik ez neulakako. [Itxaro Borda](#)

sorddeskeria *(corpusean sorjeskeria soilik) iz sorddesari dagokion egintza.*

Gazteek anitz sofritzen dute hortarik, eta **sorjeskerietara** lerratzen dira lur-sagar xurikin jate, kontserbuko boata huts milikatze, bidean isuri salda ondarkin biltze. **Marzel Etxehandi**

sordeis ik **sorddes**.

sordies ik **sorddes**.

sordieski ik **sorddeski**.

sordina 1 *iz zenbait musika-tresnari, soinuaren intentsitatea apaltzeko edo tinbrea aldatzeko, jartzen zaien gailua.*

Erraza da jotzen ari naizen pieza, eta ez diot **sordinaren** pedalari eman behar sukaldeko jarduna entzuteko. **Anjel Lertxundi**

Sordinaz jotako musika kiribilkariak Hindustan zekarkigun gogora. **Lopez de Arana**

2 irud/hed

Eta ziegetan itxi gintuztelarik korneta entzun genuen egun oro bezala, gure barruko lanbroaren **sordinak** tristeia eta urruna egiten zuen doinuan. **Koldo Izagirre**

Gurasoen garrasiak **sordinarekin** ito nahian bezala, belarriak esku ahurrekin estali eta desestali ditu Elenak, olatu hotsak gogora ekarriz. **Eider Rodriguez**

Ezin izan zuen edo ez zuen nahi izan bere umore txarreko frustrazioa ito, ez eta bere lanari zegozkion zaratei **sordina** jarri ere, aitzitik, gehitu egin zituen. **Jon Alonso**

sorgailu 1 *iz zerbait, elektrizitatea bereziki, sortzen duen gailua.*

Elektrizitateak batzuetan makalaldiak izaten zituen, baina oro har ezin ziren sotoko **sorgailuaren** funtzionamenduaz kezatu. **Aitor Arana**

2 (hitz elkartuetan)

Horretarako, bestalde, sotora jaitsi beharko zukeen elektrizitate-**sorgailua** berriz martxan jartzera. **Aitor Arana**

Taupada-markagailu elektronikoak pultsu-**sorgailu** bat dauka (transistore bat eta beste osagai bakan batzuk izaten ditu modelorik sinpleenak), iraupen luzeko merkuriozko pilaz funtzionatzen duena; pultsu-**sorgailu** horrek seinale elektriko txiki bat bidaltzen du bi konexio-kabletara. **Irene Aldasoro**

sorgarri 1 *izond* sentimena moteltzen duena. ik **sorgogarri**.

Gorputz nekeen **sorgarri** / egin duzu gau iluna. **Imanol Unzurrunzaga**

2 gortzen duena, gorgarria.

Réclamerik gabe, arrabots **sorgaririk** gabe, lana eta bakardadea deritzen bi makulu horien laguntzaz beti ere. **Juan Garzia**

Ahopeko marmarra nagusituko da berehala, eta, geroxeago berriz, motorraren burrundara **sorgarria**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Halakoetan ohitura zela ikasleak oihuka hastea, orro ikaragarri batean, birrikak hustu arteko kurrixka **sorgarrian**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Han geratzen zen ikusten nola urak, lasterka bizian eta zarata **sorgarria** ateraz, errotarriei eragiten zien. **Jose Morales**

sorgi *iz ipar sorgunea.*

"Iturburia", iturburu edo ur **sorgi** baten ondoan egina baitzen etxea, ura hurbil ukaiteko. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

sorgile *iz aztia. ik sorgin.*

Finlandiar **sorgileek**, aldiz, haizea saltzen zieten portuan ekaitzak geldiarazitako marinelei. **Patziku Perurena**

Ipar edo iparrekialdetik jotzen duen haize latza,sukarra eta erreuma-handitsuak berekin ekarri ohi dituen, hango **sorgileek** azpikoz bidalia dela uste baitizute. **Patziku Perurena**

sorgin 1 *iz herri sineskeriaren arabera, deabruarekiko hitzarmen baten ondorioz edo, indar ezkutuen jabe den gizona edo, bereziki, emakumea. ik **azti**; **sorgino**.*

Sorgin bat omen zen, katu bihurtzen zena, oker egiteko eta gaizki obratzeko. **Joan Mari Irigoien**

Igrainek hiru alaba ere izan zituen, eta haietako batek, Morganak, aztikeriak ikasi zituen, eta **sorgin** bihurtu zen. **Juan Kruz Igerabide**

150 **sorgin** atxilotu zituzten eta horietatik 31 epaitu 1692. urtean. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Salemgoa dun mundu berri osoan **sorginen** aurkako prozesu bakarra. **Anjel Lertxundi**

Jakin bazekien hura azti eta **sorginen** herri bat zela oso-osorik. **Iñaki Mendiguren**

Ehundaka **sorgin** eta aztik ezagutu dituzte metodo honen onurak! **Iñaki Mendiguren**

Aztikeriari berehala antzeman zioten eta, **sorgin** batek arao egokiak esan zituelarik, Badr erregea atzera gizon bihurtu zen. **Patxi Zubizarreta**

Baztertu genuen bigarren basoa pagadi lerden bat izan zen, munduko **sorgin** guztiak kontentu jartzeko adina amanita muscaria ikusi baikenuen bertan. **Anjel Lertxundi**

Zer aurkituko gona-barrenean, eta Katalina **sorgin** Gezalakoak urkamendian kantatu zituen zeruaren kontrako bertsuak! **Anjel Lertxundi**

Bere barruan desegin eta berregin behar da pagano, turko, protestante, **sorgin**, komunista, masoi, abertzale gaizto hori. **Joxe Azurmendi**

Garai bateko **sorgin**, belagileei, etab. *harpia* esaten zitzaien, uste baitzen buru inguruan nolabaiteko argitasun edo halo bat zutela. **Xabier Olarra**

Emaztea Arberatzekoa zuen, Estefania, emakume fufuriatsua, **sorgmailgailgina** bezain itsusia eta sendabideetan aditua. **Aingeru Epaltza**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sorgin garai ilebeltz bat zegoen han, esmeralda-koloreko soinekoz jantzita. **Iñaki Mendiguren**

Egunak joan ahala, etxeoandre zaharrak **sorgin** gaizto nazkagarri baten gero eta itxura handiagoa zeukan. **Juan Kruz Igerabide**

Bath-eko **sorgin** zahar batzuek bazuten liburu bat, behin irakurtzen hasiz gero, ezin zena utzi! **Iñaki Mendiguren**

Fred eta George ikusi zituen, **sorgin** konkordun begibakar baten estatuaren atzetik berari begira. **Iñaki Mendiguren**

Sprout andereñoa **sorgin** txiki mozkote bat zen, bere adats soltearen gainean adabakiz jositako kapela zeramana. **Iñaki Mendiguren**

McGonagall adefreñak, ilea motots sendo batean bildua zuen. **sorgin** betaurrekoduna. **Iñaki Mendiguren**

Stan gotikik behera etorri zen, atzetik **sorgin** berdexka bat zuela bidaiazteko kapa batean bildua. **Iñaki Mendiguren**

1553an jaio zen Pierre de Lancrek, ustezko **sorginen** ehiztari sutuak, idatzi zuenez, "itsasoa biderik gabeko bidea da". **Edorta Jimenez**

3 (hitz elkartutean)

Sorgin praktika bat da, espirituak lasaiarazteko, gaixotasun bat uxatzeko edo euria eginarazteko egiten dena. **Juan Kruz Igerabide**

Alferrekoak izan zituen uzkurtze deseroso haien kontrako **sorgin** -neurri guztiak. **Karlos Linazasoro**

Giuliak, esan beharra dago, bazuen **sorgin** puntu bat, eskua irakurtzen zuen, aztien bezero sarria zen eta amets iragarlerik ere izaten zuen. **Juan Garzia**

Hiltzera zetorrenan gure aingerua, eta gure aitak, balekebele, auzoan **sorgin** fama zeukan emakume batengana eraman zinan haurtxoa. **Pako Aristi**

Juanis deitzen zieten berriz apoei, Frainzi aldetik sartutako Joanes izenaren **sorgin** sonak eraginik. **Patziku Perurena**

Hona uxen heldua gauaren **sorgin** -ordua, noiz hilerriek ahoak baitituzte zabaltzen, eta infernuak berak mundu hau bere arnasaz kirasten. **Juan Garzia**

Astearte, martitena, toki askotan, **sorgin** -eguntzat omen zeukatela oroitarazten digu Azkuek. **Pello Zabala**

Sorgin auzietan ere, maiz ageri da, aker beltzari ipurdian (uzkian) pot emate kontua. **Patziku Perurena**

Crackerra ireki egin zen eta **sorgin** -kapela puntadun handi bat agertu zen, gainean putre diseatu bat zuena. **Iñaki Mendiguren**

Dena betiko aztia eta **sorgin** -familietan gorde beharko litzatekeela iruditzen zait. **Iñaki Mendiguren**

Sorgin -zeloz konpondutako makila magikoa atera zuen Ronek. **Iñaki Mendiguren**

Sorgin Astekaria-k antolatutako Iribarrerik Xarmagarrienaren saria. **Iñaki Mendiguren**

Santo Domingon jendea oso sinesbera da **sorgin** eta aztia kontu horietan. **Gotzon Garate**

Harry Potter aztia zen..., Hogwartseko Aztia eta **Sorgin** Eskolan lehen ikasturtea egin berria. **Iñaki Mendiguren**

Sorgin Ordua, Celestina Warbeck **sorgin** kantari ospetsuarekin. **Iñaki Mendiguren**

4 (izenondo gisa)

Harryren gurasa hilak, ama **sorgina** eta aita aztia, sekula ez ziren aipatzen Dursleytarren etxean. **Iñaki Mendiguren**

Garaia eta argala da, eta sudur luze bat eta emazte **sorgin** bat, Darlene izenekoa, dauka. **Oskar Arana**

Sorginen lagun **sorgin** batek ez omen du besterik merezi. **Anjel Lertxundi**

Begitarte erne, kokin eta **sorgin** batekin biltzen du Txominen arreta guzia Graxik. **Eneko Bidegain**

Euskal usarioan izen **sorgina** da Txomin. **Patziku Perurena**

Gaur, apeo hartako hitz **sorgin** batean trabatu zait gogoa: [...]. **Patziku Perurena**

Zer egin zuen euskarazko jendeak hitz **sorgin** horrekin? **Iñaki Segurola**

Izenak ozentasun **sorgina** zeukan. **Koldo Izagirre**

Zenbat holako mezu **sorgin** gordetzen ote du, onomatopeiko ustean askotan ijito hizkera disimulatua baizik ez den kanta xarmagari askok? **Patziku Perurena**

Buhame **sorgin** madarikatu horiek katuaren begiak zauzatek! **Karlos Zabala**

5 (irud/hed edo irain gisa)

Txiki-txikitatik umezurtz, **sorgin** hutsa omen zen izeba batenean bizi zen. **Juan Garzia**

"Beste **sorgin** horrek menpeko edukiko ez balu", damu doinuz adierazi zuen koadrilako batek. **Josu Landa**

Hitzezko galtzerdien inbentarioa osatzeari ekin diozu, kirioen **sorgin** -erratzak hegazkin, dudako hodei guztien gainetik. **Joxerra Garzia**

Munstro, **sorgin**, zeken deitzen zuen, aurreneko senarra hil zuen arte ez zela Peshe lasaitu esaten zuen, seguru, eta gauza berbera egingo ziola berari ere. **Koro Navarro**

Sorgin zaharrak kalera bota nau eta ez dizkit nire gauzak bueltatu. **Lopez de Arana**

Ez al dira neska gehienak **sorgin** samarrak? **Xabier Mendiguren Elizegi**

Sorgin handiak eta urdanga are handiagoak, biak ere! **Joan Mari Irigoien**

Bai: ni, Maria Aranzazu, eta **sorgin** galanta zu! **Joan Mari Irigoien**

Sorgin alua!, doala pikutara, ze arraio! **Patxi Iturritegi**

- **Sorgin** zahar hori! -esan zuen Gavardek purrustan. **Karlos Zabala**

Sorgin zikina! **Patxi Iturritegi**

Sorgin alaena! **Aingeru Epaltza**

Hobe erreko balute atso **sorgina**! **Javi Cillero**

Nun mila **sorgin** egonak zirezte orai arte? **Herría**

6 **sorgin afari** gauerdiko afaria.

Ailegatu, amaren saihets berora bildu eta, xera batzuk eginda, **sorgin-afari** batez gozatzeko parada ez nuen, menturaz, galdua oraino. **Aingeru Epaltza**

Euskadi Irratian bazen orduan **Sorgin afaria** izeneko irratsaioa. **Berría - Kultura**

7 **sorgin-argi** ispilatzea, ispilukeria.

Kamioian dabilta hara-hona, basamortuko **sorgin-argiak** baino iheskorragoak diren helburuen bila. **Josu Zabaleta**

- Sukalde erdian zintzilik bonbila hura jarri zigutenean, barruan hari bakarra bihurrituta ipurtargia zirudiela, dirdira izugarria egiten zuela iruditzen zitzaigun, **sorgin-argia** halakoa, eta amonak bekokian eskua jarri eta itzala eginez begiratzeko zion. **Pako Aristi**

8 **sorgin-baratxuri** mahastietan eta leku hareatsuetan hazten den baratxuri mota (*Allium vineale*).

Krisopidoak, izainak, **sorgin** -baratxuria (*Allium sorginium*) eta odolurra. **Iñaki Mendiguren**

Sorgin -baratxuria ilbetea dagoenean bildu behar da, eta krisopidoak hogeita bat egunez egosi behar dira... **Iñaki Mendiguren**

9 **sorgin belar** (*orobat sorginbelar*) zenbait landareren (*Atropa belladonna*, *taraxacum officinale*...) herri izena.

Haren hanka iharrek burdin hariak ziruditen; haren luma hautsez eta lurrez zikinduek **sorgin-belarren** buruen antzera egiten zuten inurri-azkura. **Juan Kruz Igerabide**

Areakatik errekastratu distiratsu bat igarotzen zen, belar-pusken eta **sorgin-belarren** artetik. **Lopez de Arana**

10 **sorgin dantza**

Indar hartzen ari zen sua ezailei itsatsirik, txinpartaka, gero eta **sorgin-dantza** biziagoan. **Anjel Lertxundi**

Ametsarik bezala, ikusten nituen ene aitzinean dantzan ari, halako **sorgin dantza** bitxi eta ergel batean, Magali, Jakes eta ikaragarriko beldur zoroa emana zidan kukua. **Janbattitt Dirassar**

Hor emaiten dituzte hamabortz bat dantza mota, hala nola "Mutxikoak", "Euskaldunak", "**Sorgin dantzak**", "Makila dantza", "Alemanak", "Xubandiarrak", "Marianak" eta abar. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

11 **sorgin ehiza** oinarri politikoa edo ideologikoa duen esetsaldia.

Antiamerikar Jardueren Buruzko Batzordeak, McCarthy ospetsuaren **sorgin ehiza** bideratu zuen harexek, Gustavo Durani ekin zion. **Edorta Jimenez**

Sorgin-ehiza sekulakoa zen, Joseph McCarthy senatariaren batutapean, eta askatasuna aitzakia bihurtu zen askatasun oro zapaltzeko. **Fernando Morillo**

«Aberriaren zimendu moralak hondatzeaz» salatu zituzten intelektual taldeen kontra aurrera eramandako **sorgin-ehiza** ospetsua, historia maiz errepikarazten baitute hainbatek. **Berría - Kultura**

Bere kontra abiatutako **sorgin ehizaren** inguruan zalantzarik ez du [...]: «Jakina da gehiegikeria honen atzean Alderdi Popularraren hauteskunde interesak daudela». **Berría - Kultura**

Juan Carlos Goienetxek salatu du EArek Zuzendaritzak alderdiko kritikoen kontrako «**sorgin ehiza**» hasi duela. **Berría - Euskal Herria**

Gazteen aurkako «**sorgin ehiza**» salatu du Segi erakundeak. Berria - Euskal Herria

Guardia zibilek herritarrek ondo ezagutzen zituzten eta **sorgin ehizari** ekingo zioten laster. Jon Maia

Sinistu nahi nuke asko eta asko garela ETArekin nazka eginda egonagatik ere argi eta garbi daukagunak **sorgin-ehiza** ez dela konponbidea, gure arteko su etenik gabeko hau ezin dela egurrez estali. Joxerra Garzia

· Asmatzeko zer ote ziren Joana Arkekoaren edo Savonarolaren denboretako inkisidoreak, bai eta zer izan behar zen de Lancre jujearen eta Etxauz apezpikuaren Euskal Herrietan, estatuek eta Erromako elizak, eskuz esku, zeramaten "**sorgin ehiza**". Piarres Xarriton

12 **sorgin erdara** ik beharago 18.

Sorgin solasa, **sorgin erdara**, zapo erdara (zapaerdera) eta ahuntz erdara (auntz erdara, auntz berbetea) dira "hizkuntza" honen izenak, eta horretan aritzen denak esaldi bateko silaba guztiek *p* kontsonanteaz errepikatu behar ditu. Iñaki Arranz

Sorgin erdara ez izan arren, zenbakiak era bitxi batean zerrendatzeko aukera eskaintzen digu euskarak. Iñaki Arranz

Sorgin erdara ez izan arren, zenbakiak era bitxi batean zerrendatzeko aukera eskaintzen digu euskarak. Iñaki Arranz

13 **sorgin gurpil** gurpil zoroa.

Hortaz, ezin da **sorgin-gurpiletik** atera, ezpada zenbait egia hasieratik onartzu, *a priori* eta behin betiko ezarritzat. Jon Muñoz

Dena aurrera egitea duk, eta zenbat eta handiago hobe beti, dirua etengabe mugitzeko **sorgin-gurpil** zoro zentzugabe batean. Juan Luis Zabala

14 **sorgin haize** zirimola, haize zurrunbiloa.

Ur zikina ibaian, **sorgin haize** zakarra Hansel eta Gretelen tximak nahastuz. Harkaitz Cano

Sorgin-haizeak plastikozko poltsak altxatuko ditu errepideetatik. Sonia Gonzalez

Tximistak, Jainkoak bidalitako gezi azkarrak ziren; ekaitz aurreko **sorgin-haize** zirimolatsua, berriz, bere sudurretako haize-bafada beldurgarria. Pello Zabala

15 **sorgin harri** filosofoen harria, alkimistek erabiltzen zuten gaia, metalak eta beste zenbait gai urre bihurtzen saiatzeko. ik harri 17.

Alkimiaren antzinako ikerketa **sorgin-harria** egitearekin lotua dago; kondairazko substantzia bat, ahalmen harrigarriak dituen da berau. Iñaki Mendiguren

Sorgin-harriaz berri asko zabaldu da mendeetan zehar, baina gaur egun dagoen harri bakarra Nicolas Flamel jaunarena da, alkimista ospetsu eta operazalearena. Iñaki Mendiguren

Pentsatzen ari ginen ea esango ote diguzun zer ari den **sorgin-harria** zaintzen, Fluffyz gain. Iñaki Mendiguren

15a **sorgin kutxa** (*corpusean sorginkutxa soilik*)

Gaur deskubritu dudanez ordea, Brooklyngo zubia maratiliz betetako **sorginkutxa** da. Harkaitz Cano

16 **sorgin lore** txikoria-belarraren lorea (*Taraxacum officinale*).

Oraindik urdinu gabeko lizuna, hauts zuri harroa, txikitan hainbeste maite genituen **sorgin-loreen** antzekoa. Eider Rodriguez

17 **sorgin orratz** (*orobat sorginorratz*) burrunzia (*Libellula*).

Gogaikarri bakarrak, hauek: ezin konta ahal **sorgin-orratz**, Herbert bera bere aurrera segitzeko hisiarekin, eta sugeak egon zitezkeelako pentsamendua. Joxe Austin Arrieta

Okasioaren ohoretan, apaingarriz beteriko soineko berde bat zeukan jantzita, eta **sorgin-orratz** handiegi eta distiratsu baten antz ikaragarria zuen. Iñaki Mendiguren

Sentitzen zuen gorputza hegaka hasiko balitzaio bezala, **sorgin-orratz** bat sentitzen zen sarjentu mozkote sendo hura. Fernando Rey

· *irud/hed* Horregatik ez dute ikusi bi puntu zeruan, metalezkoak, bi **sorgin-orratz** erraldi, hodei gero eta zuriagoen itsusgarri. Aingeru Epaltza

18 **sorgin solas** ik gorago 12.

Sorgin solasa, sorgin erdara, zapo erdara (zapaerdera) eta ahuntz erdara (auntz erdara, auntz berbetea) dira "hizkuntza" honen izenak, eta horretan aritzen denak esaldi bateko silaba guztiek *p* kontsonanteaz errepikatu behar ditu. Iñaki Arranz

Lehenbizikoaren kasuan "Harrikada futurista prepositiboa" izeneko testua eman dut jatorrizkoaren ordez, eta bigarren kasuan gurean erabili izan den zapo-erdara, ahuntz-erdara edo **sorgin**-solas derizteten horietako batean moldatu dut testua. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurkako sorgin ehiza (3); **azti eta sorgin** (9); **benetako sorgin** (3); **hitz sorgin** (4); **hogwartseko sorgin** (6); **katalina sorgin gezalakoaren** (3); **lehengo sorgin** (4); **mila sorgin** (10)

sorgin afaria (16); **sorgin afaria antzerkia** (4); **sorgin bat** (13); **sorgin batek** (6); **sorgin baten** (7); **sorgin begibakarraren** (7); **sorgin dantza** (5); **sorgin edo** (7); **sorgin ehiza** (25); **sorgin ehizak** (3); **sorgin ehizan** (5); **sorgin ehizaren** (5); **sorgin eskolan** (3); **sorgin eta** (29); **sorgin eta azti** (15); **sorgin eta axtiirik** (3); **sorgin gaua** (10); **sorgin gezalakoaren** (3); **sorgin haize** (4); **sorgin harria** (8); **sorgin harriaz** (4); **sorgin horrek** (8); **sorgin hutsa** (3); **sorgin itxorio** (11); **sorgin orratz** (4); **sorgin zahar** (10); **sorgin zahar hori** (4); **sorgin zeloz** (3); **zen sorgin** (4); **zer mila sorgin** (8)

ama sorgina (3); **sorgina da** (5); **sorgina zela** (5)

esan zion sorginak (4); **sorginak eta laminak** (3); **sorginak zirela** (5)

azti eta sorginen (4)

sorginaldi *iz* norbait sorgina den aldia.

Urtetako **sorginaldiak** ikaragarri kamustu zuen, eta baita ikaragarri zorroztu ere. Anton Garikano

sorginbelar ik **sorgin** 9.

sorgindu, sorgin(du), sorgintzen 1 da/du *ad* sorgin bihurtu; norbait edo zerbait norbaiten nahiaren mende utzi. (norbait)

Gazte errugabeak ezin zitezkeen sorgin izan bere kabuz, norbaitek **sorgindu** zituen. J.M. Olaizola "Txiliku"

-Dudley nola **sorgindu** bilatzen ari nintzen. Iñaki Mendiguren

Nola "**sorgindu**" Don Kijote, bere sorterrira itzul dadin. Patxi Ezkiaga

Deabruak bi neska **sorgintzeko** agindu zion Micaela Chaudroni; eta honek zintzo-zintzo bete zuen bere jaunaren esana. Juan Martin Elexpuru

-Sirenen lekura iritsiko haiz lehenik; hurbiltzen zaizkien gizon guztiak **sorgintzen** ditizteke haiek. Juan Kruz Igerabide

Eskuan elorri xuri xorta bat erakutsiz jendea **sorgindu** eta liluratzen zuena. Pello Zabala

Malambruno erraldoiak, ordea, ez zuen hori batera ongi ikusi eta **sorgindu** egin zituen, bata tximino eta bestea krokodilo bihurtzen zituelarik. Patxi Ezkiaga

Gogoia erabat hartua zidan, **sorgindua** ninduen. Josu Zabaleta

Hik **sorgindu** egin nindunan hire aurpegiaz, hire begiez, hire ahoaz, hire gorputzaz. Eskarne Mujika

-Zu ez zara Ulises, nire aita, deabru bat baizik, ni **sorgindu** eta oinaze gehiago ematera etorria. Juan Kruz Igerabide

Sorgindu eta seko liluratuta katigatzen ninduten, nondik nora nindoan eta zer ordu zen guztiz ahaztuta. Juan Luis Zabala

Bazirudien ohe huts hura indar ezabagarri misteriozkoren batek **sorgindu** zuela, eta indar horrek bertan etzandako gizonak ezeztatzen zituela eta iluntasunezko eta ahantzurazko erresuma batera igaroarazten. Oskar Arana

· Hurrengo egunean irrikaz joan nintzen metro sarrerara, **sorgindu** ninduten begiak hantxe aurkituko nituen itxaropenarekin. Jasone Osoro

Bi aukera horien artean **sorginduta**, orri zuri bat ikustean orria zikintzera naraman bidaia narrasean murgiltzen naiz etengabe. Pako Aristi

2 (zerbait)

-Leku hau **sorginduta** dago! -esan zuen Ronek. Zer gertatuko litzateke, kutxa **sorgintzen** bazuen, luma bezain arin bihurtuz, gero erratzari lotu, goitik behera kapaz estali eta Londresera hegan joaten bazen? **Iñaki Mendiguren**

Bera zen, bera, espero nuena, desio nuena, deitzen nuena, nire ametsak **sorgintzen** zizkidana. Hilerrriak **sorgintzen** dituen mamu-txakur erraldoia da. **Josu Zabaleta**

-Zerbait egiten ari da... erratza **sorgintzen** edo -esan zuen Hermionek. **Iñaki Mendiguren**

Aintzira gogor-gogor izoztuta zegoen eta Weasley bikiak zigortu egin zituzten elur-bola batzuk **sorgindu** zituztelako, Quirrelli segitu eta durbantearen atzean jo eta errebotatzeko. **Iñaki Mendiguren**

• 3 (era burutua izenondo gisa)

Kapa **sorgindu** bati esker, berriz, ikusezin bihurtzen omen zen. **Martin Anso**

Eseri nintzen, edo hobeki esan, besaulki **sorgindu** hark atzitu ninduen. **Matías Múgica**

Gainera elur **sorgindua**, epel eta lehorra, erortzen zen sabaitik. **Iñaki Mendiguren**

Pasta **sorgindu** bat eman liezadakeela, eta hartara bere asmo zikinen esklabu bihur nintekeela. **Pello Lizarralde**

Ur **sorginduak** kristal-distira izoztuak islatzen ditu. **Itziar Otegi**

Leku **sorgindu** bati bezalakoxe beldurra baitzuen oheari. **Josu Zabaleta**

Bidaia **sorgindu** baten antzera noraezean ibiltzen nintzenean. **Pello Lizarralde**

Eta sinetsita nago, egiaz, emakume **sorgindu** bat zela, sorbalden artean sorgin-kutun misteriozkoren bat zuela. **Josu Zabaleta**

Iragana erauzi, ebaki, hautsi, landu, itxuratu, ito, **sorgindu**, berritu egin dezake. **Anjel Lertxundi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

mendi sorgindua (3)

sorgindurik bezala (5)

sorginduta bezala (4); **sorginduta dago** (3); **sorginduta zegoela** (3)

oroimen sorgintzea (3)

sorgingarri 1 *izond* sorgintzen duena. ik **sorgintzaile**.

Handik hiruzpalau minutura, hedaturik eta nagusiturik aditzen zen parke urrin **sorgingarria**. **Txillardegí**

Asfixiaren lehen zoraldian opio xarmatzaile oinaztarriaren pareko baten mozkor **sorgingarria** ari zen dastatzen. **Josu Zabaleta**

Olatuen soinuak [...] magia **sorgingarria** zeukan. **Fernando Morillo**

[Truman Capotek] *Odol hotzean* eleberrian, egiazko gertakari lazgarri batzuk hartu eta haien kronika erdiragarri bat egin zuen, kazetaritzaren baliabide eta hizkerarekin, erritmo **sorgingarri** batean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 (izen gisa)

Espiritu gaiztoak uxatzeko **sorgingarri** bat. **Oskar Arana**

sorgingo *iz ipar* sorginaren lanbidea; sorginaren antzea.

Jostea beste gauza bat da, bainan xuriketak, ontzi barnean ezartzea, ez da ere **sorgingoa** ... **Menane Oxandabaratz**

Ez duzue **sorgingoa**. **Aurelia Arkotxa**

sorginkeria 1 *iz* sorginari dagokion egite harrigarri eta gaitzesgarria.

Ez bedi izan zuen artean geroa igartzeko magiazko baliabide, **sorginkeria** nahiz aztikeriarik erabiliko duenik. **Elizen arteko biblia**

-Lehenengo, makila magikorik gabe praktikakatu dugu **sorginkeria**. **Iñaki Mendiguren**

Landa zabalera iritsi zirenerako, iluntasuna **sorginkeria** bat bezala ari zen inguruan zabaltzen. *Aztiaren altxorra edo San Ziprianoren liburu handia* delakoan **sorginkeria** ugari eta erremedio onak aipatzen dira bihotz eroriari, eta beste hainbat organo elbarriri, sendabide egokiak emateko. **Iñaki Mendiguren**

Hermioneren **sorginkeria** eraginkorra izan zen. **Iñaki Mendiguren**

Roche baliabide eta **sorginkeria** asko zekizkien, bere etxean entzunda, eguzki-kolpeak sendatzeko eta begikoa uxatzeko. **Josu Zabaleta**

Sorginkeria baten mende egotea bezala zen. **Alberto Ladrón Arana**

Ahmetek amets batean murgildua ematen zuen beti, **sorginkeria** baten eraginpean bezala. **Fernando Rey**

Hurrengo goizean auzoko susmagarria bezperan bezain osasuntsu zegoela ikusi eta **sorginkeriak** huts egin zuela pentsatu zute. **Martin Anso**

Hasieratik beretik **sorginkeria** eta deabrukeria guztiak uxatzen dituen zura eta zuhaitz xuria. **Pello Zabala**

Iduri zuen **sorginkeria** zerbait gertatzen zela etxe hartan, delako gela tipi hartan ez baitzegoen nehor eta Graxik ez baitzuen nehor ikusi sartzen. **Eneko Bidegain**

Buruzagia eta handikia, kontseilaria eta aztikerian aditua eta **sorginkerian** trebatua. **Elizen arteko biblia**

Buru-belarri sartu ziren debekuzkoak zirelako xarma berezia zeukaten ekintza haietan, magian eta **sorginkerietan**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

-Haurra izateko, **sorginkeria** handiak egiten ditu -esan zuen Denverrek. Nik **sorginkeria** erraz batzuk egin izan ditut, praktikatzeko bakarrik. **Anton Garikano**

Antzerki-saio bikaina izan zen, **sorginkeria** psikologikozko lan bat. **Oskar Arana**

-Osabaren tramankulu hori [teleskopioa] **sorginkeria** hutsa da, eta kontuz ibili beharko zenuke. **Joan Mari Irigoien**

Haren lilurak berehalako eragina izaten zuen, ferietako **sorginkeria** maltzurrek bezala. - **Sorginkeria** txiki praktikoa bat da hau -esan zien ikasleei bere bizkar gainetik-. **Ander Irizar**

Sagar-pastela bukatu zutenerako, **sorginkeria** alaigarrien eragina desagertuz zihoakien. **Iñaki Mendiguren**

-Oso **sorginkeria** zaila da -erantzun zion ahots meheaz-. **Iñaki Mendiguren**

Hori **Sorginkeria** Esperimentalen batzordeari dagokio. **Iñaki Mendiguren**

Zorigaiztoko **sorginkerietan** baten araoz bezala, lehertu eta hegan egin zuen. **Agustín Osoa**

3 (izan aditzarekin)

Gezurrezko irudi batzuk, mugitu egiten zirenak... **sorginkeria** zuan hura guretzat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Alanbrezko hariak, hesolatik hesolara kateatuz herri batetik bestera ipini zituztenean, jendeak ez zuen sinesten hari haren barrutik hitzak joan behar zuenik, eta hala zioten: horiek **sorginkeriak** zirela. **Pako Aristi**

Eta ez zaio nehoi gogoratzen zerbait **sorginkeria** badela hor. **Michel Oronoz**

4 (egin aditzarekin)

Sorginkeriak egiten zituela, baserrietara inor konturatu gabe sartzen eta ateratzen zela, eta zegoen tokian zegoela, hurrengo goizean goiz Askizuko baserrian esnatzen zela. **Xabier Etxabe**

Adin txikiko aztiek ez dute baimenik ikastetxetik kanpo **sorginkeriak** egiteko. **Iñaki Mendiguren**

Gure jendeak **sorginkeriak** egin behar izaten dizkie ikusi dituzten muggleei, ahaztu ditzaten. **Iñaki Mendiguren**
-Haurra izateko, **sorginkeria** handiak egiten ditu -esan zuen Denverrek. Nik **sorginkeria** erraz batzuk egin izan ditut, praktikatzeko bakarrik. **Anton Garikano**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aldi berean **sorginkeria** bidez burua gorputzetik banatzen zuela. **Martin Anso**
Haragizko sinbolo erotiko horregatik edo, herejia eta **sorginkeria** kontuetan ere maiz ageri da pikoia. **Patziku Perurena**
Aztizenez berak inspiratu behar izan zidan ideia hori, deskribatu ere ezingo nukeen **sorginkeria** mota bat erabiliz. **Pello Lizarralde**
Ez da sekula izan inolako auzitegitan ezer goitiki beheraino frogatuagorik zenbait heriotza ekarri zioten **sorginkeria** -salaketak baino. **Xabier Olarra**
Eskolako **sorginkeria** -liburuak nahas-mahas pilatuta zeuden txoko batean, komiki-meta baten ondoan. **Iñaki Mendiguren**
Sorginkeria -liburuak, makila magikoa, pertza eta erratza giltzapean gordetzea. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bere sorginkeria (3); **sorginkeria bat** (5); **sorginkeria baten** (3); **sorginkeria liburuak** (5)
sorginkerien aurka jarritako (3)
sorginkierietako eskolan (3); **sorginkierietako eskolara** (3)

sorginkeriazale iz sorginkeriaren zalea den pertsona.

Zorrotz salatuko ditut **sorginkeriazale**, adulteriogile eta gezurrezko zin-egileak; langileei soldata gutxitzen, alargunak eta umezurtzak zapaltzen eta atzerritarrak gaizki erabiltzen dituztenak, begirunerik ez didaten guztiak salatuko ditut. **Elizen arteko biblia**

sorginkume iz irain hitza.

Etorri hona, zuek, **sorginkumeok**, adulteriogile eta prostituziozale zaretenok. **Elizen arteko biblia**
Amonak esaten die: txakurkumeok!; jendeak esaten die: **sorginkumeok**!, putasemeok! **Pablo Sastre**

sorginkutxa ik sorgin 15a.

sorgino iz gizonezko sorgina.

Ala Inkisizioa ez zen, bada, halakoan bila ibili izaten, sorgin, **sorgino**, aztiz eta halakoan atzetik ibiltzen zen sukar berean? **Edorta Jimenez**

sorginorratz ik sorgin 17.

sorgintasun 1 iz xarma, lilura.

Musika hura gaberik ezabaturik zen **sorgintasuna**. **Edorta Jimenez**
Gosaldu ostein Malborkeko gaztelu bikaina bisitatu behar genuela eta, hurrengo **sorgintasun** -dosia hantxe izan nuen. **Edorta Jimenez**

2 (hitz elkartuetan)

Gosaldu ostein Malborkeko gaztelu bikaina bisitatu behar genuela eta, hurrengo **sorgintasun** -dosia hantxe izan nuen. **Edorta Jimenez**

sorgintegi (corpusean sorgintei) iz sorginak biltzeko toikia.

Sorginak **sorgintei**! **Herria**

sorgintsa (Euskaltzaindiak desegokitatzat jotzen du -(t)sa atzizkidun formak ugaltzea) iz andre sorgina.

Orduan baita de Lancre kontseilaria igorria herrieri garbialdi bat eman dezan, Deabruaren meneko diren sorgin eta **sorgintsa** guzietarik. **Michel Oronoz**

sorgintxo iz sorgin gaztea.

Bigarren bisita hartan, adibidez, **sorgintxo** iturako neskato harekin zegoenean, etxeko debekua haustekotan egon zen, eta bere buruari eutsi zion birjina zela ohartu zenean. **Ibon Uribarri**
Tartean baziren **sorgintxo** xelebreak, egun bateko erosketak egitera landatik etorriak. **Iñaki Mendiguren**
Begira **sorgintxo** honi, dardara batean dago. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

sorgintzaile 1 izond sorgintzen duena. ik sorgingarri.

Lokarrarazi zuten arren, birjina zen arren, neskato **sorgintzaile** bat zen zalantzarik gabe. **Ibon Uribarri**
Geureganatutako rolek agintzen ziguten nik egin behar nuela aurrerako urratsa; berak, izatekotan, irribarre **sorgintzaile** harekin tira egingo zidan, ausar nendin behingoz. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Aurpegiera **sorgintzaile** hark xarmatuta, debekatutako jokabidearen deiarri jarraiki zitzaion une batez Egutxi. **Ibon Uribarri**
Sirenen kantu **sorgintzailearen** moduan. **Joxan Elozegi**

2 (izen gisa, hitz elkartuetan)

Janari-saltoki batzuk zabalik zeuden oraindik, baina musika-riak, dantzariak, suge-**sorgintzaileak**, titiriteroak, Yamaa el Fnan elkartzen diren animatzaile guztiak joanda zeuden. **Bernardo Atxaga**

sorgintzar 1 iz adkor sorgin handia.

Greziaiko Maia jainkosa, olerkitan gazte noble alaia dena, maja hitzetik izen hartutakoa da, amama litzatekeena, **sorgintzar** zena, Hermesen ama. **Pello Zabala**

2 (irain hitz gisa)

Hura bai **sorgintzara!** Txillardegi

sorgintze 1 iz norbait edo zerbait norbaiten nahiaren mende uztea.

Aita bere onetik aterata ibili zen, bera eta Perkins izeneko azti zahar bat bakarrik baitaude bulegoan, eta oroimena galtzeko **sorgintzeak** eta horrelakoak egin behar izan zituzten dena estaltzeko... Iñaki Mendiguren

Babestua zegoen hura Lajosi zerion diridai eta liluraren aurka, Lajoseren ustez dena eta denak, baita animaliak eta gauzaki bizigabeak ere harrapatzen zituen **sorgintze** haren aurka. Ander Irizar

Tobosorako bidaia eta Dulzinearen **sorgintzea**, lehoien abentura, Montesinos leizea, Camachoren ezteiak... Patxi Ezkiaga

2 (hitz elkartuetan)

Makila ederra **sorgintze**-lanak egiteko. Iñaki Mendiguren

Gero, oroimen-**sorgintzea** egin behar izan nien, ezer gogora ez zezaten. Iñaki Mendiguren

sorgor 1 izond sentimenek edo sentipenek eragiten ez diona. ik **sor²**; **soraio**.

Haietako batek mezu bat zeukan eskuan, arkatzez idatzirik, eta, besteari aurre hartuz, korrika joan zen enplegatu **sorgoraren** leihatilara. Karlos Zabala

Nire bular aldean bihotz hil eta **sorgor** bati toki egitearen. Mirentxu Larrañaga

Alferrik nuen gehiago saiatzea, Umberto itzaltzen ari baitzen eta halako isilaldi **sorgor** batean sartzen. Anjel Lertxundi

Ez dut uste sekula izana nintzenik gau hartan bezain **sorgor** inguruan gertatzen ari zenaren aurrean, hain neure baitan itxirik, hain besteraturik. Oskar Arana

Erabat **sorgor** bihurtu zen, traste edo altzari baten pare. Ander Irizar

Frantziskok **sorgor** zirudien gauza guztietarako eta, bizirik gabeko gorputza bezala, ez zen gertatzen ari zenaz ohartu. Askoren artean

Pena zen, ikuskizun hark, lurrin hark bular jada **sorgorrean** sentipen bat sortarazten baitzidan. Urtzi Urrutikoetxea

Ez nintzen itsua, ezta **sorgorra** ere. Jon Muñoz

2 (adizlagun gisa)

Deliberatu nuen, sentibera nintzelako hain zuzen ere, **sorgor** agertzea haren aitzinean. Jon Muñoz

Nahiz eta ukitu, heldu eta estutu, **sorgor** dagoen pertsonak bezala, ez zuen inguruan gertatzen edo esaten zen ezertxo ere sentitzen. Askoren artean

Kristalari itsatsirik nengoen, paisaia ezezagunari **sorgor** begira. Juan Kruz Igerabide

Lozorroan bezala egoten baitzen, soraio eta **sorgor**, hain izan baitzen boritza psikiatrarak -Mendoza jaunak- jarri zion tratamendua. Joan Mari Irigoien

Bero errea egiten zuen, baina Salemdarrek, eguzkiaren erasanarekiko guztiz **sorgor**, udaletxeko atariaren aurrez aurre eraikitako urkamendian zeukatzen jarrirek beren arreta osoa. Anjel Lertxundi

Uztailaren 30ean, arratsaldeko lauretan, Mikel Strogoff, nekeari **sorgor**, Elamsk hirira sartu zen. Karlos Zabala

Emakume eratsuak, ia denak beltzez jantziak, elkarrizketei, deidarrei eta mahai gaineko edariei **sorgor**. Jose Morales

Batere entusiasmorik gabe ziharduen, soraio eta **sorgor**. Joan Mari Irigoien

K. L. idazle gazteak berean jarraitzen du, **sorgor** eta itsu, ezer gertatuko ez balitz bezala. Karlos Linazasoro

-Jauzi egiteko gogoia ematen du, lastaira baten gainera bezala, ezta? -esan zidan Idoiak, begirada **sorgor**. Juan Kruz Igerabide

3 (izen gisa)

Afalostean, ardoaren **sorgorrean**, autoan itzuli ziren kaira. Aritz Gorrotxategi

Whiskyaren **sorgorraz** gozatu ahala, apirileko kanpai hotsak datozkit burura. Aritz Gorrotxategi

4 sorra, ia nabari ez dena, bizia ez dena.

Dardara eta ateen zarata horren justu aurretik entzuten zen durundioa, lurraren erraietatik zetorrela zirudien marru **sorgor** hura. Jokin Urain

Lotarako pilulen eragina ongi nabaritzen zen, esna irautea neketsu zitzaion eta buruko min **sorgor** bat zuen. Ibon Uribarri

Poliki-poliki, ezinegon **sorgor** batek atsekabetu zuen. Karlos Zabala

Aldi berean gatazka **sorgor** baten hotsak suma zitezkeen bien artean. Joxean Agirre

Bere hezurduraren hotzikara **sorgorra**, piztia izutu batenaren antzekoa. Joxean Agirre

Auzoko kazeta zen hura bete-betean, txioren bekaizkeria **sorgorrek** eta kreditu ukatuek mingostua. Karlos Zabala

Jelosia **sorgor** horrek Florenten aurkari sistematiko bihurtu zuen. Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gutziz sorgor (5)

sorgorgarri 1 izond sorgortzen duena. ik **sorgarri**.

Berriz ere mantentzen artean lerratu nintzen, oheko epeltasun **sorgorgarrian** murgilduz. Alberto Ladron Arana

Hor izango nuen neure proiektua, bila ibilitako zaldi kulunkari txikia, errutina **sorgorgarriaren** nagitasunetik aterako ninduen josteta kuttuna. Oskar Arana

2 (izen gisa)

Truxa irakaslearen ustez, **sorgorgarri** honen erabilpena ekialdera zegoen mugatua hasieran. Anton Garikano

sorgorkari iz sorgortzen duen gauza.

-Zorioneko gaudek **sorgorkarien** edukitza gehitu ez diotelarik kargu horri -kontesta Kixok azkenik. Aingeru Epaltza

sorgorragotu, sorgorrago(tu), sorgorragotzen da/du ad sorgorrago bihurtu.

Biharamunean, jostunarengana joan aurretik, hau da, Luteziarengana, tamaina baino gehiago edan nuen eta gero eta **sorgorragotzen** nintzen ahala, ustez gero eta argiagotzen zitzaizkidan ideiak eta gero eta maltzurragoko planak egiten nituen. Matías Múgica

sorgortasun 1 iz sorgorra denaren nolakotasuna, sorgor dagoenaren egoera.

Gau eta egun hari so, ea "seme" hitza ezaipainetartzen zitzaion, baina esku hutsik ordu arte, ezerk ez baitzuen asaldatzen Marfa Strogoffen **sorgortasuna**. Karlos Zabala

Ahaleginean ari nintzen gaineratu zitzaidan **sorgortasuna** gainditu nahian, nire onera etorri eta zer egin pentsatzeko. Koro Navarro

Sorgortuta zetzan ohean Taibele. Koro Navarro

Iratzarri berritako **sorgortasunean**. Oskar Arana

Amets-antzeko **sorgortasun** lausoan murgilduta bizi zen. Mirentxu Larrañaga

Ongi erantzuten ari zitzaion tratamenduari, **sorgortasunetik** ernetasuneranzko bere barne-bidaia hartan, nolabait esatearren. Joan Mari Irigoien

Sorgortasunezko beste tarte bat etorri zen gero; laburra izan zen; zeren, berriz piztu nintzenean, pendulararen beheraldi nabarmenik ez bainuen sumatu. Koro Navarro

Zurbil zegoen, lur jota, **sorgortasunezko** egoera ikaragarri batean, hala nola egoten baita gizabanakoa aurrean dakusanean herio beltz eta ezin saihestuzkoa. Jose Morales

2 (hitz elkartuetan)

Udako beroak berezkoa duen moteltasunari arratsaldeak ohi dakarren geldotasuna erantsi zaio, sukarrari halako **sorgortasun** sentipen bat itsasten zaion bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Gero eta handiagotoz doan pilula-dosier eraginagatik, **sorgortasun** itxurako bat nagusitzen da eriaren baitan. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

halako sorgortasun (4)

sorgortu, sorgor(tu), sorgortzen 1 da/du *ad* sorgor gelditu, sentimenik gabe gelditu.

Manhattango etxebizitzan **sorgortu**, bahitu eta hegazkinez Dominikar Errepublikara eraman zuten, Leonidas Trujillo diktadorearen aginduz, eta hantxe bertan akabatu zuten, torturatu eta gero. Berria - Kultura

Abereak horrelaxe gelditzen dira hil aurretik, bekokian kolpe bat emanez **sorgortzen** ditugunean. Jose Morales

Bizi-sentipen horrek heriotza uxatu zuen, eta Jansonek begiak ireki zituen, eta, burmuina **sorgorturik**, lo sakonean igaro zuen gauaren gainerakoa. Jose Morales

Arratoiekin hala lan eginez, hemisferio bat zenbait orduz **sorgorturik** edukitzea lortu zuen Buresek, garunaren beste erdiari eragin gabe. Irene Aldasoro

Kontzientzia **sorgortzeko** erabiltzen duten edari mistikoa. Xabier Olarra

Sorgortuta nuen barnea, sentimenduz hustua. Mirentxu Larrañaga

Ezertxo ere ez zitzaion ezkututzen nire oharren zoli artean **sorgortu** gabeari. Jose Morales

Uste dut nire sumintasuna **sorgortuta** egon zela aitak eta amak emandako argibideek iraun zuten bitartean. Anjel Lertxundi

Ezin esan dezakegu gure protagonista hain latza eta bihozgabea zenik eta hain **sorgorturik** zeukanik sentimena. Jose Morales

Izan ere, Gustavo musika eztiak **sorgorturik** zegoen, ametsetik gertu. Felipe Juaristi

Harry Gryffindorreko egongelara itzuli zen entrenatu ostean, hotzak **sorgortuta**. Iñaki Mendiguren

Behin, intxaurrendo baten itzalean lotan gelditu zen, eta, esnatzean, hain **sorgortua** zuen gorputza, ezin baitzen inola ere ibili. Askoren artean

Sorgortuta baino gehiago xarmatuta zegoen. Ibon Uribarri

Horregatik, adibidez, **sorgortzen** du mina anesthesiak. Askoren artean

Bolbora usaina sudur-zuloetan sartzeak izua **sorgortu** balio bezala. Joxemari Urteaga

Bietan zentzumenak luze gabe **sorgortu** zizkidaten loaren beso gotorrek. Aingeru Epaltza

2 (era burutua izenondo gisa)

Horrekin batera, ezkontzak hezurrak biziagotu eta gorputz **sorgortuak** piztu egiten ditu. Patxi Zubizarreta

Hanka **sorgortuak** arin ibiltzera behartu nituen. Alberto Ladron Arana

Harryk, zango **sorgortuetan** gora izua sumatzen zuela, Riddle ikusi zuen. Iñaki Mendiguren

Hartxintxarra aldo-maldoka zebilenez, ezin nuen haren gainean pausarazi besoetan nola-hala eusten nion neskatila **sorgortua**. Joxe Austin Arrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hain sorgortua (3)

sorgortuta zegoen (5)

sorgortzaile *izond* sorgortzen duena.

Lo egiten saiatzen dira batzuk, autobusaren zurrumurru **sorgortzailearen** kulunkan. Xabier Mendiguren Elizegi

sorgortze *iz* sorgor gelditzea, sentimenik gabe gelditzea.

Kamustu egiten dira lehen oinazeen ertz biziak, **sorgortzeak** eta kexuek leku uzten diote errealitatearen onarpen geldiari. Joxan Elozegi

Hotza nabaritzen nuen, hotz sarkorra, **sorgortzailea**. Alberto Ladron Arana

sorgune 1 *iz* zerbait sortzen den gunea.

Israeldarrek partimen horietan berentzat hautatuak dituztela lurrik hoberenak eta uraren **sorgune** jorienak ere ura hoin xuhur den lurralde horietan. Herria

Kapitalismoak **sorgunetik** periferiarantz egiten duen zabalkuntzari baitagokio. Koro Navarro

Zerbaiten heriotza ez baita zerbaiten azkena, ezpada forma berrien -beraz, eraldakuntzaren- **sorgunea**, bilakabide berrien hastapena. Joxe Azurmendi

Animalei buruz zalantzak izan ditzakegu, haziak animaliengandik datozen edota, alderantziz, animaliak hazietatik; dena den, edozein delarik lehena, hauek ere lurra dutela

sorgune, dudarik ez dago. Imanol Unzurrunzaga

2 (hitz elkartuetan)

Ohartarazi zuen segurtasun indarrei manua emana dietela «bortizkeria **sorgune** guztien kontrako borroka irmo bat eramateko». Berria - Mundua

sorho ik **soro**.

sori izan 1 da *ad* zilegi izan.

Jesu Kristoren ordezkoaren baimenik gabe hura hartzera menturatzen ez direnei, nahiz ez den **sori** horrelakorik egitea. Piarres Xarriton

Reno-raz geroz, hoin aipatuak diren Joko etxe edo sos etxe horietan itzuliño bat egin gabe ez zen **sori** izanen, memento batez kilikatu ditugu makina horiek, inkas eta ere! burugabea litzateke judizio analitikoa esperientzian oinarritzea, zeren ez baitzait **sori** nire adigaitik irtetea judizioa egiteko, eta beraz, esperientziaren lekukorik ez baitut behar horretarako. Herria

Zientzia guztien artean Metafisikari besterik ez zaio **sori** halako osaketa agintzea hemen honetaz emango ditugun adigaien arabera. Ibon Uribarri

Baigorri!, Baigorri!, hil edo bizi!, eta oro **sori**! **Piarres Xarriton**

2 (du aditz gisa)

Ez ote nuen nik hura neure nahikeriaren nahikeria bihurtu, hau nahi dut eta hura ere nahi dut, eta nahi dudan guztia zilegi dut eta **sori** dut, zeren halakoa baita zorionaren bidea...? **Joan Mari Irigoien**

Larriek **sori** duten zenbat gauza dute debeku haurrek? **Joxe Azurmendi**

soriano iz Soriakoa.

Sorianoak izango ziren, Kakok esan zuen, eta ke-ba! eta bertakoak ere bazirela eta hala zirela gehienak. **Pablo Sastre**

sorjeskeria ik sorddeskeria.

sorkari 1 iz ezerezetik ilkia izan den izakia edo gauza.

Jaungoikoa da **sorkari** guztien egilea. **Imanol Unzurrunzaga**

Jaungoikoak *ex nihilo* egin ditu izaki guztiak eta horregatik bereizten dira Jaungoikoa eta **sorkariak**. **Imanol Unzurrunzaga**

Zeruan eta lur gainean den **sorkari** orok eta lur azpian eta itsaspean diren guztiak. **Askoren artean**

Jaunaren **sorkari** guztiok, bedeinka ezazue Jauna. **Elizen arteko biblia**

Pertsonaia hauek ez dute azaldu behar, ordea, fantasmak balira bezala, errealitate sortuak bezala baizik, fantasiaren **sorkari** aldaezin bezala alegia. **Josu Zabaleta**

Nire gogoaren **sorkari** izanda ere, dagoeneko nirea ez baina berena zen bizitza bat bizi zuten sei pertsonaia horiek. **Josu Zabaleta**

Izan ere, ideia arrazoimenaren **sorkari** soila da. ohartarazi ere egiten diet itsasontzi batean goazela, hots, teknikaren **sorkari** batean. **Ibon Uribarri**

Txartu daitekeen **sorkari** oro da ona. **Imanol Unzurrunzaga**

Sorkari guztiak dira onak, baina ez erabat onak; ondorioz, galkorrak dira. **Imanol Unzurrunzaga**

Pertzepzio bakoitza **sorkari** bat da; oroitzapen bakoitza, ber-**sorkari** bat: oroitzea harremana ezartzea da beti, generalizatzea, errekatgorizatzea. **Xabier Olarra**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sorkari bizidun eta bizigabeei zien maitasuna. **Askoren artean**

Sorkaririk ergelenetakoa dela gizakia. **Patziku Perurena**

Zerk darama **sorkari** arrazionala ongitik gaitzera? **Imanol Unzurrunzaga**

Batasuna da sorkari guztiak bilatzen dutena, baita **sorkari** behekoenak ere. **Joan Mari Lekuona**

Alde bat utzi **sorkari** erorkorrak eta geure geurekoikeriak, Jaunari urrats irmoz jarraitzeko. **Joan Mari Lekuona**

Izan gogoan **sorkari** pobrea naizela ni eta Zu Jauna zarela, nire Egilea, nire Eroslea. **Joan Mari Lekuona**

Sorkari hutsalen zorigaitzean jartzen dudala atsegin eta kontsolamendua. **Joan Mari Lekuona**

Argi dago, gizaki fededunaren arima, **sorkaririk** nobleena, Jainkoaren graziaz zerua bera baino handiagoa dela. **Askoren artean**

Munstro ikaragarrien horiek, hain zuzen, naturaz kontrako hibridoak dira: **sorkari** higuigarriak guztiz, hala nola erdi arrain erdi txakur direnak, edo erdi arratoi erdi intsektu, edo erdi gizon erdi txori. **Juan Garzia**

Eleen eta antzeko **sorkarien** sena harmoniatsua da eta guztien onera zuzenduta dago. **Esteban Antxustegi**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Maisuek diotenez, zori ondunek zeruan ez dituzte sorkariak ezagutzen beren **sorkari** -irudietan, baizik eta jatorrizko irudiaren argitan. **Joan Mari Lekuona**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Giza **sorkariak**, hurbilagoak dira, batez ere elkarren antzeko izateari esker. **Joan Mari Lekuona**

Fantasma orok, arte **sorkari** orok, izateko, bere drama behar du izan. **Josu Zabaleta**

Biziagoa da Kixotearen mamu aleman nahiz eskandinaviar nahiz indostanikoa, estelistaren hitz-**sorkari** asmotsuak baino. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere sorkari (4); **haren sorkari** (3); **jaunaren sorkari** (3); **jaungoikoaren sorkari** (3); **munduko sorkari** (5); **sorkari berri** (4)
jainkoaren sorkariak (3)

bere sorkarien (3); **haren sorkarien** (3); **jaunaren sorkarien** (3); **sorkarien artean** (8); **sorkarien kantika** (4)

bere sorkarietan (3); **sorkarietan aurkitzen** (3); **sorkarietan bilatzen** (3)

sorkera ik sorrera.

sorketa (32 agerraldi, 5 liburutan) 1 iz sortzea. ik sorkuntza.

Gizakiengan, baita sorkari irrazionalan ere, **sorketaren** beharbadakotasuna egoeraren menpean dago. **Ibon Uribarri**

Inork ez du saiatzeko zientzia baten **sorketa** ideia bat ezarri gabe oinarrian. **Ibon Uribarri**

Guraso pare batetik **sorketaren** behearazko lerroan amaierarik gabe aurrera egin daiteke. **Ibon Uribarri**

Ez da ez psikologia, ez soziologia, eta ezta oro har **sorketaren** antropologia ere. ez zegoela errealiterik, errealitate baten edo mila errealiteren **sorketa** baizik. **Xabier Arregi**

Baita bera zuzentzen badu ere denboraren baitako etengabeko **sorketaren** ideiak. **Xabier Arregi**

2 (izenondoekin)

Egitura dramatiko soilak dira [...] memoria kolektiboan gordeak eta ahoz zabalduak, **sorketa** literario etengabe berriei bidea egiten dietenak. **Bernardo Atxaga**

Euren jaiotze-unea (berdin da euren **sorketa** enpirikoa den, edo jatorria ematen dien ekintza transzendentala den). **Xabier Arregi**

Sorketa ordenatu baten gaiaren eta natura oparo baten gaiaren artean. **Xabier Arregi**

Ikusi da enuntziatu guztiak erregularitasunen batekin dutela zerikusia -ondorioz bata ere ezingo da kontsideratu **sorketa** huts bezala, edo jeinuaren desordena zoragarri gisara-. **Xabier Arregi**

sorkide iz sortze berekoa.

Arimak nola ahalko du gorputzarekin batera indartu eta adin-lore desiratua harrapatu, jatorrian bertan **sorkide** ez bada? **Xabier Amuriza**

«Euskara hizkuntzaren ernamuin diren antzinako arketipoen bidetik dator», Zubiagaren ustez, «eta bere **sorkideak** Antzinako Sortalde Erdiguneko kulturetan kokatu ziren,

sorkunde iz sorkuntza.

Ez utzi eguzkitan ibiltzen: zoragarria da **sorkundea**. **Juan Garzia**

sorkuntza (731 agerraldi, 69 liburu eta 316 artikulutan) 1 iz sortzea. ik **sorketa**. (arte eta literatura-alorrean)

Sorkuntza ene familian beti baloratu izan da, egiten nituen marrazki eta pinturak etxean beti baloratzen zizkidaten. **Ana Urkiza**

Bertsolarien **sorkuntza** errepikaezina da: une iragankor batean sortzeko gaitasunak ematen dio zentzua bertsolari. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Narrazio baten **sorkuntza** eta bilakaeraz ari garelako. **Iñaki Arranz**

Arte guzia, gizakion **sorkuntza** guzia, Don Beldur-en asmaketa taigabea duzu. **Patziku Perurena**

Artea "**sorkuntza**" gisa hartzen duen ikusmolde ohiokoaren oinarririk bistakoena. **Josu Zabaleta**

Sorkuntzak baldintza batzuk errespetatu behar ditu: [...]. **Herria**

Musikaren **sorkuntzan** ere hainbat lagunek hartu dute parte. **Berria - Kultura**

Denboran gertatzen ez den irudian ere badela denbora, ikuslea irudiaren **sorkuntzaz**, filmologoek dioten bezala, irudiaren **sorkuntza**-denboraz, aurrejakintza bat eskatzen duen apailu batean egoki sartzen baldin bada behintzat. **Josu Zabaleta**

Iparraldean dantza berrien **sorkuntza** sustatu nahi du Euskal Dantzarien Biltzarrak. **Berria - Kultura**

Proiektuaren ideia asmatzea, testuen **sorkuntza** bera, produkzioaren zeregin neketsuak eta, azkenik, salmentaren lan beti esker txarrekoa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Sorkuntzen artean, bata espresuki jaialdirako sortua dute, Jorge Oteiza omenduko duen ikusgarria, hain justu. **Berria - Kultura**

Igandean, bi **sorkuntza** daizkigu eskainiko, "Hiruki"eta "Lauki". **Herria**

2 (arte eta literatura-alorrean, izenondoekin)

Bertsolaritzak eta ahozko **sorkuntza** artistikoekin egin duten ekarpena. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Elkarrizketa haiek "gizonaren egia eta **sorkuntza** artistikoaren gaineko egia" ezagutzeko zirela aipatzen zuen. **Ana Urkiza**

Zure kezka edo **sorkuntza** literarioa konpartitu ahal izateko, lagun talderik izan duzu? **Ana Urkiza**

Orduko tailerretan, **sorkuntza** kolektiboa bultzatzen nuen. **Ana Urkiza**

Etorkizunari begira, euskal kultura eta **sorkuntza** polifoniko bat amesten du. **Ana Urkiza**

Kolegio eta lizeotako **sorkuntza** koregrafiko egonaldia Bidarrain. **Herria**

3 (arte eta literatura-alorrean, hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Autoreek normalean ezkutatu egiten dutelako beren **sorkuntza** lanaren nekea. **Josu Zabaleta**

Eszenografoaren lanbidea aski berandu azaldu zen antzerkian; gaur egun **sorkuntza**-lan, artelan bezala ikusten da. **Josu Zabaleta**

Benetako artistak, bere **sorkuntza**-lanetan, ahalik gutxien hitz egiten dik arteaz (osterantzean, ez duk artista, birtuoso bat baizik). **Anjel Lertxundi**

Gero, **sorkuntza** krisia ezagutu zuten, hirugarren elepearen sindromea deitutakoa alegia. **Patxi Iturritegi**

Testuen **sorkuntza**-historian, hiru une garrantzitsu bereiz daitezke. **Askoren artean**

Oinarri duen **sorkuntza**-jardunak, bertsogintzak, autoerregulazio ekonomiko handia baitu. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Kultur eta **sorkuntza** alorrak eta agenteek ez dute behar adinako lekurik izan ekitaldian. ikastaldiak eta **sorkuntza** egonaldiak eskaintzeko espazio bateko osatuko du Argazkiaren Etxeak. **Berria - Kultura**

Bat-bateko bertsorearen **sorkuntza** prozesua. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Ni **sorkuntza** faseaz ari naiz. **Ana Urkiza**

4 (arte eta literatura-alorrean, hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Azterketa literarioa eta literatur **sorkuntza**, biak pareko? **Ana Urkiza**

Literatur **sorkuntzarako** burtsaduna. **Ramuntxo Etxeberrí**

Sari horiek guztiak han-hemenka zabaldu dituen musika **sorkuntzengatik** jaso ditu. **Berria - Kultura**

Bada espantuzko eta soseguzko giro limurtzailea Juan Mari Lekuonaren kultur **sorkuntza** osoan. **Berria - Harian**

Ortziralean beraz, Ekain, Aitxerri eta Otsozelaiko harpeetako margoen inguruan piztu musika eta olerki **sorkuntza**: hor izanen da. **Herria**

Hor sortzen da sortzaileen eta entzuleriaren arteko konplizitatea, bat-bateko bertsu-**sorkuntzarako** ezinbesteko oreka. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Irudi-**sorkuntza** inoiz ez da izaten guztiz zertarakorik gabea. **Josu Zabaleta**

PILOTAR(H)ITZA ikusgarri-**sorkuntza** berri-berria: pilota, dantza, müsika eta hitza alkarri josirik, honako herri maitale hauekin: [...]. **Herria**

5 (arte eta literatura-alorrean, hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Poesian eman zituen bere lehen literatur **sorkuntza**-lanak. **Ana Urkiza**

6 (bestelakoetan)

Halabeharrezko prozesu bat da **sorkuntza**: emeak milaka arrautza erruten ditu eta arrak ere emankortasun beraz jartzen du hazia, baina arrautza batzuk baino ez dira ernaltzen. **Irene Aldasoro**

Teknologiaren bidez, posible da **sorkuntza** saihestea eta enbrioia heldutasunera iritsi baino lehen galaraztea. **Irene Aldasoro**

Era berean ageriko gauzen **sorkuntza** Jaungoikoaren barne ekintza da. **Imanol Unzurrunzaga**

Gaizkiaren piztia da hura, deabruaren **sorkuntza** bat. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Gauzen jatorri erradikala eta unibertsoaren **sorkuntza**. **Iñaki Mendiguren**

Urtaroen aldakuntzak eta fruituen **sorkuntza**. **Xabier Amuriza**

Seaskako ikastolen **sorkuntza** eta eraikuntzan parte hartu zuen eta irakaskuntzan zazpi urtez jardun. **Filipe Bidart**

Lázló-Jozsef Bíróri zor zaio lehenengo luma boladunaren asmakuntza, idazteko erabilgarria zen lehenengo bolalumaren **sorkuntza**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Labur esanda, inbertsioa, eta beraz lanpostuen **sorkuntza**, hala areagotu daiteke: [...]. **Iñaki Heras**

Ekonomia hazkunde, enpleguaren **sorkuntza**, prezioen egonkortasuna. **Iñaki Heras**

Neoliberalismoak Gobernu Kanpoko Erakundeen **sorkuntza** sustatzen du. **Iñaki Heras**

Louis Pasteur frantsesak (1822-1895) mikrobioen berezko **sorkuntza** frogara argien bidez gezurtatu zuen arte. **Xabier Kintana**

7 (bestelakoetan, hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Giza izaera markatua baitago Jainkoaren **sorkuntza**-lanaren ezaugarri den aniztasun emankorrek. **Iñaki Mendiguren**

Merezimendu handiko obra da, **sorkuntza**-lan filosofiko eta politiko gisa. **Esteban Antxustegi**

Gure espeziea guztiz suntsituko balitz, naturak berreskuratu egingo luke guri utzi digun **sorkuntza**-indarra, eta energiak beterik geratuko litzateke bere lanerako. **Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio**

Gizarte-desintegrazioaren ondorio hauek badute rol bat **sorkuntza**-egintza berrietan jokatzeke. **Iñaki Mendiguren**

8 (estelakoetan, hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Errealitatea giza **sorkuntza** dela, egiaztat hartzen den sinesmen multzoa ezagutza den bezala. **Iñaki Heras**

Inbertsioa eta enplegu **sorkuntza** sustatzeko. **Iñaki Heras**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arte sorkuntza (4); **azken sorkuntza aurkeztuko** (3); **bere azken sorkuntza** (6); **bere sorkuntza** (12); **bere sorkuntza lanetan** (3); **beren sorkuntza** (3); **bideo sorkuntza** (3); **dantza sorkuntza** (5)

enplegu sorkuntza (6); **gazteen sorkuntza** (3)

kultur sorkuntza (4); **lehen sorkuntza** (4); **literatur sorkuntza** (3); **musika sorkuntza** (4)

sorkuntza artistikoaren (5); **sorkuntza berri** (3); **sorkuntza berria** (5); **sorkuntza berriak** (3); **sorkuntza eta zuzendaritza** (3); **sorkuntza intelektuala** (4); **sorkuntza izan** (3); **sorkuntza lan** (7); **sorkuntza lana** (8); **sorkuntza lanak** (4); **sorkuntza lanaren** (3); **sorkuntza lanetan** (5); **sorkuntza prozesu** (4); **sorkuntza prozesua** (3); **sorkuntza prozesuan** (5); **sorkuntza saria** (5); **sorkuntza sustatuz** (3)

taldearen sorkuntza (4)

azken sorkuntzak (3); **beren sorkuntzak** (3); **lanpostuen sorkuntzak ere** (3)

literatur sorkuntzarako (5); **sorkuntzarako diru** (3)

sorkuntzarekin batera (3)

dantza sorkuntzaren (4)

sorkuntzalari iz sorkuntza lanak egiten dituen pertsona.

Hatsa elkarteak proposatzen du, jaz bezala Urdazuri ibaian bizi diren **sorkuntzalari** guzieri (haurrak ere, nahi badute), 2 egunez Uztailean eta 2 egunez Abuztuan, erakusketa batean parte hartzea. **Herria**

Hatsa elkarteak proposatzen du Senpereko kultural elkarte bai **sorkuntzalari** guzieri, oraino 2 egunez elgarrekin erakusketa batean dohainik parte hartzea. **Herria**

sorkura iz sortzea.

Iraultzak aberastu zuen Goriot lotsagarri zaie alabei, aitaren aberastasunak goititu baditu ere **sorkuraz** ez zegokien gizarte goialde aristokratikora. **Markos Zapiain**

Eleberrri honetan kanpoaldea Nancy da (Ainhoa Goenkale), taldekideak ez bezalakoa **sorkuraz**, menturaz zein adinez. **Markos Zapiain**

Gatazka hau dute erlijioek **sorkura**. **Markos Zapiain**

Ez balitz holandarraren galtzarbeen eskandaluaz ohartu, ilusioak egin ahal izango zituen oraindik Fubukik eta begiak itxi, bide batez, balizko ezkongaiaren **sorkurazko** akats horren aurrean. **Joxan Elosemi**

sorle ik sortzaile.

sorleku (orobat *sor leku g.er.* eta *sortleku g.er.*) 1 iz sortze lekua.

Idazkari lanetan ezarria zuten zaindari batek izen-deiturak, adina eta **sorlekua** galdegin zizkion. **Eneko Bidegain**

Siriaren hijazi-luzapena hegoalderantz Itsaso Gorriaren ertzeko goi-lurretan zehar kristau-heresia baten **sorleku** da, Islamaren erlijio berri bilakatu zena. **Iñaki Mendiguren**

Oxus-Jaxartes arroa mahayanaren **sorlekua** izan zen, Ekialde Urruneko mundura hedatu zen forman, eta, horren aurretik, agian zoroastrismoarena. **Iñaki Mendiguren**

Ba omen ziren zazpi hiri Homeroren **sorleku** izana aldarrikatzen zutenak. **Xabier Olarra**

Horra hor, behin eta berriz, gure gibel zaharra, amore minen **sorleku** eta aterbe, egungo usarioan bihotza legez. **Patziku Perurena**

Delitu honek legean bertan du **sorlekua**. **Juan Martin Elexpuru**

Portziunkula Ordenaren **sorleku** eta eredu bezala hartzen zen. **Askoren artean**

Bide franko urratuak zituzten Urdazubiko **sorlekua** utziz geroztik. **Aingeru Epaltza**

Herri bakoitzak bere **sorlekua**. **Elizen arteko biblia**

Bere **sorlekuko** bizimodua du gustuko. **Martin Anso**

Halako batean, nire **sorlekua** ikusezina zela pentsatu nuen. **Bernardo Atxaga**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Inspirazioa bera bezala, jenialtasuna dohain sekretua zen, esoterikoa, **sorleku** ezezagunekoa. **Bernardo Atxaga**

Eskandinavia, eta batik bat Norvegia, jazz modernoaren **sorleku** garrantzitsuenetakoa bihurtu da azkeneko urteotan. **Berria - Kultura**

Ez urruneko **sorlekuak** ez aspaldiko ume denborak. **Joseba Sarrionandia**

Halako herrik halako **sorlekua**. **Elizen arteko biblia**

3 (hitz elkartuetan)

Aipatu goi bilera benetako ideia-**sorleku** gisa agertu zen gizarte zibilaren esparruan. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere sorlekua (6)

bere sorlekuan (6)

sorlekura itzulia (3)

sormarka ik sor-marka.

sormen 1 iz sortzeko ahalmena, arte eta literatura-lanak sortzekoa bereziki.

Sormenak, hain zuzen ere, gauza berriak egiteko ahalmena dakar berekin, gauzak ikusteko lehendik ditugun eruedetatik aldentzekoa. **Xabier Olarra**

Irudimena **sormen** gisa harturik. **Josu Zabaleta**

Eva Brann filosofoak oroimenari "irudimenaren biltegi" deitzen dio, eta irudimenezko eta **sormenezkotzat** hartzen ditu hasieratik oroitzapenak. **Xabier Olarra**

Gizakien oroimena edo **sormena** nabarmen handitzea. **Irene Aldasoro**

Objektua ikusi bezalaxe (**sormenari** lekuri eman gabe) geroago papereertzeko ahalmen ez-ohikoa. **Xabier Olarra**

Bere **sormena** agortzen ari zaiola sumatzen duenean egiaz erotzen da. **Josu Zabaleta**

Gizonaren **sormena** ere negualdian, ilunaldietan, itzalaldietan, ernaltzen baita. **Patziku Perurena**

Sormena bideratzeko mekanismoa. **Iñaki Arranz**

Desilusioa, **sormenaren** pizgarri. **Lopez de Arana**

Uste dut osasungarria dela generoz aldatzea, antzazaren taulan jokatzeari, laukitxo batetik bestera mugitzea, **sormena** proban ipintzea. **Ana Urkiza**

1839tik aurrera bi krisi gero eta larriagok astindu zuten behin eta berriro Gogolen barrera: **sormenaren** krisiak eta arimaren krisiak. **Jose Morales**

Sormena halako ardura kaxkarrez ez kamusteko. **Iñaki Iñurieta**

Aurreko hiru ataletan "arrakastan lortzeko" adibideak eman dira, **sormenaren** nemesiaren mende erortzeko era pasiboa. **Iñaki Mendiguren**
Errezeta "arrunt" edo klasikoak zentzua galduko du aurki (**sormenaren** mesedetan). **Edorta Agirre**

2 (izenondoekin)

Litekeena da halako ezaugarrien zantzuak dituzten pertsonak **sormen** handiagokoak izatea, are jenioak, agian. **Xabier Olarra**

Besteok baino **sormen** txikixeagoa izango zuen agian, baina horren ondoan bazuen ezinegon handi bat, inguratzen gintuen errealitatearekiko urruntasun bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Txapelketetan erabili izan diren irizpideei erreparatzen badiegu, bestalde, badirudi egoeraren aipamenok **sormen** eskasari egotzen zaizkiola. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Sormen literarioa ez zelako sekula bere dohanik garatuena izan. gehienbat gozamena zen hipokrisiarekin jolasean ibiltzea eta hari **sormen** indarrak ziria sartzea. **Jon Alonso**

Pentsatzeko, hitz egiteko eta **sormen** artistikorako gaitasuna duen konputagailua da. **Irene Aldasoro**

Hori bezain erabakigarria izan zen berezko jolaszaletasun eta **sormen** nolabaitekoa azaleratzea. **Xabier Olarra**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gehienbat gozamena zen hipokrisiarekin jolasean ibiltzea eta hari **sormen** indarrak ziria sartzea. **Karlos Zabala**

Akaso, albo-erdera indartsuagoetan baino **sormen** -premia eta **sormen** -aukera handiagoak ditugu. **Andoni Egaña**

Sormen askatasunaren aurka egindako erasoaren kontra epaitegira joko dutela abisu emanez. **Joxean Agirre**

Zuri-beltzean egiten dituen margolanok arrakasta handia dute, eta margolariaren **sormen** -berritza darabil jendeak ahotan. **Xabier Olarra**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Civitas Dei delakoan arrisku hori mimesiaren transferentzia berriak uxatzen du: munduko zibilizazioetako gidari iragankorregandik Jainkoagana, hau giza **sormen** guztiaren iturburu delarik. **Iñaki Mendiguren**

Ez dugu hizkuntza **sormen** egokirik. **Pello Salaburu**

Zer da literatura?, literatur **sormenaren** ekintzaren gaineko galderak eta hausnarketak. **Monika Etxebarria**

5 sorkuntza. ik sorpen.

Idazle gisa, begiraden kudeatzaile fina, **sormen** prozesuari dagokionez artisaua. **Ana Urkiza**

Itzulpena ez da zatza begiratzea, **sormen** -lana ere baden berreraikuntza baino. **Anjel Lertxundi**

Guk egiten ditugun **sormen** lanak emakumekeriatzat jotzen dituzte, serioak ez balira bezala. **Ana Urkiza**

Idazlearen **sormen** ahalmenak etekina ateratzen dio prozedurari. **Iñaki Arranz**

Ondo elikatzen den haur eskolatu batek **sormen** gaitasun handiagoa izango du. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere sormen (5); **sormen lan** (10); **sormen lana** (14); **sormen lana behar** (3); **sormen lanak** (11); **sormen lanaren** (3); **sormen lanean** (3); **sormen prozesua** (8); **sormen prozesuan** (4); **zure sormen prozesua** (3)

bere sormena (7)

bere sormenaren (4); **sormenaren nemesia** (3)

literatur sormenean (3)

sormentsu *izond* sormenez betea.

Normala denez, ideia **sormentsu** eta produktiboen artean beste asko eta asko tartekatzen ziren, probetxu handikoak ez zirenak. **Berria - Kultura**

Bideo produkzio eta edizio **sormentsuari** esker, dantzariaren irudia hiru pantailen artean banatzen da, elkarrizketa guztiz aberasgarriak ahalbidetuz irudi katodikoan eta dantzariaren mugimendu perfektuen artean. **Berria - Kultura**

Koreografia bien arteko solasaldiarekin amaitzen da, gugan zerbait apal, pozgarri, fresko eta **sormentsu** ikusi izanaren sentsazioa utzi ostean. **Berria - Kultura**

sormuin *iz* sorgunea.

Unibertsitate baten **sormuina** argira eman edo. **Berria - Harian**

SORO (*orobat solo g.er., sorho g.er. eta sorro g.er.*) 1 *iz* lantzen den lur saila. ik alor.

Soro eta alorretako laborean hartxo eta xomorroen izurriteen kontra. **Pello Zabala**

Baratze eta **soroak**, nekazaritzan oinarritutako ekonomia, ez ziren sekula lehengoratu. **Xabier Olarra**

Urtero, kazkabar-erauntsiek **soro** eta mahastiak hondatzen zizkieten. **Askoren artean**

Soro bateko belar txarrak kentzen ari gintuan patata ereiteko. **Lopez de Arana**

Soroan goldean ari zen Joan izeneko gizon biziki simple bat atera zitzaion bidera. **Askoren artean**

Behiak gobernatuko nitizkek, landuko nitek **soro** bat oso-osorik. **Koro Navarro**

Gari-balak lotzen ari ginen **soro** erdian. **Elizen arteko biblia**

Jaun hauek diote **soro** bat urez bete duzuela beraien lana oztopatzearen. **Koldo Biguri**

Bazuen **soro** bat eta, saldurik, ordaina jaso eta apostoluen esku utzi zuen. **Elizen arteko biblia**

Utz diezadala bere **soroaren** mutur batean dagoen Makpela-ko harpea. **Jose Antonio Mujika**

Arratsean, horra non datorren gizon zahar bat **soroko** lanetik. **Elizen arteko biblia**

Arrain harrapatu berria **soroko** ongarri bihurtzea. **Edorta Agirre**

Beste mahaiko bezeroak hiru ziren: bik **soroko** peoiak ziruditen. **Juan Garzia**

Baratze eta **soroetako** landareak gelditasun etsi batean zetaten. **Josu Zabaleta**

Behin gari-orratzak luraren gainean azaldu orduko, ikusi eta erreparatu beharra doblatu egiten zen, eta igandearen buelta zen, **soroz soro**, etorkizuna nolatsu zetorren [...] seinalatzeke. **Pello Zabala**

2 (izenondoekin)

Bi mila urte lehenagotik, nekazaritza, **soro** mailakatuak eta olibadi eta mahastiak izan ziren hangoen bizibide. **Xabier Olarra**

Soro goldatua, aretua. **Pello Zabala**

Pitin bat gehiago irau zezaten "altzifreek, mahastiek, **soro** landatuen ordena garbiak. **Juan Luis Zabala**

Heroi zoriontsuak, **soro** emankorrek urtean hiru aldiz ezta bezain uzta gozoak ematen dituztelarik beraientzat. **Iñaki Mendiguren**

Haraindian, **soro** hutsak eta basoak zeuden. **Koldo Biguri**

Hantxe, aurreraxeago, biraderazko ur-putzua, olibondoak aldamenean, **soro** harritsuak, uralitazko sabaidun txabola txuriak. **Joxe Austin Arrieta**

Etxeetatik haruntzago jarraitu zuen, garai batean **soro** eta baratze ongi zainduerik esker dotore egoten ziren aldearaino. **Xabier Olarra**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Buztizen adreiluak egin behar zituzten eta era guztietako **so**ro -lanak. Elizen arteko biblia

Ez zaio horri **so**ro lanetan azalik beztu! Pako Aristi

Nik lan egiten nuen **so**ro saila kilometro koadro batean hedatzen zen. Josu Zabaleta

Haien zuzenbidea, orde, **so**ro -ildoetan hazten den belar gaizto bihurtu da. Elizen arteko biblia

Han, geltokiko auzoan, harrizko etxekoak, beren patio eta ukuluekin, masustondoak, mahastiak, eta **so**ro bazterrak Ligugnana edo San Giovannikoen berdin-berdinak ziren.

Josu Zabaleta

Baratze eta **so**roetako landareak gelditasun etsi batean zetzaten. Josu Zabaleta

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Denak hartu zuen su: gari-bala, gari-**so**ro, mahasti eta olibadiak. Elizen arteko biblia

Gizon zaharra patata-**so**ro batean etzanda zegoen. Lopez de Arana

Pertsona bat kolpeka hil zuela, arroz-**so**ro bateko uhate batengatik borrokan hasita, eta gero ihes egin zuela. Juan Kruz Igerabide

Trenbideak alpapa **so**ro osoa zeharkatu behar zuen. Koldo Biguri

Kakao-landarea Afrikako hainbat lekutara eraman eta kakao-**so**roak landatu ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Handik beste uharte eta lurralde batzuetara eraman ziren landareak, kafe-**so**ro gero eta zabalago eta emankorragoak egiteko asmoz. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kotoiaren samu-izurrirte batek erabat galdu zituen Alabamako kotoi-**so**roak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baina nola ez ulertu lore horien lekuan gari edo koka-**so**ro bat irudikatzeko ahalmena baino ez duen gose-larrituaren obsesioa? Pako Aristi

Gero, lehen tabako-**so**roak... Joxe Austin Arrieta

Horregatik, gaur egun ere "Odo-**so**ro" deitzen zaio toki hari. Elizen arteko biblia

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Ciari buruzko hirukoa, konparazio batera, emakume **so**ro -jorraztailei buruzko poema luze baten parte zen. Fernando Rey

6 zelaia, belar saila.

Soroan etzanda zeuden behiak jaiki egin ziren. Hasier Etxeberria

Mendi mazelak eta bortu **so**roak artalde z garnituak dira. Herría

Beraz VIII. mendean, gertakari bat iragan zela Orriako pentze edo **so**ro batean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Begietan behiak eta **so**ro berdeak baizik ageri ez dituen gizon zaharra. Hasier Etxeberria

Kartierreko arditegietan korbeetan behera dilindatzen zen **so**ro idor nasaiaz bazkatze, trumilka sartuz. Itxaro Borda

7 bibelarra.

Hilabete bat pasatu nuen etxen, irailaren lehen egunak arte: orduan egin genituen azken **so**roak, abuztuko Andre Dena Maria inguruan egin ziren euri eta erauntsiek gaitzeko sukarrak emana baitzion lurrari. arratsaldea han harat joan aitzin, oraino bero goxoan zegoen uzta metatzeko. Piarres Aintziart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gari soro (7); **gari soro batean** (3); **inguruko soro** (4); **odol soro** (3); **patata soro** (5); **patata soro bat** (3)

soro artean (3); **soro batean zehar** (3); **soro berdeak** (6); **soro erdian** (3); **soro eta baratze** (4); **soro eta baratzeak** (3); **soro eta barruti** (3); **soro eta mahasti** (3); **soro eta mahastiak** (4)

sororik soro (4)

aaruko soroak (3); **bere soroak** (3); **gari soroak** (4); **gure soroak** (5); **inguruko soroak** (3); **intxausetako soroak** (3); **kafe soroak** (4)

bere soroan (3); **soroan barrena** (3); **soroan goldean** (3); **soroan lan** (7); **soroan lan egiten** (4); **soroan lanean** (4)

soroaren erdian (3)

soroetako uzta (3)

herrietako soroetan (3); **soroetan barrena** (7); **soroetan zehar** (6)

bere soroko (3); **makpela soroko harpean** (3); **soroko harpean** (6); **soroko harpean ehortzi** (3); **soroko lanak** (3); **soroko lanetan** (3)

sorora joan (5); **sorora joaten** (3)

garbitzailearen sororako bidean (3)

soropil 1 iz lurra estaltzen duen belar motz eta sarria; belardia.

Aurrealdeko **soropila** inguratuz harrizko hesitxo bat zuen etxeak. Xabier Olarra

Atariko portxera atera eta begiratu bat ematen diogu **soropil** heze ihintzez estaliari. Oskar Arana

Hau **soropil** zoragarria duzuen! -esan zuen-. Mirentxu Larrañaga

Kanpoan **soropilean** belarra moztzen ez badabil, beharbada hartuko du telefonoa. Oskar Arana

Autoa garbituta, **soropileko** belarra moztuta, aurrezkiak bankuan. Oskar Arana

Lucyri begira nagokio, nola ari den **soropilean** zehar lasterka, txakurrari abarrak jaurti eta ekarrazten. Oskar Arana

Espazio berean lan eta lo egingo dute parte hartzaileek 200 metro karratuko **soropil** artifizialean. Berria - Kultura

Sustraira, lorategiko burdin hesiak, aulkia, **soropileko** belar urria, hori guztia desagerturik zegoen. Monika Etxebarria

Hiribidea hutsik zegoen, burdinazko eserlekuak bi espaloietan lerro-lerro, **soropila** eta landare sail inausiak ia ikusezin, zuhaitzen urdintasunaren azpian. Karlos Zabala

Parkearen barren-barrenetik abiatzen ginen etxerantz, **soropiletan** zehar. Josu Zabaleta

Soropilean, pagauso saldo bat zebilen, paparra kulunkan, eguzkitan. Karlos Zabala

Makisarek tiroz eho zuten Josetekin larrua lehen aldiz jo zuenean, han, Bitxirineko belarkaren ondotik, **soropilaren** gunerik ilunenean. Itxaro Borda

Hortako ez zuten frontoi beharrik, aski baitzen toki edo **soropil** luze eta legun bat, bereziki mendi lepoetan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

2 (futbol-zelaietakoa)

«Errotik» konpondu nahi dira azken boladan San Mameseko zelaiak dituen arazoak eta goitik behera aldatuko dute: oinarria, ureztatze sarea, lur-geruza, drainatze-sistema,

soropila ... Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan)

Stanley Chowder isil baina lagunkina, **soropil** moztaille eskarmentuduna, poker jokalaria maltzur eta ping-pong jokalaria aparta. Oskar Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

soropila moztzen (5)

soropilean zehar (3)

soropildu, soropil(du), soropiltzen du ad

Txilarrak **soropiltzen** duen gerizpe erraldoi baten harresi erraldoiaren itxura eta angelua dauka. Koldo Izagirre

sorosle 1 iz sorosten duen pertsona.

Segurtasun zioengatik etenaldia gertatu aurretik, 360 **soroslek** ziharduten salbamendu lanetan. Berria - Mundua

Zorigaitzaren neurriak gainditu zituen Kumbakonam hiriko salbakuntzarako baliabideak eta Madras hiri nagusitik etorri behar izan zuten **sorosleek**, euren ekipamenduekin. Berria - Mundua

Sotxiko portutik hogeit bat ontzi eta berrogei bat **sorosle** joan ziren hondamendiaren lekura. Berria - Mundua

Igerilekuko **sorosleak** eta mediku bat suspertzen ahalegindu ziren, baina bertan zendu zen, bihotzkoak jota. Berria - Euskal Herria

Sorosleek gorpuak ateratzen jarraitzen zuten sutea gertatu zen tokian. Berria - Mundua

Bandera gorria jarri zuten **sorosleek**. Berria - Euskal Herria

Piragua batean zihoan **sorosle** bati deitu zioten ertzetik 50 metro ingurura gizon bat ur azpian zegoela esanez. Berria - Euskal Herria

Alemaniko Gurutze Gorriko zenbait **sorosleren** kasuari buruzko ebazpenean. Berria - Ekonomia

Sorosleen ustez, «mitoa» da Landako algen arriskua. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan)

Sorosle lanetan ari diren suhiltzaile taldea ezin izan zuen atzo presondegiaren hainbat aretotara ailegatu. Berria - Mundua

Indian uretatik bizirik atera diren 65.000 bat pertsonari kolera, sukar ustela, disenteria eta A hepatitisaren kontrako txertoak jartzen hasi dira **sorosle** taldeak. Berria - Mundua

sorosmen iz sorospena.

Erumanian alerta egoera ezarri dute eta soldaduak, poliziak, suhiltzaileak eta **sorosmen** taldeak etengabe lanean ari dira. Berria - Mundua

sorospen sorospen 1 iz arrisku edo premia larrian dagoenari ematen zaion laguntza.

Lehen **sorospenen** azalpen doi batzuk ere eman ziren, badaezpada: zer egin erredura kasuetan, min larria hartuz gero, hezurren bat bihurrituz gero... Karlos Linazasoro

20 minutuz lehenengo **sorospenak** eman zizkioten arren, ez zuten langilea suspertzerik lortu. Berria - Ekonomia

C motako hepatitisari buruzko argibide eta **sorospena** eman behar dituzten zerbitzu medikoak «gainezka» daudelako. Berria - Euskal Herria

Eguraldia hobetzeari esker, **sorospena** heltzen hasi zen atzo eskualde kaltetuetara. Berria - Mundua

Neuk ere, trenetik jaitsi eta bihotzeko masajea ematen ahalegintzen ari ziren larrialdietako **sorospeneko** taldeek erdi ezkutaturik zeukaten gorpu hura ikustean. Josu Zabaleta

Menpekotasun egoeran direnei eman beharreko **sorospenaz**. Berria - Euskal Herria

Gazako eta Zisjordiako milioi bat herritarri premiazko **sorospen** bat ziurtatzeko gisan. Berria - Mundua

Uharteetako agintari eta sindikatuek **sorospenerako** baliabide falta kritikatu dute. Berria - Mundua

2 (izenondoekin)

Biktimei laguntzeko bulegoetan ematen da **sorospen** psikologiko berezitua. Berria - Euskal Herria

Euskadiko ospitaletan ematen den **sorospen** geriatrikoa desegokia da. Berria - Euskal Herria

Ezkutuko bidaiariari ez zioten ez **sorospen** juridikorik ez laguntza medikorik eman ontzia Bizkaiko eremuan egon zen bitartean. Berria - Euskal Herria

Ez dauka zentzurik Espainiako hainbat ospitaletan eta hemen, EAEn, guztietan, zaharrenentzako **sorospen** egokirik ez edukitzeak. Berria - Euskal Herria

Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako Buruko Osasunari eta **Sorospen** Psikiatrikoari buruzko Plan Estrategikoa. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Tripako minik txikiena sentitzen baduzue, joan bizkor Gurutze Gorriak atarian jarri duen **sorospen** -postura. Iban Zaldua

Sorospen lanak ahal bezain laster hasi ziren. Ramuntxo Etxeberri

Beste hiru gorpu aurkitu zituen **sorospen** taldeak: hirurak bala bana buruan zutela. azken hamar urteetan erdira murriztu direlako **sorospen** zerbitzua eskaintzen duten anbulantziak. Aritz Gorrotxategi

Sorospen zerbitzukoek txostena idatzi zuten, inor bizirik ez zela atera zioena. jasotako dirua, Alderdiaren hainbat **sorospen** -erakundetara bidaltzen genuen. Aritz Gorrotxategi

Ilargi Gorria **sorospen** erakundearen ikur bat zeraman kamioneta zuri bat. Berria - Mundua

UNWRA errefuxiatu palestinarrek laguntzeko Nazio Batuen Erakundeko herri lan eta **sorospen** batzordeko eskoletan artea irakasten ibili zen. buruko gaitzen **sorospen** eredu finkatzeko. Berria - Kultura

Gertakari honek frogatzen du **sorospen** baliabideak urriak direla. Berria - Mundua

Prozesu ekonomikoan kateatze bat, non agertzen diren gorabehera demografikoak, **sorospen** teknikak, eskulan premiak, langabezia maila ezberdinak, etab. Xabier Arregi

Planteamendu orokorra eman zaie prebentzio, **sorospen** eta gizarteratze politikei. Berria - Euskal Herria

Zein izan diren premia berriak eta **sorospen** aukera berriak XVIII. mendearen bukaeran. Xabier Arregi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ginekologia arloan prebentzio- **sorospena** eskaintzeko exijitzen diote Eusko Jaurlaritzaren ardurapean dagoen osasun sare publikoari. Berria - Euskal Herria

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Ospitale- **sorospen** erakundeek ere osatzen dute [...]. Xabier Arregi

6 sorospen etxe

Sorospen-etxera eraman genituen. Iban Zaldua

Donostia Ospitalera joan aurretik, sei lagun horiek **Sorospen Etxean** artatu zituzten, eta handik bidali zituzten Donostia Ospitalera. Berria - Euskal Herria

Sorospen Etxe berean beste zortzi lagun ere izan ziren, zauriak sendatzen. Berria - Euskal Herria

Urtea hasi zenetik hona, 405 emakume hil dituzte Guatemalan, Poliziak eta **Sorospen Etxean** Bulegoak jakinarazi dutenez. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sorospen geriatrikoa (3); **sorospen lanak** (5); **sorospen taldeak** (3); **sorospen taldeek** (7); **sorospen zerbitzua** (3); **sorospen zerbitzuak** (3)

lehen sorospenen (3)

soroste iz premian edo arriskuan dagoenari laguntzea. ik sorospen.

Egiptoko Aire Armadako helikoptero andanak ere parte hartzen zuen **soroste** lan horietan, salbamendu barkuetan egon zitezkeen lagunak hautemateko eta ur gainean ageri liratekeen gorpuz errepartzeko. Berria - Mundua

sorostu ik sorotsi.

sorotsi, sorots, sorosten (*corpusean **sorostu** soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian **sorotsi** agertzen da*) **1** du ad premian edo arriskuan dagoenari lagundu.

Barku pneumatiko batean zeuden beste 11 immigratu albaniar **sorostu** zituzten Italiako Itsas Armadakoek. Berria - Mundua

Meazuloan harrapatuak izandakoei **sorosteko** 150 lagun ahaleginetan ari ziren atzo iluntzean. Berria - Mundua

Atentatua gertatu eta gero, lekuko batzuek zehaztu zuten xiitak zein ere sunitak esku zebiltzala salbakuntza lanetan, hots, etxe apurkinen azpian harrapatutakoan **sorosteko** ahaleginetan. Berria - Mundua

Lehen leherketa baten biktimak **sorosterat** heldu ziren hainbat lagun bete-betean harrapatu zituen bigarren bonba baten zart egiteak. Berria - Mundua

2 lagundu.

Tratatu honetako kapitulu batean azalduko denez, Jainkoaren laguntzak **sorosten** ez badu, agindu zenaren arabera: [...]. Xabier Kintana

sorotxa *iz*

Joanesez eta Eusebiok bazekiten pentzeak eta **sorotxak** zirela gunerik lanjerosenak. Eneko Bidegain

sorotxo *iz* soro txikia.

Pereissondarrek bizimodua ateratzeko zituzten artoz eta mahatsez landatutako bi **sorotxo** haiek erdi xehaturik utzi zituen harriak; eta familiak ez zekien nondik jo aurrera. Josu Zabaleta

sorpen *iz* sorkuntza. ik **sormen** 5.

Alain Iriartek alabaina luzaz eskertu ditu **sorpen** hori ekarri duten hiruzpalau kontseilariak. Herria

Lotzen dira gauza memoriadunak **sorpen** artistikoarekin, gizaldi berriak tarteko. Herria

sorpresa (*orobat **sospresa** g.er.*) **1** *iz* ezustea, ustekabea.

"Hau **sorpresa**! Patxi Iturritegi

-Eñaut, ze **sorpresa**! Sonia Gonzalez

Zaharrenek utzi berriak zituzten lagunen etxera joan nahi zuten, **sorpresa** bat ematera. Josu Zabaleta

Herminiori **sorpresa** bat ematea erabaki nuen eta inori esan gabe agertu nintzen etxean, gure etxean. Jasone Osoro

Sorpresak ematen ditu Moskuk. Edorta Jimenez

Horiek dira bizitzak ematen dituen **sorpresak**. Lourdes Oñederra

Orduan bekainak kakotu zituen, **sorpresak** hartuta, eta besoak atzera altxatu zituen beste sorginkeria bat jaurtikitzeko asmoz. Joanes Urkixo

Orduan bekainak kakotu zituen, **sorpresak** hartuta, eta besoak atzera altxatu zituen beste sorginkeria bat jaurtikitzeko asmoz. Joanes Urkixo

Eta nahi nion Elpidesi **sorpresa** bat egin. Itxaro Borda

Erabakia, ordea, ez da **sorpresa** izan Arkotxarentzat, espero zuten horrelako erabakia. Berria - Euskal Herria

Sorpresa bat ere izango omen da ibilaldian aurrera. boza eman zuen uanean «**sorpresak**» egongo zirela iragarri zuen buruzagiak. Anjel Lertxundi

-Utzi txantxak, Mentxu, **sorpresa** bat daukat zuretzat, ustebakoa guztiz. Josu Landa

Ez zaizkio **sorpresak** gustatzen. Bernardo Atxaga

Miarritze mendebaldeko kantonamenduan **sorpresa** gutxi espero da. Berria - Euskal Herria

Ostiral arratsean ikastolako haurren azken eguna kari burrasoek **sorpresa** bat muntatu zuen beren haurrentzat. Herria

Ondo kalkulaturako anbiguotasunak **sorpresarako** atea zabaltzen du, eta ironiarako, kritikarako, umorerako, nahasketarako, ateraldietarako. Iñaki Arranz

-**Sorpresaz sorpresa** nabilek hirekin. Anjel Lertxundi

Diskoak badu, amaieran, **sorpresatxo** bat ere: Joxe Arazola pianistaren pieza zati bat. Berria - Kultura

Paul D ikusitakoan Oo esan zuen, eta bere irribarrea pozezkoa eta **sorpresazkoa** zen. Anton Garikano

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sorpresa handia izan dira niretzat, oso **sorpresa** atsegina. Ana Urkiza

Hurrengoan orkidea bat ipiniko zuen, eta banekien ezen egun hartan **sorpresa** atseginen bat izanen nuela. Joan Mari Irigoien

Sorpresa ederra izan nuen irisitakoan. Jasone Osoro

Sorpresa ederra hartu du Santik, Berangon jasotako behiak uste baino pisu dezente handiagoa eman baitu baskulan. Patxi Iturritegi

Eta **sorpresa** galanta hartu dute bertsolarien presentziaren berri izan dutenean. Berria - Kultura

Aniak *Everything But The Girl* taldearen historia ezagutuko balu, **sorpresa** txiki bat hartuko luke. Iban Zaldúa

Siestatik landa, Dongek **sorpresa** ona ukan zuen: dei anonimo bat. Ramuntxo Etxeberri

Hauek ez dira normahi eta gureek kasu egin beharko dute **sorpresa** txarrik ez dadien gerta. Herria

Guretzat, bai kargurik gabe utzi gaituzten bostontzat bai gainerako auzipetuentzat, sekulako **sorpresa** izan da; **sorpresa** pozgarria. Berria - Harian

Ahaztuxea neukan, egia esan, eta izugarritzko **sorpresa** izan da. Berria - Kultura

Piraten eraso erabateko **sorpresa** izan zen. Julen Gabiria

3 (beste izen baten eskuinean)

Katrin Corfmann artista herbeheretarrak «performance **sorpresa**» bat egingo du hiruginean. Berria - Kultura

Biharamunean, martxoaren 18an, *Berri Txarrak, Betagarri, Morodo&Ranking Soldiers eta Celtas Cortos* ariko dira, talde **sorpresa** batez gain. Berria - Euskal Herria

-Ostirala 16, 22.00etan, gaupasa talde **sorpresa** batekin Gaztetxean. Herria

Bazkaria aratsaldeko 1.30tan zerbitzatua izanen da: sartze **sorpresa**, zikiroa ilarrekin, entselada, ardi gasna eta sagar tarta, kafe, ondoko eta arno Herria

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

gutunazala urratzen hasi nintzen, edozein **sorpresa**-klase jasotzeko prest eta urduri. Anjel Lertxundi

Tentuz administratu eta oso ongi planifikatu behar dira ekitaldi horiek, hedabideekiko **sorpresa** efektua ez galtzeko. Txema Ramirez de la Piscina

Suposatzen dut **sorpresa** aurpegiak hilko zela. Sonia Gonzalez

Sorpresa faktorea bazterrean utziz, euren estrategia ezerezean geratuko zen. Julen Gabiria

-**Sorpresa** kutxatxoa naiz. Sonia Gonzalez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ez da **sorpresa** (3); izugarritzko **sorpresa** izan (3)

sorpresa atsegina (5); **sorpresa** bat eman (3); **sorpresa** bat izan (3); **sorpresa** ederra (7); **sorpresa** eman (4); **sorpresa** handia (12); **sorpresa** handia izan (6); **sorpresa** izan

(21); **sorpresa izan da** (14); **sorpresa izango** (3); **sorpresa ona** (3); **sorpresa polita** (3); **zer sorpresa** (5)

sorpresak ematen (3)

sorpresaren bat (4)

sorpresaz hartu (6)

sorpresadun *izond* sorpresa duena.

Nire amorrua azalean zegoen, eta, une batez, suz inguratutako izotz puska bat, arrautzopil **sorpresadun** bat nintzelako irudipen tristea izan dut. **Monika Etxebarria**

sorpresagai *iz* sorpresaren gaia.

Begiak zabaltzeko baimena hartuta, ezkerreko besoa ipurmasailetarantz jiratuta zuen gizonak, **sorpresagaia** bizkarrean ezkutatzeko. **Josu Landa**

sorpresatsu *izond* ustekabekoa gertatzen dena.

Agureak hizketa-modu garbi batez hitz egin zuen, bat-batean mozkorraldia guztiz ahitu balitzaio bezain argitasun **sorpresatsu** batez. **Anjel Lertxundi**

sorpresatxo *iz* sorpresa txikia; *adkor* sorpresa.

Diskoak badu, amaieran, **sorpresatxo** bat ere: Joxe Arazola pianistaren pieza zati bat. **Berria - Kultura**

Hau ez zegoen programan, baina **sorpresatxo** bat eskaini nahi omen dizue **Sorpresatxo** bat dut zuretzat. **Iñaki Iñurrieta**

Juanitok **sorpresatxo** bat esaten badik, zerbait gehiago izango dena badakik. **Pedro Alberdi**

Susmoa hartu diok hor ote dagoen **sorpresatxoa**. **Pedro Alberdi**

sorraire *iz*

Nik mundua bakean balego bezala idazten dut, egungo **sorraire** honen erdi-erdian, izpiritua neure molde arrotz honetara hustuz, deusen itxaropenik gabe. **Patziku Perurena**

sorraldi¹ *iz* sortzeko aldia.

Elizak -lehenago, "**sorraldian**", bizitasuna zibilizazio zahar batetik lortuak eta, "ernaldian", interregno ekaizen artean itsastatuak- bere sabelean sorturiko zibilizazio berriari ematen dio orain bizitasuna. **Iñaki Mendiguren**

Kronologikoki hiru aldi horiek zibilizazio zaharren desintegrazio-aldiarekin, interregnoarekin eta zibilizazio berriaren **sorraldiarekin** pareka daitezke gutxi gorabehera.

Iñaki Mendiguren

Filiazio-prozesuaren **sorraldia** eliza bere ingurune sekularrak eskaintako aukeraz baliatzen denean gertatzen da. **Iñaki Mendiguren**

sorraldi² *iz* norbait edo zerbait sor dagoen aldia.

Beatriz (nik neuk errepikatu ohi dut hori) argitasun ia gupidagabeko emakume bat, neskato bat zen, baina bazen harengan arreata-galtze, **sorraldi**, destaina, zinezko krudelkeriarik, apika azalpen patologiko bat eskatzen zuenik. **Juan Garzia**

Gizonaren ahots sarkorrak atera ninduen **sorraldi** dibertigarri hartatik. **Anjel Lertxundi**

sorrarazi, sorraraz, sorrarazten (**739** agerraldi, **130** liburu eta **163** artikulutan; orobat **sortarazi** -**414** agerraldi, **63** liburu eta **75** artikulutan- eta **sorarazi** g.er.; *Euskaltzaindiaren Hiztegian **sorrarazi** agertzen da*) **1** du ad sortzera behartu.

EHun eta hogeita hamar urte zituela, Adamek semea **sorrarazi** zuen, bere antz eta irudikoa. **Elizen arteko biblia**

Arrautza horretan daude eraikuntza-materialak: proteinak, koipeak, azukreak, mitokondrioak, eta gunea, hantxe baitaude irarrita eulia **sorrarazteko** behar diren aginduak.

Juan Garzia

Animalia heldu baten egitura, hain zuzen, hura **sorrarazi** duen enbrioaren garapenaren emaitza da. **Juan Garzia**

Mota guztietako zuhaitzak **sorrarazi** zituen lurretik Jainko Jaunak, zuhaitz ikusgarriak eta fruitu gozodunak. **Jose Antonio Mujika**

Tomate berezi batzuk **sorraraz** ditzakegula gure baratzeetan, ondu ondoren denbora askoz ere luzeagoa beharko dutenak usteltzeko. **Pello Salaburu**

Berehala ekin nion, ama hornitzaile erabiliz, ni zigotoa eraldatzeari eta nire gorputza eratzeari, segundo oro 300.000 zelula berri **sorraraziz**. **Jenaro Garate**

Hiesa sistema immunearen gaixotasun bat da, GIB delako birusak **sorrarazia**. **Berria - Gaiak**

Uharteak **sorrarazitako** uhinak zabalduz-zabalduz balihoaz bezala. **Iñaki Iñurrieta**

Bere bizitzaren seiren bateko gaztetasuna izendatu zion Jainkoak; hamabiren bat gehiago eman ondoren, bizar beltza **sorrarazi** zion. **Jon Muñoz**

Hezur zaharrez inguratua, hezur gazteak **sorrarazi** nahi izan zituen. **Juan Garzia**

Kausa horiek guztiek bildurik malkoak **sorrarazi** ahal izan dizkirate eta erranarazi, neure ustez arrazoiz, dohakabea nintzela. **Jon Muñoz**

2 (gauza abstraktuekin)

Bertsolariaren helburu nagusia entzuleen artean "emozioak **sorraraztea**" dela. Koloreak "afektuzko nolakotasuntzat" sailkatzen dira afekzio batetik datozelako, adibidez lotsak **sorraraziriko** gorritasuna, beldurak eragindako zurbiltasuna. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Jendetzek klaustrofobia **sorrarazten** zioten. **Harkaitz Cano**

Eritasuna, batzuentzat, aztikeriaren batek **sorrarazia** da; beste batzuentzat, berriz, mikrobio batek edo birus batek eragindako infekzioari zor zaio. **Juan Garzia**

Peritonak berak ere, baita obratik aparte ere, interes bizia **sorrarazi** du. **Koro Navarro**

Adibide horiek irribarrea **sorraraziko** ligukete. **Pello Salaburu**

Gero eta zailagoa da irakurleengan suspentsea **sorraraztea** osagai ezagun hauek erabiliz. **Berria - Kultura**

Egoera horrek, 1980ko hamarkadan, nolabaiteko ezinegona **sorrarazi** zuen bi arrazoi nagusi hauengatik: [...]. **Askoren artean**

Zeresan ugari **sorrarazi** zuen uharteko gertakizunak. **Iñaki Iñurrieta**

Orduan ez zen arduratzen mekataritzaz; Indietako itsasoa aurkitzeak bakarrik **sorraraziko** zion pentsamendu hori. Zergatik haserretuko zinateke zuk **sorrarazi** duzun sentimendu batez? ETXEA hitzak sendimendu berezi bat **sorrarazten** du herritar guzien gogoan. **Iñaki Iñurrieta**

Bezperako irakurketek **sorrarazitako** sumina uxatzeko premian zen. **Jon Muñoz**

Bada hemen gauza ilun bat, errakuntza **sorrarazi** diena, eta berau laburki azalduko dizut. **Xabier Kintana**

Ustegabeko kasuek usadio berriak **sorrazaziko** zituzten, ez bairik gabe. **Iñaki Iñurrieta**

Damu dut zuri hainbeste endredo **sorrazazi** izana. **Mirentxu Larrañaga**

Zinemako distantzia da inoiz irudiak **sorrazazi** dituen distantziarik laburrenetakoa. *Ramires e Ramires Lda.* enpresarekin bat egiteko proposamena onartu zuela *Ramires-Araujo Lda.* **sorrazazteko**. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

zirrara sorrazazi (5)

emozioak sorrazaztea (4)

errespetua sorrazazten (4); **nazka sorrazazten** (3)

bezalako profeta sorrazaziko (3); **gerra sorrazaziko dut** (5)

sorrazazle *(orobat sorrazazle)* 1 izond sorrazazten duena.

Xehetasun tipi horiek dira egiantzaren **sorrazazleak**, eta egiantzak bihurtzen ditu gezurrak ondorioz gabeak, kentzen baitu haiak egiaztatzeko gogoia. **Jon Muñoz**

Patriarkatua jo dute adituok emakumeen kontrako indarkeriaren **sorrazazle**. **Berria - Euskal Herria**

Irudi da eta hitz, haren adierazpena baita ezagutuz berdintzen zaionean, eta sortua eta **sorrazazlea** berdinak dira. **Imanol Unzurrunzaga**

2 (hitz elkartuetan)

Hartzat konturatzea hondamena izan daiteke gazte autista dohaintsuentzat adin horretan, eta depresio-**sorrazazle** eta suizidio-eragile izan da noiz edo noiz **Xabier Olarra**

sorrazazte iz sortzera behartzea.

Ni-gabeko subjektua izateaz gain, sexugabea ere bada, Abertiaren alde bizitza emateko prest egon behar baitu, sublimazioa edo putetxeak gelditzen zaizkio irtenbide, sexu harremana eta **sorrazazte** arrunta ez beste edozer. **Joseba Zulaika**

sorrera *(orobat sorkera g.er.)* 1 iz sortzea, izaten hastea.

Unibertsoaren **sorrera** eta Jainkoaren existentzia. **Xabier Kintana**

Ilargiaren **sorrera**: duela 4.500 urte Marteren neurriko objektu baten eta Lurraren arteko talkatik sortu omen zen satelitea. **Berria - Gaiak**

Ikusmolde horretakoek zelula edo zelula antzeko sistemen **sorreran** ikertuko dute biziaren **sorrera**. **Askoren artean**

Elementuen **sorrerak** eta suntsipenak, bai eta berrietatik jaiotzen den eta hiltzean haietara itzultzen den guztiarenak ere, nolabait, zeruarenaren antzeko mugimendu zirkular bati segitzen diote. **Xabier Kintana**

Beste alde batetik, **sorreraren** arazoak ere gustatzen zitzaizkidan, biziaren **sorrera**, espezieen **sorrera**, gizakiaren **sorrera** eta, noski, Euskal Herriarena. **Berria - Euskal Herria**

Bartzelonako Planak hondakinen **sorrera** bera murriztea bultzatu du argi eta garbi. **Berria - Euskal Herria**

Korintoko eliz elkartearen **sorrera**. **Elizen arteko biblia**

Frantzisko dohatsuaren ordenaren **sorrera** eta bere lehen lagunen egintzak. **Joan Mari Irigoien**

Unión Artesana Elkartearen **sorrera**. **Askoren artean**

Europako mundu-ekonomiaren **sorrera** (1450-1650) berrikuntza tekniko handirik gabe gertatu zen. **Koro Navarro**

Hitz berriekin batera diziplina berri baten **sorrera** adierazi nahi zuten, mundu organiko bateratua aztertuko zuen zientzia. giza zientzia modernoan **sorrera** eta garapena. **Askoren artean**

Liburu honen **sorrera** eta idazketa-prozesua bere mamari guztiz loturik daude. **Agurtzane Juanena**

Non ote du **sorrera** ipuin horrek? **Patziku Perurena**

Hazkunde laster hori ia etengabea izan zen 1973 arte, eta industria-talde handien **sorrera** bultzatu zuen ekonomia aurreratuetan. **Koro Navarro**

Birena da munduaren **sorrera**: egiten duenarena eta kontatzen duenarena. **Pako Aristi**

1979ko Europar Diru Sistemaren **sorrerak** ipini zituen jadanik diru-elkartasunaren oinarriak aldaketa-mekanismoan parte hartzen zuten estatuen artean. **Koro Navarro**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

K.o. 1590. urtea hartzen badugu japoniar estatu unibertsalaren **sorrera**-datatzat. **Iñaki Mendiguren**

Denok suma genezake Don Quijote, Sherlock edo Sherlock Holmes bezalako pertsonaien **sorrera**-bidea. **Bernardo Atxaga**

Jarrera ziniko samar honek badu, gainera, bere **sorrera**-une ezaguna. **Josu Zabaleta**

Bat-bateko bertsoaren **sorrera**-jardunari buruz egin dugun deskripzio fenomenologikoa. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Askotan, ipuin baten **sorrera** sentimendu bat izaten da. **Ana Urkiza**

Krisiaren **sorrera**-eragileetan, zabalkundearen mekanismoetan, eta konponbidearen baldintzetan, guztietan agertzen da dimentsio hori. **Koro Navarro**

Gaur bilduko da Kutxako **Sorrera** Batzarra, araudi berriek eskatzen duten gobernu organoen berrikuntza amaitzeko. **Berria - Ekonomia**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ikerketa sakonagoek erakutsi beharko lukete, gramatikaren osagai-egitura atalean eta atal morfonemikoan ere, perpaus-**sorreraren** prozesuan nahitaez ezarri behar diren beharrezko erregelen bizkarrezur bat badela. **Itziar Laka**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

batzordearen sorrera (3); **bere sorrera** (6); **biziaren sorrera** (5); **danborradaren sorrera** (5)

elkartearen sorrera (8); **erakunde horren sorrera** (3); **erakunde publikoaren sorrera** (3); **erakundearen sorrera** (9); **estatu palestinarren sorrera** (6); **estatuaren sorrera** (5); **etaren sorrera** (3); **ganberaren sorrera** (7); **herri plataformen sorrera** (3); **hitza sorrera** (3); **hondakinen sorrera** (5); **honen sorrera** (4); **horien sorrera** (3); **horren sorrera** (5)

iperen sorrera (9); **izan zen sorrera** (3); **kontseilu politikoaren sorrera** (3); **kontseiluaren sorrera** (9); **laborantza ganberaren sorrera** (7); **mahaiaren sorrera** (3); **munduaren sorrera** (18)

ordenaren sorrera (8); **plataformen sorrera sustatzea** (3)

sorrera ahalbidetu zuen (4); **sorrera ahalbidetzen** (4); **sorrera bultzatu** (5); **sorrera bultzatu zuen** (3); **sorrera bultzatzea** (5); **sorrera ekarri** (6); **sorrera ekarri zuen** (4); **sorrera ekitaldian** (3); **sorrera espero** (3); **sorrera eta garapena** (3); **sorrera urtea** (5); **udalbiltzaren sorrera** (3)

zibilizazioen sorrera (3)

sorrerak argitzen (3)

sorrerako helburuak (3)

ekinaren sorreran (3); **estatutuaren sorreran** (3); **munduaren sorreran** (4)

sorreran dago (3); **sorreran esku hartu** (3); **sorreran izan** (3); **sorreran parte hartu** (29); **taldearen sorreran** (3); **udalbiltzaren sorreran** (3)

munduaren sorrerarako (3)

sorrerarekin batera (3)

bere sorreraren (3); **erakundearen sorreraren** (3); **munduaren sorreraren** (5); **sorreraren berri** (4); **sorreraren kontaera** (3); **sorreraren nondik norakoak** (3)

lanpostuen sorrerari (3)

sorreratik beretik (3); **sorreratik gaur** (4); **sorreratik gaur arte** (3); **sorreratik izan** (4)

sorreradun *izlag* sorrera duena.

Munduko tenpluak hilkorrak direla eta zerua **sorreradun** gorputzez egina dela irakatsi dudanez, [...]. **Xabier Amuriza**

sorreria *iz* gorreria.

Zerbitzariak **sorreria** baizik ez zuen izanen ez aditzeko estakuru. **Aingeru Epaltza**

SORRO ik soro.

sorta *iz* 1 loreak, landareak edo kidekoak bilduz egiten den multzoa.

Bil itzazu Sortaldeko lore distiratsuak, Iparreko loratze zurbilak, belardietako bioletak eta lorategietako arrosak, egizu **sorta** bat guztiez. **Josu Zabaleta**

Petrusi itzultzen dio **sortak** lotzeko haria, eta, horren orde, **sortak** hartu eta furgonetan pilatzen hasiko da. **Oskar Arana**

Iratze eta mahats hostoak saltzen zituzten, libra laurdeneko **sortetan** kontu handiz bildurik. **Karlos Zabala**

Jaunak bere eskuaz **sortan** lotu ditu denak. **Elizen arteko biblia**

Loreen azpian itoa eta galdua egoten zen; ihi zurtoinen gainean **sortak** eta **sortak** prestatzen ematen zuen egun guztia. **Karlos Zabala**

Loreontzi handi batean uretan sartutako lore **sorta** batean murgildu zuelako Ruche jaunak sudurra. **Jon Muñoz**

Arrosa **sorta** bat eskuan abiatu zen Ruche jauna. **Jon Muñoz**

Cadine atzetik joan zen, erretilua lepoan, bioleta **sortak** goroldioan ziztatuak. **Karlos Zabala**

Eskuineko eskuan lore zimeldu **sorta** bat zeukala. **Daniel Landart**

Peterrek peonia **sorta** polit bat oparitu dit. **Josu Zabaleta**

Apaiz ospetsuak belar-**sorta** bat egin ohi du, eta su ematen dio. **Joan Mari Lekuona**

Eskuarekin lasto **sorta** bat goratu eta esaten omen zien, konparazio batera: eskuin bikoitza! **Koro Navarro**

Azenario **sorta** gorriez, arbi **sorta** zuriez. **Karlos Zabala**

Porru pastel bat egiteko, izenak berak dioenez, porru **sorta** fresko bat behar da. **Patxi Zubizarreta**

Bezpera arratsaldean bildutako barazki **sortak** eta fruituak erakusten zituzten saskietan. **Karlos Zabala**

Bi sosean barazki **sorta** txikia! kanabera **sortak** hartu eta haiak hehetezko ziliindro handi batzuk zituen makina batera eramaten ari ziren. **Karlos Zabala**

Mahaiaren azpian egur-**sortak** zeuden, eta inguruan meta handiak. **Agustin Otsoa**

Badirudi gozatu egiten duela makila **sorta** ederrak eta aizkora ankerrak destainaz zanpatzen. **Xabier Amuriza**

Segizioko dragoiek euren kaskoetatik eskegirik zeramatzaten luma-**sorta** luzeek aurpegiak ikustea galarazi zidaten. **Jon Alonso**

Kandela **sorta** handi bat erosi zuen atzo Parisen. **Aingeru Epaltza**

Zehaztea oso zaila den hari-**sorta** dago musikaren eta bizitzaren artean. **Pako Aristi**

Garunaren bi alderdiak elkartzten dituen zuntz **sorta**. **Irene Aldasoro**

"Oinarrizko" koloreetako [...] izpi **sorta** txiki-txikiak nahastu bezala egiten dira erretinan. **Josu Zabaleta**

Erealitate enpirikoan, ezaugarri dialektalak, isoglosaok eta isoglosa **sortak** izaten dira, eta ez hizkuntza kode monolitiko eta uniformeak. **Isabel Arrigain**

Egurkari txiro bat, abarrez arras kargaturik, intziriz eta makur, pauso motelez zihoan, **sortaren** zamapean. **Imanol Zurutuza**

2 mota bereko bi gauza baino gehiagok osaturiko multzoa.

Galtzaria ez da inolako froga, oinetakoak ere ez, oinetakoak eta galtzariak **sortetan** saltzen baitira. **Koro Navarro**

Billete handiko **sorta** bat atera zuen. **Migel Angel Mintegi**

1945eko abenduaren 1eko *Cancha* aldizkariaren aleak bost argazkiz osaturiko **sorta** dakar seigarren orrialdean, "El Gran Desfile" izenburupean. **Edorta Jimenez**

Liburu honetan eta **sorta** bereko beste hiruetan, Guareschik inkoherentzia politikoa predikatzen duela esan daiteke. **Koldo Biguri**

Argitaratzen dituzte liburuxkak **sorta** sarituekin... gero ordea, **sorta** horiek kalean jartzen ez dute edo ez dugu asmatzen. **Andoni Egaña**

1991n, *Klasikoak* **sorta** abiatu zelarik, latinetik euskaraturik, ondu nuen, Tomas Mororen *Utopia* liburua. **Piarres Xarriton**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Filosofian esan ohi da **sorta** -kontzeptua dela, biziaren propietatea bera ezaugarri askoren bitartez azaltzen baita, bizidun bakoitzak denak bete behar ez baditu ere. **Askoren artean**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eskukaldi bakar batez, enkanterako arrain **sortak** antolatzen zituzten otarre zabal biribiletan eta itxura erakargarria ematen. **Karlos Zabala**

Handik giltza **sorta** bat atera zuen. **Aingeru Epaltza**

Gutun **sorta** bat aurkitu zuen, mota eta idazkera guztietako gutun sinadurarik gabekoak ziren. **Karlos Zabala**

Neofitoak paper-**sorta** bat gordetzen zuen bere altzoan. **Jon Alonso**

Gizaseme bat ikusi zuen binilozko disko **sorta** bat ibaira botatzen.. **Harkaitz Cano**

Abiatu zen, beraz, Naaman hirurehun eta berrogeita hamarren bat kilo zilar, urrezko sei mila txanpon eta hamar jantzi-**sorta** berekin zeramatzala. **Elizen arteko biblia**

Punta-puntako grabazio-estudioa; sekulako kontsola, palanka eta argitxo pila batekin; magnetofono **sorta** bat; proiektagailu bat; oihalez estaliak hormak; zoruaren gainean, moketa. **Jon Muñoz**

Epain txokoetatik zimur **sortak** ernatzen zitzaizkion. enbat kontu eta zenbat izerdi **sorta** ez dituzte eraman izen hauek denak! **Bernardo Atxaga**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa gauza abstraktuekin)

Horiek gezurrak, adiskidea!, gezur-**sorta** galanta! **Jose Morales**

Bertsolariak badaki, gutxi-gehiago, ze errima-**sorta** menperatzen dituen eta ze errima-**sortak** ematen dion joku gehiago Zelten elezahar-**sorta** aberatsean, hurra beti ageri da jakituria mamituaren zeinu eta sinbolo. **Andoni Egaña**

Bacourt-eko baronesari eskainiriko soneto **sorta** bikain bat. **Juan Garzia**

Euskaldunak poema-**sorta** ederrean, hala dio Orixek batean: [...]. **Pello Zabala**

Irudipena da kontu bat, eta klimatologiak damaigun datu-**sorta** bestea. **Pello Zabala**

Ikusgarriak gau osoa irau du, noizean behin baretuz eta gero atzera berriz zuzpertzuz beste eztanda-**sorta** batekin. hori ere aitortu behar dizut, lorez eta arantzaz osaturiko aitorten-**sorta** honetan. **Juan Garzia**

Harreman-**sorta** honek osatuko du kontzeptu eraketa-sistema bat. **Xabier Arregi**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehena izenondoduna delarik)

Emakume handi **sorta** bat hemendik, emakume handi **sorta** bat handik. **Karlos Zabala**

Material didaktiko **sorta** nahiko zabala bada dagoeneko argitaratua. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Likido konplexu **sorta** bat prestatu, eta Onsager-en ekuazioa zintzo betetzen zutenentz kontrolatu. **Juan Garzia**

Bartolomek orrialde zirriborratu **sorta** bat eman zion eskura komisarioari. **Aritz Gorrotxategi**

Erritua horretan, galdera tradizional **sorta** bati erantzun behar izaten diote. Irene Aldasoro

7 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Hirugihar-xerra **sorta**, urdai oso zuri eta haragi gorri franko zurbilekoa. Iñaki Zabaleta

Berniz-erretxina **sorta** bat inportatua genuen [...] eta kezkatuak geunden. Juan Garzia

Gaur goizeko kuku kanta **sorta** ez zen nolana hika! Pello Zabala

Arbola bakoitzak bazuen buruan, urrezko koroa bat bailitzan, isats-belar **sorta** luze bat loretan! Josu Zabaleta

Juan Crisóstomo Lafinur Liburutegiko ezaugarria zeramaten block-orri **sorta** mardul bat. Juan Garzia

Eskola-mahai **sorta** bat, zirkuluerdi bat eratuz ipiniak. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aholku **sorta** (4); **arazo** **sorta** (5); **arbi** **sorta** (4); **argazki** **sorta** (14); **argi** **sorta** (9); **arrosa** **sorta** (12); **artikulu** **sorta** (8); **belar** **sorta** (5); **bertso** **sorta** (25); **bilera** **sorta** (6); **billete** **sorta** (8); **bioleta** **sorta** (4); **datu** **sorta** (5)

egunkari **sorta** (3); **ekitaldi** **sorta** (14); **elkarrizketa** **sorta** (4); **entsegu** **sorta** (3); **erreforma** **sorta** (4); **erreportaia** **sorta** (4); **errima** **sorta** (6); **galdera** **sorta** (11); **garaipen** **sorta** (3); **gari** **sorta** (4); **gertakari** **sorta** (3); **gezur** **sorta** (3); **gezur** **sorta** **galanta** (3); **giltza** **sorta** (19); **giltza** **sorta** **eskuan** (3); **gomendio** **sorta** (4); **gutun** **sorta** (12); **harreman** **sorta** (6); **hitz** **sorta** (3); **hitzaldi** **sorta** (32); **hitzaldi** **sorta** **antolatatu** (8); **ile** **sorta** (3)

ipu **sorta** (6); **iritzi** **sorta** (3); **izen** **sorta** (3); **jasoaldi** **sorta** (4); **jokalari** **sorta** (20); **jokalari** **sorta** **zabala** (3); **kanta** **sorta** (3); **kantu** **sorta** (5); **karta** **sorta** (10); **konferentzia** **sorta** (3); **kontraesan** **sorta** (3); **kontzertu** **sorta** (4); **lan** **sorta** (3); **larrosa** **sorta** (3); **lasto** **sorta** (3); **liburu** **sorta** (8); **lili** **sorta** (6); **lore** **sorta** (121); **lore** **sorta** **bana** (8); **lore** **sorta** **batekin** (6); **lore** **sorta** **baten** (3); **lore** **sorta** **eskuan** (4); **lore** **sorta** **handi** (4); **lore** **sorta** **jarri** (4); **makila** **sorta** (3); **mugimendu** **sorta** (5); **neurri** **sorta** (24); **neurri** **sorta** **onartu** (3)

olerki **sorta** (4); **orri** **sorta** (9); **orrialde** **sorta** (6); **paper** **sorta** (16); **partida** **sorta** (3); **pegatina** **sorta** (3); **poema** **sorta** (7); **proposamen** **sorta** (10); **proposamen** **sorta** **aurkeztu** (3); **puntu** **sorta** (3)

sorta **abiatuko** (3); **sorta** **antolatatu** (11); **sorta** **antolatatu** **du** (9); **sorta** **argitaratu** (3); **sorta** **atera** (6); **sorta** **aurkeztu** (5)

sorta **bana** (11); **sorta** **bat** **antolatatu** (4); **sorta** **bat** **atera** (11); **sorta** **bat** **bidali** (3); **sorta** **bat** **bota** (3); **sorta** **bat** **eman** (4); **sorta** **bat** **eskuan** (3); **sorta** **bat** **hartu** (4); **sorta** **bat** **jarri** (3); **sorta** **bat** **prestatu** (3); **sorta** **bat** **utzi** (5); **sorta** **baten** **bidez** (3); **sorta** **berria** (3); **sorta** **berriak** (3)

sorta **eder** (4); **sorta** **ederra** (12); **sorta** **egin** (5); **sorta** **eman** (5); **sorta** **erosi** (3); **sorta** **eskuan** (10)

sorta **galanta** (3)

sorta **handi** (10); **sorta** **handia** (8); **sorta** **handiak** (3); **sorta** **hartu** (7); **sorta** **hartu** **zuen** (3)

sorta **indarrean** (3); **sorta** **izan** (4)

sorta **jarri** (7); **sorta** **jarri** **zuten** (3); **sorta** **jaso** (3)

sorta **luze** (4); **sorta** **luzeak** (3)

sorta **onartu** (3); **sorta** **osatzen** (3); **sorta** **oso** (3); **sorta** **oso** **bat** (3); **sorta** **osoa** (7)

sorta **plazaratu** (4); **sorta** **polita** (8); **sorta** **txiki** (4)

sorta **zabala** (10)

txinparta **sorta** (3)

lore **sortak** (32); **sortak** **egiten** (3)

hitzaldi **sortan** (5)

egur **sortaren** (4); **egur** **sortaren** **gainean** (4); **kontzertu** **sortaren** (4); **lore** **sortaren** (5); **sortaren** **barruan** (4); **sortaren** **gainean** (5); **sortaren** **ondoren** (3)

lore **sortarik** (4)

lore **sortaz** (3)

lore **sorten** (5)

sortaka *adlag* sortak osatuz.

Arrosak, bioletak, daliak eta bitxiloreak zituzten salgai, **sortaka** bildurik. Karlos Zabala

Makilek, berriz, ez dute funtzionatzen unitate bakun gisa, baizik eta **sortaka** elkarturik konektatzen zaizkio ikusmen-nerbioari. Irene Aldasoro

Aterkiak **sortaka** hasten ziren batzen, elurrez zipritzindutako kalean zehar. Lopez de Arana

Noiz edo noiz entzuten dugu gurean belaunaldien kontua (literaturaren inguruan), boladaka eta **sortaka** sortzen baitira, nonbait, idazleak, eta ez banaka. Berria - Kultura

sortalde (*164 agerraldi, 48 liburu eta 3 artikulutan; cf ekialde 3174 agerraldi, 176 liburu eta 1195 artikulutan*) 1 iz ostertzeko lau puntu nagusietako bat, eguzkia sortzen den aldeari dagokiona. ik **ekialde**.

Sèvresko portzelanazko lau maisulan daude, lau estatuatxo airos eta dotore, lau puntu kardinalak irudikatzen dituztenak: Iparra, Hegoa, **Sortaldea** eta Sartaldea. Xabier Olarra

Lau aurpegiko aingeru bat, **Sortaldera** eta Sartaldera, Iparraldera eta Hegoaldera,aldi berean doana. Juan Garzia

Lau burdinak seinalatzen zuten ipar-hegoak eta **sortalde** -mendebalak norantz ziren. Pello Zabala

Sortaldetik begiraturik ahate baten mokoaren itxura peto-petoa duelako deitzen da Duckbill. Juan Garzia

Une misteriosua duk: antzinako paganoek basoen erdian ospatzen zitean, debozioz besoak altxaturik, aurpegia **sortalderantz** bihurturik, itxoinaldi magikoan. Xabier Olarra

Harriandi barreneraino heldu zen, kaiburuan itzuli eta portuari inguru eginez **sortaldeko** nasara joan zen. Joseba Sarrionandia

Norvegiar armada bat lagun, **sortaldeko** itsasertzean lehorreratu eta Jorvik-eko (York) gaztelua menderatu zuten. Juan Garzia

Turkiarrak, **sortaldeko** europarrak, magrebiarrak. Edorta Agirre

Sortaldeko merkataritza bera nazio handiek bi Indietan egiten dutenaren mende dago, eta Italiak gehigarri gisa jarduten du hartan. Iñaki Iñurrieta

Arrazoiak arrazoi, baina, **sortaldean** dago mendebaleko euskararen indarra, Lea-Artibai eskualdean, Busturialdean, Durangaldean eta Deba arroan. Koldo Zuazo

Jeloskor zegoen Teodosiorekin, espainiarra hau ere, eta **Sortaldeko** inperioa kendu nahi zion hari, lehenago Sartaldekoa kendu zion bezala. Juan Martin Elexpuru

· Mendebal barruan eremu edo azpieuskalki bi badirela esan dezakegu: *sartaldea* eta **sortaldea** deituko ditudanak. Koldo Zuazo

2 (izenondoekin)

Asian, Afrikan eta **Sortalde** Hurbilean 100 bat milioi neskaren hutsunea ikusten zuen Unicefek. Gotzon Garate

1924. urtea zen, eta Corto Maltese Europara itzulia zen **Sortalde** Erditik, beste nonbait aditzera ematen diren abenturak bizi ondoren. Iban Zaldua

3 lurralde edo herrialde baten sortaldeko eskualdea; sortaldeko eskualdea.

Don Alejandro Glencoe, lehendakaria, **sortaldeko** etxalde-jabe bat zen, Brasilgo muga ondoan lurrak zituen. Juan Garzia

Egiptoan edo Asian zuen jatorria [...] eta eruz hedatu zen **sortaldeko** probintzietan eta santutegiak eraiki zituen Mazedonian, Kartagon eta Treveris-en. Juan Garzia

Sortaldeko herrialde hartara joan zen bizitzera, adimen eta ezaguerari gailendu egin baitzitzaion berari ernetako grina. Xabier Olarra

Epai hori baieztu baizik ez dute egiten **sortaldeko** nazio batzuetako poesiaren jokamoldeek. Juan Garzia

4 (-ko eta -en atzizkien eskuinaldean)

Deba arroan eta Bizkaiko **sortaldean**, berriz, euskara giputzaren "eragina" eta "kutsadura" besterik ez zuten ikusten. Koldo Zuazo

Aitzindariak aditu diezkiezen ele berdinak bakegintzari lotu zitzaizkionetik Atlas mendietako **sortaldearen** duarretan gaindi. Xabier Montoia

Europako **sortaldetik** mendebaldera etorri zen gizon gazte bat da. Eskarne Mujika

Etorbidearen **sortaldeko** leiho guztiak su eta gar ari zirela ematen zuen. Lopez de Arana

5 jatorria Asian duen kultura partekatzen duten herrialdeen multzoa. ikekialde.

Salmanek **sortalde** eta sartaldeko zibilizazioak sakon aztertzen ditu. Berria - Kultura

Ezin uka daiteke **Sortaldearen** eta Sartaldearen arteko gorroto-maitasunak argitzeko saio bikaina denik. Berria - Kultura

Sortaldeko eta sartaldeko liburuz osatua zen liburutegi batera iritsi ginen. Juan Garzia

Idatzi horren gaia ispilu bat da, eta haren jabea, **Sortaldeko** tradizioaren arabera, Iskandar Zu al-Karnayn. Juan Garzia

Hau guztia aldatu egin zen **sortaldeko** erlijioak hedatutakoan. Iñaki Mendiguren

Ulertu genian **sortaldean** oraindik ere hiltzearen zentzu sakratu eta sinbolikoa ezagutzen dutela, eta baita hiltzearen esanahi ezkutu eta sinbolikoa ere. Xabier Olarra

Gazteluko patioan mendetako pikondo bat zegoen, ixtorio xume-xumeak baizik kontatzen ez dakien **sortaldeko** jakintsu bat zirudiena. Xabier Olarra

Iparraldeko artilezko gauzakiak eta oihalak, frantses ardoekin eta italiar merkatariek **Sortaldetik** ekarritako ehunekin eta bizigarriekin trukutzen ziren feria haietan. Koro Navarro

Bere sorkideak Antzinako **Sortalde** Erdiguneko kulturetan kokatu ziren, Sumerren eta Egipton bederen. Berria - Kultura

6 ipar-sortalde ik ipar 21.

7 hego-sortalde ik hego¹ 12.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sortaldeko eta sartaldeko (3)

sortaldetik sartaldera (4)

sortaldetar *izlag/iz* sortaldekoa, sortalderari dagokiona; sortaldeko herritarra.

Sortaldetar itxurarik soilena zuen, izarrak zituen masailetan, bekokian eta kokotsean, begi handi-handiak, gorputz zoragarria, beltzaran samarra, baina beltzaran kolore bero burtzoragarri batekoa. Josu Zabaleta

Harro egoteko motiborik ez zitzaion bere ustetan falta: **sortaldetarra** izatea, kriolloa izatea, emakume guztiak erakartzea. Juan Garzia

Hark, hainbat **sortaldetarren** gisa, ez baitzen Artigas zalea, Buenos Aires maite zuen. Juan Garzia

Sortaldetarren artean bizitza ez da ezer; bertatik hartzen da etsimena. Josu Zabaleta

Mendebaldetartu **sortaldetarrak**. Berria - Kirola

sortarazi ik sorrarazi.

sortarazle ik sorrarazle.

sortasun 1 *iz* sor dagoenaren egoera.

Txalupako hiru lagunak, astiro-astiro, **sortasun** sakon batean murgildurik geratu ziren. Joanes Urkixo

Binbilinketa apur bat baretu zen; ez, ordea, sargoria, eta agurea **sortasun** astun batek jo zuen. Karlos Linazasoro

Dahlmann-ek halako **sortasun** motel batez entzuten zituen eta miragarri zitzaion haiek ez konturatzea infernua zela. Juan Garzia

Jabetu nintzen orduan ezinezkoa dela hain pasibo izatea zorigaitza edota heriotza hain hurbil dagoenean, **sortasun** hain ageriko hura ezin zitekeela iruzur bat baino izan; hau da, bidaiari haiek guztiak bazekitela liberatuak izango zirela. Karlos Linazasoro

2 (hitz elkartuetan)

Eraketa diskurtsibo bakoitza ez da iragaiten atalase batetik bestera jarraian, heltze biologikoaren estadio naturaletatik legez, non aldagai bakarra izango zen **sortasun** denbora edo tarte iraupena. Xabier Arregi

sortatxo 1 *iz* sorta txikia.

Hori bezalako **sortatxo** bat emateko prest nago -billeteari begiratu zion. Migel Angel Mintegi

Erbestetarik konde eta dukeen **sortatxoa**; zenbait loyalista eta frankista. Edorta Jimenez

2 irud/hed

Gero, mendiaren gailurrean erreka bat aurkitu dut, bertan bota dut ene **sortatxoa**. Koldo Izagirre

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Amak lore- **sortatxo** bat atera zuen otarretik. Anjel Lertxundi

Bioleta **sortatxoak** erretiluaren goroldioan berez sortzen zirela zirudien, hain agudo landatzen zituen. Karlos Zabala

Erromero **sortatxo** triste hau hamar zentaboa. Juan Garzia

Menda-belar **sortatxoak** jarri zizkieten burukoaren azpian eta ahuntz koipez igurtzi zuten goitik behera. Bego Montorio

Sanjoan belarrak ere, millorria eta beste, komeni zen bezperako sutan esku- **sortatxo** bat aparte erretzea. Pello Zabala

Galtzetako atzealdeko patrikatik giltza **sortatxo** bat atera du. Joxemari Iturralde

sorte ik zorte.

sortegun *iz* jaioteguna. ik urtebetetze.

Ezkontza agiri frango baziren ere: ezkongaien izenak, sorterriak eta **sortegunak** adieraziak ziren. Ramuntxo Etxeberri

Irailaren 8a Mariaren **sortegun** ekarria da eta egun hortan edo toki batzutan bezperan egiten dira gaur egun oraino beila kartsu batzu. Herria

Bertze batzuek beren **sortegunaren** datarekin osatzen dute pasa-hitza. Aingeru Epaltza

Jesuita nafarrak aldiz, tradizio osoari jarraikiz, gogor zeukan Mendekoste zela Egiatzko Elizaren **sortegun** zuzena. Piarres Xarriton

sortelegun ik zotalegun.

sorterri (493 agerraldi, 97 liburu eta 136 artikulutan) 1 iz sortze herria (1. edo 5. adieran). ik jaioterri 2.

Aberria da **sorterria**. Menane Oxandabaratz

Gure herria zapaldua eta galzorian ikusten baldin badugu [...] atxikimendu berezia erakutsi behar diogu **sorterriari**. Piarres Xarriton

Kontua da **sorterria** salbatu beharra daukagula; hilzorian dugu **sorterria**, eta gu geu gara horren errudunak, ez hogeit herri atzerritarren inbasioa. Jose Morales

Gizaki bakoitza, ordea, deus ez baita **sorterri** batekoa ez bada eta bere Herri horrek ez baldin badio doi bat ontasun ekonomiko, sozial eta kultural segurtatzen. Piarres Xarriton

Pentsa, tropikoan denbora puska bat eman duten ingelesak susmagarri dituk beren **sorterrian**. Xabier Olarra

Napoleon Bonapartek jakobinoen alde hartu omen zuen behin **sorterrian**, baina gero, Frantziaren zerbitzuan aitzindari ospetsu bilakaturik, Estatuaren goiko mailetara gazterik igan zen. Piarres Xarriton

Amak galdua zuen Herioren aurkako borroka latza, bere **sorterrian**, Ampurdan deitzen den lurraldean. Felipe Juaristi

Allande Oihenart zuberotar jakintsua ohartu zitzaion gaineko bi erresuma puxanten artek bere **sorterriaren** batasunari eta finkatu zituen gure nazioaren oinarri historikoak. Piarres Xarriton

Garbitasun usaina zegok alde guztietan, beste herrialde batera, denboren hasieran heure **sorterri** izandakora itzultzen ari bahintz bezala. Xabier Olarra

Suitzari, Genevako Akordioaren **sorterri** den heinean, bitartekari lanak egiteko gonbita egiten dio. Berria - Mundua

Langile zintzo, auzo leial, guraso on izan ondoren, erbesteatuak zirelako **sorterri** bezain hilerri zitzaizen hiritik. Felipe Juaristi

Zu maparantz inguratuko zara, izen horrek modu sekretuan zeure **sorterri** urrunera deituko zaituelako. Joseba Sarrionandia

Biok ginen **sorterri** berekoak. Berria - Euskal Herria

2 sortze herria (7. adieran). ik jaioterri.

Anartean gure belaunaldia badoalarik, han harat, bide handiz, ikusi ditut, zenbait aste barne, Hazparne ene **sorterrian** bi adiskide handi, bat Ximun ene haurreko laguna, bestea Janpiarre ene ikasle ohia. Piarres Xarriton

Belen, errege berriaren **sorterri**. Elizen arteko biblia

Haurtzaro zoriontsua hogeiko urteetako hura, haren **sorterri** Kolonian eta Rhenaniako landetan emana. Joxan Elozegi

Pribilegio handia izan da Oiarzungo herriarentzat Manuel eta Juan Mari Lekuona osaba-iloben **sorterri** izatea. Berria - Harian

Düsseldorfetik Zürichera joan nintzen, **sorterria** ikusi gabe hamarnaka urte neramalako, besterik gabe, nik uste. Joxe Austin Arrieta

Bergarajauregitarren **sorterria** baino zaharragoa eta herri nobleagoa zela Artaxona ziur asko. Ramon Saizarbitoria

Neskaren **sorterrik** 50en bat kilometrotara edo dagoen herri bat. Pako Aristi

Luzaz ohartu gabe nihaur, Elizaren, herriko erretorearen, aitamen, **sorterriaren**, Seminarioko ikasle eta buruzagien begiekin ikusia nuen ene burua: apez. Piarres Aintziart

3 sorterri-min herrimina.

Sabino Aranek aberria galzorian sumatu zuenean sentitu omen zuen halako **sorterri**-min bat, Euskal Herriari eusteko oinarri politikoak jartzera eraman zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Orduan, nazio askotako soldadu eta marinelez inguraturik, nazio askotako emakumeek eraso eginik, orduan jo zuen **sorterri**-minak. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beren **sorterria** (6); **sorterria salbatu** (4); **sorterria utzi** (9)

bere **sorterrian** (19); **beren sorterrian** (4); **nire sorterrian** (4); **sorterrian hil** (3)

bere **sorterriaren** (5); **sorterriaren izena** (3)

beren **sorterrietara** (6)

bere **sorterriko** (11); **ene sorterriko** (5)

bere **sorterrira** (13); **bere sorterrira itzuli** (3); **beren sorterrira** (5); **nire sorterrira** (5); **ondoren sorterrira** (3); **sorterrira bidali** (4); **sorterrira eraman** (4); **sorterrira itzuli** (3); **sorterrira itzuli** (20); **sorterrira itzuli da** (3); **sorterrira itzuli zen** (5); **sorterrira itzuliko** (4); **sorterrira itzultzea** (7); **sorterrira itzultzeko** (11); **sorterrira itzultzen** (6); **zure sorterrira** (4)

bere **sorterrik** (5); **sorterrik kanpo** (5); **sorterrik urrun** (4)

sorterriratu, sorterrira(tu), sorterriratzen da/du ad sorterrira joan edo eraman.

Vincent ere triste dago: asea baitzen hemengo komediaz, tiroxka bat bota dio zangoari, **sorterriratu** izateko baina jukutria agerikoa zen eta bi hilabete gehiago egonen da hemen. Piarres Aintziart

sortetxe iz jaiotetxea.

Sortetxearen deiak erraiak inarrosi zizkidan. Daniel Landart

Uda hartan hilabete bat pasatu nuen **sortetxean**, aitamak laguntzen nituela gogotik kanpoko lanetan. Piarres Aintziart

Hiritartzearen fenomenoaren ondorioz etxaldeak eta **sortetxeak** husten ari direla diote. Berria - Euskal Herria

Ordurako preso zegoen Muñatonesko dorrean **sortetxean** bertan, alegia-, semeak testamentua bere alde sinatzera behartu nahi zuelako. Martin Anso

Lasaiago-edo aurkitzen nintzen nonbait, jakinik **sortetxean** zeudela, iraganarekiko azken loturaren antzera, etxe aldatzea sekula erabatekoa izan ez zela. Joxan Elozegi

Anita gure arreba adintsuena **sortetxera** ezkonduko zitzaigula. Daniel Landart

Haristoy-en **sortetxeko** alaba batekin ezkondua. Herria

Etixerakoan aitatxiren **sortetxean** gelditzen da, amatxi Koxepa eta osaba Battitten bisitatzen. Eneko Bidegain

Nafarroako erreinu guziko errepide ederrenaren bazterrean dago gure **sortetxea** eta egunero haren atetik iragaiten dira jende mota guztiak. Piarres Xarriton

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere **sortetxean** (4)

sortida iz itsasontzi baten irteera.

Sortida egin baino ordu bete lehenago ontziratzen zen hura beti. Koldo Izagirre

Ez dizut ukatuko guk nahi baino gehiagotan **sortida** egin gabe gelditu behar izaten zutela ontziek. Koldo Izagirre

Biharamunean **sortida** handi bat antolatu zen beste auzoetarik etorritako zenbait yaterekin eta gasolinoekin, komandantziako V-18 kostazaina buru zutela. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sortida egin (3)

sortilegio iz aztikeria, azti lana.

Hegazkineko bidaia bat, ordea, gauza serioa da, Simca 1.000aren abiadura txiste bilakatzeko duena; pisu handiagoko **sortilegio** baten beharra eskatzen du bidaia ondo burutzeko. **Pako Arísti**

Euskaldunen idurian, berriz, majia hori ez da esistitu; beti bereizi ditu idazpena eta **sortilegioa**. **Patziku Perurena**

sortleku ik **sortleku**.

sortohe iz sortze ohea.

Boikot hitzak Erne-ko kondearen administratzaile izan zen Charles Cunningham Boycott ingeles kapitainari zor dion bezala denaren parte handi bat, beste batzuek ere ez dute oso bestelakoa **sortohea**. **Iñigo Aranbarri**

sortu¹, sor(tu), sortzen da/du *ad 1* izatea edo bizia hartu edo eman; (arteana ez zen zerbait) egin.

Jainkoak ezerezetik **sortu** zituen gauzak oro -bizidun eta bizigabeak-. **Joxerra Garzia**

Hasieran Jainkoak zeru-lurra **sortu** zituen. **Xabier Kintana**

Horregeatik **sortu** zuen Jainkoak mundua. **Patxi Zubizarreta**

Duela 15 milioi urte **sortu** omen zen unibertsoa. **Joxerra Garzia**

Eraikuntzak egiteko egokiak diren materialei buruz hitz egingo dut, nola, itxuraz, izadian **sortzen** diren, eta nola egoten diren elementu desberdinak nahastuta eta konbinatuta Orain utzidazu azaltzen materiaren gorputz sortzaileek nola dituzten izaki ezberdinak **sortzen** eta **sortuak** disolbatzen. **Santiago Iruretagoiena**

Jainkoak orotariko bizidunak **sortu** zituen: abereak, piztiak eta narrastiak. **Elizen arteko biblia**

Inork **sortu** izan ez balitu bezala, betidanik han izan balira bezala, mendiak edo ibaiak bezalaxe. **Jon Muñoz**

Gero, ikusi zuten naturan erruz **sortzen** zirela materialak. **Santiago Iruretagoiena**

Bere makila magikoaz aulki bat **sortu** zuen airean. **Iñaki Mendiguren**

Lurrunaren indarrez barru-barrutik erretzen denean, leku batzuetan ikatz-hautsa deitzen den harea-mota hori **sortzen** da. **Santiago Iruretagoiena**

Edendik ibai bat **sortzen** zen; baratzea ureztatu eta gero, lau adarretan banatzen zen. **Elizen arteko biblia**

Hazia espermatozoidez eta prostatan eta semen besikulan **sortzen** diren likidoez osatua dago. **Luis Elberdin**

Harkaitzetik ura **sortu**.

Gero botila koñak batetik kluka luze parean edan, eta apar ugari **sortu** diat. **Patxi Zubizarreta**

Halako batean, uhin bat **sortu** zen uretan. **Bernardo Atxaga**

Orduantxe, ezten zorrotz bat **sortu** zen uretatik. **Joanes Urkixo**

Bular barnean **sortu** eta etengabe hazten zen zerbait zen. **Alberto Ladron Arana**

Aspaldidanik **sortzen** hasiak ziren eskolak han-hemenka premiari erantzuteko. **Askoren artean**

Talde liburu bat **sortu** zen bilera haietatik: *Les soirées de Médan* (1880). **Karlos Zabala**

Urte berean **sortu** ziren Hollywoodeko zinema estudio ezagunak eta ondoko urtean urperatu zen "Titanic" itsasontzi indartsua bere lehenbiziko bidaian. **Pello Salaburu**

Beraz, orduan, Baigura xolan, duela mila urte, Heleta **sortu** zen. **Piarres Aintziart**

Egunen batean infernua **sortu** beharko dugu haietatik bakarrik! **Anjel Lertxundi**

Zatik hauek, kolapsoaren ondoren zibilizazioen desintegratioak **sortuek**, askatasuna lortzen dute. **Iñaki Mendiguren**

Sekular ez du sortzaile batek beretzat **sortzen**, **sortzea** komunikazioan sartzen den harremana baita. **Ana Urkiza**

Eguzkia hil daiteke, eta berriz **sortu**. **Patxi Zubizarreta**

2 (sentimenak, sentipenak eta kidekoak)

Petxuan mina **sortu** zaiola. **Joxerra Garzia**

Muskuluek ere beroa **sortzen** dute lanean ari direla. **Irene Aldasoro**

Halako susmo bat **sortu** zitzaion bihotzean. **Koro Navarro**

Etartetik kanpora batera susmo txarrik edo larritasunik **sortu** gabe. **Koro Navarro**

Zalantza **sortu** zitzaion, zer egin marrubien ziriarekin. **Bernardo Atxaga**

Kezka bizia **sortu** zion Mikel Strogoffi pentsamendu horek. **Karlos Zabala**

Heriotzak **sortu** ohi duen lastura alde zurretik mendean hartua duenak. **Imanol Zurutuza**

Kafea hartzeko gogoa **sortu** zitzaion. **Jon Muñoz**

Gizon bitxi hura ezagutzeko ikusmina **sortu** zitzaion. **Patxi Zubizarreta**

Gozokiek izugarriko egarria **sortu** zieten eta ez zeukaten zer edanik. **Iñaki Mendiguren**

Nolako aztoramendu gaitza **sortu** zigun benetan ari zela frogatu genuenean. **Koldo Izagirre**

Herrian gizon bakar bat hiltzen duen edonork mendeko egarria **sortzen** dik askorengan. **Juan Kruz Igerabide**

Higuinetik **sortu** behar dute pudorea eta kastitatea. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Bistakoa da hainbat filia eta fobia **sortzen** dituela frantziar bigotedunak. **Iñaki Heras**

Sekulako iskanbilak eta haserreak **sortu** dira jende artean. **Patziku Perurena**

Esperantza faltsuak **sortu** dira. **Eduarne Elizondo**

Ez zuen, beharko zukeen bezala, izu-laborrik **sortu**, emulazioa baizik. **Xabier Olarra**

Halako ospe beldurgarria baldin bazuen ere, frustrazio txiki bat **sortu** zigun Kokok klaserik emango ez zigula jakiteak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nork **sortu** zituen irrika hilezkorra, orain zuek, sakrilego doilorrak, azpiratu eta deuseztu nahi dituzuenak? **Karlos Zabala**

Txixagura **sortu** zitzaion, ordea, geroago. **Aitor Arana**

Pinet eta Cavaignac azaldu zirenean, marmar berezia **sortu** zen, ikusliarren artean hedatu zena. **Elena Touyarou**

Bat-batean ahots bat **sortu** zen ilunpetatik, ahots ezti lainotsu bat. **Iñaki Mendiguren**

Halaxe hasten zen gurekin hizketan, etengabe galderak eginez, solasaldi bat **sortu** nahian. **Bernardo Atxaga**

3 (bestelako gauza abstraktuak)

Giza arima Jaungoikoak ezerezetik **sortu** zuela baieztatzen du. **Imanol Unzurrunzaga**

Prometeok **sortu** zituen, buztinez eta urrez, gizakiak. **Juan Garzia**

Mamu bat **sortu** zuten greziarrek, Pan izeneko jainkoa. **Bernardo Atxaga**

Unibertitate hau **sortu** zenean, ahal izan zen bezala **sortu** zen eta irakasle gehienak kanpotik etorri ziren. **Pello Salaburu**

1980 hamarkadan **sortu** ziren euskarazko irriak. **Menane Oxandabaratx**

Gerrak ekimen eta irabazpide berriak **sortu** zituen. **Patxi Zubizarreta**

ondoren sortu (22); **sortu zen** (21); **ondotik sortu** (9); **orduan sortu** (20); **sortu** (11)

plataforma sortu (22); **polemika sortu** (19)

sabelean sortu (9); **sarea sortu** (9); **seme sortu** (13)

sortu ahala (11); **sortu aitzin** (9); **sortu arren** (15); **sortu arte** (16); **sortu aurreko** (11); **sortu aurretik** (43)

sortu baino (55); **sortu baino lehen** (20); **sortu baino lehenago** (9); **sortu berri** (81); **sortu berri den** (17); **sortu berria** (81); **sortu berria zen** (11); **sortu berriak** (48); **sortu berriaren** (22); **sortu berriari** (173); **sortu berrier** (9); **sortu berrieri** (88); **sortu berritan** (11); **sortu bide** (10)

sortu den egoera (9); **sortu den eztabaida** (9); **sortu dena** (15); **sortu eta garatu** (9); **sortu eta gero** (10); **sortu ezin** (10); **sortu gabe** (73); **sortu gura** (11); **sortu nahi** (256); **sortu nahian** (14); **sortu ondoren** (21); **sortu orduko** (24)

talde bat sortu (16); **talde sortu** (13); **taldea sortu** (83); **taldea sortu zuen** (18); **taldeak sortu** (14)

ugari sortu (56); **ugari sortu ditu** (13); **urtean sortu** (65); **urtean sortu zen** (33)

zalantza sortu (26); **zalantzak sortu** (18); **zalaparta handia sortu** (12); **zalaparta sortu** (10); **zerbait sortu** (12); **zergatik sortu** (18); **zertarako sortu** (10); **zorionak sortu** berriari (17); **zorionak sortu berrieri** (13)

herrian sortua (9); **sortua zen** (109); **sortua zuen** (12); **zerk sortua** (9)

arazoak sortuko (15); **arazorik sortuko** (12); **lanpostu sortuko** (13); **lanpostuak sortuko** (9); **talde bat sortuko** (10)

bertan sortutako (10); **bidez sortutako** (10); **gainean sortutako** (12); **gizakiak sortutako** (10); **inguruan sortutako** (62); **ondoren sortutako** (13); **ondorioz sortutako** (26); **ostean sortutako** (13); **propio sortutako** (10)

sortutako arazoak (17); **sortutako egoera** (37); **sortutako eztabaida** (9); **sortutako krisia** (10); **sortutako lan** (14); **sortutako lanak** (14); **sortutako taldea** (10); **urtean sortutako** (9); **urteetan sortutako** (9)

sortutakoa da (14)

kontseilua sortzea (12); **mahaia sortzea** (16)

sortzea aurreikusten (12); **sortzea aurreikusten du** (9); **sortzea du helburu** (10); **sortzea erabaki** (34); **sortzea erabaki zuten** (15); **sortzea lortu** (14); **sortzea onartu** (11); **sortzea proposatu** (46); **sortzea proposatu zuen** (18); **sortzea proposatzen** (13)

talde bat sortzea (13); **zerbait sortzea** (10)

argindarra sortzeko (22); **arriskua sortzeko** (16); **baldintzak sortzeko** (15); **bizia sortzeko** (11); **energia sortzeko** (14); **enplegua sortzeko** (14); **estatu palestinarra sortzeko** (13); **euskal curriculuma sortzeko** (9); **gehiago sortzeko** (12); **giroa sortzeko** (9); **jokoa sortzeko** (11); **kontseilua sortzeko** (9); **lanpostuak sortzeko** (11); **musika sortzeko** (9)

sortzeko ahalegina (10); **sortzeko ahalmena** (17); **sortzeko ardura** (10); **sortzeko arriskua** (17); **sortzeko asmoa** (39); **sortzeko asmoz** (15); **sortzeko aukera** (39); **sortzeko baldintza** (9); **sortzeko balio** (13); **sortzeko beharra** (14); **sortzeko bidean** (14)

sortzeko egitasmoa (9); **sortzeko erabakia** (10); **sortzeko erabiltzen** (10); **sortzeko eskatu** (24); **sortzeko gai** (48); **sortzeko gai da** (9); **sortzeko gai izan** (10); **sortzeko gaitasuna** (35); **sortzeko gogoia** (10)

sortzeko ideia (10); **sortzeko konpromisoa** (11); **sortzeko lanean** (9); **sortzeko makina** (9); **sortzeko modu** (9)

sortzeko orduan (10); **sortzeko premia** (9); **sortzeko proposamena** (10); **sortzeko prozesua** (21); **sortzeko prozesuan** (11)

taldea sortzeko (12)

arazo bat sortzen (9); **arazo larriak sortzen** (10); **arazoak sortzen** (78); **arazoak sortzen ditu** (26); **arazorik sortzen** (21); **arriskua sortzen** (12); **aukera sortzen** (10); **aukerak sortzen** (17); **baldintzak sortzen** (14); **beharra sortzen** (9); **beldurra sortzen** (19); **berehala sortzen** (10); **berez sortzen** (41); **berriro sortzen** (9); **berriz sortzen** (9); **bertatik sortzen** (9); **beti sortzen** (21); **bidez sortzen** (12); **bitartez sortzen** (9)

efektua sortzen (13); **egunkaria sortzen** (12); **energia sortzen** (9); **enplegua sortzen** (9); **etengabe sortzen** (12); **ezinegona sortzen** (10); **eztabaida sortzen** (15); **giroa sortzen** (14); **gogoia sortzen** (13); **hortik sortzen** (28); **hortik sortzen dira** (9)

ikara sortzen (10); **inguruan sortzen** (34); **inguruan sortzen den** (9); **irudiak sortzen** (12); **jakin mina sortzen** (11); **kezka sortzen** (23); **mina sortzen** (15); **minbizia sortzen** (12); **musika sortzen** (9); **nahasmena sortzen** (10); **nola sortzen** (47); **nola sortzen den** (13); **non sortzen** (10); **nondik sortzen** (19)

ondorioz sortzen (24); **orduan sortzen** (9); **soilik sortzen** (10)

sortzen den desira (17); **sortzen dena** (34); **sortzen direnak** (20); **sortzen lagundu** (26); **sortzen lagundu zuen** (9); **sortzen laguntzeko** (9); **sortzen omen** (22); **sortzen saiatu** (9); **sortzen saiatzen** (15)

ugari sortzen (19); **urduitasuna sortzen** (9); **zalantza sortzen** (18); **zalantzak sortzen** (17); **zerbait sortzen** (16); **zergatik sortzen** (9); **zerk sortzen** (11)

sortu², sor(tu), sortzen (*orobat **xortu***) da/du *ad* gortu.

Baina kiratsaren sarkorrak berak geldotzen ninduen, soraiotzen, **sortzen**. Txillardegi

Lehen gure kantuak aditzen zituen **xorturik**, bihotz zimikorik gabe. Javi Cillero

Berotasunean **xortuta** eduki zuen ezker besoak gero eta min gehiago ematen zion. Joxemari Urteaga

sortuberri ik **sortu**¹ 8.

sortugabe 1 *izond* sortu ez dena.

Sortugabea zen betiereanean, Jainkoagan zegoen, han subsistentea zen. Joan Mari Lekuona

Idoia, Aintzane eta gure seme artean **sortugabea** betiko abandonatuko nituzke. Xabier Montoia

2 sortugabeko izlag sortugabea.

Gorputzaren Sortzailea bake orenen eta **sortugabeko** formen iturri da, orotan ederrena. Imanol Unzurrunzaga

sortugai *iz* sortze gaia.

Eta "hasieran" jakindurian zeru-lurrak egin zituela ulertzen dutenen artean, batak zeru-lur berak zeru-lurren **sortugala** deritzala uste du; besteak sorkari eitedun, bereziak; besteak eitedun eta espiritual bat, zeru deritzona, bestea gorpuzduna, formagabea, lur deritzona. Imanol Unzurrunzaga

sortzaile (*orobat **sorle** g.er. eta **sortzale** g.er.*) 1 *izond* sortzen duena.

'Irakurle handi bat' horrek irakurle **sortzailea** esan nahi zuen; alegia, bere burua liburuaren jatorrizko hitz, ideia, datu eta pertzepzio estetikoko eskema ugariekin kontrastatuko zuen irakurlea. Jon Alonso

Hori oso injustua eta zaila izan daiteke jasateko emazte **sortzaile** batentzat. Ana Urkiza

Deus ez dela gertatzen, deus ez sortzen, kausa **sortzaile** eta eragile batek sortaraziz eta eraginda ez bada. Imanol Unzurrunzaga

Arrazoimen beregain, jatorrizko eta **sortzailea**. Ibon Uribarri

Nor da, bada, agente **sortzaile** hori? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Txinparta **sortzaile** bat ezin dela piztu erantzun bat gabe eta erronka bat gabe. Iñaki Mendiguren

Bizia indar **sortzaile** bat da, askea, ederra, zoragarria, indartsua, gihartsua, geldiezina. Iñaki Segurola

Bihi honen gaitasun **sortzailea** ezin dugu geure begiez ikusi, baina arrazoimenaz susma dezakegu. Imanol Unzurrunzaga

Vanusen himnoak naturaren alde **sortzailea** kantatzen du. Xabier Amuriza

Jakin-minezko zirrara **sortzailerik** gabe. Iñaki Mendiguren

Energia **sortzaile** hori, erlijiozko babespean, ubide sekularretara isurtzen ikusten dugu gizarte-bizitzako ekonomia, politika eta kulturaren mailan. Iñaki Mendiguren

Euren web orrian atalik Erresistentzia **sortzailea** (*Creative resistance*) deituta da. Txema Ramirez de la Piscina

Tradizioa ikuspegi **sortzailetik** bizi nahian. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Izaera [...] aztertu nahi luke artistak, baina modu **sortzaile** batez aztertu ere; sorkuntza arma bakartzat harturik alegia. Anjel Lertxundi

Sarkin galanta den arren, Touretteren sindromea modu **sortzailean** ere erabil daiteke. Xabier Olarra

2 (izan aditzarekin)

Jaungoiko bakarra eta ahalguztiduna da, arima eta gorputz orenen **Sortzaile** eta Egilea. Imanol Unzurrunzaga

ik beherago 6. Askoren artean

Ama ez da haurraren **sortzaile**, baizik eta erain berri den haziaren zaintzaile baino ez. Luis Elberdin

Ontasuna ez da egina, ez da sortua, ez da jaioa; **sortzailea** da eta bere baitatik sortzen du gizaki ona. Joan Mari Lekuona

Bada mamuen beste **sortzaile** bat, erabat erabakigarria dena: beldurra. Bernardo Atxaga

Gogoan dut Botanikoaren **sortzaile** izan zen Carlos III.ari buruz mintzatu zitzaizkidan asko. Ramon Saizarbitoria

Oinarri biak estatu-tresnaren **sortzaile** den hitzarmen ideian sustraitzen dira. Juan Martin Elexpuru

Enbrioiaren formen eta egituren **sortzaile** diren gertakari konplexuen sekuentziari. Juan Garzia

Ez da harrizkekoa [...] biak izatea pentsamendu politiko modernoaren **sortzaile** eta historia osoan biak izatea gaizkielentz. Esteban Antxustegi

Xabier Azurmendik, *Atzoko Zegama* liburuan, "Cara al Sol"en **sortzaile** izandako Joanito Telleriaz ari dela, Aizpurutziki albokaria aipatzen du. Patziku Perurena

Grina horixe baita, nere ustetan, nobela honen **sortzaile** eta moldatzaile. Patziku Perurena

Joanes pertsonaia ez baizik haren **sortzaile** Domingo de Agirre zena ekarri nahi dut orriotara. Xabier Mendiguren Elizegi

Gutxiengo bat, **sortzaile** izan ordez menderatzaile soilik bilakatu dena. Iñaki Mendiguren

Ez dakite zer den **sortzaile** izatea, baina, hori bai, **sortzaile** izan nahi dute kosta lain kosta. Bernardo Atxaga

3 hizkuntzalaritzan, generatibista.

Teoria **Sortzailearen** eremuan, funtsa Chomsky-ren Fonologia **Sortzailea** edo Generatibista, orain "klasikoa" deitzen dena da. Lourdes Oñederra

Fonologia **Sortzaile** klasikoak. Lourdes Oñederra

Gogoan izan Kiparsky-ren [...] fonologiazko ikuspegia, teoria **sortzaile** klasikoaren (SPE) berrikuntza arrakastatsuenetakoa izan dela. Lourdes Oñederra

Sortzaile edo generatibistak deskribapenaren baldintza formalez arduratu dira. Lourdes Oñederra

Irudiaz jabetzeko "sakoneko" mekanismoen eta hizkuntza menderatzearen artean ahaidetasun bat dagoelako hipotesitik abiatuta irudiaren semiologia **"sortzaile"** bat oinarritzeko ahaleginetaraino. Josu Zabaleta

• 4 iz sortzen duen pertsona.

Munduaren lehen **sortzaile** bat frogatzeko saialdiek arrazoimen hutsa antinomia batean nahastean dute munduaren kontzeptuari dagokionez. Ibon Uribarri

Nor ausartuko da esatera egintzak eta egilea edota sorkaria eta **sortzailea** berdinak direla? Imanol Unzurrunzaga

Gabaon hiriarren **sortzaileak** Jeiel zuen izena eta Gabaonen bertan bizi zen bere emazte Maakarekin. Elizen arteko biblia

Estoikoen eskolaren **sortzailea** izan zen. Xabier Olarra

Sabino Arana, EAJ alderdi abertzalearen **sortzailea** eta karisma handiko liderra. Koldo Zuazo

Loiola, Inazio (Azpeitia, 1491 - Erroma, 1556), armada gaztelarreko kapitaina, Iruñean nafarren kontra zauritua, Jesusen Konpainiaren **sortzailea**. Aingeru Epaltza

Estatu unibertsal sinikoaren **sortzaile** iraultzaileak, bere hiriburutik zabaltzen ziren bideak egin zituen, eta ongi antolatutako ikuskatzaileak erabili zituen. Iñaki Mendiguren

Euklides, geometriaren aita, optikaren (argi-izpien hedaketaren zientziaren) **sortzaileetako** bat ere izan zen. Josu Zabaleta

Pentsamenduaren **sortzailea** pentsamendu biziaren apaiz kontsagratzailea besterik ez da. Iñaki Segurola

Azken batean, argumentuaren **sortzailea** nintzen, istorioaren egitura niri zegokidan. Xabier Mendiguren Elizegi

Maiatz literatur aldizkariaren **sortzaileetarikoa** bat eta zuzendaria izan zen. Ana Urkiza

Guraso ezagunik eta **sortzaile** jakinik behar ez duen sasikumea delako. Iñaki Segurola

5 (arte eta literaturan)

Sortzaile batek (idazleak, margolariak, kantariak, antzezleak) inoiz ez baitu ahazten bere obrari buruz esan den gauzarik mengelena ere. Pako Aristi

Kantariak, poetek, artistek eta oroz bat **sortzaileak** mugimendu horretan, arraiki parte hartzen zuten. Itxaro Borda

Sortzailea nartzisismoa eta masturbazioari emana izaten da, ez du [...] bestek sorturikoa maitatzeko behar den eskuzabaltasuna. Markos Zapiain

Erlorjupeko **sortzailea** da bertsolaria. Andoni Egaña

Kantu profanoen **sortzaile** famatu bat zegoen, Enperadoreak poeta koroatu zuenetik "bertsoen errege" deitzen ziotena. Askoren artean

Sekular ez du **sortzaile** batek beretzat sortzen, sortzea komunikazioan sartzen den harremana baita. Ana Urkiza

6 (Jainkoaren izen gisa)

Horrelaxe iristen gara Jainkoaren, hots, **Sortzailearen**, existentzia frogatzera. Xabier Kintana

Haiek ere ez al dira, bada, **Sortzaileak** sortuak? Anjel Lertxundi

Sortzaileak munduko parte askotatik jasotako buztinarekin egin zitian Adan eta Eva, horrela gizaki guztiok etxean bezain eroso sentitu gaitzen munduko parte guztietan. Anjel Lertxundi

Nork kontu merezi bezala haren gozamenen, sorkarieran **Sortzailearen** jakinuria, indarra eta ontasuna kontenplatzeko? Askoren artean

Sortzaile ahalguztiduna eta beraren zerbitzari Frantzisko dohatsua. Askoren artean

Edozelan ere **Sortzaile** onberari eskerrak emateko arrazoirik ez zaizu falta. Imanol Unzurrunzaga

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Baina badago besterik ere: itzultzaileen **sortzaile** -lana ahanzten da itzulpenez ari garen guztietan. Anjel Lertxundi

8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Publizitate-**sortzaileen** lana, hain zuzen, zenbat eta nolako kodeak erabiltzen diren, era bateko edo besteko estrategiez baliatuz irakurri ahal izango diren irudiak sortzea da. Josu Zabaleta

Ziur naiz literatura-**sortzaile** askok benetan eskertzen dituztela halako kritikak. Markos Zapiain

Guruin ekrinoak dira izerdi-**sortzaile** handienak. Irene Aldasoro

Hondakin-**sortzaile** handienak. Edorta Agirre

Minbizi **sortzaile** diren estirenoa eta naftalenoa. Berria - Gaiak

Aho barrunbeak, aldiz, hots- **sortzailearen** eta erresonantzailearen betekizunak biltzen ditu. Isabel Arrigain

Arimak gorputzaren sentimenei eraginez jasotzen dituen inpresio guztiak iritzi-**sortzaile** izan daitezke, ez dute, baina, zientziarik sortarazten. Imanol Unzurrunzaga

Jeloskorra zela eta jelsia-**sortzaile** ere izan zela. Felipe Juaristi

Ez zen sekula nire plazerraz arduratzen, bakarrik fantasia **sortzaile** gisa axola nintzaion. Juan Martin Elexpuru

Zintzoaren etxean ugaritasuna, gaiztoaren irabazia kezka-**sortzaile**. Elizen arteko biblia

Iraganeko historiak erakutsia zuen elkarrenganako beldurra ekonomia gabezia bezain gerra-**sortzaile** indartsua zela. Iñaki Mendiguren

Besoak aberastasun **sortzaile** dituztenei. Andres Urrutia

9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

I. jauna erretinako konoz ari zen ikusten [...] baina ezin zituen erabili V4ko mekanismo kolore-**sortzaileak**; goi mailakoak, alegia. Xabier Olarra

Hipotesi baino ezin zitezkeen izan, mutazioen eta X izpien moduko agente mutazio-**sortzaileen** eraginez azterketaren bidez lorturiko datuen arabekoak. Juan Garzia

10 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Lafittek idatzi du, kongregazio **sortzaile** bokazioa zeukala uste izan zuela Arbelbidek. **Xipri Arbelbide**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere sortzaile (5); **ekimen sortzaile** (3); **enpresaren sortzaile** (3); **eragile eta sortzaile** (3); **euskal sortzaile** (5); **indar sortzaile** (8); **minbizi sortzaile** (5); **mugimenduaren sortzaile** (3); **munduaren sortzaile** (4)

sortzaile berri (3); **sortzaile eta buruzagi** (6); **sortzaile eta zuzendaria** (3); **sortzaile ezagun** (3); **sortzaile gazte** (3); **sortzaile gisa** (15); **sortzaile goren** (3); **sortzaile handiak** (3); **sortzaile izan** (19); **sortzaile nagusia** (3); **taldearen sortzaile** (5)

enpresaren sortzaile (4); **eromen sortzaile** (6); **gutxiengo sortzaile** (3); **hamaseko sortzaile** (3); **indar sortzaile** (4); **joko sortzaile** (3)

sortzaile izan (21)

taldearen sortzaile (4)

benetako sortzaileak (3); **enpresa sortzaileak** (3); **iritzi sortzaileak** (3); **joko sortzaileak** (5); **sortzaileak izan** (4)

bere sortzaileekin (6)

fonologia sortzailearen (3)

bere sortzaileari (4)

beren sortzaileei (3)

bere sortzaileen (3); **sortzaileen esanetan** (5); **sortzaileen lana** (3); **sortzaileen lanak** (3)

alderdiaren sortzaileetako bat (4); **elkarteko sortzaileetako** (3); **erakundearen sortzaileetako bat** (3); **foroko sortzaileetako** (3); **taldearen sortzaileetako bat** (4)

sortzaile ik sortzaile.

sortzapen iz sorpena, sortzea.

Astronomia eta Biologia arloan, Maimonek bere garaiko ptolomeotar sistema (gure Lurra erdian zeukana) eta behe mailako bizidunenen berezko **sortzapenari** atxikia da. **Xabier Kintana**

sortze 1 iz izatea edo bizia hartzea edo ematea; (artean ez zen zerbait) egitea.

"Paraplasmo" batez ari gara, betiko forma baten aldean erantsiriko forma bat ezartzeaz, hau da, **sortze** bati buruz azken batean. **Isabel Arrigain**

1970 inguruan humanismoan subjektu "zentratu" bat sor zedin (eta, horrenbestez, **sortze** horrek berorrek osoki determinatua), ezin hobeto egokitzen zen sistema bat bezala ikusi nahi izan zen perspektiba. **Josu Zabaleta**

Izarretan energia eratzearen eta gure galaxiaren baitan izarrek oldeka **sortze** eta galtzearen albo-emaiza. **Juan Garzia**

Zerbait gertatzen denean, **sortze** soila da azterketaren gaia bere baitan, sortzen den hori zer izango ote den alde batera utziz. **Ibon Uribarri**

Sortze hori substantziaren egoerari dagokio, eta ez substantzia berari (izan ere, hau ez da sortzen). **Ibon Uribarri**

Izan ere, **sortze** etengabea egon behar du hizkuntzak bizirik iraungo badu. **Koldo Zuazo**

Ezustean, berezko **sortze** baten modura. **Juan Garzia**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ordenantza hori bailien **sortze**-legetzat hartu izan da. **Iñaki Iñurrieta**

Horien agortze erritmoa alternatiba berriztagarrien **sortze** erritmora mugatu behar da. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Sare erregulatuaren **sortze**-ahalmena sareok hierarkizatuak eta konbinagarriak izateari zor zaio. **Juan Garzia**

Eboluzio biokimikoak **sortze**-lanetik daukan partea ez da hutsetik egina. **Juan Garzia**

Ea arima **sortze** bidez beste arima sortzaile batengandik datorren. **Imanol Unzurrunzaga**

Ez, ezin zen ametitu munduari buruzko kanpotasun hura, ezin zen ametitu [...] **sortze** prozesuari buruz esaten zuten hainbat faltsukeria. **Bernardo Atxaga**

Udalbiltzaren **sortze** eguneko adierazpena eta Euskal Herriaren eskubideen karta. **Berria - Euskal Herria**

Euskal Pen Klubaren **sortze** bilera egin zen atzo arratsaldean, Donostian. **Berria - Kultura**

Atenasera itzultzean, Akademian jarraitu zuen irakaskuntzan, idatzi metafisikoan **sortze**-lanetan ziharduen bitartean. **Askoren artean**

Sortze lanak horrelako gauzak zituen: hitz batek obsesionatzen zintuen eta paralizaturik geratzen zinen, aurrera jarraitzeko ezgai, ahalegin guztiak eginda ere. **Ramon Saizarbitoria**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Enpresa eta enplegu **sortze** gehienak zerbitzuetan izan dira. **Berria - Ekonomia**

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Fenomeno nagusiarri ekingo diogu, atzerriko hizkuntza baten ekartze eta literatura hizkuntza **sortze** orotatik at. **Isabel Arrigain**

5 amaren sabelean izatea hartzea.

Gero Antipater ikasiak hartu zion segida, eta baita Atenodorok ere, zeinak jaiotzako datan ez baizik eta **sortze**-datan oinarritutako genetillogiaren metodoak utzi baitzizkigun esplikatur. **Santiago Iruretagoiena**

Gerta zitekeen segundo batzuen aurrerapenak edo atzerapenak Jose Carlosen **sortze**-uneko geneen konbinazio zehatza posible ez egitea eta, ondorioz, Jose Carlos Iriarterik ez jaiotzea inoiz. **Iban Zaldua**

6 jaiotzea.

Sortze honek eman ote dio aita pilotariari xapelgoko buruz-burukako partidak airez-aire irabazteko kemena? **Herria**

Orotara, Oztibarren izan dira 18 **sortze**, 24 heriotze eta 9 ezkontza 2004eko urtean. **Herria**

Hamar urte horietan beraz, Euskal-Herri osoari behatuz, hamar mila jenderentzat, 81 **sortze** izan dira Euskal-Herrian. **Herria**

Hiltze baino 211.000 **sortze** gehiago izan dira iragan urtean. **Herria**

Migel Mailuren **sortze** sasikoaz xehetasun guztiak jakinen nituen luze gabe, haren ahotik entzunak. **Aingeru Epaltza**

Gipuzkoako agintariek Ama Birjinaren "**Sortze** Orbangabearen misterioa" dogmatzat hartzea erabaki zuten. **Txillardegí**

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

bakoitzaren **sortze** eta heriotza datekin. **Aingeru Epaltza**

Helburua, bada, txekiari zientzialaririk handienetarikoa bat ohoratzea da, eta, bide batez, genetikaren **sortze**-agiritzat jotzen dena ospatzea. **Juan Garzia**

Hor ageri da **sortze**-emendatze horren inportantzia ezin preziatuzkoa. **Herria**

Sortze tasa 0,8 da, eta belaunaldi aldaketak 2,1 eskatzen du gutxienez, 1981etik iristen ez den tasa. **Pello Salaburu**

8 sortzez jatorriz; jaiotzez.

Genesiaren arabera, gizona eta emakumea desberdinak dira **sortzez**. **Berria - Gaiak**

Marraskiloa **sortzez** asiarrak omen da, gizakiaren aurreneko jaki izana, eta lurraldeotara koaternario aroan iritsia gizakiarekin batera. **Patziku Perurena**

Hitz hori akasduna da **sortzez** eta bere izatez. **Iñaki Segurora**

Armada hark **sortzez** zekarren artean orduan hartu ziren, artean haren jakitun ez zirenak. **Edorta Jimenez**

Zuri-zuriak eta beltz-beltzak, solariumetan beltzarandurikoak eta **sortzez** beltzaranak. **Migel Angel Mintegi**

Jaiotza horretan Jainkoa da Aita, jainkoko **sortzez** izan ere, eta ez beste inolakoz. **Joan Mari Lekuona**

Nolatan eutsiko diogu, halako eguneroko nabarmenkerien aurrean, gizakia **sortzez** ona delako usteari? **Esteban Antxustegi**

Akisgranen jaio zen eta alemana da **sortzez**; Napoleonek frantses egin zuen (Napoleonek eskualde aleman hura guztia Frantziari anexatu zion, alegia), Inperioak soldadu, eta frantsesez hitz egiten du. **Koldo Izagirre**

Entzuna nuen Robert Capa, **sortzez** hungariarra eta erlijioz judua, André Friedmann izana zela. **Edorta Jimenez**

Kohn poloniar herri txiki bateko hasidim familia batetik zetorren **sortzez**. **Koro Navarro**

Emaztea, **sortzez** Dihurçubéhère, arras eskolatua zen literatur mailan eta arte ederretan. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Gaurko gure gomita, Ezterenzubikoa dugu **sortzez**, Seaskako presidentea, Jean-Louis Maitia. **Sortzez** leitzarra, Marilesakeneko semea, eta apezutz geroztik Aranoko elizako benefiziadun. **Menane Oxandabaratz**

Zestoa gainekoa da **sortzez**, eta asko ibilia da inguruetan, baso lanean-eta. **Iñigo Aranbarri**

Nire begiek ez baitute aurreko oroitzapenik, **sortzez** naiz-eta itsu. **Felipe Juaristi**

9 sortzezko izlag

Ez zidaten utzi **sortzezko** nire izena berriro erabiltzen. **Jokin Urain**

Izena, abizena (emazte ezkonduen kasuan, **sortzezko** abizena) eta bozkatzeko tokia ezarri behar dira izenpedurari loturik. **Berria - Euskal Herria**

Kontakizun osoan zehar Franz deitu ziola nire **sortzezko** aitari; eta aita hitza erabili zuen bakanetan, *zure aita* formula baliatu zuela. **Anjel Lertxundi**

Autorearen misoginia ia **sortzezkoa**. **Josu Zabaleta**

Eritasun hura, esan zuen, familiako **sortzezko** gaitza omen zen. **Koro Navarro**

10 eguzki sortze iz sortaldea.

Bi zati ditu Etiopiak, **eguzki sortzea** eta eguzki sartzea. **Aurelia Arkotxa**

Mihi murriz honen **eguzki sortzeko** alderdiak gaurko Pointe au Mal eta Fox Island Riverren aldera ematen du; eguzki sartetik berriz, mihi luzearen gainean diren Tea Cove, Lourdes, Winterhouse, Brook, Black Duck eta Long Pointen aldera. **Aurelia Arkotxa**

Bi erreinu ditu, bat **eguzki sortzetik** Turkestaneko inguruetan hasten dena. **Aurelia Arkotxa**

Hortik landa, hamar eguneko bidaian beti **eguzki sortzera** Khan Handiaren erresuma gurutzatuz baldin bazoaz, haren bertze probintzia batera helduko zara. **Aurelia Arkotxa**

Jakin ezazu hortik **eguzki sortzera** joanez lurrraren itzulia egin daitekeela. **Aurelia Arkotxa**

11 Sortzez Garbi

Abenduaren 8an, Ama Birjina **Sortzez Garbiaren** egunez ospatzen zuten Irratiaren eguna Xorroxindarrek. **Pello Zabala**

Bihotz berokoak, gure Ama **Sortzez Garbiari** loreak ekarri dizkion umea bezala. **Pako Aristi**

Ikusi ere gauza desberdinak ikustera jarri ziren azkenerako Ezkioko ikusleak: batzuek Ama Doloreetakoa ikusten omen zuten, beste batzuek **Sortzez Garbia** ezpata eskuan zeukala edo bihotza alderen alde zulatzen ziola. **Iñaki Segurola**

Artozkiko bestak, berez, **Sortzez Garbiaren** egunarekin ziren, **Sortzez Garbiaren** dogma. **Eduarne Elizondo**

Yolok ez du **Sortzez Garbi** igeltsuzkoa beste amarik ezagutu. **Pako Aristi**

Azarora arte aurreko urteetan ezbeharrak gutxituz joateko zegoen joerari eutsi zitzaion arren, **Sortzez Garbiaren** zubian izan ziren 14 hildakoek aldatu egin zuten joera hori. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bertze sortze bat (6); **bi sortze** (42); **hiru sortze** (8); **hiru sortze izan** (3); **sortze bat izan** (6); **sortze batzarra** (3); **sortze beretik** (5); **sortze bidean** (3); **sortze izan** (33); **sortze izan dira** (8); **sortze izan ditugu** (18); **sortze prozesua** (6); **sortze prozesuan** (7); **sortze ukan ditugu** (5)

izan ditugun sortzeak (15); **sortzeak izan** (6); **sortzeak izan dira** (3)

sortzearekin batera (10)

bere sortzearen (3); **monzonen sortzearen** (3); **sortzearen alde agertu** (3); **sortzearen alde azaldu** (4); **sortzearen alde egin** (6); **sortzearen aldeko** (7); **sortzearen ideia** (4); **sortzearen mendeburua** (3)

departamendua sortzeari buruzko (6); **sortzeari buruzko erreferenduma** (7); **sortzeari ekin** (4); **sortzeari eman** (3); **sortzeari uzten** (3)

hazpandarra sortzez (3); **sortzez aihertarra** (4); **sortzez baigorriarra** (3); **sortzez biarnesa** (4); **sortzez bizkaitarra** (4); **sortzez garbia** (3); **sortzez garbiaren** (6); **sortzez kolonbiarra** (3)

sortzealde iz sortaldea.

Hiru bidaiantei anitz gustatzen zitzaaien oihan handi berde eta plaia luze hitsez azpilduratua zen ipar **sortzealdeko** itsas bazterreara etortzea **Aurelia Arkotxa**

sortzear adlag sortzeko zorian.

Latina bihurtu zen **sortzear** zegoen Mendebaldeko kultura hibridoaren hizkuntza ofizial eta eksklusibo. **Askoren artean**

Fanny Osbourne, Stevenson baino hamaika urte zaharragoa, **sortzear** zegoen emakume independentearen eredu zen: bi seme-alabaren ama banandua. **Harkaitz Cano**

Etsamina lortu bezain laster, leku bat hitz emana zitzaion kantonamenduko hiriburuan **sortzear** zegoen haurtzaindegian. **Itxaro Borda**

Hotza nabari zaio **sortzear** den udagoieneko egunari. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Sortzear zen Eusko Jaurilaritzako lehendakaritza Garaikoetxeak hartuz gero EBBko lehendakaritza hutsik geratuko zela. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sortzear den (3); **sortzear zegoen** (4)

sortzeke adlag sortu gabe.

Herrialde urrun desagertuetan kokatuak edo oraindik **sortzeke** zeuden lurralde eta zibilizazioei buruzkoak behar zuten ez hanka ez bururik ez zuten ameskeria haiek. **Harkaitz Cano**

Zirkulazioa handi samarra zen, egokia susmorik **sortzeke** bikoteari segitzeko. **Migel Angel Mintegi**

Erregea bera ere hil nezakeen nik, inorengan batere mesfidantzarik **sortzeke**. **Hasier Etxeberria**

Bere bihotza Aneren ezker bular biluzian lur hartzen imajinatu zuen eta, ondoren, zauririk **sortzeke**, haren azalean barneratzen. **Unai Iturriaga**

sortzetiko izlag jaiotzetikoa.

8 milioi haur jaiotzen dira urtean **sortzetiko** arazoekin. **Berria - Gaiak**

Europan 1,2 milioi helduk dituzte bihotzeko **sortzetiko** gaitzak. **Berria - Gaiak**

Formaren teoriaren proposatzaileek ikusmeneko mundua lege unitarial eta betierekoen arabera antolatzeko duen **sortzetiko** ahalmena nabarmenduko dute batez ere. Josu Zabaleta

Aprioriko ezagutzaren edo metafisika razionalistaren posibilitatea, ideien **sortzetiko** izaeren mende dago. Askoren artean

Minbizi eta **sortzetiko** malformazio kasuak etengabe areagotzen ari dira. Berria - Mundua

Sortzetiko akats batek eragiten zuen, alegia, urea eratzearen kargu zegoen kate metaboliko bat etetea. Juan Garzia

Hipotesiak berak ere buruko eskemetan oinarritzen dira; eskema horietako batzuk **sortzetikoak** dira, eta beste batzuk esperientziak emanak. Josu Zabaleta

Daltonismoa, normalean ulertzen den moduan, **sortzetikoa** izaten da. Xabier Olarra

Pertzepzioa **sortzetikoa** dela jaioberriaren, eta ikasia pertsona helduaren. Josu Zabaleta

Ez zen sekula argitu ea gaixotasun akutua eragin zion erretinetako lesio hori, ala erretinen endekapena **sortzetikoa** zen. Xabier Olarra

Gibsonek ez du ezinbestekotzat jotzen bere "aldagai konplexuekin" zerikusia duten mekanismoak **sortzetikoak** direnik. Josu Zabaleta

sortzetikotasun iz sortzetikoa denaren nolakotasuna.

Ikusmenaren **sortzetikotasunaren** eta ikasketaren arteko kontrakotasuna ez da halakotzat hartzen. Josu Zabaleta

SOS 1 iz liberaren hogeirena balio duen txanpona; liberaren hogeirena.

Zilarrezko liberaren hogeirena zen piezari, **sos** deitzen jarraitzen zaio, nahiz eta ez izan dagoeneko liberaren hogeirena. Iñaki Iñurrieta

Inork franko bat, barbaro bat edo lege sailkoetan bizi zen gizon bat hiltzen zuenean, berrehun **sos** ordaintzen zizkien ahaideei. Iñaki Iñurrieta

-Ezagutzen duzia Ziriki, oskol biltzailea? -galdegin zion jaun handiak, zilarrezko hiru **sos** mahai gainean utziz. Elena Touyarou

Zenbait **sosen** zilarrak ñir-ñir egin zuen nire eri artean. Aingeru Epaltza

Hiru **sos** sari exekuzio bakoitzeko, eta bi azotaldi bakoitzeko. Aingeru Epaltza

Franko batek hirurogeita bi **sos** eta erdi jasotzen zituen lapurreta egin zion erromatarragandik. Iñaki Iñurrieta

Bost **sos** zeuzkaten diru-poltsan, eta zerbait erosi orduko [...] berritu egiten zitzaizkien diru-poltsako zilarrezko bost **sos** zaharrak. Anjel Lertxundi

Jauna, Ruspit nauzu, nik ere badut kupe bat, hirurogei **sos** aulkia. Koldo Izagirre

Hiru **sos** balio zuen. Karlos Zabala

Egunero **sos** bana ematen zien zintzo-zintzo, agindu bezala. Karlos Zabala

Rouendik, orde, oinez abiatu behar, hogeita hamar **sos** besterik ez zuen eta. Karlos Zabala

Bere bost **sos** zaharrak atera zituen gero patrikatik. Anjel Lertxundi

Gainerako bidaiariak ere nik bezala ordaindu zuten, hamabosna **sos**. Koldo Izagirre

Grande-Truanderie kaleko frijitzaile batek bi **sosen** patata frijituak saldu zizkion zorrean. Karlos Zabala

2 diru xehea; oso balioa gutxiko dirua.

Osaba Gradelleren denda hura, non bere altxorra bildu baitzuen sosez **sos**, halako sabel beltz bat zen. Karlos Zabala

Sos hauekin ez diat hik irentsitako mama-gorriaren laurdena ere ordaintzeko adina. Anjel Lertxundi

Koinatua diat suge zirtzil hori, baina ez nitek haren askatasunaren ordainean **sos** bat ere pagatuko. Aingeru Epaltza

Bihotzez eta amorrazioz esaten diet, nik ez dudala **sos** baten irabazirik atera liburu honekin. Patziku Perurena

Nahiago hamar bider urkatua izan emakume horri beste **sos** bat eskatu baino. Oskar Arana

3 adkor dirua.

Jatekoa eskas zuten, **sosa** ere bai. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

-Hortakotz anitz **sos** behar da! Menane Oxandabartz

Horixe izan zen **sos** batzuk irabaztearren nik egin nuen lehenengo lana. Pello Lizarraide

Sos batzuk aurreratuak zituen, uda partean Gernikako taberna batean egiten zuen lanari esker. Patxi Zubizarreta

'Zenbat da?' esango duzu poltsikotik **sos** batzuk bilduta. Joseba Sarrionandia

-**Sosak** xahutzeko dira, gure eskuetatik besterenera pasatzeko. Unai Iturriaga

Marieren aitak utzitako **sosek** lanik egin gabe bizitzeko lain eskaintzen zieten. Joxemari Urteaga

Lehengai ona izaten da gehienetan, baina **sos** ugari utzi beharko dituzu nagusiaren B kontuan. Edorta Agirre

Sei-zazpi hilabete Arizonako edo Mexiko Berriko basamortuetan artzain zinpurto eta, **sosa** sakelari Durangoko *Basque* Hotelerara hurbiltzen zen. Itxaro Borda

Sos guztiak xahutzeko beldur etengabea. Joseba Urteaga

Soldata ona izan arren, **sos** guztia gizonak kentzen zion eta hilean 400 pezeta uzten zizkion. Gotzon Garate

-Ontziaren sotoak handituko ditut zure **sos** hauei esker, aurrerapenak merezi baitu hainbeste. Anjel Lertxundi

Gaztelu hau gotortzen xahutu ditait nire zaintza-sariko **sos** gehienak. Aingeru Epaltza

Nafarroako altxorrik eskertu zuen, espainolak **sos** anitz galdatzen baitzuen haren askatasunaren ordain. Aingeru Epaltza

Badakigu, bai, sakrifizioak beharko ditugula egin guk ere, zuregana jo aitzin diru eske bide berriarentzat, baina gure herriak **sos** guti du. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ihizi leku batentzat hoinbeste **sos** ordaintzen dutenak ere zuzen da josta daitezen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Anaia Kalifornian zen, han **sos** eginik etxera itzuli eta etaldea garatzekotan. Piarres Aintziart

Irabiagailua berarentzat jiraka, **sosak** egiteko makina baten gisa. Juan Garzia

4 (izenondoekin)

Etxegintzatik ere **sos** ederrak jasotzen dituzte, etxegileei ematen dieten babesaren truke. Gotzon Garate

Llum oso ona da ordenagailuarekin, eta **sos** ederrak irabazten ditu. Antton Olano

Zer dion **sos** polit honen aurrean? Lopez de Arana

Amamak, medaila eta **sos** zaharkituen artetik, erretratu txiki bat atera zuen. Joseba Sarrionandia

Enpresa eta erakunde pribatu anitzek **sos** publikoa eskuratzen zutela ahalkerik gabe. Itxaro Borda

Gure alabaren neskame leialak, **sos** gutxi batzuen truke, alabak bat-batean ihes egin duela jakinarazi didanean, [...]. Antton Olano

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bozek Eusko Armadaren **sos** kutxa ebastea leporatzen ziola. Itxaro Borda

Zapatagin ohiak, berriz, aspaldi ez zuen patrikan **sos** -hotsik aditzen. Aingeru Epaltza

Ordainketa dirutik **sos** tanka bat aitzinatu zioten. Elena Touyarou

Mezara heldu zen jendeari *Domine ne* esateko atean **sos** -galde zegoela, heldu zen emazteki luze bat. Pablo Sastre

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Guru **sos** -harrapatzailearen baten eskutik aztikerian sartuen zebilen garaietan. Aingeru Epaltza

Ikasle **sos** gabeen eta errondari adinekoen behialako bilgune, bere bezeria goratzea lortzen ari zen aspaldi horretan. Aingeru Epaltza

7 (hitz elkartuetan biqarren osagai gisa)

Publizitate-**sozen** ordainetan, hedabideek berez zuena baino garrantzia handiagoa ematen diote gertaerari. **Pako Aristi**

8 sos-erdi

Holandan florin deritzan txanpona dute; florinak hogeï **sos-erdi**. **Iñaki Iñurrieta**

Kanbioa berrogeita hamalautan badago, hiru liberako ezkuatuak berrogeita hamalau **sos-erdi** balioko du; hirurogeitan badago, hirurogei **sos-erdi** balioko du; zilarra Frantzia urri bada, hiru liberako ezkuatuak **sos-erdi** gehiago balioko du; ugari bada, berriz, **sos-erdi** gutxiago. **Iñaki Iñurrieta**

Hiru liberako nire ezkuataren truke Holandan dituen berrogeita hamalau **sos-erdi** ematen didanak berrogeita hamalau **sos-erdiko** kanbio-letra bat eman beharko dit Holandaren gainean. **Iñaki Iñurrieta**

Putza haiek ezin pobreagoak zirenez gero, beren seme-alabei jaten emaiteko **sos erdirik** ere ez zutenak. **Joan Mari Irigoien**

9 bi sos diru gutxi.

Etorri zen emakume alargun behartsu bat, eta **bi sos** bota zituen, huskeria bat. **Elizen arteko biblia**

Vernonen azken **bi sosak** gastatu zituen, ogia erosteko. **Karlos Zabala**

Etxetik irten nintzen, poltsikoan **bi sos** besterik ez nuela, eta errepediko geltokira joan nintzen. **Juan Kruz Igerabide**

Betileak erre beharrean aritu zela Parisko inprimaria batean **bi sosen** truke lanean, eta ikasteko aprobetxatu zituela sos horiek. **Inazio Mujika Iraola**

Holako batean, jendetasunez eta elkartasunez, **bi sosen** zentzua baduen jendea bera ere "amerikanotzen" da nolazpait... **Herria**

Kalitatezko eta ez kalitatezko liburuak, **bi sosen** truk metroan edo autobusean irakurtzen eta gero uzten diren liburuak ere. **Ana Urkiza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ainitz sos (4); **aski sos** (6); **berrogei sos erdi** (3); **bi sos** (14); **bost sos zaharrak** (3); **hamalau sos erdi** (6); **hirurogei sos erdi** (3); **sos anitz** (3)
sos arrazakeria (24); **sos arrazakeria elkartek** (3); **sos arrazakeriako kide** (3); **sos arrazakeriako kideak** (7); **sos arrazakeriaren arabera** (3)
sos balio (5); **sos baten truke** (3); **sos batzuen truke** (4); **sos batzuk ateratzeko** (3); **sos biltze** (3); **sos deia** (3); **sos deiak** (24); **sos deiak zerbitzura** (3); **sos deiekin** (3); **sos deietako** (3); **sos deietara** (10); **sos deietara deitu** (3)
sos ederrak (3)
sos erdi (34); **sos erdi balioko** (4); **sos erdi gutxiago** (3); **sos erdi kopuru** (3); **sos erdiko letra** (3)
sos gehiago (11); **sos gehiagoren** (3); **sos guti** (4); **sos gutiago** (7); **sos gutxi** (8); **sos gutxi batzuen** (4); **sos guztiak** (7)
sos irabazteko (3); **sos iturri** (4); **sos jaten** (5); **sos kopuru** (4); **sos nafarroara deitu** (5)
sos ordaintzen (4); **sos pizar batzuk** (3); **sos pizarrak** (3); **sos poxi bat** (11); **sos poxi baten** (3)
sos utzi (3); **sosez sos** (3)
zenbat sos (3); **zermahi sos** (4); **zonbat sos** (6)
bildutako sosa (3); **sosa behar** (8); **sosa frango** (3)
bost sosak (4); **sosak behar** (4); **sosak xahutzen** (3)
bi sosean (4)
lau sosen truke (3)
bi sosetako tobera (3)
bi sosetan saltzeko (3); **bi sosetan saltzekoa** (7); **bi sosetan saltzen** (3)
dirurik edo sosik (4); **ez dut sosik** (4); **sosik ere ez** (3); **sosik ez** (31); **sosik ez omen** (3); **sosik gabe** (22); **sosik gabe utzi** (3)

SOS 1 iz liberaren hogeirena balio duen txanpona; liberaren hogeirena.

Zilarrezko liberaren hogeirena zen piezari, **sos** deitzen jarraitzen zaio, nahiz eta ez izan dagoeneko liberaren hogeirena. **Iñaki Iñurrieta**

Inork franko bat, barbaro bat edo lege salikopean bizi zen gizon bat hiltzen zuenean, berrehun **sos** ordaintzen zizkien ahaideei. **Iñaki Iñurrieta**

-Ezagutzen duzia Ziriki, oskol biltzailea? -galdegin zion jaun handiak, zilarrezko hiru **sos** mahai gainean utziz. **Elena Touyarou**

Zenbait **sozen** zilarrak ñir-ñir egin zuen nire eri artean. **Aingeru Epaltza**

Hiru **sos** sari exekuzio bakoitzeko, eta bi azotaldi bakoitzeko. **Aingeru Epaltza**

Franko batek hirurogeita bi **sos** eta erdi jasotzen zituen lapurreta egin zion erromatarragandik. **Iñaki Iñurrieta**

Bost **sos** zeuzkaten diru-poltsan, eta zerbait erosi orduko [...] berritu egiten zitzaizkien diru-poltsako zilarrezko bost **sos** zaharrak. **Anjel Lertxundi**

Jauna, Ruspit nauzu, nik ere badut kupe bat, hirurogei **sos** aulkia. **Koldo Izagirre**

Hiru **sos** balio zuen. **Karlos Zabala**

Egunero **sos** bana ematen zien zintzo-zintzo, agindu bezala. **Karlos Zabala**

Rouendik, orde, oinez abiatu behar, hogeita hamar **sos** besterik ez zuen eta. **Karlos Zabala**

Bere bost **sos** zaharrak atera zituen gero patrikatik. **Anjel Lertxundi**

Gainerako bidaiariak ere nik bezala ordaindu zuten, hamabosna **sos**. **Koldo Izagirre**

Grande-Truanderie kaleko frijitzaile batek bi **sozen** patata frijituak saldu zizkion zorrean. **Karlos Zabala**

2 diru xehea; oso balioa gutxiko dirua.

Osaba Gradelleren denda hura, non bere altxorra bildu baitzuen sosez **sos**, halako sabel beltz bat zen. **Karlos Zabala**

Sos hauekin ez diat hik irentsitako mama-gorriaren laurdena ere ordaintzeko adina. **Anjel Lertxundi**

Koinatua diat suge zirtzil hori, baina ez nitek haren askatasunaren ordainean **sos** bat ere pagatuko. **Aingeru Epaltza**

Bihotzez eta amorrazioz esaten diet, nik ez dudala **sos** baten irabazirik atera liburu honekin. **Patziku Perurena**

Nahiago hamar bider urkatua izan emakume horri beste **sos** bat eskatu baino. **Oskar Arana**

3 adkor dirua.

Jatekoa eskas zuten, **sosa** ere bai. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

-Hortakotz anitz **sos** behar da! **Menane Oxandabaratx**

Horixe izan zen **sos** batzuk irabaztearren nik egin nuen lehenengo lana. **Pello Lizarralde**

Sos batzuk aurreratuak zituen, uda partean Gernikako taberna batean egiten zuen lanari esker. **Patxi Zubizarreta**

'Zenbat da?' esango duzu poltsikotik **sos** batzuk bilduta. **Joseba Sarrionandia**

-**Sosak** xahutzeko dira, gure eskuetatik besterenera pasatzeko. **Unai Iturriaga**

Mariaren aitak utzitako **sosek** lanik egin gabe bizitzeko lain eskaintzen zieten. **Joxemari Urteaga**

Lehengai ona izaten da gehienetan, baina **sos** ugari utzi beharko dituzu nagusiaren B kontuan. **Edorta Agirre**

Sei-zazpi hilabete Arizonako edo Mexiko Berriko basamortuetan artzain zinpurto eta, **sosa** sakelari Durangoko *Basque* Hotelerara hurbiltzen zen. **Itxaro Borda**

Sos guztiak xahutzeko beldur etengabea. **Joseba Urteaga**

Soldata ona izan arren, **sos** guztia gizonak kentzen zion eta hilean 400 pezeta uzten zizkion. **Gotzon Garate**

-Ontziaren sotoak handituko ditut zure **sos** hauei esker, aurrerapenak merezi baitu hainbeste. **Anjel Lertxundi**

Gaztelu hau gotortzen xahutu ditiat nire zaintza-sariko **sos** gehienak. **Aingeru Epaltza**

Nafarroako altxorrek eskertu zuen, espainolak **sos** anitz galdatzen baitzuen haren askatasunaren ordain. **Aingeru Epaltza**

Badakigu, bai, sakrifizioak beharko ditugula egin guk ere, zuregana jo aitzin diru eske bide berriarentzat, baina gure herriak **sos** guti du. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ihizi leku batenbestek **sos** daibentzen dutenak ere zuzen da josta daitezen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Anaia Kalifornian zen, han **sos** eginik etxera itzuli eta etxaldea garatzekotan. Piarres Aintziart

Irabiagailua berarentzat jiraka, **sosak** egiteko makina baten gisa. Juan Garzia

4 (izenondoekin)

Etzegintzatik ere **sos** ederrak jasotzen dituzte, etxegileei ematen dieten babesaren truke. Gotzon Garate

Lum oso ona da ordenagailuarekin, eta **sos** ederrak irabazten ditu. Antton Olano

Zer dion **sos** polit honen aurrean? Lopez de Arana

Amamak, medaila eta **sos** zaharkituen arteak, erretratu txiki bat atera zuen. Joseba Sarrionandia

Enpresa eta erakunde pribatu anitzek **sos** publikoa eskuratzen zutela ahalkerik gabe. Itxaro Borda

Gure alabaren neskame leialak, **sos** gutxi batzuen truke, alabak bat-batean ihes egin duela jakinarazi didanean, [...]. Antton Olano

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bozek Eusko Armadaren **sos** kutxa ebastea leporatzen ziola. Itxaro Borda

Zapatagin ohiak, berriz, aspaldi ez zuen patrikan **sos** -hotsik aditzen. Aingeru Epaltza

Ordainketa dirutik **sos** tanka bat aitzinatu zioten. Elena Touyarou

Mezara heldu zen jendeari *Domine ne* esateko atean **sos** -galde zegoela, heldu zen emazteki luze bat. Pablo Sastre

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Guru **sos** -harrapatzailearen baten eskutik aztikerian sartuen zebilen garaietan. Aingeru Epaltza

Ikasle **sos** gabeen eta errondari adinekoen behialako bilgune, bere bezeria goratzea lortzen ari zen aspaldi horretan. Aingeru Epaltza

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Publizitate-**sosen** ordainetan, hedabideek berez zuena baino garrantzia handiagoa ematen diote gertaerari. Pako Aristi

8 *sos-erdi*

Holandan florin deritzan txanpona dute; florinak hogeiki **sos** balio ditu, edota berrogeiki **sos-erdi** . Iñaki Iñurrieta

Kanbioa berrogeita hamalautan badago, hiru liberako ezkuak berrogeita hamalau **sos-erdi** balioko du; hirurogeitan badago, hirurogeiki **sos-erdi** balioko du; zilarra

Frantziari urri bada, hiru liberako ezkuak **sos-erdi** gehiago balioko du; ugari bada, berriz, **sos-erdi** gutxiago. Iñaki Iñurrieta

Hiru liberako nire ezkuaren truke Holandan dituen berrogeita hamalau **sos-erdi** ematen didanak berrogeita hamalau **sos-erdiko** kanbio-letra bat eman beharko dit Holandaren gainean. Iñaki Iñurrieta

Puta haiek ezin pobrea goago zirenez gero, beren seme-alabei jaten emateko **sos erdirik** ere ez zutenak. Joan Mari Irigoien

9 *bi sos* diru gutxi.

Etorri zen emakume alargun behartsu bat, eta **bi sos** bota zituen, huskeria bat. Eiizen arteko biblia

Vernonen azken **bi sosak** gastatu zituen, ogia erosteko. Karlos Zabala

Etzetik irten nintzen, poltsikoan **bi sos** besterik ez nuela, eta errepideko geltokira joan nintzen. Juan Kruz Igerabide

Betileak erre beharrean aritu zela Parisko inprimeria batean **bi sosen** truke lanean, eta ikasteko aprobetxatu zituela **sos** horiek. Inazio Mujika Iraola

Holako batean, jendetasunez eta elkartasunez, **bi sosen** zentzua baduen jendea bera ere "amerikanotzen" da nolazpait... Herria

Kalitatezko eta ez kalitatezko liburuak, **bi sosen** truk metroan edo autobusean irakurtzen eta gero uzten diren liburuak ere. Ana Urkiza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ainitz sos (4); **aski sos** (6); **berrogeiki sos erdi** (3); **bi sos** (14); **bost sos zaharrak** (3); **hamalau sos erdi** (6); **hirurogeiki sos erdi** (3); **sos anitz** (3)

sos arrazakeria (24); **sos arrazakeria elkarteak** (3); **sos arrazakeriako kide** (3); **sos arrazakeriako kideak** (7); **sos arrazakeriaren arabera** (3)

sos balio (5); **sos baten truke** (3); **sos batzuen truke** (4); **sos batzuk ateratzeko** (3); **sos biltze** (3); **sos deia** (3); **sos deiak** (24); **sos deiak zerbitzura** (3); **sos deiekin** (3); **sos deietako** (3); **sos deietara** (10); **sos deietara deitu** (3)

sos ederrak (3)

; **sos erdi** (34); **sos erdi balioko** (4); **sos erdi gutxiago** (3); **sos erdi kopuru** (3); **sos erdiko letra** (3)

sos gehiago (11); **sos gehiagoren** (3); **sos guti** (4); **sos gutiago** (7); **sos gutxi** (8); **sos gutxi batzuen** (4); **sos guztiak** (7)

sos irabazteko (3); **sos iturri** (4); **sos jaten** (5); **sos kopuru** (4); **sos nafarroara deitu** (5)

sos ordaintzen (4); **sos pizar batzuk** (3); **sos pizarrak** (3); **sos poxi bat** (11); **sos poxi baten** (3)

sos utzi (3); **sosez sos** (3)

zenbat sos (3); **zernahi sos** (4); **zonbat sos** (6)

bildutako sosa (3); **sosa behar** (8); **sosa frango** (3)

bost sosak (4); **sosak behar** (4); **sosak xahutzen** (3)

bi sosean (4)

lau sosen truke (3)

bi sosetako tobera (3)

bi sosetan saltzeko (3); **bi sosetan saltzekoa** (7); **bi sosetan saltzen** (3)

dirurik edo sosik (4); **ez dut sosik** (4); **sosik ere ez** (3); **sosik ez** (31); **sosik ez omen** (3); **sosik gabe** (22); **sosik gabe utzi** (3)

sosa iz karbono dioxidoa. ik **soda**.

Kasu horretan, potasa edo **sosa** izaten dira katalizatzaileak erabiliak. Berría - Gaiak

Guk, orduan, azido sulfurikoa eta **sosa** urturik eltze esmaltatu batean, bisulfatoa lortzen genuen. Juan Garzia

sosalde iz sos multzoa.

Beraz XIII. mendean, 1271n bereziki, Irauzketako parropia, oraingo Luzaide, Orriari lotu zuten gaitzeko **sosalde** batean truk Leireko abadiarentzat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Zer **sosalde** poltitaren mentura beraz anitzentzat! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

sosdun izond/iz adkor diruduna.

Han denak zarete **sosdun** . Xabier Montoia

Leku horretan dabilen jendea biziki gaztea eta denbora berean franko **sosduna** ere dela. Herria

Haien filosofia (**sosdun** horiek ezagutzen ditut) hauxela formulatzen da [...] "Gu, Frantses azeriak gara". Piarres Aintziart

Gutarteko gero-eta jende gehiagok nahiago dutelarik lur-mutur bat biziki kario saldu **sosdun** bati, tokiko gazte bati prezio onesta batean utzi baino. Langile sindikatak bereziki gaitzeko hixtuan dabilza, garapenaren konduko emaitzak denen onetan behar direla partikatu eta ez bakarrik **sosdun** handien fagoretan. Herria

EDF eta holakoak ez dituela [gobernuak] deus gisaz **sosdun** puxant batzuen esku utziko. Herria

Ardurenean, kanpotiar **sosdunak** etxe zahar erose. Herria

sosegagaitz *izond* sosegatzen zaila, ia ezin sosegatuzkoa.

Oinpean deus ez duzula konturatzek sortzen duen larritasun **sosegagaitz** halako bat sentiturik, etxera itzuli orde, itsas aldera jo nuen.

Anjel Lertxundi

sosegatu, sosega, sosegatzen 1 da *ad* baretu, lasaitu, ematu.

Ninikak askatu zituenean, ohartu zen ez zela deus ere agitu; **sosegatu** zen. Itxaro Borda

Zarata ez zen berriro hasi, eta poliki-poliki **sosegatu** egin nintzen. Josu Zabaleta

Besoa sorbaldaatik pasatu nion ea **sosegatzen** zen, baina apartatu egin zuen. Koro Navarro

Luisak, zertxobait **sosegatu** zenean, esan zidan aita Alzheimer gaixotasunak jota zegoela, eta, segur asko, galduta ibiliko zela hor nonbait, etxeratzeko bidea asmatu ezinean-edo. Josetxo Azkona

Bizi berri ditugun gertaerei pausatzen utzi behar diegu, **sosegatzen**. Berria - Euskal Herria

Sosegatu eta lo egin nuen, asko. Joxan Elozegi

Sosegatuago zegoen Mathilde. Anjel Lertxundi

Abailduta bazegoen ere, **sosegatuago** sentitzen zuen bere bihotz-barrua ametsa kontatu zuenetik. Anjel Lertxundi

Pentsamendua alderrai nerabilen, batetik bestera ziztu bizian, ezin **sosegaturik**. Karlos Linazasoro

• 2 du *ad* baretu, lasaitu, ematu.

Gauaren hotzak **sosegatu** egin zituen. Koro Navarro

Euriak **sosegatuko** nau. Josu Zabaleta

Etsipenak **sosegatuko** zizkidan noski nerbioak. Koro Navarro

Neskaren urduritasunaz ohartu ez balitz bezain xalo hitz egin zuen Andreamak, naturaltasunez eta sosegua zerion hizketa-moduaz neska ere **sosegatu** nahirik. Anjel Lertxundi

Bobbi Endicott heldu eta isilik egongo da arnasa **sosegatu** arte. Joseba Sarrionandia

Hura dela beste deusek ez bezala bizitzaren olatu haserreak **sosegatzen** eta ematen dituen kosta. Iñaki Segurola

3 (era burutua izenondo gisa)

Mutil ederra, garaia, polita, liraina, itxura seriokoa, **sosegatua** eta bizkorra zen. Josu Zabaleta

Pertsona gutxi da, baita pentsalari **sosegatuena** artean ere, izadiak gaindikoaren erdi-sineste lauso baina hala ere zirrargarri batek inoiz asaldatu ez duena. Koro Navarro

Martinen jokatzeko modua, berriz, lasaia eta **sosegatua**, bere buruaz seguru dagoenarena zen. Koro Navarro

Alferrik espero izango dira Anneren testuan gogoeta **sosegatuak**. Josu Zabaleta

Egungo egoeraren gainean «irakurketa **sosegatua**» egitea ezinbestekotzat jo zuen Otegik. Berria - Euskal Herria

Bertze irriño bat egin zidan aitak, aitzinekoa baino hagitzez ere **sosegatuagoa** eta beteagoa. Joan Mari Irigoien

Edertasun handiko irudiak, erritmo **sosegatuko** narrazioa. Berria - Kultura

Tramitatzeke epeak malgutzearen alde dago, «eztabaida **sosegatua** egin dadin». Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eztabaida sosegatua egin (3); **irakurketa sosegatua** (3)

sosegatuki *adlag* soseguz.

Izan ere, nola egin zezakeen anaiak hain **sosegatuki** lo, nik hura ikusi nuen bezala ikusi ondoren, Uraitzeko jauntxoaren alabarekin musuka eta hasperenka? Joan Mari Irigoien

sosegu 1 *iz* baretasuna.

Aitari esker dugu guk etxean jatekoa eta **sosegua**. Joseba Sarrionandia

Harrituta zeukan haien **soseguak**, ez baitzuen larritasunik antzematen haien jokaeran. Pedro Alberdi

Ikusi zaitut; **soseguak** ihes egin du nigandik urrun, eta dudazkoa dut zoria. Jon Muñoz

Dena da **sosegu**, misterio, dena Jainko. Joan Mari Lekuona

Ez dezala irakurleak nire liburuan **sosegurik** bilatu, desosegua aurkituko baitu. Karlos Linazasoro

Joan zaio minutu batzuk lehenago zuen **sosegua**. Anjel Lertxundi

Gatazkarik gogorrenetan ere, bere arimako **sosegua** galtzen ez duen jendaki noble eta zintzoa. Patziku Perurena

Gaua -kaosa- bizi duenak ezin du **sosegurik** aurkitu Eden lorategi zaharreko eguzkitan. Anjel Lertxundi

Ni aldi berean **sosegurik** gabe sentitzen nintzen. Josu Zabaleta

Jakingo balu zerk kentzen dion **sosegua**! Patxi Iturritegi

Pertsianen zirituetatik sartzen ziren argi-txirrinta jolastiek halako **sosegua** ematen zioten gelako erdi ilunpearri. Anjel Lertxundi

Arnasa hartu ezinik egoten zen, erretzeak ematen zion **sosegua**. Joseba Sarrionandia

-Ondo nago, ama, ez kezkatu -saiatu zara **sosegu** ematen. Rafa Egiguren

Bizkarreko zakuan zeramatzen erremedioak ferekatu zituen, **sosegu** bila. Itxaro Borda

Denboraren pausatze geldidiaren beharra du nork bere hildakoeekin bakea egiterakoan, oroitzapenaren **sosegua** iritsiko bada. Joxan Elozegi

2 (izenondoekin)

Ez gaitzen zorianaz gehiago mintza, utzidazu ordea **sosegu** doi bat berriz hartzen. Jon Muñoz

Amets egin dut bart, haize-erauntsirik gabeko **sosegu** gozatsu batez, Brandano monje irlandarrarekin. Anjel Lertxundi

Gero estufara hurreratzek ezkutuak izaten ziren, beroarekin etxeko sukaldeko intimitate eta **sosegu** galdua errekuaratzeko. Joseba Sarrionandia

Zinez esan daiteke inoiz ez zutela orain zuten **sosegu** eta zorian beterik izan. Josu Zabaleta

Andreak kontu eta **sosegu** handiz egiten zituen bere lanak. Josu Zabaleta

"Lan lasterra, lan alferra", **sosegu** onean egonik hobeki deliberatu ahal izanen duzue deliberatu beharreko guztia. Joan Mari Irigoien

Bi ordu **sosegu** oso-osoa egon zen. Josu Zabaleta

Hildakoen **sosegu** bakegabearekin. Joseba Sarrionandia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sosegu une bat bizi izan nuen. Lilura gaitzearen ondorenean, ordea, halako **sosegu** bolada bat biziko genuen. Joxan Elozegi

Sosegu, itxaropen eta baikortasun mezua. Berria - Euskal Herria

Zuri zegoen, marmolezkoa balitz bezala, Andres harritu egin zuen **sosegu** - eta axolagabetasun-itxura batez. Josu Zabaleta

4 sosegun adlag

Gauero berritzen den krisi horren ondoren, **soseguan** hartzen dut lo azkenik, goiza argitzen duen arte. Josu Zabaleta

Eta zu, eguzki berotan, lasai, **soseguan** ... aire garbiz beteta bularra. Rafa Egiguren

Hemendik aitzina, egonean egon nahi nuke, **soseguan** eta bake handian. Joan Mari Irigoien

Pentsu beltz batek ez hauela bakean ez **soseguan** uzten. Joan Mari Irigoien

Olivier eskuizkribuaren azken lerroak irakurri ondoren hartu zuen nonbait loak, erabateko **soseguan**, irribarre imintzio bat aurpegian. Harkaitz Cano

5 soseguz adlag

Ezereza **soseguz** igaro nahi nuke, hori besterik ez. Aritz Gorrotxategi

Soseguz lotaritzen nintzen, ateei morroilorik eman gabe. Josu Zabaleta

Soseguz beteriko isiltasuna baizik ez zen entzuten. Fernando Morillo

Ettxera erretiratu eta testamentua **soseguz** idazteko eta heriotzari patxadaz itzaroteko erabakia hartu zuen. Bego Montorio

Soseguz narama, musukatzeari utzi gabe, bere ariketa-koltxoairaino, plastikoaren hoztasuna sentitu dut bizkarrean, baina ez zait ardura, eskertzekoa da, hain nago bero. Juan Martin Elexpuru

Horrela jardun nuen, pixkanaka, poliki eta **soseguz** bezain nerbio, urduri eta desasosegaturik. Joxean Sagatzizabal

6 sosegu hartu

Lurrean etzanda, manta gainean jarri eta ahaleginak egin dituzu **sosegu hartzen**. Rafa Egiguren

Andrea, **har** ezazu **sosegu**, adiskidantza dizu galdatzen. Jon Muñoz

Har ezazu haatik **sosegu**; nire iloba ez dago arriskuan. Jon Muñoz

Orduan, zure on eginengatik **sosegu harturik**, maiteko dut neure bizitza. Jon Muñoz

Kontzientziaren harra ausikika hasten zitzaidanean, otoitz hura egin, eta otoitz hartan hartzen nuen bertzela nekez **hartzten** nuen **sosegu** eta kontentamendu apurra.

Joan Mari Irigoien

Goxatu eta **sosegu** pixka bat har dezan, baina, aurrean izanda ere, ez zenuke, beharbada, adierazten asmatuko. Rafa Egiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sosegu bila (3)

lasaitasuna eta sosegua (3); **sosegua ematen** (4); **sosegua eskatu** (5)

sosegurik gabe (4); **sosegurik gabeko** (4)

soseguz aztertu (4)

sosegubako izlag sosegugabea.

martxo-apiril hain **sosegubako** eta nahas-mahas joerako bi hilabete hauetan Pello Zabala

sosegubide iz sosegatzeko bidea.

Bazkalondo etenaren haria Edurneren aldakan berreskuratzea baino **sosegubide** hoberik ez zitzaidan begitantzen, egun osotara gorriaren ondotik. Aingeru Epaltza

sosegugabe izond• (adizlagun gisa)

Eta hura urduri eta **sosegugabe** ikusi nuelako edo bihozkada bat izan nuelako edo nik al dakit zergatik, kontua duk ezen mihiak labain egin zidala: [...]. Joan Mari Irigoien

Bertze zerbaitek zuen ama urduri eta **sosegugabe**, halako suertez, non ohi ez bezala ihardetsi baitzion aitari: [...]. Joan Mari Irigoien

soslai (181 agerraldi, 59 liburu eta 44 artikulutan) 1 iz aurpegiaren edo gorputzaren irudia alboetako batera begiraturik. ik profil.

Argazkia atera zioten Koldori: aurrez aurre lehenbizi eta **soslai** gero. Harkaitz Cano

Paisajeari baino gehiago Taniari begiratu nion, nire aurrean eseria, batzuetan **soslai**, bestetan aurrez aurre. Jon Muñoz

Aitzinean ditudan harkaitzetarik batek gizakiaren **soslai** dauka. Koldo Izagirre

Irudiaren **soslai** lausotzea ekarriko luke horrek. Josu Zabaleta

Dorretxo karratu lerdeneren **soslai** gailentzen zen zumarraren adaburuaren gainetik. Txillardegi

Ongi erreparatzen badiozu, fragata baten **soslai** ikusiko duzu ate zatar honen burdinan ere, pintura beltzak gutziz estaltzea lortzen ez duen irudia. Koldo Izagirre

Zeru garbian elizen eta etxeen **soslai** marrazten ziren.Uhartearen eta Igeldo mendiaren **soslai** bat egiten duten punturaino. Karlos Zabala

Koldo atxilotu zutenean ez zioten bere ezkerreko **soslaiari** argazkirik atera. Harkaitz Cano

Komandantziako leihoak argituak zeuden beheko solairuan, **soslai** bat ikusi uste izan zuen, enbarkaderora beha. Koldo Izagirre

Une horretan konturatu zen telefonistari **soslai** emanez jarri zela. Jon Alonso

Soslaian eginiko irudia da, harrigarriko kemena dauka hain geldirik egoteko. Koldo Izagirre

Ez nekien zer egin; **soslai** nekusan ohe ertzean eserita, oinutsik eta berokirik gabe jada. Ramon Saizarbitoria

Soslaiez jarri eta bere konkorraren bihurtzea Askatasun Anderearen koroaren angeluarekin gero eta baterago zetorrela ikusteko. Harkaitz Cano

2 (izenondoekin)

Aurpegi luze haren **soslai** zorrotza nigana itzuli zen beste behin. Alberto Ladron Arana

Orduan, mistoaren argiak dardara egin eta Joxeren **soslai** gorritua erakutsi du. Pello Lizarralde

Hi **soslai** hits bat baino ez hintzen, ihesari emana, nire beste oroitzapenen antzera. Eskarne Mujika

Eskuan zeraman kandelak haren **soslai** luzanga marraztu zidan. Alberto Ladron Arana

Hodeiertzerainoko erdi bidean, hiriaren **soslai** urdinxka ageri zen jada. Aingeru Epaltza

Eskuin aldera joaz, Balda-Matheu kasinoko **soslai** berezia eta arbelezko bere teilatu desberdina nabarmentzen ziren. Txillardegi

Ospitalearen **soslai** eskerga eta ilunak beldur ematen zuen. Berria - Kultura

Gauzek euren **soslai** lausoak aldatu egiten dituzte. Itziar Otegi

Karrozaren lauhazkak zure aitzinean jarraika agerrarazten eta ezkutatzen dituen zumar guztien **soslai** izugarriak. Koldo Izagirre

Haren **soslai** lausoa etengabe mugitzen da. Pello Lizarralde

Haratago, ia **soslai** beltz bat baizik ez itzaletan, benzina bidoi astun batzuk. Alberto Ladron Arana

3 irud/hed

Eraso egin zaien kazetarien **soslai** honakoa da: hiri handietan egiten du lan eta egunkari sentsazionalista berri horietako batentzat. Berria - Gaiak

Hizlariaren **soslai** laburra ere egin zuen Torrealdaik. Berria - Harian

Erasotzaileen eta biktimen **soslai** jakinen bat badago? Berria - Euskal Herria

Aurrerantzean politiko idealaren **soslai** estandarrari erantsi beharreko ezaugarriak izango direla ulertu beharko dugu. Berria - Mundua

Irungo taldea ondo ezagutzen zuen norbait nahi zuten, eta helburua bete dute, Ruizek **soslai** hori ondo betetzen baitu. Berria - Kirola

Enriqueta Benitori elkarrizketa, eta **soslaian**, berriro: "txikia eta alua". Iñigo Aranbarri

Zizeronengandiko Jakinduria kontzeptua nahiko abstraktua zen, Agustinen bihotzak irriki zuenaren **soslaia** besterik ez. Imanol Unzurrunzaga

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Soslaietan egon ohi dira bildurik gehienetan, **soslai** marraren noranzkoa biziro aldatzen den lekuetan batez ere. halaxe baititugu jende zuhur burutsuok, inguru-setioz eta **soslai**-erasoz, desbidez xuxen asmatzen bideak. Josu Zabaleta

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baina hizkuntza **soslaiak** direla eta, eraman dugun politikarekin, kezka bete ditugu administrazioko langileak. Pello Salaburu

Ikusmeneko eremua inguru-**soslai** batez bi eremutan bereizteko modu bat izendatzeko proposatu zuten pertzepzioaren psikologoek. Josu Zabaleta

Karikaturak eginez, Solomon jaunaren tukan **soslaia** eta telefono kabinaren ondoan txistu joka zegoen morroi mozkotearena. Koro Navarro

Galdera aintzakotzat hartuz, dudarik gabe, hura gainditu beharreko eragozpen bat izango zela, eta inteligentzia **soslai** hori rebajatzeko saiatuko zirela erantzun zion, gutxi asko. Berria - Mundua

• 6 *adlag* alboka, saiheska.

Bere buruari **soslai** begiratu eta belarri gaineko ile-orratz bat berregokitu zuen. Irene Aldasoro

Soslai ikusten dute, behean, berrogeita hamar bat metrora. Pello Lizarralde

soslaitu *izond* soslaiez jarria.

Harria gora jaso zuenean, esferaren bihotzean sugar bat pitzen zela iruditu zitzaizkien; eta Seneskalaren aurpegi argalak, zohardura gorrixka hark argiturik, harri gogorren landutakoa zirudien, **soslaitua** eta itzal beltzekoa: noble, arranditsua eta ikaragarria. Agustin Otsa

sospetxa *iz* susmo, errezeloa, goganbeharra. ik *aieru*.

Amak zerbaiten susmoa eta **sospetxa** zuen, bertzalde, eta hargatik debekatzeko zion Maddaleni osaba Joanikoten dorretxerat joaite. Joan Mari Irigoien

"gezur" horren beraren **sospetxa** pean da Tony Blair ere, David Kelly haren jakintsunak bere burua hil zuenetik huna. Herria

Honek guztiak, azken 11 negutatik, 7 gutxi gorabehera belaxkagoak ikusita, ez zaitu izutzen, edo, gutxienez, errezelo eta **sospetxatan** sartzen...? Pello Zabala

sospetxatu, sospetxa(tu), sospetxatzen du *ad* susmatu, susmoa hartu, goganbehartu.

Aldi berean, **sospetxatzen** nuen balitekeela halako emakumerik ez izatea eta, oraingoan ere mutiko gazteek egiten duten bezala, mirakulu baten zain nengoen. Matías Múgica

Inoiz ez nuen ordu arte **sospetxatu** emakume bakar batek zenbat gasta dezakeen, betiere behar-beharrezkoena soilik erosten duen ustean. Matías Múgica

Joan den astean lege berezi bat bozkatu dute zenaturek, eta haren arabera norbaitek auzitegian **sospetxa** dezazke juleak eta beraz bazterraz. Herria

sospresa ik *sorpresa*.

sosten 1 *iz* bularretakoa.

Ordutik, ia hilero erosten dut kulero eta **sosten** berriren bat. Jasone Osoro

Sostena ere askatu zion. Jasone Osoro

Bularrak **sosten** beltzaren kanpotik jarriak dituzu, jori abailduz errealitateara. Eider Rodriguez

Ispiluaren aurrean jartzen nintzen eta **sosten** eta kulero haiek jantzita zer-nolako irudia neukan begiratzea gustatzen zitzaizkidan. Jasone Osoro

2 *pl*

Ettxera sartu orduko jertsea atera dio Asierrek Itxasori, blusa eta **sostenak**. Pako Aristi

Agurearen esku dardariak emakumeari **sostenak** askatzen. Pako Aristi

Neskak gizonen gainean hanka zabalik eserita, kuleroak eta **sostenak** gizonaren buru gainean jartzen dituztela. Xabier Mendiguren Elizegi

sostengaezin *izond* ezin sostengatuzkoa, ezin eutsizkoa. ik *jasanezin*.

Aristidek bere bigarren agintaldiko hiru urteak bete zituenerako egoera **sostengaezina** zen, eta oposizio zibila gero eta indartsuagoa. Berria - Harian

Washingtonen politika **sostengaezina** dela eta nazioarteko komunitateak ia aho batez politika hori salatzen duela agerian gelditu da. Berria - Mundua

sostengarri *izond* ingurumenaren ikuspegitik bideragarria dena. ik *iraunkor*.

Hori gutzia, «garapen **sostengarria**» hitzaren azpian ezkatututa egitea ere leporatu zien. Berria - Euskal Herria

Ikasleen eskubideak ez daude salgai zioen Ikasle Abertzaleak taldearenak; Europa hau ez da **sostengarria** elkarte ekologistenak. Berria - Harian

sostengarritasun *iz* jasangarritasuna.

Sostengarritasun afektiboa goiburuko hitzaldiaren abiapuntua izan zen ideia hori. Berria - Euskal Herria

sostengatu (*597* agerraldi, *38* liburu eta *442* artikulutan; orobat *sustengatu 221* agerraldi, *17* liburu eta *156* artikulutan; *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren sostengatu agertzen da*), sostenga, sostengatzen 1 du *ad* norbaiti edo zerbaiti halako egoeran eutsi edo halako jokaeran bermatu.

Zurrunmurruek ziotenez, auzo herrietan jende parrasta bat atxilotu zuten apez ihardokitzaileak **sostengatzeagatik**. Elena Touyarou

Washingtonek Hussein **sostengatu** zuela ondo aski gogoratzen dute. Berria - Mundua

Catherine Bidartek gain gainerik eskertzen dituzte, azkiek iraun duten lau uzletan **sostengatu** duten guziak. **Herria**

-Uste duzu Estatu Batuek Espainiako erregimena **sostengatuko** dutela? **Josu Landa**

Greziako aginte militarrek Makariosen kontrako kolpea **sostengatu** zuen. **Berria - Mundua**

Oro burgesak ziren; notario, abokatu, edo saltzaile aberatsak ziren, eta elkar **sostengatzen** zuten. **Elena Touyarou**

Indartsuena da ahulena defendatu eta **sostengatu** behar duena. **Andres Urrutia**

Hortxe zeuden, xingola papoan, frantsesez oihukatzen herritar guzien eginbidea zela aberriaren **sostengatzea** eta haren etsaien salatzea. **Elena Touyarou**

Lehen artikuluetariko batek erlijio nagusiari eutsi behar zitzaioela esaten zuen beti, tronua **sostengatzeko** oinarri politikorik onena zelako. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Biluzgorririk zaude zure egitekoaren tenorean, mendeetako injustiziek eta borrokek soilik **sostengatua**. **Filipe Bidart**

Eusko Armada itsuki **sostengatzen** zuen prentsa abertzalea, iparralde zalea nahiz hegoalde zalea, populazio populaturen manipulazioa salatzen hauteman zen. **Itxaro Borda**

Izan ere, Kreatzailearen ahalmena eta Guztiahaldunaren eta oro **sostengatzen** duenaren dohaina da sorkari guztien existentziaren iturburua. **Imanol Unzurrunzaga**

2 gauza materialez mintzatuz, erori edo kordoka ez dadin eutsi edo heldu.

Bukowskiren liburuari eusten diozu, esku biek, belauk gainean **sostengatuz**. **Sonia Gonzalez**

Harengan **sostengatu** eta ez da eroriko, hari atxiki eta ez du huts egingo. **Elizen arteko biblia**

Dutxako errezele **sostengatzen** duen ziria atera egiten da bere zulotik. **Harkaitz Cano**

Nor naizen ere ez dakit, non nagoen, zergatik **sostengatzen** nauten zangoek, nor agindu dituen nire ahotik irtendako hitzak. **Eider Rodriguez**

Argia alboetako nabeetan lerrotaturiko leiho sakonetatik sartzen zen, sabaia **sostengatzen** zuten zutabe-lerroen beste aldetik. **Agustin Otsoa**

Buruz behera jarriko da anaia esku bien gainean eta oinez ibiliko da nik **sostengatzen** dudana oholaren luzera osoan. **Harkaitz Cano**

Luze eta mehe samarrak dira zelula hartzaileak, baina beste zelula handiago batzuek inguratutik eta **sostengaturik** dago bakoitza; badirudi funtzio babesgarria besterik ez dutela zelula handiago horiek. **Irene Aldasoro**

Arima arrazoiduna sustantzia bat da, berez **sostengatzen** dena, gorpuzgabea, hilezkorra, Jainkoak ezerezetik kreatua. **Piarres Xarriton**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gerra sostengatu (3); **gobernua sostengatu** (3); **hautagaia sostengatu** (5); **jarrera sostengatu** (3); **proposamena sostengatu** (3)

erreforma sostengatuko (3); **testua sostengatuko** (4)

matxinoak sostengatzea (3); **sostengatzea leporatu** (8)

sostengatzeko eskatu (4); **sostengatzeko prest** (3)

erabat sostengatzen (3); **eusko jaurlaritza sostengatzen** (9); **gobernua sostengatzen** (7); **gobernua sostengatzen duten** (5); **plana sostengatzen** (3); **presidentea sostengatzen** (5); **presidentea sostengatzen duten** (3); **prozesua sostengatzen** (3)

sostengatzen duten alderdiek (5); **sostengatzen duten alderdien** (3); **sostengatzen duten talde** (6)

sostengatzaile (*orobat sustengatzaile eta sustengatzale g.er.*) iz sostengatzen duen pertsona.

Askatasunaren zer hori ongi zen, eta bera horren **sostengatzaileetarik** zen. **Elena Touyarou**

Salatzaileen **sostengatzaileek** esan zuten, «ebazpenak gizarte demokratiko batean halakorik ez gertatzeko balio izatea» espero dute. **Berria - Mundua**

PDSren **sostengatzaileak** kapitalismoaren aurka dauden ekialdeko alemaniarrek dira. **Berria - Harian**

Ohituren eta bizimodu tradizionalen **sostengatzaile** diren indiarrek. **Berria - Gaiak**

Sostengatzaile ororentzat besta eguna eginen dute Ainhize-Monjolosen. **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sostengatzaile utsua (3)

sostengu (*1274 agerraldi, 57 liburu eta 845 artikulutan; orobat sustengu 530 agerraldi, 16 liburu eta 381 artikulutan, eta sustengu g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian sostengu agertzen da*) 1 iz euskarria.

Maite du arranoak bere bakardadea, haizearen **sostengu** eta bulkada laguntzailea. **Filipe Bidart**

'Aldeko axolagabezia' da sistemaren **sostengua**. **Patziku Perurena**

Ez dugu asmatu antolaketa politiko bat euskal kultura hartzen duen eremu osoari erantzungo diona, eta haren **sostengua** izango dena. **Ana Urkiza**

Justizia eta epaiketa zure tronuaren **sostengua** dira. **Xabier Kintana**

Daviden tronuaren izango da errege, eta justizia eta zuzenbidea izango dira haren erregetzaren oinarri eta **sostengu**. **Elizen arteko biblia**

Bere saio etimologiko burugabeek ere isilunearen estetikan dute **sostengu**, hizkuntzatik kanpo, alegia. **Anjel Lertxundi**

Ezin liteke esan, beraz, haien ustez, akzidente bat beste baten **sostengua** denik, ez eta berau substantziak sostengatua denik ere; aitzitik, akzidente guztiek,aldi eta maila berean, substantzia bera dute **sostengu**. **Xabier Kintana**

Anaiaren bizitzak gurutzaren misterioa baitu **sostengu** eta berme. **Askoren artean**

Elkarriren proposamenak **sostengu** handia lortu du. **Berria - Euskal Herria**

Neurriak **sostengu** zabala du herritarren artean, baina kezka ere eragin du. **Berria - Mundua**

Musika sortzeko eta ekoizteko **sostengu** publikoa eta diru laguntzak areagotu. **Berria - Kultura**

2 laguntza.

Hori gertatzen balitz, erretore bakoitzak beharko omen zuen fededunen **sostengua** eskatu. **Elena Touyarou**

Haren **sostenguarekin**, Henrikek tropa handia altxarazi zuen bortuz haraindiko bere jabegoetan. **Aingeru Epaltza**

Bazuten Ingalaterrako erreginaren eta printze alemaniarren **sostengua**. **Aingeru Epaltza**

Tokian tokiko ezaugarriak, erritmoa eta herriaren **sostengua** kontuan hartuz. **Filipe Bidart**

Biziaren une erabakigarrietan -dolu nahiz bozkario- elkarririk eskaini genion **sostengu** eta laguntza. **Aingeru Epaltza**

Joanes joan zelarik, lagun eta seme-alaben **sostengua** bazeukan. **Eneko Bidegain**

Luzaz, Marcosek jaso zuen Estatu Batuen **sostengu** osoa. **Ramuntxo Etxeberrri**

Seaskaren **sostenguzko** atorra bat baizik ez genuen saltzeko. **Itxaro Borda**

Haurrak erabiltzen dituzten talde paramilitarrei **sostengua** eman diete agintariei. **Berria - Gaiak**

ik beherago 5. **Askoren artean**

Etxe Zuriak, beraz, oposizioari orain arte emandako **sostengu** baldintzagabea erretiratu dio. **Berria - Mundua**

3 aipatzen dena sostengatzen duen persona edo kidekoa.

Diru asko irabazten zuen, eta familiaren **sostengu** bilakatu zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Emakume gazteek nagusiek haina behar dute norbaiten **sostengua**, konfiantza emango dion elementu estrinsekkoa. **Ana Urkiza**

-Etxeko harroina eta etxeko **sostengua** izanen haiz biharko egunean, Mattin. **Joan Mari Irigoien**

Emakumeak bere burua eskaintzen dituzten ahularen sari, besteetan indartsuaren **sostengu**. Xabier Etxabe

- Eta horiekin guztiekin batean, beste horrelako zenbait, **sostengu** eta mezenas zeukatela Frantzizko Nafarroakoa. Piarres Xarriton

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Egunkari batean irakurri du "Demoak" eta "Askatasuna" euskal presoen **sostengu** elkarteak erakus mahai batzuk zituztela arratsalde parteko ekitaldiaren kari. Herria

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako mila lagunek osatzen duten **sostengu** komitea aurkeztu zuen atzo Herritarren Zerrendak. Berria - Euskal Herria

Uztaritzeko **sostengu** batzordeak antolatuturik. Herria

Jende ugari bildu da Bidarten aldeko **sostengu** taldea osatzeko. Berria - Euskal Herria

Egunkari batean irakurri du "Demoak" eta "Askatasuna" euskal presoen **sostengu** elkarteak erakus mahai batzuk zituztela arratsalde parteko ekitaldiaren kari. Herria

Bien [Bush eta Blair-en] **sostengu** maila inoizko txikiena denean euren estrategia defendatzeko politikari eutsi diote. Berria - Mundua

Sasoian dagoenak, berriz, badaki ezerk ezin duela elkartu izaki bereizi horrekin, salbu eta **sostengu**-lanak, makuluarena ongi egiteak. Imanol Zurutuza

Sostengu mugimendu handia sortu da zure baldintzapeko askatasun galdegitearen inguruan, Ipar Euskal Herrian bereziki. Berria - Euskal Herria

5 *sostengu eman* ik *sostengatu*.

Zeren gurrupilak estaltzen zituen lurra eta beheko plataforma makurtuari **sostengu ematen** ziona bera baitzen. Jon Alonso

Praktikari **sostengu emateko** balioko duen basamentu intelektuaren ideia hori indartu egiten da sarreraren ondoren. Santiago Iruretagoiena

Milaka lagun biltzen dira senideei **sostengu ematera**. Berria - Harian

Gazteluko gizonen bertze eginbide bat zen erresumako zerga-biltzaileari **sostengu ematea**, beren arkabuzen aho konbentzigarrien bertutez. Aingeru Epaltza

Hebrongo kolono hauei **sostengu ematera** azken egunetan joan ziren 150 judu estremistek alde egin zutela. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldeko **sostengu** (9); bere **sostengu** (9); bere **sostengu** maila (3); bere **sostengu** osoa (3); **duen sostengu** (3); **gure sostengu** (3); **herritarren sostengu** (6); inoizko **sostengu** maila (7); **nahikoa sostengu** (3)

sostengu bakarra (3); **sostengu** bila (6)

sostengu ekonomikoa (4); **sostengu** emateko (3); **sostengu** eske (3); **sostengu** gehiago (6); **sostengu** handia (14); **sostengu** handiagoa (9)

sostengu irmoa (3); **sostengu** komitea (4); **sostengu** komiteak (6); **sostengu** komitearen (3); **sostengu** komiteko (4); **sostengu** maila (17); **sostengu** maila baxuena (3); **sostengu** nahikoa (6); **sostengu** nahikorik (3)

sostengu osoa (19); **sostengu** politikoa (3); **sostengu** publikoa (5); **sostengu** talde (8); **sostengu** talde bat (4); **sostengu** taldea (4); **sostengu** taldeak (7); **sostengu** taldearen (3); **sostengu** taldeko (5); **sostengu** txikia (3)

sostengu zabala (27); **sostengu** zabala du (4); **sostengu** zabala jaso (7); **sostengu** zabalagoa (8); **sostengu** zabalagoa du (3); **sostengu** zabalarekin (3); **sostengu** zabalena (4)

abertzaleen **sostengua** (3); aeben **sostengua** (3); alderdien **sostengua** (8); alderdien **sostengua** izan (3); arabiarren **sostengua** (3); armadaren **sostengua** (3); baldintzarik gabeko **sostengua** (4); batasunaren **sostengua** (4); bere **sostengua** (9); bere **sostengua** erakutsi (3); beren **sostengua** (6); diru **sostengua** (3)

elkartasuna eta **sostengua** (3); emandako **sostengua** (6); emaniko **sostengua** (3); erabateko **sostengua** (8); erabateko **sostengua** eman (3); errusiaren **sostengua** (3); estatu batuen **sostengua** (3); euren **sostengua** (8); gehiengoaren **sostengua** (6); gizartearen **sostengua** (4); gobernuaren **sostengua** (4); gure **sostengua** (4); hainbat alderdiren **sostengua** (3); herrialde arabiarren **sostengua** (3); herriaren **sostengua** (5); herritarren **sostengua** (15); herritarren **sostengua** jaso (3)

jasotako **sostengua** (5); kolonoei **sostengua** ematera (4); komunitatearen **sostengua** (6); lagunien **sostengua** (3); legebiltzarren **sostengua** (4); nazioartearen **sostengua** (4); nazioarteko komunitatearen **sostengua** (6); nazioarteko **sostengua** (6); pparen **sostengua** (4)

sostengua adierazi (31); **sostengua** adierazi dio (5); **sostengua** adierazteko (11); **sostengua** adieraztera (3); **sostengua** agertu (26); **sostengua** agertu diote (5); **sostengua** agertu zion (7); **sostengua** agertuko (3); **sostengua** behar (14); **sostengua** behar dugu (4); **sostengua** beharko (8); **sostengua** berretsi (6); **sostengua** dauka (3); **sostengua** du (20)

sostengua ekarri (3); **sostengua** eman (65); **sostengua** eman zioten (10); **sostengua** emango (14); **sostengua** emango diotela (3); **sostengua** ematea (15); **sostengua** emateko (17); **sostengua** emateko prest (3); **sostengua** ematen (21); **sostengua** ematen diote (3); **sostengua** ematera (13); **sostengua** ematera joan (3); **sostengua** ematera joandako (3); **sostengua** erakutsi (6); **sostengua** eskaini (7); **sostengua** eskatu (10); **sostengua** eskertu (6); **sostengua** eskertu zuen (4); **sostengua** galdu (6); **sostengua** galdu dute (3); **sostengua** galtzen (4)

sostengua izan (18); **sostengua** izan zuen (4); **sostengua** izanen (3); **sostengua** izango (14); **sostengua** izango du (5); **sostengua** jaso (45); **sostengua** jaso zuen (16); **sostengua** jasoko (7); **sostengua** jasoko du (3); **sostengua** jasotzea (3); **sostengua** jasotzeko (7); **sostengua** jasotzen (3); **sostengua** kendu (4); **sostengua** lortu (12); **sostengua** lortu zuen (3); **sostengua** lortzea (4); **sostengua** lortzeko (9)

testuari **sostengua** eman (5); washingtonen **sostengua** (4); zer nolako **sostengua** (5)

psoeren **sostenguarekin** (3)

herriaren **sostenguari** esker (3); **sostenguari** esker (10)

sostenguaz gain (4)

sostengurik gabe (8)

sostenido *iz* diesea.

Atzapar handiak zituen goiko **sostenidoak** -eta jotzeko. Iñigo Aranbarri

Sakabik tonu zailetan, **sostenidoetan** -eta jotzen duenean, ez du urriti txistularien eskola. Iñigo Aranbarri

sostenitu *iz* diesea.

Lehenengoa Fa **sostenitu** minoreko Laukotea izan zen, eta, ondoren, beste laukote bat idatzi zuen, La minorean, pianoaren laguntzaz jotzeko. Berria - Kultura

Antzeko bidetik joan zen Sismal xirularako soloa [...] do **sostenituaren** gainean irudiak egin eta gero. Berria - Kultura

sotabento *iz* haizebetea.

Eta beste aldea, haizea jasotzen zuen aldea, **sotabentoa** edo haizebea deitzen zen. Joseba Sarrionandia

sotal *ik* zotal.

sotamano 1 *iz* pilota-jokoan, pilotak botea egin baino lehen jotzea, eskua ukondoaren azpitik edukiz.

Sakeari bolea, gantxoari **sotamanoa**, boleari dejada eta **sotamanori** gantxoa. Berria - Kirola

Lehen tantoetan **sotamanoa** erabili zuen, eta Peña lekutik atera zuen (7-3). Berria - Kirola

Errebotean sarturiko **sotamanoak** berandu iritsi baziren ere, Asierrek ere txaloak entzuteko aukera eduki zuen. Berria - Kirola

Bi pilotariak ondo aritu ziren pilotean, beldur gabe **sotamanoa** bilatuz. Berria - Kirola

Gonzalez ondo defenditu zen ezker bolearekin eta **sotamanoarekin**, eta eskuinarekin ere txukun aritu zen. Berria - Kirola

2 *sotamanoz adlag* pilota, botea egin baino lehen joaz.

Biak ondo aritu ziren kantxa erdian, boleaz zein **sotamanoz**. Berria - Kirola

Sotamanoz errestatuz tantoak luzatu zituen, eta defentsan txukun jardun zen. Berria - Kirola

Sotamanoz ongi moldatzen da, bi paretakoa ongi ezkututzen du. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

boleaz zein sotamanoz (3)

sotamanoa *adlag* sotamanoz.

Errestoak **sotamanoa**, gantxoak zazpi koadrotik, aurretik oso gutxitan ikusitakoak harekin ikusten ditugu frontoian, baina Aimar Olaizola du gaur kontrario. Berria - Harian

sotana 1 *iz* apaizen soineko luzea, aurrean botoiak dituena.

Sotana soinean nribilen aspaldidanik, 18 urteak bete aitzin hartua bainuen zaia beltza, Uztaritzen. Piarres Aintziart

Ordurako, 1980an alegia, laurogei urtetik gorako apaiz xaharrek baizik ez zuten **sotana** erabiltzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Pinguinoak La Salleko fraideak ziren, halaxe deitzen genien beren janzkeragatik, **sotana** beltza eta babero zuria eramaten zutelako. Bernardo Atxaga

Gizon luzea eta meharra zen don Estebe, gorputza **sotana** batez estaltzen zuena. Joan Mari Irigoien

Sotana jantzi omen du berriro Don Manuelek, horretara. Txillardegí

Hala esan zuen abadeak, **sotanaren** goiko botoiak askatzen zituen artean. Joseba Sarrionandia

Jainkoaren zerbitzaria Maddirengana zanpa-zanpa zetorren, **sotanaren** hegialak harrotuz. Itxaro Borda

Zitzu bizian zebilen, **sotana** sabeleraino altxatuta. Koldo Biguri

Batetik bestera [...] apaiza dabil, baldartu samarra, **sotana** gerrian lotu eta galtzak agerian dituela. Pako Aristi

Apez bat **sotanarekin** pilotan ikustea etzen mirakulu bat. Herria

Meza ondoren itxaron dio eliz atarian, apaiza, ohiko **sotana** eta teja jantzi, eta esku batean bastoia eta bestean brebiarioa duela kanporatu arte. Pako Aristi

Apaizek errazago esekitzen dute **sotana** beren integritasua baino, eta orain "festa bai, borroka ere bai!" egiten digute aldarri. Anjel Lertxundi

Alferrik eta barne-minez gogoratu zituen argizari piztuak, **sotanaz** jantzitako popea. Jose Morales

2 (izenondoekin)

Harrezkero ez nituen berriro ikusi begien aurrean Don Frantziskoren **sotana** koipetsua eta begitarte zurbil, hilkara. Xabier Mendiguren Elizegi

Apezak kapa gorri bat soinean, guk, beretterrek, gure usaiak **sotana** gorria utzirik, **sotana** brioleta bat, Garizuma denboran janzen zena, eta gainetik supeliza xuria. Michel Oronoz

Sotana aski handia zukeen entziklopedien karreetzeko ere, baina **sotanaren** azpian ez zuen kontrabandarik. Eneko Bidegain

3 irud/hed apaiza.

Orain **sotanei** gorroto zien, eta Zuzenbide ikasketak utzi berriak zituen "erreakzionarioak" zirelakoan. Aingeru Epaltza

4 (hitz elkartuetan)

Eta behin abade-**sotanak** josita sareari, zertan ez pilotarien erremintak ere josi? Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sotana beltz (3); **sotana beltza** (5); **sotana eta guzti** (3); **sotana harrika** (5); **sotana soinean** (3)

sotanaren azpian (4)

sotanadun *izond/iz* sotana jazten duena.

Sakristia usain batek inguratu eta osoki hartu nau eta apaiz **sotanadunaren** irribarre eskasak hoztu. Piarres Aintziart

Argazkiari kasu egitera, 80 urteen iraulieran ibiliko zen buru-soil **sotanaduna**. Aingeru Epaltza

Ondo ezagutzen zuten Apaizaren ospea, bazekiten zenbait jeneral karlistarekin etsaitu zela, eta buruzagi **sotanadunaren** jendea inguru haietatik zebilen artean arriskutsua zela zaldiak Berara edo Lesakara eramatea erabaki zuten. Koro Navarro

Bere alaba, Jaurenea-ko ontasun baliosena, ahalke zipitzik gabe gizon batekin etzan zen, eta are laidogarriago, **sotanadun** batekin. Elena Touyrou

Sotanadun nahiz galtzadun, gure buru eskuarki hutsetan jakituria pixka bat sartzera ahalegintzen zirenen zerrrenda agortuta, ikaskideak gertatu ziren nire abilezia nolabaitekoaren jomuga. Aingeru Epaltza

Gure lagun ñarroaren seriotasunetik eta ikasteko zaletasunetik zerbait kutsatuko zitzaiolako mentura zuen, nonbait, **sotanadun** argi-iturriak. Aingeru Epaltza

sotanzale *izond* adkor sotanaren zalea dena.

Izan ere, hain zen **sotanzale**, non, bisitaren bat egin behar zuen bakoitzean, ez baitzuen sotana zahar zikina kentzen, zaharraren gainean sotana berria janzen baizik. Joan Mari Irigoien

sotaniko *izond* adkor cf sonata.

'Ez dugu anhidrido **sotaniko** gehiago agoantatu behar!' esan zuen Inazitok, bera ere oso beldurtuta zegoen arren. Joseba Sarrionandia

sotiko *izond* astronomia-zikloez mintzatzuz, egiptoar urteko lehen egunean Eguzkia eta Sirio izarra berriro batera ateratzen diren arteko denbora bitartea adierazten duena.

Eguzkiaren eta "izar finkoetako" bakar baten itxurazko mugimenduen arteko kointzidentzia errepikatuen neurri komun txikiak 1.460 urteko "ziklo **sotiko**" egipziakoa sortu zuen, eta eguzkiaren, ilargiaren eta bost planeten ziklo komun errepikatuak 432.000 urteko *Magnus Annus* babilonikoa. Iñaki Mendiguren

Ziklo **sotiko** berria hasten zen orduan. Pello Salaburu

sotil (*orobat sutil g.er.*) 1 *izond* trebea, amarrutsua; bereziki, gehienek bereizten eta atzematen ez dituzten ñabardurez edo aldeez ohartzen trebea dena. ik **subtil**. (pertsonez mintzatzuz)

Cassie iragarle **sotilak** orduan erran ziona ez zuen Maddik sekula ahantziko: [...]. Itxaro Borda

«Oso barre-eragile **sotila**» da Auster, Mujika Iraolaren ustez. Berria - Kultura

Molière-ren *L'École des femmes* antzerkiko pertsonaia **sotila** da Ines. Koldo Izagirre

Sotila Artola, zuri min ematen ahal zizuna isilduz. Xabier Montoia

Xaltokako herren-pausoa zuen, Lakatos lagunak bezalatsukoa baina ez hain **sofila** eta dotorea. Matías Múgica

Erriflearen puntarekin hautsa nola-nahika zapaltzen zuen, **suge** sotil higikorra aldi oroz huts eginez. Itxaro Borda

Harria bezain gogor, sugea bezain **sotil**, ekaitza bezain gaizto. Itxaro Borda

2 (gauzez mintzatuz, ekintza eta kidekoetan)

Gizakiak gai dira mugimendu **sotil** eta konplikatu ugari egiteko, goi mailako diseinu teknikoari esker. Irene Aldasoro

Mugitze **sotilak** sentimena ferekatzen du, arimari, ordea, atsegin zaio gorputz sentimenaren bidez mugimenduan hautemandako adierazpen dotorea. Imanol Unzurrunzaga

Hori ez dago argitzerik, espekulazio **sotilaz** ez bada. Xabier Kintana

Dardaratze **sotil** hura ere nabaritu zizun gorputzean Joaquinek. Hasier Etxeberria

[Pistola] emakumearen eskuetan zerbait oso bestelakoa iruditzen baitzaigu, antzeppen **sotil** edo gezurrezko zerbait, jostailu bat, azken finean, are gehiago emakumea liraina edo ederra denean. Joxean Agirre

Eman zitzaion azkenik erantzun teoriko bat dilema horri; erantzun **sotil** eta maltzurra, zinez, hark zioenez, hain zuzen, ez baitago kontraesanik irudikapenezko pinturaren bi eskakizun horien artean. Josu Zabaleta

Irribarre **sotil** batek zeharkatu zituen bien ezpain-txokoak. Aritz Gorrotxategi

Ez zen [...] salaketa zuzen erasokor bat izan, jokaera **sotil** bat baizik, gehiago ironiaren edo sarkasmoaren bidetik zihoana. Karlos Linazasoro

[Analisi-metodoa] egunean-egunean berrikuskatzen zen, findu zitekeen, gure xedeetara egokitu, arrazoimena, frogak eta hutsegiteak konbinatzen zituen joko **sotil** batez.

Juan Garzia

Mekanismo orokorraren aurka beharrezkotasun objektiboa eta subjektiboaren arteko bereizkuntza **sotil** baina baliogabea eginez. Ibon Uribarri

Hiztegiaz beste hontarzünik badü Etxahunen eüskarak: erranaldi **sotil** edo azkar ederrak, hizkuntzaren plegü hoberenetan. Herria

Ideologia eta pentsaera konkretua inposatzeko nahiak eragindako indarkeria **sutilak** zein nabariak, mundu ezberdinak sortu ditu. Berria - Harian

3 (gauzez mintzatuz, bestelakoetan)

Gauza bakar bat eskatzen diot nik liburuari, oinarritzko gauza **sotil** bat: bizitza ulertzen laguntzea. Pako Aristi

Izan ere, askoz **sotilagoa** zen kontua: ez zegoen preso, baina ezin zuen alde egin. Jon Muñoz

Auzi oso **sotila** eta gutzit iluna izango da hau, harik eta argi froga dadin arte errealitatea pentsatzen dugun modukoa ote den ala ez. Imanol Unzurrunzaga

Arrazoia, noski -xehetasun baldarrenetik **sotilen** direnetaraino- leku jakin bakoitzeko ideologia nagusian bilatu behar da. Bernardo Atxaga

Hiru oztopo horiek gora-behera, Menard-en *Kixote* zatikakoa Cervantes-ena baino **sutilagoa** da. Juan Garzia

Gai **sotil** horiek, ia ulertezinak adimenarentzat, ezin litezke adieraz ohiko mintzairaz. Xabier Kintana

Al Jabr eta *al Muqabala* kalkulatzeko ondu dut kalkuluaren alderdi **sotil** eta loriatsua lantzen duen liburu labur hau. Jon Muñoz

Betiko debekatuko zion ezkontza bere buruari, modu **sotil** eta gupidagabe batean, hots, esposatuz. Juan Garzia

Leku bitxiro aparta zuen indioilarrak familia-mundu **sotil**, bare eta maratz hartan. Juan Garzia

Bihotzak, ponpa gisa begiratzen bazaio, mirespena eragingo dio ingeniari hidraulikoari, duen diseinu **sotilagatik**, karga desberdinetara aise moldatzeko gaitasunagatik eta fidagarritasun paregabeagatik. Irene Aldasoro

Animalia ñimiñoen gorputz atalen egitura **sotil** eta miresgarria. Imanol Unzurrunzaga

Ez da gauza erraza, hain baitira **sotilak**, ia atzeman ezinak, sentsazio horiek. Josu Zabaleta

Objektuei eta harremanei so egiten die, eta obra **sotil**, dotore eta sentsualak sortzeko abilezia du. Berria - Kultura

Zeren Maitasuna, Gorespena eta Gorazarrea, hirurak nahastuz moldatutako sinfonia **sotil** eta atergabea izango baita aurrerantzean nire bizitza osoa. Antton Olano

4 (adizlagun gisa) ik sotilki.

Beste neska-mutilen artean ba omen zen batetik bestera arin, **sotil**, etengabe aldatuz igarotzen zen zerbait: esanahi-truke bat, negoziazio bat, ulermen-arintasun bat.

Xabier Olarra

Edonor izan daitekeela hiltzaile erakusten du filmak, eta, **sotil**, Poliziaren gaitasun falta agerian uzten. Berria - Kultura

Zeuk asmatu, jarraitu zuen **sotil**, nola idazten dudan nik Sots hitza. Josu Zabaleta

5 pisugabea, xehea. ik mehe 6.

Leku horietan inon urik sortzen bada, aireak desegin eta zerurantz eramaten ditu uraren elementurik arin, **sotil** eta osasungarrienak, lautadetako iturrietan ez utziz parterik astun, gogor eta zaporerik txarrenekoak baizik. Santiago Iruretagoiena

Sabai gangatuak luzitu direnean, haien azpian erlaitzak jarri behar dira, eta komeni da ahalik eta finen eta **sotilen** egitea; handiak egiten badira, bestela, pisuarekin erori egiten baitira ezin direlako eutsi. Santiago Iruretagoiena

Biolin talde baten allegro-a sortu zen berehala, iluna zen allegro mehe **sotil** bat, pentagrama ikusezinaren geografia guztia zehatz zeharkatuz. Lander Garro

Mareak behera egindakoan, zetazkoa dirudien oihal **sotil** batek estaltzen du lokaztia, aparrak garagardoa bezala. Hasier Etxeberria

Bezperan baino takoi altuagoak zekartzan eta soineko beltz **sotil** eta arin bat besterik ez soinean. Joxean Agirre

Bere ondoren joateko agindu zigun, keinu **sotil** batez. Hasier Etxeberria

Harreman **sotila** dute elkarrekin, ia primitiboa. Alberto Barandianen

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

keinu **sotil** (3)

era **sotilean** (4)

sotildu, sotil(du), sotiltzen 1 da/du *ad* sotil bihurtu.

"Nondik gatoz?" galdera zaharraren aurrean, pentsamendu zientifikoak aldi berean **sotildu** eta konplikatu egin du erantzuna. Juan Garzia

2 arindu.

Lehenengo, begiarentzat dira osasungarriak, zeren eta landareen eraginez airea **sotildu** eta arindu egiten baita, eta mugimendua dela bitarteko, gorputzaren barruan sartzen joaten da Santiago Iruretagoiena

sotilezia (orobat sutilezia) iz sotiltasuna. ik subtilezia.

Soiltasuna eta **sotilezia** dira egile honen tresna nagusiak: ipuinak biluzik daude, ez zaigu asko kontatzen, baina izugarritzko indarra, eta, beraz, garrantzia dute xehetasunek.

Berria - Kultura

Mugimenduak eta ideiak **sutilezia** handiarekin elkartuko dira obran zehar. Berria - Kultura

sotilkeria iz sotiltasuna gaitzegarria.

Niri iruditzen zitzaidan hartaraz gero egoki zatekeela landarearen konposizioan fosforoa zein eratan sartzen zen finkatzea, eta fosforodun gaia bakartzen saiatzea, baina Commendatoreak, Basileara deiturik, adierazi zidan ez zegoela betarik halako **sotilkerietarako**. Juan Garzia

sotilki *(orobat sutilki g.er.) adlag era sotilean.*

Sotilki galdetu zionean, alabak zuzenean aitortu zuen ez bairik gabe. Ibon Uribarri

Besteak zekienaz **sotilki** jabetu nahian ekin zioten solasari. Karlos Zabala

Neskaren besoa **sotilki** estutu du, hiriak irents dezan gertu. Eider Rodriguez

Neskaren besoa **sotilki** estutu du, hiriak irents dezan gertu. Eider Rodriguez

Sotilki jokatzeko paradarik ez gerlan, haatik. Xabier Montoia

Lehenago bereizezinak ziren ñabardura batzuk orain oso bestelakoak ziren, eta denak (benetako beltza izan ezik) aldatu egiten ziren, nabarmen nahiz **sotilki**, argi-iturriaren uhin-luzeraren arabera. Xabier Olarra

Langintza, hala ere, **sotilki** iruzurlea; alegia, ez denaren kolore eta itxura emanez, azpian dagoena gordetzeko xedea duen arte oro bezala. Juan Garzia

Eta gorputz amaituetan sartzea ere ezinezkoa da; ezingo bailukete haiekin **sutilki** bat egin, ez sentikidetasunez elkar ukitu. Xabier Amuriza

Beste batzuk, berriz, **sotilkiago**, hutsaren eta garbi-distira zorrotz-zorrotzaren bitartez aitorrarazten dute beren nagusigoa: hala egiten omen zuen Mussolinik Venezia Jauregian. Juan Garzia

sotiltasun 1 iz sotila denaren nolakotasuna. ik subtilezia.

Eztabaidako gauzaren **sotiltasuna** eta iluntasuna bera, eta hura sakonki hautemateko zailtasuna. Xabier Kintana

Menperatzaileen armarik eraginkorrena **sotiltasuna** da, zehaztasuna, eta neurria. Lander Garro

Izen bereziak eta abstraktuak bereizten dituen edozein gramatikak badu **sotiltasun** nahikoa (94i, iii) perpausen eta (95i, iii) perpausen artean dagoen aldea itxurtzeko.

Itziar Laka

Amak lehenik eta behin **sotiltasun** handiko emakumea izan behar duela iruditzen zait. Josu Zabaleta

Sotiltasun dotore eta erasokorren artean grinak bizitzeko gogoia ezkutatzeko ditek, eguzkitan kiskaltzen diren diren harrien artean dagoen aldea ezkutatzeko ditek. Xabier Olarra

Petersburgeko dama askoren antzera, ohi ez bezalako **sotiltasun** eta moduzkotasunez mintzatzen ziren. Jose Morales

Arcanden harribitxiak erromantizismoa, drama nahiz ironia iluna ere **sotiltasun** handiz uztartzen baititu. Berria - Kultura

Teologo bezala erabiltzen zituzten metodoek tankera filosofikoa gordetzen zutela, argudioen beharrezkotasuna zainduz, eta horren aurretik analisi kontzeptuala **sotiltasun** handiz landuz logikaren laguntzarekin. Askoren artean

1819ko Paris, filusen eta petzeroen biltzar hura, diruzalekeriazko lupetza hura, **sotiltasun** gomutagarri margotzen digu, eta zenbait alegia historiko eskaintzen dizkigu aldi berean. Markos Zapiain

Lanen musikaltasuna, pintzelkadaren **sotiltasuna** eta aberastasun kromatikoa. Berria - Kultura

Haren **sotiltasun** eta naturaltasuna, haren idazte-perfekzioa ala haren giza barrenaren ezagutza. Berria - Kultura

Lanen musikaltasuna, pintzelkadaren **sotiltasuna** eta aberastasun kromatikoa. Berria - Kultura

2 pisugabetasuna, mehetasuna.

Nahiz eta euren gorputzen **sotiltasunaren** eraginez eta euren zentzumen zorrotzei esker guk ezagutzen ez ditugun jatorrizko arrazoi ezkutu horiek ezagutzen dituzten.

Imanol Unzurrunzaga

Zeruaren **sotiltasun** hori dela-eta, hegoaldeko herriak beroaren eraginez askoz ere zorrotzagoak izaten dira buruz, eta azkarrago eta arinago mugitzen dira erabakiak hartzerakoan; iparraldeko herriak, berriz, atmosfera trinkoaren astuntasunaz jota, [...]. Santiago Iruretagoiena

Kanpoko ornamentazioan, hala ere, bazituen *Art Nouveau*-ren motibo batzuk, egiturari **sotiltasun** eta arintasun airea ematen ziotenak. Patxi Iturrigeti

3 (hitz elkartuetan)

Bere aurrean zituen bi animalia haien **sotiltasun** mailak konparatzen. Josu Zabaleta

. Besteak nola sentitzen ziren jabetzeko berezko trebetasunak -hor tartean izaten diren ñabardurak, gizarte **sotiltasunak** - nolabait ikasitako norbaitena. Xabier Olarra

soto 1 iz etxearen azpian, lurraren mailatik behera dagoen gela edo tokia; lurrazpiko biltegia.

Udaletxearen beheko solairuan leiho bakarreko **soto** bat zegoen arkupearen eta ostatuaren artean, herriko jendeak betidanik "kartzela" deitutakoa eta [...] ostatuaren biltegitzat erabiltzen zena. Bernardo Atxaga

Agustina, Amaia eta Garbiñe beheko solairuaz eta **sotoaz** arduratu ziren. Aitor Arana

Estudio konpartitu bat biontzako, haurrentzako jolasgela bat, eta baita **sotoa**, ganbara zabala eta bi autorentzako garajea ere. Josetxo Azkona

Aitaren etxeak egoitza asko dituela, ganbarak eta **sotoak** ere barne. Anjel Lertxundi

Udalak **sotoan** gordetzen uzten omen zizkien eskulangileei beren zerak, atzealdeko ate batetik sartuta. Iñaki Iñurrieta

Kalearen beste aldera joan ziren, ostatuaren aurrez aurre zegoen etxe batera, eta kristal ketuzko ate baxu batetik sartu ziren **soto** batean. Jose Morales

Banekien, denek bezala, **sotoan** egiten zituztela torturak eta hilketak. Juan Kruz Igerabide

Akusatuak etxeko **sotoan** ezkutatzeko zituen bahitutako 12 eta 14 urteko bi neska. Berria - Gaiak

Bi jaioberriren gorpuzkinak aurkitu dituzte **soto** batean, Alemanian. Berria - Gaiak

Soto batean zegoen, zurezko kaxa txiki eta handi askoren artean. Iñaki Mendiguren

Gazteluko **sotoetan** nongoen oraindik. Jon Alonso

Kokoriko jarri zen merkakuko **sotoetara** ematen zuten argizuloetako baten aurrean. Karlos Zabala

Espainiako Auzitegi Nazionalako **sotoetako** mintzategi batean. Berria - Euskal Herria

Irailetik aurrera, udan hustutako **sotoa** bete beharra zen. Karlos Zabala

Adreiluzko bobeda erdizirkularra duen **soto** batean geunden. Anjel Lertxundi

Nire oroimena berriro inoiz murgildu ez den garaia, hautsez betetako **soto** baten antzekoa. Eduardo Matauko

Mutikoa **sotoan** omen zegoen, beti bezala, argazkiak errebelatzen. Juan Garzia

Sototik ikatza igo eta sua bizituko nuela esan nion. Anjel Lertxundi

Ehun bat lagun zeuden pilaturik **soto** haren hondoan, aiererik gabe, karioletako piztiei bezala botatzen zizkieten ogi puska urriak irentsiz. Karlos Zabala

-Italiarrak **sotoan** gordetzen dituen tabako kutxak zitiztean helburu, dudarik gabe. Alberto Ladron Arana

-Hegaztien pabiloiko **sotoan** aurkitu zuten elkarrekin lo egiten jarraitzeko era. Karlos Zabala

Sotoa zaharra da, zabala eta argitsua. Lander Garro

Soto horiek izugarri hezeak dira. Koro Navarro

Lizuna bezala sortzen da **sotoen** sabaian. Koro Navarro

-Bonba ez ziotean **sotoan** sartu, etxe azpiko estoldan baizik. Alberto Ladron Arana

Atzera egin nuen bietan, ikazkinaren **soto**-aurretik pasatzeko beldurreratik baino gehiago, Umberto arriskuan jar nezakeelako. Anjel Lertxundi

Soto antzeko batean bizi da artista hau. Koldo Izagirre

2 (itsasontzietakoa)

Orain beste **soto** batean, itsasontziko **sotoan** zeuden. Harkaitz Cano

Merkatalontziko **sotoan** pisatutako ikatzak ikaztegia iri-tsitakoa ere pisu bera zuzen kontrolatu behar nuenEz zuten deus jan hegeita hamasei orduen, *le Canada* fragatako

sotoan pilatu zituzten arte. Anjel Lertxundi

Irten ziren Valparaisotik, **sotoa** ongi zamaturik, iragan zuten Hornos lurmuturra halako batean. Felipe Juaristi

3 (ardo gordetzekoa)

Etxeo **sotoan** arandegi itxura zeukan biltegia hurreratu zen. Josu Landa

-Edazu, edazu, botila gehiago ere badut-eta **sotoan**. Anjel Lertxundi

Huntan ere bada mahasti, 100 bat **soto**, horgo zaharrena Hongriatik jin Haratzy konteak xutitua 1857ean. Herria

Bihitegi eta **soto** ugari zegoen ibai-adarraren ezker-eskuin. Anjel Lertxundi

Gero tokian berean egiten dute etxe arnoa [...] eta barriketan ezartzen Urkoiko **sotoan**. Herria

4 (izenondoekin)

Soto ilun batera eraman ninduten, eta hantxe hasi zen hiru bat egun luzatu zen kalbarioa. Anjel Lertxundi

Une hartan, **soto** ilun itogarri hartan, ni baino askoz ere handiagoa zen joko batean sarturik sentitu nintzen. Alberto Ladrón Arana

Bilboko portuko **soto** beltz ilun hori erosi zuen herenegun. Iñaki Arranz

Soto handi bat zen club hura. Joxemari Iturralde

Moila, **soto** handiak, garabiak, kargaontzien tximini eta bizkarrak, kamioi tzarrak portura sartzen eta portutik irteten. Anjel Lertxundi

Liburutegi bat eta hitzaldietarako nahiz bileretarako areto bat prestatzeko, guztia apaizetxe handiaren **soto** zabalean. Juan Kruz Igerabide

Etxe zaharkituetako **soto** hezeetan. hantxe aurkitu nuen, **soto** ahitezinean, beharrezko beirateria. Juan Garzia

Pigalako putetxe bateko **soto** sakonean aurkitu ziren laster, ebatsi aberastasunak espantuka elkarri erakusten. Itxaro Borda

Etxe arrotz bateko **soto** izugarri batean bakarrik utzita. Alberto Ladrón Arana

Hura etxe arrunt bateko **soto** arrunta zen, ez nire irudimen asalatuak marraztu zuen labirinto arriskuz josia. Alberto Ladrón Arana

5 irud/hed

Gizaki oro jaisten da bere arimaren **sotoetara**, gizaki orok du hausnarketarako gaitasuna. Anjel Lertxundi

Ausartuko al haiz, iristen zaio nonbaitetik trabesa, hire arima barneko **sotoetaraino** jaisten? Anjel Lertxundi

Arimaren babes- **sotoetan** gordetzeko unea zen, baldin arimak halakorik bazuen. Harkaitz Cano

Hots mingorra zen, gauaren behe- **sotoetan**, edo infernu urrunen batean sortua. Edorta Jimenez

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eta armategia eta aurkari arriskutsuentzako ziega **sotoan** ipini dituzue? Koldo Biguri

Ontzi- **sotoan** arraunean ari ziren galerianoen egoera zorigaiztokoa musikaren bidez adierazten ari zirelako uste osoan. Jon Muñoz

Aurkikuntzen bidaia hartatik itzultita, zerez beteak ekarriko ote zituzten beren ontzi- **sotoak**? Jon Muñoz

Gure laboratorioak bazuen antzik trapuzahar denda batekin eta baleontzi baten karga- **sotoarekin**. Juan Garzia

- *Vinexpo*-ri buruzko erreportaje bat prestatu behar nian Bordel inguruko ardo- **sotoetan**, ahaztu egin al zaik? Anjel Lertxundi

Barreneraino sinetsirik zegoela, alegia, gauero bere perrailarekin etortzen zela kanoizain asasinatua urre- **sotoa** hustu eta ondasunak itsasora botatzera. Juan Garzia

7 soto-zulo

Gelara zeraman **soto**-zuloa seinatatu zion. Anjel Lertxundi

Gero **soto**-zulutik behera jaitsi ziren neska-mutilak, ontzigaineko elurretan beren hanka-arrastoak utzita. Anjel Lertxundi

Soto-zulo batean usteltzen ari naizela iruditzen zait. Pablo Sastre

Kalaportuko beste karlista handiak ere berdin, auskalo nongo **soto** edo sabai zulotan ezkutatu ziren. Joseba Sarrionandia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

portuko **soto** (3); **soto ilun** (7)

sotoa hustu (3)

irulegiko **sotoak** (4)

apaizaren sotoan (8); **beheko sotoan** (3); **etxeo sotoan** (9); **hegaztien sotoan** (3); **irulegiko sotoan** (3); **itsasontziko sotoan** (4); **kaleko sotoan** (3); **sotoan gordeko** (3); **sotoan gordetzen** (3); **sotoan sartu** (4); **sotoan zegoela** (3); **sotoan zeuden** (3); **udal liburutegiko sotoan** (5)

irulegiko **sotoaren** (3)

sotoko ate (3); **sotoko atea** (5); **sotoko giltza** (3); **sotoko oporra** (12)

apaizaren sotora joaten (3); **sotora eraman** (6); **sotora jaisten** (5); **sotora jaitsi** (7); **sotora joan** (4); **sotora joaten** (3)

sototik ganbararaino (3); **sototik irten** (3)

sototxo iz soto txikia.

Jauregirik ederrenean baino mirespen jaierratsuago batez sartu nintzen Caffarelli kaleko **sototxo** ilunean. Anjel Lertxundi

sotozain iz sotoa zaintzen duen pertsona.

Jakintsuak errespetua zor zion **sotozainari** berari, zeren **sotozainaren** bitartez Jainkoa errespetatzen baitzuen, haren Enbaxadore baitzen **sotozaina** ere. Josu Zabaleta

Gero tokian berean egiten dute etxe arnoa, Arno Etxemendi betiko **sotozainaren** kontseiluekin, eta barriketan ezartzen Urkoiko sotoan. Herria

soufle iz labean sartzen denean puzten den jakia.

Antzara dauka labean, pospoloaren zain dago **souflea**, zilarrezko erretilu batean dauzka txokolate, bizkotxo, bonboneria eta xanpainak. Anjel Lertxundi

soul 1 iz XX. mendeko berrogeita hamarretan Estatu Batuetako beltzen artean sorturiko musika estiloa, pop, rhythm n'blues eta gospel musikak konbinatzen dituena.

Ray Charles **soularen** mitoa hil da, gibekeko gaitzak jota. Berria - Kultura

Garai hartan jarri zizkieten *maisua* eta **soularen** *erregea* goitizenak. Berria - Kultura

Soul eta rockaren apezpiku erraldoia. Berria - Kultura

Sei abeslariak **soularen**, funkaren eta R&Baren iturrietatik edan dute, nork bere estiloa garatu eta arrakasta ezagutu dute. Berria - Kultura

Ramanen musikak **soularen** eta jazzaren eragina du, baina baita Indiako doinuena ere. Berria - Kultura

Soularen eta funkaren tradizioetik abiatuta, Gorkhiru taldeak kolore ugariak doinuak bildu ditu bere lehen diskoan. Berria - Kultura

Acid-house-aren garaia zen hura, baina soundsystem-ek **soulari** eta dub-ari atxikitako erritmoak berreskuratuz zituzten. Berria - Kultura

Funky asko, **soul** eta boogaloo pixka bat bost mutil zuri hauen eskutik. Berria - Kultura

Soul sutsua egiten dute. Berria - Kultura

Soul sensual eta biziaren esparru horretan, Pickett musika beltzaren erregeetako bat izan zen 60ko hamarkadan. Berria - Kultura

Soul, bop eta jazz garaikidea taularatuko dute. Berria - Kultura

Soul garbi eta leunarekin alderatuta, Menphisen eta Stax nahiz Atlantic zigiluen inguruan bestelako **soul** bat joan zen mamitzen: beroagoa, sensualagoa eta indartsuagoa. Berria - Kultura

2 (izen baten ezkerrean)

Rock, pop, funk eta **soul** doinuak nahiz musika elektronikoa eta instrumentala entzun daitezke disko berri horretan. Berria - Kultura

Soul musika AEBetako gazte beltzen musika zenean egin zuen agerpena Pickettek, AEBetako hiri jakin batzuetan **soul** mota jakin bat sortzen hasi zenean. Berria - Kultura

Soul musikari rhythm'n'bluesaren indarra gehitu zion. Berria - Kultura

Bi hilabete daramate bost musikari zuri hauek [...] Europan zehar musika beltza egiten, funk eta **soul** estiloak gehien batean. Berria - Kultura

Soul eta jazz estiloak musika elektronikarekin nahasten ditu. Berria - Kultura

Nerabezaroan **soul** eta funk erritmoak abesten hasi zinen. Berria - Kultura

Soul abeslari guztien arteko onena da, eta bere ahotsa, sentsibilitate bikaina duen tresna. Berria - Kultura

Wilson Pickett **soul** kantaria hil da 64 urterekin. Berria - Kultura

Motown AEBetako **soul** disketxe mitikoarekin kontratu bat sinatu zuenean. Berria - Kultura

Soul ukituak dituen rock doinuak entzun ahal izango dira. Berria - Kultura

Soul kutsuko duetoan. Berria - Kultura

Ezagunagoa da, hala ere, haren blues-**soul** alderdia, musika beltzak blaitutakoa. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

funk eta soul (3); **soul kantaria** (5); **soul musikaren** (3); **soul musikari** (4)

souvenir (orobat *subenir g.er.*) 1 iz oroigarria.

Gogoan ditu herriko argazkiak ateratzen zituzten kanpotarrak, **souvenir** gisa. Edurne Elizondo

Zeure hiria bisitatzeraz gongoratuz eta laguntza edo aholkua emanez emaztearentzat edo alabarentzat **souvenirak** erosteko. Juan Garzia

Souvenir malenkoniatsu haiekiko zuen zaletasunari eta, horrenbestez, beraren oroitzapenari sekula eta betiko eusteko itxaropenez. Mirentxu Larrañaga

Ba, pentsatu dut zure koilarak saltzea, **subenir** moduan. Koldo Izagirre

2 (hitz elkartuetan)

Argazkia turistentzako **souvenir** denda batean egin genuen Sausalitoko kale estu batean. Bernardo Atxaga

Unean uneko abenturei "amodio **souvenir** -ak" deitzen die. Patxi Zubizarreta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amodio souvenir (3)

sovietar ik sobietar.

soziabilitate 1 iz soziablea denaren nolakotasuna. ik gizartekoitasun.

Aztertutako etxe gehienetan (%57,1) gurasoen inplikazio eta ekimen maila baxua da umeen **soziabilitatea** eta kontrola bultzatu behar denean. Ene **soziabilitate** naturala zauritua izan zen, ene zortzi urteetarik hamar urteak arte, haurtzaroko urte zorrigaitzenak Baigorriko Saint Joseph ikastetxean iragan izan baintuen. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan)

Baigorriko eskola ez zen preseski enetzat **soziabilitate** lekua. Ana Urkiza

soziable izond lagunkina, jendekina; gizartean bizitzeko joera duena.

Gainera, denbora berean nintzen bakartia eta oso haur **soziablea**. Ana Urkiza

Soziabiletzat, mailegua zilegi bada. Aingeru Epaltza

sozial 1 izond gizartearena, gizarteari dagokiona. ik gizarate 2.

Gai izatea kontzeptu eta termino geometrikoak pertsonal edo **sozialak** baino askoz errazago bereganatzeko. Xabier Olarra

Unibertsitaria zen, psikologian eta jakintza **sozialetan** lizentziatua. Koldo Izagirre

Psikologia **soziala** maite duenarentzat, berebiziko herria gure hau. Iñigo Aranbarri

Desira ez da egitura **sozial** bat. Joseba Zulaika

Aurreiritzi **sozialak** funtzionatu egin du. Iñigo Aranbarri

Onarpen **sozial** handia izan behar zuen garai hartako bertsolaritzak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gaur koherentziaz galdezka datorrenak bazterketa **sozialaren** aurka borroka egin beharko du. Pako Aristi

Balio ezberdinekin bizitzeko razionalitate eredu **sozial** berriak garatzea. gizarate-antolamendu berri bat sortu zen, Europan bi gerren artean izan ziren aurrerapen **sozialen** eta Estatu Batuetan lanaren antolamenduak izan zuen berrikuntza handien sintesia izan zena. Joxe Azurmendi

Eraketa tradizionalaren aurka, organismo **sozialak** bere burua printzipio edo ideia batzuen arabera berrantolatzen du, razionalizatu egiten du. Joxe Azurmendi

Frantzisko bere garaian: testuinguru erlijiosoa, **soziala** eta politikoa. Askoren artean

Botere-egitura (politikoa, **sozial**, administratiboa...) berriak asmatu beharko ditugu nahitaez. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Globalizazioa, beraz, dinamika luze batean kokatzen da, non espazio fisiko eta **sozial** oro, apurka-apurka, kapitalaren legearen mende ipintzen baita. Koro Navarro

Balioen krisia deitu ohi dena egiaz krisi **sozial**, kultural, politikoa, etiko konplexu bat da. Joxe Azurmendi

Odolberotasuna eta erronkazaletasuna, mugapen fisiko eta **sozialekiko** etengabeko indar-probaketa. Xabier Olarra

2 gizartean edo gizarate talde batean eragin onuragarria duena.

Clemente Lopez errejimenaren lorpen **sozialak** azaltzen hasi zen. Luzarora errentagarritasuna, pribatua nahiz **soziala**, ziurtatua dutela diruditen proiektu produktiboak edo kolektiboak finantzatzeko dituzte. Joseba Sarrionandia

Hazkundeak beharrezko dituen azpiegitura fisikoak eta **sozialak** sortuz. Koro Navarro

Beste adituek hamastu boste gutxiago dituzte Gaztan bostere gehiago lortzeko gai, bane batzuen handia eta sare **sozial** zabala dituela argudiatuta. **Berria - Mundua**

Zerbitzu **sozial** bezero izateko itxura guztia zuen gaztea. **Ramon Saizarbitoria**

Baionako egoitzen kasik hiruetatik bat bizitegi **sozial** ekarria da. **Herria**

Hor eraikiko ditu 51 egoitza **sozial**: hamaika bi gelakoak, 18 hiru gelakoak, 21 lau gelakoak. **Herria**

"Point Accueil Jour" aterbe **soziala**. **Herria**

Aldaketa horien ondorioak ez ditu Segurantzak **Sozialak** ordaintzen, jendeak baizik. **Berria - Harian**

3 gizarte klaseei, bereziki behekoei eta horietako kideen jarduerari dagokiena.

Gai politiko eta **sozial** guztiak harrotzen ziren eta gogorki eztabaidatzen. **Marzel Etxehandi**

Euskadi askatzearen aldeko mugimenduak bi arazo nagusi konpondu nahi zituela zioen komunikatueta, alde batetik nazionala eta bestetik **soziala**. **Bernardo Atxaga**

Monolaborantzak kalte **sozial** handiak egiten dituela diozue. **Berria - Gaiak**

Haren igoera **sozialaren** kurbak lagunaren beheraldiaren kurban zuen elkargunea. **Irene Aldasoro**

Kontzientzia **soziala**, irainduaren protesta eta borrokarako nahia. **Pako Aristi**

Askatasun nazionalaren eta justizia **sozialaren** alde borrokatzea. **Joseba Zulaika**

Alderdiaren egunkariaren festa eta haren egitaraua zen, eduki politiko-**sozialeko** zenbait esaldirekin batera. mugimenduak, komunismoak eta New Deal izeneko erreforma ekonomiko-**sozialak** gero eta lilura gutxiago pizten ziotela. **Koldo Biguri**

Greba ez dea bada gerla **sozial** bateko ekintza seinalatuena? **Itxaro Borda**

Orain preso politikoen inmoralitatea erakutsiko die preso **sozialei**, ohoinak eta trafikatzailak besterik ez omen diren hauei. **Koldo Izagirre**

Preso **sozial** batzuk gu erasotzera bultzatu zituzten hasteko, ordainean mesedeak eskainita. **Jokin Urain**

Biek ere bazituzten kezka politiko eta **sozialak**. **Rafa Eiguren**

Soziala izan zein intelektuala, politikan, artean zein zientzian gertatu, iraultza orok eskatzen du, lehenik, posible denaren lerratzetako bat, sineste-jokoaren berrantolatze bat.

Juan Garzia

Nobela beltz eta **sozialaren** arteko mistura bat. **Unai Iturriaga**

Narratiba **sozialaren** etiketaren muga estuetan erori gabe, agerikoa da pobreen aldeko hautua. **Fernando Rey**

Euskadi askatzearen aldeko mugimenduak bi arazo nagusi konpondu nahi zituela zioen komunikatueta, alde batetik nazionala eta bestetik **soziala**. **Bernardo Atxaga**

4 beste gizakiekiko harremanei dagokiena; horrelako harremanetara joera duena.

Erakunde militarren arteko bizimodu mugatuak ez dizu uzten, hala ere, nahi bezalako harreman **sozial** eta afektiboak eramaten. **Rafa Eiguren**

Bizitza **sozialean** ere, badirudi aurrera egin duela, halatan non oraintsu -berak esan didanez- bizipahiru lagunekin denborapasan aritzeko gauza izan baita. **Xabier Olarra**

Ordura artekotik modu erabat bestelakoan hasi ginen janzen, bizitza **soziala** ere lehenengoaren oso desberdina izaten hasi zen. **Ander Irizar**

Edozein ekitaldi **sozialetan** (jendetsu nahiz koadrila mailako), ez dago aurkezle lanak hark baino hobeto egingo dituenik. **Xabier Etxabe**

Ez dute ekimen **sozialetan** parterik hartzen, sari bat jasotzeko ez bada. **Pako Aristi**

Nola gizakia abere **soziala** edo lagunkina den eta biziak eskatzen dizkion baitezpadako guztiak ez dituen bere etxeko soilekin bereganatzen ahal, [...]. **Piarres Xarriton**

5 (izen gisa) preso soziala.

Behoko galerian, **sozialen** patiora ematen duen aldean, zulo bat zagok azken ziegan. **Koldo Izagirre**

Zigor ziegatan ezarri zituzten politikoak, **sozialengandik** aparte, Ohar batzuk egin ditu Bic bolalumarekin, zigor ziegatan ukatzen den horrexekin berarekin, **sozialek**

xiringak egiten dituzten berarekin. motinaren ondoren isolamendura zigortu dituzten **sozial** horietako batena duzu ziega hori. **Jokin Urain**

6 sozietate anonimoei eta kidekoei dagokiena.

Alde guztietatik abantailatsua iruditu zitzaion proiektua: Ramires eta Araujo Lda. sortzea, kapital **sozial** ez oso handi baina ez oso urriarekin, erdibanatuta eta Araujoren tradizioaren jarraitzaile. **Bego Montorio**

7 poliziakideez mintzatuz, *Brigada Politico-Social*-eko kidea zena.

Erakunde iraultzaile baten oinarri politiko eta ideologikoak, taktika eta estrategiak interesgarriak gerta dakizkioko polizia **sozial** bati etsaia hobeto ezagutzeko eta haren kontra borroka egiteko. **Rafa Eiguren**

Beheragoko solairuko leihoan goizean atxilotu nauten bi **sozialak** daude, niri begira. **Agurtzane Juanena**

Sozialak eta traumatologoa ageri dira UVlko kristalaren ostean. **Agurtzane Juanena**

Gau hartan bertan etorri ziren brigada politiko-**sozialekoak** bere bila, baina ordurako joana zen. **Koldo Izagirre**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

adostasun sozial (7); aldaketa sozial (8); aldarrikapen sozial (4); alderdi sozial (35); alderdi sozial demokrata (15); alderdi sozial demokratik (7); alderdi sozial demokratiko (6); arazo sozial (5); babes sozial (7); baldintza sozial (5); batasun sozial (4); bizitegi sozial (5); bizitza sozial (6); dimentsio sozial (4)

egitura sozial (7); egoera sozial (12); egoitza sozial (12); ekonomiko eta sozial (9); eragile sozial (49); erakunde sozial (10); erantzukizun sozial (4); eredu sozial (15); errealtate sozial (11); erreforma sozial (6); eskubide sozial (13); etxebizitza sozial (8); europa sozial (7); fenomeno sozial (6); funtzio sozial (4); garapen sozial (4); gehiengo sozial (9); helburu sozial (4)

indar sozial (7); itun sozial (4); klase sozial (10); kritika sozial (5); kultural eta sozial (6); maila sozial (8); mugimendu sozial (21)

oinarri sozial (13); ondorio sozial (4); plan sozial (11); politika sozial (10); politiko eta sozial (34); politiko sozial (5); preso sozial (13); proiektu sozial (4); sare sozial (4); sldp alderdi sozial (10); sindikal eta sozial (6)

sozial demokrata (21); sozial demokrata laboristako (6); sozial demokratik (12); sozial demokratiko (6); sozial demokratek (4)

sozial eta ekonomiko (6); sozial eta ekonomikoak (12); sozial eta kultural (6); sozial eta kulturala (7); sozial eta kulturalak (6); sozial eta kulturalen (5); sozial eta politiko (18); sozial eta politikoa (6); sozial eta politikoak (24); sozial eta politikoa (4); sozial eta politikoa (4); sozial eta politikoa (4); sozial eta politikoa (13); sozial eta politikoen (12); sozial eta sindikal (8); sozial eta sindikalei (5); sozial eta sindikalekin (7); sozial eta sindikalen (8)

sozial mailan (6); sozial maillean (12); sozial maileko (47); sozial maileko bizitegi (15); sozial maileko bizitegiak (6); sozial mailekoak (15)

alarma soziala (7); alderdi soziala (4); alokairu soziala (6); animalia soziala (4); arlo soziala (7); babes soziala (12); bake soziala (6); bazterketa soziala (8); bizitza soziala (11); desoreka soziala (4); dimentsio soziala (6)

egoera soziala (11); egoitza soziala (6); ekonomiko eta soziala (16); ekonomiko eta soziala (9); elkarrizketa soziala (11); eraikuntza soziala (9); erantzukizun soziala (4); eredu soziala (7); errealtate soziala (10); eskaera soziala (4); estatus soziala (6); europa soziala (17); foro soziala (12); foru soziala (5); funtzio soziala (14); garapen soziala (5); gastu soziala (16); gatazka soziala (5); gehiengo soziala (7); herriko foro soziala (5)

itun soziala (5)

izaera soziala (9); justizia soziala (38); justizia soziala eta (9); kapital soziala (8); kezka soziala (6); kohesio soziala (11); kontrol soziala (6); kritika soziala (7); mobilizazio soziala (4); mugimendu soziala (11); normalizazio soziala (6)

oinarri soziala (17); plan soziala (5); politika soziala (14); politiko eta soziala (12); politiko sozial (6); politikoa eta soziala (15); presio soziala (12); sistema soziala (4) soziala eta kulturala (5); soziala eta politikoa (6); soziala oso (10)

tren soziala (4)

europa sozialagoa (4)

alokairu sozialak (4); arazo sozialak (10); baldintza sozialak (5); desoreka sozialak (6)

egoitza sozialak (7); ekonomiko eta sozialak (12); eragile sozialak (4); erakunde sozialak (5); eredu sozialak (4); eskubide sozialak (31); etxe sozialak (4); etxebizitza sozialak (19); etxebizitza sozialak eraikitzeko (4); foru sozialak (4); gai sozialak (7); gehiengo sozialak (6); harreman sozialak (9); helburu sozialak (4)

laguntza sozialak (4); lorpen sozialak (5); mugimendu sozialak (11)

oinarri sozialak (7); ondorio sozialak (4); politika sozialak (10); politiko eta sozialak (14); politikoak eta sozialak (4); presio sozialak (4); preso sozialak (12); programa sozialak (5); segurantzak sozialak (20)

sozialak eta politikoak (9)

zerbitzu sozialak (7)

alokairu sozialaren (5); babes sozialaren (5); bazterketa sozialaren (5); bizitza sozialaren (4)

ekonomiko eta sozialaren (11); elkarrizketa sozialaren (7); europa sozialaren (12); foro sozialaren (5); gastu sozialaren (6)

izaera sozialaren (5); justizia sozialaren (21); justizia sozialaren alde (4); justizia sozialaren aldeko (6); mugimendu sozialaren (5)
oinarri sozialaren (8); poesia sozialaren (4); politiko eta sozialaren (12); segurantzaren (9); segurtate sozialaren (5)
sozialaren eta politikoaren (4)
tren sozialaren (7); tren sozialaren alde (4)
elkarrizketa sozialari (6)
arlo sozialean (22); babes sozialean (4); bizi sozialean (4); bizitza sozialean (8); foro sozialean (6); gastu sozialean (4); justizia sozialean (6); maila sozialean (7); politiko eta sozialean (4)
ekonomiko eta sozialei (4); eragile sozialei (8); eskubide sozialei (4); politiko eta sozialei (10); preso sozialei (4)
mugimendu sozialek (7); politikoeke eta sozialek (4); preso sozialek (11)
eragile sozialekin (13); politiko eta sozialekin (5); preso sozialekin (5)
alokairu sozialeko (4); babes sozialeko (6); ekonomiko eta sozialeko (9)
egoitza sozialaren (7); ekonomiko eta sozialaren (10); eragile sozialaren (9); eskubide sozialaren (27); eskubide sozialaren alde (5); eskubide sozialaren aldeko (5); etxebizitza sozialaren (11); klase sozialaren (8); mugimendu sozialaren (4); politiko eta sozialaren (13); preso sozialaren (5); sindikal eta sozialaren (5); zerbitzu sozialaren (5)
babes sozialerako (7); trenbide sozialerako (9); trenbide sozialerako sareak (6)
gai sozialean (5); harreman sozialean (5); mugimendu sozialean (4)
ikuspegi sozialetik (4)
politiko eta sozialik (3)

sozialdemokrata 1 *izond* sozialdemokraziarena, sozialdemokraziari dagokiona.

Alderdi Komunista eta **Sozialdemokrata** debekatuak izan dira. **Joxe Azurmendi**
SDLP alderdi **sozialdemokratako** buru Mark Durkanek IRAren ekimena txalotu zuen. **Berria - Harian**
Doktrina hau planteamendu progresistekin lotu izan da, hau da, konpromiso soziala azpimarratzen dutenekin, eta baita tesi **sozialdemokraten** gertukoekin ere. **Iñaki Heras**
Eusko Alkartasuna alderdiak jarrera «**sozialdemokratagoa**, ezkerrekoa eta irekiagoa» hartzea espero du Elorzak. bi alderdiek ikuspegi **sozialdemokrata** bera dutela. **Berria - Euskal Herria**
Alderdi barruan «sektore independentziazaleena eta **sozialdemokratena** desagerrarazteko». **Josu Zabaleta**
Bi joera agertu ziren aurrez aurre: bat **sozialdemokrata** edo kristau-demokrata, eta bestea sozialismo internazionalista. **Joseba Zulaika**

• 2 *iz* sozialdemokraziaren aldekoa den pertsona; alderdi sozialdemokrata bateko kidea.

Mikeli Rosa Luxenburgo **sozialdemokratak** hil zutela gogorarazteko premia sentitzen nuen. **Iban Zaldúa**
Sozialdemokraten, berdeen eta liberalen botoekin onartu zuten atzo legea. **Berria - Gaiak**
Gehienak preso politiko alemanak dira: komunistak, **sozialdemokratak** eta. **Alberto Ladrón Arana**
Vladimir Spidla lehen ministro **sozialdemokratak** ongizate estatuen aldeko apustua egin zuen. **Berria - Mundua**
SPOk **sozialdemokraten** arabera, «bere lorpen artistikoengatik eta kritikarako gaitasunagatik» saritu dute. **Berria - Kultura**
Sozialdemokraten hautesleek oso ezberdin ikusten dute hori. **Berria - Mundua**
Bere promesak **sozialdemokrata** aurrerakoi batenak ziren erabat. **Pako Aristi**
Keyneszaleak dituk, gehienera jota: **sozialdemokrata** epelak. **Iban Zaldúa**
Italian Prodi ezkeriarra dela esaten dute, baina oso borondate oneko **sozialdemokrata** da. **Berria - Harian**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alderdi sozialdemokrata (16); **sdlp alderdi sozialdemokrata** (6); **spd alderdi sozialdemokrata** (4)
alderdi sozialdemokratak (23); **lehen ministro sozialdemokratak** (3); **sdlp alderdi sozialdemokratak** (5); **spd alderdi sozialdemokratak** (3)
alderdi sozialdemokratako (21); **alderdi sozialdemokratako nazionalista** (3); **sdlp alderdi sozialdemokratako** (3); **spd alderdi sozialdemokratako** (4)
alderdi sozialdemokratarekin (4); **herriaren alderdi sozialdemokratarekin** (3)
alderdi sozialdemokrataren (9)

sozialdemokrazia 1 *iz* iraultzailea ez den sozialismoa.

Keynesen teoria oso du gogoko planteamendu ezkeriar eraberritzaileak, alegia, **sozialdemokraziak**. **Iñaki Heras**
Kontua da, ordea, ez **sozialdemokraziak** ez sozialismo errealek lortu duela agintean egon diren herrietan, gizartea aldatzerik. **Txema Ramirez de la Piscina**
Sozialdemokraziak gehiengo izatea lortu behar dugu. **Berria - Euskal Herria**
«Erakundeetatik baztertuta [...] dagoen **sozialdemokrazia**» erakarri nahi du alternatibak **Berria - Mundua**

2 sozialdemokraziaren ildoko alderdi edo higikundea.

Europako **sozialdemokrazien** gisako konpromiso sozialak ez dituzten herrialdeen lehia berriaren aurrean. **Iñaki Heras**

sozialdun *izond*

Gatazka politiko gabeko Andoain bat eta Andoain gatazka **sozialdun** bat aurkeztu duzu. **Berria - Kultura**

sozialisatu ik sozializatu.

sozialismo 1 *iz* estatuaren erakundeez baliatuz gizartearen interes orokorra banakoen interesen gainetik nagusiaraztea eta gizarteko klase apalen alde egitea helburu dituen doktrina.

Frankismoaren amaierako eta ondorengo urteetan asko eztabaidatzen zen **sozialismoa**, kapitalismoa, komunismoa, eta horrelako kontzeptuez. **Iñaki Segurola**
Nazionalismo klasikoaren eta **sozialismoaren** artean ere antagonismo historikoak jarraitzen du. **Joseba Zulaika**
"Independentzia eta **Sozialismoa**" aldarrikatzen zuen pintada erraldoia. **Iban Zaldúa**
Sozialismoa aldarrikatu zuen, «ordena ekonomiko justuena» delakoan. **Berria - Ekonomia**
Sozialismoaren aldarri moralak zapalkuntzaren kontra eta zanpatuen alde egiten du, eta status quoaren kontra egin den saiakera iraultzailerik handienari bide egin dio. **Askoren artean**
Sozialismoaren aldeko borroka horretan bi eginkizun nagusi dauzka langileriak: bere diktadura ezarri eta internazionalismo proletarioa gauzatu. **Rafa Eiguren**
Geroztik, muga guztiak gaindituz, **sozialismoaren** itzalean lo zeuden nazionalismo guztiak jazarri zaizkie Mendebaldeko estatuburuiei. **Piarres Xarriton**
Hala sortu zen *New Labour* edo **sozialismoaren** eta liberalismoaren arteko hirugarren bidea. **Berria - Harian**
Elkartasunean ardatzuriko kooperatibismoa ez da **sozialismorako** bidea bakarrik, baita **sozialismoan** behar den jokabidea ere. **Iñaki Heras**

Aurpegi gizatiarreko **sozialismoa** ezarri zuen preso politikoak askatu eta zentsura murriztu zuen. **Berria - Mundua**
Boliviako **Sozialismorako** *Mugimendua* alderdiko diputatua eta Garapen Ekonomikorako Batzordeko presidentea da Ramirez Valverde. **Berria - Gaiak**
Bosak irabazi izanaz harro dago Edmundo Novillo, **Sozialismoranzko** *Mugimenduko* diputatua. **Berria - Harian**

2 (izenondoeekin)

Iraultza bide erdian geratu zela eta burutu edo osatu nahiko zukeen mugimendua dago, pentsamendu desberdinekin bere baitan (**sozialismo** utopikoa, marxismoa, anarkismoa, laborismoa, etab.). **Joxe Azurmendi**

Sozialismo zientifikoak sortu zuen Stalin; erlabitatearen teoriak, bonba atomikoa. **Joan Mari Irigoien**

Bi joera agertu ziren aurrez aurre: bat sozialdemokrata edo kristau-demokrata, eta bestea **sozialismo** internazionalista. **Joseba Zulaika**

Kontua da, ordea, ez sozialdemokraziak ez **sozialismo** errealak lortu duela agintean egon diren herrietan, gizartea aldatzerik. **Txema Ramirez de la Piscina**

Hotelera iritsi garenean, **sozialismo** errealaren garaiko eraikina dela diote kroaziarrek. **Edorta Jimenez**

Ondorioz, liberala baino ezin izan liteke **sozialismo** demokratikoa. **Berria - Kultura**

Hain zen Keynes **sozialismo** marxistarekin kritikoa, non muturreko liberalismoaren aliatutzat salatu baitzuen. **Iñaki Heras**

Anarkosindikalistatik **sozialismo** kristaura eta askapenaren teologiara. **Iban Zaldua**

Joera berriak sortu ziren, besteak beste, N. Bobbio, A. Giddens eta J. Habermas-en **sozialismo** liberala, errepublikanismo berria eta demokratismo erradikala hurrenez hurren. **Askoren artean**

3 (hitz elkartuetan)

Sozialismo kutsua hartzen diot nik horri. **Antton Olano**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

pds **sozialismo demokratikoaren** (4); **sozialismo demokratikoaren** (5); **sozialismo erreala** (3); **sozialismo errealaren** (6)

demokrazia eta sozialismoa (3); **independentzia eta sozialismoa** (11)

independentzia eta sozialismoaren (9); **independenziaren eta sozialismoaren** (4); **sozialismoaren alde** (6); **sozialismoaren aldeko** (8)

sozialismoranzko mugimendua (5); **sozialismoranzko mugimenduko** (5)

sozialist ik **sozialista**.

sozialista (orobat **sozialist** g.er. eta **sozialixt(a)** g.er.) 1 izond sozialismoarena, sozialismoari dagokiona; sozialismoan oinarritua.

Sistema **sozialistan**, beraz, interes kolektiboek lehentasuna dute banakoen interesen gainetik. bai, teoria **sozialista** guztiak oso ondo zauden, baina gizakia dun huts egiten duena, asma ezan sistema politikorik perfektuena, jarri gizakien eskuetan eta dena ustelduko dun, ez zagon soluziorik. **Iñaki Heras**

Zenbait iraultza **sozialistek** erabili duten fraseologia fosildua. **Txema Ramirez de la Piscina**

Lanean ari gara ideia **sozialistak** zabaltzen. **Koldo Izagirre**

Aberri burujabea eta **sozialista** eraikitzea baitzen orain helburua, borroka armatuaren bidez batez ere. **Bernardo Atxaga**

ETAk erakunde **sozialista** bihurtzea du helburu. **Rafa Egiguren**

Ez du erabaki hori hartzen balio kristau edo etika **sozialista** edo unibertsaltasun humanistagatik. **Joseba Zulaika**

Errealismo **sozialista** bera ere, errealismo guztietan teorizazio esplizituena izan duena. **Josu Zabaleta**

Lehenengo ETaren utopia internazionalista eta **sozialista**. **Joseba Zulaika**

Jean Pierre Destrade 12 urte honetan konseilari **sozialista** zena berriz presentatzen da. **Herria**

La lucha de clases aldizkari **sozialistan**. **Joxe Azurmendi**

XIX. mendeko foiletok **sozialista** bat egiten ari naizela ematen du eta ez nuke nahi. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Euskadiko Alderdi **Sozialistako** buruzagi bat. **Joxe Azurmendi**

Clemenceau-ren afera gobernu **sozialistatik** jasotako gaia dela argudiatu zuen. **Berria - Gaiak**

Alderdi **Sozialista** Erreformistaren sortzaileetako bat izan zen. **Fernando Rey**

Sobiet Errepublikan **Sozialisten** Batasuna, hots, "Langileriaren Aberria". **Piarres Xarriton**

• 2 izond/iz sozialismoaren aldekoa; alderdi sozialista bateko kidea.

Lehendakaritzarako hautagai **sozialista** izan zen. **Xabier Olarra**

Gobernuko konterbadore zein **sozialistek** ez zuten deus egiten kaos hura konpontzeko. **Alberto Ladron Arana**

Sozialistak maite nituen nik, lehenengo haiek. **Fernando Rey**

Gero, komunista eta **sozialistek** elizak erre, apaizak eta mojak giltzapetu, eta errukirik gabe hil zituzten tiroka. **Rafa Egiguren**

Ikasiko ahal dugu noizbait, liberal edo **sozialista** baino gehiago nazionalista den frantses eta espainol politikari asko badabilela bazterretan! **Piarres Xarriton**

Proiektua 80ko hamarkadan hasi zen mamitzen, Nafarroako Gobernuko garaiko presidente Gabriel Urralburu **sozialistaren** eskutik. **Eduarne Elizondo**

Kontzeptu honen garapen modernoa **sozialista** utopiko edo humanisten lanekin batera hasi zen garatzen. **Iñaki Heras**

Maguggia zaharra "**sozialista** historiko" bat zen, hau da, hiltzeko ordua noiz iritsiko irrikitan dauden horietako bat, apaiza zirikatzeko haren laguntza kristauari uko eginez eta hiletetan Internazionalaren soina jo dezatela aginduz. **Koldo Biguri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alderdi **sozialista** (140); alkate **sozialista** (3); buruzagi **sozialista** (14); **demokrazia sozialista** (3); **diputatu sozialista** (7)

ekonomia **sozialista** (3); erakunde **sozialista** (12); erakunde **sozialista iraultzaileak** (10); **errealismo sozialista** (6); **errepublika sozialista** (9); **errepublika sozialista sobietarra** (3); eskoziako alderdi **sozialista** (4); espainiako alderdi **sozialista** (8); espainiako gobernu **sozialista** (3); europako alderdi **sozialista** (4); euskal erakunde **sozialista** (10); gipuzkoako **sozialista abertzaleak** (10); gobernu **sozialista** (11); hautagai **sozialista** (6); hautetsi **sozialista** (4)

iraultza **sozialista** (6); kataluniako alderdi **sozialista** (9); komunista eta **sozialista** (3); kontseilari **sozialista** (4); legebiltzarkide **sozialista** (3); libre eta **sozialista** (6); militante **sozialista** (3); ministro **sozialista** (5); nazional **sozialista** (9)

politikari **sozialista** (3); presidente **sozialista** (3); psoe alderdi **sozialista** (4); serbiako alderdi **sozialista** (3); sistema **sozialista** (3)

sozialista abertzaleak (195); **sozialista abertzaleak taldea** (25); **sozialista abertzaleak taldeak** (54); **sozialista abertzaleak taldearen** (22); **sozialista abertzaleak taldeek** (3); **sozialista abertzaleak taldeko** (45); **sozialista abertzaleek** (33); **sozialista abertzaleekin** (3); **sozialista abertzaleen** (17); **sozialista abertzaleen botoak** (3); **sozialista abertzaleetako** (7)

sozialista guztiak (3); **sozialista guztiak** (5)

sozialista iraultzaileak (10); **sozialista izan** (11); **sozialista izan zen** (7); **sozialista izango** (4); **sozialista nafarrak** (3); **sozialista nafarren** (5)

sozialista sobietarra (3)

zinegotzi sozialista (4)

alderdi **sozialistak** (266); alderdi **sozialistak egindako** (3); alkate **sozialistak** (3); buruzagi **sozialistak** (32); **diputatu sozialistak** (7)

eledun **sozialistak** (5); espainiako alderdi **sozialistak** (13); espainiako gobernu **sozialistak** (3); europako alderdi **sozialistak** (3); euskal **sozialistak** (4); frantziako alderdi **sozialistak** (6); gobernu **sozialistak** (25); hautagai **sozialistak** (13)

izan dira **sozialistak** (3); jauregi **diputatu sozialistak** (3); kataluniako alderdi **sozialistak** (12); legebiltzarkide **sozialistak** (9); lehendakari **sozialistak** (3); ministro **sozialistak** (6); nafarroako alderdi **sozialistak** (6)

parlamentario **sozialistak** (3); popularrak eta **sozialistak** (3); presidente **sozialistak** (7); ps alderdi **sozialistak** (5); psoe alderdi **sozialistak** (10)

talde sozialistak (9); zinegotzi sozialistak (7)
alderdi sozialistako (139); alderdi sozialistako buru (15); alderdi sozialistako buruzagi (3); alderdi sozialistako diputatu (3); alderdi sozialistako idazkari (10); alderdi sozialistako kide (5); alderdi sozialistako kidea (3); alderdi sozialistako kideak (5); alderdi sozialistako kideek (3); alderdi sozialistako ordezkari (3); alderdi sozialistako ordezkariak (3); alderdi sozialistako presidenteorde (3)
eskoziako alderdi sozialistako (5); espainiako alderdi sozialistako (16); frantziako alderdi sozialistako (9); galiziako alderdi sozialistako (3)
internazional sozialistako (3); kataluniako alderdi sozialistako (21)
partidu sozialistako (3); ps alderdi sozialistako (4); psf alderdi sozialistako (4); serbiako alderdi sozialistako (8)
talde sozialistako (4)
alderdi sozialistakoa (3)
alderdi sozialistan (8)
alderdi sozialistarekin (33)
alderdi sozialistaren (105); alderdi sozialistaren aldetik (3); alderdi sozialistaren babesa (3); alderdi sozialistaren egoitza (3); alderdi sozialistaren egoitzen (7); alderdi sozialistaren izenean (4); alderdi sozialistaren jarrera (5); buruzagi sozialistaren (13); buruzagi sozialistaren ustez (4)
errealismo sozialistaren (3); espainiako alderdi sozialistaren (5); gobernu sozialistaren (5); hautagai sozialistaren (3)
talde sozialistaren (7); zinegotzi sozialistaren (3)
alderdi sozialistarentzat (5)
alderdi sozialistari (79); espainiako alderdi sozialistari (4); espainiako gobernu sozialistari (3); gobernu sozialistari (5)
alderdi sozialistatik (5)
alderdi sozialistaz (3)
egotzi zien sozialistei (5); leporatu zien sozialistei (5); sozialistei dei egin (3)
arabako sozialistek (3); aurkeztuko dute sozialistek (3); buruzagi sozialistek (8); eaeko sozialistek (7); espainiako sozialistek (4); nahi diote sozialistek (3); ordezkari sozialistek (3); popularrek eta sozialistek (7); sozialistek egin (3); sozialistek egindako (5)
arabako sozialisten (17); arabako sozialisten bozeramaileak (3); bizkaiko sozialisten (3); buruzagi sozialisten (4); diputatu sozialisten (3)
eaeko sozialisten (5); errepublika sozialisten (12); errepublika sozialisten batasuna (6); errepublika sozialisten batasuneko (3); espainiako sozialisten (3); europako sozialisten (3); euskal sozialisten (4); gipuzkoako sozialisten (9); gipuzkoako sozialisten buruak (3); gipuzkoako sozialisten idazkari (3)
nafarroako sozialisten (5); sobietar errepublika sozialisten (8)
sozialisten arazoa (3); sozialisten bozeramaileak (3); sozialisten buru (3); sozialisten burua (4); sozialisten buruak (10); sozialisten buruaren (3); sozialisten esku (6); sozialisten hautagaiak (3); sozialisten idazkari (14); sozialisten idazkari nagusi (7); sozialisten idazkari nagusiak (3); sozialisten idazkariak (3); sozialisten izenean (3); sozialisten jarrera (3); sozialisten laguntza (3); sozialisten nahia (3); sozialisten politika (3); sozialisten proposamena (4); sozialisten ustez (9)
sozialixt alderdiak (4); sozialixt alderdian (4); sozialixt alderdiko (3)
eskuindar eta sozialixtek (4); sozialixtek boza xuri (3); sozialixtek goiti (3)

sozialixta ik **sozialista**.

sozializatu, sozializa, sozializatzen (*orobat **sozialisatu** g.er.*) 1 da/du *ad* zerbit, bereziki ekoizpen bideak, estatuari eskualdatu. ik **nazionalizatu**.

Egia zen hiltzerainoko etsaiak zituela justiziak, aitik hil eginen zuela baserriko baratzea **sozializatzen** utzi baino lehen. Koldo Izagirre

Sektore pribatua konturatzen denean galerak **sozializatze**ko aukera errealak mugatuak direla, edo aukerarik ez dagoela. Koro Navarro

2 gizarteratu.

Gaur egungo terminologia zehaztzen erabiltzen diren hitz asko batzuetan ez dira oso ondo **sozializatzen**, eta kosta egiten da mezua ulertzea. Berria - Harian

Oinazea **sozializatu** behar diagu. Mikel Hernandez Abaitua

3 (era burutua izenondo gisa)

Batzuetan ikusle bakarra izaten du; beste batzuetan, ikusle kolektiboa; batzuetan etxe barruan; beste batzuetan, espazio **sozializatu**an. Josu Zabaleta

Norbanakoen arteko harremanak arautzen dituzten konbentzioen indarrez erabiltzen diren produkzio **sozializatu**en munduaren mende, alegia. Josu Zabaleta

Irudiak, gauza **sozializatu**, konbentzionalizatu eta, hala nahi bada, kodetu bat den aldetik [...] badu erabiltzeko modu jakin bat, irudiaren kontsumitzaileak, ikusleak alegia, aurrez ezagututzat ematen dena. Josu Zabaleta

sozializatze *iz* gizarteratzea.

Antropologo eta soziologoak ere hausnarketan ari omen dira gizakiaren balore-sisteman kontsumoak duen garrantziari buruz; halatan, zenbaitek kontsumoa lehen mailako eragina duen **sozializatze** jardueratzat ere hartzen dute. Iñaki Heras

soziatibo *iz* euskal deklinabidean, *-ekin* kasua.

Ez dute uste **soziatiboko** *-kin*, destinatiboko *-endako* eta hurbiltze adlatiboko *-rutz*, esate baterako, aintzakotzat hartu behar direnik. Koldo Zuazo

Markinako zein Orozkoko albistegietan *-kaz* atzizkia erabiliko da sarri **soziatibo** plurallean, nahiz eta *-kin* izan Lea-Artibai eskualdean eta Durangaldean zabalduen dagoena. Koldo Zuazo

soziedade ik **sozietate**.

soziekonomiko ik **sozioekonomiko**.

sozietario *izond* lagunartearena, lagunarteari dagokiona.

Jakin nahi dugu lan zamaren inguruan jarrirako oztipoak egia diren, egitura **sozietario** ereduia izatearen edota egitasmo egokia aurrera ateratzeko beharrezko denboraren erabakia zalantzan ote dagoen Berria - Ekonomia

sozietate (*orobat **soziedade** g.er.*) 1 *iz* gizartea.

Zure nortasuna, ekartzen zaituen **sozietatearen** araberakoa dela argi dago. Itxaro Borda

Alderantziz ederki erreusitu zuen **sozietatean**. Itxaro Borda

Oker handi samarra da **sozietate** osoak erregimenaren aurkako jarrera aktiboa zeukala pentsatzea. Agurtzane Juanena

ETA euskal **sozietatearen** onarpenez sortu zen, onarpen urgente berdinaz irauten du, eta, halaz, euskal jendeak ETArekin bururatzea deliberatuko du. Itxaro Borda

2 irud/hed

Gizarte gerarazi hauek erle eta inurrien **sozietateen** antza dute, bere horretan geldri egon direlarik giza bizitza lurrean agertzen hasi aurretik. **Iñaki Mendiguren**

3 ekonomia- edo merkataritza-helburuak dituen elkarte, legeriaren arabera eratua. **iknpresa; konpainia.**

Merkataritza handiaren garapenak bultzatu zuen orobat hainbat eratako **sozietateen** eraketa. **Koro Navarro**

Akitaniako Kontseiluak erabaki du sartzea **Herrikoa** **sozietatearen** kapitalean. **Herria**

Itsas aseguruko **sozietateek**, Europako portu handi guztietan sortu zirelarik, abantaila handiak eman zizkieten itsas merkataritzari. **Koro Navarro**

Beste bi **sozietatek** ere finantzaketan parte hartzen dute: bata Parisekoa eta bestea Bruselas-ekoa, biak ere kooperatiben munduarekin lotuak. **Herria**

Bahiako bikote gogaikarri hari galdetu nion ea inporta zien **sozietatearen** kide gisa agertzea, eta, batere galderarik egin gabe, paper guztiak sinatu zituzten, begiak itxia.

Karlos Zabala

Didier Boroira, aireportua kudeatzen duen **sozietatearen** presidentea erran du negoziaketak urrats onean doazela. **Herria**

Bazkide batek, adibidez, **sozietate** baten mozkinak banatu nahi ditu, arriskuak zatitzeke. **Andres Urrutia**

Ber denboran, **sozietateko** gastuen kontuak eta garbiketak egiten ditu. **Berria - Kultura**

South Oil Company petrolio **sozietatearen** egoitza nagusiaren inguruan. **Berria - Mundua**

SEPI Espainiako Industri Partaidetzarako Estatuko **Sozietatea**. **Berria - Ekonomia**

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Dekretu berriak. **Aingeru Epaltza**

3 (izenondo eta izenlagunekin)

1602an sorturiko Ekialdeko Indietako Holandar Konpainiaren ereduaren gainean eratu ziren [...] kolonia-konpainiak, akzio bidezko aurreneko **sozietate** anonimoak izan zirenak. **Koro Navarro**

Bere agintaldian bihurtu zen Reala **sozietate** anonimo. **Berria - Kirola**

Baiona eta Basusarriko herriek, SEM (Société d'Economie Mixte) **sozietate** publiko/privatu bat asmatu dute. **Herria**

Lurralde Antolaketa eta Ingurugiro Sailak, IHOBE **sozietate** publikoaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren aztarna ekologikoari buruzko azterketa argitaratu zuen. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Lehenbizi enpresa bat sortu nuen, **sozietate** zibil bat. **Karlos Zabala**

Komanditako **sozietatea**, nazioarteko kapitalez osatua askotan, nagusitu zen azkenean urrutiko merkataritzan. **Koro Navarro**

Negoio txikientzat, partaidetzako **sozietateak** osatu ziren. **Koro Navarro**

Sozietate transatlantiarren eraikin handiaren atzean. **Monika Etxebarria**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kupoaren negoziazioa, Ekarpin Lege berria, edo **Sozietate** Zergaren erreforma. **Berria - Ekonomia**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Berlusconiaren Fininvest finantza **sozietateen** eta Publitalia komunikazio enpresan jardun ostean, Forza Italia alderdiaren sorreran esku hartu zuen. **Berria - Mundua**

Baliabideen kostua handitu egiten da, inbertsio-tresna errentagarriagoak agertzearekin (inbertsio-**sozietate** eta inbertsio-funtsak), familien aurrezkiak banku-gordailuetatik urruntzen baitituzte. **Koro Navarro**

Herrikoa irrisku **sozietateak** 30 000 Euroko kapitala sartu du *Iravian*. **Herria**

6 interes edo helburu komunek eragindako lagunartea, legeriaren arabera eratua.

Europako Kardiologoek **Sozietatearen** arabera, bihotz hodieta gaitzek eragiten dute munduan hildako gehien. **Berria - Gaiak**

Estatu Batuetako Astronomia **Sozietatearen** 204. bileraren kariatara, proposamenak egiteko deialdia zabaldu du O'Keefek. **Berria - Gaiak**

Dena ezin hobeki izan zedin nahi zuen, eta bakoitza bere tokian egotea: hautetsiak, **Sozietate** Popularrakoak, haurrak, guardia... **Elena Touyarou**

Ez zen **Sozietate** Popularrera joan ere, Monduteguyrekin eta haren kideekin ez topatzeko. **Elena Touyarou**

Erbestertze dekretua beren herriko hautetsien eta **Sozietate** Iraultzailearen eskakizuna zela. **Elena Touyarou**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sozietate anonimo (9); **sozietate publiko** (3); **sozietate publikoa** (3); **sozietate publikoak** (7); **sozietate publikoaren** (5); **sozietate zerga** (3); **sozietate zergaren** (8)

industria partaidetzarako sozietatea (23); **partaidetzarako estatuko sozietatea** (14); **partaidetzarako sozietatea** (24)

arriku sozietateak (3); **industria partaidetzarako sozietateak** (5); **partaidetzarako estatuko sozietateak** (8)

partaidetzarako estatuko sozietatearen (4)

sozietateen gaineko zerga (6); **sozietateen gaineko zergaren** (3); **sozietateen zerga** (4)

sozio 1 iz beste batekin edo batzuekin sozietate edo negozio batean parte duena. **ikbazkide.**

Arrazoi komertzialengatik elkartzen badira, nor bere atarramentua bilatzen du, ez **sozioarena**, eta karguagatik bada, orduan nolabaiteko laguntasun publikoa sortzen da, elkarrenganako beldurrean oinarrituta dagoena. **Esteban Antxustegi**

Badakizu zer komentario egin zuen lehengo egun batean, bazkarian, **sozio** sartu naizen klubaren berri ematen ari nintzela? **Bernardo Atxaga**

Sozio batekin erdibana daukat, ez ezazu pentsa zureak bezala egunez funtzionatzen duen taberna lasaiago baten inbidiarik ez daukadanik. **Pako Aristi**

Erlojerotza utzi eta atelier bat zabaldu zuen Donostian, Guerrini italiarra **sozio** hartuta. **Koldo Izagirre**

Biok izango gaituk **sozio**, seme: hik dirua jarriko duk, eta nik lana! **Joan Mari Irigoien**

-Honezkerok ireki du "Turgeniev" beste **sozioak**, goxoak ariko da esaten! **Pako Aristi**

Lehenengo-lehenengo, finantziarioa lortu behar zuten, hau da, **sozio** kapitalista on bat, irabazi-asmorik gabeko bion elkartein inbertituko zuena. **Patxi Iturrategi**

Hori ez du egin behar gobernuko **sozio** minoritarioen jelskortasunak eragindako batzorde batek. **Berria - Euskal Herria**

Burtsa-etxean zain zituen adiskideak eta **sozio** lagunak, eta haiekin gosari pasa egin, berma-letrak sinatu eta [...]. **Felipe Juaristi**

Tinok gaueko lokal bat ireki zuen **sozio** aleman batekin. **Fernando Rey**

Etorkizunean ere ezker abertzalearen aurka gogor jarduteko prest dagoela esaten ari da, eta Madrilen **sozioa** EAJ dela Euskal Herrian, ez beste inor. **Berria - Harian**

Haizeari egiten zion hitz, **sozioari** aurrepizirik begiratu gabe, eta **sozioak** aldiz belarri hitz egiten zion. **Fernando Rey**

2 irud/hed

Asierrekin -horrela deitzen da **sozioa** - "batzuetan" egin duela, baina kondoia orain erabiltzen hasiak direla. **Luis Elberdin**

Ekaitz eta guzti zetorrelako zen hori, hegoa **sozio** txarra baita laborearentzat. **Pello Zabala**

sozioafektibo (*corpusean sozio-afektibo soilik*) izond alderdi sozialak eta afektiboak lotzen dituen.

Alderdi **sozio-afektiboarekin** lotuta dago irakaslearen jarrera. **Berria - Euskal Herria**

Haurren bilakaera zainduko du, bai garapen kognitibo eta **sozio-afektiboaren** aldetik, bai autonomia aldetik. **Berria - Euskal Herria**

soziobiologia (*orobat sozio-biologia*) iz soziologiaren adarra, portaera sozialaren biologia-oinarriak aztertzen dituen.

1970eko hamarkadan garatu zen **soziobiologiak** determinismo genetikoak aldarrikatzen zuen giza portaera azaltzeko. **Askoren artean** Berari zientifikoki sendoa Taine-ren **sozio-biologia** iruditzen zaio bere arraza eta ingurune faktoreen teoriarekin. **Joxe Azurmendi** Enbrioiari buruzko ikerketen, **soziobiologiaren** garai honetan. **Juan Garzia**

soziodemografiko *(orobat **sozio-demografiko**) izond* giza talde baten ezaugarri sozialen azterketa estatistikoari dagokiona.

Presuna baktxari, 45 galde eginan izanen zaizkio, bisean bis: xehetasun **soziodemografikoak**, elkarte bizia, agusagailuak, haren jarrera euskal lurraldeari, nortasunari, hizkuntzari buruz... **Herria**

Eusko Jauriaritzaren arabera, nabaria da Bastidak, Oionek eta Guardiaki edukiko dutela rol protagonista alor **sozio-demografikoan**, eta Oionek, berriz, industriari dagokionez. **Berria - Euskal Herria**

soziodemokrata *(corpusean **sozio-demokrata** soilik) izond/iz* sozialdemokrata.

Europa soziala eta **sozio-demokratak**. **Berria - Euskal Herria**

«Ezkerra hauteskunderaz hauteskunde desagertzen ari» dela erran zuen, «eskuina eta **sozio-demokraten** mesedetan». **Berria - Euskal Herria**

Bavariako bozetan, sudurreko haundia hartu du Gerhard Schröder **sozio-demokratak** eskuinaldearen aitzinean. **Herria**

sozioekonomia *(orobat **sozio-ekonomia**) 1 iz* gertakari sozialekin loturiko ekonomia.

Bilbo Handiko Planak berebiziko garrantzia du, area horretan bizi baitira Araba, Bizkai eta Gipuzkoako biztanle guztien erdiak, eta, gainera, oso egoera berezia du lurralde antolamendu edo **sozio-ekonomia** direla eta. **Berria - Harian**

Euskal Herriko **sozioekonomiako** eragileen artean harremanak sustatu. **Berria - Harian**

Garoiaren ondoko eremuaren **sozio-ekonomia** suspertzeko planak eskatu izan dira zentrala itxeko aldarrikatu denean. **Berria - Euskal Herria**

Erakundeak **sozioekonomiaz** eginiko txostena eman zioten Bilbaori. **Berria - Ekonomia**

Enpresaburuak, eragile sozio ekonomikoak, unibertsitate irakasleak, hedabideetako jendea, profesionalak eta oro har, Euskal herrian **sozioekonomiaren** esparruan lanean jarduten duten pertsonak osatzen dute Gaindegia elkarte. **Berria - Harian**

2 (hitz elkartuetan) ik **sozioekonomiko**.

Euskal Herriko **sozioekonomia** esparru zabala bidez eta biziberritzea da xede nagusia. **Berria - Harian**

Beraz lana egiten dugu jendarteko beste partaideekin: kontsumitzaileekin, **sozio ekonomia** munduarekin, ingurumenaz arduratzen direnekin, horiek guzietan ari gira, Herriko Etxe eta hautetsiekin. **Herria**

sozioekonomiko *(orobat **sozio-ekonomiko** eta **soziekonomiko** g.er.) izond* sozioekonomiarena, sozioekonomiari dagokiona. ik **sozioekonomia 2**.

Kapitalismo nazionalen erregulazio keynestar hori ekonomien nazioartekotzearekin batera zitekeen, baldin antzeko sistema **sozioekonomikoak** zituzten nazioen arteko ondasunen eta zerbitzuen trukeetara mugatu izan balitz. **Koro Navarro**

Esparru **sozioekonomikoa** osatu behar da eta hor barruan dago euskal sektore publikoa. **Berria - Ekonomia**

Atzo Gobernuak beste hiru zentsura mozio gainditu zituen, hirurak arlo **sozioekonomikoarekin** lotuta. **Berria - Mundua**

Poliitika **sozioekonomiko** eraginkorrek garatzeko eskumen esklusiboak izatea. **Berria - Euskal Herria**

Ikastetxearen erabakiak hartzeko autonomia eta ikaslearen gurasoen maila **sozioekonomiko** eta kulturalak dute eraginik handiena ikaslearen emaitzetan. **Berria - Harian**

Testuinguru **sozioekonomiko** bakoitzak historian zehar teknologiaren garapenaren nola eragin duen aztertuko du. **Berria - Kultura**

Euskal Herriko 2005. urteko egoera **sozioekonomikoaren** azterketa. **Berria - Ekonomia**

Baldintza **sozioekonomikoek**, teknikoek eta psikologikoek mugatzen duten izakia. **Askoren artean**

Hondamendi **sozioekonomiko** larria eragingo du alkoholaren eta gaupasaren kultura honek. **Berria - Gaiak**

Gizarte dinamizatzaile aktibo izateko borondatea du eragile **sozioekonomikoen** artean. **Berria - Harian**

Bi liburu argitaratu eta urtekari **sozioekonomikoa** prestatu. **Berria - Ekonomia**

Kontrazepzio metodoei esker, aldaketa sakona gertatzen ari da, ez bakarrik arlo sexualean, baizik eta **sozioekonomikoan** ere bai. **Luis Elberdin**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eredu sozioekonomiko (3); garapen sozio ekonomikoa (3); gurasoen maila sozioekonomiko (3); maila sozioekonomiko (5)

egoera sozioekonomikoa (4); esparru sozioekonomikoa (4); maila sozioekonomikoa (3); txosten sozioekonomikoa (3)

arau sozioekonomikoen (3)

sozioemozional *(corpusean **sozio-emozional** soilik) izond* alderdi sozialak eta emozionalak lotzen dituena.

Sarituetakoa 10 eta 12 urte arteko umeengan garapen **sozio-emozionala** sustatzeko programa bat da **Berria - Euskal Herria**

sozioetniko *izond* alderdi sozialak eta etnikoak lotzen dituena.

Utz ditzadan alde batera burutazio **sozioetniko** horiek guztiak, liburua ulertzeko ez baitigute laguntzarik eskainiko. **Berria - Kultura**

sozioetnologiko *(corpusean **sozio-etnologiko**) izond* alderdi sozialak eta etnologikoak lotzen dituena.

Dantza, kantua zein ikerketa **sozio-etnologikoa**, hots, denetarik hunki du oraino biziz beterik den 81 urteko gizonak. **Berria - Kultura**

soziofuntzional *izond* alderdi sozialak eta funtzionalak lotzen dituena.

Euskararen eta erdal hizkuntzen arteko bizikidetzak zer etorkizun bide eta zer ardatz izan beharko lituzkeen aztertu beharko lituzateke, euskarak espazio propioa izan dezan, bai espazio fisiko-geografikoan, bai espazio **soziofuntzionalan**. **Berria - Kultura**

soziograma *iz soziologia-tanuen azalpen zehatza eta antolatua.*

Euskal Herriko **soziograma** politikoan erdigunean dagoena isolatua dago. **Berria - Euskal Herria**

soziohistoriko *(orobat **sozio-historiko**) 1 izond historia sozialari dagokiona.*

Azterketa hori azterketa **soziohistoriko** bihurtzen da Friedek, hipotesi gisa dioenean ezen egoera hori Frantziako XVIII. mendeko obra gehienek ezaugarria dela. **Josu Zabaleta**

Zientziaren azterketa gauzatzeko ikuspuntu **sozio-historikoak** garatu behar dira. **Askoren artean**

Analogiaren mailaketa hori aise ikusaraz daiteke, erreferente berbera duten baina egoera **sozio-historiko** desberdinetan egin diren irudiak aurrez aurre jarri. **Josu Zabaleta**

Jasotako lekukotasun guztiek ohar filologiko-literarioak, etnoantropologikoak, **sozio-historikoak** eta kulturalak edukiko dituzte. **Berria - Harian**

2 (hitz elkartuetan)

Tira, esan dezagun, testigantza **sozio-historiko** -literario-porno hau, kar, kar, kar. **Karlos Zabala**

sozioideologiko *(corpusean **sozio-ideologiko soilik**) izond alderdi sozialak eta ideologikoak lotzen dituena.*

Margolan baten ikuspena batez ere eragile **sozio-ideologikoeak** determinatzen dutenez, XV. mendeko jendeak bere garaiko margolanak nola ikusten zituzten ulertu ahal izateko, nahitaezkoa dela haien ikusteko moduan eragina zuten faktoreak ezagutzea. **Josu Zabaleta**

sozioinstituzional *(corpusean **sozio-instituzional**) izond alderdi sozialak eta instituzionalak lotzen dituena.*

Natura beraren posibilitatea agortu denean, haren zirkulazio **sozio-instituzionalak** hildakoaren berpizkunde sinboliko saiakerak lez ulertu beharra daude. **Berria - Gaiak**

sozioinstituzional *(corpusean **sozio-instituzional**) adlag alderdi sozioinstituzionalak.*

Urte askotan **sozio-instituzionalak** estigmatizatua, gaur egun alternatiba energetiko gisa sustatua izatearen aldeko eskaerak ugaltu egin dira **Berria - Gaiak**

soziokognitibo *(corpusean **sozio-kognitibo soilik**) izond ezaguera-prozesua testuinguru soziokulturalen itsastena duena.*

Eratzeko-prozesu konplexu hori ulertzeko lehen gai-zerrendaren muga gainditu eta prozesuaren dimentsio **sozio-kognitiboan** sartu behar dugu. **Askoren artean**

soziokultural *(orobat **sozio-kultural**) izond talde sozial bati dagokion kulturarena.*

Mundu naturalean bezala, fenomeno **soziokulturalek** ere beren legeak dituzte. **Askoren artean**

Bertsolari, bertsozale eta antolatzaile belaunaldi batek garatu duten estrategia **soziokulturalaren** emaitza. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Garai bakoitzak eredu **sozio-kultural** ezberdinetan gauzatzen du bere leialtasuna. **Askoren artean**

Kultura bateko partaideei transmititzen zaizkien arau **soziokulturalek** gure harremanak baldintzatu egiten dituzte ia konturatu gabe. **Berria - Euskal Herria**

-Bertsolaritzaren mugimendu **soziokulturala**. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Ikerketak ez du soilik elkarte zientifikoaren balio **soziokulturalen** berri ematen, gertakari zientifikoa bera bilakatzen baita esparru **soziokultural** horren isla. **Askoren artean**

Teknologiaren konstituzio **soziokulturala** aztertzea da haien helburua. **Askoren artean**

Sare **soziokulturalak** ikertzen. **Berria - Kultura**

Bakoitzak gorputz bat du, giro **soziokultural** bat, bizipen batzuk. **Luis Elberdin**

Ingurune **soziokultural** aldakorren arabera. **Askoren artean**

Gure lurralde txikiko aniztasun ekologiko eta **soziokulturalaren** lekuko izango den ingurumen sistema orekatu bat sendotzeko. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Antropologia **sozio-kulturalak** zer ekar dezaken gaurko Euskal Herriaren ezagutzan. **Herria**

Assabil Euskal Herriko Zentro **Soziokultural** Islamiarrak elkarretaratzeko egin zuen arratsaldeko 17:00etan Bilbon. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

identitate soziokulturala (4)

soziokultural *iz ikuspegi soziokulturalak.*

Sare Publikora biltzen direnak **soziokulturalak** premian diren familietako seme-alabak direnez, gizarteak sortzen duen etena eskolaren bidez indartzeko arriskua sortzen dela pentsatzen dute Kontseiluko kideek. **Berria - Euskal Herria**

sozialaboral *(orobat **sozio-laboral**) izond alderdi sozialak eta lanari dagozkionak lotzen dituena.*

Ahalegina egin behar dugu eskumen **sozialaboral** ez dakartzan estatutu itun berri bat gauza ez dadin. **Berria - Euskal Herria**

Eskubide **sozialaboralen** alorrean zeuden hutsuneak zuzentzen dituelako. **Berria - Ekonomia**

Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkio politika **sozio-laboralen** eta enplegu politiken esklusibitatea, berezko esparru **sozio-laborala** eratzeko. **Berria - Euskal Herria**

Arlo **sozialaboralean**, bestetik, fundazio bat sortzeko konpromisoa hartu dugu. **Berria - Euskal Herria**

Logikoena zen paraleloan industria plana negoziatzea eta bestetik plan **sozialaborala**. **Berria - Ekonomia**

Azken urteetan maila **sozialaboralean** hartu den erabakirik larriena eta lotsagarriena. **Berria - Ekonomia**

soziolektu *iz talde soziokultural bereko pertsonen mintzamolde multzoa.*

Soziolektuak edo gizarte mailari lotutako hizkerak. **Koldo Zuazo**

soziolinguistika *iz* soziolinguistikaren aditua den pertsona.

Jordi Solé katalan **soziolinguista** . Iñaki Segurola

Definizioa Kike Amonarriz **soziolinguistarena** da. Berria - Harian

Ardura handiz hartuko du Hezkuntza Sailak **soziolinguistek** landu behar duten irizpen txosten hori, Berria - Euskal Herria

soziolinguistika 1 *iz* hizkuntzaren soziologia, hizkuntzaren gizarte alderdien azterketa.

Ondorio nagusi bi atera behar ditugu egoera honetatik; hizkuntzari dagokiona bata, eta **soziolinguistikari** dagokiona bestea. Koldo Zuazo

Soziolinguistikan adituak diren presunak (Erramun Bachoc, Iñaki Martínez de Luma, Alain Viaut, Richard Bourhis, Sophie Barneche, Lionel Joly). Herria

Koldo Eleizalde da, nire iritzian, euskal **soziolinguistikaren** aitzindaria. Koldo Zuazo

Iñaki Larrañaga, Legazpin sortu baina Itsasondon erretore dagoena, soziologo ezagun eta **soziolinguistikazko** lan garrantzizkoak egindakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (hitz elkartuetan) ik **soziolinguistiko**.

Eusko Jaurilaritzak Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean egiten zuen **Soziolinguistika** Inkestari zegokion Nafarroako azterketa. Berria - Euskal Herria

Abian jarri dute Hiznet, **soziolinguistika** ikastaroa. Berria - Euskal Herria

Ez da izan behar **soziolinguistika** gaietan ez aditua ez aritua zentzu onak agintzen duen bide hori aukeratzeko. Koldo Zuazo

Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) **Soziolinguistika** sailak. Askoren artean

Soziolinguistika Klusterra abian da. Berria - Euskal Herria

Euskal **Soziolinguistika** Institutuak eta Aztiker Soziologia Ikerkuneak. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskal soziolinguistika (6); euskal soziolinguistika institutua (3); soziolinguistika klusterra (5); soziolinguistika klusterrak (3); soziolinguistika klusterraren (3)

soziolinguistiko (*orobat sozio-linguistiko*) *izond* soziolinguistikarena, soziolinguistikari dagokiona. ik soziolinguistika 2.

Zentzuzkoak ziren arrazoiak: gertakari linguistikoak, **soziolinguistikoak** eta demolinguistikoak zeuden aukeraren oinarrian. Koldo Zuazo

Euskal Herriko egoera **soziolinguistikoari** buruzko jakitate. Iñaki Segurola

Arrazoi **soziolinguistikoak** ere bazituen gogoan: Gipuzkoan zegoen, eta dago, euskara indartsuen. Koldo Zuazo

Estatus politikoa, juridikoa eta **soziolinguistikoan** gaztelaniak eta frantsesak euren lurraldeetan duten pareko egoera lortzeko eskubidea. Berria - Euskal Herria

Euskal Herriko Inkesta **Soziolinguistika** . Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egoera soziolinguistiko (8); errealitate soziolinguistiko (3); inkesta soziolinguistiko (7)

inkesta soziolinguistikoan (3)

inkesta soziolinguistikoaren (5)

egoera soziolinguistikoari (4)

soziolinguistikoki *adlag* soziolinguistikaren aldetik.

Horren harira esan behar da H1 eta H2 bereizkuntza **soziolinguistikoki** egoki eta komenigarri izan daitekeela, baina sarritan ez dagoela linguistikoki justifikatzerik (batik bat gizarte eleantzetan). Lourdes Oñederra

soziologia 1 *iz* gizarteen sortze eta garapena, eta gizarte egitura, joera edo jokabideak oro har aztertzen dituen jakintza.

Hurtadori ez zitzaion batere axola metodoen eta sailkapenen arazo hori, edo **Soziologia** zientzia bat ala jakintsuek asmatutako ehunzango bat ote zen jakitea. Josu Zabaleta

Teherango Unibertsitateko **Soziologia** Politikoko irakasleak. Berria - Harian

Soziologia konputazionala eta kartografia sinaptikoa izango dute mintzagai Biltzarrera batzen diren adituek. Berria - Kultura

Egileek «globalizazioaren **soziologia**» hartu dute oinarri. Berria - Kultura

64an iritsi zen Larrañaga Itsasondora, Parisen **soziologia** ikasten ibili eta gero. Xabier Mendiguren Elizegi

Soziologia ikasi eta katalogo bidezko salmenta-enpresa batean zebilen. Fernando Morillo

John Neulinger astialdiaren **soziologian** adituaren ustez. Berria - Gaiak

Eguzki URTEAGA, 27 urte, **soziologian** doktore da, Bordeleko II unibertsitatean tesiaren gaia hau zuelarik: "Tokiko kazetariak: ofizio baten bilakaera". Herria

Soziologian doktorea eta Filosofian lizentziaduna da. Askoren artean

Soziologia eta Unibertsitate Publikoa utzi eta hurrengo ikasturtean Opusen Enpresa Zientziei ekiteko aukera aipatzen hasia zen. Aingeru Epaltza

Iruadiaren **soziologia** ez da, zinez, adar hauetan aurreratuena. Josu Zabaleta

Soziologia merkerik egiteko asmorik gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **soziologi** g.er.) ik **soziologiko**.

Parrokia lasaia izango zen Itsasondokoa berak bere **soziologia** -lanei ekin ahal izateko. Xabier Mendiguren Elizegi

Azken **soziologia** azterketen emaitzak dira horren erakusgarri. Berria - Euskal Herria

Gaur egun, thriller onek kasik **soziologia** liburuek bezainbat irakasten dizute unibertso batzuei buruz. Berria - Kultura

Jakina da, Guy Aznar eta André Gorz **soziologia** arloko pentasalariei jarraiki, lanaren bidez dela gizakia esfera publikoan partaide. Iñaki Heras

Barka ezak, baina **soziologi** ikastaro txiki bat beharko huke. Unai Iturriaga

Hau Louvain-en, **soziologia** erakasle zen eta hemengo apez guzien omonierria. Marzel Etxehandi

Literatura eta **soziologia** klaseetara joaten nintzen, unibertsitateko janlekura. Joseba Urteaga

Helsinki Unibertsitateko Legearen **Soziologia** Departamentuko ikertzaile Ari Nieminenen iritziz, [...]. Berria - Mundua

EHUko **Soziologia** Sailak antolatutako jardunaldietan. Berria - Euskal Herria

Euskararen Datu Basea (EDB) webgunea eratu du Aztiker **Soziologia** Ikerkunearekin batera eta Udalbiltzaren laguntzarekin. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aztiker soziologia ikerkuneak (3); soziologia ikasketak (4); soziologia ikerkuneak (3); soziologia irakaslea (14); soziologia irakasleak (3); soziologia irakaslearen (3); unibertsitateko soziologia irakaslea (6)

soziologiako katedraduna (3)

soziologiko *izond* soziologiarena, soziologiari dagokiona. ik **soziologia 2**.

Gizarte baten jarrerak ulertzeko ez dira aski azalpen ekonomiko, **soziologiko** eta historikoak. Markos Zapiain

Kuhnen azterketak ekoizpen zientifikoa bera txertatzen du analisi **soziologikoan**. Askoren artean

Arrazoi politikoak aipatu dira, arrazoi **soziologikoak**, arrazoi etiko-erlijiosoak... Karlos Linazasoro

Lan **soziologikoak** ere badirela, eta gizarte eredu baten porrota erakusten dutela. Berria - Kultura

Azterketa **soziologiko** asko dago hedabideek duten harrerari buruz (eta artelaneek duten harrerari buruz ere bai). Josu Zabaleta

Siadeko-k 1993an egin zuen ikerketa **soziologikotik** hartutako datuak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Testuinguru **soziologikoaren** eraginaren garrantziak jabetzeko. Lourdes Oñederra

Efektu lasaigarria dauka, **soziologikoki** konprobatuta dago. Jon Alonso

Unamuno-k alfer-alferrik gura duena da, ezintasun faktikoa (historiko, **soziologiko**: euskararen herria ez da oso kultura izan), hizkuntzaren naturakoa bezala pasarazi.

Joxe Azurmendi

Ezker abertzalearen mundu **soziologikoak** horri aurre egitea eta behingoz protagonismo politikoa hartzea eskatzen dio Batasunari. Berria - Euskal Herria

Batetik, independentismo **soziologikoaren** sendotzea: gero eta sektore gehiagok ez dute inolako interesik jada Espainian. Berria - Harian

Interpretazioari, hots, irudiaren onarpenari, eragiten dioten faktore guztiak, alegia, **soziologikoak** nahiz semiologikoak. Josu Zabaleta

Beste historia hau, historiaren azpian lasterka doana [...] pentsamoldeen bilaera modura deskriba daiteke -era **soziologiko** edo psikologiko batean-. Xabier Arregi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azterketa soziologiko (4); **inkesta soziologiko** (3)

ikuspegi soziologikoa (3)

azterketa soziologikoak (4)

ikerketa soziologikoen (3)

soziologikoki *adlag* soziologiaren aldetik.

Fedea, **soziologikoki**, gizon-emakumeen habito bat da, fededunek berek Jainkoak emanikotzat badaukate ere. Joxe Azurmendi

Soziologikoki, Baiona mendebaldeko kantonamendua beti eskuinekoa izan da. Berria - Euskal Herria

Euskara **soziologikoki** murriztuta egon da luzaroen. Lourdes Oñederra

Efektu lasaigarria dauka, **soziologikoki** konprobatuta dago. Jon Alonso

Soziologikoki baditu berezitasun batzuk: txikia da, baina deserrotze handia dago. Berria - Kultura

Ez dut ohitura xeblere honen jatorriaren esanahia jakiterik izan, ez eta, **soziologikoki** erroturiko ohitura bat ote den [...] edota artistaren batek hiri guztian hedatu duen instalazio artistiko baten xedea. Harkaitz Cano

soziologismo *iz* giza gertakariak ikuspuntu soziologikotik baino ez ikusteko joera.

Agian mereziko du testuinguru honetan Leo Strauss filosofo judu exiliatuaren kritikak gogoratzea, historizismoari ez ezen, Max Weber-en **soziologismoari**. Joxe Azurmendi

Erlatibismoa gaur egun aurkitu, perspektibismo, historizismo, **soziologismo**, psikologismo, antropologismo, biologismo, eboluzionismo, pragmatismo, fikzionalismo, etab., gisan aurkitzen da de fakto. Joxe Azurmendi

soziologista *izond* soziologismoarena, soziologismoari dagokiona.

Zientziarekiko biraketa **soziologista**. Askoren artean

Kasu horretan, biraketa **soziologista** dela medio, ezagutzaren eraketan faktore sozialen garrantzia gehiegi azpimarratzeagatik, galdu egin da epistemologikoki pertinentea den munduarekiko harremana. Askoren artean

soziologizazio *iz* soziologismorako joera.

Gai-zerrenda berriak ezagutza zientifikoaren gero eta **soziologizazio** nabarmenagoa ekarri zuen. Askoren artean

soziologo 1 *iz* soziologia gaietan lan egiten duen pertsona.

Badira hor teologo, **soziologo**, legelari, irakasle jakintsuen hitzaldi interesgarriak. Piarres Xarriton

Azken urteetan ondoak udazkenean bezala agertu dira kazetariak, politologoak, ekonomialariak edo **soziologoak** egin izan dituzten azterketa eta analisiak [...] gehienetan sen onak eta begi erno batzuek, besterik gabe, erakusten digutena paperera eramanez. Pello Salaburu

soziologoak hasita zeuden kontsumoaren gizarteak zekartzan kalteez abisatzen. Anjel Lertxundi

Soziologoak analizatuko dute, eta psikologoak esplikatu, nola joan ginen gerta ondoan seminario eta komentuetara, orgataraka. Piarres Aintziart

Soziologorik zorrotzena baino lehenago eta sakonago aurreratu zen Kafka burokraziaren makinariak ezdeus bihurtzen gaituela esatera. Anjel Lertxundi

Alor honetan egin izan diren lanik interesgarrienak ez dituzte askotan **soziologoak** egin, historialariak baizik. Josu Zabaleta

Bernard Duperrein, Paueko unibertsitateko **soziologoa**. Herria

Iñaki Larrañaga, Legazpin sortu baina Itsasondon erretore dagoena, **soziologo** ezagun eta soziolinguistikazko lan garrantzizkoak egindakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Hala egiten du James Baldwin idazle estatubatuarra, baita Jean Baudrillard frantses **soziologoak** ere. Joxemari Urteaga

2 (izenondo gisa)

Piaget bezalako psikologoak, Freud edo Lacanen kide psikoanalistak, Levi-Straussen lagun **soziologoak**, Wittgenstein edo Ricoeur iduriko pentsalariak. Piarres Xarriton

sozional *izond* gertakari naturalen eta giza jardueren interakzioari dagokiona.

Gizarteak horrela kritikoki ebaluatzen du transformazio **sozionala** (hots, progresoa) gauzatzen duen baliabide zientifiko-teknologikoen multzoa, bere esparru

desberdinetan. Zientzia eta teknologia "produktu" sozialak badira eta, gainera, sekulako eragina badute geure ingurune **sozionalaren** eraldaketan, [...]. Berria - Gaiak

soziopolitika (*corpusean* **sozio-politika** soilik) *iz* gizarte ikuspuntutik aztertzen den politika.

Erantzuna ez da **sozio-politika** tratatu zentzudun bat, baizik bitzta baten kontaera; ez kontzeptu andana, sentimendua baino; ez teoria, garrasia. Markos Zapiain

soziopolitiko (*87 agerraldi, 5 liburu eta 41 artikulutan; orobat **sozio-politiko** 39 agerraldi, 8 liburu eta 23 artikulutan*) **1 izond** alderdi sozialak eta politikoak lotzen dituena.

Hemen arazoaren dimentsio soziala planteatzen zen, eta integrazio **soziopolitiko** eta ekonomikoaren beharra. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Izan ere, esan den bezala, Japoniako egitura **soziopolitikoak** eta Europa Mendebaldekoak oso antzekoak ziren. **Koro Navarro**

Aldaketa **soziopolitikoak** balditzatutako artelana. **Berria - Kultura**

50eko eta 60ko hamarkaden konplexutasun **soziopolitikoak** ere izan zuen eraginik. **Berria - Kultura**

Euskal idazleak inoiz baino gehiago idazten ari direlako Euskal Herriko egoera **soziopolitikoaz**. **Mikel Hernandez Abaitua**

Aberri Eguna modu bateratu eta duinean ospa dadin, eragile **soziopolitiko** eta instituzionalekin harremanetan jarri eta proposamen eta deialdia egitea. **Berria - Euskal Herria**

Garapen Iraunkorrek dituen ondorio ekonomiko eta **sozio-politiko** eman diegu lehentasuna. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

ELAren konpromiso **soziopolitiko** sakonagoak adosteko asmoa azaldu zuen LABeko idazkari nagusiak. **Berria - Ekonomia**

11 alderdi politiko eta sindikatuk [...] euskararen aldeko engaiamenduak hartu dituzte, Bilbon izenpetu duten Akordio **Soziopolitikoaren** bidez. **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

-Egoera **sozio-politiko** -kulturala. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akordio sozio politikoa (4)

akordio soziopolitiko (18); **azterketa soziopolitiko** (3)

akordio soziopolitikoan (3)

akordio soziopolitikoarekin bat (3)

akordio soziopolitikoaren (9)

soziopolitikoki (*corpusean **sozio-politikoki** soilik*) *adlag* ikuspuntu soziopolitikotik.

Paradoxikoa dirudien arren, arrisku arduragarrienak dira **sozio-politikoki** asimilagarrienak direnak. **Berria - Gaiak**

Pertsonentzako bizi baldintzak urratzen dituen sistema atxikiz, Frantziak argi erakusten du moraliki eta **sozio-politikoki**, iparra galdu duela. **Berria - Euskal Herria**

sozioprofesional (*orobat **sozio-profesional***) *izond* lanbidearen gizarte alderdiari dagokiona.

Gizarte zibilak eta sektore **sozioprofesionalak** lurralde ezagupen bat nahi dute, baina Frantziako Estatuaren baitan. **Berria - Euskal Herria**

34 administratzaile hautatuak izan ziren: 13 hautetsi, **sozio-profesional** saileko 10, elkarten 7 ordezkari eta alokatzaileetarik 4. **Herria**

Ikastetxe frantsesek ikasleen mailaketa **sozioprofesionala**, aitzin selekzioa eta baxoa gainditzea erabiltzen dituzte erreferentzia gisa. **Berria - Euskal Herria**

Ez ghettoen sorrera bultzatuz, etxe kopuru jakinak auzoka txertatuz baizik, jendearen nahasketa **sozioprofesionala** bermatuz. **Berria - Euskal Herria**

soziosanitario (*orobat **sozio-sanitario***) *izond* alderdi sozialak eta osasungintzari dagozkionak lotzen dituena.

Arreta **soziosanitaria** eta informatika sistemen utsiapena dira erdi mailako ziklo berriak. **Berria - Euskal Herria**

Ikasketa horiek egiten dituenaren egitekoa osasun fisiko, psikiko eta sozialeko premia berezia duten pertsona eta kolektiboetarako **soziosanitarioan** laguntzea litzateke [...] estrategia eta prozedura egokienak aplikatuz, eta autonomia personala, giroarekiko harremanak eta lanbide ezarpena hobetzeko. **Berria - Euskal Herria**

«Diru baliabide gehiago beharko dira», aitortu zuen Ibarretxek Plan **Sozio-sanitarioaren** berri ematean. **Berria - Harian**

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Arreta **Sozio-sanitarioko** Plan Estrategikoa aurkeztu zuenean. **Iñigo Aranbarri**

soziosinboliko *izond* alderdi sozialak eta sinbolikoak lotzen dituena.

Bada horretan alderdi tekniko bat (argi-dardara kentzea, behar ez den mozorrotzerik ez izatea), baina bada alderdi **soziosinboliko** bat ere, apailua bera baita, zentzu zabalago batean, irudi mugikorrek pantaila batean ikustera joatea justifikatzen duena. **Josu Zabaleta**

soziotekniko (*orobat **sozio-tekniko***) *izond* alderdi sozialak eta teknikoak lotzen dituena.

Prozesu horretan XIX. mendearen bukaerako eta XX. mendearen lehenengo erdiko gertaera **sozioteknikoak** koka daitezke: trenbidea, telegrafoa, [...]. **Askoren artean**

Gure gizarteetako markak dira hain zuzen ere gobernatzen zailenak, ez hainbeste arazoaren diagnostikoan sor daitezkeen ezadostasunengatik [...] terapiak exijituko lukeen demaseko berrantolaketa **soziotekniko** eta kulturalagatik baizik. **Berria - Gaiak**

Istripuen zergatia ez dago, hortaz, funtzionamendu desegokiari beti egozterik: arrunta da, esate baterako, sistema **sozio-tekniko** batean (zentral nuklear batean, adibidez) **Berria - Gaiak**

sozioteknoekonomiko *izond* alderdi sozialak, teknikoak eta ekonomikoak lotzen dituena.

Ilustrazioaren subjektu transzendentalaren gabeziak zizelkatu zituzten, bai maila sozialean, bai maila psikologikoan, Karl Marx eta Sigmund Freud-en lanak miatutakoan, subjektu transzendente huts horretako gorabehera **sozioteknoekonomiko** eta psikoanalitikoak begietara zuzentzeko asmoz. **Askoren artean**

sozioterapeuta *iz* gizabanakoa, dagokion taldean gizarteratzeko terapiak aplikatzen dituen pertsona.

Kristina Plaza eta Uxoia Lazkanotegi erizainak, Ixa Irigoien gizarte laguntzailea eta Idoia Sardui **sozioterapeuta** dira. **Berria - Harian**

spa *iz* osasun etxea, oinarri nagusizat ura erabiltzen duena tratamenduetan, erlaxatze sistemetan eta terapietan.

Igerilekuak, **spa** gunek, tenis kantzak eta hipika jarriko dituzte. **Berria - Euskal Herria**

Spa horietako bat balitz bezala. **Xabier Mendiguren Elizegi**

spagetti ik **espageti**.

spaghetti ik **espageti**.

spanglish *iz* ingeles etorkiko hitzez josiriko espainola, Ameriketako Estatu Batuetan mintzatzen dena.

Spanglisha gero eta erabiliagoa da komunitate hispanoaren artean. [Harkaitz Cano](#)

Gaztelaniaz edo **spanglish**-ez (gaztelaniaren eta ingelesaren nahasketa) hitz egiten duen jendearen kopurua beste edozein komunitaterena baino askoz bizkorrago handituz doanez, latinoen eragina nonahi ikus daiteke AEBetan kultur arloan. [Berria - Mundua](#)

sparring 1 *iz* entrenamenduetan beste boxeolari baten kontra aritzen den boxelaria.

Sarritan ibilia zen Joselu haren **sparring** lanetan. [Josu Landa](#)

Cassius Clayren **sparring** izaten zara bazkaltzeko orduan. [Joseba Sarrionandia](#)

Sparring nahiko onak izan ditut aurrean, Patxi Ruizekin aritu naiz, Asier Olaizolarekin, Juantxo Kokarekin ere bai, alde horretatik nik uste nahiko aurkari zailak izan ditudala. [Berria - Kirola](#)

Txilin baten hots purrustuak **sparring**-arengana hurbildu eta haren inguruan estreinako ukabil-zitadak saiitzen hasteko unea adierazi zuen. [Josu Landa](#)

Bi euskal marinelak Sydneyn izan ziren, baina **sparring** bezala, probatzaile moduan. [Berria - Kirola](#)

2 irud/hed

Pabilioietako apustueta lehiatzen zirenak doberman, presa canario, rottweiler, dogo argentinar, pitbull edo buldozerrak lako zakur handiak izan arren, entrenamenduetarako zakur tikiak erabiltzen zituzten **sparring** bezala. [Harkaitz Cano](#)

Borroka-zakurren **sparringtzat** erabiltzen dituzte. [Gotzon Garate](#)

Horretarako daude **sparring** zakurrak. [Gotzon Garate](#)

speed 1 *iz* anfetamina.

Berdin zaidak **speeda**, kokaina, bikarbonatoa, amoniakoa edo zaldia... baina pasaidak lehenbailehen, bestela gaur ere lotsagarri gelditu behar diat! [Unai Iturriaga](#)

Speeda, extasia eta kokaina boladaz pasatako droga bigunak dira hemen. [Harkaitz Cano](#)

Gero beste garagardo batzuk, izerdia, kostoa, **speeda**, komentarioak, txiste txarrak eta abar luzea. [Unai Iturriaga](#)

Tabakoa, Amaiaen lagunen bat edo beste, Jabirenak, **speeda**... denak izan zituzten haserretzeko motibo. [Urtzi Urrutikoeetxea](#)

-Esan dizut **speedak** on egingo zizula. [Sonia Gonzalez](#)

Speed madarikatu honek gosea ere lapurtu egiten dit. [Unai Iturriaga](#)

Speedaren ajea gauza eskasa da. [Unai Iturriaga](#)

Haren ezteietan, **speedez** eta herraz leporaino jarritako basa nardagarri batzuen gisara jokatu genuen. [Aingeru Epaltza](#)

Badirudi eguratsa bera ere garagardoz eta **speedez** belarrietaraino bete dela. [Unai Iturriaga](#)

2 (hitz elkartuetan)

Autoan bost mila **speed** pilula zituen gizonezko bat atxilotu du Ertzaintzak Azkoitian. [Berria - Euskal Herria](#)

Mikel lotsati eta uzkur zegoen, aldean zeramatzan lau litro garagardo eta **speed** dosia eramanda ere herabe. [Unai Iturriaga](#)

Sakenan, 272 estasi dosi eta 100 **speed** dosi hatxeman dituzte eta hiru presuna itzalerat bildu. [Herria](#)

Telebista jasanezina da alkohol eta marihuana barik, etxea batzea ezinezkoa **speed** lerro pare bat barik. [Sonia Gonzalez](#)

Guardia Zibilaren esanetan, bi ertzainetako batena den prostituzio etxean aurkitu zuten aspaldian poliziak aurkitu duen **speed** kantitate handiena. [Berria - Euskal Herria](#)

3 (neurriekin)

Atxiloketa unean, hiru kilo haxix eta 180 gramo **speed** atzeman dizkiete. [Berria - Euskal Herria](#)

Beste zinegotzi bat atxilotu zuten ustez 1.000 pilula estasi eta kilo erdi **speed** zituela. [Berria - Mundua](#)

Espainiako Guardia Zibilak bi ertzain atxilotu ditu, ehun kilo inguru **speed** edukitzeagatik. [Berria - Euskal Herria](#)

spencertar *izond* H. Spencer-en pentsamoldeari dagokiona.

Unamuno, bere eboluzioen piririkan, gaztetxotako bere historiazaletasun foralistaz gero ("erromantikoa", esango du berak), laster positibismora konbertitua, historiaren filosofia **spencertarraren** jarraitzaile izana da. [Joxe Azurmendi](#)

Hau da Unamuno-k euskararen heriotza iragarriari bere argumentazioan ipini dion marku filosofikoa, hots, eskatologia kuakero **spencertarraren** markua. [Joxe Azurmendi](#)

spengleriano *izond* O. Spengler-en pentsamoldeari dagokiona. ik **spengleriar**.

Hemen, ez dakit zergatik, beharbada bere burua alderdi batean kidekatzeagatik, nobleak eta inteligenteak berdintzen dizkigu Ortegak: **spenglerianoa** batik bat ez da batere berdinketa hori. [Joxe Azurmendi](#)

spengleriar *izond* O. Spengler-en pentsamoldeari dagokiona. ik **spengleriano**.

Emoziozko erreakzioek, "viktoriar" baikortasuna eta "**spengleriar**" ezkortasuna bezalakoez, froga gisa ez zuten indarrak. [Iñaki Mendiguren](#)

spinozatar *izlag* B. Spinoza filosofoaren pentsamoldeari dagokiona.

Jainkoarekin edo naturarekin batzean eta arimak substantzia jainkozkoarekiko duen dependentziaren esplizitazioan datza dohatsutasuna edo salbamena, zeina seinalatzen duen **spinozatar** egitasmoak. [Piarres Xarriton](#)

Egia da **spinozatar** proiektuak formulazio bat baino gehiago hartzen dituela. [Piarres Xarriton](#)

Beraren erantzuna **spinozatarra** da guztiz, Cavallès-ek irakurri eta miretsi zuen filosofoa: beraren egitekoa zela sentitu zuelako. [Berria - Kultura](#)

spiral ik **espiral**.

spiritual ik **espiritual**.

sponsor (*orobat **esponsor***) iz babeslea, laguntzailea.

'**Sponsor**' delako berezi bat aurkitu zuen gainera. [Ramuntxo Etxeberri](#)

Fagorrek miliunak xahutuko ditu adibidez Aviron Bayonnais-ko errubilarien "**sponsor**" edo babesle gisa. [Herria](#)

sponsoriratu, sponsoriza, sponsorizatzen du *ad* sponsor gisa babestu.

Batarena onartua dago, eta mundu ororen bistan lotsagabeki erakutsia, onetsia eta ezin sinetsizko moduan goretzia, lagundua eta **sponsorizatu**; bestearen diru-eske eta lapurretari, berriz, "diru-eske" eta "lapurreta" deitzen zaio garbi-garbi, [Iñaki Seguro](#)

squatt iz indarrean dagoen legearen kontra, bizitzeko hartzen den etxebizitza edo lokala.

Pub hartatik atera ziren eta **squatta** zegoen etxesailen alderantz jo zuten. [Joxemari Iturralde](#)

Squatt horretan bizi zarenok zer zarete, euskaldunak denak? Maria Madrigo neskato bat zen, besteak bezalaxe **squatt** batetik bestera pasatuz bizi zena, lan bat utzi ondoren beste bat hobe bilatzen saiatzen zena. [Joxemari Iturralde](#)

Iluntze eta gauak normalean ontzian pasatzen omen zituen Scottekin, goizaldean **squattetik** pasatzen zen dutxatzera eta arropaz aldatzera, handik lanera, eta eguerdian, libre baldin bazegoen, pisutik pasatzen omen zen berriro. [Joxemari Iturralde](#)

squattatu, squatta, squatatzen du *ad* indarrean dagoen legearen kontra, etxebizitza edo lokal bat, bizitzeko hartu. ik **okupatu**.

Sasiko habian sortuek halako mesfidantza pizten didate: bertzeek adina balio dutela erakutsi beharrak joak izaten dira maizko, eta horrek ondorio gaitoak ekartzen ditu nagusi baten bulegoa **squattatzera** etortzen direnean, bi egunetarako baizik ez bazen ere, abuztuko larunbat horretan bezala. [Aingeru Epaltza](#)

squatter iz indarrean dagoen legearen kontra, etxebizitza edo lokal bat, bizitzeko hartzen duen pertsona. ik **okupa**.

Talde batekin bizi zen, edota bizi izan omen zen, **squatter** modura denboraldi luze batez. [Joxemari Iturralde](#)

'**Squatters**' besterik ez ziren -gehitu zuen gidariak- insektoak bezalakoak! [Ramuntxo Etxeberri](#)

Besteak erran zion ez zekiela, berdin zela dena den, '**squatters**' horiek aski zutela beste nonbaitera joatea. [Ramuntxo Etxeberri](#)

srilankar *izlag/iz* Srilankakoa, Srilankari dagokiona; Srilankako herritarra.

Bihar tigre tamilek **srilankar** soldaduei egindako setioaren urteurrena beteko baita. [Joseba Sarrionandia](#)

Tamil gerrillako bi kide hil zituzten atzo soldadu **srilankarrek**. [Berria - Mundua](#)

Presidente **srilankarrak** herrialdeak bizi duen egoera baliatuta hartu zuen buruzagitzat aldia luzatzeko erabakia 2000. urtean. [Berria - Mundua](#)

stadium ik **estadio**.

stalindar ik **estalindar**.

stalinismo ik **estalinismo**.

stalinista ik **estalinista**.

standard ik **estandar**.

status ik **estatus**.

stilo ik **estilo**.

stock 1 iz biltegitururik dagoen salgai kopurua.

Gasolioaren **stock** -ak 800.000 upeletan gutxitu direla kalkulatu dute adituek. [Berria - Ekonomia](#)

Langileen arabera, fabrikok lau eguneko **stock** -ak baino ez dituzte biltegitetan. [Berria - Ekonomia](#)

Berriz ere, garrantzitsua da azpimarratzea **stock** horiek ez direla oso ondo neurtzen ordainketa-balantzetan ageri diren nazioarteko zuzeneko inbertsioen fluxuen zenbaketatik. [Koro Navarro](#)

Horrelako ekoizpen eredu batek beharrezkoa du jarraipena: prozesua ez etetea (**stock** handiak eta eskaria egonkorra, besteak beste). [Iñaki Heras](#)

Horren harira dio gizarteak duen kapitalaren **stock** -aren balioa (kapital naturala barne) dela kontserbatu beharrekoa. [Berria - Gaiak](#)

Hainbat geologok salatu dute azken urtetan herrialde ekoizle askok euren **stock** -ak puztu egin dituztela. [Berria - Ekonomia](#)

2 (hitz elkartuetan)

Era horretara biltegiak eta **stock** pilaketa aurrezten ditu lantegiak. [Berria - Ekonomia](#)

- Batzuek kapital **stock** osoa hartzen dute kontuan. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Hegoaldeko legatza **stock** -ak 10.200 tonatik behera daude, eta 35.000 tonakoa da gutxieneko maila onargarria. [Berria - Ekonomia](#)

hitz zirkulazio maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

kapital naturalaren stocka (3); **naturalaren stocka** (3)

inbertsioen munduko stockaren (3)

stop 1 iz zirkulazio seinalea, gelditzeko obligazioa adierazten duena.

Uda ondarrean ezarria izanen da **"stop"** seinalea, Hita Zaharreko juntan, zeren-eta ainitz ixtripu bada leku hortan. **Herria**

Herbert beso-keinuka: **stop** !, nik **stop** egin, bozina jo, eta Herbertek berriro beso-keinuak: aurrera! **Joxe Austin Arrieta**

Semaforo gorrian **stop** eginda, ibilgailua ralentian, udaltzain-autoa ikusi dute eskumatik abian. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Stopa pasatu aitzin, stopatu da autobusa. **Xabier Olarra**

Hantxe kruzean, **stop**ean zain halabeharrea, sor-sor egon zen izkinako pasteleriari begira; hango bonba goxoak... **Pablo Sastre**

Hagitz errazagoa dela irakurtzea bera, bere bidezidor, errepide, autobide eta **stop** eta "bide eman" seinaleekin, testuetan barrena kaminero ibiltzea baino. **Iñigo Aranbarri**

2 irud/hed

Auzipetuek elkarretaratzea egin zuten auzitegiaren atarian, 'torturari **stop**' zioten elastikoekin. **Berria - Euskal Herria**

Azalean euren aldarrikapenaren arrastoak ageri ziren: **Stop** itoiz, Artozki bizirik. **Txema Ramirez de la Piscina**

Ber momentuan, Herri Taldeak, "Turismoa **Stop**" kanpaina abiatzen du. **Herria**

Ni ere ez naizela existitzen... **stop** ! **Sonia Gonzalez**

Ezinezkoa zen asmatzea non egon zintezkeen nire gutunari **stopa** altxako ziotenean. **Koldo Izagirre**

3 makina edo kideko bat gelditzeko botoia.

Ikuzmakina honek ez dauka **stopik**. **Joxerra Garzia**

4 telegrametan, puntu seinalea.

BUSA LEPO **STOP** GAZTE LEPALUZE KAPELA BOROBIL TXIRIKORDADUNAK KARGU HARTU BIDAARI EZEZAGUN BATI AITZAKIA HUTSALEZ **STOP** ARAZOA ORPO-KONTAKUZ BEHATZAK ZAPALTZEA APROPOS **STOP** GAZTEAK EZTABAIDA UTZI ETA LEKU LIBRE BAT HARTU **STOP** ORDUBIETAN PLACE ROMEN ENTZUN JANZKERA AHOLKUAK LAGUN **STOP** BOTOIA GORATU **STOP**. **Xabier Olarra**

stopatu, stopa, estopatzen du ad stop egin, gelditu.

Stopa pasatu aitzin, **stopatu** da autobusa. **Xabier Olarra**

strip-tease (orobat striptease eta streep-tease) 1 iz pertsona bat edo gehiago musikaren konpasean pausoz pauso biluzten diren ikuskizuna.

Patin gurgildunetan inguratu zen neska batek **strip-teasea** egin zuen uraren gaineko zaldain batean. **Joxan Elozegi**

Ez dakit zein pelikula ospetsutako **strip-tease** deigarriren baten erdian. **Pako Aristi**

Txarra, oso txarra zen pelikula, baina uste dut Charo Lopezek egin zuela bertan **striptease** lardarts baina erabateko bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Doc To tabernak hamargarren urtez jarraian gizonezko baten **'stripteasea'** antolatu du Santa Luzia eguna ospatzeko, jostunen eguna **Iñigo Aranbarri**

2 irud/hed

Etenik gabe, aitorten bortitz bat egiten du idazle gazteak, espirituak streep-**tease** betean. **Karlos Linazasoro**

3 (hitz elkartuetan)

Kanpoan zen, Queens inguruan nonbaiten, orduantxe bi negozio-gizon mozkor *Garden of Earthly Delights* izeneko **strip-tease** klub baten atarian utzita. **Oskar Arana**

Lanbide honetan **strip-tease** dantzariaren pose ustel eta manipulazailak ez dira aski. **Patxi Iturritegi**

studio ik estudio.

SU 1 iz zerbait erretzen denean gertatzen den bero eta argi jalgitzea.

Gauzen materia **sua** dela eta izadia **su** hutsez egina dela pentsatu zutenak egiazko arrazoitik nabarmen lerratu zirela argi dago. horien bitartez lau gorputz eratu dira: lurra, ura, airea eta **sua**. **Xabier Amuriza**

Izeiak, hasteko, airea eta **sua** ditu gehien, eta ura eta lurra gutxien. **Santiago Iruretagoiena**

Batzuek esaten zuten Hüsok **sua** gurtzen zuela. **Fernando Rey**

Urrunean, ekialdean, **sua** ikus zitekeen, eta bazirudien lautadan zehar hedatzen ari zela. **Agustin Otsoa**

Sua pizten errazago baita itzaltzen baino. **Joxerra Garzia**

Sua poliki iraungitzen ari zen. **Fernando Rey**

Idortzeko erabiltzen den oihala, **su**an erre behar izaten zen. **Herria**

Arratsean egindako **suaren** hondarrak geratu ohi ziren goizaldean: errauts epelak, eta tarteka txingar biziren bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Errautsaren azpian zetzan **sua**. **Joxan Elozegi**

Sua zutabeen kapituletan kiribildu zen. **Juan Garzia**

Pozoizko tua egiten zion Namahk, eta kea eta **sua** botatzen zituen sudur-zuloetatik. **Koro Navarro**

Orduan, Jaunak **sua** bidali zuen eta dena kiskali. **Elizen arteko biblia**

Kapelua kendua zuen ordurako, eta **suaren** aurrean eserita zegoen. **Xabier Olarra**

Azariasek, **suaren** erdian zutik, oititz egin zuen ozenki, esanez: [...]. **Elizen arteko biblia**

Zelten egutegian ere, naturaren birpiztea ospatzen dute **suaren** festa eginez, eguzkiaren gorakadak 40 egun bete ditueneko. **Pello Zabala**

Hanka eta oina argaldu, okertu eta ihartu egin zitzaizkion, aitzoaren ebakia edo **suaren** erredura sentitzeko gai ez izateraino. **Askoren artean**

Suari egurra botatzen zion ingelesak, eta basamortura begiratzen zuen. **Xabier Aranburu**

2 (izenondoekin)

Su handia egin zuten haren ohorez. **Elizen arteko biblia**

Labeko **su** bizira jaurtikiko dute. **Elizen arteko biblia**

Kea zerion sudurretik, **su** kiskalgarria, ikatz goriak ahotik. **Iñaki Mendiguren**

Gaillurrean, ahul, **su** dardarati bat ikusten zen. **Fernando Rey**

Neurri gabeko sumindura merezi du, eta purgatorioko **su** jasangaizta ere bai. **Joan Mari Lekuona**

Erorarazi du kristauen armadaren gainean zeruko **su** iraungiezina. **Jon Alonso**

Su zurizko bola bat zen, parte txarreko jirabira batean ari zena. [Juan Garzia](#)

Su itzailen gaineko zartagian, berriz, xerra jadanik hoztua. [Aingeru Epaltza](#)

Su gaiztoaren eta sumendi suntsitzaileen jainkoa Bulkano. [Pello Zabala](#)

Su likidoaren urre-kolore bizkor hura lurrera hega dadin. [Xabier Amuriza](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eguzki esaten diogun **su**-masa hori. [Juan Garzia](#)

Aingeruak intsentsu-ontzia hartu, aldareko **su**-txingarrez bete eta lurrera bota zuen. [Elizen arteko biblia](#)

Su-brasetara bota zituen ur, landare eta aleak. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Hamar argimutil, alderdi bakoitzean bost, urrezkoak; loreak, kriselauk eta **su**-hatzak, urrezkoak. [Elizen arteko biblia](#)

Su- eta harri-jaurtikigailuak, azkonak jaurtikitzeko uztaiak, bai eta habailak ere. [Elizen arteko biblia](#)

Tamaina Erdiko **su**-itzalgailu bat zen. [Josexo Azkona](#)

Su-bonba karga handia zeramaten bi hegazkin ingeles alemaniar ofizialen zentroaren gain-ginean erori ziren. [Josu Zabaleta](#)

Bazter batean zizekan **su**-argia indargetzen zen. [Juan Garzia](#)

liadian bertan Akilesek lau behor hil ditu Patrokloren heriotzeko **su festan**, defuntuaren arima Hadesen erreinura gida dezaten. [Patziku Perurena](#)

ik beherago 42. [Askoren artean](#)

Nazio askotako txerpolari, **su**-jale eta gezur-esale ugariarekin batera. [Felipe Juaristi](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hiposiarena ere urte gutxi batzuetako lasto-**sua** besterik ez zen izan. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

5 (zigarroak eta kidekoak piztekoa)

-Tabakorik ez diat, baina **sua** bai. [Aingeru Epaltza](#)

Esneketariari **sua** eskatu dio zigarrata bat pizteko. [Josu Zabaleta](#)

Eman nion **sua**, argiztatu zitzaion aurpegi gaztea, eta galdetu nion ea nirekin ezkondu nahi al zuen. [Joxe Austin Arrieta](#)

Sua eskatzeko ere ez nintzaion hurbilduko. [Aingeru Epaltza](#)

6 (janariak prestatzekoa; beheko sua)

Sukaldera abiatu, kafeontzia **su** gainean paratu eta kajoiak miratu nituen. [Aingeru Epaltza](#)

Atxikoria-ura **su** gainean, eta bezperan estraperloan lortu ahal izan nituen ogi zuri bi mahaiaren gainean. [Inazio Mujika Iraola](#)

Irakiten hasi zen oilo-salda, lehenengo **suan**. [Jon Muñoz](#)

Irakiten hasi zen oilo-salda, lehenengo **suan**. [Jon Muñoz](#)

Tokiko haragia egurrezko **suan** errorik. [Herria](#)

Ken ezazu ur-tupina; itzal ezazu **sua**. [Itziar Otegi](#)

Sua egokitu zuen gero, irakiten jarrai zezan saldak. [Jon Muñoz](#)

Bero da gelan, **sua** gozoa da. [Anjel Lertxundi](#)

Jendeek ikatzaz egiten baitzuten eguneroko **sua**. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Su bizi ederra zegoen, eta baxerategi baten gainean Domu Santu bezperako lau opil handi ageri ziren. [Irene Aldasoro](#)

Sutondoa ere miserablea zen, eta **sua** beti amatatzeaz zegoen. [Agustin Otxoa](#)

Toki menditsu hau denbora txarrak estalten duenean, erromesek supazterreko **sua** prezatzen dukete. [Piarres Aintziart](#)

Sototik ikatza igo eta **sua** biziuko nuela esan nion. [Anjel Lertxundi](#)

Marmol grisezko lurreko **suan**, enborren garrak gorritz eta beltzez tintatzen dira. [Xabier Olarra](#)

Itaitzen eta Artozkin euren etxeko **sua** azken eguna arte piztu duten nafarrei. [Eduarne Elizondo](#)

Ezinbestean konturatzen naiz zelan makurtzen den Piettka kazola batekin eta bere **su txiki** elektrikoarekin. *ik beherago* 51. [Urtzi Urrutikoetxea](#)

Gasezko **su txiki** batean irakiten zuten. [Koro Navarro](#)

Apopiloek geletan bertan aritzen baitira **su txikietan** janaria prestatzen. [Berria - Euskal Herria](#)

Kafe aleak kontuz txigortu behar dira, **su** motelean, erre barik. [Javi Cillero](#)

Paretan zintzilik zeuden arropak miazten hasi ginen, eta berdin gas-**sua**, lapiko zikina. [Juan Kruz Igerabide](#)

Kafe-termoak, kanpin-**sua**, sakelako linternak, botila-irekitzekoak. [Joxan Elozegi](#)

7 (haserrea adieraziz)

Zeure ahalmen handiaz dituzu arerioak zanpatu; haserre-**sua** piztu eta lastoa bezala erre. [Elizen arteko biblia](#)

Haserrearen **suan**, ez zuen entzun aulki gurgildunaren karranka. Jauntxo ankerraren **su** mina eta basapiztiaren amorrua. [Jon Muñoz](#)

Erregea ere **su** bizitan jarri zen. [Elizen arteko biblia](#)

Etxeberri ministroak **sua** zeriola ohartarazten gintuen gisa horretako papistakerien kontra. [Aingeru Epaltza](#)

Haserrearen **suan**, ez zuen entzun aulki gurgildunaren karranka. [Jon Muñoz](#)

8 toki egokian egurrarekin eta kidekoekin egiten den sua.

Pilatu egurra erruz eta piztu **sua**. [Elizen arteko biblia](#)

Sua gartsu pizteko orduan, nekez topatzen zuen gure baseritarrak beste ezer otea bezain onik. [Pello Zabala](#)

Sute horiek San Juan **suen** pareko izan ziren. [Koldo Izagirre](#)

Sanjoan **su** hauek, guk herri eta auzo bakoitzean pizten ditugun hauek [...] beste lurralde batzuetan, mendi kaxko eta muinoetan egin ohi dituzte. [Pello Zabala](#)

Gudariak ez ziren egunsentira arte oharu etsaiek ihes egin zutela, **su** haien distira ikusten baitzuten. [Elizen arteko biblia](#)

9 karra.

Iraultzaren **sua** piztuta irautea helburu bada, beldur naiz idazpuru hauek ez ote duten juxtu kontrakoa lortuko. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

Oldarraren **suan** herra irakiten. [Berria - Harian](#)

Napoleonek ez omen zuen ulertzen poloniar haien atxikimendua, zaldun saiatu haien **sua** eta kementa. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Jesusek mundura ekarri zuen **su** hartan izioturik zegoela. [Askoren artean](#)

Apaizaren **su** ebanjelikoak eta apostolatu-antsiak politikara bideratu zirela. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Pipertu ninduen nire aurkariaren aldeko **su** horrek, hain beherturik uzten baininduen. [Aingeru Epaltza](#)

Su bizi batek bularreko hutsunea erretzen zion orain ere. [Karlos Zabala](#)

Jakoben ondorengoak **su** izango dira, Joserrenak gar; Esaurrenak, berriz, lasto. [Elizen arteko biblia](#)

Karitatearen **su**-labetik sortzen den anaien salbazioaren grina. [Askoren artean](#)

Saguaren azterketarako nire gogo-**sua** areago berotu zen jakin nuelarik bazela, organismo horretan, tasun berezi-bereziak zituen tumor bat. [Juan Garzia](#)

Geroz eta harrotuago, juduenganako amorru-**sua** zeriola, lasterrago joateko agintzen zuen. [Elizen arteko biblia](#)

Barne-**su** horrek bultzatuta, zuloa utzi eta zabal-zabalik eskaini zien bere burua pertsegiztaileen irainei. [Askoren artean](#)

Ondoan jarri nintzaion, ohe gainean, baina nire aita-**su** sasikoak makinatxoa nire eskuetara ekartzeara baizik ez zuen lortu. hala, geldiunearen ondoren, mendeku-**su** bizi batek derazio berriz Pirrori. [Aingeru Epaltza](#)

Maitale-**sua** epeldu egiten da, eta su epela ondo gauza ziztrina da, gero. [Joxerra Garzia](#)

Pipertu ninduen nire aurkariaren aldeko **su** horrek, hain beherturik zuden baininduen. [Aingeru Epaltza](#)

Haragizko desiraren **su** motelduak gar haserreak harrotu zizkion zainetan. [Irene Aldasoro](#)

Xuberoak baduela ondare bat guziz baliosa, euskararen aldeko **su** berri bat azkartuz doala, gazte batzu badirela geroari buruz arras deliberatuak eta beraz, hodei guzien artean, itxaropentsu behar dugula egon... [Herria](#)

Indar eta **su** ezezagun batek hartua zirudien zaldiak ere. [Josu Zabaleta](#)

Su eta gar da maitasuna, Jaunarengandiko sugar. [Elizen arteko biblia](#)

ik *beherago* 37. [Askoren artean](#)

Oren bat eta hiru laurden partida, zer **suan**! [Herria](#)

10 sutea.

Atzo goizeko zortziak inguruan piztu zen **sua**, oraindik zehazteke dauden arrazoiengatik. [Berria - Euskal Herria](#)

Etxebizitzako logela batean piztu zen **sua**, zehazki. [Berria - Euskal Herria](#)

Sua hasi eta berehala bildu ziren Urkidi atarian auzokoak. [Berria - Euskal Herria](#)

Suhiltzaileek **sua** kontrolatuta zeukaten arratsalderako. [Berria - Euskal Herria](#)

Auzokideek lortu zuten **sua** itzaltzea eta zauritua Baionako erietxera eman zuten osasun zerbitzuek helikopteroz. [Berria - Euskal Herria](#)

-**Sua**! -oihukatu zuen Arantxak-. [Joan Mari Irigoien](#)

-**Sua**, **sua**...! -entzun genuen solairua utzi bezain laster. [Rafa Egiguren](#)

Berehala hoska hasi zen: "**Sua**, **sua**!". [Juan Garzia](#)

11 su armez eginiko tiroa edo tiroak.

Gure bou txikiak egundalako **suan** ari direla Cervera kanoariarekin eta España korazatuarekin. [Koldo Izagirre](#)

Armadura distiratsuko zalduneria ezkoa bezala urtu zen espainolaren **su**-erauntsiaren pean. [Aingeru Epaltza](#)

Dinosaurioak kixkali zituen **su** erauntsiak hainbat hilabetez iraun zuen, eta hautsa eta hondakinak jaurti zituen lau haizetara. [Javi Cillero](#)

Erasoaldia 250 kiloko bonbez eta bonba **su**-eragilez burutu zela dio. [Edorta Jimenez](#)

Labana ingeles eta **su**-izkilu errusiarrak. [Xabier Olarra](#)

Berebiziko kanoi-**sua** piztu zuten ontzietako gudariak. [Patxi Ezkiaga](#)

Hirurak aldera tiro-**sua** egiten diete. [Edorta Jimenez](#)

Gainetara iritsi zirenean, karlistak, bi **suren** artean harrapatuta, erretiratu egin ziren. [Koro Navarro](#)

12 suan (ildo beretik sura, sutik) ik beherago 19.

Burdin peza handi bat **suan** ezarri omen zuten. Begia gainean ezarri orduko zer erabakiko eta ni goitik beheiti garbiaraztea, ur **suan** berotua eta larru beratzak erabiliz horretarako. [Herria](#)

Errabinoak **suan** erretako juduak, urkamendira zeramatzaten yeshivako ikasleak, birjina bortxatuak, ume torturatuak ikusten zituen ametsetan. [Koro Navarro](#)

Aldameneko **suan** zirti-zarta isilean ari dira sasiak eta abarrak. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Haragia gauza bat zen, baina lintxamendu bateko **suan** egositako giza odola erabat bestelako gauza zen. [Anton Garikano](#)

Emaztekin ibiltzea eta kalterik ez errezipitza, **suan** erre gabe egoitea bezala da. [Joan Mari Irigoien](#)

Garai batean jende klase guztiak sinisten zuten fede baten lastargi behiala aldareko **suan** gordetzen zena. [Xabier Olarra](#)

Haren dei-hotsera, itsasoan nahiz **suan**, lurtean zein airean, beren gordelekuetara biltzen direla izpiritu bidegalduek eta herratuak. [Juan Garzia](#)

Etxeok **sura** bota zizkioten manuskrito edo eskuizkribu frango, poliziaren beldurrez. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Orduan, kandela bedeinkaturik bada, hura piztu behar da ta gatza **sura** egotzi. [Pello Zabala](#)

Han, esperoan diraute, betiereko **sura** kondenatuek bezala. [Aingeru Epaltza](#)

Konponketaren aukerak ixten eta gatazkaren **sura** egur gehiago botatzen aritu direla. [Berria - Harian](#)

Ontzia tapatu edo bederen eltzekaria **sutik** urrundu. [Piarres Aintziart](#)

-Ikusi izan bazenu atzo goizean... -amak, zartagia **sutik** ateratzearrekin- "Put" eta guzti erran zion zuen izeba Gloriarri. [Aingeru Epaltza](#)

13 suko izlag

Gizon txikia, sutondoan pardela laga eta, **suko** hautsetan zer edo zer bilatzen ari zen bere makilatxoarekin. [Pablo Sastre](#)

Biek han jarraitzen dute eserita, isilik, ilunpetan, lurreko **suko** argia eta itzali gabe gelditu diren bi kandelaren distira lagun. [Xabier Olarra](#)

Mendi horietan zauzkaten othe-iratzeko ihaurkinak eta ere etxeke **suko** egurra. [Herria](#)

Bazterretan, haizeak harroturik, sanjoan **suko** piltzar errausturen bat. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

14 sura ik gorago 12.

15 surtan ik beherago 20.

16 surtara ik beherago 20.

17 surtatik ik beherago 20.

18 sutako (orobat surtako) izlag

ikatz puska haiek **sutako** hautsarekin estaltzen ziren. [Pello Zabala](#)

Butano txiki bat geneukana, bi-hiru **sutakoa**, eta hormak zikintzen zituen. [Ana Urkiza](#)

Bazekien nork zeukan hidropesia eta nork behar zuen **sutako** egurra. [Anton Garikano](#)

Mutilak egun guztian atzetik nitinan, jorratzen ari nintzenean, edo jeztan, edo **sutako egurra** ekartzen. [Anton Garikano](#)

Sardina erretzeko **sutako** brasetan etzan behar dela. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

19 sutansup_1 adlag suak harturik; haserre bizian.

Sutan zeuden mendi-mazeletan behera bidea irekitzeko. [Oskar Arana](#)

Ziur nongoen une batetik bestera gela **sutan** egongo zela. [Josu Zabaleta](#)

Horrek ez digu esaten ez nor den, ezta **sutan** erreta hil ote den ere. [Jon Muñoz](#)

Dolu eta samin izan zuen Maupassantek, aspaldi ez zela ikusi baitzuen Flaubert gau batean beren arteko gutunak **sutan** erretzen. [Josu Zabaleta](#)

Zortzi milaren bat hil ziren ezpataz nahiz **sutan** kiskaliak. [Elizen arteko biblia](#)

-Beraz, horrek guztiak ez dio ezertarako balio izan! -oihukatu zuen Léak, **sutan**. [Jon Muñoz](#)

Ez orain **sutan** jarri, David, horrek ez du batere laguntzen. [Oskar Arana](#)

Atso zaharra **sutan** zegoen errabiaz. [Karlos Zabala](#)

Sutan zegoen gizona neskaren kontra. [Jon Muñoz](#)

Sutan atera nintzen haren etxetik, kanpoko atea panpaka itxiz. [Joan Mari Irigoien](#)

-Putasemeak! -esan du poliziak **sutan**-. [Rafa Egiguren](#)

Amianok, jarri ohi zen bezala, bere onetik aterata begiak **sutan**, "ea zer zekien mukizu hark gerrari buruz, bezperan jaioa baitzen" bota zion. [Ramon Saizarbitoria](#)

Amaren uste gabeko etortzeak eta galdera horrek **sutan** ezarri ninduten. [Daniel Landart](#)

Odola **sutan** zeukan ordurako. [Migel Angel Mintegi](#)

20 sutansup_2 (ildo beretik sutara, sutatik; orobat surtan, surtatik, surtara) adlag suan. ik gorago 12.

Ur-tupina **sutan** berotzeko ere gauza ez naizela. [Itziar Otegi](#)

Ipini **sutan** eltze handia eta egin eltzekaria profeta-taldearentzat. [Elizen arteko biblia](#)

Poliki-poliki ari zen **sutan** berotzen eltze kafez betea. [Jon Muñoz](#)

Samovarra **sutan** jarriko dute, eta bere etxean bezain egoki sentituko da. [Karlos Zabala](#)

Telefonoa joka hasi zen une berean hasi zen borborka **surtan** zegoen ura. [Koro Navarro](#)

-Egin ditzagun adreiluak eta **sutan** erre. [Jose Antonio Mujika](#)

Tira, nik ez nuke eskua **surtan** jarriko. [Karlos Zabala](#)

Goiz-argiak argitzen zion bihotza eta pizten borondatea bere maitasunaren **sutan**. [Askoren artean](#)

Egurra **sutara** bota bitartean, abesten ari zen ahopean. [Iñaki Mendiguren](#)

Eseri eta **sutara** hurbildu ditu hotzak sumindutako eskuak. [Itziar Otegi](#)

Danek tu egin zuen **surtara**. [Koro Navarro](#)

Gutuna **surtara** jaurti eta oihu egin zuen. [Koldo Izagirre](#)

Sutatik ateratako ilintiaren antzera libratu zarete. [Elizen arteko biblia](#)

Pertza **sutatik** kendu, gehiegi berotu baino lehen. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Quenuk eltzea **surtatik** kendu zuenez gero, biak agertzen ziren. [Karlos Zabala](#)

21 sutik ik gorago 12.

22 beheko su

Ur hura pertz handi batean jartzen genuen **beheko suaren** gainean, larzetzetik zintzilik. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Beheko su bizi-biziaren aurrean eseri ziren hirurak. [Iñaki Mendiguren](#)

Gela txiki bat, **beheko su** handi eta atsegin batekin. [Iñaki Mendiguren](#)

Weasley andreak loreontzi bat hartu **beheko su** gaineko apaletik eta barruan begiratu zuen. [Iñaki Mendiguren](#)

Tiro txarreko **beheko sua**, piztu orduko itzaltzen zena. [Matías Múgica](#)

Zuk, bitartean, **beheko sua** piztu ezazu, txuletak hantxe erre behar baitituz. Afaritarako sua piztuta egon ohi zen **beheko suaren** harlauza gainean. [Eskarne Mujika](#)

Bere aulkian uzten zuten, sukaldeko zokoan, ikusten ez zuen **beheko suari** begira, arrosarioa aletuz. [Ramon Saizarbitoria](#)

23 nor bere opilari su ik opil 8.

24 su arma

Su arma baten hotsa iritsi zitzaion belarrira. [Karlos Zabala](#)

Haren begirada [...] **su-arma** baten antzekoa zen, edonori ilea lazteko modukoa. [Jose Morales](#)

Jack obsesionaturik dabil bortxakeriaren eta **su-armen** salmenta askearen kontuarekin. [Iban Zaldúa](#)

Erasotzaileak egoitzaren barrura sartu ziren **su armaz** tiroka eta eskuko lehergailuak botaz. [Berria - Mundua](#)

Laborariak beren igitai eta sardeekin; ofizialeak, mailuz, marrazaz eta lanerako bertze lanabesez hornituak; leinu hobekoak, ezpatak, baleztak eta are **su-armaren** bat ere eskuan. [Aingeru Epaltza](#)

Su arma kopuru handi hau jendartean banatuta egotearen ondorioz, hilketak nabarmen ugartu direla zehaztu du ikerketa txostenak. [Berria - Mundua](#)

25 su-argi (orobat suargi eta sutargi; Euskaltzaindiaren Hiztegian su-argi agertzen da)

Zaindarien **su-argia** ikusi zuen eta makurtu egin zen, etxetxo barrura begiratzen ausartzeke. [Felipe Juaristi](#)

Bazter batean zizekan **su-argia** indargetzen hasi zen; gero kliska egin, eta azkenerako itzali egin zen. [Juan Garzia](#)

Haren doministikuek **suargia** botatzen dute, begiek egunsentiak bezala dirdir egiten. [Elizen arteko biblia](#)

26 su artifizial pl/su festak.

Egitarauan, egun guzietan 18etan zezen lasterrak, 20.45etan **su artifizialak** Kontxan, eta 23.30etan kontzertuak urririk. [Herria](#)

Txapliguak, txinpart eta garrez osatutako egiazko **su artifizialak** ezkerreko zerumuga osoan. [Urtzi Urrutikoetxea](#)

Ekitaldi hau Donibane Garaziko zitadelan bururatu da, bideo, kontzertu eta **su artifizialekin**. [Herria](#)

Hala nola gertatzen den **su artifizialeko** ziriekin, zenbait mahainguru piztu egiten dira erabat itzaliak ematen dutenean, eta, itxura guztien arabera, gurea mota zoragarri horretakoa zen. [Bernardo Atxaga](#)

26a su aurre (orobat sutaurre) beheko suaren aurrea.

Bertan zeuden, **su aurrean**, zumitzezko jarleku apalak eta keak eta urteek leundu zuten zizailu galanta, ta zapaldetan, suila, morko ta beste urontzi batzuk. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Gela zeru-urdin bat zen, urrinez gozatua, zoruan piztia larruak zabaldua zituena, eta, **su aurrean** [...] aulki apal baten gainean, emakume ozta-ozta jantzi bat nire zain. [Josu Zabaleta](#)

Eguzkitik argi izpi berriak erioten baitira eta lehenengoak hil egiten dira, **su aurrean** irundutako artilea bezala. [Xabier Amuriza](#)

27 su baxu (orobat baju) beheko sua.

zoparen ontzia **su baxuan** jarri zuen berriro. [Berria - Kultura](#)

Hotz egiten zuen arren, **su-bajurako** egur bila doanaren izpiritu suspargaria jabetu zen berataz. [Harkaitz Cano](#)

28 su bazter ik supazter.

28a su burdina ik suburdin.

29 su eginsup_1

Jendeak suegurretarako erabili ohi ditu: nahiz **su egin** eta berotzeko, nahiz ogia erretzeko. [Elizen arteko biblia](#)

Bazter batean **su egin** eta hantxe erreko zuten zakurra. [Gotzon Garate](#)

Amak bekorotza batzen zuen, egurra, zaborra, **su egiteko**. [Eskarne Mujika](#)

Lanaldia amaitu ondoren, poztu egiten dira etxean sua piztuta badago, eta ez dira joaten plazara **su egitera**. [Felipe Juaristi](#)

Cowboyak kanpoan **egindako su** baten inguruan zeuden eserita jardunean. [Oskar Arana](#)

30 su eginsup_2 tiro egin.

Martinek pistola kargatu zuen, zaldi bat eta zalduna kotxera hurbiltzen ikusi, **su egin** zuen eta zaldia astun erori zen lurrera. [Koro Navarro](#)

-Bi metro baino gertuagotik **su egin** ziotela erran hidan atzo. kanoiak **su egin** ahal izan zezan. [Aingeru Epaltza](#)

Heriotzara kondenatuak berak afusilatuko duen pelotoiari **su egiteko** agindua ematea kemen gorenezko adierazpentzat jotzen da. [Jon Alonso](#)

-**Egin su**!
-oihu egin zuen Brionesek. [Koro Navarro](#)

30a su egun (corpusean suegun soilik)

Tartean, 14 egunera, udako solstizio ondoko sanjoanak: sutzar sakratuen egunetako bat, kea eta beroa medio, salto eta brinko gainetik eginez, lurrunez purifikatzeko **suegunetako** bat. [Pello Zabala](#)

31 su egur (orobat suegur) sutako egurra.

Lotu zuten txakurra gurutzeari, eman zioten **su egur** -metari, eta txakurraren ulu mingarrien artean, osaba Joanikoten boza aditu zen [...]. kanpalekutik atera egingo du leku garbi batera, gantzen errautsa botatzen den lekura, alegia, eta **su-egurraren** gainean erreko. [Joan Mari Irigoien](#)

Zuhaitz-adarrak ihartu eta hautsi egiten dira, eta **suegurretarako** bitzen dituzte emakumeek. [Elizen arteko biblia](#)

Hantxe, bazter batean, beste atxur, laia, hortzibiko, sega ta igitiaiak **su-egur**, azpantar, abarka ta soka zaharren laguntasunean. Xabier Mendiguren Elizegi

32 *su-emaile* (orobat *suemaile g.er.*) iz su ematen duen pertsona.

Den-denak emirraren banderapean elkarturik, **su emaile** eta bazter suntsitzaileren bandera haren azpian bat eginik. Karlos Zabala

Ruche jaunak ez zuen aurrerago joan nahi izan, eta baztertu egin zuen Grosrouvre bera izan zitekeenik **su-emailea**. Jon Muñoz

Gizon bat, saltzailea bera, bere dendaren barruan suak harrapatua, suz inguratua oihuka, inork ezer ez egiten, **su-emailea** barrez lehertzen, suak jaten ari dena irainka, "hauxe kiratsa, zaborra erretzen denean bezala". Felipe Juaristi

33 (izenondo gisa)

Bonba **su-emaileek** etxeak erretzen zituzten. Lutxo Egia

Esku oneko artilaria batek -bere artean ari da-, 81 mm-ko mortero bat baliatuz, 4-5 granada (2 fosforozko, 2-3 **su-emaile**) baizik ez lituzke behar tiroa doitu eta puxka ttikitan den-denak lehertzeko. Pablo Sastre

Atzera begiratuta nabaria den bezala, azken aro honek ez du zertan lotsatu iluntasunaz, barbaro **su-emaileen** suteek azkenean eurak erre zituztela esan nahi duen iluntasunaz. Iñaki Mendiguren

34 *su eman*

Dendari **su emateko** bi gizon ausart nahiko zirela. Karlos Zabala

Batzuek uste dute erre egin zela, Hawthorne-k berak **su emanda** edo biltegi batek su harturik. Oskar Arana

Berriz joan zen aterantz, bolborari **su eman** zion eta, bere gibelean atea hetsiz, alde egin zuen. Elena Touyrou

Ondoren, inguratu eta, erabat suntsitzeko, **su eman** zien dorreei eta barruan ziren guztiei. Elizen arteko biblia

Faxistek, bonbardaketa egin ondoan, gasolina edo ezantzas busti zuten hiria eta **su eman**, itxurak gordetzeko gisan; horrela nahi zioten munduari sinetsarazi hala ez zena. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Zabortegetian [...] zikinkeriak pilatu eta **su ematen** zietenean, hodei beltz trinko baten azpian desagertzen zen Azpil. Joan Mari Irigoien

Gero, auto abandonatua hartu eta gasolinaz ongi igurtzi ondoren, **su ematen** zioten, halako sute beltz ikaragarri bat sortuz. Karlos Linazasoro

-Zergatik **eman** diote **su** nire soroari zure morroiek? Elizen arteko biblia

Hegazkinen kontrako kanoi bat ere (*Vofors* markakoa) erre genuen garai hartan gasolinarekin **su emanda**. Rafa Egiguren

Zoazte eta **emaiozue su**. Elizen arteko biblia

Bere buruari **su eman** zion Elosegik eta Diktadorearen gainera salto egin Donostiako frontoi batean. Iñaki Segurola

Katek bere zigarroa piztu eta **su eman** zion komediantearenari. Harkaitz Cano

Sakelatik zigarro erdi bat atera, eta, **su eman** ziolarik, irrikaz lotu zitzaion erretzeari. Patxi Zubizarreta

Pipari **su emanez**. Elena Touyrou

35 *su emanarazi*

-Portu Handian zeuden itsasontzi guztiei **su emanarazi** zien Zesarrek, matxinatuek beraren itsas armada preso har ez zezaten. Jon Muñoz

Bere lurrak jendez hutsarazi, eta **su emanarazi** ziean tresnei. Juan Garzia

36 *su eta fu adlag*

Behin hantxe eroso ipini zuelarik, hamalau txortaldi jo zizkion segidan, **su eta fu**, begiak zuri-zuri, mihia hortzartean dantzari, espasmodikoki. Karlos Linazasoro

"Ni apaiz batengana, mekaguensandios", jarri zen **su eta fu** Brown jauna, irainka eta maldizioka, inoiz ez bezala. Karlos Linazasoro

37 *su eta gar adlag*

Nik **su eta gar** defendatu haut. Jose Morales

Amorruz hustuko du bere haserrean, **su eta gar** beteko bere mehatxua. Elizen arteko biblia

Baldin eta inor etorri izan balitz Big Lannieren gelara, Raymond itsuentzako eritegiren batera eramateko asmoz, aldamenekoak **su eta gar** borrokatuko ziratekeen haren aurka, harrika, irainka edota ur irakina parrastan jaurtika. Mirentxu Larrañaga

Burua **su eta gar** hasi zitzaion lanean. Migel Angel Mintegi

Su eta gar jartzen nau aurreiritzi jositakoek jende azal-ilunarekiko ageri duten hertsikeriak. Mirentxu Larrañaga

38 *su eta herio adlag*

Kortsarioak berriz, lerro bakar, armak eskuetan, herria **su eta herio** suntsitzeko prest zeuden hondartza gainean, begiak zorrotz. Felipe Juaristi

Jusuf Khan ez baitzen Timur Herrenarekin **su eta herio** Bagdad hiria suntsitu zuen hura bera. Felipe Juaristi

Eta une honetan, alemanak ghettoan sartu dira, **su eta herio**. Felipe Juaristi

Herriko ausartenaren aurka borrokatu nahi zuela, eta hark irabaziz gero barkatuko ziola herriari; bestela, **su eta herio**, ez zela harria harriaren gain geldituko. Felipe Juaristi

39 *su eta ke*

Egoitza jendez gainezka aurkitu zuen, eta haren ezagun bat, Jean-Martin Mondeteguy, mahai gainera hupaturik ari zen laster gauzatuko ziren aldakuntzen aipatzen, **su eta ke**. Elena Touyrou

Bouek Canariasekin **su eta ke** ekin ziotenean izan zen hortxe aurretxoan, Matxitxako eta Billano lurmuturren artean. Edorta Jimenez

Entzunda nengoen Bizkai osoak **su eta ke** ziharduela armadakoak prestatzen. Edorta Jimenez

Zeharka eserita, adia gona motzaren gainean zeukan ispilutxoan jarririk, **su eta ke** ziharduen bekainetako ile bihurriren batekin. Migel Angel Mintegi

40 *su-eten* (orobat *sueten g.er.*) iz

Martxoak 22, 2006; ETAk **su-eten** iraunkorra iragarri du. Joseba Zulaika

Su-eten iraunkorra deklaratu du ETAk martxoaren 24an. Rafa Egiguren

ETAri, hitzez hitz, **su eten** zabal eta iraunkor bat aldarrika dezala. Joxerra Garzia

Dauka ere gisa hortako urratsik ezin egin dela ETA-ren beste **su-eten** bat gabe. Herria

Apirilaren 8an sinatu zuten **su-etena** Gobernuak eta gerrillariak. Berria - Gaiak

Bi aldeek **su-etena** hitzartu eta errespetatu zuten bi hilabetez, eta bost bilera formal egin. Berria - Harian

Hildakoei lur emateko **su-eten** armatua. Xabier Olarra

Burkideekin hitz egin, eta, **su-eten** bat aprobetxatuz, beste aldera pasatzea. Inazio Mujika Iraola

su-etena indarrean sartu eta gero. Xabier Mendiguren Elizegi

Argi zegoen **su-eten** moduko hark ezin zuela oso luzaro iraun. Alberto Ladrón Arana

Mornatar gerlari batek ez luke **su etena** hautsiko biscaynetar txakur bat hiltzeko. Joanes Urkixo

Su etena bukatu ondoren, biolentziak inoiz baino indar handiagoarekin segitu zuen. Pello Salaburu

Su-etena onuragarria izango da garapen ekonomikoa areagotzeko eta enpresak erakartzeko. Berria - Ekonomia

Beraz **su-eten** berri baten alde biltzen hasi dira euskal kulturako ekintzaile batzuk. Herria

ETA-ren **su-eten** denboran. Herria

41 irud/hed

Salmenten balizko **su-etena** ere karikatuta baten itxura du. Berria - Ekonomia

Monikiek pentsatzen zuen ez zela argitasuna soilik, baizik eta horizontaltasunak berez inposaturiko **su-etena**, botere oreka. orain oharitzen da ezeroso sentitu zela bide osoan, Nerea eta Sebasen despedidako muxuak suposaturiko **su-etenean** izan ezik. Eider Rodríguez

42 su festa (orobat **sufesta g.er.** eta **txupesta g.er..**) *iz pl* jendaurreko festetan erabiltzen diren suzieren multzoa, lehertzean kolore eta ez-tandean ikuskizuna osatzen dutena.

Su festak primeran ikusten zituzten, denak egongelan eserita. [Berria - Harian](#)

Liburuaren azalak berak ere hiriaren postal turistiko tipiko bat erakusten digu, bere elementu guztiekin: Kontxa, Igeldo, Santa Klara, Urgull eta **su festaren** kolorea. [Berria - Kultura](#)

Azken Aste Nagusian **su festetan** erabili gabe geratutako bolbora eta materialen hondarrak. [Iñaki Iñurrieta](#)

-Aizue, gaur gauz **su-festak** izan dira ala...? [Joan Mari Irigoien](#)

Behera erori, berriz lasterka igotzen hasi, eta azkenean kolore biziko milaka argitxotan lehertzen zen, gorri, urdin eta berde, **su-festak** bezala. [Jose Morales](#)

Perpauask kadentzia baten arabera txirikordatu eta lotzeko gaitasunak **su-festa** baten antzera egiten digu ez-tanda begien aurrean. Eta **su-festak** piztu zizkidan bihotzean, txoro-txoro eginda bainangoen benetan. [Jon Alonso](#)

· Ondorio batera iritsi naiz, **su festa** saio bat egin nahi zutela. [Iñaki Iñurrieta](#)

42a su galda (corpusean sugalda soilik)

Bere oroitzapenen arabera aise imita zezakeen hainbeste emakumeren aurpegiatan (Ramsay andrearenean, esate baterako) ikusi izandako **sugalda**, aztoramena, amore ematea. [Anton Garikano](#)

43 su-gar ik sugar.

43a su geldi (corpusean sugeldi soilik)

Nabarregoxen bildua nuen sukarraren **sugeldiek** aski zuten guti pizteko. [Piarres Aintziart](#)

43b su geldo (orobat sugeldo)

Porta de Ferroko hego harresiaren aurka eraso behar zuen dorrearen sunsitzeko ekarri zuten jende guztiaren grina belikoa su bizirik **su geldora** pasatzea. [Jon Alonso](#)

Elementu horiek guztiak bat egiten dute lan horren koherentziaren baitan, eta argi dago **su geldoan** kuzinatatu direla, plater zapoetsu eta goxo baten osagaiak balira bezala. [Berria - Kultura](#)

Joana neukan gogoan bat-batean, *Creac'h*eko itzal iheslaria eta ikazten ninduen Maienganako **sugeldo** haragikorra. [Itxaro Borda](#)

44 su hartu

Veraren soinekoak **su hartzen** zuela imajinatu zuen. [Koro Navarro](#)

Bikeak bezala **su hartuko** du lurraldeak. [Elizen arteko biblia](#)

Zeluloideak erraz **su hartzen** duela jakinik. [Josu Zabaleta](#)

Fenixek **su hartzen** dute hiltzeko garaia iristen zaienean eta berritortu jaitzen dira beren errautsetatik. [Iñaki Mendiguren](#)

Batzuek uste dute erre egin zela, Hawthorne-k berak su emanda edo biltegi batek **su harturik**. [Oskar Arana](#)

Galiziako kostaldearen parean Urquiola petroliontzia **su hartu** zuen, eta 100.000 tona erregai isuri zuen. [Berria - Gaiak](#)

Orotara 45 edadetu joaten ziren autobusean, eta, antza denez, autobusak **su hartu** eta ondoren lehertu egin zen. [Berria - Harian](#)

Su hartzen ez duten etxeak edukiko genituzten, eta ez luken su-emailerik egongo. [Anton Garikano](#)

Eskuan zerabilen potasio-kloratoak **su hartuta** kiskali omen zituen. [Rafa Egiguren](#)

Eskuin belarririk ertzean du minik handiena: mediku gazteak esan zion bezala, hori izan zen benetan **su hartu** zion zati bakarra. [Oskar Arana](#)

Denak **hartu** zuen **su**: gari-bala, gari-soro, mahasti eta olibadiak. [Elizen arteko biblia](#)

Hamasei urteko mutil batek ez du pospolo beharrik su hartzeko: berez ere aise eta sarri **hartzen** du **su**. [Joxerra Garzia](#)

Gaizki itzalitako zigarro baten eraginez **hartu** zuen **su** etxebizitzak. [Berria - Euskal Herria](#)

2004an, Arrosadia auzoko etxe batek **hartu** zuen **su**. [Berria - Euskal Herria](#)

Kamioiak autobideko 137. kilometroan **hartu** zuen **su**, 10:00ak inguruan. [Berria - Euskal Herria](#)

44a su hauts (corpusean surtauts eta sutauts soilik) errautsa.

Olentzaro ikazkin edo **surtautsez** zikindua ageri ohi da betidanik. [Pello Zabala](#)

Sukaldeko 300 hitzak, ez dut uste nik askoz gehiago jakingo nuenik; Goierriko askoren belarrietan halako ximaur eta **sutauts** oihartzunak sortu arren, alde handirik ez horretan Donostiatik gurrera. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

44b su hesi (corpusean suhesi soilik)

Su hesi batek sareko komunikazioak aztertzen ditu eta soilik erabiltzaileak baimendutakoak iristen dira ordenagailura. [Berria - Gaiak](#)

44c su-hil (corpusean suhil soilik) izond

Gazteek lehorretik zekartzaten gainerako albiristeen oihartzunek *Ánimas* karrakaren arima **suhila** arripiztu zuten, zeren eta txaneltxokoekin berba urduri batzuk egiten amaitu baino lehen hantxe heldu baitzen beste ontzitxo bat, gure diruen kuxarekin eta armadako amabiaren aginduekin. [Edorta Jimenez](#)

45 su-hiltzaile ik suhiltzaile.

46 su itzalgailu (orobat suitzalgailu g.er.) su itzaltzeko erabiltzen den gailua.

Su itzalgailua hartu, eta berak amatatu zuen sute txikia. [Berria - Euskal Herria](#)

Inguruko zutabe batera hurbildu eta, handik tamaina handiko **su-itzalgailu** bat erauzirik, Konstirengana joan zen kulunka. [Josexto Azkona](#)

Telefonoa erazi diogu atzaparretatik, nahikotxo kostata, eta kameraren aurrean ostikoz zanpatu dugu, **su-itzalgailuz**, mailuz ere bai. [Karlo Linazasoro](#)

Kanbotarrak aitortu zuten ez duela lana besterik egiten (**su-itzalgailu** saltzailea da), eta han duela burua. [Berria - Kirola](#)

Harrizko zolaren gainean Minimax markako **suitzalgailu** bat zegoen. [Fernando Rey](#)

46a su-kolore (corpusean sukolore soilik) izond suaren kolorea duena.

Gorrimina zen haren aurpegia, **sukolorea**, kobrezko kopeken antzekoa. [Jose Morales](#)

47 su lama (orobat sulama g.er.)

Zigarrokin bat atera zuelarik, potea lehengo tokian ezarri, eta lanpararen **su laman** piztu zuen. [Patxi Zubizarreta](#)

Kandelen **su-lamei** begira. [Mirentxu Larrañaga](#)

Eta begira zegoelarik **su-lama** guztiz eder eta distiratsua ikusi zuen zerutik etortzen. [Askoren artean](#)

Zuk ikusi zenuen **su-lama** hartan Jainkoa zegoen, itxura hartan niri hitz egiten, antzina Moisesi hitz egin zion bezala. [Askoren artean](#)

Su lama batek -pasioak eta gartsutasunak hartutako bere bihotzetik etorriak-, begiak dirdirarazi zizkion. [Patxi Zubizarreta](#)

Su-lamara hurbiltzen den tximeleta bezala. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Lokomotora labe batek **su lamazko** erauntsi bat jaurtitzen dizu sabelera, zazpi mila metro gora. [Josu Zabaleta](#)

48 su leize suzko leizea.

Lajosek entzunaldian hartzen zuen jendea, begiratuarekin adierazten zuen gaitzespena edo onespina, eta batzuk zeruraino jasotzen zituen eta beste batzuk infernuko **su leizera** bidaltzen. [Ander Irizar](#)

48a su lerro (corpusean sulerro soilik) gerra batean, frontearen lerroa.

Halako egunetan **sulerroan** ematen genuen gaua, mendian, artilleriak lan ona egiten zuen eta hiru eta lau egun behar izaten genituen puskaile guztiak biltzeko. [Koldo Izagirre](#)

48b su mendi ik sumendi.

48c su meta (orobat sumeta)

Koadroak, lehen planoan, sutan zegoen or zuri bat arakusten zuen, zutik zegoena bere gidailen gainean, eta **su-metaren** erdiko makilari katez lotua. Joan Mari Irigoien

Sumeta berean erre zituzten, justiziaren aginduz. Juan Garzia

Ez duzue **sumeta** bat irazekitzen, suzko labirinto bat baizik. Juan Garzia

49 su-piztaile ik supiztaile.

49a su pizte (*corpusean supizte soilik*)

Supiztea, ordea, pozbide den aldetik, denboraren eta espazioaren mugetatik at dagoen zerbait da. Joan Mari Lekuona

Horregatik diote maisuek **supiztea** loturik doala zailtasunarekin, oinazearekin, eta atsedenk gabeko lanarekin. Joan Mari Lekuona

49b su pizteko ik supizteko.

50 su txakur

Kelleyren eraginez John Deek zientziarekiko loturak erabat hautsi zituen, eta asmakizunaren eta sineskeriaren **su-txakurren** atzetik joan zen betiko. J.M. Olazola
"Txiliiku"

51 su txiki

Su txikiak atzematen ziren aintziraren ertzean. Jose Morales

Su txikiak piztu ziren han-hemenka eta jendeak etorkizun berri batez hitz egiten zuen su horien bueltan. Jon Maia

Arropa bustita neukan eta hura erantzi eta **su txiki** bat egin nuen. Gizona, **su txikiaren** argitan, gezigitzan ari zen. Urrunean, baina ia zuzenean, **su txikiak** zipriztindutako iluntasunezko lakuaren beste aldean. Jon Maia

Gustavok kostaldea ikusi zuen gertu, labarrak eta labarrak bata bestearen atzetik, desolazioaren irudia, eta **su txikiak** bata bestetik gertu, hango biztanleek piztuta, maltzurkeriaren joko. Felipe Juaristi

Irrien espazio aldakor hartan, ez ote zuen ironiaren **su txikiak** berriro ere argi egiten bazterren batetik? Joan Mari Irigoien

Txiskeroaren **su txikian**. Unai Iturriaga

52 suak hartu (*orobat suakartu g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian su hartu eta suak hartu agertzen dira*)

Suak hartu zuen haren etxea. Egurra **suak hartuz** geroz edo berotuz geroz, aldiz, erraten da baduela berotzeko boterea edo ahalmena; zeren eta horren egiteko gaitasun hurbila baitu. Koro Navarro

Hau sagu-tranpa bat duk **suak hartzen** badik... Harkaitz Cano

Pinu handiko basotxo bat zartako elektrikoak jo eta **suak hartu** zuen tarantasetik hogeai pausora, zuzi erraldoi baten gisa. Karlos Zabala

Lastoa **suak hartuko** du eta irentsiko. hiru mila lagun hil ziren eta hiria bost egunez egon zen **suak hartua**, dena desegin zen arte. Elizen arteko biblia

Nire ezpata **suak hartu** eta egur zatia balitz bezala erre duk. Agustin Otsua

Eskuineko ur bazterrean, sutea parez pare izanik, zuhaitzak eta amildegiak **suak hartuak** zeudela ematen zuen. Karlos Zabala

Odolak eztanda egin zion masailetan Arantxari, lotsaturik eta **suak harturik**. Joan Mari Irigoien

Batzuk -suharrenak, **suak hartuenak** -, dena emateko prest bezala, edo lehenago, dena kentzeko prest paratu ziren. Iñaki Iñurrieta

Patrikatik gutuna atera eta kandelako garrera hurbildurik, gutuna berehala **hartu** zuen **suak**. Koldo Biguri

Sugarra ez da itzaliko, eta den-dena **hartuko** du **suak**, hegoaldetik iparralderaino. Elizen arteko biblia

Behin, sutondoan eserita zegoela, oharkabean lihozko galtzak **hartu** zizkion **suak** belau inguruan. Antton Olano

53 irud/hed

Faramir, bitartean, sukarraren **suak hartuta** zuen. Agustin Otsua

Panazko jaka erantzi zuen **suak hartuta**, dardarizo batean, eta zeuzkan guztiak probatu zituen. Karlos Linazasoro

Xaharra **suak harturik** mintzatu zen: [...]. Patxi Zubizarreta

Suak harturik, berba lohiak baino ez zitzaizkion irtetzen ahotik. Karlos Zabala

Badoa **suak hartuta** telefonoraino eta ohizko trumoikada botako du. Xabier Mendiguren Elizegi

Halaz guztiz, **suak harturik** atera da Txetxu, oihuka. Xabier Mendiguren Elizegi

Mundua **suak hartua** zian, eta halako gar eta ke artean zegoenez, burura etortzen zitzaidan, batzuetan, zalantza guztiak, arazo guztiak, grina guztiak erreko zirela.

Xabier Olarra

54 suzko errobera su festetan botatzen den suziri mota.

Bilboko jaietan **suzko erroberak** eta txapliguek erabat ikarutzen dute. Gotzon Garate

Bolanderak, **suzko erroberak**, Japoniako bonbak, hiru buruko txapliguak, umeak elkarri petardoak jaurtita, ehiztariak leihoetarik zerurantz kanoi bikoarekin... Koldo Izagirre

"Arrazoa **suzko errobera** bat da", idatzi zuen bere egunkarian, eta Filosofia utzirik Piroteknia ikastera lekutu zen urrengo hiri batetara. Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

emandako su etena (6); etaren su eten (42); etaren su etena (119); etaren su etenak (40); etaren su etenarekin (9); etaren su etenaren (76); etaren su etenari (11); etaren su etenaz (6); etxeari su eman (13); hartu zuen su (6); hilabeteko su etena (11); hiriari su eman (7)

iragarritako su eten (9); iragarritako su etena (13); iragarritako su etenaren (7); iraren su etena (7); jo eta su (90); jo ta su (9); labeko su (7); mugagabeko su (8)

su adarra (6); su aregungoeipopilsoooooopiloieogungoooooma (13); su artifizial (6); su artifizialak (12); su aurrean (6); su bat (31); su bizi (7); su biziak (6); su bizira (6)

su egin (7); su egiteko (6); su emaiten (6); su eman (259); su eman ondoren (6); su eman zien (11); su eman zion (49); su emanda (8); su emanez (17); su emango (40); su emango diet (8); su ematea (8); su emateko (21); su ematen (40); su eta gar (26); su eta herio (6); su eta ke (6)

+; su eten (272); su eten bat (23); su eten baten (12); su eten eskaintza (8); su eten garaian (10); su eten iragarpena (6); su eten iraukora (6); su eten iraukorra (58); su eten iraukorrak (19); su eten iraukorren (17)

su etena (916); su etena aldarrikatu (38); su etena arriskuan (6); su etena atzeraezina (6); su etena egiaztatu (9); su etena egiaztatzeko (14); su etena egiaztatzen (6); su etena eman (49); su etena emango (6); su etena ematea (12); su etena emateko (12); su etena eskaini (9); su etena eskatu (11); su etena eskatzeko (8); su etena eskatzen (10); su etena hautsi (22); su etena hitzartu (14); su etena indarrean (16); su etena iragarri (63); su etena lortzeko (8); su etena sinatu (10)

su etenak (134)

su etenarekin (36)

su etenaren (294); su etenaren aurretik (6); su etenaren berri (14); su etenaren berria (6); su etenaren harira (7); su etenaren inguruan (13); su etenaren inguruko (6); su etenaren iragarpena (8); su etenaren ondoren (25); su etenaren ondorengo (11); su etenaren ondotik (7); su etenaren ostean (28); su etenaren osteko (10)

su etenari (48); su etenaz (18); su etenean (21); su etenerako (11); su etenetik (9); su etenik (36); su etenik ez (8)

su festa (6); su festak (11)

su gainean (14); su galda (7)

su handi (24); su handi bat (10); su handia (8); su hartu (115); su hartu zuen (52); su hartuko (6); su hartuta (7); su hartzen (29); su hartzen du (7); su hazi (6); su hiltzaile (31); su hiltzaileak (38); su hiltzaileek (24); su hiltzaileen (16); su hiltzale (10); su hiltzaleak (19); su hiltzaleak erne (6); su hiltzaleek (10)

su kiskalgarría (14)

su lama (12); su lotu (21); su lotu da (11); su motelean (7); su ta gar (48); su ta garrek (7); su ta garren (9); su txiki (9)

airea eta sua (6); amaren sua (7); barneko sua (8); beheko sua (20); etxeko sua (8); gaitzeko sua (9); haserre sua (10); maitasunaren sua (6); olinpiar sua (8); piztu zen sua (8); piztutako sua (6)

sua amatatzeko (6); sua bizitu (6); sua egin (17); sua egiteko (10); sua egiten (7); sua eman (18); sua eskatu (7); sua eta kea (9); sua eta ura (6); sua hasi (8); sua indartu (6); sua itzali (27); sua itzali eta (6); sua itzaltzeko (12); sua itzaltzen (24); sua itzaltzera (8); sua lotu (12); sua lotu da (6); sua nahi (10); sua piztea (7); sua pizteko (17); sua pizten (34); sua piztu (98); sua piztu zen (10); sua piztu zuen (16); sua piztuko (6); sua pizturik (14); sua piztuta (14); sua sortu (7); sua zeriola (12); sua zertion (6)

ura eta sua (9)

suak erre (7); suak hartu (30); suak hartu zuen (9); suak hartua (9); suak harturik (12); suak hartuta (23); suak hartzen (11); suak irentsi (9); suak irentsiko (8); suak

kiskali (9); suak pizten (6); suak piztu (6)

beheko suan (7)
beheko suaren (31); beheko suaren aurrean (8); beheko suaren gaineko (6); beheko suaren ondoan (6); lurreko suaren (8)
suaren argitan (7); suaren aurrean (28); suaren erditik (12); suaren gainean (13); suaren gaineko (8); suaren gainetik (9); suaren inguruan (41); suaren ondoan (25)
suari begira (19)
bi suren artean (4)
aita sutan jartzen (7); begiak sutan (14); etxe bat sutan (7); etxea sutan (11); haserre sutan (15); haserre sutan jarri (7); hiria sutan (6); masailak sutan (9); odola sutan (6)
sutan berotzen (6); sutan bezala (6); sutan bizi (7); sutan dago (31); sutan dagoen (10); sutan daude (10); sutan erre (21); sutan erreko (8); sutan erretzen (21); sutan ezarri (8); sutan ipini (6); sutan jarri (120); sutan jarri zen (39); sutan jarri zuen (9); sutan jarriko (12); sutan jartzeko (7); sutan jartzen (76); sutan jartzen zen (16); sutan nengoen (11); sutan zegoela (15); sutan zegoen (41); sutan zen (9); sutan zeuden (16)
sutara bota (32); sutara botako (8); sutara botatzen (13)
gauerditan suzko zezena (9); suzko arma (6); suzko barrikadak (11); suzko barrikadak jarri (7); suzko bola (12); suzko gurdi (6); suzko zezena (21)

suabe 1 *izond* leuna.

Hitzak neurtuz, ahots doinu **suabe** eta baketsuz galdegin zion emakumeari ea zer egin behar zuen berak, Bakuko jaunak, haren maitasuna irabazteko. **Felipe Juaristi**
Soilik xuxurla **suabe** bat entzuten zen, haizeak zuhaitz hostoekin jolastuz egin ohi duenaren antzekoa. **Patxi Iturritegi**
Zerua urdin ageri zen, urdin **suabea**, zurbiltxo. **Koro Navarro**
Bai, berak "maite zaitut" **suabe** bat ahoskatzen zion noizbehinka. **Aritz Gorrotxategi**
-Orain ez, orain oso begi **suabeak** dituzula iruditzen zait. **Koro Navarro**
Lurrin baten izpiritu **suabea** airean ezereztu denean. **Xabier Amuriza**
Kulunka **suabea** aritzeko doinu egokiak dira, poliki gozatzeko, emeki entzuteko. **Berria - Kultura**
Kromatismo aldetik, bere artelaneak itxura **suabea** dute. **Berria - Kultura**
Ezpainik ez lukeen batek egingo lukeen bezala, musurik **suabeena** eman dit. **Alberto Barandiaren**
Sorbaldatik behera laban egiten du zure eskuak eta fereka albai leunen ematen saiatu zara: gauean bezain **suabe** eta gihartsua da. **Sonia Gonzalez**
Porro **suabe** bat egiten dut. **Berria - Harian**

2 (adizlagun gisa) ik **suabeki**.

Joan egiten zela, atea **suabe** eta emeki itxiz. **Felipe Juaristi**
Jo bai, jo liteke **suabe**, baina dantzarako grazia emateko astindu egin behar den tresna da soinua. **Pako Aristi**
Suabe dabil haizea. **Unai Elorriaga**
Harrigarria zen Santosek **suabe** hitz egitea. **Unai Elorriaga**
Astiro eta **suabe** irten zitzaizkion berbak. **Josu Landa**
Fonsecak **suabe** bultzatu zituen Mentxuren ipurmasailak, emakumea jaiki zedin. **Josu Landa**
-Rosario -deitu zion Mariak **suabe**. **Unai Elorriaga**
Suabeago ere berdin-berdin ulertuko zion alemanak. **Joxerra Garzia**
Tira egin behar dut, intentsitate jakin batekin, nire arreta osoa horretan ipiniz, ez **suabeegi**, bestela hari gehiagorekin nahastu eta denbora luzea eman beharko baitut askatzen. **Eider Rodriguez**

3 **suabe-suabe adlag**

Ukalondoetatik oratzen dit gero, **suabe-suabe**, erreparoz, kristal finekoa banintz bezala. **Suabe-suabe** mintzo da, eta ondo hausnartzen du erantzun bakoitza. **Anjel Lertxundi**
Horregatik, batari gozo zaiona besteari mingots bazaio, gozo zaionarengan oso gorputz leunak sartzen dira aho-sabaiko poroetan, **suabe-suabe**. **Xabier Amuriza**
Handiturik dago Emilio, eta galtzaren patrika-zulotik zakila laztandu du aspaldian ez bezala, **suabe-suabe**, bukaeraraino iristeko premiarik gabe. **Eider Rodriguez**
Ondo -txarto, alegia- portatuz gero atzetik ematen ere dezente gozatzen duela esan dit, **suabe-suabe** hastea sartzen eta gogor jotzea jarraian. **Urtzi Urrutikoeetxea**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
suabe suabe (10)

suabeagotu, suabeago(tu), suabegotzen da/du *ad* leunago bihurtu.

Zerbitzatzela amaitu arte itxaron zuen Mentxuk eta ondoren Luigik edalontzia goratu zuen, eta tonua **suabeagotu**. **Josu Landa**
Txistu sarkor batek oroimenez haria eten eta lokomotora eta bagoiaren arteko lehen talka iragarri zuen, estreinako bapora bufada, eta apurka **suabeagotzen** eta azkarragotzen zihoan trenaren abiada. **Josu Landa**

suabeki adlag leunki. ik **suabe 2**.

Atea, krisketa eman gabe zegoenez gero, **suabeki** hasi zen zabaltzen. **Joxemari Iturralde**
-Nire lehen irudipena egokia zen -erran zuen **suabeki** -. **Elena Touyarou**
Ez da miragarri simulakroak mugitzen aritzea eta besoei eta gainerako lohadarrei **suabeki** eragitea. **Xabier Amuriza**

suabiar izlagiz Suabiakoa, Suabiari dagokiona; Suabiako herritarra.

Baina guk -eta 'gu' esatean lonbardiarrak, saxoniarrak, frantziarrak, lorrenarrak, bavariarrak, **suabiar** eta burgundiarren esan nahi dut. **Iñaki Mendiguren**

suaingila ik **sugandila**.

suakartu ik **su 52**.

sualdi (*orobat sutaldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian sualdi agertzen da*) 1 iz sutea.

Leihoetatik **sualdiak** irteten ziren, eta amatatzen zela ematen zuenean sulama gorriak irteten ziren berriro bufadaka. **Joseba Sarrionandia**
Zabuka eta orekari eutsi nahirik, lurrazpiko atetik sortzen zen **sutaldi** itzela ikusteko aukera izan zuen. **Joanes Urkixo**
Sutaldi itsugarri batek Luthen arreta erakarri zuen: Birgha ezpata bere lana egiten hasia zen, eta zartada bakoitzean dozena erdi demonio xurgatzen zituen bere indarra

areagotuz [Joanes Urkixo](#)

2 irud/hed beroaldia; haserrealdia.

Eta, erori, ez gau ero bateko **sualdi** labur batean, baizik eta zorameneko erabateko pozoitze batean, maitasun gori gertagaitz batean. [Oskar Arana](#)

Haren zauriak eta heriotzak zeurea dakarte ondorioz; haren ikarak eta **sualdiak** bilakatzen zaituzte ausart edo beldurti. [Patziku Perurena](#)

Baina atzerritarrek zarete - **sualdiaren** ondoren, neurritz ari zen berriro-, eta ez dakizue, beharbada, san Jenaroren erlikiaren berri. [Joan Mari Irigoien](#)

Bertze **sualdi** batek hartu zuen napolitarra-. [Joan Mari Irigoien](#)

Ezer jazo ez izanaren itxurak egiten saiatu zen Mentxu, birritan dastatua zuen Joseluren **sualdia**, eta barrenean sentitzen zuen amorruari jaramon egin baino, astiro eta suabe irten zitzaizkion berbak. [Josu Landa](#)

suangilla ik sugandila.

suargi ik su 25.

suaro iz suteen aurkako lagunartea.

Lea-Artibain sortu zen mugimendua, eta Bizkaia osoan berrindartuz joan diren **suaro** elkarteak batzeko federazioa osatu zuten denborarekin. [Berria - Euskal Herria](#)

Suaroak, etxe erreen eskea, terramak... izen anitz jaso dituzte suteen kalteak arintzeko baserritarrek sortutako elkarteek. [Berria - Euskal Herria](#)

subalterno izond adindupekoa.

Kolonizazioaren ondorio izango da agian, baina idazle **subalternoa** naizela esaten dudanean esan nahi dut, Galiziako egunkarientzat, idazleak, Madrilen argitaratzen dutenak eta gazteleraz idazten dutenak direla. [Berria - Kultura](#)

subasta iz enkantea, errematea.

Usaian egiten denaren arabera, **subasta** edo norgehiagoka idekitzen ahal da Luzaideko Herriko Etxean bide eraikitze horri lotu nahi luketenen artean. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Garai hartan, leku askotan, erromeria tokiak **subastan** ateratzen ziren. [Pako Aristi](#)

Diru hori, jakina, alde zurretik ederrenen **subastan** aterea izaten zen. [Patziku Perurena](#)

subastau iz tutearen antzeko karta-jokoa.

Bazkalostean, Mundakako Kasinoan lagunekin **subastaua** karta jokoa ziharduelarik. [Edorta Jimenez](#)

Arratsaldeko laurak aldera, **subastauan** jokatzeko zihardutela. [Edorta Jimenez](#)

subatomiko izond atomoa baino tamaina txikiko partikulez aritzen dena.

Itsumena eta argialdi edo argitasuna hertsiki loturik ageri dira fisika **subatomikoan**, amodioan, erlijioan, ekonomian, artean eta beste holako fedezko zera guztietan. [Iñaki Segurola](#)

2004an nobelsaritutako ipuin **subatomiko** baten arabera, uestezko quark-ak elkarrengandik oso gertu daudenean, haien arteko interakzioa hain da ahula non ia partikula libreen gisan portatzen baitira, eta, aitzitik, quark-ak elkarrengandik urrunago, eta interakzioa handiagoa baita. [Iñaki Segurola](#)

subazter ik supazter.

subdiakono iz diakonoa baino maila bat beheragoko elizgizona. iksudiakre.

Ottaviano izeneko Aita santuaren **subdiakono** batek. [Askoren artean](#)

Jaingo Jauna Eliza santu katoliko eta apostolikoaren baitan zerbitzatu nahi duten guztiei, maila guztietakoei: apaiz, diakono, **subdiakono**, akolito, exortzista, irakurle, atezain eta kleriko guztiei, erlijioso eta erlijiosa guztiei, [...]. [Askoren artean](#)

Zesareo hau alemaniarra zen, Spiran jaioa, eta **subdiakonoa**. Würzburgeko anai Henrike, nobizioa, **subdiakonoa**. [Askoren artean](#)

subdialekto (corpusean subdialektu soilik) iz dialekto baten aldaera. • irud/hed

Zer egiten du kulturaren eta jakintzaren **subdialektuak**? [Iñaki Segurola](#)

subdibisio iz azpidibisioa.

Joan-etorrian aritu da autoz, estatu nagusi fantasma baten bila, dibisioko estatu nagusiaren bila, **subdibisioko** estatu nagusiaren bila... [Josu Zabaleta](#)

Horrelako orkestra bateko musikariek behar ez dituzten indikazioak (**subdibisio** ugari, anakrusak...). [Berria - Kultura](#)

subdito iz mendekoa, agindupekoa.

Nik uste nian hire klub horretan zerbitzua eskaintzen zuten neskatila guztiak Hassan erregearen **subditoak** zirela. [Bernardo Atxaga](#)

sube ik suge.

subenir ik **souvenir**.

subentzio 1 *iz* diru laguntza.

Editoreetako bat kexuka hasi zen, autonomietako argitaletxeek ez zutela kompetentzia leiala egiten, **subentzio** ederrak jasotzen zituztela. **Bernardo Atxaga**

Subentziorik gabe ezin da funtzionatu, eta **subentzioak** gutxi eman dira, eta gaizki eman dira. **Berria - Harian**

Bi aldeek adostu zuten iaz ikasle eta orduko 1,80 euroko **subentzioa**. **Berria - Euskal Herria**

Trieste **subentzioetatik** bizi da, biztanleria zaharra du, industria handirik ez, eta funtzionario eta bulegolari ugari, berriz. **Anjel Lertxundi**

Guk eragindako gastu hura "**subentzioen**" kapituluaren sartzen zela, "zeharkakoetan". **Bernardo Atxaga**

Aurki pikutara joango da belen antzeko estampa hori, kalitatez bikain ez baitabil eta kostu bizi-bizikiak dituelako, subentzioak **subentzio**. **Edorta Agirre**

Beharbada nire kolaboratzaileen kolorea ezaguna izateak **subentzio** guztiak galarazi dizkit eta arruinatu egin naute. **Joxe Azurmendi**

Jana, edana, lana, seguritate soziala, alokazioak, langabezia-sariak eta **subentzioak** estatutik ausarki eskuratu arren. **Itxaro Borda**

2 (hitz elkartuetan)

Herresta pakete haiek **subentzio** paperak beterik Herriko Etxera zihoazen eta guk gauza bera egiten genuen, hitz irudiz ekileagoak erabiliz. **Itxaro Borda**

subentzionatu, subentziona, subentzionatzen 1 du *ad* subentziona eman.

Subentzionatu behar al du Estatuak garraio publikoa? **Bernardo Atxaga**

Hautetsiei nahikoa zitzairen laborantzaren **subentzionatzea**, Herriarekin eta Jainkoarekin bakean jarduteko. **Itxaro Borda**

Gogoan izan literatura **subentzionatua** dela, eta iristen zaien guztiak onartzen dutela argitaletxeek. **Bernardo Atxaga**

2 (era burutua izenondo gisa)

Trieste hiri **subentzionatua** da; biztanlego zaharra duena; industria handirik gabea eta funtzionario eta bulegolari ugariak. **Berria - Kultura**

Hauxe baizen ez da euskal kultura ofizial **subentzionatu** txalotua. **Patziku Perurena**

subera *izond* kartsua, suharra.

Lañoa itxuraz baina **subera** tenpluan nahiz eskolan. **Aingeru Epaltza**

suberanismo ik **subiranismo**.

suberanista ik **subiranista**.

suberatu, subera, suberatzten 1 du *ad* altzairua eta kidekoak berri berotu. • *irud/hed*

Asian, non industri iraultza exotiko batek [...] sozialki artean **suberatu** gabeko komunitateen nahastura geografikoa eragin baitzuen bere ekonomi laborerako giza erregaia biltzeko prozesuan. **Iñaki Mendiguren**

2 (era burutua izenondo gisa)

Rohango neskatoa, erregeen ondorengoa, ihia bezain malgua baina altzairua bezain **suberatu**, liraina baina ikaragarria **Agustin Otsoa**

suberri *iz* pazko sua.

Sua piztekoan ere, **suberria** behar zukeen izan: gure txiskero eta poxpoloek ez zuten balio. **Pello Zabala**

suberritu, suberri, suberritzen 1 du *ad* sua berritu.

Labe gorria dirudite: okinak oreka egiten duenetik ogia jaiki arte gehiago **suberritu** beharrik ez duen labe. **Elizen arteko biblia**

2 kar berria hartu.

Bazirudien haurtzaroko poesia-txingarrak **suberrituak** zirela nigan; buru-belarri ekin nion lanari, sukar moduko batek harturik. **Juan Kruz Igerabide**

subersibo ik **subertsibo**.

subertatu ik **suertatu**.

suberte ik **suerte**.

subertsibo 1 *izond* ezarritako ordenaren eta ohiko balioen aurka borrokatzen dena. **iksubertsio 2**.

Aipatu egun horretan, ordea, atxilotu egin zintuzten, eta, galdeketa trinko baten ondoren, propaganda **subertsiboa** banatzen ibilia aitortu omen zenuen. **Rafa Egiguren**

Gramscik landutako "hegemonia"ren nozio **subertsibotik** asko ikas lezake euskal politikak. **Joseba Zulaika**

Saderen Obrak esangura **subertsibo** garbia du. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Helburu **subertsiboak** dituen komunikazio mota bat da. **Txema Ramirez de la Piscina**

Adierazpen nabarmenki **subertsiboak** izateagatik. **Joan Mari Lekuona**

Begiak ondo zabalduz gero, konturatzen gara egia kontatzea eskandalagarria dela, **subertsiboa** kasik. **Karlos Zabala**

Bazekiten **Askatasuna** oihukatzea beti dela **subertsiboa** gurean. **Koldo Izagirre**

Esaldi hura **subertsibo** xamarra iruditzen zitzaidan.

Joxan Elozegi

Subertsio instintu bakoitzak -eta naturala dena **subertsiboa** da beti-, ondoan du bere jendarmea.

Josu Zabaleta

2 (pertsonez)

Sade beste muturra zen, **subertsiboa**, matxinoa, disidentea, arau-apurtzailea, libertinoa, probokatzailea, bihurria, ateoa, profanatzaila, biraolaria, sakrilegoa, lotsagabea, madarikatua.

Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hitz batez: ez zen inondik **subertsibo** bat.

Matías Múgica

Eratat sinetsirik zegoen lizentziatu bat ezin zela izan benetan **"subertsibo"** bat.

Juan Garzia

subertsibotasun *iz* subertsiboa denaren nolakotasuna.

Erregimen intelektualiko kapitalista etnia anizkunak Nobel saria edo nik dakit zer eman ziola Knut urlriari, eta hura bai, hura **subertsibotasunaren** froga ukaezina zela.

Joxan Elozegi

subertsio 1 *iz* ezarritako ordenaren eta ohiko balioen aurkako borroka.

Bakea eta ordena soziala suntsitzeko eta **subertsioa** zabaltzeko ahaleginetan.

Joseba Sarrionandia

Langreo-ko eta Gijon-go portuetako sindikalista gorriak, **subertsioaren** profesionalak, oporra jotzera bortxatzen gintuztenak.

Koldo Izagirre

«**Subertsioa** eta Estatuaren segurtasuna arriskuan jartzea» leporatu eta bi eta hamabi urteko kartzela zigorra ezarri zien.

Berria - Mundua

Hegemoniaren artikulazioak eta **subertsioak** ulertzeko, baliokidetasunaren edo ekibalentziaren logika da harreman oinarritzkoa.

Joseba Zulaika

Subertsio politikoa baino, **subertsio** literarioa nahiago.

Berria - Kultura

Estatuaren **subertsioan** bat datoz ergelkeria eta elokuentzia.

Esteban Antxustegi

Eratateko **subertsioan** bizi, instituzio politiko eta errepresiboekin hautsi, kapitalismoaren ezaugarri moral eta ideologikoei aurre egin, sistema patriarkala desegin...

Rafa

Egiguren

2 (hitz elkartuetan) ik **subertsibo**.

Subertsio instintu bakoitzak -eta naturala dena subertsiboa da beti-, ondoan du bere jendarmea.

Josu Zabaleta

Ez da hor **subertsio** eta matxinada-gogo berezirik aurkitu behar.

Xabier Mendiguren Elizegi

Hiri errealtatearen hainbat esparrutan **subertsio** proiektuak garatzen dituzu; larrialdietarako etxebizitzaren inguruan makina bat ikerketa egin duzu, esaterako.

Berria -

Kultura

subespainol *izond* espainol izatera heltzen ez dena.

Euskal mamuro letratu tipikoa hiperespainol gisa figuratu nahian euskalduna dela dioen **subespainol** xaborra da, espainolak bezainbat kultura eta kultura bera duela frogatu nahi duen probintzianoa

Patziku Perurena

subespezie *iz* taxonomia-sailkapenean, espeziaren aldaera, eremu jakin batean gertatzen dena.

Gizaseme galdutzat zeukan Harry, gizasemetzat ere har ezin zitekeen organismo baten **subespezie** gisako bat, eta Floraren gaixotasunaren erruduntzat zeukan.

Oskar

Arana

Esate baterako, euskaraz nola deitu beharko diegu sozialisten baitan sortuko diren **subespezie** berri guzti horiei, Patri?

Hasier Etxeberria

subestandar *iz* hizkuntzetan, estandarraren aldaera, eremu jakin batean gertatzen dena.

Beste era batera esanda, eskualdeko **subestandarra** da "eskualdeko batua".

Koldo Zuazo

subfusil *iz* su arma automatiko eskukoa, hodia fusilarena baino laburragoa eta kulata tolesgarria duena.

Teoria pixka batekin batera, leherkariak nola erabiltzen ziren erakutsi zigun, eta pistola, errifle eta **subfusilekin** ere egiten genituen tiro-saio batzuk aldiari behin. Espainiako

Barne Ministerioak uste du **subfusil** bat erabili zutela tiro egiteko.

Rafa Egiguren

Guardia Zibilak uste du, hala ere, **subfusil** bat baliatu zutela erasotzaileek.

Berria - Euskal Herria

Han ziren milioi batzuk metrailadore kartutxo zintetan, hantxe 500 hegazkin bomba, 20tik 300 kilorakoak, hantxe 200 **subfusil** moderno -jotailurik eta betegailurik gabeak-

Edorta Jimenez

subgenero *iz* generoaren azpisaila. ik **azpigenero**.

Oraindik ere [...] oso modan dago Amerikatik etorritako izu eta ikarako **subgenero** literarioa -zenbait izu politikoki zuzenak dira, dirudienez-

J.M. Olaizola "Txiliku"

subil *iz* enborra.

Subil bat izatea kopatzat, edateko.

Xabier Olarra

Orduan **subil** moduko batekin zabaltzen zuen masa mahai gainean.

Pako Aristi

subilaro *iz* gabon eguna.

Gipuzkoa guztian eta baita Bizkaian ere, Olentzerori Gabon esan oi zaio, eta Araban **Subillaro**.

Patziku Perurena

subirania *iz* subiranotasuna. ik **burujabetasun**.

Jaunena lehen esandako moral "naturala" izango da (moralik eza, moral aurretiko edo moralaz haraindiko **subirania**); apal edo menpekoena, xumeena, "ohitura" izango da,

egitea baimenduta dagoena, **Joxe Azurmendi**

subiranismo (*orobat soberanismo g.er.*) *iz* subiranotasuna. ik **burujabetasun**.

Subiranismoak praxi erreale tartu behar du, eta horretarako gutxieneko argiaren behar dira, hori posible izateko aukera argiak badaudelako. Berria - Ekonomia

Autodeterminazioa helburu dugula, **soberanismoa** landu eta Gizarte-politikak aldatu beharra dauzkate euskal erakunde publikoek. Berria - Ekonomia

Atzoko erabakiak harlauza hori jokalekutik kendu egiten du, eta bidea zabaldu gure herriaren etorkizuna **subiranismoan** bermatuta ikusten dutenentzat. Berria - Harian

subiranista *(orobat soberanista)* 1 izond subiranotasunaren aldekoa.

Bloke **subiranista** eta klasekoa, aldatetaren motorra. Berria - Ekonomia

Gobernu **subiranista** osatzen saiatu gara, baina ezinezkoa izan da. Berria - Mundua

Hurrengo Eusko Legebiltzarrean Batasunaren mundua tokirik gabe utziz askoz zailagoa izango da gehiengo instituzional **subiranista** bat osatzea. Berria - Euskal Herria

Aralarrek «ezker **subiranista** zibila» egituratzea izango du xede. Berria - Euskal Herria

Ezkerreko polo **subiranista** plurala sortzeko eramuina jartzen ari gara. Berria - Euskal Herria

EAEko Estatutua «gainditzen» du planak, PSOEren ustez: «esparru autonomistatik esparru **sobiranistara** igarotzen da». Berria - Harian

Konfrontazio demokratikorako prest dauden sektore **subiranistekin** aliantzak adosteko. Berria - Euskal Herria

Sozialistek asmo **subiranistei** erantzuteko beste politika modu bat egingo dutela espero duzu? Berria - Mundua

Ezkerreko aukera **subiranista** zibila sortzea. Berria - Euskal Herria

Prozesu **subiranistarekin** amaitu ez dezaten lan egitea da errepublikanoen zeregina. Berria - Mundua

2 (izen gisa)

Autodeterminaziorako eskubideaz baliatzeak aukera ukatu zion Quebeci, federalisten pozerako eta **subiranisten** atsekaberako. Berria - Euskal Herria

Eta esparru horretan daukate benetako erroka euskal **subiranistek**. Berria - Harian

Subiranistek herritarren gehiengoa haiekin biltzea izango da gakoa. Berria - Harian

Egoera aldatu da eta **subiranistak** baikor eta konfiantzaz beterik ageri dira hirugarren bozketari begira. Berria - Harian

Ezker abertzale eta independentistako jendea, **subiranistak**, federalistak, konfederalistak, ezker sozial eta alternatiboko jendea [...]. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aukera subiranista (3); **ezker subiranista** (8); **ezker subiranista zibila** (6); **ezkerreko aukera subiranista** (3); **prozesu subiranista** (4)

euskal subiranistek (3)

subirano 1 izond inoren mendeko ez dena. ik burujabe.

Botere **subiranoak** du edozein lege hausteko eskubidea, edozein "salbuespen" aldarrikatzekoa. Joseba Zulaika

Estatuek bere baliabideak ustiatzeko eskubide **subiranoa** dute, eta bere ingurumen politika aplikatuko dute horretarako. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Botere gorena ere deitzen zaio; asanblada bati ematen zaionean, asanblada **subiranoa** esaten zaio eta, gizon bakar bati ematen zaionean, Estatuaren jaun **subiranoa** esaten zaio. Esteban Antxustegi

Estatu-nazio **subiranoetatik** egoera post-**subirano** batera pasatzen ari gara, non estatuz gaindiko, estatuz azpiko eta estatuen arteko sistemek errotik baldintzatuko duten Estatuaren ahalmen instrumentala. Joseba Zulaika

Gaur egun Estatu Batuak ia **subiranoak** dira kontinente honetan, eta beren *fiat*-a lege da beraiek esku hartzen duten gaietan. Iñaki Mendiguren

Irakurleak **subiranoak** dira, berek egunero erabakitzen dute kioskoetan zer erosi eta zer ez, dio merkatu librearen dotrinak. Txema Ramirez de la Piscina

Egia da Wall Street apur bat independente eta **subiranoagoa** dela, esate baterako, Bilbo edo Madrilgo burtsa baino. Berria - Ekonomia

2 goiena, oroz gainekoa.

Printzipio horien arabera, Jainko **Subiranoak** "gizartean bizitzeko egin du gizona". Piarres Xarriton

Dantzaldiko pertsonaia nagusia, jai eskaintzen zuena eta Kissoff jeneralak **subiranoei** dagokien begiruneaz tratatu zuena, xume jantzita zegoen. Karlos Zabala

• 3 iz erregezkoa edo kidekoa.

-Ene erregea eta ene **subiranoa**. Patxi Zubizarreta

Terraza haietan emirraren gortea kokatuko zen, eta, haren ondoan, khan aliatuak, khanerrietako goi agintariak eta Turkestango **subiranoen** haremak. Karlos Zabala

Herritar askatasunerako ordena eta legea ez direla posible beraiek bermatuko lituzkeen printze edo **subirano** bat izan ezik. Esteban Antxustegi

Legearen barruan eta kanpoan dago **subiranoa**. Joseba Zulaika

Subiranoek, herritarren zorientasunerako, ezin dute herritarrak kanpoko gerratik eta gerra zibiletik babestu baino ezer handiagorik egin. Esteban Antxustegi

Legea **subiranoaren** borondate aldarrikatua baita. Esteban Antxustegi

"Erpururik gabeko hiru hankako bizkarroker baten sasikumea!" esan zuen **subiranoak** trumoiutsu, "zergatik jo duk hain ahulki atseginez moztu behar hukeen lepoa?". Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

estatu subirano (4); **post subirano** (3)

estatu subiranoa (3)

estatu subiranoaren (4)

subiranotasun 1 iz subiranoa denaren nolakotasuna. ik burujabetasun.

Independentzia eta **subiranotasuna** (mundu post-subiranoan). Joseba Zulaika

Tribu horietatik batzuk askeak dira, eta beste batzuek **subiranotasuna** aitortzen diote edo Errusiari, edo [...] Turkestango buruzagirik izugarrienei. Karlos Zabala

Rousseauren ustetan, bestalde, **subiranotasuna** herrian datza. Markos Zapiain

Dinamika hori gero eta urrunago dago estatuaren kontrolerik, eta eraso egiten die estatuaren **subiranotasunaren** funtsezko zenbait ezaugarri. Koro Navarro

Europar Batasunak [...] estatuaren **subiranotasuna** nazioez gaindiko mailan berrosatu nahi du, **subiranotasun** hori, globalizazio-prozesuaren indarraren ondorioz, bere mamiaz husten ari baitzen. Koro Navarro

Dilema garbia izan da: **subiranotasuna** eta boterea ez galtzeko, lehenik **subiranotasuna** eta boterea entregatu egin behar. Joseba Zulaika

Subiranotasunaren azken helburutzat jo izan da independentzia. Joseba Zulaika

Atxikimendu libreak eta partekatutako **subiranotasunean** oinarritua. Herria

Ez du sinesten Kataluniaren **subiranotasunean**, eta nahiago izan du Madrilen boterea eta adiskideak izan. Berria - Mundua

Ordutik hona, legearen **subiranotasunaren** ideia ezinbestekoa da ordena politikoaren eta askatasunaren ikuspegi errepublikazale ororentzat. Esteban Antxustegi

Lógos edo arrazoiaren **subiranotasuna** azpimarratuko da. Askoren artean

Bertan behera utzi behar izan ditugu beste garai batean kontzientziaren **subiranotasunarekin** lotzen genituen diskurtso horiek guztiak. Xabier Arregi

Ekoizpen ereduak lotuta dago elikaduraren **subiranotasuna**. Berria - Ekonomia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Washingtonek eta Londresek Bagdadi «**subiranotasun** osoa» izuliko diotela agindu dute zirriborroan. Berria - Mundua

Subiranotasun "erlatiboa" esan eta kontraesana dirudi, baina gaur ikusten dugun edozerk ukatzen du **subiranotasun** "absolutua" kontzeptua politikaren munduan.

Joseba Zulaika

1990: Uzbekistango Alderdi Komunistak **subiranotasun** ekonomiko eta politikoa aldarrikatu zituen. Berria - Harian

Subiranotasun modernoaren adierazpen nagusia indarkeria erabiltzeko zilegitasuna izanik, ETAk garbi zuen indarkeria erabiltzeko eskubidea zuela. Joseba Zulaika

Disputatu guztiak **subiranotasun** nazionala ordezkatzeko dute. Berria - Harian

Nazionalismo periferiko hauek "nazio" direla eta "erabakitze" eskubidea" dutela aldarrikatzen dute, **subiranotasun** oinarritzkoaren arazoa jartzen dute mahai gainean.

Joseba Zulaika

Japoniak ez zuen pairatu ez **subiranotasun** alienatu baten traumatismoa, ez Mendebaldeko produktuen oldeak bertako industria arpilatzea. Koro Navarro

"Independentzia", "**subiranotasun** konpartitua", "eredu federala", "autonomia", eta abar arkitektura juridikoaren egitura alternatiboak ispatzen dituzten nozioak dira.

Joseba Zulaika

Subiranotasun mitikorik ez, botere tresna funtzional izango den administrazioa interesatzen zaigu. Joseba Zulaika

Estatuak bakarrik duela egiazko **subiranotasuna**. Joseba Zulaika

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hiru film haiek, «proiektu kultural interesgarriak» izateaz gain, «**subiranotasun** ekimena» ere izan ziren, Amigoren ustez, Madrilekiko menpekotasunik gabe egin baitziren.

Berria - Harian

Euskal nazionalismoak ere, besteek bezala, premisa oinarritzotzat har dezake aberriak **subiranotasun** eskubidea berea duela, historiak eta nahimen politikoak hala erabakita. Joseba Zulaika

Erabakitze eskubideari, erabaki subjektuei edota **subiranotasun** ereduari buruzko eztabaida argigarria egin zuten atzo Espainiako Kongresuan. Berria - Harian

Horrek **subiranotasun** politika moteldu eta politika soziala bultzatzea eragin zuen. Berria - Mundua

Kanariar Uharteetan ez dugu ulertzen zelan **subiranotasun** helburuak dituen gobernu batek kompetenziak Madrilerara bueltatzen dituen. Berria - Kirola

Afrikako herri batean, ez dut izena oroitzen, urtero egiten dute film bat "**subiranotasun** arrazoiengatik". Berria - Harian

Populu guztien **subiranotasun** printzipio sakratua. Piarres Xarriton

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Estatua ez dela legearen iturri bakarra, eta Estatu **subiranotasunak** ez duela benetako boterea inpliketzen. Joseba Zulaika

Autogobernuan oinarrituz, herritarrek arreta bikainerako eskatzen duten hezkuntza-**subiranotasuneko** mailarantz aurrerapausoak ematea nahi du EAJk. Berria - Euskal Herria

Parroki estatuetan gorputzuriko lurralde-**subiranotasunaren** erakunde zaharraren gain. Iñaki Mendiguren

Diru-**subiranotasuna** banatuz. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskal herriaren subiranotasun (3); **herriaren subiranotasun** (3); **subiranotasun bakarra** (3); **subiranotasun ekonomikoaren** (3); **subiranotasun nazionala** (8); **subiranotasun osoa** (8)

diru subiranotasuna (3); **espainiaren subiranotasuna** (4); **estatuaren subiranotasuna** (3); **gibraltarren subiranotasuna** (5); **herriaren subiranotasuna** (5); **herrien subiranotasuna** (5); **jatorrizko subiranotasuna** (4)

subiranotasuna aldarrikatu (3); **subiranotasuna aldarrikatzeko** (4); **subiranotasuna berreskuratu** (5); **subiranotasuna errespetatzen** (3); **subiranotasuna eta autodeterminazioa** (3); **subiranotasuna eta independentzia** (5); **subiranotasuna irakiarren esku** (11); **subiranotasuna lortzeko** (3)

euskal subiranotasunaren (4); **herri subiranotasunaren** (4); **herriaren subiranotasunaren** (4)

subiranotasunaren alde (8); **subiranotasunaren aldeko** (15); **subiranotasunaren aldekoek** (3); **subiranotasunaren auzia** (3); **subiranotasunaren bidean** (6); **subiranotasunaren defentsa** (3); **subiranotasunaren inguruan** (3); **subiranotasunaren pean** (3)

subiranotasunari buruzko (6); **subiranotasunari uko** (4)

subiranotasunean oinarritutako (4)

subiranotasunzale iz subiranotasunaren zalea den pertsona.

Subiranotasunzaleek egin zuten gobernu. Berria - Mundua

subirautza 1 iz subiranotasuna.

Euskal Herrian **subirautzaren** eta aldaketa sozialaren trenari bide eman ahal izateko trenbidea ipintzeko ordua da. Berria - Ekonomia

Sindikatuaren ustez, baserriaren eta kontsumitzaileen **subirautzaren** aurka doaz halako haziak. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan)

Nahi dugun Europak herri **subirautza** berezarri beharko du, bere instituzioak herritarrei hurbilduz Berria - Euskal Herria

subitoki ik supituki.

subjektibatu, subjektiba, subjektibatzen 1 du ad izaera subjektiboa eman.

Hortaz, hautematea tartean dagoela ikusita, edertasunaren kontzeptua -plazera sortzen duena- hasiera-hasieratik subjektuaren mende geratzen da, hau da, **subjektibatu** egiten du Hutchesonek. Askoren artean

Talde kontzientziatuak herri garaituaren egoera larria aztertu eta **subjektibatu** egiten du. Joseba Zulaika

Adimena -gizabere kreatuaren zolitasun hori- errotik **subjektibatu** eta mugakortu egiten du. Askoren artean

2 (era burutua izenondo gisa)

Unibertsalaren gertakaria onartzen duenarengan honek ondorio **subjektibatuak** ditu Joseba Zulaika

subjektibismo *(orobat subjeticismo g.er.)* iz teoria epistemologikoa, ezagueraren baliozkotasuna subjektu ezagutzaile eta juzgatzaile mugatzen duena.

"Modernitatea" hitza, bestalde, ezaugarri batzuei buruz ari garenean erabiltzen dugu, alegia, moderniarene aroko ezaugarriei buruz ari garenean batik bat, baina -modu abstraktuan ulerturik- oraingoak ere izan litezkeenak (**subjektibismoa**, razionalismoa, etab.). Askoren artean

Norbait **subjektibismoaren** aldekoa baldin bada, hura da, filosofo mistiko danesa. Piarres Aintziart

Subjektibismoak, adibidez, etikaren baliotasun unibertsala edota objektibotasuna zalantzan jartzen du. Askoren artean

Kontua ez da, **subjektibismoarekin** ikusten genuen bezala, etikak egia objektiborik ezin duela azaldu soilik, egia horiek askotarikoak eta elkarren artean neurgaitzak direla baizik. Askoren artean

Erlatibismoaren eta **subjektibismoaren** moda maiz deskribatu da literatura garaikidean. **Joxe Azurmendi** 1950ean, Frantisek Halas poeta laguna defendatzeagatik, egoera zailean geratu zen: **subjektibismoa** praktikatzeaz akusatu zuten. **Berria - Kultura**

subjektibista *(orobat **suje**t**ibista g.er.) izond/iz subjektibismoarena, subjektibismoari dagokiona.***

Epistemologiaren alorrean lan bat egitera bazoaz ezin duzu emantzat jo objektuek koloreak badituztenik (propietate bigarrenen teoria **subjektibistak** alde batera uzten dituzula esplizituki esan gabe ez behintzat). **Askoren artean**

Kredo **subjektibista** inozo samar horretan espresionismoak adierazpenaren kontzeptua, oro har, finkatu du, eta ez da gutxietsi behar kontzeptu horrek gaur bertan ere oraindik duen eragina. **Josu Zabaleta**

Bere *punctum* kontzeptuarekin, definizio honi gailurra jarri baizik ez du egin Barthesek, berariaz adierazpen **subjektibista** bat emanez. **Josu Zabaleta**
Suje**tibista**, burges tiki edo utopiko batzuk besterik ez dira. **Iñaki Heras**

subjektibitate *(orobat **suje**t**ibitate g.er.) iz subjektibotasuna.***

Horri deritza subjektibismo edo **subjektibitate** modernoa -razionalismoarekin batera, paradigmen bigarren ezaugarri nagusia-. **Askoren artean**

Modernitateak **subjektibitatea** gainditzeko aurkitu duen modua arrazoimena **subjektibatetik** aparte jartzea da. **Berria - Kultura**

Subjektibitatearen biziagotzea; Casimir Edschmid (1918): "Errealitatea geuk sortu behar dugu". **Josu Zabaleta**

Nork bere burua adieraz dezakeelako ideia ez da erromantizismoa baino zaharragoa; gogoratu beharra dago hori, **subjektibitatea** adieraztea gauza normalizat, eta are desiragarritzat ere [...] hartua den garai honetan. **Josu Zabaleta**

Euskal Herrian beti familiak, elizak, tradizioak agintzen zuen; ez dugu izan **subjektibitatearen** edo kontzientzia autonomoaren tradizioirik. **Joxe Azurmendi**

Ahalmen global edo integratzaile horrek ahalbidetzen dizkigu generalizatzea eta gogoeta egitea eta, orobat, **subjektibitatea** eta bere buruaz jabetzen den *ni* bat garatzea. **Xabier Olarra**

Informazioak **subjektibitateari** itzuri egiten dion artean, narrazio literarioan idazlearen arrastoak dira nonahi azaleratzen direna. **Iñigo Aranbarri**

Irakurlearen **subjektibitateari** ez kilima, ez zimiko, ez zirrara egiten ez dioten berri horiek guztiak. **Iñigo Aranbarri**

subjektibo *(orobat **suje**t**ibo g.er.) 1 izond*** norbanakoaren sentimenetan oinarritzen dena; burutik edo gogotik at izatasunik ez duena.

Euskalkien arteko aldea txikia edo handia ote den beti da **subjektiboa**: batendako handia dena, besteaendako ezereza da. **Koldo Zuazo**

Energia psikikoaren isuri "librearen" eremua da: inkontzientearen "hizkuntzan" eta haren lekualdaketa eta kondentsazio-prozesuetan oinarritzen den adierazpen **subjektibo**, neurotikoaren eremua. **Josu Zabaleta**

Kalitatea erlatiboa eta **subjektiboa** omen da. **Iñaki Heras**

Kartesiar metodoak babestutako ezagutza, hortaz, badirudi **subjektiboa** dela, gogo barnekoa. **Askoren artean**

Paper idatzari errespetua izaten zaio, eta mundu guztiak daki idazlearentzat balio **subjektibo** handikoa izan daitekeela. **Ramon Saizarbitoria**

Subjektu ikusleari, bere alderdi **subjektiboan** bai, baina analitikoak ez den modu batean begiratu nahi zaio. **Josu Zabaleta**

Irudi horiek ingurune **subjektiboan** eta sozialean nola erabiltzen diren aztertzea. **Josu Zabaleta**

Sexualitatea bakoitzak bere erara bizi du, modu **subjektiboan**, bere izate femenino edo maskulinoik eta bere desioen arabera. **Luis Elberdin**

2 subjektuaena, subjektuari dagokiona.

Definizio **subjektiboa**: subjektu bat adierazten duena da adierazgarria, subjektu sortzailea adierazten duena normalean. **Josu Zabaleta**

Denok dugu [...] adierazgarritasunari buruz halako "berezko" kontzeptu bat, gutxi-asko estandarizatua, teoria **subjektiboaren** eta teoria formalaren halako nahaste moduko bat. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baldintza subjektibo (11)

alde subjektiboa (3); **analisi subjektiboa** (4); **baldintza subjektiboa** (5); **hiztegi subjektiboa** (8)

baldintza subjektiboak (6); **oinarri subjektiboak** (3)

modu subjektiboan (3)

subjektiboki *adlag* era subjektiboan.

Subjektiboki zein objektiboki gogobetegarria den ustea jakitea da. **Ibon Uribarri**

Funtsean ez gara ari azentuaren izaera fonetiko, fisiko, objektiboaz, hiztunak **subjektiboki** bere oharren linguistikoan ematen dion pisuaz baizik. **Lourdes Oñederra**

Subjektiboki ere onura sumatu zuten tratamendu esperimentalak jaso zuten pertsonak: «Jendeak esan zigun memoria arazo gutxiago zituela, eta hobeto planifikatu zitzaizkela gauzak». **Berria - Harian**

Puntuak puntuko korrespondentzia zehatza zegoen bien artean, eta alde hartan, **subjektiboki**, ikusmenezko munduko irudi bihurturik pertzibitzen ziren. **Xabier Olarra**

Batasun sistematiko honek ez dio balio arrazoimenari objektiboki oinarri-esakune baterako, honela objektuetara hedatzeko, baizik **subjektiboki** maximo gisa objektuen ezagutza empiriko ahalgarri orotara hedatzeko. **Ibon Uribarri**

Bere absolutu moduak edukitzen ditu **subjektiboki** bakoitzak (norbanakok, herrik, erlijioak, kulturak, arok): gure kulturaren haragia ez gordinik eta sardeskarekin jatea, nahiko absolutua da. **Joxe Azurmendi**

subjektibotasun 1 *iz* subjektiboa denaren nolakotasuna. ik **subjektibitate**.

Adierazi egiten zuen hartara, modu ezin laburragoan, sasiko erromantiko guztien buruan zebilena, hots, garrantzizkoa barnea zela, **subjektibotasuna**. **Bernardo Atxaga**

Dohain izugarriak izan ditzaketen arren, hain eskas dutela [savant autistek] **subjektibotasuna** eta barne-bizia, non beren irismenetik kanpo baitago goi mailako sormena. **Xabier Olarra**

Ihes egin behar geniola sentimentalismoari, **subjektibotasun** gehiegia arimaren ahuldadea erakusten omen du-eta. **Anjel Lertxundi**

Nartzisismo hau amaituz gero, garai post-ETA hauetan zer **subjektibotasun** berri egin behar zaio bidea? **Joseba Zulaika**

Oinarri horiek zuk zeuk jartzen dituzu zure **subjektibotasun** guztiarekin, eta oinarri horien arabera mundu txiki bat eraikitzen duzu. **Ana Urkiza**

Elkarrizketetan ere **subjektibotasun** gradu handia onartzen da orain. **Berria - Euskal Herria**

Subjektibotasun hori ezabatzeke, ironiaz baliatzen ahalegintzen da Anne Frank. **Josu Zabaleta**

Zure **subjektibotasunetik**, beraz, zer da literatura ona? **Ana Urkiza**

2 (hitz elkartuetan)

Uko egingo zaio, beraz, diskurtsoan adierazpen-fenomeno bat ikusteari [...]; gehiago bilatuko da **subjektibotasun**-posizio ezberdinentzako erregulartasun-arlo bat. **Xabier Arregi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

subjektibotasun berria (4)

subjektu iz

Konposizioa oihalaren azaleraren (edo, orokorrago, azalera margotuaren, **subjektu** deitu ohi denaren) harmoniazko banaketa geometrikoa da batez ere. **Josu Zabaleta**
New Yorkeko margolari gazte bat, Julian Schnabel, oso famatu egin da oso denbora gutxian **subjektu** bezala oihal bat erabili eta haren gainean portzelanazko plater puskek erantsiz **Josu Zabaleta**

subjektu ik subjektu.

subjektu *(orobat subjektu g.er., subjektu g.er., sujeta g.er. eta sujetu g.er.)* 1 iz pertsona edo pertsona-taldea, pentsatzen duen edo aritzen den izaki gisa hartua.

Guk ikusle deituko dugu **subjektu** edo nor hori. **Josu Zabaleta**

Ispiluan begiratu, eta NI izeneko **subjektu** bat ikusi dut berbertan. **Anjel Lertxundi**

Ezagutza zuzena, **subjektu** batek objektu bat enpirikoki zuzenean ezagutzea, ezagutza ororen oinarrian egongo da. **Askoren artean**

Justifikazioa **subjektu** horrek ezagutzen ez dituen gauzen mende ere badago, haren errepresentazioetatik at dauden gauzetan. **Askoren artean**

Zenbatuak izan daitezten era substantzialean edota, nolabait esanda, esentzialki, ez **subjektu** baten akzidente gisa, gorputzean beroa edota itxura bezala. **Imanol Unzurrunzaga**

Zerizan pentsatzaile bat, pentsatzailea den aldetik soilik kontsideratuta, ezin da **subjektu** gisa baino pentsatu; beraz, **subjektu** gisa soilik existitzen da, h[au] d[a], substantzia gisa. **Ibon Urbarri**

Nire existentzia pentsatzean neure burua judizioaren **subjektu** gisa erabil dezaket. **Ibon Urbarri**

Euskal Herrian ikasteko eta hezkuntza prozesuan **subjektu** izateko eskubidea dutelako, kolektibo gisa jarduteko eskubidea dutelako. Esalditik kanpoko **subjektu** hau ez al da, besterik gabe, bera artikulatu duen edo idatzi duen benetako **subjektua**? **Berria - Euskal Herria**

2 (izenondoekin)

Ezagututako objektu eta **subjektu** ezagutzailearen arteko harremanera. **Askoren artean**

Ispiluan begiratu, eta NI izeneko **subjektu** bat ikusi dut berbertan. **Anjel Lertxundi**

Langile klaseak **subjektu** askatzailea izaten jarraitzen du? **Berria - Mundua**

ETAk bere **subjektu** tragikoa inposatua zion dagoeneko gizarteari. **Joseba Zulaika**

Ez Zapaterok, ez Raxoik ez dute onartzen Katalunia **subjektu** politikoa denik. **Berria - Harian**

ETA erakundeak hedabideetan - **subjektu** informatibo legez- agertzeko duen eskubidea. **Txema Ramirez de la Piscina**

Akzidentez hustu behar da mundua eta, horien orde, rrazionaltasunez eta behartasunez bete - **subjektu** matematiko baten pean-. **Askoren artean**

Atributua **subjektu** kalifikatuaren esentzia bera denean, hori tautologia besterik ez da. **Xabier Kintana**

Galdera esplizituen multzo baten arabera **subjektu** galdetzailea da, eta informazio egitarau baten arabera **subjektu** entzulea da; **subjektu** begiralea da trazu berezien taula bati dagokionean. **Xabier Arregi**

Subjektu teorikoak ez bezala, **subjektu** moralak hasieratik beretik "badaki" -bere moraltasunak postulatuta- arima hilezkor bat duela, Jainko epaile bat dagoela [...].

Askoren artean

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Horren parean, beste **subjektu** -mota bat agertu da: gizarte zibila. **Txema Ramirez de la Piscina**

Proposizio bat a priori dago justifikatuta haren predikatu-kontzeptua **subjektu** -kontzeptuaren barne dagoenean. **Askoren artean**

Subjektu -pentsamenduari unibertsalki dei egiten diona singularra da. **Joseba Zulaika**

Komunikazioaren **subjektu** -hartzaille berria lortzeko, gutziz beharrezkoa da sintesi-ahalmena edukitzea. **Txema Ramirez de la Piscina**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ikerkuntza-**subjektu** horren behinekotasuna, gizarte zenbaiten balio eta bizi-sistematan daukan kokapen estrategikoa [...], modu xumean baina sendo, aldarrikatu izan dute elikaduraren historialariek. **Edorta Agirre**

5 perpaus batean, predikatuan esaten dena dagokion pertsona edo gauza.

Honelako aditzek argiro frogatzen dute pasiboa **subjektu** eta objektuaren leku-aldaketan oinarritu behar dela. **Itziar Laka**

Perpausuan **subjektu** gramatikala "Gretak" da, eta adierazpen predikatiboa "zakurtasuna zertzen du". **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erabakitzeko subjektu (3); eskubide subjektu (5); eskubide subjektu bakarrak (3); eskubideen subjektu (3); gure subjektu (3); hezkuntza prozesuan subjektu (3); prozesuan subjektu izateko (3)

subjektu absolutua (3); subjektu aktibo (9); subjektu aktiboa (3); subjektu bakarrak (3); subjektu bera (3); subjektu berean (7)

subjektu enuntziatzailearen (3); subjektu eta objektu (3); subjektu gisa (36); subjektu gisa soilik (4); subjektu hitzun (5)

subjektu izateko eskubidea (4); subjektu kolektibo (3); subjektu modernoa (3)

subjektu objektu (4); subjektu pentsalaria (3); subjektu pentsatzaile (4); subjektu pentsatzailea (6); subjektu pentsatzaileak (3); subjektu pentsatzailearen (9); subjektu pentsatzailearen batasun (3); subjektu politiko (39); subjektu politiko bat (3); subjektu politiko bezala (4); subjektu politiko gisa (11); subjektu politikoa (14); subjektu politikoa (3); subjektu politikotzat (5); subjektu predikatu (3); subjektu pribatuek (4); subjektu tragikoa (4); subjektu transzendental (4); subjektu transzendental (4)

subjektu zentratu (3)

enuntziatuaren subjektua (8); erabaki subjektua (4); subjektua aditza (3); subjektua bera (4); subjektua eta objektua (4); subjektua izan (7)

erabaki subjektuaren (5); gure subjektuaren (3); nire subjektuaren (5); subjektuaren adigaia (3); subjektuaren adigaiari (3); subjektuaren batasun (3); subjektuaren eta objektuaren (5); subjektuaren mende (4)

subjektibismo ik subjektibismo.

subjektibitate ik subjektibitate.

subjektibo ik subjektibo.

subjetu ik **subjektu**.

subjunktibo ik **subjuntibo**.

subjuntibo (*orobat subjunktibo g.er.*) 1 iz mendeko perpausen aditzaren gramatika modua, euskaraz, *-n* edo *-la* atzikiaz hornituriko *-dadi-* edo *-deza-* laguntzaileen saileko adizkiak izendatzeko erabiltzen dena.

Helburu horiek iristeko balio duten neurrian baizik ez dira landuko **subjuntiboa**, hatxedun hitzen zerrrenda, metafora eta euskalkien ezaugarri morfosintaktikoak **Subjuntibo** burutugabearen erabilera ere ez zitzaidan hastio, naturalki zetorkidanean. **Joxerra Garzia**

Nor-nori, zer-nork eta *zer-nori-nork*, nola indikatibozko hala **subjuntibozko** formetan jokatuak, bai orainalditik lehenaldira (urruna barne) eta bai lehenalditik orainaldira bateratsu pasatuz. **Josetxo Azkona**

2 irud/hed

'Gu ere apur bat **subjuntiboak** gara...' esan zuen Inazitok ahapeka. **Joseba Sarrionandia**

subklabio *izond* zainez mintzatuz, lepauztaiaren azpian dagoena.

Azkenean, atzera odolera itzultzen da linfa, klabikula edo lepauztaiaren atzean dauden zain **subklabioen** bitartez. **Irene Aldasoro**

subklase *iz* taxonomia-sailkapenean, klasea zatitzen den multzo bakoitza.

Altzionarioak, antozooen **subklasea** da -anemonaren klaseko itsasoko animalia batzuk-. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

subkomandante *iz* zenbait armadetako maila-hurrenkeran, komandantearen azpian datorrena.

Subkomandanteak. **Unai Elorriaga**

subkontinente *iz* kontinente baten zati handi mugatua, ezaugarri berekiak dituena.

Asiako **subkontinentean** ez dago horrelako beste itsas porturik. **Gotzon Garate**

subkontrata *iz* subkontratatea; subkontratatearen ondorioa.

Telebistako sabeliztunak heriotzaren berri ematen du, eguneroko tragedia txikiak esplikatzeko bisaia tristea jantzita, eta aipatzen du **subkontrata** batekin ari zela. terrazako biztanle horiek ez dute jakingo, ordea, goiko pisuetatik erori eta bertan txirtilatuta geratu zela langile bat; **subkontrata** bateko enplegatua seguru asko, segurtasunik gabeko kontratuarekin ariko zena eta bere laneko segurtasunari behar adinako arreta eman ez ziona. **Berria - Kultura**

subkontratatu, subkontrata(tu), subkontratatu du *ad* lan edo zerbitzu jakin bat egiteko kontratatu duten pertsona edo enpresa batek, beste enpresa edo pertsona bat kontratatu lan edo zerbitzu hori egiteko.

Gaur goizean bidegurutze honetan bi furgoneta elkartu dira: bata ertzainez bete zatorren, bestea etxegileek **subkontraturik** dauzkaten langilez mukur. **Pako Aristi**
Bestalde, Gamma informazio agentziako kazetari batek Canal telebista kateak **subkontratatu** ARBk igorritako diskete bat jaso zuela onartu zuen. **Berria - Mundua**

subkontziente (*orobat subkonsziente g.er.*) 1 *iz* gizabanakoak kontzienteki hautematen ez dituen gogo prozesuen multzoa. ik **subkontzientzia**.

Ensatzen naiz nire ametsen hizkuntza deszifraezinaren aurrean betazalak astunduta, mutu **subkontzientearen** hainbeste ordutako iharduera indartsutik erauzi ezin ditudan hitzen aurrean. **Pako Aristi**

Subkontzienteak badiu hanka-sartze gisa mozarrotutako itenbideak. **Anjel Lertxundi**

Arrazoia eta **subkontzientea** biak dira Jainkoaren sorkariak. **Iñaki Mendiguren**

Subkontzientea haurrarekin, basatiarekin, baita basapiztiarekin ere pareka daiteke, aldi berean zuhurragoa, zintzoagoa eta errakuntzara gutxiago emana delarik nortasun kontzientea baino. **Iñaki Mendiguren**

Subkontzienteari buruzko teoriek egin zuten Freud ezagun. **Berria - Harian**

C. G. Jung gai zen adierazteko leize **subkontzientea** [...] ez zela kaos bereizgabe bat, unibertso egituratu bat baizik. **Iñaki Mendiguren**

Tourettearen sindromeak nerbio-sistemaren alde sakonetan eta **subkontzientearen** ditu sustraiak. **Xabier Olarra**

Hilezkor izateko itxaropena gero eta barneratuago dago gizartearen **subkontzientearen**. **Berria - Gaiak**

Lydiaren maitale izateko esperantza xalo eta aitortezina nuelako **subkontzientearen** akuiferoren batean gordea. **Harkaitz Cano**

2 (izenondo gisa)

Surrealismoak mekanismo automatikoak eta **subkontzienteak** bultzatzen ditu. **Berria - Kultura**

Nortasun kontzienteak psikearen azpimundu **subkontzienteari** borondatearen eta arrazoiaren kontrolpean eutsi behar diola. **Iñaki Mendiguren**

Psike **subkontziente** kolektiboaren irudietan, artzainak sorkuntzarako giza gaitasun primitibo gastatu eta hondatu gabeen ikur bilakatu ziren. **Iñaki Mendiguren**

Psikea -bere sakontasun **subkontzientearen** eta bere gainazal kontzientearen- ulertzen saiatuz. Psikearen sakonera **subkontziente** iristezinetan. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

psike subkontzientearen (5)

subkontzienteki *adlag* era subkontzientearen.

Teoria psikologiko baten arabera, heldutasunaren gatazka moral kontzientea **subkontzienteki** aurreratu agertzen da haurtzararen hasieran. **Iñaki Mendiguren**

Bilakabide horiek ordezkatzeko mentalak dira, sistematikoki baina **subkontzienteki** gure asmo fonologikoak gure ahalbide fonetikoetara egokitzen dituztenak. **Lourdes Oñederra**

subkontzientzia 1 iz subkontzientea.

Gainazaletik hurbilen zegoen geruzak **subkontzientzia** pertsonala zirudien, pertsonak bere bizitzan zehar izandako banako esperientzien metaketa. **Iñaki Mendiguren**

Agian ez litzateke zentzugabea uste izatea, **subkontzientziaren** goren eta behereneko geruzen artean [...] egon litezkeela tarteko geruzak, ez arraza-esperientziak ez esperientzia pertsonalak metatuak, maila supra-pertsonal baina infra-razialeko talde-esperientziak baizik. **Iñaki Mendiguren**

2 (hitz elkartuetan)

Aztertzaileek orain arte ikertutako geruzarik sakonenak arraza-**subkontzientzia** zirudien, ez gizabanakoren baten bereizgarria, gizaki guztientzat komuna baizik. **Iñaki Mendiguren**

subkultura iz azpikultura.

"Udak dakarrena udak daroa" delako istorioak parodia edo omenaldia egiten dio **subkultura** espainolaren agerpen jakin bati: udako abestiei alegia. **Xabier Mendiguren**
Elizegi

Argitaletxeek **subkultura** saldu nahi dutela esaten entzun dugu Frantziatik eta Espainiatik heldu zaigun oihartzuna. **Berria - Kultura**

Subkultura bat da horiena, beren gisako **subkultura** bat, ziur. **Oskar Arana**

sublapsario izond infralapsarioa.

Infralapsarioei batzuetan **Sublapsario** izena ere ematen zaie, nahiz eta horrek ez izan eraginik Adani buruz duten ikuspegiaren garrantzi eta argitasunean. **Xabier Olarra**

sublebatu izond matxinatua.

Ez zuen uste haur haiek umezurtz uzteko bihotzik izango zutenik, azken finean pertsonalki ezagutzen zituen **sublebatuen** aldeko gehienak, oso hiri txikia zen Gasteiz orduan. **Mikel Hernandez Abaitua**

sublimagarri iz sublimatzen duen gauza.

Ekonomiak eta diruak, zuriak eta beltzak, beste zerbaiten ordeko edo **sublimagarri** izaten badakite, eta hortxe utziko ditugu, ez zerurako eta ez lurrerako. **Iñaki Segurola**

Jainko-idoloak eta dirua, edo bortxaz maitatzen dira, edo ezin iritsizko beste zerbaiten **sublimagarri** gisa maitatzen dira. **Iñaki Segurola**

sublimatu, sublima, sublimatzen 1 du ad psikoanalisian, instintu bulkada bat, moralki edo sozialki onargarriagoa den ekintza bihurtu.

Ez dagoela bere maitemina **sublimatzeko** gai ez den maitemindua baino izaki arrisksuagorik. **Joan Mari Irigoien**

Bukatzeo, nola ez, kartzelako ereserkiari esker -gauetz bakardadean egoten naiz ni, ez bazaude zu... -bakoitzak bere antsia afektibo era sexualak **sublimatu** ahal izan zituen. **Rafa Egiguren**

Paperera jotzen nuen istorioak imajinatuz ondo igarotzeko [...] edo haserreak baretzeko, maitemina asaskatzeko, eta hormonon borborra **sublimatzeko** ... **Ana Urkiza**

Han bildutako sinesgabeok, sinestunek adinako premia genuen geure pena adierazi eta **sublimatzeko**. **Joxerra Garzia**

Iduritzen zait [...] hitzetan dagoen libido berezi **sublimatuan** hondatua dagoela apez mintzatzailea. **Piarres Aintziart**

Aurkakotasun nazionalak, konkurrentzia ekonomikoan trakets **sublimaturik**, XX. mendearen lehen erdian azaleratu ziren ostera. **Koro Navarro**

Zuen buruei aitortu barik erakarpena elkartasunarekin **sublimatzen** ari zinetela. **Eider Rodriguez**

Trapu literario koloretsutan beztitua, bortxa historiaren eta Estatu harropariaren justifikazioa, arima profetikoaren mitologiak erlijioso-mistikoki **sublimatua**. **Joxe Azurmendi**

2 (era burutua izenondo gisa)

Leonardo homosexual erreprimiua omen zen, edo **sublimatua**, hobeto esateko. **Josu Zabaleta**

Begitan hartu nuen morroi hura; likatsua iruditzen zitzaidan, melenga, ia-ia lizuna, ez sexuari zegokionez zuzen-zuzenean, baina bai halako sexualitate "**sublimatu**"tik zetorkion zerbaiten kariatz. **Juan Kruz Igerabide**

3 (era burutua izen gisa) bi atomo kloroz eta atomo bat merkurioz osaturiko konposatua, pozoiz gisa erabiltzen zena.

Extera iristean, Andres jaitsi zen, bere kutxitila, kotoi pixka bat eta **sublimatu** pixka bat hartu zuen. **Josu Zabaleta**

sublimazio 1 iz sublimatzea.

Gure artekoak sexutik ez zuen deus, alde bateko desira eta **sublimazioa** izatekotan, baina egia da bazela menderakuntza-joko bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Sublimazioa praktikatzen genuen, Freuden analisiak ikasi aitzin. **Piarres Aintziart**

Borreroak ez du inoiz eta inon bere lanaren **sublimaziorik** egiten. **Karlos Linazasoro**

Sublimazioak sublimazio, munduaren errefusapen zahar nahiz berriak saiaturik ere, amodioaren malenkoniak joak ez du, haatik, bere gogoak jolasik labirintikoenetan ere ahazten. **Juan Garzia**

Eguzkiaren taigabeko mugimendua sinbolizatzen duela Ejiptoko "disco hegaldunak", eta era berean, hegak sortzen duen **sublimazioa** eta transfigurazioa. **Patziku Perurena**

2 kimikan, gorputz bat pasatzea egoera solidotik gas egoerara, edo alderantziz, egoera likidotik igaro gabe.

Liofilizazioa: elikagaia izoztutakoan, hutsean sartu eta, **sublimazioz**, ur guztia erauztea, galaraztea. **Edorta Agirre**

· *irud/hed* Eskatzen ari direna, benetan, *Losüng-a* da (alemanerak beti du eskura abstrakzio garbi bat, egokia): **sublimazioa**, nola alkohola uretatik sublimatzen den, edan ondoko zaporerik ez arrastorik utzi gabe. **Oskar Arana**

sublime izond gorena, goitarra.

Jakinduria **sublime** zertangabe batez igurtzia dago. **Iñaki Segurola**

Ez dago deus ikaragarriagorik, goizeko oren sakratu eta **sublime** honetan, ile zuriko gizon hau baino, eliza handi honen erdian bakarrik, arropa bikainez jantzita, ahapetik mintzo. **Koldo Izagirre**

Geure kontzientzia goratuz, azken txinparta batean, erabateko sakrifizio eta abnegazioaren gailur **sublimetara**. **Jon Alonso**

Espainiako historia nazio espainolaren eraikuntza **sublime** bezala irakurtzen da, eta nazioagintzaren heroi handiz beteeta aurkitzen da. **Joxe Azurmendi**

Lerroak publizitate leloak bezain arruntak eta sinpleak dira, poesiari **sublimetik** zuen guztia erantzi diote. **Berria - Kultura**

Berde fosforeszentea, [...] esan zuen gizonak, ez da kolore **sublime-sublimea** ere. **Unai Elorriaga**

"Blai", izerditan edo barne-isuriz blai, alegia, horra hor esan gabe doanaren erotismo gorde **sublimea**. Joxerra Garzia
Petan umorista **sublimea** da, hitz-urria, ez du ez aukera ez denbora galtzen salaketarako eta irrirako. Berria - Kultura
Platon **sublimeak** bezala. Joxe Azurmendi

sublimeki *aldag* era sublimean.

Hark eman zigun bide gudu-zelaietako edertasunari buruz jarduteko; ez luze, ez sakon, ez **sublimeki**, baina bai bihotzak eskumutur edo enbor eginda, hau da, gerrikorik gabe. Karlos Linazasoro

sublimetasun *iz* sublimea denaren nolakotasuna.

Sublimetasun inozoaren kontrako borrokan sublimatu zuen bere malenkonia, gurea. Juan Garzia
Hor Boswell imitaezinen **sublimetasun** maila jotzen du ia Diogenes Laerziok. Juan Garzia

subliminal *izond* hartzaileak kontzientzia izan gabe hautematen dena.

Apaizen sermoari propaganda ofiziala eta film amerikarretako publizitate **subliminal** gutzia erantsita, ondorioa zen gu ezkerreko agian bai, baina komunista ez ginela sentitzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Bazen tartean "gogo-jarduera edo konputazio" **subliminal** "en bat, bukatutakoan emaitzak kontzientziara jaurtitzen zituen. Xabier Olarra

Kutsu **subliminal** moralista. Anjel Lertxundi

Iruadien garrantzia eta zinearen gaitasun **subliminala** ezagutzen duen gizon baten hautua. Berria - Kultura

Onak eta gaiztoak bereizten dituen bokaleen arteko joko **subliminala** Estatu Batuetatik etorri zen guregana. Hasier Etxeberria

subliminalki *adlag* era subliminlean.

Emakumezkoak oso barneraturik du hori, bere hitza gutxiesten du, gizarteak **subliminalki** eta nahi gabe sarturiko eztenengatik. Berria - Kultura

Hauteskundeen atarian irudi **subliminala** ote zen, irudi galtzailea? Berria - Kirola

sublimitate *iz* sublimea denaren nolakotasuna.

Humboldtentzat mendiok "**sublimitate** kantianoa" dute, horrek esan nahi duen barrentasun metafisiko guztiarekin; Hugorentzat, aldiz, jolastia eta marrazkilaria dira.

Koldo Izagirre

Estiloaren **Sublimitateaz** tratatu heleniko berantiarren egilearen diagnostiko ilunak ez zuen kontuan hartu bere aurrean zeukan egoeraren garrantzi handiko osagai bat; badirudi ez zela konturatu kristau-martiriez. Iñaki Mendiguren

subliteratura *iz* azpiliteratura.

Bigarren zenbakian, Pamiela eta bere ingurua izenburupean, Potolik kritika egin zien idazle «narzisoiei», eta hirugarrenean Korroktegia argitaratu zen: Korroktzaindia

«**subliteratura** egiten dutenen babes eta aterpe antolatua» zen. Berria - Kultura

submarinista *iz* itsaspekaria.

Gero, **submarinistak** beste gorpu baten bila hasi ziren, eta ordubete edo behar izan zuten oraindik beste gorpu hori aurkitu eta urpetik ateratzeko. Joseba Sarrionandia

submarino *iz* itsaspekoa, ur azpian murgilduta ibil daitekeen ontzia.

Aluminioa garraiatzeko ontziak behar dituzu, eta horretan dabilza ba kraut -aleman- horien **submarinoak**, bauxita garraioan dabilzan barkuei tiro egiten. Edorta Jimenez

Ni neu izurdeak ikusita nago hemendik gertu, azoka parean, honaino saltzera etortzen ziren arrantzaleei jausitako arrainen bila, eta baita **submarino** aleman bat ere, Ibarrekolanda gaineko kanposantuan euren eskifaia-kide hil berri bat lurperatzeko asmoz... Paddy Rekalde

submikrometriko *izond* eskalez mintzatuz, mikrometrikoak baino dimentsio txikiagoak neurtzen dituen.

Eraikin berriak mekanizazio zentroa, metrologiako eta eskala **submikrometrikoan** egiaztatzeko laborategia eta bulegoak ere izango ditu. Berria - Ekonomia

subnormal 1 *izond* pertsoez mintzatuz, buruz atzeratua.

Laster hire anaia futbolista **subnormal** hori bezain sano eta lirain egongo haiz! Unai Iturriaga

Nire bi-ga-rren lehengusua **subnormal** bat dela, **subnormal** sakona! Unai Iturriaga

Subnormal mentala. zahar ugari, itxura xaxtarreko jendea, arropa zarpailez jantziak, ero tankerakoren bat, beste bat **subnormala** ... Xabier Mendiguren Elizegi

2 (izen gisa)

Hik badakik zenbat **subnormal** dagoen bere abertzaletasuna ia esklusiboki Athleticen oinarritzen dabena? Unai Iturriaga

3 (hitz elkartuetan)

Zelako **subnormal** aurpegia geratuko zitzaidan! Jon Arretxe

Kioitek, ordea, barre eroari eman dio **subnormal** plantak eginez. Patxi Iturritegi

subnormalidade ik **subnormalitate**.

subnormalitate (*corpusean subnormalidade soilik*) *iz* pertsoez mintzatuz, buru atzeratasuna.

Beldur zen etxe hartan denbora gehiegi eginez gero ez ote zitzaion lehengusuaren gaixotasuna itsasiko, erran nahi baita, **subnormalidadea**. Unai Iturriaga

subofizial *iz* espaniar armadan, soldaduen eta ofizialen arteko maila duen militarra.

Ofizial eta **subofizialak** Gasteizko familia burgesen etxeetan egoten ziren, frankistek behartuta, etxean lekua izanez gero halaxe egin behar zen, ezin uko egin. **Mikel Hernandez Abaitua**

subordinatu *izond* perpausez mintzatuz, menpekoa.

Gero hasten ginen deklinazioen eskailera zailtan gora, nominatiboa *qui* genitiboa *cuius*, datiboa *cui*, akusatiboa *quem*, edo aditz irregularretan behera, *volo*, *nolo*, *malo*, eta *consecutio temporum* edo denboraren konkordantziaren arabera antolatuta behar ziren esaldi **subordinatu**etan zehar. **Joseba Sarrionandia**

subrepzio *iz* zerbait ezkutatzea, bestela lortuko ez litzatekeen zerbait lortzeko.

Honi kontzientzia hipostasiatuaren **subrepzioa** dei dakiok (*apperceptionis substantiatae*). **Ibon Uribarri**

Ezin da, ordea, idealtasun hori sentsazioaren **subrepzioekin** alderatu, espazioarena ere ezin zen moduan. **Ibon Uribarri**

Ezin da saihestu **subrepzio** transzendental baten bitartez printzipio formal hau printzipio eratzaille gisa errepresentatzea eta batasun hau hipostatikoki pentsatzea. **Ibon Uribarri**

Subrepzio hau honegatik nabarmentzen da: nik munduari dagokionez behar-beharrezkoa (baldintzatugabeki) zen zerizan goren hau berbaitango gauzatat kontsideratzen badut, [...]. **Ibon Uribarri**

subrogazio *iz* obligazio edo eskubide baten jabe den pertsona beste pertsona batez ordezte.

Bi sindikatuen aldarrikapenak **subrogazioan**, lanaldian, soldatan eta ezbehar-kopuru jaitzieran daude. **Berria - Ekonomia**

subsidiario 1 *izond* erantzukizunez, arauetz eta kidekoetz mintzatuz, sail nagusia ordezkatzan edo hari laguntzen diona.

Arratzu-Ubarrundiako Udalak arau **subsidiarioak** aldatu ditu kanpina egin ahal izateko. **Berria - Euskal Herria**

Jaurlearitaz «ez zituen herriko arau **subsidiarioak** bete, ez ziolako Udalar obra egiteko baimenik eskatu». **Berria - Euskal Herria**

Erantzukizun **subsidiarioa** enpresentzat. **Berria - Ekonomia**

Iban zubiarreren kasuan Athletic erantzule **subsidiarioa** dela ebatzi du epaileak. **Berria - Kirola**

Fiskalak eta akusazioek, gainera, eskatu zuten estatua izan dadila erantzule zibil **subsidiarioa**. **Berria - Euskal Herria**

2 bigarren mailakoa.

Emakumeek lan harremanetan oraindik jasaten dute egoera **subsidiarioa**, azpikontratazioa, prekarietatearen areagotze geldiezina. **Berria - Ekonomia**

subsidiarioritasun 1 *iz* subsidiarioa denaren nolakotasuna.

Subsidiarioritasuna: printzipio hori osorik aplikatzearen aldekoa da koalizioa: «erakunde txiki bat egin dezakeena ez baitu zertan egin goragoko maila bateko beste batek».

Berria - Euskal Herria

Eskumenen banaketa arautzeko oinarritzko irizpidea **subsidiarioritasun** printzipioa delarik, honen definizioan eskualde eta udal erakundeak ere aintzat hartzeko eskatu izan du, eta halaxe egin du Itunak **Berria - Harian**

2 (hitz elkartuetan)

Hein horretan, **subsidiarioritasun** -printzipioaren arabera hartuko du parte Batasunak bere eskumen eskusibokoak ez diren eremuetan. **Berria - Harian**

subsidiaritate *iz* subsidiarioritasuna.

Tokian-tokikoaren errespetua edo **subsidiaritate** printzipioa: lurraldekako eta taldekako estilo eta erabakiak lehenetsiz zentralismo demokratikoaren aurretik. **J. Garzia / A.**

Egaña / J. Sarasua

Europa federal, batu eta azkar baten alde gara, bere barnean **subsidiaritate** printzipioa aplikatuz. **Berria - Euskal Herria**

subsidio 1 *iz* diru laguntza.

30 euroko igoerak balioko die zuzenean gutxieneko soldata jasotzen duten langileei, eta **subsidioa** jasotzen dute langabeei. **Berria - Ekonomia**

22tik aurrera ontzi bakoitzeko sei tripulante bakarrak hartuko dute **subsidioa**. **Edorta Jimenez**

Hala da ze, seirentzat ematen den **subsidioa** hamabiren artean banatuko da eta horrek ez du denen mantenurako emango, azken batean **subsidioa** bera huskeria da eta.

Edorta Jimenez

2 (hitz elkartuetan)

Langabezia **subsidioan** izan ezik, orain arte erreferentzia SMI zuten laguntza eta prestazioetan beste indikatzaile bat hartuko da kontuan, ez gutxieneko soldata. **Berria - Ekonomia**

Ordaindutakoaren arabera prestazioak zein asistentzia-**subsidioa**. **Berria - Ekonomia**

subsistente *izond* subsistitzen duena.

Orduan denbora ezer ez baita, eta bera objektuei beren baitan (gure begiespenarekin hartuemanik izan gabe) ezin baitzaie atxiki **subsistente** edo inherente gisa. **Ibon Uribarri**

Sortugabea zen betiereanean, Jainkoagan zegoen, han **subsistentea** zen. **Joan Mari Lekuona**

Hartuemanaren batasun baldintzatugabea, h[au] d[au], norbere burua, ez inherentea, baizik **subsistentea** den aldetik. **Joxe Azurmendi**

subsistentzia *iz* zerbaitek subsistitzea.

Orduan izate horri inherentzia deitzen zaio substantziaren izatetik bereiztearen, zeinari **subsistentzia** deitzen zaion bere aldetik. **Ibon Uribarri**

Horrela, hainbat substantzia bakun bakar batean uztartu ahal izango lirakeke era berean, eta **subsistentziaren** anizkuntasuna baino ez da galtzen horrela. **Ibon Uribarri**

[...] nahiz eta nik oraindik subjektuaren antolaeraz edo **subsistentzi**az ezer erabaki ez izan. **Ibon Uribarri**

subsistitu, subsisti, subsistitzen du *ad* zerbait, zegoen eran edo egoeran oraindik existitu edo egon.

Adiera transzendentalean errealista denak gure sentimenaren modifikazio hauek beren baitan **subsistitzen** duten gauzak bihurtzen ditu, eta beraz, errepresentazio soilak berbairengatik gauzak bihurtzen ditu. **Ibon Uribarri**

subskonsziente ik **subkontziente**.

substantibo *(orobat **sustantibo**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **substantibo gomendatzen da**) 1 izond* izatasun erreala eta beregaina duena.

Baldintza formaletan azuia jarriz -eta ez kontzeptuaren alde **substantiboan** edo eduki materialari dagozkionetan-. **Askoren artean**

Arazo hauek zerikusia dute subiranotasunaren alderdi formal eta **substantiboarekin**, kanpokoa ala barnekoa izatearekin, eta abar. **Joseba Zulaika**

Cassirrerren obra kontinentalean aurki daitezke hainbat ekarpen **substantibo** osagarri, ohiko planteamendu analitiko definizionalak aberastu ditzaketanak. **Askoren artean**

2 (gramatikan)

Izen **sustantiboak** maite dituzte, eta haien ume diren izenondo **sustantiboagoak**, halako hitzek tranpa gehiago baitaude: ezkutatu egiten dute sustantibotasun gatzatu horren aurretik zegoena edo azpian zebilena. **Iñaki Seguro**

• 3 iz gramatikan, izena.

Ahalegin zaitez **substantiboak**, adjektiboak, izenlagunak eta aditzak gehiegi ez errepikatzen. **Askoren artean**

Substantiboek, berez, ez dute prentsan adjektiboaren arriskurik. **Iñigo Aranbarri**

Panfleto asko ez dago irakurri ere egiterik: ideologiaz gainzamatuta datoz, **substantibo** bakoitzeko hiruna adjektibo pilatzen da eta akats ortografiko ugari daukate.

Txema Ramirez de la Piscina

Substantibo bakun batek aditz anizkun bat goberna zezakeen. **Juan Garzia**

Hurbiletik segitu dut [...] Juan Mariren arnas sosegatuko ibilaldi poetikoa, behin «**substantiboaren** poetika» gisa bataiatu nuen jarduna. **Berria - Harian**

Sinesmenduna baitzen, Jainkoa da, aldeaz edo moldez, haren poetikaren **substantibo**. **Berria - Harian**

substantibotasun *(corpusean **sustantibotasun soilik**) iz* substantiboa denaren nolakotasuna.

Izen sustantiboak maite dituzte, eta haien ume diren izenondo sustantiboagoak, halako hitzek tranpa gehiago baitaude: ezkutatu egiten dute **sustantibotasun** gatzatu horren aurretik zegoena edo azpian zebilena. **Iñaki Seguro**

substantzia *(orobat **sustantzia g.er.) 1 iz*** filosofian, berez den gauza, berez existitzen dena.

Gainontzeko **substantzia** edo esentziek akzidenteak bereganatzen dituzte. **Imanol Unzurrunzaga**

Sorturiko gauza guztietan, ez dela deus **substantzia** eta akzidentez landa. **Xabier Kintana**

Munduko aldaketa guztietan **substantziak** irauten du eta akzidenteak baino ez dira aldatzen. **Ibon Uribarri**

Emazu gizon batek badaukala "itsasontzia" deitzen den zerbait badelako nozioa, horregatik izen hori daraman gauza hori **substantzia** ala akzidentea ote den jakin gabe.

Xabier Kintana

Akzidente guztiak **substantzia** zehazten duten zerbait direla. **Xabier Kintana**

Substantzien propietateen artean batzuek haien zerizana ematen digute, beste batzuek, ordea, haien nolakotasuna. **Askoren artean**

Bi gauza amaigabek irauten badute, **substantziak** ez direnak, ezta benetan substantziari inherenteak ere, [...]. **Ibon Uribarri**

Kontzientzia ez dela **substantzia** bat, bere oinarriaz bizi dena, pentsamendu garbi bat, baizik intentsionalitate bat, gauzei eta jendeei idekia. **Piarres Aintziart**

Substantzia edo esentzia aldaezin bakarra dago eta hau Jaungoikoa da. **Imanol Unzurrunzaga**

Jainkoak **substantzia** batek izateari uztea nahi duenean, ez du haren akzidenterik sortzen eta horrela ezereztu egiten da. **Xabier Kintana**

Beraz, **substantzia** oro edo Jaungoikoa da, edo Jaungoikoagandik da. **Imanol Unzurrunzaga**

Zalantzarik gabe, **substantzia** da Jaungoikoa, edo hobeto esanda, esentzia, greziarrek *ousia* deitzen dutena. **Imanol Unzurrunzaga**

Esentzia, edo **substantzia**, edo *ousia* hiru definiziotan aurkez dezakegu: [...]. **Askoren artean**

Substantziaren iraunkortasunaren oinarri-esakunea. **Ibon Uribarri**

Beste batzuk, ordea, diote ahalmen horiek direla egiazki arimaren **substantzia**: hau deitzen da Adimena. **Piarres Xarriton**

Ez bezate esan bi arima aurkari direla, bata ona eta bestea gaiztoa, elkarren aurkako bi **substantzia** eta printzipioen liskarretik datozenak. **Imanol Unzurrunzaga**

Linguistikoa denaren izatasuna ez da **substantzia**, forma baizik. **Isabel Arrigain**

Dualismoa: Munduan bi **substantzia** edo eite bereizi behar dira: gogo-egoerak eta egoera fisikoa. **Askoren artean**

Kritika zorrotza egiten dio, batik bat, gaitza **substantzia** edo natura gisa hartzen duen iritzi manikeoari eta materia zer gaitzotzat ikusteari. **Imanol Unzurrunzaga**

Zinez izatea daukan izakia; bere baitan era aldaezinean dirauen **substantzia** signifikatzen baitu. **Imanol Unzurrunzaga**

Beharrezkoa da enuntziatu batek **substantzia** bat, euskarri bat, leku bat eta data bat izatea. **Xabier Arregi**

2 (izendondo eta izenlagunekin)

Ontologia aristoteliko batean, beraz, hiru izaki-mota bereizi ditugu: banakoak, motak eta propietateak (hurrenez hurren, Aristotelesen **substantzia** lehenak, **substantzia** bigarrenak eta gainerako kategorietako propietateak). **Askoren artean**

Substantzia bakun batek biziaren akzidentea ez badauka, orduan nahitaez heriotzaren akzidentea eduki beharko du. **Xabier Kintana**

Substantzia fisiko eta pentsakorren artean dauden desberdintasunak desberdintasun. **Askoren artean**

Edo **substantzia** usteliezina da, on zinez handia, edo **substantzia** ustelkorra, zeina ona ez balitz ezin ustelduko bailitzateke. **Imanol Unzurrunzaga**

Arrazoiz gorensten da **substantzia** usteldu gabea. **Imanol Unzurrunzaga**

Lehenago 2.&3. zenbakietan adierazi baitugu **substantzia** gorpuzgabea eta hilezkorra dela. **Piarres Xarriton**

Gizaki gaiztoa zer besterik izango da **substantzia** gaiztoa baino? **Imanol Unzurrunzaga**

Eta ez luke ardura horiek gorputzak ala **substantzia** banatuak izatea. **Xabier Kintana**

Gogo-egoerak eta gogo-propietateak ezin direla fisikara erabat murriztu, baina, halere, [...] ez daudela bi **substantzia** berezi. **Askoren artean**

Pertsonak **substantzia** bakarreko baina alderdi biko izateak gara. **Askoren artean**

Jainkoak berak egite honetaz eta jainkozko **substantzia** honetaz gozatzen duelako. **Joan Mari Lekuona**

Hizkuntzan, kontzeptua, **substantzia** fonikoaren nolakotasun bat da. **Isabel Arrigain**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Descartes arabera bi **substantzia**-mota daude, fisikoa (*res extensa*) eta pentsakorra (*res cogitans*). **Askoren artean**

Ezin irudika nezakegun zutenaz kanpo inolako **substantzia** motarik. **Imanol Unzurrunzaga**

Substantzia -dualismoak burmuinaren eta gogoaren arteko harremana zail egiten duen moduan, alde biko dualismoak ere munduaren ikuskerara deseroso baten aurrean jartzen gaitu. **Askoren artean**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Adibide gisa aipatu ditugun guztiotan ez da ezer erregearen esentzia nolakoa den eta bere benetako errege-**substantzia** zertan den adierazten duenik. **Xabier Kintana**

5 gauzak osatzen dituzten materia-motetako bakoitza. ik **gai**.

Greziarrek *apeiron* deitzen zutenaren parekoa izan liteke: **substantzia** oinarriko bat, lehenengo gaia, beste **substantzia** guztien jatorria. **Bernardo Atxaga**

Izoztu, hitzez hitz, gorputz edo **substantzia** batek barruan duen ura gogortu arte hoztea da. **Joseba Sarrionandia**

Larruzala babesten du **substantzia** horrek. **Irene Aldasoro**

Beste **substantzia** batzuk ere baditu hezur-mineralak, hala nola gatzak. **Irene Aldasoro**

Substantzia horietariko asko oso toxikoak dira. **Irene Aldasoro**

Erlamak **substantzia** bat botatzen duela gainerako erleak kontrolatzeko. **Unai Elorriaga**

Kanpoko itxura guztien arabera ura dela dirudien **substantzia** likidoa H₂O ez bada, **substantzia** hori ez dela ura ondoriozta dezakegu. **Askoren artean**

6 (izendondo eta izenlagunekin)

Elikagaietan dauden **substantzia** konplexuak, apurtu, eta **substantzia** sinpleago bihurtu behar direla gorputzak erabiliko baditu. **Substantzia** dentsuago bat, hala nola ura. **Irene Aldasoro**

Izarrak eter zeritzan **substantzia** ustelez in batez inguratuta zeudela eta finkoak zirela. **Substantzia** osasungarriak eta pozioiak bereizteko gaitasunean. **Bernardo Atxaga**

Konpainia onaren beharretan dauden eimeak **substantzia** usaintsu oso bereziak isurtzen ditu. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Ur bero guztiak sendagarriak dira, **substantzia** arrotzekin batera egosterakoan bestelako abantaila erabilgarriak bereganatu dituztelako. **Santiago Iruretagoiena**

Amaiera eman behar zaie **substantzia** toxiko eta beste materia batzuen isurketari. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Arteriak, oxigenoa eta ezinbesteko beste **substantzia** kimiko batzuk ekartzen ditu. **Irene Aldasoro**

Burmuinak [...] maitasun, zioritasun, ongizate eta betetasun sentipena utziko diguten **substantzia** neurokimiko batzuk askatuko ditu. **Luis Elberdin**

Saiatu dira neurtzen burmuinak zenbat denboran ekoizten dituen bikotekideek elkarrekin iraun dezaten behar diren **substantzia** biokimikoak. **Luis Elberdin**

Gela itxi batean jartzen dira katu bat, **substantzia** erradioaktiboren bat eta botila bat pozo. **Fernando Morillo**

Kurarearen kideko **substantzia** sintetikoak erabiltzen dira kirurgian. **Irene Aldasoro**

Hondakinak eta beste **substantzia** soberakin batzuk. **Irene Aldasoro**

Zuntz eta kartilagozko geruza elastiko bat da diskoaren kanpoko aldea, eta gelatina-itxurako **substantzia** bat du barruan. **Irene Aldasoro**

Potter jauna, gure makila guztiak **substantzia** magiko ahaltsuren bat dute bihotzean. **Iñaki Mendiguren**

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Berriro ere, dopinaren aurkako kontrolak egingo dituzte; halere, aurrean hiru **substantzia** motaren kontsumoagatik emaniko positiboek ez dute zigorrak izango. **Berria - Kirola**

Hau besterik ez baita itsasoarekiko **substantzia** -trukaketa: oxigenoa zakazetatik igaro, janaria ahotik hartu, eta hondakinak organo espezializatuetatik, hala nola giltzurrunetatik, kanporatu. **Irene Aldasoro**

Substantzia -kontzentrazio txikiagoa behar du beti txakurrak. **Irene Aldasoro**

8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Montgomery ustez dopin **substantziak** erabiltzeagatik ikertzen ari dira. **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

antzeko **substantzia** bat (3); bere **substantzia** (3); hiru **substantzia** (3); izaera bereko **substantzia** (3); kanpoko **substantzia** (3); natura eta **substantzia** (3)

substantzia asko (5); **substantzia** bakar (8); **substantzia** bakar bat (6); **substantzia** bakun (9); **substantzia** bakuna (12); **substantzia** bera (7); **substantzia** beraren (4); **substantzia** deitzen (3)

substantzia gisa (8); **substantzia** gorputzuna (9) **substantzia** hedatua (4)

substantzia izan (5); **substantzia** kimiko (19); **substantzia** kimikoak (6); **substantzia** kimikoen (4); **substantzia** kimikoren (3); **substantzia** kutsagarri (4); **substantzia** lehenak (3); **substantzia** neurokimiko (4)

substantzia pentsatzailearen (3); **substantzia** toxikoak (6)

dopin **substantziak** (5)

substantziaren adigala (7); **substantziaren** esentzia (4); **substantziaren** izaera (4); **substantziaren** izaerari (5); **substantziaren** izaerari dagokio (3); **substantziaren** izatea (4); **substantziaren** kategoria (6)

debekatutako **substantzien** (3); **substantzien** zerrendan (3)

debekatutako **sustantzia** (3); **epo sustantzia** (3)

debekatutako **sustantziak** (6); **dopin sustantziak** (3)

sortzen dituen **sustantzien** (3)

substantziagarri (*corpusean sustantziagarri*) izond gauzatzen edo funtsatzen ahal dena. • (adizlagun gisa)

Interesgarriagoa zen, baina dezifraezina, beraren [Boninoren] historiaren jatorria: bere-berea baitzuen, noski, bere historia hori, zeren, jarraian jakin nuenez, sarritan eta edozeinen aurrean kontatzen baitzuen, materiaren beraren puskarik **sustantziagarri** erabiltzeke noski, eta urteak joan ahala gero eta xehetasun kolorebiziago eta sinesgaitzagoz. **Juan Garzia**

substantzial izond gauzen substanzialari edo oinarriari dagokiona.

Nigan **substantziala** dena subjektu transzendental gisa ezagutzen dudala uste dut. **Ibon Urbarri**

Izan ere, Ortega-k seinalatuko duen Espainiaren gaitz **substantzialaren** arrazoia, musulmanak han sartu aurrekoa da. **Joxe Azurmendi**

Baina atala eta osoa, biak gorputza direlarik, balio erlatiboa ez ezik **substantziala** ere badute. **Imanol Unzurrunzaga**

Era **substantzialean** edota, nolabait esanda, esentzialki, ez subjektu baten akzidente gisa, gorputzean beroa edota itxura bezala, ez eta nolokotasun edo kantitate gisa. **Imanol Unzurrunzaga**

substantzialista izond substantzia bat edo gehiagoren existentzia onartzen duen doktrinari dagokiona.

Zientziaren kontzeptua ez da era **substantzialista** -aristotelikoan- ulertu behar, era funtzionalistan baizik. **Askoren artean**

substantzialitate iz substantzialtasuna.

Arimaren **substantzialitatea** baieztatzen dute batzuek, bertan subjektuan bezala adimena errotuz; besteen iritzi, arima subjektuan dago, hau da, gorputzean, honen eraketa tenperamentala bera izanik. **Imanol Unzurrunzaga**

substantzialki 1 adlag era substantzialean; neurri handi batean.

Ez **substantzialki**, ez funtzionalki. Xabier Arregi

Ondorioz, maitasuna eta ezagutza ez daude ariman subjektuan atxikita bezala; **substantzialki** dira eurak ere arima bera; elkarrekin harremanetan egon arren, bakoitza da substantzia, berez. Imanol Unzurrunzaga

Hori jada ez da etzango herria pentsamendu kritiko eta razionalista arrotzez europartzean -bere estudiante garaiko krausisten programa izpiritu hartara itzulia baita **substantzialki** - baizik Espainia bere baitaratzean eta bere-bere balio eternalak [...] berbizaraztean. Joxe Azurmendi

Historiaren helmuga unibertsalistaren diskurtso hantua (Marx-ekin ere agian ezkon litekeena), **substantzialki** erlijiosoa kontsideratzekoa filosofikoa adina. Joxe Azurmendi

• 2 iz fauza substantziala.

Hemen, oraindik arrazoimen transzendentalaren ideia izatea dirudiena **substantzialkiaren** adigaia litzateke. Ibon Uribarri

Hemen, berriz, solasgaia agerpenen ilarako baldintzatugabekia denez gero, orduan argi dago **substantzialkiak** ezin duela bertako osakidea izan. Ibon Uribarri

substantzialtasun iz substantziala denaren nolakotsuna.

Edo bestela esateko, **substantzialtasun** jainkozkoaren presentzia agertzen du modu finituan. Piarres Xarriton

substantziatasun iz substantzia izateko nolakotasuna.

Nire subjektu pentsatzailearen **substantziatasunaren** adigaia. Ibon Uribarri

Arrazoimen hutsak arimaren adigaitik abiatuta arimaren **substantziatasuna**, batasuna eta hilezkortasuna inferitzeko egiten duen saialdiak inferentzia okerren sistema bat sortzen du. begiespenen kantitatea eta kalitatea, beren **substantziatasuna** edo iraunkortasuna, beren kausazko harremana, kausa eta efektua diren aldetik. Ibon Uribarri

Beharrezko iraunkortasun horren irizpide empirikoa, eta berekin batera, agerpenen **substantziatasunaren** irizpide empirikoa zein ote den galdetzen bada, ondoren izango dugu aukera horretaz beharrezkoa dena oharrarazteko. Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arimaren substantziatasuna (3)

substrato ik substratu.

substratu (orobat sustrato g.er.) 1 iz zerbaiten oinarrian dagoen gauza.

Koralaren oinarritzko unitatea polipoa da, tutu itxurako gorputz bat, garroz inguratutako aho bat eta bere beheko muturrean **substratuari** atxikitzeko disko basal bat dituen.

Berria - Gaiak

Baldin norbaitek behe mailako materia [...] goi mailako materia -hau da, zeruko esferen **substratua** -, ez bezalakoa dela esan baleza [...]. Xabier Kintana

Molekulen ezagutze-kontu hori, hasiera-hasieran, zerari zegokion soilik: entzimak eta **substratuak** edo antigenoak eta antigorputzak elkarrekin nolabaiteko eragin-trukea izateari. Juan Garzia

Bisigodoek jatorrizko **substratu** iberiko hori indartu baino ez zuten egin. Joxe Azurmendi

Substratu fisiko eta baldintza materialik gabe izpirituak ez du historiarik. Joxe Azurmendi

"Aurreko hizkuntzaren **substratua** "ren teoria aipatu ohi da: aldaketa batzuk, inbaditzaileek bereganaturiko toki bateko biztanleriaren eraginez gertatuko ziren. Isabel Arrigain

Substratu euskaldunaren inguruan fonologia mailako oharrak bildu zituen. Berria - Kultura

Nire olerkien **substratua** beti izango da berbera, bizitza eta bizitzako zerak, baina antzutu edo moztu egin naiz neurri batean. Ana Urkiza

2 (filosofian)

Iragana eta geroa denboraren egiazko **substratua** den orainaldiaren inguruan moldatzen dira. Askoren artean

Adimendua eta adigarria, biok ahalean, beti bi gauza dira, eta ahalean dagoen guztiak beharrezkoa du nahitaez ahal hori oinarritzen duen **substratu** bat, esaterako, "gizakia".

Xabier Kintana

Ez dela posible akzidenterik bat ere gabeko substantziarik existitzea edota [...] **substratu** gabeko akzidenterik. Xabier Kintana

Errealen den guztia **substratua**, h[au] d[a], gauzen izateari dagokionaren **substratua**, ordea, substantzia da, eta bertan izateari dagokion guztia substantziaren determinazio gisa soilik pentsa daiteke. Ibon Uribarri

Substantziak (agerpenean) denbora-determinazio guztien **substratuak** dira. Ibon Uribarri

Bere izaeraren bakuntasuna onartu arren, giza arima ez da askiro bereizten materiatik honen **substratuari** dagokionez, materia agerpen soil gisa kontsideratzen bada. Ibon Uribarri

Jainkoak mundua suntsitu nahi balu, suntsitzearen akzidentea **substraturik** gabe sorraraziko lukeela. Xabier Kintana

subterraneo 1 izond lurpekoa.

Donostian ama baten bi ume txikiak hil ziren, ama horrek ezkutatzeko gordeleku **subterraneorik** izan ez zuelako. Joseba Sarrionandia

2 irud/hed

Ederra da ze, kanporanzko amasa izan arren, aireztatu egiten du gure ego **subterraneo**. Berria - Kultura

subtil izond sotila.

Zaldi eta giza irudi batek halabeharrez topo egiten badute, berbertain itsasten dira, gorago esan bezala, euren izaera **subtila** eta ehundura xumea bide. Irudi **subtilotariko** edozeinek, arintasun izugarritz azkar mugitzen denez gero [...] kolpe bakarrez aisa hunkitzen du gure gogoa. Xabier Amuriza

subtilezia iz sotiltasuna.

Hemen Ortega-k **subtilezia** amarrutsu batekin jokatzeko du: [...]. Joxe Azurmendi

subtropikal izond tropiko ingurua baina latitude altuagoan dagoena edo gertatzen dena.

Espedizioan parte hartu duten zortzi herrialdeetako arkeologoek arabera, duela 55 milioi urte Ipar Poloko klima **subtropikala** zen. Berria - Gaiak

Ipar Poloko tenperatura **subtropikala** zen antzina. Berria - Gaiak

Landare mota hori, baina, inguru **subtropikaletan** bizi ohi da. Berria - Gaiak

Lurralde hau ere **subtropikala** eta berdea izan zen inoiz. Joseba Sarrionandia

suburbano iz hiri handi bat aldiriekin lotzen duen burdinbidea.

Mexikoko **suburbanoa** egin eta 30 urtetan zerbitzua emateko kontratua ere eskuratu zuen iaz CAFek. Berria - Ekonomia

suburbio iz aldiria, bereziki jende pobrea bizi dena. **ikaldiri**.

Hirietako **suburbio**, bus geltoki, gau-klub, zinema areto, metro estazio eta aireportuetan baina. Harkaitz Cano

Orain, badakizue, Giulianiren gizonekin ez dago arriskurik, **suburbioetara** bidali dituzte denak, eta haiekin giroa ere pikutara bidali dute, jakina. Harkaitz Cano

suburdin iz beheko suan erabiltzen burdina.

Paul pijamaz jantzita irten zen, **suburdina** eskuetan, lapurrak baziren ere. Anton Garikano

Arratsaldean aire eta eguzkitan jarri zituzten latoizko sutondo-babes bat eta altzeiruzko **suburdin** multzo bat. Anton Garikano

Sukaldeak, garbitu eta usaintsu, zabalagoa ematen zuen, sua erdian zuela, beltz, lauso, errauts tantarik gabe, eta **suburdinak** ditzari. Josu Zabaleta

sudadera iz kirol-jantzia, jertse modukoa, itxia eta mahuka luzekoa, aldaketaraino heltzen dena.

Ea oinetakoen lokarriak lotzea egokitzen zaion, makur dadin, ze **sudadera** zabal horrekin ipurdirik ere ez zaio nabarmentzen. Urtzi Urrutikoeetxea

sudaka iz adkor hegomerikarra.

Laster hasi ziren mairuak eta **sudakak** heltzen eta kalea txokolatezko putez bete zen. Urtzi Urrutikoeetxea

Gaur egun etorkin koitaduak soilik ikusten dira karrakan zakua lepoan; ez zuek bezalakoak, e!, bestea, **sudakak** eta beltzak. Urtzi Urrutikoeetxea

Mundu osoan, jende ugari zegoen prest gailurrera igo zen **sudaka** harroputz arrotzaren [...] erorikoa ospatzeko Berria - Kirola

sudandar (orobat **sudaniar** g.er.) izlag/iz Sudangoa, Sudani dagokiona; Sudango herritarra.

Gobernuak 650 errefuxiatu **sudandar** deportatuko ditu. Berria - Mundua

Enpresa jordaniar bateko sei kamioi gidari **sudandarren** hilketari iragarri zuten ekintzaileek. Berria - Harian

Abdulsalam Al Hela yemendarra, Pakistango Poliziak AEBetako Armadaren esku 2001eko abenduan utzitako Sami Al Haji **sudandarra**, eta 2002ko Guantanamo preso dagoen Juma Al Dossari Bahreingo herritarra. Berria - Mundua

Darfurren gertatzen ari den gatazkaren ondorioz, 100.000 **sudandar** baino gehiago Txaden daude babestuta. Berria - Mundua

Talde matxino batek bost **sudandar** bahitu dituela adierazi du Diplomazia Ministerioak. Berria - Mundua

sudaniar ik **sudandar**.

sudiakre iz ipar subdiakonoa.

Hona jin orduko, obsesio baten indarrak oroitzapen batek hartu nau: "**sudiakre**" egin izan nintzen egunarena. Piarres Aintziart

Sudiakre urratsa egina zen, bide bat baizik ez nuen ene aitzinean, indartua nintzela ene nahian. Piarres Aintziart

sudoriparo izond guruinez mintzatuz, izerdia jaritzen duena. • irud/hed

Monceau parke aldean plazaratu zen, arrandian, bidaiarigai zoritsuen sailtxo bat, urtze-puntu **sudoriparoaren** azken muga hezeetan zena, jasotzera. Xabier Olarra

sudupil iz sudur zuloa.

tren bat bete zerrri, **sudupil** eta ahoa irekita, egarriak erabat irekita, egarritz hiltzen ari den txoriaren pare... Fernando Rey

Zaldiek uhalak tenkatzen zituzten, atzean estekaturik zezen bat zeramatelako; belauinak txikituak zituen eta **sudupila** urratua, sudurtzuloetako uztia tiraka kendu zuelako.

Fernando Rey

sudur 1 iz giza aurpegiaren erdiko irtenunea, bi zulo dituena, bekokiaren eta goiko ezpainaren artean dagoena eta usaimenaren organoa daukana.

Hiru buru zituen; hiru begi-pare biribil, ero-itxurakoak; hiru **sudur**, bihurrika eta usnaka haien aldera; hiru aho lerdetsu, letagin horixketatik zintzillika hari lingirdatsuetan listua zeriela. Iñaki Mendiguren

Bakean utziko dugu -esan zuen emakumeak **sudurra** zimurtuz. Lopez de Arana

Buru burdin sarearen kontra jartzen nuen beti, eta beti **sudurra** zikinduta alde egiten nuen. Berria - Harian

ik beherago 22. Askoren artean

Esan eeeee eta hartu amasa lasai **sudurretik**. Hasier Etxeberria

Sudurreko ezkerreko zuloa estali du, amasa hartuz, gogorki; eskumakoa garbitu kanpotik. Sonia Gonzalez

Sudurreko kirurgia endoskopikoa egiten ari garenean, esaterako, oso erabilgarriak eta lagungarriak dira. Berria - Gaiak

Sakon hartu du amasa eta **sudurretik** atera du, mantso. Pello Lizarralde

Sudurra estutzen nuen, hartan ez itotzeko. Juan Kruz Igerabide

Sudurra estatu zuek Léak, barrez ez lehertzeko. Jon Muñoz

Sudurretik muki tanta zeriola, hozminduta musua, motel hitz egiten zuen. Pablo Sastre

Odola isuri zitzaion **sudurretik**. Karlos Zabala

Odolak **sudurretik** beheiti egiten zidan, ordea, eta haren dasta gaziak mingaina trabatzen. Aingeru Epaltza

Jaka eta galtza gorriak soinean, betaurrekoak **sudur** gainean. Jose Morales

Neville aieneka ari zen, zaldarrak **sudurrean** ere agertu zitzaizkion eta. Iñaki Mendiguren

Entzuten ari zen kontakizunak adierazpen-olatuak igortzen zizkion etengabe aurpegira, **sudur**, begi eta ezpain ertzetatik. Irene Aldasoro

Gero, amasa sendo hartu, eta **sudur** -ahoak itxi zituen, kiratsa barnera ez zekion. Anjel Lertxundi

Sudur -eztarriak itxi-itxi eginda. Anjel Lertxundi

On Garri Cooper-en Oesteko filmak gogoratu zapiak estali nituen aho- **sudurrak**. Joxean Sagatzizabal

Uztaiak dauzka belarri bekain **sudur** ezpainetan. Lutxo Egia

Honela joaten zen, apal, **sudurra** gorri, serio. Fernando Rey

Sudurra zintzatu eta pentsatzen hasi zen, bera hara joanarazi zuen bigarren kontuari nola heldu. Anton Garikano

Ikatz-kealdi bat **sudurrera** etorri zitzaion. Lopez de Arana

Liburua txikia zen [...] eta **sudurra** haren orrien artean sartuta amasa hartzean halako mindu-usain bat hartzen zitzaion. Alberto Ladron Arana

Zertan aritu behar dute nagusiek gure gaietan **sudurra** sartzen? Josu Zabaleta

Gisa horretako nahasteetan **sudurra** sartzeak ez baitakar atarramentu onik. Migel Angel Mintegi

Ene **sudurra** eri duk, ez dik zerri kaka eta pixa usainik baizik hartzen. Michel Oronoz

Sudurrean eman nion. Koro Navarro

Orriak zabaldu zituen, eta hantxe gelditu zen, **sudur** eta mutur. Edorta Jimenez

Hantxe lotu nintzen, Basurtokoak nirekin zer nahi ote zuen, **sudur** eta mutur. Edorta Jimenez

2 (izenondoekin)

Begi argiak ditu, eta **sudur** txiki eta harroxkoa. Ramon Saizarbitoria

Sudur handia eta ezpain lodiak zituen, eta zakar samarra ematen zuen lehen begiratuan. Jose Morales

Sudur handi-handia, judu peto-petoa, eta gorri-gorria. Josu Zabaleta

Cadinek bere **sudur** arrosa irekitzen zuen kateme baten sentsualitatearekin. Karlos Zabala

Emakume argala zen, zimur mingotsak, esku nekatuak, begi marroi eder izandakoen arrastoak, eta **sudur** harroa zituena. Koro Navarro

Nexka aurpegia zuen, ile iluna motots batean bilduta, **sudur** motza, eta zulotxoak zituen masailetan. Koro Navarro

Zapatazar handiak, **sudur** motz gorria. Josu Zabaleta

Haren **sudur** zorrotza, haren masail urdinak, haren irribarrea. Monika Etxebarria

Altzairuzko begiak, **sudur** fiin okerra eta oliba-koloreko larruzala zeuzkan. Lopez de Arana

Sudur okerreko gizon musu zuri bat. Lopez de Arana

Begira, begira nolako **sudur** greko polita duen! Jose Morales

Garaia, argala eta baldar samarra zen, oreztaz betea, esku eta hanka handikoa eta **sudur** luzekoa. Iñaki Mendiguren

Ile beltz koipetsu, **sudur** gakodun eta azal horixkako maisu batekin ari zen hizketan. Iñaki Mendiguren

Ordurako argi horixka batek argitzen zizkion bekoki soildua eta **sudur** kakoa. ik behegero 10. Urtzi Urrutikoetxea

Sudur estu baina kakoa, begi distiratsu eta begirada umela. Urtzi Urrutikoetxea

Ellenek lepo labur eta **sudur** zapaleko gizon baten esku handiari oratu zion. Lopez de Arana

Mutil txikia, lupa itxurako betaurreko lodiak daramatzana **sudur** motz eta zabalaren gainean. Urtzi Urrutikoetxea

-**Sudur** ezin barregarriagoa du -esan zuen neskak-. Mirentxu Larrañaga

Bere **sudur** punta-luzeaz sakon amasa hartuz. Iñaki Mendiguren

Gizon txikitxoaren, batera ilerik gabeko buru estua, aurpegi luzea, **sudur** punta-zorrotza [...] zituena. Koro Navarro

3 (aditzen era burutuarekin)

Betaurrekoak etengabe irristatzen zitzaizkion **sudur** izerdituaren puntara. Iñaki Mendiguren

Adi-adi entzun zuen, ehun urte balitu bezala, burua alboraturik eta betaurrekoak **sudur** handituaren gainean dardarka. Koro Navarro

Haren hatz erakuslea nire **sudur** puztuaren parean luzatu zen. Aingeru Epaltza

"Istripu domestiko" bati egotzi nion neure **sudur** hanpatua, jakin-minez hurbildu zitzaidan orori erantzun beharrekoetan. Aingeru Epaltza

Sudurra kakotu samarra eta egiptoar itxurakoa. Josu Zabaleta

Sudur gakotua zeukan eta, gainean, ile liso beltzaren mataza bat erakusten zuen. Lopez de Arana

Sudur izutu bat ikusten dudan lehenbiziko aldia duk, bururatu zitzaidan. Alberto Ladron Arana

Sarritan burukomin handiz, **sudur** beteetatik odolustela bar-bar zerion. Xabier Amuriza

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hazpegi zakarrak zituen; **sudur** -hegal zabalak, aho luzanga. Irene Aldasoro

Harrera zerbitzuko **sudur** hegala harrotuz usainka ikusi bainuen. Ramon Saizarbitoria

Bekainak zimurtzen zituen, **sudur** hegala zabaltzen. Karlos Zabala

Ogi egin berriaren urrinak **sudur** mazelak kilikatu zizkion eta gosea nabaritu zuen. Itxaro Borda

Bere hortzekin nire **sudur** hezurreen jo eta zauri bat egin zidan. Gotzon Garate

Buruaren atzealdean, motots zuria saretxo batean bildua; betaurrekoak, **sudur** -zubia baino dezentez behegero jarriak. Anjel Lertxundi

Kalera irten bezain laster, udaberriko aire hezeak inguratu zuen, eta **sudur** azpia hezetu zitzaion. Jose Morales

Franciek azkar begiztatu zizkion **sudur** -poroetatik zerizkion izerdi-tanta txikiak. Lopez de Arana

Sudur -bideetako usaimen-ataletako barne-estaldura hezean. Irene Aldasoro

Sinuetatik jariakin bat isurtzen da **sudur** -hobietara, horiek heze egon daitezten. Irene Aldasoro

Sudur kanalak, hura zeharkatzen duten aho-dardaren erresonantzaile gisa balio du soilik. Isabel Arrigain

Arnasgorako aireak eta **sudur** -mukosak 30-32 gradu inguru iritsi arte. Irene Aldasoro

Sudur barrunbea organo erabat geldia da. Isabel Arrigain

Errezeptore horiek dituzten zelulak, berriz, **sudur** epitelioaren goiko aldean daudela zehaztu zuten. Berría - Gaiak

Moko baten formako **sudur** -estalkiaren gainean, berriz, Begi Zitalak distiratzen zuen, gorritz pintaturik. Agustin Otsoa

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bigarrena asbtraktua dela)

Telefonoaren beste aldetik, **sudur** -hotsa iristen zait. Anjel Lertxundi

Sudur -ahots pixka batez hitz egiten zuen, gozo-gozo beti. Irene Aldasoro

Frantsesez, totelka eta **sudur** -mintzoz hitz egiten dute; ingelesez, berriz, txorien doinua antzeratzen dute. Jose Morales

Aho artikulazioa, laringearen dardara eta **sudur** erresonantzia. Isabel Arrigain

Ez zirudien, ez, mafrundia edo **sudur** -jarioa harrapatzeko beldur zirenik. Joan Mari Irigoien

Arnasestua, **sudur** ziztua eta ostikoen hotsa besterik ez zen entzuten. **Jose Morales**
Behingoa lokartu ziren biak, sekulako zurrungak eginez, zeinei **sudur** -txistuka erantzuten baitzien nagusi jaunak aldameneko gelatik. **Jose Morales**
Bi urte lehenago bezain segaila zegoen, eta ez zitzaion txipitua **sudur** -kako handia. **Aingeru Epaltza**
Bixtan da ez dela holako **sudur** -sartzea amerikaren gustukoa. **Herria**

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkartetak izenondo balioa duela)

Istorioko kontalari **sudur** -harro bat bere istorioetan galdua. **Koro Navarro**
Neska ile-horail, **sudur** -fin, ezpain-zabal hura, nire saihetsean kokorikatu zen. **Daniel Landart**
Alberto ile-horia zen, **sudur** -luzea eta motz eta zapala zuen kokotsa. **Fernando Rey**
Gizon mehea, urduria, aurpegi-argala, **sudur** -zorrotza. **Josu Zabaleta**
Titkia, meharra, **sudur** -zorrotza, bere lastozko kapeluekin. **Fernando Rey**
Sudur -luzeok gara orain susmagarri nagusi. **Joxerra Garzia**
Viktor Manuel erregea hegoalderantz joan zen laster, bere zaldun **sudur** -moztaileekin lur askatueta barrena. **Fernando Rey**
- Emakume gatibu batzuek, Kremonako gizonen krudeltasun ankerrez **sudur** -moztuak, arren eskatu eta jarraitu egin zieten. **Juan Garzia**

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Detektagailu bikaina da giza **sudurra**, oso motz geratzen bada ere sentikortasunean animalia eta intsektu askorekin konparatuz gero. **Irene Aldasoro**
Pailazo **sudur** bat, ileorde gorri bat gogoratzea, goiz bat zirkoan igarotzeko aukera izatea nahikoa, [...]. Lola botoitzarekiko beroki beltz estua jantzita, bitxi-orratza paparrean, arrano-**sudur** kakoak airea ebakitzen zuela. **Josu Zabaleta**

8 (animaliena)

Zona urbanizatueta ere txakurrak **sudurra** erabiltzen du bide beretik beraren zein kide igaro den jakiteko. **Irene Aldasoro**
Txakurraren **sudurra** ez da gurea baino askoz handiagoa, baina haren mukosa sentikorra oso izurtua eta tolestua da, eta horrek ahalbidetzen dio leku txikian azalera handia hartzea. Han-hemenka basiliskoaren **sudur** ezkatatsuari mokoka. **Irene Aldasoro**
Izertitan irrintzika eta **sudur** ziztuka zaldiak. **Patziku Perurena**

9 sudur-gorri (orobat sudurgorri) izond

Laster Katherinek bertan behera utzi zuen bere farfailgin-lanbidea: zeren atso **sudur-gorria** Inozenteen hezurtegian usteltzen ari baitzen. **Juan Garzia**
Valcomejako Enrique **sudurgorria** eta antzeko piztia higuigarriak. **Txillardegia**
Behin kalean erakutsi zidan, Re Umberto hiribidean; ttikia zen, **sudur-gorria**. **Fernando Rey**

10 sudur-handi (corpusean sudurrandi soilik) izond

Gizon lodi, ilebeltz, sudurmotza, emakume argal, ilehori eta **sudurrandi** baten ondoan, ezagun du konfiantzarik ez duela, ez bere gorpuzkeran ez bere sudurraren forman. **Josu Zabaleta**

11 sudur-kako izond

Doña Pitusa andre zahartxo txiki bat zen, **sudur-kakoa**, oso begi biziak zituena, eta ahoa isurbide bat. **Josu Zabaleta**
Hormatik, Bagration **sudur** -kakoak ikusmin handiz begiratzen zion eskatu-eskaini hari. **Jose Morales**
Argi mingarritik babesturik, gizon bat ikusi zuen; **sudur kakoa** eta ezpain-lodia bera, luzea eta argala era berean. **Felipe Juaristi**

12 sudur-luze (orobat sudurluze) izond

Platerok [...] uretan sartu, xaboia kendu eta xukaderan utzi, mutil judu **sudur luzeak** lehortu ditzan. **Iñaki Mendiguren**
Memorian bizi-bizita du hango nagusi **sudur-luzearen** irudia. **Joxerra Garzia**
Autorat berriz igaiterat nindoalarik, gizon handi **sudur-luze** bat hurbiltzen zait. **Janbattitt Dirassar**
-Tira, nola deitzen diozue zuek plater honi? -galdetu zion **sudur luzeak** ondoko neskari, haren lekurantz makurtuz. **Lopez de Arana**
Sudur luzeari aurpegi gorria more jarri zitzaion. **Lopez de Arana**
- irud/hed Ate sendo batek eta gimnasioan hezi eta hazitako bi tipo ikaragarrik galarazten zieten sarrera **sudurluzeei**. **Migel Angel Mintegi**

13 sudur-mako (corpusean sudurmako soilik) izond sudur-kakoa.

Kamioz ttapa ttapa honuntz datorren laborari **xahar** sudurmako bati. **Patziku Perurena**

14 sudur-mintz (orobat sudurmintz) pl sudur zuloetako barneko mintzak.

Dardarka zeuzkan ezpainak eta **sudur-mintzak**, une hartan hildakoren bat pizten ikusi izan balu baino beldurtuago. Gero hatzak eraman zituen **sudur-mintzetara**, eta hazia jakinminez usaindu zuelarik, irribarre egin zuen. **Anjel Lertxundi**
Isiltasuna genuen usain gozo eta sarkorreko landareen basoa, beti berri eta beti garbi, **sudur mintzen** kilikari. **Felipe Juaristi**
Printzesaren ile-adatsa usaindu zuen eta kramelin urrina etorri zitzaion **sudur mintzetara**. **Felipe Juaristi**
- **Sudur-mintzetatik** eraztunetz lotutako txekor gazteak indar guztiak galtzen dituen antzera, [...]. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

15 sudur-motz (orobat sudurmotz) izond

Gizon lodi, ilebeltz, **sudurmotz** bat emakume lodi, ilebeltz, **sudurmotz** baten ondoan ikusten? **Josu Zabaleta**
Zer gertatzen da?, galdetu nahi nioke esfinge **sudurmotzari**. **Anjel Lertxundi**
Gizon zintzoa eta aberatsa dun Ixtaber hori, egia, baina nola zapatagilea den eta **sudur-motza** eta bizitza osoan larruarekin ibilia, ikaragarriko kiratsa botatzen din. **Koro Navarro**
-Behin batean Pernando aprendiz omen zegoen Ixtaber Tolosako **Sudur-motza** zenaren zapata-dendan. **Koro Navarro**
Bazen, era berean, benta hartan, Asturias aldeko neska motz bat: aurpegi-zabala, lepondo-ordeka, **sudur** -motza, begi bat oker eta bestea ez oso xuxen. **Patxi Ezkiaga**
Ez zen sekulan bueltatu, Ixtaber **Sudur** -motzari hil-usaina zeriola esaten baitzuen. **Koro Navarro**
Aurpegi-zabal, **sudur-motz** bat, arrunt lausoa iduri. **Janbattitt Dirassar**
Bellek, ordea, **sudurmotz** marraztu zuen Woolf. **Berria - Kultura**

16 sudur muin (corpusean sudurmuin soilik) iz sudurraren muina.

Zornotza igaro eta kilometro batzuetara kirats nardagarria heldu zitzaion **sudurmuinetara**. **Unai Iturriaga**

17 sudur-okera (orobat sudurroka) izond

Bob James, herrixkako sagu-liluratzailer **sudur** -okerra. **Mirentxu Larrañaga**
Erortzear dagoen txabola bat, eta atso zahar-zahar txiki-txiki bat, **sudurrokera**. **Julen Gabiria**

18 sudur orde (orobat sudurorde) iz ordeko sudurra.

Halaz guztiz, Petrolini arbuiztzen segitzen zuen, kontu egiten zuelako antzezlan egiteko **sudurordea** jarri eta ilea ur oxigenatuarekin horitu beharra zuela. **Fernando Rey**
Sudur orde kartoinetako orde bat eman zioten eta ez erortzeko, begi lagun erdoildu bat zuen, zurkaitz lagun. **Herria**

18a sudur punta (orobat suturpuntta)

Zapia jartzen zioten bitartean, barre eta barre egiten zuen Mariak, eta **sudur puntak** ia kokotsa ukitzen zion. **Irene Aldasoro**
Holyoke balantzaka zebilen atean eta kapela garaia **sudur-punta** distiratsurantz okertua zuen. **Lopez de Arana**
Amak heldu egin zion eta **sudur-punta** igurzten hasi zitzaion. **Iñaki Mendiguren**
Aterki sendoa haizearen aurka babesteko ahaleginetan, berokia **sudur puntaraino** lotuta... **Juan Luis Zabala**

Bat-batean, ikasmahaiako graffitiak ikusi nituen neure **sudur puntan** bertan. Jesus Mari Mendizabal
Orduan ez nuen ezer egiten eta **sudur puntan** jartzen zitzaidana egiten nuen egun guztian, eskolara joan gabe. Pello Lizarralde
Inguruan inor edukitzen ez nuen Lucy eskolatik itzultzen zen arte, **sudur puntan** jartzen zitzaidana egiten nuen. Oskar Arana
Izan ere, denok eduki gaitu inoiz txundituta, leihoko beiran **suturpunta** xanpa-xanpa eginda, edur-maluten jaitziera baldar eta balantzazko horrek. Pello Zabala

19 sudur-zapal (orobat sudurzapal) izond

Etxeoandrea sartu zen gelan, gazte, **sudur-zapal** , zurbil, argal, moztaka, gustu onez jantzirik, Petersburgeko damak bezala. Jose Morales
Txato deitzen duguna benaz **sudur-zapala** ote den. Iñigo Aranbarri
Gizena eta titi-haundia Ceres bera da Bakorekin, **sudurzapala** Silena, Satira emea, ezpaintsua musu-lorea. Xabier Amuriza

20 sudur zapi (17 agerraldi, 4 liburutan; orobat sudurzapi 7 agerraldi, 6 liburutan) mukizapia.

Sudurzapia atera eta mukiak kendu dituk. Pedro Alberdi
-B-b-barkatu -esan zion Hagridek negar-muzinkoa, motadun **sudur-zapi** handi bat atera eta aurpegia han ezkutatu. Iñaki Mendiguren
Horra iritsirik, malko bat xukatu zuen **sudur-zapiaz** . Jose Morales
Zamau baten tamainako **sudur-zapiaz** . Iñaki Mendiguren
Hagrid jiratu eta bere etxolara abiatu zen presaka, aurpegia **sudur-zapiaz** estalita zuela. Iñaki Mendiguren
Ez nuen izan ukatzerik bere **sudur zapia** erabil zezan, muturrean estutuz odoljariorari eusteko Ramon Saizarbitoria

21 sudur-zorrotz (orobat sudurzorrotz) izond

Gizon mehea, urduria, aurpegi-argala, **sudur-zorrotza** . Josu Zabaleta
· (izen gisa) Afrodita jainkosa gurtzen duten arrainen artean oxurrugcos (oxyrrynchos, **sudurzorrotz**) izenekoa dago. J.M. Olaizola "Txiliku"
Arrantzale batek **sudurzorrotz** eme bat harrapatzen badu, kanabera batetik edo soka luze batean lotu eta hondartza ertzeko ur lasaietan paseatu ohi du. J.M. Olaizola "Txiliku"

22 sudur zulo (75 agerraldi, 38 liburu eta 3 artikulutan; orobat sudurzulo 53 agerraldi, 32 liburu eta artikulua 1ean, sudurtzulo 13 agerraldi, 9 liburu eta artikulua 1ean, sudurzulo g.er., sudur zilo 6 agerraldi, 2 liburutan eta sudur xilo g.er.) iz

Sudur-zulo bakoitzaren atzeko aire-pasabidean dagoen bihurgune estuak eragiten du, neurri batean, arazoa. Irene Aldasoro
Kea eta sua botatzen zituen **sudur-zuloetatik** . Koro Navarro
Bafada bat etorri zitzaion bat-batean **sudur zuloak** mintzera, mingotsa oso. Felipe Juaristi
Sudurra hebrear eredu delikatuakoa, baina halakoek izaten ez duten **sudur-zulo** zabalekoa. Koro Navarro
 Sudur zulo iletsuak hatz batez esploratzen. Koro Navarro
Gero, haragi kiskaliaren usaina sartzen zaik **sudur zuloetan** . Aingeru Epaltza
Berarekin errieta egiten zuenean, pozoizko tua egiten zion Namahk, eta kea eta sua botatzen zituen **sudur-zuloetatik** . Koro Navarro
Burus behera jarri zenean, **sudur-zuloetatik** ere sartu zitzaion ura. Iñaki Mendiguren
Erosi, bederen, zuen **sudur-zuloendako** material pixka bat. Aingeru Epaltza
· Bizkar beroki arrosa kolorekoa jantzita dagoen Bere Maiestatearen **sudur zuloak** egurastu ahal izan ditzan. Josu Zabaleta

23 sudurra zikindu adkor kokaina edo heroina inhalatu.

Norbaitek hautsa zeukala esan zuen; koadrilakoak harritu egin ziren agerian utzi nuenean nik ere **sudurra zikindu** nahi nuela, tabernazulo hartako komunean. Iban Zaldúa
 Sudurra zikintzen zuenean sekulako jarria izaten baitzuen. Unai Iturriaga

24 sudurra zuritu adkor kokaina edo heroina inhalatu.

Sudurra zuritu behar dut eta badakidanez zuk ez duzula gura, gelditu zaitez hemen. Sonia Gonzalez
Beharbada ez nion **sudurra zuritzen** utzi behar izan, azken batez ez dago ohituta, edo beharbada guztiz jota dago. Sonia Gonzalez
Txaplik **sudurra zuritzeko** jarri zien. Unai Iturriaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere sudur (28); **beren sudur** (3); **betaurrekoak sudur gainean** (3); **neure sudur** (3); **nire sudur** (9)
 sudur ahots (4); **sudur aitzinean** (3); **sudur aurean** (6); **sudur azpian** (6)
 sudur eta mutur (3); **sudur ezpainak** (3); **sudur fina** (3); **sudur gainean** (9); **sudur gorria** (5); **sudur handi** (8); **sudur handia** (4); **sudur hegialak** (12); **sudur hots** (3)
 sudur kakoa (9); **sudur kakoak** (3); **sudur luze** (15); **sudur luze bat** (4); **sudur luzea** (15); **sudur luzeak** (4); **sudur luzearen** (4); **sudur mazelak** (3); **sudur mintzak** (5); **sudur mintzelan** (5); **sudur mintzoa** (3); **sudur mintzoz** (3); **sudur motz** (4); **sudur motza** (5)
 sudur okerra (3); **sudur punta** (12); **sudur puntak** (5); **sudur puntan** (8); **sudur puntatik** (3)
 sudur txipia (3); **sudur zapalak** (3); **sudur zapi** (4); **sudur zapia** (8); **sudur zapiaz** (5); **sudur ziloak** (3); **sudur zorrotz** (4); **sudur zorrotza** (6); **sudur zulo** (12); **sudur zuloak** (28); **sudur zuloak ireki** (3); **sudur zuloak zabal** (3); **sudur zuloen** (3); **sudur zuloetan** (11); **sudur zuloetara** (3); **sudur zuloetatik** (11); **sudur zuzena** (3)
 ahoa eta sudurra (6); **bere sudurra** (10); **nire sudurra** (3)
 sudurra baino urrunago (3)
 sudurra eta ahoa (8); **sudurra eta belarriak** (3); **sudurra eta ezpainak** (4); **sudurra eta kokotsa** (3); **sudurra gorri** (4); **sudurra hautseztatzen** (3); **sudurra hautsi** (8); **sudurra hurbildu** (3)
 sudurra itxi (3); **sudurra itxiita** (3); **sudurra jasorik** (3); **sudurra kristalaren kontra** (3); **sudurra luzatu** (3); **sudurra motza** (4)
 sudurra odoletan (5); **sudurra sartu** (4); **sudurra sartzea** (4); **sudurra sartzen** (4)
 sudurra ukitzen (3); **sudurra zimurtu** (11); **sudurra zimurtu zuen** (4); **sudurra zimurtuz** (5); **sudurra zuritu** (3)
 untxi sudurra (3); **zure sudurra** (6)
 nire sudurraren (3); **sudurraren alde** (3); **sudurraren aurean** (3); **sudurraren azpian** (8); **sudurraren gainean** (4); **sudurraren hotza** (3); **sudurraren kontra** (3)
 sudurrean behera (3); **usaina sudurrean** (3)
 sudurreko ahotsez (3); **sudurreko hezurrak** (3)
 sudurrera eraman (3); **sudurrera hurbildu** (3)
 sudurrerako bidea (3)
 ahotik eta sudurretik (3); **airea sudurretik** (4); **dario sudurretik** (3); **sudurretik atera** (4); **sudurretik behera** (3); **sudurretik hartu** (4); **sudurretik sartzen** (3)
 sudurzuloetan gora (3)

sudurrun izond sudurra duena.

Bere abokatu belatz- **sudurrunak** soilunea xukatu, bekokia zimurtu zuen eta jira eta bira hasi zen harike eta emakumeari oka egiteko gogoia etorri zitzaion arte. Lopez de Arana
Neskazahar itsusi, beltz, kakatua- **sudurrun** bat zen, loro zaharrak baino urte gehiago zituen. Josu Zabaleta

sudurgabe (orobat sudur gabe) izond sudurrik ez duena.

Bazirudien ate-jagole zegoen soldadua **sudurgabea** zela eta bekokian zeukala bibotea, begiak baino askoz ere gorago. Jose Morales
Zurezko husar besomotz eta **sudur** gabe batekin jolasean ari ziren biak. Jose Morales

sudurgabetu, sudurgabe(tu), sudurgabetzen da/du ad sudurra galdu; sudurra kendu.

Harri horizko atari hura, harrika **sudurgabetutako** santu haiekin, gauza grotesko samarra iruditu zitzaion Martini, baina atzerritarrek zinez bikaina zela esan zuen. **Koro Navarro**

sudurgorri ik **sudur** 9.

sudurkari izond/iz 1 ahotsez mintzatuz, haizea sudurretik kanporatuz ahoskatzen dena.

Neska gazte batek oihu egin zuen ahots **sudurkariz**. **Lopez de Arana**

Gero ahotsa entzun zen, ahots gogor, **sudurkari** eta arrotza, ahots frantses doinukoa. **Felipe Juaristi**

-Egun on! -egin nuen oihu, ahateen ahots **sudurkaria** imitatuz. **Juan Kruz Igerabide**

Ahotsak barre **sudurkari** bat egin zuen. **Lopez de Arana**

Hori bai paradoxa harrigarria, frantses akademiko baten ahotsan gala erretorikoz eta soinu **sudurkariz** janzteko! **Josu Zabaleta**

2 (fonetikan)

Aho-gingila jaitsi egiten da hots **sudurkarietan** eta igo egiten da ahokarietan. **Lourdes Oñederra**

Fonema **sudurkari** baten atzean. **Isabel Arrigain**

Bokal **sudurkariak** adierazteko erabili ohi den ikur diakritikoa. **Lourdes Oñederra**

Kontsonante **sudurkarietan**, eten bat gertatzen da ahoko ahots-bidean. **Lourdes Oñederra**

n **sudurkaria**, italierazko "fango" hitzean edo piemontezko "smaña" hitzean bezala. **Juan Garzia**

Mota bakoitzak glotiseko dardararik gabeko **sudurkari** bat, hau da, **sudurkari** ahoskabe bat du. **Isabel Arrigain**

Gogora bedi **sudurkariak** herskariak badira ere ez direla leherkari izaten. **Lourdes Oñederra**

Lehenak herskariaren ahosuntzea (t -> d) dakar aurreko **sudurkariaren** ahotsa kutsatu zaiolarik asimilazioz. **Lourdes Oñederra**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bokal sudurkariak (12); **hots sudurkariak** (3); **kontsonante sudurkariak** (4)

sudurkariaren aurrean (3)

sudurkaritasun iz sudurkaria denaren nolakotausna.

Bokalen **sudurkaritasunak** balio linguistikorik (fonemikorik) ez duen hizkuntza baten hiztunek ez dute, normalean eta inolako trebakuntzarik gabe, bokal ahokarietan eta sudurkarietan arteko ezberdintasuna hautematen. **Lourdes Oñederra**

Ez gara hemen[...] bokalen **bokalen sudurkaritasunaz** arituko. **Lourdes Oñederra**

Aukera dute bokaltasuna ahokaritasunarekin edo **sudurkaritasunarekin** lotzeko. **Lourdes Oñederra**

Jakina da [...] frantsesen barrurantzko oui baiezkoa bereziki adierazgarria dela edo **sudurkaritasun** solteak ez duela munduko hiztun guztientzat esanahi bera. **Lourdes Oñederra**

sudurkaritu, sudurkari(tu), sudurkaritzen da/du ad sudurkari bihurtu.

Horregatik esaten dugu, adibidez, halako eta halakotan kontsonante sudurkariaren aurrean bokala **sudurkaritu** egin dela. **Lourdes Oñederra**

sudurkaritze iz sudurkari bihurtzea.

Hierarkiaren beheargoko mailetakoa adibide da ingelesezko sudurkariaren aurreko ozenen **sudurkaritzea**. **Lourdes Oñederra**

sudurkarizatu, sudurkariza, sudurkarizatzen da/du ad sudurkaritu.

Kontua ez baita e hori zergatik **sudurkarizatu** den jakitea, e-tik a-rako aldaketa hori berezkoa edo konbinatorioa den jakitea baizik. **Isabel Arrigain**

Bokal guztien antzera, i-ak u-ak ü-ak **sudurkarizaturiko** formak dituzte, bainan urri gertatzen dira eta alde batera utzi ditzakegu. **Isabel Arrigain**

2 (era burutua izenondo gisa)

II.ak hots ahostunak, III.ak hots ahoskabe **sudurkarizatuak**, IV hots ahostun **sudurkarizatuak**. **Isabel Arrigain**

M,n,ñ berez, herskari ahostun **sudurkarizatuak** dira **Isabel Arrigain**

sudurkarizazio iz sudurkaritzea.

Bi gertaera hauek gertatu dira, hurrenez hurren: aldaketa konbinatorio bat -alegia, e-ren **sudurkarizazioa**, n-ren eraginez, eta berezko aldaketa -alegia, e sudurkari hori a bilakatzea. **Isabel Arrigain**

sudurluze ik **sudur** 12.

sudurmako ik **sudur** 13.

sudurmintz ik **sudur** 14.

sudurmotz ik **sudur 15.**

sudurmuin ik **sudur 16.**

sudurpe iz sudurraren azpia, sudur azpia.

Mukizapia **sudurpean** zuela sartu zen, egundokoa harrapatu zuela esanaz. **Joxemari Urteaga**
Minutu bat geroago, **sudurpean** odol negar mehe bat zuela itzuli zen, hats-goitika. **Aingeru Epaltza**
Sudurpean ageri zitzaizkion ile apurrek ere katua zekarkidaten gogora. **Edorta Jimenez**
Batzuek, karrikan zakur-gorotz bat zanpatuta, zapata garbitzeko bertze manerarik ez ditek, kaka hurkoaren **sudurpera** egozte ez bada. **Aingeru Epaltza**
Juxtu-juxtu eskaini zidan sukaldeko trapu zikin samarra, **sudurpeko** bi lorratz gorriak xukatu beharrez. **Aingeru Epaltza**
ik sudurpeko.
Bere aurpegia Hitlerrenaren eran antzaldatzen saiatu zen, hatz biez **sudurpeko** bibotea egin eta ezpainak eta barailezurra estutuz. **Harkaitz Cano**
Aitorrek muki-zapia pasatu dio berriz ere **sudurpetik**, eta haren poltsikoan sartu du. **Jokin Muñoz**

sudurpeko iz sudur azpiko aldea.

Bai, **sudurpeko** horretan iletxo batzuk hazi zaizkik... **Joan Mari Irigoien**

sudurralde (orobat **sudur alde**) iz sudurraren aldea.

Hobeki aditzeko bezala, **sudurralde** zimurtu zuen, ardura eta arreta seinale. **Pablo Sastre**
Horregatik, ipar aldekoek bekokia, masailak eta **sudur alde** desitxuratzen zituzten, saltzeko gai izan ez zitezen. **Iñigo Aranbarri**
Aski izango da eskuineko eskua **sudur aldera** jaso eta hazka egitea **Javi Cillero**

sudurrandi ik **sudur 10.**

sudurreko 1 iz sudurrean eman edo harturiko kolpea.

Gainera, Del Hornok Caniri eman zion **sudurrekoa** alde guztietan agertu da epaileak ez zion txartelik erakutsi. **Berria - Kirola**
Nire oraingo nahiz lehengo bizitegiatako korridoreetan bildutako **sudurrekoen** ondorio aienatu gabeei orban berria berretuta, ene bisaia Quasimodoren edertasuna bereganatzen ari zela egin nuen neure baitan. **Aingeru Epaltza**
Ez nintzela itzullo berriz bere atzaparretan erortzera, hark bestela bezala bizioaren bideko irin-irenstaila bihurtuko ninduela, saiatu zela jada **sudurrekoaren** eskaintzekin. **Fernando Rey**

2 irud/hed

Alemanian, Bavariako bozetan, **sudurreko** haundia hartu du Gerhard Schröder sozio-demokratak eskuinaldearen aitzinean **Herria**

3 sudurrean jartzen den gauza.

Nire kontra amorruz zaudelako eta zure harrokeria nireganaino iritsi delako, **sudurrekoa** eta ahokoa ezarriko dizkizut, etorri zaren bidetik itzularazteko. **Berria - Kultura**
Lepokoak, koroak, bularrekoak, **sudurrekoak**, tribuen maskarak, animalien irudiak txoriak eta sugandilak, besteak beste, ontziak, kaikuak, makilak, txintxirrinak... **Berria - Kultura**

sudurreratu, sudurrera(tu), sudurreratzen da/du ad **1** sudurrera etorri; sudurrera eraman.

Luisari gizon haren arropetako behazunen usain guztiak **sudurreratu** zitzaizkion. **Jon Maia**
Piperraren usain melenga **sudurreratu** zitzaidan. **Alberto Ladron Arana**
Sukalde argitsu batera heldu ginen, non aza egosiaren sunda etxeokoa **sudurreratu** baitzitzaidan. gauzen usain ezberdinak hartzen ditugu, **sudurreratzen** inoiz ikusi gabe. **Alberto Ladron Arana**
On Camillok betaurrekoak **sudurreratu**, lapitza hartu eta txukun jarri zituen Pepponek biharamunean irakurri behar zituen esaldi hankamotzak. **Koldo Biguri**
Atergabe eta geldigabe erretzen zuen, tximinia bat iduri, edo tabako-hautsa **sudurreratzen** zuen, bertzerik ezean. **Joan Mari Irigoien**
Lerro bat koka **sudurreratu** nuela ematen zuen, hain nengoen nire neurritik aterea. **Karlos Zabala**
Kurtena zen Ivanek erre zuen lehenengo kanutoa, eta baita **sudurreratu** zuen lehenengo koka-lerroa ere, urte batzuk geroago. **Iban Zaldua**
Esnifatu eta burua atzerantz botatzen zuela **sudurreratu** dut nik ere. **Urtzi Urrutikoetxea**

2 irud/hed

Besarkada indargeak oinazearen usain gazia **sudurreratu** zidan. **Aingeru Epaltza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
betaurrekoak sudurreratu (3)

sudurroker ik **sudur 17.**

sudurrorde ik **sudur 18.**

sudurtalo izond adkor

Oso jende kuxkuxeroa da, eta kristalen kontra pilatzen dira denak, eta horregatik izaten dira hain **sudurtaloak**. **Julen Gabiria**

sudurtxo iz sudurtxoa.

Karten gainera bere **sudurto** okerra makurtu, maltzur-aurpegi alai jarri eta begiak dizdikza hasten zitzaizkion. **Fernando Rey**

Argitaratzailearen bulegora joaten zen eta han ere hitz egiten zuen: apal, serio, **sudurtoa** gorri. **Fernando Rey**

sudurtxo iz sudur txikia. ik sudurto.

Sudurtxo zapala zuen, eta gorantz orraztutako bibote urria. **Jose Morales**

Larruzko txano soilduaren belarri askatuak indarrrik gabe zintzilik, ehiza-txakurraren belarrien antzera, eta **sudurtxo** gorrituaren azpia heze. **Jose Morales**

Gorrotoa omen zien, berak esana, bota iltzedunei, artilezko galtzerdiei eta eguzkiagatik bere **sudurtxo** finean agertzen zitzaizkion orin ñimiñoiei. **Fernando Rey**

Mutiko txukun eta gorritzat omen zen, ahots ezti, aurpegi alai, eta **sudurtxo** atseginekoa. **Jon Muñoz**

Sudurtxoa goratuta, haizeari usainka bezala ari ziren. **Fernando Rey**

-Hi, Fermin -sartu du Yolok **sudurtxoa** -, ba al dakik Dylanen poema hori, [...]. **Pako Aristi**

sudurtzar iz adkor sudur handia.

Belarriak aipatuko dizkiot, edo bere **sudurtzarra**. **Andoni Egaña**

Zein aldetara okertuko zuen **sudurtzarra**? **Berria - Kultura**

Betaurrekoak erorixeak zituela bere **sudurtzarraren** gainean. **Fernando Rey**

Bere aurpegi berde bigunean bi triangelu zeuden, **sudurtzarrak** eta **sudurtzarra** bera aho handiaren ertzekin batzen zuten tolesek eraturik. **Lopez de Arana**

sudurtzulo ik sudur 22.

sudurzapal ik sudur 19.

sudurzapi ik sudur 20.

sudurzilo ik sudur 22.

sudurzorrotz ik sudur 21.

sudurzulo ik sudur 22.

suebaki 1 iz basoetan eta, suak aurrera ez egiteko, soiltzen den lur zerrenda.

Suebakia egin. **Berria - Euskal Herria**

2 informatikan, sarearen edo sistemaren zatia, baimenik gabeko sarbideak, eta horiek bakarrik, blokeatzen dituen.

Arrotzari trabak jartzen dizkioten mekanismoak dira horiek: sarbide-kontrol sistemak, sare birtual pribatuak, **suebakiak** sare pribatuaren eta Interneten artean jartzen den segurtasunezko hardware edo software sistema... **Berria - Gaiak**

Arrotzei ateak itxi: ADSL, hariarik gabeko konexioa badugu edo ordenagailu eramangarriarekin sare publikora konektatzen bagara, **suebaki** bat instalatu. **Berria - Gaiak**

suediar (orobat suediatar g.er.) 1 izlag Suediakoa, Suediari dagokiona.

Asteburuak Donibaneko "Sunset" dantzalekuan iragaiten nituen, 'Malibu orange' edanez, ingeles ala **suediar** kanpotiarrekin ligatzeko itxaropenaz beterik. **Ramuntxo Etxeberri**

Suediar gerra-presoa erabili ziren irakasle, eta errusiar aprendizak Königsberg-era bidali ziren prusiar trebakuntza lortzera. **Iñaki Mendiguren**

Galdera horri printzipio soil batez erantzuten dio G. Cassel **suediar** ekonomistak. **Koro Navarro**

IKEA altzarigintzari dedikatzen den **suediar** enpresak bere saltokia ez du Donostian kokatuko. **Herria**

Suediar markoa, modu ez formalean, markoari lotu zitzaionean. **Koro Navarro**

Saria, 10 milioi koroa **suediar**. **Berria - Mundua**

Nobelagile **suediar** horrek emango ziola beharbada Freud-i Bizitza erotikoaren doilortze orokorra idazteko bidea. **Ramon Saizarbitoria**

Keoping izeneko marinel **suediar** batek esandakoa. **Xabier Olarra**

Jatetxe frantses bat proposatu nion aurrena, gero txinatar bat, gero **suediar** bat. **Joxe Austin Arrieta**

• 2 iz Suediako herritarra.

Annarekin dantzan ari zena **suediar** garai eta sendo bat zen. **Lopez de Arana**

Seismoaren unean 20.000-30.000 **suediar** zeuden inguru hartan. **Berria - Mundua**

Espetxean torturatutako zutela salatu du askatu berri duten **suediar** batek. **Berria - Mundua**

Carlos **suediar** batekin ezkondua da. **Edorta Jimenez**

Gizonak, **suediar** edo finlandiarra baitzen, ez zekien espainieraz Gainerakoak zain egoten zitzaizkion, nahiz eta **suediar** koitaduak behin eta berriro eskatu han bertan uzteko. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

anja paerson suediarra (3)

larsson suediarrek (4)

suediartasun iz

Suediartasuna ! Edorta Jimenez

suediatar ik suediar.

suediera iz Suediako hizkuntza ofiziala.

Finlandian aspalditik bizi dira elkarrekin **suediera** eta finera, eta aspaldi honetan errusiera ere batu zaie. **Isabel Arrigain**

Animalia horri horrela deitzen zaio -alle ingelesez, hwalt **suedieraz** eta danieraz-, duen itxura biribilagatik eta biribilkatzeko moduagatik, izan ere danierazko hwalt horrek arku nahiz bobeda-itxurakoa esan nahi baitu. **Anjel Lertxundi**

Jatorriz **suedieraz** idatzia da liburua. **Berria - Kultura**

Finlandian **suedieraz** argitaratzen den Jakobstads Tidning egunkariko Petter Granroth. **Berria - Euskal Herria**

[Hizkuntza] germaniarrak (ingeleza, alemana, **suediera**, daniera, islandiera...). **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

finlandian **suedieraz** argitaratzen (3); **suedieraz** argitaratzen den (3)

suegun ik su 30a.

suegur ik su 31.

suela iz oinetakoez mintzatuz, zorua.

Suela lodiko oinetakoekin Uxue. **Pablo Sastre**

Suelak, ezin dira konpondu, esan dit. **Pablo Sastre**

suelo iz funtsa, oinarria.

Ez zen **suelorik** gabekoa, narrastu hark zeukan entzutea. **Koldo Izagirre**

suelto 1 adlag aske, loturarik, trabarik gabe.

Bizia zeriola orduko musika hari, heriotzaren gain altxatzen eta gero airean lasai eta **suelto** asko hegaldatzen baitzen, eta gero ezin zen oroimenetik kendu. **Felipe Juaristi**

Neurririk egokiena, pobrezia jo gabe haren hurbiletik segitzea da, gogoz eta arimaz **suelto** bizitzeko. **Patziku Perurena**

Europa alde oso eta zabaleko baso eta mendi ia denetan bizi da basa-lizarrak **suelto**. **Pello Zabala**

Verbruggen hitz jario handiko gizona da, **suelto** hitz egiten duena, nori kalte egin diezaiokkeen inolako kezkarik gabe. **Berria - Kirola**

Ukiketari ekiten ziola hantxe tipoak **suelto**, aurrena hatz mamieta, gero eskuak igurtziz; gero besoak, eta azkenerako bernetan gora eta behera ere bai. **Juan Garzia**

Yeste ez zen beste aukeretan bezain **suelto** aritu, zertzelada batzuk salbu, eta euskarriek hartu zuten bizkar gain jokoaren sortzeko ardura. **Berria - Kirola**

Baina ni **suelto** ari nintzen, bero. **Jon Alonso**

Bizimodu alaia; neskak, larrua **suelto**, jotzeko ere. **Josu Zabaleta**

2 ugari.

Nahi zuen askatasun guztia zeukan, autoa hartzea zeukan, ospa egin eta dirua **suelto** gastatu eta parrastan botatzea, nahi adina. **Fernando Rey**

-Remigio -deitu zion tabernariari-, atera ezak ardoa **suelto**. **Inazio Mujika Iraola**

Kexa bai **suelto**, baina hogeitaz urte bai etxean emakume bera duela zerbitzari. **Arantxa Iturbe**

Poliitena, herrietako oilalokak oilategitik ateraraztea izan da, eta "ama, ixilduko alteza faborez?" entzun gabe, beste 500 ikuslerekin batera nola barre **suelto** egiten duten ikustea. **Joxean Sagartzabal**

Hortzak estutu, eskuak heldulekuan finkatu, eta eman egurra, **suelto**. **Berria - Kirola**

3 solte.

Multzo trinko bat osatuz abiatu dira goizean goiz [...] baina denbora eta kilometroak pasa ahalean errosario sortaren antz handiagoa hartu du taldeak: ale batzuk **suelto**, aurreratuago, [...]. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ilargi erdia bezalako betaurrekoak zituen, sudur luze eta okerra, zilar-koloreko ile **sueltoa**, eta bizarra eta bibotea. **Iñaki Mendiguren**

Azkoitiko joera, dantzan **suelto**, elkar ukitu gabe, zuan paradisua, eta Zumarragako balseoa, aldiz, infernua. **Pako Aristi**

4 (izenondo gisa) ik solte.

Pentsa zenbat bonba atomikoren indar **suelto** eta galduak barreiatzen diren munduko zokoetan. **Pello Zabala**

Gizonekin hitz egiteko era **suelto** samarra zuen, gogotik barre egiten zuen esaldi zirikatzaile bat edo hitz gordinen bat entzutean. **Pello Lizarralde**

Ilargi erdia bezalako betaurrekoak zituen, sudur luze eta okerra, zilar-koloreko ile **sueltoa**, eta bizarra eta bibotea. **Iñaki Mendiguren**

Jazbanaren musikarekin dantza **sueltoan** ari ziren gazteak. **Alberto Barandiaren**

ik beherago 7. **Askoren artean**

• 5 iz diru xehea.

-Barkatu, mila liberakoa kanbiatzekorik ez baduzu, **sueltoa** emango dizut, baina ahal bada kanbiatu nahi nuke. **Matías Mujika**

6 dantza askatua.

Batek **sueltoa** joko zuen, eta beste hirurek agarratzen, helduta dantza egiteko musika. **Pako Aristi**

7 sueltoan adlag dantza askatuan.

Azkenean Marga altxatu egin zen eta **sueltoan** dantzatzen hasi zen kuwaitarraren parean. **Iban Zaldúa**

Hasieran pieza azkarrak jotzen zituen beti, jendea nekatu artean: dantzakoak, **sueltoan** egitekoak. **Xabier Etxabe**

Orduan rantxerari heldu dio Ramonek, eta hor bai atera direla denak plazara, **sueltoan** hasieran gehienak, baina [...] lotuan ere bai beste hainbat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Sueltoan jotak dantzatzen ziren, eta agarratzen, pasodobleak. **Berria - Kultura**

8 sueltokoak

Fandangoak erakusten zituen batez ere, eta arin-arinak, **sueltokoak**. [Iñigo Aranbarri](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sueltoko hitz egiten (3)

suemaile ik su 32.

suero 1 iz seruma.

Han zegoen **sueroaren** botila, buruz behera; hodi bat jaisten zen handik bere besora. [Pako Aristi](#)

Zimurren kontrako **suero** berria. [Jasone Osoro](#)

Han hauts bihurtu eta pozoia kontrako **sueroa** egingo dute. [Gotzon Garate](#)

Eta neska-mutilak, txiki-txikitandik, orratzari lotzen zaizkiok; eta heroina hantxe zabilek haien zainetan barrena, **suero** hilgarri bat tantakako batean bezalaxe. [Jon Muñoz](#)

2 erietxeetan-eta seruma zainean sartzeko tresna.

-Noiz kenduko didate **sueroa**, Maria? [Unai Elorriaga](#)

Bat-batean hotzikara bat sentitu zuen, eta **sueroari** begiratu zion, izotzezko ura isurtzen ari balitzaio bezala. [Pako Aristi](#)

suertatu, suerta, suertatzen (orobat subertatu g.er.) 1 da ad halabeharrez toki edo egoera jakin batean aurkitu.

Halaxe egin genuen areto hartan **suertatutako** bost lagunek. [Bernardo Atxaga](#)

Neu ere kasualitatez **suertatu** nintzen han. nahi izan zuen halabeharrik ni aizkolari australiar baten erakustaldian **suertatzea**. [Juan Luis Zabala](#)

Zelula arrunt bat estresa eragiten duen egoera batean **suertatzen** denean, genoma zelularren %10 martxan jartzen da, babesteko mekanismoak abian jarriaz. [Berria - Gaiak](#)

-Guduka batean anaia Jeanekin bekoz beko **suertatzen** bahaiz, errok goraintzi. [Aingeru Epaltza](#)

Ez zen hala **suertatu**. [Iban Zaldúa](#)

Oihartzuna hemistikioaren barruan **suertatzen** da hemen, eta ezin errimatzat hartu. [Iñaki Arranz](#)

Zer egiten ote zuten halako egoeran **suertatzen** ziren kondenatuek. [Bernardo Atxaga](#)

Orduan behar haunditan **suertatu** zen erresuma eta non ere zen ikatz kutsu zerbait, bil manerak ziren hartzen. [Herria](#)

Erne ibiltzen naiz eta adimenez aprobeztatzen dut parean **suertatzen** zaidan gutzia. [Karlos Zabala](#)

Alemana eta bi frantsesak hilik **suertatu** dira. pilotan ez bezala, posible dela bertsotan hogeita bina egitea, teman ari diren biak irabazle **suertatzea**. [Itxaro Borda](#)

Ume bat desio zuen, eta horra ustekabean haurdun **suertatu**, eta, ni desagertu bezain laster. [Joxe Austin Arrieta](#)

Bi urte lehenago Baionara iritsi zenean esperantzetan **suertatu** zen. [Itxaro Borda](#)

Halako batean, argazkien artean bat **suertatu** zitzaion deigarri. [Iban Zaldúa](#)

Nire gelakide **suertatu** zen, eta bera izan nuen urte hartako lagunik handiena. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

2 topo egin.

Santiagoko Euskal etxean **suertatu** gira Sallaberry Jean-Pierre jaunarekin, Dohoztiri Berroko semea, 1947ean joana. [Herria](#)

Elkarrekin **suertatu** ginen behin, joan den uztailen, karrikan, eta gure berri eman nion. [Aingeru Epaltza](#)

3 egokitu, gertatu.

Bazekien oraingoan zaila **suertatuko** zitzaiola egoera hartatik onik ateratzea. [Harkaitz Cano](#)

Hori bai, zozketa modu onekoa **suertatu** eta kontrario kaxkarrenak egokitu nonbait. [Josu Landa](#)

Putreak eta arranoak begizatzea oso noizean behin **suertatu** ohi zait. [Iñaki Segurola](#)

Zoragarria **suertatu** zaidan alorra, ezin ederragoa nire ondarea! [Elizen arteko biblia](#)

Giltzak nire eskutik kentzera egin zuen, baina ni azkarragoa **suertatu** nintzen. [Aingeru Epaltza](#)

Gelako guztiak irrikaz zeuden Arte Ilunen Aurkako Defentsako ikasgaiarekin hasteko, baina Quirrellen eskolak txantxa hutsa **suertatu** ziren. [Iñaki Mendiguren](#)

Uste ez bezalako **suertatu** zait uda hau. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Tabernatik irten eta haizea hartzeko gogo tentazioa baino premiatsuagoa **suertatu** zaik. [Pedro Alberdi](#)

Gure tren (Campeche-Palenque-Coatzacoalcos) nik uste baino hobea **suertatu** zen. [Joxe Austin Arrieta](#)

Kimikan ere **suertatzen** da, arkitekturaren bezala, eraikin "ederrak"-hots, simetrikoki eta sinpleak- orobat izatea sendoenak. [Juan Garzia](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alboan suertatu (3); **aurrean suertatu** (6); **bertan suertatu** (3); **bizitzea suertatu** (5)

egitea suertatu (5); **elkarrekin suertatu** (4); **erabakigarria suertatu zen** (4); **erakargarri suertatu** (3); **ezinezkoa suertatu** (3); **gogorra suertatu** (3); **hala suertatu** (9); **han suertatu** (6); **hilik suertatu** (8)

inoiz suertatu (3); **irabazle suertatu** (4); **izatea suertatu** (4); **joatea suertatu** (3)

ondoan suertatu (4)

suertatu da (25); **suertatu dira** (5); **suertatu ginen** (7); **suertatu izan** (5); **suertatu nintzen** (7); **suertatu zaidan** (3); **suertatu zaigun** (4); **suertatu zait** (10); **suertatu zen** (87); **suertatu zena** (5); **suertatu ziren** (30); **suertatu zitzaidan** (15); **suertatu zitzaizen** (9); **suertatu zitzaigun** (5); **suertatu zitzaion** (28); **suertatu zitzaizkidan** (3)

zaila suertatu (3)

beharra suertatuz gero (4); **beharrean suertatuz gero** (3)

beharra suertatuz gero (4); **beharrean suertatuz** (3); **beharrean suertatuz gero** (3); **suertatuz gero** (31)

suerte (orobat suberte g.er.) iz 1 zorrea. ik zori.

Talentua ote da, sena edo **suerte**. [Koro Navarro](#)

Suerte izan nuen. [Ana Urkiza](#)

Esan nion eguraldiarekin behintzat **suerte** izan genuela. [Ramon Saizarbitoria](#)

-**Suerte** alde duen gizona zaitugu. [Elena Touyarou](#)

Handik aurrera, **suerte** aldeko izan behar genuela esan zuen obispoak. [Inazio Mujika Iraola](#)

Nire **suerte** ez dun hirea bezain handia. [Juan Garzia](#)

Nafarraren garaipenak ia segurua ematen zuenean, **suerte** aldatu eta Zalakain eta haren laguna hasi ziren irabazten. [Koro Navarro](#)

Inor ez dago pozik egokitu zaion **suertearekin**. [Patxi Iturritegi](#)

-Ez dugu **suerte**rik gure semeekin, Edmea! [Itxaro Borda](#)

Suertea opa digute. Pako Aristi

-"Hori **suerte**a!", esan zuen Helenek. Xabier Olarra

-Ail ail, hauxe **suerte**a, hau zoriona! Josu Zabaleta

-Nolako **suerte**a, idatzi ahal izatea! Ramon Saizarbitoria

Zer **suerte**a, ezta, David? Bernardo Atxaga

Hik bai **suerte**a. Anton Garikano

Suerteko ni. Pako Aristi

Eta **suerte**a lagun, lortuko dute, noski. Patxi Iturritegi

Noizbaiteko pilotariak beren artean jokatu behar zuten, **suerteak** hala emanik. Herria

Suertea ibili nintzen bizirik izultzean. Bernardo Atxaga

Suertea nenbilen, Satanek nire pausoak gidatzen zituen. Matías Múgica

Ea ez dudan huts egiten, ez ba, **suerte**a nauk, horra leku bat libre oraindik. Xabier Olarra

2 (izenondoekin)

Suerte txarra izan da, bai. Bernardo Atxaga

Ausardiak du **suerte** txarra uxatzen. Koro Navarro

Horren **suerte** txarrekoak izango ote gara gu? Patxi Iturritegi

Han ere soinua eta zalaparta, **suerte** eta itxura guztietako jendea. Fernando Rey

Suerte ona izan zuen eta zoriontsua zen. Koro Navarro

Guzieri goraintziekin **suerte** on eta sendatzeko desirak. Herria

"**Suerte** ona opa dizuet", esan zigun. Inazio Mujika Iraola

-**Suerte** ona izan, Joxemai -esan dit-. Txillardegi

Suerte onak segitzen badu, berriak beharko ditut zabaldu! Herria

Beste bezero batzuekin **suerte** hobea izanda aurre egingo genioke. beti izan du **suerte** handia, nire aingeru guardakoa primerakoa da. Xabier Olarra

Gurekin lan egiteko **suerte** handia duenak atea itxi behar die sentimentu guzteei, nolakoak ere diren. Matías Múgica

Tamalez, ez du **suerte** handirik izan, orain arte behintzat. Patxi Iturritegi

Suerte handiagoz ibili zelako orduan, hainbesteko gorabeherarik gabe. Bernardo Atxaga

Gehiagotan ere nahastu nindutela maitale, gaizkile edo **suerte** gutxiko beste hainbat jendailarekin. Joxean Agirre

Gure haurrek baino **suerte** gutiago dutenak ainitz dira maleruski. Herria

Bigarren CDarekin **suerte** gehiago izan nuen: ia artxibo guztiak ireki ahal izan nituen. Iban Zaldúa

-Eta **suerte** hutsa izan ez balitz? Xabier Mendiguren Elizegi

Ez duk **suerte** makala izan. Iban Zaldúa

Hartu zuen senarra besoetan eta marruez hasi zen, gerra eta bere **suerte** makurra madarikatuz. Koro Navarro

-Hau **suerte** zikina -esan zuen Jamesek. Koro Navarro

Egia da, herrialde guztiak ez zuten **suerte** bera izan. Koro Navarro

3 (pixka bat eta apur bat-en ezkerrean)

-Ez hadi kezkatu, neska -esan zuen Charliek-, **suerte** pixka bat lagun, garaiz itzuliko naun. Mirentxu Larrañaga

Suerte pixka bat behar izan nuen nire irtenbidea aurkitzeko. Karlos Zabala

Suerte pixka batekin baliteke baita baldintzapekoa ematea ere. Xabier Olarra

Eta, **suerte** pixka batez, txapeldun aterako gara. Josetxo Azkona

Suerte apur batekin udaberrian Parisera joan gintezkeela esan nion. Ramon Saizarbitoria

Euskal Herria ere bere herria dela pentsatuko du **suerte** apur batez, hemen ere badaudela aitona bezain hizkuntza ezezagun eta maitagarriaz gabon-kantak abesten dituztenak. Xabier Mendiguren Elizegi

-Ororen buru, mende anitzetako iraupena istripua zela ohartzen ginen, agian **suerte** apurra, beharbada noiztenka borroka ahul bat. Itxaro Borda

4 mota.

Horretaz gainera, badago kai ikaragarri handi bat, eta **suerte** guztietako ontziak ailegatzen dira, kolore guztietako marinelekin. Fernando Rey

Zeren eta Gaztelarentzat ere bi **suertetakoak** baikinena nafarrok: batzuk onak eta bertzeak gaixtoak. Joan Mari Irigoien

Gasna **suerte** hau ez zitzaidan laket. Itxaro Borda

Emakume **suerte** hori aspergarria izaten da betiere, usu liskartia, doi bat zirikatzailea batzuetan, baina oso bakan gaiztoa. Jon Muñoz

Nola Espainiatik Indietarat joan zen jendeak bi indiar **suerte** bereizten zituen. Joan Mari Irigoien

Harrituko nintzatekeela barne hartan zer jende **suerte** dagoen baneki. Jose Angel Irigaray

Euforia **suerte** honek ez dit, ordea, zutik egotea galarazten, abantaila hori daukat. Harkaitz Cano

Honela, bada, ez duela merezi eskizofrenia **suerte** horretan irautea. Javi Cillero

5 (bat-en ezkerrean) ik moduko 5.

-Ez behar bat? -irribarre **suerte** bat agertu zen neskaren bisaia suminduan, baina ez zen irriz ari-. Aingeru Epaltza

Zeremonia mistiko **suerte** bat, adorazio erlijiosoa ordezkatu duena. Xabier Olarra

Elizgizonak Akademia **suerte** bat bilakatu nahi izan zuten Nabarrenkoxe. Aingeru Epaltza

Fideltasun **suerte** bat, orduan? Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ainitz **suerte** (6); ainitz **suerte** on (3); amorio **suerte** (3); emakume **suerte** (3); izan dezazuela **suerte** (4); lan **suerte** (3)

suerte bera (5); **suerte** bera izan (3); **suerte** doi (3)

suerte eta zorion (10); **suerte** gehiago (5); **suerte** guztietako (4); **suerte** handia (11); **suerte** handia izan (5); **suerte** handirik (5); **suerte** hartako tigreak (4); **suerte** hobea (9); **suerte** hobea izan (3)

suerte izan (3); **suerte** makala (3)

suerte on (68); **suerte** on desiratzan (3); **suerte** on guzleri (5); **suerte** ona (49); **suerte** ona izan (9); **suerte** ona izango (3); **suerte** onak (10); **suerte** onarekin (7); **suerte** onaren (4); **suerte** oneko (6); **suerte** onez (3); **suerte** onik (3); **suerte** pixka bat (4); **suerte** pixka batekin (7); **suerte** txarra (30); **suerte** txarra izan (6); **suerte** txarrak (3)

zorion eta **suerte** (4)

hori **suerte**a (5); izateko **suerte**a (3); nolako **suerte**a (5); nolako **suerte**a nuen (3)

suertea alde (3); **suerte**a izan (25); **suerte**a izan zuen (4); **suerte**a lagun (3); **suerte**a nuen (4)

zer nolako **suerte**a (3); zer **suerte**a (5)

halako **suertez non** (6)

suertedun izond suertea duena.

Suerteduna da bertsolaria alde horretatik. Andoni Egaña

suertetsu izond suerte handia duena.

Bietako gogorrenak, joz bizienak, **suertetsuenak** ere, ez zuen gehiago barkarik, bere jabetasuna eder hura galtzen zuela bestek **Herria**

suete iz sukaldea.

Laredora doan hurrengoan, ea olagarroren bat ekartzen duen, Luisak ez dezan esan **suetean** endredau baino ez duela egiten. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Hemendik botatzen gaituztenean kalean segituko dugu eztabaidatzen zelangoa behar zuen **sueteak** ! **Urtzi Urrutikoeetxea**

sueten ik su 40.

sufesta ik su 42.

sufi 1 izond sufismoarena, sufismoari dagkiona.

Tradizio **sufiko** ipuin batean, hil berria den neska batekin maitemindutako hiru lagunen erreakzioa kontatzen da. **Bernardo Atxaga**

Baziren Asiskoaren jarraitzaileak; eta baziren islama miresten zutenak, poeta **sufiak** bereziki. **Joan Mari Irigoien**

2 sufismoaren jarraitzailea den pertsona.

Kantari paregabea eta **sufi** handiaren idazkien ezagutzailea. **Aurelia Arkotxa**

Sufien artean estimu handiaren diren amodiozko poesia ederrenak. **Aurelia Arkotxa**

Ongi baino hobeki interpretatzen zituen **sufien** edo tradizio mudejarrean oinarritutako kantak. **Joan Mari Irigoien**

Baina hinduen dotrinak bainoago **sufien** poemek erakartzen zuten: Rumi, Halladj poeta martiria, Ibn Arabi eta abarrenak. **Joan Mari Irigoien**

Erlijoien eragina aintzat hartu eta giza harremanak baldintzatzen dituzten bestelako loturen bila abiatu zen Santiago; Rumi izeneko **sufiaren** esanak, kasu. **Berria - Kultura**

sufijo (orobat sufixo) iz atzizkia.

Pentsa genezake grekoek, antzina-antzinatik erro eta **sufijoak** izanik, hitz egiteko unean osatzen zituztela hitzak, erro eta atzizki horietaz baliaturik. **Isabel Arrigain**

Eüskarazko "eta" atzizkiak ez dü deüs ikustekorik frantzesezko "ette" **sufixoarekin**, ez da batere horren bardina eta baliokidea. **Herria**

sufismo iz islamismoaren doktrina aszetiko eta mistikoa, zenbait urratsetako bidea ibilirik Alarekiko batasun mistikoa lortzea helburu zuena.

Hiru adar nagusi ditu Islamak. Sunitak, xiitak eta **sufismoaren** jarraitzaileak. **Berria - Euskal Herria**

Malama **sufismoaren** manamenduetako bat da; malamaren funtsa da norberak, bakarka eta bere eguneroko bizitzan, santu izan behar duela. **Jon Alonso**

Sufismoak maila pertsonalari garrantzia handiagoa ematen dio, mistikotasuna bultzatuz. **Berria - Euskal Herria**

sufixo ik sufijo.

sufiziente izond nahikoa, aski dena.

Gaixo-gizajook, esaten diogu sufizientzia **sufizientez** elkarri, mitoa beste tresnarik ez zuten mundua ulertzeko. **Joxerra Garzia**

sufizientzia iz harrokeria, hanpuruskeria.

"Ez dut ulertzen", harritu naitaio, halako **sufizientzia** ezkutaezin batez. **Anjel Lertxundi**

Jefeak lasaitasunez aditzen dio, **sufizientziako** irribarre batez, jakinik bestek ez duela esandakoa beteko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gaixo-gizajook, esaten diogu **sufizientzia** sufizientez elkarri, mitoa beste tresnarik ez zuten mundua ulertzeko. **Joxerra Garzia**

sufragio 1 iz hauteskundeetan edo erabaki bat hartzean botoa ematea; botoa.

Emakumearen **sufragioa** esaten zaio emakume batek gizonen batek esaten dionaren aldeko botoa emateko eskubideari. **Xabier Olarra**

Sufragio unibertsal ponderatua sistema erabiliko dute lehen aldiz EHUko errektorea aukeratzeko. **Berria - Euskal Herria**

Putinek bere boterea sendotu nahi du, **sufragio** unibertsala murriztuz. **Berria - Mundua**

Hala, **sufragio** unibertsalerako erreformak atzeratu egin beharko ditu Hong Kong-ek. **Berria - Mundua**

Xedetzat **sufragioetako** ustelkeria geldiaraztea zuen lege famatua. **Iñaki Iñurrieta**

Aitortzen du, hala ere, horren ondorioz HZko kideen **sufragio** pasiborako eskubidea murriztu egiten dela. **Berria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Sufragio eskubideaz. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sufragio pasiborako (3); **sufragio unibertsal** (13); **sufragio unibertsal ponderatua** (8); **sufragio unibertsal ponderatuaren** (3); **sufragio unibertsala** (6); **sufragio unibertsalaren** (3); **sufragio unibertsalerako** (3); **sufragio unibertsalez** (4)

sufragista iz emakumeen sufragioren alde egiten zuen emakumea.

Susan B. Anthony (1820-1906) amerikar feminista eta **sufragista** aipatzen da hemen. **Xabier Olarra**

Zelakoak zireten **sufragistak** ! **Josu Landa**

sufrantza iz sufrimendua.

Zapaldua dela irizten duen jende banakoaren gisako **sufrantzatik** nola libratu. hizkuntzaren gain jartzen diren **sufrantzak**, ezerera edo deus gutxira heltzen den jendearen **sufrantza** areagotzen du. **Itxaro Borda**

sufre (orobat **sufre** g.er.) 1 iz gai bakuna, 119 °C-tan urtzen den ez-metal horia, gar urdinez erretzen dena (S; at. z. 16). ik azufre.

Urruñan bizi zen eta haren etxebizitzan 250 kilo klorato, **sufrea**, aluminio hautsa, hari leherkaria, granadak, granada jaurtigailuak eta 2.500 detonagailu zeudela esan zuten.

Berria - Euskal Herria

Haien bularrekoak, batzuk sua bezain gorriak ziren, beste batzuk hiazintoa bezain urdinak eta beste batzuk **sufrea** bezain horiak. **Elizen arteko biblia**

Lurralde guztia **sufreak** eta gatzak erreta dago. **Elizen arteko biblia**

Errekak bike bihurtuko dira eta lurra **sufre**. **Elizen arteko biblia**

Honelakoxea da Kumas ingurua, non mendiak ketan dagozen, **sufre** biziz beterik eta iturri beroz horniturik. **Xabier Amuriza**

Orduan, Jaunak **sufre** eta suzko euria bota zuen zerutik Sodoma eta Gomorraren gainera. **Elizen arteko biblia**

Su eta **sufrezko** euria egin zuen zerutik eta denak galdu zituen. **Elizen arteko biblia**

Deabrua, haiek liluratu zituena, su eta **sufrezko** aintzirara jaurtikia izan zen. **Elizen arteko biblia**

Sufreak deabrua bezala, pixak -urearen usain sarkorrak- hirietako gune marjinatu eta arrisksuen hurbiltasuna adierazten du. **Bernardo Atxaga**

2 (neurriekin)

Araudi horren arabera, litroko gehienez 10 miligramo **sufre** eduki dezakete autoetarako erregaiek. **Berria - Gaiak**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Han bareneko zenbait arrakalatatik **sufre** usaineko bafadak irteten zirelako. **Juan Garzia**

Arrano baten mokoa dirudi haren sudurrak, erbi batena bezalako ebakidura du goiko ezpainean, **sufre** -hatsa botatzen du ahotik. **Anjel Lertxundi**

Idealtasun larritu eta guztiz desorekatu batek **sufre** distira bat barreiatzen zuen nonahi. **Koro Navarro**

Orduan ikusi nuen, aurreneko aldiz, zein zen gela argitzen zuen **sufre** argitasunaren jatorria. **Koro Navarro**

Sufre uretan murgiltzen denak ahaztu egiten omen ditu bere min eta samin guztiak. **Felipe Juaristi**

Behin batean, Caffara, Krimeako hirira, etorri zen, **sufre** bainuak hartzera. **Felipe Juaristi**

Aita **sufre** meatzeetako negozioetan zebilen. **Josu Zabaleta**

Sufre meategi batean ere lan gehiago egiten dela. **Berria - Euskal Herria**

Aitaren laguntzaile aritu zen **sufre** salmentan oporraldietan. **Josu Zabaleta**

Luigi semea, ordea, literatura zaleago zen, **sufre** ustiatzaile eta saltzaile baino. **Josu Zabaleta**

Bidal dezala txingarra eta **sufre** -euria horien gainera! **Elizen arteko biblia**

Jaunaren arnasak emango dio su, **sufre** -bolada baten antzera. **Elizen arteko biblia**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, konposatu kimikoak izendatzen)

Opportunitate bidalitako argazkietan **sufre** sulfatoaren arrastoak ikus daitezke eta mineral hori ur azalean soilik aurki daiteke. **Berria - Gaiak**

Sufre dióxido kontzentrazio arrisksuak atzeman dituzte Muskizen. **Berria - Euskal Herria**

Inamak urtean 673.002 kilo **sufre** oxido isurtzen ditu. **Berria - Euskal Herria**

Metal preziatuak ez dutenez, ez eta lurrinezko prentsa, laminagailu eta **sufre** -azidorik, [...]. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sufre dióxido (3); **sufre sulfatoaren arrastoak** (3); **sufre uretan** (3); **sufre usaina** (3); **sufre usaineko** (3)

su eta sufrezko (3)

sufredun izond sufrea duena.

Ur **sufredunak** zainetako minak sendatzeko dira onak. **Santiago Iruetagoiena**

Baita Ardea inguruan dauden eta usain berdina duten ur hotzeko iturriak ere, **sufredunak** deitzen direnak, eta beste leku batzuetakoak, antzekoak direnak. **Santiago Iruetagoiena**

sufretsu izond

Leonhard Euler iritsi arte itxaron behar izan zen, 1777 arte, FORMULA **sufretsuaren** ordez gaur egun ezagutzen dugun sinboloa erabiltzeko. **Jon Muñoz**

sufriarazi (orobat **sufriarazi** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **sufriarazi** agertzen da) 1 dio ad sufritzera behartu.

Iraintzen zutenean, ez zuen irainez erantzuten; **sufriarazten** ziotenean, ez zuen mehatxurik egiten. **Elizen arteko biblia**

Izan ere, oso senar ankerra zuen eta asko **sufriarazten** zion. **Askoren artean**

Nork **sufriarazi** digu honenbeste orain arte? **Josu Zabaleta**

Hari ere **sufriarazi** egin behar al diozue, ezkongaiak etxea suntsitzen didaten bitartean? **Juan Kruz Igerabide**

Sufriarazi egiten dio bere ondoko emakume ezindua ikusi beharrak. **Harkaitz Cano**

Ez **sufriarazi** gose denari, ez sumindu lazerian dagoena. **Elizen arteko biblia**

Aski dela **sufriarazten** ari garen animaliarri begietara begiratzea kontrakoaz jabetzeko. **Imanol Zurutuza**

Jendeak asko **sufriarazi** dit, eta mendeku hartzen dut. **Martin Anso**

Egia ezin aitortu nionez, asko **sufriarazi** zidan egoera hark. **Ramon Saizarbitoria**

Itxaronaldiak isilean **sufriarazten** zion. antzemateko, mutilaren portaeratik, ea amodiozko samina duen ala ez hala **sufriarazten** diona. **Juan Garzia**

-Zaude isilik! ez **sufriarazi** semeari! **Jose Morales**

• 2 du ad

Gurasoen bisita hurbilak izugarri **sufriarazten** zuen Sergei Golovin. **Jose Morales**

Bide bihurrietatik eramango du, beldurra eta izua **sufriaraziko** dizkio. **Elizen arteko biblia**

Oso pozik egongo naiz, zuk oinazea **sufriarazten** badidazu eta arintzen ez. **Askoren artean**

Ondasungabetzeak salneurria jartzen dio ahularen buruari, errugabeari errudunaren zigorra **sufriarazten** dio. **Juan Martin Elexpuru**

Oh, ezin zituen eraman emazteak hari **sufriarazten** zizkion laido txikiak. **Anton Garikano**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
asko sufriarazi (4)

sufriarazteke *adlag* sufriarazi gabe.

Urrea maitea baitzuen oso, eta lepokoak ere bai, emakume ederrak adina, eta ezpatakadaz hil genuen, bat, bi, hiru, gehiegi **sufriarazteke**. Felipe Juaristi

sufridu ik **sufritu**.

sufriezin *izond* ezin sufrituzkoa.

Sufriezina egiten zitzaidan Joseba Bilboko ikaskide ohi batekin berriketa atergabean ikustea, edo ikustea Triku Donostiako neska ezagun batzuekin tontakerietan; **sufriezinak**, batez ere, musikarien txirulak. Bernardo Atxaga

sufrikaitz *(corpusean **sofrikaitz** soilik)* *izond* sufritzen zaila dena, ia sufriezina.

Honelako neke **sofrikaitz** mingarriek, debozio eta jaiera miremenekoak bildu dizkiote Engrazi, Garaxi edo Gaxuxa neska gazteari gurean. Pello Zabala

sufrikario *(orobat **sofrikario**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **sufrikario** agertzen da)* **1** *iz* sufritzea; pairamena, oinazea, nekea.

Onez eramatea deliberatzen den sufrimendu horietako bat zen, eta ez gure gorputz osoak estiratan bezala kontra protesta egin ohi duen eten beharreko **sufrikario** horiek.

Josu Zabaleta

Inguratutik naukaten burzoramenduen eta **sufrikarioen** mende. Josu Zabaleta

Horrek guztiak min eta **sufrikario** gehiago ekarri du, gaizkileen eta kriminalen izugarrikeriek baino, gaizkia gaizkiagatik egindakoan... Felipe Juaristi

Besteak, baina, eskaria onartu ez, eta, funtsean, atsegin hartzen zuen lagunaren **sufrikarioekin**. Patxi Zubizarreta

Gauza zehaztugabeak -bizitzaren eta heriotzaren mugakoak, plazerraren eta **sufrikarioaren** artekoak-. Ramon Saizarbitoria

Bulego-lana **sufrikario** bilakutzen ari zitzaien azken hilabeteetan. Fernando Morillo

Sentitu egin zuen nola igotzen zitzaizkion burura hiru egunetan zehar nozitutako **sufrikarioak**, umiliazioak eta nahigabeak. Patxi Zubizarreta

Atsedetik gabeko bidaia neketsu honen **sufrikarioa** arintzeko. Karlos Zabala

Sufrikarioa gehiago luzatu gabe. Ramon Saizarbitoria

Sukarra dut, sukar ikaragarria, edo gorputz-arimak, bata zein bestea, **sufrikariotan** jartzen dizkidan sukarrezko urduritasuna, hobeto esanda! Josu Zabaleta

Banaketa bera baino, seme-alabak galdu izana zuela **sufrikario**. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sufrikario beltza, beltzetan beltzik bada. Karlos Linazasoro

Sufrikario luzeak, sastakaiaren zauria, haginkada pozoitsua, penak eta beldurrak eta aire ageriko ibilaldi luzeak zirela medio, Frodo ahiturik zegoen. Agustin Otsoa

Hain txikia bera eta bizitza luzeak nahiz **sufrikario** ugariak hain zimelduta, aurpegi eta ile zuriko bola beltz zimurtsu baten antza zuen. Jose Morales

Urteetako **sufrikario** militantea ez baita salgai. Itxaro Borda

Horrek bere **sufrikario** espiritualetan antzezpenera iritsi nahi du segituan, baina nik nire drama nahi dut antzeztu, nirea! Josu Zabaleta

Sufrikario metatu hori belaunalditik belaunaldira ontasun aberats baten antzera transmititzen duzue. Itxaro Borda

Alferreko **sufrikarioirik** eragin ez zezan. Felipe Juaristi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bev Shaw ez da albaitaria, apaiza da, New Age-aren lilurakeriez eta sineskeriez betea, Afrikako animalia oinazetuen **sufrikario** -zama arintzen saiatzen dena, zentzugabeki.

Oskar Arana

Sufrikario meta dorpe erraldoia, hutsune ñimiño iheskor bilakaturik. Txillardeggi

Azken **sufrikario** -hondarrari gailendu zaio. Itziar Otegi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Edozein modutan ere, bukaera eman nion kalbario-**sufrikario** gisako irakurketa hari. Jon Arretxe

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
hau sufrikarioa (3)

sufrikariotxo *iz* sofrikario txikia.

Mansion Hotel eta gisako izen handiustekoak zituzten hotel txiki eta pipiak jandakoetan pairaturiko **sufrikariotxoak**. Berria - Kultura

sufrikarioxka *(corpusean **sofrikarioxka** soilik)* *iz* sufrukariotxoa.

Ze potreta luke gizon batek orain, ene mementuko **sufrikarioxka** hunen arintzeko eta bere sokorriñoaren ekartzeko? Menane Oxandabaratz

sufrikizun *(corpusean **sofrikizun** soilik)* *iz* sufrimena.

Prest zeuden beti agintzen zitzaiena baino gehiago egiteko, **sofrikizun** gehiago hartzeko, egintza izpirituzkoak areago betetzeko. Joan Mari Lekuona

Jainkoari arrotz zaionak eta bera bezalakoak ez denak ezin ase eta kontsola dezake gizakia: aitzitik, **sofrikizun** litzateke beronentzat. Joan Mari Lekuona

Bere buruari uko egin dionak, eta bere baitatik erabat atera denak, ez du inoiz ere gurutzerik eta **sofrikizunik** izango, berarentzat, izan ere, dena gozamina izango da, atsegina eta bihotzeko poza. Joan Mari Lekuona

sufrimen *iz* sufrimendua.

Han zeuden betiko problemak: **sufrimena**; heriotza; behartsuak. Anton Garikano

Preso, errefuxiatu eta ekintzetan bizia galdu duten gudarien familien **sufrimena** hor dateke beti, kontuan hartzekoa bistan dena. Itxaro Borda

Nekerik gabeko hurbildurrik, munduan "leku" huts izan nahiko lukeen adixkide poeta horren **sufrimen** modernoak. **Patziku Perurena**

sufrimendu *(orobat **sufrimendu g.er.**, **sufrimentu g.er.** eta **sufrimentu g.er.**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **sufrimendu** agertzen da)* **1** iz sufritzea.

Sufrimendu batzuen haraindian ba ote da lekuri sinesmenarentzat? **Piarres Aintziart**

Txikia da mundu honetako **sufrimendua**; beste bizitzako aintza, orde, betikoa. **Askoren artean**

Gozatzeke zen denboraldia **sufrimendukoa** bilakatu da. **Berria - Kirola**

Sufritu egiten zuen ingurumari gantzatsu eta elikatuegi horretan, baina merezia zuen **sufrimendu** hori. **Karlos Zabala**

Ez dizut kontatuko zenbat neke eta trabailu, eta zenbat pena eta **sufrimendu** pairatu behar izan genuen. holandar herriak alemaniarren okupazio aldirian jasandako **sufrimenduen** lekukotasuna. **Joan Mari Irigoien**

Lehen gozamen eta bozkario iturri zitzaidana [...] **sufrimendu** eta gogogabetasun bihurtu zitzaidana. **Joan Mari Irigoien**

Hamaika pena eta **sufrimendu** iragana nintzen ni orduko. **Joan Mari Irigoien**

Hurkoaren **sufrimenduak** geure baitan sortzen duen larritasuna. **Imanol Zurutuza**

Aitortuko dizu berak ez duela emakume gazte batez abusatu, ezin eutsizko irrisa baino ez omen zen izan, eta ez du aipatu ere egiten zer **sufrimendu** eragin duen. **Oskar Arana**

Haien **sufrimenduen** ordaina. **Karlos Zabala**

Bai baitakigu gure **sufrimenduetan** parte duzuenok adorean ere izango duzuela. **Elizen arteko biblia**

Sufrimenduzko iraganak erabat baldintzatzen ditu pertsonaiak. **Anton Garikano**

Sufrimenduaren sailkapena egiten dakitenez esan ohi dute ez dagoela umea hil zaion amaren eramankizuna, pairamena eta kabitu-ezina bezalakorik. **Iñaki Segurola**

Zeren kemena beharko baitugu beldurrak, urritasunak eta **sufrimenduak** gainditzeko. **Josu Zabaleta**

Gero oharu nintzen **sufrimendurik** gabe ez dagoela idazterik, eta **sufrimendu** hori bikoitza dela: bizitzak eragindakoa, batetik, eta hori folioratzeko eginahalak dakarrena, bestetik. **Pako Aristi**

Sufrimenduaren bidez salbazioa eskuratzeko. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Ez zegoen larri, ez zuen jasan ezineko **sufrimendua**. **Berria - Gaiak**

Sufrimendu haren itzalak bera ere ukitzen zuela, nola edo hala. **Imanol Zurutuza**

Norak garbi ikusten zuen giza bihotza ohitu egiten dela **sufrimendura**, penaren bizikizun bera gozamen bihurtzeraino. **Anjel Lertxundi**

Jesus, gure kide **sufrimenduan**. **Elizen arteko biblia**

2 (izenondoekin)

Oso mingarria eta **sufrimendu** handikoa da. **Luis Elberdin**

Bideko neke eta **sufrimendu** handiagatik. **Askoren artean**

Sufrimendu luzeek ezabatuak zituzten ia osorik nire adimenaren ohiko ahalmenak. **Koro Navarro**

Bakarrik Hazelek ekingo dio egia tinko bilatzeari, **sufrimendu** fisiko zein psikologikoen eskutik. **Berria - Kultura**

Genevako Itunaren arabera, **sufrimendu** fisikoa edo mentala eragitea da tortura. **Berria - Harian**

Zure esperientzia horretzat hitzak aurkitzeak **sufrimendu** berri bat dakarrela. **Pako Aristi**

Ume bekatiaren **sufrimendu** lazgarriak. **Joan Mari Irigoien**

Sufrimendu ikaragarrien ondoren, bigarren begitik ezindurik geratu zen. Jasaten ari zaren **sufrimendu** gogorregatik sari bezala. **Jon Muñoz**

Neure buruari eragingo nion **sufrimendua** hutsala zen kontzentrazio-esparruetan jasan zutenaren aldean. **Joseba Urteaga**

Hango **sufrimendu** merezigabeen aurrean izandako mindura iratzartzen zitzaion. **Karlos Zabala**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Biktimen **sufrimendu** egoera hori amaitzeko. **Berria - Euskal Herria**

Sufrimendu keinu nabarmenak eginez. **Jon Arretxe**

Azkenengo hogeitaz urteetan zehar praktiketan aritu eta honen ondorioz pluraltasun, bizikidetasun, errespetu eta **sufrimendu**-ezaguera zabaldu eta mingotsa metatu duelako. **Iban Zaldua**

«**Sufrimendu** garaiak dira», zioen Goerge Bush Estatu Batuetako presidentek atzo goizean. **Berria - Harian**

Senideok, har itazue Jaunaren izenean hitz egin zuten profetak **sufrimendu** - eta pazientzi eredutzat. **Elizen arteko biblia**

Egunean zehar gerta zitekeen nire gorputza **sufrimendu** habia bihurtzea, eta bidegabe zatikatua izatea. **Josu Zabaleta**

Mesias **sufrimendu** bidean. **Elizen arteko biblia**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Contra-koen aurkako gerrak eragindako giza **sufrimendu** guztiak eta larrialdi ekonomikoek berehala zapuztu zuten hasierako gogo bizia. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

horrenbeste **sufrimendu** (3); **sufrimendu asko** (3); **sufrimendu egoera** (3); **sufrimendu eragin** (3); **sufrimendu gehiago** (3); **sufrimendu guztiak** (5); **sufrimendu handia** (6); **zer sufrimendu** (3)

bere sufrimendua (3); **biktimen sufrimendua** (5); **eragindako sufrimendua** (3); **eragiten duen sufrimendua** (3); **giza sufrimendua** (3); **heriotza eta sufrimendua** (4); **mina eta sufrimendua** (4); **palestinarren sufrimendua** (3); **senideen sufrimendua** (3)

sufrimendua aintzat (4); **sufrimendua amaitzeko** (3); **sufrimendua areagotu** (6); **sufrimendua areagotzea** (10); **sufrimendua areagotzen** (3); **sufrimendua arintzeko** (3); **sufrimendua besterik ez** (3); **sufrimendua eragin** (6); **sufrimendua eragiten** (6); **sufrimendua eta heriotza** (3); **sufrimendua izan** (3); **sufrimendua luzatu** (3); **sufrimendua saihestu** (4)

sufrimenduaren aurrean (4); **sufrimenduaren bidez** (6)

bere sufrimenduen (3)

sufrimendurik gabe (5)

sufrimendutxo iz sufrimendu txikia.

Osaba Xabierrek ere kantatzen zituen, asko desafinatzen zuen berak kontrakoa uste izan arren, **sufrimendutxoa** zen berari horiek entzutea. **Mikel Hernandez Abaitua**

sufrimentu ik sufrimendu.

sufritu, sufri, sufritzen *(1602 agerraldi, 178 liburu eta 691 artikulutan; orobat **sufritu 338** agerraldi, 39 liburu eta 94 artikulutan, eta **sufridu g.er.**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **sufritu** agertzen da)* **1** du ad nekea edo oinatzea pairatu.

Ebek **sufritzen** du, baina ez du negar egiten. **Sonia Gonzalez**

Non sakatu asmatzen baduk, bildotsak ez dik **sufrituko**. Anjel Lertxundi

Idatzia zegoen Mesiasek **sufritu** egin behar zuela eta hirugarren egunean hilen artetik piztu. Elizen arteko biblia

Sufritu egiten du, kexatu egiten da, protestatu egiten du, etsipenean erortzen da, baina berdin da. soldaduaren gorputza, **sufritzeko** eraikia. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gerra hartan **sufritu** eta bizia galdu zutenei omenaldia egitea duk kontua. Koldo Biguri

Maitaleek **sufritu** egiten dute elkarrekin ez daudenean. Luis Elberdin

Harekin **sufritzen** badugu, harekin izango gara errege. Elizen arteko biblia

Gure amak esaten zuen **sufritu** egiten zuela liskar horiekin. Pello Lizarralde

Gordonek **sufritu** egin zuen zure erruz, eta uste dugu orain ordainen bat merezi duela. Oskar Arana

Mesiasek **sufritu** eta hilen artetik piztu egin behar zuela azaltzen eta frogatzen zien. Elizen arteko biblia

Zuzen jokatzegatik **sufritu** beharrean gertatzen bazarete, zorionekoak zuek! Elizen arteko biblia

-Gaixoa, horregatik **sufritu** behar izatea ere. Patxi Zubizarreta

Badakit hilei buruz ez dela gaizki hitz egin behar, eta Hennek asko **sufritu** zuen bere bekatuengatik. Koro Navarro

Kontenpla ezazu amodio esanezina; honek eraginik **sufritu** nahi izan zuen gurutzeko habeak, eta bertan heriotzarik lotsagarrienaz hil. Askoren artean

Hiltzaileak, baina, **sufritu** beharra dauka. Patxi Zubizarreta

Florent **sufritzen** ari zen. Karlos Zabala

Bizitzea **sufritzea** da, zoriontasunera iristeko borrokatzen saiatzea. Antton Olano

Eta ez ote da optimismoa, **sufritzeko** beldurrez dagoenaren etsipena? Iñaki Segurola

Inoiz serio gaixorik egon edota gaiztarraska tipienik ere **sofritu** gabea, mina orain arteko bere bizitzaren ukapena da, eta ez du onartuko. Pako Aristi

Gaur nire konputagailu maiteak **sufritu** beharko du nire akatsak zuzentzen. Iñaki Zabaleta

2 (aditzaren osagai zuzenarekin)

Haren ondorezak behar dituzu **sofritu**. Jon Muñoz

Dudarik ez da horrelako torturak **sufritu** izan dituela. Josu Zabaleta

Gizadiari bizirik eusteko egiten baitute borroka eta **sufritzen** baitituzte oinazeak. Josu Zabaleta

Zorixarrez, egunero izaten dugu biolentzia **sufritzen** duten emazteen kasuen berri. Herria

Borroaren eskuetan martiritza gogorra **sufritzea**. Askoren artean

Beste zigor eredugarriago bat **sufritu** behar izan zuelako. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Jesus hura ohorez eta aintzaz koroatua ikusten dugu, **sufritu** zuen heriotzagatik. Elizen arteko biblia

Kristauek beraien ere harropaketaren ondorio litzateke **sufritu** behar izan zituzten. Imanol Unzurrunzaga

Irakeko gerra **sufritu** berri duten irakiarrei. Joan Mari Irigoien

Bidezkoa da, beraz, ni ere haien tokian jartzea eta haiek **sufritzen** dituzten behar berberak **sufritzea**. Imanol Unzurrunzaga

Juduek **sufritu** zutena eta gertatu zitzaiena ikusirik antolatatu zuten jai hura. Elizen arteko biblia

1999an 400 enpresak zentsura **sufritu** zuten hurbildik. Pello Salaburu

3 (adizlagunekin)

Pozik **sufritu** zenuten zeuen ondasunak kendu zizkizuetenean, jakinik aberastasun bikainagoa eta iraunkorragoa zenutela. Elizen arteko biblia

Lasai zaitez, etzazu alferrik **sufritu**. Bernardo Atxaga

Ni bezalakoa izan behar da; neurrian **sufritu** behar da. Monika Etxebarria

Zorionekoak gaixotasuna eta larrialdia bakean **sufritzen** dituztenak. Askoren artean

Nire aitak asko **sufritu** zuen gerran. Bernardo Atxaga

Familiakoek asko **sufritzen** dute gorpua hondartzara batean azaltzen den arte. Bernardo Atxaga

Zenbat aldiz ez digute galdegin Dachau-n anitz **sofritu** dugunetz: Büchenwald-en baino aise gutiago. Marzel Etxehandi

Zeren asko eta benetan **sufritzen** duenak soluzio bat aurkitu nahi izaten baitu, ate bat, argizulo bat. Bernardo Atxaga

Gehiegi **sufritu** dut... Lopez de Arana

Nik, egia esan, ez dut askorik **sufrituko** horregatik, saltsa hauek gustatzen zaizkit. Iñaki Iñurrieta

Bilobek **sufritu** zuten gehien. Harkaitz Cano

Sobera **sufritu** omen zuten, haur denboran, euskaldun izaiteagatik. Eneko Bidegain

Bihotza penaz beterik zaukat; nahikoa **sufritu** diat. Juan Kruz Igerabide

Begiak igurzten dira, eta aurrez **sufritzen** da gramatika lezio triseagatik. Josu Zabaleta

Izugarri **sufritu** dut berarekin kotxean, hildako batekin nindoala iruditzen zitzaidan. Jose Morales

Zein gutxi konturatu ginen zenbat **sufritzen** zuen. Josu Zabaleta

Neuk agertuko diot zenbat **sufritu** beharko duen niregatik. Elizen arteko biblia

4 (era burutua izenondo gisa)

Langile **sufritu** batzuk. Euria ekartzen omen duten mendebaldeko langile **sofritu** hauek. Pello Zabala

Batxilerreko ikasle **sufrituei**, sufritzen jarrai dezaten. Joan Mari Irigoien

Golaren zain ezarriak estututa egon da publiko **sufritua**. Joseba Zulaika

Etxean umetan ikusitako eszenak inspirazio gisa erabiliz, emakumezko **sufrituentzako** bortxakeriaren arloa hartuko nuen nire gain. Jon Arretxe

Gorpu **sufritu** hura goitik ikusten zuela, malkoak azaldu ziren Amaiairen begietan. Aitor Arana

5 (era burutua izen gisa)

Sufrituak ematen dit nahi dudanaren idazteko dretxoak. Piarres Aintziart

6 izan.

Inoiz ez nuen hain sukar-kolpe bortitzik **sufritu**. Anjel Lertxundi

7 jasan, eraman.

Inoiz ez nuen hain sukar-kolpe bortitzik **sufritu**. Anjel Lertxundi

Larunbat-igandeetan bakarrik **sufritu** nuen lagunaren aienatzea. Aingeru Epaltza

Ohean jesartzera egin zuen Mentxuk Joseluren burlaizea **sufritzen** zuen bitartean. Josu Landa

Zeusen irribarre garailea ezin **sufrituz**, bertan itsutu zuen Herak Tiresias. Juan Garzia

Ezin dut **sufritu** Martinen baldarkeria. Bernardo Atxaga

Ezin nuen Angelen jokaera **sufritu**. Bernardo Atxaga

Hargatik ezin zuen nere txoro-haizerik **sufritu**. Iñaki Segurola

Ezin ditut **sufritu** kale hauek, Campana kalea, Saluzzo kalea! Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aski sufritu (5); **asko sufritu** (100); **asko sufritu zuen** (14); **askoz gehiago sufritu** (3); **dezente sufritu** (14); **dezente sufritu zuen** (6)

ederki sufritu (20); **ederki** sufritu zuen (11); **ederki** sufritu zuen (3); **erasoak** sufritu (3); **gehiago** sufritu (31); **gehiago** sufritu zuen (8); **gehiago** sufritu zuen (11); **gehiago** sufritu gabe (5); **gehien** sufritu (8); **gutxiago** sufritu (3); **hainbete** sufritu (3); **hainbeste** sufritu (7)

ikaragarri sufritu (7); **izugarri** sufritu (13); **izugarri** sufritu zuen (4); **jazarpena** sufritu (5); **jende askok** sufritu (3); **larruan** sufritu (3); **majo** sufritu (16); **majo** sufritu zuen (5); **nahikoa** sufritu (3); **nola** sufritu (3)

semeak asko sufritu (3)

sufritu arren (9); **sufritu** behar (62); **sufritu** ondoan (3); **sufritu** ondoren (7)

tratu txarrak sufritu (3); **zenbat** sufritu zuen (3)

asko sufrituko (11); **gehiago** sufrituko (4)

asko sufrituta (5); **gehiago** sufrituta (8); **majo** sufrituta (6); **sufrituta** irabazi (6)

galtzea eta **sufritzea** (3); **gehiago** **sufritzea** (3); **sasoi honetan** **sufritzea** (3); **sufritzea** **egokitu** (6); **sufritzea** **egokituko** (5); **sufritzea** **tokatu** (4); **sufritzea** **tokatuko** (3); **sufritzea** **tokatzen** (3); **sufritzea** **zer den** (5)

sufritzeko prest (6); **sufritzeko** prest gaude (3)

amek asko **sufritzen** (3); **asko** **sufritzen** (38); **asko** **sufritzen** da (5); **asko** **sufritzen** du (8); **bakean** **sufritzen** dituztenak (5); **beti** **sufritzen** (3)

egunero **sufritzen** (5); **emakumeek** **sufritzen** (9); **emakumeek** **sufritzen** duten (6)

etengabe **sufritzen** (3); **euskal herriak** **sufritzen** (3); **gaitzak** **sufritzen** (3); **gehiago** **sufritzen** (18); **gehiago** **sufritzen** (3); **gehien** **sufritzen** (14); **gehien** **sufritzen** dutenak (5); **gutxiago** **sufritzen** (4); **hainbeste** **sufritzen** (5); **herriak** **sufritzen** duen (3); **horrenbeste** **sufritzen** (3)

ikaragarri **sufritzen** (5); **nola** **sufritzen** (5)

ondorioak **sufritzen** (6); **sufritzen** **badakitela** erakutsi (3); **sufritzen** **dute** **gehien** (4); **sufritzen** **duten** **bazterketa** (3); **sufritzen** **hasi** (3); **sufritzen** **ikustea** (4); **sufritzen** **ikusten** (4); **sufritzen** **jarraitu** (5); **sufritzen** **jarraituko** (3)

tratu txarrak **sufritzen** (4); **zenbat** **sufritzen** (6)

sufrituarazi ik **sufriarazi**.

sufritzaille *izond* sufritzen duena.

Federik baldin bazuten sinesteko azkenean Jainkoaren errebelazioak, Kristo **sufritzaillean** haragituriko Maitasun gisa, harrizko bihotzak haragizko bihotz bihurtuko zituela. **Iñaki Mendiguren**

sufumigazio *iz* ke terapeutikoa hartzeko lurrinketa.

Ez zeukan gehiago aldean ezoin talisman; ez zuen perfumerik batere **sufumigaziorik** egitekorik; ezta zotz dantzariik ere sakonki gorderiko iturririk seinalatzeikorik, egarriaren ibigarri. **Juan Garzia**

sugai (*orobat* **suka**; *Euskaltzaindiaren Hiztegian* **sugai** *agertzen da*) *iz* su egiteko erabiltzen den gaia; erregaia.

Furnegoa bagenuen, baina **sugairik** ez. **Marzel Etxehandi**

Erromako tenploetako sua, Zeus nahiz Jupiterren aldareetan, haritz **sugaiaz** piztua zen beti. **Pello Zabala**

Karea egosteko ere, karobia sutzerakoan, otea nahi izaten omen zuten garai bateko aitona zaharrek, **sukairik** hoberenetakoa zelakotz. **Patziku Perurena**

Eskualdeko zuzendaritzak Joanto Ithurbideren gain utzi zuen armadari helaraziko zitzaizkion arma, janari, jantzi bero eta **sugaien** eskuratzea. **Elena Touyarou**

Norland inguruan, sua pizteko toki seinalatuak bidegurutzeak dira: **sugaitarako**, berriz, 9 egur mota ezberdin hautatuak dituzte. **Pello Zabala**

sugalda ik **su 42a**.

sugalinda ik **sugandila**.

sugandila (*orobat* **suaingila** *g.er.*, **suangilla** *g.er.*, **sugalinda** *g.er.* eta **sugelindara** *g.er.*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian* **sugandila** *agertzen da*) **1** *iz* muskerraren itxurako narrastia, hura baino txikiagoa eta eskuarki arrea (*Podarcis sp.*).

Ezpain mardul askoak ageri bai, han-hemenka, baina lepoek **sugandilaren** larru zimurtua zekarkizuten gogora. isatsa Errotik moztutako **sugandila** bat bezala sentitu nintzen. **Joxe Austin Arrieta**

Hormetan **sugandilak** zulotik zulora. **Jokin Muñoz**

Neska ilegorria beldurturik ezkatutzen zen agertzen nintzenean, **sugandilaren** moduan. **Joseba Sarrionandia**

Hantxe ibili nintzen kamerarekin batera eta bestera, baina ezer apartekorik aurkitu gabe, **sugandila** edo hondarretako armiarma asaldagarri samarren bat edo beste izan ezik. **Joxe Austin Arrieta**

Hiru lagunek auzotik gorako bidea hartu dute, zezen-plaza aldera, **sugandilak** harrapatzera. **Jokin Muñoz**

Haizea, hondarretako xaguen kurrikkak [...] eta **sugandilaren** bat edo besteren firrindarak. **Joxe Austin Arrieta**

Sugandila hori-berdeak, **sugandila** marroiak, bestelako **sugandilak**. **Unai Elorriaga**

Sugandilen aberria eguzkia da. **Joxerra Garzia**

2 (hitz elkartuetan)

Bizirik daude [iguanak], geldi-geldi, norbaitek ukitzen dituen arte, beren **sugandila** -ahok lasto-hariz ongi estekatuak, oso auskitzailleak omen baitira. Haren kokospeko **sugandila** -larmintza, haren baldokietako ximurrak, haren begiak, nekatuak ez, izutuak soilik, behinola baino ederragoak. **Joxe Austin Arrieta**

Australian basomutil ibili nintzenean bertako aborigen tribu batekoei ikasitako teknika berezi bati esker, zeinari zor baitzioten Australia osoan ezagun egin zen izena: **sugandila** -gizonak. **Jon Alonso**

sugandilatu, sugandila(tu), sugandilatzen da *ad* sugandilen gisa ibili.

Hain egun desiratuaren ospakizunetan parte hartu gabe, ilargiaren argipean, soka batez baliatuz **sugandilatu** zen Kalonjeen atexkaren ondoko harresietan beheiti. **Aingeru Epaltza**

sugar (*orobat* **su-gar**) **1** *iz* garra.

Hiriaren ezker aldean **sugarrak** sortu ziren berehala. **Karlos Zabala**

Nire barrua **lihiatu** zuten haren bila; **herregatik** egin dut lorpen bakaina. [Elizen arteko biblia](#)
Goza gaitezen oraingo ondasunez; goza gaitezen mundu honetaz **sugartsu**, gaztaroan bezala. [Elizen arteko biblia](#)

sugartu, sugar(tu), sugartzen 1 du *ad* gartu, sutu.

Erretiluaren erdian txokolatetzko izozki **sugartua** dago, gar urdin eta horien artean bildurik. [Xabier Olarra](#)

2 irud/hed

Inguruko ohatzeetan hemezortzi lagun zurrungaka eta puzkerka dituzula, benetan **sugaturik** egon behar duzu ondokoari gainka etortzeko. [Aingeru Epaltza](#)

suge (*orobat sube g.er.*) 1 *iz* zilindro itxurako gorputz luzea duen narrasti hankarik gabea(*Subord. Ophidia*).

Aaronek lurrera jaurti zuen makila Faraoiaren eta funtzionarioen aurrean, eta makila **suge** bihurtu zen. Horma gotor bat ikusi zuen, eta han elkarri loturiko bi **suge** zeuden harrian irarrita. [Jose Antonio Mujika](#)

Sugeak bezala egiten du kosk, sugegorriak bezala zizta. Han egingo du **sugeak** habia, han egin eta berotuko arrautzak. [Elizen arteko biblia](#)

Sugearen buztana esatea erredundantzia ez bada. [Unai Elorriaga](#)

Piztien hanka-hotsek eta **sugeen** ziztuek asaldaturik. [Elizen arteko biblia](#)

Sugearen hozkada balu bezala. [Anton Garikano](#)

Sugeren batek zizta eginiko edonor, brontzezkoari begiratzean, sendatu egingo da. [Elizen arteko biblia](#)

Sugeak begietara tinko begiratzen dionean, akordua galduta bezala geratzen omen da txoria. [Joxerra Garzia](#)

Sugeari masail hezurretarik heldu eta **sugeak**, bere atxikidura utzita, ihes egin zuen. [Gotzon Garate](#)

Badakizu hemen **sugea** edozein belartzatan dagoela. [Jon Maia](#)

Suge harrapatzeko irulen antzeko moldeak erabiltzen dituzte. [Gotzon Garate](#)

Bazirudien **sugea** xaxatzen-edo ari zinela. [Iñaki Mendiguren](#)

Sugea gorputzaren inguruan kiribilkatu zitzaion eta leizera eraman zuen herrestan. [Joanes Urkixo](#)

Izan zaitezte, bada, **sugeak** bezain zuhur eta usoak bezain xalo. [Askoren artean](#)

Sugea zen Jainko Jaunak egindako piztietan maltzurrena. [Jose Antonio Mujika](#)

Neskaren lepoa benetako **suge** baten antzera bihurritzen zen. [Jose Morales](#)

Isil-isilik doa Egipto, **sugea** bezala, etsaien gudarostean erasoepen. [Elizen arteko biblia](#)

Bozgorailutik beherantz, hormatik herrestan, musika haria zetorren, **suge** bat bezain isil gordean. [Karlos Linazasoro](#)

2 (izenondoekin)

Erriflearen puntarekin hautsa nola-nahika zapaltzen zuen, **suge** sotil higikorra aldi oroz huts eginez. [Itxaro Borda](#)

Suge handia luzatzen ari zen arin-arin, eta sigi-siga kanpora irteten... [Iñaki Mendiguren](#)

Ganberan dagoen munstroa basiliskoa da, **suge** erraldoi bat. [Iñaki Mendiguren](#)

Suge erraldoi larri-titakatu ikaragarri bat bereziki. [Daniel Landart](#)

Kobrezko txorrotetako baten albo batean markatuta **suge** ñimiño bat zegoen. [Iñaki Mendiguren](#)

Koioiteak eta **suge** ziztulariak ez ziren areririk gaiztoenak. [Itxaro Borda](#)

Hogwartseko tren espresa ziztu bizian zihoan han behean, **suge** gorrimin bat bezala. [Iñaki Mendiguren](#)

-Ez mugitu, Potter -esan zion Snapek, ondo pasatzen ari baitzen Harry mugitu ezinik ikusita, **suge** amorratuari begira-begira-. [Iñaki Mendiguren](#)

Horixe baita, azken funtsean, zeloan azpian narratsean ibili ohi den **suge** pozoiduna: jabetasun sentimenduak. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Katua eta **suge** pozoitsu bat izugarriko borrokan ari ziren. etxeko ilunpean, zakur, otso eta **suge** diseekatuen hortzak eta begi urdinak ikusten dira. [Gotzon Garate](#)

Eta belarretan utzitako mahats-adarrek **suge** beltzak ziruditen. [Koldo Biguri](#)

Zure bihotza, **suge** kiribildua bailitzan [...] azalberritzen sentitzen duzu. [Harkaitz Cano](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Slytherini berari "**suge** -mizto" deitzen zioten. [Iñaki Mendiguren](#)

Gaur egun ziur dakigu gure alabaren heriotza ez zuela **suge** -pozoik eragin. [Joxe Austin Arrieta](#)

Haien asmoak **suge** -arrautzak bezain zital. [Elizen arteko biblia](#)

Suge -azal erraldoi bat ikusi zuten tuneleko zoruari. [Iñaki Mendiguren](#)

Suge habia aurkitu ondoren, usain berezia duen hemtal makila sartzen dute zulo barrura. [Gotzon Garate](#)

Bularreko haurra **suge** -zuloetan jolastuko da, sugegorri-habian sartuko du eskua. [Elizen arteko biblia](#)

Suge ausiki batek ez zion min gehiago eginen. [Elena Touyarou](#)

Lehengoa **suge** -dantzak ikusteko mina gutxitu egin da. [Gotzon Garate](#)

Suge -tankerako lepo malguari heldu, eta indarrez estutu zuen. [Jose Morales](#)

Ikerketarako, 64 musker eta **suge** espezie hartu dituzte zientzialariek. [Berria - Gaiak](#)

Suge -harrapatzaile aipagarria. [Gotzon Garate](#)

Musikariak, dantzariak, **suge** -sorgintzaileak, titiriteroak, *Yamaa el Fnan* elkartzen diren animatzaile guztiak joanda zeuden. [Bernardo Atxaga](#)

Garaiz xorarazi baino lehen sugeak zizta egiten badu, ez du irabazirik **suge** -xorarazleak. [Elizen arteko biblia](#)

Egungo egunean zailtza da Indian **suge** -liluratzailek ikustea. [Gotzon Garate](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gizon bat eta emakume bat biluzik ageri ziren, itsas **suge** batek indarrez estekaturik. [Lopez de Arana](#)

Hego Afrikako zuhaitz-**sugearen** azala xerrendatan. [Iñaki Mendiguren](#)

5 (irain hitz gisa)

Koinatua diat **suge** zirtzil hori. [Aingeru Epaltza](#)

Haiendako alabaina "zerri higanotak" edo "deabru heretikoak" ginen gu; "ostia-milikatzaileak" edo "**suge** papistak", berriz, haiek guretako. [Aingeru Epaltza](#)

-**Sugea** eta traidorea hi, emaztea usteltzen utzi, eta halako perla komunzulotik behera bota nahi izateagatik! [Patxi Zubizarreta](#)

Fernando aragoiar azpi-**sugearen** orde z -infernuko garretan kiskaliko da agian! -Karlos Habsburgokoa flandestarra zegoen espainolen buru. [Aingeru Epaltza](#)

"Frantxa bezain **sugea**", "frantxakumea bezain zizarea", adituko zuen maiz gure aitatzik, larri-apantzaileen karrikan. [Aingeru Epaltza](#)

On Camillo bezalako **suge** pozoitsuak sartzeko moduko kaiola batekin. [Koldo Biguri](#)

6 irud/hed

Ontzi zabala labain zihoan, izarrez ereina zirudien zerurantz ke beltzezko **suge** lodi bat jaurtiz. [Josu Zabaleta](#)

Bihar **suge** hotz batek laztanduko du nire zintzurra, eta dagoeneko samatu behar nuke palankaren itzuliaren doinu gozoa borroaren eskupean. manifestazio osoa goitik behera zeharkatu zuen plastikozko giza-**suge** batek lagunduta. [Koldo Izagirre](#)

Iragana eta oraina eta geroa ererrik utzi nahi zituen ke isats luzea zuten ikur; herrien memoria eta historia, biak batera, itorik utzi nahi zituen ke **suge** bihurria zuten mirabe.

Felipe Juaristi

Maitek Klaudiori bere **suge** beltza potxonan hartu nahi zuela esan zion eta kubatarra amoroski ari zen zeregin hartan. Aitor Arana

Hemeretzigarren mendean ere, isolazionismoa maila politikoan egingarria zirudienean, lurreko paradisu honetan **suge** ugari zegoen. Iñaki Mendiguren

1972az gero Diru **Sugea** deritzana. Koro Navarro

7 (izenondo gisa)

-Sarri emanen dute amore higanot **suge** horiek. Aingeru Epaltza

8 *kriskitin suge* suge pozoitsua, isatsaren muturrean adarkizko eraztunak, dardaratzean hots egiten dutenak, dauzkana.

Kobraren eta **kriskitin-sugearen** artean izigarritzko borroka zelako. Gotzon Garate

Gero, krak!... eta **kriskitin-suge** bihurtu zen... sigi-saga bihurritu zena. Iñaki Mendiguren

Gauza beltz hori lehertuko den erloju-bonba bat da, eraso egiteko prest dagoen **kriskitin-suge** dardartia. Jon Alonso

Kriskitin-sugearen antzeko hotsa egin du poxpolo-kaxak Mikelek eragindakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Kilkerrak ere nekez mugitzen ditu hegoak, eta **kriskitin sugeak** imajinatzen ditugu untxi nagiak harrapatzen etxearen zimenduetan. Javi Cillero

9 *pitoi suge* eskualde ekuatorialetako sugea, tamaina handikoa, pozoitsua ez dena.

Jakina, larruz eta txintxetaz jantzita lepo inuguruan **pitoi sugea** duen jende gehiago dago hemen Tafallan egongo litzatekeena baino. Harkaitz Cano

Adar bat ikusi zuen, **pitoi sugea** bezain sendoa, jo eta autoa txikitzen. Iñaki Mendiguren

Sayal Lallubhai, 12 urteko neskatilak hiru metroko **piton sugea** ikusi zuen, bere lagun ttipiaren zangoan kiribildua. Gotzon Garate

-Zazpi urteko neskatila batek 8 zentimetro luze zen **piton** -sugekumea irentsi zuen. Gotzon Garate

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

harrizko suge (3); **kriskitin suge** (4); **makila suge bihurtu** (3)

suge auskiarengatik (3); **suge bat bezala** (3); **suge baten antzera** (3); **suge beltz** (5); **suge beltza** (3); **suge bihurtu** (11); **suge bihurtu zen** (7); **suge gaizto** (3); **suge handi** (3); **suge jana** (3); **suge mota bat** (3); **suge pozoitsua** (3); **suge pozoitsuak** (3); **suge pozoitsuen** (3)

brontzezko sugea (4); **sugea bezain** (5); **sugea bezala** (8); **sugea ikusi** (3)

emakumeari sugeak esan (4); **sugeak bezain** (8); **sugeak bezain zuhur** (4); **sugeak bezala** (9); **sugeak txoriari begirutzen** (4); **sugeak zizta** (4)

afrikako zuhaitz sugearen (3); **zuhaitz sugearen azala** (3)

sugeari esan zion (3)

sugegorri (*orobat suge gorri g.er.*) 1 iz hiruki formako burua duen sugea, azal-grisa, bizkarrean sigi-sagan marra iluna eta ahoan bi hortz pozoidun dituena (*Fam. Viperidae*). ik **bipera**.

Sugegorriak ez du erruten gainerako sugeek bezala eta kumeak bizirik jaiotzen dira. J.M. Olaizola "Txiliku"

Pozoia dute, **sugegorriek** bezala.

Sugegorriaren pozoia zen xurgatzen zuena, piperaren miztoak bezala hilko du. Elizen arteko biblia

Sugeak bezain mihi zorrotza dute, **sugegorriaren** pozoia ezpainenat. Elizen arteko biblia

Sugegorri edo kobrarik pozoitsueneke ere bizi zena merezi dute. Gotzon Garate

Ez genuen sekula usteko gure alaba **sugegorrien** habia batera bidaltzen ari ginela. Oskar Arana

Nehork ez du mortu haietara hurbildu nahi ere, herensugez, **suge gorritz** eta eskorpionez estalia baita. Aurelia Arkotxa

Grazia egiten digute guri baseritar bakaladeroeek [...] poz hartzen ere bertsoa aditu baino **suge gorria** ikustea nahiago duen erdara gutxiko jendearekin. Iñaki Segurola

Sugegorria sortuko da sugetik, eta herensuge hegalaria **sugegorritik**. Elizen arteko biblia

Ikusten ez duen **sugegorriaren** beldurrez bizi da beti artzaina, bazterren batetik noiz agertuko zain. Hasier Etxeberria

2 (hitz elkartuetan)

Bularreko haurra suge-zuloetan jolastuko da, **sugegorri** -habian sartuko du eskua. Haien eztarria hilobi zabaldua, haien mihian azpikeria, haien ezpainenat **sugegorri** -pozoia. Elizen arteko biblia

-Hannak itzuli zidan funtsezkoena, hots, ez zela gurutze-**sugegorria** izan, aspis **sugegorria** baizik (*Aspiviper*). Joxe Austin Arrieta

3 irud/hed

Horixe ulertzen niela dena **sugegorri** haiei! Jon Arretxe

Pisukide izan nituen hiru **sugegorri** anemiko telebistazaleek nahiz Itziar negarti nekaezinak ere ez zidaten batere inbidiarik sentiarazten. Jon Arretxe

4 (irain hitz gisa)

Baina zertan nabil ni hirekin hizketan, **sugegorriekin** traturik ez badut? Joan Mari Irigoien

Pirouette kalera itzuli zen, "hiru **sugegorri** horiek" akabatzea ere ez zuela merezi buruan zerabilela, urkatzeko sokak haiek baino gehiago balio baitzuen. Sindikalista bati Armani deitzea, fabrikako **sugegorriek** ezarritako izengaiztoa zen. Karlos Zabala

Fabrikako lankideen eta sekzioko **sugegorrien** komentarioak. Jon Alonso

-**Sugegorriak** gu? -ia jauzi egin zuen Anak aulkian, -Bai, bai, **sugegorriak** zuek biak. Aitor Arana

San Joane dioenez, fariseuak dira, **sugegorri** arrazakoak, nahiz eta berek uste izan Abrahamen jatorrikoak direla. Joan Mari Lekuona

5 *sugegorri kume* (*orobat sugegorrikume*) iz

Nik pausoa eman behar nuen tokian, **sugegorri kume** bat zegoen. Sugeok, **sugegorrikumeok** ! nola egingo diozue ihes infernuko zigorrari? Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gurutze sugegorria (3)

sugegorriak bezala (3)

sugegorriek bezala (3)

sugegorrikume ik **sugegorri** 5.

sugegorritxo iz *adkor* sugegorria.

Arratxo bat haruntz, arratxo bat honuntz, **sugegorritxoaren** aldamenean xalto eta xalto nire txantxangorria, abisuz. Pello Zabala

sugejale izond sugeak jaten dituena.

Ni umilatzeko asmo huts-hutsarekin, krokodriko **sugejalearen** irudia egin zuen. Karlos Linazasoro

Leinu basatikoak ziren, Arabiako Golkoaren itsasaldeetan eta Etiopiako harpeetan arrunt hedaturik den piztijende horien leinu higuinekoak; ez zen enetzat miresgarri

sugekara *izond* sugerearen antzekoa.

Gazte doilor bat, poliki-poliki hogeita hamarkadara hurbilduz zihoana eta, luzera ia **sugekarako** lepoaren eta lokarriño batez inguratutako kapela baten artean, buru zozo bezain berunginatsu bat zeramana. **Jon Muñoz**

sugekume 1 *iz* sugerearen kumea.

Setheren samurtasuna, Paul D-ren lepoko bitxia ikustean... haren hiru eztenak, kriskitin- **sugekume** atzarrien antzekoak, metro erdi bat gora zutik. **Anton Garikano**
Zazpi urteko neskatila batek 8 zen-timetro luze zen piton- **sugekumea** irentsi zuen. **Gotzon Garate**

2 (irain hitz gisa)

Sugekumeok ! nork esan dizue gainean duzuen haserre-zigorrari ihes egingo diozuela?
-Sugekumea ! **Patxi Zubizarreta**

sugeldi ik **su 43a**.

sugeldo ik **su 43b**.

sugelindara ik **sugandila**.

sugestibilitate *iz* sugestionagarritasuna.

Gizahilketa (eta buru-hilketa) pasio-hilketak, sexu delituak, lapurreta-mota batzuk, erromestasa -eta ondoren euren bidez jaraunspena, inguru neurogenoa, eraso edo autozigortze jokaerak, perbertsioak, bulkada hiltzaileak, **sugestibilitatea**, etab.-. **Xabier Arregi**

sugestino ik **sugestio**.

sugestio (*orobat **sujestio** g.er. eta **sugestino** g.er.*) 1 *iz* hautematen ez den eragina, norbaiti aritzeko berezko modua aldatzen diona.

Gehienetan **sugestio** hutsez hartzen ditugu antzak, esaterako, bi gizon aita-semeak direla dakigunean, alegia, alde aurretiko informazioak eraginak izaten direla analogia asko. **Ramon Saizarbitoria**

Denok nahi genuen haxixak jotzea, obsesio bakarra zen ia, eta, ez dakit **sujestioaren** ala txotxolokeriaren erruz, benetan eragiten ez zuen efektua sentitzera iristen ziren batzuk, baita haxixaren ordez starlux pusketa bat eman bazioten ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Agian **sujestioaren** pean nago: hilabete osoa daramat "Chavez" izena entzun eta entzun; nazio osoaren kezka izen horren inguruan dabilta. **Pako Aristi**

Raimundo Silvari absurdua iruditzen zaio igogailuan bere aita zenaz gogoratzea, noiz eta **sujestio** erotiko horiek eraso egin diotenean. **Jon Alonso**

2 (praktika psikologiko gisa)

Magnetismo, hipnosi, **sugestio** eta nik al dakit zer, deitu diote ahalmen horri. **Josu Zabaleta**

Parent doktorearekin, oso aditua bera nerbioetako gaixotasunetan eta gaur egun hipnotismo eta **sugestiozko** esperimentuak egiteko bide ematen duten gertaera berezietan. **Josu Zabaleta**

Kasu askotan, zorionbide batzuk halabehar hutsezkoak zirela jakiteak gutxiagotu egingo zuen haien indarra; eragozpen hori saihesteko, Konpainiako agenteak **sugestioz** eta magiaz baliatzen ziren. **Juan Garzia**

Gogoan al duzu gaur goizean bost mila libera eskatzera etortzeko agindu zizula, eta orain **sugestio** hari obeditzen ari zarela. **Josu Zabaleta**

Portaeraren nahasmendu arinak, sexu arazoak eta aberrazioak, **sugestio** eta hipnosi kontuak, nerbio-sistema zentrala, mugimenduzko moldaeran eta moldaera intelektualean defizitak, kriminalitatea. **Xabier Arregi**

3 iradokizuna.

Edozein galdetzailek badaki, norbait urduri, larri eta bere onetik aterata egonez gero, sentiberatasun handia erakusten duela edozein **sugestioaren** aurrean. **Rafa Egiguren**

sugestionagarritasun *iz* sugestionari daitekeenaren nolakotasuna, ik **sugestibilitate**.

Berak oso ongi ezagutzen zituen frankoen oldar kontrolaezina, buru-aldakortasuna eta **sugestionagarritasuna** eta Mendebaldeko barbaroen (Kelttoi) aspaldiko beste ezaugarri -primario eta sekundario- batzuk. **Iñaki Mendiguren**

sugestionatu, sugestionari, sugestionatzen da/du *ad* sugestioa pairatu; sugestioa sortu.

Drogen erabilera: horrekin mehatxu egitea **sugestionatzeko**. **Berria - Harian**
Sugestionatzeko eta norbaitengan eragiteko, hamaika era daude. **Berria - Euskal Herria**

sugetzar 1 *iz* *adkor* suge handia.

Sugetzarrak, distiratsua, kolore berdexka pozoitsukoa, haritz-enborra bezain sendoa, tente zegoen airean. **Iñaki Mendiguren**

Leize-zulo barruko amildegi beltza, aitaren eta gerlarien espektroak laguntza eskatzen, **sugetzar** erraldoia bere harrapakinak zaintzen eta babesten... **Joanes Urkixo**

Orduan **sugetzar** eskerga bat sutatik azaldu eta adiskideen gorputz lurruntsuetan kiribilkaturik, Cumhail bere ahoan harrapatu ondoren garretaraino eraman zuen. **Joanes Urkixo**

Sekretu horrek zeukan, gero eta estuago, gero eta besarkada itogarriagoan, nola **sugetzarrak** ehiza. **Iñaki Iñurrieta**

Kasu batzuetan, miresten duen ereduaren nortasuna "irentsi" egiten omen du gazteak, **sugetzarrak** beste abere bat irensten duen bezala. **Joxean Agirre**

Zaharragoen ahotik tarteka aditzen ziren ipuin beldurgarrietako **sugetzarrak** irudi zuen. **Edorta Jimenez**

2 (irain gisa)

Sugetzar zikin bat... **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sugetzar erraldoia (5)

sugezale *izond*

1 arrano sugezale Europako arrano mota, burua eta begiak handiak, eta mokoa motza eta sendoa dituen (*Circaetus gallicus*).

30 sai edo putre, arrano txiki bat, arrano **sugezale** bat eta arrano beltz eder bat. **Pello Zabala**

sugi *iz japoniar zedroa (Cryptomeria japonica).*

Lehenengo aldian **sugi** zurezko atea jo zuen. **Ibon Uribarri**

Sugi zurezko atea tatami erdiko zabalera zuen. **Ibon Uribarri**

Neke handiz zutitu zen, eta isilean **sugi** zurezko ateari bultza egin eta belusezko gela sekretua miatu zuen. **Ibon Uribarri**

sugile **1** *izond* su egiten duena.

Bigarren tribuaren lurraldera joan ziren bizirik itzendako taldekideak, eta han tresna **sugileak** zelan gurtzen zituzten ikusi zuten. **Jon Arretxe**

2 ik **sugin**.

sugin (*orobat sugile*) *iz lurrin makina baten labeaz arduratzen den pertsona.*

Suginek ikatz palakada batzuk bota zituzten galdara azpira. **Fernando Rey**

Suginak begikeinu alaia egin zidan eta gero palarekin ikatza botatzen hasi zen, lehenbizi atzera botatzen zuen, parrillara, gero erdira zirrizarra. **Fernando Rey**

Hizketan aritu zen agurtzera etorritako **sugile** batekin, eta berriz ere martxan jarri zen lokomotorra. **Koro Navarro**

Labea itxi genuen, eta ikatz metan sartu zuen pala behin eta berriz Antonek, Anton Patiñok, *Horizonte Aundi*-ko **suginak**. **Koldo Izagirre**

Saregielek txoferrak zamaketariak **sugileak** motoristak marinelak, denak ginen sindikatu gorri-beltzeoak. **Koldo Izagirre**

sugorritu, sugorri(tu), sugorritzen da/du *ad* suak gorritu.

Bere burua gainditzeko ahaleginean, oneratu da eta irribarre egin du, masailak **sugorriturik** oraindik. **Monika Etxebarria**

suhar **1** *izond* lehia biziz betea, gartsua. ik **sutsu**.

Eskritura Sainduen irakurketa ozenak, himnoen kanta beroak, prediku **suharrak** Jainkoaren egiazki ohoratzeko manieraz. **Aingeru Epaltza**

Atsekabeak goragalea eragin zion eta ezpainak otoitz isil **suharrean** mugitzen jarraitu zuen. **Irene Aldasoro**

Behin atarian, agur musu **suhar** baten ostean, gizona taxi batean sartu, eta Junqueiron gora galdu zen. **Aritz Gorrotxategi**

Bere ama frantsesak sartu zion, nonbait, sentipenak besteri erakusteko gogo **suhar** hura. **Xabier Olarra**

Baliteke jende guztiak ohi duen bezala maitatzen dutenek zorian **suhar** bat sentitzea, nirea baino apalagoa agian. **Josu Zabaleta**

Desira **suhar** batek eragina. **Josu Zabaleta**

Irrika **suharrez** desiratzen nituen. **Koro Navarro**

Emakumeak dagoeneko kitatu baititu itxaropen eta grina **suhar** kontuak, baldin eta inoiz grina suharrak edota itxaropenik izan badu. **Mirentxu Larrañaga**

Buruzagien ideiak esku **suhar** askori eta jardun sutsuari esker burutuko ziren gero. **Urtzi Urrutikoetxea**

Plazaratu dituzten zezenek zezen adarluze, **suhar** eta nobleak dira. **Edorta Jimenez**

Laster talde sendo- **suharra** osatuko dute. **Gotzon Garate**

2 (pertsonez)

Maitale **suharrek** eta jakintsu zuhurrek. **Josu Zabaleta**

Gizon **suharra** naiz, eta zenbat eta arriskutsuagoa bihurtzen zaidan bizitza, orduan eta zoriontsuagoa naiz. **Oskar Arana**

Euskaltzale **suharra** zen, biziki **suharra**. **Herria**

Koldo Izagirrek sortutako pertsonaia **suhar**, herren eta erretxina. **Juan Luis Zabala**

Gureak bezain gazte **suhar** eta argirik ez dago... **Itxaro Borda**

Ideologoen horrelako jendeak maite eta militante **suhar** deitzen dituzte. Egaxi txiki beltzaren horrek, inoiz berritua ikusiko ez dudana andaluziar **suhar** horrek, papiro batzuk sartuak dizkit, isilean. **Itxaro Borda**

Unibertsitateko korridore luzeetan, Condrenak, Sorbonako doktore eta predikatzaileak **suharrenak** irri egin zion sasi albisteari. **Aingeru Epaltza**

Sua dariola jartzen du Temple kontu horrek, eta erreforma gizatiar baten aldeko **suhar** bihurtzen. **Xabier Olarra**

3 (adizlagun gisa)

Funestik ekarritako zortzi zezen **suhar** toreatu ziren. **Txillardegia**

Suhar desiratzen baitut haren zoriona. **Jon Muñoz**

-Jenio bat zara, Stephen -esan zion Margaretek, **suhar**. **Xabier Olarra**

Suhar kontatzen ahalegintzen da, esapide zaharrak erabiltzen ditu. **Koldo Izagirre**

Eta hala ere, zuhur hitz egin; eta, batez ere, **suhar** lan egin. **Patxi Altuna**

Batzuk *hil bedika* besteak bibaka denak **suhar**. **Koldo Izagirre**

Ohi baino pixka bat **suharrago** saiatu nintzen hura gorteiatzen, beharbada Tomek ni mirestea nahi nuelako. **Oskar Arana**

-Valvo, zuhur izan ohi baita eskuarki bere adierazpenetan, **suharxeago** ageri da paziente batzuen emaitza pozgarrienetarikoa batzuen berri ematean. **Xabier Olarra**

4 herio-suhar ik heriosuhar.

5 **suhar-belar** belar bedeinkatua (*Valeriana officinalis*).

Egunero **suhar**-belarra hartzen dut beldurrari eta depresioari aurre egiteko. **Josu Zabaleta**

Algara on batek gehiago lagunduko lidake hamar **suhar**-belarrek baino, baina barre egitea zer den ere ia ahazturik daukagu hemen. **Josu Zabaleta**

6 suharraren suharrez

Nire bisitari bitxi hark **suharraren suharrez** egin zidan oihu: [...]. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abertzale suhar (5); **arduradun suhar** (3); **dei suhar** (6); **dei suhar bat** (5); **euskaldun suhar** (3); **gazte suhar** (7); **langile suhar** (3); **omenaldi suhar** (3)

abertzale suharra (4); **euskaltzale suharra** (5); **euskalzale suharra** (4); **guziz suharra** (3); **langile suharra** (5)

langile suharreri (4)

suharbera izond erraz su hartzen duena.

-Ulertuko duzuen bezala, honi buruz txosten bat egin beharko dugu: hor pilatutako material hori guztia **suharbera** da, ez daukazue ke-atzemangailurik, gainera sarrera atea urrunegi dago bizilekuetatik... **Harkaitz Cano**

suharki adlag lehia biziz, kartsuki.

Eskaileran musu ematen hasi zitzaidan, **suharki**, arnastetuka, eta berdin jarraitu zuen hall-ean ere, oso irekia eta argitsua den arren. **Ramon Saizarbitoria**

Beste batean, Jean Harlow zena itzuli zen bere hilobitik, eta **suharki** egin zidan maitasuna berrehun eta hogeita zazpigarren gelan. **Oskar Arana**

Azkenik, bada, eta zeruari askotan **suharki** erregutu ondoren, bete zen haien nahia, eta alaba eder batez erditu zen erregina. **Iban Zaldúa**

"Eureka!" hots egin genuen halako batean, eta lanari lotu gintaizkion **suharki**, abertzaleen eta ez hain abertzaleen liliputitisa arintzea helburu. **Bernardo Atxaga**

John Gottik lanari **suharki** ekin zion. **Gotzon Garate**

Munduko handienak elkarren artean hain **suharki** burrukatzen direnez gero, erruki gabeko gerran sarturik, [...]. **Xabier Amuriza**

Ezinezkoa da! -esan zuen **suharki**, eta poz-pozik barre egin zuen. **Ander Irizar**

Zure esklabo eta zerbitzari umil bihurtu naiz, baina handinahikeriaren hegotez hegaldaturik, zu zoroki, **suharki**, kartsuki eta desesperatuki maitatzera ausartu naiz. **Joxe Austin Arrieta**

Aldi berean, emakumea **suharki** gorritzen da tarte horretan guztian. **Oskar Arana**

Bururatzeko, ezin **suharkiago** eman da "Kantuketan" kantu berria, Daniel Landart-ek espresuki idatzia gertakizun horren karietarat. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

suharki mintzatu (4)

suharraldi iz beroaldia.

Abentura, berez, huskeria da; M...-ko bizkondesarekiko **suharraldi** bat baizik ez. **Jon Muñoz**

suharri (orobat sukarri eta sutarri g.er.) iz kuartzo mota trinkoa, gris horixka, sua pizteko erabiltzen zena.

Honelakoak dira, lehenik, basalto-harriak, kolpeei atzera eragiten ohiuak, **suharri** gotorra eta burdina sendoaren indarra eta ate orpoetan kirrinkatzen den brontzea. **Xabier Amuriza**

Ezten bat dakar berekin, haren bidez zu hiltzeko, eta **suharri** bat, harekin gaztelu honi su emateko. **Askoren artean**

Esan dute inoiz, hilobi megalitikoetan ageri diren **sukarri** eta tximistarri handien forma, intsusaren hosto luzearena dela. **Pello Zabala**

Sukarriak Vicálvarotik, hareharria eta marmolak Noveldatik, granitoa Berrocal eta Villalbatik. **Hasier Etxeberria**

Tenpluaren garbikuntza egin ondoren, beste aldare bat eraiki zuten eta **suharriz** sua pizturik, sakrifizioa eskaini zuten. **Elizen arteko biblia**

Defentsarako, ezkutua, eta, erasorako, sable gakoa, ganibet luzea eta **suharriaz** pizten zen fusila, zelatik zintzilik. **Karlos Zabala**

Egin **suharrizko** aiztoak, israeldarrak bigarren aldiz erdaintzeko. **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

suharrizko aiztoak (3)

suhartasun 1 iz suharra denaren nolakotasuna.

Haren baitan bazen halako **suhartasun** bat. **Jose Morales**

Bere **suhartasunak** kikildu egin ninduen, eta irudipena nuen hain zuzen ere nire geldotasunak jartzen zuela galdan. **Ramon Saizarbitoria**

Baina izan zuen grinarik eta **suhartasunik** ere garai nahasi hartan. **Xabier Olarra**

Dantzariak zalutasun bateratuan kulunkatzen dira, baina inspiraziorik gabe, **suhartasunik** gabe, grinarik gabe, limurtasunik gabe. **Koldo Izagirre**

Errespetu bera lortu zuela, komunismoaz leporaino eginda, liberalismoaren alde **suhartasun** eta zintzotasun berarekin jarri zenean ere. **Ramon Saizarbitoria**

Ezer ez; hozten utzi; eta, berandu zenean, erabaki barregarri hura hartu, damututa, lehengoa berreskuratuta nahirik, halako **suhartasun** batek hartuta. **Juan Kruz Igerabide**

Gehienetan ez zuen kantatzen, isilik joaten zen, hortzak gogor estuturik jatorri iluneko amorru, oinaze eta **suhartasun** baten eraginez. **Jose Morales**

Zirrarak hartua, mugimendu zakar batez altxatu, eta **suhartasunez** esan zion: [...]. **Patxi Zubizarreta**

-Joango gara, joango gara -alaitu zuen Idoiak aurpegia, erabat kezkatutik utzi ninduen **suhartasunez** beterik-. **Juan Kruz Igerabide**

Eroetxeetatik ihes egindakoez argitasun baino **suhartasun** gehiagoz defendatua. **Xabier Olarra**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Emakumezkoek berezko duten **suhartasun** bizia **Suhartasun** handiarekin hitz egingo nuen. **Jose Morales**

Harryk biak maite izan zituen, biekin maitemindu zen **suhartasun** saihestezin berberaz, eraspen zalantza gabeko berberaz. **Oskar Arana**

Ez nintzen inoiz gai izango nire barrenean pertsona bat arrazoi politikoengatik hiltzeko behar den **suhartasun** politikoa aurkitzeko. **Matías Múgica**

Nire barrena oso urruti zegoen **suhartasun** euforikotik. **Anjel Lertxundi**

Haien **suhartasun** garbikoi, aszetikoari, zor zaio milioika liburu hain zoroki galdu izana. **Juan Garzia**

Bertsomaniaren aparra jaitzirik, bertsolaritzak modan darrai, baina ez hamarkadaren hasierako **suhartasunaz**. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Aitak ohiko argibideak eman zizkigun ohiko **suhartasunarekin**. **Anjel Lertxundi**

suhartsu izond suharrez bete. ik sukartsu.

Zakarra, gizon **suhartsua** bera, oihez hasi zen egia zela eta berak oso ondo zekiela zer egin behar zen halako jende batekin. **Koldo Biguri**

Pentsa zabuka zeharkatzen ari nintzen aterantz mila aldiz zorrotzu nituela begi **suhartsuak**, eta sumatuko duzu [...] nire bizitzako minutu liluragarri horren garrantzia.

suhartu, suhar(tu), suhartzen 1 da/du ad gartu, sutu.

Gero lau egur puska hartu, brasan atxiki eta sutan botatzen ziren lau haizetara, kasu emanez ahatik ondoko oihanak ez **suhartzeari**. **Herria**
Suharturik naiz, aitor dut, ikusirik gizon horrek [...] bere bihotzeko senari ergelki jarraikiz, nik ezin iritsi dudan zoriona aurkitu duela. **Jon Muñoz**
Izan ere, "Jainkoaren maitasuna" hitzak entzun bezain laster, zirikatua, hunkitua eta **suhartua** sentitzen zen. **Askoren artean**
Danceny, erraten nuen neure baitan, eragozpenek **suhartua**, amodioz sutuko da. **Jon Muñoz**
Xehetasun horietan guztietan hain erraz sartzen nintzen non aukera ezin hobea ematen bainion **suhartzeko**. **Jon Muñoz**

2 (era burutua izenondo gisa)

Grigoriren begi **suhartuek**, hitz goriek eta bizitzeko zuen indar izugarriak liluratu egin zuten Alexander Nevski monasterioko pope zaharra. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Lehenengo éoredaren abangoardiak orro egin zuen, itsaso **suhartuak** labarren kontra haustean bezala. **Agustin Otsoa**

suhatz izond matxarda.

Egun batez Mandak taloak egiteko **suhatzekin** jo zuen masailean. **Gotzon Garate**

suhesi ik su 44b.

suhi iz alabaren senarra.

Banaketak berak sortzen duen ezinegona hainbestekoa izaten da, non aiton-amonek eragin eskasa izaten duten seme-alabengan, edo **suhi** eta errainengan. **Berria - Euskal Herria**
Suhia eta amaginarreba batzuetan ez dira horren ongi konpontzen. **Gotzon Garate**
Andre Venancia bere alabarekin eta **suhiarekin** bizi zen. **Josu Zabaleta**
Zalantza zuen "zuen seme-alabak" ala "zuen alabak eta **suhia**" jarri behar ote zuen ere. **Ramon Saizarbitoria**
Emazteari, alaba eta **suhia**, gure doluminak. **Herria**
Bere senarra Benitori, seme-alaberi, erren, **suhi** eta familiako guzietan, gure dolumin biziak. **Herria**
Nahiago nikek alaba emaztetzat hartuko bahu eta nire **suhi** bihurtuko bahintz! **Juan Kruz Igerabide**
Neba-arrebak, aita-amaginarrebak eta **suhi**-errainak. **Imanol Unzurrunzaga**
Ez dakit zer etorri zen lehenengo: gerenteorde izendapena edo monsieur Dûpaquier nagusiaren **suhi** bihurtzea, kontua da gure birraitonak arduraren handiak zituela negozioan. **Iban Zaldúa**
Ailegatu zen momentu bat etxean familiako beste bat banintz bezala tratatzen nindutena, alabaren senargaia banintz bezala, **suhi**-beharra, ez dakit. **Fernando Rey**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erregearen suhi (5)

nire suhia (3)

suhigai iz alabaren senargaia.

Atera hiri honetatik zeure seme-alabak, **suhigaiak** eta bertan daukazun guztia, Lotek **suhigaien** bila joan eta esan zien: [...]. **Elizen arteko biblia**

suhil¹ adlag

Bere neska lagunarekin batera **suhil** utzitako etxe baten bizi zen. **Gotzon Garate**

suhil² ik su 44c.

suhiltzaile (orobat **suhiltzale** g.er.) 1 iz suteak itzaltzeko eta arriskuan gertatzen den jendeari laguntzeko eraturiko herri erakundeko kidea.

Hogeita bost orduko denbora tarte horretan 1.037 sute eta 1.700 gezurrezko alarmari kasu egin behar izan zieten **suhiltzaileek**. **Harkaitz Cano**
-Berriz esango ditek **suhiltzaileak** urik gabe iritsi zirela. **Jon Alonso**
Suhiltzaileak eskailerak berriki ezarriak zituzten. **Lopez de Arana**
Suhiltzaileak ibai-zolan, emakumearen gorpua garabiko kable-muturrari lotzeko lanetan. **Aingeru Epaltza**
Poliziak eta **suhiltzaileak** mobilizatu eta talde bereziak sortu ziren. **Harkaitz Cano**
Ez zen **suhiltzaileen** sirenak entzuten ez nituen ordurik. **Koro Navarro**
Suhiltzaileen ibilgailuaren eta tutu malgua zeraman bagoi gorriaren letoizko piezek biziki egiten zuten diz-diz. **Lopez de Arana**
Olentzero pasatu da Kanboko **suhiltzaileen** kasernan eta zurubi kamioi berri bat ekarri. **Herria**
Manifestazioa **suhiltzaileen** egoitzatik abiatu zen, elkartasuna adierazteko. **Berria - Harian**
Bastidore artean zutik geratu nintzen, zerbitzuko bi **suhiltzaileen** atzean. **Matías Múgica**
Etxe baten hondakinen artean hildako **suhiltzaile** bati lapurtutako uniformea jantzita joaten zen. **Pello Lizarralde**
Hugo Onieva **suhiltzaile** boluntarioen buruak esan zuen bezeroei iriteten utzi izan baliete ez zela tragedia hau gertatuko. **Berria - Mundua**
Javier Baiona Donostiako **suhiltzaileen** buruak koordinatu zituen lekuan bertan sutea itzaltzeko lanak. **Berria - Harian**
Suhiltzaileen Partzuergoko presidentea. **Jon Alonso**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zazpigarren solairuan ke apur bat bai oraindik, hiruzpalau **suhiltzaile** talde ere bai. **Berria - Harian**
Sute eta istripu askotan egon naiz **suhiltzaile** lanetan hasi nintzenetik. **Berria - Harian**
Ez dugu posta zein **suhiltzaile** zerbitzuetan murrizketarik egotea nahi. **Berria - Mundua**

Suhiltzaile -kamioi bat eta eskailera-furgoi bat gorantz zihozazen ziztu bizian, adar-hots ulukari baten oihartzuna atzean utzita. Lopez de Arana

Orain Pasaiako garabia, orain **suhiltzaile** -kamioia. Jokin Muñoz

Bere ahotsak ez dauka tonu zehatzik eta **suhiltzaile** -etxe baten kanpaia bezain indartsua da. Xabier Paya

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Udal **Suhiltzaileen** arabera, gorpua ostiral goizaldean aurkitu zuten Jocotennango hiriko hileritik gertu Berria - Gaiak

4 irud/hed

PSNk berriz, **«suhiltzaile** lanetan» aritzea leporatu dio. Berria - Ekonomia

• 5 *izond* sua itzaltzen duena.

Azkenean aspertzen naiz txakurtxo **suhiltzaileez**, noski. Iban Zaldúa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

polizia eta suhiltzaile (3); **suhiltzaile eta guardia** (3); **suhiltzaile kamioi** (10); **suhiltzaile kamioi bat** (6); **suhiltzaile kamioiak** (3); **suhiltzaile lanetan** (6); **suhiltzaile talde** (4); **suhiltzaile talde bat** (3)

gure suhiltzaileak (3); **nafarroako suhiltzaileak** (4); **suhiltzaileak etorri** (3); **suhiltzaileak iritsi** (4); **suhiltzaileak joan** (4)

suhiltzaileei deitu (3)

bizkaiko suhiltzaileek (3); **eko suhiltzaileek** (4); **gidaria suhiltzaileek atera** (3); **irun nafarroako suhiltzaileek** (22); **suhiltzaileek atera** (35); **suhiltzaileek atera zuten** (8)

nafarroako suhiltzaileen (8); **suhiltzaileen kamioi** (7); **suhiltzaileen kamioi bat** (4); **suhiltzaileen laguntza** (3); **suhiltzaileen partzuergoko** (8)

gure suhiltzaileak (4)

suhiltzaileburu *iz* suhiltzaileen burua.

Atzealdean, eskailera-furgoia eta **suhiltzaileburuaren** zaldi azkarrak. Lopez de Arana

suhiltzale ik **suhiltzaile**.

suhin ik **suhi**.

suhitxo *iz adkor* suhia.

Liluratuta geratu zen bere **"suhitxo** maitagarriarekin", baina Donatien bere faboreak beste emakume batzuei eskaintzen hasi zenean, guztiz jeloskortu eta zapuztu zen madame de Montreuil. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

suhuskundar *izlag/iz* Suhuskunekoa, Suhuskuneri dagokiona; Suhuskuneko biztanlea.

Ez da dudarik ondoko urtetan ere ikusiko ditugula oraino heletar, **suhuskundar** eta irisartar adixkideak elgarrekin kantuz kermeza egunean. Herria

Predikua Jean-Pierre Ouret **suhuskundarraren** kondu. Herria

Presondegiko atepak zabaldu zaizko astelehenean Peio Etchemendy **suhuskundarrari** Parisen. Herria

Bertzalde Remy Milhac **suhuskundar** gaztea, Aviron Bayonnais elkartearen ari dena Frantziako xapeldun atera da bere mailean. Herria

Eskubaloi elkartearen 216 kidetarik 68 irisartarrak dira, 19 ortzaiztarrak, 12 arrosatarrak, 11 bidarraitarrak eta 9 **suhuskundarrak**. Herria

suiet ik **sujet**.

suil 1 *iz* isurkariak eta batez ere ura ekartzeko zilindro itxurako ontzia, bereziki zurezkoa dena eta burdinazko uztaiak dituena. ik **edarra**; **ferreta**; **tina**; **pegar**.

Mota guztietako ontziak aurkitzen dituzte han pilaturik, zur leundu, torneatu, txirikordatu zein zizelatuzkoak: upelak, **suilak**, pitxerrak, morkoak, tina euskarridunak eta euskarrigabeak, [...]. Jose Morales

Tximiniaren alde batean harrizko banku txiki bat zegoen, eta haren gainean hiru **suil** zeuden lerro-lerro beren burdinazko uztai distiratsuekin, zilarrezkoak bailiran. Koro Navaro

Zapaldetan, **suala**, morko ta beste urontzi batzuk. Xabier Mendiguren Elizegi

Berriketa alaian joaten zitzaizkien neskameei eta haien kortejatzaileei **suilak** betetzeko txanda iritsi bitarteko orduak. Askoren artean

Emakumeren bati, oharkabeturik, putzu alboan **suala** ahazten bazitzaion, Pliushkinek etxera eramaten zuen **suala**. Jose Morales

Uretara **suil** bat bota, eta ura dastatu zuen. Jon Muñoz

Suilarekin iturrira ur bila doan kantinera. Askoren artean

Bere lanetik bizi nahirik, **suil** bat eskatu zuen, urez bete eta oihuka zihoan hirian barrena. Askoren artean

Ura gainezka haien **suietan**, soroak urez oparo. Elizen arteko biblia

-Eta nola eramango diet nik lekaideei ur-ontzia edo **suala** erdi hutsik? Askoren artean

Nazioak, harentzat, **suillean** ur-tanta dira, balantza gainean hautsa baino ez. Elizen arteko biblia

Edalontzi, pitxer eta **suilen** garbiketa. Elizen arteko biblia

Gela txiki batean bazen **suil** handi bat, erditik ebakia, eta lurrean sartua. Josu Zabaleta

2 *ur suil*

Hara, hirian sartzean, ur **suala** daraman gizon batekin egingo duzue topo. Elizen arteko biblia

Ur **suil** bat ekartzeko, ahalean; eta xukadera bat. Txillardegi

3 *suil erdi*

Hau esanda, burruntzali handi bat hartu, **suil** -erdi haietako batean sartu eta antzara pare bat eta hiru oilo atera zituen. Patxi Ezkiaga

suilaka *adlag adkor* suila neurri hartuz; ugari.

Suilaka odola. Juan Garzia

suisar ik **suitzar**.

suisatiar ik **suitzar**.

suite 1 iz hoteletan eta kidekoetan, elkarrekin komunikatuta dauden eta bezero batek hartzen dituen gelen multzoa.

Suite bat behar genuen ordea, mugitzeko eta hitz egin ahal izateko leku bat. Koro Navarro

Asko sentitzen dut, jauna, baina bahikuntza-agindua dugu zure kontra, hogeiei eguneko zorreratik Savoy Hoteleko **suitean**: 762 libra, 14 txelin eta 2 penike gutzira. Antton Olano

Halaxe eman zigun **suite** ederrenetako bat. Edorta Jimenez

Sofan eserita gaude, goiko **suiteetako** batean. Koro Navarro

Egongelan, berriz, "altzariz mukurru" zegoen **suite** edo tegi bat hartzen baitzuen, Boston-go iratze bat zegoen. Mirentxu Larrañaga

2 tonalitate berean idatzitako zenbait zatiz osaturiko musika-lana.

Kattalin agertokiaren erdian dago ordurako, oihala noiz jasoko eta orkestrak Eleder **suitearen** preludeari noiz ekingo. Anjel Lertxundi

Prokofieven *Hiru laranjen amodioa* **suite**-an ederto aritu ziren musikari gazteak. Berria - Kultura

Gero eta sarriago jotzen hasi zen arte Martxa bezalako pieza arin biziak, doinu herrikoiak eta dantzarako **suite** eta minuet alaiak. Anjel Lertxundi

Jagoba Fanlok haren [Johann Sebastian Bach-en] Biolontxelorako **suitea** re minorrean obra jo zuen. Berria - Kultura

Harrigarriki, Mozarten **suite** baten konpasa eraman zuen erdi kantari ur ahokada arteetan. Iñaki Zabaleta

Suitearen Preludioa oparitu zigun. Berria - Kultura

suitzalgailu ik **su 46**.

suitzar (orobat *suisar g.er.*, *suitar g.er.* eta *suisatiar g.er.*) **1 izlag** Suitzakoa, Suitzari dagokiona.

Charles Montesquieu akitaniarrak edo Jean Jacques Rousseau **suitzar** protestanteak. Piarres Xarriton

Ikertzaile askok utzia zuten kontua alde batera, bi **suitzar** biologok izan ezik: Jean Weiglé eta Werner Arber. Juan Garzia

Paul Schmitz **suitzar** filonazia. Josu Zabaleta

Geografo bat, Rémy Baudemont; **suitzar** ofizial bat, Nicolas Wursten, eta beste asko eta asko. haren ustez **suitzar** jendea ere jende zentzuduna delako ehuneko ehunean. Jon Muñoz

Erregeren mosketariak ere harat-honat dabilta eta halaber guardia **suitzar** eta eskoziarrak. Aingeru Epaltza

Javier Otanoren emazteari kontua bahitu zioten, eta 15.381 franco **suitzar** daude hor. Berria - Euskal Herria

• **2 iz** Suitzako herritarra.

Zenbat eta hegoalderago jo, sarraskiaren erantzukizuna arintzen zieten espainiarrei, haien zerbitzura zeuden mertzenario alemaniar, **suitzar** eta baloniarrei egotziz. Felipe Juaristi

Poliki-poliki Ulrich Kunki gidari gazteak, hanka luzeko **suitzar** garaiak, atzean utzi zituen Hauser aita eta Gaspard Hari zaharra. Josu Zabaleta

Lehena, erdi-frantziar erdi-**suitzar**, eskualdun andere batekin ezkondua, Biarritzen bizi zena. hamaika pertsona, atzerritarrak guztiak, bahitu zituzten: lau frantses, bi britainiar, bi korear, estatubatuar bat, australiar bat eta **suitzar** bat. Marzel Etxehandi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

fabian cancellara suitzarra (3); **patty schnyder suitzarra** (3); **roger federer suitzarra** (8); **suitzarra da** (6); **suitzarra izan** (4); **suitzarra zen** (3)

roger federer suitzarrak (9); **suitzarrak lortu** (3)

suisar ik **suitzar**.

suizida 1 izond bere buruaz beste egiten duena.

Sartzera ausartu gabe, ate atzean zain du artean neska anaia **suizida**. Harkaitz Cano

Ekintzaile **suizida** batek aldean zeramatzen lehergaiak zartarazi zituen autobus batean, Pakistango hegoaldeko Karachi hirian. Berria - Mundua

Argazkien artean, Zisjordaniako muga gainditu eta palestinar **suizidek** egindako atentatuak agertzen dira. Berria - Mundua

Palestinar bakoitza terrorista **suizida** bat da, eta etxe bakoitza atentatueterako base bat. Berria - Mundua

Gerrillari **suizidak** ez dira gaur goizekoak. Anjel Lertxundi

Suediako enbaxadore israeldarrak palestinar **suizida** bat agertzen zen koadro bat hautsi du. Berria - Kultura

Txolarre **suizida** bat ia lurra jotzeraino amildu zen, bertikalean eta ziztuan. Fernando Morillo

2 (gauzei buruz) ondorioz suizidioa dakarrena.

Legebiltzarreko dekanoa, haren semea eta hiru bizkartzain hil dituzte eraso **suizida** batean. hiru metro lineatan eta bi solairuko autobus batean izandako atentatuak ekintza **suizidak** izan zirela erakusteko oraindik frogarik ez dutela zehaztu zuen. Iñigo Aranbarri

Azken hilabeteetan Israelen izandako atentatu **suizidetako** ekintzaileak Nabuluskoak ziren. Berria - Harian

3 irud/hed

Italiartasunaren eskuzabaltasun **suizidatatzat** dute Bolzanon alemana koofiziala izatea ere, edo Triesten esloveniera. Anjel Lertxundi

Apetaldi **suizida** hau, harrokeriazko bekatuaren ordaina, aberrazio espirituala da. Iñaki Mendiguren

Futurismoa judu-inperio bat lurrean sortzeko hainbat ahalegin **suizidatan** adierazten da, Zerubbabelengandik Bar Kokabaga-raino. Iñaki Mendiguren

Nahiko **suizida** da beste hamabost urtez hori aldarrikatzen ibiltzea. Berria - Euskal Herria

• **4 iz** bere buruaz beste egin duen pertsona.

Suizida bat ote naiz, funtsean? Koldo Izagirre

22 urteko **suizida** palestinar batek Armadaren ibilgailu baten aurka jo zuen igandean. Berria - Mundua

Miresten ditut Basquiak, Judy Garland, eta liburu honetan agertzen diren **suizida** guztiak, Stevenson ahularen tribukoak dira, zein bere erara. Harkaitz Cano

Nahiz eta Erromako Eliza Katoliko Apostolikoak lur sakratuan ehortzia izateko eskubidea debekatu **suizidei**, Ernest Hemingwayren gorpua Ketchungo hilerri katolikoan ehortzi zuten. Edorta Jimenez

Suizida asko ikusia naiz, eta esango nuke inork ez duela inoiz jakin zergatik hil diren. Koro Navarro

Etebebizitza bateko gela bat aukeratu zuten **suizidek** kasu horretan. Berria - Gaiak
Bizitza erraz jariatzea nahi dut, trabarik gabe, emaro odolusten den **suizida** bati isurtzen zaion bezala, ezteki. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atentatu suizida (19); **atentatu suizida batean** (3); **ekintza suizida** (12); **ekintza suizida bat** (3); **ekintzaile suizida** (102); **ekintzaile suizida batek** (68); **ekintzaile suizida batzuek** (3); **eraso suizida** (53); **eraso suizida batean** (17); **eraso suizida egin** (4); **eraso suizida izan** (6); **erasotzaile suizida** (5); **galtzerdi suizida** (3); **gertatutako atentatu suizida** (3); **izandako eraso suizida** (3)
suizida batek egin (4); **suizida batek gidatutako** (6); **suizida batek soinean** (4); **suizida palestinar** (4)
atentatu suizidak (5); **bi ekintzaile suizidak** (9); **ekintza suizidak** (5); **ekintzaile suizidak** (24); **eraso suizidak** (13); **eraso suizidak egiteko** (5); **gerrillari suizidak** (4)
atentatu suizidan (5); **eraso suizidan** (10); **izandako atentatu suizidan** (4); **izandako eraso suizidan** (3)
ekintzaile suizidaren (3); **eraso suizidaren** (4)
bi eraso suizidatan (3)
ekintzaile suizidaz (3)
ekintzaile suizidei (3)
ekintzaile suizidek (7)
ekintzaile suiziden (5); **eraso suiziden** (6)
ekintzaile suizidetako baten (3)

suizidarazi, suizidaraz, suizidarazten du *ad* suizidatzera behartu. • *irud/hed*

Aldian behin milaka tanta **suizidarazten** ditu Euriak, hortxe dagoela demostratzeko, besterik gabe bere ospea areagotzeko, zerbait izaten jarraitzeko, milaka tanten buru-hiltze tragikoaz ohartzeko. Unai Iturriaga

suizidatu, suizida(tu), suizidazten 1 da *ad* bere buruaz beste egin.

Pistola eskumenean eduki baldin bazuen, **suizidatuko** zela zioen. Itxaro Borda
Bertsio ofizialen arabera **suizidatu** ondoren haginak galtzen dituen jendea, bertsio ofizialaren arabera bi tiroekin **suizidatzen** den jendea. Harkaitz Cano
Taldean **suizidatu** zirenak, berriz, 3.538 izan omen ziren iaz. Iñigo Aranbarri
Azkenean, ez bera burutik egin ez ni **suizidatu**: Mediterraneoko argitasunari zor, agian. Agurtzane Juanena
Adituen arabera, askok pestizidak edo su-armak erabiltzen dituzte **suizidatzeko**. Berria - Gaiak
-Zergatik **suizidatu** nahi duzu? Pako Aristi
Oregon estatuan soilik da legekoa norbaiti **suizidatzeko** laguntza ematea. Berria - Gaiak
Horrela, hasieran **suizidatzeko** zorian dagoen emakumeak bizi poza berreskuratuko du. Berria - Kultura
Oreka horri buruzko galderak egitea **suizidatzeko** modu bat dela diote zoriona lasaitasunetik bereizten ez dutenek. Pako Aristi
«Jokinek ez zuen bere buruaz beste egin; **suizidatu** egin zuten», azaldu dute gurasoek, minduta. Berria - Harian

2 (era bururuta izenondo gisa)

Frantxis, Starsky, Tzarko, Kamitx, Boz, zoritxarreko Hutx **suizidatua** eta Elge betirako zauritua zeuzkan gogoan. Itxaro Borda

suizidio 1 iz bere buruaz beste egitea.

Datu berri batzuen arabera haren heriotza ez zela **suizidioa** izan, hilketa baizik. Koldo Biguri
-Oso oker zaude, hau **suizidio** bat izan da. Koldo Izagirre
Suizidioa izan zela ondorioztatu zuten. Koldo Biguri
Biok pozoitzeaz hitz egiten zuen, **suizidio** bikoitza proposatzen zuen. Koro Navarro
Agerian geldituko zuan pistola Soriaten uestezko **suizidioaren** ondotik ere erabili zela zuen kontra. Aingeru Epaltza
Buruko nahasmenen bat dago sarritan **suizidioen** atzean. Berria - Gaiak
Suizidioaren hipotesia ezin dela baieztatu. Berria - Kirola
Berehala baztertu zen **suizidioaren** ideia. Koro Navarro
Suizidioa! horra indarrrik gehiago ez dutenen indarra, horra sinesterik gehiago ez dutenen esperantza. Josu Zabaleta
"**Suizidioak** hilketa herabetiak dira" idatzi zuen Cesare Pavese *Bizitza lanbide* izeneko bere egunerokoan. Anjel Lertxundi
Suizidioen kopurua biderkatu egin da landa eremuan. Alberto Barandiaren
-Nondik zetorren, bada, **suizidioen** ugaltze hori? Josu Zabaleta
Lars Mehlum **Suizidioaren** Prebentziorako Nazioarteko Batzordeko buruak. Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Luzaro egon nintzen **suizidio** oharrak idazteko eginak diruditen hoteleko idazmahai horietako baten aurrean hitz bat idaztea lortu gabe. Ramon Saizarbitoria
Perdido jendea, homelessak eta beren **suizidio** egunerako falta diren egunak zenbatuta dauzkaten deprimitu kronikoak. Harkaitz Cano
Zainak moztuz **suizidio** ahalegina egin ondoren oraindik sendatzen ari denari. Harkaitz Cano
Arrapaladan irakurtzen zituen, orobat, berriraperekin zekartzaten **suizidio**-istorioak. Mirentxu Larrañaga
Haizeak eragina ala ez, Torinok altua du **suizidio**-tasa. Anjel Lertxundi
Suizidio kopurua neurri gabe gora egiten ari zenez, [...]. Josu Zabaleta
Militarismoaren **suizidio**-joera. Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa elkarketak izenondo balioa duela)

Hartzak konturatzea hondamena izan daiteke gazte autista dohaintsuentzat adin horretan, eta depresio-sorrarazle eta **suizidio**-eragile izan da noiz edo noiz. Xabier Olarra

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jazarketa **suizidioak** dira beldurgarrienak israeldarrentzat, heietan beren buruak sakrifikatzen baitituzte palestinar gazte batzuk, orobat beren etsaien beztimitentz jauntziarik, Israelgo soldado edo judu apez bezti. Herria

5 irud/hed

"Oinazea sozializatu behar diagu" esanez ez goazak inora, **suizidio** politikora ez bada. Mikel Hernandez Abaitua
Suizidio dialektikoa, esango nuke nik orain, bazegoelako arrazoi iraultzaile bat presaka bizi behar hartan. Koldo Izagirre
Erabaki hori «erakundearen **suizidioa**» izan zela adierazi zuen enbaxadore batek. Berria - Mundua
Erabaki hori «erakundearen **suizidioa**» izan zela adierazi zuen enbaxadore batek. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

suizidio tasa (8); **suizidio tasarik altuena** (3)
suizidioaren aukera (5); **suizidioaren hipotesia** (4); **suizidioaren prebentziorako** (3)

suizo *iz* briotxea.

Han inguruko kafetegi kaskar batean sartu ginen eta kafesne bana eskatu, nik croissant batekin eta amuñak **suizoarekin**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

sujektibitate ik **subjektibitate**.

sujektibotasun ik **subjektibotasun**.

sujerente *izond* iradokitzailea.

Nire lagunaren herren dotore, **sujerente**, maitagarri hura ikusi nuenean, [...]. **Matías Múgica**

Oso leku **sujerentea**. **Berria - Kultura**

sujerentzia *iz* iradokizuna.

Anttone Arzelus, Felipe Juaristi, Manu Gojenola, eta Andu Lertxundiren ohar, desadostasun eta **sujerentzia** ugarien abantaila izan dut. **Joseba Zulaika**

Baliabide poetikoak eta horien **sujerentzia** -ahalmena hobeto kontrolatzen ditut narratibaren teknikak baino. **Ana Urkiza**

sujerigarri *izond* iradokitzailea.

Lightfoot/Leon bikoteak sekula ahaztuko ez ditugun irudi artegarri ederrak sortu baititu dantza, argia, haizea eta eszenako oihalak maisuki erabiliz Philip Glassen musika

sujerigarriaren gainean. **Berria - Kultura**

sujeritu, sujeri, sujeritzen du *ad* iradoki.

Bera ez omen zen idazlea baina, bere testigantzak amnesia lotsagarri hori konpontzen lagundu zezakeelakoan, bere historia idatziko ote nuen **sujeritu** zidan. **Agurtzane Juanena**

Haren arretak areago **sujeritzen** zuen harreman familiar bat, gizon baten jabetza sexuala baino. **Anton Garikano**

"Ez dira gaur goizekoak gerrillari suizidak", esan dit gidariak, lotura begi-bistakoak **sujerituz**. **Anjel Lertxundi**

-Ez zara fidatzen, e? -berak, irribarrea **sujeritzen** zuen ahotsaz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Delako liburu lehendik ere ezaguna eta irakurria baldin bazenuen, berriz, atsegina berritzen dizu, eta zeu oharu ez zinen hainbat alderdi **sujeritzen**. **Markos Zapiain**

Harridura sortzea eta **sujeritzea** bilatzen duten 61 pieza laburrez osatu du Josetxo Azkonak 'Patata soro bat' liburu berria. **Berria - Kultura**

Esaldi motzak, hitz neurtuak, elkarrizketak isiltasunekin **sujerituak**, gutunak... denetarik agertzen zaigu kontakizunaren feria txiki honetan. **Berria - Kultura**

Gauza anitz ez dira ez erakutsiak ez erranak, baizik eta **sujerituak**. **Berria - Kultura**

sujeritze *iz* iradokitzea.

Dena **sujeritze** mailan geratzen da, besterik ez, agerikotasunarekin ez hondatzeko bakoitza bere baitan osatzen ari den paisaia, lanbroak bakoitzari erakusten dizkion bazter miresgarri horiek. **Berria - Kultura**

Yann Diez Doizyren musika landua gogoratuko dugu, bere **sujeritze** -ahalmenarekin gozoagoak egiten baititu eszenen arteko aldaketa ugariak **Berria - Kultura**

sujestio ik **sugestio**.

sujet (*orobat suiet g.er.*) 1 *iz* mendeko pertsona; (gutxiesgarria) pertsona.

Printzeak kontuan izaten ditu **sujetak**, eta **sujetek** printzea. **Iñaki Iñurrieta**

Inperioko **sujet** guztiek, esklaboen gisan, ez daukate irteterik, ez beren ondasunak ateratzerik ere, baimenik gabe. zenbat eta pobrea **sujetak**, hainbat ugariago familiak; zenbat eta zergaz zamatua, hainbat eta errazago ordainbidea. **Iñaki Iñurrieta**

Batzuetan leialtasun zina eginarazten zieten **sujet** guztiei, baina zin horrek ez zuen zerikusirik gerora ezarri ziren omenaldiekin. **Iñaki Iñurrieta**

Zeruaren begiko kezka sagaratu da berorren maiestatearen eskutik bizi eta elikatzen diren mila eta milaka **sujeten** segurtasuna bermatzea. **Juan Garzia**

Ez zuen nahi alabaina jendeak asma zezaten Aita Sainduak fagoratu nahi zuela Frantziako erregea haren bi **sujet** hautatuz, zu Jaun Handia baino gehiago. **Piarres Xarriton**

Lüküzeko kondeak **sujet** beldurgarria hartua zuen bere gizonen kapitain: Bernard Etxeto. **Aingeru Epaltza**

Proposatzen ziotenak ez zeukan errekisarekin zer ikusirik; ez zen ejerzitza egiten jabe, baizik eta halako **sujet** partikular bat, Carlos Degrela Villabaso. **Bernardo Atxaga**

2 pastoraletan, rol nagusia jokatzen duen antzezlea.

Pertsonaia nagusia emakumea denez, **sujeta** ere halakoa izango da: Joelle Hüsti. **Berria - Kultura**

Pastoral hartako **sujeta** izan zena, Jean-Yves Constantin Etxebarne, lehen perediküaren emaila izango da aurtengoan. **Berria - Kultura**

Jojo Malharin 42 urteko mauletarra izango da Zuberoako hiriburuak aurrean taularatuko duen Antso Handia pastoraletako **sujeta**. **Berria - Kultura**

Joelle Hüsti **sujetari** dagokionez, aingüri izan zen Santa Kruz trajeria. **Berria - Kultura**

Beste bi aldiz ere "**sujet**" izan da "Le comte de Trévilles" eta "Sabino Arana Goiri" pastoraletan. **Herria**

3 eztabaidetan, literatur lanetan, gertakizunetan eta kidekoetan, gaia.

Beraren jardunaren **sujeta** ni neu nintzela. **Patxi Zubizarreta**

Miarritzen, "Idazketa eta lurraldea" **sujetaz** sola statzeko egin izan den elkarretaratze batean. **Aurelia Arkotxa**

Ipuin horren **sujeta** zein den epigrafeak adierazten digu nabarmen. **Juan Garzia**

Sujet zabala hain segur, eta beharbada arroposturik gabea ororen buru. **Herria**

Sujet hauta Koldo Ameztoyentzat. **Herria**

Baina halako artista batek nekez mugatuko zuen bere burua gai edo **suje**t bakarrera. **Xabier Olarra**

Sujet zabala hain segur, eta beharbada arraposturik gabea ororen buru. **Herría**

Egun batean **suje**t hari buruzko solasa aditu bainien gordeka eta ezkutuka. **Joan Mari Irigoien**

Sujet horren karietara deus berririk ezin erran ere nizuke, arrunt gogoetagarria zaidan gertakari bat agitu ez balitz. **Jon Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sujet horren karietara (8)

suje

adore iz bularretakoa.

Logelan, Nerearen galtzak, jakablua, **suje**tadoreak lurrean zeuden. manta batekin estaltzen nintzen tanga eta **suje**tadore hutsean nengoelako. **Unai Iturriaga**

Parpailadun **suje**tadoreak ez dio jadanik inoiz izan zitueneraino jaso bularrak. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Izeba Lupek kendu diolako **suje**tadorea. **Pablo Sastre**

suje

tatu, suje

(tu), suje

tatzen du

adn

Kontrario

rik gabe hek ezin **suje**t. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

suje

tibista ik

subje

tibista.

suje

to ik

subje

ktu.

suje

to ik

subje

ktu.

suje

to ik

suge

i.

suje

laurre iz

sukaldearen

aurrealdea.

Goizero esnea lapurtzen zuten **suje**laurretik. **Josu Zabaleta**

suje

ldari 1 iz

ogibidetzat

edo egitekotzat

janariak

prestatzea

edo maneatz

ea duen

persona.

Gonbidatuek aditu zuten nola bazkaria prestatzeko esan zion **suje**ldariari. **Jose Morales**

Berrogeita hamarretik gora baziren, gizaseme eta emakume, **suje**ldariak. **Patxi Ezkiaga**

Bada hirugarren bide bat hemen ere, Argiñano **suje**ldariak hautatu duena, hain zuzen. **Iñigo Aranbarri**

Sujeldariak jaki bat prestatzen duenean era arrazionalen egina dagoela esan dezakegu. **Imanol Unzurrunzaga**

Niri gozogle batek prestatu behar dit bazkaria, ez **suje**ldari batek. **Jose Morales**

Esaziozu **suje**ldariari ordubietarako bazkaria prest izateko. **Juan Martin Elexpuru**

Debekatu egin zion anaia **suje**ldariari, bezpera arratsetik, ohi denez, lekariak ur epeletan ipintzea. **Askoren artean**

Bi **suje**ldari lanean ari ziren sutegiaren gainean. **Lopez de Arana**

Sujeldari bat eta bi neskame kontratatu zituzten. **Oskar Arana**

Baina zertarako behar dute **suje**ldari bat otordua hartzen inor ez dagoen leku batean? **Harkaitz Cano**

Gelariak **suje**ldariari egozten dio errua, hark garbitzaileari, eta hark beste bie. **Josu Zabaleta**

-Joseba **suje**ldari da kafetegi batean eta jabeak, Catherinek, interes handia du beregan. **Iñaki Zabaleta**

Seme **suje**ldariak hartu du guzia. **Herría**

2

(izenondo eta izenlagunekin)

Hoteleko **suje**ldari nagusiarekin egin dut topo gosaltzera jaitsi naizenean. **Jon Arretxe**

Gogoan dut oso ondo afaldu genuela, nahi zuenean **suje**ldari ona baitzen Flora. **Ramon Saizarbitoria**

Sujeldari on bat akuratu zuen, eta Holandako hariz eginiko alkandora finak erosi. **Jose Morales**

Sujeldari txukuna nuen aita, ama baino hobea inondik ere. **Xabier Montoia**

Sujeldari emakumezkoek, bai, Santa Marta. **Pello Zabala**

Etxean ez etxekoandrerik, ez **suje**ldari profesionalik izango ez denez, jendeak oro har ez du jakingo nola prestatu elikagaiak. **Edorta Agirre**

Han hiru **suje**ldari izerditsu arrautzak, urdiazpikoa, hanburgesak, patatak eta latakoko behiki xehatua frijitzen ari ziren. **Lopez de Arana**

Emultsionagailuak, izozturiko elikagaiak pure edo krema bihurtzen ditu, desiozotzke, **suje**ldari presatiak itxoin gabe. **Edorta Agirre**

Otto, garagardotegiko **suje**ldari kankailua. **Alberto Ladron Arana**

Etxeko **suje**ldari xumeak plantxan arraina erre edo mikrouhin labean sei minutuan egindakoan, dendatik ekarritako baratxuri-olio erre

edo txapiro-saltsa beltza gaineratuko dio. **Edorta Agirre**

3

(hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Beste zerbitzariren batek egin behar izanen zuen **suje**ldari lana. **Iñaki Zabaleta**

Horrela bada, nahi dut [...] zuk atezain, limosnari eta **suje**ldari ofizioak betetzea. **Askoren artean**

Buruan **suje**ldari txanoa ipiniko diogu. **Jesus Mari Mendizabal**

Leone Gala, **suje**ldari kapelaz eta mantalaz jantzita, zurezko zali batez arrautza jotzen ari da katilu batean. **Josu Zabaleta**

Hor da Gregorio Fuentes, lemazain eta **suje**ldari zereginetan. **Edorta Jimenez**

Sujeldari lehiaketa, txakolin jastaldia, dantzak, hitzaldiak ala bazkaria, denak ederki joan dira. **Herría**

Egunkarian ikusi zuen **suje**ldari eskea. **Iñaki Zabaleta**

4

irud/hed

Letren **suje**ldari xume honek osagai kulinario eta literarioz beteriko errezeta bat eskaini nahi lizuke. **Patxi Zubizarreta**

5

(adizlaun gisa)

Damaskon hamar urtez **sukaldari** egon naizela amestu dut. **Patxi Zubizarreta**
Rapallora joan zen, eta han **sukaldari** hasi, nahiz eta ez oso gogo onez. **Xabier Olarra**
"Jar zaituz ba zeu **sukaldari**!" esan zidan erdi destaina egiten zidala. **Koldo Izagirre**
Sukaldari jarduten du gizonak, eta horretan egiten dizkio txalorik beroenak nagusiak. **Edorta Jimenez**
Urte bat zeraman kafetegi batean **sukaldari**. **Iñaki Zabaleta**

6 goi sukaldari

Nutrizio alderditik begiraturata, sodio-kloruroaren ordez potasio-kloruroa baliatzen hasiak dira **goi-sukaldari** aitzindari batzuk. **Edorta Agirre**
Oraingo **goi-sukaldari** eta gastronomoek, aurrekoek ez bezala, tokian tokiko sukaldaritzak ez dituzte jotzen gaintitu (edo "zibilizatu") beharreko azpi-kulturatzat, inspirazio-iturri gisa baizik. **Edorta Agirre**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alain ducasse sukaldari (3); **ducasse sukaldari** (5); **euskal sukaldari** (6); **gure sukaldari** (3); **lau euskal sukaldari** (5); **lau sukaldari** (5); **letren sukaldari** (9); **letren sukaldari xume** (5)
sukaldari ezagun (4); **sukaldari ezagunek** (3); **sukaldari on** (3); **sukaldari ona** (14); **sukaldari ona zen** (4); **sukaldari onak** (3); **sukaldari xume** (5); **sukaldari xume honek** (3)
euskal sukaldariak (3); **letren sukaldariak** (7)
ducasse sukaldariaren (3)
sukaldariei iraultza zerga (3)
sukaldariak prestatu (3)
euskal sukaldarien (5); **lau euskal sukaldarien** (3); **lau sukaldarien** (4); **sukaldarien izenak** (4)

sukaldaritzo *iz adkor* sukaldaria.

Azken orduko **sukaldaritzoren** bati otutako "gartzela" erabiltzen duena. **Pello Salaburu**

sukaldaritzo 1 *iz* sukaldariaren lanbidea; janariak prestatzeko edo maneatzeko antzea. ik**gastronomia**.

Sukaldaritzo etkezulotik irten egingo da gehienbat, jatetxera, ikastegiko edo lantokiko jantokira, hegazkinekora, ospitalekora, etc. niri ere asko gustatzen zitzaidan Txinako **sukaldaritzo**. **Edorta Agirre**

Euskal **sukaldaritzako** entziklopedia plazaratu du Baionako Quai Rouge argitaletxeak. **Herria**
Gure **sukaldaritzak**, bere ezaugarriak galdu gabe -edo ez galtzeko hain zuzen-, baldintza berriei egokitzeko duen beharra. **Ramon Saizarbitoria**
Bottanet etxea, **sukaldaritzo** burgesa. **Monika Etxebarria**
Mestizaiaren **sukaldaritzo** sinkretikoa osatuko da (hegaluzedun carpaccio, sushi edo ceviche bati, adibidez, osagai hobezinekin osaturiko pil-pil, saltsa berde, bizkaitar edo beltza -txipiroiena- erantsiko diogu). **Edorta Agirre**
Zorionez, sukaldari gazteak garrantzizko lana egiten ari dira **sukaldaritzo** landuagoa sortzeko. **Ramon Saizarbitoria**
Sukaldaritzo gozagaitz samarra, gainera, aukeran: usain zorrotz-desatseginak nagusi, etxekoan ordez; osterantzean, han ere berdin amantala, nahasteak, eskuak erretzea, egunaren buruan tresneria jasotzea. **Juan Garzia**
Bere lana uztea, mundua ikustea eta bidaiari-ontzi batean **sukaldaritzo** lan egitea. **Xabier Olarra**
Sukaldaritzako oinarriak ezagutu gabe, nekez molda ditzake neofitoak errezeta gehientsuenak. **Edorta Agirre**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sukaldaritzo ikastaro batean. Martin Berasategik **sukaldaritzo** eskoletan euskara ere irakatsi behar dela azpimarratu zuen. **Berria - Euskal Herria**
Animalien aurkako **sukaldaritzo** ohitura anker bezain matxista honen aurka jo zuen argi eta garbi aldizkari hark. **Joxan Elozegi**
Horrelako lantoki batetik bestera, espero bezala, **sukaldaritzo**-teknikak ere dezente aldatzen dira. **Edorta Agirre**
9 etan Latsan **sukaldaritzo** lehiaketa. **Herria**
Hainbat **sukaldaritzo** estilo sortu eta beste batzuk iraunarazi egingo dira. **Edorta Agirre**
Hartu orain **sukaldaritzo** liburu klasiko bat eta konta ezazu zenbat errezeta agertzen diren bertan. **Edorta Agirre**
Euskal Herriko **Sukaldaritzo** Etxeko idazkari Peio Garciaik adierazi zuenez, [...]. **Berria - Euskal Herria**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ohioren hegoaldea bete zuten alemaniarrek txerriki-**sukaldaritzo** ekarri eta landu zuten goiko mailaraino. **Anton Garikano**
Fusio-**sukaldaritzo**: lehengaiak (beren aho-ukitu, usain, zapore, kolore eta guzti), egospenez (tenperatura, denbora, aurre-prestatze, etab.) [...] eta gainerakoak osaturiko **sukaldaritzo** mestizatua sortuko da. **Edorta Agirre**
Etno-**sukaldaritzo**: sukaldari eta kontsumitzaileen migrazioekin gutxi-asko lotua. **Edorta Agirre**

4 toki edo eskola jakin batean prestatzen diren jakien multzoa.

Asiako herri horretako **sukaldaritzo** dastatu gabea nintzen. **Aingeru Epaltza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskal sukaldaritzo (7); **sukaldaritzo lehiaketa** (4); **sukaldaritzo liburu** (4)

sukaldatu, sukalda, sukaldatzen 1 du *ad* janariez mintzatuz, beroaren bidez prestatu. ik**kozinatu**.

Eta zuzen ibili nintzen, izan ere, horrela hainbat egun igaro ostean, nire lagunak larrutu, **sukaldatu**, eta jan egin baitzituzten. **Patxi Zubizarreta**
Etxe honetan **sukaldatzen** dudan azken aldia dun eta, nork jakin, beharbada ene bizitzan **sukaldatzen** dudan azken aldia. **Patxi Zubizarreta**
Hortik aurrera, eskobatzeara, **sukaldatzea**, arropa garbitzea eta haurrak edoskitzea, horra bere bizitza zertara laburbilduko zen. **Patxi Zubizarreta**
Sukaldatzeko erabiltzen diren tresnak ondo garbitu, eta sukaldeko zapiak sarri aldatu. **Berria - Harian**
Zuhaitzak moztu behar dituzte **sukaldatzeko** egur ikatza egin ahal izateko. **Berria - Mundua**

2 irud/hed

Edozein kasutan, txoritxo horrek ohartarazi digu Moncloako sukaldariak behar bezala moldatzen ari direla inkestaren emaitzen taula, Aznarren erara **sukaldatutako** datu-entsalada helarazteko. **Berria - Euskal Herria**

Sukaldatutako datuekin denak kontent. **Berria - Euskal Herria**

sukalde 1 *iz* janariak prestatzeko egokitua dagoen etxeko gela eta zatia. ik**ezkaratz**; **suete**.

Gela, **sukalde**, sala, kafetegi eta terraza hutsek, mendi hutsek [...] bakardadeaz haratago eramaten zuten bere espiritua, Alaska hotel hura, orain, ataria baizik ez bailitzan, beste norabaiteko sarrera. **Bernardo Atxaga**

Solairu nagusia eremu publikoa izango zen: despatxua, harrera-gela, saloi-biblioteca, jantokia, **sukaldea** eta officea; eta goiko planta familiaren bizitza pribatuko txokoa: sala, jantzitokia, logelak, bainugelak. **Patxi Iturritegi**

Sukaldean su bat eta apal bat besterik ez zegoen, baina, azkenean, benetako **sukalde** baten itxura hartu zuen, gutxi gorabehera, petrolioeko berogailuari, marmitari, oholari eta gainerakoei esker. **Juan Kruz Igerabide**

Sukaldera joan, tea egin eta tea hartuta **sukaldeko** mahaiaren eseri nintzen. **Koro Navarro**

Etexera itzuli eta ama **sukaldeko** harraskan aurkitu nuen arrain bat garbitzen. **Bernardo Atxaga**

Sukaldeko harriaren bertan garbitu eskuak eta eskutrapuarekin lehortu zituen. **Joxemari Urteaga**

Egunkaria eta ogia **sukaldeko** mahai gainean. **Unai Iturriaga**

Sukaldeko errezelen atzetik dago begira. **Oskar Arana**

Sukaldean erretzen ari den enborra gutzit kiskali arte biziko zarela agintzen dizut. **Martin Anso**

Eligio eta Nini lastozko aulkietan eserita zeuden, **sukalde** erdian zegoen mahai handiaren inguruan. **Josu Zabaleta**

Prusiarrak **sukaldean** ari da, pasta platerkada bat prestatzen. **Harkaitz Cano**

Gorrotu dut **sukaldean** aritzea. **Oskar Arana**

Ontzi zikinen biltzen hasten da, **sukaldean** baxera egiteko xedez. **Eneko Bidegain**

Sukalde handia, ederra eta garbia zen. **Koro Navarro**

Edo pena ematen zion betiko uzteak zerbitzarien **sukalde** epela, non gozo-gozo egoten baitzen labearen alboan bere berokian bildurik? **Jose Morales**

Batera eta bestera zebilen orain **sukalde** beltz, kandela baten garrak ozta-ozta argituan. **Josu Zabaleta**

Kikilduta nengoen **sukaldean** entzundako esaldi hura zela-eta: gure Eusebio oso zaharra baitzen zaldiarena gertatu zenean. **Bernardo Atxaga**

Ni mini-**sukaldean** egon nintzen tarte luze batez, sojatzko zerbeza bat ahogozatzen eta egunkari atzeratuak irakurtzen. **Iban Zaldúa**

- Ama **sukaldea** jasotzen amaitu, eta aita-semeen arteko elkarrizketara bildu zen. **Pedro Alberdi**

Sukaldea elkarrekin jaso ondoren, kafe antosinkada bana hartu genuen. **Hasier Etxeberria**

Ezin ukatu: desastre hutsa ginen **sukaldean**. **Urtzi Urrutikoeetxea**

2 (aurre, alde eta kideko hitzen ezkerrean)

Saltoka hurbiltzen ziren **sukalde** atzeka zaborrontzietara, edo hegaldi laburrak eginez. **Bernardo Atxaga**

Ama laster erretiratu zen **sukalde** aldera. **Iban Zaldúa**

-Ez, zu **sukalde** ostera pasako zara. **Felipe Juaristi**

Nire gelatxoan nengoen, **sukalde** ondoan, beheko solairuan. **Josu Zabaleta**

Andreasek, beso bat neskaren bizkar gainetik besaperaino pasaturik, **sukalde** ondoko gelara eraman zuen, eta ohatzean sartu zuen. **Anjel Lertxundi**

Saltoa, saloi atzeko sukaldea, **sukalde** gaineko logelak, eta harantzagoko jolasgelak **Anton Garikano**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gaspard Harik berriz **sukalde** lanak egiten zituen, eta sua zaintzen zuen. **Josu Zabaleta**

Sukalde -mutila eta garbitzailea lasterka joan ziren gurdi-atea zabaltzera. **Jose Morales**

Sukalde morroien txano, jaka eta mantal zuria jantzen zituen berriz ere. anarian, jantzietan, **sukalde** -garbiketarako produktuetan. **Karlos Zabala**

Aluminio leunezko **sukalde** altzariek sarbidearen parte bat hartzen zuten. ez dakit nongo mojek prestatutako **sukalde** errezetak. **Koro Navarro**

Atea irekitzen zien, mantalarekin, tapin pikartekin, eskuan **sukalde** -trapu bat zeramala. **Joseba Urteaga**

Andre Engraziak iloba eskutik hartu zuen, **sukalde** xokora eraman zuen, sutondora. **Elena Touyarou**

Otorduak **sukalde** -sabaiko soketan tantaka zeuden alkandora hezean pean egin beharra. **Harkaitz Cano**

Hantxe zeuden zeru grisa, mendi berdea, diana zuri eta beltza, **sukalde** atariko txolarre arreak. **Bernardo Atxaga**

Iduriz, bakarrik bi gela zeuden: alde batetik, **sukalde** itxura zuena, xoko batean behitegiko sargia ageri zuena, [...]. **Elena Touyarou**

Bain andreak ere aukera ematearren **sukalde** -zulotik atera eta aitari konpainia egiteko. **Mirentxu Larrañaga**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Hori ere trisatuko litzateke, ez baitzuen halako maitasun **sukalde** -jariorik espero. **Felipe Juaristi**

5 irud/hed

«Ez dut mugatzen sukaldea alderdi sozialistara, **sukalde** gehiago dira posible eta beharrezko», gehitu zuen. **Berria - Euskal Herria**

«Testuaren atzean **sukalde** askotxo» dagoela argitu zuen lehenengo eta behin eta, jarraian, PSE-EE eta SA zorrotz kritikatu zituen, eskuinaren antzera, kontra bozkatzearagatik. **Berria - Harian**

Orain, hemendik aurrera, **sukalde** lan asko egin beharko da. **Berria - Harian**

Datozen egunetako **sukalde** lanek kanpainak baino eragin handiagoa izango dute. **Berria - Harian**

6 janariak beroaren bidez prestatzeko erabiltzen den tresna.

Burdiñazko **sukalde** baltzaren burdina oso bero egoten dok erdi aldeko uztai borobilletan. **Txillardegi**

Sukaldean zeuden biak, aita mahaira eserita leihotik zehar begiratzen, ama zutik gas-**sukaldearen** ondoan. **Joseba Urteaga**

Kanpinarako gailuen denda batean berogailu elektriko bat, gas-**sukalde** txiki bat eta aluminiozko eltze bat erosten ditu. **Oskar Arana**

Ezkaratz ezin nanoago bat edarien hozkailu batez eta bi erregailuko gas-**sukalde** batez hornitua, besterik ez zeukan. **Oskar Arana**

Olioeko lanpara bat, kanpineko **sukalde** bat, maindireak eta mantak. **Koro Navarro**

Etxean **sukalde** ekonomikoa genuela jakinda [...]. **Koldo Izagirre**

Donostiara bueltatzean bisitatzerako joan ahal izango zarela eta amona **sukalde** ondoko mahai horretan egongo dela zurekin bateko urrean jokatzeko prest. **Lourdes**

Oñederra

7 sukaldaritzak.

Hotelak itxi berria dik **sukalde** zerbitzua. **Aingeru Epaltza**

Hauxe izango duk benetako mundializazioa, pentsatu zenuen, perutar batek egindako **sukalde** frantsesa, Elizondoko jauregi indiano batean eserita dastatzea. **Hasier Etxeberria**

Sukalde frantsesa izan zen ia guztia lehenengo oturuntza hartan, hasi ahate-gibelekik, segi Borgoñako ardo lodiekien eta amaitu Chartreuse usain ederrekoarekin. **Hasier Etxeberria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sukalde aldera (3); **sukalde** barruan (3); **sukalde** bazterreko (3); **sukalde** erdian (7); **sukalde** erdian zutik (3); **sukalde** ilunean (4); **sukalde** lan (8); **sukalde** lana (21); **sukalde** lana egitea (3); **sukalde** lanak (6); **sukalde** lanetan (3); **sukalde** ondoko (12); **sukalde** osoa (4)

etxeko sukaldea (4); **sukaldea** jaso (3); **sukaldea** piztu gabe (3)

aita sukaldean (3); **ama sukaldean** (12); **baserriko sukaldean** (3); **bere sukaldean** (5); **etxeko sukaldean** (36); **gazteluko sukaldean** (4); **gure sukaldean** (6); **hoteleko sukaldean** (5); **infernuko sukaldean** (3); **sartu zen sukaldean** (7); **sartu ziren sukaldean** (3)

sukaldean ari (6); **sukaldean** aritu (3); **sukaldean** aritzea (5); **sukaldean** aritzeko (5); **sukaldean** aritzen (3); **sukaldean** aurkitu (8); **sukaldean** aurkitu nuen (4); **sukaldean** bertan (4); **sukaldean** dago (3)

sukaldean egon (4); **sukaldean** egoten (3); **sukaldean** eserita (7)

sukaldean jarri (4)

sukaldean sartu (24); **sukaldean** sartu zen (6); **sukaldean** sartuta (4); **sukaldean** sartzeko (5); **sukaldean** sartzen (6)

sukaldean utzi (4); **sukaldean** uzten (3); **sukaldean** zain (3); **sukaldean** zegoen (10); **sukaldean** zehar (4); **sukaldean** zen (3); **sukaldean** zeuden (6); **sukaldean** zintzilik (4)

sukaldearen erdi erdian (3); **sukaldearen erdian** (5); **sukaldearen ondoan** (6)
jatetxeetako sukaldeetan (4)
etxeko sukaldeko (4)
sukaldeko argia (3); **sukaldeko armailuan** (4); **sukaldeko ate** (11); **sukaldeko atea** (14); **sukaldeko atea zabaldu** (3); **sukaldeko atean** (14); **sukaldeko atearen** (6); **sukaldeko ateraino** (4); **sukaldeko atetik** (12); **sukaldeko aulki** (4)
sukaldeko erlojuan (3); **sukaldeko harraskan** (7)
sukaldeko ilunpean (3); **sukaldeko labana** (3); **sukaldeko lana** (6); **sukaldeko lanak** (9); **sukaldeko lanik** (6); **sukaldeko leiho** (4); **sukaldeko leihoa** (7); **sukaldeko leihoaren** (3); **sukaldeko leihora** (7); **sukaldeko leihora hurbildu** (3); **sukaldeko leihotik** (22); **sukaldeko lurrean** (6)
sukaldeko mahai (42); **sukaldeko mahai gainean** (26); **sukaldeko mahaian** (30); **sukaldeko mahaian eseri** (4); **sukaldeko mahaian eserita** (5); **sukaldeko mahaiairen** (28); **sukaldeko mahaiairen aurrean** (5); **sukaldeko mahaiairen gainean** (9); **sukaldeko mahaiairen inguruan** (3); **sukaldeko mahaiairen ondoan** (3); **sukaldeko mahaira** (3); **sukaldeko mahaira eseri** (3)
sukaldeko ontziak (3); **sukaldeko ontzien** (3); **sukaldeko ontzien artean** (3); **sukaldeko su** (3); **sukaldeko sua** (3); **sukaldeko tresnak** (3); **sukaldeko tresneria** (4)
sukaldeko zapiak (3); **sukaldeko zoruan** (3)
etxeko sukaldera (4); **gelatik sukaldera** (3); **joan da sukaldera** (3); **joan zen sukaldera** (5); **salara eta sukaldera** (3); **sartu zen sukaldera** (5)
sukaldera abiatu (15); **sukaldera abiatu da** (8); **sukaldera bidali** (3); **sukaldera bidean** (7); **sukaldera doa** (6)
sukaldera ematen (5); **sukaldera ematen duen** (3); **sukaldera eraman** (13); **sukaldera eraman zuen** (3); **sukaldera etorri** (5); **sukaldera heldu** (3)
sukaldera iritsi (3); **sukaldera itzuli** (25); **sukaldera itzuli zen** (11); **sukaldera jaitsi** (8); **sukaldera jo** (6); **sukaldera joan** (73); **sukaldera joan zen** (29); **sukaldera joan ziren** (4); **sukaldera joateko** (3); **sukaldera joaten** (6)
sukaldera sartu (28); **sukaldera sartu zen** (6); **sukaldera sartzen** (4)
sukalderaino sartu (3)
sukalderako bidea (3); **sukalderako bidean** (5)
etxeko sukaldetik (3); **sukaldetik atera** (19); **sukaldetik atera zen** (7); **sukaldetik etorri** (3); **sukaldetik irten** (19); **sukaldetik irten zen** (6); **sukaldetik kanpora** (3)

sukaldeburu *(corpusean sukalde buru soilik) iz* jatetxeetan eta, sukaldearen buru dena

-Iruzurtiak eta eskale profesionalak tartean... -sententziatu zuen esperientzia luzea zuen **sukalde-buruak** . **Joan Mari Irigoien**
Konbentzitu zuen **sukalde-buruak** , neurri hartatik ondorio txarrak besterik ezin zitezkeela sor, jatetxe bat ezin baitzen inola ere Miserikordi Etxe batekin alderatu. **Joan Mari Irigoien**

sukalderatu, sukaldera(tu), sukalderatzen du *ad* sukaldera joan.

Ibilera zinbelez gurutzatu zuen kafetegia, zerbitzariari zenbait agindu eman zien, eta **sukalderatu** egin zen. **Iñaki Zabaleta**
Pierra **sukalderatu** zen oihuka, berak osatu dudazko zarea esku-muturrean inguruka, eihera hegala! **Itxaro Borda**
Emaztea so gelditu zitzaion, usaian bezala, mamu bat ikusten zuela iduri, eta berriz **sukalderatu** zen. **Elena Touyarou**
Melodia harilkatzen zerraikan Bettan behiak bazkatzetik sohairotik **sukalderatu** zenean. **Itxaro Borda**

sukaldetiar *izond* sukaldeari dagokiona.

Egu-berri eta Egu-berri-on, guztion bihotz eta zentzu onenak bildu eta oparitzen dituen egun-sorta sutondoar eta **sukaldetiar** hau. **Pello Zabala**

sukaldetxo 1 *iz* sukalde txikia.

txetik ekartzen du tupperwarea, enpresak egokituriko **sukaldetxoan** berotu eta jateko. **Berria - Kultura**
Lucy sofan eserarazi eta Maddalenek tea prestatzeari ekin zion **sukaldetxoan** . **Joxemari Iturralde**
Bazkalordua iritsi zela uste izan zuenean, jatekoa prestatzen hasi zen **sukaldetxoan** . **Joxemari Iturralde**
Sarrera-gela edo egongela hartan denetik zegoen, mahai handi bat, eserlekuak, sofa luze kurrutua, ontziteria jartzeko apalak eta kaxoiak, **sukaldetxo** bat, ur konketa... **Joxemari Iturralde**
Hara eramaten du gas-**sukaldetxoa** , tea egiteko edo kontserba-poteetako janaria berotzeko. **Oskar Arana**

2 *adkor*

Euskaltzaindiari ez baitzaio gustatzen **"sukaldetxotara"** jolasten ibiltzea. **Pello Salaburu**
Alde batean zegoen tradizio osoa, bestean dozena erdi horiek, tartean Euskaltzaindia, eta aldamenean Bernardo, denak **"sukaldetxotara"** ari ote garen, bere buruarekin hatz egiten. **Pello Salaburu**

sukaldetza *iz* janari hornidura.

Ez zen ez gauza atsegina, goseak hil-behar, bide-zorroak galduta, eta zakoterik edo **sukaldetzarik** ezer ez. **Patxi Ezkiaga**

sukalki *iz* erregosia, gisatua.

Goizeko hamarrek eterditan haste, Bidasoako **sukalki** lehiaketa, inguruko hamabi elkartet **sukalki** arraroa apailatuko dute, ondotik dastatu nahi dutenek deitu behar dute 05 59 20 76 10 telefonora. **Herria**

sukalkintza *iz* sukaldaritza.

Niri ez zitzaidan iruditzen batere normala laboratorior batean **sukalkintza** konplikaturik egin zedin. **Juan Garzia**
Ozta-ozta baliatzen zitzaidan alaigarritzat Giulia aldameneko gelan sentitzea, ahots lausoz "udaberri dugu, esna zaitzete neskatilok" kantari, Pyrex beirazko ontzian termometroa sarturik **sukalkintzan** . **Juan Garzia**

sukaltarri *iz* harraska.

Sartu eta eskuinetara sukalde antzeko txoko bat zegoen, kafe-eltzea txapa gainean eta zenbait kazo-zartagin-plater **sukaltarriko** kainupean. **Iñaki Zabaleta**
Etxean zehar zebilen joan-etorrian gauzak ordenatzen, janaria hozkailura sartzen eta erabilietako platerak eta mahai tresnak **sukaltarrian** uzten, hondakinak zakarretara botatzen, eta abar... **Joxemari Iturralde**

sukar 1 iz gorpuztea gortzea eritasunen baten sintoma dena. ikberotasun.

Zenbat egunez griparekin naiz, **sukarra** 39 eta 40-en artean dut, jateko gogorik ez, loa galdua. **Marzel Etxehandi**

Hogeita hamazortzi eta hiruko **sukarra** zenuen duela ordu bete, eta ez da ona horrelako **sukarreakin** jaikita ibiltzea. **Oskar Arana**

Hotzikarak eta **sukarra**, gripearean sintoma ezagunak. **Josu Zabaleta**

Martin kamainaren ertzean jesartzen zitzaidan, izerdiak sikatzera, **sukarrak** erasan baininduen. **Edorta Jimenez**

Esan diot ez nengoela inor ikusteko moduan, **sukarra** dudalako. **Ramon Saizarbitoria**

Ama beti ari zitzaizulako bekokian musu ematen, ea egiaz **sukarra** joan ote zitzaizun ikusteko. **Ramon Saizarbitoria**

Esku bat jarri zidan bekokian maitetiro, ume bati **sukarra** hartzeko egiten zaion bezala. **Ramon Saizarbitoria**

Luisito, anaia gazteena, **sukarrez** gaixotu zen. **Josu Zabaleta**

Simonen amaginarreba oheratua zegoen **sukarrez**. **Elizen arteko biblia**

Sukar pixka bat ere banuen. **Fernando Rey**

Sukarrak hartua nau hondoraino, gorputz osoa dut mindua. **Elizen arteko biblia**

Txikia ohean zegoen, berrito ere, ditxosozko **sukar** horietako batek jota. **Iban Zaldua**

Sukarraren eraginez eldarnio bizitan, hil baino pixka bat lehenago oihuka aitortu zuen higanota zela. **Martin Anso**

Hurrengo egunean, **sukarra** igo egin zitzaion, eldarnioz ari zen. **Xabier Olarra**

Orduan **sukarra** goiti joan zitzaion. **Piarres Xarriton**

Sukarra zertxobait jaitsi zitzaidan goiz haietarik batean, geure jaun Jesu Kristoz oroitu nintzen. **Joan Mari Irigoien**

Sukarrez kordegabe egon zen luzaro, herio-izerdi hotzetan. **Imanol Unzurrunzaga**

Buruan pisu handia... hanka-besoak minduta, **sukarrak** nago... laster etzan beharko dudala uste dut. **Eduardo Matauko**

Sukarrak erretzen nengoan. **Alberto Ladron Arana**

Sukarrak eragindako amesgaizto bat izan nuela. **Anjel Lertxundi**

Haren ondoan geratzen naiz, suhar, **sukarretan**, torturaturik, badakidalako heriotza hurbil duela. **Josu Zabaleta**

2 (izenondoekin)

Sukar handia besterik ez zen, hori zen dena. **Fernando Rey**

Ohean egon zen gero, **sukar** handiarekin, hainbat astetan. **Mirentxu Larrañaga**

Sukar txiki batek ez zion etxetik irteten utzi zortzi egunean. **Karlos Zabala**

Beshir izan zen [...] **sukar** altu harekin dardarka eta izerditan nengoenean zaindu ninduen. **Fernando Rey**

Sukar altuarekin joan zen epaiketara. **Berria - Euskal Herria**

Hanoiko ospitalean Hegaztien gripearean sintomak **sukar** altua, gorakoa, odol presio baxua... zituzten bederatziz lagun artatu zituztela. **Berria - Gaiak**

Sukar kiskalgarría, nahasdura bortitz eta kasik jarraikia, egarri aseezina, horra nabari zaion guztia. **Jon Muñoz**

Ez zen guduzelalaian hil, ordea, **sukar** gaizto batzuek jota baizik. **Xabier Olarra**

Sukar gaixtoa, esan zigun albaiteroak eta, hobe zela hiltzea. **Pablo Sastre**

Goseak akituko ditu, **sukar** eta izurri gaiztoek erasango. **Elizen arteko biblia**

20 egun baino gehiago egin zitian ohean, **sukar** gastrikoek jota. **Edorta Jimenez**

Denge birus aldaera hori eltxoen bidez zabaltzen da, eta bera da kasu larrienak eragiten dituen, **sukar** hemorragikoa kasu. **Berria - Gaiak**

3 (izenondoekin, eritasunen izenetan)

Kuartana: lau egunean behin eraso egiten duen **sukar** paludikoa. **Patxi Ezkiaga**

Baina ez dira garai samurrak abelazkuntzarako: behi eroen auzia, pentsu kutsatuak, **sukar** aftosoa... **Patxi Iturritegi**

Gure ama behin, gaztetan, gaixorik egon zen **sukar** espainiarrek jota. **Pello Lizarralde**

Baina han, Olivettitarrenean, beren behiak zituztenez gero, ez zegoen Maltako **sukarraren** arriskurik. **Fernando Rey**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ea probintzia hartan bazegoen gaitzen bat zabaldurik, hala nola **sukar**-epidemiaren bat. **Jose Morales**

Gauak eteten ez zuen kontzientzia puruzko **sukar**-egoera batean nengoan. **Joseba Urteaga**

Inoiz ez nuen hain **sukar**-kolpe bortitzik sufritu. **Anjel Lertxundi**

Tbilisiko eskola berean ikasten zuten neskek, eta atzo berrogeialdian jarri zuten egoitza, herenegun beste hiru ikasle **sukar** eta gripe sintomekin erietxean sartu zituztelako. **Berria - Gaiak**

Gaizki egin dut lo; bada hemen, inondik ere, **sukar** eragileren bat, nire kotxezainak neure gaitz berbera du-eta. **Josu Zabaleta**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez zekien zer izan zen, edo whisky txarra, sotoko gauak, txerri-**sukarra**, ahoko bridak, oilar irribarretsuak, [...]. **Anton Garikano**

Orduan, Jainko Jaunak Jonas bera baino handiagoko landare bat sorrarazi zuen, Jonasi buruan itzala egin eta eguzki-**sukarretik** libra zezan. **Jose Antonio Mujika**

6 irud/hed ik grina; irrika¹.

Euskarari buruzko kar eta **sukarraren** zati garrantziatsu bat hemen bildua dut. **Piarres Aintziart**

Baionako bestetako **sukarra** erori da. **Herria**

Sukar horrek erasaten ziek horiei ere, amorrutik horrek, ezekin mikrobio jakinek zabaltzen ez duen **sukar** horrek. **Xabier Olarra**

Infidelitatea: bikotearen **sukarra**. **Patxi Zubizarreta**

Sukar batek hartua zegoen, jainko ezaguerazalaren batek behartua bezala. **Fernando Morillo**

Eta ni ere berehala hartu ninduen Pedoren **sukarrak**. **Joan Mari Irigoien**

Lisboan meza ematean Domingori fedearen **sukarra** eragin ziona. **Edorta Jimenez**

Napumoceno jaunak onartu egin zuen geroago teknikaren **sukarrak** itsuturik ibili zela Ameriketatik itzuli eta lehen hilabete haietan. **Bego Montorio**

Sexuaren **sukarrean** murgiltzen bahaiz, [...]. **Joxan Elozegi**

Buru-belarri ekin nion lanari, **sukar** moduko batek harturik. **Juan Kruz Igerabide**

Beste batzuek maitalearen gorputza arakatzeko jartzen duten ardura eta **sukar** bertsuarekin igarotzen zituen orduak nire obraren zoko-moko eta ezkutukiak aztertzen. **Joxean Agirre**

Lurra jauzika hasten da, jauzi ttipi, labur eta apaletan, **sukar** daldara bat. **Michel Oronoz**

Kontua da aspaldiko egunotan erotzeko zorian naukan halako barne **sukar** batek bultzatu nauela letra hauek izkiriatzera. **Hasier Etxeberria**

7 (izenondoekin)

Pozezko **sukar** handi, ezin esan ahalako batek bete zidan bihotza. **Matías Múgica**

Gogor bezain gotor ekin nion lanari, **sukar** meneraezin batek hartua bezala. **Joan Mari Irigoien**

Jakin-minezko **sukar** gaitz batek erretzen zion barrena. **Karlos Zabala**

Albisteak **sukar** gaizto batean ezarri zuen Migel mutikoa. **Aingeru Epaltza**

Sukar irultzaileak kiskalita, orduetik aurrera alderdi "patriotikoko" panfleto-egile eta suspertzaile handiena egin zen Jean-Baptiste Cloots. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Unibertsitatean harrapatu zuen **sukar** intelektual krausopositibista ari da garatzen. **Joxe Azurmendi**

Azidoa hartu utzi, eta, drogak ematen zoi-puntua lortzeko, **sukar** erlijiosoa erabiltzen hasi zen. Xabier Olarra
Andereñoak uxatu zituenetik, halako **sukar** mistikoak hartu dio kaskoa, eta malama praktikatzeko duela esaten du. Jon Alonso

8 *sukar amets* ik eldarnio.

Sukar-ametsetan, ate irekiez hitz egiten zuen, ateak irekitzeko eskatzen zuen. Jose Morales

-**Sukar-ametsetan** askotan aipatu duzulako. Koro Navarro

-**Sukar-amets** gaiztoen mende hago, Mateo; eldarnioan. Edorta Jimenez

Sukar-ametsetan ari zen. Ander Irizar

Sukar-amets haietan Romako sotoan nengoan, ilunpetan, aurreko egunean bezalaxe. Alberto Ladron Arana

9 *sukar beltz*

Hitz haiek bere barne gero eta lanbrotsuagoan iltzatu ziren, eta irudipena izan zuen ezen **sukar beltzak** hartu zuela. Patxi Zubizarreta

Anglesa, ahotik odolak emanda aienatua zen, **sukar beltzak** jota. Aingeru Epaltza

Egonaldi horrek guretako zortzi aste irauten du, **sukar-beltza** gure multzoan deklaratu baita omen. Michel Oronoz

Sukar beltzaren seinaleak, Orthezeko medikuen iritzian. Aingeru Epaltza

Gaitzak bereizteko orduan ere, maiz erreparatu dio jendeak larrijeari: gorriena, sukar horia, **sukar beltza**, berdoztua, horimina... Patziku Perurena

10 *sukar hori*

Surinamen zegoela, koitadu bat hil zitzaion besoetan **sukar horiak** jota, eta haren paperei esker itzuli zen Frantziara, kontatu zienez. Karlos Zabala

Indian egona zen -han kolera harrapatu zuen eta **sukar horia** ere bai, ustez-. Fernando Rey

Adituen arabera, intsektu espezie horrek 23 gaixotasun kutsa ditzake; tartean, dengea eta **sukar horia**. Berria - Gaiak

Sukar horiaren kontrako txertoa badaia egin baino hamar egun lehenago hartu beharra dago. Berria - Harian

11 *sukar tifoideo* sukar ustela.

Hemen, udan batez ere, ia ez da izaten gaixorik, kolikoren bat edo beste, enteritisen bat edo beste, **sukar tifoideozko** kasuren bat inoiz edo behin, ezer ez. Josu Zabaleta

Aracil doktoreak [...] ikusi zuen mutiko gaixoa, eta handik egun gutxira **sukar tifoideoa** zuela esan zuen. Josu Zabaleta

Etsimenez beteta irakurtzen zituen Patologia-liburuetan **sukar tifoideoari** eta haren trataerari buruzkoak. Josu Zabaleta

12 *sukar ustel* eritasun epidemikoa, Eberth-en baziloak sortua, heste meheko linfa-plakei eragiten diena.

-**Sukar ustela** al du aitak? Edorta Jimenez

Garai haietan hetikak eta **sukar-ustelak** gogorki jotzen zituzten bazterrak, gerla denboretako presondegi eta herio zelaietan bereziki. Eneko Bidegain

Bazekiela ontziburua ondoezik zela, baina ez zuela uste **sukar ustelak** jota zegoenik. Edorta Jimenez

Esatekotan izan nintzen, ea **sukar ustelaren** ernamuina ez ote zuten eurek Lisboatik ekarri. Edorta Jimenez

Zaindarien **sukar-ustelaren** beldur handia zuten, zorrien bitartez kutsatzen omen zen. Eneko Bidegain

Eta Lisboan izan diren gizonak kutsatu ez direla-eta, ez hadi egon hain ziur **sukar ustela** erabat joan dela. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

halako sukar (8); halako sukar bat (3); sukar aftosoa (3); sukar altua (6); sukar amets (4); sukar ametsak (4); sukar ametsetan (4); sukar beltza (3); sukar beltzak (3); sukar berean (3); sukar gaitza (3); sukar handi (6); sukar handia (20); sukar handiarekin (5); sukar horia (5); sukar izugarri (5); sukar pixka bat (7); sukar poxi bat (11); sukar ustela (14); sukar ustelak (14); sukar ustelak jota (4); sukar ustelaren (20); sukar ustelaren urtea (14)

sukarrak alde egin (4); sukarrak hartu (4); sukarrak hartua (5); sukarrak harturik (5); sukarrak hartuta (4); sukarrak jota (17); sukarrak jota zegoela (3) sukarrarekin egon (3)

ez zuen sukarrik (3); sukarrik behintzat ez (3); sukarrik gabe (3)

sukarño iz sukar arina.

Ainitz ez dira batere ados, eta Mendekoste hurbiltzen ari baita, bazterretan halako **sukarño** bat berriz jauzi da horren gainetik Herria

sukarraldi 1 iz sukarra izaten den aldia.

Neure **sukarraldi** haietan, amets bat izan nuen, eta amets hartan Jainkoaren mintzoa aditu nuen, erraiten zidala: [...]. Joan Mari Irigoien

Gertatzekoa gertatu zen handik gutirat, noiz eta eri haietarik batek [...] bere **sukarraldi** batean erran baitzuen ezen Pagabasoko leizetik txakur beltz handi bat atera zela.

Joan Mari Irigoien

Burutik oinetara hasi nintzen dardarka, **sukarraldi** gogor batek jota bezala. Koro Navarro

Txikitan **sukarraldi** handi bat izan omen zuen eta gerotzik... ba, ez dakit nola esan... ume bat bezalakoa da. Patxi Iturritegi

2 irud/hed

Ematua bide zen turuten **sukarraldia**. Txillardegí

Jar diezaiogun ordena apur bat orgia honi, **sukarraldian** eta gehiegikerian ere beharrezkoa izaten baita. Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio

Ez dakit zenbat iraun zidan **sukarraldi** anarkistak: urtebete, bi gehienez ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Sukarraldi tekniko hartan eroetxetik alde egindako txoroa ematen zuen osabak, berritasunak liluraturiko aura. Bego Montorio

sukarri ik suharri.

sukarti 1 izond sukartsua.

Begietan distira **sukarti** bat zian, aurreko gauean, ni sartu eta tropikoari buruzko liburu hura irakurtzen ari zenean bezalakoa. Xabier Olarra

N[agel] jaun artistaren zalantzak **sukartiak** dira, baina horretan ez du zerikusirik Aristotele handiak zalantza jakintza-bidearen oinarri jartzeko hartu zuen erabakiak. Berria - Kultura

2 (adizlagun gisa)

Hango eta horko hiztegiak hartu, eta orri-pasa hasi da gailur-gailurreko jakin-minez eta sukar izugarri batek jota baino **sukartiago**. Anjel Lertxundi

sukartsu 1 izond sukarrez betea. ik suhartsu.

"Egizue bekatu nirekin" esaten zien Rasputinek emakumeei besoak zabaldu eta zerura begira begi **sukartsuekin**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Begirada **sukartsuko** gizonaren grabatuak ez zuen, ordea, aparteko dohain artistikorik. Anjel Lertxundi

Esku **sukartsuekin** ireki nuen. Matías Múgica

Ustekabeko eta konpromisozko ukitu hark gerora jasoko nituen laztan **sukartsu** guztiak baino zirrara handiagoa eragin zidan. **Ramon Saizarbitoria**

Arratsalde sargori batean, sexu **sukartsuaren** osteko solas izerdituan, zure izena aipatu nuen. **Eider Rodriguez**

Burutazio misterioitsu baten printza agertu zitaion begien ertzetan, arima ere halako argitasun **sukartsu** batez betetzen zuela. **Patxi Zubizarreta**

Agoniak bakarrik ez zion hildura eragiten...; bere pentsamendu **sukartsuek** ere hilaurrean kokatzen zuten, eta ez zuen hori beste konturik izaten. **Patxi Zubizarreta**

Saderen liburuetako fantasiak haren irudimen **sukartsuaren** fruitu dira. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Dostoievskik mistizismo erlijioso **sukartsu** baten aldrean eman zituen azkeneko urteak. **Anjel Lertxundi**

Nire eldarnioetan, batzuetan, pentsatzen nuen hura guztia ametsa, amesgaizto **sukartsu** bat baizik ez zela izan. **Alberto Ladron Arana**

2 (adizlagun gisa) ik **sukartsuki**.

Zenbait minuturen buruan agertu zen, itsuski mehatua, zortzi eguneko bizarrarekin, begiak **sukartsu**. **Marzel Etxehandi**

San Frantzisko, espiritua **sukartsu**, elizatik irten eta han inguruan zegoen basoan sartu zen. **Askoren artean**

Sukartsuago gurutzatu ditugu ezpainak. **Urtzi Urrutikoeetxea**

3 (adizlagun gisa) **sukar** altuarekin.

Laugarrenean emakume jator batek, antsiak eta intziriak entzun, zabortegira hurbildu eta haurra aurkitu zuen, **sukartsu**, larrugorri. **Gotzon Garate**

Goiz batzuetan, hargatik, lanera telefonatzen zuen **sukartsu** zegoela eta bere ezin etorriaren seinaltatzeko. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
irudimen sukartsuaren (3)

sukartsuki *adlag* sukartsu.

Teologia moralak, beraz, erabilera imanentea baino ez du, hots, gure determinazioa hemen munduan betetzea, helburu ororen sistemara moldatzen garen heinean, eta arrazoimen lege-emaile moral baten bizimodu onaren gida-haria gogoberoki edo **sukartsuki** uzten ez dugun heinean. **Ibon Uribarri**

sukartu, **sukar**(tu), sukartzen **1** da *ad* **sukarrez** bete. ik **suhartu**.

-Entzuna duzue, ziur -erabakitsu, ozen ekin zion-, sukarra airean izaten dela, airea bera **sukartu** egiten dela. **Edorta Jimenez**

Hozminez dardarka nengoen, **sukartu** antzean. **Eduardo Matauko**

Batzuek euren lohadar gaixoz **sukartuak** erreka izoztuetan sartzen zituzten, gorputz biluzia uhinei jaurtiz. **Xabier Amuriza**

Arratsaldero itzultzen zen, bere irakurketei ekiten zien **sukarturik**, eta gero, noizean behin, lapur baten gisa, mutiko baten esku zuria edo agian hanka laztantzen zuen. **Monika Etxebarria**

2 (era burutua izenondo gisa)

Horrela, sukarra airearen bidez zabaldu, eta aire **sukartua** gorputzeko zulotxoetan barna sartzen ahal dela, eta halaxe kutsatu izaten zaigula sukarra. **Edorta Jimenez**

Buru **sukarturen** batek sorgintzat jo dituen emakumeak urkamendira eramanez? **Anjel Lertxundi**

Maitasunari eta idazteari, ordea, bizia ere ematen zien, halako gogo **sukartuaz** eta neurtuaz. Nire irudimen **sukartuaren** gorabeheraren bat zela pasatu zitzaidan burutik. **Fernando Rey**

Zimur ñabarrak ezpainen hantura **sukartuaren** bi aldeetara. **Monika Etxebarria**

Natanael, narrazioko pertsonaia nagusi erromantizismoak joa, bere poema **sukartu** bat irakurtzen hasiko zaio Klara izeneko neska eder bezain konbentzional bati. **Anjel Lertxundi**

sukoi *izond* erraz su hartzen duena.

Beste gai **sukoi** bat. **Berria - Mundua**

Erasogileek dendaren erakusleihoa hautsi eta isurkari **sukoia** jaurti zuten. **Berria - Euskal Herria**

Almadiaren inguruko isurkari **sukoi** hura. **Karlos Zabala**

Markinan bake epaitegiaren aurka likido **sukoia** jaurti eta su eman zioten. **Berria - Harian**

Likido **sukoiz** betetako litro eta erdiko botilak ziren, eta petardoak zituzten itsatsita. **Berria - Euskal Herria**

Bazirudien norbaitek -seguruenik deabruak berak- basamortuan likido **sukoiren** bat isuria zuela eta paisajea flanbeatzen ari zela. **Berria - Euskal Herria**

Kolono juduei objektu **sukoiak** eta harriak botatzea egotzi zieten. **Berria - Mundua**

sukolore ik **su 46a**.

sukratu **1** *izond ipar* azukretua.

Pasta **sukratuaren** erruz, hortzak sabaiari itsatsi zitzaizkion. **Itxaro Borda**

Urte txarraren iragarpena alabaina, haragi mota **sukratu** eta gurintsua ekoizten zutenentzat. **Itxaro Borda**

2 irud/hed

Frantsesean ez hain trebe baina xuxen ari, mintzo **sukratu** batekin. **Marzel Etxehandi**

Bozgaragailuetarik urteko *Herri Urratsen* musika urtzen zela, *ahaaa* erlastuz zatikatua, jendea bazetorren beti Alaitz eta Maineren ahots **sukratuak** gidatua. **Itxaro Borda**

Haren frantsesa ez zen **sukratua**. **Marzel Etxehandi**

sukre **1** *iz ipar* azukrea.

-Kafea, txokoleta eta **sukrea** eskas ditinagu. **Itxaro Borda**

Jateko gauzen eskasia azkar senditu genuen hemen, anitz herritan bezala: **sukre**, olio, txokolate, denetarik guti. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Tisana edan nuen azken xortaraino, grimas batekin azkenean, karatsa baitzen, **sukrerik** gabea. **Marzel Etxehandi**

Thierry Bamas, Baionako pastiza egileak lehen saria ardietsi du **sukrezko** patizeriako euro xapelketan Lyonen. **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Olioan busti **sukre** mokor hau har zazu. **Marzel Etxehandi**

Ikusten nuen orduan koloreak gorri, sudur punta luzea ubel, tripa kanpoan, zilkoa agerian, aitzin-gibel balantzaka, kikara eskuetan, kafeari lau **sukre** mokor aurtikitzen, espantuz, hilezkorra bailitzan. **Itxaro Borda**

sukreki *iz ipar* azukre gaia.

Gauza batzu, **sukrekiak** -eta, ezteki horiek eta, desertak-eta [...] horiek partikularzki maite dituztala... **Menane Oxandabartz**

sukubo *iz emakume itxura hartuz gizon batekin sexu harremanak dituen deabrua. ikinkubo.*

Sukubo batekin batzen zela zioten atso batzuek. **Koro Navarro**

Inkubo eta **sukubo** guztien zerrenda osoa nahi duenak -inkubo eta **sukubo** emeak barne- jo beza Protassusen Liber Demonorum-era (Paris, 1328). **Xabier Olarra**

sukurtsal 1 *iz merkataritza etxeetan eta kidekoetan, etxe nagusiaren betekizun berak dituen, baina legezko nortasun berezkorik ez duena.*

XIV. mendearen hasieran, italiar bankariek **sukurtsalak** zabaldu zituzten Europako hiri handi guztietan. **Koro Navarro**

Hamarka ofizina eta denda dituzte inguruotan: hortxe aurrean bertan BBVren **sukurtsal** bat, Trabajo Temporal SA-ren bulego nagusia, eta baita auto frantsesen kontzesionario bat ere. **Iban Zaldúa**

Entitatearen 355 **sukurtsaletatik** 106 atzerrian daude. **Berria - Ekonomia**

Bi lagunek lapurreta egin dute Donostiako Amara auzoan Kutxak duen **sukurtsal** batean. **Berria - Euskal Herria**

Gainean, mezu dekodetu batek zioen: "Hamburgoko **sukurtsalaren** defizita 500.000 dolarrekoa, gutxi gorabehera"; Heintzek izenpeturik. **Lopez de Arana**

Hotel txiki batean hartzen zuela ostatu esan zidan, lagun bat -Christie's-en **sukurtsaleko** burua- ondoan bizi zelako. **Ramon Saizarbitoria**

Atlantiko Itsasoa zeharkatu eta Riora, bertan **sukurtsala** baitu konpainiak. **Felipe Juaristi**

Euskal Filologiako ikasketak trantsizio-urteekin ezarri ziren EUTGn, Deustuko Unibertsitateak Gipuzkoan -Donostian- zuen **sukurtsalean**. **Iñaki Iñurrieta**

Internet bidez, Atenasko Alpha banketxeak baimendutako **sukurtsaletan** eta Greziako hiriburuan sarrerak saltzeko jarritako postuetan eros daitezke. **Berria - Kirola**

2 irud/hed

Ez dakigu zein izan zen Imazek eta Raxoik egin zuten bileraren arrazoia; espero dugu ez izatea prozesua oztopatzeko borondatean eta jarreran adosteko, bestela EAJk PPren

sukurtsal bat izaten bukatuko baitu. **Berria - Euskal Herria**

Fulgencio Batistak mendean hartua zeukan Kuba hura ez zen Estatu Batuen **sukurtsal** bat baizik, zentzurik zabalenean. **Jon Muñoz**

Hegoaldeko **sukurtsal** batzuk ziruditen periferiako auzoek. **Anjel Lertxundi**

Bourbon Streeteko zulo ilunenak aise nahas daitezke infernuaren **sukurtsalekin**. **Harkaitz Cano**

3 (hitz elkartuetan)

Aldizkari-saltoki bat dago lehen arraindegia zegoen izkinan, eta zenbait banketxe **sukurtsal** berri. **Iban Zaldúa**

sukurtsalista *izond* eskualde mailako alderdi politikoez eta kidekoez mintzatuz, estatu mailako baten mende aritzeko joera duena.

Espainiako agintari eta alderdi **sukurtsalisten** aldetik lehengo lepotik burua izateak harritzen ez bagaitu, Euskal Herriko erakunde eta eragile politiko batzuen balentria eta adierazpenak eskasak eta arduragabeak izan direla uste dugu. **Berria - Harian**

sulama ik su 47.

sularda *iz* sukalde atzeko gela.

Amak hasperen luze bat bota zuen eta zutitu zen **sulardara** joateko. **Daniel Landart**

sulerro ik su 48a.

sulfadoxina *iz* malariaren aurka erabiltzen den amida-mota.

Tratamenduak bi osagai nahasten ditu: **sulfadoxina** eta pirimentamina. **Berria - Gaiak**

sulfatatu *izond* sulfatua daukana.

Idorreria: ur bikarbonatuak (bikarbonatu-**sulfatatuak**) eta ur **sulfatatuak** (**sulfatatu** kloruratuak). **Berria - Euskal Herria**

Urdail eta hesteetako dispepsia: ur **sulfatatuak** (**sulfatatu** kaltzikoak eta sulfatobikarbonatatu kaltzikoak). **Berria - Euskal Herria**

Gibeledko gaixotasunak: ur sulfuratuak eta **sulfatatuak** (**sulfatatu** kloruratuak). **Berria - Euskal Herria**

Fiteroko urak kloruratu-sodiko **sulfatatuak**, fluoratuak, bromuratuak eta litinikoak dira eta 48,5 graduko tenperaturarekin ateratzen dira lurretik. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sulfatatu kaltzikoak (3); **sulfatatu kloruratuak** (5)

ur sulfatatuak (9)

sulfato 1 *iz* azido sulfurikoaren gatza.

Gasolia, **sulfatoak** eta kotoia zituen konboi bateko bagoi bat lehertu eta konboia martxan jarri zuen. **Berria - Mundua**

Bigarren aroan **sulfatozko** mineralak nagusitu ziren, sumendien jardun bortitzaren ondorioz; hirugarrengoan, burdin oxidoak agertu ziren, urik behar ez duten mineralak. **Berria - Gaiak**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sulfato mota hori harri bat denbora luzez laku azido batean dagoenean edo urtaro azido eta beroaren ondorioz sortzen da. **Berria - Gaiak**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Niri, lehen egunean, zink **sulfatoa** prestatzea egokitu zitzaidan halaberharrez: ez zuen aparteko zaila izan behar. **Juan Garzia**

Sedimentu horietan sufre **sulfatoaren** arrastoak topatu dituzte. **Berria - Gaiak**

Esaioak osabari, esan zuen Aldaik, oiloek edan beharreko uretan, burdin-**sulfato** pixka bat jartzeko. Pablo Sastre
Lardats ere lardatsa izan beharra zegoen, edo astazakil burumotza, magnesiatik magnesio **sulfatoa** ateratzen ez asmatzeko. Juan Garzia
Zaurian emateko, botika miragarri bat, kobre-**sulfatoa**, %1ean, intsusa loretan. Imanol Zurutuza
Hartzak, bada, erreakzio-gaitegitik kobre **sulfato** soluzioa, tanta bat bota heure azido sulfurikoan. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sufre sulfatoaren arrastoak (3)

sulfatobikarbonatatu kaltzikoak (3)

sulfidriko *izond* azidoez mintzatuz, sufrearen eta hidrogenoaren konbinazioak eratua, arrautza ustelen usaina duena.

Azido **sulfidrikoaren** gelara, hilgarria baitzen han atmosfera, intimitate-irrikaz zeuden bikoteak erretiraten ziren, eta bakartiren bat mokadu bat jatera. Juan Garzia

Azido **sulfidrikoak** buzker usaia du. Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azido sulfidrikoak (4)

sulfodieno *iz*

Sulfodieno batekin ez da sekula jakiten, baina oraingoz dena zihoan behar bezala. Juan Garzia

sulfonal *iz* gai kristalkara, koloregabe, usaingabe eta zaporegabea, uretan disolbagaitza, behinola hipnotiko gisa erabiltzen zena.

Konbentzituta zegoen ardoa bezalako hipnotikorik ez zegoela, eta **sulfonala** eta klorala engainagarri hutsak zirela, harekin alderatuta. Josu Zabaleta

sulfuratu¹, sulfura, sulfuratzen *da/du ad adkor* sutan jarri, irakitan jarri.

Bizitzan aurkituko duzu maizki prozedurak ilunak izaten direla, orekarik gabekoak, eta horrek **sulfuratuko** zaitu, eta norabaiteratu. Pello Salaburu

sulfuratu² *izond* sufrea daukana; sufrearekin konbinatua dagoena.

Gibebeko gaixotasunak: ur **sulfuratuak** eta sulfatatuak (sulfatatu kloruratuak). Beria - Euskal Herria

Erreumatismoa: ur erradioaktiboak, bikarbonatuak (bikarbonatu kloruratuak), **sulfuratuak**, karbogaseosoak eta metal urak. Beria - Euskal Herria

Behin horretara ezker, zaila da huts egiten: soluzioa irazi, azidotu, Kippa hartu, hidrogeno **sulfuratu** pasarazi. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ur sulfuratuak (5)

sulfuriko *izond* sufrea 6 balentziarekin daukana.

Guk, orduan, azido **sulfurikoa** eta sosa urturik eltze esmaltatu batean, bisulfatoa lortzen genuen. Juan Garzia

Bon! egin zuen gasolinak azido **sulfurikoarekin** eta potasio kloratoarekin bat egindakoan. Rafa Egiguren

Trena bidetik atera zen eta gutxigatik ez zuen jo geltokian geldituta zegoen eta azido **sulfurikoa** zeraman tren bat. Beria - Mundua

Azido **sulfurikoz** erretako emakumeak dira. Gotzon Garate

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azido sulfurikoa (4)

sulfurikodun *izlag* sulfurikokoa.

Azido **sulfurikodun** hodeiak ditu [Artizarrak], eta tenperatura oso altuak, 480 gradu arterainokoak. Beria - Gaiak

sulfuro *iz* azido sulfidrikoaren gatza.

Larrua nikitina **sulfuroaz** igurzten diete, borrokan hasi eta kontrarioa zozotu dadin. Gotzon Garate

Sulfuroaren aztamarik nabari ez dadin, gaineratik baselina ematen diete. Gotzon Garate

Horra **sulfurozko** prezipitatu horia, eta anhidrido artsenioso. Juan Garzia

· Biogasa metanoz eta karbono dioxidoz osatuta dago batez ere, baina nitrogenoaren, oxigenoaren eta hidrogeno **sulfuroaren** arrastoak ere baditu. Beria - Euskal Herria

sulfurodun *izond* sulfuroa daukana.

Jende handi asko etortzen zen hona, ur **sulfurodunaren** lurrina eta bainuak hartzera. Beria - Euskal Herria

sulfuroso *1 izond* sufrea duena, sufreari dagokiona.

Distira **sulfuroso** bati esker, hasieran nondik zetorren jakiterik izan ez nuen arren, presondegiaren neurria eta itxura ikusi ahal izan nituen. Koro Navarro

2 sufrea 4 balentziarekin daukana; azido sulfidrikoa daukana.

Arrasaten (Gipuzkoa) Santa Ageda bainuetxea eraikitzerako, esate baterako, zaharra zen inguruetako biztanleen artean Murugain mendiko ur **sulfurosoak** edateko ohitura.

Beria - Euskal Herria

sultan 1 iz turkiarren enperadorea; mahometar printze edo gobernaria.

Kontuak kontu, Xariar Xerezaderen ipuinekin nola, halatsu geratu ziren liburu honetan agertzen diren erregeak eta **sultanak**, kalifak eta bisirrak. **Patxi Zubizarreta**

"Turkiarren aitak" **sultanari** agintea kendu, kalifagoa abolitu eta Turkiako Errepublika laiko eta modernoa sortu zuen. **Jon Arretxe**

Xerazadek are ipuin zoragarriagoa kontatuko zuela hitzeman zuen, baldin eta Xariar **sultanak** bizia beste egun batez luzatzen bazion. **Josu Zabaleta**

1453an, Mohamed II.a **sultanaren** osteek mendean hartu zuten Konstantinopla. **Jon Muñoz**

Islamaren aurkako gurutzadak gori-gori zeudenean, adiskide eta bake-mezulari aurkeztu zitzaion Egiptoko **sultanari**. **Askoren artean**

Nola San Frantziskok federa ekarri zuen Babiloniako **Sultana**. **Askoren artean**

Otomandarren **sultanaren** edo Pertiako shaharen zaldia. **Fernando Rey**

Sultana Melek-el-Kamel ospetsua da. **Askoren artean**

Sultanari esango diot nire anaiaren semea zarela eta nire ordeztu ministro izendatuko zaitu, izan ere adinean aurrera bainoa. **Patxi Zubizarreta**

Behar-beharrezkoa bai da, ordea, bi emakumeak elkarrekin primeran moldatzea [...] eta gizona gustuko izatea eta harekin gozatu nahi izatea eta, egun eder batean, **sultan** horren odaliska izan nahi dutela erabakitzea. **Karlos Zabala**

2 (izenondoekin)

Ez al dakizue ni naizela lur hauetako **sultan** handia, Harun al Raschid kalifa ospetsuak izendatua? **Fernando Rey**

Bey horrek leialtasuna agindua zion **sultan** otomandarrari. **Fernando Rey**

Sultan berriak ez zuen, ordea, bilbotarrarekin begirunerik izan. **Martin Anso**

3 sultan andere (corpusean sultanandere soilik) iz sultanaren emaztea.

Sultanak alaba oso aldarte petralarekin topatu zuen, eta **sultanandereak** ezin izan zituen sinetsi alabak kontatutako xeblekeriak. **Patxi Zubizarreta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sultan otomandarra (3)

sultanak esan (5)

sultanaren aurrean (5); **sultanaren aurrera** (4)

babiloniako sultanarengana (3); **sultanarengana eraman** (4)

egiptoko sultanari (3); **sultanari predikatzer**a joan (3)

sultanandere ik sultan 3.

sultanato iz sultan baten agintaldia.

International Herald Tribune egunkairako idazten duen R.S O'Fahey historiagileak dio Darfurko egungo gatazka 1650tik XX. mendea arte iraun zuen **sultanatoan** izandakoa baino «odoltsuagoa» dela. **Berria - Mundua**

sultanerri iz sultan baten agintepeko lurraldea.

Zanzibarko **Sultanerriko** biztanlea; Afrikako Ekialdeko kostaldearen parean da. **Xabier Olarra**

suma¹ 1 iz diru kopurua.

Ehuneko hamarra elizarentzat gorde baikenezakeen eta bertze **suma** bat miserikordiazko obrentzat. **Joan Mari Irigoien**

Hala jakin nuen, orobat, nola Laisek, usterik ezen ehiza sarean zuen, **suma** handi bat eskatu zion, gehiago bortz ehun ezkutu baino. **Joan Mari Irigoien**

2 (hitz elkartuetan)

Zeren diru **suma** horrekin ehun aldiz gizon egiten ahal haute! **Joan Mari Irigoien**

suma² 1 iz sumatzeko ahalmena.

Potzolozen **suma**: gure ikasle garaietan ere orain bezain gora zuen zentzumen hori, kartetan ari ginelarik. **Aingeru Epaltza**

Izugarria da asto-mando-zaldien **suma**. **Gotzon Garate**

Nere **suma** xuxen badabil: *boñiga* eta *itiña* hitzek etimologia simetrikoki berdintsua lukete. **Patziku Perurena**

Berak bakarrik jakinen du zenbat aldiz abiatu den Nietzschegandik, nahiz haren **suma** pentsaberrituz askotan ukatzen bukatu. **Patziku Perurena**

2 (hitz elkartuetan)

Begiak itxirik baina erdi esna egindako lo-**suma** horietan, ordea, galdu egiten dira errealtatearen muga zehatzak, elkarren eskutik baitoaz pasa diren egunetako oroitzapenak eta gauzatu gabeko ametsak, zerumugan barneratzen den bide lauso batean nahasirik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

sumaezin 1 izond ezin sumatzukoa.

Ez zirudien leher jota, aldenurik baizik, etsaiari emoziorik gabeko, bere baitara bilduriko, aurpegi **sumaezin** bat eskaini izan balio bezala. **Joxan Elozegi**

Bai aztergaitzak Jaunaren erabakiak eta **sumaezinak** haren bideak! **Imanol Unzurrunzaga**

Ni izan ninduan hots hura entzun zuen bakarra: hain zen **sumaezina**, non goiznabarreko isiltasunean oreinak ere ez baitzuen entzun hirurehun urratsera. **Xabier Olarra**

Ez zuen ia akatsik sumatu haren gorputzean, izterretan zelulitisen arrastoren bat soilik, kasik **sumaezina**. **Migel Angel Mintegi**

Lerro ia **sumaezin** bat, dei eta debeku aldi berean, batu eta bereizi egiten duena. **Iñaki Iñurrieta**

Naturaren jarraitasuna eta bere betetasuna, duela gutxiko formen eta klimaren arteko harremana, ez-bizidunetik bizidunerako iragaite ia **sumaezina**. **Xabier Arregi**

Ilaje ezberdinak, desberdintasun txikiak, batzuk **sumaezinak** ia. **Iban Zaldua**

2 sumaezinezko izlag sumaezina.

Loditzen-loditzen ikusten dut zerutik erortzen den itzal ilun handia: ezin atxikizko, ezin barneratzuko uhin bat bailitzan itotzen du hiria, ezkututzen du, koloreak, formak ezabatzen ditu, besarkatzen ditu bere **sumaezinezko** ukituaz etxeak, pertsonak, monumentuak. **Josu Zabaleta**

sumagaitz (orobat somagaitz g.er.) izond sumatzen zaila, ia sumaezina.

Ezpainen mugimendu **sumagaitz** baten bidez. **Joan Mari Irigoien**

Haien begirada **sumagaitzak** jarraitu egiten zигun. **Juan Kruz Igerabide**

Aspaldi hil dira, oihartzun **sumagaitz** bat besterik ez dute utzi. **Jose Morales**

Gero eta zuriago, gero eta zurbilago, gero eta espirituago, emakume itxurak galdu eta izaki ukiezin, **sumagaitz**, sotil, harrapaezin bilakatzen joan zen. **J.M. Olaizola**
"Txiliku"

Bat-batean argi garbiko eguzki batek erabat argituko balu, irudimenaren kandelatxoak **sumagaitzak** izango lirateke horrelako argi-itsasoan. **Joan Mari Lekuona**

sumagarri *izond* suma daitekeena, sumatzeko modukoa.

Izaki espiritual gorenaren ideiarri [...] kultuan sartzen diren ideia **sumagarriak** erasten dizkiogunean, horrek erlijioarekiko atxikimendu handia ematen digu, hizpide izan berri ditugun arrazoiak gauza **sumagarrietarako** dugun joera berezkoarekin lotuta daudelako. **Iñaki Iñurrieta**

Akordioaren helburua **sumagarria** zen, beraz, eta garbi agertzen zen Itunean: [...]. **Txillardegі**

Elektrizitate aldetik, ez zen jadanik ezer **sumagarririk** gertatzen, ez erretinetan, ez garunean. **Xabier Olarra**

Bitartean, so nengoen [...] oroz gain ahots doinu hark, dardarizo jadanik **sumagarriaz** haren arimaren zirrara salatzen baitzuen, amodioari eskaintzen zioten guztiari. **Jon Muñoz**

sumakari *iz* so-egilea.

Errotariak -dio beste batek- **sumakariak** ziren: beti guaitan. **Pablo Sastre**

suman

1 zer suman ik **sumatu**.

sumarazi, sumaraz, sumarazten du *ad* sumatzera behartu.

Belarriek diote: "Soinurik badute, guk **sumarazi** ditugu". **Imanol Unzurrunzaga**

Bihotza dela poza eta tristezia **sumarazten** dizkiguna. **Sonia Gonzalez**

Inoiz jakingo ez duguna **sumarazten** digu, gure pentsamenduetako errealitateak zaborkeria erdeinagarria besterik ez dela ulertarazten digu. **Josu Zabaleta**

Pudikoa, indartsu guztiak bezalaxe, badaki bere sentimenduak ezkututzen, baina badaki, halaber, justizia-egilearen hitz zakarren atzean, bere haurrideenganako grina lakar eta goxoa begirada batez, bere ahotsaren inflexio batez **sumarazten**. **Monika Etxebarria**

Atzo arratsaldean, kanpalekura itzuli nintzelarik, errukia eta aurpegi ilunak aurkitzea espero nuen, eta zehar begiratuak, bezperagoko egunetan halakorik **sumarazi** zidatenengan. **Mirentxu Larrañaga**

Notatxo hau Richard Rortyri hartu diot [...] hemen ikusten ari garen fenomeno batzuen edonongotasuna **sumarazten** duelako nolabait. **Joxe Azurmendi**

sumariatu, sumaria, sumariatzen du *ad* laburbildu.

Hanburgoko konferentzian nazismoa eta gerrako esperientzia "la fatiga de esfuerzos! inauditos cuyos resultados fueron negativos" berbekin **sumariatzen** da, **Joxe Azurmendi**

sumario 1 *iz* epai instrukzioa.

Sumario hauek itxi ditzatela eskatzen dugu, auzipetuen eskubideak eta gizarte osoarenak urratzen direlako. **Berria - Harian**

Auzitegiko Gilbert Thiel eta Laurence Le Vert epaileek hiru **sumario** zituzten irekiak. **Berria - Mundua**

Jokabide honekin **sumario** bateko ikerketa baliabideak erabiltzen dira beste auzibide batzuentzako. **Berria - Mundua**

Hala jasota dago **sumarioan**. **Berria - Harian**

Eragin zuzena izan dezake 31/69 **Sumarioan** auzipetutako presoengan. **Rafa Egiguren**

18/98 **sumarioak** bost auzi hartzen ditu bere baitan, eta beste bost auzik **sumario** berezi bana dute. **Berria - Euskal Herria**

Sumario nagusiko zazpi auzipetuez gain, beste 15 lagun ere inputatuta daude bigarren auzi honetan. **Berria - Euskal Herria**

Batasunaren aurkako 35/02 **sumarioan** kokatzen ditu deklarazio hartzeak. **Berria - Harian**

Canovas del Castillo jaunaren hilketaren **sumarioa**. **Koldo Izagirre**

Eginbideak **sumario** bihurtu ditu Del Olmo epaileak ETA eta Batasuna gauza bera direla dio **sumario** horrek inolako argudio jurikorik eman gabe. **Berria - Euskal Herria**

Auzipetu askotxo gaudela **sumario** horretan. **Berria - Harian**

Dirudienez dokumentu hori izan dela **sumarioaren** instrukzioaren oinarria eta akusazioa egiteko zutabea. **Berria - Harian**

Juan Guzman Tapia magistratua 1998. urtean ikertzen hasi zen **sumario** horretan 75 hilketaren erantzukizuna leporatzen diote Pinocheti. **Berria - Mundua**

Lau salaketak **sumario** batean sartzea nahi dute, Fiskaltzari ikerketa eskatzeko. **Berria - Harian**

Sumarioko atalen ordena fiskalak idatzian proposatutakoa izango zela erantzun zuen epaimahaiburuak. **Berria - Harian**

Orain artean sekretupean izaniko 75/89 **sumarioko** dokumentuak eskuratzeko defentsa abokatuek izaniko oztopoak bereziki larritzat jo zituen Hernandok. **Berria - Euskal Herria**

Ozta ukan ditut hogeita lau ordu **sumario** osoa irakurtzeko, ia zortziehun orrialde. **Koldo Izagirre**

'El Mundo'-ko kazetariak dio ez zekiela **sumarioa** sekretupean zenik. **Berria - Euskal Herria**

Levon-Guerin epaileak sekretupeko **sumarioak** kazetarien lana ez duela zertan mugatu erabaki du. **Berria - Kirola**

2 (hitz elkartuetan)

Sumario -sekretupeko agiri juridial batzuen kopiak, eta baita Gobernuko Ordezkaritzaren bulegotik zuzenean ateratako txosten "pribatu" pare bat ere. **Iban Zaldua**

· Draggaccik berak auzibide hauek 'zabor **sumarioak**' deitu zituen **Berria - Mundua**

3 aurkibidea.

Prentsako lehen orrialdean eta albistegietako **sumarioan** agertzea da helburu. **Txema Ramirez de la Piscina**

Orobat, ohiko **sumarioak** idatzirik nituen, baita lehen orrialdeko laburpena –1.240 karaktere- eta argazki-oin sail bat ere, bertze hainbertze portretaren lagungarri. **Aingeru Epaltza**

4 *izond* epaiketez eta kidekoez mintzatuz, laster egiten dena eta zenbait lege formalitate alde batera uzten dituen. ik **sumarisimo**.

Hamahirugarren eguna baino lehen pertsona bilatu, aukeratu eta bertaratu baitzen, delako pertsona horrek aginpide eta eskubid Kartzelako areto batean egitekoa zen epaiketa, guztiz **sumarioa**. **Jon Alonso**

Enbarazio egiten, Ziela **sumatzen** zuen; horrek latzago, garratzago bihurtzen zuen bere gona orriarekin, bere armiarma beso handiekin. Karlos Zabala

4 igerri, antzeman.

Ene gorputz-ate guztiak miatzen ditut eta ez dut **sumatzen** nondik sartu diren. Imanol Unzurrunzaga

Raduan Husainik **sumatu** egin zuen bisitaldiaren arrazoia. Patxi Zubizarreta

Ez dugu soilua aditzen ezaugarri bidez, hark entzumena ukitzen duelako baizik, eta signifikazioa **sumatzen** dugu gauza signifikatua ikusi ondoren. Imanol Unzurrunzaga

Irudi horretan, Santa Anaren jantziaren forman hegazti harraparari baten ingurua **suma** zezakeela [...] iruditu zitzaion Freudi. Josu Zabaleta

Nik itxuragatik **sumatu** bezala, Suediatik Kanadara eta Kanadatik Estatu Batuetara mugitutako familia batekoa zen bera. Bernardo Atxaga

Sumatu ere ez nuen egiten gure aitona nolakoa izan zitekeen gaur egun. Jon Muñoz

Sumatu ere nekez nik, nola pasa daitekeen astebete oso bat halako ontzi baten barruan. Joxe Austin Arrieta

Suma zitzakeen atea zeharkatu orduko: bere arreba astuna eta honen senar koitadua, haurra kapazun zutela, anaia ehizarako fusila eskuetan zuela batera eta bestera paseoan, eta gurasoak ere han, Carverrek oraindik ikusi ezin zuen umearen inguruan. Harkaitz Cano

5 *suma ahala*

Azkenean, bukatuta jada aro erromantikoa, zabaldua hiztegi psikoanalitikoak gizarte osora, nagusituta erabat herrixka unibertsa bere txutxumutxuekin, Rousseauen usteak **suma ahala** erantzun jaso ditu. Bernardo Atxaga

Baina, bere hamar urte haiekin, maldizioak esaten zituen **suma-ahala**, zigarroak osten zizkigun, erantzun lotsagabeak ematen. Bernardo Atxaga

6 *zer suma adlag*

Erresumindurik, umore txarturik, **zer suma** ibili zenaldi batez, nire joan-etorriak bijilatuz edo paperen artean miatuz. Joxean Agirre

Sator bat zebilen haien artean **zer suma** eta sator hura edonor izan zitekeen. Harkaitz Cano

Egongelako bere paperen artean **zer suma** nenbilen. Joxean Agirre

Inondik ere, inguruetako herri zein auzoetako bazter-nahasleei txoko egokia iruditu zitzaion gurea, non **zer suma** ibiltzeko. Juan Kruz Igerabide

Gero oster mugitzen hasi ziren nire urratsak, eta ate zuloetan barrena **zer-suma** segitu nire begiek. Juan Garzia

Adiogo jarri da orduan, urduri eta **zer suma**. Patxi Iturritegi

7 *zer suman adkag zer suma*.

Ez irriti eta ez telebista bizi zirenean, mendiartetik zeru goira **zer-suman** zer erreparatuko, entzutetsuak bezain onuragarriak behar zuten izan halako iragarpenak. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

zer suma (10)

zer suman (6)

aldaketa bat sumatu (5); **aldaketa sumatu** (4); **argi sumatu** (5); **ari zela sumatu** (5); **arriskua sumatu** (4); **beharra sumatu** (5); **berehala sumatu** (15); **berehala sumatu zuen** (6); **dardara sumatu** (4)

egiten sumatu (5); **eskua sumatu** (5); **ezer sumatu** (7); **ezin sumatu** (4); **falta sumatu** (23); **faltarik sumatu** (4); **gogoa sumatu** (5); **gutxi sumatu** (4); **hotza sumatu** (5)

ia sumatu (4); **interesa sumatu** (5); **itzala sumatu** (4); **laster sumatu** (5); **mina sumatu** (4); **mina sumatu zuen** (4); **nekea sumatu** (7); **norbait sumatu** (5)

presentzia sumatu (4); **sekula sumatu** (4)

sumatu orduko (14); **sumatu uste** (19); **sumatu uste izan** (12)

usaina sumatu (4); **zantzurik sumatu** (4); **zer sumatu** (4); **zerbait arraroa sumatu** (6); **zerbait berezia sumatu** (5); **zerbait sumatu** (11); **zerbait sumatu zuen** (4)

falta sumatuko (11)

aise sumatzen (4); **apenas sumatzen** (6); **argi sumatzen** (4); **aspalditik sumatzen** (4); **beharra sumatzen** (9); **berehala sumatzen** (6)

falta sumatzen (40); **falta sumatzen du** (6); **faltan sumatzen** (12); **gertu sumatzen** (4); **giroa sumatzen** (6); **gutxiago sumatzen** (5); **haren falta sumatzen** (6); **hurbil sumatzen** (6); **hurbilago sumatzen** (4); **hutsa sumatzen** (5)

ia sumatzen (4); **itzala sumatzen** (4); **nahia sumatzen** (5); **nekea sumatzen** (16); **nekea sumatzen hasi** (7)

poza sumatzen (4); **premia sumatzen** (4); **sentimenez sumatzen** (5)

sumatzen hasi (31); **sumatzen hasi da** (5); **sumatzen hasi zen** (10); **sumatzen hasia** (14); **sumatzen hasia nintzen** (4); **sumatzen hasia zen** (4); **sumatzen hasiak** (5); **sumatzen hasita** (5)

usaina sumatzen (8); **zerbait sumatzen** (9)

sumatze iz sentipen edo sentimen bat nabaritzea.

Tulunbiotik atezuan bizi gara, begiak zorrotz, ea non aurkituko (baina **sumatze** hutsarekin ere nahikoa da) lehen flakezia arrastoa, estreinako ahuldadea. Karlos Linazasoro

sumendi *(orobat su mendi g.er.)* 1 iz gai goriak eta sutuak igortzen dituen edo igorri dituen mendia.

Botaaldia laster duen du **sumendi** baten ximinian gaude. Berria - Harian

Sumendi baten erupzioak kezka eragin du Islandian. Berria - Gaiak

Marteko **sumendi** guztien artean, lau izan ziren itzaltzen azkenak: Olympus, Arsia, Pavonis eta Ascræus. Berria - Gaiak

Gutako inork ez zuen sekula pentsatu Snowdon mendia **sumendi** bat izan zitekeunik: gailurraren tankerak, ordea, gutxienez berrehun oin sakon zen arro biribil harekin, eman zezakeen noski bidea hala zela burura zekigun. Juan Garzia

Urpeko **sumendi** bat aurkitu dute Antartika iparraldean. Berria - Gaiak

Sodoma eta Gomorra **sumendi** zahar batzuen ahoan eraikita zeuden, eta Vesubioko labak irentsi zituen Italiako beste hiri haiek bezalatsu desegin ziren. Juan Martin Elxepuru / Bego Montorio

Saba irla, horra hor izena, aspaldiko **sumendi** baretu baten gaina da, Kariben galdua legez dagoena. Edorta Jimenez

Brunok begiak itxi zituen, eta desira borboka sentitu zuen bere baitan, **sumendi** bateko laba nola. Patxi Zubizarreta

Karibeko erritmo guztiak odolean balitu bezala ari zen dantzan, **sumendi** baten gisara lehertuko balitzaizkio bezala. Jon Muñoz

Popocatepel Mexikoko **sumendi** baten izena da, eta nire haur denboran **sumendi** bat bezain sutua nintzelako [...] gure ama zenak Popo deitzen zidan. Patxi Zubizarreta

2 irud/hed

Pipa **sumendi** gorri txiki bat zen, zupada bakoitzean txinpart indargeak sortzen zituen. Lopez de Arana

Supituki, **sumendi** bat lehertu zen soldaduaren praketako oihal zakarraren azpian. Alberto Ladron Arana

Hala adierazten zuen gutunen tonu gero eta aztoratuagoak, zure **sumendi** horri amataturik eusteak gero eta lan handiagoak emango balizkizu bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Arropa erantzi nion, eta ahoa **sumendi** hartara gerturatu nuenean, Iratik harriduraz bagiratu zidan. Lander Garro

3 (hitz elkartuetan)

Beste itsasarte hau, uhartearen hegosalaldean, lakua modukoa izanen da, beste **sumendi** krater baten ondorioa. Joseba Sarrionandia

Emazteak atzetik jarraitu zion begiradarekin eta **sumendi**-erupzio tankerako bat pitzen zitzaiola sumatu zuen bere baitan. Mirentxu Larrañaga

-Gogoratu zitzaion, Carlyle-ren idazki **sumendi**-irudi horietako batetik, harako Anacharsis Cloots haren nondik-norakoa Juan Garzia

sumeriar ik sumertar.

sumeriera iz sumertarren hizkuntza.

Neurritasun ohargarriagoa erakutsi zuten "Lau Eskualdeko Erresumaren" sumeriar sortzaileek, akadiera iritsi berria beren **sumerieraren** parean ipini zutenean. **Iñaki Mendiguren**

Estatu unibertsal hau bukaerara iritsi baino lehen, akadierak berea zuen garaipena eta **sumeriera** ia hizkuntza hila zen. **Iñaki Mendiguren**

Sumerieraz idatzitako testu bat. **Pako Aristi**

sumeriko izond sumertarra.

"Lau Eskualdeetako Erresuma" **sumerikoan** Ur-etik gobernatzen zuten sumertar enperadoreen mende bildutako kode goiztiar bat izan zen. **Iñaki Mendiguren**

Zibilizazio **Sumerikoaren** desintegrazioko uneren batean. **Iñaki Mendiguren**

Gizarte **Sumerikoaren** kimu bezala (Gizarte Indikoaz gain), beste bi gizarte aurkitzen ditugu: [...]. **Iñaki Mendiguren**

Baxuerliebeak grabatzeko estilo **sumerikoaren** berpizkundea. **Iñaki Mendiguren**

Sistema hamabitar **sumerikoa** munduaren azkeneraino zabaldu zen. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
zibilizazio sumeriko (3)

sumertar (orobat sumeriar) 1 izlag Sumeriakoa, Sumeriari dagokiona.

"Lau Eskualdeetako Erresuma" sumerikoan Ur-etik gobernatzen zuten **sumertar** enperadoreen mende bildutako kode goiztiar bat izan zen. **Iñaki Mendiguren**

Sumertar legeak, Hamurabiren Kodean gorpuztuak, indarrean jarraitu zuen Hamurabiren siriar mendeko edo sateliteen ondorengoan artean. **Iñaki Mendiguren**

Egia da **sumertar** eta akadiar literatura klasikoaz Asurbanipalek zituen buztinezko bi liburutegien tamaina ezezaguna zela arkeologo modernoentzat. **Iñaki Mendiguren**

• **2 iz Sumeriako herritarra.**

Kaldeakoek, babiloniarrek, **sumertarrek** inperioak eraiki, eta ezer ez duk geratzen haienik. **Juan Kruz Igerabide**

Frantziar eraberritzaileak ez ziren hasi hamar hortzeko akuilu horien aurka ostikoka, baina haien aurreko **sumertarrak** ez ziren hain zuhurrak izan. **Iñaki Mendiguren**

sumeta ik su 48c.

sumetitu, sumeti, sumetitzen da ad zerbaiti menderatu.

Naihago dugu hil, **sumetitu** baino! **Michel Oronoz**

Sumetitu beharko ordren arabera. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Hau, Coran erlisione musulmanoaren legeri **sumetitu egia** zelakoan, emaztea beti gizonaren peko edukiz, nahi du berritu eta idekiagotu Benflisek. **Herria**

sumin 1 iz haserre bizia.

Orduak pasatu ahala, harridura **sumin**, indignazio bihurtu zen. **Joxerra Garzia**

Sumina ankerra da, haserre suntsigarria; baina nork aurre egin jelsiari? **Elizen arteko biblia**

Berehalaxe isuriko dut neure **sumina** zuen aurka, eta haserre hustuko. **Elizen arteko biblia**

Ezkutuko opariak **sumina** baretzen du, isilkako erregaloak haserretik biziena. **Elizen arteko biblia**

Gogor eutsi dio **suminari**, eten gabe gorrotoari. **Elizen arteko biblia**

Samina eta **sumina**. **Txema Ramirez de la Piscina**

Bertan isildu zen, Fionnek besotik heldu eta **suminezko** begirada bat bota zionean. **Joanes Urkixo**

Esan ziguten gure jasangogortasun burlati hura ez zela aski; **sumin** bihurtu behar zela, eta **sumin** hori iraultza organiko eta xuxen baten ildora ekarri. **Juan Garzia**

Neure **sumin** guztia hustuko dut zure gain. **Elizen arteko biblia**

Egunkariaren kontrako operazioak ez ohizko **sumin** eta erantzuna sortarazi zuen euskal gizartean. **Berria - Euskal Herria**

Areatgotu egin zitzaion **sumina**. **Jon Muñoz**

Orain **sumina** baretu zaidalarik, ez dut irrigarrikeria baizik ikusten zure ikaslearen jokabidean. **Jon Muñoz**

Suminak gainez egin zidan. **Aingeru Epaltza**

Suminak hartu zuen orduan [...] suzko hitzak jaurti zituen gaizkile atzerako ezezagunen aurka. **Koldo Biguri**

Suminak menperatu zuen une batez. **Fernando Morillo**

Musu horiek direla-eta emakumea bertigoak jotzen du, eta oihuka hasten da, gizonak, **suminak** eta pasioak jota, alde guztietatik estu heltzen diolako. **Pello Lizarralde**

Gogoeta horiek, lehenago haserre eta **sumina** sortuko ziotetenak, ez zitzaizkion sumingarri gertatzen orain. **Josu Zabaleta**

On Camillo aldare nagusiko Kristorengana joan zen bere **sumina** askatzera. **Koldo Biguri**

Fionnek ezpata airean gelditu zuen [...] tentsio betean, aitari obeditu ala **sumina** kolpez batez askatu, zer egin ez zekiela. **Joanes Urkixo**

Gauza itsusia, **suminaren** menpe erortzea, sendeok. **Koldo Biguri**

Anaiaren **suminetik** ihesi zebilen zintzoa bide erosotik gidatu zuen jakinduriak. **Elizen arteko biblia**

Bada, neuk ere **suminez** jokatuko dut; ez diet errukirik izango, ez eta barkatuko ere. **Elizen arteko biblia**

-Iruzurra- oihukatu zuen Jonathane, **suminez**, gorbataren korapiloa lasaiturik. **Jon Muñoz**

2 (izenondoekin)

Soldaduen furfuria eta **sumin** eroa nolakoa izan zen azaltzerik ez dago. **Jon Alonso**

Urte txarrak iragan dira: **sumin** eta amorru handiko urteak. **Berria - Ekonomia**

Aita [...] **sumin** beldegarriak hartzen zuen menea Albertok etxera nota txarrak eramaten zituenean. **Fernando Rey**

Nork salbatuko naik haren **sumin** basatik? **Jon Muñoz**

Aita oroahaltuak, oster, **sumin** biziak jota, Faetonta bihottuna bat-bateko oinaztu kolpe batez zaldietatik eraitsi zuen. **Xabier Amuriza**

Sumin ikaragarri batez gogortua aurpegia, mehatxuka ari zen Ruche jauna. **Jon Muñoz**

Bere **sumin** gupidagabea erabiliko du ezpata zorrotzat. **Elizen arteko biblia**

Horra hor Jaunaren eguna, gupidagabeko eguna, haserrez eta **sumin** goriz gainezka. Elizen arteko biblia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Begiak **sumin** distiraz piztu zitzaizkion, mantuaren azpian ondo babestuta zeraman erbinudea laztantzen zuen bitartean. Ez nintzen Brentez oroitu gehiago Sheilaren etxe ondoan autoa gelditu nuen arte, eta orduan lehengo **sumin** punttu berak hartu ninduen. Joanes Urkixo

Ez urreak, ez zilarrak, ez ditu libratuko Jaunaren **sumin**-egunean. Jainkoaren **sumin**-ardoa edan beharko du, haren zigor-kopan nahasgabe garbi prestatua dagoena.

Elizen arteko biblia

Amorru biziz zapaldu ditut herriak, neure **sumin**-edariz mozkortu eta haien odola lurrean isuri. Elizen arteko biblia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ruche jaunak ez zuen erantzun; miretsita zeukan bikien nerabe-**suminak**. Jon Muñoz

Obeditu Jaunari, zeuen Jainkoari, eta berak aldeduko du zuengandik bere haserre-**sumina**. Elizen arteko biblia

Ezti ezazu zeure haserre-**sumin** hori, egizu atzera herriari halako kaltea egitetik. Elizen arteko biblia

Gogor mendekatuko naiz beraien kontra, zigor-**sumina** jasanaraziko diet. Elizen arteko biblia

5 (izenondo gisa)

Begien bistakoa zen [...] ausarkeria **sumin** haren atzean ahulezia eta beldurra ezkutatzen zituela. Ramon Saizarbitoria

Lasai egoten zen errepublikarren, CIAren eta Rudolph Giuliani-ren aurkako erretolika **suminei** ekiten nienean. Oskar Arana

Atzerago, Branek, gero eta nekatuago, ozta-ozta galarazten zituen Basurderen eraso **suminak**. Joanes Urkixo

Grina **sumin** sobera zuela eta ezin zielako eutsi. Pello Lizarralde

Zalantزابiderik gabea dirudi izar gartsu eta **sumin** bat agertu zela teilatuaren hirukian gaindi, izpi kedartsu, bihurri, gaizki korapilatuz egina. Juan Garzia

Orduan katearen dardaraldi **suminak** entzun nituen. Koro Navarro

Idazkia ironikoa zen, **sumina** eta mingotsa, eta, ondorioz, asko izan ziren elkartera iritsitako mezuak. Berria - Harian

6 (adizlagun gisa) ik **suminki**.

Lehendakariak betaurrekoen gainetik arakatu zuen, zorrotz eta **sumin**. Jon Alonso

7 oinaze edo nahigabe bizia.

Lizar handiaren azpian ginen, hogei urte gazteago eta bihotza bete **sumin** eta etsipen. Ander Irizar

Neure buruarekin haserre baino triste, hildakoaren aurpegia osatzen hasten naiz, astiro, **sumin** abaildu batez: ile urdindua, begipeko poltsak, tabakoak zikindutako hortzak...

Anjel Lertxundi

Suminak etsita, zizpuru egin zuen aitak. Anjel Lertxundi

8 (hitz elkartuetan)

Bukatu nuenean, **sumin**-arnasaldi bat atera zitzaion. Anjel Lertxundi

9 **suminaren suminez**

Suminaren suminez eta amorruz mintzo naiz beste nazioek egin dizueten laidoarengatik. Elizen arteko biblia

Belaskoren begiek dir-dir egin zuten **suminaren suminez**. Joanes Urkixo

Hona iritsi, eta don Ottavio ikusi nuenean, **suminaren suminez** hauxe bota nion: "Ruche jaunak jakitean bahitu egin nauzula, ikusiko duzu zer gertatuko zaizun!". Jon Muñoz

Suminaren suminez dardarka. Joanes Urkixo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitaren sumina (3); **ararat mendiaren sumina** (6); **araraten sumina** (11); **bere haserre sumina** (3); **bere sumina** (9); **haserre sumina** (18); **haserrere eta sumina** (4); **hustu zeure sumina** (3); **jaunaren haserre sumina** (4); **jaunaren sumina** (4); **mendiaren sumina** (7); **neure haserre sumina** (3); **neure sumina** (12); **nire haserre sumina** (3); **sumina baretu** (3); **sumina handituz** (3); **sumina isuriz** (3); **sumina jotzen** (5); **sumina piztu** (4); **zeure sumina** (5); **zure sumina** (3)

suminaren suminez (7)

haserre suminaz (3)

haserre suminean (5); **neure haserre suminean** (3)

suminaldi *iz* haserrealdi bizia.

Florent gehiagotan itzuli zen tabernara, grinatu egin zen gela txiki beiradun harekin, Robineren isiltasunekin, Logreren **suminaldiekin**, Charveten gorroto hotzekin. Karlos Zabala

Ez zen estakuru huts bat baizik, emakume batek izan dezakeen **suminaldi** gaiztoenetako bat estali nahi zuena. Jon Muñoz

Utzi **suminaldi** histeriko hori eta esan iezadazu, zer gertatu zen? Xabier Paya

Kargu berri horretan ez zuen lehen adina arrazoi bere **suminaldi** etikoerarako. Josu Zabaleta

Hark, Fantecchi andrearenganako **suminaldiak** mendean harturik, joka segitzen zuen zolan, haserre, euritakoaren muturrarekin. Fernando Rey

suminarazi, suminaraz, suminarazten du *ad* sumintzera behartu.

Egoera hark gero eta gehiago **suminarazten** zuen Mahmut Khan, gauetan begirik ezin biltzeraino. Fernando Rey

Jende hauei ezin zaie ezer esan, **suminarazi** gabe edota gaia bazter utzi gabe. Joan Mari Lekuona

Lehoia orroaka bezala da erregea haserre: **suminarazten** duenak bere bizia jartzen du arriskuan. Elizen arteko biblia

Jaunak mesprezatua eta baztertua baitu bera **suminarazi** duen jende hau. Elizen arteko biblia

suminbera *iz* suminkorra.

Kernan jaunaren mihia, zeinaren noizbehinkako min-zitaden eraginez **suminbera** egon baitzen gizona egunez, gizalegezkoago agertu zen orain. Irene Aldasoro

sumindu, sumin(du), sumintzen 1 du *ad* biziki haserretu. ik erresumindu.

Andre zahar horrek **sumindu** egiten nau. Monika Etxebarria

Beharbada, edozein gizoni onartuko zion, egiazki, gonbidapena: ideia horrek ez ninduen **sumindu**, baina jeloskortu bai, zeharo sentimentaldu alegia. Joxe Austin Arrieta

Kezka bat huraxe, neure onetik atera eta zeharo **sumintzen** ninduena. Joxe Austin Arrieta

-Ez al hau **sumintzen** gizon batek gure kalezuloko neska batekin horrela jokatzeak? Patxi Zubizarreta

Sumindu egiten du hitzak airean zintzilik uzteko Petrusen ohitura horrek. Oskar Arana

Sekretua argitara izanak aurrena **sumindu** egin zuen Selim Aluan, baina handik gutxira ezaxolati agertu zen. Patxi Zubizarreta

Sputituki -begiko minak **sumindu** egiten ninduen- maldizioka hasi nintzen bere aurka. Bernardo Atxaga

Tristatu eta **sumindu** egin duen zitalasaldi zatietan gaztelania nagusi zela jabetzeak. **Juan Luis Zabala**
Erabaki hark asko **sumindu** zuen Goñi II.a eta horrek bere samina agerrarazi du ahal izan duen guztietan. **Berria - Kirola**
Jaurlaritzaren ekintzak Espainiako Gobernuak **sumindu** zuen. **Berria - Ekonomia**
Zeuen Egilea **sumindu** zenuten, sakrifizioak, ez Jainkoari, deabrueri baizik, eskainiz. **Elizen arteko biblia**
-Ez inor **sumindu** -esan nuen nik. **Bernardo Atxaga**
Gurasook, ez **sumindu** seme-alabak; hezi itzazue, ordea, Jaunari dagokion bezala irakatsiz eta zentzaraziz. **Elizen arteko biblia**
Gauzarik samurrena, bihotzari hitz egiten dion oro, **sumin** dezakeen oro, eta merezi izan ez duen jainkoen mendekua nozitzea onartzen du. **Iñaki Iñurrieta**

2 (da aditz gisa)

Malako isurtzeraino **sumindu** zen, haserre biziz oihukatu zuen azpijokoan ari zirela beraren kontra. **Jose Morales**
Ez daukazu **sumintzeko** arrazoi bakar bat ere. **Patxi Zubizarreta**
-Zer? - **sumindu** zen bat-batean komisarioa-. **Jose Morales**
Ez, behintzat, nire aurrean!, **sumindu** zitzaidan aita. **Anjel Lertxundi**
-Ez -erantzun zion berehala, asaldaturik bat-batean, **sumintzen** hasita-. **Oskar Arana**
Honek txunditu egiten du gizaki zuzena, errugabea **sumindu** egiten da maltzuraren aurka. **Elizen arteko biblia**
Robespierre **sumindu** egiten da Saderean ateismoaren aurrean. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Sumindu egin zen eta kolerak hartu zuen atzera. **Patxi Zubizarreta**
-Bai horixe, badut zertan sumindurik, heriotza opa izateraino **sumindu** ere- erantzun zion Jonasek. **Elizen arteko biblia**
Ene jauna, ez zaitez **sumindu**; ongi dakizu herri hau okerrera emana dela. **Elizen arteko biblia**
-Nik ere ez dut semea zure alabarekin ezkonduko - **sumindu** zen Nur Al-Din. **Patxi Zubizarreta**
Samindu eta **sumindu** zitzaidan apeza, erranez ezen, errespetua eta begirunea zor niola Jainkoaren ministroa zen aldetik. **Joan Mari Irigoien**
Beldurrak jota nengoen, haserre bizian baitzegoen Jauna, zuek suntsitzea erabakitzeraino **sumindua**. **Elizen arteko biblia**
-Atzerritar hori: nire bihotza ez duk hutsarengatik **sumintzen**. **Juan Kruz Igerabide**
Ama **sumindurik** eta amasestuka hurbildu zitzaion. **Patxi Zubizarreta**

3 irud/hed

Haizeak aldizka baretzen eta **sumintzen** direnez eta biltzean berriz jotzen, eta, jarkitzen zaienean, atzera egiten dutenez, lurra maizago egiten du hondatzea mehatxu, hondatzen den baino. **Xabier Amuriza**

4 (era burutua izenondo gisa)

Agureak ezitu egin zuen bere jarduna, gizon **suminduarekin** adiskidetze aldera. **Patxi Zubizarreta**
Horrek bai baitzuen eraginik bere izaera oldarkor eta **suminduan**. **Patxi Zubizarreta**
Heriozko amasestu **sumindu** batek erdi jandako gorpu oraindik fresko hura alderik alde zeharkatu izan balu bezala. **Karlos Zabala**
Odol **suminduak** batera eta bestera astintzen zuen. **Anton Garikano**
-Lehen aldia? -ihardetsi zidan, filmeko emakume ederraren doinu erdi harritu erdi **sumindu** berdintsuarekin. **Aingeru Epaltza**
-Benetan? -ahots **suminduarekin**. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Frantziskoren aita zen denetan **sumindu** eta erreminduena. **Askoren artean**
Gorrito **suminduak** zein atxikimendu sutsuak. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Izan ere, behinola mistiko oinazetu, gero etakide sutsu, hurrena marxista porrokatu, ondoren posmoderno **sumindu** izanikoak ilustratu haserretu bilakatu zaizkigu orain. **Markos Zapiain**
Sumindu aurpegia jarri eta esan zidan: [...]. **Josu Zabaleta**

• 5 da/du ad samindu.

Eztabada horiek **sumindu** dira azken egun hotan, igandetako lanaren auzi hori bera hor baita. **Herria**
Giroa aintzina **sumindu** biharamunean, poliza, bost helikopteretan joanik, untzia jabetu denean. **Herria**
Edonola ere, zapalkuntzak jarraitzen badu, egoera **sumindu** besterik ez du egingo. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aita sumindu (4); **are gehiago sumindu** (4); **giroa sumindu** (3)

gero eta suminduago (4)

sumindurik zegoen (5)

erabat suminduta (4); **harrituta eta suminduta** (3); **suminduta azaldu** (3); **suminduta zegoen** (8); **suminduta zeuden** (4)

sumindura 1 iz sumina, haserre bizia.

Odolak surik gabe irakiten baitu, **sumindurak** gaina hartu zidan. **Daniel Landart**
Gülbaharren bihotzean, maitasuna zena **sumindura** eta amorru bihurtzen ari zen. **Fernando Rey**
Sumindura distentsio bihurtzeko, inkomunikaziotik elkarrizketara igarotzeko. **Berria - Euskal Herria**
Sumindurak, oldarraldiek, korromioak eta mesfidantzak ez zioten onik ematen. **Patxi Zubizarreta**
Nahigabea eta **sumindura** gailendu zitzaizkiolarik, mehatxu egin zion: [...]. gezuraren eta ele gaiztoen bidez hainbesteko gatazka eta **sumindura** sortzeagatik. **Patxi Zubizarreta**
Argi zegoen neska hordagoka ari zela, azken egunetako adar-jotzeek utzitako **sumindura** berdindu nahirik-edo. **Jokin Muñoz**
Gobernuak **sumindura** eragin du. **Berria - Euskal Herria**
Hi bezalako astapikuek **sumindura** besterik ez ditek eragiten. **Patxi Zubizarreta**
-Hori guztia ere bai, nahi baduk - **sumindura** ezkutatu gabe-. **Aingeru Epaltza**
Haren **sumindura** Florentengana itzuli zen, hura baitzen denaren kausa. **Karlos Zabala**
Emazteak, **sumindurak** ahotsa dardaran jarria, isekari galdegin zuen: [...]. **Patxi Zubizarreta**
Ez **sumindurari** utzi gure amodioa porrokatzen. **Patxi Zubizarreta**

2 (izenondoekin)

Herritarren artean **sumindura** handia eragiten du gai horrek, telefonoek hogeitaz hitzuntza hautatzeko aukera ematen dutelako, eta euskara ez. **Berria - Harian**
Presidenteak, ikusitakoa sinetsi ezinez eta **sumindura** sakonez erantzun zuen. **Berria - Mundua**
Sumindura amorratuak, sesioak eta haragizko grina bridagabeak. **Pello Lizarralde**
Giselari nire **sumindura** eta haserre erabatekoa erakusteagatik. **Fernando Rey**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sumindura sentimendua da belaunaldiaren giltzarri. **Berria - Kultura**
Gertaera hauek ezin dira egun bizi ditugun **sumindura** eta kriminalizazio girotik bereizi. **Berria - Euskal Herria**
Lagungi oron itxurako aldarreak eta halaber itxura baino ez ziren **sumindura** ezta ndak txandakatzen zituen. **Juan Garzia**

Higitu da, atzera jiratu, txundidura eta **sumindura** aurpegiz. **Urtzi Urrutikoetxea**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sumindura eragin (4)

sumindurak gaina hartu (4)

sumingarri 1 *izond* sumintzen duena.

Elkarrizketa **sumingarri** eta estreinako hau goizeko zazprietan gertatzen da. **Oskar Arana**

Gaztaroan aitaren merkataritza-inguruan izan zuen erlijio-itxurako guztiatik hondar higuingarri, garratz eta **sumingarri** bat besterik ez zitzaion gelditu. **Jose Morales**

Lege hori **sumingarria** zen bi eratara: ez zituen inolaz ere aintzakotzat hartzen ez naturak espirituari eman dion heldutasun-denbora, ez gorputzari eman diona. **Iñaki Iñurrieta**

Gogoeta horiek, lehenago haserrea eta sumina sortuko zioteketenak, ez zitzaizkion **sumingarri** gertatzen orain. **Josu Zabaleta**

2 (adizlagun gisa)

Gaitza Jaungoikoarentzat desegoki eta kaltegarri izan zela esaten badugu, hala uste baitute batzuek, barregarri egingo zaio ezain jakintsuri eta **sumingarri** ezain ezjakini.

Imanol Unzurrunzaga

suminki 1 *adlag* suminez, haserre bizian. ik **sumin 6**.

Hain egiten dute gogor, hain **suminki** non portugaldarrek kolokan ikusten baitute beren burua. **Jon Alonso**

Suminki maite zuen Jainkoaren Ama, eta horrek onbera bilakarazten zuen zapataria berarenganako. **Juan Garzia**

2 irud/hed

Inoiz gertatzen baita zerutik itsasora zutabea bezalakoa jaitea, zeinaren inguruan haizearen putzek astinduriko urek **suminki** dirakiten, [...]. **Xabier Amuriza**

suminkor 1 *izond* erraz sumintzen dena, sumintzeko joera duena. ik **suminbera; haserrekor**.

Gizon **suminkorra** da, eta gaitzitu egiten da berari buruz begirunerik gabe hitz egiten badute. **Jose Morales**

Hanna oso sentibera zen, **suminkorra** oso, temperamentu antzemanekin horietako bat; Joachimek zioen bezala: maniako-depresiboa. **Joxe Austin Arrieta**

Bazekien Katxok gorroto ziola eta, [...] garai bateko ezinikusien mendekua har zezakeela gizon txiki, bortxazale eta **suminkor** hark. **Koro Navarro**

Gizen **suminkor** bat zen lehendakariordea, eta haserre koipetsuzko zepez tratatzen zitzaion ahotsa. **Joxan Elosegi**

Agintzea gustatzen zaiona, **suminkorra**, bortitza, gauza orotan neurrigabea, munduan beste inor ez bezalako irudimen sukartsu eta inmoralekoa, horrelakoa naiz ni bi hitzetan. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Gizon **suminkorrak** liskarra piztu, eroapen handikoak haserreak baretu. **Elizen arteko biblia**

Suminkorra da aldarrez, eta gogor egingo dio eraso ahulagoari. **Xabier Olarra**

Odolberoak liskarra sortarazten, **suminkorrak** bekatuak ugaltzen. **Elizen arteko biblia**

2 (adizlagun gisa)

Gaur gauean bai zaudela **suminkor**! **Lopez de Arana**

Errotaria, **suminkor**, sendagileen kontra irainak botatzen hasi zen. **Josu Zabaleta**

Soinburuak altxatu **suminkor** eta bere autoan sartzen da. **Oskar Arana**

Mesfidantza handiarekin ateratzen dira kalera, eta haserreago egon ohi dira, esaterako, **suminkorrago**, baita ingurukoekin ere. **Berria - Harian**

Hotz antzean zegoen, oso **suminkor**, gogoetatsu. **Fernando Rey**

3 irud/hed

Argala eta zurbila zen, aurpegi txarrekoa, begiak **suminkorrak** zeuzkan eta sudur azpian estu ebakitako bibote zuzena zerabilen. **Migel Angel Mintegi**

Arrabita harturik, Sankerrek luzatzen zizkion begirakune **suminkorrak** saihestuz, poeta afinatzen hasi zen. **Patxi Zubizarreta**

Antzinako ohitura bat, Farinaccio-k atsegin **suminkorrez** iradokitzen duen oinaze bat. **Juan Martin Elexpuru**

suminkortasun *iz* suminkorra denaren nolakotasuna. ik **haserrekortasun**.

Baliteke halako egoera pasatu duenak urduritasuna, ezinegona, **suminkortasuna**, lo egiteko arazoak edo etengabe erne egon beharra sentitzea. **Berria - Harian**

Konortea galtzea, ezinegona, lepoa mugitzeko zailtasunak, jateko gogorik eza eta **suminkortasuna** ere izan ohi dituzte meningokoziko meningitisarekin gaixotuta daudenek.

Berria - Euskal Herria

Gauza bakar bat indartzen zen nire baitan: **suminkortasuna**. **Urtzi Urrutikoetxea**

Monomania hori, horrela izendatu behar badut, psikologiaren jakintzak arreta deritzan adimenaren tasun horren **suminkortasun** gaizto bat zen. **Koro Navarro**

Hasieran ez, normala zirudien, baina nortasun ziklotimiko paranoiko hipotentso samarrekoa suertatu zen azkenean, **suminkortasun** hipergastrokoak joa gainera une hartan.

Xabier Olarra

sumintasun *iz* oinaze edo nahigabe bizia. ik **sumin**.

Maitasuna **sumintasun** eta zorotasun gisan kontzebitu zuelako. **Xabier Amuriza**

sumintsu *izond/adlag* suminez beterik.

-Zer nahi duzu anaia Santxo? -Don Kijotek erantzun halabeharrear **sumintsu** eta emeki. **Patxi Ezkiaga**

sumintze *iz* okertzea, gaiztotzea.

Egoeraren **sumintze** honek eraginik izan du kakaoaren esportazioan ere: Boli Kosta da mozkin horren munduko ekoizle handiena, baina kakao esportazioak atzo etenda

zeuden. **Berria - Mundua**

sumisio (*orobat sumisione g.er.*) 1 *iz* norbaiten borondateari makurtzea. ik **mendekotasun**.

Ez ote zen bada okerrera, autoritatearen aurrean erakusten ari ginen **sumisioa**? **Joxan Elosegi**

Tolerantzia izpirik ez genero indarkeriarekin, ez eta [...] beste aldera begiratzen duen Justiziarekin edota emakumeen **sumisioa** defenditzen dutenekin ere. Heria - Euskal Herria

Sumisioea eta obediencia zor didazue, bertzalde. Joan Mari Irigoien

Islam hitzak Jainkoarekiko **sumisioa** adierazten du. Beria - Euskal Herria

Hautsi nauen oroz neure behin betiko harekiko **sumisioaz** segurtatu da. ez da pertsonaia sadikoa, ezta masakista ere (ez baitago **sumisiorik** bere jarreran, gehienetan pasiboa izan arren). Itxaro Borda

2 (hitz elkartuetan)

Irungo grebalariek **sumisio** tresna hori apurtzea lortu dute, lan-poltsa bat ezarrita. Beria - Euskal Herria

Giza **sumisio** modu oroien enbrioia baita familia. Patziku Perurena

sumisioaldi iz sumisioa.

Horrenbesteko **sumisioaldi** irri-eragingarria nire torturatzailearen gogokoa ote zen. Joxan Elozegi

sumisioe ik sumisio.

sumiso izond sumisioa erakusten duena.

Erdezko mendekoaren ahotsa zen nirea, **sumisioa** eta lotsatia. Joxan Elozegi

sumo iz japoniar borrokaren mota, bi borrokalarik lurrean marraturiko zirkulu baten barnean jokatzeko dutena, bestea lurreratzen edo zirkulutik kanporatzen duenak irabazten duena.

Nihonbashi edo Japoniako zubiaren inguruan sortu zen kulturgunean agertu ziren lehenengoz *kabuki* antzerkia, *bunraku* txotxongilo-antzerkia, eta **sumo** borroka. Javi Cillero

Beno, dantzatu baino, dantzatu, abestu, ekialde urruneko **sumo** estiloan borrokatu eta beste hainbeste gauza egiten dute mikrofono eta aulki biren laguntzarekin performance erako lan harrigarri honetan. Beria - Kultura

Jakina da "**sumo**" zalea dela eta beraz ikusi ditugu munstro horiek beren borroketa eta Jakes Haundia gustora. Herria

sunna ik Sunna.

sunandar izlag/iz Palestina zaharreko Sunan hirikoa.

Erregea zahar-zaharra zegoen, eta, esan bezala, Abisag **sunandarrak** zaintzen zuen Jose Antonio Mujika

sunbildar (corpusean sunbillar soilik) izlag/iz Sunbillakoa, Sunbillari dagokiona; Sunbillako biztanlea.

Ramon Latasa **sunbillar** aizkolaria ezaguna zuten askok, Iparralde huntan ere. Herria

Antton Espelosin **sunbillarrak** liburu bat plazaratu berria du: "Ramon Latasa, basoko aizkolaria". Herria

sunbillar ik sunbildar.

sunda 1 iz usaina, besterik adierazten ez bada sarkor eta desatsegina.

Usain sarkorra zerion, **sunda** gazi-gozo halako bat. Anjel Lertxundi

Atea itxi eta halako **sunda** bat barreiatu zen etxe guztian, kamamila urarena, edo esne gatzatuarena. Joseba Sarrionandia

Bat-batean Fionnek munstroari zerion **sunda** zorabiagarria nabaritu zuen berriro. Joanes Urkixo

Atea itxi eta halako **sunda** bat barreiatu zen etxe guztian, kamamila urarena, edo esne gatzatuarena. Joseba Sarrionandia

Sukalde argitsu batera heldu ginen, non aza egosiaren **sunda** etxekoia sudurreratu baitzitzaidan. Alberto Ladron Arana

Hildakoaren arima ez baina ustel **sunda** kontserbatzeko eginda baleude bezala. Iñaki Zabaleta

Korridorea izugarri luzea zen eta haren egurats hotz eta geldoan milaka pipa zaharren **sundak** dilindan zirauen, fosildurik. Alberto Ladron Arana

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Teilatu beltzak erre- **sunda** dakar. Lutxo Egia

Gaztaroan kortatik gora zetorkigun simaur- **sunda** bera eta abereen marruak aditzen hasia nintzela iruditu zitzaidan. Txillardegi

Lisa mutilaren atzetik joan zen, hegazti **sunda** bortitz hark nazka ematen ziola esaka. Karlos Zabala

Urrin iraunkorra zen, larruazalari zeta finaren antzera itsasten zitzaiona, arrain **sunda** bat, bular oparoetatik, beso ederretatik, gerrialde malgutik hedatu eta haren emakume lurrinari usain zakar bat nahasten ziona. Karlos Zabala

Gantz **sunda** zerion, haragi onaren urrin geza. Karlos Zabala

Zurrustak zolako lauzak harramazkatzen zituen zakar, hango odol **sunda** eta herdoila kendu ezinik, ordea. Karlos Zabala

Kirats arina artean, hezetasun **sunda** gozoa bezain higuigarria, lur arrasean arrastaka zebilena. Karlos Zabala

3 irud/hed

Komunikabide erraldoien hizkera monolitikoari, sarri, gezur **sunda** sumatzen diogu. Beria - Euskal Herria

sundaia ik sondaia.

sundaldi ik sondaldi.

sundatze ik zundatze.

suni *izond* sunita.

Samarrako santutegiaren kontrako erasotik lehen aldiz, gobernu berriaren osaketari buruz hitz egiteko bildu ziren buruzagi **suniak** eta xiiak. Berria - Mundua
Gero, zehazten hasteko nahiko adorerik ez, eta ez dakigu talibanok xiitak diren, edo **suniak**; pashtunak diren, edo arabiarrak. Iñigo Aranbarri

sunita (579 agerraldi, liburu 1 eta 208 artikulutan) 1 *izond* musulmanez mintzatuz, ortodoxoa dena, Sunnaren jarraitzailea dena.

Musulman **sunita** moderatua da Gazi al Jauar. Berria - Mundua
Kurdoak Turkia, Irak, Iran eta Syria haindik Kurdistan herriko jendeak dira: [...] musulmano **sunitak** dira. Herria
Muturreko talde islamista batzuen aska den ideologia **sunita** uahabia Saudi Arabian sortua da. Berria - Mundua
Al Sageerrek buruzagi erlijioso **sunitel** leporatu die gertatutakoa. Berria - Mundua
Populazioaren %20 osatzen duten arren, biztanle **sunitek** Irakeko gainerako komunitateetako bizilagunek baino presentzia handiagoa izan dute duela gutxi arte, Baath alderdia boterean egon den arte, hain zuzen ere. Berria - Harian
Testuari sostengua eman dion alderdi **sunita** bakarreko 100 kidek dimisioa eman dute. Berria - Harian
Erresistentziako talde **sunitekin** harremanetan dagoela esan dute AEBek. Berria - Mundua
Erresistentzia **sunita** nahiko indartsua den Ramadi hirian, halaber, borrokak gertatu ziren soldadu estatubatuarren eta erresistentzia irakiarraren artean. Berria - Mundua
Al Jaafarien hitzetan keinu positiboak ikusi dituztela adierazi zuten buruzagi **sunitek**. Berria - Harian
Ekintzaile **sunitek** eta xiitek elkarri sostengua erakutsi diote azken asteotan. Berria - Mundua
Jalal Talabani presidentek berak onartu du asteburuan gerrillari **sunitek** 50 xiita bahitu zituztela, tartean emakume eta haur ugari. Pako Aristi
Al Anbar eskualde **sunitako** hainbat zonaldetako herritarrek ezin izango dute bozkatu. Berria - Harian
Mezkita **sunita** asko erre dituztela xiitek eginiko protestetan. Berria - Harian

2 (izen gisa)

Hiru adar nagusi ditu Islamak: **sunitak**, xiitak eta sufismoaren jarraitzaileak. Berria - Euskal Herria
Antagonikoak izan diren xiitek eta **sunitek** bat egin dute okupazio indarrei aurre egiteko erresistentzian. Berria - Mundua
Harez Al Darri **suniten** idazkari nagusiak «okupazio tropen eskutik Falujan gertatzen ari den genozidioaren arduraduna» Alaui dela iritzi zion. Berria - Mundua
Batasun nazionalako kabinetea osatu eta erresistentzia ahuldu nahi du Bagdadek, **suniten** laguntzaz. Berria - Harian
Sunitek gutxienez zazpi ministerio eta lehen ministrorde bat eskatu dituzte. Berria - Harian
Suniten portzentaia handi batek urtarileko bozetan parte hartu ez izanak «ordezkaritza arazoa» sortu du, diplomatikoaren esanetan. Berria - Harian
Saddam Husseinen agintaldeari sostengua eman zioten **sunitek**, aldiz, uko egin diote okupazio indarrek deitutako bozetan parte hartzeari. Berria - Mundua
Krisia piztu zen kurduen eta **suniten** aliantzek orain arte jardunean zen Ibrahim al Jaafari xiitak lehen ministro karguan jarraitzeari arbuioa azaldu zutelarik. Berria - Mundua
Al Jaafari gobernu buru karguan egoteari uko egiten diote kurduak, **sunitek** eta xiita laikoek. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alderdi sunita (12); **alderdi sunita nagusia** (3); **buruzagi erlijioso sunita** (6); **buruzagi sunita** (7); **erresistentzia sunita** (4); **hiri sunita** (5); **komunitate sunita** (3); **mekkita sunita** (3); **mekkita sunita** (7); **musulman sunita** (6)

sunita bat hil (3); **sunita eta kurduak** (3); **sunita eta xiita** (4); **sunita eta xiitek** (3); **sunita eta xiiten** (8); **triangelu sunita** (12); **xiita eta sunita** (5)

alderdi sunitak (3); **buruzagi sunitak** (3); **erresistentzia sunitak** (5); **irakiar sunitak** (4); **mekkita sunitak** (4); **musulman sunitak** (7); **musulman sunitak gehiengoan** (3); **sunitak biltzen** (3); **sunitak eta xiitak** (7); **sunitak gehiengoan diren** (4); **xiitak eta sunitak** (3)

komunitate sunitako (4)

hiri sunitan (4); **triangelu sunitan** (5)

erresistentzia sunitaren (8); **hiri sunitaren** (3)

erresistentzia sunitari (4); **mekkita sunitari eraso** (3)

musulman sunitel (3)

alderdi sunitek (4); **buruzagi sunitek** (11); **erlijoburu sunitek** (3); **musulman sunitek** (3); **sunitek eta xiita** (7)

erlijoburu suniten (7); **erlijioso suniten** (3); **gerrillari suniten** (4); **mekkita suniten** (3); **musulman suniten** (5); **suniten arteko borroketan** (3); **suniten aurkako** (5); **suniten buruzagi** (3); **suniten eta xiiten** (8); **suniten kontrako** (3); **xiiten eta suniten** (23)

sunitar *izond* sunita.

Falujan, ostera, ez zen borrokarik izan atzo erresistentzia **sunitarren** eta okupazio indarren artean. Berria - Mundua

Irakiar hiriainizetan gerla eta gasailek segitzen dute beti, Kirkuk Mossul, Bagdad, Faludja eta denetan, amerikano eta irakiar soldadoak eskuz esku, **sunitar** alderdikoek kontra bereziki. Herria

Sunna (orobat suna) iz Mahometen legea.

Era berean *fiqh* esaten zitzaion, halaber, arrazoimenaren erabilera horretan oinarrituriko lege-erabakiei, Koranen edota **Sunna**-n aurreikusten ez ziren kasuak erabakitzeko. Xabier Kintana

Ene predikuak zientzian, Koranean eta **sunan** Mahomaren ekintza eta esanak oinarritzen ditut. Berria - Mundua

Bizitzaren bidea agertzen da **Sunnan**, tradizioa eta ohitura. Berria - Euskal Herria

Iturri ofizialen arabera, Ansar al **Sunna** (**Sunnaren** Jarraitzaileak) izeneko taldeak urrian bahitutako poliziak dira aurkitutakoak. Berria - Mundua

suntsialdi iz suntsiketa aldia.

Eta oraindik zalantzan dagoz mundu handiaren izaerari **suntsialdia** eta hondamena datorkiola sinesteko, hain lur masa itzela bilin-balan ikusita! Xabier Amuriza

suntsiarazi, suntsiaraz, suntsiarazten du *ad* suntsitzera behartu.

Egoki baderitzo, eman beza idatziz erregeak halako horiek **suntsiarazteko** agindua. Elizen arteko biblia

Hamanek juduak **suntsiarazi** nahi. Elizen arteko biblia

Hiriz hiri ibili zen Judean, lege-ukatzaileak **suntsiaraziz**. Elizen arteko biblia

Jerorengotza **suntsiaraziko** duen erregea sortuko du Juanak Israelen gaur bertan. **Elizen arteko biblia**
Finca Vigiako ostegunetan Gernika derrigorrez aipatu behar izango dute hara biltzen diren legezaleek, eta baita eztabaidatu ere hura **suntsiarazteko** agindua nork eman zuen. **Edorta Jimenez**

suntsibide *iz* suntsitzeko bidea.

Zeren, haizeak baretuko ez balira, ezain indarrek ezingo lituzke gauzak galgatu ez **suntsibidetik** libratu. **Xabier Amuriza**

suntsidura 1 *iz* suntsiketa.

Zerez osatuta daude bizitzara datozen izakiak?, beren hiru osagaiak ez al dira aurrez beste gorputz batzuen **suntsiduratik** sortuak? **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Ez dute petatxuek etxea **suntsiduratik** gerizatuko. **Herría**

Gizakien jazarpenaz gain, ibaietako kutsadura eta beren ekosistemen **suntsidura** nozitu dituzte. **Berria - Gaiak**

Harrobira **suntsidurak** eragiten dituen aldaketak dokumentatzeko asmoarekin jo zuen. **Berria - Kultura**

Albuiнок Rosamundarengatik sentitzen zuen desira asegabeak gepidiarren **suntsidura** eragin baldin bazuen [...]. **Iñaki Mendiguren**

Gero, unibertsoa zabaldu eta hostu ahala, makalago bilakatuko zen sorkuntza **suntsidura** baino. **Juan Garzia**

Horman gernika biak, arboladun tenplua eta kriseiluak argituriko **suntsidura**. **Joseba Sarrionandia**

Frantses burgesiaren seme-alaben izpirituak **suntsiduraz** ahultzeari ekiten zion. **Itxaro Borda**

Schumpeter-en hitzetan **"suntsidura** sortzailea" esaten zaio horri. **Iñaki Heras**

2 *barne suntsidura*

Gero, uztailaren 25arekin, faxismoaren barne-**suntsidura** etorri zen. **Juan Garzia**

Eragina handiagoa eta etsaien barne-**suntsidura** areagokoa izango baitzen hala. **Felipe Juaristi**

suntsiezin 1 *izond* ezin suntsituzkoa.

Uhartearen uraren gainean dago, itsasontzi bat bezala; brontzeko horma **suntsiezin** bat dauka inguruan. **Juan Kruz Igerabide**

Oroimenaren eta idazkuntzaren bidez lortu ezin dudaren errealitate ezegonkor baten froga material eta **suntsiezinak**. **Joseba Urteaga**

Kamiseta hori **suntsiezina** ote den pentsatzen hasia da Pantxo. **Aingeru Epaltza**

Erregaitz, **suntsiezin** sentitzen gara denok, dena jasateko gai, zirimolari gure gorputz akituak eramaten uzten. **Sonia Gonzalez**

Castrok eta Guevarak ia hilezkorra izan behar zuten, **suntsiezinak**. **Jon Muñoz**

Nire doktrinan, gizonarengan betiko eta **suntsiezina** dena [...] ez da arima, baizik eta nahimena. **Askoren artean**

Estigia aintzirako urek Akilesean gorputzean eragin zutena eragiten du pentsamentuan: zaurtezina eta **suntsiezina** bilakatzen du. **Juan Garzia**

Bere umoreez hustu da, baina kitinazko oskolak luzaro dirau, ia **suntsiezin**. **Juan Garzia**

2 *suntsiezinako izlag* suntsiezina.

Izan beti konfiantza Jaunarengan, Jauna **suntsiezinako** harkaitza da eta. **Elizen arteko biblia**

Zazpi mila barril fuel eta **suntsiezinako** hiru mila bakterio mota desberdin atxikitzen zituzten harkaitzetan. **Koldo Izagirre**

suntsigai *izond/iz* suntsitzeko gaia.

Suntsiketa beharrezkoa bazaita bera gabe iraun ezin izateraino, eta sorkuntzarik burutu ezin badu heriotzak prestatzen dion **suntsigairik** gabe, une horretatik bertatik guk heriotzarekin lotzen dugun suntsiketa-idea oinarri gabea bihurtzen da. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Nazio godo, getiar, sarrazeno eta tartariarrek zanpatu egin zituzten bata bestearen atzetik; laster herri barbaroek herri barbaroak baizik ez zituzten izan **suntsigai**. **Iñaki Iñurrieta**

suntsigailu *iz* suntsitzeko gailua.

Iparreko Koreak borondate onezko jestu bat egin du bere ikerketetan hitzeman ez duela bonba atomika eta holako **suntsigailurik** egingen bere planean. **Herría**

suntsigaitz (*orobat suntsikaitz g.er.*) *izond* suntsitzen zaila dena, ia suntsiezina.

Laztandu beharra zeukaten atzamarren 56 urteko idilio **suntsigaitza** izan da Gelatxoren bizitza. **Pako Aristi**

Maitasuna: deseoa sortu aurretik zubia eraikitzen datorren langilea, eta deseoa desegiten denean lilura **suntsikaitz** bilakatzen badakien jakintsua. **Pako Aristi**

Honela pentsatu behar da, beraz, eguzkiak, ilargiak eta izarrek bata-bestearen atzeko igorretan jauritzen dutela argia eta garra sortu ahala galtzen direla beti; ez uste hauen indarra **suntsigaitza** denik. **Xabier Amuriza**

suntsigarri (*44 agerraldi, 21 liburu eta 4 artikulutan*) 1 *izond* suntsitzen duena. ik **suntsizale**.

Sumina ankerra da, haserrea **suntsigarria**. **Elizen arteko biblia**

Borroka **suntsigarriak** eragindako kalteak konpontzeko. **Iñaki Mendiguren**

Auschwitzeko gartzela **suntsigarriak** ere Polonian dira. **Herría**

Ez behar **suntsigarriak** jo eta zapalduko zaituzte. **□**

Psikean ondorio **suntsigarriak** eragiteko gai ziren armaz. **Iñaki Mendiguren**

Hain gogor sufritu zuten donostiarrek izurrite hura, non federa jo behar izan baitzuten haren eragin **suntsigarriei** aurre egiteko. **Askoren artean**

Bi mundu-gerren esperientzia **suntsigarriaren** ondoren, [...]. **Iñaki Mendiguren**

Edonork izan dezake eskura sekula izan den armarik **suntsigarriena**. **Fernando Morillo**

-Utzi Ostolaza bakean, aditu?! -begiratu **suntsigarria** egin zion Iturbidek-. **Migel Angel Mintegi**

Diruak dakar beste guztia [...] eta diru askok, are eta makina **suntsigarriago** bat dakar berekin: boterea. **Pako Aristi**

Haren irribarre argitsua laborri urragarriz eta **suntsigarritz** betetako begirada bihurtu zen. **Oskar Arana**

Ez zen haren kontrako inbidia, haren aldekoa baizik, mirespenezkoa, ez **suntsigarria**. **Karlos Zabala**

2 (-en atziki singularren eskuinean)

Estimua baino gartsuagoa zen sentimendu batez gainezka zeuden haien bihotzak, eta elkarrekin egoteko aukera ugariak [...] bien barneko bakearen **suntsigarri** gertatu

ziren. [Lopez de Arana](#)

3 auto-suntsigarri izond

Bilgarri eta ontzi auto-[suntsigarri](#) edo [...] jangarriak hedatuko dira, birziklapena osatzen laguntzeko. [Edorta Agirre](#)

Europaren dinamismoak ordea, zibilizazio bakarrean baina gune askoren milaka urteko etsaitasunean sustraitua egonik, gene auto-[suntsigarrien](#) zama du bere baitan.

[Koro Navarro](#)

suntsigarritasun iz suntsigarria denaren nolakotasuna.

Militarismo hau lehenengoz prusiar errege Federiko Gilermo I.aren eta Federiko Handiaren erreinaldian agertu zen [...] gerraren gidaritza izugarri formala eta

[suntsigarritasuna](#) maila txikienekoa zen garaian. [Iñaki Mendiguren](#)

Beharbada mendebaldeko pentsalaririk koherenteena, honetan, Sadeko markesa izango zen, krimenaren atsegina justifikatzeko, naturaren [suntsigarritasuna](#) aduzitzen zuena. [Xabier Amuriza](#)

suntsikaitz ik suntsigaitz.

suntsiketa (158 agerraldi, 28 liburu eta 76 artikulutan) 1 iz suntsitzea. ik suntsipen.

[Suntsiketa](#), beraz, naturaren legetariko bat da, sorkuntza bezala. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Gizakion espiritu inkisidoreak eragin dituen [suntsiketak](#), erreketak, txikizioak, hilketa eta salaketak, kartzela-aldiak, desterruak, pertsekuzioak, torturak... [Anjel Lertxundi](#)

[Suntsiketek](#) eta populazioen eta hondamendien joan-etorri eta gorabeherak eratzten dituzte historia horretako gertaera nagusiak. [Iñaki Iñurrieta](#)

Gure Nafarroako erreinu zahararen [suntsiketa](#). [Piarres Xarriton](#)

Mundu guztian gerra eta [suntsiketa](#) nagusi ibili ziren sei urte haiek. [Juan Garzia](#)

Badakigu historia triste hori nola amaitu zen, Europa osoko judu eta ijito gutiengo guztien [suntsiketa](#) edo *Shoah* lotsagarriarekin. [Piarres Xarriton](#)

Zisjordanian egindako [suntsiketen](#) daturik ez zuen eman. [Berria - Mundua](#)

Condor legioak Gernika bonbardatu zuelarik, Frantziako Havas prentsa agentzia izan zen [suntsiketaren](#) inguruko gezurra Europan barrena zabaldu zuena. [Iñigo Aranbarri](#)

Plazako monumentuaren [suntsiketaz](#) geroztik maiz izaten ziren polizia kontrolak Obabako inguruetan. [Bernardo Atxaga](#)

Erriberako industriaren egoera kaskarra eta lan postuen [suntsiketa](#) salatu nahi ditugu. [Berria - Ekonomia](#)

Eskola merkantzia gisa erabiltzen duen politika bideratzen da, zerbitzu publikoaren [suntsiketa](#) dakarrena. [Berria - Euskal Herria](#)

Gerra eta Palestinako ekonomiaren [suntsiketa](#). [Berria - Mundua](#)

Azido urikoaren oxidazio bidezko [suntsiketa](#). [Juan Garzia](#)

Eta zer da gerra, [suntsiketaren](#) zientzia baino? [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Jakin ezazu gerlak ezjakinek hasten eta eramaten dituztela itsu, alde biren [suntsiketaraino](#). [Itxaro Borda](#)

Produktzioaren gizartean bizi garela uste dugun arren, [suntsiketaren](#) gizartean bizi gara. [Berria - Euskal Herria](#)

Ahantzura eta [suntsiketa](#), zentzu batean, remanentzia horren zero maila dira. [Xabier Arregi](#)

Eredu baten [suntsiketak](#) ereduaren beraren eskema bera du oinarrian: nekez onartzen du horrek ere ironia. [Anjel Lertxundi](#)

2 (izenondoekin)

Preso politikoaren eta beren senideen eta lagunaren [suntsiketa](#) fisiko eta morala. [Berria - Euskal Herria](#)

Nun dira [suntsiketa](#) handiko arma izugarri eta famatuak? [Herria](#)

Tradizioari egiten zaion deiak nostalgia-ekintza bat izateari uko eginik, urrutiramendu ironiko edo [suntsiketa](#) sistematiko bihurtzen da. [Anjel Lertxundi](#)

Sukaldaritza industrialean zabor gehiegi sorrarazten dugunez, bi arazo nagusi agertzen dira: produktuaren alferrikako galera eta zaborren [suntsiketa](#) gaitza. [Edorta Agirre](#)

[Suntsiketa](#) erabatekoa sortu zuen arroz soronetan. [Berria - Mundua](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kontzentrazio eta [suntsiketa](#) barrutietan sartzen zutenari jantziak, argazkiak eta gauza pertsonalak kendu eta presoen jantzia ematen zieten, izena kendu eta zenbaki bat ezarri. [Jokin Urain](#)

Israelek palestinarren kontra egunero egiten dituen krimen, hilketa eta [suntsiketa](#) kanpainen erantzun naturalak dira erasoak. [Berria - Mundua](#)

Palestinarren etxebizitzien [suntsiketa](#) operazioa. [Berria - Mundua](#)

ETAk bere [suntsiketa](#) estrategiarekin aurrera jarraitzen du. [Berria - Euskal Herria](#)

Izan ere, guda eta [suntsiketa](#) egoera etengabearen sortu gintuen naturaren eskuak. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Onartu beharrean gaude ezinezkoa zaigula naturaren langintzak deuseztatzea, argi baitago [suntsiketa](#) lanean saiatzen garenean formak aldatzea besterik ez dugula lortzen.

[Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Genoako kasua [suntsiketa](#) akusazioaren oinarrituta dago. [Berria - Mundua](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Unionistak uzkur agertu eta keza azaldu zuten ez zelako arma [suntsiketaren](#) argazkirik egon. [Berria - Harian](#)

Etxe [suntsiketak](#) zehazki ez baditu gaitzesten ere, ebazpenak «kezka handiak» azaltzen ditu «aterperik gabe geratzen diren palestinarren giza-egoeraz». [Berria - Mundua](#)

Eskaintza onartzeak balio [suntsiketa](#) «masiboa» ekarriko duela iragarri zuen. [Berria - Ekonomia](#)

5 auto-suntsiketa

Begira diezadatelatela gustu txarreko pieza bati bezala, norbere psikeak baditu-eta auto-[suntsiketari](#) aurea hartzeko mekanismoak. [Anjel Lertxundi](#)

Izpirituaren labakian auto-[suntsiketarako](#) suterik ez zitzaion pitzen. [Itxaro Borda](#)

suntsikor 1 izond erraz suntsitzen dena, suntsitzeko joera duena. ik galkor.

Ikusi behar handik harat zaku [suntsikor](#) batzu ez litazkeenetz baliatzen ahal... [Suntsikor](#) diren gauzetan maitasuna jartzea gauzak Jainkoaren gainetik jartzea da. [Herria](#)

Banekien arratsalde hura [suntsikorra](#) eta laburra izango zela. [Txillardegi](#)

2 suntsigarria.

Agresibitate [suntsikorrik](#) gabe. [Joxe Azurmendi](#)

Gezurrean oinarritutako politika hor ere, sekula aurkitu ez diren Irakeko arma [suntsikor](#) famatu heiek! [Herria](#)

[hitz multzoen maiztasunak \(gutxienez 3 aldiz agertzen direnak\)](#)

suntsikortasun 1 iz suntsikorra denaren nolakotsuna.

Uste dut, **suntsikortasunaz** ari zarenean zertaz ari zaren badakidala, beteranoa naiz, eta karramarroen adiskide zaharra. **Lander Garro**

Nahiz eta, gorago aipatu bezala, azentu-aldiko hizkuntzetan azentu gabeko bokalen **suntsikortasunak** joera honi kontra egin, irabazteraino askotan. **Lourdes Oñederra**

2 suntsigarritasuna.

Bortizkeriaren teknikak eta baliabideak hainbestetaraino aldatu direla eta garatu, non ez baita helburu politikorik haien **suntsikortasun** ahalmenari doakionik, ez borroka armaturik haien erabilpena justifika dezakeenik. **Piarres Xarriton**

suntsikuntza iz suntsipena.

Suntsikuntza baten kronika beltza besterik ez da gure biografia. **Txillardegi**

suntsimen iz suntsipena.

Tuileries sutan, une apokaliptiko bat **suntsimen** unibertsaleko orkestraburu klandestinoek zuzendua jendetza basa hordi zoro bat manipulatu, Komunaren aurkako ideologoen esanetan. **Koldo Izagirre**

Urruti entzuten diren dunbotsak, guretzat iristeko dagoen **suntsimenaren** iragarle zirenak, gogoratzen ditudanean, hotzikara sartzen zait. **Josu Zabaleta**

Egiaz garrantziko direnek berriro hartzen dute beren forma, bizirik iriteten dute eguneko analisisen **suntsimenetik**. **Josu Zabaleta**

suntsimendu 1 iz suntsipena.

Min hori, unibertsot baten **suntsimendu** eta arbolaren karraska hori, [...]. **Joxe Azurmendi**

Gernikaren **suntsimendua** bihotzean. **Koldo Izagirre**

2 (hitz elkartuetan)

Suntsimendu eremuetan egonak badaki zeinen garrantzizkoa den ez etsitzea, eguneroko apurrari eustea, biharamunerako ere zeregin klandestinoen bat asmatzea, iraun ahal izateko **Koldo Izagirre**

3 auto-suntsimendu

Hitz triseak dirudite, auto-**suntsimendurako** joera duen batek esanak, baina Txamorrok inolako oinazerik gabe egin zion aitormena albokoari. **Anjel Lertxundi**

suntsipen (302 agerraldi, 46 liburu eta 121 artikulutan) 1 iz suntsitzea. ik suntsimen.

Sorkuntzaren eta **suntsipenaren** arteko kontzeptu bitartekaria transformazioa da. **Xabier Amuriza**

Elementuen sorrerak eta **suntsipenak**, bai eta berorietatik jaiotzen den eta hiltzean haietara itzultzen den guztiarenak ere, nolabait, zeruarenaren antzeko mugimendu zirkular bati segitzen diote. **Xabier Kintana**

«Indarkeria, **suntsipena** eta etsipena» eguneroko gauza direla eta egoera ekonomikoa «etengabe» okerrera egiten ari dela zehaztu zuen. **Berria - Mundua**

Dekonstrukzio izenak hala iradokitzen duen arren, ez du **suntsipena** proposatzen, baizik eta esperientziaren estruktura linguistikoaz jabetzea. **Berria - Kultura**

Inola ere ez nago prest Alemaniaren **suntsipenaren** konplizea izateko. **Alberto Ladrón Arana**

Munduaren egoeraz, erromatarren **suntsipenaz** geroztik. **Iñaki Iñurrieta**

Ikusi behar ote dut nire senideen **suntsipena**? **Jose Antonio Mujika**

Iparraldeko herririk guztiak erreko balira bezala da, eta **suntsipen** horrek alemaniaren aurrerabidea egun erdiz ere atzeratu ez. **Josu Zabaleta**

Arrain espezie erraldoi baten sarrerak aintzirako faunaren **suntsipena** ekarri duela, eta horrek herrialdearen orekari kalte handiak eragiten dizkion industria bat sortu duela salatzen du filmak. **Berria - Kultura**

Eskolastikoen asmaketei zor dizkiegu merkataritzaren **suntsipenak** ekarritako zoritxar guztiak. **Iñaki Iñurrieta**

Ondare historikoaren **suntsipena**. **Berria - Euskal Herria**

Akusatuaren berbek adierazi digute bere eskua gidatzen zuen ideologia zertan oinarritzen den: autoritate ororen **suntsipena**. **Koldo Izagirre**

Delitu orok, baita pribatuak ere, iraindu egiten du gizartea, baina delitu guztiak ez dute helburu gizartearen bat-bateko **suntsipena**. **Juan Martín Elexpuru**

Bizitzak eta historiak suntsitzen dutena argira ateratzen duelako da literatura subertsiboa, heriotzaren eta **suntsipenaren** mezularien aurrean erresistentziaren kultura harilkatzen duelako. **Berria - Kultura**

Ez ziren gauza sentitzen euren lurraldearen **suntsipen** eta hondamena ikusten jarraitzeko. **Joanes Urkixo**

Zertarako balio du jakiturriak, zure lagunak **suntsipenetik** babesteko erabili ezin baduzu? **Oskar Arana**

Galduta gaudek hondamendiaren eta **suntsipenaren** erdian, ihesbiderik gabe. **Agustín Otsoa**

Urrundutako musikaren zaldi hegaldariak ezerezera eta **suntsipenera** daraman zerurako bideko hautsa harrotu balute bezala. **Xabier Olarra**

Hurrenez hurrenengo hondamen fisiko erabatekoa, zeharoko **suntsipena** nola bizitzen den, gaixoak berak baizik ez lezake esan. **Jon Alonso**

Denboraren gorabehera eta **suntsipenek** errespetatu beharko duten oroitarri nimitoa. **Juan Garzia**

Baina zertarako eman bizitza osoa **Suntsipenaren** Hiritik ihesi? **Lopez de Arana**

Borroka, **suntsipen** eta kaosezko mundu batean. **Anton Garikano**

2 (izenondoekin)

Suntsipen fisiko eta moralerako bidea. **Joxerra Garzia**

Gure **suntsipen** fisikoa eta psikologikoaren bila egindako plangintza abiarazi zuten. **Jokin Urain**

Iraken ez dago **suntsipen** handiko armarik. **Berria - Harian**

Washingtonek begi onez ikusi du Tripolik **suntsipen** handiko armamenduari uko egitea. **Berria - Mundua**

Gosea da **suntsipen** handiko armarik okerrera. **Berria - Gaiak**

Suntsipen masiborako armen mehatxua arras handia izanda ere, ez legoke mehatxuaren zantzu ebidentzialik. **Berria - Gaiak**

Suntsipen txikiak armarik. **Berria - Ekonomia**

Arma txikiak guztiak, baina **suntsipen** handikoak izan daitezkeenak. **Berria - Ekonomia**

Itxaron al daiteke ezer onik **suntsipen** sistematiko eta mendekuzko horretatik? **Josu Zabaleta**

PPk eragin duen «**suntsipen** demokratikoa». **Berria - Euskal Herria**

Zeren munduari, hainbesteko gaitzek eta hainbesteko arriskuek jota, istripu larriagorik gertatu balitzaio, **suntsipen** osoan eta hondamen izugarrian jausiko baitzen. **Xabier Amuriza**

Gerra-makina nazional-sozialistaren **suntsipen** gogorrak, aurrekaririk gabeak, [...]. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

betiko suntsitu (4); **dena suntsitu** (13)

egoiza suntsitu (4); **erabat suntsitu** (43); **eraikin suntsitu** (4); **etxe suntsitu** (29); **etxe suntsitu zituen** (10); **etxea suntsitu** (13); **etxeak suntsitu** (8); **etxebizitza suntsitu** (15); **etxebizitza suntsitu zituen** (4); **etxebizitza suntsitu zituzten** (7); **gernika suntsitu** (8); **guztia suntsitu** (13); **guztiak suntsitu arte** (7); **hainbat etxe suntsitu** (6); **harresiak suntsitu** (4); **hartu eta suntsitu** (4); **helikoptero bat suntsitu** (4); **herria suntsitu** (8); **herriak suntsitu** (10); **hil eta suntsitu** (4); **hiria suntsitu** (9)

nork suntsitu zuen (4); **oro suntsitu** (4); **osoki suntsitu** (5)

suntsitu arte (22); **suntsitu aurretik** (4)

aurpegi suntsitua (4); **erabat suntsitua** (4)

erabat suntsituak (4); **osoki suntsituak** (6); **suntsituak edo** (5); **suntsituak izan** (15); **suntsituak izan ziren** (8)

dena suntsituko (6); **erabat suntsituko** (6); **guztia suntsituko** (4); **guztiz suntsituko** (5); **osoa suntsituko** (4)

erabat suntsiturik (6)

erabat suntsituta (15); **erabat suntsituta gelditu** (6); **suntsituta dago** (6); **suntsituta daude** (5); **suntsituta gelditu** (10); **suntsituta gelditu zen** (6); **suntsituta geratu** (19); **suntsituta geratu zen** (8); **suntsituta utzi** (4)

dena suntsitzea (4); **israel suntsitzea** (5); **suntsitzea erabaki** (13); **suntsitzea helburu** (7); **suntsitzea helburu duen** (4); **suntsitzea izan** (5)

dena suntsitzeko (6); **erabat suntsitzeko** (6); **ezker abertzalea suntsitzeko** (4); **gu suntsitzeko** (5); **guztiak suntsitzeko** (9); **misilak suntsitzeko** (4); **oro suntsitzeko** (5); **presoak suntsitzeko** (4)

suntsitzeko agindua (8); **suntsitzeko ahalmena** (6); **suntsitzeko asmoa** (6); **suntsitzeko asmoz** (7); **suntsitzeko baimena** (4); **suntsitzeko gai** (6); **suntsitzeko helburua** (4); **suntsitzeko mehatxua** (4)

dena suntsitzen (5); **etxea suntsitzen** (5); **etxeak suntsitzen** (10); **guztia suntsitzen** (5); **suntsitzen hasi** (5); **suntsitzen jarraitu** (4); **suntsitzen jarraitu zuen** (4); **suntsitzen saiatu** (7)

suntsitzaile *(163 agerraldi, 43 liburu eta 54 artikulutan; orobat suntsitzale g.er.) 1 izond* suntsitzen duena. ik **suntsigarri**. (pertsonak eta kidekoak)

Horixe da historiaren ingeru **suntsitzailea** : aurrerapenak bere hondakinak ditu. Askoren artean

Herralde horiek guztiak tartariarrek sakailatu zituzten, eta nazio **suntsitzaile** hori bizi da bertan, bazter haiek kutsatzen. Iñaki Iñurrieta

2 (gauzak)

Elurrak dena ezkututzen du, baina elurra ez da **suntsitzailea** , egunen batean estali duen hori suntsitu gabe eskainiko du berriro. Joseba Sarrionandia

Hiri **suntsitzaileko** zenbait magistraturi, edo armada **suntsitzaileko** buruzagi batzuei, heriotza-zigorra emateko agintzea. Iñaki Iñurrieta

Eta tematsua behar da izan, parean daukagun boa **suntsitzaileari** ihardokitzeko. Herria

Orduko bonba **suntsitzaileen** lekua, ordea, literaturak hartuko du oraingoan. Berria - Kultura

Oroitzapen hura [...] haize erauntsi **suntsitzailea** bilakatu zen. Patxi Zubizarreta

3 (gauza abstraktuak)

Gogo **suntsitzaile** batek menderatu nau, eta pentsatu dut Three Riverseko zabortegira eramango nituela gauza guztiak, gorilaren koaderno bezalaxe. Bernardo Atxaga

Haur-bulkaden frustrazioak haserrea sortzen du, gorrotoa, eta gurari **suntsitzaileak** [...], autoritate zapaltzailearen aurka zuzenduak. Iñaki Mendiguren

Depresio **suntsitzailea** (eta are hilgarria) ager daiteke, hasierako pozaldiaren ondoren. Xabier Olarra

Merkataritzak sendatu egiten ditu aurreiritzi **suntsitzaileak** . kapitalismoaren eromen **suntsitzaile** hori geldiarazteko. Iñaki Iñurrieta

Harreman hori **suntsitzailea** izaten da sarritan, baina, beste batzuetan, berriz, onargarria izan daiteke. Xabier Olarra

Bada, hala ere, beste bide zabal bat, espirituali **suntsitzailea** den mundutartasun berberera daramana. Iñaki Mendiguren

Natura, Lukrezioarentzat [...] indar sortzaile ez ezik, indar **suntsitzaile** ere bada. bere aberri eta gerra osteko gizarteari buruzko epaiketa erabat **suntsitzailea** plazaratzen du Thomas Bernhard idazle austriarrak. Xabier Amuriza

Lukreziok badu baita natura, sortzaile ez ezik, **suntsitzaile** ere baden pertzepzio zorrotza. Xabier Amuriza

Gure alde **suntsitzailea** Natura sortzaile-**suntsitzaile** , infinitu-finituaren ikuskera honetatixe dator Lukrezioaren obraren dramatismoa. Xabier Amuriza

4 (izen gisa)

Suntsitzailea joan-etorrian zebilen, eta biktima... non zen biktima? Koro Navarro

Bai, badator **suntsitzailea** Babiloniaren aurka: preso hartzen dituzte gudariak, gudu-indarrak porrokatzen. Elizen arteko biblia

Amore eman zion bere **suntsitzailearen** indar zapaltzaileari. Koro Navarro

Beraz, zuzenbide horrek ez zituen **suntsitzaileak** berak ere suntsitu behar. Iñaki Iñurrieta

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

[Klorofluorokarburua], ozonoa jan eta jan, urteak hor goiko geruzetan irauten duen gas ozono-**suntsitzailea** . Pello Zabala

Norbaitek galdetzen badik nork itsutu dian begi bakar hori, esaiok Ulises hiri **suntsitzaileak** egin dila. Juan Kruz Igerabide

Naziak munstro kultura-**suntsitzaile** hutsak baldin baziren, nola zitekeen barbaro haiek Ahnenerbe erakunde kulturala sortu izana? Alberto Ladron Arana

-Herio bihurtu naiz; mundu-**suntsitzaile** -errezitatu zuen Oppenheimerrek. Fernando Morillo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

politika suntsitzailea (4)

suntsitzale ik suntsitzaile.

suntsitze 1 iz izatea edo egitura galtzea, desegitea edo deuseztatzea.

Hura Haren lehenbiziko sorkaria izan zela, aldean jaiotzea eta **suntsitzea** zekartzana. Xabier Kintana

Testuek eta bereziki 1789-1790eko bertsu zenbaitek erakustera ematen dute hastapenean, etxetiar eta petxero saldoek, etxeko jaunen pribilegioen **suntsitzea** txalotu zutela.

Itxaro Borda

Ez naiz ni judioen **suntsitzearen** eragile, baizik eta gure lurrrak okupatzen dituzten alemanak! Itxaro Borda

Beste batzuek, aldiz, badiote ezen, Jainkoak mundua suntsitu nahi balu, **suntsitzearen** akzidentea substraturik gabe sorraraziko lukeela, eta **suntsitze** horrek kosmosaren existentzia neutralizatuko lukeela. Xabier Kintana

Halako **suntsitze** eta lapurreta baten lekukoa izan nintzen. Joseba Sarrionandia

Sortze eta iraungitzearen mundu osoan, jaiotzearen kausak eta **suntsitzearenak** berberak dira. Xabier Kintana

Haien aburuz, jaiotza (atomoen) elkartzea da, eta **suntsitzea** , aldiz, banatzea. Xabier Kintana

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Non hasi bada **suntsitze** lanak? Joxan Elosegui

Berotegi-efektuko gasen emisioak murriztera edo ozono-geruzaren **suntsitze** prozesuari aurka egitera. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Susa hirian zabaldutako **suntsitze** -dekretuaren kopia bat ere eman zion, Estერი erakusteko, hark ere jakin zezan. Jose Antonio Mujika

Joan den urtean, Itoitz herriaren **suntsitze** bezperan. Herria

Integrazioaren eta baztertzearen arteko harreman nahasiak ez dira ordea enpleguen **suntsitze**- eta ugaltze-mekanismo horietara mugatzen. **Koro Navarro** Beste alde batetik badira helburua berengan ez duten espezieak ere, baina ugaltze- eta **suntsitze**-legeen nahitazeko ondorio direnak, hala nola, adibidez, simaurtegiatan jaiotzen diren har mota ezberdinak. **Xabier Kintana**

Sistema kapitalista **suntsitze**-bidean jarri nahi zuen. **Askoren artean**

Zinez parte hartu ahal zenuen harri-tailuen **suntsitze**-gau hartan, Tuzididak kontaktzen duen bezala? **Itxaro Borda**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Urrats bakoitzak, beraz, hautespeneko informazio **suntsitze** bat dakar. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

herrien suntsitzea (5)

suntsitzear *adlag* suntsitzeko zorian.

Jeneroa ezagutzen zuen espezialista, etxekoandre hura, **suntsitzear** baitago: sukaldaritzako oinarriak ezagutu gabe, nekez molda ditzake neofitoak errezeta gehientsuenak.

Edorta Agirre

suomiar ik suomitar.

suomiera *iz* finlandiera.

Fino-ugrtoa, -beste hizkuntza batzuen artean, benetako finlandiera edo **suomiera**, mordvinera, laponiera eta abar hartzen dituen-, Iparreko Errusian eta Siberian hitz egiten den hizkuntza familia bat da. **Isabel Arrigain**

Suomiera batuaren sorrera eta gorabeherak. **Berria - Kultura**

Suomiera ikasteko eskuliburu alemaniar baten aldamenean. nola itzul daiteke hori guztia euskaratik zuzenean danierara, edo **suomierara**, edo errusierara, edo frantsesera? **Harkaitz Cano**

Garai hartakoa dugu Joanen Leizarragaren Itun Berria (1571), baita Europan latinetik zuzenean egin ez ziren Bibliaren lehengo itzulpenak ere (Se Wsi **suomieraz** (1548), etab.). **Askoren artean**

suomitar (*orobat suomiar*) *izond/iz* finlandiarra.

Conceiçaok eskuin aldetik egindako barnekaldiren bat, eta Niemi **suomitarrak** egindako erdiraketa gaiztoak ziren arrisku bide bakarrak. **Berria - Kirola**

Longfellowek berak ere Kalevala **suomiar** poema epiko nazionala hartu zuen eredu. Horretan ibiltzen direnek diotenez, orain arte inon topatu duten hitz palindromikorik luzeena **suomiarren** hizkuntzako bat da: saippuakivikauppias. **Xabier Olarra**

suontzi (*orobat sutontzi*) 1 *iz* suarekin dabilen berogailua.

Izugarri handia zen **suontzia**, mende bat zuen, eta pertsona lodi eta nagia inginahia bezala zerion beroa. **Xabier Olarra**

Enborren beroa gorabeherarik gabe heltzen zaie **suontzitik**, eta kandlek sabaia argitzen dute. **Xabier Olarra**

Hotzak egoten zen; horregatik agindu zuen beti piztuta egon zedila portzelana zurizko **suontzi** biribila. **Xabier Olarra**

Batzuetan goialde arte egoten ziren hizketan gela hartako ilunpean, **suontzia** hoztu eta Henrikek bere Bourgognearen azken tanta edaten zuen arte. **Xabier Olarra**

Egur-ikatzezko **sutontzi** baten inguruan. **Agustin Otsoa**

Bazen petroliozko **suontzirik** gaua argizatzen. **Juan Garzia**

2 (hitz elkartuetan)

Bakoitza zegokion maitale-gelarantz abiatzen zen, non egur-**suontzi** bat piztuta egoten baitzen. **Xabier Olarra**

Ezkoargi sagaratuak bezalako zurbil ageri zen eta intsentsu-**sutontzi** gisako dirdai biguna zerien begiei. **Juan Garzia**

suontzitxo (*corpusean sutontzitxo soilik*) *iz* suontzi txikia.

Biharamun goizean goizetik eskatu zituen berriak; ez ziren hobekak izan, eta gelan eman zuen egun osoa, **sutontzitxo** batzuetatik, ketan, usain bortitzak zeruela. **Josu Zabaleta**

supazter (*orobat su-bazter, subazter g.er. eta su-pazter g.er.*) 1 *iz* sutondoa.

Erran gabe doa bigarren etxe horretan ere ohea prest zegoela aspaldian, **supazter** eder bat lagun, dena gar eta pindar. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Supazterra, laratza, hauspoa, tigre buru diseatua, telebista. **Joseba Sarrionandia**

Neguko gauetan, **supazterrean**, istorio beldurgarriak kontaktzen zizkigun Iratiko oihaneko lamina, basajaun edo gizotsoez. **Aingeru Epaltza**

Gizaseme handiki bat, **supazterrean** inguruan, mahai ongi homitu baten aurrean jan eta edan. **Pello Zabala**

Santu hauek, neguko **supazterreko** epeletan, tradizio handi eta sonatua izan dute. Etxeko **su-pazterrean** nahiago du goxatu. **Pello Zabala**

Azukre apur bat bada **supazterreko** apalean. zutik zegoen **supazterrean** aurrean. **Lopez de Arana**

Supazter ondoko murraren kontra zegoen jarlekuan. **Elena Touyarou**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Esan gabe doa jaki gozoek, liburu ederrek bezalaxe, su ezin atseginagoa eskaintzen digutela, **supazter** txokoan sentiarazten gaituztela. **Patxi Zubizarreta**

Andreak mihi klaska bat egin zuen eta **supazter** xokoko aukli apalean jarri zen. **Elena Touyarou**

Sukaldera heldu eta **supazter** izkina batean, abarkak askatu eta sutondoan zeuden espartinak oinetan lasa-lasa sartu bitartean. **Pello Zabala**

Abarkak erantzi eta gero, **supazter** inguruan bero-bero zeuden espartinak. **Pello Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

supazter txokoan (3)

super¹ 1 *izond* bikaina.

Pascualek aldiz bere beso **superraz** gaina hartuz Goñiri. **Herria**

Gatozen berriro beste **superrarengana**, Lopezegana. **Joxerra Garzia**

Gure mixeriak ezagututa, egingo nuke mister Lopez bihurtu zenean hasiko zela gurean jaun, señor eta **super** izaten. **Joxerra Garzia**

• 2 iz gasolina onena.

Berunik gabeko gasolina eta **superra** 13 zentimo euro garestitu dira. **Berria - Ekonomia**

Preziorik garestienak Gipuzkoan daude: batez beste, 95 oktanokoak 92,6 zentimo balio zuen, eta **superrak** 99,7. **Berria - Ekonomia**

Gasolindegia batzuetan **superrak** euro bat balio du. **Berria - Ekonomia**

Merkatzearekin, 95 oktanoko berunik gabeko gasolina litroak, batez beste, 90,5 zentimo balio ditu, 98 oktanokoak 99,2 eta 97 oktanoko **superrak** 97,7. **Berria - Harian**

3 (beste izen baten ezkerrean)

Hego Euskal Herrian egun dauden 355 zerbitzuguneetan hori da **super** erregaiaren preziorik garestiena. **Berria - Ekonomia**

Usurbilen, Irunen NI errepidean eta Altsasuko hiru gasolina zerbitzugunetan, **super** gasolina 1,019 euro ordaindu behar izan zuten atzo auto gidariak litroa. **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gasolina eta superra (3)

super² iz supermerkatua.

Bide bazterreko **super** bateko freskuran erosketak egin, eta, berriro ere berotan, muino mortu batean bazkaldu dugu. **Patxi Zubizarreta**

Gehienez, jende arrunta interesatzen zait, semaforoan edo **superrean** topa dezakedan jendea. **Ana Urkiza**

Denbora gutxirekin genbiltzanez, kabina bila hasi beharrean, taldekide mordoxka bat **superreko** telefonoan bertan jarri gara ilaran. **Patxi Zubizarreta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

garaziko superra (6)

superaberats (*corpusean super-aberats soilik*) izond adkor oso-oso aberatsa.

Joera ez da berezkoa, baizik eta konpainia handiek eta **super-aberatsek** azken 25 urteotan inposaturiko legeen ondorioa. **Berria - Gaiak**

superabit 1 iz diru sarrerak gastuak baino handiagoak diren egoera; diru sarreren eta gastuen arteko alde horren zenbatekoa.

Lehen aldiz iaz Espainiako Estatuaren kontu publikoek **superabita** izan zuten. **Berria - Ekonomia**

Gaur egungo pentsio sistemak Euskal Herrian **superabita** dauka. **Berria - Ekonomia**

Euskalduna jauregiak 700.000 euroko **superabita** izan zuen iaz, diru laguntzarik gabe. **Berria - Kultura**

Pentsioen sistemaren arteko **superabita** 200 milioi eurokoa baino handiagoa da. **Berria - Ekonomia**

Kontua da, gaur egun Gizarte Segurantzaren eta babes sozialerako gainerako sistemaren **superabita** [...] beste gastu publiko batzuk finantzatzeko erabiltzen ari dela. **Berria - Ekonomia**

Alderdi Demokratikaren oroitari zuten aurreko presidente Bill Clintonek 537.000 milioi dolarreko **superabita** utzi ziola George Bushi. **Berria - Ekonomia**

Inportazioak gutxitu ahala (%4,8), merkataritzak lortutako **superabita** ere murriztu da: %50. **Berria - Ekonomia**

Munduan leku gutxitan ixten dute urtea **superabitarekin**. **Berria - Euskal Herria**

Superabita helburu, gastu sozialaren kaltetan. **Berria - Euskal Herria**

Superabita badago, beste gauza batzuetarako erabil dezake, eta defizita badago, beste iturri batzuetatik hartu beharko litzateke dirua. **Berria - Harian**

2 (izenondoekin)

Alemanian, Irlandan eta Suedian izan dira **superabit** handienak, eta Erresuma Batuan, Espainian eta Grezian defizit handienak. **Berria - Ekonomia**

Azaroan Euroguneko **superabit** komertziala 5 mila milioi eurokoa izan zela jakin zen. **Berria - Ekonomia**

PP Espainiak **superabit** ekonomikoa izateaz harro agertu den bitartean, egoera soziala eta ikerketen arlokoa «argi eta garbi hirugarren mundukotzat» jo du Valentziako Izquierda Unida alderdiak. **Berria - Mundua**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Halako **superabit** kopuruek erakusten dute egiturazko aldaketekin Txina munduaren lantegi bihurtzen ari dela. **Berria - Ekonomia**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Txinak hirukoiztu egin zuen bere merkataritza **superabita** 2005ean. **Berria - Ekonomia**

Beti utzi zuen argi defizitak konpentsatu egin behar zirela, atzerakada garaiko defizitak oparoaldiko aurrekontu **superabitek** konpentsatu behar zirela. **Iñaki Heras**

Desiragarria da truke tasan malgutasun handiagoa izatea kontu korronte **superabit** handia duten herrialdeek, batez ere Txinak. **Berria - Ekonomia**

5 irud/hed

Euskal Herria politikoen herria da, ekintza, egitasmo, proiektu eta deialdi politikoek **superabit** nabarmena daukana beste edozein giza-alorren ondoan. **Pako Aristi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euroko superabita (8); **euroko superabita izan** (3); **milioi euroko superabita** (6); **superabita izan** (9); **superabita izan zuen** (3)

superaita iz (*corpusean super-aita soilik*) iz adkor aita oso-oso bikaina.

-Munduan diren whisky botila oro bere **super-aitak** doilor eta gaizkile guztien buruan lehertzeko direla uste du orain **Aingeru Epaltza**

superalbiste (*corpusean super-albiste soilik*) iz adkor albiste oso-oso bikaina.

Punta-puntako **super albistea**, ez bakarrik hori lortua zukeelako, baita 60 urterekin lortua zukeelako ere. **Jon Muñoz**

superanarko (*corpusean super-anarko soilik*) izond/iz adkor oso-oso anarkoa.

-Ni **super-anarkoa** naiz. **Sonia Gonzalez**

superapostolu *iz adkor* apostolu oso-oso bikaina.

Hala ere, uste dut ez naizela ezertan **superapostolu** horiek baino gutxiago. **Elizen arteko biblia**

superargitsu *izond adkor* oso-oso argitsua.

Gida gaitzazu hizketaldi mistikoen gailur txit garai, superfrogagarri eta **superargitsuraino**. **Joan Mari Lekuona**

superarin (*orobat super-arin*) *izond adkor* boxeoan, pisuez mintzatuz, arinena.

Lallanak **superarin** pisuan, eta Los Arcosek pistu ertainean. **Berria - Kirola**

Baina kasatu egin zuten gimnasiotik, **super-arinetan** Espainiako txapelketarako prestatzen ari zen bat, Tony Ferreira uste dut, K.O. utzi zuelako entrenamenduan **Koldo izagirre**

superarku (*corpusean super-arku soilik*) *iz* Zientzia-fikziozko elementua.

Iriarte ez zen CERNeko laborategiko **super-arkuen** artean atzera hezuramaitu. **Iban Zaldua**

Izan ere, Iriarteren itzulerarako programatutako unean haren ordezkari ekipoko kideek makinaren **super-arkuen** pean jaso zutena hamaikagarren laborategi saguaren gorpu kiskalia izan zen. **Iban Zaldua**

superastearte *iz* Ameriketako Estatu Batuetako hauteskunde kanpainan, estatu gehienetan primarioak egiten diren asteartea.

Superastearte horretan, primarioak izango dira 12 estatutan, tartean Kalifornia eta New York. **Berria - Mundua**

'**Superasteartearen**' zain **Berria - Mundua**

superatomiko *izond* atomikoa baino areagokoa.

Eta mila urteren buruan, jendea orduko sei mila kilometroko abiadan ibiliko da indar **superatomikoz** mugituriko autoetan, eta zertarako? **Koldo Biguri**

superatu, supera, superatzen **1** du *ad* gainditu.

Horiek guztiek -ilustratuak eta kosmopolitak- esan beharrik ez dago, bereziki "nazio arazoak" edukitzen dituztela **superatuta**. **Joxe Azurmendi**

• **2** da *ad* hobetu.

Jokalari horiek arreata deitu didate, jakin izan baitute Hormadin izan diren garaian **superatzen**. **Berria - Kirola**

3 (era burutua izenondo gisa)

Begira, alarde **superatu** horren ordezkari, antola ezazue, nafar arnegatu horiek, gerra operistiko bat. **Patziku Perurena**

Sasoi bateko hitz eta lanbide **superatuak**. **Pello Zabala**

superautobide (*corpusean super-autobide soilik*) *iz adkor* lerro askoko eta zirkulazio handiko autobidea.

Behin Brattleboro-ko aldirietara iritsitakoan, Tomek esan zuen asperturik zegoela **super-autobideez** eta nahiago zuela errepide txikiagoetara aldatu, landa-inguruetako bide ez hain beteetara, alegia. **Oskar Arana**

superazio *iz* gaintitzea.

Labur-labur hauxe da funtsean ideia: "nazioen **superazio**" zentzu txarrean idealista horiekin guztiekin egiten dena da [...] XX. mende osoa inexistente deklaratu. **Joxe Azurmendi**

superbaloratu, superbalora, superbaloratzen du *ad* zerbait eta norbait, dagokiona baino areago balioetsi.

Ikasten dugulako zintzoen zein gaiztoen ondasun eta gaitzak ez **superbaloratzen** eta zintzoen ondasun bereziak bilatzen, baina, batez ere, gaiztoei soilik gertatzen zaizkien gaitzetatik ihes egiten. **Imanol Unzurrunzaga**

superbanda *iz adkor* parte-hartzaile askoko edo kalitate handiko musika-banda.

Inguruan, **superbanda** bat: hiru perkusio jotzaile, bi gitarra, baxua, disko jotzailea, beste hiru kantari (horietako bat flamenko dantzaria), tronpeta jotzailea [...]. **Berria - Kultura**

Superbanda bat osatu du Joselek. **Berria - Kultura**

superbarroko (*corpusean superbaroko soilik*) *izond adkor* oso-oso barrokoa.

1905eko *Vida de Don Quijote y Sancho*-n, bizkaitarrenten kritiko zorrotza, ez dakit paroxismo edo erretorizismo **superbaroko**, inoren lotsagarri samarreraino heltzen da bera. **Joxe Azurmendi**

superbenientzia *iz* filosofian, maila altuko eta maila baxuko nolakotasunen arteko mendekotasun erlazioa.

Monismo anomaloiari egiten zaion bigarren kritika, hau ere maila tekniko handikoa, Davidsonen eztabaidaren lehen lerrora ekarri zuen "**superbenientzia**" kontzeptuari eta hari atxikitako gaitasun kausalari zuzentzen zaiona da. **Askoren artean**

superbiente *izond/iz* bizirik atera dena.

Entrenatzaile bat: Dai Dallings, ingeles bat, ukabil hutseko denboratik **"superbiente"** bat. Pablo Sastre

superbike *iz* lastertasun motoziklismoan erabiltzen motozikleta-mota, serieko modelo baten aldaera izan behar duena.

Ziurrenik **Superbikeetan** ariko da Biaggi 2006an. Berria - Kirola

Superbike -tan izandako arrakastak bultzatu zuen MotoGPra salto egitera, eta arrakasta uste baino lehenago iritsi zitzaion. Berria - Kirola

Troy Bayliss **Superbikeetara** itzuliko da. Berria - Kirola

laz MotoGPn aritu ziren zenbait gidari **Superbike** Txapelketara pasatu dira denboraldi honetan. Berria - Kirola

Gaur hasiko da Qatarren **Superbike** denboraldia. Berria - Kirola

superbikote *iz* neurritz kanpoko bikotea.

Banaka onak badira [...] askoz hobeagoak dira elkartzan direnean, hortaz aipaturiko saria, bakarrik **superbikote** batek jaso ahal duena. Berria - Kultura

superbisatu, superbisa, superbisatzen du *ad* gainbegiratu, ikuskatu.

Pilotak aukeratzaren diren egunean sendagileak **superbisatuko** luke pilotarien egoera, eskuetakoa batik bat, ziurtatuz egoera onean daudela kantzara irteteko. Berria - Kirola

superbizi, superbizi, superbizitzen da *ad* bizirik atera, bizirik iraun.

Erabakiak erreazioz hartu dituela aitortzen du Laura Mintegik eta **superbizitzeko** modu bakarra gizonetzkoa izatea zela pentsatzen zuela. Ana Urkiza

Neka-neka eginda nengoen ulertzeko egin behar nuen ahaleginarengatik, eta bizi-beharraren edo **superbizi** -beharraren emozioengatik. Joxean Sagatzizabal

superbonba *iz* bonba atomikoa.

Haietako gehienek zuten zerikusia, era batean edo bestean, **superbonbaren** garapenean. Fernando Morillo

superbotere *iz* neurritz gaineko boterea.

Alternatiba jendearen boterea da, **superbotere** berria. Berria - Kultura

superdemokrata *izond/iz* adkor oso-oso demokrata.

Baina demokraziaren zaindaria beren ustezko **superdemokrata** batzuek hor ez dute -liburuan bazegoen zer aukeratu aproposagorik, hori bilatzen bazuten, baina frase horixe da denek alegatzen dutena- faxismoaren apologia eta "planteamientos totalitarios de un ideólogo abertzale" baizik (J. Juaristi) irakurri ahal edo nahi izan. Joxe Azurmendi

superegitura (*corpusean super-egitura soilik*) *iz* gaineko egitura. ik **supraegitura**.

Historikoki -dio Jaspersenek-, Europan zehar egin izan diren antzeko diru batasunek, **super-egitura** politikorik gabekoek, alegia, porrot egin dute. Iñaki Heras

superego (*orobat super-ego*) *iz* subkontzientearen zatia, ego-aren kontzientzia gisa aritzen dena.

«Egoa», **«superegoa»**, «estutasuna», «larritasuna», «ametsen interpretazioa» (sic), eta tartean etengabeko *ad hoc*-eko hipotesiak: «Hau esan duzu, baina beste hura esan nahi zuen (sic) zeure inkontzientea». Berria - Harian

Lacantentzat psikoanaliaren helburua ez zen subjektuak sakrifizioerako prestatzea, baizik eta sakrifizioaren lilura terribleari aurre egitea, **super-egoaren** aginduari buru egitea. Joseba Zulaika

Super-ego abertzaleari bere bizitza osoa entregatzearen kulpaa garbitzeko agian, Etxebarrietak ausarkeriaz onartu zuen heriotza. Joseba Zulaika

Sugeak eta Samaelek Id-en lekua betetzen dute, Adamek, aldiz, borrokan garaituak diren Ego eta **Super-egorena**. Xabier Kintana

supereroale *izond* metalez mintzatuz, supereraletasuna duena.

Ingeniariak ezin du lorpen hori berdindu, non eta ez dituen erabiltzen zero absolututik hurbileko tenperaturan funtzionatzen duten material **supereroale** berriak.

Supereroalei esker korrontetik galdu gabe garraia daiteke korronte elektrikoak; beraz, kobrezko hariak baino korronte dentsitate 2000 aldiz handiagoak garraia ditzakete.

Irene Aldasoro

supereroaletasun *iz* metal batzuen nolakotasuna, egoera jakin batzuetan korronte elektrikoarekiko erresistentzia erabat galtzean datzana.

Azkeneko urte horietan etorri zaizkigu, Jugoslaviako gerra zikinarekin batera, asmakizunak bata bestearen ondotik: satellite bidezko telefonoa, ahotsa mekanikoki ezagutzea, txartel "inteligentziadunak", giza genomaren mapa, **supereroaletasuna**, auto ez kutsagarriak, mikroingeniaritza, animalia eta landareen genetika, eta abar. Pello Salaburu

supererraldoi (*orobat super-erraldoi*) *iz* eski mota, jaitsiera librearen eta eslalom erraldoiaren ezaugarriak biltzen dituena.

Max Raufferrek historia egin zuen atzo Munduko Kopako Val Gardenako **supererraldoia** irabazita. Berria - Kirola

Turinen bertan aritu da erreabilitazio lanak egiten, eta jaitsiera eta **supererraldoi** modalitateetan parte ez hartzea erabaki du azkenean. Berria - Kirola

Eski alpinoa: **Supererraldoia**. Berria - Kirola

superrealismo (*corpusean **super-errealismo** soilik*) iz kontakizun estiloa, errealismoaren ezaugarriak areagotzen dituena.

Super-errealismoak arduraz saihesten du kontakizuna eszena antolatuetan zatikatzeko konbentzioa; intuizioen bat ematen bada, emozioen bat sortzen bada, gertaera hori jaso egiten da, baina besterik gabe, beste edozein gertaera jasotzen den bezala. **Koro Navarro**

Super-errealismoko pertsonaiaren kontzientzia kontakizuneari sartu ohi da: pertsonaiak isildu egiten dira, hausnarrean dihardute, zalantzak dituzte, baita obsesioak ere. **Koro Navarro**

Etsipena, halako onarpen adoregabetua, agertzen dira beti **super-errealismoaren** gai nagusien artean. **Koro Navarro**

Beste zenbait adituk diotenez, beste literatura joera zabalago batean kokatu behar da Raymond Carver, errealismoaren baitan, eta, zehatzago, **super-errealismoan**. **Koro Navarro**

Minimalismoa, **super-errealismoa**, errealismo zikina: sailkapenak, etiketak, idazle jakin baten nondik norakoak argitzeko nolabait ere baliagarriak izan daitezkeenak. **Koro Navarro**

supererrealista (*corpusean **super-errealista** soilik*) supererrealismoarena, supererrealismoari dagokiona.

Eta hori guztia kontuan harturik, Carver **super-errealista** dela esan beharko dugu. **Koro Navarro**

superespezialdu *izond* superespezializatua.

Bi heren, berriz, maila **superespezialduan** tratatzen ditugu; elikadura desorekak kronikoak dira kasu askotan. **Berria - Euskal Herria**

superespezialitatu *izond* oso-oso espezializatua.

Ukipen errezeptoreak nerbio sistemako bukaera **superespezializatuak** dira, kanpotik datorren ukimenezko edozein estimulu atzematen duten oso sentsore sofistikatuak. **Luis Elberdin**

superestatu (*corpusean **super-estatu** eta **superrestatu** soilik*) iz *adkor* estatu erraldoi zentralizatua.

Hobbes filosofoak aipatutako **super-estatu** tiranikoa. **Fernando Morillo**

«**Super-estatu** europar bateko probintzia ez izateko, bozkatu ez!», zioen sozialisten kanpainak. Alvarezen aburuz, [Europan] «**superrestatu** bat eraiki nahi dute». **Berria - Harian**

Estatu asko Europa zentralizatu eta **super-estatu** bihurtzearen aldekoak dira; beste batzuk, deszentralizazio gehiago eskatzen dute. **Berria - Harian**

superestruktura iz superegitura.

Lurra edukitze eta kontrol pribatuari loturiko jabetza delako teoria da gizarte modernoaren oinarria, eta **superestrukturaren** merezidun nabarmena. **Xabier Olarra**

Hertsapen **superestruktura** baten oinarriak ezarri. **Xabier Olarra**

superfilial *izond* gizarte eta zibilizazioez mintzatuz, zenbait filial biltzen dituena. **iks****suprafilial**.

Bigarren mailako zibilizazio suprafilialen taldeak (edo lehen mailako zibilizazioen enbor hilak) porrot egin zuen erabat, beste taldeko zibilizazioek -Helenikoak, Siriakoak, Indikoak- arrakasta izan zuten puntuan; zibilizazio **superfilialetako** inork ez zuen, bera hil aurretik, eliza unibertsalik sortu. **Iñaki Mendiguren**

superfin *izond* *adkor* oso-oso fina.

Merkatarien arreta Mullen etxeko lau produktu **superfin** berrietara bideratzeko ausardia izan dugu. **Lopez de Arana**

Azken orduko lasterketa-erratz honek izarrezko kirten aerodinamiko **superfina** dauka, diamantea bezain distira-emaile gogor batez tratatua da. **Iñaki Mendiguren**

superfinal iz finalen finala.

Superfinala igandean dugu. **Herria**

superfizial *izond* azalekoa.

Esan izan didate idazle oso **superfiziala** naizela, baina nire helburuetan ez da sartzen pertsonaien izaera, psikologia eta abar sakontzea. **Ana Urkiza**

Maurrasen luman Erromantizismoaren gaitzespenik gaitzena da hori: edozein haizetakoa, errogabekoa, **superfiziala** esan nahi du. **Joxe Azurmendi**

superfizie 1 iz eremua.

Tabernakuluaren atzean, harrizko oholza baten gainean, gaitzeko errezel bat luzatzen zen lurretik bobedaraino, estatuaz eta azpierrez bez zamatua, orain urreztatua, orain herdoildua, hirurogei oineko **superfizie** batean mailakatuz Inkisizioaren santu bikainak, Felipe IIaren arkitektura tragiko eta malurazkoarekin nahasiak. **Koldo Izagirre**

2 superfizie handi salgune handia.

Beste bi langilek ere lan bera egiten dutela kontuan hartuta, lauhun mila kaxa urtean, eta bakoitzean seinatua xanpain botila, borobilduz, bi milioi t'ardi xanpain botila beraz, banaketa enpresak Europako **superfizie** handietara barreiatzen dituenak. **Harkaitz Cano**

superflic iz *adkor* ustez polizia-bertuteen maila gorena lortzen duen agentea.

Charles Pasqua **superflicak**, esaterako, 1981ean balioabetutako legea jarri zuen berriaz indarrean 1986an, legeaz kanpoko etorkinak kanporatzeko. **Berria - Harian**

superfliu *izond*

Nozdriovek azaldu zuenez, harako kondesa haren eskutxoak guztiz **superfliu** ziren (nonbait, perfekzioaren gorena maila adierazi nahi zuen hitz horrekin). **Jose Morales**

superfluidotasun *iz* materiaren egoera edo nolakotasuna, biskositate absentsia erabatekoak ezaugarritzen duena.

Ezaugarri harrigarriak ditu materia horrek, irakaslearen arabera, **superfluidotasuna** tartean. **Berria - Harian**

superfrogagarri *izond adkor* oso-oso frogarraria.

Gida gaitzazu hizketaldi mistikoen gailur txit garai, **superfrogagarri** eta superargitsuraino, zeinean Teologiako misterio bakun eta absolutu eta aldaezinak ilunpe ilun-ilunetan argitasun gorenez distiratzten duten. **Joan Mari Lekuona**

supergau *iz adkor* gau oso-oso bikaina.

Mila esker telebistari **supergau** honengatik. **Patxi Iturritegi**

supergizon (*orobat super-gizon*) **1** *iz* gizakiaren ahalmenen gaineko ahalmenak dituen gizakia.

Paraxutisten kasta bat sortu zuan orduan, **supergizonak**, kolorez apainduak, nabala gerrian eta fusilak eskuetan karriken jaun eta jabe paseatzen zirenak. **Itxaro Borda**
Gure presidentea ez da **supergizon** perfektoa, baina kargu horretara zer edo zergatik heldu da eta, bizi dugun egoera sozio-politikoari gainbegiratzuz gero, ezin esango dugu bere lana gaizki egin duenik. **Patxi Zubizarreta**

2 filosofian, gizaki ideala, giza eboluzioaren gailurra adierazten duena.

Horren guztiaren kontra proposatzen dena **supergizona** da, Nietzschekek Zaratustraren kontraebanjelioan predikatua. **Joxe Azurmendi**

Lurrearekiko leialtasuna izango da **supergizonaren** jaun-morala. **Joxe Azurmendi**

Pedro Leandro Ipuche-k idatzi du **supergizonen** aitzindari zela Funes, "halako Zarathustra hezgabe bezain jatorra". **Juan Garzia**

supergorri *izond/iz* oso-oso gorria.

Eta, "zoragarri" esateko, **supergorria** (*prekrasni*) erabiliiko dute. **Gotzon Garate**

supergose *iz adkor* gose oso-oso handia.

-Andereño, **supergosea** daukat! **Joxerra Garzia**

Demagun ikasleak **"supergose** naiz" zotinka esaten asmatzen duela, eta andereñoak, sari gisa, ogitarteko bat ematen diola. **Joxerra Garzia**

superharrapari (*corpusean super-harrapari soilik*) *iz* animaliez eta kidekoez mintzautuz, oso-oso harraparia dena.

Belatza elikadura piramidearen gailurrean dagoen **super-harrapari** bat da, eta gu ere gailur horretan gaudenez, hari gertatzen ari zaiona guri gerta dakigukenearekin aldera dezakegu **Berria - Euskal Herria**

superheroi (*orobat super-heroi*) *iz* fizikiozko pertsona, heroi klasikoaren ezaugarriak gainditzen dituena.

Etorkizunean kokatuta zegoen, eta protagonista **superheroi** sobietar bat zen, "Superhombre" hura alegia. **Iban Zaldúa**

Izan zitekeen egia Terrence-k xarmarik ez edukitzea, baina **super-heroi** teknologiko bat zen. **Oskar Arana**

Deborah Eisenbergekin idatzitako ipuin luze eta guretzat ezinbesteko bat, **Superheroien** *ilunabarra* izenekoa. **Berria - Mundua**

Zendu aurreko asteetan ere Flash **superheroi**a marrazten aritu da Lampert, haren alabak adierazi duenez. **Berria - Kultura**

Atzo bezala, Batzman eta Antxon **superheroiak** kalera aterako dira ere lan egongoaitasuna salatzerako. **Berria - Ekonomia**

Mutikoa bere mahaian eserita zegoen, plastikozko **superheroi** bat eskuetan. **Unai Iturriaga**

superhornitu (*corpusean super hornitu soilik*) *izond adkor* oso-oso hornitua dagoena.

Udako sexu-bide hiper beroak xerkatzen nituena nik ere, inori deus aitortu gabe, oihanak suntsituz sortzen ziren hilabetekarietako gizon (29/3 buzt.) zein emazte (130 p)

super hornituekin ? **Itxaro Borda**

superinjustizia *iz adkor* bidegabekeria ikaragarria.

«Dolarraren balioa gutxitu egingo da azaroaren 8tik aurrera, **superinjustizien** superpotentziaren dolarraren balioa», esanez amaitu zuen Castrok. **Berria - Mundua**

superintendente *iz* zerbait zaintzeko eta kudeatzeko ardura duen pertsona.

Biharamunean poliziako **superintendente** bat heldu zen herrira. **Gotzon Garate**

«Zaharberritze ikusezina izan dela esan daiteke», esan du Antonio Paoluccik, Florentziako museoetako **superintendenteak**. **Berria - Kultura**

Eraikineko **superintendentearen** ohiko kontrolak eta bulegoetako galderak. **Iñaki Zabaleta**

superinteresgarri (*corpusean super-interesgarri soilik*) *izond adkor* oso-oso interesgarria.

Udal igerilekuetako eguneko bisitari kopurua, munduko atxur-jaurtitze txapelketa ez-dakit-nongo-herritan, edo gehien kontsumitzen diren izozki moten gaineko kale-inkesta- **super-interesgarria**. **Aingeru Epaltza**

superior 1 *iz* nagusia.

Michel Garat, Baionako seminarioan **superior** zena, Miarritze San Martineko apez nagusi izendatua da. **Herria**

Pertsona hura **superior** zen kolejo haundi batean -1500 haur-. **Menane Oxandabaratz**

2 superior ohi

superizaki *(corpusean **super-izaki** soilik)* iz izakien ahalmenen gaineko ahalmenak dituen izakia.

Sendagilea **super-izaki** bihurtzen da. **Berria - Kultura**

superizar *(corpusean **super izar** soilik)* iz zinema eta kideetako izar oso-oso ospetsua. **iksuperstar**.

Langile amorratua, egungo **super izar** askok ez duten grina du irabazteko. **Berria - Kirola**

superjainkozko *izond **adkor** oso-oso jainkozkoa.*

Oi Hirutasun, kristauen teosofiaren talai supernatural eta **superjainkozko** eta superrona. **Joan Mari Lekuona**

superjumbo *iz **adkor** jumbo erraldoia.*

Jumbotik **superjumbora**. **Berria - Harian**

superkapo *iz **adkor** mafiako taldeetan, kapo nagusia.*

Azkenaldian ere, diotenez, kokainaren **superkapoetako** batzuk bertan laketu omen dira. **Berria - Kirola**

superki *adlag* harrokeriaz.

Gaitzeko balentriak ditu alde batetik Bush jaunak azken lau urte hautan herri horrentzat egin dituen guziez, bere ingurukoek **superki** lauzkatuturik, bereziki terrorismoari sudurra hautsia diolakoan bere ustez, ahantziz haatik mila bat soldado amerikano badituela Irakian hiltzerat utziak. **Herria**

superkomisario *(orobat **super komisari)** iz botere bereziak dituen komisarioa.*

Barrosok ukatu zituen «koordinatzaile rol horrekin **superkomisario** bat sortu» duela zioten iruzkinak. **Berria - Mundua**

«Ez dut **super komisari** bat bakarrik nahi, bai ordea, 24 **super komisari**» aditzerat eman zuen, kontu honez, Barrosok. **Berria - Mundua**

superkongresu *iz **adkor** kongresu erraldoia.*

2001ean Donostiako Egia kultur etxean antolatu zen **Superkongresu** arrakastatsuari jarraipena eman zaio aurten Gasteizen. **Berria - Kultura**

superkonputagailu *(orobat **super-konputagailu)** iz oso ahalmen handiko konputagailua.*

Lan gaitza da ikasbide hori, baina, hain emeki eta oharkabean lortzen dugunez, ia ez gara konturatu ere egiten zeinen konplexua den (nahiz eta **superkonputagailurik** handienak ere oraindik oso urrun egon antzekorik lortzetik). **Xabier Olarra**

Horrelako fenomeno konplexuak ekuazio matematiko oso zailak ditu eta kasu horietan Einsteinen Teoriak aurreikusten dituen grabitate uhinen kopurua eta espektruma aurreikustea **super-konputagailuaren** bidez kalkula daiteke soilik. **Berria - Gaiak**

Physical Review D aldizkarian argitaratuko den artikulu batean NASAko lantalde batek Columbia deritzaion **super-konputagailuaren** bidez bi zulo beltz erraldoiren topaketaren ondorioak aztertu ditu. **Berria - Gaiak**

superkontzentratu *(corpusean **super-kontzentratu** soilik) izond oso-oso kontzentratua.*

Ametsetan bezala ari nintzen, **super-kontzentratua** eta super-lasai aldi berean. **Jesus Mari Mendizabal**

superkontzientzia *iz kontzientziaren gaineko kontzientzia.*

Kontzientziaren eta kanpoko begien lasaitze-ariketak eginez hasiko gara [...] horrela barne-begia eta **superkontzientzia** sosegatuko ditugu. **Iñaki Mendiguren**

superkopa *(orobat **super kopa g.er.) 1** iz Ligaren eta Koparen irabazleen arteko norgehiagoka.*

Espainiako **Superkopa** (2001-02 eta 2002-03), Asobal Liga (2001-02), Europako Errekopa (2003-04). **Berria - Kirola**

Eraitzak, ordea, bikainak izan dira orain arte: **Superkopa**, Kopa, Lauko Finala... **Berria - Harian**

Zurekin hitz genuen azken aldian Nazioen **Superkopako** bezperan izan zen. **Berria - Kirola**

Superkopako finala dute gaur Bartzelonak eta Ciudad Realek. **Berria - Kirola**

Porto Portugalgo **Superkopako** txapelkun. **Berria - Kirola**

9 Europako Kopa (edo Txapelkunen Liga), 2 UEFA Kopa, **Superkopa** bat eta Kontinente Arteko 3 Kopa irabazi ditu Madrilgo taldeak. **Berria - Kirola**

Denboraldi berria hasi dela-eta, bakoitzak bere ligetan dituzten aukerak neurtzeko balioko dien norgehiagoka jokatuko dute **Superkopan**. **Berria - Kirola**

2 (hitz elkartuetan)

Monakon, **Superkopa** txapelketan, Stingaci izeneko atezaina kokatu zen atepean **Berria - Kirola**

3 **Europako superkopa** Txapelkunen Ligaren eta UEFAren Europako Ligaren irabazleen arteko norgehiagoka; horren kideko saskibaloiko norgehiagoka.

Europako Kopa bat, bi Espainiako Liga, Kontinente arteko Kopa bat, bi Espainiako Superkopa eta **Europako Superkopa** bat irabazi ditu. **Berria - Kirola**

Hilabete batzuk geroago **Europako Superkopa** irabazi zuten Milanen aurka. **Berria - Kirola**

Egun hartan Portlandek **Europako Superkopa** lapurtu zion Bartzelonari (24-28), partida gogoangarrian. **Berria - Kirola**

bi **superkopa** (4); **espainiako superkopa** (15); **espainiako superkopa bat** (4); **europako superkopa** (21); **europako superkopa bat** (4); **nazioen superkopa** (3); **superkopa irabazi** (7); **superkopa jokatu** (3)
superkopako finala (6)
europako superkopan (3)

superkros iz

Superkrosa jokatu da gaur Donostian. **Berria - Kirola**

Gainera, larunbatean (gaur) belodromoan **superkrosa** dela-eta itxita dago, eta ezin naiz pistan ere entrenatu. **Berria - Kirola**

superlasai (corpusean *super-lasai* soilik) adlag oso-oso lasai.

Ametsetan bezala ari nintzen, super-kontzentratua eta **super-lasai** aldi berean. **Jesus Mari Mendizabal**

superlatibizazio iz maila oso handiko erlatibizazioa.

Lehen aspektuan deigarria eta guztiz harrigarria gertatzen da bere *De mystica Theologia* liburua sarrarazteko darabilen arren trinitarioaren **superlatibizazio** eta hiperkodatzea. **Joan Mari Lekuona**

superlatibo 1 *izond/iz* izenondoez eta kidekoez mintzatuz, nolakotasun baten maila gorena adierazten duena.

Adjetiboak, gehienetan, **superlatiboak** ziren. **Berria - Kultura**

Indoeuropar **superlatiboak** bi atzizki zituen. **Isabel Arrigain**

Azkenari dagokionez, badirudi adjektibo gisa eta **superlatiboan** errazago onartzen dugula izen gisa baino. **Iñigo Aranbarri**

• 2 *izond* oso-oso handia edo mutur-muturrekoa.

Espatar eta osmaliarrekin erronka **superlatiboa** gizatiarra izan zen, besteekin fisikoa. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adjektibo superlatiboa (3)

superliburu iz *adkor* liburu oso-oso bikaina.

Superliburu bikain asko batekin etorri, eta fotokopia xixtrin batekin joan! **Jon Muñoz**

superlizentzia iz 1 Formulako Sari Handietean parte hartzeko, pilotuak behar duten baimen berezia.

Baina taldeekin batera, FIAk ere talde horren erabakiak aintzat hartzen ditu, eta, Buttonek aipatutako jokabide hori hartuko balu, 1 Formularen beharrezkoa den **Superlizentzia** kenduko liokete. **Berria - Kirola**

supermajo *izond* oso-oso majoa.

Supermajoak denak. **Arantxa Iturbe**

superman iz supergizona.

Hemen nago-eta ni, txakur guztiak zure ondotik uxatzeko -esan nion, goxo baina irmoki, **superman** baten modura hitz eginez. **Pedro Alberdi**

Gizonak oheratzea baino gehiago, oheratu aurreko momentu haiek zituen atseginago Montserratek, bera jadanik ohean zegoela **superman** haiek galtzontzilotan ikusten zituenean... badakit zertaz ari naizen. **Joan Mari Irigoien**

supermerkatu (orobat *super merkatu g.er.*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian supermerkatu agertzen da*) 1 iz norberak hartzen eta iteerako kutxan pagatzen dituen janari produktu eta bestelako salgaiez hornitua dagoen saltegi handia.

Lehen soroak ziren hartan **supermerkatu** eta gasolindegia landatu dituzte, eta etxebizitza geometrikoek eten dute hodeiertza. **Eider Rodriguez**

Ercoreca **supermerkatuak**, Bizkaian txikizkakoen banaketan lidergoa duen kateak, *Ceal* **supermerkatuak** erosiko ditu. **Berria - Ekonomia**

Bide ertzeko **supermerkatu** batean geratzen gara garagardoa erostera. **Koro Navarro**

Luis **supermerkatuan** erositako gauza batzuk hozkailuan sartzen ari da. **Lourdes Oñederra**

Jakin zen, dena jakiten baitzen herrian, **supermerkatuan** alkohol ebasten harrapatua izan zela behin, bietan eta anitzetan. **Itxaro Borda**

Azkenean topatu dugu **supermerkatu** bat edredoa erosteko. **Harkaitz Cano**

Bakoitzak bere burua Ameriketara ikusten zuen; aita, kazetari, ama **supermerkatu** baten arduradun, [...]. **Juan Kruz Igerabide**

Supermerkatuko gasnategian nongoen zerbitzari anderearen aiduru. **Itxaro Borda**

lazko urtean arrantzatutako baleen okela «**supermerkatuetako** hozkailuetan dago oraindik». **Berria - Gaiak**

Lanbide ezberdinak: garbitzaile, **supermerkatuko** kutxazain, telefono bidezko salmentak... **Iban Zaldúa**

New Yorkeko asmakuntza dira deliak; erdi **supermerkatu** eta erdi taberna, urteko 365 egunetan eta 24 orduz irekita dauden lokal bereziak. **Harkaitz Cano**

Saltegi eta **supermerkatuetara** hurbildu den jendea gomit zen bere erosketak egin-eta zerbaiten uztera "Banque Alimentaire" kutxan. **Herria**

Gaurkoan **supermerkatu** batetik deitzen dizut, *Grand Canyon*erako bidean. **Patxi Zubizarreta**

Gure tenplo modernootan joan-etorri handienekoa **supermerkatua** dugu. **Berria - Kultura**

Supermerkatua itxi eta saltegi txikiak ireki behar ote dira? **Berria - Euskal Herria**

· Kontsumoa emendatu da joan den udan hemen gaindiko **super** eta "hyper" merkatuetan. **Herria**

2 (izenondoekin)

Auzoko emakumeek asteburuko erosketa hiriguneko **supermerkatu** handietan egiten zuten. **Joseba Urteaga**

Supermerkatu erraldi bat ireki dute eta egunkari guztiek dakarte albista. **Pako Aristi**

Supermerkatu publikoetan apalak ez dira behar bezain azkar betetzen, hondatutako makinak konpontzeko itxaron egin behar da eta ezin dira langile berriak nolanahi hartu,

erabaki guztiak Gobernuarekin kontsultatu behar baitira eta burokraziak luzatu egiten ditu gauzak.

Berria - Gaiak

Euskalduna eta kolono kuxkuxeroa, zaharra eta gaztea, behartsua eta aberatsa, saltzailea eta tratulanta, benetako kulturea eta erakunde-zoria, traidorea eta labeldun abertzalea, tribu azoka eta **supermerkatu** globalizatua. **Markos Zapiain**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

WWFk eta COOP **supermerkatu** kate suizarra soja alearen ekoizpen iraunkorrerako irizpideak zehazten ari dira. **Berria - Gaiak**

Sektore ekonomiko guztietako enpresak: [...] publizitate agentziak, argitaletxeak, inprentak, Internet zerbitzuak, Milan futbol taldea eta volleyball zein hockey taldeak, finantza zerbitzuak, aseguru etxeak, **supermerkatu** kateak eta saltegi kateak. **Berria - Harian**

Supermerkatu atarietan borrokak entseatzeko genituen, eta, askotan, jendeari guztia antzezpen bat zela azaldu beharrean gertatzen ginen», gogoratu zuen. **Berria - Kultura**

4 irud/hed

Posible da geroxeago zer edo zer gehiago harrapatzea joatea kale eta tabernetako **supermerkatu** itzelerara, hauts bihurtutako hegialak, beharbada. **Sonia Gonzalez**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

supermerkatura joan (4)

supermilitante *iz* erabateko militantea.

Etxeberriak, berak batez ere, ezin zuen portaera hura eraman, bera beste modu batekoa zelako erabat, oso anarkikoa, eta bileretan "Super" deitzen hasi zitzaion,

"supermilitante" esan nahiz bezala: "Superrek kontatu duen bezala", "Superren iritzia beste bat bada ere", eta dena hola. **Bernardo Atxaga**

superministerio *iz* berezko hainbat ministerio biltzen dituen ministerio erraldoia.

Azkenean, Raffarinék **superministerio** baten buru paratu zuen atzo Sarkozy: Estatu, Ekonomia, Finantza eta Industrian. **Berria - Mundua**

supermoderno *izond adkor* oso-oso modernoa.

Batez ere oharitzen dugunean, **supermoderno** eta postmoderno eta progre bezala saltzen zaigun azken-garrasi merkaduria asko eta asko, tradizio kontserbakor hobereneko zapi zaharrak baino ez direla. **Joxe Azurmendi**

supermotor *iz adkor* potentzia handi-handiko motorra.

Abiadura atsegin duenak Munduko **Supermotorren** Lehiaketa du, luxuzko Lusail zirkuituan. **Berria - Kirola**

supermusikari *iz adkor* musikari oso-oso bikaina.

Atal honetan hiru **supermusikari** ditu Capercailiek: Charlie McKerron biolin jotzaile trebea, Michael McGoldrick ezkertiarra eta anitza [...] eta Donald Shaw berak (teklatueta naguntzen edo akordeoian soloak burutzen). **Berria - Kultura**

supernatural *izond adkor* naturaz gaindikoa,

Ez haiz iritsiko ilunpe jainkozkoren izpi **supernaturalera** harik eta ihes egin arte guztiik heure buru askatuz eta gauza guztiak baztertuz. Oi Hirutasun, kristauen teosofiaren talai **supernatural** eta superjainkozko eta superrona. **Joan Mari Lekuona**

supernoba 1 *iz* erabateko eztanda baten ondorioz bat-batean argitasun gehitze nabarmen-nabarmena duen izarra.

Azken mende honetan astronomoek aurkikuntza ugari gehitu dituzte kosmosari buruzko ezagutzan: zulo beltzak, **supernobak**, pulsarrak, quasarrak, Eguzki Sistematik kanpoko planetak. **Berria - Gaiak**

Ustez zulo beltz bat aurkitu dute **supernoba** baten hondarretan. **Berria - Gaiak**

Lurra etengabe jotzen ari diren izpi kosmikoak duela mila urte eztanda eginiko **supernoba** batetik datozela frogatu zuten. **Berria - Gaiak**

Astronomoen esanetan, **supernoba** baten gamma izpiek ozono geruza suntsitu eta erradiazio ultramoreen eragina handitu egin zen. **Berria - Gaiak**

2 irud/hed

Gogora dezagun, oraindik urte asko ez direla, pop musikaren izartegiko **supernobarik** distiratsuen bihurtu zela *Creaming My Jeans* taldea. **Patxi Iturritegi**

supernumerario 1 *izond* eskalafoi batean, eskuarki eszedentzian dagoelako, maila bateko ohiko kideen zenbatekoari gehiturik agertzen dena.

Izendatzen diren euskaltzain **supernumerario** emerituen kopurua aintzat hartu, eta beste hainbeste euskaltzain oso berri aukeratuko dira. **Berria - Kultura**

75 urtetik gorako euskaltzain osoak [...] euskaltzain **supernumerario** emeritu izango dira. **Berria - Kultura**

2 zenbateko ohikoa gainditzen duena.

Bost egun **supernumerarioren** multzoak, ohiko urtea (ez bisusturtea) osatzen zuenak, [...]. **Iñaki Mendiguren**

superokupa *iz adkor*

Urki Muguruza inauteri giroan **Superokupa** bihurtutako gaztearen hitzak dira. **Berria - Euskal Herria**

superokupatu *izond adkor* egitekoek oso-oso hartua.

Hala dio nere Luzio zaharrak, jendaje libre **superokupatu** honetaz: [...]. **Patziku Perurena**

superon (*corpusean superron eta super on soilik*) *izond adkor* oso-oso ona.

"Aita! -oihukatu zuen- **super ona** da!"; baina Mikelek ez zuen entzun, urrun baitzen. **Ramuntxo Etxeberri**

superorkestra *(orobat **super-orkestra**) iz adkor* oso musikari bikainez osaturiko orkestra.

Une goxoan da Emily Smith eskoziarra: bigarren diskoa kaleratu du, *Unusual Suspects* [superorkestrako](#) partaidea da eta bisita honetara bi aparteko lagunekin etorri zitzaigun: [...]. [Berria - Kultura](#)

Mikeli gehixeago kostatu zitzaion lo hartzea, baina azkenerako soinua bandako [super-orkestrak](#) lortu zuen, une erromantiko bat profitatuz, Mikelen betazalak eroraraztea. [Unai Iturriaga](#)

superparamagnetiko *izond*

Temperatura baxuetan material ferromagnetikoen portaera dute (burdinazko iman baten antzera), baina temperatura batetik gora, material [superparamagnetiko](#) bihurtzen dira. [Berria - Gaiak](#)

superpisu *(corpusean **super pisu** soilik) izond* adkor oso-oso pisua.

[Super pisua](#) da zaku hau! [Ramuntxo Etxeberri](#)

superpoblatu *izond* mukuru jendeztatua.

Ez da gizakiarentzat, Txina edo beste herrialde [superpoblatuak](#) diren legez, ekologia hondamendi aldetik mehatxu izatera ere iristen. [Iñaki Heras](#)

superpop *izond/iz adkor* oso-oso popa.

Institutuko lau urteak elkarrekin egin genituen Margak eta biok; ["SuperPop"](#)-etik Rimbaud-eraino", berak aipatzea atsegin zuen legez. [Iban Zaldúa](#)

superportu *iz* portu erraldoia.

Mota horretako zentral batentzat «beste leku egokiago» batzuk daudela ere azpimarratu zuen Aranak, eta «Santurtziko [superportua](#) edo Arabako zenbait zonalde» jarri zituen adibidetzat. [Berria - Ekonomia](#)

Pasaiaiko [Superportuaren](#) egitasmoak itsaslabarrei kalte egingo diela adierazi dute. [Berria - Euskal Herria](#)

Jaizkibelgo [Superportuaren](#) kontrako mendi martxan parte hartzeko deia egin dute. [Berria - Euskal Herria](#)

[Superportuak](#) zuzenean hondatuko duen itsasertza balio natural goreneko eta babes bereziko gune gisa dago izendatua hamaika katalogotan. [Berria - Euskal Herria](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

[pasaiaiko superportua](#) (6)

[jaizkibelgo superportuaren](#) (3); [pasaiaiko superportuaren](#) (4); [superportuaren aurkako](#) (7); [superportuaren aurkako taldeak](#) (3)

superposizio *(orobat **super-posizio**) iz* gainjartzea.

Emaizak planoen [superposizio](#) baten inpresioa egiten zuen. [Anjel Lertxundi](#)

Emaizak planoen [super-posizio](#) baten inpresioa ematen zuen. [Berria - Kultura](#)

superpotentzia *iz* oso indar politiko eta ekonomiko handia, eta defentsa- eta eraso-baliabide sendoak dituen estatua.

Munduko lehen [superpotentzia](#). [Txema Ramirez de la Piscina](#)

Uste dugu [superpotentzia](#) horien esku dauden armak arriskutsuak direla. [Berria - Mundua](#)

[Superpotentzia](#) erdi-europar batek agintzen zuen bloke bakoitzean: Europatik, Europako giza proiektio, kultura eta ideologiatik, atereak ziren bata zein bestea. [Koro Navarro](#)

superprofesional *(corpusean **super profesional** soilik) izond* oso-oso profesionala.

Burbuilatik irten eta futbol [super profesionala](#) atzean utzi nuen. [Berria - Kirola](#)

superprozesu *iz adkor* prozesu erraldoia.

Fiskalak gurekin bukatzea espero zuen, 2004ko martxoko [superprozesuari](#) esker, non guri den-dena onartzen ahalegindu zen. [Berria - Mundua](#)

superrealista *izond* surrealista.

Gogora dakargun berriro Jacques Reboul-en orri [superrealistan](#) argitaraturiko Paul Valéry-ren gaitzespen hurra. [Juan Garzia](#)

superrestatu ik **superestatu**.

superron ik **superon**.

supersagu *(corpusean **super sagu** soilik) iz adkor*

Bioteknologiaren bidez marrazki bizidunetako [Super Saguaren](#) parekoa sortzea dagoela erakutsi berri dute Amerikako Estatu Batuetako zientzialariek. [Berria - Gaiak](#)

supersare (*corpusean super-sare soilik*) iz adkor sare erraldoia.

Egun, Interneterako **super sare** bat lantzen ari dira, LCH azeleragailuaren saiok emango duten datu kopuru erraldoia kudeatzeko. Berria - Gaiak

supersoka iz partikulak eta oinarriko indar guztiak azaltzeko teoria bateratuan, lau dimentsiotako espazioan bibratzen duten soka mehe supersimetrikoetako bakoitza.

Azken urteotan **supersoken** teoriari ekarpen garrantzitsuak egin dizkio, betiere partikulen oinarriko interakzio guztiak azaltzeko teoria bateratuaren bila. Berria - Gaiak

Segurtasun-txostenek ziotenez, gizon lodikote hura jenio hutsa zen **supersokei** eta kromodinamika kuantikoari zegokienez. Fernando Morillo

Supersoken teorian oinarritutako partikula dezeleragailua amaituta zegoen, azkenik. Iban Zaldúa

Quarketatik **supersoketara**. Berria - Gaiak

supersoniko (*orobat supertsoniko g.er. eta superzoniko g.er.*) 1 izond hotsa baino lastertasun handiagoan higitzen dena.

Zazpi irudi zirriborrotsu berdexka zirela, airean hegazkin **supersonikoak** baino bizkorrago ibiltzen zirenak. Iñaki Mendiguren

Ez harritu azken judizioko egunean abioi **supersoniko** batean itzultzen bada... Joan Mari Irigoien

Baliteke hegazkin **supersonikoren** batek sortutako dunbotsa izatea. Patxi Iturritegi

2 adkor oso lastertasun handia.

Abiadura **supersonikoan** hitz egiteko ohitura dute tokiotarrek, errietan ari direnean bereziki. Joxan Elozegi

Goiz hartan, Makao portuko kaian, 'jetfoil' deitu ur-ontzi **superzonikotik** jaitsi zirelarik, Mikel eta Nina harritu ziren: zer hiri itsusia! Ramuntxo Etxeberri

Pure egiteko makina nuklear bat izterrean, kraskagailu **supersoniko** bat eskuan. Josu Zabaleta

superstar izond superizar baten ospea duena.

Azkenaldian nabarmena izan da Auzitegi Nazionalako epaile **superstar** horiek zer aginte maila daukaten. Berria - Euskal Herria

Auzitegi Nazionalako epaile **superstar** berriak herriko taberna guztiak mehatxupean jarri dituenen. Berria - Euskal Herria

superstizio (*orobat superstizione g.er. eta superztizio g.er.*) 1 iz sineskeria.

Karlomagno hamarrenen ezarpenaz egin legeak beharrenez lana ziren; erlijioak bakarrik hartu zuen parte hartan, ez **superstizioak**. Iñaki Iñurrieta

Hartan sinestea **superstizioa** da, ezjakintzan oinarritzen baita. Xabier Amuriza

Superstizioa sortzen da gizakiek ez dakitelako 'zer daitekeen eta zer ez daitekeen izan'. Xabier Amuriza

Azken horri folk-lore esaten zaio normalean, eta herri mito eta **superstizioak** biltzen ditu. Xabier Olarra

Ez, ez; ez dut **superstizioetan** sinisten. Pablo Sastre

Badirudi, ordea, **superstizioak** ontzat ematen duela Tristurak dakarrena, eta txartzat, berriz, Poztasunak dakarrena. nahikoa **superstizioa** baitaude deabrua ez tentatzeko. Piarres Xarriton

Honek **superstizio** zaharra ezereztuko luke, eta, aldi berean, superstizio berri bat erretzeko beharra ezarriko luke. Jon Alonso

Aspaldiko **superstizio** txobinoak. Joxe Azurmendi

Hispanoen **superstizio** eta sinesmenak asetzeko. Iñaki Zabaleta

Irudien adorazioaren eta bertze **superstizioen** kontra. Aingeru Epaltza

Superstiziozko sinesteetan erortzen ziren berriro. Josu Zabaleta

Elezaharrez bete nuen gogoia, sineskeria eta **superstiziozko** lurralde honi buruz entzun edo irakurriak nituen historiez bete. Josu Zabaleta

Superstiziozko erritua bailliztan, kamiseta zuri estua jantziko duzu eta autobusaren aterantz begiratuko duzu etengabe. Sonia Gonzalez

2 (hitz elkartuetan)

Fede berriari esker, **superstizio** mota orotarik libre behar genuen. Aingeru Epaltza

Molinak **superstizio** kontu bat ere badauka horiarekin. Berria - Kirola

superstizione ik **superstizio**.

superstizios ik **superstizioso**.

superstizioso (*orobat superstizios g.er.*) izond superstizioari dagokiona; superstizioak dituena. ik **sineskeriatsu**.

Ikus dezagun orain, ongi baderitzozu, pertsona **superstiziosok** hain sarri egiten dituzten sakrilegioetan ere ea gutziak agintzen duen. Imanol Unzurrunzaga

Jokaera **superstizioso** eta gaitzesgarri haiek arbiatu egiten zituzten. Askoren artean

Ondorioz, beldur **superstizioso** batengatik, printzeei ez diete zor zaien obedientzia ematen, eta beldur dioten beldurraren menpe gelditzen dira. Esteban Antxustegi

Zalantza **superstizioso** batek egiten zion ausiki kontzientzian. Jon Alonso

"Kasualitatea da gero, Cancuneko Melia hotelean tokatu zitzaigun zenbaki berbera!" Santi ez da batere **superstiziosoa**, baina dardarizo bat sentitu du hau pentsatzeaz batera. Patxi Iturritegi

Superstiziosoa ez zenez, ez zuen uste hamahirugarren egunean zerbait txarrik gerta zekiokenik. Jon Alonso

superstiziotsu izond superstiziosoa, sineskeriatsua.

Jakin bedi mendian menditarra naizela eta itsasoan itsastarra, hots, **superstiziotsua** bietan ere, **superstiziotsua** besterik gabe, ene inguruok bezalaxe. Koldo Izagirre

Jende hori, herrialde aberats edo **superstiziotsu** batean, ugaldu egiten da, ez daukalako gizartearen zama eraman beharrik. Iñaki Iñurrieta

superstiziozalea (corpusean **superstizio zale soilik**) izond superstizioen zalea dena.

Ez ezazue gaizki pentsa, eta ez ezazue uste bizirik irauteko soilik balio duen oinarrizko jakituria duen jendea musika tresna bat itoen arimekin nahasteraino bezain ezjakin eta **superstizio zalea** denik, jende hura ez baitzuen sineskeria hutsal batek izutu. **Pako Aristi**

supersuprefetegi (corpusean **super suprefetegi soilik**) iz suprefetegi erraldoia.

Baionako "Star-trek" espazioko super **Suprefetegian** eginarazi ditugun pasaporte berri-berriak erakutsiz, frogatuko diogu ez garela lanjerosak! **Ramuntxo Etxeberri**

supertalde iz **adkor** oso-oso kide bikaineko taldea.

Joni Mitchellen alboan, Brownek aurpegi gozoagoa erakusten zuen eta ez da harrizkoa The Eagles garai hartako **supertaldearentzat** ere idatzi izana. **Berria - Kultura**
Bere curriculumari begiratu azkar bat emanda, *The Byrds* eta *Flying Burrito Brothers* izen ezinbestekoak azaltzen dira eta baita proposamen ilunago baina interesgarriak ere: *Manassas*, *Souther-Hillman-Fury* **supertaldea** eta *Desert Rose Band*, besteak beste. **Berria - Kultura**

supertsoniko ik **supersoniko**.

superudal (corpusean **super-udal soilik**) iz **adkor** herri elkargoa.

Herri elkargoak, izenak dion bezala, udalen artean osatu erakundeak dira; batzuek **super-udalak** deitzen dituzte. **Berria - Harian**
Udaletatik **super-udaletara**. **Berria - Harian**

superwoman iz **adkor** emakumeen ahalmenen gaineko ahalmenak dituen emakumea.

Gure belaunaldiak urte asko galdu izanaren sentimendua du **"superwoman"** izan behar izan dugulako. **Ana Urkiza**
Superwomanen modeloa krisian dago han. **Arantxa Iturbe**

superzaindari (corpusean **super-zaindari soilik**) iz **adkor** gehiegizko karra erakusten duen zaindaria.

Estatuaren rola legea betearaztea da, eta ez dut onartzen hari eraso egitea eta batzuek beren buruak legearen **super-zaindari** agertzea. **Berria - Mundua**

superzientzialari (corpusean **super-zientzialari soilik**) iz **adkor** maila goreneko zientzialaria.

Mina lehen aldiz sentitzen duenean, **super-zientzialariak** aurretik ez zekien zerbait ikasiko du, Nagelen iritiz. **Askoren artean**
Miren **super-zientzialariak** kasu horretan gauza berri bat ikastea da, hain zuzen, Nagelek darabilen argudioa aldebiko dualismoa justifikatzeko. **Askoren artean**

superzoniko ik **supersoniko**.

superzoom iz **adkor** ahalmen handi-handiko zooma.

Han zegoen bai neure *olympus* **superzoom** 70 maitagarria. **Itxaro Borda**

superztizio ik **superstizio**.

supino 1 izond latinez eta beste hizkuntza indeueparpar batzuetako aditz forma ez-pertsonala.

Latinez, *colere* aditzetik jaio den forma **supino** *cultum* da. **Askoren artean**

2 ezjakintasunaz-eta mintzatuz, handia, nabarmena.

Gainera, teknokrata=burokratek, Pauekoek, nahiz nonahikoek, ezjakin **supinoek** izaten dira gehienetan. **Herria**

supitoki ik **supituki**.

supitu 1 izond bat-batekoa.

Aro bero eta **supitua** izanzen da aste ondarrean. **Herria**

2 **supituan** *adlag* bat-batean. ik **supituki**.

Supituan, ordea, begitartea aldatu zitzaion berriro, baina oraingoan barre-purrustada ero bat jaurti zuen barren-barrendik. **Anjel Lertxundi**

Supituan, mekanikoki, errezelak itxi nituen. **Karlos Linazasoro**

Goiak jo zuen **supituan** behea, itsasoa harrotu eta goibelagotu egin zen arratsaldea. **Hasier Etxeberria**

Handik pixka batera, **supituan** zerbait bururatu balitzaio bezala, mantalaren hegal bat jaso, eta ordulari bat atera zuen galtzetako patrikaren batetik. **Anjel Lertxundi**

Ez da, beraz, legitimoa jorratzen ari garen testuei, **supituan**, euren orijinaltasun titulua eskatzea. **Xabier Arregi**

Haurra hitza behelaino itxia da, eta mutila edo neska, hura desagertzean **supituan** agertzen den arbola. **Hasier Etxeberria**

Irudien ganbara ernetu zitzaidan **supituan**. -Non dago larrugorria? -galdetu zuen **supituan**. **Hasier Etxeberria**

3 **supituko** *izlag* bat-batekoa.

Supituko lanuzte horrek espontanea zirudien, inprobisatua. **Unai Elorriaga**

supituki *(orobat supituki g.er. eta supitoki g.er.) adlag bat-batean, tupustean. ik supitu 2.*

Supituki , bihurgune baten ondoren, Medinako kalekak, etxeak eta jendeak azaldu ziren. **Bernardo Atxaga**

Supituki jaiki zen ohetik. **Unai Iturriaga**

Supituki zabalduko ate batek sortu ohi duen antzeko aire-zirimolak hozkirritu zuen Nathaniel. **Anjel Lertxundi**

Ezkutatu egin zen **supituki** ilunpean, eta handik gutxira bidean azaldu, autoaren argitan. **Bernardo Atxaga**

Bazirudien **supituki** beste garai batean murgiltzen zela. **Joxemari Iturralde**

Sukaldea, baina, **supituki** ke lodiz eta bolbora usainez bete zen zeharo. **Josexo Azkona**

Sukaldera heltzean, laguna **supituki** geratu zen: "Egon-egon!". **Harkaitz Cano**

-Ez duk ikusi?... -esan zion Nikolasek, begitarte irribarretsua **supituki** goibeldurik. **Karlos Zabala**

Eta hara, hogeita hemeretzigarren eta azken atalean, aurrez aurre ageri zaizkio **supituki** estralurtarrak. **Markos Zapiain**

-Zenbat denbora? -galdegin dit **supituki** -. **Patxi Zubizarreta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

kasik supituki (3); **supituki eta deblauki** (8); **supituki hil** (15); **supituki hil da** (9); **supituki joan** (4); **supituki zendu** (6); **zendu da supituki** (4)

supiztaile *(orobat su-piztaile g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian supiztaile agertzen da) 1 iz sua pizten duen pertsona.*

-**Supiztailea** harrapatu dute. **Lopez de Arana**

Harengatik erakarri eta seduzitu **supiztaile** talderik. **Juan Garzia**

Supiztailea zen; "Egunkariak diotenez, gisa horretara ibiltzen dituk, inguruan kuskusean, sua ikusteko". **Lopez de Arana**

2 irud/hed

Nor da konspirazio honen **su-piztailea** ? **Anjel Lertxundi**

Errezeta bera aplikatu zuen Arenas-ek, Madrilen euskara bera **supiztaile** baita. **Txema Ramirez de la Piscina**

supizte ik su 49a.

supizteko *(orobat su pizteko g.er.) 1 iz pospoloa; pizgailua.*

Urrendik sumatu zenuen Tomaso, esandako lekuan zeneukan zain, **supiztekoari** putz egiten. **Koldo Izagirre**

Puru erretzaile batek eduki behar dituen tresna sofistikatuak -purua moztekoa, **supizteko** egokiak, larruzko toxak... **Jon Alonso**

Etxe gibelego muinoetara abiatzen ginen, **supiztekoak** eta xanbraderak eskuan. **Itxaro Borda**

Etsi nuen eta **su piztekoak** erosten hasi nintzen, **su piztekoen** mekanismoa ongi menderatzen nuelakoan. **Jon Alonso**

Koilara, tabakoa eta **supiztekoa** topatu ditut. **Koldo Izagirre**

Barnean ezko argiaren pizteko **supizteko** bat eta kandela puska belztu zenbait baziren, baina besterik deus ez. minutu bat ere ez du pasako zerbaiten hutsunea nabaritu gabe, dela hautsontzia, dela **supiztekoa** . **Elena Touyarou**

Ivan Ogareffek **supiztekoa** sakelatik atera, piztu, bolbora finez blaitutako iztupa apur bati su eman, eta ibaira bota zuen... **Karlos Zabala**

2 (hitz elkartuetan)

Gisa guzietako ostia-untziak baziren **su-pizteko** untziak -hortarako antolatuturik-, bi zoletako zigareta untziak, paztilla boatak, nik dakita zer oraino. **Marzel Etxehandi**

supiztu, supitz, supizten 1 da ad gartu, piztu.

Kontzientzia **supiztu** zaio, bere misioa herri hori astindu eta iratzartzea eta askatzea dela. **Joxe Azurmendi**

-Lo ez, larrua jo behar dut goizalde arte! -erantzun nion, **supizturik** . **Inazio Mujika Iraola**

Oso **supiztuta** omen zebilen gure jendea. Eta nik gaur eszena horixe izan dut gogoan bainuontzian sartzean; hori eta atzo Sarari atzo ilea ukitu nionekoa, nire barrena **supizteko** aski izango direlakoan. **Inazio Mujika Iraola**

2 (era burutua izenondo gisa)

Begi **supiztuak** zituen; ezpainetan baina, minari eutsi nahian sortzen zen irribarre bortxatu bat saiatu zuen. **Inazio Mujika Iraola**

Aurrean, oholtxa txiki bat eta bertan musikariak *Jacko, jacko my dead* **supiztua** jotzen. **Hasier Etxeberria**

suplantatu, suplanta, suplantatzen du ad norbait ordeztu, eskuarki iruzurrez.

Naturak jainkoak **suplantatzen** ditu eta bera bihurtzen da erreferentzia gunee. **Xabier Amuriza**

ETAk akordioaren agiria atera zuenean, Ajuria Enetik adierazi zuten ez zeudela prest inork **suplantatuak** izateko, eta ez zutela onartuko haiek ordezkariak ez zuten mahai bateko erabakirik. **Berria - Harian**

suplika 1 iz arrena, erregua.

Diktadoreak heriotzara kondenatu zuen, traizio salaketapean, alferrikakoak izan ziren Mussoliniren alabaren **suplika** guztiak. **Mikel Hernandez Abaitua**

Neskak barre egin zuen, eta mutilak, barne muinetan minduta, **suplikatik** bortizkeriara joz besoa altxatu zuen, kolperen bat ematekotan edo. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 suplika errekurtsu

Perituen zilegitasunari buruzkoa bata, eta fiskalaren autoan egiten diren baieztapen batzuen inguruko **suplika errekurtsua** bestea. **Berria - Harian**

suplikatu, suplika(tu), suplikatzen du ad arrenka eskatu.

Belauniko **suplikatu** zion, eskuak junt, barkatzeko eta barkatzeko... **Joan Mari Irigoien**

-Apur batez bakarrik -**suplikatu** dit, jonkiaren zurikeria koipetsuarekin. **Patxi Iturritegi**

suplizio 1 iz estira, tormentua.

Delitu berberaz akusatutako bi pertsonetatik, ukatzen duenari heriotza-zigorra ematen zaiola, eta aitortzen duenak saihestu egiten duela **suplizioa** . **Iñaki Iñurrieta**

Jejenaren **suplizioa** plantarazi zioten, larruzko zintaz kaskaka jo, ukabil eta ostikoka zitzikatu. Itxaro Borda

Rousseaurentzat * **suplizioen** maiztasuna beti ahuleziaren seinalea da, edo gobernanduaren nagikeriaren marka". Markos Zapiain

Suplizioaren lekua muino bat zen, eta haren gailur berdean haga bat zegoen, lurrean barren-barrena sartua, eta haren inguruan egur sorta franko. Juan Garzia

2 (izenondoekin)

Gogora bitez Japoniako pertsekuzioak: **suplizio** ankerren kontra oldartu ziren, zigor luzeen kontra baino gehiago. Iñaki Iñurrieta

Harrigarria dirudi erregina hura [...] erresumako arazoetarako argitasun miresgarriarekin jaioa, oso denbora luzean errespetatuak izan ziren tasunez jantzia, bat-batean hain **suplizio** luze, lotsagarri, ankerren arriskupean jarri izanak, nazioan autoritatea sendotu gabea zuen errege batek. Iñaki Iñurrieta

3 (hitz elkartuetan)

Hiriko ateetan, hilobien artean, larruz aldatzen ziren gizonen historiak kontatu zizkion, beltzek, siriarrek, tabernariak eta **suplizio**-gurutzak zaintzen zituztèn soldaduek ahoz aho elkarri errepikatuak. Juan Garzia

4 irud/hed

Beste zein aitopen egin lezake neskak lotsa naturalaren **suplizio** horretan? Iñaki Iñurrieta

suportatu ik soportatu.

suposaketa iz suposatzea, uste izatea.

Razionalismoen aurretiko **suposaketa** bat izaten da razionaltasunaren berezko egitama eta errealitatearen egitama berezkoa elkarrekikoak direla osoki. Askoren artean

Hori aristotelismoaren ohiko interpretazio ideologikotik hurbilago zegoen XII. eta XIV. mendeetako **suposaketaren** inguruko saiakerak baino. Askoren artean

suposatu, suposa, suposatzen 1 du ad uste izan; pentsatu.

Neonezko argiaren eragina, **suposatu** nuen. Joxe Austin Arrieta

Ezin imajinatu dugu Madame Rogêtek ihesaldiaren berri bazekienik, baina ezin al dugu **suposatu** neskak bazuela asmo hori? Koro Navarro

Suposatzen da, balioena dela eztabaida. Joxe Azurmendi

Suposatu zuen Susana San Juan lo egongo zela; beti lo egon zedin opa zion berak. Juan Garzia

Bistakoa da, esaterako, gizartearekin ondo etortzeko asmoa **suposatu** beharra dagoela edozein portaera etikoren oinarrian. Joxe Azurmendi

Suposatzen zen Londreseko abioia eguerdiko hamabi eta erdietan aterako zela; beraz, denbora ez zegoen soberan. Joxemari Iturralde

Hala eta guztiz ere, ez da gizaki hauek euren depresioaren erakustaldia egiten zutenik **suposatu** behar. Harkaitz Cano

Horrelako egoera eta izaera intelektuala **suposatu** gabe ez dago Erdi Aroko filosofia ulertzetik. Askoren artean

-Alexekin - **suposatu** zuen Julenek. Fernando Morillo

Agian - **suposatu** zuen Mirarik, arrain-ontziari begira-, Imanolen anaiak beste norbaiti emango zizkion, kanpoan dela zaintzeko. Fernando Morillo

Ikuslea bera ari zela mugitzen **suposatu** zuen. Askoren artean

Ez da **suposatu** behar naturari buruz edo ekonomiari buruz bi diskurtso daudenik elkarri gainjarritakoak eta nahaspilatutakoak. Xabier Arregi

Lehen kasuan, baldintza postulatatu egiten da (*per thesin*), bigarreanean, **suposatu** egiten da (*per hypothesin*). Ibon Uribarri

2 berekin ekarri.

Horrek guztiak **suposatzen** zuen bankuek jarraituko zutela arazoak zituzten herrialdeetatik kredituen interesak jasotzen. Koro Navarro

Eginbehar honek **suposatzen** du enuntziatuen arloa ez dela deskribatu behar beste inon [...] garatzen diren eragiketen edo prozesuen "itzulpen" gisara. Xabier Arregi

Hizkuntzari buruzko gainerako azterketa guztiak **suposatu** egin dute enuntziatua, baina ez dute sekula argitu. Xabier Arregi

Beste batzuek [...] Amerikaren kolonizazioak **suposatu** zuen ahalegin izugarria azpimarratzen dute, Espainia gizarte-eragilerik gabe utzi zuena. Koro Navarro

Williamsburg auzoan kafetxe eta jatetxe asko irekitzen ari direlako pozik daude denak, horrek beren alokairua 500 dolarretik 650era igotzea **suposatu** badu ere. Harkaitz Cano

3 (era burutua izenondo gisa)

Espainiako historiaren batzuk arima espainolaren teoriak dira, teoria literario batzuk arima espaino **suposatuaren** itzulketak baino ez diren moduan. Joxe Azurmendi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldatzea suposatuko (3)

suposatzea da (3)

suposatze iz uste izatea; pentsatzea.

Ez zen bakarrik ez nuela noski gogoratzen halako inolako elkarriketarik [...]: halakorik **suposatze** hutsa -desegintzarre, mesfidantza eta unadura hilgarritzko hondo-irudi haren gainean- errealitatetik kanpo zegoen guztiz. Juan Garzia

supositorio iz sendagaia gorputzaren tenperaturan urtzen diren gaiekin nahastuta den botika mota, uzkitik sartzen dena.

Txorakeria dela esango duzue, baina ez ditut maite ez **supositorioak**, ez piercing-ak, ezta eraztunak eurak ere. Xabier Mendiguren Elizegi

suposizio iz suposatzea; suposatzearen ondorioa.

Suposizio horren ondorioa da, hortaz, hilketa ez zela igandean gertatu. Koro Navarro

Helburu hori lortu nahirik, abiapuntutik bertatik **suposizio** hutsetara jotzen du kazetariak. Koro Navarro

Bera ere eszitatua sentitzen zen, urduri, azken hogeie urteetan ez bezala hunkitua, buruan mila amets, **suposizio**, burutazio txoro. Xabier Mendiguren Elizegi

Zerizan baten **suposizio** erlatibo baina barnebiltzen ez duen arrazoimen hutsaren hirugarren ideia ilara kosmologiko ooren kausa bakarra eta oroaskidun gisa Jainkoaren arrazoimen-adigaia da. Ibon Uribarri

Azalpen, **suposizio** teoriko, deskribapen, aurretiazko informazio eta abarren orde ez erreferentzia bibliografikoak jarri. Askoren artean

supraegitura iz superegitura.

Baina nik uste dut herri txiki bateko harreman moduei beste **supraegitura** gaineratu zitzaioela, **supraegitura** politikoa, eta horrek nolabaiteko imutua-edo sortu zuela.

supraestatal *izond* estatuaren gainekoa dena.

Hogeigarren mendeko bigarren zatia zen dagoeneko, mundua gero eta globalizatuagoa ageri zen, Europako testuinguru **supraestatala** ez zegoen ahazterik. [Joseba Zulaika](#)

supraestrutural *izond* supraegiturari dagokiona.

Saihets politikotik, amaitzeko, oliba olioak eginkizun **supraestruturala** betetzen du, "dieta mediterranean" ezin politikoago horren ardatz bakarra delako. [Edorta Agirre](#)

suprafilial *izond* gizarte eta zibilizazioez mintzatuz, zenbait filial biltzen dituena. **iksUPERfilial**.

Bigarren mailako zibilizazio **suprafilialen** taldeak (edo lehen mailako zibilizazioen enbor hilak) porrot egin zuen erabat, beste taldeko zibilizazioek -Helenikoak, Siriakoak, Indikoak- arrakasta izan zuten puntuan; zibilizazio superfilialetako inork ez zuen, bera hil aurretik, eliza unibertsalik sortu. [Iñaki Mendiguren](#)

suprafisiko *izond* fisikaren gainekoa.

"Physis" hitza "fusein" berbatik dator -garatu, handitu-, eta une batean printzipio **suprafisiko** -metafisiko- baten beharra duela ikus dezakegu, batez ere transzendentzia hori oinarritzeko. [Askoren artean](#)

suprajekzio *iz*

Z-koen oinen **suprajekzioa** y-koen oinen gainera egin izanaren ondorioz (y izanik z ez den C-ko edozein elementu), H multzo bat sortzen da, x elementuak ebakitako hitzek osatua. [Xabier Olarra](#)

suprakomunitario *iz* autonomia-komunitatearen gainekoa dena.

Polizia autonomoak zerbitzu guztietan izango ditu eskumenak, izaera **suprakomunitarioa** eta estrakomunitarioa dutenetan salbu. [Berria - Euskal Herria](#)
Espainiako Poliziak eta Guardia Zibilak «zerbitzu estrakomunitario eta **suprakomunitarioetan**» baino ezin zuten esku hartu. [Berria - Euskal Herria](#)

suprakosmiko *izond* kosmosaren gainekoa dena.

Lukreziok erlijioari erasotzen dio, honek jainkoak ahalguztidun egiten dituelako, ez jakintsu edo probidente, indar gizagainekoz eta **suprakosmikoz** hornituak baizik. [Xabier Amuriza](#)

supralapsario *izond/iz*

Supralapsarioak, berriz, juxtu alderantzizkoa sinesten du, alegia zorigaitzoko gizon haren erorialdia hasieratik erabakita zegoela. [Xabier Olarra](#)
Hik, **supralapsario** harro, gorantz egin zuela. [Xabier Olarra](#)

supranazional *izond* nazioen gainekoa dena.

Egitura **supranazionalak** nazio estatura gainditu eta ordezkatzeko zutela zioten tesiak nagusitu ziren joan den mendearen bukaeran. [Berria - Euskal Herria](#)

supranazionalismo *iz*

Bestalde, abertzaletasuna ez dago **supranazionalismoaren** aurka, dio lehen ETAK. [Joseba Zulaika](#)

suprapertsona *iz* pertsonaren gaineko organismoa.

Herriaren arima edo izpiritua **suprapertsona** edo organismo norbanakoen hurrupatzaile gisa kontzebitua, nazionalismoa, xenofobia, etab., Volkgeist espainolaren espezifikokoak ematen dute [Joxe Azurmendi](#)

suprasegmental *izond* segmentoaren gainekoa dena.

Batzuetan, ezaugarri **suprasegmental** deitu izan zaie ezaugarri horiei. [Lourdes Oñederra](#)

supraunitate *iz* unitatearen gaineko egitura.

Kontua da, alde batetik, ea "unitate politikoak" beti "Estatu" izan behar duen, edo, bestela esanda, zenbateraino den komenigarri **supraunitateak** osatzea edota Estatu barruan planteamendu autonomistak onartzea. [Bernardo Atxaga](#)

suprefektura ik **suprefetura**.

suprefet *iz* prefetaren azpiko karguduna.

Prefeta, **suprefeta** eta alderdi politiko guztietako hautetsiak. [Itxaro Borda](#)

Senarra Yvetoteko Quenutar bat zen, **suprefet** batek hegoaldera eraman eta hantxe ahaztu zuena. [Karlos Zabala](#)

Zinez ohiz kanpoko gertakaria da Pirinio Atlantikoetako prefeta eta Baionako **suprefeta** alderdi politiko abertzale batekin biltzea. [Berria - Euskal Herria](#)

Bakoitzak, zenbait aste aitzinetik, galdegin zuten pasaporte bat Baionako **suprefetari**, behar zen saria ordainduz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Mauleko **suprefetak**, bere aldetik, manu horiek banatuz, galdegiten die alkateeri urrikal daitezen pobreetaz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
ABko hautetsiak **suprefetaren** ordezkariarekin. Berria - Euskal Herria
Departamendua, Akitania, BAB hiri elkargoa, Frantziako Bankua, Lanaren departamenduko zuzendaritzarekin eta **suprefetarekin** bildu ziren enpresaren eta langileen geroa aztertzeko. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
baionako suprefeta (14); **mauleko suprefeta** (3); **prefeta eta suprefeta** (4)
baionako suprefetak (6)
suprefetaren emaztea (3)
baionako suprefetari (5)

suprefetura iz suprefetaren egoitza.

Kontsulatutik **Suprefeturara**, eta handik Herriko Etxera. Berria - Euskal Herria
Suprefeturan sartzeko gunean bada lekua, Ameriketako Empire State Building osoaren zatarazteko lehergailu hainaren kokatzeko. Itxaro Borda
San Espirituko zubia zeharkatu ondoren manifestazioa **Suprefeturarantz** abiatu zen. Berria - Euskal Herria
Suprefeturan bururatu dute manifestazioa, mutxikoak dantzatzen eta garagardoak edaten. Berria - Ekonomia
Suprefetura zein komisariako sarrera mozten zuten polizia hesien aitzinean *zuek faxistak zarete terroristak, jo ta ke irabazi arte eta borroka da bide bakarra* oihuak entzun ziren. Berria - Euskal Herria
Suprefetura barnean zeuden manifestariak berehalako hitzordua eskatu zitoten Suprefetari. Berria - Euskal Herria
Auto-bonbaren buhakoak **suprefeturako** leihoak purifikatu zituen. Itxaro Borda
Baionako **suprefeturako** idazkari nagusiak ez zuen iritzirik eman, baina gutuna Justizia ministroaren eskuetara igorriko duela hitz eman zuen. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
baionako suprefetura (3); **suprefetura aitzinean** (5); **suprefetura aitzinera** (3)
baionako suprefeturan (14); **suprefeturan izan dira** (3)
baionako suprefeturaren (5); **baionako suprefeturaren aitzinean** (3); **suprefeturaren aitzinean** (4)

suprematismo iz Malevitx sorturiko margolaritza higikundea, geometria-figura oinarritzkoen erabilera aldarrikatzen duena.

Hortik sortu ziren, halaber, muturreko hainbat mugimendu: kubofuturismoa, **suprematismoa**, konstruktibismoa eta beste. Berria - Kultura
Kazimir Malevitx margolariaren (Ukraina, 1878-1935) aro guztietako lanak batzen dituen erakusketa zabaldu zuten atzo Bartzelonako La Pedrera aretoan: inpresionismotik hasi eta **suprematismoraino**, eta tartean fauvismoa. Berria - Kultura
Irakurlea nekatzeko inolako asmorik gabe: kubismoa, dadaismoa, ez-figuratiboak, futuristak, onirikoak, **suprematismoa**, metafisikoak, surrealistak, neo-figurazioa, espresionismo abstraktua... Anjel Lertxundi

suprematista izond suprematismoarena, suprematismoari dagokiona.

Oihal zuria margo zuriago batez pintatua: koadro **suprematista** bat zen hura, zinez, Ritxar irakasleak institutuan irakatsiaren arabera Joan Mari Irigoien

supremazista izond arraza zuriaren gailentasun eta nagusitasuna aldarrikatzen duen mugimendu arrazistari dagokiona.

Sarean nenbilen une hartan; talde **supremazista** estatubatuar baten web orrian jakingarri zehatzak eskaintzen zituzten auto bat errausteko erabili beharreko gasolina dosi doiiaz. Aingeru Epaltza

supresore izond ezabatzailea.

Normalean, bi gene-kopiek (Ink4/ARF gene **supresoreak**) kontrolatzen dute zelulen zatiketa. Berria - Gaiak

sura iz Koraneko atala.

114 atal (**sura**) ditu. Xabier Olarra

Musulmanen sinestearen arabera, Jainkoak agertu zizkion **sura** horiek Mahoma igarleari. Xabier Olarra

Portugaleko herri-literaturako esaerek, hala idazle klasikoek nola Europako, Portugaleko zein mundu guztiko tradizio modernoaren erreferentziek, Bibliako aipuek eta Koraneko **surek**, horiek guztiek leku bat aurkitzen dute bere prosaren barruan. Jon Alonso

surdo iz tamaina handiko danbor zilindrikoa, metalezkoa edo zurezkoa, bi aldeetan larruak dituena eta oso soinu apala ateratzen duena.

Hiru lerro mantentzen dute emakume hauek agertokian; aurreko partean kalabazak eta kantatzeko mikrofonoak; atzean danbor txikiak eta handiak **surdo**-ak, brasildar danbor txikiak, metalezko bidoia, zintzarriak eta beste perkusio txikiak); eta atzeko partean plastikozko bidoi handiak, buru gainean jarrita. Berria - Kultura

Victor Gomezek (baxu elektrikoa eta kontrabaxua), Ruben Isasik (trikitia, txirulak, txalaparta eta perkusioa), Jose Llorachek (bateria, *d'rbouka* eta **surdo**), David Nanclaresek (gitarrak, mandolina eta cavaquinhoa), Pottokik (ahotsa) eta Xabier Vallelek (alboka, *uilleann pipes*, gralla eta whistlea) osatzen dute Kukuma Berria - Kultura

surf 1 iz itsas kirola, uhinetan ohol baten gainean zutik higitzean datzana.

Estatu Batuetakoek ehiza Haitz Mendietan egiten dute, **surfa** Hawai uharteetan. Pello Salaburu

Santa Monica hondartza eta bertako uhinak **surf** egiteko. Javi Cillero

Ez nekien **surfa** egin zitekeenik; hurrengoan ohola ekarriko dut. Berria - Kultura

Euskal **surfarentzat** da saria. Berria - Kirola

Argi geratu da **surfaren** alde lan handia egiten dugula. Berria - Kirola

Itsasoan, berriz, **surfaren** ari diren gazte ugari. Berria - Kultura
Horrekin eraiki dute igerileku bat Donibane Lohizunen, **Surfaren** gunea Miarritzen eta abar. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan)

Surf -ohol bana besapean, nire ondotik pasa dira horretan bi mutil gazte eder. Txillardegi

Surf taula txiki bat dago marraztua orrialde guztien beheko bazterrean. Jokin Muñoz

Izugarri pozik gaude, oso harro, ASPk ematen dituen sariak **surf** munduko garrantzitsuenak baitira, kirol honetako oscarrek. Berria - Kirola

Bigarren premia, aldiz, azpiegitura guztiak **surf** klubentzat eskuragarri egotea da. Berria - Kirola

Labartzako aldapaburuan, **Surf** -Eskola txabola itsusiaren ondoan. Txillardegi

-Bihar ezin dut, **surf** ikastaroaren azken eguna da, baina etzi bai. Eider Rodriguez

EHSF Euskal Herriko **Surf** Federazioa han izango da lehen aldiz. Berria - Kirola

3 pop musika estiloa, surfaren kulturari lotua.

Bilbop aurreneko lanaren eragin esparrua zabalduz, jazz, rockabilly eta **surf** doinuak hartu dituzte aintzat. Berria - Kultura

Mogambo filmeko pasarteak edo *Wipe out* **surf** kantu ezagunaren lelo ospetsua. Berria - Kultura

Gitarra elektrikoek lortutako 60ko hamarkadako **surf** soinu kaskarin hura. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

surf eskola (3); **surf federazioa** (4); **surf lerra** (3); **surf ohol** (3); **surf taula** (3)

euskal surfa (3)

surfaren alde eginiko (3)

euskal surfarentzat (3)

surfaktante iz

Proteinaz eta lipidoz osatutako nahaste bat da **surfaktantea**, eta oso funtzio garrantzitsua du: ume jaio berrien birrikak indartzen diren bitartean irekita mantentzen laguntzen du. **Surfaktante** falta izaten da garaia baino lehen jaiotako umeen artean arnas aparatuko arazorik ohikoenetarikoak. Berria - Gaiak

Sarritan, ume goiztiarrei laguntzeko **surfaktante** artifiziala ematen zaie, ohiko arnagailuekin. Berria - Gaiak

surflari iz surfean aritzen den kirolaria.

Aratz Gallastegi eta Oskar Astarloa errugbi jokalaria, Iker, Eneko eta Kepa Acero **surflariak**, Oier Zearra eta Juan Martinez Irujo pilotariak. Berria - Euskal Herria

Telebistan ikusiak ditut **surflariak** olatu ganga baten azpian segundo amaiezinak pasatzen, kamera geldoan. Pako Aristi

Surflariak erabiltzen dituzten neoprenoak praken antza du. Berria - Gaiak

Atzo hirunakako txandetan parte hartu zuten 48 **surflariak**, eta gaur binakako lehian hasiko dira, behin lehen partaideak kanporatu ondoren. Berria - Kirola

1.200 **surflari** inguru daude federatuak, baina 30.000 lagun inguruk egiten dute surfa Euskal Herrian. Berria - Kirola

Hogei bat **surflari** adoretuon balentriak miresten paratu naiz patxadan. Txillardegi

Eseri egin naiz aulki luzeetako batean, **surflarien** txabola itsusiaren inguruan. Txillardegi

Estatu horietako agintariak ez dira dagoeneko gidariak, baizik **surflariak**. Markos Zapiain

Surflari Profesionalen Elkarteak Euskal Herriko Surf Federazioa saritu du surfaren alde eginiko lanagatik. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

surflari profesionalen (3)

surmur (orobat *susmur*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian surmur agertzen da*) iz marmarra, zurrumurrua.

Atzean entzuten zituen txutumutxuak laudoriozko **surmurak** iruditzen zitzaizkion, eta pozez distiratsen zegoen errektoreak eta dekanoak aurki izan behar zuten lotsarekin.

Josu Zabaleta

Noizetik noizerat gelditzen dira, hango edo hemengo asots, zarata edo **surmuraren** etorkia egiaztatzearen. Aingeru Epaltza

Korridore extu eta ilun hartan pilatzen ginen jendetzari zerion **surmur** etengabea ere gogoratzen zait: emakumeen negarrak, besoetan urduri kulunkatzen zituzten haur gorrienarekin lehian, amonen otoitzen marmar jarraitua, agureen madarikazio lakarrak. Alberto Ladron Arana

-Zer egin du, bada? -galdetu zien ahoa ia zabaldu gabeko **surmurrean**. Alberto Ladron Arana

surrealismo 1 iz higikunde literario eta artistikoa, automatismo psikikoan eta arrazoimenaren kontroletik at sortzean oinarritzen dena.

Izan dira eskolak irrealismoan, ez-errealismoan, **surrealismoan** kokatzen zirenak. Josu Zabaleta

Bat egin nuen **surrealismoarekin**, gizakiaren barrukoena arrazoiazen galbaheari kasurik egin gabe ateratsen duelako. Berria - Kultura

Surrealismoak emandako unearekiko interesa, edo gehiegi pentsatu gabeko irudia harrapatzeko gaitasuna inork errepikatu ezingo duen gaitasuna zen. Berria - Kultura

surrealismoak mekanismo automatikoak eta subkontzientek bultzatzen ditu. Berria - Kultura

Pinturan, irudikapen klasikoa suntsitu eta koloreak eztanda egitearekin, **surrealismoantantz** eta abstrakzioarantz joko zen. Juan Garzia

Surrealismoari dagozkion teknikak erabiliz irudi abstraktuak egin zituen. Berria - Kultura

Osagai horiekin, istorio eder bezain bitxia eraikitzen du Canok, askotan **surrealimotoik** edo absurdotik gertu dagoena. Berria - Harian

Surrealismoarekin modan jarri zen idazkera automatikoaren juxtu alderantzizkoa da. Xabier Olarra

Hrabalen literatur lana batik bat eguneroko bizitzaren elementu groteskoen estetikan kokatzen da, nahiz eta badituen **surrealimotoik** hartutako zenbait ezaugarri.

Fernando Rey

Denik-eta **surrealismo** tanatofilo eta patetikoena. Iñaki Segurola

2 irud/hed

Surrealismoa: enpresa batek norbait kontratatu nahi badu, INEMek hiru hilean behin aterako dituen zerrenda batzuen zain egon beharko du. Berria - Harian

3 (hitz elkartuetan)

Hori legez horrela da, baina badu **surrealismo** kutsu bat. Berria - Euskal Herria

surrealista 1 izond surrealismoarena, surrealismoari dagokiona.

Andre Bretonek 1924an kaleratu zuen Manifestu **Surrealistak** eragin nabarmena izan zuen haletako askorengan. Berria - Kultura

Robert Desnos poeta **surrealista** frantsesak lagundu zion Habanatik irteren. **Berria - Kultura**
Lekuona, ezagutzen ez duenarentzat, Euskal Herriko lehenengo artista plastiko **surrealista** izan zen, koadro oniriko, argazki futurista eta collage harrigarrien egilea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Joan Miroren margo **surrealistetan** ageri diren forma biomorfo eta irrealietara daramate. **Berria - Kultura**

Izan zitekeen Duchampen instalazio **surrealista** bat, baina ez, denda horretan ez da deus saltzen. **Hasier Etxeberria**

Film mutu **surrealista** baten gidoia ere idatzi zuen 1926an. **Ibon Uribarri**

Carapace taldeak «atmosfera **surrealista**» sortzea du helburu, suzko jolasen bidez. **Berria - Kultura**

2 irud/hed

Afaria munduko gauzarik **surrealistena** izan da: loro bat aske mahaian batetik bestera, amona bere azken ebakuntza kontatzen, [...]. **Harkaitz Cano**

Nahiko **surrealista** iruditzen zait Aita Joxe Mari lege antiterrorista pean dagoela entzun behar izatea. **Berria - Harian**

Surrealista samarra egiten zitzaion Cesarri hura guztia. **Harkaitz Cano**

Orain lau urte, etorkizunean Osasunako presidentetzara aurkeztea ez zuela baztertzeko esan zuen Santosek Iruñean eskainitako prentsaurreko **surrealista** samarrean.

Berria - Kirola

• 3 iz surrealismoaren jarraitzailea.

Irakurlea nekatzeko inolako asmorik gabe: kubismoa, dadaismoa, ez-figuratiiboak, futuristak, onirikoak, suprematismoa, metafisikoak, **surrealistak**, neo-figurazioa, espresionismo abstraktua... dadaisten eta Frantziako **surrealisten** antzeko poemak. **Anjel Lertxundi**

Surrealistek erreskatatu zutenetik, Lautréamonten poesia mugarriztat hartzen da literaturaren historian. **Bernardo Atxaga**

Boltxebikeak eta faxistak pintura estiloak bezalakoak ziren Agustinentzat, futuristak eta **surrealistak** legez. **Javi Cillero**

Surrealista batek honela definituko zukeen egoera: "Ezinezko eta Errepresio herri txiki batean egokitu ziren". **Bernardo Atxaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egoera **surrealista** (3); **surrealista samarra** (5)

surrealtasun *izn* surrealismoa.

Surrealtasunaren eta ruraltasunaren arteko nahasketa bat. **Harkaitz Cano**

surrian ik zurrean.

surrioan ik zurrean.

surrumurru ik zurrumurru.

sursi 1 *iz ipar* gibelapena, atzerapena.

Destrade Hiriburuko kontseilari orokorrak hiru urte presondegitara kondenatu du Paueko auzitegiak, bi urteko **sursiarekin**. **Herria**

Jandarmeak orduan egin zituen hiru hilabete preso, eta orain jujeak 33 hilabete **sursiarekin** gehitu dizkio. **Herria**

Prokuradoreak eskatu ditu: bi hilabete presondegi **sursiarekin**, 250 Euroko isuna eta *Nic La police* idatzia zeraman jantziaren konfiskapena. **Herria**

2 *sursian adlag* kinka larrian.

Besañon eta Grenoble-ko taldeekin batera, Angelu arazo ekonomikoaren gatik **sursian** zen. **Herria**

surtan ik su 20.

surtauts ik su 44a.

susaldi *iz* (behia) susara egoten den denbora.

XYZ: **susaldiak**. **Karlos Linazasoro**

susara 1 *adlag* behiez mintzatuz, arreske.

Eta monosilaborekin batera begiratu likatsua bota dit, **susara** dagoen behiarena. **Patxi Iturritegi**

2 irud/hed

-Putzu bat eginda zaude... **susara** zaude berriro. **Juan Martin Elexpuru**

Beste galtzerdia kendu eta jaurti egin zidan, nik bere eme-**susara** usaina arnastu nuen, lilurata begiratzen jarraitzen nion bitartean. **Juan Martin Elexpuru**

sushi *iz* japoniar platera, ozpinetan egindako arrozaz eta beste osagaiez prestatua.

Sushia eta kabiarrak besterik ez dago mahai gainetan. eta **sushia** janez, eta sake bikain batetik bapo edanez. **Harkaitz Cano**

Kontrolpeko hartzidurak, gordinik (**sushi**, ceviche, carpaccio...), [...]. **Edorta Agirre**

Hirurek sortzen zuten algararekin eta japoniar hartan zerbitzatu zizkiguten **sushi** nazkagarriekin nahikoa lan eduki nuen irribarrea galdu gabe, esaten zituzten pitokeriei jarraitzen. **Hasier Etxeberria**

suskripzio *iz* harpidetza.

Suskripzio kanpaina bat abian da hemen gaindi EHKA (euskal herriko kola alternatiboa) edariaren inguruan. **Herria**

susmabide *(orobat susma bide)* 1 iz susmatzeko zioa.

Txutxumutxuka esaten zen, **susmabide** aski sendoz, zekenkeria maniako batez gobernatzen zituela Kimika Ikastegia eta bere laboratoriora pertsonala. **Juan Garzia**

2 sumatzeko bidea.

Izpiritua sartzen da hemen, jakin gabe sartu ere, bere burua gaingaituz, adimena eta **susma bideak** lo. **Joan Mari Lekuona**

susmaezin iz ezin susmatuzkoa.

Baina batzuetan **susmaezinak** suertatu ohi dira Jainkoaren bideak. **Patxi Iturritegi**

Baina, **susmaezina** bazirudien ere, miseriak porrota ekarri zion nonahi. **Iñaki Iñurrieta**

Mutur **susmaezinetaraino** tenkaturiko pentsamenduaren errainu eta diziplina intelektual zorrotzaren fruitu. **Piarres Xarriton**

susmagarri *(orobat susmagarri g.er.)* 1 izond susmoak eragiten dituen, susmaratzen duena. (pertsonez)

Baina nago gutun hori dela Chicagon gizon **susmagarri** hark eman ziona. **Patxi Zubizarreta**

Iritsi zenez geroztik, gauaz ikusten omen zuten gizon **susmagarriekin** hara eta hona, hark denen buru egiten omen zuela. **Karlos Zabala**

Kapela beltzez estalitako jaun **susmagarriak**. **Karlos Zabala**

Duda-mudazko pertsona horien artean Jean Laffitte jauna zegoen, hiritar **susmagarria** gobernariaren begietarako. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Fusilak eta metrailetak bidaiari **susmagarri** begira jartzen ziren segituan, eta gazte gehienak ziren susmagarr. **Bernardo Atxaga**

Itxuraz, bi aste lehenagoko erromes **susmagarria** Donapaleuko ospitalean agertu da berriz. **Aingeru Epaltza**

Bost herrialdeetako Barne ministroek beharrezkotzat jo zuten Europako Batasunak terrorista **susmagarriak** kanporatzeko adostasunak lortzea. **Berria - Mundua**

Zertarako galdetu zer gertatzen ari zen bertan pilatutako judu, komunista eta homosexual **susmagarriekin**? **Anjel Lertxundi**

Atzerritar **susmagarriak** erregistro batean sartzeko. **Berria - Mundua**

-Bikote **susmagarri** bat, nire apartamentu parean, 20. ezkaratzean. **Harkaitz Cano**

2 (gauzez)

Herritar batek Ertzaintzari deitu zion, fardel **susmagarri** bat ikusi zuela esateko. **Berria - Euskal Herria**

Berriro desagertzen da irudia, eta zaratatzko **susmagarri** batzuk baizik ez dira entzuten bainugelan. **Josu Zabaleta**

Besterik ezean, brasildarra kontratatu zuen "era guztietako etxeko lanak" eskaintzen zituen agentzia **susmagarri** baten bitartez. **Jon Arretxe**

Gizonak begirakune **susmagarria** josi zion. **Patxi Zubizarreta**

Brankara herrestan joan eta marinel zaharrari erakutsi zizkion mugimendu **susmagarri** haiek. **Karlos Zabala**

Aieru **susmagarri** batek hartzen zaitu, sormenaren ardura osoa zeurea bakarrik ez ote den pentsarazten dizuna. **Pako Aristi**

Hortik ondorio **susmagarriak** atera daitezkeela uste du Salhaketako kideak. **Berria - Harian**

Nafarroako Gobernuak zortzi kasu **susmagarri** detektatu ditu. **Berria - Gaiak**

Benetako arazoa gidarien itxura **susmagarria** da. **Jon Arretxe**

Ondo zaindutako neska-mutilak biak, dotore jantziak, heldutasun **susmagarrikoak** eta denaren berri ondoegi zekitenak. **Ander Irizar**

-Agian Potter eta bere lagunak une desegokian eta leku desegokian aurkitu dira [...] baina baditugu xehetasun **susmagarri** batzuk hemen. **Iñaki Mendiguren**

Eta zergatik orduan eta ez lehenago, hainbeste gauza **susmagarri** argitara atera zituzten? **Joxemari Urteaga**

Nolako urratsak egin dituen artzapezpikuaren katixima liburutik eta beste idazkietarik atera diren proposamen heretiko **susmagarrien** haztatzeko. **Piarres Xarriton**

Etxe hartan baino erru sentipen gutxiago izan zuen Egutxik orduan, benetan, hain era **susmagarrian** lokarrarazi zuten neskakaren ondoan etzanda. **Ibon Urbarri**

Zer egiten zuten ni bezalako gazte batek bakarrik, eta horrelakoak jakin nahian hasi zitzaizkan, oso modu **susmagarrian**. **Anjel Lertxundi**

3 (adizlagun baten eskuinean)

Hori oso **susmagarria** iruditu zitzaidan. **Pablo Sastre**

Madame Deluc-en aitortpen nolabait ere beranduko eta oso **susmagarriak**. **Koro Navarro**

Gizon txit inmorala, txit **susmagarria** eta gizartearentzat txit lotsagarria. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Angelaren aitaordearen anitz bezero ikusi nituen bertatik ateratzen, fardel nahiko **susmagarriak** garraiatuz. **Alberto Ladrón Arana**

Desitxuraketaren kontzeptua bera aski **susmagarria** da. **Josu Zabaleta**

Analista horrek maratz-maratz zerrendatu zituen emaitza hain nabarmenkiro **susmagarri** baina formalki aitzakiagabe haiek. **Juan Garzia**

Lehen figura horri bigarren bat gehituz, politikoki **susmagarria** .. **Bernardo Atxaga**

Lekua siniestro samarra baino areago **susmagarria** da. **Harkaitz Cano**

4 (izan eta kideko aditzekin)

Susmagarria da erraztasun hori. Beti izan dira **susmagarri**, baina ez motiborik gabe. **Jon Muñoz**

Gaztea berez da **susmagarri** ... **Anjel Lertxundi**

Argitasuna ekarriko zutela ziruditen bizpahiru atxiloteta egin ziren arren, ezer ez zen atera **susmagarri** ziren pertsonak inplika zitzaizkeenik. **Koro Navarro**

Horregatik dituk Ingalaterran **susmagarri** tropikotik itzultitako guztiak. **Xabier Olarra**

Fisika ere gogoko zuen, baina **susmagarri** zitzaion xede baterantz zuzenduriko ekintza oro. **Juan Garzia**

Monarkietan arazo publikoak, gehienetan, **susmagarri** zaizkie merkatariei. **Iñaki Iñurrieta**

Susmagarri zitzaidan Isasi jauna hain luzaroz gaixorik egon izana. **Edorta Jimenez**

St. Eustache bereziki **susmagarri** gertatu zen. **Koro Navarro**

-**Susmagarri** samarra iruditu izan zait beti. **Juan Kruz Igerabide**

Susmatzen jarraitu beharko du, eta lanean; besteak beste, susmoak berak ere **susmagarri** bihurtzeraino. **Patxi Altuna**

5 (adizlagun gisa) ik susmagarriki.

Ez nuen ez **susmagarri** ez irringarri gelditu nahi. **Aingeru Epaltza**

6 (izen gisa)

Susmagarrien zerrenda labur bat, izaki bakartiak gehienak. **Joxean Agirre**

Okupazio militarren lehenengo egun horietan milaka **susmagarri** fusilatu zituzten. **Jon Maia**

Francok bisitatu behar zituen bazterretan bizi zen fitxatu edo **susmagarri** oro presondegira eramaten zuten. Gerora zortzi **susmagarri** atxilotu zituztela jakinarazi zuen.

Koldo Izagirre

Aldunditik azaldu dutenez, bi **susmagarri** ditu dagoeneko poliziak. **Berria - Kultura**

Irailaren 11ko bi **susmagarri** deportatzeko saioa. **Berria - Mundua**

Kontua duk hilketaren **susmagarri** bakarra nintzela, ez neukala Greta hil zuten momentuan non egon nintekeen argi zezakeen alibirik. **Anjel Lertxundi**

Susmagarri nagusia espetxetik atera eta gero, senarra alegia, hiltzailearen bila omen zabilta. **Miguel Angel Mintegi**

Susmagarri nagusia izatetik **susmagarri** bakarra izatera pasatu ninduan. **Anjel Lertxundi**

Susmagarri zerrenda bat ba omen du oraino! **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

fardel susmagarri (3); **gizon susmagarri** (3); **hiru susmagarri atxilotu** (3); **kasu susmagarri** (5)

susmagarri bat ikusi (3); **susmagarri bat topatu** (3); **susmagarri bihurtzen** (5); **susmagarri gisa** (3); **susmagarri guztiak** (5); **susmagarri nagusia** (4); **susmagarri samarra** (3)

batere susmagarria ez (3); **jende susmagarria** (3); **lehen susmagarria** (3); **oso susmagarria** (8); **susmagarria ez den** (3); **susmagarria iruditu** (9); **susmagarria iruditu zitzaien** (3); **susmagarria iruditzen** (6); **susmagarria izan** (9); **susmagarria izango** (3); **zerbait susmagarria** (3)

kasu susmagarriak (6); **susmagarriak agertu** (3); **susmagarriak diren** (4); **susmagarriak iruditu** (4)

modu susmagarrian (5)

susmagarrien aurka (4); **susmagarrien zerrendan** (3)

deus susmagarriak (3); **ezer susmagarriak** (20); **ezer susmagarriak antzeman** (3); **ezer susmagarriak ez** (4); **ezer susmagarriak ikusi** (4)

oso susmagarritzat (3); **susmagarritzat jo** (11); **susmagarritzat jo zuen** (3); **susmagarritzat jotzen** (3)

susmagarriki *adlag* era susmagarrian.

Zeren, behialako garai haietan, aita, ama eta seme edo alaba bakarrez osatuko ziren familia **susmagarriki** arraro izango baitziren. **Jon Alonso**

Igarritako hitzen kopurua **susmagarriki** handia iruditzen hasi zitzaidanean, paper zuri puska bat hartu, testua pixkanaka agerraraziz joan, eta proba egin nuen: [...]. **Iban Zaldúa**

susmagarritasun 1 *iz* susmagarria denaren nolakotasuna.

Beraiek aukeratu behar dutelako nor den pianista gogaikarriaren hiltzailea, antzezleekin beraiekin birpasatuz hilketa jazo arte gertatutakoa eta, geroago, galdera zuzenak eginez pertsonaia bati edo besteari, haietariko bakoitzaren **susmagarritasunaren** arabera. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Konspirazionistentzat **susmagarritasun** iturri agortezin dira aldizkariak, egunkariak, telebistak, irratiak eta komunikabideak oro. **Iban Zaldúa**

Orain **susmagarritasun** ezaren ageria eta etorkina ez zarelako ageria ere eskatzen dizkizute... **Elena Touyrou**

Zibismo ageriak, etorkinak ez zirelako frogak, Jacques Laborde eta Denis Vincent herritarren izenean ziren **susmagarritasun** eza agertzen zuten paperak. **Elena Touyrou**

susmakor 1 *iz* susmagarria.

Segurtatzeko biztanleak oro beren etxeetan zeudela eta inguruetan mugimendu **susmakorrik** ez zela. **Elena Touyrou**

Zaude segur zure jokamoldean zerbait **susmakorrik** hautematen badut, nire ganiabetaren erabiltzeko dudarik ez dudala ukanen. **Elena Touyrou**

2 susmatia. • (adizlagun gisa)

Bekainak jaso zituen, eta haren begi urtsu zain gorritz beteek txundituta eta **susmakor** begiratu ziguten. **Koro Navarro**

susmarazgarri *izond* susmarazten duena.

Ortega-rentzat herri baten gaztetasuna da harrogarria; eta antzinakotasuna, arraza primitibo eta garaezinaren seinale, edo gutxienez **susmarazgarri**. **Joxe Azurmendi**

susmarazi, susmaraz, susmarazten du *ad* susmatzera behartu.

Mikel Strogoffen konpartimentuan ezerk ere ez zuen **susmarazten** militar bat bazegoela haien artean. **Karlos Zabala**

Gertaera hain bat-batekoa izatea ez zen ongi lotzen erretinako konoak pixkanaka hondatzearekin, eta, aldiz, garunean kalte larriagoren bat izan zitekeela **susmarazten** zuen. **Xabier Olarra**

Bazen zantzurik, bestalde, **susmarazten** zuenik posible zela zelula horiek saio-hodietan beretan ere desberdintzea. **Juan Garzia**

Horrek guztiak auzotarrak dagoeneko esaten hasiak direna **susmarazten** du. **Josu Zabaleta**

Arratseko zortzietan, zeruaren tankerak **susmarazi** bezala, iluntasun beltzak estali zuen eskualde guztia. **Karlos Zabala**

Esateko zorian zenak ez zion don Ottaviori inondik inora **susmarazi** behar berak bazekiela gertaera hartaz zerbait. **Jon Muñoz**

susmari *izond* susmatia.

Arrebak esaten dit **susmaria** naizela, mesfidatia. **Berria - Kultura**

susmati 1 *izond* susmatzeko joera duena.

Senar **susmatia** beti izango da halakoa: sekula ez da ziur egongo besarkatzen duen umea benetan berea denentz. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Susmati izaten ikasi behar izan nuen; ezagumenaz ikasi ere. **Xabier Olarra**

2 susmoa adierazten duena.

Lehenbiziko astelehen hartatik, herriko jendea begirada **susmatia** botatzen hasi zitzaion. **Alberto Ladron Arana**

Beti bere buruarekin kontraesanean, batean konfiantza izatera gonbidatzen ditu gizonen gogo **susmatia**, bestean konfiantza falta ereiten du bihotz guztietan **Juan Martin Elexpuru**

3 (adizlagun gisa)

Gero eta arrikutsuagoa izango zen Sekretuen Ganbera irekitzea, eskola osoa erne eta **susmati** zebilela. **Iñaki Mendiguren**

-Hau nesken komuna da -esan zuen, Roni eta Harryri **susmati** begiraturuz-. **Iñaki Mendiguren**

Imajina nezakeen zer izango zen klandestinitateko bizimodua, beti ihesi, arriskuan, **susmati** eta susmopean, bere helburuari jazartzen zaiola eta aldi berean bera ere jazartua. **Xabier Mendiguren Elizegi**

susmatu (*orobat susmotu g.er.*) 1 du *ad* zerbaiti buruzko susmoa hartu.

Susmoren bat piztu behar zigun, nahiz eta hasieran guk ezer **susmatu** ez. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Susmatu bai, baina zehatz jakin ez. **Pedro Alberdi**

Orduan, ordea, ez nintzen konturatu; **susmatu** bai, eta agian **susmatu** baino gehixeago ere bai. **Matías Múgica**
Ez dago zehazturik bilera hartan inork Pearl Harborkoa igarri-edo, **susmatu** -edo, egin ote zuten. **Edorta Jimenez**
Zerbait **susmatu** eta sendagilearen ateraino lagunduko ote zidan beldurrez, hantxe utzi nuen zakarki autobusa iritsi zenean. **Joseba Urteaga**
Inork besterik **susma** ez zezan, beste baten gorpua sartu zuten hilkutxan. **Felipe Juaristi**
Zaindareik, jokoan murgilduta, ez dute ezer **susmatu** , eta, ziegaz ziegaz, informazio bera zabaltzeko aukera izan duzu afaria banatzen hasi diren arte. **Rafa Egiguren**
Handik ikusi zuten hurbiltzen, burua uzkuruta, sakela arakutzen giltzaren bila, deus ere **susmatu** gabe. **Migel Angel Mintegi**
Bere gain hartu zuten erantzukizuna, eta nire zerbitzari sexuala bihurtu zen, nik hasieran **susmatu** ere egin ez nuen moduan. **Karlos Zabala**
Nik ezer **susmatu** ez, ordea. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Inoiz **susmatu** ezingo nukeen arretaz ikasten nituen gertaturiko guztiak, horiek entzutean nire aurrean irekitzen ziren aukeren indarraren berri izan gabe. **Lander Garro**
Bihotza lauhazka abiatu zitzaidan berriz: **susmatu** bezala, Volvo urdin luzea begi parean nuen. **Aingeru Epaltza**
Susmatu bezala, larru berdea desitsastean hasi zen, pegatina txar bat bailitzan. **Jon Alonso**
Bruma adarraren parrera iristean **susmatu** bezala gertatu zen: kea zeriola, su txarpil bat agertu zitzaigun. **Itxaro Borda**
Baina perilaren beraren taxua, edo itzala behintzat, ezin nuen **susmatu** ere egin. **Edorta Jimenez**
-Ez dute zertan **susmatu** -erantzun zidan-. **Alberto Ladron Arana**
Orduan, ordea, ez nintzen konturatu; **susmatu** bai, eta agian **susmatu** baino gehixeago ere bai. **Matías Múgica**
Antonio ondoan izan zuen erditze guztian zehar, eta **susmatu** ezineko samurtasun batez jaso zuen jaioberria. **Iban Zaldúa**

2 (konpletibekin)

Eta nik zerikusia zenuela **susmatu** nuen. **Eider Rodriguez**
Ez dakigu gauza ziurrik, baina **susma** daiteke iruzur horren egileak John Dee eta Edward Kelley izan zirela. beraren aitak Aspergerren sindromea zuela **susmatzen** du. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Ezin, beraz, **susmatu** konboi hartan bere ama eta Nadia zeudela. **Karlos Zabala**
Hala ere, **susma** zezakeen ikuskariari ematen zion interpretazioa ez zela zuzena. **Askoren artean**
Ezin nuen inondik inora ere **susmatu** , noski, nirekin horrelaxe gertatuko zela, edo kasik. **Karlos Zabala**
Ezagutzen nuen, gainera, bere mugitzeko modu hura, harantz eta honantz, eta zerbait aparteko gertatzen zitzaiola **susmatu** nuen. **Bernardo Atxaga**
Ederra zen, liraina, beltzarana [...] eta batere arrastorik ez maritxua zela **susmatzeko** , ezusteko galanta hartu nuen jakin nuenean. **Karlos Zabala**
Niregana hurbildu, eta arropa usaintzen dit, zigarroak erretzen ibili naizela **susmatu** orduko egin ohi duen bezala. **Anjel Lertxundi**
Ezin **susma** zezakeen arestian agerturiko iritziak hain ondorio berehalakoak ekarriko zituenik. **Jose Morales**
Zer dela-eta **susmatu** behar nuen nik, Elisabeth Piper izeneko neskatxa hura Hannaren alaba zenik. **Joxe Austin Arrieta**
Eta **susmatzekoa** da garun-azaleko ukimen-aldeak (eta entzumenarenak) handituak direla itsuengan, eta ikusmen-kortexera heda daitezkeela eskuarki. **Xabier Olarra**
Kargaren zati hutsal bat Pasaian utzi eta depositoa fueloloz betetzeko helburuz sartu ziren badiara, bokalea igaro bezain pronto otsoaren eztarrian behera labaintzen zirela **susmatu** gabe. **Harkaitz Cano**
Azal horren atzean tristuraz hiltzen edo desiraz urtzen ari zen haragizko emakume bat zegokeenik **susmatu** gabe. **Joxean Agirre**

3 sumatu.

Urrakoak eta arrailak **susmatu** zizkion. **Itxaro Borda**
Nekez **susma** dezake zertan ari zaren pentsatzen, baina galdera zehatzak egiten dizkizu batzuetan, eta bi aldiz pentsatu behar izaten dituzu. **Rafa Egiguren**
Zakur zanpa alimale bat entzun zuten, entzun eta bertan, zakurraren hats bahitua gibelean **susmatu** . **Itxaro Borda**
Santosek egoerari tentsioa kentzearen txantxa tonukeran ahoskatua zuen, baina semearen aurpegian ez zuen lasaiturik **susmatu** . **Josu Landa**
Agian horren promesa **susmatu** du Gabinek han, ordena mental orohartzaille batena. **Iñaki Iñurrieta**
Irribarrea **susmatu** nion kaputxaren azpian. **Iñaki Iñurrieta**
Haizeak kontrara jo izanen zuen, ez bainuen kea **susmatu** . **Aingeru Epaltza**

4 ser susma ere

Esikapadatxootan, bakoitza bere aldetik irteten ginen ostatutik, etxekoandreak **zer susma ere** . **Anjel Lertxundi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

susmatu bezala (12); **susmatu gabe** (11); **zerbait susmatu** (3)

zerbait susmatuko (3)

susmatzekoa da (4)

aspaldi susmatzen (3); **dela susmatzen** (9); **duela susmatzen** (7); **duela susmatzen du** (3); **susmatzen da** (4); **susmatzen du** (15); **susmatzen hasi** (7); **susmatzen hasia** (5); **susmatzen hasiak** (3); **susmatzen hasita** (3); **susmatzen nuen bezala** (3); **zer susmatzen** (3)

susmatze iz zerbaiti buruzko susmoa hartzea.

Beren **susmatze** -datuekin iritsi ohi dira mistikako gauzarik goratuena ulertzeraz, harro sentitzen dira horrelako ekintzaz eta erraz mintzatzen ere bai gai horietaz. **Joan Mari Lekuona**

SUSMO 1 iz zerbaiti buruzko burutapena edo ustea, eskuarki txarra, aztarna edo aieru hutsetan oinarritzen dena. ik errezero; goganbehar.

Gerrako gertaera larri batzuen berri izan dut, eta **susmo** bat daukat, galdera bat etortzen zait gauero, jendea hiltzen ibilitako gizon baten semea ote naizen. **Bernardo Atxaga**

Alferrikakoak izan ziren aitaren azalpen guztiak, azalpen bakoitza **susmoen** gaineko susmo bihurtzen baitzen tenientearen iduriko: esan nahi dut pilatuz eta pilatuz joan zirela aitaren aurkako frogak. **Joan Mari Irigoien**

Hobe zuen isilik egotea buruan jiraka zituen **susmo** eta duda-mudak argitu aurretik. **Aritz Gorrotxategi**

Susmoa besterik ez da oraingoz. **Arantxa Iturbe**

Peterrek ez zekien gai horri buruzko gauza handirik, **susmoak** besterik ez. **Julen Gabiria**

Susmoak baino ez zirela, eta lasaitzeko. **Iban Zaldúa**

Guzmudek sinetsi egingo dio Ishmirri [...] nolnani dela, halako **susmo** bat geratuko zaio betiere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hitzaldi hura jasotzen duen liburua, aspaldiko **susmo** bat, anormala naizela, egiaztatu egin dit. **Markos Zapiain**

Hain zuzen ere, gu geu ere Tolosara aldatzeak, **susmo** batzuk piztu zituen gure artean. **Txillardegí**

Miren Arteagak egindako lana **susmorik** piztu gabe berregiteko. **Migel Angel Mintegi**

Minutu batzuk egoten zen, elkarriketei, begiradei adi, **susmo** baten haria, disimuluzko irribarre probokatzaille bat, esanahi ezkutua harrapatzeko moduko esaldi bat atzeman nahian. **Jon Alonso**

Aitak sekulako ikara hartu zuen, eta ahaleginak egin zituen Miepi horrelako usteak burutik kentzeko; hari, ordea, **susmo** pixka bat geratu zitzaion. **Josu Zabaleta**

Nire **susmoak** betetzen ari ziren, eta seinale hura argia zen, eta larria oso. **Juan Kruz Igerabide**

Lucyk uko egin zion **susmoa** baieztatu edo ezeztatzeari, eta horrek esan nahi zuen ez zuela nahi guk jakiterik. **Oskar Arana**

Exearen alde bat hondar gainean oinarrituta ote zeukan **susmoa** nuen, eta alde bat batzuetan kolokan ipintzen zidan Adelaz nuen irudia. **Juan Kruz Igerabide**

Haren ohearen inguruan bildu ginen eta gure **susmoen** berri eman genion. **Josu Zabaleta**

Urrutiko hitz galduren bat, pauso batzuen **susmoa** ... beti bada traba egiten dizun zerbait. **Rafa Egiguren**

Ivan Ogareffek, egia **susmo** harturik, zuzenean galdekatu nahi izan zuen andre siberiar zaharra. **Karlos Zabala**

ik beherago 13. **Askoren artean**

Inork ez luke **susmorik** hartuko grisez pintatutako [...] ate horren beste aldean hainbeste gela egon behar duenik. **Josu Zabaleta**

Susmoak **susmo**, Ernest Hemingwayk bazekien zertan ziharduen. **Edorta Jimenez**

2 (izan du aditzarekin) ik beherago 9 eta 12.

Susmo bat izan nuen eta asmatu. **Gotzon Garate**

Inoren **susmorik** ez zuen. **Josu Zabaleta**

Hizketan hasi zen Luvino orduan, borborka, eta **susmo** bat izan nuen. **Unai Elorriaga**

Egutxik **susmo** bat zuen, eta pixka bat arduratuta zegoen, iruditzen baitzitzaion senarrari buruz zerbait gehiago esan ziezaiekeela gurasoei. **Ibon Uribarri**

Susmo bat baino gehiago izan da. **Gotzon Garate**

Susmoa diat azazkal honetan ezkutaturik zegoen zerbait manifestatzen hasi dela. **Iñaki Iñurrieta**

Hamaika **susmo** eta zalantza nituen buruan bueltaka. **Alberto Ladron Arana**

[Irudij] haietako bakar bat ere -**susmo** hori nuen nik- ez zitzaion bihurtzen inolako inpresio orokor gogamenean. **Xabier Olarra**

3 (erakusleekin)

Eta ez dakit **susmo** honek beste **susmoek** baino garrantzi handiagoa izango duen, **susmoak** eta errealtatea inoiz elkartuko diren. **Lander Garro**

Susmo honek tormentatzen naik: une haren aurretik izan ote ziren beste batzuk, buru-argiz egindako hausnarketakoak. **Xabier Olarra**

Ez nintzen bakarra **susmo** horietan. **Txillardegí**

Erokeria izango zuan susmatzea Krisztina eta hi... eta, hausnarketa labor baten ondoren, **susmo** hori ia lasaibide bihurtu zuan niretzat. **Xabier Olarra**

Biografoak ere **susmo** horixe du, baina ez du ez astirik ez kemenik beste ikerketa berezitu eta luzea behar lukeen adar horri heltzeko. **Anjel Lertxundi**

Itxura denez, jeloskortasunak bultzatuta hil zuen kapitaina, nahiz **susmo** horrek ez bide zuen inolako oinarririk. **Jon Muñoz**

Susmo horren eraginez, goiz hartan ez zitzaien merkatarari bakar bat ere hurbildu. **Patxi Zubizarreta**

Oraindik ez dakit zer gogorazten didan haren keinu ezagun horrek, baina egingo nuke **susmo** horrekin lotuta dagoela. **Patxi Zubizarreta**

4 (-lako atzikiaren eskuinean)

Norbait etxean sartzen zitzaiolako **susmoa** zuela esan zidan, zelatan ari zitzaizkiola uste zuela. **Antton Olano**

Apaingarri moduan kontratatzen zutelako **susmoak** ez zion bakerik ematen. **Xabier Montoia**

Volanges andreak, nik hasieran estalgile zelako **susmoa** hartu banion ere, ez dirudi hunkitua. **Jon Muñoz**

Edozein momentutan gauzak mugituko direlakoan nago, gutaz gain besteren bat ere txostenaren bila dabilelako **susmoa** baitut. **Migel Angel Mintegi**

Zola 1902ko irailaren 29an hil zenean, haren heriotza hilketa izan zelako **susmoa** zabaldu zen berehala lagunen eta familiakoen artean. **Karlos Zabala**

Bertan idatzi zuen, atsegin bozkarioz; berehala, ordea, inorena zelako **susmoak** asaldatu zuen. **Juan Garzia**

Horrek are tinkoago baieztatu zidan eginbehar hura hutsaren hurrengoa izanen zelako **susmoa**. **Alberto Ladron Arana**

Haur bat ez izatearen tristurak, senarrak halakorik nahi ez zuelako **susmoak**, malko lodiz negar eragiten zion Luluri. **Josu Zabaleta**

Haiek ere indartu egin zioten gerra irabazi zutelako **susmoa**, baina erabateko baieztapenik gabe. **Juan Luis Zabala**

Gogoeta haiek guztiak nahasmendua areagotu baino ez zioten egin, eta bizargina beharbada senargai egokia ez zelako **susmoak** sendotu. **Patxi Zubizarreta**

Txakurra, beltzez jantzitako andrea, ageriko arrazoirik gabeko zaunkak, larritasuna, herioa urruti ez zebilelako **susmoa**. **Imanol Zurutuza**

5 (izenondoekin)

Bat-batean, **susmo** gaizto batek astindu ninduen: Angelok hain gustukoak zituen antzeppen horietako baten aurrean nengoan! **Anjel Lertxundi**

Heriotza hurbil ote den irudipen hori, inondik ere odolean eta haragian emetzen ari den gaitz oraindik ezezagun baten hasiera den **susmo** gaizto hori. **Josu Zabaleta**

Bulego huts horrek sortu inpresioak aieru txarrez, **susmo** beltzez bete zuen. **Jon Alonso**

Susmo beltzak hartu zuen Joanes, laino beltzek zerua hartzen duten modura, abisatu gabe. **Felipe Juaristi**

Ez zioat **susmo** onik hartzen. **Jon Muñoz**

Sorgin alaena! ez zien, nonbait, **susmo** onik hartu nire bat-bateko oporrei. isiltasun honek ez dit **susmo** onik ematen. **Aingeru Epaltza**

Ez diat **susmo** onik Císcar horrekin -bota zidan bat-batean. **Edorta Jimenez**

Oraingoan, berriz, **susmo** ona hartua nintzen. **Aingeru Epaltza**

Ez uste gero **susmo** huts bat denik: hain nintzen susmorik izatetik urrun! **Jon Muñoz**

Edonor atxilo eramaten zuten laster asko, **susmo** hutsarekin sarri, eta egurra ematen zioten, nola gainera. **Juan Kruz Igerabide**

Historia hori entzuten ari nintzela halako **susmo** lauso bat izan nuen ni nintzela tximino hura. **Josu Zabaleta**

Erran duzu Parsifal hori Reichera sartu delako **susmo** sendoa duzula? **Alberto Ladron Arana**

Baina **susmo** primarioa irudituz zitzaidan hori, kategoria txikiko susmoa. **Unai Elorriaga**

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ea zerbait berezia sumatu genuen, **susmo** izpiren bat, zerbait berezia edo ezohikoa, zerbait, zantzuren bat. **Karlos Linazasoro**

Iragarle titiki eta haziago, animalia-hegazti-azienda, edozein eta edonor zitzaion balios, **susmo**-zirkirik bideratzen bazion. **Pello Zabala**

Hala ere, bazirudien pertsona batek behintzat oso atsegin zuela izu eta **susmo**-giro hura. **Iñaki Mendiguren**

Iritzi publikoaren miresle, trumoiatsu, moldakaitez, zaratazale; afektatu, itsusi, **susmo**-putzu, gezurti, errespetatua halere. **Xabier Olarra**

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haiek bakarrik ulertuko dute pentsamendu hau: aurre-**susmo** bat eta grazia-argia eduki dutenek bakarrik. **Joan Mari Lekuona**

Atertzen ez duela ohartzean, elkarren beldur **susmoak** sentituko dituzue. **Joseba Sarrionandia**

Ondorioz izan ziren protesta eta tortura **susmo** nabarmenen gainetik pitzadurarik gabe eutsi zion EAJren eta PSOEn arteko itunak. **Jokin Urain**

Horrek eliz agintarien artean heresia-**susmorik** sortu gabe predikatzea ahalbidetzen zien. **Askoren artean**

Hau da adulterio-**susmoaren** legea, senarraren eskumende egonik, emaztea desleial izan eta desohorutzen denerako. **Elizen arteko biblia**

Morsezko mezuek eta Frantziatik zetorkigun prentsak ez zuela nire bakardade **susmo** hauetaz ezertxo ere esaten. **Txillardegí**

Zorrotz **susmoa** hartu nien haren behakoei. **Jon Muñoz**

Batekoz beste ere, kosmogoniarik sendoena edo hausnarketarik serioena dirudiena noiznahi bilaka dakiguke boutade edo adarjotze **susmo**. **Juan Garzia**

Bizkaiko zenbait herritan neska plazakoa edo plaza-neskatila esaten zitzaion [...] plazara, dantzara eta mutil **susmoan** hasitako neskari **Iñaki Segurola**

8 *susmoean adlag*

Gogoan izan libre baina **susmoean** zaudela oraindik. **Migel Angel Mintegi**

Kontratu horretan ez dago ezer aurreikusita **susmoean** egoteagatik lanetik botatzeari buruz. **Oskar Arana**

Segur aski Weberren etxearen inguruko nire mugimenduek **susmoean** jarri ninduten. **Alberto Ladron Arana**

Kontua da funtsik gabe, frogarik gabe jarri dituztela **susmoean** asko, eta norbait **susmoean** jarri ostean, kaltea egina dagoela, **susmoean** jarritakoa erregabea dela frogatuta ere. **Berria - Kirola**

Imajina nezakeen zer izango zela kandestinitateko bizimodu, beti ihesi, arriskua, susmati eta **susmopean**, bere helburuari jazartzen zaiola eta aldi berean bera ere jazartua. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Auzi hau, eztabaidagai ezin amaituzkoa izan dena (zinemari buruz, batez ere, zeren espiritual "gaiztotzen" zituelako **susmopean** jarri baitzuten sortu orduko), [...]. **Josu Zabaleta**

Bere latinezko eta alemanezko obren 49 pasarte inkriminatu ziren heresia-**susmopean**. **Joan Mari Lekuona**

Pilula antisorgailu bat **susmopean**, depresioa eragiten duelakoan. **Berria - Gaiak**

Kirk Kerorian AEBetako diruduna, **susmopean**. **Berria - Ekonomia**

9 susmo izan du ad

Susmo dut edozein gauza sartzeko zuela gorputzean burua argitzeko. **Karlos Zabala**

Hemen gaidiko kazetari batzuek beren aldetik, zerbait probokazio **susmo dute**. **Herria**

Norbaiti ematen bazaio misterio horretan sartzea, **susmo du** han egona dela betierean, eta bat egin dela Hirurekin. **Joan Mari Lekuona**

Banuen susmo beltzurituko ote zen, izkiriatu ez niola ikusirik. **Jon Muñoz**

Bai, **badut susmo**: hartzara zuri mintzatzea da nire kontra baliatzeko zu arma bortitzagoz hornitzea, zure borondateari osoki men egitea. Benetan ari zen oialoka modura (emakume guztiak bezalatsu, intelektualak ere barne, nik **susmo**), umea hegazpian babestu beharrez. **Jon Muñoz**

10 susmo txar (orobat susmotxar g.er.)

Hala ere, **susmo txar** bat zuen, ez zekien zergatik ezta nondik etorri zitzaion ere. -Ez dakit, **susmo txarra** hartzen diot, besterik ez. **Xabier Mendiguren Elizegi**

- **Susmo txarra** hartzen al zion Blacki? -esan zion Rosmerta andreak, harrituta. -Aita, lasaitu, **susmo txarra** hartuko digute eta! -xuxurlatu nion, begi ertzetik ateko zaindariari begira. gurasoek ez baitzituzten auzoen **susmo txarrak** piztu nahi. **Iñaki Mendiguren**

Harekin ukan zuen ikustaldiak **susmo txarrak** baieztatu zituzten. **Elena Touyarou**

Hortik sortzen dira bekaizeriak, auziak, irainak, **susmo txarrak**. **Elizen arteko biblia**

Susmo txarrik ez dut St. Eustacheri buruz; baina joan gaitezen urratsez urrats. **Koro Navarro**

Ez nuen **susmo txarrik** sorrarazi behar. **Ramon Saizarbitoria**

Neska-mutilok goibel samar aurkitu omen zituen, baina ez omen zitzaion inongo **susmo txarrik** egin. **Gotzon Garate**

Jonatan eta lagunak lasai bizi dira, ezeren **susmo txarrik** gabe. **Elizen arteko biblia**

Barrea atera zitzaidan bere **susmo txarreko** aurpegia ikusita. **Ramon Saizarbitoria**

Osaba Vernonek **susmo txarrez** begiratu zion. **Iñaki Mendiguren**

Susmo txarrez so egin zion, ez zuelakotz berehala ezagutu. **Elena Touyarou**

11 -en susmoa egin

Emazteak berehala bere neskamean **susmoa egin** zuen eta banan-banan galdezkatu zituen. **Patxi Zubizarreta**

Baina honek bere erregabetasuna frogatu zuelarik, okinarean **susmoa egin**, eta laster deskubritu zuen trukea. **Patxi Zubizarreta**

Haren **susmoa egiten** hasirik, pentsatu zuen ezen, Hamidarenaz jakitun, gaixotasuna eragin ziola mendekatze aldera. **Patxi Zubizarreta**

Kasualitateak nahi izan zuen une hartan Amgad kaian zehar ibil zedila, eta Asad ezkutuan zuen itsasontziaren **susmoa egin** zezala. **Patxi Zubizarreta**

Erregeak azkenean Dubanen **susmoa egin** zuen eta azpilanetan zebilela sinetsi. **Patxi Zubizarreta**

Ez zenekien segur hori ote zenetz artelanak ezkututzen zuen balioa, bi argi, bi leku eta bi denbora aldi berean harrapatzearen kontu hori, baina zerbaiten **susmoa egiten** zenuen. **Hasier Etxeberria**

12 susmoa izan du ad

Lehendik ere **banuen susmoa**. **Arantxa Iturbe**

Susmoa dut ez ote diren ari hautsa batzen. **Iñigo Aranbarri**

Eta **badut susmoa** guk jende bertutetsutat dauzkagun horiek ez ote duten bere buruaren atseginez erran ohi diguten bezainbat merezimendurik. **Jon Muñoz**

Susmoa dut hautsi egin zutela betiko. **Oskar Arana**

Baimen faltua baneukan ere, **susmoa nuen** agintari naziek ez zutela oso begi onez ikusiko jendea armaturik ibiltzea. **Alberto Ladron Arana**

Nire lagunek esan zuten, jendeak **susmoa zuen** Juliok salatu ote zuen OIC-ko idiskoa. **Juan Kruz Igerabide**

Zalantza dut, ordea, egia ote orduan idatzitakoa, **susmoa baitut** gizakia, sarritan, txarrena egitera behartua dela, egiteko txarrena dela jakinda. **Hasier Etxeberria**

13 susmoa hartu

Gure amari karta egin zion beste apaiz harena bezala; ez nian nor zen inoiz jakin, baina **susmoa hartu** nioan nik dakidan bati. **Pako Aristi**

Nik **susmoa hartu** diot agian irakaskuntza darabilela buruan. **Josu Zabaleta**

Susmoa hartzen hasita nengoen ez zela jada han bizi. **Oskar Arana**

Behin denak errepasaturik, beste urrats baten atarian geundelako **susmoa hartuko** genuen. **Pedro Alberdi**

Hark harrituta begiratu zidan, nondik aterako ote nintzaion **susmoa hartu** ezinik. **Juan Kruz Igerabide**

Susmoa hartu nion txakurren beldur hurra ez ote zen beste beldur sakonago baten oihartzun. **Pedro Alberdi**

Batzuetan, **susmoa hartzen** zuen informatazile ospetsu hurra, zinetan, ez ote zen izanen esku-irakurle bat. **Fernando Rey**

Hasieran, broma baten **susmoa hartu** nuen noski. **Juan Garzia**

Poliziak berehalaxe indonesiarren **susmoa hartu** zuen eta atxilotu egin zituen. **Gotzon Garate**

Henryk, hasiera-hasieratik **hartu** baitzion **susmoa** Dubinsky-ri, Maureen zaintzen egona zen. **Oskar Arana**

Susmoa hartu zion Samarkandako merkataria, arratsalde osoan beste oihalik saldu ez zuenean, Herioa bera zela agure itsua, eta bila etorriko zitzaioala. **Imanol Zurutuza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere susmo (5); **halako susmo** (7); **inolako susmo txarrik** (4); **nire susmo** (7); **nuen susmo** (4)

susmo beltza (4); **susmo gaizto** (4); **susmo handiak** (5); **susmo hutsa** (5); **susmo onik** (8)

susmo txar (28); **susmo txar bat** (5); **susmo txarra** (90); **susmo txarra hartu** (25); **susmo txarra hartuko** (4); **susmo txarra harturik** (5); **susmo txarra hartuta** (5); **susmo txarra hartzen** (20); **susmo txarrak** (47); **susmo txarreko** (9); **susmo txarren** (6); **susmo txarren bat** (5); **susmo txarrez** (25); **susmo txarrez begiratu** (4); **susmo txarrik** (51); **susmo txarrik egin** (4); **susmo txarrik ez** (10); **susmo txarrik har** (6); **susmo txarrik hartu** (8)

susmoak susmo (6)

badut susmoa (14); **banuen susmoa** (4); **bere susmoa** (6); **dagoen susmoa** (6); **den susmoa** (27); **den susmoa dute** (4); **diren susmoa** (12); **dituen susmoa** (10); **dituen susmoa du** (4); **duen susmoa** (13); **duten susmoa** (7); **izango den susmoa** (4); **nire susmoa** (12); **ote den susmoa** (6); **ote zen susmoa** (5); **ote ziren susmoa** (4)

susmoa agertu (7); **susmoa baino ez** (4); **susmoa baino gehiago** (4); **susmoa bainuen** (7); **susmoa baitut** (5); **susmoa dago** (11); **susmoa dauka** (8); **susmoa daukagu** (5); **susmoa daukat** (13); **susmoa diat** (5); **susmoa du** (30); **susmoa duela** (8); **susmoa dugu** (7); **susmoa dut** (48); **susmoa dute** (22); **susmoa duzu** (4)

susmoa egiaztatu (4); **susmoa egin** (5); **susmoa egiten** (4); **susmoa hartu** (30); **susmoa hartu zion** (4); **susmoa hartu zuen** (7); **susmoa harturik** (4); **susmoa hartuta** (5); **susmoa hartzen** (15)

susmoa izan (15); **susmoa neukan** (5); **susmoa nuen** (13)

susmoa piztu (8); **susmoa sortu** (6)

susmoa zabaldu (4); **susmoa zeukan** (4); **susmoa zuela** (4); **susmoa zuen** (22); **susmoa zuten** (7)

zelako susmoa (7); **zen susmoa** (15); **zerbaiten susmoa** (12)

bere susmoak (9); **nire susmoak** (10); **susmoak baieztatu** (7); **susmoak besterik ez** (8); **susmoak daude** (4); **susmoak izan** (8)

susmoen berri (5)

susmopean daude (4); **susmopean jarri** (13); **susmopean jartzeko** (7)

susmobide *(corpusean susmo bide soilik)* iz susmatzeko zioa.

Nola liteke astelehen goiz batean biltegian ehun florin agertzea. **Susmo bidea**, noski. **Josu Zabaleta**

susmogabe 1 *izond* susmorik gabekoa.

Esperientziatzko erabilera enpiriko oro gainditzen dituzten oinarri-esakuneetara ihestera behartua gertatzen da, nahiz eta hauek itxuraz hain **susmogabeak** diren, ezen gizakien arrazoimen arrunt bera ere hauekin ados baitago. **Ibon Uribarri**

2 *susmogabeko izlag*

Aita Sainduak ez zezan, ez igor, ez izenda, bere ustez **susmogabeko** eta alderdigabeko epaile den herritarrik edo atzerritarrik, horrelako kasuetan Erromako Aulki Sainduak egin ohi duen bezala. **Piarres Xarriton**

susmogarri ik susmagarri.

susmopeko 1 *izlag* susmopean dagoena.

Gazteek zerbaiten desira eta nostalgia sentitzen dute beti, **susmopeko** aberri ezaxola eta beldurgarri batena, mundua deritzon aberri horrena. **Xabier Olarra**

• 2 *iz* susmopean dagoen pertsona.

Polizia edo **susmopeko** edozeinen hurbileraz kideak bi huxtuz abisatu behar zituen. **Itxaro Borda**

Egun batean, atxilotu bat askatzeko agindua eman baitzuen, **susmopekoak** hitzok esan zizkion: [...]. **Pablo Sastre**

susmotegi *iz*

Norbait hartaz ez zion deus salatu nahi izan, eta Xaxi, susmoak **susmotegi** negarrez urtu zen. **Itxaro Borda**

susmotsu *adlag* susmati.

Veizin, **susmotsu**, ondora etorri zait. **Josu Zabaleta**

Gero, begira dagokidala, **susmotsu**: [...]. **Josu Zabaleta**

susmotu ik susmatu.

susmotxar ik susmo 10.

susmur ik surmur.

suspenditu, suspendi, suspenditzen 1 du *ad* azterketez mintzatuz, huts egin, ez gaintitu, ez pasatu.

Pisu berean bizi izan ziren hiru urtez, eta elkarrekin **suspenditu** zuten, behin baino gehiagotan, Zuzenbide Erromatarra. **Iban Zaldúa**

Filosofia eta letrak ikasten hasi zen, baina ez zuen karrera amaitu latina beti **suspenditzen** zuelako. **Jasone Osoro**

Anjeli ez omen zitzaion iruditu mezua erdaraz idatzi izana nahikoa zenik ikaslea **suspenditzeko**. **Joxerra Garzia**

Dena **suspenditu** diat. **Bernardo Atxaga**

Haren eskoletara oso jende gutxi joaten zen, ikasi eta ikasi munduan beste asmorik ez zutenak eta piper egiteagatik **suspendituak** zeudenak. **Karlos Zabala**

2 bertan behera utzi.

Ezer ez; juizioa **suspenditu** zitean. **Pablo Sastre**

Bonbardaketaren bezperan, autoa hartu eta Eibarren izan gintuan, pilota partiduak ikusteko asmoz, baina **suspenditu** egin zituan. **Pako Aristi**

Viçenç Navarro Juanaren gaisotasuna dela eta, 2003/2004. kortsorako hasiera ofizialaren ekitaldia **suspenditzen** da. **Joxerra Garzia**

3 karguez eta kidekoez mintzatuz, gabe utzi.

Uzten badugu, zeren oraindik ez baita erabaki meza ematen jarraitzea onartuko diogun edo *a divinis* **suspendituko** dugun. **Koldo Biguri**

4 eseki.

Ozta ditu balkoi **suspendituko** bi edo hiru etxe beltz. **Koldo Izagirre**

suspense *(34 agerraldi, 8 liburu eta 17 artikulutan; orobat suspentse 38 agerraldi, 7 liburu eta 20 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian suspense agertzen da)* 1 *iz* film edo kontakizun batean, larridura sortzen duen unea edo pasarte; sentipen hori zer dezakeenaren nolakotasuna.

Barthesek dioenez, **suspensea** tresna intelektuala da, eta buruan harrapatzen gaitu. **Berria - Kultura**

Eleberrian, ironia eta trufa anitz erabiltzen du Etxeberrik, baita **suspensea** ere. **Berria - Kultura**

Zinema beltzaren ukitua eta **suspense** handia duela. **Berria - Kultura**

Liburu honek ez dauka **suspenserik**. **Pako Aristi**

«**Suspense** psikologikotik gertuago egongo da beldurrezko zinematik baino», zuzendariak azaldu duenez. **Berria - Kultura**

Alberto Ladronek **suspentseari** eusteko iaioetasuna erakutsi digu. **Berria - Kultura**

Suspenseak soilik mantentzen zituen ehiztari nekatu haiek esna, ondoren zer gertatuko zen, zer kontatuko zuen jakin-nahiak. **Pako Aristi**

Monterrosok bere ipuinean, **suspentsea** areagotzeko, tarte zuri handi samarra utzi ondoren, egoerari ustekabeko itxenbidea eman zion. **Martin Anso**

-Dena ez da **suspentsea** literaturan! [Bernardo Atxaga](#)
Nekazarien giroko **suspensearen** barruan sartzen da filma. [Berria - Kultura](#)

«**Suspensezko** thriller-a», hori da lanaren definizioa. [Filipe Bidart](#)

Niri **suspensezko** literatura ez zait gehiegi gustatzen, amaieran gertatzen dena jakiteko desirak gehiegi baldintzatzen baitu irakurketa. [Ramon Saizarbitoria](#)

Bere azken nobela, aldi berean hilketa baten ikerketa **suspensezkoa** eta hamaseigarren mendeko Mundaka ezagutzeko aukera paregabea, egundoko laudorioak ari da jasotzen. [Markos Zapiain](#)

Zinez mendeurreneko Frantziako itzulia antzerki parekoa da bere **"suspense"** delakoarekin. [Herria](#)

2 irud/hed

Hau duk **suspentsea**, lagunak! [Bernardo Atxaga](#)

Suspense guztia legebiltzarrak bereganatu zuen, burtsan behinik behin ustekaberik ez baitzen izan. [Berria - Ekonomia](#)

3 (hitz elkartuetan)

Polizia eleberririk, medikuntza liburuak eta **suspense** eta maitasun historia hutsalak irakurtzen ditu. [Josu Zabaleta](#)

Jainko maitea! **suspense**-taupada bortitza. [Patxi Iturritegi](#)

suspensibo ik **suspentsibo**.

suspensio ik **suspentsio**.

suspentse ik **suspense**.

suspentsibo *(orobat suspensibo g.er.)* 1 izond suspentsioarena, suspentsioari dagokiona.

Aldi berean **suspentsiboa** eta probidentziala den ondorio honek ahalbidetzen digu, plano narratiboa trebeki aldatuz, Raimundo Silva zuzentzailearengana itzultzea. [Jon Alonso](#)

2 puntu suspentsibo pl etenpuntuak.

-Mutilak bere partida horietako bat egiten badu... -eta puntu **suspentsibo** haietatik eskegi zuen bere esperantzaxoa. Puntu **suspentsiboak**, hiru ez baizik eta kate amaigabe bat izan ziren jarraian. [Joan Mari Irigoien](#)

Eta buruaren ezker-eskuineko mugimendu batekin bete zituen puntu **suspentsiboak**, nik uste dut zuk hasi duzun esaldiaren berezko bukaera dela, zure puntu **suspentsibo** adierazgarri horien berezko bukaera, adierazgarriak baitziren. [Joan Mari Irigoien](#)

Zuzendaria isilik geratu zen, zain, "ondo" eta geroko puntu **suspentsiboak** entzun izan balitu bezala. [Jon Alonso](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

puntu suspentsibo (5)

puntu suspentsiboak (6)

suspentsio 1 iz ibilgailuetan, bastidorearen eta gurpilen artean, zoruko gorabeheren eragina moteltzeko, jartzen diren gailuen multzoa.

Suspentsioan, pneumatikoetan eta ihes hodian ukitu txiki batzuk egitea besterik ez da onartzen. [Berria - Kirola](#)

Argiztapenaren arazoak nagusi izan ziren ibilgailuek proba ez gainditzeko arrazoiaren artean [...] eta ardatzarekin eta **suspentsioarekin** eta galgekin zerikusia zutenak ere sarritan gertatu ziren. [Berria - Euskal Herria](#)

Hori bai, gurpiletan **suspentsio** hobeak jarrita, hainbeste bote ez emateko. [Berria - Kirola](#)

Nire matematikariak **suspensio**-sistema bat landu zuen, ontziaren kulunkak eta zabuek eraginik izan ez zezaten itsasorratzean. [Jon Muñoz](#)

2 bertan behera uztea; etetea.

Sindikatuetaiko ordezkariak «benetako **suspentsioa**» aldarrikatu dute, dekretuaren aurreko egoerara itzultzea. [Berria - Euskal Herria](#)

Ez dago batere argi Fernando Grande-Marlaska epaile instruktoreak Barakaldoko ekitaldia debekatzeko eskumenik baduen, Garzonek hiru urterako erabakitako behin-behineko **suspentsioa** agortu zenean. [Berria - Euskal Herria](#)

Bekaren **suspentsioa**. [Iban Zaldua](#)

Mintzaldi garbia, zeinean aurkikuntza narratibo zoriontsuak ere badiren, luzea eta laburra tartekatzea, bat-bateko etena, plano-aldaketa, **suspentsioa**, are eta ironia poxi bat begirune gabea ere. [Jon Alonso](#)

Legea aldarrikatu zuen baina **suspentsioan** atxikitzeak agindua eman du denbora berean. [Berria - Ekonomia](#)

3 fluido batek eta bertan sakabanatuak, disolbatu gabe, dauden zatikiek osatzen duten nahastura.

Zergatik ote zeuden izpi haiek guztiak **suspentsioan** hautsarenak airean bezala. [Bernardo Atxaga](#)

Tratamenduaren ondoren, alferrik eragin genion iman indartsu bati gure hautsen ur-**suspentsioaren** barnean: burdin arrasto bat baino ez genuen jaso. [Juan Garzia](#)

4 suspentsioan adlag fluido batean suspentsioa osatzen.

Hortaz, **suspentsioan** dauden ttanta tiki buxtiz betetzen da airea, eta horrela lainobera erutzen. [Pello Zabala](#)

suspentsio iz azterketa batean gutxiegi atera duenaren nota.

Jarraitu baino lehen ikasleen notak emango dizkizuet: Garbisu, nahiko; Calderon, **suspentsio**. [Berria - Kultura](#)

Patxi Altunak nire espedientearen agertzen den **suspentsio** bakarri jarri zidan latinean. [Joxerra Garzia](#)

Nire anaiak **suspentsio** ugari ekartzen zuen. [Pello Lizarralde](#)

Latineko **suspentsioa** zela eta, ordea, beldur nintzen ez ote ninduten Bartzelonan onartuko. [Joxerra Garzia](#)

suspergarri 1 izond suspertzen duena.

Anaiak uste dute nire gorputza ez dagoela janari **suspergarrien** premian. [Askoren artean](#)

Mandragorazko edabe **suspergarria**. [Iñaki Mendiguren](#)

Lo **suspergarri** bati emana ote, ala koman eroria sekula betiko? [Jon Muñoz](#)

Lasaitu ederra, kanpoan ginela, arnasbideetan barrena sartzea aire garbi **suspergarria**, odolaren eta barrenkien inbasiaz usteldu gabea. Xabier Olarra

Baina nola lortu **suspergarri** den heriozko arriskuaren sentipen hori? Joseba Zulaika

Hantxe agertu ohi zitzaion bat-batean andereñoa, eguneroko gau-ekitaldi **suspergarri** prest. Mirentxu Larrañaga

Gainera, guardiako espetxezainak -bera ere zaharra- kolpetxo **suspergarri** batzuk eman zizkion buruan, eta horrek ere bere eragina izan zuen. Jose Morales

Bazirudien sentipen bero eta **suspergarri**ren bat erdiesten zutela hortik. Urtzi Urrutikoetxea

Erregelaren testua denek edukitzea nahi zuen, denek ongi ezagutzea eta buru-bihotzetan hausnartzea, motelaldietan **suspergarri** eta profesan hitzemandakoaren oroigarri bezala. Askoren artean

2 (hitz soila –en atzikiaren eskuinean, izen balioarekin)

Hauek banatuko al dute bakea jauregi eta txaboletan, eta segurtasuna eta zoria hobetzeko itxaropena, estatuen **suspergarri** eta bizipoz onena, hain zuzen ere? O Don Kijote Mantxako, behar adina behin ere jaso izango ez zaren hori, gogaituen **suspergarri**, erortzera doazenen eusle, jauzi direnen beso-indar, dohakabe guztien esku-emaile eta kontsolagarri. Juan Martin Elexpuru

3 (izen gisa) suspertzen duen gauza.

Gure amak **suspergarri** bat erosten zidan eta pontxea ematen zidan goizean indar nendin. Pello Lizarralde

Erkituta geunden hainbeste ibiliren ondoren, eta **suspergarri**ren bat behar genuen. Bernardo Atxaga

-Mandragora oso **suspergarri** ahaltzua da -esan zuen Hermioneek, ohi bezala testuliburua irentsi zuen itxuraz-. Iñaki Mendiguren

Aski izan zuen bizpahiru aldiz errepikatzea, **suspergarri**rik gabe ikasteko, eta, handik aurrera, ikusten ninduen bakoitzean errezitatzen zuen. Xabier Olarra

4 (hitz elkartuetan)

Batzuk leher eginik hil zirela, beste batzuk lurrera erori eta lepoa hautsita, eta beste batzuk **suspergarri** faltaz. Xabier Olarra

- Ez zuen behar ez oroimen- **suspergarri**rik, ez *aide-mémoire*erik, ez zirriborro edo oharrik. hiru ordutik behin edo, ogi bat eta pitxer bat garagardo ekarri behar zion otseinak adore- **suspergarri**. Xabier Olarra

susperketa iz suspertzea.

Zenbait kasutan, haien esku dago zure **susperketa**. Elizen arteko biblia

Gizarte eta Kultur **Susperketan** Diplomatu. Askoren artean

susperraldi 1 iz suspertzea; zerbait edo norbait suspertzen den aldia.

Ziklo ekonomiko batean honako fase hauek bereiz daitezke: goraldia, gailurra, atzeraldia edo gainbehera, depresioa edo hondoa eta **susperraldia**. Iñaki Heras

Erorialdi eta **susperraldien** erritmo ziklikoak. Iñaki Mendiguren

Erorikoaren eta **susperraldiaren** ondoren, eroriko berria. Iñaki Mendiguren

Hil baino ordu batzuk lehenago, osabak **susperraldi** bat izan zuen. Bernardo Atxaga

Batzuetan **susperraldi** batzuk zituen Leirek, eta besteetan erdi lotan gelditzen zen, ametsetan bezala. Joan Mari Irigoien

Bazekien bitaminak, oligoelementuak, mineralak eta bestelakoak oso beharrezkoak zituela bere **susperraldian**. Joxemari Iturralde

Bruselak ohartarazi du [...] «eraso terroristek» ziurgabetasuna eragin dezaketela nazioarteko merkatuetan eta, beraz, ekonomiaren **susperraldia** eten. Berria - Ekonomia

Ekonomia krisiaren itzala nagusi da mundu osoan zehar [...] nahiz eta orakuluek **susperraldia** gertu omen dela dioten. Iñaki Heras

Industriaren «**susperraldia**» eta eraikuntzaren «indarra» giltzarri izan dira. Berria - Ekonomia

Euskararen **susperraldiak** ez zuen indarririk izan Araban, Bilbotik mendebaleranzko eremu zabalean eta Nafarroako ekialdean eta hegoaldean. Koldo Zuazo

60ko hamarkadaren erdialdean euskal kulturak bizi izan zuen **susperraldiaren** emaitzetako bat izan zen Oskarbi. Berria - Kultura

Azpeitian, baina, Koka eta Belokiren **susperraldiak** ez zuen saririk jaso. Berria - Kirola

Bilakaera nominalen halako konbergentzia batek argi eta garbi baldintzatzen zuen diru-batasunaren proiektuaren **susperraldia**. Koro Navarro

Bere aldia heldu ez, antza, eta ataka gorria gaunditurik, **susperraldiaren** lur irmoan pausatu zen. Patxi Zubizarreta

2 (izenondoekin)

Susperraldi txikia izan zuen espezieak 1990. eta 2000. urteen artean. Berria - Gaiak

Sektoreko eta merkatuko enpresaren inguruko iritzia «apalki hobetu» dela adierazi zuen, «%4k uste dute merkatua **susperraldi** indartsua izaten ari dela». Berria - Ekonomia

Bruselak hartutako erabakiak antxoaren **susperraldi** biologikoa erraztuko duela azpimarratu zuen. Berria - Ekonomia

Bruselak azaldu du **susperraldi** ekonomikoak «sano» garestitu dituela lehengaien prezioak. Berria - Ekonomia

Hemeretzigarren mendean **susperraldi** moral ohargarria lortu zuten. Iñaki Mendiguren

Beheraldi mundutarrekin batera zertutako erlijiozko lorpenak aurrerapen espiritual hutsak ez ezik, **susperraldi** espiritualak ere badirela. Iñaki Mendiguren

Erorialdi berri honi bigarren **susperraldi** iraunkorrago batek jarraitzen dio. Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Finantza Erakundearen esanetan, 2003 urtea ekonomia **susperraldirako** «inflexio puntua» izan da. Berria - Ekonomia

Finantza- **susperraldi** horrek [...] ezin du herrialde gehien-gehien bizimoduaren hondamena eta herrialde askoren inbertsio-atonía iraunkorra ezkatu. Koro Navarro

Zibilizazio Heleniko, Siniko eta Hinduen historietan estatu unibertsalen ezarpenarekin hasitako gizarte- **susperraldiak**. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

susperraldi ekonomikoa (7); **susperraldi txikia izan** (3)

ekonomiaren susperraldia (8); **susperraldia izan** (4)

susperralditxo iz susperraldi txikia.

Gorrien **susperralditxo**, baina, beranduegi iritsi zen. Berria - Kirola

susperrarazi, susperraraz, susperrarazte du ad suspertzera behartu.

Charlie da bat eginda irauñarazten diguna [...] eta berak **susperrarazten** gaitu denok adoregabetuta gaudenean. Mirentxu Larrañaga

Biek ere uste zuten edanak **susperrarazi** egingo zuela emaztearen adorea. Mirentxu Larrañaga

Ez da aski zu nire zerbiztari izatea Jakoben leinuak **susperrarazi** eta berritzeko eta Israelen bizirik geldituak itzularazteko. Elizen arteko biblia

Familien kontsumoa izan zen, zehazki, Bizkaiko ekonomia **susperrarazi** zuena. Berria - Ekonomia

Baina oroitzen naiz itxaropena **susperrarazten** didan zerbaitez: [...]. Elizen arteko biblia

suspertu, susper, suspertzen 1 ad moteldurik edo indargabeturik dagoena bizkortu edo indarberritu. (norbait)

Handik laster, azal beltza erori eta bere kolorea hartu zuen haragiak, eta haurra **suspertzen** eta indartzen joan zen. **Askoren artean**

Sergei zurbil samar egon zen hasieran, baina berehala **suspertu** zen eta betiko itxura hartu zuen. **Jose Morales**

Entzuten dut, **suspertzen** naiz, neure onera nator. **Imanol Unzurrunzaga**

Bere egoeragatik deprimiturik egon arren [...] berehala **suspertu** zen gu ikustean. **Xabier Olarra**

Bran erabat **suspertuta** zutitu, gorputza astindu eta abian jarri zen erbinudearen lorratzak usnatzen. **Joanes Urkixo**

Mutila erne eta **susperturik** zegoen, antza. **Karlos Zabala**

Suspertzeko arrosa-ura usnatzea gustatzen zitaion. **Askoren artean**

Ahulduta eta dardaratsu zegoen, marranta txar batetik **suspertzen** ari balitz bezala. **Iñaki Mendiguren**

Gaixoalditik zertxobait **susperturik**, makila baten laguntzaz etxean batera eta bestera ibiltzen hasi zen indarrak berreskuratzeko. **Askoren artean**

Suspertuta nengoen, ibiltzeko gogoz. **Juan Luis Zabala**

2 (zerbait)

Aski izan zaio abian jartzea nekea ahazteko, muskuluak eta artikulazioak **suspertu** zaizkiola ohartzeko. Ikusmena ere nabarmen **suspertu** zitzaion, baina lesio larria zuen, orain, erretinetan. **Pello Lizarralde**

Indarrak apur bar **suspertu** zitzaizkionean, Asisa abiatu zen. **Askoren artean**

Horrela Errusiarekiko harremanak apur bat **suspertuko** dira. **Lopez de Arana**

Urak harrira zipiritzintzen du, aspalditik bilduak dituen goroldioak eta likenak bustitzen ditu, eta, orduan, **suspertu** egiten da ibaiaren esentzia. **Pello Lizarralde**

Lantegiko apaletan jarri zuen begirada **suspertu** berria. **Jon Muñoz**

• 3 du ad (norbait)

Liztor baten ziztada batek bezala **suspertu** ninduen aitormenak. **Anjel Lertxundi**

Haatik koñakak **suspertu** egin ninduen. **Edorta Jimenez**

Ikusten, gaur goizeko mandatuek **suspertu** egin zaituzte. **Karlos Zabala**

Plateren bistak eta usainek **suspertu** egin gintuzten. **Xabier Montoia**

Mundua arbuiatzera bultzatu zituen eta zelibatoa gordetzera **suspertu**. **Askoren artean**

Berri on hark **suspertuta**, [...] leiho puskaturantz jo nuen. **Alberto Ladron Arana**

Oihuka elkar **suspertzuz**, zaldien saihetsetan ezproia sartuz, murrizten ari ziren gutxika-gutxika Mikel Strogoffenganainoko tarteak. **Karlos Zabala**

Ezerk **ezin** suspertu hilda dagoena! **Xabier Olarra**

4 (zerbait)

Berak pizten ditu loreak, uzta ere bai, nahiz gari nahiz ardo, landareak oro berak **suspertzen** ditu. **Pello Zabala**

Errauts arteko su moteldua **suspertu** du gero ezpal batzuen laguntzaz. **Anjel Lertxundi**

Eskua astindu zuen behin gehiago, mekanismoa **suspertuko** ote zitzaion, eta belarrira eraman zuen gero; baina orratzak ez ziren mugitu. **Ramon Saizarbitoria**

Kanpoko haizeak aurki **suspertu** zion kordea. **Karlos Zabala**

Gure indar ahulduak **suspertzeko** modua izan genuen. **Jokin Urain**

Sariak ere ematen zituen, igeri grina **suspertzeko**. **Joxerra Garzia**

Frantziskoren gorputz hilak gorputz biziak sendatzen ditu, bizirik zenean hildako arimak **suspertzen** zituen bezala. **Askoren artean**

Nahigabe-minak sendatu, beharrak osatu, andereñoak babestu, alargunen bihotza **suspertu**, beste inork ez du hori guztia egin ohi zaldun ibiltariet bano hobeki. **Patxi Ezkiaga**

Neurri iderreko zakil batek behar bezala betetzen du emakumea, eta **suspertu** eta bizkortu egiten dio begia eta beste guztia. **Karlos Zabala**

Honek ikaragarri aberastu zituen herri-literaturak eta herri-hezkuntza **suspertu** zuen. Txostenak **suspertuko** zion oroimena beharbada. **Iñaki Mendiguren**

Casanovaren gorputz abailtzen hasiak **suspertuko** al dio emakumeari garai bateko sua? **Anjel Lertxundi**

Horren ordainetan, Mendebaldeko Alemaniak eta Japoniak barne-eskaerak **suspertzea** onartu zuten. **Koro Navarro**

Ekonomia industrializatuen erosahalmena aski gehituz, petrolioaren prezioaren beherakadak jarduera **suspertu** zuen. **Koro Navarro**

Merkatuak **suspertu** eta babestu ez ezik, merkatu berriak ustiatu eta garatzeko helburua ere izan dezakete inbertsioek. **Iñaki Heras**

Hark utzitako kiratsak indargea zirudien udaberriak **susperturiko** mendi haietan. **Alberto Ladron Arana**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apur bat suspertu (3); **azkar suspertu** (5); **azkar suspertu ziren** (3); **berehala suspertu** (6); **berehala suspertu zen** (4); **gogoa suspertu** (3); **taldea suspertu** (4)
ahalegina suspertzea (3); **gainditzeko ahalegina suspertzea** (3); **suspertzea lortu** (4); **suspertzea moteldu** (3)
ekonomia suspertzeko (8); **euskara suspertzeko** (4); **gogoa suspertzeko** (3); **jokalaria suspertzeko** (4); **nazioa suspertzeko** (3); **suspertzeko ahaleginetan** (4);
suspertzeko asmoz (4); **suspertzeko balio** (5)
apur bat suspertzen (3); **ekonomia suspertzen** (3); **suspertzen ahalegindu** (3); **suspertzen ari** (20); **suspertzen ari da** (4); **suspertzen hasi** (5); **suspertzen lagunduko** (3);
suspertzen laguntzen (3); **suspertzen saiatu ziren** (6)

suspertzaile izond/iz suspertzen duena.

Sukar irultzaileak kiskalita, ordutik aurrera alderdi "patriotikoko" panfleto-egile eta **suspertzaile** handiena egin zen Jean-Baptiste Cloots. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Jose Luis Elkoro Bergarako alkatea izan zen liderra, eta taldea abertzaleen eta demokraziaren **suspertzaile** izan zen. **Berria - Euskal Herria**

Artearen **suspertzaileak**. **Berria - Kultura**

Unión Artesana ez da soilik Danborradaren **suspertzaile** izan. **Askoren artean**

suspertze 1 iz moteldurik edo indargabeturik dagoena bizkortzea edo indarberritzea.

Japonian berriz, hamarraldiaren amaiera arte, higiezinen eta burtsaren krax bikoitzak bankuen **suspertzea** eragotzi zuten. **Koro Navarro**

Baina **suspertze** edo berpizkunde guztien arazoa zera da, beraiek ez direla, eta gauzen izaeran ezin izan, "benetako artikulua". **Iñaki Mendiguren**

Egiaz, froga daiteke, periferian soldatak suspertzen direnean, **suspertze** hori ez dela gertatzen periferia langile asko behar duten ekoizpenetan espezializatu delako. **Koro Navarro**

1789ko Iraultzaren ondoren, egitura berriak Euskal Herriari kaltea besterik ez zekarkiola irizita, iratzartze eta **suspertze** txiki bat gertatu zen. **Koldo Zuazo**

Esportazioak sendotu egin dira, baina petrolio garestiak Alemaniako **suspertze** ekonomikoa moteldu du. **Berria - Ekonomia**

Infrazioaren kontrolak [...] **suspertze** ekonomikoa etengo du eta azpienplegu jadanik masibo handituko. **Koro Navarro**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sendagileen **suspertze** ahaleginak eta tratamenduak ez ziren nahikoa izan bost urteko haurra indarberritzeko. **Berria - Euskal Herria**

Suspertze prozesuko hirugarren fasea kontsumoarena da. **Berria - Ekonomia**

Bularrezurra Martinez Galdeano hil aurretik apurtu zioten kolpeka, eta ez ondoren egindako **suspertze** saioen eraginez. **Berria - Harian**

Suspertze zantzuak ez dira nahikoak, oraingoz. **Berria - Ekonomia**

Duela 30 urte ia hilik zegoen erreka **suspertze** bidean da, nabarmen gainera. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lockhartek adore-**suspertzeaz** pentsatzen zuena otsailaren hamalauetan gosaltzeko garaian argitu zen. Iñaki Mendiguren

Mendebaldeko Alemaniak ez zuen aurrekontu-**suspertzerik** batere bultzatu [...] eta 1987aren bukaeran 1982az gerotzik izandako hazkunderik ahulena izan zuen. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

suspertze ekonomikoa (10)

ekonomiaren suspertzea (7)

suspertzealdi *iz* susperraldia.

Guk **suspertzealdi** bat eman behar diogu kontzeptu horiei. Berria - Euskal Herria

suspertzeaz *adlag* suspertzeko zorian.

Gehienetan, haurtzaroan hain sarritan hartzen ninduten gaixotasunen batetik **suspertzeaz** nengoela hurbiltzen zitzaidan zigarro kutxa eskuan hartuta. Ramon Saizarbitoria

MMErentzat Europako ekonomia **suspertzeaz** da. Berria - Ekonomia

suspiriatu, suspiria, suspiriatzen du *ad* hasperen egin, hasperendu.

Erdi ozenki marmarrean, isildu, jiratu, **suspiriatu**, begiak jaso eta mutikoari ipuinak irakurtzen ari zitzaion emaztearen irudia bilatu zuen. Anton Garikano

"Ze laster hasi garen haren hutsunea nabaritzen!", **suspiriatu** nuen. Pedro Alberdi

-Zergatik **suspiriatzen** duzu, Doloritas? Juan Garzia

suspirio 1 *iz* hasperena. ik zizpuru.

Haien poztasuna, haien aieneak eta **suspirioak**! Patxi Zubizarreta

Suspirio egin du. Anjel Lertxundi

Suspirio asko egiten zuen. Juan Garzia

Niretzat urruma ziren haren bihotz-pilpira eta **suspirioak**. Juan Garzia

Oso bare, intziri eta **suspriorik** gabe, jarraitu zuen negarrez. Joxean Agirre

Suspirio baten ikarak astindu zion gorputza. Joxean Agirre

Honek gauetan ohean **suspirio** eta intziri txikiak eginez irakurtzen du, erabat hunkiturik. Joxean Agirre

Beldurra eta ezina, biak batera adierazten zituen **suspirio** bat irten zitzaion emakumeari. Anjel Lertxundi

Orduan **suspirio** urrun bat entzun zuen, gela ilun hartako bazterren batetik irtena bezala. Juan Garzia

Neska ahitzen eta ahitzen ari da, **suspirio** etengabeen artean. Anjel Lertxundi

Etsipenezko **suspirio** bat egin baitzuen. Anjel Lertxundi

Begiak sabairantz jasorik, antsiatzko **suspirio** bat irten zitzaion buru-bihotzik gabeko ausarkeria baldar hark eragina. Anjel Lertxundi

Berak, eskuak gerrian, **suspirio** batean: "Apokalipsiaren Zalduntsa eszenatokira eskularrurik gabe atera?" Eskaileretan gora igo ziren, arnasestuka alkatea, **suspirio** batean Joanes. Harkaitz Cano

2 (hitz elkartuetan)

Uste nuen amaren oroitzapenetatik ikusiko nuela lekua; haren hutsminetik, **suspirio** -zati artean. Juan Garzia

- Lasaitasun **suspirio** batek ihes egin zidan. Iban Zaldua

suspirioka *adlag* asperen eginez.

"Zoaz berarengana, hitz egiozu!", amak, **suspirioka** eta erdi negarrez. Anjel Lertxundi

Mutilak, burua sabairantz altxatu eta **suspirioka** ekin zion berriro, ozen. Xabier Mendiguren Elizegi

Emakume batzuk, izotzarena inauteri festatzat harturik, begiak estalirik ageri dira eta beren galarik ederrenak jantzita, balizko elkartzeko ba**suspirioka** desiratuz. Felipe Juaristi

Gure azpian Serge eta Jane hasperenka, eta aldi berean Hankapalo eta bere laguna **suspirioka**, ze hots ziren diskoarenak eta zein zuzeneko interpretazioarenak bereizi ezin zela. Xabier Mendiguren Elizegi

susta

1 *lo susta* ik *lo 28a*.

sustagailu *izond ipar* sustagarria.

Nazione Batuen Elkartasun Mundialak ukanen duela Irakia berri bati buruzko xutitze-kargu "humanitarioa", erran nahi baita, osasun mailetik haste arrapiztu beharko diren **sustagailuena**. Herria

sustagarri 1 *izond* sustatzen duena.

Herrikik ateratzean, adin ederreko hiru gizonak, itzalean jarririk daudela, agur **sustagarri** bat helarazten didate. Piarres Aintziart

Lehen tranpalean gelditu zen, eta aurrera segitzeko keinu **sustagarri** bat egin zigun hildakoaren gelako ate zabalduaren aldera. Irene Aldasoro

Nik erreferatzen bezala nion beroa, gorputzak hornitua zuen indarrak izate osoan baretasun **sustagarria** isurtzen zidala denbora berean. Piarres Aintziart

Merkatuak eskaintzen dituenak erosi eta erabiliko dira [...] enpresa txiki baina txit eraginkor horren hazkurri eta **sustagarri** izan daitezen. Iñaki Segurola

Euskalgintzaren jardueraren pizgarri eta **sustagarri** seinaltatuena eta haren beharra nabarmenenik erakusten duena, euskararen etsai eta erasotzaileen lan gaiztoa da. Iñaki Segurola

2 (hitz soila —en atzikiaren eskuinean)

Apez on eta kartu horren bizia eta erakapen hunkigarriak berrikatu dira ororen **sustagarri** elizkizunean. **Herria**
Beren aztarna fosila utzi baitzuten haizetan gure jakinguraren **sustagarri**. **Juan Garzia**

3 (izen gisa)

Fisikan erabiltzen den metodologiak erabiliz merkatu finantzarioen **sustagarri** nagusietakoa esamesen zabalkundea dela aztertu dute. **Iñaki Heras**

sustamen *iz* sustapena.

Victor Morlan **Sustamen** Ministerioi Azpiegitura eta Planifikaziorako Estatu idazkaria. **Berria - Euskal Herria**

sustantibo ik **substantibo**.

sustantibotasun ik **substantibotasun**.

sustantzia ik **substantzia**.

sustantziagarri ik **substantziagarri**.

sustantziero *iz*

Pixka bat piztearren, **sustantziero** ibili ohi zen, gure aitona, etxez etxe: zerriaren urdaiazpikoa jan ondoren, hezurra gelditu ohi zen zerbait giharrekin, eta horri "txongoa" esaten zitzaion; txongoari lizta bat lotu eta babarrun edo lenteja eltzean sartzen zuen aitona. **Pako Aristi**

Funtsean [telebista] zer den ederki definitu zuen: **sustantziorearen** lana egitera zetorren tramankulu bat zela esan zuen, etxe bakoitzean entretenimendu pixka bat banatzen zuena, jendeak bere denbora nolabait goza zezan, **Pako Aristi**

sustapen 1 *iz* sustatzea.

Ohitura onen **sustapena**. **Andres Urrutia**

Ekaingo leize-zuloaren errepikak behar dituen zuzendaritza, kudeaketa, iraunaraztea eta **sustapena** ziurtatzeko helburuarekin. **Berria - Kultura**

Herri kulturaren ekoizpena, garapena eta **sustapena** era eraginkorrean bideratzeko asmoz. **Berria - Kultura**

Parke eolikoan **sustapena**, eraikuntza eta salmenta; eta haize-sorgailuen diseinua eta salmenta. **Berria - Ekonomia**

Esportazioen **sustapenerako** estrategiak bultzatzea. **Koro Navarro**

Helburu nagusia kirol jarduera bakoitzak esparru administratiboa alde batera utzirik bere alorreko **sustapena** egitea izango da. **Berria - Kirola**

Euskal erakundeek Tokiko Agenda-21 ezartzera begira burutu dituzten iraunkortasunaren **sustapenerako** programen bidez. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Euskalgintzan, ikastolen sorrera eta **sustapenean**, eta kulturgintzan oro har. **Filipe Bidart**

Euskararen **sustapena** indarkeriarekin ez lotzeko eskatu du Europako Kontseiluak. **Berria - Harian**

Diskoak euskal musikaren **sustapenerako** erabili ohi dituzte. **Berria - Kultura**

Industriaren **Sustapen** eta Eraldaketako Baltzuak 600.000 euro jarriko ditu. Giza eskubideen defentsa eta **sustapenerako** topagune bilakatzeko. **Berria - Ekonomia**

Jaurlaritzako Kultura Sailak **sustapenerako** kaleratu duen Basque music disko bikoitza Ijito Herriaren Erabateko **Sustapenerako** eta Partaidetza Sozialerako Plana onartu zuen lehengo urteko azaroaren 16an Eusko Jaurlaritzak. **Berria - Kultura**

Olinpiar **Sustapenerako** Euskal Batzordea eratzeko dekretua onartu du Jaurlaritzak. **Berria - Kirola**

2 (izenondoeekin)

Sustapen pribatua bilatzea aztertu zuten, baina dirua, azkenean, udal aurrekontuetatik aterako da oso-osorik. **Berria - Kultura**

Carlos Fuentes eta Gabriel Garcia Marquez idazleek erabaki zuten Mexikoko Gobernuak emandako bizi guztirako bekaren **sustapen** ekonomikoa erabiltzea Cortazarren omenezko katedra bat sortzeko. **Berria - Kultura**

Industria kimikoak egindako plagiziden **sustapen** «gupidagabea». **Berria - Gaiak**

Eskerrik beroenak laguntza eman diguten guzietan, arrats on baten pasatzeko, bai eta prentsa eta irratiari, beren **sustapen** premiazkoa ekarri digutelako, urte guziz bezala. **Herria**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sustapen plan bat bultzatu beharra zegoen. **Sustapen** ekintzak (harrobia, torneo irekiak, klaseak, entrenamenduak...) garatzeko, argi dago lan handia dagoela oraindik egiteko eta jarraipena behar dela, **sustapen** kanpainak eratzuz esaterako. **Berria - Harian**

Sustapen sariak, Nestor Sagarzazu Zabala eta Anaïs Marichular. **Herria**

Uztaro aldizkariaren lau ale eta hiru **sustapen**-poltza martxan jarri nahi ditu UEUK materialgintza esparruan. **Berria - Euskal Herria**

Magdalena Alvarez **Sustapen** ministroak. **Berria - Harian**

Sustapen Elkarteak kideez gainera, segizioan hainbat herri elkartetako ordezkariak zeuden. **Askoren artean**

Sustapen Zentroa, kooperatibentzat sektore eta produktu berrien bila jarduteko. **Berria - Harian**

UEUko Euskal Unibertsitatearen aldeko **Sustapen** Batzordearen izenean. **Berria - Euskal Herria**

Espainiako **Sustapen** Ministerioak Madrilen duen egoitza. **Berria - Harian**

Nafarroako Turismo eta **Sustapen** Sailak antolatuta du lehiaketa. **Berria - Kultura**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Irakasleekin eta literatur **sustapenerako** taldeekin lankidetzat bilatuko du. **Berria - Kultura**

Kooperatiben sorrera sustatzeko Lurrealde **Sustapen** Planifikatuko programa sendotzeko asmoa duela iragarri zuen sailburuak. **Berria - Ekonomia**

Berrikuntza eta Ekonomia **Sustapenerako** diputatu Tontxu Camposek. **Berria - Ekonomia**

Merkataritzako eta finantzetako jarduerak ez zeuden ondo ikusiak, klase nagusientzat ez baitziren duinak; hiritar pobreen gizarte-**sustapen** bidea baino ez ziren. **Koro Navarro**

Aldundiko Ekonomia **Sustapenerako** diputatu Carlos Samaniegok orain urte eta erdi. **Berria - Harian**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ekonomia sustapen (4); espainiako sustapen ministerioa (7); espainiako sustapen ministerioak (53); espainiako sustapen ministerioan (3); espainiako sustapen ministerioarekin (4); espainiako sustapen ministerioaren (10); espainiako sustapen ministerioari (11); espainiako sustapen ministerioko (5); espainiako sustapen

ministro (6); **espainiako sustapen ministroak** (6); **espainiako sustapen ministroarekin** (3); **espainiako sustapen ministroari** (3); **governuko sustapen ministerioak** (4); **sustapen ekonomikorako** (4); **sustapen kanpainak** (5); **sustapen ministerioa** (9); **sustapen ministerioak** (72); **sustapen ministerioan** (4); **sustapen ministerioarekin** (6); **sustapen ministerioaren** (13); **sustapen ministerioari** (14); **sustapen ministerioko** (11); **sustapen ministro** (9); **sustapen ministroak** (9); **sustapen ministroarekin** (4); **sustapen ministroari** (4)

unibertsitatearen aldeko sustapen (3)

euskararen sustapena (7)

antolaketa eta sustapenerako (6); **barne sustapenerako** (3); **euskararen sustapenerako** (5); **sustapenerako diputatuak** (3)

sustarazi, sustaraz, sustarazten du *ad* sustatzera behartu.

Deitzen dut pozaldia, ariman barne-mugira bat sortzen duena, arima Egilearen eta Jaunaren maitasunean **sustaraziz**; horregatik, ezin du mundu zabalean sortutakorik maitatu, gauza guztien Egilea baizik. **Patxi Altuna**

sustarri *iz* sustraia, zutarria.

Irudi eta metaforak baino haratago ostera, Europan erlijio fedeez gehiengo zabal aunitzen sustrai, **sustarri** edo zutarri izaten segitzen dute. **Edorta Jimenez**

sustatu, susta, sustatzen 1 du *ad* bultzatu. (gauzak)

Euskal kultura eta sorkuntza polifoniko bat amesten du, askotariko ikuspuntu eta kolore aniztasuna **sustatu** eta erakutsiko duena. **Ana Urkiza**

Gizakiak berak dira gizartearen aurrerabidea **sustatzen**, gizartearen aberastasuna sortzen, zientzia eta teknologia garatzen eta [...] giza ingurumena bera etengabe eraldatzen dutenak. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Ainitz eta ainitz besta handi bazituen muntatuak edo bederen **sustatuak**. **Herria**

Zubi gainean bere gizon guztiak lerrokaturik, ganibet berriak banatu zizkien eta borroka-grinarik handienera **sustatu**. **Juan Garzia**

Prozesu demokratikoa **sustatzeko**. **Iñaki Heras**

Homofobia **sustatzen** duten taldeen jarrera ez babesteko deia ere egin zieten. **Berria - Euskal Herria**

Gorrotu beltza **sustatzen** jarraitu zuen Florenten kontra. **Karlos Zabala**

Babiloniak, Londresek eta New York-ek distiramen ankerrez **sustatu** izan dute gizonen irudimena. **Juan Garzia**

Espiritu nazionala, edo klasearena **sustatu**, patriotismoa berotu, barruko edo kanpoko etsaia ikaragarritu. **Joxe Azurmendi**

Batzuetan, baina, zenbait mito eta eredu kulturalak hainbat tabu zentzugabe **sustatu** dituzte. **Luis Elberdin**

Alderdikeriak **sustatzen** dituen, behin eta birritan zentzarazi ondoren, bota ezazu elkartetik. **Elizen arteko biblia**

Kritika hau alde zuzenetik egiten den beharrezko prestakuntza da, honela Metafisika zehatz bat **sustatu** ahal izateko. haiek merkataritza asko **sustatu** eta ohoratu zutela pentsatu dutela. **Ibon Uribarri**

Idealean maisu bat ere badago, hauek denak batu eta tresna gisa erabiltzen dituen, giza arazoimenaren funtsezko helburuak **sustatzearren**. **Ibon Uribarri**

Berto-eskola eta berto-talde berriak **sustatu** dira. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Bake hitzarmen doi guztietan, badira gerla berriak **sustatzeko** sugarrak. **Itxaro Borda**

Funtzio kognitiboak **sustatzearrekin** erien autoestimua handitzen saiatzen dira. **Berria - Harian**

Kultur ondarea eta bere balio-katea **sustatzea**. **Berria - Kultura**

Gatazkaren Konponbidea **Sustatzeko** Batzordeak «oso pluralak diren» 50 eragileren ekarpenak jaso izana azpimarratu zuen. **Berria - Euskal Herria**

2 (ekintzak)

3 milioi euro birziklatzea **sustatzeko**. **Berria - Harian**

Merkantilisten estrategia barne-ekoizpena **sustatzea** zen, inportazioen kontra hura babestuz eta esportazioak indartzuz. **Koro Navarro**

Errepresioa bultzatzea euskal presoan oinarritzeko eskubideen urraketa **sustatzea** eta presoek zein haien senideei zigorrik handiena ezartzea da. **Berria - Harian**

Irakurketa **sustatu** behar da eta lan hori erakundeei dagokie. **Ana Urkiza**

Sorkuntza eta produktzioa **sustatzeko** teknologia berriak eta adierazpen formak berreskuratu eta egokituz erabiltzen laguntzea. **Berria - Kultura**

Geroago arituko gara ikerketa jardueran **sustatzeko** erabiltzen diren edo erabili beharko liratekeen pizgarriak buruz. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Gurpil zoro hori etetea inbertsioa **sustatzea** da oinarritzeko. diru-erregimena, desoreka korronteak finantzatzeko alde askoko sistema eta negoziazio-erakunde bat (GATT), munduko trukeen liberalizazioa **sustatzeko** xedea zuena. **Iñaki Heras**

Kapitainak **sustatu** egiten zituen Duffy jaunaren bisitak, alabaren eskua jokoan zegoelakoan. **Irene Aldasoro**

Haren bat-bateko desagertzeak saratarren erran-merranak **sustatu** zituen, baina ez luzaz. **Elena Touyarou**

Britainiar gobernuak emigrazio hori **sustatu** zuen, bere *dominions* direlakoak jendeztatzeko. **Koro Navarro**

Zergatik **sustatu** ote dut ergelkeria hau? tankera dialektiko horrek interpretazio, analisi eta argudiorako tresna baliotsuen garapena **sustatu** zuen. **Oskar Arana**

Herri mugimenduak ziren, laikoak **sustatuak**. **Askoren artean**

3 (pertsonekin)

Nolako kalipua hankeko harena lagunak **sustatzeko** eta patrioiari eritimoa biziarazteko! **Koldo Izagirre**

PANeko presidentetzarako bozetzarako ezkerreko hautagai Mustafa Bargutik, ezkerreko bost alderdik **sustatu**, [...]. **Berria - Mundua**

Bestalde, ageri bat publikatua izan den biztanleen **sustatzeko** apez hezkaitze laguntza ekarriko dieten herritarren salatzea. **Elena Touyarou**

Jean-Paul Marat "Herriaren Adiskidea" eraila izan zen Parisen, eta horrek iraultzaren etsaia non-nahi ikusten zituzten Jakobinoen **sustatzeaz** kanpo, ez zuen deus lortu. **Elena Touyarou**

Su borobilek urrunetik **sustatzen** ninduten, eta indigena bihurtzeko zorian, noizbait irakurri edo entzun indio zahar baten hitzak jin zitzaizkidan izpirituen hausen harrotzera. **Itxaro Borda**

Ezkerreko alderdiek **sustatzen** dute Jean Lissar "berdeen" alderdikoa. **Herria**

4 (adizlagunekin)

Garrantzi berezia eman beharko genioke euskarazko zientzia dibulgaziorari, eta horregatik, ongi **sustatu** beharko litzateke jarduerari. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Eta gure elkarte zein alderdi politikoek leialki **sustatzen** gaituzte. haur eta gazteen baitan pilota hobeki **sustatzeko**. **Itxaro Borda**

Afrikar, Latino Amerikan, nazioarteko finantza-erakundeek [...] sistematikoki **sustatu** dute kapitalismoaren sarrera. **Koro Navarro**

Gobernuek [...] masiboki **sustatu** zuten likidotasuna, arazoak zituzten eragileen birfinantzaketa errazteko. **Koro Navarro**

Laborariak irratian, hitz gogorak zerabiltzan, indarrez **sustatuak**. **Itxaro Borda**

5 suspertu, bizkortu.

Xirmenduz zein buruxkaz **sustatu** sutetik hastapenean, ke marra meharrak bermatzen baldin bazen, ondotik su nasaia, ausarta eta tematsua emendatzen ari zela ikusten zuen Pierra etxeko premu iragarriak. **Itxaro Borda**

Eliza horren ondoan, jadanik XIV. mendean agertzen den Ardandegia, hau ere beilarien laguntzeko eta **sustatzeko** eraikia. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Penak, zorigaitzak eta makurrak treneko bagoiaren borobilean bata besteari azalduz elkar **sustatzen** zutela, etsai erraldoi eta komunaren aurka. **Itxaro Borda**

6 (era burutuak izenondo gisa)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aintzina sustatu (3); azkar sustatu (5); azkarki sustatu (3); berriz sustatu (3); bultzatu eta sustatu (5)
ekimena sustatu (6); ekimenak sustatu (3); elkarlana sustatu (12); elkarrizketa sustatu (3); enplegua sustatu (3); erabilera sustatu (6); euskara sustatu (4); garapena sustatu (6); gehiago sustatu (4); gogoeta sustatu (7); harremanak sustatu (7); hartzea sustatu (7); hazkundera sustatu (3)
ikerketa sustatu (6); ikerketa sustatu behar (3)
partaidetza sustatu (3); parte hartzea sustatu (7); plana sustatu (3)
sustatu beharra (6); sustatu eta babestu (3)
udalbiltzak sustatu du (3)
maitasunak sustaturik (3)
eusko jaurlaritzak sustatutako (3); foru aldundiak sustatutako (3); jaurlaritzak sustatutako (6)
elgar sustatuz (3); sorkuntza sustatuz (3)
arteko elkarlana sustatzea (3); balio katea sustatzea (4); dantza sustatzea (4)
ekonomia sustatzea (3); elkarlana sustatzea (4); enplegua sustatzea (3); erresistentzia sustatzea (3); euskara sustatzea (3); euskararen erabilera sustatzea (6); euskararen erabilpena sustatzea (4); eztabaida sustatzea (5); garapena sustatzea (4); harremanak sustatzea (5); hartzea sustatzea (5)
kultura sustatzea (4); laguntzea eta sustatzea (3); lana sustatzea (3); lankidetzak sustatzea (4)
parte hartzea sustatzea (5); plataformen sorrera sustatzea (3)
sustatzea du helburu (11); sustatzea egotzi (4); sustatzea helburu (8); sustatzea izango (10); sustatzea izango da (5); sustatzea leporatu (8); sustatzea leporatu zion (3); sustatzea leporatuta (3)
turismoa sustatzea (3)
sustatzearen alde agertu (3)
sustatzeari uzteko (3)
arte eszenikoak sustatzeko (3)
bakea sustatzeko (4); berdintasuna sustatzeko (3); bizikidetzak sustatzeko (3)
dantza sustatzeko (3)
ekonomia sustatzeko (6); elkarlana sustatzeko (10); elkarlana sustatzeko asmoz (3); elkarrizketa mahaia sustatzeko (4); enplegua sustatzeko (15); enplegua sustatzeko kontratua (3); erabilera sustatzeko (39); erabiltzea sustatzeko (3); errespetua sustatzeko asmoz (3); esportazioak sustatzeko (3); etxebizitzak sustatzeko (3); euskal kultura sustatzeko (4); euskara sustatzeko (69); euskara sustatzeko borondatea (3); euskara sustatzeko diru (5); euskara sustatzeko zuzendaria (3); euskararen erabilera sustatzeko (24); euskararen erabilpena sustatzeko (6); euskararen sustatzeko (3); euskarazko irakurketa sustatzeko (3); eztabaida sustatzeko (6)
garapen ekonomikoa sustatzeko (5); garapena sustatzeko (11); garatzeko eta sustatzeko (3); gatatzeko konponbidea sustatzeko (34); gatatzeko konponketa sustatzeko (5)
harremana sustatzeko (4); harremanak sustatzeko (6); hartzea sustatzeko (8); hizkuntza sustatzeko (3)
ikerketa sustatzeko (4); ikerkuntza sustatzeko (5); irakur zaletasuna sustatzeko (3); irakurketa sustatzeko (5); irakurketa sustatzeko xedearekin (3); iranen demokrazia sustatzeko (4)
jarduera sustatzeko (3); jarduerak sustatzeko (4)
kirola sustatzeko (3); komunikabideetan euskara sustatzeko (4); konponbidea sustatzeko (57); konponbidea sustatzeko batzordea (15); konponbidea sustatzeko batzordeak (22); konponbidea sustatzeko batzordearen (9); konponbidea sustatzeko batzordeko (4); konponketa sustatzeko (7); konponketa sustatzeko batzordeak (3); kontratu mugagabeak sustatzeko (3); kontsumoa sustatzeko (5); kultura sustatzeko (8); kultura sustatzeko elkarteak (3)
lana sustatzeko (6); lehiakortasuna sustatzeko (4); liberalizazioa sustatzeko (3); mahaia sustatzeko (7)
parte hartzea sustatzeko (6); politika sustatzeko (3); politikoa sustatzeko (3); prozesu demokratikoa sustatzeko (5); prozesua sustatzeko (6)
sustatzeko ahalegina (3); sustatzeko ahaleginak (3); sustatzeko asmoa (9); sustatzeko asmoa agertu (4); sustatzeko asmoarekin (6); sustatzeko asmoz (22)
sustatzeko batzordea (18); sustatzeko batzordeak (25); sustatzeko batzordearen (11); sustatzeko batzordeko (4); sustatzeko beharra (3); sustatzeko bidea (4); sustatzeko borondatea (5)
sustatzeko egitasmoa (4); sustatzeko egitasmoak (6); sustatzeko ekintza (4); sustatzeko elkarteak (3); sustatzeko engaiamendua (3); sustatzeko erabili (4); sustatzeko erabiltzen (4); sustatzeko eskatu (6)
sustatzeko helburua (3); sustatzeko hitzarmena (4)
sustatzeko kanpaina (4); sustatzeko konpromisoa (9); sustatzeko kontratua (5)
sustatzeko laguntzak (3); sustatzeko lan (5)
sustatzeko neurriak (8)
sustatzeko plana (5); sustatzeko politika (4); sustatzeko politikak (4); sustatzeko prest (4)
sustatzeko xedea (6); sustatzeko xedea du (3); sustatzeko xedearekin (6)
sustatzeko zuzendaria (3)
zaletasuna sustatzeko (5); zinema sustatzeko (3)
ekimena sustatzen (3); erabilera sustatzen (5); euskararen erabilera sustatzen (3); euskararen erabilpena sustatzen (3); hartzea sustatzen (3); indarkeria sustatzen (3); kultura sustatzen (3); parte hartzea sustatzen (3)
terrorismoa sustatzen (6)

sustatzaile (orobat *sustatzale* g.er. eta *sustazaile* g.er.) 1 izond sustatzen duena.

Bi aldeek hitzartutako erabakiari eskerrak, arte garaikideko zentroa bertan egiteko proiektua abiatu ahal izango dute azkenik hiru erakunde **sustatzaileek**. **Berria - Kultura**

Ez du parte-hartzerik izango, Inalco Boulevardeko talde **sustatzaileko** kidea baita. **Berria - Ekonomia**

1992ko abenduaren 13an, Altsasun, Elkarrir-ren talde **sustatzailea** osatu zen. **Berria - Harian**

Enpresa **sustatzaileak** iragarri du hilaren 30ean zabalduko duela bederatziko zuloa zelai txikia. **Berria - Euskal Herria**

Lehen koilarakada ahoan aitzin, mahaikide zaratatsuetarik bat zutitu zen, oihu **sustatzaileen** eta txaloen erdian. **Elena Touyarou**

Antolaketa ekonomikoa, sektore publikoaren eskuhartzea, fiskalitate **sustatzailea** izan daitezke garapen orekatuaren bila aztertu behar diren aukerak. **Berria - Harian**

2 (adizlagun gisa)

Bouvillera joan zen lehenbailehen, eta erresistentziaren **sustatzaile** aritu zen bertan. **Monika Etxebarria**

• 3 iz zerbait sustatzen duen gauza.

Bereziki nazioarteko kapitalaren interesak omen dira ideologia horren **sustatzaile**. **Iñaki Heras**

Maulen beraz, Herriko Etxe Euskaldunen eguna, Euskal-konfederazioa **sustatzaile**. **Herria**

Urruñan, duela hamabost urte muntatu zuten haurtzaindegi bat, Ohantzea elkarteak **sustatzaile**. **Herria**

Unibertsitatea ekonomiaren **sustatzaile**. **Herria**

Eskaini ditzaketen errentagarritasun tasa handiak joera horietarako **sustatzaile** gozoeziak dira. **Iñaki Heras**

Jakizue, anaiek, pobretasuna dela salbamenerako bide pribilegiatua, apaltasunaren **sustatzaile** baita eta perfekzioaren sustrai. **Askoren artean**

Nazioaren ekonomia-garapenaren **sustatzaile** eta erregulatzaile gisa da estatua nagusi Asiako eremu honetan. **Koro Navarro**

4 zerbait sustatzen duen pertsona.

Mugimendu horren lehen **sustatzailea** Romas Kalanta izan zen. **Berria - Mundua**

Arazoak eta arazoak **sustatzaileak** berdintsuak direlaketoz eta, funtsean, helburu bera bilatzen dutelaketoz: betiko finkatzea mende luzeetako ukazioa, eskubideen ukazioa.

Orfeioen lehiaketa garrantzitsuenaren **sustatzailea** izan zen. **Askoren artean**

Jean Louis Davant xiberotar idazle emankorra eta Filipe Oyhaburu, idazlea hau ere eta bereziki euskal dantzen **sustatzaile** handia. **Herria**

Ostiako gotzainak, Anaia txikien Ordenaren lehen babesle eta **sustatzaile** ospetsuak [...] galdetu zion behin Frantziskori ea atsegin ote zitzaion anaiak Elizako goi-karguetara jasoak izatea. **Askoren artean**

Bi akusatuek manifestazioan ez **sustatzaile** gisa, baizik eta euren kasa parte hartu zutela adierazi zuten. **Berria - Euskal Herria**

Krugmanek, esaterako, ideia sortzaile eta **sustatzaile** nagusi bi bereizten ditu: ekonomilari akademikoak, batetik, eta ekonomia-politiken saltzaileak, bestetik. **Iñaki Heras**

Joan den urtean 550 **sustatzaile**ri aholku eman zion ganberak, eta 119 enpresa sortzen lagundu zuen. **Berria - Ekonomia**

3.000 **sustatzaile** lagundu ditu BBK Gazte Lanbidean Fundazioak. **Berria - Ekonomia**

Nahiz eta hainbat enpresak dirua aurreratu duten, operazioa 60 enpresa biltzen dituen Eraikitzaile eta **Sustatzaileen** Elkartearen izenean egiten ari da. **Berria - Harian**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lehenengo kasuan ideiaeren garapen fasetik enpresa martxan jarri arte emango zaie laguntza proiektu **sustatzaileei**. **Berria - Ekonomia**

EAEko Lurraren Legearen proiektua kritikatu dute etxe **sustatzaileek**. **Berria - Euskal Herria**

Bertan, Koldo eta Arantxa Iparragirre trikitilariak eta Patxi Perez dantza **sustatzailea** izango dira. **Berria - Kultura**

Manuel Maria kultur **sustatzaile** handia izan zen, eta prentsa zutabe asko idatzi zituen *El Correo Gallego* egunkarian. **Berria - Kultura**

Samuel Rogers, poeta izateaz gain, literatur **sustatzailea** ere bazen. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apeza sustatzaile (3); **elkartea sustatzaile** (7); **elkartearen sustatzaile** (4); **proiektuaren sustatzaile** (6); **sustatzaile eta partaideak** (3); **sustatzaile gisa** (9); **sustatzaile handia** (3); **sustatzaile izan** (11); **sustatzaile izan zen** (3); **sustatzaile nagusia** (16); **sustatzaile nagusia izan** (3); **sustatzaile nagusiak** (4)

sustatzailea izan (7); **sustatzailea izan zen** (3); **talde sustatzailea** (10)

bergarako proposamenaren sustatzaileak (3); **ekimenaren sustatzaileak** (3); **eztabaidaguneko talde sustatzaileak** (3); **talde sustatzaileak** (20)

bergarako ekimenaren sustatzaileak (8); **bergarako proposamenaren sustatzaileak** (4); **bergarako sustatzaileak** (3); **boulevardeko sustatzaileak** (5); **ekimenaren sustatzaileak** (13); **kanpainaren sustatzaileak** (9); **proiektuaren sustatzaileak** (7); **proposamenaren sustatzaileak** (4)

ekimenaren sustatzaileen (4); **eraikitzaile eta sustatzaileen** (4); **proiektuaren sustatzaileen** (3); **sustatzaileen esanetan** (3)

proiektuaren sustatzaileetako (3); **sustatzaileetako bat** (7); **sustatzaileetako batek** (5)

eztabaidaguneko talde sustatzaileko (5); **talde sustatzaileko** (20); **talde sustatzaileko kidea** (3); **talde sustatzaileko kideak** (8); **talde sustatzaileko kideek** (6)

sustatzale ik **sustatzaile**.

sustatze iz bultzatzea.

Jakineko etxeren publizitatea betiko aldarriekin, gora bideak, gora euskara eta gora gorakoak... ohiko **sustatze** orri euskaltzaleak. **Iñigo Aranbarri**

Ikus-entzunezkoen zerbitzu publikoetan kuota eta **sustatze** politikak zehaztu **Sustatze** lan guztia udalen esku utzi nahi dela salatu dute. **Berria - Kultura**

AuB eta hauteskunde plataformen sorrera eta **sustatze** prozesua kontrolatzeko. **Berria - Euskal Herria**

sustazaile ik **sustatzaile**.

sustengatu ik **sostengatu**.

sustengatzaile ik **sostengatzaile**.

sustengatzale ik **sostengatzaile**.

sustengo ik **sostengu**.

sustengu ik **sostengu**.

sustentarri iz euskarria.

Oinarriko definizioaren muina zen aurkakotasuna batzuetan desagertzeak oso kolokan jartzen zuen fonologiaren **sustentarri** zen fonema bera. **Lourdes Oñederra**

Geroko zenbait eskola edo garapenek horren hobekuntzan dute oin eta **sustentarri**, esaterako, Fonologia Autosegmentalak, Metrikoak, *CV Phonology*-k. **Lourdes Oñederra**

susto (*orobat sustu g.er.*) 1 iz ikara, beldurra.

la **sustorik** gabe heldu ziren Zumaiara Alexen autoan. **Fernando Morillo**

Sustoak ez zion pentsatzen uzten. **Joxemari Urteaga**

Susto batean, pianoa jotzeari uzten diot. **Anjel Lertxundi**

Susto batez esnatu nintzen, eta ohean eserita geratu nintzen. **Josu Zabaleta**

Ebakuntza-mahaiaren aurrean bertan hil zen gizajoa: **sustoarekin** bihotzekoak emanda. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Gelditu zaiok hanka erruedapean eta, **sustoarekin** atzera erori duk eta, krak! orkatila hautsi zaiok. **Pablo Sastre**

Püchl andreak, **sustoa** igarota, zurrut batean hustu zuen *slibowitz* basokada. **Anton Garikano**

Tren jasoaren habe baten atzean gelditu zen, **sustoa** pasatzen zitzaion bitartean. **Lopez de Arana**

Pasatu al zain **sustoa** ? -esaten dit ahots nagiz. **Anjel Lertxundi**

Sustoa baino ez. **Harkaitz Cano**

A zer **sustoa** ! **Juan Luis Zabala**

A zer nolako **sustoa**, ez? Anjel Lertxundi

Hura **sustoa**! Joan Mari Irigoien

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Susto ederra hartu zuten autoa martxan jarri zenean. Fernando Morillo

Susto ederra hartuko luke, horrela, Kutz doktoreak. Joxemari Iturralde

Susto ederra eta zartako batzuk ondo hartuta. Alberto Barandiaran

Halako batean **susto** handia emango ziotela. Joxemari Iturralde

Susto handiak hartzen dituzu. Berria - Kultura

Susto galanta hartu omen zuten langileok. Patxi Iturritegi

Susto makala hartu behar duena. Edorta Jimenez

Susto ikaragarria Xabierrentzat. Pako Aristi

Susto txiki bat hartzen du Mikelek, atzera begiratu eta Maribel ikusten du, *deshabillé* polit eta iradokor batez jantzirik. Xabier Mendiguren Elizegi

Begirada altxatzearekin batera ezusteko **sustoa hartu** nuen eta besoa erretiratzekoan ardo kopa bota nuen. Joxemari Iturralde

Txirrinaren zain banengoen ere, sekulako **sustoa** hartu nuen jo zuenean. Anjel Lertxundi

Hasieran, inondik ere, neure buruaz beste egitera nindoala iruditut, eta berebiziko **sustoa** eman nion gizagaixoari. Juan Kruz Igerabide

Francisen atzean jarri naiz iladan eta berealdiko **sustoa** eman diot. Harkaitz Cano

-Ikaragarriko **sustoa** eman diozu Malfoy jaunari. Iñaki Mendiguren

Kristoren **sustoa hartu** dut. Fernando Morillo

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Neskatoak, hau ikustean, **susto** aurpegia jarri zuen une batez. Joxemari Iturralde

Susto -aurpegia dut, eta kamerari begira ari naiz. Anjel Lertxundi

Busti gabe ihes egitea ezinezkoa dela konturatzen denaren **susto** sentipen hori. Harkaitz Cano

Imanolek **susto** -jauzia egin zuen. Fernando Morillo

4 *sustoa eman*

-Ooooo! -esan zuen Lavenderrek bat-batean, denei **sustoa emanez** . Iñaki Mendiguren

Buruz buruko txapelketa garrantzitsuena da, eta ondo jokatzeko badut edozeini **sustoa eman** diezaiokedala uste dut. Berria - Kirola

A ze **sustoa eman** digun guztioi zakur buru zikin horrekin. Aitor Arana

Autoen abiadurak ere **eman** zion **sustorik** . Juan Luis Zabala

- Ez zionat ezer kontatuko hire katuak **ematen** ematen dizkidan **sustoez** . Juan Garzia

Haserretu egiten zen, **sustoak ematen** nizkiolako. Alberto Barandiaran

Haurtzaroko beldurrak zein dira: gelako ilunpea, ahizpak mozorroa jantzita **emandako sustoak** , medikuaren xiringa... Pako Aristi

Susto bat eman nahi zidan bakarrik. Juan Garzia

5 *sustoa hartu*

Hagridek ere **sustoa hartu** zuen nonbait, karraska-hots handi bat entzun baitzen eta bizkor altxatu baitzen aulki luzexkatik. Iñaki Mendiguren

Sustoa hartu zuen Matiasek; susto ziztrina, nolana ere. Unai Elorriaga

Sustoa hartu nuen atea ireki zuenean. Harkaitz Cano

Supituan, Angelok kolpe bat eman zidan bizkarrean eta **hartu** nuen **sustoa** ziztaden mina areagotu zidan. Anjel Lertxundi

Sustoa hartu zuen kanpoan, alarguna baitzegoen atean, komunaren zain. Unai Elorriaga

Sustoa hartuta gorantz begiratu zuen. Lopez de Arana

- Ai, estatistikak eskura izango banitu, zenbat **susto** ez genuen **hartuko** . Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

susto aurpegia (3); **susto aurpegiarekin** (3); **susto batez esnatu** (3); **susto ederra** (8); **susto ederra hartu** (4); **susto galanta** (4)

a ze sustoa (4); **egundoko sustoa** (3); **sekulako sustoa** (6); **sustoa eman** (10); **sustoa hartu** (16); **sustoa hartu nuen** (3); **sustoa hartu zuen** (9)

sustotxo iz susto txikia.

Abitu "santua" estalki, kordoi zuria gerrian tirante estututa, han pasatu zuen aduana, **sustotxo** bat tartean. Pello Zabala

sustrai 1 iz landareen beheko zatia, berez lurpekoa, finkatzeko eta elikagaiak hartzeko balio diona. ikerro; zain¹.

Haritz zahar bat dago zutik; gure begiek hostoak ikusten dituzte urrunetik; hurbiltzean, enborra ikusten dute, baina ez **sustraiak**; lurra zulatu beharra dago haiek aurkitzeko.

Iñaki Iñurrieta

Udazkenean fruituak heldu direnean eta hostoak ere lehortzen direnean, zuhaitzen **sustraiak** lurretik hartzen duten zuku guztia berentzat hartzen dute eta lehengo sendotasunera bihurtzen dira. Santiago Iruretagoiena

Etorri zen udaberria eta akantorearen **sustrai** hura erdian pisuarekin zanpatuta zegoen bezala, hasi omen zen hostoak eta kimu berriak ematen. Santiago Iruretagoiena

Sustrai asko ere baziren, usain onekoak gainera, erregaliza, hamamelisa, errosta. Joxan Elozegi

-Weasley, entzun duzu Snape maisuak zer esan duen, moztu **sustrai** hauek. Iñaki Mendiguren

Sustraiak zahartu eta motzondoa lurpean ihartu arren, [...]. Elizen arteko biblia

Hurrengo goizean goiz, handik igarotzean, pikuondoa **sustraietaraino** ihartua ikusi zuten. Elizen arteko biblia

Eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, **sustrairik** ez zuelako, ihartu.

Azpitik, **sustraiak** ihartzen zaizkio; gainetik, hostaila zimeltzen. Elizen arteko biblia

Lupin ere **sustrai** arteko tartean behera desagertu zen. zuhaitzak izaki bizidunak baitira, eta **sustrai**, enbor eta adarburu direnean, haiek ikusi eta entzundakoa, haiek gozatu eta jasandakoa adierazten dute zur direnean. Iñaki Mendiguren

Landarearen **sustraiak** nitrogeno dioxidoa xurgatzean, prozesu biokimiko bat hasten da. Berria - Gaiak

Sahats nanoen **sustraiak** murtzikatzen aritu ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Astigar zuri horren **sustraietan** behera zulatuz gero ezkutatutako altxor bat aurkituko nuela. Xabier Aranburu

Trieste, "hainbat kultura, hizkuntza eta erlijioen arragoa" hautatu zuen etxetzat: "ez nekien noiz arte, arbolek bakarrik baitute **sustrai** premia". Anjel Lertxundi

2 (izenondoekin)

Sasiaren kimutik sortua, ez du **sustrai** sakonik botako, ez eta oinarri sendorik izango ere. Elizen arteko biblia

Handik sei hilabetera, deabruaren sail itzelean azenarioa, arbia, tipula, terebuza baizik ez ikusten, **sustrai** lodiak eta jateko onak dituzten landareak den-denak. Josu Zabaleta

Lurra lehertua zen, bigun-biguna, zuhaitzen **sustrai** lodien artean. Joxan Elozegi

Lurrean pelakelak zuden isurkiak indartzen beretik, eta pitxerrak belarkein; pareretan lerrokuta **sustrai** ihartuak eta hauts distiratsua. **Iñaki Mendiguren**

Sustrai bihurtuakuten artean harri koskor bat hertsaturik ote zeukan zirudien. **Juan Garzia**

Olibondoan **sustrai** tormentatuak. **Patxi Iturritegi**

Lur-azaleko **sustrai** eta enbor ustelen gainetik. **Joxe Austin Arrieta**

Adinean apur bat aurrera egitean, haurrak beren kabuz pasatzen dira gero eta egintza okerragoetara, **sustrai** gaixotik zuhaitz gaixoa sortzen baita. **Askoren artean**

Lurrin-denda ekarri zidan gogora *with compliments* xaboiak, baita **sustrai** goxoenak ere, hamamelisen usain ederra baitzuen. **Joxan Elosetgi**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lehenengo gauean Andresek ezin izan zuen ongi lo egin etxe hartan, lurrari zerion **sustrai**-usainagatik. Zer lortuko nuke anbulu zurien **sustrai**-hautsa asentsio-belarraren egoskinari erantsiko banio? **Josu Zabaleta**

Hire aitak **sustrai** muturrak bota zitian, eta zain geratu gintuan isilik. **Josu Zabaleta**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jauna, laguntza beharko dut bitxilore-**sustrai** hauek ebakitzeko. **Iñaki Mendiguren**

5 irud/hed

Ur ondoan landaturiko zuhaitzaren antzeko da: ur bizigarrietara zabalduko ditu **sustraiak**, sargoriari ez dio beldurrik. Ite **sustraietaraino** gorrituko nintzen-edo, barrezka hasi baitzen algara zakarrez. **Elizen arteko biblia**

Huts egin gabe aizkora bota zion pikuondo ekonomiko horren **sustrai** teknologikoari makinaz egindako kotoi-gaiak erabiltzeari uzteko kanpaina abiaraziz. **Iñaki Mendiguren**

Horregatik distiratzten zuten zauriek kanpotik haragian, haiek barrutik **sustrai** sakona egina zutelako espirituan. **Askoren artean**

Zenbat eta gehiago zapaltzen nauten, orduan eta **sustrai** sakonagoak botako dituzte nire irizpideek bihotzean. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Erneko da Jeseren **sustrai**, eta sortuko denak nazioak gobernatuko ditu. **Elizen arteko biblia**

6 oinarria, zimendua; jatorria, iturburua. ik erro.

Zuhaitz beltzen iluntasun hartan, mendiaren **sustrai**an bertan, sakana zabalzen zen. **Agustin Otsa**

Errekarte baserria ez baina neure etxe xaxtarreko sukaldea dudala egiazko erro eta **sustrai**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nazio-arazoa, bere **sustrai**an, nazio-kultur arazoa dela sinetsi dut beti. **Txillardegi**

Azti mota horrek lurra barnean duen kosmosaren mugimenduetan hartu behar du **sustrai**, azpiko lasterrak lakioan harrapatzea du helburu. **Koldo Izagirre**

Zeren diru-gosea baita gaitz guztien **sustrai**. **Elizen arteko biblia**

Sustrairik gabeak eta iraupen gutxikoak dira, denboraldi baterako sinesten baitute, eta tentaldi garaian huts egiten. **Askoren artean**

Pobretasuna dela salbamenerako bide pribilegiatua, apaltasunaren sustatzaile baita eta perfekzioaren **sustrai**. **Askoren artean**

Aurrerabide baketsua jazarpen ofizialek eten dute, eta **sustraitik** moztu edo desnaturalizatu egin dute. **Iñaki Mendiguren**

Ez ote dira auzi honetatik sortuak gure *Ehiztari Beltza*, *Mateo Txistu*, eta **sustrai** bereko leiendak? **Patziku Perurena**

Sustrai bereko hitzak dira "ilargi" eta "hilabete". **Elizen arteko biblia**

7 (izenondo eta izenlagunekin)

Gizaki modernoaren moralari bere **sustrai** nagusiak desestali zizkion (arrazoimena, askatasuna, osasuna, sexua). **Askoren artean**

Ogibide ohiak artean **sustrai** sendoak zituen harengan. **Migel Angel Mintegi**

Collingwooden arabera, artea eta teknika gauza erabat desberdinak dira, Platonen artearen teoria teknikoak kontzeptu horiek **sustrai** komuna dutela esaten badu ere.

Askoren artean

Zeren eta kristautasunaren **sustrai** judaikoak bere moisesar **sustrai** baitzuen. **Iñaki Mendiguren**

Kontzientzia espainolaren **"sustrai** telurikoak". **Joxe Azurmendi**

Liburuan ez dago hizkuntzaren **sustrai** psikologikoen aipamen zuzenik. **Itziar Laka**

Globalizazio-prozesuaren **sustrai** historikoen eta prozesu horren dinamikaren analisiak argi azaldu dute esparru ekonomikoaren eta politikoaren arteko loturak globalizazioaren sorreran duen garrantzia. **Koro Navarro**

Nork bere esperientzia bizian aurkituko dituela, alegia, literaturaren aurreneko **sustrai** majikoak. **Patziku Perurena**

Teoria normatibo guztietan **sustrai** metaetikoak aurki ditzakegun bezala, metaetikak ere bere teorien baiotasuna errealtatean erakutsi beharko du. **Askoren artean**

8 (hitz elkartuetan)

Elikadura-krisia edo nortasun-krisia, berdintsu: biak dira sustraien edo **sustrai**-ezaren agerpen eta horrelaxe izango dira geroaldian ere. **Edorta Agirre**

Leku guztietan errespetatzen dira **sustrai**-ondasunak. **Juan Martin Elexpuru**

9 *sustrai*zko izlag

Izan ere, sakoneko eta **sustrai**zko aldaketa adierazten du paradigma-aldaketa kontzeptuak **Patxi Altuna**

10 *sustrai*-*sustrai*

Sustrai-sustraian dauden desioek eragindakoa. **Askoren artean**

Maiseaketaren bizioa, jainkozaletasunaren eta graziaren **sustrai-sustrai**zko etsaia, sugearen hozkada eta izurrite lagzarriena baino gehiago gorrotatzen zuen. **Askoren artean**

Sustrai-sustraitik zetorkion haserre-denboraleari badaezpadako hutsartea emateko. **Josu Landa**

Ezin espainolagoa **sustrai-sustraitik**. **Iñigo Aranbarri**

11 *sustrai*ak bota sustraiak egin.

Lilia bezala loratuko da eta Libanoko zuhaitzek bezalako **sustraiak botako** ditu. **Elizen arteko biblia**

Zuk landatu eta haiek **sustraiak bota**, hazi eta fruitua ematen dute. **Elizen arteko biblia**

Lurrean **sustraiak botatzen** eta adarretan fruituak ematen dituzten zuhaitz izango dira berriro. **█**

12 irud/hed

-Pedro, **sustraiak bota** behar al dituk hemen? **Jon Maia**

Ezin jakin Etxamendiren euskaltasuna zer-nolakoa zen Ameriketara lur hartu aurretik, baina behin bertan **sustraiak bota** zituenean indartsu ageri zen. **Berria - Kultura**

Herri ospetsuan **bota** ditut **sustraiak**, Jaunaren sailean dago nire ondarea. **Elizen arteko biblia**

Horrek eta **sustraiak** inon **bota** ezinak. **Harkaitz Cano**

Sustraiak botatzen ikusi nuen zentzugabea, baina berehala hondatu zen haren egoitza. **Elizen arteko biblia**

Seme-alabek ez dute **sustrairik** botako, ez eta haien adarrek fruiturik emango ere. **Elizen arteko biblia**

13 *sustrai*ak egin ik sustraitu.

Broadwayko goiko parte honetan, azken urteotan, oso etxe gutxi eraiki da, eta irudipena dut **sustraiak egin** ditudala hemen. **Koro Navarro**

Urteak aurrera ahala, izua areagotu egin zitzaion, **sustraiak egin** zituen haren bihotz barrenean. **Felipe Juaristi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere sustrai (4); **sustrai arteko** (3); **sustrai bila** (9); **sustrai sakonak** (8)

bere sustraiak (11); **euskal sustraiak** (3); **gure sustraiak** (7); **ilearen sustraiak** (3); **nire sustraiak** (3)

sasiaren sustraiak (3); **sustraiak bota** (5); **sustraiak botatzen** (3); **sustraiak eta adarrak** (3); **sustraiak lurrean** (4)

bere sustraiekin (3)

gure sustraiei (3); **sustraien bila** (4)
sustraietara jo (10)
sustrairik gabe (3); **sustrairik gabeak** (3)
sustraitik atera (4)

sustraidun 1 *izond* sustraia edo sustraiak dituena.

Arrazoi **sustraidunak** tartean direla erdietsi zuen hark dibortzioa; ordutik hona, haren egintzak, ordura arteko gaitzak menderaturik, beraren egoera hori ezereztan dio eta ordaindu beharreko kalte handiak ere egiten. **Andres Urrutia**

2 *izlag* sustraiko.

Ezaguna da Fermin Muguruzak izugarri maite dituela Jamaikako **sustraidun** doinuak. **Berria - Kultura**

45 lagun, gutiz gehienak euskaldunak, zonbaitzu haatik ez euskaldunak baina hala ere euskal **sustraidunak**, joan ginen Argentinara. **Herria**

Geroztik, estiloaren etengabeko birmoldaketan oinarrituriko ibilbidea garatu du, blues **sustraidunetik** elektronikaraino esparrua hartuz. **Berria - Kultura**

sustraigabe *izond* sustrairik ez duena.

Sustraigabea, nolazpait. **Txillardegi**

sustraigabetu, sustraigabe(tu), sustraigabetzen da/du *ad* sustraigabe bihurtu.

Hemendik kanporatu, **sustraigabetu** nahi gaituzte, bizirik edota hilda. **Berria - Mundua**

sustraigabezia *iz* sustrairik eza.

Karrika zabal gisan antolatua, hiru oin baino gehiagoko eraikinak eta jende saldoaren joan-etorri taigabea **sustraigabeziaren** marka izan, nonbait, eta erro sendoagoen bila abiatzen dira zuhaitz genealogikoaren adasketan barrena. **Aingeru Epaltza**

sustraiqueta *iz* sustraitzea.

Prozesu horren zeharbidean jatorrizko arrazoiak galdu egiten diren arren, beti mantentzen dira naturarekiko **sustraiqueta** eta arbitrariotasunari uko egitea. **Santiago Iruetagoiena**

sustraitu *izond* sustrai ugarikoa.

Elezahar **sustraitua** sortu zen, antzina, Lukas medikua margolari ere bazela aitortu nahi zuena. **Pello Zabala**

Sustantiboan izate **sustraitua**; izenordean auzolanerako prestutasuna; adjektiboan juzkatzeko grina. **Joxerra Garzia**

sustraitu, sustrai(tu), sustzaitzen 1 da/du *du* landareak eta, sustraiak egin, lurrari sustraien bidez atxiki. *ikerrotu*.

Ur-deskargak urtegia husten du, eta honen ertzak goian eta lehor uzten ditu, horrela ihartu egiten delarik han **sustraitzea** lortutako landaretza. **Iñaki Mendiguren**

Zergatik **sustraitzen** da landaretxo hau zuhaitzen adarretan? **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Horregatik ez du mihurak inoiz lurra ukitzen, eta zuhaitzen adarretan **sustraitzen** da: debekaturik dauka lurra betiko. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Mota guztietako zaborrak zeuzkaten gainaldean pilaturik, eta zuhamuxkak alboetan **sustraiturik**. **Jose Morales**

Harroaren ezbeharrak ez du erremediorik, gaitzakeriaren landarea **sustraitua** baitu bere baitan. **Elizen arteko biblia**

Nork daki moztu, epaitu, erauzi, erre beharrak ez ote zuen barnago **sustraitu**? **Koldo Izagirre**

2 sakon eta irmoki finkatu.

Lurralde haietan antzinatik **sustraitutako** familia bateko poloniar zintzoa. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Kolonoak **sustraitzeari** dagokionez, Marokok lekuz aldatu dituen marokoarrak diru laguntzen bidez eusten die han. **Berria - Harian**

Zenbait bakterio-ondotan, baziren entzima batzuk ADN arrotza mozteko ardura zutenak, eta haien bidez eragozten zitzaion bakterioa inbaditu eta han **sustraitzea**. **Juan Garzia**

Susperraldian, behin baino gehiagotan oroitu zen hartaz, baina oroitzapen hura ez zitzaion **sustraitu**. **Patxi Zubizarreta**

Heroien eta sainduen indarra, naturarenganako gorrotoan, izuan edo nazkan da **sustraitzen**. **Markos Zapiain**

Garbizaletasuna bezala, joera hau ere Bizkaian **sustraitu** zen. **Koldo Zuazo**

Frantziskok Kristoren pausoak jarraitu nahi ditu, eta hor **sustraitzen** ditu bere irizpide, bizimodu eta hautuak. **Askoren artean**

Horrelakoetan **sustraitzen** da helduenganako mesfidantza, ondoren bere buruarenganako mesfidantza bilakatu. **Markos Zapiain**

Islama [...] **sustraitu** egin zen haien bihotzetan. **Iñaki Mendiguren**

Kultura baten sakonenean **sustraiturik** dauden sinesteek ez dute, sarri askotan, inolako oinarri logikorik. **Juan Garzia**

Gure gizartean irmoki **sustraituta** dauden ideiak dira. **Berria - Euskal Herria**

Notazio hamartarra sakon **sustraitua** baitzegoen bizitza praktikoa. **Iñaki Mendiguren**

Sakon **sustraitutako** tradizio batekin ari ginela borrokan. **Julen Gabiria**

Amerikako musikaren historiaren hondorri hondoenera joan da laukotea bere musika **sustraitzeko**. **Berria - Kultura**

Sarriegik "donostiar herrian **sustraitu** zuen bere lana, berak herri hori bera gauzatu baitzuen". **Askoren artean**

Normalizatorako espiritua **sustraitu** du herri honetan. **Berria - Harian**

Bouteflikak «nazioaren berradiskidetzean» **sustraitu** du kanpaina. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sakon sustraitua (4)

oso sustraituta (3); **sustraituta dagoen** (3); **sustraituta dauden** (4)

sustraitze *iz* sakon eta irmoki finkatzea.

Erakundeen **sustraitzea** ez zegoen argi edo ez zen erraz ikusten. **Berria - Euskal Herria**

Zabalkunde arin eta **sustraitze** azkar honen arrazoiak agerikoak dira. Uriaren «ibilbide profesionalak» eta «gizartearen duen **sustraitzeak**» baliorik gabe uzten dutela arrisku hori. **Koldo Izagirre**

Euskararen komunitatearen baitan gaur egun bertsolaritzak duen **sustraitze** -maila ez da kasualitatez sortua. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

sustrato ik **substratu**.

sustrazio *iz*

Euskal singularitasuna ez da oinarritzen partikularitasunaren eta nortasun berezien predikuetan; **sustrazioan** oinarritzen da, Badiou-ren filosofiak zehazki analizatzen duen kontzeptua, eta goian aipaturiko logika negatiboarekin zerikusi estua duena. **Joseba Zulaika**

sustu ik **susto**.

sustut *adlag ipar* batez ere. “

Guk gailurrera heldu nahi dugu, baina **sustut** osorik jautsi nahi dugu gero” esplikatu zuen Eric Alzazebek. **Berria - Kirola**

Ibiltzen gira jendeekin, Alfonsok **sustut** ezagutzen ditu zeren eta futbolearen ari da, eta orduan baditu bere ekipak eta bere kideak. **Menane Oxandabartz**

Aita, ama, **sustut**, ez eros E925 daukan janaririk, kloroa badu, pozoina da! **Herria**

Kantariék magia zela uste zuten, beren ahotsa tresna horretatik ateratzen entzutean **sustut**. **Berria - Kultura**

sutako ik **su 18**.

sutaldi ik **sualdi**.

sutaltzairu *iz*

Xerkatzaile on batek, beraz, aldean darama guztia: buztinezko arragoa, zotz-ikatzka, ardagaia, **sutaltzairua**, eta beste lanabes bat ere bai, sekretua izanik ezin baitut hemen aipatu, zeinak harri bat on den ala ez ikasteko balio baitu, hain zuzen **Juan Garzia**

sutan ik **su 19; su 20**.

sutaratu, sutara(tu), sutarazten da/du *ad* sutara joan; sutara eraman.

Hain sentipen handiz agurtu eta horra, ni **sutaratzeko** argudioa. **Aingeru Epaltza**

sutarazi, sutaraz, sutarazten du *ad* sutzera behartu.

Ez da adjektiboen bitartez irakurlea **sutaraziko**. **Iñigo Aranbarri**

sutargi ik **su 25**.

sutarri ik **suharri**.

sutaurre ik **su 26a**.

sutauskintza *iz* bolbora fabrika.

Sutauskintzako jabea, paseatzera aterea, susmo batek hartu zuen. **Xabier Olarra**

sutauts 1 *iz* bolbora.

Autore gehienek diote **sutautsa** Txinan asmatu zela. **Xabier Olarra**

Hildakoaren kategoriak dinamita bihurtzen du **sutautsa**. **Koldo Izagirre**

Danbada aditu nuen lehenik, **sutautsaren** errearen hatsa gero, belarria sutan azkenik. **Edorta Jimenez**

Fusil bat, botila bat **sutauts** eta botila bat urekin. **Juan Garzia**

2 (neurriekin)

Artilleriako 347 pieza ere badira, hogei mila balarekin eta 789 tona **sutautsekin**. **Edorta Jimenez**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sutauts usainaren lekuan, orbelarena hedatu da berriro gela osoan. **Hasier Etxeberria**

Hamar akreko soro batean alderik alde **sutauts** lerro bat egin zuen, eta, orduan, oihu batek burua itzularazi zion, dohaintza-emaile eskuzabalak poxpolo piztu bat botea baitzuen bat-batean ildoaren hasieran. **Xabier Olarra**

Sutauts zorro txiki bat erregalatu zion esanez *Flashaw flabbergastor*-en haziak zirela. **Xabier Olarra**

sute 1 iz kalteak eragiten dituen su handia.

Inbaditzaileek ankerkeria izugarriak egiten omen zituzten, harrapaketak, lapurretak, **suteak**, hilketak. **Karlos Zabala**

Hogeita bost orduko denbora tarte horretan 1.037 **sute** eta 1.700 gezurrezko alarmari kasu egin behar izan zieten suhiltzaileek. **Harkaitz Cano**

laz 219 **sute** izan ziren Nafarroan, eta 145 hektarea erre ziren. **Berria - Euskal Herria**

Aurreko gauean **sute** bat izan zen: kale kantoiko bueltan ukuiulu batek su hartu zuen, eta zaldi mordoxka batek betiko bizitza irabazi zuen. **Xabier Olarra**

Logela batean piztutako **sute** batek kalte larriak eragin ditu Donostiako etxebizitza batean. **Berria - Euskal Herria**

Lan Burtsako alemaniar sailean **sute** bat izan da, sabotajea. **Josu Zabaleta**

Sute hau norbaitek nahita piztu du. **Lopez de Arana**

Sute bat amaitzen bada, pospolo bat piztu eta beste bat eragin dezakezu. **Oskar Arana**

Handik bi urtera **sutea** sortu zen Argentinako Libertad eskola-ontzian, Ferrolen zegoela. **Koldo Izagirre**

Auto abandonatua hartu eta gasolinaz ongi igurtzi ondoren, su ematen zioten, halako **sute** beltz ikaragarri bat sortuz. **Karlos Linazasoro**

Arantzazuko Andre Maria, jatorrizkoa, 1493koa da, eta zenbait **sute** eta eraso jasan ditu historian zehar. **Jon Alonso**

Marracq-eko gaztelua, Napoleon estatuz egon zen hura, hurrenez hurren kaserna eta apezgaitegi bilakatu, **sute** batek suntsitu zuen. **Koldo Izagirre**

Sute batean hiltzea, uretan hiltzea, goseak hiltzea, lokatzetan hiltzea. **Lopez de Arana**

Lantegi horretan ez zegoen, gainera, ez morroilorik, ez alamarik, ez **suteen** aurkako sistemarik, ez ke-detektatagailurik. **Jon Muñoz**

Sutearen garrek zeru-muga gorri-gorria ezarri zuten, biziki gora. **Marzel Etxehandi**

Sute baten erdian zaudenean, normalean keak itota hiltzen zara, suak kiskali baino lehen. **Fernando Morillo**

Sutea ez zen jatorri kriminalakoa; istripua edo suizidioa izan behar zuen, beraz. **Jon Muñoz**

Barbaro su-emaileen **suteek** azkenean eurak erre zituztela. **Iñaki Mendiguren**

AEBetako presidentek kaikukeria hau bota zuen: **Suteak** ekiditeko basoak moztea da onena. **Txema Ramirez de la Piscina**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

San Pauloren katedrala suak harturik, Londresko **Sute** Handian. **Xabier Olarra**

Sute handi batek 100 bat hektarako eremua kixkaildu du. **Herria**

Eliza, komentu eta baso, denak **sute** handi batek hartua zirudien. **Askoren artean**

Chicagoko antzoki batean gertatutako **sute** izugarri hura. **Lopez de Arana**

Sute ikaragarri bat omen zagok Gernikan! **Lutxo Egia**

Beste hainbat estatutan ere gertatu dira **sute** larriak. **Berria - Euskal Herria**

Kolpearen ondorioz, **sute** itzela piztu zen eta polizia postuan geldituta zeuzkaten 6 autobus eta 5 kamioi harrapatu zituen berehala suak. **Berria - Mundua**

Sute kriminalaren tesia egia izan zitekeen, beraz. **Jon Muñoz**

Kezkatuago dabil inguruko basoetako **sute** kaltegarriak direla eta, edota hondartzeko marea beltzak, inor kartzelarazteaz baino. **Javi Cillero**

Zenbait minutu berantago, danbateko bat aditu zen, eta **sute** gaitza izan zen ondotik. **Elena Touyarou**

Bertako ibai eta mendi nimañoak beltzurik zeuden, **sute** koxkor baina indartsu batek kixkalita bezala. **Alberto Ladron Arana**

Zabor-pilo batean piztu den **sute** ziztrin bat baino ez. **Lopez de Arana**

Sekulako **sute** baten argia zen. **Karlos Zabala**

«**Sute** terroristak» eragitea leporatuta, Espainiako Auzitegi Nazionalako fiskalak hamarna urteko espetxeratzea eskatu du lau gazterentzat. **Berria - Euskal Herria**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Vulkanoren ahalmena ospatuz, erritualak eta opariak egiten direnean barru harresitutik kanpora, etxeak eta eraikinak gera daitezten **sute**-arriskuko esparrutik kanpora. **Santiago Iruretagoiena**

Kontu handiz etxearen atzeka ertzeraz hurbildu eta teilatu-hoditik behera lerratu zen **sute**-eskaileraraino. **Lopez de Arana**

Limoi-koloreko goiztiriak kale hutsak blaitu zituen, erlaitzetatik, **sute**-eskaileren eskudeletatik eta zakarrontzian ertzetatik tantak isuriz. **Lopez de Arana**

Lapurreta, adulterioa, **sute**-irtenbidetik ihes egitea, teilatu-hodietan zehar katuka ibiltzea. **Lopez de Arana**

Dordogne-an eta Euskal Herrian **sute** zerbitzuek badute lan. **Herria**

Kale-kantoiari, gizon bat **sute**-alarmaren kutxa aztertzen ari zen. **Lopez de Arana**

4 sua.

Han-hemenka hamaikatxo **sute** piztu eta berauen inguruan esertzen ziren jateko eta edateko. **Joanes Urkixo**

Sute bat piztu eta gorpuak erre behar ditugu -proposatu zuen Fionnek, beldurraren gainetik lasaitasunari eutsi nahian-. **Joanes Urkixo**

Badu sei hilabete orain, itsasertzean, gauez, **sute** erraldoiak gertatzen direla eta horregatik, ontzi zenbait harkaitzetan kraskatzen ere dira. **Itxaro Borda**

Martxoaren 21 egunera iritsi orduko, han ote-abarrezko **suteak** pizten zituzten. **Pello Zabala**

San Juan, **suteak**, Eguzki berriaren festa nabarmen. **Txillardegia**

5 irud/hed

Benetako bizitza hortxe zegoela, betile polit apaldu horietan, pentsamendu eta sentimenduen **sute** horretan. **Jose Morales**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

izandako sute (6); izandako sute baten (4); piztutako sute (6); piztutako sute batek (3); sortutako sute (3)

sute bat izan (9); sute bat piztu (5); sute batek suntsitu (3); sute baten ondorioz (13); sute eskailertatik (3); sute handi (12); sute handi bat (3); sute handi baten (3); sute handia (6); sute handiak (3); sute haundi (3); sute izigarri (3); sute txiki (8); sute txiki bat (6)

izandako sute (6); izandako sute baten (4); piztutako sute (6); piztutako sute batek (3); sortutako sute (3); sute bat (46); sute bat izan (9); sute bat piztu (5); sute batean (15); sute batek (18); sute batek suntsitu (3); sute baten (23); sute baten ondorioz (13); sute batetik (4); sute edo (3); sute eskailertatik (3); sute eta (5); sute handi (12); sute handi bat (3); sute handi baten (3); sute handia (6); sute handiak (3); sute hartan (3); sute haundi (3); sute hori (3); sute horren (4); sute izigarri (3); sute txiki (8); sute txiki bat (6)

aingo sutea (3); barañ eragin zuen sutea (8); eragindako sutea (4); gaitzeko sutea (6); gaitzeko sutea izan (3); gertatu zen sutea (3); izan zituzten sutea (3); izandako sutea (4); piztu zen sutea (4); sutea hasi (3)

sutea bilbon (3); sutea eragin (8); sutea gertatu (7); sutea gertatu zen (4); sutea handia (3); sutea hasi (9); sutea hasi zenean (7); sutea itzali (9); sutea itzaltzea (3); sutea itzaltzeko (6); sutea izan (24); sutea izan da (7); sutea izan zen (10); sutea piztu (11); sutea piztu zen (4); sutea sortu (5); sutea sortu zen (5); sutea zerk eragin (8)

gaitzeko suteak (3); suteak eragindako (4)

gertatutako sutean (4); izandako sutean (11)

izandako sutearen ondorioz (3); sutearen aurkako (3); sutearen berri (5); sutearen inguruan (4); sutearen kea (3); sutearen ondoren (4); sutearen ondorioz (21); sutearen ondotik (4)

sutean aurkako (3); sutean kontrako (5) (sutetik ihes (3))

Vulkanoren **sutegia** ikusten da burdinari ere hori bera gertatzen zaiola, zeren eta berez gogorra izanik, **sutegiaren** garretan berotuz gero hura ere bigundu egiten baita, era guztietako forma hartzera egokituz. **Santiago Iruretagoiena**

Goritutako burdina **sutegitik** atera, ingudean jarri, mailuaz jo eta burdinatik aroztegi oso-oso batetzeko adina txinparta atera ziren. **Fernando Rey**

-Eta zuk uste duzu burdinazko piezak jotzen asmatuko duzula, jakingo duzula **sutegian** lan egiten? **Jon Maia**

Han, iparraldeko lurraldean, **sutegiak** eta meatzeak zeuden, eta bertan metatzen ziren luzaro prestatu gerrarako erreserbak. **Agustin Otxoa**

Erraiten baituzten ezen olagizonak zirela munduan zeuden gizon bakarrak, zeren infernuak zailtzen eta gogortzen baitzituen gizon haiek egunoroz, **sutegietako** garretan.

Joan Mari Irigoien

2 (hitz elkartuetan)

Sutegi -mailua bezalaxe ari zait oraintxe bihotza taupaka. **Josu Zabaleta**

Ikatz-**sutegian** iltzeak fabrikatzen zituzten; inguru-uztai goriak jartzen zizkieten orgen gurrpilei; zaflak jo eta jo hantxe gortzeraino. **Juan Garzia**

3 janariak berotzeko egosteko eta frijitzeko erabiltzen den sua; sukaldea.

Tenpluko zerbitzariak **sutegi** horietan egosiko dute herriak oparitan eskainitako abereen haragia. **Elizen arteko biblia**

Kanpoan hozkirri zegoen; barnean, ostera, nargileen keak, bezeroen arnasak eta **sutegiaren** beroak epeltasun gozoa sortu zuten. **Patxi Zubizarreta**

Sukaldera joaten entzun zuen Harryk, eta gero zartaginaren hotsa **sutegian** jartzean. **Iñaki Mendiguren**

Sutegia hotz zegoen, saltxitxa zanpatu bat besterik ez zen ageri, arranparrilaren gainean ahaztua. **Karlos Zabala**

Gasa lasai erretzen ari zen, **sutegiko** beroak atsegin ematen zien. **Karlos Zabala**

Lekorkeko kozinera, hau bere **sutegiaren** aintzinean bezain bipil eta jarraikia. **Herria**

Bi sukaldari lanean ari ziren **sutegiaren** gainean. **Lopez de Arana**

Sutegi ekonomikoaren txapa ilunaren gainean bi eltze eta kafetera esmalte zurikoa. **Pello Lizarralde**

Tomek bere hatzez klask! egin eta sua sortu zuen beheko **sutegian**. **Iñaki Mendiguren**

4 (hitz elkartuetan)

Edan, bakarra tea edan zitekeen, aitak berak prestatua gas-**sutegi** txiki batean. **Fernando Rey**

Pontxea eta ardoa berotzen ari ziren gas **sutegi** txiki baten gar apal urdin-gorritan gainean. **Karlos Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sutegi txiki (4)

sutegiaren gainean (4)

sutil ik **sotil**.

sutilezia ik **sotilezia**.

sutilki ik **sotilki**.

sutondo 1 iz etxeetan, beheko sua dagoen tokia. ik supazter.

Kez belztutako **sutondo** bat bazen bertan, baita txiki-txiki eginda zegoen horma-armairu bat eta burdinazko ohe bat ere, bi zatitan tolestatua. **Lopez de Arana**

Sutondo edo labeko su garbitik sortua, sua bertan utzi eta bazihoan kea, tximianian gora etxeko garbia eta epela eramanez airera. **Joseba Sarrionandia**

Eguna lanean pasatu ostean, gu biontzat ez dago ezer ederragorik gaua **sutondoan** pasatzea baino, atsedenean, txikiak hurbil ditugula. **Julen Gabiria**

Euria ari zuen, hotz egiten zuen eta **sutondoan** babestu ziren. **Koro Navarro**

Morroiek in batera eserita, **sutondoan** berotzen ari zen. **Elizen arteko biblia**

Cotter zaharra zegoen **sutondoan** eserita, pipa erretzen, ni afaltzera jaitsi nintzenean. **Irene Aldasoro**

Sutondoaren epelak logalea eman zion, eta lokartzen ari zelarik sentitu zuen Maitearen ukitua. **Anton Garikano**

Medikua zen Martin, Domingok etxeko **sutondoan** entzuna zuenez. **Edorta Jimenez**

Sutondoko lau besaulkien arteko mahai txikiaren gainean utzi zituen. **Aitor Arana**

Afalondo batean **sutondoko** aulki kulunkarian eseri zen Paul D, neka-neka eginda. **Anton Garikano**

Kontu kontari, **sutondoko** giro goxoan. **Patziku Perurena**

Sutondoko patxadan gozaro egositako eltzetik urrun. **Patziku Perurena**

Andre Engraziak iloba eskutik hartu zuen, sukalde xokora eraman zuen, **sutondora**. **Elena Touyrou**

Etxez etxe eta **sutondoaz sutondo** kontaktzen ziren ipuinetako pertsonaia bilakatu zuen herriak Axular. **Anjel Lertxundi**

Berotzeko berogailu eta **sutondo** goxoak. **Josu Zabaleta**

Bi emakume ikusi zituen, **sutondo** goxoko besaulki banatan aurrez aurre eserita, biak irribarez eta hizketan. **Aitor Arana**

Landetan igarotako bizitza oso bat, arta lokotsez egindako lastaira baten gainean, taberna bateko mahai zikinean, guraso etsaien arteko **sutondo** zatituan. **Josu Zabaleta**

2 (aurre, atze eta kidekoen ezkerretan)

Sethe oraindik **sutondo** alboan zegoen kuzkurtuta. **Anton Garikano**

Ohe-estalki eta mantetan bilduta **sutondo** aurrean, edan, sudurra zintzatu, eta berriro edan zuten. **Anton Garikano**

Ellak barruko bi arropa eseki zituen **sutondo** atzeko soka batean. **Anton Garikano**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai dia)

Hautzaroko **sutondo** zokoetan entzunik. **Itxaro Borda**

Kanpoan haizearen murrumak nagusitzen zirela, etxeko teilatuaren euri kolpeak eta **sutondo** zokoa Fanchen behatz ukaldi sotilak behialako munduari agurka hautematen nituen. **Itxaro Borda**

Arratsaldean aire eta eguzkitan jarri zituzten latoizko **sutondo**-babes bat eta altzeiruzko suburdin multzo bat. **Anton Garikano**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sutondo aurrean (3)

sutondoan berotzen (3); **sutondoan eseri** (8); **sutondoan eseri zen** (5); **sutondoan eserita** (11); **sutondoan eserita zegoela** (3); **sutondoan zegoen** (5); **sutondoan zeuden** (4)

sutondoko burdin (3)

sutondora joan zen (4)

sutondoar *izond* sutondokoa.

Denentzat egina izan da jai eta festa berezi eta hain ona dena: Gab-on, Egu-berri eta Egu-berri-on, guztion bihotz eta zentzu onenak bildu eta oparitzen dituen egun-sorta **sutondoar** eta sukaldetiar hau. **Pello Zabala**

sutontzi ik **suontzi**.

sutontzitxo ik **suontzitxo**.

sutopil *iz* errauts azpian erretzen den gari irinezko opila.

Hartu hamar ogi, **sutopil** batzuk eta ontzi bat ezti, eta zoaz harengana. **Elizen arteko biblia**

Begiratu zuen Eliasek eta horra non ikusten dituen, bere buru aldean, harri goritu baten gainean erretako **sutopila** eta antosin bat ur. **Elizen arteko biblia**

sutopiltxo *iz* opil txikia.

Joan eta egin esan duzuna; baina egidazu aurrena niri **sutopiltxo** bat eta ekarri. **Elizen arteko biblia**

sutsu 1 *izond* lehia biziz bete, gartsua. ik **suhar**. (pertsonak)

Izan ere, kartzelak edozein gizaki samintzen du, eta are gehiago Sade bezalako pertsonaia geldigor, ekintzaile, **sutsu** eta matxino bat. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Aktibista **sutsuak** dira hiru emakumeak. **Berria - Harian**

Euskal kultura eta politikaren defendatzaile **sutsua**. **Askoren artean**

Hala ere, poloniar **sutsua** izan zen Rufin Piotrowski bizitza osoan, eta beti aldarrikatu zuen bere jaioterrria. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Don Paulinoren ondoren, beste apaiz **sutsu** bat etorri zen, don Patrixio. **Joan Mari Irigoien**

Puritano **sutsuen** erlijioak "puru" izan nahi zuen, handikeriarik gabekoa. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Haren ohiko begitarte hertsia eta serioa, inondik ere maitale **sutsu** bati ez zegokiona. **Patxi Zubizarreta**

Fede osoko abertzale **sutsu** harentzat 1953koa azken traizioa izan zen. **Edorta Jimenez**

Aski izango zen piromano ero bat nintzela aitortzearekin, edo antikapitalista **sutsu** bat. **Hasier Etxeberria**

Hurtado Esproncedaren zale **sutsua** zen. **Josu Zabaleta**

Francisco Romero jauna kafearen miresle **sutsua** zen. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Behinola mistiko oinazetu, gero etakide **sutsu**, hurrena marxista porrokatu, ondoren posmoderno sumindu izanikoak ilustratu haserretu bilakatu zaizkigu orain. **Markos Zapiain**

2 (gauzak)

Antikomunismo **sutsu** hori ez da muntarik gabeko kontua. **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Litekeena da istripu bat izatea, ezta? -amaren ahotsari esperantza **sutsua** zerion-. **Alberto Ladron Arana**

Adiskidantzarik gorenena, amodiorik **sutsu**, miretsi eta errespetuzkoenak, isiltasunean oinarritzen dira. **Pako Aristi**

Maxine begira zegokion, begiratu **sutsu** eta asaldagarriz. **Koro Navarro**

Hala bada, gizonak egin omen zion gogotik kendu ezinik, musu **sutsu** bat eman zion ahoan. **Patxi Zubizarreta**

Musua gero eta **sutsuagoa** zen eta, halako batean, nire bizkarretik hankartera jaitsi zuen esku bat. **Aitor Arana**

Hilabeterik ez zuen iragaiten berak argitarazten zituen manifestu **sutsu** bat helarazi gabe. **Elena Touyarou**

Haien mintzaldi **sutsuak** irrigarriak zitzaizkion. **Elena Touyarou**

Haiat Al-Nufusek luma hartu, eta mezu **sutsu** eta pasioz bete bidali zion Amgadi. hainbat tiro eta labankada eman zizkion Berroetari eztabaida **sutsu** baten ondoren. **Patxi Zubizarreta**

Behoko auzoko taberna batean, luzanga eta zinegotzia eztabaida **sutsuan** aritu ziren. **Juan Kruz Igerabide**

Ezkontide arteko ahakar **sutsu** horietariko batean. **Juan Garzia**

Maitasun-adierazpen **sutsu** bezain estilizatuak, hungikarri bezain elaboratuak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zurekiko eta zurekiko konfidantza eta adiskidetasun erakusgarriak **sutsuenekin**. **Ramon Etxezarreta**

Desira **sutsu** eta etengabea, konfiantza oso eta ziurra eduki maitasunean. **Joan Mari Lekuona**

Nire grina sexual **sutsu** hura apaltzeko. **Karlos Zabala**

Hamasei urteko neskarik ez da joango itsumustuan harengana, burtzoraturik eta grina **sutsu** batek eraginik. **Jose Morales**

Ez dut ulertzen nire gurasoen eta senideek zergatik eztabaidatzen zuten hain modu **sutsuan**. **Fernando Rey**

Haien arteko gizon asko, bihotz bero eta maitasun **sutsukoak**, konbertitu berriak ziren artean. **Askoren artean**

3 (adizlagun gisa) ik **sutsuki**.

Pablok **sutsu** ekin zion ikaskideak infernuko garretatik salbatzeko ahaleginari. **Joxean Sagatzizabal**

Beti **sutsu** dihardu egiaren bila, badaki buruiritzikeriaren uste ergelen artean egia bereizten. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Malfoyri **sutsu** begiratzen zion. **Iñaki Mendiguren**

Baina horrelakoetan Andrek **sutsu** protestatzen zuen. **Ander Irizar**

Ormazabalek eta Uruñuelak **sutsu** defendatu dute desobedientzia zibilaren erabilera. **Berria - Euskal Herria**

Lau hilabete lehenago ez nintzaion hain **sutsu** agertuko. **Aingeru Epaltza**

Maitek eta biok larrutan jarraitu genuen **sutsu** eta bero. **Aitor Arana**

Baina saia zaitezte Moisesek [...] emandako aginduak eta legea **sutsu** betetzen. **Elizen arteko biblia**

Jakinik perfekzionerako lagungarri dena **sutsu** maitatu behar dela eta arretaz baztertu kaltegarri dena. **Askoren artean**

Nire inguruan jendea kantuz ari zen, **sutsu**. **Matías Múgica**

Aberriaren hobe beharra bezalako argibide luzeetan korapilatu nintzaion **sutsu** bezain antzu. **Anjel Lertxundi**

-Eta ni ere bai -esan zuen Ronek **sutsu**, herrenka aurreratuz. **Iñaki Mendiguren**

-Zer esan duzu? -bota zion izebak **sutsu**, ateaz bestaldetik. **Iñaki Mendiguren**

-Hortaz, egin behar dudak guztia zera da, Snapek harria harrapatu arte itxaron -jarraitu zuen Harryk **sutsu** -. **Iñaki Mendiguren**

Gero eta **sutsuago** joka dezagun, emakume honek bezala, inoiz etsi gabe, harik eta grazia lortu zuen arte. **Joan Mari Lekuona**

Etxeberrik inoiz baino **sutsuago** egin zigan predikua. **Aingeru Epaltza**

4 suz bete.

Ur hauek, hotzak diren arren, itxuraz irakiten daudela dirudi, zeren eta, gertatzen baita barru-barruraino erori direla leku **sutsu** baten gainera, eta suak eta urak elkarrekin topo egin dutela. **Santiago Iruretagoiena**

Etsiak jorik, eguzki **sutsuaren** azpian eseri zen. **Juan Garzia**

Gero itsasoa, gero airea, gero eter **sutsua** bera. **Xabier Amuriza**

Bere izpi **sutsuak** ez ditugu alferrik ikusten ura darien arropak lehortzen. **Xabier Amuriza**

Oinaztuak etheen hormak zeharkatzen baititu, hotsak eta harrabotsak bezala; burdina sutan goritzen da eta haitza kraskatzen, bapore **sutsuaren** suminez. **Xabier Amuriza**

-1883ko abuztuaren 28an, Krakatoa sumendiaren erauntsi **sutsua** iratzarri zen. **Pello Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abertzale sutsu (5); **adierazpen sutsu** (3); **bezain sutsu** (6); **defendatzaile sutsu** (9); **eztabaida sutsu** (7); **eztabaida sutsu bat** (3); **hain sutsu** (8); **jarraitzaile sutsu** (14); **maitale sutsu** (5); **maitasun sutsu** (5); **oso sutsu** (6)

sutsu agertu (3); **sutsu agertzen** (3); **sutsu bihurtu** (4); **sutsu egin** (3); **sutsu jardun** (3); **sutsu jokatu** (5)

abertzale sutsua (7); **aldeko defentsa sutsua** (4); **aldeko sutsua** (4); **beltzaran sutsua** (5); **borrokalaria sutsua** (3); **defendatzaile sutsua** (23); **defendatzaile sutsua izan** (3); **defentsa sutsua** (26); **defentsa sutsua egin** (13); **defentsa sutsua egiteko** (3); **defentsa sutsua egiten** (4)

euskaltzale sutsua (3); **eztabaida sutsua** (21); **eztabaida sutsua izan** (6); **eztabaida sutsua sortu** (3); **fededun sutsua** (3); **gizon sutsua** (3); **hitzaldi sutsua** (3); **hitzaldi sutsua egin** (3)

inguruko eztabaida sutsua (3); **jarraitzaile sutsua** (18); **jarraitzaile sutsua izan** (4); **jarrera sutsua** (5); **lehia sutsua** (3); **maitasun sutsua** (6); **miresle sutsua** (5); **miresle sutsua zen** (3)

rock sutsua (6); **sostengatzaile sutsua** (3)

sutsua izan (31); **sutsua izan zen** (14); **sutsua izan zuen** (3)

are sutsuago (4); **gero eta sutsuago** (9); **inoiz baino sutsuago** (4); **sutsuago ekin** (3)

sutsuagoak izan (3)

aurkari sutsuak (3); **borrokalaria sutsuak** (3); **defendatzaile sutsuak** (5); **eztabaida sutsuak** (8); **grina sutsuak** (4); **hitz sutsuak** (3); **jarraitzaile sutsuak** (5); **maitemin sutsuak** (3); **oso sutsuak** (3)

sutsuak bilakatu ziren (3); **sutsuak izan** (10); **sutsuak izaten** (3)

defentsa sutsuan (4); **eztabaida sutsuan** (6)

sutsuegi jokatu (3)

jarraitzaile sutsuek (4)

zale sutsuen (5)

zale sutsuenek (3)

sutsualdi iz beroaldia.

Ezpain artea hozkatu zuen esatera zihoana hausnartu bitarte laburrean, eta astiro hitz egin zuen gero, aspalditik gordetako arrangurei aitak ez ziezaien tupusteko **sutsualdi** baten aitzakiarik jar: **Anjel Lertxundi**

sutsuki adlag era sutsuan. ik sutsu 3.

Nolatan izango da zoriotsu hain **sutsuki** desiratzen duen hori eskuratu gabe? **Imanol Unzurrunzaga**

Bazegoen **sutsuki** nahi zuen zerbaite, baina, nahi zuela zekien arren, ezin zuen jakin zer zen nahi zuen hori. **Julen Gabiria**

Sendo eta amorratuenetako batzuk mendebaldeak irten ziren, eta oraingo honetan, ihes egiteko asmoarekin beharrean, hiltzekoarekin, **sutsuki** ekin zioten erasoari.

Agustín Otsa

Sutsuki ari da, herexiaren kumeek ohi dutenez, gaskoi doinu nabarmenean. **Aingeru Epaltza**

Iturrinok **sutsuki** egin du hitz horren alde. **Anjel Lertxundi**

Errebelazioan oinarritzen ziren erlijioen aurka mintzatu zen **sutsuki**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Servetek gertutik ezagutu zituen erreformatzaile gailenak: Melanchon, Lutero, Zwinglio eta Calvino-rekin **sutsuki** eztabaidatu eta ez zuen inoiz arrazoiak beste inposizioirik onartu nahi izan. **Askoren artean**

Saudi Arabia, Aljeria, Venezuela, Iran eta Libiak murrizketa **sutsuki** defendatu dute, prezioa garestitzearen erantzuleak espekulatzailak direla argudiatuta. **Berria - Ekonomia**

-Ederra hango lurra! -esan zuen ganberaburuak, eta **sutsuki** goraiatu zituen bazter hartako belardiak-. **Jose Morales**

Sutsuki goretsi zuen bakartasuna, gizabanakoaren pentsamendurik goitsuenak elikatzen dituela adieraziz. **Jose Morales**

Hirurogei bat lagun, militarrek, iheslarien ahaideak, apez arnegatzaileak, eta beren leialtasun iraultzaileak aski **sutsuki** agertu ez zuten beste zenbait, hiltzera kondenatuak eta berehala erailak izan ziren. **Elena Touyarou**

Eskerrak **sutsuki** emanaz. **Alberto Ladrón Arana**

-Niri ere bai! -gaineratu diot **sutsuki**. **Pako Aristi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sutsuki defendatu (3); **sutsuki eta** (5); **sutsuki goraiatu** (4)

sutsutasun iz sutsua denaren nolakotasuna.

Kolokan dagoen Aristideren aldeko **sutsutasuna** erakusteko lotsa gutxien dutenek presidentearen aldeko jai kutsuko martxak antolatzen dituzte. **Berria - Mundua**

Jokalariak sarritan elkartzen dira eta ez dut uste neurritz kanpoko **sutsutasunik** dutenik. **Berria - Kirola**

sutu, su(tu), sutzen 1 da ad su hartu.

Zuzia ere bere uhinetan horrelaxe **sutzen** eta argitzen da, haizeek aurretan flotarazten dutenean. **Xabier Amuriza**

Ez alega lotsarik odol bero oldartsuak erasoari ekiten dionean, izotza bera ere berdin gartsu **sutzen** denez gero irritsaren sustagarri delarik arrazoa. **Juan Garzia**

2 irud/hed

Begiak **sutu** zitzaizkion Nathaniel Hawthornei, arrebak egindako galderaren lazturaz. Aurpegia lotsaz **sutu** zitzaidan, ene sekretuetako zenbaten jabe eginik ote zen igarri ezinik. **Anjel Lertxundi**

Eztabaida **sutu** zen, eta bataren zein bestearen ihardespenean gero eta gordinagoak eta barkagaitzagoak ziren. **Anjel Lertxundi**

Bihotza taupaka hasi eta barrua dardaratu egin zitzaion Holofernesi, eta berarekin elkartzeko irrika **sutu** zitzaion. **Elizen arteko biblia**

Barne goritasunak hezurretaraino **sutzen** zituen gizakiak, garra labexkan bezala **sutzen** zitzairen urdailean. **Xabier Amuriza**

Nor hain bihozgabe, barne damuz ez hausteko, jainko-maitasunean ez **sutzeko**, borondate onez ez betetzeko? **Askoren artean**

Espiritu Santuaren garretan **suturik**, ahots erregutzailaz eta espirituzko melodiaz "Gure Aita" kantatzen ari ziren. **Askoren artean**

• 3 du *ad* su eman.

Herostratosek Efesoko tenplua **sutu** zuen gauean. **Juan Garzia**

Sarritan oinaztuak etxe sabaiak **sutzen** ditu eta gar bizkorrek etxe osoa menperatzen dute. **Xabier Amuriza**

Laborariak, eta bereziki enpresa handiek, errukirik gabe **sutu** dituzte basoak, nekazaritzarako prestatzeko. **Berria - Gaiak**

Gezi moduko mihi gorritzat batzuek jauzi egiten zuten handik ni nengoen lekurantz, lurra **sutu** nahi balute bezala. **Anjel Lertxundi**

Zeren eta ez al zituen Jainkoak, aita Bartolomek ere erran zidan bezala, bekatu haiengatik Sodoma eta Gomorra sutan **sutu**? **Joan Mari Irigoien**

Zigarro bat hartu zuen, **sutu** zuen, eta aspaldian sentitu gabeko plazerarekin erretzeari lotu zitzaion. **Patxi Zubizarreta**

Beste Ducados bat **sutu** eta ardoz bete zuen godaleta berriro. **Unai Iturriaga**

Txiskeroaz **sutu** zituen bien zigarretak. **Unai Iturriaga**

Ea, **sutu** bitzate kanoiak. **Juan Garzia**

Ezetz pentsatzen dudan bakoitzean, Euskal Herri osoa **sutu**, eta Leitzara aldegitoko gogoia ematen dit. **Patziku Perurena**

4 irud/hed

Liburu santuetako hitzek biziki **sutzen** zioten gogoia. **Askoren artean**

Kristo bedeinkatua agertu zitzaion; Jainko-maitasunez **sutu** zion arima eta esan zion: [...]. **Askoren artean**

Urrezko Mezkitaren bonbardaketa gorroto sektarioa **sutu** eta gerra zibila sortzeko estrategia zabalago baten azken fasea al da? **Berria - Mundua**

Aste osoan hura zen iteera bakarra, festa-gune bakarra, eta esan gabe doa, neska-mutilen artean harremanak pizteko, **sutzeko** eta indartzeko aukera paregabea **Pako Aristi**

• 5 da *ad* biziki haserretu.

Alarde mistoa Irungo Kale Nagusian sartzearrekin batera alarde tradizionalaren aldekoak **sutu** egin ziren. **Berria - Harian**

Barbarossa enperadorea **sutu** egiten zelako horrelakoak entzutean. **Pello Lizarralde**

-Ez duk egia! **sutu** egin zitzaidan, izugarrikeriena bigarrenez aditzean, eta ezpatari oratzeko keinua egin. **Edorta Jimenez**

Mikel, ez hadi orain txoferrarekin **sutu**, badaukak kezkatzeko arrazoi handiagorik! **Unai Iturriaga**

Sutu gabe hitz egin dizu, baina gorrotoa dario. **Rafa Egiguren**

Peoi jantzia jantzita eta erabat zikinduta zegoen, eta telebistan horrela aterako zela pentsatze hutsarekin **sutu** egin zen nagusia. **Berria - Euskal Herria**

• 6 du *ad* biziki haserrarazi.

Horrek, haserretu baino gehiago, **sutu** egin zuen Pekin. **Berria - Harian**

Erabakiak Irujo **sutu** zuen. **Berria - Kirola**

Horrela **sutu** zuen Jaunaren, bere arbasoen Jainkoaren, haserrea. **Elizen arteko biblia**

Jelosiak **sutu** egingo baitu senarra eta erruki gabe jokatu du mendeku hartzean. **Elizen arteko biblia**

Iritzi publikoa **sutzeko** soilik balioko dutelako. **Berria - Mundua**

Eta hala ere neskari gustatu, horrexek **sutzen** zuen Gabin, horrexek ematen zion min. **Iñaki Iñurrieta**

7 tiro egin.

Inguruko mendi baten tontorrean gudari-taldetxo bat zegoen, ispilu bidez eta morse-hizkuntzan nora **sutu** behar zuten kanoizaleei erakusten. **Inazio Mujika Iraola**

Pareko kasko hartatik, berriz, metrailadore handi batez **sutzen** zuten burkideek gainaldeko gudu-lerro osoa ordainetan. **Inazio Mujika Iraola**

8 (era burutua izenondo gisa)

Ilun zen ordurako han behean, pindarrezko tximeleta haren zigarro-mutur **sutua**. **Koldo Izagirre**

Azao **sutuek** itzal bizi bihurtzen dituzte inguruak. **Iñigo Aranbarri**

Estepan Urkiaga [...] abertzale gazteen lorerik loratuena olerkigintzan, surik **sutuena** mitinetan, idazlaririk trebeena izparringietan, faxisten eskuetan jausi da, preso. Haren masailaren loreak ene ezpain **sutua** zuen ukitu. **Edorta Jimenez**

Gizon batzuk bandera eskuan zetela zetozen, batzuek hitz **sutuak** esaten zituzten. **Matías Múgica**

Aitaren kontrako jardun **sutua** da bertso-sorta guztia, nekez imajina daitezke hain familia-giro bilduan halako salaketarik. **Anjel Lertxundi**

Bihotz **sutu** hark ez zuen bizitza gehiago desio; bihotzak mesede bat baino ez zuen eskatzen, betiko hoztu baino lehen: Peter manera txarrekin ikustea. **Julen Gabiria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

garretan suturik (3)

sututa zegoen (8)

sutualdi *iz* beroaldia.

"Amaren bezalaxoxe begiak izan ditik beti", pentsatu du, emaztearen **sutualdi** hura berriro gogora ekartzearekin batera. **Jokin Muñoz**

sutunpa 1 *iz* kanoia.

Ez da begi bistan edukitzen itsaspeko bat marea guztietan, ez duk **sutunpa** handirik behar, itsaspekoa ahula duk azalean, eta hura zegoen moduan, izardunak zubian, eskotilak zabal, lotua baino lotuago. **Koldo Izagirre**

2 (hitz elkartuetan)

Fortinbras gaztea, Poloniatik garaila itzulirik, Ingalaterrako enbaxadorei die eskaintzen gudu-**sutunpa** hori. **Juan Garzia**

3 tiroa.

Danbor eta turuta hotsa, kanoi-**sutunpa**. **Juan Garzia**

suturatu, suruta(tu), suturatzen du *ad* josi.

Ezin hobeto **suturatu** zuen kultura honek, batzuetan amesten eta beste batzuetan gorroto dituen pentsamendu eta poesiarekin, sortu duen arima bikoitza. **Xabier Amuriza**

suturpuntta ik **sudur** 18a.

sutxo *iz* su txikia.

Armada Txit Zorioneko haren tamaina, nik neuk, **sutxoan** ugaritasun hartan igarri gura izan nuen. **Edorta Jimenez**

sutzar *iz* su handia.

Sutzarrerako biltzen zituzten traste zaharrez gain, gerrikotan zen gizondu ez baina umea mutikotzeko bideetako bat. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Nekazari batzuek **sutzar** handia piztu zuten, bilera animatzeko besterik ez bazen, eta Buruzagiak debekatutako gauzetako bat zelako. **Agustin Otsoa**

Suzirien eta **sutzarren** garren dirdira lanbroek ahulduta agertzen zen han-hemenka. **Agustin Otsoa**

Ekainaren 23ko gauean, mendí tontorretan **sutzarrak** piztu ondoren, jende asko mainatzen omen zen Iturriozko uretan. **Txillardegi**

Giordano Bruno **sutzarrean** erretzera bidali berria zuen, hantxe, Erromako Piazza dei Fiori ezagunean, aita santuaren boterea eta Erromako Elizaren agintea zalantzan jartzen zituzten ideiak zabaldu zituelako. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Bost mende eta erdi lehenago, Pragako beste gizon batek **sutzarrean** amaitu zuen bere bizia. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Jeanne **sutzarrean** erre zutenean, Gillesen itxaropen eta goi-asmo guztiak bertan behera joan ziren, sugarren keak gora igo ziren gisan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

suzale *izond* suaren zalea dena.

Adiskideak Hervé ez zela batere **suzalea** azaldu zuen [...] ibiltzea eta jatea zinez maite zituela, gaiztakerietara lerratu gabe. **Itxaro Borda**

suzedaneoa *iz* produktoez mintzauz, ordezkoa.

Erroma klasikoan bezala, gutizia eta produktu exotiko ikaragarri garestiak (baita horien **suzedaneoa** on eta txarrak ere, patrika apalagoen eskura) ikusiko ditugu denda asko-askotan. **Edorta Agirre**

2 irud/hed

Literatura ez baita soziologiaren, politikaren edo historiaren **suzedaneoa** edo sendabelar bat. **Anjel Lertxundi**

Teknikaria misiolari zuriaren azken edizioa omen, industrializazioa arraza hilzoriko baten azken ebanjelioa, bizi-maila bizi-zentzuaren **suzedaneoa** besterik ez... **Joxe Austin Arrieta**

Gizakiak eternitate irrikatzen du, baina ezin lor dezake haren **suzedaneoa** bat baizik: estasiaren unea. **Karlos Linazasoro**

Montserratek hainbat **suzedaneorekin** bete zuen familiaren gabezia, gehiegikeria joz eta ezin konta ahal gizon ospetsuz inguratzen ahaleginduz, gehiegikeria hura gabezia estaltzeko ezinbesteko elementua balitz bezala. **Joan Mari Irigoien**

Ezker abertzaleak soilik [...] ez ditu onartu askatasunaren **suzedaneoa** gisa aurkeztu zen Espainiako Konstituzioaren kume Moncloako Estatutua, Nafarroako Foru Hobekuntza eta beren sirena-kantuak. **Berria - Euskal Herria**

suzesio *iz* saila, segida.

Egunak eta kantauk eta elkarrizketak, **suzesio** geldiago edo azkarragoan, etengabe zihoazen. **Harkaitz Cano**

2 ondorengotza.

Estatuburuaren **suzesio** arauen erreforma, gizon eta emakumeen arteko berdintasun printzipiora egokitzeko **Berria - Euskal Herria**

SUZI ik zuzi.

suziri *iz* barnean erretzen den bolboraren edo erregaiaren gasek bulkaturik higitzen den jaurtigaia. **ikkohete**.

Urte hauetan guztietan egon baita gizakia tematua lur honetako mugak apurtu eta inguruko bazterretan zer dagoen ikusi nahian, 1926an Boston inguruan, Robert Hutchincho fisikari estatubatuarrak bere lehen **suziria** bota zuenetik. **Pello Salaburu**

Beste **suziri** bat jaurti dute Cabo Cañaveraldik gosez hiltzen ari direnak lilura daitezen. **Joan Mari Irigoien**

2 (*jaietan-eta jaurtikitzen direnak*). **ik etxafuego; bolandera**.

Deabruz mozorrotutako animazio-talde bat patinetan irristaka eta **suziriak** botatzen. **Antton Olano**

Eguerdiko kanpai-hotsak entzun berri dituzte, eta **suziri** bat edo beste ere bai. **Jokin Muñoz**

Suziria ziztuka eta txinpartak botatzen hasi zen. **Iñaki Mendiguren**

Llume zirkunik ere egiten ez duenez, **suziria** hurreegi lehertzen zaio eta zauritu egiten du. **Antton Olano**

Bestaren hasteko, Uztailaren 24ean **suziria** edo koetea piztu dauku Arretxe pilotari zintzoak. **Herria**

Han daude gaur egun urtarrilaren 20an festa hasierako **suziria** botatzen den balkoiak. **Askoren artean**

Halako zorientasun-sentsazio bat txinpartaka hasi zen Ellenen baitan, gero eta gorago zihoala, **suziri** baten gisa. **Lopez de Arana**

Iratxoak ziztu bizian irten ziren **suziriak** bezala. **Iñaki Mendiguren**

Molotov koktelak eta **suziriak** jaurti zituzten kaputxadunek ertzainen kontra. **Berria - Euskal Herria**

3 (hitz elkartuetan)

Gutxienez 36 pertsona hil dira **suziri** biltegi batean izandako leherketan. · Soinu **suzirien** artean, distiraz, jo du Euskadiko Orkestra Sinfonikoak denboraldiko lehenengo kontzertuan **Berria - Mundua**

4 misila.

Al Kassam **suziriak** eskuz egiten dituzte bost kiloz lehegailuz osatuta daude eta hamar kilometrora ailegatzeko ahalmena dute. **Berria - Mundua**

Suziriak botatzeko jaurtilekuak suntsitzeko helburua ere bazuen atzoko operazioak. **Berria - Mundua**

5 zuzia.

Geletan, hala ere, sua edo **suziri** asko jarriko diren lekuak izanik, lisoak egin behar dira garbitzen errazagoak izan daitezen. **Santiago Iruretagoiena**

Suzirien eta sutzarren garren dirdira lanbroek ahulduta agertzen zen han-hemenka. **Agustin Otsoa**

Suzirien argi apala besterik ez zuen ikusten. **Agustin Otsoa**

Haize-bolada hotzak jo zuen gero, **suziriak** itzali zituen, eta aurrerantzean piztu ezinik ibili ziren. **Agustin Otsoa**

Zalantzen ataka horretan [...] eleberririk filosofiarren **suziria** hartu zuen: literaturak filosofiak ez bezala jaso zezakeen gizakiaren izaera ezbaitsua, Cervantesek Quijotea eta Sancho sortzerakoan erakutsi zigunez. **Anjel Lertxundi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

al kassam suziriak (6); **suziriak bota** (3); **suziriak botatzeari** (3); **suziriak botatzen** (6); **suziriak jaurti** (3)

swahili *iz* Kenyan, Tanzanian, Ugandan eta beste zenbait lurraldetan mintzatzen den hizkuntza, Niger-Kongo familiakoa.

Swahiliz hitz egiten dute, osaba Azizek arabiera nahiago badu ere.

[Pablo Sastre](#)

Inguruko hizkuntza handietara ez ezik urruneko hainbatetara itzuli dogu: hebraierara, **swahilira**, mundurukura, urdura, japoniera...

[Jon Arretxe](#)

2 *adkor* herri euskara itxia.

Normalean **swahiliz** hitz egiten zidan eta batzuetan -gutxitan-, euskaraz.

[Joxean Sagatzizabal](#)

Patatak, txorizoa eta hirurok atzetik ginduzkala, "garri" eta "urra" ulertzen nizkion bere **swahilian**.

[Joxean Sagatzizabal](#)

Baserriko sukaldean adiorik ez; ordurako, baita "iskuak" ere bazekien Ixabel eta biona, baina gauzak behar bezala egin behar direla-eta, Morganek egundoko hitzaldia bota zidan, **swahili** dotorean.

[Joxean Sagatzizabal](#)

• 3 *izond* swahiliz mintzatzen den herrikoa.

Loreak sortu ahala hiltzen eta xomorroak harripeatatik atera eta kiskaltzen ziren paraje hartan, noizbait basamortuko mutiko **swahiliak** ere izan zuen atera beharra...

[Pablo Sastre](#)

swing 1 *iz* jazz musikaren erritmoa, konpaseko indarraldien banaketa berezian datzana; errimo horrekin jotzen eta dantzatzen den musika.

Duela hirurogei urte bezalaxe dagoen garaje zahar batean **swing** apur bat entzun dugu gero.

[Harkaitz Cano](#)

Handik aurrera dena nahastu erritmo handiz eta Basileako musikariek **swing** handiz musikarekin gozatu zuten.

[Berria - Kultura](#)

Begiraiozue, ergelok, nire **swing** honi, Bilbo osoan garai batean ezaguna...

[Paddy Rekalde](#)

Hegalez hegala jesartzen ziren biak piano aurrean, eta erabiltzen zuten errepertorioa Mentxuren etxekotik oso besterakoa izaten zen: **swing**, charleston eta cha-cha-cha.

[Josu Landa](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Boogie eta **swing** erritmoa, Elton Johnek kontzertu osoko piano solo ederrenetakoa eskaini zuen. I Shim eta Shamen **swing** dantza ikuskizuna, Miarrizteko Koliseo salan, igande arratsaldeko bost orenetan.

[Berria - Kultura](#)

Bilboko laukoteak 30eko eta 40ko hamarkadetako **swing** doinuak berreskuratu ditu 'Bilbop' bere lehenengo disko luzean.

[Berria - Kultura](#)

Duke Robillardek blues, **swing** eta jazz doinuak ekarriko ditu Bilbora.

[Berria - Kultura](#)

Thiers karrika oinezkoen esku emana izanik, horko ostatu zainek osoki beretu dituzte karrika bazterrak, libre utziz bakarrik **swing** musika eskaini duten orkeztren eztradari.

[Herria](#)

Behin baino gehiagotan Ameriketara joan zitzaigun, Green broom berreskuratzeko edo txikitan ikasitako Bing Crosbyren kantu bat egiteko, **swing** estiloan.

[Berria -](#)

[Kultura](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

swing doinuak (3)